

# Eguno Euskararen Hiztegia

—M—

[bertsioa: 2024-01-09]

ma

1 jo eta ma

**Jo eta ma** geratu nintzen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Ahotsari so jarri dio Alexek izenburua eta Euskal Etxeko xahar guztiak **jo ta ma** geratu dira Bruceñ irudiekin eta Alexen musikatresnekin. [Harkaitz Cano](#)

macadam ik **makadam**.

**madagaskartar** *izlag/iz* Madagaskarkoa, Madagaskarri dagokiona; Madagaskarko herritarra.

Kukuma euskaldunak, Kilema **madagaskartarrak**, Sidy Samb senegaldarrak eta Nubeira galiziarrek. [Berria - Kultura](#)

Baina errekorra zortzi a-k osatzen dute, horretarako Afrikako lagun batengana jo behar badugu ere: **madagaskartarragana**. [Iñaki Arranz](#)

madalena ik **magdalena**.

madaleniense ik **magdaleniar**.

**madari** 1 *iz* udarea. ik **txermen**.

Fruta ekartzeko aginduko dut, bi **madari** eta bi sagar besterik ez. [Jose Morales](#)

**Madaria** jan zuen eta eskua luzatu zuen gazteak eskaintzen zion beste **madari** bat hartzeko. [Askoren artean](#)

**Madari** bat ebatsi nion frutontziari, eta zuritu gabe kosk egin. [Aingeru Epaltza](#)

**Madari** ihar baten antzeko atso zahar zimel batek. [Jose Morales](#)

Ba ote dira piano itxurako tumoreak edo ogi bat bezala luxeak edo **madari** ustela bezalakoak ukitu eta lehertzen direnak, hatzak egun osorako itsaskor utziz? [Harkaitz Cano](#)

Argizarizko **madari** ongi itxuraturiko bat sartu genuen benetako fruten artean. [Xabier Olarra](#)

Zerbitzariaren aurpegiak **madari** gorrixka bat zirudien, kaobazko apal eroso baten gainean ezarria. [Lopez de Arana](#)

Portugaleko erregeak ez dituela zertan nahastu **madariak** sagarrekin, gauza bat delako Jainkoari laguntzea eta beste gauza bat lur honetan zerbitzu horren truke, eta gainerakoen truke, ongi ordainduta izatea, [Jon Alonso](#)

2 (hitz elkartuetan)

**Madari** itxurako burua dauka: goitik zabal, biribila eta ilerik gabea; masailak eta kokotsa, berriz, estuagoak. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Horietan denetan mamia potxonak, **madari** formako ipurdiak eta titiak dira beti. [Aitor Arana](#)

**madarikarazi**, madarikaraz, madarikarazten dio *ad* madarikatzerara behartu.

Artxiboetan aukitu zizkidaten nire argazki guztiak argitara eman zituzten, eta horrekin unibertsitatean nengoela "Adonis" tankeran argazkia egin zidaten eguna **madarikarazi** zidaten, klubaren publiztaterako beso banatetik neska bat nuela atera baininduten. [Xabier Olarra](#)

Comba jaunak burua jiratu du, eta ikusi dituen aurpegiek **madarikarazi** dizkiote plaka gutxigaz eta presaka etorri izana. [Koldo Izagirre](#)

**madarikari** *izond* madarikatzailea. • (adizlagun gisa)

Anaia ahalketua sukalderatu zen, Jakesen lehen auzo xifritua itzaletik segika zekarrela, **madarikari**. [Itxaro Borda](#)

**madarikatu**, madarika, madarikatzen (*orobat maradikatu g.er.*) 1 du *ad* Jainkoaren gaitzespena edo haserrea norbaitentzat (edo zerbaitentzat) eskatu; Jainkoak betiko zorigaitza eman (norbaiti edo zerbaiti). ant **bedeinkatu**.

Eliseok, itzulirik, begiratu eta **madarikatu** egin zituen Jaunaren izenean. [Elizen arteko biblia](#)

Madarikatua, zu **madarikatzen** zaituena! bedeinkatua, zu bedeinkatzen zaituena! [Elizen arteko biblia](#)

Zeruko Jainkoa **madarikatzen** hasi ziren. [Elizen arteko biblia](#)

Jainkoa eta erregea **madarikatu** ditu Nabotek! [Elizen arteko biblia](#)

Aita nahiz ama **madarikatzen** duenak heriotza-zigorra izango du. [Elizen arteko biblia](#)

Emagaldutzat **madarikatu** zuten eta herritik betiko irteteko agindu zioten. [Gotzon Garate](#)

**Madarikatua** Jaunarentzat higuigarri eta artisauen eskulan hutsa den idoloa nahiz jainko-irudia egin eta ezkutuan gordetzen duena! [Elizen arteko biblia](#)

**Madarikatua** izan bedi egunez eta **madarikatua** gauez, **madarikatua** izan bedi oheratzerakoan eta **madarikatua** jaikitzerakoan, **madarikatua** izan bedi sartzerakoan eta **madarikatua** ateratzerakoan; **madarikatua** izan bedi lokartzerakoan eta **madarikatua** esnatzerakoan. [Felipe Juaristi](#)

**Madarikatua** haren arima! [Edorta Jimenez](#)

**Madarikatua** zu hil zaituen bihozgabea! [Askoren artean](#)

2 norbait edo zerbait, berari diogun gorrotoa edo ezinikusia adierazteko, gaitzetsi.

Zori etsaia **madarikatu** nuen une hartan zinerako dirua lapurtu izan balidate baino zakarrago. [Anjel Lertxundi](#)

Jaiki eta atera jodu nuen, desordoko tabernazalea hura **madarikatzen**. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Zaintzailea **madarikatu** eta hanka egin nuen. **Pello Lizarralde**  
Haxix trafikoa jazartzea leporatzen zion gobernuari eta **madarikatu** egiten zituen homosexualak begitan hartzen zituztenak. **Patxi Zubizarreta**  
Borreroarengana eraman zutelarik, Dunan jakintsuak milatan eta milatan **madarikatu** zuen bere patua eta ongina. **Patxi Zubizarreta**  
Oraindik ere **madarikatzen** dut informazio zerbitzuko teniente dendaren atzealdeko gelaxkara etorri zitzaidan eguna. **Javi Cillero**  
Mila aldiz **madarikatu** duzu zure baldarkeria. **Rafa Egiguren**  
**Madarikatu** zuen bere diru falta eta **madarikatu** zituen pagatu zituen erronda guztiak. **Irene Aldasoro**  
Isilik ez egon izana **madarikatu** nuen. **Anjel Lertxundi**  
Hasanek bere burua **madarikatu** zuen: "Ez nian mutikoaren atzetik etorri behar". **Patxi Zubizarreta**  
Neure burua **madarikatu** nuen, nire lagunek hain airos erabiltzen zuten telefono mugikor horietariko baten jabe ez izateagatik. **Aingeru Epaltza**  
Salmahai gainean eserita jada, **madarikatu** zuen bere ama, **madarikatu** zuen bere burua eta ezin konta ahala bider **madarikatu** zuen bizia, "putza balio zuen eta".  
**Juan Garzia**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Zorionez, ni ez nauk luzaro geratuko hiri **madarikatu** honetan. **Lopez de Arana**  
Paris **madarikatu** horrek iluntzen dizu begitartea. **Karlos Zabala**  
Zer eskubide dute kotxe **madarikatu** horiek halako zitzuan ibiltzeko, emakumeak eta haurrak harrapatzen? **Lopez de Arana**  
Zorigaitzoko kondena ilun batek kalesa **madarikatu** hartan ezin hilez bizirik ibiltzera behartu zituenetik. **Anjel Lertxundi**  
Hautsontzi **madarikatua** plater **madarikatu** bat zela, -Sator putaseme bat dagoela gure artean, kabroi **madarikatu** bat. **Koro Navarro**  
Boltxebike **madarikatu** batzuk dira, eskumikatu beharko lirateke. **Koldo Biguri**  
Neskak bere begi **madarikatu** eta ura bezain argi haiekin begiratu zidan. **Koldo Biguri**  
Dena galdu diat bederatziko **madarikatu** hau atera delako! **Jose Morales**  
Zoazte eta emaozue lur emakume **madarikatu** horri, errege-alaba denez gero. **Elizen arteko biblia**  
Abuztu **madarikatu** horretako igande **madarikatu** horretan. **Aingeru Epaltza**  
Ez al dakite gezur hutsa dela, gezur **madarikatu** galanta dela? **Mirentxu Larrañaga**  
**Madarikatu** hura otoiak hasi zitzaion Jaunari; baina Jauna ez zitzaion errukitu. **Elizen arteko biblia**  
Bota egin ninduten, **madarikatu** halakoek. **Alberto Ladron Arana**  
Doazela infernura, **madarikatu** arraio horiek! **Koldo Biguri**  
**-Madarikatua!** -hasi zitzaion erregina Badr-i. **Patxi Zubizarreta**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**atso** **madarikatu** (3); **bere burua** **madarikatu** (6); **eguna** **madarikatu** (4); **emakume** **madarikatu** (6); **etxe** **madarikatu** (7); **etxe** **madarikatu** hartan (3); **gera** **madarikatu** (9); **gera** **madarikatu** hau (3); **hiri** **madarikatu** (8); **madarikatu** bat (29); **madarikatu** batek (3); **madarikatu** baten (8); **madarikatu** horiek guztiak (4); **milatan** **madarikatu** (11); **milatan** **madarikatu** zuen (7); **neure burua** **madarikatu** (8); **paris** **madarikatu** (4); **patua** **madarikatu** (3); **traste** **madarikatu** (10); **traste** **madarikatu** hori (4); **urte** **madarikatu** (3); **zakur** **madarikatu** (3)

**gera** **madarikatua** (4); **hitz** **madarikatua** (3); **jainko** **madarikatua** (12)

**madarikatuak** halakoak (3); **madarikatuak** izan bitez (3)

**madarikatuta** dago (3)

**etsiak** **madarikatzeko** (3); **madarikatzeko** **hitz** (3)

**ama** **madarikatzen** (5); **ama** **madarikatzen** **duenak** (4); **eguna** **madarikatzen** (4); **goseak** **madarikatzen** (3); **jainkoa** **madarikatzen** (3); **madarikatzen** **duenak** **heriotza** (4)

## madarikatzaile *izond* madarikatzen duena.

Madarikatua? ez, ezer izatekotan poeta **madarikatzailea** izango nauk ni, hi bezala. **Xabier Montoya**  
Errukitzen bazen, agian, madarikatu **madarikatzailearekin**, edo besarkatu nahi bazuen bien arteko harremanaren errespetuz, bere galbidea izango zen ere. **Anton Garikano**

## madarikazio 1 *iz* Jainkoaren edo kideko baten gaitzespena norbaitentzat eskatzea; norbaitentzako gaitza eskatzeko hitz edo esaldia.

Baina Jaunak zuen Jainkoak ez zion aditu nahi izan Balaami, eta haren **madarikazioa** bedeinkazio bihurtu zuen, maite zaituztelako. **Elizen arteko biblia**  
**Madarikazioa**, baldin eta Jaunaren zeuen Jainkoaren aginduak onartzen ez badituzue eta, ezezagunak dituzuen jainko arrotzei jarraituz, gaur nik erakutsitako bidetik saihesten bazarete. **Elizen arteko biblia**  
Orduan, bedeinkazioaren lekuan **madarikazioa** erakarriko nuke neure gainera. **Jose Antonio Mujika**  
Error dadila **madarikazioa** zure eta zure jendearen gainean. **Agustin Otsoa**  
Ez al du heriotza merezi Ximeik, Jaunaren gantzutuari bota zion **madarikazioagatik**? **Elizen arteko biblia**  
Entzuten ez badidazue, eta niri ohore emateko ardurarik ez baduzue, **madarikazioa** bidaliko dizuet, zuek emandako bedeinkazioak ere **madarikazio** bihurtuko ditut. **Elizen arteko biblia**

## 2 Jainkoaren edo kideko baten zigortzat hartzen den hondamendia.

Kobazuloan edandako sagardoaren zapore zoragarria, berriz, ezin izan zuen ahantzi, eta geroztik, Mariren **madarikazio** bat balitz bezala, kupelaz kupela hasi zen haren parekorik aurkitu nahian. **Martin Anso**  
Haserre, umeari dohainaren orde **madarikazio** bat eskaini baitzion: "Goru bateko ardatz batez ziztatuko du behatza eta hiliik erroko da". **Iban Zaldúa**  
Zaldun batek zezakeela bakarrik **madarikazio** hori altxa herensugeari muturrean muxu emanez. **Aurelia Arkotxa**  
Elearrek **madarikazioaren** batengatik ez zaiela mandorik sortzen esaten dute. **Patziku Perurena**  
Eta drogen ondolik hiesa etorri zen, sarraskia ekarri zuen **madarikazioa**. **Juan Kruz Igerabide**  
Newfoundlandekoentzat arrantzako kuoten sistema **madarikazioa** baita. **Aurelia Arkotxa**

## 3 haserre bizia adierazteko hitz edo esaldi gordina edo arrunta.

Norbait **madarikazio** bat bota zuen etxeko korridorean. **Aitor Arana**  
**Madarikazio** bat ito nuen hortzartean. **Aingeru Epaltza**  
Pare bat **madarikazio** marmarka **esan** eta gero. **Anjel Lertxundi**  
Tabakoa betiere falta eta, berriz ere ahapeko **madarikazioetan**, lehiatu nintzen pertsiana goitizera. **Aingeru Epaltza**  
Hans su eta gar aritu zen bere giltza eta ziri bildumarekin, izerditan blai eta ahapeko **madarikazio** ulertezinak botaz. **Alberto Ladron Arana**  
**Madarikazioa** eztizera saiaturko zen noski. **Aingeru Epaltza**  
Orduan ere **madarikazioak** egotzen genituen De Gasperiren aurka egin behar genuen lana zela eta. **Pello Lizarralde**  
Hartara, ez genuen gehiago hitz egiten, arrazoia eman eta gero nire anaiari pare bat **madarikazio** opa eta lokartu egiten nintzen. **Pello Lizarralde**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orduan, **madarikazio** -hitzeko idatzi eta idazkia ur garratzetan garbituko du apaizak. Elizen arteko biblia  
Moab eta Madiango herri-arduradunak, **madarikazio** -zina ordaintzeko dirua harturik, Balaamengana joan ziren eta Balaken mezua adierazi zioten. Elizen arteko biblia  
Ibai bazterrean erre nituen **madarikazio** imintzioak egiten nizkielarik. Pello Lizarralde  
Haren esanak, galegozko eta euskarazko enpatxuan jaurtiriko **madarikazio** andana, zubira behartu zuen kapitaina. Koldo Izagirre  
Bien bitartean, guk, izerdi patsetan, **madarikazio** mordoia erabiltzen genuen. Jesus Mari Mendizabal  
**Madarikazio** tankera zeukaten Alkimistaren hitzek. Xabier Aranburu  
Zerbait esan zidan, neska turkiarrak **madarikazio** moduko bat zuela edo. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**isekagai eta madarikazio** (3); **madarikazio zina** (3)

**araraten madarikazioa** (3); **bedeinkazioa eta madarikazioa** (4); **madarikazioa bota** (3); **madarikazioa dakarren ur** (3); **madarikazioa egin** (3)

**madarikazioak bota** (4)

## madarikazioka *adlag* madarikazioak esaka.

Itzulipurdika ibili dira, jirabiran, elkarrukabilka eta **madarikazioka**. Mirentxu Larrañaga  
Ahulegi zegoen **madarikazioka** hasteko. Lopez de Arana  
Hortzak estuturik, gizona **madarikazioka** eta biraoka erresumindu zitzaion. Patxi Zubizarreta  
Norbaitek gatza bota zion haren teari, azukrearen ordez, eta **madarikazioka** esan omen zuen nahita izan zela. Mirentxu Larrañaga  
Trantzean jartzen zuan, zirimolaka mugitzen zitian begiak, hoska eta **madarikazioka**. Juan Garzia  
Eszeptikoek eta gizakiaren izaeraren gainean beti **madarikazioka** aritzen direnek. Jon Alonso

## madariondo *iz* udareondoa.

Andresek baratzea, **madariondoak**, albertxiko-arbolak eta granadondoak hostoz eta lorez beteta ikusi zituen. Josu Zabaleta  
Nik hemen aurkitu dut, **madariondoaren** azpian. Itziar Otegi  
Han beheraxeago, **madariondo** zaharraren azpian, mediku andrea ikusten nuen Felipe Juaristi

## mediandar *izlag/iz* Bibliako Madiangoa, Madiani dagokiona; Madiani dgaokiona.

Hartan, emakume **mediandar** bat berekin zekarrela etorri zen israeldar bat senideen artera. Elizen arteko biblia  
Bi buruzagi **mediandar** atzeman zituzten: Oreb eta Zeeb. Elizen arteko biblia  
Gerra egin zioten, bada, Madiani, Jaunak Moisesi agindu bezala, eta **mediandar** gizonezko guztiak hil zituzten. Elizen arteko biblia  
Egiptora iritsi ondoren, **mediandarrek** faraoiaren funtzionario eta guardaburu zen Potifarri saldu zioten Jose. Elizen arteko biblia  
**Madiandarren** kanpalekua israeldarrena baino beherago zegoen, lautadan. Elizen arteko biblia  
**Madiandarren** errege Zebah eta Tzalmunaren atzetik gabilta. Elizen arteko biblia  
Zoaz eta salba ezazu Israel zeure indarraz **madiandarren** menpetik. Elizen arteko biblia

## madrasa *(orobat madrassa)* iz goi ikasketetako eskola musulmana.

Musulman xiita eta suniten arteko adiskidantzaren lekuko bezala eraikiarazitako Sindh **Madrassa** eskolan atentatu bat gertatzeak agerian utzi du bi musulman komunitateen arteko gatazka odoltsua ez dela oraindik amaitzeko bidean. Berria - Mundua  
Bere aita, Erzurumgo **madrasan** ikasi eta gero Istanbulera joan zela, han jauregian lan egin zuela, eta sultanari fideltasuna aginduta pasha bihurtuta itzuli zela. Fernando Rey

## madre *iz (mugagabea)* ama.

-Utzi **madre** bakean, oso nekatuta dago eta. Josu Zabaleta  
Egun gutxitan itxi zuten padrek eta **madrek** etxea saltzeko tratua. Askoren artean  
Lau egunetara edo, **madrek** dena prest zuen Vascongadetara joateko, dena, bihotza izan ezik. Aitor Arana  
-Baina, nola jango ditugu guk txori horiek guztiak - **madrek**. Joan Mari Irigoien  
Arreba zaharrena **madreri** soineko grisa, ezkondu zenekoa, atontzen ari zitzaion. Patziku Perurena

### 2 *adkor* kontu handi eta nahasia.

Puta batek asko erakuts lezake bere gau-eskolan, edo zezakeen bederen, sexologia deritzan **madrea** azaldu baino lehen. Iñaki Segurola

### 3 *putetxeko madre* ik *putetxe* 3.

## madrigal *iz* zenbait ahotsetarako musika lana, amodiozkoa eta gehienetan arina.

Biek ala biek ikusi zuten José Tudela jotzen, Requiema ez, goiza zenez **madrigal** bat, egunsenti kanta alai bat baizik. Felipe Juaristi  
Villona, errespetu handiz, **madrigal** ingelesaren edertasunak azaltzen hasi zitzaion ingeles amultsuki harrituari, instrumentu zaharren galera deitoratzen zuela. Irene Aldasoro  
Tabernako nesek eskutik eskura eman zion dena arrain saltzaile ederrari, tabernariaren **madrigal** bat arnasa batean errezitatzen ziola: [...]. Karlos Zabala

## madrildar *izlag/iz* Madrilgoa, Madrili dagokiona; Madrileko biztanlea.

Juan del Olmo **madrildar** jujeak. Herria  
Gizarte-maila oneko **madrildar** señorito baten ideiak eta bizimodua. Josu Zabaleta  
Aurreko balkoian ikusi nuen Condomeko neska, guatekeak antolatzen zituen **madrildar** udatiar baten besotan barrez. Ramon Saizarbitoria  
Jakin-mina piztu zuen ingeniari **madrildarraren** bisitak. Berria - Gaiak  
Gamesa enpresa arabarrak Enertron enpresa **madrildarraren** akzioen %100 erosi du. Berria - Ekonomia  
Udatiarrak hasiak omen dira nondinahi agertzen, oraingoz **madrildarrak** gehiago paristarrak baino, Hugori sinestekotan. Koldo Izagirre  
Ostatu xoko batean bazkaltzen naiz bakarrik, baina katedrale izkina goiti nindoala kurutzatu bi **Madrildarrek** gomitaturik kafe on bat hartzen dut. Piarres Aintziart

Zuri-gorriek estu hartu zituzten **madrildarrak** ; presio handia eragin zuten Casillas arean, eta berriz ezker hegaletik sartu ziren arrisku handiz, eritimo biziarekin. Berria - Kirola

Tau **madrildarren** joko oldarkorrari aurre egiten saiatuko da. Berria - Kirola

## madrileñismo iz madrildarra denaren nolakotasuna.

Beste gau batzuetan Chamberí-ko zinema aretoetan sartzen ziren, eta Andresek jostakor entzuten zituen Luluren komentarioak; bazuen, izan ere, Madrildo grazia xalo eta erne hori, **madrileñismoan** espezialista direnen gisagabekeria ergel eta fazatiekin zerikusirik batere ez duena. Josu Zabaleta

## mafia 1 iz gaizkileen isileko erakundea, zilegi ez diren bidez jarduera arlo jakin baten kontrola bereganatu duena.

**Mafiak**, hilketak, droga, prostituzioa, polizia ustelak, bortxaz edo azpijokoz egindako salerosketak, bahiketak... Gotzon Garate

Haiena ez da **mafia** : guk gutxienez legeak dauzkagu, errusiarek ez ordea. Harkaitz Cano

Bortxakeria zabaltzea edo drogaren **mafia** gero eta gehiago indartzea.Trafikatzaileen **mafien** inguruko ikerketak egiteagatik hil zituzten kazetariok. Koro Navarro

Onartezina da instituzio bat **mafia** baten esku egotea. Berria - Euskal Herria

Siziliako **mafia**ko buruzagi nagusia Corleone herrian atxilotu dute. Berria - Mundua

Langraizen «kartzelarien **mafia**» daudela ohartarazi du Salhaketak. Berria - Euskal Herria

**Mafiak** habia egina zuen sistemaren gune boteretsu guztietan. Anjel Lertxundi

Film industria Indiako **mafia**ri oso lotua dago. Gotzon Garate

New Yorkeko **mafia** polizien onginahia irabazi nahi zuen. Gotzon Garate

Horrezkero **mafia**ren sareetako funtsezko korapilo bilakatu zen Habana. Edorta Jimenez

**Mafia**ko Ganbino familiako hiru buruzagirekin amodiotan ibilia zen Kimberly Kennaugh. Gotzon Garate

Hau baitzen azken aldian **mafia**ren buru nagusia. Gotzon Garate

1947ko urtarrilean **Mafia**ren ugazaba nagusi Lucky Luciano Habanara jo zuen. Edorta Jimenez

**Mafiek** pobrezia gogorren jotako herrietara jotzen dute eskulan merkearen bila. Berria - Gaiak

Ekonomiaren pribatizazioak bultzatuta, **mafia** eta interes talde boteretsuak sortu dira Txinan. Berria - Gaiak

Funeraria Bilbainako arduradunen «**mafia**ren pareko jarrera» salatu zuen. Berria - Euskal Herria

## 2 (izenondoekin edo izenlagunekin)

Nekez sinetsaraz diezagukete kaleko saltzaileak **mafia** handi bateko kide direla. Berria - Euskal Herria

**Mafia** urbanistikoen babesarekin. Berria - Euskal Herria

Miamiko **mafia** antiastristak. Berria - Kultura

Industria farmazeutikoa eta **mafia** kimikoak. Anjel Lertxundi

**Mafia** hutsa dira. Karlos Linazasoro

Iragan astean 30 hildako inguru eragin dituzten istiluen jatorria **mafia** albaniarra izatea litekeena dela. Berria - Mundua

Hilketa errusiar **mafia** antolatua izango ote zen pentsatu zuten. Gotzon Garate

## 3 mafia iz mafia kidea. ik mafiakide.

Autoan zoaz eta batbatean, **mafia**koek hiru auto jarri dituzte bidean trabes zure aurrean, zu tiroka hiltzeko agindua dutelako. Joseba Sarrionandia

Ez zitzairen **mafia**koek gustatu ezkontza hori. Gotzon Garate

Indian **mafia**koek, ankerrak izateaz gainera, gizar-teko legerik gogorrenei eusten diete. Gotzon Garate

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik mafioso 2.

Aurrekoei diru kontuetan, kontu ilunetan, **mafia** giroan sartuta zeudela igartzen zitzairen, baina honek itxura zakarragoa zeukan: sabel gantzatua ozta-ozta estaltzen zuen neurri txikiko jaka, gorbata lar ikusgarria, oinen formak deformatua zituen zapata distiragabeak, arropa merkea. Sonia Gonzalez

Baita **mafia** istorioak eta lapurretak ere. Berria - Kultura

Diruketa horrek Txinako **mafia** erakundeen gosea piztu zuen. Ramuntxo Etxeberri

Hipotesi gehienak Errusiako zein Kubako komunisten edo **mafia** sareen ardatzetan biribilkatzen ziren. Itxaro Borda

Bazen, ordea, **mafia** familia ezagun bat, Patham familia, Ibrahimen igoera gogo onez ikusten ez zuena. Gotzon Garate

**Mafia** taldeen arteko konkurrentzia ote? Ramuntxo Etxeberri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**txinako mafia** (4)

**mafia**rekin **lotuta** (3)

**mafia**ren **kontrako** (3)

## mafia buru (orobat mafia-buru) iz mafia ren burua.

**Mafia**buruak diru itzuli ezean hil egingo dituela mehatxu egingo die. Berria - Kultura

Klasean atzeko aldeko tokiak hartu eta eskolako **mafia** -buruen bideak saihestu egiten nituen. Jesus Mari Mendizabal

Edo bera baino indartsuago den **mafia** -bururen bat ez bada sortzen. Gotzon Garate

## mafia karia iz mafia ren jarduera gaitzesgarria.

Ondikozko egoera horrek ugaldtu egin du lapurreta, prostituzioa, borrokak eta **mafia**karia. Gotzon Garate

## mafia kide iz mafia ko kidea. ik mafia 3; mafioso.

**Mafia**kide damutu batzuen deklarazioetatik eta argazki hartatik ordenagailuz eginiko moldaketa batetik halako irudi bat lortu zuen Poliziak, haren bilaketa zorrozteko. Berria - Mundua

Nino Giuffrè **mafia**kide damutuaren esanetan oinarritu da Dell'Utriren kontrako akusazioa. Berria - Mundua

Lumetek *Find Me Guilty* aurkeztuko du, Jack DiNorscio **mafia**kidearen benetako istorioa. Berria - Kultura

## mafia tar iz mafia koa, mafioso a.

Asaldatuak dira kontrakoak, ez dela batere zuzena lege hori eta fagora dezazkela ere **mafia**tarrak. Herria

## mafioso 1 iz mafiako kidea. ik mafia 3.

Bera ez baitzen heroia, ez baitzen pistola ezkutaturik dabilen pelikuletako detektibea; are gutxiago, nobela eta filmetako **mafioso** edota hiltzaile bat. **Joxemari Iturraide**

**Mafiosoek** ere beren bidea egin behar! New Orleansko **mafioso** zuri baten andre are zuriagoa. **Bernardo Atxaga**

**Mafioso** itxura du ordea pisua alokatzen duenak. **Harkaitz Cano**

## • 2 izond mafiakoa, mafiari dagokiona. ik mafia 4.

**Mafioso** hitza Palermoko dialektotik dator eta jatorrizko esanahian ederra eta konfiantza handikoa esan nahi zuen. **Berria - Mundua**

Berlusconi eta botere politiko **mafiosoari** onespina ematen diotenak. **Berria - Kultura**

Ekintza terrorista eta **mafiosoa**, enpresa, langile eta familien kontrakoa. **Herria**

Enpresaburuei «halako atentatu **mafioso** eta larderiazkoaren aurrean» elkartasuna agertu zien. **Berria - Euskal Herria**

Praktika **mafioso** eta anker hau jasaten duten biktima guztiak. **Berria - Euskal Herria**

Estortsio **mafioso** horien aurrean isilik gera ez daitezen. **Berria - Euskal Herria**

Italian dagoen erakunde **mafiosorik** arrisksuena ez dela Cosa Nostra. **Berria - Mundua**

Pirateria sare **mafiosoen** aurkako polizia operazio gisa. **Berria - Euskal Herria**

Taldeko izarrak onenak emanda daudela, entrenatzaileek ez dutela batere agintzen eta txorimaloz janzen direla, presidentea **mafioso** hutsa dela... **Berria - Kirola**

## mafrundi 1 iz hotzeria. ik marranta.

Bi astetan gaixo antzean egon nintzen, etxetik atera gabe, **mafrundi** handi batekin eta kalentura pixka batekin. **Joan Mari Irigoien**

Ez zirudien, ez, **mafrundia** edo sudur-jarioa harrapatzeko beldur zirenik. **Joan Mari Irigoien**

**Mafrundia** harrapatu nahi duzu ala...? **Joan Mari Irigoien**

## 2 (adizlagun gisa)

Artean argiki lo eskasez eta **mafrundi** nengoen. **Itxaro Borda**

## mafrunditu, mafrundi, mafrunditzen 1 da ad mafrundia harrapatu.

Zoaz janztera **mafrunditu** aurretik. **Bego Montorio**

Buruan haizea hartu, **mafrunditu** edo are kontu larriago baterako arriskua hartuta. **Bego Montorio**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Abots **mafrunditu** batez, Mikel agurtu zuen. **Ramuntxo Etxeberri**

· *izud/hed* Gitarra **mafrunditu** batek atezuan jarri ninduen. **Aingeru Epaltza**

## magal 1 iz altzoa.

Bere **magalaren** kontra estuturik nindukan amak. **Xabier Montoia**

Minutu bat geroago, David aulki hartan eserita zegoen, **magalean** soinua. **Bernardo Atxaga**

Bere poltsa beltz zimurra **magalean** estutuz. **Joxean Agirre**

Hantxe geunden bazkaria **magalean** genuela. **Koro Navarro**

Ustekabeak ikaraturik, **magaletik** behera erori zitzaion liburua. **Anjel Lertxundi**

Ama baten bihotza eman zidatela, baina emakume ziztrin baten **magala**. **Juan Garzia**

Lihozko txaketa **magalean** tolestua zeukan, eta bi eskuak haren gainean. **Bernardo Atxaga**

**Magalean** bildu zituen eskuak eta zerura so jarri zen. **Aritz Gorrotxategi**

Zer gertatu ote zitzaion larru horren gozo, horren lurrintsu hari, **magal** xamur hari, beso maitagarri haiei? **Joxan Elozegi**

Lurra bezalakoa baitzen enetzat amaren **magala**. **Joan Mari Irigoien**

Emamina: nola esan bestela ametseko emakumeak sorrarazi dion sentimenduari: amets bakan batzuetan, oso noizbehinka, sentitzen duzun betetasuna, **magal** epel-gozo-leun batetik partitu nahi eza. **Iñaki Iñurrieta**

· Kateme baten **magalari** gozo-gozo bilduak zeuden bospasei katakume jaio berri. **Josetxo Azkona**

## 2 irud/hed

Eskura zeukan Norak, guztiz eskura, ilargi onkotea, ahurraren **magalean** kabitzen zitzaizkion hiru gabiraik. **Anjel Lertxundi**

Emakumea ohearen **magal** epelera itzuliko da gero, gizonak han utzi dituen azken aztarnen bila, eta gizona gauaren altzo hotzean galduko da, soinean emakumearen lurrina daramala. **Joxean Agirre**

Baziren lau ordu etxeko guztiak loaren altzoan zeudela, eta, azkenean, loak bere **magalera** bildu zuen Txitxikov ere. **Jose Morales**

Gu baino okerrago zeuden nika gaixoak, haiek ez baitzuten hegazkina hartu eta mendebaldera joaterik, sozialismoaren porrotaz nazkatuturik zeudela esan eta kapitalismoaren **magal** goxora itzultzetik. *Artificial Intelligence*, *Minority report* eta, neurri batean, *The war of the worlds* filmek argi erakusten zuten zinomagilea ez zegoela arrakastaren **magal** gozoan lokartzeko prest. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Arrazoimenak darama zuzenbide zibila Ancient Régime-ren **magaletik** iraultzaren altzoraino. **Andres Urrutia**

## 3 mantala edo kidekoak gorantz tolestean gertatzen den boltsa modukoa.

Nire **kapak** magala zabala du, biok tapa gintezke- egin dut gonbita lehendabiziko atean. **Anjel Lertxundi**

· **Magala** egiten zitzaien belei haizearen eraginez. **Anjel Lertxundi**

## 4 babesa.

Udaltzaina izaten zen bertoko gizonezko bakarra, eta gehienetan kaleko atearen **magalean** egoten zen kanpora begira. **Josu Landa**

Farola **baten** magaletik inguruko etxe-aurrealde guztien goiko parteak leihoz leiho ikuskatzen zituen. **Josu Landa**

## 5 mendiez mintzatuz, goialdearen eta behealdearen bitartea.

Herritik hiru kilometroa dago, horko mendi horren **magalean**. **Bernardo Atxaga**

Hondarribiko Golfetik, Bidasoa suge bihurriari segika, mendi garaienen **magalak** topatu arte. **Hasier Etxeberria**

Andeen **magaleko** ibar galduren batean. **Joseba Sarrionandia**

Sumendi baten **magalari** helduta eta kezkatuta bititzea bezala da. **Jon Alonso**

Muinoaren **magalari** so. **Aritz Gorrotxategi**

Ibili eta ibili, mendiaren iparraldera iritsi ziren, apur bat mendebaldera; hango **magal** gris eta luzeak, hautsita egon arren, ez ziren aldapatsuegiak. **Agustin Otsoa**

Iratiko ibaiertza, basoz eta harriz betetako **magalek** inguratuta. **Eduarne Elizondo**

Padurarantz jaisten den **magaleko** olibondoak. Jon Alonso

Lurrikarek **magal** horren segurtasunari eragiten diote. Berria - Euskal Herria

**Magalez magal** ibili zen ero txiki hark, metraileten ahora begiratze hutsarekin gauza asko ikasi zituela, batik-bat isilik egoten. Berria - Kultura

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Muino **magaleko** etxeak. Joseba Sarrionandia

Norbaiten lorategian eseri eta harunzko txilardegraino heltzen den muino **magal** purpura bati begira egotea. Anton Garikano

- Eskailera **magaletik** irribarre egin zion, edozertara ere, begirada goraturik. Josu Landa

## 7 mendi magal

Behe aldera, mendi **magalaren** erdian, Katedrala dago, eta hortik aurrera etxeetako teilatuak, mailakatuak. Jon Alonso

**Mendi** magaleko pitzadura zabaletatik lerratu zen. Anton Garikano

Ezin zuen antzeman, mendi **magal** hartan, zein zen beren etxea. Anton Garikano

Mendi **magal** ezberdinetako urak eihera batean biltzen diren bezala. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mendi magal** (4)

**ezkerreko magalak** (4); **mendi magalak** (3)

**ezkerreko magalaren** (3); **mendi magalaren** (4)

**amaren magalean** (4); **bi eskuak magalean** (4); **eskuak magalean** (10); **ezkerreko magalean** (5); **hegoaldeko magalean** (3); **jaizkibelgo magalean** (3); **magalean bildu** (3); **magalean hartu** (8); **magalean jarri** (13); **magalean jarri zuen** (3); **magalean utzi** (3); **magalean zuela** (4); **mendi baten magalean** (6); **mendi magalean** (8); **mendiaren magalean** (13); **mendiaren magalean dagoen** (3); **mendien magalean** (3)

**mendi magaleko** (6)

**mendi magalen** (3)

**magalera iritsi** (3); **mendi magalera** (3)

**mendi magaletako** (4)

**mendi magaletan** (4)

**mendi magaletik** (3)

## magasin *(orobat magazin g.er.)* 1 iz ipar saltegia.

Metroko Marie-Curie ahoan sar eta Rivoli karrikako HM **magasinetara** erraz helduko gara. Itxaro Borda

Rivoli karrikako **magasin** panpox batean aratxe larruzko zapata zuri-beltzak erosi zituen. Itxaro Borda

Wellington karrikan, 4422an Rage Underground **magasinaren** aitzinean. Aurelia Arkotxa

Zapata pare simple baten aukeratzan izugarriko denbora hartzen eta **magazineko** emazte adindua bortxatzen zuelako lurretik lau metroan zeuden ataletaraino igotzera.

Itxaro Borda

Erran behar da orain arte goizeko 6 orenetarik eta aratseko 8ak arte zirela bakarrik idekiak **magasinak**, eta larunbatetan halaber. Herria

## 2 ipar biltegia.

Lerro-lerro hona orain, non garen soinekoen **magasinan** ... memen galtzak, urrunago atorra... eta hola emaiten dizkigute gure puskak. Marzel Etxehandi

## magasineria iz magasin multzoa.

Ortizirale 25ean behiak, tresneria bi egunen gainean, **magasineria** eta horien guzien erdian jendea usaia duena eta beste aunitz ere. Herria

## magazin 1 iz albiste aldizkari argazkiduna.

1907. urteko urtarrilaren 6an, New Yorkeko *World* egunkariak Minik inuitaren eskaera-garrasiaren oihartzuna jaso zuen bere **magazinean**: "Emadazue nire aitaren gorputza!".

Pablo Sastre

Erien Asurantz Kutxak plazaratzen duen 15-24 urteko gazteendako **magazina** *X-tension* deitzen da. Herria

## 2 irratsaio edo telebista emakizuna, aldizkari itxurakoa.

Irratiko **magazin** batetik egunkariko politika sailera pasa nintzen eta aldaketa, bene-benetan, gogorra izan zen, gogorregia. Jasone Osoro

Programa hura ez zen ohiko *Hitzetik Hortzera*, zuzendaritzak hartara behartuta hilean behin egin behar izan nuen **magazin** moduko bat baizik. Joxerra Garzia

09:00etatik 10:0 arte, berriz, **magazina**, informazioarekin, elkarrizketekin... Berria - Euskal Herria

Hiru programa guziz berriak eskaintzen ditugu: goizeko 7.30etatik eta 9.00ak artean aktualitatea lantzen duen **magazina** bat pikoan eman dugu, *Goiz berri* izenarekin, Iñaki Etxeleku koordinatzaile. Herria

Goiza betetzeko **magazine** horietako bat. Iñaki Iñurrieta

"El Madrugador", Radio Euskadiko **magazinean** abiatzen nintzen, bada. Pello Zabala

## 3 (hitz elkartuetan)

Informazio sailez gain, 40 laguntzaile izanen dira eta **magazin** moldeko emankizunak ere egonen dira. Berria - Euskal Herria

## magdalena *(orobat madalena)* 1 iz bizkotxo oreaz eginiko opil gozo biribila.

Gero, gosari legean, kafesnea prestatu zuen, eta jateko, **magdalena** batzuk geratzen zitzaizkion. Joxemari Iturralde

Kafea egiten ari zen bitartean **madalena** lehor batzuk aurkitu zituen armairuan. Unai Iturriaga

Kafesnetan bustita jaten genituen **madalena**. Jokin Urain

Esnetan bustitako **madalena** pusketa eztarrian trabatu zitzaidan. Jasone Osoro

**Madalena** bat besteaeren ostetik irensten zuen Txokolate beltz zati bat eskaintzen zidanean, oroitzapen samurrak ekartzen baitzizkidan gogora, Prousti **magdalenaren** dastak ekartzen zizkion oihartzunen antzera. Zer da, ordea, "proustianoa"? norbaiti **magdalena** baten usainak gaztetako hondartzako kutixi-txosna bat gogora ekartzea noski. Unai Iturriaga

## 2 (hitz elkartuetan)

**Madalena** poltsa itxi nuen. Jasone Osoro

## magdalenazale izond magdalenen zalea dena.

Denbora galduaren bila ote nabil, beste harako **magdalenazale** haren antzera? Juan Kruz Igerabide

# magdaleniar *izlag/iz* Madeleine aldikoa; Madeleine aldia. Goi Paleolitoaren amaiera aldiari dagokiona. ik **magdaleniar**.

Geroago, ondoko baserri batean zerbitzatu zieten babarrun plater oparo baten aurrean, apaizak [...] azaldu zien **Magdaleniar** kulturaren arrastoak aurkitu nahian zebilela Jentil-sulon. **Iban Zaldúa**

## magdaleniese *(corpusean magdaleniese soilik) izlag/iz* Madeleine aldikoa; Madeleine aldia.

Zaldi buruko haizta **madaleniese** garaian zizelkatua ikusiko ditu bisitariak. **Berria - Kultura**

Garai **madalenieseko** gizakiak. **Berria - Kultura**

## magenta 1 *izond* koloreez mintzatuz, arrosa iluna.

Urrutian, lore-esparruak ageri dira, kolorezko multzo trinkoak **magentak**, gorrixkak, urdin errauts antzekoak. **Oskar Arana**

Gelako sabaia erdi-erdian lanpa parpailadun **magenta** bat zegoen zintzilik. **Iñaki Segurola**

### 2 (hitz elkartuetan)

-Eta ez dabe asmatu sorginkeriarik gure Hermionek be egin ezin dauenik -esan zuen Hagridek harro, Hermioneren aurpegiak **magenta** -itzal distiratsu bat hartu zuelarik.

**Iñaki Mendiguren**

## magia *(orobat majia g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian magia agertzen da)* 1 *iz* azti lana, isileko edo ezkutuko bidez gertakari itxuraz miragarriak sortzeko antzea; antze horri dagokion jakintza.

Hagridek ez zuen **magia** egiteko baimenik. **Iñaki Mendiguren**

Ez dugu **magiarik** egiten. **Andoni Egaña**

Hamaika aldiz egon zen Harry **magia** erabiliz Hedwigen kaiola irekitzeko zorian. **Iñaki Mendiguren**

**Magia** ikasten zuela gauetz. **Iñaki Mendiguren**

-Hortaz, honezkero **magia** asko jakingo duzu zuk. **Iñaki Mendiguren**

Hitzen **magia** liluragarria. **Iñaki Arranz**

Liburu haiek Alde Iluneko **Magia** ahaltsuaren sekretuak gordetzen zituzten. **Iñaki Mendiguren**

Azti batek **magia** beltza ez erabiltzeak ez du esan nahi ezin duenik erabili. **Iñaki Mendiguren**

Goi-**mailako** magia beltza behar da honetarako... **Iñaki Mendiguren**

Iragarkizunak eta **magia** zuria. **Aingeru Epaltza**

Iraganaren presentziak hiri batzuei ematen dien **magia**. **Ramon Saizarbitoria**

**Magia** moduko batek dena bideratuko balu bezala. **Fernando Morillo**

Igarpena da **magiaren** adarrik zehaztugabeena. **Iñaki Mendiguren**

Astrologiaren, iragarpenen eta **magiaren** lurralde zingiratsuetara. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Hara iristean, armairuko atea kolpean zabaldu zen **magiaz**. **Iñaki Mendiguren**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **magiko**.

**Magia** -kutsu bat izaten du beti, haietan, biziak. **Juan Garzia**

Eskatzen dizugu gogoratzeko **magia** -ekintzak. **Iñaki Mendiguren**

Kopistaren **magia** joko harrigarri batez. **Juan Garzia**

Bat-bateko bertsoak badu **magia** itxurarik baina ez da **magia**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

**Magia** bidez elkar desarmatzen jardun zuten. **Iñaki Mendiguren**

Hasiberrientzako / **magia** -ikastaroa postaz. **Iñaki Mendiguren**

Makur konprenitu ez banion, **magia** istorio zirtzilen bat. **Aingeru Epaltza**

«**Magia** ukitu bat zabalzen» saiatzen da. **Berria - Kultura**

**Magia** Legea Betearazteko Patrulako hogei kidek eraman zuten Black, eta Pettigrewi Merlingo Ordena, lehen klasekoa, eman zitzaion. **Iñaki Mendiguren**

### 3 **magiazko izlag** ik **magiko**.

Harpa berriarekin edota **magiazko** trikimailuekin. **Joanes Urkixo**

Benetako **magiazko** enkantamendu batzuk. **Joanes Urkixo**

Mundua **magiazko** karpa bat da. **Xabier Paya**

Eroentzat ezinik ez dago, sinetsi ezinezkoa desagertu da, **magiazko** gauzak ohiko dira eta naturaz goitikoak etxeko. **Josu Zabaleta**

Ezin dut, beraz, esan **magiazko** indarrez erakarrirako aingeru gaiztoak izan direla sugeen eta igelen sortzaileak. **Imanol Unzuurrungaga**

Nire gela ke eta erretxina usain **magiazko** hartaz hanpatzen zenean. **Josu Zabaleta**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**magia beltza** (11); **magia beltzez** (3); **magia bidez** (3); **magia egiten** (4); **magia zuria** (5)

**magiako ministerioa** (5); **magiako ministerioak** (7); **magiako ministerioan** (9); **magiako ministerioko** (5); **magiako ministroa** (8); **magiako ministroak** (3)

**magiaren historia** (8); **magiaren historiako** (4)

**magiarik egin** (5); **magiarik egiten** (4); **magiarik gabe** (3)

**magiaz bezala** (6)

## magiadun *izond* magia duena.

Komunitate **magiadunari** lasai egoteko eskatzen diogu. **Iñaki Mendiguren**

## magiagile *iz* magia egiten duen artista. ik **magialari**.

Mila eta bat gaueetako **magiagile** haietako bat, gizonak amildegi ezezagunetan barrena eramateko ardura duten izakari arriskugarri, gaizto haietakoren bat, iruditzen zitzaidan ari nintzela ikusten. **Josu Zabaleta**

## magialari *iz* magiagilea.

Gelaxo hark ziega baten itxura zuen; armairu bat uzteko eskatu zion Andresek Margaritari, eta liburuz eta paperez bete zuen, bere osaba Iturrioz doktoreak eman zion hezurdura horman eskegi zuen, eta halako **magialari** edo nekromante baten etxezue baten itxura hartu zuen gelak. **Josu Zabaleta**

magiar ik **magyar**.

**magiko** (*orobat majiko g.er.*; Euskaltzaindiaren Hiztegiari **magiko** agertzen da) **1** izond magiari dagokiona, magiazkoa. ik **magia 2**.

Lapurren haitzuloan sartzeko hitz **magiko** sekretua. **Anjel Lertxundi**  
Inork ez dauka Azpimunduko izakiak menperatzeko bezainbeste ahalmen **magiko**. **Joanes Urkixo**  
Beti ere badu [palindromoak] hitzekin egindako jolasetik kanpo aipatutako kutsu **magiko** hori. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Garagardoaren eta doinu **magikoaren** eraginez. **Joanes Urkixo**  
Jaiio zenean, ezpata **magiko** bat jaso zuen, eta betiko bizitza. **Juan Kruz Igerabide**  
Makila **magikoa** atera eta osaba Vernoni begira jarri zuen. **Iñaki Mendiguren**  
Erromantizismoa eta erreialismo **magikoa**. **Ana Urkiza**  
Izaki **Magikoen** Zaintzako irakasleak. **Iñaki Mendiguren**  
Afrikako zeru urdinak eta alfonbra **magikoak**, bertzeak bertze. **Joan Mari Irigoien**  
Irlandako sineskerien arabera, sorginen erratz **magikoak** ez dira lizarrez egiten. **Pello Zabala**

**2** erakarmen berezia duena, liluragarria, miragarria.

Poesia idaztea eta errezitatzea: bi adiera ezberdin, bi une **magiko**. **Ana Urkiza**  
Hautzaro eta gaztaroko denbora **magikoa** bukatu, eta bi pertsona heldu gelditu zituan, harreman korapilotsu eta misteriotso baten lotailuez estekaturik, hizkera arruntean adiskidetasun deitzen zaion harremanaz lotuta. **Xabier Olarra**  
Gizonak neskaren ezpainen hunkidura **magikoa** nabaritu zuen, eta, hain egin zitzaion bizia, ezen iruditu baitzitzaion zuku gutzia xurgatu nahi ziola. **Patxi Zubizarreta**  
Iratzeen freskototasuna, haizearen fereka, pinudi hurbilaren xuxurla **magikoa**... **Alberto Ladron Arana**  
Garai zoragarria zuan, aro **magiko** bat. **Xabier Olarra**

**3** (hitz elkartuetan)

Pentsaera **magiko** -sinboliko baten arabera. **Luis Elberdin**  
Sinbolismo **magiko** -matematiko bortitza. **Santiago Iruetagoiena**

**4 linterna magiko** beiran margoturiko iduriak proiektatzeko tresna optikoa.

Maxwellek bere artean galdetzen zuen ea hori ote zen garunak koloreak bereganatzeko duen modua, bere linterna **magikoaren** erakustaldietan bezala. **Xabier Olarra**  
Eguzki kiskalgarri bat nire buruan irristatzen da zurrun, linterna **magikoen** xafila baten antzera. **Monika Etxebarria**  
Artean Seigarren Etorbidean eta Hamalaugarren Kalean linterna **magikoak** zeuden, euli-kakaz beteak, eta han nickel baten truke antzeman zekiekeen atzo-herenegun horailei. **Lopez de Arana**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

ahalmen **magiko** (3); erreialismo **magiko** (5); ezpata **magiko** (3); hitz **magiko** (7); makila **magiko** (13); makila **magiko zaharra** (3); onddo **magiko** (3); une **magiko** (9)  
ahalmen **magikoa** (3); erreialismo **magikoa** (10); ezpata **magikoa** (3); gauza **magikoa** (3); harryren makila **magikoa** (5); hitz **magikoa** (5); indar **magikoa** (3); **magikoa izan zen** (5); **magikoa zen** (4); makila **magikoa** (127); makila **magikoa altxatu** (9); makila **magikoa astindu** (4); makila **magikoa atera** (33); makila **magikoa hartu** (3); makila **magikoa hartzeko** (3); makila **magikoa zeukan** (3); mendi **magikoa** (3); mundu **magikoa** (3); ronon makila **magikoa** (3); txirula **magikoa** (3)  
**hitz magikoak** (9); izaki **magikoak** (3); makila **magikoak** (20)  
**mundu magikoan** (3)  
**makila magikoaren** (16); makila **magikoaren muturretik** (7)  
**makila magikoari** (11)  
**makila magikoaz** (22); makila **magikoaz kolpetxoak** (4)  
**formula magikorik** (6); makila **magikorik** (4)  
**makila magikotik** (4)

**magikoki** *adlag* magia, modu magikoan.

Uneon berehala zure sentierak, giza gauza guztiekiko zure sentiera **magikoki** seguruak, ezohiko zerbait usnarazi zizun, ezkutuko zerbait neska polit maitagarri haren baitan. **Eduardo Matauko**  
Gero bere makila atera zuen **magikoki** giltzaz ixteko. **Iñaki Mendiguren**  
Gizabanako anonimo, ikusezin eta neutro batek - **magikoki** nahasturikoa fikzioaren pertsonaiekin- ikusiko lituzkeen moduan. **Xabier Arregi**

**magikotasun** *iz* magikoa denaren nolakotasuna.

Maiz, jolasa kausalitatearen **magikotasunak** dakar, eta elementu estrainio batek (mugikor batek, kasu) irauli egiten du errealtatearen ordena. **Berria - Kultura**  
Batzuentzat eguneroko dena, halako **magikotasunez** janzen da besteentzat. **Iñigo Aranbarri**

**magina 1** *iz* (ezpata) zorroa.

Nik ere erosi dut, beraz, sastakai bat, brontzezkoa, sendoa, larruzko **magina** eta guzti, gerrian loturik eramateko jantzien azpian. **Juan Garzia**  
Bertzeei ezpaten gordetzeko eta **maginan** sartzeko keinua egin ziena. **Joan Mari Irigoien**

**2** ematutua.

**Magina** mugimendu xurgakaritan uzkuratzen zitzaiola sentitu nuen eta bertan bota nuen nire esne beroa. **Aitor Arana**  
Ikuslearentzat, zulotxo beteriako planetak izan daitezke; egilearentzat, giza gorputzaren zuloak: uzkiak, **maginak**, glandeak. **Berria - Kultura**  
· *irud/hed* Eta hitz zuzenak dira horiek, orekatuak, arrazoiaren **maginatik** erdituak. **Karlos Linazasoro**

**maginaratu**, maginara, maginaratzen du *ad* (ezpata) zorroan sartu.

Eta, ezpata **maginaratzen** zuela eta haren betarte ilunak argirat egiten zuela, erran zidan: [...]. **Joan Mari Irigoien**



## magisterio 1 iz maisutza.

Liburu honetan bildu diren orriok ez dira idatzi inori soluziorik "irakasteko": **magisterio** modu "platoniko" hori dela hain zuzen bukatua dena, ez dute ulertzen, krisian gaudela ulertzen ez dutenek. **Joxe Azurmendi**

## 2 **magisterio ikasketa** (*Euskaltzaindiaren Hiztegia **irakasle ikasketa** agertzen da*) *pl* irakasle ikasketak.

Beste mezu askoren artean, **magisterio** ikasketak bertan behera uzteko agindu omen zion Ama Birjinak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## magisteritza (*Euskaltzaindiaren Hiztegia **irakasle ikasketa** eta **irakasle eskola** agertzen dira*) 1 iz irakasle ikasketak.

Han, bi poliziaren artean, **magisteritzako** lagun bat ikusi dut. **Agurtzane Juanena**

**Magisteritza** amaitu eta sei hilabetera. **Agurtzane Juanena**

## 2 irakasle eskola.

Orduko hura oso egun berezia zen **Magisteritzako** hiru bekadun haientzat. **Jon Arretxe**

**Magisteritzako** eraikinean ere bazeukaten kafetegia. **Jon Arretxe**

LOGSE legea egin arte, **magisteritza** titulua edukitzea ez zen beharrezkoa irakasle izateko. **Berria - Euskal Herria**

## 3 maisutza, magisterioa.

Seguru daki, barne **magisteritzak** hala irakatsita, beti erori ahal izanen dela bere nahimenaren joera okerrez, baina jaiki, ezingo dela jaiki bere Jaungoikoaren maitasun dohakoari esker baizik. **Imanol Unzurrunzaga**

## 4 **magisteritza ikasi** irakasle ikasketak egin.

**Magisteritza** ikasi eta irakasle lanetan aritu zen Trabudua bere jaioterriko ikastolan, Sondikan. **Berria - Euskal Herria**

## 5 **magisteritza fakultate** irakasle eskola.

Gasteizko **Magisteritza** fakultatean. **Berria - Harian**

## 6 **magisteritzako ikasketa pl** irakasle ikasketak.

Ezetz erabaki nuen, eta onena ikasketetan zentratzea zela iruditu zitzaidan, **Magisteritzako** ikasketetan. **Jon Arretxe**

Handik bi urtera amaitu nituen **magisteritzako** ikasketak. **Agurtzane Juanena**

## 7 **magisteritzako ikasle** irakasle eskolako ikaslea.

Tamalez garai hartan oso arrunta zena egokitu zitzaidan bizi beharra: atxilotu egin ninduten **magisteritzako** ikaslea nintzela, 18 urteko, eta komisaria espainoletan orduan ematen zen tratua -gaur egungo bera, egia esan- eman zidaten. **Agurtzane Juanena**

## magistral 1 *izond* maisuari dagokiona.

Maimonek ordenatzeko duen gaitasuna, arestian aipatu dugun moduan, Gidaria honetantxe ere agertzen da, bi "laburbilpen" **magistralekin** aurkezten digunean. **Xabier Kintana**

- *irud/hed* Aimar Olaizolaren ikasgai **magistrala** Ogetan. **Berria - Kirola**

## 2 **klase magistral** maisu eskola.

Carlo Rizzo italiarra duela hilabete batzuk izan zen Euskal Herrian ikastaro bat ematen eta atzo ere, **klase** magistrala eman zuen. **Berria - Kultura**

Luze aritu zen Mario Zubiaga Joxemi Zumalabe Fundazioko kide eta EHUko irakaslea bi gaiet buruz, auzi saioak klase **magistral** itxura hartzeraino. **Berria - Euskal Herria**

## 3 **irakaspen magistral** maisu irakaspena.

Lan egiteko era aldatu beharko da; esaterako, behinolako irakaspen **magistral** hura ez baita gaur egun zentzuzkoa. **Berria - Euskal Herria**

## magistratu 1 *iz* lege, administrazio edo politika agintea duen funtzionario zibila; bereziki, lege agintea duena.

**Magistratu** eta juriskontsultoei dagokie, legearen izpiritu orokorraz beterik, haren aplikazioa zuzentzea. **Andres Urrutia**

Ordena publikoko ekintzetan, **magistratuak** zigortzen du, ez legeak; delituek epaitzerakoan, aldiz, legeak zigortzen du, ez **magistratuak**. **Iñaki Iñurrieta**

Epaila eta **magistratuaren** aitzinean, delituaz; batzar eta herriaren aitzinean, lege-hausteaz; lagun eta adiskidearen aurrean, maltzurkeriaz. **Elizen arteko biblia**

Lau **magistratu** besterik ez ditu Auzitegi Nagusiak. dozenaka epaile, **magistratu** eta fiskalek elkartasuna adierazi zieten biktimei. **Berria - Harian**

Lehen ministroaren Fininvest enpresak bi **magistratu** erosi zituen bere onurarako. **Berria - Mundua**

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Salako **magistratu** izendatu dute. **Berria - Euskal Herria**

Espainiako Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko **magistratu** izana. **Berria - Mundua**

EAEko Auzitegi Nagusiko **magistratu** Nekane Boladok. **Berria - Euskal Herria**

Bizkaiko Lurralde Auzitegiko **magistratu** Jose Maria Lidon oroitzeke. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (izenondoekin)

Enperadoreek -edota, haien izenean, **magistratu** erromatarrek- hitzarmenak egin zituzten haiekin herrialdearen banaketaz. **Iñaki Iñurrieta**

**Magistratu** publikoei aurre egitea ez da sedizioa baizik erokeria. **Esteban Antxustegi**

Parisko Fiskaltzak ikerketa judicial bat hasi zuen joan otsailaren 18an, eta horren ardura Jean-Louis Bruguiere eta Philippe Corre **magistratu** antiterroristen eskuetan jarri.

**Berria - Mundua**

Zentsoreak eta **magistratu** arbitrioak beharrezkoak badira gobernuren batean. **Juan Martin Elexpuru**

**Magistratu** ustelezinak. **Juan Martin Elexpuru**

Erresumako bi **magistratu** zuzenenek gizon bat akusatuko balute. **Juan Martin Elexpuru**

Jose Maria Lidon, Bizkaiko Auzitegiko **magistratu** lege gizona. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**salako sei magistratuak** (3)

**magistratuen elkarte** (3); **magistratuen galderei** (3)

## magistratura 1 *iz* magistratuaren jarduera; magistratuen multzoa.

**Magistratura** hain da errespetagarria, non hau ordainduta den herrialde bakarrean usadio honen aurka azaldu baita **magistratura** bera. **Juan Martin Elexpuru**

Nobleenetan, berriz, ohoreak eta **magistraturak** izateagatik herritarrekin obligazioak dituztenen etxeetan, sarrera zoragarri eta altuak, leku handiko atrio eta peristiloak, eta lorategi eta pasealeku lasaiagoak egin behar dira duintasunari dagokionaren arabera. **Santiago Iruetagoiena**

Aginpide hori **magistratura** da eta horri eman behar zaio, Estatu askeetan, halako zabalera taxuzkoa. **Andres Urrutia**

Tutoretza da, etxeko gobernuan, sorospidezko **magistratura**. **Andres Urrutia**

**Magistraturak** salaketa ezarri die urtarilaren 8an 63 demori egindako epaiketan izandako gertakariengatik. Berria - Euskal Herria

Baionako **magistraturak** salaketa ezarri die urtarilaren 8an izandako gertakariengatik. Berria - Euskal Herria

**Magistraturaren** Kontseilu Gorenak hartutako erabakien aurka. Berria - Mundua

**Magistraturaren** eta politikarien arteko harremanak. Berria - Mundua

Erregimen faxistaren hondakinen eskuetan zegoen italiar Poliziak eta **magistraturak**, inongo frogarik gabe, bi urteko atxiloaldia ezarri baitzion. Berria - Kultura

**Magistraturako** Elkarte Profesionaleko (APM) partaidea da. Berria - Euskal Herria

## 2 magistratuaren egoitza.

Hala, emakumeak **Magistraturara** jotzen duenean, kasu horiek, onenean, kalte-ordain barregarri bat ordainarazita ixten dituzte. Luis Elberdin

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**magistraturako kontseilu gorenak** (4)

# maglia

## 1 *maglia arrosa* Italiako itzulian, sailkapen nagusian lehen doanak jantzita eramaten duen elastiko arrosa.

**Maglia** arrosa (liderraren maillota) lortu zuenean ere, trebea izan zen kazetariak egin zizkioten galdera gaiztoei erantzuten Bigarren etapa garaipena lortu zuen, eta gainsariei esker **maglia** arrosa jantzi berriro. Berria - Kirola

**Maglia** arrosa soinean darama dagoeneko. Berria - Kirola

**Maglia** arrosa berreskuratu zuen. Berria - Kirola

## magma 1 *iz* lurrazalean edo lurpean izaten den harri masa urtua eta beroa.

Sumendian zartadurak gertatzen ari direla, eta, horregatik, **magma** gora egiten ari dela uste dute adituek. Berria - Gaiak

Burdina, magnesio eta silizioaren arteko konbinazio bat da olivina, **magma** ikutzean «kristaltzen» dena. Berria - Gaiak

## 2 irud/hed

Baina bizitza bera **magma** amaigabe bat da, ez mugarik ez formarik duena. Xabier Mendiguren Elizegi

Euskaldunen kosmogonia islatzen duen **magma**. Ana Urkiza

Otsabide hiria burges eta laborari loak hartu **magma** mindulin bat zen. Itxaro Borda

Grisa da gainera Eskolapioetako nire hasierako **magma** horren kolorea. Xabier Mendiguren Elizegi

Giza unibertsorean **magma** edo haragiaren osagarri benazkoena den horrek. Pako Aristi

## 3 (hitz elkartuetan)

Lur azpiko **magma** -korrante bat. Jon Alonso

## magnate *iz* kapitalista boteretsua eta garrantzitsua.

Wall Street Andrew Carnegie altzairugintzako **magnateetako** bat zen. Xabier Olarra

Collins P. Huntington (1821-1900) trenbideen lau **magnateetako** bat zen. Xabier Olarra

Oro har, mundu garatuko **magnateen** aberastasunak oso behera egin du. Iñaki Heras

## magnesia *iz* magnesio oxidoa, labeetako estalki erregogorrek egiteko erabiltzen den hauts zuri arina.

Ez dira gimnasia eta **magnesia** nahastu behar. Berria - Kultura

## magnesiari *izlag/iz* antzinako Asiako Magnesiakoa, Magnesiari dagokiona; Magnesiako herritarra.

Grekoek bere jatorri izenez magnetikoa deitzen dioten harria, **Magnesiari** latorrikoa omen baita. Xabier Amuriza

Bien bitartean dagoen burdinak brontzearen zenbait partikula hartzen duenean, berriz, orduan harri **magnesiarrak** bere korrontean sakatzen dio. Xabier Amuriza

Urrez eta ehunez, artilez eta arrosaz gainezka zegoen hiria, behin **magnesiarrak**, haien gerra-zakurrak eta haien esklabo azkon-jaurtitzailleak Meandro-aren urertzetan garaituak izan ondoren, behin Mileto bikaina pertsiarrek hondatu ondoren. Juan Garzia

## magnesio 1 *iz* metal arina, zuri zilarkara, lantzeko erraza, 651 °C-tan urtzen dena eta su hartzean gar zuri distiratsuz erretzen dena (Mg; at. z. 12).

Lardats ere lardatsa izan beharra zegoen, edo astazakil burumotza, magnesiatik **magnesio** sulfatoa ateratzen ez asmatzeko, edo bromo potasioetik bromuroa. Juan Garzia

Beste substantzia batzuk ere baditu hezur-mineralak, hala nola gatzak, **magnesioarenak**, kaltzioarenak, eta garrantzi gutxiagoko beste elementu batzuenak. Irene Aldasoro

Esneak kaltzioaren %2 galdu du, eta **magnesioaren** %21. Berria - Gaiak

Nire lanaz lehenbiziko egunetik maitemindu nintzen, nahiz eta, fase horretan, haitz-laginen analisi kuantitatiboak egiten baino ez jardun denbora guztian: azido fluorhidrikoz eraso, horra burdinarekin amoniakoa, horra nikelarekin [...] dimetilgloxima, horra **magnesioarekin** fosfatoa, beti berdin, egun santu guztietan. Juan Garzia

Morrisonen begiak **magnesiozko** argazki kameraz flasheatuak izanen ziren ordu hartan. Harkaitz Cano

Goiz hartan ez zuen **magnesiarik** hartu. Unai Iturriaga

**Magnesioa** oinarri zuen dietak miragarria behar baitzuen, antza. Joan Mari Irigoien

## 2 (hitz elkartuetan)

**Magnesio** -leherketa bat, eta bat-batean agertokia ilunetan geratzen da. Oskar Arana

## magnetiko 1 *izond* imanari dagokiona, imanaren nolaketasunak dituena; magnetismoari dagokiona.

Nikel metalikoa, burdina bezala, **magnetikoa** da. Juan Garzia

Grekoek bere jatorri izenez **magnetikoa** deitzen dioten harria. Xabier Amuriza

Nikelaren bereizgarritasun **magnetikoari** buruzko nire teoriak zati funtsezko batean erraturik zegoela. Juan Garzia

**Indar** magnetiko haren eraginari eutsi ezinik. Josu Zabaleta

Lurraren eremu **magnetikoa** aldatu egiten da, aldian-aldian, bere ziklo partikularren arabera. **Pello Zabala**  
Eneko eta gure artean zirkuitu **magnetiko** bat sortuko balitz bezala. **Joan Mari Irigoien**  
V4 aldearen estimulazio **magnetikoaren** bidez sor daiteke esperimentalki kolorea, eta eratzun eta halo koloretakoak -kromatofen deritzetenak- "ikusaraz" daitezke hala. **Xabier Olarra**  
Sakelako telefonoek sortzen duten erradiazio **magnetikoa** kaltegarria da giza zeluletako geneentzat. **Berria - Gaiak**  
1981ean, Sony etxeak argazkiak egiteko oinarri **magnetikoa** jarri zuen salgai. **Pello Salaburu**

## 2 (gailuz eta tresnez mintzatuz)

Ez zela merkatuan ezin selektore **magnetiko** hauts finetan zegoen material bat bereizteko gauza zenik. **Juan Garzia**  
Nire gelako sarraila **magnetikoa** hautsi eta egunean bi aldiz niregana etortzeko eskubidea irabazi zuen. **Joxan Elozegi**  
Laplace itsasontzi meteorologikoa, Coruñan sartzen ari zela, mina **magnetiko** batekin tupust egin, eta [...] erabat hondoratu zen. **Pello Zabala**  
Inprimaria, kanoi-bolbora eta iparrorratz **magnetikoa**. **Koro Navarro**  
Gure iparrorratz **magnetikoa** prezioen egonkortasuna baino ez da. **Koro Navarro**  
Konputagailu baten memoria edo informazio-gordailua zinta **magnetiko** batean sar daiteke. **Irene Aldasoro**  
Biraka zebilen grabagailuko zinta **magnetikoa**. **Joxemari Urteaga**  
Banda **magnetikoaren** klonazioa, bestalde, asko zabaldu da. **Berria - Ekonomia**  
Txartel berriek betiko banda **magnetikoa** izango dute, baina baita txipa ere. **Berria - Harian**  
Billete bat makina banatzaile batean sartu eta txartel **magnetiko** bat jaso nuen. **Joxan Elozegi**

## 3 irud/hed

Nigan zuen ahalmen **magnetiko** menperatzaileak segurtasuna eman zion jarraitzeko. **Harkaitz Cano**  
«Gizon atsegina eta **magnetikoa**» deskubritu du. **Berria - Kultura**  
Bere nobelek indar **magnetiko** antzeko bat daukate. **Berria - Kultura**

## 4 erresonantzia magnetiko

Izan ere, tumoreak garroak zituela irudi zuen, erresonantzia **magnetikoetan**. **Imanol Zurutuza**  
Atzo egin zieten erresonantzia **magnetikoa**. **Berria - Kirola**  
Erresonantzia **magnetikoak** aztertu ditu Ibáñez doktoreak. **Imanol Zurutuza**  
Azken boladan, fisikarien eskutik, baditugu hainbat aparatu konplexu, armategi oso bat hortxe, ekografiaz eta erresonantzia **magnetiko** nuklearrez. **Juan Garzia**

## 5 polo magnetiko ik polo<sup>1</sup> 6.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erresonantzia magnetiko bat** (3); **indar magnetiko** (3)

**banda magnetikoa** (4); **eremu magnetikoa** (5); **erresonantzia magnetikoa** (11); **erresonantzia magnetikoa egin** (3); **iparrorratz magnetikoa** (3)

**erresonantzia magnetikoak** (6)

**erresonantzia magnetikoak** (6)

**erresonantzia magnetikoaren** (8)

## magnetikoki *adlag* magnetismoaren bidez.

**Magnetismoaren** inguruko ikerketatik enpresek erabili ahal izango duten tresna bat patentatzeagatik eman diete saria. **Berria - Gaiak**  
Harryk **magnetismoz** erakarriko balu bezala, bludgerra atzetik abiatu zitzaion berriro, eta Harryk ziztu bizian alde egin behar izan zuen. **Iñaki Mendiguren**  
Bertakoen ileak lastu eta Fionnen alderantz makurtu ziren, **magnetikoki** erakarriak bezala. **Joanes Urkixo**  
Ez, joan ez: lerratu egin nintzen zangoak gogortuta, giltzadurak dardarka, **magnetikoki** erakarrita zure aterantz. **Eduardo Matauko**

## magnetismo 1 *iz* fisikaren atala, imanen eta eremu magnetikoen tasunak aztergaitzat dituena; tasun eta gertakari horien multzoa.

**Magnetismoa** iruditzat erabiliz, bruxularen joerak "iparra non, orratza harantz" ez du gizakiarentzat balio. **Jenaro Garate**

## 2 pertsona edo gauza baten gaitasuna besteak biziki erakartzeko.

Brandoren **magnetismoa** azpimarratu zuen: «Bere isiluneak erabat zirrargarriak dira. **Berria - Kultura**  
Badira liburu batzuk, irakurtzeko zail gertatu arren, **magnetismo** moduko bat hedatzen dutenak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 3 hipnosia.

**Magnetismoaren** gaia atera zen, Donatoren trikimailuak eta Charcot doktorearen esperientziak. **Josu Zabaleta**  
**-Magnetismoak** gordean dauden indarrak agerian uzten ditu, jakina denez- argitu zion doktoreak. **Felipe Juaristi**  
**Magnetismo**, hipnosi, sugestio eta nik al dakit zer, deitu diote ahalmen horri. **Josu Zabaleta**  
Alferrik ahalegintzen zen doktorea **magnetismoaren** eragina, edota gozokiena eta intxaurrena, saiatzan. **Josu Zabaleta**  
Baina horren ondoren **magnetismoan** sinesten ez baduzu, esker txarreko hutsa zara zu, adiskidea! **Josu Zabaleta**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lurraren **magnetismo**-aldaketak. **Pello Zabala**  
Ez dakit nola esan zer den, baina badut niregan **magnetismo** eragin bat hain berezia non beldur bainaiz, neure buruaren beldur, esan dizudan bezala! **Josu Zabaleta**  
**Magnetismo** mota hori nuelako-edo, ez naiz behin ere ezkondu. **Koro Navarro**

## magnetizatu, magnetiza, magnetizatzen 1 da/du *ad* magnetismoaren eragina jasan.

Iruditu zitzaidan buruz ikasitako zerbait errepikatzen ari zela, edota, bere jardunaren hitz batzuek **magnetizaturik**, orbita berean astiro bira eta bira zebilkiola gogoia. **Irene Aldasoro**  
Gizonaren gogoia, bere jardunak berriz ere **magnetizaturik**, bira eta bira ari zela ematen zuen, astiro, oraingo beste erdigune horren inguruan. **Irene Aldasoro**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Hitz **magnetizatu** batzuk. **Joseba Sarrionandia**

## magneto *iz* elektrizitate sorgailua, batez ere eztanda motorretan erabiltzen dena.

Mekanika garai baten aztarren horiek guztiak, ordea! baina noiz arte funtzionatu behar dute pistoi, balbula, **magneto**, engranaje multzo horiek? **Josu Zabaleta**

**magnetoentzefalograma** (*corpusean **magnetoentzelograma** soilik, hutsegitez apika*) iz eremu magnetikoak hautemanaz burmuineko jarduera funtzionala erregistratzen duen teknika.

Horretarako, **magnetoentzelograma** bat eta 32 lamina erabili dituzte. **Berria - Gaiak**

magnetofoi ik **magnetofono**.

**magnetofono** (**11** agerraldi **7** liburutan; orobat **magnetofoi** **13** agerraldi **9** liburutan; **mañetofono** g.er. eta **magnetofon** g.er.; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **magnetofono** agertzen da*) iz zinta magnetiko baten bidez hotsak grabatzen eta berriro ematen dituen tresna.

Nork demontre nahiko ote zituen banda biribileko **magnetofono** haiek, diapositibak ikusteko tresna haiek. **Joxan Elozegi**

Bi bobinako **magnetofoi** astun haietako batean. **Iñigo Aranbarri**

Jende gaztea gara herri-aldizkarietan gabiltzan gehienok, beti **magnetofonoarekin** eta argazki-makinarekin ibiltzearen poderioz bizkarra behar baino lehenago okertzen hasi bazaigu ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Itzali ere egin izan dut **magnetofoi**. Ez du ikusten **magnetofono** hori martxan dagoela. **Koldo Izagirre**

Behar den bezalako **mañetofono** bat Alemanian erosirik, kantuen grabatzen hasi zen. Ideiak etorri ahala bota eta **magnetofonoan** grabatu, eta gero ideia interesgarrienen entresaka egin. **Herria**

Antonio Zavalak bere **magnetofoi**an jasotako kasu horiek ez dira inondik ere bitxiak edo aldi behingoak. **Bernardo Atxaga**

Gizona soinu-jolea, emazteak poltsa barruan eramaten zuen **magnetofoi** piezak grabatzeko. **Pako Aristi**

**magnetosfera** iz atmosferako kanpo eskualdea, gertakari magnetikoek gorabehera handia dutena.

Planeta gorriko atmosferaren dentsitatea txikia izateak eta **magnetosferarik** (lurra energia handiko partikuletatik babesten duen geruza) ez izateak «funtsezkoak» izan ziren Marten ura desagertzeko. **Berria - Gaiak**

Merkurioren lurrazala, atmosfera, **magnetosfera** eta nukleoa aztertzea da NASAren helburua. **Berria - Gaiak**

**magnetoskopio** iz (*corpusean **mañetoskopa** eta **mañetozkopa** soilik*) iz bideo grabagailua.

Beste sari ainitz hala nola DVD irakurgailu, **mañetozkopa**, ahuntx erdi bat eta abar... beste parte hartzaile andana batek bereganatu ditu, denak arras kontent zirelarik.

**Herria**

**magnetroi** iz diodo motako hodia, eremu magnetiko arduzko batean kokatua, oso maiztasun handiko korranteak amplifikatzeko erabiltzen dena.

Radar transmisore baten gunean dagoen **magnetroi** baten ondoan zegoela, txokolate zati bat urtu zitzaion. **Pello Salaburu**

**Magnificat 1** iz Ama Birjinaren kantika, Bezperetan abesten dena.

112. salmutik eta "**Magnificat**"-etik hartutako aipua. **Patxi Ezkiaga**

**2 Magnificat-en** testuaz onduriko musika lana.

Harik eta kantaten, Goldberg Bariazioen eta **Magnificataren** kasetak eraman nizkion arte. **Xabier Olarra**

Pergolesiren **Magnificat** piezan. **Berria - Kultura**

J.S. Bachen **Magnificat** bikainarekin. **Pello Zabala**

**magnifikatu**, magnifika, magnifikatzen **1** du *ad* areagotu.

Gaur egungo historiako ikerketen arabera uste da gudaldi hori ez zela izan Frantziako historiak mito fundatzaile gisa **magnifikatu** duen borrokaldi izugarria. **J.M. Olaizola**  
"Txiliku"

Itsas goran itsasontzi guztiak handiak ikusten ditugu eta, berehala, **magnifikatzeko** joera indarrean jartzen zaigu. **Berria - Kirola**

**2** (era burutua izenondo gisa)

Merezi du Koonsen txakurtxo neutro **magnifikatuak**, "bizirik" urtean bitan aldatzen diren 50.000 lozez mantentzen dena, zer dioen entzutea: amets kontsumisten desira ez da itxuraren fetixea erosi beharra besterik. **Joseba Zulaika**

**magnifikatze** iz areagotzea.

Nobela honetan sumatu uste dudana gaia interesatzen zait: apaiz eta apaizkondo askoren artean, eta orohar heziera kristau extuak sortzen duen haragi **magnifikatze**, antsi eta ondorioz errepresio eskizofrenikoa. **Patziku Perurena**

**magnifiko** *izond* bikaina.

Eramanarazten dizkieten arropen diharduen atala **magnifikoa** da. **Pablo Sastre**

Tentu oneko artistak, jakin behar du hori derrigor; badirudi, gusto finekoa eta sentiera zorrotzekoa balitz bezala tratatzea komeni zaiola publikoa, apropos bere neurria egindako obra **magnifikoak** eskainiz. **Patziku Perurena**

**magnifizientzia** iz hotsandia, arrandia, ospea.

Obra hori bere **magnifizientziagatik** da ezaguna, ez herriko jendearen artean bakarrik, baizik eta baita adituen artean ere. **Santiago Iruretagoiena**

Obra hori, benetan, marmolezkoa izan balitz, artearen fintasuna duen neurrian **magnifizientziaren** eta kostuaren itzala ere izan zezan alegia, obra lehenengoan eta gorenekoan artean aipatua izango litzateke. **Santiago Iruretagoiena**

## magnitude 1 iz neur daitekeen gorputzen tasun edo alderdia.

Hiru **magnitude** horiek, fluxua, intentsitatea eta luminantzia, argia emititzen duen objektuari dagozkio. Josu Zabaleta

## 2 eskala jakin baten arabera neurria.

Gai izango ginatkeela kopuru ezezagunaren **magnitueda** kalkulatzeko beste serieetan. Iñaki Mendiguren

Aise neur daitezkeen **magnitude** batzuk. Josu Zabaleta

Bi graduko **magnitudetik** behetiko lurrikarak. Berria - Harian

Sortutako hiru lur astin角度etik indartsuenak 6 graduko **magnitueda** zeukan Richterren eskalan eta hau da kaltegarria izan. Berria - Mundua

Azkeneko hau zen indartsuena izan, 6ko **magnitueda** izan baitzuen Richterren eskalan. Berria - Mundua

## 3 (hitz elkartuetan)

2. koadroan azaltzen dira ohiko zenbait gauzaren luminantzien **magnitude**-ordenak. Josu Zabaleta

- Kronologi **magnitudeen** azterketa mentalean. Iñaki Mendiguren

## magnizida iz magnizidio bat egiten duen pertsona.

Lan honetan Ravailac ekarri nahi izan dut gogora, historiako lehenengo **magnizida** garrantzitsua izan zelako. Berria - Kultura

**Magnizida**, parrizida, genozida, tirano, hiltzaile arrunt... denak dira borroarentzat gizaki, eta denek merezi dute heriotza duin bat. Karlos Linazasoro

## magnizidio iz estatu buru edo kidekoren baten hilketa.

**Magnizidioei** buruzko tesi bat egiten ari zara? Koldo Izagirre

## magno izond handia.

Zerria hil, eta goitik behera irekita, odolkiak egiten direnean, bada bat berezia, besteak baino **magnoagoa**, handiagoa, heste lodia muturrarekin obratzen dena eta baloi tankera duena. Iñigo Aranbarri

## magnolia (orobat **magnolio**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **magnolia** agertzen da) 1 iz tamaina handiko zuhaitz apaingarria, hosto iraunkor distiratsuak eta lore zuri handiak eta oso usaintsuak dituena (*Magnolia grandiflora etab.*).

Lorategi hartan **magnolia** eta ezki handiak zeuden, sasizko hesi batek inguratuta. Hura urritu zenean gerezi-loreetara abiatu zen, gero **magnolia**, paradisuako melia, karia, intxaurren eta indipikondoetara. Koro Navarro

Lorategiaren parterre borobilak zeuden, kolore zuri eta horiko loreekin, eta **magnolia** aski handiak, inguruko basoko pago-lizarren aldean bigunak ematen zutenak. Bernardo Atxaga

Han, **magnolio** baten azpian, erdi eserita erdi etzanda, musikariak zeuden. Baratzeko zoko batean, **magnolia** eder batzuen aitzinean, goizeko aitatzki ikusi zuen. Felipe Juaristi

## 2 magnolia zuhaitz/arbola

Begiratu diezu lorea aspaldi galdutako sei **magnolia** arbola itzelei, eta irudikatu dituzu zein eder egongo diren datorren urtean, martxoko eguzkia epeltzen hasten denean.

Hasier Etxeberria

Gazteluaren harrien artean, **magnolia** zuhaitzak eta 'bougainvilliers' landareak sortu eta handitu ziren. Ramuntxo Etxeberri

Nabariak egin zitzaizkion palmondoen eta **magnolio** arbolen itzalak beltzean. Felipe Juaristi

## magnolio ik **magnolia**.

## mago 1 iz sortalde hurbileko antzinateko herrietako jakintsua, izar kontuetan oso aditua.

**Magoa** ez zen jendeak [...] aparteko beldurra zion magiari Erdi Aroan. Iñaki Mendiguren

Ni poema luze bat ari nauk lantzen, Galesko printzeek eta **magoez** eta denez. Koro Navarro

## 2 iz pl ebanjelioen arabera, Jesus haurra gurtzera joan zirenak. ik beherago 6.

Azkenik urrea, **magoen** hirugarren eskuerakutsia. Joan Mari Lekuona

Guk ere **magoekin** batera bila dezagula Jainkoa eta merezi dezagula haren jaiotza aurkitzea. Joan Mari Lekuona

## 3 irud/hed

Diru politikaren **magoa**, kondaira, orakulua, jainkoa, zer epiteto ez dira erabili Greenspan deskribatzeko? Berria - Ekonomia

Di Stefano, beraz, futbolaren **magoa** zuan, Luis Regueiro bere garaian izan zen bezala Joan Mari Irigoien

## 4 magia saioak egiten dituen artista.

Kale horietako edozein bazterretan ikus daitezke kaleko artistak: malabaristak, ekilibristak, **magoak**, musikariak... Berria - Kirola

Kapelatik usoa ateratzen duen **magoaren** gisan. Andoni Egaña

Legelariak, ezkutuko **mago** ikusezin baten antzera, mekanismo guztia gobernatzen zuen; erabat lardaskatu zuen dena, inork ezer ikertzeko astirik izan baino lehen. Jose Morales

Txan **magoaren** erakustaldia. Berria - Kultura

Aratsaldean, "Bertsumagia" ikusgarria, Jon Martin bertsulariak eta Alain Martinez **magoak** eskainirik. Herria

## 5 (izenondo gisa)

Behi eroen eromeria, eta Baltasar **epaile** magoaren kontzientziako ikatza. Joxerra Garzia

## 6 errege magoak pl Ebanjelioen arabera, Jesus haurra gurtzera joan ziren magoak.

Carballiñoko geltokian musika banda zegoen, eta ume piloak Errege **Magoen** zain. Pako Aristi

Sadoniatik hamar egunetan da Kaxan, Hiru Errege **Magoak** Betehemera elkarrekin joateko elkartu ziren hiria. Aurelia Arkotxa

Hiru errege **magoak**, izarrak gidaturik, Jesus gurtzera heldu ziren, esanez. Patxi Altuna

Hik ba al dakik zenbat ziren errege **magoak**? Joan Mari Irigoien

## magrebдар ik magrebtar.

## magrebiar *(32 agerraldi, 12 liburu eta 6 artikulutan) izlag/iz magrebtarra.*

Goncourt saria jasotzen lehen **magrebiar** idazlea izan zen Ben Jelloun nobelagilea. Berria - Kultura

Lau behargin **magrebiar** daude jo eta ke, arropa denda izango dena atontzen. Iban Zaldúa

Espainiaren eta Frantziaren aurkako borrokalar **magrebiarrak** zoriondu zituen eta, garaian garaikoa, XIX. eta XX. mendeen arteko antinperialista izan zela esan daiteke. Askoren artean

Jatorri **magrebiarra** duten beste lau pertsona eta espainiar bat. Berria - Mundua

Txarteldegiko ilaran bikote bat eta lau **magrebiar**, aldean poltsa handi bana. Unai Iturriaga

Zertarako nahi du askatasuna **magrebiarrak** paperik izan ezean. Berria - Euskal Herria

Salatu zituen gizonak, **"magrebiar"** itxurakoak ziren". Iñigo Aranbarri

## magrebtar *(34 agerraldi, 6 liburu eta 21 artikulutan; orobat magrebdar 3 agerraldi, liburu 1ean) izlag/iz Magrebkoa, Magrebi dagokiona; Magrebko herritarra.*

Gehienak **magrebtar** jatorrikoak dira eta [...] beren sorterrietara bidaliko dituzte. Berria - Mundua

Azokak exotikoago bihurtu direla begitandu zaio, buru-zapia daroaten emakume **magrebtarrak** eta begi zabaleko hegoamerikarrak ikusi dituenen. Urtzi Urrutikoeetxea

Gaztea **magrebtarra** zen. Berria - Euskal Herria

Etorkin **magrebtarren** aurkako erasoak. Berria - Mundua

Barazki-saltzaileak **magrebtarrak** ziren gehienak, itxuraz ere antzematen zitzaizten. Felipe Juaristi

**Magrebtarren** aurkako berrogei bat eraso gertatu dira aurtun uhartean, eta 14 lagun auzipetu dituzte. Berria - Mundua

Bertzalde, Giza Eskubideen Taldeak salatu zuen hiru **magrebtarren** saltegiei eraso zietela larunbat gauean. Berria - Harian

"Ez zaituzte ezagutzen, ala?", esan diot, poliziak **magrebtar** itxurako gizon adineko baten pasaportearen behin eta berriro begiratzen zuen bitartean. Anjel Lertxundi

## magyar *(orobat magiar; Euskaltzaindiaren Hiztegian magyar agertzen da) izlag/iz hungariarra.*

Ostrogodoen ondotik, IX. mendean iritsi ziren sortaldetik **magiar** gerlariak, gero Hungaria izendatuko zen lurraldera. Patziku Perurena

Eskandinaviar eta **magiar** erasotzaile barbaroen aurka. Iñaki Mendiguren

Hungariar edo **magiarrak** dira beste talde etniko handia. Berria - Mundua

**Magyarren** lurraldea. Berria - Mundua

Adam Bodor hungariarra da, baina ez da Hungariakoa, Errumaniako Transilvanian bizi den **magiarren** gutxiengokoa baino. Berria - Kultura

Hungariatik kanpo bizi diren **magiarrei** buruzko legea onartu zuten Hungarian 2001eko ekainean. Berria - Harian

Polita baitzen Circe, **magiarren** harikoa, aurpegi luze, begiak beltz, ezpainak mehe. Felipe Juaristi

Hungariar edo **magyarrak** IX. mendean kokatu ziren herrialdean. Berria - Mundua

*Romania Mare* alderdiak botoen %13 bereganatu ditu eta hungariar gutxiengokoaren Errumaniako **Magyarren** Batasun Demokratikoak %7. Berria - Mundua

## mahai *(orobat mahain g.er. eta mahi g.er.) 1 iz oin batek edo gehiagok eusten dioten ohol lau batek osaturiko altzaria, bertan jateko, idazteko edo lan egiteko balio duena.*

Ez dago ia altzaririk; **mahai** handi bat, armairu bat, aulkiren bat. Agurtzane Juanena

Zamautxo batez jantzirik **mahai** bat zegoen dibanaren aurrean. Jose Morales

Bakarrik zegoen **mahai** batean eserita. Koro Navarro

-Horiek astoak! -esaten zuen Izetak **mahaia** ukabilka joaz-. Koro Navarro

Telebista handi bat zegoen **mahai** txiki baten gainean. Koro Navarro

Ukalondoa **mahai** gainean zuen bermatuta, eta masaila esku barnean. Ramon Saizarbitoria

Egunkaria **mahai** gainean zabalik. Aingeru Epaltza

Leihoak itxita, **mahaia** paperez bete, ispilu handia betiko txokoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Potoa airean astindu eta gero **mahai** gainean irauli du. Anjel Lertxundi

Beso gurutzatuak **mahai** gainean jarri eta kokotsa bermatu zuen gero. Ramon Saizarbitoria

Jamesek **mahai** gainean jarrita zeuden bingo kartoen sorta hartu zuen. Koro Navarro

*ik beherago* 11. Askoren artean

Aulkiek, errezelek, alfonbrak, sofa eta **mahai** gaineko estalkiek kolore gorrimina zuten. Anjel Lertxundi

Ama eta gu senideok **mahai** inguruan, eta aita etxearen beste muturrean irakurtzen. Fernando Rey

Ellenek begiak beheratu zituen eta **mahai** ertzean bermatutako bere atzamarretan soa finkatu zuen. Lopez de Arana

**Mahai** azpian kuzkurtu ziren biak. Koro Navarro

Inspektorea **mahai** baten atzean eserita dago. Rafa Egiguren

Tea hartzeko taberna bat zen, oso apala, aulki txiki batzuekin, eta, **mahai** gisa, bidoi mailatu batzuekin. Juan Kruz Igerabide

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Beste aldean, aurrean, **mahai** apal bat eta sofa bat, Konpainia-buruarentzat. Josu Zabaleta

Bola mirengarri bat lurreraino jantzitako **mahai** biribilaren gainean. Aingeru Epaltza

Saloiaren erdian zegoen **mahai** biribil eskerga. Joxemari Iturralde

Artur erregearen eta **Mahai** Biribileko zaldunen istorioak. Juan Kruz Igerabide

Mrs. Merivale **mahai** obalatuaren buruan eserita zegoen. Lopez de Arana

Parez pare jarri ginen berriz, bere **mahai** handia tarteko. Aingeru Epaltza

**Mahai** luzearen bazter batean. Aingeru Epaltza

Harry Gryffindorreko **mahai** jendetsuari begira egon zen. Iñaki Mendiguren

Alboetara soilik begiratzen zuten, gobernadorearen zerbitzariak whistean jokatzeko **mahai** berdea non jarriko. Jose Morales

Wagnertarren jangelako **mahai** handia beti libre izaten da guretzat. Josu Zabaleta

Kafetegiko **mahai** batean eserita ikusi bainituen Brezo eta beste neska bat. Joxemari Iturralde

Ikasteko **mahai** bat karpetaz eta apuntez bete. Aingeru Epaltza

Hirusta, trinidadea, eta hiru hankako **mahaia**. Felipe Juaristi

Neska bat platerak atontzen ari zen pinuzko **mahai** batean. Lopez de Arana

Kristalezko **mahai** borobilaren inguruan eseri gara. Joseba Sarrionandia

Zurezko **mahai** bat zegoen oso garbia, igurtzi asko hartutakoa. Iñaki Mendiguren

gaudioa kontatzen bidatzen, beti aipatzen zuten **mahai** marmolezkoa. **Ramon Saizarbitoria**  
Ohea, gaueko **mahaia** eta aulki bat. *ik beherago* 8. **Gotzon Garate**

### 3 jateko mahaia.

Erregea baino **mahai** oparogotik janaritzen da behartsua. **Askoren artean**

Egun batez, **mahaia** prest eta jatordurako deia egina zelarik [...]. **Askoren artean**

Amak mantala erantzi eta ohiko otoitzarekin bedeinkatu zuen **mahaia**. **Anjel Lertxundi**

Eguneko menua hartzeko aukera eskaintzen zuten, nahiz eta denbora dexeente itxoin behar zen eskaturiko platera **mahai** gainean eduki arte. **Joxemari Iturralde**

Afaria hasi zenetik aurreneko aldiz, **mahai** ingurura begiratu zuen. **Koro Navarro**

Guztiok **mahai** inguruan bazkaltzen ari ginenean, hala erran nion don Frantziskori: [...]. **Joan Mari Irigoien**

Zizka-mizkaz beteriko **mahai** batera hurbildu ziren hirurak. **Jose Morales**

**Mahaia** ipini nuen, eta arroza, zopa eta berdela, neuk paderan frijiuak. **Juan Kruz Igerabide**

**Mahaia** prestatzeko agindu zuen, janari apal baina gozoz hornituriko **mahaia**. **Askoren artean**

**Mahaia** prestatu eta kopa bete duzenoi. **Elizen arteko biblia**

Itzuli zenean, gotzain jauna **mahaian** jarrita zegoen bazkaltzen. **Askoren artean**

Zeure **mahaian** jarri ninduzun, zeure zerbitzari hau. **Elizen arteko biblia**

Gero, **mahaian** eseri eta hanburgerrak, atun-entsaladak eta griselan berotutako gaztazko sandwichak eskatu genituen. **Oskar Arana**

**Mahaian** eseri zarenean, segundoz segundo ikusten duzu zenbat edan duzun, eta baso hustuen kopurutik igartzen diozu denboraren pasaerari. **Matías Múgica**

Afaltzerakoan ikusi genian elkar, **mahaira** esertzeko uanean. **Xabier Olarra**

- **Mahaia** ere jarri beharko dugu bazkari legea egiteko. **Joxemari Urteaga**

Afarirako **mahaia** jartzen hasi ginen. **Bernardo Atxaga**

**Mahaia** jaso, ogi-puskak bildu eta azukrea eta gurina giltzapean gorderik geratu zirenean. **Irene Aldasoro**

**Mahaia** zerbitzatzen Bepo Fachin aritzen zen. **Fernando Rey**

Gordeta daukat zuentzako **mahaia**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

- Barra gaineko pintxo eta kazuelatxo hondarrak [...] gehitu zitzaizkion gure **mahai** eskasari, pinta bana zerbeza lagun zutela. **Aingeru Epaltza**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egongelako mahaia prestatu dute, gaineko oihala eta guzti: jai handietako **mahai** -oihala, jakina. **Joan Mari Irigoien**

Bere ogia puska txikitzen zaitu, eta **mahai** tresnak musu zapiarekin igurtzi ditu. **Monika Etxebarria**

**Mahai** -tresnak eta platerak hartu eta mahai gainean beren lekuan jarriz. **Joxemari Iturralde**

Ongi jantziak zeuden haren **mahai** -zerbitzariak eta edari-emaileak. **Elizen arteko biblia**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Harrera- **mahairaino** joan nintzen. **Anjel Lertxundi**

Atzealdean, zerbitzu- **mahaiaren** ondoan. **Xabier Olarra**

Mahai handi bat zagon gonbidatuen logelan, Txarlyren antzinako marrazki- **mahaia**. **Iban Zaldúa**

Han sofa-oheta; apain- **mahaia**; bionbo bat. **Josu Zabaleta**

Gela horretan hiru mahai zeudela: idazmahaia, dibanaren aurrean; joko- **mahaia**, leihoen artean hormaren ondoan; zoko- **mahaia**, logelako ateak eta [...] gela huts batera ematen zuen ateak osaturiko angeluan. **Jose Morales**

Era bateko eta besteoko mahaien, ohe- **mahaian** eta idatz-altzarien gainean zeuden gauza txiki guzti-guztiak. **Oskar Arana**

Txabik grabagailua eta soinu **mahaia** muntatu zituen. **Unai Iturriaga**

Epaiketa **mahaia** taula batzuen gainean dago, aski gora, eta mahaiaren gibelean jarririk daude zuzendari nausia, epaile nausi bezala, eta beste bi xefa, zuzendariaren eskuin eta ezkerrean. **Filipe Bidart**

### 6 zerbait kudeatzeko, erabakitze edo eztabaidatzeko biltzen diren pertsonen multzoa. ikepaimahai.

Une horretatik aurrera, bi **mahai** eratzea aurreikusten du PSE-EEK: ETArean eta Gobernuaren artekoa lehenengoa, eta «ordezkaritza duten alderdi politikoaren artekoa» bigarrena. **Berria - Euskal Herria**

Su-etenaren ondorengo bake prozesua gauza dadin "alderdien **mahaia**" espero da laster martxan jartzea. **Joseba Zulaika**

Batasunak alderdien **mahaia** zazpi lurraldeetako ia behar dela erran du manifestazioan. **Berria - Euskal Herria**

**Mahaia** osatzen dutenen artean erabakiko dute kudeaketa. **Berria - Euskal Herria**

Akordioak hitzartzeko **mahaia** biltzean berme guztiekin bil dadin. **Berria - Euskal Herria**

Beste azalpenik ematen ez den bitartean, **mahaian** metodologia dugu guztiok eskuartean. **Berria - Euskal Herria**

Eta konponbiderako **mahai** horretan ezker abertzaleak eta Batasunak ordezkatzeko duten esparru sozial eta politikoak parte hartu behar duela. **Berria - Euskal Herria**

EAEko Irakaskuntza Publikoko **Mahaia** osatzen duten elkarteak. **Berria - Euskal Herria**

**Mahai** bat osatu behar da Euskal Herri osoari begira. **Berria - Euskal Herria**

Grebari eutsi diote sindikatuak **Mahai** Sektoriala bildu eta gero. **Berria - Euskal Herria**

Joan den apirilaren 29an, administrazio sektoreko **mahaia** batu zen Gasteizen. **Xabier Montoia**

Bide Eginez prozesuaren ondorioz sortutako **Mahai** Nazional berriaren lehen agerraldi publikoa izan zen Iruñekoan. **Berria - Harian**

Lan zamaz hitz egiteko **mahaia** utzi dute Izar taldeko langileek. **Berria - Ekonomia**

Metalaren **Mahaia** osatzen zuten lau sindikatuak. **Berria - Ekonomia**

Gero, osatu dute legebiltzarreko bulegoa, **mahaia** deitzen dutena. **Herria**

Legebiltzarreko **Mahaia** osatzen duten bost legebiltzarkideak. **Berria - Harian**

### 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Epaileek kontratazio **mahaia** berriz osatzeko agindu dute. **Berria - Euskal Herria**

Irakaskuntza **Mahaia** maiatzaren 15ean lehendabizikoz bildu zenetik. **Berria - Euskal Herria**

Araozari irtenbidea bilatzeko osatutako udal- **mahaia** tresna garrantzitsua dela berretsi zuen. **Berria - Euskal Herria**

Elkarrizketa **mahai** bat sortzearen alde sinadura bilketa berezia egiten du Elkarrizketa etzi. **Berria - Euskal Herria**

Elkarri-ri iradokitzen diogu Alde Anitzeko Gogoeta **Mahaia** egiten ari den lanarekin jarrai dezala. **Berria - Euskal Herria**

Negoiazio **mahai** horietan Iparraldearen boza entzunaraztea eta Iparraldeko beste partaideak inplikaraztea da gure erantzukizun politikoa. **Berria - Euskal Herria**

Erresoluzio **mahaia** abian jartzea da momentuaren lehentasuna. **Berria - Harian**

Duela bi urteko mobilizazio hari begira, krisi **mahaia** sortu zuen Herrizaingo Sailak. **Berria - Euskal Herria**

### 8 gau mahai (orobat gaumahai)

Bi kandela zeuden piztuta **gau-mahaian**. **Josu Zabaleta**

**Gau mahaia** eta lanpara txikia emaztearen aldean. **Koro Navarro**

Bi lanpara oparitu zizkiguten logelako **gaumahaietarako**. **Patxi Zubizarreta**

Arrosak askatu eta **gau-mahai** gainean ezarri zituen. **Lopez de Arana**

**Gaumahaian** gainean zeukan liburu batean. **Anjel Lertxundi**

Betaurrekoak **gau** -mahaitik hartu niotu. **Aingeru Epaltza**  
**Gau mahaiko** tiraderan gorde nuen. **Aritz Gorrotxategi**  
**Gaumahaiko** edalontzia. **Harkaitz Cano**

## 9 **mahai futbol** futbol zelai bat irudikatzen duen mahai batean jokatzeko den jokoa, futbol partida bat imitatzen duena.

Gastonek egiten zizkidak eskaintzak ere, igandean **mahai futbolean** egiteko egiten zizkidan proposamenak, **Josu Zabaleta**

## 10 **mahai gainean jarrisup\_1 (kartak)**

Heldu da kartak **mahai gainean jartzeko** unea. Beraz, **jarri** kartak **mahai gainean** eta hel diezaiozun arazoari, hasiera hasieratik bizkor ibil gaitezen. **Miguel Angel Mintegi**

Goi bileran denek kartak **mahai gainean jarri** eta hitzarmenak egiteko noraino gauden prest esateko tenorea da. **Berria - Mundua**

## 11 **mahai gainean jarrisup\_2 (gauza abstraktuak) ik mahairatu 3.**

Gure arrazoiak **mahai gainean jartzen** genituen, indar osoz, baimenik eskatu gabe. **Txema Ramirez de la Piscina**

Pisuzko argumentuak **jarriko** dituzte **mahai gainean**. **Pello Salaburu**

Zure bizitzako aukerarik aparteena **jarri** dizut **mahai gainean**! **Anjel Lertxundi**

Petrolioaren garestitzeak **mahai gainean jarri** du berriz energiaren gaia. **Berria - Gaiak**

ETAren su-etenak **mahai gainean jartzen** duen galdera. **Joseba Zulaika**

Hamar batzordeek abenduaren 28an bukatu zituzten euren lanak eta presidentetzaren **mahai gainean jarri** zituzten lan taldeen ondorioak. **Berria - Mundua**

Herri galdeketa buruz hitz egiten denean inork ez du **mahai gainean jartzen** zer galdetu behar zaion herriari. **Berria - Euskal Herria**

## 12 **mahai inguru (orobat mahainguru g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian mahai(-)inguru agertzen da) iz**

**Mahai-inguruko** parte-hartzaileek eta entzuleek. **Berria - Euskal Herria**

Joan den asteburuan **mahai-inguru** batean parte hartu zuen, PBS kate publikoan. **Berria - Harian**

**Mahai-inguru** bat ere antolatuta dute, maiatzaren 13an, Euskal Herriko gizarte, politika eta kultura aztertzeko. **Berria - Kultura**

Hala entzuten nion behin, **mahainguru** batean, literatur itzulpenak menosten dituen [...] hizkuntzaren teknokrata bati: [...]. **Anjel Lertxundi**

Hogei ponentzia, bi **mahai-inguru** eta 20 komunikazio izango dira lau eguneko egitarauan. **Berria - Euskal Herria**

Unibertsitatean, bertsoetan, **mahai inguru**, debate, tertulietan, etxean, kalean eta komunikabideetan. **Joxerra Garzia**

Noren lanak zein hizkuntzataraz itzuliak diren, horrexen arabera hautatzen gaituzte **mahai inguru**, mintzaldi eta halakoetarako. **Edorta Jimenez**

**Mahaingurua** hooligan batekin. **Bernardo Atxaga**

12:15-14:00: **Mahai-ingurua**: 'Langilea eta lanbidea'. **Berria - Euskal Herria**

19:30: 'Behin batean Donostian' **mahai-ingurua**, Udal Liburutegiko ekitaldi aretoan, Inazio Mujika Iraola, Iñaki Egaña eta Carlos Rilovarekin. **Berria - Kultura**

Torturari buruzko **mahai-ingurua**. **Berria - Harian**

Produkzioaren inguruko **mahai-inguruak** ikuspegi ekonomikotik heldu zion gaiari. **Berria - Kultura**

Adierazpen Askatasuna Euskal Herrian izango da **mahai-inguruaren** ardatza. **Berria - Euskal Herria**

Maiatzaren 13ko **mahai-inguruaren** gaia. **Berria - Euskal Herria**

## 13 **mahai-lagun iz** mahaikidea.

Bere sekretu guztia eman zuen jakitera, bere bizitza alferrik galduren istorio gordin ergel guztia, bere barnea husten zuelarik, aldika barrez eta aldika negarrez, sinesten lanak zituen bere **mahai**-lagunaren aurrean. **Oskar Arana**

Aski izaten zen mahai on baten inguruan bildutako **mahai**-lagunetako batek keinu txiki bat [...] denak mugitzen hasteko eta bakoitzak bere etxetik mairu jantzi airosoa bihurtuko zen maindire bat eta behin-behineko durbantea bihurtuko zen toaila bat ekartzeko. **Askoren artean**

## 14 **mahai oihal (28 agerraldi, 19 liburua eta 2 artikulutan; orobat mahaioihal g.er.)** jatorduetan mahaia estaltzeko eta babesteko ipintzen den zapia. ik beherago 17

Emazteek orduak lisatzen eta bazkari apailatzen nahiz bastatzen, azpiltzen, josten, **mahai oihal** brodatzen edo trikotatzen pasatzen zituzten. **Itxaro Borda**

Nik gogokoa nuen geltokiko buruaren emaztea; gauaz bulegoan esertzera etortzea atsegin zuen, eta gakorratzaz **mahaioihal** bat egiten zuen. **Fernando Rey**

**Mahai**-oihalera ardo-zipritzina eta espagietien tomate-izpiak isuriak ziren. **Lopez de Arana**

Paperezko **mahai**-oihalean eguzki-biribil bat dago. **Monika Etxebarria**

Jai handietako **mahai**-oihala. **Joan Mari Irigoien**

Mundua etorri zitzaidan gainera, lanparatxoak, basoak, **mahai**-oihala. **Fernando Rey**

## 15 **mahai tenis** ping-pong-a.

Kirol ekitaldiak: saski baloi, errugbi, pilota, ur-polo, **mahai-tenisa**, karrika-hokeia, kanoe-kaiaka, **tenisa** ... **Herria**

**Mahai-tenisean** jokatzeko da euren ogibide bakarra. **Berria - Kirola**

**Mahai-tenis** jokalariek batekin zein dohain izan behar dituen galdetuta, Wuk eta Rodriguezek ez dute zalantzarik. **Berria - Kirola**

Bada esaera bat dioena Txinak hiru botere dituela: Alderdi Komunista, Armada eta **mahai-tenis** selekzioa. Ieka enea **mahai-tenis** taldea. **Berria - Kirola**

## 16 **mahai tolesgarri**

Van Daan jaunak ez zekarren pixontzirik, baina bai tea hartzeko **mahai tolesgarri** bat besapean. **Josu Zabaleta**

## 17 **mahai zapi<sup>1</sup> (11 agerraldi, 10 liburutan; orobat mahaizapi g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian mahai(-)zapi agertzen da)** mahai oihala.

Nik gogokoa nuen geltokiko buruaren emaztea; gauaz bulegoan esertzera etortzea atsegin zuen, eta gakorratzaz **mahaioihal** bat egiten zuen. **Fernando Rey**

Zerbitzaria **mahai**-zapiak kentzen hasia zelako. **Ramon Saizarbitoria**

**Mahai zapiari** begiratzen zion, eta dudazko mugimenduak egiten zituen labana eta sardearekin. **Koro Navarro**

Hemen ez dago ez **mahai-zapi**, ez aitzo, ez tael, ez plater, ez etxe. **Askoren artean**

Nire senideek edo nik **mahai**-zapiaren gainera baso bat irauli edo labana bat lurrera erortzen uzten bagenuen, aitaren trumoi-ahotsa aditzen zen. **Fernando Rey**

Zuloan eguneroko kartara jaten duk, **mahai**-zapi, ezpain-zapi eta guzti, eta funtzionarioek zerbitzatuta. **Pedro Alberdi**

## 18 **mahai zapisup\_2 (orobat mahaizapi)** mahaian erabiltzen den eskuzapia.

Neskak berak luzatu zidan eskua garbitzeko **mahaizapia**. **Aingeru Epaltza**

-Beno, zer moduz Mexikon, hire bakantzetan? -galdetu zion **mahai zapia** belautzen gainean ezartzen zuen bitartean. **Josetxo Azkona**

### hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

alderdien mahai (20); antolatutako mahai (10); batasuneko mahai nazionalak (23); batasuneko mahai nazionaleko (11); bi mahai eratzea (7); bulegoko mahai (7); egongelako mahai (8); egurrezko mahai (11); elkarrizketa mahai (28); elkarrizketa mahai bat (11); eskuak mahai gainean (7); eztabaida mahai (7); hbko mahai (8); jangelako mahai (7)

mahai aldera (8); mahai apal (7); mahai atzean (8); mahai aurrean (27); mahai azpian (39); mahai azpiko (14); mahai azpira (13); mahai azpitik (17); mahai bakarra (8); mahai bat osatu (8); mahai bat osatzeko (7); mahai batean eseri (28); mahai batean eserita (15); mahai biribil (12); mahai biribileko (15); mahai gaina (13); mahai gainean ezarri (14); mahai gainean ipini (19); mahai gainean izan (9); mahai gainean jarri (117); mahai gainean jarriko (10); mahai gainean jarrita (9); mahai gainean jarritako (19); mahai gainean jarriz (8); mahai gainean jartzea (14); mahai gainean jartzeko (24); mahai gainean jartzen (27); mahai gainean utzi (92); mahai gainean utzitako (7); mahai gainean utziz (7); mahai gainean uzten (17); mahai gainean zabaldu (10); mahai handi (17); mahai handi bat (10); mahai handiaren (7); mahai inguru (76); mahai inguru bat (9); mahai inguru batean (15); mahai inguru (93); mahai inguruaren (14); mahai inguruaren (14); mahai inguruaren (14); mahai inguruaren (15); mahai inguruaren (8); mahai inguruetan (11); mahai inguruko (15); mahai luze (28); mahai luzearen (9); mahai nazional (17); mahai nazional berria (8); mahai nazionala (15); mahai nazionalak (38); mahai nazionalaren (18); mahai nazionalako (25); mahai nazionalako kide (11); mahai sektoriala (11); mahai tresnak (15); mahai txiki (30); mahai txiki bat (14); mahai txiki baten (8); mahai txikiaren (7); mahai zapi (9)



marmoleko mahai (7); negoziatza mahai (22); proposamena mahai gainean (15); proposamenak mahai gainean (18); sukaldeko mahai (42); sukaldeko mahai gainean (26); tabernako mahai (7); zurezko mahai (12)

alderdien arteko mahaia (17); alderdien mahaia (177); alderdien mahaia eratzea (10); alderdien mahaia eratzeko (19); alderdien mahaia osatzea (11); alderdien mahaia osatzeko (21); elkarrizketa mahaia (38); elkarrizketa mahaia eratzeko (10); gatazkaren konponbiderako mahaia (11); gau mahaia (7); konponbiderako mahaia (42); kontratazio mahaia (7); mahaia eratu (12); mahaia eratzea (25); mahaia eratzeko (48); mahaia inguratu (7); mahaia jarri (9); mahaia jaso (8); mahaia jasotzen (7); mahaia jo (9); mahaia osatu (18); mahaia osatzea (24); mahaia osatzeko (46); mahaia osatzen (16); mahaia osatzen duten (7); mahaia prestatzen (7); mahaia sortzea (16); mahaia sortzeko (8); mahaia sustatzeko (7); mahaia utzi (11); negoziazio mahaia (37); sektoreko mahaia (12)

alderdien mahaia (19); epai mahaia (14); eusko legebiltzarreko mahaia (29); hitzarmenerako mahaia (19); konponbiderako mahaia (7); kontratazio mahaia (15); legebiltzarreko mahaia (64); mahaia atzera bota (7); mahaia eta aulkiak (8); mahaia jarri (11); negoziazio mahaia (8); parlamentuko mahaia (10)

alderdien mahaian (37); elkarrizketa mahaian (14); gau mahaian (12); legebiltzarreko mahaian (8); mahaian eseri (84); mahaian eseri zen (11); mahaian eseriko (7); mahaian eserita (48); mahaian esertzea (8); mahaian esertzeko (14); mahaian esertzen (8); mahaian jarri (31); mahaian jarrita (8); mahaian jartzen (7); mahaian utzi (29); mahaian utzi zuen (11); mahaian zehar (14); negoziazio mahaian (44); sukaldeko mahaian (30)

alderdien arteko mahaia (8); alderdien mahaia (43); elkarrizketa mahaia (9); epai mahaia (9); gau mahaia (14); gau mahaia gainean (10); konponbiderako mahaia (9); lan mahaia (10); legebiltzarreko mahaia (8); mahaia aurrean eseri (8); mahaia beste aldean (14); mahaia bueltan (8); mahaia erabakia (7); mahaia erdian (31); mahaia ertzean (13); mahaia gainean utzi (13); mahaia inguruan (50); mahaia kontra (19); mahaia mutur batean (7); sukaldeko mahaia (28); sukaldeko mahaia gainean (9)

alderdien mahaia (18)

mahaia metodologia (10)

negozio mahaia (8)

eusko legebiltzarreko mahaia (13); gau mahaia (19); hitzarmenerako mahaia (9); kontratazio mahaia (8); legebiltzarreko mahaia (27); mahaia kide (10); mahaia kideek (8); mahaia kideen (9)

epai mahaia (7)

mahaia baten inguruan (9); mahaia eder (7); mahaia inguru (16); mahaia inguru bat (7); mahaia inguru (10); mahaia on (34); mahaia on baten (31)

elkarrizketa mahaia (7); konponbide mahaia (7); lan mahaia (11); mahaia eraman (10); mahaia eseri (31); mahaia eserita (15); mahaia etorri (8); mahaia hurbildu (46); mahaia hurbiltzen (7); mahaia itzuli (24); mahaia joan (15); negoziatio mahaia (14)

gau mahaia (11); mahaia altxa (11); mahaia altxatu (41); mahaia altxatu zen (9); mahaia jaiki (16)

## mahaialdi iz mahaian igarotzen den denbora.

Non ote zeuden behialako **mahaialdi** luze oparo haiek, familiako guztiak argimutil handien argitasunean, portzelanazko zerbitzuz, zilarrezko tresneriaz eta almidoiztaturiko mahai-zapiez hartu ohi zirenak? **Joxan Elozegi**

Beti utzi izan dut kafesnearen azken tragoxka katiluan, **mahaialdia** luzatzeko zilegitasun antzeko bat ematen didalako. **Lander Garro**

## mahaiburu (34 agerraldi, 19 liburu eta 6 artikulutan; orobat mahai buru 6 agerraldi, 4 liburu eta artikulua 1ean, eta mahiburu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian mahaiburu agertzen da) 1 iz mahaiko toki nagusia.

Beste bost kideekin **mahaiburuan** eserita. **Hasier Etxebarria**

Ezteietara gonbidatzen zaituztenean, ez jarri **mahaiburuan**, zu baino gonbidatu ospetsuagoren bat izan daiteke eta. **Elizen arteko biblia**

Oraindik **mahaiburuan** esertzeko zegoela. **Ramon Saizarbitoria**

Musika isildu zenean, **mahaiburuan** eseri zen Santxo. **Patxi Ezkiaga**

-Ikaragarria da... -esan zion diademadun emakumeak **mahaiburuko** gizon aurpegi luze tabako-kolorekoari-. **Lopez de Arana**

Narros jauregiko markes jauna anfitrioi-lanak egiten ari zen **mahaiburutik**. **Anjel Lertxundi**

## 2 mahaiburuan dagoen pertsona; epaimahaietan eta, buru gisa aritzen dena.

Eskutitz bat zuzendu zion **mahaiburuari**, esanez, informazio zuzena ez izateak ez ziola errealitatea behar bezala konprenitzen utzi. **Rafa Egiguren**

Beste bost kideekin **mahaiburuan** eserita **Hasier Etxebarria**

## 3 (adizlagun gisa)

Bikila zegoen **mahaiburu**, baina ez zion entzun. **Rafa Egiguren**

Zuzeko atletik gertuen zeudenean (haien artean **mahaiburu** zeudenean, eta hartan, erdian eseririk, neke handirik gabe Guebokinder zela identifikatu nuenak) ikusi ninduten. **Jon Alonso**

**Mahaiburu** aukeratu bazaitzute, ez harropuztu, jarri gainerakoan maila berean; arduratu besteez, eta eseri gero. **Elizen arteko biblia**

Berak ezetz esan arren, Don Kijote eserarazi **zuten** mahai-buruko. **Patxi Ezkiaga**

## 4 (hitz elkartuetan)

Haiek amaitzean, saioa hilaren 6ra arte etetea ebatzi zuen Angela Murillo epai-**mahaiburuak**. **Berria - Euskal Herria**

## mahaiburugo iz mahaiburuaren kargua.

Aipatu ere gabe, bestalde, Dekano gisa graduak ematean, **mahaiburugoa**, aholkularitzan hunki nezakeena eta, azkenik, mundu osoan ezagutu dudana lurralderik goxoenean eta osasuntsueneko erret jauregian urriko egoteko eskubidea. **Piarres Xarriton**

## mahaigain (orobat mahai gain) iz mahaiaren gaina.

Eskuinean, karta jokoan ari dira artilezko **mahai**-gain batean. **Monika Etxebarria**

Hatzez ukitu zuen gertuen zuen **mahai** gaina. **Felipe Juaristi**

**Mahai**-gainak hala ere, hutsik ziren gehienak. **Edorta Jimenez**

Linux sistema eragile askea eta Appleren betiko **mahaigaina** konbinatu dituzte Mac Os X-an. **Berria - Gaiak**

Erabiltzaileentzat **mahaigain** erraza, Windows baino gardenagoa. **Berria - Gaiak**

## mahaigaineratu, mahaigainera(tu), mahaigaineratzen 1 du ad mahai gainean jarri. ik mahairatu 2.

Neure egitekoak abandonatu izanak arategatua sartu nintzen hara, baina zerbitzariak **mahaigaineratutako** gosariak hobera bidean ninduen. **Aingeru Epaltza**

## 2 (gauza abstratuak) mahairatu.

Urruneko lurralde horren kulturaren eta idazlearen kulturaren arteko elkarrizketa **mahaigaineratuko** dute. **Berria - Kultura**

Erran zitekeen nire galderak **mahaigaineratzen** zuen arazoa lehen aldiz ari zela aintzat hartzen. **Aingeru Epaltza**

Premia ere bai, aspalditik, hari gauzak garbi **mahaigaineratzeko**. **Joxe Austin Arrieta**

Ez al da garaia, ordea, tabua hausteko eta galdera **mahai-gaineratzeko**? **Joseba Zulaika**

Halaxe **mahaigaineratzen** du Txillardegiak auzia: [...]. **Markos Zapiain**

Espainiak, Austriak eta Suediak dudak **mahaigaineratu** zituzten. **Berria - Ekonomia**

# mahaikide *(orobat mahainkide g.er.)* 1 iz mahai batean jatera biltzen den lagun bakoitza. ik mahai 14.

Afalten hasi aurretik, Anastasiok **mahaikideei** jakinarazi zien beren aitak agindu ziona. **Aitor Arana**

Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzan egin zuen, eta atsegin izan zitzairen Herodesi eta honen **mahaikideei**. **Elizen arteko biblia**

Omordiko jan gela zabalean, bete bete zen, **mahainkide** bazkaltier alaiez. **Herria**

Desozializazioa: janariak **mahaikiderik** gabe, bakardadean egingo ditu gizabanakoak. **Edorta Agirre**

**Mahaikiderik** ezean, liburu bat lagun ona izan zitekeela otu zitzaidan. **Iban Zaldua**

Ez naiz gezurtien **mahaikide** izan, ez eta itxuratiekin batera ibili. **Elizen arteko biblia**

**mahaikide** dugun adiskideak. **Edorta Agirre**

Izan itzazu **mahaikide** pertsona zintzoak. **Elizen arteko biblia**

**Mahaikide** nituen Clevelandeko estenotipista neskazahar Europa bisitatzeko premia hertsia sentitua omen zuten haiekien ere mintzatzen nintzen. **Joxe Austin Arrieta**

## 2 mahai batean zerbait kudeatzeko, erabakitze edo eztabaidatzeko biltzen diren lagunetako bakoitza.

Juan Maria Atutxa, Gorka Knörr eta Kontxi Bilbao Eusko Legebiltzarreko **mahaikideen** defentsak. **Berria - Harian**

Ramon Zallok, tribunaleko **mahaikide** baitzen, ohartarazi zigun han bilduoi SKK aurkeztu zuen txostenean ez zela 1980az geroztiko aipu bibliografikorik egiten. **Joxerra Garzia**

Otegi eta Batasuneko beste sei **mahaikideak** aske utzi ditu Grande Marlaska epaileak. **Iñigo Aranbarri**

Batasuneko **mahaikide** Eusebio Lasak nahitaezko iritzi zion, «burujabetza ekonomikoa» lortzeari. **Berria - Ekonomia**

Juan Maria Atutxa, Gorka Knörr eta Kontxi Bilbao Eusko Legebiltzarreko **mahaikideen** defentsak. **Berria - Harian**

Joseba Permach **mahaikideak** adierazi zuenez, hauteskondeekin batera «salbuespen egoera ezarri dute Euskal Herrian». **Berria - Euskal Herria**

Luis Maria de Puig Oliver, Miquel Caminal eta Xavier Arbos adituak izan zituen **mahaikide**. **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**batasuneko mahaikide** (58); **hbko mahaikide** (3); **herri batasuneko mahaikide** (4); **mahaikide izan** (7); **mahaikide ohia** (4); **mahaikide ohiak** (5)

**batasuneko mahaikidea** (29)

**armendariz mahaikideak** (4); **arnaldo otegi mahaikideak** (8); **barrena batasuneko mahaikideak** (19); **barrena mahaikideak** (11); **batasuneko mahaikideak** (105); **esan zuen mahaikideak** (3); **goirizelala batasuneko mahaikideak** (3); **legebiltzarreko mahaikideak** (3); **mahaikideak adierazi** (3); **mahaikideak adierazi zuenez** (3); **mahaikideak aske utzi** (3); **otegi mahaikideak** (8); **permach batasuneko mahaikideak** (11); **permach mahaikideak** (9); **pernando barrena mahaikideak** (11); **salatu zuen mahaikideak** (4)

**barrena batasuneko mahaikidearen** (3); **batasuneko mahaikidearen** (14); **batasuneko mahaikidearen arabera** (4); **batasuneko mahaikidearen ustez** (5); **mahaikidearen esanetan** (3); **mahaikidearen hitzetan** (3); **mahaikidearen ustez** (10)

**batasuneko mahaikideak** (14)

**eusko legebiltzarreko mahaikideen** (3); **hiru mahaikideen aurka** (3); **legebiltzarreko mahaikideen** (7); **legebiltzarreko mahaikideen aurkako** (4)

## mahain ik mahai.

## mahainguru ik mahai 12.

## mahaingurugai iz mahai inguru baten gaia.

Izan ere, mahainguru bat antolatu nahi nuen **mahaingurugai** eta mahaingurutsu izan zitekeen arazo bati buruz, hau da, aldi berean orokorra -txit orokorra- eta iheskorra -txit iheskorra- izango zen zerbaiti buruz. **Bernardo Atxaga**

## mahaingurutsu *izond*

Izan ere, mahainguru bat antolatu nahi nuen mahaingurugai eta **mahaingurutsu** izan zitekeen arazo bati buruz, hau da, aldi berean orokorra -txit orokorra- eta iheskorra -txit iheskorra- izango zen zerbaiti buruz. **Bernardo Atxaga**

## mahaininguru ik mahai 12.

## mahainkide ik mahaikide.

## mahaioihal ik mahai 14.

## mahaiondoko *izlag/iz* bazkalondo edo afalondokoa.

Ezin da kantatu intentsitate berean **mahaiondoko** saio batean, berrogeita hamar bat entzuleren aurrean eta txapelketa bateko finalean, 10.000 lagunek leporaino bete duten esparru batean. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Biziki azkartu da azken urteotan bertsolariek horren baldintzaturik ari behar ez duten saio moten aldeko joera (saio libreak, **mahaiondokoak** eta abar). **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

## mahaipse 1 iz mahai azpia.

Mahaia eta trasteak altxatu dituzte, eta orduan ikusi du Gabinek **mahaipse** izandakoa dena txirbiltzoz josita, egindako lanaren aztarna, hondar. **Iñaki Iñurrieta**

Oso txikia zen, eta bere borondatez ez zuen sukaldeko armairu edo **mahaipsearen** babesik uzten. **Pako Aristi**

## 2 (leku atzizkiekin)

**Mahaipetik** atera eta gainean eseri naiz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Aurrean zuen gizonak eskuak **mahaipera** eraman zituela arin baino arinago. **Felipe Juaristi**

Adi jarri zirela horregatik, eskuak **mahaipean** pistola estaliz, gizona gobernu berriko zerbizari izan zitekeelakoan. **Felipe Juaristi**

Hordi zerraldo erori zen **mahaipean**. **Mahaipeko** ostikoak EADSkok buruzagitzat eskuratzeko. **Josu Zabaleta**

# mahairatu

, mahaira, mahairatzen 1 da *ad* mahaian jarri.

Bilkuretari etxerakoan **mahairatzen** naiz, Xiberoko Botza irratia piztu ondoan, hozkailutik gasna peza gottorra ilkirik desiraren ausiki ozenez gauaren hondarki ilunak irensten ditut. **Itxaro Borda**

Kaliforniako baso bat ardo txuri eta egunkaria eskatu zizkion zerbitzariari **mahairatzean**. **Iñaki Zabaleta**

Ilunkeran, leihotik, Koloman ikusten dut, ohi bezala atzeko gelan **mahairaturik**. **Eskarne Mujika**

Sekula ez ahaztu hamahiru elkarrekin **mahairatzen** direnean, aurrena altxatzen dena hilko dela lehenengo! **Iñaki Mendiguren**

## 2 du *ad* mahaian jarri. ik mahaigaineratu.

Afaria berehala **mahairatuko** zuela esan zidan. **Iban Zaldúa**

Ordu pare baten buruan, urin pankreatikoek gose atzeraezina iragartzen zioten, ordea, eta camember gazta puska usaintsu bat **mahairatu** zuen, errioxako ardo beltzaren laguntzaz jateko asmoz. **Karlos Linazasoro**

Zerbitzariak berotegiko fruta **mahairatzen** dute. **Xabier Olarra**

Jesar zaitetz, mesedez, esan dio Lainezek Juanari, honek arrautzak eta patatak **mahairatu** dituenean. **Pello Lizarralde**

## 3 (gauza abstraktuak)

Ahal duen bezain ezteki **mahairatuko** du berriro bere galdera. **Oskar Arana**

Bi proposamen **mahairatu** ditu. **Berria - Euskal Herria**

Egoeraz balliatuta eta alkoholaren indarrak harrotuta, Lauaxetari buruz azken egunotan buruan bueltaka ibilitako ideia edo teoria batzuk **mahairatu** nituen. **Juan Luis Zabala**

Klimatologiak **mahairatuko** dizkion datuak aztertu, hango eta hemengoak erkatu, [...]. **Pello Zabala**

Ez baitut aldartea hondatu nahi hain gai ezatsegina **mahairatuz**. **Oskar Arana**

Mende bukaera nahasiaren bezperan Euskal Herria kolpatzen zuten gaiak **mahairatu** genituen, deus ez bailitzan: euskararen biziraupena, ikastolen estatutua, [...]. **Itxaro Borda**

Legegintzaldi berriaren hasieran auzia **mahairatzea** eta etabaidatzea «positiboa» dela adierazi du. **Berria - Mundua**

Baina une honetan bi auzi **mahairatzen** zaizkigu: gertaldien artekoa al da erlazio kausala? zer da gertaldi bat? **Askoren artean**

Horiek horrela, filosofoek **mahairatu** dituzten politikari buruzko galderak ere asko eta askotarikoak izan dira. **Askoren artean**

Azkenik, XX mendeko Estetikaren azken garapenak **mahairatuko** dira. **Askoren artean**

## mahaitar *iz* mahaikidea.

Hirugarren **mahaitarra**: ez du gauza askorik esaten. **Josu Zabaleta**

## mahaitto *iz* mahaittoa.

Ohe ondoko **mahaittoan** aitatxiren argazki bat badu, hiru urte horietan hor daukana, hots, aitatxi ehortzi zuten egunean ezarri zuena. **Eneko Bidegain**

## mahaitxo 1 *iz* mahai txikia.

**Mahaitxo** bakoitzean kristalezko bola distiratsu bat zegoen, nakar-itxurako lainoz betea. **Iñaki Mendiguren**

Beste bi **mahaitxo**, bat handixeagoa, bestea txixixeagoa. **Josu Zabaleta**

**Mahaitxo** batean liburu-meta bat zegoen. **Iñaki Mendiguren**

**Mahaitxoaren** beheko tiradera zabaldu eta gutunazal handi bat atera nuen elastikoen azpitik. **Anjel Lertxundi**

Egongelako **mahaitxoan** gosari-ontziz beteriko erretilu bat uzten ikusi nuen logelako ate erdi zabaldutik. **Anjel Lertxundi**

Biharamunean, utzitako tokian ikusi nituen loreak, harrerako **mahaitxoan**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Telefonoa zegoen **mahaitxo** ondora. **Migel Angel Mintegi**

Kaobazko **mahaitxoaren** gainean. **Josu Zabaleta**

Marmolezko **mahaitxo** batean eseri zen trabeska. **Karlos Zabala**

**Mahaitxo** biribil bat, kakorraz lanez estalia. **Karlos Zabala**

## 2 (*cf* *beherago* 4)

Gaueko **mahaitxoaren** gainean biblia zeukan zabalik. **Gotzon Garate**

Edurneren eskuak ohe ondoko **mahaitxora** bihurtu ziren. **Aingeru Epaltza**

Orduari begiratu zion ohe ondoko **mahaitxoan** zegoen iratzargailu argidunean. **Iñaki Mendiguren**

Nire ohe galantaz landa, besaulki batek, **mahaitxoak**, armairu beltz batek eta intentsitate erregulagarriko lanparak osatzen zuten altzaritegi urria. **Aingeru Epaltza**

## 3 (hitz elkartuetan)

Ordubeta eta hogeit minutuko emanaldian zehar guztiz jarrera estatiko eta hermetikoan azaldu zen artista, kanpin **mahaitxo** baten aurrean jesarrita. **Berria - Kultura**

Lizarrakoa du gogoan Mendoazak, Guardia Zibil bi ere hurbildu zirelako jarri zuten propaganda **mahaitxora**. **Berria - Euskal Herria**

## 4 *gau mahaitxo* (*orobat gaumahaitxo*) gau mahaia.

Telekomando bat dago ezkerreko **gau-mahaitxoan**. **Mikel Hernandez Abaitua**

**Gaumahaitxoetako** rutinaren lekukotza ematen duten erretratu gogaikarriak. **Harkaitz Cano**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gau mahaitxoan** (3); **mahaitxoan utzi** (6); **mahaitxoan zegoen** (3); **ohe ondoko mahaitxoan** (7)

**ohe ondoko mahaitxoaren** (4)

## mahaitzar *iz* adkor mahai handia.

Bateko beladorea besteko **mahaitzarra** bezain handia zen, eta pufa Parrottinen sorbaldaren parean egonen zen. **Monika Etxebarria**

Bereziki erakartzen ninduen zerbitz zegoen han barruan: eszenatokia osatzen zuten **mahaitzarrak**, alegia, haien azpian, zurezko hanka lodien artean, ehundaka abentura asma bainitzakeen. **Iban Zaldúa**

## mahaizain *iz* jatetxe edo oturuntza batean mahaian edo mahai baten ardura duen pertsona.

beste janari-plater bat ekarriaz hurbildu zitzaion gero **mahaizaina**. **Mahaizainak** ardo bihurtutako ura dastatu zuen, nongoa zen jakin gabe. **Patxi Ezkiaga**

**Mahaizainei** agindua zien berak eta bazkaldar bakoitzak nahi zuena egiteko. **Eiizen arteko biblia**

Ordu batean edo ordu bietan, Shevirev doktoreak ezagutzen zuen lagun talderen bat iristen zen [...]; iritsi berriak gela berezi batean esertzen ziren eta **mahaizainak** haiengana joatera gonbidatzen zuen Shevirev. **Jose Morales**

mahaizapi ik **mahai 15**.

mahasbiltze ik **mahats**.

**mahaska** *iz* mahats biltzea.

Mendema eta **mahaska** egiteko, aro lehor egonkor siku eta eguzkiaren konpainiaduna hobe. **Pello Zabala**

mahasparra ik **mahats**.

**mahaspasa** (*orobat mahats-pasa g.er. eta maspasa g.er.*) **1** *iz* mahats ale idortua, guztiz gozoa.

Irina, piku-opilak, **mahaspasa**, ardoa, olio, behi eta ardi ugari. **Elizen arteko biblia**

Ez du inolako mahats-zukurik edango, ez eta mahatsik edo **mahaspasarik** jango. **Elizen arteko biblia**

Gu bakarrik utzi aurretik, poltsikoak **mahats**-pasaz bete zizkigun. **Juan Kruz Igerabide**

**Mahaspasa** maskalak, sagar makatzak, basaran garratzak... **Iñaki Arranz**

Bi libra **mahaspasa**. **Anton Garikano**

**Mahaspasazko** ogi bat egiteko. **Anton Garikano**

Miepek **mahats** pasazko pastel bat bidali digu. **Josu Zabaleta**

**Mahaspasazko** plumcake zoragarria atera zenuen xorrotik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**2** *adkor* mozkorraldia.

**Mahaspasa** galanta zeneraman aldean kabroi horrek! **Unai Iturriaga**

-Hau da **mahaspasa** martitzen buruzuri batean! **Unai Iturriaga**

**3** (hitz elkartuetan)

Piku-opil puska bat eta bi **mahaspasa** -mordo ere eman zizkieten. **Elizen arteko biblia**

Ogia eta okela-zati bana eta **mahaspasa** -opil bana eman zizkien. **Elizen arteko biblia**

**mahaspasadun** *izond* mahaspasak dituena.

Edozer zuen jaki kutun -ogi eta gurinez egindako budina, **mahaspasaduna**, patata-orezko pasteltxoak, gazta eta eskabetxea, eltzekariak eta erregosiak-, amak gertaturiko edozer. **Mirentxu Larrañaga**

**mahasti 1** *iz* mahatsondoak landaturik dauden saila.

Bazterrak **mahasti** eta arbola fruitudunez beteak daude. **Piarres Aintziart**

**Mahasti** asko landatu dira Nafarroan. **Berria - Ekonomia**

Hemen ezin daiteke esne behi bat edo **mahasti** bat jarri Europako Batasuneko agindurik gabe. **Berria - Euskal Herria**

Saldu iezadazu **mahastia**, edo, nahiago baduzu, beste **mahasti** bat emango dizut haren ordez. **Jose Antonio Mujika**

Bihar ezponda batean edo **mahasti** batean azalduko naiz tirokatua. **Koldo Izagirre**

Muino leunetan, **mahasti** beti berdinen artean. **Josu Zabaleta**

Uzta distiratsua eta **mahasti** alaiak. **Xabier Amuriza**

Valdeorras inguruko **mahasti** okertuek harrizkoak dirudite, kuartemarioko piztizarren saihsak bailiran. **Pako Aristi**

Itsasoari begira, **mahasti** berdeen erdian. **Berria - Kultura**

**Mahasti** zaharraren landatzaile tristeak ere denboren gainbehera salatzen eta gizaldia madarikatzen du. **Xabier Amuriza**

Sodomako **mahastietako** mahatsondo dira. **Jose Antonio Mujika**

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Three Rivers inguruko **mahasti** sailen artean. **Bernardo Atxaga**

Makaletara lotutako **mahasti** ilaraz. **Koldo Biguri**

Bestetik, golf zelaiek ezingo lukete **mahasti** azalera nabarmen murriztu. **Berria - Euskal Herria**

Mahastien artatzetik gelditu ziren garaztar anitz eta hor daude orain lehengo **mahasti** lekuak, kasko pelatuak... **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gero heldu zen **mahasti** moxtea, mahats aixurrekin, behargabeko aldaxkak kenduz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mahasti** eta **zuhaizak** (3); **mahasti jabeak** (4); **mahasti zainek** (3); **soro eta mahasti** (3)

**mahastia landatu** (7); **mahastia landatu zuen** (5)

**mahastiak hondatzen zizkieten** (4); **mahastiak landatu** (5); **soro eta mahastiak** (4)

**mahastiaren jabe** (4)

**mahastitik kanpora bota** (3)

**mahastidun** *izond* mahastia duena.

Palestina aldeko Galilea iparrean dagoen Karm-el mendi **mahastidun** hartatik. **Pello Zabala**

**mahastilari** *iz* mahastizaina.

**Mahastilari** eta ardoegileek. **Pello Zabala**

Basamortuan ere eraikei bideak, putzu ugari zulatu zuen, berrre-aldede asko baitzuen Xefela lautadan eta goi-lautadan; bai eta nekazariak eta **mahastilariak** ere mendietan eta alorretan, lurlangintza gogoko baitzuen. **Elizen arteko biblia**

## mahastitxo *iz* mahasti txikia.

Gogor salatu zuen Akab erregea, Naboti bere **mahastitxo** lapurtzearen egindako hoben odoltsuagatik. **Jose Antonio Mujika**  
Baina menea daukat atzo bezalako **mahastitxo** bat. **Piarres Aintziart**

## mahastizain *(orobat mahasti-zain g.er.)* 1 *iz* mahasti baten ardura duen pertsona.

Gutzira, 1.252 **mahastizainen** babesa lortu du UAGAk. **Berria - Ekonomia**  
Xavier Pierre Irulegiko **mahastizainen** kooperatibako zuzendariak. **Berria - Harian**  
Berriz ere, Bordeleko alde hortan bereziki, **mahastizain** eta arno saltzaleak kopeta zimur dabilta. **Herria**  
Indar haundiak egiten baitituzte gure **mahasti**-zainek kalitatearen hobetzeko. **Herria**  
Mahasti bat zuen Salomonek Baal-Hamonen; **mahastizain** batzuei utzi zien: zilarrezko mila txanpon dakarzkio bakoitzak fruituen ordain. **Elizen arteko biblia**  
Gizon batek mahastia landatu zuen eta harresiz inguratu; lurrean dolarea egin eta **mahastizainaren** dorrea eraiki zuen; gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen. **Elizen arteko biblia**

### 2 (hitz elkartuetan)

Baigorriko sotoak eta inguruko **mahastizain**-etxalde guzietan eman 10 arno jastatu dira eta aipatu osoki euskaraz. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**errioxako mahastizainen** (3); **irulegiko mahastizainen** (4)

## mahastizaintza 1 *iz* mahastizainaren jarduera.

**Mahastizaintzaren** krisia Frantzian. **Berria - Harian**  
Aho batez oniritzia eman dio Eusko Legebiltzarrak **Mahastizaintza** arautzeko EAEko Legeari. **Berria - Ekonomia**

### 2 (hitz elkartuetan)

EVENAK, Nafarroako Enologia eta **Mahastizaintza** Erakundeak. **Berria - Harian**

## mahastizale *iz* mahastizaina.

Kostaldekoko **mahastizaleek**, Lekeitiokoez adibidez, txakolinaren zain, oidiumaren aurkako tratamendua noiz egin, auririk ba ote zetorren jakin nahi zutela eta... **Pello Zabala**

## mahasturi ik maiastru.

## mahasturu ik maiastru.

## mahats *(orobat mats g.er.)* 1 (multzokaria) mahatsondoaren fruitua, mordoetan biltzen diren ale zuri, gorri edo beltzen multzoa.

Oliteko ondoan lurralde ederrak bazituen, ogi, **mahats**, oliba, fruitu, emaiten zutenak. **Michel Oronoz**  
Garia, artoa, **mahats** ugari. **Koldo Biguri**  
Emakumeek **mahatsa** eta almendrak bota zizkieten. **Koro Navarro**  
**Mahatsa** eta mizpirak jaten dituzte biek. **Xabier Olarra**  
**Mahatsez** beteriko saskietan. **Karlos Zabala**  
Zenbat ordainduko da aurtun kilo bat **mahats**? **Berria - Ekonomia**  
**Mahatsa** 0,6 euro eta 1,5 euro bitartean ordaindu zen kiloak. **Berria - Ekonomia**  
Larrua **mahats** beltza bezain beltz eta begiak almendra-kolore zituenak. **Felipe Juaristi**  
Zakurrek bazekitela **mahats** ona non zegoen. **Arantxa Iturbe**  
Mahatsondoak landatu eta **mahatsa** jan. **Elizen arteko biblia**  
Hazia erain orduko uzta biltzeko garaia izango da, **mahatsa** zapaldu orduko berriz biltzeko garaia izango da. **Elizen arteko biblia**  
**Mahatsa** dolarean bezala zapaldu du Jaunak Juda neskatxa ederra. **Elizen arteko biblia**  
Sasoi hartan **mahatsa** helduta zegoen. **Askoren artean**  
Hain zuzen ere, lehen **mahatsaren** garaia zen. **Jose Antonio Mujika**  
Bide bazterrean jarririk bihiz bihi molko bat biluziz **mahats** jaten ari naiz. **Piarres Aintziart**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mahats** kilo bakoitzeko ordaindutako kopuruak. **Berria - Ekonomia**  
**Mahats** zuku fermentatua. **Xabier Olarra**  
Borrokara eragiteko, **mahats** - eta masusta-zukua erakutsi zizkieten elefanteei. **Elizen arteko biblia**  
**Mahats** zukuzko botila bat, ardo gustu pixka bat duena. **Josu Zabaleta**  
Biak **mahats** lapa edaten ari zirelarik bordan. **Elena Touyarou**  
- **Mahats** patsa erretzen ari dira alkatararen batean- esan zuen idazkariak. **Josu Zabaleta**  
**Mahats** - eta fruitu-uzta handia bildu zuten. **Elizen arteko biblia**

### 3 (bildu aditzaren objektu gisa)

Hektarea bakoitzeko 6.500 kilo **mahats** beltz eta 9.000 kilo **mahats** zuri biltzea baimendu du. **Berria - Ekonomia**  
Garia jaso eta **mahatsa** bildu dutenek jango dute ogia eta edango ardoa. **Elizen arteko biblia**  
**Mahatsa** bildu baino lehen, loraldia igaro eta mahats-alea heltzen hastean, kimu berriak moztu egin ohi dira inauskaiaz, moztu eta bazterrean bota. **Elizen arteko biblia**  
Aurreko urtean **baino** mahats gutxiago bilduko da. **Berria - Harian**

Elorritik biltzen ote da **mahatsik** edo gartetik pikurik? Elizen arteko biblia

**Mahats** biltzeko garaian. Askoren artean

341.000 kilo **mahats** bildu dituzte, iaz baino %21 gehiago. Berria - Ekonomia

#### 4 mahats alea.

**Mahats** batzuk eguzkitan lehortzen dira, beste batzuk bildu eta zanpatu egiten dira. Juan Kruz Igerabide

Aukeratu zuen jateko **mahats** helduak zituen mahatsondo bat. Askoren artean

Ezti eta **mahats** bildu berriak ekarriz. Berria - Ekonomia

Arku elektrikoek **mahats** zimelak ziruditen, haizearen altzoan kulunkari. Lopez de Arana

**Mahatsak** berdeegiak ziren dudarik gabe. Piarres Aintziart

Taldeak Gabon Zahar gaueko **mahatsak** lasai asko jango ditu orain arte egindako lanaren ondoren. Berria - Kirola

Txakolina **egiteko** mahatsak datorren hilean jasotzen hasiko dira. Berria - Harian

#### 5 mahats landarea. ik mahatsondo.

Beheko baserriko lehen **mahats** ilaran zela guardiak azaldu ziren bidezidorrean. Koldo Izagirre

Belarretan utzitako **mahats**-adarrek suge beltzak ziruditen. Koldo Biguri

**Mahats** aldaka zenbaitek, ondoen artetik edo berdin bidean berean luzaki hedaturik, beren hosto jori zabalak goizeko eguzki goxoan hain nagiki etzaten dituzte non [...].

Piarres Aintziart

Three Rivers aldera doan bidetik joan gara lehenbizi, haraneko **mahats** sailak begietan izan arte. Bernardo Atxaga

#### 6 *andere mahats* fruitutzat mahatsaren antzeko ale garratzak ematen dituen zuhaixka (*Ribes sp.*)

**Andere mahatsa** jaten ari zen, fruituaren zukuak ahoa zikintzen zion kokotseraino eta sudurreraino. **Andere mahats** gorria, **andere mahats** beltza, hurrak barrez ari ziren begitarte lotsagabe. Karlos Zabala

**Andere mahatsaren** zainetan bere odol gorri pixka bat isurtzen uzten zuen. Karlos Zabala

Tarta bat masusta gorritz eta **andere-mahatsez** betea. Josu Zabaleta

**Andere mahatsezko** ardoa. Isabel Arrigain

**Andere-mahats** gorritzko errona. Iñaki Mendiguren

**Andere mahatsezko** likorea arratsean erosten zuen, goizean "makal" sentitzen zelako aitzakian. Karlos Zabala

Dezente bota zion **andere mahats** likoretik eta pattarretik gutxiengo. Karlos Zabala

#### 7 *mahats aihen* (orobat *mahatsaien g.er.*)

Haren atzealdean, areto margotu berriak **mahats aihen** freskoak zituen hondo leun baten gainean. Karlos Zabala

Mahastia bezala larrutu zuten harrapariak, **mahats-aihenak** soilduz. Sar bedi etsaia mahastian eta hondatu, baina erabat deuseztu ez! eraz bitza **mahats**-aihenak, ez baitira nireak! Elizen arteko biblia

Ile kizkurak kopetan behera erortzen zitzaizkion, **mahats aihenen** irudira. Karlos Zabala

Eskortatxo horretan aihendegi bat zuten, **mahatsaihen** sortak eta mahatsondo zaharretako egur pilak lehortzen egoten zirena. Josu Zabaleta

#### 8 *mahats aitzur pl* mahatsondoak mozteko aitzurrak.

Makurtu eta **mahats**-aitzurrez ebaki zuen zaku-ahoa ixten zuen burdinaria. Koldo Biguri

#### 9 *mahats ale* (orobat *mahatsale g.er.*) mahatsaren alea.

Loraldia igaro eta **mahats**-alea heltzen hastean. Elizen arteko biblia

Hostoen eta **mahats**-aleen gaineko hautsa. **Mahats ale** bat hartu eta jan du. Eskarne Mujika

**Mahats**-aleak jaten hasi zen, hura bakarrik jaten lotsa ez zedin. Askoren artean

**Mahats**-aleak janez eta etxeko ardo lodia edanez. Felipe Juaristi

Michael Levinson kanadarrak ahoan sartu ahal dituen **mahatsaleak**. Iñigo Aranbarri

Amorrazioaren gaztainak, hiraren **mahats**-aleak eta pesadunbrearen mahats-mordoak. Xabier Olarra

Txupa kenduta bular guriak nabari zaizkio, ez handiak ere, baina bai ongi biribilduak, dardara zaluxkoak, eta titiburuko **mahats aleak** gotor kamisetapean, bizirik baleuden.

Pako Aristi

#### 10 *mahats bilketa iz* mahatsa biltzea.

Zure gain ere oldartu da suntsizailea, uzta eta **mahats**-bilketa hondatuz. Elizen arteko biblia

Uda ere bukatu gabe zegoen, **mahats bilketa** bete-bete. Josu Zabaleta

**Mahats bilketa** oparoak. Berria - Harian

Atzo euriak **mahats**-bilketa zapuztu zuela. Pello Zabala

**Mahats**-bilketa egitean, ez itzuli atzean utzitako mahats-hondarrak biltzera. Elizen arteko biblia

**Mahats** eta patata biltzetan ezezki, neguko kanpainan ere ari dira langileak sorterrian kontratzen. Berria - Ekonomia

Aurten, **mahats-bilketarako** 250 sasoikako langile kontratatzea espero du UAGAK. Berria - Ekonomia

#### 11 *mahats biltze* (orobat *mahasbiltze g.er.*) *iz* mahatsa biltzea.

Handik egun batzuetara **mahats biltzea** hasi zen. Josu Zabaleta

Laster egin da **mahats biltzea**. Herria

**Mahats**-biltzea amaituko baita eta ez da gehiago uztarik izango. Elizen arteko biblia

Joanden larunbatean egin da **mahats biltzea** Urkodoian. Herria

Mahastietara joan zen **mahats**-biltze garaian. Askoren artean

Irakaspena uholdeka dakar Nilok bezala, **mahasbiltze**-egunetan Gihonek bezala. Elizen arteko biblia

#### 12 *mahats-biltzaile* mahatsa biltzen duen pertsona.

Beste **mahats**-biltzaileek bezala bete dut dolarea. Elizen arteko biblia

**Mahats**-biltzaileek, zuen mahastira datozelarik, gutxienez hondarrak uzten dituzte. Elizen arteko biblia

Argiaren uzta alez ale biltzen duten **mahats**-biltzailei. Harkaitz Cano

#### 13 *mahats hosto*

**Mahats-hosto** handien artean ezkutaturik. Joxean Agirre

Zeren dohakabeari ongi baliatu baitzitzaion **mahats hostoa**. Piarres Aintziart

Iratze eta **mahats hostoak** saltzen zituzten, libra laurdeneko sortetan kontu handiz bildurik. Karlos Zabala

Izar guztiak erori egingo dira, piku-hostoak eta **mahats-hostoak** zimeldu eta erortzen diren bezala. Elizen arteko biblia

#### 14 *mahats mordo*

Apaizak **mahats-mordo** kaxkar haiek bildu, dolarera bota eta zapaldu zituen. Askoren artean

Hiru aihen zituen mahatsondoak; kimuberritu zen, loratu eta ondu egin ziren **mahats-mordoak**. Elizen arteko biblia

Maisua gela erdian dago, **mahats mordo** bana belarrietan eta masailak gorritz margotuta. Jokin Muñoz

Amorrazioaren gaztainak, hiraren mahats-aleak eta pesadunbrearen **mahats-mordoak**. Mahastia erabat hondaturik eta husturik geratu zen, **mahats mordo** batzuk

besteri ez zegoela. [Xabier Olarra](#)

## 15 mahats parra (orobat mahasparra g.er.) hazten uzten den mahatsondoa, euskarri batez eusten zaiona.

Etxaurrean erruz hedatua, berriz, etxeko [mahasparra](#) ageri da; mahats morko eder eta ugarien emale. [Txillardegi](#)

[Mahats-parra](#) sendo baten azpitik pasa behar da Gelatxoren baserrira sartzeko. [Pako Aristi](#)

Apaizetxeko fatxadan hazten zen [mahats-parraren](#) adarren artean erdi-gordetako leihotxo batetik kirik egitera joan zen. [Koldo Biguri](#)

Nor bere [mahats-parrapean](#) eseriko da, bere pikupean, inoren beldurrik gabe-. [Elizen arteko biblia](#)

*ik parrape.*

Hantxe dauka, hormari hemendik eta handik itsatsita antza, Don Carlos María Isidro (gure Erregeren aitona) hain maite izan zuen [mahats-parra](#) famatua. [Txillardegi](#)

## 16 mahats pasa ik mahaspasa.

## 17 mahats sorta mahats mordo.

Hitz-bertze egin beharrez, [mahats sorta](#) bat bildu nuen, lagungarri. [Aingeru Epaltza](#)

[Mahats sorta](#) bat aletzen ari nintzen, bazkariaren hondar. [Aingeru Epaltza](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[andere mahats](#) (4); [kilo mahats](#) (7); [mahats ale](#) (8); [mahats aleak](#) (11); [mahats aleen](#) (3); [mahats bilketa](#) (9); [mahats bilketarako](#) (3); [mahats biltzaileek](#) (3); [mahats biltze](#) (9); [mahats biltzea](#) (11); [mahats biltzearen](#) (3); [mahats biltzeko](#) (3); [mahats denboran](#) (3); [mahats gordina](#) (3); [mahats hostoak](#) (3); [mahats mordo](#) (14); [mahats mordo bat](#) (3); [mahats mordoak](#) (12); [mahats ondoen](#) (4); [mahats parra](#) (3); [mahats zuku](#) (4)

[dolorean mahatsa](#) (3); [mahatsa bildu](#) (5); [mahatsa biltzeko](#) (3); [mahatsa zapaldu](#) (3); [mahatsa zapaltzen](#) (3)

[mahatsaren begia](#) (5)

[andere mahatsezko](#) (3)

## mahatsaien ik mahats 7.

## mahatsaldi iz

Neu ere trebea bainintzen italiar [mahatsaldietan](#), eta ardoa gogotik erosten nuen aukera nuen guztietan. [Koro Navarro](#)

## mahatsale ik mahats 9.

## mahatsardo iz ardoa.

Eta [mahatsardoa](#) ere bazen, nahi izanez gero, armadaren sotoetatik ekarria. [Edorta Jimenez](#)

## mahatsare iz mahats parra.

[Mahatsare](#) bat bazen; iluntasunari erabatekoa iritzi nion tenore hartan. [Juan Garzia](#)

Guk, begi kolpe batez, mahai batean hiru kopa atzematzen ditugu; Funesek, berriz, [mahatsare](#) bat osatzen duten aldaska eta mordo eta ale guztiak. [Juan Garzia](#)

## mahatsarno iz mahatsardoa, ardoa.

Garaipena ospatu beharrez, Arrosek zortzi zahagi aterarazi zituen, [mahatsarnoz](#) beteak. [Aingeru Epaltza](#)

## mahatsondo (orobat mahats ondo g.er. eta matsondo g.er.) 1 iz zuhaixka igokaria, aihentsua, lore oso txikiak eta fruituak mordoetan dituena, fruituagatik eta ardoa egiteko lantzen dena (Vitis vinifera vinifera)

Hiru aihen zituen [mahatsondoak](#); kimuberritu zen, loratu eta ondu egin ziren mahats-mordoak. [Elizen arteko biblia](#)

Sodomako mahastietako [mahatsondo](#) dira. [Mahatsondo](#) baten azpian eseririk. [Jose Antonio Mujika](#)

Nor bere [mahatsondo](#) eta pikundoaren azpian eseri ohi zen, ez baitzuten inork kezkarazten. [Elizen arteko biblia](#)

[Mahatsondoari](#) jarraika dator huntza. [Pello Zabala](#)

[Mahats ondo](#) lodi, beltz eta bihurrikatuak, hostoila berdeak txapelaturik. [Piarres Aintziart](#)

Berantago mitriolatzea, punpa bizkarrean, ur urdin bat hedatuz [mahats](#) ondoen gainera, eritasunek ez zezaten andea fruitua. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Zeren etxarte hori [mahatsondo](#) hostotsuz tapizaturik baitzegoen. [Juan Garzia](#)

[Mahatsondo](#) oparoak daude: mahats batzuk eguzkitan lehortzen dira, beste batzuk bildu eta zanpatu egiten dira. [Juan Kruz Igerabide](#)

[Mahatsondoak](#) txarrak, molkoak berdin, baina bihiak pizgarri, hain dira gozagariak. [Piarres Aintziart](#)

Urruntxago, ezker, Obanos herrirako patarra hasten zaidala, hona [mahats ondoen](#) zerrendak, geometrikoki lerrokatuak, beren adarrak hedatzen dituztela eskuin eta ezker, elkarri esku emanez bezala. [Piarres Aintziart](#)

Olibondo sailetan ibiltzen ginen txorien habia bila, eta [mahatsondoetan](#) ere bai. [Jon Maia](#)

[Mahatsondoaren](#) adar, mordo eta hostoz egindako girlandak apaingarri ageri ziren, berde leun baten gainean margoturik. [Karlos Zabala](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

Lurra baino gehiago, [mahatsondo](#) mota da bilakatu garrantzitsua. [Berría - Harian](#)

[Mahatsondo](#) ilara bat ipurditik atera bagenio. [Koldo Biguri](#)

[Mahatsondo](#) ilarak eskuin-ezker zabaltzen dira, ia bailararen mugetaraino. [Jokin Muñoz](#)

[Mahatsondo](#) -ahienak edo pinu-adartxoak erreko dira. [Santiago Iruretagoiena](#)

Handik igarotzean, begirada guztiak hari oraturik geratu ziren, [mahatsondo](#) -kiribil likatsuen antzera. [Lopez de Arana](#)

## mahaxtru ik maiasturu.

## mahaxturu ik maiasturu.

mahexal ik **marexal**<sup>1</sup>.

mahi ik **mahai**.

mahiburu ik **mahaiburu**.

mahisturu ik **maiastru**.

mahoi ik **mahon**.

**mahomatar** ik **mahometar**.

**mahometano** (*44 agerraldi, liburu 1ean eta 28 artikuluan*) izlag/iz mahometarra, musulmana.

Indonesia da munduan den **mahometano** herri haundiena. Herria  
Hek dute alabainan herri hortan erraiten gobernuari zer dion **mahometano** legeak. Herria  
Juduek eta **Mahometanoek** ez dutela gorputz erretzea onartzen. Herria  
Fedegabeak dira, **mahometanoen** arabera, Koran heien liburu sailduari jarraitzen ez direnak oro. Herria  
Kristau zintzo bat **mahometano** bihurtarazten duen apaiz horietako bat da berori! Koldo Biguri  
Antso Handiak **mahometanoei** aurre behar izan zien egin eta horien artean etsai bortitza izan zuen Al-Mundir Zaragozako musulman buruzagia. Berria - Kultura

**mahometar** (*30 agerraldi, 2 liburu eta 3 artikulutan; orobat mahomatar 18 agerraldi, 8 liburutan*) izlag/iz musulmana.

**Mahometar** herrialdeetan, debekua zenbat eta zorrotzagoa izan, hainbat handiagoa lukurreria. Iñaki Iñurrieta  
**Mahometar** erlijioak eta indiar erlijioak ezin konta ahala herri hartzen dituzte beren baitan. Iñaki Iñurrieta  
**Mahometar** emazteek ekartzen duten buruko oihalaren ikastetxeetan debekatzeko legea. Herria  
**Mahomatar** urzaleak kristau edanzaleekin borrokatzen zirenean, belarra segaren aurrean bezala erortzen ziren. Xabier Olarra  
**Mahomatar** poligamoak emakumez betetzen du bere paradisuak. Josu Zabaleta  
Piratei agindu zien bizitza barkatuko ziela baldin eta kristau fedez arnegatu eta **mahomatar** bihurtzen baziren. Martin Anso  
**Mahomatarren** Paradisuan. Xabier Olarra  
Ekialdeko herri guztiek, **mahometarrek** salbu, uste dute erlijio guztiak berez berdinak direla. Iñaki Iñurrieta  
**Mahometarrek** ez lirakeke hain musulman onak, batetik herri idolatrarik ez balitz [...], eta bestetik kristauak ez balira, hauek Jainkoaren begien aurrean lehenak direla pentsarazten baitiete haiei. Iñaki Iñurrieta

**mahometismo** iz **islama**.

Handik oso hurbil, **mahometismoak** Sennarko erregearen seme-alabak atxilotzen dituela ikusten dugu; erregea hil eta gero, kontseiluak haiei lepoa mozteko agintzen du, tronura igo denaren mesedetan Iñaki Iñurrieta

**mahon** (*orobat mahoi eta maoi*) **1** iz kotoizko tela sendoa, batez ere lan-jantzietan erabiltzen dena.

Egizu kontu hil zutenean **mahonez** jantzia zegoela... Koldo Izagirre  
Lubis, **mahonezko** galtzekin eta alkandora urdin ilunarekin; ni neroni, neuzkan arropa zaharrenekin. Bernardo Atxaga  
Bere ohiko janzkera soinean: jertse gris lodi bat, lepotik gerrirainoko kremaieraz; **mahoizko** galtzak; eta gaztaina-koloreko zapatila zarpailak. Anjel Lertxundi  
Lanetik etorri berriak dira, **mahoizko** praka zikinduak eta kamiseta izerdituak. Paddy Rekalde  
Andresek **maoizko** buzoaren azpiko atorratik paketea atera, zigarroa piztu, jaiki eta barrurantz uxatu ditu. Alberto Barandiaran  
Lepo-zuriak ofizinetako langileak dira (alkandora zuridunak, nolabait), eta lepo-urduak berriz ekoizpen-langileak **mahonezko** jantzidunak, alegia. Iñaki Heras  
Irujok **mahoizko** alkandora erantzi zuen. Berria - Kirola

**2** (izenondo gisa)

Nahiz kaleko jantziak izan, urdin **mahonezkoa** eta errauts kolorearen arteko tonuak ugari. Pedro Alberdi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**mahoizko prakak** (3)

mahonesa ik **maionesa**.

**mahuka** (*orobat mauka; Euskaltzaindiaren Hiztegian mahuka agertzen da*) **1** iz beso osoa edo goiko aldea estaltzen duen jantzi zatia.

Blusaren **mahukak** jaso zituen. Joxe Austin Arrieta  
Alkandoraren **mahukak** jasota zeuzkan gizon beltzaran luzanga bat. Lopez de Arana  
Alkandora zurien **mahukak** tolestatzen zenituzten bitartean. Joxean Agirre  
Jakako **mahukak** bilduak zituen. Aingeru Epaltza  
Trajearen **mahuken** gainetik esku banarekin besondoak igurtziz edo neurtuz, bere giharrez harro. Iñaki Mendiguren



Gero, frakaren **mahukenen** eskumuturrak apur bat atera zituen kanpoalderantz. **Lopez de Arana**  
Gero jakak elkarriz lotu, **mahukak** ifrentuz jarri, eta **mahuketatik** barrena pasatu zituzten bi adar haiek. **Inazio Mujika Iraola**  
Bi **mahukak** tarrataturik baitzeuzkan ukondoetan. **Jose Morales**  
Jakaren **mahukaz** ezpainetako hautsa kendu zuen. **Lopez de Arana**  
**Mahukaz** lehortu du eskopetaren kanoia umelzen duen lurrina. **Itziar Otegi**  
**Mahukaren** muturrak kendu zion hautsa. **Koro Navarro**  
Baina barra gaineko ezpain-zapiak hartzera joan zuan, muturreko nata arrastoak behin eta berriz alkandorako **maukarekin** garbitu ez hitzan, seguru asko. **Jokin Muñoz**  
Aurpegia **mahukan** lehortu eta Lupini begiratu zion. **Iñaki Mendiguren**  
Labanaren alde biak berriro garbitu zituen, oraingoan jertsearen **mahukaren** kontra. **Anjel Lertxundi**  
Erizain edo jagole izan behar du, **mahukatik** heldu diot. **Agurtzane Juanena**  
Hermione **mahukatik** tiraka ari zitzaion, erlojuari begira. **Iñaki Mendiguren**  
**Mahuka** gabea zen soinekoa. **Ramon Saizarbitoria**  
Nafarroako Gobernuak ez, ordea, eta **mahukatik** atera zuen gordeta zeukan karta. **Eduarne Elizondo**

## 2 (izenondoekin)

**Mahuka** motzeko alkandora. **Iban Zaldúa**  
**Mahuka** luzeko jantzi bat eta hiru barruko elastiko besterik ez dudala negurako. **Josu Zabaleta**  
Haizeak zerabiltzan **mahuka** luze, hutsak. **Anton Garikano**  
Blusa beltz bat, oihal ziratzuko **mahuka** hori bizi-bizikoekin. **Josu Zabaleta**  
Gerxeago azaldu da **mahuka** jasozko cowboy-alkandoradun tipoa. **Joxe Austin Arrieta**  
**Mahuka** zabalekiko jantzi berde argi bat soinean. **Lopez de Arana**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mahuka** -punta zahar batzuk- erosotasunagatik erantzi zituenak. **Anton Garikano**  
Aldi berean Elosegik kafea isuri zuen **mahukaren** ertzarekin. **Hasier Etxeberria**  
Lepoko izerdia xukatu du **mahuka** barrenetik atera duen zapi zuriarekin. **Patxi Iturritegi**  
Egileak, ordea, beti gorde behar du kartaren bat **mahuka** -barrean. **Joxerra Garzia**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duelarik)

Bada mutil bat galtza barren-zabalez eta alkandora **mahuka** -motzez jantzia. **Koro Navarro**  
Eskumutur gorriak alkandora **mahuka** -motz saretu batetik ateratzen zitzaizkiona. **Koro Navarro**  
Jertse **mahuka** motzaren azpian, bularrak beheraturik zeuzkan. **Juan Kruz Igerabide**  
Ohiko bata akoltxatuaren ordezkimono **mahuka** -zabala zuen jantzita. **Patxi Iturritegi**

## 4a (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Matson jaunaren beroki- **mahukako** botoi-zuloetako bat Cook andrearen mintza-tutuan katigatu zen. **Mirentxu Larrañaga**  
Emakumea besokoa lotzen hasi zen, baldar eta urduri, falta zitzaion besoko brusa- **mahuka** laburrean. **Anjel Lertxundi**  
Erregistratu zuten zerbitzariak kalte egiteko armarik ba ote zeraman ikusteko eta abitu- **mahukan** ezten bat aurkitu zioten. **Askoren artean**

## 5 ureztatzeko, andel bat betetzeko edo suteak itzaltzeko erabiltzen den hodi malgua.

Urtarrilaren 16an, berriz, patiora jaisteari uko egiteagatik arrastaka atera, biluztu eta **mahukarekin** busti zuten. **Berria - Euskal Herria**  
Borreroak, gasolindegira doanean, **mahuka** urka-soka bat eginda uzten du. **Karlos Linazasoro**  
Suhiltzaile-kamioi bat, **mahuka** -bagoi bat eta eskailera-furgoi bat zalapartaka igaro ziren haren aurretik, kalea hankaz gora jarriz. **Lopez de Arana**  
**Suhiltzaileen** kamioi bat orroka igaro zen handik; haren atzetik, mahuka-bagoi bat, kapusaia jantzten ari ziren aurpegi izerditsuko gizonen bete. **Lopez de Arana**  
Heldu ginenean, berehala jasan behar izan nuen nigana zuzendutako eta erruki gabe jarraitzen ninduen ur **mahuka** antzeko baten ustekabeko txorrotada. **Urtzi Urrutikoetxea**

## 6 mahuka-biki iz pl

Traje urdin marraduna darama jantzita, neurriera egindakoa, eta alkandora zuria, **mahuka-bikiekin** lehenengo aldiz. **Joseba Urteaga**  
**Mahuka-bikiak** zituen alkandoran. **Koro Navarro**  
Malba koloreko tiranteak fraka dotoreetatik dilindan zituen gizon bat alkandoraren diamantezko **mahuka-bikiak** lotzen ari zen. **Lopez de Arana**

## 6a mahuka hutsean adlag mahuka hutsik.

Hotz-beroen batez bestekoa atsegina da, **mahuka hutsean** lasai ibiltzeko modukoa. Familia adiskidetsu bat zain geratu zen, ez oso urruti: soinekoak azpiko galtzetan sartuta emakume ile-nahasiak, gizon oin-hutsak **mahuka hutsean**, galtzapiez eta elastikoez jantzitako ume mordo bat. **Pello Zabala**  
Bere pianoaren aurrean dago jesarriak **mahuka hutsean**. **Monika Etxebarria**

## 7 mahuka hutsetan adlag mahuka hutsik.

Mutiek, erreparoz eta jostagalez, erantzi zituzten jaka arinak, eta horrela, **mahuka hutsetan**, patiora irten eta lasterka joan ziren ukiulura. **Josu Zabaleta**  
**Mahuka hutsetan** ibiltzen ziren beti Rouengo portuan. **Harkaitz Cano**

## 8 mahuka hutsik (orobat mahukutsik g.er.) adlag alkandoraren gainean jakarik edo kidekorik gabe.

Salmahaiaren beste aldean zegoen, **mahuka hutsik**, igandetako mantal zuri birjina soinean. **Felipe Juaristi**  
**Mahuka hutsik** atera zen bizargilea. **Koro Navarro**  
Seminarista haietako baten aurrean gure ama kasualitatez **mahuka** -hutsik agertzen bazen, gogorki egingo zion errieta osaba Xabierrek. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Zerbitzariak bildu zituen zuen jaka eta maletatxo beltzak eta **mahuka** -hutsik, alkandora zurien mahukak tolestatzen zenituzten bitartean [...] eseri zineten, pozik, ingurumariari erreparatzeko astirik gabe oraindik. **Joxean Agirre**  
Gizasemeak eskuarki **mahukutsik**; batzuek leporainoko alkandora beltzak daramatzate. **Gotzon Garate**  
Kalearen erdian, iturrietatik hurbil, Gavard topatzen zuen, **mahuka hutsik**, besoak mantal urdinaren bularrekoaren gainean antxumaturik. **Karlos Zabala**

## 8 mahuka mutur ik mahukaburu.

-Testamentua erakutsi zizun, ezta ba, Hat? -galdegin zuen Bain andreak, **mahuka-muturrak** bere eri fin bezain sendoen artean txirikordatzen zituelarik. **Mirentxu Larrañaga**  
Anpulu bi erori zitzaizkion, **mahuka muturrarekin** lehortu zituen anpulu bi. **Unai Iturriaga**  
Haren soineko beltza lisatu huen, lepota eta **mahuka-muturrak** almidonatuz haren eskuak berri ageri zitezten, bular hilaren gainean gurutzaturik **Juan Garzia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alkandora mahuka (4); alkandoraren mahuka (4); mahuka gabeko (3); mahuka hutsean (4); mahuka hutsetan (5); mahuka hutsik (12); mahuka luzeko (3); soinekoaren mahuka (3)

alkandoraren mahukak (6); alkandoraren mahukak jasota (3); atorraren mahukak (4); mahukak goratu (4); mahukak goratzen (3); mahukak jaso (4); mahukak jasota (5); mahukak jasota zeuzkan (3)

mahukan lehortuz (4)

mahukarik gabea (4); mahukarik gabeko (4)

mahukatik heldu (5); mahukatik tiraka (7)

## mahukaburu *iz* mahuka muturra.

Agureak **mahukaburu** gorriekiko uniformeaz zeukan soinean, Pavel Petrovitx-en garaian erabiltzen zituztenen tankerakoa. Jose Morales

**Mahukaburuak** eta mendelak moztu ukondoak adabatzeko. Jose Morales

Oraingoan beste pieza bat ere aurreratu zuen, **mahukaburuaz**. Jose Morales

## mahukadun *izond* mahuka dituena.

Tabernariak, Lebigre jaunak, edariak ateratzen zizkien bezeroei, barneko **mahukadun** bat soinean. Karlos Zabala

Bakero ilupatu batzuk eta indiar buruzagi baten argazki zaharraz apainduriko kamiseta **mahukaduna** jantziak zituen. Aingeru Epaltza

- (*izlag gisa*) Klodiak gogatzten zituen ahizpak, so gartsuz, **mahukadun** tunika batez jantz zezaten mutila. Juan Garzia

## mahukutsik ik mahuka 7.

## mahunga *iz ipar* mahuka.

Atorra **mahungak** altxatu ondoren eta eskuetan tu egin, hasi da lur lanetan. Herria

## mahutu, mahu, mahutzen du *ad adkor* hil.

Amildegian harrapatu izan banindute lagun hilen ondoan bizirik, **mahutu** eginen ninduketen. Koldo Izagirre

-Eta Longartek ez hinduen **mahutu** nahi izan gero? -Gardelek. Koldo Izagirre

## mahutzaile *izond adkor* hiltzailea.

Harrika akabatu behar nautela, zokoren baten bila, zitzaiz **mahutzaile** hauengandik ihes egiteko atzaparka, malkotan izu, lotsa. Koldo Izagirre

## maia *iz* Yukatan penintsulan eta inguruetan bizi den indiar herri batekoa.

Bigarren edo hirugarren goizean, betiko moduan gosaltzen ari ginela, inguruan guri begira ume **maia** mordoia genuelarik. Joxe Austin Arrieta

Hamaikagarren edo hamahirugarren mendean, hiri oso bat izana ei zen harako hondakindegia, Herbertek esan zuenez, hiri **maia** bat. Joxe Austin Arrieta

Gizarte **Maia**, Hitita, Babiloniko eta Indikoak, desegiten direnean, gizaki primitiboaren *ethos*-era itzultzen direla dirudi. Iñaki Mendiguren

Herrialde osoko milaka eta milaka **maia** bildu ziren hiriburuan. Berría - Mundua

Ez eta txinerazko testurik, ez **maien** erreproduktzioerik? Jon Muñoz

2

**Maia**-herri hau bezala: gorpila ezagutu ez eta piramideak eraiki, tenpluak oihantzarraren erdian, dena lizundu eta hezetasunez birrintzen den lekuan... zertarako? Joxe Austin Arrieta

## maia *sturu* (*orobat maia *sturi*, maia *sturu*, maia *sturi*, maia *sturu*, maia *sturu* eta maia *sturu**) 1 *iz ipar* zurgina. ik maia *sturu*.

Bi errejentek dute pastoralera gidatzen: Pier Pol Berzaitz bera eta André Eppherre herritar **maia *sturu***. Herria

Eroslea aldiz herriko **maia *sturi*** bat da, Olha etxea jadanik beretua duena ez hain aspaldi. Herria

**Maia *sturia*** zen, biziki ofiziale fina eta lan onekoa, huts handia eginen du, hain zen ere gizon ixil eta maitagarria! Herria

Bere ofizioaz **maia *sturia*** zen eta lanaren gustu handia bazuen, bereziki muble egiten. Herria

Laborariak, momentu batez utz zuen ardiak eta etxaldea, **maia *sturiak***, tindatzaileak, harginak, muntatzen dituzuen etxe berri horietaz, jali zaitezte, eta gure ganat hurbildu.

Herria

Euskal **maia *sturiak*** eta Baskoniako etxeak. Herria

## 2 (hitz elkartuetan)

**Maia *sturu*** emaztea baitzen, lanean ere ainitz arizana zen. Herria

Eta han ziren zurginak-eta ikusten nituelarik, gustua hartu nuen hortan eta aitari galdetu nion ea ez zautan eginen mahain ttipi bat, **maia *sturi*** mahain bat; eta halako bat egin zautan, eta hartan ari nintzen... Menane Oxandabaratz

## maiatz 1 *iz* urteko bosgarren hila.

2001eko **maiatza**. Joxerra Garzia

68ko **maiatza** pasatua zen eta ordukotz sukarra ahazten hasia. Piarres Aintziart

1937ko **maiatz** hartan. Edorta Jimenez

68ko **maiatz** gazte eta berde hartan. Anjel Lertxundi

**Maia *sturu*** zen. Josu Zabaleta

Amen ohoretan, **maiatz** loretsua lagun, iduri du bazter guzia ere goxo goxoa emaniki dagoela. Herria

Obrak hiru urte geroago hasi ziren, 1993. urteko **maia *sturu***. Eduarne Elizondo

2002. urteko **maia *sturu***, Bush juniorrek Nekazaritza Lege Berria sinatu zuen. Iñaki Heras

**Maia *sturu***, sei hilabete geroago, metrailadoreak eta aginte-kontrolak izoztu egiten dira oraindik. Josu Zabaleta

liragan **maia *sturu*** bozetan eskuratutako kargua galdu zuen. Berría - Mundua

**Maia *sturu*** urte arteko inflazioa %3,4koa zen Hego Euskal Herrian. Berría - Ekonomia

Batez ere **maia *sturu*** uztaile arte egiten ditu eraso eta kalteak. Gotzon Garate

lazko **maia *sturu*** hona aldaketak oso txikiak izan dira. Berría - Ekonomia

Martxoak maiazen badu, **maia *sturu*** martxotuko du. Pello Zabala

**Maiatzak** badakiak neguaren neguaren zatan... Pello Zabala

**Maiatz** hotz, ez agotz ez bihotz. Pello Zabala

**Maiatz** luzea, **maiatz** gosea, hark hil zian nire alaba gaztea. Pello Zabala

Martxo haizetsu, apiril euritsu, **maiatza** gero eguzkitsu. Pello Zabala

Kukuak **maiatzean** kuku. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Maiatzeko** beroa, urteko balioa. Pello Zabala

**Maiatzeko** euria, urria baino hobia: urte guztiko ogia. Pello Zabala

Santa Gurutz **maiatzeko**, gure soroak laiatzeko; hazia falta baduk, bilazak ereiteko! Pello Zabala

## 2 (-en atzikiarekin, datetan)

**-Maiatzaren** bia zuan. Txillardegi

Ostirala, 1937ko **maiatzaren** 30a. Alberto Ladron Arana

**Maiatzaren** 30a, asteazkena. Patxi Iturritegi

Atenasen, **maiatzaren** 27an. Joxe Austin Arrieta

**Maiatzaren** 29an Parisen behar nuen... Joxe Austin Arrieta

1044an hil zen, **maiatzaren** 9an. Pello Zabala

Han hil zen, 1945eko **maiatzaren** 5ean, esparrua askatzeko bost egun falta zirela. Josu Zabaleta

1230eko **maiatzaren** 25ean santua basilika berrira eraman baino lehen burutu zuela obra. Askoren artean

1221eko Mendekoste eguna **maiatzaren** 30ean izan zen. Askoren artean

**Maiatzaren** 13an abiatu eta ekainaren 9an burutzen da. Pello Zabala

Apirilaren 1etik **maiatzaren** 1era bitartean garbiketa bat egingo da Utrechteko probintzian. Josu Zabaleta

**Maiatzaren** 28ko gau sargorian. Patxi Iturritegi

**Maiatzaren** leheneko jai-zubian, Elseren lagun baten gonbita onartu eta Mallorcara hegan egin zuten senar-emazteek. Patxi Iturritegi

## 3 (-k atzikiarekin, datetan)

1784an, **maiatzak** 24 zituenean, Salamanca aldean, elurte eta eurite itzelak gertatu ziren. Pello Zabala

1610eko **maiatzak** 18 egun dituen honetan. Aingeru Epaltza

· (apozizioan) **Maiatzak** 14, san Isidro bezpera, eta San Matías apostoluaren eguna. Pello Zabala

1906, **maiatzak** 22. Koldo Izagirre

Fernando Poo, 1877ko **maiatzak** 21. Patxi Zubizarreta

Ortziralean, **maiatzak** 7, aratseko 8-etan. Herria

Helduden igandean, **maiatzak** 25, hauteskundeak dituzte Hego-Euskal-Herrian. Herria

Igandea, 1943ko **maiatzak** 2. Josu Zabaleta

Herria, Amilibia alkateak gidaturik, harresiak eraisten hasten da (**maiatzak** 4). Askoren artean

Elizondon (apirilak 29), Elgoibarren (**maiatzak** 5), Andoainen (**maiatzak** 6), Santurtzin (**maiatzak** 11) eta Gasteizen (**maiatzak** 21) joko dute, besteak beste Berria - Kultura

## 4 (-ko atzikiarekin, egunak-edo markatzeko)

**Maiatzeko** Santa Kruzetan Saldiasitik Oderitzera ekartzen zituzten behiak larratzera. Pello Zabala

**Maiatzeko** lehen egunetan. Edorta Jimenez

Horrela **maiatzeko** bigarren asteazkenean. Piarres Xarriton

**Maiatzeko** azken astea zen. Daniel Landart

**Maiatzeko** lehen asteburuan airoki bururatuko da kulturaldia. Herria

## 5 (hitz elkartuetan)

1944ko **maiatz** azkenean ezagutu nituen bi preso, haiekin zinez adiskidetuko bainintzen. Marzel Etxehandi

1569ko **maiatz** hasiera hartaraino. Aingeru Epaltza

1720ko apiril bukaera edo **maiatz** hasierako gau batean. Bernardo Atxaga

**Maiatz** ondarreko bozkatzeko horrek soka luzea dauka, ez da dudarik. Herria

Apirilak dakar **maiatz** aurreko lora-botoien margo eta xarma betea...! Pello Zabala

-Martxo jorra, urguilu jorra; apiril jorra, behar jorra; **maiatz** jorra, lasto jorra. Pello Zabala

**Maiatz** eurite, urtea ogite. Pello Zabala

**Maiatz** lore, urrearen pare. Pako Aristi

## 6 **maiatz lehen** maiatzaren lehena.

Akaso ote da **maiatz** lehen haietako ospakizun eta sarnaren aurkako erremediotakoa? Pello Zabala

**Maiatz** lehenaren mezperan, astelehen arratsean, [...]. Herria

**Maiatz** lenari dagokiez Yakobo ta Felipe, luze bizi denak asko legike. Pello Zabala

· **Maiatz** lehen-eguna, esne eguna. Pello Zabala

## 7 **maiatz lore** maiatzeko lorea.

Egun hortan berean, **maiatz**-lorea salduko da, eta erosiko beraz, loreño xume horrek urte guziaz airosten ahal duelako menturan. Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**maiatz** aldera (3); **maiatz berri** (3); **maiatz bukaeran** (3); **maiatz ekain** (3); **maiatz eta ekainean** (3); **maiatz hartan** (5); **maiatz honen** (4); **maiatz honetan** (4); **maiatz hunen** (7); **maiatz lehen** (5); **maiatz lehena** (4); **maiatz leheneko** (4); **maiatz lore** (5); **maiatz lorea** (3); **maiatz luze** (3); **maiatz luzeak** (6); **maiatz ondarr** (4); **maiatz ondarrean** (7); **maiatz ondarreko** (3); **maiatz pazko** (3)

**aurtengo maiatza** (3); **maiatza aldera** (3); **maiatza arte** (19); **maiatza arte itxaron** (3); **maiatza artean** (4); **maiatza baino lehen** (3); **maiatza ekaina** (3); **maiatza eta ekaina** (3); **maiatza hasieran** (3); **urtarrila eta maiatza** (5)

**aurtengo maiatzaren** (11); **heldu den maiatzaren** (25); **helduden maiatzaren** (14); **iazko maiatzaren** (21); **iragan maiatzaren** (27); **maiatzaren amaiera** (3); **maiatzaren amaieran** (7); **maiatzaren bata** (3); **maiatzaren batean** (7); **maiatzaren bateko** (5); **maiatzaren bian** (3); **maiatzaren bigarren** (4); **maiatzaren bukaeran** (9); **maiatzaren erdi aldetik** (6); **maiatzaren erdialdera** (6); **maiatzaren erdialdera arte** (3); **maiatzaren hasieran** (10); **maiatzaren lehen** (10); **maiatzaren lehena** (46); **maiatzaren lehena dela** (3); **maiatzaren lehenak** (4); **maiatzaren lehenaren** (5); **maiatzaren lehenari** (3); **maiatzaren lehenean** (61); **maiatzaren leheneko** (15); **maiatzaren leheneko** (4); **maiatzaren lehenetik** (7); **maiatzaren seian** (4); **maiatzaren zazpian** (6); **maiatzaren zortzia** (6); **maiatzaren zortzian** (3)

**apirilean edo maiatzean** (4); **apirilean eta maiatzean** (7); **aurtengo maiatzean** (16); **datarren maiatzean** (7); **heldu den maiatzean** (5); **helduden maiatzean** (11); **hurrengo urteko maiatzean** (3); **iazko maiatzean** (41); **iazko maiatzean onartu** (3); **iragan maiatzean** (31); **joan den maiatzean** (34); **joan zen maiatzean** (6); **joanduen maiatzean** (7); **maiatzean abiatu** (5); **maiatzean amaitu** (3); **maiatzean amaituko** (3); **maiatzean atxilotu** (4); **maiatzean aurkeztu** (3); **maiatzean edo ekainean** (4); **maiatzean eta ekainean** (9); **maiatzean gertatu** (5); **maiatzean hartuko** (4); **maiatzean hartutako** (3); **maiatzean hasi** (13); **maiatzean hasi zen** (8); **maiatzean hasiko** (13); **maiatzean hasiko da** (7); **maiatzean hasitako** (5); **maiatzean hil** (4); **maiatzean izango** (3); **maiatzean jarri** (5); **maiatzean jarri zuten** (3); **maiatzean jokatuko** (3); **maiatzean onartu** (5); **maiatzean onartutako** (3); **maiatzean sartu** (5); **maiatzean sartuak** (3); **maiatzean utzi** (3); **pasa den maiatzean** (5); **urte bereko maiatzean** (4); **urteko maiatzean** (29)

**helduden maiatzeko** (3); **iazko maiatzeko** (4); **iragan maiatzeko** (4); **maiatzeko bozetan** (3); **maiatzeko egun bat** (3); **maiatzeko egun batean** (3); **maiatzeko egun batez** (3); **maiatzeko euria** (4); **maiatzeko hauteskundeetan** (3); **maiatzeko lehenengo** (3); **maiatzeko plazako** (16); **maiatzeko plazako amek** (3); **maiatzeko plazako amen** (6); **maiatzeko plazako amonen** (3)

**martxotik maiatzera** (3); **otsailetik maiatzera** (3)

## maiatzaldi iz maiatzean egiten den jaialdia.

Kultura usaiaiko antzokietatik aterako den hil honetan Baionako **Maiatzaldiak**. **Berria - Kultura**

Baionako Udalak eta hiriko antzoki nagusiak hainbat ekitaldi kultural eskaintzekoak dituzte maiatz osoan, **Maiatzaldiaren** karietara. **Berria - Kultura**

## maiaztu, maiatz/maiaztu, maiatzten du ad maiatzak bezala jokatu.

-Martxoak **maiazten** badu, maiatzak martxotuko du. **Pello Zabala**

## maiestate (orobat *majestate* g.er.; *Euskaltzaindiaren Hiztegian maiestate agertzen da*) 1 iz Jainkoaren, erregeen eta kidekoen handitasun gurgarri eta ohoragarria.

**Maiestate** gorenaren aurkako krimenak. **Pako Aristi**

Errebeldeei, traidoreei eta **maiestate** gorenaren aurkako bekakua egin duten guztiei. **Esteban Antxustegi**

Ene **maiestate** erregina laztan horrek. **Juan Garzia**

Aditz hau Jainkoari buruz erabiltzen den guztietan, Haren **maiestatearen** iraunkortasuna adierazten du. **Xabier Kintana**

Bere **Maiestate** Errege jaunak ere ezingo du. **Koldo Biguri**

Atzo arratsaldean Bere **Maiestate** Enperadoreak sarrera publikoa egin zuen Tullerietan. **Iñigo Aranbarri**

Felipe II.a **bere** maiestate katolikoaren ordezkari nagusi Nafarroako Erresuman. **Aingeru Epaltza**

Huraxe zen, dudarik gabe, izaki nahigabetuaren deia darra Jainkoaren **maiestatearen** aurrean zehatz, xehetasunik txikienarekin adierazten zuen doinua. **Martin Anso**

Bere **Maiestate** Tsarra bera zaintzen dut. **Matías Múgica**

-Eta duke handiak, berorren **maiestatearen** anaiak, Irkutsk probintzian isolaturik, ez du jada harreman zuzenik Moskurekin? **Karlos Zabala**

**Maiestatearen** gobernuko defentsa eta atzerri politikei. **Berria - Mundua**

Gero, ingelesak iritsi ziren, eta orduan hango **Maiestate** Graziosaren mendeko bihurtu zuten nire aitona. **Juan Kruz Igerabide**

Giza irizpide hutsalari kasu egiteagatik Jaungoikoaren **maiestate** izugarriaren ardurapetik ateratzen ausartuko bagina. **Imanol Unzurrunzaga**

### 2 (hitz elkartuetan)

Hasierako piezak [...] ezin hobeto murgiltzen gaitu ikuskizunak behar duen **maiestate** giroan. **Berria - Kultura**

- Damu zuen hain larriki bekatu egin izana eta Jainko **maiestatearen** begiak iraindu izana. **Askoren artean**

### 3 (deikietan)

Musikaz mantsotuko dut, **Maiestatea**, Orfeok piztiekien egin zuen bezala. **Xabier Olarra**

-Ene **Maiestatea**, ohore handizat dut berorren proposamena eta jakin beza pozarren onartzen dudala. **Patxi Zubizarreta**

- **Maiestate**, plazer badu berorrek, geure kokalekura joango gara. **Juan Garzia**

- **Maiestate**, opari horiek berorren alabarentzat ezin egokiagoak dira - **Maiestate**, hiltzeko arriskuan dagoen gizon bat bistatu dut. **Patxi Zubizarreta**

-Arren, **Maiestate**, ez nazazue hil. **Patxi Zubizarreta**

-Barka nazala berorren **maiestateak**!... -erantzun zuen polizi buruak zezelka. **Karlos Zabala**

Bere **maiestateak** plazer badu, kirol-ordua dut nik oraintxe. **Juan Garzia**

### 4 lesa maiestate

Lesatzen **maiestateko** kasuetan bakarrik erabiltzen zen konfiskazioa. **Juan Martin Elexpuru**

Ingalaterran, lesa **maiestateko** traizioa gertatzen zenean, egotzitakoari sabela ireki, bihotza atera eta berarekin ezpainak igurzten zitzaizkion; gero sutara botatzen zen.

**Juan Martin Elexpuru**

Honela, lesa **maiestateko** krimenetan, erregea egiten zen ondasun guztien jabe, errudunaren seme-alaben kaltetan. **Juan Martin Elexpuru**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bere maiestate** (5); **maiestate gorenaren aurkako** (12)

**bere maiestatearen** (3); **berorren maiestatearen** (4)

**lesa maiestateko** (7)

## maiestatetasun iz maiestatea.

Haien antolaera **maiestatetsua** miresten dugu, Vinci-ren margolan batean edo Bach-en fuga batean. **Juan Garzia**

Errepublikak bere eraikin publikoen handitasunarekin Inperioaren **maiestatetasuna** erakustea nahi duzulako, **Santiago Iruretagoiena**

## maiestatetsu izond maiestatez betea.

Makur ari gaituk, hain **maiestatetsua** izaki halako borta ageria erakutsiz, zeren zaurtezina baita bera airearen pare, eta gure ukaldi alferrok irribide gaizto. **Juan Garzia**

Emilioren aita agure **maiestatetsu** eta onbera bat zen. **Juan Garzia**

Bihar baimena dut eskatuko, berorren begi **maiestatetsuen** aitzinera agertu eta, aurrena barkamendu erreguturik berorri, neure itzulera tupusteko bezain ezusteko honen berri emateko. **Juan Garzia**

## maiestatiko 1 izond maiestateari dagokiona, maiestatearen ezaugarriak dituena.

Aipamen **maiestatikoaren** ohitura. **Jon Alonso**

Morrisonen ibilbide **maiestatiko** kontuan izanik, azkeneko urteotan kaleratu dituen hamaika diskoek ia urtero-urtero argitaratzen du bat ez dute garai batekoen distira, eta ezta arrisku nahia ere. **Berria - Kultura**

### 2

Klaudio erregearen "gu" **maiestatiko** ere gorde dugu, eta berorikako tratamenduaz ere baliatu gara hala zegokionean. **Juan Garzia**

### 3 plural maiestatiko

Oro har, ez da singularreko lehenbiziko pertsonan idazten (uste dut...), plural **maiestatikoan** (edo *plural modestiae*) baizik (uste dugu...). **Askoren artean**

Eta ez ginela diodanean, ez naiz ari Aita Santuaren plural **maiestatikoan**, anaia Juan eta bion izenean baizik. **Joxerra Garzia**

# maiestuos *(corpusean majestuos soilik) izond maiestatetsua.*

Dorre gaineko talaia pribilegiatu hartarik, urruneko zero urdinean, miru **maiestuos** bat ikusten ahal genuen, hegaldi zirkularretan dantza eta dantza **Joan Mari Irigoien**

maiesturi ik **maiesturu**.

maiku ik **maingu**.

maikuka ik **mainguka**.

mail ik **maila**.

## maila *(orobat mail g.er.) 1 iz eskala batean, edo hierarkia edo balio sistema batean, kokaguneetako bakoitza.*

Halako eskalaren **mailak** urrunegi daude elkarrengandik. **Ibon Urbarri**  
Aparrezko eratzuna askoz ere beherago dago itsasoaren **maila** baino. **Koro Navarro**  
-Ibaiaren **maila** ez dun ikusten oraindik, arreba? **Karlos Zabala**  
Beste bi gelak, egongela bezala, balkoiaren **maila** berean daude. **Koldo Izagirre**  
Mojetan ibili nintzen bosgarren **maila** arte. **Ana Urkiza**  
**Maila** guztietan ematen zituen eskolak maisuak, seigarrenaren. **Eskarne Mujika**  
-Eskolan, **maila** berean geundean. **Eskarne Mujika**  
Unibertsitateak normaltzat hartu behar luke euskara **maila** guztietan erabiltzea. **Pello Salaburu**  
Funtzionario bakoitzak bere **maila** du. **Patxi Zubizarreta**  
Kristinaren mintzoa **maila** batez goititu zen xamurtasunaren eskalan. **Aingeru Epaltza**  
Hirurak ginela beldur, hirurak ere belduraren **maila** eta gradu berean bageunde bezala. **Joan Mari Irigoien**  
Edozein sentsaziok **maila** edo handitasun bat du. **Ibon Urbarri**  
Ez dago ideia edo teoria guztiak **maila** berean jartzerik; alegia, denak besteak bezain on edo txar egiterik. **Iñaki Heras**  
**Maila** bereko titulazioak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**  
Zeren (**maila** askotan; nerbio-sistemarenean, kulturarenean) sekula ez baitiete lehentasunik eman. **Xabier Olarra**  
Dena zekien, **maila** eta kargu guztietatik igaro balitz bezala. **Jose Morales**  
**Maila** bat gora egin dut. **Koro Navarro**

### 2 (izenondoekin)

Londresen lan egiten zuen ikertzaile bat, **maila** fisiologikotik ari zitzaion hurbiltzen problemari. **Xabier Olarra**  
Bai **maila** sozialean, bai **maila** psikologikoan. **Askoren artean**  
**Maila** instituzionalean, zientziaren eta teknologiaren aurrerakuntzak kontrolatzeko erabiltzen den estrategia erregulazioa da. **Askoren artean**  
Kapitalismoaren nagusitasun unibertsal horrek gainditu egiten du **maila** geopolitikoa. **Koro Navarro**  
Zelan bereiz, modu egokian, **maila** teorikoaren eta behaketazkoaren artean? **Askoren artean**  
Multzo hau da formulazioaren **maila** enuntziatiboa ezaugarritzen duena. **Xabier Arregi**  
Ideia horiek **maila** landu batean adierazteko. **Pello Salaburu**  
Izan ere, poetika idatziaren ikuspegitik begiratuta, **maila** poetiko kaskarrekoak dira bat-bateko bertso gehienak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**  
Landa inguruetatik hiri inguruetarako migrazioa **maila** minimora jaitea. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
Droga saltzeko sarean **maila** altuagoan zeuden bi lagun horiek. **Berria - Euskal Herria**  
**Maila** apalagoan bada ere, horixe bera gertatzen zitzaion Francori. **Xabier Olarra**  
**Maila** altuagoko jendea "urbanizazioetan" bizi da. **Pako Aristi**  
Antolatzen dira sariketak eta **maila** bikaineko sortak aurkezten dira. **Andoni Egaña**  
Gizartea eta ekonomia **maila** globalean antolatzen diren modua aldatzeko. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

### 3 (izenlagunekin)

Itsasoaren gainetik 500 metroko **mailan** dago Agoitz. **Eduarne Elizondo**  
Zeren zerbitzu hau ongi betetzen dutenek ohorezko **maila** berenganatzen baitute. **Elizen arteko biblia**  
Azaleko **maila** batetik sakoneko **maila** baterako iragaitea bermatzen dute. **Xabier Arregi**  
Konzeptu horiek nazio mailan osatuak dira, eta bestelako garrantzia hartzen dute nazioarteko **mailan**. **Koro Navarro**  
Kontsistentzia logikoa ez da baldintza nahikoa behar dugun koherentziaren gutxieneko **maila** lortzeko. **Askoren artean**  
Goi eta erdiko **mailako** klase puritanoko eta moral hertsiko beste kide askok bezala. **Antton Olano**  
Batez bestekotik gorako **maila** erakutsiko zuela Garmendiak. **Joxerra Garzia**  
Templek adierazten du goi **goiko** maila ematen zuela haur-haurretatik test espazial eta ikusmenekoetan. **Xabier Olarra**  
*ik beherago* 8. Gero, oraindik goragoko **maila** batean, Rain Manen errepikapena zegoen. **Xabier Olarra**  
Aitortu behar da sekulako **maila** lortu genuela Shanti eta haren arratoi-zakurrarekin. **Joxerra Garzia**  
· Bigarrena **maila** kosmikoa da, astroak kokaturik dauden esferena. **Xabier Kintana**  
Adimenaren goren **maila** deitzen zion horri. **Jose Morales**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Koronel **maila** zuen? **Karlos Zabala**  
Bera arduratu baita ni betiko "auxiliar" **maila** kaxkarrean eduki nazaten. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Soinuaren intentsitate **mailak** dezibelelan adierazten dira. **Irene Aldasoro**  
Kultur **maila** altuko eta ekonomi **maila** ertaineko jendea bizi dela nabari da. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
EAEko eta Espainiako biztanle aktiboen hezkuntza **maila**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**  
Euskal ikasketek unibertsitate **maila** iritsi dutenetik. **Pello Salaburu**  
Errenta **maila** garaia dutenek. **Iñaki Heras**  
Etengabe aldatzen den transmisioari esker, abiadura **maila** askotan indar guztia emateko gai da makina. **Irene Aldasoro**

Ordu baten ondoren, askotan odoleko glukosa **maila**. Abstrakzio **maila** jasoagoko diskurtsoetan. **Irene Aldasoro**

Enuntziatio **maila** hizkuntzaren mugan dago. **Xabier Arregi**

Interpretazio honek badu ziurtasun **maila** bat. **Imanol Unzurrunzaga**

Aipatu diren bi sinapsi **maila** horiez gainera, badira beste zehar-lotura asko ere, zelula horiek sareetan biltzen dituztenak. **Josu Zabaleta**

Kode **maila** desberdin horiek. **Josu Zabaleta**

Hortaz, hizkuntzen arteko ahaidetasun **mailak** neurtzeko, zorrotz bereizi behar dira aintzakotzat harturiko hizkuntza horiek elkarren ondoko lurraldeetan egotea eta bereizirik lurraldeetan egotea. **Isabel Arrigain**

· Vitruvioren diskurtsoak, beraz, badu halako iluntasun estruktural **maila** bat. **Santiago Iruretagoiena**

## 5 eskailera eta kidekoetan, oina jartzeko zeharkako ohol edo euskarri bakoitza.

Eskailera kiribil baten **maila** koipetsuekin trabatzen zelako. **Karlos Zabala**

Florent eskaileran behera abiatu, eta hamar **maila** jaitsi aurretik, Clairek atea bortitz itxi eta eskailera begi osoak dar-dar egin zuen. **Karlos Zabala**

Horregatik ehun eskailera **maila** igoarazi? **Patxi Zubizarreta**

Launaka jaitsi nituen eskailera **mailak**. **Josu Zabaleta**

Desagertuak ziren harrizko **maila** irristakorak. **Koro Navarro**

Pos aurpegiak igo zuen tranbiaren eskailera **maila** pareak. **Josu Landa**

Atexka ireki, lehenbiziko **maila** jaitsi eta gero pausoka pausoka gero eta beherago. **Fernando Rey**

Metalezko **maila** batzuk horman gora zihoazen. **Juan Garzia**

Hamar **mailak** berriro igoarazi zizkion Jaunak itzalari Akazen mailadian. **Elizen arteko biblia**

Bergarako kartzelan urkamendiko **mailak** harro igan zituen idealistaren erueda behar nuen. **Koldo Izagirre**

Sei **maila** zituen errege-aulkiak eta, berari atxikiak, oinaultkia eta jarlekuaren alde banatan, besoak. baina gaztetxo hark zilarrezko titareak zituen estimu handitan, portzelanazko **maila** batzuetan jarriak zeudenak. **Elizen arteko biblia**

· Izan ere, profeta igo eta zurubiaren **maila** batzuk erdietsi ondoan, ikasi duenarekin jaitsi egiten baita lurreko bizilagunak gidatzeko eta irakasteko. **Xabier Kintana**

Bertute guztietan mailaz **maila** igoz, gailurreraino iritsi zen. **Askoren artean**

· Gela batera eraman eta alkandora eta **maila** biko litera batetik behetako eman zizkidaten. **Urtzi Urrutikoetxea**

## 6 kate bat osatzen duten eraztun moduko ataletako bakoitza. ik beherago9.

Batzen gintuen katearen ertzeko **maila** osatzen zuen, bertze muturrean Charly zuela. **Aingeru Epaltza**

Jatorria lehen zergatian duen kate eternoaren **mailak** une oroz nahastu eta bereiztu beharko balira bezala, gizonen gorabehera aldakorren eruz. **Juan Martin Elexpuru**

Harro nengoen barregarriro, kate hartan **maila** eraginkorra gertatu nintzelako. **Joxan Elozegi**

## 7 (orobat maila) sare edo kideko bat osatzen duten begietako bakoitza.

Agiangorik gabe, baskoak dira sareko **maila** nagusiak, eta hura da mezularia, edo amua, ze, besteak beste, horixe esan nahi baitu "crook" hitzak, "amua". **Edorta Jimenez**

Labana triparen erdian sartu ziela, **maila** -kotako hegala nekez iristen den tokitik. **Jon Alonso**

## 8 funtzio, polinomio eta ekuazioetan, berretzaile altuena duen aldagaiaren berretzailea.

Bigarren **mailako** ekuazio lineal bat ebaztea bezain erraza. **Fernando Morillo**

Urrunago ere joan gaitzke: n. **mailako** ekuazio bat edo errefrakzio-legearen formula algebrakoak enuntziatuzat jo daitezke. **Xabier Arregi**

## 9 kirolean, elkarren artean lehiatzen diren taldeek osatzen duten multzoa. ikdibisio 5.

Espainiako Kopan geratzen diren Lehen **Mailako** taldeen artean. **Berria - Kirola**

Izan ere, Espainiako Ligako Lehen **Mailaraino** iristeko, **maila** guztietan aritu naiz, jo eta fuego. **Berria - Kirola**

Eguneroko lanari esker, Bigarren B **Mailatik** Lehen **Mailara** igo gara. **Berria - Kirola**

Bigarren **Mailara** | bigarren **Mailara** » oihukatu zieten Realeko jarraitzaile nahiz jokalariei. **Berria - Kirola**

Dena den, Zilarrezko **Mailak** argi utzi du aurrekontuek eta hasiera bateko helburuek zerikusi gutxi dutela Liga bukaeran sailkapenean izaten diren postuekin. **Berria - Kirola**

Brit Bigarren A **Mailan** ari da. **Berria - Kirola**

## 10 moztu den belar ilara.

**Sega** txikiarekin erosoago aritzen naiz, arinago, maila txikiagoa hartzen baita. **Berria - Kirola**

**Sega** kolpe baten maila malguak bezalakoxe atsegina ematen dit mugimendu horrek. **Josu Zabaleta**

## 11 goi maila

Ez zuelako lortu gizartearen **goi-mailetaraino** igotzea. **Jose Morales**

Horretan, bi libertinoek, Valmontek eta Merteuil andreak, iristen dute **goi maila**. **Jon Muñoz**

Gizartearen **goi maila** eta bizimodu. **Xabier Olarra**

**Goi mailan** aritu gaitzkeela erakusteko urtea da. **Berria - Kirola**

Oso aberatsa den gizonak edo **goi mailara** akuiladaz bultzatutakoak. **Xabier Olarra**

Berehala hasi dira **goi mailara** eramaten txokokeriarik handienak. **Pello Salaburu**

Unibertso horrek ospea ekarriko zion, eta tituluak, eta gizartearen **goi mailara** heltzeko bidea. **Julen Gabiria**

## 12 kate maila (orobat katemaila)

Amailerik gabeko katea zirudien; **kate maila** bakoitzak beste bat zekarren atzetik, egunak gaua bezala. **Imanol Zurutuza**

Argitu gabe dago kate hori noraino hedatu behar litzatekeen, ea barne hartu beharko litzatekeen "ezaugarri autista" bakan batzuk [...] ala **kate-maila** bitxi, eszentriko, pedante edo barnekoizat hartu beharko litzatekeen, gehienez ere, autistena. **Xabier Olarra**

Trukerako txanpontzat daukatela uste dute, Espainiako Gobernuaren esku eurak direlako **kate-mailarik** ahulena. **Berria - Harian**

Orain konturatzen naiz katea baten **katemaila** bati oratu niola Ryokorekin ibili nintzenetik aurrera. **Javi Cillero**

Burezur hura besteak ez bezalakoa zen eta tximuen eta gizakiaren arteko **kate-maila** galdua izan zitekeela sinetsi zuten gehienek. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## 13 maila goren

Herri xehearren hizkera bizia eta pentsalarien hizkera **maila gorena**. **Fernando Rey**

Hura **maila gorenean** bizi dela. **Imanol Unzurrunzaga**

Ametsa da **maila gorenean** jokatzeko. **Berria - Kirola**

Eta azkernik, santutasunaren **maila gorenera** iritsirik, suzko gurdian zerura eramana! **Askoren artean**

**Maila goreneko** taxoiek ez dituztela klaseak adierazten, indibiduok baizik. ez **maila goreneko** zor izaten zaien begiruneaz, ezpada besterik gabe, bere kabuz, bere borondatez nolabait esatearren, errespetatuko balu legez. **Askoren artean**

Ez zuela segur gaiaren eskasik denen egiteko betegintzarre **maila gorenetik** apaleneraino. **Piarrés Xarriton**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

a maila (17); antzeko maila (11); askatasun maila (9); autogobernu maila (9); autonomia maila (10); b maila (16); babes maila (12); benetakoa maila (24); bere benetakoa maila (8); bere maila eman (8); bere maila ematen (11); bere maila erakusteko (8); beste maila bat (12); beste maila batean (27); beste maila bateko (14); bi maila (30); bigarren a maila (10); bigarren maila (109); bigarren maila batean (31); bizi maila (43); bitzta maila (10); denboraldiko maila (8); dioxidio maila (8); elur maila (13); eman duen maila (15); emandako maila (10); erakutsitako maila (14); eskailera maila (36); eskaldiko maila nagusiko (8); euskal herriko maila (13); euskara maila

(32); **exijentzia** maila (11); **ez dute aitua** (9); **ezagutza** maila (12); **frantziako** maila (15); **garapen** maila (15); **giza** maila (12); **gizarte** maila (51); **goi** maila (11); **goragoko** maila (9); **gutxieneko** maila (11); **hezuntza** maila (14); **hiru** maila (28); **hirugarren** maila (19); **hizkuntz** maila (16); **hizkuntza** maila (11); **iazko** maila (10); **ikasketa** maila (15); **iturapen** maila (9); **jakintza** maila (9); **joko** maila (45); **kate** maila (12); **kirol** maila (9); **kolesterol** maila (19); **kultur** maila (12); **kultura** maila (12); **kutsadura** maila (11); **lau** maila (10); **lehen** maila (124); **lehenengo** maila (13)

**maila** altu (8); **maila** altua (36); **maila** altuak (8); **maila** altuan (12); **maila** altuko (18); **maila** apala (8); **maila** apalagoan (12); **maila** apalagoko (18); **maila** apalean (14); **maila** apaleko (13); **maila** asko (11); **maila** askotan (13); **maila** bera (41); **maila** berean (154); **maila** berean jarri (11); **maila** berean jartzen (8); **maila** bereko (38); **maila** berekoa (14); **maila** berekoak (19); **maila** bikaina (72); **maila** bikaina eman (32); **maila** bikaina ematen (8); **maila** bikaina erakutsi (9); **maila** desberdinak (8); **maila** desberdineko (12); **maila** desberdinetan (11); **maila** du (13); **maila** egokia (17); **maila** ekonomiko (9); **maila** eman (68); **maila** emango (8); **maila** ematea (16); **maila** emateko (10); **maila** ematen (56); **maila** erakusteko (24); **maila** erakusten (14); **maila** erakutsi (39); **maila** ertaineko (16); **maila** eskasa (18); **maila** ezberdinak (18); **maila** ezberdinetako (8); **maila** ezberdinetan (16); **maila** gainditu (15); **maila** galdu (36); **maila** galduko (14); **maila** galtzea (9); **maila** galtzeko (17); **maila** goragoko (9); **maila** gorena (26); **maila** gorenean (49); **maila** goreneko (40); **maila** gorenera (21); **maila** guztiak (13); **maila** guztietako (18); **maila** guztietan (77); **maila** handi (9); **maila** handia (58); **maila** handiagoa (19); **maila** handiagoko (9); **maila** handiko (128); **maila** handiko jokalaria (18); **maila** handikoa (12); **maila** handikoak (8); **maila** hobea (26); **maila** igo (18); **maila** ikusita (19); **maila** izan (13); **maila** izango (9); **maila** izugarrian (10); **maila** jaitsi (20); **maila** jakin (22); **maila** jakin bat (11); **maila** lortu (12); **maila** nagusia (22); **maila** nagusian (87); **maila** nagusiko (120); **maila** nagusiko finala (14); **maila** nagusiko kanporaketa (8); **maila** nagusikoa (8); **maila** nagusira (50); **maila** nagusira igotzea (8); **maila** nagusira igotzeko (19); **maila** neurtzeko (14); **maila** ona (208); **maila** ona eman (64); **maila** ona ematen (17); **maila** ona erakusten (8); **maila** ona erakutsi (22); **maila** onean (57); **maila** onean aritu (11); **maila** oneko (25); **maila** onena (18); **maila** oso (63); **maila** oso altua (14); **maila** oso ona (14); **maila** pertsonalean (15); **maila** polita (22); **maila** politikoa (24); **maila** sozial (8); **maila** txikia (9); **maila** txikiagoko (8); **maila** txukuna (30); **maila** txukuna eman (18); **maila** zein den (9); **mailaz** maila (38)

**nafarroako** maila nagusiko (12); **nahiko** maila (10); **oso** maila ona (14); **oso** maila onean (10); **podiumeko** maila gorenera (10); **prezioen** maila (9); **segurtasun** maila (8); **sekulako** maila (14); **sostengu** maila (17); **taldearen** maila (12); **ur** maila (8)

**bigarren** mailak (9); **eskailera** mailak (25)

**a** mailako (46); **a** mailako estropada (9); **afizionatu** mailako (41); **afizionatu** mailako emaitzak (13); **b** mailako (84); **behe** mailako (54); **bigarren** b mailako (34); **bigarren** mailako (699); **bigarren** mailako aktore (16); **bigarren** mailako errepide (9); **bigarren** mailako herritarrak (19); **bigarren** mailako ikasketak (9); **bigarren** mailako talde (20); **bigarren** mailako txapelketa (14); **bigarren** mailako txapelketako (11); **bigarren** mailako txapelketan (11); **bosgarren** mailako (9); **erdi** mailako (52); **eskualde** mailako (11); **espainiako** ohorezko mailako (21); **estatu** mailako (10); **europa** mailako (23); **gazte** mailako (67); **gazteen** mailako (10); **gizarte** mailako (19); **goi** mailako (661); **goi** mailako eskola (11); **goi** mailako hezkuntza (12); **goi** mailako ikasketak (31); **goi** mailako jokalaria (17); **goi** mailako musika (16); **goren** mailako (28); **herri** mailako (9); **herriko** goi mailako (8); **hirugarren** mailako (86); **junior** mailako (14); **kontinental** mailako (14); **laugarren** mailako (24); **lehen** mailako (526); **lehen** mailako jokalaria (9); **lehen** mailako talde (23); **lehen** mailako taldea (19); **lehen** mailako taldeen (11); **lehen** mailako txapelketa (8); **lehenengo** mailako (10); **ligako** lehen mailako (20); **nazio** mailako (46); **nazioarte** mailako (15); **ohorezko** mailako (28); **planeta** mailako (8); **politika** mailako (9); **profesional** mailako (43); **unibertsitate** mailako (18)

**bigarren** mailakoak (30); **goi** mailakoak (25); **lehen** mailakoak (17)

**lehen** mailakoan (8)

**bigarren** mailakotzat (9)

**a** mailan (33); **afizionatu** mailan (19); **b** mailan (56); **bere** mailan (20); **bigarren** a mailan (14); **bigarren** b mailan (32); **bigarren** mailan (282); **bigarren** mailan geratu (11); **bigarren** mailan geratzen (16); **bigarren** mailan utzi (15); **diru** mailan (9); **egitura** mailan (8); **elite** mailan (9); **espainiako** lehen mailan (9); **espainiako** ohorezko mailan (23); **estatu** mailan (13); **europa** mailan (21); **euskal** herri mailan (9); **gazte** mailan (21); **gazteen** mailan (27); **gaztetxo**en mailan (11); **gizarte** mailan (14); **goi** mailan (47); **goren** mailan (12); **gorengo** mailan (10); **helduen** mailan (10); **herri** mailan (14); **hezkontza** mailan (8); **hirugarren** mailan (43); **junior** mailan (17); **kadete** mailan (13); **kirol** mailan (14); **kultura** mailan (11); **laugarren** mailan (11); **lehen** mailan (518); **lehen** mailan ari (9); **lehen** mailan aritzeko (16); **lehen** mailan jarraituko (11); **lehen** mailan jarraitzea (16); **lehen** mailan jarraitzeko (21); **lehen** mailan jokatu (12); **lehen** mailan jokatzea (9); **lehen** mailan jokatzeko (14); **lehenengo** mailan (11); **ligako** lehen mailan (11); **moto** gp mailan (8); **mundu** mailan (51); **nazio** mailan (14); **nazioarte** mailan (21); **nazioarte**ko mailan (14); **ohorezko** mailan (36); **politika** mailan (17); **profesional** mailan (8); **senior** mailan (8); **zilarrezko** mailan (8)

**b** mailara (12); **bigarren** b mailara (8); **bigarren** mailara (97); **bigarren** mailara jaitsi (25); **goi** mailara (18); **hirugarren** mailara (10); **lehen** mailara (153); **lehen** mailara igo (23); **lehen** mailara igotzea (10); **lehen** mailara igotzeko (33); **lehen** mailara itzuli (8); **lehen** mailara itzultzea (8); **lehen** mailara itzultzeko (13); **mailara** eraman (8)

**bigarren** mailarako (10); **lehen** mailarako (39); **lehen** mailarako txartela (10)

**bizi** mailaren (8); **hirugarren** ezagutza mailaren (8); **mailaren** arabera (34); **mailaren** azpitik (9)

**bigarren** mailari (12); **lehen** mailari (38); **lehen** mailari eustea (9); **lehen** mailari eusteko (12); **mailari** dagokionez (21); **mailari** eustea (151); **mailari** eustea lortu (9); **mailari** eusteko (222); **mailari** eusteko borrokan (16); **mailari** eusteko lehian (9); **mailari** eusten (17); **mailari** eutsi (83); **mailari** eutsi nahi (9); **mailari** eutsi zion (8); **mailari** eutsiko (34)

**mailarik** apalenean (9); **mailarik** baxuenean (9); **mailarik** gorenean (14); **mailarik** gorenera (10); **mailarik** onena (9)

**b** mailatik (13); **bigarren** mailatik (18); **lehen** mailatik (21); **mailatik** gora (14)

**mailaz** igotzea (8); **mailaz** maila (38)

**bere** mailean (11); **bigarren** mailean (71); **ekonomia** mailean (10); **europa** mailean (47); **gazteen** mailean (10); **lehen** mailean (102); **politika** mailean (10); **sozial** mailean (12)

**bigarren** maileko (76); **bigarren** maileko finala (25); **europa** maileko (30); **goi** maileko (23); **lehen** maileko (59); **sozial** maileko (47); **sozial** maileko bizitegi (15)

**gure** lehen mailekoak (9); **lehen** mailekoak (21); **sozial** mailekoak (15)

**beheko** mailetan (21); **bi** mailetan (14); **eskailera** mailetan (15); **gazte** mailetan (13); **hiru** mailetan (15); **lehen** mailetan (9); **mailetan** gora (8)

## maila-maila egin ik mailatu<sup>1</sup>.

## mailadi 1 iz hurrenez hurrengo mailen multzoa.

Harri landuzko kalostra batek mugaturiko **mailadi** zabal batetik iristen da apaiza aldare honetara.      Koldo Izagirre

Harri grisezko **mailadi** batek etxera darama.      Antton Olano

Bizkor eraman zuen jauna zurezko **mailadian** gora, berarentzat bereizia zuten gela erakustera.      Jose Morales

Emakume bat zegoen eskaileren lehen **mailadiaren** ia goienean zutik.      Irene Aldasoro

Lurretik sabairaino zurezko **mailadi** piko-piko bat zegoen jasota, erdian eskailera bat zuela; antzokiko galeria baten itxura ematen zion horrek ikasgelari.      Josu Zabaleta

Eskailera hauek arrapaladan jaitsi eta hortxe eseri baitzen, **mailadi** batean.      Jon Alonso

Bere pausoak egurrezko **mailadian** gora sumatu nituen lehendabizi eta atean bertan ondoren.      Hasier Etxeberria

Santaremen sartzeko eratu zen zurubi hartako **mailadia**.      Jon Alonso

Dardara barik igan gura nuen urkamendiko **mailadia**.      Koldo Izagirre

### 2 irud/hed

Eta hildakoen belaualdi guztientzat, gureganaino jaitsi den gizadiaren **mailadi** osoarentzat, ia ezer ez, alor bat, ezer ez ia!      Josu Zabaleta

Hausnarrean hasirik, litekeena da pentsatzea ea Korobotxka benetan dagoen hain behean giza hobekuntzaren **mailadi** azkengabean.      Jose Morales

## mailadun izlag mailako.

Inguru honetan nik dakidanez ez dago mila **mailadun** eskailerarik goitik behera erori arren horrenbeste ubeldura egiteko.      Joseba Sarrionandia

Hiru **mailadun** eredu hauetako batean deskribatutako kate bat hartuta, [...].      Itziar Laka

## mailaka (orobat mailka g.er.) 1 adlag mailaz maila.

Sei aska zituen, **mailaka** jarriak, eta ura batetik bestera isurtzen zen ertzetan gainezka eginez.      Karlos Zabala

Gailenduko dut nire izatearen gaitasun hau eta **mailaka** igoko naiz egin ninduenagana.      Imanol Unzurrunzaga

**Mailaka**, gradualki, helduen ahoskeran gertatzen ez diren bilakabideak mugatuz joaten gara.      Lourdes Oñederra

**Mailaka** bezala, hizkuntzak bata bestearen gainean pausatzen bailiran.      Ana Urkiza

Horrela, kursoetara ezin joana duenak **mailaka** ikas dezake euskara batua.      Herria

Subiranotasuna **mailaka** eskuratzearan, lehenbailehen aldekoen artean. **Berria - Mundua**  
Voltaire-ren Jinko hotzetik abiatuz, **mailka** igaitien da Jinko handi bena bizidun batetaran **Herria**

## 2 mailaka-mailaka

Toms, hogeita bost mila lagunengatik, modu ikusgarrian hedatzen da **mailaka-mailaka** hegala aldapatsu samarreko mendixka batean gora. **Karlos Zabala**  
Merkatarien hiriaren gainetik, goiko auzoaren etxeak agertzen ziren **mailaka-mailaka**. **Karlos Zabala**

## mailakaketa iz mailakatzea.

Zer harreman-mota finka daiteke elkarren artean (hierarkia, nagusitasuna, **mailakaketa**, determinazio unibokoa, kausaltasun zirkularra)? **Xabier Arregi**

## mailakatu, mailaka(tu), mailakatzen 1 du ad mailaka ezarri, mailen arabera antolatu edo sailkatu.

Berehala **mailakatu** zituen batetik laura grisen eskalan. **Xabier Olarra**  
Ezin daiteke urdin mota guztiak hartzen dituen katalogo bat egin, baina **mailaka** daitezke obra jakin batean agertzen diren urdinaren ñabardurak. **Josu Zabaleta**  
Kristau Eliza, tokikoa eta unibertsala, bi erlijio-klasetan egituratu zenean, "laikotza" eta "kleroa" alegia, eta kleroa bere aldetik "ordena"-hierarkian **mailakatu** zenean [...].  
**Iñaki Mendiguren**  
Sorkarien ordena gorenetik beheenera hain zehazki **mailakatuta** dagoela non [...]. **Imanol Unzurrunzaga**  
Ukoak honela **mailakatzen** dira beheranzko eskalan: erabateko ukoa, baldintzazko ukoa, badaezpadako ukoa eta emakumezkoaren ukoa. **Xabier Olarra**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Bi mila urte lehenagotik, nekazaritza, soro **mailakatuak** eta olibadi eta mahastiak izan ziren hangoen bizibide. **Xabier Olarra**  
Era **mailakatu** eta progresiboan. **Berria - Euskal Herria**  
Godmanen eraikuntza teorikoan, sailkapen **mailakatu** baten barruan sartuta dago analogia. **Josu Zabaleta**  
Musika-jaiste ilegalaren aurka zigor **mailakatu** hautatu dute Frantzia. **Berria - Kultura**  
SEPIri «Navalen itxiera **mailakatu**» ekarriko duen bideragarritasun plana diseinatzea egotzi dio eta «Ezkerraldeko industria deusezte» PSOeri. **Berria - Ekonomia**  
Prezioen igoera modu **mailakatu**an egiteko. **Berria - Mundua**  
Espeziate batetik besterako igarobide **mailakatu**aren bitartez. **Ibon Uribarri**  
Eraikin handikote argitsu **mailakatu** batzuk. **Lopez de Arana**

## mailakatze (orobat mailkatze g.er.) iz mailaka ezartzea, mailen arabera antolatu edo sailkatzea.

Hurbiltze eta hastantze honetan **mailakatze** handia dago. **Xabier Kintana**  
Har dezagun balada bat, irakur dezagun astiro: narrazio luzearen **mailakatze** bera dauka, nobela luze bat da, elipsian emana. **Berria - Kultura**  
Zakar samarra zen, apika, haren sailkapena, baina kontrastea zorrotzegi pertzibitzeari lotua zen hori, eta, orobat, Jonathanen keak eragiten zituen ñabardura **mailakatze** eskasari. **Xabier Olarra**

## mailaketa 1 iz mailakatzea.

Kolorea, **mailaketa** jarraitu batean gertatzen dena hau ere (ostadarra da honen paradigma). **Josu Zabaleta**  
Gizarte harremanen **mailaketa**. **Ibon Uribarri**  
Analogiaren **mailaketa** hori aise ikusaraz daiteke, erreferente berbera duten baina egoera sozio-historiko desberdinetan egin diren irudiak aurrez aurre jarri. **Josu Zabaleta**  
Persona Fisikoen Errenten Gaineko Zergaren **mailaketa** hirutara murrizteko. **Berria - Mundua**  
Ikasleen **mailaketa** sozioprofesionala. **Berria - Euskal Herria**  
Karrera judizialeko **mailaketa** Garzon baino mila postu beherago baitzegoen Gomez Bermudez. **Berria - Euskal Herria**  
Frantziak berraztertu egin behar du zigorrezi ezarri dien **mailaketa**. **Berria - Euskal Herria**  
**Mailaketa** bat proposatu behar dugu, beraz, oinarriko kontzeptuak zehaztearen: [...]. **Iñaki Arranz**  
Hizkuntzaren kalitatea kategorizatze **mailaketa** bat egin dugu. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Norberaren gustuetan oinarritutako gizarte **mailaketa** berria agertuko da, esan zuen irakasleak. **Txema Ramirez de la Piscina**  
Indiako gizarte **mailaketa** aztergai. **Berria - Mundua**  
Zuzendaritzak emakume eta gazteengan eragina izan den soldata **mailaketa** bikoitza eskaini die. **Berria - Ekonomia**

## mailatsu iz (-en atzizkiaren eskuinean, leku atzizki batekin singularrean, "gutxi gorabehera" zentzuz)

Hainbat lurralde dauzkagu, Afrika aldean eta Asiako zenbait parajetan, garapen bidean direnak: gure **mailatsura** ekarri nahi baditugu, basoak bota eta lurra landu behar dute, bizi beharrez. **Pello Zabala**

## mailatu<sup>1</sup> (orobat maillatu g.er.), maila(tu), mailatzen 1 du ad zerbaiti edo norbaiti, kolpeak emanaz, uspelak edo sakonguneak egin. ik makatu<sup>1</sup>.

–Melokotoi hauek **mailatuta** daude. **Alberto Barandiaren**  
Hegal hark, fuselajetik askatzean, torloju eta azkoin eskukada batzuk erauzi zituen, plazara erori eta emakume batzuei burua **mailatu** zietenak. **Fernando Rey**  
Oin-eskuak **mailatuak** zeuzkan, ziztada gorritz handituak, odoletan. **Karlos Zabala**  
Ezpain lehertuetatik odola zerion, eta masailak kolpeez **mailatuta** zeuzkan. **Juan Kruz Igerabide**  
Borroka bata bestearan atzetik galtzen hasi nintzen, eta aurpegia eta gorputza **mailatuta** itzultzen nintzen etxera beti. **Jon Arretxe**  
Hezurak ere **mailatuak** ditut. **Elizen arteko biblia**  
Bere barnean, organo nagusiren bat **mailatu**, bortxatu diotela sentitzen du- bihotza, agian. **Oskar Arana**  
Madrek familiako erretratua marko eta guzti trapu batekin bildu zuen ez **mailatzeko**. **Jon Maia**  
Orgen triki-trakak **mailaturiko** barazkiak. **Karlos Zabala**  
Emazteak ez zuen hurrengo goiza arte ikusi autoak albo bat **mailaturik** zeukala. **Xabier Olarra**  
Mahai gainean kortxo eta nikelzko gorputzadarra zetzan, ezpaldia eta **mailatua**. **Lopez de Arana**  
Lanceloti ekin zion, gogor, buruko estalkia **mailatu** arte. **Juan Kruz Igerabide**



## 2 irud/hed

Sozialisten ustez, ERCren ezetak **mailatuta** utzi du Generalitatea. **Berria - Mundua**

## 3 (era burutua izenondo gisa).

Hartu, musuka ezazu esku **mailatua**. Ez nintzen oso tripaki zalea, baina aseak ez bezala begirutzen baitio goseak sagar **mailatu** bati. **Jose Morales**

Zenbat balio dezake zilarrezko koilara **mailatu** mordoxka batek? **Ander Irizar**

Bi aldiz autoz aldatu eta landetara abiatzen dira Renault **mailatu** batean. **Javi Cillero**

Lurruna irteten zen kapot **mailatuaren** azpitik. **Iñaki Mendiguren**

Poto **mailatu** bat eskaini zidan. **Koro Navarro**

**Mailatu** eta are odoldu asko San Giovanniko zaharren atzetik joaten ziren, Romans auzotik zehar, eta etxeetan sartzen ziren zauriak urez garbitzera. **Josu Zabaleta**

## 4 maila-maila egin guztiz mailatu.

Zaragozako tailer batean montaje bat egiten ari zela, holako batek hanka harrapatu zioan: hezurak **maila-maila** eginda **Pablo Sastre**

## mailatu<sup>2</sup> iz mailatzearen ondorioa. ik makatu<sup>2</sup>.

Zauri arin batzuk eta **mailatu** ugari. -Aaaag! -oihu egin zuen Ronek, beste adar okertu batek atean **mailatu** handi bat egin zionean. **Aritz Gorrotxategi**

[Gorputzek] ez zeukaten **mailaturik**, ez eta ubeldurik, hozkarik edo ziztadarik ere. **Bernardo Atxaga**

Adar bakar batek ere ez zuela **mailaturik**. **Anjel Lertxundi**

## mailegaezin izond ezin mailegatuzkoa.

Itzulpenaren argitaldi honen arabera egingo dira aipamenak, hemen Donostian KMko1900eko **"mailegaezina"** baino eskuraerazagoa baita; frantsesez, ez UPV-EHuko bibliotekan eta ez KM Kulturunean dago noski liburu hori. **Koldo Izagirre**

## mailegagarri izond mailega daitekeena.

Efektu horren arabera, aurrekontu-defizitaren goratze orok, maileguz finantzatzen denean, eskari pribatuaren beste horrenbesteko murriztea eragiten du, ondoriozko interestasek gora egiten dutelako funts **mailegagarrien** merkatuan. **Koro Navarro**

## mailegari 1 iz (zerbait) mailegatzen duen pertsona. ik mailegatzaile.

Cunningham jaunak, xuxurlaka, Harford jaunarengana, **mailegariarengana**, itzularazi zion arreta Kernan jaunari. **Irene Aldasoro**

## 2 (hitz elkartuetan)

Diru-**mailegari** batek bi zordun zituen: batak bostehun denario zor zizkion eta besteak berrogeita hamar. **Elizen arteko biblia**

Hauek merkatariak ziren, batez ere finantza-bitartekariak eta diru-**mailegariak**. **Iñaki Mendiguren**

## mailegatu, mailega, mailegatzen 1 du ad maileguz eman edo hartu. ik jesan.

Gastu horientzat, Sokoak hiru miliun **mailegatu** ditu, miliun baten heina eman berak baztertu dirutik. **Herria**

Dirua **mailegatzea** merkeagoa izanik inbertsioek gora egiten dutelako. **Iñaki Heras**

Beste gauzak **mailegatu** edo erosi egin daitezkeela; dirua, berriz, gauzen prezioa denez, **mailegatu** bai baina ez da erosten. **Iñaki Iñurrieta**

Aurrekontu publikoen defizitaren areagotze oro maileguz bidez finantzatzen denean, **mailegatze** gai diren funtsen merkatuetan interes tasen areagotzea sortzen baita, eta funts horien eskari pribatua murriztu. **Iñaki Heras**

Aitak Lewisi **mailegaturiko** dirua. **Mirentxu Larrañaga**

Ez gehiago txirotu **mailegaturiko** dirua jaietan eralgiz. Bestea, Izarri **mailegatutako** 111 milioi euroko kreditua. **Elizen arteko biblia**

Herritarrek **mailegatzen** dituzten liburuen zerrendak jasotzeko. **Berria - Mundua**

Herriko Etxeak eremu bat prestatu edo **mailegatu** digu, eta eremu horren gainean Seaskako "Egoitzak" taldeak muntatu du prefabrikatu bat. **Herria**

Eusko Jaurilaritzak ikasliburuak **mailegatzearen** alde eginez gero ondorio larriak izango dira. **Berria - Harian**

Irakurleen %32k liburuak **mailegatzea** gurago dute erostea baino. **Berria - Kultura**

Iaz, Hegoaldean etxebizitza erosteko, batez beste, 146.872 euro **mailegatu** ziren. **Berria - Ekonomia**

## 2 (hizkuntzetan)

**Mailegatutako** alfabeto bat, -eta horrenbestez, zentzugabekeriez betetako alfabeto bat-. **Isabel Arrigain**

Herbesteko hizkuntza batetik **mailegatu** diren hitzen grafiak. **Isabel Arrigain**

## 3 irud/hed

Charliek maiz kontatu izan dit **mailegatutako** denboran bizi garena hemen kanpoan. **Mirentxu Larrañaga**

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Bostehun txartel enkargatu nituen nire izen **mailegatuarekin**. **Matías Múgica**

Honela, *ecclesia* hitz **mailegatu** hartzean, Elizak esanahi bikoitza eman zion, Erromatar Inperioaren ordena politikoaren isla zena. **Iñaki Mendiguren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**euro mailegatu** (3)

**liburuak mailegatzea** (3)

## mailegatzaile (orobat mailegatzaile g.er. eta mailegutzaile g.er) 1 iz (zerbait) mailegatzen duen pertsona. ik mailegari.

Itsasontzia eta zamak jomugara heltzen baziren, **mailegatzaileei** dirua itzultzen zitzairen, eta irabaziak banatzen ziren. **Koro Navarro**

Guzti-guztiak bat zeuden, politika kargudun, ekonomia jardule, instituzioetako arduradun, diru **mailegutzaile**. Muskildi herrian atzo estreinatua zen *Azkorria* [...] gasnategi kooperatibaren bilakabidea gorapatzeko. **Berria - Ekonomia**

## 2 (hitz elkartuetan)

Errotikako erreformarik gabe, NDFk azken **mailegatzaile**-eginkizun benetakoia bete dezan [...] erantzukizun hori Nazioarteko Erregulazioen Bankuak (NEB) har dezake epe luzera. **Koro Navarro**

Jorge Esparza, Luis Roldanen esku **mailegatzailea**, eta Agustin Guardia Palau abokatua. **Berria - Euskal Herria**

## mailegatzale ik mailegatzale.

**mailegu 1** iz diru kopuru bat edo gauza bat norbaiti utzi edo norbaitengandik hartzea, epe batez erabili ondoren jabeak berriko eskuratzeko baldintzaz; horrelako diru kopuru edo gauza.

**Mailegu** horiei loturik herrialde hauen beste arazo larrienetakoa kanpo zorrarena da. **Iñaki Heras**

**Mailegu** bat eskatu behar zuela koadro haietako bi erosteko. **Pello Lizarralde**

Gutzira 4.000 milioi dolarreko kapitalarekin, 200.000 milioi dolarreko **maileguak** eskatu zituen, gero, 1.300.000 milioi dolarreko inbertsioak egiteko. **Iñaki Heras**

120.000 euroko **mailegua** 20 urtetan itzuli behar dutenek. **Berria - Ekonomia**

**Mailegu** horiek ikasketak bukatu ondoren, eta lanean hasten badira, itzuliko dituzte. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Interes sinboliko hutsa duten **maileguak**, oso epe luzekoak eta frankizia-aldi luzea izaten dutenak. **Koro Navarro**

Garapen bidean dauden herrialdeei **maileguak** emateko. **Iñaki Heras**

Lagun hurkoari **mailegu** egin dionak barkatu egingo dio **maileguz** emana; ez du lagun hurko herritarra zorra itzultzera behartuko. **Elizen arteko biblia**

Ikasleek **maileguak** hartzen dituzte unibertsitatean dauden bitartean, ikasi ahal izateko. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Ez dela lukurreriaz **mailegurik** hartu behar. **Iñaki Iñurrieta**

Enpresei emandako kreditu, **mailegu** eta leasingak %12,5 handitu dira. **Berria - Ekonomia**

Datozen egunotan «nahikoa» **mailegu** izenpetuko direla aurreikusi dute. haren gurasoak prest baitzeuden zeukaten lokal bat saldu eta, gainera, behar zen **mailegua** bermatzeko. **Berria - Ekonomia**

Abenduan euren **mailegua** berrikusi behar dutenek. **Berria - Ekonomia**

**Mailegua** dibiseta itzultzeko ahalmena. **Koro Navarro**

Gastu horiek **maileguaren** bidez finantzatzea erabaki zuen, ez zerga bidez. **Koro Navarro**

**Mailegu** bidez nahi adina diru berenganatzen ari zirenei, ez zezatela % 20 baino korritu handiagorik kendu. **Patziku Perurena**

**Mailegu** bidezko doakotasunak balio gabe utz ditzake neurri batean ikastetxeko curriculum proiektuak. **Berria - Harian**

## 2 (izenondoeekin)

Dirua erabili aitzin, gizartearen negozio guztiak **mailegu** soil edo trukaketaren bidez egiten ziren. **Andres Urrutia**

Diru kopuru baten erabilera dohainezkoa, **mailegu** hutsa da; korriturik eta itzultzeko asmorik gabeko eskuzabaltasuna, dohaintza da. **Andres Urrutia**

Etxea Endreri esker konpondu genuen, oso **mailegu** moduzkoa lortu baitzigun. **Ander Irizar**

Ofiziale berrieri **mailegu** merkeak proposatzen dituzte bizian hobeki abiatzeko. **Herria**

**Mailegu** txiki-txiki bat eskatu nahi dizut, egun gutxi batzuetarako. **Lopez de Arana**

Atzerritar kapitalak, **mailegu** publikoen harpidetzaz osaturik gehienbat, azpiegiturak egiteko erabili ziren kasurik onenetan. **Koro Navarro**

Mondragon taldeko aurrezki kutxak emandako **mailegu** hipotekarioen kopurua %22,5 handitu zen. **Berria - Ekonomia**

%45eko **mailegu** fiskala eta Elkarte Zergaren oinarri ezargarriari eginiko kenkariak (opor fiskalak) legez kanpoko estatu laguntzak dira. **Berria - Ekonomia**

**Mailegu** federalesk eskaintzen zituzten errenta handiek erakarririk. **Koro Navarro**

Eztabaida amaigabeak, **mailegu** korritudun, monopolio edo itsas kontratuetako baldintzen legezotasuna eta antzeko gaien inguruak. **Andres Urrutia**

## 3 (izenlagunekin)

Mahomet-en legeak nahastu egiten ditu lukurreria eta inerespeko **mailegua**. **Iñaki Iñurrieta**

Familia unitate txiroenek interesik gabeko **maileguak** ordaindu ahal izan dituzte. **Berria - Ekonomia**

Gure Errege zorrerz itoa da, kanpoko **maileguak** lehertu baitute atzoko eta egungo gerlengatik. **Piarres Xarriton**

Epe laburreko **maileguak** hartu zituzten, dibiseta, tokiko inbertsioak finantzatzeko, epe ertainekoak nahiz epe luzekoak, produktiboak edo espekulatioak. **Koro Navarro**

Epe laburreko **mailegu** eta inbertsioei. **Koro Navarro**

Gainera, orain bankuek ez dituzte ematen interes finkoko **maileguak**, ez dute arriskatu nahi, eta noski, interes aldakorreko **mailegua** guretzat da arriskutsua. **Jon Arretxe**

Orduan, funtsak askoz ere dolar gutxiago beharko ditu herrialdeko dirutan hitzarturiko **maileguak** ordaindu ahal izateko. **Iñaki Heras**

Garapenerako **maileguak** iragarri zituen eskuineko gobernuburuak. **Berria - Mundua**

Ekoizpenerako **maileguak**. **Berria - Kultura**

## 4 irud/hed

Erreferentzia literario ugari agertzen joanen dira testuan zehar, egileen obren, estiloen, **tekniken** maileguak erabiliz, pastitxeak eta parodiak egiteko gustua erakutsiz.

**Monika Etxebarria**

Beste hitz batzuk, ordea, erromintxelatik hartu ditu egileak **mailegu** merkean. **Koldo Izagirre**

*ik beheago 7.* **Askoren artean**

Har ditzagun adibide gisa atzerriko hitzen **maileguak**. **Isabel Arrigain**

**Mailegu** literario eta kultural nahiz poetikoiei irekia zegoen. **Berria - Harian**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez da egokitzat jo negozio zibil arruntetan [...] korrituen hainbatekoa diruzalekeriaren atzaparretan eta **mailegu** emaileen lizentziapean uztea. **Andres Urrutia**

**Mailegu** -emaileen ikuspuntutik. **Koro Navarro**

FMIk galdu du [...] nazioarteko finantza sistemaren **mailegu** emaile izateko aukera. **Iñaki Heras**

**Mailegu** ordaintzak berandu itzultzen dituztenen eta kobraezinen ratioa oso maila apaletan dago. **Berria - Ekonomia**

Ikasliburuei **mailegu** sistema ezartzeak zer «arrisku» dakartzan ohartarazteko. **Berria - Harian**

Lulak Nazioarteko Diru Funtzarekin **mailegu** akordioa egin ondoren. **Berria - Mundua**

Victorio hori **mailegu** -etxeko Don Juan bat zen. **Josu Zabaleta**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hipoteka-**mailegu** gehienak neurtzeko baliatzen den indizea %2,377ra iritsi zen. **Berria - Ekonomia**

Ageriko aurrezki, hipoteka **mailegu** eta inbertsio funtsen igoerek negozioaren bolumena %12,3 haztea eragin zuten. **Berria - Ekonomia**

Urteak jin eta urteak joan, gobernuak alde bat arizan baitira diru **mailegu** egiten, zorrak noiz nola pagatu diren biziki axolatu gabe. **Herria**

Etxebizitza **mailegua** kalkulatzeko adierazle erabili da euriborra **Berria - Ekonomia**

## 7 hizkuntza batek beste baten hitz edo osagai bat bereganatzea; horrela bereganatutako hitz edo osagaia.

**Mailegu** dira hizkuntza batek beste hizkuntza batetik hartzen dituen hitzak. **Lourdes Oñederra**

Hizkuntzak **maileguak** egokitzen dituen ala **maileguak** egokitzen duten hizkuntza oso auzi interesgarria da ikerketa fonetiko-fonologiaren eremuan. **Lourdes Oñederra**

**Mailegu** berri ez diren hitzetan. **Lourdes Oñederra**

**Mailegu** zaharren aldaera sendoenek zalantzarik gabeko lekukotza eskaintzen dute: *pentsatu* (eta ez *pensatu*), *unibertsitate* (eta ez *unibersitate*). **Lourdes Oñederra**

Gaztelaniazko **mailegu** batzuk egokitzeak. **Lourdes Oñederra**  
Aintzat hartu behar da analisi sinkronikoetan **mailegu** irentsiak ez direla gehiago **mailegu**. **Lourdes Oñederra**  
Euskaraz "xede-taldea" erabiltzen dut nik, itzulpengintzatik hartutako **mailegu** egokia delakoan. **Joxerra Garzia**  
Hanbat **mailegu** egiten ditugu euskaraz: latinetik [...], okzitanetik [...], espainioetik eta frantsesetik. **Herria**

## 8 **maileguan** (72 agerraldi, 29 liburu eta 17 artikulutan) *adlag* errentan.

Liburutegira itzuli beharko ditut **maileguan** hartutako liburuak ere. **Monika Etxebarria**  
**Maileguan** harturiko armak. **Iñaki Mendiguren**  
Filmaren tesia zuzenean Grouchoeren memorietatik hartu duela **maileguan** New Yorkeko zuzendariak. **Berria - Kultura**  
Horrelako kaltzioak **maileguan** eskuratzen zituzten jendaurreko borroketarako. **Josu Landa**  
Lukurreriazko interesekin **maileguan** hartu eta emateko tentazioa. **Iñaki Mendiguren**  
Jaurlaritzak 15,3 milioi euro emango dizkio **maileguan** Unibertsitateari. **Berria - Harian**  
Banketxeek 120.000 euro baino gehiago ez dietelako ematen **maileguan** 1.200 euro inguruko soldata dutenei. **Berria - Euskal Herria**  
Aspaldiko usadioan, Erromako herritar batek baimena zuen bere emaztea beste bati **maileguan** emateko, seme-alaba hobeak izatekotan. **Andres Urrutia**  
Beste bi goizetan dirua **maileguan** emateko etorri zen nigana. **Fernando Rey**  
1.000 euroak **maileguan** jaso dituenak dirua izango baitu. **Iñaki Heras**  
Dirua eskatu zuen **maileguan** etxearen eta lur-eremuaren jabe izateko. **Joseba Urteaga**  
Gaur **maileguan** utzi eta bihar itzultzeko eskatu: higuigarria da horrelakoa! **Elizen arteko biblia**

## 9 **mailegutan** (26 agerraldi, 5 liburu eta 3 artikulutan) *adlag*maileguan

Horren ondorioz, **mailegutan** emateko eta hartzeko bide zintzo guztiak desagertu egin ziren Erroman. **Iñaki Iñurrieta**  
Emakume behartsu eta gaixo horrengandik **mailegutan** hartu genuen, eta beharrezkoa dugu berari itzultzea. **Askoren artean**  
Bankariak dirua aldatzeko daude, ez **mailegutan** uzteko. **Iñaki Iñurrieta**  
-Eta hau hiretako -Ximurrari-, baina **mailegutan**. **Aingeru Epaltza**

## 10 **maileguz** (69 agerraldi, 15 liburu eta 2 artikulutan) *adlag* maileguan

Zeuen herritarrari zerbait -dirua, janaria nahiz beste edozer gauza- **maileguz** ematean, ez diozue eskatuko interesik. **Elizen arteko biblia**  
Emailiak **maileguz** eman duena berriro hartzea erabakiko balu, gorputza eta arima baino ez lirateke geldituko, eta hori fedegabeak ere badu. **Askoren artean**  
Guk **maileguz** hartu dugu, gu baino behartsuagoren bat aurkitu arte. arratsaldean, **maileguz** hartutako koroa erdi batekin, Fish-Guarden atzeko tabernara joan nintzen. **Askoren artean**  
Mantua **maileguz** utzi zenion gizon behartsu hark eskerrak ematen dizkizu. **Askoren artean**  
**Maileguz** soilik utzi dizkigute. **Oskar Arana**  
-Ez gara **maileguz** hartutako hitzei buruz ari. **Iñaki Arranz**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

emandako mailegu (4); euroko mailegu (5); hipoteka mailegu (3); mailegu bat eskatu (4); mailegu bereziak (3); mailegu berri (3); mailegu berrietan (4); mailegu bidez (5); mailegu bidezko (3); mailegu emaila (7); mailegu emaila (5); mailegu emaila (3); mailegu fiskala (3); mailegu hartzaileak (4); mailegu mota (3); mailegu sekretuak (5); mailegu sistema (14); mailegu sistemak (10); mailegu sistemarekin (3); mailegu sistemaren (8); mailegu sistemaren ondorioak (3); mailegu txiki (3); milioi euroko mailegu (3)  
dolarreko mailegua (3); etxebizitza mailegua (3); euroko mailegua (11); euroko mailegua eskatu (3); mailegua emango (3); mailegua ematea (3); mailegua eskatu (4); milioi euroko mailegua (5); zenbatekoa den mailegua (3)  
diru maileguak (3); emandako maileguak (4); etxebizitza erosteko maileguak (4); hipoteka maileguak (11); interesik gabeko maileguak (4); liberako maileguak (3); maileguak eman (6); maileguak emango (3); maileguak emateko (7); maileguak ematen (3); maileguak eskaintzen (3); maileguak eskatu (3); maileguak hartzea (3); maileguak izan (3); maileguak jaso (5); maileguak jaso zituela (4); maileguak kalkulatzeko (3); urterako maileguak (3)  
dirua maileguan (3); ikasliburuak maileguan (3); maileguan emateko (4); maileguan eskatu (3); maileguan eskatutako (3); maileguan hartu (8); maileguan hartutako (4); maileguan uzten (3)  
maileguaren alde (3)  
emandako maileguen (5); hipoteka maileguen (5); maileguen bidez (3); maileguen sistema (3)  
hipoteka mailegutan (3)  
dirua mailegutan (3); mailegutan hartu (3); mailegutan hartzeko (3)  
maileguz eman (4); maileguz emana (3); maileguz ematen (5); maileguz hartu (4); maileguz hartutako (3); maileguz utzi zenion (3); mantua maileguz utzi (3)  
maileguzko hitzak (3)

## mailegutza 1 *iz* maileguan hartzea edo ematea.

Itxura batean gauza bera eman arren, ikasliburuaren doakotasuna eta **mailegutza** ez dira gauza bera. **Berria - Harian**  
Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz [...] baita beronen aleak alokapen edo **mailegutza** publikoaren bidez banatzea ere. **Patxi Altuna**  
Euskaldunok erdararen morrontza errazetik, etengabeko **mailegutza** itsutik, libratzeko tresna izan genezan. **Berria - Kultura**

## 2 (hitz elkartuetan)

EAEko Editoreen Elkarteak ez du begi onez ikusten **mailegutza** sistema. **Berria - Harian**

mailegutzaile ik **mailegatzaile**.

mailka ik **mailaka**.

mailkatze ik **mailakatze**.

maillatu ik **mailatu**<sup>1</sup>.

maillo ik **mailo**.

## maillot (orobat maillot g.er.) 1 iz txirridulariari elastikoa.

Egiten zuen hotzarekin, **maillot** bat eta galtza gorriak, belauetaraino jasoak, zeramatzan. [Juan Kruz Igerabide](#)

Segituan Romanen soinera begiratu zuela, **maillotaren** koloreak zeintzuk zituen jakin nahian, nor ote zen ziklista hura, ze selekzioetakoa, baina **maillotaren** partez alkandora zahar bat ikusi zuela. [Berria - Kultura](#)

Euskaltel-Euskadiren **maillota** du soinean. [Berria - Harian](#)

T-Mobile utzi eta Liberty-Wurth taldearen **maillota** jantziko du. [Berria - Kirola](#)

Goizero jaiki eta **maillota** jantzeko garaian ezin nuen sinetsi ni nintzenik munduko txapelduna. [Berria - Kirola](#)

## 2 txirridulari lasterketa batean sariren bat irabazten duenak jantzen duen maillot berezia.

Erasoa jo dudanean mendiko **maillota** nuen buruan. [Berria - Kirola](#)

2002an erregulartasunaren **maillota** irabazi zuen Tourrean. [Berria - Kirola](#)

Iker Camaño, opari txikiagoa bada ere, gazte onenaren **maillot** zuria gertu du. [Berria - Kirola](#)

Euskaldun bi direlako munduko txapeldunaren **maillota** soinean daramatenak, bizkaitarrak biak: Joane Somarriba emakumetan eta Igor Astarloa gizonetan. [Berria - Kirola](#)

Berak jantzi beharko zukeen liderraren **maillota**. [Berria - Kirola](#)

Tropel erdia, ordea, 100 txirridulari dira, eta garaipen aukerak eta **mailloten** bat soinean eramateko egunak, zortzi. [Berria - Kirola](#)

Cunego da probako txirridulari indartsuena, eta norbaitek *maglia* (**maillota**) arrosa soinetik kendu nahi badio, majo sufritu eta izerdi franko bota beharko du. [Berria - Kirola](#)

## 3 maillot hori Frantziako Itzuliko sailkapen orokorrean lehen doanak jantzen duen maillota.

Voekler ihesaldi batean sartu zen eta, Armstrongen US Postal taldearen baimenarekin, **maillot horia** jantzi zuen. [Berria - Kirola](#)

2004ko Tourrean **maillot horia** 10 egunez eramateagatik egin zen ezaguna. [Berria - Kirola](#)

Alejandro Valverde herenegun galdutako **maillot horia** berreskuratu zuen atzo. [Berria - Kirola](#)

**Maillot horia** irabazi baino lehenago hainbat proba irabazitakoa da Hushovd **Maillot horia** jantzen duen lehen karrerista norvegiarra da. [Berria - Kirola](#)

Tourreko **maillot horia** soinean duela agertzen da. [Berria - Kirola](#)

Berrogei bat segundora Eddy Merckx dator bere **maillot horiarekin**. [Joseba Sarrionandia](#)

## 4 (hitz elkartuetan)

Jan Ullrichek ezin izan zion lider **maillotari** eutsi atzoko etapari. [Berria - Kirola](#)

## mailu ik mailu.

## mailo (orobat maillo) 1 iz aldapa handiko belar soroa.

**Mailo** 2: belasoro goi aldapa handikoak. [Patziku Perurena](#)

Nafarroan, mendi inguruetan, batik bat, artzainak **mailotik** behera erretiratu beharrean aurkitu ohi ziren ordurako. Dena dela, Barranka aldean eta bestetan ere ezagunak dira *mailloa* izeneko belasok, baina, alde guzietakoek ezaugarri beratsuak dituzte: leku goi eta aldapakoak; belar urri baina ona; herri bakoitzak bere **maillo** itxia; eta barrenean etxe bakoitzak bere puska, itxi gabe, zotzez edo mugatua, goitik beherako zerranda mehar luzetan. [Pello Zabala](#)

Komeniko litzateke **mailloen** alderdi juridikoan erroraino jotzea. [Patziku Perurena](#)

## 2

**Mailo** 1: haitz, harmail nabari eta pikoak. [Patziku Perurena](#)

Baina Euskal Herrira, etxera, noiz itzuliko ote naiz? noiz ikusiko ditut berriz Ezkurrako **mailoak**? [Iñaki Zabaleta](#)

Ordeka den tokietan batik bat, zeren malkar eta **mailo**, aldapa eta pendizak dituenak, hobe du artzaintzari toki ematea edo ikasi du eskarmentuz, pinuak ere baliorik baduela gure inguru hauetan. [Pello Zabala](#)

## maillot ik maillot.

## mailu (orobat mailu g.er.) 1 iz kolpeak emateko lanabesa, metalezko atal begidun batez eta begi horretan finkatzen den gider batez osatua. ik gabi.

Amish komunitate hura bezala, **mailu**, iltze eta zerraz etxea altxatzen. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Egun batzuetan amona lanean sumatu zuten, **mailu** eta zerra, ohol eta iltze, etxeari beste zatiren bat erantsi nahian bezala. [Pako Aristi](#)

Ez zen **mailu**, pikatxoi edota burdinazko beste tresna-hotsik entzun tenplua eraikitzean. [Elizen arteko biblia](#)

Mazo, burdin barra, **mailu** eta mota guzietako tresneria pasatzen zen eskuz esku. [Elena Touyarou](#)

Altxatu du **mailua** eta ekin dio iltzea sartzeari, baina egurrak jaso du kolpea. [Bernardo Atxaga](#)

**Mailuaz** zizelburuari kolpetxo bizkorrak etengabe ematearekin batera. [Iñaki Iñurieta](#)

Ingurua **mailu** eta zizel eta tornu-jiren zaratez bete zen. [Julen Gabiria](#)

Nik trenbideetatik aditu nuen guardia postu batetik bestera zihoan seinale hotsa, **mailu** bat kanpai arraildu bati joka, eta berehala jakin nuen nire trena zela. [Fernando Rey](#)

Urre eta zilarrez apainduak eta iltzez eta **mailuz** josiak. [Elizen arteko biblia](#)

Egin urre garbizko argimutilla, **mailuz** landua. [Elizen arteko biblia](#)

Solarovek **mailuarekin** hiru kolpe eman, eta hamar minutu eskasean erabaki zen enkantea. [Berria - Ekonomia](#)

Gazteluko portaleraino joan zen, **mailua** eskuan, suminaren egiazko irudi bihurtuta, oihuka eta garrasika. [Fernando Rey](#)

Nire hitza sua bezala da, harkaitza txikitzen duen **mailua** bezala. [Elizen arteko biblia](#)

Pala **mailu** gisa erabiltzeko. [Jon Arretxe](#)

Burmuintan, izen bat joka ari zitzaion **mailu** baten gisan. [Elena Touyarou](#)

**Mailuaren** eta ingudearen arteko burdina gorria gara, kolpea kolpearen ondoren jasatearen poderioz amatatu egiten dena. [Jon Alonso](#)

Jainkoari erreguz, beharrari **mailuz**. [Joan Mari Irigoien](#)

**Mailuaren** eta igitaiaren ikurra erliebean daukan arrautza. [Koldo Biguri](#)

## 2 (izenondoekin)

Hark, badaezpada ere, **mailu** handi bat hartu zuen arma bezala. [Josu Zabaleta](#)

Ziriak sartu zizkidaten azazkalen eta haragiaren artean... **mailu** txiki batez barruratzen zizkidaten, kontu handiagaz. [Koldo Izagirre](#)

Ezkutu ikaragarri handi, biribil eta beltzak zituzten, eta esku koskotsuetan **mailu** astunak. [Agustín Otsoa](#)

**Mailu** erraldoi batez kolpatua iduri, itzulipurdika doa lurrera. [Aingeru Epaltza](#)

Pianoak [...] nota hotsa aterako bazen barruan zeuzkan hariak jotzeko **mailu** buru-txuri haiek sorginak zirela. **Pako Aristi**  
Kanpoan karrilak harrotzen ari ziren obretakoak **mailu** pneumatikoarekin. **Koldo Izagirre**  
Orduan zertarako haien dikeak eta haien harresiak, eta haien zentral elektrikoak eta haien labe garaiak eta haien **mailu** elektrikoak? **Monika Etxebarria**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zen **mailu** kolperik ez eta langile karkazailik aditzen. **Itxaro Borda**  
**Mailu** kolpeak huts egin zuen, nahiz bota erdi-erdira. **Xabier Olarra**  
**Mailu** hotsak entzun nituen arte. **Josu Zabaleta**  
Bizitza osoan izan ez dodan ajea daukot [...], nire aktibitate zerebralak **mailu** hotsa baino ez dau jotzen... Ez dauka ba **mailu** itxura handirik! **Unai Iturriaga**  
Itsas haizeak, **mailu** eta mailuxka kanken hots histuak zekarzkieten belarrietara. **Aurelia Arkotxa**

### • 4 (izenondo gisa, buru gogortasuna edo adieraziz)

Zer **mailua** zaren hotzaren eta beroaren kontu horrekin! **Fernando Rey**  
Eta gero esaten zion gure amari: "A zer **mailua** den Miranda hau!". **Fernando Rey**

### 5 *mailu ukaldi* (orobat *mailukaldi g.er.*) ik *mailukada*.

San Laurendi ur-golkoko uhin apalen erritmo berak **mailu ukaldien** kasken artekak betetzen zituen. EDezkila dorreko **mailu ukaldien** azantza. **Aurelia Arkotxa**  
**Mailu ukaldiek** burua bortizki jotzen balidate bezala, tanpa-tanpa, etengabe entzuten nuen: hire gain, hire gain, hire gain. **Daniel Landart**  
Musika zen, antigoaleko marinba baten durundia, harmoniarik gabeko **mailukaldi** gisako musika-mota izugarri bat, erabat epileptikoa. **Joxe Austin Arrieta**

### 6 *mailu ukaldika adlag* ik *mailuka*.

Egia da, baina ixol! Galanki afaldu eta mozkoitu ondolen jainko mutu eta ulun holien tailuak hautsi genituen aitzul eta **mailu ukaldika**. **Itxaro Borda**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**mailu astunak** (3); **mailu hotsa** (4); **mailu isila** (3); **mailu itxura** (3); **mailu txiki** (5); **mailu txiki batez** (3)  
**mailuaren hotsa** (31)

## mailudun *izond* mailua duena.

Zela berri **mailuduna** ez, ordea. **Aingeru Epaltza**

## mailuka 1 *adlag* mailu ukaldika.

Errementariak burdin puska hartu eta, txingarretan goriturik, **mailuka** moldeatzen du. **Elizen arteko biblia**  
Emaztea **mailuka** akabatu eta errepara bota du bere burua. **Koro Navarro**  
Herritarrak oihuka, zomorroiak zer egin ez zekitela, fiskala moztuta, eta epailea **mailuka**, ordena eta isiltasuna eskatuz... anabasa zoragarria sortu zen. **Koldo Izagirre**  
Garabi guztietara banan-banan igan eta koadro elektrikoak **mailuka** ezpalduko ditiat uste baldin baduk hori dela soluzioa. **Koldo Izagirre**  
Uda aurreratzean parte gaiztoko hotsak heldu ziren, larru gainean moteldutako **mailukada** neurtuen antzera, behin eta berriro erasoz. **Anton Garikano**

### 2 irud/hed

Aurrerantz makurrarazi zuen salataria, eta orduan bigarren **mailukada** bat jaso zuen muturrean, belaunez. **Paddy Rekalde**  
Honelako gauzak gertatzen dira han, herri xeblere hartan, non eguzkiak **mailuka** jotzen duen jendearen buruan. **Koldo Biguri**  
Ez dago bularrean **mailukadak** sentitzen nituela esan beharrik. **Ramon Saizarbitoria**  
Aitaren hitzak entzuten nituen gogoari **mailuka**. **Anjel Lertxundi**  
Bihotza **mailuka** hasi zait, bai, kutxa torazikoan, morse zoragarri batean. Bihotza taupaka sumatzen nuen, bularreko zauriaren kontra **mailuka**. **Koldo Izagirre**  
Galdera bat ari zaizu buruan behin eta berriz **mailuka**. **Rafa Egiguren**

## mailukada 1 *iz* mailu ukaldia, mailu kolpea.

Oholtza gainean, arotz bat ari da azken **mailukadak** jotzen turkoen ate gaineko gortina gorriaren euskarriari. **Anjel Lertxundi**  
Tona banako muturrekoak izaten ziren haiek, ingudean jotako **mailukadak** bailiran astiro eta gupidagabe emanak. **Koldo Biguri**  
Arka egiten ari zirenen **mailukadek** iratzarri zuten. **Juan Garzia**  
Oraingoan bai, ate hotsa ozena izanen da, epailearen **mailukaden** modukoa. **Joseba Sarrionandia**  
Entzuten dituzu **mailukadak**, Dolors? **Koldo Izagirre**  
Haren **mailukaden** hotsarekin, eszena-zuzendaria lasterka azalduko da kamerinoetako atetik. **Josu Zabaleta**

### 2 irud/hed

Nire bihotzaren **mailukadak** ziren. **Koldo Izagirre**  
Itxaron-min geldigarri halako bat jabetu zen nitaz, eta beldur nintzen **bihotzaren** mailukadek ez ote ninduten bertan gelditzera behartuko... orduan nire ondoan paratu zinen. **Eduardo Matauko**  
Nire zorianaren erdian dardarka hasi nintzen, belarrietan **mailukaden** antzean ari zitzaizkidala hitzok: kito, kito eta ahaztu! **Eduardo Matauko**  
Izuak buruan danba jotzen zuen, **mailukada** bortitzez, kolpe bakoitzean puntaparix bat ziztatuz, erle elegante batek pozioiaz hil nahiko balu bezala. **Jasone Osoro**

### 3 (hitz elkartuetan)

Bakotxak izentata geunkan geure **mailukada** kopurua. **Xabier Amuriza**

## mailukadaka *adlag* mailu ukaldika, mailu kolpeka.

Bazirudien begiak **mailukadaka** ezarri zizkiotela buruan. **Lopez de Arana**  
Bero sapa egiten du, eta bidaia hasi zuenetik erabakia okerra zela **mailukadaka** gogorarazi nahi liokeen bizkarreko min orratzantzeko bat du lagun gaur ere. **Pako Aristi**

## mailukaldi ik *mailu* 5.

## mailukari<sup>1</sup> *izond* mailukatzen duena.

Errepikapenak nonahi, lotura ezak... eta ez utzi, ez hustu, ez laga, irakurleari ardatza kili-kolo jartzen dion "bertan behera utzi" **mailukari** hori. **Iñigo Aranbarri**  
Batek asmatzen du formula **mailukari** bat eta denak formularekin mailuka gure buruon gainean. **Joxe Azurmendi**

## mailukari<sup>2</sup> iz mailuaz jotzen duen langilea.

Artisauak zilarginari ematen dio adore, **mailukari** leuntzaileak ingude-jotzaileari, esanez: "Ederra soldaketa!" Eta gero iltzez gogortzen dute irudia, ez dadin zartatu. **Elizen arteko biblia**

## mailukatu, mailuka, mailukatzen 1 du ad mailu ukaldiz jo.

Koilararen kirtenaren alde bat **mailukatuz** labana gisa erabiltzeko tresna bihur genezakeela. **Urtzi Urrutikoetxea**

### 2 irud/hed

Ezkerreko esku-asegurua **mailukatu** du erpuruaz, eta horrela konektatu egiten da gakoa. **Sonia Gonzalez**

Haren zakilak zila **mailukatzen** zidan, gogorra eta beroa zegoen. **Juan Martin Elexpuru**

Odolak nire lokiak **mailukatzen** zituen, eta nire traidoretzua gero eta handiagoa ari zen bihurtzen. Delbardek **mailukatzen** zien lantegiaren geroa segurtatua zela. **Juan Martin Elexpuru**

Andde jazarri zitzaion jaun eta jabe: ez hoa ongi motel **mailukatzen** zion kontzientziaren balizko eleak bailiran. **Itxaro Borda**

Euskaraz hitz egin zuen, silabak **mailukaturik** hizkuntza bat arrotza zaion orok ohi duen moduan: [...]. **Anjel Lertxundi**

## mailukazoka adlag adkor mailukadaka.

Carlos atxilotu egin zutela bertako kanposantuan hilarri bat **mailukazoka** txikitu nahian aritzeagatik. **Bernardo Atxaga**

## mailuketa iz

Erreumentariak, esaterako, jarrita hauspoari eragin, jarrita galda atera, jarrita **mailuketan** egin. **Patziku Perurena**

## mailuki iz marrubia.

Kafea hartu, eta kafearekin batera kipurrak eta **mailukiak**, eta eseri egin naiz. **Edorta Jimenez**

**Mailuki** bat atera zuen alkondarako patrikatik orduan. **Unai Elorriaga**

## mailutxo iz mailu txikia.

Bost indio **mailutxo** batzuekin instrumentu hura -egurrezko xilofoi antzeko bat, mahai baten tamainakoa- amorrubizian jo eta jo. **Joxe Austin Arrieta**

## mailutzar iz adkor mailu handia.

Ethelredek bere **mailutzarra** jaso zuen, dragoia buruan jo, eta parean erori zitzaion. **Koro Navarro**

Azkenean, itxaropenik bat ere ez zela ulertu nuenean, **mailutzarra** hartu eta jo eta txiki-txiki egin nuen komun-ontzia. **Oskar Arana**

Jaso zuen bere **mailutzarra**, eta, kolpeka, ateko oholak urratu zituen bere esku larraz babestuarentzat leku egiteko. **Koro Navarro**

## maina 1 iz amarrua, antzea, artea.

Entzuleak xarmatzeko, zakutik atera nituen **maina** guztiak. **Maina** zahar bat entzulegoaren baietza sortzeko. **Aingeru Epaltza**

Futbolearen bazuen **maina**, batik bat portero lanak egiten jartzen zutenean. **Xabier Etxabe**

Merkatari arima-tratante baten **mainak** eta jukutriak. **Joxe Azurmendi**

Behin eta berriro maradikatu nuen emazteki hura, eta haren arte eta **maina** gaixtoa. **Joan Mari Irigoien**

Hala ere, denboraren martxak berak erakutsiko dio kartzelarien **mainek** xede argia dutela, eta ezagutza horren ondorioz, bere burua indartzen ahalko du. **Filipe Bidart**

### 2 txera.

Guzmud bufoia zen maiteen zuena, kapritxo guztiak betetzen zizkiona, **maina** gehien egiten ziona. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Litekeena zen lehen semea izateagatik, **mainak** eta temak sobera dastatu eta gustatu izana. **Felipe Juaristi**

**Maina** bila dabilen katutxoaren trazak hartuz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Siloiaren besoan eseri nintzen eta nire bi besoez amuñaren lepoa inguratu; **maina** bila nenbilen nonbait, **mainetarako** adina pasea izan arren. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Samurtasunak bestearen behar afektiboak kontuan hartuz garamatza; haren maitasun eta samurtasun beharra, eta baita **mainen** beharra ere. **Luis Elberdin**

Litekeena zen lehen semea izateagatik, **mainak** eta temak sobera dastatu eta gustatu izana. **Felipe Juaristi**

Potzolo, berriz, **mainarik** gabe lotu zitzaion. **Aingeru Epaltza**

Etxeko guziek kanpotarrei eta bereziki Joantortti, sekulako **mainak** egin zizkieten. **Elena Touyarou**

"Eta zertarako umeak izan **mainak** emateko ez bada?", esaten zuen gure amak. **Fernando Rey**

Emakume sofistikatu eta eder haren keinuek eta **mainek** liluratu egin zuten, eta lerre-jario utzi. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

### 3 (hitz elkartuetan)

Ama ez nuen ezagutu eta ikasteko adina harturik, artean ume **mainak** nituelarik, Salamancara bidali ninduen aitak, maisu handiak izan dituen hiria denez. **Felipe Juaristi**

### 4 negar zotina, batez ere itxurazkoa; laineza, muzinkeria.

Sun-hartza izaturik zegoen, eta **maina** egiten zuen. **Juan Kruz Igerabide**

"Ez dakite umeak hezten", esaten zuen gure aitak, "gaizki ohituak daude, **maina** besterik ez dute". **Fernando Rey**

**Mainak** edo egiten zituen, haurra baillitza goiko ezpaina behekoan hartuz, eta aurpegia eskuekin estaltzeko lotsarik ere ez zuen. **Ramon Saizarbitoria**

Rosiek **maina** bat egin zuen. **Lopez de Arana**

### 5 mainak eginsup\_1

Maisie berriro **mainak** egiten ari zela eseri zen bere kapelaren begizta arrosaren azpian. **Lopez de Arana**

Ostera hasi zaigu gure Arrue jauna kaltetuaren **mainak** egiten -burlaizea ezpagnetatik kendu gabe jarraitzen zuen markesak-. **Anjel Lertxundi**

Cassandra Wilkinsek bere hizkera aldrebesaz galdetu zuen **mainak** eginez: [...]. **Lopez de Arana**

Horiek, haurrek alegia, logurak egoteko joera izaten zuten beranduko jatorduetan; gutxi jaten zuten, artega egoten ziren, edo **mainak** egiten zituzten. **Eskarne Mujika**

### 6 mainak eginsup\_2 txerak egin.

Aita ere estu eta larri egonda durraren zain, eta gero besokatu du, **mainak** egin dizkio, bainatu du eta bere besoetan hartu eta lokartu da. **Luis Elberdin**  
Beti norbaiti **mainak** egiteko premia duzun horietakoa zara. **Fernando Rey**

## mainada iz familia.

Eskez paratu zuen lehenengo idazketa, txiki-txikitatik **mainadaren** albiste emateko guraria betetzeko. **Berria - Kultura**

## mainaka adlag mainak eginez.

Ez nuen hirugarren mailako ume mukizu baten moduan **mainaka** hasi nahi. **Jesus Mari Mendizabal**

Zu ez hasi **mainaka** -esan zion gizonari-. **Bernardo Atxaga**

Nesketako batek ume bat dauka besoetan, **mainaka** ari dena. **Oskar Arana**

## mainaldi iz ipar bainua.

Eguberri biharamunean, Miarrizten eta Ziburun itsasoan egin dira urte ondarreko **mainaldiak**. **Herria**

Igande eguerditan, Miarrizteko portu zaharrean, Eguberriko **mainaldia** Hartz Zuriak izeneko elkartearekin. **Herria**

Iduriz osasun onean zen: Larrungo itzulia egin, etxean sartu eta **mainaldi** batek gozotasuna emanen ziola; han herioak bildu du Terexa Ordoki 53 urtetan. **Herria**

## mainati 1 izond lainezaz beterikoa. ik mainatsu.

Amatxo, amatxo... -errepikatu zuen, haur **mainatiarena** eginez. **Juan Kruz Igerabide**

Kasketaldi baten bitartez bere jostailua behingoan eskuratu nahi duen ume **mainatia**. **Xabier Montoia**

Gaiztakeriatan harrapatutako haur bihurri eta **mainatiak** balira bezala. **Felipe Juaristi**

Atso keXu eta **mainati** harengandik sekula esperoko ez genuen zakarkeriaz erantzun zigun. **Fernando Rey**

Katua miauka etorri zitzaidan, etxekologun **mainatiek** konpainia hutsez bereganatu ohi dituzten eskubideen eske. **Javi Cillero**

### 2 (adizlagun gisa)

Kotxean sartu, ohizko muxua eman eta muturrak okertuz demanda egiten dio Mikeli, **mainati**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Mugiarazi hori -esan zion **mainati** aitari. **Iñaki Mendiguren**

## mainatsu (orobat mainutsu) 1 izond lainezaz beterikoa, mainatia.

Ez zuen ezustekorik nahi, oker ez bazegoen katuak bezalakoa izan baitziteken Teresa: **mainatsu** interesatzen zitzaionean; baina, baita ere, edozein unetan atzamar egiteko gai. **Migel Angel Mintegi**

### 2 (adizlagun gisa)

"Benga, Dodov, oso gauza interesgarriak esan dizkiguzu eta", bultzatu nion nik, **mainatsu**. **Karlos Linazasoro**

## mainatu<sup>1</sup>, maina, mainatzen 1 du ad lainezaz bete. ik mimatu.

Sendaketa garaian inoiz baino gehiago **mainatu** zuen Helenak senarra. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Alaba txorateraino maite zuenez, **mainatu** besterik ez zuen egin. **Jose Morales**

Gainera, banuen, sobera ere, inork **mainaturik** sentitzeko premia. **Aingeru Epaltza**

Luisitok, osaba-**izebek** mainaturik, berehalaxe baztertu zuen Andresek gomendatzen zion bizimodua; ez zuen eguzkia hartzera joan nahi, eta kalean jolas egitera ere ez; geroz eta kontentagaitzagoa eta mizkinagoa ari zen bihurtzen. **Josu Zabaleta**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Eta **mainatua** zen, haur gazteenen moduan. **Ibon Uribarri**

Une batez edo, lasaitzea lortzen nuen, neure buruari esanez Adelak nahi zuena egin zezakeela bere bizitzarekin, ni ikasle **mainatu** bat baikik ez nintzela azken batean, eta ez zegoela besterik, onartu beharra neukala egoera. **Juan Kruz Igerabide**

Zein dotorea ni bezalako alaba bakar -eta **mainatu** - batentzat pianoa jotzen ikastea! **Anjel Lertxundi**

## mainatu<sup>2</sup>, maina, mainatzen (adiera honetarako, Euskaltzaindiaren Hiztegian bainatu agertzen da) da ad ipar bainatu.

Portu zaharrean **mainatzen** ziren, antzinako dorre suntsitu bik mendean duten badia ttipian. **Koldo Izagirre**

Jende asko **mainatzen** omen zen Iturriozko uretan. **Txillardegi**

Itsaso handiaren uhain urdinen erritmo zabalean **mainatzeko** parada har dezakezu! **Ramuntxo Etxeberri**

**Mainatzeko** urak ere garbi behar direla. **Herria**

## mainatzaile iz ipar bainularia.

Itsas ondartzan (plaiain) **mainatzaileak** ikusten ziren udan bezala. **Herria**

Azkenean egin zen Donibane Lohizuneko pizina edo mainutegia eta badu ikaragarriko arrakasta! ez du arras bi urte idekia dela eta joanden egunean errezibitu dute, bai eta saristatu, 250.000garren **mainatzailea**. **Herria**

## maindire 1 iz ohean, bata lumatxa estaltzen eta bestea horren gainean eta berokien azpian jartzen diren oihal zurizko atal bakoitza. ik izara; mihise.

Argia itzali, eta **maindire** artean kiribiltzen naiz. **Anjel Lertxundi**

Ohe gainean egongo zara biluzik zetazko **maindire** artean, izter barrenak sutan, ni, botila bat xanpain hotza eskuan, heltzen naizenean. **Ramon Saizarbitoria**

Han zeuden biak, biluzik, **maindireen** gainean etzanda, elkarren besoetan lo sakonean. **Oskar Arana**

**Maindireen** azpian zurrungaka ari garenean. **Koro Navarro**

Aurpegi zurbilak ez du **maindirepetik** alde egiteko asmorik. **Anjel Lertxundi**

Nik sukaldetan aritu behar izaten nian, sukaldetan, sukaloa zaintzen eta **maindireak** aldatzen. azpiko **maindirea** zabaldu, ertzak koltxoipean sartu, eta gero eskua pasatu genion, zimurrik gera ez zedin. **Koro Navarro**

Lucyren gelan, ohe bikoitza **maindireak** kenduta. **Oskar Arana**

Letizia **maindirean** bildurik altxatzen da komunerako asmoz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Leihopeko **maindire** sagarrez betea izerditan hasi da. **Anjel Lertxundi**

Une horretan Monika, esku baterekin bere bularrak **maindirearekin** estaliz eta beste eskua ahoan zuela bere gelatik atera izan balitz. **Joxean Agirre**

33 urteko preso gasteiztarra **maindire** batekin urkatuta aurkitu zuten atzo ziegan. **Berria - Euskal Herria**

Oheko **maindireak** eta zenbait jantzi elkarri lotu eta mutur bat berogailuari estekatuz --, bigarren solairutik behera alde egin zuen Lacallek. **Berria - Euskal Herria**

Kandelako suak **maindire** bat hartu zuen, eta handik logela osora zabaldu zen. **Berria - Mundua**

## 2 (izenondoekin)

Orduan ikusiko du **maindire** garbiak jarri dituela. **Jon Alonso**

Zopa beroa eta **maindire** zuriak. **Anjel Lertxundi**

Gelan ohe zabala zegoen erdi erdian, **maindire** gorritz estalia. **Joseba Sarrionandia**

Armairuaren goiko apalean, **maindire** zuri pila baten gainean. **Itziar Otegi**

**Maindire** zuri pasaratu batek bezlitzen zuen harmoniuma. **Koro Navarro**

Marokon ehortzi zuten, **maindire** zuri batean bilduta, zuzenean lurreen eta Mekara begira, hilkutxarrik gabe. **Berria - Harian**

Fusil baten punttan, **maindire** zuri bat zintzilikatu ditek kasernako leiho batetik. **Txillardegi**

## 3 irud/hed

Tarteka haize-bolada batek inguratzen du, izotzeko **maindire** batek bezala, eraman nahian. **Itziar Otegi**

Makinistak ez du agindua betetzen, eta txinatarrak desagertzen da, eta odolzeko eta hezur birrinduzko **maindire** bat bihurturik ateratzen da beste aldetik. **Josu Zabaleta**

Keak ezin zuen tximiniatik gora igo; teilatuen gainean sakabanatzen zen, **maindire** urratuak bezala. **Koro Navarro**

Eta ostera hondoratu zen bere **maindireen** hilobiaren erdian. **Juan Garzia**

## 4 (hitz elkartuetan)

Marta bakarrik, negar-zotin emean, **maindire** muturra hozkatuz, pentsamendu-txinparta bat begietan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-23 zentimetroko elur **maindire** lodia. **Pello Zabala**

## 5 (erkaketetan)

Bi mutikoak, **maindireak** bezain zuri, zorroak hartu eta di-da batean desagertu ziren. **Monika Etxebarria**

Gero haran **maindirea** bezain argi eta alde guztietatik gailur elurtuez inguratuari jarraitu zioten. **Josu Zabaleta**

## 6 maindire baten edukia.

Ganbarako bazterrean, **maindire** bat ahotz, maiatzaren azkenera arte, gorde zak! **Pello Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maindire artean** (11); **maindire azpian** (4); **maindire azpira** (3); **maindire garbiak** (3); **maindire zuri** (10); **maindire zuriak** (3)

**maindireen artean** (9); **maindireen azpian** (11)

## maindiretxo iz maindire txikia.

Himalaian ateratako argazki bat, bi nepaldar "Euskal presoak Euskal Herrira" zioen **maindiretxoari** heltzen. **Iñigo Aranbarri**

## maineldun izond leiho-gurutzea duena.

Dumbledorek alde egin ondoren, ordu arte ez bezala zabaldu zen izua, eta bazirudien gazteluko hormak epeltzen zituen eguzkia leiho **maineldunetan** geratzen zela, barrura sartu gabe. (*izenlagun gisa*) -Lan ederra izango du Harry hemen aurkitzen -esan zion Ronek, **maineldun** leihoez bestaldean mara-mara ari zuen elur zurrumbilotsua buru-keiniz seinalatuz-. **Iñaki Mendiguren**

## maingu (orobat maiku) 1 izond herrena, hanka-motza.

Halako goiz batean beso-motz, begi-bakar eta **maingu** lantokiratuko banintz. **Aingeru Epaltza**

Edo Rudolf **maingua**, 14ko gerran eskuarekin batera burua ere galduzea zuena. **Alberto Ladrón Arana**

**Maiku** dena xuxendu beharrez **maikuago** ezartzen berdin! **Herria**

Luxuzko antejo batzuk zeuzkan eskuineko eskuan, ezkerrez **maingua** baitzen. **Karlos Linazasoro**

Hanka batetik **maingu**. **Piarres Xarriton**

## 2 irud/hed

Eta orain, mahaia **maingu** zegoen, herren. **Aingeru Epaltza**

Sarri, arratsean, nota zenbait eskainiko dizkiot kaierari: hitz xume eta perpaus **mainguak**. **Piarres Aintziart**

Baina beribila **maingu** senditurik, neumatikoak kanbiarazi behar. **Piarres Aintziart**

Burutik **maingu** dukek erraiten zioten elkarri, gizon hura manera hartan ikustean. **Eneko Bidegain**

## 3 (adizlagun gisa)

Kanoikada batek betikoz **maingu** utzi zion eskuin zangoa. **Aingeru Epaltza**

-OMC ekonomia biltzarra da munduko 149 herriena, 2003an erdi **maingu** gelditua zena gehiagoko akordioarik ezin eginez orduan. **Herria**

## 4 (izen gisa)

-Zer duk, **maingu** alu horrek? **Alberto Ladrón Arana**

## 5 besomotza. ik mantxu<sup>1</sup>.

Epifanio deunaren eliza [...] beterik egoten zen jende behartsuz, gizon-emakume gaixo eta ezinduz, neska-mutil gaixo eta ahulduz, itsuz eta **gorrez**, mainguz eta herrenez, legenardunez eta izurridunez. **Felipe Juaristi**

Gerra Handiak eragindako zoro, itsu, **maingu** eta herren ugari ikusten zen bazterretan. **Anjel Lertxundi**

· 'Ez da gaizki egina izan!' esango dizu esku **maingua** erakutsiz. **Joseba Sarrionandia**

## 6 maingu egin herren egin.

**Maingu** egiten omen du apur bat ezkerreko zangoaz. **Txillardegi**

Bainan ez nauzue begiratu behar, kurri gaki naizelarik, zeren **maingu** egiten baitut. **Menane Oxandabaratx**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**



## maingueria (orobat *mainkueria*) 1 iz abereen eritasuna, azazkalen artean sortzen diren handitsu batzuk ezaugarri dituena.

Egun hautan, beti Ingeleterrán, **maingueriak** ditu jo ardi tropak, eta izurriteari buru egiteko, milaka dituzte ardiak hil eta gero erre. **Herria**

Behi burtxoratuaren ixorio hits horrekin aski ez balitz bezala --, horra nun egundainokotan **mainkueria** (edo aheria) berriz agertu den. **Herria**

**Maingueriaren** beldur horrekin, Nafarroako harakinek galdea egin diote gobernuari 12 ilabetez goragoko behieri bizkar-hezurra kentzeko legea eskatuz. **Herria**

Minik haundienak halere, laborarietak aurtengo huntan; merkatuak ez badira ere lehenago ziren hek, iduri gaitz guziak batean erori zaizkiela gainerat, behi burtxoroenetik **maingueria** edo aheria hortarat. **Herria**

Memento huntan feiria eta merkatu guziak zerraturik daude **maingueria** kausa. **Herria**

Kontsumitzaileak hazkurri naturalak nahiago dituela, behi haragiaren krisia, geroztik **maingueriarena**. **Herria**

### 2 herrentasuna.

Aitzin gaueko kolpearen ondoriozko **maingueria** herrestan neramala. **Aingeru Epaltza**

## mainguka (orobat *maikuka*) 1 adlag herrenka.

**Mainguka** joaten zen kaleetan eta xendetan barna. **Fernando Rey**

**Mainguka** ez ibiltzearen, arruntik oinustu eta zealdoka gurutzatu nuen ganbera, sarrerako ateraino. **Aingeru Epaltza**

Haren ondotik oinezkoen larriena heldu zen, eta gero zaurituak, batzuk **mainguka**, bertze batzuk lagunen besoek lagundurik. **Aingeru Epaltza**

Aldi berean **mainguka** eta lasterka. **Aingeru Epaltza**

- **Mainguka** ere ibilki zara! **Aingeru Epaltza**

- Uda egiazki jin aitzin, aroa hezea, hotza, lanotsua izaiten da eta hori ez da ardien onetan: batzuk eztulka, **mainguka**, besteak mehatzen, esnea galtzen. **Michel Oronoz**

### 2 irud/hed

Europa batua hinki-hanka doala, eta **maikuka**, parte segurik tratulari edo tratulanteen Europa delakotz oroz gainetik eta ez ainitzek amesten ginukeen gisakoa. **Herria**

## maingutu, maingu(tu), maingutzen da/du ad herrendu, maingu bihurtu.

-Hi ere oraino ez haiz **maingutu**, hurbildik. **Aingeru Epaltza**

Susmo goibel haiek, alabaina, **maingutzen** dizkiote segurtzat izan dituen hainbat sinesmen eta ideia ustez tinko. **Xabier Montoia**

Partida hau, haatik, kondu bitxi huneekin, hortan utzia izan da hasi eta oren baten buruan, Rene Dermitek zangoan zartadura bat eginik, **mainguturik** ezarri duena, ez agian luzazko. **Herria**

## mainkueria ik maingueria.

## mainontzi (orobat *mainuntzi g.er.*) 1 izond adkor mainatia; negartia.

Neskameak, auvernier txiki **mainontzi** batek, erreboiloa ukitzen zuen, zakatzak begirutzen zizkion, nazka imintzioa beti aurpegian, isil-isilik. **Karlos Zabala**

Pineten andrea aldiz biziki **mainuntzia** zela eta senarrak haren nahikundeak oro kuxian onesten zituela. **Elena Touyarou**

Orain ez duk **mainontzi** barregarri hura, txantxa eta ostia guztien biltzailea, nahiz eta oraindik ere gizen xamarra izan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zoritxarrekoa izaten errazagoa zegoek zorionekoa izaten baino; eta nik, badakik, ez diat bide erraza aukeratzen duen jendea maite, ez diat **mainontziak** gogoko! **Jesus Mari Mendizabal**

### 2 (adizlagun gisa)

Eta ez daukat etxera joateko gogorik... -hasperen egin zuen, **mainontzi** samar. **Migel Angel Mintegi**

-Ez dut janen -errepikatzen zidan tematsu, kasko-gogor eta une hartan zinez **mainontzi**. **Itxaro Borda**

## mainontzikeria (corpusean *mainuntzikera soilik*) iz mainotziaren egite gaitzesgarria.

Mundu huntako handi mandien **mainontzikeriak** noraino doatzen! funtsean, delako inperadore horrek izena bera ez zuen nolana hiko: errealki Octavio deitzen zen, bainan Augusto izena hartu zuen, erran nahi baita "Saindu", gutiz barka! **Herria**

## mainoso (orobat *mainosa*) izond mainatia; amarrutsua; negartia.

'**Mainosoekin** ez dago jolasterik! zioten beste batzuek. **Joseba Sarrionandia**

Bestek interesante egin zain dagoen mutikokkor **mainoso** bat: horratz gure nortasun agiri nazionala. **Patziku Perurena**

Negar egiten baduzu, ume **mainosatzat** joko zaituzte; eta ez baduzu malkorik isurtzen, berriz, zinezko sentimendurik gabeko zerri potroandizat. **Patziku Perurena**

## mainu (Euskaltzaindiaren Hiztegian *bainu agertzen da*) 1 iz bainua.

**Mainu** bat behar zuela hartu askaltzerat jaitsi baino lehen. **Janbattitt Dirassar**

Hondartzaren gainean, eskuin aldean genuen berriro "Bains Napoléon" izeneko **mainu** -etxetzarra. **Txillardegí**

Gero, Donostiako hondartza nagusiaren bazter hortan, hain xuxen La Perla deitu **mainu** -artategiko jatetxean ederki bazkaldurik. **Herria**

### 2 bainugela; bainuontzia.

Elizan egin beharrak diren obrak ere aipatu dituzte eta **mainu** publikoan egin behar diren bortsak obrak eztabaidatuak izan dira. **Herria**

Elena **mainutik** atera zenean, egundainokotan musu batzuk emanik berriz hasi zitzauden predikuan. **Janbattitt Dirassar**

## mainugela (orobat *mainu gela*) iz bainugela.

Iduritzen zait 'hamman' **mainu gela** batean sartzen garela! **Ramuntxo Etxeberri**

Iduritzen zait 'hamman' **mainu gela** batean sartzen garela! **Ramuntxo Etxeberri**

Jaun erretorak berea ukanen du (sukalde, jateko sala, bi ganbara eta **mainugelarekin**) apezetxearen beheko partean. **Herria**

## mainutegi *iz ipar igerilekua.*

Donibane Lohizunen, obran ari dira karraskan pizina edo **mainutegi** berriaren egiten, hori Chantaco auzogunean. **Herria**

**Mainutegiak** badu beraz arrakasta handia, ondartza hor izanikan ere bestalde. **Herria**

**Mainutegi** berri bat, estalia litakeena edozoin sasoinaz baliatzeko gisan, uda ala negu, euri ala ateri. **Herria**

Eskoletako haurrek **mainutegia** aise baliatzeko errestasunentzat eta gauza bera kirol-elkarteetan dabilzanentzat. **Herria**

## mainutsu ik mainatsu.

## mainuzain *iz*

Bigarren urtea segidan, Cyril Escoula donibandar **mainuzaina** deneri aintzindu. **Herria**

## mainuzale *iz bainularia.*

Miarritzek zumarrak paratuko ditu bere muinoetan, ranpak dunetan, eskailerak amildegietan, kioskoak haitzetan, aulkiak leizeetan, galtzak **mainuzaleetan**. **Koldo Izagirre**

Lokatz bera ezartzen dute **mainuzaleek** junturetan bizpahiru aldiz egunean. **Txillardegi**

## maiolika *iz toska-mota.*

Zeluloidezko bioleaz betetako **maiolika** ontzi bat. **Matías Múgica**

Hain bioleta usain fuertea zerion non iruditu zitzaidan zeluloidezko bioletak biziberritu zirela **maiolikazko** lorontzian. **Matías Múgica**

## maionesa *(orobat mahonesa g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian maionesa agertzen da) iz arrautzez, olio, limoi edo ozpinez eta gatzez eginiko saltsa hotza, hainbat jakiren lagungarri zerbitzatzen dena.*

Maritxuk bazekien [...] **maionesa** on bat nola egin behar den, arrautzak, olio, ozpin pixka bat eta gatza pazientzia handiz irabiatuz. **Berria - Gaiak**

Katilu handi zuri batean **maionesa** egiten. **Berria - Gaiak**

Jantokian jarraituko zuten arrautzak **maionesarekin** eta muskuilu frijiuak jaten, koipetan ezpainak. **Bernardo Atxaga**

Ama-seekek eta alabak otarrainkak zuritzen dituzte, eta hozkailutik ateratako **maionesarekin** jaten. **Joan Mari Irigoien**

Bi ogitarako jan, **maionesak** estali eskuak milikatuta eta hasi zen galderei erantzuten Frears jauna. **Berria - Kultura**

Gure orburuak hostokatzen, orriz orri **mahonesan** busti eta hortzen artean orriz orri irensten ari ginela. **Joxe Austin Arrieta**

## maior 1 *iz zenbait armadetan, komandantearen kideko maila duen militarra.*

Stede Bonnet **maiorrak** ez zekien ezer itsasoko kontuez. **Juan Garzia**

Robert Autumn armadako **maior** erretiratuak. **Berria - Kultura**

**Maioarren** otseinek men egin zuten. **Juan Garzia**

### • 2 *izond* musikan, akordeez eta tonuez mintzatuz, hirugarren nota lehenegotik bi tonutara dagoena.

Eziek eskatu ahala, eskalak jotzen eta akordeak kantatzen hasi zen, hiruko **maiorretatik** hasiz. **Xabier Olarra**

Ondoren, polka tonu **maiorrera** igaro da. **Xabier Paya**

Txekiarrak Widorren Bigarren sinfonia re **maiorrean** eta Mendelsshon eta Bartholdyren Laugarren Sonata si **maiorrean** eskainiko ditu. **Berria - Kultura**

Johan Duijcken zuzendaritzapean, ikasleek Dvoraken 'Meza Do **maiorren**' eskainiko dute gaur Zarautzen. **Berria - Kultura**

Joseph Martin Krausen Do **maiorreko** sinfonia-rekin ekingo diote kontzertuari **Berria - Kultura**

## maioral 1 *iz zalgurdizaina.*

Gizon dutakoan ez nintzela nekazaria izango agindu nion neure buruari, dilgentziako nagusia izango nintzela, **maiorala** alegia. **Bernardo Atxaga**

**Maioralak**, apezpiku bat bezain zurrin eskuinean jarrita, espekro baten gisan astintzen zuen tiroaren muturreko zortzigarren mandoraino iristen zen zigor erraldoi bat, eta suzko ziztada zeukana. **Koldo Izagirre**

**Maioralak**, postamutilak eta mandamutilak mandoen atzetik ekin diote, biraoka eta gurdia utzita. **Koldo Izagirre**

**Maioaralei** laguntzen zieten mutikoak inguruan ikusi, eta sufritu egiten nuen. **Bernardo Atxaga**

### 2 (hitz elkartuetan)

Hogeita hamar urte bete baino lehen eskuratu nuen **maioral** kargua. **Bernardo Atxaga**

**Maioral** bizimodua hain maitea izan ez banu, ez nuen beharbada trenaren mundu berria hain gaizki hartuko. **Bernardo Atxaga**

## maiorazgo ik maiorazko.

## maiorazko *(orobat maiorazgo g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian maiorazko agertzen da) 1 iz lehen jaioa; oinordekoa, premia.*

Graemetarren **maiorazkoari** bihotza azkartu zitzaion antzinako neska beltzarana emakume eder eginda ikusi zuenean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Bere emazteari erdininak etorri eta **maiorazkoa** jaiotzeaz zela ikustean, [...]. **Fernando Morillo**

Jexuxek apaiz sartzeko tentazioa ere izan zuen gaztetan [...] baina **maiorazko** izanik baserriaren jabe egitea ere ez zen txarra. **Xabier Etxabe**

**Maiorazkoa**, Luis, etxeko ondasun eta agintearekin geratu zen, eta, horrez gain, errejidorea izan zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Tomas gelditu zen **maiorazko**; beste hiru-lau Donostia aldera joan ziren bizimodu bila eta hantxe gelditu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bestalde, Durangoko foru zaharra garaitu honetan idatzi zen, eta haren arabera **maiorazkoaren** eskubidea guztiz bideratuta geratu zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Beraz, Jazintu semetzako hartua zuten, eta bere senideordekoen adinari erreparatu badiogu premutzako, **maiorazkotzako** hartua izan zela pentsa genezake. Koldo Izagirre

## 2 aurren jaioaren lehentasuna; oinordekotza, premutasuna.

Alta, ipuinak ez du kontatzen **maiorazkoak** Mari-xor behar duela; semeak izan behar ditu, bestela ez du **maiorazkorik** ez ezer. Berria - Kultura

## maiordomo 1 iz etxezaina.

Zu zeu, etxe-aldaketa bitartean ere, ez zintudan ikusi: lan haiek guztiak zure etxezainak ikuskatzen zituen, beti laguntzeko prest zegoen zure **maiordomo** txiki, ileurdin eta serioak. Eduardo Matauko

Haien janzkeragatik bata lorezaina izan zitekeen, gazteena, eta bestea **maiordomoa**. Joxemari Iturralde

Gainera, estatus pertsonala eta ibilbide politikoa zirela medio susmo txar guztietatik libre zeuden denak; eta, jakina, **maiordomorik** ezean, txoferra hartuko zuten erruduntzat. Ramon Saizarbitoria

## 2 (Erdi Aroko Europako gorte batzuetan)

Warnakario izan zen Brunekildaren kontrako konjurazioaren arima; Borgoniako **maiordomo** egin zuten, eta exijitu zion Klotariori bizi artean ez zezala ken kargu hartatik. Iñaki Iñurrieta

Aldaketa honek beste ondorio bat izan zuen: ordura arte, **maiordomoa** erregearen **maiordomo** zen, eta handik aurrera erresumaren **maiordomo** bihurtu zen; aurrez erregeak hautatzen zuena, handik hara nazioak hautatu zuen. Iñaki Iñurrieta

Beraz, ez dira nahastu behar, zenbait autorek bezala, jauregiko **maiordomo** horiek eta Brunekilda hil aurretik kargu hori zutenak; alegia, erregearen **maiordomoak** eta erresumaren **maiordomoak**. Iñaki Iñurrieta

Jauregiko **maiordomo**en lehen betekizuna errege-etxearen ekonomia gobernatzea izan zen. Iñaki Iñurrieta

**Maiordomoak** erresumako administratzaileak izan ziren erregeen esanetara; eta gerrako gidaritzza haiek izan arren, erregeak ziren armaden buru, eta **maiordomoa** eta nazioa erregeen esanetara borrokatzen ziren. Iñaki Iñurrieta

Gorteko morroi nagusiaren (**maiordomoaren**) "maitasun-semea" zen, hau da, Pepinek konkubina batekin izandako semea. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 3 (hitz elkartuetan)

Burgundiarren legean ikusten denez, haien artean **maiordomo** kargua ez zen Estatuko lehenengoetako bat; lehen errege frankoen artean ere ez zen nagusietako bat. Iñaki Iñurrieta

*ik maiordomotza.*

## 4 erlijio kofradia bateko kudeatzailea.

Babesaren Kristoaren Eskola Santuko Anaia **Maiordomo** Nagusiaren gonbidapenez, Aste Santuko Pregoia. Josu Landa

## maiordomotza iz maiordomoaren kargua (ik maiordomo 2).

Austrasiak bi aldir garaitu zituen Neustria eta Borgonia; Austrasiako **maiordomotza** Pepindarren familiari atxikita zegoenez, **maiordomotza** hura beste **maiordomotzen** gainetik jarri zen, eta etxe hura beste etxeen gainetik. Iñaki Iñurrieta

Erregetzaren eta **maiordomotzaren** nahastea. Iñaki Iñurrieta

Estatua Karlos Martelek **maiordomotzara** iristean aurkitu zuen ezinean jarri zen atzera. Iñaki Iñurrieta

## maioria (orobat majoria) iz gehienak, gehiengoa.

Hordago horren irabazteko, behar du bere juduen ganbarako bozen **maioria** irabazi lehenik. Herria

**Maioriarik** ttipiengan gelditua gatik Angela Merkel andereak [...] akordio bat bururatu du SPDrekin sinatuz gobernu akordioa. Herria

Erran nahi baitu **majoria** ukan duela 13 bozeri esker. Herria

Lehen hori bere minixtro batek, beste alderat pasa-ta, ukatuz geroz, horra **maioria** Temaruren alde joan dela. Herria

## maiorista iz handizkaria, handizka saltzen duen pertsona.

Aitak **maioristek** jada banatzen ez zituzten merkantziak ekartzen zituen astero. Joseba Urteaga

Hiru eguneko epean arazoa konpontzen ez bada karramarroa desizoztu eta hemengo **maioristei** merkezurtean saldu beharko diegu, Euskal Herrian bertan. Harkaitz Cano

## maioritario izond gehienena.

Herritarren ordezkaritza **maioritarioak** aurrez lortutako adostasuna berresteko baino ezin dira izan kontsultak; eta berrespena sistemaren arauen arabera egin behar da. Berria - Euskal Herria

Hainbat eskualdetako kulturak korapilatu behar dituzte, haietako bat bera ere ez izan arren besteen gainetik ezartzeko bezain **maioritarioa**. Bego Montorio

## maioritate iz maioria, gehiengoa.

Bai **maioritateko** lagunak eta bai beste aldeko sozializtak. Herria

## mairu 1 iz Ipar afrikako biztanlea, oso beltzarana. ik moro.

Ez baita konparaterik **mairu** hauek daukaten aberastasuna turkoek daukatenarekin. Jon Alonso

Garai hartan, Araba **mairu** eta kristauen arteko borroka-leku odoltsua zen. Martin Anso

Soldadu kristaua atzetik joan zitzaion, eta sorginak **mairu** bat berpiztu zuenean, berpiztu berria eta sorgina biak hil zituen bera ezpatzaz. Martin Anso

Goseak hiriko **mairuak** estutzen zituelako lehen aztarnak garai honetan hasi ziren nabaritzen. Jon Alonso

Zabaltzak, almenak eta alkazarreko erronda-bideak, denak daude **mairu** ilun eta bizardunez beterik. Jon Alonso

Ondoren hil egin zituzten dolurik gabe, **mairu** fedegabeei dagokien bezala. Jon Alonso

**Mairu** putakume batek hor goitik harri bat bota eta burua zanpatu zion. Jon Alonso

Elgetan **mairuak** sartu zirela, handik heldutako lehenbiziko zaurituen bidez jakin zuen. Ramon Saizarbitoria

1480ko legeak Inkisizioaren Auzitegiak, bakartze-aginduak eta judutegi nahiz **mairuen** auzoetan bizitzeko obligazioa ezarri zituen. Askoren artean

**Mairuen** aurkako borroketan gurutzeara omen zen nafarren ikurra. Martin Anso

## 2 izond Ipar afrikakoa; mairuena.

Medranotarrak beste mirakulu baten bidez kristau bihurtu zen printze **mairu** baten oinordekoak omen dira. **Martin Anso**

Begi beltzeko emakume **mairu** bat ikusi zuen berari tinko begira. **Pello Lizarralde**

Leiho nasai horietakoren bat zabaldu eta bertan neskatila **mairu** bat azaltzea baizik ez da falta. **Jon Alonso**

Eta gertatu zen behin edo behin portu aldeko umeek **mairu** zelakoan harrika hartzea. **Felipe Juaristi**

Hau da Lisboa **mairua**. **Jon Alonso**

Nazio Askapenerako Fronte **Mairua** (MNLF). **Berria - Mundua**

· Zakur **mairu** hauei buruzko aipamenak, hau da, oraindik mairuekin bizi ziren zakurrei buruzkoak, [...]. **Jon Alonso**

*Queda* ontzi **mairua** atzeman zuenean. **Juan Garzia**

### 3 (izen baten eskuinean)

**Mairu** herriko miru beltza baino mairuago eta beltzago balitz bezala. **Joan Mari Irigoien**

Bakoitzak bere etxetik **mairu** jantzi airosoa bihurtuko zen maindire bat, eta behin-behineko durbantea bihurtuko zen toaila bat ekartzeko. **Askoren artean**

**Mairu** azal beltzarana, distiratsua. **Lander Garro**

**Mairu** kutsuko erro zaharren bat. **Patziku Perurena**

### 4 *mairu baratze* (*orobat mairubaratze eta mairubaratza*) iz harrespila.

Euskaldunok **mairu**-baratze, trikuharri edo jentil-baratzeari deitzen ditugun neolitiko-garaiko eraikuntzen harrespilera. **Anjel Lertxundi**

Gure mendietako **mairubaratzak**. **Patziku Perurena**

400 multzotan bildutako 1104 **mairubaratzen** azterketa zehatza. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mairuak eta kristauak** (3)

**mairuen kontra** (4); **mairuen kontrako** (3)

## mairuarri iz

Eta, gero esanen dudanagatik, ederki dago, eskudo haiei euskaraz "mazmorro" edo **"mairuarri"** ere deitu izana. **Patziku Perurena**

## mairubaratza ik mairu 4.

## mairubaratze ik mairu 4.

## maiseagarri izond maiseatzailea.

Gainera, amerikarrak "beren kreatzaileak hornitu baditu ere" bizio eta erokeria ugariz, ez dago erabat zabaldua horiek **maiseagarriak** direnik, eta horregatik jendeak gizatxar ospindutzat hartu ohi du satiragilea. **Xabier Olarra**

## maiseaketa 1 iz maiseatzea.

**Maiseaketaren** bizioa, jainkozaletasunaren eta graziaren sustrai-sustraiako etsaia, sugearen hozkada eta izurrite lazgarriena baino gehiago gorrotatzen zuen. **Askoren artean**

Bizio-mota guztien gainetik **maiseaketa** higuintzen eta gorrotatzen zuen. **Askoren artean**

Auzoen **maiseaketa** batzuen eraginez zintzilikatu zituzten errukarri haiek. **Anjel Lertxundi**

Te-orduko **maiseaketa** jasan behar izan nuen. **Irene Aldasoro**

-Lehengo batean Julio etorri zen -esan zuen Luluk- eta zutaz **maiseaketan** aritu ginen. **Josu Zabaleta**

Maisu handiarekin **maiseaketan** ibiltzeko. **Juan Garzia**

Emakume ederra eta atsegina zen, **maiseaketa** bekaizti guztiak sinesgarri bihur ditzaketen horietakoa. **Anjel Lertxundi**

### 2 (hitz elkartuetan)

Jakintsu usteko edozein ergelen **maiseaketa** -xedeaz izateko arriskurik gabe. **Xabier Kintana**

## maiseaketari izond maiseatzailea, maiseaketan ibiltzen dena.

-Aitortu beharra dut arrazoi duela Margotek gezurtia naizela dioenean, zeren **maiseaketari** izan nahi ez dudala esaten badut ere, Dusseli buruz bada, izugarri gustatzen zait maiseaketan aritzea. **Josu Zabaleta**

## maiseatu, maisea, maiseatzen (*orobat maixeatu g.er. eta maxeatu g.er.*) du ad zerbaiten alde txarrez edo ustez txarrez marmarka edo gaizki esaka aritu, maiseaketan ibili.

Jende guztia **maiseatzen** du, inorekin ez pozik! **Fernando Rey**

Gobernu zitala **maiseatu** zuen, bere enplegatuei leher egin arte lan eginarazi eta heriotza duin bat izateko adina ere ez ziurtatzen eta beste halakoak esanez. **Karlos Zabala**

Haien azaluseria eta jantziak direla-eta inongo gupidarik gabe eta oso hitz gordinez **maiseatu** dituenek gorroto diotelako. **Jose Morales**

Ez esan hitzik inor laidoztatzeko edo **maxiatzeko**; izan ere, agerikoa ez den bekatu larria azaltzen badut, bekatu larria egiten dut. **Patxi Altuna**

Florenten gehiegikeriazko bizimodua **maiseatzeko**. **Karlos Zabala**

Duda-mudan jartzen dira zientziaren eta teknikaren abantailak, ekologia goraitpatzen da, kapitalismoa **maiseatzen**. **Karlos Zabala**

Ez naute laudatu, ez **maiseatu**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bai, emakume horiek ere **maiseatu** nahi ditut, mundu guztia **maiseatu** nahi dut. **Karlos Zabala**

## maiseatzaile 1 izond maiseatzen duena, maiseaketan ibiltzen dena.

Jende asko astindu dute mihi **maiseatzaileek**, eta herriz herri ihesi ibiltzera behartu. Herritarrak Estatuaren kontra bultzatzen dituzten meneko gogalkarri eta **maiseatzaileen** nahia. **Elizen arteko biblia**

Aitzitik, kalterik egin ez bazion, zein eskubide eto zuen etxeoandreak *para*it-il **maiseatzaile** harekin sendagilea deabruzteko? Anjel Lertxundi  
Emakumeek ere agurgarri izan behar dute eta ez **maiseatzaile** ; neurritsu eta gauza guztietan fidagarri. Elizen arteko biblia

## 2 iz maiseatzen duen pertsona.

Horregatik, **maiseatzaileei** arkakuso ziztazaileei bezala egiten zien ihes. Askoren artean  
Hiztegi honen **maiseatzaileak** . Xabier Olarra  
Idazlearen sormen-esparrua gorde eta **maiseatzaile** guztietatik libratzeko. Joxean Agirre

## maiseatze iz zerbaiten alde txarrez edo ustez txarrez marmarka edo gaizki esaka aritzea. ikmaiseo.

Oihu petralak, **maiseatze** keinuak. Patxi Iturritegi  
Ez naiz maiseazale eta ez dut nire aurrean **maiseatzerik** onartzen. Patxi Ezkiaga

## maiseazale izond maiseoaren zale dena.

Ez naiz **maiseazale** eta ez dut nire aurrean maiseatzerik onartzen. Patxi Ezkiaga

## maiseo iz maiseatzea.

Jendearen jardunak dira, mingain arinen entretengarriak, biderik egingo ez duten **maiseoak** . Anjel Lertxundi  
Baina Garibaik bizkarra erakutsi orduko, hor hasten dira bere atzean [...] ordu arte **maiseoa** baizik ez zena bazkatzen, hor ekiten diote Idiakezen kontrakoek Flandes aldetik datozen zurrumurruei osagai berriak eransteari ere. Anjel Lertxundi  
Kritika eta **maiseoaren** jomuga erraza den pertsona. Oskar Arana

## maistra (orobat maixtra g.er.) 1 iz lehen irakaskuntzako irakasle emakumezkoa. ik errientsa; andereño.

John eta Ella, **maistra** Jones, Able Woodruff... edonor. Anton Garikano  
Gure **maistra** Irene zen, eta batzuetan euskaraz egiten zigun. Joseba Sarrionandia  
Herriko monumentu nazionala **maistra** zaharra zen, andre txiki bat. Koldo Biguri  
**Maistra** berriaren etorrerak azpikoz gora irauli zuen nire bizitza. Juan Kruz Igerabide  
Pupitrearen azpira jausten ginen, eta **maistraren** gonape ilunean ez dakit zer ikusi genuela esaten genuen. Joseba Sarrionandia  
Noizean behin, **maistraren** etxera igotzen nintzen, zalantzak galdetzeraz, edo libururen baten bila. Juan Kruz Igerabide  
Halaxe gertatu zitzaion eskola txikiko **maistrari** . Bernardo Atxaga  
Halakoetan, denbora juxtua egiten nuen **maistrarenean** . Juan Kruz Igerabide

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hala, **maistra** -etxera joaten nintzaionean, eskumuturretik heltzen zidan, txukunago idazten erakusteko. Juan Kruz Igerabide  
-Adela: nolakoa zinen txikitan? -galdetu nion behin **maistra** -etxean. Juan Kruz Igerabide  
**Maistra** -ikasketak egiten hasi nintzen Rouengo unibertsitate-eskolan. Joseba Urteaga  
**Maistra** -soldatak ez zidan-eta askorako ematen. Juan Kruz Igerabide  
**Maistra** itxura zuen emakume betaurrekodun bat. Anjel Lertxundi

## 3 irud/hed

Carmen Cubillo **maistrarekin** hainbat urtez lanean aritu eta gero, egun bere dantza konpainia du Cortesek. Berria - Kultura  
Maria euren alaba gailurrera iritsi dela, tenislarien artean **maistra** bihurtu dela, Masters Torneoaren irabazle, 17 urte eskasekin. Berria - Kirola  
- Emakume bitxia dugu hau [...]: abangoardiako rock emozionala garatzen du-, ahotsean eta gitarran **maistra** . Berria - Kultura

## 4 maisu-maistra pl maisuak eta maistrak.

Egunero-egunero jende askok egiten zuen euskararen alde lan XIX. mendean: **maisu-maistrak** zeuden. Berria - Kultura  
Sindikatuiei «berdintasunaren alde» jokatzeko eskatuko diete, 1990ean LOGSE legeak maisu-maistren eta lizentziatuen arteko lan eremuaren banaketa arautu zuenetik, **maisu-maistrak** izan direlako lan hobekuntzak jaso dituzten bakarrak. Berria - Euskal Herria  
**Maisu-maistren** rol zapaltzailea. Berria - Kultura  
Lehen hezkuntzako 18 **maisu-maistra** gehiago beharko dira 2015ean. Berria - Gaiak

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskola maistra (3); gure maistra (3); maistra berriaren (3); maistra ikasketak (3); maistra jones (10); maistra jonesek (16); maistra jonesen (4); maistra ohiak (3); maisu maistra (5); mari maistra (3)  
maistrak esan (3); maisu maistrak (4); nire maistrak (4)  
maistraren etxera (5); nire maistraren (6)  
nire maistrari (3)  
maisu maistren (10)

## maistraki adlag cf maisuki.

Maiteren zulo guztiak ongi beteta egon zitezen, Mikelek ahoan sartu zion txilina, emakumeak mihiaz **maistraki** gogor ziezaion. Aitor Arana

## maistraño iz adkor maistra.

Begoña, **maistrañoa** , haren ondotik heldu da, arrastaka kasik. Aingeru Epaltza

## mastru 1 iz ik maisu 6.

Kapitainari eta eskifaiburuari bina parte zegozkien; **mastruari** , sokadunari eta kanoizainari, bat eta erdi bakoitzari; beste ofizialei, bat eta laurden. Juan Garzia  
Laurogeita hamabost gizon ontziratu ziren Algerreko Arrosan, haien artean lehen **mastru** bat, Adderley, Providencekoa. Juan Garzia

## 2 zurgina.

"Maistriainia" heldu da "maestro" español hitzetik, "maître-artisan" zena Frantzia; euskaraz "**maistrua** " eman du, erran nahi baita "zurgina". Angel Aintziburu / Jean

## maisturintza ik maisturugintza.

### maisturu (orobat maixturu) iz ipar zurgina. ik maiasturu.

Duela bi urte, Koxe Mari Azconegui **maixturuak** eraiki zuen lan-eremu hortan bere zurgintza lantegia. **Herria**  
 Eta asmatu nuen, beharbada, egun batez, ni ere **maisturu** izan nintzela, zurgintzan gustua hartuko nuela... **Menane Oxandabaratz**  
 Musikariak gituk baina dantza ez zaukuk haizu, nahi dugun ofizioa ez dezakeguk, aitatik semera egundainotik gituk aizkolari, zurgin, **maixturu**, dupagin, batzuetan bat edo bertze izan zukek harrobi langile edo ehaile, bakan. **Michel Oronoz**  
 Hirugarrenik, "osaba Claude" **maisturu** zaharra, orduan bere hirurogeietan. **Txillardegi**

### maisturugintza (corpusean maisturintza soilik) iz ipar zurgintza.

Huna ofizialeak nor diren: hargina, Gilentegi Oragarrekoo; zurgina: Duhalde Hazparnekoo; kanpoko **maisturintza**: SOMIR; barneko **maisturintza**, Betbeder Donamartirikoa. **Herria**

### maisu (orobat maixu g.er.) 1 izond egiteko batean bere bikaintasunagatik nabarmentzen dena.

Kontalari **maiusa** baitzen Ayape zaharra. **Pablo Sastre**  
 Zenbat kostatuko zitzaizen, bada, hari sinestaztea faltsutzaile **maisu** baten kaligrafia ari zela ikusten? **Oskar Arana**  
 Musikari trebe, musikari eder, musikari **maisu**. **Felipe Juaristi**

### 2 iz lehen irakaskuntzako edo kidekoetako irakasle gizonetako. ik maistra.

Maila guztietan ematen zituen eskolak **maisuak**, seigarrenetako. **Eskarne Mujika**  
 Herriko **maiusuetako** bat. **Edorta Jimenez**  
 Ordu arte Herriko Etxean zeuden eskolak, alderdi batean mutikoenak, **maisu** edo erriente batekin, eta bestean aldiz nekatoenak, errientearekin. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
 Hauexek dira ikastola honetako **maisu**-andereñoen batez besteko adinak. **Joxerra Garzia**  
 La Salle ikastetxean ba omen zegoen **maisu** zahar bat, eta harengana jo nuen. **Pako Aristi**  
 Honako honek ingeniari, horra horrek **maisu** eta harako hark mediku. **Aingeru Epaltza**  
 Beste haurrek barre egiten zuten halakoetan, **maisu** ankerraren jokoari jarraiki. **Juan Kruz Igerabide**  
**Maisu** eta maistra askok pedagogia sobietikoaren [...] lan egin zutela esan zuen **maisu** berriak. **Joseba Sarrionandia**  
 Eskolako **maisu** falangista. **Joxe Azurmendi**  
 Ikastolako zuzendaria da gaur orduan matematikako **maisu** zen hori. **Joxerra Garzia**  
 Harry harantzago begiratu zuen, Dumbledore **maisu** zuzendaria eserita zegoen lekura. **Iñaki Mendiguren**  
 Irakasle argientzat ikastetxe egokia prestatu zen: **maisu** argie esker, orotariko ikasketak eskaini ahal zituzten bertan. **Pello Zabala**  
 Maite nuen, aritmetikan eta geometrian **maisu** eta irakasle nuelako. **Joan Mari Irigoien**  
 Ikasleen esker ona da **maisu** batek jaso dezakeen saririk ederrena. **Joxerra Garzia**  
 Epaila hura Jonen bertso-**eskolako** maisu eta gidari zen. **Andoni Egaña**  
 Astebetea emana zuen bere guruarekin, erlijio **maisu**-arekin. **Gotzon Garate**

### 3 (bestelako erakusgaietan)

Horrela argudiatzen zuten, teologoek kontra, Parisko Arteen Fakultateko **maisu** erradikalenek. **Askoren artean**  
 Artilleriako **maisu** handia eta emirraren zalditegiko burua. **Karlos Zabala**  
 You Soo Lim **maisu** korearrak 21 urte daratzama Lizarran taekwondo irakasten eta zabaltzen. **Berria - Kirola**  
 Noblea zen eta gorteetako kantarien **maisu**. **Askoren artean**  
 Nekrologiko hunkigarria argitaratu zuen **maisu** musikagilearen omenez. **Askoren artean**  
 Ansorenak, txistularien **maisu** izan zenak. **Askoren artean**  
 Artean ume mainak nituelarik, Salamancara bidali ninduen aitak, **maisu** handiak izan dituen hiria denez. **Felipe Juaristi**  
 Zaldiz ibiltzen ikasi al nuen galdetu zidan osabak, eta eskola txikiko garaietan ahalegindu nintzela azaldu nion, hain zuzen ere Lubis izan zela nire **maiusa**. **Bernardo Atxaga**

### 4 arte, kirol edo kideko batean guztiz trebea den gizona.

Ez ditut mundu urrunak ezagutu nahi edota hizkuntzaren **maisu** handiak aztertu. **Pako Aristi**  
 Narrazio poetikoan **maisu** izan zen Schowb, labur zein luzeagoan. **Juan Garzia**  
 Gailurrean zegoela eraitzia izan zen **maisu** gaztearen azken margolan eta marrazkiak. **Oskar Arana**  
 Bikain jo baitzuten **Haydn** maisuaren halako doinu hura. **Felipe Juaristi**  
 Raimundo Sarriegi **maisuak** 'Donostiako Martxa' idatzi zuen, gaur egun Udal Bandak jotzen duena. **Askoren artean**  
 Estatu Batuetan zegoela, Chui **maisuak** ikaragarriko marrazkiak egin zituen jendearen larruazalean. **Javi Cillero**  
 Kantua soinuarekin jo eta kantariak duoa egiten dio [...]; Egañazpi izan da **maisu** horretan. **Iñigo Aranbarri**  
 Degas, koadratzean inor **maisu** izan bada egiaz **maisu** denak. **Josu Zabaleta**  
 Baina trikilariek ez zuten **maisu** zaharra ahanzi. **Koldo Izagirre**  
**Maisu** handia izan behar duela batek soinu txikia horrela erabiltzeko. **Koldo Izagirre**  
 Liburuak argi eta garbi zekarren **maisu** alemanaren [xake] jokaldi harrigarria. **Alberto Ladron Arana**  
 Sei hilabete iraun zuen partidak, **maisu** zaharra jokalarik gaztearen aurka. **Ibon Uribarri**  
 Xakeko titulorik garrantzitsuena da **Maisu** Handiarena. **Berria - Kirola**  
 Koreako borroka arte horren sekretu guztiak ederki ezagutzen ditu You Soo Lim **maisuak**. **Berria - Kirola**  
 Adinak eta arteek ematen duten jakinduriaren jabe ere badugu baigorriarra, biziraupenean **maisu**, duintasunean doktore. **Filipe Bidart**  
 Zeinaren [ironiaren] erabileran, bestalde, Vila-Matas **bera** maisu handia baita. **Iban Zaldúa**  
 Ahotsaren eta lumaren **maisu**, ustelgabekeriaren txapeldun. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
 · Lehergailua jarri eta eskua ezkatatu, naziak **maisuak** zirela horretan. **Anjel Lertxundi**  
 Hitchcock **maiusa** zen ikuslea manipulatzeko. **Berria - Kultura**

### 5 irakaspen bikainak ematen eta ikasleak eredu gisa hartzen duen gizona.

Irakasle asko izan ditut, **Joxerra Garzia**

Lehenengo elkarrizketetan badirudi Platon dela Sokrates **maisua**ren ahotsa. **Askoren artean**

San Paulo **maisua** ospetsuak hitz hauek esaten ditu bere gutunetako batean: [...]. **Joan Mari Lekuona**

Senekak, **maisua** paganoak, honela dio: [...]. **Joan Mari Lekuona**

Bere **maisua** Rousseau bezalaxe. **Joxe Azurmendi**

Wordsworth izan dut **maisuetako** bat. **Oskar Arana**

John Stuart Mill liberalismoaren **maisua**, adibidez, idazten zuen honela: [...]. **Piarres Xarriton**

Schumpeter austriar ekonomilariak, esaterako, Marx ekonomilari, soziologo eta **maisua** ez ezik, profeta gisa ere aztertu zuen kritikoki. **Iñaki Heras**

Lantegi horretan, dena den, bere **maisua** Antonio Zabalak ez bezala jokatu duela esanen nuke. **Patziku Perurena**

Gure belaualdiak ezagutu duen **maisua** miresgarri batek, Karlos Santamaria gure bidegile eta bakegile paregabeak. **Piarres Xarriton**

Sabatier-ek, bere **maisua** Renan-en iradokizunari jarraiki, [...]. **Askoren artean**

Artaxerxes erregeen erregeak, Esdras apaizari, zeruetako Jainkoaren legean **maisua** denari, osasuna! **Elizen arteko biblia**

Laclos izan zen hain zuzen genero horren baliabide guztiak **maisua** baten gisa erabiliz eta muturreraino eramanez maisu lan bat egitera iritsi zena. **Jon Muñoz**

**Maisu** haien bidez ezagutu nituen maisuen **maisua** ziren Elizako jakintsu eta doktoreak. **Joan Mari Irigoien**

Wordsworth izan dut **maisuetako** bat **Maisu** guztien maisuaren lana. **Oskar Arana**

-Santxo anaia -esan zuen Karraskok- aulkidun **maisua** batek bezala hitz egiten duzu zuk. **Patxi Ezkiaga**

Baina maite den **maisuari** kontra egin behar zaio. **Iñaki Segurola**

- Denbora **Maisu** handi bat delakoan **Herria**

## 6 bere lanbidean maila gorena iritsi eta hasi berriei erakusten dien gizonezko eskulangile edo kidekoa. **ikmastru; ofiziale.**

**Maisu** industrialia, langilea, telekomunikabideetako ingeniaria, ekonomiako ikaslea...; bakoitzak berea esan du. **Rafa Egiguren**

Tailerreko **maisua**. **Patziku Perurena**

Ozenki esanez bai bera eta bai beste igeltsero **maisua** guztiak lapur batzuk zirela. **Koldo Biguri**

Astronomo, azti eta **maisua** barberu, denetarik pasatu zen gaztelutik. **Anjel Lertxundi**

## 7 (pertsona izen baten ezkerrean)

-Hara berriz -esan zuen bentariak- **maisua** Pedro jauna da-eta hemen dagoena. **Patxi Ezkiaga**

-Hala baitio esan ere, gure **maisua** Hipokratesek, medikuntzaren artizar eta argi denak: [...]. **Patxi Ezkiaga**

Apaizak batik bat eta **maisua** Nikolas bizarginak eta Sanson Karrasko batxilerrak. **Patxi Ezkiaga**

## 8 gizonezko irakasle eta gidaria; bereziki Jesu Kristo.

Baina ni Kristo naiz, zure **maisua**, eta inolako dudarik izan ez dezazun, ezaugarri hau ematen dizut: [...]. **Askoren artean**

Zoazte hirira, halakoren etxera, eta esaziozue: "**Maisuak** dio hurbil dela bere ordua, eta zuenean ospatu nahi duela Pazkoa bere ikasleekin". **Elizen arteko biblia**

Esan zioten Jesusi: - **Maisu**, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. **Elizen arteko biblia**

Ikasleek, Jesusengana hurbildurik, esnarazi egin zuten, esanez: - **Maisu**, **Maisu**! galzorian gaude! **Elizen arteko biblia**

Argi nazazu. **maisua** txit zuhur eta artzain txit errukitsu horrek, ni zure arditxo bainaiz, merezi ez arren. **Askoren artean**

Gogoko dute plazetan jendeak agur egitea eta guztiek "**maisua**" deitzea. **Elizen arteko biblia**

Juan Austriako deabruen **maisua** eta ugazaba [bihurtua], Farnesio deabruen buruzagi, eta Spinola, deabruen hazilari. **Felipe Juaristi**

## 9 (adizlagun gisa)

Gerra atera zenean, bera **maisua** zegoen Obabako eskolan. **Bernardo Atxaga**

Aholkuetan **maisua** agertzen zaigu espirituko bideak bereizten. **Askoren artean**

Falangearen opor-leku bateko **maisua** ipini zuen, soldatarik gabe, flecha gazteak hezi eta nazio-espiritua erakutsi ziezaien, mehatxupean. **Juan Kruz Igerabide**

Hasi, artean Franco bizi zela hasi nintzen, 1975ean, Arrasateko ikastolan, zortzi urteko neska-mutikoen **maisua**. **Joxerra Garzia**

## 10 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Julio, berriz, bere **maisua** -etxean sarturik egoten zen. **Juan Kruz Igerabide**

**Maisu** lana atsegin zuen eta zekien guztia irakasten zidan. **Aitor Arana**

ik maisulan.

**Maisu** aurpegia jarri zaio. **Felipe Juaristi**

Erkiziaz, **maisua** keinu batez jarduna ez hausteko eskaturik, guk miresten genituen protesta kantarien adibidea ekarri zuen. **Koldo Izagirre**

Niri **maisua** doinuaz erran diezadazun hobe duela nork bere denbora asmoak betetzen ematea. **Jon Muñoz**

Nazioarteko **Maisu** titulua duzu. **Berria - Kirola**

**Maisu** Torneoa abenduaren 11tik 17ra jokatu da. **Berria - Kirola**

## 11 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Probintzi **maisua** ona izango zen, zoriotsu biziko zen bere hiri txikiaren bakean. **Karlos Zabala**

Igeriketa **maisua** ziharduten gizaseme beltz handi haietako bat. **Joxan Elozegi**

Eliza-kaperetan jotzera igaro zen Damián itsua, katedraleko musika jotzaile izatera iritsi zen gero, eta errege-ordearen jauregian amaitu zuen azkenik, bere atsedendietako musika **maisua** izendatu baitzuten. **Felipe Juaristi**

Berehala izendatu zuten bere nagusiek koru **maisua** Veneziaz agindupean zuen uharte bateko monasterioko elizan. **Felipe Juaristi**

Nire aita kapera **maisua** zen hango katedralean. **Felipe Juaristi**

Lehenengo euskal erretorika **maisua** handiak (Etxeberri Ziburukoa, Axular) ezagutzen eta integratuz. **Ana Urkiza**

Liburu bat lapurtzen du, berak nahi bezala Homero edo Goetherena izan beharrean, xake **maisuen** partidak jasotzen dituena. **Markos Zapiain**

- Klodoveo milizi **maisua** karguan bere aita Txilerdikoren ondorengo izan zela dio. **Iñaki Iñurrieta**

## 12 maisu lan ik maisulan.

## 13 maisu lehen (corpusean maisulehen soilik)

Sekulan ez nuen usteko neure ofizio perukurilko honetan **maisulehen** izanak zintuztedanik. **Patziku Perurena**

## 14 maisu-maistra pl maisuak eta maistrak

Egunero-egunero jende askok egiten zuen euskararen alde lan XIX. mendean: **maisua-maistrak** zeuden. **Berria - Kultura**

Sindikatuiei «berdintasunaren alde» jokatzeko eskatuko diete, 1990ean LOGSE legeak maisu-maistren eta lizentziatuen arteko lan eremuaren banaketa arautu zuenetik,

**maisua-maistrak** izan direlako lan hobekuntzak jaso dituzten bakarrak. **Berria - Euskal Herria**

**Maisu-maistren** rol zapaltzailea. **Berria - Kultura**

Lehen hezkuntzako 18 **maisua-maistra** gehiago beharko dira 2015ean. **Berria - Gaiak**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

eskola maisu (8); eskolako maisu (6); gorteetako kantarien maisu (4); lege maisu (38); maisu eta fariseu (7); maisu eta irakasle (4); maisu handi (35); maisu handi titulua (6); maisu handia (12); maisu handiak (14); maisu handiaren (7); maisu handien (5); maisu hasi (4); maisu izan (24); maisu izan zen (6); maisu laguntzailea (4); maisu lan (14); maisu lana (9); maisu maistra (5); maisu maistrak (4); maisu maistrek (4); maisu maistren (10); maisu ona (6); maisu pedro (14); maisu peregrin (4); maisu titulua (4); maisu zaharra (6); maisu zaharrak (22); maisu zahararren (4); musika maisu (4); nazioarteko maisu (10); zeremonia maisu (4)

**dumbledore maisua** (18); **flitwick maisua** (8); **lege maisua** (4); **lupin maisua** (38); **maisua izan** (19); **maisua izan zen** (9); **nazioarteko maisua** (6); **snape maisua** (13)  
**dumbledore maisuak** (10); **flitwick maisuak** (18); **geneveko maisuak** (7); **lege maisuak** (27); **lupin maisuak** (52); **maisua esan** (5); **moises gure maisuak** (4); **snape maisuak** (12); **wu maisuak** (9)  
**dumbledore maisuarekin** (5)  
**dumbledore maisuaren** (7); **lupin maisuaren** (11); **maisuaaren ahotsa** (5); **maisuaaren hitzak** (5); **maisuaaren lana** (7)  
**lupin maisuari** (8); **snape maisuari** (8)  
**lege maisuek** (19); **maisuek eta fariseuek** (4)  
**lege maisuen** (7)  
**maisurik onena** (4)  
**maisutzat jo** (4)

## maisualdi

*iz* jesuiten ikasketetan, maisu gisa ematen dituzten urteak.

Filosofia ikasketak amaituta, Kolonbiako Pasto herrian eman zituen hiru urte [...] jesuiten **maisualdia** han egiten. Berria - Kultura

1929an, 23 urte zituela eta jesuita egina ordurako, Kolonbian zegoen hiru urteko **maisualdia** egiten. Berria - Kultura

## maisugo

(*corpusean maixugo soilik*) *iz* maisutza.

**-Maixugo** horren laurdena be hartuko neunken nik... Txillardegi

## maisukeria

*iz* behar adina mailarik izan gabe maisu lanean ari denaren jarduna; maisutasun gaitzesgarria.

Handiuste eta **maisukeria** maiteegi, nonbait, euskaltzaleok. Pello Salaburu

Gainera, bai frantsesa bai espainiera **maisukeriaz** beterik daude. Pello Salaburu

## maisuki

(oroat **maixuki** g.er.) *adlag* maisutasunez.

**Maisuki** eta dotore idatzi zuela ezin uka. Andres Urrutia

Veneziako giroa **maisuki** jaso zuen Tizianok bere koadroetan. Berria - Kultura

Errealitatea eta fikzioa **maisuki** nahasten zituelako. Joxean Agirre

Barrabilak ferekatu zizkidan **maisuki**. Aitor Arana

Narrazio teknikarik landu eta bihurrienak **maisuki** erabiliz. Berria - Kultura

Elizako doktoreen aipu kontaezinak ere, guztiak ongi lotuak eta **maisuki** josiak. Joan Mari Irigoien

Jendea urrutitik ere joaten omen zen Irantzura Aita Jeronimok organoari **maisuki** ateratzen zizkion doinuak propio entzutera. Martin Anso

Berak **maisuki** zuzentzen zituen jokaldi guztiak. Berria - Kirola

Maisua **maisuki**. Berria - Kultura

**hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maisuki aritu** (3); **maisuki erabili** (4); **maisuki erabiliz** (3); **maisuki erabiltzen** (3)

## maisukiro

*adlag* maisuki, maisutasunez.

Raphaelek hain **maisukiro** landutako gaia laidotzeko asmorik ez zeukan -biak bat zetozen honetan. Anton Garikano

## maisulan

(*orobat maisu lan*) *iz*

Bitxigintzako **maisua** lan horren inguruan Sèvreseko lantegietatik inoiz irten den mahai tresneriarik miresgarrienerako mila piezek distirutzen zuten lanparen argitan. Karlos Zabala

Gizon-emakumeen arteko aginpidezko harremanetan sakondu duen **maisua** lan bikain eta zehatz idatzia. "**Maisua** lana", adierazi zuen Paolo Bresciakoak, "sekula ez dut halakorik ikusi Italiako lurretan". Jon Muñoz

## maisulehen

ik **maisua** 13.

## maisutasun 1

*iz* maisuari dagokion trebetasuna. ik **maisutza 2**.

Ohi zenuen bezalako **maisutasuna** erakutsi zenuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Haren trebetasunaren **maisutasuna**. Iñaki Mendiguren

**Maisutasun** handiz egin zuen lana, "usatu gabeko" hizkuntza sarri eta luzaz erabilia izan balitz bezala. Koldo Zuazo

Tuzididesek hain **maisutasun** handiz kontatzen dituen gertakizun historikoetan. Askoren artean

Behin eta berriz gauza bera egiteak **maisutasun** osoz egitera eramaten du. Joan Mari Lekuona

Zinematografiako eta Arte Bisualetako Institutuak aho batez erabaki du Agirresaroberi 30.050 euroko saria ematea bere «**maisutasun** artistikoagatik. Berria - Kultura

Film berri honek ez du aurreko biek zuten **maisutasun** narratzailea. Berria - Kultura

## 2 maisutasunez

ik **maisuki**.

Neskaren irudiak marfilean **maisutasunez** landuriko jostailu baten antza zuen. Jose Morales

Giltzurruna, berriz, ingeniaritza kimikoko sistema bat da, ingeniari batek ezin berdinduzko **maisutasunez** diseinatua eta kudeatua. Irene Aldasoro

Chomskyk **maisutasunez** frogatzen du hori, ingelesaren aditzaren morfologia aztertuz, horixe baita Syntactic Structuresen oinarri enpiriko nagusia. Itziar Laka

**hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maisutasun handiz** (8)



## **maisutza** 1 *iz* maisu denaren lanbidea.

Nik ere **maisutza** ikasi nahi nuela. Juan Mari Irigoien

Ikasle haietatik, batzuen batzuk fraidetzara joko zuten bezala, beste askok beren herritan **maisutzan**, apaizgoan, organistatzen nahiz sekretaritzan jardungo zuten. Pello Zabala

**Maisutza** industrialeko ikasketak zituen, tornularitza arloan. Juan Mari Irigoien

## 2 maisua denaren nolakotasuna. ik **maisutasun**.

Frantziskogana hurbiltzen hasi zen, bizitza osoan haren gidaritza eta **maisutzaren** pean zerbitzuan jarduteko gogoz. Askoren artean

Ahotsaren eta lumaren **maisutza** opa zion bere buruari Jean-Baptistek. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Alferrik haren **maisutza** agerikoa Eskolastikaren alorrean. Aingeru Epaltza

Denek aitortzen zioten **maisutza**. Berria - Kultura

## **maita** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; ik **maite** 4)

Bi dira maitamenaren **maita** -aurpegi horiek: ezagumenarena eta hautamenarena edo askatasunarena, maitamenagan dautzanak. Jenaro Garate

Gure hasierako bertako eraikuntzatik daukagu **maita** indarra eta ahalmena. Jenaro Garate

Areago oraindik, haren **maita** -goxozko nahiz desafiozko hizketak irakurtzen zituenean. Patxi Ezkiaga

Eta hau da honako honetan higuinik gehiena ematen didana, zera, Tobosoko Dulzineagana **maita** -hoztua jartzen duela Don Kijote. Patxi Ezkiaga

Alegia, haginaren pare dela guretzat maitea edo **maita** -laguna. Iñaki Segurola

Horrela, **maita** legeari makurturik naukazu. Patxi Ezkiaga

Denetarik abandonatua zen semearen **maita** -saria zena? Itxaro Borda

Erakargarriak ezagutu **maita** senak eraginda, gogoko -maitagarri- den ala ez miatu, aukera egin, eta hautatua maitatu, dena da bat, aurpegiera desberdinak erakutsi arren.

Jenaro Garate

## maita-grina ik **maite** 5.

## **maitabehar** *iz* maitatzeko beharra.

Egia da zure **maitabeharrak** Maitasuna eskatzen duela, eta Nik baiesten dizut banaizela, Aitarekin eta Semearekin batera. Jenaro Garate

**Maitabeharrak**, maita senak, eginkizunak hautatu beharra ematen diola maitagogoari, askotan edo gehienetan. Jenaro Garate

Erabateko aldea dago lege-betebeharraren eta **maitabeharraren** artean. Jenaro Garate

## **maitabera** *iz* maitemintzeko joera handia duena.

Alboan Justina zetorren, tabernariaren alaba **maitabera**. Felipe Juaristi

## **maitabide** *iz* maitatzeko bidea.

Maitatzekotan ere, mendi (goi) zalearen **maitabidea** gixonkeriazko **maitabide** bat da: mendi-gailurra oinpean duela eta mendean harturik bezala izan behar du derrigor mendizalearen amodiozko egintzak, eta ez beste inolako moduz). Iñaki Segurola

## **maitaezin** *izond* ezin maitatuzkoa.

Maitamena **maitaezin** bihurtzea. Jenaro Garate

## **maitagai** *iz* maitatzeko gaia.

Amodioak bereizgarri huts duen jaidura hori azkenik, gizonen baitan ez da lehentasun bat baizik, balio duena, gehienez ere, bertze **maitagai** batek agian ahuldu baina suntsituko ez lukeen plazerra areagotzeko. Jon Muñoz

Animaliek hizketan zekiten garaitik erabili izan baitugu engainua gizonok -baita emakumeek ere- **maitagaia** erakartzeko. Xabier Montoia

Maitatzen ari naiz beti, maitamenak eraginda, **maitagai** bila, **maitagai** ezaguna argitzen, ontzen, edertzen. Jenaro Garate

## **maitagarri** (*orobat maitagarri g.er.*) 1 *izond* maitatua izatea merezi duena, bereganako maitasuna sortzen duena.

Emakume **maitagarria** zen, erromantikoa eta aho goxo bezain jostalaria zuena. Julen Gabiria

Zer gertatu zaizu bada, Cécile **maitagarria** ? Jon Muñoz

Han ikusi nuen emakume **maitagarri** hura belauniko, malkoz bustia, eta kartsuki otoiitzean. Jon Muñoz

Ez da ezer, andre **maitagarri** hori. Koro Navarro

Julian ez zen pelikuletako aitona **maitagarri** horietakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Adio bada, maite polit hori; adio, haur **maitagarri** hori. Jon Muñoz

Aita Zapelena Iruritako gure irakasle **maitagarriarekin**. Piarres Xarriton

Ez zekien maiteminduta zegoen, baina mutil **maitagarria** zen egiaz, eta gustura egoten zen berarekin. Urtzi Urrutikoeetxea

Amandine, neska ezinago **maitagarria** zen. Daniel Landart

Txuri [zakurra] adiskide **maitagarria**, esanekoa eta goxoa nuen. Gotzon Garate

Jendearengan ikaragarria, barkaezina eta nazkagarria iruditzen zitzaion guztia **maitagarri** bilakatu zen bat-batean. Jose Morales

Maite haut, **maitagarria** haiz eta. Joxerra Garzia

"Oso **maitagarria** zara", diotso. Oskar Arana

Biziki gisakoa da, biziki **maitagarria**, beti laguntzeko prest, baina nortasun ahula du. Eneko Bidegain

Bazekien atsegina eta **maitagarria** izaten. Joxean Agirre

Jendeak maite ditu gure herriaz maitemintzen diren kanpotarrak, eta are **maitagarriago** dira oraindik herri hau inoiz zapaldu gabe maitemindu badira. Joxean Agirre

## 2 (gauzei buruz)

Ba al da, izan ere, gizakiarentzat jakituria baino gauza **maitagarriagorik** ? Imanol Unzurrunzaga

Apaiz-eginkizun **maitagarri** hau betetzerakoan. Joan Mari Lekuona

Hizkera **maitagarri** eta gozokoa. Elizen arteko biblia

"Non duzu ama?" galdetzen ziotenean, keinu **maitagarri** bat egiten zuen. Karlos Zabala

Arima osoz besarkatzen zaitut eta goraintzi **maitagarriak** bidaltzen ditut Elsa eta haurrentzat. Ramon Etxezarreta

Etorri naiz aurten ere sortu nintzan xoko **maitagarri** huntara. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Kosk **maitagarri** bat egin zion mokoaz. Iñaki Mendiguren

Begietako ezitetasun ameslaria irri **maitagarri** batez apainduz. Aitor Arana

Neskatoaren lo-arnasa **maitagarria** zetorkion bero-bero. Ibon Uribarri

Garai **maitagarriak** baino ez nituzkeen gogoratu beharko. Mirentxu Larrañaga

Geroz, ia laurogei herri eta auzotan izana naiz gure Euskal Herri **maitagarrian**. Pello Zabala

### 3 (adizlagun gisa)

Eskerrak Jainko ahalguztidunari, bere santuengan hain miragarri eta **maitagarri** agertzen delako beti! Askoren artean

Jendeak ere izaera berria hartu zuen Vernerrentzat, atsegin eta **maitagarri** ageri zen haren begirada distiratsuauren aurrean. Jose Morales

**Maitagarri** jokatzan zuen nirekiko, beti jokatu izan ohi zuenez. Mirentxu Larrañaga

Izan ere, azken egunotan noiznahi eta nonahi ikusitako irudiak datozkie gogora, **maitagarri** bezain irigarri. Xabier Mendiguren Elizegi

Tobyk hunkitu egin ninduen, etxeko zakurrak, oso **maitagarri** igaro baitzuen gaua. Felipe Juaristi

### • 4 iz alegiazko izakia, emakumezkoa, ahalmen miragarriak dituena.

Ohitura zenez, **maitagarri** bakoitzak dohain bat erantsi behar zion jaioberriari. **Maitagarri** hark loditzeko joera zeukan. Iban Zaldua

**Maitagarrien** elezaharrak, intxixuenak, aireko zelatari atxikiezen eta gaizkileenak. Josu Zabaleta

**Maitagarrien** ipuinetan oinetakoak direla monotoniatik ihes egiteko arma. Jasone Osoro

Kasualitatez, gauetz **maitagarri** maltzurren batek aurkitzen bazaituzte, bihurrikeriaren bat egingo dizue, eta maltzurra ez bada ere, hotzez eta iluntasunaren beldurrez hiltzaitezke, Peter Pan heldu orduko. Julen Gabiria

**Maitagarrien** Herriko jainko bizikoiren baten laguntzaile. Matías Múgica

**Maitagarrien** Herriko jainko bizikoiren baten laguntzaile Sinesten duzue **maitagarrietan**? Matías Múgica

· **Maitagarri** ongiegile bat naiz zuretzat. Jon Muñoz

Horiek baitira mugimendu hori hots bihurtzeko miraria egiten duten **maitagarriak**, metamorfosi horren bitartez izadiaren inarrote mutua kantari egiten duen musika sorrarazten dutenak... Josu Zabaleta

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**andre maitagarri** (3); **emakume maitagarri** (3); **gizon maitagarri** (3); **herri maitagarri** (3); **maitagarri bihurtzen** (3); **miragarri eta maitagarri** (3); **neska maitagarri** (3)

**adiskide maitagarria** (4); **emakume maitagarria** (5); **gizon maitagarria** (5); **gizon maitagarria zen** (3); **gutiz maitagarria** (4); **lagun maitagarria** (3); **maitagarria baitzen** (4); **maitagarria izan** (7); **maitagarria izateko** (3); **maitagarria izaten** (4); **ona eta maitagarria** (4); **oso maitagarria** (5)

**emazte maitagarriak** (3); **senar emazte maitagarriak** (3)

**maitagarrien ipuin** (4); **maitagarrien ipuin bat** (3); **maitagarrien ipuinetako** (3); **maitagarrien ipuinetan** (3)

## maitagarriro *adlag* era maitagarrian.

**Maitagarriro** jokatu duzu, alajaina! Mirentxu Larrañaga

**Maitagarriro** eta zaldun adeiaz alboratu zitzaien, eta mintzaldi hau egin zien, [...]. Jon Muñoz

## maitagarritasun *iz* maitagarria denaren nolakotasuna.

Eta bitartean nik zera pentsatzen, Hannak oraindik ere lehenago lepotik eutsiko diola bere edertasunari, bere **maitagarritasunari**, esan nahi dut. Joxe Austin Arrieta

Bakoitzak bere gogoko **maitagarritasunaren** hierarkiari begiratu. Jenaro Garate

## maitagarritxo *iz adkor* maitagarria.

Ba, hori **maitagarritxo** hau, gutxien uste denean, Jainkoak ama gaixo horri kentzen dionean [...]. Josu Zabaleta

Millicent Bulstrode ere ez da **maitagarritxo** lirain bat. Iñaki Mendiguren

## maitagogo (*orobat maita(-)gogo*) *iz*

**Maitagogo**a gogoaren maitagaienganako isuri bizia da. Jenaro Garate

Beraz, ni gogo maitaria naiz, **maitagogo** naiz. Jenaro Garate

**Maitagogo**a da adimenaren, nahimenaren, oroimenaren jaun, arduradun eta erantzule. Jenaro Garate

Maitatzea **maitagogoak** bere gogoko den jardunari ematen dion izena da. Jenaro Garate

**Maita** gogoak narama. Jenaro Garate

**Maitagogoak** argitzen du zer den maitagarri eta zer ez. Jenaro Garate

## maitagogotasun *iz* maitagogo izateko nolakotasuna.

Hautamena gogoaren **maitagogotasunean** bertan datza, izaeran bertan; berdintasuna eta elkartasuna, berriz, gogoaren berezko ezagueran dautza. Jenaro Garate

## maitagogotu, maitagogo(tu), maitagogotzen da/du *ad* maitagogo bihurtu.

Eta maitatzea denez **maitagogotzea** da, gure gogo argiago eta kementsuago egitea. Jenaro Garate

Eta maitatzen duen une orotan, **maitagogotzen** (maitaleagotzen) ari da, maitagogo beteago egiten. Jenaro Garate

## maitagune 1 *iz*

Eta Jaungoiko maisuak bi agindu nagusi erakusten dizkigunez, hots, Jaungoikoaren maitasuna eta lagun hurkoarena, hauetan aurkitzen baitu gizakiak hiru **maitagune**:

Jaungoikoa, norbera eta hurkoa; Jaungoikoa maite duenak bere burua maitatuz hutsik egiten ez duen bezala, ondorioz, bakoitzak eraman behar du lagun hurkoa Jaungoikoa

maitatzera, hurkoa norbera baitiltzan maitatzea agintzen baitzaigu. **Imanol Unzurrunzaga**

## 2 maitasuna.

Joan ziren etxetik hiru seme zaharrenak... jaino zen Kuti ("ttikia"), azkeneko semea: arbera Irak **maitagunez** zaintzen zuena... **Pablo Sastre**

## maitakeria *(orobat maitekeria g.er.)* 1 iz maitasun gaitzesgarria.

Garbi azaldu zuten hinduek ez dituztela sekula kalean agerian egiten diren **maitakeriak** onartuko, neska-mutilek elkarri musu ematea, adibidez, kaleko dantza lotua eta hauen antzeko lizuneriak. **Gotzon Garate**

Nolanahiko **maitakeria** lohietan narrasteko. **Juan Luis Zabala**

Elkarri musuka, elkarri **maitakeriazko** hitzak esanez. **Mirentxu Larrañaga**

Apurka-apurka, iruditu zitzaion Armanda, neska polita izateaz gain, bizikide ezin hobea ematen zuela, neurtua baitzen, beti etxean sartuta, jai eta **maitekeriatarako** batere jaiduririk gabekoa. **Bego Montorio**

Gautzen zuelarik, bakezkoak egiten ikusten zituen eta, hara non emaztea senarrari **maitakeriatan** hasten zitzaion. neskek ez dituk sekula ezkontzen **maitakeriatan** ibiltzen diren gizonekin. **Patxi Zubizarreta**

Jaso begiak muinoetara: zeinetan ez zara **maitakeriatan** ibilia? Bide-bazterretan egoten zinen, arabiar lapurrak basamortuan bezala, zer harrapatuko zain. **Elizen arteko biblia**

## 2 (kristau maitasunaz mintzatuz)

Askotan penitentzia egitea bertan behera uzten baitugu geure buruen **maitakeriaz**. **Patxi Altuna**

Argi hau hartzen dute gogoz behartsu direnek bakarrik, eta ongi biluzturik daudenek beren buruetatik, norberarekiko **maitakerietatik**, berekoikerietatik. **Joan Mari Lekuona**

Gatibutasun handiegia da norbere **maitakeriaren** gatibu izatea. **Joan Mari Lekuona**

## maitaketa iz maitatzea.

Soinu ito batzuk entzun ditut: arnasestu bat... hasperen larri bat... abere bat **maitaketan**... jonkiren bat azken dosiaren eske. **Koldo Izagirre**

Urteak ziren, semeak hemezortzi urte orduan, **maitaketan** gozatuak ziren eta komunera altxatu zen, freskatu egin zen ilunpetan. **Koldo Izagirre**

## maitakizun iz maitatzea.

Izen batek bakarrik segurta lezake **maitakizunaren** bat-beratasuna, eta ez dugu begiz jotako gizabazter horien izena jakin arteko onik izaten kasik aurreneko kolpetik eta hurbilguratik ("zein da?; nola izena ote du?"). **Iñaki Segurola**

Maitariaren **maitakizunak** hauei buruzkoak dira: norberari buruzkoak, besteei buruzkoak, norbera eta besteei buruzkoak, eta maitagogoen gogozko direnei buruzkoak. **Jenaro Garate**

**Maitakizunak** gizakiak gizaki denez ekinga sail eta modu guztietan burutu ditzakeen egiteak dira. **Jenaro Garate**

## maitakor ik maitekor.

### mait iz maitatzeko aldia.

Milaka eta milaka biolin deabruzarren orkestra batek alaitzen omen zituen haren **maitaldiak**. **Felipe Juaristi**

**Maitaldi** ondorengo irribarre xume, inozo, tolesgabea. **Felipe Juaristi**

Maitale bien arteko musu, fereka, bihurrikeria eta **maitaldiaren** argia, haien haragi-giharren mugimendu eta dantzaldien gogortasuna, gelan geratuko zen agian, gelako objektuei eta gain-estalki gorridun ohe bakarriari itsatsita geratuko zen agian, bizitzaz haratago joan eta oroimen bihurtuta, denbora eta herio paretan urdinean garaitu ondoren. **Felipe Juaristi**

## maitale 1 iz norbait edo zerbait maite duen pertsona. ik maitatzaile.

Argiaren **maitale** eta arratseko ilunaren etsai diren larretxoriak. **Askoren artean**

Egiaren **maitale** sutsua den zientzialaria. **Jenaro Garate**

Naturaren eta Euskal Herriaren **maitale** suharra da urruñar argazkilaria. **Herría**

Lagun iezaguzue, arren, zuek bezalakoak gara, katolikoak, zibilizatuak, ordenaren **maitaleak**, europarrak... **Alberto Ladron Arana**

Alabaina hirira etorri geroztik zaratarik gabeko minutu apurren **maitale** bilakatu zen. **Itxaro Borda**

**Maitale** ziren: ezaguerarenak, jakituriarenak. **Fernando Morillo**

Zu, emazte txit zintzo, **maitale** txit samur hori, ez zinen unetxo batez ere harengandik aldendu. **Askoren artean**

Baldin Jainkorik bada, nik **maitale** handi gisa irudikatzen dut. **Koro Navarro**

## 2 (hitz elkartuetan)

Liburu **maitalea** pazientziaduna da, librea. **Ana Urkiza**

Karlmaier, ordea, garagardo **maitale** bezain Beethoven zale zen eta lehen ordutik erakutsi zion Klarari zergatik Beethoven zen musikari guztien artean errege. **Felipe Juaristi**

## 3 (sexu maitasunaz mintzatuz)

Seguruena, ez naiz **maitale** ona. **Luis Elberdin**

**Maitale** onak badaki, behar bezalako hartu-emanean, aski dela zakila sartu eta mugimendu leun-leunez, mugimendu ia sumaezinez, atzera eta aurrera ibiltzea, kasik Rolls-Royce baten motelgailua bezala. **Karlos Zabala**

**Maitale** eskasa naizenez, nire bikotekidea beste batekin joango den beldur naiz. **Luis Elberdin**

**Maitale** grinatsuak baretu dira, eta, orain, maitasunezko elkartzearen azken plazerekin gozaten dute. **Luis Elberdin**

**Maitale** suharrek eta jakintsu zuhurrek, berdin helduaran maite dituzte, etxeko harrotasun katu ahaltsu gozoak, hobera baitira berak bezala, berak bezala egonzale. **Josu Zabaleta**

Bat-bateko **maitaleek** aprobetxatu egiten dute elkarrekin egoteko sortu zaien aukera. **Luis Elberdin**

**Maitale** fiinkorik izateko gogorik ez duena. **Karlos Zabala**

Lagunek harriturik begiratu zituzten **maitale** berrien dantza-pausoak. **Aritz Gorrotxategi**

-Ez da oraindik sortu ilargia maite ez duen **maitale** gazterik. **Koro Navarro**

Tira, zer esango dut Joxemari **maitale** gisa? **Aitor Arana**

Arosak eta krabelinak ziren, **maitaleen** mezulari ezkutuak. **Felipe Juaristi**

Plutarkok miresmenez hitz egiten digu **maitale** eta maitatuen gudari-taldeen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Beti puta, sekula ere ez **maitale**, maitasunari ihes eginez, plazera adoratzu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lizarrako **maitaleak**. Martin Anso

### 3 (kristau maitasunez mintzatuz)

Izan zaitezte beti Jainkoaren **maitale**, eta zeuen arimen eta zeuen ahizpa guztien **maitale**, Jaunari agindu zeniotena betetzen arduratsu izan zaitezten beti. Askoren artean

Maitatuko duenean izango da gizakia ondorioz zoriontsu eta, Jaungoikoa bere **Maitalea** maitatuz, bete-betean maiteko duenean, bete-betean izango da zoriontsu. Jenaro Garate

Lurreko gauzen mespretxatzaile eta zerukoen **maitale** bezala nabarmentzen zen. Askoren artean

Bekatarien **maitale** zaren aita txit santu horrek, lagun iezaiezu bekatariei. Askoren artean

San Frantziskoren **maitale** sutsua zen eta azkenean honen eskuetatik hartu zuen Hirugarren Ordenako abitua. Askoren artean

### 4 (izenondo gisa)

Bere bihotz **maitalea** askaturik. Askoren artean

Airea ukitzea gustatzen baitzitzaion, aire laguna, aire **maitalea**, aire anaia. Felipe Juaristi

Jainko **maitalea** niregana etorriko da eta etsaien porrotaz alaiaraziko nau. Elizen arteko biblia

Ava Gardner antzezle izarrak behin baino gehiagotan hartzen omen zituen bere ohean pilotari **maitaleak**. Ramuntxo Etxeberri

### • 5 iz norbaitentzat, berarekin ezkontzatik at sexu harremanak dituen pertsona. ikamorante; ohaide.

**Maitale** bat ba omen zuela. Ramuntxo Etxeberri

Aspaldian **maitaleak** izan ginen. Harkaitz Cano

**Maitaleak** izan ginen bolada batean, eta nire senargaia utzi nuen, gainera. Karlos Zabala

Gordon eta biok ezkutuko **maitaleak** gara. Oskar Arana

Bolo-bolo zebilen Alderdiko jauntxoren baten **maitale** zela ere. Anjel Lertxundi

Ez du **maitalearekin** bakarrik senarra engainatzen. Joxean Agirre

Nire **maitalea** izan ondoren, onar ezazu, arrenka diotsut, laztana, nirekin emaztearena egitea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Merteuil andrea, berriz, Dancenyren **maitale** izango da eta Valmonten **maitale** ohia da; horrez gainera, une jakin batean Prévanden **maitale** ere izango da, eta beste zenbaitetan Cécilekin duen harremanaren nolakotasuna anbigua gertatuko da. Jon Muñoz

Emakume lizun eta trebeak, plazer hau ez sekula ukatu zuen **maitaleei**: betiko kateatuko dituzue horrela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Alproja hori Lisa lodikotearen **maitalea** da! Karlos Zabala

Monika eta idazlea ez zirela beharbada **maitale** izatera iritsi pentsatu nuen. Joxean Agirre

Dabidek **maitalearekin** hautsi duela. Patxi Zubizarreta

Bi urtez izan nuen **maitale**. Josu Zabaleta

Baina Egutxik ezkondu aurretik ere beste **maitale** bat izan zuen. Ibon Uribarri

Auzokoez ez dakite, noski, adiskide soilak ala **maitaleak** ziren. Joxean Agirre

### 6 (izenondoekin)

Molda hadi aldi batez oraino heure Julie horren **maitale** zoriontsua izateko. Jon Muñoz

**Maitale** arbuatuak ere, bere desesperantzaaren poderioz mundutik at sentitzen zenak, gosaria prestatu beharko du, bizarra moztu, bulegora joan, [...]. Bernardo Atxaga

Ez duzue nitaz mendekatu behar, zuen **maitale** desleial horiez baizik. Jon Muñoz

### 7 irud/hed

Eta nik ere **maitale** zaharra ahaztu eta heroina egin ninan **maitale** berri, paradisu artifizial hartan. Joan Mari Irigoien

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egiaren **maitale** (4); herriaren **maitale** (3); **maitale bat izan** (3); **maitale bat zuen** (3); **maitale berri** (3); **maitale gazte** (5); **maitale gaztea** (4); **maitale gisa** (6); **maitale izan** (5); **maitale izatea** (3); **maitale ohiaren** (3); **maitale ona** (3); **maitale sutsu** (5)

**maitaleak izan ginen** (3)

**maitalearen bihotza** (4)

**bi maitaleen arteko** (3); **maitaleen artean** (7); **maitaleen arteko** (6)

## maitaleku iz

Gizon kanpo-eder barne-huts baten bizitoki eta **maitaleku**, huts eta belzturik ageri zen barrenetik, kanpotik bere plantari eutsiz ordea. Felipe Juaristi

## maitamen iz maitatzeko ahalmena.

Maitatzen ari naiz beti, **maitamenak** eraginda, maitagai bila, maitagai ezaguna argitzen, ontzen, edertzen; nire adimena, nahimena eta oroimena erabiliz. Jenaro Garate

Askatasuna eta ezagumena **maitamenarekin** bat bera eginda aurkitzea eta aurkeztea, bere aurpegiera edo alderdi gisa. Jenaro Garate

**Maitamena** baiestea, batera ezagumena eta hautamena baiestea da. Jenaro Garate

Askatasuna, hautamena, **maitamena** ukatuz zientzialaria ukatzen du. Jenaro Garate

## maitamendun izond maitamena duena.

Hori da gizakiaren handitasuna, izen asko jaso izan duena, duintasuna adibidez: maitagogo (**maitamendun**, ezagumendun eta hautamendun) izan eta ondorioz beragan edukitzea onaren, egiaren, ederraren neurria. Jenaro Garate

Ondorioz, maitari (**maitamendun**) garenez gogoeta, gogo, gogorapendun garelara esan dugun bezala, berdin-berdin esango dugu hautari izanik gogoeta, gogo, gogorapendun garelara. Jenaro Garate

## maitarazi, maitaraz, maitarazten du ad maitatzera behartu.

Jesus maitatzea eta **maitaraztea**. Herria

Bere nahietako bat musika klasiko eta bereziki Euskal Herrikoa ezagutaraztea eta **maitaraztea** da. Berria - Kultura

Ekintza Katolikoa hemengo fededun askori ezagutarazi ta **maitarazi** digun gure apezpikuaz mintzo da X. kapitulua. Herria

Horregatik eskatu nahi diot Jainkoari, bihotz-bihotzez **maitarazi** diezagula pobretasun santuaren altxor txit bikaina. Askoren artean

Marseauk badu, gainera, arrazoirik gabe eta ezustean gorritzeko modu erakargarri bat, neskatza baten modura **maitarazten** duena. Itziar Otegi

Gisa horretan erdiesten dute gazterriagana nolabait hurbiltzea, beren buruak **maitarazirik**. Jon Muñoz

Mundua **maitarazten** du ekintzak. Piarres Aintziart

# maitarazle iz maitarazten duen pertsona.

Bakotzak gure lekuan, behar ginduela izan, profeta handi hori bezala, Jesus gure Salbatzaile maitearen ezagutarazle eta **maitarazle**. **Herria**

## maitari 1 iz maitatzailea.

**Maitari** xalo, bakar, ixil... **Patziku Perurena**

**Maitari** sensual horrek duen edertasunaz jabetzeko makina bat ahalegin egiten dira. **Txema Ramirez de la Piscina**

**Maitariak** maitearen mundu aldakorrek kontrolatu nahi ditu, erabat bereganatu. **Markos Zapiain**

Nortasun handiko **maitaria** da komunikazioa, bihurria, ez da erraz menderatzen den horietakoa. **Txema Ramirez de la Piscina**

Hau da, gizakia **maitari** izanik, ezagutari eta hautari dela batera baietsiz. **Jenaro Garate**

## 2 (izenondo gisa)

Gizakia gogo **maitaria** da, gizakia maitagoga da. **Jenaro Garate**

## maitaritasun iz maitaria denaren nolakotsuna.

Esanahi honetan, giza kontzientzia gizakia maitagoga izatean datza, kontzientzia **'maitaritasuna'** da. **Jenaro Garate**

## maitaro adlag maiteki.

Zer nuen nik halako min latza barnean, elkarrekin gozo eta **maitaro** bizitzeko ohitura eten berriaren zauria ez bazen? **Imanol Unzurrunzaga**

## maitasarre ik maitazarre.

## maitasun 1 iz norbait norbaiti edo zerbaiti atxikitzen duen joera, haren ona bilatzera bultzatzen duena. ikamodio.

Beldurgarria **maitasun** gabeko bizitza. **Gotzon Garate**

Kontrolagarria den sentimenduak ez baitu **maitasun** izena merezi. **Markos Zapiain**

Ez zuen **maitasun** edo begirune handirik Juneren bigarren senarrarentzat. **Oskar Arana**

Zakurrak eskatzen duen gauza bakarra: **maitasun** pixka bat, adiskidetasun agirixto batzuk eta jan hondarrak. **Gotzon Garate**

Erleei eskaini zientat nik neure **maitasun** guztia, eta bai beraiek itzuli ere. **Pako Aristi**

On publikoaren **maitasuna** hainbestekoa izan daiteke han, non beste edozein **maitasunen** gainetik jartzen baita. **Iñaki Iñurrieta**

Funtsean, **maitasuna** besterik ez baita: freskura bat nekearen ondoren, betetasun kiskalgari bat bizitzaren hutsune hotzaren erdian. **Pako Aristi**

Jakinduriatz eta **maitasunez** idatzitako liburu bat. **Askoren artean**

Tratu onak bakarrik, **maitasunezko** eta adiskidetasunezko tratuak aldatzen duela pertsona. **Askoren artean**

Gure ahuleziaren ideiak lagun daraman Tristura Umiltasuna deitzen da; eta geure buruaren kontenplaztetik sortzen den Poztasuna **Maitasun** -propioa edo norberarekiko Kontentua. **Piarres Xarriton**

## 2 (iizenondoekin)

Negar-zotinka azaltzen zuten beren bihotzeko **maitasun** samurra. **Herria**

Historiak eta literaturak irakatsi digute adiskidetasuna eta **maitasun** fidagarria izan badirela... **Lopez de Arana**

Umezurtz-etxeko zuzendariak **maitasun** handia hartu zion eta maiz joaten zitzaion ikustera. **Gotzon Garate**

Haragizko maitasuna batetik, eta, bueno, bestetik, **maitasun** sentimentala esango dioguna, egunero-egunero besteaz arduratze hori. **Koro Navarro**

Ongi al deritzozue printzeari honen berri emateari, **maitasun** zintoz eta eginbide leialez dagokigunez? **Juan Garzia**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Maitasun** -sagarrei usain eztia darie, milaka fruitu gozo dago gure atean zain. **Elizen arteko biblia**

**Maitasun** premia larria du, eta egunetik egunera gehiago maite nau, garbi ikusten dut. **Josu Zabaleta**

Belaunikatu nintzen milaka **maitasun** -urteko lur zaharrean, milaka udaberriko lurtean. **Fernando Rey**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aurrerago, merkatu nagusia bete zuten beren txolarre **maitasun** axolagabeekin. **Karlos Zabala**

Laburtuz, giza **maitasuna** utzi eta zakur **maitasunera** igaro nintzen. **Koro Navarro**

## 5 familia bateko kideak elkarren artean lotzen dituen sentimena.

Aitari musu ematen ziola amets egin zuen eta hark samurtasun gosez eskatzen zuen **maitasun** guztia ematen ziola. **Bego Montorio**

Amarik gabe, ez dago **maitasun** indartsurik objektu personal batera zuzenduta. **Iñaki Mendiguren**

Gurasoek seme-alabei dieten **maitasunaz**. **Iñaki Iñurrieta**

Haurrak eta umeak **maitasunean** eta libertatean hazteko eta hezteko. **Joan Mari Irigoien**

Gurasoak jatorrak eta txit bihozberak omen ziren eta beti etsenplu ona eta **maitasun** handia eman omen zioten. **Gotzon Garate**

Alabenganako aitaren **maitasunaren** ifrentzua suhia da. **Markos Zapiain**

## 6 (hitz elkartuetan)

Aitak eta amazteak bazuten haur zapuztuak **maitasun** giroan biltzeko dohain berezia. **Gotzon Garate**

-Baina, amonari bidaltzen zizkion **maitasun** gutunak? **Jon Muñoz**

-Algernon, mesedez, bila ezak Ingalaterrako historian gure aitaren izena, baldin seme-**maitasunaren** arrastorik gelditzen bazaik. **Antton Olano**

## 7 (Jainkoaren eta lagun hurkoarenganako)

Melen ustez, benetako maitasuna **maitasun** espirituala baino ez zen. **Koro Navarro**

Fede zuzena, itxaropen ziuerra eta **maitasun** betea. **Juan Kruz Igerabide**

Maite ez duenak ez daki deus ere Jainkoaz, Jainkoa **maitasuna** baita. **Elizen arteko biblia**

Jainkoarenganako **maitasun** zintzoa. **Askoren artean**

Betor gurekin, Jauna, zure **maitasun** leiala, zuregan jarria baitugu esperantza! **Elizen arteko biblia**

Behartsuenganako karitate eta **maitasun** gupidatsua. **Askoren artean**

Bi hegoek lagun hurkoari zor zaion **maitasun** bikoitza adierazten dute. **Askoren artean**

Jesu Kristoren **maitasuna** eta betiko bizia guri kentzea. **Askoren artean**

Bere bihotza ere eza dagoela **maitasun** jainkozkoaz inguratua. [Joan Mari Lekuona](#)  
Hain loturik doaz horiengan **maitasun** naturazkoa eta Jainkoaren maitasuna, non hasasi egiten baitituzte **maitasun** jainkozkoa eta berekoieria. [Joan Mari Lekuona](#)

## 8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nahiz eta prelatuek gizakien eta aingeruen hizkuntzez hitz egin, **maitasun** etsenplurik ematen ez badute, ezer gutxi lagunduko didate niri. [Askoren artean](#)  
Ochorea da gurasoentzat, **maitasun** -seinale seme-alabentzat. [Askoren artean](#)  
Miragarri hauen **maitasun** -begirada garbiak gainezka eginarazten dio bihotzari. [Joan Mari Lekuona](#)  
Fedezko itxaropenean gora egiten eta **maitasun** sugarretan isiotzen. [Askoren artean](#)  
Lagun hurkoaganako **maitasun** sutan erabat pizturik geratu zen. [Askoren artean](#)  
Gizakia horrelako **maitasun** -ekaitzetan aurkitzen denean. [Joan Mari Lekuona](#)  
Jainkoagana etengabe isurtzen zenituen esan ezineko **maitasun** -sentiendu haiek. [Askoren artean](#)  
**Maitasun** harreman berezia. [Askoren artean](#)  
Antzinako zeure **maitasun** -egintzez oroiturik. [Askoren artean](#)  
Frantzisko dohatsuak ere, **maitasun** -ezaugarri bera azaldu nahi izan zien bere anaiei. [Askoren artean](#)  
Hau da **maitasun** -perfekzioa bere mailarik gorenean. [Joan Mari Lekuona](#)

## 9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikusi gutxienez haietan zuri eta zure alabei egun osoan dizuedan ama-**maitasun** kartsua. [Askoren artean](#)  
Beren bihotz-**maitasun** osoa elkarbizitzan iraultzen zuten eta bere buruak ere emateko prest zeuden anaiei beren premietan laguntzeko ordainetan. [Askoren artean](#)

## 10 norbaitenganako joera edo grina bizia, sexu senan oinarritzen dena baina hainbat jokaera ager ditzakeena. ikmaitemin.

Haragizko **maitasuna** batetik, eta, bueno, bestetik, **maitasun** sentimental esango dioguna, egunero-egunero besteaz arduratze hori. [Koro Navarro](#)  
Sexua plazerari, **maitasunari** eta komunikazioari lotuta dago. [Luis Elberdin](#)  
**Maitasunak** sexura eramaten ditu pertsona batzuk, eta beste batzuei alderantziz gertatzen zaie, alegia, sexuak **maitasunera** eramaten ditu. [Luis Elberdin](#)  
Ezin ditudalako bereizi **maitasuna** eta desira. [Ramon Saizarbitoria](#)  
Edo **maitasuna** pasiotik lasaitasunera igarotzen ote da eta pasioari bakarrik deitzen diogu **maitasun**. [Lourdes Oñederra](#)

## 11 (izenondoekin)

**Maitasun** fisikoaz ari naiz, pertsona jakin batengana bultzatzen zaituen bulkada horretaz. [Koro Navarro](#)  
Bidean, Lancelot eta Ginebra maitemindu egin ziren, eta bien arteko **maitasun** ezkuak tragediaren bidea hartuko zuen. [Juan Kruz Igerabide](#)  
Ez al dute ba esaten boladan dagoela **maitasun** librea zuen alderdian? **Maitasun** lesbikoen inguruko testigantzak hainbat dira. [Koldo Biguri](#)  
**Maitasun** safikoa: loditzeko aitzakia ona. [Oskar Arana](#)  
Zerekin neur ote daiteke **maitasun** galduek uzten duten hutsunea? zenbat metro karratu ditu begirada baten tristurak? [Joxean Agirre](#)  
**Maitasun** debekatu baten fruitua delako. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

## 12 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Onartuko didazue, noski, heldutasunera iristeko, heldutasun hitzaren zentzurik zabalenean, lehenik eta behin sexu eta **maitasun** heldutasuna lortu behar dela. [Bernardo Atxaga](#)  
Monikaren nobela **maitasun** historia baten bilakabidea da. [Joxean Agirre](#)  
Orduan hasiko dira hasperenak eta **maitasun** hitzak. [Luis Elberdin](#)  
Itxaso, ni naiz **maitasun** gutunak idazten dizkizun mutila. [Pako Aristi](#)  
Giza primatzen artean, musuak **maitasun** adierazpenak dira eta gure sentsualitatearen, jolas erotikoren eta kitzikapen sexualaren oinarritzko osagaiak. [Luis Elberdin](#)  
Bere etxean idatzirik utzi nuen **maitasun** aitortza desagitekiko asmoarekin. [Joxean Agirre](#)  
**Maitasun** -aitortzak han ziren betiere, itzultzeko borondate errepikatuarekin batean, baina formula eta formalismo antza ikusten nien nik. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)  
Bularra ez da elikagai iturri bakarrik; **maitasun**, berotasun, babes eta segurtasun iturri ere bada. [Luis Elberdin](#)  
Denak du erremedioa; ez, ordea, **maitasun** -grina honek. [Fernando Rey](#)  
Berriz **maitasun** -erauntsi batek astindu zion bihotza. [Fernando Rey](#)  
Badira gau bateko **maitasun** eta sexu harreman eder askoak, pasioz eta samurtasunez beteak. [Luis Elberdin](#)  
**Maitasun** harreman korapilatsu eta sarri zoritzarrekoak ageri ziren nire kontakizun haietan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)  
Jolas sexuala albo batera uzten badugu, desioa ez da piztuko, kideen arteko kimika ez da sortuko, **maitasun** lurrinik ez da agertuko. [Luis Elberdin](#)  
Larruazal guztia ferekatzea eta bata besteari musuak eta **maitasun** laztanak oparitzea. [Luis Elberdin](#)  
Bertan lan egiten dute, eta bertan dute beren **maitasun** txokoa. [Luis Elberdin](#)

## 13 pertsona maitatua.

Eta ondoren, **maitasun** berri bati gerritik helduta berririo mundura pozik ateratzen delarik ere. [Joxean Agirre](#)

## 14 maitasuna egin

**Maitasuna egingo** dute eta biharamunean, ohean bakarrik esnatuko delarik, bere esku hutsei erreparatuko die. [Joxean Agirre](#)  
Gauetz etortzen da Loredanarekin **maitasuna egitera**. Gauza ederra dela **maitasuna egitea** beste norbaitekin. [Juan Garzia](#)  
**Maitasuna egiten** dugunean ez dut orgasmorik lortzen. [Luis Elberdin](#)  
Hemen **maitasuna egitea** gauza naturala da. ez dago gizon batentzat erronka handiagorik ezpada emakume batekin **maitasuna egiten** duen lehen eguna. [Jon Muñoz](#)  
Geroago, dena luzatu nuen; egoera berri bat gehitu nion lehendabizi, maitasuna (esan nahi baitu **maitasuna egiteko** ekintza). [Monika Etxebarria](#)

## 15 maitasuna izan dio ad

Berak ikasleak maite zituen eta haurrek **maitasuna** ziotela uste zuen. [Gotzon Garate](#)  
Zinez zintzoa baitzen bai irakasleei eta bai klaronari nien **maitasuna**. [Eskarne Mujika](#)  
Anak Kosmasi zion **maitasunaz** baino ez zuen onartu halako lan zikin eta azpikoa. gizakiei diedan **maitasunaren** sakonari, haiengana naraman bulkadaren indarrari gogoeta ematen diodanean, [...]. [Felipe Juaristi](#)  
Andresi dagokionez, **maitasun** bizia zion anaia txikiari. [Josu Zabaleta](#)  
Indioek behiei dieten **maitasun** eta begirunea ulertzeko, historian atzera jo behar da. [Gotzon Garate](#)  
Euskarari diogun **maitasun** izugarria erakutsi nahian. [Pello Salaburu](#)  
Neska hark **maitasun** handia zidan nonbait, eta zoragarria ikusten ninduen ni. [Pako Aristi](#)  
Zer **maitasun** dizudan, ongi dizut milatan frogatua jadanik; hala, bada, maitasuna nolako, halako dut beldurra orain nik. [Juan Garzia](#)

### hitz multzoen maitasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**maitasun adierazpenak** (8); **maitasun berezia** (12); **maitasun bereziz** (6); **maitasun berri** (5); **maitasun betea** (5); **maitasun guztia** (8); **maitasun handi** (8); **maitasun handia** (26); **maitasun handia hartu** (7); **maitasun handiagoa** (5); **maitasun handiz** (24); **maitasun harreman** (12); **maitasun harremanak** (6); **maitasun historia** (15); **maitasun hitz** (6); **maitasun hitzak** (10); **maitasun istorio** (35); **maitasun istorio bat** (18); **maitasun istorioa** (19); **maitasun istorioa kontatzen** (5); **maitasun istorioak** (5); **maitasun kontu** (5); **maitasun kontuetan** (9); **maitasun librea** (5); **maitasun mota** (5); **maitasun osoa** (6); **maitasun osoz** (5); **maitasun platonikoa** (6); **maitasun premia** (5); **maitasun samurrez** (6); **maitasun sentiendu** (6); **maitasun sutsu** (5); **maitasun sutsua** (6); **maitasun sutsuz** (7)

**adimen maitasuna** (8); **ama baten maitasuna** (6); **benetako maitasuna** (18); **egiaren maitasuna** (5); **egiazko maitasuna** (10); **elkar maitasuna** (5); **emakumeen arteko maitasuna** (7); **gorrotoa eta maitasuna** (5); **jainkoa maitasuna da** (6); **jainkoaren maitasuna** (31); **jaunaren maitasuna** (5); **kristoren maitasuna** (5); **maitasuna agertu** (5); **maitasuna betikoa baita** (40); **maitasuna egin** (26); **maitasuna eginaz** (5); **maitasuna egitea** (12); **maitasuna egitea** (7); **maitasuna egiten** (12); **maitasuna eman** (5); **maitasuna ematen** (5); **maitasuna eskaintzen** (9); **maitasuna eta desira** (5); **maitasuna eta gorrotoa** (10); **maitasuna lortzeko** (5); **maitasuna piztu** (7)

jainko jaunaren maitasunagatik (25); jainkoaren maitasunagatik (82); jainkoaren maitasunagatik eskatzen (7); jaunaren maitasunagatik (32); kristoren maitasunagatik (16); maitasunagatik egin (6); maitasunagatik eskatzen (9)

diodan maitasunak (5); maitasunak eraginda (15)

egiazko maitasunaren (5); elkar maitasunaren (5); jainko maitasunaren (12); maitasunaren indarra (6); maitasunaren inguruko (9); maitasunaren izenean (5); maitasunaren sua (6); maitasunaren suaz (5); maitasunaren sugarra (5)

maitasunari uko (5)

elkar maitasunean (5); familiako maitasunean (6); jainkoaren maitasunean (6)

maitasunik gabeko (6)

## maitati *izond* maitekorra, maitasuna sentitzen edo adierazten duena. ik **maitetsu**.

-Zaldun hau oso egokia litzateke Ordenan gure lagun izateko, hain da esker eta aitor onekoa Jainkoarekin, eta hain da **maitati** eta adeitsua lagun hurkoarentzat eta Haren behartsuentzat. **Askoren artean**

## maitatu, maita, maitatzen 1 du *ad* maite izan.

**Maitatu** zuen, **maitatua** izan zen, eta hil zen. **Alberto Ladron Arana**

**Maitatu** egin beharko litzateke, eroki **maitatu**, zer **maitatzen** den ikusi gabe. **Josu Zabaleta**

Maitatzea eta **maitatua** izatea, zer gauza zoragarria! **Daniel Landart**

Inork ez du inoiz horrela **maitatu** ez maitatuko, eta horregatik daki baietz esango diola, trabarik ez diola jarriko. **Eider Rodriguez**

Bassa aldeko herrietan, aldiz, ohiko eskemen arabera jaio, bizi, **maitatu**, gorrotatu eta hiltzen dira. **Koldo Biguri**

Bizi gaitezen, ene Lesbia, eta **maitatu**, eta pentsa dezagun zahar bihozkaheen zurrumurruek ez dutela ezertxo ere balio. **Patxi Zubizarreta**

**Maita** ezak gorrotatuz bezala; gorrota ezak maitatuz bezala. **Juan Kruz Igerabide**

Nola sendatu **maitatzeak** utzi dituen zauriak ihes eginaz ez bada. **Lourdes Oñederra**

### 2 (nor bait)

Maite zaitut, beti **maitatu** zaitut, eta gure logelatik kanporatu zintudanetik, zure eskasia deitoratu dut. **Elena Touyarou**

Lajos da nire bizitzan **maitatu** dudan gizon bakarra. **Ander Irizar**

Greta ezagutu nuenetik ez nian Greta **maitatu** beste ezer egin. **Anjel Lertxundi**

Emakumezko pertsonaia nagusia, Anny, Sartrek **maitatu** zuen lehendabiziko neskaarengan dago inspiratua. **Monika Etxebarria**

Inoiz inork ez din **maitatu** inor, hark hi bezainbat. **Juan Kruz Igerabide**

Gizona zozo hutsa delako **maita** zezakek emakumeak. **Anton Garikano**

Alaba bat izan zuen harengandik, **aitak** maitatua. **Juan Garzia**

Harry sarri **maitatu** izan zuen iraganean, baina oso bakan **maitatu** izan zuten bera ordainetan, eta Betteren maite grinak harriturik uzten zuen. **Oskar Arana**

Gizakiok, baina, ordainez **maita** gaitzaten bilatzen ohi dugu. **Markos Zapiain**

Bezperako gauean zoratu arte elkar **maitatu** ondoan. **Elena Touyarou**

**Maitatu** izan genuen elkar aldi batez, eta gero den-dena okertu zen. **Oskar Arana**

Labur esanik, bere burua **maitatu** behar omen du. **Iñaki Segurola**

Senarrok, **maitatu** emazteak eta ez izan horiekin zakar. **Elizen arteko biblia**

**Maitatu** lagun hurkoa zeuen burua bezala. **Elizen arteko biblia**

Eta **maita** ditzagun lagun hurkoak geure burua bezala. **Herria**

Jainkoa **maitatu** eta adoratu. **Askoren artean**

Gotzainak ez ezik, apaiz pobretxoak ere **maitatu** eta beneratu nahi ditut, eta nire jauntzat hartu. **Askoren artean**

**Maitatu** etsaiak eta egin oitotz pertsegitzen eta kalumniatzen zaituztenen alde. **Askoren artean**

### 3 (zer bait)

**Maita** ezan belea, aterako din begia... **Joan Mari Irigoien**

Senarrak Heine irakurtzen zion eta bioletak **maitatzen** erakutsi. **Fernando Rey**

Herria aldi berean **maitatu** eta madarikatu egiten zuela esan zidan. **Patxi Zubizarreta**

Aitzina segi, **maita** bizia. **Herria**

Euskara ez da **maitatu** behar, euskara erabili egin behar da. **Joxerra Garzia**

Euskaltzalea izateko ez dago euskara **maitatu** beharrik, eta kasik esan ere daiteke ez duela euskara maitatzearekin deus ikustekorik. **Iñaki Segurola**

Kultura benetan **maitatu** eta maitasun hori benetan zabaldu nahi dutenak. **Pako Aristi**

**Maita** ez daitekeen gauza hotza da Estatuak; erailtzen du eta suntsitzen, ahal duen guztia. **Piarres Xarriton**

Gorrota ezazue gaizkia, **maita** ongia, egin zuzentasuna auzitegietan. **Elizen arteko biblia**

**Maitatu** zuzentasuna, mundua gobernatzen duzuenok. **Elizen arteko biblia**

Berri ezazu zeure bulkoa, sortu zeugan ekaitza, **maita**, desira, eska eta akuila maitasuna. **Joan Mari Lekuona**

Gaztetandik **maitatu** eta bilatu izan dut jakinduria. **Elizen arteko biblia**

Gizakiok ezin dugu silogismoa **maitatu**. **Markos Zapiain**

Giza unibertsoko erlatibo txikia deskubritu eta **maitatzea**. **Joxe Azurmendi**

Jaungoikoak ongia **maitatzea** eta gaizkia ez **maitatzea** gauzen ordena kaskarra dela deritzozu? **Imanol Unzurrunzaga**

### 4 (adizlagunekin)

Haren garaipena murriztagoa zen orain, eta Florent gutxiago **maitatu** zuen zortzi egunez. **Karlos Zabala**

Samurkiro **maitatu** ditugu gure hildako maiteak, baina akiturik, leher eginik, porru eginik utzi gaituzte aldi berean. **Joxan Elozegi**

Aileza biziki **maitatua** izatearen segurantzak zure arima doi bat kontsola! **Jon Muñoz**

Inork ez zaitu hain gatibatuta, hain leial, hain kartsuki **maitatu**. **Eduardo Matauko**

Perfekzionako lagungarri dena sutsu **maitatu** behar dela eta arretaz baztertu kaltegarri dena. **Askoren artean**

Eta ez diat egundaino egiazki **maitatu**. **Piarres Aintziart**

Mailarik behekoenean **maitatzea** bihotzez **maitatzea** da. **Joan Mari Lekuona**

**Maita** dezagun guztiok bihotz-bihotzez... **Gotzon Garate**

Jauna zeuen Jainkoa bihotz-bihotzez eta gogo osoz **maitatu** ahal izan dezazuen eta bizirik iraun. **Elizen arteko biblia**

Kristoren zerbitzaria amodio bereziz **maitatu** zuen beti. **Askoren artean**

### 5 (era burutua izenondo gisa)

Hauxe da maitasunaren arazoa, pertsona **maitatuaren** ondoan zaudenean ernetzen dena. **Fernando Rey**

Emakume eder eta oso **maitatuak** ohi direnez. **Juan Garzia**

Zein zaila gertatu zaidan neskatxo **maitatuaren** bizimodu bigun hura utzi eta hona etortzea. **Josu Zabaleta**

Behinolako lorategi **maitatu** hura, bere labirinto bideekin. **Josu Zabaleta**  
Ezetsia eta gaitzetsia zebilena ez zela gudari ausarta, baizik eta gure hizkuntza **maitatu** eta makilatua. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Herri **maitatu** hori aldatzeko grina beroa odolean. **Pako Aristi**  
Oreztaz jositako gazte alai eta oso **maitatu** bat, ile beltza tente moztuta daroana. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Bi pertsona asetzen ditu bakarrik, maitalea eta **maitatua**, ezin du beste inor zoriontsu egin. **Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**asko maitatu** (5); **asko maitatu nuen** (3); **benetan maitatu** (4); **beti maitatu** (15); **beti maitatu baitzaitu** (3); **beti maitatu izan** (6); **bihotzez maitatu** (4); **elkar maitatu** (14); **ezagutu eta maitatu** (10); **hainbeste maitatu** (5); **herria maitatu** (3); **inoiz inor maitatu** (3); **inoiz maitatu** (5); **inor maitatu** (4); **izugarri maitatu** (3); **jainkoa maitatu** (3); **maitatu beharra** (6); **maitatu beharra dago** (3); **maitatu etsaiak** (6); **maitatu izan** (26); **maitatu izan ez** (4); **maitatu lagun hurkoa** (11); **sekula maitatu** (5)  
**arras maitatua** (5); **biziki maitatua** (9); **biziki maitatua zen** (3); **estimatu eta maitatua** (6); **ezagutua eta maitatua** (4); **gizakiek maitatua** (3); **maitatua edo gorrotatua** (3); **maitatua izan** (18); **maitatua izan zen** (5); **maitatua izatea** (6); **maitatua izateko** (12); **maitatua sentitu** (3); **maitatua sentitzen** (3); **oso maitatua** (5); **zinez maitatua** (3)  
**maitatuak garelako** (3)  
**gauza maitatuaren** (6)  
**elkar maitatuko** (5); **gehiago maitatuko** (7)  
**maitaturiko gauza** (9); **maitaturiko gauzak** (5); **maitaturiko gauzarekin** (4); **maitaturiko gauzaren** (8)  
**ezagutuz eta maitatuz** (3); **zeuen jainkoa maitatuz** (3)  
**bete betean maitatzea** (3); **elkar maitatzea** (9); **gizakiari maitatzea dario** (3); **gutziz maitatzea** (3); **indar gutziz maitatzea** (3); **jainkoa maitatzea** (5); **maitatzea bihotz bihotzez** (3); **zer den maitatzea** (3)  
**bere burua maitatzean** (4)  
**maitatzeari uko egitea** (3)  
**elkar maitatzeko** (6); **etsaiak maitatzeko** (3); **ezagutzeko eta maitatzeko** (3); **gehiago maitatzeko** (4); **maitatzeko ahalmena** (4); **maitatzeko gai** (6); **maitatzeko gauza** (6)  
**bihotzez maitatzen** (4); **elkar maitatzen** (13); **ezagutzen eta maitatzen** (10); **jainkoa maitatzen** (4); **maitatzen eta beneratzen** (3); **maitatzen eta bilatzen** (3); **maitatzen ikas** (4); **maitatzen ikasi** (8); **maitatzen ikasi zuen** (3); **maitatzen irakatsi** (3); **maitatzen jakin** (3); **maitatzen jarraituko** (3); **maitatzen jarraitzen** (4); **maite bat maitatzen** (3)  
**bihotzez jainkoa maitatzera** (3); **gehiago maitatzera** (3); **jainkoa maitatzera** (7)

## maitatzaile *(orobat maitazale eta maitatzale g.er.)* 1 izond maitatzen duena.

Diruz eros zitekeen luxu oro, bataioa barne, zuretzat xahutu zuten zure guraso maitagarri eta **maitatzaileek**. **Antton Olano**  
Bihotza lehen bezain **maitatzaile** eta ilargia lehen bezain distirant izanagatik. **Oskar Arana**  
Gizaki helduak beste hau ere daki [...]: bere baitan, bere gogoaren gogoan, **maitatzaile** izanik, gezurra ari dela borrokan bere gogo egia-aren kontra. **Jenaro Garate**  
Iratzeder, Jainkoaren goresle: beti dut Hartan bihotza gazte, eta ere Euskal Herriaren **maitazale**: euskara ukatzen duen euskalduna ez da gizona... **Herria**

### • 2 iz maitatzen duen pertsona. ik maitale.

**Maitatzailearen** grinetak bat maitea harrapatzea izango da, bahitzea, bakartzea, harik eta berari arrotzak zaizkion mundu horietaz hustu arte, barnebiltzen dituen mundu guztiak idortu eta hil arte. **Markos Zapiain**  
Maitearen gorputza eta adierazpenak izkribu sekretuak dira **maitatzailearentzat**. **Markos Zapiain**  
Ni nintzen umearengan lehenengo aldiz emakumea, **maitatzailea** iratzarri zidan berbera. **Eduardo Matauko**

### 3 (hitz elkartuetan)

Aste osoan, Theresen proposamen bitxia zela medio Zuberoa guztiko kabala **maitatzaileak** "bisitatu" nituelako ustea eduki izan nuen. **Itxaro Borda**  
Gipuzkoatik (Hernani eta Idiazabaletik) etorritako kantu **maitazale** gazteak. **Herria**  
Urriaren 15 garrenean han hil zituzten (Santoñan): eskual-**maitatzaileentzako**, Azkue, Markiegi, Zabala, Otamendi, Markaide eta Ibarbia. **Jokin Urain**

## maitatzale ik maitatzaile.

## maitatzarre ik maitatzarre.

## maitatze 1 iz maite izatea.

**Maitatze** hutsa gizakia osatzea, indartzea, edertzea, handitzea, bete egitea da. **Jenaro Garate**  
Jakite, **maitatze** eta egite: hau guztia isurtzen du gizaki onaren baitan, eta gizaki onak bere izate, jakite, **maitatze** eta egite osoa Ontasunaren barrenetik hartzen du eta handik bakarrik. **Joan Mari Lekuona**  
Ez da hain samurra nork bere burua **maitatze** hori. **Iñaki Segurola**

### 2 (hitz elkartuetan)

Berriz gogoratu behar dugu **maitatze** jarduna hirukoitza dela, nolabait: maitalea (1) eta maitatuaren (2) arteko maitasunezko erlazioa (3) dela. **Jenaro Garate**  
Baliteke **maitatze** ariketa hori moztuta bezala geratzea aldi batzuetan, adibidez hautaketa egin ezinean. **Jenaro Garate**

## maitazale ik maitatzaile.

## maitatzarre *(orobat maitazarre eta maitatzarre)* iz maitasuna.

Errespetuz bezain **maitazarrez** begiratzen zion bere bidelagun eder bipilari. **Karlos Zabala**  
Gizon hura kontzentrazio-esparru batetik ateratzearen, komunistenenganako behinolako bere **maitazarrea** gogoan, nonbait. **Joxe Austin Arrieta**  
Bigarren ezkontzaren bultzagarri agitzen diren burubideak interesari dagozkio, doilor; ez du parterik **maitatzarreak**. **Juan Garzia**

## maite 1 izond maitasuna zaiona. (pertsonez)

Neskaitia **maite** honen heziketak arduratu behar gaitu soilik! **Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio**  
Pertsona **maite** baten heriotzak oroitzapenak nahasten ditu. **Anjel Lertxundi**  
Hezurretan barrena beldurra irristatzen zitzaidala sentitzen nuen, egiazko beldurra, beldur lazgarria, gorpu **maite** haren aurrean. **Josu Zabaleta**  
San Frantziskoren ikasle eta bizilagun **maiteenetakoa**. **Askoren artean**  
Literatur kritikan ez habil oso trebe, adiskide **maitea**. **Antton Olano**  
-Patricia **maitea**, Patricia politta, eraman nazazu ipurdi gainean bultzaka. **Koro Navarro**



Begira, Florent **maitea**, zuk aski sufritu duzu. **Karlos Zabala**  
Lagun **maiteok**, gauerdia da. **Joxan Elozegi**  
Kaixo iloba **maite** hori: [...]. **Txillardegi**  
Paul anaia **maitea** hil zitzaion. **Karlos Zabala**  
Nire alaba, pentsatzen du; nire alaba **maitea**. **Oskar Arana**  
Ene iloba **maitea**, ez dakit ez ote zaren arinki samar jokatzeko ari. **Antton Olano**  
Jakin behar duzu, anaia txit **maite** horrek, adeitasuna Jainkoaren bikaintasunetako bat dela. **Askoren artean**  
Oso bakarrik bizi da berori, Chasuble doktore **maitea**. **Antton Olano**  
Ene Jainko **maite kutuna**. **Mirentxu Larrañaga**  
Jainko **maitea**! **Lopez de Arana**  
Jainko **maitea**, ezin dut! -errepikatzen zuen. **Jose Morales**  
Anaia maite- **maiteok** -esan zien-, gogora dezagun geure bokazioa. **Askoren artean**  
- Schlomo sei analetan zaharrena zen, aitaren **maiteena** gainera. **Felipe Juaristi**

## 2 (bestelakoez)

-Segi aurrera, usapal **maiteak**! Aurrealdean zeukan, azkenean, hiri handi **maitea**, hainbesteko herrimenez oroitu, hainbesteko grinaz desiratua. **Karlos Zabala**  
Itsaso mediterraneoeetan uharte **maite** baten bila dabilen ontzi galdu batena. **Juan Garzia**  
Bere sekreturik **maiteenak**. **Jon Muñoz**  
Huraxe zuen jolasik **maiteena**. **Jon Muñoz**  
Guztiok izaten dugu pieza **maite-maite** bat bihotzean. **Anjel Lertxundi**

## 3 (izen gisa)

Maitemina **maitearekin** zerbait egitea da. **Pako Aristi**  
Bere bi **maiteei** azken musua igortzen. **Oskar Arana**  
Harik eta mundua **maitearen** begiez ikusi arte, **maitearen** ahotsa beti eta nonahi entzun arte, **maitearen** keinuak guztiaz nagusi daitezeko arte. **Markos Zapiain**  
Bestalde, irrika orok du hein batean ergeltzen: gogoaren zabala eta argia, jakin-mina, estutu eta moteldu egiten du, **maiteak** bereganatzen baitu arreta osoa. **Markos Zapiain**  
Maitasuna **maitearen** baieste goxoa izaki, **maitearenean** askatasuna behar da maite oroz lehen, jabetza eta jelosia ahantzi. **Markos Zapiain**  
Maitatu ahal izateko, **maiteari** alde txoraa antzeman behar zaio: gizakiok ezin dugu silogismoa maitatu. **Markos Zapiain**  
- Izan bihotz, maite- **maiteok**, eta poztu Jaunarengan. **Pako Aristi**  
Eta zorte txar horretaz zure libratzeko ene maite- **maiteena**, eginen dut nik behar den guzua. **Aurelia Arkotxa**

## 4 (izen gisa, izenondo eta izenlagunekin)

Adio bada, **maite polit** hori; adio, haur maitagarri hori. **Jon Muñoz**  
Neure **maite kuttun** bihotzekoari. **Karlos Linazasoro**  
Ezin nuen jadanik "nire **maite laztana**" deitu; xalo-xalo, "Anny maitea" hitzekin hasi nintzen. **Monika Etxebarria**  
Ene **maite laztan** ezti kuttun ttiki hori, ez dakit zer izan dezakezun Algernon izenaren aurka. **Antton Olano**  
Holly zen nire benetakoa **maitea**. **Koro Navarro**

## 5 (deikietan)

Zer moduz zaude, **maitea**? - **Maitea**, Jainkoarren! **Lopez de Arana**  
-Bai **maitea**, zoritxarrez horrela da... **Lopez de Arana**  
Deituko dizut telefonoz, **maitea**. -Ez egin kasurik, **maitea**. **Lopez de Arana**  
Mesedez, **maitea**, mesedez... **Mirentxu Larrañaga**  
-O, ene **maitea**! **Lopez de Arana**  
Kaixo, Harry, **maitea**. **Iñaki Mendiguren**  
Sodak whiskya hondatzen du, **maitea**! **Xabier Paya**  
Orain ulertzen al duzu, **maitea**, zer-nolako miragarri, zer-nolako enigma tentagarri bihurtu zinen niretzat, ni nintzen haurrarentzat! **Eduardo Matauko**

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; ik maitea)

Beraientzat [zakurrentzat] munduaren ardatza den nagusiak horrelako **maite agiriak** egitea, lau lorietan egoteko motiboa da. Urte horietan **maite** harremanak gero eta gehiago ziprizzintzen ziren sexu kontuekin. **Gotzon Garate**  
Antonio bihotzaren **maite indar** bizienez maite nuela ulertu eta estuago besarkatu nuen. **Aitor Arana**  
Azken hau biziki poliki ari da kantuz, kantu ainitz ikasten ditu gogoz, bai xaharrak bai berriak eta **maite lagunekin** kantatzea. **Herria**  
Zure **maite**-suak ez duela maitegai baten eta salgai baten artean bereizketarik egiten ikusi nuen. **Eduardo Matauko**

## 7 maite-grina (orobat maitegrina eta maita-grina)

Sekula ez nau erabat itsutu norbaitenganako **maite-grina** kontrolaezin batek. **Karlos Zabala**  
Hautzarero osoak, nire **maite-grina** osoak, metro koadro urriotan egina zuen habia. **Eduardo Matauko**  
Nire pisua, nire **maita-grina**; noranahi joan, hark naroa. **Imanol Unzurrunzaga**  
Sinsky Duñabeitiaren aspaldiko **maite-grina** izana zen Suzie zerbitzariari. **Edorta Jimenez**  
Dolu gisatsuz deitoratua zuen, aurreko urtean, bere andrearen heriotza ustekabekoa [...] baina dirua zuen benetakoa **maitegrina**. **Juan Garzia**

## 8 maite izansup\_1 du ad norbaiti edo zerbaiti maitasuna izan. ik maitatu. (norbait)

Egia da, Peterrek **maite** nau, ez maitemindu batek bezala, lagunak bezala baizik. **Josu Zabaleta**  
Ilsek ongi **maite nau**. **Josu Zabaleta**  
Inoiz inor maitatu ez dudana bezala **maite dut** Peter. **Josu Zabaleta**  
**Maite zaitut**, beti maitatu zaitut, eta gure logelatik kanporatu zintudanetik, zure eskasia deitoratu dut. **Elena Touyarou**  
-Ez nau sekula **maite izango**. **Oskar Arana**  
-**Maite zaitut**, laztana... **Patxi Zubizarreta**  
**"Maite zaitut, maite zaitut"**, puta zikina" esaten zuen behin eta berriz. **Koro Navarro**  
Nik amona **maite nuen**. **Jon Muñoz**  
Gazteak ziren, eta elkar **maite zuten**. **Elena Touyarou**  
**Maite dugun** erretzaille horri, hautsontziaren orde, erretzeari uzteko metodo bat oparitzea. **Joxerra Garzia**  
Drogazalea eta larru-jolea, gezurtia eta gaizkile txiki bat, **maite ninduten** guztien traidore bat. **Oskar Arana**  
-Norberaren etxea ez da arropak gordetzeko armairu bat [...] **maite dugun** gizakiaren presentzia baizik. Nola babestuko ditut **maite ditudanak**? **Imanol Zurutuza**  
Nire bizitzak ez du aparteko interesik, ez bada niretzat eta **maite nautenentzat**. **Anjel Lertxundi**  
**Maite zuen** Salomonek Jauna eta betetzen zituen bere aita Daviden arauak. **Elizen arteko biblia**  
Jainkoak **maite ditu** bere zerbitzariak. **Patxi Zubizarreta**  
Jainkoa **maite duenak** maita dezala bere senidea ere. **Elizen arteko biblia**

## 9 maite izansup\_2 (zerbait)

Artzainek bai **maite dituztela** ardi-zakurrak! **Gotzon Garate**  
Gauza ona da animaliak **maite izatea**. **Josu Zabaleta**  
**-Maite dituzu** loreak? **Menane Oxandabaratx**  
**Maite du** arranoak bere bakardadea, haizearen sostengu eta bulkada laguntzailea. **Filipe Bidart**  
Katuak **maite du** etxea, zakurrak etxeko jabea. **Gotzon Garate**  
Ganbararik gabeko etxeak **maite ditugu**. **Joxean Agirre**  
Bizitzaren alderdi guztiak **maite ditut**, gau-egunak, bozkario-nahigabeak, hasiera-akaberak. **Patxi Zubizarreta**  
Haren gogoak iparraldeko lurralde hotz hezeak **maite zituen**. **Felipe Juaristi**  
Egiazko andreak ez dituzte jakiten gauzen prezioak, erokeria politik **maite dituzte**. **Monika Etxebarria**  
**Maite nuen** ahots laino eta proletario hura. **Oskar Arana**  
**Maite nuen** Excelsior hoteleko ate birakarietan ageri ziren metalezko osagaien distira. **Oskar Arana**  
Euriaren musika **maite zuen**, tantaz tanta sabai gainenat desegitean. **Felipe Juaristi**  
Kirol hori **maite dugu** hemen, ez nau durduzak hartuko horretan. **Pello Salaburu**  
**Maite zuen** erizain lanbidea, biziki maite ere. **Juan Kruz Igerabide**  
Lana **maite dugula** diogunean, dirubidea **maite dugula** esan nahi ote dugun, hori da nire errezeloa. **Joxerra Garzia**  
Progresoa eta erakundeak **maite dituen** pertsona. **Bernardo Atxaga**  
Azerikeriaz jokatzea **maite zuen**, amarruak asmatzea atsegin zitzaion. **Karlos Zabala**  
Eliza eta Frantzia **maite genituen**, fedez. **Piarres Aintziart**  
Jaungoikoak ordena **maite du**; ordenaren atal bat gaitza bada, nolatan **maite dezake** Jaungoikoak gaitza? **Imanol Unzurrunzaga**  
Sorkari materialen artean, sua **zuen** bereziki **maite** haren edertasun eta baliagarritasunagatik. **Askoren artean**

## 10 maite izansup\_3 (adizlagunekin)

Nik biziki **maite dut** irri egitea eta irri eginaraztea. **Menane Oxandabaratx**  
Izugarri **maite zuen** autoan haren ondoan jesarri eta han geldirik egotea hitzik egin gabe, begira besterik gabe. **Bego Montorio**  
Mundu guzti izigarri **maite dute**, ez ordea beren herria. **Piarres Xarriton**  
Eman musu pare bat, gizona, ikaragarri **maite haut** eta! **Jose Morales**  
Baina, horra, itsu-itsu **maite izango** lirakeenak, ez dira inoiz ezagutzen. **Josu Zabaleta**  
Hartara ozen esan ahal izango dut hain irrikatsu **maite dudan** plazeraren atsegin guztiak gozatu ditudala zure jainko-besoetan. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Garai batean, kartsuki **maite zuen** bizitza. **Jose Morales**  
Elkar benetan eta gozoki **maite duten** pertsonen buruzkoak. **Mirentxu Larrañaga**  
Ez itsuki **maite dituztelako**, frakasatu ez dutela adierazten jarraitzeko baizik. **Josu Landa**  
Baziren hiru urte [...] Shevirev doktorea etsituki **maite zuela**, baina ez zen ausartzen bere maitasuna adieraztera. **Jose Morales**  
Ez nintzen koldarra eta, gainera, benetan **maite genuen** elkar. **Joxe Austin Arrieta**  
Anaia bihotzetik **maite zuen**, zinez. **Karlos Zabala**  
Bihotzez **maite dut** Profetaren familia. **Patxi Zubizarreta**  
Estimua diot eta bihotz-bihotzez **maite dut** oraindik. **Monika Etxebarria**  
Emaztea buru-bihotzez **maite zuen**. **Felipe Juaristi**  
Arras **maite zuen**. **Karlos Zabala**  
Mentxuk gero eta gehiago **maite zuen** mutikoa. **Josu Landa**  
Gehien **maite duanarengatik**, esaidak ezetz! **Inazio Mujika Iraola**  
Hartzazu Isaak, hain **maite duzun** zeure seme bakarra, eta zoaz Moria lurraldera. **Jose Antonio Mujika**  
Gizagaixoak uste zuen gutxi **maite nuela**, baina nik izugarri **maite nuen**, Jainkoak badaki zenbat **maite nuen**... **Jose Morales**

## 11 maite izan<sup>4</sup> (adizlagunekin: asko 135 agerraldi, 50 liburu eta 40 artikulutan; oso 108 agerraldi, 43 liburu eta 2 artikulutan)

Oso ikasle zintzoa zen Joseba, **asko maite zuen** bere maistra. **Bernardo Atxaga**  
**Asko maite** zenuen zuk nire aita Dabid zure zerbitzaria. **Jose Antonio Mujika**  
Aitak beti **asko maite izan** nau, kosta egiten zitzaion hura onartzea. **Luis Elberdin**  
Chavezek **asko maite** du Kuba, asko miresten du Fidel Castro. **Pako Aristi**  
**Asko maite nuen**, baina... **Eider Rodriguez**  
Baina **asko maite** genuen elkar. **Juan Garzia**  
Bekatu asko barkatzen zaizkio, **asko maite** izan duelako. **Patxi Altuna**  
Ama **oso maite** zuen. **Gotzon Garate**  
Eta **oso maite** nuen Urumea inguruko ibar geldi leuna ertzetik berrikustera abiatu nintzen. **Txillardeggi**  
Badakit literatoek eta mistikoei **oso maite** dutela kontrakoa deklaratzeko, baina ni, nere moduko guztiak bezalaxe, hemengo naiz. **Iñaki Segurola**  
**Oso maite hau**, bistan zagok hori. **Jon Muñoz**  
**Oso maite dugu** elkar. **Gotzon Garate**  
Goraintziak Jaunarengan **oso maite** dudana Anpliatori. **Elizen arteko biblia**

## 12 maite jolas

Minduta dago Dusseli egiten dizkion **maite-jolasei** hark behar adina jaramon egiten ez dielako. **Josu Zabaleta**  
Gero, hurrengo asteko egun batean, bere etxera gonbidatu ninduen afaltzera, eta halaxe hasi zen **maite-jolasa**. **Oskar Arana**  
Bere ama azalekoegia da, **maite-jolasak** gustatzen zaizkio, eta Peterrek zer pentsatzen duen ez dio askorik ardura. **Josu Zabaleta**  
**Maite-jolasetan**, musu batean, besarkada batean, txantxa gordin batean ezer txarrik ez ikustea. **Josu Zabaleta**  
Eta Liuba ofizialekin **maite-jolasetan** ari zen jadanik. **Jose Morales**

## 13 maite jolastxo adkor

Haien arteko baten bat **maite-jolastxoren** batean nahasirik ibiliz gero, guztiz ezkutuan gordetzen zuen kontua. **Jose Morales**

## 14 maite kontu

Laster esango didazu **maite-kontuak** izan dituzula gizonekin. **Oskar Arana**  
**Maite-kontu** bat daukate. xehetasun guztiekin kontatu zizkion bere **maite-kontuak**. **Josu Zabaleta**  
Ignazia, arreba, **maite-kontuetan** zebilela Karlosekin. **Koro Navarro**

## 15 maite-maite egin ferekak egin.

**Maite-maite egin** diot ilean, eta begi zurtuak jaso ditu. **Javi Cillero**  
Amak, besoetan hartu, eta musuka **maite-maite egin** dio, lehenbailehen isil dadin. **Xabier Montoia**  
Lurretik altxatu eta **maite-maite egin** ohi zion txakurkumeari. **Mirentxu Larrañaga**

"Hemen duk astoa," esan eta, Txemiñe eta Tolo aterata ziren eta [...] potx-potx eta **maite-maite egin** eta erraz aski menderatu zuten. **Pablo Sastre**

Hala, maiz eteten genuen lanaldia haiei **maite-maite egiteko**, inor begira ez genuela ziurtatu eta gero. **Mirentxu Larrañaga**

## 16 maite-maite izan du ad asko maite izan.

**Maite-maite bainuen** ama. **Joan Mari Irigoien**

**Maite-maite baitzuen** Sergio, eta Sergiok bera ere bai, itxuraz. **Joan Mari Irigoien**

Felipe Iruarrizagak agur-eskutatib bat idatzi zien **maite-maite zituen** emazteari eta bere seme-alabei. **Gotzon Garate**

Esaterako, osaba Pacifico-k berak ere indioilo bat hazten zuen, eta **maite-maite zuen**. **Juan Garzia**

Berak **maite-maite zuen** ilusentzi hego-haizetsu zoragarri haietako batean. **Joan Mari Irigoien**

## 17 maite min ik maitemin.

### 18 maitea izan du ad

Peter lagun **maitea nuela**. **Gotzon Garate**

Jakinekoa baitzen zein **maitea zuen** Luis XVlenak halako musika hura. **Felipe Juaristi**

**Maitea zuen** Amanciok kantu hura, auskalo zergatik, eta frantsesez bi hitz esateko gauza zen edonori irakasten zion. Amak oso **maitea izan** zuen Leone, baina ez zuen gustukoa hildakoez hitz egitea. **Inazio Mujika Iraola**

Urrea **maitea baitzuen** oso, eta lepokoak ere bai. **Felipe Juaristi**

Mutiko ondo hezi eta goibel hura beti oso **maitea izan** baitzuen. **Eskarne Mujika**

Maioral bizimodua hain **maitea izan** ez banu, ez nuen beharbada trenaren mundu berria hain gaizki hartuko. **Bernardo Atxaga**

Gaurko baserritar gazteek motoa bezain **maitea zuten** ordukoek bizikleta. **Xabier Etxabe**

### 19 maiteago izan du ad

Urteak aurrera egin ahala hazit joan zen Ishmir gurea [...] eta gero eta **maiteago zuten** etxeok eta herriok. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Isaak **maiteago zuen** Esau, gogoko baitzuen ehiza-jana; Rebekak, aldiz, Jakob **zuen maiteago**. **Elizen arteko biblia**

Izan zen garai bat nire lehen emaztea bitziza bera baino **maiteago nuela** pentsatzen nuena. **Koro Navarro**

Maita ezazue elkar bihotzez senide on bezala, elkar nork baino nork **maiteago izaten** saiatuz. **Elizen arteko biblia**

Gizakiak **maiteago izan** behar du bere burua, hurkoa baino. Zakurrak **maiteago zaitu**, zeure suhiak baino. **Jenaro Garate**

**Maiteago ditu** zaldiak pertsonak baino. **Bernardo Atxaga**

Beharbada ikastaro amaierarako **maiteago izango** dut. **Oskar Arana**

Bihotzaren filosofia espirituarena baino **maiteago zuen**. **Juan Martin Elexpuru**

**Maiteago duzu** gaizkia ongia baino, gezurra hizketa jatorra baino. **Elizen arteko biblia**

### 17 maiteagoa izan du ad

Martinek alaba asko maite du, **maiteagoa du**, ordea, urrea. Rembrandtek, hala ere, kolorea **maiteagoa zuen** argia baino. **Martin Anso**

Eta jakin ezazu zenbat eta tentatuagoa, orduan eta **maiteagoa zaitudala**. **Askoren artean**

Eta halaxe ura baino **maiteagoa zuen** emakumearen begiek euri ziria ikusi zuten etxeko leiho handiaren atzetik. **Felipe Juaristi**

### 18 maiteen izan

Amak, aldiz, Jexux **zuen maiteen**, nahiz eta Mariak etxean gehiago lagundu. **Xabier Etxabe**

Zu, maitia: zu **zaitut maiteen**. **Iban Zaldúa**

Han zeuzkan **maiteen zituen** pertsonak. **Jon Muñoz**

Ostende hartutakoan lortu nuen izena, soldadu batek **maiteen duena**. **Felipe Juaristi**

Ostende hartutakoan lortu nuen izena, soldadu batek **maiteen duena**. **Felipe Juaristi**

**Maiteen ditudan** festak dira Zarauzko Euskal Jaiak. **Xabier Etxabe**

Dena den, ez ziren laguntza lan horiek nik **maiteen nituenak**. **Alberto Ladron Arana**

Azken urteetan desagertua zitzaion guztia berriz ikusten hasi zen Euler: izaki guztiak, **maiteen zituenengandik** hasita. **Jon Muñoz**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**adiskide maite** (23); **aita maite** (13); **aitak maite** (9); **alaba maite** (10); **ama maite** (11); **anaia maite** (42); **anaia maite maitea** (8); **anaia maite maiteok** (13); **anitz maite** (9); **aski maite** (13); **asko maite** (138); **asko maite dut** (14); **asko maite izan** (10); **asko maite zuen** (14); **benetan maite** (42); **bere burua maite** (22); **bereziki maite** (14); **beti maite** (33); **beti maite izan** (19); **bihotz bihotzez maite** (15); **bihotzetik maite** (8); **bihotzez maite** (39); **bihotzez maite zuen** (8); **bizia maite** (13); **biziki maite** (163); **biziki maite dut** (18); **egiaz maite** (8); **elkar maite** (69); **elkar maite zuten** (8); **euskal herria maite** (9); **euskara maite** (19); **gehiago maite** (58); **gehiegi maite** (21); **gehien maite** (65); **gutxiago maite** (14); **hain maite** (108); **hain maite zuen** (21); **hainbeste maite** (66); **hainbeste maite zituen** (10); **hainbeste maite zuen** (13); **herria maite** (24); **horrenbeste maite** (11); **ibiltzea maite** (9); **ikaragarri maite** (21); **izigarri maite** (16); **izugarri maite** (69); **jainkoa maite** (11); **jainkoak maite** (15); **jaungoikoa maite** (9); **jendeak maite** (9); **kantua maite** (11); **lagun maite** (8)

**maite ditugun olerkariak** (15); **maite maite** (39); **maite maitea** (35); **maite maiteok** (30); **maite zaitut esan** (11); **maite zuten elkar** (11)

**musika maite** (23); **norbait maite** (12); **oso maite** (104); **oso maite nuen** (9); **oso maite zuen** (9); **pilota maite** (17); **seme maite** (11); **sobera maite** (18); **txit maite** (12); **zenbat maite** (48); **zenbat maite dudana** (8); **zerbait maite** (10); **zinez maite** (23)

**adiskide maitea** (58); **aitatxo maitea** (13); **alaba maitea** (9); **ama maitea** (12); **anaia maite maitea** (8); **anaia maitea** (12); **andre maitea** (10); **anne kitty maitea** (10); **bere maitea** (11); **ene maitea** (83); **gazte maitea** (10); **hain maitea** (17); **irakurle maitea** (18); **jainko maitea** (161); **jaun maitea** (8); **kitty maitea** (175); **lagun maitea** (29); **maite maitea** (35); **nire maitea** (30); **oso maitea** (47); **oso maitea zuen** (10); **patri maitea** (13); **seme maitea** (23); **sophie maitea** (8); **txit maitea** (10)

**maiteago izan** (15); **maiteago zuen** (14)

**adiskide maiteak** (10); **lagun maiteak** (10); **oso maiteak** (10)

**bere maitearen** (14); **seme maitearen** (8)

**anaia maite maiteok** (13); **ene maiteok** (25); **lagun maiteok** (17); **maite maiteok** (30); **senide maiteok** (9)

## maite izan ik maite 8; maite 9; maite 10; maite 11.

## maiteagotu, maiteago(tu), maiteagotzen du ad ipar maiteago izan.

Gaineratekoan herri hau zinez maite, eta are **maiteagotu** dute Lafitte ezagutu eta segituz, gure "Arbaso" miresgarriaren ganik izan dituzten argitasun eta gidapena dela medio. **Herria**

Eta bakearekin, gure herriaren **maiteagotzea** : saildunen irria gatik. **Herria**

## maitegai iz

Zure maite-suak ez duela **maitegai** baten eta salgai baten artean bereizketarik egiten ikusi nuen, zure gurariei lotzen zatzaizkiela zeure izatearen osotasun kaskarin eta xahutzailiaz. **Eduardo Matauko**

maitegrina ik maite 7.

maitekeria ik maitakeria.

**maiteki** (*11 agerraldi, 7 liburu eta 2 artikulua*) **1 adlag** maitasunez. ik **maitekiro**.

Elur frexko leunak estali zuen gorpua **maiteki**. Pello Zabala

Edozein haurrek bezain sarri eta **maiteki** egiten zuen irribarre, are bi haurrek batera bezain. Oskar Arana

Hain **maiteki** maite ninduenak. Joan Mari Irigoien

**2 maite-maiteki**

**Maite-maiteki** besarkatu zuen Luszindak, esanez: [...]. Patxi Ezkiaga

**maitekide** *iz* elkar maite dutenetako bakoitza.

Edozein leku, garai eta egoeratan maitasuna oso gauza sinplea izan daiteke; baina ez du irauten, **maitekideek** bere abaroaren anparoen egia bat bederen konpartitzen ez badute. Pako Aristi

**maitekiro** (*90 agerraldi, 41 liburu eta 3 artikulua*) **adlag** maitasunez. ik **maiteki**.

**Maitekiro** begiratu zion Ruche jaunak Habibiri, hantxe bere kontuetan murgildua. Jon Muñoz

Itxasok **maitekiro** inguratu du bere besoetan. Pako Aristi

**Maitekiro** besarkatu zuen Mentxuk. Josu Landa

Senarraren eskuak hartu zituen **maitekiro**. Anjel Lertxundi

Senarrak **maitekiro** pausatu zion besoa, eta "tira, tira!", xuxurlatu zion sailean. Mirentxu Larrañaga

Eskua askatu zion, baina albotik bereizi gabe, eta **maitekiro** esan zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Zakila **maitekiro** eta kontu handiz sartzen zidala ikusten nuen. Aitor Arana

Yolo taberna fregatzen ari da **maitekiro**, aulkiak mahai gainetara jasoz lekua egin ondoren. Pako Aristi

**hitz multzoen maitasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maitekiro** begiratu (5)

**maitekor** (*79 agerraldi, 49 liburu eta 8 artikulutan; orobat maitakor 29 agerraldi, 14 liburu eta 9 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian maitekor agertzen da*) **1 izond** maitasuna adierazten duena. (norbait)

Aita biziki **maitekor** bat izango baitzuen haurrak, eta nik senar lasai, adeitsu, bihozbera bat nire ondoan... Eduardo Matauko

Emazte **maitekor** batentzat ez du batere erraza izan behar bere senarraren bihozbera lehenengoa ez dela inoiz izango jakiteak. Josu Zabaleta

Batzuk harroak ziren, beldurgarriak, haserreari eusten ziotenak [...]; beste batzuk, aldiz, baketsuak ziren, **maitekorrak**, eta irribarre egiten zuten beren bilgarri garbiaren barrutik. Karlos Zabala

Horregatik idatzi nuen "nirekin **maitekorragoa** izatea nahi nuke" besterik gabe, "**maitekor**" hitzaren zentzu zehatza hartuko ote zuen duda egin nuen arren. Ramon Saizarbitoria

**2 (zerbait)**

Hain zen bortitza nire ezpainak zure esku **maitekorrean** paratzeko gogoa. Eduardo Matauko

Musu bat eman zidan, musu leun, **maitekor** bat, masailean, ezpainaren ertzetik oso hurbil. Jon Muñoz

Ramirok kolpe leun eta **maitekor** bat eman zidan ukabil itxiaz. Jon Muñoz

Maitearen begirada **maitekorra** gehiago ez ikusteko arrisku egiazkoa. Pako Aristi

Gustuko zuen aitak keinu **maitekor** hori. Jokin Muñoz

Zaila dirudien arren, zergatik ez hartu broma **maitekor** bat bezala. Ramon Saizarbitoria

Urtero irabazten genuen dominatxoa, eta atxikimendu **maitekorra** genion gure kirol-garaipen xume eta herrikoi hari. Juan Luis Zabala

**3 maitasuna sentitzen duena.**

Eta hori gertatu zen **maitekorregia** zelako eta besteen mirespena behar zuelako. Julen Gabiria

Sexua ona eta osasungarria da; **maitekorrago**, atseginago eta zoriontsuago egiten gaitu. Luis Elberdin

**4 (adizlagun gisa)**

Jonek eskutik heldu dio orain, **maitekor**. Jokin Muñoz

Zuk ere, zutik jarrita, tinko begiratu baizenidan, harriritu eta oso **maitekor**. Eduardo Matauko

**maitekortasun** *iz* maitekorra denaren nolakotasuna.

Sha Jahaneke, mogol guztien enperadoreak, bere emazte maitearenentzat, Arjumand Banu Begum ezin ederragoarentzat, bere sotiltasun, **maitekortasun** eta txiroenganako errukiarengatik Muntaz Mahal [...] deituarentzat egindako hilobi ederra da Taj Mahal eraikuntza. J.M. Olaiola "Txiliku"

**maitemin** (*orobat maite(-)min g.er.*) **1 iz** sexu senan oinarritzen den maitasunak joa dagoenaren sentimen bizia.

**Maitemina** denborarekin osatzen den gaitza dela diote batzuek, pasioa amodio bihurtzen dela, eta amodioa txera. Luis Elberdin

Behin denbora hori igarota, **maitemina** amaitu egiten da, itzali egiten da. Luis Elberdin

Maitasuna ezagutzaren ondorioa da; **maitemina**, aldiz, ezagutzara bultzatzen zaituen indar bat. Pako Aristi

Potzolak noiznahi ematen zidan bere azken **maitemin** ezinezkoaren berri. Aingeru Epaltza

Zuk sentitu zenuen hura **maitemin** hutsa izan zen, kolore mistikoz jantzia nahi baduzu. Juan Kruz Igerabide

Baina **maitemina** itsua da. Joan Mari Irigoien

Eta jakirik gustagarrienak eta ardorik finenak dastatu bitartean, **maiteminak** jo zuen gonbidatua. Patxi Zubizarreta

Harik eta egun batean molde oneko aitoren seme batek, John Rolfe, **maiteminak** joa, emaztetzat hartu zuen arte. Juan Garzia

Izan ere, harainoxe, zirrikituetatik edo airetik sartzen baitzaie **maite-minaren** gaitza, ezinegon madarikatuaren kezketan. Patxi Ezkiaga

**Maiteminik** zirragarrienak jotako bihotzak. [Pako Aristi](#)  
Hura ere **maiteminak** eritua zela eta bihotza urratua zuela jakin zuelarik, [...]. [Patxi Zubizarreta](#)  
Nire samina jakinarazi nahi dizuet; **maiteminak** narama mundu honetatik. [Juan Kruz Igerabide](#)  
Leku paregabea, dudarik ez, baina oso-oso garestia, **maiteminetan** ez dabilenarentzat... [Joxe Austin Arrieta](#)  
Sinesten al duzu bat-bateko **maiteminean**? [Migel Angel Mintegi](#)  
Neskak maitasunez, **maiteminez** begiratzen zion Ahmeti. [Fernando Rey](#)  
Azkenean, **maiteminaren maiteminez**, gaixotu egin zen. [Patxi Zubizarreta](#)  
Hasperenka eta **maite-minezko** aienetan ari zela aurkitu zuen. [Patxi Ezkiaga](#)

## 2 pl

Berak ere bihurritu bat izan duela orkatilan, **maite minak** dituela gainera. [Josu Zabaleta](#)

## 3 irud/hed

Jainko ahalguztiduna, zureganako **maiteminak** erretzen nau. [Elizen arteko biblia](#)  
Jaun ahalguztidunaren **maitemin** sutuak egingo du hori. [Elizen arteko biblia](#)  
Elias, legearentzat zuen **maitemin** sutuarengatik, zerura jaso zuten betiko. [Elizen arteko biblia](#)  
Ulertu-behar eta jakin-behar horrek, fede-gose horrek hitzen **maitemin** gordina zapuzten du. [Iñaki Segurola](#)

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sortako loreak jokalariek hartu dituzte eta elkarri botako dizkiote txantxa artean, **maitemin** keinuez eta. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)  
Zelai haietan egon ginen Pablo, Juan eta hirurok, hizketan, filosofiako gai batetik haurtzaroko pasadizoetara edo **maitemin** kontuetara pasatuz. [Bernardo Atxaga](#)  
Eta nahi gabe begiak portadako izenburu honetan iltzatu zaizkit: "**maitemin** gene ahitua". [Patxi Zubizarreta](#)  
· Borges **maitemin** -sentiberarentzat, munduaren zentzugabekeria eta ezbeste guztiak baino nahigabe handiagoa zen, agi danean, amodioaren porrota. [Juan Garzia](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**maitemin** sutuak (3)

**maiteminak** erretzen nau (3); **maiteminak** jo zuen (3); **maiteminak** joa (5); **maiteminak** jota (3); **zure tenpluaren maiteminak** (3)

## maiteminarazi, maiteminaraz, maiteminarazten du *ad* maitemintzera behartu.

Nicole Coppequesneri atregabeko harrigarri zitzaion hain neska zuhurrak erromatar prefektu bat halako punturaino xarmatu izana, non, sukalde batean, haiengana **maiteminarazia**, kartsuki besarkatzen baitzituen tupinak eta pertzak. [Juan Garzia](#)

## maitemindu, maitemin(du), maitemintzen 1 da *ad* maiteminak joa gertatu.

Denok **maitemindu** gara noizbait. [Luis Elberdin](#)  
Zergatik **maitemintzen** gara? [Pello Salaburu](#)  
Aldi baten buruan, Sorek ibarrean bizi zen emakume batez **maitemindu** zen Sansom. [Elizen arteko biblia](#)  
Monikaz **maitemindu** berritan bere leihora begira egon eta euripean ibili nintzen egunak ekartzen nituen gogora. [Joxean Agirre](#)  
Emakume maratz prestu batez **maitemindu** zen. [Juan Garzia](#)  
Ikastaroko neska guztiak **maitemindu** ziren noski hartaz. [Juan Garzia](#)  
Jakob Rakelez **maitemindu** zen, eta esan zion Labani: [...]. [Elizen arteko biblia](#)  
New Yorken bizi den gizon batekin **maitemindu** zen. [Oskar Arana](#)  
Gero, ostera, Kartarik Jagdish Noonina ezagutu zuen eta harekin **maitemindu**. [Gotzon Garate](#)  
Gero beste norbaitekin **maitemindu** zen neska, eta banandu egin ziren. [Oskar Arana](#)  
Eta ni haren ipurdiaz **maitemindua** gelditu nintzen betiko. [Karlos Zabala](#)  
Zurekin **maitemintzen** hasia naiz" esan nahi dio... baina ez du egingo. [Sonia Gonzalez](#)  
**Maitemindua** nago nire neba Rodolfoekin. [Karlos Zabala](#)  
**Maitemindua** nago nire neba Rodolfoekin. [Karlos Zabala](#)

## 2 (adizlagunekin)

Judu familia aberats bateko alabarekin oso **maitemindu** ondoren. [Felipe Juaristi](#)  
Auzuneko mutil bat seko **maitemindu** zitzaion. [Patxi Zubizarreta](#)  
Banekien, bada, nitaz hain sutuki eta itsuki **maitemindu** zèn emakumea nor zen. [Joan Mari Irigoien](#)  
Zoroki **maitemindu** ziren biak. [Juan Kruz Igerabide](#)  
Hitz batez erranda, arruntik **maitemindua** nintzen. [Aingeru Epaltza](#)

## 3 irud/hed

Zakurra guztiz **maitemindu** zen nirekin, eta bat-batean ia. [Koro Navarro](#)  
Billy erregearen zaldiaz **maitemindu** zelako. [Irene Aldasoro](#)  
Euskal Herria inoiz zapaldu gabe gure kulturaz eta euskaraz **maitemindu** zen alemaniar bidaiari baten bi nobela itzuli nituen. [Joxean Agirre](#)  
Eta Holandaz **maitemindu** zen, han haize-errota mordo baitago. [Fernando Rey](#)

## 4 (du aditz gisa)

**Maitemindu** zaituen andreak ezezkoa ematen dizunean bihotza urratu egiten da. [Bernardo Atxaga](#)  
Berriz **maitemindu** zaitut. [Aritz Gorrotxategi](#)  
Nik nahi nuen neska **maitemindu** nezakeela, neuk hala nahi izanez gero. [Pako Aristi](#)  
Kontrabaxuarekin **maitemindu** zuela aitortzen du Nick Valdibiak. [Pako Aristi](#)  
**Maitemindu** duen mutil gaztea deskribatzen du, ezkon-hitza emateko jaia ere bai. [Oskar Arana](#)  
· Ni kontaerak **maitemindu** ninduen, eta, oraindik ere, gertaerak kontatzen dituen jendeak harrapatu egiten nau. [Ana Urkiza](#)

## 5 (era burutua izenondo gisa)

Heroi **maitemindu** baten abenturak. [Jose Morales](#)  
Usapal **maitemindu** pareta zen hura. [Karlos Zabala](#)  
Dena mutil **maitemindu** batek neska bat eraman zuelako. Ez genuen gaizkile itxurarik inondik ere, izatekotan ere bikote **maitemindu** berriaren trazak izango genituen. [Fernando Rey](#)  
Gaixo ohi askok erizainenganako miresmen ia **maitemindu** baten oroitzapena azpimarratzen dute, erizainaren lana halako amatasun babesgarri baten argitan ederturik. [Anjel Lertxundi](#)

## 6 (era burutua izen gisa)

Egia da, Peterrek maite nau, ez **maitemindu** batek bezala, lagunak bezala baizik. Josu Zabaleta

Baina zer da **maitemindu** etsitu bat? Fernando Rey

**Maitemindu** goiztiar batzuk aukietan sekretuak trukutzen. Joseba Sarrionandia

Mendekua hartzen duen **maitemindu** zapuztuarena. Jose Antonio Mujika

**Maitemindu** babalore aurpegi horrekin. Antton Olano

Mariet treneko **maitemindu** -bikote erromantikoeneko osagarri izan zen. Edorta Jimenez

**Maitemindu** -arketipoaren portaera-kanonari estu lotzen nintzaiola. Joan Mari Irigoien

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**batekin maitemindu** (11); **batekin maitemindu zen** (5); **batez maitemindu** (24); **batez maitemindu zen** (9); **berarekin maitemindu** (6); **berarekin maitemindu zen** (3); **erabat maitemindu** (4); **gehiago maitemindu** (3); **harekin maitemindu** (3); **hartaz maitemindu** (6); **maitemindu berri** (3); **maitemindu bikoteak** (3); **mutil batekin maitemindu** (3); **neska batez maitemindu** (4); **nortaz maitemindu** (3); **seko maitemindu** (4); **zutaz maitemindu** (7); **zutaz maitemindu nintzen** (3)

**hartaz maitemindua** (3); **maitemindua egon** (4); **maitemindua gelditu** (3); **maitemindua nago** (8); **maitemindua zegoen** (6); **maitemindua zen** (5)

**batekin maiteminduko** (5)

**elkarrekin maitemindurik** (3); **erabat maitemindurik** (3); **harekin maitemindurik** (3); **maitemindurik egon** (8); **maitemindurik zegoen** (7); **nirekin maitemindurik** (4); **nitaz maitemindurik** (4)

**batekin maiteminduta** (5); **batez maiteminduta** (3); **beste batekin maiteminduta** (3); **guztiz maiteminduta** (5); **harekin maiteminduta** (8); **maiteminduta dago** (12); **maiteminduta egon** (15); **maiteminduta egon arren** (5); **maiteminduta egotea** (5); **maiteminduta nago** (14); **maiteminduta zegoen** (16); **nitaz maiteminduta** (4); **oso maiteminduta** (7); **zeharo maiteminduta** (9); **zurekin maiteminduta** (4)

## maiteminduxe *adlag*

Ni, berriz, usaiako bitxikerian: alde batetik bai, **maiteminduxe** edo, bestetik hasia jada loturarik gabekoa amesten. Jose Angel Irigaray

## maitemintze *iz* maiteminak joa gertatzea.

**Maitemintzea** bizitzako esperientzia zoragarriena izango da, seguruenik. Luis Elberdin

Erreklamazioak, negozioren errentagarritasuna murriz dezaket **maitemintzeak**, mozkortze eta diziplinaren arau-urraketak, Protagonisten **maitemintzeek** eta maitasunek. Edorta Agirre

**Maitemintzearen** mekanismoa. Luis Elberdin

**Maitemintze** fenomenoari buruzko liburu bat egin nahi nuen. Ana Urkiza

maiteno ik **maiteno**.

maiteno ik **maiteno**.

## maiterre *iz* jeloskortasuna.

**Maiterreak** harrokeria eta handinahiarekin diraki, baina Abasek ez zuen ez bata ez bestea. Patxi Zubizarreta

Orain, esango nuke **maiterreak** jota nengoela. Juan Kruz Igerabide

**Maiterrez** lehertzen hasia zen. Patxi Zubizarreta

## maitetasun *iz* maitasuna.

Senar-emazteen arteko **maitetasun** eta intimitatezko harremana. Juan Garzia

**Maitetasun** hauskor eta galbera bat sentitzen nuen bakerik gabeko haitz harenganako: lotura bikoitzeko itun bat sinatua nintzen harekin; aurrena, Sandro eta bion ibileretan, eta gero han, kimikari gisa saiatuz altxorra ateratzen. Juan Garzia

## maitetsu *izond* maitasunez betea.

Leuntasun eta gozotasunez jasotzen zituen jainko-argitzapenak eta Jainkoaren bisitaldi **maitetsuak**. Askoren artean

Nahiago izan duzu,adore osoz eta bihotz **maitetsuz**, pobretasun txit santua eta gorputzeko gabezia hautatu. Askoren artean

## maitetsuki *adlag* maitasun osoz.

Gauerdi aldera, anaia batzuk lotan eta beste batzuk isilik **maitetsuki** otoitzean zeudela, distira izugarria zuen suzko gurdi bat sartu zen atetik Handik laster eliza batean sartu zen eta orotan barreiaturiko intsentsu usainak haurtzarora eroan zuen: negar gutizia piztu zitzaion; **maitetsuki** nehoiz ez artaturik, asun eta sasi arteko lore salbaia zela zirudion. Askoren artean

## maitetto *izond* maitetxea.

Bilo horailekilako ene **maitetto** polita. Itxaro Borda

## maitetxe *(orobat maite(-)etxe)* *iz* putetxea.

Meskitak Baas-en Meskitak ziren, eta berdin kaleak, auzoak, muinoak; dena zen Baas-ena, **maitetxeak** ere bai. Juan Kruz Igerabide

Portuko tabernak eta **maite-etxeren** bat edo beste, Bihotzak **maitetxe** batek baino gela gehiago ditu. Javi Cillero

## maitetxo *(orobat maitetxu g.er.) iz* adkor maitea.

-Mutil guztiek izaten dute **maitetxo** bat -esan zuen. Irene Aldasoro

Amaren **maitetxoa**! Koro Navarro

Hiru **maitexo** zituela aipatu zuen Mahonyk arinkeriaz. [Irene Aldasoro](#)

"**Maitetxo**", esaten zuen, "garbitu aurpegitxo eta goazen lotara". [Bernardo Atxaga](#)

**Maitetxo**, kafetxo prest daukazu. [Bernardo Atxaga](#)

Itxaron, **maitetxo**, utzidazu harribitxi horiek biltzen; klitoria igurtziko dizut horiekin, arinago isur zaitezten. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

---

maitetxu ik **maitetxo**.

---

**maitina** *iz pl* orduen liturgian, lehen ordu kanonikoa, egunsentia baino lehen esaten dena. **ikmatuti**.

**Maitinak** esan ondoren ipintzen zituen lekariak beratzen. [Askoren artean](#)

Nola San Frantziskok eta Leon anaiak brebriariorik gabe errezatu zituzten **maitinak**. [Askoren artean](#)

Gau batez, **maitinen** ondoren. [Askoren artean](#)

**Maitinetako** ofizio guztian eta gaueko mezan. [Askoren artean](#)

**Maitinetatik** Primara arte. [Askoren artean](#)

San Andres apostoluaren ofizioa, **Maitinetako** bosgarren antifona. [Askoren artean](#)

Bai **maitinetan** eta bai gainerako orduetan. [Askoren artean](#)

Erreza bitzate liturgi orduak eta jaiki bitez **maitinetarako**. [Askoren artean](#)

Gau osoan, **maitinetako** ordura arte. [Askoren artean](#)

Horretan, **maitinetako** kanpaiak jo zuen. [Askoren artean](#)

---

maittagarri ik **maitagarri**.

---

**maitte 1** *iz adkor (deikietan)* maitea.

Barkatuta hago, **maittia**! [Unai Iturriaga](#)

Entera zaitez, **maittie**, gauzak aldatu egin dira, orain zure lako koldarra ez da nahikoa niretzat! [Sonia Gonzalez](#)

-Xu bai nini axkarra! **maittea**, erran aio berriz Joanesi, aio! [Aingeru Epaltza](#)

-**Maittea**, **maittea** ... [Patxi Zubizarreta](#)

**2 maitte-maitte egin**

-Arrazoi dik Luis Angelek - **maitte-maitte** egiten dio Xerealek kokotean-. [Iñaki Iñurrieta](#)

-Eta sorbaldan **maittea-maittea** egin dit. [Patxi Zubizarreta](#)

---

**maiuskula 1** *izond* letrez mintzatuz, larria.

Letra minuskulak ez, **maiuskulak** bakarrik. [Unai Elorriaga](#)

M **maiuskula** oso m airosoa zelako eta t minuskula oso t irrazionala zelako. [Unai Elorriaga](#)

Hasierako ezustekoaren ondotik mozolo-begiak jartzen nizkiola, baietz erantzun nion, eta neskak beste paper batean izenpetu zuen, letra **maiuskulekin**: MONTSERRAT.

[Joan Mari Irigoien](#)

**2 iz letra larria.**

Lerroen antolaketak eta **maiuskula** ugariak nahastu egin naute. [Itziar Otegi](#)

Beheraxago, eskuinetarik, sartze haundi gaina biribildu batean, hiru hizki ez irakur errexak, **maiuskula** loretueta, elgarri lotuak eta nahasiak, J B R, eta data bat, 1827:

Jean-Baptiste Ricqbour-en monograma. [Michel Oronoz](#)

Legea, gainera, ez letra etzanaz, **maiuskula** handietan baizik. [Iñaki Heras](#)

Egilearen abizenaren atzetik, komaren ondotik, egile horren izena dator (hori osorik edo soilik lehenengo hizkia **maiuskulaz** idatzita). [Askoren artean](#)

**Maiuskulen** erabilera. [Iñaki Arranz](#)

-Zorionez, horretarako dago literatura: **maiuskulaz** idazten den historiak eta hedabideek ezkatatu dituzten gertakariak berreskuratzeko. [Berria - Kultura](#)

---

**maiuskuladun** *izond* letra larria duena, letra larriak dituena.

Interesgarria da datua, Historia **maiuskuladuna** bezala literaturaren historia ere nola egiten eta kontaktzen den gogoeta egiteko. [Berria - Kultura](#)

---

**maiuskulo** (*orobat maiuskulu*) *izond* sekulakoa, gaitzekoa.

Ez dago jenderik, ez lurrik, ezta hizkuntzarik ere, ez dago berez bizirik; dena da Herri **maiuskulo** bat, lurraldea, aparatua, kultura, plangintza, zentrua eta populazio txit autozentratu bat. [Iñaki Segurola](#)

Badirudi Arrazoi **Maiuskuluaren** ustezko jabe bakarrek osteguna dutela lan-egun gorri, eta atzo goizean, berriro ere, madarikatu egin nuen irrati-esnagailua erosi izana. [Joxerra Garzia](#)

---

maixeatu ik **maiseatu**.

---

---

maixtra ik **maistra**.

---

---

maixturu ik **maisturu**.

---

---

maixu ik **maisu**.

# maixugo ik maisugo.

## maixuki ik maisuki.

### maiz 1 *adlag* asko aldiz, askotan. ik *ardura*<sup>2</sup>; *sarri*. (dagokion aditzaren ezker-ezkerrean)

Erdi Aroko filosofoek **maiz** eztabaidatzen zuten ea aipaturiko eragina kognitibo hutsa zen ala hortik gorakoa. [Xabier Kintana](#)

Trena badoa aitzina, **maiz** geldituz. [Marzel Etxehandi](#)

**Maiz** hitz egiten genuen gero bakoitzak zeuzkan asmoei buruz, grina bera baikeneukan biok: idaztea. [Pako Aristi](#)

Euskal baladetan eta orohar erromantze zaharretan **maiz** ageri da zubia, bi maitaleen arteko menturaren froga moduan. [Patziku Perurena](#)

Mutikoa beti zurbil egoten zen, eta **maiz** aritzen zen eztulka. [Xabier Olarra](#)

Berrikitik "mikro-ondes" bat erosia zuen, nik **maiz** baliatzen nuena. [Daniel Landart](#)

Sentipen honek **maiz** hartzen nau eta **maiz** pizten du nire egonezina. [Pako Aristi](#)

Horra **maiz** gogora etorri eta eskatu gabeko argigarria. [Aingeru Epaltza](#)

### 2 (bestelakoetan)

Mollyren mintzagaia, **maiz**, beti ez esatearren, Charlie izan ohi zen. [Mirentxu Larrañaga](#)

Gazteena ikustera jiten zitzaidan **maiz**. [Marzel Etxehandi](#)

Arratsaldeko bostak aldera bere 2 CVan irteten zen auzotik, eta ordu txikietan itzultzen zen **maiz**, Donostiatik, edo Iruñetik, edo Bilbotik... [Juan Kruz Igerabide](#)

Asaldagarria izaten da **maiz** Poeren kontakizunen irakurketa. [Koro Navarro](#)

Jende behartsua izan ohi zen, ijito kastakoa **maiz**, baso lanetan eta ikazkin aritzen zena. [Patziku Perurena](#)

Katuak, berriz, **maiz** bakarrik bizi dira. [Gotzon Garate](#)

Ni izaten nintzen, **maiz**, festaburuetan Jerusalem-era joaten zen neftalitar bakarra. [Jose Antonio Mujika](#)

Marrok, **maiz**, orduak eta orduak egiten zituen gauetz etxeko leiho batean. [Juan Kruz Igerabide](#)

**Maiz**, idazteko gogoa sortzen zaidanean, ez dut irakurlearengan pentsatzen. [Ana Urkiza](#)

**Maiz** zakur ebatsiak dira. [Gotzon Garate](#)

Erlojuak ere irudikatzen zuen **maiz** herioa. [Imanol Zurutuza](#)

Antzeko gogoetak darabiltzate **maiz** biek. [Imanol Zurutuza](#)

Ni ere joaten nintzaion **maiz** laguntzera. [Daniel Landart](#)

**Maiz** dirurik ez. [Gotzon Garate](#)

Egia **maiz** mingarri, agerira azaltzen denean batez ere. [Gotzon Garate](#)

Gau asko lorik egin gabe; gose eta egarri; **maiz** ezer jan gabe, hotzak eta jantzirik gabe. [Elizen arteko biblia](#)

Bidaztia nekaraziz eta **maiz** arrisku larrian utziz. [Karlos Zabala](#)

Ohituren usteltzea mesedegarria izaten baita gobernuztat **maiz**. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

### 3 (beste adizlagun batekin)

Euskaltzale gaixoei **maiz** xamar zulatzen zaie beren kontzientzia sutsuaren kondoia. [Iñaki Segurola](#)

**Maiz** aski zuzenean aipatzen ez diren gauzen klasekoa baita dirua. [Iñaki Segurola](#)

Eta holako galderak egin izan direnean **maiz** aski esan izan da ezetz, hori ezin dela onartu. [Pello Salaburu](#)

Euliaren kasuan bezala, gene horietariko batean mutazio bat gertatzeak berekin dakar bestela eratzea sorbidean den organismoa eta **maiz** asko, goiztar hiltzea. [Juan Garzia](#)

Pertsonen artean gertutasun eroso bat sortzeko lagungarri onak izaten dira **maiz** askotan gustuko otorduak. [Juan Luis Zabala](#)

Arrazoiz esan ohi da, **maiz**-sarri, giza izaera uanean-uean agortu eta sortzen dela, belaunaldi batetik besterako loturarik gabe. Neska oso **maiz** gelditzen zen, eta ostiko txikiak egiten zituen espaloian. [Andres Urrutia](#)

Garai hartan, operazio handia zen dialisia, eta ezin zen oso **maiz** egin. [Irene Aldasoro](#)

Esan didatenez, oso **maiz** izan din azken aldion bakarkako batzarraldirik hirekin. [Juan Garzia](#)

**Maiz**, oso **maiz**, euskaraz zuzentzen natzaiean hemengo biztanleei, espainolez zaizkit oldartzen. [Hasier Etxeberria](#)

### 4 maizago

**Maizago** joango nintzaizuke bisitatzera. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Eguzkitan egoten denak ere, **maizago** egiten omen du doministiku. [Patziku Perurena](#)

**Maizago**, ordea, zutik ikusten zuen, eskuak haztegien hondoan sartuta, arrainak ontzi batetik bestera aldatzen. [Karlos Zabala](#)

W.ra etorri aurretik, urteetan, lehen eta azken aldi hartatik, pentsatu izan zuen elkarrekin oheratuko zinetela berriro, gehiagotan, **maizago**. [Lourdes Oñederra](#)

Baina astero-astero etortzen zen, **maizago** ere bai batzuetan. [Koro Navarro](#)

Dena dela, huskeriak diruditenek guk uste baino **maizago** izaten dute eragina buruan omen daukagun gai gris horretan. [Migel Angel Mintegi](#)

Askotan hilgarria da, baina sendagilearentzat **maizago** gaixoarentzat baino. [Xabier Olarra](#)

Politikan, tratuak eta itunak etsaiekin egiten direlako **maizago**, adiskideekin baino. [Pello Salaburu](#)

Bertsotan inoiz baino **maizago** erabiltzen dute gazteek ahozko hizkera. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Gero eta **maizago** euskara da ikasleek proba hauek egiteko aukeratzen duten hizkuntza. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Zaharrago, mainguago eta ozpinduago sentitzen da, eta urrutik minak gero eta **maizago** jotzen du aspaldi honetan. [Aingeru Epaltza](#)

### 5 maizen maizena.

Eduardo izan zen **maizen** etortzen hasi zena. [Iban Zaldúa](#)

**Maizen** darabilten hizkera erantzukia da. [Markos Zapiain](#)

Asperientziak baitakit hasierako orrialdeetan aurkitzen direla **maizen** xehetasun harrigarrienak. [Anjel Lertxundi](#)

### 6 maizena

Hego Amerikan, alabaina, **maizena** anti-USA eta hispanozalea izaten da. [Joxe Azurmendi](#)

Bisitaturen zaitut ahalik **maizena**. [J.M. Olaiola "Txiliku"](#)

### 7 maizenik gehienetan.

**Maizenik** nahasi egiten badira ere, bat edo beste gailentzen da zenbaitetan. [Imanol Zurutuza](#)

**Maizenik** aipatu herrialdeak: Txetxenia, Israel, Libano, Aljeria. [Daniel Landart](#)

Emazteari zor zaion errespetua eta edariari buruzko mesfidantza zituen **maizenik** aipatzen. [Piarres Aintziart](#)

Neurotikoa ifernuan bizi da **maizenik**. [Piarres Aintziart](#)

Begitarte zuria zuen **maizenik**, eta oso gutxitan gorritzen zitaion kolorea. [Karlos Zabala](#)



Horretan baita **maizenik** elkarrizketa. Piarrés Xarriton  
Horregatik deitoratu egiten dute giza izaera, iseka egiten diote, mesprezatzeko dute, edo, **maizenik**, arbuatzen. Piarrés Xarriton  
Ardoa edaten, **maizenik**. Pablo Sastre  
Gaitza gertatzea, hala ere, beste gorabehera batzuen baitan dago; ingurumena da, **maizenik**, eragile. Juan Garzia

## 8 *maizko izlag* maiz gertatzen dena.

Halaxe agertu zitzaigun duela gutxi zoritxarrez **maizko** izaten ditugun zorieko bilera horietako batera: zorionez gainezka. Arrangura **maizkoa**, bereziki lagunekin afariren bat egin ondotik. Joxerra Garzia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**aski maiz** (4); **esaten zuen maiz** (4); **gertatzen da maiz** (4); **hain maiz** (28); **izan da maiz** (6); **izaten da maiz** (8); **izaten dira maiz** (6)  
**maiz adierazi** (6); **maiz ageri** (21); **maiz ageri da** (11); **maiz agertu** (4); **maiz agertzen** (25); **maiz agertzen da** (6); **maiz agertzen dira** (4); **maiz aipatu** (11); **maiz aipatua** (6); **maiz aipatzen** (24); **maiz aldatzen** (12); **maiz aritzen** (8); **maiz aski** (13); **maiz askotan** (7); **maiz ateratzen** (5); **maiz aurkitzen** (6); **maiz azaltzen** (9); **maiz begiratzen** (4); **maiz egin** (15); **maiz egiten** (45); **maiz egiten zuen** (9); **maiz eman** (5); **maiz ematen** (4); **maiz entzun** (19); **maiz entzuten** (13); **maiz erabili** (10); **maiz erabilia** (6); **maiz erabiltzen** (25); **maiz erabiltzen da** (5); **maiz erabiltzen dute** (4); **maiz erabiltzen zuen** (5); **maiz eragiten** (4); **maiz eraso** (4); **maiz errepikatu** (5); **maiz errepikatzen** (4); **maiz esan** (9); **maiz esaten** (19); **maiz esaten zuen** (5); **maiz eskatu** (4); **maiz etorri** (4); **maiz etortzen** (23); **maiz etortzen zen** (6); **maiz galdetu** (7); **maiz galdetzen** (9); **maiz gelditzen** (4); **maiz gertatu** (16); **maiz gertatu izan** (4); **maiz gertatu ohi** (4); **maiz gertatuko** (4); **maiz gertatzen** (89); **maiz gertatzen da** (18); **maiz gertatzen den** (14); **maiz gertatzen denez** (5); **maiz gertatzen dira** (10); **maiz gogoan** (4); **maiz gogoratzen** (4); **maiz hartu** (5); **maiz hartzen** (6); **maiz hitz egiten** (6); **maiz ibili** (4); **maiz ibiltzen** (7); **maiz ikusi** (17); **maiz ikusten** (35); **maiz ikusten genuen** (4); **maiz irakurtzen** (6); **maiz itzuli** (4); **maiz izan** (15); **maiz izaten** (36); **maiz izaten zuen** (4); **maiz jasotzen** (4); **maiz joan** (6); **maiz joaten** (36); **maiz joaten ginen** (5); **maiz joaten zen** (8); **maiz jotzen** (6); **maiz kontatu** (4); **maiz kritikatu** (4); **maiz mintzatzeko** (8); **maiz oroitzen** (5); **maiz oso** (4); **maiz pentsatu** (8); **maiz samar** (11); **maiz sarri** (4); **maiz sentitu** (4)  
**ohi da maiz** (5); **oso maiz** (39)  
**gero eta maizago** (38); **geroz eta maizago** (4); **maizago agertzen** (5); **maizago egiten** (8); **maizago gertatzen** (10); **maizago ikusten** (4); **nahi baino maizago** (6)

## maizkor *izond*

Nekez izango da, behintzat, bando bakarraren monopolioa dogmatismoa; eta Estatuaren egungo moldeari uko dagoituen artean ez derrigor amen dasaiotenen baino **maizkorragoa**. Joxe Azurmendi

## maiztasun 1 *iz* zerbaiten gertaldien edo agerraldien kopurua. ik *frekuentzia*.

Erregistratutako pertsona guztiek **maiztasun** jakinarekin jasotzen dute *Basque Research*koek zabaltzen duten informazioa. Berria - Gaiak  
Garraio publikoak zerbitzu egokia, azkarra eta **maiztasun** handikoa eskaini behar du. Berria - Euskal Herria  
Euskaraz **maiztasun** handikoak direla igurzkarri /afrikatu txandakatzeak. Lourdes Oñederra  
Gorputzek **maiztasun** ezberdinetan dar-dar egiten dute gorputzaren neurri, forma eta gaiaren arabera. Lourdes Oñederra  
"... hauskor bat ikusi nuen" testuinguruan, "balea" eta "du" hitzek **maiztasun** bera izan lezakete (hots, zero) hitzun baten hizkuntz esperientzian. Itziar Laka  
Mozkorkeria ez zitzaidan bihurtu **maiztasun** handiko ohitura, are gutxiago osasun-arazo, bizio edo menpekotasuna. Xabier Mendiguren Elizegi  
Era guztietako testuak azaltzen dira, hilabeteroko **maiztasun** laxoan emanak. Jokin Urain  
Mutazioen **maiztasuna** igoarazi, bakoitza atzeman eta, ahal izanez gero, hautetsi beharra dago. Juan Garzia  
Gertagarria [...] eta gertagaitza [...] ez dira, berez, izatez, diferentek; **maiztasunean** datza aldea, soilik. Joxe Austin Arrieta  
Baina zu han zeunden, nonbaiten, zehatz kokatzeko beharrik ez zuen lekuren batean, berearekin sintonizatua zegoen **maiztasun** batean. Lourdes Oñederra

## 2 fisikan, aldizka jazotzen den gertakari baten gertaldien edo zikloen zenbatekoa denbora unitateko (maizenik segundoko).

Hots-uhinaren **maiztasuna** handitu ahala, hotsa garaia goa irudituko zaigu eskala musikalean, **maiztasuna** jaitsi ahala, berriz, baxuagoa. Lourdes Oñederra  
Uhinaren **maiztasuna** uhin hori sortu duen mugimenduaren lastertasunaren arabera da. Lourdes Oñederra  
**Maiztasun** handiko soin-uhin batek ura bezalako likido bat zeharkatzen duenean. Fernando Morillo  
Leiho obaletik hurbilen dagoen mintz basilarraren aldeak **maiztasun** altuei erantzuten diela, eta urruneneko aldeak, berriz, **maiztasun** baxuei. Irene Aldasoro  
Uhinaren **maiztasun** gero eta txikiagoa, gero eta urrunago iristen da, ehunka edo milaka kilometroa. Berria - Gaiak  
Giza belarriak, nolabait ere, 15 Hz eta 15.000 Hz bitarteko **maiztasunei** erantzuten die. Presente dauden **maiztasun** guztien zatitzaile komunetako handiena ateratzeko emango digu oinarriko **maiztasunaren** zenbatekoa. Dardara horrek oso hots-uhin konplexua sortzen du, alegia **maiztasun** askok osatua. Irene Aldasoro  
Gainerako **maiztasunek** hotsaren nolakotasuna baldintzatzen dute, baina ez garaiera. Lourdes Oñederra  
**Maiztasuna** 2.000 Hz (organo baten nota garaiera) baino apalagoa bada, buruaren diametroa baino (17 cm) handiagoa da soinua uhin-luzera. Irene Aldasoro

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Maiztasun** -unitatea hertza da (Hz), ziklo bat segundoko. Irene Aldasoro  
Hotsaren osagaiak **maiztasun** eskalan (behetik gora) eta denboran zehar (ezker eskuin) erakusten dituen irudia da espektrograma. Lourdes Oñederra  
Aparatu irati-hartzaile bat zen funtsean, **maiztasun** -alde txiki-txikiak atzematzen zituen. Juan Garzia  
Hotsa irristarizat hartzen da, formanteen **maiztasun** -balioak eten gabe aldatzen direnean denboran zehar, eta bokaltzat, formanteak egonkor direnean. Lourdes Oñederra  
Gainera, badaude **maiztasun** harmonikoak, oinarrikoaren anizkoitz osoak. Lourdes Oñederra  
Hots uhin konplexu bat osatzen duten osagai indartsuenak **maiztasun** multzoetan biltzen dira. Lourdes Oñederra

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zuntz bakoitzak bere erresonantzia-**maiztasuna** du eta soinua egokia iristen zaionean hasten da mugitzen. Irene Aldasoro  
Usaimen-pigmentuaren molekula bateko elektro batek jauzi egin dezakeela [...] bibrazio-**maiztasun** egokia duen beste molekula bat inguruan bada. Irene Aldasoro  
Bihotz-**maiztasuna** asko igotzen da, minutuko 180 edo 200 taupadaraino. Irene Aldasoro  
Argiaren agerpen-**maiztasuna** bizkortzen denean, azkenean desagertu egiten da efektu hori [...]; eta argi jarraitu bat pertzibitzen da orduan. Josu Zabaleta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**maiztasun handi** (3); **maiztasun handiko** (6); **maiztasun handikoa** (6); **maiztasun handiz** (5); **maiztasun jakin** (4)  
**oinarriko maiztasuna** (3)

## maizter 1 *iz* baserri, lur, etxe edo bizileku bat errentaren truke hartzen duen pertsona. ikerrentari; etxetiar.

Bilintxen bertsoak maitasunezko elkarrizketa bat ziren, baserri baten jabearen eta **maizterren** alabaren artekoa. Koro Navarro  
Etxea alokatzen saiatu ei zen, altzariekin batera, baina presaren presaz **maizterrik** aurkitu ez. Joxe Austin Arrieta  
**Maizterren** egoeraz urrikaldurik, uko egin zion alokairua igotzeari. Patxi Zubizarreta  
**Maizter** haiek utzitako etxera artista pintore bat etorri zen. Pello Lizarralde  
Askotan gertatzen zen, **maizter** hispano edo beltzak bota edo botarazi eta, ondoren, *luxury apartments for sale* zioten iragarkiak jartzen zituzten *The New York Times* egunkarian. Iñaki Zabaleta  
Mickeyvicus kondeak lur-sailak zituen hiritik kanpo, baso puska bat ederra ere bai, **maizterrei** utzia. Felipe Juaristi

Gelatxo ilun bat eta sukaldea, bigarren estaiari; eta kumana eskaileran, gainerako **maizterekin** amankomunean. **Txillardegi**  
Urtean behin etortzen zitzaizkion **maizterrak** zorrak ordaintzera. **Arantxa Iturbe**  
Horixe da funtsean *Pedro Páramo*ko jende gehienaren egoera: jauntxoak **maizter** -edo morroi- izatera (edo alde egitera) kondenatzen duen herri oso batena. **Juan Garzia**

## 2 (hitz soila aditz baten ezkerrean)

Luisa, emaztea, bere lurretan gorderik zegoen, **maizter** zuen errotari baten etxe txiki politean. **Felipe Juaristi**  
**Maizter** nengoen Josurenean, paretak biluz-biluzik zituen ganbera batean. **Aingeru Epaltza**  
Alemanian, adibidez, besterik gertatzen da: herritarren erdiak **maizter** bizi dira; horietarik %56, babestuta. **Berria - Euskal Herria**  
Diru-egoera penagarri hura behinik konpontzea nahi omen zuen batzordeak, eta [...] **maizter** bizi ziren langileei etheen jabetza sikiera emateko eskatu zuten. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Aberastasun gutxi eta amets asko zituen lorezainen familia batean **maizter** hartu zuten behin marinel bat. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## 3 irud/hed

Giza marmaria urrundu arte egon nintzen hor, azpian nuen hilobiko **maizterren** zerrenda irakurtzen. **Aingeru Epaltza**  
Bien bitartean, armairuko **maizterrak** hiru egun eta hiru gau pasa zituzten han berean, jatekorik eta edatekorik gabe. **Patxi Zubizarreta**  
Komunikazio ezinaren herdoila sartu zela **maizter** geure ahoetan. **Karlos Linazasoro**  
Handik aurrera nire kementen **maizter** izango nintzen: ez nion ezer zor izango inori, neure buruaren jabe izango nintzen. **Anjel Lertxundi**  
Gero eta joago nengoen, trenpe txarraren **maizter**. **Anjel Lertxundi**

## 4 (hitz elkartuetan)

Prest zegoela, esan zion, baita **maizter** -zorrak kitatzera ere, baldin neskak, lotara bertan gelditurik, konplitzen bazituen indianoaren gutziak. **Anjel Lertxundi**  
Esaterako, klimarena eta aztura batzuen aldea salbu, edonongo lur- **maizterrena** dela mundu eta hizkuntza berezi hori. **Juan Garzia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maizter bizi** (3); **maizter izango** (3)

## maiztergo iz maitertza.

Hamaika urte aitaren etxea defenditzen, eta ez diote, bada, orain, **maiztergoan** zuela aitak etxea, aziendak, soroak eta pinudiak barne? **Joxerra Garzia**

## maiztertza iz baserri, etxe edo kideko bat errentan hartzea; horri dagokion eskubidea. ikmaiztergo.

Morrontzatik **maiztertara**. **Berria - Euskal Herria**

**Maiztertza** baino interesgarriago iruditu zait beti -are gehiago baserri eta landa-lurren errenta aspalditik izozturik dagoenez gero- beste fenomeno bat: etxekonekoarena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## maiztu, maiz(tu), maizten 1 da/du ad maiz gertatu edo gertarazi.

Ibaien edo erreken mehegunetan ugaritzen eta **maizten** zen animalien pasabidea. **Patziku Perurena**  
Hortik aurrera, arrakasta **maiztu** zuen, hainbat gorabeherarekin, jakina. **Berria - Kultura**

## 2 zerbait, maiz erabilteagatik, hondatu edo higatu.

Aberdeen-en, 1714an, Pope-ren lliadaren sei liburukien harpidedun egin nintzen; baita atsegin handiz **maiztu** ere liburuok. **Juan Garzia**  
Jantzizat, soin argal eta haurgintzak **maiztua** estaliz, burusi bat, izuaren asalduan atzema... **Juan Garzia**  
Hitzek ez dute askorik balio, erabiliaren erabiliaz, **maiztu** egin dira, desaktibatatu egin ditugu. hitzek ez dute askorik balio, erabiliaren erabiliaz, **maiztu** egin dira, desaktibatatu egin ditugu. **Iñigo Aranbarri**  
Euriak eta likenek ilundu eta **maiztutako** harriak, bihurrituak, zulatuak, zorrotzuak. **Anjel Lertxundi**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Ezagunak egiten zitzaizkidan gizon haren ibilera urduria, haren betaurreko borobil distiratsuak, baita larruzko maletatxo **maiztuari** heltzen zioten esku luzeak ere. **Alberto Ladron Arana**  
Lotsatu egiten baitzen bere soineko zahar **maiztuekin**. **Patxi Zubizarreta**  
Gorbata **maiztua** askatuta zeukan. **Alberto Ladron Arana**  
Lihozko maindrearek, sekula erabili gabeak batzuk, eta bestetzuk, berriz, birjosiak eta leun-leun eginak, gardentasuneraino **maiztuak**. **Juan Garzia**  
Kolare urdin **maiztuko** gutunazal bat atera zuen handik. **Bernardo Atxaga**  
Eta arropekin gertatzen den ez bezala, mintzatzeko gaiak **maiztuegiak** direnean, ez dira batere eroso. **Harkaitz Cano**  
Nik ere badakit aparatu zaharkitu eta **maiztuokin** ez duzuela ezer baliozkorik lortuko. **Juan Garzia**  
Ogi zati bat, labanatxo bat, batzuetan CAI (Italiako Mendizaleen Elkarte) delakoaren gida, erabat **maiztua**. **Juan Garzia**  
Ispiluan gizon arrunt bat ikusi zuen, aurpegi **maiztukoa** eta bizar-zuria, ez gizena eta ez argala, bera baino zaharragoa itxuraz. **Bernardo Atxaga**  
Hainbat anekdota historikoren antologia **maiztu** bat zen. **Anjel Lertxundi**  
Harritu egin ninduen haren begiradak: ez nion beldurrik ikusi, distira **maiztu** bat baizik, etengabeko mozkorraldiek itzalia. **Juan Kruz Igerabide**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erabat maiztua** (3)

## maiztxo adlag adkor maiz aski.

Aspaldian **maiztxo** entzuten zuen kantua. **Iñaki Segurola**  
Egiptoko pinturretan ere zakurra **maiztxo** ikusten dugu. **Gotzon Garate**  
Gurasoek **maiztxo** alaba eriak eta elbarriak hil egiten dituzte, bizimoduaren larria paira ez dezaten. **Gotzon Garate**

## maja iz ik majo.

Jo, **maja**, oso ondo nago/gaude; proiektu pila bat dauzkatz/dauzkagu. **Iñaki Segurola**

## majadero izond/iz kirtena, ergel-putza.

"**Majaderoa** galanta! **Felipe Juaristi**  
Kostako zaik gitarra-soinuz printzesa esnaraztea", esan zuen Joanesek bere artean. Hi **majadero** bat haz, **majadero** patetiko bat! **Felipe Juaristi**  
Nik ez diat **majaderoongatik** galduko baldintzapekoa, ez horixe! **Urtzi Urrutikoeetxea**

## majera iz manjatera.

Aska aurreko **majera** zuloetatik lepoa atera eta orroa egiten zioten behiek ukuluko argiari. **Pako Aristi**

## majestate ik maiestate.

## majestuOS ik maiestuos.

## majia ik magia.

## majiko ik magiko.

## majina ik makina<sup>2</sup>.

## majo 1 izond jatorra; potxoloa.

Hala eta guztiz ere, Miren oso **majoa** zen. **Joxean Sagatzizabal**

**Majoa** zen Koro, oso. **Joxean Sagatzizabal**

-Tipo **majoa** haiz, Asier, maitagarria... **Pako Aristi**

Bai tipo **majoa**. **Harkaitz Cano**

-Ze **majoak** giriak, ezta? -esan du Aiorak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Guapoa ez ezik **majoa** ere bazen Pantxo. **Jasone Osoro**

Lau igel **majo-majoak** dira. **Unai Elorriaga**

## 2 adlag asko, ederki. ik bapo<sup>1</sup>.

**Majo** izerditu behar izan zen atzo Beotibarren tantoa irabazi ahal izateko. **Berria - Kirola**

Kamioia **majo** kargatuta ere, bazaukak zabor gehiagorako lekua oraindik. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Etzeko taldeak **majo** sufrituta irabazi zuelako lehia. **Berria - Kirola**

Udan [...] eguzkiak **majo** berotzen duela. **Pello Zabala**

**Majo** bizi zara. **Felipe Juaristi**

Aldatu dira, bai, **majo** kontuak. **Patxi Zubizarreta**

Bidetik **majo** okertu zara. **Xabier Olarra**

-Ba, oraingo honetan, **majo** eman digu popatik -esan zuen Begoñak, bere haserrea gorde ezinik-. **Patxi Iturritegi**

Geroztik hona, **majo** xahartu, ihartu, exkaxtu da gajoa. **Joxerra Garzia**

**Majo** kargatuta irten naiz, aspaldian ez bezala eman diot ron botilari beharrean. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Egun osoko lanean **majo** nekatuta. **Aitor Arana**

Lana franko bai, baina irabazi ere **majo**. **Xabier Etxabe**

Eta harritu dira **majo**. **Pello Zabala**

## majoria ik maioria.

## maka ik saka<sup>1</sup> 4.

## makabear izlag/iz Bibliako judu herriko Makabearrena, Makabearrei dagokiena.

Judas **Makabearrari** eginiko gorazarrea. **Elizen arteko biblia**

Gure senitarte ugariaren buru izan eta egiazko **Makabear** gisa borrokara gidatuko gaituena. **Askoren artean**

**Makabearrak**, aldiz, sendo eusten zion uste onari, Jaunarengandik laguntza izango zuenaren itxaropenez. **Elizen arteko biblia**

K. a. VII. mendean idatzi zituzten Israelgo 'historiografoek' *Josue*, *Epaileak*, *Samuel* eta *Erregeak* liburuak -geroago etorriko ziren *Kronikak*, IV. mendean, eta **Makabearrak**, II. mendean. **Jose Antonio Mujika**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

judas makabearra (7); makabearra deitua (3)

judas makabearrak (5)

judas makabearren (5); makabearren aldekoek (3)

## makabeo izlag/iz makabearra.

Judu **makabeoak** nola matxinatu ziren siriar heleniarren kontra. **Koro Navarro**

**Makabeoen** erresuman sartu berria zen probintzia jentil bateko seme hura. **Iñaki Mendiguren**

Eta probokazio honek garaiko zelote-erreakzioa eragin zuen, **Makabeoen** bi liburuetan agertzen den bezala. **Iñaki Mendiguren**

## makabro iz heriotzaren eta hilotzen alderdi desatsegin eta higuingarrienari dagokiona.

Atzo hildako hiru biztanle irakiar eta bost soldado estatubatuarrekin batera, eta giza-krudelkeria infinitua dela frogatuz, aurkikuntza **makabro** bat egin dute Tigris ibaian.

**Pako Aristi**

Koadroa Rossettiren hobereentzat aipatu ohi delarik ere, batzuentzat **makabroa** da, eta autorearen nekrofilaren adierazgarri. **Ramon Saizarbitoria**

Ez dute ordea alderdi **makabroa** galduko, xehetasun odoltsu higuingarrienak ere argi deskribaturik agertzen baitira. **Koro Navarro**

Heriotza zigorraren inguruan, halako erritu **makabro** bat sortzen da, eta ez dirudi gizartea hozmintzen denik horregatik. **Pello Salaburu**

Marcel Martinen alargunak aukeratu omen zuen familiaren izenean kanposantura joateko, eta zeremonia **makabroa** ikusi beharra tokatu zitzaion; 1998ko otsailaren 13an, goizeko zortzietan, oraindik ilun zegoela zabaldu baitzuten, "lapurrak bailiran", esan zuen, Marcel Martinen hilobia. **Ramon Saizarbitoria**

Profanazio **makabroa** bezain alferrikakoa. **Ramon Saizarbitoria**

Borroeroari zenbait zenduk mihia ateratzen dio azken trufa **makabro** gisa. **Karlos Linazasoro**

Ehorzketaren inguruko xehetasun **makabro** -barregarrietan luzatu nintzen. **Aingeru Epaltza**

Danelek nire bidez ezagutu zuen Saint-Saënsen Dantza **Makabroa**. **Anjel Lertxundi**

## makabrokeria iz makabrotasun gaitzesgarria.

Iseka egiten digula dirudi, zorutik, **makabrokeria** gaiztoz, eta ezin dut jasan aurpegiera ezduin hori, hiltzen ere jakin egin behar da. **Karlos Linazasoro**

## makabrotasun izond makabroa denaren nolakotasuna.

Hasierako entzuketa informaziorik gabea datuz eta erreferentziez bete zitzaidan, bada: makabroa zuan [Saint-Saënsen] pieza, eta banekian ordutik aurrera ez nuela

**makabrotasunik** gabe entzun ahal izango. **Anjel Lertxundi**

Orain ikusiko dugu, bada, [...] katazuri larruzko eta purpurazko duintasun bikain hori **makabrotasunaren** eta amorearen zentzura ongi egokitzen den. **Josu Zabaleta**

## makadam (7 agerraldi 5 liburutan; orobat macadam 6 agerraldi 3 liburutan) iz harri birrinduz eta hareaz osaturiko eta zapalgailuz edo zilindroz sakaturiko zoladura.

Behin errepedean abiatuta, **makadama** izango dugu bazkatzeko. **Josu Zabaleta**

Hila nintzela asmatu nuen, gibeletik zetozkidan bi gizonen urratsak, **makadamean** astunki klaskaka entzun bitartean. **Itxaro Borda**

Pneumatikoez txistu egiten zuten **macadam** koipetsuan zehar. **Lopez de Arana**

**Macadam** hormatuaren gainean. **Itxaro Borda**

**Makadamez** eginikoa zen, ez estrata edo bidetxoa, baina zuloak zituen ugari. **Xabier Montoia**

"Baso-bideetan" sei zaldiko gurdiak ibili ordez, **macadam** eta porlaneztaturiko bideetan automobilak ibiltzen ziren. **Iñaki Mendiguren**

## makadura iz makatua, mailatua.

«Hitzik erran gabe, bi zaplazteko eman zizkion ikaslearen aitak Leiuni; masailetan **makadurak** eta antsietate krisia eragin zizkion», jaso du epaileak bere ebazpenean.

**Berria - Euskal Herria**

## makahuldu, makahul, makahultzen da ad ahuldu.

Sartzen zuen eskua bere bihotzean, eta berba mordo gozo bat aterako zigun lezioetan **makahulduak** geunden guztiok zuzpertzeko. **Koldo Izagirre**

## makailao ik bakailao.

## makako 1 iz Asiako ziminoa, buztan-laburra eta mutur-irtena, mehaketan gogorgune zabalak dituena(Macaca sp.).

Inoiz beldurrik ez duen gizon bihurtzeko, karkaxa botatzen zuen, eta keinuak egiten saiatzen zen, **makako** zahar baten antzera. Oihu baten azpiko oihu baten gisa **makako** baten oihuan ibiliko naiz, kantari ari den nekazari txiro baten koplari ezkutaturiko koplari batean kantari ariko. **Juan Kruz Igerabide**

### 2 pertsona hutsala.

Gorteko emakume guztiak bere zituen, halere, eta ez bufoiarena eginez, Voisenon izeneko **makako** hark bezala, ezpada bere konkista ederrak grinaren gehiegikeria makurrenetara bultzatzen zituen magnetismoren baten ondorioz. **Monika Etxebarria**

## makakorro 1 iz abere larrien orroa; orroa.

Agian gaur egingo diat **makakorro** edo jango diat neure simaurra edo alde egingo diat. **Anton Garikano**

Haren **makakorroak** eta haren aztalkak, espaloian dendakoez ama laster etorriko dela agindu eta sinetsarazi dioten arte. **Pako Aristi**

Gainera, garbi-garbi ikusi nuen zaldiak zer eginik ez zeukala haren aurrean, alferrikakoak zirela diligentzia eta gurdizale guztien **makakorroak**. **Bernardo Atxaga**

### 2 irud/hed

Marroren Sanglas-a tximistaren pare igaro zen nire albotik, **makakorro** batean. **Juan Kruz Igerabide**

## makakorroka 1 adlag makakorro eginez.

Beleak **makakorroka**. **Anton Garikano**

Urrunxeago ahardi beltz bat, eta indioilar bat, oinazturak izutu eta derrepente **makakorroka** hasi zena, eta harantzago antzara batzuk, indioilarrak asaldaturik, beraiek ere marraka. **Joxe Austin Arrieta**

### 2 irud/hed

Auto baten motor-hotsa urrundu zen, **makakorroka**. **Juan Kruz Igerabide**

Halako batean, Sanglas baten motorra entzun nuen, gure etxearen parean **makakorroka**, **Juan Kruz Igerabide**

# **makal**<sup>1</sup> 1 iz zuhaitz luze eta hostotsua, leku hezeetan hazten dena, zura zuria eta arina duena(*Populus sp.*). ik **lertxun**<sup>1</sup>.

**Makal** bikainak ikusten dira errekaen bestaldean. **Joxemari Urteaga**

Urki meheak eta **makal** zilarkarak. **Jose Morales**

Burdinbidearen bi aldeetako **makal** zilarreztatuetatik. **Lopez de Arana**

**Makal** bertikalak horizontal okre eta idorraren erdian. **Bernardo Atxaga**

Gogoan atxiki dudan irudian, aitaxi behor gorri baten gainean dabil, **makala** bezain zut. **Aingeru Epaltza**

Eta haiek, gurdibide erdian **makala** bezain altu ikusi zutenean, erbien modura atera ziren ihesi. **Koldo Biguri**

Rigosa errekaetara Tarorekin bat egiten duen tokitik gertu, **makal** eta lertxun artean. **Koldo Biguri**

Etorbide dotore batean zegoen kokaturik txalet handia, alde batera zein bestera halako beste asko zituela, gehienbat platanondo, **makal**, magnolio eta palmondoz babesturik. **Joxemari Iturralde**

**Makal** baten orpoan etzan naiz, adaska bat lurretik hartu eta ezpainetara eraman dut katilu bat balitz bezala bi eskuekin. **Koldo Izagirre**

**Makal** baten azpian ehortzi du, hantxe zuloa eginda. **Aingeru Epaltza**

Inguruko **makal** batean aurkituko dituzu grabatuak nire erakundearen inzialak. **Koldo Izagirre**

Kardantxulo bikotea, **makalaren** lore kotoizkoa biltzen. **Pello Zabala**

## 2 (hitz elkartuetan)

Gorputza olioz igurtzi buruan **makal** hostoz egindako koroa jantzi zuen. **Santiago Iruretagoiena**

Zumadi sarriek latz egiten dute itsasertza, zeinetan **makal** baso zabal narroak aurkitzen baitziren. **Koldo Biguri**

## 3 **makal beltz** (*Populus nigra*).

**Makal beltza**, aldiz, aparte atxikitzen zuten, heriotzaren kutsua zeramalako, bere zurak ere orbaindua zirudielako. **Pello Zabala**

Zurzuria eta **makal** beltza, eta baita zumea, ezkia eta zalitzukia, suz eta airez egoten dira aseta, ura izaten dute neurri egokian eta lurra oso gutxi, eta beraz, oso osaera arina duten arren, badirudi oso sendotasun handia izaten dutela erabileran. **Santiago Iruretagoiena**

## 4 **makal zuri** (*Populus alba*).

**Makal zuria** usadio erritua eta sakrifikal askotan erabiltzen zuten, hosto zurixkak dituelako, bere zur zuri-zuriarekin batera. **Pello Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**makal baten orpoan** (4)

# **makal**<sup>2</sup> 1 *izond* indar, bizkortasun edo sendotasun urrikoa. ik **ahul**. (norbait)

Bizkorrek baino bizkorragoak dira, eta ni ere ez naiz **makala**. **Jon Muñoz**

Zure osasun **makal** horrek salbatu zaitu gela itsuan hamabost egun egitetik. **Anjel Lertxundi**

Bazeuden hamar urteko aristokratak, gogo **makal**, begi urdin eta begirada galdukoak. **Xabier Olarra**

Jende **makala** zen. **Lopez de Arana**

Maila honetan ez dago kontrario **makalik**. **Berria - Kultura**

Bihur itzazue goldeak ezpata eta igitaik lantza; **makalak** ere esan beza: "gudari ausarta naiz! **Elizen arteko biblia**

Alkimiaren arragoan egiten den aldakuntzarik behinena da beruna urre bihurtzea, hots, zama arintasun, **makala** bizkor, itzala argitasun. **Juan Kruz Igerabide**

## 2 (zerbait)

Goizeko eguzki **makalaren** printzetan, eguerdiko argi betean. **Jon Arretxe**

Argudiaketak puntu **makal** anitz erakusten du. **Joxe Azurmendi**

Lanek ezkontzari buruz dituen iritziak **makal** samarrak iruditzen zaizkidak. **Antton Olano**

Hego Amerikan grabatutako foiletari merke eta **makal** horietako bat ari ziren ematen. **Juan Luis Zabala**

## 3 (adizlagun gisa) ik **makalik**.

Osasunaren errialdirik arinena ere larria da lehendik **makal** dagoen gaixoarentzat. **Imanol Zurutuza**

Komunera jaikitzen nintzen aldiro, giharrak **makal** eta indarrak gabe sentitzen nituen. **Anjel Lertxundi**

Orduan, **makal** sentitu eta aldapan behera jaitsi zen hankak leher eginak zituela. **Karlos Zabala**

Frantzisko osasunez **makal** zebilen. **Askoren artean**

Agure zahar bat da Lucas, gorputzez **makal** egoteaz gain burua nahastuta daukana. **Unai Elorriaga**

Kaskotik **makal** dabilela da entzun duen azkena. **Urtzi Urrutikoetxea**

Azkenean bere buruaren aurka hasi zen Pirouette kalearen akuaforteia zela eta, **makal** jokatu zuelakoan zegoen. **Karlos Zabala**

Cassiek bere hankak dardarka dardarka **makalago**. **Lopez de Arana**

Liga **makal** hasi zuten, eta aldatu egin behar izan zuten teknikaria. **Berria - Kirola**

Eibar **makal** ari da erasoan. **Berria - Kirola**

## • 4 *izond* geldia, poliki dabilena.

Llanstephan-era eraman ninduen aitonak pony txiki **makal** batek tiratzen zuen orga batean. **Koro Navarro**

Leiho aldera itzuli zen, bere pauso **makalean**, besoa kanpo aldera luzatzeko. **Fernando Morillo**

Atari bazter hura zeharkatu zuen atsoak, pauso **makalez**, eta atzetik joan gintzaizkion. **Juan Kruz Igerabide**

Eta '**andante**' jo beharreko pieza halako 'dolcissimo' makal batekin hartu nuen. **Pako Aristi**

## 5 (adizlagun gisa) poliki.

Eguraldia goibel eta euritsua izaki, zaldiek neketsuago eta **makalago** egiten zuten trostan, kalesaren gurrpilak hondoratu egiten baitziren bideko putzu eta lokatzetan. **Anjel Lertxundi**

Ni aberatsa naiz, autoa hartu eta autopistan **makal-makal** joan nintekeelako, orduko 180 kilometroko abidan (euren negozioentzat ezinbestekoa den bilera batera iritsi behar dutelako edo) lepoa hausteko arriskuan doazen horien erukia sentitzen dudana bitartean. **Pako Aristi**

Eskaileretan gora, gizon zahar bizkar-makur baten atzean denbora itxaron beharra dauka, **makal** doa eta. **Pako Aristi**

Gurrpil izpiak **makal** asko birarazten zituzten idien atzean. **Pako Aristi**

## 6 (ezezko esaldietan, apaitzen denaren gorabehera handia markatzeko)

Ez zuen, ez, aukera **makala**: Alexandroren hilobia! **Jon Muñoz**

Baina aldea ez da **makala**, alajaina! **Iñaki Heras**

Ez da lan **makala**, gero! **Jose Morales**

Ez duzue bikote **makala** osatzen. **Josu Landa**

Ez daukat, ba, gogo **makala** Dursleytarrengandik urruntzeko! **Iñaki Mendiguren**

Ez zituen irabazi **makalak** atera burtsatik. **Iñaki Heras**

Ez duzu tripa **makala**, alajaina! **Joseba Urteaga**

-Ez zaude **makala** ! egun bat eta erdi egun duzulo. **Felipe Juaristi**  
Paradoxa ez da **makala** , Patri, ezer ikusten ez duena ikustea gidari. **Hasier Etxeberria**  
Ez daukat, ba, gogo **makala** Dursleytarrengandik urruntzeko! **Iñaki Mendiguren**  
Baina buruz ere ez zen **makala** . **Patziku Perurena**  
- Susto **makala** hartu behar duena. **Edorta Jimenez**  
"Beldurra, hiri? **makala** !", hots egin zuen Opinek. **Bernardo Atxaga**  
**-Makaleko** zortea izan diagu, hi! **Pedro Alberdi**

## 7 makalik ik makalik.

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**makal antzean** (3); **makal aritu** (12); **makal aritu zen** (3); **makal aritu ziren** (6); **makal dabil** (10); **makal hasi** (8); **makal ibili** (4); **makal makal** (7); **makal samar** (10); **makal samar hasi** (4); **makal zegoen** (3); **nahiko makal** (5); **osasunez makal** (5); **oso makal** (10); **oso makal aritu** (3)  
**ez da makala** (44); **ez zen makala** (15); **gauza makala** (3); **kontu makala** (3); **lan makala** (25); **lorpen makala** (4); **makala izan** (22); **makala izango** (11); **makala zen** (5); **marka makala** (3); **meritu makala** (8); **suerte makala** (3)  
**gero eta makalago** (3)  
**ez dira makalak** (11); **ez ziren makalak** (3)  
**alderik makalena** (3)

## makalaldi iz makaltasunezko aldia. ik ahulaldi..

Eguzki-galda beroen azpian, egarriak itota, **makalaldiak** jo zuen. **Askoren artean**  
Bikotea joan zenean gogogabetua gelditu zen, **makalaldi** handi batek eserlekuari erantsita eduki zuen. Istant batean arestiko **makalaldiak** sekulako indarbertzeari eman zion bide. **Migel Angel Mintegi**  
Leherraldi honen ondoren **makalaldi** bat etorri zen. **Iñaki Mendiguren**  
Jaiak **makalaldirik** gabe jarraitu du auto barruan. **Urtzi Urrutikoeetxea**  
Elektrizitateak batzuetan **makalaldiak** izaten zituen. **Aitor Arana**  
Iraultzak bizkorraldiaren adierazpen dramatikoak badira, **makalaldiaren** fenomenoak gorputz nagusiaren mugimenduarekin batera ibiltzeari atzeratuak egiten dion uko gisa hartzen da. **Iñaki Mendiguren**  
Begi-bistakoa da, adibidez, guk herodianismoa deitu duguna bizkorraldiarekin lotua dagoela eta zelotismoa deitu duguna **makalaldiarekin** . **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**makalaldi bat** (4); **makalaldi txiki bat** (3)

## makalbide iz

Zergatik deuseztatu halako arte-efektu ederra **makalbide** tristan eramanez jaun horiek beren karreraren azken bururaino, haien hutsaldiak eta haien porrotak agerian ipiniz? **Juan Garzia**

## makaldi iz makalak dauden eremua.

**Makaldiko** belardian etzanda. **Jokin Muñoz**  
Handik honainoko tartean **makaldiak** ibaia markatuz, galsoroak, eguzki lore saila... Mahatsondoek eta **makaldiak** bat egiten duten tokian dago, ibaiaren bihurtze baten arrimura jarria. **Jokin Urain**  
Ezponda eta **makaldi** artean, sakantxo batean, baseliza zaharra zegoen. **Koldo Biguri**

## makaldu, makal, makaltzen 1 da/du ad indarra, bizkortasuna edo sendotasuna galdu edo kendu. ik ahuldu. (norbait)

Haien ahaide bat bizi zen han, atso zimel bat, zeina, urteek **makaldurik** egonagatik, goizero joaten baitzen azokara. **Jose Morales**  
Ama egunetik egunera **makaltzen** ikustea ez da broma gero! **Patxi Iturritegi**  
Haurrak **makaldurik** zeuden, emakumeak eta gazteak egarriak hilda, eta hiriko plazetan eta ateetako igarolekuetan erortzen ziren indarrak gabe. **Elizen arteko biblia**  
**Makalduta** hago zeharo, ez haiz ezertarako gauza! **Bernardo Atxaga**  
Estutu barik baina **makaldu** barik jarraitzeko. **Urtzi Urrutikoeetxea**  
Batzuetan **makaldu** bai, baina berehala bihurtzen naiz neure onera. **Joxe Austin Arrieta**

### 2 (zerbait)

Haragiak amore eman baino lehen izpiritua **makaltzen** baita. **Jon Alonso**  
Hainbeste ordutan elikagairik irentsi ez izanak neuronak **makaldu** zizkion. **Unai Iturriaga**  
Nire buztana **makalduz** joan zen orgasmoaren ostean, lagunaren uzki abegikorretik berez ateratzeraino. **Aitor Arana**  
Pentsatu zuten sukarrak kalte egin ziola oroimenean, mugimenduak **makaldu** zizkion bezalaxe. **Anton Garikano**  
Laster, gizonaren erasoak **makaldu** egin dira. **Juan Martin Elexpuru**  
Iritsi zenean, berriz, poztu beharrean, adorea **makaldu** egin zitzaion. **Migel Angel Mintegi**  
Izotz urtuak osoro **makaldua** zion lasto-zaporearen trinkotasuna. **Anjel Lertxundi**  
Fokuen argia **makaldu** zen. **Anjel Lertxundi**  
Abiada **makaldu** gabe. **Juan Garzia**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Sendotu beso ahulduak, bizkortu belaur **makalduak** . **Elizen arteko biblia**  
Aurpegi **makaldu** xurixka eta betazpi uheldua, dena hexur eta axal. **Patziku Perurena**  
Begi-azpi puztuak eta ezpain apur bat indarge eta kolore **makaldukoak** . **Bernardo Atxaga**  
Inexistenziaren eta oparotasun **makaldu** horren artean tartekorik ez zegoela ulertu nuen. **Monika Etxebarria**

## makalik adlag indarrak, bizkortasunik edo sendotasunik gabe. ik makal<sup>1</sup> 3.

Asteak eman zituen Lucasek arreba **makalik** zegoela ohartu gabe. **Unai Elorriaga**  
Zain-lotailuak urratuta, bi operazio egin arren ere, hanka **makalik** gelditu zitzaion. **Pablo Sastre**  
Hau dela eta, **makalik** ibili zen luzaroan. **Juan Martin Elexpuru**

makallau ik **bakailao**.

**makalontzi** *izond adkor* makala.

Ez izan horren **makalontziak** eta hasi kalimotxoa edaten, ikusiko duzue nola pasako zaizkizuen hotzak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**makaltasun 1** *iz* makal dagoenaren egoera, indarrak edo bizkortasunik eza.

Bayona nahiko nekagarria egin zait Mimi Allenderen rolean eta Casaresek bere betiko sendotasuna erakutsi du Daniel Veroneseren zuzendaritzaren **makaltasuna** gorabehera. **Berria** - Kultura

Indarrak **makaltasunaren** fagore. **Piarres Aintziart**

**2** (hitz elkartuetan)

Eta horrek ere neke, nagitasun eta **makaltasun** sentsazioa sortzen zidan. **Fernando Rey**

Argi-ilun, kemen- **makaltasun** horrek eragozten digu argi ikustea maitago gozale, gure gogoaren sen bizi bakarria maitatzea dela. **Jenaro Garate**

**3** poliki ibiltzeko tasuna.

Astiro jaitsi nintzen, berariaz, **makaltasun** ia penagarritz. **Juan Garzia**

Oroimenaren gurla jira-biraka hasi zitzaion, aspaldian lanik egin gabeko errotak ohi duen baldarkeria eta **makaltasunaz**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Imajina ditzaket soro idor hauetan Erdi Aroko bidaiariak, pausoen **makaltasunean** edota zaldien trosta nekean batetik bestera. **Pako Aristi**

**makaltzu** *izond* makaltasunez betea.

Zerbeza ez da oso atsegina eguraldi hotz honetan, baina [...] ardoak sortzen duen antzeko eragina izaten du gorputzean, barneko patxada **makaltzu** antzekoa. **Jon Alonso**

**makaltxo** *izond* makal samarra.

Zahar **makaltxo** batekin egokitu naiz sarreran aurrez aurre. **Pako Aristi**

Ikasketa maisu **makaltxo** betaurrekodun baten itxura zuen, bere gorputz argala jantzi zabalegi haietara inon itsasten ez zitzaiona. **Josu Zabaleta**

**makar<sup>1</sup>** *1 iz* betazal ertzetan pilatzen den jario lodi lehortua.

Joan komunera, kendu **makarrak**, hustu maskuria, garbitu muturra, orraztu kalparra. Begietako **makarrak** kentzen. Begiak klis-klas zabaldu eta itxi aritu zen une batez, lozorroan jositako **makarrek** erabat zabaltea galaraziko balio bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Atea erdizka ireki eta **makarrek** erdizka irekitzen besterik uzten ez zidaten begiez emakume gazte bat ikusi nuen neure aurrean, ezezaguna, gabardina batean bildua.

**Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez baitut zikinik eta **makarrrik** ikusten nereak izandako zuen begi horietan; ez baitut amorrurik sumatzen. **Iñaki Segurola**

Pentsamendu Begibakarrak, bere lauso eta **makarren** artetik direnak oro ikusten baititu, gauza askotxo eraman ditu ezin ikusizko exerearen pareraino. **Iñaki Segurola**

**2** (hitz elkartuetan)

**Makar** -ore hori batez estaliak zituen begiak, lerdea zerien ezpain-xoko bie. **Anjel Lertxundi**

Begietako **makar** -orea kentzen hasi zitzaion txakurrari. **Anjel Lertxundi**

Urak eramaten hasi aurretik begiratu eta arretaz azeria diru iturri horien inguruan bizi diren gizakiek zer gorpuzkera duten; eta gorputzez sendoak, kolore ederrekoak, hanketan gaitzik gabekoak, begietan gaixo- **makarrrik** gabeak badira, ondo probatuta egongo dira urak. **Santiago Iruretagoiena**

**makar<sup>2</sup>** *1 izond* argala, mami gutxikoa.

Argal ez, gure izeko Marik **makar** dagoela esango zukeen. **Edorta Jimenez**

Herioren itzala hantxe ageri zuela esan zitekeen, edo niri behintzat hala eman zidan, hain zegoen **makar**. **Edorta Jimenez**

**makargabe** *izond* makarrrik ez duena.

Oso denbora gutxian beldurtzeko beharatu geologikoa hartu du zenbait mendik: geografiaren begi **makargabe** batek handizat zeukana bertako begiz... **Iñaki Segurola**

**makarra 1** *iz* putazaina.

Edmont-era iritsi behar nuela, protagonistak prostituta eta **makarrarekin** liskarra izandako hotelera. **Bernardo Atxaga**

Badakizu, Caulfieldek prostituta eta igogailu-mutil **makarrarekin** esperientzia txar... **Bernardo Atxaga**

**2** *adkor* harroputza, oiesa, gustu txarrekoa den pertsona.

Salbuespena hirietako **makarrak** dira, begietakoak ez, besteak; harrigarria da, bestalde, mendi-giroko zenbait basakristauk eta kale-zuloko zenbait **makarrak** elkarrekin duten antza, normaltasun estatistikotik kanpora [...] egotetik heldu baitzaie. **Iñaki Segurola**

Neskekin gogorra izan behar da, **makarra**; horixe dute gogoko, mutilok begirada hutsaz menperatzea. **Jon Arretxe**

Hainbat mutur apurtu nituen kolpeka institutuko sasoiaren, batez ere beste auzoetako **makarren** kontrako borroketan. **Jon Arretxe**

Zertxobait aterako genion galdetu zigun, ahots lodiz, **makarrenek** izaten duten hizkera xelebrea. **Urtzi Urrutikoetxea**

**Makarra**, txuloputa, nazkagarri alu hori? **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Joder, Idoia, neska, bagenekien **makarra** hutsa zinel, baina horrelakoak! **Sonia Gonzalez**

Pistan dantza egitera joaten ziren neska mamaletatik hasi eta txurrodun gazte kanueroetara arte, tartean egon daitekeen fauna eta flora oro kontuan hartuta: paisanozko poliziaz, EGiko burukideak, trapitxeroak, borrokak, nobodyak, **makarrak**, pijoak, iurretarrak eta despistaturen bat edo beste. **Unai Iturriaga**

Etxean bagenituen gaizkile eta **makarrak** kanpotik inor etorri aurretik ere; baina etorkinek labana badarabilte, kendu egin beharko zaie **Berria** - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

**Makarra** zantzuak baditu, eta unibertsatara sartu ez denetik harroago dabil. **Urtzi Urrutikoeetxea**

## 4 (izenondo gisa)

Lehengusu **makarrari** kasete batean *Aitormena* hamabi aldiz grabatzeko eskatzen zion belaunaldikoak gara. **Berria - Kultura**

Hegazkina hartzera abiatu, eta egin nuen lehenengo gauza *Guns n' Roses*-en konpaktorik **makarrena** bolumen osoan jartzea izan zen. **Iban Zaldúa**

17:00: Kalejira **makarra** -festiboa. **Berria - Harian**

## makarrada *iz adkor* makarra aldra.

Ez diskoteketara, diskotekak, ez dakit zergatik, kanpotarren gauza-edo iruditzen baitzitzaizkigun, John Travoltaren moduko horterada, edo heavyen **makarrada**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## makarroi 1 *iz* jateko pasta gogorra, gari semolaz egina, hodi zati itxura duena.

Patatak, arroza, **makarroiak**, fruta eta haragi pixka bat... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hain zituen gorroto italiarrak, non gerra ostean ez baitzuen inoiz gehiago **makarroiak** jan. konturatu zen ezin zituela **makarroiak** irentsi, haiek plateran ikusi hutsarekin sekulako goragalea etortzen zitzaiola. **Ramon Saizarbitoria**

-Hire amak bai egiten zituela **makarroi** gozoak! **Jokin Muñoz**

-la-ia egunero **makarroiak** tomaterekin jartzen zizkidak ba! **Jokin Muñoz**

Puntu horretara iritsirik, hain juxtu, **makarroi** erreen usainak eten dizkio gogoeta goiargituok, eta ekarri du berriro errealitatera. **Iñaki Iñurrieta**

Erretako **makarroi**en ontzia beltz-beltz dago oraindik harraskan nork garbituko zain. **Iñaki Iñurrieta**

## 2 (hitz elkartuetan)

Kuia zopari **makarroi** tartaleta jarraitu zitzaion, eta hari kafea. **Bernardo Atxaga**

Alboan **makarroi** paketea. **Lander Garro**

## 3

Eta ez pentsa, ez ziren morroiak edo herritar arruntak, ez; laugarren edo bosgarren mailakoak ziren denak, koronelak, jeneralak; **makarroi** handi bat baino gehiago ikusten ziren sorbaldakoetan distiratsu. **Jose Morales**

## makarroni *iz pl* makarroiak.

35-45 urte, mehea, abila, une gozoak, irriak, bidaiak, **makarroniak** partekatzeke hots. **Itxaro Borda**

## makarroniko *izond*

Lehenengo makarra **makarronikoa** izan zen, gero boxeolari txorora, gero brigadista iraultzailea, azkenean burges konbentzitua... **Jon Arretxe**

## makartismo *iz* J. McCarthy senatariak Estatu Batuetan bultzaturiko esetsaldi antikomunista; pertsona talde aurrerakoi baten aurkako esetsaldia.

Lehenengo nazien ihesi, gero AEBetako inkisizio edo **makartismoaren** ihesi; zoritxarrez gureen oso antz handia duten garaietan bizi izan zen. **Berria - Kultura**

**Makartismo** itsusia batzordearen politikan. **Berria - Mundua**

## makartzu (*orobat makartzu g.er.*) *izond* makarrez betea.

Roch hori mutiko ausart, txiki, ilehori, maskal, hortzik gabe, begi **makartsuko** bat zen. **Josu Zabaleta**

Kafe-kikara baten aurrean eserita, alabak begiak **makartzu** zituen loaren ondorioz. Ezkutuko bilerez unaturik eta begiak **makartzu**, bankariek atoiotzientzen uluak entzuten zituzten. **Lopez de Arana**

Txerramak begi **makartsuak** kiñatu zituen. **Pablo Sastre**

Hango figura **makartsua** edertzea nire ahal kaskarretik kanpora zegoen. **Aingeru Epaltza**

Baziren **makartzuak**, erbi ezpainje erorikoak, hankaje bihurrikoak, eta beste zernahi alderdi maketseko eta itsusikoak. **Patziku Perurena**

## makartzu ik makartzu.

## makasardar *izond/iz* Celebes uharteko Makasarrekoa, Makasarri dagokiona; Makasarreko hiritarra.

Ikus, halaber, Forbin-eko kondearen memoriak eta honek **makasardarrez** dioena. **Iñaki Iñurrieta**

## makatu<sup>1</sup>, maka, makatzen 1 du *ad* mailatu.

Baten batek, eta gero ere ez zen jakin zeinek, tiro egin zion lehoiari, eta ihesaldi zoro hartan zenbait emakume eta ume ubelduta eta **makatuta** atera ziren. **Koro Navarro**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Espantu baizik ez baitzen, Peter amerikanoak nola ilkiko zuen bere mercedes handiegia, herritarren 4L eta R5 herdoildu eta **makatuen** artetik. **Itxaro Borda**

## makatu<sup>2</sup> *iz* mailatua.

Bi emakume **makatu** handi samarrekin jaso zituzten. **Koro Navarro**

Bestea, Martinen ama, eta hark, ubelduez eta **makatuez** gainera, zauri bat zuen lepoan. **Koro Navarro**

## makatz 1 *izond* fruitu arbolez mintzatuz, berez hazten dena, landugabea, txertatu ez dena.



Laranjondo, limoioako eta mingranondo **makatzez** betetako zuhaitzi hostotsu baten erdian geratu zen 404a. Jon Muñoz

## 2 fruituez mintzatuz, horrelako arbolen dena.

Atsedean hartu du soilik masusta bat, udare **makatz** bat edo basaranak biltzeko. Itziar Otegi

Amama zaharrak laranja atalak, aza garak, banana azalak, patata kaskarrak, baba baltzak, mahaspasa maskalak, sagar **makatzak**, basaran garratzak... danak nahas-mahas, askara daramatza. Iñaki Arranz

Mahats **makatza**. Inazio Mujika Iraola

## 3 eztiak mintzatuz, basa erleak egiten dutena.

Ezti **makatzaren** urre-kolorea zuten Noraren begiek. Anjel Lertxundi

Haren jarrera argi eta garbiak min ematen zidan, bai, baina ezti **makatzaren** antzekoa zitzaidan, errealtatea aurrez aurre erakutsiz, ez ankerkeriaz, baizik eta garbitasun basatiaz. Juan Kruz Igerabide

## 4 irud/hed

Hotzikarak hartu du Lola, eta ikara antzean mugitu zaizkio bularño **makatzak** eskote bustiaren azpian. Patxi Iturritegi

Egarria hezetzeko iturririk **makatzena** da. Sonia Gonzalez

Neskatoaren berezko jenio **makatz** eta bihurria leuntzen joan omen zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 5 (izen gisa) fruitu arbola makatza.

Bide bazterreko **makatzei** begira. Koldo Izagirre

Ibai polit batek, Argak, elikatzen ditu bertan zenbait **makatz**. Koldo Izagirre

# makear *izlag/iz* Makeakoa, Makeari dagokiona; Makeako biztanlea.

Baina ohore **makear** anaieri! Herria

**Makearra** sortzez. Berria - Kultura

Eta gure "zaharrak" ere bai **makear** gazteekin. Herria

1910ko irailaren 20an Lekornen sortua eta geroago **makear** egina, Xuberun bete zuen bere lehen apez kargua. Herria

Kontrarioa izanen du Jean-Pierre Idiart **makear** sutsua. Herria

Damurik ez baitzuten halere **makear**-lekondarrek finalerdiko partida hura atera hor. Herria

Finala jokatu du Anddek berriz ere Panpi Idiart **makearraren** kontra. Herria

**Makearra** nausi sare egiten, segan, baina baigorriarra abila, defentsan edo pausatzeko. Herria

Gutarteko 11 **makearrek** ospatu dituzte 60 urteak handizki, iragan igandean, hemen berean, Ogibarnean, mahain on baten inguruan. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**makear lekondar** (4); **makear lekondarrek** (6)

**bonetbelche makearra** (3); **eztitxu oillarburu makearra** (5); **idiart makearra** (6)

**arrak** (3); makearrak eta urruñ

**idiart makearraren** (3)

# makeatu, makea, makeatzen da *ad* oso dotore jantzi.

Hi, eta zer egiten du hain ondo **makeatutako** beltz pila horrek? Pako Aristi

# maker *izond* gorputz-okerra.

Bere alabetako bat haur **maker** batez erditu zen ospitalean. Ibon Uribarri

# makera 1 *iz* zerria, urdea.

Indioilarra aterpearen aurreko esparruan, eta haren kurririkak, tximistak atsegin ez dituelako, eta orkatza, eta **makera** beltza bere itxuran, eta kotoizko ilargia, eta zaldia bazkan ari gauaren erdian. Joxe Austin Arrieta

## 2 (irain hitz gisa)

"Putza tzarra, putza bargasta, putza **makera**!" berrito sakatu diote ziria, eta nola sakatu gainera. Patxi Iturritegi

Amorrotuenak oihuka ari dira lehiakidearen kontra: "puta, **makera**, erakutsi titiak", eta horrelakoak. Patxi Iturritegi

# makertasun *iz* makerra denaren nolakotasuna.

Esnatzean, agureak ezin izan zuen ongi gogoratu zein **makertasun** zen. Ibon Uribarri

# makestu, makets/makestu, makesten da/du *ad* makets bihurtu, kamustu, sorgortu.

Nerabezaroa gainditzearekin **makestuta**, nire irudimenak ez zezakeen hainbertze. Aingeru Epaltza

# maketa 1 *iz* eskala txikian egiten den modeloa. ik **modelo 7**.

Errealitate bat gauzatzeko tresna gisa erabiltzen du arkitektoak **maketa** bat. Berria - Kultura

Etxeo planoak (eta haiekin batean, aurreko zirriborroak, eraikuntza lanen faktura xeheak, **maketa**, eta abar). Joxan Elosegí

Argazki, plano, zirriborro eta **maketak** erabili dituzte horretarako. Berria - Gaiak

Bulegoan, hondeagailuen **maketa** zoragarriak zeuzkan eta haiekin jostatzen ginen pixka batez. Berria - Kultura

Sarrera gelan Hannover hiriaren lau **maketa** erraldoi dira: XVII. mendekoa, 1939an industria gune garrantzitsu zen hiriarena, 1945ean Hannover izaniko hondakin erraustuena eta, azkenik, egungo hiria. Edorta Jimenez

Erreplikaren eszenografia osagarriaren 1/10 neurriko **maketa** aurkezteko. Berria - Kultura

Carlos Casaresek trenen **maketen** bilduma egiten du. Edorta Jimenez

Arantzazuko basilikarako eginiko eskultura multzoaren zenbait **maketa** jarri dituzte hirugarren aretora isteko pasabidean. Berria - Kultura

## 2 (hitz elkartuetan)

Marinel batek ontzi **maketak** eginen ditu vodka eta whisky botilen barruan. Berria - Kultura

Argazkiak, etxe **maketak** eta bideoak jarriko dituzte, frantsesez eta euskaraz. Berria - Kultura

### 3 proba gisa egiten den musika grabazioa, eskuarki disko etxe bati aurkezteko.

Zuzeneko emanaldietan lortutako dirua **maketa** bat grabatzeko erabili zuten. Berria - Kultura

1994an kaleratu zuen Betagarrik lehen **maketa**. Berria - Kultura

Urte hartan bertan bost abestiz osatutako **maketa** bat grabatu zuen boskoteak. Berria - Kultura

Entzun nuen zure azken lanaren **maketa** eta biribila iruditu zitzaidan, benetan. Patxi Iturritegi

Taldearen **maketa** eraman nion. *The Pretenders* taldearen garai guztietako kantuek, zuzeneko aldaerek, **maketek** eta bertsiio interesgarriek osatzen dute bilduma honen amua. Xabier Mendiguren Elizegi

### 4 (hitz elkartuetan)

Aurten, gainera, folk taldeei zuzenduriko **maketa** lehiaketa antolatu dute lehendabizikoz. Berria - Kultura

Ondoren, *Euskadi Gaztea* **maketa** lehiaketara aurkeztu zen eta finalerako sailkatu. Berria - Kultura

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**euskadi gaztea maketa** (3); **maketa bat grabatu** (3); **maketa lehiaketa** (7); **maketa lehiaketa irabazi** (3)

## maketatu, maketa(tu), maketatzen 1 du *ad* aldizkari edo kideko baten maketa egitea.

Liburua **maketatzen** ari zirela, diskoaren aukera sortu zen. Berria - Kultura

Erdiko erreportajea **maketatzea** besterik ez zait falta gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

Milaka ordu egin liburua tajutzen eta **maketatzen**... dena nere gustoz eta borondatez, dena nere poltsetik. Patziku Perurena

Orriak dinamikoak dira, programa zerbitzarian dagoelako eta erabiltzaileak egiten duen bakarra, atzeko ate batetik sartuz, eta hor dituen formularioak betetzea da, **maketatzen** burua hausten ibili gabe. Berria - Harian

Aurten, **maketatu** ondorengo pantailan idatzi dugu zuzenean... Berria - Kirola

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Orain arte ezagutu izan diren web orriak **maketatuak** ziren, CTP programa bidez Interneteko edozein helbidera igotakoak. Berria - Harian

## maketatxo *iz* *adkor* maketa.

Lehenengo **maketatxo** bat egin beharko genuke... Unai Iturriaga

## maketatzaile *iz* maketatzen duen pertsona.

Bala batean **maketatzaileak** poetaren izena jarri du, eta bestean liburuaren definizioa, 'antologia' delakoa. Pako Aristi

## maketazio *iz* aldizkari edo kideko baten maketa egitea.

Bere **maketazio** modernoarekin, gehien bat gazteeri itzulia den aldizkari bat da, 52 orrialde koloretsuekin. Herria

Esan dezadan dena, baina: **maketazioak** laguntzen zuen etena egiten. Iñigo Aranbarri

Elena Odriozolak, ilustrazioen eta **maketazioaren** egilea, aparteko lana egin du liburu guztian zehar. Berria - Kultura

Ikasmaterial paregabe horren **maketazioa** Xabier Elizondo gazteari zor diogu. Herria

Jorge Oteizak **maketazioarekin** izaten zituen borroken lekukotasuna. Berria - Kultura

Imanol Tapiaren ardura izan da **maketazio** berri hori. Berria - Kultura

## maketero *iz*

Horretarako, honako hauek izango dira: talde **maketeroen** kontzertuak, kultur sorkuntzaren aldeko kanpaina, film laburren ikuskizunak, breack-dance erakustaldiak, komiki tailerrak... edozein gaztek sorkuntzan parte har dezan bultzatzeko. Berria - Euskal Herria

## maketo 1 *iz* espainolak izendatzeko irain hitza.

Bai **maketoa**, galtzak eta jaka ikustea besterik ez dago. Jon Maia

**Maketo**, hezur-beltz eta marikoi bezalako hitzekin, memoriaren ganbarara zigortu dira. Iñigo Aranbarri

Zer gehiago ez zituen esan ordea, **maketo** ahozabal urde horrek! Patziku Perurena

Behin greba bat antolatu ziotenean langileak bota eta kanpoko eskirolak ekarri zituena Gaztela aldetik, nahiz eta aurretik sindikatuen kontra aritu beti **"maketoz"** beteta zeudelakoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Babes ofizialeko etxeak ziren [...] langile jendearentzat, gu bezalako **maketoentzat**-eta eginak baitziren, herriaren kanpoaldean. Jon Maia

Nahiago zuela hemen euskotarrek norvegiera ikastea **maketoek** euskara ikastea baino. Berria - Euskal Herria

### 2 irud/hed

Denek frantses eta espainol **maketoek** erroz gora suntsitzen zuten Aberriaren bihar edo etziko esnatze biolentoa auhenkatzen, amesten, asmatzen eta iragartzen zuten.

Itxaro Borda

### 3 (izenondo gisa)

Bijoa zakurraren salara euskera gabeko Euskadi **maketua**. Berria - Harian

## makets 1 *izond* kamutsa.

Estatua biluzi bat aldagelaren erdian, txatarra xafra batek jo zuen zorrotzez haragi hartan eta ez zuen **maketsik** egin ahal izan. Koldo Izagirre

### 2 irud/hed

Baziren makartzuak, erbi ezpainje erorikoak, hankaje bihurrikoak, eta beste zernahi alderdi **maketseko** eta itsusikoak. Patziku Perurena

Neroni ere harrigarri zitzaizkidan buru betidanik **makets** horretan aldian-aldian distiratzten ziren adimen-txinpartak. Aingeru Epaltza

Erretorikarako **maketsa**, ni. Aingeru Epaltza

## maketu, make, maketzen da/du ad

Eskerrak gazte jendea gogor datorriguna, bestela zarrakaitik zaharregatik eta azinokoagatik Acción Nacionalista Vasca, kakazarra... zearo daude **maketuta**, eta ez dute besterik nai agintaritzat baina, ez noski Euskadiren onerako, euren probetxurako baizik **Berria - Harian**

## maki (orobat makis) 1 iz Espainiako gerra zibila bukatu ondoan Franco jeneralaren kontra sasian jarraitu zuen gerrillari erakundea.

**Makiak** bake orokorra onartzen ez zuten gazte buru-beroz betetzen ari zirela erraten zion Wernerrek. **Itxaro Borda**

**Makien** «duintasuna eta memoria» berreskuratzeke eskatu dio IUN-NEBek Nafarroako Parlamentuari. **Berria - Euskal Herria**

**Makien** borroka. **Berria - Euskal Herria**

36ko gerraren ondoren faxismoaren aurka borrokatu ziren **maki** nafarren oroimena aintzat hartzeko. **Berria - Euskal Herria**

7 edo 8 aleman hil ziren, beste hainbeste **maki**, eta zibilak orokorki bi aldeetako soldadoak bezainbat gütinez, orotara 34 hil ene jakinean. **Herria**

Nazien aurka Bigarren Mundu Gerran **makis**-eko kidea zena. **Berria - Kultura**

Paristik etorritakoek ehizaldi gogorak antolatatu dituzte mendietako **makisean**. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Floren **makian** dabil Frantzian. **Koldo Izagirre**

Auvergne-ko **makian** preso hartua, Dachau-n zegoen. **Marzel Etxehandi**

### 2 (hitz elkartuetan)

**Maki** taldeka bat hogeita zombait behirekin. **Herria**

## makiabeliko ik makiaveliko.

## makiabelismo ik makiavelismo.

## makiaveliko (orobat makiabeliko) izond N. Maquiaveloren filosofia politikoari dagokiona; helburuak lortzeko maltzurkeria, zurikeria eta leialtasunik eza erabiltzen duena.

Abilezia **makiavelikoa**. **Berria - Mundua**

Hamida kolerak zurbildurik entzuten ari zen, eta hitzak hotz eta **makiabelikoak** ziren, eta ez zuten sentimenduen aztarrenik ttikiena ere agertzen. **Patxi Zubizarreta**

Konplotaren arrazoia **makiabelikoak** azaldu gabe. **Karlos Linazasoro**

Mahai Nazional "zahararren" askapena Mayor Orejaren jokaldi **makiavelikoa** zatekeen, HBko buruzagitza "berriaren" irekiera-prozesua oztopatu nahian. **Iban Zaldúa**

ETA desbideratu egin dela, askapenaren etikatik etika **makiavelikorantz** igaro dela, herriaren batasunaren aurka. **Berria - Kultura**

Eta bakartasun sistema hain da **makiabelikoa**, non eguneroko bi ateraldi horiek, goizekoa eta arratsaldekoa, ez diren sekula ordu berean. **Filipe Bidart**

## makiavelismo (orobat makiabelismo) iz N. Maquiaveloren filosofia politikoia; helburuak lortzeko maltzurkeriam zurikeria eta leialtasunik eza erabiltzea.

Hasiak gara **makiavelismotik** sendatzen, eta egunez egun sendatuko gara. **Iñaki Iñurrieta**

Hotzean kalkulutatuko sarraskia **makiabelismo** politikoaren ondorioa izan zen. **Berria - Mundua**

## makiavelotiar (corpusean maquiavelotiar soilik) izond N. Maquiaveloren filosofia politikoari dagokiona.

Horregatik, "**maquiavelotiar**" edo "hobbesiar" hitzak erabiltzen direnean ez zaio justiziarik egiten ez batari ez besteari (Diderotek berak eskaini zion Entziklopediaren sarrera oso bat *hobbisme* hitzari!) . **Esteban Antxustegi**

## makila (orobat makil g.er.) 1 iz zurezko zati zuzena, biribila eta luzea, bereziki (ik beherago10) ibiltzean lagungarri gisa. ik zotz.

Lockhart zutitzen ari zen, arnasestuka, Ronen **makila** eskuan zuela. **Iñaki Mendiguren**

**Makila** ez zuen makulutat erabiltzen (ez zuen beharrik), baizik eta alaikiro jiraka erabiltzeko airean. **Juan Garzia**

**Makila** bat behar baitu lagungarri. **Juan Kruz Igerabide**

**Makila** batez lagundurik, urrats motelez mugitzen da, kapela beste eskuan. **Imanol Zurutuza**

Gus nekez altxatu zen eta herrenka hasi zen bulegoan zehar urrezko heldulekua zuen **makila** batean bermatuta. **Lopez de Arana**

Lantza eskuan neukala ohartuta, haren **makilan** bermatu nintzen. **Alberto Ladron Arana**

Kokotsa bere **makilaren** zilarrezko heldulekuan ezarri zuen. **Lopez de Arana**

-Maiestate, berorrek **makilari** kirtenetik gogor eutsi, eta horrekin jo behar du pilota. **Patxi Zubizarreta**

Kartel handi bat, bi **makila** luzek eutsia. **Joan Mari Irigoien**

-Aizu, mutil -koronelak **makila** astindu zuen-, eskatu zalgurdi bat, mesedez... **Lopez de Arana**

Sugea **makila** bihurtu zen berriro haren eskuan. **Jose Antonio Mujika**

**Makila** bat zekarren bidelagun. **Juan Garzia**

Bigarren lehia **makilarekin** zen, ea nork botatzen zuen **makila** urrutiago. **Bernardo Atxaga**

Salabardoaren **makila** fusila balitz bezala apuntatuz. **Joseba Sarrionandia**

Euskaldunok, bestalde, sarri erabili izan dugu gorostia **makiletarako**. **Pello Zabala**

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zorutik **makila** luze bat hartu zuen, pordoi bat ere izan zitekeena. **Joan Mari Irigoien**

Herri guzia kurrutu zuen garrote edo **makila** lodi bat airean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hartu du **makila** sendo bat eta joan da gauean lagunaren etxe ondora. **Gotzon Garate**

Gure **makila** mehekin sasiak ebakiz. **Koro Navarro**

Tatariar haietako batzuek **makila** zuri bana zeramaten. **Karlos Zabala**

Tinko heltzen zion agureak **makila** landu baten bolizko eskutokiari. **Jon Muñoz**

Harryk bere **makila** magikoa hartu zuen berriro. **Iñaki Mendiguren**  
Jenialtasuna behin-beitiko dohaina zen, ipuinetako amandreek **makila** miresgarriaren ukituarekin eransten zituztenak bezalakoak. **Bernardo Atxaga**  
Belarraren **makila** zaintsuak agerian utziz.Hiltzera kondentatzen duela legeak, [...] erregeak berak barkatzen ez badio, behintzat, urrezko **makila** haren gainera luzatuz.  
**Juan Garzia**  
Emakumeak semea izan zuen, herri guztiak burdinazko **makilaz** gobernatuko zituen. **Elizen arteko biblia**  
Haurrak soldaduen alboan zihozten, zintzi-zanpa; batzuek paperezko kapela eta guzti, besteak zurezko **makilak** sorbaldetan. **Mirentxu Larrañaga**  
Kanaberazko **makila** hori, zilarrezko eskutokiduna. **Matias Múgica**  
-Ikusiko duzu kotoizko **makila** den ala zementuzko zutabea. **Juan Kruz Igerabide**  
Zumezko **makilak** gara gaztetan, eta oroimenez betetako otarrekin amets egiten duten arbolak zahartzaroen. **Pako Aristi**  
Ez dutela zakutorik, ez poltsarik, ez ogirik, ez biderako **makilarik** eraman behar. **Askoren artean**

### 3 (norbait edo zerbait jotzeko erabiltzen dena)

-Zakurra ote nauk ni, **makila** hartuta niregana etortzeko? **Jose Antonio Mujika**  
**Makilarekin** saihestak berotu. **Pablo Sastre**  
Ondo esertzeko eta baxu hitz egiteko agindu zigun, bestela **makila** dantzan jartzeko prest zegoela eta. **Pedro Alberdi**  
*ik beherago* 12. **Askoren artean**  
Golfeko **makila** herdoilduak, makinaria industrial erabiltzeko. **Harkaitz Cano**  
Egun beisboleko **makilak** bezalatsu. **Patziku Perurena**  
Eskularru-pare sendoa jantzi, **makila** adabegitsu handi bat hartu eta liburu izugarrien kaiolako aterantz abiatu zen. **Iñaki Mendiguren**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mespretxu eta irain guziren gainetik, eraso legal eta judizialen azpitik, **makil** puska bat ibili da eskuz esku, gibeletik mundu bat bilduz. **Herria**  
Negar gasak, **makil kolpeak** eta ostikoak erabili zituzten jendea eskaileretan behera jaurtikiz. **Berria - Euskal Herria**  
*ik beherago* 15. Ez batak ez besteak ez zeramaten armarik, baina **makila** -zartakoka animalia amorratu haietako hiru garbitu zituzten. **Koro Navarro**  
**Makila** -soinuak hasi dira gero, zerbait puskatzen edo norbait jipoitzen ari balira bezala. **Anjel Lertxundi**  
Entzun du bat-batean **makila** -txikitze ederra sasi artean. **Pako Aristi**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Uste dute hiltzaileak berdin erabil lezaakeela beisbol-**makila** bat, edo labana. **Jon Alonso**  
Maskaratuak eta base-ball **makilak** eskuetan zatxizkatela etorri ziren gauerdiko aldera. **Itxaro Borda**  
Golf **makilak** eramateko poltsa eder bat. **Joxemari Iturralde**  
Irudiko jokalariek bola jotzeko prest zeuzkaten billar-**makilak**. Handik goiti, haren emazteak zuen alkate-**makila**. **Jose Morales**  
Ez da Judarengandik aldenduko, errege-**makila**, ez haren belaun arteak, aginte-**makila**. **Jose Antonio Mujika**  
Eliz-soinekoak, apezpiku **makila**, eta apezpiku burukoak. **Marzel Etxehandi**  
Parisen eman zuen boladan ikaragarri gozatu zuen itsu-**makila** hartuta metroan, bagoiz bagoi, itsu eskalearena eginez. **Harkaitz Cano**  
Erromes-**makila** bazter batera jaurti, eta esan zuela: "Aski duk! **Jose Morales**  
Erromesak kantari zihozten, bidai **makila** eskuan. **Karlos Zabala**  
Anbiguotasunaren eremuetan ibiltzeko bide-**makila** da literatura. **Anjel Lertxundi**  
Totem-**makila** bat zen masta, arranoak ziren hegazkina. **Irene Aldasoro**  
Bere hanka-**makila** haragi-koskor batean amaitzen zen, bost azazkal koxkekin. **Anton Garikano**  
Ehun leka-**makila**, perrexil txorta eta txerri txiki bat. **Edorta Agirre**  
Zelula berriak gehitu ahala, hezur-**makilan** ekoizitako hezur berriak hartzen du zelula zaharren lekua. **Irene Aldasoro**

### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, zuhaitz izen baten eskuinean)

Gaztea zen, inor ez zuen ardurapean, gaztaina **makila** izan ezik. **Felipe Juaristi**  
Antzinako lizar-**makilak** borrokalariren lantzak ziren. **Pello Zabala**  
Hobe likek haritz **makila** bat hartu, eta, emazteak amore eman arte, ukaldika birrinduko balu. **Patxi Zubizarreta**  
Urritz **makil** dotore bat. **Patziku Perurena**  
Eskuan agintezko gorosti-**makila** duela. **Pello Zabala**  
Erromako kontsulak, kargua hartu behar zuenean, aurretik zihozten liktore deitu 12 zaindari haietako bakoitzak urki-**makila** bana zeraman. **Pello Zabala**  
Aitak sarritan uxatu ohi zituen orubetik bere elorri-**makilarekin**. **Irene Aldasoro**  
Eta kanabera-**makila** haiek, nork esango, burdina bezain sendoak ziren. **Anton Garikano**

### 7 (erkaketetan)

Harry Blount, **makila** bezain xuxen, besteengandik pixka bat bakandurik zegoen. **Karlos Zabala**  
**Makila** bezain zurruna, oihaletik jalgitzen zen, deabrua kutxatik bezala. **Monika Etxebarria**  
Aurrealdeko hankak danbor-**makilak** bezain tente. **Itziar Otegi**

### 8 begian, konoekin batera erretina osatzen duten luzakinetako bakoitza.

**Makiletan** -gau-ikusmenerako erretinak dituen zelula sentikorretan, alegia- [...]. **Irene Aldasoro**  
Erretinan argiaren aurrean lehenik erreakzionatzen duten egiturak bi motatako zelula txiki batzuk dira: konoak, argi bizitan funtzionatzen dutenak, eta **makilak**, argi moteletan abian jartzen direnak. **Irene Aldasoro**  
Konoak gaiturik daude kolore-ikusmenerako, baina ez hala **makilak**; horregatik gertatzen da esaerak dioena: gaeuz, katu guztiak beltz. **Irene Aldasoro**  
**Makilek** eta konoek pigmentu molekularak dituzte (4 milioi inguru **makila** bakoitzak); molekula horiek badute gai bat, errodopsina, argi-quantumak zurgatu eta erreakzio kimiko beste bi substantziatan deskonposatzen dena. **Josu Zabaleta**  
Ikusmen atalase minimoa lortzeko, gehienez ere 1/10 segundoren tartean kontzentratu behar du erretinara bidalitako argiak, eta gehienez ere 500 makilako eremu batean hedatu, ardatz optikotik -**makilak** ugarien diren lekutik- 20º ingurura. **Irene Aldasoro**  
**Makilek**, berriz, ez dute funtzionatzen unitate bakun gisa, baizik eta sortaka elkaturik konektatzen zaizkio ikusmen-nerbioari. **Irene Aldasoro**

### 9 endreda-makila (orobat endredamakila) izond

Feminista erradikalen diskurtso topikoa, Helena **endreda-makilak** kutsatua. **Patxi Iturritegi**  
**Endreda-makila** hutsa haiz, beti habil bazterrek nahasten. **Mirentxu Larrañaga**  
Eta zu "**endredamakila** bat", bere aferetan sudurra sartzen segituz gero zeure neurriko zapata aurkituko zenuena. **Aingeru Epaltza**

### 10 esku-makilasup\_1 ibiltzean euskarri edo lagungarri gisa erabiltzen den makila.

**Esku-makila** polita zuen, marfilezko heldutokikoa. **Fernando Rey**  
Egun hartan hara etorritako behartsu bati kapela eta **esku-makila** eskatu zizkion maileguz. **Askoren artean**  
Urte horrexetan, itsuentzako eskola batera bidali zuten; han, braillez irakurtzen ikasi zuen, eta **esku-makila** erabiltzen ohitu zen. **Xabier Olarra**  
Pentsatu nuen maleta hura **esku-makila** edo erlojuaren antzekoa izango zitzaioela, bere gorputzaren eranskin bat. **Bernardo Atxaga**

### 11 esku makila<sup>2</sup> ik eskumakila.

### 12 makila dantza (orobat makil dantza) makilekin egiten den dantza.

Plazan, goizean bezala dantza mota guztiak emaiten dituzte, nexkatoek ere kontradantzak, eta makilariak **makila dantza** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

18:30ean herriko plazan talde bakoitzak **makila-dantza** bana egingo du eta Pedro Santosi omenaldia egingo diote. Berria - Kultura

Hura gogoratu nahirik, **makila-dantzen** jaialdia antolatatu dute Ablitasen. Berria - Kultura

Elizatik haste, zintzur bustitze eta beste, tronpeta, xixtu, **makil dantza** , kantu. Herria

### 13 **makila dantzatu** makilaz jipoitu.

Zakurra hezteko, dena den, **makila dantzatzea** bide erabat okerra dela esaten dute bai Gorkak eta bai zakur-. Gotzon Garate

Etxeko norbaitekin haserretzen nintzenez, gazteluko nescame lapur edo soldadu gaizkile bihurtzen nuen, eta **makila dantzaten** nuen haren bizkarrean. Anjel Lertxundi

### 14 **makila ferratu**

Panticosa bortuko menditarren gerriko bat, zurezko **makila ferratu** bat, espartinak, eta lruñeko bi mando-manta. Koldo Izagirre

Ez zuten armarik erabiltzen ahal ( **makil-ferraturik** ere ez). Herria

Hire **makila ferratuarekin** emaiok igurikatzen duen zafraldia! Itxaro Borda

Aurten Jakes da saristatua, **makila ferratu** bat eman dako Baionako auzapezak, hoinbeste lan egin duelakotz, gure kulturaren alde. Herria

*irud/hed* Xu-ka ari zitzaidanan: xauri putill xure **makila ferratua** non ezar eakutsiko dautxut. Itxaro Borda

### 15 **makila salda** (orobat **makilasalda**) *adkor* jipoia.

**Makila** -saldak gutxiri egiten dio mesede. Gotzon Garate

Bestela, badakik zer daukadan hirezat: **makila** -salda ederra! Jose Morales

Atzo goizean Zubi Esekian jarritako hitzordura joan ninduan, eta gero pisura... beraz, esaidak helbidea berandu baino lehen, bestela badakik... **makila-salda** berriro. Rafa Egiuren

Bitartean, esandakoa, **makilasalda** . Hasier Etxeberria

### 16 **makila ukaldi** (*corpusean makil ukaldi soilik*) ik **makilakada**.

Presondegiko nagusiak erran zien bakoitzak ehun **makil ukaldi** ukanan zituela bizkarrean. Iziturik, gizona zeinatu zen eta eman zakon errebesetik **makil ukaldi** bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zakurrak ehausika aztaletan ekarriko dute, orduan bilduko baitu **makil ukaldi** ederrik. Marzel Etxehandi

Dorai-ko bidetik sartu eta, Munoko lepoan eman bide zakon **makil-ukaldi** bat gaitza. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

### 17 **makila ukaldika adlag**

Kalean belauniko zeuden musulmanak **makila-ukaldika** garbitzen zituzten hinduek. Gotzon Garate

Harkiek **makila ukaldika** kalituriko FLNko errebeldeak. Itxaro Borda

Haurra base-ball **makila ukaldika** zitzikatuko zuten segur aski. Itxaro Borda

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esku makil (11); makil dantza (4); makil ukaldi (6)

aaronen makila (6); aginte makila (43); arraun antzeko makila (3); egurrezko makila (4); endreda makila (3); errege makila (12); esku makila (14); eskuan makila (10); euskal makila (5); gorosti makila (9); harryren makila (11); hartu makila (3); hurritz makila (6); hurrondo makila (4); itsu makila (4); jainkoaren makila (6); kanaberazko makila (3); kandela makila (8); kapela eta makila (4); kotoizko makila (3)

makila airean (4); makila altxatu (5); makila astindu (7); makila baten laguntzaz (3); makila baten puntan (4); makila beltza (3); makila besterik ez (4); makila dantza (3); makila dantzen (4); makila dantzen biltzarra (3); makila eder bat (3); makila eman (6); makila erabiltzen (3); makila eskuan zuela (3); makila eskuetan (3); makila gisa (3); makila handia (3); makila hartu (26); makila hartu zuen (5); makila harturik (3); makila hartuta (7); makila jaso (4); makila kendu (3); makila luzatu (6); makila luze (10); makila luze bat (3); makila luzeari eragiten (3); makila magiko (13); makila magiko zaharra (3); makila magikoa (127); makila magikoa altxatu (9); makila magikoa astindu (4); makila magikoa atera (33); makila magikoa eta (5); makila magikoa hartu (3); makila magikoa hartzeko (3); makila magikoak (20); makila magikoaren (16); makila magikoaren muturretik (7); makila magikoari (11); makila magikoaz (22); makila magikoen (3); makila magikorik (4); makila magikotik (4); makila sorta (3); makila suge bihurtu (3); makila txiki (6); makila txiki bat (3); makila ukaldika (4); makila zeraman (5); makila zuri (5)

nork bere makila (3); ohorezko makila (8); ronon makila (6); snaperen makila (3); urrezko errege makila (4); urrezko makila (7)

lizar makilak (3); makilak eskuetan (4); makilak hartu (5); makilak hartuta (3)

makilan bermatua (4); makilan bermaturik (4)

makilaren gainean (3); makilaren puntan (3); makilaren puntaz (3)

aginte makilaz (3); burdinazko makilaz (5); burdinazko makilaz gobernatuko (3); ezpataz eta makilaz (3); makilaz etorri zarete (3); makilaz gobernatuko (3); makilaz jo (10); smeltingseko makilaz (3)

burdin makilez (3)

## makilada iz makilakada.

Buruan eman zidaan lehen **makilada** . Joan Mari Irigoien

**Makilada** batzuk eta bertze anitz penitentzia manatu zizkion. Joan Mari Irigoien

Haien marmar ferekatiak oso ezberdinak dira etxean bakarrik uzten dituzteneko zaunken aldean, edo, gorputza tatarrez, **makiladetatik** ihesean daramatzaten auhunen aldean. Xabier Amuriza

Arimaren erdi-erdian emaniko **makilada** . Markos Zapiain

## makiladun izond makila duena.

Hori esanik, haren atzetik joan ziren errege **makiladun** guztiak. Juan Kruz Igerabide

Agure **makiladunak** besteari eman zion bere kanaberazko makila. Patxi Ezkiaga

Ez du zurezko makilak hartzen zurezko ez den **makiladuna** ! Elizen arteko biblia

Atsedendian, izozki **makiladunex** asebetetzen zirela. Jon Muñoz

## makilaia ik makillaje.

## makilaje ik makillaje.

## makilaka adlag makila ukaldika.

**Makilaka** emango ziotela. Koldo Biguri

Oilo bati harrika egin ziotelako, edo zakur bat **makilaka** jo. Koldo Biguri

Ikusi zuten mandazainek beren behorrei egiten zitzaien indar-jokoa eta makilak hartuta joan ziren eta **makilaka** eraso zioten. Patxi Ezkiaga

Ate joka eta oihuka hasi zen, eta emakume batek, jakaz eta kapelaz jantzita, **makilaka** bidali zuen korridoretik. Koro Navarro

Saihets-hezurrak **makilaka** hebainduko balizkizukete. Patxi Ezkiaga  
Ez dakit zer den ohorea txinatarrentzat, gauza guztiak **makilaka** konpontzen baitituzte. Juan Martin Elexpuru  
Jende doilorra zen, izengabeko jendea, herrialdetik **makilaka** jaurtikia. Elizen arteko biblia  
Alderdi Popularreko kide ohia eta faxistek **makilaka** bizkarra hautsia. Juan Garzia

## makilakada *(orobat makilkada g.er.) iz makila ukaldia.*

**Makilakada** bat lepoan, beste bat bularrean. Urtzi Urrutikoetxea  
Sekulako jipoia eman zidaten: **makilakadak**, ostikadak... Berria - Euskal Herria  
Badirudi mila **makilakada** eman dizkidatela. Patxi Ezkiaga  
Eman dio, jo ahalean, izugarritzko **makilakada** bular-bularrean indioiloari. Gotzon Garate  
Ostera barrutira sartzen zuten presoak, saihetsetan 40 **makilakada** emateko agindupean. Jokin Urain  
**Makilakada** galanta eman zion. Koldo Biguri  
Bere gogoz zihoan **makilakadak** hartzera, Frisiarren legeak sos erdia besterik ez dio ematen kalte-ordainetan **makilakadak** jaso dituenari. Elizen arteko biblia  
Seina **makilakada** bakoitzari. Mirentxu Larrañaga  
Horrelako eskaerei **makilakadaz** erantzun behar zaiela uste duten txorimaloen harrokeriatik oso urrun nago ni. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
Behin odola garbituta, **makilakaden** ubelak besterik ez zituan geratzen. Josu Zabaleta

## makilakadaka *(orobat makilkadaka g.er.) adlag makilaka.*

Ramon Rumaya, Urduñako abokatu kriminalista, **makilakadaka** hil zuten Larrinagako kartzelan. Jokin Urain  
**makilakadaka** atera zituen demoak Baionako auzitegitik. Berria - Euskal Herria  
Lazoan harrapatutako basurdea **makilakadaka** akabatzen ikusi genuen behin. Jon Alonso  
Bera eta bere ahizpak **makilakadaka** erabiltzen dituen osaba Bihariri, burua harri handi batez leherrarazi egiten diola amets egiten du. Pablo Sastre  
· Liburuan barrena jo eta ke dabil **makilakadaka**, kritikatu dutenengandik defendituz. Markos Zapiain

## makilakatu, makilaka(tu), makilakatzen *(orobat makilkatu) 1 du ad makilatu.*

Jimmy Parsons **makilakatu** du lehenik, eta Jimmy oihuka aritu da aldi berean: [...]. Mirentxu Larrañaga  
Hiru aldiz **makilakatu**, behin harrikatua, hiru aldiz hondoratu zen ninderaman itsasontzia, eta gau-egun osoa eman nuen itsasoan galdurik. Elizen arteko biblia  
XVII eta XVIII. atalburuetan, berriro **makilakatu** eta jipoitua izan ondoren, "Fierabraseko baltsamoz" sendatu nahiko ditu Don Kijotek bere zauriak. Patxi Ezkiaga

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Zakur **makilakatu** bezala! Karlos Linazasoro

## makilakazo *iz adkor makilazoa.*

**Makilakazo** bat edozein makilarekin eman liteke, baina gorosti-makila denean [...] orduan kastigu beharraren seinale izanen da. Pello Zabala  
Zé marsellarra, Maïs (Ttomatték buruan **makilakazoa** jotako kaskoia), René zuberotarra. Pablo Sastre

## makilari *iz makilekin jolasean ari den dantzaria.*

Aurten baziren hiru **makilari** ttipi eta hiru **makilari** haundi eta, denetara, ehun eta zortzi dantzari. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Plazan, goizean bezala dantza mota guztiak emaiten dituzte, nexkatoek ere kontradantzak, eta **makilari** makila dantza. mutxikoak eta **makilariak**, elizako plazan 16etan, Karro ibilaldia karrketan 17 eta erdietan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
**Makilaria** genuen François Lucu bitindarra. Herria

## makilasalda ik makila 14.

## makilatu, makila(tu), makilatzen *(orobat makildu g.er.) 1 du ad makilaz jo, makila ukaldiak eman. ikmakilakatu; makilaztatu.*

Ziegak urez nola betetzen ziren itsasgoretan, gerran presoak nola **makilatzen** zituzten, nola ateratzen zituzten "paseoa" ematera... Jokin Urain  
Dena den, ez nuen berori **makilatu** Jaungoikoaren ministroa delako, aurkari politikoa izateagatik baizik. Koldo Biguri  
Agian urkatu egingo zaituzte, **makilatu**, laurdendu, erdibitu, bizirik erre. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
**Makilatu** orde, mintza hakio gozo. Xabier Montoia  
Zakur zapuztuak noraezean dabiltzalako eta inoren babesik ez dutelako, **makilatuak** izaten dira maiz. Gotzon Garate  
Makila tresna iraingarria zela, **makilatutako** gizona bilauak bezala tratatua zelako. Iñaki Iñurrieta  
Behiek tiratako gurdietan abiatzen ziren herriko plazatik olibondoetarantz, eta **makildutako** olibondoari olibak nora erori zitzaizkion ikustea ezinezkoa zenean bukatzen zuten eguna. Jon Maia

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Zakur **makilatuaren** etsimendua. Aingeru Epaltza  
Txakur **makilatuaren** ibilera abailduarekin desagertu zen gure bistatik. Anjel Lertxundi  
Argi dago, beraz, nire antzera norbaitek ez bazekien, ezetsia eta gaitzetsia zebilena ez zela gudari ausarta, baizik eta gure hizkuntza maitatu eta **makilatu**. Xabier Mendiguren Elizegi

## makilatxo *(orobat makiltxo g.er.) 1 iz makila txikia.*

Ondoren, Ateneak bere **makilatxoaz** ukiturik, gorputza uzkurtu zion, larruzala zimurto, adats horiak desagerrarazi, eta begi ederrak makarrez bete. Juan Kruz Igerabide  
Batzuetan, bi txanpon hartu, eta **makilatxo** edo burdin ziri bat sartzen nien zuloetatik. Joan Mari Irigoien  
Marfilezko **makilatxoak** erabiltzen zituen Hori Chuik zizt egiteko. Javi Cillero  
Zurezko **makilatxoak** moztzen eta leuntzen ari zen lanabes-kirtenak egiteko asmoz. Joanes Urkixo

**Makilatxo** magikoaz ukitzen hasiko zitzaidala. [Juan Kruz Igerabide](#)

Zaldia zirikatzeko eta astintzeko **makilatxoak** ere lizar-adarretatik hartuak ohi ziren. [Pello Zabala](#)

Erdi Aroan oraindik, hurrizteko **makiltxo** batekin saiatzen baitziren lurpeko urbegiak eta urremeatzak bilatzen, horretan dohai bereziak zituzten aziak. [Patziku Perurena](#)

Hegaztien gorozkiak biltzeko **makilatxoak**, gorozkiarekin nahasteko substantzia bat, eta nahasketa egiteko ontzitxo bat. [Berria - Gaiak](#)

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kale are estuago batera jiratu eta ezker-eskuin begiratu ondoren lasto **makilatxo** osaturiko errezele zeharkatu zuen emakumeak. [Harkaitz Cano](#)

Hurriz-**makilatxo** puskatuz gero. [Pello Zabala](#)

Asmaketa-**makilatxo** erabiltzen duena metal baiotsuak ergelen patriketan bilatzeko. [Xabier Olarra](#)

Laranjondoeko gozoki-**makilatxo** bat. [Mirentxu Larrañaga](#)

Intsentsu **makilatxoak** erretzen. [Javi Cillero](#)

Kartel baten azpian eseri ziren eta Ruthek Jimmyri ogi-**makilatxo** batez kartel hura seinatu zion. [Lopez de Arana](#)

## 3 erretinako makila. ik makila 8.

Barnekoak argiarekiko sentikorrak diren bi zelula-mota (konoak eta **makilatxoak**), odol basoak eta nerbio zelulak ditu. [Berria - Gaiak](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**makilatxoaz** ukitu (3)

## makilatzar *iz adkor* makila handia.

Eta berehala, bere **makilatzarraz** bere esanak markatzen zituelarik, kantari eutsi dio: [...]. [Txillardegia](#)

## makilazale *izond* makilaren zalea dena.

Izan ere, zertarako jasan luzaroago aita kabroi eta **makilazale** horren tratu txarrak, ezta? [Aitor Arana](#)

## makilazo *iz adkor* makila ukaldia.

Uhurika urrutiratu nintzen handik, hanka zainetan **makilazoa** hartutako zakurra bezala. [Bernardo Atxaga](#)

## makilazoka *adlag* makila ukaldika.

Sei pobre ere garbitu zituzten, kale gorrian lo egiten duten horietakoak, **makilazoka**. [Karlos Linazasoro](#)

Hilak, dudarik gabe, hilaraziak; ez berez hilak edo gaixo zeudelako, ez; **makilazoka**. [Karlos Linazasoro](#)

## makilaztatu, makilazta, makilaztutzen du *ad* makilatu.

Bittor eiheran egon zen eta egunero dorretxe aitazinean jartzen zen, tente-potente, Gehexan Jaureneak haren **makilaztazeko** eta handik haizatzeko agindua eman zuen arte.

[Elena Touyarou](#)

## makildu ik makilatu.

## makilgoxo *iz* erregalizaren sustraia, goxoki gisa miazkatzen dena.

Plazan zen Zeferino barkilleroa, **makilgoxoak**, sagar eta azukre karameluek, erroskilak, almendra lehorrak, gerezi-konpota, limoi ura eta koñaka agerian saltzen, jai handietan bezala. [Felipe Juaristi](#)

Agerikoak ziren **makilgoxoak**, sagar eta azukre karameluek, erroskilak, almendra lehorrak, gerezi-konpota. [Felipe Juaristi](#)

Han ibili zen neska txakurrarekin, batzuetan txoko miatzen, **makilgoxo** eta perretxiko bila, eta besteetan harriekin txipli-txaplaka ibai bazterreko ur uherretan. [Jokin Muñoz](#)

## makilka ik makilaka.

## makilkada ik makilakada.

## makilkadaka ik makilakadaka.

## makilkatu ik makilakatu.

## makillaje (*orobat makilaia g.er. eta makilaje g.er.*) 1 *iz* makillatzeko erabiltzen den produktua.

Ez zuen inolako **makillajerik** behar, ezta apaindurarik ere. [Jon Muñoz](#)

Ez zeraman **makillajerik**, ezpainetan margo gorriaren ukitu mehe-mehe bat izan ezik. [Oskar Arana](#)

Batzuetan, umore onez zegoenean, azaltzen zidan zer egin gizonei atsegin izateko, nola eman **makillajea**. [Juan Kruz Igerabide](#)

**Makillajea** antzez eta zehaztasunez zeukan emanda. [Oskar Arana](#)

Ordua iritsi denean **makillajerik** jarri gabe irten da lantokitik. [Eider Rodriguez](#)

Goizero, kontu handiz ipintzen zuen **makillajea**. [Juan Kruz Igerabide](#)

Ellen **makillajea** kentzen ari zen bitartean Harry ispiluan islaturik ikusi zuen. [Lopez de Arana](#)

**Makillajea** kentzeko krema. [Josu Zabaleta](#)

Ordu horretan gauzatxo zimir bat baizik ez da: tximak zintzilik, **makillajea** desegin, eta, begien inguruan, khol arrastoak bueltan-bueltan. **Eskarne Mujika**

Ilea apaindu, ukitu batzuk egin **makillaje**an, nire itxura lasai-lasai txukundu. **Karlos Zabala**

-Benetan ederra zaude jantzi horrekin eta **makillaje** horrekin! **Juan Kruz Igerabide**

Konparaziora, begi inguruko **makillajea**. **Fernando Rey**

Sorayak nezeser batean gordetzen du **makillajea**. **Oskar Arana**

**Makillaje** apurrak ezin dizkio zimurrak ezkutatu, ezta orrazkerak handik eta hemendik sakabanatutako ile urdinak ere. **Paddy Rekalde**

## 2 (izenondoekin)

Ez zitzaion gustatu **makillaje** itsaskor hura eta kentzeko eskatu zion. **Oskar Arana**

Leichner edergarrien erakustegi osoa, **makillaje** koipetsuak, arkatzak kolorez ordenatuak, zuk utzi zenituen bezalaxe. **Josu Zabaleta**

Aurpegia **makillaje** merkeaz koloreturik, lepoan azeri larru artifiziala daramala. **Pablo Sastre**

**Makillaje** adin-estaliak ezin du miraririk egin haren antigoaleko trazarekin. **Anjel Lertxundi**

## 3 makillatzea.

Haren masailetako gorria eta rimmela izan ziren, inolaz ere, nire lehen **makillajerako** erabili nituen tresnak. **Joxan Elozegi**

## 4 irud/hed

Egiazkotasuna islatu nahi izan dugu, **makillajerik** gabe, leialtasunez. **Berria - Kultura**

Ez zen erraza ulertzea zergatik jarri zen boladan Eguberrietan kaleetan zintziilikatzen zituzten argien kontra hitz egin behar setati hori: goizegi jartzen omen zituzten eta gogaikarri suertatzen omen zen azaroaren bukaeratik haiek jasan beharra; hipokrisiaren adierazleak omen ziren, **makillaje** hutsa, kontsumismoaren ikurra. **Harkaitz Cano**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Xakuto batetik **makillaje** lapitzak eta hautsak atera zituen eta begiak margotzen, masailetan ilununeak ezartzen hasi zen. **Iñaki Zabaleta**

Ile-lehorgailuak eta tanpoiak, **makillaje**-potoak eta ezpain-margoen hoditxoak. **Oskar Arana**

Bere **makillaje**-kutxatik, brillantinak eta kakao-gurinak isuritako usaina hedatu zen gelan zehar. **Lopez de Arana**

Aurpegian, **makillaje** geruza lodia. **Berria - Kultura**

Kemp zuzendari eta koreografoa da, baina baita jantzientzat arduradun eta **makillaje** arduraduna ere. **Berria - Kultura**

Batzordeak onartutako testua «asmo oneko adierazpena» dela uste du, eta, azken batean, «**makillaje** operazioa» besterik ez dela dio. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**makillaje hutsa** (3)

**makillatu**, makilla, makillatzen (*orobat makillatu g.er.*) **1** da/du *ad* larruazalean, bereziki aurpegikoan, kosmetikoak ezarri, hura edertzeko, margotzeko edo akatsen bat estaltzeko.

Ez nintzen **makillatzen**, ez nuen rimmel ematen, ez eta begi-itzalik ere. **Joxan Elozegi**

Pixkanaka, hormonak hartzen hasi nintzen, emakumeak bezala janzen eta **makillatzen** hasi nintzen... **Berria - Euskal Herria**

Charly Koubesserian-ek **makillatzen** ditu jende haundiak, hala nola de Gaulle presidentia. **Herria**

**Makillatu** egin ninduen saltzaileak. **Joxan Elozegi**

*Bodypainting* gorputz biluziak **makillatzeko** arte lehiaketak zabalduko du. **Berria - Kultura**

Kamioiak etorri, kamerak ipini, aktoreak orraztu eta **makillatu** ostean, ordubetean filmaketa lanak hasteko prest izaten dira. **Berria - Kultura**

Zuriz **makillatzeko** ohitura zuen, Grimmen antzera. **Monika Etxebarria**

Zitzu bizian etorri da Ainhoa, galarako jantzia soinean eta goitik behera **makillatuta**. **Harkaitz Cano**

Soineko merkez jantzitako eta kolore biziz **makillatutako** emakume lodi batzuek. **Iñaki Zabaleta**

Bularretakoa kendu gabe oheratzen ziren, apain-apain **makillatuak** eta orraztuak, eta berdin-berdin jaikitzen ziren. **Karlos Zabala**

## 2 irud/hed

Kontraesan horiek **makillatu** edo ezkutatu ordez bere konplexutasun guztian erakusten ditu oroitzapen hauetan. **Berria - Kultura**

Bere datuak «**makillatzeko**» Osakidetzak egiten duen ahalegina azpimarratu zuen Izaskun Garikano ELAko Osakidetzaren arduradunak. **Berria - Euskal Herria**

Debatea da ez al gauden aurrerakoitasun faltsuen izenean **makillatu** nahi den arrazakeria baten aurrean. **Anjel Lertxundi**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Ondoan zuen berrogeitaka urteko emakume **makillatu** bati galdetu zion: [...]. **Unai Elorriaga**

Mahaitxoan artetik pasatzen ziren emakume **makillatu** ederrek irribarre egiten zioten Shevirev doktoeari. **Jose Morales**

Sekulako gaitasunak ezkututzen baitziren planta **makillatuegi** eta apainduegi haren azpian eta senar tripontzi erdi-inpotente haren ondoan. **Karlos Zabala**

**makillatzaile** *iz* makillatzen duen pertsona.

Erotu egin zuen atezaina, eta **makillatzailea** eta zuzendaria eta... **Harkaitz Cano**

Honen [de Gaulle presidentaren] **makillatzaile** ofiziala da, hari atxikia, zinez atxikia aitortzen duen arabera. **Herria**

**makillatze** *iz* larruazalean, bereziki aurpegikoan, kosmetikoak ezartzea, hura edertzeko, margotzeko edo akatsen bat estaltzeko.

Esaterako, **makillatzearen** kontra. **Berria - Kultura**

makiltxo ik **makillatxo**.

**makina**<sup>1</sup> (*orobat maxina g.er.*) **1** *iz* energia eraldatzen duen edo eraldatze horretaz baliatzen den tresna edo gailu multzo egituratua; hainbat tresna ez bakuni ematen zaion izena.

**Makinak** perfektoak eta leialak dira. **Antton Olano**

Mota honetako **makinari** *polipastoa* esaten zaio, polea askoren biraketekin lan eginez erraz eta azkar egiten delako lana. **Santiago Iruretagoiena**

Ingeniari batek, **makina** bat diseinatzen duenean, haren eraginkortasuna zenbaterainokoa den jakin nahi izaten du. **Irene Aldasoro**

Papiroan **makinak** marrazteari askietsi ez, eta eraiki egin zituen. **Jon Muñoz**

**Makina** eraikitzen den bitartean, probak ere egin ahal izango ditu eraikuntzaren hainbat fasetan diseinuaren baliozkotasuna probatzeko. **Irene Aldasoro**

Cirok **makina** abian jarri, palanka jiratu eta lurrikara gertatu zen. **Koldo Biguri**



**Makinari** Camel pakete bat erosi eta etxera. [Unai Iturriaga](#)

Transparentzien **makinare** motorra urrumaka hasi zen. [Jon Muñoz](#)

Hor daude hainbat erretratu, denboraren **makinako** ispilu mutu. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

**Makina** piztu, platera jiraka hasi zen. [Pablo Sastre](#)

**Makina** lanean hasi zen, kea botatzen eta intziri arraroak egiten. [Jon Maia](#)

Azkenean, **makinak** ere gelditu ziren behingoz, eta itsasontzi gainaldera igo ginen. [Mirentxu Larrañaga](#)

Liburutegiko kontrol-sarrerara iristen denean, **makinak** ez dio txartela onartzen. [Oskar Arana](#)

Niregana enfokatu zuen **makina**. [Bernardo Atxaga](#)

**Makina** bateko palankak balira bezala. [Fernando Rey](#)

**Makina** bateko pieza doi bat bere zuloan sartzen den bezala. [Karlos Zabala](#)

Itxuraren aldetik ez baitzirudien **makina**, eskultura minimalista bat baizik. [Iban Zaldua](#)

Esan ohi da Turingen **makina** dela lehenengo ordenagailu modernoa. [Askoren artean](#)

**Makina** askok kontrol-sistema automatikoak dituzte. [Irene Aldasoro](#)

**Makina** honek aldi berean jartzen ditu lanean 512 ordenagailu eta segundo bakoitzean gai da 12,3 milioi eragiketa egiteko. [Pello Salaburu](#)

Non dago billeteak eman dizkidan **makina**? [Itxaro Borda](#)

**Makina** horien erlazio guztiak jaurti behar den geziaren luzeraren arabera kalkulatu behar dira. [Santiago Iruretagoiena](#)

**Makina** bat da muskulua, baina ez motor termiko bat. [Irene Aldasoro](#)

Ordurako hurbiltzen ari zen tren lasterraren **makina**. [Fernando Rey](#)

*ik beherago* 13. [Askoren artean](#)

Ama Singer **makinan** ari zela, bere dendariekin josteko lanetan. [Ana Urkiza](#)

Galdara presiorik gabe dago, **makinako** pistoiak geldirik daude. [Koldo Izagirre](#)

**Makinako** eskaierara igo behar izan nuen, eta tren a abian jarri zen. [Fernando Rey](#)

Akerbeltzen sartu nintzen kafe bat hartzera eta **makinako** deskafeinatua aukeratu nuen. [Lander Garro](#)

**Makinaz** idazten duen munduko zimino bakarra. [Harkaitz Cano](#)

Batzuk boligrafoz, beste batzuk **makina**. [Iban Zaldua](#)

Atzeko Etxeko arauen **makina** kopia. [Josu Zabaleta](#)

## 2 (izenondoeekin)

**Makina** simple bat da palanka, oso ezaguna eguneroko bizitzan, puntu batean aplikaturiko indarrari beste puntu batean lan eginarazten diona. [Irene Aldasoro](#)

**Makina** berri bat ekarri zuten, kopiaizalea esaten zitzaiona. [Jon Maia](#)

Ohetik altxatzen naiz, **makina** herdoildu baten gisa. [Itxaro Borda](#)

**Makina** adimendunek hainbat eta hainbat eragiketetan ordezkatzen dute gizakia. [Iñaki Heras](#)

Billete bat **makina** banatzaile batean sartu eta txartel magnetiko bat jaso nuen. [Joxan Elozegi](#)

Ilea mozteko **makina** elektrikoak. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

**Makina** elektronikoko konplexu baten argizatze-sistemak. billetea erostera hango **makina** automatiko batean. [Irene Aldasoro](#)

*Machinatio* deitua, hau da, mekanika aplikatua eta **makina** zibilen nahiz militarren eraikuntza. [Santiago Iruretagoiena](#)

**Makina** hegalariai aingeru infernutarrek dira beraientzat. [Koldo Biguri](#)

Erregaia barneratu eta energia hainbat modutan erabiltzen zuen **makina** termikotzat harturik gorputza. [Irene Aldasoro](#)

- Enbarkazioa **makina** geldian joango da pal pal. [Joseba Sarrionandia](#)

## 3 (izenlagunekin)

Diru trukeko **makina** automatikoren bat. [Joxemari Iturralde](#)

Gerrako **makina** izugarriak dakartzate herrestan. [Jon Muñoz](#)

Galerak konpontzeko, langileak, itsasontziak, gerrako **makinak** edukitzeko. [Iñaki Iñurrieta](#)

Zerrategiko **makinak** itzalita zeuden. [Bernardo Atxaga](#)

## 4 (-tze

Izkina batean zegoen josteko **makina**, Sigma zahar bat. [Jasone Osoro](#)

Josteko **makina** martxan jarri du berrito. [Iban Zaldua](#)

16 mm-ko filmatzeko **makina** bat. [Josu Zabaleta](#)

Arropa garbitzeko **makina** baten tamainakoa. [Irene Aldasoro](#)

Karpeta bat eta erretratatzeko **makina** atera zituen poltsa batetik. [Josu Landa](#)

Uzta biltzeko **makina** batek moztu zion ezker besoa. [Anton Garikano](#)

Urtegirako zundaketak egiteko **makinak** sartzen saiatzen dira. [Edurne Elizondo](#)

Haragia xehatzeko **makina** mekaniko bat. [Karlos Zabala](#)

Esterilizatzeko, biguntzeko eta zukutzeko **makina** bat da urdaila, besteak beste. [Irene Aldasoro](#)

Hizki kaxa pare bat eta 1870eko inprimatzeko **makina** txiki bat zeuzkan, eta denda gainean "Moldiztegia" ipini zuen. [Koldo Biguri](#)

Txartelak ateratzeko **makina**. [Iñaki Zabaleta](#)

Txartelei data jartzeko **makina**. [Fernando Rey](#)

Egiak ekoizteko **makina** abian jarri ahal izateko. [Jon Muñoz](#)

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Teknologia erositza, saltzen zuen herrialdeko ingeniarietara eta teknikarietara egin, ezarri eta kontrolaturiko **makina**-sistemetan txertatua. [Koro Navarro](#)

Eta berarekin **makina**-lan hori egingo zutenak bera bezalako gizakiak izateak halako itxura berri, ezohiko eta gaiztoa ematen zien: espektroak ziren, [...] panpina mekaniko malgukidunak. [Jose Morales](#)

Ondoan, tinta-lata batzuk, eta **makina**-olio ontzi pare bat. [Txillardeggi](#)

Ni **makina** gelan nago, sentinako kiratsa baino lurrin betegarriagoan. [Koldo Izagirre](#)

Itsasontziko **makina**-aretoa bisitatu zuela. [Joxe Austin Arrieta](#)

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Begia miniaturazko argazki-**makina** batekin konparatu izan da askotan. [Josu Zabaleta](#)

Bizar-**makina** elektriko hartu nuen karteratik. [Joxe Austin Arrieta](#)

Kafe-**makina** itzaliaren ondoan, transistore txiki bat piztuta zegoen. [Pablo Sastre](#)

Tabako-**makinaraino** joan eta tabakoa erosi nuen. [Anjel Lertxundi](#)

Kalkulu-**makina** guztiz txikiak. [Joxan Elozegi](#)

Batuketan-**makina** berri zoragarri baten laudorioak kantatzen. [Xabier Olarra](#)

Balezta, eskorpioiak eta bestelako gerra-**makinak** eraikitzen eta konpontzen. [Santiago Iruretagoiena](#)

Laura Whitmore andereñoa, *Drop Forge and Tool Works Whitmore* forja eta erreminta-**makina** lantegikoaren senitartekoa. [Mirentxu Larrañaga](#)

Diesel-**makina** eta lau bagoi, aire egokitu eta guzti. **Joxe Austin Arrieta**  
Espresso-**makina** baten ziztua. **Joxe Austin Arrieta**  
Giltzurrun-**makina** ahal den guztietan gaixoaren etxean jartzearen aldekoa da gaur egungo politika. **Irene Aldasoro**  
Futbolin **makina** bat ere sumatzen zen han bazter batean ilunpean. **Joseba Sarrionandia**  
Nire gorputza atsedenean dagoen doitasun-**makina** bat balitz bezala sentitzen dut. **Monika Etxebarria**  
Ezker-eskuin geratzen diren dorreetatik etsaiari aurre egingo zaio eskorpioi-**makina** eta bestelako jaurtikiekin erasoz. **Santiago Iruretagoiena**  
Bihotz-birika **makinak** bi zati nagusi ditu: ponpa bat, odola mugimenduan mantentzeko, eta oxigenagailu bat. **Irene Aldasoro**

## 7 irud/hed

Ez bagenu, lehenengo, ondo begiratu eta behatu eguzkiaren, ilargiaren eta bost planeten funtsa, nola naturaren **makinak** eraginda mugitzen diren biraka [...]. **Santiago Iruretagoiena**  
Administrazioa **makina** bat da. **Josu Zabaleta**  
Errusiar administrazio-**makinak** behar hainbat indar higiarazle ez zuelako. **Iñaki Mendiguren**  
Gerra-**makina** nazional-sozialistaren suntsipen gogorak. **Iñaki Mendiguren**  
Gizakien egitekoen aurrean soraio, unibertsorean **makina** gaitzak berean jarraitzen du, xuxen-xuxen, geldigaitz. **Juan Garzia**  
Hemen edariak ateratzeko **makina** bihurtzen zara. **Pako Aristi**  
Kartzela presoa zoratzeko **makina** dela. **Xabier Montoia**  
**Makina** oinazetu, dardarati bat baizik ez nintzen, larrutu bat, zauri bizia ematen zuen nire arimak. **Josu Zabaleta**  
Emakume suerte horiek plazer **makinak** baizik ez dira. **Jon Muñoz**  
**Ohean** makina nekazina da. **Jon Arretxe**  
Maitia, atsegin-**makina** bat zara. **Juan Martin Elexpuru**  
Karraskan hasi ziren haragizko **makina** handi haren hezurak. **Koldo Biguri**

## 8 lurrin makina (orobat lurrin makina)

Lehenengo garaietako **lurrin-makina**, pistoia zilindro baten barruan mugitzen zena. **Irene Aldasoro**  
**Lurrin-makina** baten eraginkortasuan ez da % 20 baino askoz handiagoa. **Irene Aldasoro**  
**Lurrin-makina** ematen zuen arnaska. **Anton Garikano**  
Buruia jasotzean Hogwartseko tren espresa ikusi zuten; **lurrin-makina** gorri-gorria kea botatzen ari zen bafadaka, eta nasa sorginez eta aztiz betea zegoen, beren haurrak trenera nola igotzen ziren begira. **Iñaki Mendiguren**  
**Lurrin makina** erraldoia. **Karlos Zabala**

## 9 makina-erreminta (102 agerraldi, liburu 1 eta 38 artikulutan)

Bilboko **Makina-Erremintaren** Biurtekoan aurkeztu berri dute robot. **Berria - Gaiak**  
**Makina erremintaren** erakustazokak BECeko pabiloi guztiak hartuko baititu. **Berria - Harian**  
**Makina erreminta** sektoreak erronka indartsua du aurrean. **Berria - Gaiak**  
%10,4 jaitzi da **makina erreminten** ekoizpena. **Berria - Ekonomia**  
laztik hona nabarmen murriztu dira **makina-erreminten** eskariak. **Berria - Ekonomia**  
**Makina-erreminten** Diseinu lehiaketa. **Berria - Ekonomia**

## 10 makina-izkribu (orobat makinaizkribu eta makinizkribu)

Badakik zer dioen **makina izkribuko** hamabigarren arrazoiak? **Edorta Jimenez**  
Eskuizkribua eta **makina** -izkribua elkarri alderatzen. **Edorta Jimenez**  
Gutun bat eta pakete bat ditut, gutuna Andoniren **makinaizkribu** luze bat. **Joseba Sarrionandia**  
-Ea, ea -esan zuen, nire **makinizkribua** orritzatzeaz batera- "Juanito Muñagorriren bizitza". **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 11 makina lanabes (agerraldi 1 liburu 1ean) makina erreminta.

Ordenagailuz lagundutako diseinua eta ekoizpena (CAD/CAM sistemak), **makina-lanabes** automatizatua, edota *just in time* produkzioa, besteak beste. **Iñaki Heras**

## 12 makina txanponjale txanpon makina.

Jende asko aldatzen da **makina txanponjalez**, kasinoan zorteak bizkarra eman dionean. **Javi Cillero**  
Emakumeak borroka bizian ari ziren **makina txanponjale** batekin, denbora egiten sexua salgai zegoen katekonbetara lanera joan aurretik. **Migel Angel Mintegi**  
1980ko hamarkadan **makina txanponjaleak** zabaldu ziren tabernetan. **Berria - Gaiak**

## 13 tren makina (orobat trenmakina g.er.)

**Tren-makina** bat hurbiltzen ari da kanpoan; makinaren hotsa gero eta ozenagoa da. **Xabier Paya**  
Nasetatik **tren-makina** baten txistua zetorren. **Lopez de Arana**  
Ufaka **tren-makina** bat bezala. Eta **trenmakinak** txistu egin zuen, ikusi nuen maniobraturuak makinistari linterna berdearekin aurrera egiteko seinaleak egiten zizkiola. **Fernando Rey**  
Zatirik handiena **tren makinan** eta bagoiaren salmentari dagokio 431,8 milioi euroko fakturazioa. **Berria - Ekonomia**  
Churchillek altzairuzko oihala esamoldea sortu zuenerako, Stalinekin martxan zeukan bere propagandako **tren-makina** eskerga. **Fernando Morillo**

## 14 txanpon makina (24 agerraldi, 8 liburu eta 3 artikulutan)

**Txanpon-makinan** arituroko bi emakumeak barrara hurbildu ziren. **Migel Angel Mintegi**  
**Txanpon makinetan** jendeak eulia zirudien, marmar gortzailez makina batetik bestera aldatzen zen. **Iñaki Zabaleta**  
Zer izango itsasontzia eta, nola esango nuke, olgeta-areto flotagarri bat edo horrelako zerbitu zen, **txanpon-makinetan** jokatu, pantaila erraldoian telebista ikusi edo dantzan ibiltzeko. **Bernardo Atxaga**  
Taberna handietan, mutur batean daudenez ez dute entzuten beste muturrekoen solasaldia, ezta mahaietara eseri direnek barran zutik daudena ere, eta are gutxiago **txanpon makinan** dabilenak osterantzeko beste guztiena. **Pako Aristi**  
Kasino baten jabea zen, eta **txanpon-makina** piloa zeukan barreiatuta Renoko hainbat supermerkatutan. **Javi Cillero**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

afm makina (3); argazki makina (34); argazki makina bat (4); bizar makina (4); bizarra egiteko makina (4); denboraren makina (9); garbitzeko makina (3); gerra makina (4); hiriak setiatzeko makina (3); idazteko makina (11); idazteko makina bat (5); infernuko makina (3); josteko makina (15); josteko makina bat (3); josteko makina baten (3); kafe makina (4); lurrin makina (4); lurrin makina (7); makina abian jarri (3); makina aretoa (3); makina aritu (5); makina aritu ziren (5); makina asmatu (3); makina bati lotuta (10); makina berri (3); makina berriak (3); makina bidez (3); makina erraldoi (3); makina erreminta (37); makina erreminta ekoizle (9); makina erremintak (4); makina erremintako (6); makina erremintan (4); makina erremintaren (37); makina erremintaren sektorea (3); makina erreminten (8); makina erreminten ekoizpena (3); makina gelan (5); makina guztia (5); makina guztia atzera (3); makina handi (4); makina handiak (3); makina martxan (10); makina martxan jarri (6); makina mota (3); makina txiki (4); mozteko makina (3); oxigeno makina bati (4); sortzeko makina (9); tinkatzeko makina (3); tren makina (17); tren makina baten (3); txanpon makina (3); zulatze makina (4)  
argazki makinak (10); ari zen makinak (3); elurra kentzeko makinak (8); gerra makinak (4); idazteko makinak (8); kafe makinak (3); kafe makinak egiten (3); kentzeko makinak (8); makinak berritze (4); makinak egiten (13); makinak egiten ditu (6); makinak erabiltzen (7); makinak harrapatuta hil (4); makinak lanean (3); makinak martxan (5); makinak saltzen (3); makinak sartu (4); makinak sartzeko (3); tabako makinak (4); tren makinak (5); txanpon makinak (7)  
makinan sartu (4)  
tabako makinara (3)  
argazki makinarekin (3)

argazki makinaren (4); idatzeko makinaren (4); josteko makinaren (9); kafe makinaren (4); makinaren aurrean (8); makinaren hotsa (3)  
makinari eragin (3)  
makinaz idatzita (6); makinaz idatziak (3); makinaz idatzita (5); makinaz idatzitako (6); makinaz idatzen (6); makinaz pasatu (3)  
bota zuten makinek (3); elurra kentzeko makinek (3); makinek lanean jarraitzen (3)  
makinen bidez (6); makinen euskal fabrikatzaileak (3); munduko elektrohidurarako makinen (3); txanpon makinen (4)

## makina<sup>2</sup>

### 1 makina bat (orobat majina bat g.er.) ik makinatxo<sup>2</sup>.

**Makina bat** litro ur bedeinkatu. Pello Zabala

**Makina bat** aldiz erregutu diot, arren, eser dadila. Joxe Austin Arrieta

Goizetik hasita **makina bat** aldiz deitu zion telefonoz erantzunik jaso gabe. Migel Angel Mintegi

**Makina bat** jolas egindakoak gara etxe hartan! Arantxa Iturbe

Dendaria hasi zitzaion artea erakusten, ordura arte ezezagun zitzaion **makina bat** konturen berri emanez. Jon Alonso

Izan zen haren denboran gutzit oharkabean pasatu zen **makina bat** ateo eta bertino. Juan Martin Elempuru / Bego Montorio

Bere burua listotzat daukan **makina bat** inoxenteri ematen dio bazka. Jon Alonso

### 2 (aditz laguntzailea singularrean)

**Makina bat** jende salatu ditek gutxiagotatik. Bernardo Atxaga

**Makina bat** barre egin genuen guk, eta bitartean lauzpabost indio haiek hantxe, zirkinik egin gabe. Joxe Austin Arrieta

**Makina bat** gizon hurbildu zen barandara. Karlos Zabala

Zuk, esaterako, **makina bat** gizajo zanpatzen duzu egunero. Koldo Izagirre

**Makina bat** milioi pertsona bada munduan alemaniera batuaz mintzo dena. Joxe Austin Arrieta

**Makina bat** botila sagardo hustu genian han garai batean. Xabier Mendiguren Elizegi

**Makina bat** kirteneria sinetsarazi nahi digute giza-izaera horrelakoa dela esanez. Karlos Zabala

Eroaldi hori ederki aprobetxatzen dute arrain eta hegaztiak eta **makina bat** efemeropteroak amaitzen du animalia goseti horien ezarrietan. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Makina bat** gorabeherak abiaraz dezake gene azpiratzailea. Juan Garzia

### 3 (aditz laguntzailea pluralean)

**Makina bat** gauza irakatsi zizkigun. Karlos Zabala

**Makina bat** esaera zahar badituelako bere bizkar gure baserriarrek garai batean erantsiak. Pello Zabala

Eta gogoratzen hasita, **makina bat** pasadizo gogoratu nituen, gero eta errudunago sentiarazi nindutenak. Pedro Alberdi

**Makina bat** ordu pasatuak zituen haren dendan Léak. Jon Muñoz

Edonola ere, **makina bat** liburu idatzi dira Mozarten obrak eta bizitzaz. Imanol Zurutuza

Esan behar da, **makina bat** proba egin genituela aurrez, ea nondik bidali ahalko zen seinalea Segura aldera. Pello Zabala

Errusia osoan barrena **makina bat** seme-alaba izango ditut segur aski, nork daki? Matías Múgica

Horrelako baserriak **makina bat** badira Euskal Herrian, garai batean ostatu edo posta-leku izandakoak. Bernardo Atxaga

**Makina bat** argazki errolak eta bideo kasetek frogatu zutenaz. Patxi Zubizarreta

### • 3 (izenorde gisa)

Gure artean ere, seguru aski, ohartu gabe, **makina batek** izango diagu antzeko *déformation professionnelle*-ren bat. Joxe Austin Arrieta

**Makina batek** jana eta edana franko egina du baserrian, trukean sosik laga gabe. Xabier Etxabe

-Ihes, aspaldion ekialdetik egiten du **makina batek**. Edorta Jimenez

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

makina bat (603); makina bat aldiz (56); makina bat arazo (12); makina bat argazki (3); makina bat barre (5); makina bat bider (17); makina bat buruhauste (3); makina bat ekitaldi (3); makina bat galdera (4); makina bat gauza (14); makina bat gizon (3); makina bat gol (7); makina bat istorio (5); makina bat izan (3); makina bat jende (9); makina bat kontu (5); makina bat lagun (6); makina bat lan (5); makina bat liburu (4); makina bat ordu (4); makina bat partida (3); makina bat saio (4); makina bat talde (3); makina bat urte (6)

## makinadun izlag

Karelez kanpoko **makinadun** bateltxo batean datorrela. Edorta Jimenez

Denbora-**makinadun** salbatzailea Iñaki Mendiguren

## makinaizkribu ik makina<sup>1</sup> 10.

## makinal izond automatikoa, pentsatu gabekoa.

Zubi batetik barrena airean gindoazenean eraman zian bere eskua nire kokotera, nirekin lehen zihoan emakumeak egingo zukeen bezalaxe, keinu **makinal** bat besterik ez zuan, nire ilearekin jolas egitea gustatzen zitzaioan. Joxean Agirre

## makinalki adlag automatikoki, pentsatu gabe.

Gogoz lan egiten zuen... beti ixilik, **makinalki**. Pablo Sastre

## makinaria ik makineria.

## makinatu, makina(tu), makinatzen 1 du ad azpilanean ari izan, bilbatu.

Orain samur, orain erre, beti zerbait **makinatzen**. Pablo Sastre

Putakumea, orain ere zer edo zer **makinatzen** arituko duk. Pablo Sastre

Madrilgo Gobernuak **makinatu** zuen estrategia desinformatibo erraldoia. Txema Ramirez de la Piscina

Elkarrekin antolatuta plana eta **makinatu** zenituzten txikioaren mugimenduak, eta, gainera, ondo atera zitzaizuen. **Berria - Kultura**

## 2 (zerbait) makinaz idatzi

CATEko testuak **makinatzen** ari naiz -esan, eta alde egin du Luis Angelek. **Iñaki Iñurrieta**

Ondoan Serge zegoen, eta aurrez aurre Neues Tage-Buch-eko mekanografa bat, RotheK kontatzen zuena **makinatzen**. **Matías Mujika**

## makinatxo<sup>1</sup> iz makina txikia; *adkor* makina.

Denetik (garesti) erosteko aukera, berariazko **makinatxoetan**. **Edorta Agirre**

Mutikoa **makinatxoarekin** ari zen beti, gutaz axolatu gabe. **Aingeru Epaltza**

Sinbadek **makinatxoa** abiarazi zuen eta nik artean ontzitxoaren sokak askatu nituen. **Edorta Jimenez**

## makinatxo<sup>2</sup>

### 1 *makinatxo bat adkor* makina bat.

Kanpotik etorri eta New Yorken bizi izaten garenok **makinatxo bat** aldiz esan izan dugu New Yorken aurki daitezkeela munduko gauzarik onenak eta txarrenak. **Gotzon Garate**

**Makinatxo** bat puntutan ezberdina da. **Xabier Arregi**

Bere bizitzako 51 urtetan **makinatxo** bat lan eta mesede egindakoa da apaiz iharra. **Pello Zabala**

### 2 (aditz laguntzailea singularrean)

Zergatia jakin aurretik **makinatxo bat** urte pasa zen. **Xabier Montoia**

**Makinatxo bat** golfo bizi da... / ... Jaungoikoaren kontura. **Pello Zabala**

### 3 (aditz laguntzailea pluralean)

Gero **makinatxo** bat titare eman zizkion, eta ideia zoragarri bat bururatu zitzaion. **Julen Gabiria**

Maimie aho zabalik zegoen, beste **makinatxo** bat zuhaitz luze gauza bera egiten ari zirela ikustean. **Julen Gabiria**

### 4 (izenorde gisa)

Umeen Pasealekuan ere beste **makinatxo** bat daude; leku fin ospetsua da, hala deitzen baitzaie maitagarriak egoten diren lekuei. **Julen Gabiria**

Hogeita hamarreko haietan artean gazte eta Euskal Herrian barna **makinatxo** bat ibilia, Chicagokoak ez zion frontoiaren deiari huts egingo. **Edorta Jimenez**

## makinatzar iz makina handia.

**Makinatzar** handiekin egiten da lana, eta, horiek, oso erraz desegiten dute edozein megalito. **Berria - Euskal Herria**

Haize galanta zebilen eta **makinatzar** hura inor konturatu gabe iritsi ahal izan zen Filottiren etxetik berrogei metrora. **Koldo Biguri**

Barre egin dit egongelaren erdia hartzen duen eskiatzeko **makinatzarraz** galdetu diodanean. **Javi Cillero**

## makinazio iz makinatzea, azpilana.

Zalantza izpirik ere gabe jakin nuen, era berean, hura konplot, **makinazio** edo sabotaje bat zela, ondorio erremediaezinak zituena. **Karlos Linazasoro**

**Makinazioaren** engranajearen beste zati txiki bat ziren, ala, neu bezala, inuxente dohakabe batzuk? **Karlos Linazasoro**

Haiek ere ez al ziren, akaso, **makinazio** beraren beste atal bat baino izango? **Karlos Linazasoro**

## makineria (83 agerraldi, 30 liburu eta 30 artikulutan; orobat *makineria* 27 agerraldi, 9 liburu eta 17 artikulutan; orobat *maxineria* g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian *makineria* agertzen da) 1 iz lan jakin baterako erabiltzen den makina multzoa.

Berak diseinatutako lantegi batean, **makineria** behin eta berriz matxuratzen omen zen. **Xabier Olarra**

Denbora-zuloak eratzeko **makineria** asmatu aurretik gizaki batzuek denbora-jauziak egiteko ahalmen ezkutua garatu zutela. **Iban Zaldúa**

Gaza inguruan eraikitako hesian zaintzarako eta ekintzaileak tirokatzeko robotak eta bestelako **makineria** ezartzea aztertzen ari da. **Berria - Mundua**

Aurrean duen errotaren **makinerian** jarri ditu begiak. **Pello Lizarralde**

Automobilen **makinerian** espezialista. **Jon Arretxe**

Ikatz eta egurra hartzeko **makineria** onenaz hornituriko merkataritza-portua bihurtu dute Bouville. **Monika Etxebarria**

%35,8 **makineria** eta ekipoak erosteko erabili zen. **Berria - Ekonomia**

### 2 irud/hed

Erantzuten duenak bere gorputzeko **makineriaren** parte handia jartzen duela martxan galdera egiten duena asetzeko. **Unai Elorriaga**

Estatuko **makineria** guztia lanean jarri zen. **Berria - Euskal Herria**

Burokraziaren **makinariak** ezdeus bihurtzen gaituela. **Anjel Lertxundi**

Halabeharrik ez da, halabehar deritzoguna kausalitatearen **makineria** konplexuaz dugun ezjakintasuna da. **Bernardo Atxaga**

Xenofobiaren **makineria** martxan da dagoeneko Frantziako presidentziarako hauteskunderi begira. **Berria - Euskal Herria**

Oso antolaturiko estatu baten **makineriari** eustea arimak suntsitzen zituen eginkizuna zen. **Iñaki Mendiguren**

Hasieran, aldaketek arauen **makineriari** kurrinka eginarazten diote, eta erantzun atzerakoiak eta gogorak eragiten dituzte. **Luis Elberdin**

Nafarroa Bairen **makineria** oloztatzen hasteko ordua da. **Berria - Euskal Herria**

Ezinbestekoak direlako dohain horiek guztiak Bernharden pesimismoaren **makineria** martxan jartzeko. **Berria - Kultura**

### 3 (izenondoekin)

Piezak baino gehiago, **makineria** oso bat. **Harkaitz Cano**

**Makineria** pisuaren laguntza behar duten zientziaren edo pentsamenduaren eremu handi-zabalak bezain maite zituen letra tiki-zirtzilen goldeaz lantzen diren alor apalak. **Aingeru Epaltza**

Etxea, sailak, traktorea eta gainerako **makineria** osagarria, ganadua, etc. Gaizki koipeztatutako **makineria** zahar herdoilduaren antzera. **Edorta Agirre**

Altzairuak, kaxak, **makineria** hondatua... **Iñaki Iñurrieta**

Irailaren 11ko atentatu krudel horiek herrialde horren **makineria** belikoan izan dute batik bat isla. **Iñaki Heras**

Kolpisten **makineria** militar eta mediatiko osoak amore eman zuen fotokopia xume baten aurrean. **Txema Ramirez de la Piscina**

Koadro batetik bestera igarobidea emateko jartzen dira beti operarako eta antzerkirako baliatzen diren **makineria** erraldoiak. **Josu Zabaleta**

Azter dezagun orain zirkulazioaz arduratzen den **makineria** bikaina. **Irene Aldasoro**

Horrexegatik da hain amorragarria nola defendatzen duen jende horrek zer irabazirik ez duen **makineria** soziala, semea kendu eta gerrara eramatearen ordainez miseria eta

zahartzarorako gosea baizik ematen ez diena. Josu Zabaleta

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **makineri**)

**Makineria** piezak ekoitziko ditu Babcockek. Berria - Ekonomia

Industrian gertatzen ari ziren **makineria** berrikuntzek lanpostuen deuseztatzea zekartenez, makineria jo eta txiki-txiki egiten zuten luditek. Iñaki Heras

Igogailuaren **makineri** zaratak berak ere ustekabean harrapatu nau bizpahiru aldiz gau minean, erdi lozorroan nentzalarik. Txillardegi

Lanbidez **makineria** -saltzailea baitzen. Josetxo Azkona

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Defizit publikoaren bidez hainbat inbertsio publiko egitea, bereziki, gerora zanpatzailea gertatuko zen gerra- **makineria** handian. Iñaki Heras

Eta horretarako munduko propaganda **makineria** zabalena jartzen da abian. Berria - Mundua

Hauteskunde **makineriaren** ordua da. Berria - Euskal Herria

PPren Gobernuak martxan jarritako gezur **makineria** horren lehen lerroan, [...]. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**makinaria martxan** (3)

## makineto *iz*

Bilbainadak kantatzen dituen **makinetoa**. Urtzi Urrutikoeetxea

-Ez, jota ez, beste barik **makineto** putasemeak baino ez ditun. Urtzi Urrutikoeetxea

## making off *iz*

Obraren emanaldi bat, **making off** -a eta «irudi bitxiak» bildu ditu Gorrinok. Berria - Kultura

Dani California singlearen bideoklipa eta haren **making off** -a, taldearen ordubeteko elkarrizketa eta estrak. Berria - Kultura

Lehenengoan *Brigadistak Sound System* diskotik hona eginiko hiru bideoklipak azaltzen dira; *Urrun* (Manolo Gil), *Big Beñat* (Asier Altuna eta Telmo Esnal) eta *In-Komunikazioa* (Iker Trebiño), eta baita haien **making-off** -ak ere. Berria - Kultura

## makinila *iz* itsasontzietan, karga-deskargetarako eta aingura jasotzeko makina.

Itsasbehera zen eta **makinilarekin** lehorreratuko zutela gorpua, arrain-kaxen oholetz eginiko etzangiren batean pentsatu zuten hara bilduak ziren guztiek, baina kapitainak, Romualdo Barrosok, apeza ikusi zueneko, lanean hasteko agindu zien kubertakoei. Koldo Izagirre

## makinismo 1 *iz* giza lana ordezkatzeko makinaren erabilpen orokorra.

Urte horietan probidentzia-estatuak erantzun lasaigarriak eman baitzizkien industria-iraultzak eragindako aldaketa beldurgarriek, **makinismoaren** zabalkundeari eta lanaren, lurraren eta diruaren merkatuaren mekanismoekiko mendekotasunari. Koro Navarro

## 2 makinaren gorazarrea egiten zuen arte estiloa.

Haren obran espresionismoa, surrealismoa, **makinismoa**, futurismoa eta abstrakzioa baitaude. Berria - Kultura

## makinista 1 *iz* tren makina baten gidaria.

**Makinista** zen eta hogeit urtetan hasi zen trenmakinak gidatzen. Fernando Rey

Jose Emeterio zen, "Exkalu", treneko **makinista**. Pako Aristi

Burnibidea erauzia zegoela erreparatu dik **makinistak**. Txillardegi

**Makinistaren** jarlekuaren aldamenean palanka bat zegoen. Fernando Rey

**Makinistak** bere eskuak garbitzeari utzi zion eta bera ere geltokiko buruari begira gelditu zen. Fernando Rey

Eta trenmakinak txistu egin zuen, ikusi nuen maniobraturak **makinistari** linterna berdearekin aurrera egiteko seinaleak egiten zizkiola. Fernando Rey

## 2 itsasontzi bateko makinaren arduraduna.

Trasatlantiko batean nago **makinista**. Koldo Izagirre

Ohartu naiz neu naizela naraman ontzitxoaren **makinista**, neuk eragin behar diedala balbulei, neu naizela abiada erregulatzen duena hemen. Koldo Izagirre

Deskarga amaitutakoan baforean gelditzen nintzen **makinistarekin** kofradiara joan gabe gosaritara. Koldo Izagirre

Eta kezkatu, gauza batek kezkatu bide zuen: **makinista** haiek, denak ere hain jator iruditu zitzaizkionak, beti izerditan ari beharrak eta, bizitza osoa itsasoz itsaso eman arren, itsasorik sekula ezin ikusiak. Joxe Austin Arrieta

## 3 teatroko agertokiko makineriaz arduratzen den pertsona.

**Makinistak** oihala jaitsiko du. Josu Zabaleta

Aretoko argiak itzaltzen direnean, **makinista** ikusiko da agertokiko atetik sartzen, alkandora urdinez, eta poltsa gerrian lotua; atzeko bazter batetik eszena gaietako ohol batzuk hartu, aurrealdera etorri eta, belauniko jarririk, iltzez josten hasiko da. Josu Zabaleta

Kamerinoetatik, atetik eta baita aretotik ere, Antzezleak, Eszena-zuzendaria, **Makinista**, Gogorazlea, Atrezzo-zaina agertokira itzuliko dira, eta, haiekin batera, Konpainia-burua Sei Pertsonaiekin batera haren kamerinotik. Josu Zabaleta

## makinizkribu ik **makina**<sup>1</sup> 10.

## makis ik **maki**.

## mak<sup>o</sup> 1 *adkor* kakoa.

Politikoez gizona desfilearen lehen lerroan jarri zuten "ga'te muku'u deb'uak!" marmaratzen zuela, **makoa** altxatuz. Itxaro Borda

## • 2 *izond* makotua.

Holokaustoa, ez du ematen juduen sudur **makoagatik** izan denik, suposatu zaizkien euren kualitate (h. d., bizio sortzetiko) moralengatik baizik. Joxe Azurmendi

Badira baita ez lisuak, ez guztiz kurbatuak, punta-**makoa** direla zuzen pentsa ez daitezkeenak, baizik angelutxo irtenak dauzkatena, sentimenak mintzen baino gehiago kilikatzen dituztenak: honelakoxea da gatzunaren eta inularen zaporea. Xabier Amuriza

Zelari itsatsia zekarren zorrotik kanpora atera zuen bere ezpatatza **makoa** zaldun harrigarri hark. Xabier Aranburu

### 3 *kako-mako* (*orobat gako-mako*) itzulinguru amarrutsua; inguru-minguru.

Non dira orain haren **kako-makoak**, haren agudeziak, haren kasuak, haren tenentziak, haren trikimailuak? Juan Garzia

Gizon ospetsuen kontaketak biltzen ditu, jakinduriatzko esaeren **gako-makoetan** sartzen. Elizen arteko biblia

## mako<sup>2</sup> iz kartzela.

Estolda-sare baten berri biltzen du (krokis zehatza), eta **makora** eramaten duena bilatu behar da. Rafa Egiguren

Ez zeuden inolaz ere ados **makoetara** bidalitako gutunak zioenarekin. Rafa Egiguren

## makodun izond makoa duena.

Gilen ikusi behar dut jendeketa baten barnean, betan indibiduo eta izaki kolektibo gisa, atomo baina atomo **makodun**. Piarres Aintziart

## makodura iz okerdura.

Ez dago zientziarik foliolo baten tegumentuarenik, zelula baten filamentuenik, odol-zain baten **makodurarenik**, aztura baten maniarenik, aiurri baten gorabeherenik. Juan Garzia

## makola 1 iz akuilu-makuiluak (?).

**Makolatan** ibiliko banintz bezala iruditzen zait, eta egiaz naizena baino askoz ere garaiagoa ematen dut. Josu Zabaleta

### 2 izond

Ez, ez, ikasleak sentitu behar du, gazte-gazterik, bera dela erantzule, ez dela **makola** edo. Herria

### 3 (hitz elkartuetan)

Izpi-**makolak** oro hautsi haren gurpilari, eta amilarazi abatza zeruko muinoan behera eta infernu zuloraino. Juan Garzia

## makossa iz Kamerungo hiriguneetan oso aintzat hartua de musika mota.

Hiri zaratsua zen Douala, etxe eta dendetatik irteniko **makossa** musika kaleko saltzaileen deiarrekin nahasten zen. Xabier Montoia

**Makossaren** erritmoan mugitzen ziren ipurdi oparoetan. Xabier Montoia

## makotu izond kakotua, kurbatua.

Hatz erakusle **makotuez**. Xabier Olarra

Lerro zuzenak eta **makotuak**, parabolak eta elipseak. Imanol Zurutuza

Sekula ez zuen ulertu zergatik zuen nahiago gizonak lerro zuzen nahiz **makotuak** begietsi, parean zuen figura xamurrari so egin baino. Juan Garzia

Altzairuzko arranpa **makotu** batek galeriako bi erakusketak batu eta banandu egiten ditu aldi berean. Berria - Kultura

## makrame 1 iz eskuz hari lodiak txirikordatuz edo korapilatuz egiten den ehuna.

Anitz gauza balios ikertzen genituen hartatik: **makrame** ehuten, Zen egoten, G puntuaren lokalizatzen, tindatzen, tantrak pairatzen, estraterrestren keinu hiperbolikoen irakurtzen, trikotatzen eta josten, [...]. Itxaro Borda

*Freedom for Basque Country* zioen afixa, eta ez da gogoratzen noren amak oparitutako **makramez** eta egurrez egindako apalategi horitua. Eider Rodriguez

### 2 (hitz elkartuetan)

**Makrame**-erakusketa baten berri ematea. Xabier Mendiguren Elizegi

## makro iz oso handia den gauza.

Mikrotik **makrora**, urteko bidaia. Berria - Gaiak

## makroauzia (*corpusean makro auzia soilik*) iz auzipetu asko epaitzen diren auzia. ik makroprozesu.

18/98 **makro** auzia aintzina doa. Herria

## makroaztarna iz tamaina handiko aztarna.

**Makroaztarnen** ikerketa burutuz, garai batean nolako landaretza zegoen jakin daiteke eta ondorioz, nekazaritzaren abiapuntua finkatu. Berria - Euskal Herria

## makrobio iz urte asko-asko bizi den pertsona.

Jarraian doazen bertsoak **makrobio** batek idatziak dira. Xabier Olarra

**Makrobio** "Old Parr" Thomas Parr zen, 1635an hil zena, 152 omen zituela. Xabier Olarra

## makrobiosi iz urte asko-asko bizi den pertsona.

Luzaro bizi izanaren adibideak (**makrobiosia**) gure herrian ere baditugu. Xabier Olarra

# makrobiotiko *izond* makrobiotikari dagokiona. • *irud/hed*

Bere izaera politiko-ideologikoa ezkututzen ez duen eleberrri bati ez dagokio iruzkin **makrobiotiko** bat. **Markos Zapiain**

## makrobotiltzar *iz adkor* biltzar erraldoia.

Gure erakundeek, baita alderdi politikoek eta beste goi mailako agenteek ere, urteak eman dituzte beste aldera begira eta oraintsu hasi dira kezkatzen: datorren ostiralerako Bilbon deituta dagoen **makrobotiltzarrera** zalditeria bidaliko duela esan du alkateak. **Berria - Euskal Herria**

## makrodenda *iz oso* denda handia.

Lehendakari askok **makrodenda** horietan bezala egiten dute, merkealdiak diren egun hauetan, eguna noiz iritsiko zain. **Berria - Kirola**

## makrodiskurtso *iz* barnean hainbat diskurtso hartzen dituen dikurtsoa.

Gaia entzun eta lehenengo bertsoa kantatzen hasi bitarteko segundo gutxi horiek baino ez ditu bertsolariak horrelako **makrodiskurtsoak** antolatzeko. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Txapelketetako saioetan ere, bertsoaldia **makrodiskurtso** gisa antolatu duen bertsolariak beti izango du bere bertsoak kantukidearenekin behar bezala ez lotzeko arriskua, **makrodiskurtsoaren** egitura oso eskematikoa eta, beraz, lan bata bestearekin lotu ahal izateko behar bezain malgua denean izan ezik. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Hala eta guztiz ere, bertso bi edo gehiago hartzen dituzten **makrodiskurtsoak** antolatzeko desafioa onartzen dute bertsolariek behin baino gehiagotan. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

## makroeboluzio *iz*

**Makroeboluzioa** eta aldizkako orekak. **Askoren artean**

Aldizkako oreken teoriaren arabera, **makroeboluzioaren** mailan eboluzioak ez du pitinka aurrera egin organismoak hautespen naturalaren bidez euren ingurunetara moldatu heinean, alderantziz baizik; hots, urratsik nabarmenenak bat-batean egin dira. **Askoren artean**

## makroegitasmu *iz* tamaina handiko egitasmoa.

«Sasizko iraunkortasun horren mozorropean» eragin ekologiko eta sozial izugarria izango duten **«makroegitasmu»** asko sustatu nahi dituztela salatu zuten [AHTren aurkakoe]k protestak irauin bitartean. **Berria - Euskal Herria**

Mundu mailako edo Espainia eta Frantziako **makroegitasmu** kultural uniformizatzaileen aurrean, dibertsifikatuagoak diren bertako egitasmo eskuhartzailen txikiak baitute arrakasta eta etorkizuna. **Patziku Perurena**

## makroekonomia 1 *iz* ekonomiaren adarra, ekonomia-magnitude kolektiboak edo globalak aztertzen dituena.

Ekonomia orokorra, berriz, mikroekonomian eta **makroekonomian** banatzen da. **Iñaki Heras**

**Makroekonomiak**, esaterako, ekoizpenaren maila orokorra aztertzen du, langabezia, inflazioa edota estatu baten kanpo sektorea. **Iñaki Heras**

**Makroekonomiaren** ikuspegitik teknikoki ere justifikatu izan da desberdintasuna: aberatsen gehiago aurreztu eta inbertitzen dutenez, komenigarria litzateke, ildo honetatik, tartaren banaketa ez orekatua. **Iñaki Heras**

Inflazioa izan zen berriro, Jaurilaritzak egindako azterketaren ildotik, **makroekonomiaren** itzalik handiena. **Berria - Ekonomia**

**makroekonomia** hozteko hartu ditugun neurriak oso eraginkorrak dira. **Berria - Ekonomia**

Compaore presidenteak, alta, «langabezia endemikoa» dela eta, ondorioz, ezin dela **makroekonomiaren** egonkortasuna bermatu erantzun zion Somaviari. **Berria - Mundua**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik makroekonomiko.

Askoren ustez, liburu iraultzaileztat eta **makroekonomia** analisiaren hastapentzat jo izan da Teoria orokorra. **Iñaki Heras**

Hala ere, mikroekonomia eta makroekonomia estuki erlazioz daude, eta horregatik, **makroekonomia** gaiak ulertzeko ezinbestekoa da mikroekonomiako arazoak ulertzea. **Iñaki Heras**

Bai **makroekonomia** alorrean, finantza munduan bereziki, eta baita beste hainbatetan ere. **Iñaki Heras**

## makroekonomiko (*orobat makro-ekonomiko g.er.*) 1 *izond* makroekonomiarena, makroekonomiari dagokiona. ik makroekonomia 2.

Funtsezko ekarpenak egin dituzte alor horietan, ez bakarrik analisi **makroekonomikorako**, baita hainbat herrialdetako diru eta zerga politikaren praktikorako ere. **Berria - Ekonomia**

Barne Produktuari buruzko datu **makroekonomikoez** gain beste gizarte adierazle batzuk ere kontuan hartzen baitira. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Maila **makroekonomikoan**, kanpoko finantzaketan eskuragarritasunak ez dio beti inbertsioen hazkundea ekarri herrialde mailegu-hartzaileari. **Koro Navarro**

Mundu ekonomia, termino **makroekonomikoetan**, nabarmen hazi da azken hiru hamarkadetan zehar. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Langabeziaren kontrako politika **makroekonomiko** espezifikokoak alde batera utzi dira. **Iñaki Heras**

Estatuaren jarduera, sektore mailan birgaiturik, erabakigarria gertatzen da bestalde politika **makroekonomiko** globaletan eta politika horiek truke-tasen gainean duten eraginean. **Koro Navarro**

Inflazioa eta egonkortasun **makroekonomikoa** helburu hartuta. **Iñaki Heras**

Ikuspegi orokorra, ordea oreka **makro-ekonomikoa**, ekonomilariet esango luketen bezala negatiboa da nagusiki. **Berria - Mundua**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**berri makroekonomiko** (6); **datu makroekonomiko** (7); **politika makroekonomiko** (4)

**datu makroekonomikoak** (5)

## makroepaiketa *iz* auzipetu asko epaitzen diren epaiketa. ik makroprozesu.

Auzitegi Nazionalak **makroepaiketak** egiteko Madrilgo Casa de Campon prestatutako egoitzaren kanpoaldean, polizia eta [...] kazetariak bakarrik izan zituzten zain auzipetuek, hauen senide eta lagunek eta 18/98 taldekoek. **Berria - Harian**

Martxoaren 11ko atentatuak epaitzeko **makroepaiketan**. **Berria - Euskal Herria**

# makroerregional *(corpusean makro-erregional soilik) izond eskualde erraldoiei dagokiena.*

Jauriaritzaren aburuz, Europak munduan zehar eraikitzen ari diren beste nazio eta errealtate **makro**-erregionalentzako erreferentzia elementu izaten jarraitu behar du.

**Berria** - Harian

## makroestadio *iz tamaina handi-handiko estadioa.*

Realak Anoeta estadioa, **makroestadio** bihurtzeko proiektua du: atletismoko pistak kendu, lau izkinatan dorre bana egin negozioa egiteko; hiru dorre 12 solairukoak eta bat 17koa, estadio ondoko dorre zaztarrak bezala.

**Berria** - Kirola

## makroestatu *(corpusean makro estatu soilik) iz estatu erraldoia.*

EAK defendatuko duen programaren erronka nagusia herritar guztien parte hartze politikoa areagotzea izango da, «hain zuzen, Europako **makro** estatuetatik behin eta berriro ukatzen dena».

**Berria** - Euskal Herria

### makr *(corpusean makro ikuskizun soilik) iz artista eta baliabide asko biltzen dituen ikuskizuna.*

Bilboko kultur egitaraua osatu nahi dute antolatzaileek MEM 2004 jaialdiarekin, «**makro** ikuskizunen aurrean alternatiba bat» eskainiz.

**Berria** - Kultura

### makr *iz kafetegi erraldoia.*

Magisteritzako eraikinean ere bazeukaten kafetegia, baina oso txikia zen eta han ez zegoen, inola ere, Filologiako **makrokafetegiko** giroa.

**Jon Arretxe**

## makrokartzela *iz kartzela erraldoia.*

Basaurikoa ez dela **makrokartzela**: «ez dago espetxe handietan egon ohi den giro zapaltzailea, eta hori eskertzekoa dute presoek beren egunerokoa».

**Berria** - Harian

## makrokosmos 1 *iz unibertsoa, egitura konplexuko osotasuntzat hartua. ik mikrokosmos.*

**Makrokosmosaren** eta mikrokosmosaren ideia, aldizka Talmud eta Midra-îm-etako alegorietan agertua, R. Natan-en 'Abôt tratatuan zehar garatzen da, bai eta S-fer Yesîrah-n ere ('Sorreraren liburua'), eta hala onartua zuten Erdi Aroko filosofo judu batzuek ere.

**Xabier Kintana**

### 2 hed

Gaiaren hondarreraino iristeko gure ikerketa **makrokosmosetik** mikrokosmosera eraman behar dugu, iragan historiako egitateetatik giza izaeraren ezaugarri iraunkorretara.

**Iñaki Mendiguren**

Hemen azterturiko lau bizimoduetatik, antzaldaketa da bide bat aurkezten duen bakarra, eta hori ekintza-eremua **makrokosmosetik** mikrokosmosera aldatzen duelako.

**Iñaki Mendiguren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**makrokosmosetik mikrokosmosera** (3)

## makrokultura *iz kultura erraldoia.*

Goiko artista sail hori, kanpoko **makrokultura** komertzial mediokrearen gure neurriko ispilurik petoena dela, eta horrez gainera, edo horregatik hobe, arlo desberdinetako (kirol, festa, feria, ibilaldi, omenaldi eta abarrek) diru publikoak monopolizaturik dauzkatela

**Patziku Perurena**

## makroliburudenda *iz liburu denda erraldoia.*

Ez zuten gure operazioaren susmo txarrik hartu ez milaka idazleren milaka obra zeuzkaten **makroliburudendetan**, ez eta liburuak txorizoak bezalaxe saltzen zituzten hipermerkatuetan ere.

**Jon Arretxe**

## makromolekula *iz tamaina handiko molekula, pisu molekular handikoa.*

ADNaz indarturiko *Gilda* krema multzo bat, zelulak indarberritzeko eta **makromolekulak** birkonbinatzeko bizkortua.

**Joxan Elozegi**

Izan ere, ADNaren bikoizketa hutsak ere proteina kopuru handi bat jartzen du jokoan, eta proteinon sintesiak, berriz, are **makromolekula** gehiago eskatzen ditu, eta mota gehiagotarikoak.

**Juan Garzia**

## makromolekuladun *izlag makromolekulak dituena.*

Ez zen lan handirik izan terapia horrekin asmatzeko ere; aski zen kimika ez-organiko jatorrera itzultzea begiak, uharte kartesiano urrun, zikin-nahasle organikozulo eta **makromolekuladunon** paradisu galdu horretara.

**Juan Garzia**

## makronegozio *iz negozio erraldoia.*

Lubakietako kulturakoek beren minigerretan eta **makronegozioetan** ziharduten bitartean, Anderlecht auzoan jatorri arabiarrekoak, magrebiarrak nik uste, beste mundu batean ziren.

**Edorta Jimenez**

## makropoema *iz poema erraldoia.*

**Makropoemaren** munduan murgildu nintzen, kosmosaren interpretazio ikusgarriaren bidez.

**Berria** - Kultura

## makropolitika *iz estatu erraldioen politika.*

Baina gaur egungo munduaren eta **makropolitikaren** (politika bere benetako esanahiarekin ulertuta) gaineko irakurketa poetikoa ere bada Negutegia.

**Berria** - Kultura

**Makropolitikak** arazoa noiz konpondu zain gelditu gabe, ordea, Arla Foods konponbide propioak bilatzen saiatuko da gaurtik aurrera.

**Berria** - Mundua

### makr *(corpusean makro-politiko soilik) iz makropolitikari dagokiona.*

LABeko Aizpuruaren aburuz, bistakoa da komunitate unibertsitariak izan zela «joko **makro**-politikoen galtzaile eta biktima».

**Berria** - Euskal Herria



## makroproiektu *iz* proiektu erraldoia.

«Diseinua edozein delarik ere AHTren aurka» daudela adierazi du plataformak, «**makroproiektuak** ingurugiroan, gizartean, ekonomian, nekazaritzan eta lurraldearen orekan izugarrizko kalteak egingo bailituzke». Berria - Euskal Herria

**Makroproiektu** hori inoiz gauzatuko balitz Jaizkibelgo itsasertzek balio naturalak «interes ekonomiko eta garapenezko hutsen probetxurako galduko» lituzkeela nabarmendu zuen. Berria - Euskal Herria

## makroprozesu *iz* auzipetu asko epaitzen diren prozesua. ik **makroepaiketa**; **makrosumario**.

18/98 sumarioa orokorrean hartuta «ad hoc sortutako **makroprozesu** politikoa» dela. Berria - Euskal Herria

**Makroprozesuek**, berez, ez dute justizia egiteko balio. Berria - Euskal Herria

## makroskopiko *izond*

Are gehiago, gure mundu **makroskopikoak** ere ez duela horren sinpleki funtzionatzen diote hainbat fisikarik. Zientzien historiaren eskala mikroskopikoen eta **makroskopikoen** arteko bereizketa. Berria - Gaiak

## makrosozial *izond*

Horien ikerketak zentratuegi egongo lirateke teknologia zehatzen konstituzio lokalizatuetan, azterketa mikrosozialetan, kontuan hartu gabe izaera **makrosoziala** duten ezaugarri ekonomiko eta politikoko orokorrak. Askoren artean

## makrosumario *iz* auzipetu asko epaitzen diren epaiketako sumarioa. ik **makroepaiketa**; **makroprozesu**.

Estatutik **makrosumario** gisa datozen eraso orokorrei» hilaren 26an Bilbon erantzun zabala emateko deia egin du. Berria - Harian

Ezin dut ulertu nolatan erabaki zuten halako **makrosumarioa** egitea. Berria - Euskal Herria

Bada garaia 18/98 **makrosumarioko** auzi guztiak behin betiko artxibatzeko. Berria - Harian

18/98 auzian eta gainerako **makrosumarioetan** auzipetutako 220 lagunetatik gehienak izan ziren Kurasaalen bildutakoaren artean. Berria - Harian

**Makrosumariootan** epaitzen ari diren pertsoez eta erakundeez gainera, izaera oso bat epaitzen ari dira. Berria - Euskal Herria

**Makrosumarioek** ez dute justizia egiteko balio. Berria - Euskal Herria

## makrotestu *iz*

Memoria kolektibo bat, **makrotestu** bat, izan errealtatearena edo irudimenezkoa, osatzen dute Mendez Ferrinen prosazko lanek. Berria - Kultura

**Makrotestu** poetikoaren asimetria beharrezkoa, transtestualitatea, kanpora begirada bat, garrantziko osotasunari eginikoa deskubritu nituen. Berria - Kultura

## makrounibertso (*corpusean makro unibertso soilik*) *iz* gauza guztiak kontuan hartzen dituen unibertsoa.

Hona hemen aurten mikro eta **makro** unibertsoetan aipagarrienak izan diren gertaeren zerrenda. Berria - Gaiak

## makrounbanizazio *iz* urbanizazio erraldoia.

Txipion ezingo da eraiki kirol porturik, ezta 750 etxebizitzako **makrounbanizaziorik** ere. Berria - Euskal Herria

## makrozefalia *iz* burua neurritz kanpo handia duenaren nolakotasuna. • *irud/hed*

Euskal Y-ak EAEko hiru hiriburuak baino ez ditu lotuko, eta lurraldeen hiriburuakiko **makrozefalia** sustatuko du. Berria - Euskal Herria

## makuilu

### 1 *akuilu-makulu iz pl* zurezko zangoak, oinetan finkatzen direnak.

-Nik akuilu-**makuiluak** erabiliko ditut. Josu Zabaleta

Emaztea bizkarrean hartu, eta hor izango ditu Miepek bere akuilu-**makuiluak**. Josu Zabaleta

Bere hanka baldarrekin, kaleetan behera irristaka joaten zela ematen zuen, akuilu-**makuluetan** balebil bezala. Koro Navarro

## makula 1 *iz* orbana, zikingunea.

Borroaren emazteak maitasun handiz lisatzen du lan-jantzi beltza, eta exekuzio bakoitzaren aurretik lustre **makularik** gabea ateratzen die senarraren laneko zapatei.

Karlos Linazasoro

*ik* makulagabe.

**Makularik** gabeko pasiloa. Iban Zaldúa

### 2 irud/hed

Ulermenaren oihalgarbian **makularik** utziko ez duen sintaxi garbi baten bila. Pako Aristi

### 3 erretinaren gunehorikara, ikusmena argiena den puntua.

Endekaturik eta zurbildurik zegoen **makula**, eta erretina osoko odol-hodiak mehetuta. Xabier Olarra

**Makularen** endekapena edota retinitis pigmentarioaren gaitza zuten guztiek. Berria - Gaiak

Nabaria zen erretinaren erdialdeak, **makula** aldeak [...] ia ez zuela funtzionatzen, eta haren inguruko alde paramakularri esker zuela halako ikusmena. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**makularen endekapena** (3)

# makulagabea, osoki garbia.

Apaldegi **makulagabe**, kanfor, argizari eta mendeetako kimika-nekez usaintsu haietan. Juan Garzia

## 2 orbangabea, akatsgabea.

Alabaina, bertute **makulagaberik** ere ez duk, edo baldin bada gorrotagarria duk. Juan Garzia

Zuritasun horren bidez han barruan lan egiten zutenen arima **makulagabea** irudikatu nahi izan balute bezala. Jose Morales

Semeari Estatuaren zerbitzuan jartzeko garaia iritsi zitzaioela eta, etxetik bidali zuen maisu frantziarra; egotzi egin zuen alaben irakaslea ere, ez baitzen guztiz **makulagabe** gertatu Aleksandra Stepanovnaren bahiketaren aferan. Jose Morales

# makulu 1 iz makila modukoa, galtzarbean kokatzen den atal bat eta eskutoki bat dituen, zango-bakarrek eta herrenek ibiltzeko erabiltzen dutena.

Makila bat zekarren bidelagun, esku zahar haietan arma bat ez eta **makulu** bat baizik izan ez ziteken makila baldar bat. Juan Garzia

Aulki gurgilduna kendu eta bi **makulu** utzi zizkidaten. Jokin Urain

Bi **makuluei** ahal nuen bezain gogorren eutsiz, patioko atearen ondoan paretaren kontra geratu nintzela gogorutzen dut. Jokin Urain

Eguraldi eguzkitsuetan bere bi **makulu**en gainean atariko epelerat biltzen zelarik, [...]. Joan Mari Irigoien

Gaixoak ere, oroimenak bezalaxe, **makuluak** behar ditu, aurrera egiteko. Imanol Zurutuza

Mugimendu espasmodikoak eginez zebiltzan, baina hori **makuluak** zeramatzatelako zen. Julen Gabiria

Galtzarbea **makulu**an bermaturik, eskua luzatu zidan. Joan Mari Irigoien

Erreka bazterrera heltzean, makila pila topatu dugu eta norik berea hautatu du uretan **makulu** gisa erabiltzeko. Patxi Zubizarreta

Zutiturik, **makulu** bat lagun, leihoraino hurbildu nintzen. Anjel Lertxundi

Zangobakarra zen, eta **makulu** baten gainean zebilen. Felipe Juaristi

Ebanozko **makulu** bat eramaten zuen beti eskuan. Anjel Lertxundi

Gero, zauritua bizkarrean hartu eta, Mauserra **makulu**, ibiltzen hasi zen. Anjel Lertxundi

Norbait dabil aterki bat **makulutzat**, harekin belarra apartatzen. Harkaitz Cano

Segitzen du mitiokoak **makuluarekin** larderiartzen, eta gurutzatzen zaizkion guztiekin "urdeka" eta "putakumeka"? Aingeru Epaltza

## 2 irud/hed

Cafik herren egiten zuen eta Mario zuen **makulu**, eta edonor sumintzeko moduko gelditasunaz egiten zuten aurrera. Fernando Rey

Mathilderen bakarraldi luzeen **makulu** isil bihurtu zen. Anjel Lertxundi

Amarentzat une latzetako **makulu** bihurtu zen. Urtzi Urrutikoeetxea

Taldearen **makulu** sendoenak Simoni eta Cunego dira, baina taldeko beste zazpi lagunak ere ez dira makalak. Berria - Kirola

PSNri, berriz, eskuinaren «alternatiba izateari uko egitea eta haren **makulu**» izatea leporatu zion. Berria - Euskal Herria

Memoria izango du biderako **makulu**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gure pentsamenduaren logika jarria dago **makulu** gramatikalaren menpekotasunera. Andoni Egaña

Eta halaz guztiz ere, zientziaren **makulu** baldarren -baina txit operatiboen- heineraino etorririk ere, ez dakigu galdera horri erantzuten. Iñaki Segurola

Haren **makulu** lagunkoiarekin ere, herren handiegia ageri badu itzulpen honek, nirea da soilik errua. Juan Garzia

Gogor defenditzen dute, baina eraso dute **makulu**. Berria - Kirola

Haste beretik izua, terrorea izan zuen **makulu** Espainia berriak eta Eliza ofizialaren bedeinkapena ere bai. Jokin Urain

Zin-zinez egiten diren koadroek ez ditek **makulu** lagungarri horien beharrik! Joan Mari Irigoien

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kokotsa jaso zuen **makulu**-kirtenetik. Anjel Lertxundi

Eskuak **makulu**-buruan pausatu, eta haien gainean kokotsa zuela jarraitu zuen adiskideak nire jarduna. Anjel Lertxundi

Esaldi eginek, **makulu**-hitzek, betegarriek, almanaketako atsotitzek, esaera zaharrek eta erranairuek. Jon Alonso

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lizar-**makulu** baten laguntzaz. Felipe Juaristi

Alkohola eta eromena, mistizismoa eta ihesa izan zituen ordu arte bide **makulu**. Anjel Lertxundi

Egiatzotzat jotzen diren proposizio batzuetatik, inferentzi-arauak bide-**makulu** harturik, beste proposizio batera iristen den arrazoiketa-modua. Anjel Lertxundi

Txorakeria hura, ezer ez esateko hizkera-**makulu** hura, topiko ezdeus hura. Karlos Linazasoro

Gogoan dut, eskaileretan behera gindoazela, Rositak eguraldiaren zeraren bat izan zuela elkarrizketa-**makulu**. Karlos Linazasoro

## 5 akuilu-makulu iz pl akuilu-makuiluak.

Bere hanka baldarrekin, kaleetan behera irristaka joaten zela ematen zuen, akuilu-**makuluetan** balebil bezala. Koro Navarro

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi **makulu** (4); **makulu baten gainean** (3); **makulu gisa** (4)

**makulua behar** (3)

bi **makuluak** (3); **makuluak behar** (3)

**makulu**en gainean (4); **makulu**en laguntza behar (5)

**taldeko makulu**etako bat (3)

**makulurik gabe** (4)

# makuludun izond makulua daramana.

Elbarri **makuluduna** berriz etorri da gaur. Karlos Linazasoro

Edozer espero daiteke kaleko merkatuan zumezko hilkutxak salgai eta **makuludunak** bizikletan ikus daitezkeen hiri batean. Harkaitz Cano

# makulutxo iz makulu txikia.

**Makulutxo** pare bat zegoen lurrian, eta zirrara eragin zidan. Josu Zabaleta

# makur 1 izond lerro zuzena bezalakoa ez dena. ik oker.

Bi indio ikusi genituen landan barrera, eskuan aitzo **makur** banarekin. Joxe Austin Arrieta

Errekasto bat aurkitua omen zuen eta, bertan bainatzen ari zela, bi gizon ikusi, harantzaxeago, sable **makur** bana eskuan [...] arto-sailean barrera. Joxe Austin Arrieta

Arbola **makur** eta zahar baten oso antzekoa da Anton Apezetxea. [Hasier Etxeberria](#)

Azai zuri diridratsua, sudurra **makur** samarra, begiak ebano beltzezkoak, eta sutsuak gero! [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Golde **makurraren** mutur astuna ez zen oraindik ausartu, gure lehendabiziko amaren errai maitekorretan, irekita, sartzen. [Patxi Ezkiaga](#)

## 2 irud/hed

Hura esatean egin zuen irri **makurragatik**, usaindu nuen esaldiak gaiztakeriaren bat ezkutatzan zuela, baina ez nuen harrapatu. [Anjel Lertxundi](#)

Eta, nahi gabe ere, Voltaireren **irri makur**, haur batenaren parekoa, haren **irri makur** erlijioso, dagoeneko betirako eragina utzi duen alemaniar filosofo haren irri jasan ezinezkoarekin konparatu nuen. [Josu Zabaleta](#)

Gureak egin du! -begi **makurrez** begiratu zion Ruche jaunak. [Jon Muñoz](#)

Gure aitak, berriz, begiratu **makur** eta errezeloz beteja jaurtikitzen zion berri eta ezezagun zen orori. [Fernando Rey](#)

## 3 bi muturrak garaiera desberdinetan dituena. ikinklinatu 2.

Herri zaharrak, errepidetik ikusita, teilatu **makur** eta krakatsuko lerro hautsi bat marrazten du. [Koro Navarro](#)

Plano **makur** batean behera, eragozpenik gabe, inongo zailtasunik gabe doan esfera baten antzeko zerbait dira. [Koro Navarro](#)

## 4 pertsoez mintzatuz, zuzena ez dena.

Zori bera dute denek: zuzenek zein **makurrek**, garbiek zein likitsek. [Elizen arteko biblia](#)

Jende **makur** eta bidegaldia da. [Elizen arteko biblia](#)

Zerua gorri-gorri zegoen, gizon **makur** batek tiro egin eta odoletan utzi izan balu bezala. [Xabier Montoia](#)

Hiri hau antzina inguru guztian fama gaiztoa zuten gizaki **makur** eta gaiztoen aterpe eta bizileku izan zen. [Askoren artean](#)

Bihotz-gogorrek ziren, zakarrak, traketsak, moldakaitzak, ganoragabeak, ezdeusak, zarpailak, **makurrak**; haien buruan dena zen nahaste-borraste, zalantza, kontraesan eta lardaska. [Jose Morales](#)

Gorde nazazu **makurren** azpilanetik, elkar hartu duten gaizkileengandik. [Elizen arteko biblia](#)

- Gorroto ditu Jaunak bihotz **makurrekoak**; atsegin ditu, ordea, jokabide prestukoak. [Elizen arteko biblia](#)

## 5 gauza abstratuez mintzatuz, okerra, txarra.

Nire zorte **makurra** madarikatuz. [Alberto Ladron Arana](#)

Honen azpian interes **makur** ugari baitago. [Patxi Zubizarreta](#)

Arrazoirik gabeko jarrera **makur** bat. [Pako Aristi](#)

Zakur honek badu joera **makur** bat. [Gotzon Garate](#)

Susmatzen hasia zen Txixikovek asmo **makurren** bat zerabilela testamentuari zegokionez. [Jose Morales](#)

Pozik ematen du bere zeregin **makur** hori betetzen. [Rafa Egiguren](#)

Lewinsky andereñoak amarru **makur** bat prestatu zuen gure presidentea harrapatzeko. [Patxi Zubizarreta](#)

Eskumuturreko ordulari tikiok morrontza **makurrenean** lotu eta joputu gaituzte. [Pello Zabala](#)

Ez ote den izkribatzaile fede gaiztoen bat izan gure kondena **makur** hau asmatu zuena. [Anjel Lertxundi](#)

Auziak akabera **makurra** izan zuen eta biak kartzelaratua izan ziren. [Patxi Zubizarreta](#)

Argi genuen irudi **makur** hura juduen nazioarteko propagandak zabalduko zela. [Alberto Ladron Arana](#)

Egun **makurrari** Anarekiko zitak ekarri zion zuzenbidea. [Aingeru Epaltza](#)

Uko egin nahi duenak, lan **makurrak** hartu beharko ditu. [Patziku Perurena](#)

Modurik **makurrenean** saldu nau Albak... [Aritz Gorrotxategi](#)

Nire bizitzan egin dudana gauzarik **makurrena** da. [Josu Zabaleta](#)

## 6 okerra, kaltegarria.

Bartzelonako portuan 5 itsasontzi handi hondatu zituen ekaitz **makur** batek. [Pello Zabala](#)

1993an, hotzaldi **makur** latza sartu zen Mediterraneo aldetik. [Pello Zabala](#)

Gaitz **makur** eta ezkulturen baten azpilana atzeman daiteke haren aurpegieran. [Joxean Agirre](#)

Nikolas, Nikolas! -oihu egin du neska gazteak, bihozkada **makur** batek eraginda. [Karlos Zabala](#)

Eztulaldi **makur** batek jo zuen, eta medikuarenera eraman behar izan zuten presaren presaz. [Jokin Muñoz](#)

Orduan ez tul egiten zuten, hitz laurdenik sinesten ez zigutela adierazteko egiten zuten ez tul **makur** hura. [Koldo Izagirre](#)

Metanoa, gas hau ere hor dago, CO2a baino 20 bider **makurragoa**. [Pello Zabala](#)

Gure aitak gaixotasun **makur** bat zian, meatzetan hartua, eta birrikak gaiztatzen dituena. [Jon Muñoz](#)

Alderdi **makurrak** ere izan ziren, jakina. [Koldo Zuazo](#)

## 7 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa) ik makurtasun.

Oi, lehiaren **makurra**, hain agudo laster egitea intzestuzko maindire artera! [Juan Garzia](#)

Ezen, norik lituzke jasango munduaren ukaldiak, zapaltzailearen **makurra**, harroaren destaina, maitasun gaitzetsiaren penak, legearen geldoa, kargudunen burgoikeria, eta baliozkoak etsi-etsian eskasarengandik jasotzen dituen purrustadak, berak lezakeelarik bertan kito egin kontuaz sastakai huts batez? [Juan Garzia](#)

Adarjotzearen **makurra** eta amesgaiztoaren mikatza! [Harkaitz Cano](#)

## 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Eskaileretan gora, gizon zahar bizkar-**makur** baten atzean denbora itxaron beharra dauka, makal doa eta. [Pako Aristi](#)

Haur potoloak eta haur ile-kizkurak, burusoilak eta bizkar-**makurrak**. [Koro Navarro](#)

Judu sudur **makur** bat, fraide tripahandi bat eta apez jantzi zaharkitu bat, herrestan zihoazenak kanpalekura. [Marzel Etxehandi](#)

Gizon gaixtoa ez zen zentinelak hanka **makur** batek. [Marzel Etxehandi](#)

Morroi barren-beltz eta bihotz-**makur** hura fanatikoa, bortizkeriazalea eta koldarra zen. [Koro Navarro](#)

## 9 (adizlagun gisa)

Falangekoak ez bezala, Italiako soldaduak atseginak ziren, eta ez zuten **makur** eta herraz jokatzeko ohiturarik. [Bernardo Atxaga](#)

-Aberastasun **makur** bilduak, laburra irabazia! [Jon Muñoz](#)

Zaila da errublo milaka batzuk biltzea **makur** jokatu gabe, baina milioiak erraz irabazten dira. [Jose Morales](#)

**Makur** argitutako egunari araberako segida emanez, deus zuzenik ez zitzaidan gertatu lantokira nintzenetik. [Aingeru Epaltza](#)

**Makur** konprenitu ez banion, magia istorio zirtzilen bat. [Aingeru Epaltza](#)

Okerturik eta **makur** nabil, egun osoan kopetilun. [Elizen arteko biblia](#)

Mikel Strogoffek hain **makur** begiratu zion, ezen merkatarik logaletuak beste aldearen kontra jarri eta bidazti gaztea aske utzi zuen bere hurbiltasun gogaikarritik. [Karlos Zabala](#)

Chagallen koadroetan bezala, herri txiki bat ageri zen gibelaldean dantzan: eliza, etxeak, leihoak **makur**. [Joxan Elozegi](#)

Gau hartan gauza zuzenik ez, dena **makur**. [Fernando Rey](#)

## 10 (adizlagun gisa izen baten eskuinean)

Jantziak zarpail, bizkarra **makur**, lumarik ez haren kapelu hega-zabal ilupatuan. [Aingeru Epaltza](#)

Arrain saltzaileek, mahai hutsen atzean eserita, puntu egiten zuten, bizkarra **makur**. [Karlos Zabala](#)

Burua apal eta sorbaldak **makur** egon zen denbora hartan guztian. [Joxan Elozegi](#)

Beren apez esku xuri potoloak txirikordan eta ezpainak **makur**, **makur**, **makur**, **makur** magma ahalkegarria hoztearren miserikordia deituz. **Itxaro Borda**

Ardatzean ari zen, burua **makur**. **Gotzon Garate**

Burua **makur**, kokotsa bularrean finkaturik, apal-apal aitortu zuen berak diru-txartel hura beste bati ostu ziola eta ez zuela polizia ikusteko gogo handirik. **Gotzon Garate**

## • 11 iz kaltea, gauza kaltegarria.

Zer egin dugu horrelako **makurra** merezi izateko? **Itxaro Borda**

Uda huntako beroteak **makur** frango egin du. **Herría**

Hilik eta kolpaturik ez da izan bainan **makur** handiak ba! **Herría**

**Makur** guti eta kolpaturik nehor ez. **Herría**

Virginian da **makur** gehienik izan, 17 hilekin. **Herría**

Herriko laborari etxe batean, **makur** handia ukana zuten bezperan. **Janbattitt Dirassar**

**Makur** haundiak egiten dituela [usoak] uztetan edo errekolletan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Guretzat **makur** handia da Voskuji! biltegiaren ez egotea, han gertatzen den edo entzuten duen guztiaren berri emateko. **Josu Zabaleta**

Hoinbeste mintzairaren galtzea **makur** handia dela, mintzaira bakoitza altxor paregabe bat izanki-eta. **Herría**

**Makur** izigarriak, gazteetan nagusiki, eta gero-eta gehiago gure inguru hurbilean. **Herría**

Garagardo pixka bat galtzen gainera, horra **makur** bakarra. **Aingeru Epaltza**

Legeria sailkatu eta korapilatsu bati loturik egon daitezkeen **makur** handiak. **Andres Urrutia**

Ahal guziak eginen direla kotsadurak ez sobera **makur** ekartzeko. **Herría**

## 12 (hitz elkartuetan)

**Makur** parrasta bat denen buru, hiru gela itsuski fundituak, auzoko bizitegiaren ere kalte asko, keak eta urak eginek gehienik. **Herría**

Amets egiten zuen **makur**-ekarleak zitezkeelakoan haurrak urkatzen zituela sortu arau. **Itxaro Borda**

## 13 hutsegitea.

Itxura nahasia ageri zuten, lehenbiziko **makurra** egin berri duten bi maiteminduren antzera. **Karlos Zabala**

## 14 buru-makur ik burumakur.

## 15 jokaldi makur

Azalpen bakarra dago: norbaiti bururatu zitaion zure autoari **jokaldi makurren** bat egitea. **Oskar Arana**

Ez zuen okerra aurkitzen, baina **jokaldi makurren** bat egin zuelako sentipena ez zen desagertzen. **Jose Morales**

Lortuko ez bagenu, Kataluniar **jokaldi makurra** jokatzear gain, PPrentzat garaipena izango litzateke. **Berría - Mundua**

Eta asmatu zenuen, horixe asmatu zenuela, **jokaldi makurra** akatsik gabe atera baitzitaizun. **Migel Angel Mintegi**

Ez du gogorik egin ziguten **jokaldi makur** higuinagariaren berri emateko. **Oskar Arana**

## 16 kukuak makur jo

Halatan, **kukuak makur joz** gero, nire alde erabili ahalko nuen eskuindarrak babestu izana. Parisen, baina, **makur jo** zien **kukuak** askatasun amets laino haiei. **Berría - Kultura**

Whistean aritu zen, baina **kukuak makur jo** zion horretan ere: kolorez okertu zen bi aldiz, eta, jokoaren arauak ahazturik, hainbat jokaldi ustel egin zituen. **Jose Morales**

Susmoa diat **makur jo** behar diala **kukuak**, Pedro Páramo. **Juan Garzia**

Baina, nonbait, **kukuak makur jo** zukeen. **Daniel Landart**

## 17 makur-makur adlag

Lacaillek, garrazturik, ilea urdin jada, gauero bizkarra **makur-makur** Parisko kaleetan barrera betiereko bidaia eginda, [...]. **Karlos Zabala**

Hagin zorrotzak erakusten zituen piztiak Braneke urruma egiten zion bitartean, hankak bilduta eta burua **makur-makur** zeuzkala Zeunerrek. **Joanes Urkixo**

Harry bira eman zion Sutximistari, **makur-makur** jarri, ia kirtenaren gainean etzanda, eta aurrera abiatu zen. **Iñaki Mendiguren**

Ahaleginak egiten zitian, hala ere, burua **makur-makur** ez egiteko. **Josu Zabaleta**

## 18 makur-makur egina/eginda/eginik

Gaur egun, **makur-makur egina**, itxuragabe, arrain hezeak ahotsa marrantatu eta azala urdindutako matrona baten irudira zeramatzen bere hirurogeita bost urteak. **Karlos Zabala**

Bere burua ikus dezake, ilea urdinduta, **makur-makur eginda**, oinak tarras kale-ertzekeo dendara litro erdi esne eta barra erdi ogi eroatera. **Oskar Arana**

Eskuburdinek presio egiten dizute, eta **makur-makur eginda** begiratu diozu behetik gora. **Rafa Egiguren**

Eskuaz txapelari buru gainean eusten ziola, gorputza **makur-makur eginda**, baietz, ulertu zuela. **Inazio Mujika Iraola**

Bidetik aldendu da, **makur-makur eginda** ahalik eta ikuspegi tikiena utzi beharrez. **Aingeru Epaltza**

Orain lasterka eta orain akrobata bat bezala, besoak zabalik, edo goputza alde baterat **makur-makur eginik**. **Joan Mari Irigoien**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arras makur (4); arrunt makur (3); bide makur (3); bide makur bat (3); bizkarra makur (5); buru makur (50); burua makur (32); egitate makur (3); gizon makur (3); hoinbeste makur (4); jende makur (3); jokaldi makur (3); kukuak makur jo (3); makur ainitz (3); makur alde (3); makur asko (12); makur asko izan (3); makur bakarra (3); makur bide (8); makur dabilela (3); makur dabilta (3); makur doatzi (3); makur egin (3); makur egina (3); makur eginda (14); makur gehiago (3); makur guti (4); makur handia (11); makur handiak (26); makur handiak egiten (3); makur handiak izan (3); makur handiena (5); makur handirik (7); makur haundia (5); makur haundiak (6); makur hori (9); makur horiek (9); makur horien (3); makur horren (4); makur hura (5); makur ibili (3); makur izan (3); makur izigarriak (3); makur jo (6); makur makur (22); makur makur eginda (13); makur zaitz (3); makur zerbaiz (3); sobera makur (3); uholde makur (3); zernahi makur (5)

bide makurra (4); bien arteko makurra (3); eguraldi makurra (4); jokaera makurra (4); jokaldi makurra (3); makurra frango (8); makurra izan (8); makurra izango (4); mila euroren makurra (3); oso makurra (3); tantoren makurra (3); xantza makurra (3)

aise makurrago (4); gero eta makurrago (10); makurrago joan (3)

are makurragoa da (3)

alderdi makurrak (3); alimaleko makurrak (4); bide makurrak (3); dituen makurrak (6); eguraldi makurrak (3); gauza makurrak (3); gizon makurrak (5); ikaragarriko makurrak (5); izigarriko makurrak (3); makurrak egin (6); makurrak eginiz (3); makurrak izan (6); makurrak jasan (3); nolako makurrak (5); uholde makurrak (8)

modu makurrean (4)

makurren xuxentzeko (5)

zurrumuru makurrenak (3)

modurik makurrenean (3)

deus makurrik ez (4); deus makurrik gabe (3); ez da makurrik (7); gehiagoko makurrik ez (3); gizon makurrik (4)

## makurbide (orobat makur-bide g.er.) iz makurtzeko bidea; bide makurra.

**Makurbidean** trabatzen ari nintzen. **Aingeru Epaltza**

Hartuko dut kuraia halabeharrak prestatu dizkigun **makurbideak** pairatzeko. **Jon Muñoz**

**Makur-bide** bakarra ETA-koek ekartzen dutela bortizkeriaz ez uko eginez. **Herría**

Guretzat denak haizu eta besteri dena debeku ari behar girela? ez da hor **makurbiderik** baizik! **Herría**

Maite zaitzuke, apika, orain, eta orbanik eta **makurbiderik** gabea dateke, akasgabea, haren gogoa. **Juan Garzia**

*Bekatuaren itzala*-ren **makurbidea**, aldiz, aurrekari ilun hura oroitetik aurrekari ilun hura errepikatuzera doa. **Markos Zapiain**

## makurdura 1 iz bi muturren arteko garaiera-desberdintasuna. ik **inklinazio**.

Zein den lurraldi bakoitzean eguzkiaren inguruan biraka ari dela, eguzkira duen distantzia, eta zein den lurraldearen **makurdura**, egunak ere halakoxeak izango dira. **Pello Salaburu**

Bi ordu luze izotz eta harkaitz zorrotzez osatutako terreno mistotik ibili eta gero, zenbait unetan %55-60 graduko **makurduraz**, hego-bizkarrera ailegatu nintzen, egia esan, aski nekaturik. **Jose txo Azkona**

-Trigonometria -ekin zion berriz Ruche jaunak -objektuen **makurduraren** zientzia da, orientazioarena eta norabidearena; angelu baten bidez neur daitezkeen gauzak baitira horiek guztiak. **Jon Muñoz**

Larruzko bere kapelaren **makurdura**. **Lopez de Arana**

Plano bateko angelua bata bestearekiko **makurduran** dauden bi lerrok eratzen dute, **Jon Muñoz**

## 2 kurbatura. ik **okerdura 2**.

Orobat gertatzen zait, Cartagon, esate baterako, neuk ikusirik ezin hobeto burututako arkuaren **makurdura** bikaina gogoratzen dudanean. **Imanol Unzurrunzaga**

**Makurduraz** betea da, S mordo batez, nolabait esateko. **Xabier Olarra**

Harry Goldweiserren suduraren **makurdurak** zuzen-zuzenean bat egiten zuten bere soilunearen **makurdurarekin**. **Lopez de Arana**

Ene espirituaren **makurdura** edo eraikuntzaren beraren isuriren bat? **Koldo Izagirre**

## makurgabe *izond* makurrik gabea.

Pantxikaren alabatto **makurgabearena**. **Xabier Montoia**

## makurgaitz (*orobat makurgatx g.er.*) *izond* nekez makurtzen dena, oso nekez amore ematen duena,

Hori zen, beraz, Giuliak beste batzuetan gizon eskuzabal, **makurgaitz**, maitemindu eta seriotzat deskribatu zidana. **Juan Garzia**

Odogabea izaeraz eta **makurgaitza** moldez, lagun gutxi egin zituen eskolan. **Irene Aldasoro**

Rufinoren izakera burdinazkoa edo urgulu **makurgatxa**. **Xabier Amuriza**

Zure adore **makurgaitzaren** indarrez etsai guztiak mende hartu ondoren. **Santiago Iruretagoiena**

-Bizar-laban **makurgaitza** lurrera irristatu zen. **Oskar Arana**

## makurgatx ik makurgaitz.

## makurgune 1 iz makurdura bat dagoen gunea.

Komeni da sarrera zabalak eta ugariak egitea, eta goiko eserlekuetara joateko sarrerak egon daitezela behekoetara joatekoetatik bananduta, eta izan daitezela guztiak jarraituak eta zuzenak, batere **makurgunerik** gabeak; jendea, hain zuzen, ikuskizunetik ateratzerakoan ez dadin pilatuta eta tratatuta aurkitu. **Santiago Iruretagoiena**

Mendi-lerroaren bizkara biribilean biltzen da eta bere **makurgunearen** erdian itsaso Adriatikoaren urak ia ukitu ondoren, berriro bere zirkuituan okertu egiten da kontrako itsasarteak ukitzera. **Santiago Iruretagoiena**

Bainu beroetako sabai gangatuek ezin dute gainean iturririk izan, baina hala ere, sabaiak, galdaretatik sortzen den aire beroarekin berotuta, zoladuretatik ura jasotzen du, sabai gangatuaren **makurguneetara** erakartzen du eta bertan mantentzen du, lurrun beroa beti gora igotzen delako. **Santiago Iruretagoiena**

## 2

Ez zuten, ordea, **makurguneok** etsi, eta, pixkana-pixkana, Martinek uzurtasun-uneak eramaten ikasi zuten: irribarre bat behartzen zuten, esanez bezala beste erremediorik ez bazegoen, prest zegoela guztiz berria zitzaien hura ere onartzeko. **Anjel Lertxundi**

## makurka 1 *adlag* makurtuz.

Lurrera itzulia zela ikusi genuen zurtuta, eta **makurka** genuela aurrean, sari eske. **Ander Irizar**

**Makurka** hurreratu natzaie, etsaien lerroetan sabotaiak egitearren txarrantxapetik narrasten nintzen moduan. **Koldo Izagirre**

Pena gutxiago dela burgesak zerbitzatzea, zeureak ez dituzun sorroetan **makurka** ibiltzea baino. **Pablo Sastre**

Gizon handi bat gogoratzen dut, zahartu eta gero erdi **makurka** ibiltzen bazen ere.. Bigarrenik, hura erosten duenak, berak bildu behar du, oilategi-zuloetan lauhankan sartuz eta larrain-zokoak altxa-**makurka** miatuz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 2 okerka.

Hori guztia ikusirik, kontu hauek hain oker eta triste baldin badaude, hain **makurka** baldin bagabiltza, [...]. **Pello Salaburu**

## 3 (izen gisa)

Bostekoa emanda eskertu zigun, bizkar-**makurkak** eginez erretiratu zen barra aldera. **Koldo Izagirre**

## 4 *buru-makurka adlag* burua makurtuz.

Ohore artean eta **buru makurka** hartu zuten. **Patxi Zubizarreta**

Doi bat kikildua eta aztoratua, Ala Al-Din **buru makurka** joan zitzaion kalifari eta esan ahalak esan zizkion bere eskerrona agertzeko. Automobil urdin bakoitzak, bada, agurraldi-saio halako bi jasotzen zuten muinoaren gailurrera iristean, eta automobiletakoek, berriz, irribarrez eta **buru-makurka** eskertzen zuten harrera-oihu bakoitza. **Patxi Zubizarreta**

Bi gizon jertsedun zeuden haien parean zegoen bankuan, gustura edaten, **buru makurka** adieraziz emakumeen emozioarekiko adostasuna Annie atera joan zen, irribarre egin nahian, **buru-makurka**, ilea txukuntzen, eskuak mantalean garbitzen. **Koro Navarro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**buru makurka** (7)

## makurkeria iz egintza makur gaitzesgarria.

Gaiztakeria hazi eta **makurkeria** ugaldu den garai honetan. **Askoren artean**

Lapurreta, laido, liskar edo bertzelako **makurkeriaren** bat salatzea. **Aingeru Epaltza**

**Makurkeria** txikiak bakarrik egiten dituzu: bulegoa ordu bete lehenago itxi, diru apur bat kendu merkatarit bati edo besteri ezorduan joan delako gutun baten bila, bidali behar ez den pakete bat bidali; horrela edonor da santua! **Jose Morales**

**Makurkeria** bat iruditzen zitzaion Juliorena: familiaren miseria aprobetxatu Nini bere maitale egiteko eta gero, komeni zitzaionean, abandonatzeko asmoa izatea. **Josu Zabaleta**

Gizakiaren ahuleziak eta **makurkeria**. **Josu Zabaleta**

Nola ez naiz mendekatuko **makurkeria** horiez... Jon Muñoz  
Zein da bada ustez ezjakinean egin dudana eta hainbertzeraino haserretu zaituen **makurkeria** hori? Jon Muñoz  
Ez al dizkizut aitortu nire gaiztakeriak eta zuk barkatu nire bihotzaren **makurkeria** ? Imanol Unzurrunzaga  
Poliziaren **makurkeriak** . Gotzon Garate  
Zoriontsua [...] bere barruan **makurkeriarik** ez duena! Elizen arteko biblia  
Gaiztakeriaren aurkako epaia berehala betetzen ez delako, **makurkeria** egiteko gogoz bete ohi da gizon-emakumeen bihotza. Elizen arteko biblia  
Zer **makurkeria** egin zituen, bada, Girolamo Cardanak erakunde makur horren haserreak merezi izateko? Jon Muñoz  
Bere baitan **makurkeriaz** egin zuen: "Igandea ez zagok urrun". Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**makurkeriak** asmatzen (3)

## makurki *adlag* era makurrean.

Hik erran hori egia izanez gero, **makurki** jokatu ditek gure aitzindariak, dio Mazellak bere mustatxa haztatuz. Xabier Montoia

## makurño *iz ipar* makur txikia, akats txikia.

Bestalde ere izan dira **makurño** batzu han-hemenka, baina ez gauza handirik. Herria  
Hots, deputatu eta zenatur horientzat, minixtroen hilabete-sariak nunbait han % 70-**ez** goratzea, eta hori kolpez, ez bide ditake **makurño** baten xuxentzea baizik! Herria

## makurragotu, makurrago(tu), makurragotzen da/du *ad* makurrago edo okerrago bihurtu.

Aitzineko egunetan uste izan zuen deusek ezin zuela bere egoera **makurragotu** . Aingeru Epaltza  
Monclarrek kontuak eginen zituen: arpilatzaileak 4.500 izan beharrean 5.000 izateak ez zuen hiriko biztanleen zorigaitza **makurragotuko** . Aingeru Epaltza

## makurraldi (*orobat makur aldi*) 1 *iz* makurtzea.

Irribarrez eta **makurraldi** ttipi bat eginez, esaten nien: "Hona gaurko posta, Shiranai jauna". Joxan Elozegi

## 2 garai makurra.

-Gauza handia da, hain gazterik, **makurraldien** alderdi positiboak antzematen jakitea! Baina jolas eta gozo aldiak ez ezik, **makur** aldiak ere izaten zituzten. Aingeru Epaltza  
Ageri-ageriko egoera horixe zuten, ordea, elkarren arteko **makurraldietarako** bide: artean ere alabak ez zuen ulertzen ez onartzen kondena, urkatuek sortarazi zizkioten malkoek argi adierazten zuten. Anjel Lertxundi

## 3 *buru-makurraldi* burua makurtzea.

Hark eskuz agur keinua egin ondoren, paperezko agiri bat eman zion, ofiziala eta zigidun, eta amiladun gizonak agurtu egin zuen soldaduen buru egiten zuena, buru-**makurraldi** batez, eta, gero, hari bizkar emanda, zain zeuden gizon-emakumeengana jo zuen. Felipe Juaristi  
Gabrielek dirua eman die ijitoei eta haiek buru-**makurraldiaz** agurtu dituzte bi gazteak. Felipe Juaristi

## makurrarazi (*orobat makurtarazi g.er.*), makurraraz, makurrarazten 1 *du ad* makurtzera behartu.

**Makurraraziko** dute agure ttenttea. Koldo Izagirre  
Baina Mattinek, noiz eta ikusi baitzuen gertatu zitzaidana, harrapatu zuen Markos ileetik, **makurrarazi** zuen, sarrarazi zion burua uretan behin eta birritan, eta ez zen jabaldu ez sosegatu harik eta Markos ez tulka eta hatsangaka utzi zuen arte. Joan Mari Irigoien  
Erromatarren arma nagusia, Sirakusa **makurrarazi** behar zuena, uretan suntsitu zen. Jon Muñoz  
Orain **makurrarazi** egingo ditut zure etsai guztiak. Elizen arteko biblia  
Honen bihotza jainko arrotzengana **makurrarazi** zuten zahartzaroan. Elizen arteko biblia  
Herrak kokotsa **makurrarazi** zidan. Aingeru Epaltza  
Beren jainkoengana **makurraraziko** dizkizute bihotzak. Elizen arteko biblia  
Honela **makurrarazi** zieten burua filistearrei. Elizen arteko biblia  
Ez al zuen laido larritzat jotzen pentsamenduaren jabe den gizon bat pentsatu gabe sinestera **makurrarazi** behar hura? Juan Garzia

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Anjelek baso luze **makurrarazian** zerbeza zelan isurtzen duen ikusten du Joxanek. Paddy Rekalde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**burua makurrarazi** (4)

## makurrarazle *iz* makurrarazten duen pertsona.

Lepoa panparroi gorantz begira duen nobleziako emakume adinean sartuaren indioilartasuna zaio bere morroiari mespretxuaren ikur, makurtu eta **makurrarazleen** arteko abezedario gestual bateko ikur. Harkaitz Cano

## makurrezin *izond* ezin makurtuzkoa, ezin amore emanezkoa.

Beste Merkurio batek, Casellik, inoren famaren zaindari **makurrezin** hark: nire lizentziaturako "goren"ak zerbaitetarako balio izan zuen horratik. Juan Garzia  
Andere Akatsgabe **makurrezina** zen ama. Joxan Elozegi  
Bizinahi **makurrezin** hartan, maiz adierazi zidan amak beren alde ona duketela gaitz guztiak. Joxan Elozegi  
Nola aipatu gure bihotz-mina eta [...] guraso bihurtu nahi gaituzten eta aldi berean gure gaineko esku **makurrezinari** irmo eusten saiatzen diren une horietako inkoherentziak eta bidegabekeriak gugan eragiten duten haserre, higuina, ulertezina, oinazea? Joxan Elozegi

## makurtarazi ik makurrarazi.

# makurtasun iz joera, jaidura.

Iraultzailetzat jotzen zuen bere burua hogei urtetan, baina **makurtasun** handia erakutsi zuen bizitza guztian jantzi eta apaindura ederren aldera. **Joxan Elozegi**  
Apez zahar honen **makurtasun** antifrankista ezagututa. **Koldo Izagirre**  
Errealitatea *humanitas* kontzeptua da, berriro baliorik positiboenez (berba horrek Erdi Aroan giza ahultasuna -bekatu edo errorerako **makurtasuna** - adierazten zuen), eta funtsezko bilakatu da gogoeta berrian. **Askoren artean**

## makurtu, makur(tu), makurtzen 1 da/du ad norbait edo zerbait, bere kokaera horizontal edo bertikaletik aldaratu.

Ostertzari buruz berrogeita bost bat graduko angeluan **makurtua**. **Koro Navarro**  
Gehien **makurtzen** ziren errainuak (errefrakzio handienekoak) more ikusten ziren; errefrakzio txikienekoak, gorri; espektroko gainerakoak, berriz, bien artean. **Xabier Olarra**  
Lurrerantz ere **makurtzen** da, beraz, eguzkiaren beroa. **Xabier Amuriza**  
Eskuinaldera **makurtu**, eta berriz esan zuen: [...]. **Jose Morales**  
Bere kutxara **makurtu** zen berriro, baina ia berehala altxatu zen, eskuan makila tinko zuela. **Iñaki Mendiguren**  
Ez da irmoa; aise **makurtzen** da alde onera, baina baita txarrera ere. **Josu Zabaleta**  
Olgak bere Pompador orrazkera gizona zegoen lekurantz **makurtu** zuen. **Lopez de Arana**  
Leitzen ari nintzen bitartean burua alde batera eta bestera **makurtzen** nuela. **Pello Salaburu**  
Gazteak aurreneko zartada gelditu zuen, eta segidan gorputza atzerantz **makurtu** zuen bigarrenari ixkin egiteko. **Joanes Urkixo**  
Haizeak okertutako zuhaitz baten antzera **makurtu**. **Agustin Otsoa**  
Ureztatu bezain laster lehortu egiten zen lurra, eta landareak triste **makurtzen** ziren beren zurtoinaren gainean. **Josu Zabaleta**  
Ozta-ozta ikusten ziren etxeko hormak haien atzean, hosto ugari adar behearantz **makurtuek** ezkutatuturik. **Jose Morales**  
Hainbestearino luzatu zen bat-batean santua, non zuhaitzaren adaburua ukitzen baitzuen eta lurreraino erraz **makurtzen**. Aitak, erantzun gisa, begirada **makurtu** zuen. **Askoren artean**

### • 2 da ad gorputza edo burua aurrerantz eta behearantz higitu.

Aurpegia jaso duzu eta Luis berriro **makurtu** da bere ezpainak zureetara iritsi arte. **Lourdes Oñederra**  
Ez zen **makurtu** bere arma lurretik jasotzeko. **Jose Morales**  
**Makurtu** eta pilotak biltzen jarri nintzen. **Fernando Rey**  
Paper gainera **makurtu** zen idazten hasteko. **Anjel Lertxundi**  
Friedel nire gainera **makurtu** zen, gure belarriek elkar ukitzeko moduan. **Koro Navarro**  
**Makurtu**, damari eskuan muin eman, eta lagundu zion aldameneko aretora. **Xabier Olarra**  
Biak begirune handiz **makurtu** ziren diamantezko botoia zeukanaren aurrean. **Lopez de Arana**  
Aurrerantz **makurtu** zen, bular sendoak ia agerian utziz. **Migel Angel Mintegi**  
Harry aurrera **makurtu** zen Hagrid ikusteko. **Iñaki Mendiguren**  
Etxe aitzinera helduta, oinetako lokarria lotzera **makurtu** nintzen. **Alberto Ladron Arana**  
Gerald **makurtu** egin zen eta Camilla musukatu zuen emeki, emeki-emeki-emeki. **Mirentxu Larrañaga**  
Txundituta, Harry **makurtu** egin zen maparantz. **Iñaki Mendiguren**  
Osaba Jeff aurrerantz **makurtu** eta baxuago mintzaten hasi zen. **Lopez de Arana**  
Kaxaren atzean **makurtu** zen mutila. **Fernando Morillo**  
Gizona gutuna irakurtzeko **makurtu** zenean, neska gaztea sorbaldez doi-doi ukitu zuen. **Lopez de Arana**  
Doktorea **makurtu** egin zen eskuak belauzetan pausatuz. **Patxi Zubizarreta**  
Ghân-buri-Ghân lurra kopetaz ukitzearaino **makurtu** zen, agur moduan. **Agustin Otsoa**  
Motorrera hurbildu, **makurtu**, eta galgak laxatu nizkion giltza batez. **Juan Kruz Igerabide**  
Atera zen David hegoaldeetik eta lurreraino **makurtu** zen, hiru bider ahozpeztuz. **Elizen arteko biblia**  
Ania berehalaxe **makurtu** zen bikarioaren oinetan. **Askoren artean**  
Judako eta Jerusalemgo jende guztia ere **makurtu** egin zen Jauna gurtzeko. **Elizen arteko biblia**  
Askoz ere motelago dabil, **makurtuta**, ez zaizkio hitzak ateratzen... **Beria - Gaiak**  
· **Makur** daitezela nazioak zure aitzinean. **Elizen arteko biblia**

### • 3 (du aditza, objektua gurputzaren zatiak direlarik)

Gazteak burua **makurtu** zuen baietza adierazteko. **Karlos Zabala**  
Berriro ere burua **makurtu** eta alde egin zuen. **Iñaki Mendiguren**  
Burua atzerantz **makurtu** eta hatz erakuslea aurrerantz luzatu zuen. **Oskar Arana**  
Neke handiz **makurtu** du gorputz handikotea. **Anjel Lertxundi**  
Zangoak gurutzatu, soina aurrera **makurtu**, eta eskuineko ukondoa izterrean eta kokotsa esku-azpian bermatuak, begira geratu zitzaion. **Migel Angel Mintegi**  
Neskak hesola bati heldu zion, eta burua niregana **makurtu** zuen. **Irene Aldasoro**  
Bizkarra **makurtu** zuen feltrozko txapinak hartzeko. **Mirentxu Larrañaga**  
Senak aginduta, buru-sorbaldak **makurtu** eta, zeharka, egongelako altzariak lehertzen ikusi nituen. **Alberto Ladron Arana**  
· *irud* Batzuetan nihaurk nituen probokatzan, ez bortizki baina keinu ttipiekin, erakusteko ez nuela burua **makurtzen**, ez eta **makurtu** nahi ere. **Filipe Bidart**  
**Makurtu** lepoa eta jarri Babiloniako erregearen menpe, eta zuen arbasoei eman nien lurraldean jarraituko duzue bizitzen. **Elizen arteko biblia**  
Baina Yhwh-k ez zizuen entzun, ez jaramonik egin (hitzez hitz 'belarria **makurtu**'). **Xabier Kintana**  
Ene Jainko, **makur** belarria nire oitotzari, ez egin entzungor nire erreguari. **Elizen arteko biblia**  
Zeruko Senarraren ezker besoa burupean baituzue, karitate arautu baten bidez espirituaren legepera **makurtua** duzuen zeuen gorputz ahulari eusteko. **Askoren artean**  
Zure arauak betetzera **makurtzen** dut gogo: nire sari dira betiko. **Elizen arteko biblia**

### • 4 da/du ad norabide zuzenetik aldaratu ik okertu.

Sustrai gaixotik zuhaitz gaixoa sortzen baita, eta behin okerrera **makurtu** dena nekez ekar baitaiteke bide zuzenera. **Askoren artean**  
Tira, erabaki zuen, afera alu hartan gauza gehiegi **makurtu** ziren zegoeneko. **Alberto Ladron Arana**  
Ala dolorismoak jujamendua **makurtu** dit? **Piarres Aintziart**  
Halako moldez non ematen dituen ez dadin saihestu ez **makurtu** batera ez bestera. **Patxi Altuna**  
Gure arteko gerlak irau bitartean sekula ez haiz ez alde batera ez bertzera **makurtu**. **Aingeru Epaltza**

### • 5 da ad besteren bide, molde, esan, iritzietara... egokitu edo etorri. ik lerratu.

Errukarriak, [...] aurkako ditudan anaiak, nahiz eta gogoz kontra haien nahira **makurtzen** naizen! **Beria - Gaiak**  
Luze ari izan nintzen neure burua suizidioaren aukera ezberdinekin balakatzan, bakar batera **makurtu** gabe. **Aingeru Epaltza**  
Zuk ondo dakizu amodioaz mintzatzera **makurtzen** den emakumeak azkenean amorosturik bukatzen duela. **Jon Muñoz**

Nik ez nuen miramiren arrazobidera **makurtu** nahi. Jon Muñoz  
Noizbait onartu behar izan nuen iritzi zentzudun hark berak, umekerietara **makurtu** nahi ezak berak egiten ninduela koldar. Koldo Izagirre  
Aitortzen dizut ezin naizela hori sinestera **makurtu**. Jon Muñoz  
Pedro semea ez zitzaion axola, eta Andresi gorrotoa zion ia, bere nahietara **makurtzen** ez zelako. Josu Zabaleta  
Eta egiaz hala gertatu zen, Inozentzio jauna, munduko zuhaitzik goren eta altuena, Frantziskoren eskakizun eta nahira halako onberatasunez **makurtu** zenean. Askoren artean  
Azkenik, santuaren irmotasunak garaituta, haren erreguetara **makurtu** zen. Askoren artean  
Preso gehienak arin amiltzen ziren: ordenak obeditu, agindutakoa jan, diziplinara **makurtu** ... Pablo Sastre  
Hain gaude gu horretara eginak, aginduak ematera eta onartzera **makurtuak** esan nahi dut, [...]. Pello Salaburu  
Eta **makurtzen** da diruaren eta boterearen eta gezurraren aurrean. Joxerra Garzia  
· du ad Deusek ez zaitzake amore ematera **makur**. Jon Muñoz

## 6 irud/hed

Japoniak 1863an onartu zuen, Turkiak eta Txinak baino urte batzuk geroago, hauek 1929an **makurtu** baitziren egutegi berrira. Pello Salaburu  
Mugimendu hura ezerezean geratu zela, eta partaide gehienak [...] agintarien legeetara **makurtu** eta ahal bezain eroso bizi zirela. Martin Anso  
Mugimendu-gerrazko erasoaldi zorrotzak jo bat-batean han-hemenka, kokapen-gerraren errutina nekagarria **makurtu** ordez. Juan Garzia  
Inork onartu nahi izan ez zituen lan-baldintzetara **makurtu**-izana aurpegiatzen ari zitzaizkidan. Anjel Lertxundi  
Eta geure buruari uko egin behar diogu eta zerbitzuaren eta obedientziaren utzarpera oso-osorik **makurtu**, bakoitzak Jaunari hitzeman zionez. zientziak erlijioaren lekua hartu du gaur egun, etorkizuna gure nahietara **makurtu** dezakegula agintzen digulako. Askoren artean  
Teresak ez du orduz ordu errepikatzen den bizimodu aspergarria **makurtu** nahi. Joxean Agirre  
Bere meneko nahi izanen zaitu sistemak, bere beharretarat **makurtua** beti. Filipe Bidart

## 7 ipar hondatu.

Gehiago dena, nehork ez du konprenitzen nolaz elizako ezkilak, nolaz nork beraren ordugailuak, irriatiak, telebistak, hozgailuak, hoinbeste mekanikeria etxe batean orain elektrizak direnak, berdin elektronikaz beteak direnak, nolaz geldituak diren edo **makurtuak**. Michel Oronoz

## 8 (era burutua izenondo gisa)

Alde horretatik mimosaren adar **makurtuek** erabat inguratzen baitute. Gari helduen buru **makurtuak** ferekatzen nituen, bularra puzten zidan itsas airea edaten nuen. Patxi Iturritegi  
Esku korripilotsuak, **makurtuak**, sofritu zutela salatzen zuten. Michel Oronoz  
Azalera **makurtuek** estimulan duten korrelatu bezala aurkezten dira. Josu Zabaleta  
Figura **makurtu** bat agertu da Abelengandik metro pare batera. Pello Lizarralde  
Akituta zegoen, basoko soilgune batean itzal **makurtu** bat ikusi dutenean. Eskaileren alde batera eta bestera, plano **makurtu** batek pasabidera igotzeko aukera ematen zuen. Pako Aristi  
· Lepoa panparroi gorantz begira duen nobleziako emakume adinean sartuaren indioilartasuna zaio bere morroiari mespretxuaren ikur, **makurtu** eta makurrarazleen arteko abezedario gestual bateko ikur. Harkaitz Cano

## 9 buru-makurtu iz burua makurtzea. ik makurtze.

Gizalegezko **buru-makurtua** eginez hartu zituen. Jose Morales  
-Mesedez -esan zuen Txitxikovek, **buru-makurtua** eginez-, eroste-agiriak hemen egiten dira? Jose Morales  
Haren esku aldera **buru makurtu** bat egin, eta agurtu egin zuen. Patxi Zubizarreta  
Agur-hitza adeitsuei zein **buru-makurtu** atseginari esker, aise irabazi zuen emakumearen estimua. Jose Morales  
Bere erantzun labur eta zehatzetan agertzen zuen jendetasunak berak arrisksua zirudien haren ezpainetan, haren **buru-makurtu** arinetan. Jose Morales

## 10 makurtuxe makurtu samar.

Belak, **makurtuxe**, arretaz begiratzen zion Aneren gorputzari soslaian. Pablo Sastre

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**aldera makurtu** (13); **atzerantz makurtu** (4); **aurrean makurtu** (35); **aurrean makurtu zen** (6); **aurrera makurtu** (27); **aurrera makurtu zen** (13); **aurrerantz makurtu** (22); **aurrerantz makurtu zen** (9); **berriro makurtu** (5); **berriz makurtu** (5); **bizkarra makurtu** (8); **bizkor makurtu** (4); **buru makurtu** (23); **buru makurtu bat** (10); **burua makurtu** (179); **burua makurtu zuen** (70); **gainean makurtu** (18); **gainera makurtu** (36); **gainera makurtu zen** (17); **haren aurrean makurtu** (6); **harengana makurtu** (6); **hartzeko makurtu** (7); **hartzera makurtu** (5); **jasotzera makurtu** (4); **lurrera makurtu** (6); **lurreraino makurtu** (7); **makurtu bat egin** (8); **makurtu belarria** (4); **makurtu zuen burua** (8); **nigana makurtu** (5); **niregana makurtu** (8); **ondoan makurtu** (5); **ondora makurtu** (4); **orduan makurtu** (4); **pixka bat makurtu** (6)  
**buru makurtua** (14); **buru makurtua egin** (6); **buru makurtua eginez** (4); **gainean makurtua** (5)  
**buru makurtuak** (5)  
**burua makurtuko** (8)  
**aldera makurturik** (4); **apur bat makurturik** (5); **aurrean makurturik** (3); **aurrerantz makurturik** (6); **berengana makurturik** (3); **bizkarra makurturik** (5); **burua makurturik** (26); **erdi makurturik** (3); **gainean makurturik** (18); **gainera makurturik** (6); **harengana makurturik** (4); **lurreraino makurturik** (3); **makurturik zegoen** (7); **ondoan makurturik** (3); **pitin bat makurturik** (4); **zerbait makurturik** (3)  
**apur bat makurtuta** (4); **aurrean makurtuta** (4); **aurrera makurtuta** (7); **aurrerantz makurtuta** (9); **burua makurtuta** (23); **buruak makurtuta** (5); **erdi makurtuta** (6); **gainean makurtuta** (13); **gainera makurtuta** (12); **makurtuta egin** (3); **makurtuta ibili** (4); **makurtuta ikusi** (4); **makurtuta zegoen** (18); **ondoan makurtuta** (3)  
**aurrean makurtuz** (5); **aurrerantz makurtuz** (4); **burua makurtuz** (39); **makurtuz agurtu** (4); **pixka bat makurtuz** (3)  
**buru makurtze** (9); **buru makurtze bat** (3)  
**aurrean makurtzea** (6); **burua makurtzea** (4)  
**burua makurtzeko** (7)  
**aise makurtzen** (3); **alde batera makurtzen** (3); **aldera makurtzen** (7); **aurrean makurtzen** (9); **aurrerantz makurtzen** (3); **berarengana makurtzen** (4); **burua makurtzen** (25); **gainean makurtzen** (4); **gainera makurtzen** (6); **makurtzen hasi** (6); **makurtzen ikusi** (4); **zergatik makurtzen** (3)

## makurtutxo iz buru-makurtu txikia.

Irribarre adore-emaile eta inginahizko batez goitik behera begiratu zidan, **makurtutxo** bat egin eta gelatik atera zen mutil gazte baten pauso arinaz. Ander Irizar

## makurtzaile (corpusean makurtzale) izond makurtzen duena.

Hizkuntza itultzaleak, hots, egiaren bihurtzale, **makurtzale** eta traidore direla, "traductor traditor" latinaren zuhurtziak dion bezala. Herria

## makurtze

### 1 buru-makurtze iz burua makurtzea. ik makurtu 9.

Behin egia zuregana etorri, eta **buru-makurtze** handia egin beharko zenioke, eta ez esan: burutik zaudel! Jose Morales

**Buru-makurtze** handiak eginez agurtzen zuen. Jose Morales

Elkarri begiratu eta duintasun handiz agur egin zioten elkarri **buru-makurtze** txiki batez. Koldo Biguri



Eskerrak eman eta **buru-makurtze** bat egin zion. **Irene Aldasoro**

# makusi

## 1 *ikus*-makusi

Oso ona zen "ikusi-makusi"n, eta "**ikusi-makusi**", gauza bat, K letraz hasten dena" aditu orduko, zerrenda hau bota zuen berak: "Kandela, katua, kafetegia, kafea, kikara, kazeta". **Xabier Olarra**

# makuto *iz* zakutoa.

**Makutoan** bilatu eta betaurreko ilunak ateratzen ditu. **Sonia Gonzalez**

**Makutotik** orriak atera eta pasiloan zehar barreiatu ditu, zaratarik atera gabe, sistematikoki. **Iban Zaldúa**

**Makutoan** bilatu eta betaurreko ilunak ateratzen ditu. **Sonia Gonzalez**

**Makutoan** zituen beste bi liburu handiak erakutsi zizkigun. **Joseba Sarrionandia**

# malabar (*orobat malabare*) 1 *iz* eskujokoa.

Eta otartekoak hartu eta non hasten zaigun **malabarrak** egiten. **Josu Zabaleta**

Haiek **malabarretan** aritzea. **Josu Zabaleta**

Kalean hiru pilotekin **malabarak** egiten zebilen gizon hark Nekeza behar duela hain gauza aparatosoekin **malabarak** egitea. **Harkaitz Cano**

Bilkura haietan mimoa eta **malabareak** egin nahi ditut bakearen alde. **Fernando Rey**

Antzerkia, **malabareak**, dantza, musika... **Berria - Kultura**

## 2 (izenondo gisa)

Bere arte **malabareek** zelaia pizten dute. **Berria - Kirola**

## 3 (hitz elkartuetan)

Antzerki taldea izango du, **malabare** talde bat, kontzertu bat... **Berria - Euskal Herria**

## 4 *malabar joko* eskujokoa.

Euskal Herriko artea aztertzen EAEkoa baizik, horrek dakarren **malabar** jokoan zailtasunarekin **Berria - Kultura**

# malabare ik malabar.

# malabarismo 1 *iz* eskujokoa, inkamika.

Poltsatik laranja batzuk hartu eta gora jaurti zituen, **malabarismoak** eginez, horixe besterik egiten ez zekien-eta. **Xabier Aranburu**

Bolak aineratu eta **malabarismo** batzuk egiten, hori besterik ez zioten irakatsi semeari.Martin ikusten nuen kafetegiko mostradore barruan botilekin **malabarismoak** egiten, eta Virginia ondoan barrez. **Xabier Aranburu**

## 2 irud/hed

Horiek **malabarismo** filologikoak dituzu, bertzerik ez, burugabekeriak! **Joan Mari Irigoien**

Arafaten ordekoak **malabarismoak** egin beharko ditu Israelekiko negoziazioetan, batetik, errefuxiatuen itzulera eskubidean amore emateko eta, bestetik, itzultzeko esperoan dauden hiru milioi palestinarren nahiak betetzeko. **Berria - Mundua**

## 3 (hitz elkartuetan)

Pilotak josten ikasteko tailerrak eta **malabarismo** ikastaroak, besteak beste. **Berria - Euskal Herria**

**Malabarismo** klase bat eman zuten Celtic Parken. **Berria - Kirola**

· Zaldi gaineko buru-**malabarismoetan**. **Iñaki Mendiguren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**malabarismoak** egiten (6)

# malabarista 1 *iz* eskujokari, inkamikari.

**Malabaristen** jokoa estaltzen duen isiltasun horretan zehar. **Josu Zabaleta**

Angelu aldakuntzarik ezean, geldid daudela iruditzen zaigu hasieran, baina **malabaristen** trebeziak jaurti ez baina askatu egiten dituen bolak bezala, geldiro hasten dira gorantz. **Josu Zabaleta**

Hitzen **malabarista** zen Guillermo Cabrera Infante idazlea da, ondorengo jolas honen egile. **Iñigo Aranbarri**

## 2 (izenondo gisa)

Fraide **malabaristak**, ordea, Ama Birjinari eta Jesus Haurrari bere barren-barreneko zerbait eskaintzeko premia itzela sentitzen zuen. **Xabier Aranburu**

# malagar *izlag/iz* Malagakoa, Malagari dagokiona; Malagako biztanlea.

Sergio Santamaria 24 urteko aurrelari **malagarra** Alavesen arituko da. **Malagarra** da eta New Yorkera duela lau urte heldu zen, beste asko bezala lurra behean eta zerua goian. **Berria - Kirola**

# malaiar *izlag/iz* Malakan eta inguruan bizi den etnia batekoa, eta etnia horri dagokiona; etnia horretako kidea.

**Malaiar** jatorrikoak diren herritar hauek [...]. **Berria - Mundua**

Arerio **malaiarren** eskuetan. **Berria - Kultura**

**Malaiarren** artean, non adiskidetzeari ez baitago ezarrita, inor hil duenak, hildakoaren ahaide edo lagunek bera ere hilko dutela etsita, sumina bere buruaz jabe dadin uzten du, eta aurrean aurkitzen dituen guztiak zauritu eta hil egiten ditu. **Iñaki Iñurrieta**

malaisiar ik **malaysiar**.

**malakita** *iz* kobre karbonatozko harria, kolore-berdea, leun daitekeena eta bitxigintzan erabiltzen dena.

**Malakita** Mazedoniatik ekartzen da; kobrezko meatzeen inguruko parajeetatik ateratzen da. Santiago Iruretagoiena

Horri **malakita**, purpura eta Armeniako urdina gehitu zaizkio. Santiago Iruretagoiena

**Malakita** ezin dutenek erabili garestia delako, urdinarekin nahasten dute horika izeneko belarra eta berde oso bizia lortzen dute; horri, tindatzeko berdea deitzen diote. Santiago Iruretagoiena

Urteberri egunean eskumuturreko esmaltatu bat eman zion opari, Ramadan amaierako jaiegunean **malakitzako** lertxun txiki bat, opari-denda batean begia jo ziona. Oskar Arana

**malaletxe** *iz adkor* letxe txarra.

Guri morroi horrek buruko mina, nekea eta **malaletxea** baino ez dizkigu ekartzen. Jon Arretxe

Ajea bai baina ez **malaletxea**. Xabier Mendiguren Elizegi

**Malaletxe** handikoa izan naiz beti, eta hainbat mutur apurtu nituen kolpeka institutuko sasoiari. Jon Arretxe

Bi mutilek harriduraz hartu zuten neskaren txinpart eta **malaletzeko** erreakzioa. Unai Iturriaga

**malandro** *iz* Venezuelan, gaizkilea.

Venezuela da munduko leku bakarra poliziak gauaz semaforoak gorrian pasatzeko agintzen dizuna, **malandroek** (gaizkileek) semaforo gorriaren geldiuena aprobetxatzen baitute autoak lapurtzeko. Pako Aristi

"**Malandrarik** handienak gobernuan egon dira", diote, Venezuelak azken 25 urtetan petrolioaren salmentarekin jaso dituen 300 mila milioi dolar nora joan diren galdetuz. Pako Aristi

**malaostia** *iz adkor*

Gureak ziren beste hainbat tokitan saiatu nintzen, hondartzako txokoa, gurasoen etxeko logelan, autobuseko atzeko eserlekuetan, begiak itxita, begiak irekita, lokartu baino lehen, esnatu berritan, goibel, gorrotoz gainezka, barne ahots gozoenarekin, maitasunez eta **malaostiaz**, baina ez zinen inoiz gehiago azaldu. Eider Rodríguez

**malapartatu** *izond* madarikatua.

Requessens y Zuñiga gizon **malapartatu** eta odol-gose hura. Felipe Juaristi

Ez gintuen oso begiko, ez, itsu **malapartatuak**! Karlos Linazasoro

Frantziar **malapartatu** horiek ustelduta daude eta duela aritzea edo/eta lagun hurkoaren emaztearekin oheratzea beste kezkarik ez dute. Lopez de Arana

Hazi ahala etorriko ziren arazoak, bele, mika, torretxori eta beste hegazti **malapartatu** betigose horiekin. Pello Zabala

Ezingo nian utzi hiri **malapartatu** hori eta hantxe hilko ninduan, dudarik gabe! Karlos Zabala

Zerriak zaintzeko lanbide **malapartatuan** ere aritu izan zen inoiz. Jon Maia

Haize **malapartatua**! Pello Zabala

Izotz-puska **malapartatu** bat zegoen espaloian, ordea, eta eserarazi egin zintuen, brasta. Mirentxu Larrañaga

Doilor **malapartatu** hori! Jose Morales

**Malapartatu** hori nire alabarekin oheratu bada eta zera egin badu, akabatu egingo dut. Patxi Zubizarreta

Zenbat **malapartaturi** ematen diogun jaten! Anjel Lertxundi

**malaria** *iz* *Anofeles* eltxoak transmititzen duen eritasuna, helgaitzak eragiten dituena. **ik paludismo**.

Gizon eta andreen artean erdiak heriotza dakarten eritasunak gainetik ezin kenduz bizi dira, **malariak** edo HIESak eramanik milioika hiltzen dira. Pello Salaburu

Munduan 120 milioi pertsonak dute **malaria**, eta urtero 1,5 milioi lagun hiltzen dira haren eraginez. Berria - Gaiak

**hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dute malaria** (3); **malaria kasu** (5); **malaria zabaltzen** (3)

**eta malariak** (6); **malariak jota** (5)

**eta malariak** (6); **malariak jota** (5)

**malariari aurre egiteko** (3)

malasiar ik **malaysiar**.

**malastasun** *iz* malatsa denaren nolakotasuna.

Bazen neure onetik ateratzen ninduen zerbait, zera: arrabioak putzu bakoitzean gainezka, arrabioak istil xixtrin bakoitzean bor-bor... eta, oro har, atergabeko landare-narotasun hura, **malastasun**-usain hura, umotasun ustelduzko kirats hura. Joxe Austin Arrieta

**malats** *izond* biguna; mardula.

Mami malguaren minean, haragi **malats** zuriak ihaurrika zerabilzkion janaria oparituz. Itxaro Borda

Izaki berde argia inguratzen zuten har zuri **malatsen** dantza. Itxaro Borda

Zizare gorri **malats** bat erdizkatu eta aitzur kolpeaz behereko zureko kutxaren tapakia hautsi zuen. Itxaro Borda

Etxeoandrea arras **malatsa** zen. Gotzon Garate

**malaysiar** (*orobat malaisiar g.er.*) *izlag/iz* Malaysiakoa, Malaysiari dagokiona; Malaysiako herritarra.

Jarrera bera hartu zuten holandarrek Indonesiako **malaysiar** herriekiko harremanetan. **Iñaki Mendiguren**  
Hegoaldeko Filipinetako **malaysiar** biztanle fedegabeak. **Iñaki Mendiguren**  
Husin **malaysiarra** da, Asiako gizonik bilatuenetakoa. **Berria - Mundua**  
Neska exotiko asko dituzu aukeran, **malaisiarrek**, tailandiarrek, txinatarrak, eskatu besterik ez duzu. **Oskar Arana**

## malba 1 iz belar landarea, zurtoin iletsua, hosto gingildunak eta lore arrosa edo morantz handiak dituena(*Malva sylvestris*); landaren horren lorea, more zurbil kolorekoa.

Kakaz, zaineraino karraskatutako zorne-belarrez, aza-zuztarrez eta **malba** -hostoz egindako pila baten gainean eserita. **Itziar Otegi**  
Eta bat-batean gaua etorri zen (bioletarik, arrosarik eta **malbarik** gabe), gau ilun eta beltza, **Fernando Rey**

### 2 iz kolore more zurbila.

**Malba** argi-argiko jantziak soinean. **Iñaki Mendiguren**  
**Malba** koloreko tiranteak fraka dotoreetatik dilindan zituen gizon bat. **Lopez de Arana**  
**Malba** -koloreko begizta handi bat. **Lopez de Arana**  
Hegal zabaleko kapelu bat, **malba** koloreko belusezkoa. **Jon Muñoz**  
Doneztebeko gurutzean, glizinia ezin ederragoa aurkitu du loraturik, **malba** kolorekoa. **Hasier Etxeberria**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**malba koloreko** (7)

## malda 1 iz aldapa.

Hasieran, izugarria da **malda** : 5.000 metroko koska goitik beheraino, lehenengo mila kilometroetan! **Jon Muñoz**  
Ubidearen zoruak izan beza gutxienez ehun oin bakoitzeko oin-erdi bateko **malda** . **Santiago Iruretagoiena**  
Bizi-bizi igo zen Igorrekoa, plater handiarekin %8ko **maldetan** , %15eko **maldak** ditu eta txirindulariak erabat makurrarazteko pendiza. **Berria - Kirola**  
La Mongjeko **maldak** euskaldunetz lepo daudela. **Berria - Kirola**  
Kanpoan, kalekka bat **malda** pixka batekin, erakusleihoko emakumeen kale nagusira eramaten zuena. **Fernando Rey**  
Hala zihoazen, sabela lurrerantz, sasiak zulatuz, arrailak igaroz, **maldak** igoz. **Josu Zabaleta**  
Ezar itzazu mugak mendi inguruan eta esaiozu herriari ez dadila igo mendira ez eta **maldara** hurbildu ere. **Jose Antonio Mujika**  
Endaitzen arteko zaldia [...] trosta luze-luzean zihoan beti, zelaian nahiz **maldan** , eta ez zuen behin ere galtzen neurria. **Karlos Zabala**  
Erreka bazterrak zuri-zuri, kaleak ere elurrak hartuta, emakumeak katiuskak jantzita eta haurrak plastikoekin **maldan** ... **Pablo Sastre**  
**Maldan** beharri ekin ziotenean Bran agertu zen. **Joanes Urkixo**  
*ik beherago* 10. **Askoren artean**  
**Malda** baten gaineraino eramaten dut lera tiraka. **Eskarne Mujika**  
Zurzurien dardara nabari da Mendi Harritsuetako azken **maldetan** . **Xabier Olarra**  
Teatroa mendi baten **maldan** baldin badago, zimenduak egitea errazagoa izango da. **Santiago Iruretagoiena**  
Hegaztiak sotoaren beste muturreraino eraman behar izan zituzten, sotoaren lurrean **malda** baitago. **Karlos Zabala**  
· **Maldan** jarritako gain haien ertzetik behera tanta lodiak erortzen ziren. **Karlos Zabala**

### 2 (izenondokin)

Mendiaren **malda** arinenetik. **Bernardo Atxaga**  
**Malda** leunak zituen ertz bietan. **Jose Morales**  
Indartsuenek goiko bidea hartzen dute, **malda** handiena duena, eta besteek behekoa. **Xabier Etxabe**  
Indusketatik txintxorrez eta buztinez beteriko bagonetak, **malda** gogorra gaindituta, nekez heltzen ziren kalera. **Lopez de Arana**  
Giro dago paseorako, eguzkiaren **malda** beherak ordu arteko errea arindu baitio beroari. Hor **malda behera** hasten da eta, txakurrek hanka jasotzen dutenean, txizerreka dendaraino etorriko da. **Anjel Lertxundi**  
Nire adiskideak bazuen mahasti bat **malda** jori batean. **Elizen arteko biblia**  
Zintzur estu bat bi **malda** harkaiztsu, basoz bete, handiren artean. **Josu Zabaleta**  
Leunki jaisten zen aldapan behera, nahiz eta auzo-bide hartan oso **malda** malkartsuak zeuden. **Jose Morales**  
**Malda** pikoan goiti estrapozo egin du. **Pello Lizarralde**  
Autoak, haran zabaleko errepidetik irten eta eskuin jo du, **malda** pikoan barrena. **Pello Lizarralde**  
**Malda** gaitzenetan ere ez zuen Begoñak Fernan izerditan ikusi. **Aingeru Epaltza**  
**Malda** arriskugarri batean behera irristatzen hasi. **Josu Zabaleta**  
Nola errekaostoen urak inoiz, naturaren poderioz handiturik, legokiekien ubideari desegokitu eta **malda** arrotzetan behera amiltzen diren. **Pedro Alberdi**

### 3 irud/hed

Zinkezko xafla zabalez egindako teilatuen **maldetan** zehar. **Karlos Zabala**  
Ezin esan daiteke hiriko damak ere doilortasunerako **malda** leun horretan behera irristatzen zirenik. **Jose Morales**  
Maitasunaren **malda** ikusezinek gizona askatzen dute. garai zailak aipatu zituen; ekonomiaren **malda behera** ; gestio zuhur baten premia; gu guztien etorkizuna ziurtatzeko bokazioa. **Josu Zabaleta**  
Baina niretzat, berekoitasuna **malda** beherako kontua da, eta eskuzabaltasuna **malda** gorakoa. **Joan Mari Irigoien**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Malda** -gailurraren altueraraino igotzera behartzen da ura. **Santiago Iruretagoiena**  
Malkar erditik zeharka, deskargatokiaren **malda** -bizkar gris zarrastatuan barrena. **Juan Garzia**  
Lasterkari ematen nion geratzen zen **malda** zati hartan gora, mendirantz, askatasunerantz... **Agurtzane Juanena**  
Deabruak **malda** -barrenean geratu behar izan zuen. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

### 5 (izenondo gisa)

Etxe ilara batek errepidera ematen zuen eta gure etxeak berriz zelai **malda** batera. **Jon Maia**

### • 6 iz babesa.

Berandaren **maldan** bizpahiru abere-bazka poltsatto zeuden eta bizkar-zakuan sakatu zituen. **Itxaro Borda**  
Nasatik aski urrun eraikia zuten kanpamendua, tola soilez, egur ahulez osatu horma eta aterik gabeko errota abandonatu baten **maldan** . **Itxaro Borda**  
Eskalea amerikanoaren **maldan** gerizatu zen. **Itxaro Borda**

### 7 malda beheiti maldan behera.

**Malda** beheiti jo du jarraian, iraleku bakanduan barrena. **Pello Lizarralde**

### 8 malda gora eqin, jarri nekeza gertatu.

**Malda gora** egiten ari zitzaion hitz egitea; gero eta gehiago-, orduan, egun hartan, zera... Fernando Morillo  
Lizardiren euskara, izan ere, ene jakituriatik koska bat gorago geratzen zen -koska bat baino gehiago ere bai-, eta horregatik, behar bada, **malda gora** egin zitzaidan. Joan Mari Irigoien  
**Maldan gora** jarri zitzaion kanporaketa Lemoakoei. -Eta joko hura egunez egun jokatzea, orduan, **malda** gorako ekintza bihur dakiguke. Joan Mari Irigoien

## 9 maldan beheiti maldan behera.

**Maldan beheiti** ziztu bizian goazi. Herría  
Autoa oso mantso abiatu da **maldan beheiti**. Pello Lizarralde  
**Maldan beheiti** heldu den harria nekez geldiaraz daiteke, berdin gurea abiarazi ondoan. Xabier Montoia  
· Urrats bakoitza mekanika ariketa zail bat da **malda** pikoan **beheiti**. Aingeru Epaltza

## 10 maldan behera

20 tonaz gaindiko harriztar handiak joan ziren **maldan behera**. Pello Zabala  
**Maldan behera** abiatzeko itxura egin zuen. Martin Anso  
Zaldia, izututa, atzeko hanken gainean jarri eta jauna **maldan behera** erori da. Martin Anso  
Eta behin **maldan behera** amiltzen hasten delarik, ez daukala hondoa jo arte geratzerik. Hasier Etxeberria  
Elur pilota txikia, **maldan behera** jirabiraka jaitsi ahalean, gero eta handiago bihurtzen da, ezin geldituzko abiadura hartuta. Iñaki Arranz  
Korridorea **maldan behera** dago. Lander Garro  
· Han bideak ezkerretara jotzen zuen eta **malda** handian **behera** zihoan. Agustín Otsoa  
· Ordurako Santo Andréko **maldan behera** gindoazen. Jon Alonso  
· *irud/hed* Zenbait tokitan bizi itxaropena **maldan behera** doa: [...]. Pello Salaburu

## 11 maldan goiti maldan gora.

**Maldan** goiti urrats luzean, ez da gelditu berriz oihanpean izan arte. Aingeru Epaltza  
Lehertzeaz diruditen errapeak dilindan, oso astiro egin dute **maldan** goiti. Pello Lizarralde  
Maldan beheiti ziztu bizian goazi, **maldan goiti** joaitea horren zaila delarik! Herría

## 12 maldan gora

Gurdia geldo zebilen **maldan gora**. Karlos Zabala  
**Maldan gora** igo ginen lasterka, pinu arteatik bidea moztuz. Juan Kruz Igerabide  
Orain **maldan gora** doa andrea, baina ez lehengo bide zuzenetik, oso pikoa baita, diagonalean baizik. Patxi Iturritegi  
Hiria ezezaguna zitzaion eta itsu lagunik gabe nekez ibiliko zen **maldan gora** jarrita dauden etxarteetatik barrera. Felipe Juaristi  
Eta erotuta bezala pasa ziren mutilak nire ezkerretatik eta nire eskuinetatik, **maldan gora** arnasestuka, baionetak dirdaitsu. Txillardegi  
Bagoneta triki-traka eginez zihoan **maldan gora**, argi burrunbarietatik urrun. Lopez de Arana  
Zama astuna **maldan gora** garraiatu zuen S. Vicenteraino, eta zaldunaren hobiaren ondoan beste hobi bat hondeatu zuen. Jon Alonso  
· Bideak sigi-saga egiten zuen Andia mendietako **maldan gora**. Koro Navarro  
· **Maldan gorako** azken tarte luzea egin zitzaion. Jon Maia

## 13 maldari goiti ipar maldan gora.

Erreka horretatik **maldari goiti** badoa bide bat sigi sagaka Bentartera ateratzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
· Horrekin ez aski, harria atera ondoan, haste lan dorpeena: **malda** zutari **goiti** burdin harria karreatzea mandoz, sigi sagaka bidea eginik mendi gainera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
· Burdin harria karreatzeko mandozain bakoitzak hiru mando ibiltzen zituen **malda** horri gora, gero Orbaizetako olara jausteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## 14 mendi malda

Saul mendi- **malda** batetik zihoan. Elizen arteko biblia  
Bet-Peor, Pisga mendi- **maldak** eta Bet-Jeximot. Elizen arteko biblia  
Ikusi duk hotela, ezta? -esan zuen, hotela zegoen mendi **maldarantz** burua jiratuz-. Bernardo Atxaga

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**malda batean** (5); **malda batetik** (3); **malda behera** (5); **malda beherak** (3); **malda gora** (6); **malda pikoan** (5); **mendi malda** (6); **mendiaren malda** (3)  
**maldan beheiti** (5); **maldan behera** (145); **maldan behera abiatu** (5); **maldan behera doa** (6); **maldan behera erori** (5); **maldan behera hasi** (4); **maldan behera jaisten** (3); **maldan behera jo** (3); **maldan behera joan** (9); **maldan behera zihoan** (3); **maldan beherak** (3); **maldan beherako** (9); **maldan goiti** (6); **maldan gora** (69); **maldan gora eginiko** (3); **maldan gora igo** (3); **maldan gora jarri** (6); **maldan gora jarritako** (3); **maldan gorako** (3); **mendi maldan** (4); **mendiaren maldan** (4)  
**hangarraren maldara** (3)  
**maldaren erdian** (4)  
· **azken maldetan** (3); **lehen maldetan** (3); **pirinioetako maldetan** (3)

## maldakor izond maldatsua.

Aiherra ezagutzen dutenek, badakite untsa, zoin herri **maldakorra** den. Herría

## maldatsu izond aldapatsua.

Portuari begira dagoen bizkar **maldatsu** batean eraikita dago hiria, ortuak-eta mailaz maila egon ohi diren antzera. Anjel Lertxundi  
Etxe zahar batzuk ere, bereziki Zitadelako karrika **maldatsuan**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Badaki Luzaideko errepide **maldatsuen** berri. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Larri zauritua egon arren, gudarien artean lasterka igaro eta harkaitz **maldatsu** baten gainera igo zen. Elizen arteko biblia  
Espektroen Mendia, izei ilunez beteriko aldapa **maldatsuen** artean gora egiten zuena. Agustín Otsoa

## maldatu, malda(tu), maldatzen da/du ad ipar babestu.

Arbolpean **maldatu** ginen ahal bezala. Janbattit Dirassar  
Lampaul **maldatzen** zuen tontorreko egoitzaren hegatz batean. Itxaro Borda  
Ziburun, Zokoa auzoguneko ondartzan, norbaitek gauaz funditu ditu iguzkia azkar delarik **maldatzeko** ezartzen diren etxolattoen finkatzeko pazetak eta ondo hartako beste muntadura batzu. Herría

## maldatxo iz malda txikia.

Elkarri helduta igo genuen **maldatxoa**. [Anjel Lertxundi](#)  
Aurrera egin din autoak, **maldatxoan** behera. [Iban Zaldua](#)

## mald<sup>er</sup> *izond* dohakabea, gupidagarria.

Hain da aldi berean maitagarria Tom umezurtz **malderra**, hain apaina eta psikopata! [Markos Zapiain](#)

Ostikolari bikainak eta alfonbra-saltzaile **malderrak** hain desberdin hartzen ditugun herri honetan, Otamendik nabaritzen du minak guztiok berdintzen gaituela sakonean. [Markos Zapiain](#)

## maldertu, malder(tu), maldertzen da/du *ad* malder bihurtu.

**Maldertuta** gelditzen naiz, aitaren galderak eszena berritzera behartzen bainau. [Anjel Lertxundi](#)

## maldezino ik maldizio.

## maldezinoka ik maldizioka.

## malditismo *iz*

Artista izan nahi duenak, artista ustekoak, ez die kasurik egin behar halako zeregin domestikoei; artistari kaosa dagokio, **malditismo** ukitua emango dion kaosa, domestikoa bada ere. [Iñaki Iñurrieta](#)

## maldiziño ik maldizio.

## maldizio *(orobat maldezino g.er. eta maldiziño g.er.) 1 iz* haserre bizia adierazteko hitz edo esaldi gordina edo arrunta. ik **madarikazio 4.**

Baina, bere hamar urte haiekin, **maldizioak** esaten zituen suma-ahala, zigarroak osten zizkigun, erantzun lotsagabeak ematen. [Bernardo Atxaga](#)

Nekizkien **maldizio** guztiak esanda, indarrak eskuratu nituen nondikbait. [Joxean Sagatzizabal](#)

Gogoratzen naiz ukuiluetako azpiak ateratzen ari ginen goiz batean pazientzia galdu eta **maldizio** batean hasi zela. [Bernardo Atxaga](#)

Ez zuen ez **maldiziorik** ez bedeinkaziorik bota. [Koro Navarro](#)

Halaxe aritu zen luzaz, biraolari irain eta irainari arao, eta **maldizioen** artean esaten zituenengatik atera nuen OVRA Mussoliniren polizia politikoa zela eta sekulako ankerkeria baliatzen zuela bere lanean. [Anjel Lertxundi](#)

Swahilizko **maldizio** latzenak orro batean esanez, lastargia bota eta eskuak begira eraman zituen, eta nik Speedy Gonzálezek egin nituen. [Joxean Sagatzizabal](#)

Jainko ezezagun baten aurkako **maldizio** bat marmarreatuz, eta sukaldera itzuli zen. [Jon Alonso](#)

## 2 madarikazioa.

Galderen erantzuna izatea pertsonaren **maldizioa** da, galbidea, zoritxarra. [Berria - Kultura](#)

Baina Loebek **maldizioa** hautsi zuen herenegun, eta bere izena letra larri idatzi zuen Suediako Rallyaren palmaresean. [Berria - Kirola](#)

Atzo, ordea, iskin egin zion **maldizioari**, eta bere urrezko lehen domina irabazi zuen, eslalomean. [Berria - Kirola](#)

San Joan gaua su eta besta egin arren, ez zuen balio gero sista egiteak: **maldizio** berezia omen zuen egun dontsu horretako siestak. [Pello Zabala](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maldizioa** hautsi (3)

## maldizioka *(orobat maldezinoka g.er.) adlag* maldizioak esanez.

Lotan ere **maldizioka** aritzen zela esaten zuten. [Koro Navarro](#)

Supituki -begiko minak sumindu egiten ninduen- **maldizioka** hasi nintzen bere aurka. [Bernardo Atxaga](#)

Joan nintzenezan **maldizioka** segitzen zuen nire kontra. [Fernando Rey](#)

**Maldizioka** jardun zuten magrebiarrek, Mikelek ulertzen ez zuen beste hizkuntza batean. [Unai Iturriaga](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maldizioka** hasi (6)

## maldiziotxo *iz* maldizio txikia.

Asteartearen edo ostiralaren **maldiziotxo** berekin ekarriko ote zuen ilargi berri edo ilbeteak. [Pello Zabala](#)

## maleante *iz* gaiztagina, gaizkilea.

Bazkaria prestatu behar dut **maleante** horientzat eta... [Joseba Sarrionandia](#)

## maledizentzia *iz* gaitz esatea, gaitz esana.

Nahiz eta bikotea ez egon **maledizentziaren** jakinaren gainean, herriko jendeak azkar baino lehen eman zuen argitara bi amoros haien joan-etorrien berri, eta hurrengo goizean bertan atxilotu zituzten biak, bai Edith eta bai Freddy, eta denbora asko baino lehen epailearen aurrean ipini. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

# malefiko izond kaltegarria, gaitz-egilea.

Zure liburuan, elurra batzuetan **malefikoa** da. **Bernardo Atxaga**

## malefizio iz sorginkeria.

13 zenbakia ez da **malefizio** edo agur-gaixto baten zenbakia. **Herria**

Musuak **malefizioa** hautsi zuen, ireki egin zizkidan Lehen Begiak. **Bernardo Atxaga**

Ohartu naiz badirela ofizioz, eta batez ere benefizioz, inoiz ere ez **malefizioz**, filologiako ikasketak egin ondoren beste lan batzuetan sarturik dauden beste zenbaiten kasuaz ere. **Pello Salaburu**

## malefiziodun izond malefizioa duena.

Eta segidaren bukaera, Josu gazteena, familia guztietan hazten den ardi errebelatuaren karikatua: alproja; ikasketarik gabea; norat haize, han aise; zazpi ofizio eta hamalau **malefizioduna**. **Aingeru Epaltza**

## maleiko izond azido marikoa idorrean destilatuz lortzen den azidoa.

1940 aldera, kopal arkaikoak, garestiak eta gerra bitartean hornitzen zailak, erretxina fenoliko eta **maleiko** hartarako egokitu batzuez ordezkatu ziren. **Juan Garzia**

## malekoi iz itsasbatterean eraikiriko harresi sendoa.

Orduan beste aldetik **malekoi** edo dike bat egingo da hormak edo lubeta eginez, eta honela eratuko da portuaren ahoa edo bokalea. **Santiago Iruretagoiena**

Habanako **malekoian** milaka manifestari bildu ziren atzo, atentatuetan hildakoak gogoratzeko eta Washingtonen politika salatzen. **Berria - Mundua**

**Malekoian** eseri nintzen, itsasoari begira lehenengo, espainiar galeoien eta piraten elezaharrez betetako Karibe itsaso hari, eta Habanari begira gero. **Jon Muñoz**

Beste egun batean, **malekoitik** paseoa zebilela, emakume bera ikusi zuen hango etxe batean sartzen. **Aritz Gorrotxategi**

Miren eta biok bere zain gaude **malekoiko** kafetegia batean, udako igande eguerdi honetan. **Xabier Etxabe**

Torviscas izeneko hondartzan geunden -hondar beltz puska bat bi **malekoi** artifizialen artean- eta hantxe gelditu ginen ilunabarra arte. **Bernardo Atxaga**

## malenkonia (474 agerraldi, 126 liburu eta 63 artikulutan) 1 iz gogo egoera, goibeltasun biziak eta erabateko ezkortasunak ezaugarritzen dutena. ik melankolia.

Pietatearen keinua, haloa, zera hori daukazu... zurbiltasun hori, **malenkonia** begiradan, barne lasaitasuna adierazten duen zera hori... Han, estatua haren ondoan, banku bakartian Gisela neskekin, [...] **malenkonia** jaitzi zen nigana. **Unai Iturriaga**

Hondakinek **malenkonia** eta nostalgia sor lezaketek. **Joseba Zulaika**

Ospakizun haiek alderantzizko eragina zuten nigan: nahigabea eta **malenkonia** nagusitzen zitzaizkidan. **Rafa Egiguren**

Beti Schumann; ez dut ezagutzen hura bezalakorik **melankolian** bertan goxo egiteko. **Anjel Lertxundi**

**Malenkoniak** jo zuen ezkondu eta segituan, eta gurasoengana itzuli zen. **Koro Navarro**

Mundua gauza beti guztiz harrigarri zaio, ezinbestean, amodioaren **malenkoniak** jotakoari. **Juan Garzia**

Ardura handiz uxatzen zuen **melankoliaren** gaitz guztiz kaltegarria, eta hura bere barnera sartzen sentitu orduko, bizkor jotzen zuen otoitzera. **Askoren artean**

Ez da ona **malenkonian** etsitzea. **Joxan Elozegi**

Alkoholak **malenkoniaren** harra ere akabatuko duelakoan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Malenkoniaren** atzaparretan horren erraz ez erortzeko babes gisa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez dugu deus galdu, baina **malenkonia** edo behazun beltza hor dago; ez: hemen dago; tristura, histura, hustura, gabea, eta gainera beltza, itzal lodi baten kolorekoa. **Iñaki Seguro**

**Malenkonia** satorra bezainitsu da, dagoeneko ez den denbora baten eraiki ezin bazkatzen du. **Anjel Lertxundi**

**Malenkoniak** berrirakurri dut Germain Bergerren 1 ohar hori. **Monika Etxebarria**

Senararekin igarotako egun zoragarriak aipatu zituen **malenkoniak**. **Migel Angel Mintegi**

### 2 (izenondoekin)

**Malenkonia** arin batek hartu zuen. **Irene Aldasoro**

**Malenkonia** erranezin batek hartzen nau hartaz oroitzean. **Juan Garzia**

Gauaz [...] **malenkonia** iluna gordeka sartzen zitzaidan maindire azpira. **Fernando Rey**

Baina, hala ere, ezin eragotzi **malenkonia** gozo batek, goizaldeko lanbroaren antzera, bere gogoa bahitzea eta blaitzea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zenbait aldiz **malenkonia** leunak betetzen zuen nire arima. **Txillardeg**

Halako ebokaziorik gabe goibelegi gertatuko lireratek zirimarraren tintak, eta irakurleak liburua itxi beste erremediorik ez luke, sendaezinezko **malenkonia** beltzez zauritua barren-barre netik arima. **Juan Garzia**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sorgorturik egon zen astetan, gero **malenkonia**-krisia izan zuen, eta leihotik begira geratzen zen. **Joseba Urteaga**

Gogaitarazi egiten zuten emaztearen **malenkonia**-bolada lausoek. **Mirentxu Larrañaga**

**Malenkonia** jausaldi batek hartu zuen eta besteak, antzeman baitzion, galdegin zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Zerba it errezitatzen ari zen, eta berak olerkia zela antzeman zuen, erritmoagatik eta ahotsaren asaldura eta **malenkonia** doinuagatik. **Anton Garikano**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**malenkonia** eragiten (3)

**malenkoniak** jota (3)

**malenkoniaren** besoetan (3)

## malenkoniatsu 1 izond malenkoniakz bete.

Irribarre **malenkoniatsua** egin nuen treneko bakardadean. **Alberto Ladron Arana**

**Malenkoniatsua** naiz, iheskortasunaren edo ezintasunaren ideiek gozomina sortzen didate... **Ana Urkiza**

Kanpoaldeko bake hezeak blaitzen ninduen ni, eta sorriotzen, eta bake **malenkoniatsu** beraz kutsatzen. **Txillardeg**

Bretainiako aire **malenkoniatsu** ezin ederragoak. **Xabier Montoia**

Musika minimalista eta **malenkoniatsua** egiten du Marinek. **Berria - Kultura**

Ikusten zen paisaia, kantaren letra, doinua, dena oso **malenkoniatsua** zen. **Bernardo Atxaga**

## 2 (adizlagun gisa)

Haren hitzak ederrak ziren eta ni **malenkoniatsu** jartzen nintzen. **Juan Kruz Igerabide**

-Gure kalezuloa atsegina duk -Abasek, **malenkoniatsu**, erantsi-. **Patxi Zubizarreta**

Zalantzakor, **malenkoniatsu** eragin zion buruari. **Patxi Zubizarreta**

**Malenkoniatsu** jartzen ditu aittitek bere ipuinekin, lotarako aldarlean daude haren hitzak entzunda, eztitu egiten ditu beren etsipenean. **Koldo Izagirre**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**itxura malenkoniatsua** (3)

**banitate malenkoniatsuz** (3)

## malenkoniatsuki *adlag* malenkoniaz.

Merryk, ordea, arratsaren itzaletan **malenkoniatsuki** goratzen ziren irudi haiei harrituta begiratzen zien, ia gupidaz. **Agustin Otsoa**

Ero zuriak **malenkoniatsuki** ikusgarriak ziren, disimulatzeko ez zen nahikoa izango ilea harrotzea, irtenbidea tindatzea zen. **Jon Alonso**

## malenkoniatu, malenkonia(tu), malenkoniatzan 1 da *ad* malenkoniaz bete.

Eta zer zirrara eragin zidan berri ilun hark, eta nola **malenkoniatu** ninduen... eta zenbat nigar-purpula isuri nituen haren tonbarat joan nintzenean! **Joan Mari Irigoien**

## 2 (izenondo gisa)

Euskal Herri **malenkoniatu** eta esentzializatu baten edukiak ez dira falta: pertsonalismoa, igualitarismoa, demokrazia popularra, emakumearen papera ordena tradizionalan, eta abar. **Joseba Zulaika**

## malenkoniko *izond* malenkoniak joa.

Bere bihotzminak konjurtatzeko entretenitzen zen halako gogojolas **malenkonikoetan**. **Juan Garzia**

Desegin-behar **malenkoniko** hari ekiterakoan, laguntzaile (edo, zuzenago, aztoratzaile eta oztopatzaile). **Juan Garzia**

## malenkonismo *iz* malenkonia.

Hondakinen lezioak **malenkonismo** faltsuetatik gorde gaitzake eta, Benjaminek nahi zukeen eran, iluminazio profanoaren erradikaltasunera eraman ere. **Joseba Zulaika**

## malenkonizatu *izond* malenkoniko bihurtua.

Gure Euskal Herri **malenkonizatuak** ere, antzinatea mila kobetan altxor gisa gordea, Ama Lur fetixizatu horren irakurketa psikoanalitikoak merezi du. **Joseba Zulaika**

Pentsa liteke gazte errebolitari haien iraganeko legeak, demokrazia **malenkonizatua**, euskara sakramental, eta antzekoak pentsamendu premoderno baten gogorapen etnikoaz aparte zer besterik ote diren. **Joseba Zulaika**

## malenkonizazio *iz* malenkoniko bihurtzea.

**Malenkonizazio**, desira, identifikazio, beldur, mespretxu, etsai, eta abar moduan geureganaturik bizi izan dugu subjektibitate hori. **Joseba Zulaika**

Horren ordez nahiago izaten dugu kultur **malenkonizazioren** bat, edo betetasun antropologiazkoren bat, edo Ama fetixizaturen bat. **Joseba Zulaika**

## malerdi, malerdi, malertzen da *ad adkor* erditu.

Kontua da gure amak petate baten gainean **malerdi** zirela gutaz, Pedro Páramoren semeak izan arren. **Juan Garzia**

## maleria *iz*

Zurekin ez nagoenean **maleriaz** gaisotzen naiz. **Patxi Zubizarreta**

## malerus *izond* doakabea, zoritzarrekoa.

Munduko gizakirik **malerusena** sentitzen nintzen orduan. **Aingeru Epaltza**

Nire lehen idatzia, Etxeberri **malerusaren** eskoletatik kanpora. **Aingeru Epaltza**

Hiru haurretarik bat aita gabea zen, eta ez hartatik nahitaez bertzeak baino **malerusago**. **Aingeru Epaltza**

Gaztea aise altxatzen dela bihotza astintzen duten gertaera **malerusetatik**. **Pako Aristi**

## maleruskeria *iz*

Halako **maleruskerietara** emana bazara bederen. **Koldo Izagirre**

## maleruski *adlag* zoritzarrez.

**Maleruski** suteak izan ziren duela hiru urte eta lau edo bost etxalde erreak izan ziren. **Menane Oxandabartz**

**Maleruski**, ez dut aski irakurtzen eta ez ditut ezagutzen oraino eskual idazle gazteak. **Menane Oxandabartz**

**Maleruski**, ez omen ziren ohartu aurrean zeukaten lurra malda zela. **Jon Alonso**

Ixtripu frangoren berriak heldu zaizkigu **maleruski** sobera ardura, egun hotan oraino Txindoki, Balerdi eta Picos de Europatik. **Herria**

Bada **maleruski** adibide frango horren lekuko. **Herria**

Gure aita gazterik hil zen **maleruski**. **Menane Oxandabartz**

# malerustu, malerus(tu), malerusten du *ad* doakabe bihurtu.

Domingoren lanbideak semeordea lilurutzen bezainbat zuen semea nardatzen eta **malerusten** . Aingeru Epaltza

## malestruk *izond* moldakaitza.

Guraso batzuek hauts kolorezko ume **malestrukak** ahal bezainbat zaintzen zituzten beren sabelen beroan. Aurelia Arkotxa

Eskaileretan eroriko **malestruka** bat egin huela Itxaro Borda

## malestrukaki *adlag* moldakaizki.

Egunkaria **malestrukaki** plegatzeari ekin zion. Itxaro Borda

## malestrukeria *iz* moldakaizkeria.

Zoin da egin duzun **malestrukeria** haundiena? Menane Oxandabaratz

Gertatzen dena da gomitatuaeren **malestrukerekin** , gomitatuzaileak agertzen direla bertzea iduria, bati emaztea joaiten zaiola, bertzeari halaber eta, dirudiane, beharko duela pagatu zerga gehiago. Herria

## maleta 1 *iz* bidaldietan eta, arropak eta gainerako bidaia gauzak gordetzeko edo garraiatzeko kutxa modukoa, eskuan eramaten dena.

Oskarren **maleta** bere konpartimentuko sarean zegoen, bertan zihoazen beste hiru bidaiarien ekipajearekin batean. Alberto Ladron Arana

Biharamunean oso goiz, **maleta** prestatu eta trenera. Edorta Jimenez

**Maletak** egiten eta haurrei arropa janzten lagundu zidan. Fernando Rey

Hesgailuak bizkor itxi eta eserlekuaren gaineko sarean jarri zuen berriro **maleta** . Alberto Ladron Arana

BA223 hegaldiko bidaiariak **maletak** fakturatuta zituztenean, [...]. Berria - Mundua

Tripak atera nizkien **maletei** , baina arropa baizik ez zeukaten barruan. Joxan Elozegi

Gizona logelan zegoen, arropa **maleta** batean sartzen. Koro Navarro

Umeak **maletetan** zeuden gordeta. Berria - Gaiak

Nolakoa ekarriko du **maleta** , zerez beteta, zer utziko du atzean? Anjel Lertxundi

Eskutitzez beteriko **maleta** bat zeramaten. Lopez de Arana

Harribitxi eta diruz betetako **maleta** bat zeramatek... Bernardo Atxaga

Hau dena, aita, **maleta** piltzarrez bete hau, zure irakasle-pailazoaren nabarmenkeriak, [...] nire ezkutuko armarueta gordeta zegoen hori dena. Josu Zabaleta

**Maleta** zabaldu eta diskoak atera nituen. Alberto Ladron Arana

Zutitu eta **maletaren** edukia aztertu nuen. Alberto Ladron Arana

**Maleta** hustu nahi nuen, baina ez zegoen arropak non gorderik. Anjel Lertxundi

**Maleta** burko gisa erabiltzeko ahalegina egin zuen gizonak. Bernardo Atxaga

Beldur nintzen **maleta** begien bistatik galtzeko. Alberto Ladron Arana

Esku batean zorroa eta bestean **maleta** atera zen etxetik. Jon Maia

**Maleta** eskuan hartuta, bulegoko atea zabaldu nuen emeki-emeki. Alberto Ladron Arana

Dolar-pilek bere **maleta** galkatzen zuten. Alberto Ladron Arana

Emakume bat hila **maleta** batean, gizon bat bilatzen ditek, ilehoria, urrezko hortz bat duena! Fernando Rey

Inolako arazorik gabe zabaldu zuen **maletaren** sarraila mendrea. Alberto Ladron Arana

Poliki itxi zuen **maletaren** kremaiera. Harkaitz Cano

Ez dut **maletaren** giltza aurkitzen Javi Cillero

## 2 (izenondoekin eta izenlagunekin)

Gizona **maleta** gurpildunari tiraka, emakumea inguru ezezagunari begira. Imanol Zurutuza

Grindylowen ontzi hutsaren ondoan, **maleta** zahar higatua zegoen, zabalik eta ia beteta. Iñaki Mendiguren

**Maleta** zurrin bat zeraman ezker eskuan. Harkaitz Cano

Larruzko **maleta** bana eskuetan. Joseba Sarrionandia

Jimmy eskuak igurtzitzen ari zen, **maleta** astunen heldulekuek minberaturik. Lopez de Arana

Larru sintetikoazko **maleta** zuri zahar bat zen, itxigailu bat hautsia zuena. Koro Navarro

Liburua eskuko **maleta** txiki batean sartu nuen aldean eraman ahal izateko. Bernardo Atxaga

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Puskak **maleta** -sarean zeuden oihalean bildurik, bere amaren inzial brodatuekin. Xabier Olarra

Ekipajea hartzera lagundu nion, **maleta** -karrotxo hartuta. Zure ondoan, **maleta** -gurdia bultzatzen, zure senar intelijente garaia. Patxi Iturritegi

**Maleta** -garraioan aritzen diren langile bakan batzuk. Anjel Lertxundi

Irabazleak bi pertsonentzako itsas bidaia, lau **maleta** sorta, portzelanazko baxera eta mahai tresnak eramango ditu etxera. Berria - Euskal Herria

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esku- **maleta** gelan laga ostean, afaltzeko ezer ba ote zegoen galdegin nion sukaldera sartu nintzanean. Hasier Etxeberria

Hiru arropa- **maleta** , kutxatila bat apaintzeko tresnetarako, bi kapelu-ontzi, eta saski handi bat hornigaietarako. Antton Olano

Han zegoen Lucyren bidai **maleta** handi hura. Joxemari Iturralde

-Giltza, ahaztu baino lehen -eskatu zion Andonik, eskola- **maleta** bizkarrean hartzen zuela. Joxemari Urteaga

Nire sendagile- **maleta** hartu nuen. Felipe Juaristi

## 5 *maleta-eramaile* maletak eramaten dituen pertsona.

Dunne-k, **maleta-eramaileak** , adierazi zuen ezen, [...]. Berehalaxe hurbildu zitzaizkigun **maleta-eramaileak** . Irene Aldasoro

## 6 *maleta-mutil* maletak eramaten dituen mutila.

- **Maleta-mutiltzat** hartu hau -Moretek hala esan zidan, Lisboatik hara iristean neskari maletekin laguntzen niola ikustean. Edorta Jimenez

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beteriko maleta (3); betetako maleta (3); eskola maleta (4); larruzko maleta (11); maleta atera (4); maleta barruan (4); maleta beltz (9); maleta beltz bat (3); maleta beltza (5); maleta bizkarrean (4); maleta egin (4); maleta eskuan (9); maleta eskuetan (3); maleta handi (10); maleta handi bat (4); maleta hartu (19); maleta hartuta (6);



**maleta ireki** (7); **maleta itxi** (3); **maleta jaso** (3); **maleta lurrean utzi** (6); **maleta prestatu** (3); **maleta txiki** (8); **maleta txikia** (4); **maleta zabaldu** (4); **maleta zabaltzeko** (3); **maleta zaharra** (5)

**maletak desegin** (3); **maletak egin** (15); **maletak egiten** (10); **maletak eramaten** (3); **maletak eskuan** (3); **maletak garraiatzen** (3); **maletak hartu** (6); **maletak prestatzen** (3)

**eskola maletan** (3); **maletan sartu** (10); **maletan sartu zituen** (3); **maletan sartzen** (3); **maletan utzi** (3)

**maletatik atera** (3)

**maleten bila** (3)

## maletaleku *iz* maletategia.

Poliki noa autoa aparkatuta dagoen tokirantz, gauzak lurrean uzten ditut **maletalekua** ireki baino lehen. **Mikel Hernandez Abaitua**

Furgonetaren **maletalekuan** ezkutatuta erbestera ihes egiteko. **Mikel Hernandez Abaitua**

**Maletalekua** miatu behar zuela badaezpada ere. **Mikel Hernandez Abaitua**

## maletaño *iz* maletatxoa.

Bestalde, bidaietarako **maletaño** bat erosi, eta pezuaren emendatzeko harriz bete zuen bai eta gau hartan logela bat erreserbatu gobernuaren ikuskatzaileak egon ohi ziren Faures karrikako ostatuan. **Elena Touyarou**

## maletaratu, maletara(tu), maletaratzen du *ad* maletan sartu.

Lau hilabete lehenago, etxea uztean, pare bat liburu baizik ez nuen **maletaratu**. **Aingeru Epaltza**

Lehertzeaz zegoen maleta berriro ireki eta hainbeste ahaleginen ondoren **maletaratutako** azken Cutty Shark botila maletatik atera eta trago bakar batez hustu zuen geratzen zena. **Harkaitz Cano**

## maletategi (*orobat maletegi g.er.*) *iz* autoetan eta, maletak kokatzeko lekua.

Taxistak fardelak paratuak zituen **maletegian** eta kotxe gainean. **Joxemari Urteaga**

Irekita zegoan, eta hutsik **maletategia**. **Aingeru Epaltza**

Autotik irtendakoan **maletategiko** atea ireki du, zekarrena utzi eta bestea hartu du. **Pello Lizarralde**

Semeak berak lagundu naik, bere beso-motzekin, **maletategira** kargatzen. **Aingeru Epaltza**

Lagundu egiten digu zorroak eta maletak nire autoko **maletategitik** bere Volvo kamionetara aldatzen. **Oskar Arana**

Kanpinean, dena hain agudo bildu baitugu, jan-edateko guztiak **maletegian** pilatu ditiat, bertze zerekin batean. **Aingeru Epaltza**

**Maletategiko** ate irekiak munstro baten ahoaren eitea zuen, gu betikoz irensteko prest. **Aingeru Epaltza**

Leonidas Trujilloren gorpua Juan Tomas Diazen autoko **maletegian** sartu zuten. **Edorta Jimenez**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**autoko maletegian** (3); **maletegian sartu** (4)

## maletatoki (*corpusean maleta-toki soilik*) *iz* maletategia.

Egun batzuetarako bakarrik behar zituen jantzi, zapata eta gainontzekoz betetako maletak ezin izan zituen gidariak atzeko aldean sartu; **maleta-tokian** kabitzen ez zirenak gainean lotu zituzten sokaz. **Joxemari Urteaga**

## maletatxo (*84 agerraldi, 31 liburu eta 3 artikulutan; orobat maletaxo g.er.*) **1** *iz* maleta txikia. ik **maletin**.

Bi kutxen artean **maletatxo** bat hartu du eskaera koadernoak, katalogoak eta bisita txartelak barrenean daudela egiaztatzeko. **Pello Lizarralde**

Müller jauna ikara batean esnatu zen eta **maletatxoa** besarkatu zuen bi besoekin. **Anjel Lertxundi**

Eserlekuan uzkururik zegoen, bere larruzko **maletatxoari** naufragio batek oholari bezain gogor helduta. **Alberto Ladron Arana**

Italiako traje dotorea zuen soinean, eta larruzko **maletatxoa** eskuin eskuan. **Berria - Kirola**

Larruzko **maletatxo** maiztuari heltzen zioten esku luzeak. **Alberto Ladron Arana**

Trena iritsi eta gizontxo argal bat baino ez zen jaitsi, oihalezko **maletatxo** batekin. **Koldo Biguri**

Halako batean, bere maleta kokkorra hartu, kodea sartu, **maletatxoa** ireki, bere paperen artean miatu, eta paper-zorro bat atera zuen handik. **Jon Muñoz**

### 2 (hitz elkartuetan)

Bidai **maletatxo** horretan. **Ramuntxo Etxeberri**

Hurrengo goizean, igandeko trajea jantzi, aurpegia sasi-bizar batekin mozorrotu, mediku-**maletatxo** bat hartu eta berriro lapurraren etxera jo zuen Mattinek. **Martin Anso**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**larruzko maletatxo** (3)  
**maletatxoa eskuan** (3); **maletatxoa ireki** (3)  
**maletatxoan sartu** (3)

## maletatzar *iz* *adkor* maleta handia.

**Maletatzarra** orain esku batean, orain bestean, gero bizkar gainean, halako gisaz egin nuen geltokirainoko bidea. **Anjel Lertxundi**

Erbat ridikulua iruditu zitzaion pertsona bik maleta txiker hura eramatea eta berak **maletatzar** bi behar izatea. **Unai Elorriaga**

**Maletatzarraren** gainean eseri nintzen, atsedean hartzeko eseri ere, eta ez maleta lapurrengandik babesteko. **Anjel Lertxundi**

## maletaxo ik maletatxo.

## maletazain *iz* maletak eramaten dituen pertsona, maleta-mutila.

**Maletazain** bat etorri arte itxaron genezake -esan zuen Ellenek. **Lopez de Arana**

maletegi ik maletategi.

## maletero iz maletategia.

Sartu berri zen autoko gidariak motorra itzali eta **maletero** ireki zuen bere gidari postua abandonatu gabe. Harkaitz Cano

**Maleterora** eskuak sartu eta aurreko nahiz atzeko hankak zinta aislantez loturik zituzten bi zakur atera zituzten bertatik. Harkaitz Cano

## maletin (14 agerraldi, 2 liburu eta artikulua 1ean) iz maletatxoa.

-Berri onak -esan zidan bere **maletin** hura erakutsiz-. Matias Múgica

Lainezek begiak **maletinean** jarri ditu, zerbaiten bila. Pello Lizarralde

Orri zuriak ez ezik boligrafoak ere eramango zituela erantzun zion «besteak esaten duenari buruz oharrak hartzeko», baina **maletina** ere, «gure proiektuak eramateko».

Berria - Euskal Herria

## malezia (129 agerraldi, 56 liburu eta 20 artikulutan; orobat malizia 35 agerraldi, 17 liburu eta 3 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian malezia agertzen da) 1 iz gaiztotasuna; gaiztakeria; maltzurkeria.

Bere bekaizkeria **malezia** eta jelosia gabea zen. Patxi Zubizarreta

Gure hondamendia bilatzen zuela **malezia** gaixo batez, ez gure ona. Anjel Lertxundi

Mozkortzen zenean oso gaizki abesten zuen, batere afinaziorik gabe, baina hitzei **malezia** handia erantsiz. Koro Navarro

**Maleziarik** badute, baina ez da **malezia** gaiztoa. Berria - Kultura

Barre eragin zion lizentziadunari andrearen **maleziarik** ezak. Patxi Ezkiaga

Oraingoan, **maleziarik** gabe ari zen negarrez... Jon Muñoz

Erroak barna ditu jendeen **maleziak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Diruzalekeriak gaztearen begitarte xarmangarria ilundurik, **maleziaz** galdegin zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Gaizkilearen **maleziak** gaiztoa egiten du beraren nahia. Imanol Unzurrunzaga

Faltsua da esatea grina gaiztoa dagoela bekatu ororen **maleziaren** funtsean. Imanol Unzurrunzaga

Kantxa barruan oso gutxi duten argitasuna eta **malezia** ditu. Berria - Kirola

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat malezi) ik maleziatsu.

Haren piura urrikalgarriak hunkiturik, **malezia** begirakunetik erazia oraingoan, neska ezitasunez mintzatzen ahalegindu zen. Patxi Zubizarreta

Juamanelek **malezia** irribarrearekin eman zidan karameluen poltsa. Joseba Sarrionandia

**Malezi** aurpegi bizi bat. Josu Zabaleta

Badaki amak ironiaz eta **malezi** puntu batez esan dizkiola esatekoak. Joan Mari Irigoien

**Malezia** falta soilik egotz diezaioket Juanluisi. Eider Rodriguez

## 3 maleziazko ik maleziatsu.

Halako dirdai **maleziazko** bat islatu zen bere begi kasik lokartuetan. Patxi Zubizarreta

Gero, takoidun sandalia bat kendu eta hankarteraino eraman zion oina, **maleziazko** irriño batez. Xabier Mendiguren Elizegi

Irri batekin erantzuten dio, buruaz agur eginez, lotsatia baino gehiago **maleziazkoa** den irri batekin. Oskar Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**batere maleziarik gabe** (3); **maleziarik gabe** (9); **maleziarik gabea** (3); **maleziarik gabeko** (5)

## maleziatsu (orobat maleziatsu eta maliziotsu) 1 izond maleziaz betea, maleziazkoa. ik malezia 2.

Begirakune **maleziatsu** batez. Ugazalabak, graziaz, irribarre **maleziatsu** batez, bizpahiru aldiz ezezko keinua egingo du eskuko hatzaz. Josu Zabaleta

Keinu **maleziatsua** egin zion Andreasek agureari. Anjel Lertxundi

Ikusleek begirakune trufatsuak, **maleziatsuak** eta harropoztuak trukatu zituzten. Patxi Zubizarreta

Donaldekin seinalatu egin nau, irribarre **maleziatsu** bat ezpainetan: [...]. Bernardo Atxaga

## 2 (adizlagun gisa)

Ongi daki hori nire osabak! **maleziatsu** begiratu zion, begiratu pikarua areagotuta. -Barraren ezker aldean duk hire txoriñoa- esan dit **maleziatsu**. Migel Angel Mintegi

Hala bada, **maleziatsu** erantzun zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

## maleziatu, malezia(tu), maleziazten da/du ad maleziatsu bihurtu.

**Maleziatu**, maltzurtu dela [zakurra] esan nahi du. Gotzon Garate

## malformatu izond malformazioak dituenak.

Iragarkiak pasearazten zituen gizonak berak Roselliniren film batetik erazitako figurantea ematen zuen, gorputz **malformatu** eta musu okerraz. Josu Landa

## malformazio iz gorpuzteko makertasuna.

**Malformazio** hark betiko markatu zuen Michaél. Pablo Sastre

Rebeka Martinezek zuena sortzetiko **malformazioa** zen, medikuntzan *craniopagus parasiticus* deitzen dutena. Berria - Gaiak

Umekiak **malformazioen** bat duenean. Berria - Gaiak

Plantek isurtzen dituzten substantziak teratogenikoak direnez, haurdunaldian umeari **malformazioak** eragin diezazkiokete. Berria - Euskal Herria

Umek ezin zituen begiak ireki betazalelako **malformazio** baten ondorioz. Berria - Gaiak

Zer da bizkarrezur bifidoa gaitza? bizkarrezurraren **malformazioa** da, orno-arkuen bi erdiak ez direlako behar bezala lotzen. Berria - Gaiak

# malgatxe *izlag/iz* madagaskartarra.

Burezur horren azpian, samoiadoak, nyam-nyamdarrak, **malgatxeak**, fueginoak ospakizun arraroenetan aritzen dira, beren asaba zaharrak jaten dituzte, beren haurrak, tam-tamaren soinuan jirabiran dantzatzen dira konortea galdu arte, [...] **Monika Etxebarria**

## malgatxiar *izlag/iz* madagaskartarra.

Sofa gainean etzanda irakurtzen jarraitu nuen: "Euliak, zebuaren kopetan zehar dabilela, uste osoa dauka berak baduela zerikusirik abere horrek egiten dituen burukadekin", zioen **Malgatxiar** esakune batek. **Jose txo Azkona**

## malgobernu *iz* gobernatze txarra.

Espilikatu ziguten faxismoa ez zela bakarrik **malgobernu** bufoikara eta inprobisatu bat, baizik eta justiziaren ukatzailea. **Juan Garzia**  
**Malgobernuaren** ordez nahasmendua ezartzeko traizio-saio hutsegina. **Xabier Olarra**

## malgor *izond* sorgortua.

Saldua!, **malgorra**!, txaranda! **Anjel Lertxundi**

## malgortu, malgor(tu), malgortzen **1** da/du *ad* sorgortu; hozmindu.

Alkoholak eta kanpoko hotzak eriak **malgortzen** zizkiola. **Itxaro Borda**

Paralesiak **malgortu** ama gaixoaren bisitatzeko. **Itxaro Borda**

Beldur handiak **malgortu** giharrak laxatu zitzaizkidan, eta soa zela medio, samurtasunez eta urriki latzez urtu nintzen. **Itxaro Borda**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Nakok orduan lehen aldikoz ukitzen zuen Teodororen burua ezkerreko titi **malgortuaren** gainean mantendu zuen, eztitasunik gabe. **Itxaro Borda**

## malgu **1** *izond* erraz toles edo molda daitekeena.

Feltrozko kapela **malgua**. **Monika Etxebarria**

Batzuetan, kale garbitzaile bat igarotzen zen haien atzetik, hodi **malgu** batez sotoa garbitzen. **Karlos Zabala**

Metalezko disko **malgu** bat, atzera eta aurrera mugitzen dena. **Irene Aldasoro**

Larru **malguko** sandaliek. **Jon Muñoz**

Grafenoa erabilita gai sendo, **malgu** eta egonkorrak sortzea egongo dela gaineratu zuten atzo. **Berria - Gaiak**

Besaulki **malgu** batean eserita zegoen. **Lopez de Arana**

Ellenen ahotsa zerra txiki zorrotz **malgu** bat bailitzan barneratzen zitzaion haragian. **Lopez de Arana**

Antena luze-**malgua** apaltzen eta harrotzen da aldika, ibilgailuaren mugimenduen arabera. **Xabier Montoia**

Oso eskumutur **malgua** izango duzu zuk. **Luis Elberdin**

Ahotsak Jimmyren belarrietan taupadaka ari ziren marruma **malgu** baten antzera, hurbil, urrun, hurbil, urrun... **Lopez de Arana**

Merkatu **malgu** batek ez du zergatik ezegonkorra izan. **Berria - Ekonomia**

Truke-tasa **malguen** bertute teorikoak eta bizio errealak. **Koro Navarro**

Ameriketako Estatu Batuek lan-merkatu **malgua** dute, eta horren ondorioz langabezia-tasa apalak. **Iñaki Heras**

Egoera ideala?: lan-ordutegi murriztuak bultzatzea, ordutegi **malguak** izatea, etxetik lan egin ahal izatea. **Arantxa Iturbe**

Gorputzaren mekanismoa ulertzeko, ikuspegi **malgua** behar da, heziketa tradizionala izan duten ingeniariak askotan izaten ez dutena. **Irene Aldasoro**

Especializazio **malguaren** eredia. **Iñaki Heras**

Erremerariak ere sutan gozaten du burdin puska, mailuari **malguagoa** gerta dakion. **Anjel Lertxundi**

## 2 (adizlagun gisa)

Lantzerra, lantzurda, langarra zegien, **malgu**, ezti eta sarkor. **Itxaro Borda**

Espainiak eta Frantziak **malgu** jokatu dutenik ez dut uste. **Berria - Euskal Herria**

Gorputza laxatzen zitzaidalda zirudien, eta edozeren aurrean amor ematen zuen **malgu**. **Juan Garzia**

Hemengo zaratak horma baten kontra jo ostean berriro gora jagiten dira, **malgu**, frontoian pilotak egiten duen legez. **Edorta Jimenez**

Bat-batean zabaldu zen, uhin urre-kolore baten gisan lurreraino erortzeko, lodi eta arin, **malgu** eta distiratsu, kometa baten suzko isatsa bailitzan. **Josu Zabaleta**

## 3 (erkaketetan)

Ez da zurruna ez **malgua**, ezkoaren moduko bigun baizik. **Juan Garzia**

Ihia bezain **malgua** baina altzairua bezain suberatu. **Agustin Otsoa**

Katua baino **malguago**. **Edorta Jimenez**

Gorputz-atalak haur txiki batenak bezain bigun eta **malgu** bihurtu ziren. **Askoren artean**

Fereka egiten nion eta eskuetan nerabilen piztia bigun urduria, sedazko oihala bezain **malgua**, gozoa, beroa, ezta eta arriskutsua. **Josu Zabaleta**

Fin eta **malgu**-arin, seda bezala. **Juan Garzia**

Larritasun hartan ere, astia izan zuen belar laburra eta trinkoa, goroldioa bezain **malgua**, hazten zela han pentsatzeko. **Ramon Saizarbitoria**

Hark gozatutako argizagia bezain **malgua** eta mela zen Salemdarren poza. **Anjel Lertxundi**

## 4 harreman homosexualetan, jokaera pasiboa duena.

Hori ikusirik susmatzen hasi nintzen hartua izan nahi zuela eta, hortaz, **malguarena** egiteko prest zegoela. **Aitor Arana**

Imanolekin nengoanean, ordea, bai berak eta bai nik nahiago izaten genuen nik bugre eta berak **malgu** gisa jardutea, ohi bezala. **Aitor Arana**

Bugre bakoitza bere **malguarekin** geratu ginen horrela, edo **malgu** bakoitza bere bugrearekin, gauza bera bestela esateko. **Aitor Arana**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**malgu** jokatu (3); **malgu** jokatzea (3)

**bezain malgua** (10); **malgua izan** (10); **malgua izango** (5); **malgua izatea** (4); **oso malgua** (4)

**baino malguago** (4)

**askoz malguagoa** (3); **jarrera malguagoa** (6)

**baldintza malguagoak** (3)

**tasa malguen** (3)

# malguezin *izond* ezin malgutuzkoa. • (adizlagun gisa)

Atezainak letreroa seinalatu zigan, **malguezin**, eskuan bere linterna alferrik piztuari eraginez: [...]. **Joseba Sarrionandia**

## malgukari *iz*

Honek zerikusirik ez du hizkuntza bat eranskaria edo **malgukaria** izatearekin, baina Unamuno-k beti esplizitatzen duen arrazoia hau da. **Joxe Azurmendi**

## malguki<sup>1</sup> *adlag* malgutasunez.

Ikusleen biribilkia handitu eta txikitu egiten zen, **malguki**. **Irene Aldasoro**

Luzeak ziren eta **malguki** higitzen ziren. **Ibon Uribarri**

Neskatoa beregana biratu zen **malguki**, eta eskuak estalkiaren azpira sartu eta luzatu egin zituen, Egutxi besarkatu nahi balu bezala. **Ibon Uribarri**

Askotan, interes ekonomikoek indar handia dute eta *gehiegi* erako hitzak, zehaztu ezean, oso **malguki** erabil daitezke. **Berria - Gaiak**

## malguki<sup>2</sup> *1 iz* indar batek okertu, tenkatu edo sakatu ondoren, bere jatorrizko formara bere kasa itzultzen den gauzakia, gehienetan espiral formakoa.

Belarra izugarri hazia zegoen, eta bazirudien **malgukiak** genituela oinetan. **Koro Navarro**

**Malguki** bati eraginez gero, ireki egiten da kamera segundo zatiki batez. **Irene Aldasoro**

Tarte erregularrez ziharduen **malguki** baten eraginez baizik. **Karlos Zabala**

Fionnek besoa jaso zuenean, biak **malguki** baten gisa zutitu ziren. **Joanes Urkixo**

Erregela horiek burdinazko **malguki** batzuk izaten dituzte finkatuta eta teklekin lotuta. **Santiago Iruretagoiena**

Ohearen **malguki** herdoilduek salatu egingo bainaute, ziur. **Oskar Arana**

Ohe zaharraren azpiko **malgukien** negar etena, gainean inor bulka-bulkaka aritzean. **Aingeru Epaltza**

Ohean bira egitean, **malgukiek** kurrinka egin zuten. **Lopez de Arana**

Bi **malguki** eta hiru motelgailu darabiltza aurrean eta atzean, tortsio barra bertikalekin. **Berria - Kirola**

Ibilgailuetarako eta koltxoietarako **malgukiak** egiten dituen Zamudioko Industrias Subiñas lantegia. **Berria - Ekonomia**

Patrikako erlojuaren **malgukiak** adina jirabira egiten zituen. **Josu Zabaleta**

### 2 (hitz elkartuetan)

Ez zen logura, eta jauzika aritu zen bere indar guztiaz **malguki** -ohe gainean. **Joseba Urteaga**

## malgukidun *izond* malgukiak dituena.

Bota **malgukidunez** jantzitako gizon bat zetorren agian Union Street aldetik. **Koro Navarro**

Panpina mekaniko **malgukidunak**. **Jose Morales**

*izlag* Ez ote lukete **malgukidun** ohe eroso bat hilkutxa bezain baliagarri? **Irene Aldasoro**

## malgutasun *1 iz* maldua denaren nolakotasuna.

Ezpain mamitsuek, mihiaren joan-etorriek eta soinaren **malgutasun** kitzikagarriak zoramenaren bidetik eraman zuten detektibea. **Migel Angel Mintegi**

Nire soinatal zurrunduak behinola izan zuten **malgutasuna** hartzen ari dira berriro. **Josu Zabaleta**

Katuaren **malgutasunaz** egin zuen mastako aparailuetan behera. **Edorta Jimenez**

Zetazko zapien **malgutasuna** zuen Jabiren gorputzak. **Lander Garro**

Gerría mugitu zuen ezker-eskuin, gorputzaren **malgutasuna** norainokoa zuen ikusteko. **Anjel Lertxundi**

Liana baten **malgutasuna**, lerro baten argaltasuna. **Jon Muñoz**

Horregatik da hain tematiá eta hain **malgutasun** eta moldakortasun eskasekoa. **Xabier Olarra**

Ikasleei ahalik eta **malgutasun** handiena eskaintzea dute helburu gaur egun indarrean dauen ikasketa planek. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Lopezek kritikatu zuen «**malgutasun** gutxi» ikusi zuela Ibarretxerengan. **Berria - Hariari**

Euskaltzaindiaren uestezko itxikeria eta **malgutasun** eza. **Koldo Zuazo**

Zuzenbide Estatu horren defentsan, gainera, «irmotasuna» mantenduko duela helarazi zuen, «**malgutasunari** uko egin gabe», hala ere. **Berria - Euskal Herria**

PSOERI eskatu behar zaio Alderdien Legea **malgutasunez** ezartzeko. **Berria - Euskal Herria**

Pentsa nolako ordena, **malgutasun** eta otzantasunez betetzen dituzten haien aginduak. **Iñaki Mendiguren**

### 2 (lan munduan eta)

Tamalez, gazteentzat **malgutasunak** prekaritatea esan nahi du. **Iñaki Heras**

Lanaldia antolatzeko **malgutasun** handia aitortu zien enpresaburuei. **Berria - Ekonomia**

Lehiarako komisarioari eskatuko diote «**malgutasun** handiagoz» jokatzeko eta epemuga luzatzeko. **Berria - Ekonomia**

**Malgutasunari** dagokionez, 11 eguneko lan poltsa eskaini du. **Berria - Euskal Herria**

Confebask, **malgutasunaren** eta kostuak apaltzearen defentsan. **Berria - Ekonomia**

Espainian behin-behineko kontratuak egiteko **malgutasuna** Ameriketako Estatu Batuetakoa baino handiagoa da. **Iñaki Heras**

Soldatetan eta **malgutasunean** egindako eskaintzak lantegia arriskuan jarri gabe onar daitezkeenak dira. **Berria - Ekonomia**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hasierako **malgutasun** -ideia hori galduz joan da, eta beste zentzu bat joan da hartuz hitz hori. abenduan sinatu genuen **malgutasun** akordioa. **Josu Zabaleta**

Adierazi du «**malgutasun** neurrikin etorkizunean neurri gogorragoak finkatzea ekidin» nahi dutela. **Berria - Ekonomia**

Nafarroako Volkswagenek urtean 21 egunez 4.500 langileri kontratua eteteko eskubidea edukiko luke, nahiz eta oraindik zazpi eguneko **malgutasun** poltsa baduten.

**Berria - Ekonomia**

**Malgutasun** falta hori oso etsigarria egiten zait. **Berria - Euskal Herria**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ahots- **malgutasun** gutxiko kantari bat. **Anjel Lertxundi**

Ordu- **malgutasun** oparoa nuela konturatu bainintzen: mugan arazoren bat gertatuz gero ere, banuen nahikoa denbora autoa bazterren batean utzi eta trenera heltzeko.

**Anjel Lertxundi**

Patronalak hiru urterako hitzarmen kolektiboa, gutxieneko soldata, urteko %2,25eko soldata hazkuntza eta lanaldi **malgutasuna** proposatu ditu **Berria - Ekonomia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**malgutasun akordioa** (5); **malgutasun handia** (7); **malgutasun handiagoa** (11); **malgutasun handiagoz** (5); **malgutasun neurriak** (3); **malgutasun osoz** (3)  
**malgutasuna areagotu** (4); **malgutasuna behar** (3); **malgutasuna eskaini** (3); **malgutasuna eskatu** (7); **malgutasuna ezartzea** (3); **ordutegien malgutasuna** (3)  
**malgutasunez jokatu** (8); **malgutasunez jokakatu** (4); **malgutasunez jokatzeko** (5)

## malgutu, malgu(tu), malgutzen 1 da/du *ad* malgu edo malguago bihurtu.

Nahikoa diagu! esanez bezala **malgutu** zituen ezpain mintzak. **Iñigo Aranbarri**

Krema berezi bat eskaini zidan katearen zuzendariak, alde sentikorrenak gozatzeko eta gorputza **malgutzeko**. **Joxan Elozegi**

Nire zakilak ez du **malgutzeko** betarik izan. **Patxi Zubizarreta**

Frantxuaren iledia **malgutzen** eta desegiten zuen euriak. **Itxaro Borda**

Zalu eta modernotzeko, bihurritu eta desartikulatu beharra dago, airostu, zehaztu, lexikoa berritu, sintaxia **malgutu**. **Joxe Azurmendi**

Txekhovek errealismo zurruna **malgutzen** du bere estilo delikatu eta poetikoaren bidez. **Berria - Kultura**

Gobernuak ez ditu protestak geldiarazi, erreformak **malgutu** arren. **Berria - Mundua**

Giza eskubideak errespetatzeko, espetxe politika **malgu** dadila eskatu du EAJK. badakit benetan saiatuko zarela arauak **malgutzen** neska gaztetxo bati laguntzarren.

**Berria - Euskal Herria**

Laguntzak jasotzeko irizpideak **malgutuz**. **Berria - Euskal Herria**

Batzordeak onartu lege hori dela sobera garrantza eta sobera gogorra, behar dela beraz poxi bat **malgutu** eta guritu. **Herria**

## 2 (lan munduan eta)

Ekonomiaren globalizazioak eragindako elkarrekiko mendekotasun berriak eta eragile berrien botere-goraldia zirela-eta, nazio-ekonomiek **malgutu** beharra zuten. **Koro Navarro**

2002ko abenduan lana **malgutzeko** lortutako akordioak baliatzea eta langileak alde zuzenetik erretiratzea proposatu dituzte. **Berria - Ekonomia**

Azken horien lanaldi osoaren %77ko muga apurto da, eta ordutegiak **malgutu** dira. **Berria - Harian**

Filialekiko sozietateen sorrerari esker, **malgutu** egin zen enpresen egitura. lan merkatua **malgutu**, bertan agertzen diren oztopoak ezabatuz (gutxieneko soldatak, kaleratze ordainketak, kontratu malguak, eta abar). **Koro Navarro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**epeak malgutzearen alde** (3)

**egoera malgutzeko** (3); **egonkortasun ituna malgutzeko** (8); **ituna malgutzeko proposamena** (3); **malgutzeko eskatu** (4)

## malgutze iz malgu edo malguago bihurtzea.

Aldaketa hori, ortodoxiaren **malgutze** hori, bistakoagoa izan da Ameriketako Estatu Batuetan Europan baino. **Iñaki Heras**

Izan ere, printzipio hauetan **malgutzerik** gertatzen den bezain laster, gure estatuko jazarkunde aparatuak presioak areagotzen ditu gure aurka. **Berria - Mundua**

Jardunaldiak, eta aipatutako sistemaren **malgutze** prozesuak erakutsi dute emaitza onak lortzeko modukoa dela sistema hori. **Berria - Kirola**

## malgutzeke *adlag* malgutu gabe.

Orra, gipuzkoarrak, oraindik agindu adizetara **malgutzeke**, beti ere beren zorigaitzoko *det* erabilki agertzen zaizkigu. **Koldo Zuazo**

## maliar (*orobat malitar g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian maliar agertzen da*) izlag/iz Malikoa, Mari dagokiona; Maliko herritarra.

Xutik ezarri gogo dutena [...] auzoko Senegal eta **Maliar** podoreen gisako podore bat, berria. **Herria**

Mare Sanogo **maliarra** eta Guem aljeriarra. **Berria - Kultura**

Atleta bikaina da, Diarra **maliar** handia bezala. **Berria - Kirola**

Poliziak atxilotutako pertsona bat, 22 urteko **maliar** bat. **Berria - Mundua**

Keita abokatu **maliarrak** etorkinekin egiten du lan. **Berria - Harian**

Saharaz hegoaldekoak dira denak: senegaldarrak, **maliarrak**, nigeriarrak eta angolarrak. **Berria - Mundua**

## malin *izond* ahula.

Artetan garbots malindu batzuen ohean zango **malinak** trabatzen zaizkit, goroldioak bereganatu nahi balitu bezala. **Piarres Aintziart**

Hirian zehar nabil, gogoia lasai, gorputza hastapenean **malin**, eta gero berriz erne. **Piarres Aintziart**

Barda, telebistari so nengoela, zangoak **malin** sendi nituen. **Piarres Aintziart**

Hunen ofizioa eta jo xuxen ta indartsuak lagun, berriz gaina hartu dute eta baliatu ere Aramburu bezperan arizana baitzen eta ondarrean **malinxago**. **Herria**

## malindu, malin(du), malintzen 1 du *ad* ahuldu.

Akidurak eta afariaren goxoak izpiritua **malindu** aitzin. Apirileko bero samin bapateko honek **malintzen** ari nauela. **Piarres Aintziart**

Ixtudiant batek [...] edo langile erretiratuak, biziak ez baldin badu sobera higatu edo **malindu**, kolpez egin dezake ibilbide hori, astero egun bat geldituz. **Piarres Aintziart**

Bilgorrak poxelatzen ninduen, **malintzen**, eta indar handia egiterakoan, hatsa bera laburtua neukan. **Daniel Landart**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Artetan garbots **malindu** batzuen ohean zango malinak trabatzen zaizkit, goroldioak bereganatu nahi balitu bezala. **Piarres Aintziart**

## malinkeria iz ahuleria.

Buruan sartu nahi nituen ideiak eskapatu zaizkit eta baretasunaren **malinkeria** jarri naiz. **Piarres Aintziart**

Atzo halere, pixka bat bortxatu dudanez, neguko **malinkeriak** inarrosi nahiz... **Piarres Aintziart**

## malinki *adlag* ahulki.

Marisantz auzo lehenak bikotearen irudia ozkan jarri zuen: eskuilaz mutikoaren jantzia xahatu zuen, usain onez perdukatu eta neskatxaren matelan **malinki** haztuak ziren ile marrak zuzendu zituen. **Itxaro Borda**

Aulki batean **malinki** estekaturiko alzheimer eritasunak aspaldian ezabatu Maddi Jessicaren amatxia. **Itxaro Borda**

maliobra ik **maniobra**.

maliobratu ik **maniobratu**.

malitar ik **maliar**.

malizia ik **malezia**.

maliziatsu ik **maleziatsu**.

**malizios** 1 *izond* maleziatsua.

Luis, ordea, irri **malizios** batekin inguratu zait dantza eskatzera. **Patxi Zubizarreta**

Harik eta aitak, irri **malizios** bat ezpainetan, bere ihardespren hura eman zidan arte: [...]. **Joan Mari Irigoien**

2 (adizlagun gisa)

Eta, goiz erdian, hura itzarrikirik sumatu nuenean, zirikatu egin nuen, **malizios**: [...]. **Joan Mari Irigoien**

**malizioski** *adlag* maleziaz.

Madonnaren gainera etorri zen eta **malizioski** egin zuen irribarre txekoa egiterakoan. **Ramon Etxezarreta**

maliziotsu ik **maleziatsu**.

**malkar** (120 agerraldi, 60 liburu eta 28 artikulutan; orobat **malkor** 28 agerraldi 12 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **malkar** agertzen da) 1 *izond* malkartsua, latza.

Leku zelaietan oso ona, baina desegoki samarra bide **malkar** haietan. **Koro Navarro**

Mesfidati dituzue aitzindariak, bide **malkar** eta hertsu hauen ahalke. **Xabier Montoia**

Kaletxo estu **malkorra** igarorik. **Josu Zabaleta**

Mendi **malkar** gaitzetan gora igotzeko. **Itxaro Borda**

Bihur bitez zelai eta lautada paraje latz eta **malkarrak**. **Elizen arteko biblia**

Lur **malkar** eta lehorrerako hizkuntza berezkoa. **Berria - Kultura**

Ibilbidea oso **malkarra** da. **Berria - Mundua**

Mea-hobia arras ezlekuan zen, aldaparo **malkor** batean. **Juan Garzia**

Egiptotik atera nituen eta basamortuan zehar gidatu, lur lehorrerako eta **malkar** horretan, arriskuz beteriko lur ilunean, inor igarotzen ez den eta itzulbiderik ez duen lurrean. **Elizen arteko biblia**

Egiaren hegri **malkarretan** ez da beste lorerik hazten. **Joxerra Garzia**

2 irud/hed

Ahots **malkar** eta gogor batek hitz egin zidan. **Itxaro Borda**

Galtzaileen zapora **malkarra** zeukan. **Fernando Morillo**

• 3 *iz* aldapa pikoa eta latza.

Beste bizpahiru **malkar** igo eta pagadi bateraino iristen da. **Bernardo Atxaga**

Eszena horretan, bere jaioterriko mendiko baten **malkarrean** dago aitarekin. **Bernardo Atxaga**

**Malkar** sasitsuen arteko salto eginez, ihesari eman eta tiroka hasi ziren. **Koro Navarro**

**Malkar** aldapatsuetan gora eta behera. **Patxi Iturritegi**

Aiherra eta Oragarreko **malkarretako** elurretan. **Itxaro Borda**

Arnabarretako **malkorrean**, hiru larrebehi amildu eta lepazurra hautsi zuten. **Patziku Perurena**

-Denontzat dauzka bizitzak **malkar** arriskutsuak, amairik gabeko sakonera bat bezalako **malkarrak**! **Pako Aristi**

Pertsonen arteko harremanak ere, hasieran, **malkar** baten antzeko dira, edo **malkar** baten ertzera hurbiltzearen antzeko; hor dago izua, ikara, baina baita ere izua eta ikara guztiak ezabatzen dizkizun itzaropen gozo bat. **Pako Aristi**

**Malkarrean** gora egini, elorri-arbola batek eskugaina zaurtu zidan. **Juan Garzia**

Motorrak zuhaitz bat jo, bera **malkarrean** behera ibaira erori, eta, adar bati heldu izan ez balio, urak eramango zuela, uhanditua baitzeterren ibaia. **Juan Kruz Igerabide**

4 (hitz elkartuetan)

Bakar-bakarrik daude Ernioek buelta guztian dituen **malkar** -zulo eta amildegi bortitzen ertzean. **Pako Aristi**

Kilarri bat ikustea, hantxe, mendia erori **malkar** batean: harri ilun bat harri txurien artean. **Bernardo Atxaga**

5 **malkar** *egin* aldapa egin.

**Malkar** egingo zaigula dirudi. **Iñigo Aranbarri**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bide malkar** (5)

**malkarrean behera** (5); **malkarrean gora** (3)

**malkarretan gora** (4)

# malkardura iz malkarra.

**Malkardura** eskalatu inguratu dut arroka. **Koldo Izagirre**

# malkartegi (corpusean **malkortegi** soilik) iz toki malkartsua.

**Malkortegi** arriskutsu batera amiltzen ari zirela. **Matías Múgica**

Biok elur eta horma pilo haren zurrunbilao harrapaturik geunden eta amilduz gindoazen -elkarri lotuak, nolabait esatearren- hego aldeko **malkortegira**, zuzen-zuzenean.

**Josexo Azkona**

Gero, legoa batez **malkortegi** ketsu biren artean ibili eta ekialdeko amildegi maldatsura iristen zen. **Agustin Otsoa**

# malkartsu (orobat **malkortsu** g.er.) 1 izond aldapatsua, latza.

Bideak erreka bati segitzen zion, aldapa **malkartsu** batean behera. **Anjel Lertxundi**

Ezponda **malkartsuan** behera jaitsi ziren. **Karlos Zabala**

Inguratzen duten haitz gorriak **malkartsuak** eta distiratsua dira, labana baten ahoaren pare. **Fernando Rey**

Harkaitz garai eta **malkartsuak**. **Fernando Rey**

Berrehun metro gehiago errepidean gora eginda aurrez aurre zabaldu zitzaion meategi harana, zulatze lanen poderioz gorritutako paraje **malkartsuak**. **Josu Landa**

Harkaitzaren alderdirik **malkartsuenak** errepidearen aldera ematen zuen. **Koro Navarro**

Kanariak dira mundu osoan maniobra militarrek zetazeo gehien hildako lekua, bertako itsaspe **malkartsua** egokia delako militarrek saioak egiteko. **Beria - Gaiak**

Eskailerak **malkartsuak** eta labainak ziren. **Mirentxu Larrañaga**

Beste uharte bat ikusten zen, tamainaz txikiagoa, oso **malkartsua** eta idorra, tarteka harkaitz ilunez inguratua. **Koro Navarro**

Orografia oso **malkartsua** da, labarra da dena. **Mikel Hernandez Abaitua**

Lurzoru gogorra eta berdin samarra behar dute gurpilek; Lurreko eremu handi batean dagoen lurzoru aldapatsu eta **malkartsuan** ibiltzeko, hobeak dira oinak. **Irene Aldasoro**

Laborariak lur horiek bitan zatitzea proposatzen dute: zati **malkartsua** laborantzarako lur gisa erabiltzeko, eta zati laua Herriko Etxeak eros dezan, herriko gazteek bertan etxeak eraiki ditzaten. **Beria - Euskal Herria**

Bizitzaren ibilbide **malkartsu** honetan. **Patxi Zubizarreta**

Ezkontzara heltzeko bide **malkartsuan**. **Antton Olano**

Haren zuzeneko eraginak itxuraldatu zuen Kode Zibilaren bide **malkartsua**. **Andres Urrutia**

Teknika eta korrante literario berrien bidezidor **malkartsutik**. **Beria - Kultura**

## 2 irud/hed

Hona hemen testuak izan duen prozesu **malkartsuaren** bidezidor batzuk. **Beria - Euskal Herria**

Botoa biltzeko eginkizuna **malkartsu** bihurtzen da. **Beria - Euskal Herria**

Orain, bi urte igaro ondoren, eta penitentiaren lurrin **malkartsuenarekin**, bigarren aukera zeukan. **Fernando Morillo**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bide malkartsua** (5)

**bide malkartsuan** (5)

# malkartu, malkar(tu), malkartzen (orobat **malkortu**) 1 da ad amildu.

Altuera jakin batean, uharra amildegi zen, eta ur distiratsua behe-behean **malkortzen** zen, sasiartean. **Koro Navarro**

## 2 irud/hed

Lanbideari kateaturik bizkarra **malkartu** zaien galerianoen artean ere inor guti ohitzen da irakurlearen ezin aseak beharturiko lanaldi latz asteburukora. **Aingeru Epaltza**

# malkartxo (corpusean **malkortxo** soilik) iz malkar txikia.

Behinola errota izana, bere antepara eta guzti, hantxe neukan neure aurrean, Egaren ertzean bertan; Onzinedako **malkortxora** so, eskuinaldean harri bizi eta zuriskaz oratua. **Txillardeggi**

# malko 1 iz negar tanta.

Negar egiten zuelako, ume batek bezalaxe, intziri, **malko**, marru eta guzti, nigandik bereizi behar zuen bakoitzean. **Antton Olano**

Negar eta negar hasi zen, begietako **malko** guztiak bota beharrean. **Karlos Zabala**

Eta negar egin nuen, negar, **malkoak** ezin atxiki. **Jon Muñoz**

Etengabe egiten zuen otoitz, **malko** ugari isuriz. **Askoren artean**

Besarkada batzuk, elkarrekin isuritako **malko** batzuk, baina hori zen guztia. **Oskar Arana**

Bihotza asaldaturik eta begietatik **malko** ugari zeriola, mutila telefonora joan zen. **Lopez de Arana**

**Malkoak** begietaratzen bazitzaizkion, bertan behera jausten uzten zituen. **Mirentxu Larrañaga**

Begiak jaso zituen, **malkoz** lausoturik. **Eskarne Mujika**

Dagoeneko **malkoak** hasi zaizkio begietan behera. **Oskar Arana**

**Malko** bat lerratu zitzaion masailean behera euri-tanta distiratsu baten antzera. **Agustin Otsoa**

Hori entzunik, **malko** bat erori zitzaion Telemakori lurrera. **Juan Kruz Igerabide**

Orain ere nekez irakur baititzaket **malko** bi lehertu gabe. **Antton Olano**

Begietako **malko** guztiak xukatuko dizkie Jainkoak. **Elizen arteko biblia**

Geroan ere **malkoak** xukatuko dira munduko edozein bazterretan... **Eneko Bidegain**

**Malko** guztiak xukatu nizkion, ferekaz fereka. **Joan Mari Irigoien**

Nik, berriz, nahikoa lan banuen **malkoei** eusten. **Pedro Alberdi**

**Malko** zazpi bider gaziak, erre ezazue ene begion sen eta ahala! begitarte xarmant hura, **malkoen** lilura ahaltsuaz are ederragotua. **Juan Garzia**

Han ginen bilduak bildutasun haundienean, **malkoak** begietan. **Herria**

Han zen hura mahaian nire aurrez aurre eserita, begiak **malkotan**, bere ezkontza porrot egitekotan zela esanez. **Oskar Arana**

Begiak **malkoz** beterik genituela. **Askoren artean**

Urtu bitez gure begiak **malkoz**, bitez blai betazalak negarrez! [Elizen arteko biblia](#)

Lepoan behera bere **malkoen** beroa labaintzen sentituz. [Joxean Agirre](#)

Bere begietan **malkoa** zegoen berriro. [Bernardo Atxaga](#)

## 2 (izenondoekin)

**Malko** bero eta lasaigarriez bete zitzaizkion begiak. [Lopez de Arana](#)

**Malko** freskoak kliskatuz hurbildu zitzaion Denver. [Anton Garikano](#)

Begiak **malko** mingotsez bete zitzaizkion. [Lopez de Arana](#)

-Nire lagun maiteak! -xuxurlatu zuen, **malko** saminak isuriz-. [Jose Morales](#)

Bi **malko** lodi isuri zitzaizkion ile zuriko haur batena zirudien aurpegi beldurtuan behera. [Karlos Zabala](#)

Carmichael jaunak hitz egin izan balu **malko** txiki batek urratuko zuela putzuaren mintza. [Anton Garikano](#)

Bihotza arintzen ez zuten bakardadezko **malko** hotzeekin negar egiten zuten biek. [Jose Morales](#)

Ez baitira tristurazko **malko** goibelak, **malko** alaiak baizik, ospakizunezkoak. [Mirentxu Larrañaga](#)

Ez da amesgaiztorik izango, **malko** gazi-gozo batzuek baino ez. [Berria - Kirola](#)

Neskata gaixo hark etxetik joan beharrak, [...] etxera eroturik itzultzeak Lisari begi ederrak busti eta **malko** isilak sorrarazi zizkieten, muki zapiarekin ukitu txikiak eginez lehertu zituenak. [Karlos Zabala](#)

**Malko** oparoz bete zitzaizkion Gabrieli begiak. [Irene Aldasoro](#)

Arin-arin lehertu behar izan zituen begiak, ikus ez zitezen gizon baten **malko** eskerdunak. [Anton Garikano](#)

Bere bular ederrek **malko** erraldoien forma zuten. [Harkaitz Cano](#)

## 3 irud/hed

Argizari isuriaren **malko** zurbil gatzatuak. [Karlos Zabala](#)

Udaknenaren etorrerari urtez urte **malko** itxurako hosto gehiago isuriz agur egiten dion zuhaitz zaharra. [Imanol Zurutuza](#)

Ezin ditiat ahaztu uda amaierako azken egun beroak, ez eta basoen **malko** esperantzagabeak euripean. [Eskarne Mujika](#)

**Malko** forma, genioen, eta guztiok ulertzen genuen **malko** horrek zuen forma, komikietakoa zela esan nahi genuela. [Harkaitz Cano](#)

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dira guti beren aurpegietan **malko** arrastoak dituztenak. [Aingeru Epaltza](#)

Manuel berriz hasi zen negarrez eta murtzikatzen zuen ogiak **malko** zaporea hartu zuen. [Jon Maia](#)

Bere erregu ugariak **malko**-isuri ugariaren opariaz bustiz. [Askoren artean](#)

**Malko**-jario hauen artean halako zerutiar poztasan batez azaltzen zen. [Askoren artean](#)

**Malko** jarioan hasi zen orduan, eta auhenka, Zaita hunkitu nahian. [Patxi Zubizarreta](#)

Bisaia hamaika **malko**-errekastok zeharkatzen zioten. [Lopez de Arana](#)

Beste Elizako prelatuek ere **malko**-errekak isuri zituzten, beren jantzi oparoak bustitzeraino. [Askoren artean](#)

Nork bihurtuko nire burua ur, nire begiak **malko**-iturri, gau eta egun negar egiteko nire herriko hilengatik? [Elizen arteko biblia](#)

Gaitzeko **malko**-uholdean lehertu zen. [Itxaro Borda](#)

Aurpegi eta matrailak **malko** ihintzez blaituko dituzte. [Xabier Amuriza](#)

Mokanesa hartu eta begi-izkinan loratu **malko**-muskila idortu zuen. [Itxaro Borda](#)

Meryren begiak neke eta **malko** hodei batek lainotu zituen. [Agustin Otxoa](#)

Ez luke horregatik literaturaren ozeanoak **malko** pare bat baino galduko: nireak. [Karlos Linazasoro](#)

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haurtxo gosetien garrasi errukarrien eta andre-**malkoen** artean lizundutako ogi bat sekula banatu ez dutenak. [Juan Martin Elexpuru](#)

Izerdi **malko** batzuek zain hezeak marraztu zizkידaten kopetan. [Aingeru Epaltza](#)

Mokanes bat atera zuen sakelatik ogoak, barre-**malkoak** lehertu eta, nire harridura handienerako, zintz egin zuen. [Joxan Elozegi](#)

"Odol-**malkoak**" darizkio Donatien galera honengatik. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Uste zuen larrazkeneko zein udaberriko lantzerra hasten zela, euri **malko** xehe eta finez bazterrek astinduz. [Itxaro Borda](#)

Sortzailea buztinarekin nola, halaxe ari zen Kurt kandela-**malkoaz** jolasean. [Anjel Lertxundi](#)

Errugabe bakar baten eskerron eta poz-**malkoak** nahikoa izango lirateke ni gizonen mespreziotik kontsolatzeko. [Juan Martin Elexpuru](#)

Lurretik ateratzen denean, burdinezko erreminten kolpez zilarbizi-**malko** ugariak ateratzen zaizkio, eta meatzariak berehala jasotzen dituzte. [Santiago Iruretagoiena](#)

Argi-**malkoak** iruditu zitzaizkion; urperatze etiliko baten hondarrak balira bezala. [Fernando Morillo](#)

Urre **malko** bat aurkitu du sarean. [Iñigo Aranbarri](#)

Horregatik, elurra gorputz hartuta datorrenean, elur-**malko** deitu izan zaio, elur-malo ere bai. [Pello Zabala](#)

## 6 *krokodilo malko* tipula negarra.

"**Krokodilo malko**" batzuk ere isuriko zituzten, entzuleen bihotzak ukitzeko. [Gotzon Garate](#)

**Krokodilo** malkoekin aurkeztu zen Ameriketako Estatu Batuetako presidente George Bush astearte gauean Washingtongo prentsaren aurreko agerraldirik nagusian.

[Fernando Morillo](#)

## 7 *malko bide*

Zortzi haietako hiruren **malko bideetan** pneumonia atipikoaren birusa atzeman zuten ikertzaileek. [Berria - Gaiak](#)

Ikertzaileek zehaztu dute gaitzaren hasierako fasean baino ez dela egoten birusa **malko bideetan**. [Berria - Gaiak](#)

## 8 *malko gas* malkoak isurarazten dituen gasa.

**Malko gasak** jaurtitzeari eta borrak astintzeari ekin zieten poliziek. [Berria - Ekonomia](#)

Norbaitek botilak jaurti zituen Poliziaren kontra eta haiek **malko gasarekin** erantzun zuten. [Berria - Ekonomia](#)

## 9 *negar malko*

Damuzko **negar-malkoak** isuri? [Oskar Arana](#)

**Negar-malko** gartsuz gorputza bustiz, zotin eta intziri artean behin eta berriz laztantzen eta besarkatzen du. [Askoren artean](#)

**Negar-malko** eta intziri artean. [Askoren artean](#)

**Negar-malkoetan** lehertu nintzen. [Koro Navarro](#)

Nahigabetua daukagu bihotza, **negar-malkoz** lausoturik begiak. [Elizen arteko biblia](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begietako malko (3); bi malko (13); bi malko lodi (3); malko artean (22); malko bakar (7); malko bakar bat (6); malko bat erori (4); malko bat ikusi (3); malko bat isuri (8); malko bat jaitsi (3); malko bat xukatu (4); malko batzuk isuri (3); malko bi (7); malko errekek (5); malko handi (4); malko handiak (3); malko isilak (3); malko isuri (8); malko iturri (4); malko jario (4); malko jarioa (3); malko lodi (4); malko lodiak (4); malko ugari (17); malko ugari isuri (6); malko ugari isuriz (8); malko ugariz (13); negar malko (23)

malkoa isuri ezinik (3); malkoa zeriola (9)

begietako malkoak (6); begietan malkoak zituela (4); begietatik malkoak zerizkiola (3); isuri zituen malkoak (4); malkoak ageri (3); malkoak atera (7); malkoak ateratzen (4); malkoak ateratzen zitzaizkion (3); malkoak aurpegian behera (3); malkoak begietan (9); malkoak bota (3); malkoak darizkiola (3); malkoak ditut (3); malkoak egin (3); malkoak etorri (5); malkoak ezkutatzeko (3); malkoak hasi (3); malkoak idortu (3); malkoak ikusi (3); malkoak isurarazi (3); malkoak isuri (18); malkoak isuriz (6); malkoak isurtzen (13); malkoak isurtzeraino (6); malkoak lehertu (7); malkoak lehertuz (3); malkoak masailetan behera (5); malkoak xukatu (14); malkoak xukatu



zituen (4); malkoak xukatuko (3); malkoak xukatirik (3); malkoak xukatuz (5); malkoak xukatzen (4); malkoak zerizkiela (5); malkoak zerizkiola (8); malkoak zituela (4); negar malkoak (33); xivaren malkoak (4); xukatzen zituen malkoak (3)  
malkoei eusteko (5); malkoei eusten (5); malkoei eutsi (24); malkoei euzinik (13); malkoei ezin eutsi (5); negar malkoei (5); negar malkoei eutsi (3)  
negar malkoen (3)  
negar malkoetan (3)  
malkorik isuri gabe (5)

## malkoarazi, malkoaraz, malkoarazen du *ad* malkoak isurarazi.

Ez uste begiak gozatzeko gai diren kolore ederrak eta haiek ziztatzten eta **malkoarazten** dituztenak, edo euren itxura itsusian zakar eta higuigarri diruditenak, gauzen hazi berdinez osatuak dagozenik. **Xabier Amuriza**

## malkobera *izond* negarrerako joera duena.

Emakume horren historia erromantikoak eta maitasun fatalak makina bat malko isurarazi zuten Britainia Handian, baita milaka egunkari eta aldizkari salarazi ere betidanik halako izaera **malkobera** eta prentsa horirako joera izan duen ingeles jendearen artean. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Don Galaor, Gaulako Amadisen anaia, beroegia baino areago ere ote zen marmarrak badira; eta bere anaia, **malkobera** ote zen. **Patxi Ezkiaga**

## malkodun *izond* malkoak dituena.

Malkoekin eta **malkodunak** irten zaizkio hitzak: [...]. **Anjel Lertxundi**

## malkogai *iz* malkoen gaia.

Antoniaren ile beltzarana buruaren atzealdean biltzen zuen mototsaren kontra estutu zuen Mentxuk ahoa, begiak itxita, **malkogai** zitezkeen azkura batzuen iturburua moztuz.

**Josu Landa**

## malkogile *izond* negarrerako joera duena.

Eta izkribatzailearen estilo **malkogilearen** erdian, datu tekniko hotza: [...]. **Koldo Izagirre**

## malkoka *adlag* negarrez.

Berri hauen bultzadaz, bertan behera lehertu ziren, begietatik **malkoka** eta barren-barrendik zotin-hasperenka. etxeakoandrea eta iloba negarrez ikusi zituenean, zotin-potxoloka hasi eta **malkoka** ekin zion gero. **Patxi Ezkiaga**

## malkor ik **malkar**.

## malkortegi ik **malkartegi**.

## malkortsu ik **malkartsu**.

## malkortu ik **malkartu**.

## malkortxo ik **malkartxo**.

## malkotsu *izond* malkoz bete.

Umeak aipatze hutsarekin negarrez hasten zen pertsona bat, jendaurrean lotsagarri ez geratze aldera noranahi larrialdietarako muki-zapi kutxatxo batekin joan beharra zeukan txotxolo **malkotsu** bat. **Oskar Arana**

## malkotu, malko(tu), malkotzen da *ad* malkoz bete. ik **malkoztatu**.

Besarkatu egin nau, masailak musukatzen dizkidala begiak **malkotuta**. **Koldo Izagirre**

Autobusa abiatzean, begiak **malkoturik** zeuzkala igarri zion Karmenek lagunari. **Xabier Montoia**

## malkoztatu, malkozta, malkoztatzen da *ad* malkoz bete. ik **malkotu**.

Begiak eta burua jausirik, ez abotsik entzun, ez bizira deituz inguratzen duen aurpegiarik ezagutzeke, matrailak eta begitartea **malkoztaturik**. **Xabier Amuriza**

## malla ik **maila 7**.

## mallabiar (*orobat mallabitar*) *izlag/iz* Mallabiakoa, Mallabiari dagokiona; Mallabiako biztanlea.

Elkarrizketa bat izan nuen **mallabitar** batekin 1999ko udaberrian. **Koldo Zuazo**

**Mallabiarrek** eta Ordiziako Txapagain taldeek hartuko dute parte, hain zuzen. Berria - Kirola

Hernani finalerdietan zen, **mallabiarrek** beste emaitzen zain egon beharko zuten. Berria - Kirola

Santi Artetxe **mallabitarrek** (Peuoget 307 WRC) irabazi zuen atzo Azeptitiko Ikasberri Rallysprinta. Berria - Kirola

---

mallabitar ik **mallabiar**.

---

**mallo** *1* iz maluta.

Horregatik, elurra gorputz hartuta datorrenean, elur-malko deitu izan zaio, elur-malo ere bai, malo-malo edo mara-mara ari duela adieraziz; hortik elur-maluta eta elur-**mallo** edo elur-mulleta ere; beste batzuetan, elur-bela, elur-kana, eta elur-gixixa. Pello Zabala

**2 mallo-mallo adlag**

Orain pauso txiki batzuk, orain pausagune bat, orain **mallo-mallo** segi... Pablo Sastre

Prenda isilegiak dira, elurra bezala erortzen direlako lurrera, mara-mara edo **mallo-mallo**. Harkaitz Cano

---

**mallorcar** (*orobat mallorkar eta mallorkiar g.er.*) *izlag/iz* Mallorkakoa, Mallorkari dagokiona; Mallorkako biztanlea.

Valentziar batzuek eurena hizkuntza berezia dela diote, eta gauza bera uste dute **mallorcar**, menorcar eta eivissar zenbaitek. Koldo Zuazo

Gaur egungo **mallorkar** gehienek, aldiz, ez dizute inondik inora ere onartuko katalanez mintzo direnik; mallorquiz hitz egiten dutela esango dizute. Koldo Zuazo

Raimon Lull, XIII. mendeko filosofo eta teologo **mallorkarrak**. Koldo Zuazo

125 cc-ko kategorian, Jorge Lorenzo **mallorcarrak** Dovizioso italiarraren aurretik lortu zuen garaipena. Berria - Kirola

Toni Colom **mallorcarrak** irabazi du Valentziako Itzuliko lehen etapa. Berria - Kirola

Iazko txapelaldun Andy Roddické Rafael Nadal **mallorkiar** gaztearen ametsarekin amaitu zuen, atzo, AEBetako Irekian. Berria - Kirola

---

mallorkar ik **mallorcar**.

---

**mallorkera** *iz* katalanaren dialektoa, Mallorcan mintzatzen dena.

Gainerako lekuetan, katalana esaten zaio, nahiz eta **mallorkera** eta gasako izen herrikoiak ere erabili. Berria - Mundua

Jendeak badaki katalana, **mallorkera** eta valentziera oinarri beretik datozela eta anai-arreben artean gaizki konpontzea nahi dute Berria - Kultura

---

mallorkiar ik **mallorcar**.

---

**malmetitu**, malmeti, malmetitzen da *ad* estutu, larritu.

Haren abegikortasunaz abusatu zuten, haren ontasunaz, ez zituela-eta iraindu nahi ez eta inorekin **malmetitu** ere. Juan Garzia

---

**malmutz** *izond* maltzurra, amarrotsua.

Alkate **malmutzaren** jokutria bat. Felipe Juaristi

Ezagutu zuen, bada, gladiadore barbarorik eta bidegurutzetako hitzontzirik, [...] otsein lizunik eta neskato **malmutzik**, fruta-saltzailerik eta ostatu-nagusirik, poeta tamalgarririk eta neskame **malmutzik**, apaizandre badaezpadakorik eta soldadu alderrairik. Juan Garzia

Irribarre **malmutzez** begiratzen zien Mentxuk tituluei, Espainiaz kanpoko mundua izugarri txarto zebilela ematen baitzuen. Josu Landa

Oliba-koloreko larrua eta begirada oker eta **malmutza** zuten. Agustin Otsoa

---

**malnutrizio** *1* *iz* elikatura okerra edo eskasa.

Munduan 111.000 emakume hiltzen dira **malnutrizioak** haurdunaldian eragindako arazoen ondorioz. Berria - Gaiak

Azken hilabeteotako defizitek **malnutrizio** zorrotza eta kronikoa eragin dute errefuxiatuen artean. Osasunerako Mundu Erakundeak kanpalekuetan dauden pertsonen %38,8k

**malnutrizioa** dutela helarazi du **malnutrizioa** larria da kasuen %6an. Berria - Mundua

**Malnutrizioak** miloi bat haurri eragin diezaike datozen sei edo zortzi asteetan. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

FAOren arabera, ordea, arroz mota bakoitzak mantengai desberdinak ditu, beraz, arroz mota desberdinak nahastuz gero, **malnutrizio** arazoak murriztuko lirateke. Berria - Gaiak

---

**malo**<sup>1</sup> *1* *izond* maluta.

Horregatik, elurra gorputz hartuta datorrenean, elur-malko deitu izan zaio, elur-**malo** ere bai [...] hortik elur-maluta eta elur-mallo edo elur-mulleta ere; beste batzuetan, elur-bela, elur-kana, eta elur-gixixa. Pello Zabala

**2 malo-malo adlag** mara-mara.

"Elurra **malo-malo** ari du", zioen papertxoak. Bernardo Atxaga

2000. urtean, Aizkorriin behera elurra bota zuen **malo-malo**, ekainaren 9an. Pello Zabala

---

**malo**<sup>2</sup> *interj* kontu txarra.

Sumatu duzue kukurik? etorria behar du honezkero, bestela, **malo**! Pello Zabala

Etxetik hurbil, astoa garagarrak ateratzen bazebilen, **malo**: Garagarrak egiten astua, laster da busti lastua. Pello Zabala

Juduarekin dabilena, **malo**! Edorta Jimenez

Horrekin altxatzen ez bazaizu, **malo**, amigo! Javi Cillero

malobra ik **maniobra**.

malso ik **maltso**.

**malta 1** *iz* garagar aleak berotuz lortzen den gaia, garagardoa eta whiskia egiteko erabili ohi dena.

Hamabi urteko Macallan whiskia, hutsa, nahastu gabeko **maltaz** egina. **Oskar Arana**

Ate birakarian zehar, ahots bareen marmarra eta **maltaren** freskura lerratu ziren kalera. **Lopez de Arana**

O'Halloranek **maltazko** edari beroak atera zituen denentzat. **Irene Aldasoro**

Tira, garçon, ateraizkiguk bi **maltazko** whisky erdi, txintxo haiz eta... **Irene Aldasoro**

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Biomalt **malta** pote bat. **Josu Zabaleta**

Nondik dator **malta** -usain izugarri hau? **Anton Garikano**

Garagardo-lantegi bat egon behar din inguruan, kale guztian zegon-eta **malta** -kirats desatsegina, jasanezina. **Anton Garikano**

**Malta** -whisky onak ez omen du ajerik uzten. **Iban Zaldúa**

**malta** *izlag/iz* Maltakoa, Maltari dagokiona; Maltako herritarra.

**Malta** telebistan, berri, ghana-ren gaineko galderak egiten dituzte saio batean. **Berria - Kultura**

Garaiak aldatu dira, baina ezin dut ulertu zergatik **maltarrak** euren kultura eta tradizioa hiltzen uzten duten. **Berria - Kultura**

**maltera** *iz* Maltan mintzatzen den hizkuntza.

**Maltera** ofiziala izango da EBn. **Berria - Mundua**

Maltak bere nortasun propioa dauka, eta nortasun horren zati da **maltera**. **Berria - Mundua**

Gogoratu zuen **maltera** eta gaelikoa ofizialak direla, hiztun gutxi dituzten arren. **Berria - Euskal Herria**

**malthusiar** (*orobat maltusiar*) *izond*

Nekazarien arimetan erlijiozko iraultzarik gertatu gabe, zail ikusten zen munduaren **malthusiar** arazoa konpontzea. **Iñaki Mendiguren**

Mahatma Gandhik, indiar independentziaren bilaketa setatian, **malthusiar** bukaera bera nahi izan zuen Indiarentzat, baina beharrezko bitarteko barbaroak gura izan gabe.

**Iñaki Mendiguren**

**maltso** (*orobat malso g.er.*) *izond* otzana, barea.

Gizon serio eta **maltsoa**. **Daniel Landart**

Otsoa bezain indartsua izanagatik, berez, biziki **maltsoa** zen, gozoa, zarmanta, eta munduko bihotzik hoberena zeukan. **Daniel Landart**

Otso basak ardi **maltso** bilakarazi nahiz. **Filipe Bidart**

Bere artaldeko ardi **maltso** ala bihurri edo errebelatu guztien artzaina zela. **Herria**

Australiako oiloak, arras **maltsoak**. **Herria**

Etsai-gudaroste buru-itsu eta **maltso** baina kopuruz eta pisuz ikaragarri baten aurkako gerra azkengabe batean borrokatzen. **Juan Garzia**

Zeure behako **maltsoak** ezinago bikain baliatu zaizkizula. **Jon Muñoz**

**maltsoki** *adlag* maltsotasunez.

Eta gure aurrean ikusten genituen Larrun eta "Les Trois Couronnes" mendi ospetsuak, **maltsoki** guri begira, alegia deus ez gure zaindari. **Daniel Landart**

**maltsotasun** *iz* maltsoa denaren nolakotasuna.

Trebezia handia behar da harekin, edo, trebeziarik ezean, **maltsotasun** handia. **Jon Muñoz**

**maltotu**, maltso(tu), maltzotzen da/du *ad* maltso edo maltsoago bihurtu.

Clinton-ek nahi zituen poxi bat **maltotu** xinatarrek, haatik gauza beharrezkoetan amor eman gabe. **Herria**

Zeren bakartasunaren helburu nagusia presoak arrunt kontrolatzea baita, arrunt inizatibarik gabe uztea, bere nortasunaz arrunt desjabetzea, arrunt **maltsoetza**. **Filipe Bidart**

maltusiar ik **malthusiar**.

**malt** *iz* eskukada.

Gero zaborketariak **maltzotan** biltzen ditek eta dena txukun paratutakoan Muñoz etortzen duk, ustiaketako komisarioa, hiri hainbertze, hiri hainbertze, paga banatzen dik eta moila gaineko txatarra guztia beretako. **Koldo Izagirre**

**maltzur 1** *izond* engainuz edo azpikeriaz zerbait lortzeko trebea dena, edo engainatua ez izateko trebetasuna agertzen duena. ik **malmutz**, **amarrutsu**, **asmotsu**. (pertsonez)

Anker eta **maltzurra** zen, baina ez koldarra. **Martin Anso**

Poker jokalarri **maltzur** eta ping-pong jokalarri aparta. **Oskar Arana**  
Milatan engainatu gaituen zaldun **maltzur** horren hitzekin fidatuta? **Anjel Lertxundi**  
Printze hori azeria bezain **maltzurra** da eta erbia bezain izutia! **Matías Múgica**  
Mezulari **maltzurrak** zoritxarra ekartzten du, mandatarri leialak sendabidea. **Elizen arteko biblia**  
Baina nork utziko zion Henne bezalako izaki **maltzur** bati etxean sartzten? **Koro Navarro**  
Isabel gajoak, berriz, ez zuen jakin ezagutzen ehiztari **maltzur** hark jarritako segada. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
-Harrapatu haugu azkenean lapur **maltzur** hori! **Anjel Lertxundi**  
Ama sudurmotz lodi bat zen, **maltzur** hutsa, basurde begiradakoa. **Josu Zabaleta**  
Gorrotio dio Jaunak **maltzurriari**, baina bere konfiantza ematen zuzenari. **Elizen arteko biblia**  
Aman da, gaizto **maltzur** hori! **Jose Antonio Mujika**  
Alproja **maltzurra** zen. **Urtzi Urrutikoeetxea**  
Mornyk bai egiten zien iseka errepublikazale **maltzur** horie! **Karlos Zabala**  
Faltsukeriaz hitz egiten diote elkarri, ezpainez lausengari, bihotzez **maltzur**. **Elizen arteko biblia**  
Bihotz **maltzurkeoak** ez du zorianik aurkituko, mihi bihurrikoa zoritxarrean jausiko. **Elizen arteko biblia**

## 2 (bestelakoez)

Zaldi hura triokaren eskuineko aldean zebilen, eta ikargarri **maltzurra** zen: tiraka ari zelakoa egiten zuen, baina itxura hutsa zen. **Jose Morales**  
Sugea zen Jainko Jaunak egindako piztietan **maltzurrena**. **Jose Antonio Mujika**  
Irri **maltzur** bat egin zuen. **Lopez de Arana**  
Irri karkaila **maltzurra** egin zuen Luigik. **Josu Landa**  
-Nor da kaskagorri anorexiko hori, kolega? -bat-bateko jakingura agertu du Koioitek, eguzki betaurrekoen atzean barre **maltzurra** eginez. **Patxi Iturritegi**  
Malfoy harro hurbildu zen, irribarre **maltzurarekin**. **Iñaki Mendiguren**  
Begirada **maltzur** haserre bat bota zigun. **Josu Zabaleta**  
Gauzak ezkutuan eta gordean edukitzea dela haren eginkizuna, hots, hizkera **maltzur** bat osatzea. **Juan Garzia**  
Hitzen erabilera **maltzurarekin** nahasi izan gaituztenez, [...]. **Anjel Lertxundi**  
Ahotsa apaldu eta itxura **maltzurra** hartu du. **Monika Etxebarria**  
Fernandok esaten dik argazkiak **maltzurrak** direla, ez direna agertu gura dutela. **Lutxo Egia**  
Veneziarrek ironia **maltzurrez**, *ahantzuraren zubia* beharrean *hasperenen zubia* deitzen dutena igaro ondoren, [...]. **Felipe Juaristi**  
Jokaldi **maltzur** batek ordaina merezi du. **Oskar Arana**  
Bene-benetan diot ez dudala horrelako asmo **maltzurrik**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
-Sekula entzun dudan planik **maltzurrena** da, ederrena! **Julen Gabiria**  
Nabigaziorako heriotza tranpa **maltzurrak** osatzen dituzten hondar pila menditsuak. **Pako Aristi**  
Ez zaitzala sentiberatasun **maltzur** horrek menpera. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Maltzur**-puntu bat sumatzen zitzaion Perettereri begietan. **Jon Muñoz**  
Familiartasun amaltsuz hartu ninduen, eta isilka ia dena esaten zuen irri **maltzur**-aire batekin. **Juan Garzia**  
Ezpainak atzeraka tolestean zitzaizkion, hortz ilun, hautsien gainetik, eta horrek **maltzur** itxura ematen zion. **Koro Navarro**  
Karten gainera bere sudurto okerra makurtu, **maltzur**-aurpegi alaia jarri eta begiak dizidzika hasten zitzaizkion. **Fernando Rey**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Hitz galgarri oro duzu maite, mihi-**maltzur** horrek! **Elizen arteko biblia**  
Tellaigorrik marru egiten zuen, hain marru irri-**maltzurra**, non jende guztia barrez hasten baitzen. **Koro Navarro**  
Jende alfer eta **maltzur**-gaiztoa elkartu zitzaion, eta menpean hartu zuten Salomonen seme Roboam. **Elizen arteko biblia**

## 5 (adizlagun gisa) ik maltzurki.

**Maltzur** jokatu nuen. **Beria - Euskal Herria**  
Baina egun osoan egin zion ihes diruak, **maltzur** eta amarrutsu. **Anton Garikano**  
Malfoyk ere irri egin zuen **maltzur**. **Iñaki Mendiguren**  
-Irakurri hau! -esan zion isilka eta **maltzur**. **Iñaki Mendiguren**  
-O, bai -esan zion Fredek, **maltzur** irribarre eginez-. **Iñaki Mendiguren**  
-Neskaren batek, ezta? -ahotsa **maltzur** emetuz esan zidan. **Edorta Jimenez**  
-Emakumeak ere tarteko diren ipuintxo batekin? - **maltzur** galdetu nion, alde zurretik bainekien ezetz, emakumerik ez zidala proposatuko azeri hark. **Edorta Jimenez**  
Harrizkekoa da -Maizak berehala, **maltzur** samar. **Migel Angel Mintegi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begirada maltzur (6); gizon maltzur (7); irri maltzur (25); irri maltzur bat (7); irribarre maltzur (20); irribarre maltzur bat (8); maltzur bat bezala (3); maltzur gaizto (13); maltzur gaiztoa (3); maltzur irribarre egin (3); maltzur jokatu (3); maltzur samar (3); maltzur samarrez (4)

barre maltzurra (4); bezain maltzurra (5); irri maltzurra (16); irribarre maltzurra (23); irribarre maltzurra egin (7); jenio maltzurra (4); maltzurra izan (4)

irribarre maltzurarekin (3)

azti maltzuraren (4); jenio maltzuraren (4)

irribarre maltzurraz (4)

asmo maltzurrez (3); irri maltzurrez (8); irribarre maltzurrez (18)

## maltzurkeria 1 iz maltzurri dagokion egitea; maltzurtasun gaitzesgarria.

Haren aurka halako **maltzurkeria** egin izan banu, erregeak jakingo zukeen. **Elizen arteko biblia**  
Horri ere buelta eman nahi izan diogu, otsoak **maltzurkeriak egiteko** bere arrazoa izan dezakeela azalduz. **Beria - Kultura**  
Berehala sumatu zuen etxekoandrearen malezia eta **maltzurkeria**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Ez zuen susmo txarrik batere hartu, ez zuen **maltzurkeriarik** ikusten Ariannaren jokabidean, maitemindurik baitzegoen. **Felipe Juaristi**  
Blancok Trujilloren **maltzurkeria** eta joko zikin guztiak ongi ezagutzen zituen. **Gotzon Garate**  
Erabili duzun **maltzurkeria** irreal gertatzen zaizu ia. **Rafa Egiguren**  
Ikasia baitzuen ordurako norberaren inozotasunak errukira bainoago **maltzurkeriara** bultzatzen dituela besteak. **Felipe Juaristi**  
Luluk grazia, **maltzurkeria** eta gatza nahikoa eta sobera zituera erakutsi zion Hurtadori. **Josu Zabaleta**  
Kontu nahasiak zeuzkan jende guztiarekin, diligentziak kudeatzen zituen, **maltzurkerian** eta ijitokerian ibiltzen zen beti. **Koro Navarro**  
Trebetasun handiz jokatzeko zuen bere rola eta **maltzurkeriaz** ari zen gezurretan. **Patxi Zubizarreta**  
Herriak -betiko zinismo eta **maltzurkeriarekin**- esan zuen deabru saldo bat etorri berri zela Whitehaleko zaharraren bila. jakin minez behatzen zion, **maltzurkeria** pitiin bat begietan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Aurpegia alai eta begi zurbilak **maltzurkeriaz** dir-dir zituela. **Iñaki Mendiguren**

Gizakien **maltzurkeriaren** ikuskizun handia. **Oskar Arana**

Merkatariaren ezpainetan irribarra marraztu zuen **maltzurkeriak**. **Imanol Zurutuza**

## 2 (hitz elkartuetan)

Nolanahi ere, Oskar -lbarrak bere uestezko **maltzurkeria** -aurpegia jarri zuen atzera ere-, balitekek hire aizkora behin betiko ahaztu ahal izatea... **Beria - Kultura**

Euren aurpegietan **maltzurkeria** -keinua agertu zen, helduen mundutik datozen soinuak entzutean umeei gertatu ohi zaien moduan. **Julen Gabiria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maltzurkeria** **besterik ez** (3)

**maltzurkeriaz** **betea** (4); **maltzurkeriaz** **jokatzen** (3)

## maltzurki *adlag* maltzurkeriaz; maltzurtasunez.

Indarkeriak huts egiten zuenean **maltzurki** jokatzeko. **Elena Touyarou**

Frantses gobernuababikiago -edo hobeki erran, **maltzurkiago** -jokatzen ari da. **Herria**

**Maltzurki** eta irmo gobernatzen zuen Mooney andreak etxea. **Irene Aldasoro**

Batzuetan lasaitasun eta duintasun handiz jokatzeko eta aldi berean **maltzurki** hitz egiteko gai zen. **Jose Morales**

Adrianek **maltzurki** okertu zituen ezpainak: "Victoriari ere ez zaio gustatzen alemaniarrek galtzea". **Bernardo Atxaga**

Eta irribarre egin zuen, **maltzurki**. **Aitor Arana**

Autodidaktak txalo egin du, **maltzurki** hasi da barrez. **Monika Etxebarria**

-Iruzurak ala emakumea iruzurraren parte izateak? -galdetu zion, **maltzurki**. **Migel Angel Mintegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maltzurki** **ari** (3)

## maltzurondo *izond* adkor maltzurra.

Bazuen lana nahikoa Santxo **maltzurondoak** bere barreari eusten; hain poliki engainatu zuen bere nagusia eta halako zorakeriak entzuten zizkion. **Patxi Ezkiaga**

## maltzurtasun 1 *iz* maltzurra denaren nolakotasuna.

**Maltzurtasunak** guregan buruarinkeriak edo zuhurtzigabekeriak baino erro sendoagoak egiten ditu. **Fernando Rey**

Alberto sinbiosikide ideal bat zen, bere **maltzurtasuna** nire kaltean erabiltzeari uko egiten baitzion. **Juan Garzia**

Lehioen enda bortitza eta espezie ankerra bipiltasunak gorde du, azeria **maltzurtasunak** eta oreina ihesak. **Xabier Amuriza**

**Maltzurtasunik** eta pazientziarik ez dute inoiz falta izan euli-genetistek. **Juan Garzia**

Asmoz eta jakitez baino ez omen dezake txikiak handia bentzi: burubidez, **maltzurtasunez**. **Joxerra Garzia**

## 2 (hitz elkartuetan)

Gizon egokia dirudi, argia, eta ez zaio begirasunean zorrotzasanik falta; ez eta **maltzurtasun** izpi bat ere, beharbada. **Ramon Saizarbitoria**

## maltzurto, maltzur, maltzurtzen da/du *ad* maltzur edo maltzurrago bihurtu.

Maleziatu, **maltzurto** dela [zakurra] esan nahi du. **Gotzon Garate**

Aurpegia gazteagotu eta **maltzurto** zitzaion, biak batera. **Koro Navarro**

## maltzurtxo *izond* maltzur samarra.

Teresak irribarre **maltzurtxo** bat eskaini zidan: "Nola zen, ba, David, niri hainbeste gustatzen zitzaidan Hesserren esaldi hura, egun hartan euliak ere aspertzearaino errepikatu nizuna?". **Bernardo Atxaga**

Iribarre **maltzurtxo** bat egin zenuen barrurantz, zeure baitan. **Lourdes Oñederra**

## malur (*orobat malura; Euskaltzaindiaren Hiztegian malur agertzen da; eta, mugatuan, malurra*) iz zorigaitza.

Orduan behar izan dut, lehen aldiz, zu nahigabetu izanaren **malura** deitoratu. **Jon Muñoz**

Batera hartu gintuzten bozkarioak eta **malurak**. **Koldo Izagirre**

Gehienik **malurrak** jo gaituenean gira hain segur urrats horri lotzen. **Herria**

Baina honek zorigaitzak eta **malurak** ekarriko ditik. **Agustin Otsoa**

Katearen zuzendariak esana zuen **malur** handia izan arren langile hoberenak ere abiatzen zirela bide gaiztotik, ez zegoela inorekin fidatzerik. **Joxan Elozegi**

Haizatu dut ene **malur** zaharra. **Jokin Urain**

Baina zure **malurek** hunkitu naute, haiek ematzearren zernahi egitera prest egoteko heineraino. **Jon Muñoz**

Beren **malurra** inguruari, ingurukoei, gizarteari egotzen dietenak. **Iñaki Iñurrieta**

Uruski sobera **malur** egin gabe bere lekurat itzuli da. **Herria**

Gauean, barandillan pausatuta dago Gabin, badiari begira, gogoetan, edo bere **malurraren** zama eraman ezinez. **Iñaki Iñurrieta**

Bere joera alternatibo hori **maluraz** eta amorruez beteriko poemetan gauzatzen du. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## maluratu ik malurto.

## maluros ik malurus.

maluroski ik maluruski.

## malurraldi *(corpusean malurraldi soilik) iz zorigaitzezko aldia.*

Nork kontsolatuko nau **malurraldi** honetan? **Jon Muñoz**

## malurtu, malur(tu), malurtzen *(orobat maluratu; Euskaltzaindiaren Hiztegia malurtu agertzen da) 1 du ad ezbehartu.*

Zeinen lazgarria zaidan zu **malurtzea**! **Jon Muñoz**

Plazer duzu ni **malurtzen**! **Jon Muñoz**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Rocheortek arrazoa zeukan menturaz, munduko **maluratuek** zientzia barri bat ikasi behar zuten, baina gerezien sasoa ez zen jakite hutsaz helduko. **Koldo Izagirre**

## malurus *(19 agerraldi, 5 liburu eta 13 artikulutan [+maluruski]; orobat maluros 19 agerraldi, 3 liburu eta artikulua 1ean [+maluroski]; Euskaltzaindiaren Hiztegia malurus agertzen da) izond zorigabea, dohakabea.*

Hala ere, ez zidan esan nahi non eta nork egin zizkion tatuaje **malurus** haiek, bere bizitzari zoritxarra ekartzen ziotenak. **Javi Cillero**

**Malurus** izan naiz eguzki izpiek lehenengoz lardaskatu nindutenetik. **Javi Cillero**

Beharrik ez didan galdetu zergatik nintzen horren **maluros**, zeren ez bainekikeen zer erran. **Jon Muñoz**

Mundu zabalean, gosez hiltzen diren **malurusak**. **Herria**

Horregatik, agian, poeta goren hark hitz hauek ipini zituen maitale **malurusaren** ahotan: ikusi zintudanean, ai nolatan nahigabetu nintzen! **Imanol Unzuurrungaga**

## maluruski *adlag zorigaitzez, ondikoz.*

Poliki, metodikoki, **maluruski** jan zuen. **Anton Garikano**

Eta **maluruski** -jokoak ekartzen du bere hizkuntza-, hasi ginen frantseser mintzatzen. **Menane Oxandabaratz**

**Maluruski** gaurko egunean ere zonbait lekutan diren gerletako hil guzientzat. **Herria**

## maluta 1 *iz elurrak, erortzean, osatzen dituen zatiketako bakoitza. ik luma 10, malo<sup>1</sup>.*

Behin, elurra bota zuen, **maluta** zuri handiek, alfonbra zuri puskatu baten antzera estali zuen belar jadanik berdea, eta berehala urtu zen. **Jose Morales**

Elur handia zen, **malutak** mara-mara erortzen ziren. **Gotzon Garate**

Lehenengo aldiari elurra goizean goizik heldu zen, eta **malutak** poliki-poliki ezarri ziren lur gainean, tximeletak balira bezala. **Bernardo Atxaga**

Elur bustia deitzen diogu inguru hauetan: euriarekin nahasian eta artean ere **maluta** egin gabe, trinkotu gabe datorrenean. **Pello Zabala**

**Malutak** haizearekin erdi jolasean etortzen dira, dantza bereziak sortuz, eta batzuetan elkarri esku emanda, 5 edo 6 zentimetroko malutatarrak osatuz. **Pello Zabala**

-Elur jausiko dira **malutak**, aireak zerpeko graduak ukanik, hodeietan sortutako **malutak** urtzen ez direnean. **Pello Zabala**

### 2 (hitz elkartuetan)

Autoaren gaina eta kristalak **maluta**-tontorrez beterik zeuden. **Bernardo Atxaga**

**Maluta** jario itxiak itsutu egiten ninduen. **Jon Maia**

Urrutitik ikusten ziren iparretik hodei lodiak nola zetozen, eta **maluta** erortze zuria hasi zen. **Josu Zabaleta**

### 3 irud/hed

Armairu handiko apaletan betiko gauzak zeuden, hauts **maluta** bakar bat gabe. **Jon Maia**

Bi piper pote daude hozkailu gainean: hutsik bat, kotoi **maluta** bat gordetzen du besteak. **Eider Rodriguez**

Lehenbiziko notek ke **malutak** bezain iheskor jarraitzen dute izaten. **Oskar Arana**

Semearen aurrean eseri zen, megaroiko zutabe baten kontra, eskuetan artile-**malutak** jiraka zerabiltzala. **Juan Kruz Igerabide**

Hodei-**maluta** dirdaituak Battery gainera erortzen ari ziren, zeru more baten ezkatengisa. **Lopez de Arana**

Edalontzi baten zapoak arrastoren bat, jakinduria **malutaren** bat, zerbait berezia adieraziko didan esperantzaren. **Harkaitz Cano**

Iraganaren tranpan erori naiz, xalotasunaren amaierarekin zorianaren **malutak** esku artean urtu izan balitzaizkit bezalaxe. **Berria - Kultura**

Lehenengo hamabost egunetarako egoskaritarako eskubidea ematen dute bakarrik, olo edo garagar **maluten** orde. **Josu Zabaleta**

Bi pitxer masusta gorri eta larramahats, hoguei pitxer tomate, bost kilo olo **maluta** eta lau kilo arroz. **Josu Zabaleta**

Bi koilarakada olo **maluta**. **Josu Zabaleta**

### 5 arto malutasup\_1 arto txigortuzko alea.

Harry kartazala irekitzen zuen bitartean, Hedwigek Nevilleren cornflake edo **arto-maluta** batzuk hartu zituen. Katilukada bat **arto-maluta** prestatu zion. **Iñaki Mendiguren**

Bev Shaw-k gosaria zerbitzatzen dio, **arto-malutak** eta tea. **Oskar Arana**

### 6 arto malutasup\_2 artaburuko ostoa.

Elkarri itsatsita etzaten dira belar iharrez edo **arto malutaz** egindako lastairen gainean. **Jokin Urain**

Paul D-ren bizkarrari begira, gogoratu zitzaion zurtoin batzuk hautsi egin zirela, tolestu egin zirela Halleren bizkar gainean, eta berak hatzekin heldu zituen gauzen artean zeudela **arto-malutak** eta bixarrak. **Anton Garikano**

### 7 elur *(orobat edur g.er.) maluta*

Lehen **elur malutak** emeki-emeki hasi ziren lurraren kontra lehertzen. **Harkaitz Cano**

Udako gauetan ehunka tximeleta ibiltzen dira bueltaka, **elur malutekin** antz handia dutenak. **Elur-malutak** fereka hotzak eta isilak ziren bere masaila berotsuetan. **Bernardo Atxaga**

**Elur-malutak** dantzan, aiko-maiko, jira eta bira leiho handien beste aldean. **Lopez de Arana**

Kaioak **elur malutak** irudituko zaizkizu, islen forma ilunen kontra. **Joseba Sarrionandia**

Harik eta matazak ziruditen **elur maluta** mardulak erortzen hasi ziren arte. **Joan Mari Irigoien**

Antzar lumak **elur malutak**. **Karlos Linazasoro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**elur maluta** (19)

**arto malutak** (3); **elur malutak** (27)

**elur malutek** (3)

## malutaka *adlg*

Martxoko elurrari beste zenbait bailaratan ere **malutaka** hasi orduko, *San Jose floreek ari ittuk* eransten omen zioten. Pello Zabala

## malutatxo *iz* maluta txikia.

Irun beharrean, emeki-emeki txirtxilatzen zuen artilea beraren inguruan hegan ibiltzen ziren **malutatxotan**. Juan Garzia  
Afrikararren hatzek aretoetan barreiatzen zituzten artilezko **malutatxo**en antzekoa iruditu zitzaion unibertsoa. Juan Garzia  
Hartu -eta hauts **malutatxoak** ahoan sartu zizkion-, jan ezazu. Sonia Gonzalez

## malutatzar *iz* *adklor* maluta handia.

Malutak haizearekin erdi jolasean etortzen dira, dantza bereziak sortuz, eta batzuetan elkarri esku emanda, 5 edo 6 zentimetroko **malutatzar**ak osatuz. Pello Zabala

## mama 1 *iz* *adkor* edaria.

-Nondik atera duzue **mama** ? -galdetu zuen gizon gazteak-. Irene Aldasoro

## 2 *mama* *goxosup\_1* ardoa; sagardoa.

Botilatxo berdeen **mama** goxoa ere neure eztarritik doa zurrustan. Javi Cillero

## 3 *mama* *goxosup\_2* irud/hed

Fatima, orduan, bularra atera, eta haur gaixoari bere **mama** goxoa eskaini bitartean, sehaska kantu bat abesten hasi zen. Patxi Zubizarreta  
· Aitak ere umetatik edan zuen errealaletasunaren **mama** gozo-garratza. Joan Mari Irigoien  
· Ingurumarietara begiratu eta, inortxo ere ez zebilela oharturik, zu gogoan, martxoaren zazpiko hura gorputzean, begiak itxi, eta, zuri pentsatuz, **mama** xuri goxoa isuri dut. Patxi Zubizarreta

## 4 *mama* *gorri* edari bizia.

**Mama** gorriak arindu zidan mihia. Sos hauekin ez diat hik irentsitako **mama** -gorriaren laurdena ere ordaintzeko adina. Aingeru Epaltza

## mamala *izond/iz* emakumeez mintzatuz, ganorarik ez duena. ik *memelo*.

zer ostia ikusi ote zuen neska **mamala** hark mutil harengan horrela maitemintzeko. Jon Arretxe  
Asteburuan euren neska-lagun **mamalekin** paseatzea. Jon Arretxe  
Feminista, ez **mamala** horratik. Urtzi Urrutikoeetxea  
Kubatarrei gustatu egiten zaie larrutan egitea, ez hemengo **mamala** estuei bezala. Jon Arretxe  
Pistan dantza egitera joaten ziren neska **mamaletatik** hasi eta txurrodun gazte kanuterotara arte, tartean egon daitekeen fauna eta flora oro kontuan hartuta: paisanozko poliziak, EGIko burukideak, trapitxeroak, borrokak, nobodyak, makarrak, pijoak, iurretarrak eta despistaturen bat edo beste. Unai Iturriaga

## mamanton *izond* *adkor* baboa, tentela.

Natxok keinu zantarra eginez erantzun dio kamioi gidariari: "**txupadak** zinbel punta, mamanton horrek!" Patxi Iturritegi

## mamarro ik *mamorro*.

## mamarru ik *mamorro*.

## mamax *iz* mauka, pagotxa, aukera ona.

Produktu naturalen industria garbi-ustekoari ahoko zuloan jarri zaio **mamaxa**. Iñaki Seguro

## mambo (*orobat* *manbo*) 1 *iz* kubatar dantza, erritmo oso bizikoa, 1950 hamarraldian oso boladan egon zena; dantza horren musika.

Taberna zuloetako piano aurrean eserita egiten omen zituen bere inprobisazioak: **mambo**, chotis, foxtrot eta pasadobleak. Denborarekin beste estilo batzuek indar handiagoa hartu dute, eta diskoa horren erakusle da, swinga eta jazzaz gain, bossanova edota **manboa** ere jotzen dugulako. Xabier Mendiguren Elizegi  
· Eta garabi teleskopikoa tentetzen zitzaionean **mamboaren** erregea sentitzen zen, sexuaren nanberguana. Patxi Iturritegi

## 2 (hitz elkartuetan)

Dagoeneko 86 urte ditu kontrabaxu jotzaileak, baina oraindik ere indarra du bere orkestrarekin **mambo** eta salsa doinuak zuzenean jotzeko. Berria - Kultura

## mameluko *iz* Napoleonek Egipton batez ere egiptoarrez osatu zuen zaldizko milizia baten kidea.

Joseph Fourier inperioko baroia [...] Bonaparterekin Egipton ibilia, bizirik atera zen **mameluko**en erasoetatik, eta ohean hil zen, Parisen. Jon Muñoz  
Egiptoar **mameluko**en esklabo-nagusigoan. Iñaki Mendiguren  
Antzeko inperio nomaden beste adibide batzuk ere aipatzen dira, **mamelukoena**, adibidez. Iñaki Mendiguren

## mami 1 *iz* ogiaren, fruituen, aleen eta kidekoen barrualdea osatzen duen gai biguna, azalak estaltzen duena.

Esaerak bai **mamia**, gaztainarik ederrenak hainbesteko **mami** gozoa. Pello Zabala  
Luisak ezkurrak **mamiz** hustu eta hatzetan sartzen zituen, hotzak bere jostun hatzak arraildu ez zitzen. Jon Maia  
Datil bat jaten duzuelarik, **mamiak** janaritu egiten du zuen gorputza; haren gozagarriak, haren lurrinak eta koloreak, ostera, zuen izpiritua elikatzen dute. Patxi Zubizarreta  
Intxaurren jateko desiros den, baina, azalaren hausteko nekeagatik, barrengo **mamia** dastatu gabe uzten duen ximinoa ez bezala. Joan Mari Irigoien  
Beren [pikoen] usain, itxura eta **mami** gozo zurigorri erotikoagatik. Patziku Perurena  
Azaloren **mami** zuri guriak ernamuintzen ziren, arrosa itzel batzuen antzera. Karlos Zabala  
Azalak ez baitu **mamia** egiten. Iñaki Heras

## 2 animalia eta pertsonetan, azala edo hezurra ez dena, haragia.

Neska eta mutilazalak gustatzen zitzaizkion, gazteak, **mami** -guri eta hezur egin gabeen jabeak. Pako Aristi  
Gizakiaren hezur guztiak, **mami** zoragarriz jantziak. Jenaro Garate  
Idazlea hezur eta **mamizko** irudikatzeke balio zuten. Ana Urkiza  
*ik behegera* 15. Askoren artean  
Bere galtza estuen atzeko poltsikoan eskua sarturik ibiltzea gustatzen zitzaidan, **mami** urrien azpitik braille sekretu eta epel baten bidez bere hezurduraren mugikera nahasia irakurriz. Joxean Agirre  
Berdelaren **mamiarekin** hanburgerrak ekoizteari ekin dio Bermeko kofradiak. Beria - Harian  
Azala eta hezurrak kentzen dizkiote, eta **mamia** K-Onari enpresara bidaltzen. Beria - Harian  
Bere isatsari segika hasten den zakur eroaren moduan, jira eta buelta, ezer **mamizkorik** harrapatzeke segurantzarik gabe. Hasier Etxeberria

## 3 zerbaiten barneko zatia, zerbaiten muina edo funtsa.

**Mamia** jan baino lehen, odolosteari hestea erretiratzeko diot nik beti. Hasier Etxeberria  
**Mami** biguneko gaztak batean, gurinez eta perrexilez beteriko barraskiloak gainezka bestean. Karlos Zabala  
**Mami** likatsua gatzatzen ari zitzaidan izterondoan. Aingeru Epaltza

## 4 irud/hed

**Mami** gehiagoko aldaketaren bat edo beste egingo nuke halere. Xabier Mendiguren Elizegi  
Isiltasunak **mami** astun bat hartu zuen bapatean, eta etxeetako teilatuak erortzen diren bezala erori zen gure gainera. Bernardo Atxaga  
Ez hitzordu finkatu eta zehaztua, baina bai halakoetan ohi den "egongo gara" lauso hori baino **mami** gehiagokoa. Xabier Mendiguren Elizegi  
Gatazkaren **mami** eta funtsa Herrien autodeterminazio eskubidea dela. Beria - Euskal Herria  
Fedearen **mami** eta muina den konfidantza honek. Herria  
Hitz batek arrakasta duenean gertatu ohi denez, zenbat eta gehiago erabili, orduan eta **mami** gehiago galtzen du. Koro Navarro  
Haien bizitza, nolabait, azalekoegia da, **mami** gutxikoa eta sustrai sendorik gabea. Jose Morales  
Amak dioenez, badu artistaren **mamia**. Josu Zabaleta  
**Mami** gehiago, eta apaingarri gutxiago. Juan Garzia

## 5 esaten edo idazten denak adierazten duen ideia multzoa.

Hitzon azalaren azpian beste **mami** bat baitago. Edorta Jimenez  
Idazleak berari kontatu legez adieraziko du egiaren **mamia**, baina **mami** horren azala aldaturik. Edorta Jimenez  
Gutun honetan, eta bere laburrean, **mamia** bezain garrantzitsua da forma. Askoren artean  
Gaiak **mami** asko du abokatuaren uestez. Beria - Euskal Herria  
Xabierrek ulertu du mezuaren **mamia**: egoera larria da oso, Casablanca Frantziaren mende baitago, Petainen esku! Anjel Lertxundi  
Eztabaidaren **mamia**: bi lan zergen artean hautatu beharko dutela. Herria  
Gertaeren osagarri ez baina liburuaren egiazko **mami** gisa, Saint-Exupéryren bizitzako bizipenek eragindako gogoetak kontatzen dira. Josu Zabaleta  
Luzeak bezain **mami** gutxikoak egiten baitzuten predikuak. Joan Mari Irigoien  
Liburu honetako istorio iragarriek badute **mami** serioagoa. Koldo Biguri  
**Mami** existentzial eta espiritual handiko salmo hauek. Askoren artean  
Orain arte agertu ditudan **mami** zientifikoa trinkoa baldin bazen, [...]. Anjel Lertxundi  
**Mami** bera baitago Maupassanten obra guztietan: gizonak gainetik kendu ezin duen eta beti zori txarrera eramango duen patu gaiztoaren etsimen geroz eta argiagoa. Josu Zabaleta  
Bai, liburu bat dena **mami** eta dena ginarrri. Herria

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beste **mami** mota bat babesteko azala besterik ez zen hura. Joxemari Urteaga  
Emakume nafarrak, amorrus kosk egin eta goiko ezpainari **mami** puska txikia kendu zion. Felipe Juaristi  
*Txo* fegin du **mami** -ore melatuak kopetaren erdian jotzean. Xabier Mendiguren Elizegi

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Biharamun goizean jaso nuen erantzuna enbor bereko zokogunetik, ogi-**mami** batean bildurik. Anjel Lertxundi  
Gazur berdexka bat besterik ez zen, marmol zuriaren antzeko esne-**mami** puxka batzuk zituena. Fernando Rey  
Eskua luzatu eta eri-**mamiz** ferekatu nuen. Aingeru Epaltza  
Nolanahi ere, samurragoa zen kotoi saretuaren ukitua, haragi-**mami** lehor eta ildaskatuarena baino. Mirentxu Larrañaga  
Izan ere, haragi-**mamiak** higituta, ez zen azal eta hezur besterik. Askoren artean  
Orkatilaren borobiltasuna lehenik eta izter-**mamiak** gero miretsiz. Joxean Agirre  
Hatza mihi-**mami** bustirik, mahai gaineko kandela erdi ahituak itzali. Anjel Lertxundi  
Goatea erantzi eta atzamar **mamiak** erretratu makinaren parte metalikoan itsatsiko zaizkizu. Joseba Sarrionandia  
Gatozen egun naturalaren xarma ahogozatzer eta bihotz-**mamian** ezartzera. Pello Zabala  
Zure hitzek, alkate laguna, bihotz-**mamia** ukitzen didate, negarrez jartzen nire arima urrikalgarria. Karlos Linazasoro  
«Itzulketek gizarte **mami** handia dute», ziurtatu du Juan Maria Iruarrizaga Bizkaiko Ogasun diputatuak. Beria - Ekonomia  
Herri-**mami** sendoa eraikitzen ari direlako garai hartan bere buruari emandako tresna juridikoaren bitartez. Beria - Euskal Herria  
Baina pertsonaia berriko "heroi" izaten segitzen zuten, Garibaldi eta Nazario Sauro bezala, ez zuten giza **mami** eta sustantziarik. Juan Garzia  
Bai uda-**mamian** eta baita neguaren muinean ere. Pello Zabala

## 8 esne gatzatua.

Egin bezate ume horretatik germaniar handi eta gorri bat, nola ardi-esnetik **mamia**. Hasier Etxeberria  
Aurrena pikatxa-tortilla eta tripotxak, ondoren arkume errea entsalada ugariarekin eta, menu beti-berdina bukatzeko, **mamia**. Xabier Mendiguren Elizegi  
Eguneko menua ona duk, eta **mamia** etxekoa egiten ditek. Iban Zaldúa  
Gasna egite xahar modura, gasna jastatze eta saltze, artilegintza erakusketa, **mami** xapelketa... Herria  
Zaborreria inguratzaile haren esne-**mamia** azkar hauteman nuen: hogeiren bat urteko gazte bat, lepo luzekoa, [...]. Xabier Olarra

## • 9 izond mamitsua.

Baliteke urtaro honetan euriak ibaiburuan **mamiagoak** izatea ere, akiloiaren putz etesioek hodei guztiak alde haietarantz batzen dituztelako. Xabier Amuriza



Bazkoak iragan dire osto ederki, sekulako jende beren eginbideri dire jarraiki, agertuz beren sentimendu **mamiak**. **Herria**

## 10 adiskideez eta mintzatuz, berarekin lotura estua duguna, barru barrukoa. **ikmin<sup>2</sup> 4**.

Osaba Joanikoten lagun **mamia** izan zena eta jauregirat noizki behin etortzen zena. **Joan Mari Irigoien**

Han, adiskide **mami** izan zuen Jean Bruillot, kalonje eta txantrea, zeinarekin letania ederrik salmodiatzen baitzuen Mariaren ohorez. **Juan Garzia**

Emazteak bere lagunari, lagun **mamiari** eskaini dio aukera hori. **Patxi Zubizarreta**

Diruaren indarrak asko gauza ditu ordaintzen, eta dudarik ez da, zer ez ginuke eginen, adixkide **mami** bat berpizteko? **Herria**

Han kausitu nuen Émilie adiskide **mamia**, anitz lagunetz inguratua. **Jon Muñoz**

Solaskidearen jendetasuna eta adeitasuna mirestearen zale, arrotz batek adiskide **mamienetakotzat** hartuko zuen. **Patxi Zubizarreta**

## 11 **adiskide mamiko** adiskide mamia. **ik mamikotasun**.

Etxe aldera abiatu zen, loaren saria hartzera, eta bidean Inozentziorekin egin zuen topo, Joanesen aita zenaren adiskide **mamiko** izanarekin. **Felipe Juaristi**

## 12 **azal eta mami adlag**

Lyssenkoren adierazpenak irakurtzean, garbi ageri da, **azal eta mami**, haren ezigaitasun erabatekoa, haren ezjakintasuna. **Juan Garzia**

Baina **azal eta mami** aldatuko da aurrerantzean aldizkaria. **Berria - Euskal Herria**

· Baina **azal eta mami** hartuta etortzea bere mundura, dena hankaz goratzea zen hori. **Anton Garikano**

## 13 **azal-mami pl** azala eta mamia.

**Azal-mamiak** jan dizkit, hezurak hautsi. **Elizen arteko biblia**

Bakerren hitzen **azal-mamiak** interpretatuz. **Edorta Jimenez**

· Milaka tona plastiko, beiraki, **mami-azal** ustel Gernikan. **Iñigo Aranbarri**

## 14 **hatz-mami**

Bere ezpainen hezetasuna sentitu nuen **hatz mamietan**. Ikustekoa zen zein bizkor pasatzen zuen haria **hatz-mami** zailduen artetik. **Bernardo Atxaga**

**Hatz-mami** zartatueta igar zitekeen urte askotako klarionaren arrastoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Hatz-mamiez** igurtzi zuen azala. **Anjel Lertxundi**

**Hatz-mamiez** ferekatzen ari zen azaleko letra erliebetsuak, begiratu gabe ere bertako izenburua behin eta berrito irakurrik. **Anjel Lertxundi**

· Marialuisak hatza ziztatu du eta odol tanta beltz batek busti dio **mamia**. **Eider Rodriguez**

Eskua eman zidan, potoloa; hatz-koskorrak **mamian** sartuta zituen, eta azala oso zuen zuria. **Ramon Saizarbitoria**

## 15 **hezur eta mami adlag**

Atea ireki egin zen, eta han agertu zen Minor bera **hezur eta mami**, gizon garai eta itxura ederreko bat, berrogei bat urtekoa. **Pablo Sastre**

Ez bera **hezur eta mami**, baizik eta haren soneto ospetsua, "Le Tombeau d'Edgar Poe". **Oskar Arana**

Horra neure aurrean, beraz, **hezur eta mami**, astrofisikari bat! **Juan Garzia**

Galdetzen diogunean nola litekeen, orduan, bera hantxe egotea, bizirik, **hezur eta mami**, apal-apal erantzuten du Ipar Aldera doan hurrengo trenaren zain dagoela.

**Eskarne Mujika**

## 16 **hezur-mamisup\_1 pl** hezurak eta mamiak.

Pozaren pozez izango duzue bihotza, belar berria bezain heze **hezur-mamiak**. **Elizen arteko biblia**

Nire gorputzeko **hezur-mami** guztiak. **Alberto Ladron Arana**

Balea izugarri haietarik bat zela, gorputzaren **hezur-mamiak** zurezkoak zituena eta arimaren bela hedatuak haizezko. **Joan Mari Irigoien**

Migeli hezetasunak **hezur-mamiak** ustelduko zizkion. **Aingeru Epaltza**

Baina detektibeok **hezur-mamizkoak** gara, suhiltzaileak edo bulegariak bezalaxe. **Migel Angel Mintegi**

## 17 **hezur-mamisup\_2** hezur-muina.

Zelula horiek odolarekin zerikusirik duten gaixotasun batzuk tratatzeko erabiltzen dira **hezur-mamiaren** transplantearen ordez. **Berria - Gaiak**

Umekiaren **hezur-mamiko** zelula amak. **Berria - Gaiak**

**Hezur-mamietaraino** sartuta daukagu Cervantesen hizkuntza. **Joxerra Garzia**

## 18 **mami-mami**

· **Mami-mamia** kontatuko diat: ingurumaria heuk jarri. **Juan Garzia**

**Mami-mamiari** baizik ez heltzearen, bada, hiru ezaugarri nagusi ditu espresionismoak: [...]. **Josu Zabaleta**

Aurreikusezin izatea zientziagintzaren **mami-mamian** dago. **Juan Garzia**

Inork egiten ez duen moduan egiten zuen hitz, gauzen **mami-mamia** bakarrik emanez. **Juan Garzia**

Espresionismoan oraindik ere txunditzen gaituen hori zer den, **mami-mamiko** gune hori zer den. **Josu Zabaleta**

· Nik **mami-mamitik** maite dudana adiskidea da Vezin. **Josu Zabaleta**

## 19 **mamia eman** ik mamitu.

Leial izan zaitez, azkenekoz, zure bizitzari zentzua eta **mamia ematen** dion eginbeharrarekin. **Ander Irizar**

Idatziz ulertzen dut bizi iragana, erreala izan ez den biziari **mamia emanez**. **Piarres Aintziart**

Agian **mamia eman** geniezaieke termino abstraktu horiei, berrito ere itzultzen bagara kristau-aroko lehen mendera eta Erromatar Inperioko izkina ilun hartara. **Iñaki**

**Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**adixkide mami** (3); **azal eta mami** (3); **gatazkaren mami** (3); **hatz mami** (3); **hezur eta mami** (11); **mami mamia** (3); **mami mamian** (3); **mami sendoa** (3); **ogi mami** (3)

**adiskide mamia** (5); **akordioaren mamia** (4); **arazoaren mamia** (3); **azala eta mamia** (6); **lanaren mamia** (3); **legearren mamia** (4); **liburuaren mamia** (6); **mami mamia** (3); **mezuaren mamia** (3); **ogi mamia** (10); **proposamenaren mamia** (3)

**haragi mamiak** (3); **haragi mamiak higatuta** (3); **hatz mamiak** (10); **hezur mamiak** (7); **mamiak higatuta** (3)

**mami mamian** (3)

**mamiaren aldetik** (4)

**mamiari buruz** (9); **mamiari dagokionez** (4)

**hatz mamiekin** (13)

**hatz mamien** (4)

**hezur mamietaraino** (4)

**hatz mamiez** (6)

**mamirik gabeko** (12)

**esne mamitan** (28); **esne mamitan bizi** (10); **ezti mamitan** (3)

**hatz mamiz** (6)

**hezur mamizko** (8)

## mamidun *izlag* mamiko.

Orduan hezur eta **mamidun** gizakumeek egin al dezakete musika hori? **Pako Aristi**

## mamifero *iz* ugaztuna.

**Mamifero** humano urrixaren destinoak ez duela nehongo gutziarik sortzen. Itxaro Borda  
Frankotan azpi-jende edo ahalkez ekiditekoa zitekeen **mamifero** hutsala nintzelako itxura neukan. Itxaro Borda

## mamigabe *izond* mamirik ez duena.

Ederra zen, inor ederrik bazen herrian: azal-larrua beltz, sudur zuzena eta mehea, ezpain **mamigabeak**, eta bi begi, suziriak ziruditenak. Felipe Juaristi  
Begi generiko bati, begirada bati (denik eta anonimoen eta **mamigabeena** bada ere), loturik dauden irudikapenezko irudi mota guztietan. Josu Zabaleta  
Berehala utzi zuen eztabaida **mamigabe** hura. Xabier Olarra  
Zale duzu guztiz eldarnioa halako agerkari **mamigabeak** irudikarazten. Juan Garzia

## mamigabetu, mamigabe(tu), mamigabetzen da/du *ad* mamia galdu; mamia kendu.

Hitz animuzkoak, eupadak, kemenak xahutu egiten dira ordea, **mamigabetu**, eta orduan kontseiluak edo jokamoldeak ematen hasteko tenorea iristen da. Karlos Linazasoro

## mamikotasun *iz* mamasuna. ik **mami 10**.

Adiskidetasun hori, zeinaren **mamikotasun** maila kezkarria baitzen jada unibertsitateko urteetan, ez zen eten Lajos niganako interesa erakusten hasi zenean, baina modu bitxian eraldatu zen. Ander Irizar

## mamitasun *iz* adiskideez mintzatuz, mamia denaren nolakotasuna.

Emakumeek haatik, premiak elkartzen baitzuten, elkarren artean **mamitasun** berberaren itxura gordea zuten: gizonen ordea, beren urratsetan libroago ibilki, berriz kausitu zuten burutu beharreko zereginik edo jarraitu beharreko aferarik. Jon Muñoz  
Lagunartearen begiradek norbera zelatan zuten gizarte hartan, gutuna **mamitasunaren**, isilmandatuaren eta sekretuaren eremua izan zitekeen. Jon Muñoz

## mamitsu (*orobat mamitsu g.er.*) **1 izond** mami asko duena. ik **haragitsu**.

Arbi **mamitsu** bat bezain lerdin eta mardula zen neskekagazte odol-bizi bat. Jose Morales  
Hosto **mamitsu** eta berde argiko bi landarek apaintzen zuten. Iñaki Zabaleta  
Janari gozo **mamitsuz** elikatuko zarete. Elizen arteko biblia  
Laffitte, Beraza eta Parador isabelek prestatzen zituzten afari gozo **mamitsuen** amaieran. Askoren artean  
Zabaltzen direnean, barruan bada konkortxo **mamitsu** bat, behatzaren punta baino gehiago ez dena. Josu Zabaleta  
Begi handiak eta gorri biziz margotutako ezpain **mamitsuak** zituen. Migel Angel Mintegi  
Haien aurpegiak **mamitsuak** eta biribilak ziren. Jose Morales  
Hire bular **mamitsu** horietako bakardadea betetzeko, Sue? Harkaitz Cano  
Hanka politik zituen, ez oso **mamitsuak**, zuzenak. Bernardo Atxaga  
Sekulako estutua eman zion konorterik gabe zegoen emakumeari, haren haragi **mamitsuan** arrastoak uzteraino. Mirentxu Larrañaga  
Gogoko dituan beltzaran **mamitsu** horietako batekin esan nahi duk? Migel Angel Mintegi  
Larruazalaren parterik handiena dermisa da, geruza **mamitsuago** bat, 1,5-2 mm-ko lodierakoa. Irene Aldasoro

### 2 irud/hed

Eztarri oneko ahots **mamitsu** batez. Anjel Lertxundi  
Txinan bisitan, kontratu **mamitsuak** lortu ditu Schroederrek. Berria - Ekonomia  
Kalte-ordain **mamitsuak** jasoko baititugu. Berria - Ekonomia  
Ligak etekin ekonomiko **mamitsuak** emango dizkiola UCLri. Berria - Kirola  
Uda hondarreko [hegaluze] harrapaketa **mamitsuei** begira dago sektorea. Berria - Harian

### 3 (esaten edo idazten denaz)

Hitz gutxi esan zituen, baina **mamitsuak**. Jose Morales  
Txosten **mamitsua** eta gaurkotasun betekoa. Koldo Zuazo  
Sakoneko azterketa eta eztabaida **mamitsuei** erabat uko eginez. Iñaki Heras  
Bilkura **mamitsua** oro har. Herria  
Ekarpen teoriko **mamitsuak**. Markos Zapiain  
Skinner-en *Verbal Behavior* buruz idatzi zuen iruzkin **mamitsu** eta luzea. Itziar Laka  
Liburu entretenigarriak bai, baita «**mamitsuak**» ere. Berria - Kultura  
Bi liburuxka **mamitsuren** idazlea. Itxaro Borda  
Ikerketak egin nahi zituen, aspalditik buruan jira-biraka zebilkion obra **mamitsu** bat idazteko. Jose Morales  
Aste bat gabe, jakingarri **mamitsuak** eskuratu nituen, nire usterik beltzenen baieztapen. Aingeru Epaltza

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artikulu **mamitsu** (8); hitzaldi **mamitsu** (4); liburu **mamitsu** (4); mintzaldi **mamitsu** (5)

egitarau **mamitsua** (4); eztabaida **mamitsua** (6); guziz **mamitsua** (3); liburu **mamitsua** (7); **mamitsua** egin (5); **mamitsua** izan (11); **mamitsua** izan zen (3); **mamitsua** izango (3)

## mamitu, mami(tu), mamitzen **1 da/du ad** gauzatu. ik **hezurmamitu; gatzatu**<sup>1</sup> **3**.

Borroka hori Itoizko Koordinakundearen inguruan **mamitu** zen ia hasieratik. Eduene Elizondo  
Eskola espresionista, zehatz hitz egiteko, alor batean baizik ez da egiaz **mamitu** ikusmenezko arteei dagokienez: pinturan. Josu Zabaleta  
Biharamunean, egunsentia ozta-ozta **mamitzen** hasten zelarik esnatu nintzen. Txillardeggi  
Autoritatezko argumentuz ("Halakok dioenez") mozorrotutako umekeria pedantez **mamitua** dago, tesi guztiak bezalaxe. Iñaki Segurola  
Eta urte honetan gauzatu zen lehenagotik ere **mamitzen** egona zen euskal kulturaren aldeko mugimendu bat [...] 1966ko urtarrilaren 23an eman zuen Donostian bere lehenbiziko emanaldia "Ez dok amairu" taldeak. Pello Salaburu

Horretara, 1876ko uztailean gertatutako euskal foruen ezeztapena, legezkoa, 1839koaren bidetik **mamitutakoa**, askoz ere beranduzko ikasi nuen. Txillardegi  
-Bada, erakusten dik hilketa ez zela bat-bateko haserrealdi edo muturraldi baten emaitza ustela izan, aldez aurretik **mamitua** eta prestatua baizik. Aingeru Epaltza  
Oraindik zeharo **mamitu** gabeko ideia baterako apunteak. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 2 du *ad* mamia eman, gauzatu.

Horrela sorrarazi edo **mamitu** zuen haiengan hilketaren eldarnioa. Monika Etxebarria  
Egia, bizitzaren legeak **mamitzen** dituen gehienak bezalaxe, askozaz ere arruntagoa da. Bernardo Atxaga  
Gero jakin dut nire deiaren esperoak **mamitu** zuela ordudunik bere bizi-poza. Ramon Saizarbitoria  
Elurra hasi zuenetik igarotako hogeita lau ordu pasatsu haietan gertatutakoak hausnartu, **mamitu**, bere egin eta gozatzeko. Anjel Lertxundi  
Ez zien utzi astirik beren asmoak **mami** zitzaten, eta berak zituenei jarrai zekizkien arduratu zituen buru-belarri. Iñaki Iñurrieta  
Ameriketatik itzuliz geroztik **mamituz** joandako proiektuaren berri eman nion Mary Anni: liburu bat egin nahi nuen *Soinujolearen semea* aintzat harturik. Bernardo Atxaga  
Euskararen eta euskal gizartearen inguruan egin dituen irakurketen gainean **mamitu** dituen hausnarketak. Berria - Kultura

## 3 esneaz mintzatzu, gatzatu.

Baina ez daukagu gatzagirik, eta esnea **mamitu** ezean alferrik gabiltza. Jokin Urain  
Esnea **mamituta** ez badago eguerdirako, bihar ez dago gaztanberarik. Jokin Urain

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Aitorpen honek marka guztiak hausten ditu, eta ezin gordinkiago erakusten alaitasun **mamituaren** barrenge harra. Iñaki Seguroa  
Isuritako odol **mamituarekin** joan zitzaion bizia, paradisuko huriak ezagutzeko ametsa zuela azken pentsamendu, agian. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Hurra jakituria **mamitua** da, barruan sendotua, gordean ondua, jakituria umo trinkotua, baina aldi berean, oskol ttiki gogor baten barruan gordea. Patziku Perurena

## 5 *mamituxe* mamitu xamar.

Aspaldi ase baitzituen gaixoak, amodio jolasak eta bizi grinak, eta hauts enamoratuaren muintegi gordean, amodio hazia **mamituxe** zaio gaurgero Patziku Perurena

## mamitxu ik mamitsu.

## mamitze 1 iz gauzatzea, mamia ematea.

Ezinbestekoa da apagai dugun prozesuaren **mamitze**, garapen eta onespenean herritar guztiok parte hartze aktiborako aukera izatea. Berria - Euskal Herria  
Halatan, ahantzura da bere obra osoan heriotzaren **mamitze** funtsezkoena. Markos Zapiain  
Demokratikoki aukeratutako legebiltzarrean adierazten den borondate orokorren **mamitzea** izan behar du legeak. Juan Martin Elexpuru  
Nadin halaber guraso sakratu, iragan dohatsuaren **mamitze**. Berria - Kultura

## 2

Esplikatu zidan nola haiek eragin zituen fenomenoari ingelesez halaxe zeritzola, "livering", hots, "gibelerraitze", eta italieraz *impolmonimento* ("birika-**mamitze**"). Juan Garzia  
Beharbada kromatoa basikoegia zen edo erretxina azidoegia: horiek dira, hain zuzen, birika-**mamitze** bat gerta daitekeeneko baldintzak. Juan Garzia

## mamografia iz ugatzeko erradiografia.

**Mamografia** eta biopsia bat egingo dizkiote geroxeago. Josexo Azkona  
Larriena, Del Rioren arabera, ekografia, zitologia eta **mamografia** egiten zioten bitartean hiru polizia aurrean izatea izan zen. Berria - Euskal Herria  
Dena den, emakume gazteengan **mamografiaren** bitartez minbizia atzematea zailagoa dela dio. Berria - Harian  
**Mamografiak** egiteko kanpainak 32.000 heriotza saihestu ditzakete urtean EBn. Berria - Gaiak

## mamograma iz mamografia.

**Mamograma** bati gainbegirada bota zioten une batez X izpien pantailan. Xabier Olarra

## mamorro (*orobat mamarro, mamurro g.er. eta mamaru g.er.*) 1 iz zomorroa.

Gelan jatekorik baldin baduzu, ogi papurrak edo, berehala ondoratuko zaizkizu txindurriak eta **mamorro** ugari. Gotzon Garate  
Arratoiak eta **mamorroak** sartzen zizkidaten gelan, ni izuarazteko. Gotzon Garate  
Izaki guztiak gizentzen ditugu gizen gaitzaten, eta geure burua dugu gizentzen **mamorroentzat**. Juan Garzia  
- Ez duzu Karlos dagoen lekurantz begiratzen, ezikusiarrena egiteak ikusia izatetik salbatuko balu bezala, nolabait ekidingo balu bezala, **Mamorroaren** beldur izarapean ezkututzen den haurraren antzera. Sonia Gonzalez

## 2 irud/hed

**Mamarro** bibotedun bat zeukan aurrean, izugarri, tente, zaldi-buztan bat buruan, hede bat sorbalda batean, beste hede bat bestean eta sable ikaragarri bat gerriaren alde batean zintzilik. Jose Morales  
Zer esango duzu zerorrek eztarik **mamorroa** berritoki agertuko zaizunean? Hasier Etxebarria  
Euskal **mamurro** letratu tipikoa hiperespainol gisa figuratu nahian euskalduna dela dioen subespainol xaborra da. Patziku Perurena

## 3 (hitz elkartuetan)

Behin **mamorro** -pozoia jan zuen, bestean pozadera batean behera bota zuen bere burua. Gotzon Garate  
Orduan, **mamorro** -piloa bezala pilatuko ditugu harrapakinak, matxinsaltoek bezala egingo diegu gainera jauzi. Elizen arteko biblia

## mamozorro iz zomorroa.

Ausardia larregiz hasi nazela uste dabe, hipogrifoak geroagorako laga behar nebazala... eta **mamorrozo** edo beste zerbaitegaz hasi... Iñaki Mendiguren  
-Zergatik arduratu behar du inork hauek zaintzeaz? -esan zuen Ronek, beste ordubete eman ondoren **mamorrozoen** zintzur likatsuetan letxuga-zaitxoak bultzaka sartuz. Iñaki Mendiguren  
Ikasgelara ontzikada bat **mamorrozo** eraman zuen, eta esan zien, azterketa gainditzeko, ordubete igaro ondoren artean bizirik egon behar zutela. Iñaki Mendiguren

## mamu 1 iz persona hil baten agerraldi naturaz gaidikoa; itxura beldurgarriko izakia, askotan maindire batean bildurik edo

## kateak herrestatu agertzen dena. ik iratzen.

Uki nazazue eta begira: **mamuak** ez du hezur-haragirik, eta nik bai, ikusten duzuenek. **Elizen arteko biblia**

**Mamuak** besoak zabaltzen ditu. **Juan Garzia**

Haien parean jarri zen, **mamu** bat bezala hegoak zabaldua. **Iñaki Mendiguren**

**Mamuak** keinu egiten dio Hamleti. **Juan Garzia**

-la -erantzun zion **mamuak** goibel. **Iñaki Mendiguren**

Bazuen ideia finko bat, **mamu** batek jarraitzen ziola uste zuen. **Josu Zabaleta**

Biziek hilen **mamuak** ikusten eta, bereziki, entzuten dituzte [...] eta hilek ere berdin biziak **mamuak**. **Juan Garzia**

Nire ahizparen **mamua** uxatu baitzuen. **Anton Garikano**

Gryffindor Dorreko **mamua**. **Iñaki Mendiguren**

Duela denbora asko, basoan entzuten ziren hotsen erantzule bila hasi, eta **mamu** bat sortu zuten greziarrek, Pan izeneko jainkoa. **Bernardo Atxaga**

Iruditzen zait **mamu** batek idatzi zuela kanta hori. **Pako Aristi**

Hainbat **mamu** izaretan bilduta azaltzearen arrazoiak, hildakoak krubitxetan bildurik lurperatzeko ohituraren kokatu behar da dudarik gabe. **Bernardo Atxaga**

Zuhaitz-enbor **mamu** modukoak, eta leiho begi-huts itxurakoak. **Koro Navarro**

## 2 irud/hed

**Mamu** rimeldunak baietz egiten zion buruarekin, lorian iduri. **Aingeru Epaltza**

Elkarketa horri Espiritu Santua deitzen dion beste **mamu** bat gehituko dio, eta, berak esaten duenez, hiru pertsona horiek bakarria osatzen dute!Bartzelona da Osasunaren **mamu** beltz nagusia azken lau denboraldietan. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

'Exxon Valdez'-en **mamua** berriro Alaskako kostan. **Berria - Gaiak**

Irailaren 11ko **mamuari** eraginez gero. **Berria - Mundua**

Mercedes-Benz, lekualdaketaren **mamuak** jotako azken enpresa. **Berria - Ekonomia**

Memoriaren **mamu** guztiei deika. **Berria - Kultura**

Buru barneko **mamurik** beltzenak oldarka, negar-megar isil batean egin nuen puska luzea. **Aingeru Epaltza**

Egun ere badabil beste **mamu** handi bat munduan zehar: mugarik gabeko kontsumoaren **mamua**. **Iñaki Heras**

Finantza merkatuko **mamu** erraldoi hauen indarrari aurre egiteko ezintasuna. **Iñaki Heras**

Hainbat izan dira azken urteetan **mamu** berri hauen agerpenek sortu dituzten ekonomia krisiak. **Iñaki Heras**

Kasino-Ekonomiako **mamuei** erasoka: Tobin-Zerga. **Iñaki Heras**

**Mamu** bakarria: erditzea. **Arantxa Iturbe**

Komunismoa **mamu** beltz bat izan zen gure hezitzaileen ahotan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 3 (izenondoekin)

**Mamu** gaiztoren bat azaldu izan balitzaio bezala jo zuen atzera hura ikusita. **Josu Zabaleta**

**Mamu** beltza diruditen ondo bitxiak. **Ramuntxo Etxeberri**

Hala Yeti izeneko **mamu** ospetsua, elurretako gizon deitoragarria. **Bernardo Atxaga**

Bi emakumeak Graemetarren jauregira itzuli zirenean, **mamu** ibiltariak ziruditen, barneko suak erretako bi fantasma kiskali. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

**Mamu** herrari bat ikusi behar dela, hildako baten besarkada jasan behar dela. **Josu Zabaleta**

Gaur egungo zirkuan gorteko bufoiaren **mamu** malenkoniatsuak garai batekoak baino entzule umilagoak goibeltzen ditu. **Xabier Olarra**

Gure **mamu** zaharren aurrean jartzen gaituen lana da hau. **Joxan Elozegi**

**Mamu** nuklearra alternatiba ekologiko bilakatu da. **Berria - Gaiak**

Idazlearen **mamu** kuttunak eta obsesio zaharrak. **Anjel Lertxundi**

Klima-aldaketaren **mamu** aztoragarria. **Pello Zabala**

## 4 (beste izen baten eskuinean)

Aitona ez zuten eraman auto **mamuan**, gaez ibiltzen zen hartan, hil behar zituztenak bat edo bi bakarrik zirenean erabiltzen omen zutena. **Mikel Hernandez Abaitua**

'Istriborrera!' aginduko du nostromoak, izotzeko tren **mamu** hori martxan hasiko delakoan. **Joseba Sarrionandia**

«Prozedura **mamua**» izatea egotzi die Eusko Jauriaritza babesten duten talde politikoei. **Berria - Euskal Herria**

Kontuz interpretazio **mamuekin**! **Askoren artean**

Urte berean, Estandaren akzioen balioarekin enpresa **mamu** taldea sortu zuen, Padpank deiturikoa. **Berria - Ekonomia**

Nik burua jiratu eta bertan zen, benetan diotsuet, kapitain **mamua**. **Fernando Rey**

"Itsasoko uhinek darabilten" andre- **mamuaren** inguruan osatua dirudien kontaera. **Bernardo Atxaga**

Neskaren ukitua haur **mamuarena** bezalakoa zeneko susmoa guztiz desegin zen. **Anton Garikano**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baina gaztelera ari zait, berriro ere, barru-barrutik, **mamu** -irudi hori andrazko bihurtzen. **Joxerra Garzia**

Gerlara doakeenak arerierean izua eragitearren zelan jantzi nahi izaten duen aurpegiaren gainean **mamu** -mozorroa. **Edorta Jimenez**

Jaka hutsa besarkatu nahi dut, **mamu** besarkada huts hura oroitu, **Mamu** -istorioen idazle porrokatua zen. **Harkaitz Cano**

Mende honetan idatzi den **mamu** -liburu boteretsuenetakoa. **Bernardo Atxaga**

Desertu erdian eraikitako **mamu** hiria. **Berria - Kultura**

Hilerririk sorgintzen dituen **mamu** -txakur erraldoia da! **Iñaki Mendiguren**

Gela itogarri hartan, eraikin zaharraren **mamu** -hots zehaztugabeek erasota. **Alberto Ladron Arana**

Erantzun gisa barre-karkara lazgarri bat irten zen han goitik, zenduak zut jartzeko moduko **mamu** -oihu bat. **Karlos Linazasoro**

Gortarik bere buruan gordetzen zituen **mamu** -itzalak plazaratu ditu oraingo honetan. **Patxi Iturritegi**

Kandelen **mamu** -garrek itzal sakonez josi zioten aurpegia. **Alberto Ladron Arana**

Kandela luze, mehe, beltz-beltzak ziren, [...] biziaren aurpegietan **mamu** -argi ilun beldurgarria botatzen zutenak. **Iñaki Mendiguren**

Ziegako horman zehar dozenaren bat **mamu** -zaldi sartu ziren, bakoitzak gainean bururik gabeko zaldizko bat zuela. **Iñaki Mendiguren**

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Kale-argien distira **mamu** -sortzailea. **Aingeru Epaltza**

Giro **mamu** -aire haren erdian, aulki txiki batean eserita, edadeko emakume bat, burua jiratu eta, hitzik esan gabe, begira geratu zitzaiguna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ozeanoa edo Itsas **Mamua** ote naiz zaintzailea jar diezadazun? **Elizen arteko biblia**

Sexu **mamu** sadikoak ere azaltzen ziren kontzientziaren mugetan. **Joxan Elozegi**

Gaztea desagertu zen, iraganetik atera zen bezalaxe, gau- **mamu** baten antzera. **Elena Touyarou**

Esan bezala, oroitzapen baino oroi- **mamu** dira Legazpiko nire eskolaldikoak. **Joxerra Garzia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mamu bat bezala** (4); **mamu bat ikusten** (3); **mamu baten antzera** (3); **mamu beldurgarri** (3); **mamu beltz** (3); **mamu beltza** (6); **mamu beltzak** (3); **mamu bihurtu** (3); **mamu handi** (4); **mamu herri** (3)

**badoa** **mamua** (3); **haur mamua** (3); **jaitsierako mamua** (3); **jaitsieraren mamua** (5); **mamua astindu** (3); **mamua ikusi** (3); **mamua sartzen da** (4); **mamua uxatu** (6); **mamua uxatzeko** (3)  
**bere mamuak** (5); **betiko mamuak** (4); **euskal literaturaren mamuak** (5); **gaueko mamuak** (3); **gero mamuak** (3); **mamuak bizilagun dituen** (3); **mamuak harrapatzeko** (7); **mamuak harrapatzeko sarea** (6); **mamuak ikusi** (3); **mamuak ikusten** (5); **mamuak uxatu** (8); **mamuak uxatu ditut** (3)  
**mamuen antzera** (3); **mamuen moduan** (3)  
**mamuz betetzen** (3)

## mamukeria *iz* mamuari dagokion ekintza gaitzesgarria.

Gaiztotzen ari zen giroa guztiz, eta kontzientzia osoa nuen neure burua ez zela **mamukeria** txatxuetan ari. **Karlos Linazasoro**  
Aitortu behar dut jakin-mina sortu zidala zer **mamukeria** topatuko ote nuen kontakizun horietan. **Berria - Kultura**  
- Egundoko izu-**mamukeriak** jaulkiz ene biziaz. **Juan Garzia**

## mamurketa *iz* mamurtzea.

Hiru ordutik behin edo, ogi bat eta pitxer bat garagardo ekarri behar zion otseinak adore-suspergarri; halatan, bada, han ziharduen lanean, zurrutean eta ogi **mamurketan**, egun guztian horretan buru-belarri. **Juan Garzia**

## mamurro ik **mamorro**.

## mamurtu, mamur, mamurtzen **1 da ad** (ahoa) txikitu, murtzikatu.

Zerbait marraskatzen ari zen, gero **mamurtzeko** eta kikara kafez bultzatzeko. **Patxi Zubizarreta**  
Bizkor jaten zuten, ondo **mamurtu** gabe, dena irentsiz. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Abasek gosaria amaitu, tea hartu, eta pipa erretzen zuenerako, bestea artean tipulak **mamurtzen** zebilen. **Patxi Zubizarreta**  
Pintxoak **mamurtzen** jarraitu zuen, ardo bereziari emango zion trago bikainean pentsatzen. **Unai Iturriaga**  
Zorabiatzen hasi orduko, zati bat ahoan sartu, eta **mamur** ezazu, guztiz xehatu arte, gazitasuna oso ona baita goragaleari eusteko. **Anjel Lertxundi**  
Gutxienez, oloa zen, ez lasto hutsa, eta berak gustura **mamurtzen** zuen. **Jose Morales**

## 2 irud/hed

Bestetik, hitzak banan-bana **mamurtuz** eta elkarri etenik edo pausaldirik gabe hitz egiten zuen. **Edorta Jimenez**  
Esan behar zituen berbak lehenik eta behin berak **mamurtu**, eta gero, bigundurik, errazago mamitzeko eta ahaleginik egin behar barik irensteko, halaxe itzuli nahi zizkidala begitandu zitzaidan; txorikumeari jaten ahora ematen dion amak legez. **Edorta Jimenez**

## 3 hausnartu.

Zalantzan egon nintzen apur baten, zer komeni ote zitzaidan **mamurtuz**. **Jon Arretxe**  
Jakin berri nituenak **mamurtu** ezinik nengoen ni. **Anjel Lertxundi**  
Barruan genituen amorrazioa eta abaildura nork bere modura **mamurtuz**. **Anjel Lertxundi**

## mamut *iz* Laugarren Aroko elefante fosila, oso handia (*Elephas primigenius*).

Duela 18.000 urte bizi izan zen **mamut** baten arrastoak aurkitu dituzte Siberian. **Jon Alonso**  
**Mamuta** ez zegoen fosilizatuta, eta, horri esker, haren ehun bigunak ere aztertu ahal izango dituzte. **Berria - Gaiak**  
Egun osoa **mamut** eta errinozero iletsuen atzetik. **Pako Aristi**  
Zientziak, unibertsoa deitzen dugun **mamut** horren behatz-hezurtxo baten deskribapena ematen digu; filosofiak **mamut** hori nolakoa izan daitekeen arrazoizko hipotesi bat nahi digu eman. **Josu Zabaleta**  
Edo **mamut** hezur kolpe bat bilduko duzu... **Ramuntxo Etxeberri**

## mamuto *iz*

Puntualak izan ziren hiru **mamutoak** apirilak 30 zituen ostiral hartan. **Jon Arretxe**

## mamutu, mamu, mamutzen **da ad** mamu bihurtu.

Ospitalean **mamuturik** dagoen aita. **Berria - Kultura**

## mamutxa (*orobat mamutza*) *iz* zomorroa.

Ainarak ez direla bakarrik pollit, baliosak ere direla, zernahi **mamutxa** jaten dutela ez idurika. Émileren etxeak bi ate bazituen, bat euli, eltxo eta **mamutxa** guziei sartzearen debekatzeko, bahearen iduriko burdin xehezko sarek egina eta bigarren bat zurezkoa. **Herria**  
Ez zen eneatu ere, segur baita denbora pasa, orori so egon zela lurreko **mamutza** ttipi, ardi, ahuntz, pottoka, bele, buzoka... **Michel Oronoz**  
Jakin behar da, gisua aipatzen dugunaz geroz, lurreko **mamutzak** kasatzen dituela eta, oroz gainetik, belarrari eta beste bazka guziera gustu ona emaiten diela. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Eta hala zaudete, haitzen gibelean kukuturik, eta eulien eta **mamutxen** haizatzeke ez bada, arras geldirik eguzkipean. **Xabier Montoia**  
Etxetako zureriak funditzen dituen termita deitu har edo **mamutzaren** inguruan. **Herria**  
Basamortuak beren landare eta **mamutzekin**. **Herria**

## mamutxar ik **mamutzar**.

## mamutxarro ik **mamutzar**.

mamutza ik **mamutxa**.

## **mamutzar** (orobat *mamutxar g.er.* eta *mamutxarro g.er.*) iz adkor mamua.

-Zein-eta **mamutzarrak** diren -esan zion Don Kijotek- ez dute lanik izango zu ukitzen. Begiak hegan joan zitzaizkidan, ibaiko uretatik armadako ontzietara, eta ontzietako brankako **mamutzarren** irudietan galdu. **Patxi Ezkiaga**

Corellan ostera, Juanberinga deitzen diote lastozko **mamutxar** folkloriko bati, eta hedaduraz, baita belezomorro edo kokojende zarpail orori ere. **Patziku Perurena**  
Otsailaren 7tik harat, Lantzeko ihauteriak, bai-eta Altsasu eta Unanukoak, beren **mamutxarro** beldurgarriekin. **Herria**

## **mana 1** iz Jainkoak israeldarrei basamortuan igorri omen zien janari miragarria.

Berrogei urtez jan zuten **mana** israeldarrek, jendedun lurraldeetara, Kanaango lurmugetara, iritsi arte alegia. **Elizen arteko biblia**

**Mana** isuri zien janari, zeruko garia eman. **Elizen arteko biblia**

**Mana** eta galeperrak. **Jose Antonio Mujika**

Lurraldeko fruituak jan zituzten egunetik aurrera bukatu egin zen **mana**. **Elizen arteko biblia**

### 2 irud/hed

Artirinez egindako ogi handi eta borobil batzuk botako zizkiola sabaitik, eta **mana** hartaz gain zezina edo urdaiazpikoa ere ekarriko ziola. **Bernardo Atxaga**

Latino Amerikako herrialde gehienek, Asiako herrialde batzuek [...] eta Afrikako zenbait herrialdek, petrolio-ekoizleek bereziki, baliat u ahal izan zuten finantzazko **mana** hori, onerako eta txarrerako. **Koro Navarro**

1970eko hamarraldiko petrodolarren zeruko **manak** eta petrodolarrek nazioarteko banku-sisteman birziklatzeak [...] bidea eman zieten garapen-bideko herrialde askori industria-ekoizpeneko unitateak, burututa eta bertan jarrita, erosteko. **Koro Navarro**

## mañadera ik **manjatera**.

## **manaerraz** izond esanekoa.

Aldi horretan, neskaren ahizpa **manaerrazek** aitaren aberastasunaz gozatu ahal izan zuten arduragabeturik. **Jon Arretxe**

Txori kaiolatuak eta katu fereka zaleak dituzte gogoko zaharrek, eta txakur **manaerrazak**, eta arrainak. **Imanol Zurutuza**

## **managaitz 1** izond esanekoa ez dena, desobedientea.

Bihurria haur bat izan liteke; hezigaitza eta **managaitza** kontzeptu negatiboak dira; mutiriak lotsagabezia adierazten du; errebeldea, aldiz, sistema baten kontrako jarrera aktiboa duena da, haren aurrean errebelatzen dena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bere borondate gor eta **managaitzean**. **Eduardo Matauko**

### 2 (adizlagun gisa)

Nire barrenak, bizi-seinaleak eginez, protestaka eta **managaitz** hasi baitziren, nire arreta osoa eta batez ere indar guztiak erabili behar izan nituen eman berri nuen hitza inolaz ere ez gezurtatzeko ahaleginean. **Urtzi Urrutikoetxea**

## **management** iz enpresak zuzentzeko eta kudeatzeko teknika.

Hirugarren argudioak, berriz, enpresaren barne dimentsioarekin du zerikusia; enpresaren **management** edo zuzendaritza sistemarekin, hain zuzen ere. **Iñaki Heras**

Espainiako Estatuko banaketaren ardura bere gain hartu zuten, eta **management** -a ere bai. **Berria - Harian**

Enpresaren **managementaren** teoriaran erroto da azken urteetan enpresaren erantzukizun soziala areagotu beharra, bai guru eta sofista berri handien obran, eta baita egungo **managementak** gurtzen dituen eredu ospetsuetan. **Iñaki Heras**

Euskal Herriko disketeek alde batetik, eta **management** enpresek bestetik, indarrak batu berri dituzte musika esparruaren interesak hobeto defenditzeko asmotan. **Berria - Kultura**

## **manager 1** iz kirolari edo artista baten, edo kirolari edo artista talde baten, diru eta profesio alderdiak kudeatzen dituen pertsona.

Manolo Saiz, Liberty Taldeko **manager** eta zuzendaria. **Berria - Kirola**

Orduan konprenitu nuen **manager** amerikano bat zer izan zitekeen boxeolari beltz batekiko: nekez gizon onest bat, inoiz ez laguna... **Pablo Sastre**

Bere **managerra** gizon diruzalea da, mila dolarreko saria irabazi nahi duena munduko errekorra hausteagatik. **Fernando Rey**

Euskalteleko **managerrari** taldeko oilarra oldartu egin zaio, baina Madariaga ez dago txirindulariak oilartuta ikusteko prest. **Berria - Kirola**

Diru publikoaren erabileran erakundeen eta idazleen arteko bitartekari bihurtu da, ia-ia **manager**. **Berria - Harian**

### 2 enpresetan eta, kudeatzailea.

Nik baneukan txartelik non Stoneham Rancheko **manager** bezala azaltzen nintzen. **Bernardo Atxaga**

### 3 (hitz elkartuetan)

Komisiorik gabeko **manager** lana egitea suertatu ziizaion aldi hartan. **Iñigo Aranbarri**

**Manager** profesionala nauk. Hanna **manager** -lanetan. **Unai Iturriaga**

Baga-Bigak talde batzuen **manager** lana egiten zuen, baina euskal musikak bizi duen egoera ikusita [...] gure taldeei diskoak kaleratzeko aukera eman behar geniola iruditu zitzaigun. **Berria - Kultura**

Bouisset kendu egin dute **manager** postutik. **Berria - Kirola**

Toronton hasi zen, **manager** jardunean. **Berria - Kirola**

Walter Goodefrot T-mobileko **manager** -zuzendaria bezperatik zegoen isilik. **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**manager** lana (4)

**migel madariaga managerra** (4)

# managertza iz managerraren jarduerara.

Trullik Renault uztearekin batera, Briatoreren **managertza** ere utzi du, eta horrek eragina du, seguru. **Berria - Kirola**

manaiatu ik **manaiatu**<sup>1</sup>.

manaiukor ik **manaiukor**.

manakor ik **manukor**.

manakortu ik **manukortu**.

## manamendu (orobat *mandamendu* eta *mandamentu*) 1 iz agindua; bereziki, Jainkoaren edo elizaren agintea.

Hausnar itzazu Jaunaren aginduak, erabili gogoan beti haren **manamenduak**. **Elizen arteko biblia**  
Kristauen Jainkoaren laugarren **manamendua** aipatu zion esaten ari zenaren frogagarri. **Josu Zabaleta**  
Dekalogoko bosgarren **manamenduaz**. **Piarres Xarriton**  
Errak zazpigarren **manamendua**. **Edorta Jimenez**  
Hebrearren *Ez duzu hilen* **manamenduaren** erakaspenez. **Itxaro Borda**  
Igandetan ez baitzen haizu lanean aritzea, Elizako **manamenduek** debekaturik, ez zen belarrik pikatzen egun horretan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Malama sufismoaren **manamenduetako** bat da. **Jon Alonso**  
Beharrik hor dira legeak edo **manamenduak**, erraiten ginuen lehen. **Heria**  
Eta artetan, paradoxalki eta aldiz, **manamenduzko** eskakizuna egiten digute zenbaitek, beren exigentzia gure aurrean ezarritik, honelaxe formulatzen duguna guk: [...].  
**Piarres Aintziart**

### 2 ipar agintea.

Amerikanoek Amerikaren **manamendu** pean nahi lituzkete ONUko tropa hek baina ohore osoa ez utzi nahi heieri Frantzia eta beste batzuek, ez baitzuten ONU koek nahi ukan gerla hori baina Amerikarrek berek. **Heria**

### 3 (pilotan)

Baigorriarrak, beren aldeko gazte ta zahar mundu batek akulaturik, **manamenduan** jarri dira, pilota indar gaitzean zirurikatuz Kurutcharryk, taulaz ala indarrean, gainez edo eskuin apal Etxeherriy: 7-2, 14-8, 18-13 eta 28-22. Hartuko ere du orduan **manamendua** biriatuarrak eta gaina ere bai, 39-35. **Heria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hamar manamenduak** (3); **jainkoaren manamenduak** (3)

## mañariar *izlag/iz* Mañariko, Mañariari dagokiona; Mañariko biztanlea.

**Mañariarra** zen, Urkiolapekoa. **Koldo Izagirre**

Bi harrobi handi dituzte **mañariarrek** herri ondoan, Eskuagatz mendi mazelan. **Heria**

## manatari iz agintaria.

Euskal Herriaren ukapena errepikatu du, orain arte hemendik pasa diren **manatari** guziek bezala. **Berria - Euskal Herria**

## manatu, mana, manatzen 1 du *ad* agindu.

Hala egiteko utzi omen zuen **manaturik**, oraino bizi zela, bere testamentuan. **Aingeru Epaltza**  
Atea irekirik uzteko **manatu** zuen. **Eneko Bidegain**  
Donibaneko gatzeluan bidaiariaren bidea ez trabatzeko **manatua** omen zuten. **Aingeru Epaltza**  
Jaureneak haurra emaginari utzi omen zion, eliza atarian pausa zezan **manatuz** ... **Elena Touyarou**  
Alkateari hertsiki **manatzen** dio herrian zehar diren arma guziak ekar ditzan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Franco-k **manatu** zuen kazetelari guziak hil zitzaizten, ez baitzuen nahi egia jakin zedin, nola bonbardakatu zuten Gernika. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Kubilai Khan Handiak Kogatra etor zedila **manatu** zuen. **Aurelia Arkotxa**  
Afera hortaz arduratzen den jujeak noiz nahi **manatzen** ahal du José Bové-ren preso altxatzea. **Heria**  
Hori guztia, bertzerik **manatzen** ez zioten bitartean, jakina. **Aingeru Epaltza**  
Hortarako bideak hartu ditugu, zuhurtziak **manaturik**, 1943-ko 9 edo 10 hilabete horietan. **Marzel Etxehandi**  
Euskal herrietako noble erreformazaleek galdatuta eta erregina Joanak **manatuta** ari omen dituk lanean. **Aingeru Epaltza**  
Egizue zuen andre Joanak **manatua** eta lotu ahoak! **Aingeru Epaltza**  
-Mañot, arta ezak zaldia - **manatu** zion etxe-mutilari. **Aingeru Epaltza**  
Aspaldiko ohidurak ere ez duela besterik **manatzen**. **Heria**  
Jendetasunak berak ez ote du hori **manatzen**? **Heria**  
-Horiei ene bistatik desagertzeko **mana** iezaiezu -agindu zion. **Elena Touyarou**  
Kariak ez du **manatzen**, baina hor dago jendea karietan hordagoa botatuz. **Heria**  
Boterea **manatzeko** egina da. **Piarres Aintziart**  
Diruak **manatzen**, dirua errege. **Heria**

### 2 eskatu, agindu.

Edariak **manatu** ondoren, Mikel eta Ninak beren azken aholkuak eman zizkieten Amatrixi. **Ramuntxo Etxeberri**

Maiek, kontuarrean zutik, zerbitzariari bi whisky **manatu** zizkion. **Itxaro Borda**

Ekainaren 15-az geroz arizan da Piarres [...] harri gotor baten zizelkatzen, kultur zentroak **manaturikako** obra baten egiteko. **Heria**

-Zuk **manatu** lana egina dut. **Janbattitt Dirassar**

Horretarako BAM-ek ikerketa bat **manatu** berria du. **Herria**

Lan berezi bat **manatzen** diote: Marokako mintzairak eta geografia ikertzea. **Herria**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Hala ere, txintik atera gabe bete zuen **manatua**. **Karlos Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egiteko manatu** (3); **ikerketa bat manatu** (5); **isiltzeko manatu** (3); **manatu bezala** (8)

**manatuaren arabera** (4)

**hala manaturik** (4)

**aintzinetik manatzen** (3); **izenak berak manatzen** (3); **legeak manatzen** (8); **manatzen duen bezala** (13); **usaiak manatzen duen** (3)

## manatzaile *izond/iz* manatzen duena, agintzailea.

Emakume baten ahotsa da, azkarra, **manatzailea**. **Aingeru Epaltza**

Nor izan zen **manatzailea**? egile nagusia, Pariseko poliza-prefeta. **Herria**

Ben Laden zela ikaragarrikeriaren **manatzailea**. **Herria**

Alabainan Julie Lescaut izan da lehen aldikotz telefilmekin emazte batek komisario kargua ukan duena, erran nahi baita **manatzaile** zela eta bere menpean zituela gizonak. **Herria**

Dirua nagusi, dirua **manatzaile**. **Herria**

## manatze *iz* eskaera.

Euskal-Herriko parropietako koraleen elizkizunaren kazeta eskuratu nahi baduzue, bildu zuen koraletan **manatze** guziak eta igor txekez 60 libera kazeta bakotx zuen galdera helbide huntara: [...]. **Herria**

manbo ik **mambo**.

manda ik **banda**.

## mandabide *iz* mandoentzako bidea.

Haranzkoan herri hartako mutil bat aurkitu zuten, Etxarri-Aranatzera zihoana, eta harekin batera Aralarko mendiak inguratzen zituen **mandabide** bat hartu zuten. **Koro**  
**Navarro**

mandaeuli ik **mandeuli**.

mandagurdi ik **mando**<sup>1</sup> 7.

mandako ik **mandoko**.

## mandamas *izond*

Beste biak, txolarre **mandamasak**, azpian kapataz. **Pello Zabala**

mandamendu ik **manamendu**.

mandamentu ik **manamendu**.

## mandamutil *iz* mando mutila.

Maioralak, postamutilak eta **mandamutilak** mandoen atzetik ekin diote, biraoka eta gurdia utzita. Tolosatik Iruñerainoko bidean **mandamutil** nafar baten lasterka ikusi ez duenak ez daki ongi zer den harako euskaldun batek bezala lasterka egitea. **Koldo Izagirre**

## mandar *iz* mantala.

**Mandar** brodatuak eta kanpai-formako gonak. **Fernando Rey**

Emakumeek zetazko **mandar** brodatuak zeramatzen. **Fernando Rey**

Eta sotoan Otto izanen nuen zain, laneko bere **mandar** odoldua soinean, harakin labana zabal itsugarria eskuan. **Alberto Ladron Arana**

Atzapar itzelak **mandar** zurian garbitzen ari zen. **Alberto Ladron Arana**

## mandarin 1 *iz* antzinako txinatar inperioko goi funtzionarioa.

Txinako enperadoreek eta **mandarinak**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**



Nahikoa zaiola hari arunt bat bere etxean moztea Txina urrutian bizi den **Mandarin** baten heriotza gertarazteko. **Bernardo Atxaga**  
Frankoen ikuspegitik, bizantziarrak **mandarinak** ziren, haien gurari barregarriak ez zeudelarik ez merituz justifikatuak, ez indarrez babestuak. **Iñaki Mendiguren**

## 2 txineraren dialekto nagusia.

Daniel Txinara bidaltzea erabaki zuen bere amak, hamar urterekin **mandarin** txinera ahazten ari zitzaielako. **Pako Aristi**

Tarantinok **mandarin** txineraz filmatuko du bere hurrengo filma. **Berria - Kultura**

Txinatarren **mandarin** hizkuntza da mintzatuena. **Herria**

Txinako **"mandarin"** hizkuntzari lehentasuna emaiten eta [Taiwaneko] uharteko bereko hizkuntza bazterten zuen hizkuntz politikak. **Piarres Xarriton**

**"Mandarin"** eta "kantoniari" hizkuntzen melodia likidoak bere baitan isuri ziren. **Ramuntxo Etxeberri**

Jau'n merak eginarazia zuen Lauburu kurutze bat, idazki hunekin "Ezpelatarren Omenaldia 2000-ko azaroan" hiru itzulpenekin **mandarinez**, frantsesez eta ingelesez, **Herria**

## mandarina 1 iz

**Mandarina** zuritu eta zati bitan banatu zuen; atal batzuk alde batera, besteak bestera. **Unai Elorriaga**

**Mandarinaren** azala beheko markoan geratu zen zintzilik. **Unai Elorriaga**

Arbolatik hartutako **mandarina** bat. **Joxerra Garzia**

Amonak platanoa edo **mandarina** ateratzen du mantal azpitik. **Arantxa Iturbe**

Lau **mandarinarekin** zukua egin, ezti apur bat bota eta ura gehitzen diot. **Jokin Urain**

## 2 (hitz elkartuetan)

Tantaka hasi zen **mandarina** -atala. **Unai Elorriaga**

**Mandarina** usaina neukan atzamarretan. **Unai Elorriaga**

## 3 mandarina arbola.

Ahal balu, esku baten notak bakarrik ez, hatz bakar baten doinua ere erauziko luke melodiatik, **mandarina** bati aleak erauzten zaizkion bezala. **Alberto Barandiaren**

## mandatari (orobat *mandatario*) 1 iz mandatu bat daraman pertsona. ik *mezulari*.

Banketxe bateko **mandatari** bati den-dena ebatsi diote Wall Streeten, puntako orduan. **Lopez de Arana**

Kutxako **mandatari** bat dirutza handi samar batekin zihola-eta hari bidean laguntzeko agindu zioten. **Anton Garikano**

**Mandatari** gazte bati propina ematen diote eta badoa bere vespan, arin, eta arinago hasten da Letizia paketetxo askatzen bere gelarako bidean. **Xabier Mendiguren**  
Elizegi

-Jauna, tsarraren **mandatari** bat! **Karlos Zabala**

Juduen **mandatari** diren Numenio, Antiokoren semea, eta Antipatro, Jasonen semea, etorri zaizkigu, gurekin duzuen hitzarmena berritzera. **Elizen arteko biblia**

Horregatik eman zizkion agindu zorrotz-zorrotzak **mandatari** gazteari, inbadituriko lurraldean barrena inork ere ezagutu gabe igarotzeko. **Karlos Zabala**

Edo ez, hobe **mandatari** bat bidaltzen badiot. **Juan Garzia**

Handik egun gutxira Hayderango tribuko beyaren **mandatari** bat ailegatu zen. **Fernando Rey**

Mikel Strogoff tsarraren **mandatarien** gorpuzt bereziko kidea zen, eta ofizial maila zeukan gizon hautatu horien artean. **Karlos Zabala**

Girolamo Cardanok **mandatari** gisa hartu zuen, eta matematikari handi bihurtu zen! **Jon Muñoz**

Gure herriari egoki iruditu zaio **mandatari** hauek ohorez hartzea eta horien mezua hiriko agiriaren artean sartzea. **Elizen arteko biblia**

-Moskuitik **mandatari** bat irten omen duk Irkutskera joateko! **Karlos Zabala**

Ezkon zedin **mandatari** bitartez gure Errege Feliperekin. **Piarres Xarriton**

De Lancreren **mandatarien** beldur, orenak egiten zituen Sarako elizako kanpandorretik barrandan. **Aingeru Epaltza**

Kondearen kontra erregeren **mandatariaren** -alegia, *missus dominicus* delakoaren- aurrean apelatzen zela, ez du funtsik. **Iñaki Iñurrieta**

Irudipena izan nuen, tximista bezala, gizon hura infernuaren **mandataria** zela. **Matías Múgica**

Sugea ikusi bezain sarri, Herioren **mandataritzat** -edo zuena, eten zitzaion irria. **Joan Mari Irigoien**

Kondearen kontra erregeren **mandatariaren** -alegia, *missus dominicus* delakoaren- aurrean apelatzen zela, ez du funtsik. **Iñaki Iñurrieta**

## 2 (ordezkaria)

Lehendabiziko lan bilera hori Kosovorentzako Nazio Batuen Erakundeko Misioaren (UNMIK) egoitzan egin zen, Joly Dixon Europako Batzordeak izendatutako **mandatari** bereziaren bitartekaritzapean. **Berria - Mundua**

[...] adierazi zuen Richard Holbrookek, Ameriketako Estatu Batuek Balkanetako herrialdeetara bidali zuten **mandatari** bereziak. **Berria - Harian**

**Mandatari** hauek Frantziako musulmanen joera ezberdinak ordezkatzeko dituzte, baina hiruak CFCMko kide dira. **Berria - Mundua**

Giza eskubideen azuia aztertzeko Irakera Londresek bidalitako **mandatari** berezi Ann Clwyd. **Berria - Mundua**

Komertio auzitegiak **mandatario** berezi bat izendatua du SAFAM lantegiaren egoera aztertzeko. **Herria**

## 3 zerbaiten berri ematen duen zera.

Zuk badakizu zer den heriotza, behin baino gehiagotan izan zarelako lekuko eta **mandatari**. **Sonia Gonzalez**

Oso **mandatari** zehatzak direla mugimendu horiek, han barrengo bihotzondoan dabilenaren berriak ekartzeko. **Patxi Ezkiaga**

Izotz zuria, eurien **mandataria**. **Pello Zabala**

## 4 agintaria.

1996 eta 2000. urteen bitartean agintean egon zen **mandataria**, beraz, agintera itzuliko da lau urteren buruan. **Berria - Mundua**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizagaioari inork ez zion jaramonik egiten, ez onerako ez txarrerako, Auxilio Social-en **mandatari** lana hartu zuelako. **Ramon Saizarbitoria**

Barbarossaren ustez, bere **mandatari** jantzi zaharrak jantzeko eskubidea baino ez genuen. **Pello Lizarralde**

**Mandatari** faltak eta bideetako arrisku begi-bistakoek eragotzi didate zuri idaztea. **Askoren artean**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erebok nai lituzke **hileta**-mandatari, beren harrotasuna morrontzan makurtzeko gai balira. **Josu Zabaleta**

Zoritxar-**mandatari** taldea. **Elizen arteko biblia**

## 7 goi mandatari

Trajano enperadoreak eta haren **goi**-mandatari zen Pliniok. **Iñaki Mendiguren**

## 8 isil-mandatari ik isilmandatari.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mandatari bat bidali** (4); **mandatari berezi** (5); **tsarraren mandatari** (10); **tsarraren mandatari bat** (6)

**mandataria bidali** (4); **tsarraren mandataria** (21)

**bidalitako mandatariak** (3); **daviden mandatariak** (5); **mandatariak bidali** (22); **mandatariak bidali zituen** (8); **mandatariak bidaltzen** (3); **mandatariak hartu** (3);

**mandatariak igorri** (10); **mandatariak igorri zizkion** (4); **tsarraren mandatariak** (10)  
**tsarraren mandatariaren** (4)  
**erregearen mandatariak** (3)

## mandatarigo iz mandataritza.

Erabakia hartu zen Mikel Strogoff Errusiako enperadorearen zerbitzuan jarriko zela hogeit hamar urte betetzean, tsarraren **mandatarigoan**. **Karlos Zabala**  
Ivan Ogareffek ongi baitzekien Marfa Strogoff Mikel Strogoffen ama zela eta Mikel Strogoff tsarraren **mandatarigoaren** kapitaina. **Karlos Zabala**

## mandatario ik mandatari.

## mandataritza iz mandatiaren lanbidea edo egitekoa. ik mandatarigo.

Berenaz apezpikuen auziak aita sainduari zuzenean doazkion auzi nagusiak dira, baina Espainiako Inkisizioak erdietsi zuen Aita Sainduaren **mandataritza** Carranzaren preso hartzeko eta auzitan ezartzeko. **Piarres Xarriton**  
Han gorde zen Don Kijote, harik-eta Santxo, Dulzinearekin hitz egin ondoren kaletik etorri arte; eta, fede arreta pixka bat merezi dute noski **mandataritza** horretan gertatu zitzaizkionak. **Patxi Ezkiaga**  
Halaber aingeruek eta Andre Mariak dagitena, esate baterako, aingeruak bere **mandataritza** bete eta Andre Mariak umildu eta Jainko handiari eskerrak eman. **Patxi Altuna**

## mandatu 1 iz norbaiti igortzen zaion idazkia edo gauza. ik mezu.

Orduan, **mandatu** hau bidali zion Davidek Joabi: - bidaliezadazu Urias hitia. **Elizen arteko biblia**  
**Mandatu** hau bidali zion Moisesi: "Neu, zure aitagarreba Jetro, nator zu ikustera, zeure emazte eta semeekin". **Elizen arteko biblia**  
Beraz, **mandatu** hau helarazi zioten: "Gure aitak hil aurretik agindu digu, [...]". **Elizen arteko biblia**  
Honatx **mandatua**; irakur ezak patxada osoz. **Juan Garzia**

## 2 (norbaiti) agindu edo eskaturiko egitekoa.

**Mandatu** bat dakart haren partetik berorrenzat, hau: berorren bihotz handiak honenbeste mesede egin nahi balio, bere nahigabea agertzera berorregana etortzeko baimena eskatzen dio. **Patxi Ezkiaga**  
Mezulariak bidali zituen **mandatu** honekin: "zoazte eta galdetu Ekrongo jainko Baal-Zebubi ea onik aterako naizen zauri hauetatik". **Elizen arteko biblia**  
Ondoren, **mandatu** hau bidali zion erregeak emakumeari: bidalitzala gortera beragandik jaiotako guztiak, han hazi zitezten. **Askoren artean**  
Joan daitezela, bada, pozik, eta gogo biziz bete dezatela jaso duten **mandatua**. **Askoren artean**  
Biltzar nagusiaren **mandatu** argi bat genuen. **Berria - Euskal Herria**  
Guztiok aho batez hotsandiro egin genion **mandatu** lau emakumeok bila zitzan. **Juan Garzia**  
Joanes Leizarragak 1564an Pauen bilduriko Sinodo Kalbindarraren **mandatua** hartu zuen eta Arroxelan 1571n hiru liburuki kaleratu zituen. **Askoren artean**  
Artisau bati santa Klararen iduria egiteko **mandatua** emaiten ziotela...? **Joan Mari Irigoien**  
- **Mandatu** batzuk egin behar dituela eta irten omen da. **Joxemari Urteaga**  
- **Mandatu** txiki batekin natorkizu. **Joxemari Urteaga**  
Atzerritar dotore hark egunkaria erosi baino **mandatu** zirrarragarriagorik eginen ziola espero zuen. **Alberto Ladron Arana**  
Gizonak **mandatua** beteko zuela agindu zidan. **Fernando Rey**  
Hura **mandatu** zikina, adiskideak! **Matías Múgica**  
**Mandatu** batengatik jasotako zentabo bateko eskupekoa sakelarutzen ari zela. **Anton Garikano**  
Doktoreak isileko **mandatu** misterioitsuak eginarazten baitzizkion. **Jose Morales**  
Ezinbesteko **mandatu** bat egitera joan behar zuela-eta. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Suhiltzaileok gure gain hartzen dugu bizitzak salbatzeko **mandatua**, eta lan horretan arriskuan jartzen dugu geurea. **Berria - Ekonomia**  
-Pakete bat ekartzeko **mandatua** daukat. **Josu Landa**  
Elkarkidetzako presidente Jon Zabaliak gogoz hartu du **mandatu** berria. **Berria - Ekonomia**  
Ilearentzako apaingarriak eta orraziak egiten zituen enpresa bat zen hura, baina nire eginkizuna hara eta hona ibiltzea zen, **mandatuetan**. **Jon Maia**  
Hemen obedientzia hitzak **mandatua** (misioa) adierazten du. **Askoren artean**

## 3 agindu edo eskaturiko gauzakia.

Orduz geroztik, umeak **mandatu** bat eramaten zion egunero. **Karlos Zabala**  
Goma arabiarra baizik ez da, lagunen **mandatu** bat. **Aingeru Epaltza**  
-Gizon batek deitu eta **mandatu** bat utzi berri dit zuretako. **Aingeru Epaltza**

## 4 p/etxeko erosketak.

Amak, orduan, **mandatuak** egitera bidaltzen ninduen, eta gustura joaten nintzen ni, mertzeriara izan ezik. **Juan Kruz Igerabide**  
Herriko enparantzara iritsi nintzen orduan, pozik ia, eta lehen polizia ikusi nuen, kaleko jantziekin, **mandatuak** egitera zihozten atsoen erdian. **Lander Garro**  
Ohandoko andreak eta Katalinak askotan egiten zizkieten **mandatuak**, eta Frantziatik oihalak, farfailak eta batzuetan bitxiak ekartzeko eskatzen zioten. **Koro Navarro**  
Zamaketa bat aukeratu zuen, Ménilmontanteko mutil bat, haren izebaren **mandatuak** egiten zituena. **Karlos Zabala**  
Nahiago berak egin **mandatuak**, zioenez, horrela gutxiago lapurtuko zioten. **Karlos Zabala**  
Errekardaria izan behar zuen, **mandatuakaz**. **Koldo Izagirre**

## 5 agintaldia.

Errusian Vladimir Putin ez bide da hirugarren **mandatu** baten ondotik abiatuko 2008ko bozetan. **Herria**

## 6 (hitz elkartuetan)

Azken mailako langilea zen, **mandatu**-gizon gisa jarria, baina benetan gaueko guardia aritzen zen lantokian. **Pello Lizarralde**  
**Mandatu**-mutila nintzen udako hoteletan. **Lopez de Arana**  
Agian, gazte euskalduna mezulari bat besterik ez zen izanen: Frantziako edo Britainia Handiko isilpeko zerbitzuei mezuren bat eramaten zien **mandatu**-mutil ziztrin bat besterik ez. **Alberto Ladron Arana**  
Kontsolatu dugu, eta esan diogu, aldiari behin astirik ez duela esango balu, berehalaxe bukatuko lirakekeela **mandatu** zerrendak. **Josu Zabaleta**

## 7 (hitz elkartuetan)

Ausardiaren Domina Golkoko Lehen Gerran [...], Bihotz Purpura Afganistanen, 27 borroka-**mandatu** 12 urtetan... **Fernando Morillo**  
Txinako erregimenek, Tsin erregimenetik Kuomintang-eraino, torlojuari bira bat gehiegi ematen ausartu zirenek, behin eta berriro ordaindu zuten gehiegieria arin hori gobernu-**mandatua** galduz; eta errusiar historian gauza bera gertatu zen. **Iñaki Mendiguren**

## 8 bide batez bi mandatu egin

Puntarossako erretorea hil da eta zuk bide batez bi **mandatu** egingo zenituzke: hango eliza berriro ondo antolatuta eta osasuntsu jarri. Ez zen bete behar txarrik izango, ez horixe, bide batez bi **mandatu** egingo baitzuten. **Koldo Biguri**

## 9 ezkontzeko mandatu egin

Ama gorteatzeari ekin zion aurrena, eta, berarekin maitasunezko harreman ezkontzako **mandatu** egin zion, baina amak [...] ezezko biribila eman zion, eta horregatik erabaki zuen Txixtikovek neska bahitzea. baina ezin nagoken aditzera eman gabe, ezkontzeko **mandatu** egin zinanez geroztik Fidelek argi eta garbi aldatu duela bere iritzia. **Jose Morales**

Adelinek ez zituen onartu mutilak egin zizkion ezkontzeko **mandatuak**, bera Geinen amaren mailara iritsiko ez zela beldur zelako. **Gotzon Garate**

Orain, izeba Augusta ondok kentzen badiat hamar minutuz, hik Gwendoleni ezkon **mandatua** egiteko aukera izan dezaan, gaur gauean hirekin Willis's-en afaltzerik izango al dut? **Antton Olano**

## 10 mandatu mutil

**Mandatu-mutila** nintzen udako hoteletan. **Lopez de Arana**

Hoteletako **mandatu-mutilei** eskupekorik ez emateagatik. **Aingeru Epaltza**

**Mandatu-mutilak** gosariarekin batera ekarritako bi pilula zuriak irentsi zituen, ur zurrut luze batez lagundurik. **Alberto Ladron Arana**

**Mandatu-mutilak** atean jotzeaz batera, hotzikara batek zeharkatu zuen Rosieren soina. **Lopez de Arana**

Trocaderon denek ezagutzen zuten Smithers andrea: **mandatu-mutilak**, atezainak, jantzitegiko neskak, mañtreakøøø, jende guztiak. **Fernando Rey**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mandatu bat egitera** (5); **mandatu batzuk egitera** (3); **mandatu egin** (3); **mandatu hau bidali** (11); **mandatu mutil** (4); **mandatu mutila** (5); **mandatu mutilak** (3); **egiteko mandatua** (4); **mandatua bete** (3); **mandatua bidali** (5); **mandatua eman** (8); **mandatuak egiten** (10); **mandatuak egitera** (7)

## mandatuketa *adlag* mandatu bila.

Orai arte karrikan bakarrik bizi ziren jendeak joaiten ziren oinez **mandatuketa**. **Herria**

## mandatutxo *iz adkor* mandatua.

-Nahiz eta herrira joan aurretik **mandatutxo** bat egin behar didaten. **Joxemari Urteaga**

## mandauli ik mandeuli.

## mandazai ik mandazain.

## mandazain (*orobat mandazai g.er. eta mandozain g.er.*) 1 iz herriz herri mandoak eramatea lanbidetzat duena.

Astazainak, **mandazainak**, edo behialako zaldunak. **Patziku Perurena**

Bospasei olio-upel hartzen zituen mandagurdi bakoitzak, eta, kargatu ahala, **mandazainak**, zigorra airean astindurik, tokia uzten zion ondoren zetorren mandagurdi hutsari. **Anjel Lertxundi**

**Mandazainak**, eguzkiak erroerik, aurpegiak izerditan distiraz zituztela, kantari joaten ziren, olio edo ardo-zahagian gainean etzanda, eta mandoak ilaran joaten ziren, erdi lotan. **Josu Zabaleta**

Romagarna zihoazen **mandazain** batzuk jaiki egin ziren, eguzkia irten zelakoan, atondu eta kargatu zituzten zamariak, eta bidez zihoazelarik. **Askoren artean**

**Mandazaina** zen, baina baita, noizean behin bederen, bidelapurra ere. **Mandazain** batek, ordea, erretiratu egiten ditu, bere mandoak edan zezaten. **Martin Anso**

Burdin harria karreatzeko **mandozain** bakoitzak hiru mando ibiltzen zituen malda horri gora, gero Orbaizetako olara jausteko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ikusi zuten **mandazainek** beren behorrei egiten zitzaien indar-jokoa eta makilak hartuta joan ziren eta makilaka eraso zioten. **Patxi Ezkiaga**

## 2 (hitz elkartuetan)

Parador de la Cruz deitzen zen **mandazain** -ostatu batetik gertu. **Josu Zabaleta**

## mandazkada *iz* itsasontzi baten zabua.

Hartan ontziak **mandazkada** bat jo zuen, ura barrura gero eta jario lodiagoan ekartzen zuelako, antza. **Edorta Jimenez**

Biok elkarri besoa emanez eta elkarren lepoan zapalduz, hala egin genuen gora elkarri eutsiz, egundokoak baitziren haizeak karrakari eragiten zizkion **mandazkadak**. **Edorta Jimenez**

## mandeuli (*orobat mandaeuli g.er.*) 1 iz euliaren antzeko intsektua, aho xurgatzailearen orde eztena duena, euli-mandoa (*Hippobosca equina*).

Euliak, **mandeuliak** eta bertze intsektu guztiak. **Joan Mari Irigoien**

Eitxo, **mandeuli** eta ezporen kontra. **Karlos Zabala**

Ez da **mandeulia** inon pausatu. **Unai Elorriaga**

Mikroak **mandaeuliaren** hegal-hotsaren antzekoa hedarazten du. **Edorta Jimenez**

## 2 (erkaketetan)

Llorente **mandeulia** baino astunagoa da, kontrarioa xaxatzen du etengabe, defentsei baloia lasai ateratzeko aukerarik eman gabe. **Berria - Kirola**

## 3 irud/hed

Han ziren gorteko kideak, baina baita mantenu errazera hurbildutako ezpara eta **mandeuli** arruntagoak ere. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Pelikulen argumentuak kontatzen dituzten **mandeuliak**. **Unai Elorriaga**

Joanes **mandeulia** belarririk uxatu ahal izan nuen, azkenen ere. **Edorta Jimenez**

Neskaren bat lantzen ere ari zitekean, eta **mandeulirik** ez nahi inguruan. **Aingeru Epaltza**

-Zuen arriben inguruan **mandeuliren** bat sumatuz gero, etor niregana ziztuan salatzeraz! **Aingeru Epaltza**

## mandil *alproja*, frikuna.

Bere morroiei eta laborariei baldres, frikun, **mandil**, malmutz deitzen zien, Kixoteren gisako hitz horiek erabiltzeagatik besterik gabe. **Josu Zabaleta**

Arrunt **mandila** ez den jendea, iluneko etxerat! batzueri, hori etzaioten oraino aski: "ez iluneko etxerat, bainan lehentxago, Anjeluseko! bereziki neska gazteak!". **Herria**

## mandilteria *iz alprojakeria*.

Ostatuetan ez da beti **mandilkeria**, egiten ahal ere da filosofia. **Herria**

## mandio 1 *iz baserrietan, ukuilu gaineko gela zabal*.

Udakenean **mandio** eta ganbarak alez eta igaliz beteko. **Pello Zabala**

Urriak, hainbat baba-leka, hainbat artaburu beren txurikinez jantzita, **mandio** eta ganbara betetzeraino ekarri dituenen, [...]. **Pello Zabala**

Lan latza, gogorregia aukeran, igitaiaekin hasitakoak bide luzetxoak baitzuen garia edo garagarra askan edo **mandioan**, bere onean ikusi artekoan. **Pello Zabala**

Handik barrurago sarrarazi, eta, ukulutik barrena, **mandiorako** eskailerak seinalatu zizkigun. **Inazio Mujika Iraola**

Ukuilu eta ezkaratze, **mandio** eta ganbara, armiarma-sare franko bazen bazterretan garai batean. **Pello Zabala**

Oila-lokak beren lanean ziharduten **mandioko** bazterren batean, ilunxko zegoen txokoan. **Pello Zabala**

Ea gure **mandioan** lo egiteko modurik izango zuten. **Bernardo Atxaga**

Erromeria antolatzen zuten **mandio** eta arboldegi guztiak ezagutzen zituen Andoni Olabek. **Koldo Izagirre**

Baina oso maite nuen nik atzealdeko sorotik gora igotzen zen egurrezko **mandio**-zubia. **Txillardegia**

## 2 aletegia.

Eskuan du sardea garia garbitu eta alea bere **mandioan** jasotzeko. **Elizen arteko biblia**

**Mandioak** egin zituen, gari, ardo eta olio-uztak gordetzeko, bai eta ikuiluak ere era guztietako abereentzat, eta eskortak artaldeentzat. **Elizen arteko biblia**

Begira beleei: ez dute ereiten, ez uztairik biltzen; ez dute bihitegirik, ez **mandiorik**; hala ere, Jainkoak janaritzen ditu. **Elizen arteko biblia**

## 3 abereentzako etxola.

Hem, lepoko giharrak askatzeko ahalegina egin eta **mandiora** sartu da, bere azalari darion barberiako lurrin eta kloroformo usain loarazlea behi eta oiloen konpainia noblean uxatuko duelakoan. **Harkaitz Cano**

Astebete egon nintzen kanpaleku nagusian, hogei oheko oihal-dendan, medikurik finena bufalo **mandio** bateko albaitaria zen hartan, alta eman zidaten arte. **Harkaitz Cano**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mandio eta ganbara** (3); **mandio ganbarak** (3)

## mandioetaratu, mandioetara(tu), mandioetaratzen du *ad* mandioetara eraman. ik **mandioratu**.

Urriak, udazken girotan, soro-barrutietako uzta gehienbat bildu eta **mandioetaratu** ostean, beste meza bat, bi otoitz egoki eder dotoreak aukeran dituen ipini digu: uzta bildu ondoren ospatzekoa. **Pello Zabala**

## mandioka *iz manioka*.

Produzituko (produzitzen segituko) dira anakardoa, arabarba, babakoa, banbua, bergamota, feijoa, getozka, gonboa, guaiaba, karanbola, kardamomoa, kiwanoa, krosnea, kumkuata, lima, litxia, lotusa, **mandioka**, mangustana, [...], Txinako patata gozoa, txirimoia, zidra eta beste hamaikak ere Euskal Herriko klima desberdinetan. **Edorta Agirre**

Hemengo indigenek **mandiokaren** grasa gomendatzen dute erreumarentzat. **Joxean Agirre**

## mandioratu, mandiora(tu), mandioratzen du *ad* mandiora eraman. ik **mandioetaratu**.

Baserritarrak erein, zaindu, itxaron, garia bota eta bildu, aletu, **mandioratu** eta gainerako guztiak, eta, gero, bestek merke erosi eta garesti saldu. **Pello Zabala**

## mando 1 *iz astarraren eta behorraren edo zaldiaren eta astemearen umea*.

**Mando** hark ama zuela astoa, eta horregatik zituela astoaren belarriak, eta indarra, berriz, aitarena zuela, eta bizkor eta gogorragoak izaten zirela **mando** haiek, amaren aldetik astoak zirenak. **Pablo Sastre**

Badakit ere **mandoak** ez duela umerik egiten. **Herria**

Gamelu, asto eta **mando** ugari hartu zuen tresneria eramateko. **Elizen arteko biblia**

Burdin harria karreatzeko mandozain bakoitzak hiru **mando** ibiltzen zituen malda horri gora, gero Orbaizetako olara jausteko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Langile-jendea bildu zuen, eta, **mando** gainean, Carquerera abiatu zen. **Jon Alonso**

Nire **mando** gainean jarririk. **Elizen arteko biblia**

Igo zen fraidea **mando** gainera, aurpegia zuri-zuri, erabat izutu eta beldurtua. **Patxi Ezkiaga**

Nik **mando** baten indarra neukanan, Jenny. **Anton Garikano**

Lehen tranbia, **mandoek** tiratua. **Askoren artean**

Ez izan zaldi eta **mando** adimengabeen antzeko: galgaz eta ahokoz eutsi behar zaio haien indarrari. **Elizen arteko biblia**

Errak to, Feliziano, hire **mando** hori behar nitek, egun pare batentzat; zaldia maingu diat. **Herria**

**Mandoaren** gibelaldea baino arrikutsuagoa omen da, bai, alargunaren bularraldea. **Koldo Izagirre**

Istantean **mandoa** dardarizoka hasi zen eta berehala erregina bihurtu. **Patxi Zubizarreta**

Beldurrak zaldi grinatsu eta biziena **mando** bihurtu dezake, eta adorea, gizabanako arrunta heroi. **Berria - Kirola**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gurdi batzuk baditugu, eta **mando** mordo bat, haraino iristeko. **Txillardegia**

**Mando** aldrei eta gurdiei uko egiten genien. **Txillardegia**

Baina harresietara inguratu zelarik, **mando**, asto eta zaldi sail handi bat agertu zitzaion, eta ezin bada handik hirira heldu. zurezko makila ferratu bat, espartinak, eta lruñeko bi **mando**-manta, artile bikaineak. **Patxi Zubizarreta**

**Mando**-sokak eta idi-uztarriak. **Aingeru Epaltza**

Ur hori ezin da inon jaso eta eduki, **mando**-apoarekin egindako ontzietan izan ezik. **Santiago Iruretagoiena**

Zarauzko ostatu bakarako ukuilutik geletara heltzen zitzaien **mando**-pixin kiratsa.   Anjel Lertxundi

**Mando**, zaldi eta ardien gorotzak jasotzen.   Edorta Agirre

Horretaz ohartu orduko, **mando**-obramenduen kiratsa hartzen hasi naiz burusari.   Anjel Lertxundi

Ukuilutik zetorren **mando**-usainarekin oratutako kiratsarena.   Anjel Lertxundi

Zaldi-tranbia duk (kristauak eraman behar direnean); eta **mando**-tranbia, jeneroa besterik eraman behar ez denean.   Txillardegi

**Mando**-gorpu kirats eta eulitsuen artetik.   Txillardegi

### 3 (erkaketetan)

Baina **mandoa** bezain kaskagogorra zenez ez zuen erantzi gabardina.   Koldo Biguri

Zaldietan deus edo guti ezagutzen badut ere, badakit **mandoa** bezain langilea zirela.   Herria

Eguraldi ona edo txarra egin, sano edo gaixorik egon, **mandoen** moduan lanean aritzen zela gogoratu nian.   Mikel Hernandez Abaitua

**Mandoak** baino lan gehiago egiten omen zuen, baina hala ere barre egiten zioten bere lankideek.   Xabier Mendiguren Elizegi

### 4 (izenondo gisa) handia.

Eta esateko non arraio gorde duten faxista **mando** hori, eta ez engainatzeko.   Edorta Jimenez

Frantziako Iraultzan, aldiz, arrazoiaren izenean, lepoa ebaki eta astakeria **mandoak** egiten dituzte freskuraren aurka.   Markos Zapiain

### • 5 iz trafikatzailen mendeana droga gorputzaren barruan eramaten duen pertsona.

**Mando** deitzen dituzten pertsona horiek 50 eta 100 bolatxo irensten dituzte filmean Kolonbiatik AEBetara eramateko asmoarekin, eta han daudenean, kaka egitean botatzen dituzte.   Berria - Kultura

Oso jende gutxi dakielako **mandoek** kokaina nola garraiatzen duten.   Berria - Kultura

Gizon bat ezagutuko du, eta hark **mando** lana egin eta New Yorkera joateko eskaintza egingo dio.   Berria - Kultura

Ez du droga trafikoa gaia deabrutzen, eta ez du **mando** gisa lan egiten duten pertsonen gaineko iritzirik ematen.   Berria - Kultura

### 6 euli-mando mandeulia.

Eltxo nahiz euli-**mandoak**, tximeletak eta matxinsaltoak...   Pello Zabala

Ezparak, **euli-mandoak**, ehunzangoak.   Joxean Sagatzizabal

### 7 mando-gurdi (orobat mandagurgi) mandoentzako gurdia.

Hala nola bidaiariak, erdi lotan bada ere, ongi asko dakien, treneko leihotik begira, orain daukala begiratu beharra, ez baitu inoiz berriro ikusiko herri hori, edo **mando-gurdi** hori, edo emakume hori soroan lanean.   Anton Garikano

Bospasei olio-upel hartzen zituen **mandagurdi** bakoitzak, eta, kargatu ahala, mandazainak, zigorra airean astindurik, tokia uzten zion ondoren zetorren **mandagurdi** hutsari.   Anjel Lertxundi

Balea-koipeaz betetako upelak deskargatzen ari ziren marinel zalapartari batzuk, biraoa hark eta zimikoa horrek, ontzitik moila ertzean zeuden **mandagurdi** handi batzuetara.   Anjel Lertxundi

### 8 mando-mula ipar mando emea.

Azkenik, erran nezake, Euskal Herriko laborariek ez dutela **mando** mula baten beharra, ezen **mando** mulak ez du emaitzarik...   Herria

Bainan debaldetan, **mando** mula idurikoak baitira gure Hegoaldeko anaiak, kasko gogorrak.   Herria

### 9 mando-zamari mandoa.

Egunguentia baino lehen, herriko gazte talde bat elkartu zen basoko bidean, **mando** zamari bat lagun.   Jon Maia

**Mando** zamaria ezin zen azkar ibili pisu harekin gutziarekin eta egunguentiak bidean harrapatu zituen.   Jon Maia

### 10 zaldi-mando proba

Lau egunez jokatu dira Aulestiko (Bizkaia) zaldi-**mando** probak.   Berria - Kirola

Garai batean zaldi-**mando** probetan aritzen zen.   Berria - Kirola

Mendexako Goiko Urkiagaren zaldiak izan ziren jaun eta jabe larunbatean Nabarnizen, Euskal Herriko Zaldi-**Mando** probetako Txapelketako finalean.   Berria - Kirola

Nabarnizko probalekuak hartuko du aurtengo Euskadiko Zaldi-**mando** Proben finala, gaur.   Berria - Kirola

Igandean amaitu ziren Aulestiko zaldi-**mando** probak, eta Berangoko (Bizkaia) Ekaitz Elorduiren abereak egin zuen marka onena: 73 unte.   Berria - Kirola

### 11 mandoak aldatu kontuak aldatu.

Orduan dira **mandoak** aldatu eta bote falta batekin galdu ondarra Aranburuk.   Herria

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**asto eta mando** (3); **mando gainean** (12); **mando gaineko** (3); **mando gainera** (3); **mando gainetik** (3); **mando gorri** (3); **mando hori** (4); **mando manta** (3); **zaldi eta mando** (4); **zaldi mando** (23); **zaldi mando probak** (17)

**mandoa bezain** (3)

**mandoaren burua** (3); **mandoaren gainean** (3)

**astotik mandora** (4)

## mando<sup>2</sup> 1 iz aldagailua.

Sarritan, baina, alferrik izaten da, orriak, udazkeneko hostoak legez, magalean pausatzen zaizkizu, eta orduan telebistako **mandoa** amorruez eskuratu eta soma irensteari ekiten diozu.   Berria - Kultura

Telebistako **mandoa** egunkariko orrialde nahastuen gainera bota, eta arin altxatu da, lasaitu itxurak eginez.   Jokin Muñoz

### 2 kontrolgailua.

Bilbo eta Donostia arteko ibilbidean 15 trenbide pasaguneren **mandoa** manipulatu zuten eta, beraz, bertan behera gelditu ziren pasabideok.   Berria - Ekonomia

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**telebistako mandoa** (3)

## mandodun izond mandoa duena.

Etetik abiatzen lau ziren, bosgarrena Erretan juntatu beharra zituen, hura **mandoduna**.   Pablo Sastre

· *izlag* Hor baskalduko gitxu -erran zuen **mandodun** gidariak-.   Pablo Sastre

## mandoko (orobat mandako) iz mando gaztea.

Sartu ditun **mandakoak** kriskitin-kraskatan, eraman ditun piztia adarduna harean arrastaka, isildu ditun plazako denak.   Patxi Iturritegi

Astoa, mandoa, **mandokoa**, behorra, zaldia edo beste edozein abere lurrean iraulka hasten zenean.   Patziku Perurena

Petrineko mando gorri ostikolaria, Aldaiko **mandoko** uhela...   Patziku Perurena

## mandolina 1 *iz* lautearen antzeko musika tresna, hura baino txikiagoa.

Baita **mandolina** jotzen zuten eskaleak ere. bere hegaldi lirikoetan laguntzen dion **mandolina** besoan artean kulunkatzen duela. **Joxe Austin Arrieta**  
2000 urtean, Xabier Itzaina (gitarra, **mandolina**, xirula eta ttuntuna) eta Mathias Lopez (kontrabaxua) sartu ziren taldean. **Herria**  
Batzuek dutara jotzen zuten, masustondozko gider luzeko **mandolina**. **Karlos Zabala**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobatmandolin)

**Mandolina** -itxurako neska judu ilebeltz bati agindutako perlazko belarritakoen bi kuotak ordainduak zituen. **Lopez de Arana**  
Barandiaranek eta Mikel Romero **mandolina** eta gitarra jotzaileak egin dituzte abestiak. **Berria - Kultura**  
Jexux Aranburu piano eta soinujoilea bai-eta Arkaitz Miner biolin eta **mandolin** joilearekin batera. **Herria**

## mandozain ik mandazain.

## mandragora 1 *iz* oso zurtoin laburreko belar landare pozoitsua, antzina tasun afrodisiakoak egozten zitzaizkion sustrai handi eta zaiñtsua duena (*Mandragora officinarum*). ik **urriilo**.

Debekatutako sendabelarren artean daude, mihura, **mandragora** edo urriiloa, basa erromeroa, heliotropoa, eta Estatu Batuetatik ekarritako erregaliza. **Mandragora** antidoto gehien funtsezko osagaia da. **Berria - Gaiak**  
Azkenean **mandragorak** prest daude mozteko. **Iñaki Mendiguren**  
**-Mandragoraren** garrasia hilgarria da entzuten duenarentzat -esan zuen berehala. **Iñaki Mendiguren**  
**Mandragorazko** edabe suspargarria lotan ere irabiatuko nuke... **Iñaki Mendiguren**

## 2 (hitz elkartuetan)

Pomprefy andrea oraindik esna aurkitu duzu, **mandragora** -zukua banatzen ari da eta. **Iñaki Mendiguren**  
Ordu batzuk barru, **mandragora** -edabea prest izango da eta harri bihurturiko guztiak oneratu egingo dira berriro. **Iñaki Mendiguren**

## mandril *iz* mendebaleko Afrikako tximinoa, ile sarri marroia, mutur luzarana eta sudur gorri hegal-urdina dituen.

Beraz, **mandrilak** Sonja kendu nahi zidan orain. **Anton Garikano**  
**Mandril** honen ibiltzeko moduak badik aire humano bat. **Anton Garikano**

## mandrinadora *iz*

Leptotik heldu eta burua **mandrinadoran** sartuko zioat, adan- seme horri. **Pablo Sastre**

## mandrino *iz* tresna mekanikoa, objektuei eusteko erabiltzen dena

Joxemari: **mandrinoak** preparatu behar dituk. **Pablo Sastre**  
Joxemarik Manuri **mandrinoak** taka utzi eta, isil-isilik atera ziren. **Pablo Sastre**

## mandrunatu *izond* galipota-geruza batez estalia.

Itsumandoka segitzen genuen bidea gudronatu edo **mandrunatua**, kliska batean lohiz mukuru zen xenda baten gora abiatzeko. **Itxaro Borda**

## maneagarri *iz*

Herrialde horietan, beraz, eugenesia negatiboak errazago dirudi irensten, **maneagarriago**; oztopo gutxiagorekin egiten du topo, eugenesia positiboak baino. **Juan Garzia**

## maneamendu *iz* maneatzea.

**Maneamendu** horiei "ingeniaritza genetikoa" esaten zaie. **Juan Garzia**

## maneatu<sup>1</sup>, manea, maneatzten (*orobat maneiatu g.er.*) 1 *ad ad* janariez mintzatuz, prestatu edo ondu.

Gatz-ozpin-olioarekikoak **maneatzen** hasten da gero. **Anjel Lertxundi**  
Etxean ez zen eta gantzik edo oliorik izaten, eta esnegain edo segoarekin moldatu behar izaten zuten etxeoandreek janaria **maneatzeko**. **Pako Aristi**  
Xehaturiko haragiaz eta patata-pureaz **maneaturiko** jakia. **Iñaki Mendiguren**  
Papaia-entsalada baldar ikuzia eta chile soberaz **maneiaturiko** zerriki puska. **Aingeru Epaltza**  
Okela beti, eta bizigarri minez **maneatua**. **Josu Zabaleta**  
Oreinki errea, jirafa xerrak, kabiarrak pote osoak, astigarraren siroparen kutsuan **maneaturiko** pastelak. **Joxan Elosegi**  
Harrituta zeuden, kezkatu, patatak era hartan **maneaturik** ikustean. **Pako Aristi**  
Berak jatekoa **maneatzen** du eta nik ardoa eramaten dut. **Eskarne Mujika**  
Behar zenean sukaldera sartu eta zerbait **maneatzeko** prest dagoen horietako bat zen. **Joxemari Iturralde**  
Nik ez nekien garai hartan porrusalda eta arrautza prejituak **maneatzen** besterik. **Txillardegi**  
Oso traketsa baitzen arrautzopilak egiten eta serio-serio jartzen baitzen okela salda **maneatzean**. **Karlos Zabala**  
- Ez zuen gogoko errai errukitsuz jantzi gabeko eta neurritasunaren gatzaz **maneatu** gabeko laztasuna. **Askoren artean**

## 2 irud/hed

Guztia oso ongi **maneatua**; esan nahi baita bai erritmoa, bai intriga, bai bigarren mailako hariak, bai pertsonaien psikologia profesional handi baten eskuak ohi duen trebeziak daudela gobernatuak. **Berria - Kultura**  
Zapateroren alderdiak kontraesan askorekin **maneatzen** du ezkerreko base soziala. **Berria - Mundua**  
Apurka-apurka, ikasi zen azkenean bakterioen ADNan **maneatzen**. **Juan Garzia**

## 3 lurrez mintzatuz, landu.

maneatu<sup>2</sup> ik **maneiatu**<sup>1</sup>.

**maneatzaile** *iz* aipatzen dena maneazen duen pertsona.

Egun batean, gantxigorak erosi zituen Honorék jaki **maneatzaile** dotore baten dendan. **Joxan Elozegi**

**maneiagarri** *izond* maneia daitekeena.

Israelek uste du jende **maneiagarria** proposa dezakeela. **Berria - Mundua**

Irak **maneiagarriagoak** izango diren estatu txikiagotan zatitzeko plana bururatzeko saioa. **Berria - Mundua**

**maneiatu**<sup>1</sup>, maneia, maneiatzen (*orobat manaiatu g.er., maneatu g.er. eta manejatu g.er.*) **1** du *ad* erabili; manipulatu.

Ontziak (botilak, latak, flaskoak...) irekitzeko sistemak soildu egingo dira, berariazko irekigailu edo tresnarik **maneiatu** beharrik ez izateko. **Edorta Agirre**

Ezin gidaliburua irakurri eta,aldi berean, tresneria **maneiatu**. **Berria - Ekonomia**

101,2ko 3 pieza eta 47,6ko 2 zituen, 86 lagunek osaturiko eskifaia **maneiatuak**. **Edorta Jimenez**

Ganibet luzea trebe **maneiatz** zuen. **Aingeru Epaltza**

Egoteko keinua egin eta, xagua **maneiatz**, kurtsoa pantailaren goialdeko laugarren leihatilaraino gidatu nuen. **Aingeru Epaltza**

Robot batek **maneiatz** ditu, eta edozein objektu irudikatu dezake. **Berria - Ekonomia**

Hik nola **manejatuko** duk ordenadorea, telefonoa ibiltzen ez dakik-eta! **Berria - Kirola**

Kultura zein gizarte hori ulertzeko ez dira nahikoa guk **maneiatz** ditugun ohiko kategoriak. **Askoren artean**

Betiko eredu narratiboak erabili zituztelako, ohiko kode zaharkituegiak **maneiatu** zituztelako eta ex catedra jarrerak nagusitu zirelako. **Txema Ramirez de la Piscina**

Zientzialariek sagu emeen ADNa **maneiatu** dute, haien bi genek arren moduan joka zezaten. **Berria - Gaiak**

Izan ere, ADNa **maneiatu** daiteke, zelulak maneia daitezke, gizakiak maneia daitezke eta baita herriak ere. **Berria - Gaiak**

Informazioak **maneiatzeko**, manipulatzeko, errealtateak sortzeko aukerak. **Jon Alonso**

• **2 da/du ad** gobernatu.

-Ondo **manejatz** duk -esan nion. **Edorta Jimenez**

Bere gizona ez zen hitzen bidez **maneiatu** zitekeena. **Ana Urkiza**

Erretxin hutsa da baina nik badakit nola **manejatu**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Baina polizia bazekien gu **manejatz**, eta gutako bakoitzaren baitan zalantza sortzen. **Juan Kruz Igerabide**

"Haiek **manejatz** zuten nonbait negozio guztia"; "nire aita ere tartean al zen?", esan nuen. **Bernardo Atxaga**

Zure bihotza ongi ezagutzen baduzu, ordea, ez zaizu horrelakorik inoiz gertatuko, ondo jakingo baituzu bere ametsen eta desiren berri, eta asmatuko duzu horiek nola **manejatu**. **Xabier Aranburu**

Apurka-apurka, ikasi zen azkenean bakterioen ADNa **manejatz**. **Juan Garzia**

Ezin **manejatuzko** konplexutasuna. **Itziar Laka**

maneiatu<sup>2</sup> ik **maneatu**<sup>1</sup>.

**maneiatzaile** *iz* aipatzen dena maneiatz duena.

Bide batez, abadeak gerratean metrailadore **maneiatzaile** jardun zuela ere badio biografoak. **Edorta Jimenez**

**manei** *iz* maneiatzea, erabilera.

Jostailuen **maneiua**. **Berria - Kultura**

Sinpletasun eta magikotasun horren bidetik, panpinen **manei** bikaina eta eszenografia eskematiko baina guztiz arin eta aldagarria aipatu behar ditugu. **Berria - Kultura**

Diskurtsoak paratu, txostenak taxutu, prentsa oharrak idatzi, legeen arloko aholku zuhurrak xuxurlatu, aberriaren ontziaren lemaren **maneiuz** zentzuzkoak zirenak une eta modu egokian esan, zer ez zekien egiten ba Galindezek. **Edorta Jimenez**

**maneiukor** (*corpusean manaiukor*) *izond* esanekoa; eskurakoia.

Eta hartatik zen [jaun Marcel], jendearekin zuen tratuz denaz bezainbatean, atsegin eta etorkor, malgu eta **manaiukor**. **Joan Mari Irigoien**

**manejable** *izond* erabilerraz, eskurakoi.

Esan nahi da hilda dauden intsektuak askozaz **manejableagoak** direla. **Unai Elorriaga**

manejatu ik **maneiatu**<sup>1</sup>.

**manera** **1** *iz* moldea, modua, era.

Ez nuen sobera irau **manera** hartan. **Aingeru Epaltza**

Garai hartako **manerak** eta ohiturak. **Julen Gabiria**

Hark klimaz, lurraz, bertakoen ohitura eta **manerez** dioen guztia bat dator gaur egun Afrikako kosta honetan ikusten denarekin. **Iñaki Iñurrieta**

Baina bada beste **manerarik** Gauekorekin jokatzeko. **Michel Oronoz**

Ene ama frango **manera** bitxian sartu den mugimendu hartan...

**Eneko Bidegain**

Herriaz mintzo naiz, baina nire **maneran** . **Berria** - Kultura

Tipi tipitik bertsoari **manerak** hartu zituen, mahai baten gainera hupatzen zuten eta bazkaltiarak xoratzen zituen bere haur gogoan atxikitzen zituen koplak eta zirtokin.

**Michel Oronoz**

Ez dela **manera** hola joatea, toki arrotz batzuetarat. **Janbattitt Dirassar**

Hori ez dela **manera** , hori ez dela xuxen, idatzizko kasetaritzak ere zerbait laguntza merexi duela gaurko egunean. **Herria**

Batzu arrangura emazteak urerat sartzen zirela biziki zaia arinak soinean eta gizonak, batzu segurik, biluz-gorri, hori etzela **manera** ! **Herria**

**Manera** baldin badugu, dudarik ez izan eginen dugula. **Aingeru Epaltza**

Oro har, erraiteko **manera** batean, ondareak ez du kasik mugarik! **Herria**

## 2 (-tzeke-ren eskuinean)

Gauzak egiteko **manera** baten ate izan da kirol kazetaritza. **Iñigo Aranbarri**

Prentsa ulertzeko **manera** bi. **Iñigo Aranbarri**

-Orduan ni laguntzeko **maneran** egonen zara. **Aingeru Epaltza**

Ozen-ozen mintzo zen, segizioko guztiek garbi aditzeko **maneran** . **Aingeru Epaltza**

Irudimena da egunero ikusten ez ditugun gauzetara heltzeko **manera** egokiena. **Anjel Lertxundi**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ongi etorri egitea gatik herriak du gazte **manera** hartzen. **Herria**

19etan su-hiltzaileek erakutsiko daukute beren lan **manera** . **Herria**

Bizi **maneraz** aspaldi ziburutar egina zen. **Herria**

## 4 *p/* norbaiten heziera ona, txarra edo berezia ezagutarazten duten keinuak eta jokaerak.

Uztazu oharrarazten haren **manerak** ez direla bandido batenak, alderantziz, guztiz samurra da gauza guztietan. **Jose Morales**

Niri gogaikarri gertatzen zitzaizkidan haien guztien **manerak** . **Josu Zabaleta**

**Manerak** zaindu behar larri horrek, intentzio oneko inozentzia eder guzia hondatzen du. **Patziku Perurena**

Hainbat urrats isilean eginik, gizonak, **manerak** zainduz, galdegin zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

-Beste **manerarik** badik to, orain! **Daniel Landart**

Ongi beztituak ziren, **maneretan** ikasiak. **Piarres Aintziart**

Zakar samarrak ziren beren **maneretan** . **Jose Morales**

Adiskidetasun gizabidetsuegia erakusten zuen bere **maneretan** . **Jose Morales**

Emakume baten **manera** guztiak zituen Burek-ek, arra izan arren. **Koro Navarro**

## 5 (izenondoekin)

**Manera** onak izaten zituen nirekin, bulego hauetan lan egiten duten bertze batzuek ez bezala. **Aingeru Epaltza**

Peterrek ere bazekien gizalegez portatzen, **manera** onak ikasi baitzituen maitagarrien zeremonietan: lurretik altxatu eta erreberentzia dotorea egin zion. **Julen Gabiria**

Printze harrigarri hura guztiz neurrikoa zen; izaera leunekoa, **manera** soilak zituen; bere gortekoekin bizitzea zuen gogoko. **Iñaki Iñurrieta**

Haiak atea itxi orduko, Borgin jaunak bertan behera utzi zituen bere **manera** koipetsuak. **Iñaki Mendiguren**

Baina **manera** atseginak zituen. **Koro Navarro**

Laster ikusi dut margolanak begiratzeko zure **manera** pausatuak ez duela deus kazetariak ohi duten arinkeriatik. **Anjel Lertxundi**

Zelan izan litekeen nireak lako **manera** landuak dituen gazte bat halako gizon gurgarriaren hiltzaile. **Koldo Izagirre**

Tipiren izaera patxadatsu eta lasaiak, haren **manera** eztiak, gure orduko zakarkeriatik hain urrun beti, bide zabala uzten zieten konfidentziei. nabarmenekiak eta ozarregiak iruditzen hasi zitzaizkion haien **manera** bizi eta arinak. **Aingeru Epaltza**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ba, umeak -esan zuen maistrak aurkezle **manerak** hartuz-, holaxe bukatuko dugu gure lehen eguneko klasea, musikarekin. Mutikoen artean bazen "emazte **manerak**" zituen bat, Iparraldeko baserrietan esaten duten bezala. **Bernardo Atxaga**

Bere manera txarrak alda zitzen (hau da, baserritar edo langile **manerak** ). **Joseba Urteaga**

Gure herrira bazatoz zure jaunxkila **manerekin** eta, guri goratik so eginez, iduritzen zaizu gure gizonak teteleak direla eta gure emazteek ez dutela zure ohearen egiteko baizik balio. **Elena Touyarou**

- Teilatuak zahar **manerak** harturik gapeluaren pare, han hemenka pipi xiloak omen ditik. **Herria**

## 7 *manerako* gisakoa, egokia.

Bizitegi **manerako** bat ezin ukana da eta batto gertatzen denean, zernahi pagatu behar duzu! **Janbattitt Dirassar**

Alde batetik, zernahi jende karrketan, eta hori ainiz hiritan, erretreta **manerakoak** hunki diten bihar ere, eta lanean artzeko urteak luzatu gabe. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aritzeko **manera** (3); bizitzeko **manera** (12); bozkatzeko **manera** (3); egiteko **manera** (10); erraiteko **manera** (3); ez dela **manera** (5); idatzeko **manera** (3); ikusteko **manera** (3); jateko **manera** (6); kantatzeko **manera** (3)

**manera bakarra** (3); **manera berean** (5); **manera berezi** (39); **manera berezi batez** (36); **manera berezia** (3); **manera bitxian** (5); **manera ederrak** (3); **manera hartan** (3); **manera hitsak** (3); **manera hitsean** (4); **manera hobereana** (4); **manera hortan** (5); **manera izanen** (7); **manera izanen da** (4); **manera onak** (15); **manera onen** (4); **manera txarrak** (3)

mintzatzeko **manera** (7); modu eta **manera** (3); pasatzeko **manera** (3); ulertzeko **manera** (3)

bizitzeko **manerak** (4); lardaskatzeko **manerak** (3); **manerak erakusten** (3); **manerak hartu** (3); moduak eta **manerak** (3)

aditzeko **maneran** (4); ber **maneran** (4); entzuteko **maneran** (3); erraiteko **maneran** (17); errateko **maneran** (4); ikusteko **maneran** (3); ulertzeko **maneran** (3)

bere **maneretan** (5)

## maneragabe *izond* manerarik ez duena.

1930 aldera aguretxo herabe bat zen osaba Barbaricô, eskastu eta maiztua, izugarri begilaburra; gôia lodi **maneragabe** batekin bizi zen **Juan Garzia**

## manerakeria *iz* manera gaitzesgarriak.

Gogoan diat batek nola esan zuen ez zela bertsoetan gatz-piperrik gaia bixitzekorik, ez eta jardunean ere deusik egilea **manerakeriaz** salatzeakorik; baizik eta jokabide zintzoa zeritzola. **Juan Garzia**

## maneratsu *adlag* manera nabarmenekin.

Zerbait ahoskatzen ari zen, **maneratsu**, nahiz eta ez nion lehendabizikoan ulertu: imintzioka ari zitzaidan, espantuka, eta eskuaz erreka behealdea erakusten zidan.

**Mirentxu Larrañaga**

**Maneratsu** berritu zidan orduan agindua. **Joxan Elozegi**



**maneratu** *izond* manera nabarmenak dituena.

Osrik, gorte-gizon **maneratu** . Juan Garzia

mañetofono ik **magnetofono**.

mañetoskopa ik **magnetoskopio**.

mañetozkopa ik **magnetoskopio**.

**manex** *iz* zuberotarrentzat, behenafartarra edo lapurtarra.

Artzaintzari dagokionez, **manexak** arazoak ukanen ditu baldintza berrietara egokitzeke. Berria - Euskal Herria

Hunen ondotik Herriko salan eskainia izan da deneri hurrupaldi bat zoinen inguruan solastatu baitira **manexak** xuberotarrekin. Herria

Baina bestaldetik ezin burutik kendu bi herrien teoria, benetako uskaldunena eta **manexena** , elkarren haurride eta bedera bere hizkuntzarekin. Iñigo Aranbarri

**manexina** *iz* zuberotarrentzat, behenafartar edo lapurtar emakumea.

Aita biarnesa zūan, ama mehaindarra, "**manexina**", Inchauspe ariakoa. Herria

Arbailan eta Petarrean gaintitūrik dūgū, heben etxekandereak ūsū "**manexinak**" dūtūgū. Herria

**manga**<sup>1</sup> *iz* mahuka.

Jertsearen **manga** ukitu zion mutilak emeki. Xabier Mendiguren Elizegi

Komiki baten orrialdeetatik sortutako arketipo adolezente idealizatu horietakoa dirudi orain, damatxoan **mangarako** eginiko silueta delikatua. Patxi Iturritegi

Arkondara zuri eta txaleko gorritz (edo jertse **manga** bakoz) joaten ziranez, [...]. Xabier Amuriza

**2 manga hutsetan** (*corpusean manko hutsetan eta mankutsetan*)

Otsaillean gizona **manko** hutsetan baino, hobe da otsoa arditan ikustea. Pello Zabala

Gabonak arte **mankutsetan** ibiliko gara. Pello Zabala

**3 manga-motza** (*corpusean mangamotz soilik*) *izond*

Lehengo kamiseta **mangamotzaren** ordez tiranteduna da hau, eta bizkar osoa agerian uzten duena, X bat egiten duten bi uhal mehe izan ezik. Xabier Mendiguren Elizegi

**4 manga-motzean**

Bakar batzuk, berriz, **manga** motzean dabilta. Berria - Mundua

Biluzik ibili nahi dut, minigonarekin, **manga-motzean** , sexia-afroia, hortera soineko luzearekin, txandalean, beldurrik gabe. Berria - Harian

**manga**<sup>2</sup> *iz* japoniar komiki mota.

**Manga** da Japonian komikiari ematen zaion izendapen generikoa. Berria - Kultura

Arazoa da **manga** komiki molde jakin batzuekin lotzen dugula hemen, azkeneko urte hauetan gure liburu dendak bete dituzten album japoniarren gai eta grafismo jakin batzuekin, alegia. Berria - Kultura

**manganeso** **1** *iz* altzairu koloreko metala, gogorra, astuna eta hauskorra, 1240 °C-tan urtzen dena (Mn; at. z. 25).

A, B, C edo D bitaminak, burdina, selenioa, **manganesoa** edo ginsenga dira osagarri horietako batzuk. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Bihar gauerako azken **manganeso** -koilarakada ere lehorreraturik ez badago, komisio erdia baino ez dizut ordainduko... Lopez de Arana

**mangatu**, manga, mangatzen **1** *du ad adkor* lapurtu.

Bueltaiko ferryan pare bat botila **mangatzen** saiatu gintuan, baina duty free puto hartan ez zegoan zer eginik, ia-ia harrapatu ziaten Roman... Iban Zaldúa

**2 adkor** eskatu.

Egaxi honek inolaz ere jakin behar ez duen leku bateko telefonoa **mangatu** dut. Koldo Izagirre

Familia edo jarabí apur bat genuenok ere ezin genuen kanpoko janaririk **mangatu** , ez zuten onartzen. Koldo Izagirre

**mangera** **1** *iz* tutu luze eta malgua, askotan gomazkoa, isurkari bat eramateko erabiltzen dena. **iktutu 9**.

Eta, esan zuen Yagok, **mangera** zertarako behar duzue? Pablo Sastre

**Mangera** ? eman ezak buelta, erakutsiko diat nola funtzionatzen duen. Pablo Sastre

Tutu injektore edo **mangera** baten moduan. Luis Elberdin

Dutxak ere aparte zeudean, bat denontzat, metro bateko leku bat, eta **mangera** . Pako Aristi

Tapa altxatu eta **mangera** ur-hartunean konektatu zuten. Jon Alonso

Piztiak **mangeraz** garbitzen ari ziren. Harkaitz Cano

Elisa nahita nahasten zen, Gillesekin burla egin ziezaiola eta **mangerako** urarekin busti zezan. Pablo Sastre

Gordailua mukuru betetzen denean **mangera** atera. Mikel Hernandez Abaitua

Langilea **mangera** deposituan sartu eta gasolina botatzen hasi da. Pello Lizarralde

**2** (hitz elkartuetan)

Gero, arkupeko **mangera** -mutur galdua, eta kristalak ziprintiztekoa egin du. [Patxi Iturritegi](#)  
· Suhiltzaileek, foruzainen jokabidea ikusirik, ur **mangerak** erabili zituzten, eta berrogeita hamar bat lagun teiltura igo ziren. [Berria - Ekonomia](#)  
Espazio Estazioko leihtalak lurruntzea saihesten du aldatu berri duten drenatze **mangera** horrek. [Berria - Gaiak](#)

## mangeratzar *iz adkor mangera handia.*

Nork pentsatu behar zuen! bere **mangeratzar** maitea motz geratzen zitzaion, ez zuen hondoa jotzen. [Patxi Iturritegi](#)

## mangladi *iz tropikoetako itsasertzetako landaredia, itsasgorak estaliriko lurretakoa, manglez-eta osatua.*

Koral arrezifeak eta **mangladiak** ezinbestekoak direla ekosistemen biziraupenerako. [Berria - Gaiak](#)

## mangle *iz tropikoetako zuhaitza edo zuhaixka, urez estaliriko lurretakoa, uretaraino iristen diren abarrak dituen.*

Tropikoetan banengo bezala sentitzen naiz, jujubonbo-baso batean eserita, **mangle** zuhaitzez inguratutako ibai melodramatiko irrigarri batean barrena eramango gaituen unti baten zain. [Lopez de Arana](#)

Ahal bezain isilik jalgi nintzen **mangle** azpi hartatik. [Joxan Elozegi](#)

Lehorreko izkinada bistan dela goaz, **mangle** zerrenda luzea dugula istriborreko bandan. [Joseba Sarrionandia](#)

## mangleondo *iz mangle zuhaitza.*

Baina ezin nuen **mangleondo** azpi hura utzi; duintasunak agintzen. [Joxan Elozegi](#)

Ahal bezala gorde nintzen ni, binilo arrosaz itxuratutako **mangleondo** baten azpian. [Joxan Elozegi](#)

## mango 1 *iz mango arbolaren fruitua, obalatu eta mami-urrintsua dena.*

**Mango** eta banana eta beste hamaika fruiturenak, hamaika espezia motarenak eta beste hainbesterenak ere ekarri zizkion haize beroak nahasian. [Xabier Montoia](#)

Patatak, aguakateak, guaiabak, **mangoak**, bananak, eta bertze mila tuberkulu eta fruitu. [Joan Mari Irigoien](#)

Eta **mangoak**, eta aguakateak, eta kaimitoak, eta zapoteak, eta laranjak, eta limoiak ere ekartzen dizkiogu. [Joseba Sarrionandia](#)

Aperitifa gisan, **'mango'** jusa azukreztatuek edan zituzten. [Ramuntxo Etxeberri](#)

## 2 *mango arbola* tropikoetako zuhaitza, enbor beltz zutetako eta adaburu handi eta sarrikoa.

Muskerrek burua altxatzen zuten **mango** -arbolen enborretan. [Karlos Zabala](#)

Lokatzean erdi-lurperatutako hariak, muskerrak **mango** -arbolen enborretan gora. [Karlos Zabala](#)

## 3 *mango zuhaitz* mango arbola.

Sokan gora igotzen hasi da, soka hori **mango** -zuhaitz bat balitz bezala. [Gotzon Garate](#)

## mangolino *iz itsas marraskilo mota, jateko ona.*

Jan **mangolinoren** batzuk gure osasunean. [Edorta Jimenez](#)

Itsasoko belarrez, auka txikiz, zuretako **mangolino** janezinez, txirlatxo ezgauzez eta halakoez estalita eta uretako mamarruek plagatuta. [Edorta Jimenez](#)

## mania 1 *iz*

Beste krisialdi baten erdi-erdian zegoen Flora, hirugarrenez erietxera eramango zuen **maniarantz** ziztu batean abiatzen. [Oskar Arana](#)

## 2 *apeta edo ohitura obsesiboa.*

Nik neure **maniak** ditut: kartoizko kaxekiko obsesio gaixobera, goizeko hiruretan autoa hartu eta arrantzara joatea, horrelako gauzak. [Harkaitz Cano](#)

Hura dela nere apeta, **mania**, gaitz edo deformazio nabarmenetako bat. [Iñaki Seguro](#)

Ederki asko eusten zion bere betiko izaerari, xehetasunetan ere zehatz-mehatz izan beharraren **maniarri**, alegia. [Joxe Austin Arrieta](#)

Txerrikia jateko zaletasuna **mania** ari zen bihurtzen. [Anton Garikano](#)

Gorrotu dut elkarri mahukatik heltzeko **mania** hori. [Joxe Austin Arrieta](#)

Denok ditugu geure **maniak**. [Patxi Iturritegi](#)

**Mania** ugari nituen idazteko orduan; gauzez, halako koadernoan, halako sofa, halako musika... [Ana Urkiza](#)

Kaskasoiak **mania** hura zuen, nahi zuen guk ikastea zer esan nahi zuen ulertzetik ez zegoen poesia hark. [Pello Lizarralde](#)

Horrela joan zen uda gehiena: goizean anatomia ikasten eta arratsaldean agure kaskailu haren **maniak** aguantatzen. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Berriketarako **mania** areagotu zitzaion. [Pello Lizarralde](#)

**Mania** nagusitu egiten zaiola zentzu onari. [Juan Garzia](#)

· Aspalidiko **mania** moduko bati amore emanaz, betaurrekoak kendu eta zapi batez garbitu zituen kristalak, etxerako bidean zirela. [Imanol Zurutuza](#)

## 3 *ezinikusia, tirria.*

Paulinari **mania** ziola iruditzen zitzaidan. [Bernardo Atxaga](#)

## 4 *jazarpen mania*

Jazarpen **mania** nozitzen zuen kondenuatu hura, ikaraz beterik borroeroari aulki elektrikoaren atzean ea norbait ezkututzen zen begira zezala behin eta berriz erregutu ziona.

[Karlos Linazasoro](#)

Berak, berean zorrotz eta gogor, "suisar zehaztasun" delakotzat saldu nahi izan zizkidan, laboratorioaren eta lantegi osoaren arimatza, baina niri traba zozo mordo bat iruditu zitzaidan, jazarpen-**maniaren** muga-mugan. [Juan Garzia](#)

## maniako 1 *iz mania bat, buru nahasmendu bat duena.*

-Sadiko edo **maniako** batek ez zekinat, putakume batek seguru. **Maniako** baten moduan astindu zuen labana, gainera zetorkion hamar arroako txerriaren kontra. [Migel Angel Mintegi](#)

Garbiketaren **maniatikoak** diren etxeoandreen ohitura nazkagarria. [Jon Alonso](#)

**Maniakoa** biluzik joaten zen gabardinapean. [Pello Lizarralde](#)

Pentsatu zuten beren obligazioa **maniakoa** atxilotzea zela. Pello Lizarralde

Norbait pixa egitera sartzen zenean, **maniakoak** adeitsu egiten zion proposamena bi pixatokiak banatzen zituen hesiaren gainetik. Pello Lizarralde

**Maniako** sexualak, psikopatak eta gisakoak ez baitabilta sarraskiak elkarlanean antolatzen. Migel Angel Mintegi

Beste **maniako** degeneratu batzuek emakume bat ikusi eta grinak jotzen zituen, eta haiei eraso egitera joaten ziren galtzak kenduta. Pello Lizarralde

**Maniako**, depresibo, neurasteniko, paranoiko, eskizofreniko eta egoista batekin ezin dut iraun: banoa. Itxaro Borda

## 2 izond maniakoaren ezaugarriak dituen.

Oso **maniakoa** baitzen idazteko osagarriek zegokienez. Jon Muñoz

## 3 (gauzei buruz)

Hori baino gutxiago ez da nahikoa orria balio gabetzeko eta hori baino gehiago prekauzio **maniakoa** da. Jon Alonso

Zekenkeria **maniako** batez gobernatzen zituela Kimika Ikastegia eta bere laboratoriorik pertsonala: erabilitako pospolo-kaxak gordetzen omen zituen sotoan, ehundaka, [...].

Juan Garzia

Woodek bere kemen **maniako** hura berreskuratu zuen, eta ohi bezain gogor lan egin zuen bere taldearekin. Iñaki Mendiguren

[Sodioa] ez da distiratzailera, edo, hobeki esan, arta **maniakoz** kontserbatzen denean baino ez da, zeren bestela berehalaxe erreakzionatzen baitu airearekin. Juan Garzia

## 4 maniatukoa.

Doi bat **maniako**, beharbada, baina, zalantzarik ez, haren berriketa korapilatsu eta eruditua lagundu egiten zuen bidaiaren astuna arintzen. Oskar Arana

## 5 maniako-depresibo izond fase maniakoak eta depresiboak aldizkatzen dituen.

Izadiak edo Jainkoak zertarako sortu ote dituen autismoa, psikosi **maniako**-depresiboa, eskizofrenia eta halako gaixotasun lazgarriak. Xabier Olarra

Ibarretzek «gaitz bipolar **maniako** depresiboa» duela. Berria - Euskal Herria

Problema **maniako**-depresiboak dituzten psikiatrak. Gotzon Garate

· iz Hanna oso sentibera zen, suminkorra oso, tenperamentu antzemanezin horietako bat; Joachimek zioen bezala: **maniako**-depresiboa. Joxe Austin Arrieta

**Maniako**-depresibo bihurtzeko uanean, zainak korapilatzen nabaritzen ditut. Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maniako degeneratu** (3); **maniako depresiboa** (5)

## maniatiko izond/iz maniaduna.

Oro har, beste idazle denak nire moduko **maniatikoak** direla ohartzu nindoan. Edorta Jimenez

## manibela iz biradera.

Madeleinek fonografoaren **manibelari** eragiten dio. Monika Etxebarria

**Manibelari** eragin, martxan jarri. Iñigo Aranbarri

**Manibela** jarri, jiratu, eta astiro, astiro burdinazko pertsiana karraskilaka igo zen. Matías Múgica

Tornuari ezarri dion galgak eragotzi egiten du lepoaren presioak **manibela** atzeraka eroan dezan, arin ekartzen du heriotza. Koldo Izagirre

## manierismo 1 iz bakuntasuna eta berezkotasuna falta zaion estiloa.

Andre gaixoak gorputzik gabeko ahots amastrarritu batean abestu zuen Killarney, beraren kantaerari dotoretasuna ematen ziotela uste zuen entonazio eta ahoskeraren

**manierismo** modaz pasatu guzti haiekin. Irene Aldasoro

## 2 Bepizkundearen eta Barrokoaren arteko estiloa, ezaugarritzat naturaltasun falta zuena.

Espainiako pintura **Manierismotik** Barrokora Sevilla hirian nola pasatu zen erakutsi nahi digu erakusketak. Berria - Kultura

**Manierismoaren** eredu artifizialek Barrokoko naturalismora doan bidea. Berria - Kultura

XVI. mendearen bukaerako **manierismoaren** kontra XVII. mendearen hasierak eman zuen erantzun naturalistaren barruan saikatu beharko genuke. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**manierismotik naturalismorako** (4)

## manierista izond manierismoan erortzen dena; manierismoari dagokiona.

Dena den, Ortega-k bere duda-mudak izan ditu, batez ere bere prekauzioak beti hartu ohi ditu, gauzak esan bai, baina Zakilixuten "gehiegi" ez esateko, anbiguitate tarte bat atxikitzen badaezpada bere estilo **manieristaren** kiribilen artean. Joxe Azurmendi

Pintura flandestarraren eragin **manierista** baztertu zuten poliki-poliki eta Caravaggioren eta haren jarraitzaileen pinturak sortutako naturalismora gerturatu ziren. Berria - Kultura

Flandesko **pintura** manieristak. Berria - Kultura

XVI. mendeko bigarren zatiko ikuspegi **manieristan**. Berria - Kultura

## manifa (44 agerraldi, 14 liburu eta 9 artikulutan) iz adkor manifestazioa.

"**Manifa** batekin ez goazak inora, motel", Asierrek, "greba egin behar diagu, eta egunkarietara deitu manifestu bat irakurtzeko". Pako Aristi

Kanutoak egin, birrak edan eta **manifa** guztietara joatea zituen hiru betebeharrak. Unai Iturriaga

Protestak eta **manifak** izan zirela. Xabier Mendiguren Elizegi

**Manifa** eta mobida guztietan sartuta ibiltzen den irakasle enrrollatu horri. Jokin Muñoz

Memento batez pentsatu dugu -ez dakit nik-, Roissy inguruko ELBko langurien **manifa** bat antolatuta zutela! Ramuntxo Etxeberri

Goizeko klaseak amaitu ondoren **manifa** egin nahi dutenak: 61. Pako Aristi

**Manifa** bat eginda nahikoa dela. Pako Aristi

Abendoaren 10an, larunbat aratsaldean, **manifa** Baionan, bat gehiago, Filipen sustenguz. Herria

**Manifa** nazionala deitu dutela astebururako. Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**joango naiz manifarat** (8)

# manifestaria (18 agerraldi, bertzeak bertze, izpuratar andana ederra, Frantxua Maitia-ren inguruan. Herria

**Manifestariak** aintzinean, bertzeak bertze, izpuratar andana ederra, Frantxua Maitia-ren inguruan. Herria

**Manifestariak** iristen hasi ziren, eta ordu laurden batean herri osoa hartua zuten. Josu Zabaleta

**Manifestariak** oihuka eta txistuka ari ziren kaletik. Josu Zabaleta

## manifestaldi (670 agerraldi, 24 liburu eta 407 artikulutan) 1 iz manifestazioa.

Udaletxe aurrean **manifestaldiak** antolatuta eta jende ezagunak bere atxikimendua adierazi die manifestariei. Harkaitz Cano

Euskal-presoen aldeko **manifestaldi** bat eginen da Baionan berean. Herria

**Manifestaldia** egingo dute Iruñean, 11:00etan, San Frantzisko enparantzatik abiatuta. Berria - Ekonomia

Hirizainen arabera, 35.000 lagunek parte hartu dute **manifestaldi** hortan. Herria

Dong gogoratu zen "Skyroom" izeneko altxor arkitekturelaren suntsitzearen kontrako **manifestaldi** batean parte hartu zuela. Ramuntxo Etxeberri

Auto-bonbak izan dira, hauteskundeak, **manifestaldiak**, presoen gose-grebak, baraualdiak, bide-mozketak, ekitaldiak, oihukak, haserreak, deskalifikazioak, dimisio-eskaerak, lantukak, negarrak, malkoak, amorruek... J.M. Olaizola "Txiliku"

**Manifestaldirik** jendetsuena Parisen izan zen. Berria - Harian

Haiti hortan, huna azken ordu huntan **manifestaldi** gaitza izan dela berriki ezarri gobernuaren kontra. Herria

Txomin behin baino gehiagotan ikusi du besta edo **manifestaldi** abertzale batean edo bertzean. Eneko Bidegain

-Orroitzen zara duela zenbait hilabete Baionan iragan zen **manifestaldiaz**. Eneko Bidegain

### 2 (hitz elkartuetan)

Presoak ez dira ahantziak izan, karrika nagusian gaindi **manifestaldi** -ibilaldi bat eginez, heiek gogoan. Herria

· Protesta **manifestaldi** bat egon zen, gero batzorde bat eratu eta ultimatum bat prestatu zuen prefektuari bidaltzeko. Koldo Biguri

Gertaera bitxi bat besterik ez den honetatik haratago, antzinako greba eta protesta erak zaharkituta geratzen ari zaizkigunean, proposamen originala dateke hau botere estableztiuen eta justizia ezaren aurka protesta egiteko: komun-**manifestaldia**. Harkaitz Cano

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldeko manifestaldi (8); kontrako manifestaldi (5); manifestaldi bat egin (19); manifestaldi bat eginen (11); manifestaldi bat gaitza (3); manifestaldi bat izan (8); manifestaldi bat muntatu (3); manifestaldi bat muntatua (4); manifestaldi gaitza (4); manifestaldi handi (22); manifestaldi handi bat (17); manifestaldi haundi (10); manifestaldi haundi bat (7); manifestaldi haundiak (4); manifestaldi ixila (3); manifestaldi jendetsu (7); manifestaldi jendetsu bat (4); manifestaldi jendetsua (10); manifestaldi jendetsua egin (3); manifestaldi jendetsuak (5)

aldeko manifestaldia (5); alimaleko manifestaldia (3); gaitzeko manifestaldia (5); kontrako manifestaldia (7); larunbateko manifestaldia (4); manifestaldia bururatzean (3); manifestaldia egin (8); manifestaldia eginen (3); manifestaldia izan (6); manifestaldia izan da (3); presoen aldeko manifestaldia (3)

aldeko manifestaldiak (4); gaitzeko manifestaldiak (4); kontrako manifestaldiak (3); manifestaldiak egin (6); manifestaldiak izan (15); manifestaldiak izan dira (13)

manifestaldiaren ondotik (4)

manifestaldietan parte hartu (3)

manifestalditik landa (3)

## manifestapen (4 agerraldi, 4 liburutan) iz manifestazioa.

Bilboko **manifestapenean** begia galdu zuen gizona jo zuen tiroaren arduraduna. Hasier Etxeberria

Eta hala segituko genuke **manifestapenekin**, manifestaketekin eta manifestakuntzekin baldin eta Antton Olariagak ez balu Zakilixuten ahotan Diputapenarena umorearen bidez hain ezagun, hain katarikiko egin. Iñigo Aranbarri

## manifestari (501 agerraldi, 10 liburu eta 289 artikulutan) 1 iz manifestazio batean parte hartzen duena.

New Yorkeko *parade* edo desfile guztietan **manifestari** adina polizia izaten da beti. Harkaitz Cano

PKK-ko gudukariaren ehorzketen ostean, borrokak hasi ziren Turkiako Poliziaren eta **manifestari** kurduen artean. Berria - Mundua

Eredu federalari dagokionean, buruzagi eta **manifestari** xiteek gogor errefusatu dute aukera hori. Berria - Mundua

80.000 **manifestari** Parisen. Berria - Ekonomia

3.000 **manifestari** baino gehiago bildu ziren Istanbulean. Berria - Mundua

New Yorken, berriz, milaka **manifestarik** giza-katea egin zuten. Berria - Mundua

Ilunabarrean milaka **manifestari** zeuden PPko egoitza guztien aurrean. Txema Ramirez de la Piscina

Sucren izaniko istiluetan, **manifestari** bat hil da Poliziarekin izaniko enfrontamenduetan. Iñigo Aranbarri

Poliziak gutxienez hiru **manifestari** hil, eta beste 40 bat zauritu zituen, dozena bat larri. ahoren 15.000 **manifestari** inguru atera ziren atzo kalera Mahomaren karikaturen aurka protestatzera. Berria - Mundua

Ertzaintzaren hiru furgoneten zaintzapean egin zuten ibilbidea **manifestariak**. Berria - Euskal Herria

**Manifestariak** eskaria helarazi zioten Max Brisson Hautetsien Kontseiluko Hizkuntza gaietarako arduradunari. Berria - Euskal Herria

### 2 (izenondo gisa)

Bestalde, Amaran, Irakeko Poliziak gutxienez sei langabe **manifestari** hil zituen tiroz. Berria - Mundua

### 3 (hitz elkartuetan)

Etxalde baten desjabetzea eskatzen zuen **manifestari** talde baten kontra tiro eginda. Berria - Mundua

**Manifestari** andana bat ez zen sortua Bidart atxilotu zutenean. Berria - Euskal Herria

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi manifestari hil (4); ehunka manifestari (9); lau manifestari hil (5); manifestari atxilotu (5); manifestari bat hil (5); manifestari bildu (14); manifestari bildu ziren (11); manifestari hil (17); manifestari inguru bildu (3); manifestari kurduen artean (3); mila manifestari (4); milaka manifestari (9); milaka manifestari bildu (3)

bildu ziren manifestariak (3)

oihukatu zuten manifestariak (4)

aldeko manifestarien (3); manifestarien aurka oldartu (5); manifestarien eta poliziaren (4); manifestarien kontra (12); manifestarien kontra tiro (6); poliziaren eta manifestarien (4)

ehunka manifestarik (6); milaka manifestarik (5)

## manifestatu, manifesta, manifestatzen 1 da ad talde batek era antolatuan eta leku agerian iritzi edo nahi bat agertu.

ELA, LAB, EILAS eta EHNE batera **manifestatuko** dira Bilbon. Berria - Ekonomia

Bergaran ere, goizean 100 lagun **manifestatu** ziren, eta iluntzean 250. Berria - Euskal Herria

Milaka erretiratu **manifestatu** dira Frantzian. Berria - Ekonomia

Gasteizen, bezir, bertso inguru **manifestatu** ziren, jai giroan egindako mobilizazioan. **Berria - Euskal Herria**  
350.000 herritar inguru Parisko kaleetan zehar **manifestatu** ziren, CGTk amaieran emandako datuen arabera. **Berria - Ekonomia**  
Milaka pertsona bortxa polizialaren kontra **manifestatu** dira. «Modu baketsuan **manifestatzen** zirenen aurkako erasotzat» jo dute sindikatuok jarrera hori. **Harkaitz Cano**  
Ermuko Foroaren deialdiaren aurka **manifestatzera** deitu dute. **Berria - Euskal Herria**  
**Manifestatzeko** eskubidea bermatzea eta preso politikoak askatzea. **Berria - Mundua**

## • 2 du *ad (nor osagairik gabe) ipar*

Erregaien prezioak azkar emendatu direla salatzeke espainiar estatu guzian laborariek **manifestatu** dute ainitz lekutan, hala nola Euskal Herrian, bideak trabatuz beren kexuaren agertzeko. **Herria**

Gero denek elgarrekin **manifestatu** dugu eguerdiren gainean Bretainiaren batasun administratiboaren alde. **Herria**

Igandean segurik indarrean **manifestatu** dute erreformaren kontrakoek, erranez aseak direla greba horietaz. **Herria**

Bostehun bat manifestatzaile ibili dira karriketan holakoek eta sobietar denborako errepresioen kontra **manifestatu**. Turkian, emazteen zuzenen alde **manifestatzen** zuten 63 lagun zafratu ditu poliziak. "Ogia, ez bonbak" oihukatzen zutela bildu dira **manifestatzeko** berrehun bat mila jende Edimbourg Eskoziako hirian. **Herria**

## • 3 du *ad agertu.*

Susmoa diat azazkal honetan ezkutaturik zegoen zerbait **manifestatzen** hasi dela... **Iñaki Iñurrieta**

**Manifestatzen** zidan adiskidantzak laguntzen zuela. **Piarres Aintziart**

Hori **manifestatu**, historian, jardunean egiten zaigu, forma kultural jakin batzuetan. **Joxe Azurmendi**

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Dago izpiritu (kultura) **manifestatu** sozial historiko bat -herri bakoitzak berea-, izpiritu (nortasun) baten obra bezala interpretatzen dena. **Joxe Azurmendi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**milaka lagun manifestatu** (3)

**manifestatzeko eskubidea** (3)

**manifestatzera deitu** (5); **manifestatzera deitzen** (4)

## manifestatzaile (*19 agerraldi, liburu 1 eta 17 artikulutan; orobat manifestatzale 11 agerraldi, 10 artikulutan, eta manifestazale g.er.*) iz manifestalaria.

Sakabanaketaren aurkako eta Solagurenen omenezko oihuak etengabe egin zituzten **manifestatzaileek**. **Berria - Euskal Herria**

Bakearen aldeko **manifestatzaile** bati. **Bernardo Atxaga**

Bortz ehun **manifestatzale** dira bildu delako plaza hartan, guti batere dudarik gabe. **Herria**

Ez dituzte alabainan aski ontsa eskolatu peko zituzten polizia gizonak, behar zela bakarrik nahasle multxoari buru egin eta ez **manifestatzale** baketsueri. **Herria**

Gure lankidea Nation plaza erdiko lautadan jarria zegoen poliziek bortizki zangopilatu dutelarik, **manifestazaleak** matraka ukaldika jo eta gas negargarri estali aitzin **Berria - Ekonomia**

## manifestatzale ik manifestatzaile.

## manifestatze iz manifestazio.

Hong Kong ugartea [...] **manifestatze** haundi batek (ehun mila jende) inarrosi nahi ukan du, demokrazia egiazko baten deiak eginez, eta bozak galdeginez herriaren berebertasun garbiago nahiz. **Herria**

## manifestazale ik manifestatzaile.

## manifestazio (*3787 agerraldi, 75 liburu eta 1487 artikulutan; orobat manifestazione g.er.*) 1 iz talde batek era antolatuan eta leku agerian iritzi edo nahi bat agertzea. ik manifestaldi.

Elkarretaratze eta **manifestazio** ugari egin zituzten atzo Euskal Herriko herrietan eta hirietan. **Berria - Euskal Herria**

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko sindikatu guztiek **manifestazio** bateratuak egin zituzten hiriburuetan. **Berria - Ekonomia**

14 urteko gaztearen omenez Hondarribian egindako **manifestazio** isilean. **Berria - Euskal Herria**

Seminarioak nazionalista fama zuenez faxistek **manifestazio** bat antolatu zuten haren kontra. **Mikel Hernandez Abaitua**

Gogoia izaten dut batzuetan **manifestazio** bat egiteko. **Karlos Zabala**

**Manifestazio** bat egin behar zenean ere, haiek biltzen zuten jende gehiena. **Juan Kruz Igerabide**

Herriko plazatik bi **manifestazio** abiatzen ziren egunero, bat goizean eta bestea arratsaldean. **Jon Maia**

Garai hartan, jakina, **manifestazio** guztiak ziren baimenik gabeak, eta adorea behar zen kalean ibiltzeko, poliziak modu basatian jokatzeko baitzuen. **Ramon Saizarbitoria**

Hainbat **manifestazio**, elkarretaratze, gose-greba, giza kate e.a. izan dira aldarri horren alde. **Txema Ramirez de la Piscina**

## 2 (izenondokin)

Su-etenetik astebetera, apirilaren batean, **manifestazio** erraldoia egin zen Bilbon gatazkaren konponbidearen alde. **Joseba Zulaika**

Hurrengo egunerako **manifestazio** handia antolatu zen herrian. **Alberto Barandiaren**

Zenbat **manifestazio** nazionalistara joan haiz aspaldian? **Iñigo Aranbarri**

Hego Euskal Herrian, aldiz, elkartasun agerraldiak nagusitu ziren: hautetsien itxialdiak, gose grebak... eta **manifestazio** odoltsuak. **Berria - Euskal Herria**

Ohartu ginen urtean bitan **manifestazio** jendetsua egitea ez zela nahikoa. **Eduarne Elizondo**

Gay eta lesbianen aldeko **manifestazio** koloretsuan parte hartzeko asmotan. **Joan Mari Irigoien**

Faxistek bonbaz eraso zioten **manifestazio** antifaxista bati: zortzi hil eta 94 zauritu eragin zituzten. **Berria - Mundua**

## 3 agerpena.

Iritzi horiek, noski, gizarteko alderdi behartsuenei buruzko klasmismoaren **manifestazio** huts dira, eta ez lukete ardura handirik mereziko baldin eta hain zabalduak ez baleude. **Bernardo Atxaga**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Manifestazio** deialdiarekin bat egin du Batasunak. **Berria - Euskal Herria**

**Manifestazio** eskubidea, adierazpen askatasuna. **Berria - Euskal Herria**

Extebizita Guztiotzat! plataformak **manifestazio** deialdia egin zuen atzoko. **Berria - Euskal Herria**

Alderdi eta dimentsioak pasatu ondoren, **manifestazio** deia. **Berria - Euskal Herria**  
Espainiako Konstituzioak jasotzen dituen eskubideak aldarrikatzen ari zela azaldu zuen, hots, adierazpen eta **manifestazio** askatasuna. **Berria - Euskal Herria**  
Manifestazioak eta alardeak oinarri bera dute: **manifestazio** eskubidea. **Berria - Harian**  
Lehenik eskolak, etorri talde bat antolatzea lortu huelako poza, gero asanbladak, katedraleko gose greba, **manifestazio** andana... **Javi Cillero**  
Jende saldoa **manifestazio** egunean bezala. **Joxan Eloegi**  
**Manifestazio** amaiera heldu arte lau mezu irakurri zituzten. **Berria - Euskal Herria**  
**Manifestazio** amaierako komunikatuan. **Berria - Harian**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**aldeko manifestazio** (22); **antolatutako manifestazio** (5); **aurkako manifestazio** (12); **egin zen manifestazio** (9); **egindako manifestazio** (11); **egindako manifestazio batean** (4); **eginiko manifestazio** (8); **kontrako manifestazio** (8); **manifestazio baketsua** (5); **manifestazio bat antolatu** (12); **manifestazio bat egin** (9); **manifestazio bat egingo** (11); **manifestazio bat egiteko** (5); **manifestazio batean** (35); **manifestazio baten kontra** (4); **manifestazio batera deitu** (5); **manifestazio buruan** (7); **manifestazio erraldoia** (10); **manifestazio erraldoiaren** (4); **manifestazio erraldioen** (4); **manifestazio eskubidea** (5); **manifestazio eta elkarretaratzeko** (4); **manifestazio eta protesta** (6); **manifestazio handi** (8); **manifestazio handi bat** (5); **manifestazio handia** (6); **manifestazio jendetsu** (10); **manifestazio jendetsu bat** (4); **manifestazio jendetsua** (29); **manifestazio jendetsua egin** (13); **manifestazio jendetsuak** (12); **manifestazio jendetsuena** (4); **manifestazio koloretua** (5); **manifestazio nazionala** (15); **manifestazio ugari** (8); **manifestazio ugari egin** (4)

**abiatu zen manifestazioa** (10); **abiatuko da manifestazioa** (5); **aldeko manifestazioa** (29); **aldeko manifestazioa egin** (8); **amaitu zen manifestazioa** (5); **antolatu zuten manifestazioa** (4); **antolatutako manifestazioa** (10); **atzoko manifestazioa** (8); **aurkako manifestazioa** (11); **aurkako manifestazioa egingo** (4); **bihar manifestazioa egingo** (4); **biharko manifestazioa** (7); **bukatu zen manifestazioa** (5); **deitutako manifestazioa** (12); **egin zuten manifestazioa** (19); **egindako manifestazioa** (5); **egingo den manifestazioa** (6); **egingo dute manifestazioa** (13); **eginiko manifestazioa** (4); **gaurko manifestazioa** (6); **hasi zen manifestazioa** (5); **hasiko da manifestazioa** (4); **herritarrek manifestazioa egin** (4); **kontrako manifestazioa** (13); **kontrako manifestazioa egingo** (5); **larunbateko manifestazioa** (6)

**manifestazioa abiatu** (9); **manifestazioa abiatuko** (11); **manifestazioa abiatuko da** (10); **manifestazioa amaitu** (10); **manifestazioa amaitu ostean** (4); **manifestazioa antolatu** (52); **manifestazioa antolatu du** (25); **manifestazioa antolatzeko** (4); **manifestazioa debekatu** (6); **manifestazioa deitu** (8); **manifestazioa deitu dute** (6); **manifestazioa egin** (215); **manifestazioa egin zuten** (169); **manifestazioa eginen** (25); **manifestazioa egingo** (159); **manifestazioa egingo dute** (111); **manifestazioa egitea** (8); **manifestazioa egiteko** (10); **manifestazioa egiten** (8); **manifestazioa eta ekitaldi** (4); **manifestazioa hasi** (7); **manifestazioa iraganen** (4); **manifestazioa iragartzeko** (4); **manifestazioa izan** (11); **manifestazioa izan zen** (5); **manifestazioa izango** (20); **manifestazioa izango da** (19); **manifestazioa jendetsua** (6); **manifestazioa legez kanpokoa** (5)

**nazio manifestazioa** (8); **nazio manifestazioa egingo** (4); **presoen aldeko manifestazioa** (4); **salatzeko manifestazioa egin** (9); **salatzeko manifestazioa egingo** (5)

**aldeko manifestazioak** (7); **aurkako manifestazioak** (13); **kontrako manifestazioak** (11); **larunbateko manifestazioak** (4); **manifestazioak antolatu** (6); **manifestazioak antolatzen** (4); **manifestazioak egin** (38); **manifestazioak egin zituzten** (11); **manifestazioak egingo** (12); **manifestazioak egingo dituzte** (7); **manifestazioak egiten** (17); **manifestazioak eta protestak** (4); **manifestazioak iraun** (4); **manifestazioak izan** (11); **manifestazioak izan ziren** (8)

**abiatuko den manifestazioa** (4); **aldeko manifestazioan** (14); **antolatutako manifestazioan** (9); **atzoko manifestazioan** (10); **aurkako manifestazioan** (9); **biharko manifestazioan** (5); **deituriko manifestazioan** (5); **deitutako manifestazioan** (23); **egin zen manifestazioan** (8); **egindako manifestazioan** (32); **egingo den manifestazioan** (21); **eginiko manifestazioan** (16); **gaurko manifestazioan** (8); **izango den manifestazioan** (5); **kontrako manifestazioan** (11); **larunbateko manifestazioan** (7); **manifestazioan egon** (4); **manifestazioan egongo** (4); **manifestazioan izan** (19); **manifestazioan izan zen** (7); **manifestazioan izan ziren** (8); **manifestazioan izandako** (4); **manifestazioan izango** (13); **manifestazioan izango dela** (4); **manifestazioan izango dira** (4); **manifestazioan parte hartu** (25); **manifestazioan parte hartuko** (10); **manifestazioan parte hartzeko** (46); **manifestazioan parte hartzera** (18); **manifestazioan zehar** (5)

**aldeko manifestazioarekin** (4); **antolatu duen manifestazioarekin** (4); **antolatutako manifestazioarekin** (6); **deitu duen manifestazioarekin** (4); **deitutako manifestazioarekin** (6); **egingo den manifestazioarekin** (14); **egingo duten manifestazioarekin** (5); **gaurko manifestazioarekin** (4); **larunbateko manifestazioarekin** (5); **manifestazioarekin bat egin** (27); **manifestazioarekin bat egiten** (5)

**atzoko manifestazioaren** (4); **deitutako manifestazioaren** (6); **egindako manifestazioaren** (8); **egingo den manifestazioaren** (4); **larunbateko manifestazioaren** (4); **manifestazioaren amaieran** (19); **manifestazioaren antolatzaileek** (7); **manifestazioaren atarian** (5); **manifestazioaren aurka** (7); **manifestazioaren aurretik** (7); **manifestazioaren bukaeran** (9); **manifestazioaren burua** (5); **manifestazioaren buruan** (23); **manifestazioaren harira** (4); **manifestazioaren helburua** (7); **manifestazioaren ibilbidean** (5); **manifestazioaren inguruan** (5); **manifestazioaren leloa** (8); **manifestazioaren ondoren** (19); **manifestazioaren ondorengo** (5); **manifestazioaren ondotik** (4); **manifestazioaren ostean** (11)

**deitutako manifestazioari** (5); **manifestazioari begira** (4)

**aldeko manifestazioetan** (4); **eginiko manifestazioetan** (5); **izan ziren manifestazioetan** (4); **manifestazioetan parte hartzeko** (6)

**manifestazioetara deitu** (4); **manifestazioetara joateko** (6)

**aldeko manifestaziora** (8); **aldeko manifestaziora deitu** (8); **antolatutako manifestaziora** (6); **antolatutako manifestaziora joateko** (4); **aurkako manifestaziora** (6); **deitutako manifestaziora** (4); **eginen den manifestaziora** (4); **egingo den manifestaziora** (9); **gaurko manifestaziora** (6); **larunbateko manifestaziora** (4); **manifestaziora deitu** (113); **manifestaziora deitu du** (47); **manifestaziora deitu dute** (41); **manifestaziora deituko** (4); **manifestaziora deitzeko** (6); **manifestaziora ez joateko** (5); **manifestaziora joan** (5); **manifestaziora joateko** (49); **manifestaziora joateko asmoa** (4); **manifestaziora joateko deia** (30); **manifestaziora joatera** (4)

**egingo den manifestaziorako** (4); **gaurko manifestaziorako** (5); **larunbateko manifestaziorako** (4); **manifestaziorako deia** (40); **manifestaziorako deia egin** (20); **manifestaziorako deialdia** (12); **manifestaziorako deialdia egin** (7)

**manifestaziorik handiena** (6); **manifestaziorik jendetsuena** (7); **manifestaziorik jendetsuena egin** (4)

## manifestazioburu iz manifestazio baten burua.

Txalo artean abiatu zen **manifestazioburua** Bulebarretik, 17: 45ean, Ertzaintzaren sei ibilgailu aurretik zituela. **Berria - Euskal Herria**

## manifestazione ik manifestazio.

## manifestaziozale izond manifestazioen zalea dena.

Eta nik ere ez nuen jakin mereziko zukeen bezala erantzuten, esan bainiezaiokeen, adibidez, bere gizona ere ez zela izan oso **manifestaziozalea**; baina errespetu handiegia nion. **Koro Navarro**

## manifesto ik manifestu.

## manifestu (orobat *manifesto* g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian *manifestu* agertzen da) 1 iz

Euskalgintzak eta euskal gizarteak une honetan duten etsairik handiena ETA dela dio **manifestuak**. **Joxerra Garzia**

Bi **manifestu** izenpetu ditut, eskurik esku eta e-mailez e-mail dabilzanak. **Joxerra Garzia**

Frantziako Ekonomia fakultateetako ikasleek, 2000. urtean, **manifestu** bat atera zuten. **Iñaki Heras**

Musikariek **manifestua** plazaratu zuten Artozkiren alde. **Eduarne Elizondo**

Aberri egunean zabaltzeko **manifestua**. **Rafa Egiguren**

Narratzaile guztiei zuzenduriko kontakizun aske baten aldeko **manifestu** bat idatzi dut. **Anjel Lertxundi**

Alderdi Komunistaren **Manifestua** izeneko aldarri famatuan. **Iñaki Heras**

Adiskidetasunezko gutunak edo **manifestu** publikoak. **Askoren artean**

Gipuzkoako Langile Frontearen **Manifestua**. **Rafa Egiguren**

**Manifestu** moduko bat idatzi zuen: "Le souci des pauvres". **Askoren artean**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Manifestu** zirriborroak prestatzea. **Iñaki Iñurrieta**

Batzu-batzuek, komunikatu edo **manifestu** -eitea eman diote hitz egiteko beren gogoari. **Joxerra Garzia**

## manikear *izlag* manikeoa.

**Manikear** jakintsunak badakizki bereizten onak eta tzarrak. [Piarres Aintziart](#)

**Manikear** moldaeran kristauek nahiz zoroastroarrek berdin gorrotatzen zuten heresiarka. [Iñaki Mendiguren](#)

Dioenez, heretikoa **manikearra** zen. [Askoren artean](#)

## manikeismo 1 *iz* Manes pertsiarraren erlijioa, Ongia eta Gaizkia hatsapen oinarritzko, berdin eta elkarren kontrako, onartzen dituena.

Kristo o. III. mendean Manesek fundatutako sekta dugu **manikeismoa**. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Zerk erakarri zuen Agustin **manikeismoa** imanari bezala hain luzaro berari itsatsita egoteko? [Imanol Unzurrunzaga](#)

**Manikeismoa** deitua kondenatua izana zen Bakateko I. kontzilioaren 5. kapituluaren hitz hauekin: Nehork erran baleza, Manik eta Pszilianok erran zuten bezala, giza arimak eta aingeruak Jainkoaren substantziatik datozela, hura bera anatema izan dadila! [Piarres Xarriton](#)

## 2 ongi hutsaren eta gaizki hutsaren artean banatzen den mundu ikuskera.

**Manikeismoz** bateriko ongiaren eta gaizkiaren arteko bereizketan. [Askoren artean](#)

Nola saihestu duzu **manikeismoa**? [Berria - Kultura](#)

Ez du **manikeismoan** erori nahi izan, Drake pertsonaiaren rola erabat positiboa bada ere. [Berria - Kultura](#)

Cortazarrengan ez dago **manikeismorik**: bere munduak lotuta daude denak, eta hori deserosoa da. [Berria - Kultura](#)

## manikeista 1 *iz* manikeoa.

Eta halaz, euskararen biziraunarazteko bide berriak zulatzeraz behartua izanzen zara, gerla goraiatzeko duen borrokaren ideologia **manikeistatik** hara. [Itxaro Borda](#)

Hori arrazoitzerakoan, emendakinen egileak «**manikeistatzat**» jotzen ditu kapituluok eta «ezker eta abertzaletasunaren parametroetatik politika egiteko beste zenbait ekimen gutxietsi» egiten direla uste du. [Berria - Ekonomia](#)

## manikeo 1 *iz* manikeismoaren jarraitzailea.

Era guztietako doktrina ugariarekin egin zuen topo [Agustinek] Cartagon, auziengandik hasi eta **manikeoenganaino**, denak nor bereztatzen Egia monopolizatu nahian. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Fausto, **manikeoen** buruetariko bat, Cartagon izan zen sasoi hartan sektakideen atxikimendua sendotu nahian. - Arrazoiz diote **manikeoek** gaitza naturaren kontrakoa dela. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Bekatuak ez du Jaungoikoarengan eraginik, **manikeoek** uste dutenaren kontra. [Imanol Unzurrunzaga](#)

## 2 *izond* manikeismoari dagokiona, manikeismoan oinarritzen dena.

Adiskide **manikeo** ugariarekin elkartzeko [Agustin], baina bere espiritua haiengandik urrun zebilen. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Sekta **manikeoaren** doktrina materialistari. [Imanol Unzurrunzaga](#)

## 3 irud/hed

Mentalitate alternatibista edo **manikeoaren** propioa izaten da, errealtate osoa bi poloren arteko oposizio eta borroka bezala ikustea (Jainkoa/Deabrua, Ongia/Gaizkia).

[Joxe Azurmendi](#)

Liburua **manikeoa** da: Ongia, Renan, Frantzia, Ilustrazioa, Arrazoa, Unibertsaltasuna versus Gaizkia, Herder, Alemania, Erromantizismoa, Bihotza, Nazionalismoa.

[Markos Zapiain](#)

Ikuspuntu **manikeo** merkea baztertu eta paradoxazko enigman sartzeraz. [Markos Zapiain](#)

Mundua **manikeo** bihurtu zen, eta Bigarren Mundu Gerratik ateratako herri indartsuen agintariek onen eta txarren artean bereizten zituzten gizarte osoak, geopolitikaren ikuspuntutik non kokatzen den bakoitza. [Pello Salaburu](#)

## maniki *iz* giza itxurako irudia, jantziak erakusteko erabiltzen dena.

Gure amak **manikiak** zituen bere jostundegian, baina ez horrelakoak, baizik bustoa eta bularra baino ez zituztenak. [Pello Lizarralde](#)

Eskaparateetako plastikozko **maniki** horietako bat. [Jasone Osoro](#)

Hasiera batean gizonak manipulatu egiten dituzten neska bien gorputzak, **manikiak** balira bezala. [Berria - Kultura](#)

**Maniki** bizidunak: horixe besterik ez gara eurentzat. [Lopez de Arana](#)

Senar eta senargaiok irudi apaingarriak baizik ez ginen han, eskaparateko **manikiak** baino gehiago ez, behinik behin. [Joxean Agirre](#)

Kubertan, bere uniforme zuriaarekin marinerito **manikia** dirudiela. [Joseba Sarrionandia](#)

## manikura 1 *iz* eskuen eta azazkalen arta.

Akabo **manikura**, UVA izpiak eta prestaturiko diskurtsoak oro. [Jon Alonso](#)

**Manikura** egiten zuen neska ilehoriak betileak errimel apur batez apaindurik zituen. [Lopez de Arana](#)

-Zaindu esku horiek, egizu **manikura** -esan zion-. [Patxi Zubizarreta](#)

Nik **manikurako** kutxatilarik ez nuela erabili erantzun nion. [Josu Zabaleta](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

Hau da, **manikura** ikastaroa egina nintzen gau-eskolan, baina eskuko marrak irakurtzen jakitea zen gehiena hartan guztian. [Joxan Elozegi](#)

## manilar ik manillar.

## manilla *iz* bi bikoteren artean jokatzen den karta-jokoa, sail bakoitzean gehien balio duen karta bederatzikoa dena.

Hemen nago, **manillako** jokalariren bigarren berrak bizi naiz, kantaz ari den beltz bati entzuten, kanpoan gau ahula harat-honat dabilen bitartean. [Monika Etxebarria](#)

## manillar (*orobat manilar*) *iz* eskulekua, gidoina.

Maniobra jarrita eragin zituen esperimtuak: ipurdia **manillarrean** jarri, sillin isplua, eta aldapan gora. **Xabier Etxabe**  
Guardabarroak kendu eta **manillarra** aurrerantz ipintzen egon zen atarian. **Joseba Sarrionandia**  
Espaloian, Fonsecak oparitutako motozikleta zegoen, fardelarenaren antzeko txibista batez edertuta **manillarra**. **Josu Landa**

## maniobra *(orobat maliobra g.er. eta malobra g.er.)* 1 iz helburu bat lortzeko, eta bereziki makina edo ibilgailu bat gidatzeko, gauzatzen diren ekintzak.

Orbela biltzen ari zen furgoneta batek **maniobra** bat egiteko atzera egin, eta [...] oinezko bat harrapatu zuen. **Berria - Euskal Herria**  
Atrakatzeko **maniobrak** iraun zuen tartean ontziburuak ez zion aldarri egiteari utzi. **Edorta Jimenez**  
Queen Maryk nasatik askatzeko **maniobrari** ekin dio. **Edorta Jimenez**  
Moilara hurreratzeko **maniobra**. **Edorta Jimenez**  
Han baitzebilten Joanes, **maniobrak** aldarrika agintzen. **Edorta Jimenez**  
Hala da ze, ibaiko zokondo batean **maniobra** txarra egin eta non iraultzen den bateltxo. **Edorta Jimenez**  
Izotzlausleak **maniobrak** egin beharko ditu beste bide bat zabaltzeko. **Joseba Sarrionandia**  
Orbitan sartzeko **maniobrak**. **Berria - Gaiak**  
Artizarreko orbitan jartzeko **maniobrak** ondo egin ditu 'Venus Express' zundak. **Berria - Gaiak**  
Smart-1' zundak goizaldean abiatu ditu **maniobrak**, satelitetik 300 kilometrora hurbiltzeko. **Berria - Gaiak**  
Discovery ontzia Alfa modulura hurbiltzeko **maniobra** egiten ari zela, [...]. **Patxi Iturritegi**  
Sindikatuaren batasuna apurtzeko eta Adegiren tesira hurbiltzeko **maniobra**. **Berria - Ekonomia**  
Huts bat izan zen, ala nahasteko **maniobra** bat? **Berria - Harian**

## 2 (izenondoekin)

Errepideetan egiten den **maniobrarik** arrisksuena da aurreratzea. **Berria - Gaiak**  
Sekula ez zuen atzerako martxa ibiltzen ikasi eta guztiz **maniobra** arrisksua zela zioen. **Bego Montorio**  
Hondarribia segundo eta erdiko tartearekin nagusitu zen, bigarren ziabogan Urdaibaik egin zuen **maniobra** txarra medio. **Berria - Kirola**  
Onartezina da XXI. mendean armadak **maniobra** militarrek herrietan egitea. *ik beherago* 5. **Berria - Euskal Herria**  
Ipar Atlantikoko **maniobra** militarrek bertan behera uzteko eskatu zuten. **Patxi Iturritegi**  
Udalak, halaber, **maniobra** militarrek bertan behera gera daitezen bere esku dagoena egiteko asmoa agertu du. **Berria - Euskal Herria**  
**Maniobra** politiko berbera ikaragarri arrakastatsua izan zen beste barbaro batzuek zertu zutenean. **Iñaki Mendiguren**  
Tamaruk eta bere jarraitzaileek Frantziari «**maniobra** ilunen bidez» hura agintetik kentzea leporatu zion. **Berria - Mundua**  
EAEko Lehendakartzako iturriek «nahasmena eragiteko **maniobra** patetikotzat» jo zuten CNlren agiriaren filtrazioa. **Berria - Euskal Herria**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kutuzov luzaroan ahalegindua zen irudikatzen zer **maniobra** -aukera zituen Napoleonek. hiritik kanpora baina **maniobra** -zelaietan. **Juan Garzia**  
Barbaroak, bere erretiradan, **maniobra** -eremu mugagabea ireki duenean, [...]. **Iñaki Mendiguren**  
Enpresek azaldu dute beraien aurrekontu-saila oso mugatua dela eta ez dutela **maniobra** -marjinik. **Berria - Ekonomia**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aurreratze **maniobraren** zinematika. **Berria - Gaiak**  
Zenbait ataletan sakabanatzen, hesi- **maniobra** bati ekiteko. **Juan Garzia**  
Hainbat luzamendu **maniobra**. **Berria - Euskal Herria**  
Palestinarrek eta zenbait israeldarrek «hauteskunde **maniobra**» iritzi diote Olmertek Jerikoko kartzelari eraso izanari... **Berria - Mundua**

## 5 p/ maniobra militarrek. ik beherago 6.

Herriko alkate Alberto Erdozain, hala ere, «haserre» agertu da Espainiako Armadak erakutsitako jarrerarekin, eta iragarritako **maniobrak** «okupazio militartzat» jo ditu. **Berria - Euskal Herria**  
Espainiako armada atzo ailegatu zen Orbaizetara **maniobrak** egitera. **Berria - Euskal Herria**  
Militarrek **maniobrak** egiteko asmoarekin aurrera jarraitzen omen dute. **Berria - Euskal Herria**  
Espainiako Armadako paraxutistek **maniobrak** egingo dituzte Euskal Herrian datorren astean. **Berria - Euskal Herria**  
NATOok udan **maniobrak** egin ondoren, zifioak agertu ziren hiliik Kanarietan irailean. **Berria - Gaiak**  
Espainiako Armadako hegazkinak **maniobrak** egin zituzten Bardean duela hilabete inguru. **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**maniobra egin** (5); **maniobra egiten** (8); **maniobra militarrek** (21); **maniobra politikoa** (3); **maniobra zakar** (3)  
**maniobrak egin** (6); **maniobrak egiteko** (4); **maniobrak egiten** (14); **orbitan jartzeko maniobrak** (3)

## maniobraturu iz tren geltoki batean egiten diren maniobren buru den pertsona.

Hubi?cka **maniobraturuak** hankak telegrafoaren mahai gainean zituen, besoak antxumaturik, kokotsa bularraren kontra, lotan. Geltokiko burua altxatu eta leihotik [...] nasa aldera begiratu zuen, **maniobraturua** han baitzen. **Fernando Rey**  
Hubi?cka **maniobraturuak** trenen ordutegiaren grafikoak atera zituen. **Fernando Rey**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**maniobraturu jauna** (4)

## maniobrari iz tren geltoki batean, maniobrak egiten duen pertsona.

Gorputza lozorroan dago, baina bada zerbait **maniobrariaren** buruan esna dagoena. **Fernando Rey**  
**Maniobrari** on batek sarrerako semaforoa jarri eta lokartu egiten da. **Fernando Rey**  
Telegrafoak jo eta **maniobrari** on bat segituan altxatzen da, aparatua palankatzea askatu, bere geltokiaren adierazgarria emandakoan berriz eseri eta lozorroan gelditzen da, baina telegrafoaren zinta zurian mezua bukatzen denean, **maniobraria** esnatu egiten da, hartu izanaren seinalea eman eta telegrafoaren giltzarekin geltokiaren adierazgarria ematen du, eta aparatua gelditu egiten da eta **maniobraria** berriz eseri eta lotan segitzen du. **Fernando Rey**  
**Maniobraria** esnatu eta seinalea aldatzen du. **Fernando Rey**

## maniobrarigai iz maniobrari izateko prestatzen ari den pertsona.

-Milo?s Hrma **maniobrarigaia** berriz zuen agindura! -esan nuen. **Fernando Rey**



# maniobratu *(orobat maliobratu g.er.)* du *ad* zerbaiteko maniobra edo maniobrak egin.

Zeren eta haizea hirugarren eta laugarren koadranteetakoia izanez gero gaitz egiten baita belak **maniobratzea**. **Edorta Jimenez**

Roulotte bat, zakar **maniobratuz** gure furgoneta aurreratzen ikusi dugu, eta haren gidariak gelditzeko imintzioa egiten zigula leihatilatik besoa atereaz. **Patxi Zubizarreta**

Arando Aundiko puntan zeuden, abaor **maliobratu** zuen pilotuak eta apur bateko alditxoan kanoa trebes geratu zen. **Koldo Izagirre**

Zailago da **maniobratzea** ahula zarenean, aurreko urteetan arma franko eskuratu ondoren. atzo, 14:30ean, lau garabiren bidez 270 tonako pieza metaliko bat **maniobratzen** ari zirenean, garabietako batek ezin izan zion pisuari eutsi, eta altzairuzko egitura lurrera erori zen. **Berria - Mundua**

## manipulagarri *izond* manipula daitekeena.

Gauza horiek oso delikatuak eta **manipulagarriak** dira, eta egin baino lehen, aurretik atera behar dira kontuak. **Berria - Euskal Herria**

Irudiak **manipulagarriak** izan daitezke. **Josu Zabaleta**

Begi-bistakoak eta **manipulagarriak** diren zeinu horiek. **Xabier Arregi**

## manipulagarritasun *iz* manipulagarria denaren nolakotasuna.

**Manipulagarritasunari** dagokion irizpideak eusten dio irudi ukiezinarean aldean, irudi proiektatuaren sailean: bideo-irudia manipulatu ahal izateko haren produkzioaren aurreko aldietan behar da esku hartu. **Josu Zabaleta**

## manipularazi, manipularaz, manipularazten du *ad* manipulatzera behartu.

Staline **manipularazi** egiten zituen argazkiak etsai politikoak aldamenetik ere ezabatzeko. **Iñigo Aranbarri**

## manipulatu, manipula, manipulatzten **1** du *ad* eskuekin edo lanabes baten bidez aritu. **ikeskuztatu**.

Hildakoaren ordenagailua norbaitek **manipulatu** zuela. **Aingeru Epaltza**

Nanoteknologiak erakusten digu atomoak **manipulatu** daitezkeela, baina ez gara gai manipulatzeko horren ondorioak ikusteko. **Pello Salaburu**

### 2 irud/hed

Gauza beldurgarriak gertatu izan direla aztiak denbora **manipulatu** dutenean. **Iñaki Mendiguren**

Bideo-irudia **manipulatu** ahal izateko. **Josu Zabaleta**

Halaxe gertatuko litzateke, nolana ere, dirupolitika berariak hedakor batek truke-tasa **manipulatuko** ez balu. **Koro Navarro**

Genetikoki **manipulatutako** produktuek. **Berria - Gaiak**

### 3 zerbaiten gainean aritu hura desitxuratzeko.

Nafarroako Gobernuak eta bere aldeko komunikabideek erabat **manipulatu** zuten gertatutako guztia. **Eduarne Elizondo**

Informazioa ebatsi dute, iritzia **manipulatu** dute. **Txema Ramirez de la Piscina**

Bere curriculum **manipulatu** duela leporatzen diote. **Patxi Iturritegi**

Ekintzaileek islama **manipulatu** zutela salatu zuen atzo. **Berria - Harian**

### 4 (pertsanak)

Berriz ere bere gogara **manipulatua** zukeen horrenbestez Grosrouvrek Ruche jauna. **Jon Muñoz**

Otegik **manipulatu** egin gaituela diote. **Berria - Euskal Herria**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Fikzio autonomoa bistan dena, zure abileziak ez bailuke fikzio **manipulaturik** onartuko. **Itxaro Borda**

Ez dakigu, halaber, baliatzen duen informazioa iturri **manipulatuetatik** edo iturri egokietatik jasotzen duen erakunde horrek. **Berria - Euskal Herria**

Gertatutakoaren inguruko bertsio **manipulatuak** zabaldu dituzte bai EBK bai Errusiak. **Berria - Mundua**

Informazio gutxi daukagu, eta, gainera, informazio interesatua eta **manipulatu** da. **Luis Elberdin**

Sentimendu naturalaren eta antzezpen **manipulatuaren** arteko tenka eta nahitaezko lotura. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Delako **Abrégé** haren laburpen eroso eta,aldi berean, **manipulatuaren** itzulpena argitaratu zuen. **Santiago Iruretagoiena**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**datuak manipulatu** (3); **frogak manipulatu** (4)

**manipulatu dagoela** (3); **manipulatu izan** (5)

**iturri manipulatuetatik** (3)

**manipulatuta dagoela** (3)

**manipulatzea egotzi** (5)

**errealitatea manipulatzten** (3)

## manipulatzaile **1** *izond* manipulatzten duena.

Politiko **manipulatzaileak** eta hedabideetako demagogo profesionalak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Idazle merkea eta **manipulatzaile** nazkagarria iruditzen zitzaiolako txekiar frantziartua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Oso pertsona **manipulatzailea** eta xantaiagilea da; hain da **manipulatzaile** fina ezen kanpotik ezin daitekeen sumatu ere egin. **Berria - Mundua**

Erredakzioko Kontseiluak kritikatu egin du ildo editoriala, **manipulatzailetzat** joz. **Berria - Mundua**

Kanpaina zikina, demagogikoa eta **manipulatzailea** izan da. **Berria - Euskal Herria**

Lanbide honetan strip-tease dantzariaren pose ustel eta **manipulatzaileak** ez dira aski. **Patxi Iturritegi**

### 2 zerbait manipulatzten duen pertsona.

Angel Arbe «estereotipoen **manipulatzailea**» da, topikoa ironiaz aldarazteko gai. **Berria - Kultura**

Egitura horretan, kapitalaren jabetzak garrantzi gutxiago du, proiektu konplexuak bideratzeko, sinboloen **manipulatzaileen** [...] ezagutzak baliatzeko eta konbinatzeko ahalmenak baino. **Koro Navarro**

**Manipulatzaile** zikin bat haiz, esan zidan, txerazko barrezuria doi. **Iñigo Aranbarri**

## manipulatze **1** *iz* eskuekin edo lanabes baten bidez aritzea.

Nanoteknologiak erakusten digu atomoak manipulatu daitezkeela, baina ez gara gai **manipulatze** horren ondorioak ikusteko. **Pello Salaburu**

**Manipulatze** laster bat, hezur baten klika. **Koro Navarro**

## 2 zerbaiten gainean aritu hura desitxuratzeko.

Hauak akusatzen dute podorea ainitz jukutria eta **manipulazeren** bidez dituela bere parrak pasatzen gobernua bozetan eta beste. **Herria**

## manipulazio *(orobat manipulazione g.er.) 1 iz* manipulatzeara.

Landareen **manipulazio** genetikoak, giza-ugaltze teknika berriak. Ezinbesteko tresna bihurtu da iritzi publikoa sortu eta bideratzeko hedabideen kontrola eta berrien **manipulazioa**. **Berria - Gaiak**

Irakeko gerran kazetari iparamerikarrek sortutako **manipulazioa** eta desinformazioa. **Berria - Kultura**

Zintotasunetik **manipulazioa**, galdera handi batean barrena. **Iñigo Aranbarri**

Fotogramak duen izaera fisiko ukigarriak beste **manipulazio** batzuetarako ematen du aukera. **Josu Zabaleta**

Ordenagailuaren **manipulazioa**. **Aingeru Epaltza**

Diruaren **manipulazioa** oso bide praktikoa zela zorrak murrizteko eta ordainketa-bitartekoan urritasuna arintzeko. **Koro Navarro**

Konfiantzari buruzko inkestean **manipulazioa**. **Iñaki Heras**

**Manipulazio** ortografikoa, esan gabe doa, artearen mailara iritsi daiteke. **Iñigo Aranbarri**

Kulturaren **manipulazio** folklorikoaren kontrako jarrera. **Berria - Kultura**

Egia-erdiz eta gezur t'erdiz egindako **manipulazio** zakarra, Euskal Unibertsitatea ez ezik Euskal Unibertsio osoa kakazteko propio asmatua. **Joxerra Garzia**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beste **manipulazio** mota garrantzitsu bat zentsura da. Apaiz eta fraideen artean hainbeste urte pasa dituenak oso ongi garatuak eta zorroztuak izaten ditu **manipulazio**-saio bati antzemateko antenak. **Berria - Kultura**

Esan behar da gisa horretako "irakurketa" edo **manipulazio** jardueretan tradizio itzela duten zenbait herrialde latino nabarmendu zela bereziki. **Iñaki Heras**

190 hil, 1500eko bat zauritu, eta ezin sinetsizko **manipulazio** jukutria bat, Alderdi Popularraren ganik, lau egunen buruan gobernuko alkitik erortzeraino. **Herria**

Horrek askoz zailagoa egiten dio PPri bere **manipulazio** kanpaina. **Berria - Harian**

Lekukoan testigantzak ohi bezala interpretatuta eta ohiko **manipulazio** teknikekin. **Berria - Mundua**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskafandra-**manipulazioan** harrapatu zutela pentsatu zuen. **Unai Elorriaga**

Moneta **manipulazioa** eta bere ondorioak. **Xabier Arregi**

Gezuraren gerizpeko aburu-**manipulazioa**. **Itxaro Borda**

Noiztenka, populazio zati baten aburu **manipulazioak** salatzeak, kritikak aditzen dira. **Itxaro Borda**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egindako manipulazio** (3); **manipulazio informatiboa** (3); **manipulazio politikoa** (3); **manipulazio politikoak** (3); **manipulazio saio** (4); **ppren manipulazio** (4)

## manipulazione ik manipulazio.

## manito *iz (deiki gisa)*

Berak beti izan zaituela nahiago berresteko balio zuten aurrekari bila hasi nintzen, **manito**, hirurok elkarrekin igaro ditugun uneak patetikoki distorsionatuz eta, nire kalterako, gu bion arteko konparazio morbosoa eginez. **Eider Rodriguez**

Adiorik ez, **manito**. **Eider Rodriguez**

## maniura *iz* musika tresna zaharra, zitararen antzekoa.

Eta Nafarroako harpa edo **maniura**? Iruñeko kortean entzuten zena jadanik 1407-an, orduko paper zahar batzu lekuko... **Herria**

## manjatera *(corpusean mañatera soilik) iz* aska.

Zuberoako azken hartza arditegi batera hurbildu zen; han **mañaderan** ardieri emana zen gatza dastatu nahiz zebilen. **Herria**

## manka *iz*

Kolore arrosa eta laranja fluoresenteko besaulkiak, 60 ko urteetakoak, **manka** hankadunak, *copie Knoll garantie*, diseinu eskandinaviarreko platerak, plater hegalarien itxurako hautsontziak. **Joxan Elozegi**

## mankatu, manda, mankatzen da/du ad ahuldu, nekatu.

Balda-balda eginda, birrikak itota neuzkan; giharrik ezkutuena ere, **mankatuta**. **Anjel Lertxundi**

Ezin nuen gerriaren tentsioa sentitu, **mankatuta** neuzkan gorputz-atal guztiak. **Anjel Lertxundi**

Gorputza hotzez **mankatua** balu bezala mugitzen zituen besoak, eskuak, hatzak. **Anjel Lertxundi**

## mankazio *iz* mankatzea.

Esnatu nintzanean, ilun zen eta askoz ere hobeto nengoen, burua arinago nuela eta gorputz-ataletako **mankaziorik** gabe. **Anjel Lertxundi**

## manko ik manga<sup>1</sup> 2.

## mankomun *iz* komuna.

## mankomunitate 1 iz herri elkargoa; hiri elkargoa. ik herri 13; hiri 9.

Madril eta Bilboko Auzitegi Gorenek UEMA Udal Euskaldunen **Mankomunitatearen** kontrako erabakiak argitaratu dituzte. **Hasier Etxeberria**

Administrazioaren bitartekaritza eskatu zuten ere Iruñerriko **Mankomunitateko** independenteek. **Berria - Ekonomia**

Sakanako **Mankomunitatearen** eskutik Sakanako helduen bertso eskola sortu zen. **Berria - Kultura**

Deba Goienako **Mankomunitateari** «hamar mila herritarrek eta Legebiltzarreko alderdi politikoek gehiengoak esandakoari so egin eta eztabaida publikoa bultzatzeko» eskatu zion EHNEK. **Berria - Ekonomia**

San Markos **Mankomunitateko** presidenteak. **Berria - Harian**

Gipuzkoako zortzi **mankomunitatetako** ordezkariak. **Berria - Euskal Herria**

2004ko uztailaren 19an erabaki zuten Gipuzkoako zazpi **mankomunitateek** eta Foru Aldundiak Gipuzkoako zaborrak tratatzeko bigarren errauste planta Donostiako Ariztetan egitea. **Berria - Harian**

Frantziako Albertville herriko alkateari eta **mankomunitateko** jereenteari espetxe zigorra ezarri diete, herrian zegoen errauste plantan isuri arazoak izan zirelako. **Berria - Euskal Herria**

Euskal Udal Intsumisoen **Mankomunitatea** (Eudima) osatzen duten udalerriek gogor salatu dituzte Espainiako Armadaren soldaduek egunotan egin dituzten maniobrak. **Berria - Euskal Herria**

## 2 elkargoa.

Aspaldiko partez gure hiriko Uren **Mankomunitateko** langilea bainaiz. **Josetxo Azkona**

Bortzirietako Euskara **Mankomunitateak** bere herrietako karraketan egin duen euskararen neurketaren emaitzak jakinaraziak izan dira. **Herria**

## 3 mankomunitatean adlag

Lurralde horren jabe ziren, **mankomunitatean**, Baigorri, Luzaide, Erro eta Baztango baleak, haiek zituzten lekuko mozkinen baliatzeko arauak finkatzen, nolako baldintzetan ziren herri horietako behiak, ardiak eta zerriak bazketara joaiten, norainoko egur egiteko dretxoak zuten. **Michel Oronoz**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mankomunitatea osatzen duten** (3); **san markos mankomunitatea** (6); **udalerrri euskaldunen mankomunitatea** (5)

**erriko mankomunitateak** (15); **euskara mankomunitateak** (3); **iruñ san markos mankomunitateak** (14); **san markoseko mankomunitateak** (4); **txingudiko mankomunitateak** (20)

**txingudiko mankomunitatean** (4)

**san markos mankomunitatearen** (6); **txingudiko mankomunitatearen** (3)

**erriko mankomunitateari** (3); **iruñ san markos mankomunitateari** (4)

**erriko mankomunitateko** (7); **erriko mankomunitateko presidente** (3); **iruñ iruñ mankomunitateko lehendakari** (4); **mankomunitateko lehendakariorde** (4); **mankomunitateko presidente** (13); **mankomunitateko presidenteak** (5); **sakanako mankomunitateko** (7); **san markos mankomunitateko** (14); **san markoseko mankomunitateko** (4); **txingudiko mankomunitateko** (4)

## mankuts ik manga<sup>1</sup> 2.

## manomanista 1 iz esku huskako txapelketa.

Ilusio handia egiten dit **manomanista** nagusia jokatzeko. **Berria - Kirola**

Aritz Berraondok eta Enrike Galarzak Bigarren Mailako **Manomanistaren** finala jokatu dute bihar. **Berria - Kirola**

Hasieran urduri samar ibili nintzen, lehenengoz aritu naizelako aurten **manomanistan**. **Berria - Kirola**

2004ko **manomanistaren** antolatzaileek izan dituzten irizpideak direla medio. **Berria - Kirola**

Ekainaren 6an, **Manomanistako** finala jokatu du. **Berria - Kirola**

**Manomanistako** partida klasikoa izan zen. **Berria - Kirola**

Agoizko aurrelariak hiru aldiz **manomanistako** txapeldun bihurtu zuten bertuteak aiereratu zituen Tolosan. **Berria - Kirola**

Duela urtebete **manomanistako** txapela jotzen zenuen sari nagusitzat; sari hori eskura duzu. **Berria - Kirola**

Aurtengo **Manomanistan** aritzeko ia aukerarik gabe gelditu dela Ruben Beloki. **Berria - Kirola**

Zer moduz ikusten duzu zure burua **Manomanistan**? **Berria - Kirola**

Bai **manomanistan** bai kaiolan Iberoko pilotariak ortodoxiarekin apurtuz lotu du arrakasta. **Berria - Kirola**

## 2 iz esku huskakoa jokatzeko duen piloaria, esku huskaria.

Iñigo Leiza **manomanista** petoa baita. **Berria - Kirola**

Katalanak **manomanista** bizkorrek direla ezin uka. **Berria - Kirola**

Bitartean, hemen gaude planta ederreko **manomanistak**. **Berria - Kirola**

Zalaparta bai kantxan, mugitu bai, atzera eta aurrera, baina **manomanista** baldarren moduan, beti deskolokatuta. **Berria - Kirola**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**manomanista petoa** (3)

**aurtengo manomanistako** (3); **manomanistako finalerdiak** (3); **manomanistako txapela** (4)

## manometro iz isurkari edo gas baten presioa neurtzeko erabiltzen den tresna.

Termometro eta **manometroen** koadranteak ez zeuden graduaturik: kolorezko zeinu konbentzional batzuk besterik ez zeramaten. **Juan Garzia**

## manopla iz eskuzorroa.

Nork janzen ditu gaur egun **manoplak**, eskuetako lo-zaku zurrun horiek? **Harkaitz Cano**

Eskuak itsas-zakurren hegalean gisan antzaldatzen zizkiguten **manopla** gogaikarriak. **Harkaitz Cano**

Enterradoreek, etxera bila etorri zirenek, lanazko **manopla** lodiak zituzten eta hala ere bi eskuakin gorputzean txapaka egin behar zuten pixka bat berotzeko. **Matías Mújica**

## manpara iz trenkada, pantaila.

**Manpara** batek bereizten duen egongo sukalde txiki batetik.  Migel Angel Mintegi  
Aita bere behinokako bulegoan bainatzen da, ama sukaldean, **manpara** batean atzean.  Josu Zabaleta  
Bainugelako zorua, dutxako **manparak**, bideta eta, baita ispilua bera ere.  Josetxo Azkona  
Elkarrekin dutxatu ziren, estu-estu **manpara** gardenek uzten zuten txokotxoan.  Sonia Gonzalez  
Bilboko taxieta **manparak** jartzeko 500 euroko diru laguntza emango dio Udalak langile bakoitzari.  Berria - Euskal Herria  
**Manparena** baino burdin-sarearen antz handiagoa zuten sarezko **manpara** batzuek konpartimendu bitxiak marrazten zituzten sala honetan.  Koldo Izagirre  
Harriesietako gerrikoa egunez eta gauez zelatatzeko, eta ez bakarrik ateak, baizik eta zokorik ezkutenak, **manpararena** egin zezaketen angelu irisgaitzak, baita itsasoaren aurrean ere.  Jon Alonso

## manparadun *izond* manparaz hornitua.

London taxirik ez da egongo gure hiriburuetakoko kaleetan, baina bai taxi **manparadunak**.  Berria - Euskal Herria

## mansio (*orobat mansino*) iz etxandia.

**Mansio** aristokratiko handiak, arranditsuak batzuk, umilagoak beste batzuk, baina hotzak denak.  Joseba Sarrionandia  
Fraga Iribarneren amak gaztetan Ibarra familiak Bizkaian zuen **mansioan** lan egin zuela eta bere jabeak haurdun utzi zuela.  Berria - Harian  
Miami, ostera, inferioridade kokoa sartzen ei jakon: transatlantikoak, hotel itzelak, egundoko **mantsinoak**, hotelerako joan-etorriak yate itzelean.  Xabier Amuriza

## manso ik mantso.

## manta iz 1 tapakia, burusia.

**Manta** baten gainean etzanda, pasilloan zaude berriro.  Rafa Egiguren  
Izara, **manta** eta edredoiaren pisua itogarria da.  Sonia Gonzalez  
Ziegan hotza sentitzen nuenez, **manta** batekin estaltzen nintzen tanga eta sujetadore hutsean nengoelako.  Berria - Euskal Herria  
Ez zen jakiterik izan, gizona **manta** batez estalita eraman zutelako.  Berria - Euskal Herria  
Madrilera iritsi eta galdeketerik egin gabe **manta** batean bildu eta biraka ibili zutela, eta ostikoak eta kolpeak eman zizkiotela buruan, gorputzean eta barrabiletan.  Berria - Euskal Herria  
Halaber, 106 tona botika, 48 tona arropa, 18.760 kanpadenda eta 168.870 **manta** banatu dituzte.  Berria - Mundua  
Ohe gaineko burusi grisak soldaduek mando gainean jartzen dituzten **manten** antz handia du.  Anjel Lertxundi  
*ik beherago* 5.  Askoren artean  
**Manta** baten azpian gorderik zituen bi gazta eder atera zituen behizainak.  Anjel Lertxundi  
-Bota iezaiozue **manta** bat gainetik, arren.  Harkaitz Cano  
Burdiko bat, **manta** erdi bat, nabarra.  Marzel Etxehandi  
-Badugu nahiko **manta** eta egur -esan nion.  Xabier Mendiguren Elizegi  
Birtartean aldirietatik etorritako jende zarpailak apartamentuen, **manten** eta soinekoen jabe egiten ari dira.  Felipe Juaristi

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Loreen artean hiru gorpu **manta** nabarren azpian, aurpegia has, gizonetzkoak.  Koldo Izagirre  
Koltxoi modura **manta** zahar batzuk jarri zituen azpian.  Jon Maia  
Zementuzko ohearen gaineko koltxoi gogorrean etzanda zaude **manta** zikin baten azpian.  Rafa Egiguren  
Sofan etzanik, ur beroaren poltsarekin **manta** eskoziar batean bilduta.  Fernando Rey  
Koadrozko **manta** belauenen gainean pausatzen duenean.  Alberto Barandiaren  
**Manta** koadrodun batean bil-bil eginda zegoen.  Xabier Mendiguren Elizegi  
Koadro eskoziarreko **manta** ere prest zeukan.  Unai Iturriaga  
Gizajo bat, horixe, zimitzek hartutako **manta** zahar latz batean bilduta.  Anjel Lertxundi  
Ohean sartu naiz **manta** lakarren artera.  Koldo Izagirre  
Belaun-ondoak, laukidun **manta** gorribeltz batez estaliak.  Anjel Lertxundi  
Artilezko **manta** bat, kotoizko oihala.  Anton Garikano  
Pentsatu zuen gainean zuen elur-kapa **manta** epel bat zela.  Julen Gabiria  
Valentinak latexezko goanteak jantzi, goiko **manta** apartatu zuen usain gogorrari kasurik egin gabe.  Jon Alonso

## 3 irud/hed

Elurrarena normal samarra da azaroaren 23aren inguruan, behin baino gehiagotan tokatu izan baita **manta** txuriarena gertuan.  Pello Zabala

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emeki-emeki entseatzen nintzen ene bi auzoen **manta** mutur bat ene gana tiratzera.  Marzel Etxehandi  
Hainbestearino ari zen oihuka eta deika **manta** -jostailu gizajoa, [...].  Patxi Ezkiaga  
Bere nagusiaren gauzak esan zizkien gero; baina, benta hartan, berak inolaz ere sartu nahi ez zuen benta hartan, gertaturiko **manta** -jolasa, ez zuen aitatu ere.  Patxi Ezkiaga

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zurezko makila ferratu bat, espartinak, eta Iruñeko bi mando- **manta**, artile bikaineakoak.  Koldo Izagirre

## 6 manta-joko (*orobat mantajoko*)

Zakurren **manta joko**a ihaulerietako dibertsioa zen.  Patxi Ezkiaga  
-Dena sinistuko nuke nik- erantzun zuen Santxok niri emandako **manta-jokoa** ere, era horretakoa izan balitz; baina ez zen halakoa, egi-egiazkoa baizik; eta neronek ikusi nuen, nola bentariak[...] mantari mutur batetik heldu eta, zerurantz bulkatzen ninduen barrez-barrez.  Patxi Ezkiaga  
**Mantajokoa** behin erabili behanduten hi, ehun bider hebanduta nagok ni, eta hau zeramakiat nire alde.  Patxi Ezkiaga

## 7 manta-jolas manta-jokoa.

Bere nagusiaren gauzak esan zizkien gero; baina, benta hartan, berak inolaz ere sartu nahi ez zuen benta hartan, gertaturiko **manta-jolasa**, ez zuen aitatu ere.  Patxi Ezkiaga

## 8 top manta

Aurten, lehen egunean bederen, **top manta** -ren azokak egin du huts.  Berria - Kultura  
- Lehiaketan aurkeztutako **Top manta** izeneko lanean ikusi genuen bezala.  Berria - Kultura

## 9 manta-arrain (orobean mantarrairi soilik) iz arraiaren antzeko arrain handia (Mobula mobular).

Azkenerako geldirik geratu da, ahotik kotoiarene moduko adur lehorra dariola eta ahuspez etzanik, **mantarraia**rean moduan. **Joseba Sarrionandia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**artilezko manta** (3); **mando manta** (3); **manta azpian** (4); **manta baten azpian** (3); **manta gainetik** (3); **manta hartu** (4); **manta jokoa** (3); **manta zahar** (3); **manta zikin** (5)  
**mantaren azpian** (4)  
**mantaz estali** (3)  
**mantekin estali** (3)

## mantajoko ik manta 6.

## **mantal** (orobat **amantal** g.er.) 1 iz jantziak ez zikintzeko, horien gainean jartzen den soinekoa, atzealdean edo aurrealdean lotzen dena. ik **txabusina**.

Pisarazi du gaixoa eta kalkulagailua atera du **mantalaren** sakelatik. **Imanol Zurutuza**

Kolore argiko **mantal** bat zeukan soinean, sedazkoa. **Jose Morales**

Bere ezkontzako soinekoa guretzako jaunartzeko soineko egin zuen; jaunartzekoa, jaiegunetako; jaiegunetako, astegunetako; astegunetako, **amantal**; **amantala**, trapu zahar eta trapu zaharra tomate-parrak lotzeko zinta. **Ana Urkiza**

Kotoizko soineko bat eta perkalezko **mantala** jantzita. **Koro Navarro**

- Arropa-gaineko **mantal** gris zikin-estali horietako bat baitzeraman soinean eta bisera moduko kapela zapal bat buruan. **Anjel Lertxundi**

Arropa gaineko **mantal** gris bat zeraman soinean, higatua baina garbia. **Anjel Lertxundi**

### 2 (izenondoekin)

Oso arropa gutxi darama **mantal** zuriaren azpian. **Anjel Lertxundi**

**Mantal** zuriz jantzitako erizain bat. **Jesus Mari Mendizabal**

Egia da laneko jantzia, klinika estetikoetan ohi diren moduko **mantal** zuri serioa, arras ongi zegokidala. **Joxan Elozegi**

Gero, bere **mantal** zuria jantzita eta estetoskopioa lepotik zintzilik zuela, ondoko gelara joaten zen. **Fernando Rey**

Jauregiko damen gisan ageri ziren lerrokada hartan, beren **mantal** zuri handiek sorbalda itzelak, bularrak, sabelak biribiltzen zizkietela. **Karlos Zabala**

Laborategian gure aitak **mantal** gris bat janzen zuen, Contirena bezalakoa. **Fernando Rey**

Satenezko **mantal** gorrimin bat zeukan jantzirik une horretan. **Jose Morales**

Galdetu **mantal** zuridunei. **Oskar Arana**

### 3 aurreko mantala.

Maila bat jaitsi zuen lepotik zintzilik zeukan **mantal** batekin esku bustiak lehortzen zituen bitartean. **Jon Muñoz**

Harakinek, **mantal** zuri handiak jantzirik, [...]. **Karlos Zabala**

Mahuka hutsik, besoak **mantal** urdinaren bularrekoaren gainean antxumaturik. **Karlos Zabala**

Egizu kontu -hasi zen berriro Honorine bere **mantal** ertzaz negar malkoak xukatuz. **Josu Zabaleta**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emaztea zalu-zalua joan zen etxerantz, herabaturik, negarrak **mantal** hegiatz xukatzen zituela. **Elena Touyarou**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lurrean botata, erizain-**mantal** zuri bat. **Anjel Lertxundi**

Nortasun eta jokabide osoa -batzuetan urduri eta lotsatia- aldatu egiten zaizkio kirurgialari-**mantala** jantzean, Soinean, ume **mantal** handi eskotatu bat zeukan, **Xabier Olarra**

## 6 aurreko mantal sukaldean-eta, gorputzaren aurreko aldea babesteko, gainerako jantzien gainean ezartzen den jantzia, belaunetaraino heltzen den eta lepoan edo gerrian lotzen den ehunezko zati batez osatua.

Eskuak **aurreko mantalean** lehortu zituen. **Ramon Saizarbitoria**

Ama sukaldean ari zen, **aurreko mantal** zuri bat jantzita, arrautzak jotzen. **Anjel Lertxundi**

Sukalderaino joan, **aurreko mantal** txiki bat bere gerri oparoan lotu eta nik garbitu berri nuen harraskako ontziteria garbitzen hasi zen berriro. **Anjel Lertxundi**

**Aurreko mantalaren** ertzaz, berak bakarrik ikusten dituen hauts-arrastoak kentzen ditu markotik eta kristaletik. eskua **aurreko mantaleraino** jaitsi eta hasiera eman zion emaro-emaro dena estaltzen joan zen isiltasunari. **Anjel Lertxundi**

Sukalde-komunetatik zetorrek kiratsak atzera eragin bazion ere, **aurreko mantala** jantzi, eta ontzi, harraska, zoru, komunak garbitzen hasi zen... **Anjel Lertxundi**

-Libertariotik izena honek ere! -esan zuen Karmenek harenganako lillura galdurik bezala, lan-jantziaren goialdeko **aurreko mantala** lotuz-. **Inazio Mujika Iraola**

### 7 eskolako mantal

Irailean itzultzen ziren, eta gure amak Tersillari deitzen zion haurrei galtzak, **eskolako mantalak**, pijamak eta soingainekoak egin ziezaizkien. **Fernando Rey**

Nire jantziak garbitu eta josten nituen soilik zure aurrean txukun eta apain agertzeko, eta jasangaitza zitzaidan **eskolako mantal** zaharrean (nire amaren txabusina berjositako bat zen) ezker aldean lau ertzeko adabaki bat izatea. **Eduardo Matauko**

### 8 etxeko mantal

Ez zen inoiz ateratzen, **etxeko mantalaz** jantzirik egoten zen beti. **Jose Morales**

Bizkor-bizkor, **etxeko mantala** kendu eta soinekoa sartzen dut burutik behera. **Anjel Lertxundi**

Itxuraz, Liubak deitu zienean ohean zeuden jadanik, guztiak **etxeko mantal** arina baitzeramaten soinean. **Jose Morales**

Horrela igarotzen zuen denbora, bakar-bakarrik mundu osoan, hogeita hamabi urteko gizon gazte hark, egonean, **etxeko mantala** jantzirik, gorbatarik gabe. **Jose Morales**

Azkenean, ohetik jaiki, garbitu, **etxeko mantala** jantzi, eta egongelara joaten zen tea, kafea, kakaoa eta esne jetzi berria edatera. **Jose Morales**

### 9 galtza-mantal ik galtzamantal.

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mantal gris** (4); **mantal gris bat** (3); **mantal zuri** (13); **mantal zuri bat** (4); **mantal zuria** (8); **mantal zuriak** (3)  
**aurreko mantala** (5); **etxeko mantala** (9); **mantala erantzi** (4); **mantala jantzi** (8); **mantala jantzita** (5); **mantala janzen** (3); **mantala soinean** (3)  
**galtza mantalak** (4)  
**mantalaren azpian** (4)  
**eskuak mantalean** (7); **eskuak mantalean igurtziz** (3)

## **mantalet** (orobat **mantelet**) iz mantelina.

Haurrean heldurra eragiten zioten amamaren **mantalet** eta kapeletak zein armairutan zeuden bazekien, hil mihise amironatuak, ezko-argiak eta izai merkeko kutxa distiratsuaeren ganean pausatzen ziren hornigailu sailduak. **Itxaro Borda**

**Manteletak** ere eduki ditzakete ahizpek, beren zerbitzu eta zereginak erosoago eta txukunago egiteko. **Askoren artean**

## **mantalgorri** ik **mantalgorri**.

## **mantalin** ik **mantelina**.

## **mantalinadun** ik **mantelinadun**.

## **mantangorri** (corpusean **mantalgorri** soilik) iz **amona mantangorria**.

Inurritegiak dozenaka azaltzen ziren, zomorro errukarriak aztoraturik; larre-saguak korrika bizian nire ondotoxotik, ziraunak, armiarma erraldoiak, zizareak, satorrak, bareak, matxinsaltoak, erletzarrak, ezparak, euli-mandoak, ehunzangoak, kakalardoak, barraskiloak, **mantalgorriak**, kilkerak, txiritak. **Joxean Sagatzizabal**

## **1 amona mantangorri** (orobat **a. mantalgorri g.er.**) hegoak tolesturik dituenen bola erdi baten tankera duen intsektua, gaina gorri bizia zazpi puntu beltzekin duena (*Coccinella septempunctata*). ik **marigorringo**.

Avigdor amona **mantangorri** bati so geratu zitzaion, nola mugitzen zen bere eskuaren ahurrean. **Koro Navarro**

Belar artean bere bidea egiten duen amona **mantangorri** baten gorputzean ipini du arreta. Amona **mantangorriari** ere galdetu nahi izan zaio, bada, ea ba ote dakien zeruko berririk. **Eider Rodriguez**

Gure historiako sinesmenetan marigorringoari (matxingorri, mariñela gorri, amona **mantangorri** kattalingorri ere deitua eskualdeen arabera) egiten zitzaizkion galderak eguraldiari buruz, hura baitzen, azken batean, ilargiaren sinbolo bizia. **Pello Salaburu**

Trajea zeraman, eta txaleko zuria, zeinean botoitxo gorri batzuek dir-dir egiten zioten, amona **mantalgorriak** iduri. **Matías Múgica**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**amona mantangorri** (4)

**amona mantangorriari** (3)

## **mantape** 1 iz **manten** azpiko tokia.

Haien barkamena jasorik, **mantapeetan** bildu ginen, elkarren ondoan baina elkar ukitu gabe. **Karlos Linazasoro**

Esan bezala, **mantape** gozo batean bilduta sentitzen nintzen haren alboan, ezerk eta inork kaltetu ezingo banindu bezala. **Hasier Etxeberria**

· Ezin didate erantzun, barre egiten baitute itokarrean, **mantape** ezkutatuta, Xauenek Gardelek Txamakok. **Koldo Izagirre**

## **2** (singularreko leku atzikiak)

Garajeetako atehots metalikoa entzuten nuen **mantapean** kukututa, neure amasarekin ohea berotzen nuen bitartean. **Pako Aristi**

Blujinak **mantapean** jantziak zituen, eta sakelatik ezin aterarik zeukan esku bat. **Koldo Izagirre**

Esku bat sentitu dut **mantapetik** labaintzen, aurrena izterretan gora, hurrena ipurmasailetan laketua eta, azkena, nire plazarraren artekaren bila. **Patxi Zubizarreta**

**Mantapean** zuen babes. **Hasier Etxeberria**

## **mantar**<sup>1</sup> iz emakumeen atorra.

Bain andreak **mantar** zuri zimur bat zuen jantzita, eta "sukaldean jarduteko" erabili ohi zuen gona zahar urdina. **Mirentxu Larrañaga**

Emakume turkomanak ageri ziren, ileetatik dilindan ahuntz ile txirikordatuak zeramatatzela adats luzagarri, soinean **mantarra** zabalik, urdinez, purpuraz edo berdez marraturiko djuba baten azpian. **Karlos Zabala**

Gerrunte gainean pirahn izeneko **mantarra**, oihal berekoa. **Karlos Zabala**

Pabiloi horretako birsaltzaileak, txano zuria buruan, lepoko zapi bat **mantar** beltzaren ganean lotua, eta gona altxatua eta orratzez eutsia zikindu ez zedin, eguneko hornidura egiten ari ziren. **Karlos Zabala**

Gonazpikoa utzi zuen, gizonei aurka egin nahi izan zien, **mantar** hutsean, ernegazioz gorri-gorria, lotsaz baino gehiago. **Karlos Zabala**

Ilea askatu zitzaion, **mantarrak** ez zizkion belauinak estaltzen, agenteek zeharka begiratzen zioten. **Karlos Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mantar zuri** (3)

## **mantar**<sup>2</sup> iz txaplata, enplastoa.

Jaun Migeli barnean gelditu zaiok, eta Herio inoren barnean gelditzen denean, dealde dituk **mantarrak**. **Aingeru Epaltza**

Estefaniak belar-**mantarra** ezarri zidan toki odolduan. **Aingeru Epaltza**

## **mantar**<sup>3</sup> iz marranta.

Horregatik erabat debekatu diogu Margoti gaez eztlu egitea, nahiz eta berebiziko **mantarra** izan, eta kodeina mordoan ematen diogu. **Josu Zabaleta**

## **mantarrai** ik **manta 9**.

## **mantartu**, mantar(tu), mantartzen da ad marrantatu.

Orduan zapatak erantzi (**mantartuta** bazegoen ere), eta oinetakoak eskuan zituela, aurreko etxeko ganbarako ateraino joan [...] kaletik baletor bezala sartu zen bulegoan.

**Josu Zabaleta**

## **mantatxo** 1 iz manta txikia.

Gongelako sofán jesarri zen, **mantatxo** batekin estali zuen sabela, loak hartu zuen domekaro legez. Unai Iturriaga

Jakanarrua bota zuen gainetik, eta ondoren tren konpainiaren beste begirune keinu bat zen **mantatxo**. Unai Iturriaga

## 2 irud/hed

Errekondo eta ibarretan, aldiz, behelainoaren **mantatxo**a eskertzen da, zerogainetik mantentzen dituelako tenperatura goizekoak. Pello Zabala

Hurrengo goizerako, dena zuri-zuri, **mantatxo** hotz batez, pausoa eman orduko krisk-krask egiten duela azaldu ohi da. Pello Zabala

## **mantatzaile** iz manta-jokoan aritzen den pertsona.

Zaldi gainetik gaizki esaka hasi zitzairen Santxoren **mantatzaile**e, hitzik zikin lotsagarrienak esanez. Patxi Ezkiaga

Etsetik at ikusi zuenean bentariak, ongi itxi nahi izan zuen atea, baina ez zioten utzi **mantatzaileek**. Patxi Ezkiaga

## *mantekadu* ik **mantekatu**.

## **mantekatu** (orobat **mantekadu**) 1 iz esnearekin, azukrearekin, arrautza edo gorringo irabiatuekin eginiko izozkia.

Gaueko **mantekadutik** zeozer sobratu dela uste dut. Xabier Mendiguren Elizegi

Xerra patatekin, ardoa gaseosarekin, flana **mantekadurekin**. Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 (izenondo gisa)

la ttanta batez lurrindutako izozki **mantekatua**. J.M. Olaizola "Txiliku"

## **mantel** iz mahai oihala. ik **zama**.

**Mantela** mahai gainean zabaltzen. Anjel Lertxundi

**Mantela** belarretan zabaldu orduko koska mugikor batzuk sumatu genituen belar umelean. Harkaitz Cano

Gero, hulezko **mantela** harturik, zirti-zarta, airean eragiten dio kementsu. Anjel Lertxundi

Emakumeak paperezko **mantelean** gelditu den ogi papur bat jan du. Monika Etxebarria

Gatzontzia hartu eta **manteleko** lore-irudi baten gainean ipini zuen. Anton Garikano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mantelaren gainean** (3)

## *mantelet* ik **mantalet**.

## **mantelina** (orobat **mantalina** g.er. eta **mantalin** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **mantelina** agertzen da) 1 iz emakumezkoen buruzapia, bereziki erlijiozko arrazoiengatik erabiltzen dena. ik **mantalet**.

Nahiz behialako **mantalina** buruzapi baten kontra trukatu zuen, argi zen haren soinekoak serora jantziak zirela. Elena Touyarou

Han ez dago **mantalinarik**, debekatua baita. Herria

Martinek irudi hori gordeko zuen betiko: ama, **mantelina** iluna burugainean, eta paisaia zuritzen hasia. Alberto Barandiaren

Ezkonberriaren **mantelina** bezala. Josu Zabaleta

Bazter batean, berriz, ama egoiten zen, adatsa maiz sare edo **mantelina** batez bildua. Joan Mari Irigoien

Alargun baten apaingarri guzti-guztiek jantzirik, soineko beltz estu batekin, hiru habeteko takoidun oinetako beltzekin, kasket beltz batekin eta hartatik zintzilik **mantelina** fin beltz batekin, emetasun erabatekoaren haragiztapen bat bihurtu zuen bere burua. Oskar Arana

Legez debekatu nahi dituztelakotz, eskola publikoetan segurik, erlisione-seinale batzu eta, besteak beste, musulmano neska gaztek ezartzen duten **mantalina** edo zapia.

Herria

Atzealdeko jargietako emazteei halaber, amironatu berri zituzten **mantelina** brodatu beltzen gerizan. Itxaro Borda

Pariseko azken boneta buruan dutela, burutik oinetaraino txal handi batean bilduta, farfailezko **mantelina** aurpegian, begiak apal, sartzen dira emakumeak hondartza betetzen duten oihalezko etxola horietarik batean. Koldo Izagirre

Madrilidarrek hain koketeria handiz eta graziaz begietaraino daramaten **mantelina** hori, buruaren atze alderaino jasotzen dute gipuzkoarrek. Koldo Izagirre

## 2 irud/hed

Mendi hurbil eta xorrotxak ikusiz, Aconcagua famatua ere begistatu dugu bere **mantalin** xuriarekin. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mantelina beltza** (3)

## **mantelinadun** (orobat **mantalinadun** g.er.) izond mantelina daramana.

Burrunbak segitzen du karriketan mantalinaren aldeko jendeekin, erranez eskola denena zela **mantalinaduneena** ere, hala nahi balin badute jauntzi. Herria

· izlag "Ite misa est" entzun baino lehen irten dira eskaileretan behera plazarantz, karrika zaharretan barrena sakabanatzeko taldetxotan, bikotetan, senar-emazte apainetarik eta **mantelinadun** atsoetarik urrundu beharrez. Koldo Izagirre

## **mantelinatxo** iz adkor mantelina.

Bere **mantelinatxoarekin** zegoen, hain fin, hain lirain, hain graziaz betea. Josu Zabaleta

## *mantenamendu* ik **mantenimendu**.

# mantendu, manten, mantentzen 1 du ad beharrezko janariaz hornitu.

Gerra zela-eta, profesional bihurturiko gudarosteak **mantendu** eta hornitu beharrak izugarri handitu zituen gastuak, Geure buruak geuk **mantenduko** ditugu, geuretik jantzi gara. **Koro Navarro**

Eurek **mantendu** zuten mutila hilabete luzeetan, eurek ordaindu zizkioten kostuak eta soldatak. **Pako Aristi**

Ezin zaitut **mantendu**, ozta-ozta irabazten dut neuretzako ogia. **Jose Morales**

Baina gizakia ez du jateak bakarrik **mantentzen**. **Iñaki Seguro**

## • 2 da ad beharrezko janaria hartu.

Beroaren eraginez pipia, sitsa eta harrak eta bestelako zomorro kaltegarriak sortuko dira, egurra janean **mantentzen** direnak. **Santiago Iruretagoiena**

Janari sendoaren ordez, esnez **mantendu** beharrean aurkitzen zarete. **Elizen arteko biblia**

Zati horietako emaitzez, hirian lan egiten dutenak **mantenduko** dira. **Elizen arteko biblia**

## • 3 da/du ad zerbaitek, bere izateari edo egoerari eutsi; irauten utzi edo iraunarazi. ikatxiki.

Libelula lodi batzuk hurbildu ziren terrazara, hain makalak non airean doi **manten** zitezkeela ematen zuen. **Bernardo Atxaga**

Ukertzeko beharretik aldentuta **mantendu** nintzelako. **Berria - Kultura**

Hor **mantendu** ginen, eta hori seinale ona da. **Berria - Kirola**

Nire arropa, garbia nahiz garbitzekoa, beti ongi ordenatua eta konpondua **mantenduko** dela. **Pello Salaburu**

Garai hartako horma batzuk bere horretan **mantendu** dira. **Harkaitz Cano**

Isilunea **mantentzen** zela ohartzean, berak apurtu behar zuela konturatu zen. **Fernando Morillo**

Besoak gorputzaren bi alboetara zintzilik **mantenduz**, ahalik eta naturaltasun handienaz inguratu nintzaion. **Ramon Saizarbitoria**

Atleta batek 2 zp inguruko potentzia **manten** dezake 100 metroko lasterketan. **Irene Aldasoro**

Hartara, **mantendu** egiten da gorputzeko ur kantitatea. **Irene Aldasoro**

Askotan, makinaren alboko piezen mugimenduaren bidez **mantentzen** da behar bezala olio-geruza. **Irene Aldasoro**

Kosmosak bere oreka **manten** dezan. **Harkaitz Cano**

"Zerk **mantentzen** zaitu?" galdetu, eta "ezak" erantzun zuen. **Joseba Zulaika**

Estatu unibertsalek **mantenduriko** erakundeen onuradun nagusiak eliza unibertsalak izan direla. **Iñaki Mendiguren**

Isilpean **mantendu** genuen gertakaria, noski. **Iban Zaldua**

Edalontzia eskuan hartuta, ahorako erdi bidean **mantendu** zuen, eta lepoa mugitu barik saiatu zen batera eta bestera begiratzan **Josu Landa**

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Horrela egiten dute emakume **"mantenduek"**. Hazkunde **mantendua** terminoaren erabilerak ez du inolako kontraesanik barnean, eta erabiltzen dutenek adierazi nahi duten horixe esan nahi du: hazten jarraitzea, hazkundera kosta ahala kosta mantentzea. **Matías Múgica**

### hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amaierara arte mantendu (3); atea hutsean mantendu (3); bere hartan mantendu (6); bere horretan mantendu (17); bizirik mantendu (9); burua hotz mantendu (15); egonkor mantendu (5); ezaugarriak mantendu (3); ezkutuan mantendu (4); garbi mantendu (3); hotz mantendu (15); hotz mantendu zuen (4); hutsean mantendu (3); irekita mantendu (3); jarrera mantendu (7); maila mantendu (4); mantendu beharra (6); mantendu beharreko (3); mantendu da (15); mantendu du (19); ohiturak mantendu (3); ondo mantendu (3); oreka mantendu (3); postuetan mantendu (3); tentsioa mantendu (3); tinko mantendu (5); urtez mantendu (4); zabalik mantendu (3)

bere horretan mantenduko (8); ezkutuan mantenduko (3)

identitatea mantenduz (3); jarrera mantenduz (5); oreka mantenduz (4)

atea hutsean mantentzea (6); baldintzak mantentzea (3); bere hartan mantentzea (3); bere horretan mantentzea (12); bizirik mantentzea (5); espetxean mantentzea (3); ezkutuan mantentzea (3); kopurua mantentzea (4); legez kanpo mantentzea (3); mantentzea deliberratu (3); mantentzea erabaki (16); mantentzea espero (4); mantentzea lortu (13); mantentzea lortuko (3); mantentzea lortzen (3); oreka mantentzea (3); taldean mantentzea (3); urrun mantentzea (3); zabalik mantentzea (3)

arreta mantentzeko (6); bere burua mantentzeko (3); bere horretan mantentzeko (5); bizirik mantentzeko (9); egonkor mantentzeko (3); egonkortasuna mantentzeko (4); familia mantentzeko (3); jarrera mantentzeko (4); lanpostuak mantentzeko (3); lurralde osotasuna mantentzeko (3); mantentzeko ahalegina (3); mantentzeko asma (9); mantentzeko aukera (7); mantentzeko baizik (3); mantentzeko beharra (5); mantentzeko borondatea (4); mantentzeko deia (3); mantentzeko deia egin (3); mantentzeko eskatu (8); mantentzeko eta hobetzeko (3); mantentzeko gaitasuna (4); mantentzeko konpromisoa (7); mantentzeko konpromisoa hartu (4); mantentzeko lan (4); mantentzeko lanean (4); mantentzeko moduan (3); ordena mantentzeko (4); oreka mantentzeko (4); osotasuna mantentzeko (4); pizturik mantentzeko (3); preso mantentzeko (4); prezioen egonkortasuna mantentzeko (3); urrun mantentzeko (8); urrun mantentzeko agindua (4)

bere hartan mantentzen (6); bere horretan mantentzen (12); bizirik mantentzen (18); bizirik mantentzen duen (3); burua hotz mantentzen (6); erritmoa mantentzen (3); espetxean mantentzen (4); fresko mantentzen (3); gertu mantentzen (3); hotz mantentzen (7); indarrean mantentzen (6); itxaropena mantentzen (3); itxita mantentzen (3); mantentzen ahalegindu (4); mantentzen asmatu (3); mantentzen jarraitu (3); mantentzen saiatu (5); mantentzen saiaturako (7); mantentzen saiatzan (4); oinarria mantentzen (3); ondo mantentzen (3); ordena mantentzen (3); oreka mantentzen (5); su etena mantentzen (3); urrun mantentzen (3)

sexu harremanak mantentzera (3)

## mantenimendu (orobat mantenamendu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian mantentze eta mantentze-lan agertzen dira) iz mantentze lana, bereziki makina, instalazio edo kideko batena.

Poliariaren egoitzaren aparkalekuaren eta ibilgailuen **mantenimenduarentzat** baliatzen den eraikin baten artean. **Berria - Mundua**

Euskal telebistako (ETB) emanaldien errepikagailuen **mantenimendua**. **Herria**

Horren abantaila da **mantenimendua** merkea dela. **Herria**

Zentral nuklearren eta hauen **mantenamenduaren** egoera. **Berria - Gaiak**

## mantentze 1 iz zerbaitek, bere izateari edo egoerari eustea; irauten uztea edo iraunaraztea.

**Mantentze** horren nondik norakoak ez ziren xehetasunez aipatzen. **Ander Irizar**

Kanpokoek eskertu egiten dute guk ekar dezakegun testigantza; eskertu, gu bizirik **mantentze** hutsa. **Ana Urkiza**

Kloro isuri gehiago saihesteko enpresak garatu beharko duen **mantentze** planaren jarraipen zorrotza egingo du Industria Sailak. **Berria - Euskal Herria**

Etxebizitzaren ustiatze, **mantentze** eta eraiste zikloetan sortutako hondakinen kudeaketa. **Berria - Euskal Herria**

Eraikinaren **mantentze** kostuak gutxitu beharko dituzte. **Berria - Ekonomia**

**Mantentze** zerbitzuko grebak VW gelditu du. **Berria - Ekonomia**

## 2 mantentze lan

Lasterrean hasi zen, bada, Erakundearen Nafarroako egoitza anitzetan **mantentze**-lanak egiten: sukaldaritzan, txofertzan, komun-garbitutzan eta beste hainbatetan. **Josexo Azkona**

Lagundu egiten nuen zaldi pabiloiaren **mantentze**-lanetan, basora joaten nintzen Lubisekin, edo errekan amuarrainak harrapatzea Pantxorekin. **Bernardo Atxaga**

Berez lubrikatzen direnak izan behar dute hezurren arteko giltzadurek, eta urte askoan funtzionatuko dutenak [...] **mantentze**-lanik gabe. **Irene Aldasoro**

Avarozko labeetako **mantentze**-lanetako langileak. **Jon Maia**

Trenbideko **mantentze** lanetan ari zen langile bat hil da, elektrokutatuta **Berria - Ekonomia**

### hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errazten mantentze lanetarako (4); mantentze lana (3); mantentze lanak (8); mantentze lanak egiteko (3); mantentze lanetako (4); mantentze lanetan (20); mantentze



## **mantenu** 1 iz elikagaiz hornitzea; jatekoa.

Munduak arduragabe izendatu baitzuen, bere burua jagoteko ez gauza, jasan zitzaela orain ondorioak, har bezala orain beraren ardura osoa bere gain, **mantenu** eta guzti. Azkenean beneditarren esku gelditu zen zakurren **mantenua**. [Juan Garzia](#)

Nadiak harentzat gorde zuen **mantenu** urri hartatik gehiena. [Karlos Zabala](#)

Zurrumurruek zioten prezeptibako irakasleak **mantenua** eta soldata urri bat ematen zizkiola, emazte plantak egitearen ordainetan. [Anjel Lertxundi](#)

Han ziren gorteko kideak, baina baita **mantenu** errazera hurbildutako ezpara eta mandeuli arruntagoak ere. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Aitaren, senideen eta familia guztiaren **mantenuaz** arduratu zen. [Elizen arteko biblia](#)

Ala Bernabe eta biok ote gara geure **mantenua** irabazteko lan egin behar dugun bakarrak? [Elizen arteko biblia](#)

Beren eskulanaz ateratzen dute **mantenua**. [Askoren artean](#)

Quenutarrek ostatua eta **mantenua** ematen zioten. [Karlos Zabala](#)

**Mantenuurako** diru gutxi bidaltzen zioten. [Jose Morales](#)

Txirindulari askok hartzen omen dute ostatua bertan, **mantenu** osoagatik 20 euro bakarrik kobratzen dituztelako. [Berria - Kirola](#)

Muzin egin nien **mantenuko** gizonaren hanburgesei, eta gaizto begiratzen zidan berak entsalada baizik ez nuelako hartzen. [Joxan Elozegi](#)

Halako batean, jendarmeak hotelean azaldu eta atxilo eraman zuten **mantenuko** gizona. [Joxan Elozegi](#)

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gure erresuma zaharrek erregeen **mantenu** kontuetan ere, maiz ageri da baba zaharra. [Patziku Perurena](#)

**Mantenu** -kostua igo arren, gustura bilatuko nuke beste norbait zuri laguntzeko... [Itziar Otegi](#)

Gorotz harrotzaillea, herriko xeblere gixajoren bat izaten zen jeneralean, **mantenu** eta xurrut truke aste beterako edo etortzen zena. [Patziku Perurena](#)

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hara, Jainko Jaun ahalguztidunak kendu egingo die Jerusalemi eta Judari euskarri eta mantenu oro: ogi-**mantenua** eta ur-**mantenua**. [Elizen arteko biblia](#)

## 4 mantenimendua.

A-8 autobidearen **mantenu** gastuak. [Berria - Euskal Herria](#)

Trenbide arloko edozein erabaki hartzeko berdin dio **mantenu** lanak izan, bikoizketak izan edo besterik, ahalegina egin beharko da guztietan kalte sozialak, ekonomikoak eta ingurumenarekikoak ahalik eta txikiak izan daitezen. [Berria - Euskal Herria](#)

Eurofighter hegazkinaren **mantenu** sistemak garatu eta hornitzeko [Berria - Ekonomia](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ostatua eta mantenua** (3)

**mantenuko gizona** (4); **mantenuko gizonaren** (3)

## **mantenualdi** iz zerbait edo norbait mantentzen den aldia.

Alter Vishkowerrek behin-behineko kontratu bat idatzarazi zuen ezkon hitzarmenerako, Ansheli dote handiagoa, opari gehiago, eta Avigdorri eskaini ziona baino **mantenualdi** luzeagoa aginduz. [Koro Navarro](#)

## **mantenubide** iz mantentzeko bidea.

Ez al dakizue eginkizun sakratuetan jarduten dutenek tenplua izaten dutela **mantenubide**, eta aldarean zerbitzatzen dutenek aldarean eskaintzen diren oparietatik hartzen dutela beren partea? [Elizen arteko biblia](#)

## **mantenuburu** iz mante zenbitzuaren burua.

Versinok, **mantenuburu** egiten zuenak, esan zuen horiek guztiak kontuak zirela, ardoa eta arraina onak izanez gero: bera ziur zegoen ortodoxiaren aldeko gehienek ez zutela bereiziko, begiak itxirik probatzera emanez gero, zuria beltzetik. [Juan Garzia](#)

## **mantenugai** (orobat **mantenu-gai**) 1 iz zerbait edo norbait mantzentzeko gaia.

Urtero, Pazkoaz, Burtonen baleontzia pasatzen zen munduaren berri eta **mantenugaiak** ekartzera, eta guk ontzen genuen urdai ketu apurra kargatzera. [Juan Garzia](#)

Haren etxe amaraunez bete, **mantenu** -gaiz huts hartaz pleinuka. [Juan Garzia](#)

## 2 irud/hed

Tumoreak hazteko behar duen beste **mantenugai** lortzeari deitzen zaio angiogenesisia. [Berria - Gaiak](#)

## 3 elikagaia.

FAOren arabera, ordea, arroz mota bakoitzak **mantenugai** desberdinak ditu, beraz, arroz mota desberdinak nahastuz gero, malnutrizio arazoak murriztuko lirarteke. [Berria - Gaiak](#)

## **mantila** ik **mantilla**.

## **mantilla** (orobat **mantila**) 1 iz mantelina.

Jantzi dotore, mantu, lepoko zapi eta poltsak, gona fin, durbante eta **mantilak**. [Elizen arteko biblia](#)

## 2 irud/hed

Uztaila da, eta irri egiten hasi dira dagoeneko hurrak eta sehaska gorrixaren gaina apaintzeko, **mantilla** horixta puntilladun bana erregalatu die Abuztu amaustiak. [Patziku Perurena](#)

## **mantis** 1 iz marisorgina.

Maitasunez burua galtzea eskatzen dute **mantis** emeek. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Larrutan ari diren bitartean, **mantis** emeak sendo eta trinko heltzen dio arraren gorputzari besarkada gogorrear. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

## 2 mantis religiosa marisorgina.

Bere intsektu eta tximeleta bilduma erakusten ari zitzaioela, begi guztiak **mantis** religiosa bati so, iruzkin bat egin zuen R. jaunak. **Joan Mari Irigoien**

-Emakume guztiak **mantis** religiosa bat omen dute inkontzientean. **Joan Mari Irigoien**

irud/hed Jauna, **mantis** religiosa bat naiz, mokaduz mokadu irentsi nahi zaituena, inkontzienteki ez ezik kontzienteki ere bai... **Joan Mari Irigoien**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mantis religiosa** (7); **mantis religiosa bat** (3)

*manto* ik *mantu*.

## mantoi iz xala.

Horiek, hiri handian bezala jantzita etortzen dira hondartzara, Pariseko azken modako sonbrailuekin buruan eta oinetatik leporaino estaltzen dituen **mantoi** handiek.

**Koldo Izagirre**

Atorra bat, xingola bat, mantelina bat, bi gerruntze, txano bat, **mantoi** bat, musuzapi erdi bat: horixe zeraman umeak soinean 1906ko otsailaren 24an Donostiako tornuan abandonatu zutenean. **Koldo Izagirre**

Eta baita Corbaran Letekoa ere, bere zaldi garrantz dotore apainduan, **mantoie**z ongi baino hobeki estalia. **Patziku Perurena**

## mantra iz hinduismoan, esaldi edo formula mistikoa.

Ondoren, kantu sakratuak (**mantrak**) kantatu bitartean, ingurua atxurtu eta sugeak zakuan sarrarazi. **Gotzon Garate**

Konbertsio ondoko lehenbiziko aste horietan, East Villagen ibili zen batera eta bestera, jantzi azafrai-koloreak soinean, Hare Krishnaren **mantrak** kantatzen. **Xabier Olarra**

Eta segituan laguna Else kontsolatzen saiatu zen, "ahaztu etxearena, maitea, ahaztu etxearena" errepikatuz **mantra** ilun eta monokorde gisa. **Patxi Iturritegi**

Arratsalde zientifikoetarik landako gaualdiak, ez dakit nongo mahabarratzen **mantrak** errepikatuz higitzen genituen, zangoak, besoak eta gaineratikoak zintzilik, iturriak eta indar ezezkorrak agortu arte. **Itxaro Borda**

Ahotsa altxatzen dut,... /... bertsoa **mantra** egiten dut,... /... hementxe deklaratzeko: amaitu da. **Joseba Zulaika**

## 2 irud/hed

Zorion artifizialen hagin zilarrak begietarik isurtzen zaizkion aingeru aurpegia agertuz, Zein Ongi Naizen **mantra** lanzinanteak ahots monotonoz errepikatu bitartean. **Itxaro Borda**

*mantsino* ik *mantsio*.

## mantsio (corpusean mantsino soilik) iz etxandia.

Miamin, ostera, inferioridade kokoa sartzen ei jakon: transatlantikoak, hotel itzelak, egundoko **mantsinoak**, hotelerako joan-etorriak yate itzelean. **Xabier Amuriza**

## mantso (orobat manso g.er. eta mantxo g.er.) 1 izond otzana.

-Behiak ere ez direla denak **mantsoak**. **Xabier Etxabe**

Jende gutxi agertu da klasera; ikasle **mantsoak** agertu dira bakarrik, pasiboak, otzanak. **Oskar Arana**

## 2 poliki doana edo egiten dena.

Etixeruntzean, nere suzuki **mantsoan**, [...]. **Patziku Perurena**

**Mantsoa** eta triki-traketsua izan zen bidaia. **Iban Zaldúa**

Udaletxeko erlojuaren orratz **mantsoek** gurea ez den denbora bat neurtzen dutela ematen du. **Iban Zaldúa**

Eskaileteran behera nekez moldatu zen, oinetako handi haiek jantzita, baina ezari-ezarian zoragarria egin zitzaion jaitziera **mantso** hura. **Mirentxu Larrañaga**

Paseoko abiadura **mantsoan** zihozten. **Josu Landa**

Ondo baino hobeto ezagutzen nuen nire biktima izango zenaren ibilera **mantso** eta mesfidatia; alde guztietara miatzen zuten begi urduri ilunak zituen. **Iban Zaldúa**

Egunak aurrera doaz loreen erritmo **mantso** baina etengabe. **Berría - Kultura**

## 3 (adizlagun gisa) poliki. ik mantsoki.

Etsera itzuli naiz, **mantso**, paseatuz. **Iban Zaldúa**

**Mantso** ibili, aditu?! **Pablo Sastre**

**Mantso**, pausoari pauso. **Anjel Lertxundi**

Karakolak poliki eta **mantso** egiten du bere bidea. **Berría - Mundua**

Polikiegi, **mantsoegi**, astiroegi ibili baita denbora bere xedera iritsi arte. **Joxerra Garzia**

Halako batean, bueltaka hasi dira haizegailuen hegalkak, hasieran **mantso** eta gero bizi-bizi, atzeraka dabilzalako irudipena sortuz. **Patxi Iturritegi**

Horrela, bada, pazientziak beterik, **mantso** eta garbi, hitzez hitz ahoskatu diozu esan beharreko guztia. **Rafa Egiguren**

Martinek **mantsoago** hitz egin zuen, ordu arteko bizitasunik gabe. **Bernardo Atxaga**

**Mantso** obeditu zuen, erremedioirik gabeko gauza bati men eginez bezala. **Juan Martín Elexpuru**

Mutil gazteak betazalak **mantso** goratu zituen eta neska gazteari begiratu zion. **Mirentxu Larrañaga**

Joxe, jauzi egin eta **mantso** hurreratu zaio. **Pello Lizarralde**

Autoa oso **mantso** abiatu da maldan beheiti. **Pello Lizarralde**

Gauzak **mantso** doaz, dortoka baldarrak bezala. **Lander Garro**

## 4 (hitz elkartuetan)

Halako batean emakumea, zumezko aukiti **mantso**-baldar jaikirik, neska-koskorrengana hurbildu da. **Anjel Lertxundi**

## 5 mantso-mantso adlag poliki-poliki.

Orduan, neskak atzera egin zuen **mantso-mantso**. **Mirentxu Larrañaga**

Handik gutxira, automobila agertu zitzaigun maldan behera **mantso-mantso**. **Rafa Egiguren**

**Mantso-mantso** eta banan-banan kontatuko dut, behar den bezala. **Mirentxu Larrañaga**

Hasia zen, **mantso-mantso**, txinatar subiranotasunaren zatikatzea, administratiboa aurrena eta geografikoa gero, Ingalaterraren eta Frantziaren eskutik lehenbizi, Japonia,

Errusia, Alemania eta Italiaren eskutik ondoren. [Koro Navarro](#)

Jendea [mantso-mantso](#) iragaten da, mantsoegi eta nabarmenegi, eta beti bada hurrengo norbait, huraxe izan litekeena... [Mirentxu Larrañaga](#)

## 6 (izenondo gisa)

Enpresa-mailan han segitzen zuen, pendulu [mantso-mantso](#) eskerga baten balantza bezala. [Juan Garzia](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[mantso abiatu](#) (4); [mantso ari](#) (5); [mantso bota](#) (3); [mantso doa](#) (7); [mantso egiten](#) (4); [mantso erortzen](#) (3); [mantso hitz egin](#) (3); [mantso hurreratu](#) (3); [mantso ibili](#) (7); [mantso ibiltzen](#) (4); [mantso idazten](#) (3); [mantso joan](#) (4); [mantso mantso](#) (97); [mantso mugitzen](#) (5); [mantso zihoan](#) (3); [oso mantso](#) (23); [poliki eta mantso](#) (3)

[oso mantsoa](#) (3)

[askoz mantsoago](#) (3)

## **mantsoagotu**, mantsoago(tu), mantsoagotzen 1 du ad mantsoago bihurtu, otzandu.

Beraren urratsera egokitzeko ahaleginean joan nintzaion atzetik, hariak eta, antza, jarraitzen niola konturatu, eta lasterketa presatia [mantsoagotu](#) zuen arte. Jantzirik batere ez, ez eta beste puskarik ere; ibilaldia [mantsoagotzen](#) ahal zuen deusik ez, salbuespen bakar bat ezik: Mathieu apezak beti berekin zeramatzan gurutzea eta otoitz liburua.

[Juan Garzia](#)

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Donola ere, alkoholarena ez da bigarren bertsioaren aldaera [mantsoagotu](#) bat baino. [Anjel Lertxundi](#)

## **mantsoarazi**, mantsoaraz, mantsoarazten du ad mantsotzera behartu.

Bergaran euriteek ur putzuak sortu zituzten Gi-627 errepidean eta abiadura [mantsoarazi](#) zuten bertan. [Berria - Euskal Herria](#)

Orduan neuk [mantsoarazi](#) nahi izan nuen Ryokoren eskua, bizkarra zalu eraldatzen ari baitzitzaidan. [Javi Cillero](#)

## **mantsogarri** izond mantsotzen duena.

Txilar xuria, berriz, maitasun grinaren [mantsogarri](#) omen da. [Pello Zabala](#)

## **mantsoki** adlag poliki, mantso. ik **mantsokiro**.

[Mantsoki](#) baina urrats irmoz ari naiz mugitzen. [Iñaki Zabaleta](#)

Otsoa belaunikatu zen, burua makurtu, eta gorputza, isatsa eta belarriak [mantsoki](#) mugituz. [Askoren artean](#)

Karriketan [mantsoki](#) edo presaka zebiltzanak berinetan behari plantatu ziren. [Itxaro Borda](#)

## **mantsokiro** izond poliki, mantso, mantsoki.

Ordu hartan, Abenidaren alde bietara barreiaturiko etxetzar ilararen babesean, autoren batzuek [mantsokiro](#) korritzen zuten erdigunetik, eta, ertzetan merkatariak betaro hartzen zituzten bezero bakanak, ilunabarrek erakarriko zuen giza oldearen aiduru. [Pedro Alberdi](#)

## **mantsotasun 1** iz gelditasuna.

Ez zihoazen azkar, baina ederra zen, [mantsotasun](#) hura. [Pablo Sastre](#)

Baina enbarkazioan pausatu eta edozein hondakinen bila hasiko dira, animalia antarktikoekin [mantsotasunarekin](#), biologikoki uste baitute inork ez diela minik egingo.

[Joseba Sarrionandia](#)

Besteak, diru irabazteaz itsuturik batetik eta diru irabazte haren [mantsotasunaz](#) etsirik bestetik, gero eta diru multzo gehiago jokatzeke eskatzen zioten begibakarrari, presaka zebiltzala argudiatuz. [Felipe Juaristi](#)

Baina hiztegiak badaki [mantsotasuna](#) eta bizkortasuna ere kontzeptu subjektiboak direla, eta, ez baitu presarik, aski bizkor doala deritzo. [Imanol Zurutuza](#)

Arkeologoek gisa dihardu iragana arakatzen, lurrazpiko aztarna ezkuatuak agerian jartzen, [mantsotasuna](#) zamari, pazientzia zamaltzain. [Imanol Zurutuza](#)

## 2 otzantasuna.

Goseak nongoen, eta garaituaren [mantsotasunez](#) jokatzen hasi nintzen. [Javi Cillero](#)

Behin-behinekotasunean oinarritutako kontratazio sistema daukala, eta jendea hartzen eta bidaltzen duela, «[mantsotasun](#) mailaren edota afiliazioaren arabera». [Berria - Ekonomia](#)

## **mantsotu**, mantso(tu), mantsotzen da/du ad 1 otzandu, bezatu.

Zaldi basatienak [mantsotu](#) eta gobernatu nahi bazuten, basa-lizar makila erabiliiko zuten. [Pello Zabala](#)

Nola San Frantziskok Jainkoaren indarrez [mantsotu](#) zuen otso izugarri bat. [Askoren artean](#)

Beste norbaitetik har dezala ardura eta piztia amorratu hori [mantsotzeko](#) lana. [Itziar Otegi](#)

Sabeleko harra [mantsotu](#) nahian [...] garagardo bat eta olibak eskatu zituen. [Miguel Angel Mintegi](#)

## 2 irud/hed

Sasoi honetarako, berorik erreenak [mantsotu](#) dira, ekaitzak gutxitu paraje hauetan. [Pello Zabala](#)

Kaleratu eta zuzenean joan zen Alde Zaharrera sabela [mantsotzera](#). [Miguel Angel Mintegi](#)

## • 3 du ad zerbaiten lastertasuna gutxiarazi.

[Mantsotu](#) egin zuen autoa. [Bernardo Atxaga](#)

Eta Ronek hori esan orduko, tren abiada [mantsotzen](#) hasi zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Oihantxora hurbiltzerakoan, zaldien ibilera [mantsotzen](#) hasi zen. [Karlos Zabala](#)

Ate nagusiko zubira hurbildu ahala, ibilera [mantsotu](#) egin genuen. [Alberto Ladron Arana](#)

Mitxelena bere ibilera bizkorra [mantsotu](#) gabe hitz egin zidan: [...]. [Alberto Ladron Arana](#)

Dummyk urratsa [mantsotu](#) zuen; eskua behin eta berriz jaso eta kapela aurrera eta atzera mugitzen zuen buruan. [Koro Navarro](#)

Pistola neukan besoa atzerantz eraman eta, abiada [mantsotu](#) gabe, matraileko latz bat erantsi nion. [Alberto Ladron Arana](#)

Itoizko urtegia betetzeko lanen erritmoa [mantsotzeaz](#) gain, sismografo gehiago jarriko ditu inguruan lurrikarak neurtzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

Kontrolen ondorioz trafikoa asko [mantsotu](#) da bide erabilienetan eta joan-etorri handiko orduetan. [Berria - Euskal Herria](#)

## 4 irud/hed

Erresistentzia honek normalean ezin du prozesua **mantsozte** baino gehiago lortu. **Iñaki Mendiguren**  
Miren Azkaratek onartu du plana ezartzeak hainbat zailtasun izan dituela eta horrek **mantso**tu egin duela euskara Administrazioan sartzea. **Berria - Euskal Herria**  
Garai geldietan, dena **mantso**tu egiten da, eta errazagoa da lehengoari eustea, ohitura hutsez. **Juan Kruz Igerabide**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**abiada mantso**tu (6); **abiada mantso**tu zuen (3); **abiadura mantso**tu (7); **asko mantso**tu (4); **ibilera mantso**tu (5); **urratsa mantso**tu (3); **urratsa mantso**tu zuen (3)  
**erritmoa mantso**tzeko (3)

**ibilera mantso**ten (3); **mantso**ten **hasi zen** (3)

## **mantso**zte iz mantsoagoa, geldiagoa bihurtzea.

Txinako analistek %7ko hazkundea duen lehen **mantso**zte bat aurreikusten dute 2004. urterako. **Berria - Ekonomia**

## **mantu** (orobat **manto** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **mantu** agertzen da) **1** iz gainjantzia, kapa.

**Mantu** ilun grisak janzen zituzten eta txanoek buruak eta kasketa estaltzen zizkieten. urrezko **mantu** handiak estaltzen zion Théodeni gorputza bularreraino, eta haren gainean ezpata zeukan, eta oinetan ezkutua. **Agustin Otxoa**

Baina itxura zoragarriko dama hark **mantu** zarpail batez estaltzen zuen gorputza. **Askoren artean**

Han berean, gizon bat, jiten entzuna ez nuena: ez handia ez ttipia, xapela buruan, **mantu** beltza, traka seriosekoa, lege-gizon edo hil zain horietarik, iduriz. **Marzel Etxehandi**

Bake-espedizioa zirudien, baina armak zeramatzen ezkutaturik **mantu** zurien azpian. **Xabier Aranburu**

Orduan **mantua** hedatu eta Tabiraren sorbaldeen gainean jarri zuen. **Joanes Urkixo**

**Mantua** askatu eta sorbaldeetara erori zen, bera tupustean zutik jarri zenean. **Joanes Urkixo**

Gotzainak, Frantziskoren barne-jarreraz oharturik [...] beso artean hartu eta bere **mantuaz** bildu zuen. **Askoren artean**

Arantzako koroa eta purpurazko **mantua** zeramatzala. **Elizen arteko biblia**

Errege ezaugarrietako nabarmen jakinetakoa, **mantu** -koroak bezalaxe. **Pello Zabala**

### 2 irud/hed

Iluntasun madarikatu hau guretzat **mantu** babesgarria izan daiteke. **Agustin Otxoa**

Gauak bere **mantu** iluna zabalduz zeukan jadanik. **Migel Angel Mintegi**

### 3 (hitz elkartuetan)

Uzias erregea hil zen urtean, tronu altu eta garai batean eseria ikusi nuen Jauna; haren **mantu** -hegalak tenplua betetzen zuen. **Elizen arteko biblia**

-Konfiantza- **mantua** lagun, emakumeak ez du hitzen beharrik orain, isiltasunak ez baitu ezinegonik piztu bere baitan, maiz ohi duenez. **Imanol Zurutuza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hartazu mantu** hau (3); **mantu beltz** (3)

**mantua eman zion** (5); **mantua maileguz utzi** (3); **purpurazko mantua** (3)

## **mantxa**<sup>1</sup> iz orbana, narria.

Ez garatxo bat, ez **mantxa** bat, ez ubeldu bat. **Bernardo Atxaga**

**Mantxa** gorri bat sumatu nuen nire nikian, odolarena ematen zuena. **Bernardo Atxaga**

Alabaren **mantxa** gorriak ez zirela **mantxa** gorri hutsak, pikor zuri batzuk ere bazituela alabak **mantxa** gorrien gainean. **Unai Elorriaga**

Balkoitik begiraruta, **mantxa** zuri bat ikusten zen mendiaeren maldan, Obabako herri-gunea baino harantzago, Alaska hotela. **Bernardo Atxaga**

Leopardo baten larruko **mantxak** baino misterioitsuagoak irudituz zitzaizkidan hango karakter pintzel trebez marraztuak. **Juan Garzia**

-Erakutsi elastikoa...! nola egin dituk **mantxa** horiek? **Rafa Egiguren**

Ekintza eta sarraski erabatekoa behar nuen nik nahi nuen lekura iristeko, eztanda guztiz **mantxarrik** gabea. **Hasier Etxeberria**

### 2 irud/hed

Mexikoko eguzkiak ezin izan zion lehorte erbesteak ariman utzitako **mantxa**. **Bernardo Atxaga**

Umearena, familia batu batean heziketa ona jasotzeko eskubidea, **mantxarrik** gabeko izen eta negozio oparo baten oinorde izateko eskubidea. **Monika Etxebarria**

### 3 (hitz elkartuetan)

Libreta, elastikoan agertutako olio- **mantxak** eta Elkanon aurkitutako pistola, eta gainera, aurreko astean, hilaren lauan eta bostean, Agirrerekin eta Txorekin izandako bi hitzordu. **Rafa Egiguren**

Alkandora zuria askatuta zeukan, ardo **mantxa** handi batekin. **Bernardo Atxaga**

Zer dira tunikaren odol- **mantxa** horiek? **Askoren artean**

Klarion- **mantxa** islarik gabeak ziren Bostongo kale, plaza eta etxadiak. **Anjel Lertxundi**

Kakalardo berde bat ikusten dut urre **mantxaz** betearene zangoaren ondoan. **Koldo Izagirre**

Baserritarren behetgietatik medikuen kontsultazietara, zikin **mantxarrik** gabeko arto landetatik unibertsitateko arlo landuetara. **Pello Salaburu**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mantxa gorri** (6); **mantxa gorriak** (4); **mantxa handi** (3); **mantxa zuri** (5); **mantxa zuri gorrixka** (3); **olio mantxa** (3)

## **mantxa**<sup>2</sup> 1 iz ipar kirol norgehiagoka edo lasterketa batzuk banatzen diren zati berdinetako bakoitza. **iktxanda**.

Hiru **mantxa** edo txanda bat bestearen ondok.. **Herria**

Hirugarren jokaldi edo **mantxan** izan da bitxikeria bat. 12 tantorako hiru **mantxetan**. **Herria**

Lehenbiziko bi **mantxak** irabazirik aioski bazoan frantsesa, baina nehorik ezagutzen ez zuen errosoak atxiki eta bertze hiruak ereman. **Herria**

Tau Baskonia gasteiztar saskibaloia taldea Europako lau hoberenetan sailkatu da, Bennetton Treviso italiar taldea garaituz bi **mantxetan**. **Herria**

Hau ez zen azken partida baina aitzinekoa: Baigorri azken hau irabazita lehen **mantxa**, hau bigarrena zen, kittara, Donapaleun jokatu eta, geroztik hirugarren bat behar zuten egin, nor-nausi. **Herria**

Oihuak eta esku zartak adituko dire norbaitek **mantxa** bat irabaztean eta ainitz gehiago, bixtan da, partida bururatzean, jakinen delarik nor den xapeldun berria. **Herria**

Aste huntan berean neurtuko da, finalalaurdenetan, Italiako Bennetton Treviso talde gotorrari, joan-jineko partidetan, beharrez hirugarren **mantxa** batekin. **Herria**

Lehen **mantxan** lapurtarrak nagusi, ondokik haatik ahuldu dira. **Herria**

-Euskadi nagusitu 4 **mantxa** irabazirik [musean], Frantziak 2. **Herria**

## **mantxar** izond poliki doana.

Ez zen **mantxarra**, ezta geldi egotekoa ere, eta matematikak, mekanika eta meteorologia ikasi zituen bere kabuz. **Pello Zabala**

## **mantxatar** izlag/iz Mantxakoa, Mantxari dagokiona; Mantxako biztanlea.

Baina ez fida Santxo, **mantxatar** jendea zintzoa bezain haserre-beroa baita, eta kilimakur eramanik ez duena. **Patxi Ezkiaga**

Don Juan **mantxatar** apatiko, triste bat zen, oso serioa, oso neurritsua, oso zezenzalea. **Josu Zabaleta**

Etxeke beste tipo bat, oso ezaguna, Maisu Txikia zen, **mantxatar** pedante eta orojakin bat. **Josu Zabaleta**

Bagoi hartan nekazari sendo bat baizik ez zihoan, **mantxatarraren** itxura kementsu eta gogorrekoa. **Josu Zabaleta**

## **mantxatu** izond

Elikadura hobea da, fruta ugari ukaiten dugu, ona, **mantxatua** den arren. **Koldo Izagirre**

## **mantxeta** iz aldizkari eta liburuetan, titulua eta argibide administratiboak datozen gunea.

San Andres plazara joaten den orok ikus dezake Berriaren **mantxeta**, kirol jantzien saltegi baten ondoan eta Pyrenees ostatu ezagunaren parean: Berria egunkariaren Baionako ordezkartizaren egoitza berria atzo goizean estreinatu zen, modu xumean, baina giro onean. **Berria - Euskal Herria**

Antton Mendizabalek Berriaren **mantxetarekin** egindako eskultura oparitu zioten EKTko ordezkariak Ernest Benachi. **Berria - Euskal Herria**

## **mantxo** ik **mantso**.

## **mantxu**<sup>1</sup> izond besomotza.

Bere bukaera pentsatu du laguna kantuan ari den bitartean: **mantxua** naiz baina ona. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

## **mantxu**<sup>2</sup> izlag/iz mantxuriarra.

Arraza mongoliar garbia, aldiz, mongoliarrek, **mantxuek** eta tibetarrek osatzen dute. **Karlos Zabala**

**Mantxu** Inperioaren ipar-ekialdeko markekin. **Iñaki Mendiguren**

**Mantxuen** Inperioa. **Iñaki Mendiguren**

Hamazazpigarren mendean Ming dinastia **mantxu** erdibarbaro kementsuek ordeztu ondoren, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Ekialde Urruneko estatu unibertsaleko enperadore **mantxuek**. **Iñaki Mendiguren**

K.o. 1599an mantxueraren adierazpide izateko onartu zen, **mantxuek** Txina konkistatu bezperan. **Iñaki Mendiguren**

## **mantxuera** iz mantxuriera.

K.o. 1599an **mantxueraren** adierazpide izateko onartu zen, mantxuek Txina konkistatu bezperan. **Iñaki Mendiguren**

## **mantxurriano** izond

Nik konplexuak eduki ditut nire familiaren jatorriagatik, bertsotan ari nintzela behin tipo bat mikrofono aurrean «extremeño puta», eta **«mantxurriano»** eginez hasi zitzaidan... eta hori adin batekin ez da erraza. **Berria - Kultura**

Eta maketoak, **mantxurrianoak** ere esaten ziguten. **Jon Maia**

Egunkari honetan, arrazoi horrexegatik, ezinezkoa da, konparazio batera, maketo, **mantxurriano**, hezurbeltz, belarrimotz edo kaskoin hitzak irakurtzea. **Iñigo Aranbarri**

## **mantxut** ipar badantzut?

**-Mantxut** ? Itxaro Borda

**Mantxut** ? zure zerk? mihiak? barkatu, ez dut entzun. **Itxaro Borda**

## **mantzaliña** ik **mantzanila**.

## **mantzanila** (orobat **mantzaliña**) iz kamamila.

Traktore itsuak **mantzanila** biltzen. **Karlos Linazasoro**

**-Mantzaliña** bat prestauko deuat. **Txillardegi**

## **manu** 1 iz agindua.

Eta **manu** bera eman zieten probintziaren herrietako biztanleei. **Karlos Zabala**

Jujeak **manua** eman dio Prefetari hiru familia horiek kanporatzeko lehen bai lehen. **Herria**

Beste anitz euskaldun bezala, ez zen nehandik ere ados Paristik heldu ziren **manu** garratzekin. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hiru oren luzeren buruan **manua** heldu zaigu gure block-etara itzultzeko. **Marzel Etxehandi**

Baina horra non egun batez, Paristik **manua** ukanik, poliza etortzen den Itsasura, elizako aberastasun horiek bildu nahiz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hortik dator honako **manu** hauek lege zibilak izatea: gurasoei ez diezu ukatuko legeek definituriko ohorea; ez duzu legeak hiltzea debekatzen duena hilko; [...]. **Esteban Antxustegi**

Batzarra guk zer eginen dugun beha dago, **manu** zehatzak ukanak ditut Espainiara pasatzeko mugaren zeharkatzera entseatuko direnen gelditzeko. **Elena Touyarou**

Kanpaleku tipiko goardiek **manu** garratzak ukan dituzte, eta ez niz ene lagunaren ikustera joaiten ahal. **Marzel Etxehandi**

## 2 erretira-manu etxeratze agindua.

Lekuka, erran bezala martxan ezarri ere dute aratsetako erretira: **manua**, "couvre-feu" delakoa, denentzat edo bakarrik 18 urtez azpikoentzat, nun nola gerta. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alde egiteko manua** (3); **cartierren manua** (3); **egiteko manua** (8); **egiteko manua eman** (5); **egoteko manua** (3); **erretiratzeko manua** (3); **gelditzeko manua** (4); **manua bete** (4); **manua eman** (19); **manua eman zuen** (4); **manua ematen** (3); **manua izan** (5); **manua ukan** (3)

**manuak emaiten** (3); **manuak eman** (3)

## manual 1 iz eskuliburua.

Katastrofeen abantaila: zertaz negar egiten zuten jakin gabe negar egiten zutenek badute orain negar egiteko arrazoi estandar, ulergarri, psikiatria **manualetako** bat.

**Harkaitz Cano**

-Bizitzeko **manuala** beharko genuke, tresna elektrikoak erabiltzeko bezalakoak- horrela, burua ia mugitu gabe esan zenuen. **Lander Garro**

## 2 irud/hed

Manomanistaren **manualak** ordea, besteak beste, zera dio: esku bakar batekin ezinezkoa dela aurrera egitea. **Berria - Kirola**

## manufaktura 1 iz eskuez edo makinaren laguntzaz egiten den produktu baten fabrikazio prozesua

Emaitzen arabera, iritzi ezkorrena eta konfiantza gutxien duten sektore ekonomikoak **manufaktura** eta handizkako merkataritza dira. Gene bakoitza ADNaren zatiki txiki bat da eta zelularen funtzio berezi bat kontrolatzen du, eta proteinen sintesia edo **manufaktura** bultzatu. **Berria - Ekonomia**

Estatu Batuetan, mendearen hasieran, % 39 ari zen lanean nekazaritza eta meatzaritzan, % 39 zerbitzuetan eta % 29 **manufakturan**. **Pello Salaburu**

## 2 lehengaietatik abiatuz eskuez edo makinaren laguntzaz lantzen den produktua.

Ekialde Urrunak ez du bere kideen **manufaktura** askorik inportatzen. **Koro Navarro**

Lehengairik gabe, herrialde horiek **manufaktura** esportatu beste biderik ez zuten beren ordainketa-balantza orekatzeko. **Koro Navarro**

Hirietan, gremioen monopolioak oztopatzen zuen oraindik ere **manufaktura** ekoizpena. **Koro Navarro**

Estatu Batuetan, **manufaktura** ezarritako batez besteko muga-saria %44ra iritsi zen 1913an. **Koro Navarro**

Merkataritzaren eta **manufaktura** babes-sistema **Xabier Arregi**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Manufaktura**-lanaren, merkataritzaren eta kolonia-hedapenaren apologia ziren doktrina honen gai nagusiak, estatuaren indarra sendotzeari baitzegoen osorik emana.

**Koro Navarro**

Munduko ekonomia nekazaritza eta **manufaktura** industrian oinarritzen zen lehen. **Berria - Gaiak**

Irrigarria baita oraindik ere eskualde horretan **manufaktura**-industriak ekoizpen osoan betetzen duen lekua. **Koro Navarro**

Lehengaiak esportatzera eta bertako merkaturia metropoliko **manufaktura**-ekoizpenetara zabaltzera. **Koro Navarro**

**Manufaktura**-sektoreko soldata errealak. **Koro Navarro**

AEBetako **manufaktura** indizea martxoan uste baino gutxiago hazi arren, enpresen mozkin aurreikuspenak ez dira jaitsi. **Berria - Ekonomia**

Bestalde, ISM **manufaktura** indizea ere sendo hazi da eta horrek Atlantikoaz bi aldeetako burtsak bultzatu zituen. **Berria - Ekonomia**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zerga-salbuespenak,aldi baterako fabrikazio-monopolioak, maileguak, estatuaren eskariak eta ohorezko abantailak (errege-**manufaktura**ren titulua adibidez). **Koro Navarro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ism manufaktura indizeak** (3)

## manufakturagintza iz manufakturak egitea.

**Manufakturagintza**ren jardueraren adar batzuek, siderurgiak adibidez, gaindi ditzakete nazio aurreratuenei buruzko produktibitate-atzerapenak. **Koro Navarro**

Fenomeno horrek mende batez iraun zuen, eta **manufakturagintza**ren eragile indartsua gertatu zen. **Koro Navarro**

## manufakturatu, manufaktura(tu), manufakturatzen 1 du ad lehengaietatik abiatuz eskuez edo makinaren laguntzaz produktu bat landu.

Bakailaia **manufakturatzeko** eraikina zen Ziriza. **Berria - Kultura**

Ehunak eta lanjantziak **manufakturatzen** zituen fabrika zaharkitu bat. aztertu beharreko lagina ez zen gehiago **manufakturaturiko** hautsño anonimo bat, quid materializatu bat; haitz zati bat zen, lurraren errai puska, mina indartsuek lurrari bortxaz kendua. **Iban Zaldua**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Europar beltz-tratulariek gai **manufakturatu**en truke hartzen zituzten esklaboak Afrikako kostaldeetan (armen, ehunen, edari bizien truke). **Koro Navarro**

1840ko hamarraldian, Ingalaterrak, bere aldetik, produktu **manufakturatu**en gaineko muga-sariak murriztea erabaki zuen. **Koro Navarro**

Nazioarteko merkataritzaren dinamismoa, batez ere, gai **manufakturatu**en salerosketatik dator. **Koro Navarro**

Zentroak ondasun **manufakturatuak** ekoizten ditu, eta periferiak, batik bat, sistema kapitalistan sartutako munduaren lehengai eta nekazaritza ondasunen hornitzaile funtzioa betetzen du. **Iñaki Heras**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**produktu manufakturatuak** (3)

**gai manufakturatu**en (7); **produktu manufakturatu**en (7)

## manugaitz izond ez-esanekoa, desobeditzailea.

Behortegiko linternapean ikusia neukan mutiko **manugaitz** honek Henrike II.aren gisako kapelu, bufoi bruxa eta larruzko azpantarrak zeramatzan. **Koldo Izagirre**

Lehen-lehenik [...] inguruko jaun **manugaitzak** zelatatu eta barrandatzea. **Aingeru Epaltza**

Grinatsu mintzo zen, boz sendoaz, bere arrazoien indarraz entzule **manugaitzen** bat makurrarazi nahi antzean, ilunbetan argi, agorrean ur. **Aingeru Epaltza**

Noski Henrikeri gehiago axola zitzaien **manugaitzak** erakartzea, manukorrak saritzea baino. **Aingeru Epaltza**

# manugaixtokoia izlag manugaitza.

**Manugaixtokoia** izatera ailegatu gabe, lan hau politikoki ez-zuzena da, beldur naiz. **Pello Salaburu**

## manukor (orobat manakor g.er.) izond esanekoa, obeditzailea.

Maitale amoltsu eta **manukor** bat. **Jon Muñoz**

AEBko diplomaziak "lagun" **manukorren** beharra zeukan, bertako goi mailako filipindar gizarteaz baliatu nahi baitzuen. **Ramuntxo Etxeberri**

Noski Henrikeri gehiago axola zitzaion manugaitzak erakartzea, **manukorrak** saritzea baino. **Aingeru Epaltza**

Haur bat bezain **manukor** izan nintzaion. **Aingeru Epaltza**

## manukortu, manukor(tu), manukortzen (orobat manakortu g.er.) du ad manukor bihurtu.

Nik hartu dizkiot eskuak orain, hiltzaileak biktima liluratzeko, baretzeko, **manukortzeko**. Inork ez ziguk agintzen, eta aginduko baligute baino makurragoa duk,

**manukortuak** gauzkatek makinista guztiok. **Koldo Izagirre**

Infernuaren ideia, egunez egun eta mendez mende **manakortu** gaituen infernuaren ideia, torturaren eta errepresioaren zuritzeko asmatua dela. **Berria - Kultura**

## manumisio iz esklaboez mintzatuz, askatasuna lortzea.

Agabo ziren eztabaidak, istilutsuak nahiz lasaiak: Esklabo lheslarien Legea, Kokapen-Kuota, Jainkoaren Bideak eta beltzentzako elizaulkiak; antiesklabotza, **manumisioa**, kolorearen araberako bozketa, [...]. **Anton Garikano**

## manumitu 1 izond esklaboez mintzatuz, askatasuna lortu duena. • irud/hed

Izan ere, kazetari onen besteko beharra dago kazetari **manumituena**. **Iñigo Aranbarri**

### 2 manumitugabeko izlag

Lautik hiru ez ziren ez Wayne, ez Mitchum, ez Martin, **manumitugabeko** afroamerikarrak baizik. **Iñigo Aranbarri**

## manupe 1 adlag manupean, mendean.

Hala segituz gero, errege baten **manupe** amaituko zutela bazekien-eta. **Felipe Juaristi**

### 2 manupeansup\_2 mendean.

Zure egoera kontrolatzen ez duzenez, etorkizun hurbilenak ere ihes egiten dizu bame antolamendutik; bertzeen **manupean** baitzaude aldi oro. **Filipe Bidart**

Bi urte geroago Heinrich Himmler SS indarren buruzagiak bere **manupean** hartu zuen erakunde hori. **Alberto Ladron Arana**

Sauronen erresumaren bihotzaren barnean zegoen Sam, bere antzinako boterearen sutegian, Erdialdeko Lurraldeko botereen arteko ahaltsuena, gainerako botere guztiak **manupean** hartu zituen. **Agustin Otsoa**

Eta Mordorren **manupean** luzaroen egondakoek, morrontza haren menpe denbora gehiena iraundakoek, [...] bat egin zuten azken borroka etsia luzatu nahian. **Agustin Otsoa**

### 3 manupeansup\_1 agintearen pean.

Soldadu mordo bat azaldu duk aurretik, mila bat omen, Agirre bertako koronelaren **manupean**. **Txillardegi**

Gerla piztuz gero, jende gehiago altxarazi behar zuen eta Donibaneko gazteluzainaren **manupean** jarri, hura baita erregeren ordezkoa Nafarroa Beherean. **Aingeru Epaltza**

## manuskrito iz eskuizkribua.

Etxekoek sura bota zizkioten **manuskrito** edo eskuizkribu frango, poliziaren beldurrez. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## maoi ik mahoi.

## maoismo iz Mao-Tze-Dong-en doktrina marxista-leninista; Maoren dotrinan oinarrituriko mugimendu politikoa.

Baina ez da ahaztu behar ETaren formazio ideologikoan Europako pentsamendu joera berriak nagusitu zirela, ateismotik existentzialismora, marxismotik **maoismora**, antikolonialismotik nihilismora. **Joseba Zulaika**

Ezkerreko talde eta joera guztietatik pasatua zen: stalinismoz zipiritindutako marxismo-leninismotik trotskismora eta (berehala) **maoismoa**; anarkosindikalistotik sozialismo kristaura eta askapenaren teologiara; [...]. **Iban Zaldúa**

"**Maoismo**" hitz horrekin, gauza hau dut adierazi nahi soil-soilik: Maok bezala, Mañexek bat egiten zituela bere baitan aberriaren aldeko borroka eta jende xehearen aldekoa. **Herria**

## maoista (orobat maoizta g.er.) 1 izond Mao-Tze-Dong-en dotrinaren edo politikaren aldekoa.

ORTko ekintzaileak ugaritu ziren batik bat; erakunde **maoista** hark denbora gutxian irabazi zuen bailarako gazte "mugituen" gogo. **Juan Kruz Igerabide**

Zapadorean konpainiak zalantzarik gabe ikusi zituen gerrillari **maoistek** ipinitako dinamita-kargen aztarnak. **Jon Alonso**

Herria gerrilla **maoistaren** eskuetan zegoela aitzakia harturik. **Jon Alonso**

70eko hamarkadaren hasieran ezkutuko lan politikoa ari ziren alderdi komunista ugariak -Hirugarren internazionalakoek, laugarrenekoek, **maoistek** - ez zuten planteamendua onartzen, eta beren kritiketan "burgesiaren alde" ari ginela aurpegiraten ziguten. **Bernardo Atxaga**

### • 2 iz Mao-Tze-Dong-en dotrinaren edo politikaren aldekoa.

Lekutan dago **maoista** zen garaia. **Iñigo Aranbarri**

1970ean [...] La Cause du Peuple izeneko aldzakariaren zuzendaritza hartu zuen bere gain, **maoistek** eskatuta. **Monika Etxebarria**

Guk pentsamendu eta mugimendu ezkeriarren loratzea bizi izan genuen Parisen: gautxistak, **maoistak**, troskistak... **Ana Urkiza**

Hipermaioritarioak minoritarioen kontra, hipertroskistak **maoisten** kontra, hiperabertzaleak espainolisten kontra... **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

*gerrillari maoista* (6)  
*gerrilla maoistak* (17); *talde maoistak* (3)  
*gerrilla maoistaren* (5)  
*gerrillari maoistek* (18); *maoistek deituta* (5); *maoistek egindako* (3); *talde maoistek* (3)  
*gerrillari maoisten* (11); *maoisten kontra* (4)

## maokrazia iz (cf kristau 11)

Gainditua balin bada ere 1970 urte haietako kristau **maokrazia** simple hura, sekula bezain beharra da Euskal Herriaren eta justizia sozialaren aldeko borroka **Herria**

## maozale izond Mao-Tze-Dong-en doktrinaren zalea dena. ik maoista.

Mañexen "maoismoa" ere kakotxen artean ezartzen düt, ez baitzen **maozalea**, zentzu hertsian, bistan dena. **Herria**

## mapa 1 iz Lurbiraren edo Lurraren zati baten irudikapena, eskala jakin batean egina.

Ezagutzen nuen, bai, 1:500.000 eskalako **mapa** hura, lupaz begiratuta ere ezer argitzen ez zuena. **Joxe Austin Arrieta**

400 orri, 40.000 datu eta 300 taula, grafiko eta **mapa**. **Joxerra Garzia**

Eta hatz punta **mapa** gainean jarri du Imanolek, Euskal Herria tapatuz. **Joseba Sarrionandia**

Horra zergatik, Giuseppe Mazzinik, 1857an, erakutsi zuelarik bere Europako Nazioen **mapa**, hamar-hamabi estatu-nazio baizik ez zituen markatzen. **Piarres Xarriton**

Euskal Herria Europako **mapan** kokatzearen. **Ramon Saizarbitoria**

Afaltzen zuten bitartean eskualdeko **mapa** bat aztertzen jardun zuten. **Joxemari Iturralde**

Herialdeak ergelkeria hutsa dira, ez dira **mapetan** baizik existitzen. **Jon Muñoz**

**Mapa** tolestatu zuen. **Joxe Austin Arrieta**

Bi geografik izen heleniko tradizionalai, "Europa" eta "Asia"ri, marinelaren **mapatik** publizistaren **mapa** politikora eta soziologoaren kultur habitaten diagramara aldatuz.

**Iñaki Mendiguren**

### 2 (izenondoekin)

Arbeletik zintzilik Europako **mapa** handi bat zegoen. **Joxemari Iturralde**

Munduko **mapa** erraldoia babesten zuen beiran bere hazpegien isla aztertu zuen. **Alberto Ladron Arana**

Amazoniako **mapa** ezin handiagoa zabaldu zuen Jonathanek. **Jon Muñoz**

Marteko **mapa** interaktiboa eratu du Googlek. **Berria - Gaiak**

Pablok uhartearen **mapa** militarra zabaldu zuen dendan. **Bernardo Atxaga**

Zabalkunde horixe dago munduko **mapa** ekonomikoaren berrantolaketa sakonaren jatorrian. **Koro Navarro**

EEBBetatik bidalitako **Mapa** Meteorologikoak aurkeztu ziren, Parisen, telegrafoz bidaliak noski. **Pello Zabala**

### 3 (hiriarena; ik planu)

Ostatuko karrikan bertan liburu-denda bat ikusi eta hiriko **mapa** on bat erosi nuen. **Alberto Ladron Arana**

Orain arte izan garen hirietako **mapak** gorde egin ditut. **Edorta Jimenez**

Millek Donostiako **mapa** aztertu zuen, lekuaren izena aurkitzeko. **Fernando Morillo**

Londresko **mapa** handi bat zeukaten zabaldurik. **Joxemari Iturralde**

Pantailan Parisko **mapa** agerrarazi du Fernandezek. **Berria - Gaiak**

Hiri handiko kanposantuetan **mapak** banatzen dituzte sarreran, hildako ilustreak bisitatu eta libururik ekarri ez dutenak ere esku hutsik ez uzteko. **Harkaitz Cano**

Altxorraren **maparik** ez nuen, eta ez nekien zein geltoki izango nituen bidean zain **Juan Luis Zabala**

### 4 (bestelakoena)

Landare baten genoma osoaren **mapa**. **Pello Salaburu**

Mutazio hori ez zen, guztira, drosofilaren **mapa** genetikoa, kromosoma bateko puntu bat baino. **Juan Garzia**

Berrogeitik gora gunetako temperaturaren **mapa**. **Pello Zabala**

Matematikaren unibertsuaren **mapa** egin beharko zuen. **Jon Muñoz**

Pentsalariek landu dituzten gaien araberrako Filosofia Politikoa **mapa** bat moldatu du. **Askoren artean**

Jarduera akademikoan, unibertsitate mailako prestakuntza atalean, titulazio **mapa** garatu nahi dute, hitzarmen politikarekin jarraituz. **Berria - Euskal Herria**

Bazela garuneko neurona-mailan, entzumenezko espazioaren **"mapa"** gisako bat, zentzumen bidezko informazioaren puntuz puntuko proiektzio ororen guztiz desberdina.

**Josu Zabaleta**

### 5 irud/hed

Ahula baita oroimena, gaitza iraganaren **mapa** osatzea. **Edorta Jimenez**

Gure **mapa** erotikorekin bat datorren pertsona baten aurrean. **Luis Elberdin**

**Mapa** poetikoaren aurkikuntza. **Ana Urkiza**

Euren begiradetan ostentzen den malkoen **mapa** latza da sakabanaketa. **Jokin Urain**

Agundezen esanetan, zerbitzuak ematen ari dira, baina baliabideen **mapa** planifikatu gabe dago oraindik. **Berria - Euskal Herria**

### 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mapa** sorta bat atera zuen Jonathanek [...] maletatxo batetik. Ibairen izen kartografikoak leku-izenak dira berez, ibaia pasatzen deneko leku baten izenak, gero ibai osoaren **mapa** izen bihurtu direnak. **Jon Muñoz**

Gombrichen hitzak erabiliz, analogia ispilu-alderdiari dagokiola esan daiteke, eta errealemoa **mapa**-alderdiari. **Josu Zabaleta**

### 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gauetz topografia-**mapa** bat irakurri baina ilunetarako egokitzapena galdu nahi ez bada, aski da irakurtzeko betaurreko gorriak erabiltzea. **Josu Zabaleta**

Ahuñemendi ingurueta erliebe-**mapa** zabalda. **Txillardegia**

Telebistako eguraldi **mapak**. **Bernardo Atxaga**

Isobara-**mapa** baten antzera. **Iban Zaldua**

Lege horren bidez Nafarroako udal **mapa** aldatu nahi dute. **Berria - Euskal Herria**

Nik uste dut horren antza izango lukeela emaitzak, dialekto **mapa** batena. **Ana Urkiza**

Eskola **mapa** ez dela zuzena eta zaharkituta dagoela. **Berria - Euskal Herria**

Bere izar-**mapa** osatu beharra zeukan oraindik. **Iñaki Mendiguren**

Geneak atzeman eta kromosoma-**mapa** batean kokatzeko. **Juan Garzia**

Nola azalduko litzateke balio-**mapa** batean? **Bernardo Atxaga**



· la-ia epaiketa millarra zidaten itzas mapa sorta baten izen-etiketak nahasteagatik. Oskar Arana

## 8 erreptide mapasup\_1

**Erreptide mapa** bat, esaterako, errealtitatea adierazten saiatzen den eredu bat da, eredu baliagarria gainera [...] bere helbururako erabilgarria baita, nahiz eta ez dituen jasotzen errealtitateari buruzko hainbat eta hainbat datu. Iñaki Heras

Binilozko disko zaharrak, merkatuan dagoeneko lehiabide direnak, **erreptide mapa** zaharkituak, noizbaiteko bidai gidak. Joxan Elosegi

Metalezko hautsontzian zanpatu zuen zigarrokina eta zortzi tolesturatan bildu zuen **erreptide-mapa**. Harkaitz Cano

## 9 erreptide mapasup\_2 irud/hed

lazko ekainean onartutako **Erreptide Mapa** izeneko bake egitasmoa sustatzeko xedearekin. Berria - Mundua

Sharonen plana ez da **erreptide maparen** ordezko zerbait. Berria - Mundua

Gazatik erretiratzea **Erreptide Maparen** zatitaz jotzen zutenek ulertu behar dute beren asmo onak gauza bat direla eta beste bat Sharonen asmo onak. Berria - Mundua

Abertzaleek euren **erreptide mapa** beharko dutela esan du Elorrietak. Berria - Euskal Herria

**Erreptide mapa** politikoa egitea ez dagokio Zapaterori, Euskal Herriko indar politiko eta sozialei baizik. Berria - Harian

**Erreptide-mapa** taxutu behar dugu, horrek epe jakin batean Garoñako zentral nuklearraren itxialdira eraman gaitzan. Berria - Euskal Herria

**Erreptide Mapan** zehazturiko urratsak ez dira egin, edota eginikoez ez dute inora eraman. Berria - Harian

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arriskuen mapa** (3); **bonaparte printzearen mapa** (3); **bonaparteren mapa** (4); **buruaren mapa** (3); **erliebe mapa** (3); **erreptide mapa** (137); **erreptide mapa bat** (5); **erreptide mapa bultzatzeko** (3); **erreptide mapa plana** (3); **eskola mapa** (4); **eskolen mapa** (3); **espainiako mapa** (4); **europako mapa** (9); **euskal herriaren mapa** (5); **euskal herriko mapa** (13); **euskalkien mapa** (8); **genomaren mapa** (6); **giza genomaren mapa** (4); **hiriko mapa** (4); **inguruko mapa** (4); **kultur mapa** (3); **kuxkuxeroaren mapa** (9); **londresko mapa** (3)

**mapa atera** (6); **mapa aztertu** (3); **mapa bat hartu** (3); **mapa bat zabaldu** (3); **mapa berria** (5); **mapa bultzatzeko** (3); **mapa digitala** (3); **mapa edo karta** (3); **mapa egitea** (4); **mapa egiteko** (12); **mapa egiten** (3); **mapa erakutsi** (5); **mapa gainean** (6); **mapa gauzatzeko** (3); **mapa genetikoa** (3); **mapa handi** (8); **mapa handi bat** (5); **mapa hartu** (3); **mapa ikusi** (3); **mapa osatu** (6); **mapa osatzen** (3); **mapa osoa** (3); **mapa politiko** (12); **mapa politikoak** (3); **mapa politikoan** (4); **mapa seinalatuz** (3); **mapa zabaldu** (4); **mapa zabaldu zuen** (3)

**munduaren mapa** (4); **munduko mapa** (7); **nafarroako mapa** (4); **nafarroako mapa politiko** (3); **titulazio mapa** (4); **titulazioen mapa** (4); **zuazoren euskalkien mapa** (4)

**erreptide mapak** (6)

**erreptide mapan** (13); **munduko mapan** (4)

**erreptide maparekin** (5)

**erreptide maparen** (19); **maparen arabera** (8)

**erreptide mapari** (10); **mapari begira** (8); **mapari begiratu** (3)

**azaleko mapetan** (3)

## mapagile 1 iz mapak egiten dituen pertsona.

Ez alferrik ditugu gurekin **mapagilerik** onenak. Felipe Juaristi

Gorteko **mapagilerik** ospetsuenari, Abraham Souza juduari deitu eta ametsean ikusitakoa adierazi zion. Felipe Juaristi

Gaur egungo **mapagileak** satelitez egindako 39 milioi pixel izango ditu kontuan, baina gero informazio hori bere gisara moldatuko du. Joseba Sarrionandia

## 2 (izenondo gisa)

Dena dezakeen goiko begi **mapagilearen** eskuz. Iñaki Segurola

## mapamania iz mapen zaletasun gehiegizkoa.

Militarren gaitz fundazionala den lurraldemina edo **mapamania**. Iñaki Segurola

## mapamin iz

Hemengoa bai... baina nongoa? -galde lezake **mapamina** hezurretaraino sartua daukan edozeinek. Iñaki Segurola

## mapamundi (orobat mapa mundi) iz lurrazal osoa, bi hemisferioetan banatua, irudikatzen duen mapa.

Martellus Henricusen **mapamundiak** eta Saint-Omerreko Lambertek Liber Floridus. Antarktika, kobentzionalki, kolore zuriz pintatzen da **mapamundien** beheko parte horretan. Aurelia Arkotxa

Erdi Aroan marrazturiko hainbat **mapa mundiri** begirada bat ematen diona azkar ohartzen da Belen, Nazaret, Jerusalem eta horrelako lekuei eskaintzen zaien arduraz.

Bernardo Atxaga

**Mapamundi** bat, erregelak eta angelu-neurtzaile bat. Joan Mari Irigoien

## mapatxe iz Ameriketako ugaztun haragijale txikia, ile-grisa, buztanean eraztun beltzak dituena(Procyon rotor)

**Mapatxe** baten kontra esku hutsekin borrokatu eta irabazi. Anton Garikano

**Mapatxe** -larruz josiriko jantzi handi batez estalia. Juan Garzia

Jadanik 558 **mapatxe** eta 10 azkonar hil dituzte. Berria - Gaiak

## mapatxo iz adkor mapa txikia.

Gaur egun, gure telebixta geurean bertan ere, ikustekoa da nola saiatzen diren, goizerako **mapatxo** bat eta arratsalderako beste bat eta... nola zehazten den... [...]. Pello Zabala

## mapatzar iz adkor mapa handia.

Eta ordu pare batez gogoz lan eginda, beste hamabost toki-izen kokatu ditut pareta nagusiko **mapatzarrean**. Txillardegi

## maputxe 1 izond Txile hegoaldeko Araucoko indiar herrikoa.

Eskualdeko **maputxeen** buruetako batek. Berria - Mundua

Azkintuwe egunkari **maputxeak** salatu duenez, [...]. Berria - Mundua

Lur Guztien **Seuilua** erakunde **maputxeko** buruzagi Aucan Huilcamanen arabera, hautagaiak **du** esandakoa **betearzteko** inolako **asmorik**. **Berria - Mundua**  
Kolpe bat jaso du herri **maputxeak**. **Berria - Mundua**

## 2 iz herri horretako kidea.

**Maputxeei** herri izaera onartzea aztertuko du Senatuak, Lagosek eskatuta. **Berria - Mundua**

Lurrak kentzeak **maputxeak** hirietara emigratzea eragin du. **Berria - Mundua**

Indigenen lurretan aurrera egiten ari dira multinazionalak eta **liskar** gogorrak daude **maputxeen**, enpresen eta estatuen artean. **Berria - Gaiak**

Lurrak ematen die nortasuna **maputxeei**. **Berria - Mundua**

**Maputxeek** Benetton enpresaren azken eskaintza errefusatu dute. **Berria - Mundua**

- Lurralde horien jabea **Maputxe** herria zen. **Berria - Kultura**

## maquiavelotiar ik makiavelotiar.

## mar-mar-mar adlag marmarka, marmarrean.

Kantuz ari ziren zenbait, bertze batzu **mar-mar-mar** otoitzean, arrosorio bat eskuan. **Michel Oronoz**

Josinazio dala ta Pepita dala, Miriam, Manu eta Ramona, txor-txor-txor ta **mar-mar-mar**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bazterrak **mar-mar-mar** hasiak, ikusiz gobernuburu eta minixtroa etzirela beraz arras hitz beretan... **Herria**

Beti ari dira **mar mar mar** eta **mar mar mar** "dezentralizazio" delako hortaz. **Herria**

Ederki, marmarti; **mar-mar-mar**, **mar-mar-mar**, **mar-mar-mar**, **mar-mar-mar**; marmarrean baino ez zekien emazteak. **Mirentxu Larrañaga**

## mar-mar<sup>1</sup> (orobat marmar g.er.) adlag marmarka, marmarrean. ik mar-mar-mar.

Kalean hotza, zerua oskarbi, izarrek **nir-nir**, eta mutxurdinek **mar-mar**. **Unai Iturriaga**

Txutxu-mutxu eta **marmar** ibili dira pixka batean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Eskumuturra hautsita -entzun zion Harryk maistrari **marmar** esaten-. **Iñaki Mendiguren**

## mar-mar<sup>2</sup> ik marmar<sup>1</sup>.

## mara-mara 1 adlag elurraz, eta izerdiaren, malkoen eta kidekoen jarioaz mintzatuz, emeki baina ugari.

Elur handia zen, malutak **mara-mara** erortzen ziren. **Gotzon Garate**

Elurra ari zuen **mara-mara**, eta ezin jakin genuen non geunden. **Felipe Juaristi**

**Mara-mara** ari du kanpoan. **Lutxo Egia**

Elur mardula hasi zuen bat-batean, **mara-mara** eta oparo, erauntsi etengabean. **Anjel Lertxundi**

Ikustekoa zen Patxik nola egiten zuen negar, malkoak **mara-mara** ! **Gotzon Garate**

Tania Kovaltxukek, **mara-mara** negarrez, mahukaren gainetik besoa laztandu eta larruzko txano soilduaren belarri eroriak atondu zizkion. **Jose Morales**

Atea zabaldu dik eta, orduantxe Saxo jaikitzen ari zuan eta, besteak atearekin buruan jo zioik; odola **mara-mara** ... **Pablo Sastre**

Lokatza **mara-mara** ari zen sartzen buru gaineko sabaiaeren ohol artetik. **Anton Garikano**

Azkenean gorputz osoa erreta geratzen zitzairen, **mara-mara** erortzen ziren errautsetan. **Joanes Urkixo**

Euskaraz bi modu dauzkagu erortzen ari den elurraren abiadura deskribatzeko: **mara-mara** elurra azkar erortzen denean, malo-malo poliki erortzen denean. **Bernardo Atxaga**

**Mara-mara** esaten da, baina han zarra-zarra ari zuen elurra, atertu gabe, aspertu gabe, eta botatakoea ez zen urtzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 2 irud/hed

**Mara-mara** ari zen argia itsasgaina zilarreztatuz. **Anjel Lertxundi**

Hargatik **mara-mara** jarraitu zuen: lagun harekiko solasetik lekora, lau hilabete eskasaren epean, egunkarian irakurri zuen bere burua ibaira bota zuela, loak hartzeko erremedioak alkoholarekin nahas irentsi ondoan. **Itxaro Borda**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**elurra mara mara** (15); **mara mara ari** (16)

## marabedi iz Espainiako diru zaharra, hainbat balio zituena; batez ere, erreal kuartoaren hogeita hamalauena balio zuen kobrezko dirua.

Zortzi **marabedi** irabazten ditu eguneko garbi-garbi eta eltzetxo batean gordetzen ditu ezkontzen denerako. **Patxi Ezkiaga**

Erreal bana dago ogia eta hogeita hamar **marabeditan** haragi libra. **Patxi Ezkiaga**

## marabila ik marabilla.

## marabilioso ik marabilloso.

## marabilla (orobat marabila g.er.) iz gauza harrigarria edo zoragarria, miraria.

Damaskoko Kalifak bere emazteen harema gordeko zukeen mesfidantza eta maltzurkeria berberaz begiratzen zuen bere altxor preziatua, nahiz eta bere buruari eskaini ez

**marabilla** hura une oroz ikusi, dastatu eta miresteko egokierarik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hilabete oso bat eman zuen sekulako **marabillak** iragartzen. **Joxerra Garzia**

Engainatuko ni, ba, hango **marabillekin** ! **Karlos Linazasoro**

**marabilioso** (corpusean **marabilioso** soilik) izond miragarria, zoragarria.

Neskatoak betexeak zituen bere lehen hemezortzi urte **marabiliosoak**. **Joxemari Iturralde**

**marabut 1** iz harrizko toki itxia, lau albokoa, gaina biribila eta barrena hutsa duena, Islam-eko santu baten hilobi edo dena.

**Marabut** bat, hemengoan kapera bat, nolabait. **Xabier Montoia**

**Marabuteko** zulotik mundua ikusten den moldeko argazkia eginen zenuke. **Xabier Montoia**

**2 musulmanen artean, gizon santua.**

Zorionez, **marabut** afrikar oso aberats bat etorri zen gurera, eta urrea truke alokatu zituen nire zerbitzuak aste batez. **Joxan Elozegi**

Gainera, garai hartan jakin genuen, prentsan irakurrita, **marabuta** hil zela. **Joxan Elozegi**

**maraca** ik **maraka**.

**maradikatu** ik **madarikatu**.

**maradizino** iz **madarikazioa**.

Orduan tribuko mediku edo azti zenak mila **maradizino** jaurtikitzen zizkion tigre kolpatuari. **Joan Mari Irigoien**

**maradizinoka** adlag **madarikazioka**.

Egun osoan **maradizinoka** eta biraoka ibiltzen zitzaigun. **Joan Mari Irigoien**

**maragato** izond Espainiako Leongo Maragateriakoa.

Murias de Rechivaldo, egiazko hiri **"maragatoa"**. **Piarres Aintziart**

Ikustekoa delarik bizkitartean, herri **maragato** tipikoa delakotz. **Piarres Aintziart**

**maraka** (orobat **maraca**) iz pl Antilletako perkusio musika tresna, kirten batek eta hartxintzarrez beteriko esfera moduko batek osatua.

**Marakak** joz arrakasta lortu nahi duen labezomorro karibearra. **Berria - Kultura**

Jaime Vallsen **Maraca** jotzailea eta Beltzaren burua koadroak, 1927. urtekoak biak. **Berria - Kultura**

**marantu** iz adkor hildakoa.

-Hi, Iñaki, zenbat **marantu** dituk? **Koldo Izagirre**

Nirea ez zen **marantu** bat tejal egin behar izan nuen. **Koldo Izagirre**

**marapilo** iz korapiloa.

Sabelean **marapilo** batek urdaileko paretan kontra indarra egiten du askatu nahian. **Sonia Gonzalez**

Azken bazterrean, azken txokotxoan dago, **marapiloa** eginda, bere barruan altxor zikin eta hotza gordeta. **Sonia Gonzalez**

**marasma** iz armiarma.

**Marasma** handi bat eta txiki bat ikusiaz gero, euria laster. **Pello Zabala**

Zu bezalako gizon handia esaldi bakarraren **marasma**-sarean harrapatutik: izadiaren handitasuna gauza txikiei begira aurkitzen da. **Hasier Etxeberria**

**marathoi** ik **maratoi**.

**maratila 1** iz zurezko pieza, biratuz atepak eta leihoak ixteko erabiltzen dena. **ikkisketa**.

Etorri zenean, atea giltzaz eta **maratilaz** itxi nuen. **Karlos Zabala**

Bat-batean gazte bat autora hurbildu zen, **maratilari** eragin, atea zabaldu eta autoaren aurre aldeko eserlekuan eseri zen, Angelaren ondoan. **Gotzon Garate**

**Maratilari** eragin nion, denda irekita aurkitzeko esperantza gutxiarekin. **Anjel Lertxundi**

**Maratilari** eragin zion eta kirrinka mehe batek adierazi zion sarbidea giltzatu barik zegoela. **Josu Landa**

**Maratilari** jira eginda, esku batean erretilua zeraman emakume argaltxo bat sartu zen barrura. **Joxemari Urteaga**

Goiko gelako atepak itxi eta **maratila** eman ondoren. **Elizen arteko biblia**

**Maratilari** ematera zihoanean, ordea, atzera egin zuen. **Anjel Lertxundi**

**Maratila** bat aurkitu eta gogor estutu zuen, baina eskuan geratu zitzaion. bat-batean atea itxi eta **maratilari** buelta eman zion. **Koro Navarro**

Burdinazko **maratila** kendu, atea ireki eta aurrez aurre Holgerrekin egin zuen topo. **Martin Anso**

Atearen kanpoaldean, **maratilatik** esekia, txartel hau zegoen: DO NOT DISTURB. **Patxi Zubizarreta**

Begiak **maratilako** botoitik apartatu gabe. **Matias Múgica**

Etxe atzeko sarrerako ateari, berriz, kristal bat falta zaio, **maratilaren** parekoa hain zuzen. **Joxemari Urteaga**

**2 irud/hed**

Inoiz ez zuen ikusipuntu hura aztertzen, artearean, baina sartzen, Rosari so zegoela, edertasuna eta hondamena ate bereko bi **maratila** direla otu zitzaion. **Aritz Gorrotxategi**

Hori duk dena, ez zegok beste **maratilarik**. **Harkaitz Cano**

Arraza da beti arazoaren **maratila**. **Joxe Azurmendi**

Bere lagunak aurkezteaz gain, lagun horiek hobeto ezagutzeko **maratila** ere ematen dizkigu **Sastrek Berria - Kultura**

### 3 (hitz elkartuetan)

Halako batean, **maratila** -hotsa sarrerako atean. **Anjel Lertxundi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maratilar** eragin (7)

## maratilatxo (orobat maratiltxo) 1 iz

Gure aita zenak, larunbatean kentzen zuen asteko bizarra, ispilutxoa leihoko **maratiltxoaren** ertzean esekita... **Pello Zabala**

### 2 irud/hed

Eguraldiak ez zuela sekreturik nahi nuen adierazi, antzeman lekiokela hartara saiatuaz gero, erreparatzean zegoela **maratilatxo**. **Pello Zabala**

## maratiltxo ik maratilatxo.

## maratoi (orobat marathoi g.er.) 1 iz 42 kilometro eta eta 195 metro oinez korritzean datzan atletismo proba.

2000. urtean, New York-eko **maratoia** kurritu zuen, 45 urtez goitikoan artean bigarren bururatu. **Herria**

**Maratoia** korritu? ikusita soilik nekatu egiten naiz. **Berria - Kirola**

Atenasen **maratoia** egin zuenetik ez du inongo probatan parte hartu. **Berria - Kirola**

Maiatzaren 23an Zegama-Aizkorri **maratoia** parte hartzeko egun batean 300 pertsonen eman dute izena. **Berria - Kirola**

Ez da eliteko atletarik izango igandean Donostian jokatu den **maratoian**. **Berria - Kirola**

500 lagun ariko dira Martin Fiz **Maratoian**, apirilaren 4ean. **Berria - Kirola**

Norbaitek bizkarrean kolpetxoak eman zizkion **maratoia** irabazi izan balu bezalaxe. **Iñaki Mendiguren**

Neure burua **maratoia** amaitu duen lasterkari batekin alderatu. **Patxi Zubizarreta**

### 2 irud/hed

Lan eskerga izango da, pilotari bakoitzak zazpi aldiz kantxaratu beharko duelako gutxienez, eta sailkatze faseko **maratoiak** 28 partida izango dituelako. **Berria - Kirola**

Gurea ez da lasterketa motza, gure borroka **maratoi** luzea da. **Eduarne Elizondo**

Lau urtetik behin euskararen **maratoia** antolatzen da, esaterako. **Berria - Euskal Herria**

Munduko musiken **maratoia**. **Berria - Kultura**

Gatazka konpontzeko bidean «**maratoiaren** erdia» egina dagoela uste du eta, gainera, beste erdia egiteko ez direla horrenbeste urte beharko. **Berria - Euskal Herria**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Maratoi** -korrikalariak bezain abailduta. **Xabier Montoia**

Baina dozenaka ibiltzetik ehunka ibiltzera alde handia dago, batik bat kontatzen dena zenduak badira, ez manifestariak edo ikusleak edo **maratoi** lasterkariak, edo beste zer edo zer. **Karlos Linazasoro**

· Munduko Mendi **Maratoi** Zirkuituaren barruan egongo da proba lehen aldiz. **Berria - Kirola**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Martin Fiz Maratoia eta Bilboko Herri **Maratoia** jokatu dira igandean. **Berria - Kirola**

Munduko onenak ariko dira Zegama-Aizkorri mendi **maratoian**. **Berria - Kirola**

Mendi-**maratoiek** gero-eta arrakasta handiagoa daukate urtetik urtera. **Herria**

Musika-**maratoi** horren helburua zen musika klasikoa, konpositoreak eta obrak ezagutaraztea. **Herria**

Parlamenturako hauteskunde **maratoia** abiatuko da gaur. **Berria - Mundua**

Goizeko hamaiketan hasita, rock **maratoiak** egin zituzten Durango herriko hiru gunetan. **Berria - Kultura**

### 5 maratoi-erdi

20 kilometra luzeko lasterraldia da, **maratoi erdi** baten heinekoa nunbait han, biderditan patar koxkor batekin. **Herria**

Komen eta Semotwo kenyarrak dira faborito etziko, Bilboko **Maratoi Erdian**. **Berria - Kirola**

Aurtengo Azkoitia-Azpeitia **maratoi erdiak** bi berrikuntza izango ditu. **Berria - Kirola**

Nazioarteko **Maratoi Erdian** faboritoek lasterketako marka izango dute helburu. **Berria - Kirola**

-**Maratoi-erdi** bat egiteko moduan ikusten zaitut -esan zion Mariak nebari. **Unai Elorriaga**

· Berako mendi **maratoi erdian**, apirilaren 17an, Fernando Etxegarai beratarra da nagusitu, Joxe Mendiola eta Arkaitz Zamakona-ren aitzinean. **Herria**

1.200 atleta ariko dira igandean, Donostiako Herri **Maratoi Erdian**. **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bilboko maratoi erdia** (3); **maratoi erdi** (5); **maratoi erdia** (27); **maratoi erdia irabazi** (3); **maratoi erdia irabazteko** (3); **maratoi erdia jokatu** (5); **maratoi erdian** (12); **maratoi erdiko** (4); **mendi maratoi** (4); **nazioarteko maratoi erdia** (3)

**aizkorri mendi maratoia** (4); **donostiako maratoia** (5); **euskararen maratoia** (3); **londresko maratoia** (3); **maratoia irabazi** (5); **maratoia prestatzen** (4); **martin fiz maratoia** (6); **mendi maratoia** (5); **saharako maratoia** (3)

**londresko maratoian** (6); **martin fiz maratoian** (4); **pekingo maratoian** (3)

## maratoigile iz maratoilaria.

Helmuga begien bistan dutenean etortzen dira behera txirindulari, **maratoigile** asko, orduantxe egiten baita presente nekea, harkaitz izugarri bat izango balitz bezala.

**Karlos Linazasoro**

## maratoilari 1 iz maratoi lasterkaria.

Hiru **maratoilari** afrikar izan dira azkenak izena ematen: Fred Chumba eta Festus Kiono kenyarrak eta Abel Chimukoko zimbawetarra. **Berria - Kirola**

Aizkorriko maratoia kurritu da igandean, 330 **maratoilariren** artean. **Herria**

Gaueko hamarrak zirela konturatu zen Zorayda Arraras, oso aspaldiko egun hita eta zapal batetan Okotz Cormenzana psikoanalista lacantiar eta **maratoilari** ezagunak bortxatu zuen emakumea. **Iñaki Segurola**

## 2 irud/hed

**Maratoilariek**, pilotariek alegia, gaur egingo dituzte lehenengo urratsak, Bilboko Deportivo pilotalekuan (17: 00), iazko txapelkun Ziskar II.a, Buenos Airesko seme Pablo Hernan Fustoren aurka arituko da. **Berria - Kirola**

## 3 (hitz elkartuetan)

Hori gutxi balitz ere, fisikoki ere ondo prestatutako mutila da, nekaezina, borrokalaria, **maratoilari** hauspoa duen horietakoa. **Berria - Kirola**

· Mendi- **maratoilari** ona ere da, Zegamako maratoian zazpigarren bururatzan zuela 2003an. **Herria**

Errauli bat -ingelesek spanish fly deitzen diote, baina ez da ez eulia [...] ezta bereziki espainola ere, eta maitasun- **maratoilarientzako** errezeta guztietan agertzen da (Lytta vesicatoria). **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## maratoniano izond akigarria eta oso luzea.

Izan ere, Matiasen madarikazioak ez ziren iraupen handikoak; ez ziren, esate baterako, madarikazio **maratonianoak**. **Unai Elorriaga**

## maratz 1 izond pertsoenez mintzatuz, gogoz eta ganoraz lan egiten duena.

Susanna izeneko [...] emakume **maratz** prestu batez maitemindu zen. **Juan Garzia**

Ama goiko solairura igotzen da lasterka, hango etxeokandre **maratzari** laguntzera. **Josu Zabaleta**

Ukendua erabiltzen baldin badut eta Jainkoaren laguntzaz sendatzen banaiz, neskame **maratz** bat bidaliko dizut, eta haren azpilanari esker, handik gutxira hilko zara. **Patxi Zubizarreta**

Sukaldari **maratz** haietako batengana hurbildu zen eta, goseak eta heziera onak zemaion eran mintzatuz, eltze haietakoren batean ogi kozkor bat bustitzeko baimena eskatu zion. **Patxi Ezkiaga**

Ikaragarri fina da etxeko lanetan, eta **maratza**, eta alai gainera. **Josu Zabaleta**

**Maratza** eta saiaria izanagatik ere, gizonak ez duela ezer balio ordenatua eta diziplinatua ezpada. **Bego Montorio**

Estimazio handiko enplegatua zen ordurako, Administrazioarentzat behar-beharrezkoa, burdinazko oroimen baten jabea eta **maratzetan maratza**. **Juan Garzia**

## 2 irud/hed

Abarasketan sakabanaturiko erle **maratzen** antza zuten funtzionario haiek. **Jose Morales**

Hegazti askoren neguko elikagaia prestatzen ari da dagoeneko gure natura ama **maratza**. **Pello Zabala**

Leku bitxiro aparta zuen indioilarrak familia-mundu sotil, bare eta **maratz** hartan. **Juan Garzia**

Garai guztietan eta lurralde guztietan, zibilizatu gabeetan salbu, ez da horrenbesteko asmaketa lan handi eta **maratzik** egin, nola egin den uraren ordeko edariak bilatzen.

**Xabier Olarra**

Nola lankide haren esku-hartze **maratzari** esker, errebolber bat aurkitua zuten arestian Luteziaren maletan. **Matías Múgica**

## 3 (adizlagun gisa)

Petrus da salgaiak mahai gainean zalu eta **maratz** hedatzen dituena, prezioak dakizkiena, dirua hartu eta kanbioak ematen dituena. **Oskar Arana**

Lanaz den bezainbatean beti benatsu, Tom ohe gainean eseri zen **maratz**, eta aldizkarietan orri pasa hasi zen. **Oskar Arana**

## 4 maratz-maratz adlag ik marazki.

Analista horrek **maratz-maratz** zerrendatu zituen emaitza hain nabarmenkiro susmagarri baina formalki aitzakiagabe haiek. **Juan Garzia**

Boloniako nire lankideak badu berdekeriazko pasadizo-sorta etengabe eguneratu bat, eta **maratz-maratz** errepasatzen du, buletin teknikoekin batera, hirian eta eskualdean barrena bisita-jiran ekin aurretik. **Juan Garzia**

Bentzenoaren matrazean "ilar erdi baten lodierako" potasio xorta bat bota (hala zioen eskuliburuak) eta **maratz-maratz** destilatu nuen guztia. **Juan Garzia**

## marazki adlag maratz-maratz.

Anforak zigitatzen zituen igeltsua **marazki** urreztatzen zen. **Juan Garzia**

## maraztasun iz maratza denaren nolakotasuna.

Agureak eta bere umeez sugeei eusten eta beren lana egiten laguntzen erakusten duten trebetasun eta **maraztasuna**, gizakiak inertzia itsua menderatzeko duen ahalmenaren irudikapen artistikorik nobleenetakotzat hartua izan da. **Xabier Olarra**

## maraztu, maratz/maraztu, marazten da/du ad arropez-eta mintzatuz, maiztu.

Bertan jantzita zeraman pijama erantzi eta, zeremonia handiz, jantzi zituen fardeletik ateratako zamarra eta praka marradun zuri-beltz batzuk, nahikoa **marazturik** zeudenak.

**Josexo Azkona**

## marddo ik mardo<sup>2</sup>.

## mardo<sup>1</sup> 1 izond mardula.

Aukeran emakume proteitoagoak gustatzen zaizkio, gorpuzkeraz **mardo** eta mamitsuak, playmate titiak eta biolontxelo ipurdiak dituzten horietakoa. **Patxi Iturritegi**

Saint-Ange Anderea: tira, lan itzazu ongi-ongi ipurmasaila **mardo** horiek! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Zein **mardo** eta freskoa, zein dotore eta distiratsua! egoera horretan garatu duten biziraupenezko mekanismo psikologiko **mardoak**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Giza Gorputzaren alde isurkor bat kanpoko gorputz batek determinatzen duelarik beste alde **mardo** baten maiz jotzera, alde honen azala aldatzen da eta honek hartzen ditu jotzen duen kanpoko gorputzaren hatzak. **Piarres Xarriton**

## 2 mardo-mardo adlag

Belauniko jarri naiz, prakak jaitsi dizkiot, eta bere zakila dakust **mardo-mardo**, nire ezpain artean hartu dut leunkiro, eta burutxoa ferekatu diot, ez du arazonik jartzen xurgatzeko, primeran konpontzen gara biok. **Juan Martin Elexpuru**

## **mardo<sup>2</sup>** (orobat **mardo**) izond ipar biguna.

EguPeryko opariak usu, gure gero gosearen baketzeko, **mardoak**, hirotuak eta jan-egun epetik haratekoak ziren. **Itxaro Borda**

Bena lehenik hunk nio, ikusteko plastiko gogorra ala **mardoa** den edo zer... **Menane Oxandabaratx**

## **mardotasun** iz mardultasuna.

Jakina, ez zuen laguntzen Tom gizendurik egoteak, behialako **mardotasun** hura ia erabateko potolotasun ahalkegarri bihurtu izanak, **Oskar Arana**

## **mardul<sup>1</sup>** izond gizena, betea, lodia, baina sendoa, indartsua eta osasuntsua. **ikmardo<sup>1</sup>**, **malats**; **guri 3** (pertsonez mintzatuz)

Neska **mardul** beltzaran bat zen, hogeita hamar urtekoa. **Karlos Zabala**

la Lisa bezain **mardula** zen, baina haren begirada lotsagabeagoa zen eta biziagoa bularra. **Karlos Zabala**

Etxeo jaunak, gizon osasuntsu eta **mardula** izaki, gela edertzen ziotenak ere gizaki **mardul** eta osasuntsuak izatea nahi izan zuen, antza. bibote eta belarrondoko bizar iletsuekiko gelazain **mardul** bat ikusi zuen, zilarrezko konketa eta pitxerra eskuetan. **Jose Morales**

Ikuspegi gogor eta hautsizalea zuten, eta bibotedun **mardul** bat agertzen zen haien buru, Ikko deitzen zioten bat. **Juan Kruz Igerabide**

### 2 (gorputz atalez eta kidekoetz)

Belarri txikiak, begi ilunak, ezpain **mardulak**. **Bernardo Atxaga**

Bere mingain **mardul** eta itsaskorra nire aho barnean... **Sonia Gonzalez**

Beren ahots marrantarekin eta beren borrokalaria beso **mardul** biluziekin. **Karlos Zabala**

Aurpegi **mardul** beteak erakusten zuenez, oso bizimodu lasaia zeraman. **Jose Morales**

Haren masaila osasuntsu eta **mardul** haiek. **Jose Morales**

Bular **mardul** bati esku bakar batekin heltzen diolarik. **Josetxo Azkona**

Ipurmasail **mardul** haiek imajinatu nituen. **Josetxo Azkona**

Dolmancé, izugarri maite dut zure zakil **mardula** ukitzea, isurtzen naizelarik! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

· Une horretantxe neskari malko **mardul** bat irristatu zitzaion masailetik behera. **Txema Ramirez de la Piscina**

·Ez dakit ondo ari garen, Mathilde... -esan zion nederlanderaz, ahots **mardul** batez. **Anjel Lertxundi**

Hamazortzi urte txuri, **mardul** eta alai. **Alberto Barandiaren**

Afixetan agertzen ziren ezkerreko zein eskuineko hautetsien irri **mardul** eta faltsuak. **Itxaro Borda**

### 3 (animaliez)

Zaldi **mardula** zen, bizkarralde ederrekoa. **Fernando Rey**

Ardi eta ahuntz **mardulak** hiltzen hasi ziren; halaber, zerri gizenak eta behi bat ere. **Juan Kruz Igerabide**

Beste argazki batean, bi hegazti-ale **mardul** ageri ziren, udal-langile batek zare batean zeramatzanak. **Josetxo Azkona**

Ni seguruena argalegia, baina turkiarra armairu erdia zen, zezen **mardula**. **Fernando Rey**

### 4 (landareez, alorrez eta kidekoetz)

Zuhaitz **mardul** eta hostotsuz jantziriko lorategia ezarri digute hiriaren edergarri. **Jose Morales**

Erne zen hazia eta mahatsondo **mardul** egin, altuera txikikoa izan arren. **Elizen arteko biblia**

Gari **mardul** eta oparoa emango du lurrak. **Elizen arteko biblia**

Gerri beretik, zazpi galburu aletsu eta **mardul** sortu ziren. **Elizen arteko biblia**

Barazki **mardulen** erdian. **Karlos Zabala**

Baratze **mardulean** sartu nituen, hango fruitu zoragarriak jan zitzen. **Elizen arteko biblia**

Bai aurkitu ere larre eder eta **mardulak**, lurralde zabal eta nare hartan. **Elizen arteko biblia**

Larra bedi Baxan eta Galaadeko lur **marduletan**, antzina bezala. **Elizen arteko biblia**

· Zenbat uzta **mardul** bete, gero harri erauntsi batek, orduerdi batean dena triskatuta galduta utzitakoak! **Pello Zabala**

### 5 (atmosfera gertakariez)

Elur maluta **mardulak** hasi ziren errepidera erortzen. **Harkaitz Cano**

Biharamunean elurte **mardula** hiriburuan bertan. **Pello Zabala**

Minutu gutxitan 97 litro metro koadroko eman zituen eurijasa **mardulak**. **Pello Zabala**

Kazkabar erauntsi **mardul** batek. **Pello Zabala**

Gailurreko elurraren gainean elur gehiago baizik ez zegoen, elur **mardul**, aratz eta orbangabea bazter orotan. **Xabier Montoia**

Ez zebilen haizerik, euria **mardul**, erorian, dena lausoan bilduz. **Koldo Izagirre**

### 6 (bestelakoez)

Irudi mitologiko lizunez hornituriko liburu **mardul** bat hartu, eta ikuskatzen hasi zen. **Jose Morales**

Duela gutxi BBVA fundazioak Espainiarako argitaratu duen txosten **mardul** batean. **Iñaki Heras**

Espanian, ordea, ez dago hain lan **mardula** argitara dezakeen moldiztegirik. **Anjel Lertxundi**

Bi tomo **mardul** datoz honen ondotik. **Jose Morales**

Bazen eleberri **mardul** haren hasiera aldean esaldi bat, berari betiko gogoan atxikia geratu zitzaiona. **Imanol Zurutuza**

Koreako enpresa handi batek kontratu **mardul** bat izenpetu duenez fabrikako zuzendaritzarekin. **Josetxo Azkona**

Euskara Batua bezalako egitasmo zail eta **mardul** batez dihardugunean. **Koldo Zuazo**

Animalien salmentak ematen du irabazpiderik **mardulena**. **Gotzon Garate**

### • 7 (predikatu eta adizlagun gisa)

Zaharzurik ere fruitu emango du, **mardul** eta heze iraungo beti. **Elizen arteko biblia**

Gero eta **mardulago** ari zuen elurrak. **Anjel Lertxundi**

**Mardul**, heze eta bete zegoen basoa, udazkenaren kolore guztiak oparo eskaintzen. **Juan Luis Zabala**

Hilabete gutxi egin zuen kopurua bikoiztu zedin, eta luzaroen jarraitu zuten **mardul** gatibutzaren zerrendek. **Jokin Urain**

### 8 (erkaketetan)

Gizaseme gazte eta haritza **bezain mardula** bera. **Joxe Austin Arrieta**

Zelaietako belarra bezain **mardul** hazarazi zintudan. **Elizen arteko biblia**

Gutun-azala argiz betetz, zigilu bat, patata bat **bezain mardula**. **Jon Muñoz**

· Ala Al-Din aingeru baten parekoa zen, fruitu **mardul** bat bezain erakargarria. **Patxi Zubizarreta**

### 9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Williams andrea emakume handia eta sendoa zen, bular-harroa eta zango-**mardula**. **Koro Navarro**

## 10 mardul-mardul

Hiru arrosak luzaroan egon ziren **mardul** -mardulak Zalakainen hilobiaren gainean. Hiru koilarakada gurin **mardul** -mardulak bota zituen Ruche jaunak. **Koro Navarro**  
Euri-zarama, gero eta lodiagoa, sare mardul- **mardula** . **Anjel Lertxundi**  
Ahariak **mardul-mardul** zeuden, eta artile ugari eta luzea zuten. **Juan Kruz Igerabide**  
Martxoak 28 zituenean, elurrak **mardul-mardul** hartu zuen gure paraje hau guztia. **Pello Zabala**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ale mardul** (3); **aurpegi mardul** (3); **emakume mardul** (3); **erauntsi mardul** (3); **liburu mardul** (9); **liburu mardul bat** (5); **mardul askoak** (3); **mardul mardul** (3); **mutil mardul** (3); **obra mardul** (4); **obra mardul bat** (3)  
**elurte mardula** (10); **euri mardula** (4); **gizon mardula** (3); **hain lan mardula** (4); **lan mardula** (17); **lan mardula egin** (5); **liburu mardula** (12); **mardula izan** (3); **zuhaiz mardula** (3)  
**eduki mardulak** (3); **jokalari mardulak** (3); **lan mardulak** (4)

## marduldu, mardul(du). mardultzen da/du ad mardul edo mardulago bihurtu.

Exte berriak jaso dituztela, trafikoa **marduldu** dela... **Pako Aristi**  
Atzerrian bederatzit urte eman ondoren, euskara **mardultzera** joan nintzen [Odrizolatxo baserrira]. **Gotzon Garate**  
Litroxka batzuk, xuabe, **marduldu** gabe utzi zituen opari. **Pello Zabala**

## mardulezia iz mardultasuna.

Oparotasuna, abaroa, ugaritasuna, emankortasuna, **mardulezia** eta frankia adierazi nahi izan dira erretratu horretan. **Pello Zabala**

## mardulguritu, mardulguri(tu), mardulguritzen da ad marduldu eta guritu.

Leun, ilargiz marruskatua; hire aho izarrez **mardulguritu**, hezetu, ostadarreztatua; hire gorputza gauaren urean gardenduz. **Juan Garzia**

## mardultasun 1 iz mardula denaren nolakotasuna.

Emakume bat bizitzako loraldian, erakargarria, **mardultasuna** eta jantzi xarmagabeak gorabehera. **Oskar Arana**  
Txerazko zapladatxo batzuk eman zizkion haurrari masailetan, haren **mardultasuna** miretsiz. **Jose Morales**  
Ongi ikusten ari naiz gaurko egunean pisu hartze hura eta nire haragiaren **mardultasun** paregabe hura lehenengo sintomak izan zirela. **Joxan Elozegi**  
Oso bertso-jartzaile ugaria izan zela argi uzten du Zabalak atondu duen liburua **mardultasunak** : 3.500 bertso idaztea ez dago edonoren esku. **Berria - Kultura**  
Ingeles hizkuntzaren urrezko eguerdi distiratsuan [...] Shakespeare bat eta Bacon bat posible zirenean eta hizkuntza une batean mutur batean azkar itzaltzen zen bitartean bestean hazkunde bizkor eta **mardultasun** sendoa lortzen zuenean -ezti baina gozoago, lehoia baina indartsuago-, ez zen lexikograforik. **Xabier Olarra**

### 2 (hitz elkartuetan)

Denek izan zuten gertakariaren berri, beren begiz egiaztatu ahal izan baitzuten, eta harri eta zur geratu ziren, zahar zimeldua gazte-**mardultasunaz** berritzen zela ikusiz. **Askoren artean**

## mardultxo izond adkor mardul samarra.

Elurte **mardultxoak** ere izan ditugu noizbehinka: 1992an, Arantzazun, 32 zentimetro elur. **Pello Zabala**  
Gauerdian zaparrada **mardultxo** laburra eman zuen, buxti-buxti uzteko tamainakoa. **Pello Zabala**

## mareia 1 iz itsasaldia.

Baina alferrik da, **mareia** jaisten ari da, azken oldarrak dira, azkenerako ez dago ezer, ur-hari batzuen jario barea baizik ez. **Jon Alonso**

**Mareia** behean ote dago. **Sonia Gonzalez**

Bera ere zorabiatzeko puntuan zegoenean, konturatu zen **mareia** goraka zihoala. **Julen Gabiria**

**Mareia** goraka zetorren. **Joseba Sarrionandia**

**Mareia** erdia zegoen, olatu ederrekin. **Edorta Jimenez**

Indiako Andaman eta Nicobar uhartetiko Port Blair hiriburuan, bestalde, **mareia** bortizki igo zen atzo. **Berria - Harian**

Orain ikusiko duzue ea Baionak arrazoi duen **mareia** honaino iristen dela esaten duenean. **Martin Anso**

Esku batek ere hala utzi behar dio besteari protagonismoa, **mareia** batek besteari bezalaxe. **Anjel Lertxundi**

### 2 irud/hed

Berehala, Itzalen Armada, ordura arte erretagoardian egon zena, **mareia** grisaren antzera amildu zen, aurrean topatzen zuen guztia suntsituz. **Agustin Otsoa**

**Mareia** gorria osatu zuten Osasunako zaleek ekainaren 12an Madrilen. **Berria - Kirola**

Behin eta berriro errauts-konoaren leizearen hondoko labeak gori-gori jartzen ziren, gero mendia puztu eta orro egiten zuten **mareia** ekaiztua balitz bezala, alboetako zirrikietatik arroka urtuen ibaiak isuriz. **Agustin Otsoa**

Eta antikomunismoaren **mareia** gero eta gorago, iraganekoak ahaztuago nahi izango ditu Duranek. **Edorta Jimenez**

Irudi horiek islatzeko, Annyk **mareia** ilun txikiak sorraraziko lituzke gure bihotzetan. **Monika Etxebarria**

Kristautasunaren **mareia**, Gizarte Helenikoaren azken aldiaren hain indartsu goratu zena, beheratzen hasia zela azken egunetan, eta goratu zen Mendebaldeko kristautasun-osteko gizartea kristautasun-aurreko helenikoaren ordena berekoa zela. **Iñaki Mendiguren**

### 3 arrantzaldiak irauten duen denbora. ik mareaje.

Geroztik ez zion inori hitzik egin, ilea eta bizarra moztu gabe eman zuen **mareia** osoa. **Koldo Izagirre**

Lehen mailako Burdinazko Gurutzea, Zaldunen Gurutzea Haritz Hostoekin, berrehun eguneko **mareia** itsaspean basera itzuli barik, aliatuei milioi erdi tona hondoratua... **Koldo Izagirre**

Oheak oraino senarraren epeltasuna zeukala hartu omen zuen amorantea, **mareia** guztietako portaera zuela huraxe, eta ez beti berarekin. **Koldo Izagirre**

· Eta zure erizain soldataren **mareia** erdia ordainduko ditu. **Joseba Sarrionandia**

### 4 (hitz elkartuetan)

Baina, igandero bezala, hots arrandios batek betetzen du, **mareia** hots batek. **Monika Etxebarria**

### 5 mareia beltz

Prestige petrolontziaren erruz itsasoan zabalduko **mareia beltzak**, 300.000 itsas hegaztiak gora hil zituela nabarmendu du Naturarako Mundu Funtsak. **Berria - Gaiak**

1.600 kilometroko kostaldean zehar eragin zuen **marea beltza**. Berria - Gaiak

56 kilometroko **marea beltzak** triskantza handia eragin zuen munduko koral eta arrezife gunerik aberatsenetakoan. Berria - Gaiak

Ultra liberalismo eta kapitalismo basati baten ondorio diren **marea beltz** eta hondamendi ekologiko jasanezinen arduradunak eta hobendunak nor diren jakin arte. Herria

Lampauleko ostatu keztatuen adiskideak 1976ko *Olympic Bravery* petrolio kargo erraldoiaren suntsipena kontatu zidan, Portsall luzerako zikinduko eta kutsatuko zuen 1978ko *Amoco Cadixen* **marea beltza** iragarritz. Itxaro Borda

· *irud/hed* Nola obra jendalde desesperatuaren ahotsa **marea beltz** politikoa bihurtu ez dadin? Berria - Kultura

## 6 marea behera *(orobat marea behere g.er. eta mareabehera g.er.)* ik **itsasbehera**.

Beti kostatu zait asmatzea noiz den **marea** gora, noiz **behera**. Anjel Lertxundi

**Marea behera** zegoela eta, argi ikus zitekeen ubidea sigi-sagaka, hareatza zabalak eta uharte arrokatsuak saihesten, eta han-hemenka ur-hegazti saldo handiak. Joanes Urkixo

Barru aldera eremu zingiratsua zen, **marea beherean** lokatz arriskutsua bihurtzen zena. Joanes Urkixo

Bidea laburtzeko, estuarioa Praça dos Restauradores pareko uberatik zeharkatzen du, **marea behera** dagoela aprobetxatuz. Jon Alonso

Hego haizearekin eta **marea behera** dagoenean itsas belarraren lurrina iristen baita etxeko patioetik. Ramon Saizarbitoria

Galduta nengoan; **marea beherakoa**n haitzetako lirdingetan trabatutako aingira-kume bat baino galduago. Anjel Lertxundi

## 7 marea behere ik gorago 6.

## 8 marea bizi

Horrela, euriteren batean, edo **marea biziak** daudenean, errekek gainezka egiteko arriskua legoke. Berria - Harian

· *irud/hed* Arras ezberdinak dira lehorreko tabernen marea legeak: beti ordu berean dator jendearen gain hartzea, oraintsu izan behar duten ordu bata inguru honetan, eta **marea biziak** ere izaten dira astean bitan, ostiralean lotsatiagoak, larunbatetan bete-beteak. Pako Aristi

## 9 marea gora *(orobat mareagora g.er.)*

Beti kostatu zait asmatzea noiz den **marea gora**, noiz behera. Anjel Lertxundi

-**Marea gora** arratsaldean izanen da. **Marea gora** zegoen eta itsasoko olatuak entzun genituen. Elena Touyarou

-Ikusi zelan datorren **marea gora**. Julen Gabiria

**Marea goretan** kresalaren ukitua kanposantuaren oinarrietan izaten da. Edorta Jimenez

· *irud/hed* Gorputz izerditsuen **marea gora** gairiditzeko esku-hatzak arraunak balira bezala erabili behar izan zituen marinelak, aurrera egiteko. Felipe Juaristi

Fundazioko norbaiti, ordea, ez zitzaion gustatu **marea gorak** Madrilera eraman zuen zaborra: arrano beltzak, ikurrinak, Euskal presoak Euskal Herrira banderolak, [...].

Berria - Kirola

Antikomunismoaren **marea gora** hasia da. Edorta Jimenez

## mareabehera ik marea 6.

## mareagarri *izond* zorabiagarria.

Aldareko intsentsu **mareagarri** horrek. Anjel Lertxundi

Lorez beterik daude bazter guztiak, eta haien usain sarkorrak, ia **mareagarriak**, hartua du airea. Anjel Lertxundi

## mareagora ik marea 9.

## mareaje 1 *iz* arrantzaldiak irauten duen denbora. ik marea 3.

Zuek **mareajera** irten eta hilabetera, orduko kontuak. Koldo Izagirre

**Mareaje** luze baten ondoren lehorreratu banintz bezala, itsasketa, egia esan, luze samarra izan baita. Koldo Izagirre

**Mareajerako** trepeta guztiak prestatzen ari gintuan moila berrian ontzi holandarrak hondoa jo zuenean bokalean. Koldo Izagirre

Kostak arribada agindu zuelako portutik hogei miliatara baino ez zeudela, ez zuen **mareajea** egin nahi izan irratia matxuraturik. Koldo Izagirre

Nasa hutsik egoteak antxoa garaia esan nahi du, edo sardinarena, edo atunarena, hau da, lanerako garaia eta lanerako itsasoa, partila ona **mareajea** amaitutakoan. Koldo Izagirre

## 2 itsasaldia.

Boluntario bat eskatu zuten karabineroen kasernaraino joateko, urrun zegoen, **mareajea** behareratutakoan baino ez zitekeen iritsi labar-muturraz haratago zeuden leize zuloetaraino. Koldo Izagirre

Egiten ahal zuen, **mareajea** asko jaitsia zen, baretzen hasia nabarmen eta laguntzaile ona zeukan, eman beharra zegoen. Koldo Izagirre

## mareante *iz* itsasturia.

Hondarribiako **mareanteen** kofradiako artxiboaren zerrendan. Iban Zaldua

## mareatsu *izond*

Elkarren ondo-ondoan zebiltzan eta populu **mareatsu** koloreztatuaren minean, erraz segi nitzakeen. Itxaro Borda

## mareatu, marea(tu), mareatzen da/du *ad* zorabiatu.

Behin Gelatxok purua erre zuen, eta **mareatu** egin zen. Pako Aristi

Vodkaren ondorioz **mareatzen** hasia naiz, ordea, eta joan behar dudala esan diot. Iban Zaldua

Nekatu egin ginen; **mareatu** egin gintuzten. Berria - Harian

Asko **mareatu** zaituzte? -galdetu zidan aitak, hitzei tonu jostaria emanez. Anjel Lertxundi

Erdi **mareatuta** baitzegoen gizaixoa, nik zeruan ehun buelta eginarazi ondoren. Joan Mari Irigoien

## maremagnum *iz* nahaspila, nahas-mahasa, anabasa.

Hala ere, auskalo fideltasunaren zein barne-mekanismok eraginda, gauza batek tinko zirauen **maremagnum** horren erdian. Iban Zaldua



**Maremagnum** eroa eta galgarria. **Fernando Morillo**

## marengo<sup>1</sup> iz

**1 gris marengo** oso gris iluna.

Trajearen gris **marengo**a bat zetorkion ezpain gaineko bibote bikainarekin. soinean zeraman traje gris **marengo** hura. **Joxemari Urteaga**

## marengo<sup>2</sup> iz urrezko dirua, Torinon XIX. mendearen hasieran irarri zena.

**Marengo**z betetako eltzea. **Pello Lizarralde**

Kondairak dio aitona dirua eltze batean sartu zuela; **marengo** eta ezkutu asko zeuden eta azkenean galdu egin ziren. **Pello Lizarralde**

## mareo iz zorabioa.

Bareak aurkitzen zituen beti baratzean, ez zitzaion gustatzen, baina hala ere hantxe ematen zuen eguna, hantxe eman zion **mareoa** ere... **Pako Aristi**

**Mareoari** eusten lanak zituzten. **Berria - Kultura**

Itsasoko txorabio eta **mareoen** aurkako sendagaitzat. **Pello Zabala**

## marexal<sup>1</sup> (orobat mahexal g.er.) iz ipar albataria.

Basoilar hori ez zela, artatu zuen **marexalaren** arabera, edozein ihizi bezalakoa. **Michel Oronoz**

**Marexalak** errana hobe zutela segidan hilik. **Janbattitt Dirassar**

Natorp **marexala** zaiku lehenik mintzatu, hazkurrien inguruko irrixku eta kutsaduretaz. **Herria**

François Madin (Berdeak): **marexala** da. **Berria - Euskal Herria**

## marexal<sup>2</sup> iz mariskala.

Erregek Frantziako **marexal** izendatu zuen Gilles. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Henri Philippe Petain **marexalaren** gobernuan ministro izan zen. **Jokin Urain**

Alabaina arbasoak, Otsabideko anitzen gisa, Harispe **marexalaren** armadetan sartu ziren, Napoleon enperadorearen amets europarrak egiaztatzearen. **Itxaro Borda**

Eta ez zutela haiek nehoiz beren hitza jan, lekukotasun asko emanen dute bai gure Erregek berak bai honen aita Enperadoreak, zeren delako **Marexala** ezarri baituzten lehenik Toledoko, gero Sevillako eta Frantziatik hurbil den Galiziako gobernadore. **Piarres Xarriton**

1795ean, Marguerite Etxauzkoa ezkontzen da Jean-Isidore Harizpe, herriko semearekin, Frantziako **marexala** beharra. **Michel Oronoz**

Hor izan ziren Napoleon-en denborako guduak, ez dea hala Harizpe, Jaun **marexala**? **Michel Oronoz**

## marfil (58 agerraldi, 25 liburu eta 3 artikulutan; cf boli<sup>1</sup> 371 agerraldi, 38 liburu eta 118 artikulutan) 1 iz bolia.

Elefanteak hiltzea, **marfila** eskuratzeko... **Karlos Zabala**

Neskaren irudiak **marfilean** maisutasunez landuriko jostailu baten antza zuen. **Jose Morales**

**Marfilez** jantzitako etxeak desagertuko dira, eta jauregi bikainak ezerezetuko. orrazi bat, **marfilez** bikain moldatutakoa. **Elizen arteko biblia**

Horregatik hautatu ditu jeans ilunak eta **marfilaren** koloreko kotoizko jertse zuri bat **Hasier Etxeberria**

### 2 (erkaketetan)

**Marfil** landua baino zuriagoa. **Juan Kruz Igerabide**

### 3 marfilezko

**Marfilezko** orrazi bat harturik, presaka orrazteari lotu zitzaion. **Patxi Zubizarreta**

Haren eskuak urretan biribilduak, topazioz tarteka apainduak; haren bularra **marfilez** landua, zafiroz estalia. **Elizen arteko biblia**

Zure lepoa **marfilezko** dorrea; zure begiak Hexbongo bi uraxka, hiri jendetsu horren sarreran. **Elizen arteko biblia**

Oso gogoan dute faxismo garaiko jardun estetikoaren hutsala, faxismoari aurpegia erakutsi ordez **marfilezko** dorre batean aritzen zirenen lana. **Anjel Lertxundi**

**Marfilezko** errege-aulki bikain bat ere eginarazi zuen Salomonek eta erre garbiz jantzi. **Elizen arteko biblia**

Horien itzalak harien gisara erortzen dira aintziraren urdin **marfilezkora**. **Fernando Rey**

## marga iz tuparria, merla.

Gure landoverra **marga** edo dena delako buztin labainkor hartan zegoen ardatzeraino sartua, eta Herbert ur-depositua hornitzen ari... **Joxe Austin Arrieta**

## margarina 1 iz guriaren antzeko gai hazkurritsua, landare eta abere etorkizko gai koipetsuez osatua.

Bihartik aurrera ez da ez koiperik, ez gurinik, ez **margarinarik** izango. **Josu Zabaleta**

Orduan platera eta koilara itzuli eta trukean ogi-xerra lodia jaso dut, gainean ore zuri bat zeukala, [...]: gurina -ez, **margarina** -esan dutenez. **Urtzi Urrutikoetxea**

Ezinbestean entzun behar dut txinpartaka irakiten dabilen **margarina**, tipula frijituaren usaina aditu, gero gaineratzen zaizkion patata puskena, baita tarteka-marteka Zulagearen Wurst zatiena ere. **Urtzi Urrutikoetxea**

Moyresak ekoiztutako soja-lezitina edo soja-olio transgenikoa asko erabiltzen da **margarinak**, txokolateak, jogurtak eta antzekoak egiteko. **Berria - Euskal Herria**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ohi baino ogi puska handiagoa, **margarina** zati bikoitza eta beste gauza bat, Wurst zeritzon zerbaiten zati bat, kanpotik gure saltxitxen antz apur bat zeukana. **Urtzi Urrutikoetxea**

Gure eguneko ogi puska 350 edo 400 grama, baratzeakari xehatuz, garagarrez edo oloz egin nahasketa bat **margarina** puska bat astean hiru lau aldiz. **Marzel Etxehandi**

Noizean behin konfitura puska bat edo **margarina** mutur bat. **Marzel Etxehandi**

Nire amak oso gogoan izango zuen hori guztia soka-lantegian ezagutu zuenean **margarina**-fabrika batean lan egin ostean. **Joseba Urteaga**

## margarita iz bitxilorea.

Etxean berean, bagenuen lore, bai ezkaratzeko mahaiaren erdian, bai sukaldeko tximiniaren gainean, eta ahal zuelarik, logetan ezartzen zituen tulipa, edo **margarita**, edo jasmin batzuk, beti, airostasun eta usain ona ematen zutenak. **Daniel Landart**

Belar berdeko alfombra zoragarri batek, larruzko beroki bat bezain ugaria, milioi bat **margarita** edo kamamila lorek apaindua, betetzen ditu puskailak azken zokoetaraino. **Koldo Izagirre**

Han jardun zuen **margarita** ureztatzen. **Joxean Sagatzizabal**

## margen<sup>1</sup> iz ertza.

Ertzean, **margenean** garatzen den errealitate eta bizitzaren irudikatze poetikoa. **Berria - Kultura**

Alabaina hori baita toberari eman diogun definizioa gure orain artinoko ibilbidean: jendartearen harat-honaten irudikatzea **margeneko** ikuspegitik, bazter-sotik, lupa efektuaz sentsu-akatsak lodituz begi bistako egiteko. **Berria - Kultura**

## 2 tartea.

Bueno, hala ere **margen** pittin bat badiagu: hau egin zezakeagu, bestea... **Pablo Sastre**

Azken horiei zuzentzen natzaie, **margen** bat ematen didatelarik, gutxieneko konplizitate bat badagoela sinistuta. **Ana Urkiza**

## margen<sup>2</sup> ik margina.

### marg (orobat **margen**, **marjin** eta **marjina**) 1 iz (mozkin) tartea.

Merkatua itota dago, **margenak** gero eta txikiagoak dira. **Berria - Harian**

Azken konpainia horrek onartu berri du Ipar Amerikako merkatuan irabazien **margina** nabarmen jaitsi zaiola: 4,59 dolar urteko hirugarren hiru hilabetean eta 3,4 dolar upeleko azken hiru hilabetean. **Berria - Ekonomia**

Hori dela-eta, etekin **marjina** gero eta txikiagoa da. **Berria - Ekonomia**

Urtzegiren arabera [...] «salmenten prezioak jaitsi egin dira», eta beraz, «enpresen **marjina** estutu egin da». **Berria - Ekonomia**

Burtsa merkatuen bilakaerak ahalbidetutako sarrerekin **marjina** arruntak %1,7 egin du gora sei hilabetean. **Berria - Ekonomia**

«Lehiakortasuna areagotu eta erabakiak hartzeko **margina** handiagoak emango dituzten neurri guztien alde» dagoela ohartarazi zuen Solbesek. **Berria - Ekonomia**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ustiapen **margina** %25,3 hazi da, eta, komisioak, %15,2. **Berria - Ekonomia**

Caixaren negozio **marjina** 2.483 milioi eurora iritsi zen, esplotazio **marjina** 2.242 milioiokoa izan zen eta 180.352 milioi kudeatu zituen. **Berria - Ekonomia**

Bitartekaritza **margina** 218,35 eurokoa izan zen. **Berria - Ekonomia**

Merkataritza-proposamenetan arrisku-**marjina** egoten da beti. **Lopez de Arana**

## 3 margena, tartea.

Lanaldia murriztuz enplegua sortzeko **marjina** badagoela ondorioztatu du sindikatuak txosten batean. **Berria - Ekonomia**

Sektoreko erakunde ofizialek (IEA, LPEE, BP konpainia) diote kontsumoari eusteko oraindik 25 urteko **marjin** zabala eta lasaia duela munduak. **Berria - Harian**

Ez du legea hautsiko, baina presazko erabakiak ekiditeko malgutasun **marjina** bat izango dela atzeman dugu bileran. **Berria - Ekonomia**

## marginal (**22** agerraldi, **8** liburu eta **6** artikuluekin –eratorriak ere zenbatuz-; orobat **marjinal** **34** agerraldi, **14** liburu eta **15** artikuluekin –eratorriak ere zenbatuz-) 1 izond bazterrekoa.

EAJ «talde **marginala**» zela eta berezko talderik ez zuela osatzen. **Berria - Euskal Herria**

Alphabetville oso auzo **marjinal** eta merkea izan da orainsu arte, drogak eta prostituzioak nahiz gaizkile arruntek betetako arrabalak, baina Harlemen gertatu bezala, hona ere, alokairuaren igoerak klase ertaineko hainbat jende bultzatu du. **Harkaitz Cano**

Transgresiorako grina faltu eta erasokor bilakatzen da kultura **marginal** batek ematen duen giro anaikor-itogarrian. **Berria - Kultura**

Luzaz elementu **marginala** izan gara. **Berria - Euskal Herria**

Irrati libreena ez zen fenomeno **marjinal** bat, 70eko hamarkadan indar handia lortu zuen esperientzia baizik. **Txema Ramirez de la Piscina**

Huskeria **marginalak** direla, gainera, hauek guztiok, jakituria beste nonbait bilatu behar baita. **Juan Garzia**

*El Cielito* lanean hogeitaz urteko gazte **marginalaren** rolean aritzeagatik. **Berria - Kultura**

Baina mundu paristarra da, hori bai, ez Euskadiko hiriburuxka monotono **marginaletakoa**, gutxiago mendikoa. **Joxe Azurmendi**

## 2 bigarren mailakoa.

Kontakizun hau ere **marginalizat** jo dezakegu. **Patxi Ezkiaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**irabazi marjinak** (3)

## marginalismo iz (ekonomian) balioaren teoria subjetoan oinarritzen den doktrina ekonomikoa.

Doktrina ultraliberal edo neoliberalaren aitzindarizat hartzen da, XIX. mendeko **marginalismoan** oinarritzen den doktrinaren hastapentzat, alegia. **Iñaki Heras**

## marginalista 1 izond marginalismoarena, marginalismoari dagokiona.

Argi utzi behar da, ordea, doktrina hori eskola **marginalista**, neoklasiko eta monetaristetako autoreengan agertzen dela, eta ez klasikoengan. **Iñaki Heras**

## • 2 iz marginalismoaren aldeko pertsona.

Hots, librekanbismoaren eta merkantilismoaren auziarekin du zerikusia esku ikusezinarren pasarteak, eta ez indibidualtasunarekin, geroago **marginalistek**, egungo neoliberalak, eta baita hauen kritiko latzenek ere, oso bestela ulertu nahi izan duten arren. **Iñaki Heras**

## marginalitate (orobat **marjinalitate**) iz marginaltasuna.

Ahanzturaz, pobreziaz eta **marginalitatez** jazarritako auzune baten argazki zuri beltzeakoak, Sebastiao Salgado harenak bezalakoak. **Unai Iturriaga**

Hainbat espetxe ezagutu zituen Genetek, espetxeak eta bestelako **marjinalitate** guztiak. **Paddy Rekalde**

## marginalizatu, marginaliza, marginalizatu da/du ad marginal bihurtu.

Globalizazioak sortu ditu iritsi den lekuetan bai pobrezia eta bai desberdintasuna; eta gaitz berberak sortzen ditu iristen ez den lekuetan eta **marginalizatuta** uzten dituen zonaldeetan. **Iñaki Heras**

## marginaltasun (orobat **marjinaltasun**) iz marginala denaren nolakotasuna.

Mundu txiki, urrun baten barnean soilik sentitzen zen babestua, **marginaltasuna** eta delitua iradokitzen zuen atmosfera hartan, hain zuzen ere. **Karlos Linazasoro**  
**Marginaltasunetik** atera gara, mugimendu sozialetan oinarriak edukiz. **Berria - Euskal Herria**

## marginatu, margina, marginatzen (orobat **marjinatu**) 1 du ad baztertu, bazterreratu.

P-k protestatu egin zuen, eta M-k ez **marginatzeko** eskatu zuen, baina dena alferrik. **Bernardo Atxaga**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Jolas-parkeak ipiniko ziren berrehun metroz behin, batik bat auzo **marjinatuetan**, baina jolas-parke ongi hornituak, denetarik zuten horietakoak. **Karlos Linazasoro**  
Sufreak deabrua bezala, pixak -urearen usain sarkorrak- hirietako gune **marjinatu** eta arrikutsuen hurbiltasuna adierazten du. **Bernardo Atxaga**  
Leku libre gutxi uzten ditu hiriak, edozelako **marjintuen** meneko zaborraren erreinuak ez badira. **Pako Aristi**

## marginazio (orobat **marjinazio**) 1 iz bazterreratzea; bazterreratuaren egoera.

McCoy-ren idazlanetan indarkeria gogorra agertzen da, eta **marginazio** eta zapalketaren salaketa ere maiz. **Fernando Rey**  
Mozioak argi uzten du «aniztasunaren aurkako jarrerarik gaitzesgarrienak presioa, **marginazioa** eta artistek jasaten dituzten eraso zuzenak» direla. **Berria - Kultura**  
Kontsumitzeko gai direnen eta ez direnen artean banaturik geratu gara, eta biko banaketak oso arrikutsuak dira, batek, ahalguztidunak, gizartearen gunea hartzen baitu, ertzera bultzatuz bestea, **marjinaziora**. **Pako Aristi**

### 2 (hitz elkartuetan)

Gizarte honek euskaldunak heretikoen **marjinazio**-egoeran jarri baditu, aski da heretikoetatik heretikotara jostatzea, marjinatuetatik automarjintzea. **Joxe Azurmendi**

## margine

### 1 in **margine** orri inprimatuz mintzatuz, ertzean.

Gehienetan marra bat zen, paragrafo baten goiti-beheitokoa hartzen zuena, eta orrialdearen ezkerreko bazterrean - **in margine** - trazatua; ezkerretarago, berriz, marrik harat, hitz bakar bat, maiuskulaz. **Joan Mari Irigoien**  
Liburua azpimarratuta zegoen, **in margine** egindako apuntxoak eta guzti. **Anjel Lertxundi**  
Nik idatzitako **in margineko** oharrak. **Anjel Lertxundi**

## margo 1 iz kolorea.

Han daude oro sailka eta bereiz gorderik, bakoitza bere atetik sartuta: argi, **margo** eta gorputz itxurak begien bidez; soinu mota oro belarri; [...]. **Imanol Unzuurrungaga**  
Gunea, bidea arre-gorria, ez baldin badu gorringoaren **margoa**. **Piarres Aintziart**  
Berdamena baita maiatzak zabaltzen duen **margo** atsegina. **Pello Zabala**  
Badakizue iparrari **margo asko** erantsi izan zaizkiola, ezta? **Pello Zabala**  
Apirilak dakar maiatz aurreko lora-botoien **margo** eta xarma bete. **Pello Zabala**  
Bi lurraldeotan, gorria heriotzaren **margoa** baitzen. **Pello Zabala**  
Ez hizkien **margoek**, ez formak, ez haien arteko tarreak salatzen zuten han gertatutakoa. **Jon Muñoz**  
Akuarelairen **margoak** irudiaren ertzetatik ihesi zihoazen, zirraren zirrarak eskua dardarati bilakatu izan balio bezala artistari. **Mirentxu Larrañaga**

### 2 pintura, margotzeko erabiltzen den gaia.

Oihal zuria **margo** zuriago batez pintatua. **Joan Mari Irigoien**  
Ez zeraman makillajearik, ezpainetan **margo** gorriaren ukitu mehe-mehe bat izan ezik. *ik beherago 7 eta 8.* **Oskar Arana**  
Disolbatzaileak, ur zikinak, **margoak**, pigmentuak eta taladrinak. **Berria - Ekonomia**  
Donostiako Gros auzoan EAJK duen egoitzari zein Arrasaten PSE-EEK duenari **margo** gorria jaurti zioten. **Berria - Euskal Herria**  
**Margo** akrilikoak azaldu zirenean. **Josu Zabaleta**  
**Margo** fluoreszentez estalitako erliebeak **Berria - Kultura**

### 3 margolana.

Kawai Gyokudōren **margo** bat zegoen eskegita tokonoman, kopia bat zalantzarik gabe. **Ibon Uribarri**  
Guash teknikaz eginiko tamaina txikiko hamar **margo** ipini ditu. **Berria - Kultura**  
Zerbait esan dute telebistan Gernikari buruz, ez dakit bonbardaketaz al zen, Picassoren **margo** batez edota astelehenetako azokaz. **Pako Aristi**  
Eskulturak, argazkiak eta **margoak** izango dira ikusgai Zarauzko eta Orioko hiru erakusketatan. **Berria - Kultura**  
Egun apenas aipatzen den Sanz, baina orduan nahiko ezagunak ziren haren **margo** eta collageak. **Iban Zaldúa**  
Horman, berriz, bi **margo**, bi bodegoi: pitxer bat ezkerrekoan; eta fruta-mordoxka bat eskuinekoan; erdi ilunean ozta-ozta ikusgarri. **Txillardegí**

### 4 margolaritza.

Kubako **margoaren** arorik esanguratsua eta adierazgarriena osatu zuten artisten lanak ekarri ditugu gurekin batera Bilbora. **Berria - Kultura**  
Baionan letra irakasle izan eta iaiztik denbora osoa **margoari** eskaintzen dio. **Berria - Kultura**

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haurrek **margo**-arkatzez zirriborraturiko marrazkiak. **Mirentxu Larrañaga**  
Oroitzen al duzu oparitu zenidan **margo** kaxa handia? **Eider Rodríguez**  
Irudiak zurrunbilotan hitzen ziren **margo** pintzelkada bortitz eta txundigarrien artean. **Oskar Arana**  
Hartu zurdakia, pota barruan ongi-ongi busti, eta *San* ezabatu zuen bi **margo**-ukaldiz. **Inazio Mujika Iraola**  
**Margo** oihalen azken itsasoratzea atzeratu egin zen dibisen aldaketako zailtasunengatik, baina sobera denboraz iritsiko zaie zure Berlingo bazkideei. **Ramon Etxezarreta**  
**Margo**-oposaketak edo doinu harmonikoak edo hitz-konbinazioak saiatzea. **Juan Garzia**  
Zizelan, **margo** eta argazki erakusketa izanen da. **Herria**  
Ortizraletik iganderat, Beskoitzen,euskal **margo** erakusketa. **Herria**  
Mattin Megadendan, apiril osoan, Maialen Van Loey-ren **margo** erakusketa. **Herria**

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak balioa duela)

Pailarda baten musua [...] ez zaio estaltzen duenari itsusiago, ene egintza ene hitz guttiz **margo** -mozorrotuokin baino. Juan Garzia

Borondatea **margo** -askoduna da, kolore mundutiarrez hornitua, lakarra, erabat kanpora emana. Joan Mari Lekuona

Nire gizonaren errezetan **margo** -emaile disolbagarri bat zetorren. Juan Garzia

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

helenismoaren garaiko horma-**margo** edo mosaiko askok badute halako marko margotu bat, batzuetan, hala ere, eskulpitua. Josu Zabaleta

Begiak ikatz-**margoz** belzturik, masailak berun-zurizaturik. Juan Garzia

Erretxina arazorik gabe idortzen zen, baina ke-**margo** mota jakin (ordezkaezin) batekin ehoz gero, desagertzeraino gutxitzen zen idortzeko gaitasuna. Juan Garzia

Bere eite beltz ikaragarri hori du orain jantzi armari-**margo** itzalagoz. Juan Garzia

## 8 *ezpain margo* (14 agerraldi, 5 liburu eta artikulu 1ean)

Hazpegi zehatzugabeak zituen, begien zuri-beltzak oso nabarmenak, eta kohil, **ezpain margo** gorriz eta hautsez makillatua zegoen. Patxi Zubizarreta

"Rouge" deitzen zion **ezpain-margoari**. Juan Garzia

Ile-lehorgailuak eta tanpoiak, makillaje-potoak eta **ezpain-margoen** hoditxoak. Oskar Arana

## 9 *ezpainetako margo* (5 agerraldi, 2 liburu eta artikulu 1ean) *ezpain margoa*.

**Ezpainetako margoaren** zapore karmina utzi zidan ahoan musu ematerakoan. Anjel Lertxundi

Lehenago jaurti zuen musuzapia berreskuratu eta **ezpainetako margoa** garbitu zion. Ibon Uribarri

Komunera joanda «milicos asesinos, viva los montoneros» (militarrak hiltzaileak, gora montoneroak) idatzi zuen ispiluan **ezpainetako margoarekin**. Berria - Kirola

## 10 *margo-askodun izond*

Borondatea **margo-askoduna** da, kolore mundutiarrez hornitua, lakarra, erabat kanpora emana. Joan Mari Lekuona

## 11 *margo-irudi* ik *margoirudi*.

## 12 *margo lan* ik *margolan*.

## 13 *ur margosup\_1* akuarela.

**Ur margoekin**, akrilikoekin eta arkatzarekin eginiko formato txikiko lanek zabalzten dute erakusketa. Berria - Kultura

Urrearekin eginiko bitxiak, zeramikazko piezak, litografiak eta arkatz zein **ur margoekin** sortutako koadroak ikus daitezke Bilboko Kale Nagusiko erakustaretoan, urriaren 3ra bitarte. Berria - Kultura

## 14 *ur margosup\_2* akuarelaz eginiko margolana.

Urteak daramatza margotzen, nagusiki, marrazkiak eta **ur margoak** egiten. Berria - Kultura

**Ur margoak**, litografiak eta arkatzezko marrazkiak egin zituen. Berria - Kultura

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**euskal margo erakusketa** (3); **ezagutuaren margo** (3); **ezpain margo** (6); **margo akrilikoak** (4); **margo eder** (8); **margo eder bat** (3); **margo eder batzu** (4); **margo erakusketa** (20); **margo erakusketa bat** (4); **margo erakusketaren** (4); **margo eta beste** (3); **margo gorri** (5); **margo gorria** (4); **margo lanak** (7); **margo lehiaketa** (4); **margo mota** (3); **margo zuri** (3)

**ezpain margoa** (3); **ezpainetako margoa** (3)

**ur margoak** (3)

**ur margoekin** (3)

**margoen bidez** (3)

## **margoanitz** *izond* koloreaniztuna, margo askokoa. ik **margo 10**.

Zenbat loretxo baxati panpin **margoanitz**, txinilikario berde, balkoitxo kokkadun bakoitzetik exkegita... Pello Zabala

## **margoarazi**, margoaraz, margoarazten du *ad* margotzera behartu. ik **pintarazi**.

Etxabeen limoi eta laranja biltegi bat zegoen, eta haren jabeak paretak urdinez **margoarazi** zituen bigarren solairuraino. Karlos Zabala

## **margoberritu**, margoberri(tu), margoberritzen du *ad* berriro margotu.

Denek zekiten **margoberritu** nahi zuela bere 404 metalizatua. Jon Muñoz

## **margodun** *izond* margoak dituena.

Betances jaunak erakutsi eta oparitu ez eta nire katanarruak ezin ordain zezakeen Germinalen azken edizio **margodunak** erakarri zizun begirakunea. Koldo Izagirre

Estima dezagun apirilako izadia bere janzkera berri umel **margodun** horiekin jantzita datorkigunean. Pello Zabala

Eta hau bide luke bere xedea: baketze sendimendu eta jestu batzu erakustea herri hortan Erromaren ganik erdi-berex dauden Ortodoxiako girixtinoeri: ereman eta itzuli nahia omen dio hango Elizari Kazango Ikono taula **margodun** famatua, aspaldian Vaticanoan zagoena. Herria

## **margogai** *iz 1* margoak egiteko gaia.

Lan-prozedura sinplea zen: neska batek zenbait ezko eta gantz urtarazten zituen lapiko esmaltatu batean, perfume pixka bat eta **margogai** pixka bat gehitzen zion, eta gero molde ñimiño batera irazten zuen nahastea. Juan Garzia

## 2 margolan bat egiteko gaia.

Berpizkundeko margolarien, Da Vinciren Italia, Palestinako afari bat hartuta **margogai**. Iñigo Aranbarri

## **margogintza** *iz* margolanak egitea.

Hainbertze alor ezagutu eta gero idazketa, **margogintza**, zinema eta bideogintza..., musika da bere ezinegona gehien asetzen duen alorra. Berria - Kultura

Bere **margogintza** errealitate poetiko bati lotzen den margolaritza geometrikoa dela dio. Berria - Kultura

**Margogintzaren** arau eta printzipioetatik urruntzen. Berria - Kultura

# margoduna (orobat *margo-irudi*) iz margoduna, irudi margoduna.

**Margoirudi** bat, eleberr bat, artelanak dira. Seinale, eta ni horretan nago, berak ezagutu izan zuela, edota haren **margo-irudiren** bat ikusia zela behinik. **Juan Garzia**  
Ala penaren **margo-irudia** baino ez zara, aurpegi bihotz gabe bat? **Juan Garzia**

## margoketa 1 iz margotzea.

Izan ere, motorra eta txapa lantzeaz gain, **margoketa**, makina-erreminta montajea eta elektrizitatea ere ikasten dituzte. **Berria - Euskal Herria**

## 2 pintaldia.

**Margoketak** ere egin zituen Segik atzo. **Berria - Euskal Herria**

Gure egoera salatzeo **margoketa** gorriak egitea biolentzia omen da; aldez, gaztetxeak bortizki desalojatu edota gazteak torturatzea, biolentzia ikustezina bilakatzen da. **Berria - Euskal Herria**

Gazteek, euren aldetik, ukatu egin zuten **margoketak** egin zituztenik, epailearen aurrean euren abokatuekin eginiko deklarazioetan. **Berria - Euskal Herria**

## margolan (678 agerraldi, 57 liburu eta 184 artikulutan; orobat *margo(-)lan g.er.*) 1 iz ehun edo ohol baten gainean margotzen den irudia; euskarri gogor baten gainean egiten dena, horma batean zintzilikatzen dena. ik **pintura 5**; **pintura 10**.

**Margolan** gehienak emakumeenak ziren; batzuk osorik biluzik ageri ziren, besteak erdizka. **Koro Navarro**

Nire **margolanak** direnak dira: oihal zati batzuk kolorez estaliak. **Berria - Kultura**

**Margolanak**, harrilanak eta argazkiak, azken bi mende hauetako biluzia gai hartuta. **Berria - Kultura**

Abraham Bosse-k, ezkerrean, frogia gisa erakusten du piramide hori bere *Perspectiveurs* **margolanean**; XIX. mendearen hasieran, haren mugikortasuna islatzen da Delacroix-en margolan "dokumental" honetan. **Josu Zabaleta**

**Margolan** horietako askotan, forma abstraktuak ageri ziren. **Xabier Olarra**

Tarte horretan, hogei **margolan** saldu ziren, eta ia bi milioi dolarreko irabaziak egin. **Oskar Arana**

Zirriborroen tankerako **margolanak** soilik egiten zituen, arrasto gutxi eta azkarrekin, eta ez zituen askorik margotzen. **Juan Kruz Igerabide**

**Margolan** gutxi ageri dute, analisi sakon bat eginez gero, egitura geometriko konplexu eta erregularrik. **Josu Zabaleta**

Gela guztietako horma guztietan **margolanak** zeuden eskegita, eta **margolanez** goraino beterik, halaber, tiradera eta armairu guztiak. **Xabier Olarra**

Modiglianiren **margolan** batetik atera zirudien, **margolan** haietako emakumeak orraztuta dauden bezala orraztua. **Fernando Rey**

Artista ezagunen Erakusketan Mutriku eta Ondarroako paisaietan oinarritutako 13 **margolan** batu ditu Tytgatek, olioz eginak. **Berria - Kultura**

Nafarroako Volkswagene **margolanerako** habearte berria eraikiko du. **Berria - Ekonomia**

**Margolanak margolanez** elikatzen dira. **Josu Zabaleta**

## 2 (izenlagun eta izenondoekin)

**Margolan** txiki bat zen, ganga edo tunel luze-luze eta lauki-zuzen baten barrenaldea erakusten zuena. **Koro Navarro**

4.000 **margolan** faltsu atzeman dituzte Italian. **Berria - Kultura**

Bere ospearean oinarri ziren **margolan** abstraktu koloredunak, gris edo zuri-beltz agertzen zitzaizkion orain. **Xabier Olarra**

Gogoa pizten zaidak maina horiei **margolan** urratzaileak eginez erantzuteko. **Karlos Zabala**

Bi dimentsioko **margolana** izatetik hiru dimentsioko instalazioa izatera igarotzen den obra. **Berria - Kultura**

Dominique Duplantieren marrazkiak, Patrick Larcabalen akuarelazko eta oliozko **margolanak** eta Gabrielle Duplantieren argazkiak. **Herria**

Harpeetako **margolanak** egin zituztenek arteari buruzko kontzepturik gabe egin zituzten. **Berria - Kultura**

Hantxe, erreka-zulo batean, haltz luze batzuen artean, hiru figura ikusi genituen, beste garai batekoak ematen zutenak, antzinako **margolan** baten konposizio landutik irten izan balira bezala. **Inazio Mujika Iraola**

## 3 irud/hed

Garai baten eta bizimodu batzuen **margolan** itzela eskaini zuen Zolak obra erraldoi horretan. **Karlos Zabala**

A *priori*-zko logika hau, ordea, gezurtatu egiten dute, ez bakarrik poesia heroikoan aurkezturiko **margolan** idealizatuak, baita historiako gertaerek ere. **Iñaki Mendiguren**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Margolan** erakusketa eder bat Artzamendi gela berrian. **Herria**

Egor Timofievitx bere **margolan**-bildumaren katalogoa egiten aritu zen, eta berak marraztu zuen azala. **Jose Morales**

Begiralea nahastu eta irudiaren **margolan**-izaera ahazturik errealitatea balitz bezala har dezakeelako. **Josu Zabaleta**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Itsas **margolan** baten aurrean. **Bernardo Atxaga**

Pop eta op arteak, minimalismoa eta abstrakzioa, diseinu-**margolanak** eta argazkiak, bideo-arte eta Espresionismo Berria... **Oskar Arana**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

itsas **margolan** baten (3); **margolan** egin zituen (3); **margolan** erakusketa (4); **margolan** faltsu (6); **margolan** handi (4)

egindako **margolanak** (3); **margolanak** egiten (3)

**margolanari** begira (4)

## margolari (752 agerraldi, 72 liburu eta 316 artikulutan; cf **pintore 447** agerraldi, **69 liburu eta 103 artikulutan**) 1 iz margolanak egiten dituen artista. ik **pintore**; **pintatzaile 2**.

Hildakoa aztertzeari ekin zion, **margolari** batek bere margolana aztertzen duen bezala. **Jose Morales**

Urteak eman zituen Vicente Ameztioi **margolari** donostiarrak inguruan, Santa Sabinako ermita txikiko paretak santuez eta naturaz apaintzen. **Berria - Kultura**

**Margolari** klasikoek sentiberatasun handia izan dute beti bitartekaritza-eginkizun horretarako. **Josu Zabaleta**

Garai hartan **margolari** erromantikoez paisaiak estudioan margotzen zituzten, zirriborro batzuetatik abiatuta. **Berria - Kultura**

**Margolari** inpresionisten posterrak aurki desagertu ziren. **Iban Zaldua**

Maynuleten irudiko, korrante horrek «itzala utzi zuen **margolari** abangoardista gehienen obran». **Berria - Kultura**

Pertsonen pintorea izan zen Kitaj, gazte zela AEBetatik Londresera joandako **margolari** figuratiboa. **Berria - Kultura**

Nolanahi ere, **margolari** astigmatiko batek, betaurreko gabe pintatzean, garbi fokaturik ikusiko lituzke marra bertikalak, eta lausotueak marra horizontalak (edo alderantziz).

**Irene Aldasoro**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ate bat jo zuten, neska bat azaldu zen, eta **margolari**-estudio batera sarrarazi zituen. **Josu Zabaleta**

La Torren, ordea, enpresa bateko bulegoan egin zuen lan hainbat urtez, gauerako utzirik **margolari** lana. **Aritz Gorrotxategi**

Mila txikikeria marraztu nahiz, arrasto urdurielkin, **margolari**-kaierean. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

## 3 paretak eta kidekoak pintatzen dituen langilea. **margotzaile**; **pintatzaile**.

**Margolari** zebilen eta aldamaio batetik erori zen, eta eraikituzan dagoen «segurtasun falta» salatu dute sindikatuek. **Berria - Ekonomia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**euskal herriko margolari** (4); **margolari alemaniar** (3); **margolari eta zizelkarien** (3); **margolari ezagun** (3); **margolari ezagutua** (3)

**sistiaga margolaria** (3)

**juan mieg margolariak** (3)

**dali margolariaren** (5); **margolariaren begia** (3); **margolariaren erakusketa** (4); **margolariaren lanak** (3); **margolariaren margo** (3); **margolariaren obra** (4); **margolariaren obrak** (10)

**margolarien eta igeltseroen** (3); **margolarien lanak** (3)

## margolarisa *(Euskaltzaindiak desegokitzen jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea) iz emakumezko margolaria.*

Lydie Avrikz **margolarisa** baionesaren obren erakusketa uda guzian Iruinean egon da. **Herria**

## margolaritza 1 *iz margolariaren antzea edo ogibidea; margotzeko artea, margoen bidezko irudikatzea, gainalde batean egiten dena. ik pintura.*

Varsoviara joan zen **margolaritza** ikastera. **Koro Navarro**

**Margolaritzako** hainbat liburutan. **Josu Zabaleta**

**Margolaritzan** estilo minimalista eta kontzeptuala nagusi zirenean agertu ziren Schnabel eta haren plater hautsien margoak arte munduan. **Berria - Kultura**

**Margolaritzak** gero eta arrakasta handiagoa dauka dela ttipi dela helduetan. **Herria**

Inglaterran dū jarraiki **margolaritzan**, bere pinturak hanixetan agertū direla han gainti. **Herria**

### 2 nolabait mugaturiko margolanen multzoa.

Italiar **margolaritza** klasikoan marko biribila erabiltzeko izan zen bolada handi bat kenduta, gainerako marko gehien-gehienak laukizuzenak izan dira. **Josu Zabaleta**

Jean-François Larralde kritikaria artistak 70eko hamarkadan euskal **margolaritzan** izan lekuaz mintzatuko da. **Berria - Kultura**

Bere margogintza errealitate poetiko bati lotzen den **margolaritza** geometrikoa dela dio. **Berria - Kultura**

### 3 (hitz elkartuetan)

Hala, Martiarenaren estudioan hasi zen **margolaritza** eskolak hartzen. **Margolaritza** -higikunde batzuek, pop-art-ak edo hiperrealismoak, adibidez, desberdin "ikusarazi" dizkigute eguneroko mundua eta mundu horretako objektuak. **Berria - Kultura**

Laurehun artista inguruk parte hartuko dute aurten Aitor Urdangarin **margolaritza** lehiaketan. **Berria - Kultura**

Horren guztiaren gibelean 30 bat urteko **margolaritza** lana dago. **Berria - Kultura**

## margostatze ik margotatze.

## margotsu *izond* koloretsua.

Alimaleko eliza moderno itsusi bat agertzen da, ezker eta eskuinean landatu etxe ederrek bideari pareta **margotsua** egiten diotelarik. **Piarres Aintziart**

Shakespeareak batasunaz ez du ulertzen, metafisikoaren antzera, diferentzien inausketa eta ezabaketa [...] diferentzia aberasgarrien harmonia eta dantza **margotsua** bezala baino. **Joxe Azurmendi**

## margotu, margo(tu), margotzen *(1013 agerraldi, 156 liburu eta 210 artikulutan; cf pintatu 676 agerraldi, 123 liburu eta 83 artikulutan) 1 du ad pintura geruza batez estali. ik pintatu.*

Bideo pornoak eskaintzen zituen taberna, izokin-kolorez **margotu** eta dastaleku bihurtu dute. **Iban Zaldúa**

Hormaren zati hura beltzez **margotu** bitartean. **Iban Zaldúa**

Bide bazterreko etxe eder izokin-kolore batean, leihatilak ubelez **margotzen** ikusi ditu pintore batzuk. **Hasier Etxeberria**

Kristalak zuriz **margotuak** zeuden, lauki txiki egindako marrazki baten bidez. **Karlos Zabala**

Garai berrien ikur dira jendeak bere etxeko hormak **margotzeko** aukeratzten dituen koloreak. **Harkaitz Cano**

Tailerren inguru guztiko hesi hura **margotu** genuenean. **Fernando Rey**

Aspaldian **margotu** gabeko horma gris zikinduak. **Joxean Agirre**

Berak ere alanbre hura **margotu** zuen. **Fernando Rey**

Ñir-ñir egiten zuen karrozeria **margotu** berriko gris metalizatuak. **Jon Muñoz**

Karearen zuritaz hura, leihoteko pertsiana berdez **margotu** berri haiek. **Koldo Biguri**

Ikusi duzu tender-a ere **margotu** dudala? **Fernando Rey**

Beste batzuek paretak espraz **margotu** ziztuzten, eta gainontzekoek *Gazte!!!* goiburuz hasten ziren panfletoz estali zuten bulegoa. **Iban Zaldúa**

Eta odol gorriaren tintaz, hormak alderik alde **margotu** zituen: Rebeka, maite zaitut! **Jasone Osoro**

Bi telebista handi, eta txiki bat, pantaila arrasto baldar eta lodiekin **margotu** diotena. **Pako Aristi**

Ahoz aho zabaldu zen kasernan "Gora Euzkadi" zegoela **margotua**, arkatzez, moldiztegiko letretan **margotua** ez baina idatzia. **Koldo Izagirre**

### 2 (ezpainak eta)

-Ez dituzu **margotu** ezpainak. **Jasone Osoro**

Haren hortzen sastada sentitu nahi zuen lepoan, hilezkortasuna eskuratuz, eta jendearen odol gorriaz ezpainak **margotu**. **Jasone Osoro**

Gau hartan, Fermin logelan sartu aurretik, ahoa **margotzeko** purpuraz mozorrotutako pozoia erabili baitzuen Rebekak. **Jasone Osoro**

Zigarroari tira egitean ohartu da aspaldi **margotu** barik dauzkala azkazalak. **Paddy Rekalde**

Mesanotxean, azkazalak **margotzeko** esmalte-poteak zeuden ilaran. **Jasone Osoro**

Jezebel leihora atera zen, begiak **margotu** eta burua apaindurik. **Eiizen arteko biblia**

Begi beltzak, itzal ilunez **margotuak** zituen. **Josu Zabaleta**

Norak ez zuen masailak hautsezatzeko, edo ezpainak eta ezpainen ondoko orinak **margotzeko** ohiturarik. **Anjel Lertxundi**

Aurpegiak elkarriz **margotu** dizkiote gero. **Jokin Muñoz**

Neska ile-hori bat, lorategikoa bezain ederra ia, eta beste bat zaharxeagoa, gazteagoa emateko jantzia eta **margotua**. **Koro Navarro**

### 3 margolan bat ondu; irudi edo kideko bat oihal edo kideko batean margoz egin.

Koloretan **margotzerik** ez bazeukan, zuri-beltzez margotuko zuen. **Xabier Olarra**

Emazte eta modelo zuena hil, eta urtebete edo bira **margotu** zuen Rossetti-k. **Ramon Saizarbitoria**

Koadro horretan **margotua** zen garaian hogeita bi urte zituela. Ramon Saizarbitoria  
Egun seinalatu hartan Leon Karririk erreka zuloaren irudia **margotu** nahi zuen oihalaren gainean. Hasier Etxeberria  
Inpresionismoak, "ikusten dena" **margotu** behar zelako ideia aldeztu nahi izan zuen (edo "ikusten den bezalaxe" **margotu**). Josu Zabaleta  
Luis Boccia artistak santuaren irudi berri bat **margotu** zuen 1821ean.Sabaia irudi handiz **margotua** zuen, Jordaensen estilora. Askoren artean  
Ertzainek hartxintxarraren gainean **margotu** duten silueta zuriari begira. Joxean Agirre  
**Margotu** nahi genuen irudia aukeratua genuen. Xabier Mendiguren Elizegi  
Klausek Dabiden izar handi bat **margotu** zuen betun marroiaz, eta, azpian, *Juduak akabatu!* idatzi zuen. Anjel Lertxundi  
Han ageri zen gure amona Pina pintzelarekin eta **margotzeko** astoarekin Fernando Rey

#### 4 irud/hed

Itxura transzendental jakin batek errealtate bat **margotu** diela halakorik ezin aurki daitekeen lekuan. Ibon Uribarri  
*Lagun izoztua*-k ederto baten **margotu** du egia horretaz jabetzeko bidaia.Urte asko pasatu dira hartatik, eta, bizitzak garai hartako irudi gardena arrasto beltzez **margotu** badit ere, funtsean maistraren hasierako irudi hark bizirik dirau nigan. Markos Zapiain  
Bien artean gustagarriena niretzat xuri ta beltzean lau zatitan landu etxe barnea, Anne-k hor ixiltasuna **margotu** baitu. Herria

#### 5 margoz hornitu.

Irlandar bandera ernaldoi bana ari ginen **margotzen**, beraz, ontziaren saihetsetan. Koldo Izagirre  
Lore artifizialki **margotuak** erortzen utziz. Juan Garzia  
Errealitateko irudiak filmatu beharrean, fotogramaz fotograma kolore orbanak **margotu** zituen. Iñaki Arranz  
Argazkizko erretratu baten modeloa (edo erretratu **margotu** batena, kode naturalisten arabera-edo egina bada) [...]. Josu Zabaleta  
Urgaineko errota horietako bat (koadro zuri-beltzetan **margotuak** egoten dira eta "Jainkoak salbatuko al nau" idatzita izaten dute bi txalupa alboraturen gainean eraikita dagoen egurrezko etxolaren aurrealdean) hondoratu egin zen. Koldo Biguri  
Hiriko karriken argiek ganbararen plafoina **margotzen** zuten. Ramuntxo Etxeberri

#### 6 (era burutua izenondo gisa)

Oihal **margotua** zahartu egiten da, hobeto ala gaizkiago, eta pigmentuak aldatuz joaten dira. Josu Zabaleta  
Dena zurbiltzen duk, hilak edo erretratu **margotuak** denborak higatzen dituen bezala. Xabier Olarra  
Dekorazio **margotu** handi batean. Josu Zabaleta  
Letra **margotuak** eta herskailu irtenak zituen poltsa ilun bat. Koro Navarro  
Kamisetan **margotuak** eta apurtuak, larruzko txupa, txakur kate bat lepoan eta militar botak. · Mahai **margotu** gabe bat, bi aulki kaxkar, burdin sarez itxitako leiho bat Sonia Gonzalez

##### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**beltzez margotu** (5); **berdez margotu** (4); **espainiako bandera margotu** (3); **ezpainak margotu** (4); **gorriz margotu** (5); **irudia margotu** (4); **kolorez margotu** (6); **margotu berria** (4); **urdinez margotu** (3)  
**gorriz margotua** (3)  
**margoturik ageri** (3)  
**berdez margoturiko** (3); **horiz margoturiko** (3)  
**urdinez margotutako** (3)  
**gorriz margotzen** (3); **hasi zen margotzen** (4); **margotzen ari** (16); **margotzen ariko** (4); **margotzen hasi** (9); **margotzen hasteko** (3); **margotzen hasten** (3); **margotzen ikusi** (3); **margotzen jarraitu** (3); **margotzen ziren** (3); **margotzen zuten** (4); **marratzen eta margotzen** (3)

## margotzaile 1 iz ogibidez paretak eta kidekoak margotzen dituen pertsona. ik pintatzaile.

Eskuak koipez eta grasaz zikinduta zituzten mekanikariak eta brotxa eskuetan zuten **margotzaileak**. Beria - Kirola  
«Hitzik gabe» daude bosgarren solairutik erorita hildako **margotzailearen** lankideak, ezbeharra «edonori gerta zekiokeelako». Beria - Ekonomia  
Hildako idazleak ote ziren etxe barru haietan horma- **margotzaile**? Harkaitz Cano  
Bere lan ofizialeto batzuk aipatu dizkigu: dekoratu egile, eskaparate jartzaile, obretako langile, horma **margotzaile** ... Harkaitz Cano

#### 2 izond margotzen duena.

Duthuit bezalako kritikari baten iritzian, berriz, formen adierazgarritasuna ezin banatuzkoa da subjektu **margotzailearen** desiratik, eta errealtatearekiko topaldi arrakastatsu baten testigantza ematen du beti. Josu Zabaleta

## margotze iz margo geruza batez estaltzea.

Galde batzu eginak izan dira informatika tresneria entretenitzeko eta **margotze** batzuk egiteko. Herria  
**Margotze** -lana esan dizut lehen ere ze nekagarria zen, jarrera egokia aurkitu ezinik. Xabier Mendiguren Elizegi  
· Gauzak ez ziren horren errazak ordea: sabaian **margotze** hori benetan nekagarria zen; ez zutika eta ez etzanda, ezin gustuko jarrera aurkitu. Xabier Mendiguren Elizegi

## margotzeke *adlag* margotu gabe.

Ezkerrera, zabalduz geroztik berriz **margotzeke** zeuden horma biluziak, keak eta zikinak horituak. Jon Maia

## margozale *izond* margoen zalea dena.

Sens, Senlis, Reims, Le Mans, Amiens..., jatorrizko beiratilak XVII-XVIII. mendeetako kalonje ilustratuek eraitsi zituztela, adierazten zaio turistari, eta haien lekuan, barrubehea hobeto argiztatzeko, grisaila ipini zela leihoetan, paretak zuritu, etab., gustu argizale (ez **margozale** !) berriaren arabera. Joxe Azurmendi

## margotzatu, margozta, margoztatzen 1 du *ad* margotu.

Eusten zioten zutabe astunak minioz **margotzaturik** zeuden. Juan Garzia

#### 2 (era burutua izenondo gisa)

Emakumezko artzain bat, gizon bat eskoziar gonaz jantzia, eta Annieren argazki **margotzatu** bat, ile-harrotua eta bular-irtena azaltzen zena. Koro Navarro

## margotzatze (*corpusean margostatze soilik*) iz margotzea.

## margul 1 *izond* kolorea galdu duena, kolore apalekoa. ik **koloregabe**; **zurbil**.

Eta tarantas bat, Siberiako zaldi **margulek** tiraturik, beti joango duk buhame gurdi baten aurretik! **Karlos Zabala**

Ilargi **margularen** kolorekoak. **Pello Lizarralde**

Iturrien inguruan, Cadine eta Marjolin harakinen pikaderetara hurbiltzen ziren, goi leihoetako argi **margularen** pean. **Karlos Zabala**

Hodeien urratuetatik esne itxurako eguzki distira **margulak** iragazten dira. **Pello Lizarralde**

Argitasun **margul** bat ailegatu zaio eskuinetik. **Pello Lizarralde**

Urrezko ilunabar-argiaz blaiturik zegoen gela, argitasun hartan su-lama mehe **margulak** ziruditela kandelak. **Irene Aldasoro**

Heydrichen begi urdin koloregek arrain batenak ziruditen: urtsuak, **margulak**, inolako zirrarak islatzen ez zutenak. **Alberto Ladron Arana**

Udako blusa urdin **margula** zuen Anniek soinean. **Irene Aldasoro**

### 2 irud/hed

Hobe kimika ez-organikoaren eskema **margul** baina ziurren artera itzultzea. **Juan Garzia**

### 3 *margul-margul*

**Margul-margula**, masailak hezur huts, belauak oker, arropak estuegi, Antoine gaixoak, lehen begiratutik, errukia ematen zuen. **Juan Garzia**

## marguldu, margul(du), margultzen 1 *da/du ad* kolorea galdu; kolorea kendu.

Kanpoko argitasun biziegia ehunaren kolore urdin leuna **margul** ez zezan. **Karlos Zabala**

**Marguldurik** ageri zen bere argimutlaren distira horiaren pean. **Karlos Zabala**

Nekazari gazte ile-horail bat zen; haren masaila esne-koloreak eta ile zurbilak izotz artean egindako egonaldia luzeek **margulduak** ziruditen. **Josu Zabaleta**

Haragia maskaltzen eta **margultzen** hasten delarik, sabela mintzen, ileak eta hortzak erortzen, oiak gris bilakatzen, orduan hobe da bakarrik egotea. **Juan Garzia**

Bere jaka maiztua, bere kapelu euriak **marguldua**. **Juan Garzia**

### 2 irud/hed

Denboraren iragaiteak dena **margultzen** du. **Alberto Ladron Arana**

Gerrak berekin ekarri zuen harremanen etenaldiak haien oroitzapena **marguldu** eta beste haurrenganako halako beldur lauso bat landatu zuen nire baitan. **Alberto Ladron Arana**

Ur beroaren azpian kolorea galtzen duen janzkiaren antzera, liburuetakoa jakinduria arrotz guztia histen eta **margultzen** ari zen. **Jose Morales**

Pena, samina, askoz ere geroago etorriko ziren nire bizitza goibeltzera, eta urte luzetan geldituko ziren nirekin, zaindari beltzen antzera, zorionari nire ariman sartzea debekatzen, mundua histen, **margultzen**, belzten. **Alberto Ladron Arana**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Gure amaren mesanotxearen gainean haren argazki **marguldu** bat zegoen, lastozko kapeluekin eta goranzko bibote txikiekin. **Fernando Rey**

Soineko **marguldu** batez jantzirik zegoen. **Karlos Zabala**

Haien arteko hormak marra txuri, gorri eta urdinezko paper alai baina **marguldu** batez zeuden jantzita. **Alberto Ladron Arana**

Amets koloregaldu eta **margulduak** izaten zituen. **Xabier Olarra**

## margultze *iz* kolorea galtzea edo kentzea.

Emeki-emeki zimurtzen baitzen, heriotzarantz eraldatuz zelulen **margultze** luzearen bidez, **Jon Alonso**

## mari cf martin.

### 1 *mari-agintzaile izond adkor*

**Mari** -agintzaile bat haiz eta mari-zirtzil bat. **Joan Mari Irigoien**

### 2 *mari-apain izond adkor*

Nire ondotik, arrega Jonek lehen jaunartzea egin orduko irabazia zuen **mari**-apain eta ilupa fama, eta geroan ere tema berari atxiki zaio, **mari**-apain eta ilupa beti. **Aingeru Epaltza**

Bettina izan zen salatu ninduen: **mari**-apain hark ostatuko nire gela miatu eta lastairaren azpian ezkutaturiko pistola aurkitu omen zuen. **Alberto Ladron Arana**

### 3 *mari-bandera (corpusean maribandera soilik) izond adkor*

Baina ez dakit, beste **maribandera** horrekin! **Joseba Sarrionandia**

'Ama, hau da **maribandera** deitzen dizuna, esan nion nik amari. **Joseba Sarrionandia**

-Ni zutaz aprobetxatzen naiz, zu nitaz, gaur gaurkoak eta bihar biharkoak, eta beste lore batera, **maribandera** ! **Joan Mari Irigoien**

### 4 *mari-bekaziti izond adkor*

-Eta hi mari-txoro bat eta **mari**-bekaziti bat. **Joan Mari Irigoien**

### 5 *mari-belendrin (corpusean maribelendrin soilik) izond adkor*

Emaidazu zure mihia **maribelendrin** horrek!... zure ipurmasailak nire eskumako eskuan pausa daitezela, ezkerrez klitorian kilimak egiten dizkizudan bitartean. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hara nola isurtzen den **maribelendrina** ! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

### 6 *mari-bero (orobat maribero) izond adkor*

Nahikoa kezka nituen buruan bueltaka, neska **maribero** batez arduratzeko. **Alberto Ladron Arana**

Tira, kontatuko didak bertako neskek esaten den bezain **mariberoak** diren! **Alberto Ladron Arana**

O, **mariberoak** halakoak! nolako plazera izango duzuen orain, larrua jotzerakoan! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

-Itxoin apur batean, **mari-bero** horrek -petraldu zitzaion laguna-, oraindik ez zekinagu-eta haien orientazio sexuala. **Patxi Iturritegi**

Sentitzen al duzu **maribero** horrek? esaidazu, esan, sentitzen al duzu nola hondoratzen zaizun? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

### 7 *mari-berritsu izond adkor*

Gaixotasuna argi zegoenean, baztanga edo alborengoak esate baterako, berak antzematen zion, eta auzoko **mari**-berritsuek ere bai, eta edonork. **Josu Zabaleta**

### 8 *mari-bideetako (corpusean maribideetako eta maria-bideetako soilik) izond adkor prostituta.*

Orain dela urte batzuk, bai Euskaldunon Egunkaria-n eta bai Berria-ren aurreneko hilabeteetan, sarriago irakur zitekeen, lepozuri, **maribideetako**, neska txiki eta antzeko samur-xanoak baztertuta, puta eta prostituta maileguen aldean euskaldun zitzaigun emagalduta. **Iñigo Aranbarri**

Mari, erabilera gaiztoetarako bide da ia beti: mari-zikin, mari-mutil, mari-maistra, mari-ttartala, **maria-bideetako** ... eta baita mari-matraka ere. **Iñigo Aranbarri**



## 9 **mari-bihurritsu** (corpusean **maribihurritsu** soilik) izond adkor

Saint-Ange Anderea, berak ere neska musukatuz: zer uste zenuen **maribihurritsu** horrek, txanda-pasa egingo nuela? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## 10 **mari-burruntzi** (corpusean **mariburruntzi** eta **mariburduntzi** soilik) izond adkor

-Ezagutzen al duk **mariburruntzi** hau? **Juan Garzia**

Gortina txiki-txiki bat zeukan gela hori eta umeen etxea banatzeko, eta Txilintxok, **mariburduntzi** samarra zenez, gortina korritzen zuen janzteko edo arropak erantzeko.

**Julen Gabiria**

## 11 **mari-fandanga** (corpusean **marifandanga** soilik) izond adkor

**Marifandanga** halakoa! nola aztoratzen duzun nire izor-zukua, nola azkartzen duzun isurketa zure berbekin eta zure ipurdiaren berotasun neurrigabearekin. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Nolako biraoak botatzen dituen **marifandanga**!... Dolmancé, isur zaitez, isuri, ene maitea... baserritar kankailu honek blai egin behar nau. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## 12 **mari-gaxte** izond adkor

Mutilak abuztuan puta **mari**-gaxte horrekin plana duela erran dio igotzean. **Aingeru Epaltza**

## 13 **mari-gizon** (orobat **marigizon**) izond adkor

Eta zapuztu egiten dute, eta berak xomorroekin jarraitzen du, eta neskek **marigizon** esaten diote, haserretu egiten da eta beltza esaten diote eta berak zerriak eta ez da harritzekoa, aro heroiko postminoikoaren ondare epikoan, genre kutunetako bat "emakumeen katalogoak" izatea, non **mari-gizon** ospetsu baten krimen eta atsekabeak kontatzeak beste baten kondaira sortzen baitzuen, ia amaierarik gabeko orotzapen poetikoen katea osatuz. **Alberto Barandiaren**

## 14 **mari-harro** izond adkor

Ninik **mari**-harro bat ematen zuen; senarrak, bitxiz betetako agure putzontzi bat. **Josu Zabaleta**

## 15 **mari-jakintsu** izond (corpusean **marijakintsu** soilik) izond adkor

Lehen ere esan dizudan bezala, esaten dudana ez da sentitzen dudana, eta horregatik dut mutil zale fama, maite jolasen zalea naizela, **marijakintsu** bat naizela eta eleberrri arrosa kolorekoak gustatzen zaizkidala. **Josu Zabaleta**

## 16 **mari-kutzu** izond adkor

Azen ontzeko, batto arrunt **mari**-kutzu, besteak berriz iduri ahate mutua **Janbattitt Dirassar**

## 17 **mari-lizun** (corpusean **marilizun** soilik) izond adkor

Zeure buruaz arduratzen zara bakarrik: ongi egiten duzu, **marilizun** horrek; baina zeure atseginen mesedetan, kitzika ezazu zalduna, bera izango baita zure lehen fruituaren bilzaillea. Begira, madame, ikusi zure **marilizun** txikia dena haziz beterik; bere aluaren sarrera busti-busti eginda dago; masturba ezazu, igurtzi haziz blai duen klitoria: egin daitekeen gauzarik gozonenetako da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## 18 **mari-lotsagabe** izond adkor

Teilatupeko maizter bat, beti lan asko ematen zuena, andre Beltza zen, **mari**-lotsagabe zahar bat. **Josu Zabaleta**

## 19 **mari-madama** izond adkor

**Mari**-madama galanta eginda zaude zu! -esan zion txantxetan Ceciliak. **Jon Muñoz**

## 20 **mari-maistra** (orobat **marimaistra**; Euskaltzaindiaren Hiztegian, **mari** sarreran, **mari-maistra** agertzen da) izond adkor

"**Marimaistrak**", gure amaren mintzamoldean, hauxe esan nahi zuen: neskato jakintsua, pinpirina eta farfailez jantzia. **Fernando Rey**

**Marimaistra** haietako bi ahizpak ziren eta bakarrik bizi ziren, aita xaharreakin. **Fernando Rey**

Bi neskatxek beren **mari-maistra** aurpegia jartzen segitzen zuten, solasaldia sosaren gaira eramaten saiatzen nintzen bakoitzean. **Fernando Rey**

· Mari, erabilera gaiztoetarako bide da ia beti: mari-zikin, mari-mutil, **mari-maistra**, mari-ttartala, maria-bideetako... eta baita mari-matraka ere. **Iñigo Aranbarri**

## 21 **mari-maisu** (orobat **marimaisu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian, **mari** sarreran, **mari-maisu** agertzen da) izond adkor

Eta zuk zer, **marimaisu** horrek? **Antton Olano**

Hermioneke orain uko egiten zion Harry eta Ronekin hitz egiteari, baina bera hain agintzaile eta **mari-maisua** izanik, besteek saritzat hartu zuten jarrera hura. **Iñaki Mendiguren**

Zirikarrolte, Esgot, Uzkipitxer Arnega eta Doilor Tutuluti profesurrak eta eulixka ikasleria, eta Errient Errieta **marimaisuen** leinua. **Jose Angel Irigaray**

## 22 **mari-matraka** (orobat **marimatraka**; Euskaltzaindiaren Hiztegian, **mari** sarreran, **mari-matraka** agertzen da) izond adkor

Oihuka ezazu nahi beste, **marimatraka** horrek, sartuko dizudala diotsut, mila aldiz lehertu behar baduzu ere!. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

**Marimatraka** da eta gizalegerik gabea, oinak etxean eduki ezin dituzten horietakoa. **Elizen arteko biblia**

· Mari, erabilera gaiztoetarako bide da ia beti: mari-zikin, mari-mutil, mari-maistra, mari-ttartala, maria-bideetako... eta baita **mari-matraka** ere. **Iñigo Aranbarri**

## 23 **mari-matxarda** izond adkor

Horrelako **mari**-matxarda bat izanik, nik sekula eman ezin izan niona eman zion. **Xabier Olarra**

## 24 **mari-motrailu** izond adkor

Handik aurrera, errosarioa: mari-tuntuna, mari-fandangoa, mari-matraka, **mari-motrailua**... Harik eta amona Dolores agertzen zen arte. **Joan Mari Irigoien**

## 25 **mari-mutiko** (corpusean **marimutiko** soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian, **mari** sarreran, **mari-mutiko** agertzen da) izond adkor

**Marimutiko** esaten genion. **Alberto Barandiaren**

## 26 **mari-mutil** (orobat **marimutil**; Euskaltzaindiaren Hiztegian, **mari** sarreran, **mari-mutil** agertzen da) izond adkor

Joango zen ez titi ez ipurdi ez duten **marimutil** horietako batekin eta badakizu... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Minta **marimutil** hau, galtzerdian zuloarekin? **Anton Garikano**

Peggy potzola, pentsatu nuen, gehiegia niretzat, bere hockey jokalarien zangoak eta **mari-mutil** ile horrekin, Dan-entzako moduko neska zen. **Koro Navarro**

· Mari, erabilera gaiztoetarako bide da ia beti: mari-zikin, **mari-mutil**, mari-maistra, mari-ttartala, maria-bideetako... eta baita mari-matraka ere. **Iñigo Aranbarri**

## 27 **mari-ozpin** izond adkor

Nire izena jakinarazi eta itxarongelarako bidea erakutsi zidan, larderiak, erakusmahai baten gibelean harresitutako bulegari **mari**-ozpinak. **Aingeru Epaltza**

Zigarroa oraino ahitu gabe neukala jakinarazi zidan bulegari **mari**-ozpinak "Urtxipia jauna" nire zain zegoela. **Aingeru Epaltza**

Lehenbiziko egunean ezagutu nuen **mari**-ozpinak egin zidan orain bekoz beko. **Aingeru Epaltza**

## 28 **mari-pertxenta** (orobat **maripertxenta**) izond adkor

**Mari pertxenta**, marmarti, desatsegin hutsa da; nagusikeriatan aritzen da; azpikeria zalea, gezurti amorratua. **Josu Zabaleta**

Gure haurretan mutiko gazteak gorrotatzen bazituen, gorrotatzenago neska **maripertxentak**. **Aingeru Epaltza**

Zeren... dena esan behar baldin badago, hi, **maripertxenta** hori, hi oso berezia haiz gero! **Antton Olano**

## 29 **mari-petarda** izond adkor

Programako aurkezle **mari**-petardak ere bide horretatik gidatu nahi du ikusleen artean, Vanessari egindako galdera zital eta juzgu pozoitsuen bidez. **Patxi Iturritegi**

## 30 **mari-potxorra** izond adkor

-Etorri hona, **mari**-potxorra -esan zion Nano Zuriari larderiatsu, txandal prakak txorkatiletaraino jaitsita. **Patxi Iturritegi**

## 31 **mari-potxotxa** izond adkor

-Gabon, ondo lo egin, **mari**-potxotxa. **Patxi Iturritegi**

### 32 **mari-purtzil** (orobat **maripurtzil**) *izond adkor*

Ez nintzen bihurtu kaleko emakume deritzana, **mari** -purtzil bat, baina neure larrua saldu dut. **Eduardo Matauko**

Baina zer axola dio **maripurtzil** lotsagabe horri bere soinekoan seinale ziztrin bat eraman beharrak? **Anjel Lertxundi**

Marcel Martin ezin makurtu zitaion azterketa biologiko bat egin beharrari, edozein urdangak, **mari** -purtzilek edo auskalo zerk, esan zuen, ume bat egin izana leporatzen ziolako. **Ramon Saizarbitoria**

**-Maripurtzila** halakoa. **Juan Martin Elexpuru**

### 33 **mari-salsera** (corpusean **marisalsera soilik**) *izond adkor*

Gaizki dagoela? okerrago egon beharko luke, urdanga **marisaltsera** halakoa...! **Joan Mari Irigoien**

### 34 **mari-sorgin** (orobat **marisorgin**) *izond adkor*

Kuxkuxera **mari-sorgin** galanta da nik uste. **Xabier Olarra**

Auskalo zerk bultzatu zuen **marisorgin** hura ni salatzeraz, baina halaxe behar zuen. **Alberto Ladrón Arana**

Baldin eta zeure burua altzairuzko bihurtuko bazenu, hala-moduzko zure ezagun-talde horretako **marisorgin** maltzur eta mihi-luzeengandik babesteko, ene arkumetxoa. **Mirentxu Larrañaga**

### 35 **mari-sorgintxo** (corpusean **marisorgintxo soilik**) *izond adkor*

Egia esan, **marisorgintxoak** gizonezko batek bezala ematen dit ipurditik! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Eta nola isuri den **marisorgintxoa**! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

### 36 **mari-txoro** *izond adkor*

-Eta hi **mari** -txoro bat eta mari-bekaizti bat. **Joan Mari Irigoien**

### 37 **mari-zilipitri** (corpusean **marizilipitri soilik**) *izond adkor*

-Emilianirekin ez, eta **marizilipitri** horrekin bai...? **Joan Mari Irigoien**

### 38 **mari-zirri** (corpusean **marizirri soilik**) *izond adkor*

-Demagun **marizirri** hori epaitzen uzten digutela hemen bildurik gauden bostoi: iruditzen al zaizue epaile ohoretsuek ezarri dioten zigorrarekin libratuko litzatekeela? **Anjel Lertxundi**

### 39 **mari-zirtzil** *izond adkor*

**Mari** -zirtzil alaena! -oihu egin zuen ahots batek leihotik. **Lopez de Arana**

Mari-agintzaile bat haiz eta **mari** -zirtzil bat. **Joan Mari Irigoien**

### 40 **mari-zorotxo** (corpusean **marizorotxo soilik**) *izond adkor*

Zuk, **marizorotxo** horrek, ipin ezazu burua zure lagunaren izterratean, eta itzul egizkiozu zure mihi ederraz lehen zeureganatu dituzun arreta berberak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

---

## **marianista** *iz aita Chaminadek sorturiko Mariaren konpainiko kidea.*

Karmeldarrak ziren hamaika, pasionista bat, **marianista** beste bat, eta gainerakoak elizbarrutietakoak. **Jokin Urain**

Donostian, **marianisten** ikastetxean, nekazari tresnen irudiak ageri diren liburu bat lantzen ari dira ikasleak.37an **Marianistekin** hasi nintzenean ikasten, aipamenik ez zegoen euskararen gainean. **Joxerra Garzia**

Gurasoek **Marianistetara** bidali ninditean ni. **Iban Zaldúa**

---

## **marianistakume** *iz*

Adin militarretik gertu zegoenez gero, debekatuta zeukan pasaporteaz, horregatik bere lagun bidez **marianistakume** gisa lortu zuten Suitzara bidaltzea. **Mikel Hernandez Abaitua**

---

maribandera ik **mari 3.**

---

maribelendrin ik **mari 5.**

---

maribero ik **mari 6.**

---

maribideetako ik **mari 8.**

---

maribihurritxo ik **mari 9.**

---

mariburduntzi ik **mari 10.**

---

mariburruntzi ik **mari 10.**

---

marifandanga ik **mari 11.**

---

## **marifatu** *iz*

Are gehiago: ongi iruditzen bazaizu, urdanga lotsagabe horren kontura primeran igaroko dugu gaurko gaua... -eta Amgadi kopeta argitu zitziolarik eta buruaz baiezkoa egin ziolarik, jauregiko nagusiak honelatsu jarraitu zuen:- orain itzul zaitez **marifatu** horrengana eta jostatu, liburutu beldurrik gabe. **Patxi Zubizarreta**

## marigizon ik mari 13.

### marigorringo iz hegoak tolesturik dituenean bola erdi baten tankera duen intsektua, gaina gorri bizia zazpi puntu beltzekin duena (*Coccinella septempunctata*). ik mantangorri.

Eta ezagutzeko moduko horiek, lehentxeago, txakur amorratuak edo **marigorringoak** izan badira, eurekin doazen handiak banku baten ertzean jarrarazten dituzte, eta penaz betetzen dira. **Marigorringo**, **Marigorringo**, bihar ta etzi eguzkia egingo! eta itxaron... hegan egin ez badizu, abestu beste hau: **Marigorringo**, **Marigorringo**, bihar eguzki etzi euri egingo! [Julen Gabiria](#)

### marihuana 1 iz Indiako kalamuaren lore eta hosto ihartuen nahasketa, tabako gisa erreaz droga bezala erabiltzen dena.

Ez zait kostoa gustatzen, **marihuana** erretzen dut. [Sonia Gonzalez](#)  
**Marihuana** goxoa daukat eta zaldi ederra. [Sonia Gonzalez](#)  
Estasiak eta **marihuanak** oroimen arazoak eragiten dituztela esan dute adituek. [Berria - Gaiak](#)  
**Marihuanak** esklerosi anizkoitzaren sintomak murrizten dituela esan dute. [Berria - Gaiak](#)  
Ospitalean eta botiketan **marihuana** banatzeko egitasmoa jarriko dute abian aurki Katalunian. [Berria - Harian](#)  
Haxixa, **marihuana** eta kokaina kontsumitzen dira. [Berria - Euskal Herria](#)  
Botilaren bat eskuan edo inori erakusten ez zion tokian landatutako poltsa bete **marihuana** zekarrela agertzen zen gurera. [Xabier Montoia](#)  
Ongizatearen iturri den aldetik, **marihuana**, kokaina eta antzeko klasiko ohikoak aurki (diru-bide dela ikusi bezain laster) legeztatuko dira herrialde hauetan, piperbeltza, tabakoa eta alkohola legeztatutako dauden bezala. [Edorta Agirre](#)  
Telebista jasanezina da alkohol eta **marihuana** barik, etxea batzea ezinezkoa speed lerro pare bat barik. [Sonia Gonzalez](#)  
Emaztea, semea... **marihuanak** ereindako lanbro eztiaren artetik gogora ekarri ditu haien figurak, baina lausoak eta urrunak irudituz zaizkio, abokatu-bulegoa bezain urrunak. [Aingeru Epaltza](#)  
John Capelek bigarren aldiz eman du positibo **marihuanarekin**. [Berria - Kirola](#)

#### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hori, berde eta beltza zen elastikoa, eta aurreko aldean, **marihuana** hosto baten gainean, Bob Marley-ren aurpegia ageri zen, bere ile txima luzeekin. [Jokin Muñoz](#)  
EZLNren lurretatik gertu **marihuana** sailak aurkitu eta suntsitu zituela jakinarazi zuen herenegun Mexikoko Armadak. [Berria - Harian](#)  
Atxilotuei kokaina eta **marihuana** trafikoa leporatzen zaie. [Berria - Euskal Herria](#)  
Katxi bat garagardo eskuman eta **marihuana** porro bat ezkerrean. [Sonia Gonzalez](#)  
Inguruetako xeblere guztiak hurbildu zitzaizkidan, hala **marihuana** -erretzaileak nola burutik nahastutakoak edo salgai zeuden aldizkarietan orripasa bat egiten uzteko eskatzen zidaten eskale edo eskaleondoak. [Bernardo Atxaga](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**marihuana** erretzen (4); **marihuana** hartzen (3)

## marijakintsu ik mari 15.

### marikoi 1 iz adkor (iraingarria) homosexuala. ik maritxu.

Ezagutzen ditudan **marikoi** eta lesbiana askok ez zuten seme-alabarik izan, baina arrazoia ez zen izan ezinikusia, zabarkeria baizik. [Karlos Zabala](#)  
Fraidekideek poesia **marikoi** gauza dela esan ziotelako. [Pako Aristi](#)  
Horrelako plazer handia ez dut sekula sentitu inorekin, ez gizaseme batekin, ez emakume batekin, ez **marikoi** batekin, gainera ez dut oso gustuko **marikoi**ekin oheratzea. [Karlos Zabala](#)  
Ez **marikoi** eta ez pottorzalea! [Pako Aristi](#)  
Denok dakigu, jakintza zahar batek erakutsita, liburu artean ibiltzen diren gehienak, denak ez esateagatik, **marikoi**ak direla. [Jon Alonso](#)  
-Nola ibili liteke euskalduna gerriko more horrekin? ez haiz, ba, **marikoi** izango...? [Rafa Egiguren](#)  
A zer **marikoi** Salinas! [Karlos Linazasoro](#)  
"Marikoi" talde bat harrapatu omen zuen poliziak sarekada batean. [Rafa Egiguren](#)

#### 2 (izenondoekin)

Sar diezazula zure amamak makuluaren punta tripetaraino, **marikoi** puta hori! [Jon Arretxe](#)  
**Marikoi** nazkagarria Sokrates hura, hori besterik ez zen, **marikoi** astakirten nazkagarria. Ez zen **marikoi** erabatekoa, kontu bakarra zen aluek nazka ematen ziotela. [Karlos Zabala](#)  
-Oraino ez zakiat zer haizen -xuxurlatu zidan, bere aurpegia nira hurbilduz-, **marikoi** zaharkilo bat edo, bertzerik gabe, memelo hutsa. [Aingeru Epaltza](#)

#### 3 (izenondo gisa)

Lagun **marikoi** asko izan ditut, ondo moldatzen naiz haiekin. [Karlos Zabala](#)  
Nik uste nian peso pesado hintzela, baina kolpe **marikoi** hori hartu eta peso pluma haizela iruditzen zaidak. [Bernardo Atxaga](#)

#### 4 (hitzaren erabileraz)

"Marikoi" hitza ez nuen erabili behar izan, iraingarria omen da eta. [Pako Aristi](#)  
"Marikoiak" bere gain darama irainaren zama, bazterketaren mehatxua, eskubideen ukapena. [Pako Aristi](#)  
Zera otu zitzaidan halako batean, andregai senargai egitea, alegia, futbolariaren laguna **marikoi** izatea, barka esamoldea, hots, biak homosexualak izatea. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)  
Ia egunero egiten ziren manifestazioetan **marikoi** eta txakur zirela poliziei irain egiteko gehien entzuten zirenak. [Berria - Euskal Herria](#)  
Poliziak ez zuen "homosexuala" erran, "marikoi" baizik, eta hori, inguruabar ideologikoez aparte, ez da inoiz adiskide batez erabiltzeko hitza. [Aingeru Epaltza](#)

### marikoikeria 1 iz adkor marikoiari dagokion egintza, gaitzesgarritzat markatua. ik maritxukeria.

Notablea nuen matematikan, berari benetan inporta zitzaiona, zeren gainerako ikasgaiak jesuiten **marikoikeriak** omen ziren, espedienteak betetzekoak. [Patxi Iturritegi](#)  
Utzi **marikoikeriak** eta goazemak ohatzera! -Klarak aspaldi atzundurik zuen bulegari prestuari dagokion hizkera gisakoa. [Aingeru Epaltza](#)  
Ea zer ziren **marikoikeria** frantses horiek. [Inazio Mujika Iraola](#)  
Gero tabernaz taberna doaz, poteatzera eta **marikoikeriatan** ibiltzera, maritxuak dira baina gizon-gizonak. [Karlos Zabala](#)

#### 2 (hitz elkartuetan)

**marikoitu** (*orobat marikondu*) marikoi(tu), marikoitzen **1** da/du *ad* marikoi bihurtu.

**Marikoitzen** hasia ote zen? **Patxi Iturritegi**

**2** (era burutua izenondo gisa)

Perurena batentzat, berriz, lurra, hemengoa edo gurea, zakarra eta arra da, eta ez jakin lixardikume **marikonduei** kontra egite hutsagatik esana izango duen **Iñaki Seguro**

**marikonada** *iz* marikoieria.

Zenbat **marikonada**! **Jon Arretxe**

marikondu ik **marikoitu**.

marilizun ik **mari 17**.

marimaistra ik **mari 20**.

marimaisu ik **mari 21**.

marimatraka ik **mari 22**.

marimutiko ik **mari 25**.

marimutil ik **mari 26**.

**marinatu**, marina, marinatzen du *ad* jaki bat, ontzeko edo iraunarazteko saltsa batean eduki.

Ahateak lotu eta gibela hipertrofia dakien elikatzen diren bezala, emakumeak **marinatzen** edukiko genituzke, samurragoak egon zitezen. **Josu Zabaleta**

**marinba** *iz* xilofono modukoa, zurezko ohol bakoitzaren azpian erresonagailu bat duena.

Esaterako, **marinba** eta orkestrarako edo gitarra eta talderako obrak eskatu dizkirate, eta oso mugatua egon naiz, tresna horiek asko definitzen baitute kontzertu mota.

**Beria - Kultura**

Orduantxe jabetu nintzen zer zen goiznabarrero esnatzen ninduen zarata bitxi hura: musika zen, antigoaleko **marinba** baten durundia, harmoniarik gabeko mailukaldi gisako musika-mota izugarri bat, erabat epileptikoa. **Joxe Austin Arrieta**

**marine 1** *iz* Estatu Batuetako itsas armadako oinezko soldadua.

Ama bortxatu zuen eta gero **marineetan** sartu zen 1945ean. Uholdeen aitzakiarekin ere 500 **marine** ekarri nahi izan zituzten, eta, noski, behin sartuz gero haiek gelditu egiten dira, ea nork ateratzen dituen, Nikaraguan eta El Salvadorren gertatu zen bezala. **Itxaro Borda**

AEBetako Armadako lau **marine** hil zituzten, berriz, zenbait ordu lehenago Al-Anbar eskualdean. **Beria - Mundua**

AEBetako zazpi **marine** eta Irakeko hiru guardia nazional. **Beria - Mundua**

Falujaren kontrola atxikiko dutela ziurtatu du **marine**-en buruzagitzak. **Beria - Mundua**

George Bushen **marine**-en eraso-ideologia bera izatera behartzen gaituztelako. **Beria - Kultura**

**Marinea** -ke hari lerdena ezpain arteik- Donostian zen atzo zortzi. **Iñigo Aranbarri**

**2** irud/hed

Literatura ofizialaren **marine** berrien liburuak ere halakoak dira, denek estilo amerikar hori dute. **Beria - Kultura**

**3** (hitz elkartuetan)

Txarangaren atzetik pailazo gehiago doaz, saltoka, taliban koadrilla bat, hiru poxpolin bizardun eta **marine** talde batekin batera. **Jokin Muñoz**

AEBetako Armadako **marine** indarren eledun Carrie Batsonek. **Beria - Mundua**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aebetako armadako marine** (4); **aebetako marine** (6); **aebetako zazpi marine** (3)

**marinel** (*orobat mariñel g.er.*) **1** *iz* itsasontzian, eskuzko lana egiten duen langilea; lanbidez itsasoan ibiltzen den pertsona.

Arraunlari guztiek bertan behera utziko dute ontzia, **marinel** eta itsasgizonak lehorrean geldituko dira. **Elizen arteko biblia**

*Nuevo Pilin* itsasontzia hondoratu zen atzo goizean, barruan bost **marinel** zituela. **Beria - Ekonomia**

17 **marinel** galdu dira, eguraldi txarra dela medio 'Keri' zamaontzia hondoratu. **Beria - Mundua**

Ontziko 20 **marinel** onik erreskatatu zituzten. **Beria - Gaiak**

Baikaleko **marinel** zahar batek hartu zuen almadiaren agintea. **Karlos Zabala**

Badakit Thuleko **marinel** alproja horrek ipuin bat esan dizula. Felipe Juaristi

**Marinel** gihartsu batengana hurbildu, eta berarekin jardun zuen hizketan. Aritz Gorrotxategi

Labana da **marinelak** behar duen lehenengo gauza. Koldo Izagirre

Portuges **marifelek** zuten hiria sortu XVI. mendearen hastapenean. Ramuntxo Etxeberri

Halako alarau bat aditu zen, erdiragarria, gain-bizkarrean bilduak ginenoi, lehortar nahiz **marinel**, deabrua agertzekotan zitzaigula pentsarazi ziguna. Edorta Jimenez

Ea zergatik ez nion esaten **lehorreko** marinel hari aparatua itzaltzeko. Ramon Saizarbitoria

**Marinel** izan zen hainbat urtez. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 2 (izenondo gisa)

Lekeitioko adiskide **marinela**, eskuaz aharia seinalatzen. Iñigo Aranbarri

1902ko uztailan Jack London, idazle **marinela**, abenturazale sozialistak itsasontzia hartu zuen, New Yorketik Londresera, hiri horretako East Endeko auzoetan murgildu eta liburu bat egiteko asmoz. Pablo Sastre

## 3 (adizlagun gisa)

Agian **marinel** has naiteke ontziren batean, baina inork ez du aprendiz nahi. Lopez de Arana

Ezin ahaztu nezakeen karrakan **marinel** zetozenak hartara beharturiko itsasoko jende xumeak zirela, baleatan edo bakailaotan hartan baino gurago zuketena. Edorta Jimenez

Bera **marinel** dabilen *Aintzatasuna* arrantzontzia beste baporeekin batera Bilborako da-eta. Edorta Jimenez

Zirkuan **marinel** jantzita agertzen zelako. Edorta Jimenez

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarren osagaia gauza bat dela)

**Marinel** -txapela zeukan gizon beltzaren bat. Lopez de Arana

Galtza bakeroak, **marinel** -jertsea eta kirol-zapatilak janzten zituen emakume gazteak. Migel Angel Mintegi

Bizardun erraldoi bat zen, **marinel** txano hegalduna begietaraino sartuta zuena. Ramon Saizarbitoria

**Marinel** elastiko marraduna eramaten nuen. Pello Lizarralde

**Marinel** jantzia zeraman eta, aitortu zidanez, Giralda itsasontziko kapitaina zen. Felipe Juaristi

Má?saren txikitako argazkia zen, bera ere **marinel** jaka batekin. Fernando Rey

**Marinel** korapilo baten antzera tolestean zitzaizkidan hatzak jotzen saiatzen nintzenero. Harkaitz Cano

Ez zegoen han nire sabelaren arrokari azpiak jango zizkion **marinel** ronik. Koro Navarro

Musika atsegin tristea, **marinel** tabernetako soinu txikiak sortua bezalakoxea. Felipe Juaristi

Atzerrian sartzeko biderik erabiliena, emigratzaileei gezurrezko **marinel** -agiriak eskuratzea da. Gotzon Garate

Ezagutzen ez zituen **marinel** kantuak xaramelatu zituen. Elena Touyarou

-Hori Harabic-a da -karraka egin zuen **marinel** -ahots batek haien ondoan. Lopez de Arana

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarren osagaia gauza abstraktu bat dela)

Halaxe jakin nuen, hark agerikoetan **marinel** lanak egiten zituela, eta zirujau lanak ere bai noizean behin. Edorta Jimenez

**Marinel** ibileraz abiatu zen ate aldera. Koro Navarro

Bere **marinel** bizitzako gertaera batzuk kontatzeko eskatu nion. Josu Zabaleta

Ez badakizue, **marinel** -lurraldea da Eskozia, itsasoa eta gizakia inon baino lotuago dauden herria. Felipe Juaristi

Izen guztiz arrotzak egiten zitzaizkidan **marinel** -herri txiki batzuetatik igaro ginen.Andrew Millerrek itsasoa izan zuen begien aurrean 1738. urtean Portsmouthen **marinel** familia batean jaio zenetik. Anjel Lertxundi

Egin zaitez **marinel** -bilatzaileen ofiziala, eman ezazu izena **marinel** -erreklutatze bulegoan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Britainia Handi osoko **marinel** -erreklutatzaile ospetsuena bihurtu zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa elkarketan izenondo balio duela)

Andrew Miller ofizial **marinel** -erreklutatzailea. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 7 *marinel jende*

-Ezagutzen dut nik **marinel-jende** hori -esan zion. Irene Aldasoro

Tabernan zeuden bezeroak, **marinel jendea** gehien bat, gizaki zaildu eta grinatsuak denak, itsasoaren astinaldi gogorretara emanak, zalapartaka hasi ziren esku-hankak aiereratz. Erreginaren Zerbitzura lanean ari ziren militar eta **marinel jendea**. Felipe Juaristi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**marinel eta zirujau** (7); **marinel hordituen** (3); **marinel izan** (4); **marinel jantzita** (4); **marinel zahar** (6); **marinel zahar batek** (3); **marinel zaharrak** (13); **marinel zaharraren** (3)  
**moja eta marinela** (6); **sinbad marinela** (5)

**euskal marinelak** (10); **kapitaina eta marinelak** (3)

**sinbad marinelaren** (3)

**marinelek bizia galdu** (3); **ontziko marinelek** (3)

**euskal marinelen** (8)

**marinelen movistar ontzia** (3)

## **marinel** (*orobat **marifele** g.er.*) 1 iz itsasontzian, eskuzko lana egiten duen langilea; lanbidez itsasoan ibiltzen den pertsona.

Arraunlari guztiek bertan behera utziko dute ontzia, **marinel** eta itsasgizonak lehorrean geldituko dira. Elizen arteko biblia

*Nuevo Pili*n itsasontzia hondoratu zen atzo goizean, barruan bost **marinel** zituela. Berria - Ekonomia

17 **marinel** galdu dira, eguraldi txarra dela medio 'Keri' zamaontzia hondoratuta. Berria - Mundua

Ontziko 20 **marinel** onik erreskatatu zituzten. Berria - Gaiak

Baikaleko **marinel** zahar batek hartu zuen almediaren agintea. Karlos Zabala

Badakit Thuleko **marinel** alproja horrek ipuin bat esan dizula. Felipe Juaristi

**Marinel** gihartsu batengana hurbildu, eta berarekin jardun zuen hizketan. Aritz Gorrotxategi

Labana da **marinelak** behar duen lehenengo gauza. Koldo Izagirre

Portuges **marifelek** zuten hiria sortu XVI. mendearen hastapenean. Ramuntxo Etxeberri

Halako alarau bat aditu zen, erdiragarria, gain-bizkarrean bilduak ginenoi, lehortar nahiz **marinel**, deabrua agertzekotan zitzaigula pentsarazi ziguna. Edorta Jimenez

Ea zergatik ez nion esaten **lehorreko** marinel hari aparatua itzaltzeko. Ramon Saizarbitoria

**Marinel** izan zen hainbat urtez. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 2 (izenondo gisa)

Lekeitioko adiskide **marinela**, eskuaz aharia seinalatzen. Iñigo Aranbarri

1902ko uztailan Jack London, idazle **marinela**, abenturazale sozialistak itsasontzia hartu zuen, New Yorketik Londresera, hiri horretako East Endeko auzoetan murgildu eta liburu bat egiteko asmoz. Pablo Sastre

### 3 (adizlagun gisa)

Agian **marinel** has naiteke ontziren batean, baina inork ez du aprendizik nahi. **Lopez de Arana**

Ezin ahaztu nezakeen karrakan **marinel** zetozenek hartara beharturiko itsasoko jende xumeak zirela, baleatan edo bakailaotan hartan baino gurago zuketena. **Edorta Jimenez**

Bera **marinel** dabilen *Aintzatasuna* arrantzontzia beste baporeekin batera Bilborako da-eta. **Edorta Jimenez**

Zirkuan **marinel** jantzita agertzen zelako. **Edorta Jimenez**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarren osagaia gauza bat dela)

**Marinel** -txapela zeukan gizon beltzaren bat. **Lopez de Arana**

Galtza bakeroak, **marinel** -jertsea eta kirol-zapatilak jantzen zituen emakume gazteak. **Migel Angel Mintegi**

Bizardun erraldoi bat zen, **marinel** txano hegalduna begietaraino sartuta zuena. **Ramon Saizarbitoria**

**Marinel** elastiko marraduna eramaten nuen. **Pello Lizarralde**

**Marinel** jantzia zeraman eta, aitortu zidanenez, Giralda itsasontziko kapitaina zen. **Felipe Juaristi**

Má?saren txikitako argazkia zen, bera ere **marinel** jaka batekin. **Fernando Rey**

**Marinel** korapilo baten antzera tolestean zitzaizkidan hatzak jotzen saiatzen nintzenero. **Harkaitz Cano**

Ez zegoen han nire sabelaren arrokari azpiak jango zizkion **marinel** ronik. **Koro Navarro**

Musika atsegin tristea, **marinel** tabernetako soinu txikiak sortua bezalakoxea. **Felipe Juaristi**

Atzerrian sartzeko biderik erabiliena, emigratzaileei gezurrezko **marinel** -agiriak eskuratzea da. **Gotzon Garate**

Ezagutzen ez zituen **marinel** kantuak xaramelatu zituen. **Elena Touyarou**

-Hori Harabic-a da -karraka egin zuen **marinel** -ahots batek haien ondoan. **Lopez de Arana**

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarren osagaia gauza abstraktu bat dela)

Halaxe jakin nuen, hark agerikoetan **marinel** lanak egiten zituela, eta zirujau lanak ere bai noizean behin. **Edorta Jimenez**

**Marinel** ibileraz abiatu zen ate aldera. **Koro Navarro**

Bere **marinel** bizitzako gertaera batzuk kontatzeko eskatu nion. **Josu Zabaleta**

Ez badakizue, **marinel** -lurraldea da Eskozia, itsasoa eta gizakia inon baino lotuago dauden herria. **Felipe Juaristi**

Izen guztiz arrotzak egiten zitzaizkidan **marinel** -herri txiki batzuetatik igaro ginen. Andrew Millerrek itsasoa izan zuen begien aurrean 1738. urtean Portsmouthen **marinel** familia batean jaio zenetik. **Anjel Lertxundi**

Egin zaitez **marinel** -bilatzaileen ofiziala, eman ezazu izena **marinel** -erreklutatze bulegoan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Britainia Handi osoko **marinel** -erreklutatzaile ospetsuena bihurtu zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

### 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa elkarketan izenondo balio duela)

Andrew Miller ofizial **marinel** -erreklutatzailea. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

### 7 *marinel jende*

-Ezagutzen dut nik **marinel-jende** hori -esan zion. **Irene Aldasoro**

Tabernan zeuden bezeroak, **marinel jendea** gehien bat, gizaki zaildu eta grinatsuak denak, itsasoaren astinaldi gogorretara emanak, zalapartaka hasi ziren esku-hankak aineratuz. Erreginaren Zerbitzura lanean ari ziren militar eta **marinel jendea**. **Felipe Juaristi**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**marinel eta zirujau** (7); **marinel hordituen** (3); **marinel izan** (4); **marinel jantzita** (4); **marinel zahar** (6); **marinel zahar batek** (3); **marinel zaharrak** (13); **marinel zaharrena** (3)

**moja eta marinela** (6); **sinbad marinela** (5)

**euskal marinelak** (10); **kapitaina eta marinelak** (3)

**sinbad marinelaren** (3)

**marinelek bizia galdu** (3); **ontziko marinelek** (3)

**euskal marinelen** (8)

**marinelen movistar ontzia** (3)

## marioneta 1 iz txotxongiloa.

**Marioneta** edo txotxongiloez osatua den obra hori presentatuko dute Izpuran heldu den ostiral arratsean. **Herria**

Eta hala ibili ginen guztiok jauregian aldi batez zirironia-maisuaren erranetarát, **marionetak** edo ximinoak bagina bezala. **Joan Mari Irigoien**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Marioneta** ikuskizun bat. **Herria**

Kukubiltxo **marioneta** elkarteko Beñat Lefeverek formaturik lau lagunek prestatzen ari dute ikusgarri poetiko bat, marrak, kurbak, loreak erabiliz. **Herria**

## mariorratz iz burruntzia, intsektu hegalaria.

Aran ibaiaren lehen urratsen eremu xoragarrian hegaldi fantasiatsuetan zebiltzan **mariorratzak** gogoratu nahiz. **Piarres Aintziart**

## maripertxenta ik mari 28.

## maripolis ik maripulis.

## mariposa 1 iz tximeleta.

Zinez sorkari xarmagarria gure **mariposa**; mundua mundu denetik hunkitu izan baitu jendakion irudimena, bere ibilera pinpirin, soineko apain eta pausaera xaloagatik.

**Patziku Perurena**

Grezia eta Erroma zaharreko sineskeran: hildakoen gorputik ateratako arima zen **mariposa**. **Patziku Perurena**

## 2 irud/hed

Egin ziotean nolabait konpondu eta kaderaren alde bakoitzean **mariposa** bana jarri. **Pablo Sastre**

## 3 *mariposa estilo*

Eta hondoa jo baino lehen, igerian ikasi nahi dizu euskarak, eta ur axaleko **mariposa** estilo xurian ez ezik, urpeko zoko ilunetan ere ekin dio murgilean **Patziku Perurena**

## maripulis iz gizonezko jakako.

Semea ikusi nuen [...] **maripulis** barrubiguna esne koloreko sorbaldetan behera eroria, bazihoan bidexkan zehar. **Felipe Juaristi**

"Kosmasek txano gorria zeraman buruan eta kolore bereko **maripulisa**, borla zuriekikoa, soinean. **Felipe Juaristi**

Goriot zaharrak, alaba Delphinek Rastignacen **maripolisaren** gainean zenbait malko isuri duela ikasi duelarik, etsirik baina fermuki **maripolisa** du galdatzen, bertan alaba usaindu, xurgatu, bereganatzearen. **Markos Zapiain**

Belarriak Txileko hegoaldeko indiarren erara urrezko belarritakoez zulatuta zituen, eta janzkera ere bertakoa zen: kapela hegal zabala, artilezko **maripulisa** eta galtzak, laruzko bota luzeak. **Felipe Juaristi**

## maripurtzil ik mari 32.

## marisaltsera ik mari 33.

## mariskal 1 iz hainbat harmadatak jeneral edo guda buru goren batzuei ematen zaien izena.

Jeneral horietako bat Ney **Mariskal** famatua zela. **Jon Alonso**

Orain Gotorlekura joango naiz eta bertan, lotara sartu aurretik, **mariskal** eta kapitainekin bilduko naiz. **Agustin Otsoa**

2727 dekretua sinatuz, Petain **mariskalak** bost departamentu bretoiain lurralde batasunari amaiera eman zion. **Berria - Mundua**

Frantziako Akademiako jaunei egindako gutuna, Vaubango **Mariskalaren** goraipamenaz. **Jon Muñoz**

Aisialdia luzatzeko, **mariskalaren** emaztea neure etxera gonbidatu nuen. **Jon Muñoz**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

D'Artagnan mosketaria, landa-**mariskal** izendatua, gudu hartan hil zen. **Jon Muñoz**

Kanpo-**mariskalaren** makila. **Xabier Olarra**

Haig gudu-**mariskala** da kanpoalde honetako Jainkoa, eta Haigek sinatu egin du. **Mirentxu Larrañaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mariskalaren emazteak** (6); **mariskalaren emaztearen** (8)

## mariskeria iz itsaski denda.

Pertsona batzuk, esate baterako, ohera sartzen dira **mariskeria** batera sartzen diren bezala. **Unai Elorriaga**

## marisko 1 iz itsaskia.

Fianbrera batetik ateratzen duen **mariskoa** ari da jaten grisetakako bat, ageriko atseginez. **Agurtzane Juanena**

Baldok **marisko** txiki batzuk atera zizkigun, eta gero entsalada eta kostilla jan genuen; ederra kostilla. **Pablo Sastre**

Hildako txinatarrek 1,5 euro kobratzen zuten orduko, bederatzir orduz badien **mariskoa** biltzeagatik. **Berria - Mundua**

Anboto tabernako Javik barra osoa pintxoekin beteta dauka, eta **mariskoa** ere saltzen du. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

Hasteko, urdaiazpikorik onena, txistorra eta **marisko** entsalada. **Berria - Kirola**

Vigoko itsasadarrean, **marisko** haztegiak dira nagusi. **Berria - Kirola**

## marisorgin 1 iz intsektu gorputz-luzea eta kolore-berdea, beste intsektu batzuek elikatzen dena.

Bereziki erakargarria iruditu zitzaion **marisorgina**, *Mantis religiosa*. **Aritz Gorrotxategi**

**Marisorgin** emea espezieko arra baino askoz handiagoa dela, eme horrek arra inguratzen duenean kopulatu egiten dutela [...] eta, kopula horrek irauten duen bitartean, emeak jan egiten duela arra. **Berria - Kultura**

Naturaren baitan ez daukat halako beste gauza ederren berririk, **marisorginaren** estaldura miresgarria izan ezean. **Hasier Etxeberria**

Aiztoa sabel barrura irristatzen sentitu, eta ez zuen txintik atera, bere halabeharra onartuko balu bezala, **marisorginaren** jaki gertatzearen halabeharra. **Aritz Gorrotxategi**

## 2 ik mari 34.

## marisorgintxo ik mari 35.

## marista iz M. Campagnat-ek sortu zuen eta batez ere gazteria hezteko ardura hartzen duen erlijiozko ordenako kidea.

Hantxe egon nintzen ni "gatibu" sei urtez **Maristen** eskuetan. **Txillardegi**

Bainan jabeak (Tolosako **Maristak**) etxaldea salgai ezarri du. **Herria**

**Maristen** ikastetxea mendipean bertan, bere frontoia eta guzti, nirea izana; eta ezker alderago, trenaren geltokia eta Azoka zaharra. **Txillardegi**

## maritimo izond itsasaldekoa.

2004ko abuztuaren 28an, A Coruña (Galizia) Paseo **Maritimoan** lehergailuz egindako ekintza. **Berria - Euskal Herria**

## maritxu 1 iz adkor homosexuala. ik marikoi.

Hau zorigaitza, **maritxu** guztiak niri fortunatu behar! **Xabier Montoia**

Nire bigarren senargaia **maritxu** porrokatua zen eta erdi inpotentea, baina harekin ezkontzeko zorian egon nintzen. **Karlos Zabala**

Hari begiratzu gero, uste izango zenuen New Yorkeko beste **maritxu** bat besterik ez zela, zahartzen ari zen **maritxu** bat. **Oskar Arana**

Manterolak ere, algar hartan, **maritxu** guztien juntadizioa zela esan zidan portua, gure mutilaren lilura. **Koldo Izagirre**  
Lehengusuekin konparatzen hasi eta **maritxu** eskutxuri bat naiz ni haien aldean, beti paper artean dabilena. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
A ze aurpegia jarri behar duten alderdiko handi-mandiek **maritxu** alu bat bidaltzen diedala ikusita! **Alberto Ladron Arana**  
**Maritxu** mardulak dira, mozkoteak, eta zezen plazetan lan egiten dute *forcado* gisa. **Karlos Zabala**  
Emakumezaina Cotorrita deitzen dioten **maritxu** bat da, estalgileari emakumeak bahitzen laguntzen diona. **Josu Zabaleta**

## 2 (hitz elkartuetan)

Hortik Hermannen gogor planta, arretan arrena zela frogatu beharra, **maritxu** -zirkun bakar bat ere ez barkatzea bere buruari. **Anjel Lertxundi**  
Bigarren batxilerreko mukizu bat izan zen, patioko garaian beti kromoak trukutzen ibiltzen zen txaparro kaskagorri **maritxu** ospeko bat. **Koldo Izagirre**  
Baina lehendik ere nahikoa hedatua zegoen komisaldegian bere **maritxu** ospea. **Harkaitz Cano**

## 3 (izenondo gisa)

Nire lagun frantses **maritxu** horrek arte-galeria bat zuen Salvadorren. **Karlos Zabala**  
Hilari zizelkatu bat, egiazko diskurtsoa duena, jatorrizkoa, nolabait esateko, agian ez bertsio **maritxu** hau bezain dotorea dialektikaren arteari dagokionez. **Jon Alonso**  
Beste hurrek barre egiten zuten halakoetan, maisu ankerraren jokoari jarraiki, baina nirekin sartu zen hartan inoiz baino grazia handiagoa egin zien besteei ni poesia-kontu "arraro" eta "erdi **maritxu**" haiekin barregarri uzteak. **Juan Kruz Igerabide**

---

**maritxukeria** *iz adkor* maritxuari dagokion egintza, gaitzesgarritzat markatua. ik**marikoikeria**.

---

**marizikin** (*orobat mari-zikin; Euskaltzaindiaren Hiztegian, mari sarreran, marizikin agertzen da*) *iz adkor*

Edo zer uste duzu, axola zaidala non egiten dituzun erosketak, non mozten dizuten bizarra edo zein **marizikinekin** duzun tratu? **Anton Garikano**  
Eragin zure ipudiei, urdanga horrek! erakutsi zer egiten dakizun, **marizikin** horrek! **Juan Martin Elexpuru**  
-Gustatzen al zaizu, urdanga hori? gustatzen al zaizu, **marizikin** hori? hartu buztana! hartu! hartu! **Juan Martin Elexpuru**  
Zerria, puta zikina eta **marizikin** esaten zioten. **Berria - Euskal Herria**  
· Mari, erabilera gaiztoetarako bide da ia beti: **mari-zikin**, mari-mutil, mari-maistra, mari-ttartala, maria-bideetako... eta baita mari-matraka ere. **Iñigo Aranbarri**

---

marizilipitri ik **mari 37**.

---

marizirri ik **mari 38**.

---

marizorotxo ik **mari 40**.

---

marjina ik **margina**.

---

marjinal ik **marginal**.

---

marjinalitate ik **marginalitate**.

---

marjinaltasun ik **marginaltasun**.

---

marjinatu ik **marginatu**.

---

marjinazio ik **marginazio**.

---

**marka 1** *iz* zerbaitetan egiten den seinalea.

Lapurrak atean **marka** bat egin zuen klarionaz. **Patxi Zubizarreta**  
Eta seinale zuria zuten ateekin ez nahastearren, **marka** gorria egin zuen atearen toki ezkutu samar batean. **Patxi Zubizarreta**  
Zirkulu baten **marka** geratu da kristalean. **Harkaitz Cano**  
Ehunka karta zituen, eta sorta bat osatzeko adina aukeratu behar zituen haien artean, eta **marka** bana egin. **Jose Morales**  
Berdin iparraldeko aldean ere, konpasaren muturra zirkunferentzian jarri behar da iparraldeko lerroan, F letra dagoen puntuan, eta ondoren bi **marka** egin ezker-eskuin, K eta I letrekin markatuz. **Santiago Iruretagoiena**  
Bi aldeetan **marka** bat egingo da, eta **marka** horietatik paretak egingo dira diagonalean. **Santiago Iruretagoiena**  
Estalkia lokarri urdin batez lotua eta kolore bereko zigilu baten **marka** zuen koaderno hura. **Xabier Olarra**  
Egidazu niri ere **marka** hori. **Anton Garikano**  
Nork bere **marka** uzteko premiarena, alegia: hemen egon nintzen. **Bernardo Atxaga**  
**Marka** txiki batzuek [...] adierazten zieten mugako gure lagunei paper horiek zituena susmagarri bat zela. **Matías Múgica**  
Suz egindako **marka** bat egin izan balute sikiera Hester Prynne horren kopetan! **Anjel Lertxundi**

**2 kolpe**, sakadura edo eragin batek uzten duen seinalea.

Bularrean **marka** beltz-urdin bat zuela esnatu zen goiz hura ere gogorarazi zion. **Koro Navarro**  
Garbi ikusi zuten alabak lepoan **marka** handia zuela, burdin hari batek egina. **Gotzon Garate**  
Eztarri aldean ubelduak zituen, eta hatzen **markak**. **Koro Navarro**



ziru zergoan goizeko berbera zela, **marka** berberak baitzuzen begi ingururatu. **Iñaki Mendiguren**  
Anshelek jaiotzetiko **marka** ezin ikusizkoren bat behar zuela izan esaten zen. **Koro Navarro**  
Mendebaldeko pentsamenduaren espirituan, baita forman ere, **marka** iraunkor hori utzi zuen Aristotelesen arimak haren substantzian ere utzi zuen efektu iragankorra. **Iñaki Mendiguren**  
Kirola egiten duten edadetu guztiak bezala, abailduraren **marka** darama aurpegian. **Joxean Agirre**  
Izuak bere **marka** utzi zuen denen bisaletan. **Aingeru Epaltza**  
Biolentziaren markarekin bizi baikara ordudanik euskaldunok, eta **marka** hori, ia berrogei urte geroago, bat egin baitzaigu haragiarekin, estigma makurra bihurtzeraino. **Bernardo Atxaga**

### 3 seinalea, aztarna, ezaugarria.

Monotonia nagusi, Kastilla sakonari hurbiltzen ari naizelako **marka**. **Piarres Aintziart**  
Aingeru aurpegi horretan ez zen, alabaina, trufa-aierurik, sufrimendu neurtezin eta isilaren **marka** baizik. **Aingeru Epaltza**  
Galtzen hastea duk adin batera ailegatu haizelako **marka**. **Aingeru Epaltza**  
Diferentziazioa hazkunderaren **marka** den bezala, estandarizazioa desintegrazioaren **marka** da. horrexek ekarri gaitu, hain zuzen, banako bakoitzaren **marka** genetikoak zehaztera, hatz-markak baino adierazgarriagoak baitira. **Iñaki Mendiguren**  
Eta **marka** hori -hau da, piztiaren izena edo izenaren zerbakia- zeramanak bakarrik eros edo sal zezakeen zerbait. **Elizen arteko biblia**  
Elizen **marka** bereizgarria zera da, guztiak dutela beren kide egiazko Jainko bakarra. **Iñaki Mendiguren**  
**Marka** ororen gainetik, haur eta gazte literatura, literatura da. **Ana Urkiza**  
Etxeke **marka**. **Aingeru Epaltza**  
Jende buruduna behar zen [...], libetarioen doktrinaren **marka** sakon errotua izango zuena. **Inazio Mujika Iraola**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esaldi baten (edo hitz baten) adiera indartzeko erabili ohi diren puntuazio-**markak** (harridura-marka, galdera-marka...) eta bestelako baliabideak (etzanak, belztuak...) ahalik eta gutxien erabili. **Askoren artean**  
Eskua sabelean zeukan, odol-**marka** lehor baten gainean. **Inazio Mujika Iraola**  
Andoni Murelaga tortura **marka** nabarmenekin agertu zen epailearen aurrera. Patu hori zen hirietako langile-klase industrial berriaren jaiotza-**marka**. **Jokin Urain**  
Nire begiez ikusi nuen eskutitz hura; paper ofizialean zegoen idatzita, zigilua eta ur-**marka** zituen. **Ander Irizar**  
Posta **marka** zaharena zuen gutuna kutxa haren barne-barnean zegoen. **Jon Muñoz**  
Berriz ere eskertzen ditu ohore eta maitasun **marka** bat emaiten dutela horrela deneri. **Michel Oronoz**  
Mugimenduaren pertzepzioa erlazioen araberakoa da neurri batean, eta erreferentzia-**marka** finkoak izateak asko errazten du. **Josu Zabaleta**  
Nire mina, ordea, nire egarria, bizi **markak** ziren, zer-nolako purgatoriotan nintzen batere garbi ez izan arren. **Aingeru Epaltza**  
Prudenen etxetxoak utzikeriaren higadura-**marka** goiztiarrak ageri zituen. **Iban Zaldúa**

### 5 merkataritza izena.

Ordua galdetu diat, ez erlojuaren **marka**... **Joan Mari Irigoien**  
Kasinoko bezeroen izen, autoen **marka** eta matrikulekin osaturiko zerrenda. **Joxemari Iturralde**  
Datu teknikoak, mesedez: **marka**, modeloa, serie edo identifikazio zerbakia... **Iñaki Iñurrieta**  
Eremu txikiko supermerkatua: apaletan klase, **marka**, tamaina eta formatu guztietako jenero ugari-ugaria. **Edorta Agirre**  
Soinean, **marka** oneko zamarra, **marka** oneko galtzak, **marka** oneko zapatak eta **marka** txarreko irribarre harroa. **Aingeru Epaltza**  
Hala ikusi dugu garai bateko gramofonoetan, arbelezko nola binilozko disko zaharretan, etxearen **marka** ondoan daramala, *His Master's Voice*, Nagusiaren Ahotza. **Iñigo Aranbarri**  
Ezagunak dira hainbat enpresak eta **marka** ospetsuk jasan izan dituzte. n salatze eta boikot kanpainak. **Iñaki Heras**  
**Marka** multinazionalak frankiziak ezartzen dituzte munduko zeinahi bazterretan. **Edorta Agirre**  
Hauek autentikoak dira, inolako zalantzarik gabe, Cohibas **marka** banatzen duen saltzaile ofizialak ekarriak. **Jon Alonso**  
FAL hori militarren metraileta **marka** bat da. **Pako Aristi**  
**Marka** ere nabarmen ikusten zitzaion zilar koloreko hizki handietan: EUROVAN TDI. **Pako Aristi**

### 6 (hitz elkartuetan)

Larruzko zoru fin eta malgua zuten, eta **marka**-izena zeharretara estanpaturik ageri zuten: "Kumfy-Toes", behatzak gozo, oinak eroso. **Mirentxu Larrañaga**  
-Ezaldia ez da nirea, noski, erloju-**marka** ezagun baten eslogan berria baizik. **Patxi Iturritegi**  
Hor nonbait edukiko zuten ezkutaturik kontsumitzaile horiek txokolate **marka** jakin hori erosteko beharra. **Iñaki Heras**

### 7 norgehiagoketan, lehiaketetan, kiroletan eta kidekoetan, lortu den emaitza hobereana. ikerrekor.

1,95 da zure **marka** onena. **Berria - Kirola**  
Narrea Agirre pertika jauziko finalean ariko da gaur, Espainiako **marka** hobetu ondoren (4,50). **Berria - Kirola**  
Munduko bi **marka** AEBetako sailkapen probetan. **Berria - Kirola**  
Finalean egin zuen **marka** ona izan zen, 22.21, joan den hilean lortutako **marka** bera, Nafarroako junior eta jubenen artean, betiko **marka** onena. **Berria - Kirola**  
Eskura ikusten dut **marka** hori gaintzea. **Berria - Kirola**  
Beardek bular estiloko 200 metroko **marka** ondu zuen 2: 22.44ko denbora eginda. **Berria - Kirola**  
**Marka** ontzeko asmoa du 21 urte bete aurretik. **Berria - Euskal Herria**  
**Marka** hauetan zentimetro bat gehiago saltatzea jauzi nahiko handia da, eta asko kostatzen da. **Berria - Kirola**  
Eraso sistematikoaren ondorioz jarraitzaile nerabeen artean sortu zen enpatiak fama hiperbolikoa ekarri zion taldeari: urte hartan aise gaintu zuten hogeita hamar milioi kopiako **marka**. **Patxi Iturritegi**

### 8 irud/hed

Gero eta zailagoa jartzen ari haiz hire festen galga; ederki kostatu behar zaik hurrengoan gaurkoaren **marka** berdintzea! **Anjel Lertxundi**  
-Zure **marka** guztiak ondoko dituzu gaur, Mentxu... **Josu Landa**  
1977ko irailak **marka** guztiak hautsi zituen, 5 litro eskas bakarrik utzi baitzizkigun. **Pello Zabala**  
Avila da, hain zuzen, **marka** hautsi izan duena: -3.0 gradu zeropetik. **Pello Zabala**

### 9 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urteko lehen **marka** ahalegina egin zuen, apirilaren 28an, Lekunberrin (Nafarroa), eta 23 segundotan egin zuen jasoaldia. **Berria - Kirola**  
**Marka** ahalegina egiteko prestatu nintzenezan banuen motibazioa, baina hirutan jaso ezinda geratu ondoren zaildu egin zen dena. **Berria - Kirola**  
Irigoienek ere **marka** saioa egingo du apirilaren 2an. **Berria - Kirola**  
Eta unerik gozoena **marka** saiakera egin ondoren? **Berria - Kirola**

### 10 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urteko lehen harri-jasotze **marka** ahalegina izango da ikusgai bihar Erandioko (Bizkaia) Altzaga kiroldegian (17: 00). **Berria - Kirola**

### 11 inperio bateko mugako lurraldea, herrialde etsaien aurrez aurrekoa.

**Marketako** zaintzaileek eta aurkako gerra-talde barbaroek. **Iñaki Mendiguren**  
Estatu unibertsal egipziakoko nubiar **marketako** jainko ilun bat. **Iñaki Mendiguren**

Duela hamahiru egun nuen, ahul, iparraldeko **marketan**. Agustin Otxoa  
Mendebaldeko munduaren Ekialdeko Europako **marketan** zertutako hondamena ez zen nazionalismoaren birus berak otomandar gorputz politikoan izandako ondorioa bezain tragikoa. Iñaki Mendiguren

Moskuk, Erromak bezala, barbaroen aurkako **marka**-estatu baten hiriburu gisa hasi zuen bere ibilaldia. Iñaki Mendiguren

## 12 aipu marka pl idazten dena besteren baten aipua dela adierazteko erabiltzen diren markak, " eta ". ikkomatxo 2.

Politikan, ezinbestekoa egiten da **aipu markek** ezartzen duten distantzia. Iñigo Aranbarri

Kazetariak entrenatzaileak esandakoa jaso nahi baldin badu, **aipu marka** artean eman beharrekoa zuen. Iñigo Aranbarri

Esan, zinez da posible, Lopez Aguilarr espainiar ministroak egunkari honetan proposatzen duen bezala, gatibu baten kontrako frogak **aipu markarik** gabe "eraikitzea"? Iñigo Aranbarri

## 13 deklinazio marka

Hitz bat behin eta berriro azaltzen da esaldi bakar batean **deklinabide marka** ezberdinekin. Iñaki Arranz

Letraz letra ibili beharrean, aurizkien, artizkien eta atzizkien bidez luzatzen (laburtzen) dira hitzak, baina **deklinabide marken** bidez ere. Iñaki Arranz

Ekialdeko hitz bat (sosa) mendebaleko **deklinabide marka** batekin (- gaz) loturik. Pello Salaburu

## 14 galdera-marka esaldi jakin bat galdera dela adierazteko jartzen den ? marka, edo ¿ ? markak.

Esaldi baten (edo hitz baten) adiera indartzeko erabili ohi diren puntuazio-markak (harridura-marka, **galdera-marka** ...) eta bestelako baliabideak (etzanak, belztuak...

Askoren artean

.) ahalik eta gutxien erabili. lanok bildu, irakurri eta oharrak idazten dizkie, puntuazio-, ortografia- eta erabilera-akatsak zuzentzen, argudio ahulen ondoan **galdera-markak** ezartzen, idazlan bakoitzari kritika labur eta adeitsu bat erantzen. Oskar Arana

Baina eguzki haiek, bestalde, **galdera-marka** bat zuten oztopo eta **galdera-marka** bat zuten laino, zero berri batera jaio eta handik dir-dir egin zezaten. Joan Mari Irigoien

Baina eguzki haiek, bestalde, **galdera-marka** bat zuten oztopo eta **galdera-marka** bat zuten laino, zero berri batera jaio eta handik dir-dir egin zezaten. Joan Mari Irigoien

## 15 harridura-marka esaldi jakin batekin harridurazkoa dela adierazteko jartzen den ! marka, edo ¡ ! markak.

Ala **harridura-marka** erantsi behar diot ondotik? Antton Olano

Esaldi baten (edo hitz baten) adiera indartzeko erabili ohi diren puntuazio-markak (**harridura-marka**, galdera-marka...). Askoren artean

**Harridura-markek** argudioari ez diote ezer gehitzen. Askoren artean

Bizimodu erabat berri baten hasiera da niretzat, eta **harridura-marka** handienak erantsi beharko zaizkio ondotik. Antton Olano

Orduak eta orduak ematen zituen [...] "Jaun agurgarri hori!" behin eta berriro idazten, letra guztiekien eta amaieran **harridura-marka** ipiniz. Jose Morales

## 16 hatz marka hatz mamiak gauzakietan uzten duen arrastoa.

Arman dauden **hatz-markak**. Harkaitz Cano

**Hatz-markak** eta bertzelako aztarnak bilatzen ari gaituz. Aingeru Epaltza

Bi gizon bidali zituzten Elsari **hatz-markak** hartzera. Harkaitz Cano

Izan ere, berea dik eta haren **hatz-markaz** betea zagok. Aingeru Epaltza

**Hatz marken** bidez identifikatua. Berria - Euskal Herria

Pioletak, biktimen buruan aurkitzen denean ere, ez du sekula **hatz-markarik**. Jon Alonso

«Garunaren **hatz markak** jasotzen dituen makina» deritzoten sistema erabiliko dute AEB Ameriketako Estatu Batuetan Jimmy Ray Slaughter erruduna edo errugabea den jakiteko. Berria - Gaiak

Biki berdinek ere, **hatz-marka** desberdinak dituzte. Irene Aldasoro

- *irud/hed* Ziur asko denok kanporatuko dugu geure usain-nahasketa ezaugarria, eta, beste pertsonen ezagutzeko bezain indartsua ez bada ere, **"hatz-marka"** kimiko bat utziko du. Irene Aldasoro

## 17 marka-gizon marka batean (ik gorago 11) bizi den gizona.

Batzuetan, sarri benetan, **marka**-gizonak dira, kanpoko barbaroen aurka mugak babestuz zibilizazio bateko kide izateko eskubidea errebindikatu dutenak. Iñaki Mendiguren

Baliteke ez atzerritarrek, ez barbaroak, ez **marka**-gizonak izatea, "metropolitarrak" baizik. Iñaki Mendiguren

Tsin She Huang-ti estatu unibertsalen ezarpenen historietan ezagun den figuraren - **marka**-gizon konkistatzailearen- ordezkari baitzen. Iñaki Mendiguren

## 18 marka guztiak hautsi

Baina epaimahaiaren erabakiek **marka guztiak hautsi** dituzte. Berria - Harian

Gonzalez: «BBVAk aurtun **marka guztiak hautsiko** ditu». Berria - Ekonomia

Brent upelak **marka guztiak hautsi** eta goia jo duela. Berria - Ekonomia

**Marka guztiak hautsiko** hituen oraingo honetan! Alabak amaren **marka guztiak hautsi** ditu. Unai Iturriaga

**Marka guztiak hautsi** zituen montzoi enbata 1861 ean gertatu zen: Cherrapungin, Indian, udako euriteen aldirian, 22.000 litro bota zituen euritan. Pello Zabala

Emile Ajar izenarekin hasi zen idazten eta izen berriarekin estilo berri bat, gai, egoera eta pertsonaia erabat desberdinak landu zituen, eta, **marka guztiak hautsiz**, beste Goncourt bat irabazi. Joxean Agirre

1990ean, Mendebaldeko Alemaniako hazkundeak **marka** guztiak hausteraino lasterragotu zen: %5,7. Koro Navarro

## 19 marka hautsi

Esan liteke **marka haustea** oso zaila daukadala. Iñaki Mendiguren

Moldaketan ondoren, Kataluniako zirkuituko entrenamendu ofizialeetan lehenengoa izan zen, eta Xerezen zirkuituko **marka hautsi** zuen. Berria - Kirola

Hark munduko **marka hautsi** zinan bere bular eta izter silikonatuekin! Itxaro Borda

Avila da, hain zuzen, **marka hautsi** izan duena: -3.0 gradu zeropetik [Irailak 26koa]. Pello Zabala

- Gaurko partidari ikusle **marka hautsiko** dute, Bizkaia Arenan batuko diren 12.400 zaleak inoiz Euskal herrian saskibaloi partida bat ikusteko elkartu den jende kopururik handiena izango baita. Berria - Kirola

**Marka** bat **hautsi** behar duen kirolariak bezala, indar guztiak neurtzat behar nituen, behingoagatik sikiera: gau hartan Ritarekin neukan afaltzeko hitzordua. Hasier Etxeberria

Hurrengo bi jardunaldietan hiru **marka hautsi** dituzte astillerotarrek. Berria - Kirola

## 20 marka izan da ad

**Marka da**, haatik, bazkari guztia lantokiak, bezeroez eta hurrengo komenioaz aritzea ere. Aingeru Epaltza

- **Marka da** gero! Jon Muñoz

**Marka da** gero, zure auzoan galtzea. Harkaitz Cano

-Bihurria zer zara, baina -nik berari-, ordu-laurden bat ere ezin geldirik egon, **marka da**, gero... Joxe Austin Arrieta

-**Marka duk** gero, hirea! -esan zidan. Joxe Austin Arrieta

Hau **da marka**, hau! Luis Elberdin

- Hau **duk marka**, hau! Aingeru Epaltza

"Hau **marka**" pentsatu zuen Léak. Jon Muñoz

Hau **marka**! zer gertatzen ari da? Luis Elberdin

## 21 *sor-markasup\_1* produktu jakin bat non ekoizta izan den adierazten duen etiketa.

Badira **sor markak** edo IGP-ak ardi gasna, arnoa edo xingarrarentzat. **Herria**

450 **sor-marka** eta 127 izendatze ezberdin existitzen dira Frantziako arnoarentzat. **Berria - Harian**

Orok ezagutzen dugun "gâteau basque" etxe pastizarentzat **sor-marka** bat ezartzen ahal ote zen? **Herria**

Ardi gasnaren **sor-markan** pentsua ez onartzeko eskatu du ELBK. **Berria - Ekonomia**

Alabaina, **sor-markaren** sindikatua lantzen ari den betekizun itunean pentsua sartzekotan daude. **Berria - Ekonomia**

Abenduan, esnetegien okupazioekin batera, justuki Ossau-Iraty **sor-markaren** erreklama ikus genezakeen telebistan **Itxaro Borda**

## 22 *sor-markasup\_2* jaiotzetiko marka.

Txanpon baten antzeko **sor-marka** zeukana masailean. **Anton Garikano**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**arteko marka** (6); **aurreko marka** (18); **azken marka** (7); **egin zuen marka** (10); **egindako marka** (4); **espainiako marka** (19); **espainiako marka ondu** (5); **euskadiko marka** (6); **ezarritako marka** (7); **galdera marka** (7); **garaipen marka** (4); **gutxieneko marka** (13); **handiaren marka** (4); **harridura marka** (5); **hatz marka** (10); **hau da marka** (5); **hau marka** (9); **hirugarren marka** (5); **hori marka** (5); **hura marka** (4); **iazko marka** (5); **idoki marka** (5); **ikusle marka** (7); **jarritako marka** (4); **lehen marka** (6); **lortu zuen marka** (9); **lortutako marka** (7)

**marka ahalegin** (6); **marka ahalegina** (39); **marka ahalegina egin** (5); **marka ahalegina egingo** (16); **marka ahaleginak** (7); **marka bat egin** (7); **marka bat hautsi** (11); **marka berdindu** (24); **marka berdindu zuen** (9); **marka berdinduko** (5); **marka berdintzea** (5); **marka berdintzeko** (5); **marka berri** (8); **marka berri bat** (7); **marka berria** (38); **marka berria ezarri** (12); **marka bikaina** (9); **marka da** (50); **marka da gero** (12); **marka egin** (28); **marka egin zuen** (18); **marka egitea** (4); **marka egiteko** (4); **marka egiten** (4); **marka ezarri** (18); **marka ezarri zuen** (7); **marka ezartzen** (4); **marka gairiditu** (14); **marka genetikoak** (7); **marka gizonek** (4); **marka guztiak apurtu** (6); **marka guztiak apurtzen** (4); **marka guztiak hausten** (6); **marka guztiak hautsi** (41); **marka guztiak hautsiko** (9); **marka handia** (12); **marka haustea** (5); **marka hausten** (4); **marka hautsi** (30); **marka hautsi du** (7); **marka historiko** (6); **marka historiko bat** (5); **marka historikoa** (14); **marka historikoak** (5); **marka hobetu** (23); **marka hobetu zuen** (5); **marka hobetzea** (5); **marka hobetzen** (7); **marka hobetzen saiatuko** (5); **marka ikusgarria** (7); **marka jarri** (6); **marka lortu** (11); **marka lortu du** (5); **marka lortzeko** (4); **marka on** (4); **marka ona** (12); **marka ondu** (48); **marka ondu du** (9); **marka ondu nahi** (9); **marka ondu zuen** (16); **marka onduta** (5); **marka oneko** (6); **marka onena** (39); **marka onena egin** (7); **marka onena lortu** (4); **marka onenak** (5); **marka onenaren** (6); **marka ontzea** (6); **marka ontzeko** (9); **marka polita** (4); **marka saioa** (14); **marka saioa egingo** (7); **marka txarra** (5); **marka utzi** (7); **marka uzten** (4)

**metroko marka** (7); **metroko munduko marka** (7); **metrokoan munduko marka** (5); **munduko bi marka** (4); **munduko marka** (84); **munduko marka berria** (7); **munduko marka egin** (6); **munduko marka ere** (4); **munduko marka hobetu** (9); **munduko marka ondu** (14); **orain arteko marka** (5); **probako marka** (8); **sor marka** (16); **urteko marka** (4)

**arteko markak** (4); **gaueko markak** (6); **gutxieneko markak** (4); **hatz markak** (54); **hatz markak hartu** (5); **markak egiten** (4); **markak haustea** (4); **markak hausteko** (5); **markak hausten** (10); **markak hautsi** (20); **markak hautsi zituen** (4); **markak hautsiz** (4); **markak izango** (4); **markak kontuan hartu** (4)

**anconako markako** (7); **idoki markako** (4); **markako auto** (7); **markako erregea** (4); **suzuki markako** (7)

**anconako markan** (4)

**munduko markaren** (7); **sor markaren** (5)

**markarik onena** (33)

**markaz kanpoko** (4)

## markadun 1 *izond* marka duena.

Luzaro geratu zen bere boten punta **markadunei** so. **Lopez de Arana**

Euskal usarioan intzart hartzekoa eta marka bariko izena *liztor* da, gaztelera *avisón* **markadunari** dagokiona hain zuzen; eta gaztelera *avispa* marka gabeari, euskal usarioan *liztame* edo *liztafin* izen **markaduna** dagokio. **Patziku Perurena**

Esaterako, esan dezakegu ingelesezko plural markagabeak (singularrarekiko inolako bereizgarri formalik gabeak) markatuak direla (adib., sg. *sheep* / pl. *sheep*) eta, ez-markatu edo oinarizkoak, **markadunak** (-s marka dutenak, adib.: sg. *table* / pl. *tables*). **Lourdes Oñederra**

## 2 *izlag* markako.

Hirugarren Munduko herrialdeek Lehen Mundukoaren kontsumo estiloak imitatzen dituzte (coca-cola, satellite bidezko telebista edota **markadun** jantziak: estatusa ematen duten ondasunak, alegia), eta horrek berak handitu egiten du kontsumorako joera. **Iñaki Heras**

**Markadun** pilotekin ez zegoen askorik pentsatu beharrik. **Berria - Kirola**

## markagabe *izond* markarik ez duena.

Esaterako, esan dezakegu ingelesezko plural **markagabeak** (singularrarekiko inolako bereizgarri formalik gabeak) markatuak direla (adib., sg. *sheep* / pl. *sheep*) eta, ez-markatu edo oinarizkoak, markadunak (-s marka dutenak, adib.: sg. *table* / pl. *tables*). **Lourdes Oñederra**

## markagailu 1 *iz* zerbaiten egoera zenbaki bidez markatzen duen gailua.

Heldu da arraindegira, eta zenbakia hartu du, 45a; **markagailu** gorriak 28 adierazten du. **Iban Zaldia**

Giro sargaritsua, hogeita hamabi gradu kaleko **markagailu** batean. **Paddy Rekalde**

Baina botoak zenbatzerakoan, Parlamentuko **markagailuak** ezezko bat jaso zuen. **Berria - Euskal Herria**

## 2 norgehiagoketetan eta txapelketetan alderdi bakoitzaren puntuak adierazten dituen markagailua.

Kantxa gaineko tresneria, saskiak eta **markagailuak**, Casillatik eraman dituzte, Bilboko Udalak utzita. **Berria - Harian**

1/0 **markagailuan** eta sailkapenean lehen tokia. **Herria**

Errugbian, Aviron-ek ekitaldi emankorra burutu du joan den larunbatean, Lyon-en kontra irabazi du bere zelaian, 33/28 **markagailuan**. **Herria**

Segidan 13 tanto ezarri dituzte **markagailuan**, pariazaleak suntsituak utziz. **Herria**

19/6 **markagailuan** bururatu baitzuten partida. **Herria**

**Markagailua** : 5-0, 5-2, 8-2, 8-4, 9-4, 9-5, 17-5, 17-6 eta 22-6. **Berria - Kirola**

**Markagailua** 19-24 zegoenean penalti bat bota zuen Ciudad Realek.Nafarrak aurretik izan ziren ia partida osoan **markagailuan**. **Berria - Kirola**

Beltzak nagusi **markagailuan** eta jokatzeko moldean. **Herria**

Arbela izaten zen **markagailua**, dotore askoa: bi marra lodi, klariona urdinez egina bata, gorritz bestea. **Joxerra Garzia**

*irud/hed* Lehendakari gisa egingo nukeen lehenengo gauza, **markagailua** hutsean jarri eta alderdi demokratiko guztiei dei egitea izango litzateke, Estatuaren erreformaren inguruan elkarriketa prozesua abiarazteko **Berria - Euskal Herria**

## 3 adierazten dena markatzen duen gailua.

Bihotz-taupaden **markagailua** da piezarik erabiliena: gailu elektronikoa simple bat, dagoeneko milaka eta milaka pertsona heriotzatik edo betiko elbarri geratzetik salbatu dituena. **Irene Aldasoro**

Ekimen horrek loturik, liburu saltzaileek egutegi txikiak, afixak eta orri **markagailuak** banatuko dituzte. **Berria - Kultura**

## 4 *taupada-markagailu*

Taupada-**markagailu** elektronikoa pulstu-sorgailu bat dauka. **Irene Aldasoro**

Bihotz osasuntsu batean, berezko taupada-**markagailua** osatzen duten muskulu-zelula multzo txiki batetik hedatzen da uzkurte-mugimenduaren uhina. **Irene Aldasoro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**taupada markagailu** (6)

jarri zuten markagailua (3); markagailua alde (6); markagailua estutu (7); markagailua hutsean (3); markagailua irauli (3); markagailua laurdenka (4); markagailua murriztea (3); taupada markagailua (3)

markagailuak adierazten (3)

aitzineratu zen markagailuan (3); aurreratu zen markagailuan (9); aurreratu ziren markagailuan (3); jokoan eta markagailuan (8); markagailuan aurrea hartu (10); markagailuan aurrea hartzea (4); markagailuan aurrea hartzeko (5); markagailuan aurreratzea (3); markagailuan aurreratzeko (5); markagailuan aurretik jarri (9); markagailuan aurretik jartzeko (5); markagailuan ihes egitea (4); nagusi markagailuan (4)

markagailuaren gorabeherak (6)

markagailuari buelta eman (14); markagailuari buelta ematea (6); markagailuari buelta emateko (10); markagailuari buelta ematen (4)

markagailuko alde (5); markagailuko gorabeherak (30)

## markaje iz markaketa.

Ez al diok **markaje** gogorregia egiten? **Iñaki Iñurrieta**

*- irud/hed* Hortxe gaude eta hor jarraituko dugun itxura dugu: PPK PSOE kontrolatzen du; artikulugile konstituzionalista gehienak PSOEkoak dira, PPren logikapean gaude eta PSOEri **markajea** egiten diote. **Berria - Euskal Herria**

## markaketa 1 iz futbolean eta kideko jokoetan, jokalaria batek aurkako taldeko beste jokalaria bat hurbildik jarraitzea, haren jokoaz oztapatzea.

Hori lortzeko Bordasek **markaketa** berezia egin zion Guti Real Madrileko jokalariai. **Berria - Kirola**

Luis Prietoren **markaketa** onenen bideo bat ikustea. **Berria - Kirola**

Askok oraindik gogoan izango dute Hasselbainki egin zenion **markaketa**, eta hark eman zizun kolpea. **Berria - Kirola**

## 2 markatzea.

Sektoreka, berriz, AFMko zuzendari nagusiak adierazi zuen deformazioaren eta laser **markaketaren** alorreko makinek eduki dutela arrakastarik gehien. **Berria - Ekonomia**

## markarazi, markaraz, markarazten du ad markatzera behartu.

Han pasatzen zirenek beren salgaiak liburu haundi batean **markarazten** zituzten, deklaratu arau, eta, bukatzean, sinatu behar zuten. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## markatu, marka, markatzen 1 du ad marka ezarri edo egin; marka batez ezaugarritu.

Alboko atek seinale gorri **markatu** zituen. **Patxi Zubizarreta**

Haren etxebokoa atea gurutze gorri batez **markatu** baitzuten. **Juan Garzia**

**Markatu** gauza baliotsuak, lapurtzen badizkizute ezagutu ahal izateko. **Berria - Harian**

Kabalen **markatzea** ere egiten da hor, Urepelen bezala. **Herria**

Aduanan bobina guztiak bata-bestearekin nahastuta itzuli zizkidatelako, baina, gehienbat, azken boladakoak (itsas bidaiaz geroztikakoak) non zer zegoen **markatu** gabe neuzkalako. **Joxe Austin Arrieta**

**Markatutako** lehenengo ebakigune-puntuak. **Santiago Iruretagoiena**

Paper batzuk zigiluaz **markatzen**. **Jose Morales**

Gurutze batez eta biribil batez **markatzeko** eskuratu zioten pergaminoa. **Juan Garzia**

Atzeman dut xoko batean, ene haurren izenak kanibetaz **markatzeko** tokia, "Xabina-Peio". **Piarres Aintziart**

Harakinek, mantal zuri handiak jantzirik, zigilu batez okela **markatu**, garraiatu, pisatu eta barra batzuetatik zintzilik uzten zuten. **Karlos Zabala**

Bera joan zen, zenbait itsasontzirekin, itsasoa arakatzera, eta portuak, senaiak eta armategitarako erabili nahi zituen lekuak **markatu** zituen. **Iñaki Iñurrieta**

*Nacht und Nebel* (Gaua eta lainoa) hitzekin **markatzen** zituzten naziek berehala hil eta arrastorik utzi barik desagerrarazi behar ziren preso politikoak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Bere ezaugarriaz **markatu** gaitu eta Espiritua ipini du gure baitan. **Elizen arteko biblia**

Ea bada, andrea, erruki zakizkigu, eta **marka** gaitzazu zeure graziaren zigiluaz. **Askoren artean**

- Hainbat auto **markatu** eta gurpilak zulatu dizkietela. **Berria - Kirola**

## 2 marka edo eragina utzi.

Zen tokioa izateak zehaztu, **markatu** ziola bizimodua, are bizitza bera ere. **Jon Alonso**

Erakasle horietan izan ote da bat edo beste **markatu** zaituena? **Herria**

Munduko zer gertakarik zaitu azkarrenik edo gehienik **markatu** azken urte hauetan? **Menane Oxandabaratz**

Liburu hark asko **markatu** ninduen. **Ana Urkiza**

Idea horrek biziki **markatu** ninduen. **Ana Urkiza**

Espainiako eskualde guztiatik 40.000 pertsonatik gora etorri izanak **markatu** egin du hiriaren fisonomia. **Jokin Urain**

Euskal Berpizkundea, Europa osoan bezala, erlijio-gerrek **markatu** zuten. **Askoren artean**

Jaiotzak eta haurtzaroak **markatzen** dutela gizakia, alegia. **Hasier Etxeberria**

## 3 marka batez seinalatu edo adierazi.

X-ak **markatzen** du lekua. **Oskar Arana**

Plazaren erdigune geometrikoa **markatzen** zuen lauzatxua eta zuloa agertuko zen. **Iñaki Iñurrieta**

Hegoalde eta iparralde **markatzen** duten puntuetan. **Santiago Iruretagoiena**

Matiasek apropos **markatzen** zituen orrialde horiek, neurririk gabe gustatzen zitzaizkion horretaz idaztea. **Unai Elorriaga**

Ajendan **markatzen** zenuen lehenengo eguna behintzat. **Lourdes Oñederra**

Txiza eginez **markatzen** dituzte beren lurraldearen mugak. **Irene Aldasoro**

Pilota igortzen dute multzo batetik bestera, marra batek **markatzen** duela bakoitzaren parte. **Herria**

Ez ahantz beraz, oraindik zuen egutegian goiz hori **markatzea**. **Herria**

Sekzioen borroka lekua **markatu** zuen eskuan zeukan librete batean. **Karlos Zabala**

Gero, gurdia atzeko oholak altxaturik, zenbait eskutada lastorekin espaloian bere lau metroak **markatu**, eta barazkiak sortaz sorta emateko eskatu zion Florenti mesedez. **Karlos Zabala**

## 4 adierazi, seinalatu.

Lehenbiziko zutabeak **markatzen** du zenbat irakasle dauden unibertsitateetan bestelako langile bakoitzeko. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Jarraitu beharreko ildoak **markatu** behar zen. **Fernando Morillo**

Baina tribuak **markatzen** duen bideari jarraitu beharrean, bide propioa egitea erabakitzen baduzu, susmagarri bilakatzen zara. **Ana Urkiza**

Euskal kulturaren oinarrien nondik norakoa **markatu**, hizkuntza onen irturra emakuntza eragunak zehaztu, gure paisaiaren argi-distirak nolakoak diren definitu. **Anjel Lertxundi**

Lan horrek haustura garbia **markatu** zuen aitzineko filosofia guztiarekin. **Piarres Xarriton**

Begiradatik begiradara bidezidor ondo **markatu** eta mugatua dago koloretako argien pean. **Sonia Gonzalez**

Horra lehenengo poxpolo, *fiat lux*, jokoaren hastapena **markatzen** duen seinalea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bihotzaren iparorratzak **markatzen** zidan norabidean. **Joan Mari Irigoien**

Europar, 1879ko alemaniar muga-sarienean legeak protekzionismoaren aro berri bat **markatu** zuen. **Koro Navarro**

-Maitasunaren eta errotinaren arteko muga **markatu** duk oharkabea. **Anjel Lertxundi**

Aspalditxoan berriak **markatu** dute erritmoa onerako zein txarrerako. **Joxe Azurmendi**

Mendearen erlojuan t'erdia **markatu** behar dituen 1950. **Edorta Jimenez**

Mikelek baxu lerro bat **markatzeari** ekin zion, baxu lerro sendoa, obesiboa. **Unai Iturriaga**

Oteizarenganako begiramena dago Arestiren aldetik, baina baita distantziak **markatzeko** premia ere. **Anjel Lertxundi**

Detalleak **markatzen** du diferentzia, ez maite dugunarengandik espero dezakegunak. **Anjel Lertxundi**

Zapaltzaileak **markatzen** du beti jasanezinaren neurria. **Hasier Etxeberria**

Gipuzkoan ere bi puntu **markatu** dituzte Greenpeacekoer: Mutrikuko eta Pasaiako portuak. **Berria - Euskal Herria**

Lehentasunak **markatu** behar ditugu. **Berria - Euskal Herria**

Irujok **markatu** zuen partidaren erritmoa. **Berria - Kirola**

Musikenek **markatu** du bidea. **Berria - Kultura**

Estatuaren indarrak beste ezerk ez dizkiola **markatzen** mugak. **Esteban Antxustegi**

## 5 azpimarratu, nabarmendu.

Argi behar dugu utzi alde batetik dagoela Serbiako herria eta, bestetik, kriminalak daudela; alde hau **markatzeak** baldintzatzen du Serbiaren etorkizuna. **Berria - Harian**

Telesforo Monzon zenaren hiltzearen 20 urteak **markatu** ditu Donostiako Herria Kultur Elkarteak erakusketak batekin Parte Zaharreko Ikatz Auzo Biltokian. **Herria**

Euskal Kultur Erakundeak bere hamabost urteak **markatzen** ditu mahai gainera ekarriak mega inkesta baten emaitzak. **Herria**

Armenian, Erevan kapitalean, hamar milaka armeniar bildu dira igandean urteburu deitoragarri baten **markatzeko**; 1915 ean izan zen erresuma hartan turkoek egin zuten izigarrikeria. **Herria**

Niri begira esan zuen "batzuek", hitza **markatu** nahiz bezala. **Inazio Mujika Iraola**

"Eta ez probokazioei erantzun", **markatu** zuen ahots larriz, Frutuosori begira. **Inazio Mujika Iraola**

Irribarre tiiki bat **markatu** zitzaion masailetan. **Iñaki Zabaleta**

Kamiseta zuri zabal bat jantzi dut eta, ispluiri begira, kreion beltzez **markatu** ditut begi ertzak. praka bakero estuak paketea **markatzeko**, kamiseta are estuagoa gimnasioan landutako biceps eta pektoralak nabaritzeko. **Joseba Sarrionandia**

Berokia kendu zuen; azpian xigor-koloreko soineko soil bat zeraman gorputza **markatzen** ziona. **Juan Martin Elexpuru**

Soineko azpiko tanga nimitxoak **markatzen** dizkion ipurmasailtxo irtenak doi dantzatzu. **Patxi Iturrategi**

## 6 neurgailu batek, kopuru bat, neurri bat seinale bat adierazi.

1971ko izotzilaren 4an, termometroak -20.8 **markatu** zuen. **Pello Zabala**

Jarri ninduan... eman dik orratzak esferari buelta, hiru kilo **markatu** ditik. **Pablo Sastre**

Londresko erlojuak 8:17 **markatzen** zutenean. **Berria - Harian**

Hamaikak laurden gutxi **markatzen** zuen San Bizenteko erlojuak. **Txillardeggi**

Orratzak 1994. urtea **markatzen** zuen. **Bernardo Atxaga**

Lan erdiak bukatuta, 13: 20ko denbora **markatzen** zien kronometroak. **Berria - Kirola**

- Aipatzeko da Getariak 10:02ko denbora **markatu** zuela ziabogan, Pasai Donibane bano segundo bat hobe. **Berria - Kirola**

## 7 tekla edo kidekoak sakatu.

Telefonoa kakotik hartu eta zenbaki bat **markatu** nuen. **Xabier Olarra**

Atea itxi eta Monaren telefono zenbakia **markatu** nuen. **Fernando Rey**

Sei digitoak **markatzea** baino gauza errazagorik ez dago. **Jon Alonso**

Klabea **markatu**, eta saldoa eskatu nuen. **Karlos Linazasoro**

- Galdera horixe zebilkidan gogoan, abuztuko larunbat horretan, erredakzioetik bere etxeko telefonoa **markatu** nuenean. **Aingeru Epaltza**

## 8 futbolearen eta kideko jokoetan, jokalaririk batek aurkako taldeko beste jokalaririk bat hurbildirik jarraitu, haren jokoa oztopatzeko.

Ortiz **markatzea** ez zen erraza, izkin askorik ez zuen egiten, baina indar ikaragarria zuen orduan, orain bezalaxe, eta bere abiadura baliatuz bat-biko jokaldiak egitea asko atsegin zuen. **Berria - Kirola**

Neskak erabakita zuen Harry **markatzea**, snitcharen bila ibiltzea baino gehiago. **Iñaki Mendiguren**

## 9 futbolearen eta kideko jokoetan, tanto bat lortu.

82 garren minutuan Dassiek **markatu** golak ekarri du garaipen hori. **Herria**

Atzelariek ezinezko egin zieten Bordeleko Girondins taldekoei golak **markatzea**. **Berria - Kirola**

Baliatu dituzte Galestarren hutsak (bost gaztigu-ostiko) eta entsegu bat bakarra **markatu** dute. **Herria**

Orotara Imanol Hariñordoki-k bi entsegu **markatu** ditu eta Pepito Elhorga-k bat. **Herria**

Azken mementoan kanadarrek gaztigu-ostiko bat **markatu** dute. **Herria**

- *irud/hed* OKE Angelun jartzearekin okzitandarrek tanto bat **markatzen** dute. **Herria**

## 10 (era burutua izenondo gisa)

Kopuru **markatu** haiek batuketa-makinan kalkulatu nahi nituen, baina ez nuen hori egin. **Xabier Olarra**

Sekula karikaturaren gehiegikerian erori gabe halako estilizazio **markatu** bat nabari da, laburrean kontzentratutako gertakari ez-arrunten pilaketak eragina. **Juan Garzia**

Arrasto horrek adierazten du gorputzasun **markatu** eta kanpotasun markatzailearen arteko aldea. **Piarres Xarriton**

## 11 ez-markatu izond

Sabaikari sailean, beraz, afrikatua da ez-**markatu** edo oinarritzkoena. **Lourdes Oñederra**

Esaterako, esan dezakegu ingelesezko plural markagabeak (singularrekin inolako bereizgarri formalik gabeak) markatuak direla (adib., sg. *sheep* / pl. *sheep*) eta, ez-**markatu** edo oinarritzkoak, markadunak (- s marka dutenak, adib.: sg. *table* / pl. *tables*). **Lourdes Oñederra**

## 12 markatu gabe (orobat markatugabe) izond

Baina hitz hori **markatu gabea** da, zabal. **Andoni Egaña**

Izan ere, Orentzero baita, nere ustez, misterio honen izen **markatu gabea** edo jatorritzkoa. Laztandu egingo du haren gorputz beltzaren ezti kolorekoa, eguzkiak

**markatugabea**; luze-luze jarriko du, bularrak musukatuko dizkio; amodioa egingo dute. hitz erabilgarrienak, edozein unetan sartzeko modukoak, gehiegi **markatu gabeak** eta aisa mihiratzen diren horietakoak. **Patziku Perurena**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asko **markatu** (9); bi entsegu **markatu** (5); bidea **markatu** (3); bizitza **markatu** (3); entsegua **markatu** (3); hiru entsegu **markatu** (3); historia **markatu** (3); lehentasunak **markatu** (3); markatu ninduen (6); markatu nuen (13); muga **markatu** (3); ondo **markatu** (3); ongi **markatu** (6); osoa **markatu** (5); osorako **markatu** (3); telefono zenbakia **markatu** (4); telefonoa **markatu** (4); zenbaki bat **markatu** (9); zenbakia **markatu** (27); zenbakia **markatu** nuen (7)

gizon markatua (3); markatua da (6); markatua dago (6); markatua izan (5); markatua izanen (4); markatua zegoen (6); markatua zuen (4); ongi markatua (3); oso markatua (6)  
markatuak daude (4); markatuak dira (4); markatuak izan (5); markatuak izanen (3); markatuak izanen dira (3)  
betiko markatuko (4); bi puntu markatuko (3); letrarekin markatuko (4)  
markaturik daude (4); markaturik zegoen (4)  
markatuta daude (4); ondo markatuta (4); oso markatuta (4)  
lau entsegu markatuz (3); ongi markatuz (4)  
markatzeko ardura (3); zenbakia markatzeko (3)  
asko markatzen (6); asko markatzen du (4); bere eskuz markatzen (3); bidea markatzen (5); distantzia markatzen (3); erritmoa markatzen (7); eskuz markatzen (3); gradu markatzen (5); norabidea markatzen (3); tribuak markatzen (3); urtea markatzen (4); urtea markatzen zuen (3); zenbaki bat markatzen (4); zenbakia markatzen (4); zigiluak markatzen (3)

markatugabe ik **markatu 12.**

**markatxo** *iz* marka txikia.

Zuek ez diozue inori gauza txarrik esaten, gehien-gehienez ipur-mazeletan edo izter ederrean **markatxoren** bat. **Gotzon Garate**  
Puntta batean, sutako gantxoak goritu eta bi **markatxo** gurutzatu hantxe erreta seinalatzen zitzaizkiola. **Pello Zabala**

**markatzaile 1** *izond/iz* markatzen duena.

Arrasto horrek adierazten du gorputzasan markatu eta kanpotasan **markatzailearen** arteko aldea. **Piarres Xarriton**  
Ikertzailearen arabera, baina, **markatzaile** genetiko gehiago erabili beharko lirateke hutsak saihestu ahal izateko. **Berria - Gaiak**  
*ik beherago 4.* **Askoren artean**  
Horregatik, genomikan eta proteomikan depresioaren **markatzaileen** bila ari dira; bereizgarri fisiologikoak aurkitu nahi dira, depresioarekin lotuak. **Berria - Gaiak**

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zentroko ikertzaileen helburua birusaren kontrako botiken eraginkortasun probak erraztea da eta, horretarako, gene **markatzaile** bat txertatu nahi diote birusari. aurtengo azokarako bi orrialde-**markatzaile** diseinatu ditu Mattinek. **Berria - Gaiak**  
Bi brotxe, liburuatarako orri-**markatzaile** bat eta bi liburu oparitu zizkidaten. **Josu Zabaleta**  
Horri "osagai-**markatzailea**" deritzo nire *The logical structure of linguistic theory* eta "Three models for the description of language" lanetan. **Itziar Laka**

**3** (arkatzez mintzatuz)

Erreferentziarik garrantzizkoenen gainean arkatz **markatzaile** fluoeszente horia pasatuaz. **Jon Alonso**  
Arkatz **markatzailez** egindako marra batez inguratuta zeuden Max eta Nofutur. **Jon Muñoz**  
Ez dakit zerk bultzatu ninduen **markatzaile** beltza hartzera, baina ez dut orban beltzaren azpiko letrak irakur-asmatzen hasi beharrik, oso gogoan dut eta esaldia: [...]. **Anjel Lertxundi**  
Aurpegirako kolorea, ezpagnetarako kolorea, bekainetarako **markatzailea**. **Josu Zabaleta**

• **4 iz** futboleant eta, markaketa egiten duen jokalaria.

Korner batean **markatzaileari** aurea hartu eta buruz sareetaratu zuen azpeitiarrak. **Berria - Kirola**  
Baloiz luze batean atzean utzi nuen, lasterka, **markatzailea**. **Joan Mari Irigoien**  
Baina, gola deskribatu aitzin, esan dezadan, jokaldia bere osotasunean ulertzeko, Obelisk ezizeneko mutila zuela Enekok **markatzaile**, gazte indartsu bat, Eneko burua ateratzen ziona. jokalaria beroa da, indartsua, **markatzaile** zorrotza, liderra. **Joan Mari Irigoien**

**5 futboleant eta kideko jokoetan, tanto edo gol bat egiten duen jokalaria.**

Buruan buru aitzinean ibili dira Angeluarrak, Bruno Darrigade izan delarik tanto guztien **markatzaile**. **Herria**  
Nafartarrak errexi nagusitu dira afrikanoeri 4 eta 0, **markatzaileak** izan direlarik Txiki, Palacio eta Gorka Lopez. **Herria**  
Eskosiarren kontra irabazi du 51 eta 9, bost entsegu markatuz (Betsen, Hariñordoki, Michalak, Galthié eta Brusque zirela **markatzaileak**). **Herria**  
Auch-eko hiru entseguen **markatzailea** Dalgalarondo deitzen dela. **Herria**

**markatze 1** *iz* marka ezartzea.

Helduden maiatzaren 21-ean, ibiakoitzarekin, iraganen da Baleako behien **markatzea**, Urepelen. **Herria**

**2 markatzea, seinalatzea.**

Horrela aztertzen du Alain Bergalak (1977), argazki-sekuentzietan, espazioaren narraziozko **markatze** hori eremu-sakontasunaren, koadratzearen eta koadratze-angeluaren erabilera kodetuetan azaltzen den gauza bezala. **Josu Zabaleta**

**markes** (*orobat markis g.er.*) **1 iz** aitonen semeen artean, dukearen eta kondearen arteko maila.

Tour-Samuel-eko **markes** zaharra, laurogeita bi urteko agurea. **Josu Zabaleta**  
Narros jauregiko **markes** jauna anfitrioi-lanak egiten ari zen mahaiburutik. **Anjel Lertxundi**  
Eta bereziki \*\*ko **jaun markesa**, zeinari zor baitiot zurea izateko esperantza. **Jon Muñoz**  
Urbiaingo **markes** jaunaren eta Urbiaingo apezpikuaren eskutik. **Joan Mari Irigoien**  
Satan bera ere ageri da, ipuinik ironikoenean: Sadeko **Markesa** zigortzen du, haren ametsak eta nahiak benetan gauzatuaz. **Markos Zapiain**  
Liluratutik itzuli zen konde, **markes** eta gainerako handikien modarekin. **Joan Mari Irigoien**  
Zeren **markesaren** seme denak **markesaren** tratua merezi baitu. **Joan Mari Irigoien**  
Maritxu lehengusinari **markesen** etxean neskame zegoela gertatutakoak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**2** (hitz elkartuetan)

Hire amak kontatu zidaan nola prometatutako zion dukeak zuen aitari ezen **markes** titulua emanen ziola eta Urbiaingo herria markeserri izendatuko zuela. **Joan Mari Irigoien**  
Hantxe egon ziren, era berean, Valdespina **markes**-jenerala, Lizarraga, Iparragirre, Egaña eta Berriz jeneralak; baita beste militar buru goren mordo bat. **Txillardegi**

**markesa** *iz* markesaren emaztea; berez markes titulua duen andrea.

Protagonistak, Merteuileko **markesa** alarguntsak, tentu handiz ezkututzen dizkio bere bilaukeriak gizarteari, emazteek ez baitute beste irtenbiderik gustuz bizitzekotan. **Markos Zapiain**

Gure amare Dominika zenak, Madrilen **markesa** baten etxean berbitzen ari zela, *tu*-ka egin zien behin ate-joka etorritako handiki usteko batzuei. Joxerra Garzia  
Beraz, **markesa**, zer moduz zaude bart gaueko plazarren ondoren? Jon Muñoz  
-Hortaz, andre kondesa edo andre **markesa** izango haiz hemendik gutxira? Koro Navarro

## markeserri iz markesaren jaurgoaren mendeko lurraldea.

Handik aitzina, hire amak kontatu zidaan nola prometatutako zion dukeak zuen aitari ezen markes titulua emanen ziola eta Urbiaingo herria **markeserri** izendatuko zuela. Joan Mari Irigoien

## markesina 1 iz zenbait atari eta geltoki babesten dituen estalkia, askotan kristalezkoa.

Euripean eskailerak igo eta **markesinan** hartu du babes. Urtzi Urrutikoeetxea  
**Markesina** azpian hartu nuen aterpe. Anjel Lertxundi  
Solfeoko eskolara doan neskatoak ere **markesinako** aterpea bilatu du. Urtzi Urrutikoeetxea  
Bilborako tranbia heldu bitartekoa **markesinako** aulkian eman zuen Mentxuk. Josu Landa  
Donostian, autobus geltokietako **markesinetan** euskarak duen presentzia apurra salatu zuten. Berria - Euskal Herria

### 2 (hitz elkartuetan)

Bus-**markesina** baten ondoan beste talde bat zegoela konturatu ginen, gure kartelen gainean ber enak pegatzen. Iban Zaldúa

## markestu, markets/markestu, markesten da/du ad akastu, koskatu.

Behatzak okerturik eta **markesturik** zeuzkan oinetakoen eraginez. Jose Morales  
Etxe hustuak ikusmiratu nituen; ate **markestuak**, belarrak hartuak. Juan Garzia

## marketeria 1 iz zurean egiten den inkrustazio lan artistikoa; zur xafra bat zulo lanak edo irudiak eginez ebakitzea.

Asiazatik ekarritako teila bernizatuak; Carraratik inportatutako marmolak; Frantziako **marketeria**; Ingalaterrako burdina forjatuko eskulanak. Jon Muñoz

### 2 (hitz elkartuetan)

**Marketeria**-zerra bat, zorrozkaileu sail bat, ogi xigorgailu bat, Joxan Elozegi

## marketin ik marketing.

## marketing (30 agerraldi, 13 liburu eta 14 artikulutan; orobat marketin 56 agerraldi, liburu 1 eta 34 artikulutan) 1 iz merkataritzako urrats guztiak aztertzeke teknika- eta ikerketa-multzoa.

Sinboloen manipulatzaileren (nazio guztietako antolaketa aholkulari, finantza-aholkulari, ikerlari, ingeniari, informatikako aditu, **marketing** eta publizitateko aditu, eta abarren) ezagutzak baliatzeko. Koro Navarro

**Marketing** garbia zen. Iñaki Zabaleta

**Marketina** edota publizitatea hartzen dira ekonomian usteltzaile handientzat. Iñaki Heras

**Marketinak** ederki asko sartu digun zerbitu da kontsumoaren bidez lortuko dugula bakoitzak gure estatusa ez ezik, baita identitatea ere. Iñaki Heras

Publizitatea eta **marketingaren** teknikak eremu guztietara zabaltzen ari dira; politikagintzara, kasu. Txema Ramirez de la Piscina

Ironiaz eta irudimenaz baliatzen dira beren kritikak egiteko; **marketingaren** legeak erabiliz eta hizkera irauliz. Txema Ramirez de la Piscina

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Enpresak 14 langile ditu eta publizitatea eta **marketing** alorreko lanak egiten ditu. Berria - Ekonomia

Eusko Jaurilaritzako **marketing** adituak. Berria - Kultura

Fernando, berez, ekonomista da, **marketing** enpresa batekoa. -Lagunon **marketing** lanaren truke irabaziak partitu beharko zenituzke. Berria - Kultura

Diskoetxearen **marketing** eta banaketa lan ereduari esker. Patxi Iturritegi

Horixe bai **marketing** eslogan erresultioia. Ana Urkiza

Bisita «**marketing** operazio hutsa» da Batasunaren iritzi. Berria - Euskal Herria

Beste batzuk, berriz, **marketin** tresna gisa baliagarria delako; alegia, ziurtagiria izateak "saldu egiten duelako". Iñaki Heras

Agi denez, enpresen **marketin** estrategiek eta estrategia militarrek antz handia dute. Berria - Ekonomia

Politika profesionalaren desprestigioak punturik gorena erdietsi du azken urteotan mundu osoan, inoizko jardun publikorik nobleena izan zitekeena arimarik gabeko **marketing** -ariketa huts-hutsa bihurtu da. Txema Ramirez de la Piscina

Komunikabideetan amatasuna goraiatzeko «**marketing** kanpaina bat» abiatu dutela ere salatu dute hainbat erakundek. Berria - Gaiak

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Komunikazio-**marketinaren** urrezko araua: txiste bat bera ez dago edozein entzuleriaren aurrean kontatzerik. Joxerra Garzia

Sexu-**marketing** hutsa! Patxi Iturritegi

· Labelak, zertifikatuak, cause **marketing** kanpainak. Iñaki Heras

## markets izond akatsak dituen, akastuna.

Baina orratz **marketsak** disko zaharraren ildo beltzari eutsi eta nota bizkorrek segitu zuten baserriko sabaiko egurats ilunaz jabetzen. Alberto Ladrón Arana

Gainurreztaturiko eraztun **markets** bat ezartzen ziola hatzean. Juan Garzia

Harrizkeoa al da, bada, gaixotasun batek, [...] odol kolpe batek, gure bizi-makina **markets** eta hauskor honetan matxuraren bat gertatzeak gizonik alaiena ere malenkoniatsu, bipilena koldar bihurtzea? Josu Zabaleta

Haren urrats **marketsek** lurrera igorriko zuten noski, bi morrosko bibotedunen beso sendoek ezker eta eskuin kontu ezean. Aingeru Epaltza

## markex iz adkor markesa.

Zer da bera, azken batean, behera etorritako **markexa** bat baino? Jokin Muñoz

Jainkoaren **markexa**. Xabier Olarra

# markinar *izlag/iz* Markinako, Makinari dagokiona; Markinako biztanlea.

Mogel bezala, **markinarra** zen Frai Bartolome Madariaga eta, Mogelek bezala, Markinako hizkeran idatzi zuen hark ere. **Koldo Zuazo**

Jaime Rementeria **markinarra** aske, 20 urte preso egon ostein. **Berria - Euskal Herria**

Egongo ez den beste izen handi bat Alex Rekaldere izango da, **markinarrak** ez baitu beste hilabete batez atzeratu nahi izan AEBetarako itzulera. **Berria - Kirola**

## markis ik markes.

## marko<sup>1</sup> *(orobat marku g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian marko agertzen da)* 1 iz ispilu, margolan edo kideko bat bat inguratzen duen armazoi edo egitura finkoa.

**Markoa** objektu horren ertza da, lehenik eta behin, haren muga materiala, ukigarria. **Josu Zabaleta**

**Markoaren** ezkerreko aldera. **Iñaki Mendiguren**

**Marko** konkretua, **marko** abstraktua. **Josu Zabaleta**

Argazkiari automatikoki egiten zaion **marko** zuriak. **Josu Zabaleta**

Nahi gisako **markoak** daude, gutxien uste izaterainoak, baina italiar margolaritza klasikoan **marko** biribila erabiltzeko izan zen bolada handi bat kenduta, gainerako

**marko** gehien-gehienak laukizuzenak izan dira. **Josu Zabaleta**

Walter Faber, ogia papurtzen ari, urrezaturiko **marko** baten barruan. **Joxe Austin Arrieta**

Kontuan hartzeko da [...] zenbat erabiltzen diren filmetan gainkoadratze-teknikak (**marko** batean beste bat sartzeak: ispilua edo leihoa, adibidez). **Josu Zabaleta**

Tximiniaren alde banatan, Quenu eta Lisaren erretratuak zeuden zintziliek, olioz eginak, apaingarriz josiriko **marko** obalatuak inguru zituztela. **Karlos Zabala**

Ispilu bikaina zen, sabairainokoa, urre-koloreko **marko** apainduarekin. **Iñaki Mendiguren**

Argazkiak zilarrezko **markoetan**. **Sonia Gonzalez**

Goioen aurpegia **markoan** ipinia bezala ikusten dut orain hegazkineko leihoan. **Joseba Sarrionandia**

## 2 ate bat edo leiho bat ahokatzeko den armazoi finkoa.

Salako atearen **markoaren** kontra bermatu zuen sorbaldak. **Harkaitz Cano**

Makurtu, atea hartu eta erraz ipini zuen berriro **markoan**. **Iñaki Mendiguren**

Tenpluetan kanpoko atea eta beren **markoak** egiteko jarraituko diren arauak. **Santiago Iruretagoiena**

## 3 irud/hed

Bizar eta ile luzeak, **marko** beltzeko antiparra galantak. **Unai Iturriaga**

Sukalde honetako leihoa izango dela beti nire begien **marko** naturala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Kuhnek zientzia-jardueraren azterketarako **marko** berri bat ezarri zuen. **Askoren artean**

Horixe da Miranderen ideien **marko** orokorra. **Joxe Azurmendi**

Proposatzen dugun **marko** teorikoa ez da, inola ere, halako batean sortu zaigun burubide apetatsua. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

**Marko** teorikoa eta aplikazio didaktikoa. **Berria - Euskal Herria**

**Marko** deszentralizatu batean oso ohikoa da horrelako akordioak egitea. **Berria - Euskal Herria**

Nazio ekonomiak munduko ekonomiaren **markoan** integratzeko prozesua da globalizazioa. **Iñaki Heras**

Elkarrekin hitz egin behar dugu **marko** politikoa aldatzeko; euskal herritarren borondatea izan dadila muga bakarra. **Berria - Euskal Herria**

Autodeterminazio eskubidea gauzatzeko **marko** juridiko-politiko berria. **Berria - Euskal Herria**

Horiatarik bat, eta ez txarrena, da herria hiru **marko** instituzionalen artean banatua dela. **Berria - Kultura**

**Marko** konparazina lehorretik edo airetik begiratuta ageri dela beti postaletan. **Iñaki Iñurrieta**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ertz hori [...] beste gauza baten bidez indartzen da; **marko**-objektua deituko diogu horri. **Josu Zabaleta**

**Marko** aldaketaren eztabaidan Nafarroako Foru Hobekuntzak ez duela aldaketarik behar esan zuen Salanuevak. **Berria - Euskal Herria**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irudiaren ertza da; beste zentzu ukiezinezko batean haren zentzumenezko muga da; muga **marko** bat da. **Josu Zabaleta**

Kolore eta forma ugaritako argazki-**markoak** bihurtu zituen diapositiba-**marko**, erakusketarekin halako antzekotasuna izan zezan. **Joxemari Urteaga**

Leiho **markoak** paratzen ari zen. **Pablo Sastre**

Egongelako ate-**markoa** mila puska egin zen. **Alberto Ladron Arana**

Elementu bati ez baina, erreferentzi **marko** orokor osoari dagokion aldaketa, egitura osoaren aldaketa, historiaren aldi osoa markatzen duena. **Patxi Altuna**

Tesi horiek ahaztuxe eta baztertu samar daude gaur egun, beren kontzeptu-**markoa** (marxismoa, Althusserren eskola) arras (eta arrazoi gabe) ahazturik dagoelako batez ere. **Josu Zabaleta**

Pinu eta zedro erraldioek, multzo zoragarrietan baturik, berdetasun **marko** xarmantean biltzen zuten ikuskizun hura guztia. **Karlos Zabala**

Gobernu **markoari** eta joko arauak buruzko itun zabalak egiteko garaia da. **Berria - Euskal Herria**

Bartekaritzaren honen xedea estatu espainiar zein frantziarrekin elkarriketa eta negoziazio **marko** bat zabaltzea litzateke. **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bizikidetzako **marko** (6); egungo **marko** (10); egungo **marko** juridiko (3); gaur egungo **marko** (3); **marko** baten barruan (3); **marko** berri (16); **marko** berri bat (8); **marko** berria (6); **marko** demokratikoa (5); **marko** eta kosmasen (3); **marko** juridiko (17); **marko** juridiko politiko (9); **marko** juridiko politiko (3); **marko** juridikoa (3); **marko** objektua (6); **marko** orokorra (3); **marko** politiko (16); **marko** politiko berria (3); **marko** politiko (11); **marko** politiko aldatzeko (3); **marko** politikoaren (8); **marko** politikoan (3); **marko** teoriko (12); **marko** teoriko berri (4); **marko** teorikoa (4); **marko** teorikoak (3); **negotiazio marko** (3); **proposatzen dugun marko** (3)

egungo **markoa** (3); muga **markoa** (6)

atearen **markoan** (3)

**markoaren** kontra (6)

## marko<sup>2</sup> 1 iz urrezko edo zilarrezko zenbait diruren izena.

Enrike III.ak hamalau mila **marko** zilarrezko atera zizkion Aaron-i, York-eko judu bati. **Iñaki Iñurrieta**

Saldo gisa hamar mila **marko** zor balizkio, Frantziak bi eratan ordaindu ahalko lioke Espainiari: edota Espainiako hartzekodunei hamar mila **markoko** letrak emanez

Holandako zordunen gainean, edota hamar mila **markoko** dirutza jenerotan bidaliz Espainiara. **Iñaki Iñurrieta**

## 2 Alemaniako diru banakoa euroa ezarri zen arte.

Jakin dugu Alemanian diru kopuru polita kobratzen zela zakurren batek kalean eraso eginez gero (800 **marko** uste dut zirela). **Joxerra Garzia**

Jo dezagun mila **marko** galdu dituzula. **Joan Mari Lekuona**

Dolarrak %30eko balioa galdu zuen **markoari** buruz, eta %36ra yenari buruz. **Koro Navarro**



Truke-tasak dolar bateko 150 yen eta 1,80 **marko** ziren. Koro Navarro

**Markoetan** egiten ziren inbertsioen zenbatekoa. Koro Navarro

**Markoaren** balioaren gehitzeak, bestalde, Bundesbank-en politikaren inflazioaren kontrako joera indartzen zuen, inportazioek nazio-dirutan zuten prezioa murriztuz. Koro Navarro

Ez bazioten uko egiten beren diruen **markoarekiko** parekotasuna defendatzeari. Koro Navarro

Utziko dizkidak hogeit **marko** ? Fernando Rey

### 3 (hitz elkartuetan)

**Zilar** -markoa 49 libratan dagoela emanez gero, eta kobre-libra 20 sosetan. Iñaki Iñurrieta

## markodun 1 *izond* markoa duena.

Komoda gaineko argazki **markodunei**. Ander Irizar

Golfeko galtzak zeramatzen gizon baten erretratu **markoduna** aurkitu genuen latorrizko eranskinak zeuzkan kutxa baten barruan. Koro Navarro

Oroimenaren ohol **markodunetan** zintzilikatzeko. Joan Mari Irigoien

### 2 *izlag* markoko.

Urrezko **markodun** ispilu obaloaren aurrean eserita. Matías Múgica

Nire aurreko ispilua, urreztaturiko **markoduna**. Joxe Austin Arrieta

## markoviar *izond* A. Markovi dagokiona.

Beraz, (29i) erregelga [...] osagai-egiturazko gramatikaren izaera **markoviar** soilaz harantzago doa, eta ezin da S, F gramatikaren bildu. Itziar Laka

## markoztatu, markozta, markoztatzen 1 du *ad* markoz hornitu.

Burgoserraino bakarrik heldu nintzen arren, ofizialki bide osoa burutu nuen; koadrilakoek, nola ez, bueltan ekarri zidaten erromes-karta, eta oraindik gordetzen dut, **markoztatuta**, nire estudioko horma batean zintzilik. Iban Zaldua

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Betikoi iratzargailua, fariak kutxa, Senenitoren soldaduskako argazki **markoztatua**, ondoan aitarena. Jon Maia

Sigmund Freud-en argazki **markoztatua** kontsultako mahaiaren gainean. Iban Zaldua

Dena berdina zen: izarak, hormetako pintura horia, Corto Malteseren poster **markoztatua**. Iban Zaldua

## marku ik marko<sup>1</sup>.

## marmar<sup>1</sup> (*orobat mar-mar; Euskaltzaindiaren Hiztegian marmar agertzen da*) 1 iz hots jarraitua, arina eta ozentasun txikikoa. ik marmario; murmur.

Palmondoak, uraren **marmarra** edo txorien kantua. Jon Muñoz

Herriaren **marmar** eta gaitz-esanetatik libratuko gara. Fernando Rey

**Marmarra** sortu zen greko-hizkuntzakoen artean hebreera-hizkuntzakoen aurka, haien andre alargunak eguneroko janari-banaketan bazterrean gelditzen zirelako. Elizen arteko biblia

Aditu dut israeldarren **marmarra**. Elizen arteko biblia

Soilik kazetariak egiten ari ziren elkarrizketen **mar-marra** entzuten zen. Berria - Kirola

**Marmarra** isildu egin zen. Iñaki Mendiguren

Eta orduan bai, orduan **marmarra** baino, harrabotsa erne zen han bilduta zeudenen artean. Hasier Etxeberria

Gure pobretasun santua hautsiz eta hurkoari **marmarrerako** bide eta etsenplu txarra emanez. Berria - Kultura

- Apaldu egiten du telebistaren soinua, **marmar** antzeko bat uzteraino. Oskar Arana

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Inauterietan txolindutako jendearen **marmar** alaia ere entzuten zen. Jose Morales

**Marmar** handiak entzun ziren orduan. Iñaki Mendiguren

Bat-batean **marmar** bizi-bizia entzun zen. Iñaki Mendiguren

**Marmar** apal bat iriteten zen itxitako aitorlekuetatik. Batzuetan halako **marmar** sor batzuk aditzen zirelako haitzuloan. Karlos Zabala

Amonen otoitzen **marmar** jarraitua. Alberto Ladron Arana

Malda beheiti jo du jarraian, iraleku bakanduan barrena, uraren **marmar** hurbilaren bila. Pello Lizarralde

Begirada suminduak, **marmar** haserreak. Oskar Arana

**Marmar** etengabea ari zen bere buruarekin. Anjel Lertxundi

Gauean **marmar** gozoan sumatzen dut lau emakumeek kantari lo harrarazten diotelarik. Koldo Izagirre

Hirigunera itzuli zenean berriz ere urdaileko harra **marmar** bizian zeukan. Migel Angel Mintegi

Berrehun edo hirurehun kaputxadun bazeuden, denak **marmar** beteak. Jon Alonso

Zehar-begiratu ilunekin eta amorraziozko **marmarrekin**. Iñaki Mendiguren

Orain Dylan izan da bere hitzen asmoak Nemesiori irakurri dizkiona, baina ez ditu osatu ahopeko **marmarrera** jausi diren esaldiak. Pako Aristi

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Besoak gurutzaturik eta kopeta gogoetatsu, Jauregi Berritik Moskuko hiri zaharrera barreiatzen zen **marmar** hots urruna entzuten ari baitzen. Karlos Zabala

Hementxe... kaleko **marmar** hotsarekin entretentuta."Hortaz, iruditzen zitzaidan halako sentimenduen jasaille izatea eta erantzun onik ez lortzea badela aski zigor, horrez gainera inoren **marmar** -iturri bihurtzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina orain geriatriko **marmar** -muino honetan dut, inon izatekotan, zoriona. Anjel Lertxundi

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskailera kiribil estu hartan gora igo ziren, gero eta zorabiatuago, azkenean beren gainean ahots- **marmarra** entzun zuten arte. Iñaki Mendiguren

Ez zaizkidak hontzak gustatzen, begiak ateratzen ditizte! -esan zuen Danek, dendatik zetozen ahots **marmarrak** ez entzuteko ahaleginetan. Koro Navarro

Gaitzespen- **marmarra** entzuten da begira daudenengandik. Oskar Arana

Ez daki tutik ere zer esaten ari ote den, baina lantzean behin etenak egiten ditu eta entzuleen adostasun- **marmarrak** entzuten dira. Oskar Arana

Dolu-gelan bildutako jendearen errezo- **marmarrekin** kaleko ardaila estaltzea lortzen badute ere, [...]. Anjel Lertxundi

Haren hertzeaz ez da haiztuko erre-**marmarrik**, baizik are beraren amak du karguabetuko egintza. **Juan Garzia**  
Gu hantxe, faroak piztuta, egonean egon arren, atergabeko uholde haren jario-**marmararen** pean. **Joxe Austin Arrieta**

#### 4 marmar batean

Lurrera begira eta **marmar batean** aritu zitzaionez, ozenago hitz egiteko galdatu zion Ewing andreak. **Mirentxu Larrañaga**  
Arraina hartzera zihola ordea, Dummy **marmar batean** hasi zen, amorratuta, buruari eraginez, besoak astinduz. **Koro Navarro**  
Zapuzturik, ohetik jaiki eta **marmar batean** alde egin zuen gelatik. **Anjel Lertxundi**  
Ikaztegi barrura sartu zen **marmar batean**. **Anjel Lertxundi**  
Hirurogei bat urteko gizon bat **mar-mar batean** hasi da. **Berria - Harian**

#### 5 marmar egin

-Ai ene! -**marmar egin** zuen Harryk. **Iñaki Mendiguren**  
-Faktore horiek, madarikatuak guzti-guztiak - **marmar egin** zuen Logrek. **Karlos Zabala**  
Zer demontre da hau guztia? **egin** zuen **marmar**, hurbiltzen zen bitartean. **Agustin Otsa**  
-Orain, lanera -**egin** zuen **marmar** Jonathanek, Girolamo Cardanoren liburua harturik. **Jon Muñoz**  
Osaba Vernonek **marmar egin** zuen entzuten ari zela adierazteko. **Iñaki Mendiguren**  
**Marmar egiten** nuen matraila ireki ezin duen piztia hausnarkari baten moduan. **Pello Lizarralde**  
Aaronek eta nik ez dugu zerikusirik, gure aurka **marmar egiteko**. **Elizen arteko biblia**  
**Marmar egin** zuen katua, galdutako babesa eskuratu nahirik. **Anjel Lertxundi**  
Ez bezate **marmar egin**, ez besterengatik gaizki esan, idatzia baitago: marmarriak eta gaizki esaleak Jainkoaren etsai dira. **Askoren artean**  
- Aditu du beraren aurka **egin** duzuen **marmarra**. **Elizen arteko biblia**

#### 6 marmarreen (130 agerraldi 63 liburutan eta 2 artikulutan) marmar egiten. ik marmarka.

-Zer ari zara **marmarreen**? -galdetu zidan. **Ramon Saizarbitoria**  
Hor ari da **marmarreen** oilategia garbitzen -esan zigun Adelak. **Bernardo Atxaga**  
Ez, bera ez zen [...] emakume buruarinekin **marmarreen** aritzeko eta harakinaren ilaran bultzaka ibiltzeko sortu. **Koro Navarro**  
Lisa eta Augustine **marmarreen** hasi ziren nazkaren nazkaz. **Karlos Zabala**  
Israeldarrak **marmarreen** hasi ziren Moisesen eta Aaronen aurka, esanaz: [...]. **Jose Antonio Mujika**  
Ez zuen bertzerik erran, baina bere **mar-marreen** sendi zen nolako herrarekin mintzo zen. **Eneko Bidegain**  
Gu geldi-geldirik egoten ginen, lo itxurak eginez, baina begiak zabal-zabalik, eta amona **marmarreen** entzuten genuen, biraoka. **Juan Kruz Igerabide**  
-Ahopeka otoitzean edo bere buruarekin **marmarreen** ari den amona xahar bat dirudi batzuetan. **Joxean Agirre**  
Eta **marmarreen** ikusten al gaituzu bada gu? **Oskar Arana**  
-Beharbada Ivy kantu-**marmarreen** ari zelako soilik, ezer gertatu ez balitz bezalakoxe itxuran. **Joxe Austin Arrieta**

##### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**egin zuen marmar** (16); **jendearen marmar** (3); **marmar apal** (3); **marmar batean** (8); **marmar egin** (59); **marmar egin zion** (4); **marmar egin zuen** (45); **marmar eginez** (4); **marmar egiten** (12); **marmar egiten du** (3); **marmar egiten zuen** (4)  
**egin duzuen marmarra** (3); **jendearen marmarra** (5); **marmarra entzun** (9); **marmarra entzuten** (4); **marmarra sortu** (3); **marmarra sortu zen** (3)  
**esan zuen marmarreen** (3); **marmarreen ari** (18); **marmarreen ari zen** (3); **marmarreen aritzen** (3); **marmarreen esan** (3); **marmarreen hasi** (23); **marmarreen hasi zen** (14); **marmarreen hasi ziren** (4); **marmarreen jarduteko** (3); **nire aurka marmarreen** (3)  
**marmarrerako bide** (3)

marmar<sup>2</sup> ik **mar-mar**<sup>1</sup>.

marmaraka ik **marmarka**.

marmaratu ik **marmartu**.

marmari ik **marmario**.

**marmariatu**, marmaria, marmariatzen (**3 agerraldi 3 liburutan**) **1** du *ad* marmartu, marmarikatu. ik **murmuriatu**.

-Ezin dudala olibondoetara joan txorietara... - **marmariatu** zuen-. -Ederki! **Jon Maia**  
- **marmariatu** zuen eliztar multzo osoak, eskuindarrak barne. **Koldo Biguri**

#### 2 kanta-mamariatu

Doinu bat ahots apal sakonez kanta-**marmariatzen** zetorren kilometrotan. **Irene Aldasoro**

marmarika ik **marmarka**.

**marmarikatu**, marmarika, marmarikatzen (**26 agerraldi 11 liburutan**) **1** da *ad* marmarka esan, marmarreen aritu. ik **marmartu**; **murmurikatu**.

*Goian bego* **marmarikatu** zuen, Mikek gurutzearen seinalea zegien artean. **Itxaro Borda**  
-Benetan harrigarria da! -**marmarikatu** zuen, ausarkeriaz eta irribarretsu. **Patxi Zubizarreta**  
Hari zeharrez begiratu eta, haserre, **marmarikatu** zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**  
Onarpen aire bat begien dirdaian, esperantzaz **marmarikatu** zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**  
Esker hitzen bat **marmarikatu** eta ganberatik alde egitekoa egin nuen. **Aingeru Epaltza**  
Madarikazio otoitzak **marmarikatuz**, zorte gaiztoak Estatuari lot daitezten. **Michel Oronoz**

#### 2 (era burutua izenondo gisa)

Orain arrats epelaren iluna argi ezteik goxoki sistatzen dute eta gauaren bakeari etxe barneetatik ateratu den jendetzaren hizketa **marmarikatuak** harmonia bat emaiten dio

## marmario *(orobat marmari; Euskaltzaindiaren Hiztegian marmario agertzen da)* 1 iz marmarra.

Emakume batzuen **marmarioa** entzutea iruditu zitzaidan, hizketan, urrunera. Jon Maia

**Marmario** handi batek erantzun zion, eta segizioaren atzetik joateko ideiak baretu zuen jendea. Jon Maia

**Marmario** batzuk gelan. Berria - Euskal Herria

Bere begiz ikusi ez balu ere, gazteluko armagizonen so eta **marmari** likitsetan sumatuko zuen. Aingeru Epaltza

Neskaren ahotsa entzuten zuen mutilak, eta datilondoan hostoetan haizeak eragiten zuen **marmarioa** baino ederragoa iruditzen zitzaion. Xabier Aranburu

Uraren **marmario** atergabe, ia isilak lasaitzen zuen lekua. Fernando Morillo

"Mundu osasuntsuago baten alde", egin zuen Edgarrek **marmario** ni ikustean. Joxan Elozegi

### 2 (hitz elkartuetan)

Kalearen goiko aldetik, zurrumuru bat zetorren plazarantz, **marmario** erreka bat kalean behera, eta bere pasaeran atariz atari aterarazten zuen jendea, berbaroa ozenduz.

Jon Maia

· Villonaren kanta-**marmarioa** ere, berriz, edozein nahasteko modukoa zen; eta automobilaren zarata, gainera. Irene Aldasoro

## marmarizo iz marmario.

Mehatxuzko **marmarizo** bat altxatu zen kamioiko gizonen aldetik. Koldo Biguri

## marmarka *(274 agerraldi 96 liburutan eta 8 artikulutan; orobat marmaraka g.er. eta marmarika g.er.)* 1 adlag marmar eginez, marmarrean. ik **marmar**<sup>1</sup>; **mar-mar-mar**.

Horrela, beren egitekoa atseginez bete ahal izango dute eta ez **marmarka**. Eiizen arteko biblia

Hantxe eserita egon ohi zen, edaten eta bere artean **marmarka**. Koro Navarro

Hori ikusirik, denak **marmarka** hasi ziren: "Bekatari baten etxera joan duk ostatuz". Eiizen arteko biblia

**Marmarka** nioen: "Den-dena gerta daiteke, den-dena agi daiteke". Monika Etxebarria

-Alproja ederrak! -esan zuen Martinek **marmarka**, hura entzunez. Koro Navarro

-Mundu osoak idoloak adoratzan ditu -esan zuen errabinoak **marmarka** -. Koro Navarro

Aztia zizpuruka eta **marmarka** entzun zuen: "Noiz itzuliko da Faramir?". Agustin Osoa

Baina segituan gure erabakien aurka hasiko da **marmarka** herria, bere betiko gaitzaren defentsan. Patziku Perurena

Akiles, dordoka eskuetan, **marmarka**, errealitateak huts egin diola-eta. Joxerra Garzia

**Marmarka** hasi zen, katakumeak kendu dizkioten katama baten egonezinez. Anjel Lertxundi

**Marmarka** obeditzen zuten. Askoren artean

Aharrausika eta **marmarka**, Weasley anaiak burumakur irten ziren, eta atzetik Harry. Iñaki Mendiguren

Furfuriatsu irten zen, **marmarka**, mundu guztiaren, auzunearen eta Raduan Husainiren kontra gaizki esaka. Patxi Zubizarreta

-Kaka! -esan zuen **marmarka** amorruz-. Ederki, segi hortxe jarrita eta muzinduta, zeure buruarekin **marmarka**. Iñaki Mendiguren

Orain, berriz, etxea eta autoa galtzekotan nagok eta, kontuz ibili ezean, familia ere bai, ekin zion Letuk ia **marmaraka**, mihia busti ondoren. Xabier Montoia

### 2 (hitz elkartuetan)

Hautzarotik, handien jeloskor izan zen Cecco; mesprezatu egiten zituen, eta otoitz-**marmarka** jarduten. Juan Garzia

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ari zen marmarka** (4); **bere artean marmarka** (11); **esan zuen marmarka** (13); **jendea marmarka hasi** (4); **marmarka ari** (20); **marmarka ari da** (5); **marmarka ari zen** (6); **marmarka aritu** (3); **marmarka aritzen** (11); **marmarka aritzen zen** (6); **marmarka esaten** (3); **marmarka hasi** (24); **marmarka hasi zen** (12); **marmarka hasi ziren** (5); **marmarka hasiko** (4); **marmarka hasten** (3)

## marmarkatu, marmarka(tu), marmarkatzen *(9 agerraldi 6 liburutan)* du ad marmartu, marmarikatu.

Maelek pauso bat egin zuen ur ertzera, ezbaian geratu, hortz artean zerbait **marmarkatu** eta azkenean txalupara igo zen. Joanes Urkixo

Ospitalean, bizpahiru hitzen **marmarkatzeko** doia indar ukan din. Daniel Landart

Apaizek txondorrari itzulinguru batzuk egiten diz-kiote, veda otoitzak **marmarkatuz**. Gotzon Garate

## marmarraldi iz marmarra.

Ez nuen men egiteko ezain asmorik, igerriko zenionez, eta gisa berean aihertu nintzaion ehizaren eta ehiztarien kontrako **marmarraldi** ttipi bati. Jon Muñoz

## marmarreatu, marmarrea, marmarreatzen du ad marmartu, marmarikatu.

Senarak zerbait **marmarreatu** zuen, ez oso konforme itxuraz, agian herritik gertuko mendian alkilatutako postuan botatzen zituen usoak inork ez zituelako jan nahi izaten.Jainko ezezagun baten aurkako maldizio bat **marmarreatuz**. Jon Alonso

## marmarti 1 izond marmar egiten duena; marmarrean aritzeko joera duena.

Ordura artekoan gizonak marmarrean izanak baitziren, eta **marmartienak** nire arerio biak. Edorta Jimenez

Eztizko opilak eta ahate lepo beteak egiten dituzten amona **marmartien** mundu hau. Felipe Juaristi

Paretetako zuloetatik ateraraziko zituen lotan edo erdi esna zeuden familiak, irudi **marmartiak**, gaua egun bihurtzen duten itsu harrituak. Koro Navarro

Ohandoko etxeko neskame zahar bat, **marmartia** eta mihi-gaiztoa. Koro Navarro

Jende **marmartia** lanpetuta zebilela esamesak zabaltzen, nik uste. Koro Navarro

Gerente **marmarti** bat baizik ez nintzen. Josu Zabaleta

· Congok berriro ekin zion kantari, bere baritonohots **marmartiaz**. Lopez de Arana

Hainbat bekaizti maltzurren ezpain **marmartiek** kalifaren belarri minberatueta zurikeriekin nahastutako faltsukeriak xuxurlatu zituzten Abd al-Azizen aurka. J.M. Olaizola

"Txiliku"

### 2 (izen gisa)

**Marmarti** erretxin hutsa izan naiz. [Mirentxu Larrañaga](#)

**Marmartiak** eta gaizki esaleak Jainkoaren etsai dira. [Askoren artean](#)

Aitak esaten zuenez, **marmartien** kontuak ziren horiek, Lowe eta Wait eta Slade eta horrelakoena. [Koro Navarro](#)

### 3 irud/hed

Emakume bat zegoen zakur **marmarti** batekin Lyndhursteko eskaileretan. [Koro Navarro](#)

Haizearen erauntsipean zapelatz **marmarti** baten atzetik zebiltzan beleei so. [Mirentxu Larrañaga](#)

Evans jaunak atea zabaldu eta eskuargia bidexka estuaren aldera distirarazi zuenean, garajea eta oilategia argituz baina zuhaixka **marmartia** ilunpetan utzirik, [...]. [Koro Navarro](#)

Lurralde agindu ezezagunerantz bide **marmartia** entzunez. [Iñaki Mendiguren](#)

Kale **marmarti** distiratsuan kanpai baten hotsa entzuten zen, gero eta hurbilago, gero eta azkarrago. [Lopez de Arana](#)

Aseezintasun ziztrin eta **marmarti** bat balego bezala. [Xabier Olarra](#)

Beste lagun bien estilo **marmartian** hasi zen Mentxu. [Josu Landa](#)

## marmartsu *izond* marmartia.

Jatetxe italiarrean pizza jangaitzarekin deman ari nintzen bitartean, azkenik, aterabiderik zuzenena xelebrequeriaren baten laguntzaz egoera kargaz arintzea begitandu zitzaidan, anarterainoko "Edu" zirtolari, punttazale eta **marmartsuarena** antzetzuz. [Aingeru Epaltza](#)

## marmartu, marmar(tu), marmartzen (*24 agerraldi 6 liburutan eta artikulu 1ean; orobat marmaratu g.er.*) 1 du ad marmarka esan, marmarrean aritu. ik **marmarikatu**.

-Zer nahi du nik jakitea? - **marmartu** zuen. [Koldo Biguri](#)

"Putakumea!" **marmaratu** zuen. [Itxaro Borda](#)

Bi "Agur Maria" edo, **marmartu** nituen. [Daniel Landart](#)

-Osagileak esan duenez - **marmartu** zuen Onorinok-, denbora luzean iraun omen dezake horrela. [Josu Zabaleta](#)

Galdetu gabe hitz egiten zizun horietakoa zen, bakarrizketan ere somatu nuen behin baino gehiagotan, poema berri bat **marmartzen** bezala. [Berría - Kultura](#)

On Camillo, ordea, ohera joan zen, gauzak herri kulturako ministerioa zegoenean baino okerrago zeudela **marmartuz**. [Koldo Biguri](#)

Hark itzuli zuen burua ia kolpetik Niniren aldera, eta ulertu ezinezko zerbait **marmartu** zion lasterka, begiak itxia arnasarik gabe utzi zuen ahalegin batean. [Josu Zabaleta](#)

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Fonema horiek -kontsonante ahoskabeei legozkiekeenak-, existitzen dira, baina ezin dira bokal **marmaratuekin** -glotis laxotua artikulaturikoekin- nahasi. [Isabel Arrigain](#)

## marmartxo *iz* marmar txikia.

*Agur Maria* hitzak entzuten nituen aurrena, abiapuntua; gero **marmartxo** bat; geroxeago *amen*: buelta bat. [Bernardo Atxaga](#)

Agian tribunalak ziren nekazariaren hitz haiek, baina, traktoretxo gorriaren ondoan, artasoroari begira, amonaren otoitzaren **marmartxoa** lagun, zentzu handia aurkitu nien. [Bernardo Atxaga](#)

## marmazikatu, marmazika, marmazikatzen du ad marmarikatu.

Bihotza beratu zitzaion bikotea ikustean eta aitaxiren aitak astokatzen omen zuena **marmazikatu** zuen: hara kuraios bat ihardets diezazuten, aski duzue Austerlitz nintzen erratea... [Itxaro Borda](#)

## marmelada (*orobat mermelada g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian marmelada agertzen da eta konfitura ematen da sinonimotzat*) 1 iz fruituak zatitu eta azukretan egosiz egiten den janaria. ik**konfitura**.

Aspaldiko partez gosari oparoa prestatu du: zukua, gurina, **marmelada**, ogi xigortua... [Patxi Iturritegi](#)

Sukaldeko bizigarririk bereziena astero hartzen dugun gibeletzko odolkia eta ogi lehorra **marmeladarekin** izaten dira. [Josu Zabaleta](#)

Ea ezagutzen ote zuen **marmelada** egiteko errezetarik. [Anjel Lertxundi](#)

Laranjazko **marmeladaren** eta azukre-ontziaren artean. [Iñaki Mendiguren](#)

Okaranezko **marmelada** titiburuetan zabaltzen hasi zen orduan. [Jon Arretxe](#)

Alderdi estetikoak: izarak zikintzea, **marmelada** marrubiduna denean batez ere. [Ramon Saizarbitoria](#)

Txokolatzeko tximistak eta **marmeladazko** doughnutsak. [Iñaki Mendiguren](#)

Budin zuri zatiz eta **marmelada** gorritz beteriko plater zapal bat. [Irene Aldasoro](#)

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Marmelada** flasko bat besterik ez diogu oparitu. [Josu Zabaleta](#)

Gero **marmelada** potoa ireki eta atzamarrak barruraino sartu ondoren ahora eraman zituen. [Jon Arretxe](#)

Bi jogurt, **marmelada** pote bat, ezti pastelak (txiketakoak). [Josu Zabaleta](#)

**Marmeladaren** ontzia, azukrea, galletak, kafearen termoa... [Anjel Lertxundi](#)

**Marmelada** ontzitxo bat erostea erabaki zuten, oso prezio altuan. [Josu Zabaleta](#)

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zigarretak erreaz eta ardoa, likorrak, tea limoiarekin edo masusta **marmeladarekin** hartuz. [Koro Navarro](#)

Adelak jogurt bana atera zuen, berak egina, aran eta sagar zati txikiekien, eta masusta **marmeladarekin**. [Juan Kruz Igerabide](#)

Itsuki maite zuela piku- **mermelada**. [Jon Alonso](#)

Bi ogi-xerra handi irensten ditu indipiko- **marmeladarekin** bustita, hura ere etxean egina. [Oskar Arana](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**marmelada pote** (3); **okaranezko marmelada** (3)

## marmeladagintza *iz* marmeladak egitea.

Opekta izeneko **marmeladagintzako** holandar konpainia bateko zuzendari izendatu zuten. [Josu Zabaleta](#)

## marmita 1 iz tupina.

Langile haiek herrietatik bizikletaz etortzen ziren egunero **marmita** hartuta pasta eta kafea eramateko. Pello Lizarralde  
Lau **marmita** ziren guztira, hiru handi eta txiki bat, besteak baino zabalagoa: lehenengoak ura zeukan; bigarrenak sagarra; hirugarrenak azenarioa. Bernardo Atxaga  
**Marmitan** zopa eta okel puxka bana. Pablo Sastre  
Atelier mekanikokoei zinkeko pegar berezia, **marmita** mokodun antzekoa eginarazi zien, karga gutikoa. Koldo Izagirre  
Eskulekuen kontra festagiroko soinua egiten zuten **marmitekin**. Josu Zabaleta

## 2 esne marmita

Anaia txikienak kargatzen zituzten esne **marmitak** bizikletaren eskulekuan, eta pozik eta txistuka abiatzen ziren herriko plazarantz. Josu Zabaleta  
Han azaldu zen Cecilia, herriko azkeneko horma eta etheen artean, bide zuritik aurrera zetorrela, esne **marmitak** eskulekuaren kontra joka ari zitzaizkiola Josu Zabaleta

## marmitako 1 iz atuna bitarteko nagusi dela egiten den lapikokoa, berez arrantzaleen janaria dena.

Orio eta Zarauzko elkartek prestatutako **marmitakoa** eta piperrak. Berria - Euskal Herria  
Haren gidaritzapean, gainera, hiru plater prestatu zituzten: **marmitakoa**, hegaluze zerrak piperradarekin eta mendreska errea. Berria - Euskal Herria  
Gero, maite diat ere holako **marmitakoa** egitea... atunarekin eta patatak saltsan-eta... piperrarekin. Menane Oxandabaratx  
Gure etxeko sukaldean ginen, eta **marmitakoa** edo porrusalda ari zen prestatzen, ez naiz oroitzen. Iban Zaldúa  
Telebistako albistegia ikusi, eta **marmitakoa** irentsiko diagu ondoren. Iban Zaldúa  
Kontua da, adibidez, **marmitakoa** "desegin" eta osagai horiekin beste plater bat osatzea. Edorta Agirre

## 2 (hitz elkartuetan)

Larunbat aratsean, Ziburun, Zokoko itsas hegian, **marmitako** -besta. Herria  
Ilgandean, Angelun, zaharki feria eta **marmitako** lehiaketa. Herria  
Ilgande goizean, Azkainen, **marmitako** prestatzaileen lehiaketa. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**marmitako lehiaketa** (3)

## marmitatxo iz marmita txikia.

Ordu erdiren buruan edo agertu zen berriro emakumea tunel sarrerako iratzeen atean, **marmitatxoa** eskuan. Koldo Izagirre

## marmitatar iz adkor marmita handia.

**Marmitatar** hori bizkarrean duala, lasai, hi geldi hadi hor behean. Koldo Izagirre

## marmo iz mozorroa.

Eta burua punta zorrotzean bukatzen zen kapirore batez estaltzen zuten, aste santuko **marmo** edo mozorroen moduan. Jon Alonso  
Egunero, ezer esaten ez zidan **marmo** batek ekartzen zidan jatekoa eta edatekoa; urria, eskasa, txarra. Jon Alonso

## marmoka iz medusa, itsas animalia.

Badira **marmokak** gizakiaren tamainakoak, eta horiek ere ederki moldatzen dira batera hezurrik gabe. Irene Aldasoro  
**Marmoka**, ordea, ezin da zutik egon, eta ez dirudi muskuluak bakarrik gai direnik era askotako lanak taxuz egiteko. Irene Aldasoro  
**Marmoken** ziztadak epidermisaren narridura eragin dezake. Berria - Gaiak  
**Marmoken** geneak txertatu zizkieten txerri enbrioiei. Berria - Gaiak

## marmol (orobat marmore g.er.) 1 iz kaltzita kristalez osaturiko kare haitz trinkoa, askotan nabarra, leunduz gero itxura bikaina hartzen dena.

Paretak **marmol** zuriz estalirik zeuden guztiak. Karlos Zabala  
Zizelkatuta, hura ere, nola "beste" izenak monumentu berriaren **marmol** beltzean. Bernardo Atxaga  
Erakustokiaren **marmola** gorria zen, zain grisez tartekatua. Karlos Zabala  
Atari urdinetatik, **marmol** zaintsuz apainduriko halletan sartu zen. Lopez de Arana  
Jauregiko **marmol** hori-koloreko paretak zeharkatu. Felipe Juaristi  
**Marmol** pitzatuzko ezkaratz zabal zeharkatu eta [...] eskaileretatik igo nintzen laugarren solairuraino. Alberto Ladron Arana  
Hala itsasoa, haize bortitzek bere lautadei eragiten dietenean, **marmol** distiratsuzko olatu zuri bihurtzen da. Xabier Amuriza  
**Marmola** ez da munduko gauzarik beroena. Unai Elorriaga  
Hain gaizki ikusi ninduten, non hildakotzat hartu eta **marmolezko** mahai baten gainean utzi baininduten. Ramon Saizarbitoria  
**Marmolezko** iturri oso garai eta oso landu batetik ur hari bat isurtzen zen etengabe konketa batean. Karlos Zabala  
Petronio ez zen delikatuki kordegabetu **marmolezko** bainuontzi batean, bertsoño lizunak murmurikatuz. Juan Garzia  
Ondoren, eskailerak, **marmolezkoak** edo antzeko materialen batez egindakoak. Rafa Egiguren  
**Marmol** arrosazko zutabeak. Lopez de Arana

## 2 marmolezko pieza.

Bazen han, **marmolaren** gainean, izokin bikain bat. Karlos Zabala  
Trapu bustia pasatu du **marmol** gainetik. Patxi Iturritegi  
Ehundaka polboroi ikusi zituen, mahaiaren **marmola** estaltzeraino ia. Unai Elorriaga

## 2 (erkaketan)

Aurpegia **marmola** bezain zuri eta hotz zuen. Iñaki Mendiguren  
Zango batzuk luzeak, biribilduak eta **marmola** bezain garbiak. Josu Zabaleta  
· Bere azalaren zuritasuna bizia zen, areago **marmolarena** esnearena baino. Bernardo Atxaga  
Ileko suak areagotu egiten zuen Adaren aurpegiko zurbildura ia **marmorezkoa**. Anjel Lertxundi

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere **marmol**-lanen dotoretasun eta fintasunagatik. **Santiago Iruretagoiena**

Eguzki argiak jauregi eta eliz atariak jotakoan **marmol** harriei ateratzen zien urre-kolorea. **Felipe Juaristi**

Gero harearekin berdinduko da, eta ondoren kreta edo **marmol**-hautsarekin luzituko da. **Santiago Iruretagoiena**

**Marmol**-pikorrarekin egin behar da berdindua, mortero hori bere puntuan nahastuz. **Santiago Iruretagoiena**

Noiz erretiratu behar dituzte **marmol** puska horiek? **Bernardo Atxaga**

Bide hau oso gogorra da tarteka, zati batzuk hare-lauzaz eta **marmol**-lauzaz daude zorutuak. **Koldo Izagirre**

Erabili ohi ziren **marmol**-blokeak [...] ez zirela behar bezain sendoak 8 oin (2,5 m inguru) baino gehiagoko zabalera hartzeko. **Irene Aldasoro**

Abrikotek **marmol** tonuak hartzen zituzten goroldioaren gainean. **Karlos Zabala**

Prestatua zeukan **marmol**-kopuru handia tenplu bat egiteko estilo dorianean. **Santiago Iruretagoiena**

Barra bernizatu eta distiratsuak, **marmol**-imitaziozko mahaiek. **Joseba Urteaga**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**marmol arrosazko** (3); **marmol zuriaren** (3)

**marmolaren gainean** (5)

**marmolezko eskailera** (3); **marmolezko eskailerak** (4); **marmolezko eskaileran** (3); **marmolezko eskaileretan** (21); **marmolezko eskaileretan gora** (17); **marmolezko estatua** (4); **marmolezko estatuen** (3); **marmolezko gurutze** (3); **marmolezko hall** (3); **marmolezko lauza** (4); **marmolezko mahai** (7); **marmolezko mahaian** (3); **marmolezko mahaiairen** (4); **marmolezko mahaiairen gainean** (3)

## marmolari *iz* marmola lantzen duen pertsona. ik **marmolgile**.

Hori dela-eta, zaindari izendatu dute eta babesa eskatu diote **marmolariek**, txalupazain, ontzizain eta marinelek. **Pello Zabala**

## marmoldegi *iz* marmola lantzen den lantegia.

Orduan oharatu nintzen inguru haietan ez nuela **marmoldegi** edo hargindegirik ikusi. **Iñaki Zabaleta**

## marmolgile *iz* marmola lantzen duen pertsona. ik **marmolari**.

Hori ugaria ez den lekuetan, marmol-puskak, printzak ere deitzen direnak, alegia **marmolgileek** lanerakoan ateratzen dituztenak, birrindu eta eho egiten dira, eta bahetu ondoren obretan erabiltzen dira. **Santiago Iruretagoiena**

## marmolgune *iz* marmolezko gunea.

Erdiko **marmolgune** oktagonalean etzanda zegoen, ahoz gora. **Jon Arretxe**

## marmore ik **marmol**.

## marmota 1 *iz* ugaztun karraskaria, ile-sarri, buru-lodi eta belarri-txikia, Europako mendi garaietan bizi dena eta negua lotan igarotzen duena (*Marmota*). ik **muxar 2**.

Odol beroko hainbatek ere gauza bera egiten du eta negu partea gorputzaren egoera berezi horretan pasatzen dute: hartzek, **marmotek**, katamuserrek... **J.M. Olaizola**  
"Txiliku"

Urtero 300.000 bale, izurde eta **marmota** hiltzen dira horrela. **Berría - Gaiak**

Txistu hots batek, **marmota** batenak edo, lau hanketara itzularazi zuen plantigradoa. **Aingeru Epaltza**

## 2 irud/hed

-Hara, lotan geratu da gure **marmota** antiojoduna -barre egin zidan Begoñak-. **Patxi Iturritegi**

## marmutx *iz* dantza baten izena.

Ttapienek (7 eta 10 urte artekoek) desfilea, esku dantza, zazpi jauziak, **marmutx**, San Petrike eta txulalari dantzak emanen dituzte. **Herría**

## marokano *izlag/iz ipar* marokoarra.

Pariseko egunkari batean, **marokano** gizon batek ager arazi du bere aitomena, bazakiela xuxen zer gertatu zen, han baitzen Ben Barka preso altxatu zutelarik. **Herría**

Batto **Marokanoa**, bestea ere **Marokanoa** motaz bainan paperez frantsestua. **Herría**

**Marokano** bat, Baionarat segitu dutena eta preso altxatua izan dena. **Herría**

Mahommed VI-na tronuan jarri geroz lehen aldia zen bozkatzerat deituak zirela **Marokanoak**. **Herría**

## marokar ik **marokoar**.

## marokiar ik **marokoar**.

## marokoar (*orobat marokar g.er., marrokoar g.er. eta marokiar g.er.*) *izlag/iz* Marokokoa, Marokoari dagokiona; Marokoko herritarra.

Le Bousquet aldean **marokoar** etorkinak dira gehiengoa. **Berría - Harian**

Frantsesez idazten duen **marokoar** idazlea naiz. **Berría - Kultura**

Hixam El Gerruj **marokoarrak** lasterketa irabazi zuelako. **Iñigo Aranbarri**

Kolono **marokoarrak** eramán zituen, Saharako kulturán eragiteko. **Berria - Harian**

**Marokoarra** da izatez eta duela 27 urte etorri zen Euskal Herrira. **Berria - Harian**

Frantziako hiritar bat **marokoar** bat baino 20 bider hobeki [bizi da]. **Patxi Zubizarreta**

Kontu handiz ateratzen zituen bere zetazko pijama, bere xaboi-pastillak eta bere txapin **marokoarrak**. **Fernando Rey**

Emakume gazte bat ezagutu nuen, **marokoarra** jaiotzez, espainol hiztuna eta judua. **Edorta Jimenez**

Bi **marokoar** jipoiu zituztela Valentzian dantzaldi batetik ateratzean. **Bernardo Atxaga**

Zin egingo nuke **marokoar** tapiz-saltzaileren bat izan zela beste bizitzaren batean. **Oskar Arana**

Gizarte-elkartasun gehiago sumatzen da **marokoarren** artean. **Iban Zaldua**

Poliziak eta jujeek segitzen dute beren lana **Marokoar** andana bat arrastatuz. **Herria**

## maronita *izlag/iz* Libanoako kristau erromatarren komunitate berezi bateko kide dena.

Sister Marie Keyrouz **maronitar** lekaimeak hunkitu zituen eliza gainezka bete zuten ikusleak. **Berria - Kultura**

**Maroniten** kristautasun monotelita eta drusoén xiismoa, Hakim gurtzen duena, Erdialdeko Sirian jaió ziren biak. **Iñaki Mendiguren**

Ortodox erlisioneakoak dira horgo % 78, musulmanak % 18 eta gaineratekoak **maronita** eta apostolikoak. **Herria**

## marotista *izond/iz* lehen karlistaldian, F. Matoro jeneral karlistaren aldekoa.

Berak ere, Puiko jeneralek bezalaxe, ez baitzuen atzerrialdiko 34 urte luzeetan amore eman; ez baitzuen **marotisten** saldukeria inoiz barkatu. **Txillardegi**

## marra 1 *iz* seinale edo marka mehar eta estua, berez zuzena. ikarraia; arrasto; lerro.

Arkatz markatzaileaz hiru **marra** eginez, loro moduko bat marraztu zuen. **Jon Muñoz**

Bi hiriak lotuz **marra** bat trazatu zuen errotuladore gorriaz. **Harkaitz Cano**

Bostetako argiaren hauts hegalaria tarte guztietatik, pertsianen **marra** guztietatik sartzen zen. **Karlos Zabala**

Gorputza eta bisaia **marra** horiz pintatuak. **Joan Mari Irigoien**

**Marra** baten luzera edo angelu baten zabalera bereizteko gaitasuna dutenak. **Josu Zabaleta**

Reagan ingelesa ere heldu zen entsegu lerroa, baina entsegua egin aitzin, alboko **marra** ukitu zuen. **Berria - Kirola**

Etxe berdin-berdinez osatutako lau lerroko auzoa, trenbidearen **marra** ibaiaren paralelo eta ibaiaren ezkerreko eremua fabrika pabiloez beteá. **Jon Maia**

Gazteluko goarnizioak eta han bizi zirenek Biarnoko **marra** zeharkatzeko deus guti falta zutelarik. **Aingeru Epaltza**

Irakurtzen dudán bigarren aldía da, eta arkatzarekin egindako **marraz** eta oharrez beteta daude orriak. **Iban Zaldua**

Sofan jarrita, egunkaria magalean, soa telebistaren 634 **marra** horietakoren batean galduta. **Unai Iturriaga**

Zein zirraragarria azkeneko errezelaren azpian sumatzen den gorputzaren **marra**! **Josu Zabaleta**

Esku ahurrean ditugun **marra** horiek guztiak. **Harkaitz Cano**

Joneren begietako **marrari** erreparatu diot kliskatu dituenean. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Errepikatzen diren **marraz** osaturiko marrazki bat. **Juan Garzia**

### 2 (izenondoekin)

Bi punturen arteko biderik laburrena **marra** zuzena dela. **Joan Mari Irigoien**

Koadro bat marraztu du, lerro bertikalez erditu du koadroa eta, bi **marra** horizontal eginez, sei espazio utzi ditu koadro barruan. **Joseba Sarrionandia**

Bere inguruan oinaz geldiro eta ia sentsualki zapaltzen zuen lurra, **marra** biribil bat markatzeko. **Xabier Olarra**

Koskarik gabeko gainalde bat, **marra** paralelo gurutzatuz beteá. **Xabier Olarra**

Puntuak **marra** jarraitu baten ordez. **Josu Zabaleta**

Bizarra ezin hobeto egin zion, azal-azaleraíno, **marra** geometrikoak markatuz. **Karlos Linazasoro**

Glosema terminoak "mintzo ezaugarria" esanahía duela onartzen badugu, zuzenago hitz egin ahalko dugu **marra** isoglosematikoez. **Isabel Arrigain**

Zuhaitz-landareen artean banao aitzina, urratsen hatzek utzi **marra** birtual etengabea luzatuz. **Piarres Aintziart**

**Marra** zuri-urdineko korbata eta lastozko kapela. **Lopez de Arana**

Traje iluna, **marra** argiz ildaskatua. **Jon Muñoz**

**Marra** txuri-urdineko jertse bat eta galtza bakeroak jantzen ditu. **Antton Olano**

Senarra **marra** lodiko pana zakarrez jantzita zegoen. **Harkaitz Cano**

Frantsoisek pintzelik finena hartu eta **marra** bat pintatu zuen oihalean, **marra** zuri bat goiko aldean, **marra** estu luzea. **Felipe Juaristi**

Denak erakartzen zaitu, denak xoratzen, odoiartzaren **marra** leunak, zuhaitzen antolamenduak, hondarraren koloreak! **Josu Zabaleta**

### 3 (zerbaiten muga adierazten duena.)

Biak ongi berezirik eta **marra** batek banaturik, gaua eta eguna bezala. **Joan Mari Irigoien**

Hogei urteen **marra** zeharkatu ez duten gaztetxo aterpegabeak bagina bezala. **Aingeru Epaltza**

Aspaldi iragana dut mende erdiaren **marra**. **Aingeru Epaltza**

Judua nintzela jakin nuenetik, ordea, ezinezkoa zitzaidan ongiaren eta gaizkiaren arteko **marra** argi bakar bat trazatzea. **Anjel Lertxundi**

86 bidaiari gehiago askiko ziren Miarrizeko aireportua 800 000 ko **marrara** heltzeko jaz. **Herria**

Ibex-35ek 8.000 puntuen **marra** gáinditu zuen, eta, egia esatera, erdi miraria ere badirudi. **Berria - Ekonomia**

Legaltasunaren eta ilegaltasunaren arteko **marra** gorria. **Itxaro Borda**

Osaba, erdi jostetan bezala, eta apezka, berriz, bere atzaparrak zorrotzurik, sagua noiz larrutuko, osabak dogmaren eta ortodoxiaren **marra** iragan bezain fite... **Joan Mari Irigoien**

Baina Isabel ezkondurik zegoen eta hura **marra** iraganezina zen enetzat. **Joan Mari Irigoien**

Ditxa hura **marra** eta muga orotarik haratago zegoela. **Joan Mari Irigoien**

Milheresek lurretik jaso eta baloia **marraz** bestalde pausatuz. **Berria - Kirola**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lepoaren atzealdeá igurtzi duzu, nazien kontzentrazio esparruan egin ez dizuten **marra**-kode tatuaiá ezabatu nahian bezala. **Eider Rodriguez**

Zehaztasuna txundigarria zen, eta orobat marrazketa-abaila, **marra**-ekonomía eta marrazkien xarma eta estíloa. **Xabier Olarra**

**Marra** multzoak ziren, irudi figuratiborik gabeak, lehen begiratuan behintzat. **Iñaki Iñurrieta**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ditira **marra** bat gau beltza ezabatzen. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Hegazkinen bat goi samarretik igarotzen fortunatzea da ona honelakoetan: atzetik gelditzen zaion lurrún **marra** xuriari erreparatu. **Pello Zabala**

Ke **marra** meharrá. **Itxaro Borda**





Lotuta jarraitzen dute ardiek, oraindik ere negar-**marraka** . Oskar Arana

**Marraka** dihardugu hartzek bezala, urrumaka usoek bezala. Elizen arteko biblia

Emakume bat maiteminduta, maiteminean irauka; kateme bat teilatuan **marraka** ; proteina konplexuak odolean zurrunbiloka, organo sexualak hanpatzen. Oskar Arana

Harantzago antzara batzuk, indioilarrak asaldaturik, beraiek ere **marraka** : [...]. Joxe Austin Arrieta

## 5 *marraka* egin

Bee, bee -egin zuen **marraka** Stanek, biak oldarrean kafetegian sartu zirenean. Lopez de Arana

Sakonduretan karranka egiten duten idi gurdiak, mendian **marraka** egiten duten ahuntzak. Koldo Izagirre

Mintzatu beharrean, **marraka** egiten dik, bildots baten gisara. Aingeru Epaltza

**Marraka** egiten nuen eta karranpa ugari nuen han ilunpean lotuta egoteagatik. Pello Lizarralde

Akerra dardaraz jartzen da, **marraka** egiten du: soinu itsusi bat, lodia eta zakarra. Oskar Arana

- Asteazken goizean sortu zen bildots zuritabeltz pottoloa hiruzpalau punpe eta **marraka** eginez hurbildu zitzaidan eta buruarekin aztala hunki zidan, musu eman balit bezala.

Daniel Landart

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ardi marraka** (4); **ardien marraka** (3); **marraka egiten** (4)

## **marrakaka** *adlag* marraka eginez. ik **marraka** 4.

Katu bat **marrakaka** entzun da. Xabier Paya

## **marrakari** 1 *iz* marraka egiten duena.

Axuri haragi zurpailaren produzitzen hastea gomendatzen zien gizonak artzainei, merkatuaren eskaerara makurtzea, bospasei asteren buruan kabala **marrakarien** saltzea, hots. Itxaro Borda

Aski badakit ez dituztela beren ama **marrakariak** berriz ikusiko, joan diten haragi-hoztegiatarat kostelet eta xerraka ala, doi-doiko epe luzeagoan, gizentzien betetzerat toki zerratuetan. Herria

Fededun bakoitza **marrakari** bakun gisa kontsideratzen zen, artaldeak fedea bermatzen zuela, artzain onaren zuzendaritzapean, gure borroka guztien egituren piramideak irudikatuz. Itxaro Borda

## 2 (adizlagun gisa)

Prezio urriegiarengatik salgai ez zitezkeen axuriak etxera ekartzen genituela, **marrakari** eta usaintsu. Itxaro Borda

## **marrakatu**, marraka, marrakatzen du *ad* marraka jardun.

-Non da Boz? -**marrakatu** zuen bigarrenak larrupeko organoak oro zartarazi zizkion tunakoa igortzen ziola. Itxaro Borda

Kantika berri melengak **marrakatzen** zituztela, mantelina eta kapelet beltzen gerizan ene leinuko partaideak ezagutzen nituen, bai galerietan eta bai behereko jargietan.

Itxaro Borda

## **marranta** 1 *iz* ahotsaren laztea edo zakartzea, eztarriko ondoez baten ondoriozkoa.

Van Daanek **marranta** du, edo, hobeto esanda, azkura pixka bat du eztarrian. Josu Zabaleta

Karkaxa bildu eta jaurti egin nuen, **marranta** kentze aldera. Anjel Lertxundi

Eztarriko **marranta** garbitzen saiatu zen. Anjel Lertxundi

Eztarriko **marranta** arintzeko. Jon Alonso

## 2 eztarriko edo arnasbideetako hotzeria.

Hilzorian dagoen norbaiten **marranta** iruditu zitzaidan. Bernardo Atxaga

Eztula egiten du, **marrantak** jota dago. Anjel Lertxundi

Ez zaitut sekula ikusi -erantzun zion berrito **marrantak** jotako ahotsak. Fernando Morillo

Ez duk ahaztu behar hirekin oso harreman estua duen pertsona bat hiltzeko zorian egon dela aste honetan bertan, Parisen, **marranta** handi batek hartuta. Antton Olano

**Marranta** tzar batek hartu dit ahotsa. Anjel Lertxundi

Ahulduta eta dardaratsu zegoen, **marranta** txar batetik suspertzen ari balitz bezala. Iñaki Mendiguren

Eta jarraitzen dute hasperenek, **marranta** batean, orgasmoaren bila. Koldo Izagirre

## 3 (hitz elkartuetan)

Eztarriaren **marranta** -hots batez kargu hartuta, leihoa ixteko agindu zion Mentxun. Josu Landa

Mikrofono-oina zapaldu, zutitu, mikrofonoa altueran egokitu, **marranta** -hotsak, gorputz-zalantzaren bat agian... eta ezer gutxi gehiago. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

- Baina Wu maisua ez zebilen eztl-**marranta** edota urdaileko mina aztertzen. Javi Cillero

## • 4 *izond*

Beren ahots **marrantarekin** eta beren borrokalarri beso mardul biluziekin. Karlos Zabala

Marraka **marranta** bat aditu zen, Nakoren senarra zirudien Martizena agian. Itxaro Borda

## 5 (adizlagun gisa)

Isiltasuna eskatu zuen, azken egunetan botatako oihuek **marranta** utzi dutelako. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**marrantak jota** (3)

## **marrantadun** *izond/iz* marratak jo duena.

**Marrantaduna** sendatu, eta goxo-goxo mainatu zuen. Jon Muñoz

## **marrantatsu** *izond* marranta adierazten duena.

-Hik amaren titia ere ez duk jasotzen -bota zion Marrok bere bazterreik, ahots **marrantatsuz** . Juan Kruz Igerabide

Isilik geratzen ziren, isilik eta umil, isilik eta duin, edaria eskuan, oso ondo ez zekitela nola jokatu, eta gero elkar begiz aztertu eta bakoitzak hasperen **marrantatsu** bana

aireeratu ondoren, oinak pixka bat mugituz, orain bat burra orain bestea alborra, deseroso samar hala ere, adi-adi segitzen zuten denek emanaldia. [Felipe Juaristi](#)  
Une hartan, motor-hotsa gelditu egin zen, eta harri eta zur utzi gintuzten oihu [marrantatsu](#) batzuk entzun genituen frontoi aldetik. [Juan Kruz Igerabide](#)

## marrantatu, marranta(tu), marrantatzen 1 da *ad* marrantak joa gertatu.

Peter hoztuta [marrantatzen](#) bazen, ezingo genuen medikurik ekarri. [Josu Zabaleta](#)

Bat-batean ahotsa [marrantatu](#) zitzaiola ematen zuen. [Iñaki Mendiguren](#)

[Marrantatu](#) arte kantatu dugu elkarrekin. [Txillardegia](#)

Sermoi luzeak egiten zituen arren, ez zen aise [marrantatzen](#) eta erlasten zen predikaria. [Joan Mari Irigoien](#)

Ahotsa [marrantatu](#) zaio eta eztarria garbitu du bitan, urduri. [Xabier Paya](#)

[Marrantatzeraino](#) egiten zuten oihu. [Aingeru Epaltza](#)

### • 2 du *ad* marrantak jo.

-Zer egin behar duzue gauza horrekin? -galdetu nien, ahotsa edari azkarrik [marrantaturik](#). [Alberto Ladron Arana](#)

Boz mehea zuen beti, gauak [marrantatu](#) gabea. [Aingeru Epaltza](#)

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Ahots erlastu edo [marrantatu](#) samar bat nahiago izaten da blues kantari izateko. [Josu Zabaleta](#)

Une hartan, oilar baten kantu [marrantatu](#) altxatu zen ilunpeetatik luze. [Karlos Zabala](#)

Haren deiar [marrantatu](#) apurtuekin merkatuko teilatuak dardaraz jartzen zituena. [Karlos Zabala](#)

Sarraila baten marraka [marrantatuak](#) pentsarazten dizu kartzela batean zaudela. [Koldo Izagirre](#)

[Marrantatuarena](#) ere egin dut. [Anjel Lertxundi](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

[ahotsa marrantatu](#) (3)

## marrantatxo *iz* marranta arina.

-Lehorrean eta siku -izan zen jasotako erantzuna, Santosena ematen zuen ahots zirtzilatu batez-, ondo-ondoan aditzen ditut haren [marrantatxo](#) alaiak. [Josu Landa](#)

## marraska<sup>1</sup> *iz* orroa, marrua, oihu ozena.

Beste gaindegi batean indioilar bat ageri zen, teilatuan jareginda zebilela, [marraska](#) zoli, gogaikarri batzuk eginez. [Josu Zabaleta](#)

Agian animalia larrutzen ariko ziren, botatzen zituen [marraskengatik](#). [Fernando Morillo](#)

Hala gertatzen da gehienetan: [marraskan](#) gehien dabilena, gogorrena. [Alberto Barandiaran](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Bi-biek halako poz [marraska](#) bat bota zuten. [Josu Zabaleta](#)

Une batean, dena dela, aretoko partaide gehienak negar- [marraska](#) egin zuten zergatik jakin gabe. [Jose txo Azkona](#)

## marraska<sup>2</sup> *1 adlag* marraskatzen.

Musikarik gabeko segundo bakan haietan, txakurra [marraska](#) hasi eta mugitu ere egin zen, baina Hermione soinua jotzen hasi zenean, lozorroan geratu zen berritro. [Iñaki Mendiguren](#)

Ihartuta zeuzkaten goseak eta miseriak, [marraska](#) ibiltzen ziren eremuan, lur ilun idorretan. [Elizen arteko biblia](#)

Denak heigoraka, [marraska](#), ukondoka, zer esan zuen eta zer esan ez zuen. [Karlos Linazasoro](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Enborraren zuraren eta azalaren artean egin du bere zulobidea, bere arrazari berezko zaion suntsi-gose temati eta itsu horrekin; [marraska](#)-zulaketa etengabeaz hazi da, eta zulohabia bera ere berdin joan da haziz. [Juan Garzia](#)

## marraskari *izond* marraskatzen, hortzikatzen duena.

Gero eta maizago ageri zen [marraskari](#) handiaren burua komuneko zuloan. [Koldo Izagirre](#)

Ni torturak entzundako haietariko bat gehiago izango nintzen, jendea putzu baltzera eroaten duen [marraskaria](#) ikusitako bat gehiago. [Koldo Izagirre](#)

## marraskatu, marraska(tu), marraskatzen 1 du *ad* hozkada txikiz, zati txikiak kenduz, poliki-poliki jan edo higatu.

Konpainia egiten zidan, baina gauzez ogia [marraskatzen](#) zidan. [Juan Garzia](#)

Gure ogia arratoiek [marraskatzen](#) dute, gure logalea gerrak eta aberriak. [Pablo Sastre](#)

[Untxiak] lasai-lasai lastoa [marraskatzeari](#) ekiten zioten ostera, eta hurrengo aldian ez zuten inolako beldurrik erakusten. [Juan Garzia](#)

Ahaztuta baten erdia platerera bota, oso-osorik jan, hezurra [marraskatu](#), eta hezurrik txikiak ere miazkatu zituen. [Jose Morales](#)

Txahal-hezur bat [marraskatzeari](#) ekin zion, masailak koipez distiratsu. [Jose Morales](#)

Kirxa kafezalea kuxaren atzealdean eserita zegoen, bere ohiko lozorroan, eta zerbait [marraskatzen](#) ari zen, gero mamurtzeko eta kikara kafez bultzatzeko. [Pati Zubizarreta](#)

Mikel Strogoffen lokarria, hark berak [marraskatua](#) ordurako, hautsi egin zen zaldiak ezustean tenk egin zuelarik. [Karlos Zabala](#)

Armiarmak eulien zelatan, txoriak armiarmak harrapatzen, katuak txoriak [marraskatzen](#). [Josu Zabaleta](#)

### 2 irud/hed

Lurra ez da berdina, gorabeherak ditu, burdina-pala eta eskuarea behar dira, lurra [marraskatu](#) eta sendo berdinduko dutenak. [Joan Mari Lekuona](#)

Behean, suak harresia [marraskatzen](#) du, azpiko zulotik ke-zorrotdak ateratzen dira, hilzorrian dagoen herensuge batengandik bezala. [Jon Alonso](#)

Albertori semea hil egin zaio, itxura guztien arabera bere buruaz beste eginik, eta zalantzak eta damuak erraiak [marraskatzen](#) dizkiote gupidarik gabe. [Berria - Kultura](#)

Baina ikerketak ez ziren inoiz bukatzen; idazluma [marraskatua](#) izaten zen, marrazkiak agertzen ziren paperean. [Jose Morales](#)

Eraztunak, ordurako, tentazioa eskaintzen zion, borondatea eta arrazoia [marraskatuz](#). [Agustín Otsoa](#)

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Haragi [marraskatua](#) sobran egonen zen hura jasoko zuen lurrean. [Monika Etxebarria](#)

marraskilo ik barraskilo.

## marratu, marra(tu), marratzen 1 du *ad* lerro edo marren bidez markatu edo marratu. ik marratu 2.

Aldeetako grisune guztiak ezabatu zituen Ruche jaunak, eta bertikal bat **marratu** erpinetik oinarriaren erdiraino. Jon Muñoz

Aitzinean eta aitzinetik ja **marratua** zaigun bidea segitzea aski delakotz. Piarres Aintziart

Bide zabal bat, beheiti doana, harri lauzek bi aldetarik **marratua**. Piarres Aintziart

Gidaliburuan **marratua** den gaurko ibilbidea berrikusten dut. Piarres Aintziart

Ekialdetik, Hatzar-Enanetik Xefameraino **marratuko** duzue muga. Elizen arteko biblia

Sudurra bekokiarekin lerrotakua, luze eta sendoa lepoa eta ezpain lodiak ongi **marratuak**. Ramon Saizarbitoria

### 2 marraz hornitu.

Zoko batzuetan, alde laiotz hezeetan, narrasti beltzak, horiak, moreak, zebra edo tigrearen erara **marratuak** pilatzen ziren. Karlos Zabala

- Bat edo beste estalkitik atera eta, nire harridurarako, biniloa **marratu** gabe dagoela ziurtatu dut. Harkaitz Cano

Ez sukaldeko lanik, ez talanterik, ez erraki goxorik, disko **marratua** baizik ez dugu entzun Euskal Herriko politikan. Berria - Euskal Herria

### 3 marratu.

Errepidea utzi dut, bidexka bat hartzekotan ezker zedarri bat, bere maskorrarekin eta gezi ñimiño bat, harrian **marratua**. Piarres Aintziart

### 4 (era burutua izenondo gisa)

Halako orrialdetik tigre **marratuak** begiratzen zigun, beste orrialde batean familia eskimalak igluaren ataritik so egiten. Joseba Sarrionandia

Soineko **marratuekin**. Marzel Etxehandi

Nerabe bihurtu aitzineko neskato garai bat, jean gorri urratuekin, Keds zuri **marratuekin**, eta Kansas City Royals-en elastiko batekin jantzia. Oskar Arana

## marratxo 1 iz ortografian, hitzak lotzeko erabilten den marra laburra.

**Marratxo** ere eruz erabili zuen, ba aurrizkiaren eta adizkiaren artean, esate baterako: *ba-daki*. Koldo Zuazo

**Marratxo** erabiltzea murriztu eta arautu zen. Koldo Zuazo

**Marratxo** nahiz "eta" juntagailua ez dira hitz guztietan beharrezko. Iñaki Arranz

Hitzak osorik eta **marratorik** gabe. Koldo Zuazo

- 1937 eta 1958 arteko **marratxo** txikia zen, beraz, bizitza. Joseba Sarrionandia

### 2 marra laburra.

Bi **marratxo** paralelo berdin-berdin, hutsarte mehe batez bereziak. Jon Muñoz

Idazpen faltsu bakoitzaren aldamenean lapitzez **marratxo** bat egiten zuen. Xabier Olarra

Uso lako hegazti zuri zuriak helduko dira, bi azabatxe puntu bakarrik begitxoak eta bi grafito **marratxo** zangoak. Joseba Sarrionandia

Testean bi **marratxo** agertzen badira, positibo; **marratxo** bakar bat agertzen bada, negatibo. Berria - Gaiak

Bere betiko hobbya Ogam (**marratxo** egindako idazkera famatua) dezifratzea zenez, horrixekin ekin zion. Berria - Kultura

**Marratxo** luze bat zen, eta **marratxoaren** ondoren, tarte bat eta betun puntu bat gero, betunezko harridura ikur bat zapataren gainean. estresatu aditza esatean, eskuarekin airean **marratxoak** marratzen zituela. Harkaitz Cano

## marraza iz ganibet handia.

Ganibetak ikusten nituen, eta **marrazak**. Joxan Elozegi

Laborariak beren igitai eta sardeekin; ofizialeak, mailuz, **marrazaz** eta lanerako bertze lanabesez hornituak. Aingeru Epaltza

Gau batean **marrazarekin** eraso zion emazteari eta emazteak auzoko etxe batean lo egin behar izan zuen. Irene Aldasoro

Nire lurraren amodioagatik -entzun zuen erraten zuela, altzairuzko **marraza** haren lepo gainera erori eta borroak behariei burua erakutsi aitzin. Elena Touyarou

## marrazain iz futboleko eta kideko jokoetan, joko-zelaiaren muga adierazten duen marrako epailea.

Zelaia alderik alde zeharkatu, eta bidera irten zitzaizkion aurkari guztiak hankaz gora utzi ondoren, atezaina bera ere bai... baita arbitroa eta **marrazainak** ere. Joan Mari Irigoien

Urtero legez, epaileak eta **marrazainak** protagonista nagusi bilakatzen dira Espainiako Ligako jardunaldi askotan. Berria - Kirola

Barruan zela zirudien, baina **marrazainak** ez zuen hala adierazi. Berria - Kirola

Pablari txartel gorri zuzena atera zion epaileak, **marrazaina** iraintzeagatik. Berria - Kirola

## marrazkatu, marrazka, marrazkatzen du *ad* marratu.

Pablari txartel gorri zuzena atera zion epaileak, **marrazaina** iraintzeagatik. Berria - Kirola

## marrazkera iz marrazteko era.

Gero auto bat marratu zuen [...]; hegazkin bat gero [...]; eta, azkenik, etxe bat (soil eta zakarra, hiru urteko ume baten **marrazkerakoa** hortxe-hortxe). Xabier Olarra

## marrazketa 1 iz marraztea.

**Marrazketaren** emaitza baino gehiago jarduna bera gustatzen zitzaidala niri. Xabier Mendiguren Elizegi

Zenbaketarako edo **marrazketarako** ahalmen apagarriak. Xabier Olarra

Atzoko egin behar du **marrazketako** ariketa eta beldurez askatu du konpasa kartapaziotik. Eider Rodriguez

**Marrazketako** eskola partikularrak emanez ateratzen zuen bizimodua. Oskar Arana

**Marrazketa** geometrikoan egindako aurrerapenaz. Bernardo Atxaga

Euren **marrazketaren** zirriborroa bukatu ahala desagertzen dira euren egileekin. Xabier Arregi

Goitik behera berrantolatuta eta berrikus daitekeela gorputz-irudiaren **"marrazketa"** zerebrala. Xabier Olarra

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Finkako auzainaren laguntzarekin **marrazketa** -mahai bat muntatu zuen hustutako etxean. **Patxi Iturritegi**

**Marrazketa** -mahaiaren eseri eta Gortarik diseinatutako horma kurbatuari so geratu zitzaion. **Patxi Iturritegi**

**Marrazketa** -gelan nengoen afariaz gozatzen. **Xabier Olarra**

Trotter jaunaren **marrazketa** eskolan neska biluziak marraztu genituen. **Koro Navarro**

Umeei zuzenduriko **marrazketa** tailerra gidatuko du Valverdeker berak. **Berria - Kultura**

Eskolatik irteetan ez nuen **marrazketa** -klaserik, ez ingelesik, ez kirolik, ez ezer. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Amak behin eta berriz egiten zidan ileko marra, **marrazketa** -lumaz eginda bezala gelditzen zen arte. **Jon Alonso**

**Marrazketa** teknika klasikoak ederki menderatzen zituela erakusten dute ilustrazio horiek. **Berria - Kultura**

Zehaztasuna txundigarria zen, eta orobat **marrazketa** -abaila, marra-ekonomia eta marrazkien xarma eta estiloa. **Xabier Olarra**

1988an ezagutu nuen nik, Stephenekin **marrazketa** -txango batean Londresen batetik bestera genbiltzala. **Xabier Olarra**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**marrazketa mahaian eseri** (3)

## marrazki 1 iz objektu edo gauza baten irudikapena, gainalde lau batean marra bidez egiten dena; marren bidez irudikatzen antzea.

Lau **marrazki** ziren, nik kontatutako ipuinaren sekuentzia osatzen zutenak. **Joan Mari Irigoien**

Bi boxeolari irudikatzen zituen **marrazki** baten aurrean. **Bernardo Atxaga**

Bertsotako bat edo **marrazki** bat zirriborra zenezake. **Berria - Harian**

Margolan edo **marrazki** bat ikustean, zeharo harritu eta nahasten zen errealitatearen bi dimentsioko irudiztapenarekin. **Xabier Olarra**

Aurreko horman **marrazki** bat dago markoan sartuta. **Pako Aristi**

Margolariaren 40 **marrazki** salgai jarri ditu Bilboko Michel Mejuto galeriak. **Berria - Kultura**

Lotan zegoela **marrazki** bat egin geniolako irten zen haren arima, eta ez du itzultzerik izan. **Juan Kruz Igerabide**

Kristalak zuriz margotutako zeuden, lauki txikiz egindako **marrazki** baten bidez. **Karlos Zabala**

Ingelesez *aspen* deitzen diren zuhaitz horien azalean labanaz egindako **marrazkiak**. **Bernardo Atxaga**

Hormetarik batean erreproduzio kaskar bat zegoen, emakume gazte baten **marrakia** ageri zuena. **Mirentxu Larrañaga**

Hiri birtual bat bezala zegoen antolatuta: albisteak eskaintzen zituzten kioskoaren **marrazkian** klik eginda, e-maila posta bulegoan, erosketak dendan klikatuta... **Berria - Gaiak**

Zorioneko koadernoaren orrialdeak **marrazki**, eskemaz, zentzugabeko planoz betetzen nituen. **Jesus Mari Mendizabal**

Esku-hutsezko zenbait **marrazki** bat-bateko. **Xabier Olarra**

## 2 (izenondoekin)

**Marrazki** argigarrien bidez. **Luis Elberdin**

'Star Wars'-en itzalpean jaio zen **marrazki** digitalen aitzindaria. **Berria - Ekonomia**

Grabatu haien **marrazki** inestrikable haietan zetzan inskribatuta Klararen misterioa. **Iñaki Iñurrieta**

Zerk marrazten zituen **marrazki** tristeak amaren aurpegian? **Juan Kruz Igerabide**

**Marrazki** bizigabe baten pare ikusten duela bere burua. **Iñaki Seguro**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Picassoren marrazkiei, haren bizitzako azkeneko urteetako **marrazki** sail bizkor etengabe haiei darien bizipoza. **Josu Zabaleta**

Bere liburuak eta margolanak kendu egin dituzte, eta hormak hutsik utzi, komiki bateko **marrazki** -atal bat poster baten neurriraino handiagotua izan ezik. **Oskar Arana**

Leihoak pintatutako **marrazki** -liburu baten tamainakoak ziren eta atea are txikiagoa, baina Maimie aise irten zitekeen teilatua altxatuz. **Julen Gabiria**

Ez zuen denborarik izan **marrazki** -oharrak egin edo pentsatzeko. **Xabier Olarra**

Bere **marrazki** -koadernoan poliki-poliki itxi, eta hara non... **Jon Muñoz**

Eta hori erabat aplika dakioke Vitruvioren obrak sortu duen **marrazki** -lorratz zabalaren kasu partikularriari ere. **Santiago Iruretagoiena**

Iritzi eta **marrazki** bilketa tortura salatzen asmoz. **Berria - Euskal Herria**

15:45: **marrazki** lehiaketa eta karaokea, haurren txokoan. **Berria - Kultura**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Paisaia- **marrazki** batzuetan marren artean pertsonaia ezkutuak aurkitu behar izaten diren bezala, agian oinezko haien artean 1963ko ikaskideren bat egon zitekeen. **Joseba Urteaga**

Z uriz estalitako kristalen landare- **marrazki** gardenetatik. **Josu Landa**

Kiribil bat, marmol horian marraskilo harriztatu bat baitzegoen, eta horregatik nire kiribil- **marrazki** hura. **Joxe Austin Arrieta**

Xardearen hortzez haur- **marrazki** batetik sortutakoa zirudien eguzki antzeko zerbaitei izpiak luzatzen zizkion platerean. **Josu Landa**

Sintesi- **marrazkiak** pantailan lasterregi lerratzen zirelako. **Itxaro Borda**

Lau edo bost sketch- **marrazki** osatutako kartel bat diseinatuko dut. **Iñaki Zabaleta**

Urtero, ihaute irian "Marrazkirri" umore- **marrazki** erakusketa egiten da Haize Berri kulturetxean. **Herria**

## 4 marrazki bizi marrazki biziduna.

Uste zuen **marrazki bizietako** Toto hura benetakoa zela, espazioan hara eta hona ibiltzen zela. **Juan Kruz Igerabide**

Lucy egongelan telebistaren aurrean jarraitzen eta **marrazki bizietako** hogeita lau orduko kanal bat aukeratu nuen harentzat. **Oskar Arana**

Egongelan zen Dionisos, National Geograficen dokumental bati beha, umeek **marrazki-bizi** japoniarrei behatzen dieten bezala. **Unai Iturriaga**

## 5 marrazki bizidun

**Marrazki bizidunekin** hazi eta hezi banintzen. **Joan Mari Irigoien**

Benitok berak kutsatu zidalako **marrazki bizidunak** ikusteko ohitura. **Ramon Saizarbitoria**

**Marrazki bizidunetako** kontuak dira horiek. **Harkaitz Cano**

Katalanezko eskaintza TV3 kateak doan emandako **marrazki bizidun**, telesail eta dokumentalek osatuko dute. **Berria - Mundua**

**Marrazki bizidunetako** Super Saguaren parekoa. **Berria - Gaiak**

**Marrazki bizidun** digitalen etorrerak baina, inperioaren zutabeak gogor astindu ditu. **Berria - Ekonomia**

Animazioa gustuko dut, baina ez **marrazki bizidun** hutsak egiteko. **Berria - Kultura**

Pelikula hark, gainera, gehiago zirudien **marrazki bizidunetako** beste ezertakoa baino. **Joan Mari Irigoien**

Borrokari plantan hasi zitzaidan, telebistako **marrazki bizidun** japoniar piraerietako pertsonaien gisara. **Aingeru Epaltza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argazki eta marrazki** (6); **egindako marrazki** (5); **eginiko marrazki** (3)

**marrazki andana** (3); **marrazki bat egin** (6); **marrazki bat egiten** (4); **marrazki bizidun** (9); **marrazki bizidunak** (24); **marrazki bizidunak ikusteko** (5); **marrazki bizidunak ikusten** (4); **marrazki bizidunen** (7); **marrazki bizidunetako** (22); **marrazki bizidunetako** (3); **marrazki bizidunetan** (3); **marrazki bizidunetatik** (4); **marrazki eder** (6);

**marrakzi eder bat** (3); **marrakzi** (3); **marrakzi egiten** (3); **marrakzi erakusketak** (5); **marrakzi erakusketak** (3); **marrakzi eta argakzi** (3); **marrakzi eta collage** (3); **marrakzi koloretsu** (3); **marrakzi lehiaketa** (10); **marrakzi lehiaketa bat** (4); **marrakzi pollitenak** (5); **marrakzi xapelketa** (3)

**umore marrakzi** (9); **umore marrakzi erakusketak** (3)

**azken marrakzia** (3); **egindako marrakzia** (4); **marrakzia ageri** (3); **marrakzia egin** (4); **marrakzia erakutsi** (4); **marrakzia osatu** (3)

**egindako marrakziak** (11); **eginiko marrakziak** (8); **marrakziak agertzen ziren** (3); **marrakziak argitaratu** (7); **marrakziak bildu** (4); **marrakziak egin** (10); **marrakziak eginez** (3); **marrakziak egiteko** (8); **marrakziak egiten** (24); **marrakziak egiten nituen** (4); **marrakziak egiten zituen** (3); **marrakziak erakutsi** (4); **marrakziak eta argakziak** (3); **marrakziak ikusi** (3); **marrakziak ikusten** (3); **marrakzien bidez** (5); **marrakzien erakusketak** (7); **stephenen marrakziak** (5)

**marrakziz osatutako** (3)

## marrazkidun 1 *izond* marrakzia duena; marrakziak dituen.

Harro geundean horregatik, elkar besarkatzen genian, ahots goran irakurtzen genian, oraindik ere irakurtzeko moduan zegoen orri bat, **marrazkiduna**. **Josu Zabaleta**

## 2 *izlag* marrazkiko.

Ospitalean gau batez eserita geundela eta haurrak lo zirela **marrazkidun** liburu bati begira nengoelarik, atea ireki eta zentralako Nagusia sartu zen. **Xabier Olarra**

## marrazkiera *iz* marrazkiak egiteko era.

Edipo eta Esfingea, lurrontzi puskatu batean ume-**marrazkieran** pintatuak, Atenea, Erineak edo Eumenideak, edo dena dela derizten zer horiek guztiak, Hannarentzat, egiazko dira, ez alegiazko; inolako eragozpenik ez hark, elkarrizketarik serioenaren erdian, haiek aipatzen hasteko ere. **Joxe Austin Arrieta**

## marrazkigile (*4 agerraldi 4 artikulutan*) *iz* marrazkiak egiten dituen artista. ik **marrazkilari**.

**Marrazkigileak** hauxe marraztu omen zuen: Krixto gurutzean, iragarki hau behekeroko partean: [...]. **Herria**

Musikariatz gain, eskultorea, **marrazkigilea** eta margolaria da. **Berria - Kultura**

Oraingoan bezala, kateko lana egingo dute Pello Gutierrez gidoigileak, Daniel Redondo **marrazkigileak** eta Igor Astondo koloristak. **Berria - Kultura**

## marrazkigintza *iz* marrazkiak egitea.

Ikasketa horiek baino **marrazkigintzakoek** gehiago markatu zuten haren ibilbidea, Juan Battlerekin orri zuria lantzen ikasi baitzuen, marrazkiekin nola hitzekin. **Berria - Kultura**

Komunitatea hogeit bat lagunek osatu zuten hasiera batean, gehienak artisauek emanak: zeramika, oihalgintza, **marrazkigintza**, pintura... **Joan Mari Irigoien**

Le Corbusier arkitektoak pinturarekin, **marrazkigintzarekin**, eskulturarekin eta beste arlo batzuetako adierazpen artistikoekin izandako harreman estuaren berri ematen du erakusketak. **Berria - Kultura**

Sekula ez dut ahantziko, ikasle garaian, **marrazkigintzarako** atorra zuriak jantzita, haren inguruan bildu eta nolako barreak egiten genituen haren adierazpen xaloak entzunez. **Joxe Austin Arrieta**

**Marrazkigintzak** pisu handia du maitasun istorio horretan. **Berria - Kultura**

## marrazkilari (*109 agerraldi, 23 liburu eta 62 artikulutan*) 1 *iz* marrazkiak egiten dituen artista. ik **marrazkigile**.

Marraztu eta marraztu aritzen zen taigabe Stephen; eskolan **"marrazkilaria"** esaten zioten, eta marrazkiak ez ziren haurren tankerakoak izaten, inola ere. **Xabier Olarra**

Dryer-ek, bere lanaren intelektualismo hotza gorabehera, berezko dohain ikaragarriak zeuzkan **marrazkilari** eta margolari kolorista gisa. **Oskar Arana**

Paisaia beti-berdin horietan, **marrazkilari** baten arkatzak, ikuspegi berezi baten bila, ez zuen aurkituko zer marraztu. **Karlos Zabala**

Herge belgiar **marrazkilaria**ren "Tintin eta Lotus urdina". **Ramuntxo Etxeberri**

Kukuxumuxuko **marrazkilaria** da. **Berria - Euskal Herria**

Liderraren eta bufoiaren artekoa, egunkariko zutabegilearen eta **marrazkilari** satirikoaren artekoa. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Angeliki Varela greziarrak idatzi du aurtengo mezua eta Nicholas Andrikopoulos **marrazkilaria** ilustratu du. **Berria - Kultura**

Asisko Urmeneta nafatar **marrazkilaria**k apaindua. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

Hilabete hasieran idekia, "Lana" eta "Joanden urteko gertakariak" gaiekin lan egin dute 8 umore-**marrazkilarik**. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**marrazkilari ona** (3)

**mattin marrazkilaria** (4)

## marrazkilaritza *iz* marrazkilaria jarduera.

Orduan, gonbertsazioan trabatu nuen [...] turbinei buruz: **marrazkilaritza** ei zuen lanbide, artista, alegia, baina lanbidea ez ezik bizibidea ere hartatik omen, nonbait. **Joxe Austin Arrieta**

## marrazkitu, marrakzi(tu), marrazkitzen 1 du *ad ipar* marraztu.

Irabazi-eta bihotz handi bat **marrazkitu** du lurrean eta han etzan erakusteko zenbat maite duen Parise. **Herria**

Erakusketak hau izanen da herriko artixta guzien ekintzeri idekia izanen dena nork xixelkatua, margotua ala **marrazkitua** edo brodatua daukan obraren erakusketak. **Herria**

Eliza aitzinean, harriz moldatuzko mosaiko andana batek katedrala, zubia eta monumentuak **marrazkitzen** ditu. **Piarres Aintziart**

Pergamu baliosak eskuz izkiriatuak eta aberaski **marrazkituak**. **Michel Oronoz**

## 2 marratu.

40 bat proiektu badira aspaldian **marrazkituak**, baina jende xehea uzkur... Ez du nehorik ere nahi bere herritik pasa dadin! **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## 3 ziriboratu.

Zenbait urtez, argitaratuak nituen liburuxkak berrikustea eta, **marrazkiturik** neuzkan beste zenbait lan orraztatzea, argitaratzea eta, azken eskuztatze baten ondotik uztea **Piarres Xarriton**

## marrazkitxo iz marrazki txikia.

Deskribatzeko eraikinik ezear, nahi duzu bertako ohituren **marrazkitxo** bat? **Koldo Izagirre**

**marrazkitxo** zenbaiten laguntzaz off-eko ahots orojakileak azaldu zigun gure guruinek (zer ote zen hori) substantzia berezi batzuk jariatzen zituztela, gure hazkundera eta aldaketak eragiten zituztenak; guruin sexualak diferenteak omen ziren neskentzat eta mutilentzat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Marrazkitxo** zenbaiten laguntzaz off-eko ahots orojakileak azaldu zigun gure guruinek [...] substantzia berezi batzuk jariatzen zituztela, gure hazkundera eta aldaketak eragiten zituztenak; guruin sexualak diferenteak omen ziren neskentzat eta mutilentzat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## marrazkizale iz ipar marrazkitzen duena.

Hauien **marrazkizale** edo margolari Antonio Urmeneta. **Herria**

## marrazo 1 iz itsas arrain handi eta indartsua, ahoa buruaren azpiko aldean eta arku itxurakoa duena, guttiz jatuna (Lamnidae).

**Marrazo** eta lanproietan, kartilagozkoa da eskeletoa. **Irene Aldasoro**

Sabela zabaldu, hain zuzen ere haren gorpua hondora joan zedin eta **marrazoek** jan zezaten. **Edorta Jimenez**

**Marrazoak** ere etorri ziren odolaren usainak erakarrita. **Paddy Rekalde**

Seiehun liberako arrain horrenaren hurrengo egunetan ontzikoek hor ikusiko dituzte **marrazo** itzelak. **Edorta Jimenez**

Lehenean **marrazo** zuri handiaren egoera azalduko dute. **Berria - Kultura**

Argiaren eraginez, atezainak akuarioko paretaren aurka oldartzen den **marrazoa** irudi zuen. **Jon Alonso**

Nabarmentzekoak dira, bestalde, Maria Lagarde mexikarraren *Brothers Islands*, Brothers uharteetako **marrazoei** buruzkoa, eta Leandro Blanco espaniarraren *Ongi etorri Tiger Beachera*, **marrazo** tigreari buruzkoa. **Berria - Kultura**

Herrialde batean debaluzio bat gertu ikusten badute, **marrazo** harrapariak bailiran, horra egin dezakete funts horiek, eta, beren indarra dela medio, bere aurreikuspenak bete. **Iñaki Heras**

### 2 irud/hed

Arrain txiki babesgabeen artean dabilen **marrazo** bat? **Oskar Arana**

Halere, ia beti bezala, tropeleko **marrazoek** iheslariaren itxaropenekin bukatu zuten, Rebollo helmugatik bost kilometrora harrapatu zuten. **Berria - Kirola**

Berdin egingo dute, fanatismo kristau edo kapitalistaren izenean, Londres eta Karachiko negozio guneetako lankideek: Canary Wharfeko eta Chundrigar Roadeko **marrazoek**. **Berria - Harian**

Ezaguna nuen, eraikuntzako **marrazo** bat, ez hain aspaldiko sindikalista. **Aingeru Epaltza**

-Merezia zaukak **marrazo** horrek -esan zuen Ninik. **Josu Zabaleta**

### 3 (hitz elkartuetan)

**Marrazo** arrantzaren gehiegikeria salatuko dute film asko Donostiako Itsaspeko Zinemaldian. **Berria - Kultura**

Txibia erraldoiak jaten dituen **marrazo** mota bat aurkitu dute. **Berria - Gaiak**

**Marrazo** parrasta bat hartu du eta gero denak beriz urerat utzi dituzte bainan bakoitxari erreztun bat ezarririk. **Herria**

## marraztatu, marrazta, marraztatzen du ad marraztu; marratu.

Ternuara joan aspaldiko euskaldunen aztarnak segituz [...] zioetan Aurelia Arkotxak, bere baitako gogo-bidea **marraztatuko** zuen. **Aurelia Arkotxa**

Krokodilak dira suge handi batzuk horiz **marraztatuak** direnak, zangomotzak eta haztapar luzeak badituztenak. **Aurelia Arkotxa**

## marraztu, marraz(tu), marrazten 1 du ad marrazki bidez irudikatu.

Trotter jaunaren marrazketa eskolan neska biluziak **marraztu** genituen, zehaztasun handirik gabe. **Koro Navarro**

Klaseak aurpegiak **marrazten** ematen zituen Goio. **Joseba Sarrionandia**

Eskuak ongi **marraztea** ze zaila den, eta nola artista gehienek egiten dituzten saiok eta ariketak eskuak eta hatzak behar bezala **marrazteko**. Erregeak karramarro bat **marrazteko** eskatu ziola. **Harkaitz Cano**

Gero auto bat **marraztu** zuen (oso altua eta modaz pasatua); hegazkin bat gero. **Xabier Olarra**

**Marrazten** hasi nintzen arkatzairen atxikitzen jakin nuenetik. **Ana Urkiza**

**Marraztea** gustatzen zaio. **Berria - Euskal Herria**

Zuzenean tintaz **marraztuz** eta hutsak eginez baizik ez daiteke ikas zer den lerro baten balioa. **Xabier Olarra**

San Basilio Eliza buruz **marraztuko** al zuen galdetu nion. **Xabier Olarra**

Eredutik **marraztu** zuen, azkar eta zalantzarik gabe. **Xabier Olarra**

Zutabeak idazten, irriti-kolaborazioak egiten, komikiak **marrazten** ... **Andoni Egaña**

### 2 lerro eta irudi geometrikoz irudikatu. ikmarratu.

Ez dira falta gure artean erregela eta kartaboia hartu eta mapak **marrazten** dizkigutenak. **Bernardo Atxaga**

Espazioa eta argia kontsideratu behar omen zituen eta distribuzio-planoak **marraztu**, mobiliarioa egokitu ahal izateko. **Patxi Iturritegi**

Milioi bat pasa euroren truk **marraztuko** dituzte bastiza berriak, beste zortzi milioi gostako baita haien eraikitzea bera. **Herria**

Makurturik, elkarren artean hiruzpalau metroko tartea zuten bi arrasto paralelo **marraztu** zituen labanaren puntaz ziegako lur hilean. **Anjel Lertxundi**

Gogoa **marrazten** ditu instalaziorik sofistikatuenak, eta sistemaren osagai bakoitzaren irudia ikusten. **Xabier Olarra**

Zurginak, berriz, erreglaz neurtu, arkatzez eta konpasez **marraztu** eta gubiaz lantzen du eta, giza gorpuzkera eta edertasuna emanik, tenpluan kokatzen. **Elizen arteko biblia**

Joan ziren, bada, gizon haiek, lurralde zeharkatu eta **marraztu** zuten planoak. **Elizen arteko biblia**

Bere tresnak atera kutxatilatik, eta irudiaren inguruan lauki bat **marraztu** zuen gero. **Jon Muñoz**

### 3 irud/hed

Prentsa idatzia etorkizunean jarraitu beharreko ildo berriak **marraztu** ditu Martxelo Otamendik. **Berria - Euskal Herria**

Ez da erraza ideien historiaren moduko diziplina bat ezaugarritzea: segurua ez den objektua, gaizki **marraztutako** mugak, alde batetik eta bestetik mailegatutako metodoak, zuzenik eta finkotasunik gabeko bidea. **Xabier Arregi**

Andrieievk zoroetxeko biztanleen eta eguneroko bizitzako gorabeheren freskoa **marrazten** du. **Jose Morales**

Berarentzat, ez da aski bizitza **marraztea**: bizitzaren misterioetan barneratzen saiatzen da. Thomas Morek **marraztu** utopia hedatzen ari zitzaigun lurrean. **Jose Morales**

Emakumeak elipse moduko bat **marraztu** du airean. **Monika Etxebarria**

Airean **marraztutako** zirriborro ero horietan egia ezkutu bat balego bezala. **Lander Garro**

Irristada bortitzean, motor batek 90 graduko angelua **marraztu** zuen, eta trabeska gelditu zen Volvoaren aurrean. **Aingeru Epaltza**

Zeharka jarria, haren bi zango oinutsek arku bat **marrazten** zuten besaulkiaren gainean. Aingeru Epaltza

Bekainek bi arku **marratzen** zizkioten, haiek ere neurritz gain perfektuak. Matías Múgica

Ihardespenik ezean, irriño zozo bat **marraztu** nuen. Aingeru Epaltza

Begitarte beldurgarria ageri zuen, gorrotoak **marraztua**. Aritz Gorrotxategi

Iribarre xaloa **marraztu** zen neskaren ezpainetan. Unai Iturriaga

Iribarre malenkoniatsu bat **marraztu** zut en Lucasen ezpainek. Aritz Gorrotxategi

Eta eztlarekin mina **marraztuko** zaio begitartean. Joseba Sarrionandia

Sobera mintzatzen ari denaren keinu damutua **marraztu** zitzaion. Aingeru Epaltza

Behin jatorrizko lehen adigaiak edukiz gero, eratorritakoak eta menpekoak erraz erants daitezke, eta adimen hutsaren jatorri-zuhaitza osorik **marraz** daiteke. Ibon Uribarri

## 4 (hitz elkartuetan)

Beste kronikari batek dio Tamesi ibaiko lainoa (hangoxe uretan bustitzen baitzuen etxeak oina) gorrimez izpi **marraztu** zela, eta hots egiteko ezkilaren aho-muturretik zinozefaloen ahotsa itzuri zela. Juan Garzia

Bigarren gauza harrigarria, beharbada bere -eta gure- patua gehien, ondoen aurre-**marraztu** ziona, berriz, aitak esango zion. Jon Maia

## 5 (era burutua izenondo gisa)

Gizaseme, ikusten al duzu Israel herriko arduradunek ilunpetan egiten dutena, bakoitza bere irudi **marraztuen** gelatxoan dagoenean? Elizen arteko biblia

Aspalditik zauzkaat haien buru **marraztuak** paper zorro batean gorderik, nire lantegian. Karlos Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**marraztea gustatzen** (3)

**marrazteari ekin** (4)

**marrazteko eskatu** (3); **marrazteko leku** (3)

**aurpegiak marratzen** (3); **isla marratzen** (3); **lerroak marratzen** (3); **marratzen eta margotzen** (3); **zirkuluak marratzen** (3)

**biribila marraztu** (3); **burua marraztu** (3); **gizonak marraztu** (3); **irria marraztu** (3); **keinua marraztu** (3); **komatxoak marraztu ditu** (3); **lauki bat marraztu** (6); **marraztu zitzaion** (11); **marraztu zuen** (80); **marraztu zuen airean** (3); **zirkulu bat marraztu** (8)

**ongi marraztua** (4)

## marrega iz ehun latza.

Burkoa, berriz, **marrega** bat zen, barruan pochotea zeukana, edo hain artile gogorra edo hain izerditua non egur gisa gogortu baitzen. Juan Garzia

Jakaren bizkarraldea, **marrega** zahar baten tankera hartzeraino higatua. Jose Morales

Egongelan, esaterako, altzari ederrak zeuden, sedazko oihal dotore inondik ere garesti samar erositako batez tapizatuak, baina, nonbait, ez zen oihal nahikorik izan besaulki guztiak janzteko, eta haietako bi **marrega** hutsean geratu ziren. Jose Morales

Oso ozenki jotzen zuen bere kukurrukoa eta bizkor eragiten zien bere hego **marrega** zaharren antzera listuei. Jose Morales

**Marregazko** zaku zarpañil batzuk jarri zenituen zuren eta bizilagun berrien artean. Berria - Kultura

## marro<sup>1</sup> iz aharia. ik zikiro.

Gaur ere arras kasu egiten dute ardi arrazari, **marro** bat ikusi dugu, juan den urtean, 2004 ean, 16 kilo ile finetik eman dituen. Herria

Negurik hotzenean berotasuna oparitzen zien **marro** eta ahari ahulen koraletan. Itxaro Borda

Kasu, bi hortzetarik goitiko **marroak**. Herria

Ardi dalدارaren kontrako planoan, erresistentzia sar-arazi due artaldeetan, edo inseminazio edo **marroen** bidez. Herria

## 2 (hitz elkartuetan)

Hitz hunen bidez nahi dauzuegu jakinarazi **marro** feria zortzi egunez gibelatua izanen dela eta hori Heletako feiraren gatik. Herria

Horrek ez ote dakar **marro**-burruka bat gobernamentuarekin, hunek merkatu horri leku handia emaiten dion heinean? Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**marro feria** (7); **marro salketak** (3)

## marro<sup>2</sup>

### 1 marro egin engainatu, atzipetu.

Horretan ere, goiz hasierako zorte txarrari **marro** egina niola iduri zuen, Gomez de Seguraren hozkailuak ez baitzuen ostatu-hartzailerik falta. Aingeru Epaltza

## marroi (orobat marroin g. er.) 1 izond/iz gaztainaren azalaren kolorekoa.

Puntu **marroi** bat zegoen badiaren erdian. Anton Garikano

Tadeuszek hartz bat zeukan, hartz **marroi** bat. Iban Zaldúa

Gaineko paper **marroia** kendu eta opari bat aurkitu zuen. Iñaki Mendiguren

"Brotxea galdu dut -amonaren brotxea", esan zuen Mintak lanturu doinu batekin eta begi **marroi** handiak malkoz gainezka. Anton Garikano

Begi **marroi** distiratsuak zituen, beti ñir-ñirka, eta azazkalen inguruko hatz-bizarrak amorru biziz koska egiteko ohitura. Mirentxu Larrañaga

Bere begi **marroi** bizi haiekin begiratzen zidan moduagatik. Oskar Arana

Zotal ezkoaren **marroi** ilun-biziaren gisa mugitzen dira dirdaitsu neskaren begi marroiak begi katiluen umeltasunean. Pako Aristi

Ellen bere aitaren ondoan eserita zegoen, Battery-ko banku batean, bere bota **marroi** berriei begira. Lopez de Arana

Azeituna, olio eta salda usain goxoa altxatu zen erratilu **marroi** handitik. Anton Garikano

Artilezkoak zituen galtza lodi **marroiak** eta jertsea. Felipe Juaristi

Lerro **marroi** luze urduriekin zeharkatu zuen oihala. Anton Garikano

## 2 (izenondo batekin)

Bere zamar **marroi** argia bil-bil eginda zeraman, eta mahuka-erdien artetik bezala ageri zitzaizkion eskuak. Anton Garikano

Zelula horiek melanina izeneko pigmentu **marroi** ilun bat dute. Irene Aldasoro

Ilearen kolorea, berriz, aitaren Billyboy zaldi zaharrak bezalako du -gaztaina-kolore **marroi** bizi-bizia. Mirentxu Larrañaga

Frak **marroi** gorrixka, laranja-koloreko praka lasaiak eta lastozko kapela laua. Iñaki Mendiguren

-Amak beste jertse bat bidali dit... **marroi** gorrixka berriro ere... Iñaki Mendiguren

Galtzerdi **marroi** gorritzat iletsu hura puntuz egiten. Anton Garikano

Liburuz estalitateko gela hartako giro **marroi** grisaxkan. **Oskar Arana**  
Ezpainetan **marroi** -txokolate kolorea jarri zuen. **Iñaki Zabaleta**

### 3 (predikatu gisa)

Eta gustatu egin zitzaion Migueli pentsioa, Malanda deitzen zelako eta **marroia** zelako. **Unai Elorriaga**  
Begiak ilunak, **marroiak**, sakonak eta lañoak ziren, eta haragitsua eta ahula ahoa. **Koro Navarro**  
Karibeko irla batekoa, bera, [...] begiak eta larrua **marroiak** zituena. **Pablo Sastre**  
Plataforma hitza da, erdi grisa, erdi **marroia**, nolabait esateko. **Xabier Olarra**  
Eta bere jantziak urdinak edo **marroiak** diren. **Berria - Mundua**

### 4 (kolore hitzarekin)

Lehen, begira ezazu edozein etxetan, kolore **marroia** zen nagusi, egurraren kolorea, bernizarena. kaxmirrezko jertse zuri bat, eta kolore **marroi** arrunteko oinetako orpo luzeoak. **Pako Aristi**  
Urak, egun batzuetan, kolore **marroi** -marroia omen zekarrean. **Juan Garzia**  
- Ez begiratzeko harriari ematen dion kaka bezalako **marroi** koloreari. **Pako Aristi**  
Dena **marroi** kolorekoa ikusten nuen inguruan, txaplaka. **Juan Kruz Igerabide**  
**Marroi** kolorekoa da hegaztia eta, mokoa eta hankak laranja kolorekoak ditu. **Berria - Gaiak**  
Sagartxo hauek, berdeak hasieran eta **marroi** kolorekoak gero, nahiko biribilak eta azal gogorrekoak izaten dira. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Hantxe aparkaturik zegoen autoa, txofer eta guzti, Rolls Royce bat zen, **marroi** kolorekoa, dotorea eta ongi zaindua. kapela biribil bat eta bufanda luze bat, biak **marroi** kolorekoak. **Joxemari Iturralde**  
- **Marroi** argi koloreko trajea. **Joxemari Iturralde**  
**Marroi** ilun koloreko berokia eta galtza marroiak zituen soinean. **Berria - Euskal Herria**  
Uniforme garbiaren ordeaz, berde-**marroi** koloreko soldadua ukan zuten, barda eta fusila arautuekin. **Itxaro Borda**

### 5 (hitz elkartuetan)

Jertse berde-**marroia** zuen soinean gertukoek azken aldiz ikusi zutenean. Marra kiribil hori-laranjen itxura hartuta ur-korronte berde-**marroien** gainean atsedena hartu. **Berria - Euskal Herria**  
Pijamaren galtzak zapata zuri-**marroien** gainetik aski goratuta. **Koro Navarro**

### • 6 iz kolore marroia.

Orain **marroia** desagertu egin da ia etxe guztietatik. **Pako Aristi**

### 7 kolore marroiko pertsona.

Maite dut zurien eta **marroien** eta beltzen arteko hango nahaspila aldakor hori. **Oskar Arana**

### 8 fardela, gauza gogaikarria.

Ez zaitut berriz honelako **marroi** batean sartuko, egon seguru. **Unai Iturriaga**  
Elkarri pasatzen diote **marroia**, inolako soluziorik bilatu gabe. **Berria - Ekonomia**  
Baina ez egidazue **marroi** dena neuri laga! **Unai Iturriaga**  
Gerorako utzi zituen Dionisos, ama, lagunak, **marroiak** eta bezperako kezak. **Unai Iturriaga**

### 9 marroi-kolore izond

Eratat zuria zen ia, **marroi** -kolorea baitzuen zango bat, eta inon ziren begirik zoragarrienak zituen. **Mirentxu Larrañaga**  
Izan ere, beren umeak hazten ari diren behor, behi edo zakur-emearen begi **marroi** koloreetan ere antzeman daiteke Ama Birjinaren zantzu zoragarria. **Felipe Juaristi**  
Une hartan, ahizparen ile-orrazkerari begira zegoen Bain andrea, kizkur-kizkurra eta artatsuki **marroi** -kolorea. **Mirentxu Larrañaga**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**begi marroi** (9); **beroki marroi** (3); **galtzerdi marroi** (5); **galtzerdi marroi gorritzta** (3); **ile marroi** (3); **kapa marroi** (5); **kolore marroi** (4); **marroi argi** (3); **marroi argia** (4); **marroi argiak** (5); **marroi argiaren** (3); **marroi gorrixka** (5); **marroi gorritzta** (4); **marroi ilun** (6); **marroi iluna** (3); **marroi kolorekoa** (5); **zorro marroi** (3)

**begi marroiak** (4); **galtza marroiak** (3); **zapata marroiak** (6)

**paper marroian** (3)

**onddo kapela marroiko** (3)

## marroidun izlag marroiko.

Nolatan iruditu zitzairen nire gurasoei [...] beira lodiko botila txiki gomazko titi zahar **marroidun** haiek gordetzea bidezkoa -edo jostakina, edo burutsua, edo txantxatarakoa, edo...- izan zitekeenik? **Joxan Elozegi**

Ez zegoen jada nahikoa denbora otordu luzeetan patxada ederrean egonaldiak egiteko, hori zen arrazoi bakarra, eta, hortaz, poltsa-**marroidunak** bihurtu ginen, eta liburu-dendako mugarte itoan jaten genituen gure sandwichak eta edaten gure kafe izoztuak, jakiak minutu bakan batzuetan irentsiz. **Oskar Arana**

## marroikara izond marroien antzeko kolorekoa.

Soinean gabardina zeraman bakarra zen, gabardina **marroikara** bat, kontu handiz zaintzen zuena. **Josu Zabaleta**

## marroin ik marroi.

## marroiska ik marroixka.

## marroixka (orobat marroiska g.er.) 1 izond marroien antzekoa.

Gaixotasun bitxi eta inoiz kantzeroso horrek handitu **marroixka** eskergak eta azal zati puztuak eragin ditzake. **Xabier Olarra**  
Neure txakur **marroixka** gris ilun bihurtu zait. **Xabier Olarra**  
Itsasadarrak zurrumbilo **marroixka** nahastuetan korapiloak lotu eta deslotuko ditu itsasorantz. **Sonia Gonzalez**  
Larruazal zurbila, begi **marroixka** argiak. **Unai Iturriaga**  
Ile beltz motzarekin eta amarenak bezalako begi biribil **marroixekin**. **Oskar Arana**

### 2 (hitz elkartuetan)

Basoa zegoen gure atzean, eta txori berde-**marroixka** bat handik atera eta gure gainetik pasatu zen adierazpenari errubrika erantsi nahiz bezala. **Bernardo Atxaga**  
Irribarre egin eta gozoki horixka-**marroixka** bat bota zuen ahora. **Iñaki Mendiguren**



## marroka *adlag* ezkutaketan.

**Marroka** eta... denean... **Menane Oxandabaratz**

Pertsonaia, berriz, patu tragiko eta guzti, **marroka** jolasten ari ote den pentsa liteke; beste pertsonaiekin, eta gurekin ere bai. **Juan Garzia**

## marrokeria *iz* iruzurra.

Pertsonaia, berriz, patu tragiko eta guzti, **marroka** jolasten ari ote den pentsa liteke; beste pertsonaiekin, eta gurekin ere bai. **Juan Garzia**

## marrokoar ik marokoar.

## marrotegi *iz* aharitegia.

Bi urte barne emaitza honak ardietsi dütüe bena Urdiñarbeko **marrotegiak** aholkatzen dü planoaren segitzea ardi tropa osoki arraberritü arte. **Herria**

## marru (160 agerraldi, 71 liburu eta 7 artikulutan) 1 *iz* behiaren eta beste animalia batzuen oihua. ik marruma.

Gaztaroan kortatik gora zetorkigun simaur-sunda bera eta abereen **marruak** aditzen hasia nintzela iruditu zitzaidan. **Txillardegi**

Animalien **marruak**, marrakak eta arrantzak zetozkidan nahasian; baita inguruetan barreiatzen zuten usain berezi hura ere, lasto bustiak, bekorotzak eta zaldi-gernuak batera osatua. **Txillardegi**

Herria esnatzen denean, goizaldean, idien **marruak** aditzen dira. **Koro Navarro**

Bereizitako behi-txahalaren **marruetatik** urrundurik, [...]. **Xabier Olarra**

Ama hilaren odola usaintzen duen txahalaren **marrua**. **Koldo Izagirre**

Patricia nire lepoan aritu da ahuntz bat bezala **marru** eta negar. **Koro Navarro**

Ilunpe hartan nahikoa izaten zen katu baten **marrua**, ontz baten uhuria entzutea, koskorrok halako zer beldurgarrien bat bazebilela pentsatzeko. **Pako Aristi**

Kaioen **marruak** entzuteko. **Pedro Alberdi**

Arrantza eta **marru** ozenak hemendik, irrintziak eta balakak handik, usain azkarra edonon, eta trikiti bizkor bat bozgorailuetatik inguruak blaitzen ari. **Txillardegi**

## 2 orroa, oihua.

Emakumeek **marru** ozenagoak egin zituzten entzuleria berriaren aurrean. **Koro Navarro**

Orduan, bat-batean, deabru sutu bat sartzen zitzaion gorputzean, garrasika hasten zen, intzirika, gizonaren izena oihukatzen zuen **marru** handiz, segi, segi, segi, horrela bai, eta antzeko kontu gehiago. **Karlos Zabala**

**Marru** etsi eta haserrez erantzuten zien halakoei. **Xabier Olarra**

Baina ahoan zerbait edukiagatik, **marru** erdiragariak botaz jarraitzen zuen ume demonioak. **Harkaitz Cano**

## 3 irud/hed

Urrutitik baporeen **marru** luze eta samurra aditzen zen. **Lopez de Arana**

Orduan konprenituko duzu gau horretan baforeen tutuen **marrua** ez dela datorrenari eginiko diosala, galdu denari zor zaion dolua baizik. **Koldo Izagirre**

Bonbardaketa iragartzen zuten sirenen **marru** luze tristeaz. **Alberto Ladron Arana**

Ez ninduten bultzatu, ordea, kirol zelaia eraikitzen ari ziren kamioi eta gruen **marruek** [...] baizik eta beste iragan batetik, iragan hurbiletik, etorritako hots batzuek. **Bernardo Atxaga**

Hona hemen, menturaz, zergatik egiten duen horren **marru** tristea erreka honek. **Koldo Izagirre**

Lurraren errietatik zetorrela zirudien **marru** sorgor hura... **Jokin Urain**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fakturategiko pasarte ugari erakutsi zizkion Unaji jaunak **marru**-algaren artean. **Joxan Elozegi**

Behitegiak, handiak badira ere, leku lasaia izan ohi dira, baina **marru** zalaparta nabarmena entzuten zen gu iritsi ginenean. **Xabier Olarra**

Orduan **marru**-dardarizotan hasten zaizkizu, arraza zuriaren likidazio-salgai horiek, izter artean deus ez dutenak. **Joxe Austin Arrieta**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta zer dira, bada, belarrietara datozkidan ardi-marraka eta behi-**marru** horiek? **Elizen arteko biblia**

Altxatzen ari naizela don Bernardino zerraldo erortzen ikusten dut herio-**marru** izugarri bat emanez. **Bernardo Atxaga**

- Abere **marru** kontzertu kakofonikoa. **Txillardegi**

## 6 marru egin

Behien marruma entzuten ez zuenez gero, ikaratu egin zen pentsatuz abereak azkenetan egongo zirela eta ez zutela indarrik ezta **marru** egiteko ere. **Koldo Biguri**

Gorbeialdean oreinek **marru** egiten duten garaian. **Berria - Euskal Herria**

**Marru** egiten zuten animalia adardunak zebiltzan leku batera. **Juan Garzia**

Tabernaren aurretik neska politen bat igarotzen zenean, Tellagorrik **marru** egiten zuen, hain marru irri-maltzurra, non jende guztia barrez hasten baitzen. **Koro Navarro**

Aldizka barre egiten nuen eta aldizka **marru**, ideia bat zein bestea nagusitu. **Koro Navarro**

Kosk egin zion lepoan, **marru** egin zuen, eutsi ezinda. **Fernando Morillo**

- Umeak **marru** txiki bat egin du. **Berria - Euskal Herria**

## marrubi 1 *iz* marrubiondoaren fruitu gorri mamitsua, ale txiki askoren elkartzeaz eraturikoa, jateko oso ona.

Basoan biltzen diren **marrubi** txikiak. **Marrubi** ustelezko konpotarekin jan. **Karlos Zabala**

Geratu diren **marrubiekin** kontserbak egiten ditugu. **Josu Zabaleta**

"Begira hemen zenbat dauden", esan zuen, eta **marrubiak** sartzeko belar ziri bat atera zuen erotik. **Bernardo Atxaga**

Hitz egin beharrez, **marrubiak** bezalako ezpainak zituela esan nion. **Ramon Saizarbitoria**

**Marrubizko** pasteltxo bat erpuruaren eta hatz erakuslearen artean kulunka erabiliz. **Lopez de Arana**

-Egun on, Loti Eder, ene **marrubizko** izozki goxoa. **Patxi Zubizarreta**

Txokobola potolo handiak, **marrubizko** moussez eta esnegainez beteak. **Iñaki Mendiguren**

**Marrubizko** xanpuren usainak osoki jabetzeko, zabal-zabal ireki ditu birrikak. Eider Rodriguez

**Marrubizko** lepokoak, belar ziri batean sartutako perla arrosak. Bernardo Atxaga

Baina nola imajina John Lennon **marrubizko** zelaietan, mututurik, for ever? Joxerra Garzia

## 2 (edukiera neurrien)

Lau pote haragi, bi pitxer **marrubi**, bi pitxer masusta gorri eta larramahats. Josu Zabaleta

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Amak egindako **marrubi** tarta bat. Josu Zabaleta

**Marrubi** flan bat, otu zaio goizean eskuan ipini duenean. Eider Rodriguez

**Marrubi** -puzet betetako tinak. Anton Garikano

Esperlin saskiak, saskitxo garbiak, **marrubi** saskiak bezain politak, bioleta usain handia hedatzen zutenak. Karlos Zabala

Zubiaren petrilerantz egin zuen, eta **marrubi** ziria hartu. Bernardo Atxaga

**Marrubi** urrina zuen haren zapi txarki lotuak. beren Masailetak **marrubi** kolorea, beren begi alaien argi tanta. Karlos Zabala

Aranjuezen **marrubi** kolorez ikusten zirela gauzak. Ramon Saizarbitoria

## 4 *basa-marrubi*

Fruta osten zuen eta masustak eta **basa-marrubiak** hartzen zituen. Koro Navarro

## 5 *marrubi ale*

Orain **marrubi aleak** bereizten ari da. ezpainak busti-bustiak zeuzkan, **marrubi-ale** freskoak baino goxoagoak. Alberto Barandiaren

## 6 *marrubi landare*

Arbolaxka txukun inausiak, igali zuhaitzak lorez betetzear, **marrubi landareak**, mahastiak... Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**marrubizko izozki** (5)

## marrubidun *izond* marrubiak dituen.

Izarak zikintzea, marmelada **marrubiduna** denean batez ere. Ramon Saizarbitoria

## marrubiondo *iz* arrosaren familiako landarea, zurtoin herrestaria, hiru zatitan bereizitako hosto horzdunak, lore zurriak eta fruitu gorri mamitsuak dituen (*Fragaria vesca*). ik **marrubi** 6.

Aihen meheak bota aurretik **marrubiondoak** egiten duen gauza bera egiten zuten emakumeek: berdetasuna aldatu. Anton Garikano

## marrubitsu *izond*

Ezin, beraz, neure koldarkeriari leporatu, ezpain **marrubitsu** horien zaporea neure hartan dastatzeko urratsa egin ez izana. Aingeru Epaltza

## marruka 1 *adlag* marru eginez.

Behi bat ikusi genuen hesitik kanpo, batera eta bestera, bere txahalaren bila eta **marruka**. Xabier Olarra

Ateari uxarka zezena, neskak irazkian ehotzen, mendi urruna ketan, eta **marruka** idi gorria... Patziku Perurena

Umea **marruka** ari dela aterako zara parketik. Arantxa Iturbe

Bob Dylan ari da **marruka**, "Visions of Johanna" kantatzen. Pako Aristi

Nire argia berdetuta abiatu zen Audia, **marruka**, karrikan barrena. Aingeru Epaltza

Ferekatzen utzi nion, ukitzen, zabalitzen, lauoinka jartzen, **marruka** nenbilela eta *zezen nirea* deitzen niola, musukatzen utzi nion, mingaina pixka bat sartzen, [...]. Karlos Zabala

## 2 (hitz elkartuetan)

Jendea zirika eta barreka zebilen, oihuka emakumeak, zaunka eta larrujoka txakurrak, negar **marruka** bularreko haurrak. Pablo Sastre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**marruka ari** (5); **marruka hasi** (6)

## marruma (*108 agerraldi, 41 liburu eta 10 artikulutan*) 1 *iz* behiaren eta beste animalia batzuen oihua. ik **marru**.

Egiten al du basastoak arrantza belarraren aurrean, edo idiak **marruma** zer janik baldin badu? Elizen arteko biblia

Ukuilutik behien deabruzko **marruma** iristen zen. Koldo Biguri

Txahala egin behar zuen behiak ozen entzunarazi zuen bere **marruma**. Koldo Biguri

Mendi eta basoetako isiitasun berezian, txorien kanta eta azienden **marruma** besterik ez denean, edo ardi, behi eta behorren arranena, oso goiko antzar eta kurrilloen garramixtoetaz ere jabetuko zen gure aitona. Pello Zabala

## 2 irud/hed

Kanpoan haizearen **marrumak** nagusitzen zirela, [...]. Itxaro Borda

Gora eta behera egiten duten uhinen **marruma** gorgarrian. Koldo Izagirre

Itsasoaren **marruma** eta antxeten oihu xorrotzak ziren haien konpainia bakarra. Elena Touyarou

Turutaren **marruma** ja urrunago zen. Aurelia Arkotxa

Tarteka, ibaitik, sirenaren **marruma** erlatsa entzuten da. Jon Alonso

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zen hain gizon handia ere, baina haren altzairuzko begiek barne-muineraino zulatzen gintuzten, eta haren ahots-**marruma** kolpekariak ikaratu egiten gintuen. Mirentxu Larrañaga

Ihizi denbora hasia dugu, xakur **marruma** eta tiro. Herria

Bihar laneguna da eta izotz fabrikaren motor **marruma** apala baino ez da entzuten. Koldo Izagirre

## 4 *marrumaz* marrumaka.

Aratxe eta behiak entzun nituen **marrumaz**, ardiak aldiz marrakaz. Etxeetako atek xehekatu zituzten, oheak hautsi, haurrak iratzarri, zaharra inarrosi, behi esnedunak **marrumaz** eta ardi kankailak marrakaz agorrazazi. Daniel Landart

Aziendak bordatik marrakaz ziren, saihetsean urdeak rurrinkaz eta haizea **marrumaz** mendi muinoetan behera lerratzen. **Itxaro Borda**

## 5 marruma egin

-Mmmmm! - **marruma** egin zuen On Camillok, ukabilak besteaen sudurpean ipiniz. **Koldo Biguri**

-Curtis! - **marruma** egin zuen Matson jaunak. **Mirentxu Larrañaga**

Lehoikumeak gordelekutik **marruma egiten** ote du, ezer harrapatu ez badu? **Elizen arteko biblia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**marruma egin** (5); **marruma egin zuen** (3)

## marrumaka *adlag* marruma eginez. ik **marruma 4**.

Leihoa itxi zuen zezenen **marruma** entzutean. **Juan Garzia**

Behi bat entzuten du, **marrumaka** ari, beti idekia atxikitzen duen ganberako leihotik. **Herria**

Behiek Bet-Xemexerako bidetik jo zuten zuzen-zuzen; aurrera zihoazen bidez bide, **marrumaka**, ez ezkerrera, ez eskuinera saihestu gabe. **Elizen arteko biblia**

Lehoikumeak gordelekutik **marruma** egiten ote du, ezer harrapatu ez badu? **Elizen arteko biblia**

Gau eta egun hilobi artean eta mendirik mendi ibili ohi zen etengabe, **marrumaka** eta bere burua harriz joka. **Elizen arteko biblia**

Minez eta errabiaz **marrumaka**, lurrunezko laino baten erdian urtuz zihoan munstroa, sufrezko sunda ingurueta hedatuz. **Joanes Urkixo**

Atera zitzakon Boloki-ko iturrian gatu itsusi bat **marrumaka**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Anartean, ezkerrean **marrumaka** dabilta, eta zer hixtuan, gobernuak, alegia-eta deusez, aldaketa hori, dena jukutria, aberatsenen alde egiten duela eta ez batere jende xehearen onetan **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**marrumaka ari** (5)

## marrumalari *izond* marruma egiten duena.

Ohean gabe txalupa batean zegoela begitandu zitzaion, Ellen bertan bakarrik utzia baitzuten, beti bakarrik, itsaso **marrumalarian** barrena. **Lopez de Arana**

## marrumatsu *izond* marrumaz betea.

Nazioen marruma, ur handi **marrumatsuen** bezalako marruma! **Elizen arteko biblia**

## marrus-marruska *adlag* marruskatuz.

Katila hustu, bertze galleta bat zorreratu eta, marrus-**marruska**, leku egin nion putzutik atera nintekeelako sentipen lagungarriagoari. **Aingeru Epaltza**

## marruskadura 1 *iz* indarrez igurztea; igurzte horren ondorioa.

Eta kasu emateko oihan eta larreetan, zango-aztalak **marruskaduraz** beterik ekarri baitzuten lehengo asteburuan. **Aingeru Epaltza**

Autoari **marruskadurarik** txikiena egin gabe. **Aitor Arana**

Oinen azpian bada halako lur hutsaren bertigo bat, hartxintzar askeen **marruskadura** belarri ertzean, gaizki zigilatutako zementuaren sentipena, halako anklaje falta bat zutikakoaren bertikalitasunean. **Harkaitz Cano**

Mendigune harritsuan haizt blokeen artean ura sartuz gero, bultza egiten du, haitzen arteko **marruskadura** eragotziz. **Berria - Harian**

### 2 (fisikan)

**Marruskadura** handiagoa da hodi mehar batean zabal batean baino. **Irene Aldasoro**

### 3 (hitz elkartuetan)

Egoera horretan, globuluak pareten kontra igurzten dira, eta, horrenbestez, **marruskadura** -erresistentzia areagotzen. **Irene Aldasoro**

Giza giltzadura askoren **marruskadura** -koefizientea 0,005 eta 0,02 bitartekoa da: ingeniariartzako teknika aurreratueneke nekez hobe dezaketene emaitza. **Irene Aldasoro**

## marruskari *iz* marraskaria.

**Marruskari** batek beldurra sartzen dizu; ez da lan zaila! **Juan Garzia**

## marruskatu, marruska(tu), marruskatzen 1 *du ad* gogor igurtzi.

Astiro eta nekez, erratza eta pertza hartuta, fregatzen, **marruskatzen**, hondamena eta ustela geldiarazi zuten. **Anton Garikano**

Palaz jotzen zituen lehentxeago zurezko taulan salboinez **marruskatu** zituen jantziak. **Elena Touyarou**

Eskuak **marruskatzen** zituela ematen zuen bere iritzia agertu zuen aldietan. **Joxean Agirre**

Horren ordez, Del Valleren harridurarako, ezpain ertzetik zintzilik zeraman zigaretta hartu eta Wagnerren diskoaren azalean **marruskatuz** itzali zuen. **Alberto Ladrón Arana**

### 2 gogor igurtziz higatu.

Egurra **marruskatzeko** makinaren eta zerraren artean, etzanda egon behar izan genuen txirbilaren gainean. **Rafa Egiguren**

Begiak ikusteko, haginak **marruskatzeko**. **Piarres Xarriton**

Harriak lurraren kontra **marruskatzean** egiten duen urratu-hotsa ateraraziz. **Jon Alonso**

Gero hartzen ditu hitz horieku eskuetan, eta irakurri egiten ditu edo, (euskaraz) gauza bera dena, aletu [...] eta zukutu egiten ditu, elkarren kontra igurtzi-igurtzi egin, estutu eta **marruskatu**. **Iñaki Segurola**

### 5 irud/hed

**Marruskatu** egingo dut Jerusalem, garbitzeko alde batetik eta bestetik platera **marruskatu** ohi den bezala. **Elizen arteko biblia**

Bere gogoetak suntsituta ikusten zen gizon hura, harrak fruitua jaten duen bezala, pentsamendu batek, bere Pentsamenduak, **marruskatua**. **Josu Zabaleta**

### 3 esku artean gogor erabiliz, zimurtu edo desitxuratu. ik **lauskitu**.

Malakoak lehortu eta musuzapia **marruskatzen** hasi nintzen, kabitu ezinez. **Anjel Lertxundi**

Tarteka, painelua hartu eta zintz egiten du, eta berriro jasotzen du berehala, hots, **marruskatzen** du bere esku urdurian. **Joxe Austin Arrieta**

Nire izarak **marruskatzen** ari da. **Iñaki Mendiguren**

Hartu zuen, kri-kra papera **marruskatu** zuen, aitonari begiratu zion... eta bota. **Pablo Sastre**

Zerbeza lata hatz artean **marruskatu**, eta HIESaren kontrako txosnara abiatu da. **Patxi Iturritegi**

Mami sendoa eta zaporea barnean gordetzen zituen oskol zakarra **marruskatzera**. **Juan Garzia**

## 4 marraskatu, hortzikatu.

Jaiki, komunera joan, bi galleta **marruskatu** -igandekoak bezain zahar eta jangaitz- eta baso bat ur edan ondotik egunkarira deitu nuen. **Aingeru Epaltza**

Sagu tripa-hutsak iduri, soin gaineko arropen larru higatua **marruskatzera** abiatzeko puntuan ginen. **Aingeru Epaltza**

Hurrena, hortzez **marruskatu** ditu bere familiak xerretan utzitako arrasto hori gozoak. **Itziar Otegi**

## 5 irud/hed

Indarra erakutsi beharko du gaurkoan Lleidaren kontra (18: 30, ETB1), hain zuzen, Eibarren zelaian, Ipuruan, puntu bat **marruskatu** duen talde bakarra. **Berria - Kirola**

Umeak, libre duen eskua zerurantz altxatu, eta atzamarra luze, inoiz erabili gabeko hitza **marruskatu** du ezpain artean: [...]. **Iñigo Aranbarri**

Tapaxek hitzerdi batzuk **marruskatu** zituen; bere painueloa atera zuen urduri, harekin buruko zauria buxatu zion lagunari; laster gorritu zen hura. **Pablo Sastre**

Nik oihu egin behar nukeela; nire eskuek txiki-txiki egin behar zuketela elkarren kontra euren etsipen larria **marruskatuz**. **Juan Garzia**

## 6 (era burutua izenondo gisa)

Baina orain eraikin triste bat iruditzen zait, latorrizko pote **marruskatu** bat erreka-bazter zikinera jaurtikia. **Patxi Iturritegi**

Hagrid mahuka-hutsik zegoen zurezko mahai **marruskatuan** eserita. **Iñaki Mendiguren**

Sabai **marruskatu**en gainera jausten ziren harriak, haurrek hondartzan egindako uhinak legez. **Javi Cillero**

## marruskatzaile *izond* marruskatzen duena.

Bazuen zerbait arratoiarenik, iputatsarenik eta zakur lasaiarenik, bilatzaileen, **marruskatzaileen**, ehizatarien eta nekazainen familiakoa zela, alegia. **Josu Zabaleta**

**-Marruskatzailea**, salbagarria, zaurigarria, sortzailea. **Karlos Linazasoro**

## marruskatze *iz* gogor igurztea.

Konkorra beti hor dago, telaren **marruskatzearekin** gozatuz, itsasoan sartzean uzkuratzen denean sentitzen duten hotzikarekin **Berria - Kultura**

## marrusketa *iz* zurginaren lanabesa, barneko zuloan zeharka burdinazko xafla ahodun bat duen zurezko prisma batek osatua, zura marruskatzeko eta leuntzeko erabiltzen dena.

Ni arozgintza ikasten hasi nintzen, eta maisuak zerra edo **marrusketa** ukitzen ere ez zidan utzi sekula. **Koro Navarro**

## marseilatar ik **marseillar**.

## marseillar *(orobat marseilatar eta marsellar) izlag/iz* Marseillakoa, Marseillari dagokiona; Marseillako biztanlea.

Egoitza berrian ezagutuko ditugu Anatole karrika-kantaria, Marius berritsua, Zé **marsellarra**, [...]. **Pablo Sastre**

Liverpool eta Baionako portuen artean kamioiak karreatzeko proiektua azkenean bertan behera utzi behar izan dute, finantzamendu nagusia beregain hartzekoa zuen

armadore **marseillarrek** gibelera egin duelako. **Berria - Ekonomia**

**Marseillarrek** baleztekin goritutako burdin barrak jaurtiz fortifikazio hura dena suntsitzea lortu zuten. **Santiago Iruretagoiena**

## marseillesa *iz* frantziar ereserkiaren izena.

Ez zuten, Irlandan bezala, eskua bihotzaren gainean **Marsellesa** jo delarik. **Herria**

Hizkuntza, frantsesa noski; bandera, zuri-gorri-urdina, eta ereserkia, **Marsellesa** odoltsua. **Hasier Etxeberria**

## marsellar ik **marseillar**.

## marsupial ik **martsupialio**.

## marta *iz* leporariaren larrua.

Azkenean atea zabaldu, eta emakume gazte bat ikusi nuen, hanka-hutsik, gau-atorraren gainean **martazko** beroki bat jantzita. **Koro Navarro**

## marteilu *(orobat martelu) iz* ipar mailua.

Ferreiros herrian baziren ferratzailleak, zaldien aztaparrak eta erromesen oinetakoak itzaten zituztenak aita zenaren **marteiluaren** ukaldi adretak, belauen artean zituen eskalapoietan joak, oraino entzuten ditut. **Piarres Aintziart**

Harri pikor eta errauts airaraziz, Piarres-en aratsalderoko **martelu** eta zizel ukaldiek eman diote emeki-emeki forma eder bat harri lauzari. **Herria**

## martelu ik **marteilu**.

## martera *iz* Marten mintzatzen omen den hizkuntza.

Eta hori aski zuzena da, Marteko kontuek bai baitute, ez pentsa, pisu handia guretako, zuk ez bezala nerabetasuna aspaldian gibelean utzi genuenendako, zeren zure adinean zalantzak baikenituen guk planeta hartan **marteraz** egiten zuen jenderik bizi ote zen menturaz. **Pello Salaburu**

## **martetar 1** *iz* Marteko biztanlea. ik **martziano**.

**Martetarrak** Lurra inbaditzen ari ziren. Iñigo Aranbarri

**Martetar** -koxkor berderen batek? Jon Alonso

Baina gaur laguntza eske natorkizu, zeren, oraindik denbora luzeegi ez dela, B-12 izeneko **martetar** bat etorri baitzaigu Arantzazura, **martetar** euskaldun bat, zeren, inoiz susmatu bezala, azkenean frogatu baita hiperespazioan euskaraz baizik ez dela mintzatzen. Jon Alonso

### 2 martera.

Bat-batean **martetarrez** hitz egingo banio bezala begiratu zidan. Jon Muñoz

## **marti 1** *iz* martxo.

Eguzkixe ta eurixe, **martiko** egualdixe. Pello Zabala

Andra Mari **Martiko**, beiak mendira jaurtiko. Pello Zabala

### 2 *marti-zozo*

**Marti** -zozoak berak ere, urte batez, ez omen zeukan kantatzeko gogo handirik, eta dena, Martxoak ekaizte zakar baten ondotik, bere habiako umetxoak galdu zizkiolako.

Pello Zabala

Andra Mari Martiko: orri karga lepoan, eta **marti** -zozoa kolkoan. Pello Zabala

## **martimuilo** *iz* arrabola.

Oso usain ona zuen eta erraz asko biraraziko nuen lurrean, pirrilaka, **martimuilo** koxkor baten antzera. Etxera itzuli nintzen **martimuiloan** gau osoa lotan egin ondoren, eta igo nintzen apur bat gehiago lo egiteko. Joxan Elozegi

Hilerriko atean, **martimuiloa** aurrera eta atzera zebilen, zarataka, bide asfaltatu berrian zehar. Lopez de Arana

Hala ere, industriaren kapitainek honela, aldi batez, beraiek egindako **martimuiloak** zanpatuta geratzeko patuari ihes egiten zioten bitartean, [...]. Iñaki Mendiguren

## **martin** cf **mari**.

### 1 *martin arrantzale* *iz* hegazti igokaria, moko-luzea, luma distiratsuak dituena, ibaien eta aintziren inguruan bizi dena.

Batzuetan, ibai-bazterrean behera egiten genuen, eta **martin arrantzaleen** ñir-ñir distiratsuei begira egoten ginen han. kanabera artean ezkutaturik, **martin-arrantzale** ñabarra, lezka-txoria, uroiloa eta kopetazuri maltzurra egon ohi dira. Mirentxu Larrañaga

### 2 *martin-saltsero izond*

Kazetari **martin** -saltsero bat, koilara zopatan harrapatua. Aingeru Epaltza

## **martinete 1** *iz* mailu handi bat duen tresna, mekanikoki higitzen dena.

Barru horretan ezer ez badago, irakurle hori hustutako piano bat bezalakoa baldin bada, alferrik ibiliko dira **martineteak** joka: hutsa joko dute, eta ez da han soinurik izango.

Bernardo Atxaga

### 2 kanta flamenkoko mota.

Enrique Morenteri asko gustatzen zaio flamenkoaren dramaturgia: eskuak mugitzea, aurpegiaren keinuak ateratzea, begiak ixtea -umorea ere badu gizon honek: agurreko

**martinete** kantuan ahotsarekin jolastu zen, Bobby McFerrin izango balitz bezala- konpasa galdu gabe. Berria - Kultura

## **martingala** *iz* trikimailua, amarrua.

Toskanako dukeak telefonorik edo horrelako **martingalarik** izan balu, [...]. Pello Zabala

Edozein langintzatan, puntako egile batek bere lan-prozedurak, kezkak eta **martingalak** agertzea beti da ikuslearentzako plazer eta opari. Andoni Egaña

Honek asmatu du eta atera nonbaitetik bere trikimailu eta **martingala**! Pello Zabala

Geure egiaitxoa kosta ahala kosta gainerakoenen gainetik ipintzeko, logikari, zentzun onari eta gizalegeari egiten dizkiogun amarruen, **martingalen**, tranpen zerrendatxoa.

Joxerra Garzia

Amarru edo **martingala** horietako bat da entimema. Joxerra Garzia

Erreparatu bereziki haizeari: hori baita hemengo eguraldiaren **martingalak** erabakitzen dituena. Pello Zabala

Gauero egiten dit **martingala** bera. Patziku Perurena

Arrazoia izatearen artea, 38 **martingalatan** azaldua. Joxerra Garzia

## **martingalatxo** *iz* martingala txikia.

Zenbat gozatu dudan, eskola txikietan, eguraldiaren **martingalatxoak** esplikatzten: magia deritze txikiei hurrengo eguneko eguraldiaz jakin ahal izatea. Pello Zabala

## **martinikar** *izlag/iz* Martinikakoa, Martinikari dagokiona; Martinikako herritarra.

Parisen urteak eman ostean, Aime Cesaire **martinikar** idazleak sorterriaren berora itzultzea erabaki du. Iñigo Aranbarri

Lehen aldikoz hitz egiten aditzen zen Jean **martinikarrak** huxtukatu zuen, Beinati Liburua eskutik ebatsiz Itxaro Borda

## martir ik **martiri**.

## **martiri** (*orobat martir g.er.*) 1 *iz* fede bati uko ez egiteagatik heriotza pairatu duen pertsona.

Doneztebe lehen **martiriaren** eguna. Berria - Mundua

Santa Ines birjina eta **martiriaren** Liturgi ofiziotik hartutako esaldiak dira. Askoren artean

**Martiri** honen jaia urtarrilaren 21ean ospatzen da. Askoren artean

**Martiri** izateko irrika sutsuz, Siriara joatea erabaki zuen, musulmani eta beste fedegabeei kristau fedea eta penitentzia hots egitera. Askoren artean

Aitortza laburrari ezpata-kolpeak jarraitu zion, eta horrela, **martiri** bezala bukatu zuen bizia. Askoren artean

Elizako **martiriak**. **Koldo Izagirre**

Begiratzan dit, burua atzera eramanik, begiak erdi itxirik dituela, ahoa ia zabalik, **martiri** baten piura du. **Monika Etxebarria**

## 2 bere iritzengatik hiltzen den edo gogor sufritzen duen pertsona.

Sokrates ez zen **martiri** filosofiko bat, paganismo jazarleak heriotzara emana. **Iñaki Mendiguren**

**Martiri** bat egin du gu eta ezin zaitezke atera orain herriak miresten eta maite duen izaki hori asmakizun bat dela esanez, golem bat, klon bat edo nik al dakit zer. **Joxean Agirre**

Erreformaren **martiri** baten iloba. **Aingeru Epaltza**

Iraultza guztiek dituzte beren **martiriak**, eta Soroetako Permin izan zen, hain zuzen ere, iraultza zuriak izan zuen lehena. **Joan Mari Irigoien**

Aitzindari haietako bat hil egin zen, eta idazleak **martiri** deitzen zuen. **Koro Navarro**

-Oso gogoz kontrako **martiria** nauzu -zehaztu zion Oppenheimerrek. **Fernando Morillo**

Ez ginen ez heroi, ezta **martiri** ere. **Edurme Elizondo**

Hamaseko hiru kide eta **Martirien** Brigadako beste bat hil ditu Israelek. **Berria - Mundua**

Al Aksako **Martirien** Brigadak hartu du bere gain eraso suizida. **Berria - Mundua**

So dagoenaren begiradan baitago ñabardura; ni neu insumiso izateagatik kartzelaratu nindutenean ez nuen nire burua **martiritzat**. **Berria - Euskal Herria**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Martiri** -seinale haiek ez zuten ikusleen barnean beldur-ikara sortzen. **Askoren artean**

Bizia etsaiaren ezpatapean galdu ez zuen arren, **martiri** koroa ez zuen galdu! **Askoren artean**

Apez, apostolu, **martiri** bokazioneak... **Herria**

Isaaken, Lauaxetaren eta Etxebarrietaren **martiri** tradizioa gaurko egoera politikora nola egokitu? **Joseba Zulaika**

Dusselek **martiri** aurpegia jarri zuen. **Josu Zabaleta**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garaipenaren orduan kristau-**martirien** amorerik ez ematea kristau-jazarleen tolerantziarik eza bilakatu zen. **Iñaki Mendiguren**

## 5 (izenondo gisa)

Haur **martiri** errugabeak. **Anjel Lertxundi**

Santu **martiri** bat bertakoa izatea edozein herrik ohore handizat daukanez, [...]. Lehen bost frantziskotar **martiriak**, Marokon hilak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Halladj poeta **martiria**. **Joan Mari Irigoien**

## 6 (adizlagun gisa)

Ez nuen dardararik egiten; neure burua **martiri** ikusten nuen. **Juan Kruz Igerabide**

Aldarearen gainean Pankrazio nerabea agertzen da, basaki bere 14 urteetan **martiri** hila. **Txillardeggi**

Ohore handizat jotzen baitzuen, **martiri** hildako anaiei buruz hau esan ahal izatea: "Nik ezagutu nuen hori edo beste hura". **Askoren artean**

**Martiri** hiltzeko indarrak aski izanen ote duk? **Xipri Arbelbide**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**erreformaren martiri** (3); **martiri izan** (5); **martiri izateko** (13); **martiri izateko irrika** (3)

**lehen martiria** (6)

**martiriaren bidea** (3); **martiriaren eguna** (3)

**al aksako martirien** (90); **janingo martirien** (4); **janingo martirien brigadek** (3); **martirien brigadak** (19); **martirien brigadak hartu** (3); **martirien brigadako** (5); **martirien brigadek** (32); **martirien brigaden** (3); **martirien brigadetako** (39); **martirien brigadetako ekintzaile** (10); **martirien brigadetako kide** (3); **martirien eguna** (4); **martirien odola** (3)

## martirio *(51 agerraldi, 24 liburu eta 10 artikulutan)* 1 iz bere fedeari uko ez egiteagatik, martiriak pairatzen dituen estirak edo heriotza. ik **martiritza**.

Apaizok bi aukera izango dugu: edo gure fedeari uko egin, edo **martirioa**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Roman hasi zitzaion obispoari labor-zurreen kontatzen zer gertatzen ari zen eta nola hurrengo baterako utzi beharko zuen **martirioaren** loria. **Inazio Mujika Iraola**

Adiskide ditugu, beraz, larrialdi eta estuasunak, lotsa eta irainak, oinaze eta tormentuak, **martirio** eta heriotza bidegabek eragiten dizkigutenak. **Askoren artean**

Mahoma profetaren bilobaren **martirioa** itxuratzearren. **Berria - Mundua**

Jesusen **martirioa** bere gordintasun osoan filmatu nahi izan du. **Berria - Kultura**

## 2 irud/hed

Etxebarrietaren **martirioan** aurkitu zuen ETak bere izatasuna. **Joseba Zulaika**

## 3 estira handia, oinaze gogorra.

Gorputza menderatu lezakeela zigorrez eta **martirioz**, edozein jainkotze amesturen alde, lurra gaitzetsiz zeruratzte bidean. **Patziku Perurena**

*Martitzeneko ezkontza* **martirioa** / dio beste atsoitz batek. **Pello Zabala**

**Martirio** txikiak (estiratzea eta erpuruak zanpatzea) abolituta zeuden, baina torturarik garratzena, kartzela, bizirik zeukanagu. **Anton Garikano**

## 4 (hitz elkartuetan)

Ohartu ziren gay eta lesbianek askoz gehiago erabiltzen dituztela **"martirio** teknikak", hau da, estimulazioa moteltzea edo gelditzea kidea orgasmoa lortzetik gertu dagoenean, jolasa luzatu eta eszitazioa handitzearren. **Luis Elberdin**

Bizkar aldetik Jesukristo gurutziltzatuak begiratzan ziguin, **martirio** unerik latzanean beti, gure axolagabekeriari begira, *Nik bai sinesten dudala zuengan* esanez bezala.

**Joseba Sarrionandia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

**martirioa jasan** (3)

## martiriotzaile *izond* martiritzen duena.

Garai batean paganoak izan ohi ziren eta juduak santuen **martiriotzaile**. **Joan Mari Lekuona**

## martiritza *(50 agerraldi, 7 liburu eta 3 artikulutan)* 1 iz martirioa.

Heldu da azkenik irabazia zenuen **martiritza**, jendaurrean eta eguzkitan bezain bakar eta urrun. **Koldo Izagirre**

Erregeak ongi iritzi zion proposamenari, portugaldarren artean amorratiozko marmarrak entzun baziren ere, hilik ere **martiritzaren** loriak ukatzen zizkietelako. **Jon Alonso**

**Martiritzaren** palma-adarra lortu dutela. **Askoren artean**

## 2 (hitz elkartuetan)

Espainiara igaro ziren anaietatik bostek **martiritza** -koroa lortu zuten. Askoren artean

Eta **martiritza** -irrikaz suturik, laurogeita hamar anaia inguru altxa ziren, beren buruak heriotzara emateko prest. Askoren artean

## martirizatu, martiriza(tu), martizatzen 1 du *ad* martirioa jasanarazi.

Irailaren 19an, saildua **martirizatu** zuten egunean. Joan Mari Irigoien

**Martirizatu** (torturatu) zutenean, parrilla batean erretzen, zera esan zioan borroeroari: alde horretatik kixkalita nago dagoeneko; buelta emaidak mesedez. Jokin Urain

### 2 irud/hed

Turkiak ehunka mila armeniar **martirizatu** ditu eta hori da oraingoz orbaindu ez den zauri bat. Hona mendebaldeko gizartea **martirizatu** duten lau tabu nagusiak: [...].

Berria - Mundua

Gero areago **martirizatu** zuten piztia errukarria. Koro Navarro

-Eta prostituzio etxeetako ugazaba horiek guztiak -jarraitu zuen Andresek esanez- beren emakumeak **martirizatze**ko ohitura dute. Josu Zabaleta

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Buruzagi abertzalea «Galizia **martirizatuaren** ikurtzat» jo du Blokeak. Berria - Mundua

Eskua zezen **martirizatuaren** zaurietan sartu eta, nik zuri, zuk niri, aurpegiak eta betarteak zikindu eta pintatu zizkioten elkarri, odolez, mota guztietako txantxa trauskilen artean. Joan Mari Irigoien

## martirologio *iz* martiren zerrenda.

Santa mordoxka dago Luzia izenarekin Elizaren **martirologio** deritzan martiren zerrenda santuekiko horretan. Pello Zabala

## martitzen *iz* asteartea.

Izan ere astero egiten zuten bisita, **martitzenetan** gehienetan. Unai Iturriaga

-Ez nizan esan, baina pasa den **martitzenean** Fonsecarekin egon nintzen, eta maileguan utzi zidan egun batzuetarako. Josu Landa

**Martitzeneko** *ezkontza martirioa!* dio beste atsoitz batek. Pello Zabala

**Martitena** ta barikua egun txarrak dira lan barri bat hasteko, gomendio hau ez zizuten berehalakoan ahaztuko gure aurrekoek. Pello Zabala

## martiztar *iz* martetarra.

**Martiztarrek** eta lurtarrek elkarrekin topo egingo balute. Jon Alonso

Urtebete lehenago, aiseago sinetsiko nuen egiazko **martiztar** batekin partekatuko nuela bizitegia, gure anaia gazteenaren apopilo izanen nintzela baino. Aingeru Epaltza

## martsupialio (*orobat marsupial*) *iz*

**Marsupial** baten kode genetikoa argitu dute lehen aldiz, zarigueiarena. Berria - Gaiak

Ugaztun eme eboluzionatuagoek -**martsupialioek**, lehenengo, eta plazentalioek, geroago- bereizi zituzten bi funtzio horiek hodi banatan, eta, horretarako, bagina garatu zuten. Luis Elberdin

Hego Amerikako **marsupialak** Australiakoetatik berezi ziren duela 70 milioi urte, eta berezko eboluzioa izan dute geroztik. Berria - Gaiak

Stephen Wroek taldeko arduradunaren arabera, ordea, **martsupialio** harrapari ugari bizi ziren duela milioika urte Australian. Berria - Gaiak

## martxa 1 *iz* urratsa, ibilera.

Berlinak bere **martxa** astirotu zuen. Anjel Lertxundi

Beste hainbat atzeratuta, besteen **martxari** jarraitu ezinda, edo txangoaz baino bide bazterreko loreez axolatuago. Xabier Mendiguren Elizegi

Bide luzetik joan beharra zegoen, bidezidorrak erabili gabe, eta astuna gertatzen zen **martxa**. Koro Navarro

Eguneroko **martxa** horretan. Pello Zabala

Hala ere, denboraren **martxak** berak erakutsiko dio kartzelarien mainek xede argia dutela. Filipe Bidart

Hara egun bateko **martxa** nolatsu zen... Pello Zabala

Gure **martxa** ere gero eta motelagoa; semaforoak, betiko butxadurak, eta gure kamioia, bere hodi luze haiek dindilizka, beste ibilgailu guztiak baino gangarrago. Joxe Austin Arrieta

Hanka batetik herren nabarmena du eta ibilian zeharo nekatzen da, baina hori ez da traba Hondarribian duten jatetxearen **martxa** eramateko. Xabier Etxabe

Programak, ordea, bere **martxa** jarraitu zuen. Karlos Linazasoro

Gero prozesuak bere **martxa** hartuko zuen. Iñaki Iñurrieta

Kartzela berri batera iristen zaren bakoitzean, zure **martxa** ezerezetik hasi behar duzu. Jokin Urain

-Etxea hustuko zidak **martxa** honetan... zer nahi du oraingoa? Iban Zaldua

Bere **martxan** jarraitu zuen, automobilaren ondoan gelditu gabe. Xabier Olarra

Hala ere, zenbait gauzak betiko **martxan** irauan behar zuten ezinbestean, eta horien arteko bat gure gosea zen noski. Juan Garzia

### 2 (izenondoekin)

Ikerketak **martxa** onean zihoazela zioten. Luis Elberdin

Merkatu beltzak **martxa** bizian dihardu. Josu Zabaleta

Gau osoan ibili ziren horrela, eta **martxa** nekosoia zen oso, bi pausora ere ez baitzen ikusten, bidezidorra harriz beteta zegoen, eta zuhaitzen adarrek aurpegian jotzen zuten. Josu Zabaleta

Eta, urrats bati hurrengoak jarraiki, ezarian, eguneroko **martxa** betikoan, hau dena bizi izan dugu. Pello Zabala

### 3 ibilaldia.

Aljerian bildua nuen **martxaren** gustua, Bordeleko karrketan gozatzen nuena igande arratsaldetan, orenak eta orenak ibiliz. Piarres Aintziart

Villabonan hasi eta Ibarren amaituko da **martxa**, eta bidean Zizurkil, Anoeta eta Tolosa zeharkatuko ditu. Berria - Euskal Herria

Ederrak ordea hara egin genituen **martxak**. Jokin Urain

Ordu baten buruko, **martxak** gorputza fleitean ezarri dit, kasik gazte espantu batek beroturik, eta naturak eskaini didan adiskidantzarri eman naiz. Piarres Aintziart

Oraindino zereginean segitzen duen beteranoa, jai alai jokalarri gihartsuaren prototipoa den horrexek zabaldu zuen **martxa**. Edorta Jimenez

Lider beltzek **martxak** antolatu dituzte Brooklyngo zubian gaindi. Harkaiz Cano

1984an hasi ziren Herrerako **Martxa** ezagunak. Berria - Euskal Herria

Orain 20 urte, 1984an, Herrerako **martxa** egin zuten lehen aldiz, eta orduki ia urterako dute eskimen bat. **Berria - Euskal Herria**  
Indigenen Quitora **martxa** debekatua. **Joseba Sarrionandia**  
Presoen aldeko **martxa**. **Berria - Euskal Herria**

#### 4 erritmo aski bizia duen musika lana, soldadu edo lagun talde baten urratsa zuzen dezakeena.

Udal Banda zihoa aurretik, Gounoden "Garaipen **Martxa**" joz. **Askoren artean**  
Unión Artesanan Donostiako **Martxa** jotzen hasi behar zutenean, **martxa** isilik entzuteko eskatu omen zien Etxauz alkateak mahaikideei. **Askoren artean**  
Sarriegik **Martxa** ondu eta bi hamaraldi igarota [...]. **Askoren artean**  
Armada goi-buruek antolatutako jaialdian orkestrak dantzarako musika jotzen zuten [...] zenbait **martxa** militarrekin batera, gerra-egileek bakearen fruituak, dantza eta **martxa** tarteko, ahantz ez zitazaten. **Felipe Juaristi**  
**Martxa** militarrek alaiak ziren. **Joseba Sarrionandia**

#### 5 autoetan, abiaduretako bakoitza. ik behegero 11.

Eskuina 2 CV-aren **martxa** aldatzeko palankara eraman eta abiadura murriztu du. **Pello Lizarralde**  
Autoan sartu, motorra piztu eta gasolindegia atzean gelditzen da, lehen **martxa** sartzen dut, bigarrena, hirugarrena, laugarrena, baina bosgarrena ez, Irungo ordaintokira berehala iristen naizelako. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Zerbitzugunea bertan dago, abiadura jaitسي, enbragea zapaldu eta laugarren **martxa** sartzen dut, bostehun metroko seinalea, enbragea berriro, hirugarrena, eskuinetara bihurtzuna. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Aldapan gora azeleratzen dut **martxak** hurrenez hurren sartuz. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Pepponek **martxa** sartu eta ziztu bizian abiatu ziren. **Koldo Biguri**  
Gero eta **martxa** txikiagoak sartuz, motorega galga gisa erabiliz. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Atzeko **martxa** jarri eta mugitzen hasten da autoa. **Mikel Hernandez Abaitua**

#### 6 adkor kemen, jarduera bizia.

Nik nahi diat **martxa** gustatzen zaion neska bat. **Luis Elberdin**  
Gorputzak edaria eta **martxa** eskatzen zizkion. **Unai Iturriaga**  
Txikitxo da baina **martxa** handikoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

#### 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Martxa** -lerroan igaro zitzaizkidan albotik, besoak batera-batera zabukatzan zituztela. **Mirentxu Larrañaga**  
Gure herriak beti izan du fama izugarria gau-giro eta **martxa** -kontu horietan **Xabier Mendiguren Elizegi**

#### 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Parisen poloniarren bat hildakoan, Chopinen Hileta-**Martxa** jo zezaten. **Felipe Juaristi**  
Sigfridoren heriotza-**martxa** magikoaren notak hedatu ziren gure etxeko isiltasunean. **Alberto Ladron Arana**  
Poz-pozik egongo lirakeela musika banda ere egongo balitz, delako errege-**martxa** jotzeko. Algernonek, ondoko gelan, eztei-**martxa** jotzen du. **Koldo Biguri**  
Argazkiko eguzkia goi-goian zen, dirdaisu: soldadu-**martxa** parabola itxurako marko ohoretsuz edertzeko zegoela zirudien. **Anjel Lertxundi**  
Herri **martxa** hori hiriarren himno bihurtu ahal izateko, bai erritmoari dagokionez, bai letrari dagokionez, konposizioa birmoldatu egin beharko litzateke. **Askoren artean**  
Zikloturismo **Martxa** hilaren 27an jokatuko da. **Berria - Kirola**  
Hiri erdian zirkulazioa moztuta izango da hainbat tokitan, eta bizikleta **martxa** bat egingo da. **Berria - Euskal Herria**  
Asteazkenean auto **martxa** egingo dute Donostian. **Berria - Ekonomia**  
Orain urte batzuk, Itziarko gau-**martxa** egiten ari zela. **Xabier Etxabe**

#### 9 martxan adlag

Beti ere pozgarria dela makinak **martxan** ikustea. **Joxe Austin Arrieta**  
Orduan, tren **martxan** hastean itxitako leihoa berriro zabaltzen ahalegindu zen. **Unai Elorriaga**  
1850etik aurrera, behatoki meteorologikoak **martxan** dira hainbat naziotan. **Pello Zabala**  
Pasteur Institutuko gure laborategian **martxan** zeuden bi ikerlan motak [...] ez zirela, izatez, fenomeno beraren bi aurpegi baino. **Juan Garzia**  
Portugaleterako enbarkaziora igo zen, ordurako motorrak **martxan** zituela. **Joseba Sarrionandia**  
Hi, Rudolf, gelditu autoan eta eduki motorra **martxan**. **Alberto Ladron Arana**  
Une hartan **martxan** zituen neurona eskasak, oztopoak oztopo, lanean hasi zitzaizkion. **Fernando Morillo**  
Gure burumuina **martxan** atxikiz. **Ramuntxo Etxeberri**  
Ziur Julio Iglesiasen azken konpaktoa ari dela **martxan**, inozoen burmuin eta garunak urtzen. **Pako Aristi**  
-Erabat ziur eta nire gaitasun psikiko guztiak **martxan**, eder hori. **Harkaitz Cano**

#### 10 atzera-martxa (6 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean) atzerako martxa.

**Atzera-martxa** sartu, eta egin genituen atzera ehun metroak. **Inazio Mujika Iraola**  
Autoa **atzera martxa** itzuli zen senide eta lagunengana, eta hilerria abiatu ziren. **Berria - Harian**

#### 11 atzerako martxa (13 agerraldi, 4 liburutan)

Autora igo, motorra piztu eta **atzerako martxa** jarri zuen. **Koro Navarro**  
**Atzerako martxa** eta hanka enbragean dardarat, kezkatu hau ere (hanka eta ni bat gara). **Lander Garro**  
(*sexu harremanetan*) Berez nahi gabeko haurdunaldia eragozten ez duten sasi-metodoak erabiltzeagatik, batez ere **atzerako martxa** eta egunen metodoa. **Atzerako martxarekin** egiten dutela dio, eta mutila ez dela barruan husten, eta horrela ezinezkoa dela haurdun geratzea. **Luis Elberdin**  
Bai Oginoren metodoarekin, bai **atzerako martxarekin** beti dago nahi gabe haurdun geratzeko beldurra. **Luis Elberdin**

#### 11 martxa-aldagailu abiadura-aldagailua.

Gurpilei negar, enbrageari irrintzi eta **martxa** -aldagailuari karrank eginarazten zien. **Aingeru Epaltza**  
Lagunaren eskuin eskua jostetan ibili zen pixka batean **martxa-aldagailu** laxoan, eta bidea hartu zuen gero bere buru gain kalpartsura. **Aingeru Epaltza**

#### 12 martxa aldatzeko iz martxa aldagailua.

**Martxa aldatzekoaren** alboan zegoen, bere belauburuetatik hamar zentimetroa. **Bernardo Atxaga**

#### 13 martxa egin joan, alde egin.

-Nitaz galdetzen badu, **martxa egin** dudala eta astelehena arte ez nauela ikusiko -irribarrea moldatu nuen, bekatu-lagun eske. **Aingeru Epaltza**  
Marielexako bidez galdetu ondoren neskak **martxa egin** du. **Pako Aristi**  
Nik ikusi nuen etxe dotore batetik Mercedes bat ateratzen, denda aurrera joaten, autoa esne eta ur botilaz betetzen eta **martxa egiten**. **Pako Aristi**  
Denek hilotzarekin batean **egin** ditzen **martxa**. **Aingeru Epaltza**

#### 14 martxa eginarazi joanarazi.

Gero gauzez **martxa eginarazi** zidaten, euripean, bizkarrean tona bat gauza eramanez, erasora joanarazi ninduten balak kazkabarra bezala erortzen zirela, zaurituta geratu nintzenean neure kasa konpontzeko esan zidaten. **Koldo Biguri**

#### 15 martxan ipini (24 agerraldi, 10 liburu eta 9 artikulutan) martxan jarri, abian jarri.

Jarraian, bere lekura itzulita, **martxan ipini** du autoa. **Urtzi Urrutikoetxea**



Motorrera igo, **martxan ipini** eta alde alde egiten du. **Antton Olano**

Zelan **martxan ipini** behintzat erakutsi behar didazu. **Josu Landa**

Hondakinok batu eta berrerabiltzeko planta berezia iaz **ipini** zuten **martxan**, eta horrek eragin du aldaketa. **Berria - Euskal Herria**

## 16 **martxan jarri** (*822 agerraldi, 97 liburu eta 512 artikulutan; cf abian 984 agerraldi, 82 liburu eta 651 artikulutan*) abian jarri.

Tailerrean sartzen naiz; **martxan jartzen** dut makina; inoiz ibili ez den bezala dabil. **Eskarne Mujika**

Autoa **martxan jarri** eta handik abiatu zen bizkor, berriro urmael biribilari bira erdia eginez. **Joxemari Iturralde**

Geratzen zitzaizkion indar apurrez yatearen motorra **martxan jarri** eta gasolina bukatu zitzaion arte utzi zuen joaten, ozeanoan barrena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Funtsezko puntuari buruz, berriz, zegozkion kontrolak **martxan jarriak** zirela besterik ez zioen. **Juan Garzia**

Ez nintzen berogailua **martxan jartzeko** gai izan. **Ramon Saizarbitoria**

Ordenagailua ezin piztu, labea ezin **martxan jarri**, Coca-cola beroa, zerbeza, telefonoa ezin kargatu... **Antton Olano**

Estatu Batuetan **martxan jarri** zen egitamu baten barruan, hainbat milaka pertsonak esterilizatu zituzten, "buru-motel"tzat jota. **Juan Garzia**

Energia politika oso aurrerakoiak **jarri** zituzten **martxan** herrialde horretan. **Eduarne Elizondo**

Orduan, dena **martxan jartzen** da, eta badirudi gauzak ondo doazela. **Luis Elberdin**

- Giltzak hartu, barrura sartu, eta **martxan jarri** ginen Amara aldera. **Inazio Mujika Iraola**

Nagoen lekutik mugitzeko ikara daukat, norbait utziko zuten guardian eta xagutxo bat bezala harrapatuko naute, bertan gelditzea erabaki dut, **jarriko** naiz **martxan** eguna argitzen duenean. **Bernardo Atxaga**

## 17 **mendi martxa** (*orobat mendimartxa g.er.*)

Bihar hasiko da AHTren aurkako **mendi martxa**. **Berria - Euskal Herria**

Bihar eta etzi **mendi martxa** egingo da Irunen hasi eta Astigarragara Abiadura Handiko Trenaren aurka. **Berria - Euskal Herria**

Urtero gazte topagunea edo **mendi martxa** bat antolatu izan ditu gazte mugimenduak. **Berria - Euskal Herria**

Parke eoliko handien aurkako **mendi martxa** eratzeko asmoa zutela azaldu ziguten. **Juan Luis Zabala**

Urtero gazte topagunea edo **mendi martxa** bat antolatu izan ditu gazte mugimenduak. **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abiatuko da **martxa** (4); aldeko **martxa** (14); aldeko **martxa hartu** (3); **arterako martxa** (4); **bizikleta martxa** (13); **bizikleta martxa egin** (3); **donostiako martxa** (19); **eguneroko martxa** (7); **emakumeen mundu martxa** (18); **emakumeen munduko martxa** (4); **etxeko martxa** (3); **gure martxa** (3); **haizearen martxa** (3); **hileta martxa** (6); **hirugarren martxa** (4); **lehen martxa** (5)

**martxa abiatuko da** (3); **martxa aldatzeko** (3); **martxa antolatu** (5); **martxa astirotu** (3); **martxa bat egingo** (5); **martxa bizian** (3); **martxa egin** (24); **martxa egin zuten** (7); **martxa egingo** (11); **martxa egitea** (3); **martxa egiten** (5); **martxa eskasa** (3); **martxa eten** (3); **martxa geldiarazi** (3); **martxa hartu** (6); **martxa hartuko** (4); **martxa hartzen** (6); **martxa hasi** (3); **martxa hungariarraren** (4); **martxa ikusita** (3); **martxa jaitsi** (3); **martxa jo** (4); **martxa jo zuen** (3); **martxa jotzen** (5); **martxa lerroan** (9); **martxa militar** (3); **martxa militarrik** (3); **martxa ona** (3); **martxa onean** (13); **martxa orangisten** (3); **martxa orangisten sasoa** (3); **martxa sartu** (4); **martxa sartzen** (4); **martxa sartzen dut** (3)

**mendi martxa** (33); **mendi martxa egingo** (4); **mundu martxa** (26); **munduaren martxa** (3); **munduko martxa** (6); **negozioaren martxa** (3); **pariserako martxa** (3); **protesta martxa** (3); **sarriegiren martxa** (3); **taldearen martxa** (4); **urtearen martxa** (4)

**aldeko martxak** (4); **atzerako martxak** (3); **egindako martxak** (4); **eguneroko martxak** (3); **emakumeen mundu martxak** (12); **martxak antolatu** (4); **martxak egin** (4); **martxak jotzen** (3); **martxak utzi** (3); **mendi martxak** (4); **mundu martxak** (18)

**emakumeen mundu martxako** (7); **mundu martxako** (18); **mundu martxako plataformak** (8)

**atzera martxan** (5); **autoa martxan jarri** (12); **berria martxan jarri** (5); **berriro martxan jarri** (6); **berriro martxan jartzeko** (8); **betiko martxan** (7); **eguneroko martxan** (3); **gaurko martxan** (3); **herri bat martxan** (4); **ikerketak martxan jarri** (3); **jarri da martxan** (6); **jarri dituzte martxan** (8); **jarri du martxan** (33); **jarri dute martxan** (23); **jarri zen martxan** (14); **jarri ziren martxan** (3); **jarri zituena martxan** (6); **jarri zituzten martxan** (4); **jarri zuen martxan** (40); **jarri zuten martxan** (25); **jarriko da martxan** (11); **jarriko dira martxan** (8); **jarriko ditu martxan** (8); **jarriko du martxan** (12); **jarriko dute martxan** (22); **jartzen da martxan** (6); **kanpaina martxan jarri** (3); **lehen martxan** (3); **makina martxan jarri** (6); **makinak martxan** (5); **makinaria martxan** (3)

**martxan ari** (5); **martxan da** (38); **martxan da dagoeneko** (4); **martxan dago** (23); **martxan dagoela** (18); **martxan dagoen** (15); **martxan daude** (8); **martxan dauden** (19); **martxan den** (9); **martxan dira** (12); **martxan egon** (4); **martxan egongo** (4); **martxan egotea** (7); **martxan ezarri** (14); **martxan ezarriko** (5); **martxan ezartzea** (3); **martxan ezartzeko** (3); **martxan ezartzen** (3); **martxan hasi** (5); **martxan hasteko** (8); **martxan ikusten** (4); **martxan ipini** (12); **martxan ipintzea** (3); **martxan izango** (7); **martxan izatea** (5); **martxan izatea espero** (3); **martxan jar** (14); **martxan jarraitu** (3); **martxan jarraitzen** (7); **martxan jarri** (367); **martxan jarri aurretik** (8); **martxan jarrita** (9); **martxan jarritako** (27); **martxan jarriz** (9); **martxan jarriz gero** (4); **martxan jartzea** (89); **martxan jartzea erabaki** (5); **martxan jartzea lortu** (3); **martxan jartzeak** (3); **martxan jartzean** (3); **martxan jartzearen** (5); **martxan jartzeari** (6); **martxan jartzeko** (159); **martxan jartzeko asmoa** (3); **martxan jartzeko baldintzak** (3); **martxan jartzeko eskatu** (5); **martxan jartzeko gaitasuna** (3); **martxan jartzeko proposamena** (3); **martxan jartzen** (60); **martxan jartzen ari** (5); **martxan jartzera** (6); **martxan parte hartu** (3); **martxan parte hartzeko** (6); **martxan parte hartzera** (5); **martxan segitu** (3); **martxan segitzen** (6); **martxan segitzen du** (5); **martxan zegoela** (6); **martxan zegoen** (10); **martxan zen** (6); **martxan zeuden** (4)

**motorra martxan jarri** (6); **neurriak martxan jarri** (3); **neurriak martxan jartzeko** (3); **plana martxan jarri** (3); **plana martxan jartzeko** (3); **politika martxan jarri** (3); **proiektua martxan dagoela** (3); **proiektua martxan jarri** (4); **prozesua martxan dagoela** (4); **prozesua martxan jarri** (4); **prozesua martxan jartzea** (3); **prozesua martxan jartzeko** (13); **prozesua martxan jartzen** (4); **trena martxan jarri** (3)

**emakume martxarako** (4); **emakumeen martxarako** (3); **emakumeen mundu martxarako** (6); **mundu martxarako plataformako** (3)

**atzerako martxarekin** (4)

**donostiako martxaren** (7); **emakumeen mundu martxaren** (7); **martxaren amaiera** (3); **martxaren antolatzaileek** (3); **martxaren bukaeran** (4); **martxaren helburua** (4); **mundu martxaren** (9); **munduko martxaren** (3)

**eguneroko martxari** (5); **mundu martxari** (4)

## martxandiza *iz ipar* salgaia.

Ezpainez keinu aspertuak marraztuz, **martxandiza** eskuaz haztatzen zuten. **Itxaro Borda**

Eta aberriak ez direla ere **martxandiza** bat, are gutiago jabe bakar batzuen merkatu hetsi bat. **Herria**

Kolpatuak eta hilak atzera aurtiki zituzten, **martxandiza** arruntak bailiran. **Itxaro Borda**

- Alemaniatik Xinara, ilabetean hiru aldiz harat hunata eginen duen treina, **martxandizaketakoa**, ezarri dute Francfort hiririk Mongoliarat. **Herria**

## martxant ik **martxante**.

## martxante (*orobat martxant*) 1 *iz* artelanen salerosketan aritzen den pertsona.

Diruari ez zion batere baliorik ematen, ez zuen **martxanterik** eduki inoiz, eta artearen komertzioa gaitzetsi zuen beti. **Berria - Kultura**

-Gerra amaïutakoan, **martxante** bat jarri zen gure etxean bizitzen, Martin izeneko bat, gure amaren auzoa. **Javi Cillero**

## 2 saleroslea, trafikatzaila.

Lan egiteko urteak laburtu direnez gero, madamak eta neskatxa-**martxantak** haur berriak bilatzen areago saiatu behar. **Gotzon Garate**

## martxarazi, martxaraz, martxarazten du *ad* ibiliarazi.

Eta sosa behar dena beste balore horien **martxarazteko**. **Menane Oxandabaratz**

# martxatu

Hegaztien bidaia ere orain antolatuta ohi dira: enarak sailka azaltzen dira, **martxatu** eta etorri, halako batean ospa egin arte. Pello Zabala

## martxo (orobat marxo g.er.) 1 iz urteko hirugarren hilabetea.

**Martxo** zen eta Amerikako unibertsitateetatik milaka ikasle jaitsiak ziren urtero bezala Floridara, negu gorriko hotz makurretik ihesi. Xabier Montoia  
Jakin behar da muga bera ez zutela kendu 1943ko **martxo** arte. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Buruaga, 2000ko uztaila - 2002ko **martxo**. Imanol Zurutuza  
1956ko **martxo** / Karibe itsasoa. Edorta Jimenez  
Otsail edo **martxo** aldera errunaldia gertatzen da, eta uztailaren bukaera habia uzten dute amiamokoek, neguan itzultzeko. Berria - Euskal Herria  
Iazko **martxoan** Austriak Reicharekin bat egin zuenean. Alberto Ladron Arana  
Handik urte batera, ordea, 1947ko **martxoan**, hantxe bertan urkatu zuten irandarrek Qazi Mohamed lehendakari kurdua. Juan Kruz Igerabide  
1943ko **martxoan**, 17 urte eta erdi zituela, bere ahizparekin atxilotu zuen Gestapoak Gracieuse, Izpurako sortetxean. Jokin Urain  
Hori hogeita hamaikako **martxoan** egin genuen greba gogorren ondoren izan zen. Koldo Izagirre  
1971ko **martxo** hartan Salbuespen Egoera zegoen indarrean. Rafa Egiguren  
Espainiako **martxoko** hauteskundeetan ordezkari bat lortuko dutela uste du Felix Tabernak. Berria - Euskal Herria  
**Martxoko** ekinozioa iristean, udaberri itxaropenezkoan sartzen gara iparraldean. Pello Zabala  
**Martxo** gezurti, gaur euri, bihar eguzki. Berria - Harian  
**Martxo** erdirako, enara etorri eta zozoa akabo. Pello Zabala  
- **Martxo** eurite, urtea ogite. Pello Zabala  
- **Martxo** haizetsu, apiril euritsu, maiatza gero eguzkitsu. Pello Zabala  
**Martxoko** eguraldia, erdia euria eta erdia eguzkia. Pello Zabala  
Cadizen emana, 1740ko **martxoan**. Iñaki Iñurrieta

## 2 (-en atzikiarekin, datetan)

Obra hau, ziur asko, 1240. urteko **martxoaren** 4aren eta 1241. urteko abuztuaren 22aren artean idatzi zen. Askoren artean  
Urte berean, **martxoaren** 18an, anai Zesareok laugarren apaiz bat eginarazi zuen Ordenan. Askoren artean  
**Martxoaren** 16 an aratseko 9 etan Minhotz Xilbendea ostatuan. Herria  
*Berria*-k zioen, **martxoaren** 8ko gehigarrian: [...]. Iñigo Aranbarri  
Joan den **martxoaren** 14an bazetorreen Madril-Irun "expresoa" Irun aldera. Txillardeggi  
Benetako irabazlea gizarte zibila izan zen, **martxoaren** 13ko arrats hartan egiaren alde eta gerraren kontra mobilizatu zen jendetza hura. Txema Ramirez de la Piscina  
Asteazkena, 1939ko **martxoaren** 15<sup>a</sup>. Alberto Ladron Arana  
Ulm (Alemania) hirian jaio zen 1879ko **martxoaren** 14an eta Princetonen hil, 1955eko 18an. Pello Salaburu  
Baionan egin, 2003ko **martxoaren** 1ean. Piarres Xarriton

## 3 (-k atzikiarekin, datetan aposizioan)

Ondoko ortziralean, **martxoak** 7, Uztaritzen, afaria Latsa elkartea antolatzaile. Herria  
Eta larunbatean zortzi, **martxoak** 15, oinezko ibilaldia, Donibanetik edo Biriaturtik partituz, Hendaiako Santiago zubi zaharreraino. Herria  
Igandean, **martxoak** 28, goizeko 10etan, biltze bat Donibaneko hilerrietan. Herria  
Su-etenaren eguna, **martxoak** 22, Arestiren ziklo profetikoa egun seinalatua izan da. Joseba Zulaika  
Victoria Eugenia de Battenberg katoliko egiten da Miramar jauregian (**martxoak** 9, goizeko 8ak). Askoren artean  
Osteguna, 1943ko **martxoak** 4. Josu Zabaleta  
**Martxoak** 11: "Tigrea Gap aldean agertu da". Iñigo Aranbarri

## 4 (-k atzikiarekin, datetan)

Jesus Galindez bizirik eta libre azkeneko ikusi zutenean, 1956ko **martxoak** 12 egun zituen. Edorta Jimenez  
2000. urte honetako **martxoak** 25 zitueneko, 12 hilabeteren barruan hirugarrenez, berriro loretan zen, temoso. Pello Zabala

## 5 (-ko atzikiarekin egunak-edo markatzeko)

Barkoxen diotenez, **martxoko** lehen ostirallean da gomendio hori. Pello Zabala  
**Martxoko** lehen igandearrekin ospatzen da San Leon, Baiona hiriarren patroin saildua. Herria  
Bilera hori **martxoko** lehen astean iraganen da. Berria - Ekonomia  
Obren eskaintzak **martxoko** bigarren hamabostaldian egingo lirateke. Berria - Euskal Herria  
- Ama Birjiña **Martxoko**, neguari eman diok ostiko. Pello Zabala

## 6 (hit elkartuetan)

**Martxo** gauetako ezitasunak gatibatzen ninduen. Itxaro Borda  
Eta, ikusi zenuen-eta, gain-garia al zen, ala **martxo**-garia? Patxi Ezkiaga  
Paris-Niza, ordea, **martxo** hasieran korritu zen. Berria - Kirola  
· **Martxo** azkena, Bazko eta ondoko asteak izan ziren Buchenwald-eko ene denborarik jasangaitzena. Marzel Etxehandi  
Bou Bizkaia kapitainarekin berbetan ari zen Jose **martxo** azkeneko sarraskia jazo zenean. Lutxo Egia  
Otsail azkenean 15 bat hil egunean, **martxo** erditan, 50 bat, **martxo** azkenean 100 eta 200 artean, eta apirilean 300 hurran. Marzel Etxehandi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**martxo** aldera (3); **martxo** apiril (3); **martxo** bukaera (12); **martxo** bukaerarako (4); **martxo** erditsutan (4); **martxo** hasieran (5); **martxo** hastapenean (8)  
**iazko** **martxo** (4); **martxo** arte (13); **martxo** artean (4); **martxo** bitartean (23); **martxo** edo apirila (3); **otsaila** eta **martxo** (5); **urtarrila** eta **martxo** (11); **urteko** **martxo** (3)  
**aurtengo** **martxoan** (9); **datorren** **martxoan** (19); **datorren** **martxoan** egingo (3); **datorren** **urteko** **martxoan** (5); **heldu** den **martxoan** (11); **helduden** **martxoan** (11); **iazko** **martxoan** (47); **iragan** **martxoan** (31); **joan** den **martxoan** (46); **joan** zen **martxoan** (10); **joanden** **martxoan** (5); **martxoan** amaituko da (4); **martxoan** atxilotu (9); **martxoan** atxilotu zuten (4); **martxoan** aurkeztu (5); **martxoan** aurkeztu zuten (4); **martxoan** edo apirilean (5); **martxoan** egin (17); **martxoan** egin zuen (4); **martxoan** egindako (7); **martxoan** eginen (5); **martxoan** egingo (14); **martxoan** egingo diren (4); **martxoan** eman (3); **martxoan** eta apirilean (9); **martxoan** hartu (3); **martxoan** hasi (17); **martxoan** hasi zen (7); **martxoan** hasiko (4); **martxoan** hil (3); **martxoan** izan (3); **martxoan** izango (4); **martxoan** kaleratuko du (3); **martxoan** moskun jokatu (3); **martxoan** onartutako (3); **martxoan** sartu (3); **martxoan** zabaldu (3); **otsailan** eta **martxoan** (5); **pasa** den **martxoan** (3); **urteko** **martxoan** (23)  
**aurtengo** **martxoaren** (15); **datorren** **martxoaren** (38); **heldu** den **martxoaren** (22); **helduden** **martxoaren** (17); **iazko** **martxoaren** (21); **iragan** **martxoaren** (61); **joan** den **martxoaren** (60); **joan** zen **martxoaren** (5); **joanden** **martxoaren** (3)  
**martxoaren** amaiera (5); **martxoaren** amaieran (12); **martxoaren** bukaera (4); **martxoaren** bukaera (9); **martxoaren** bukaerarako (5); **martxoaren** erdialdean (4); **martxoaren** erdian (4); **martxoaren** hasieran (22); **martxoaren** hiruan (3); **martxoaren** hogeita (3); **martxoaren** lehen (4); **martxoaren** lehena (6); **martxoaren** lehenean (14); **martxoaren** leheneko (5); **martxoaren** zazpiko (3); **martxoaren** zortzian (3)  
**urteko** **martxoaren** (30)  
**martxoaz** geroztik (15)  
**datorren** **martxoko** (3); **datozen** **martxoko** (6); **datozen** **martxoko** hauteskundeetarako (3); **heldu** den **martxoko** (4); **helduden** **martxoko** (3); **iragan** **martxoko** (3); **joan** den

**martxoko** (5); **martxoko bozak** (9); **martxoko bozak hurbiltzen** (3); **martxoko bozen** (8); **martxoko bozen ondotik** (5); **martxoko bozetan** (22); **martxoko bozetarako** (3); **martxoko egun** (6); **martxoko hauteskunde** (5); **martxoko hauteskundera** (9); **martxoko hauteskundera** (7); **martxoko hauteskundera** (6); **martxoko hauteskundera** (8); **martxoko hauteskunderen ostean** (4); **martxoko hauteskunderetan** (33); **martxoko hauteskunderetarako** (8); **martxoko hirugarren** (3); **martxoko lehen** (5)

**martxora arte** (16); **martxora bitartean** (15); **urtarriletik martxora** (27); **urtarriletik martxora bitartean** (8)

**iazko martxotik** (9); **joan den martxotik** (3); **martxotik aurrera** (21); **martxotik harat** (3); **martxotik hona** (9); **martxotik landa** (3); **martxotik maiatzera** (3)

## martxoso *izond adkor* martxaz, kemenez betea.

Martinen altxor preziatua gurasoak dira, aita intelektuala eta ama "progresista **martxosoa**", esatea gustuko duen bezala. Luisa datorkit, Kuku-Arin agertu duena baino ibilera **martxosoagoarekin**. Eider Rodríguez

Izan ere, oro har, jendaurrean, itxura nolabait **martxosoa** eman nahi izaten dugu, ganoraz eta tente agertu; hori da ohikoena. Markos Zapiain

## martxotu, martxo(tu), martxotzen du *ad* maiatzak bezala jokatu.

-Martxoak maiatzten badu, maiatzak **martxotuko** du. Pello Zabala

## martxutar *izlag/iz* Martxutakoa, Martxutari dagokiona; Martxutako biztanlea.

Xapelgo haundian, **Martxutar** Louis eta Vincent Lamarque anaiak nagusitu bordeles Nicibar Marie Agnes, Gerard Etchecopar kupleari. Herria

1990 eta 2003tik lekura, hirugarren xapela **martxutarrentzat**. Herria

Hirugarren egin dute, aldz, gure **martxutarrek**, Lamarque anaiek. Herria

## martzal *izond* sendoa, indartsua.

Emakume zorrotza zen oso, betekizun zuen zeregin **martzalaz** erabat jakitun. Mirentxu Larrañaga

Lea-Artibain, Urolaldean, Baigorriin, Sakanan... beste hainbat herritan legez, **martzalenetik** animaliarik bitxienera, eskatologikoenetik santurik gaiztoenera, administrazioak kontrolatu ezin duen errolda paralelo bat dago sortua Euskal Herriaren sustraietan barrena. Iñigo Aranbarri

Germaniar **martzalar** Ortega-k "mediterraneismoa" kontrajartzen dio, bulgaritate absolutua Joxe Azurmendi

## martzial 1 *izond* gerrari, borrokari dagokiona.

Herri menderatu baina bertute **martzialak** galdu ez dituztenengandik. Iñaki Mendiguren

Ibilgailuaren ate ondoko zomorroi metrailetadunak agur **martziala** egin zion, barnera sartzean. Aingeru Epaltza

Ortega-ren tonu epiko inperial eta erretorika **martzialak** aztertzaile literario baten gozamina egin lezake. Joxe Azurmendi

Erresuma Batuko lau soldaduri epaiketa **martziala** egingo diete, torturak direla eta. Berria - Mundua

Orduan lege **martziala** jarri zuen indarrean Gobernuak. Berria - Mundua

### 2 *arte martzial* borroka-arte.

**Arte martzialean** gerriko beltza duena. Pako Aristi

'Tai xi xuan' izeneko **arte martziala** hain zuzen ere, europar "txinatar gimnastika goxoa" izendatua izan dena. Ramuntxo Etxeberri

-**Arte martzialen** lehiaketako finalurrekoak. Aingeru Epaltza

**Arte martzial** mota hau ez dago sobera garatua oraindik Espainian. Berria - Kirola

**Arte martzialen** besta. Herria

Euskal Herriko **Arte Martzialen** elkarte. Herria

## martziano (*orobat marziano*) *izlag/iz* martetarra, pertsona arrotza edo xelebrea.

Larunbatean, zure **martziano** arrabotsak entzutera joan behar zinelarik... Ramuntxo Etxeberri

-"Mazakrator" taldekoak ez dira **martzianoak**! Ramuntxo Etxeberri

Euskal mundua ez da existitzen, ez dugu lekurik gizarte ofizialean, **martziano** hutsak gara erdarazko Euskal Herri honetan. Pello Salaburu

Itxura horixe, itxura **martziano** garbia hartzen diot, nik neuk, gure arteko askok erabiltzen duen hizkerari. Koldo Zuazo

Fededūn güziek badakigū ez zela ustekabean zelūtik erori Jesús haurra, planetaz tronpatū liztekean **"marziano"** bat bezala. Herria

## martzilika *iz*

Une batez, Pierrak, hortzen **martzilika**, zintzurren irenste hotsa eta euriaren kolpeka baino ez zituen entzun. Itxaro Borda

Hargatik, hagin **martzilika** mendratuz eta leihotik kanpora so, denboraren buruan erantsi zuen: [...]. Itxaro Borda

## martzilikatu, martzilika, martzilikatzen du *ad*

Mintzo zela, lursagar bat **martzilikatzen** ari zela zirudien berriketariaren ahots gordinak. Itxaro Borda

Bazkaldu gabe zegoen Graxi eta gozokiak **martzilikatzen** zituen, paperak, batzuk harri zuri koxkorak bailiran, lurtean barreiatuz. Itxaro Borda

Orkatz haragi xingola idorrek **martzilikatuz**. Itxaro Borda

Hitzak **martzilikatu** zituen, borobil erraldoi ireki ahoaren zokora, eskuetan zatxizkan pilula ugariak aurtikiz. Itxaro Borda

## marxismo 1 *iz* K. Marx, F. Engels eta haien jarraitzaileek eraturiko filosofia-, gizarte- eta ekonomia- doktrina, gaurko sozialismo eta komunismoaren teoria-oinarria dena.

ETAren formazio ideologikoan Europako pentsamendu joera berriak nagusitu zirela, ateismotik existentzialismora, **marxismotik** maioismora, anticolonialismotik nihilismora.

Joseba Zulaika

Garai jakin bateko mentalitate burgesaren produktu da **marxismoa**, milioika eta milioika jenderengan eragin handia izan duena. Iñaki Heras

**Marxismo** ortodoxotik eta kapitalismotik harago. Askoren artean

**Marxismotik** urrundu zen, eta sozialismo libertarioaren alde agertu zen. Berria - Harian

**Marxismoaren** eta materialismo historikoren bideetan barrena. Rafa Egiguren

**Marxismoa** edo existentzialismoa bezalako ideologia unibertsalisten ildotik. Berria - Kultura

Ordura arte nire lanak **marxismoari** buruzkoak ziren. Gotzon Garate

Hauserren *The Social History of Art* lana, mendebaldeko artearen historiaren gainbegiratu gisako bat izan nahi duena, **marxismoaren** ikuspegitik ikusita. Josu Zabaleta

## 2 marxismo-leninismo

Vladimir, 68ko maiatzaren garaiaz gero, ezkerreko talde eta joera guztietatik pasatua zen: stalinismoz zipriztindutako **marxismo-leninismotik** trotskismora eta (berehala) maioismora; anarkosindikalistatik sozialismo kristaura eta askapenaren teologiara. Iban Zaldúa

Neure buruaren definizio ideologikoa hainbat aldiz aldatu dut tarte horretan, liberalismotik **marxismo-leninismora** sozial-demokrazian barrena, gauzak ez baitituzte batere garbi ikusten. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez euskarari buruz, ez Euskal Herriari buruz... fronte abertzalearen aldekoa izan naiz beti, **Marxismo Leninismoan** ez dut inoiz sinestu, Stalinismoaren kontrakoa izan naiz beti... eta orain ere hala naiz. Berria - Kultura

## marxista 1 izond marxismoari dagokiona; marxismoaren aldekoa.

Izan ere, **"marxista"** hitzak ere zerikusi gutxi du Marxek izan zituen iritzi eta jarrerekin. Esteban Antxustegi

Joera liberala, joera **marxista** eta joera keynesiarra. Iñaki Heras

Doktrina **marxistaren** azken helburua da klase banaketarik gabeko gizartea iristea. Iñaki Heras

Mundu modernoan kristautasunari egindako kritika **marxistaren** muina. Iñaki Mendiguren

Autokritika egin, euren berbaera **marxista** zaharkitua erabiltzearen. Xabier Montoia

Guk, batzuetan, terminologia **marxista** erabiliz, "aparatu" deitzen diogu. Rafa Egiguren

Unibertsaltasunaren izpiritutik egungo aldebakarkeriara (bereziki alderdikeria **marxistara**) zubia egiten ei duelako. Joxe Azurmendi

### • 2 iz marxismoaren aldeko pertsona.

**Marxistentzat** merkatu-ekonomia desberdintasun sozial eta desoreka iturri da. Iñaki Heras

Marxismoaren ezaugarri erlijiosoak azaltzen ditu Schumpeter-ek **marxista** ortodoxoen jarrerari aurka egiteko. Iñaki Heras

Antonio Gramsci **marxista** italiarrak. Berria - Gaiak

Simone Weil sindikalista iraultzailea eta **marxista** kritikoa zen. Joxe Azurmendi

Izan ere, behinola mistiko oinazetu, gero etakide sutsu, hurrena **marxista** porrokatu, ondoren posmoderno sumindu izanikoak ilustratu haserretu bilakatu zaizkigu orain.

Markos Zapiain

## 3 marxista-leninista

Ideologia **marxista**-leninistak agintzen omen zuen erakundean, eta horregatik egin zuten alde. Rafa Egiguren

Beraren abertzaletasun sutsua, eta, batez ere, beraren ezkerkeria **marxista**-leninista. Iban Zaldúa

Judu eta erusiar izanik ere, **marxista**-leninista zen. Felipe Juaristi

Horrek, ordea, ez du esan nahi zu **marxista**-leninista arriskutsua ez zarenik. Jon Maia

Aurkarietan ezar ditzagun ere bospasei **marxista**-leninistak, gu bezalatsu teologo nostalgikoak. Piarres Aintziart

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderdi komunista marxista** (3); **alderdi marxista** (3); **marxista leninista** (8); **marxista leninistako** (3)

## marxo ik martxo.

## marziano ik martziano.

## masa 1 iz osotasun bat, bereziki tamaina handikoa, eratzen duten gauzen edo zatikien multzoa; gai gotor baten edo isurkari baten kopuru aski handia, bere hartan (ez bere forman edo nolakotasunean) hartua.

Gazteluaren **masa** beltza eskuinaldean genuela. Alberto Ladron Arana

Exe baten tamainako **masa** handi batek. Juan Garzia

Merkatu nagusi garbi berriak bere **masa** itzela hedatzen zuen haren azpian. Karlos Zabala

Tente dago Sainte-Cécile elizaren **masa** zuri ikaragarria. Monika Etxebarria

Atzealdean Tuilerietako lorategiaren **masa** handi berdea. Karlos Zabala

Lurraren **masa** kontinente bakar batean kontzentratzen zen antzina. Joseba Sarrionandia

Pioleta **masa** jeltuan indarka tinkatuz. Josetxo Azkona

Polidroak zabalduz, espazioak **masan** parte-hartze handiagoa izan zezan nahi zuen. Euskal kultura **masa** konpaktua eta uniformizatua dela sentitzen dut eta kudeatzaileek hori sustatzen dute. Berria - Kultura

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez da ederra, desorekatuak ditu **masa**-multzoak. Anjel Lertxundi

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Presondegia urrutiratu egin zaizu, hormigoi **masa** hila. Eider Rodriguez

Itsasontzi puskek ageri ziren gure gainetik nahiz azpitik, egur **masa** handiak eta zuhaitz enborrak. Koro Navarro

Gihar **masa** gorri astun haietako batek sorbaldatik heldu eta gogaikarriro astindu ninduen. Alberto Ladron Arana

Itsasoa bera etengabeko mugimendu sortzailean dago, baina ur **masa** handi horren eragina bere ertzetara baino askoz harantzago hedatzen da. Iñaki Mendiguren

Izotz **masa** handiak askatuko dira kontinentearen banda zuritik. Joseba Sarrionandia

Aire-**masa** desegonkorren borroak. Pello Zabala

Eskuineko espaloian, suzko arrastoak dituen gas **masa** gris batek maskor batena bezalako hotsa egiten du. Monika Etxebarria

Eguzki esaten diogun su-**masa** hori. Juan Garzia

Hodei **masa** umel bustiak, euri erraza oparitzen dutela. Pello Zabala

Berdintsu gertatzen da, ipar-mendebaletik datozen laino-**masa** umel askorekin. Pello Zabala

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, irud/hed)

Diru-**masa** izugarri murrizten da, beraz, devaluazioaren aurretik, eta berehala puzten da oster devaluazioaren ondoren. Koro Navarro

Kontua zera da: txukun antolatzea hilabetetan eta urtetan bilduriko datu-**masa** bat. Juan Garzia

Ea zientzia gai denetz ezaguera-**masa** jakin bat gainditzeko. Juan Garzia

Itzal **masa** baten arnasa umelak eta taupadak ospelak dituela smatzen da Abelek. **Pello Lizarralde**

## 5 pertsona multzo handia, jendea.

Alemanian *Volksgeist*a ustiatua, kritikatu, higatua eta aspaldi abandonatua zegoen filosofian eta zientzian, edo herrien (**masen**) psikologietan antzaldatua. **Joxe Azurmendi**

Honelako gizakiak, dena dela, gutxi dira; eta **masa** beti da Freuden iritzi ezjakin, alfer eta ezgai irrikak arrazoia baliatuz bideratzeko. **Markos Zapiain**

Gizaki guztiengandik, are **masa** ezjakinetako kideengandik, espero da erlijio-irakaskuntzak entzun ditzaten. **Xabier Kintana**

Maimon pentsamenduzko aristokrata bat da, elite intelektualak **masekiko** duen erantzukizunean sinesten duena. **Xabier Kintana**

**Masen** kultura goiburutzat hartuta. **Berria - Kultura**

Jende espainola da **masa** malpartatu bat, egonda ere elite gidaririk onartzen ez duena. **Joxe Azurmendi**

Jeren ezin onartuzkoa baita, egia, gizon bakarrak **Masa** bat tiranizatzea. **Josu Zabaleta**

Nahiz eta gure hitzak David txikiaren harriak izan (nire 2.000 irakurle horiek osatua) Goliat erraldoiaren aurka (aldizkariak dituen bi milioi irakurleren **masa**). **Pako Aristi**

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Badugu **masa** literatura bat, kalitateko hizkuntza erregistroan mundu zibil eta moderno bat islatzen duena. **Iñigo Aranbarri**

Bertsolaritzak baditu hainbat ezaugarri gaur egungo **masa**-kulturaren norabide nagusiekin guztiz bat ez datozenak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Gauza bera gertatzen da berez **masa** doktrina den marxismoan. **Xabier Amuriza**

Egunkaria irakurtzea eguneroko **masa** zeremonia da. **Patziku Perurena**

Zanpatzaileen aurkako **masa**-mugimendua bildu ez ezik, abangoardia iraultzailearen gidaritzapera ekarri beharra dago. **Rafa Egiguren**

**Masa** garaiak **masa** gizona sortu du. **Koro Navarro**

Kontsumo-gizarteari eta **masa** gizarteari lotutako kontzeptua da; zioritasuna ondasun jakin batzuei lotzen zitzaizen gizarteari lotutakoa. **Berria - Gaiak**

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **masibo**.

**Masa**-konbertsioak lortzeko helenismoaren gaitasuna proban jarri zuen Antioko Epifanes seleukotar helenizatzaileak [...] Jerusalem Antiokia bezain heleniko bihurtu nahi izan zuenean. **Iñaki Mendiguren**

Horretarako ikus-entzunezko hedabideen eta **masa** mobilizazio erraldoien laguntzaz baliatuz. **Joxe Azurmendi**

## 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

2005-2012 garaiko Afrikako etorkin-**masa** handia. **Iban Zaldúa**

Gizarte jarraitu zuela zergak ordaintzen zituen laborari-**masa** bat agintari-klase pribilegiatu txiki bati eusten. **Iñaki Mendiguren**

Hizkuntza, gizarte **masaren** bizitzarekin dago gorputz egina, eta gizarte **masa**, izaeraz bizigabea izanik, batez ere iraunarazteko faktore gisa agertzen da. **Berria - Kultura**

## 9 orea.

Botako zituen ehun gramo gurin, beste hainbeste azukre eta bi arrautza sopera handi batean, eta haiek ondo-ondo irabiatu ondoren limoi arrailatua nahastuko zion, eta irina, **masa** pixka bat loditu arte. **Pako Aristi**

Zabaltzen zuen **masa** mahai gainean, eta anisa hartzeko kopa txikiak ipurdiz gora ahotik **masatan** sartu eta pasta biribil eta pottolo batzuen forma ematen zion **masari**. **Pako Aristi**

**Masa** egin, adreiluak garraiatu eta halako lanetan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 10 irud/hed

Bi **masa** formagabeen artean. **Santiago Iruretagoiena**

Haren azpian, gai zuria dago, nerbio-zuntzeko **masa** trinko bat. **Irene Aldasoro**

Lurrean, argizuloaren azpian, **masa** itxuragabe bat zetzan, bere baitara bildua, hain lohi eta higuigarri non, hezur-haragizko gorputz adarrak eta gizatasun aire bat ematen zioten beste hainbat ezaugarri nabarmendu ezean, ez baitzen lurretik bereiziko. **Patxi Zubizarreta**

Jada okina dozena pikotxek zati-zati egina irudikatzen zuen, halako **masa** odoltsua bilakaturik. **Patxi Zubizarreta**

## 11 (hitz elkartuetan)

Mandik **masa** palekada batez hornitu zuen Ilana, bankuaren gainaldea raseatu zuen. **Pablo Sastre**

· Odolbildu **masa** gorri ilun bat agertuko da, globuluz osatua gehiena. **Irene Aldasoro**

## 12 (fisikan) gorputz batek daukan materia kopurua; gorputz bati ezartzen zaion indarraren eta horri dagokion abiadura aldaketaren arteko erlazioa, beti bat irauten duena.

Behatutako gertakariok bilbatu eta gertakari berriak aurrerata da euren helburua, horretarako (fisikan adibidez) "**masa**", edo "elektroi" bezalako izaki hipotetikoen arabera arau orokorrak sortuaz. **Juan Garzia**

Zelako ezagutza lortzen dugu, esaterako, **masa** eta energia kontzeptuak erlazioan jartzen ditugunean  $E=mc^2$  ekuazioan? **Askoren artean**

Kilo bateko **masa** izango dute nanosatelite horiek eta bi urte egingo dituzte orbitan. **Berria - Gaiak**

Izar baten inguruan aurkitutako planetarik txikiak dira eta Lur planetak baino 15 aldiz **masa** handiagoa dute. **Berria - Gaiak**

Globulu gorrien **masaren** heren bat-edo hemoglobina da. **Irene Aldasoro**

Izan ere, radioak erradiaktibitatea eman eta **masa** galtzean, materia sortu edo desegin zitekeelako tesia zalantzan jartzen zuen. **Xabier Olarra**

Berdin zion klasea **masa** atomikoaz edo Avogradoren zenbakiaz edo elementu kimikoen sailkapenaz izan. **Anjel Lertxundi**

Atomoen artean, Hidrogenoak du **masarik** txikiena; ez da, ordea, dauzkagun politikoen masa entzefaliko bako txikiagoa. **Anjel Lertxundi**

**Masa** txiki batek mastodonte astunena altza zezake, bere zamaz, palanka bati esker. **Jon Muñoz**

Nire gorputz **masaren** indizeak honezkeroko oso behean egon behar du. **Patxi Zubizarreta**

## 13 **masa hedabide** (**18 agerraldi**, **3 liburu eta artikulatu** 1ean)

Lurrikarak eta haiek sorturiko egoerak aski errazak dira ulertu eta azaltzeko **masa hedabideetan**. **Berria - Harian**

Ohiko **masa-hedabideen** nagusitasuna krisian dago. **Txema Ramirez de la Piscina**

Gustatuko litzaidake eliteak **masa-hedabideak** nola kontrolatzen dituen jakitea. **Txema Ramirez de la Piscina**

Eta funtsezkoa da, halaber, **masa-hedabideek** saihestea giza ingurumenaren hondatzea ekar dezakeen oro eta, aitzitik, informazio hezitzailea zabaltzea ingurumen hori babestu eta hobetu beharri buruz. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

## 14 **masa komunikabide** (**4 agerraldi**, **2 artikulatu**)

Gizakien arteko komunikabidea da, telefona bezain iraultzailea izango ez dena, eta **masa-komunikabidea** da, bere garaian idatziriko prentsa, irratia eta telebista bezain iraultzailea, akaso gehiago, bilakatu daitekeena. **Berria - Gaiak**

Presoen aldeko elkarteak salatu zuen Euskal Herriko instituzio, alderdi politiko eta **masa komunikabideek** lotsagabeki ezkututzen dutela indarkeria hori. **Berria - Euskal Herria**

## 15 **masa kritiko**<sup>1</sup> kate erreazio nuklear bat eragiteko behar den gutxieneko erregai kopurua.

Horretarako, Uranio 235aren **masa kritikoa** ezagutu behar zen. **Fernando Morillo**

## 16 **masa kritiko**<sup>2</sup> irud/hed

Euskararen kultur unibertsoak, izan ere, bere bizi-baldintza bereziak ditu; [...] bere merkatu-parametro eta **masa kritiko** bereziak ditu. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Euskal Herrian bada **masa kritiko** nahikoa Bestelako Komunikazioa garatzeko, alternatiba kritikoak praktikan ipintzeko, komunikazioaren eredu ofizialari astindu eder bat emateko. **Txema Ramirez de la Piscina**

EHUn «**masa kritikoa**» handitu gura duela dio, ikertzaileen bokazioak sustatu. Berria - Euskal Herria

Ez da **masa kritikoa** nahikorik aurre egiteko zantza gaituen estatuari. Berria - Euskal Herria

LABeko Rafa Diezek zehaztu zuen «aldaketa politiko eta sozial baterako **masa kritikoa** indartsu bat» osatzen ari dela. Berria - Ekonomia

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aire masa** (13); **diru masa** (3); **gazteluaren masa** (4); **gizarte masa** (5); **gorputzaren masa** (4); **izotz masa** (3); **jende masa** (3); **masa beltz** (4); **masa beltza** (3); **masa egin** (3); **masa handi** (8); **masa handi bat** (3); **masa handiagoa** (5); **masa hedabideak** (4); **masa hedabideek** (4); **masa hedabideen** (5); **masa ilun** (5); **masa iluna** (3); **masa itzela** (3); **masa kritikoa** (12); **masa kritikoa bat** (3); **masa kritikoa** (12); **masa kulturaren** (5); **masa umel** (4); **ur masa** (6); **zilar masa** (3)

**aire masak** (3)

**gizarte masan** (3)

**gorputz masaren** (8); **gorputz masaren indizea** (6)

**masatik jendetzara** (4)

## masadora iz

Bidea hutsik dagoela frogatu ondoren langile gazteak bide breaztatua gurutzatu du; kostata baina zuzen-zuzen iritsi da hamar bat metrora duen behin-behineko etxolaraino eta lurrean utzi du zakua, **masadoraren** ondoan. Pello Lizarralde

Hori **masadora** batean... Pablo Sastre

## masaia ik masaje.

## masaiatu ik masajeatu.

## masail (1168 agerraldi, 181 liburu eta 56 artikulutan –hitza eta eratorriak barne-; orobat *masaila g.er.*) 1 iz aurpegiaren alboko aldea, sudurraren eta belarriaren artean, begi azpitik kokotseraino hedatzen dena. ik **matrail**; **matela**.

**Masaila** batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere. Elizen arteko biblia

**Masail** bietatik tanta lodi gaziak erori zitzaizkion eta, azkenez, zirkin eza hautsi nahian, estutasunezko arnasestu luze bat isuri zuen. Joxemari Urteaga

Ahoa eta **masailak** odolez zikindurik zeuzkan. Monika Etxebarria

Eta koleratu zen orduan osaba, mudatu zen kolorez haren begitarte, odola **masailetan** bor-bor jarri arteraino. Joan Mari Irigoien

Malkoak irristaka hasi zitzaizkion **masailetan** behera. Joan Mari Irigoien

Berehala itzuli zitzaion, ordea, kolorea **masailetara**. Juan Kruz Igerabide

Ukalondoa mahai gainean zuen bermatuta, eta **masaila** esku barnean. Ramon Saizarbitoria

Zure ezpainek ez diote **masaila** ukitzen Luisi. eskuinaldeko **masaila** ardo koloreko angioma batez estalia. Lourdes Oñederra

Jimmyk baldarki jo zuen Maisierengana eta **masail** batez aurpegia estutu zion. Lopez de Arana

Begiak zabal-zabal, **masail** biak puztuta, eta ezpainak elkarren kontra indarka bilduta ageri da emakumea. Joxerra Garzia

**Masaila** eta ilea ferekatzen dio, gona jasotzen du, ustez grazia duten gauzak esaten ditu, eta horrela Pimen arretea erakartzen ahalegintzen da. Josu Zabaleta

Lasai, Harryren **masail** ondora hurbildu zuen bere gorputz epela, Riddleri begira-begira. Iñaki Mendiguren

Klausen ezker **masaileko** orbainari erreparatu nion. Anjel Lertxundi

ik masaileko.

**Masail** -aurpegietako kirurgia. Berria - Euskal Herria

### 2 (izenondoekin)

Haren **masail** handiei begira nengoen, belarrietarantz lerratzen amaitzen ez zirenak. Monika Etxebarria

Berrogei urteko ilehori mardula da, **masail** gorri eta leunekoa. Monika Etxebarria

**Masail** gorria hurbildu eta nire belarriari, sudurrean, ahoan maite egin dit, dena azal. Alberto Barandiaran

Hurbiltzeko gonbita ikusi uste izan nuen **masail** bete haien gorrituan. Koldo Izagirre

Bizarrik gabeko aurpegi zabal zuen, eta **masail** irtenak. Jose Morales

Kolore zurbila zuten biek, **masaila** hezurtsua, begirada galdua. Anjel Lertxundi

Gero **masail** leun gozagari bat sentitzen nuen nirea doi-doi igurzten. Josu Zabaleta

Liubak garrasi basatia egin eta belarrendoko gogorra eman zion **masail** bizargabeen. Jose Morales

Haren aurpegi zabal eta **masail** mamitsuak aztertzeke. Oskar Arana

Beltz-beltza zuen ilea, argala zen, orban horixkak zituen tatariar **masail** zorrotzetan. Jose Morales

Haren **masaila** esne-koloreak eta ile zurbilak izotz artean egindako egonaldiko luzeek margulduak ziruditen. Josu Zabaleta

Malkoak bizi-bizi lerratzen zitzaizkion **masail** biribiletan behera. Mirentxu Larrañaga

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haren aurpegi zabal eta **masail** mamitsuak aztertzeke. Oskar Arana

Iluntasun argituan bere azeri aurpegi luze, gorri, mozkor hura erakutsi zidan, bere **masail** -bizar laztuak eta sudur heze sentikorra. Koro Navarro

**Masail** -zati eta belarriaz osatutako aurpegiren baten eskuin-aldea erakusten zuen. Joxemari Urteaga

Badu **masail** gorritasun eta begirada urrun bat, gutako edozein hankazgoratzeko modukoa. Hasier Etxebarria

Macijauskas, **masail** -alboan zortzi puntu dituela, eta Betts, bizkarreko minak gainditzeko bidean, Manresan daude. Berria - Kirola

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela; ik beherago9)

Aldamenean, agure argal, burusoil eta zurbil bat zuen, **masail** -zimela. Koro Navarro

Melanto **masail** -ederrak errieta egin zion. Juan Kruz Igerabide

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Izter **masail** barrualdeak odol-jarioan hasi zitzaizkidan, ez nituen gorputz giltzadurak sentitu ere egiten. Jesus Mari Mendizabal

Sagar **masailak** gorrituta zeuzkan, baina bestalde ondo eramaten zuen hirurogei urteen bidea. Javi Cillero

Hezuz **masailak** nabarmentzen zitzaizkion, etxetik faltatu izan nintzen ordu laburretan aurpegiko larrua hezurrei josi balitzaie bezala. Anjel Lertxundi

Bistan denez, txakurraren jabea da, eta beso batekin txakurraren buruari geldi eusten dio, haren aho- **masailak** irekita edukitzeke ahalegintzen. Oskar Arana

### 6 ipurdi masail ipurmasaila

Sustraiak zango-sagarrak, **ipurdi** -masailak urratu dizkiote. Itziar Otegi

**ipurdi** -masaila bat estutu nion nire izterren artean. Karlos Zabala

Ipurdia altxatzen nuen zakila sartzekotan zegoela eta txoratu egiten nintzen **ipurdi** -masailetan jotzen zizkidan pintzel-kolpe moduko haiekin. **Karlos Zabala**

Beisboleko bate bat hartu eta kristoren ostiakoak eman zizkioan **ipurdi** masailean. **Pako Aristi**

**Ipurdimasail** gizen, zuri eta bigun batzuk agerian. **Juan Martin Elexpuru**

## 7 **masail albo** (orobat **masailalbo**)

Masaileen zuloetan, **masailalboen** azpian, arrosa koloreko bi mantxa zeuden, isolatuak, haragi pobre horren gainean aspertzen ari zirela ziruditenak. **Monika Etxebarria**

Macijauskas, **masail-alboan** zortzi puntu dituela, eta Betts, bizkarreko minak gainditzeko bidean, Manresan daude. **Berria - Kirola**

Bikotekideak behin **masailalbo** -hezurra hautsi ziola azpimarratu zuen emakumeak Forzuangoaren egoitzan, eta jasotako azken jipioan sabelaldean hainbat muturreko eman zizkiola. **Berria - Euskal Herria**

## 8 **masail bizar** (orobat **masailbizar**)

Idazkariak bezalako **masailbizarra** baitzuen. **Matías Múgica**

Batzuek bibotearen marra ageri zuten, baziren **masail-bizarrak** eta ile kizkurtua zituztenak, beste batzuek pipa makurrak erretzen zituzten. **Koro Navarro**

Iluntasun argituan bere azeri aurpegi luze, gorri, mozkor hura erakutsi zidan, bere **masail-bizar** laztuak eta sudur heze sentikorra. **Koro Navarro**

## 9 **masail-gorri** (orobat **masailgorri**) *izond* masailak gorriak dituena.

Neska **masail-gorri**, lotsatia izan zena K-ko ekintza alemaniar guztien arima bihurtu da orain. **Pablo Sastre**

Neskameak, neska **masail-gorri** handia bera, ezin dio barreari eutsi gizonetako bati mintzatzen zaion bakoitzean. **Monika Etxebarria**

Auzoko baseritik, Gorostietatik, Arantxa Iturzaeta zetorren, hamahiru urteko inguru eder, **masailgorri** bat. **Gotzon Garate**

Gizon lodikotea da, **masailgorria**, eta afalondo luze batetik datorrenaren itxura dauka berbetaren traketsan, alai ageri den arren.-Akabo hire pozaren poza, **masail-gorri** amorragarri hori, nik kontatu beharrekoa aditu orduko.. **Koldo Izagirre**

## 10 **masail hezur** ik **masailezur**.

## 11 **masail koskor** (*corpusean* **masailkoskor** *soilik*)

Aurpegia argaldurik zeukan, **masailkoskorrak** luze, eta begi handi eztiak. **Juan Garzia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**masail aurpegietako kirurgia** (4); **masail bat** (4); **masail gorri** (8); **masail gorria** (3); **masail gorriak** (4); **masail hezurak** (4); **masail irtenak** (4); **masail zati** (3); **masail zurbil** (3); **masail zuri** (3)

**eskuineko masaila** (4); **masaila batean** (5); **masaila eskaini** (4); **masaila jarri** (3); **masaila ukitzen** (4)

**bi masailak** (3); **ipur masailak** (3); **ipurdi masailak** (3); **masailak estutu** (3); **masailak gorri gorri** (10); **masailak gorritu** (8); **masailak gorritu zitaizkion** (3); **masailak gorrituta** (7); **masailak gorritzen** (3); **masailak puztu** (7); **masailak sutan** (9)

**masailan jotzen** (3)

**eman zidan masailean** (5); **eman zion masailean** (9); **eskua masailean** (4); **eskuin masailean** (3); **eskuineko masailean** (3); **ezker masailean** (3); **ezkerreko masailean** (6); **ipur masailean** (5); **masailean behera** (21); **masailean eman** (3); **masailean jarri** (5); **masailean musu eman** (3); **masailean musu eman** (3)

**ezker masaileko** (3)

**masailen gorria** (3)

**masailera eraman** (3)

**bi masailetan** (4); **malkoak masailetan** (6); **malkoak masailetan behera** (5); **masailetan beheiti** (3); **masailetan behera** (37); **masailetan bor bor** (3); **odola masailetan** (3)

**odola masailetara igotzen** (3)

**masailetik behera** (4)

## masailagabe ik **masailgabe**.

## masailako ik **masaileko**.

## masailalbo ik **masail 7**.

## masailbizar ik **masail 8**.

## masailburu *iz* masailaren burua

Txiikia da eta mehea, ile beltz eta motz-motza du eta **masailburu** zabalak, ia txinatarren irudikoak. **Oskar Arana**

Melanieren begiak ditu, haren **masailburu** zabalak, haren ile beltza. **Oskar Arana**

## masaileko 1 *iz* masailean ematen edo hartzen den kolpea.

Beti izuturik egoten baikinen ea nork jasoko hurrengo kaskarrekoa edo **masailekoa**. **Juan Kruz Igerabide**

Egiazko amodioa eskainia zion gizonaren besoetan, haren ukaldi eta **masailekoen** bestaldean, amodioaren aztarnak bilatzen zituen. **Patxi Zubizarreta**

**Masaileko** ezti batzuk eman dizkit alde egin baino lehen. **Agurtzane Juanena**

Une hartan ozta-ozta eutsi nion garrasi egin eta zuri **masaileko bat** jotzeko gogoari... **Eduardo Matauko**

-Eta **masaileko** batzuk jotzen zizkigun -gaineratu zuen aitak. **Joan Mari Irigoien**

Zuri, ordea, zenbat **masaileko** eman behar dizkizut nekazari-mutur zatar horretan zerbait uler dezazun? **Jose Morales**

Bazterrean besoak jasota ipini edo eskuetan jo ordez, **masaileko** bat ematen nion. **Juan Kruz Igerabide**

Eskua altxatu zuen, **masaileko** bat emateko asmoz, baina ez zuen jo. **Jose Morales**

Iletik heldu eta atzera tiratu dit burua norbaitek, aurrean daukadanak **masaileko** batzuk ematen dizkidan bitartean, eman ahalean. **Agurtzane Juanena**

Altxa, bi **masaileko** eman eta fuera. **Pako Aristi**

- **Masailekoa** eman zidan. **Anton Garikano**

Gazteak ezin izan zuen **masailekoa** saihestu, eta amorrazioz hartu zuen. **Patxi Zubizarreta**

## 2 (izenondoekin)

**Masaileko** handi bat eman zion. **Juan Kruz Igerabide**

-Eta nire emaztea noiz izango haizen irrikitan nagon ni, **masaileko** eder batzuk emateko! -mutilak erantzun. **Koldo Biguri**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**masaileko bat eman** (10); **masaileko eman** (4)  
**masailekoa eman** (3)  
**masailekoak ematen** (3)

## masaileratu, masailera(tu), masaileratzen da *ad* masailera etorri.

Ahalkea **masaileratu** eta lokietan barna hedatu zen Buck-en belarri lau gorabeheratsuetaraino. **Lopez de Arana**

## masailezur (70 agerraldi, 27 liburu eta 8 artikulutan; orobat **masail-hezur** 13 agerraldi, 11 liburu eta artikulua 1 ean; Euskaltzaindiaren Hiztegian **masailezur** agertzen da) 1 iz hortz-haginak kokaturik dauden hezurra. ik **baraila**<sup>1</sup>.

Dyer gizon altu mehea da, **masailezur** irten eta begi zorrotzekoa. **Xabier Olarra**

Pertsona batek **masailezurra** galtzen duenean, zirujauak gorputzeko beste hezur bat jarri ohi diote, jatorrizkoaren lekuan. **Berria - Gaiak**

**Masail-hezurra** azpi-azpian bigarren kokots bat zeukan aterata. **Oskar Arana**

Eman nion tiraldiarekin, hagina ezik, uste nuen **masailezurra** ere atera niola. **Patziku Perurena**

Odoletan ikusi nituen batzuk, **masailezurra** hautsirik, burezurra leherturik, bularra bala batez zulaturik, agonia geldian, hotel bateko gela batean bakar-bakarrik, beren zauriaz gogoratu gabe, beren zorigaitza baizik ez gogoan. **Josu Zabaleta**

### 2 pl

Itxura higuigarria zuen, sudurra motza, zeharkako begirada, **masailezurrak** irtenak. **Koro Navarro**

Zakur gihartsuak eta buru, aho eta **masailezur** handiak dituztenak. **Gotzon Garate**

Irribarre egiten zion amonak, begiak gozo eta jostakin, ileak mototsean bilduak, **masail hezurrak** gora markatuak, oso eslaviarrak. **Joxan Elozegi**

Erditzalean, leizezulo zabal batean bezala, kideen aurpegi loak eta ametsek itxuraldatuak bereizten ziren: heriotzaz tindaturik, **masailezurrei** eragiten zieten, jaten ari zirela amets eginez. **Juan Garzia**

## masailgabe (corpusean **masailagabe** soilik) izond masailik ez duena.

Bai horixe, eta hona orain Andre Harretako, **masailagabe**, eta zulgilearen aitzurrak kankarra joa. **Juan Garzia**

## masailgorri ik **masail** 9.

## masailgorritu, masailgorri(tu), masailgorritzen da *ad* masailak gorritu.

Hitz bihotz-altxagarri haiekin, Afifi anderea doi bat **masailgorritu** zen makillaje gorritaren azpian. **Patxi Zubizarreta**

Atzera ere **masailgorritu** dela ohartu da, baina ez lehen bezala, estutasunak eraginik; ez, oraingoan labeak berotu du sukaldean, labeak gorritu dizkio masailak. **Patxi Zubizarreta**

Odolak su gabe baitiraki, **masailgorritzen** sentitu zen. **Patxi Zubizarreta**

## masailkoskor ik **masail** 11.

## masaje (orobat **masaia** g.er.) 1 iz gorputzaren zati jakinak helburu terapeutikoz igurtzea, sakatzea edo kolpekatzea.

Bainuak eta **masajeak** hartzera eraman zitean Ama Donostiara. **Xabier Etxabe**

Egunero etorri zen ordudanik **masajea** hartzera, goizetan. **Joxan Elozegi**

Ondoko egunetan, ukenduak jarri eta **masajeak** eman zizkidan marabutak gorputz alde guztietan. **Joxan Elozegi**

**-Masaje** bat ematea nahi? -proposatu zidan Cristinak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Oliba-olioz **masajeak** ematea da onena. **Jasone Osoro**

Mediku batek lepoan eginiko **masaje** oker baten ondorioz, zerbikalak nahiko minduta ditut. **Berria - Kirola**

**Masaje** terapeutikoan trebatu zen, eta laster lortu zuen lana YMCA-n. **Xabier Olarra**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gerrietan izan dut zartakoren bat edo beste, baina **masaje**-igurtzaldi pare bat hartu eta segi lanean. **Berria - Kirola**

**Masaje** saioren bat izango zen dendaren atzealdean, urre koloreko sofaz, sexu ahala indartzeko luxuzko tresnaz eta intsentsu afrodisiakoaren hedagailuz hornituriko areto ederrean. **Joxan Elozegi**

Txantxak egin dizkidate **masaje** gelan taldekideek. **Berria - Kirola**

**Masaje** ikastaro bat egin. **Berria - Kirola**

**Masaje**-emaile izateko ikastaro bat egina nintzen ordurako. **Joxan Elozegi**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Aurpegi- **masaje** txiki bat, jauna, zaldar horiek kentzeko, jauna? **Lopez de Arana**

Yerling lurrina emanik izerditan zegoen emakume baten usaina aditu nuen berehala, egun jendetsuetan ohi ziren lurrin, olio- **masaje** eta esperma hotzaren usainekin batean. **Joxan Elozegi**

Adrianek ez zien batere federik medikuei, eta ziatika izan zuen batean bulgariar batengana joan zen aire- **masajeen** bidez senda zezan. **Fernando Rey**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**masajea eman** (3); **masajea ematen** (6); **masajea hartu** (4); **masajea hartzen** (4); **masajea hartzen ari** (3)

**masajeak ematen** (8)

## masajeatu (orobat **masaiatu**) du *ad* masajea eman.

Pazientzia handiz, luzaro **masajeatu** zidan txuloa, neurez hatzen bat sartzeko eskatu nion arte. **Aitor Arana**

-Zein Fernando, Müller andrea? -galdetu zuen Xveikek, hankak **masaiatzeari** utzi gabe-, ze nik bi Fernando ezagutzen ditut. **Pablo Sastre**

Lainezek bizkarra eta lepoa uzkurto ditu, esku bat buru atzera eraman eta garondoa **masajeatu** du. haiek "panpintxo" eta "polit hori" esaten zidaten, eta astiro-astiro hasi



ziren nire larru guztia zeharkatzen, igurzten, **masaiatzen**. Pello Lizarralde

## masajetxo *iz adkor* masajea.

Noizean behin haren ego zapuztuak **masajetxo** bat behar izaten du terapia moduan, hori da dena. Patxi Iturritegi

## masajista *iz* masajeak ematen dituena.

Bankeroa iruditzen zitzaziguna bigarren mailako futbol taldeko **masajista** da, eta ijitoen elkarteko ordezkari itxurako hura rock kantari bat. Pako Aristi

**Masajistek** erabiltzen duten olio berezia. Ramuntxo Etxeberri

25 txirindulari, **masajistak**, mekanikariak, marketinekoak, idazkariak... Berria - Kirola

Emakumezko **masajista** gutxi tropelean. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**taldeko masajista** (3)

## masakratu, masakra, masakratzen 1 du *ad* sarraskitu.

Mundu Gerran judu eta serbiarrak **masakratu** zituzten hirira. Berria - Kultura

**Masakratzen** ez zituztenean belarriak ebakitzen zizkieten, beste barik, «buhame izateagatik». Berria - Kultura

Oihanak beteak direla mila gaiztaginez zeinek hiltzen eta **masakratzen** eta ebasten baitute kausitzen duten guzia. Aurelia Arkotxa

Hiri hau hiru egunean **masakratu** zuten, Berlinera nor lehenago iritsiko lehian sarturik baitzetozen sobietarrak. Edorta Jimenez

Egia baita haurrek ez dutela errepidean **masakratuak** izan behar. Josu Zabaleta

### 2 irud/hed

Hain zuzen, egun guziz gaizki tratatua, batzutan **masakratua** den hizkuntza maitagarri honen babesa hemen dago, Mediatekan. Berria - Kultura

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Gerrako batailoi **masakratueneren** artean izan zen. Edorta Jimenez

ETAren aroak ere ondo ezagutu ditu bizitzako poemaren bihotz **masakratuak**. Joseba Zulaika

## masakre 1 *iz* sarraskia, hilkintza.

Ez da gure asmoa borroka bat baino gehiago **masakrea** izan zen hura deskribatzea. Konspirazio horiei erantzunez, herriak, amorratuta, iraileko **masakreak** bultzatu zituen.

Julen Gabiria

Sabra eta Chatilako **masakreak**. Herria

Haren gain ezarria zen Srbrenica Bosniako hiritik populuaren parte bat desherritu zuela eta lurralde hartan haren peko ziren serbiar tropek izigarriko **masakreak** egin zituztela, zazpi mila presuna bederen garbitu. Herria

Bainan nork egin du holako sarraski edo **masakrea**? Herria

Zer egiten dute gure buruzagiek **masakre** horien geldiarazteko? ez ote du Palestindar baten biziak frantses batena balio? Herria

Anaia bat bezala maite izan dudana gizona, bihotzak beti sinpatia eta adiskidetasuna zabaldu dituena, jende errugabearen **masakrean** partaide izatea, ezta pasiboki ere, ez da posible. Ramon Etxezarreta

-Nork salbatuko nau **masakre** honetarik? Itxaro Borda

Oraingo judumasoikeria abereko honen ari duen **masakre** humanista politagoa balitz bezala! Patziku Perurena

### 2 (hitz elkartuetan)

Horgo gerla zibilaz kezkatua joan deneko aspaldixkoan, nahi luke jakin zer pasatzen den xuxen eta zer diren hango genozidio edo jendetzaren **masakre** ta suntsitze famak.

Herria

· Berria kurrutu da ere gertakari batzuei deitoragarriak izan direla, jende **masakre** ainitz, eta horietan hobendun direla denak Herria

## masatxo *iz* masa txikia.

Bien bitartean, sorbidean den izakitxo horren baitan, horra agertu zenbait zelula poliki-poliki nerbio-zelula **masatxo** bat osatuz doazenak. Juan Garzia

Zelula-**masatxo** horrexen barruan daude algebra eta musika, sintaxia eta semantika, geometria eta kontrapuntua. Juan Garzia

## maseatu, masea, maseatzen du *ad*

Alai, dantzan, baloia urrea bailitzan **maseatzen**, maitekiro ukitzen. Berria - Kirola

Real Madril bultza eta bultza, eta ezin, eta Arsenal, elegante, baloia **maseatu**, ukitu, ukitu eta arriskua sortu. Berria - Kirola

## masia *iz* Kataluniako etxaldea.

Ni ez naiz L'Ampurdan **masia** bat erosten duen horietakoa. Berria - Kultura

Inguruetako **masiaren** batetik ihes egina izango zen. Jokin Urain

## masibizazio *iz* masibo bihurtzea.

Hirigunetik kanpora, bere aparkaleku eta guzti, laurehun gatzontzi, laurehun zotzontzi, haserreak harturiko ehun zerbitzari hara-hona korrika, karta luze samarra baina iruzurrez josia (onddoak txanpinoi, idia txahal, txangurroa zapo, etxekoa industrial), **masibizazioa**. Edorta Agirre

## masibo 1 *iz* kopuru handiak hartzen dituena, kopuru handiei dagokiena. (pertsonei dagokiena) ik masa 6.

laz «atxiloketa prebentiboak» eta sarekada **masiboak** gertatu zirela komentatu zuen. Berria - Euskal Herria

Hezkuntza **masibo** eta ez elitiista horrek eragin positiboa du errenten banaketan. Koro Navarro

Modernizazio besterendu batek dakartzan biztanleen lekualdatze **masiboan** emaitza. Koro Navarro

Herritarren asanblada **masibo** batean. **Esteban Antxustegi**  
Konkurrentzia berriaren ondorioz, baztertze-fenomeno **masiboak** gerta daitezke aspaldi industrializaturiko eta nekez birmolda daitezkeen eskualdeetan. **Koro Navarro**

«Ez dut jitoen exodo **masiboa** espero», zehaztu zuen Makisek. **Berria - Mundua**

Erlji Joan, kulturean, ideologian, politikan, deskonbertsio **masiboak** egitera behartuak izan gara. **Joseba Zulaika**

Balkanetako garbiketa etniko, hilketak **masibo** eta bortxaketak. **Berria - Kultura**

Bakarra sortzen dugu eta berau modu **masiboan** ekoizteko akordioak egiten. **Berria - Ekonomia**

Hizkuntza **masiboetan** egiten den literaturarekin. **Berria - Kultura**

## 2 (gauzei dagokiena)

Interesen ordainketa bermatzeko, artilearen, mearen eta bestelako lehengaien esportazio **masiboari** ekin behar izan zioten, herrialdearen kanpo-mendekotasuna areagotzeraino. **Iban Zaldua**

Horren ordainetan, estatuak inbertsio **masiboak** egin zituen industria astunetan eta oinarrizko azpiegiturretan. **Koro Navarro**

Boeing 7E7 hegazkinari laguntza **masiboak** emateko bidea prestatzen ariteza egotzi die AEBei. **Berria - Ekonomia**

Suntsipen **masiboko** birusik asmatu ezear ez litzatekeela antibirusik, kondoirik eta gerra prebentiborik salduko. **Iñaki Segurola**

Suspertze ekonomikoa etengo du eta azpienplegu jadanik **masiboa** handituko. **Koro Navarro**

Ezin da gehiago esan aurkikuntza batek, hastapen orokor baten formulazioak, edo egitasmo baten definizioak hasiera ematen dionik, era **masibo** batean gainera, diskurtsoaren historiaren aro berri bati. **Xabier Arregi**

Bizi izan dugun beste fenomenoak kalera ateratzearena izan da, hau da, era **masiboan** eremu publikora ateratzen. **Ana Urkiza**

## 3 (hedabideei buruz) ik masa 12; masa 13.

Oztopoak gainditzeko goaz eta ororen buru irratik **masiboa** lortzea da xedea. **Berria - Euskal Herria**

Gure erantzukizuna komunikazio **masiboan** dagoela uste dugu, eta euskaraz egiten dugun lana, behintzat, ondo egitea. **Berria - Harian**

Gaur egun mendebaldeko hiritarrak hedabide **masiboetatik** berebiziko informazio kopurua irensten du, eta gizaki (post) modernoaren ezaugarrietako bat informazio interesatu hori guztia digeritzeko ezintasuna da. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Aldezkaritza tontoa izango da, baina mundu tonto honetan eredu bihurtzen ari dira hedabide **masiboetan** oinarritutako argitalpen hauek. **Pako Aristi**

## 4 masa askokoa, trinkoa.

Redecillan sartzean, turismo bulegoaren etxolan liburuxka bat eta mapak harturik, monolito **masibo** baten aitzinean jarri naiz. **Piarres Aintziart**

Hospital de Condesa hemengo eliza, O Cebreirokoaren idurikoa dorre **masibo** bat. **Piarres Aintziart**

## masiboki *adlag* era masiboan.

Filipinetan bizi ziren frantsesak **masiboki** eskuinarentzat bozkatu zuten azken hauteskundeetan. **Ramuntxo Etxeberri**

Gobernuek, 1929ko hutsegiteen oroitzenarekin beldurtuta, **masiboki** sustatu zuten likidotasuna, arazoak zituzten eragileen birfinantzaketa errazteko. **Koro Navarro**

Baina toki askotan askoz lehenago ere utzi zioten jendea **masiboki** txertatzeari. **Berria - Gaiak**

Halaxe gertatzen da erauzketa-industrian, eta orobat plantazioetan, horixe baita garapen-bideko herrialdeetan eskaintza **masiboki** kontzentratua dagoen sektore bakarra. **Koro Navarro**

Herriak **masiboki** ikusten duena telezaborra da. **Berria - Gaiak**

Literatura **masiboki** kontsumitzen duten argelak diren bitartean, eta haien gogo sinple eta nahikeria merkeak asetzeko prest dauden zu bezalako mertzenarioak diren bitartean. **Jon Alonso**

## masifikatu, masifika, masifikatzen 1 du *ad* zerbait erabiltzen duten pertsonen kopurua gehiegi handitu.

Hogei urtean turismoa zeharo **masifikatu** da, gure gurasoek ez zuten ia batere bidaiatzen. Ikasketak **masifikatu** gabe zeudelako. **Mikel Hernandez Abaitua**

Egun mendebaldeko zientzia empirikoak aintzat hartua du "urdea lau hankako olibondoa" dela, **masifikatu** gabe hazi, hil eta kontsumituz gero. **Edorta Agirre**

## 2 (era burutua izenondo gisa) *izond*

Azalera txiki-txikian hazitako txerri **masifikatuak** bihotzeko infartua nozi dezake noiznahi. **Edorta Agirre**

## masifikazio 1 *iz* zerbait erabiltzen duten pertsonen kopurua gehiegi handitzea.

Jakintzaren demokratizazioak eliteen **masifikazioa** bideratu du. **Berria - Kultura**

Delicatessen motako produktuen **masifikazioaren** lekuko izango gara: egungo elite-jakiak "arrunt" bilakatuko dira Pekoiaren biderkatzaileari esker. **Edorta Agirre**

Publizitatearen manipulazio gordina, mugimenduen **masifikazioa**, harremanen tribalizazioa... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Epe ertain edo laburrean, dudarik gabe, pintxoaren kulturaren industrializazioa (**masifikazioa**) jazoko denez [...]. **Edorta Agirre**

Ugaritasun horrek, **masifikazio** horrek ez al dakar, nahitaez, aura galtzea, eta horrenbestez artearen mami-mamiaren osagarri den zerbait desagertzea? **Josu Zabaleta**

Ni barruan egon naizen urte guztietan, hamaika kartzela eraiki dituzte, **masifikazioa** arintzeko zirela esanez, baina kartzela berri guztiak lepo bete dituzte eta **masifikazioak** jarraitu egiten du. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

Tokian tokiko berezitasunak [...] etengabe suntsitzen dituen **masifikazio** prozesutik ateratzen behar da elikadura lehenbailehen, bertako protagonistok pixkanaka ezabatu, asimilatu desagertu aurretik. **Edorta Agirre**

Espainiako hiriburuan dagoen hedabide **masifikazioaren** sarean harrapatuta, sekulako ikusmina sortzen zuten fitxaketa eta harrobiko jokalarik asko hutsean gelditzen ziren: Hawkins, Victoriano, Digbeu, Mumburu, Hernandez-Sonseca, Kambala, Alfonso Reyes... **Berria - Kirola**

## masiliar *izlag*

Helenismoaren **masiliar** aitzindarienetik kanpo. **Iñaki Mendiguren**

## masilla (*orobat masila*) *iz* mastika.

Poltzaren barruan plastiko horian bilduta plastilina edo leihoetan kristalaren ertzean jartzen den **masilla** modukoa ere bazegoen, eta koaderno bat eskuz izkiriatua. **Joseba Sarrionandia**

Momentu horretantxe eguzkiak argi-parrastada gorri bat **masila**-koloreko uretara isuri zuen. **Lopez de Arana**

## maska 1 *iz ipar* mozorroa, maskara.

Elgarrekin prestatzeko ihauterietako jantzi eta **maskak**. **Herria**

Begitarateak **maska** batekin gorderik eta ahoa marra gorri batez tapaturik. Herría

**Maskak** ezartzen zituzten, aurpegiak itxuraz aldatuz, zein itsusiagoka. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alaitasunean ospatu dira hemen ere ihauteriak, **maska** -mozorro, dantzaldi eta, guziz, mahai-joko gozamenuekin, horietan odolgi-jate, xerri xango eta kausera ongi harrotuak ere ez baitziren txarrenak. Herría

Bada ere, ihauteria gogoan, **maska** erakusketa bat, maska horiek Afrikan ikusten direnetarik. Herría

"Elgar" zentrokotik liburutegian **maska** erakusketa bat bada ihauterietako gaiaz. Herría

## 3 paperezko edo ehunezko zatia, ahoa eta sudurra estaltzen dituen eta agente kutsatzaileetatik babesteko erabiltzen dena. ik **maskara 4**.

Besoetako haurrei bularra eman behar dieten amei **maska** erabiltzea aholkatzen diete, haurra babesteko. Berría - Euskal Herria

Zilan-en aurpegiari **maska** bat ipintzen ikusi nuen; burua pixka bat mugitzen hasi zen, eta, handik minutu pare batera, medikuak **maska** kendu zion. Juan Kruz Igerabide

## 4 (hitz elkartuetan)

Euren ezadostasuna aldarrikatzeko oxigeno **maskak** aurpegiari, eta zabor poltsak soinean zituztela, ehunka lagunek euren aldarria entzunarazi zuten. Berría - Euskal Herria

## maskadun *izlag* maska duena.

Lehengo usaiari jarraikiz ari bagine, aste huntan litake ihauteria handien-handienera, bainan helduden asteartean azken dantza pikoak eta azken **maskadun** ibiladiak, handik goiti Garizuma berrogoi egunez! Herría

## maskal *(orobat mazkal g.er.) 1 izond* ahula, indargabea, biguna. ik **maxkal**.

Medikua, gorputz **maskal** hartan espirituaren halako indar izugarria ikustean, zeharo txunditurik geratu zen. Askoren artean

Ederki erakutsi duzu badakizula lagun bihotzez **maskalak** adoretzen... Anjel Lertxundi

Haragia **maskaltzen** eta margultzen hasten delarik, sabela mintzen, ileak eta hortzak erortzen, oiak gris bilakatzen, orduan hobe da bakarrik egotea. Juan Garzia

Mahaspa **maskalak**, sagar makatzak, basaran garratzak... Iñaki Arranz

Maisuaren gorpuzkera **maskalak** eta hizketa-modu leunak iradokitzen ez zuten oso bestelako irimotasuna erakusten zuten, ordea, haren hitzek. Anjel Lertxundi

## 2 (hitz elkartuetan)

Ardi galdu baten **maskal** -itxura. Anjel Lertxundi

## maskaldu, maskal(du), maskaltzen 1 da/du *ad* ahuldu.

Semetoxa egunean baino egunean argaltzen, **maskaltzen** eta ahultzen zihoala. Gotzon Garate

Lehengo portaeratik hain aldatua ikusten zuten eta gorputzeko penitentziagatik hain **maskaldua**, non egiten zuen guztia ahuleriari eta burua galdu izanari egotzen baitzioten. Askoren artean

Begiraleek jaramon gehiago egiten diete korridoreetako landare hotzez **maskaldu** guri baino. Anjel Lertxundi

Arrazoi eta diskurtso politen biguntasunak ez du inperioa **maskaldu** besterik egiten. Joxe Azurmendi

-Horrela da bizimodua -erantzun zuen amak ispiuaren aurrean eserita zegoen lekutik, **maskalduz** zihokion edertasunari erreparatuz-. Xabier Olarra

Egungoentzaren hatz larrosak **maskaltzen** hasten diren orduan. Xabier Olarra

## 2 (era burutuam izenondo gisa)

Eskorta-hesi zartatuak han-hemen, euren pezo **maskalduak** erakutsiz. Juan Garzia

-Erro! -esan zuen Ronek, Percyren eskutik hontz **maskaldu** hura hartu eta hegalpetik eskutiz bat ateraz-. Iñaki Mendiguren

## maskara 1 *iz* mozorroa.

Annyk ez du espresioa aldatu; aurpegia aldatu du; antzinako aktoreek **maskara** aldatzen zuten bezala: kolpean. Monika Etxebarria

Aurrenekoz ikusten dut haren aurpegia begirik gabe: kartoizko **maskara** bat dirudi, gaurko egunean dendetan saltzen dituztenen gisakoa. Monika Etxebarria

Deabru-itxurako **maskara** batzuek lotsagabe begiratzen zuten paretetatik. Iñaki Mendiguren

Une hartan bertan poema bat etorri zitzaidan gogora, itsasoari desertuaren **maskara** deitzen ziona. Bernardo Atxaga

Amak, aldiz, bere marmolezko **maskara** hartan gorde zituen, ohi bezala, bere sentimenduak. Joan Mari Irigoien

## 2 irud/hed

Betaurreko ilunen **maskararik** gabe diz-diz egiten zioten begiek, kolorez tronpatutako auto zelular bati bezala. Aingeru Epaltza

Nekagarria da bizitza osoan **maskara** batekin ibili behar izatea. Xabier Mendiguren Elizegi

Batek beti jakiten du egia, beste egia, itxuren atzean, **maskaren** atzean, bizitzako gertaeren atzean ezkututzen den egia. Xabier Olarra

Gerora beste **maskara** batzuk jantziko zituen eta, kasik adinkideak ere baziren lagun biek mozorro-dantzan bizi osoan segituko zutela esan liteke. Edorta Jimenez

**Maskara** barregarri baino ez direla poeta-aurpegi hori eta arima egoera hori, irakurleak ez badu aurpegi horrek eta arima egoera horrek adierazten duten poesia-egaria testuan asetzeko modurik. Joxerra Garzia

Norbera hustearen bada hustearen: estalkia altxatzea, nork bere burua abandonuan uztea, **maskara** kentzea. Joxan Elozegi

## 3 (hitz elkartuetan)

Haren aurpegiak **maskara** -itxura hartu zuen bat-batean. Iñaki Mendiguren

Aurpegiari **maskara** itxurako begirada distiratsuek. Anton Garikano

-Ezin omen zirela hieroglifiko eta jainko **maskara** haiek argazkitan atera, bestela derrepente hiltzen omen zinela-eta. Joxe Austin Arrieta

## 4 arnasa hartzeko gailua, ahoa eta sudurra estaltzen dituen.

Arnasa, **maskara** honetan hartzen dut nik. Josu Zabaleta

Operazio gelara eramanez ninduten eta han medikuak **maskara** bat jarri zidan aurpegiari, naturaltasunez arnasa hartzeko esanez, eta hori da gogoan dudana guztia. Xabier Olarra

Gasaren kontrako **maskara** bat aurkitu genuen, eta barruraxeago kasko bat, garaiko komikietan soldadua alemanek eramaten zituztenak bezalakoa. Bernardo Atxaga

- ik maska 3.

Sudurra eta ahoa **maskarekin** babestu behar dira. Berría - Ekonomia

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Finkatu baionetak! -garrasi egin digu Hanleyk, artean erotuta gabiltzalarik gure gas **maskarak** janzen. Mirentxu Larrañaga

Erne nago zelatan, nire gas **maskara** burutik behera sartuta. Mirentxu Larrañaga

Ospitaleko kirofano ondoko gelan da, sendagile eta erizainez inguratutik, oxigeno-**maskara** musuan. Jose Angel Irigaray  
Kontua da hegaldia altitude handira igo zela, radarrak ekiditeko, eta ondorioz oxigeno-**maskara** erabili behar zutela. Fernando Morillo

## 6 (bestelakoak)

Erradioterapia sailera lehenengoz joan zirenean, **maskara** egiten hasi aurretik, Bilbao doktoreak hartu zituen, tratamenduaren berri azaltzeko. Imanol Zurutuza  
Enpresak ez zielako langileei **babes** maskararik eskaini eta ez zuelako bete azterketa medikuak egiteko betebeharra. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gas maskara** (5); **maskara kendu** (6)

**gas maskarak** (4); **maskarak jantzi** (3)

## maskarada *(orobat maskarada g.er.)* 1 iz Zuberoko dantza eta kanta multzoa, kalez kale joanez jokatzen dena.

Ez da pastoralala izan behar, aski duzue **maskarada**. Patziku Perurena

Pastoralak **maskaradak** eta inauterietako beste errepresentazioak. Berria - Kultura

Ihauteriaren burrunba handiena ixildua da, Xuberoko **maskarada** badoa haatik aintzina herriz-herriz. Herria

Larunbatean, Xuberoko **maskarada** Idauze-Mendin, Zalgize eta Iruriko gazteriaren eskutik. Herria

Igandean, Mendikotan, Xuberoko **maskarada**, aurtengo azken ateraldia, Ixil-gune luze baten ondotik, **maskarada** bat da muntatu 1999an Idauze-Mendin. Herria

Hurrengo egunean Urdiñarben **maskaradak** jokatzeok ziren eta harako asmoa genuen asko eta asko, bezperan, Donibane Garazin zegoen jaialdira bildu ginen. Patxi Zubizarreta

Aurten, Sohūtar gazteak dira **maskaraden** emaitera abiatzen. Herria

Lehen baziren Pasqua eta Marcchiani (azken hau preso orain) bahituen askatzeko, orakoak, aldiz Didier Julia eta Philippe Brett Sirian gaindi dabiltzan **maskaradako** beltzen idurikoak dira. Herria

## 2 fartsa.

Oposizioak, berriz, «diktadurak antolatutako **maskarada**» izan zela salatu zuen. Berria - Mundua

Benetako **maskarada** da, beste zerbait dagoelako jokoan. Berria - Euskal Herria

Taldeak ez du **maskarada** horrekin bat egingo. Berria - Ekonomia

Baionako tribunalean, alegia **maskaradan**, Lafont epailearen 'votre profession?' galderari euskara garbian ihardetsi zion: 'Ni naiz Olosoeneko Monzondar Telesforo, franbuesak eta marrubiak artatzen eta saltzen ditut'. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**xuberoko maskarada** (45)

**arbeko maskaraden** (3); **maskaraden lehen agerraldia** (3); urdiñ

## maskaradun *izond* maskara jantzia duena.

Orobat, titi-aire joaki ziren diploma, kartazal itxia eta bi musu eman ondoan nire bi aldeetara kokatu ziren azafata **maskaradunak**. Aingeru Epaltza

## maskaratu, maskara(tu), maskaratzen 1 da/du *ad* zerbait beste itxura baten atzean ezkutatu. ik **maskatu**<sup>1</sup>.

Doktrinak eta teoriak astindu ziren, benazko eskrupuluak agertu ziren, baita arrazoi sasikoak estaltzeko ideologiaz **maskaraturiko** beste batzuk ere. Jon Alonso

Apaltasunez **maskaraturiko** harrokeria pittin batez. Jon Alonso

Uste zuen aduana zergak kobratzea **maskaratutako** estortsioa baino ez zela, hau da, Estatuak gutako bakoitzaren poltsikoan sartzen zuela eskua, ordainetan onurazko ezer eman gabe. Bego Montorio

## 2 du *ad* maskara jarri. ik **mozorrotu**; **maskatu**<sup>1</sup>.

Handik **maskaraturik** ateratzen bada eta azkar ihes egitea lortzen badu, inork ez du pentsatuko bera izan denik. Xabier Olarra

Ez diot beste inori aurkitu dohain hori, begirada **maskaratzeko** beste batzuek aurpegia **maskaraten** duten bezala. Matías Múgica

Erreparatuak ditut legearen teatroko aktoreok **maskaratzeko** dituzuen toga beltz eta zilarrezko puinetak. Patziku Perurena

Aurpegia oinazez **maskaratua** zuen, eta kriseiluak argitzen zizkion begiek dirdiratzen zuten, leinuru beldurgarri. Elena Touyaru

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Horrela, zenbait saio **maskaratu** egin zituen, eskaera formalik ez, apenas zeharkako hitzen bat bazkide zenbaiti, esaterako. Bego Montorio

Pozoi **maskaratu**en bidez bere biziaren aurkako jutrukiak asmatzen zituzten. Jon Alonso

Aurpegi **maskaratua** daramaten aktoreak dira: gaur egungo finantza merkatuen garapenarekin nekez bereiz daitezke epe motzerako eragiketak eta epe luzerakoak, produktu eratorrien merkatua tarteko. Iñaki Heras

**Maskaratuak** eta base-ball makilak eskuetan zatxizkatela etorri ziren gauerdi aldera. Itxaro Borda

Ondoren, **maskaratu** batzuk agertu eta inguruan zegoen emakume bat eta beste zenbait pertsona zauritu zituzten. Berria - Mundua

## maskaratxo *iz* ahoa eta sudurra estaltzen dituen maska. ik **maskarilla**.

Ez darama ezer soinean, ezpada **maskaratxo** zuri bat musuan eta fumigatzeko tresnak eskuetan. Javi Cillero

## maskaratzar *iz* itsasontzien brankan jartzen den irudi handi apaingarria. ik **maskaroi**.

Eraitsirik zituen hiru mastak, husturik gain-bizkarra, erauzirik lema eta, hara, brankako **maskaratzarra** ere falta zuela ohartu nintzen. -Aditu duk, ezta? Edorta Jimenez

-Perok hitz egin zuen, ontziko **maskaratzarra** baino zurrinago aurpegia-. Edorta Jimenez

Mamu airekorik ere bazen-eta masprezaren azpiko irudietan, maskara edo **maskaratzarretan**. Edorta Jimenez

## maskarazi, maskaraz, maskarazten du *ad* maskaratzera behartu.

Horregatik, praka motzez, txarolezko zapatez eta adurretako batez jantzirik, arrimatzen da inudez **maskarazi** duen Rebekarengana. Josetxo Azkona

## maskarilla 1 *iz* ahoa eta sudurra estaltzen dituen maska. ik **maskaratxo**.

Hotza latza, eta aire konprimatuzko pistolarekin ari zirelarik, hatsaldi bakoitzean (gabe gehiago produzitzen zela eta, ez zieten **maskarillarik** eskaintzen) coke hauts pila irensten zuten. **Pablo Sastre**

## 2 aurpegia estaltzen duen geruza kosmetikoa.

**Maskarilla** lisatzailea. **Jasone Osoro**

## maskaroi *iz* aurpegitar baten itxura duen apaingarri arkitektonikoa.

kale estuen sarreretan, balkoi eta arkuetan, zoruari, etxe arte estutik apenas ikusten den zeruan, zubipeko ur uherretan, kanal-ondoan lotuta dagoen ontzi txikian, frutaz kargaturiko txalupan, poste baten puntan pausatu den kaioan, nonahiko hormetan ikusten diren kimera, grifo, **maskaroi**, gurutzeetan... **Anjel Lertxundi**

## maskatu<sup>1</sup>, maska(tu), maskatzen **1** du *ad ipar* zerbait, beste itxura baten atzean ezkutatu. ik**maskaratu**.

Legez kanpoko edo legearen kontrako ekintzak antolatzen zirela gain hartan eta baseliza estakuru eder bat zela horien guzian **maskatzeko** ... **Michel Oronoz**

Ber denboran, denetan sartu zaigu kapitalismoa, **maskaturik** bezala, itxura ezberdinak hartuz. **Herria**

## 2 maska jarri. ik **maskaratu 2**.

Herritar saldo handi bat igurikatua da mozorroturik edo **maskaturik**. **Herria**

Ohidurari jarraitzeko, ahalez mozorroturik edo **maskaturik** jitea nahi lukete, denak ihauteri giroan sartzeko gisan. **Herria**

Beltzez jantzirik, **maskatuak**, soldado andana batek jauzi egiten du tresna bakoitzetik. **Michel Oronoz**

Nola 1984 eko abendoaren 20 an mediku eta buruzagi abertzalearen bulegoan sartu ziren aurpegiak **maskaturik**, bera eta Luis Morcillo. **Herria**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Eskualgintza hasarretzen da, aldaketa hori eraso **maskatu** batendako hartzen baitu. **Herria**

Makilari, zirtzil, eta bertze haur eta heldu **maskatu** frango baziren ibilaldi koloretsu eta alegera horretan. **Herria**

## maskatu<sup>2</sup>, maska(tu), maskatzen du *ad* mastekatu, mamurtu.

Asper ez daitezen, denbora-pasa, gomazko pilotak eta **maskatzeko** jostailuak eskuratzen dizkiete. **Gotzon Garate**

## maskatze *iz ipar* mozorrotzea.

-Goizeko 9etan Lapurdiko plazan " Ihauteria Merkatuan " Turismo Bulegoak antolatuturik Mozorro edo **Maskatze** lehiaketa. **Herria**

## maskor (*orobat maxkor g.er.*) **1** *iz* soinberen eta beste ornogabe batzuen gorputza estaltzen duen karezko azala. ik **kusku**.

**Maskor** batez eginiko hautsontzi bat, zigarrokinez eta gerezi-hezurrez betea. **Juan Garzia**

Arreta handiz ikusi zuen nola ateratzen zituen txirlak **maskorretatik** bere atzamar arrosa eta finez. **Lopez de Arana**

**Maskor** horiek kaltzio karbonatoz daude eginak. **Berria - Gaiak**

Beilari baten jantziak ditu, lenazko kapa luze marroi, txapel, **maskor** eta makila. **Michel Oronoz**

Itsasoko **maskor** batetik ateratzen da, eta horrekin egiten da purpura kolorea. **Santiago Iruretagoiena**

**-Maskor** honen barruan jarraitzen du itsasoak. **Xabier Aranburu**

Hodi biribilkatu bat da koklea, barraskilo baten **maskorraren** itxurakoa. **Irene Aldasoro**

Santiagoren **maskor** horiarekin. **Piarres Aintziart**

Goian Santiagoko **maskorra**, erdian bidekaria eta azpian gezi bat, Bidea ezker hartu behar dudala erakusteko. **Piarres Aintziart**

Hor ikusten ahal dira batetik zernahi arrain mota, marrazo, gatuarrain eta holako, eta bertetik fosilak, **maskorrak** eta hezurdurak. **Herria**

Dortokak bere **maskorraren** azpian bezala. **Joan Mari Irigoien**

Poliki, dortoka baten **maskorra** balitz bezala. **Harkaitz Cano**

## 2 irud/hed

Zeren garuna, hezurrezko bere **maskor** gogorraren barruan, ondo babesturik baitago normalki kalteetatik. **Irene Aldasoro**

Bere baitako **maskorrean** ezkutaturik, ematen zuen damu zela nirekin jardun izanaz. **Anjel Lertxundi**

Gizon-emakumeak zirikatatu nahi nituen, tentatu, indarberritu, lasaitu, ea ausartzen diren behingoz beren barraskilo-**maskorretatik** kanpora ateratzen. **Karlos Zabala**

## 3 maskorren gaia.

Ile lisoaren eta **maskorrezko** betaurreko sendoen atzean erdi ezkutatua. **Iñaki Mendiguren**

## 4 (M larriz) Donostiako Zinemaldiko saria, besterik adierazten ez bada, Urrezko Maskorra. ik **beherago8**

Akatsak akats, **Maskorra** irabazteko argudio sendoak ditu *Roma*-k. **Berria - Kultura**

Filmak zuzendari hasiberri onenaren **Maskorra** irabazi zuen Donostiako Zinemaldian. **Berria - Kultura**

## 5 balbula.

Haizagailuaren **maskorra** irekirik xurgauspoa martxan jarri, huts-etetekoia itxi, eta ponpa gelditu zuen. **Juan Garzia**

"Lehor gustatzen zaio", arazoitu zuen Bortolassok: eta euri egiten zuen bakoitzean hantxe joaten zen aparatuaeren hondoko **maskorra** irekitzera. **Juan Garzia**

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskualdeko **maskor** biltzaile hobereana zarela erran digute... Baziren zapata-saltzaile poloniarrek, **maskor**-saltzaile turkiarrak eta perla-saltzaile errumaniarrak.

Nikomedesek [...] **maskor** itxurako kurba bat asmatu zuen, konkoidea, harrigarriro ebazten zituena, aldi berean, hala kuboaren bikoizketa nola angeluaren trisekzioa. **Elena Touyrou**

Jauregiak atzean itsasoa zuen, **maskor** itxurako badia txiki biribil erdia. **Felipe Juaristi**

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egunak eta egunak igaro behar izan zituzten ontzi-**maskorra** olatuetan zintzilik, olatuen jostailu. **Felipe Juaristi**

Txapin izpilkuko-koloreak ziren, erromes-**maskor** eta lore-irudi soilez apainduak. **Mirentxu Larrañaga**

Euskal Herriko harpe batzuetako barraskilo-**maskor** azal lodiak. **Patziku Perurena**

Zetazko galtzerdiak, harizko zapiak, txirla-**maskorrezko** botoiak. **Pablo Sastre**

Lehengo zalaparta urritu egin zen, itsas **maskor** baten soinua bezalako marmar isila bilakatzeraino. **Lopez de Arana**

Konoaren hondoan metatu zen amiantoa, ate-**maskor** irekiaren gainean, isilpean tapoi trinko bat osatuz. **Juan Garzia**

## 8 **Urrezko Maskor** Donostiako Zinemaldiko sari nagusia.

200 bat filma ikusteko parada, horietan 19 filma lehian izanen direlarik, urrezko **maxkorra** eskuratu nahian, tartean Montxo Armendariz nafartarraren “Obaba” filma. **Herria**

*Turtles can fly*-k **Urrezko Maskorra** eskuratu du aurten Donostiako Zinemaldian. **Berria - Kultura**

**Urrezko Maskorarengatik** lehiatuko direnen artean François Dupeyronen Inguélézi lanak bilduko ditu begirada asko. **Berria - Kultura**

Michael Winterbottom ingelesa, Robert Guediguian eta François Dupeyron frantziarrak, John Sayles estatubatuarra, Victor Gaviria kolonbiarra eta Alfonso Aristarain argentinarra, besteak beste, **Urrezko Maskorraren** lehiari izango dira. **Berria - Kultura**

## 9 Zilarrezko Maskor Donostiako Zinemaldiko bigarren saria.

Sari garrantzitsuagoa irabazi zuen 1999an Zhang Yang zuzendari txinatarrak Xizao (Shower) filmarekin: zuzendari onenaren **Zilarrezko Maskorra**. **Berria - Harian**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maskor itxurako** (3)

**urrezko maskorra** (5)

**urrezko maskorraren** (3)

## maskordun 1 izond maskorrez hornitua.

Saget andereñoak fatxadaren hondoko kolore urdin leuna, zutabe horiak, zutari **maskorduna** atsegin zituen. **Karlos Zabala**

## 2 izlag maskorra duena.

Itsasoko azidotasunak koralei eta **maskordun** espeziei erasaten die, nagusiki, adituen arabera. **Berria - Gaiak**

## 3 (izen gisa)

Koralak, **maskordunek** eta zenbait plankton motak itsasoko ioi karbonatuen beharra dute, euren maskorrek garatu ahal izateko. **Berria - Gaiak**

## maskortxo izond maskor txikia.

Ordu batzuen buruan, ontzigaina muku bete zen zaku gogor, harri egin, karez pikortatu eta **maskortxo** josiz. **Juan Garzia**

## maskota iz zorte-emaitzat hartzen den pertsona, animalia edo gauza.

Erbinude hura, Morito izenekoa, hondoratutako arrantzontziko **maskota** omen zen. **Iban Zaldua**

Baina munstroak ez dira **maskota** onak. **Iñaki Mendiguren**

Top 16ko partidetan debekatu egin dute berdegunearen inguruan **maskotak** eta antzekoak ibiltzea. **Berria - Kirola**

**Maskota** exotikoen merkatua oso handia da EBn. **Berria - Harian**

Zeremonia hasi berria zelarik, Txapelketako **maskota** ofizialaz -giralduz- moztorturik zeuden bi pertsona taula gainera igo ziren inolako eragozpenik gabe. **Txema Ramirez de la Piscina**

Europar eta Ameriketako Estatu Batuetan 13.200 milioi euro erabiltzen dira **maskotentzako** janaria erosteko. **Berria - Gaiak**

## maskotatxo iz adkor maskota.

Nolabait, kate motzean lotuta zeuzkaten jabeek beren **maskotatxoak**. **Harkaitz Cano**

## maskulinitate 1 iz maskulinitasuna.

Mutilek beren **maskulinitateari** eusteko duten gizarte presioa oso gogorra da. **Berria - Euskal Herria**

Ahotsa pittin bat latza zuen, baina sendoa, oin indartsuak, xamurrak, gozoak, bortitzak, haren eskuak ezin sexygoak, egundoko ipurdia zeukan, ez dago hitzik

**maskulinitate** eta feminitate nahaste hura deskribatzeko. **Karlos Zabala**

Nola nobelatu duten emakume batzuek **maskulinitatea**. Lehenengo nobelan landutako gaia intzestua izan zen, bigarrenean tortura, hirugarrenean absentzia baten presentzia, hurrengoan maitemintzea eta azkeneko eleberrian, **maskulinitatea** eta politika. **Berria - Kultura**

## 2 adkor zakila.

Gure gizon handi eta inportantea zeinen txiki eta bihurri bilakatzen zen bere **"maskulinitatea"** nire mingainarekin inguratzen nuenean! **Jasone Osoro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**politikaz eta maskulinitateaz** (3)

## maskulinizante izond maskulino bihurtzen duena.

Emakume irakurleak ere literatura **maskulinizante** edo maskulinizatua eskatzen dio emakume idazleari. **Ana Urkiza**

## maskulinizatu izond maskulino bihurtua.

Bere mezua maskulino soila duen aukera politikoa edo hauteskunde ekimenak gutzit **maskulinizatuak** egiten dituen aukera politikoak ezin du Euskal Herriko emakumeon babesa izan, emakumea alboratzen baitu. **Berria - Euskal Herria**

Emakume irakurleak ere literatura maskulinizante edo **maskulinizatua** eskatzen dio emakume idazleari. **Ana Urkiza**

## maskulinizazio iz maskulino bihurtzea.

Anna Bofillek uste du hiria **maskulinizazio** ereduaren isla dela. **Berria - Euskal Herria**

## maskulino 1 izond gizonari dagokiona, gizonezkoa. ik femenino.

Andoniren esku **maskulinoak**, katiluak bailiran, zure titi gazteak babesten eta Andoniren bularraren beroa zure bizkarrean itsatsirik. **Lourdes Oñederra**

Hatz zarpail eta **maskulinoekin**. **Eider Rodriguez**

Sexualitatea bakoitzak bere erara bizi du, modu subjektiboan, bere izate femenino edo **maskulinotik** eta bere desioen arabera. **Luis Elberdin**

Gidak espero bezala, trekeko partaide **maskulino** gehienen artean bazterrak harrotu ditu neskaren irribarre zabalak. **Aingeru Epaltza**

Pertsonaia **maskulinoen** eta femeninoen arteko disimetria (haiei begiratzeo ahalmena ematen baitzaie, eta hauek begiratuak izateko jartzen baitira). **Josu Zabaleta**

Anatomia **maskulinoa** izanda emakume sentitzen direnen artean. **Luis Elberdin**

Zientziak huts egiten zionean, emakume intuizioaz baliatzen zen Marga nire inteligentzia **maskulinoak** eragotzia zuen lekuraino iristeko. **Ramon Saizarbitoria**

Ene bizi-modelo gehienak **maskulinoak** ziren liburuetako heroi gehienak **maskulinoak** baitziren. **Ana Urkiza**

Baina gayek oso harreman gutxi dute emakumeekin eta oso giro **maskulinoak** sortu dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Eternitatea **maskulinoa** da; betikotasuna eta geroa ere bai. **Ana Urkiza**

Gizartea da, oro har, **maskulinoa**, eta izango da, oraindik, mendeetan. **Ana Urkiza**

## 2 (gramatikan) bi genero dituzten hizkuntzetan, genero ez-markatuari dagokiona.

Garbi dago txandakatze hori ez dela fonologikoa, morfologikoa baizik, hotsa aldatzeaz bat hitzaren balio morfologikoa aldatzen baita **maskulinotik** femininora edo alderantziz. **Lourdes Oñederra**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**irakurketa maskulinoa** (4); **maskulinoa da** (5); **maskulinoa izan** (3); **modu maskulinoa** (3)

**maskulinoak dira** (3); **protagonista maskulinoak** (3)

## maskulinoide *izond*

Esaten zuten kloritiko orgasmoak zituztenak infantilak, berekoiak eta heldugabeak zirela, eta orgasmo **maskulinoideak** zirela. **Luis Elberdin**

## maskulinotasun *iz* maskulinoa denaren nolakotasuna.

Hiria **maskulinotasun** ereduaren isla al da? 'emakumea, etxean' leloari eusteko egina al dago? **Berria - Euskal Herria**

## maskur *iz* azala loditzeagatik eskuetan egiten den gogorgunea.

Atxilotuak **maskur** bat zeukan ezkerreko behatz txikian, eta nazkagarria eta ikaragarria zen koskor horixka txiki horri begiratzea. **Jose Morales**

**Maskurretan** min egiten zioten zapata zuri eta beltz pare bat. Luzaz egon nintzaion begira **maskurrez** betetako esku horixkari. **Pello Lizarralde**

## maskuri 1 *iz* giltzurriinei darien pixa biltzen duen mintzezko zorroa. **ikbixika**.

Gasolina-tankea hutsik zegoen ia; gure urdailak ere hutsik zeuden ia; gure **maskuriak** bete-beteak. **Oskar Arana**

Portuk tripa irentsi bitartean, Gorkak **maskuria** hustu zuen sasi artera. **Patxi Iturritegi**

Joan komunera, kendu makarrak, hustu **maskuria**, garbitu muturra, orraztu kalparra. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Maskuria** libratu ondoren, zurrutada ur edan, eta sukaldera bideratu zen, dutxatu gabe. **Migel Angel Mintegi**

Lur jotako baserrian **maskuria** lasaitu zuen puskailetan. **Koldo Izagirre**

Komunetik pasa ez nintenez, **maskuria** lehertu beharrean egon nintzen hortik aurrera arratsalde osoan. **Harkaitz Cano**

Behin baino gehiagotan galdetu zioten [...] zer zuen horren triste egoteko, hagineko minez al zegoen, digestio motelak, familiako nahigabeak edo **maskuriko** gorabeheraren bat ote zuen. **Koro Navarro**

## 2 (testuinguru teknikoetan)

Litro erdi bat gernu eduki dezake **maskuriak**, baina erdi betea dagoenean hasten da larritasuna sentitzen. **Irene Aldasoro**

Giltzurdinak gure gorputzean jiraka dabilen odola garbitzeko xedea du, eta odolak baztertzen dituen hondakinok, ur bihurturik **maskurira** bildu ahalean, gernutan kanporatzen ditugu, pizagaleak agintzen digun bakoitzean. **Patziku Perurena**

Behar ez diren substantzia kimikoak eta ur kantitate txikitxo bat, berriz, ureterretatik **maskurira** bidaltzen dira. **Irene Aldasoro**

**Maskuriko** minbizia, inkontinentzia eta beste gaitz batzuk tratatzeko. **Berria - Gaiak**

## 3 (bestelakoak)

Gizasemeak, emakumeak, haurrak, zaharrak, animalien larruez jantzirik, aurpegia bidez igurtzitako **maskuriek**in estalirik, artalde argal batzuk zaintzen zituzten. **Karlos Zabala**

**Maskuri** horia sabel gainean lotuta, heriotza puxikaz joka helduko balitz bezala, baserrietako umeen moduan jolasean. **Joseba Sarrionandia**

Arrainei tripa irekitzen diet, hustu eta **maskuriak** oinazpian leherrarazten ditut. **Itziar Otegi**

## 4 (hitz elkartuetan)

Orduan, ebakuntza baten bidez, gernu-**maskuriari** lotu zituzten giltzurrunak. **Berria - Gaiak**

## 5 *behazun maskuri* behazuna biltzen duen mintzezko zorroa.

Une horretan, guztiz emana egoten da gibela beste eginkizun batzuetara, baina hutsarteetan ekoizten da behazuna, eta behazun-**maskurian** gordetzen, kontzentratirik, gero, behar denean, handik jariatzeko. **Irene Aldasoro**

Egun batzuk lehenago egindako ekografiaren emaitza ere negatiboa izan zen, esan nahi baitzuen ongi zituela gaixoak gibela, behazun-**maskuria** eta pankreasa. **Imanol Zurutuza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maskuria hustu** (4); **maskuria lehertu beharrean** (3)

**maskuriko minbizia** (7)

## maskurtsu *izond* maskurrez betea.

Areto handia arakatzen zuen begiekin, eta sudurrean sartzen zituen hatz zakar, **maskurtsu**, kakoak. **Jose Morales**

Baina esku **maskurtsua** -urrez ezagutzen nuen bere maskur bakoitza eta bere mugimendu bakoitza- ontzitik ahora zebilen atzera eta aurrera, bide hori baino ez zuen egiten. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hego erraldoiek hatz **maskurtsuen** arteko laruzko mintzak ziruditen; kiratsa zerien. **Agustín Otsoa**

## maskurtu, maskur(tu), maskurtzen da *ad* maskurrak eratu.

Hasieran, ospitalera iritsi berrikan, zarakarrez eta harramazkaz josirik zeuzkan hatz samur zurbilen giltzadura guztiak, baina, apurka-apurka, hatzak **maskurtu** zitzaizkion eta tolesturetan geruza lodi eta gogor bat eratu zitzaion. **Jose Morales**

Eskuak eta oinazpiak **maskurturik** eta ikorzirinez josirik... **Joan Mari Irigoien**

## masoi 1 iz masoneriako kide den pertsona. ik framazon.

-Bai, **masoia** naiz -esan nion-, **masoia** naiz. Koro Navarro

Sendagilea zen, eta diputatua errepublika garaian, askok **masoia** zela zioten, bere eskuzabaltasunagatik beharbada. Mikel Hernandez Abaitua

Agure bat zuten elkartearen buruzagi goren; alproja hutsa zen, **masoia**, kartazale amorratua, mozkortia eta ele-ederra. Jose Morales

**Masoiak** izan dira demokraziaren bultzatzaile nagusiak ere. Berria - Gaiak

## 2 (izenondo gisa)

Maiestate **Masoien** Logietako karguak aipatzen dira hemen. Xabier Olarra

Nazioarteko Logia **masoien** elkartea. Berria - Gaiak

Hargin **masoi** batek egina zela irudia, arteaz zertxobait zekien batek. Anjel Lertxundi

lido beretik bestalde, 1918an, Versaillesen, Austriako inperio katolikoa desegin zuten, holetan, Woodrow Wilson presidenteak eta Europako haren adiskide **masoiek**.

Piarres Xarriton

Xaho gnostiko **masoia** eta errepublikazale laikoa zen. Askoren artean

## masoka izond adkor masokista.

-Hori militantismorik **masokena** dok, nik ezingo najuan jo batuan, esate baterako. Iñaki Iñurrieta

**Masoka** demasa ala umore beltza? Jokin Urain

## masokismo 1 iz oinazea pairatzean atsegina -bereziki sexu-atsegina-, hartzen duenaren jokaera.

Bizitza espiritualak egunerokotasunarena ez den beste *tempus* bat eskatzen baldin badigu, utikan **masokismoak** ! esaten ari zaigu modernitatea. Anjel Lertxundi

Ez da ulertzen, **masokismoa** ez bada, zer arrazoi dagoen kultura espainol horretan integratu gura izateko. Joxe Azurmendi

Unibertsoa [...] malenkoniakzko gogoetagai zaio Borgesi, eta espazioaren eta denboraren **masokismo** ludiko halako bat lantzen du, tximeleta diseatuen gisa ezarrit tarteka paperean bere bizipen arruntak, bere bizipen bakarrak. Juan Garzia

Politikoa denak eta sexuala denak, sadismoak eta **masokismoak**, bat egiten dute gizon-emakumeen subkontzientean, banaezinak dira Berria - Kultura

## 2 sado-masokismo sadismoa eta masokismoa pertsona berean bilduak.

Burduntzien aritze "arraro" hori ez da, beraz, **sado-masokismoaren** saio natural bat, ezta **sado-masokismoaren** naturaltasunaren adierazgarri bat ere. J.M. Olaizola  
"Txiliiku"

Zuk diozuna, Jauna, gaitz bat da, nion ihardetsi, eta badu izen bat gaitz horrek, **sado-masokismoa** deitzen da. Piarres Xarriton

## masokista izond/iz oinazea pairatzean atsegina -bereziki sexu-atsegina-, hartzen duena; maskokismoari atxikia.

Mugimendu nagi batean dabil maiz ibiltaria, non ez den kirolari ments eta **masokista** horietarik. Piarres Aintziart

Baina ni ez naiz **masokista** horietakoa, aizu! Antton Olano

Baina nik besotik heldu, eta berriro belaunikarazi nuen, hain gara gizakumeok batzuetan **masokistak** ! Joan Mari Irigoien

Idazleok eta psikoanalistak espezie berekoak omen ginen: analistek joera sadikoa zuten, eta guk, berriz, idazleok, **masokista** tankerakoa. Ramon Saizarbitoria

Haatik, Milletena ez da pertsonaia sadikoa, ezta **masokista** ere (ez baitago sumisiorik bere jarreran, gehienetan pasiboa izan arren). Berria - Kultura

Sexua eta mina lotzea **masokisten** kontua da, nire ustez. Luis Elberdin

## 2 masokismoari dagokiona.

Xu Jinglei zinemagilearen filmak maitasun harreman **masokista** bat kontaktzen digu. Berria - Kultura

## masoneria 1 iz isilpeko elkartea, harginengandik harturiko ikur batzuk erabiltzen dituen, kideen arteko elkartasuna helburutzat duena eta giza anaitasuna aldarrikatzen duena. ik framazoneria.

**Masoneriako** kide direnen esanetan, ordea, eurena eskola bat besterik ez da, banakoei beraien kabuz pentsatzen irakasten dien eskola bat, alegia. Berria - Gaiak

Askatasunaren, berdintasunaren eta anaitasunaren printzipioak **masoneriarrenak** dira. Berria - Gaiak

Sekta bat al da **masoneria** ? Berria - Gaiak

## 2 irud/hed

Benetako **masoneria** zen hura, emakume ezkonduak erosten zuten, lagun ezkongabeei ezkutuan emateko, pakete nimitsoak eskutik eskura aldatzen ziren axkar-axkar, txutxu-mutxuka beti, erreferentzia guztiak kodetuak, azpikultura oso bat zen. Karlos Zabala

## masoniar izlag masonikoa.

Mozart-en **Masoniar** *hileta baterako musika* laburra jo zuten musikariek zapalketaren sentipena adieraziz lan kilikagarrian. Berria - Kultura

## masoniko izond masoneriari dagokiona.

Lepo-paparrak gantzuz lustratuak zituela, eta poltsikoan ikur **masoniko** bat. Juan Garzia

Irrikaz begiratu eta begi kliskak egiten zizkion, ahopean mintzatzen zitzaion munduko gauzarik hutsalenen esateko, isilmandatu **masonikoak** itsastzen zizkion elkarri emandako bosteko. Karlos Zabala

Oroz gain "konspirazio judu-**masoniko**" famatua. Joxe Azurmendi

Arkitektura **masonikoaren** arauak aintzat hartuz osatu zituztenen lanak batu dituzte erakusketaren azken aurreko sailean. Berria - Kultura

Hubert Robert margolari **masonikoarentzat**, arkitekturaren arteak irudi mentalak ahalbidetzen zituen Berria - Kultura

## maspasa ik mahaspasa.

## maspil 1 izond mailtua, maspildua.

Hau bezalako herri txiki-**maspiletan** natura ez da gizakiaren eguneroko bizitzatik bereizten. Pako Aristi

## 2 irud/hed



## maspil-maspil egin ik **maspildu** 4.

### **maspildu**, maspil(du), maspiltzen (*orobat **mazpildu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **maspildu** agertzen da*) **1** da/du ad mailatu, akastu; zapaldu.

Eta bere porrak behin eta berriz **maspiltzen** zuen, sagar handi bat balitz bezala, nire ofizialaren gorputza. **Koldo Izagirre**

Porrukina hautsontzian **maspildu** nuen. **Aingeru Epaltza**

Tronpan ongi biribildu eta lurraren kontra **maspildu** zuen. **Gotzon Garate**

Bi zaldi ikusi genituen kalean zerraldo eta **mazpilduta** [...]; eta, nonahi, soldaduak, eta artilleria, eta anbulantziak hara-hona bizian, lasterka eta presaka. **Mirentxu Larrañaga**

Zorabiatu eta **mazpilduta**, kedarrez estalita, zutitu egin zen kontuz, betaurreko apurtuak begietara eramanez. **Iñaki Mendiguren**

Xehatuko zaitut, erlamando bat bezala! **mazpilduko** zaitut, ilitze bat bezala. **Pablo Sastre**

### 2 irud/hed

Nire ahotsa oihartzunik gabe joan zen hegan, ahul, gauak, gau barrenduezin hark, itoa, **mazpildua**. **Josu Zabaleta**

Galduko ez balira, ez nuke halako ardurarik izango, hizlari datozen emakumezkoak ere, **maspiltzen** doakienez gaztetasunaz goizero ispilua salaketarik ez balute makilajeaz arduratuko ez liratekeen bezala. **Pako Aristi**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Aurpegi osoa handitua, **maspildua**, eskuineko begia hutsik, "Hidalgo izan duk" esan ahal izan zion osabak ahapetik, "Hidalgok saltarazi zioke begia, nire aurrean, hiru gintuan, izutzeko...". **Koldo Izagirre**

Ez aurkeztu inola ere barrabil **maspildu**, lehertu, erauzi nahiz ebakiak dituen abererik. **Elizen arteko biblia**

Etalde bat zeharkatu eta etxe **maspildu** batean sartu da. **Javi Cillero**

### 4 *maspil-maspil egin* erabat maspildu.

Maila hartako heroiaren leinuko bat irin-orea egiteko arrabolaz jo eta jipoitu egin zuelako, zauritu egin zuelako, **mazpil-mazpil** eginda utzi zuelako, lehiaketan parte ez hartzeko moduan utzi zuelako. **Felipe Juaristi**

## **maspreza** iz brankan makurtua kokatzen den haga edo masta modukoa, ontziaren aurreko mastaren abenkak finkatzeko balio duena.

Masta nagusiaz gainera, *Ánimas* karrakak, karraka denen legean, bazituen han beste masta bi; mesanako edo gibel-masta deritzona, [...] eta trinket edo aitzin-masta esaten

ziona, izenak berak dioen legez, branka aldean, eta hari loturik, brankaz harago luze irtenda, **maspreza**. **Edorta Jimenez**

Hernando zen, niri dei egin eta batera **masprezean** aurrera katuarena eginez zapietan lan egitera joaten. **Edorta Jimenez**

Nire lekuan geldi lotu nintzen eta, halaxe, laguna trinketaren eta **masprezaren** arteko aparailuetan sartzen zela ikusi nuen, urrundik. **Edorta Jimenez**

Mamu airekorik ere bazen-eta **masprezaren** azpiko irudietan, maskara edo maskaratzarretan. **Edorta Jimenez**

## mass

### 1 *mass media* masa komunikabidea.

**Mass media** eta lobby politikoek eragindako presioen ondorioz. **Berria - Kultura**

**Mass media** hauetako askoren atzean New Cultural Standard horietarantz eta pentsamendua homogenotzerantz jotzen duten kultur operadore indartsuak daude. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Beharbada, hor legoke euskal komikigintzaren bidea, gurean inoiz **mass media** izatera iritsiko ez bada ere, gutxienez herri-media bilaka dadin. **Berria - Kultura**

Teatroa ez baita inoiz helduko **mass media** zabaletara, baina beste edozein komunikabideko baino hobeto transmitituko ditu sentimentuak, emozioak, ametsak eta itxaropenak, ikuslea eta aktorea aurrez aurre daudelako, une eta toki batean. **Berria - Kultura**

Erreportajea egiteko aginduko zioten delako futbolariarekin, ez kirolaz baizik eta modari buruz, elkarrengandik urrun egon arren **mass mediatako** presentziak hurbiltzen dituen bi mundu horien topagune gisa edo. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txostenak, egia esan, ez zuen Alderdia zuzenean nahasten, baina ongi erabiliz gero (hartarako zeuden **mass mediakoak**), garrantzitsua izan zitekeen euren interesetarako. **Migel Angel Mintegi**

## **massaitar** iz Kenia aldeko massai tribuko kidea.

Antropologo edo antropofagoren batek ikertu beharko litzuzke **massaitarren** eta euskaldunen arteko lotura begi-bistakoak. **Joxean Sagatzizabal**

## **masta** 1 iz ontzietan, belei eusteko zutik kokatzen den haga.

Hiru **masta**, eta **mastotan**, latina deritzegun horietako hiruki-taxuko bela bi bakoitzean! lau **mastako** brasildar ontzi handi bat. **Edorta Jimenez**

Atoian eramanik, hiru **mastako** goleta bat jaisten ari zen North River-en zehar. **Lopez de Arana**

Hiru **mastako** belaontzi bat eta bapore bi daude atrakatuta. **Joseba Sarrionandia**

Hamar mila tonako zamako zahar bat, **masta** bikoia. **Koldo Izagirre**

Katuaren malgutasunaz egin zuen **mastako** aparailuetan behera. **Edorta Jimenez**

Gaztelako erregearen bandera zeraman **mastaren** goian. **Felipe Juaristi**

**Mastetan** bildurik ziren zapiei begiratu nien. **Edorta Jimenez**

Ontzien sokak lasaituak daude, ezin diote **mastari** eutsi, eta belarik zabaldu ezin. **Elizen arteko biblia**

Tenpesta izugarri hark inarrosi baitzituen galeoi-flotako galeoi guztiak, gurea bereziki, halako moldez, non bi **masta** hautsi eta hiruzpalu bela hondatu baitzizkigun. **Joan Mari Irigoien**

Ekaitzak bi zati egin zuen **masta**, lemazaina buruan jo, eta buruko hezur guztiak kraskatu zizkion. **Juan Kruz Igerabide**

Gilaz gora, **mastak** erroetatik erauzirik eta haize oihalak urraturik, halaxe ageri ziren biharamunean, driban, txalupa haiek. **Edorta Jimenez**

**Masta** eraitsi beharko litzateke ziria haren azpitik kendu ahal izateko. **Edorta Jimenez**

Batek, bereziki, atentziora eman zion, belaontzi bateko **mastari** besarkatuta zegoena, bikini ñimiño bat jantzita albora begira. **Migel Angel Mintegi**

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Masta** luzeak apurtuak, oihalak zarrastatuak. **Felipe Juaristi**

Ohartu nintzen arte beste mesanako **mastak** krak egin zuela eta gainerat zetorkidala. Joan Mari Irigoien  
Bazen beste ontzi bat, falua deritzen horietakoa, txopako **mastan** harro eskegita oihal brodatua ageri zuena. Edorta Jimenez

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Masta** -ziriak sartzea ez zen lan gaitza. Edorta Jimenez

Belek haizea ez dutelako hartzen berez zentroaren lekua den **masta** -oinaren ondoan, baizik eta **masta** -muturraren parean. Santiago Iruretagoiena

Itsasontziei zeharka bultzatzen zien haizeak, **masta** -oihalak eteteraino. Juan Kruz Igerabide

Haren [biolinaren] arku mantso ibiltzen zen, **masta** -oihaletan haizerik hartzen ez duen itsasontzia bezala. Felipe Juaristi

Kaira heltzen ari zen kalesa [...] ilunpeetan erdi ikusten ziren ontzietako **masta** -punta, gabia eta belazurrunen arabera. higanota, txirripaz berriro ere, bizirik atera zen, arrantzale batzuek itsasoan, **masta** zati bati helduta noraezean zebilela, aurkitu zutelako. Anjel Lertxundi

Argitasun hartan, armadako **masta** -basoak neguko pagadi biluzia zirudien. Edorta Jimenez

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Masta nagusiaz gainera, *Animas* karrakak, karraka denen legean, bazituen han beste masta bi; mesanako edo gibel-**masta** deritzona, txopako gaztelauaren aurrean, eta trinket edo aitzin-**masta** esaten zaiona, izenak berak dioen legez, branka aldean, eta hari loturik, brankaz harago luze irtena, maspreza. Edorta Jimenez

Lotinanta agindu zuen burua moztu eta trinket-**mastaren** puntan lotu zezatela. Juan Garzia

Gibel-**mastan** atondu berria zen garabiaren beso luzea karelaren parera agertu zen. Edorta Jimenez

Senir-eko zipresez egin zizuten zurajea, Libanoko zedroz goi-**masta**. Elizen arteko biblia

### 4 bandera eta kidekoak jartzen diren haga.

Hego epelak **masta** erdian zeuden ikurrinak astintzen zituen eraikin ofizialetako balkoietan dolu-egunari nota koloretsuak jarriz. Joxean Agirre

Munduko Rally Txapelketako **masta** luzeenean Citroenen bandera gorria mugitzen du haizeak. Berria - Kirola

Bandera **mastan** gora igotzen ari da, beste bandera biren artean, eta himno bakar bat entzuten da, martxa militarren kutsukoa. Joseba Sarrionandia

Udaletxean **masta** luzean Espainiako bandera gorri eta horia ikusi zuen eskegita. Jon Maia

- Zaindarien talaitxoaren gainean inor ez dago; eta bi bandera **mastak** hutsik daude. Txillardegi

### 5 hiru-mastako iz hiru mastako ontzia.

Lehorreratu ginenean, beste aldetik ikusi genuen **hiru-mastako** dotorea nola deskargatzen zuten begira egon ginen. Irene Aldasoro

### 6 masta nagusisup\_1

**Masta** nagusiaren aparailuetan gora egin zuten Mattinek. Edorta Jimenez

Bi txirrika handi ikusi zituen **masta** nagusitik brankako trinketera lotutako soketatik zintzilik. Anjel Lertxundi

Ni neu joan nendin ontziko gabizain, alegia, **masta** nagusiko goian zelatari, gabia deritzon habia modukoan. Edorta Jimenez

### 7 masta nagusisup\_2 (erkaketetan)

Eskribaua, berriz, gure **masta** nagusia baino tenteago zihohan. Edorta Jimenez

Ni, egiatan, **masta** nagusia baino zurrunago lotu nintzen. Edorta Jimenez

Ontziko **masta** nagusia bezain zut eta lehor, ardo-zahagia bezain baldan eta mozkor. J.M. Olaiola "Txiliku"

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**masta** gainean (4); **masta** nagusia (10); **masta** nagusian (10); **masta** nagusiaren (8); **masta** nagusiari (3); **masta** nagusira (4); **masta** nagusitik (5); **ontziko masta** (4)

**hiru mastadun** (3)

**mastak eta aparailuak** (3)

**hiru mastako** (14)

**mastan gora** (7)

**mastaren puntan** (3)

**ontziko masten artean** (3)

## mastaberritu, mastaberri, mastaberritzen du ad masta berria jarri.

Hamabost egun iragan ondoren itsasoratu ziren **mastaberriturik**. Felipe Juaristi

## mastadun izlag mastako.

Itasontzia hiru **mastadun** eta berrogei kanoiko fragata bat zen, txopako gazteluaren ederragatik itsasalde guztietan ezaguna. Felipe Juaristi

Aurrera segitu dut eta hiru **mastadun** itsasontzi bati begia emanda, harantz abiatu naiz. Edorta Jimenez

## mastagabetu izond mastak galdu dituen edo kendu zaizkiona.

Lemari ero batek gidatu belaontzi **mastagabetuko** txo, eskifaia hordi batek etengabe ipurzulatua. Aingeru Epaltza

## mastakatu ik mastekatu.

## mastaratu, mastara(tu), mastaraten da/du ad mastara joan; mastara eraman.

Frantses untzi haren menerat geunden, zeina hurbildu baitzitzaigun gure kapitainak bandera zuria **mastaratu** bezain fite, harik eta parean jarri zitzaigun arte. Joan Mari Irigoien

Ez baikenuen zer eginik, berehala nagusitu zitzaizkigun, gure galeoiko kapitainak bandera zuria **mastaraten** zuela, itsas lapurren lehen kanoi hotsa entzun bezain fite. Joan Mari Irigoien

## mastatxo iz masta txikia.

Beste argazki batean Mundakako beste arrantzontzi batzuk ageri dira, txopako **mastatxoan** bandera lutoz jantziekin. Edorta Jimenez

## mastekatu, masteka, mastekatzen (orobat mastakatu g.er.) 1 du ad ahoan ibili, ahoan txikitu. ik murtxikatu; mamurtu.

Plazan, sekula ez nuen astirik izaten lasai jateko, ongi **mastekatzeko**, ahoa zuku betean, hortz-haginen artean kraska eta kraska. Joxan Elozegi

Aitonari kosta egiten zitzaion **mastekatzea** eta irenstea. **Jon Alonso**

Urrebotoiak topatzen nituen beti plazan, udaberria zen berriro, eta astiro **mastekatzen** nituen gordeka. **Joxan Elozegi**

Pizza-zati bat ahoratu eta **mastekatzen** hasten da. **Antton Olano**

Arrastiria goxo goxoa luzatzen ahaliko da talo ta xingar batzu **mastakatuz**. **Herria**

Mokadu bakoitza 25 aldiz **mastekatzen** zuen, okela izan, arraina izan edo beste edozer izan. **Bego Montorio**

**Mastekatzeko** belar zatitxoak saltzen. **Bego Montorio**

Koka **mastekatzen**. **Pablo Sastre**

Neskak, bien bitartean, kexu-zirkirik gabe eusten zion araketari, xingoma **mastekatuz**. **Juan Garzia**

Txiklea **mastekatzen** nuen, etengabe. **Joan Mari Irigoien**

Paper puskak **mastekatu** eta gela sabaira jaurtitzea. **Joseba Sarrionandia**

Toolles, kontramaisua, euren artean zebilelako, soka baten muturra eskuan hartuta eta tabakoa **mastekatzen**. **Julen Gabiria**

## 2 irud/hed

Begirada gurutzatuak, aldaka kulunkariak, masaila gorriak puruak **mastekatzen**, oliba-koloreko aurpegi iharrak. **Lopez de Arana**

Ezer ez da ongi-ongi ezagutzen eztabaidaren haginekin **mastekatua** izan ez bada. **Iñaki Mendiguren**

Amorrazioa **mastekatuz** aldegin zuten denek. **Koldo Biguri**

*Paranoiko bat naiz, paranoiko bat naiz, paranoiko bat naiz* hitzak **mastekatuz** behin eta berriz ahopean. **Harkaitz Cano**

Zeregin berezirik gabe zain eta euriari begira egoteak bazuen denbora **mastekatzearen** antza. **Harkaitz Cano**

Lehengo batean, lagunarte on batean nengoela, gure aberriaren gaia ekarri zuen solasak, gai mila aldiz aztertua, xehatua eta **mastekatua**, baina ez haatik amaitua, finitua edo flakutua. **Bernardo Atxaga**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Janari **mastekatuan** bat-batean aurkitzen den harriak adierazten duenez. **Xabier Amuriza**

## 4 **mastekatzeko goma** gomaren antzeko gaia, azukreduna eta aromaduna, mastekatzen dena.

EHun eta berrogeita hamazazpi dolar eskudirutan, hiru barra **mastekatzeko** goma, hogeita bost zentimoko lau txanpon, hamar zentimoko bi txanpon, zentimoko lau txanpon eta paper zati bat. **Oskar Arana**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**denbora mastekatzearen** (3)

**mastekatzen eta tragatzen** (3); **txikilea mastekatzen** (3)

## **mastekatzaille** *iz* aipatzen dena mastekatzen duen pertsona.

Denbora **mastekatzaille**, hauek ere. **Harkaitz Cano**

## **mastekatze** *iz* ahoan txikitzea.

**Mastekatze** biziaren soinuak baizik ez ziren haren aho betetik ateratzen. **Aingeru Epaltza**

**Mastekatzeak** ahogozoa hartzen laguntzen du. **Irene Aldasoro**

Hortzak ere palanka-sistema baten parte dira; 3,5eko desabantaila mekanikoa dago ebakortzetan, eta 1,7koa hagineta, hau da, **mastekatze** -lan gogorrena egiten den lekuan. **Irene Aldasoro**

Bidean, argi eskas hartan, usain beroak eta **mastekatze** -hotsak... **Joxean Sagazitabal**

**Mastekatze** mugimendua barailetan. **Joseba Sarrionandia**

## **mastektomia** *iz* bular bat osoki edo partez erauztea.

Ebakuntza-eguna du Bennettek ostirala, eta **mastektomia** bat zeukan programatuta. **Xabier Olarra**

## **master**<sup>1</sup> *1 iz* graduondoko espezializazio ikastaroa, unibertsitatean edo kideko zentro batean egiten dena.

Graduko ikasketek indarra galduko dute, eta graduondokoez edo **masterrek** garrantzia handia hartuko dute. **Berria - Harian**

Filologia Frantsesa ikasi du, baina itzultzaile jarduteko beste bi urteko **master** bat egin beharko luke Vilniusen. **Berria - Mundua**

Horretarako, **master** bat, espezialista titulu bi eta doktorego programa bi eskainiko ditu UEUK hirugarren zikloan, guztiak EHUK balioztatuz. **Berria - Euskal Herria**

Eliz Ikasketetan Madrilgo Comillas Unibertsitatean lizentziatua da (1998), eta Erlijio Zientzietan **Masterra** du (1999). **Askoren artean**

Rosa **master** bat egitera joan zen Madrilera. **Iban Zaldúa**

Psikologiako **master** bat. **Pako Aristi**

Ingurumen-hezkuntzako **masterra** egiten aritua zen hiru urte lehenago. **Imanol Zurutuza**

Ingurumen-hezkuntzako **masterreko** ikasle izan nintzen duela hiru urte, hainbat hilabetez. Animazio digitalari buruzko **master** bateko ikaslea da Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitatean. **Imanol Zurutuza**

Euskal Herriko artearen **master** edo gradu-ondoko kurtsoa Deustuko Unibertsitatean ematen da, inork ondo jakin gabe zergatik ez dagoen horrelako eskaintzarik unibertsitate publikoan. **Berria - Kultura**

Gerora itzulpengintzaz **Masterra** egin zuen Gasteizen. **Askoren artean**

**Masterreko** jarduera praktikoen barruan, film labur bat egin zuen Carmen Gonzalez sevilarrarekin batera. **Berria - Kultura**

## 2 (hitz elkartuetan)

Bestetik, **master** titulazioak ere izango ditugu, eta zentrozen arteko elkarlana ere beharko dugu horiek antolatzeke. **Berria - Euskal Herria**

Berdintasun **masterrak** bultzatu ditugu unibertsitateetan, hutsune horri aurre egiteko. **Berria - Euskal Herria**

Enpresa gidaritzaz **masterrak** egiteko beka sistema bat. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**masterra egin** (3); **masterra egiten** (3)

## **master**<sup>2</sup> *iz* kopiak egiteko erabiltzen den audio edo bideo zinta.

*Hutsa* diskoa iazko irailean grabatu zuten, Galarko Sonido XXI estudioan, eta ondoren, *Oihuka* disketxera jo zuten **masterrarekin**. **Berria - Kultura**

Hamabost bat egun barru itzuliko da diskoaren **mastera** besapean duela. **Berria - Kultura**

## masterizatu

masteriza, masterizatzen du *ad* kopiak egiteko masterra ekoiztu.

Diskorako 23 kantu grabatu eta **masterizatu** ditu Chaok. **Berria - Kultura**

## masterizatze

*iz* kopiak egiteko masterra ekoiztea.

Kudeaketa artistikoa Galder Izagirrek egin du eta **masterizatzea** Mikel Kazalisek. **Herria**

## masterizazio 1

*iz* masterizatzea.

Grabatu ostean, nahasketak eta **masterizazioa** atzerrian egiteko asmoa zuten, Finlandian, hain zuzen. 'Itzalitako argi bakoitzeko' izenburua du, eta Babelmusik zigilu berriak atera du; New Yorkeko West West Side Musicen egin dute **masterizazioa**. **Berria - Kultura**

**Masterizazioa** Aitor Ariñok egin du, Lorentzo Records estudioan. **Berria - Kultura**

**Masterizazioa**, ordea, Bartzelonako Reverse Mastering enpresako Jean Dob teknikariak egin du. **Berria - Kultura**

Ez zuten diskoaren **masterizazioa** teknikari ezezagun baten esku utzi nahi. **Berria - Kultura**

## 2 (hitz elkartuetan)

Grabazio estudioaz gain, denda, entsegu lokala, **masterizazio** estudioa eta biniloak egiteko fabrika ditu. **Berria - Kultura**

## masterraldi

*iz* masterra.

Bestalde, **«masterraldi** berri bati» ekingo diote, Tere Irastortzak esan bezala. **Berria - Kultura**

## Masters 1

*iz* tenisean eta golfean, munduko jokalaria hoberenak baino jokatzen ez duten txapelketa.

**Mastersean** Amerika izango lehen aurkari. **Berria - Kirola**

Aurtengo **Mastersean** hutsune garrantzitsua izango da: Severiano Ballesteros espainiarra (bi aldiz txapeldun Augustan). **Berria - Kirola**

**Masterseko** finala jokatuko dutenak Wimbledongo finalean aritu ziren aurrez aurre. **Berria - Kirola**

**Mastersa** opari mamitsua da harentzat. **Berria - Kirola**

**Mastersari** ekiteko jaialdi erakargarria antolatuta dute Seguran. **Berria - Kirola**

Pilota munduko txapelketa berritzaileenetako bat aurkeztu zuen atzo Galarretan: Insalus Erremonte **Masters** -a. **Berria - Kirola**

Houstongo **Mastersa** irabazi zuen eta ginga bikaina jarri denboraldiari. **Berria - Kirola**

Roger Federerrek 11 torneo irabazi ditu aurtun: Indian Wells, AEBetako Irekia, Bangkok, Torontoko **Mastersa**, Halle, Australiako Irekia, Hanbugoko **Mastersa**, Wimbledon, Dubai eta Gstaad. **Berria - Kirola**

## 2 (hitz elkartuetan)

Tenis jokalaria onenak ariko dira gaurtik igandera Indian Wells torneoan, denboraldiko lehen **masters** seriea. **Berria - Kirola**

Nafarroako enpresako zortzi pilotari hobereenek **Masters** txapelketari ekingo diote bihar Seguran. **Berria - Kirola**

**Masters** torneoak hasiera erakargarria izango du gaur, Galarretan. **Berria - Kirola**

## mastika

*iz* leihoetako beirak finkatzeko, zuloak betetzeko edo tutuak lotzeko erabiltzen den ore.

Leihoan lehen eguzki-printzak ikusten ziren; edo kristalen ertz izoztuak, **mastika** zikinaren kontra; edo argi apala, euriak eta lanbroak gandutua. **Anjel Lertxundi**

## mastin 1

*iz* artzakurra, artzanora.

Tiberio, 80 kilo den Napolesko **mastin** batek, haginakada latza eman zion bere nagusiarri Sopelan. **Gotzon Garate**

Osaba aulkitik altxatu, eta txakurra, **mastin** zuri handi bat bihurturik orduko, marmarka hasi zitzaidan. **Joan Mari Irigoien**

Beste bat agertu da **mastin** batekin. **Gotzon Garate**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Artaldeak zaintzeko **mastin** zakurrak ipintzea omen da biderik onena, otsoei jazartzeko gauza direlako. **Gotzon Garate**

Kortako xoko batean zegoen **mastin** zakurra balakatzera hurbildu zen Eneko. **Gotzon Garate**

Arraza nahasikoak ziren, **mastin** itxurakoak. **Gotzon Garate**

**Mastin** arrazakoa zen eta zuri-zuria. **Joan Mari Irigoien**

Otso kopuru handia bazitoken, ardien zaintzeko bazirelaketz 5 zakur **mastin** arrazakoak, eta etzirelaketz oldartu otsoeri. **Herria**

## mastitis

*iz* ugatzaren hantura.

**-Mastitisa**, orduan. **Patxi Zubizarreta**

## mastodonte

*iz* Hirugarren eta Laugarren Aroetako ugaztun fosil guztiz handia, elefantearen ahaidea.

**Mastodonte** baten fosilak aurkitu dituzte Java uhartean. **Berria - Gaiak**

**Mastodonte** bat akatzeko adina pilula lo-eragile emanda egin zituen harekikoak. **Aingeru Epaltza**

Masa txiki batek **mastodonterik** astunena altza zezakek, bere zamaz, palanka bati esker. **Jon Muñoz**

## mastoiditis

*iz* loki hezurreko apofisiaren infekzio birala.

Otitis bat izan nuen, eta gero **mastoiditisa** harrapatu. **Fernando Rey**

**mastakatu**, mastakra(tu), mastrakatzen (*4 agerraldi 2 liburutan*; *orobat mastrikatu 6 agerraldi 2 liburutan*) **1 da/du ad** lauskitu, gogor erabiliz zimurtu edo desitxuratu. ik **marruskatu 3**.

Nire gurasoei aitortzea agerian jartzea bezala izango litzateke une berean mundu guztiak nire muturrean kaka egin dezan, munduko mediokre guztiak muturrean kaka egingo balidate bezala, bere kaka likitsak nire muturra **mastraka** dezan uztea bezalaxe. **Bernardo Atxaga**

Eman dezagun bada haur denboran [...] gurdi bat ikusi zuela norbaiten oina jakin gabe eta inozentki **mastrakutzen**. **Anton Garikano**

Beso bat erauzi zion eta bestea **mastrikatu**. **Gotzon Garate**

Makina batek eskua **mastrikatu** zion. **Gotzon Garate**

**2** (era burutua izenondo gisa)

Eman dezagun oina ikusi zuela lehenik, belarretan, leuna eta osoa; gero gorpila; eta ondoren oin bera, ubela, **mastrakatu**. **Anton Garikano**

mastrikatu ik mastrakatu.

**masturbaketa** iz masturbatzea.

Antonio belauniko zegoen gure ondoan eta zakurra ni hartzen ikusteko gogoia zuela esan beharrik ez zeukan, bere buztan tenteari helduta **masturbaketan** hasi baitzen bizi-bizi. **Aitor Arana**

**masturbaldi** iz masturbatzea.

Ikusten duzunez, Eugeni, **masturbaldi** baten ondoren, hazi-guruinak handitu egiten dira eta azkenean likido bat isurtzen dute; isurketa honek zoramenik eztienera eramaten du emakumea. Esan beharra dago **masturbaldiek** jarraitu egiten dutela solas denboran. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

**masturbatu**, masturba, masturbatzen da/du ad sexu plazerra bakarka hartu; besteren bati, kitorik gabe, sexu gozamena eman. ik **idi 18**; **kanpai 16**.

Eta Mesalina **masturbatu** egiten zen, zenbait gizon, bere begien aurrean, kanpaia jotzearen jotzez, guztiz ahituta hiltzen ziren bitartean. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hau irakurtzen duenari desira piztu nahi diot, **masturba** dadila gutxienez. **Karlos Zabala**

Eskuaz, tente zegoen neure buztanari heldu eta **masturbatzen** hasi nintzen, emeki-emeki. **Aitor Arana**

**Masturba** ezazu neskaitila, eta zu lasai, hel dadila bera. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

**Masturba** nazazu, zaldun, lanean ari naizen bitartean. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Sodomizatzen zaituztenean, ez utzi inoiz klitoria **masturbatu** gabe: ez da bi atsegin horiek batera baino plazer handiagorik. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Larrutan jardun duen bitartean, Dolmancék barrabilak eta ipurdia **masturbatu** dizkio, eta Saint-Ange Andereak Eugeniren klitoria igurtzi du. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Haurrak, begiak telebistatik kendu gabe elkar **masturbatuz**; telebista amaitzearekin orgasmora iritsiko dira laurak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ohe-estalkia kendu gabe, luze etzan ninduen eta ni **masturbatzen** jarraitu zuen. **Juan Martin Elexpuru**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**masturbatu egiten dira** (3)

**elkar masturbatzea** (4); **elkarrekin masturbatzea** (5)

**bere burua masturbatzen** (3); **beren burua masturbatzen** (5); **masturbatzen dira** (14); **masturbatzen hasi** (4); **masturbatzen jarraitu** (3); **masturbatzen jarraitu zuen** (3); **masturbatzen zen** (3); **nola masturbatzen dira** (3)

**masturbatzaile** izond /iz masturbatzen duena.

Behar fisiologiko hura askotan errepikatzen zen nonbait, egoerarik edo lekurik ezinezkoenetan batzuetan, eta Brown jaunak laster batean eginiko kalkuluen arabera, zazpikoitu egin zitzaion ahalmen **masturbatzailea**, edo zortzikoitu. **Karlos Linazasoro**

Urrutiaren pertsonaiek "ez dut zerbitzatuko!" garrasi egiten dute, Satanen oinordeko dira, babesgabeak, lekuz kanpo beti, kili-kolo: heretikoa, aztia, iraultzailea, bortxatzailea, sakrilegoa, Sade, Nostradamus, poeta erromantikoa, sugekumea, dandya, **masturbatzailea**, bidaiaria, hiltzailea... **Markos Zapiain**

**masturbatze** iz sexu plazerra bakarka hartzea; besteren bati, kitorik gabe, sexu gozamena ematea.

Ai, zerbaiteagatik esaten zaio leku askotan "lehorrean egin" **masturbatzeari**! **Aitor Arana**

Egia da zenbaitetan kaltea eta gozamena nahastuta datozela: zigarreta, **masturbatze** zoroa... **Markos Zapiain**

**Masturbatze** lanetan sarri-sarri jarraitu nuen, baina egia da ia gauzez baizik ez nuela egiten, egunez beti bainenbilen Imanolen bizkar gainean. **Aitor Arana**

**masturbazio** iz masturbatzea.

Horregatik, **masturbazioa**, uzki-koitua, lesbianismoa edo homosexualitatea -ugalketarik gabeko jarduerak guztiak- gogor jarri eta kondenatuko dira. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Atzera-aurrera hauei **masturbazioa** esaten zaie, eta libertinoen hizkeran kanpaia jotzea. gogoratze hutsak beti **masturbaziorik** bortitzenera eramaten ninduen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Voyeurismoaz, aho sexuaz, **masturbazioaz**, sadomasokismoaz, lesbianismoaz eta orgiez idatzi du, poetikoki baina hotz. **Berria - Kultura**

Francisek **masturbazioarena** egiten, emakumezko laguntzaile batekin. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**masturbazioaren inguruan** (5)

**masusta 1** iz laharraren edo sasiaren (*Rubus fruticosus*) fruitua, jateko ona, lehenik berde, gero gorri eta umotzean beltz diren pikor hazidun askoren multzoak osatua.

Pikuak, mertxikak, **masustak**...! **Juan Kruz Igerabide**

-Ekarriko al dizkizut **masustak** esnearekin? **Koro Navarro**

**Masustaren** ehundura leuna eta usain freskoa zeuzkan zapiak.   Anjel Lertxundi

Zorro honetan bi **masusta** sartuko ditut, bata gorria eta bestea beltza.   Patxi Zubizarreta

Lau pote haragi, bi pitxer marrubi, bi pitxer **masusta** gorri eta larramahats, hogeitxer tomate, bost kilo olo maluta eta lau kilo arroz.   Josu Zabaleta

Bi pertz bete **masusta** hartu eta hamar, agian hamabi tarta egitea.   Anton Garikano

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ironia bilatu nuen **masusta** koloreko begi horietan, baina ez nuen halakorik aurkitu.   Aingeru Epaltza

Borrokara eragiteko, mahats- eta **masusta** -zukua erakutsi zizkieten elefantei.   Elizen arteko biblia

Tea limoiarekin edo **masusta** marmeladarekin hartuz.Eta sorberri diren **masusta** -kimuek / nire oroitzapenen ardo mikatzarekin / elikatzen dute / etorkizuneko fruituaren kolorea.   Koro Navarro

Gero, biribilean eseri ginen hilobiaren inguruan eta hileta-oturutza izan genuen, **masusta** -jana.   Mirentxu Larrañaga

**Masusta** usaina edo sasietan sortzen diren fruitu bitxi eta baliogabeen usaina.   Berria - Kultura

Bi **masusta** -pazien pisuarekin makurtua.   Anton Garikano

**Masusta** formako botoi biribilez.   Irene Aldasoro

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Udako tximista sigi-sagatsuek urratzen zuten aldian-aldian zerua argi **masusta** -zukutsu batez.   Anjel Lertxundi

## 3 *masusta arbola* ik *masustondo*.

Toki honetan, **masusta arbolak** eta basa mahastiak erauzi eta Medalliongo golf munizipala egin duten honetan, lehenago, auzo bat zegoen.   Pablo Sastre

## 4 *masusta ardo* (*corpusean masustardo soilik*)

**Masustardotarako** erabiltzen dira bakarrik han, Britainia alde haietan.   Pello Zabala

## 5 *masusta-gorri* mugurdia.

Tarta bat **masusta** gorritz eta andere-mahatsez betea.   Josu Zabaleta

## 6 *masusta-kolore izond* masustaren kolorea duena.

Aguerdiko belaontzi bera ikusi zuen Norak, bela zuriak zeru **masusta** -kolorearen kontra haizez puzturik.   Anjel Lertxundi

## 7 *masusta landare*

Labore kulunkariz estalitako alorrek erakusten dute lurraren emankortasuna, makaletara lotutako mahasti ilaraz eta **masusta** landare hostotsuz inguratuta...   Koldo Biguri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**masusta gorri** (4)

## masustadun *izond*

Soilik aurpegi **masustaduneko** gazteak esan dio: [...].   Hasier Etxeberria

## masustardo ik masusta 4.

## masustondo 1 *iz* masusta arbola, lore arrak eta emeak txorten berean dituen zuhaitza, etorkiz sortaldekoa(*Morus alba* eta *Morus nigra*). ik **masusta 3**.

Han, geltokiko auzoan, harrizko etxetxoak, beren patio eta ukuluekin, **masustondoak** , mahastiak, eta soro bazterrak Ligugnana edo San Giovannikoen berdin-berdinak ziren.

  Josu Zabaleta

Erokeria amaitu genuenean, muinotik azkar-azkar jaitsi ginen, eta zortziok **masustondo** zuri handi batera igo ginen.   Juan Kruz Igerabide

## 2 (hitz elkartuetan)

Haren argi galdu oraindik gozo-gozoak, ukitu ere ozta egiten zituen **masustondo** ilarak   Josu Zabaleta

## 3 masustondoaren zura.

Batzuek dutara jotzen zuten, **masustondozko** gider luzeko mandolina, zeta bihurrituzko bi hari besterik ez duena eta tonu laurdenetan gozatua dagoena   Karlos Zabala

## mataderi *iz* hiltegia.

Aspirina irentsi eta gero ere lehengo aurpegiera desanparatuarekin jarraitzen du neskatxak, lasai baina tristerik, **mataderiko** nil-epaia onartu duen aberearen antzera.

  Xabier Mendiguren Elizegi

Ez al dik penarik ematen halako txekor polita **mataderira** eramateak?   Joxerra Garzia

## matadero *iz* hiltegia.

Eskailerak **matadero** batekoak dirudite.   Harkaitz Cano

Indalexio txiki agertzen da, **matadero** zahararen aurrean, lehenengo planoan itsasontzi handi-handi bat daukan irudian.   Edorta Jimenez

Maiatzean hasiko da kontzertuak ematen: 5ean Tolosako Bonberenean (UEKrekin), 19an Azkoitiko **Mataderoan** (Neü-rekin) eta 26an, Anoetako gaztetxean.   Berria - Kultura

## matadore *iz* zezen-hiltzailea.

Hareatzen **matadorea** , honezkero zazpi banderilla iltzaturik dituen zezenaren bizkarrezurrean ezpata sartzen.   Edorta Jimenez

## matahame ik matahami.

## matahami (orobat matahame) 1 *iz ipar*

Bestalde **matahami** eta taloak, bai eta edari goxoak hartzen ahaliko dira, tokian berean.Lampauleko jatetxe batean **matahamez** ase ginen.   Herria

9etan askaria: **matahami** , kauserak, kafe, xokoletesne... 11etan jauntzi erakustaldia, 12tan dantza jauziak.   Herria

Antolakuntza mailan en zenen eskasik, usaiko edarietaz bestalde, **matahami** beroak preziatuak izan baitira arratsalde erditan. **Herria**

Zakua pausatu orduko, Bretainiako **matahamiak** ziren jastatu behar herria bisitatu aintzin. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

Aratsaldeko 5-etarik goiti, ezker paretan, loto jokia eta talo ta xingar, ogitarteko, bixkotx eta **matahami** saltze. **Herria**

## matalaz *(orobat matalaza eta matelasa g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian matalaz agertzen da) iz ipar*

Mahai ttipi bat, murruren kontra altxatzen zena (nik uste), alki bat, lastozko **matalaza**, Beloken utzia nuen hura bezain tinkia edo gehiago. **Marzel Etxehandi**

Goizaldera, greba ez egitea erabaki zuten langileek bidea zulatu zuten sarrerako giza-zutoinen eta fabrikaren berean loak hartzeko hedatu ziren zakua eta **matalaza** arinen artetik. **Itxaro Borda**

**Matelasa** zikin horretan pasa dut gaua nigarrez. **Ramuntxo Etxeberri**

Bigarren aldian, aldiz, lehenik zangoak lurrean pausatzin ditu eta ukabilak **matalazan** ahal bezainbat sartu ondoan xutitzen da, ez ordea berriz ere beso eta zangoak urratzeraino tiratu gabe. **Eneko Bidegain**

## matapax iz

Gero, inork **matapaxarekin** jo izan bailuen, eta kolpeak bere onera ekarri izan bailuen, mukiak, zapi batez, hots handitan kendu eta lehengo tonu logiko eta hotzean segitu zuen. **Jon Alonso**

## matatxerri iz txerria hiltzea.

Gero, azkon nagusiei lotu dizkieten zuziek estalkiak sutan jarri dituztenean, harresietatik behera bota dituzte portugaldarren buruen gainean, eta hauek izan dira atzera egin behar izan dutenak, **matatxerriaren** ondoren txokarraturiko zerriak bailiran. **Jon Alonso**

## mataza 1 iz euskarririk gabe bira handietan bildurik dagoen haria.

Alboan neukan emakumeak eten zidan gogoeta, **mataza** hariltzen lagunduko ote nion galdeginez, ausardia handiegia ez bazen. **Hasier Etxeberria**

Neure burua ikusten dut Ritaren ondoan, **mataza** harilkatzen. **Hasier Etxeberria**

Gurutzean harilkatutako **mataza**, emakumeak irribarre egin eta **mataza** desegiten zuen, besterik ez, eta behin belarrin sartu zuen orratz luzearen punta kamutsa. **Koro Navarro**

Artilezko **matazekin** jolasean aritu zen, eta orratz bat hartuta esku ahurrean tapatekoka jardun zuen. **Koro Navarro**

## 2 irud/hed (gauza fisikoak)

Hari luze horren **matazak** korapilatu egiten dira, behin eta berriro, xix. eta xx. mendeetan, lekukotza nabarmenak baititugu aurretiaz esandako horien inguruan. **Andres Urrutia**

Ile gorriakaren **mataza** izurto batek kiribil liseoz zedarrizten zion kopeta luze eta estua. **Lopez de Arana**

*ik beheerago* 8. **Askoren artean**

Hasieran ilea ziruditen, haurraren ilea, gero loratzen eta korapilatzen zena **mataza** beltzetan kapelaren azpian. **Anton Garikano**

Patiora irten nintzen, ez baitago euria bezalakorik buruko **matazak** hariltzeko. **Anjel Lertxundi**

Orduoro entzun nituen ezkila-joaldiak, Sabethek lo ziruela: adats eta arnasa berozko **mataza** beltz bat nire ondoan. **Joxe Austin Arrieta**

Bere nerbio guztiek haragia ebakitzen ziotela zirudien, altzairuzko alanbre mehearen **mataza** bailiran. **Lopez de Arana**

**Mataza** batean bildu ginen hirurok eta, azkenerako, Fernando berotzen hasi eta ikaragarri tente jarri zitzaion, bioi jo zigun larrua eta Marinaren ahoan hustu zen. **Karlos Zabala**

Nire koltxoaren gainean erantzi gabe, dardarka eta izerditan nengoen bil-bil egin **mataza** baten pare mantarekin tapatuta. **Fernando Rey**

Ni Simon Azkue nintzen, erdia gizon eta erdia sagu, bi besoak luzatu eta **matazatik** harilkoa egiteko bakarrik balio zuena. **Hasier Etxeberria**

Baina has nadin **mataza** biltzen, tenorea ere bada-eta. **Iñigo Aranbarri**

## 3 irud/hed (gauza abstraktuak)

Badiaren beste aldetik gindoazen, parkea zeharkatuz, eta nire pentsamenduen **mataza** gero eta gehiago katramilatzen zen. **Bernardo Atxaga**

**Mataza** korapilatsuko istorioak harilkatzen jarduten zuten. **Mirentxu Larrañaga**

Susmoa badut horrako bideak geroz eta azterketa-prozedura konplexuagoen **mataza** korapilatu batera garamatzala, hizkuntz egiturari buruzko hainbat galdera garrantzitsuri erantzunik emateke. Bata zein bestea hartu, kontua da entzulea hunkitzeko moduko **mataza** osatzea. **Itziar Laka**

Aitari buruz ditudan irudiak eta oroitzapenak ugariak dira, baina ezin dute **mataza** osorik osatu, album bateko argazki solteetan bezala ikusten baitut, eta ez hasiera eta bukera duen film batean. **Anjel Lertxundi**

Guztien laburpena egiteko agindu zituen funtzionario guztiz buruargi eta erne bati, eta zoratzeko puntuan egon zen, **mataza** haren hariari jarraitu ezinik. **Jose Morales**

Berehala askatu zuten **mataza**, azalpen egokiak aurkitu zituzten, arazoak oso forma zehatz eta garbiak hartu zituen, dena argitu zen. **Jose Morales**

Berehala askatu zuten **mataza**, azalpen egokiak aurkitu zituzten, arazoak oso forma zehatz eta garbiak hartu zituen, dena argitu zen. **Jose Morales**

Zoritxarrez, kronika honek ez du korapiloa askatuko, aitzitik, **mataza** nahasiagotuko du. **Jon Alonso**

Adio egitura hexagonalari: lipar gutxiren jiran, **mataza** desarildu, eta glukosa bilakatu zen atzera. **Juan Garzia**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orso Nero handia eta lodia zen, ero begiak zituen **mataza** itxurako bekainen azpian. **Pello Lizarralde**

Elkarren begiramenduan genbiltzala arretaz eta **mataza**-harilkatzeak baino haruntzagoko eremu badaezpadaoetara abiatuak ginela, jakin gabetan ziur nora. **Hasier Etxeberria**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Askatzeko ahalegin bakoitzak gero eta gehiago korapilatzen duen artile-**mataza** bezala. **Jon Muñoz**

Listari-**mataza** bat eman zion Ariadnari, eta nola erabili behar zuen esan. **Juan Garzia**

Betikoa? galdetu eta bere kirru **mataza** beltzarana orrazten saiatu da bi eskuez, Infernuko klabija-**mataza** hartan hautsi zaion azkazal bat arta ezin handiangoaz konpontzeko. **Berria - Kultura**

Ke **mataza** batzuek, gora zurrunbiloka hegoaldeko zerumugan, abangoardia tatariarra hurbil zegoela frogatzen zuten. **Karlos Zabala**

Lehertzeko zorian zegoen odol **mataza** bat ematen zuela esan nuen. **Joxean Agirre**

Lurrun **mataza** eskergek zeru ganga behera zekartela irudi zuen. **Karlos Zabala**

Hor hasten da lurrintzen, bistara azaltzen den laino-**mataza** formatzen. **Pello Zabala**

Eguraldia okerrera zihoan nabarmen, mendebaldetik hodei-**mataza** lodiak zetozen, abiada bizian eta urez beteta. **Migel Angel Mintegi**

Kontakizun-**mataza** txiki bezain bizia ehundua zuen. **Mirentxu Larrañaga**

Amsterdameko karrika-**matazan**. **Felipe Juaristi**

## 6 elurraz mintzatuz, maluta.

Gero eta mardulago ari zuen elurrak, **matazak** lodi eta, haizerik ez baitzen batere, bide zuzen-zuzena eginez goitik behera. Anjel Lertxundi

Ez zekiten argitik argira erortzen ari zirela, elur **matazak** bezala. Felipe Juaristi

Etorri ahal izan zitzauden irudi gordin bat ametsaren barruan, eta erakutsi grua eta kamioien gurpilak elur **matazak** bezalako hitzak zapaltzen, lokatzetan barruratzen. Bernardo Atxaga

## 7 hari mataza

**Hari-matazak** bi mutur behar zituen, baina lauzpabost ikusten zizkion azken aldian. Joxemari Urteaga

Hala eta guztiz, ez zekien zer pentsatu benetan, katramilatua zuen **hari mataza**. Zeren beren egitateetako batzuk kolorezko **hari mataza** batean bezala nahasturik baitaizkat nire buruan. Joxemari Urteaga

Bizitza **hari-matazarekin** nahasturik itzulipurdika ibiltzen den katu bihurria da batzuetan. Pako Aristi

Eta jarraian, **hari-mataza** beretik ari bailitza: [...]. Karlos Linazasoro

Bart gauean, loak hartu ezinik, honi haria eta **hari mataza** nenbilela, hor non burutik pasatu zaidan Bilintzek ez zuela Juana Bixenta Oلابeri buruz zekien guztia kontatu. - Beti burdin **hari mataza** bat, konponketaren bat ber-bertan egin beharra suertatzen zenerako. Anjel Lertxundi

## 8 ile mataza

Begi argiak, aurpegi alaia, bizarra egin berria eta ongi orrazturiko **ile-mataza** gaztainkara ugaria. Migel Angel Mintegi

Zigarroa ezpainetan duela atzerantz orraztu du **ile mataza**. Paddy Rekalde

Neskak masailean behera zeukan berriro **ile-mataza**. Anjel Lertxundi

Aulkian esertzen zen, eta ahizpak **ile mataza** askatzen zion, eta zilar koloreko erreka hori gerriraino iristen zitzaion. haren lepoa, urrezko distiraz inguratutik, kobre-koloreko **ile-matazaren** eta jantzi urdin argiaren artean. Alberto Barandiaren

**Ile** zikina eta **mataza** pare bat gomatik aske uzten dituen mototsa, zurbil eta betazpiekin. Sonia Gonzalez

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**hari mataza** (10); **ile mataza** (15); **mataza askatzeko** (3); **mataza askatzen** (4); **mataza hariltzen** (3)

**elur matazak** (3); **ile matazak** (6)

## matazatu, mataza(tu), matazatzen 1 du ad mataza eginez haria bildu.

Korapiloa askatuko zuen hari-muturrak bertze nonbait **matazaturik** behar zuen. Aingeru Epaltza

*- irud/hed* Bi damek hain trebetasun handiz **matazatu** zioten burua jendeari, ezen denak -eta bereziki funtzionarioak- durduzaturik geratu baitziren puska batean. Jose Morales

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Honela dio, bada, kondairak, bere hari txarrantxatu, bihurritu eta **matazatuari** jarraituaz: [...]. Patxi Ezkiaga

## matazatxo iz mataza txikia.

Okindegiko mutilak pasaratzeko seda lortu digu, **matazatxo** txiki-txiki bat 90 zentimotan, errazionamenduko kupoiak esneketariak lortzen dizkigu, gaztaz ehorztetxe bateko jabeak hornitzen gaitu. Josu Zabaleta

Noski, ez da hodeia artean ere, ez eta gutxiagorik ere; laino **matazatxo** merke desguaze modukoa, lainokume ttiki xarpail tximatsua. Pello Zabala

## mate<sup>1</sup> edo xake mate 1 iz xakeko jokaldia, erregeari, ezin defenda daitekeenean, eraso jotzean datzana eta partidaren amaiera dakarrena.

Hiru mugimendu, eta **mate**. Iñaki Mendiguren

- **Mate** -esan zuen pipadun gizonak-. Lopez de Arana

Nola erran behar nion nik halako gizon bati "**mate**" hitz izugarria, orduraino amaren kontrako partida xaloetan baizik erran ez nuena? Alberto Ladron Arana

Hala ere, badakit **xake matetik** urruti dagoela, eta horrek indarra ematen dit. Koro Navarro

Nik pauso bat emango dut aurrera eta horrek harrapatu egingo nau; horrela, zuek libre geratuko zarete erregeari **xake mate** egiteko, Harry! Iñaki Mendiguren

## 2 irud/hed

Honela hasi eta denbora aurrera doan heinean, entrenatzaileak piezak mugituz joaten dira, aldaketak egiten dituzte, sistema moldatu eta, azkenean, gol gehien egin dituenak «**xake mate**» lortzen du. Berria - Kirola

## mate<sup>2</sup> iz Hego Amerikako zuhaitza (*Ilex paraguayensis*); zuhaitz horren hosto idor eta xigortuekin prestatzen den egoskina.

Xanpain gutxi, **mate** asko. Berria - Kirola

Distantzia eta kultura aintzat hartuz gero, Rio de Janeiro eta Sao Paulo apur bat urruti daude hain gustuko duen **mate** belarretik eta diziplina zorrotza oinarri duen pentsamodetik. Berria - Kirola

## mate<sup>3</sup> izond koloreez eta mintzatuz, distiragabea.

Irudia oinarri zuri baten gainean zetzan eta harri zuri, bigun, **mate** eta bikortsu berdinez zizelatua zegoen, nire ustez zarpail burututako lana zen, hala-moduzkoa. Urtzi Urrutikoetxea

Trazeria eta arabesko nabarren urrearen **mateak** egiten zuen distira. Agustin Otsoa

## mate<sup>4</sup> iz matematika.

Bera zen onena **maten**, frantsesean, ingelesean, historian... denean! Jesus Mari Mendizabal

Ikusten duzuen bezala, **matetan** baba-lorea naiz; baina filosofian dotore moldatzen naiz. Jesus Mari Mendizabal

**Matetako** problema. Jesus Mari Mendizabal

## matela (119 agerraldi, 23 liburu eta 7 artikulutan –hitza eta eratorriak barne-) 1 iz masaila.

**Matelak** gorri zituen eta begiak dirdiratsu, sukarra balu bezala. Elena Touyarou



**Matela** guztia sumatzen duen, eta orobat mindurik eskuak, ezker belaua eta gerruntzea. Aingeru Epaltza

Osabak pot eman zion **matelan**. Elena Touyrou

Haren eskuak nire **matela** mindua inguratu zuen. Aingeru Epaltza

Irrika tanpez desagertu zitzaion, eta haren orde, **matelak** sutan sentitu zituen. Elena Touyrou

Hor daude bata besteari lotuak, gorputzak batetaratuak, elgar besarkatuz, mutikoeak usaia ez duten bezala, **matela matelaren** kontra, eriak biloetan nahasiak, eskuak elgarren gosea ezin aseztu bizkarra gain beheiti perekatuz, matsukatuz. Michel Oronoz

## 2 (hitz elkartuetan)

**Matela** kusuak laster gorritzen zitzaizkigun. Daniel Landart

Bi eguneko bizarra zuen, **matela** ziloak hortzak baino barnago sartuak. Eneko Bidegain

Begiak urdin eta handi, ezpain-**matelak** gorri. Janbattitt Dirassar

## matelasa ik matalaz.

## matelezur iz masailezurra.

Bekainak zimur, sudur hegala zabal, **matelezurra** nabarmen, behakoa nire gorputzaren leku indefinitu batean tinkatua. Ibilia eten eta begietara beha geratu zitzaidan, hortzak estuturik **matelezurra** nabarmenduz. Koldo Izagirre

Zakurrak **matelezurrean** haginka egin zion. Gotzon Garate

## matelondo iz masailaren aldea.

Oinazea inoiz baino biziagoa zen **matelondo** hanpatutik. Aingeru Epaltza

Josu nire **matelondoari** so ari zitzaion. Aingeru Epaltza

Eta zer ilun bat zuen **matelondoan**. Aingeru Epaltza

**Matelondoko** orizta iluna ere hanpatua zitzaiola iduri zuen. Aingeru Epaltza

## matema iz J. Lacanen arabera, zenbait kontzeptu psikoanalitiko aljebren notazioaren bidez adierazteko balio duen formulazio mota.

Esakune apodiktiko guztiak (frogagarriak zein zuzenki ziurrak direnak) dogmetan eta **matemetan** sailkatzen ditut. Ibon Uribarri

## matematika 1 iz helburutzat kopurua eta ordena dituzten jakintzen multzoa.

Korapilatsua da **matematika**, eta are korapilatsua da hura aplikatzea. Jon Muñoz

**Matematikaren** oinarritzotasuna definizio, axioma eta demostrazioetan funtsatzen da. Ibon Uribarri

Ez zien fede handirik ez hitzari ez poesiari, bai ordea numeroari eta **matematikari**. Joan Mari Irigoien

Urte mordo zeraman **matematika** irakasten. Xabier Mendiguren Elizegi

Halako batean, ordea, hasi da eskolan **matematika** apur bat ikasten. Joxerra Garzia

Hik **matematika** jakingo duk baina, egunen batean esku bat erriker lagako duk hor... Pablo Sastre

**Matematikan** eta arlo zientifikoetan baldarra nintzen. Ana Urkiza

Saillkapen hori egitea ez al zen, horrenbestez, **matematikaren** arkitektura osoa berregitea! Jon Muñoz

**Matematikan**, matrikula, David! Ikusten duzun bezala, bidean aurrera egin zuen greziar **matematikak**, Euklidesen ondoren. Bernardo Atxaga

Mundu arabiarreko **matematika**. Jon Muñoz

Mendebaldeko **matematika**. Jon Muñoz

**Matematikan** lizentziatua, filosofian doktorea, eta irakaslea EHU. Askoren artean

**Matematikak** ez ditu egia absolutuak aldarrikatzen, zein bere lekuan zehatz-zehatz kokatutako egia baizik. Jon Muñoz

Filosofian ezin da imitatu **Matematikak** definitzean erabiltzen duen metodoa. Ibon Uribarri

Hemen, arkitektura geometriko modernoak, **matematikaren** perfekzioa harriz eta betoinez haragiztatzen du. Piarres Aintziart

## 2 pl

Anitz hiri bada han, anitz jakintzari eskainiak direnak: astronomia, filosofia, musika, **matematikak** bertzean, geometria, arkitektura, pintura, kimika... Aurelia Arkotxa

Eta zientzien esparru hutsa kontuan hartuz, zergatik utzi ditut isilpean **matematikak**, fisika edo kimika? Xabier Arregi

**Matematikak** Biologian erabiltzeko bidea miragarria iruditzen zitzaion. Josu Zabaleta

Neureganatuak ditut belarren bertuteak, arauzko astrologia, **matematikak** eta zuzenbide kanonikoa. Juan Garzia

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik matematiko.

Bikiak **matematika** -demostrazio baten grinak hartuak! Jon Muñoz

Hiria **matematika** modelo batean marratua da. Piarres Aintziart

Hiria **matematika** modelo batean marratua da. Piarres Aintziart

**Matematika** -notazioko "arabiar" sistema delakoarekin batera. Iñaki Mendiguren

Aipatu dudana adierazpen ofiziosoa horrek lege eta **matematika** alorreko hainbat eztabaida eragin zuen. Juan Garzia

Landutako **matematika** -adar guztien zerrenda osatu gero: azpisailak, alegia. Jon Muñoz

Gaurdaino aurkitu den **matematika** -trataturik zaharrena da. Jon Muñoz

Neure liburua guztiak: ehunka kilo **matematika** -liburu. Jon Muñoz

Gainera, zer aurkituko, eta, kutxa bete **matematika** -aldizkari, azken urteetan argitaratutakoak. Jon Muñoz

Mahaira ekarrazazitako **matematika** -hitzegi erraldoiek eta zientziaren historiako tratatuek [...] harresi bat egina zioten, eta harexen atzean babestu zen. Jon Muñoz

Behin, **matematika** orduan, zuzendariak deitu zidan. Juan Kruz Igerabide

Nola saikatu **matematika** -lanak, tutik ere ez badakizu matematikaz? Jon Muñoz

**Matematika** -saio bat espero zuten neska-mutiek. Jon Muñoz

Santiago Fernandez Bilboko Abando berrireguneko kide eta **matematika** adituarentzat horixe da hobetu beharreko arlo bakarra. Berria - Harian

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

greziako matematika (4); matematika alor (3); matematika eta fisika (3); matematika eta natur (4); matematika hutsa (9); matematika irakasle (6); matematika irakaslea (5); matematika irakasten (3); matematika katedraduna (3); matematika kontu (3); matematika moderna (4); mendebaldeko matematika (3)

**matematikagile** lantzen (3)  
**matematikako eskolan** (3); **matematikako irakasle** (8); **matematikako irakaslea** (8); **matematikako irakasleak** (5); **matematikako problema** (3)  
**arabiar matematikaren** (3); **greziako matematikaren** (3); **greziar matematikaren** (5); **matematikaren historiako** (6); **matematikaren historian** (4)

## matematikagile iz matematikaria.

Garrantzi gutxiko aldaketak alde batera uztea, **matematikagileek** ere, hainbat eragiketatan -logaritmoen kalkulan, esaterako- kopuru infinitesimalak baztertzan dituzten bezala. **Isabel Arrigain**

## matematikalarri (*Euskaltzaindiaren Hiztegian **matematikari** agertzen da*) iz matematikaria.

Ivan ez da **matematikalaria**, bere buztanaren izariak jakin arazten dizkit, top-modelek beraienak hiru zenbakitan plegarazten dituzten eran; honek bi dauzka: luzera eta ingurera **Itxaro Borda**

## matematikari 1 iz matematikan aditua den pertsona.

**Matematikariak**, aldiz, beste aldetik begiraturaz, esan zuten zenbaki perfektua seia zela. **Santiago Iruretagoiena**

Lerro horri **matematikariak** horizontea deitzen diote. **Santiago Iruretagoiena**

Eratostenes, **matematikaria**, astronomoa, geografoa, Alexandriako liburutegiaren zuzendaria; hark neurtu zuen aurreneko zehaztasunez Lurra. **Jon Muñoz**

Pierre Gassendi filosofo, astronomo eta **matematikari** jakintsua. **Joan Mari Irigoien**

Aleman batek eman zuen, azkenik, teoria horren lehenengo demostrazio osoa: Karl Friedrich Gauss, **"matematikarien** printzeak". **Jon Muñoz**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aieru bati ekingo zioten geroztikako **matematikari**-belaunaldiek mailaz maila helduko zioten auziari. **Jon Muñoz**

Herrialde bakar batek Historian izan duen **matematikari**-elkartzerik handiena XVIII. mendearen bukaeran izan zen. **Jon Muñoz**

Ez dira, ez esklaboak, eta ez estatuaren funtzionarioak, babiloniar edo egiptoar **matematikari**-kalkulatuzaileak bezala. **Jon Muñoz**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Greziar pentsalari-**matematikariak** gizon askeak zirela. **Jon Muñoz**

XVII. mendeko filosofo-**matematikari** jansenistek buruz. **Jon Muñoz**

Mediku-**matematikaria**. **Jon Muñoz**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arabiar matematikari** (6); **emakume matematikari** (3); **greziar matematikari** (5); **matematikari bakarra** (3); **matematikari handi** (4); **matematikari ona** (3)

**matematikaria izan** (3)

**arabiar matematikariak** (4); **greziar matematikariak** (4)

## matematikarijale iz

Apaijale esaten zaie batzuei, baina, garai hartan, apaizak izan ziren **matematikarijale** porrokatuenak! **Jon Muñoz**

## matematikazale izond matematikaren zalea dena.

Garai hartan, sekulako aukera zen arabiera jakitea, **matematikazalea** izanez gero. **Jon Muñoz**

Mediku **matematikazalea**, zahar hilko zela erregeari iragartzeko gauza izan zena. **Jon Muñoz**

Euskal idazle, itsas irakasle, **matematikazale** eta olerkaria. **Herria**

## matematiko 1 izond matematikarena, matematikari dagokiona. ik **matematika 3**.

Froga **matematiko** huts-hutsez. **Jon Muñoz**

Logikari horien arabera, kontzeptu **matematiko** oro oinarriko kontzeptu logikoen bidez defini daiteke eta, beraz, posible litzateke teorema **matematiko** oro axioma logikoetatik frogatzea. **Askoren artean**

Benetako esakune **matematikoak** beti apriorizko judizioak direla, eta ez enpirikoak, esperientziatik lortzen ez den beharrezkotasuna baitakarte aldean. **Ibon Uribarri**

Ikur eta notazio **matematiko**en historia. **Jon Muñoz**

Metodo **matematiko** berriak garatzen ari dira argazkietan egindako aldaketak detektatzeko. **Berria - Gaiak**

Kalkulu **matematikoak** eta metodo geometrikoak erabiliz. **Santiago Iruretagoiena**

Edozein prozesaketa **matematiko**, den konplexuena ere, urratsik sinpleenetan zati daitekeela jakitea faktore garrantzitsua izan zen konputagailu elektronikoen garapenean. **Irene Aldasoro**

Ezagutza filosofikoa adigaietatik abiatzen den arrazoimen-egagutza da, ezagutza **matematiko**a adigaien erakuntzatik abiatzen dena. **Ibon Uribarri**

Bitxia da analisi **matematiko** batek medikuntzarako ere balio dezakeela ikustea. **Berria - Gaiak**

Alor **matematiko** berriak zabaldu ziren; tresna berriak asmatu (taldeak, matrizeak...). **Jon Muñoz**

Izaki **matematiko** berri-berria da ekuazioa, ez da ekuaziorik aurkitzen [...] ez Grezian, Diofanteren lanetan; ez eta Indian ere, Aryabhatarenetan. **Jon Muñoz**

Probabilitatean, ezinaren adierazpen **matematiko**a da 0; 1, berriz, ziurtasunarena. **Jon Muñoz**

Formazio **matematiko**a dutenentzat. **Askoren artean**

Spinozak, "bere baitan den eta bere baitatik ulertzen den zerbaiten" ideiatik soilik abiatuta, era **matematiko**an ondorioaraz dezake proposizioz proposizio metafisika osoa ("De Deo") eta, metafisikaren laguntzaz, "gizonen bizio eta zentzugabekeriak Geometren modura tratatu". **Askoren artean**

Hots, bi hizkuntza horiek maite nituen halako plazer **matematiko** eta betan kreatzaile batekin. **Piarras Aintziart**

Alan Turing zen, jenio **matematiko**a. **Fernando Morillo**

Giza ordenadore moduko batzuk direla esan liteke, inork ez bezalako kalkuluak egiteko gai baitira, eta erabili ere holako pare bat idiota **matematiko** erabili omen zituen Britainia Handiko gobernauk II. Gerra Mundialean. **Iñaki Segurola**

### 2 (izenondo elkarketaren bigarren osagai gisa)

Garaiko zientzia fisiko-**matematiko** berria ez zen ez Kantena ez Newtonena, fisika kuantikoarena eta Einstein-en erlatibitatearen fisika baizik. **Askoren artean**

10 zenbakia ez dela inola ere arbitrarioa eta baduela, benetan, sinbolismo magiko-**matematiko** bortitza. **Santiago Iruretagoiena**

Errealitatea ez da ikusmenaren bidez ikasten, ikasketaren bitartez ikusten baizik, aurretiaz diseinaturiko eskema razional-**matematiko** baten betaurrekoekin behatuz.

**Askoren artean**

### • 3 iz matematikalaria.

Osaba Joanikot oso jakintsua omen zen, astronomoa, **matematikoa** eta ez dakit zenbat gauza gehiago. Joan Mari Irigoien  
Bertan hilda utzi zuen granada batek: **matematiko** ona izango zen. Anton Garikano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**analisi matematiko** (4); **formula matematiko** (4); **funtzio matematiko** (3); **izaki matematiko** (3)  
**ezagutza matematikoa** (5); **sailkapen matematikoa** (3)  
**esakune matematikoak** (3); **ezagutza matematikoak** (3)  
**ezagutza matematikoaren** (5)

## matematikoki 1 *adlag* matematikaren metodoen arabera; era matematikoan.

Ni erraiten ari natzaizuen **matematikoki** frogatua dago, eta nik ere froga diezazueket. Joan Mari Irigoien  
**Matematikoki**, beraz, presente dauden maiztasun guztien zatitzaile komunetako handiena ateratzeak emango digu oinarrizko maiztasunaren zenbatekoa. Lourdes Oñederra  
**Matematikoki** mintzatuz, beraz: [...]. Joxe Austin Arrieta  
Funtsean metodo modernoei ez nintzen gogotik lotzen: iduritzen zitzaidan aski zela teknika batzuk eskuratzea, testuaren egitura aztertuz, kasik **matematikoki**. Piarres Aintziart  
Beraz 1671 irian sortua; "irian" idazten dugu ez baitira adinak **matematikoki** hartu behar garai haietan. Xipri Arbelbide  
Realak **matematikoki** eutsiko dio Lehen Mailari igandean, jardunaldi horretan Alavesek baino puntu bat gehiago irabazten badu. Berria - Kirola  
Murtzia aste honetan jaits daiteke **matematikoki**. Berria - Kirola

## 2 (hitz elkartuetan)

Beraz, lerro edo sare batean logiko-**matematikoki** bata besteari lotuta dago egia edo ezagutza posible oro, eta orok zientzia bakarra osatzen du mathesis universalis batean. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**ia matematikoki** (3); **matematikoki lortu** (3); **matematikoki mailari** (9); **matematikoki mailari eustea** (3); **matematikoki mailari eusteko** (3); **matematikoki ziurtatu** (3)

## matematizagarri *izond* matematiza ditekenea.

Proiektua, beraz, haizezko hiztegi hori ("mina", "gorri sentsazioa", "beldurra", "helburua...") hiztegi publiko eta neurgarri **matematizagarri** - batekin ordezkatzeko da. Askoren artean  
Arrazoimena matematikarekin berdinduz, eta mundua errealtzat hartuz **matematizagarria** den neurrian bakarrik. Berria - Kultura

## matematizatu, matematiza, matematizatzen du *ad* matematikaren bidez formulatu.

Hori da existitzen dena, **matematizatu** ahal dena soilki. Askoren artean  
Ongi ulertu badut, "probablea **matematizatu**" nahi dute, hala esaten dute, behinik behin. Jon Muñoz

## materia 1 *iz* gauza guztiak eginak dauden gaia.

Zerez egina da **materia**? Juan Garzia  
**Materia** garaitzea hura ulertzea dela, eta **materia** ulertzea beharrezkoa dela unibertsoa eta geure burua ulertzeko. Juan Garzia  
Gauza duk unibertsoa **materia** kopuru jakin batez osatua dagoela, hasiera bat izan zuela big-bangean eta amaiera bat izanen duela noizbait. Harkaitz Cano  
Hainbat bilioi konbinazio posible zeudek, baina azkenean dena **materia** duk. Harkaitz Cano  
**Materia** berez da aldakorra, eta animaliak edo lumak bere izateari uzten dionean, gorputz osoa lur bihurtzen da eta kolorea ere galdu egiten du. Imanol Unzurrunzaga  
Adibidez, higidura, **materiaren** akzidentea den heinean. Ibon Uribarri  
**Materia materia** da, ez noble eta ez doilor, infinituki eraldagarria, eta ez du batera axola haren etorki hurbilak. Juan Garzia  
**Materia** kondentsatua. Berria - Harian  
Azken 100 urteko fisikak horixe erakutsi digu: **materia** energia dela. Fernando Morillo  
**Materiaren** bihotza hutsune bat omen da, non energiak betetako izpiak etengabe mugitzen diren batera eta bestera, ulertzen ez dugun mugagabetasun sentipen batek isiotuta. Pako Aristi

## 2 gai mota jakin bat.

Berebat esan diot ezen, nire ustez, beste guztietarik berezia den **materia** dela beruna, nekatu itxura duen metal bat, alegia eraldatzez nekatu eta gehiago eraldatzerik nahi ez. Juan Garzia  
Arlo batzuetan **materia** berriak sortu baldin badira ere, horrek ez du esan nahi gustatuko litzazkigukeen **materia** berri guztiak sortzeko gai garenik. Pello Salaburu  
Baina guztia zegoen, baita **materia** opakoa ere, substantzia hark hartua. Joan Mari Irigoien  
Bizidunak milioika urtetako prozesu historikoaren ondorioak dira, eta prozesu horiek guztiz materialak izan arren, desberdintasun handia dakarte **materia** bizigabearen eta bizidunaren artean. Askoren artean  
Bizia **materia** organikoaren antolaketa konplexu batetik sortu edo azaleratzen da. Askoren artean  
**Materia** kosmikoa erakartzen eta bereganatzen duen zuloa. Berria - Gaiak

## 3 (forma-ri kontrajarria)

**Materia** inongo formarik gabea, formarik ezean ordenarik ere ez zeukana, onartu nuelako ote? Imanol Unzurrunzaga  
Homonimiarengatik erabiltzen dira halaber, "**materia**" eta "forma" hitzak bai hemengo behealdean dagoenari eta zerruko esferai buruz. Xabier Kintana  
Izakiak **materia** eta formaz osaturik daudela aldarrikatzen dituen teoria filosofikoa. Xabier Kintana  
Formak hartzeko gaitasuna dauka **materia** horrek; zeren artistak ematen dion forma bereganatu ezin izango balu ez genioke **materia** deituko. Imanol Unzurrunzaga  
Honelakorik ez denez gero, gauzadiari batetik eta bestetik eusten dion muga jakin bat dagoela baizik, aitortu beharra dago **materia** forma mugatuaren barruan aldatzen dela. Xabier Amuriza  
Gure lurtar bizitzan ikusten dugun guztia **materia** eta formaz osaturiko gauzak direla nabarmentzea. Xabier Kintana  
Aitzitik, egiazko frogabidea da, **materia** eta formaren teorien oinarritua eta bi ideia horien kontzepzioan. Xabier Kintana  
- Matematikaria eta fisikaria ez dira sekulan samurtzen, baten **materiak** bestearen formaren beharra baitu Piarres Aintziart

## 4 (espiritu-ri eta kidekoei kontrajarria)

**Materia** gure aliatua zen, hain zuzen, Espiritua -faxismoaren kuttun- gure etsaia zelakoxe. Juan Garzia

Espirituak du **materia** bezatzen, ezta? [Juan Garzia](#)

Egoera bakoitzean espiritua **materia** jakin batean gauzatzen da, **materia** horri bizia emanez. [Isabel Arrigain](#)

Eta denborak heriotza ondoren gure **materia** bildu eta berriro oraintxe dagoen bezala bateratuko balu ere, eta biziaren argia berriro ikusaraziko balitzagu ere, gertaera horrexek ere ez lizuke ardurarik, gure kontzientziaren jarraipena etenda bailegoke. [Xabier Amuriza](#)

Badirudi "gogoa" edo "gogamena" kontzeptuak (ingelesez, mind; gaztelaniaz, mente; frantsesez, esprit) mundu berezi eta aparteko bat seinalatzeke erabiltzen direla filosofian, **materiazkoa** ez den mundu bat, alegia. [Askoren artean](#)

## 5 (hitz elkartuetan)

Gorputz guztiek daukaten **materia** -kopuruaren araberrako indarrez elkarrengana hurbiltzeko duten joera. [Xabier Olarra](#)

## 6 **materiazko** ik **materiadun**.

Hitzen **materiazko** gaiaren gainean soilik izan ohi baitute eragina. [Isabel Arrigain](#)

Jainkoaren existentzia gure izatetik eta **materiazko** eta materiagabeko kosmos osoaren izatetik erabat ezberdina da. [Xabier Kintana](#)

**Materiazko** gauzak, hots, sentigarriak, adimenak uker ditzakeela uste duzu? [Imanol Unzurrunzaga](#)

Argi **materiazkoak**, hala nola eguzkia, ilargia, izarrak, gizakiaren gorputzeko zentzuak. [Joan Mari Lekuona](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gauzen materia** (3); **materia eta forma** (7); **materia eternala** (3); **materia kopuru** (4); **materia mota** (4); **materia organiko** (6); **materia organikoa** (25); **materia organikoaren** (4); **materia puska** (5); **materia puska bat** (3)

## **materiadun** *izond* materia duena, materiiaz osatua. ik **materiale**; **materia 6**.

*Hiliko* 'materiazko, material, **materiadun**' grezierazko *-hyle* 'materia'-tik. [Xabier Kintana](#)

## **materiagabe** (*orobat materia-gabe*) **1 izond** materiari ez duena. ik **immaterial**.

Adierazpen hautemangai horrek, lur honetako itxura huts bezala hartzen zelarik, ez zuen inolako baliorik irudi horrek gogorarazten zituen izaki **materiagabeekin**, zerutiarekin alderatuta. [Josu Zabaleta](#)

Lehengai asko kontsumitzen duten industria astunen pisua murriztea eta balio erantsi **materiagabea** duten informazioaren industriak ugaltzea. [Koro Navarro](#)

Hil osteko egoera **materia**-gabe honetan alderai nabilela. [Berria - Kultura](#)

Nahiago ditugu bizidunak bizigabeak baino, sentiberak sentitzen ez dutenak baino, [...] ikusezinak agerikoak baino, **materiagabeak** gorputzekoak baino, zorionekoak zorigaitzekoak baino. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Beldur garelako ez ote diren sintagma horietan abstrakzio **materiagabeak** atzematen, perpausaren terminoen gainetik zelatan. [Isabel Arrigain](#)

## **2 materiagabea** *izlag* materiagabea.

Jainkoaren existentzia gure izatetik eta materiiazko eta **materiagabea** kosmos osoaren izatetik erabat ezberdina da. [Xabier Kintana](#)

## **materiagabetasun** *iz* materiagabea denaren nolakotasuna.

Substantzia honek barneko sentsuaren objektu soila den aldetik **materiagabetasunaren** adigaita eskuratzen du. [Ibon Uribarri](#)

## **material 1 izond** materiiazkoa; materiari dagokiona; materiaren edo materiaren bidez agertzen edo adierazten dena; espirituzkoa ez dena. ik **materiadun**; **materia 6**.

Irudi orok du euskarri **material** bat; irudi oro da -lehen ere esan dugu- objektu bat. [Josu Zabaleta](#)

Ez zaitu, inondik ere, argituko eguzki **material** honen argiak, mundu honetara datorren gizaki oro argitzen duen egiazko argiak baizik. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Espazio **material**, "konkretu" bat, irudiaren balio plastikoarekin zuzeneko erlazioa duena. [Josu Zabaleta](#)

Horiek horrela, objektu **materialeak** existitzen direla ustea sentimen-datu batzuen esperientzia dugula ustea besterik ez da. [Askoren artean](#)

Fisikak azal ditzake bizidunak izaki **materialeak** diren heinean; baina ez, bizidunak diren heinean. [Askoren artean](#)

Auzia honetan datza, hortaz: mundu **materiale** ala Jainkoa? [Askoren artean](#)

Azken buruan, *a priori* justifika daitezkeen proposizioak definizioaren mende daude, nabariak eta tautologikoak dira, eta ez dute mundu **materiale** buruz ezer adierazten. [Askoren artean](#)

Errealitate **materialeatik** espiritualetara, sentigarritik materiagabekora jauzi egiteko. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Burmuina, ordea, organo **materiale** da, "ukigarria" nolabait esateko. [Askoren artean](#)

Lehia biziz eta elkar joka eskuratu nahi dituzte denek ondasun **materialeak**, beste munduko bizitzan pentsatu gabe. [Jose Morales](#)

Kontzeptu **materialeak** (fisikoak) termino fenomenikoen arabera definitzeak porrot egiten du. [Askoren artean](#)

Kausa **materiale** (kobrea), formala (zizelkariaren espirituan den irudia), efizientea (zizelkaria bera) eta finala (zertarako den egin tailua). [Askoren artean](#)

Kalte **material** handiak izan ziren. [Itxaro Borda](#)

86 hildako, haur bat desagerturik, 200 zauritutako, 750 milioitako kalte **materialeak**. [Pello Zabala](#)

Egileari zein argitaletxeari kalte morala eta **materiale** eragin dizkiezu, ez duzu barkamen-hitz bakar bat ere esan. [Jon Alonso](#)

Gorabehera organiko horiek haren izaera espiritual eta **materialean** ere islatzen ziren. [Josu Zabaleta](#)

Gure mundua, berriz, ideien munduaren kopia **material** kaskarra besterik ez da. [Askoren artean](#)

Ez dago zertan pentsaturik, Locke egin zuen legez, gogotik kanpoko esparru **material** independentea dagoenik. [Askoren artean](#)

Arkitekturaren alderdi **materialeak** eta konstruktiboak. [Santiago Iruetagoiena](#)

Abantaila intelektual hori abantaila **material** nola bihurtu. [Joxe Azurmendi](#)

## **2 (orobat materiale g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian material agertzen da) iz ekaia.**

Zenbait **material** -harria, esate baterako- gogorak dira konpresioari aurre egiteko, baina ahulak tentsioari eusteko. [Irene Aldasoro](#)

Altzairua, beira, baldosak eta hormigoia izango dira etxe-orrazten **materialeak**. [Josu Landa](#)

**Materiale** eskuetan jariatzen utzi zion, zeta baino suabeagoa, haizea bezain arina. [Iñaki Mendiguren](#)

**Material** hauek *konposite* deitzen dira. [Berria - Gaiak](#)

Kalitate kaxkarreko **materialez** egin dago. [Fernando Rey](#)

Ez da **material** bat hamabost egunetan fabrikatzen. [Josu Zabaleta](#)

Ingeniariak badaki edozein **material** urratzen duela frikzioak edo hark nahitaez eragiten duen beroak. [Irene Aldasoro](#)

Eginkizun askotara egokitzen den prozesagune kimikoa da giltzurruna, konposizioan eta kantitatean gorabehera handiak dituen **material** bat hutsik gabe tratatzea lortzen duena. [Irene Aldasoro](#)

Oso gai berezia da hezurra; **materiale** zientziak esplikatuko bai baina imitatu ezin dituen ezaugarriak ditu. [Irene Aldasoro](#)

- Analisis aintza hartzeko moduko izan zedin, gutxienez gramo erdi **material** behar zen. Juan Garzia  
Aliasek beti lortu du, horietan, hegazkinak, kamioiak eta hamar tona **material** salbatzea. Josu Zabaleta

### 3 (izenondo eta izenlagunekin)

**Material** trinkoa da hezuraren pareta. Irene Aldasoro  
Kanpotik marmolez edo harlanduz eta barrutik trinkotutako **materialekin** eginda daude. Santiago Iruretagoiena  
Teatroak **material** sendoagoekin egiten direnean, hala nola hormagintzako **material**, harri edo marmolarekin. Santiago Iruretagoiena  
Snowboardeko taulen kasuan sandwich motako **material** oso arinak erabiltzen dira, baina beti ere poliuretanoa oinarri hartuta. Berria - Gaiak  
Gorputzaren barruan urte askoan hondatu gabe iraungo duen **material** sintetiko bat. Irene Aldasoro  
**Material** polimerikoek sekulako eragina dute kiroletarako tresneria berri honetan. Berria - Gaiak  
**Material** solidoa izatetik **material** likidoa izatera pasatuta. Unai Elorriaga  
Giza gorputzak ondo onartzen zituen **material** plastiko eroso eta malguak. Luis Elberdin  
**Material** konposatu sofistikatuagoak dira, besteak beste, lastoz egindako adreiluak, animalien ilez sendotutako igeltsua eta *papier maché* delakoa. Irene Aldasoro  
Zero absolututik hurbileko tenperaturan funtzionatzen duten **material** supereroale berriak. Irene Aldasoro  
Lan-talde honetan eraikuntzarako **material** berriak ikertzen ari dira. Berria - Gaiak  
Eraikuntzarako **material** egokienak. Berria - Gaiak  
Geroago, ingeniariak genetikoak gaitu gintuenean edozein organismoen **material** genetikora iristeko, [...]. Juan Garzia  
Horien hipotesiaren arabera, bizia **material** bizigabetik sortu da, eta horrek bideratzen du egingo den ikerketa. Askoren artean

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Material** klase asko erabili ziren: urrea, zilarra, nikela, kobrea... Luis Elberdin  
**Material** fabrikarik eta ekoizpenik ez zegoen garaian, zuhaitz zarbak zirela edozertarako behar ziren langaiak. Pello Zabala  
Azken urteotan, izadia hobeto imitatzen duten plastikozko materialak garatzeko gai izan dira **material**-ikertzaileak. Irene Aldasoro  
Azaldu ditut hemen eraikinak altxatzeko beharrezkoak diren **material**-hornidurei buruzkoak. bigarren liburuan egokiagoa iruditut baitzait lehendabizi eraikinetan prestatu behar diren **material**-zuzkidurari buruz hitz egitea. Santiago Iruretagoiena  
Bigarren liburuan **material**-hornizioaren inguruan saiatu nintzen. Santiago Iruretagoiena

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta zuhaitza, zur-**materialetak** nahi zuenak, zainduko zuen, bai, noiz botako. Pello Zabala  
Ikusi zuten naturan erruz sortzen zirela materialak; orduan, bertatik eraikuntza-**material** ugari atera, eta ondoren, material hori ardurarik handienarekin zaindu zuten. Santiago Iruretagoiena  
Arrautza horretan daude eraikuntza-**materialak**: proteinak, koipeak, azukreak, mitokondrioak, eta gunea, hantxe baitaude irarrita eulia sorrarazteko behar diren aginduak. Juan Garzia  
Muga-lubrikazioa darabilten ingeniariak **materialetan** inoiz neurtu den frikzio-indar txikiena baino bost edo hamar aldiz txikiagoak dira giza giltzaduretan neurtutako frikzio-indarrak. Irene Aldasoro

### 6 gaia.

**Material** asko du biografoak *Auzia* deitzen duenaz. Anjel Lertxundi  
XX. mendeko psikoanalisiak, esan gabe doa, berebiziko **materiala** aurkitu du Poerengan, **Material** grafikoa (argazkiak, koadroak, estatistikak, diagramak, etab) lortzen laguntzen ditu. Koro Navarro  
Kazetariak, gainera, **material** grafikoa kendu eta kameraren bat apurtu zieten. Eduarne Elizondo  
**Material** narratiboa antolatzen. Xabier Mendiguren Elizegi  
Poeta batek esperimendatzen duena ez baita Poesia, **material** poetikoa baizik. Anjel Lertxundi  
Bizantziar Inperioa berreraikitzeari ekin ziotenean, **material** egokiagoak aurkitu zituzten Moisesen Legean Justinianoren Corpus Iuris-ean baino. Iñaki Mendiguren  
Dena dela, arlo batzuetan, batez ere idazki honen azken atalean erakusten diren gaietan, ikerketarako **material** interesgarria aurki dezake irakurleak egungo galderei buruz bere kabuz aritzeko. Askoren artean  
Ikasketa fase honetan, artxiobak ez dira oso erabilgarriak, normalean interesatzen zaizun **material** gehiena dokumentu gisa eskura baitaude. Askoren artean  
Luzaro izan baitzen [eulia] genetisten **material** hauta. Juan Garzia

### 7 adorko droga.

Eta gainera ez izan inozo-itxura handiegia, adituarena baizik, bestela igual edozer gauza emango ziguten-eta benetako haxixaren orde; ondoren, **materiala** lortuta, kontsumoaren une goren hori zetorren, bere liturgia zehatza zeukana: gauzez, toki bakartiren batean, biribilean bilduta... Xabier Mendiguren Elizegi  
Dirurik ez zegoenean ezer erosteko, norbait topatu behar ea gonbidatzen gintuen, berdin zertara **materiala** bazeukan. Sonia Gonzalez  
Gustu baduk, hilak berpizteko moduko **materiala** zeukaat... Unai Iturriaga  
Orain **materiala** soberan, dirua soberan. Sonia Gonzalez

### 8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lekukotasuneko hornituriko **material**-bilduma baldarreen. Juan Garzia

### 9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Agosti Xaho bera baliatu zen Baiona eta Lapurdiren arteko gatazka hartaz literatur **material** gisa. Martin Anso  
Ikas-**materiala** prestatzen ari dira. Andoni Egaña  
MITeko mintegi batean erabili zuen irakaskuntza-**materialaren** bilduma. Itziar Laka  
Beste mahai baten gainean, berriz, Talesi buruzko emanaldian dagoeneko erabilitako proiektzio-**materiala**, abian jartzeko prest. Jon Muñoz

### 10 ez-material izond

Mundu ez-**material** horretakoak liriteke, besteak beste, hizkuntzak, pentsakizunak, hautemateak, emozioak, balioak, sinesmenak, irudimenak asmatutakoak, instituzioak, mitoak eta jarrerak. Askoren artean  
Arimazkoa, propiokien, ez-**materiala** eta suntsiezina da, gorputz hilkor batean preso dagoena mundu honetako bizialdian. Askoren artean  
Zoriontasun **material** eta ez materialari buruzko eztabaida transzendental. Iñaki Heras

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkeztutako **material** (3); balibide **material** (4); beste **material** batzuk (4); eraikuntza **material** (3); euskarri **material** (4); gauza **material** (7); ikas **material** (4); kalte **material** (38); kalte **material** handiak (20); kalte **material** ugari (7); **material** andana (3); **material** asko (16); **material** aukeraketa (6); **material** aukeraketan (3); **material** bakarra (3); **material** berri (3); **material** berria (7); **material** berriak (8); **material** berrien (3); **material** bihurtu (3); **material** didaktiko (5); **material** didaktikoa (13); **material** didaktikoaren (3); **material** egokia (8); **material** erradioaktiboa (6); **material** ezberdinak (5); **material** gehiago (10); **material** gehiena (4); **material** genetikoa (11); **material** genetikorekin (3); **material** gutxi (4); **material** guztia (18); **material** guztiak (4); **material** nuklearra (4); **material** ona (10); **material** pixka bat (3); **material** pollita (3); **material** pornografikoa (4); **material** sintetikoak (4); objektu **material** (4); oso **material** gutxi (3)

atzemandako **materiala** (3); aurkitutako **materiala** (3); babestutako **materiala** (4); babestutako **materiala** trukatzeko (3); beharrezko **materiala** (4); bestelako **materiala** (4); egiteko **materiala** (11); erabiltzen den **materiala** (5); eraikuntzarako **materiala** (3); euskarazko **materiala** (3); euskarri **materiala** (3); finalerako **materiala** (3); gerra **materiala** (3); gustuko **materiala** (9); gustuko **materiala** aurkitu (6); hazkunde **materiala** (3); ikas **materiala** (6); kirol **materiala** (3); laguntza **materiala** (5); lantzeko **materiala** (3)

**materiala** antolatzen (3); **materiala** aukeratu (4); **materiala** aukeratzeko (3); **materiala** aurkeztu (4); **materiala** aurkeztu zuen (3); **materiala** aurkitu (9); **materiala** banatu (3); **materiala** bildu (3); **materiala** biltzen (4); **materiala** erabili (5); **materiala** erosteko (3); **materiala** eskura (4); **materiala** hautatu (4); **materiala** izan (4); **materiala** izango (3); **materiala** lapurtu (5); **materiala** lortzea (4); **materiala** prestatzen (5); **materiala** probatzen (3); **materiala** sortu (3); **materiala** trukatzeko (4)

mundu **materiala** (4); objektu **materiala** (3); partidarako **materiala** (3)

**baldintza materialak** (4); **baliabide materialak** (6); **bestelako materialak** (4); **dauden materialak** (4); **eraikuntza materialak** (4); **eraikuntzako materialak** (3); **gauza materialak** (4); **kalte materialak** (69); **kalte materialak eragin** (20); **kalte materialak eraginez** (14); **kalte materialak handiak** (5); **materialak prestatzen** (3); **objektu materialak** (3); **ondasun materialak** (5)

**materialaren bila** (3); **mundu materialaren** (4)

**mundu materialari** (3)

**materialaz gain** (5)

**materialei dagokienez** (3)

**erabiltzen diren materialek** (3); **gauza materialek** (3); **pilatutako materialek** (3)

**erabilitako materialen** (3); **gauza materialen** (3); **materialen kontsumoa** (4); **objektu materialen** (8); **ondasun materialen** (4)

**gauza materialetan** (4)

**kalte materialik** (5)

materiale ik **material**.

## materialgintza 1 iz materialak egitea edo prestatzea.

John Deere markako **materialgintzan** berezitua da. **Herria**

Unibertsitate alorreko **materialgintzan** ere lan handia egiten ari gara. **Berria - Euskal Herria**

Urtea amaitu aurretik, bestalde, 11 liburu, *Uztaro* aldizkariaren lau ale eta hiru sustapen-poltsa martxan jarri nahi ditu UEUK **materialgintza** esparruan. **Berria - Euskal Herria**

Euskarazko **materialgintzaren** alorrean dagoen gabezia nabarmena da. **Berria - Harian**

### 2 ikas-materialgintza

Elkarteko Hizkuntz Proiektuaren eta Euskaraz Bizi egitasmoaren arduradun Erramun Osa, Elkarteko hizkuntz aditu eta ikas-**materialgintzaren** hizkuntz arduradun Itziar Elorza eta Eleanitz egitasmoaren teknikari Inma Muñoa aritu ziren. **Berria - Euskal Herria**

## materialismo (orobat *matrialismo*) 1 iz materia beste gairik ez dagoela baieztatzen duen doktrina metafisikoa.

Kontzepzio hau puntu batean bat dator estoikoenarekin: bere **materialismoan**, errealitate oro materiaren forma bat besterik ez baita. **Xabier Amuriza**

Kritika da eskuarki kaltegarriak izan daitezkeen **materialismoari**, fatalismoari, ateismoari, librepensalarien sinesgogortasunari, gogoberotasunari eta sineskeriari erroak ebaki diezazkiokeen bakarra, baita azkenik idealismoari eta eszeptizismoari ere. **Ibon Uribarri**

Beraz, **materialismoa** alferrikakoa baldin bada nire izatearen argipen-era gisa, orduan espiritualismoa ere horretarako askieza da. **Ibon Uribarri**

Alde batetik, arimarik gabeko **materialismoaren** altzoz ez erortzeko, bestalde, guretzat bizitzan oinarrigabekoa den espiritualismo gogoberoan ez galtzeko. **Ibon Uribarri**

### 2 (izenondoekin)

Beste bereizketa bat egin dezakegu hemen **materialismo** mekanizistaren eta organizistaren artean. **Askoren artean**

Davidsonen **materialismoa** ere ez-murriztailea da, ez baitago gogo-egoerak egoera fisikoetara murriztuko dituen legerik. **Askoren artean**

Beti aitzakia bera ipintzen zion genetikari: **materialismo** dialektikoarekin bateraezina izatea. **Juan Garzia**

Gogoratzen al haiz **materialismo** historikoari buruzko batzokiko gau eskolez? **Iban Zaldua**

### 2 ondasun eta atsegin materialen bila dabilenaren jokaera edo arima egoera.

Eta gizona zorionaren bila eta **materialismo** ankerraren kontrako borrokan. **Karlos Zabala**

**Materialismoa** mehatxua da eungo gazteentzat. **Berria - Gaiak**

Hedonismoa atsegina helburu duen filosofia eta drogazaletasuna horiek dira **materialismoak** bultzatzen dituen ideiak. **Berria - Gaiak**

Errealitate "handiaren" aurrean, hau da, gerren, torturen, indarkeriaren, multinazionalen, arrazismoaren, industrialismoaren, gorputzaren hipersakralizazioaren, **materialismoaren**, antiekologismoaren eta horien guztien aurrean, idazlearen ahotsak ezer gutxi lor dezake. **Ana Urkiza**

Pragmatismo eta **materialismo** iparramerikarrari izpiritualtasun latinoa [...] hobetsiz. **Joxe Azurmendi**

Oraiko mündüan ere, Islam hori akülü bat da kristientzat, bai eta paganotürük, süstut **matrialismoari** emanik den Europan. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**materialismo dialektikoaren** (3); **materialismo historikoaren** (3); **materialismo historikoari buruzko** (3)

## materialista 1 iz/izond materialismoaren aldekoa.

Positibistek eta **materialistek** bilakabide historikoaren interpretazioa antropologia biologista hutsarekin egin nahi dute (historiaren filosofiari gabe). **Joxe Azurmendi**

Funtzionalismoa ontologia **materialistaren** garapen bat da. **Askoren artean**

Historiaren kontzepzio **materialista**. **Askoren artean**

Gizakiak bere lan indarraren ustiapenaren emaitza jasotzen duen eguna, egun handia da **materialista** dialektiko batentzat. **Unai Iturriaga**

Eta bada filosofo **materialista** premarxista gisa ikusten duenik ere. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

### • 2 izond ondasun eta atsegin materialen bila dabilena.

Kontua da baliotasunaren logikak -utilitarismoarenak- oso gizarte **materialista** batera eraman gaituela. **Anjel Lertxundi**

Gure gizarte **materialistan** gure seme-alabei ondo datorkie udan horrelako anaia edo arrea bat edukitzea, pixka bat pentsarazteko. **Berria - Harian**

Bistan da jende eskuzabala zaretela, biritza, etorkizuna, dena ideia batzuegatik emateko prest, benetan gauza harrigarria gaurko mundu **materialista** eta egoista honetan. **Mikel Hernandez Abaitua**

Zorionez edo zoritxarrez horixe baita eskerrik beroena gizarte **materialista** honetan. **Migel Angel Mintegi**

Arima espainolaren bikoiztasunaren gai hori Maeztuk bi Espainien maneran garatuko du: Don Quixote-rena, izpirituzalea, Santxorena, **materialista**, elkarrekin borrokan historian zehar. **Joxe Azurmendi**

XX. mendea **materialistegia** zen, arimarik gabea. **Alberto Ladron Arana**

## materializatu, materializa, materializatzen 1 du *ad* gauzatu.

Gizontto potolo horri artearen bidea zabaltzea, lanaren izpiritu sotila eta iradokizuna zakarki **materializatze**. **Xabier Olarra**

Laborariei zerbitzuak eskainiko zaizkie, eta hariak **materializatuko** dute ganbera bere ekintzetan. **Berria - Harian**

*Denbora galduaren bilan* erabiltzen dituen esaldietan **materializatzen** den denbora. **Ana Urkiza**

Bere filmetan argazki-irudiaren madarikazio bezala sentitzen duen dokumental izan behar horretatik ihes egiteko, bere irudia **"materializatze**" taktikak erabiltzen ditu. **Josu Zabaleta**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Kilikagarri eta berria zen, ordea, beste sentsazio bat: aztertu beharreko lagina ez zen gehiago manufakturatutako hautsño anonimo bat, *quid* **materializatu** bat. **Juan Garzia**

## materializazio *iz* materializatzea, gauzatzea.

Argazki-makinak jarri zuen agerian [...] irudi baten markoa nolabait ikusmenezko piramide jakin baten **materializazioa** baizik ez delako ideia hori, margolaritzan mendeetan era batean edo bestean beti egon izan dena. **Josu Zabaleta**

Hortaz, ez dago pentsamenduen **materializaziorik**, ezta hotsen espiritualizaziorik ere. **Isabel Arrigain**

## materialki *adlag* alderdi materialean. ik fisikoki.

Bainan langabezia eta eguneroko arranguretz gero-eta gehiago joa, bai **materialki** bai moralki. **Herria**

Egoera hori gogorra da **materialki**, bere modura intelektualki pribilegiatua izan badaiteke ere. **Joxe Azurmendi**

Birjinen Birjina loriatsuak gorputzean **materialki** bezala, zuk ere [...] beti eraman dezakezu hura espiritualki zeure birjina-gorputz garbian. **Askoren artean**

Allik adierazi zuen aipatu proposamenak formalki bai baina **materialki** ez duela Nafarroa errespetatzen. **Berria - Euskal Herria**

Produktibitatearen hazkundearen ahalmen handiari zor zaio, besteak beste, gizakia **materialki** behintzat- hobeto bizi ahal izatea. **Iñaki Heras**

**Materialki** instalatu behar dugu, eta segidan lanean hasiko gara. **Berria - Harian**

Hortik landa, laugarren lanari ekinen diote, hala nola Laborantza Ganbera **materialki** sortzeari. **Berria - Ekonomia**

Katalina hori zen aitaren izenean zihoan gutuna **materialki** idatzi zuena. **Berria - Kultura**

Bihotza urtu egiten zitzaion behartsuen aurrean, eta **materialki** lagundu ezin zienean, maitasuna eskaintzen zien. **Askoren artean**

Mendebaldeko teknika modernoaren asmakuntza askoren bidez **materialki** elkarturiko mundu batean. **Iñaki Mendiguren**

Lau borrokaldi horietako bakoitza estentsiboagoa, bortitzagoa, suntsigarriagoa izan zen, **material** eta moralki, bere aurrekoa baino. **Iñaki Mendiguren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**materialki lagundu ezin** (3)

## materialtasun 1 *iz* materiala denaren nolakotasuna.

Liburuak inprimatzeko berunezko karaktereak -ezin da ukatu euren **materialtasuna**, espazioa eta bolumena duena-. **Xabier Arregi**

Horrela deskribatua, margolana ez da ikusmen hutsa, ondoren espazioaren **materialtasunean** transkribatu beharko litzatekeena. **Xabier Arregi**

Hitzaren banakoa ez dago osatua bere fonemen multzoaz soil-soilik, eta beste ezaugarri batzuk ditu **materialtasunaz** gain. **Isabel Arrigain**

Lehen adibide honekin ikusten da enuntziatuaren **materialtasuna** ez dela definitzen betetzen duen espazioarekin edo bera formulatu den datarekin, baizik eta gauza edo objektu estatusagatik. **Xabier Arregi**

**Materialtasun** likido zabal hori estrainioa zaigulako, bitxia, osin beltza delako egiazki itsasoa. **Ana Urkiza**

Jorge Oteizaren lanean **materialtasuna** ez da hain garrantzitsua: garrantzitsuagoa da esperimendatu nahia. **Berria - Kultura**

Guk ez dugu inori eskerrik bihurtu beharrik **materialtasunetik** espiritualtasunera altxarazteagatik edo gauza gorak ulertarazteagatik. **Berria - Kultura**

## 2 ez-materialtasun *iz*

Parte-hartze afektibozko fenomenoak, paradoxa badirudi ere, irudi filmikoaren irrealtasun nolabaitekoak (edo ez- **materialtasunak**, hobeto esanda) lagunduak. **Josu Zabaleta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**materialtasun errepikagarri** (3)

## matiz *iz* ñabardura.

Ez dut sekulan erudiziorik aski bilduko, **matiz** antzuetan galtzeko. **Patziku Perurena**

Bada erudizio eta **matiz** klase moderno ugalkor bat, buruz ezin ikasi dudana; senak ez uzten nonbait. **Patziku Perurena**

Sasiletratuak horixe du: gauzak bizi eta sentitu aren, ezin dituela adierazi bere burua **matizetan** galduz; eta amorrarazi egiten da, eta isildu. **Patziku Perurena**

## matizatu, matiza, matizatzen du *ad* argitu, zehaztu, ñabardura egin.

Zenbat eta nola **matizatu**, zehaztu eta leundu behar izan nuen esaldi hori! **Pako Aristi**

Kontsumoa, baita oinarritzat ere, beti da konparatiboa, beti dago sozialki **matizatua**. **Iñaki Heras**

## mato 1 *iz* ipar makila lodia.

Halere bartz minuturen buruan, gaitzeko "kapo" andana bat, gu bezala deserrituak, oldar haundian sartzen dira, **matoak** eskuetan. **Michel Oronoz**

Aita zaldien aitzinean zebilen urratsean eta bera ondotik, trinkili-trankala, eskuan **matoa** zatzikala. **Itxaro Borda**

Ixtanpatez buluzten nute, bi alki zabalaren gainean etzaten, sahetsean bi gizon azkar plantatzen dira eta **mato** ukaldika zanpatzen nute. **Michel Oronoz**

Jantziak soinean heltzen zirenei burdinezko muturrekilako **matoekin** joz eta ileetatik tiraka kenarazten zizkieten nortasun agiri eta argazkiak. **Eneko Bidegain**

## 2 makulua.

**Matoekin** zebilen, zango-sagarra ez oraino erabat sendatua. **Itxaro Borda**

## matoi *iz* erasolaria.

-Zure **matoi** beren tokietara itzul daitezen manatuko diezue berehala. **Elena Touyarou**

Bi **matoi** beti han zeuden, zain, noiz nahi ekintza baten burutzeko prest; emaztea aldiz, gelaren barnekaldera desagertua zen. **Elena Touyarou**

Enartean, **matoi** gorpuen eta gurdiaeren desagerrarazteaz arduratu ziren, Errobira uzkailliz. **Elena Touyarou**

Ez zuten **matoi** itxura, beraz Ostolazari ateratako dirua ez zegoen kolokan, baina itxura guztien arabera bisitak Ostolazaren emaztearen hilketarekin zerikusia zuen. **Migel Angel Mintegi**

## matradura iz

Egin kontu ez zela Clicquot arrunta, ezpada **matradura** esaten dioten Clicquot bat, zera, Clicquot bi aldiz ona. Jose Morales

## matrail (206 agerraldi, 71 liburu eta 9 artikulutan –hitza eta eratorriak barne-; orobat *matraila g.er*) 1 iz masaila. ik **matela**.

**Matrailak** oraindik gorri-gorri ditu. Fernando Rey

-Zer duzu **matrailean**? Javi Cillero

Asaldatu egin zen Leireren hatsa **matrailean** sentitzean. Unai Iturriaga

**Matrailean** muxu bat eman eta besotik helduta eraman zuen kanporantz. Unai Iturriaga

Animozko atximur bat ferekatu zion **matrailean**. Unai Iturriaga

Wood Gryffindorreko zutoinen aurrean zegoen hegaldaka, **matraila** estu-estu eginda. Iñaki Mendiguren

Une batez estatuaren aurrean gelditu da, **matrailak** mugitzen. Monika Etxebarria

**Matrailaren** alde batean Venezuelako bandera eta bestean ikurriña margotuta. Pako Aristi

Orrialde osoa neska baten aurpegiak hartzen du, eta ezkerreko **matrailean** dator erreportaje nagusiaren iragarkia, edertasunari buruzko aholkuak. Pako Aristi

**Matraileko** giharrak uzkur zituen, ezin artikulaturik. Unai Iturriaga

Gertatuko da ezen barre algaraka dardaratuko direla eta aurpegia eta **matrailak** malko gaziz beratuko dituztela. Xabier Amuriza

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Altua zen, gizona, **matrail**-bizar beltz-urdinu luzekoa, eta erantzi ez zuen beroki lodi argi bat zeraman. Tomate azala bezain gorri zeukan **matrail** buelta. Fernando Rey

-Ez haiz jeloskor jarriko?- esan, eta **matraila**-xulo maliziotsuek ahoaren albo banatan irauin zuten galdera egin eta gero ere. Anjel Lertxundi

Suess Aja Cawaren mongoliar-begiak eta **matrail**-kosko hezurtsuak. Fernando Rey

Egin behar dena da **matrail** hauspoetan haize apur bat hartu, eta bota ahala berriz bete. Andoni Egaña

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Mutiko gaxte **matrail**-mehar bat. Aingeru Epaltza

Beste buru bat, hazia eta **matrail**-okerra, azaldu zen bere bizkarraren atzetik. Koro Navarro

Gizon lodi **matrail** gorri baina era berean abegikor batek. Felipe Juaristi

Pello: **matrail**-gorri, bizarbeltz, musean egiteko lagun bila zebilen. Pablo Sastre

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Amasa pixka bat estuturik, bere asto-**matrail** handia zuzentzen du nigana. Monika Etxebarria

### 5 *ipurdi matrail* ipurdi masaila.

Ipurdi **matrailean** nozitu lehenbiziko zigorrek agudo irakatsi zioten zeinen amaigabe eta samurra den gurasoen amodioa. Jose Angel Irigaray

## matrailalde iz masailaren alde.

"Ama...!" begi zabalik egon zen zenbait segundoz, pentsamendu bat izoztu, trabatu zitzaion -pelikula bateko azken eszena bezala-, **matrailaldea** eta ezpain hegia lurraren kontra zeuden, "Zergatik niri? zer egiten dut nik hemen, arrotzen artean, nire herritik galdua?", porlanaren freskotasuna gozagarria zitzaion. Iñaki Zabaleta

## matrailaundi izond masail handiak dituena.

**Matrailaundi** hori?! Fernando Rey

## matraileko 1 iz masailekoa.

**Matraileko** latza erantsi nion erdizka besterik ikusten ez nuen aurpegi hartan. ez zuela harrapatuko konturatuta, neskarekin mendekatu zen, eta alimaleko **matraileko** bat eman zion. Alberto Ladrón Arana

Naturaz, esan liteke, errebeldea izanik, jotzen dioten **matraileko** bakoitza itzuli egiten du, ez du barkatzen, bere barrenak justizia eskatzen dio. Pablo Sastre

### 2 (hitz elkartuetan)

Lurrera bota zuen behin, zeharkako **matraileko**-andana batetik babestu guran ari zelarik gantxo sartutako kolpe siku baten ostean. Josu Landa

Eliak bertatik zuen hori ezagutu eta frogatu ahal izan, eta dena zartako eta ipurdi-**matraileko** esker. Jose Angel Irigaray

### 3 irud/hed

Hortaz, Alonsori kritika egin bai, baina Udal Gobernua kanporatzeko benetako **matraileko** bat izan gabe gainditu du alkateak egoera. Berria - Ekonomia

## matrailezur (orobat *matrail hezur g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian matrailezur agertzen da*) 1 iz masailezurra.

Asto baten **matrailezurra** aurkitu zuen, artean gogor zegoena. Jose Antonio Mujika

**Matrailezur** izugarri handia, haiz bat bezain handia buruari erantsia. Fernando Rey

**Matrailezurra** hautsi nahi nion. Bernardo Atxaga

Eskuak inguratzen ditut **matrailezurra** edo begiak igurzten ditut eskuekin edo kopetari duda-muda urduriz moztururiko laztan edo zimiko konplaziente bat egiten diot, nahi gabe balitz bezala. Harkaitz Cano

Mihia beheko **matrailezurri** itsatsita zuen, txikia zen eta uzkurtuta zegoen, ahoan hondoratuta balego bezala. Ibon Urbarri

### 2 pl

Ez zuen ezer esan: **matrail** hezurrak estutu eta, besoak antxumatu, begira geratu zen. Koldo Biguri

Bere begitartea, lehenago betea eta horikara, zimeldua ageri zen, **matrailezur** irtenekin, larruazal zurixkarekin, eta, kopeta bete kezka azpian, bere begi orain dirdaigabeek halako aurpegiera etsitu, noragabetu eta akitua nabarmentzen zuten. Patxi Zubizarreta

### 3 (hitz elkartuetan)

Sansom eta asto-**matrailezurra**. Elizen arteko biblia

## matrailgorritu izond masailak gorrituak dituena.

Literatura tallerreko irakasleak ikasle **matrailgorrituei**: [...]. Iñigo Aranbarri



## matrailtsu *izond* masail nabarmena duena.

Dena dela, eta esanak esan, irudimenaren leihatilatik han irudikatu nahi izan zaitut: argal, luze, **matrailtsu** eta, zenbait ile urdin gorabehera, sobera aldatu gabe. **Patxi Zubizarreta**

Eta zeharkatu du hiriaren harresia eta gizon argal bat ikusi du, **matrailtsua** eta bizar luzekoa, oso nabarmen jantzirik zihoana. **Patxi Zubizarreta**

## matraka<sup>1</sup> *iz* istilua, iskanbila.

**Matrakak** ohikoak dira, ongi zorrozutako burdin-ziriz, plastikozko labana zorrozuz... **Jokin Urain**

Euren artean liskarren bat izaten zutenak, edo **matrakaren** bat kartzeleroekin, isolamendu modulura eramaten zituzten, hogeita lau orduren buruan ekartzeko ostera. **Jokin Urain**

Bistan zenez, ez zidan **matrakaren** tormentua barkatu nahi izan. **Jon Alonso**

Sexismoa eta militarismoa sustatzen duten jostailuen kontrakoak «betiko **matrakak**» zirela pentsatuz. **Berria - Euskal Herria**

Literaturazaleen **matraka** jasango dute haien bizimoduan sartzen ez den bitartean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Aski dinagu, e! ez gaitun atzera **matrakan** hasiko. **Patxi Iturritegi**

Une batez uste izan dut betiko **matrakarekin** hasiko zaidala, aitak ez diola diru nahikorik pasatzen, baina ez. **Iban Zaldúa**

## 2 kalaka.

-Non bizi haiz? -jarraitu dio bere **matrakari**-. **Rafa Egiguren**

## • 3 *izond*

Andre **matraka** horregatik utzi diat... **Jesus Mari Mendizabal**

## 4 *mari-matraka* ik *mari* 22.

## 5 *matraka eman* kalaka eman.

Ez pentsa -azaldu dizu- **matraka** emateko gogoia daukadanik, baina badakik, galdeketari buruzko txostena aurkeztu behar diat goikoen aurrean. **Rafa Egiguren**

Gaia aldatzera behartu gintuen, edo, hobeto esan, Gide-ren ahozkotasunari buruz **matraka** ematen ari zitzaigun argentinarra isilarazi zuen. **Ramon Saizarbitoria**

Urte amaiera arte ekintza gehiago antolatuko ditugu eta **matraka** ematen jarraituko dugu ardatz nagusi horien inguruan. **Berria - Harian**

## matraka<sup>2</sup> *iz ipar* borra.

Iduritzen zaie jujeak lehen aldikotz konprenitu duela batetik SNCF-aren imobilismoa ez doala nehora, eta bestetik demoek ez dutela gibelera eginen **matraka** edo konduenen gatik. **Herria**

**Matraka** kolpeka errendarazi zituzten odola kopetan zeriela, garrasika barreiatzen ziren hainbat militante ezagun. **Itxaro Borda**

Gure lankidea Nation plaza erdiko lautadan jarria zegoen polizia bartziki zangopilatu dutelarik, manifestazaleak **matraka** ukaldika jo eta gas negargarriz estali aitzin **Berria** - Ekonomia

## matrakadun *iz ipar* borraduna.

Bizpahiru S.S. **matrakadunek** lo-egileak harrotzen dituzte, ostikoka eta sakreka. **Marzel Etxehandi**

## matrakatu, matraka(tu), matrakatzen du *ad*

O, arraioa! egia galanta! uste dut sekula ez dudala hain gorputz **matrakaturik** ikusi... baina errekruto! aurretik eta atzetik, bietatik dago eta!... hala ere, hara hemen ipurdi eder askoa. **Bego Montorio**

## matrakoso *izond* matraka ematen duena.

Uraren hots **matrakoso** hori ez da isildu pixa egin duenetik. **Jokin Muñoz**

## matraz (*orobat matraxe*) *iz* beirazko ontzi biribil lepaluzea, kimika laboratorioetan erabiltzen dena.

**Matraz** ordurako hutsa hartu, txorrotaren azpian ipini, eta uraren giltza ireki nuen. **Juan Garzia**

**Matrazaren** lepotik sugar bizi bat irten zen, harraskatik hurbil zegoen lehorantz zuzen, eta hango errezelek su hartu zuten. **Juan Garzia**

Bentzenoaren **matrazean** "ilar erdi baten lodierako" potasio xorta bat bota [...] eta maratz-maratz destilatu nuen guztia: operazioa burutzeko puntuan, gisa den moduan sugarra irauki, aparatua desmuntatu, **matrazean** geratzen zen likido apurra doi bat hozten utzi, eta gero, burdin ziri luze puntadun batekin, potasio "ilar erdia" sastatu eta atera egin nuen. **Juan Garzia**

## matraze ik *matraz*.

## matrialismo ik *materialismo*.

## matriarkado ik *matriarkatu*.

## matriarkal *izond* matriarkatuarena, matriarkatuari dagokiona.

Gaur egun feminismo **matriarkala** deiturikoa aurki dezakegu, baina baita beste feminismo erradikalagoak ere. **Berria - Euskal Herria**

Aldi hartan, bazen "euskal zibilizazio" bat antzinako Europan eta haruntzago ere hedatua zegoena, gizarte baino gehiago emarte edo ema-gizarte zena, **matriarkala**, ekologista, auzolangilea, berdinzalea, ekialdetikako izurri hondatzaile, menderatzaile, gerrazale, patriarkal, zakil-harroak desegin zuena, baina ez zeharo. **Iñaki Segurola**

Espiritu **matriarkala** gordetzen du hurreiztiak. **Pello Zabala**

# matriarkada (orobat matriarkado g.er.) iz agintea emakumeena den gizarte antolatua.

Alde batera utzita inoiz erabateko **matriarkatua** egon den edo ez, ukaezina da emakumeek errespetuzko eta mirespenezko estatusa zutela nekazaritza garaiaren aurretik.

Luis Elberdin

Euskal **matriarkatuaren** ikuspegiak hementxe dute iturburua. Joseba Zulaika

Euskal **matriarkadoaren** eraginik bazen oraindik urte haietan. Pako Aristi

Euskal **matriarkatuaren** eredia kolokan jarri dut benetan existitu al zen jakiteko. Berria - Kultura

## matrikula 1 iz zerrenda edo erregistro ofizial batean izena ematea; talde jakin batean sartzen diren banako guztien izenak jasotzen dituen lista zenbakiduna.

**-Matrikula** askoz merkeagoa da han. Xabier Mendiguren Elizegi

**Matrikulan** beherrakadatu bat nabaritu dugu aurten, aurreko urteekin alderatuta. Berria - Euskal Herria

Klaseetara etortzerik ez banuen ere, **matrikula** bertan behera ez uzteko gutxienez. Xabier Mendiguren Elizegi

7710101SAM zenbakidun Melanie Isaacs ikasleak ezeztatu egin du COM 312 ikasgaiaren **matrikula**. Oskar Arana

Baliabide ekonomikoak ez dituztenen seme-alaben **matrikulak** ordaintzea unibertsitate horretara joateko. Berria - Mundua

Sare pribatuari dagokionez, Eusko Jaurilaritzarekin hitzarmena duten haur eskolek umeen **matrikula** gehienak jasotzen dituzte (9.965). Berria - Euskal Herria

Herriko Etxean ematen didaten zerrendan autoari dagozkion xehetasun guztiak agertzen dira **-matrikula**, marka, kolorea...; baina bakarrik ere ez jabearen gainean.

Aingeru Epaltza

Trafikoa izugarria da, hau da auto mordoak: berriak, zaharrak, [...] intermitenterik gabe, askok **matrikula** kartoi batean idatzia... Pako Aristi

Gure biltegiko "kapo"-ak gure matrikulak oihukatzen ditu: 200 **matrikula** lerrokatzen dira, Langensalza-ko komandorat igorriak dira, Erfurt eta Cassel-en artean. Michel Oronoz

Zazpi oren berantago **matrikula** bat niz, 41 255a, bertzerik ez. Michel Oronoz

UEUko bazkide, ikasle eta langabeentzat **matrikularen** prezioa merkeagoa da. Berria - Euskal Herria

## 2 ibilgailuetan eta kidekoetan, matrikula zenbaki hori jasotzen duen plaka.

Autoaren **matrikula** SS-4947 zen. Edorta Jimenez

Garaia duk, ilehoria, eta "seiscientos" berde bat erabiltzen dik, gorritz tapizatua, Bilboko **matrikula** daukana... Rafa Egiguren

Polloeko hilerrira iristean, **matrikula** portugaldarra duen kamioi bat begiz jo du. Patxi Zubizarreta

Beste estatu bateko **matrikula** duten bi auto daude bulegoaren aurrean aparkatuta. Koro Navarro

Bilboko **matrikula** duten ontzi denetako ofizialak eta marinelak Ingalaterraren erabat alde direla. Edorta Jimenez

Ontziari argazkian **matrikula** ondo irakurtzen zaio: M-1512 L3a. Edorta Jimenez

Orduan oharitu ziren autoa lapurtutakoa zela eta autoko **matrikula** faltua zela. Berria - Euskal Herria

Espainiako gidabaimen bat, nortasun agiri faltuak, trokelatu gabeko Frantziako **matrikulak**. Berria - Euskal Herria

Gaizkile elkarterko kide izan, agiriak eta **matrikulak** faltutu eta auto bat lapurtzeagatik auzipetu zituen. Berria - Euskal Herria

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Antton Karrera, Larenaren galdeketa ateratako **matrikula**-zenbakia bitarteko, automobilean bakarrik zihola harrapatu zuten. Rafa Egiguren

Auto bati kendu eta besteari ipini, hainbat **matrikula**-plaka edukitzen dituzte horretarako. Oskar Arana

**Matrikula** sistema aldatu baitute. Mikel Hernandez Abaitua

Parte hartzeko **matrikula** epea maiatzaren 1etik 26ra arte egongo da zabalik. Berria - Euskal Herria

**Matrikula** kopuruaren erreperuzazioa gertatu da udal euskaltegietan, egoerari aurre egiten saiatu garelako, batez ere eskaintza malgutuz. Berria - Euskal Herria

Gobernu Federalak, esaterako, ikasketetako **matrikula** tasen gainean zeresana izaten jarraitu nahi zuen. Berria - Mundua

Ikasturte horretan hartu nahi zituen irakasgaietaz hitz egiten hasi ginen, zikloez eta kredituez, eta **matrikula** baldintzez. Iban Zaldua

Hona hemen **matrikula**-tokiak: [...]. Herria

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Frantziako auto **matrikulak** dira nagusi bideetan. Berria - Euskal Herria

Blairren unibertsitate **matrikulen** legea onartu dute. Berria - Mundua

6. zutabea: hezkuntza **matrikuletan** dagoen tasa gordina (%etan). Pello Salaburu

## 5 ohorezko matrikula.

Matematikan, **matrikula**, David! Bernardo Atxaga

Uste baino jatorrago jokatu zuen, ordea, irakasleak, eta **matrikula** jarri zidan. Joxerra Garzia

## 6 aurre-matrikula

Auskalo nola jakin zuten fraideek bi karrera horietan **aurre-matrikula** eginda nengoela. Joxerra Garzia

Hala, bada, zalantzak aztoratuta, bi **aurre-matrikula** egin nituen, badaezpada ere. Joxerra Garzia

## 7 matrikula egin ik matrikulatu.

Euskaltegian edo autoikaskuntza zentroan **matrikula egin** dutenak bakarrik aurkeztu ahal izango dira azterketara. Berria - Euskal Herria

Han **matrikula egin** ahal izateko 19.000 euro ordaindu beharko dira, eta 60 lagunek soilik ikasi ahal izango dute. Berria - Gaiak

Ez dut uste **matrikula egin** eta eskoletara ez joatea egokia denik. Berria - Kirola

Madrilera **matrikula egitera** iritsi zen egunean. Arantxa Iturbe

Zenbat eta kalifikazio hobea, lehentasuna ere handiagoa izango du aukeratutako ikasketetan **matrikula egiteko**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Azkenean, unibertsitate Irekian **egin** nuen **matrikula**, filologia-ikasketetan. Juan Kruz Igerabide

NUPen **matrikula** aurten lehen aldiz **egin** dutenen artean, hirutik batek euskaraz ikasiko luke. Berria - Euskal Herria

- Bi mailetara aurkezteko, baldintzak beteaz gero, bi **matrikula egin** beharko dira. Berria - Euskal Herria

## 8 ohorezko matrikula "bikain" baino kalifikazio garaiagoa, hurrengo ikasturteko matrikula ez ordaindu beharra dakarrena.

Latineko suspentsoa zela eta, ordea, baldur nintzen ez ote ninduten Bartzelonan onartuko, eta **ohorezko matrikulaz** lehiatzeko azterketa berezira aurkeztu nintzen, *bikain* ateratako beste lauzpabost ikaskiderekina batera. Joxerra Garzia

Jokini **ohorezko matrikula** ipiniko diot. Jon Arretxe

Hiru urterekin solfeoa ikasten hasi zen Silguero, eta hamahirurekin musikako goi ikasketak amaitu zituen, **ohorezko matrikulekin** eta bikainekin. Berria - Kultura

- *irud/hed* Ordea, **ohorezko matrikularekin** gainditu zuen dema. Berria - Kirola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autoaren matrikula (7); donostiako matrikula (4); ikastaro hartarako matrikula (3); matrikula egin (11); matrikula egiteko (4); matrikula epea (4); matrikula faltuak (6); matrikula irakurri (3); matrikula plaka (5); matrikula zenbakia (4); ohorezko matrikula (6)

autoen matrikulak (3); frantziako matrikulak (3)

matrikularen prezioa (3)

# matrikuladun 1 *izond* matrikula duena.

Gero hobeki ezagutu behar nuen... horra azkenean **matrikuladuna** naizela 44.145 zenbakia. **Marzel Etxehandi**

## • 2 *izlag* matrikulako.

A-8 autobidean, Nafarroako **matrikuladun** Renault Megane bat bidetik irten zen atzo goizean Muskizen (Bizkaia). **Berria - Euskal Herria**

# matrikulaketa *iz* matrikulatzea.

Azpirarratzekoa den emendioa da, dela Akitanian, dela Estatu osoan **matrikulaketak** apaldu baitira keinka berean. **Herria**

# matrikulatu, matrikula(tu), matrikulatzen 1 da/du *ad* zerrenda edo erregistro ofizial batean izena eman, matrikula egin.

Horrexegatik **matrikulatzen** dituzte euskal eskoletan. **Pello Salaburu**

Jendea oldeka hasi zen seme-alabak ikastolan **matrikulatzeko** eskaera egiten. **Joxerra Garzia**

Gero ingeniariatzen **matrikulatu** zen. **Fernando Rey**

Gurasoen ustez oraindik doktorego ikastaroetan **matrikulatuta** nago. **Jon Arretxe**

Familiek gero eta gehiago **matrikulatzen** dituztela beren seme-alabak D ereduko hezkuntzan. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Unibertsitatera etortzen zirenean %25 bakarrik **matrikulatzen** zen ikasketak euskaraz egiteko. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Jesuitekin heziketa ona izango nuela eta gurasoek Kalaportuko ikastetxean **matrikulatu** ninduten. **Joseba Sarrionandia**

Alemaniarira iritsi nintzenean jakin nuen ez nindutela **matrikulatu**. **Joxerra Garzia**

Gehienez ere zenbat kreditutan **matrikula** daitekeen ikasle bat aldeaz aurretik zehaztea. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Juan Ignacio Perez Iglesias errektoreari 2004-2005eko ikasturtean euskal presoei **matrikulatzeko** eskubidea eman diezaien galdegin zion. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (ibilgailuak)

71.645 turismo berri **matrikulatu** ziren 2005ean Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. **Berria - Ekonomia**

Baionako Suprefeturaren, 186 auto **matrikulatu** dira egun bakoitz iragan udan. **Herria**

Autoa Marsellan **matrikulatua** baina autozaina, bakarrik zihoana, Urepelen sortua eta Angelun bizi: Maria M., 24 urte. **Janbattitt Dirassar**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**a** ereduan matrikulatu (4); **auto** matrikulatu (3); **matrikulatu nintzen** (5); **matrikulatu ziren** (9)

**d** ereduan matrikulatzeko (3); **ereduan matrikulatzeko** (3); **matrikulatzeko epea** (3)

**d** eruedetan matrikulatzera (5)

# matrikulatze *iz* zerrenda edo erregistro ofizial batean izena ematea, matrikula egitea.

Presoen **matrikulatze** eskubidea bermatzeko eskatu diote EHUri. **Berria - Euskal Herria**

# matrikulazio 1 *iz* zerrenda edo erregistro ofizial batean izena ematea, matrikula egitea.

Urriko **matrikulazioek** gora egin dute aspaldiko partez. **Berria - Euskal Herria**

Eskola publikoko **matrikulazioak** hazi egingo direla dio Camposek. **Berria - Euskal Herria**

**Matrikulazioen** beherakada eten egin da euskaltegietan. **Berria - Euskal Herria**

«Gardentasuna» nahi dute eskola publikoek haurren **matrikulazioan**. **Berria - Euskal Herria**

EHUn ikasketak egiteko **matrikulazioa** iraillean egiten da eta legebiltzarrak, berriz, udan geldialdia egiten du. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Matrikulazio** epea otsailaren 9an hasi eta 27an bukatuko da. **Berria - Kultura**

Euskaltegietako **matrikulazio** kopuruaren beherakada eten egin da ikasturte honetan. **Berria - Euskal Herria**

Diferentzia handiak daude Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako **matrikulazio** datuetan. **Berria - Euskal Herria**

Sei edo zazpi kontzertazio lerro gehiago beharko lituzkete, bukatu berri den **matrikulazio** kanpainan jaso dituzten eskaerei erantzuteko. **Berria - Euskal Herria**

Artxibategitik, Melanie Isaacs-en **matrikulazio** -txartela ateratzen du eta haren datu pertsonalak kopiatzen ditu: etxeko helbidea, Lurmutur Hirikoa, telefono-zenbakia. **Oskar Arana**

**Matrikulazio** sistema berriaren eragina. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Ondotik, frantses enbaxadako **"matrikulazio** karta" (Manila Filipinetako hiriburuko frantses enbaxadan egina). **Ramuntxo Etxeberri**

Ulertzen dut orain zergatik Aitatxik dituen **matrikulazio** paperak bere egonaldiaren azken egunetan egin. **Ramuntxo Etxeberri**

## 3 (ibilgailuak)

Autobusen **matrikulazioak** %49,3ko igoera izan zuen Euskal Autonomi Erkidegoan 2003ko lehenengo sei hilabetetan, 2002ko epe berarekin alderatuta. **Berria - Ekonomia**

Hong-Kong hiriko zerbitzuek berbilan **matrikulazio** zenbakiak ez dituztela eskaintzen baizik eta saltzen. **Ramuntxo Etxeberri**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**matrikulazio datuak** (6); **matrikulazio kanpaina** (6); **matrikulazio kanpainan** (3); **matrikulazio kanpainaren** (3); **matrikulazio kopurua** (3); **urriko matrikulazio** (4)

# matrimonialista *izond* ezkontzari dagokiona.

Eskerrak abutzuko igande arratsaldeetan abokatu **matrimonialistak** ez ohi diren etxeetan izaten, bezeroen deien esperoan. **Aingeru Epaltza**

# matrimonio 1 *iz* ezkontza.

Nik **matrimonioa** ez dut itsu-itsuan ororen gainetik laudatzen. **Herria**

Bere **matrimonioa** baino hauskorragoa. **Urtzi Urrutikoeetxea**

## 2 senar-emazteak, ezkontideak.

Horrek **matrimonioa** biziki inpresionatu zuen. **Pablo Sastre**

Gero eta itxura eskasagoa zuela 3.Dko **matrimonioak**, eta gizona gaitzen batek jo zuela lepoan. **Unai Elorriaga**

### 3 irud/hed

Eta izeba ezkontzeak familiari ekarri zion poza, "inork ez baitzuen ordurako halakorik espero", eta senarraren lagun min bat etxetik apartatzeko izebak egin zituen ahaleginak "ez alferrik!, hiruko **matrimonioa** bihurtu ziren" bere hasierarekin batera etorriko dira. **Arantxa Iturbe**

Euskal kritika ez da horretaz hartu, baina ez dut uste kasualitatea denik Basarteko Peru eta Marixe eredugarriak herri-usadioko Peru eta Marixe arbuigarriei kontrajartzea: herri-ipuinetako bikoteak ez duen sendotasun ideologikoa du Basarteko **matrimonioak**. **Anjel Lertxundi**

### 4 (hitz elkartuetan)

Areago, **matrimonio** ohea banandu ezin zuenez, zerra bat hartzera joan zen eta erdibitu egin zuen. **Pello Lizarralde**

## matriuska

*iz* errusiar etorkiko jostailua, gerritik banaturiko eta tamaina gero eta txikiagoko panpina berdin eta barne-hutsen multzo batean datzana.

Hango kaleetan galdu naizela hemengo **matriuskek** euren barruan dituzten panpinak bezala. **Edorta Jimenez**

Alabaina, funtsean duzu Mendiguren zimino hori ez bezalakoa, zentzu batean bederen, ziplo kokatzen baita, ezinbestean bezala, ispiluan, jolasean eta **matriuskan**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## matrize 1

*iz* gauzaki jakinak urtzeko, grabatzeko edo ebakitzeko moldea.

Sartu zirenetik, gizonarengan neukan arreta, eta ez ordu arte juntatzen aritu nintzen linotipiako **matrizetan**. **Anjel Lertxundi**

Autogintza industriarako **matrize** edo trokelak egiten ditu. **Berria - Ekonomia**

### 2 irud/hed

Bestalde, testua sortzeko mekanika ere idazlearen etorrerari baino, aurretik ezarritako **matrize** bati egokitu ahal zaio, ondorioz mezua formula arrotzek zeharo baldintzatua sortzen delarik. **Iñaki Arranz**

Sakon-sakonean, ezintasun horrek eragina da ingurukoekiko oharren-falta, jendeari buruzko jakingurarik eza eta balio-kontuen duen muga; erro berekoa da bera inguratzen duen **matrize** soziokultural eta gizakiartekoaren ezertaz jabetu ezina ere... **Xabier Olarra**

### 3 (matematikan) lerro eta zutabeetan ordenaturiko eta lauzizuzen modura antolaturiko zenbakien edo ikur aljebraikoen multzoa.

Alor matematiko berriak zabaldu ziren; tresna berriak asmatu (taldeak, **matrizeak** ...) Irudizko aldagai baten funtzioen teoria nagusitu zen mende hasieran: Cauchy, Riemann, Weierstrass. **Jon Muñoz**

**Matrize** kalkulua: Cayley. **Jon Muñoz**

### • 4 izond enpresa eta kidekoen mintzaturik, jatorrizkoa.

Lehen enpresa **matrizeek** filialak ezartzen zituzten hainbat herrialdetan. **Iñaki Heras**

## matroi

*izond* ik **matrona** 2.

Eta gela txiki batean, militar jantzitako emakume **matroi** handi bat egun osoan gu zaintzen. **Jokin Urain**

## matrona 1

*iz* antzinatean familiako ama noble eta bertutetsua.

Hiribildua hartu zutenean eta gizonetako guztiak hil ondoren, bertako **matronak** esklabotzan eraman zituzten, beren estola eta beren **matrona**-bereizgarriak kentzen utzi gabe eta soinean eramatera behartuz, hain zuzen ere, garaileen segizioan eramanak izanik, eta beren buruak betiko esklabo ikusirik, larrutik ordain zituzten beren hiriaren alde atereaz egindako delituak. **Santiago Iruretagoiena**

Orduko garai hartan arkitekto zeudenek **matrona** haien irudiak jarri zituzten eraikin publikoetan. **Santiago Iruretagoiena**

### 2 irud/hed

Beraz, ipintzen dituzuen legeak zuzenak badira, edozein emakumez edo neskaz gozatu nahi duen gizonak hitzordua jarri ahalko dio lehen aipatu etxe horietako batean; eta han, Venusen tenplu hartako **matronen** babespean, gizonaren esku ipiniko da, honek gura dituen gutizia guztiak ase ditzan. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

### 3 emakume heldua eta gorputz handikoa.

Nik ez daukat zure trebetasun fina **matrona** zahar juduei edozer gauza saltzeko. **Ramon Etxezarreta**

Gaur egun, makur-makur egina, itxuragabe, arrain hezeak ahotsa marrantatu eta azala urdindutako **matrona** baten irudira zeramatzan bere hirurogeita bost urteak. **Karlos Zabala**

### mats ik mahats.

### matsondo ik mahatsondo.

## matsukatu

matsuka, matsukatzen du *ad* ik **matxukatu**.

Hor daude bata besteari lotuak, gorputzak batetaratuak, elgar besarkatuz, mutikoez usaia ez duten bezala, matela matelaren kontra, eriak biloetan nahasiak, eskuak elgarren gosea ezin asez bizkarra gain beheiti perekatuz, **matsukatuz**. **Michel Oronoz**

## mattia

(mug) *izond* *adkor* maitea.

Gustuko nuen "osaba **mattia**" deitzea larrua jotzean, baina hark ez zekien. **Karlos Zabala**

### 2 (deiki gisa)

Garbittu al ditzuzu hortzak, **mattia**? **Lourdes Oñederra**

Ez dago zaila jokaldia irudikatzen: geltoki bat, neska zanpan bat osoki maitemindua, gerrara doan mutil tonto bat, eta partitzeko tenorean, begiak malako-iturri, neskak bere mutil-gauzari: "xaindu xaite, **mattia**!". **Iñaki Segurola**

## matuti

*iz pl* lehen otoitz ordua, egunsentia baino lehen esaten dena. **ikmaitina**.

Loaldi luzetik esnatzean, **matutietara** joateko, lekaideak askatasuna eman behar dio zentzuei eta gainerako ahalmenei. **Joan Mari Lekuona**

Halaxe ibili bainintzen egun hartan, atsendenik gabeko kanpai-errezitaldi hartan murgildurik, **matutietarik** bezperetarat... konpletak noiz iritsiko zain. Joan Mari Irigoien  
Argia urratu baino lehen, neguaren bihotzeko desordu hozpera hartan, naturak **matutien** otoitzerako deika ari diren kanpai hots isilpetuak jasoko lituzkeen kalostra izuti eta alargundua zirudien, izarren zilar hutsez osaturiko estalpe karroindua bakardadearentzat. Pako Aristi

## matxarda<sup>1</sup> (orobat **matxarde**) 1 iz giltzadura batez loturiko bi piezak osaturiko lanabes atzizailea.

Emaitza entzun ondoren, ederki damutu zitzaien Ruche jaunari Maxi ez eskatu izana, edontzi horien ordez, erabil zezala soka bat bi ziriren artean tenkatua eta leku jakin batzuetan **matxardez** heldua. Jon Muñoz

Gerrikoaren zilarrezko belarri handiak gorputzaren erdigunea estutzen ziola ematen zuen, blusa zuriaren tela arina **matxarde** batek bezala estekaturik. Irene Aldasoro  
Beste batzuek ere bereak atera zituzten; batzuek, Harryk adibidez, gerrikoaz lotuta zeukaten liburua; beste batzuek estu-estu poltsan sartuta, edo **matxarda** handiez helduta. Iñaki Mendiguren

## 2 zenbait oskoldun, armiarma eta kidekoren organo atzizailea, matxarda modukoa.

Burduntzi-arrak **matxarda** antzeko batzuk edukitzen ditu azken segmentuan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta [burduntzi-arraren] **matxarda** horiek ez dira janariak kraskatzeko eginak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Armiarma erraldoi bat, bi metro altu eta ilez estalia, Ronengana zihoan, **matxardak** mehatxuz klaskatzen zituela. Iñaki Mendiguren

Harry zeramana malda pikoan behera joan zen, sakonunearen erdian zegoen kupula-formako amaraun lainotsura, eta lagunak ingurura bildu zitzaizkion, haren zamaren aurrean **matxardak** sutsuki klaskatuz. Iñaki Mendiguren

Klask, klask, klask egin zuten armiarmen **matxardek** zuloaren inguru guztian. Iñaki Mendiguren

Zintzilika zegoela, Harryk ikusi zuen bera zeraman piztiak sei hanka luze-luze eta iletsu zituela, eta aurreko biek berari gogor eusten ziotela, pare bat **matxarda** beltz eta distratsuren azpian. Iñaki Mendiguren

## 3 bi hortzeko sardea.

Orduetik aurrera, Lebigirerean, **matxardez** baizik ez zuten hartu Saget andereñoa; simaurtegi bizia bihurtu zen, txakurrek ere jango ez zuketean usteltasunez elikaturiko piztia satsua. Karlos Zabala

## matxarda<sup>2</sup> 1 izond emakumeez mintzatuz, bihurria eta gizonzalea dena.

Urteak igarotzen dira, orain Pedro da, laster Filomena **matxardaren** alabarekin ezkontuta ikusiko dugu. Pablo Sastre

Nik uste Josune **matxarda** hoi izan dala, edo Amaia bestela. Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 ik **mari 23**.

## matxarde ik **matxarda**<sup>1</sup>.

## matxete 1 iz ganibeta modukoa, astuna, xafla-zabala eta aho bakarrekkoa.

Nik belarri gainean **matxetea** ikusten nion, sagardotegirako txuletoiak mozteko erabiltzen diren ikaragarri horietako bat. Joxean Sagatzizabal

Gizon bat **matxetearekin** hiltzeaz gain ez du ezer berezirik egin bizitzan. Pako Aristi

Itsasoan zegoela zerarekin, **matxetearekin** taka! moztu zian eskua. Pablo Sastre

Antropofagoak guregana zetozen **matxeteak** euren zorrotik aterata. Jon Alonso

Beren txalupak inguratuko gintuzten, ausartenek abordatuko zuten gurea, **matxetea** eskuan. Jon Alonso

## 2 irud/hed

Oroimenaren **matxetea**. Koldo Izagirre

## matxetedun izond matxetea duena.

Pito luzeak estaltzen zizkien oihal txikiez jantziriko indio **matxetedunak**. Jon Alonso

## matxetetzar iz adkor matxete handia.

Nire ustez Joxe Marik harategiko **matxetetzarrek** zeuzkan gogoan. Joxean Sagatzizabal

## matxinada 1 iz agintaritzaren aurkako herri nahasmendua edo talde jakin baten jazarraldia. ik**matxinaldi**.

1916ko Dublingo **Matxinada** Pazkokoa eredu bihurtu zen aberrianoentzat. Joseba Zulaika

Nire ustez, garbi dago Clichykoa **matxinada** dela, orain dela 20 urtetik gidoia ezagutzen dugun **matxinada**. Iñigo Aranbarri

Dena den, protesta ekintzak dira eta ez **matxinada** bat. Berria - Mundua

Gizarteko dogmen kontrako errebeldiatxo bat sumatzen zaio hor, **matxinadarako** deirik gabe, jatortasun galdu baten mina sentituko balu bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Dohok eskualdera joan nintzen lan bila; han, kurduen **matxinadaren** aurretik, ez zen turistarik. Juan Kruz Igerabide

**Matxinadak** huts egin, eta jenerala iparraldera bidali zuten deserrira. Felipe Juaristi

Sibak David erregeari gaztigatu zion Mefiboset bere aurkako **matxinada** prestatzen ari zela. Juan Martin Elexpuru

Gerrilla maoistak duela zortzi urte abiatu zuen monarkiaren kontrako **matxinada**. Berria - Mundua

Teheranek sustatu duela Al Sadren jarraitzaileen **matxinada**. Berria - Mundua

Bere dirua, bere dirua hain garbi irabazia, **matxinada** antolatzeko eta ordaintzeko erabiltzen ari ziren! Karlos Zabala

Kurduen 28 **matxinada** zapaldu dituzte, baina beti altxatu gara berriz. Berria - Mundua

Demokraziaren aldeko **matxinada** bat eragozteko. Berria - Harian

Parisko Komuna delakoaren **matxinadak** zirrara nabarmena eragin zion. Monika Etxebarria

**Matxinadan** parte hartu zuten 19 presok funtzionarioen torturak jaso zituztela dio Generalitateak. Berria - Mundua

Obedientzia ukatzea matxinadatzat har zitekeela gerra-garaian, eta **matxinada** heriotzarekin zigortzen zela, fusilatze-pelotoia birtetako. Mirentxu Larrañaga

## 2 (izenondoekin)

Argudiatzen dutenez, Irakekoa **matxinada** nazionalista bilakatu da, eta, beraz, ezingo da bide militarretik zanpatu. Berria - Mundua

Uztailaren 18ko **matxinada** faxista.  Xabier Mendiguren Elizegi

Hauteskunde hauek «**matxinada** demokratiko baten hasiera» izan behar luketela.  Berria - Mundua

**Matxinada** zapatistaren hamargarren urtemuga-ekitaldiak zirela eta.  Txema Ramirez de la Piscina

EZLN Askapen Nazionalako Armada Zapatistak 1994. urteko urtarrilaren 1ean Chiapasen egin zuten **matxinada** indigenen historiaren pasarte garrantzitsuen.  Berria - Mundua

Harreman arriskutsuak, 1986. urtetik bederatzi **matxinada** militar pairatu dituen herrialdean.  Berria - Mundua

Plataforma demokratikoak argi esan du Haitin azken asteotan sorturiko **matxinada** armatuekin ez daukala zerikusirik.  Berria - Mundua

### 3 irud/hed

Boterearen gezurraren kontrako herritarren **matxinada** demokratiko eta baketsua.  Berria - Euskal Herria

Emakumearen **matxinada** gisako hura baliaturik, amodio berri bat bilatu zuen, ezkon bizitza berri bat.  Patxi Zubizarreta

Bihotz Bakartien Klubak, Larrabetzuko talde literaturazaleak, irakurlearen **matxinada** aldarrikatu zuen duela urtebete.  Berria - Kultura

Bizardunak eta ilean txirikordak zituzten bi neskak **matxinada** bat antolatu zuten.  Fernando Rey

Inoiz ez da berandu irudimenaren **matxinada** abiatzeko.  Txema Ramirez de la Piscina

Gure artean ere izan da **matxinada** poetikoaren beharraz mintzatu denik (Bernardo Atxaga eta Fermin Muguruza).  Txema Ramirez de la Piscina

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dorre asko zen Erdi Aroko Erroman, eta haietan babesten ziren alde batekoak eta bestekoak maiz gertatzen ziren **matxinada**-aldietan. bi alderdiek kontrolatutako **matxinada** prozesu bat.  Askoren artean

Kroazia estatu baten aurkako **matxinada** eredu klasikoa da...  Berria - Harian

Gaur egun, inoiz baino gehiago, Bestelako Komunikazioa **matxinada**-ekintza bat da: asperdura, hipokrisia, manipulazioa, merkatuaren diktadura, infantilismo eta gorrotoaren aurka altxatzen den errebolta horizontala eta demokratikoa.  Txema Ramirez de la Piscina

**Matxinada**-giroko marmarra bizia zegoen gelan osoan, eta are bekozko ilunagoaz begiratu zien McGonagall andereñoak.  Iñaki Mendiguren

Baina hala ere **matxinada**-egoera etengabean egon behar du errepublikak.  Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Matxinada**-garai haietan, izpiritu kontserbatzaile eta hego-laburra erakutsi zuen.  Juan Garzia

Inoiz ez da egin, aldiz, **matxinada** ahaleginen kronika.  Markos Zapiain

**Matxinada**-konturik, batere ez!  Joxe Austin Arrieta

Beste egun eta erdi bat behar izan nuen Herberti han **matxinada**-arrastorik ez zegoela sinestarazteko.  Joxe Austin Arrieta

Ez da hor subertsio eta **matxinada**-gogo berezirik aurkitu behar.  Xabier Mendiguren Elizegi

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herri-**matxinada** batek bota zituen Erromatik Honorio III.a eta kuria.  Askoren artean

Eskutitz faltsuen banaketa bultzatu zen Aturriko hiriburutik, azpitik sustatutako sasi-**matxinadak** eta sasi-bakezalekeriak prestatu ziren goitik behera.  Txillardegi

### 6 matxinada egin

Taldearen sortzaile Nur Misuari autonomiaren gobernadore jarri zuten, baina 2001 ean **matxinada egiten** saiatu zen eta kartzelan dute geroztik.  Berria - Mundua

Juduek lehenik seleukotarren eta gero erromatarren gobernuaren aurka [...] hirurehun urteetan **egindako** hainbat **matxinadarekin** kontraste bizian, kristauak sekula ez ziren armaz matxinatu erromatar jazarleen aurka gutxi gorabehera luzera bertsuko denboraldi batean.  Iñaki Mendiguren

- *irud/hed* Monakok, Chelseak, Deportivok eta Portok **matxinada** egin dute final-laurdenetan, eta faboritoak kanporatu.  Berria - Kirola

### 7 matxinada piztu da/du ad

1956: **matxinada** nazionala **piztu** zen tropa sobietarren aurka.  Berria - Mundua

Eta, halako batean, hartzekodunen aholkuei jarraituz, goruen suntsipenak eragindako zuzeneko eta zeharkako kaltetuei ematen zitzaizkien diru-sariak bertan behera utzi ziren; biharamunean **matxinada piztu** zen hiriburuko eskulangileen auzoan, hurrengo urteetan ohiko bihurtu zirenen aitzindari. - **Matxinada piztu** duk!  Iban Zaldúa

**Matxinada piztu** zen kartzelan ere izan ziren.  Berria - Harian

Hauek argi utzi diete okupazio indarrak xiitentzat leku sakratua den Najafen sartzeak herritar gehienen **matxinada piztuko** lukeela.  Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurkako matxinada** (6); **herri matxinada** (3); **jarraitzaileen matxinada** (3); **kontrako matxinada** (6); **matxinada abiatu** (3); **matxinada egin** (4); **matxinada izan** (3); **matxinada piztu** (8); **matxinada piztu zen** (3); **matxinada zapaltzeko** (3)

**matxinadan parte hartu** (5)

**matxinadarako dela** (3)

**matxinadari aurre egiteko** (3)

## matxinadaburu iz matxinada baten burua.

Baina horretaz **matxinadaburuak** arduratuko ziren.  Berria - Mundua

## matxinaldi 1 iz matxinada.

Adibide klasiko bat Mitileneko **matxinaldikoa** da, hori dela eta Kleo Kleenetokoak erabiltzen duen arrazoiketa modu "morala" alegia.  Joxe Azurmendi

### 2 (hitz elkartuetan)

Amnistia lege honen lehen moldaeran, okupazio indarren eta Irakeko gobernuaren aurkako **matxinaldi** ekintza gehienak barkatzea aurreikusia zen, baina lad Alaiuren gobernuak murriztu behar izan du, AEBek euren ezadostasuna agertu eta gero.  Berria - Mundua

## matxinarazi, matxinaraz, matxinarazten du ad matxinatzera behartu. ik matxinatu 3.

Golkoko Gerraren ondoren, xiitak eta kurduak suniten aurka **matxinarazi** zituzten, eta bakarrik utzi.  Berria - Harian

## matxinatu, matxina, matxinatzen 1 da ad aginpidea duenaren aurka altxatu, matxinada egin.

Maximo generala, Britainiako tropen buruzagia, **matxinatu** egin zen eta Graziano enperadorea garaitu zuen.  Juan Martin Elexpuru

Uztaila bukaeran, Loiolako kuartelak **matxinatu** zirelarik, [...].  Inazio Mujika Iraola

Hiria **matxinatu** da, denak dira errudunak hiri matxinatuan, denak behar dira zigortu.  Joxe Azurmendi

Hiriko biztanleak ez ziren **matxinatu** okupatzailearen kontra.  Aingeru Epaltza

Juduek lehenik seleukotarren eta gero erromatarren gobernuaren aurka [...] hirurehun urteetan egindako hainbat matxinadarekin kontraste bizian, kristauak sekula ez ziren armaz **matxinatu** erromatar jazarleen aurka gutxi gorabehera luzera bertsuko denboraldi batean.  Iñaki Mendiguren

Urik ez zen han herriarentzat, eta, hori dela eta, **matxinatu** egin ziren isareldarrak Moises eta Aaronen aurka.  Jose Antonio Mujika

Kedorlaomeren mende hamabi urtez egon ondoren, hamahirugarrenean haren kontra **matxinatu** ziren. Elizen arteko biblia

Berak berariaz sortarazitako autokrata mendealdartzaileren aurka arrakastaz **matxinatu** zelako iritsi zen agintera. Iñaki Mendiguren

## 2 irud/hed

-Ez zenigun hori eskatu - **matxinatu** zen Jonathan. Felipe Juaristi

Ezkerrekoa **matxinatu** zitzaion, ordea, ez baitzuen logika zorrotzari irain egiten zion kontraesanik onartu nahi. Jon Muñoz

**Matxinatu** egin zaizkizue zangoak eta muzin egiten diete garunak igorri manuei. Xabier Montoia

Florentzian **matxinatu** ere egin nintzaion, esanez bere Fra Angelico hura, egia esan, apur bat pinpirina iruditzen zitzaidala. Joxe Austin Arrieta

Goizean goiz amak esan zizkion hitzak **matxinatzen** zitzaizkion, antsiaren antsiak, trumilka bizian: "Juanita nirea, diotenez, galdu da zure bihotzeko Antonio Maria". Anjel Lertxundi

## • 3 du *ad* ik matxinarazi.

-Thainak landa osoa **matxinatu** du -esan zuen-, eta albistea lau haizetara zabaltzen ari da suaren abiadan. Agustin Otsoa

Gizabanakoa eramankorra bada, ordea, nekez **matxinatuko** du inork. Jose Morales

Hiria **matxinatzera** joan ziren zein bere aldetik. Jose Morales

-Zalantza horrek animoak **matxinatu** egiten ditu, doilortu baino gehiago. Juan Martin Elexpuru

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Tito jeneral erromatarrek gairiditu egin zituen judu **matxinatuak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Katoliko **matxinatu**en burua. Aingeru Epaltza

Askoz amiltze handiagoa izan baitzen aingeru **matxinatu** horiek, gero deabruak, erori zirenekoa, matxinadarena gertatu zenean. Jon Alonso

Garai batean, borroka gogor eta latza egin behar izan zuen bere gorputz **matxinatuaren** kontra, baina, arian-arian, abstinentzia ohitura bilakatu zitzaion eta emakumeekiko jokaera bare eta erabat gogogabea garatu zuen. Jose Morales

Auschwitzeko lanpara zanpatuak, haizezko instrumentu akastun eta herdoilduak, erlojuen orratzen kontrako norabidean zihoazen erloju **matxinatu** eta matxuratuak. Berria - Kultura

## 5 (era burutua izen gisa) ik matxino<sup>1</sup>.

Komunako **matxinatu** batek egina da, Bouvillen bizi izan zen amnistia eman zuten arte, ganbara batean ezkutaturik. Monika Etxebarria

Maria Cristina hotelean izan ziren **matxinatu**en kontrako gudu gogorrenak. Inazio Mujika Iraola

Hoberena gudu-lerrotik barrena **matxinatu**en lerroetara pasatzea izango zela esan zidan. Inazio Mujika Iraola

Don Karlosen armadak hogeita hamar mila gerlari erregular zeuzkan, eta berrehun eta berrogeita hamar mila **matxinatu** laguntzaile, ordokian, basoan eta mendian zabalduak. Koldo Izagirre

-Horrela hitz egiten ditek **matxinatu** madarikatuak, eta isiltzen ez bahaiz alderik alde zeharkatuko haut. Agustin Otsoa

**Matxinatu** faxisten aldeko frankotiradorea. Lutxo Egia

Bizi ziren gizartea ukatzen zuten **matxinatuak** izan zirela eremutarrak. Koldo Izagirre

**Matxinatuaren** sugarrez lotu nintzaion neure testu preziatua zuzentzeari: adjektibo desegoki bat hemen, komunztadura okerra hor, esaldiaren barne antolamendu traketsa han. Aingeru Epaltza

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aurka matxinatu** (16); **aurka matxinatu ziren** (4); **kontra matxinatu** (7); **kontra matxinatu ziren** (4); **matxinatu dira** (4); **matxinatu ziren** (19)

**indar matxinatuak** (3)

**matxinatzeko gogoa** (3)

**aurka matxinatzen** (3)

## matxinatze *iz* aginpidea duenaren aurka altxatzea, matxinada egitea.

Justizia gaitzituaren etenik gabeko **matxinatze** kartsua. Jose Morales

Matxinatu ere egin ginen, tarte batez, aspaldi dela, **matxinatzeak** ez zuela ezertarako balio ikasi arte. Jon Alonso

Ez surrealismoa interesatzen zitzaidalako, baizik eta bat-bateko adierazpenaren eta **matxinatzearen** garrantzia interesatzen zitzaizkidalako. Berria - Kultura

Edo fedezko egintza bat edo **matxinatze**-egintza bat. Oskar Arana

## matxino<sup>1</sup> 1 *iz* aginpidea duenaren aurka altxatzen den pertsona. ik matxinatu 5.

Luis XVI.ak *rien!* idatzi zuen bere egunkarian **matxinoek** Bastille hartu zuten egun berean. Anjel Lertxundi

1778an Frantziak hitzarmen bat sinatu zuen Ameriketako **matxinoekin** Ingalaterraren aurka borrokatzeko. Jon Muñoz

Bangkokeko Gobernuaren indar armatuek 107 uestezko **matxino** musulman hil zituen atzo. Berria - Mundua

Gero Northpointek 300 dolar jaso zituen Paul D-ren zerbitzuen truke Alabaman, non **matxinoentzat** aritu zen lanean, hildakoak sailkatzen lehenbizi eta burdina urtzen gero. Anton Garikano

Joanesez ez zekien nola moldatuko ote zen **matxinoak** askatzeko. Felipe Juaristi

Batu itzak hirurehun mutil heure konfiantzakoak eta enrola hadi **matxino** horiekin. Juan Garzia

Armak saldu omen dizkie poloniar **matxinoei**. Orduan anai Elias, munduko gizon jakintsuena bezala zeukaten hura, Frederiko erregeak eskatuta, beronen alde jarri zen eta Elizaren aurrean **matxino** bihurtu zen eta Ordenaren aurrean apostata. Felipe Juaristi

**Matxino** dirudunak. Berria - Kultura

## 2 (hitz elkartuetan)

Paperak, azken finean, historia-kontalari dira, eta paperetan azeri-begiz arakatu ondoren, aitak **matxino** bizitza hartzeko arrazoiak zein izan ziren ikasi zuen. Felipe Juaristi

**Matxino** lokarriak. Harkaitz Cano

## • 3 *izond* aginpidea duenaren aurka altxatzen dena.

Matalas apaiz **matxinoaren** jarraitzaileak. Martin Anso

Saiatu ziren gazte **matxinoen** buruzagiren batekin mintzatzen. Karlos Linazasoro

Flecher Christian Erresuma Batuko Itsas Armadaren HMS Bounty itsasontziko lehen ofizial **matxinoaren** oinordekoei. Berria - Gaiak

Extremadurako frontea antolatzen ari ziren, hegoaldeko iparrerantz zetozen Franco jeneralaren gudaroste **matxinoei** aurre egiteko. Jon Maia

Baina ez da samurra agure **matxino** hau mendean hartzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Alabaina, Amerikako Ahotsak zioen kurduak **matxinoak** eta gaizkileak zirela. Juan Kruz Igerabide

Sade ez zen "sadikoa" izan, libertinoa eta **matxinoa** baizik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sobiet Batasuneko arte **matxinoa** maite zuen. Berria - Kultura

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ehunka **matxino** hil (3); **matxino** hutuen (3); **matxino** ohiek (3); **matxino** talde (7); **mendebaldeko matxino** (3); **talde matxino** (8)  
**matxinoak** sostengatzea (3); **talde matxinoak** (6)  
**lehen ofizial matxinoaren** (3)  
**matxinoei aurre egiteko** (4)  
**darfurko matxinoek** (4); **gobernuak eta matxinoek** (3); **militar matxinoek** (4); **talde matxinoek** (8)  
**armadaren eta matxinoen** (3); **matxinoen aurkako** (4); **matxinoen buru** (4); **matxinoen erasoak** (3); **matxinoen esku** (4); **matxinoen eskuetan** (3); **matxinoen kontra** (3); **talde matxinoen** (5)

## matxino<sup>2</sup> iz tamaina handiko mailu mekanikoa, forjatze lantegi handietan erabiltzen dena.

Eta ba al dakizu **matxino** batean lan egiten? Jon Maia

Farias-a itzali eta **matxinoa** piztu zuen. Jon Maia

Labetzar haiek kea zeriela, **matxino** zeritzoten makina zaratsutsuak, salda goriak, galdara haiek eta hango hots, harrabots, danbateko ikaragarriek gorputzaldia gaiztotu zioten. Jon Maia

Pintza hauekin hartu behar dituk eta **matxinoan** ezarri. Jon Maia

## matxinoburu (orobat matxino-buru) 1 iz matxinoen burua.

Hedabideok, harrigarriro, ez dira orain arte hasi Haitiko **«matxinoburuen»** biografia odoltsu samarraren berri zabaltzen. Horregatik, beranduegi baino lehen, deitu zituzten, ez **matxino** -buruak, izan ere bururik ez zelako, baizik eta besteak baino ozenago mintzatzeagatik gainerakoen aurrean nolabaiteko burutza lortu zuten soldaduak. Berria - Mundua

**«Matxinoburu»** Lois Shamban, Jean Pierre Batiste eta Guy Phillipe Washingtonen 1990eko hamarkadako adiskide zaharrak dira, Kurzbanen aburuz. Berria - Mundua

## matxinsalto 1 iz intsektu jauzikaria, berde horixka, otiaren antzekoa baina alorretan kalterik egiten ez duena (Stauronotus maroccanus).

Zelaian loreak mozten nituen, belarrak mozten nituen, edo kilkerak eta **matxinsaltoak** harrapatzen nituen, gero etxera ekartzeko. Joan Mari Irigoien

Loreak nonahi, eta mila koloreko **matxinsaltoak**, eta munduko tximeletarik apainenak. Koldo Izagirre

Tximeletak ez du ihes egiten; **matxinsaltoa** harrapa zenezake; muskerrak, txoria hostoetara bezala bere harrietara, zulotik jalgi eta behatu egiten dizu ondotik zoazenean. Koldo Izagirre

### 2 irud/hed

Tartean badira **matxinsaltoak**, batetik bestera bazterrak nahasten dabilizan endreda-makilak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezin diat ulertu nola hi bezalako gizon eder bat gustura egon daitekeen horrelako neska ziztrin batekin, horrelako **matxinsalto** batekin... Karlos Zabala

Sei metroen hamargarren **matxinsaltoa**. Berria - Kirola

### 3 larrapotea, otia.

Beraz, mota guztietako larrapoteak, kirkirak eta **matxinsaltoak** jan ditzakezue. Elizen arteko biblia

Joanek gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko, eta **matxinsaltoak** eta basa ezitia zituen janari. Elizen arteko biblia

Haize erreaz eta gorriaz jo ditut zuen baratzea eta mahastiak; pikuondo eta olibondoak **matxinsaltoak** jan ditu. Elizen arteko biblia

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-1340an, Alacanten, langosta eta **matxinsalto** izurrite gorritzailea. Pello Zabala

Edo oti eta **matxinsalto** izurritea Kalagurri aldean, laino beltz baten gisa, ortu eta soro, mahasti eta belardi, dena gorri utzi omen zuen. Pello Zabala

**Matxinsaltoek** lurraldeko belar guztia garbitu zutenean, esan nuen: [...]. Elizen arteko biblia

Ordaina emango dizuet: nik bidalitako **matxinsalto** -gudaroste handiak dena jan zizuen urteetako ordaina. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**matxinsalto izurritea** (3)

**matxinsaltoak bezala** (3)

## matxismo 1 iz gizona berez emakumea baino gehiago dela uste duenaren jarrera eta pentsaera.

-Ez duzue erdibiderik: beti negarka **matxismoa** dela eta ez dela, baina gero, gizonkerietan aritzen ez zaizuen, to, homosexuala! **Matxismoa** dago indarkeriaren atzean.

Aingeru Epaltza

**Matxismoa** jarrera bat da, emakumea gizonarekiko gutxisten duena; emakumeen aurkako indarkeria jarrera bat baino gehiago da, guztiz lotuta egonik ere. Berria - Euskal Herria

Nik uste dut homofobiak **matxismoarekin** zerikusi handia duela. Berria - Harian

**Matxismoa** bera machoen kontra itzuli zen, **matxismoak** berak gizona preso sartu zuen bere baitan, ezin dute negarrik egin, ezin zaie bigundu, ezin dira kikildu, ezin dute laguntzarik eskatu. Karlos Zabala

**Matxismotik** apur bat eta arrazismo txorrotadaxoa. Urtzi Urrutikoeetxea

### 2 (hitz elkartuetan)

**Matxismo** puntu bat ere bazuen galderaren tonu harridurazkoak: gizon bat espero zuen hariaren beste aldean. Aritz Gorrotxategi

## matxista izond matxismoari dagokiona; matxismoaren aldekoa.

Garai hartan feminismoak berebiziko indarra hartu zuen, eta ez zen batere arraroa emakume zenbaitek bikotea antzarak ferratzera bidaltzea, beste emakume batekin bizitzen jartzeko, beren jarrerarekin koherenteagoak izateko eta gizarte **matxistatik** beren burua hobeto babesteko. Juan Kruz Igerabide

Emakumea baztertzen duen gizarte **matxista** dago indarkeriaren atzean. Berria - Euskal Herria

Irizpide **matxistak** barru-barruan sartuta dauzkagu eta zaila izaten da horiek guztiak azalaraztea. Berria - Euskal Herria

Emakume askok jasaten dituzte zuzeneko erasoak, baina gehiago dira jokaera **matxistak** jasan behar izaten dituztenak... Berria - Harian

Alde batera utziko balu bere harrokeria **matxista**, arazoa berez konpontzen joango litzateke. Luis Elberdin

Ez nuen beren gustu txarreko umore **matxista** aintzat hartu. Jon Alonso

Gizon arrunta da, garai bateko venezuelarren izateko era gordetzen duena: **matxista** handia, etxe-maitea, auzoan errespetua lortzeko borrokalaria, mendeku zalea... Pako Aristi

Oso **matxista** baita futbol-mundua. Xabier Mendiguren Elizegi

Txiste hori %100 **matxista** edo %100 feminista izan daiteke. Berria - Euskal Herria



**Matxista** baitut nik andrea. **Patziku Perurena**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gizarte matxista** (3)

## matxo *(orobat macho)* 1 iz ar matxista.

Emakume txintoaren rola hartzen zuen, baina **matxoa** izateari utzi gabe. **Karlos Zabala**

Matxismoa bera **machoen** kontra itzuli zen, matxismoak berak gizona preso sartu zuen bere baitan, ezin dute negarrrik egin, ezin zaie bigundu, ezin dira kikildu, ezin dute laguntzarik eskatu. **Karlos Zabala**

**Matxoa** Kubara bere har-gaitasuna erakutsi gabe joanez gero, [...]. **Edorta Jimenez**

### 2 (hitz elkartuetan)

Ernesten **matxo**-plantak, birao egiteko moduak, zerbitzarietakoan erakusten duen portaera feudala. **Edorta Jimenez**

### 3 (izenondo gisa)

Bolada baten ia gauero ekartzen nuen bat etxera, ze kalean ikusita denek ematen zuten oso **matxoak**, oso larrujole onak. **Jon Arretxe**

### 4 (adizlagun gisa)

Gauza bera gertatzen zaio emakumeari, baina emakumeak askoz errazago onartzen du joera hori, beharbada ez duelako beti **matxo** agertu behar gizonen antzera eta ez dagoelako denbora guztian beldurrak airean. **Karlos Zabala**

## matxoi iz hargin-lanezko zutarria, horma bati, sendotzeko, eransten zaiona.

Lehen "basoa", "hariztia", "sasia", "mazela" edo "terrala" bezalako hitzak esaten bagenituen, orain "harria", "zimendua", "pilarea", **"matxioia"**, "horma" edo "eraikuntza" bezalako hitzak erabiltzen hasi garaia ohartu naiz. **Anjel Lertxundi**

## matxukatu, matxuka, matxukatzen du *ad* ik matsukatu.

Emaztearekin eztabaidatu dezakezu, xextran ibili, baina gordinkeriarik gabe, orain, emakumea beste batekin jolasean hasten bada... ez du gusturik ematen beste tipo bat zure emaztea **matxukatzen** ari dela jakiteak, gauza horietan venezuelarrak oso jeloskorrek gara, carajo. **Pako Aristi**

## matxura 1 iz ibilgailu, makina, sistema edo kidekoren baten akatsa, bereziki ibiltzetik geldiarazten diona.

Mekaniko on batek, auto baten hotsa entzun orduko, bazakik non dagoen **matxura**. **Juan Kruz Igerabide**

**Matxura** batek Bilboko metroa geldiarazi du erabat. **Berria - Euskal Herria**

Azken hutsa ekipo elektrogenoarena izan omen da, baina oraindik ez dakite noiz eta nola konpondu ahal izango duten ustekabeko **matxura**. **Patxi Iturritegi**

Ontziko **matxura** haiek luze gabe konpondu ziren. **Edorta Jimenez**

Lehenengo solairuan pasabidean pilotuta daude ohe zaharrak, eta apopiloek bertan etzanda hartzen dute atsedean; bigarrenean jenderik ez dago baina ura bai, gainezka, komuneko **matxura** dela eta. **Jon Arretxe**

Tximista batek **matxura** bat eragin zuen tren makinan. **Berria - Kirola**

**Matxura** batek eraginda kamioi batek su hartu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Herialde aurreratuenetako zentral nuklearretan ere **matxurak** izan direla gogorarazten dute. **Berria - Gaiak**

Joan den ostegunetik **matxura** bat du SNCFK barneko sistema eragilean. **Berria - Euskal Herria**

Ur-horniketan **matxura** gertatu zen Zapatagileen kaleko egoitzan eta Udalak ez dio konponbiderik eskaini. **Berria - Euskal Herria**

Nazioarteko Espazio Estazioako astronautek irteera bat egiteko asmoa zuten asteburuan, **matxura** bat konpotzeko. **Berria - Gaiak**

**Matxurak** konpotzeko tartean hilak baitziren beste lau gizon, denak artilleroak. **Edorta Jimenez**

**Matxuretan** konponduak egin, ontzia gudarako berriz gotortu eta azkenean kanoiak beren lekuetan berriz jartzeko, aste bi bai **Edorta Jimenez**

### 2 irud/hed akatsa.

Ikusi dugu, gaingiroki, nola antolatzen duen garunak bere lana eta nola aurre egiten dien **matxurei**. **Irene Aldasoro**

Eritasun horietan guztietan, gene baten edo batzuen **matxura** aski da egoera patologiko bat abiarazteko. **Juan Garzia**

Zakurrek, zahartzaroan, gizakiok izaten ditugun **matxura** eta gaitz ber-berak izaten dituzte. **Gotzon Garate**

Zain geratu zen, bezeroak bueltan zekarren aulkiak zer **matxura** edo zer tatxa izango ote zuen igarri ezinik. **Harkaitz Cano**

Mende batez edo gehiagoz nerbio-sistemaren funtzioen akats eta **matxuretara** (lesioetara) mugatuagatik. **Xabier Olarra**

### 3 (izenondoekin)

Emakumeak ez zian zauri larririk izan, autoak bai ordea **matxura** polita; gero semeak pagatu behar. **Pablo Sastre**

Jiri Pospisil faboritoak **matxura** mekanikoa izan zuen laugarren itzulian. **Berria - Kirola**

Erregai-hornigailuaren edozein akats [...] edota motorraren edozein **matxura** ziztrin aski da. **Joxe Austin Arrieta**

Ez dakigu oraindik zer eragin zehatz duen **matxura** genetikoak, eta ez dugu, orain-oraingo, inolako modurik halako akatsak zuzentzeko. **Juan Garzia**

### 4 (hitz elkartuetan)

Gure gorputzak ez daude hainbesteko perfekzioz diseinaturik, eta, beraz, sendagile eta ingeniariak neke handiak hartu behar izaten dituzte **matxura**-seinaleak agertzen dituzten piezak konpotzeko edo ordezkatzeko. **Irene Aldasoro**

### 5 *matxura izan* du *ad*

Hegazkinak **matxura zuela**, eta hurrengo egunean irten behar izan nintzen. **Berria - Harian**

Bi ertzain kamioi batek izandako **matxura** seinalizatzen ari ziren. **Berria - Euskal Herria**

Ezkerreko motorra zen **matxura** zuena; helize bat, gurutze gelditu bat irudi, zeru oskarbian: horixe zen dena. **Joxe Austin Arrieta**

Iban Mayok **matxura** izan zuenean Iker Flores berehala geratu zen, taldekidea tropelera eramateko. **Berria - Kirola**

**Matxura** izan dut autobidean, Serrières eta Areuse artean. **Eskarne Mujika**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**izandako matxura** (4); **matxura izan** (10); **matxura konpotzeko** (4); **matxura mekanikoa** (3)

**matxurak izan** (3)

**matxuraren bat izan** (3); **matxuraren onurak** (3)

# matxuratu

Garbigailua **matxuratu** dela esaten dio senar etsiak emazteari. Hustu dituzte hortzore tuboak, **matxuratu dituzte** idazmakinak. **Andoni Egaña**

Daukazuen irtenbide bakarra garabi guztiak **matxuratzea** duk. **Koldo Izagirre**

Behin motorra **matxuratu** eta, itsaso zakarra zegoenez, gorriak eta beltzak ikusi zituzten. **Fernando Rey**

Motorra **matxuratu** zaion Super-Constellation bat. **Joxe Austin Arrieta**

Hegazkinak **matxuraturik** lurrerantz mur egiten duenean. **Josu Zabaleta**

Kanila-giltza **matxuratu** zaion iturria bezala hasiko zitzaidalda hitz borborka. **Anjel Lertxundi**

Behin batean, **matxuratu** egin zuan sistema; ni han nengoan. **Jon Muñoz**

Deklarazioa hasi eta bi ordura ohartu ziren grabaketa sistema **matxuratuta** zegoela. **Berria - Euskal Herria**

## 2 irud/hed

Bihotz bat infartu batez **matxuratuta** gelditu denean. **Berria - Gaiak**

Gorputzeko zelulek energia-banku bat behar dute, molekula konplexuak **matxuratu** direnean energia gordetzeko eta geroxeago berreraikuntza-prozesurako atera ahal izateko. **Irene Aldasoro**

Kolibaziloaren mutanteak bakartu eta aztertzeari ekin genion; erdibitzea edo/eta erreplikazioa **matxuraturik** zeuzkatenak, alegia. **Juan Garzia**

Psikismoa hondatua eta **matxuratua** dutenak, maiz ume-umetatik daude jota. **Gotzon Garate**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Gonbidatuek erloju **matxuratuen** gelditasunari errepara ez ziezaioten. **Harkaitz Cano**

Bere ahotsa irrati **matxuratu** batetik aterea bezala belarriratu zitzaion. Bide ertzeko zangetan auto **matxuratuak** abandonatuta. **Alberto Ladron Arana**

Gorbata maiztua askatuta zeukan eta atorra ez oso garbiak agerian utzitako triangelu mehar hartatik gizonaren zintzur sagarra ikus zitekeen, gora eta behera, ur-ponpa **matxuratu** baten antzera. **Alberto Ladron Arana**

Beste edozein makinatan osagai **matxuratuak** aldatzen diren bezala. **Irene Aldasoro**

Gure neurona **matxuratu** eta zulatuei gelditzen zitzairen kemen guztia. **Jon Alonso**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**motorra matxuratu** (4)

# matxuratze iz ibilgailu, makina, sistema edo kidekoren batek matxura izatea.

Lekukoek eta aireportuko kontrolerako ekipamendu guztien datuek pentsarazten digute **matxuratzeren** bat gertatu dela hegazkinean; honen ondorioz, pilotuak eta laguntzaileek ezin izan dute hegazkina bere onean mantendu eta azkenean airekoa isatsora jausi da. **Berria - Mundua**

# mau

## 1 mau-mau

Badakit etxe inguruan ibiliko dela, **mau-mau** katuari deika, harik eta, nekatuta, etxera itzuli eta ni lurrean eratzanez, harramazka egiten didan arte. **Javi Cillero**

# mauka<sup>1</sup> iz aukera bikaina, erraz lortzen den gauza benetan onuragarria.

Baldin eta, esaterako, neska horrek bi mila errubloko ezkontsaria izango balu, **mauka** ederra lukek berarekin ezkontzea. **Jose Morales**

Ikusi bezalaxe ihesari ematen ez zion gizon plantako bat [...] bakar-bakarrik beretako; gisako **maukarik** ez dute, gero, egunero harrapatzen "Lisboako" bezero femenino bakanak. **Aingeru Epaltza**

Mahai itzel handi bat jatekoz beterik, beste bat edatekoz gainezka, **mauka** ederra geneukan han, Lituaniako Errepublikako Presidentaren jauregian. **Edorta Jimenez**

Bukatua zela jada musu truk jateko **mauka**, bera besteentzat lanean eta gu ezkutuan zigarroak erretzen. **Pello Lizarralde**

Askatu eta zaindu nahi gaituzten guztientzat gara **mauka** bikaina populua osatzen dugunok. **Hasier Etxeberria**

Ohi denez, gizon hura ez zitzaion **mauka** bat eskaintzen ari, inork ez du **maukarik** eskaintzen mundu honetan, ezta ergelek ere. **Migel Angel Mintegi**

Buruari eragin zion: gehiegizkoa zen, ez zitzaion horrelako **maukarik** egokituko, bai zera! **Migel Angel Mintegi**

Hemen egotea, alde horretatik **mauka** galanta duk! **Txillardegi**

Egundoko **mauka** duk, Lar. **Harkaitz Cano**

Horixe bageneuka, aze **mauka**! **Patziku Perurena**

Hura **mauka** gurea, alerik ederrenak tarteka beren hezur eta guzi irentsiz! **Patziku Perurena**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mauka ederra** (5); **mauka izango da** (3); **mauka mauka** (11); **sekulako mauka** (3)

# mauka<sup>2</sup>

## 1 mauka-mauka adlag jateari buruz mintzatuz, gogoz, jan eta jan.

Ongi heziak legez, aurrera ekartzen dizutena jan; ez jan **mauka-mauka**, nazka emateko moduan. **Elizen arteko biblia**

Bufalo-gizon deitu eta poliki hitz egin zieten gatibuei, ahia **mauka-mauka** jaten eta kateak astintzen ari zirenei. **Anton Garikano**

Bürgeren baladaren egokipena irakurtzen hasi nintzen ni, **mauka-mauka** jateari ekiten niola. **Anjel Lertxundi**

Gizonen antzera jan zuten, **mauka-mauka** eta buru-belarri. **Anton Garikano**

**Mauka-mauka** bere hirugiharra jaten hasi zen ahalik eta bizkorren, Dudleyri mahaia iraultzea bururatzan bazitzaion ere. **Iñaki Mendiguren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mauka mauka** (11)

mauka<sup>3</sup> ik **mahuka**.

# maukera

## 1 aukeraren maukera

Moralista gehienek esan ohi dute, bizio deitzen den oro, erabilgaiaren aukeraren **maukerak** ekarri ohi duela. **Patziku Perurena**  
Aukeraren **maukera**, atzanean okerra, horra! **Patziku Perurena**

## maula 1 iz iruzurra.

60.000 euroko **maula**. **Berria - Euskal Herria**

**Maularen** biktimak berrehunetik gora izan daitezkeela, Bizkaian bakarrik. **Berria - Euskal Herria**

Khodorkovski atxilotu zuten, **maula** egitea eta iruzur fiskala egin izana leporatuta. **Berria - Ekonomia**

Fiskalak **maula** eta iruzur fiskala egitea leporatzen dio. **Berria - Ekonomia**

## 2 maula-egile

Espainiako Atzerritartasun Legearen arabera, baimena lortzeko eskubidea badute 60 atzerritarrok **maula** egileak salatu eta agintariei iruzurrak indargabetzen lagundu dituztelako. **Berria - Euskal Herria**

## Mauleratu, Maulera(tu), Mauleratzen da/du ad Maulera joan, Maulera eraman.

Ez dakit xuxen nola **Mauleratu** zen, seguruenik ere Argentinako euskaldun batek bere adiskide bati buruz igorririk. **Herria**

## mauletar izlag/iz Maulekoa, Mauleri dagokiona; Mauleko biztanlea.

Ety Bière **Mauletar** xixtera handian arizana eta argazkilaria ezaguna Hazparnen. **Herria**

Lau diska egin ondoan Peio Serbielle **mauletar** kantariak urte bat emankorra heldu ikusten du 2004-ean. **Herria**

Tankotx **mauletar** komunista zaharrak. **Itxaro Borda**

Lehenik Junior gazteak, Couillet-Arbeletche irisartarrak eta Elissiry-Jaureguy **mauletararak**. **Herria**

Aurtenko pastorala **mauletarrek** emanen dūe. **Herria**

Jean Espilondo BABko depūtatūa, sortzez **mauletarra**. **Herria**

## mauritaniar izlag/iz Mauritaniakoa, Mauritaniari dagokiona; Mauritaniako biztanlea.

Borreroak galdekaturik, **mauritaniar** gatibu batzuk bidaztiaren kondaerarekin bat etorri ziren. **Juan Garzia**

Ihes eginda dabilen **mauritaniar** bat zen bonbak erosteko arduraduna. **Iñigo Aranbarri**

**Mauritaniarrak** garaituak izan ziren. **Juan Garzia**

## mauritar izlag

-Nire don Blas, **mauritar** adiskide min honek, Euterperen seme begikotzat aurkeztu zauzkit zure mesede hori. **Josu Zabaleta**

## mauser (orobat Mauser) iz G. Mauser alemaniarrek asmatutako errepika-fusila.

Bi ziren, **mauserak** bizkarrean. **Koldo Izagirre**

**Mauserak** sorbaldatik zintzilika zeramatzaten, arduragabeki. **Alberto Ladrón Arana**

Nik pistolaz egiten nuen tiro, eta Karmenek bere **mauserraz**. **Inazio Mujika Iraola**

Hura, dena utzi, **mauserra** hartu, eta obispoaren atzean jarri zen, fusilaren muturra bizkarrean sartzen ziola. **Inazio Mujika Iraola**

Oskarrek beste bala bat sartu zuen **Mauseraren** errekararan, musika-tresna gozatzan duen jolearen keinu leun dotoreaz. **Alberto Ladrón Arana**

Hark ere, **mausera** kargatu, eta, Amancio aurrez aurre tirabidean zuela, burlaizez esan zion: [...]. **Inazio Mujika Iraola**

Baionako etxea aurkitu, goiko pisuan **Mauser** 66a muntatu eta itxaron zure ehizakia agertu arte. **Sonia Gonzalez**

## mausoleo 1 iz hilobi monumentua.

Adibidez, badakigu Atenasko Partenoiak K.a. bosgarren mendean eraiki zela, Hadrianoren **mausoleoa** K.o. bigarren mendean, eta Konstantinoplako Santa Sofia eliza K.o. seigarren mendean. **Iñaki Mendiguren**

Ali imamaren **mausoleoa** xiitentzako leku sakratua dela-eta, [...]. **Berria - Mundua**

Libra bana eskatu zigan Marx-en **mausoleoa** ikusi ahal izateko. **Ramon Saizarbitoria**

**Mausoleo** arranditsuak altxatzen zituztenak. **Xabier Olarra**

Susto-aurpegia zuen **mausoleoko** aingeruak. **Unai Elorriaga**

· Kale bat eraiki zuen oso zabalera handikoa, eta haren erdian **Mausoleoa** egin zuen, eta hain trebeki egin ere, non munduko zazpi mirarien artean izendatzen baita.

**Santiago Iurrettagoiena**

## 2 irud/hed

Kasinoko jende ergel, asmo txarreko harekin lagunartean ibiltzeko, nahiago zuen bere gelan, **mausoleo** zuritu eta isil hartan igarotzea denbora. **Josu Zabaleta**

Etxe guztietan ohi diren iraganaren gordailuak ere, gure nitasunaren **mausoleo** xume gisa antolatzen ditugun zoko-mokoak, zapuzturik zeuden. **Joxean Agirre**

Berben **mausoleo** horiek! **Iñigo Aranbarri**

Mintzo dotoreko gizona, oratoriaren **mausoleo** bizia. **Iñigo Aranbarri**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

imamaren mausoleoa (4)

ali imamaren mausoleoaren (5)

ali imamaren mausoleoko (3); mausoleoko giltzak (4)

imamaren mausoleora (4)

## maxal iz marexal (?).

Hor ikusten ahalko dire **maxal** albaitari eta tratulari, begi xorrotzez ikertuko baidituzte, gure mendiek, hazten dituzten pottoka pollitenetarik, zeren izanen da pottoken feria.

**Herria**

maxela ik **mazela**.

maxeleko ik **mazelako**.

maxiatu ik **maiseatu**.

## maxima 1 iz esakunea.

"Ausart hadi heuk jakitera", hots, heure buruaz pentsatzera, izango da ilustrazioaren **maxima**. Askoren artean

**Maxima**, adiera honetan, ekintza gidatuko duen azkeneko arrazoa edo printzipio orokorra da. Askoren artean

Ekintza bat zuzena izateko, atzean dagoen **maximak** unibertsalizagarri izan behar du Kanten uestez. Tesiaren baieztapenek agerpenen ilararen barneko argipen-era enpirikoaz gain hastapen intelektualak ezartzen dituzte oinarrian, eta hainbestez, **maxima** ez da bakuna. Askoren artean

Momentu honetan ez dut **maximetan** sinisten Ana Urkiza

## 2 joka-araua.

Nire **maxima**, adibidez, denborarekin bat egitea da. Ana Urkiza

Halako suertez, non harako **maxima** hura baitzuten hartua arau gisa: ezer esan baino lehen pentsa ezazu bi aldiz esan beharrekoa. Joan Mari Irigoien

Bere **maxima** literarioa zela hori esaten zuen Anderrek. Iban Zaldúa

Behin hartutako norabidean edo posturan tinko eta sendo jarraitzeko **maxima** izango da razionalena. Joxe Azurmendi

## maximalismo iz ideia edo doktrina bat bere hartan osorik eta amore ematerik gabe onartu behar dela uste dutenen jarrera.

«Desberdinkerian» eta **«maximalismoetan»** erortzeko tentazioez ohartarazi zuen. Bestetik, "edo dena aldatu edo ezin da ezer aldatu" lemapean, garbikeriaz,

**maximalismoaz** eta topikoz blai dirauen balizko progresismo anjelikal ezaguna. Berria - Ekonomia

Gu ezkerrekoak garelako, ez zuek bezala, **maximalismora** jolasten duzuen burges txikiak. Xabier Mendiguren Elizegi

## maximalista izond maximalismoari dagokiona, maximalismoaren aldekoa.

Ez dugu zuzenketa guztietan jarrera **maximalista** defendatuko: malgutasun handiz jokatu dugu planaren eztabaidan. Berria - Euskal Herria

Gehiegi abusatu da politika egiteko era **maximalistaz** ezkertiar eta abertzaleen esparruan. Berria - Euskal Herria

Planteamentu **maximalistak** alde batera utzi behar direla. Berria - Euskal Herria

Negoiazio mahaian eseri beharko luketen **alderdiek** maximalistatza jo lezaketen baldintzarik ez da ageri. Berria - Euskal Herria

Beren jarrera ez dela **maximalista** azpimarratu zuen, Hezkuntza Sailak sindikatuei leporatu dienari erantzunez. Berria - Euskal Herria

## maximizatu, maximiza, maximizatzen du ad magnitude bati balio maximoa iritsarazi. ik **maximotu**.

Munduko ekoizpenaren bolumena **maximizatu** ez ezik, herrialde bakoitzean kontsumorako eskura dauden ondasunen kopurua handiagoa izango da autarkiako egoeran baino. Koro Navarro

Errentagarritasuna mundu osoan **maximizatze** aldera. Koro Navarro

## maximo 1 izond handiena, altuena.

Pertsona normal batek aortan, bihotzaren ondoan, duen arteria-presio **maximoa** 120-150 mm Hg da. Irene Aldasoro

Indarrak alferrik galtzea litzateke gorputzaren muskulu-motorrak beti indar **maximoan** lan egiteko moduan antolatzea. Irene Aldasoro

Zorpetzearen dagoenarentzat mailegua garestitzen du eta diru iturri finkoa duenarentzat, ordain dezakeen diru **kopuru** maximoa murrizten. Berria - Harian

Ibex-35 indizea azken hiru urteotako maila **maximoen** inguruan dabilela. Berria - Ekonomia

Minimoak beharko luketen derrigortasun-indizeak **maximotzat** hartzen dira. Berria - Euskal Herria

Horrelako mahai batean esertzen denak helburu **maximoetan** amore eman beharko du. Berria - Euskal Herria

## • 2 iz balio edo zenbateko maximoa.

Irudi baten grabitate-zentroa kokatu, kurba baten **maximoa** eta minimoa aurkitu, ukitzaileak kohaztu. Jon Muñoz

**Maximo** eta minimoaren batezbestekoa kalkulatu eta apuntatu. Pello Zabala

2000ko ekainerako akzioaren prezioa 41,9 eurotakoa zen, otsaileko **maximo** historikoa baino %70 gutxiago. Iñaki Heras

CIE Automotive (%6,47) urteko **maximoan** da. Berria - Ekonomia

Akzioa, ordea, 5,66 eurotan dago, bere **maximotik** urrun. Berria - Ekonomia

Ibex-35 (%0,15) indizeak gora egin zuen pittin bat; azken urteotako **maximo** berri bat finkatuz, gainera. Berria - Ekonomia

Soinuak aztertzen hasi ginen orduan: bolumena **maximora** igo, eta hura zer izan zitekeen asmatzen saiatu ginen. Iban Zaldúa

## 3 temperatura maximoa.

Hotz-beroaren **maximoak** eta minimoak garbi jasotzeko gauza da gaur egun termometro ezagun hori. Pello Zabala

Temperaturaz, gero eta apalago, bai **maximoak** eta baita minimoak ere. Pello Zabala

Horrek esan nahi du **maximoak** altuak dituela normalean: **maximoen** batez besteko 27.1 ateratzen du, izan ere. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maximo berri** (6); **maximo berria** (7); **urteko maximo** (3)

**maximoak eta minimoak** (3)

## maximotu, maximo(tu), maximotzen du ad magnitude bati balio maximoa iritsarazi. ik **maximizatu**.

Garai bakoitzean agintean den indar politikoaren aukera elektoralak **maximotzeko** helburuaz. Iñaki Heras

Gizakiak bere utilitateaz **maximotuz** hartzen dituela kontsumo erabakiak. Iñaki Heras

---

maxina ik **makina**<sup>1</sup>.

---

## maxinamendu *iz*

**Maxinamendu** gaitza izan behar duela halako tutuak Ternuako uretan. **Koldo Izagirre**

**Maxinamendu** gaitza duzu itsasontzien lantua gauaren erdian. **Koldo Izagirre**

---

maxineria ik **makineria**.

---

## maxkal 1 *izond adkor* maskala, ahula, biguna.

Amonari egin nion etxera bisita, eta ez nuen ezusteko makala hartu, ikusi nuenean: lehen baino ere ahulago eta **maxkalago** zirudien; mantal urdinean galdutako sagutxoia ematen zuen. goizeko lehen argi **maxkal** eta grisa sartzen zen kristalean gaindi. **Jesus Mari Mendizabal**

Feli lepaendoak, haragi **maxkalak** kokospean, ezpain ertzak oker, begi hezeak eta urduri. **Pablo Sastre**

Gau osoa igaro zuen emakumearen ondoan "Arianna, kanta ezazu; Arianna, goza nire belarri **maxkalak**" xuxurlaka eta ahots larriz. **Felipe Juaristi**

Neke izango baikenuke [...] zehatz-mehatz adierazten keinu hura alaitasun xumekoa izan zen edota etsipen **maxkalekoa**. **Karlos Linazasoro**

Bero **maxkala** egiten bazuen ere, Noraren eskuetako hotzak eta dardarak larritu zuten Andreas. **Anjel Lertxundi**

**Maxkal**, argal eta ahulik bai! **Gotzon Garate**

### 2 *maxkal-maxkal adlag*

Larruzko gauza guztiak **maxkal-maxkal** geratzen dira. **Gotzon Garate**

Antoniok Joxemari bera-bera, **maxkal-maxkal** utzitako uzki tentagarrian barneratu zion ziri gorri eta lodia. **Aitor Arana**

---

## maxkaldu, maskal(du), maskaltzen 1 *da/du ad* maskaldu.

Bien bitartean, Asadek atxilotua jarraitzen zuen, egunetik egunera **maxkalago** eta argalago. **Patxi Zubizarreta**

Baina printzea egunetik egunera **maxkalduago** eta erriago zegoen, eta erregea gau eta egun egoten zen ohe buruan semea zaintzen. **Patxi Zubizarreta**

Marsuanek ongitxo baitzekien printzesa unetik unera **maxkalago** eta ahulago egongo zela. **Patxi Zubizarreta**

### 2 (era burututa izenondo gisa)

haren aurpegi zurbila, aurpegi zabala baina **maxkaldua**. **Matías Múgica**

---

maxkarada ik **maskarada**.

---

maxkor ik **maskor**.

---

## maya 1 *iz* Yukatanen eta inguruetan bizi den herri indigena bateko kidea.

Alde ederra, **mayen** artirin tristea edo Toledo aldeko mazapan gozoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### • 2 *izond* herri horri dagokiona.

Bere agiriak memoria **mayaren** zati dira. **Txema Ramirez de la Piscina**

---

## mazal<sup>1</sup> 1 *izond* adeitsua, xaloa.

Sari horren berri adiskide **mazal** dudan Antton Aranburuk eman zidan. **Gotzon Garate**

Irule **mazala**, beti irun beharrez, beti irun eta amets, eta gero zera hura deus ez... **Patziku Perurena**

### 2 adeitasuna adierazten duena.

Egia zela baieztatzen zuen, bere begitarte **mazal** alaiarekin, herria aspertua zegoela. **Karlos Zabala**

Euren begitartean irribarre goxoa azaltzen zen, irribarre nasai eta **mazala**. **Gotzon Garate**

### 3 (adizlagun gisa)

Udalekuko jolastokiak ikusi dituztenean, izarpean horren bare eta **mazal**, ohe egin berriko maindireen antzera, futbolearen aritzeko gogoia piztu zaie. **Xabier Mendiguren Elizegi**

---

mazal<sup>2</sup> ik **mazela**.

---

## mazapan 1 *iz* almendra gordin birrinduekin eta azukrearekin egiten den ore.

Alde ederra, mayen artirin tristea edo Toledo aldeko **mazapan** gozoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Izan ere, gose zarenean, ez duzu **mazapanaren** eta kabiarraren beharrik izaten. **Koro Navarro**

Ez du lehendabiziko egunean aireportutik Torinora eraman ninduen gizon **mazapan**-ogitartekoa baino lehorrago haren antzik. **Anjel Lertxundi**

### 2 mazapanezko gozokia, eskuarki iruditxo forma duena.

Bigarren **mazapana** ahoan zuenean. Aita kapaz zen zazpi-zortzi **mazapan** eserialdi batean irensteko. **Unai Elorriaga**

Jaikitze ordu gutxi falta arren, gaua urik gabe eta **mazapan** pilo batekin zeharkatu beharreko basamortua egin zait: dena ilun ikusi dut, ilun eta ezkor, ezkor eta etsipenez bete. **Patxi Zubizarreta**

# mazedoniar *izlag/iz* Mazedoniako, Mazedoniar dagokiona; Mazedoniako herritarra.

Filiporen seme Alexandro **mazedoniarra** Mazedonia lurraldetik abiatu zen. Eiizen arteko biblia

Greziak ez du inoiz Greziako **mazedoniar** gutxiengoa aitortu. Berria - Mundua

**Mazedoniar** dinastiaren fundatzaileak, Basilio I.ak. Iñaki Mendiguren

Jakin behar da jeneralari bere konkistetan laguntzen zioten **mazedoniar** zaldunen kapa purpura astuna zela klamidea. Jon Muñoz

**Mazedoniar** eta erromatar erasotzaile militarren lehen helburua biktimen ustiatze ekonomikoa zen. Iñaki Mendiguren

**Mazedoniar** arpilatzaileek Pertsepolisen eta espainiar arpilatzaileek Cuzcon egindako bekatuak. Iñaki Mendiguren

Mazedoniako Gobernuak, bestalde, hiru bahitu **mazedoniar** hil zituztela berretsi zuen atzo. Berria - Mundua

323an Alexandro zendu zen eta Grezian **mazedoniarren** aurkako giroak Aristoteles ihes egitera behartu zuen, Lizeoaren buruan 13 urte eman eta gero. Askoren artean

Alemaniko Ecolog enpresarako lan egiten zuten bi **mazedoniar** bahitu zituztela Basora hirian (Irakeko hegoaldea). Berria - Mundua

## mazedoniera *iz* Mazedonian hitz egiten den eslaviar hizkuntza.

Izan ere, ezin dira **mazedonieraz** mintzatu, ezta kantatu ere; Grezia barruko herritar horien hizkuntza ez da existitzen; Atenasek ez du **mazedoniera** errekonozitzen.

Berria - Euskal Herria

## mazela *(orobat mazel g.er., maxel g.er. maxela g.er. eta mazala g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegia maxela agertzen da)* 1 iz masaila.

Emakumearen aurpegi izerditsuari herabetasun bozkariotsua zerion, **mazela** latzen gogortasunaren leungarri. Aingeru Epaltza

Gorputz gizena zuen, aurpegi- **mazela** beteak eta hainbat egunetako bizarra. Aingeru Epaltza

Hats-handitua, **mazelak** are hanpatzenago eta gorritzenago zitzaizkion. Aingeru Epaltza

Enpresari itxurako bat, orizta ilun baten jabe **mazelan**. Aingeru Epaltza

### 2 mendiez mintzatuz, alboa, aldatsa.

**Mazela** freskoetan alhan utziak izan ziren ardien marraka ahulak. Itxaro Borda

Karrandiko **mazela** arroksuetan. Txillardegi

Aituriko gotorlekuko kanoiak ari izan dira berriro ere; mendebal aldeko **mazela** harritsua latz astinduz. Txillardegi

Loitzate mendiaren hego-mendebaldeko **mazela** batean, Zumarresta erreka ondoan. Juan Luis Zabala

Snowdon mendiaren **mazeletan**, arteak eta izenik ez dakidan beste landare batzuk hazten dira. Juan Garzia

Bertze bat, Larrun **maxelean** den azken etxea, erre dute. Herria

Azken bi asteotako euriteek luizi txikiak eragin zituzten zonaldean eta atzo goizean mendi baten **mazela** erori zen herriaren gainean. Berria - Mundua

**Mazela** honek baditu egongaitzasun zantzu nabariak, eta haiek zuzendu beharko lirateke. Edurne Elizondo

Gaitzeko sua hedatu da Biriatuan, mugari dauden **mazela** horietan gaindi. Herria

Urak behera eta trena gora, nonahi ikusten dira mahasti txikiak **mazal** -mailetan landatuta. Anjel Lertxundi

### 3 irud/hed

Kontaezinak dira oihartzunak, infinituak ia, oroimenaren zurubiko mailetan eta denboraren **mazeletan** gora eta behera ibili dabiltzanak. Anjel Lertxundi

Andreasek olatu- **mazelen** kontra zuzentzen zuen branka belaontzia zeruarekin ia bertikal jartzearaino. Anjel Lertxundi

### 4 ipur mazela ik ipurmazela.

#### 5 ipurdi mazela (16 agerraldi, 7 liburutan) ipar ipurmasaila.

Joanesi **ipurdi** mazelak ontsa minberatu zitzaizkion, zurezko jarleku gogor haien kontra segundu oro kaska eta kaska. Eneko Bidegain

Bere borondatez **ipurdi** mazela presentatu zion, pikura egin ziezaion. Itxaro Borda

Gustatzen zitzaidan **ipurdi** -mazela oparo haiek ene sabelpe gosetiaren jo-mugatzat sentitzea. Itxaro Borda

Kapitain galtzak kitzatzen zituenean Janinaren begiak ez ziren haren **ipurdi** mazela zainart eta ilezuetarik kantitzen. Itxaro Borda

#### 6 mendi mazela

**Mendi mazela** baten puntan, urrunetik lau argi gorri zenbatu nituen. Itxaro Borda

Badakizu zubi hori leku hertsi batean dagoela, zilo batean bezala, dena etxe bazter guzietatik, **mendi mazela** zut baten azpian. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Betidanik xoratu izandu nau, urrungo **mendi mazelatik** eperraren ttor-ttor-ttor hirutar hori aditzeak, eta zer esanik ez, haren belar tarteko ibilera isilgordeak. Patziku

Perurena

Uda beteenean da, baina bide bazterreko belar erre horitzen hasiak beste ezerk ez du erakusten eguzkiaren lana, zelai eta **mendi-mazeletako** belarra berde baitago artean, kolorerik galdu gabe. Anjel Lertxundi

Ez da neke holako leku batean: zeru eder bat teilatu, mahain aldare ttipi bat **mendi mazelan** altxatua, ez, ez da neke Jainkoari hurbiltzea eta salmoaren kantatzea "Zelü Lürak zoin diren ederrak, Jinko Jauna gük züri eskerrak". Herria

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mazel biribilak** (3)

**ipurdi mazela** (4); **mendi mazela** (19); **mendi mazela batean** (3)

**ipurdi mazelak** (7); **mazelak eta** (3); **mendi mazelak** (3); **sudur mazelak** (3)

**mendi mazelan** (10)

**mendi mazelaren** (4)

**mendi mazelako** (4)

**iparlako mazelatan** (3); **mazelatan gaindi** (4); **mendi mazelatan** (12); **mendiaren mazelatan** (3)

## mazelako *(orobat maxelako)* 1 iz masailekoa.

Ez zion behin ere **mazelakorik** eman; beraz, ez zen nehoiz haren beldur izan. Elena Touyarou

-Gertatu zautzu, gero, **mazelako** batzu biltzea? Menane Oxandabaratz

To **mazelakoa**! Aingeru Epaltza

### 2 irud/hed

Azken egunetan, espainiar gudarosteak etengabe erasotzen zituen mugako postuak, eta haien eskapatzeak sekulako **mazelakoa** ematen zion frantses gudarien moralari.

Elena Touyarou

Baziren Chirac-en kontra ari zirenak, galdeginez utz zezan bere kargua holako **mazelako** bat bildurik. Herria

Hasi da igande aratsean gobernuburuak eta dotzena bat ministrok hartu dutelarik **mazelako** eder bat. Herria

Hasi da igande aratsean gobernuburuak eta dotzena bat ministrok hartu dutelarik **mazelako** eder bat. Herria

## mazi iz

Espezia anitz bada han: kanela, gingenbra, hitze, eltzurra muskada, han "**mazia**" daritzaten eltzuraren kuskua, eta zedoarra; beti itsasoz itsaso ibiliz Panteira heltzen zara. **Aurelia Arkotxa**

## mazitu, mazi, mazitzen 1 da ad ipar birrindu.

Ganden ortzegun aratsaldean, Placidako patarra beheiti zoan beribil bat zuhaitz baten kontra **mazitu** da, lhartzebeheretik hurbil. **Herria**

## 2 (era burutua izanondo gisa)

Behingoan, ttipiez dugu pena hartzen, baina, preseski, hortik da ezperantza bat sortzen, bederen zenbait bihotzetan, eta ez ditu falta mundu hunek jende ta herrialde xehe urrikalgarriak, nola baita Jesus zafratu, zanpatu eta **mazitu** hori. **Herria**

## mazizo iz mendigunea.

Abortatzeko behar-beharrezkoa nuen diruaren parte bat **Mazizo** Zentralera joateko eta P. ikusteko gastatzea, jakinda zalantza izpirik gabe ez ninduela gehiago ikusi nahi, ez zen batere zentzuzkoa. **Joseba Urteaga**

## mazkal ik maskal.

## mazkarotu, mazkaro, mazkarotzen du ad ipar ñabartu.

Ostoak **mazkarotzen** eta urtxoak pasatzen diren sasoin hunek nostalgiarat ekartzen gaitu. **Herria**

## mazkleta iz

Kenduko dizkiote hiriko bestaren zenbait seinale, hala nola gakoen hedapenaren ondotikako "**mazkleta**" su ziri ozenen tiraldia. **Herria**

## mazmorra iz leotza.

Bizi baldin bada, honezkero izan du **mazmorretara** zigortu zuen soldadu napolitano haren barri. **Koldo Izagirre**  
Planoetan ere ez dira **mazmorrak** ageri. **Koldo Izagirre**

## mazo<sup>1</sup> 1 iz zurezko mailu modukoa, handia.

**Mazo**, burdin barra, mailu eta mota guzietako tresneria pasatzen zen eskuz esku. **Elena Touyarou**

Ondoren, hartxintxarra zabalduko da eta egurrezko **mazoekin**, koadriletan banatuta, estu-estu zanpatuz trinkotuko da, erabat zanpatua dagoenean gutxienez zoladurak lodian izango duenaren hiru laurdenekoa izan arte. **Santiago Iruretagoiena**

Borreroetako batek buruan kolpe izugarri bat eman zion Giacomori **mazo** batekin. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Eskuen eta zangoen indar harrigarriaz fidaturik, basapizti alderen atzetik jotzen zuten, harrika eta **mazo** astunez joka. **Xabier Amuriza**

Harrobi batean erail zuten **mazo**-kolpeka, eta urpean kaperatxo batean hobiratu. **Pello Zabala**

**Mazo** moduko ukabila kokotseraino jaso zuen. **Lopez de Arana**

## 2 arma zaharra, burdinazkoa edo zurezkoa, gider luze-mehar batez eta honek muturrean duen buru batez osatua.

Harresiak erortzen ari dira dagoeneko: gorgûnek lurrezko trumoiekin eta burdin beltzezko **mazoekin** eraisten dituzte. **Agustin Otsoa**

**Mazoa** lasto iruditzen zaio, gezien ziztu-hotsari barre egiten dio. **Elizen arteko biblia**

## 3 zokor-mazo zokorrak birrintzeko mazoa; adimen laburreko pertsona.

Ulertu ez dakit zenbat ulertuko nuen nik orduan obra hartatik, baina gogoan dut zokor-**mazo** batez buruan jo izan banindute bezala geratu nintzela: txundituta, erabat liluratuta. Zokor-**mazo** bat baino gor eta gogorragoa da entzun eta jaso nahi ez dituenak aintzat hartzeko. **Joxerra Garzia**

Izu klase horren eraginez erori ziren aita eta bere lagunak zokor-**mazo** haien amarruan. **Anjel Lertxundi**

Kleo Kleenetoko hau, haatik, Tuzididesek beti sokor-**mazo** zakarroa bezala erabiltzen baitu, Kirten baten antzera, haren kontrairudia bere arrazoiketan ikustea, Diodoto Eukratekoa, gizon burutsu zuhurra, interesgarria gertatzen da guretzat. **Joxe Azurmendi**

Zokor-**mazoren** bat izanen zen noski hori! **Fernando Rey**

## mazo<sup>2</sup> adlag adkor oso.

Ez litzaizuke, gazte sentimental horri, gauza ederra idurituko hori, zerbait benetan **mazo** guapoa? **Pello Salaburu**

## mazokada iz mazo ukaldia.

Hondoratu nintzenean, bere ipurditxoa itxi egin zen eta estutu egin ninduen, inoizko plazerrik handiena ematen zidalarik; [...] hazi-txorroari jarein nionean bere barnemuinetan, zerueta buru gainera erori zitzaidala uste izan nuen, **mazokada** bat izan zen lehendabizi, eta suzkoerruberen eztanda gero. **Juan Martin Elexpuru**

## mazopa iz izurdearen familiako itsas ugaztuna, hura baino txikiagoa, mutur-hantua, bizkar hegala laburra duena, itsaso hotz eta epeletan bizi dena (Phocaena phocaena).

**Mazopak** itsas ugaztunak dira, baleak, katxaloteak, zereak edo orkak bezala. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Izurde eta **mazopa** batzuek, gizakia baino handiagoak ez izanagatik, garun handiagoak dituzte; badira, hala ere, izaki horiek nahiko adimentsuak direlako zantzuak eta komunikazio-sistema sofistikatuak dituztelako nolabaiteko frogak. **Irene Aldasoro**

Hasieran lehorrean garatu eta eboluzioan zehar atzera uretara itzulitako itsas ugaztun askok, hala nola izurdeak eta **mazopak**, oso usaimen eskasa dute, edo batere ez. **Irene Aldasoro**

Eresuma Batuan, urtero, 10.000 izurde eta **mazopatik** gora hiltzen dira arraste-arrantzaren ondorioz, **Berria - Euskal Herria**

## mazpil *iz* hurritzaren antzeko zuhaixka (*Sorbus torminalis*); landare horren fruitua.

Oraindik martxan zegoen Iraileko feria Pradon, Jardín Botánicoaren aurrean, eta jostailu-barrakekin, zaldiko-maldikoekin, tiro-jokoekin eta intxaur, almendra eta **mazpil** pilekin batera, baziren liburu-saltokiak ere, bibliofiloak liburu zahar, hautsez beteak nahastera eta gainbegiratzera biltzen zirenak. **Josu Zabaleta**

## mazpildu ik **maspildu**.

## maztika *iz*

Hara heltzen den bezain laster Khiorako uhartetik iragatea merezi du, han **maztika** atxematen baita arbola ttipi batzuen gainean. **Aurelia Arkotxa**

## mazurka *iz* poloniar jatorriko dantza, hiru aldiko konpasekoa eta erritmo lasaikoa.

**Mazurka** bat jotzen ari ziren, eta ezproi-hotsa entzuten zen. **Jose Morales**

Bestetik, modan zeuden piezak moldatzen zituen, hala nola pasodobleak, tangoak, **mazurkak**, polkak, fox-trotak... **Pako Aristi**

Lau bikote **mazurka** dantzatzen ari ziren harengandik oso hurbil. **Jose Morales**

Mister Lewinek ez zeraman soinean, jakina, inolako etiketa-jantzi ilunik, eta dantzatu ere **mazurka** modura egiten zuen dena, Polonian jaioa izaki **Joxe Austin Arrieta**

## mazusta ik **masusta**.

## mcdonaldsizazio *iz*

Jendartearen **McDonaldsizazioa** bultzatzen du. **Berria - Euskal Herria**

## mea 1 *iz* lurraren azala osatzen duen gai ez organikoa, bereziki ustiatzeko onuragarri dena. **ikmineral**.

Gorria ez baina grisa da arbela, eta **mea** beltz horrez beterik zeuden Itsasondoko bazterrak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Meategiak zulatu, mendiak induskatu, eta ura ateratzeko, **mea** hausteko eta bereizteko makinak asmatu zituzten. **Iñaki Iñurrieta**

**Mea** lantzen zuen fabrikako beharginentzako. **Berria - Kultura**

Bi metalok **mea** eta mineral beretik ekoizten zituzten. **Pello Zabala**

Metal arruntezko **mea** artean urre-zain bat bezala. **Juan Garzia**

Eta berak ere, haitzean burdinaren **mea** arrosakolorea hautematen zuenean, zera, lagun zahar batekin topo egiten zuela begitantzen zitzaion. **Juan Garzia**

Gobernuak [...] hari edo honi egiten zion **mea** erauzteko kontzesioa, **mearen** gaineko lurraren jabeari eskuarki. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Meatzari izandako herri bat zen Arralde berri hau, **mea** aspaldi agortu bazen ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 2 irud/hed

Tipiren txostenaren lehen zatian ustiatu gabeko zainei **mea** guztia agor-agorrik uzteraino erauzteari lotu nintzaion. **Aingeru Epaltza**

Ortega **mea** bat da, herri arimaren gaian berak etengabe egiten dituen behaketetan, guk haren gainean mila modutako behaketak egiteko. **Joxe Azurmendi**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mea** -hobia arras ezlekuan zen, aldaparo malkor batean. **Juan Garzia**

Lurraren barrunbeetan bizi dena eta **mea** -altxorren zaintzaz arduratzen dena. **Xabier Olarra**

Azkenean, morfina bihurtzen duk miseriak ahazteko eta **mea** -ustiaketari ez uzteko bide bakarra. **Josu Landa**

**Mea** -zamatokia ageri da oraindik, handik zekarten minerala... **Urtzi Urrutikoetxea**

"**Mea** -zaborra" ugaria zen; hala ere, agian zer edo zer atera zitekeen handik. **Juan Garzia**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gaur egun, mearen berrogeita hamar kintal urre **meak** lau, bost eta sei ontza urre ematen ditu; eta bi besterik ematen ez ditueanean, meatzariak gastutarako baizik ez du ateratzen. **Iñaki Iñurrieta**

Itsasontziaren sotoa berriro betetzen zieten bitartean, postako gauzez gainera, gariz eta kobre **meaz** bete ere, astebeteko atsedenaldira hartu zuten. **Felipe Juaristi**

Han dira merkatal-ontzi erraldoiak, ardoa eta garia, burdina: **mea**, eta garai honetan, garai anker odoltsu honetan, armak garraio ibiltzen direnak. **Felipe Juaristi**

## 5 meatzea.

Azkenean, auskalo nola, **mea** ingeniari baten Renault zaharra eskuratu zuten. **Iban Zaldua**

Krakovian-edo, gatz meategi batzuk bazirela jakitea ez zen agian osa baliagarria izango, baina gatz **mean** bertan induskatuz eliza edo katedrala egin zutela jakitea oso garrantzitsua zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## 6 *mea-zulo* ik **meazulo**.

## 7 *mea-zain* ik **meazain**.

## meagile *iz* meatzaria.

Osagarria galdua zuen lur peko lanetan ariz, **meagile** bezala. **Herria**

## meagin *iz* meatzaria.

Behargin eta **meaginak** [...] auzo-herrietatik zetozen, bi orduko txangoa eginez kasu askotan mendiko bidezidorretatik: enpleguak bertan bizi ziren. **Juan Garzia**

## meagintza *iz* meatzaritza.

Txinan omen du jatorria Arcelor eta **meagintzarekin** zerikusia duten gainontzeko akzioen atzoko igoera handiak. **Berria - Ekonomia**

## meakulpaka *adlag* “mea culpa” esanez.



## meandro *iz* ibai batek bere bidean egiten duen bihurgune handia.

Amazonasen ibilbidean han-hemen ageri ziren **meandro** zabala **Jon Muñoz**

## meandroka *adlag*

**Meandroka** ibili, [...]: bihurka eta xederik gabe ibili. **Xabier Olarra**

## meategi *(192 agerraldi, 39 liburu eta 47 artikulutan; orobat meategi g.er.) 1 iz* mineral jakin bat ustiatzen den lur eremua; minerala ustiatzeko zuloen eta instalazioen multzoa. ik **meatze**.

Erromatarrek, kobrezko **meategiak** eta zilarrezko **meategi** gutxi batzuk besterik ez zituztenez, [...]. **Iñaki Iñurrieta**

Ez zuten ezagutzen **meategi** guztietatik metalak ateratzeko sekretua. **Iñaki Iñurrieta**

Itsasodan **meategi** bat egon zen eta jendeak baserriko lanak zeregin horrekin uztartzen zituen. **Berria - Kultura**

**Meategiak** zulatu, mendiak induskatu, eta ura ateratzeko, mea hausteko eta bereizteko makinak asmatu zituzten. **Iñaki Iñurrieta**

**Meategia** ustiatzen duen enpresak. **Berria - Mundua**

Gero, ordea, Hegoafrikako **meategietan** diamante ugari ateratzen hasi zirenean, gauzak asko aldatu ziren harribitxien lantegietan. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Asturiasko **meategi** batetik lehergaiak lapurtzeko antolatutako konplotari. **Berria - Harian**

"Integrazio" hitzak, hemen, Europak eta europar kolonoek bortxaz eta sistematikoki beretu zituztela kontinenteko **meategi** eta nekazaritza-aberastasunak esan nahi du.

**Koro Navarro**

Gogoratu zuen, judu izatea oroimendun eta oroimenaren esklabo izatea baita, ibaia **meategi** dela, harri bitxiak, urre-zilarrak ateratzen dituztenak baino aberatsagoa. **Felipe**

**Juaristi**

### 2 irud/hed

Vernek eta Hetzelek urrezko zaina aurkitu dute letretako **meategian**. **Karlos Zabala**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Meategi** ziloitik biltzen zuten ikatza eta burdin bide xume batean kargatu eta pusaka heltzen zuten behar lekurat. **Herria**

**Meategi** -sarreran zaindari dagoen gizona. berrehun metro gehiago errepidean gora eginda aurrez aurre zabaldu zitzaion **meategi** harana, zulatze lanen poderioz gorritutako paraje malkartsuak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire ahuntzak egunero pasatzen dituk urre-**meategi** baten gainetik. **Anjel Lertxundi**

Zilar **meategia** aurkitu zi-an Alaskan, eta aberastu. **Bernardo Atxaga**

Lanpostu gehiago sortzea, eta Mutungo burdin **meategia** esleitzeko exijitu dute. **Berria - Mundua**

Txinako ikatz **meategi** batean izandako leherketan, gutxienez 60 meatzari hil eta 88 desagertu ziren atzo. **Berria - Mundua**

Uranio, berun eta zink **meategiak**. **Bernardo Atxaga**

Sufre **meategi** batean ere lan gehiago egiten dela erantsi zuen. **Berria - Euskal Herria**

Salzburgon gatz-**meategi** baten jabe zena. **Felipe Juaristi**

-Zer duzu, postariaren seme, gerrian esmeralda-**meategia** duzun mutil horrek? **Felipe Juaristi**

## meatoki *(23 agerraldi, 4 liburu eta 3 artikulutan; orobat mehatoki g.er.) 1 iz* meategia.

Baina **meatoki** gaizto hartan ez zegoen zilar edo urrerik. **Bernardo Atxaga**

Txiki-zioek eta europarrek eramandako birusek suntsiturik, amerikar herritar gehientsuenak lanera behartu zituzten, zilarrezko, merkuriozko, urrezko **meatokitian**, kobrezkoetan geroago. **Koro Navarro**

**Meatokitako** ustiakuntzaren ondoren, [...]. **Koro Navarro**

### 2 (hitz elkartuetan)

1867an, 1806an ingelesen mende erori ondoren, munduko diamante-**meatokirik** handienak aurkitu ziren holandarren antzinako kolonia horretan. **Koro Navarro**

Trein hori kobre **mehatokiko** langileen ibiltzeko egina zen. **Herria**

## meatu *iz* gorputzeko hodia edo hodiko zuloa.

Kanpo-belarría (guk ikusten duguna) belarri-hegala da, larruzal eta kartilagozko hegal izurtsu bat, **meatura** doana (tinpanoan bukatzen den tunel estu itsu bat da **meatua**).

**Irene Aldasoro**

### meatxu ik mehatxu.

### meatz ik meatze.

## meatzari *(orobat mehatzari g.er.) 1 iz* meategian mea ateratzen lan egiten duen pertsona.

**Meatzari** batek egun osoa ematen du lur azpian pikatxoiekin eta hiru dolar irabazten ditu egunean. **Fernando Rey**

Beherago metala bilatzen ari ziren **meatzariak** luizien pean geratzeko arriskua handia zen orduan. **Harkaitz Cano**

Lurretik ateratzen denean, burdinezko erreminten kolpez zilarbizi-malko ugariak ateratzen zaizkio, eta **meatzariek** berehala jasotzen dituzte. **Santiago Iruretagoiena**

Asturiasko **meatzari** batzuk ekarri zituzten, leherkarietan espezialistak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Asturiasko **meatzariek** hasitako grebaren ondorioz. **Berria - Kultura**

Gutxienez 31 **meatzari** hil dira gas eztanda batean. **Berria - Mundua**

Susana San Juan, *La Andrómeda*ko meatzetan hildako **meatzari** baten alaba. **Juan Garzia**

**Meatzari** kaleratu haien egoera, esan bezala, oso txarra zen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Lurraren sabel zulatuetatik **meatzari** esklabizatuak lanaren izerdiaz erauzitako ikatzarena zirudien belztasuna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nire eskuek oraintze ematen dute **meatzari** batenak. Harkaitz Cano

**Meatzariak** ez du meatokia abandonatu behar, Bernardino. Bernardo Atxaga

1993n Boliviako **Meatzari** Langileen Sindikatuan sartu zen eta geroztik BLZko buruzagi garrantzitsuenetariko bat izan da. Berria - Mundua

## 2 irud/hed

**Meatzari** izandako herri bat zen Arralde berri hau, mea aspaldi agortu bazen ere. Xabier Mendiguren Elizegi

## 3 (izen soila aditzaren ezkerrean)

Alaskako muga ondora [...] **meatzari** joanda, eta nagusiak ordaindu ezin zenez, meategia erosi ahal izan zioten, oso merke. Berria - Kultura

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gero harro sentitu da bere **meatzari** eskuez. Harkaitz Cano

1803an **meatzari** talde bat atera zutela Silesiako meategi batetik. Xabier Olarra

Asturias aldean esaterako, **meatzari** -familia gehienek izaten zuten baratze kokkor bat, etxeko irabazien osagarri. Xabier Mendiguren Elizegi

Harri-xafila haiek **meatzari** -jendearen izerdiaeren emaitza zirenik sumatu gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

**Meatzari** kanpamentua al da? Bernardo Atxaga

Izan dira **meatzari** -herriak ingurune guztiz euskaldun batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Hango edo hemengo **meatzari** -kontuak. Xabier Mendiguren Elizegi

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Polizia eta ikatz **meatzari** ondoren kazetari izatea da Asiako erraldoian dagoen lan aukerarik arrikutsuena. Berria - Gaiak

Eta urre **meatzari** batek bezala sukaldean aztarrikatutako burdina forjatuzko labirintoa ez zen, berez, orbain mordoska nazkagarri bat besterik. Anton Garikano

## 6 *meatzari kide* ik *meatzarikide*.

# meatzarikide *(corpusean meatzari kide soilik) iz meatze bereko meatzaria.*

Eta meatzari egin gintuan, mutur-beltz, ezagutu ezinezko, meatze zuloan denbora guztian, edo erresistentziako **meatzari kideen** etxeetan... Josu Zabaleta

# meatzaritzza *(orobat mehatzaritzza g.er.) 1 iz meategian mea ateratzeko lanbidea.*

Ondoren, antolamendu modu kapitalistak beste sektore batzuk eskuratzen hasi ziren: **meatzaritzza**, ontzigitza eta burdingintza. Koro Navarro

Bilbo hiri aberats-itsusia da, **meatzaritzan** diharduena. Felipe Juaristi

Estatu Batuetan, mendearen hasieran, % 39 ari zen lanean nekazaritza eta **meatzaritzan**, % 39 zerbitzuetan eta % 29 manufakturan. Pello Salaburu

Halaxe gertatu zen nekazaritza eta **meatzaritzako** lehengaietan ere. Koro Navarro

**Meatzaritzak** «balio ekologiko handiko» lurretako ekosistemiei egiten dien kalteaz ohartarazi du WRI World Resources Institute erakundeak txosten batean. Berria - Gaiak

ICMM Metalen eta **Meatzaritzaren** Nazioarteko Kontseiluak. Berria - Gaiak

Beste proiektu bat Gallartako **Meatzaritzaren** Museoa izango da. Berria - Ekonomia

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Prezio konstanteetan, lehengaien beheraldia, eta nekazaritza eta **meatzaritzza** -gaiena bereziki, etengabea izan zenaldi horretan guztian. Koro Navarro

Ekoizpen-harremkan kapitalisten sarbidea nekazaritza- eta **meatzaritzza** -sektoreetara baizik ez zen iristen. Koro Navarro

Inbertsioak Mendebaldeko **"meatzaritzza"** -gerrikoan kontzentratzen dira (Kanada, Australia, Latino Amerika, Hego Afrika). Koro Navarro

Lege hutsunez baliatzen direlako **meatzaritzza** enpresak, beste leku batzuetan egin ezin dutena han bertan egiteko. Berria - Gaiak

Survival International erakundeak, esaterako, 35 urtez borrokatu behar izan du Rio Tinto **meatzaritzza** enpresa multinazionalak Australiako herri bereen lurren jabetza eskubide kolektiboak onartzen hasteko. Berria - Gaiak

Argi eta garbi dago ibaiaren goiko aldean **meatzaritzza** lanak egiten badituzte, horren eragina ibaiaren beheko aldean bizi direnek ere igarriko dutela. Berria - Gaiak

Espainiako Geologia eta **Meatzaritzza** Institutuak argitaratutako plano geologikoan. Berria - Euskal Herria

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Benetako bero astun eta zink-**meatzaritzakoaren** modukoak ardura ez badizu, eta zezen ederrak eta bikain haziak ikusi nahi izanez gero, Bilboko abuztuko feria duzu aukerako lekua. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**meatzaritzza enpresa** (3)

# meatze *(166 agerraldi, 44 liburu eta 23 artikulutan; orobat meatz g.er. eta mehatze g.er.) 1 iz mineral jakin bat ustiatzen den lur eremua; minerala ustiatzeko zuloen eta instalazioen multzoa. ik meategi.*

Trenbiderik ez dago harribitxizko meatzeetara iristeko, nahiz **meatze** horienatik Siberiako alderdi handien lur azpia aberatsagoa izan lur gaina baino. Karlos Zabala

Nolanahi ere, **meatze** errentagarria da oso Yanacocha. Berria - Gaiak

**Meatze** bat zultzeko? Jon Muñoz

Johnnyk urrezko **meatze** bat aurkitu du. Fernando Rey

Aitak **meatzeetan** aurkitu zian lana, iparraldean. Jon Muñoz

Landak eta **meatzeak** ustiatzeko bertako eskulana bazegoenez, landako biztanleek ia erabat indiar izaten jarraitu zuten. Iñaki Mendiguren

Naturgune babestuetan daude **meatzeen** %75. hantxe biltzen da **meatzeen** zuzendaritza nagusia. Berria - Gaiak

Elkarren besoetan erori ziren, elkarrekin arituak baitziren Quebecque-n, biak **meatze** berean. Matías Mujika

Potosiko **meatzeetako** zilarra huskeria da honen aldean. Fernando Rey

Baina **meatze**ko zuloak lurrearekin berdintzea baino hobea duk hau, Olivier. Harkaitz Cano

Urek zubiak irentsi, ezpondak apurtu eta **meatzeak** bete egingo dituzte. Koldo Biguri

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Espainiako **meatze** herri batean girotutako Tierra negra (Lur beltza) lanarekin hasi zen. Berria - Kultura

Aspaldian lurperatutako **meatze** -tren baten burdinbide morturen batean? Karlos Linazasoro

Horra hor, adibidez, **meatze** ingeniariaren ikasketen kasua. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Rafael Ramirez Venezuelako Energia eta **Meatze** ministroaren esanetan. Berria - Ekonomia

Eusko Jaurlaritzako **Meatze** Sailak leherketak egiteko baimena eman dio San Josepe Biri. Berria - Euskal Herria

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

1373an aipu dira Borddeleko, Iruazketako, Granadako eta Kurriagako lurretan diren burdin **meatze** batzuk. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez da harrizkeoa, beraz, Yanacocha munduko urre **meatze** handiena bihurtzeko bidean izatea. Berria - Gaiak

Arbel **meatzean** aritu zen lanean, harik eta, 50 bat urte zituela, medikuak silikosia diagnostikatu eta lanerako egzauga izendatu zuten arte. Xabier Mendiguren Elizegi  
Harrikatz **meatzeko** tren batera bota zian bere burua, emazteak bere berri gehiago nahi ez zuelako. Josu Zabaleta  
Burdin eta kobre **meatzeek** eta harribixtien ustiategieki langile ugari biltzen dute alderdi hartara. Karlos Zabala  
Marmol harrobiak, gatzagak, platinio eta urre erauztokiak, ikatz **meatzeak** ustiatzen dira bertan handizka. Karlos Zabala  
Argentinan, berriz, San Antonio ibaia kutsatzen ari zen uranio **mehatze** bat ixtea lortu zuen,urteetako kanpaina baten ondotik. Berria - Gaiak

## 4 meatze zulo (22 agerraldi, 4 liburutan)

Haitz baten atzean erdi ezkutaturik (berariaz ezarria baitzen han noski), **meatze-zulo** baten ahoa ageri zen. Juan Garzia  
Eta meatzari egin gintuan, mutur-beltz, ezagutu ezinezko, **meatze zuloan** denbora guztian, edo erresistentziako meatzari kideen etxeetan... Josu Zabaleta  
Bahitutako enpresaria Itsasondoko **meatze-zulo** batean eduki zutela ezkutatuta. Xabier Mendiguren Elizegi  
Esku ahurra zabaltzen du Katek orduan, eta hutsune horretan ezer ez egon arren, hutsune hori Askatasun Anderearen buruko koroa ez izan arren, hutsune hori minerala atera berri duten **meatze zuloa** ez izan arren, zakurrak muturra sartzen du Katen esku ahurrean. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**burdin meatze** (3); **meatze zulo** (6); **meatze zuloan** (3)

**yanacocha meatzea** (3)

**munduko meatzeen** (3)

## meazain (corpusean mea-zain soilik) iz mea baten zaina.

Lur haren azpian **mea**-zain mataza ikusgarri batek egon behar zuen. Juan Garzia  
Norbaitek, nork daki noiz, nork daki nondik etorririk, [...] **mea**-zain bat aurkitzen duela, ez diola inori deus esaten, harria berak bakarrik induskatzen saiatzen dela, hezurrak uzten dituela hantxe. Eta eguneroko analisisen datuen gainean poliki--poliki mapa sortuz zihoan, lurpeko **mea**-zainen erretratua. Juan Garzia

## meazilo ik meazulo.

## meazulo (14 agerraldi, 3 liburu eta 2 artikulutan; orobat mea-zulo 3 agerraldi, 2 liburutan, eta meazilo g.er.) 1 iz meatze zuloa.

Bada **meazulorik** zilarra ateratzeko, arragorik ere bai urrea garbitzeko. Elizen arteko biblia  
Harkaitzetan **meazuloak** eginez, mineral baliotsuak aurkitzen. Elizen arteko biblia  
Senarraren bizimodua: **mea zuloan** otordu txikia jateko betarik ez diete uzten eta, gosea atzenaratzeko, koka hosto mingotsak eta leija (quinaren zuztarren hautsa, arroza eta anisarekin nahastuta) mastekatzen dituzte. Pablo Sastre  
Izan ere, ez zen han putzurik ez **mea-zulorik** ez harri-zaborteagirik. Juan Garzia

## 2 irud/hed

Diferentzia, gertaera jakin baten inguruan putzuak eta **meazuloak** induskatzen dituen pentsamendu eragilearen eta pentsamendu inorendu, bizigabearen artean dagoena da. Jon Alonso

## medaila (183 agerraldi, 15 liburu eta 106 artikulutan; cf domina 805 agerraldi, 88 liburu eta 285 artikulutan; orobat medela g.er. eta midaila g.er.) 1 iz domina.

Berehala ezagun da armada gizona dela, lehenik bere soinekoen gatik, baina gehiago oraino papoaren bete dituen **medaila**, xingola eta gurutzeen gatik. Michel Oronoz  
Artetan gerlaz oroitzu, **medaila** hemen, xingola han, Aljeriako soldado ohiak frantses patriota berri bihurtu ziren gehienak. Piarres Aintziart  
Goiok kutxatila eskuratu zion eta amamak, **medaila** eta sos zaharkituen artean, erretratu txiki bat atera zuen. Joseba Sarrionandia  
Bonet beltza buruan eta ez dakit zer sainduren **medailak** paparrean. Aingeru Epaltza  
Nire gaitzaren makurrenean, sukarrak deusetaz ohartzera uzten ez zidalakoan, abemariaka abiatzen zen nire ondoan, Jainkoaren amaren **medaila** eskuan zerabilela. Aingeru Epaltza  
13-etan Bazkaria BERRIA trinketeko jatetxean eta **medailen** eskaintza. Iñigo Aranbarri  
Irabazdunek kopa ttipi bat eta galtzailleek **medela** bedera. Herria  
Aitatxik **medaila** bat eskuratu zuen, gerla bururatu eta hamar bat urteren buruan. Eneko Bidegain  
**Medailarik** igurikatzen zenez? ez baitezpada. Itxaro Borda

## 2 (izenlagunekin)

Munduko txapelketetan lau aldiz irabazle agertu da, urrezko **medaila** edo domiña eskuratu Donibane Lohizunen 1994an, zilarrezkoa Gasteizen 1986an, brontzezkoa Kuban 1990ean eta Mexikon 1998an. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Urrezko hameka **medaila** Frantziarentzat. Herria  
Pariseko erakusketa nagusian urrezko **medaila** ukan dutenak: Itsasuko GAEC Haranea eta Laurence Lastiri, Larresoroko Jean Michel Noblia. Herria  
Etxe hortako sei langileeri eman die laneko **medaila**. Herria  
Urte berri on bat desiratu ondoan Kanboar guziera, Jaun Auzapezak ohoratu ditu Kanboar batzu Herriko **medaila** eskainiz. Herria  
Merezimendu zibileko **medela**. Herria  
Departamenduko kirol zerbitzuen izenean, Michel Hiriartziburutarrak eman dio kirolen ohorezko **medaila**. Herria  
Bazkaria bururatzean eskainiko dira ohorezko **medailak**. Herria

## 3 (hitz elkartuetan)

**Medaila** -sailak papoan daldar zeramakizten adineko soldadu-ohi batzuek banderak inarosten zituzketen. Itxaro Borda  
· Batek gerlariei eskaintzen zitzaien identifikazio **medaila** zekarren, Pierraren izen eta zenbakiekin. Itxaro Borda

## medailadun (orobat medaildun g.er.) izond/iz medaila duena; medailak dituena.

1918an, beraz, bururatu zelarik gure burasoen "Azken Gerla" hura, 5.000 seme bederen, adin ederrean, Iparralde xume honi hartu zizkiona, bazirudien gure kristau fede zaharrari eratxiki zitzaiola erlijio berri bat; Joana Arkekoa iduriko bere saildu propioekin, bere gerlari ohi **medailadunen** prozesioekin, bere gerlako martirien xingola, bandera eta oroitariekin, bere Jondoni Martinetako meza nagusi, frantses prediku, soinu, kantu, espantu eta apairu handi guztiekin. Piarres Xarriton  
Asma daiteke jende ainitz bilduko dela egun hortan **medailadunen** inguruan. Menane Oxandabaratz

## medailatu, medaila(tu), medailatzen 1 du ad ipar medaila ezarri. ik kondekoratu.

Lau ama familiako **medailatuak** izan dira amen bestakari: Léonie Doyhenart, Léonie Harriague, Lucienne Fily eta Annie Saint-Esteben. Heria  
Irene Biscay Eiherraberrikoa 5 haurren ama, Aña Mari Bonetbelche Harrietakoa 4 haurren ama, jaun merak **medailatu** ditu eta merezitu loreak eskaini. Heria

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Haxe da **medailatuen** zerrenda: [...]. Heria

Huna hemen **medailatu** horien izenak: Henri Carette, Martin Darmendrail, [...]. Heria

## medailatze iz medaila ezartzea.

Hazparnen jokakutako da aurten biltzar hori urriaren 7 an betiko egitarau edo programarekin: meza, biltzar nagusia, gazteen partida eta bazkaria, BERRIA trinketean, eta betiko **medailatzeak** bixtan dena. Heria

## medaidun ik medailadun.

## medailoi 1 iz medaila modukoa, biribila edo obala, eta eskuarki irudiduna.

Bere amonaren **medailoi** xarmagarri batez apaintzen zuen amak soineko hura eta egunen batean nik ere eramango nuen ametsa egina nintzen frankotan. Joxan Elosegi

Eta bitxi bat, anaia zaharrenak berari gerra ondoan emateko gorde zuena, esmalte urdinean landutako **medailoi** bat. Joxan Elosegi

Apal guztietan, bizpahiru mailatan, belarritakoen, gurutzeen, **medailoien** ilarek tabernakulu zerrenda aberatsak ipintzen zituzten kristal ertzean. Karlos Zabala

Eta hildako horrek heltzen zion katea kendu nion tiraka; ilargiaren argitan ikusi nuen **medailoi** ttiki bat zela, alde batean lau hostoko hirusta berde bat zuela eta bestean inskripzio bat alemanez: Bringe Glück. Fernando Rey

## 2 oihaletan eta erabiltzen den apaingarri biribila edo obala, eskuarki irudiduna.

K.o. 26an Pontzio Pilato erromatar prokuradoreak, isilean eta gauaren babespean, **medailoietan** enperadorearen irudia zeukatzen erromatar zutoihal militarrek Jerusalemara sartu zituenean, juduen erreakzioa sutua izan zen, ikur iraingarri haiek kentzera Pilato behartzeko adinakoa. Iñaki Mendiguren

## 3 arkitekturan erabiltzen den apaingarri biribila edo obala, eskuarki erliebeduna.

Goi-goian, berriz, teilatuaren azpialdean, zortzi **medailoi**. Txillardegia

## medela ik medaila.

## medellindar izlag/iz Medellingoa, Medellini dagokiona; Medellingo biztanlea.

Hango adierazteko moduak, hango negar egiteko gonbitak, hango hunkitzeo erak **medellindar** bilakatu zuten santurtziarra. Beria - Kultura

## media<sup>1</sup> 1 iz masa komunikabidea. ik medio<sup>2</sup>.

Joanes Paulo II Aita Sainduaren ehortzetak Erroman, mundu osoan zabaldurik gaurko **media** guzieren esker, kaseta guzietan ere erakutsi dizkigute irrati telebixten ondotik. Heria

Batetik, erlatibismoa gaur moda bat da (aspaldi); baina antirrelatibismoak orobat, edo erlatibismoaren beldurra, beti moda hutsa ez bada ere, badu arriskua moda bihurtzeko edo halakoxe tratamendua aurkitzeko **media** gehienetan. Joxe Azurmendi

**Media** horiek komunikazio tresna batzu dira, beraz... jendeak elgar gurutzatzeko eta elgar ezagutzeko, gero eta gehiago, baina... ez dut uste helburu hori duten telebista ofizial horiek, naski hori galdua dute. Menane Oxandabaratx

Bideo-zaintzailerek, teknologiak, Estatu poliziaerak, "gaztetasun" eternalezko mundu publizitarioak, **mediek** zaintzen eta zabaltzen diguten "normaltasunak" ikaritzen nau.

Ana Urkiza

Neska anitz oso gazterik horretara hezten dira, bereziki eskola, hezkuntza eta **medien** bidez. Ana Urkiza

## 2 (hitz elkartuetan)

Beharbada, hor legoke euskal komikigintzaren bidea, gurean inoiz mass media izatera iritsiko ez bada ere, gutxienez herri-**media** bilaka dadin. Beria - Kultura

## 3 mass media masa komunikabidea.

**Mass media** eta lobby politikoei eragindako presioen ondorioz. Beria - Kultura

**Mass media** hauetako askoren atzean New Cultural Standard horietarantz eta pentsamendua homogenotzerantz jotzen duten kultur operadore indartsuak daude. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Beharbada, hor legoke euskal komikigintzaren bidea, gurean inoiz **mass media** izatera iritsiko ez bada ere, gutxienez herri-media bilaka dadin. Beria - Kultura

Teatroa ez baita inoiz helduko **mass media** zabaletara, baina beste edozein komunikabidek baino hobeto transmitituko ditu sentimentuak, emozioak, ametsak eta itxaropenak, ikuslea eta aktorea aurrez aurre daudelako, une eta toki batean. Beria - Kultura

Erreportajea egiteko aginduko zioten delako futbolariarekin, ez kirolaz baizik eta modari buruz, elkarrengandik urrun egon arren **mass medietako** presentziak hurbiltzen dituen bi mundu horien topagune gisa edo. Xabier Mendiguren Elizegi

· Txostenak, egia esan, ez zuen Alderdia zuzenean nahasten, baina ongi erabiliz gero (hartarako zeuden **mass mediakoak**), garrantzitsua izan zitekeen euren interesetarako. Migel Angel Mintegi

## media<sup>2</sup> iz batezbestekoa.

·Zer pentsetan duzu, begiratu ingurura, edade **media** geuk igotzen dugu, geuk eta zerbitzariak. Sonia Gonzalez

## media<sup>3</sup> izond erdikoa, ertaina.

Klase **mediako** bikotentzat bizitegi merkeak falta gorrian direla. Heria

Klase **mediako** jende eta gazteriak duela egoitza eskasia jasaiten Heria

## media<sup>4</sup> iz galtzerdia.

**Media** apurtuak, kamiseta margotuak eta apurtuak, larruzko txupa, txakur kate bat lepoan eta militar botak. Sonia Gonzalez

Metroko pasadizoak horrelako hiri batek soilik erdi ditzakeen freaky eta kutreez ereinda daude, eta alkandora gona zapata **media** arrosak dituen emakumeak dirudi guztiaren

epizentroa. [Eider Rodríguez](#)

Adina ezkatutu barik ere dotore ibiltzen da oinak leherrazari behar dizkioten takioen gainean, eta lotsarik gabe nabarmentzen zaio haragi biguna saredun [media](#) horietatik.

[Urtzi Urrutikoeetxea](#)

Barize batzuek kirurgia eskatzen dute; beste batzuk [media](#) bat jarrita senda daitezke, eta beste batzuek, berriz, ez dute tratamendurik behar. [Berria - Gaiak](#)

---

**mediana** *iz (estatistikan)* distribuzio estatistiko baten erdiko balioa, aldagaiaren balioak erdiak alde batera eta erdiak bestera uzten dituen.

Aktibitate elektriko horiek guztiak independenteak dira, eta, horregatik, posible da seinale horien ezaugarriak neurtzea: batez bestekoa, [mediana](#) ... [Berria - Gaiak](#)

---

**mediar** *izlag/iz* antzinako Asiako eskualde zen Mediari dagokiona; Mediako herritarra.

Ziro Handiak [mediar](#) erregea eraitsi baino ehun urte baino lehenagotik. [Iñaki Mendiguren](#)

[Mediar](#) herria, zilarrak axolarik eta urreak ardurarik ez dion jendea, zirikatuko dut Babiloniaren aurka. [Elizen arteko biblia](#)

Baditugu gurekin partiar, [mediar](#) nahiz elamdarrak; bai eta Mesopotamian, Judean nahiz Kapadozian, Ponton nahiz Asian bizi direnak ere. [Elizen arteko biblia](#)

Ikusi duzun ahariaren bi adarrak [mediarren](#) eta pertsiarren erreinuak dira. [Elizen arteko biblia](#)

Deitu nazioak gerra santura: [mediarren](#) errege, buruzagi eta gobernariak, eta menpeko herri guztiak. [Elizen arteko biblia](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

[mediarren errege](#) (3); [mediarren eta pertsiarren](#) (8)

---

**mediateka** *1 iz* hainbat komunikabide euskarriri dagokion dokumentu bilduma; bilduma hori kokatzen den lekua.

Orotara 60.000 bat liburu, DVD eta diskok osatzen dute [mediateka](#). [Berria - Kultura](#)

[Mediatekaren](#) artxibo funtsa. [Berria - Kultura](#)

[Mediatekan](#) aurki ditzazkegu liburuak baita ere bideokazeta, CD-ROM, DVD, musika konpaktok, ordenagailu, internet eta bertze, informazioa eta jakitatea deramaten gaurko tresna berriak. [Herria](#)

[Mediatekan](#) bilduko dituzten 80.000 dokumentuen artean, euskarazkoek ere ukanen dute beren tokia. [Berria - Kultura](#)

Irailaren 21a arte, Kanboko [Mediatekan](#), Xabier Hernandezoren obrak ikusten ahal dira. [Herria](#)

Miarritzeren erdian eraiki duten [Mediateka](#) estreinatu zuten atzo. [Berria - Kultura](#)

**2 (hitz elkartuetan)**

Hiriaren Europako Institutua, Kultur Balioen Promoziorako Institutua, Egitasmo Kulturalen Faktoria, [mediateka](#) -liburutegia... [Berria - Kultura](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

[donapaleuko mediatekan](#) (12); [erakusketa mediatekan](#) (3); [hazparneko mediatekan](#) (12); [herriko mediatekan](#) (12); [kanboko mediatekan](#) (15); [miarritzeko mediatekan](#) (5)

---

**mediatiko** *izond* komunikabideena, komunikabideei dagokiena.

Telebistak, prentsak, mundu [mediatikoak](#) tiratzen nau. [Jon Alonso](#)

Gure artean, iritzi [mediatiko](#) eta iritzi publikoa sarritan ez datoz bat. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Zalaparta politiko eta [mediatiko](#) nabarmena piztu zuen gertaera hark. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Aginte politikoak hirugarren boterea da, bere aurretik, botere ekonomiko eta [mediatiko](#) daude. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Literaturaren negozioa, zentsura, bazterketa eta manipulazio [mediatiko](#) izan ziren, besteak beste, denon ahotan. [Berria - Kultura](#)

Zalaparta [mediatiko](#) honetan, gainera, jendeak ez daki zuk benetan zertaz dakizun. [Ana Urkiza](#)

José Bové-ren gisako lider [mediatiko](#) ospetsuekin. [Iñaki Heras](#)

Martxa horrek figura bitxi bihurtzen du bertsolaria, alde batetik izar [mediatiko](#) da eta bestetik nonahi ia lagunartekoa. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

ELAri, CCOOri eta UGTri «sindikalismo [mediatiko](#)» egitea ere leporatu zien Urrutikoetxeak. [Berria - Ekonomia](#)

Egun, lintxamendu fisikotik harago, "lintxamendu [mediatiko](#)" deitzen diogu hedabideek, gizabanakoa dagoen tokian dagoela atxilotu, epaitu gabe biluzik paseatu, eta iritzi publikoaren aurrean gatibu hartuta, errukigabe larrutzen dutenean. [Iñigo Aranbarri](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

[egitura mediatiko](#) (3); [oihartzun mediatiko](#) (6); [talde mediatiko](#) (5)

[kanpaina mediatikoa](#) (3); [mediatiko izan](#) (5); [oso mediatikoa](#) (3); [politiko eta mediatikoa](#) (3); [soziala eta mediatikoa](#) (3)

[presio mediatikoaren](#) (3)

---

**mediatikoki** *adlag* komunikabideei dagokienez.

Hitz batez, pertsona [mediatikoki](#) alfabetatuak sortzea. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Horrek erakutsi du nahiz eta kanpaina hotza izan eta [mediatikoki](#) ezezkoaren jarrera baztertua egon Euskal Herrian lortu dela ezezkoak diferentzia markatzea Estatuarekiko.

[Berria - Harian](#)

[Mediatikoki](#) ere sekulako oihartzuna eduki zuten. [Berria - Kultura](#)

---

**mediatizatu**, mediatiza(tu), mediatizatzen **1** du *ad* pertsona edo erakunde baten portaeran eragin, haren askatasuna mugatuz edo murriztuz.

Kontuan hartu behar da aurrekanpaina eta kanpaina [mediatizatu](#) egin dela gure aulkia Aralarren alde gal zitekeela zioen inkesta batekin. [Berria - Euskal Herria](#)

Inguratzen ninduen mundua gero eta hierarkizatu eta [mediatizatuagoa](#) zegoela argudia nezake aitzakia gisa, baina Lauaxeta ez litzateke ados izango. [Juan Luis Zabala](#)

**2** komunikabideen eraginpean jarri.

Publikotasuna idazleak ere eskatzen duen onura da ala gehiegi [mediatizatutako](#) gizartearen eskabidea? [Ana Urkiza](#)

Aurreneko epaiketa erabat isilarazia izan zen, eta hori bitxia da auzi juridikoak gutzit [mediatizatzen](#) dituen herrialde batean. [Berria - Mundua](#)

---

**mediatizazio** *iz* mediatizatzea.

Gauza bitxia, hedabideok idazlea aipatzen zuten bakoitzean zera azpimarratu ohi zuten, bere estiloa, eta ez baitezpada idazkerarena baizik eta gizonarena: ahots itzalia, herabetasun ia patologikoa (hiper-**mediatizazio** horrekin kontraesanean), eta beste ezaguri guztien gainetik, hasitako esaldiak amaitu gabe uzteko joera hori. **Berria - Kultura**

## medikal *izond ipar* medikoa.

Harat helduz geroz dena segidan doa: nor garen, zergatik deportatuak, zein kanpalekutan, eta holako... Paper guziak emaiten dizkigute, deportatu izanak garelakoak barne; gero dutxa, eta medikuak: fitxa **medikala**. **Marzel Etxehandi**

Jakin behar da ere, ikerketa **medikalek** erakutsi dutela, agoteek ez eta beren ondokoek, ez zutela legenaren araztorik, ez eta beste eritasun kutxagarririk. **Herria**

## medikalizatu, medikaliza, medikalizatzen 1 du *ad* mediku zerbitzuz hornitu.

Heriotza ere **medikalizatu** egin da erabat, eta nola edo hala urte asko irautearen aldeko lehian sartu da medikuntza ofiziala. **Pako Aristi**

Tratu txarren auzia **medikalizatu** eta psikologizatu nahi dute. **Berria - Euskal Herria**

Zientziak, berriz, **medikalizatu** egin du gizartea eta elikadura ohiturak aldatu egin dira. **Berria - Gaiak**

Hala nola, badira manera naturalez galdatzen dutenak amatze hori Bilbon eta ez osoki **medikalizatu** moldez. **Herria**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Gizonezkoa anbulantzia **medikalizatu** batean erietxe batera eraman zuten. **Berria - Euskal Herria**

Kirolarien pare, kabalak guretzat ereduak izan daitezke; nago zenbaitetan, abereak ez direnez gure adineko zaharrak baino **medikalizatuagoak**. **Itxaro Borda**

## medikalizazio *iz* medikalizatzea.

Eguneroko elikaduraren **medikalizazioa** **Edorta Agirre**

## medikamentu *iz* sendagaia.

Asma zezala norbaitek hiesaren aurkako **medikamenturen** bat. **Joan Mari Irigoien**

**Medikamentu** baten bidez haundunaldia etxean eteteko ebazpena. **Berria - Euskal Herria**

Gero jakin nuen boulevard de l'Ysereko sendagileak agindu zidana abortu naturalak ekiditeko **medikamentu** bat zela. **Joseba Urteaga**

Beste antikonzeptiboren bat erabili beharko duzu **medikamentua** hartzen ari zaren bitartean. **Luis Elberdin**

**Medikamentuak** hartzen dituztenek ez dituzte utzi behar hipnosia egiten dutelako. **Berria - Euskal Herria**

Orgasmoa ansiolitiko eraginkorra eta naturalena dela esan daiteke; pertsona osasuntsuen **medikamentua**. **Luis Elberdin**

## medikatu, medika, medikatzen da/du *ad* sendagaiak hartu; sendagaiak eman.

Kasuistika erlijiosoan, sendagileen diagnostikoan, deskribapen patologikoetan agertzen diren objektuak, **medikatze**o, tratamenduetarako, zainketarako kode edo errezetek zedarritzen duten objektuak. **Xabier Arregi**

*Volksgeist* espainola gaixo dago [...]; okerrago, gaitz bat ukan baino, gaitz bat da bera, esango du Ortega-k; **medikatu** eta sendatu -erregeneratu- egin behar da. **Joxe Azurmendi**

## medikatze *iz* sendagaiak hartzea edo ematea.

Izan ere, «nahi gabeko **medikatze** masiboa» egon daiteke Erresuma Batuko herritarren artean. **Berria - Gaiak**

## medikazio 1 *iz* medikatzea; norbait medikatzen den sendagaien multzoa.

"Berriro ere ahaztu zaizu **medikazioa** hartzea" bota dit, zakar. **Iban Zaldúa**

**Medikazio** bidez abortatzea. **Luis Elberdin**

Ondoren, 48 ordua, beste **medikazio** bat hartu behar da: beste bi pilula. **Luis Elberdin**

Psikologoak ematen dituen **medikazioen** inguruan ez dagoela inolako kontrolik. **Berria - Harian**

Litekeena da gaurtik aurrera **medikazioa** gutxitzea karreristari koma egoeratik irteten laguntzeko. **Berria - Kirola**

Pazienteek ordutegi zehatzak dituzte jaikitzeko, jateko edo **medikaziorako**, eta burbuila baten barruan bezala dabilta alde batetik bestera, burbuila hautsi nahi ez duenaren geldotasunarekin. **Joseba Sarrionandia**

## 2 (hitz elkartuetan)

Ettxeko elkarbizitza jasanezina izan da; batetik, Jexuxen berezko izaeragatik, eta, bestetik, **medikazio** aldaketaren ondorenagatik. **Xabier Etxabe**

Azkaratek gose, egarri eta **medikazio** greba hasi zuen. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**medikazio greba** (9); **medikazio greba hasi** (3); **medikazio greba utzi** (3)

## mediko (*orobat mediku*) *izond* medikuari dagokiona; medikuntzari dagokiona. ik **mediku 4**; **medikuntza 3**.

Azterketa **mediko** zehatzak egiteko agindu du. **Berria - Euskal Herria**

Hilaren 22an Arrasateko ospitalean azterketa **medikoa** egin behar diote Cabori. **Berria - Euskal Herria**

Pozoitu ote zuten argitzeko analisi **medikoak** egingo dizkiote han. **Berria - Mundua**

Txostenean, bestalde, Sararen historia **medikoa** azaltzen zen. **Joan Mari Irigoien**

Fiskalak txosten **mediko** bat eskatu zuen, bere eskaera egin aurretik. **Berria - Euskal Herria**

La Sante kartzelako administrazioak zaintza **mediko** berezia agindu zuen Solerentzat. **Berria - Mundua**

Zerbitzu **medikoek** atsedean hartzea gomendatu diote, lesioak okerrera egin ez dezan. **Berria - Kirola**

Otegiren jarraipen **medikoa** egiten ari diren auzi-medikuen lan eta profesionaltasunean «konfiantza osoa» duela adierazi zuen Eusko Jaurilaritzako Justizia Sailak. **Berria - Euskal Herria**

Huts egite **mediko** baten erruz zendua. **Aingeru Epaltza**

Hirurogeiko hamarkadako kontsultategi **mediko** gehienek bezala, leuward de l'Ysereko sendagilearenak [...] saloi burges bat zirudien. **Joseba Urteaga**

Talde **mediko** bat bertaratu zen, eta zauritua Gurutzetako ospitalera eraman zuten. **Berria - Euskal Herria**

-Aldizkari **mediko** batean lehengo batean irakurri nuen zerk sortzen duen. **Xabier Olarra**

Nire kasuan, espektatiba **mediko** guztiak gaintduta, behar zen epean hil ez naizelako. **Berria - Euskal Herria**

Mugaz bi aldetako kooperazio **mediko**-zientifikoa **Herria**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azterketa mediko (4); txosten mediko (3)

azterketa medikoa (10); azterketa medikoa egin (4); azterketa medikoa egitera (3); historia medikoa (3); jarraipen medikoa (5); jarraipen medikoa egiten (3); laguntza medikoa (4); tratamendu medikoa (4)

azterketa medikoak (7); txosten medikoak (3)

iturri medikoek (4); zerbitzu medikoek (5)

azterketa medikoetan (4)

## medikoki *adlag* ikuspuntu medikotik.

Ezin diogu, beraz, tratamendua deitu eta **medikoki** kontrolatzea ere oso zaila da. **Berria - Harian**

## mediku (*4180* agerraldi, *206* liburu eta *1274* artikulutan; orobat *midiku* g.er. eta *miriku* g.er.) 1 iz lanbidetzat medikuntza duen pertsona, horretarako gai egiten duten ikasketak bururatu dituena. ik **sendagile**.

**Mediku** eta petrikilo guztiak beren sendagaiak eskaini arren, erregea ez zen osatzen. **Martin Anso**

Zauri txiki bat, herriko **mediku** Erraman Ibargoienek hiru punturekin itxi behar izan ziona. **Joan Mari Irigoien**

Bayer etxeak Alitzako anbulatorioko **mediku** guztiok gonbidatu gintuen. **Joan Mari Irigoien**

Barne-medikuntzako **medikua** zela Columbia-Presbyterian Hospital erietxean. **Oskar Arana**

Etorri zitzaion **medikua** ikustera eta kauterizazioa egin nahi ziola esan zion. **Askoren artean**

**Medikuak** dio bihotzeko beste ebakuntza bat beharko duela. **Bernardo Atxaga**

**Medikua** etorri, injektzioa ipini eta halaxe pasatu zen. **Edorta Jimenez**

**Medikua** hautatzeko askatasuna: jendea zuzenean joan zitekeen nahi zuen **medikuarengana** edo espezialistarengana. **Berria - Harian**

*ik beherago* 10. **Askoren artean**

Zalantzan egon nintzen etxeko **medikua** izan edo pediatra. **Joan Mari Irigoien**

Nik, berriz, familiako **medikua** izan nahi nuen. **Joan Mari Irigoien**

Ongintzako **mediku** izan zen Manuel Val y Vera ere, Barojaren zahartzaroko lagunik leialenetakoa eta barojazaleenetakoa. **Josu Zabaleta**

- **Mediku** jauna, ekarri bizkor litro bete eter eskatzeko errezeta! **Josu Zabaleta**

Lagundu behar zidan **medikua** emakumea zela ikusi nuenean, askoz erosoago sentitu nintzen. **Arantxa Iturbe**

Heietan guzietan, badute zer egin "Munduko **Medikuen**" Elkarteak. **Herria**

### 2 (izenondoekin)

**Mediku** aparta da. **Joan Mari Irigoien**

Baina bagenuen gure artean preso bat, Longarte, oso **mediku** ona. **Koldo Izagirre**

Harriduraz ikusi zuen munduak **mediku** gazte batek, Christian Barnard-ek, arras gaixorik zegoen gizon bati hondaturik zuen bihotza kendu eta istripuz hil berria zen 25 urteko neska gazte batena jarri ziola. **Pello Salaburu**

Ospetsua, gainera, hainbesteraino, non Eduardo VI.a errege gaztearen **mediku** pribatua izan baitzen. **Jon Muñoz**

**Mediku** adituen aholkuari jarraituz. **Antton Olano**

Urteetan normal bizi naitekeela esan zidan **mediku** espezialistak lehengoan. **Joan Mari Irigoien**

**Mediku** militar bat hiltzea izan zuan organizaziora itzuli eta gero agindu zidaten lehen ekintza. **Mikel Hernandez Abaitua**

Errehabilitazio programa bateko **mediku** psikiatrak sinatua. **Joan Mari Irigoien**

Hala nola izaten baita gozoezia **mediku** antzetsuak, gaixoari alaigarri izango zaiolakoan, neurririk gabe ezitzen duen edabea. **Jose Morales**

Masturbazioa, horixe izan da apaiz, fraide eta **mediku** jainkojaleen obsesioa. **Luis Elberdin**

### 3 (izen soila aditzekin)

Luzaz eta luzaz **mediku** egona Donibane Lohizunen, arrunt horkoturik, sortzez Gers eskualdekoa zelarik. **Herria**

Joachim Errusian baitzegoen **mediku** eta, beraz, harengandik diru-laguntzarik batere ez. **Joxe Austin Arrieta**

Zergatik ez diote uzten **mediku** jarduten? **Edorta Jimenez**

Armada honetan **mediku** jarduteko odol garbitasunaren froga behar delako. **Edorta Jimenez**

Han ikasi nian nik **mediku**. **Edorta Jimenez**

Alboan, gero **mediku** agertu zen pertsonaia bat jarri zitzaion zutik eta hexur-ziri bat eskuan zuela. **Patxi Ezkiaga**

- Aita, aitona eta birraitona **mediku** izan nituen. **Arantxa Iturbe**

Erregeren Etxeko **mediku** izendatu zuten arte. **Xabier Kintana**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **mediko**.

Zutaz inkesta egin dut **mediku** zerbitzuetan, ardura eri egona zira, eta ez duzu lan bortitzik egiten ahal. **Marzel Etxehandi**

Lehenago **mediku** azterketa pasa behar genuen. **Urtzi Urrutikoetxea**

**Mediku** -galdeketek, azterketa klinikoeak, aurrekariaren ikerketek eta bibliografia-erreferentziek. **Xabier Arregi**

Batekik, nahitaezko agiriak, salmenta-agiriak eta **mediku**-agiriak behar ziren. **Jon Muñoz**

Oraindik «oso larri» daude, **mediku** partearen arabera. **Berria - Ekonomia**

Hemen ez dizute emango, **mediku**-errezetarik ez baduzu. **Mirentxu Larrañaga**

Apur bat gogoz kontra izanik ere, bigarren **mediku**-iritziaren bila doanaren antzera. **Jon Alonso**

Mundu zabalean jakingo zela, **mediku**-sekretu guztien gainetik ere. **Ramon Saizarbitoria**

Donaldsonen hilketari dagokionez, **mediku** iturriek jakinarazi dute orotara lau tiro jaso zituela. **Berria - Mundua**

**Mediku**-laguntza hartzeko 1226ko udaberriaren hara [Sienara] eraman zutenean. **Askoren artean**

Ez baitu ezer aurreratuta **mediku**-gastuak ordaintzeko. **Askoren artean**

**Mediku**-zuhurtziaz, edo are zuhurtzia arruntez, aztertu izan balitz haren egoera. **Xabier Olarra**

Eta gaitza hain larria zenez, **mediku**-sendabideez etsita zegoen. **Askoren artean**

**Mediku**-hizkeran hasi zenean ez zioten lehendabizikoan ulertu. **Fernando Morillo**

Neure **mediku**-poltساتك tentsioa hartzeko tresna atera nuenean. **Xabier Olarra**

Oposizioz ospitalean **mediku** lanpostua lortu berria baitzuen hark. Josu Zabaleta

**Mediku** -ikasketak egina zen eta sendagile ona izatera iritsia. Juan Garzia

**Mediku** taxua har ziezaiokeenik ere bazen. Edorta Jimenez

Gizon serio bat zegoen nire aurrean **mediku** -jantziekin. Bernardo Atxaga

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Aurki hutsik geratzekoa den higiene- **mediku** lanpostu bat baizik ezin dizugu eman. Josu Zabaleta

Harreman erotiko baten deskripzioan, Hurtadak landa- **mediku** diharduen Alcolea herrian bere etxeoandreakin daukana azaltzerakoan. Josu Zabaleta

Bere baserri **mediku** jarduera mingotsa, berezi eta etsigarria Zestoan. Josu Zabaleta

Ba ote da -galdegiten zien ero- **medikuei** - osasunaren, gaztetasunaren neurosirik? Iñaki Segurola

Lau asteren buruan, ordea, hobera egiten ez zuela ikusirik, familia- **medikuak** psikiatragangana bidali zuen ama Patxi Iturritegi

## • 6 izondik mediko.

### 7 auzi-mediku (133 agerraldi 57 artikulutan) auzitegiko medikua.

Nazio Batuen Erakundeak tortura atzemateko **auzi medikuei** jarraitzeko esaten dien protokoloa. **Auzi-medikuaren** txostenak bat datoz Otamendiren salaketarekin.

Berria - Euskal Herria

Auzi- **medikuaren** bisita jaso ondoren, galdeketerari ekin zioten guardia zibilek. Berria - Euskal Herria

Eutanasia egiten ostean, medikuak ohar bat bidali behar dio herriko **auzi-medikuari** eta zergatik egin duen azaldu behar dio, idatziz. Berria - Gaiak

### 8 auzitegi-mediku (28 agerraldi, 5 liburu eta 4 artikulutan) auzitegiko medikua.

**Auzitegi-medikuaren** arabera egia jakiteko ehun-lagin bat aztertzea beste modurik ez zegoelako. Ramon Saizarbitoria

Defentsako abokatuaren arabera, **auzitegi-medikuen** ondorioek haien alde jarri dute kasua. Berria - Harian

Altxatzeko esan eta begiak estali zizkidaten, **auzitegi medikuarengana** eramateko. Berria - Euskal Herria

Borreroak ez du gogoko **auzitegi medikuaren** gorpuekiko hoztasuna, ez eta epailearen itxurazko axolagabekeria ere. Karlos Linazasoro

### 9 auzitegiko medikua (28 agerraldi, 5 liburu eta 4 artikulutan)

**Auzitegiko medikuaren** txostenak ez zuen zalantza-biderik uzten: seiak era bereberean izan ziren asasinatuak, erritual ongi taxutu bati jarraiz. Karlos Linazasoro

Hilketa, ordea, gauerdia baino lehenago kokatzen zuen **auzitegiko medikuak**, eta ordurako ilehoriarekin zebilen. Migel Angel Mintegi

**Auzitegiko medikuen** eskuetan dago dagoeneko, tiro batek jugularra zulatuta. Migel Angel Mintegi

**Auzitegiko medikuek** ez dute zehaztu, ordea, zerk eragin zituen odoluriak. Berria - Harian

## 10 mediku andre

Eta han beheraxeago, madariondo zaharraren azpian, **mediku** andrea ikusten nuen, ez naiz haren izenaz gogoratzen, behin izan nintzen haren etxean begiak sendatzera joanda. Felipe Juaristi

"**Mediku andrea**", dio hark, "andrea, ez jauna". Oskar Arana

## 11 medikuarene- (leku atzizkiekin singularrean, medikuaren etxea adierazteko)

Andres egun horretantxe ezultaldi makur batek jo zuen, eta **medikuarenera** eraman behar izan zuten presaren presaz. Jokin Muñoz

-Noizbait **medikuarenera** edo eramango zaituzte... Pako Aristi

**Medikuarenera** joan naiz, probak egin ditut, zentzuz jokaturik egin daitekeen gutzia egin dut. Oskar Arana

Ezta hagin ustel bat ateratzera ere ez naiz joan ni **medikuarenera** neure garaian. Pako Aristi

Asier Olaizolak, aldiz, min hartu zuen belaunean Errioxako Torneoako finalean, eta **medikuarenera** doa gaur. Berria - Kirola

Azkenekoz **medikuarenean** izan zinenean, kezkatzeko arrazoirik ez zuela ikusten esan zizun. Lourdes Oñederra

Txunditu egin baininduen haren adierazpenaren segurantziaz, besterik ez; eta horrexegatik galdetu nion: izan al zara **medikuarenean**? Joxe Austin Arrieta

Ezetz, ez zela **medikuarenean** izana. Joxe Austin Arrieta

**Medikuarenean** egindako saioan ez zuen minik sentitu, baina frontoian batera eta bestera aritza ezberdina dela badaki pilotariak. Berria - Kirola

Unicefek lehengo urtearen amaieran publiko egin zuen txostenean argi utzi zuen helburua ez dela ablazioak **medikuarenean** egitea. Berria - Gaiak

Baraurik hartzen da ura, eta beti **medikuarenetik** pasata. Berria - Euskal Herria

Urduritasunak eragindako arazo bat izan zuen atzo, baina **medikuarenetik** pasatu zen, eta hasieran ez zuela jokaturik zabaldu bazen ere, Unanue eta Peñagarikanoren kontra jokaturik du Oier Zezarrarekin. Berria - Kirola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

armadako mediku (6); aspeko mediku (4); auzi mediku (7); azterketa mediku (5); herriko mediku (4); kirol mediku (4); konfiantzazko mediku (4); mediku agiriak (4); mediku azterketa (25); mediku azterketa egingo (5); mediku azterketak (15); mediku azterketak egin (4); mediku eta erizain (4); mediku frantses (5); mediku gazte (8); mediku gazte bat (4); mediku izan (7); mediku izateko (4); mediku jaun (4); mediku jauna (11); mediku jaunak (6); mediku jose (4); mediku laguntza (5); mediku ona (7); mediku orokorrak (4); mediku pertsonala (4); mediku pribatuen (5); mediku psikiatra (8); mediku psikiatrak (7); mediku talde (13); mediku talde bat (6); mediku talde batek (6); mediku taldeak (8); mediku taldeko (5); mediku txosten (5); mediku zerbitzuek (4); ospitaleko mediku (8); taldeko mediku (5)

auzi medikua (6); azterketa medikua (11); etxeko medikua (4); familiako medikua (5); jaun medikua (7); medikua etorri (6); medikua ikustera (4); medikua izan (8); medikua izango (4); medikua izateko (4); medikua naiz (4); medikua zen (18); ospitaleko medikua (6)

asegarceko medikuak (6); aspeko medikuak (4); auzi medikuak (43); auzitegiko medikuak (8); azterketa medikuak (6); esan zuen medikuak (10); jaun medikuak (4); medikuak agindutako (4); medikuak egindako (4); medikuak egiten (4); medikuak eman (6); medikuak erran (7); medikuak esan (16); medikuak esan dit (4); medikuak esaten (5); medikuak eta erizainak (4); medikuak ikusi (4); mugarik gabeko medikuak (18); munduko medikuak (22); taldeko medikuak (5); txosten medikuak (9)

medikuarekin hitz egin (5)

auzi medikuaren (24); auzi medikuaren bisita (4); medikuaren aginduz (4); medikuaren agiria (9); medikuaren alaba (10); medikuaren arabera (17); medikuaren aurrean (7); medikuaren bisita (5); medikuaren esanetan (9); medikuaren etxera (4); medikuaren kontsultan (6); medikuaren kontsultan izan (4); medikuaren txostena (5); medikuaren txostenak (5)

medikuarenean izan (10); medikuarenean izan zen (8)

medikuarenera joan (10); medikuarenera joan behar (5)

familiako medikuarengana (4); medikuarengana eraman (6); medikuarengana joan (9); medikuarengana joateko (6); medikuarengana joaten (5)

auzi medikuari (14); medikuari deitu (6)

auzi medikuei (6)

auzi medikuek (7); auzitegiko medikuek (8); erabaki zuten medikuek (5); erietzeko medikuek (4); esan zuten medikuek (7); medikuek artatu (4); medikuek azaldu (4); medikuek egin (7); medikuek egindako (8); medikuek egiten (4); medikuek esan (14); medikuek esan zioten (4); medikuek jakinarazi (4); mugarik gabeko medikuek (21); munduko medikuek (5); nafarroako medikuek (4); ospitaleetako medikuek (4); ospitaleko medikuek (6); taldeko medikuek (6); zerbitzu medikuek (8)

auzi medikuen (18); auzitegi medikuen (5); medikuen arabera (33); medikuen baimena (4); medikuen batzordeak (6); medikuen esanetan (8); medikuen esku (4); medikuen lana (4); medikuen sindikatuek (8); medikuen txostenak (6); mugarik gabeko medikuen (8); nafarroako medikuen sindikatuek (7)

## medikugai iz medikuntza ikasketan egiten ari den pertsona.

Emazte hura katixima erakaslea zen, eta bazuen semea **medikugaia**. Marzel Etxehandi

## medikukide iz lantoki bereko medikua.



Hargatik, aise erabilizten enzen maiz korrosiboa, dabo legoeko **medikukideen** aurrean, esate baterako, sarkasmoaren erabilizteko. **Joan Mari Irigoien**

Eta okerrera, itxura egiten ibili behar izan nuela, honi irri eta hari ere irri, Bayerko ordetzakien eta **medikukideen** artean. **Joan Mari Irigoien**

Pentsatu nuen, lehenik, beste **medikukide** batzuekin kontsultatzea. **Joan Mari Irigoien**

## medikuntza 1 iz eriarri osasuna atxikitzea edo bihurtzea helburu duen jakintza; gisa eritasunak sendatzeko edo haiei aurrea hartzeko antzea. ik **sendagintza**.

Ikertzaile horiek hainbat zientzia-esparrutatik zetozen: biologia, fisika, **medikuntza**, mikrobiologia, kimika, kristalografia, eta abar. **Juan Garzia**

Eta gure **medikuntza**, hein handi batez, genetikan oinarritzen da dagoeneko. **Juan Garzia**

Orain arte, **medikuntzak**, gaixo baten aurrean, diagnostiko bat egiten zuen eta handik pronostiko bat ateratzen. **Juan Garzia**

Aurrerakuntza handiak egiten dira **medikuntzan** denbora gutxian. **Imanol Zurutuza**

Hortik dator gorputza lanerako tresna modura balioestea, **medikuntza** beste zientzien ereduaren arabera arrazionalizatzeko kezka. **Xabier Arregi**

**Medikuntza** ikastea erabaki zuen, inori galdetu gabe. **Josu Zabaleta**

**Medikuntza** teknologia bat izango da, baina ingeniariak enplegatzen dituzten beste teknologia edo industrien antzik ez du. **Irene Aldasoro**

Mediku batentzat, dena da **medikuntza**; eta legegizon batentzat, dena lege. **Juan Kruz Igerabide**

### 2 (izenondoekin)

**Medikuntza** prebentiboko zerbitzuko harrera-bulegoan nire zenbakia entregatu nuen. **Joseba Urteaga**

Claude Bernarden **medikuntza** esperimentalak, eta Pasteuren mikrobiologiak ondoren, aldatu egin dute anatomiak eta fisiologia patologikoak behar duten zientifikotasuna, jokatik kanpo geratu gabe **medikuntza** klinikoaren eraketa diskurtsiboa, bera bere garaian ezarria izan zen moduan kontuan hartuta. **Xabier Arregi**

Horrela esaten zien nire **medikuntza** legaleko irakasleak. **Karlos Zabala**

Londresko **Medikuntza** Tropikalerako zientzialari batzuek argitaratutako ikerketa bat dela eta. **Berria - Gaiak**

**Medikuntza** orokorrean aritzen da Londresko ipar-mendebaldean. **Xabier Olarra**

Osakidetzak **medikuntza** pribaturako bidea hartu duen edo ez da gakoa. **Berria - Euskal Herria**

Bazirela, beharbada, beste aukera batzuk, sendagai kimikoetatik kanpo, **medikuntza** alternatiboan. **Juan Kruz Igerabide**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **mediko**.

Itzulpenak, bideo-hitzaldiak, lege aholkularitza, edota zenbait **medikuntza** zerbitzu, besteak beste. **Iñaki Heras**

Gaur egungo **medikuntza**-behaketek corpus bat osatzen dute. **Xabier Arregi**

Ez naiz ahalegindu **medikuntza**-pentsamoldearen genesi enpirikoa eta osagai ezberdinak deskribatzen Iruditu zitzaidan, esaterako, **medikuntza**-zientzia XIX. mendetik aurrera gehienbat ezaugarritzen zela nolabaiteko estilo bategatik, enuntziatuaren nolabaiteko izaera iraunkor bategatik, eta ez hainbeste bere objektu edo kontzeptuengatik.

**Xabier Arregi**

Ez dit uste hortan dela elki bidea, 60 edo 65 urtetan haur ükeitea, izgarriko **medikuntza** lan baten ondorioz. **Menane Oxandabaratz**

**Medikuntza** -frokei jarraiki eman zuen epaimahiak epaia eta kargu guztietatik libre utzi zuen Lennon. **Irene Aldasoro**

XXI. mendeko **medikuntza**-aurrerapenak haren sendaketa teknikoki posible egiten bazuten ere. **Iban Zaldua**

Enuntziario deskriptiboa izango litzatekeela **medikuntza**-diskurtsioan agertzen diren formulazioetako bat, besterik ez. **Xabier Arregi**

Aurkitu nituen erreferentzia bakarrak **medikuntza**-aldizkarietan ziren. **Joseba Urteaga**

**Medikuntza** ikasketak amaitu zituenean. **Joxemari Iturralde**

**Medikuntza** karrera bukatzen ari zen. **Joxe Austin Arrieta**

Zientzia eta **medikuntza** munduan aurrerapauso handiak egin direla dio. **Berria - Gaiak**

Erresuma Batuko **Medikuntza** Batzorde Orokorra. **Berria - Gaiak**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Prebentzio-**medikuntzari** ez zaio jada aski gure herritarren, gaur egun gure inguruan bizi diren eta kalean aurki ditzakegun gizon, emakume eta haurren osasuna aurreikusteko ahalegin hori. **Juan Garzia**

Ugaltze-**medikuntzaren** historiak erakusten du medikuek proposatutako teknika gehienak pixkana onartzeko joera izan duela gizarteak. **Berria - Gaiak**

Nire ustez, birsorkuntza-**medikuntzan** aurrera egiteko bidea helduen zelula amak ikertzean datza, seguruenak direlako. **Berria - Euskal Herria**

Erraza da, modu intuitiboan gutxienez, loturak suposatzea gertaera hauen eta erietze-**medikuntzaren** antolakuntzaren artean. **Xabier Arregi**

Borroka latza dago Barne **Medikuntza** eta Psikiatria sailen artean. **Iban Zaldua**

Guillermo Portero Bilboko Auzitegi-**Medikuntza** Institutuaren zuzendaria. **Berria - Euskal Herria**

Erasotzaileen ezaugarriak hobeto ezagutzeko; justiziari eta auzi-**medikuntzari** lotutako gaiak sakontzea. **Berria - Euskal Herria**

- Lisboa eta Portoko Kirol **medikuntza** zentroek UCI elkarteak egindako analisien emaitzak berretsi zituzten. **Berria - Kirola**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**medikuntza** **aldetik** (3); **medikuntza** **ariko** (5); **medikuntza** **eskola** (3); **medikuntza** **eskolako** (6); **medikuntza** **fakultatea** (3); **medikuntza** **fakultatean** (5); **medikuntza** **fakultateko** (19); **medikuntza** **ikasi** (8); **medikuntza** **ikasi** **zuen** (3); **medikuntza** **ikasiko** (4); **medikuntza** **ikasketak** (10); **medikuntza** **ikasketak** **egin** (3); **medikuntza** **ikasle** (6); **medikuntza** **ikasteko** (4); **medikuntza** **ikasten** (10); **medikuntza** **ikastera** (4); **medikuntza** **ikerketarako** (5); **medikuntza** **institutuko** (3); **medikuntza** **institutura** (3); **medikuntza** **karrera** (3); **medikuntza** **klinikoa** (4); **medikuntza** **klinikoaren** (8); **medikuntza** **kontzentzionalak** (3); **medikuntza** **legaleko** (5); **medikuntza** **naturalaren** (4); **medikuntza** **orokorrean** (4); **medikuntza** **orokorreko** (5); **medikuntza** **tropikaleko** (9); **medikuntza** **tropikaleko** **eskolako** (4); **medikuntza** **tropikalerako** (4); **unibertsitateko** **medikuntza** **fakultateko** (3)

**auzitegi** **medikuntzako** (4); **medikuntzako** **eta** **psikologiako** (3)

**medikuntzaren** **historian** (3)

## medikuordeko iz medikuaren ordekoa.

Minduarena egin du **medikuordeko** honek, erizainari behatu ondoren. **Koldo Izagirre**

## medikutza iz medikuntza.

Satelite bidezko irakaskuntza eta **medikutza**. **Berria - Gaiak**

## medio<sup>1</sup>

### 1 *dela medio*

Eta, katolikoekin izan ezik, espainiarren egonaldiaren oroitzen txarra **dela medio**, gainerako erlijioekin ezaguera onak agintzen duen erara bizi nahi dute. **Felipe Juaristi**

Gura genuen gauza bat gozatzen dugunean, Gorputzak, gozatze hori **dela medio**, egoera berri bat izaten duela. **Piarres Xarriton**



Denon bizitza aski **mediokrea** dun. **Patxi Zubizarreta**  
Soinulariak, **-mediokre** samarra ei zan bera-, ikasi guran edo bera be zeozer bazala erakutsi guran, isildu beharrean, Rufinogaz batera jarraitu eban. **Xabier Amuriza**

## 2 (izen gisa)

Munduko **mediokre** guztiak muturrean kaka egingo balidate bezala. **Bernardo Atxaga**

mediokridade ik **mediokritate**.

## mediokritate *(orobat mediokridade g.e.) iz erdipurdikotasuna; erdipurdikokeria.*

**Mediokritatea** gorroto duen emakume ausart eta urguiluz bete. **Unai Iturriaga**

Liburua **mediokritatetik** salbatuko duen sendagai magiko antzekoa. **Pako Aristi**

Beltzak ez du arrazoimenik, horiak "arrazoimen praktikoa" bakarrik (pragmatikoa), abstrakzio eta zientziarako ahalmenik gabe, bere ahal propioz ezin da gora igo **mediokritatetik**. **Joxe Azurmendi**

## meditante bitarteko.

Kontu guztia zera duk: Jainkoa **mediante**, norberak nahi duenean hiltzea, eta ez Hark nahi duenean. **Juan Garzia**

Bi atsoak, atea **mediante**, euren etxeetan sartu ziren. **Juan Garzia**

Ez zitziola gaizki irudituko pistola **mediante** bidaia-buru eztabaidea zinen. **Juan Luis Zabala**

## meditatu, medita, meditatzen 1 du ad gogoeta egin, sakon hausnartu.

1927an Hendaian dago, Primo de Rivera-ren ihesi "desterruan", Espainiara begira, hispanitateaz **meditatzen** (hispanitate hau Espainitatea soil da, Latinoamerika gabe).

**Joxe Azurmendi**

Hurrengo gauean, gizon santua Jainkoagan **meditatzen** ernai zegoela, [...]. **Askoren artean**

Jaunari otoitzean eta Jaunagan **meditatzen**. **Patxi Ezkiaga**

## 2 (zer osagarik gabe) meditazioa egin.

-Etenik gabe **meditatu** beharra duzu, zeren meditazioa baita kontenplaziorako bide eta bizitza espiritualaren harroin -esortatzen ninduen aita Bartolomek. **Joan Mari Irigoien**

Urtean bitan, bera bezala maisu ziren batzurekin biltzen zen eta egun osoa ematen zuten elkarrekin: **meditatzen**, otoitz eta musikan, gogoetak egiten eta, ziotenez, jendartea antolatzen. **Jose Angel Irigaray**

Ganbarara ere ezin nintzen ezkutatzeraz joan, han nire anaia egoten baitzen **meditatzen**. **Pello Lizarralde**

Lao-tse ekialdeko pentsalariak gogoko zuen sahasen hosto jostalari eta urdurien itzal xarean **meditaztea**. **Pello Zabala**

Espaloian, emakume larraz jantziek beren zakurtxo pedanteak paseatzen zituzten, Deustuko jesuitek pauso lasterrean **meditatzen** zuten. **Unai Iturriaga**

## 3 (zer osagairekin)

Etengabe **meditatzen** zituen Jaunaren hitzak eta haren egiteak sakon hausnartzen. **Askoren artean**

Jaunaren hitzak, hark bihotzean **meditatu** eta egiteetan betetzen zituenak. **Askoren artean**

## meditazale izond

Baina nire bizitzako aldi **meditazalean** nago, eta nahiago dut ez mugitzea. **Bernardo Atxaga**

## meditazale izond

Aitzitik, Heidegger-en "pentsamendu **meditazalea**" bindikatzen du postmoderniaren lekuan. **Joxe Azurmendi**

"Pentsamendu **meditazalea**" [...] Parmenide eta Platonez geroztiko metafisika mendebaldar guztiaren gaitzespen erabatekoena zen. **Joxe Azurmendi**

## meditazio *(orobat meditazio g.e.) 1 iz hausnarketa sakona, gogartea.*

Hispanitatearen **meditazioan**, eta Hendaian, eta Euskal Herriak inon ez dio lekurik eskaintzen bere hispanitatean. **Joxe Azurmendi**

Ortega-ren **meditazioa** sigi-sagan doa, behin arrazaren alderdi biologiko edo bitalista nabarmendu, bestean kontzientzia edo izpiritu/karakterea azpimarratu. **Joxe Azurmendi**

Horrela, pentsamolde kalkulatazalea erabat nagusitu da gure aroaz; **meditazioak** alde egin digu. **Markos Zapiain**

## 2 erlijio gaiez hausnartzea.

**Meditazioa**. Jaunaren probidentzia bizi-emailea. **Elizen arteko biblia**

**Meditazioa**. Jaunak dena ikusi eta jakin. **Elizen arteko biblia**

Jainkoak bere aita-onginahian beti agertu dit, otoitz eta **meditazioa** egitean, zerk ematen dion atsegina eta zerk atsekabe. **Askoren artean**

Jainkoaren **meditazioan** murgildua baitzegoen etengabe. **Askoren artean**

Mezak, **meditazioak**, Izkribu Sainduen irakurketak, mendian egin ibilaldiak, eztabaida plantakoak, afalondoko kantu sentimental eta etsenpluzko jostetak: onestasunezko espiritualetasun batean murgilduak ginen. **Piarres Aintziart**

Pentsamenduarekin deus ikustekorik ez duen zerbait baldin badago munduan, hori **meditazioa** da, orientalago eta areago: orduan **meditazioa** ez pentsatzea da! gorraize oso-osoa eta ikuste bete-betea. **Iñaki Seguro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**meditazio metafisikoak** (6)

meditazioa ik **meditazio**.

## mediterranear *(orobat mediterraneo g.e. eta mediterraniar g.e.) izond Mediterraneo itsasoari eta inguruari*

dagokiona.

**Mediterranean** itsasoko beroaz kezkatuta. [Pello Zabala](#)

Mendebaldeko Kristandadean **mediterranean** kostan zubi-buruak ezartzeko, Rodanotik Gariglianoraino. [Iñaki Mendiguren](#)

**Mediterranean** mundura aldatu zuen bere interesgunea eta hiriburua nagusia Siriako Antiokian ezarri zuen. [Iñaki Mendiguren](#)

Trantsizioko bi mota daude, atlantiko (Bilbo-Lasartetik Urkiola aldera) eta **mediterranean** (Gasteizen hasten da). [Berria - Euskal Herria](#)

Ez dakit hegoaren erruz den edo **mediterranean** kutsuarengatik den. [Pello Zabala](#)

Europako leku askotan, baina klima **mediterranean** dutenetan batik batik. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Arraza "**mediterranean**" kaskarra, zeinen kategoriarik beherenak napolitarra eta andaluzar baitira. [Joxe Azurmendi](#)

Badagoela kultura **mediterranean** bat, eta zerikusirik ez daukala Greziarekin. [Joxe Azurmendi](#)

Nafarroa ardatz atlantikoaren eta **mediterranean** arteko zubi izan dadin. [Berria - Euskal Herria](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arrazak mediterranean** (5)

## mediterranean *(orobat mediterranean g.er.) 1 izond mediterranean*.

Han zegoen, esan zion, beste erremediorik ez zuelako: ezin zuen jasan paisaia **mediterranean** hura. [Iban Zaldua](#)

'Asperu egiten naiz -jarraitu zuen Txekhovek-. Afrika tropikalean, Australian, Pazifikoko mendebaldean, Asia hego-ekialdean eta Europako **mediterranean** kostaldeko leku batzutan agertu da orain arte. [Berria - Gaiak](#)

Klabe-hitzak: naturala, egiazkoa, gure izaeraren arabera, jatorrizkoa, betidanikoa, etxekoa, herrikoa, euskalduna (edo "dieta **mediterranean**"), zeure modura, etc.

[Edorta Agirre](#)

### 2 izlag

**Mediterranean** arrotz nagusitzeko hiru antagonisten arteko gatazka sortu zen, Alexandro-aurreko Gizarte Helenikoaren lehiakideak Gizarte Siriako eta Gizarte Hititaren gerakin fosilizatua, etruskoak, izan ziren. [Iñaki Mendiguren](#)

Familia hori, Grimalditarrak, 13. menderaz gerozkoa da **Mediterranean** hegi hortan. [Herria](#)

mediterranean-ik **mediterranean**.

mediterranean-ik **mediterranean**.

mediterranean-ik **mediterranean**.

## mediterraneanismo iz

Gaiarekin jarraituz, germaniar martzalari Ortega-k "**mediterraneanismo**" kontrajartzen dio, bulgaritate absolutua: [...]. [Joxe Azurmendi](#)

## medium iz espirituekin komunikatzeko bitartekari lana egiteko gaitzat hartzen den pertsona.

**Medium** bat bezala ikusten dut ene burua, pasaiako txori bat banintz bezala, migratzailea. [Ana Urkiza](#)

Galtzen atzeko sakelatik Simakha jaunaren txartela atera, eta imintzio handiz irakurri zuen Leák: **Medium** Handia. [Jon Muñoz](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Harri zerutiar zenbaiten ezaugarri miresgarrienak ikertzen ari zela, inoiz ezagutu den **medium**-tresna eraginkorra topatu zuen: aingeruen hizkuntza deszifratzen eta ulertzen zuen kristalezko bola. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Bere **medium** talentuak saltzen bazituen ere, aurre-aurretik igaro zitzaidan marabuta neu ikusi gabe. [Joxan Elozegi](#)

## medizina 1 iz sendagaia.

Ez al ditu jendeak **medizinen** prospektuak bi aldiz edo gehiagotan irakurtzen? [Bernardo Atxaga](#)

Benetan, nik bazekiat zein den behar dudana **medizina**! [Anjel Lertxundi](#)

Ez zituen maite botikako **medizinak**, esaten zuen gaztetan nahiko hartuta zegoela. [Bego Montorio](#)

### 2 irud/hed

Baina bakardadearen kontrako bat-bateko eta behin-behineko **medizina** zen hura. [Joan Mari Irigoien](#)

Jakinik aldi batez Terrence ahantzaztea zela berarentzat **medizinarik** onena, asteetan gogoa menderatu zion arazo hartan pentsatzetik geraraztea. [Oskar Arana](#)

### 3 medikuntza.

Mediku jauna, nik deus guti dakit **medizinez**, baina astronomiaz bai, zerbait badakit. [Joan Mari Irigoien](#)

Hala bada, aitak merkatari eskolan sartzeko konbentzitu nahi izan zituelarik, haiak, ikaraturik, nahiago izan zuten **medizina** eta zuzenbidea ikasi. [Patxi Zubizarreta](#)

Elixabet Mendibil, iaz **medizina** karrera burutu zuena. [Gotzon Garate](#)

## medizinal izond sendagarria.

Ordu pila egin nituen baloi **medizinalarekin** eta pisuekin lanean. [Berria - Kirola](#)

## medusa iz marmoka.

Halako batean begitartean agerrarazten du hain maitea nuen bere **medusa** aurpegi aparta, herraz betea, bihurtutua, gorrotzkoa. [Monika Etxebarria](#)

Mito horren arabera, **medusa** hiru ahizparen artean gazteena da, hilkorra den bakarra. [Berria - Kultura](#)

Aurrerantzean, etsaien aurka borrokatzeko erabili zuen **medusaren** burua Perseok. [Berria - Kultura](#)

## meeting iz bilera. ik mitin.

Gérard Onesta, José Bové eta Gorka Torre joan den ostegunean, Montpellier-eko Berdeen **meeting** nagusia aitzin. Herria

15.30: **meeting** ekitaldia. Herria

## mega 1 (tamaina ikaragarria adierazteko)

Auzoko denda txikira joaz hasiko gara berriro, hiper, **mega** eta horrelakoek maiz eta larriki engainatu gaituztela frogatu eta sinetsitakoan. Edorta Agirre

Tokian tokiko arazoa bere gain hartu ordez, prefetak inposatu lur eremua hartzen duen egitura onartu dute, hondakin guztien kudeaketarako **mega** -sindikatu bat sortzea onartuz. Berria - Euskal Herria

Azkenean Billabong markako itsas kirol salgaien **mega** saltegi bat idekiko dute Angelun, Busquet deitu gunean, Macdo eta Kanter ostatuen artean. Herria

Gero esan zuen, "**mega** -hauteskunde batzuk antolatuko ditut nire kargua relejimatatzeko", eta mundu guztiak barre egiten zuen "**mega** -hauteskundeak" entzunda, baina antolatut ditu. Pako Aristi

Ene irudi soileko, gisa horretako kultura ekoizpenak, garapen estrategia ekonomikoaz hazi lau lantegi **mega** guayek baino gehiago ekarriko lioke euskarari. Itxaro Borda

Gogoan pasatzea aski edonork ezagut dezakeen super-hiper-**mega** abertzale hori, gogoz, barnez eta muinez (eta hizkuntzaz, haurtzaroz, biografiaz...) español huts garbia izan ohi dena lautik hirutan. Iñaki Segurola

## 2 megabytea.

Ez dakit zenbat **mega**, giga eta istorio gehiagoko memoriadun, kafea zerbitzatzeko izan ezik zernahi egiteko gauza zirudien. Aingeru Epaltza

. Tempranillo edo Cabernet-Sauvignon? 40 edo 60 **mega**? Jon Alonso

## megabit iz informazio banakoa, milioi bat biten baliokidea.

Informazioa garraiatzeko zuntz optikoaren ahalmena 70eko hamarkadaren amaiera aldean ezarri ziren lehen sareetan 30 **Megabit** segundokoa bazen, gaur egun, milioi bat **Megabit** baino gehiagokoa dela (15 telefono-linea edo milioi erdi telebista kate garraiatzeko adina) Iñaki Heras

## megabyt iz 1.048.576 byten kide den banakoa. ik mega 2.

80 **megabyte** hartzen ditu programak. Berria - Gaiak

Hileko 39 euroren truke, **megabyte** bateko lotura eskaintzen die enpresei. Berria - Ekonomia

## megadenda 1 iz adkor denda erraldoia.

Han behean zegoen metropoli modernoaren bihotz nekagabea, neonezko arteria argitsuek zeharkatua: bankuak, museoak, pizzeriak, **megadendak** ... Patxi Iturritegi

**Megadenda** tzar batean sartu nintzen halako batez, bidaiarako behar nituen bizarra kentzeko trepetak eta hortzorea erostera. Anjel Lertxundi

Burtsa hau Mattin **Megadendak**, Euskalgintza Elkarlanean Fundazioaren eta Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin 2000. urtean sortua izan da, iparraldeko gazteak euskaraz idaztera lehiazteko asmoz. Ramuntxo Etxeberri

Donostiako Elkar **megadendan**. Berria - Euskal Herria

## 2 (hitz elkartuetan)

Joan nintzen, bada, eta irten ere egin nintzen, goiz, Parisko kultura-**megadendak** artean atea zabaltzeko gabe zirela. Edorta Jimenez

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mattin megadenda** (16)

**mattin megadendak** (8)

**mattin megadendako** (3)

**baionako mattin megadendan** (38); **bilintx megadendan** (4); **donostiako bilintx megadendan** (3); **elkar megadendan** (6); **mattin megadendan** (108); **mattin megadendan baionan** (5)

**mattin megadendara** (5); **mattin megadendara igorri** (4)

## megafonia 1 iz hotsaren edo soinuaren bolumena handitzeko teknika; hotsaren edo soinuaren bolumen handitze hori lortzeko instalazioa.

Puxika urdin eta granate koloreko arku bat egiten, argiztapen bikaina, **megafonia** ona... areto txukuna, **megafonia** egokia, gai onak, aurkezle zaildua, bertso txarra ere txalotzen duen publikoa... Berria - Kirola

Manifestazioaren bukaeran **megafonia** erabiltzea debekatu du. Berria - Euskal Herria

Gero, isilik geratu ginen deserrosoa eta luzea gertatu zitzaidan une batez, **megafoniak** ontziratzeko deia egin zuen arte. Ramon Saizarbitoria

Hilabeteak ziren New Yorkeko kaleetan instalatutako **megafonien** Wagnerren musika besterik entzuten ez zela. Harkaitz Cano

Halako batean, **megafoniako** kontsignak itzali dira, eta trikitixa jarri dute. Anjel Lertxundi

**Megafoniatik** zerbaite esaten hasi dira. Anjel Lertxundi

**Megafoniatik** jakinarazi zuten atzeneko borroka hura bost asaltotara izango zela. Josu Landa

Totelka atera zitzaizkion hitzak, eta **megafoniaren** eskasak ez zion diskurtsoa sendotzen lagundu. Iban Zaldúa

Olano adierazpen horiek egiten ari zela, herritar batek **megafonia** hartu, eta debekuaz gain Portugaleterainoko bidea manifestazioan egiteko deia egin zuen; milaka lagun, txaloka, ibiltzen hasi ziren. Berria - Harian

## 2 (hitz elkartuetan)

Teknologia berriagorik ezin, **megafonia** -zerbitzua ere antigualekoko kamioietan jarrita. Edorta Jimenez

## megafono iz bozgorailua, eskuarki mikrofonoduna.

Gero, **megafonoa** behertu eta keinu egin zion Harryri berarengana joan zedin. Iñaki Mendiguren

## megakataklismo iz adkor hondamendi ikaragarria.

**Megakataklismoa** ! Itxaro Borda

## megakonprometitu

Nik suposatzen dut horrela funtzionatzen duela ikusle estatubatuarren eskemak, baina beharbada egileak megamodernoak izan nahi zuten, eta **megakonprometitua** bide batez esanda, nazien garaiaz idaztera ausartu delako, eta horregatik sortu du ez buru ez hankarik ez duen labirinto-egitura hori, non denboran aurrera eta atzera goazen inolako norabiderik gabe eta non pertsonaiek esandako ezerk ez gaituen inora ere eramaten. Berria - Kultura

## megakorporazio

*iz* korporazio erraldoia.

Munduko ehun **megakorporazio** handienetako edozeinek gehiago esportatzen du planetako hainbat estatu txirok baino. Txema Ramirez de la Piscina

**Megakorporazioak** eta finantza talde erraldoiak komunikazioaren munduaz jabetu diren garai hauetan, horrelako hedabide-sareak bizirik eta osasuntsu irautea miragarria da. Txema Ramirez de la Piscina

## megalitika

*iz* megalitoen multzoa.

Ana Mendietarekin Hego Amerikako **megalitika** datorkigu gogora, Jorge Oteizak aztertu zuen hura. Berria - Kultura

## megalitiko

*izond* harri handi landugabeek egina.

Esan dute inoiz, hilobi **megalitikoetan** ageri diren sukarrak eta tximistarrak handien forma, intsusaren hosto luzearena dela. Pello Zabala

Bazko Uharteko estatua **megalitikoak** dira beren egileen iraganaldi handiaren lekuko. Iñaki Mendiguren

Harrizarra, totem bat bezala, ikur **megalitiko** baten antzera, zut. Karlos Linazasoro

Monumentu **megalitikoak** aztertzen dabilen taldeen artean. Berria - Kultura

Herrixkak Leitzaran ibaitik mendebalderaka agertzen dira; ibai handien bide inguruan daude eta ez dute kultura **megalitikorik**. Berria - Kultura

Arte **megalitikoan** benetako adituak bertan aztertu zuten. Berria - Kultura

Menhirra azken urteotako aurkikuntza **megalitiko** handienetakoa da. Berria - Kultura

## megalitismo

*iz* kultura megalitikoak.

Denbora berean Blot ikerlariak, Euskal Herriko **megalitismoaz** egin lan didaktiko bat erakutsia izan zitzaikun. Herria

## megalito

*iz* monumentu megalitikoak.

Hurrengo egunean, ostirala, leize-zuloak, **megalitoak** eta erromatarren garaiko dorreak izango dira ibiltarien gozagarri nagusiak. Berria - Euskal Herria

Lehendabiziko karta hori, kobazuloak eta **megalitoak** jasotzen zituen, 1982an argitaratu genuen. Berria - Euskal Herria

Gero Harpeako leizuloa ikusiko dute, eta Azpegiko **megalitoak** ere bisitatuko dituzte. Berria - Euskal Herria

## megalomania

*iz* handikeriazko mania.

Heldu ondoren, **megalomania** hura pixka batean alboratzea erabaki nuen, eta interprete hasi nintzen enpresa japoniar batean. Joxan Elozegi

Txartelean dioenak ez dik lehendik ondo ezagutzen dugun Mannen **megalomania** baieztatzeko beste ezertarako balio. Anjel Lertxundi

Alferrikakoak dira Erdi Aroko tratatuetan ageri ziren deabruaren kontrako aholku eta antidoto haiek guztiak, ez dute-eta aintzat hartzen, deabruak isuria izan ala ez, tentatuaren baitan lur gozoa aurkitzen duen **megalomaniaren** pozoia. Anjel Lertxundi

## megalomano 1

*izond* megalomania duena.

**Megalomano** hutsak dira! Fernando Rey

## 2 pertsona megalomanoari dagokiona.

Obra **megalomano** bat iruditzen zait. Berria - Kultura

Ikusi, adibidez, Philippe Druillet-en obra, harrigarriro **megalomanoa** dena. Josu Zabaleta

Aita ezagututa, ziurta dezaket proiektua ez dela **megalomanoa**. 1772az aurretiko mugak berrezartzeko poloniarren gurari **megalomanoak** lituaniar eta ukrainiarren aurkakotasun sutsua eragin zuen. Berria - Kultura

## megalopoli

 ik **megalopolis**.

## megalopolis

*iz* hiri erraldoia. ik **megapoli**.

Hiria nahi nuen berriz, **megalopolis** erraldoia, gaueko kale huts eta argizatuak, etorkin bakartiz bete Oasiz erako ostatuak, hondar metroak, pitbullak estekan eramaten zituzten gizon oskien burdinazko aztalen klaska-klaska metalikoen herots beldurgarriak, barrandako polizi-kotxeen sirena oihuak, hezurtu eskaleen dei ugariak, igande goizetako kai hegietak predikari apokaliptikoen iragarpenak [...]. Itxaro Borda

Ez nuela Baionara itzultzeko gogorik, arrotz eta baztertua izatekotan, ezaren **megalopoliak** egokiagoak zitzaizkidal horretarako. Itxaro Borda

## megamakrosaltoki

*iz* *adkor* saltoki erraldoia.

Jantoki azpiko bebaruan, berriki ireki duten kanpuseko liburudenda dago: leku txikia da, sabai baxukoa, baina hala ere atsegina; liburudenda itxura du, bederen,

**megamakrosaltokiak** nagusitzen ari diren garai honetan: ez da gutxi. Iban Zaldua

## megamerkatu

*iz* merkatu erraldoia.

*Eroskin* izan zen: jateko zerbaite eskuratzera joan, eta esnekien sekzioaren beste muturretik norbait ni tirokatzera zihoala konturatu nintzen (egia esan, **megamerkatu** sartu bezain laster itzal bat atzetik zebilkidan susmoa hartu nuen, eta erne nebilen). Iban Zaldua

## megamix iz

Aukeratzeko kantu ugari zuen albokari bilbotarrak eta horrexegatik **megamix** berezi bat gauzatu zuen ekitaldiaren erdian: pieza bakar batean Leonen jota (grabatu gabeko airea), Dringilin dango eta Hamaika kolore zaharrak eta Txilibriren moduko Txili sauce berria elkartu zituen. Berria - Kultura

## megamoderno iz adkor

ikaragarri modernoa.

Nik suposatzen dut horrela funtzionatzen duela ikusle estatubatuarren eskemak, baina beharbada egileak **megamoderno** izan nahi zuen, eta megakonprometitu batez esanda. Berria - Kultura

## megapoli iz

megalopolisa.

Hori da abiadura handiko trenen erronka nagusia: elkarren arteko ehunka kilometrora dauden hiriak eta lurraldeak **megapoli** bihurtzea. Berria - Euskal Herria

## megaproiektu iz

proiektu erraldoia.

«**Megaproiektu**» ugari daudela dio, hala nola errepedeak, AHT, Pasaiaiko kanpoko portua eta aireportua handitzea. Berria - Euskal Herria

Administrazio bakoitza bere **megaproiektua** bultzatzen ari da, beste administrazioekin inolako koordinaziorik gabe eta inolako planteamendu integralik gabe. Berria - Euskal Herria

## megarama iz

ipar

Ohartzen gara beraz Lemoinek bi **megarama** proiektu pusatzen zituela kasik betan, Angelurekin lehenik eta Baionarekin geroxeagotik. Herria

Lemoinek ez duela **Megaramarik** eraikiko Baionan. Herria

## megaratar izlag/iz

Megarakoa, Megarari dagokiona; Megarako herritarra.

Sofistak, eleatarrak, **megaratarrak**. Jon Muñoz

## megaroi (orobat megaron g.er.) iz

antzinako Greziako jauregi batzuetako sala laukizuzena, erdian beheko sua zuena.

Orduan, **megaroi** deituriko areto nagusian dauden arma guztiak hartu eta goiko solairura igo behar dituk. Juan Kruz Igerabide

Hori esanik, gosea eta egarria ase ondoren, bere bidea hartu zuen zerrizainak, jauregia eta **megaroi** bazkaltiarrez beterik utzita. Juan Kruz Igerabide

Ama ere agertu zen; semearen aurrean eseri zen, **megaroi** zutabe baten kontra, eskuetan artile-malutak jiraka zerabiltzala. Juan Kruz Igerabide

Eurikleak **megaroi** atekari izan zuten, Filetiok atarikoak; gero, Filetio bere lekura itzuli zen. Juan Kruz Igerabide

## megaron ik

megaroi.

## megasaltoki iz

saltoki erraldoia.

Ni neu -ez dut honako hau aitortzeko inolako lotsarik- maiteminduta nago **megasaltokiekin**. Iban Zaldúa

## megavatio ik

megawatt.

## megawatt (orobat Megawatt eta megavatio g.er.) iz

potentzia elektrikoko banakoa, milioi bat watten baliokidea.

Parke horiek 200 **megawatteko** potentzia dute, eta hiru urteko epean erosi dituzte Endesak. Berria - Ekonomia

Egungo erreaktoreek 1.000 **megawatteko** indarra sortzen dute. Berria - Gaiak

400 **megawatteko** indarra du bakoitzak eta, haien artean, urtean 1,8 milioi tona CO2 igortzen dituzte atmosferara. Berria - Harian

469 **megawatt** ekoizten dituzten Espainia eta Portugalgo hainbat parke eoliko. Berria - Ekonomia

Ezarririk **megawatt** bakoitzeko 1,3 milioi euro ordaindu ditu. Berria - Ekonomia

Zentrala 800 **megawattekoa** izango da. Berria - Ekonomia

Xinan, ur erresalba baten egitera doatzi munduko handiena izanen dena: 18.200 **mega watt**-eko elektrika indarra eman beharra du urtegi ikaragarri horrek, herri horrentzat. Herria

*Bahia de Bizkaia Electricidadek* 800 **megawatt** energia sortzeko planta dauka Bilboko Portuaren inguruan, Santurtzin. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**megawatt saldu zituen** (3)

**megawatteko indarra** (5); **megawatteko potentzia** (7)

## megretista izond

Frantzia, Le Pen-en alderdiko B. Megret-en aldekoa.

Beste gataska bat agertu da eskuin muturrekoen artean, Angelun Miarrizten bezala: Henri Rupert FN-koa agertu da hautagai, jada ba delarik **Megretista** bat, Cecile Greslin andere gaztea. Herria

## mehaindar izlag/iz

Mehainekoa, Mehaini dagokiona; Mehianeko biztanlea.

Lau lagun horiek dira Maite Gastambide aihertarra, Nadege Goity **mehaindarra**, Katia Launay eta Fabien Lannelongue baionesak. Herria

Genevieve Uhart Iguzkilarrekoak hartu du biziko laguntzat David Barnetche **mehaindarra**. Herria

Aita biarnesa zūan, ama **mehaindarra**, "manexina", Inchauspe ariakoa. Herria

Jan Battiitt BASCANS jaun erretor ohia urrundu zaukula eta armendarritzarren zerbitzuko ere egon dela **Mehaindarrentzat** bezala, funtsean armendariztar multxo pollit bat ere bazen bere ehorzketa egunean Jatsun. **Herria**

## mehaka<sup>1</sup>

### 1 zango-mehaka iz ipar orkatila.

Sartzen naiz azkenean, jadanik ortutsik, eta ene zango **mehaka** hantua erakusten diot preso den bati. **Marzel Etxehandi**

Artean, mediku frantses batzuen ezagutza egin nuen, ahal bezain ontsa laguntzen baininduten, eta gero ene eritasunek -batzuk besteak baino larriagoak- eta ene ezontsek egin zuten gainerakoa zeren zango **mehakaz** besterik ere bainuen, zorigaitzez. **Marzel Etxehandi**

## mehaka<sup>2</sup> iz bide estua.

Nadiak talde hura ikusi zuen lehenengoz, Mikel Strogoff, neskatxa besoetan, mendien arteko **mehakatik** irten zelarik. **Karlos Zabala**

**Mehakaren** muturrean kokatua, Bailarako ostatu-denda bakarra. **Joseba Urteaga**

Tarantasak ez zuen topatu oinezkorik, ez zaldizkorik, ez beste ibilgailurik Uraletako **mehaka** estuetan, eguraldi mehatxagarriko gau hartan. **Karlos Zabala**

## mehakezur (orobat mehaka hezur) iz aldakako hezurra.

Bigarren **mehakezur** -ebakuntza egin behar izan zidatean. **Iban Zaldua**

Galtza bakeroak daramatza, zabalak, **mehaka hezurretan** estu tinkatuak, eta jertse marradun bat, zuri-urdina. **Antton Olano**

## mehakil ik mehakoil.

## mehakoil (orobat mehakil g.er.) iz argala, liraina.

Ahotsen harramantzak eta zakur **mehakoilaren** zaunka erlastuek buhameen hurbiltzea iragartzen zuten. **Itxaro Borda**

Zer duzue errepetitita **mehakoil** hori? **Itxaro Borda**

Inguruan dena belarbas eta sasi, arbol **mehakoila**, jauregia gaintitu nahi balute bezala. **Michel Oronoz**

Ximurrarekin ezkondu, etxekoandretu eta amatu zenez geroztik biribiltzera emandako gorputz eta begitarte horietan deus guti gelditzen zen hogeii urte bete gabean ezagutu nuen neska **mehakil** eta bisai-hezurtsutik. **Aingeru Epaltza**

## mehar 1 izond estua. (bide eta kidekoak)

Beste haran luze **mehar** eta deserto batean, non ez baitzen bazkalekurik ez oihanik. **Juan Garzia**

Sakan **mehar** bat zeharkaturik. **Jose Morales**

Zurezko zutoin txiki bat eta lubaki **mehar** bat. **Jose Morales**

Izan ere, urak hartuta zegoen sakonune **mehar** hura Ubinsk eta Kamakova artean, isurbiderik gabeko aska eskerga batean bezala. **Karlos Zabala**

Zeren Jainkoaren bideak hertsia eta **meharrak** izan baitaitezke. **Joan Mari Irigoien**

**Meharra** da bidea, anaiok, eta estua bizitzara daraman atea, eta gutxi dira aurkitzen dutenak. **Askoren artean**

Dena ilunpe, nekez hauteman zitekeen barrunbe beltz hartan bidezidor **mehar** bat, baranda erori batzuk, pergola okertu bat. **Jose Morales**

Gaizki breaztatutako bidean barrera egin du bi karrika **mehar** eta hutsetara ateratzen den arte. **Pello Lizarralde**

Nanterrera iristean, gurdiak ezkerretara jo zuen, kale txiki **mehar** batean sartu, murru batzuen ondotik igaro eta kale itsu baten amaieran gelditu zen. **Karlos Zabala**

Kalexka **mehar** piko batean neskez beteriko taberna bat aurkitu zuen. **Matías Mujika**

Moncalvo-ko hiriko galtzada **mehar** baten alde banatan. **Juan Garzia**

Eskailera maila batzuk beheiti eta ibilbide **mehar** batean sartzen naiz, bi bazterretan eta gaineko aldean sare zinguraturik, bospasei metrotan, zaintzaleak ene ondotik. **Filipe Bidart**

Eskailera **mehar** batzuk zeuden, teilatu maila batetik bestera pasatu eta goi gutzian zehar ibiltzen uzten zutenak. **Karlos Zabala**

Ni tximinia ilun eta **mehar** batean sartu nintzen. **Pello Lizarralde**

Oina finkatzeko, lur lehorreko dike **mehar** batzuk besterik ez daude. **Karlos Zabala**

## 2 (bestelakoak)

Zerurat nahi duenak ate **meharra** baitu ireki beharra, ez zabala. **Joan Mari Irigoien**

Goialdean, argi bat zebilen hara-hona fatxadaren erpinetako leiho **meharreko** errezen atzean. **Karlos Zabala**

Begiak berehala ohitu zitzaizkidan oholezko hormaren zirrikitu **meharretatik** sartzen zen argi urrira. **Anjel Lertxundi**

Ferronerie eta Aiguillerie kaleak, behinolako kale ederrak, denda **mehar** ilunez beteak. **Karlos Zabala**

Goizero-goizero harritzen zen bulago **mehar** hartako besaulki hartan bere burua topatzen zuenean. **Karlos Zabala**

Ohetxer bi, estu eta lar bigunak, eta haiek bezain **meharra** komuna, horra eman ziguten gela. **Xabier Montoia**

Anna nikellezko xingolaz inguratutako aulki **mehar** batean eseri zen. **Lopez de Arana**

Airea ez da eteten, baina bai estutzen, ahots-bidea **meharragoa** egiten baita organo artikulatzaileak elkarrengana hurbiltzen direlarik. **Lourdes Oñederra**

Ahoa, ezkererantz apur bat okerturik destain-imintzio moduko batean, ebaki bat bezalako **mehar** -zorrotza zen. **Juan Garzia**

## 3 (hitz elkartuen bigarren osagai gisa, lehen osagaia izena delarik eta elkarketak izenondo balioa duela)

Kale kantoietako etxe leiho-**meharrak**. **Karlos Zabala**

Irudia agertu zen ur azalean: mutiko gaxte matrail-**mehar** bat, munduan milaka diren bezala. **Aingeru Epaltza**

## 4 mehea.

Edo aitarena behar zuen liburu **mehar** hura, emakume biluzi potzolo andana erakusten zuena. **Alberto Ladron Arana**

Otorduan bospasei gasna xerra mehe, hain **mehar** non zirudien alde bat bakarrik ez zutela. **Itxaro Borda**

Zer duzu eskuan daramazun nabala zorrotz eta **mehar** hori Nizias? **Itxaro Borda**

Tipula txiki eta **mehar** bakar baten truke ogi zati bi eskatzen zituzten. irazki batean hedatu oihal **mehar** baten bidez. **Urtzi Urrutikoetxea**

Buruko zapiarekin lehortzen zituen malkoak, baina ezpainen artetik lerde hari **mehar** bat zerion lotsagarriro. **Joxean Agirre**

Ondoren, beste zazpi galburu sortu ziren, zimelak, **meharrak** eta haizerreak ihartuak. **Jose Antonio Mujika**

## 5 (pertsonez eta animaliez mintzatuz)

Gizon luze eta **meharra** zen, kapusai horia zeraman. **Urtzi Urrutikoetxea**



Gizon bizardun **mehar** bat hurbildu zitzaion eta zerbait erran zion beharriat. **Janbattitt Dirassar**  
Hara iritsi ginenean, gizon txiki, **mehar** bat azaldu zitzaigun atean. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Burdina haien artean tarte zabala zegoenez (ni bezalako mutiko **mehar** batentzat bai behintzat). **Alberto Ladron Arana**  
Gazte **mehar** eta zurbila zen, eta ilea zeukan oraindik, ile sarri, hori eta kirrua. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Txabi zelako tipo **mehar** hark irribarre handi batekin begiratzen zion Aneri. **Unai Iturriaga**  
Idazkari **mehar** plaxentak proposatu zigun: [...]. **Daniel Landart**  
-Behi gizen eta **meharrei** buruz faraoiak izan zuen amets hari esker lortu zuen gizon hark Egipto gosetetik salbatzea. **Xabier Aranburu**  
Gosez hamikatu kabala **meharreke** emaitza nasaia ñaka-ñaka irentsi zuten. **Itxaro Borda**  
-Baina hatz azpian halako beso **mehar** eta arina sentitu zuen, non hotzikara bat eduki, eskua ireki eta erortzen utzi baitzuen jasorik zuen besoa. **Koldo Biguri**  
Gona txiki estua zango polit **meharretan** gora bildu zitzaion neskari, eskailera-koska gaintzerakoan. **Mirentxu Larrañaga**  
Leiho-ate bat erdi ireki eta esku **mehar** batek gazta bat eta ogi borobil handi bat utzi zituen erortzera. **Aingeru Epaltza**  
Sugea, bere gorputz **meharreko** ezpalak kraskaraziz, begietara so zegokion. **Itxaro Borda**  
Espero ez nuen indarrez besarkatu ninduen bere beso labur-**meharrekin**. **Aingeru Epaltza**

## 6 irud/hed

Ezpainetan irri **mehar** bat jauki zitzaion. **Itxaro Borda**  
Orduan hasi zen ahots **mehar** eta hunkigarri batekin idazleari buruz hizketan. **Joxean Agirre**  
Argi **mehar** batek doi-doi argitzen duen logelan sartu, poliki-poliki erantzi da, zaratarik egin nahi gabe. **Jon Alonso**  
Haren alboan Mandi moko-**meharrak**, gorro beltza buruan, hormigonerearen azpitik pale hautsi bat atera eta egur pilara botaz, zigarroa eskuan, samin antza, begi bizi: [...]. **Pablo Sastre**

## • 7 (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa) mehertasuna.

Azkar zihonan urrats laburrak eginez, bere gonaren **meharra** zela eta. **Lopez de Arana**  
Zeren, bere **meharrean**, gogotik saiatauta erdietsitako mehertasuna, aldaka zabalak eta hezurdura sendo eta indartsua izaten segitzen baitzuen. **Fernando Rey**

## 8 heste mehar (16 agerraldi, 2 liburu eta 2 artikulutan) hesteen lehen zatia, luzea eta mehea.

Zortzi organo gibela, urdaila, pankrea, **heste meharra** eta lodia, bi giltzurrun, barea transplantatu dizkiote Miamin (AEB) Italiako sei hilabeteko haur bati. **Berria - Gaiak**  
Aho-sabaia sikatu, zangoak dar-dar hasi eta **heste meharraren** jarioak uzki aldera etorri zitzaizkidan esfinterreko atea jotzera. **Jon Alonso**  
Digestio- eta xurgatze-prozesu gehienak **heste meharrean** gertatzen dira. **Irene Aldasoro**  
Elikagaietan datorren proteina kantitateaz gainera [...], beste 150 gramo ematen dituzte urdail-paretatik eta **heste meharetik** bazterturiko zelulek (**heste meharrak** ere berriitu egiten baitu bere barne-estaldura bi edo hiru egunetik behin) eta pankrea-urinean dauden entzimetatik bazterturikoek. **Irene Aldasoro**  
**Heste meharetik** xurgaturiko glukosa hartu, eta gorputz osora banatzen du berriro. **Irene Aldasoro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

eskailera mehar (5); galburu mehar (5); gela mehar (3); gizon mehar (4); kale mehar (3); karrika mehar (5); laino mehar (3); luze mehar (3); zazpi galburu mehar (5)  
bide meharra (4); gorputz meharra (5); heste meharra (4); kale meharra (3)  
heste meharrean (4)  
kale meharetan (4)

## mehardura iz mehartzea; mehartearen ondorioa.

Kolomak **mehardura** bat izango du ordena joniarrari buruz hitz egiterakoan, hirugarren liburuan, esan zen bezala. **Santiago Iruretagoiena**  
Hogeiki oinetik hogeita hamarrena bitartekoetan, imoskapoa banatu zazpi partetan eta horietatik sei parterekin egingo da goiko aldearen **mehardura** **Santiago Iruretagoiena**

## mehargin iz

Behargin eta mearginak (bertako hizkeramoduz, "**meharginak**") auzo-herrietatik zetozen, bi orduko txangoa eginez kasu askotan mendiko bidezidorretatik: enpleguak bertan bizi ziren. **Juan Garzia**

## mehargune iz gune meharra. ik estugune; mehegune.

Azalpen erraza zuen, bestalde, gertatu zenak: izotz puskak Angarako **meharguneren** batean metatu eta jelazko hesia eratuko zuten. **Karlos Zabala**  
Barazki pilak metatzen ziren, elkarren jarrai-jarraian datozen olatuen irudira, eta ibai berde hura galtzadaren **meharguneetan** aurrera isurtzen ari zela zirudien. **Karlos Zabala**  
Hodei mendiak, gogortuak eta txingorrez nahastuak, haizeak gogor jotzean, **meharguneetan** apurtzen baitira. **Xabier Amuriza**  
Josu R ikusmiratuz zihonan, eguzkiaren aztarneke zer-nolako mutazioa eragiten zuten, kalearen soseguan urraturiko **meharguneetan** barrena. **Pedro Alberdi**

## mehartasun iz meharra denaren nolakotasuna. ik mehetasun.

Zeren, bere meharrean, gogotik saiatauta erdietsitako **mehartasuna**, aldaka zabalak eta hezurdura sendo eta indartsua izaten segitzen baitzuen. **Fernando Rey**  
Orain **mehartasuna** dago modan. **Patxi Zubizarreta**

## mehartu, mehar(tu), mehartzen 1 da/du ad mehar edo meharrago bihurtu. ik estutu.

Pesciatik aurrera, **mehartu** egiten da errepeidea, eta aldapatsu bihurtzen. **Xabier Olarra**  
Paraje hartan, Angara **mehartu** egiten zen eta haren ibilgu zabala erdira murrizten. **Karlos Zabala**  
Ero moduan aulkia biratzen ahalegindu nintzen, baina korridorea **mehartu** egin zela zirudien, horma haietako harlandu zaharrak puztu egin balira bezala, ni harrizko besarkada itogarri batean zanpatuz. **Alberto Ladron Arana**  
Mendien eta Morgairen arteko sakonunea igo ahala astiro-astiro **mehartzuz** joan zen, eta barruko ertza Ephel Dúathen alde harrisuetako erlaitza besterik ez zen. **Agustín Otsoa**  
Kolomaren goiko aldea, sumoskapoa, laurden bat **mehartuko** da beheko aldearekiko. **Santiago Iruretagoiena**  
Bularrak nola hanpatzen edo gerria nola **mehartzen** zaien. **Joxean Agirre**

## 2 mehetu.

Atearen argizko marra **mehartu** egin zen ama irteetan, ezari-ezarian **mehartu** zen hari baten modukoa izan arte. **Lopez de Arana**  
Ahotsa **mehartu** eta eten egingo zitzaiola ematen zuen. **Joxean Agirre**

Zeren bizidunen izaerak, jana kenduta, **mehartu** eta gorputza galtzen duenez, halaxe behar du denak disolbatu, zerbaitegatik bide okerretik jo duen materiak elikatzeari uzten badio. **Xabier Amuriza**

Manuel Sarasa Gonzalez, izengoitiz "Kalpar-latz", izengoitiz "Sagarroi", izengoitiz "Manolo Potzolo", nahiz eta orain aski **mehartua** izan, zubiaren erdian zen, gizon batekin solasean. **Aingeru Epaltza**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Tarteka, zilindrotxoa eredu-zulotik pasatzen ote zen egiaztatzen genuen: pasatzen ez bazen, karrakutzen segitzen genuen; pasatzen bazen, berriz, enbortxo **mehartua** hautsi, eta kontu handiz gordetzen genuen pilan. **Juan Garzia**

## mehartxo *izond* mehar samarra. ik meharxka.

Pareta batean bermatua zen, ni aurkez aurke nintzela, espaloi **mehartxo** hartako erdi-erdian. **Matías Múgica**

## meharxka *izond* mehartxoa.

Beharru zabalean gizon zahar **meharxka** batek makila jasota gogor protesta egiten zuen. **Pablo Sastre**

## mehastu ik mehaztu.

## mehategi ik meategi.

## mehatoki ik meatoki.

## mehats<sup>1</sup> ik mehatz.

## mehats<sup>2</sup> (*orobat mehatx*) 1 *izond ipar* mehea.

Gizon **mehatsa** zen; sudurra aski krakoa zuen eta kokotsa luzea. **Elena Touyarou**

Badu taldeak bere "leadera": mutil **mehats**, handi, irri-eginarazlea, begitartea beti serio haatik. **Piarres Aintziart**

Zintzur zolatik arkuma **mehatx** eta ahul bat ateratzen zaio. **Michel Oronoz**

Zuhaitz **mehats** biluziak dauzkat bidelagun gisa. **Piarres Aintziart**

Zerua zilarrezko oihal **mehatx** eta arin bat, zilarrezko zeta, gain hartan hedatua. **Michel Oronoz**

## 2 irud/hed

Aipatzen eta esplikatzen duen edertasunak desaragitzen bezala dio gizonari aurpegia, bere begitarte **mehats** mistikoa. **Piarres Aintziart**

## mehatsatu ik mehatxatu.

## mehatsu ik mehatxu.

## mehatu, meha, mehatzen da/du *ad* mehetu.

Apetitua galdu eta **mehatu** baitzen. **Elena Touyarou**

Hegazkinetik jalgi delarik, **mehatua**, argaldua (berak aitortu du 12 kilo galdi zituela) berehala agertu du bere irriñoa. **Herria**

**Mehatuta** ere, pisu izugarria zuen. **Aingeru Epaltza**

Hendaiaiko ondartzaren eskualde bat **mehatzen** ari da, uhainek legarra harrotuaren bortxaz. **Herria**

Hori ez da ardien onetan: batzuk eztulka, mainguka, besteak **mehatzen**, esnea galtzen. **Michel Oronoz**

Jargian erdi irekirik *Femmes Actuelles* ikus nezakeen, **mehatzeko** bost erregimen proposatzen zituela. **Itxaro Borda**

Lurra berotzearekin, Ipar-Burutik hurbilxko diren hormagune batzu ttipituko dira, urtuko baitira, jadanik lekuka **mehatuak** eta kraskatuak dira, urtzen hasiak beraz. **Herria**

Gilen gure artetik lekutuz geroziak hasi zen soka **mehatzen**. **Aingeru Epaltza**

Lerro labor bat lehenbizi, eta gero bigarrena, luzexeagoa, kreditu-txartelaren laguntzaz luze **mehatuak**. **Aingeru Epaltza**

## mehatx ik mehats<sup>1</sup>.

## mehatxagarri (*57 agerraldi, 30 liburu eta 4 artikulutan; orobat mehatxugarri 12 agerraldi, 9 liburu eta 2 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian mehatxagarri agertzen da*) 1 *izond* mehatxatzen duena. ik mehatxari; mehatxu 3; mehatxu 5.

Horra Tavio txikia gizon **mehatxagarri**, errespetau eta larderiatsu bihurturik: gaizkile-talde baten buruzagi. **Jon Muñoz**

Telefonoa han dago, geldirik, beltza, beti bezala, baina jada ez zen animalia **mehatxagarria**, jada ez zen eztenez eta arantzez korazaturiko intsektua. **Jon Alonso**

Porta de Ferrotik ateratzen dira arrapaladan, dorre **mehatxagarriari** sua emateko asmoz. **Jon Alonso**

Erorialdian norbaitek enbarazu egiten dienen begirada **mehatxagarri** eta lauso samarra zuen Albertek. **Jon Muñoz**

Ahots elkor eta **mehatxagarria**. **Itxaro Borda**

Dei **mehatxagarri** batzuk egin eta kito, denak kaka praktetan edukiko nituzke, eskatzen zaien guztia emateko prest. **Jon Arretxe**

Etasaiari zaunka **mehatxagarriak**. **Gotzon Garate**

Inork ezin zuen haren presentzia **mehatxagarria**, inkisitoriala, harroputza eta lotsagabea jasan. **Karlos Zabala**

Denbora guztian daukat arrisku **mehatxagarri** baten sentipen erasagarri hori, zoritxarren bat ote datorren heriotza hurbil ote den irudipen hori. Josu Zabaleta

Berriemaile objektibo batek esango zuen heldu berrien buruan ez zebilela inongo asmo **mehatxagarririk**. Patxi Iturritegi

-Nor da gatibu hori? -galdetu du emirrak ahots lasai bezain **mehatxagarritz**. Karlos Zabala

Poliziaburuen Elkartearen neurriak pertsona ustez **«mehatxagarriei»** tiro egitea baimentzen die poliziei. Berria - Mundua

Farol bat hartu eta, kakoa modu **mehatxagarrian** altxatuz, esan zuen: [...]. Julen Gabiria

## 2 (predikatu edo adizlagun gisa)

Goiko plataforma hiri aldera luzeagotzen zen, **mehatxagarri**. Jon Alonso

Zakurrak bere burua **mehatxagarri** azaldu nahi duenean, ez du zaunkarik egiten. Gotzon Garate

# mehatxagarriro

*(corpusean mehatxugarriro soilik) adlag era mehatxagarrian.*

Suaren gorria garaitzen hasi zen, Birgharen bioletari atzera eraginez, pixkanaka-pixkanaka, ezpataren ahora **mehatxugarriro** hurbilduz. Joanes Urkixo

# mehatxakor

*(orobat mehatxukor) 1 izond mehatxagarria, mehatxaria.*

Joantok ezagutu zuen Monduteguyk bera baino apalagotzat hartzen zuen norbaitekin erabiltzen ohi zuen doinu **mehatxakorra**, eta ukabilak tinkatu zituen. Elena Touyarou

Handik laster klaska **mehatxukorra** aditu zuen, are hurbilago aldi honetan. Itxaro Borda

## 2 (predikatu edo adizlagun gisa)

Harentzat egiten da dantza, harentzat barre, harentzat pizten dira suak, harentzat jotzen dira balsak, harentzat, alde guztietan garai bateko apaiz barbaroek konjuratzen zuten antzinako mamu haietako bat bezala ikusezin, **mehatxakor**, sumatzen den Izpiritu hiltzailearentzat. Josu Zabaleta

Haren eskuak **mehatxukor** eragin zion pistolari. Aingeru Epaltza

# mehatxari

*(46 agerraldi, 22 liburutan) 1 izond mehatxatzen duena. ik mehatxagarri.*

Hildakoak ez ziren gehiago nire inguruan ibiliko, mamu **mehatxarien** moduan. Joxan Elozegi

Munduaren gainera zabaldu zen, erraldoi, eta haiengana esku **mehatxaria** luzatu zuen, ikaragarria, baina ahula. Agustin Otsoa

Bakuometroaren orratza, hatz **mehatxari** baten gisa, zerorantz igoz zihonan osterera, eta, hara, gradurik gradu, eskuinetarantz makurtzen. Juan Garzia

Zaldiek uko egiten zioten harri **mehatxariaren** ondotik pasatzeari. Agustin Otsoa

Laino artean bilduriko amildegi **mehatxariak**. Agustin Otsoa

Harrapaturik gaudek -harresi **mehatxariari** begiratu zion etsita. Agustin Otsoa

Kanpaiak jo eta jo segitzen zuen bere mezu **mehatxaria**. Anjel Lertxundi

Areto zabaletan barrena eramaten zuten, non den-dena bere lekuan zegoen, eta berak ordena horri kezkarri eta **mehatxari** irizten zion. Xabier Olarra

Guardia bere postuan zegoen, geldi-geldirik, bere bibote tente **mehatxariarekin**. Fernando Rey

Haren ondoan, eserlekuan atzerantz bermatuta, eskuak poltsikoetan, **mehatxari** -itxuraz, beltzez jantzitako mutila dago, haren mutil-laguna. Oskar Arana

## 2 (predikatu edo adizlagun gisa)

Batzuetan, ordea, nonbait, burmuineko zokorik ilunenean, errezeloren bat sortzen zitzaion, harra bezala luzatuz eta uzkurtuz ideia kontsolagarri haren bila **mehatxari** zetorrena. Ramon Saizarbitoria

Cristina andreak zutitu eta makila luze bati heldu zion, **mehatxari**. Koldo Biguri

Peppone **mehatxari** jarri zen On Camilloren aurrean. Koldo Biguri

Jaka erantzi, alkandora-besoak jaso eta **mehatxari** hasi zen hurbiltzen. Koldo Biguri

Batzuetan olatuak, **mehatxari**, aurrera egiten zuen, harroturik; beste batzuetan, apaldu eta baretu ondoren, ertzak aparrez betetzen zituen. Fernando Rey

Alde guztietan ikusten da, **mehatxari** eta gris, itsaso hori, piztia amorratuak bailiran bitsa dariela dauden uharriz beteak. Josu Zabaleta

Kantoiak bestaldetik norbait azalduko zaiola pentsatzen du, eskularru beltzak, zoro baten begirada iluna, berarengana hurbilduko da poliki-poliki, **mehatxari**, ukabilak estu berari lepotik heltzeko irrikaz, erasorako prest, hautatu duen biktima atzematera, gau hartako hildako zerrendari beste bat eransteako. Antton Olano

# mehatxati

*iz mehatxagarria, mehatxaria.*

Ez zuen geldiarazi ez jainkoen ospeak, ez oinaztuek, ez ortziak bere urruma **mehatxatiz**. Xabier Amuriza

Ez zuen geldiarazi ez jainkoen ospeak, ez oinaztuek, ez ortziak bere urruma **mehatxatiz**. Xabier Amuriza

# mehatxatu

, mehatxa, mehatxatzen *(orobat mehatsatu g.er.) 1 du ad* norbaiti, hitzez edo keinuz, eta beldurtzeko asmoz, kalte egin nahi zaiogula adierazi, bereziki baldintza jakin bat gertatzen bada.

Denok gaude **mehatxatuak**, ez europarrak bakarrik. Berria - Kultura

Horra zergatik [...] III. Errepublikak bere prefetak xaxatu zituen apezak **mehatxatzera** Flandrian eta Britainian, ez baldin bazuten beren katiximetan eta predikuetan frantses soila erabiltzen. Piarres Xarriton

Poliziak **mehatxatu** egiten ditu herritarrak euren alaben heriotzaren inguruan ikertzeko ahaleginak geldiarazteko. Berria - Gaiak

Alabaina, herrian hori gehiago zabal ez dadin, **mehatxatu** egingo ditugu, gaurdanik Jesusen izena inori aipa ez diezaioten. Elizen arteko biblia

Segurtamen hori gabe, ez direla berriz lanean hasiko **mehatxatu** zuten. Berria - Ekonomia

Poliziak **mehatxatu** egiten ditu herritarrak euren alaben heriotzaren inguruan ikertzeko ahaleginak geldiarazteko. Berria - Gaiak

Kalean labanarekin **mehatxatzen** gaituen edozein gaizkilerena baino egiazkoa den heriotz promesa. Pako Aristi

Biziki haserretu zen Balak Balaamekin eta, ukabilaz **mehatxatuz**, esan zion: -etsiak madarikatzeko deitu, eta hiru bider bedeinkatu dituzu! Elizen arteko biblia

-Ni **mehatxatu** nahian? Patxi Zubizarreta

-Ni **mehatxatu** nahian? Patxi Zubizarreta

## 2 (objektua esaldi bat delarik)

-Kasu zer ari haizen -**mehatxatu** zuen Monduteguyk-. Elena Touyarou

-Jan oraintxe bertan, bestela...! - **mehatxatu** ninduen, aukitik altxatuta. Joan Mari Irigoien

-Onean bota ezazu, bestela nik bortxaz botako dut -**mehatxatu** zuen erregeak. Patxi Zubizarreta

## 3 (objektua perpaus konpletibo bat dela)

Senarrak etetik bota egingo zuela **mehatxatu** zuen. Gotzon Garate

Uili esaten nion gelditzeko, isiltzeko, jo egingo nuela **mehatxatzen** nuen, baina hark jarraitu egiten zuen. Juan Kruz Igerabide

Isildu behar buruz zuten, hura ere preso altxatu zutela **mehatxatu** baitzuten. **Elena Touyarou**  
Berak orduan sardearekin **mehatxatu** ninduen: halakorik ostera esanez gero independentziaren aldeko mugimenduaren simaur fronteak lehen martiria izango zuela.  
**Bernardo Atxaga**

Dorrera deitu zuten bietan, eta **mehatxatu** urkatuko zutela berriz hasten bazen. **Marzel Etxehandi**  
Sindikatuak **mehatxatu** zuten ez zutela espedienterik negoziatuko, aurretik ez bazen lan hitzarmena adosten. **Berria - Ekonomia**

#### 4 arriskugarria gertatu zerbaitentzat edo norbaitentzat.

Zein da bada **mehatxatzen** zaituen arrisku hertsagarri hori? **Jon Muñoz**  
Lucy garaila, **mehatxatzen** zuten esklabotzatik aske orain, soineko zuri-gorri koadroduna, oinetako beltz bernizatuak eta galtzerdi zuri parpailadunak jantzita agertu da mahaira. **Oskar Arana**

Gerra ministerioan arrazoi franko zuten Omsk ordurako arras **mehatxatuta** egongo zela uste izateko. **Karlos Zabala**  
Gure mundua eritasunek **mehatxatuta** da, eta mehatxu horren pean osasuna negozio bihurtu da egun. **Pello Salaburu**  
Eztanda bakoitzak, **mehatxatu** ez baina gogortu egiten gaituela iruditzen zait, hemendik aurrera. **Josu Zabaleta**  
Trichetek onartu zuen erregaiaren garestitzeak BPGren hazkuntza **mehatxatu** dezakeela. **Berria - Ekonomia**  
Aintzira bateko bizi-aniztasuna **mehatxatuta** dago bertan eraikiko den urbanizazio baten ondorioz. **Berria - Kultura**  
Desertuak, lakuak eta itsasoak dira gehien **mehatxatutako** eremuak. **Berria - Gaiak**

#### 5 (era burutua izenondo gisa)

Adiskide **mehatxatu**en askatasuna defendatzeko. Ibar **mehatxatu** batean bizi izan dira. **Berria - Kultura**  
Askatasun **mehatxatu**aren ideia. Balizko gero **mehatxatu**aren iragarleak. **Itxaro Borda**  
007 agentea edo estralurtarrak ez dira inoiz hain bakartia, intimoa eta larritua daukadan bihotz antzeko galaxia **mehatxatu** honen salbatzera etorriko. **Itxaro Borda**

##### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**iraindu eta mehatxatu** (5); **labana batekin mehatxatu** (3); **mehatxatu eta iraindu** (6); **pistolarekin mehatxatu** (3)  
**mehatxatuak babesteko** (3)  
**mehatxatu**en segurtasuna (3)  
**etak mehatxatutako pertsonen** (4); **mehatxatutako pertsona** (4); **mehatxatutako pertsonen** (4); **mehatxatutako pertsonen** (9)  
**mehatxatzea leporatuta** (3)  
**emaztea mehatxatzeagatik** (5); **jo eta mehatxatzeagatik** (3); **laban batekin mehatxatzeagatik** (3); **labanarekin mehatxatzeagatik** (4)  
**egonkortasuna mehatxatzen** (4)

## mehatxatzaile (14 agerraldi, 8 liburu eta artikulua 1ean) 1 izond mehatxatzen duena. ik mehatxagarri; mehatxari.

Nola jokatu zuen horrela, beraz, hain zintzoa izanik, emaztea **mehatxatzailea** eta zitala ez balitz? **Patxi Zubizarreta**  
Eskutitz **mehatxatzaile** eta isilpekoak bidaltzen dizkiguten horiek. **Javi Cillero**  
Zerua garbi zegoen, baina lainoak ikusi zituen urrunean; laino beltz eta **mehatxatzaileak**. **Fernando Morillo**  
Kostaldea ozta-ozta suma zitekeen, tarteka, olatu **mehatxatzaileez** haruntzago. **Txillardegi**  
Begitartea ilundu egin zitzaion eta hizketa molde **mehatxatzailez** esan zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

#### 2 iz mehatxatzen duen pertsona.

Lubisek nazka izango lieke Cesarren **mehatxatzailei**. **Bernardo Atxaga**  
Orain defentsako ministroa Rumsfeld da "Europa zaharrena" **mehatxatzailea**. **Herria**

## mehatxo ik mehatxu.

## mehatxu (orobat mehatxu g.er., mehatxo g.er. eta mehatxu g.er.) 1 iz

Galderetatik biraoetara egin baitzuten jauzi, biraoetatik **mehatxuetara**. **Koldo Izagirre**  
Hiru argudio aipatu ohi dira **mehatxu** horren garrantzia gutxiesteko. **Koro Navarro**  
Sukar-beltzaren **mehatxua** hor da. **Michel Oronoz**  
Batzuek ETaren **mehatxua** eta erasoak sufritzen dituzte. **Txema Ramirez de la Piscina**  
Zolak hiltzeko **mehatxuak** jaso zituen, traidoretzat hartu zuten, eta Ingalaterrara ihes egin behar izan zuen, kartzelara ez joateko. **Karlos Zabala**  
Aberatsak bere ondasunez zaindu behar bizia, ezer ez duenak **mehatxuen** beldurrik ez. Senipartea kentzeko **mehatxua**, aldika eman ohi zizkion diru-kopuruak berriro ez emateko **mehatxua**. **Elizen arteko biblia**  
Baina zuk, eta hau ez da **mehatxu** bat, erreallitate gordina baizik, aurre egin beharko diozu hiru hilketetako nahaspilari. **Migel Angel Mintegi**  
1970ean, munduko gizartearentzako **mehatxu** diren faktoreei buruzko azterketa bat egiteko agindu zuen Erromako Klubak -jakintsuen guneak-. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizzaralde**  
Ez zen sekulan atsedenik eta beti oihuak eta **mehatxuak** entzuten zituzten gibeletik, zanpaldiak hartzen ez zituztelarik. **Eneko Bidegain**  
Lekutu aitzin, beren **mehatxua** entzunarazi ziguten: [...]. **Aingeru Epaltza**  
Danimarkako erregearen **mehatxuei** aurre egiteko, itun bat osatu zuten (Hansako Liga). **Koro Navarro**  
Eta bete egin zuen bere **mehatxua**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Aldiz bigarren hau **mehatxu** bat baizik ez zen izan, ez zen gauzatua izan, ez zen beraz lehen hura. **Xipri Arbelbide**  
Ohi ez bezala, ez du **mehatxua** edo mendekua aldarrikatzen, errukia baizik. **Jose Antonio Mujika**

#### 2 (izenondoekin)

**Mehatxu** militarrek eta preso diplomatikoa, beraz, izan ziren Europako industriaren sarreraren laguntzaileak. **Koro Navarro**  
Araba desagertzeko arriskua dago, **mehatxu** nuklearra etengabea baita. **Berria - Euskal Herria**  
**Mehatxu** terroristarentzako informazio egitura. **Berria - Mundua**  
**Mehatxu** zuzena, besterik ez zuten merezi kabernikola haiek. **Koldo Izagirre**  
Baiezko zurbila egin nien bi emakumeei, **mehatxu** ilun hark bihotza uzkurtuta. **Alberto Ladron Arana**  
**Mehatxu** lauso haren oihartzuna euriaren hots jarraituaren baitan ito zen. **Alberto Ladron Arana**  
**Mehatxu** larria helarazita baitzion: bere kontra armada otomandarra bidaliko zuela. **Fernando Rey**  
Beste eskua bularraren kontra estuturik zeukan, izenik gabeko **mehatxu** boteretsu eta suntsigarriaren bat ezkutatuz. **Agustin Otsoa**  
Edari kiskalgarriak sabelean utzitako epelaren orde, goragalearen **mehatxu** garratza sentitzen nuen. **Alberto Ladron Arana**  
Asteroideak **mehatxu** naturala dira planeta osoarentzat. **Berria - Gaiak**

#### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik mehatxagarri.

**Mehatxu** -hitz bat aski dut, itsasoa lehortu eta ibaiaik basamortu bihurtzeko. Elizen arteko biblia

-Beheko aldera joan dituk, Pitotirren txalet aldera -erantzun zion beltzeranak, **mehatxu** keinu bat eginez-. Josu Zabaleta

Olatuak ausart, **mehatxu** itxuran, gorago eta gorago altxatzen ziren lehertzerakoan. Txillardegi

-Hori da, hori da! -esan zuen espetxezainak, halako **mehatxu** -doinu batez, eta alde egin zuen, ingurura begiraturaz. Jose Morales

Zuk badakizu non dagoen, eta nahitaez eman behar didazu, argi? -**mehatxu** puntu batekin bukatu zuen. Migel Angel Mintegi

**Mehatxu** airea zuen, begi finko eta kolore gabeetan suturik. Josu Zabaleta

Pozik gabeko irribarretxo batek lagundu zion **mehatxu** kutsuko esaldi hari. Alberto Ladron Arana

Tentetu zen, eta mutilen aldera itzuliz, **mehatxu** marmarrean esan zien: [...]. Josu Zabaleta

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Frantzisko ez zen ikaratu, ordea: ez tortura-**mehatxuengatik**, ez eta heriotza-arriskuagatik ere. Askoren artean

Bi aste horietan zehar, ACGk, berrogeita zazpi urteko igeltseroak, ulertzen ez duen hizkuntza batean egindako zenbait telefono-**mehatxu** jasan behar izango ditu. Iban Zaldua

Zalantzaldi baten ostean, euri **mehatxu** eta guzti, motozikleta hartzea erabaki zuen. Migel Angel Mintegi

Udako promesa lapurtu eta negu-**mehatxu** bat ematen digute gero opari. Joxerra Garzia

Faxistek deportazio **mehatxu** zuzenak egiten zizkieten Euzko Gudarostean borrokan ari zirenen senideei. Jokin Urain

Dena den, ez zirudien gameluzaina askorik izutzen zuenik gerra-**mehatxu** hark Azpeitiko jesuita batek herio-**mehatxuak** ere izan ditu, jauntxoek eginak. Xabier Aranburu

Jaunaren ikasleen aurka heriotza-**mehatxua** zeriola. Elizen arteko biblia

## 5 mehatxuzko izlag ik mehatxagarri.

SSetako bospaseik eskuak jaitsi eta niganantz egin zuten, **mehatxuzko** jarreran. Alberto Ladron Arana

Bandera kontaezinak, harrizko arranoaren **mehatxuzko** keinua, lerro beltz haien doitasun izugarria... Alberto Ladron Arana

Kotxeko gizonari ukabilaz **mehatxuzko** keinuak eginez. Lopez de Arana

-Oraitxe bertan etxera joan, eta gordeta dauzkaan bertso ziztrin guztiakin itzuliko haiz -esan zidan ahotsa jaso gabe, **mehatxuzko** doinuz-. Juan Kruz Igerabide

**Mehatxuzko** eskuitzak ziren. Gotzon Garate

Elkarri **mehatxuzko** begiratuak egin eta behar baino gehiago eskuak estutuz. Iñaki Mendiguren

Nahitaez behar zuen haserretu nire zigarroaren eta nire kapelaren angelua eta garagardo edontziari heltzeko modu **mehatxuzkoa** ikusita. Koro Navarro

Gizonak, begiak ezustean altxaturik, neskak luzatzen zion begirakune hozmindu, setatsu eta **mehatxuzkoari** erreparatu zion. Patxi Zubizarreta

## 6 dena mehatxu adlag ipar

Dena den, AZF **dena mehatxu** arizan da gobernuari, gaitzeko dirualdea eskatuz, bestenez hamar bunba leher-araziko dituela burdin-bide batzuen gainean... Eta bestetik Ipar-Korea **dena mehatxu** plantatua, Amerikanoak **dena mehatxu** ari zaizkiola eta ez duela hori onesten. Herria

Jendetza gaitz baten erdian pasatzen gira, kexu eta **dena mehatxu**, haurrak guri ziztuka eta harrkia. Michel Oronoz

Duela hogeita hamar urte, ezkertiak kutsuko ebanjelioa plazaratzen baldin bazuen, orain ez buru ez buztanik duen euskal fedearien integrismo nahasia ematen digu kasik bi hilabeteetarik behin, **dena mehatxu**, dena urguilu, herio usaina dariola. Itxaro Borda

Zonbait egun barne, bi mezu zabaldu ditu **dena mehatxu** Amerikanoen kontra. Herria

## 7 mehatxu egin

Guardia zibil batek **mehatxu egin** zigun, fusila guri begira ipinita. Juan Kruz Igerabide

Pistola batez Anari **mehatxu egiten** harrapatu izan banu Panizo, bi tiro joko nizkioan, eskuak batere dardararik egin gabe. Juan Kruz Igerabide

**Mehatxu** ere egin diete: eskatu zaiena ematen ez badute, Frantziara itzularaziko dituzte. Anjel Lertxundi

Legeak babesten nau -**mehatxu egin** nahi izan zion, baina uste handirik gabe. Migel Angel Mintegi

-Eta nahi ez banu? - **mehatxu egin** zuen, baina planta hutsa zen. Migel Angel Mintegi

Arma Santua askatu eta pistolaz egin nion **mehatxu** SS talde isilari. Alberto Ladron Arana

Etsai bakar batek **mehatxu egin**, eta zuetako milaka ihesi. Elizen arteko biblia

Eta orain, hain zuzen, sasoi guztietako arriskuez gain, inbasioak eta matxinadak **mehatxu egiten** dutenean! Karlos Zabala

-Eta nahi ez banu? - **mehatxu egin** zuen, baina planta hutsa zen. Migel Angel Mintegi

Etxea kenduko zigutela **egin** zidaten **mehatxu**. Beteko ditut herrialde horretan, **egin** nizkion **mehatxu** guztiak. Koldo Izagirre

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**bonba mehatxu** (7); **bonba mehatxu bat** (4); **dena mehatxu** (28); **egin zion mehatxu** (4); **egingo zuela mehatxu** (6); **egiten zion mehatxu** (4); **larderia eta mehatxu** (4) **mehatxu artean** (4); **mehatxu berriak** (5); **mehatxu egin** (127); **mehatxu egin du** (11); **mehatxu egin ostean** (4); **mehatxu egin zien** (5); **mehatxu egin zion** (25); **mehatxu egin zioten** (8); **mehatxu eginda** (5); **mehatxu eginez** (18); **mehatxu egitea** (8); **mehatxu egiteagatik** (19); **mehatxu egiteko** (5); **mehatxu egiten** (50); **mehatxu eta irainak** (4); **mehatxu gisa** (8); **mehatxu handia** (6); **mehatxu jaso** (4); **mehatxu kutsua** (4); **mehatxu larria** (6); **mehatxu larriak** (4); **mehatxu moduan** (4); **mehatxu nagusia** (5); **mehatxu pean** (6); **mehatxu terroristak** (13); **mehatxu terroristak** (12); **mehatxu terroristak egitea** (4); **mehatxu terroristaren** (4)

**auzitara jotzeko mehatxua** (4); **egindako mehatxua** (9); **egiteko mehatxua** (5); **eramateko mehatxua** (6); **erasotzeko mehatxua** (4); **etaren mehatxua** (5); **heriotza mehatxua** (4); **hiltzeko mehatxua** (26); **hiltzeko mehatxua egin** (18); **hiltzeko mehatxua egiteagatik** (4); **jartzeko mehatxua** (9); **jartzeko mehatxua egin** (6); **jotzeko mehatxua** (5); **kaleratzeko mehatxua** (4); **kaleratzeko mehatxua egin** (4); **mehatxua bete** (5); **mehatxua bota** (7); **mehatxua egin** (101); **mehatxua egin du** (14); **mehatxua egin zion** (9); **mehatxua egin zuen** (16); **mehatxua egiteagatik** (6); **mehatxua egiten** (17); **mehatxua egiten zuen** (5); **mehatxua izan** (4); **mehatxua zela** (6); **sartzeko mehatxua** (4); **suntsitzeko mehatxua** (4); **uzteko mehatxua** (5); **uzteko mehatxua egin** (4); **xantaia eta mehatxua** (5)

**aurkako mehatxuak** (9); **egindako mehatxuak** (9); **eraso eta mehatxuak** (6); **erasoak eta mehatxuak** (6); **heriotz mehatxuak** (4); **heriotza mehatxuak** (17); **heriotza mehatxuak jaso** (8); **hiltzeko mehatxuak** (6); **irain eta mehatxuak** (4); **irainak eta mehatxuak** (11); **mehatxuak egin** (14); **mehatxuak egitea** (6); **mehatxuak egiteagatik** (6); **mehatxuak egiten** (10); **mehatxuak eta erasoak** (6); **mehatxuak eta irainak** (11); **mehatxuak eta presioak** (5); **mehatxuak jasan** (11); **mehatxuak jaso** (26); **mehatxuak jaso zituen** (7); **mehatxuak jasotzen** (5); **mehatxuak mehatxu** (4); **mehatxuak salatu** (14); **mehatxuak salatu zituen** (6)

**mehatxuaren aurrean** (7); **mehatxuaren berri** (4)

**al kaedaren mehatxuari** (4); **mehatxuari aurre egiteko** (5)

**mehatxuel aurre egiteko** (4)

**mehatxuen aurrean** (8); **mehatxuen ondorioz** (8)

**mehatxupean bizi** (16); **mehatxupean daudela** (5); **mehatxupean izan** (4); **mehatxupean jarri** (4); **mehatxupean zeuden** (4); **zigorraren mehatxupean** (4)

**mehatxurik gabe** (14); **mehatxurik gabeko** (5)

**mehatxutzat jo** (6)

**mehatxuzko keinuak** (4)

## mehatxudun *izond* mehatxua dakarrena.

Eta ekialdeko mintza aieru zakarra zuena isildu zen, klik **mehatxuduna** entzuten nuela. Itxaro Borda

## mehatxugarri ik mehatxagarri.

mehatxugarrri ik mehatxagarrri.

## mehatxuka *adlag* mehatxu eginez.

Pistolaren katuan behatza, **mehatxuka** ari zaizkizue oraindik. **Rafa Egiguren**  
Sumin ikaragarri batez gogortua aurpegia, **mehatxuka** ari zen Ruche jauna. **Jon Muñoz**  
Korrika abiatu da turistengana, besotzarrekin **mehatxuka**. **Pako Aristi**  
Sarjentua fusilaz **mehatxuka** ari zaito orain Charlieri, baioneta-muturra haren sudurrean hazbete gutxira duela. **Mirentxu Larrañaga**  
Fusilak jaso zituzten, leihoetan ageri zirenei **mehatxuka**, eta ostikoka jarraitu zuten. **Juan Kruz Igerabide**  
Esku batez paparretik heldu, eta beste ukabila erakutsi zion, **mehatxuka**. **Juan Kruz Igerabide**  
Gero, eskua **mehatxuka** luzatu zuen igarotzen ari ziren zaldizkoen troparantz. **Karlos Zabala**  
Zuregatik gaizki esaka eta nire kontra **mehatxuka**. **Joxean Agirre**  
Soldaduak duda-mudatan egon ziren hasieran, baina Erregek, bere senetik aterata, agindua oihuka eta **mehatxuka** berretsi zuenean, urkatu egin zituzten. **Martin Anso**  
Oraingoan Auritzetik Zumalakarregi **mehatxuka**, erranez kalonjeak bahituko zituela. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Anatoko jendea niri bizia kendu nahian dabil, Jaunaren izenean hitz egiten jarraitzen badut, beren eskuz hilko nautela **mehatxuka**. **Elizen arteko biblia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mehatxuka ari** (22); **mehatxuka ari da** (4); **mehatxuka ari zen** (3); **mehatxuka aritu** (3); **mehatxuka hasi** (10); **oihuka eta mehatxuka** (3)

mehatxukor ik mehatxakor.

## mehatz *(orobat mehats)* izond bakana.

Han zeuden Théoden eta Éomer, eta haien aurrean kokoriko eserita, gizon arraro bat zegoen, harri zaharra bezain zimurtua, eta goroldio lehorra bezalako biza **mehatsa** kokotsean. **Agustin Osoa**  
Hain ehundura **mehatzez** eginda, ezen edozein gorputzetan aisa sar eta, nolabait esateko, aire bitartetik lerra baitaitezke **Xabier Amuriza**

mehatzari ik mehatzari.

mehatzaritza ik meatzaritza.

mehatze ik meatzte.

## mehaxka *(orobat mehaxka)* izond mehetxo.

Ez dira **mehaxka** horietarik beltzez jauntziak diren Zeelanda Berritarrak aitzinekoen pare direla gibebekoak, haien artean Lomu 115 kiloko pottoka. **Herria**  
Piers mutiko **mehexka** bat zen, arratoi-aurpegiarekin. **Iñaki Mendiguren**

## mehazte *iz*

**-Mehazteak** nagitzea eta sortzea ez jok ekarriko? **Xabier Amuriza**

## mehaztu, mehatz/mehaztu, mehatzen *(orobat mehastu)* da/du ad bakandu.

Gainera hodeiak haizeekin **mehazten** edo eguzkiaren beroaren kolpeagatik ezabatzen direnean, euria tantaka bidaltzen dute, argizari koskoa su biziaren gainean likidotzen eta urtzen den bezala. **Xabier Amuriza**  
Iberriz ebakitako ilea hazi eta **mehastu** egiten da. **Pello Zabala**  
1944an jaio zan Kepa oraindino indartsu dago, baina, urteak bajoakozala eta, ibilerea apur bat zelan **mehaztu** pentsetan hasita dago. **Xabier Amuriza**

## mehe 1 *izond* lodiera txikia duena, edo ohi dena edo behar lukeena baino txikiagoa duena. ikmehats<sup>2</sup>; mehar 4. ant lodi.

Zurezko pareta **mehe** batzuez bereizitako bulego antzeko baterako bidea. **Josu Landa**  
Gelako horma **meheetan** durundi egiten zuen hotsak. **Irene Aldasoro**  
Iruadiak Marteko uda amaieran egin zituen Mars Expressek, kasko polarra **meheen** denean. **Berria - Gaiak**  
Estalkitarako manta **mehe** bat baizik ez zuen gauaren iragaiteko. **Eneko Bidegain**  
Auzoko haurrak alkandora **mehe** batez jantzita. **Josu Zabaleta**  
Mantal **mehe** bat zeraman, kamisoi are meheagoaren estalki. **Aingeru Epaltza**  
Azal **mehe** baten antzera biltzen baitzion gorputz osoa. **Jose Morales**  
Itsasaldeko harresia [...] goroldio geruza **mehe** batez ilunduta dago. **Txillardeggi**  
Matalaz **mehe** eta guriagia. **Eneko Bidegain**  
Ogi xerra **mehe** bana. **Karlos Zabala**  
Gizen-xerra **mehe** bat moztu, eta Alberti eman zion. **Jon Muñoz**  
Eskuan larruzko liburu **mehe** bat zeukala. **Lopez de Arana**  
Lisa ganibet **mehe** bat hartu eta saltxitxoi xerrak ebakitzen ari zen. **Karlos Zabala**  
Haizearen hats leunak alpapa-hosto **meheak** jiraka darabiltza. **Itziar Otegi**  
Badugu belarrian mintz **mehe** bat airearen dardara horiek jasotzen dituena. **Josu Zabaleta**  
Tarteka uharrin biribilketa, leuna hau ere, ia ezkila **mehe** baten soinua gisa. **Joxe Austin Arrieta**

Buruko odol-kolpea batez, bihotzekoa, aorta **mehe** zozoren bat behingoa lehertzea. Jose Morales

Fruta edota haragia **meheago** ebakitzeko. Edorta Agirre

Bestea garai eta indartsua zen, bibote beltz **mehe** batekin. Iñaki Mendiguren

## 2 (makila, soka eta kidekoetan)

Kolore horiko barra **mehe** haiek argizko eskailerak osatzen zituzten. Karlos Zabala

Kandela luze, **mehe**, beltz-beltzak ziren, guztiak su urdinetan dir-dir. Iñaki Mendiguren

Makila **mehea** eskuan berriz etxera zihoazen funtzionario argaltxo ugariei. Jose Morales

Bitxi bikain eta fina zen, topaziozko, granatezko eta kristal landuzko zatitxoak urrezko kate **mehe** batez loturik egina. Oskar Arana

Eskuak soka **mehe** batez lotuta. Felipe Juaristi

Piru **mehe** bat, heriotzeak bakarrik, azken finean, mozten duena. Piarres Aintziart

Ke arrasto **mehe** bat utziz airean. Unai Iturriaga

Ur jario **mehe** baina etengabe hartaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Minutu bat geroago, sudurpean odol negar **mehe** bat zuela itzuli zen, hats-goitika. Aingeru Epaltza

Ezerk gelditzen ez dituen suge **mehe** horiek. Josu Zabaleta

## 3 pertsoez, animaliez, edo haien zatiez mintzatuz, gantza edo haragi gutxi duena.

Aitak azkenean Franz eta tipo **mehe** hura deitu zituela nire bila etor zitezten. Alberto Ladrón Arana

Zeren Ray altua eta **mehea** baitzen, eta ni txikia. Koro Navarro

Klaseko beste neska bat da Amanda, ilehori **mehe** bat. Oskar Arana

Mutil koskor **mehe** bat zen, itxura gozokoa. Karlos Zabala

Martxela izeneko biolontxelo-jotzaile **mehe** izuti bati. Felipe Juaristi

Bizkitartean, gorputza, soin **mehe** hori, aurreraka eta atzeraka darama suaren aldera, kulunkaulkiarekin bat eginda. Josetxo Azkona

Aurpegitxoaren obalo biribila, gerri **mehea**. Jose Morales

Oihal latzak lepo **mehe** zuria minberatu eta narritatzen zion. Jose Morales

Kristoren beso **mehe** eta luzeek. Piarres Aintziart

Bere hanka **mehe** ogi luzeen antzeko haiekin jaio zenean. Juan Kruz Igerabide

Lisetta bere zirarekin, botoiak askatuta, eta bere neskatxa-oin **mehe** biluzietan sandaliak jantzita. Fernando Rey

Hatz luzeak eta **meheak**, eraztunez beteak. Harkaitz Cano

Txakurraren zakilak **mehea** ematen du, baina izugarri loditzen da barrenean duzula eta korapilo bikain bat du erdian. Karlos Zabala

Mutil handi hezurtsua zen, bizarra arretaz kendua, sudurra eta ezpainak **mehe**. Karlos Zabala

Zaindu egik hire ipurdi **mehe** hori. Paddy Rekalde

## 4 trinkotasun gutxikoa.

Baina ni edan nahi ezean tematzen nintzenez, Natalinak azkenean zopa **mehe** bat prestatzen zidan. Fernando Rey

Tupusteko indarrez baitu mintzen eta gatzatzen, esnetan gatzagi tantek nola, odol **mehe** osasuntsua. Juan Garzia

Hiru aste daramatza esnea eta ahi **mehea** besterik hartu gabe. Josu Zabaleta

## 5 irud/hed (gauza fisikoak)

Euri **mehe** batek bustitzen zituen beirak. Josu Zabaleta

Guztia ihintz **mehe** batez bustitzen zuen. Xabier Olarra

Haren adimena itsutzen zuten hodei gorri-beltzen aldean, laino zuri **mehe** batek ñabartzen baizik ez zuen nirea. Aingeru Epaltza

Eguna eguzkitsua eta beroa zen, eta haize **mehe** bat sartzen zen auto barruan. Koro Navarro

Airea dardarka hasten da, eta geroxeago haizeño **mehe** bat hasten zait aurpegian jotzen. Oskar Arana

Baditugu hareazko erloju handiak, diren eta ez diren basamortu, deserto eta eremuak pasarazten dituztenak kristalezko galbahe **mehe** estu batetik. Felipe Juaristi

Nola gorritzen zen, nola estutzen, azkenean, ahots-hari **mehe** batez, "behin bakarrik" erantzuteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Maratilar eragin zion eta kirrinka **mehe** batek adierazi zion sarbidea giltzatu barik zegoela. Josu Landa

Musika esaldi kementsu horren erdian, pamesanoak txirula txistu **mehe** bat jaurtitzen zuen noizik behinka. Karlos Zabala

Giro lainotsuaren eragina, gelako argi **mehe** dardartia. Koro Navarro

Hots **mehe** itoa zen, ikarak arima hartu duenean sakonenetik irteten dena. Koro Navarro

-Oso sorginkeria zaila da -erantzun zion ahots **meheaz**-. Iñaki Mendiguren

Hasperena ere oso **mehea** izan zen. Bernardo Atxaga

Arrain usain **mehea** zerion. Karlos Zabala

## 6 irud/hed (bestelakoak)

Bekoz beko begiratu zion, harriturik eta ironia **mehe** batez aldi berean. Jose Morales

-Zertan ari haiz? -Martin Mihurubikoak harridurazko irri **mehe** batez itaundu zidan. Edorta Jimenez

## 7 (erkaketetan)

Berrogei bat urte, erratz-kirtena bezain **mehea** eta tentea. Anjel Lertxundi

Taloa bezain zapal eta **mehea**. Jose Morales

Makila bat bezain **mehea** zuen gorputza Koro Navarro

## 8 (hitz elkartuetan, izen baten eskuinean, elkarketak izenondo balioa duela)

Beste parte bat, berriz, odol-hodien itxurakoak diren baina izatez beste sare batekoak diren hodi paretan **mehe** batzuetara sartzen da. Irene Aldasoro

Neska pollit aztal- **mehe** bat hurbildu zitzaidan galdatuz zer tenore zitekeen. Janbattitt Dirassar

Damen atzetik, intzirika sartu ziren Adela iletsua eta Pot-pourri garai hanka- **mehea**. Jose Morales

Erreka zabala baina ur **mehea** zen. Gotzon Garate

## 9 (beste izenondo baten eskuinean)

Puru luze- **mehearen** muturrari su ematen hasi zitzaion, berotzeko, artean eskuan zuela. Joxemari Urteaga

Beti letra etzan luze- **mehe** berak. Aingeru Epaltza

Paperak [...] letra txiki **meheaz** txinaurrituak. Aingeru Epaltza

Eta orri loditxo beltz arteetan, babeski, paper garden **mehe** bana. Txillardegi

Oharkabean Ellenek eskua luzatu eta esku ihar **mehe** bat topatu zuen, berea indarrez estutuz. Lopez de Arana

Patzikuren ohetik negar zotín ahul **mehe** bat itzuri dela sumatu dut. Txillardegi

Jertsearen lepo gainetik aurpegi zuri **mehe** batek begiratzen zion. Unai Iturriaga

Errezel berde **mehe** batek bereizten ninduen harrera-mahai nagusitik. Oskar Arana

Etzirako irrikatan egongo naiz emakume handi, beltzaran, **mehe** bat edukitzeko. Josu Zabaleta

Nire baitan ziztada luze **mehe** sendaezinak balira bezala sartu zaizkidanak. Josu Zabaleta

## 10 (beste izenondo baten ezkerrean)

Elur piloa aurkitu du, haizeak gure aurka jaurtiki duen elur **mehe** -zorrotza. guztien arreta berehala bereganatu zuen fardel **mehe luze** batek. **Xabier Montoia**

Bizikletaz zakukada handi bat zekarren batean, gizon **mehe luzexka** bat atera zitzaion bidera. **Anjel Lertxundi**

Orri erdi inguruko kartoi **mehe** zuri bat erabili nuelako. **Ramon Saizarbitoria**

Odola eltzera bota zuen emeki-emeki, hainbat xirripa **mehe** gorritan. **Karlos Zabala**

## 11 heste mehe (3 agerraldi, liburu 1 eta 2 artikulutan) heste meharra.

Heste lodia kendu eta **heste meheari** poltsa bat lotu zioten. **Berria - Euskal Herria**

Apaiak geroa jakiteko asmoz sakrifizioko biktimaren **heste mehea** zatitu eta jainkoentzat haren haragia maneatzeko erabiltzen zuen mahaia. **Xabier Olarra**

## 12 mehe-mehe

Zumezko pareta **mehe-mehe** batzuek baizik ez zituzten merkatuko jendetzarengandik bereizten. **Karlos Zabala**

Portua nahiko garbi ageri zen, baina ez itsasoa, gandu **mehe-mehe** batek hartua baitzuen haren gaina. **Anjel Lertxundi**

Emaizkidazu hamar xerra, baina **mehe-meheak**, e? **Karlos Zabala**

Trelawney andereñoa suaren argitara etorri zen, eta **mehe-mehea** zela ikusi zuten ikasleek. **Iñaki Mendiguren**

Herrikoek "Zankamehe" deitzen ziotena orkatilak **mehe-meheak** zituelako. **Fernando Rey**

Begi eta aho inguruetan, denborak ximur **mehe-mehe** batzuk zituen marraztuak. portua nahiko garbi ageri zen, baina ez itsasoa, gandu **mehe-mehe** batek hartua baitzuen haren gaina. **Ander Irizar**

Ez zeraman makillajerik, ezpainetan margo gorriaren ukitu **mehe-mehe** bat izan ezik. **Oskar Arana**

-Gurina lodi-lodi eta erreximenta **mehe-mehe**, gustatzen zainan bezala. **Aingeru Epaltza**

## 13 mehe egin haragirik, bereziki erlijio arrazoiengatik, ez jan.

Eta denbora hartan, ortziraletan **mehe** egiten ginuen. **Menane Oxandabaratz**

Gisa guziz, Elizak azkaki arindua ere du barur eta **mehe egiteaz** ezarria zuen legea. **Herria**

Berrogoi egunez **mehe egiteko** denbora. **Herria**

## 14 saltsa mehe egin etekin txikia atera.

Orain bai hasi garela **saltsa mehe egiten**. **Oskar Arana**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ahots hari mehe** (6); **ahots mehe** (10); **argi mehe** (6); **arrasto mehe** (3); **bere ahots mehe** (3); **beso mehe** (3); **bezain mehe** (4); **bibote mehe** (6); **auri mehe** (3); **ezpain mehe** (6); **geruza mehe** (7); **geruza mehe batez** (4); **gizon mehe** (6); **gorputz mehe** (4); **haize mehe** (5); **hanka mehe** (4); **hari mehe** (15); **hari mehe bat** (3); **hari mehe batez** (3); **intziri mehe** (3); **ironia mehe** (6); **irribarre mehe** (4); **irribarre mehe bat** (3); **izpi mehe** (4); **laino mehe** (6); **laino mehe batek** (4); **lepo mehe** (6); **luze eta mehe** (4); **luze mehe** (5)

**mehe luze** (4); **mehe mehe** (18); **mehe mehe bat** (4); **mehe mehea** (7); **mehe meheak** (4); **mehe zuri** (3)

**mintz mehe** (3); **neska mehe** (3); **oso mehe** (4); **pareta mehe** (3); **soinu mehe** (3); **soka mehe** (7); **soka mehe batez** (4); **tipo mehe** (5); **tipo mehe bat** (3); **txistu mehe** (3); **txistu mehe bat** (3); **xeha mehe** (4); **xerra mehe** (5)

**ahots mehea** (4); **atorra mehea** (3); **bezain mehea** (9); **gizon mehea** (5); **gorputz mehea** (3); **hanka mehea** (3); **mehe mehea** (7); **mehea izan** (3); **mehea zen** (19); **mehea zuen** (5); **oso mehea** (11); **oso mehea da** (3); **ur mehea** (3)

**beso meheak** (3); **bezain meheak** (4); **ezpain meheak** (7); **mehe meheak** (4); **meheak ziren** (4); **meheak zituen** (5); **pareta meheak** (3)

**ahots meheaz** (8); **bere ahots meheaz** (4)

**xerra mehetan** (4)

## mehegune iz gune mehea.

Ibaian edo erreken **mehegunetan** ugaritzen eta maizten zen animalien pasabidea. **Patziku Perurena**

## mehelin 1 iz arteko horma.

Hamarkada mordoxxa zen **mehelina** botarazi zuela, etxearen alde hartara aldatu zenean, eta bi gelez bat egin zuen, handiagoa, ilunxeagoa. **Xabier Olarra**

Harrizko pilare, adreilu erreko horma eta harlangaitzezko **mehelinen** laguntzarekin altuera handiak altxa daitezke. **Santiago Iruretagoiena**

## 2 (izenondo gisa)

Arbitroak jartzen direnean horma **mehelinak** tasatzeko, haiek ez dituzte paretak beren garaian izandako kostuaren arabera baloratzen. **Santiago Iruretagoiena**

## meheño iz adkor mehea.

Eta berdin urrun udaberrian ezpainak eta oro pikatu nahi lituzkeen haize **meheño** hartarik, hau ere urte guzitakoa baitugu guti edo aski. **Herria**

## mehetasun iz mehea denaren nolakotasuna. ik mehertasun.

Uste dute unibertso osoa, hau da, bere baitan dauzkan gorputz guztiak, ataltxo txiki-txikiez osaturik dagoela, beren **mehetasunagatik** gehiago ezin zatituzkoiez. **Xabier Kintana**

Bere harrigarritzko **mehetasuna** zuen batez ere gauza bereziarena; haren lagun dekanok esan ohi zuen [...] in-folio baten orrien artean mende batzuetan ahazturik utzia izan behar zuela, nonbait, arrosa baten eta bioleta baten ondoan, oso pinpirin eta urrindu ibiltzen baitzen beti. **Josu Zabaleta**

Eskuak goratu eta haien **mehetasunari** begiratu zion. Arraunak, uraren azala ukitzen duten punturaino, zuzen ikusten dira, benetan diren bezala, baina ur azpian sartzen diren puskak, uraren **mehetasun** garden hori dela-eta, gorputzetatik sortzen diren irudiak bidaltzen dituzte igerian ur-azalera, eta azaleratu eta nahasten direnean, begiari iruditzen zaio hautsita azaltzen direla arraunak. **Anton Garikano**

## mehetu, mehe, mehetzen 1 da/du ad mehe edo meheago bihurtu. ik mehatu; mehartu.

Etxe hau arras handia eta arras luzea zen; zutabe batzuek bakarrik eusten zioten, eta suak **meheturiko** zenbait habek. **Koldo Izagirre**

Izan ere, zarpeatua ematen zaienean, hezetasuna hartzen dute eta puztu egiten dira; ondoren, berriz, lehortzen direnean, uzkurto egiten dira, eta **mehetu** ondoren, ahuldu egiten dute sendo zegoen zarpeatua. **Santiago Iruretagoiena**

Elurra **mehetu** eta gesaltzen denean. **Pello Zabala**

Urezko bideak poliki-poliki **mehetu** egin ziren eta lehortu azkenik. **Felipe Juaristi**

**Mehetzeko** erregimena egitea. **Fernando Rey**

Apetitua eskastu eta urritu, eta **mehetzen** eta **mehetzen** hasi zen. **Joan Mari Irigoien**

Gimnasia saioak egiten nituen gordeka, ipurmamiak **mehetzeko**. **Joxan Elozegi**

Endekaturik eta zurbildurik zegoen makula, eta erretina osoko odol-hodiak **mehetuta**. **Xabier Olarra**



Ilberri z ebakitako ilea hazi ta **mehetu** egiten baita. **Pello Zabala**

Haurdunaldiko lehen asteek izugarri nekatu ninduten eta **mehetu** zitzaizkidan masailak. **Joxan Elozegi**

Oso **mehetua** aurkitu nuen eta ez zuen gauza handirik esaten. **Lourdes Oñederra**

Gure zaharrek botikarioak dirudite eta drogazale zimurtuak dira, bihotza pixkortzeko, odola **mehetzeko**, lo lasai egiteko edo tristura menderatzeko aitzakian. **Iñaki Segurola**

Klarinete-solo batek erantzuten du, **mehetuz** doa, isiltasuna egiten da. **Oskar Arana**

## 2 irud/hed

Hainbeste luzatuz gero **mehetu** ere egingo da itxaropen hori. **Jokin Urain**

Izan ere, bizi-iturriaren jariora **mehetzen** hasten delarik, eta gogoa urritzen, orduan hasten baita bat bizitzeko arrazoien bila. **Iñaki Segurola**

Roryren nerabezaroko bihurrikeria gatazkatsuek arras **meheturik** utzi izan zuten etxeko ondarea urteetarako. **Oskar Arana**

Aitatxik bere zaintza-saria hutsaren hurrengoraino **mehetu** zuen bere agindupeko armagizonen kopurua gizendu ahal izateko. **Aingeru Epaltza**

Nire itzala ikaragarri **mehetu** zen, Rogerrek nire gibelaldean egin bitisaren albistea barreiatu zenez geroztik. **Aingeru Epaltza**

Euskararen arnasa **mehetzearekin**, aho-mihietarik lurruntzearekin, eta, beste alde batetik, Euskalgintza izeneko industriaren garapenarekin, euskara eta Euskalgintza bat eta bera izatera etorri dira esateko moduan, Euskalgintzatik kanpora euskararik batere ez balego bezala. **Iñaki Segurola**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Bere masail **mehetuei** erreparatzen nien, begi tristeei... **Jokin Urain**

## mehetxo *izond*

Haren lepoan jarrita emakumea berriro berea izatearen plazer mingarriarekin gozatu zen eta biluzik eta eder ikusi zuen, zango **mehetxoak** etxetik saltoka dantza pausoak eginez. **Bego Montorio**

## mehetze *iz* mehe edo meheago bihurtzea.

Eskarmentu puxka bat pilatu duen pertsona adinekoak, horrek bai, begiratuko dio ilargiari nondik nora dabilen, **mehetze** bidean edo gizentzen doan, eta ez da berehalakoan deskuidatuko. **Pello Zabala**

## meheximendu ik merezimendu.

## mehexka ik mehaxka.

## mehexko *izond* mehetxoa.

**Mehexko** gertatzen! **Txillardegí**

## mei *iz* liga, hondarra.

Edozein lanetan eta edonon, ordea, arimaren erdian hauspeatzen zitzaion ardo mikatz baten **meia**. **J.M. Olaiola "Txiliku"**

## meiosi *iz* ugaltze zelulen zatitze prozesua, kromosomen zenbatekoa erdira ekartzean datzana.

Lau antzutasun kasutik bat **meiosian** gertatzen den aldaketa batek eragiten du. **Berria - Gaiak**

Horrexegatik aukeratuko nuen natur zientzien ikasgaia, urte hartan guretzat erabat berria zen zerbaitekin hasten zena: zelularen ugalketa, **meiosia**, mitosia eta biologiarekin beste hainbat bitxikeria. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## mejora *iz* hobera egitea.

Ez diot esango entsaioetan egindako **mejorak** Euskal Jaietan soinua ateratzera bultzatuko nauenik ere. **Xabier Etxabe**

## mejoratu, mejora(tu), mejoratzen 1 da/du *ad* hobera egin.

Gero etortzekotan gelditu zen, **mejoratzen** nuenean. **Koldo Izagirre**

Hil eta gero **mejoratu** da. **Gotzon Garate**

## 2 hobetu.

Suak itzaltzera jotzen zueneko, hurreneko baserrira joko zuten, hango uzta **mejoratzeko** lehian saltatzeko. **Pello Zabala**

## mekaben *interj* ik mekaguen.

-**Mekaben**! -gizonak hura aditu zuenean, jo dik semeen koartora, hartu dizkik ohetik hiru semeak arrastan, eta amorru gorrian emaztearen aurrera! **Patziku Perurena**

## mekabendios *interj*

-**Mekabendios**! -esan nien Bikilari eta Agirrerri biraoka-. **Rafa Egiguren**

## mekaguen *interj* ik mekaben.

Maixanek, orroen neurriko jauziak balitu, **mekaguen** la fuxkro... **Itxaro Borda**

Eskaileretan gelditzen ginen, eta handik entzuten genuen jostai halako ahotsa, **mekaguen** rusiaka, infernuko gaizto guztiak dantzan. **Alberto Barandiaren**

# mekaguendio *interj* ik mekabendios; mekaguendios.

-Giiildaaaaaak, **mekaguendio**! **Joan Mari Irigoien**

# mekaguendios *(orobat mekaguen dios g.er.) interj* ik mekabendios; mekaguendio.

Korridorea esaten da, **mekaguendios**, esan duzu zure baitan, eta xerra bukatu duzu. **Lander Garro**

- **Mekaguendios** !!! -baina garren hotsak ito zuen sarjentuaren biraoa. **Jon Alonso**

" **Mekaguendios** ijitoa!" entzunda patxada galdu zuen mutilak. **Urtzi Urrutikoeetxea**

# mekaguendioska *adlag* "mekaguendios" esaka.

Apaiz jauna ere **mekaguendioska** jartzeko zori-zorian, hor nonbait! **Karlos Linazasoro**

# mekaguenka *interj* "mekaguen" esaka.

Negua **mekaguenka** joan zitzaidan. **Aingeru Epaltza**

# mekaguenlaputa *interj*

- **Mekaguenlaputa**, Mikel. **Unai Iturriaga**

# mekaguensandios *interj*

Possible ote zen, **mekaguensandios**, zera haiek guztiak oharkabean pasatzea? **Karlos Linazasoro**

Baina -orain galdetuko du norbaitek, **mekaguensandios** -, plantak eginagatik, nahikoa al da hori horrenbeste aldaketaz inor ez ohartzeko? **Karlos Linazasoro**

# mekanika 1 *iz* fisikaren atala, higiduraz eta orekaz, eta horien sortzaile diren indarrez diharduena; fisikaren atal horrek aztertzen dituen gertakari buruzko teoria.

Geometriak irudiak aztertzen ditu; aritmetikak, zenbakiak; trigonometriak, angeluak; **mekanikak**, berriz, irudien mugimendua eta oreka. **Jon Muñoz**

Tresna materialen ikerketari geometriako oinarri matematiko pila bat aplikatuz, **mekanikaren** artea sortu zuen. **Jon Muñoz**

Matematikariak **mekanika** esaten diotena jakintza teoriko bat dela, eta ez eskulana. **Jon Muñoz**

Hamazazpigarren mendean, Galileo eta Newtonen **mekanikak** edozein arazo konpon zezakeela zirudienean, boladan zegoen palankaz, sokaz, txirrikaz eta hauspoz egindako antolamendutzat hartzea gorputza. **Irene Aldasoro**

Fisiologia, fluido eta materialen **mekanika** edo biologia ikertzen dutenak izango dira, besteak beste, grabitate ezaz balitu ahal izango direnak. **Berria - Gaiak**

Ezin dira alde batera utzi fisikaren eta **mekanikaren** legeak, eta horixe kritikatu zion hain zuzen Vernek Poeri. **Karlos Zabala**

## 2 (izenondoekin)

Zein da, adibidez, partikulen **mekanika** klasikoaren eta erlatibitatearen arteko erlazioa? **Askoren artean**

**Mekanika** kuantikoaren ikuspegi zabal baten arabera, aldiz, ez da hain sinplea: katuaren egoera bizitzaren eta heriotzaren arteko zerbait da. **Fernando Morillo**

**Mekanika** orokorrak aurkakotasun honen baldintza empirikoa a priori erregela baten bidez adieraz dezake, noranzkoen kontrajartzea aintzat hartzen duen heinean. **Ibon Uribarri**

Joseph Louis Lagrange (1749-1827), matematikari frantsesa, **mekanika** teorikoan eta analitikoan aitzinamendu handiak ekarri zituen. **Koldo Izagirre**

## 3 makinaren eraikuntzaren eta aritzearen teknika.

Kamioiaren ondotik igarotzean, ez nintzen makurtu besteetan bezala, aita zer lanetan ari zen begiratzeko, izugarri gustukoa bainuen **mekanika**. **Juan Kruz Igerabide**

Batxilergoa amaitzeaz dagoen gazteak **mekanika** ikasi nahian dabilenez. **Berria - Euskal Herria**

Izan ere, «aurreiritzitan oinarritutako aitzakia asko» dagoela uste du **mekanikako** irakasle horrek. **Berria - Euskal Herria**

**Mekanikari** elektronikoa gailendua zitzaioela. **Jon Muñoz**

## 3 motor bat funtzionarazten duten atalen multzoa

F3.000 Nippon autoak **mekanika** berria izango du denboraldi honetan. **Berria - Kirola**

V10 motorrak oso **mekanika** orekatuak dira. **Berria - Kirola**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik mekaniko.

Karreraren Gibernauk hirugarren itzulian utzi zuen karrera, **mekanika** arazo bategatik. **Berria - Kirola**

**Mekanika** eta elektronika arazoak izan zituen, eta hori erabakigarria izan zen neurri batean elektronikak gidatzen duen motoan. **Berria - Kirola**

Hamalau urte bete nituelarik, **mekanika**-tailer batean hartu ninduten aprendiz, goizetan; arratsaldetan, berriz, ikasten jarraitu nuen, betiere neure kontura, eta etxean, auzoko eskola amaitua nuen eta. **Juan Kruz Igerabide**

Horrekin batera **mekanika** ezagutzak ere eskatzen dituzte orain: argien funtzionamendua, gurpilen aldaketa eta bertze. **Berria - Euskal Herria**

Begoñarentzat (57 urte) urrats bakoitza **mekanika** ariketa zail bat da malda pikoan beheti. **Aingeru Epaltza**

**Mekanika** modulu bat egiten ari naiz, Hernanin. **Berria - Kirola**

Kairoko Unibertsitateko **mekanika** irakaslea da Betuali. **Berria - Mundua**

Biek argazkiak atera zizkioten Clemensi, Armadaren **Mekanika** Eskolan (ESMA) agente aritu zen garaian. **Berria - Mundua**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Asteko lan **mekanikak** aldaketarik ez izatea funtsezkoa da, baina kontu gehiago ere badaude; gol gehiago egiten hasi gara, gutxiago jasotzen... boladak ere badira. **Berria - Kirola**

Helburu tekniko orokorrak finkatuak dira bio-energetika, bio-**mekanika**, oharmena eta harreman mailen gainean. **Herria**

## 6 hed aritzeko modua.

Penduluaren **mekanika** bakarrik: tak-tok, tak-tok. **Txillardegia**

Zer **mekanikaren** bitartez eratzen den oilo-arrautza batetik oilasko bat. **Juan Garzia**

"Garapenaren **mekanika**" esaten zitzaiona, hots, arrautza bat den bezain gutxi antolatuturiko egitura bati animalia batena den bezain antolaera konplexu bilakatzea ahalbidetzen dioten indarrak. **Juan Garzia**

Blogen **mekanika** bestelakoa dela azaldu du Zabalak: «Orriak dinamikoak dira, programa zerbitzarian dagoelako eta erabiltzaileak egiten duen bakarra, atzeko ate batetik sartuz, eta hor dituen formularioak betetzea da, maketatzen burua hausten ibili gabe». **Berria - Harian**

Egoera batzuetan bertsolariak ezin du jokatu arabera, ariketaren **mekanikak** horretarako betarik ematen ez diolako. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Mekanika** -lan handia egin beharra dago plazaratu aurretik eta plazaratu ondorengo lehen urteetan. Andoni Egaña

Testua sortzeko **mekanika**. Iñaki Arranz

Berarengandik kanpoko **mekanika** baten ondorioa zen eta da, **mekanika** horren funtzionamenduaz ideia lauso bat baizik ez duela, eta **mekanika** horretan parte hartzen badu, parte hartzen du zoriz erabiltzen dituen palanka eta botoien bidez. Jon Alonso

Terroristek ordainaren **mekanika** martxan emana zuten, eta ez ziren gelditezketan. Elena Touyarou

## 7 ipar makina.

Ni naizen tokian 80 josteko **mekanika**, barnearen erdian animaleko mahai bat, zernahi soineko gainean, horietatik puskak kendu eta petatxutan josteko beste jauntzi batzuetan. Marzel Etxehandi

Hek [laborariak] ere badituzte tresnak eta **mekanikak** lan gogor hori egiteko ezintasun poxi batekin. Herria

Hots, ahal zen bezala, ez baitzen orduan oraingo lur berdintzeko **mekanikarik**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zilatzeko **mekanika** moderno batekin zilo egiten ari izan dira altxorra non zegoen miazteko. Michel Oronoz

Untzi horretan, kapitain eta **mekanika** langile greziarrek badira 18 langile Filipindarrak. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mekanika horretan** (3); **mekanika kuantikoa** (18); **mekanika kuantikoak** (3); **mekanika kuantikoan** (4); **mekanika kuantikoaren** (6)

## mekanikari 1 iz makinak muntatzen edo konpontzen dituen pertsona, mekanika ikasketak dituena.

Gero **mekanikari** ikasten hasi tailerren batean, hori zen-eta orduan gehien erakartzen ninduen lanbidea. Juan Kruz Igerabide

Hamazortzi urteguz hasi zan beharlekutik kanpora bidaiak egiten, **mekanikari**. Xabier Amuriza

Yamaha taldeko ingeniari eta **mekanikariak** jo eta su ari dira motoak dituen arazoak konpontzen saiatzen. Gure amaren anaia zapatari batek eta zerrategian **mekanikaria** zen beste batek. Berria - Kirola

**Mekanikarien** esku utziko dut hegazkina. Josu Zabaleta

Fritz-eneko **mekanikari** madarikatu horiek alfer hutsak ditun! Xabier Paya

Garajejan, **mekanikaria**, fakturarekin batera, egindako lanen azalpenak ematen hasi zitzaionean. Iñaki Iñurrieta

Bihotzeko kirurgialaria naiz, egia, baina azken finean **mekanikari** bat besterik ez naiz. Koro Navarro

**Mekanikari** batek belarri ona behar duela batez ere, eguneroko bizitzaren gorabehera guztietan doinuak eta erritmoak entzuten dituen musikari batek bezain fina. Juan Kruz Igerabide

## 2 (hitz elkartuetan)

**Mekanikari** -lana arratsaldetan egiten utziko balidate, goizetan Ingeniaritza Elektronikoa ikastera joango nintzateke. Juan Kruz Igerabide

Ondoko urteak klase eta jite ugaritako lanbideen probaleku izan zituen, zein baino zein bereziago: tailer bateko **mekanikari** -lagun, obretako peoi edo pintore-ikastun, batetik bertzera opor aldiak tartekatzen zituela. Aingeru Epaltza

## 3 (izenondo gisa)

Nik kalibreak saltzen nizkion tailer **mekanikari** batean egiten zuen lan. Anjel Lertxundi

## mekanikazale izond mekanikaren zalea dena.

Ez zuen gure Mendizabal maitagarriak inoiz kalkulagailurik erabili: arrotza egiten zitzaion guztiz, beste gailuetan hain **mekanikazale** zenari. Pello Zabala

## mekanikeria iz ipar makineria, tresneria.

Ondarkin batzuk dira -hemen langileak dira behar- animaleko **mekanikeria** honek trabarik gabe itzulikatu behar du. Marzel Etxehandi

Gehiago dena, nehorik ez du konprenitzen nolaz elizako ezkilak, nolaz nork beraren ordugailuak, irriatiak, telebistak, hozgailuak, hoinbeste **mekanikeria** etxe batean orain elektrikaz direnak, berdin elektronikaz beteak direnak, nolaz geldituak diren edo makurtuak. Michel Oronoz

## mekaniko 1 izond mekanikarena, mekanikari dagokiona. ik mekanika 4.

Istripua ipar-ekialdeko Sakarya eskualdean gertatu zen, ekainean inauguratu zuten abiadura handiko trenak arazo **mekaniko** bat izan zuenean. Berria - Mundua

Eredu **mekaniko** edo optikoetatik baino eredu informatiko edo zibernetikoetatik hurbilago dagoen informazioaren tratamendu baten bitartez. Josu Zabaleta

Lurrak, tailer **mekaniko** batekoa dirudi, zati ugari falta zaizkio eta koskaz beteta dago. Harkaitz Cano

Matxura **mekaniko** bat besterik ez da. Karlos Linazasoro

Piezoelektrizitate-propietatea du hezurrak: presio **mekanikoaren** ondorioz korrante elektrikoa sortzeko gaitasuna, alegia. Irene Aldasoro

Tentsio **mekaniko** handiak jasan behar ditu larruzalaz. Irene Aldasoro

Ekintza **mekaniko** soil baten bidez egiten dute muskuluek beren lana: zuntzak uzkurtuz. Irene Aldasoro

Erretxina, gogorra bada ere, nahiko erresistentzia **mekaniko** gutxikoa da. Irene Aldasoro

Industria sektore askotarako aproposak diren ezaugarri kimiko, **mekaniko** eta isolatzaile ugari ditu amiatorearen egiturak. Berria - Ekonomia

Askoz ere magikoagoa iruditzen hasi zitzaidan telebistak egitea, motor **mekaniko** zikinak askatu eta osatzea baino. Juan Kruz Igerabide

## 2 makinarena, makinari dagokiona.

Gailu **mekaniko** batzuk gehituta -birabarkia edo bolantea, esate baterako- errotazio bihurtzen da atzera-aurrerako mugimendua. Irene Aldasoro

Gai gara eredu **mekaniko** nahiko onak egiteko, bai eta bihotzaren, biriken eta giltzurrunen ordeko **mekanikoak** sortzeko ere. Irene Aldasoro

Usaina ezagutzen dut lehenik: olio **mekanikoarena**. Hasier Etxeberria

## 3 makina edo mekanismo batek ibilarazten duena.

Halako latorrizko jostailu **mekaniko** bat izan naiz, barnea guztiz hutsa duena. Lopez de Arana

Identifikatu ezin zituen gailu **mekaniko** eta elektrikoak ikusi zituen Josebak. elurra kentzeko 62 makina, 20 traktore eta pala **mekaniko**, gatza botatzeko 23 ibilgailu eta 70 ibilgailu laguntzaile aritu dira lanean errepideetan. Fernando Morillo

Hormaren atzean eskailera biribil bat zegoen, pixkanaka gorantz zihoana, eskailera **mekaniko** bat bezala. Iñaki Mendiguren

Erloju **mekaniko** batekin edo beste edozein makina konplikatua batekin gertatzen den gauza bera. Esteban Antxustegi

Bentrikulu artifizial horietan jarritako balbula **mekanikoek** kontrolatzen dute odol-fluxuaren norabidea. Berria - Gaiak

Baina kri-kri-kri hozki horrek ez al du salatzen sagu liburu-jalea trepetara **mekaniko** bat izan daitekeela? Anjel Lertxundi

Eta zu, amestutako printzea, ezinezko gudak garaitu ondoan Bosgarren Hiribidean behera zatot zaldi **mekaniko** baten gainean. Iñaki Zabaleta

Hestekiak betetzeko ponpa bat, zapalgailu bat, haragia xehatzeko makina **mekaniko** bat. Karlos Zabala

Asmakari **mekaniko** horiek guztiak -telefonoa, elektrizitatea, altzairuzko zubiak, zaldigabeako ibilgailuak- ez dira alferrikakoak izango. Lopez de Arana

Espektroak ziren, alegiazko izakiak, nahita soilik agertzen ziren mamuak, panpina **mekaniko** malgukidunak. **Jose Morales**

## 4 era automatikoan, ohartu edo pentsatu gabe egiten dena.

Keinu **mekaniko** batez, pistola bere lekuan gorde, eta sorbaldak goratu zituen berriro. **Xabier Olarra**

Beste pixka batean egon zen aditzen, burua altxatuta, itxoiten bezala ohizko soinuren bati, soinu **mekaniko** erregularren bati. **Anton Garikano**

Haren marrazkiek ez ziruditen inondik ere kopia edo argazki, ez ziren **mekaniko** eta nortasun gabeak. **Xabier Olarra**

Aglutinazioa prozesu **mekaniko** soil bat da, non uztardura berez gertatu ohi baita. **Isabel Arrigain**

Ez dago esan beharrik ez ziola sekula jatorrizkoaren transkribapen **mekaniko** bati ekin. **Juan Garzia**

Birtuosismoa, partituraren irakurketa pertsonala egiteko ahaleginik gabe, errepikapen **mekaniko** eta hotza baino ez da. **Alberto Barandiaren**

Literaturaz hutsaren hurrengoaren itzala ere sumatzen ez duen batek nahas ditzake ulermenezko irakurketa **mekanikoa** eta literatur gozamenaren, baterako jarri behar den hizkuntza ezagutza eta besterako behar den literatur estiloa. **Anjel Lertxundi**

Mimoa batuta mugitzen hasi zen, modu **mekanikoan**, eta zakurrak, sekulako ezusteko izuak harturik, ihes egin zuen. **Anjel Lertxundi**

Errealitatea aztertzeke modu horrek kanpoan uzten zuela -edo modu **mekaniko** eta txit ximplean ulertzen zuela- "kultura", "ideologia" edo "bizimodua" deitzen den alderdi ez hain fisiko hori. **Bernardo Atxaga**

## 5 (izenondo elkarketan)

Halabeharra delako zer hori kasualitate **mekaniko** -fisiologiko hutsetatik ondorioztatzea, hori ez da gizaki moderno baten jokabide duina. **Joxe Austin Arrieta**

Bizitza politikoaren kontsiderazio **mekaniko** -razionalistari, organiko-tradizionalista oposatzen dio. **Joxe Azurmendi**

Zabortegiak albo batera utziz, bi tratamendu edo kudeaketa mota daude: erraustea eta aurretratamendu **mekaniko** -biologikoa. **Berria - Euskal Herria**

Elkarlotura fisiko-**mekanikoari**. **Ibon Uribarri**

## • 6 iz mekanikaria.

Ikasi eta lanbide ona edukitzea nahi dut, **mekaniko** edo... esan zion Karmenek. **Xabier Montoia**

**Mekaniko** on batek, auto baten hotsa entzun orduko, bazakik non dagoen matxura. **Juan Kruz Igerabide**

**Mekanikoen** jefekak, Pedrok, Ingeniari esaten zidan eta beste **mekaniko** guztiak ere Ingeniari esaten zidaten. **Unai Elorriaga**

Nezgozioak hondoa jo zuenean, **mekaniko** lanak egiten hasi zen Ondarroan, 'Mercedes' kamioiak konpontzen. **Xabier Etxabe**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arazo mekaniko (3); aurretratamendu mekaniko (9); aurretratamendu mekaniko biologikorako (6); erresistentzia mekaniko (4); keinu mekaniko (3); mekaniko biologikoa (6); mekaniko biologikoa (3); mekaniko biologikorako (6); panpina mekaniko (5); praktikoa eta mekaniko (3); tailer mekaniko (3); tratamendu mekaniko (4); tratamendu mekaniko biologikoa (3); zaldi mekaniko (3)

fabrikazio mekanikoa (4); laranja mekanikoa (13); matxura mekanikoa (3)

arazo mekanikoak (3); arazo mekanikoak izan (3); beso mekanikoak (3); eta mekanikoak (8); mekanikoak egiten (3); mekanikoak izan (3); propietate mekanikoak (3)

modu mekanikoan (3)

laranja mekanikoari (6)

mekanikoen jefekak (3)

eskailera mekanikoetan (6); eskailera mekanikoetan gora (3)

## mekanikoki *adlag* era mekanikoan.

Ruche jaunak marrazki hau egin zuen, **mekanikoki**, paperezko musuzapian. **Jon Muñoz**

Gezurrezkoa da... gezurrezkoa -errepikatu zuen doinu lauz, **mekanikoki**. **Ander Irizar**

-Jose Ramon Goikoetxea -erantzun diozu, **mekanikoki**, ondoriorik kontuan hartu gabe. **Rafa Egiguren**

Beatrizek **mekanikoki** bota du azken esaldia, formula bat baillitza, inongo ironia aztarnik gabeko tonuan. **Iban Zaldúa**

Erabateko isiltasuna dago beti Zaron, elizako erlojuaren ahots erlastuak baizik ia eteten ez duena, intziri-hots batekin **mekanikoki** emanez orduak. **Koro Navarro**

Kakahuete bat **mekanikoki** zuritu eta ahoan sartu zuen. **Lopez de Arana**

Txakur bat zaunka eta zaunka ari da, **mekanikoki**, etengabe. **Oskar Arana**

Naturak bere lana egiten jarraitzen zuen **mekanikoki**, haurrik ez bazegoen ere. **Joseba Urteaga**

Ez dago prozedurarik **mekanikoki** erabakitzeke formula oro logikoki baliozkoa den ala ez. **Askoren artean**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errepikatu zuen mekanikoki (3); ia mekanikoki (3); mekanikoki errepikatzen (3)

## mekanikotasun *iz* mekanikoa denaren nolakotasuna.

**Mekanikotasuna** sumatzen du gogamenean, eta maiz alderatzen du bere gogamena paralelean osagai asko lituzkeen ordenagailu batekin [...] eta "ordenagailu-lan"tzat hartzen du, hain zuzen, bere pentsakera, ordenagailu-artxibo sail bat begitانتzen baitzaio bere oroimena. **Xabier Olarra**

Buruzagiak kutsatuta gerta daitezke jarraitzaileen **mekanikotasunaz**, eta emaitza zibilizazio gerarazia izango da. **Iñaki Mendiguren**

Nahi bezalako gurak, joerak eta abar onartuko baditu ere, ez dago **mekanikotasun** dinamiko bat besterik: materiaren mekanismoa, molekulen mekanismoa, zelulen mekanismoa, organoen mekanismoa, psikologiazko mekanismoa, pentsamenduen mekanismoa, kulturaren mekanismoa. **Jenaro Garate**

## mekanismo 1 *iz* higidura bat eragiteko edo eraldatzeko antolaturiko elementuen multzo egituratua.

Gero atearen **mekanismo** elektrikoaren durundioa. **Koldo Izagirre**

**Mekanismoa** koipeztatzeko eskatu beharko zion Alberti. **Jon Muñoz**

Eroloja eta antzeko **mekanismo** konplexuak. **Xabier Olarra**

Asaldatzen zenean, **mekanismo** baten indar eta zehaztasunarekin hasten zen lanean, prentsa hidrauliko baten antza hartzen zuen. **Jose Morales**

Jauregia, korda emandako **mekanismo** bat baillitza, berpizten hasia zen azken orduetan. **Xabier Olarra**

Mailadian gora abiatu zen, **mekanismo** ikusezin batek haren mugimenduak bideratuko balitu bezala. Metal klaskada bortitz batek adierazi zigun metrailetaren **mekanismo** hilgarria prest zegoela berriro. **Aritz Gorrotxategi**

## 2 ondorio bat eragiten duten organoen aritze egituratua.

Beroa kontrolatzeko **mekanismoa** oso ondo diseinaturik dago gizakietan. **Irene Aldasoro**

**Mekanismo** optiko horrek, bi irudi bateraraziz, objektuaren distantzia adierazten du eskala batean. **Irene Aldasoro**

Sudurrak askoz **mekanismo** hobea du ura lurrunarazi eta airera bidaltzeko, eta, hala, gorputzetik beroa galtzeko. **Irene Aldasoro**

Karbono-dioxidoa biriketan pilatu ahala, **mekanismo** automatiko bat abiarazten baita, arnasarik ez hartzeko nahi kontzientea baino indartsuagoa. **Irene Aldasoro**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Estatu Batuetan, lantegi nuklear bat lehertzeko zorian gelditu zela, segurtasun **mekanismo** guztiak huts egin ondoren. **Pello Salaburu**

Konplikaturia da gatzatze- **mekanismoa**, baina irtenbide eraginkor bat ematen dio arazo zail bati. **Irene Aldasoro**  
Pixka batean eguzkitan egoteak babes- **mekanismo** bat jartzen du abian: lehenik melaninak [...] epidermisera migratzen du, eta, gero, berriz, melanina gehiago ekoizten da. **Irene Aldasoro**

Goportzeko atal bat mugitzea erabakitzearen ahalegin kontzienteak egonkortze- **mekanismo** landu bat jartzen du abian. **Irene Aldasoro**

Orobat eskaintzen du odolak kontrol- **mekanismo** bikain bat goportzaren tenperatura egonkor mantentzeko. **Irene Aldasoro**

Giltzurrunak, bada, ez dira iragazki edo kontzentrazio- **mekanismo** huts bat. **Irene Aldasoro**

Arbuiatze- **mekanismo** hori ez da huts ezina (bestela, ez genuke eritasun infekziosorik izango). **Irene Aldasoro**

## 4 gertakari edo prozedu bat gertatzeko era.

Ideologia banakoaren identitate eraketan funtzionatzen duen **mekanismo** bat da. **Berria - Kultura**

Legelariak, ezkutuko mago ikusezin baten antzera, **mekanismo** guztia gobernatzen zuen. **Jose Morales**

Freuden iritzian, "ezaguna berraurkitzea" eta "ezagutzen ez dena ezagutzen denarekin lotzea" dira, oro har, plazerra lortzeko **mekanismo** nagusietako batzuk. **Josu Zabaleta**

Ironia autodefentsarako **mekanismo** bat da, errealtatearengandik distantzia markatzeko. **Ana Urkiza**

Tesi liberalen kontra, merkatuaren **mekanismo** autoerregulatuak huts egiten duenean, estatuaren esku-hartzea beharrezkotzat jotzen du. **Iñaki Heras**

Maitemintzen al dira oraindik gazteak, ala, **mekanismo** hori dagoeneko obsoleto bihurtu ote da, alferreko, atzeratua, lurrunezko lokomozioaren moduan? **Oskar Arana**

Beldur dio gaizki ulertuen **mekanismoa** aktibatu izanari. **Anjel Lertxundi**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zein **mekanismo** -klase aktibatzen dira pertsonaia historiko bat pertsonaia mitiko bihurtzen denean, zer gertatu zen Garibai ez zerurako ez infernurako gera zedin? **Anjel Lertxundi**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zein defentsa **mekanismo** jarriko ditu martxan nartzisismo zaurituak iraganari aurpegi ez emateko, ezer gertatu ez balitz bezala jarraitzeko, agian ETarekin identifikaturik aurrerantzean ere jarraitzeko? **Joseba Zulaika**

Imitazioa dago eraldatze **mekanismo** askoren oinarrian. **Iñaki Arranz**

Bere idatzietan azpimarragarria da merkatuaren balizko erregulazio **mekanismo** autonomoari egiten dion kritika. **Iñaki Heras**

Kreditu **mekanismo** hauen bidez merkatu ekonomien minbizia sortu da. **Iñaki Heras**

Konkurrentzia- **mekanismoaren** aplikazio sistematikoegi batetik babesteko. **Koro Navarro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**babes mekanismo** (6); **defentsa mekanismo** (3); **lortzeko mekanismo** (3); **mekanismo bat ezartzea** (3); **mekanismo konplikatu** (3); **mekanismo landu** (3); **segurtasun mekanismo** (3)

**hizkuntza mekanismoa** (4); **hizkuntzaren mekanismoa** (5); **mekanismoa martxan** (4); **zelulen mekanismoa** (3)

**aire etorri mekanismoak** (3); **garapen garbirako mekanismoak** (3); **kontrol mekanismoak** (6); **mekanismoak abian** (3); **mekanismoak martxan** (5); **mekanismoak sortu** (3)

## mekanizatu<sup>1</sup>, mekaniza, mekanizatzen 1 du *ad* makinez hornitu.

Zentroaren jarduera gustiz **mekanizatu** egoteaz gain, 1996tik erreprografia zerbitzua eskaintzen du, informazio dena CD-Rometan edo mikrofilmetan digitalizatzeko. **Berria - Harian**

## 2 mekaniko, automatiko bihurtu.

Haren [hizkuntzaren] hazkundera geldiarazi, malgutasuna zurrundu eta erabilera **mekanizatze**ko. **Xabier Olarra**

Kontu handiz hasi da hodi txiki estua eratzten, jadanik **mekanizatutako** antzinako erritual magiko batean bezala. **Sonia Gonzalez**

Bestalde, gaur egungo politikoen lana nahiko **mekanizatu** dagoela uste du Aulestiak. **Berria - Euskal Herria**

Ez nuen sekula **mekanizatuko** Schumannen piezaren azken partean jokatzeko den bi eskuen arteko elkarriketa. **Anjel Lertxundi**

## 3 pieza bat makinan bidez ekoizti edo tratatu.

Kooperatiban pieza estrategikoen mekanizazio lanak egingo dituzte: konplexutasun tekniko handia, balio ekonomiko handia eta goi mailako doitasuna duten piezak **mekanizatuko** dituzte. **Berria - Ekonomia**

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Industria **mekanizatuak** ezarritako arauketaren eta arautua izatearen aurkako giza erresistentzia setatiaren arteko borroka. **Iñaki Mendiguren**

Teknologia **mekanizatuak** bazter utzia zuen orain gizarte- eta ekonomi testuinguru hura, non famili ugalkortasunaren gurtzak zentzu ekonomiko eta soziala izan baitzuen. **Iñaki Mendiguren**

Pentsa genezake gizadiaren hurrengo arazoa gizarte **mekanizatuaren** bizitzan aisiaren papera izango litzatekeela. **Iñaki Mendiguren**

## mekanizatu<sup>2</sup> iz makinan bidez ekoizteko prozesua; prozesu horren ondorioa.

Baina badaude enpresa txikiak piezak eta **mekanizatuak** egin dituztenak. **Berria - Harian**

## mekanizazio 1 iz mekanizatzea, makinez hornitzea.

Mediterranean isurian laborantzaren **mekanizazio** handiak eraldaketa sakonak gauzatu ditu ingurumenean. **Berria - Euskal Herria**

**Mekanizazioak** industri langilearen buruan tirabira sortu zuen bere lanarekiko sentimenduen eta bere aisiarekiko sentimenduen artean. **Iñaki Mendiguren**

**Mekanizazioak** arauketa esan nahi bazuen, eta arauketa horrek langile-klase industrialari eta ondoren klase ertainari espiritua kentzen bazien, posible ote zen giza eskuek makina ahalguztiduna kalterik gabe erabiltzea? **Iñaki Mendiguren**

## 2 irud/hed

Bizitzak energia aurrezteko duen bidea **mekanizazioa** da. **Iñaki Mendiguren**

Teknologia modernoak **mekanizazioa** edo arauketa ekarri zuen, eskulangileena ez ezik, baita hauen ugazabena (nazionalizazioa, etab.), herri-administrazioarena ("burokraziazioa") eta politikariena (alderdi-diziplina). **Iñaki Mendiguren**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Brasilgo General Motors eta Volkswagenerako garatutako fundizio eta **mekanizazio** proiektu berriak. **Berria - Ekonomia**

Galdategia [...] **mekanizazio** plantaren alboan egoteak gainera, ekoizpen jarraia egitea ahalbidetuko dio. **Berria - Ekonomia**

Kooperatiban pieza estrategikoen **mekanizazio** lanak egingo dituzte: konplexutasun tekniko handia, balio ekonomiko handia eta goi mailako doitasuna duten piezak mekanizatuko dituzte. **Berria - Ekonomia**

Himach-en helburua errendimendu handiko **mekanizazio** prozesu berrien ikerketan sakontzea izango da. **Berria - Ekonomia**

Eraikin berriak **mekanizazio** zentroa, metrologiako eta eskala submikrometrikoan egiaztatze laborategia eta bulegoak ere izango ditu. **Berria - Ekonomia**

## mekanizismo

Isabelle Aguerre 43 urte lanik gabe, Batita Arotcarena 51 urte laborari, Florence Barneto 27 urte dentista laguntzaile, Jean-Claude Bidart 29 urte **mekanizier**, Ana Costa 41 urte erizain etxetan, [...]. **Herria**

## mekanizismo

iz teoria filosofiko edo biologikoa, zernahi gertaera lege mekanikoen bidez azaltzen ahal dela dioena.

**Mekanizismoa** bai historiaren eta bai arimaren ezeztatpena da. **Joxe Azurmendi**

Zezenketa eta autofedeek erakutsi zioten [Kant-] Espainia nazio «ankerra» zela eta ildo berean baieztatu zuen alemanek «**mekanizismoa**» maitatzen zutela, bai gobernuan bai armadan. **Berria - Kultura**

## mekanizista

izond mekanizismoarena, mekanizismoari dagokiona.

Lanaren ikuspuntu **mekanizista** eta ekonomizista du oinarri eredu honek: lana, materialen kostuen antzera, beste kostu aldakor bat da. **Iñaki Heras**

Sarritan langileen motibazioa, parte-hartzea, polibalentzia eta abarren atzetik benetako ikuspegi antropozentrikoaren ordez ikusmolde **mekanizista** itxura berritua azaldu ohi da mamian. **Iñaki Heras**

Arraza eta ingurumenaren kausalitate **mekanizista** Volksgeist edo herri izpirituaren gainean. **Joxe Azurmendi**

Golema edo Gizon ikusezina bezalako literatur asmazioen osaketan beti dago zientzia **mekanizistaren** edo alkimiaren kontrako jarrera. **Anjel Lertxundi**

Datu horien gainean eraki zen teoria **mekanizista** ez zen teoria zientifikoa, metazientifikoa baino. **Jenaro Garate**

## mekano 1

iz makinak, garabiak eta kidekoak muntatzeko jostailua, eskuarki metalezko piezez osatua.

"Ez dik meritu handirik, ez", pentsatu du, "arratsaldero **mekanoa** hartu eta garabi berbera egiteak". **Jokin Muñoz**

Baina amak ez daki **mekanoa** montatzen. **Jokin Muñoz**

Mundu bizia elementu kopuru finitu baten konbinazio modukoa da, eta **mekano** erraldoi baten itxura du, eboluzioak atergabe darabilen brikolajetik sortua. **Juan Garzia**

Espezieak konbinatoria batek, "Lego" joko edo **mekano** moduko batek sortu balitu bezala. **Juan Garzia**

Gazteluan sartu zen, sartzen den bakoitzean hain txikia izateak harritzen du, jostailuzkoa dirudi, lego edo **mekano** bat bezalako da. **Jon Alonso**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sapaia altua da, lau metro bai, eta horma bat, sapairaino iristen diren **mekano** -itxurako apalategi batez dago beteta. **Harkaitz Cano**

Gure gelako **mekano** -apalategi handian kokatu ditut diskoak, han eta hemen. **Harkaitz Cano**

Pabilioia erabat hutsik zegoen, hormen kontra jarritako **mekano** -apalak salbu. **Harkaitz Cano**

### 3 irud/hed

Udalak festetarako ekartzen ohi zuen zezen plaza aldakorretik **mekano** ketu bat baino ez zen gelditu, burdinazko hondakin erromatarra. **Koldo Izagirre**

### 4 mekano-erzeptore (orobat mekanoerzeptore) iz

Horretarako, ukipen erzeptoreak garatu zituzten - **mekanoerzeptoreak** ; guk haiengandik jaso genituen gero-, eta horien nerbio bukaerak bulkada elektriko bihurtzen dituzte estimulu mekanikoak; ondoren, bulkada horiek ziztu bizian burmuineko plazeraren gunera joango dira. **Luis Elberdin**

Larruzaleko geruza guztietan daude, eta **mekano-erzeptore** esaten zaie; izan ere, kanpotik datozen estimulu mekanikoak hartzen espezializatutako korpuskuluak dira. **Luis Elberdin**

## mekanoerzeptore ik mekano 4.

## mekanografa

iz andre mekanografoa.

Ondoan Serge zegoen, eta aurrez aurre Neues Tage-Buch-eko **mekanografa** bat, RotheK kontatzen zuena makinatzen, eta RotheK, berriz, Sergek esaten ziona kontatzen zuen. **Matías Mujika**

## mekanografia 1

iz makinaz idazteko teknika. ik daktilografia.

Ikastetxetik ateratzen zen Montse eguerdian, bazkalondoan zehatzago esanda, **mekanografia** ikastera, handik ehun metro eskasera zegoen beste moja-eskola batean, Jesuitinetan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### 2 (hitz elkartuetan) ik mekanografiko.

Ez zen oso erraza ekoizpen merkea sortzea, bolaluma bakoitza hamabi dolar inguruan saltzen baitzen, eta hori **mekanografia** lanetan aritzen zen norbaiten astebeteko soldata baitzen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## mekanografiatu

mekanografia(tu), mekanografiatzen 1 du ad idazmakina izatzi.

Hark, idazmakina aurrean duela, itzulita eta zuzenduta dauden testuak **mekanografiatzen** dihardu. **Iñaki Iñurrieta**

Sekula argituko ez ziren salaketak **mekanografiatzen**. **Harkaitz Cano**

Martxa hartan ez zituela sekula eskutitzak postaren garairako **mekanografiatuko**. **Irene Aldasoro**

Gutunen batzuk idazmakina **mekanografiatu** nahi bazituen, [...]. **Mirentxu Larrañaga**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Bulegoaren oroitzapen etsigarria, haren usaina, idazmakinen hotsa, hamaika aldiz errepikatutako esaldiak, aurpegiak, orri **mekanografiatuak**. **Lopez de Arana**

Geroago, gauez irtetean, Elseren ohar **mekanografiatu** aurkitu zuen tapizaren gainean, eta amorrua sentitu zuen lotsarekin batera. **Patxi Iturritegi**

Letra **mekanografiatuak** garunera amiltzen zaizkizun balak dira. **Lutxo Egia**

Alegiazko toki **mekanografiatu** batean. **Lutxo Egia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**letra mekanografiatuak (5)**

## mekanografiko

izond mekanografiari dagokiona. ik mekanografia 2.

Kopuruari dagokionez, helegiteak nabarmetzen du soilik zenbaki bidez dagoela adierazita, eta ea ez ote den «akats **mekanografiko** bat» izango. **Berria - Euskal Herria**

## mekanografikoki *adlag* mekanografiaren bidez.

Horretarako, Bernat Etxepareengandik 1970era bitarteko euskal literaturako 300 obra euskalki eta genero guztietakoak hautatu eta digitalizatu zituzten, ordenagailuan **mekanografikoki** kopiauz, artean ez baitzen lan horretarako eskaner egokirik. **Berria - Harian**

## mekanografo *iz* ogibidez testuak makinaz idazten dituen pertsona. ik **daktilografo**.

Inor ez zen **mekanografoa**, makal genbiltzan eta akats ugari eginez, baina hutsak eginda ere hala beharko zuen, ez baikenuen klixe gehiagotarako dirurik, ezta testuak ondo biribiltzeko astirik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hasieran **mekanografo** bidali zuen Mooney andreak alaba ale-merkatari baten bulegora. **Irene Aldasoro**

## mekanotubo *iz* egiturak eratzekeo tutu metalikoa, elkarri lotzen diren zatiez osatua.

Nobela ona izanez gero, **mekanotuboa** kendu ostean, ez da nabarituko egituraren astuntasuna. **Ana Urkiza**

## mekatroniko *izond*

Aparailu **mekatronikoak** sortzen dituzte. **Berria - Ekonomia**

## mekatxis *interj*

**Mekatxis**, laino zikin hauek! **Pello Zabala**

Haize zar honek ez al du aldatzeko asmorik...? **-Mekatxis** la...! **Pello Zabala**

## mekauen *interj*

Bakean utz ezazu atzerritar hitz larri itsusi hori... zer duzu, **"mekauen"**? **Ramuntxo Etxeberri**

**"Mekauen!"** zer errango zuten auzoek? **Ramuntxo Etxeberri**

**Mekauen** Satanas, atera zaio hortz estutuen artetik. **Pello Lizarralde**

## mekauendio *interj*

Aitari ere noiznahi entzuten nion mekaunenlaostia edo **mekauendioren** bat-, **Joan Mari Irigoien**

## mekauendios *(corpusean mekaunen dios soilik) interj*

**"Mekauen** dios, ez duzue pixa egiteko ere balio!", oihukatu du Korreok haserre, eta han doa. **Pako Aristi**

## mekauendioska *adlag* "mekauendios" esaka.

Joxe Mari **mekauendioska** azaldu zen, baina bueno, ohitua gizona, lanbidez, errai, tripa, odol, gorputz-isurietara, **Joxean Sagatzizabal**

## mekauenka *aldag* mekaunen esaka.

Tarrapataka haren etxerat abiatu nintzen, **mekauenka** eta zikina; eta izitua. **Jose Angel Irigaray**

## mekauenlaostia *adlag* "mekauenlaostia" esaka.

Entzun ezak ondo, mutiko: berriz ere halako alukeria batekin izorratzen banauk, bankilloari brilloa eta guzti atera beharko diok ipurdiairekin, **mekauenlaostia**!, berdin zaidak direktibak zer esaten duen, kabroi halakoa... **Xabier Mendiguren Elizegi**

## mekzikano ik **mexikano**.

## mekzikar ik **mexikar**.

## mekzikotar ik **mexikar**.

## mela<sup>1</sup> *izond* biguna.

Hark gozatutako argizagia bezain malgua eta **mela** zen Salemdarren poza, baina haien bihotzak eguzki hark berak lakartu eta gogortutako buztin-zokorren antzekoak izan behar zutela otu zitzaion Norari. **Anjel Lertxundi**

## 2 irud/hed

Gero eta hosto gehiago zegoen zimiterioko lurrian, gero eta lore gehiago; ereinotzaren usain **mela** zabaldu zen airean. **Bernardo Atxaga**

Sentiberatasun handiko pieza bati ekin zion ahots ezti **mela** batez. **Anjel Lertxundi**

mela<sup>2</sup> ik **melatu<sup>1</sup> 5; melatu<sup>1</sup> 6; melatu<sup>1</sup> 7; melatu<sup>1</sup> 8.**

# melanina 1 iz ugaztunen zelula batzuetan aurkitzen den pigmentu iluna.

Pixka batean eguzkitan egoteak babes-mekanismo bat jartzen du abian: lehenik **melaninak** (larruzalean dagoen pigmentu arre batek) epidermisera migratzen du, eta, gero, berriz, **melanina** gehiago ekoizten da. Irene Aldasoro

## 2 (hitz elkartuetan)

**Melanina**-geruzak, hala, kono eta makiletan zehar pasatzean behar bezala xurgatu ez den argi guztia desagerrarazten du. Irene Aldasoro

# melankolia *(36 agerraldi, 21 liburu eta 4 artikulutan; orobat melankonia 6 agerraldi, 4 liburu eta artikulua 1ean; Euskaltzaindiaren Hiztegian melankolia agertzen da, 'malenkonia' argibidearekin) iz malenkonia.*

Iheserako premiak eta ihes egin beharrak eta, aldi berean, urruntzeak sortzen zion **melankolia** alkoholaz arintzen saiatu zen. Matías Mujika

Lisboako fadisten **melankolia**. Herria

Beti Schumann; ez dut ezagutzen hura bezalakorik **melankolian** bertan goxo egiteko. Anjel Lertxundi

Ardura handiz uxatzen zuen **melankoliaren** gaitz guztiz kaltegarria. Askoren artean

Egia da, bai, irudimena eta **melankolia** eragiten dituzten hiriak direla ederrenak... Anjel Lertxundi

Gizonezko askok haustura-garaietan bizitzen dutena **melankolia** dela eta ez bakardadea; **melankoliak**, iraungo badu, galdu den zerbaiti buruzko bazka etengabea behar duela. Anjel Lertxundi

Zer da bestela bizitza, **melankoliari** ihes egitearen artea ez bada? Pako Aristi

# melankoliatsu *(orobat melankoniatsu) izond malenkoniatsu.*

Ez dakit alemanez, eta Schumann-en lied **melankoliatsuenen** bertsio frantsesak kantatzen nituen. Anjel Lertxundi

Motibo kuttunena ardiak ziren: ardi **melankoliatsuak**, bisitarietako ganbarako paretetarik aurpegikera galdetzailez, begi hustu eta urtsuz begiratzen zietenak. Xabier Olarra

Denbora guztian egiten du berba berak dakien moduan, **melankoliatsuaren** itxurak eginez, esanez niri zein bizimodu samina duen, beti kanpoan gauez, edanean, putekin eta bizimodu galduko beste batzuekin tratuetan, eta zein gogaiturik dagoen beti kabaretera joaten Edorta Jimenez

# melankoliko izond malenkoniatsu.

Etxe oneko seme **melankolikoek** bazuten zertaz hitz egin, zertaz eztabaidatu eta zertaz larritu eguneroko diru-saria urritu zitzaizkionean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Handikien begietan jende xumeak halako xarma **melankoliko** izaten duela eta printzeek ikaragarri maite dutela pobrezia erredimituaren ipuina. Matías Múgica

Zinea asmakizun **melankoliko** / iruditzen zait / Candilejas ikusi nuenetik. Pako Aristi

## melankonia ik melankolia.

## melankoniatsu ik melankoliatsu.

# melanoma iz melanina daukan tumorea.

**Melanoma** bat diagnostikatu zioten. Berria - Gaiak

Bost urtera hil zen, medikuek ez ziotelako garaiz atzeman **melanoma**. Berria - Euskal Herria

Ipurmasailean **melanoma** bat zeukan emakume astun bat zen hurrengo gaixoa. Bennettek, eskua irmo, arrautza gisako ebaki sakon bat egin, **melanomaren** inguruan hazbeteko tartea utziz, eta berrogei segundoan kendua zuen, gantz eta azal puska batekin batera. Xabier Olarra

**Melanomaren** zelulei proteina hori murriztu diotenean, «askoz motelago» hazi dira. Berria - Gaiak

# melar izond estua, mehea.

Otsailekoa ahul eta **melar** bazetarren ere, martxokoa harripetik zelatari, gihar sobrantez noiz irtengo, eta udaberriaren bihotzeko apirilak, berriz, larreak gizen-gizen ipini ohi dituela. Pello Zabala

# melartu, melar(tu), melartzen da/du ad melar bihurtu.

Han gelditu ziren, ximurtu ez ximurtu, flakiak jota, kolore malgu **melartu** makalddu horietakoei eutsi ezinean. Pello Zabala

# melaska *(orobat melaxka) izond belaska.*

Eguna argitzen ari zuen, eta horrek irrealtasun kutsu handiagoa eman zion Bixkiturriko geltokian, oraingoan autoaren argiak hara zuzendu beharrik gabe, bi gizonen gurutzatu zituzten egur **melaska** eta burdin barrak albora irristan botata argia pizturik pasa zen lokomotorari. Pako Aristi

Esku ttiki **melaxka** haiek ez zioten hilean partida bat baino gehiago jokatzen uzten. Berria - Kirola

# melaskatu, melaska(tu), melaskatzen da ad belaskatu.

Ikusten denean udan gauza guztiak beroarekin **melaskatu** egiten direla, ez bakarrik leku kirasdunetan, baizik eta baita osasuntsuetan ere; eta, aldez, berez kirasdunak diren lekuak neguan osasungarri bihurtzen direla, zeren eta hotzarekin sendotu eta irmotu egiten baitira. Santiago Iruretagoiena

# melatonina iz guruin pinealak jariatzen duen hormona.

**Melatoninak** atzeratzen du pubertaroaren hasiera. Berria - Gaiak

Roberto Sallti ikertzailearen arabera, telebistaren pantailak isuritako argia eta erradiazioak **melatonina** hormona sortzeko prozesua zapuzten du. Berria - Gaiak

Adituen ustez, guruin pituitarioak isurtzen duen **melatonina** izeneko hormonak zerikusia izan dezake aldaketa horiekin. Berria - Gaiak



# melatu<sup>1</sup>, mela(tu), melatzen 1 du *ad* fruitu batzuez mintzatuz, eguzkitan idortu.

Piko **melatua** baino ximurragoa duk atso zar zeken hori. **Patziku Perurena**

## 2 blaitu.

Media Lunako ate nagusiak kirrinka egin zuen irekitzean, haize kirriak **melatua**. **Juan Garzia**

Islaldi laburrak tartekatuz isurki berdexkaz **melatutako** atzamar meheak banan-banan zurrupatzeko-. **Jon Arretxe**

Kanpaia jo eta nire haziaz egongelako besaulki osoa **melatzea**? **Jon Arretxe**

-Titiburuak ferekatzen nabil, tente-tente jartzen ari dira, nire potxotxa **melatuta** dago eta taupadaka hasi da. **Juan Martin Elexpuru**

## 3 irud/hed

La Lunera izerdiak adina bustitzen zuen malenkonia antzeko batez **melatuta** heldu ginen. **Xabier Montoia**

Maiteminaren ekaitzetatik / **melatuta** atera ondoren / maitasunaren egutera epelagoetara / eramango nauten bideak. **Pako Aristi**

Ulu bakoitzean ultimatum mehatxagarria entzuten zuen, eta eguna jaio bezain laster jaikitzen zen, kezkaz **melatua**. **Fernando Morillo**

Krisialdi existentzial izugarrian murgilduta zegoen une hartan eta ondo etorri zitzaion gure guztiz bestelako filosofiaz pixka bat **melatzea**. **Jon Arretxe**

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Betazalak bustita eta itsaskorrek zituen ostera, eta erpuru batekin eusten zien begi-ordeei, musuzapi **melatuarekin** igurzten zituelarik. Agure errukitsu baten dendarxoan kendu ditut arropa lohii eta **melatuak**. **Mirentxu Larrañaga**

Amak labadora ireki zuen etxeko arropa pilda hura atera eta oilategian esekitzeko, eta han erori zen "Elur"en gorpu **melatua** arropa artetik. **Pako Aristi**

*Txof* egin du mami-ore **melatuak** kopetaren erdian jotzean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Trufan aritzen ziren, ikusita nolako apainkeria zaharkituarekin adierazten zituen esaldiak, eta zein intonazio handitsu eta ezti **melatua** erabiltzen zuen ideiarik txikiena adierazteko ere. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## 5 mela egin blai egin.

**Mela eginda** gaude Portura iritsi garenerako, baina irribarra ezpainenat. **Berria - Harian**

## 6 mela-mela egin blai-blai egin.

**Mela-mela egina** etxeraten zuen, eskuak urdin, zapata barruak, bai eta sakelak ere, urez beterik zituela. **Karlos Zabala**

Brivesca aldean euri-jasa izugarriak hasi zituen, eta **mela-mela eginda** iritsi nintzen Burgosera. **Pako Aristi**

Euriaren zirri-zarra etengabeak baso lehendik ere guztiz hezea nola **mela-mela eginda** uzten zuen begira. **Juan Luis Zabala**

Sarritan sudur gaineko begi-ordeak kentzen zituen begiak xukatzeke, musuzapi zimur, gris eta mela **mela egindakoaz** xukatu ere. **Mirentxu Larrañaga**

Izertitan blai zaudete biak, pistolari indarrez eusten dion eskua ere **mela-mela eginda** daukazu eta momentu batez eskuz aldatu behar duzu, praka bakeroen kontra lehortzeko. **Sonia Gonzalez**

**Mela-mela eginda** nengoen eta baita izerditan ere, bertan egosterainokoa baitzen eskailera haietako bahituran pilatuta zegoen bero hezea. **Anjel Lertxundi**

## 7 mela-mela egin mozkortu.

Aise igaro zezakeen, gau osoa, **mela-mela egiteraino** edaten zuten zurrutero kartsuak biltzen zituen mahaiaren inguruan. **Mirentxu Larrañaga**

## 8 mela-melatu mela-mela egin.

Ortega tenoreko literatura arrazialistaz **mela-melatu** dago. **Joxe Azurmendi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mela mela** (27); **mela mela eginda** (13)

## melatu<sup>2</sup> iz blaitzea, blai-blai egitea.

Kaguenlaputa, zelako **melatu** nazkagarria! **Jon Arretxe**

## melaxka ik melaska.

## melaza 1 iz azukrea egitean geldikin gisa geratzen den gai ilun, ezti eta lodia.

Sethek dio txarrokada bete **melaza** edo kanaberazko siropa lortuko duela. **Anton Garikano**

Bukatzeke **melazazko** budina, ahogozoa egiteko modukoa. **Iñaki Mendiguren**

Hagridek ontzi handi bat bidali zion, **melazazko** gozokiz betea. **Iñaki Mendiguren**

Haren atzean bor-bor entzuten zuten edabea, **melaza** bezain sendoa. **Iñaki Mendiguren**

## 2 (hitz elkartuetan)

Hagriden **melaza**-gozokiak matrailezurak itsatsita utzi zizkion. **Iñaki Mendiguren**

Imajina daitezkeen zapore guztietako izozkiak, sagar-tartak, **melaza**-tartak. **Iñaki Mendiguren**

## melekeria iz ipar milikeria.

Janariak: kir, salda, legatza koskera, ahatekume fartzitu sahetza jusarekin, kuiattoa esne opil gisa, lursagar xigortuekin, ardi gasna, gerezi erreximetarekin, **melekeria**.

Irulegiko arno xuri eta gorria, kafe ondokoarekin. **Herria**

Mistiko egiazkoa ez da **melekerietan** barreiatzen, pasio batek beretzen du. **Piarres Aintziart**

Dakidana haatik, bihotza bakean ez dudano eta osasun morala hein batean segurtatua, ez naizela itzuliko **melekeria** hutsez asmatuak izan diren bide kontsolagarri batzuetara. **Piarres Aintziart**

## meleloki *adlag* memeloki (?).

Roswellgo estraterrestren ondorengoak urrats bat egin zuen nigana, galdera berdina **meleloki** errepikatuz. **Itxaro Borda**

## melena iz ile luzea, adatsa.

Arkatz batekin heldurik zeukan **melena** luze eta korapilotsua, ikusi nuen lehenengo aldi bezala. **Eider Rodriguez**

## melena *izond* melena duena.

Zigarroa lepo pareraino jaitsi eta **melenadun** iritsi berriari irribarre urduria zuzendu zion. **Harkaitz Cano**

## melenga 1 *izond* gozoegia izanik gogaikarria gertatzen dena; belaxka.

Hilabete haietan, begitan hartu nuen morroi hura; likatsua iruditzen zitzaidan, **melenga**, ia-ia lizuna, ez sexuari zegokionez zuzen-zuzenean, baina bai halako sexualitate "sublimatu"tik zetorkion zerbaiten kariaz. **Juan Kruz Igerabide**

Kristaukeria **melengaren** argazki ezin doiagoa baitzen apaiz gazte hura nire iduriko. **Juan Kruz Igerabide**

Adeitasun handiz jokatzeko zuten denek, hala ofizialek, nola damek, nola frakez jantzirik gizonak; gogaikarri ere gertatzen ziren **melengaren melengaz**. **Jose Morales**

Azken finean, ez baitzuten nahi hiltzear zegoen mundu baten pastel koloreko argazkiei -baserri maitea, baxurako ontzi liraina, ezkila-dorre baketsua, legatza kokxera eran buztinezko kazolan- egokitu lekizkiekeen oin-testu **melengak** idaztea baino. **Ramon Saizarbitoria**

Leonardo di Caprio bonboi **melengaren** portreta, "Titanic" filmearen pasarte batean. **Aingeru Epaltza**

"Nire bihotzaren hondora" esan nezakeen, baina hain **melenga** ere ez nintzen. **Harkaitz Cano**

Xeratsua izan nahi zuen ahots **melenga** batek. **Migel Angel Mintegi**

Lau salmo oraino eta apezak boz **melengaz** zerua zerua saritzatabestiaren lehen notak hegaldarazi zituen. **Itxaro Borda**

Bagoi barruko bozgorailuetatik entzuten zen musika **melengak** ez zuen ezinegona larritu baino egiten. **Juan Luis Zabala**

Sargori dago, eta mimosaren usain **melengak** itolarria areagutzen dio. **Patxi Iturrategi**

Marraka **melengaz** ardiak ulertzen nauela sentiarazten dit eta auhen luze batez, pentzean hedailo erortzen da. **Itxaro Borda**

Amerikarrei leitu diedan guzia [...] **melenga** eta giharrik gabea da. **Patziku Perurena**

Harrigarria da, berez maitagarritik ezertxo ere ez duten animaliei diegun kariño txepel, **melenga**, belaxka hori. **Joxerra Garzia**

## 2 mihi-melenga izond

Nor zen beraien arteko aingira-maingira mihi **melenga**? **Itxaro Borda**

## melengakeria iz gauza melenga, gaitzesgarritzat hartua.

Hori esan zuen, eta ez zuela uste izango **melengakeriak** gustatzen zitzaizkidanik, eta ahaleginak egingo zituela handik aurrera txeratsua izaten, berak nahikoa bazela uste zuen arren. **Ramon Saizarbitoria**

## melengaki *adlag* melengakeriaz.

Azteko jarlekuan, zigarroa **melengaki** erretzen, Kerguelen mandoa ezagutu zuen. **Itxaro Borda**

## melisma iz silaba bakar baten gainean abesten den silaba saila.

Sister Mariek oso trebea dela adierazi zigun modu atenperatuan gurguila eta **melismetan**. **Berria - Kultura**

## melismatiko izond melismarena, melismari dagokiona.

Gitarauean barrena, V. mendetik eta XIV. mendea arte doazen ereserki eta antifonak entzun genituen estilo **melismatikoan**, hots, silaba batekin nota asko egiten den horietakoa. **Berria - Kultura**

*Aleluia Surrexit Dominus* **melismatikoan** ere ondo. **Berria - Kultura**

## melodia 1 iz kanta daitekeen musika nota segida. ik doinu.

Sarriegiren **melodia** laster bihurtu zen festaren erreferentea. **Askoren artean**

Gitarra-joleak berak aitortu zuenez, Napoliko **melodia** bat zen hondarreko hura. **Joan Mari Irigoien**

Jai horietan garbi dago molde militarreko **melodiak** joko zirela. **Askoren artean**

Klimaxik gabeko **melodia**. **Oskar Arana**

Atsekabea adierazten zuten hitzez argitzen zuen, ahulki, **melodiaren** kadentzia: [...]. **Irene Aldasoro**

Gogoko zuen musika, baina Mary Jane jotzen ari zen piezak ez zuen **melodiarik** berarentzat. **Irene Aldasoro**

Jazz doinua ari da jotzen; ez dago **melodiarik**, notak baizik ez, ezin konta ahala bulkada txiki. **Monika Etxebarria**

Soinu txikiak eskuineko aldearekin **melodia** jotzen du eta ezkerreko aldearekin erritmoa markatzen du. **Koldo Izagirre**

Arta berezirik eskatzen ez duen tresna izatea; ikasteko eta jotzeko ere erraz samarra eta konpletoa nolabait, **melodia** eta laguntza batera jotzeko aukera ematen duenez.

**Koldo Izagirre**

Gitarra xumeki, pianoa duda-mudatan, **melodia** jario bigunean, bertso zehatza, ahots biluzia... ez dago beste autoritaterik. **Joseba Zulaika**

Gitarraren eta baxuaren arteko lehia dago egiten duten musikan, baina ahotsaren bitartez, bidea ematen diote **melodiari**. **Berria - Kultura**

Harentzako egindako hitzak abestuz edo haren **melodia** hortz artean kantatuz. **Oskar Arana**

Eszitazioa in crescendo doan **melodia** dela, gero eta gehiagora. **Luis Elberdin**

Jendea olatuen **melodia** bezalakoa zen: errepikakorra, batzuetan; txundigarria, bestetan. **Fernando Morillo**

## 2 (izenondoekin)

Bretainiar **melodia** tradizionalak. **Berria - Kultura**

*Belle Époque* **melodia** gozoz jantzitako garaia izan zen. haren proposamena *mainstream* kutsuko pop **melodia** itsaskorretara mugatzen zen. **Askoren artean**

Gero, izango da denbora maisuen lanen artean [...] **melodia** bihotz-altzagarriak bilatzeko. **Oskar Arana**

Ordubateak eta erdiak jotzerakoan, oso **melodia** zeremoniatsua entzunarazten zuen: mi-do-re-sol... sol-re-mi-do. **Txillardegi**

Mailukada eta soldagailu soinuek **melodia** zaratatsu bat osatzen dute. **Iban Zaldúa**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Melodia** zikloak egiten ditu, beti errepikatzen da oinarri bera, kiribil baten antzera, eta hortik abiatuta berak inprobisatzen du. **Berria - Kultura**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Resurreccion Maria Azkueren herri **melodiak** *Mila eta bat melodia* izenburuko lanean jasota daude. **Berria - Kultura**

Aspektu sozialak eta zuzeneko loturak jendearekin xekatzen ditugu hor, musika **melodiari** hartze duen parada emanez. **Herria**

Biolin baten aiene- **melodia**. **Fernando Morillo**

Astrid taldearen pop **melodiak** Oñatin. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**melodia berriak** (3); **melodia ederrak** (3)

**pop melodiak** (4)

## melodiatsu *izond* belarriarentzat atsegina dena. ik **melodiko 2**.

Freddy Malinsek erritmoa eramaten zuen bere pudding-sardexkarekin eta abeslariak elkarrengana itzultzen ziren hizketa **melodiatsuan**, indartsu kantari. **Irene Aldasoro**

Gandalf irten zenean, kanpai baten doinu argi eta **melodiatsua** entzun zen, gotorlekuko dorre batean errepika. **Agustín Osoa**

Baina jendeekin zein bihotz xamur, **melodiatsu** doinua. **Herria**

## melodika *iz* haizezko musika tresna, txirula tekladun baten eitekoa.

**Melodikan**, tonu naturalean afinaturik baitzegoen, re bilatu, eta harriak burdinan ateratako nota bera jotzen zuela baieztatzen nuen, harriturik. **Juan Kruz Igerabide**

Erregeek ekarria zidaten haizezko **melodika** baten bila. **Juan Kruz Igerabide**

## melodiko 1 *izond* melodiarena, melodiari dagokiona.

Gaur ezagutzen ez den tristura sakon bat daramate Gelatxoren piezek euren ibilbide **melodikoan**. **Pako Aristi**

### 2 melodia duena, belarriarentzat atsegina dena. ik **melodiatsu**.

Ekoizpen **melodikoa** da, eta ahotsa emoziorako tresna gisa erabiltzen du. **Berria - Kultura**

Punk-rock **melodikoaren** bidean. **Berria - Kultura**

Metal oso **melodikoaren** barruan kokatzen den diskoa. **Berria - Kultura**

Hard-rocka eta stoner **melodikoa** uztartzen ditu Ehiztarik. **Berria - Kultura**

Haren piezak oso **melodikoak** dira, aberatsak. **Pako Aristi**

Nire kantuak **melodikoak**, zuzenak eta freskoak dira, besterik gabe. **Berria - Kultura**

Jende adindua helduta dantzan jartzen duen musika **melodikoak** badu halako zahar kirats bat gaurko gazteentzat. **Pako Aristi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hardcore melodikoa** (3); **rock melodikoa** (3); **stoner melodikoa** (3)

## melodikoki *adlag* melodiaren aldetik.

*I guess that's why they call it the blues* kantuarekin kontzertuko une onenetakoa lortu zuen, **melodikoki** perfektua, baina Carla Etude instrumentalak eta Tonight balada

sinfonikoak musikariaren alderik arriskutsuena erakutsi zuten, bertuosismo hutsalari lekua egiten diona. **Berria - Kultura**

## melodrama *iz* herri xehearentzako drama, egoeren eta sentipenen gehiegikeriaz ikuslea hunkitzen ahalegintzen dena.

Babiloniako Puskailak jokatzeko zuten, aldi hartan Frantzia osoan arrakasta gaitza zeukan **melodrama** sonatua. **Koldo Izagirre**

**Melodrama** txar baten bukaera ematen zuen. **Imanol Zurutuza**

**Melodramak** gustatzen zitzaizkion Nerinari. **Anjel Lertxundi**

Dena loturik eta zorientsu amaitzen den suspentsezko **melodrama**. **Berria - Kultura**

-Badakizu herra diedala **melodrama** merkeei -bota ziezaiokeen neskak, bera ere aurki zotinka hasteko beldurrez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Melodramak** kate guztietan. **Sonia Gonzalez**

Lurpeko intimitate hartan, non beren gaztetxo txantxazaleen amodioek **melodramazko** dardarak izaten baitzituzten. **Karlos Zabala**

## melodramatiko *izond* melodramarena, melodramari dagokiona.

Villasúsen gorpura hurreratu eta ahots **melodramatiko** batez oihu egin zuen: [...]. **Josu Zabaleta**

Ez dut ikusten inola ere Rollebón jauna paper **melodramatiko** horretan. Mangle zuhaitzez inguratutako ibai **melodramatiko** irrigarri batean barrena eramango gaituen unti baten zain. **Monika Etxebarria**

Diru-arazo horiek ere beren alderdi **melodramatikoa** izaten dute. **Antton Olano**

*Abscent friends* du azkeneko lana, pop **melodramatikoz** beteriko lana. **Berria - Kultura**

Akabera tragikoetarako joera hori maiz agertzen zen Lulurengan; amaitzeko ideia horrek erakarri egiten zuen, nonbait, modu **melodramatikoan** amaitzekoak bereziki.

**Josu Zabaleta**

## melodramatikoki *adlag* era melodramatikoan.

Kafetegitiki **melodramatikoki** atera eta euripean "Alaitz!" oihukatzea otu zait. **Iban Zaldúa**

-Lana nahi al duzu? -esan zuen Martinek **melodramatikoki** -. **Lopez de Arana**

## melo *(orobat meloin g.er.)* 1 *iz* landare etzana, hosto gingildunak eta lore handiak dituena, eta fruitu handiak, biribilak edo arrautz itxurakoak ematen dituena (*Cucumis melo*).

Urrez eta zilarrez estaliriko zurezko idoloak **melo** -soroko txorimaloak bezala dira: ez dira ezer zaintzeko gauza. **Elizen arteko biblia**

Hor gelditu da Sion hiri ederra mahastian txabola eta **melo** -sailean txosna bezain bakarti. **Elizen arteko biblia**

Conques-etik Moissac-eraino, bertze aste batez behar da ibili, arto, ogi eta **meloin** landak zeharkatuz. **Herria**

### 2 landare horren fruitua, handia eta arrautza formakoa, haziak ilaretan dituena, eta mamia urtsua, gozoa eta jateko ona duena.

Gainera, zu ni bezalakoa zara, ez zaizu **meloia** gustatzen. **Itziar Otegi**

Gainera, zu ni bezalakoa zara, ez zaizu **meloia** gustatzen. **Itziar Otegi**

Mertxika bat 50 zentimo, **meloia**, 1,50 kiloa. **Josu Zabaleta**

-Espainiako estatu ereduaren erreformaren **meloia** ireki-ez ireki eztabaida dakar horrek gogora. **Berria - Euskal Herria**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bazen **meioi** saltzaile bat grazia handikoa, Jaengoa. [Jon Maia](#)

-Zoaz **meioi** -xerra horiek untxiei ematera. [Itziar Otegi](#)

Axenariok aurrena **meioi** -haziak eman dizkie, eta zukua berak edan du: ardo goxoa bezain goxoa da. [Itziar Otegi](#)

Pepinilo, piper, **meioi** -azal eta piperminez beteriko ontziek piperbeltz-usain hezea gorantz hedatzen zuten kiribilka. [Lopez de Arana](#)

### 4 pl adkorditiak.

Neska au Mari Carmen deitzen da, ez dezu ezautuko; amalau urte dauzke ta kriston **meioiak**. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

meioin ik **meioi**.

### melokotoi 1 iz mertxika.

-Martin, jango diagu **melokotoi** bat? [Alberto Barandiaren](#)

-**Melokotoi** hauek mailatuta daude. [Alberto Barandiaren](#)

-Almibarretako **melokotoiak**, besteak ez -zehaztu zuen-. [Ander Irizar](#)

Ohi baino bi kutxa **melokotoi** gehiago enkargatzen zuten Tuteran. [Alberto Barandiaren](#)

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Agian zuzendariaren **melokotoi** -aurpegiko ile barbanak izango zuen eraginik. [Anjel Lertxundi](#)

Urdaiazpiko muturrak, gazta pusketak, **melokotoi** xerrak. [Koldo Izagirre](#)

Nik **melokotoi** -zukuari trago bat egin nion, ezer erantzun gabe. Beatrizek **melokotoi** likorea pasatu zion, eta, bitan pentsatu gabe, barrura bultzatu zuen fruituz eta alkoholez eginiko edabe miragarri hura. [Juan Kruz Igerabide](#)

Bi katxi kalimotxo, bat **melokotoi** likorrarekin! [Pako Aristi](#)

### 3 adkor mozkorraldia.

Tabernaz taberna, edan eta txor-txor, txor-txor eta edan, azkenean sekulako **melokotoiarekin** bukatu arte. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Egia da baita ere ehundoko **melokotoia** arrapatu gendula, ta ia ez ginela ezertaz konturatzen. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

### melomano izond/iz muzikazalea.

"Voilà le sommet!", esan ohi omen du Baroi **melomano** handi-gurakoak. [Txillardegi](#)

Gure ustez, entzuleria zabalagoarentzako gehiago pentsatuta izan zen **melomanoentzat** baino. [Berria - Kultura](#)

### melopea (orobat melopeia) iz poesia lana, musikaz lagundurik beti-bateko doinuan esaten dena.

Eta orduan Pastoralaren aurkezpena egin du kantari nagusiak, "lehen pheredikia" delakoa, launa ahapaldi oholtzaren kantoietan emanez; eta beti ere makilakadak ibil-pausoen gidari, tonu biko **melopea** berean ari: [...]. [Txillardegi](#)

Elizetako **melopeien** gainean asmatutako erritmo errepikakorrak. [Berria - Kultura](#)

### melostar (orobat melostar) iz Melosekoa, Melosi dagokiona; Meloseko hirritarra.

Athenaik Melos hartu nahi du mendean bere inperioa sendotze aldera eta, **melostarrek** zuzenbidezko argudioak eskatzen dizkietenean [...], athenaitarrek oinarri orokorren erlatibotasuna gogorarazten diete **melostarrei**: [...]. [Askoren artean](#)

Errenditzen bagara, ihardesten dute **melotarrek**, egin du gureak; borrokan dihardugun artean, gutxienez itxaropena geratzen zaigu, laguntzaren bat edo eror dakigukeela nondibait, Espartatik ez bada zeruetako jainkoengandik apika... **Melostarrek** salatzen dutenez, probetxuaren eta komenientziaren legearen bidez neurtzen du Athenaik zuzenbidea. [Joxe Azurmendi](#)

melotar ik **melostar**.

### melotroi iz orkestra soinuak antzeratzen dituen musika tresna elektronikoa.

TSOOLEk kantu bihurriak egiten ditu, [...] garai bateko **melotroiak** errege dira une askotan. [Berria - Kultura](#)

### memela izond andreez mintzatuz, memeloa.

-Ez izan **memela**, Garbiñe! -esan zion Anak errieta egiteko moduan-. [Aitor Arana](#)

memeldu ik **memelotu**.

### memelo 1 izond ergela, tentela.

Argazki bakan eta engainagarriak, betaurrekodun **memelo** handi ile-nahasi hori eta besarkatzen daukan tuntun potzoloa, biak arrosa multzo baten aurrean. [Josu Zabaleta](#)

Nik aberats **memelo** bat harrapatuko dut egunen baten bere bizkarretik bizi izateko, baina sexurako, sexurako... zu bezalakorik ez! [Jon Arretxe](#)

Asteburuetan **memelo** mozkorti horiek nahi dutena jarri beharko diat. [Iban Zaldua](#)

-Oraino ez zakiat zer haizen -xuxurlatu zidan, bere aurpegia nireira hurbilduz-, marikoi zaharkilo bat edo, bertzerik gabe, **memelo** hutsa. [Aingeru Epaltza](#)

Gure nagusia **memelo** hutsa duk! [Patxi Zubizarreta](#)

-Aukera galdu duzu, **memelo** horrek! [Jose Morales](#)

Orain ez dugu **memeloarena** egingo, eta hanka sartu besterik egin ez dutenen estrategia ez dugu jarraituko [Berria - Euskal Herria](#)

2 irud/hed

Amaren jarduna bukatu orduko, aitak niri begiratzin dit, irribarre **memelo** batez, hitzik esateko ahalmenik gabe. **Anjel Lertxundi**

Hermioneek barretxo **memelo** bat egin zuen. **Iñaki Mendiguren**

Eta andereñoa -Harry txundituta geratu zen- irritxo **memeloak** egin eta gorritu egin zela, kapela alde batera okertuta. **Iñaki Mendiguren**

Kemen handikoa da gaiaren planteamendua, umeei askotan eskaintzen zaizkien argumentu koldar eta **memeloetatik** antipodetan dagoena. **Berria - Kultura**

### 3 (hitz elkartuetan)

**Memelo** aurpegi guztiz ezezagun bat irribarrez ikusi zuen Goiok erretratuko preterito inperfektuan. **Joseba Sarrionandia**

Beti **memelo** -bidaiak egin ditut, aitortut. **Fernando Rey**

Eta horrela balitz, **memelo** koadrila bat izango ginateke! **Berria - Euskal Herria**

## memelokeria iz ergelkeria, tentelkeria.

**Memelokeriak** esaten elkarri sakelako telefono fimiño eta koloretsua zela medio. **Jon Arretxe**

Hainbeste **memelokeria** entzunda kokoteraino. **Jon Arretxe**

**Memelokeriak** pentsatzen hasia nintzen. **Iban Zaldua**

Telesailtako esaldi estereotipatuak erabiltzen zituztela iruditu zitzaion Porturi, Hasiberriak-en eta entzun ohi diren **memelokeria** galantak alegia. **Patxi Iturritegi**

Espirituen liburua irakurri dut, **memelokeria** pila bat izango zela uste nuen, baina ez horixe, ederra iruditu zait. **Karlos Zabala**

## memeloputz iz adkor ergela, tentela.

Alegia, ilustrazioa, Europan beste historia askoren eran, historia **memeloputz** horretantxe dago kokaturik, enparauak baino hobe usteko, [...] Afrika eta Amerikako "primitiboak" edo literatura nordiko ez-grekolatino "barbaroak" ere goitik behera destainatuz bere gehiagotasun klasizista burgoitik. **Joxe Azurmendi**

## memelotu, memelo(tu), memelotzen (orobat memeldu) da/du ad ergeldu, tenteldu.

Gaur **memelotuta** nabilen... **Unai Iturriaga**

Mekaguendios bat bera ere jaurti gabe besarkatu zintuen, laztan zenezan, **memeloturik**. **Eider Rodriguez**

Labur-labur, guretzat: oraingo gizon hau (elizak, demokraziak, etab., arras kaskartu, **memeldu**, zirtzildua) gaingitu egin behar da. **Joxe Azurmendi**

## memento<sup>1</sup> (1039 agerraldi, 43 liburu eta 665 artikulutan; orobat mementu 298 agerraldi, 10 liburu eta 107 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegiari memento agertzen da) 1 iz oso denbora bitarte txikia, unea. ik momentu.

Esan genezake Joseph Asscher jauna bizitzako **memento** bakar batengatik gogoratzen den persona horietako bat izan zela, eta, nahiz eta ondo jakin inoren bizitza ezin dela **memento** batean laburbildu. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Beste aro alai bat etorri zitzaidan atzera, umorez beteriko **memento** askorekin. **Juan Kruz Igerabide**

Sekula ahantziko ez ditudan data eta **mementoa**. **Txillardegi**

Orai da **mementoa** orduko hitza ez ukatzeko. **Herria**

Konprendiarazi nahi nion, ikusiak ikusirik, ez zela orain **mementoa** errekan sartzeko. **Marzel Etxehandi**

**Memento** horretan, Txomin eta bertze hiru lagun sartzen dira, bata bertzearen ondotik. **Eneko Bidegain**

Orduan, eta **memento** horretan soilik, oroitzen zara ordularia eskumuturrean daukazula. **Ramuntxo Etxeberri**

**Memento** hartan, inspektoreak Mikel Strogoffen sorbalda ukitu zuen. **Karlos Zabala**

**Memento** berean gazteek muntatuko dute ostatu bat edateko eta jatekoarekin, bereziki taloak. **Herria**

Nahiz erabaki edo ekintza bera ez den izaten ahal [...] ona eta gaitza aldi berean, hura bera gerta daitekeela bizkitartean **memento batez** ona eta beste batez gaitza.

**Piarres Xarriton**

Zer bakea bihotzean holako **mementoetan**! **Herria**

Urteak joan zaizkigu geroztik eta, kontuak ateratzeko **mementoan**, ene herriari buruz aspaldian darabiltzadan zalantza, hausnarketa edo gogoeta batzuen biltzeko eta argitzeko unea etorri zaidala iduritu zait... *ik beherago* 4. **Piarres Xarriton**

Bagoiko bidaiariak, lehen **mementoan** begira geratu bazitzaizkion ere, berdin jarraitu zuten, isilik, kasurik egin gabe. **Iñaki Zabaleta**

Ez dugu **memento** bat ere galtzekorik. **Txillardegi**

Büchenwald-en, beren azken **mementoetan** lagundu dituen preso batzuen familiak ikusi nahi ditu Tolosan. **Marzel Etxehandi**

Baina azken **mementoan** tira-birak izan ziren. **Marzel Etxehandi**

Azken **mementoan** kanadarrek gaztigu-ostiko bat markatu dute. **Herria**

### 2 (izenondoekin)

**Memento** onean etorri ziren. Bazirudien orduan **memento** ona zela, [...] beste itxura baten emaiteko, elizaren eta estatuen ohiko harreman hertsiegiei, Jainkoaren Herriaren eta Herrien beren onetan. **Marzel Etxehandi**

Pasatu ditu **memento** txarrak, pasatu dituzke onak. **Herria**

Oso **memento** txarrean jarri nintzen gaixo. **Iñaki Mendiguren**

Parada ona dute beraz, familiako, lagun ala edozoin ikusleek, **memento** goxo baten pasatzeko. **Herria**

**Memento** goxoak eta latzak, esperantzaz beteak eta etsigarriak. **Herria**

Ainitz **memento** xoragarri iragan ditugu bi astez Quebec-en. **Herria**

**Memento** zailak ziren, gerla zibila bururatu berria baitzen. **Eneko Bidegain**

**Memento** azkar, fedez, euskal nortasunez beteak. **Herria**

Egia erran **memento** ilunak ere izan dira etxean, ba. **Menane Oxandabaratz**

Une honetan bake prozesuan aurrera egiteko **memento** erabakigarrian gaudela uste du sailburuak. **Berria - Euskal Herria**

Bizi izan dudana **memento** miresgarrienetarik izan da, bakartasunak oraino miresgarriagozten zidana. **Filipe Bidart**

Zer **memento** lazarriak, bihotz erdiragarriak! **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Zinez **memento** bihotz altxagarria. **Herria**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azpirarratu behar da 9tan ttanko hasirik, 12:30tan bururatu dela, artetik atseden **memento** bat segurtaturik. **Herria**

Debekatze **mementoan**, jadanik hil zorian zen. **Herria**

Batzutan kantu eta mahainak utzirik, hartu ditugu beste xoratze **memento** batzu ere. **Herria**

### 4 mementoan ipar memento honetan; oraingoz.

Eta beste harrabots mota frango, **mementoan** ezin bereziak, ezezagunak baina urrunak, biziki urrunak, denborarekin ezagutuko ditudanak. **Filipe Bidart**

Trenpu gaitzean dugu **mementoan**. Argaineko semea. Herria

Beren multxoan 14 talde badira eta **mementoan** seigarrenak dira. Herria

**Mementoan** ditugun salmenten arabera arrakasta handia izan behar luke aurtengo EHZ festibalak. Herria

**Mementoan** ordezkariak ez dira izendatuak izan. Herria

**Mementoan**, Annie-ren lanaren gatik Baionan bizi dira; gero agian gutarteret etorriko! Herria

Baina **mementoan** deusik ez da etorri. Herria

## 5 **mementoko** (*orobat mementuko*) oraingoz.

**Mementoko**, kantu bakarreko diskatxo bat dugu eskuratua. Herria

**Mementoko** horren esperantzarik ez düt Aita Sain্তু berriarekin. Herria

Barneko orrialdeak ere, ez baditugu **mementoko** koloreztatu, doi bat arramoldatu ditugu. Herria

Bazekien, neronek azalduta, **mementoko** behintzat, ez nuela uste hura akademikoki burutzea merezi zuenik. Txillardegia

Ez da deliberorik hartu **mementoko**. Herria

Jupeak libro utzi du **mementoko**. Herria

Ez da ene kasüa, **mementoko** bederen, bena postaz eta faxez ari gei düt harremanetan sartzeko, baita kazeta honen arartez, egün ja. Herria

## 6 **azken memento arte**

Hiru egunez jokatu da Davis kopa Parisen, hiru egun luze, **azken memento arte** ez ginakiela nork irabaziko zuen. Herria

Baina **azken memento arte** presoek lanean segitu zuten. Eneko Bidegain

## 7 **memento batez**

**Memento batez** dudan egonik, berriz konfiantxa hartzen du mutikoak Basoiren boza entzun ondoan. Michel Oronoz

Isilik egon ginen **memento batez**. Txillardegia

**Memento batez** erreakziarik gabe geratu zen igogailuaren ondoan. Iñaki Zabaleta

### hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken memento (3); biziko memento (3); memento bakoitzean (3); memento bat (16); memento batean (11); memento baten (3); memento batez (33); memento berean (26); memento egokia (5); memento egokian (3); memento goxo (40); memento goxo bat (15); memento goxo baten (21); memento goxoak (7); memento hunkigarria (7); memento jakin (3); memento on (5); memento ona (4); memento onak (4); memento onean (4); memento onik (3); memento txarrak (4); memento zailak (3)

azken mementoa (4); egiteko mementoa (3); mementoa da (8); mementoa izan (3)

azken mementoan (38); ber mementoan (14); hilen mementoan (3); lehen mementoan (5); mementoan bertan (5); mementoan hil zen (4)

azken mementoko (7)

azken mementoraino (3)

edozein mementotan (14)

mementoz ez dago (3)

## memento<sup>2</sup>

### 1 **hilen memento** mezaren kanoneko zatia, bizien eta hilen alde otoitz egiten dena.

**Hilen mementoan** Camino horrek berak irakurtu du Afrikako egunetarik eta orai arte hil izan zaizkoten lagunuen zerrenda luzea. Herria

Meza denboran **hilen mementoan** otoitz egina izan da Jaun Zerukoak bereganatuak dituen talde hortako lagunentzat. Herria

## mementoero (*corpusean mementuero soilik*) *adlag* memento guztietan.

Zelaian **mementuero** zekien nola jokatu, nagusi zen partida guztietan, borondate itzela eta taldekideak bultza egiten zituen une latzetan. Berría - Kirola

## mementoka *adlag* memento batzuetan. ik **uneka**.

58 minutako joko bizi eta zintzoa, ikusgarria **mementoka**. Herria

Aroa ezin hobea zen, askok ondartzaz ere baliatu baitute, hain zen **mementoka** bero handia. Herria

Horien inguruan gehien bat mintzatu direnak dira Frantxix Carricart, Jean François Aramburu eta Thierry Etcheto, bertze zenbaitzuk ere hitza hartzen zutela **mementoka**.

Herria

## mementoño *iz adkor* mementoa.

Ongi etorrietarik landa orai berriki itzalia den Albert Chabagno-ren aipamena egin izan da ixiltasun **mementoño** batekin, hunek elkarte hortan lan egiten zuen administrazio kontseiluan eta bazuen Euskal Herriko familia ainitzen ezagutza "Genealogia" hortan izanez ber gustu handia. Herria

## mementotxo *iz adkor* mementoa.

Argia ikusten zuen **mementotxoak** ziren. Berría - Kultura

Eta **mementotxo** horiek baliatu behar dira. Berría - Kultura

## mementu ik **memento**<sup>1</sup>.

## mementuero ik **mementoero**.

## mementuko ik **memento**<sup>1</sup> 5.

## memorandum 1 *iz* txosten diplomatikoa, negoziazio baterako gaiak biltzen dituena.

Espainiako Gobernuak berak, joan den 2004ko abenduaren 13an, **Memorandum** aurkeztu zuen Europako Batzordean. Berría - Harian

**Memorandum** honetan Europar Batasunak Espainiako hizkuntza ofizial guztiak onar zitzala eskatzen zen. **Berria - Harian**  
· Hurrengo goizean, harrigarriro laster, **memorandum** bat iristen zaio errektoreordearen bulegotik (ikasle-arloa), eta bertan jakinarazten diote erreklamazio bat aurkeztu dutela beraren aurka unibertsitatearen jokabide-araubideko 3.1 artikuluan oinarrituta. **Oskar Arana**

## 2 datuak biltzen dituen txostena.

Gerran-eta izandako esperientzien **memorandum** izugarri bat osatzen ari direla esan digu Prenz-ek. **Anjel Lertxundi**  
**Memorandumean** iragan 1942ko gertaerak laburbiltzen ditu. **Edorta Jimenez**

## memoria 1 iz oroimena, oroitzeko ahalmena.

Ezer ez da benetan gertatzen **memoriak** gordetzen ez duen bitartean. **Ana Urkiza**  
**Memoria** eta denbora dira Aureliaren gai nagusiak: **memoria** zaintzeari garrantzi handia ematen dio; **memoria** bere hizkuntzan dagoela aitortu du eta horregatik aritzen dela hitz galduen bila. **Ana Urkiza**  
Bere **memoria** ohitua dago aldeaz aurretik pentsatua buruan ongi gordetzen. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**  
Hitz egiten hasi dela, **memoria** ere errekuperatzen ari dela. **Joseba Sarrionandia**  
**Memoriak** huts egiten duenean. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**  
Zabal dezadan tabernako atea, eta sar bedi haize harroa istorio zahar batekiko ene **memoria** loratzera. **Pako Aristi**  
**Memoria** galdu banu bezala. **Daniel Landart**  
Nekea, depresioa, mugimenduak koordinatzeko zailtasunak, **memoria** galtzea, [...]. **Berria - Gaiak**  
**Memoria** lantzea ona izan daiteke Alzheimerra ahalik eta gehien atzeratzeko. **Berria - Gaiak**  
Ez zezakeen deus segurta, denborak **memoria** higitzen baitzion. **Itxaro Borda**  
Gure **memoriak** batez ere gauza onak gogoan izateko duen jarrerari esker. **Pello Salaburu**  
Bitxia da nola funtzionatzen duen **memoriak**. **Ramon Saizarbitoria**  
Eta horra hurbiltzeko **memorian** arakatzea beste biderik ez du. **Eider Rodriguez**  
Zerbaiz gogoratzeko duenarentzat da **memoria** plater hautsi bat. **Pako Aristi**  
**Memoriaren** ur uherretan murgildu naiz, zeren **memoriaren** urak kasik beti baitira uherrak, nahiz eta ezin gardenagotzat ditugun maiz. **Joan Mari Irigoien**  
Izan ere, ongi oroitzen zituen Tristanek paraje haiek guztiak, eta, aurrera joan ahala, **memoriaren** ur geldi baldarreko irudi urrunak joan zitzaizkion pixkanaka aktibatuz · Sufrimenduak **memoria** du eta ama bere oroitzapenetako leku ezkuturen batean bilduta egongo zen Ingorekin. **Aritz Gorrotxategi**

## 2 (izenondoekin)

**Memoria** ona duenak asko sofritzen dik, dena gogoratzen baitu! **Pako Aristi**  
Horretaz gogoratzen naiz, **memoria** txarra badut ere. **Monika Etxebarria**  
Gezurri guztiak bezala, **memoria** laburra zuen. **Koro Navarro**  
Zikoina ez bezala, gaur egungo gizartea oso **memoria** kaxkarrekoa da eta aise ahantzi du kulturen arteko elkarbizitzaren aldi gogoangarri hura. **Patxi Zubizarreta**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Miren aztoratuta dago bere **memoria** faltaren kariaz, eta nekez entzuten ditu mutilaren hurrengo hitzak. **Iban Zaldúa**  
Aurkikuntza honi esker, **memoria** arazoak tratatzeko modu berriak landu ahalko direla uste dute adituek. **Berria - Gaiak**  
Antz izugarria izanik ere, ordea, **memoria** ariketa soil baino gehiago nostalgia ariketa zirela esan zitekeen, sorkuntza lana alegia, haurtzarora berpizten eta ederresten saiatzen baitzen. **Joxean Agirre**  
Batzuetan, **memoria** -hutsarte bat edo amets bat eragiten du estimulazio elektrikoak. **Irene Aldasoro**  
**Memoria** tailer antzekoak ziren, baina ondo zuzenduta egin behar dira, emaitza batzuk bilatu nahian. **Berria - Harian**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Informazioa giza-**memorian** metatu eta informazio hori handik berreskuratzeko bideak asmatu. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**  
Perfumearena etorri zitzaion bat-batean, usaimen-**memoria** ona izan behar zuen lehengusuak. **Joxemari Urteaga**  
Leinuaren herio **memoria** zen. **Itxaro Borda**

## 5 oroitzapena, oroitzapen saila.

**Memoria** ez da argazki segida bat besterik. **Lander Garro**  
Esandako hitzak afektoaren **memorian** irauten du; irakurritako hitzak, aldiz, gogoetaren gordelekuan. **Pako Aristi**  
Oroimena dela eta, aipagarri egin zait Hannoverko **memorian** bizirik gorde dutela 1924ko hiltzaile ospetsu baten izena: Fritz Hartmann. **Edorta Jimenez**  
Hilezkor izateak txunditzen al zaitu? hara bada, maitea, larrua jotzen baduzu, gizonen **memorian** geratuko zara. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Frantziskoren hasierako lagunak [...] saiatu ziren Frantziskoren **memoria** bizirik mantentzen. **Askoren artean**  
Beti oroitutako eta maitatutako dugun hildakoaren **memoria** gordetzeko. **Bego Montorio**  
Ikastolan jasotakoaren **memoriak** huts egiten ez bazidan, garai hartakoa zen hain zuzen ere idazle lapurtarra. **Iban Zaldúa**  
Al-Gafiqiriren ospea eta **memoria** ahaztua dago ia, eta gogoratzen denean ere frankoek menperatu eta hil zutela gogoratzeko izaten da. **J.M. Olaiola "Txiliku"**  
Ez nuen ene anaia **memoria** zikindu eta saldu nahi. **Daniel Landart**  
Momentu berezi batzuen **memoria** atxikitzeko. **Ana Urkiza**  
Eta bizitzan zehar ikusitako arbolak **memoria** dugulako dakigu orain lehendabiziko ikusitako hori arbola bat dela eta ez beste zernahi, errealitateak oroimenaren baitan hartzen baitu ostatu. **Anjel Lertxundi**  
**Memoria**, oroitzea, hori da bizitza, biziera bakarra, bata bestearengana izan dezakeen lekua. **Lourdes Oñederra**  
Gerra hartan fusilatutako eta desagertarazitako askoren hezurak bolada honetan ari dira agertzen, **memoria** eske. **Jokin Urain**  
Erdi Aroan garatutako barne-sentimena (**memoria**, imajinazioa, etab.) teoriarekin analogia eginez herri bat badagoelako kontzientziari eutsi, erraustu ziguten **memoria** berpiztu, galtzailearen arazoia errebindikatu. **Askoren artean**  
Bere agiriak **memoria** mayaren zati dira. **Txema Ramirez de la Piscina**

## 6 (izenondoekin)

Gure baitan dagoen materia horrek gordetzen duen **memoria** ñimiño hori ari zaiguk hizketan, guk garunaren akats jotzen dugun horretan. **Harkaitz Cano**  
**Memoria** lanbrotzua da. **Jokin Urain**

## 7 informatikan eta, gero erabiliko diren datuak eta jarraibideak biltzen diren gailu eskuarki elektronikoa.

Izena markatuta, trastearren **memoriak** zenbaki bat egotzi zuen pantaila argiztatu estura. **Aingeru Epaltza**  
Konputagailu baten **memoria** edo informazio-gordailua zinta magnetiko batean sar daiteke. **Irene Aldasoro**  
Konputagailuaren diseinatzaileak, bada, lastertasun handiko **memoria** horietariko bat jarriko du maiz beharko den informazio eta instrukzioetara iristeko. **Irene Aldasoro**  
Edukiera handiko **memoria**. **Irene Aldasoro**  
Bere aldi bereko **memoria** sei tetrabytekoa (sei bilioi bytekoa alegia) da, eta disko zurrunean 160 bilioi byte sartzen dira. **Pello Salaburu**  
Oinarritzko bertsioak 320X24ko pantaila du, 32 ram megako **memoria**, Intel strong-arm prozesatzailea eta Linuxa du sistema eragileztat. **Berria - Gaiak**  
**Memoria**, disko gogorrean. **Joxerra Garzia**  
Teknologikoki, hobeto hornitutako formatua da Sonyrena, eta **memoria** handiagoko diskoak dira Blu-Ray formatukoak. **Berria - Gaiak**

Bi aplikaziotik, esaterako, kalkulagailu bana erabiltzen badute, zergatik ez kendu horietako bat **memoria** aurrezteko? **Berria - Gaiak**  
Barne **memoriak**, informazio pantailak, telekomandoari erantzuteko prestutasuna, bateriak betetzeko funtzioa... **Berria - Gaiak**

## 8 txostena.

Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko familiak duten zorpetze maila inoiz izan gabeko mailan dagoela jakinarazi zuen atzo 2003ko **memoria** sozioekonomikoaren aurkezpenean. **Berria - Ekonomia**

Osalanen 2005eko **memoria** onartu da, baina desadostasunak handiak dira alde guztien artean. **Berria - Ekonomia**

Isabelle Duguine Agur-ekoak, euskal ikasketen sailean Toponimiaz [...] aurkeztu duen tesia edo **memoria** aipamen bereziarekin onartua izan zaio. **Herria**

Liburutegira itzuli nintzen abenduaren erdialdetik abandonatuta neukan **memorian** lan egitera. **Joseba Urteaga**

Chrétien de Troyesi buruzko bere **memoria** maiatzean entregatu behar zuen eta harrituta geratu zen nirea hasi berria nuela jakitean. **Joseba Urteaga**

J. Etcheberri delako baten ikasketa-**memoria** bat zirudiena, baina itsutasunari buruzko eskuizkribu laburra dena... lapurteraz idatzia! **Iban Zaldúa**

## 9 p/oroitzapenak biltzen dituen idazkia. ik behegero 12.

Beste modu batera esanda: Davidek idatzitako **memoriak** berridatzi eta zabaldu nahi nituen. **Bernardo Atxaga**

Simone de Beauvoir-en **memoriak** gehiago laketu zitzaizkidan bere *Bigarren sexua* baino. **Ana Urkiza**

Chateaubriand-ek kontatzen du *Hil ondoko* **memoriak** liburuan: [...]. **Iñigo Aranbarri**

Hori liburu batean kontatua du, gerraondoko **memorietan**, hantxe aipatzen nau...Sasi-erreferentziak emateko garaian maisu, **memoria** apokrifoa idatzi zituen. **Koldo Izagirre**

Bertan Ignacio Hidalgo de Cisneros errepublikar gasteiztarraren (1894-1966) **memoria** ezin interesgarriagoak jasotzen ziren. **Patxi Zubizarreta**

Nik uste gure familiaren menturazko **memoriak** idazten zituela, baina hainbeste emanalditan, ze ez ziren inoiz bukatzen. **Pello Lizarralde**

Kroniketan, **memorietan**, gutun-trukaketetan eta eskolioetan aurkitzen da haien obra. **Juan Garzia**

## 10 memoria historiko

Elkarteak urteak daramatza gerra garaiko **memoria historikoa** berreskuratu nahian. **Berria - Harian**

**Memoria historikoa** berreskuratzeko irudiak. Badira **memoria historikoari** eutsi nahi izaten dioten gasteiztarrak, eta martxoaren 3ko gertakari latzak gogora ekarri zituzten atzo berriro. **Berria - Kultura**

Nazioak haiei lotuta dauden gizakiek egiten dituzte eta lotura horretan dago **memoria historikoa**. **Berria - Harian**

**Memoria historikoa** iraganarekiko errespetua dela, eta biktimitatearen sentiberatasuna. **Memoria historiko** bat, esango genuke gaur apika; imajinario bat, mitologia bat. **Berria - Harian**

Europar parrerik ez duen **memoria historiko** tragikoa heredatu dugu etxeetan. **Joxe Azurmendi**

Espainiako Gobernuak onartuko duen **Memoria Historikoaren** Legearen barruan sartuko dira Gasteizko martxoaren 3ko gertaeren biktimak. **Berria - Euskal Herria**

## 11 memoria kolektibo

Egitura dramatiko soilak dira [...] **memoria kolektiboan** gordeak eta ahoz zabalduak, sorketa literario etengabe berriei bidea egiten dietenak. **Bernardo Atxaga**

**Memoria kolektiboari** lekua egingo dion museo baterantz. **Berria - Kultura**

Sarriegi da, dudarik gabe, Donostiako hiriaren irudikapenik biziena herri memorian sustatu duen musikagilea, eta era berean da **memoria kolektiboan** finkatuena dagoen erreferente emozional eta sentimenduzkoaren eraikitzailea. **Askoren artean**

Oraindik 36ko gerraren inguruko **memoria kolektibo** osatu gabe dago; eta hori gertatzen ez den bitartean, gertatu zena ezagutarazteko ekimenak beharrezkoak dira. **Berria - Euskal Herria**

Indarkeria «premia» desager dadin, «gertatutakoaren **memoria kolektibo**» manten dadin eta biktimen ezagutza gerta dadin. **Berria - Euskal Herria**

**Memoria kolektibo** bat, makrotestu bat, izan erreallitatearena edo irudimenezkoa, osatzen dute Mendez Ferrinen prosazko lanek. **Berria - Kultura**

## 12 memoria-liburu oroitzapen liburua.

*La Risiera di S. Sabba* erdi nobela erdi **memoria liburuan**. **Anjel Lertxundi**

Bere **memoria-liburuak** irentsi egin nituen. **Ana Urkiza**

Canok hitzaurrean dioenez, pertsona baten **memoria liburua** baino areago, pertsonaia baten **memoria liburua** da *Groucho eta ni*. **Berria - Kultura**

"1942ko urte ikaragarrian -dio emazteak Travels With Another and Myself bere **memoria liburuan** -, ni neu eguzkitan bizi nintzen, salbu, eroso eta hura dena gorrotatzen". **Edorta Jimenez**

**Memoria liburu** bat izan nahi du honek, balantze siple eta delikatua, biografia baten antzekoa, baina ez tamainan agidanez, 189 orri baino ez dakartza-eta. **Berria - Kultura**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

biktimen **memoria** (3); **euskal bidaiarien memoria** (3); **harrien memoria** (3); **herriaren memoria** (7); **memoria bat** (4); **memoria berreskuratu** (6); **memoria berreskuratzea** (4); **memoria berreskuratzeko** (7); **memoria galtzea** (3); **memoria galtzeko** (3); **memoria galtzen** (7); **memoria historiko** (8); **memoria historiko bat** (3); **memoria historikoa** (51); **memoria historikoa berreskuratzea** (5); **memoria historikoa berreskuratzeko** (17); **memoria historikoaren** (9); **memoria historikoari** (3); **memoria kolektiboa** (4); **memoria kolektiboan** (4); **memoria kolektiboaren** (5); **memoria lantzeko** (4); **memoria liburu** (4); **memoria liburua** (11); **memoria liburuak** (3); **memoria liburuan** (7); **memoria ona** (19); **memoria ona dut** (3); **memoria ona izan** (3); **memoria onekoa** (4); **memoria pixka bat** (3); **memoria txarra** (5); **urteko memoria** (3)

**begiradak eta memoriak** (7); **bere memoriak** (6); **euskaldun baten memoriak** (12); **idatzitako memoriak** (4); **memoriak huts egiten** (4); **memoriak idatzi** (3); **memoriak idazten** (3); **tristeen memoriak** (3)

**bere memorian** (3); **memorian iltzatuta** (3); **nire memorian** (9)

**bere memoriaren** (7); **memoriaren bideak elkarrekin** (4); **memoriaren olatuak** (3); **nire memoriaren** (7); **sartagudako memoriaren parkerako** (4)

**haren memoriari** (3)

**memoriarik gabe** (3)

**bere memorietan** (7)

## memoriadun izond memoria duena.

Lotzen dira gauza **memoriadunak** sorpen artistikoarekin, gizaldi berriak tarteko. **Herria**

Ez dakit zenbat mega, giga eta istorio gehiagoko **memoriadun**, kafea zerbitzatzeko izan ezik zernahi egiteko gauza zirudien. **Aingeru Epaltza**

## memoriagabe izond memoriarik gabea.

Mathilderren eskabideak ez zuen, itxura batean, deus txarrik, baina bere emazteak ez zuen edozein neska-lagun bat nahi, alboko gelan zegoen neska misteriotsu

**memoriagabe** hura baizik. **Anjel Lertxundi**

## memoriakeria iz oroimenaren erabilera gaitzesgarria.

Gure ikasle denborako **memoriakeria** txarra zela noski, baina orangoa ere, zerbaiz buruz ikastea bekatu larria balitz bezala jardute hori, ez zela askoz hobe. **Joxerra Garzia**



**memorial 1** eskari bat egiten den idazkia, eskuarki goi-agintari bati zuzendua, eskariaren aldeko argudioak azaltzen direna.

Boiseko alkateztan bost aste egin berri dituen Dave Bieter euskal-amerikarrak autodeterminazioaren aldeko Idahoko **Memorialari** jarraipena emango diola iragarri zuen herenegun, Udalean bertan. **Berria - Euskal Herria**

Idahoko politikariek **Memorialaren** helburua ulertu zutela dio, eta baita Gobernu Federalak ere. **Berria - Euskal Herria**

**Memorialak** autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen du Euskal Herriarentzat. **Berria - Euskal Herria**

**2 iz gertaera sail baten berri ematen duen idazkia.**

Liburua **memoriala** izango zela garbi eduki zuen hasieratik. **Berria - Kultura**

Heriotza hurbil du Davidek *Soinujolearen semea* **memoriala** idazten diharduela. **Berria - Kultura**

Liburua ontzia da, **memorial** bat, kutxa bat. **Berria - Kultura**

**3 oroitzapenezko monumentua.**

Kennedyren hilobia ikusiz hasi gara, Etxe Zuria geroxeago [...] eta batez ere, Lincoln **memoriala**, presidente haren omenez eraikitako eskultura erraldoia. **Harkaitz Cano**

Horien oroiz betiereko izan nahiko luketen sua pizturik dago **Memorial** honetako beste zokondo batean. **Edorta Jimenez**

**Memorialeko** aldare zibilean emakumezko batek harpa jotzen du, biolina jotzen du gizonetzko batek, eta horien aurrean badira beste hemeretzi lagun, hain zuzen ere, bederatzi gizon bosna emakumek osaturiko beste bi multzoren erdian. **Edorta Jimenez**

Michael Araden diseinua izango du Dorre Bikiak zeuden lekuan jarriko den **memorialak**. **Berria - Kultura**

Gero jendea joanen da Orhoit Harri edo **"Memorial"-aren** aintzinerat eta hor izanen dira mintzaldiak eta xehetasunak. **Herria**

**4 norbaiten oroitzapenez antolaruriko kirol proba.**

Ohi bezala, Otsolo **Memoriala** izango du aurten ere Euskal Herriko Asto Proba Txapelketak izena, eta Etxebarriko (Bizkaia) probalekuan jokatu da hiru egunez. **Berria - Kirola**

**memorialista** iz memoriak idazen dituen pertsona.

Izenburu eder horrek sujeritzen digun moduan, azken aldi honetan *Auspoa* bilduman ugaldu den **memorialisten** generoan sar dezakegu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**memorialistiko** izond memorialistaren jarduerari dagokiona.

Isherwooden benetako distira haren literatura autobiografiko eta **memorialistikoan** dago, nire ustez; aurpegi ederrenarekin agertzeko gutxi-asko apailatuta eskaintzen diren oroitzapen soiletatik haratago. **Berria - Kultura**

Gerra-gerra osteak, 60-70ak eta geroztikakoak ere maisuki kontatu dizkigu, **memorialistikoak** izan litezkeen jakiekin, baina aldi berean denontzat ere nahiko komunak diren alegiekin **Berria - Kultura**

**memorio 1** iz *ipar* memoria, oroimena.

Elkarrizketa denboran, ez zituen bakarrik ustez **memorioan** nonbait zokoratuak zeuzkan oroitzapenak berritu: protagonisten irudiek ere gogoia zeharkatu zioten. **Elena Touyarou**

Neska beltzaren harekin iragan gau hura ere **memorioan** geldituko da betikoz! **Daniel Landart**

Hirugarren atala **memorioaren** teknika eta estrategietaz ari zaiku, bertsularitza eraikuntza kolektibo bat delarik eta ez bakartiar bat. **Herria**

**2 oroitzapena.**

Erramun-en **memorioa** gogoan daukagula eskaintzen ditugu gure doluminak familiari. **Herria**

Besta giroan abiatua zen alta denen **memorioan** geldituko den ortzegun aratsalde hori. **Herria**

**memorizatu**, memoriza, memorizatzen du *ad* buruz ikasi, oroimenean finkatu.

Matematikan eta arlo zientifikoetan baldarra nintzen, eta aldiz, **memorizatze**ko, idazteko eta imajinatzeko erraztasuna banuen. **Ana Urkiza**

Berak begirada bakar batean **memorizatzen** zituen aurpegi haiek guztiak eta haien aldaki posible oro: ilea moztuta, kolorez aldatuta, bizarrarekin, mustaxarekin, betaurrekoekin edo gabe. **Harkaitz Cano**

Gauza horiek dituzu, beraz, lehenik **memorizatuko**. **Menane Oxandabaratz**

**Memorizatutako** gramatikaz, irakurtzen dituzun hitzekin, esaldiak asmatzen ari zara. **Lourdes Oñederra**

**memorizatze** iz buruz ikastea, oroimenean finkatzea.

Beraz zahartzeak **memorizatzea** ttikitzen duela. **Menane Oxandabaratz**

**memorizazio** iz memorizatzea.

Goragoko mailako **memorizazio** hori alderdi anitzeko prozesua da, eta pertzepzioak edo oharren-sintesiak epe laburreko oroimenetik epe luzeora bultzatzea eskatzen du. **Xabier Olarra**

**men**<sup>1</sup>

**1 men egin** obeditu, onartu. (pertsonei)

Buruzagi guztiek, gudari adoretzuek eta David erregearen beste semeek ere **men egin** zioten Salomon erregeari. **Elizen arteko biblia**

"Erregeri egin diot **men**", errepikatu omen du hiru aldiz gotorlekutik; "erregeri ez besteri". aitasainduaren benedikazioa omen ditek eta aitasainduari **men egin** behar zaio beti. **Txillardeggi**

Preso abertzaleek epaileari **men** ez egiteak aztoratzen ditu su-eten eskale horiek. **Jokin Urain**

Harekin bakarrik uzteko agindu nien kosakoei eta berehala **men egin** zuten haiek, esanekoak baitira oso. **Felipe Juaristi**

Militarrei **men egin** behar zieten: mezatarra joan, desfilatu, Franco eta Espainia berriaren aintzak abestu... **Jokin Urain**

Harrapatzen zuen guztia arpilatzen zuen, errausten zuen, **men egiten** zutenak armadan sartzen zituen, **men egin** nahi ez zutenak preso hartzen. **Karlos Zabala**

Ez ziok inori **men egiten**. **Txillardeggi**

**2 (gauzei)**

Haatik, aurreko lege guztiei **men egin** eta lekukoen frogak onartu dugu, aurretiazko eta idatzizko frogak zantzurik badago. **Andres Urrutia**

Legegileek ezinbestean egin behar izan baitiote **men** naturak berek baino lehen ezarritakoari. **Iñaki Iñurrieta**  
Erlijiotik ateratako perfekziozko legeek **men egiten** dien gizakiaren ontasuna dute ezarriat, ez **men egiten** zaieneko gizartearena. **Iñaki Iñurrieta**  
Naturaren legeei **men egitea** , hark gudan sorturiko desirari amore ematea da; aurka egiten diogunean bakarrik iraintzen dugu natura. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Tiranoaren aginduei **men egiten** dieten senideak. **Koldo Biguri**  
Seme-alabak aitaren meneko dira; horrek, aldiz, ez dio besteri **men egin** behar izadiaren ahotsari baino, horixe baita mintzorik gozoen eta samurren. **Andres Urrutia**  
Eta berehala ulertu nuen, berriz ere, borroka bizian ari zela oinazeari **men** ez egiteko. **Jon Muñoz**  
Esaten zuen ezinezkoa dela beharrak asetzera plazerrari **men egin** gabe. **Askoren artean**  
Jatorragoa al da, zuhurragoa, komenigarriagoa, norberekeriari **men egitea** pasioari baino lehenago? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Arrazoi osoz egin diezu **men** arrazoi amoltsu eta zintzoei, berebat mezutzen didazunez zure zoriona gibelatzen dutenei. **Jon Muñoz**  
Edozein dibisari egiten ei dio **men** Piper delakoak, bere filmak egin ahal izatearren. **Joxe Austin Arrieta**  
Edan lasai ardoa, eta **men egin** jaidurei. **Jon Muñoz**  
Tentazioari **men eginez** , eskuan hartu eta amultsuki errepasatu nituen: Vivaldiren "Lau Sasoiak", [...]. **Alberto Ladron Arana**  
Baina, neure senari **men eginez** , ez nion kasurik egin. **Joan Mari Irigoien**  
Bere harrokeriari **men** eta bere txantxa inozo eta gustu txarrekoerik barre egingo nien egunaren zain baldin bazegoen, egotea asko zuen. **Xabier Montoia**  
Ebidentziari **men egin** nahi ez zioten matxino batzuek. **Jon Alonso**  
Nire logikak **men egiten** dio Gurpil Handiaren logikari, baina biak -nire logika eta Gurpil Handiarena, alegia-, ez dira bat eta bera. **Jon Alonso**

### 3 (men izenondoekin doala)

Eta zintzotasunari egin nion **men** bakarria izan zen landa hartara berera itzultzea, bai baintuen han oharpen batzuk oraino egiteke. noizbehinka zure ariman irakur dezakeenak, laster egiten dio **men** gogobero nobleago bati, eta jaidura zein amodioa barneraturik, bertute guztien irudia jauresten du zugan. **Jon Muñoz**

### 4 (egin ezabaturik)

- Maiestate Horri **men** -esan zuen Bird-ek-, zer antzetzeta dagokigu? **Juan Garzia**

### 5 (izen gisa hitz elkartuetan)

Zirrara eragin zien haren ahots sakon ozenak, fede -eta **men** -hitzak esan zituenean. **Irene Aldasoro**

### 6 men-men egin

Mussoliniren gobernuak Alemaniakoari **men-men** egiten ari duk orain ere, eta juduon kontrako lege bat ateratzekotan duk. **Anjel Lertxundi**

### 7 men egite iz

Baina **men** egite hori oso bakanetan baizik ez da oraino zentzumenetaraino heldu. **Jon Muñoz**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aginduari men** (3); **aginduei men** (11); **aginduei men eginez** (4); **aholkuari men** (4); **borondateari men** (3); **esanei men** (3); **eskaerari men** (4); **eskaerei men** (6); **eskariei men** (3); **legeari men** (3); **men egin** (134); **men egin behar** (9); **men egin gabe** (5); **men egin nahi** (3); **men ez egiteagatik** (3); **men ez egiteko** (4); **nahiari men** (5); **nahiei men** (3); **nahiei men egitea** (3); **ohiturei men** (3); **osoki men** (3); **presioei men** (7); **presioei men egin** (4); **senari men** (3)

## men<sup>2</sup> 1 adlag mendean.

Trenputxartu zen sufrikario ikaragarrien **men** . **Itxaro Borda**

Zintzura are indartsuago karrakatzuz, country ahaira baten lauhazka-joaldien **men** segitzen zuen. **Itxaro Borda**

### 2 menean mendean.

Alemaniarrek Frantzia **menean** hartu zuten udaberri harez geroztik. **Fernando Rey**

Pixkana-pixkana lasaitzen joan zen, zorroan ezpata sartu eta hondarrean handik urrundu zen, baina zaldiaren ondora itzultzean suminak berriz **menean** harrapatu zuen. **Fernando Rey**

Geroztik Moubarak presidentak esku gogorrez dauzka **menean** alderdi hortako bortitzenak. **Herria**

Senperen zen partida hau eta Senperrak du irabazi, hendaier pilotari zintzoa **menean** ezarri. **Herria**

Bolikostan (Côte d'Ivoire) lau mila soldado frantses badabilta beti herri hortako nahasmenduak **menean** atxiki beharrez. **Herria**

Albertok ez zuen deus estudiatzen, eta aita, bere gainerako semeek oso gaizki ohitua baitzuten, sumin beldurgarriak hartzen zuen **menean** Albertok etxera nota txarrak eramaten zituenean. **Fernando Rey**

### 3 -en menean

Ate atzean adi egotea, sarraila zulotik kirika egitea, gurasoen gelako soinuaren zelatan egotea, bidezkoa izanik ere, betidanik debekua **menean** egon den jakin-mina asetzera. **Joxan Elosegui**

Ez dio kolerari gida-hedea utzi behar, ez eta grinaren **menean** erabilia izan behar ere, grina oro txarra delako. **Xabier Kintana**

Gure aitetamek onartzen zuten holako larderia, elizaren **menean** izaiteko heziak baitziren. **Herria**

Tranzendentearen **menean** dagoenak ez du adiskidantza bidez bere idurikoei sobera hurbildu behar, asimilatua izanen baita ondarrean, apez langileak langile bilakatu ziren bezala. **Piarres Aintziart**

Nor ez da alabaina aro eta sasoi **menean** bizi? **Herria**

Eskual txoriak daduzkatzenak beren **menean** esklabo! **Piarres Xarriton**

### 4 -en meneko izlag ik meneko.

Herritar orori,meneko pertsona zibil orori bezalaxe, botere gorena duenaren **meneko** esaten zaio. **Esteban Antxustegi**

Estatu lurralde batean bizitzea horren subiranotasunaren **menekoa** izatea da. **Andres Urrutia**

Seme-alabak aitaren **meneko** dira. **Andres Urrutia**

Antonio Borboikoak bere **meneko** lurraldeetako noble, infantzoi eta armagizon guztiak bildu zituen. **Aingeru Epaltza**

Horiek herri hilaren **meneko** jartzen dituzte herri biziaren interesak. **Iñaki Iñurrieta**

Etxalde hau egiazko gizon baten **meneko** utzi behar dinagu. **Itxaro Borda**

-Eta haur sortu berri hura han utzi zuen, hotzaren **meneko** . **Elena Touyrou**

Neskera argumentu melengek mutikoa hormatzen baldin bazuten, haren bular alde opulentak suaren **menera** aurtikitzen zuen. **Itxaro Borda**

-Arrats guziz mintzaldi labur bat egiten zigun latinez, latin goxo bat, errexa, denen **menekoa** . **Marzel Etxehandi**

### 5 -en menera

Arrakasta gaur eta porrota bihar boladako haizearen **menera** , jatetxeak hainbat nagusi eta bertze horrenbertze izen ikusiak zituen. **Aingeru Epaltza**

Ordura arte pentsamendu soila izan zena martxan zen, eta zorabio ernagarri baten **menera** geratu nintzen kulunkan, haizetan dabilen kalatxoriaren antzera. **Hasier Etxeberria**

Orain, Gretta hain erraz **menera** etorri zitzaiolarik, ez zekien zergatik ibili zen bera hain lotsakor. **Irene Aldasoro**

Horra hor, berba magiko horren **menera** , hainbat belaunaldiren oihua. **Andres Urrutia**

-Bakarrik eskertu nahi hindudan -erran zion haren **menera** heltzean, hura ere toka zuzentzen zitzaiola. **Elena Touyrou**

### 6 menetik

Pilota bat ez zen sekulan **menetik** kanpo harentzat. **Herria**  
Ainitz pariok azken horien alde oihukatzen zuten luzaz eta izan dira berdintzekotan 34-35 baina beti eskapatu zaizkote **menetik**. **Herria**

## 7 *–en* **menetik**

Bi lagun, suari oharturik, erne ibili dira eta etxe berean bizi zen emazte elbarritu bat salbatu dute suaren **menetik**. **Herria**  
Arabiako petrolio lur horiek behar direla, berek diotenaz, musulman ez diren "fedegabeen" **menetik** zaindu. **Herria**  
Alaba aldiz aski goiz urrundu da treinarean **menetik**. **Herria**  
Emozio handiegien **menetik** salbu ikusi nahi zuela esaten zuen aitak. **Joxan Elozegi**

## **men**<sup>3</sup> *iz* gaitasuna, ahalmena.

Ase ezinik, maitagai bete-betea edo beteagoa aurkitzeko irrikaz, nire **men** guztiak jardun horretara bideratuz. **Jenaro Garate**

## **menaje** *iz* sukaldeko ontziteria.

Nehork ez nindukeen nehoiz ikusi **menajearen** atakeaz horrela joa. **Itxaro Borda**

## **menbrillo** 1 *iz* irasagarra.

Josemari eta biok, **menbrillo** bana jaten gindoazen, ogirik gabe, **menbrilloa** zatarpaperean harturik, ogirik ez zegoelako arratsalde hartan gure etxean. **Joseba Sarrionandia**

## 2 irasagar orea.

Nahi gabe joan zaio gogoia amak prestatzen dizkion meriendetara: **menbrillo** eta margarina, nozilla-kremaz ondo igurtzitako ogia, gazta eta urdaiazpiko egosi xerra lodiak ogi artean, esne kondentsatu gozoa galleten gainean... **Xabier Mendiguren Elizegi**

## **menbro** 1 *iz* ipar kidea.

Egun hunkigarria izan da Housset familiarentzat, hoinbertze pilotari, adixkide eta familiako **menbroen** artean. **Herria**  
Bukatzeo bulegoaren berritzea izan da eta **menbro** berri bat sartu da elkartearen. **Herria**  
Lur jabe eta ihiztari guztiak gomit dira, emanak izaneren baitira urteko konduak eta berrituak bulegoko **menbroak**. **Jose Angel Irigaray**  
Eliza Kontseiluko **menbroak** ere elgarretaratuko dira astearte aratsean 8 ak eta erditan Kanboko apezetxean. **Herria**  
Laguntza katoliko horren zerbitzuan bermatzen diren **menbroek** nahi dituzte hemen eskertu ikusle guztiak, parte emanez 5000 euro inguru ekarri dituztela sartze eta besteek, heldu baita 32.500 franko, hots hiru miliun eta erdi, diru zahar. **Herria**

## 2 soin atala.

Erran dizut, halaber, nola, ene silogismo ausart hartan, neure **menbro** korporalak aipatuz joan nintzen, zangoetarik hasi eta begietaraino. eskuak, Oinak, burua eta gainerako **menbroak**. **Joan Mari Irigoien**

## **menda** (*orobat* **menta** *g.er.*) 1 *iz* ezpaindunen familiako belar landarea, oso usaintsua, leku hezeetan hazten dena (*Mentha sativa*). ik **mendafin**.

Badakizu, ohiko guztiak, txokolatea, **menda** eta laranja, baina espinaka, gibel eta tripakien gustua ere suerta dakiguke. **Iñaki Mendiguren**  
**Menda** eta mendafinarekin nahaste. **Juan Garzia**  
Horrela mintzatzen hasi nintzen **menda** eta intsentsuzko gauetan, gau amaiezinetan. **Lander Garro**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Menta** gustua duten goxokiak jarriko dizkiot, hain gogoko dituen horiek. **Xabier Etxabe**  
**Menda** usaina zegoen, Maialenek beti mendazko txikleak jaten zituelako. **Lander Garro**  
Ustez ahoan **menda** -txotx bat eramateak arnasa aldatzen zuelakoan, eta baita usaina ere. **Anton Garikano**  
Gaindegiko landareetatik, sandalo eta **menda** loreontzietatik, urrin gozozko bafadak iristen ziren. **Josu Zabaleta**  
Petalo zuriak hil eta **menda** -koloreko alea agertzen zenerako, urre argizarizkoa zen hostoaren distira. **Anton Garikano**  
Krepe-paperezko otzarak, **menda** -zaporeko gozoki trinkoz mukurua beteak. **Mirentxu Larrañaga**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tabernan diaboloko **menta** edo granadina bat erosten die, gero oiloak lapurtzera joango dira. **Pablo Sastre**

## 4 **menda-belar** (*orobat* **mendabelar**)

Milaka usain zebiltzan airean enara kirri-kirrien modura: azafraiairen leun goxagarria; piper hauts gorriaren sarkorra; **menda** belarraren fin betegarria. **Felipe Juaristi**  
Makilatxoak oin hautsiaren inguruan jarri nituen, **menda** belarrez estekaturik. **Menda** -belar sortatxoak jarri zizkioten burukoaren azpian eta ahuntz koipez igurtzi zuten goitik behera. **Itxaro Borda**  
Autobus **mendabelar** batera igo nintzen, non mugitzen baitziren bezeroak gazta onduegi batean harrak bezala. **Xabier Olarra**

## 5 **menda beltz** ik **mendabeltz**

## 6 **menda-te**

Café batera jaisi ginen Abdellahrekin azken **menda-tea** hartzera. **Bernardo Atxaga**  
"Ez horregatik kezkatu", erantzun zidan saltzaileak **menda-tea**, adiskidetasunaren sinboloa, zerbitzatuz batera. **Bernardo Atxaga**

## mendabale ik mendebale.

## mendabelar ik **menda** 4.

## **mendabeltz** (*orobat* **menda-beltz**; *Euskaltzaindiaren Hiztegian* **mendabeltz** *agertzen da*) *iz* menda mota, kolore beltz ilunekoa (*Mentha rubra*).

Nork ez du miresten **menda** beltzaren lurrina, lurruntz morearen txilin diindaria edo eguzkiari jarraitzen dion lorearen portaera ikusgarria? **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## **mendabiar** *izlag/iz* Mendabiakoa, Mendabiari dagokiona; Mendabiako biztanlea.

Maria Arroniz Gonez 81 urteko **mendabiarra** oso larri eraman zuten. **Berria - Euskal Herria**

Tartean, emakume **mendabiarra**. **Berria - Euskal Herria**

## **mendafin 1** *iz* menda mota fina, baratzeetan hasten dena (*Mentha piperita*).

Sofia etxe ondoko estalgunearen gerizpean dabil usain-belarrak muselinazko poltsatxoetan sartzen, **mendafina** eta erromeroa batez ere, gogokoen dituenak. **Patxi Iturritegi**

Extera iritsi direnean, igogailuan, birramonak Aramara bidean hartutako **mendafina** ipini du, igogailu itxian usain fresko eta goxoa zabal dadin. **Patxi Zubizarreta**

Eta gero aitak, Alik, tea prestatu du **mendafin** horrekin, te gozo-gozoa. **Patxi Zubizarreta**

Bidaia luzeetako ginebraz eta **mendafinez** perfumatutako itsas haize goxoko gau izarratuak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## **2** (hitz elkartuetan)

Behin ahuntz baten ezkilak asaldatu gintuen, baina segidan berriro isiltasuna **mendafin**-usainezko muino haien gainean, isiltasuna. **Joxe Austin Arrieta**

## **mendaitz** *iz* haitza.

Eta han atzean **mendaitz** erraldoien bizkar ilun eta gailur zuriak ostertza eginez. **Joseba Sarrionandia**

## **mendarotar** *izlag/iz* Mendarokoa, Mendarori dagokiona; Mendaroko biztanlea.

Iban Zubiaurre: 22 urteko **mendarotarra**. **Berria - Kirola**

Betisen kontrako partidaren ondoren, **mendarotarraren** lana goraiatu zuen entrenatzaileak. **Berria - Kirola**

## mendarte ik **mendiarte**.

## **mendatar** *izlag/iz* Mendatakoa, Mendatari dagokiona; Mendatako biztanlea.

Boisen jaioa, aita **mendatarra** du, eta amak, Boisekoa bada ere, Gernikan du jatorria. **Berria - Kirola**

## **mendate** *iz* mendien arteko igarobidea; igarobide horretako puntu garaiena. **iklepo 10**.

**Mendaterik** erosoena non zen galdetzen nuen bazterretan. **Juan Garzia**

Aldapa diogu, horixe delako, 600 metro eskaseko aldapa laburra, ez **mendatea**. **Berria - Kirola**

Bidean gora egin zuten **mendate** estu bateraino. **Karlos Zabala**

Otsondoko **mendatearen** hegaletaraino ez genuen arazorik izan, baina gero eta elur gehiago ari zuen. **Rafa Egiguren**

Beratik ibardin **mendatearen** gailurrerantz abiatu ziren. **Harkaitz Cano**

Heldu ginen **mendateko** gainera, eta beherakoan, nik ez dakit zer gertatu zitzaigun, automobilak zibarena egin zuen. **Joan Mari Irigoien**

Gutxiagok lortzen dute **mendatearen** tontorrera heltzea. **Berria - Kultura**

Bihurgunez beteriko errepidea da, zazpi kilometroko **mendate** piko gehigarri duena. **Aingeru Epaltza**

**Mendatean** bertan geunden. **Rafa Egiguren**

Ezurrako **mendatetik** Goizuetarantz gindoazelarik. **Juan Luis Zabala**

Belkoain mendia igo nuen aurrena, eta Andazarrateko **mendaterantz** jo nuen gero handik. **Juan Luis Zabala**

Mezkiritz **mendatea**, bere oroitarri xinplearekin, Orreagako Birjinaren ohoretan eraikia. **Piarres Aintziart**

**Mendateko** tabernan haragi egosi pixka bat jan eta baxoerdi bat hartu nuen. **Juan Luis Zabala**

**Mendatera** abiatu ziren ostera ere behorrak. **Koro Navarro**

Hemen goian Uraletako **mendaterik** garaienean gaude. **Karlos Zabala**

Bestalde, **mendatera** iritsiak ziren, eta Ural mendietako aldapetan behera jaistea besterik ez zeukaten Jekaterinburgera sartzeko. **Karlos Zabala**

**Mendate** zabal bat gainditu dut halako batean. **Juan Garzia**

Atzera Tringo **mendate** hura iragan eta beste aldeko herri kozkorrera jaitsi naiz. **Juan Garzia**

Niri, ostera, ez zait gehiegi kostatu **mendatearen** aldapak gainditzea. **Jon Arretxe**

Bizikleta hartu eta **mendatean** beherantz abiatu naiz, kementsu. **Jon Arretxe**

Filistearren gudari-tokira igozteko Jonatanek ibili behar zuen **mendatearen** alde banatan bi haitz-zorrotz zeuden. **Elizen arteko biblia**

Gauean Barazarko **mendatea** itxi egin zuten kamioientzat eta autoek kateak behar zituzten. **Berria - Harian**

237 kilometroko etapa da, lau **mendate** ditu eta atsedetik gabeko ibilbide gogaikarria. **Berria - Kirola**

Bederatzi **mendate** gainditu beharko dituzte txirridulariek, horietatik lau, azken 80 kilometroetan. **Berria - Kirola**

Helmugako **mendateak** 12.8 kilometro ditu, eta batez besteko pendiza %6.1ekoa da. **Berria - Kirola**

Ur azpian dagoen **mendatea** da Lomonosov eta 1.500 kilometro inguruko luzera du. **Berria - Gaiak**

### **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hirugarren mailako mendate** (3); **lehen mailako mendate** (7); **mendate gogorra** (5); **mendate gogorrera** (4); **mendate igo** (4); **mendate igo beharko** (4); **mendate igoko** (10); **mendate igoko dituzte** (3); **mendate itxi** (3); **mendate luze** (3); **mendate miitiko** (3); **mendate piko** (4)

**lehen mailako mendatea** (5); **lehen mendatea** (4); **mendatea igoko** (5); **mendatea igoko dute** (3); **mendatea itxita** (4)

**mendateak igo** (4); **mendateak igoko** (3); **mendateak itxi** (3); **mendateak itxita** (3)

**azken mendatean** (17); **herrera mendatean** (5); **herrerako mendatean** (12); **lehen mailako mendatean** (5); **mendatean gora** (10); **urkiolako mendatean** (6)

**mendateetan gora** (3)

**uitziko mendatetik** (3)

# mendatetzar iz mendate txikia.

Luzatu eta norabide guztietatik aleak ekarriz **mendatetzar** bat egin arte. Lander Garro

## mendatetzar iz mendate handia.

Roselendek izen txikia, historia gutxi du ondoan dituen beste **mendatetzar** batzuen aldean. Beria - Kirola

## mende<sup>1</sup> (orobat *mente* g.er.) 1 iz ehun urteko denbora bitartea; bereziki, une jakin bat (gure artean Kristoren jaiotza) abiaburutzat hartuta osatzen dena. ik **gizaldi**.

**Mende** bakoitzak badiu ordea bere idoloa eta, gure **mende** honek Estatu du bere idoloa. Piarres Xarriton

**Mende** hau izan baita, ez dezagun ahaztu, genozidioen **mendea**, gerran eta liskarren **mendea**, gosearen **mendea**. Pello Salaburu

Argibide horrek erakusten du, hala ere, ahalegina azkenean arrakastatsua gertatuta ere, hainbat **mende** edo milurtekotako denboraldia igaro daitekeela emaitza ziurtatu arte.

Iñaki Mendiguren

Hala ere, horra iristeko zenbait urrats zehatz egin beharra dago, eta, egia esan, beharrezko mugimendu-konbinazioa ez zen lortu K.a. zazpigarren **mende** arte. Iñaki Mendiguren

Berez, aurreko **mendea** arte, utilitarismo hitza erabili da ondorioetan oinarritutako teoria oro izendatzeko. Askoren artean

Lan handi hori egin baino lehen ezin konta ahal **mende** igarotzen utzi zenituela. Imanol Unzuurrungaz

**Mende** bat baino ez da modu sistematikoan lantzen hasi dela. Juan Garzia

Errepublikanoa zen, **mende** arteko Donostiako ideia liberalen aldeztaila. Askoren artean

Horien inguruetatik ibili ziren orain **mende** asko zure Herritik etorritako baleazaleak ere... Paddy Rekalde

Orain dela ez dakit zenbat **mende** desagertutako guantxei. Bernardo Atxaga

Duela hogeitalau **mende**, tximeleta zela amets egin zuen Txang Tzuk, eta, esnatzean, ez zekien tximeleta zela amets egin zuen gizona zen, ala gizon zela amets egiten ari zen tximeleta. Joxerra Garzia

Duela **mende** bete, idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko mugak argiagoak ziren. Andoni Egaña

XX. **mendea** bukatzeaz zela, Europan 730 milioi lagun bizi ziren. Pello Salaburu

-XIX. **mendean** bizi garena ematen du -esan zuen behin Oriolek. Xabier Mendiguren Elizegi

Hemezortzigarren **mendean** -1792an, zehazki-, Condorcet jakintsu ilustratuak Instrukzio Publikoari buruzko txosten bat aurkeztu zuen Frantziako Batzar Nazionalaren aurrean. Bernardo Atxaga

Kristo aurreko lehen **mendeko** liburu batean. Bernardo Atxaga

Europako XVIII. **mendeko** merkatu-ekonomiaren ezaugarriak. Koro Navarro

Haietarikoz zenbait, bost **mendeko** antzinatasuneok. Jon Muñoz

## 2 (izenondoekin)

Haien etxean ikusi nituela **mende** zaharraren azkeneko ilargiaren dirdira eta gizaldi berriaren lehenbiziko eguzki izpien distirak. Pello Salaburu

Mendebaldeko nazio guzietan ez zuten ordea, urrats berean egin **mende berrietako** bidea. Piarres Xarriton

Mundu eta **mende** aberatseko haurrak ziren, ikasiak gehienak, lan bila joatearen premiarik ez zutenak. Itxaro Borda

Bazirudien inork ez zuela **mende** oso batean hitz egin. Anton Garikano

Fatihak maite nuen eta exodoaren **mende** latzetan gorputz edo irri bakoitzean, emaztearen itzala xerkatzen nuela ziruditan: adiskide baten premia gorria nuen. Itxaro Borda

Nahiz lagun anitzek **mende** luzeetan eta toki askotan onartua izan, ez du sekula fedea izan jakintzaren zehaztasunik ez ziurtasunik. Piarres Xarriton

Lege hauek, **mende** barbaroenetako zaborrak, aztertuko ditugu liburu honetan. Juan Martin Elexpuru

Estrategia simple baina unibertsal horrek primeran funtzionatzen du: XIX. **mende** beltzak Pazko Igande baten airea hartzen dizu, Espainiaren modernizazioarena. Joxe Azurmendi

"Kultura klasikoa" eta bertze izendatzeko moldeak, azken finean, oso artifizialak dira, anitzetan irakaskuntzarako XIX. **mende** positibistak asmatuak muga harri bezala.

Ana Urkiza

## 3 (denbora bitarte jakinak seinalatuz)

Gizateria hirukoiztu egin da **mende** batean. Joxe Austin Arrieta

Nikomedesek, berriz, handik **mende** batera, maskor itxurako kurba bat asmatu zuen, konkoida. Jon Muñoz

Orain dela **mende** batetik hona geroz eta gehiago erabiltzen direlako. Josu Zabaleta

Bi **mende** baino gutxiagotan. Jon Muñoz

Lau **mende** lehenago Behenafarroa Nafarroa zen, baina gizonen lege idorrek aspaldian ahantzirik zeukaten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hiru **mende** iraun zuen bidaia hark. Jon Muñoz

Erdi Aroa esan zaiona baino zenbait **mende** lehenago. Askoren artean

Garai batean zuzena den notazio bat, zentzurik gabekoa izango da **mende** bat geroago. Isabel Arrigain

Hortik dator **mende** bat baino gehiagoz garatu den prozesu baten geldotasuna. Xabier Arregi

XVII. **mende** osoan eta XVIII. mendean lehenengo zatian. Askoren artean

Handik hiru **mendera**, haren ereduari jarraiki, zisoidea asmatu zuen Dioklesek. Jon Muñoz

Arabiarrek, bestalde, XVI. **mendetik** aurrera, Afrikako ekialdeko kostaldean jarraitu ahal izan zuten salerosketan. Koro Navarro

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nahiz eta egutegi honek gurearekin antza izan, mendeak 52 urte besterik ez zituen, eta **mende** aldaketa zeremonia handiekin ospatzen zen, hiriburu ondoan zegoen menditik ekarriz su sakratua. Pello Salaburu

*Human Personality* **mende**-mugako liburu bikainean saiatu zen kalkulugile miragarriek beren emaitzak lortzeko zer prozedura erabiltzen zituzten aztertzen. Xabier Olarra

**Mende**-hasierako antropologoek lanean oinarriturik. Koro Navarro

Badakigu engoitik zer gertatu zen Frantziako erreinuan, XVIII. **mende** hondarrean. Piarres Xarriton

XIX. **mende** amaieran eta XX.ean zehar. Koldo Zuazo

XVII. mendeko ikaslearen espiritu berberarekin etortzen ziren XIX. **mende** bukaera aldeko ikasleak gortera. Josu Zabaleta

Maule inguruetarrik jakin ziren Ameriketara **mende**-zirrintan, eta ez zuten sekula aski diru sakeleratu etxera harro itzultzeko. Itxaro Borda

## 5 argien mende

"**Argien mende**" famatuaren umeez, ordea, Frantziako Estatu-Nazioaren eraikitze xede eder horiekien abiturik, ez zuten izan orduan beren helburuen betetzeko astirik, beharrik! Piarres Xarriton

Horrela jokatuz, "**Argien mende**" hunek sortarazi uholdea pozoindaturik dago edo bere bidean trabaturik. Herria

## 6 mende erdi (orobat *menderdi* g.er.)

**Mende-erdi** hartan Txina militarki Japoniaren mende egon zen. Iñaki Mendiguren

Aspaldi iragana dut **mende** marra. **Aingeru Epaltza**

Aurangzeb enperadorea K.o. 1707an hil eta **mende-erdi** baino lehen. **Iñaki Mendiguren**

Handik **mende erdira**. **Xabier Amuriza**

Bilbon jαιο zen ETA orain **mende erdi**. **Joseba Zulaika**

Hona bada zer idazten zuen, duela **mende erdia**, "Politikaz": [...]. **Piarres Xarriton**

**Mende erdia** joana da dagoeneko. **Pello Salaburu**

Urte bat falta zela **mende erdira** iristeko, NATO sortu zen. **Pello Salaburu**

Psametikoren mertzenario helenikoek asiriarrak Egiptotik bota baino **mende-erdi** bat lehenago. **Iñaki Mendiguren**

Beste **mende-erdi** bat geroago Delhiko Red Fort-eko harresien zirkuitura murriztuta geratu zen. **Iñaki Mendiguren**

Bigarren Gerra Punikoaren ondorengo **mende-erdian**. **Iñaki Mendiguren**

XX. **mende erdiraino** indarrean iraun duen Espainiako XIX. mende amaierako kode penalean. **Koldo Izagirre**

Lehen **mende erdiko** arte modernoaren bigeguretzea. **Anjel Lertxundi**

Hemezortzigarren **mende erdikoa**. **Felipe Juaristi**

**Menderdi** bat kasik Europa abiatua dela bere tratatu, elkar hurbilketa, muga apaltze eta azkenik euro berdinarekin ere!... **Herria**

**Mende erdi** batez zer aldaketak! Fede kristaua bidean galdu genuenontzat, gaurkotasun ikaragarria du joan den **mende erditsuan** idatzitako lan honek. **Herria**

XX. **mende erditsuraino** iraun du feria berezi horrek. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## 7 mende laurden

**Mende-laurden** batean, bi nazio horiek munduko herrialde boteretsuenak bihurtu ziren. **Koro Navarro**

Ez al dut, bada, **mende laurdena** igaro kalezuloan bizitzen? **Patxi Zubizarreta**

Ez zen hala izaten Lauaxetak lehen **mende laurdenean** ezagutu zuen garraio publikoan. Baina bada **mende laurden** bat gerra amaitu zela. **Juan Luis Zabala**

Bi **mende laurdenen** buruan ordea, estatu horien kopurua, bi aldiz biderkatu, 200etara heltzen ari zitzaigun. **Piarres Xarriton**

Ez zegoen Hirugarren Errepublikak burges baten estalki bustiaren azpian **mende laurden** batez itzalita egondako gerra pizteko beldur nabarmenik. **Iñaki Mendiguren**

## 8 mende mende

Han egon da **mendez mende** gurutzea. zirimola moduko bat baita iragana, urtez urte eta **mendez mende** bere baitara arrastatzen gaituena. **Martin Anso**

Kalesa batean ibili naiz **mendez mende** eta ezin hilez bizirik. **Anjel Lertxundi**

Oso gutxi, irizpide orokorretan oinarrituta, desegin dituzte **mendez mende** pilotutako hutsegiteak. **Juan Martín Elexpuru**

Gizakirik ez da han sekula biziko, bizilagunik gabe geldituko da **mendez mende**. **Elizen arteko biblia**

Munduz mundu eta **mendez mende** zebilen judu herratuak, irudika daitekeen bekaturik larriena zeraman zakuto itxurako konkorrean: jainkoa hil izana, eta, jainkoa hilda, munduari zentzu gutzia lapurtu izana. **Anjel Lertxundi**

Itsas hondarra, euri-tantak, **mendez mendeko** egunak, nork zenbatu? **Elizen arteko biblia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

azken mende erdian (6); azken mende erdiko (4); azken mende honetan (7); azken mende laurdenean (4); beste mende bateko (5); bi mende geroago (4); bi mende lehenago (5); duela bi mende (13); duela lau mende (7); duela mende asko (4); duela mende bat (25); duela mende bateko (4); duela mende batzuk (4); duela mende erdi (19); duela mende erdiñ duela mende erdia (5); duela mende laurden (18); duela zenbait mende (6); hainbat mende geroago (5); hemeretzigarren mende (14); hemeretzigarren mende erditsutan (4); hemezortzigarren mende (6); hogeigarren mende (4); iragan mende (34); iragan mende hortan (20); lehen mende (7); o (7)

mende aldaketa (5); mende amaiera (4); mende amaierako (18); mende amaieran (21); mende arte (4); mende asko (15); mende askotako (7); mende askotan (13); mende bat geroago (11); mende bat lehenago (14); mende batean (19); mende bateko (18); mende batean buruan (7); mende batzuk geroago (5); mende batzuk lehenago (7); mende berri (18); mende berria (10); mende berriak (5); mende berrian (4); mende berriarekin (4); mende berriari (6); mende berriko (5); mende bete (5); mende bitartean (5); mende bitarteko (5); mende bukaera (12); mende bukaerako (24); mende bukaeran (35); mende erdi (127); mende erdi bat (50); mende erdi baten (5); mende erdi batez (14); mende erdi geroago (6); mende erdi hortan (4); mende erdiñ mende erdiñ mende erdia (34); mende erdia bete (5); mende erdian (18); mende erdiaren (7); mende erdiko (21); mende erdira (6); mende erditik (4); mende erditsu (4); mende erditsutan (11); mende erdiz (6); mende eta erdi (24); mende eta erdian (7); mende eta erdiko (4); mende hasiera (15); mende hasiera hartan (4); mende hasiera honetan (6); mende hasierako (84); mende hasierako artista (4); mende hasierakoa (4); mende hasieran (70); mende hasieratik (8); mende hastapenean (21); mende hastapeneko (7); mende haste (5); mende hastean (7); mende hondarrean (10); mende honen hasieran (7); mende laurden (63); mende laurden bat (24); mende laurden batez (5); mende laurden honetan (4); mende laurdena (37); mende laurdenean (9); mende laurdeneko (4); mende lehenago (23); mende lehenagoko (4); mende luze (6); mende luzeetan (14); mende ondarrean (10); mende ondarreat (4); mende oso bat (7); mende oso batean (6); mende oso batez (4); mende osoa (10); mende osoan (14); mende osoko (5); mende pare (4); mende undarrean (4); o (13); o bat (10)

menderen mende (4); menderik mende (20); mendez mende (88); orain bi mende (4); orain mende erdi (8)

eskubideen mendea (7); giza eskubideen mendea (6); hogoigarren mendea (8); mendea arte (29); mendea bukatu (21); mendea bukatu aurretik (4); mendea bukatzeaz zela (9); mendea bukatzen ari (5); mendea hasi (9)

mendeak eta mendeak (9); mendeak jin (5); mendeak joan (9)

aurreko mendean (7); azken mendean (21); gaurko mendean (7); hamabigarren mendean (5); hamabosgarren mendean (13); hamahirugarren mendean (9); hamaikagarren mendean (9); hamalagarren mendean (7); hamaseigarren mendean (19); hamazazpigarren mendean (19); hemeretzigarren mendean (29); hemezortzigarren mendean (18); hirugarren mendean (8); hogeigarren mendean (35); hurrengo mendean (5); iragan mendean (13); joan den mendean (18); laugarren mendean (4); lehen mendean (5); mendean eraiki (4); mendean eraikia (7); mendean idatzi (5); mendean idatzitako (5); mendean iritsi (4); mendean sartu (4); mendean sortu (20); mendean sortu zen (6); mendean zehar (34); mendean zeuden (5); ondoko mendean (7)

bigarren mendearen (6); hamabosgarren mendearen (10); hamazazpigarren mendearen (5); hemeretzigarren mendearen (16); hemeretzigarren mendearen hasieran (4); hemezortzigarren mendearen (5); hogeigarren mendearen (25); hogeigarren mendearen bigarren (4); hogeigarren mendearen erdialdean (4); hogeigarren mendearen hasieran (4); iragan mendearen (11); joan den mendearen (11); laugarren mendearen (4)

; mendearen amaiera (17); mendearen amaiera aldera (8); mendearen amaiera arte (4); mendearen amaierako (5); mendearen amaieran (26); mendearen argi itzalak (4); mendearen azken (40); mendearen azken aldera (8); mendearen azken laurdenean (5); mendearen azken urteetan (9); mendearen azkeneko (7); mendearen bigarren (41); mendearen bigarren erdian (13); mendearen bigarren erdiko (6); mendearen bukaera (29); mendearen bukaera aldera (16); mendearen bukaera arte (6); mendearen bukaerako (7); mendearen bukaeran (54); mendearen bukaeran eta (5); mendearen bukaerarako (4); mendearen bukaeratik (4); mendearen erdi aldera (18); mendearen erdia (4); mendearen erdialdean (19); mendearen erdialdeko (6); mendearen erdialdera (16); mendearen erdialdetik (6); mendearen erdialdetik aurrera (4); mendearen erdian (13); mendearen erditik (9); mendearen erditik aurrera (6); mendearen hasiera (19); mendearen hasiera aldera (4); mendearen hasiera arte (4); mendearen hasierako (22); mendearen hasierakoa (4); mendearen hasieran (136); mendearen hasieratik (13); mendearen hastapenean (10); mendearen hondarrean (4); mendearen hondarretan (4); mendearen lehen (21); mendearen lehen erdian (6); mendearen lehenbiziko (4); mendearen lehenengo (12)

mendeaz gero (13); mendeaz geroz (7); mendeaz geroztik (20)

aurreko mendeko (7); azken mendeko (4); bederatzigarren mendeko (3); bigarren mendeko (4); bosgarren mendeko (4); hamabosgarren mendeko (13); hamaikagarren mendeko (3); hamargarren mendeko (7); hamaseigarren mendeko (15); hamazazpigarren mendeko (13); haren mendeko (11); hemeretzigarren mendeko (26); hemezortzigarren mendeko (15); hogeigarren mendeko (45); hogeita batgarren mendeko (3); hogoigarren mendeko (4); iragan mendeko (18); joan den mendeko (36); laugarren mendeko (3); mendeko bigarren erdiko (4); mendeko bigarren zatian (6); mendeko eliza (3); mendeko eraikin (3); mendeko eraikuntza (3); mendeko errealismo (3); mendeko errealismo kritikoa (3); mendeko erronka (4); mendeko eskuizkribu (4); mendeko europako (3); mendeko europan (3); mendeko euskal herri (3); mendeko euskal herria (5); mendeko euskal herriaren (3); mendeko euskal hezkuntzarako (3); mendeko euskaldun (3); mendeko euskarazko (4); mendeko filosofia (4); mendeko filosofiaren (7); mendeko filosofo (5); mendeko frantzia (3); mendeko galizierazko (3); mendeko gizarte (4); mendeko gizartea (3); mendeko gizarteak (3); mendeko gizon (4); mendeko historia (8); mendeko historian (4); mendeko historiari (4); mendeko idazle (15); mendeko idazleak (3); mendeko idazlearen (3); mendeko idazlerik (3); mendeko italiar (3); mendeko izan (8); mendeko izandakoen (3); mendeko jauregi (3); mendeko jazza (5); mendeko kantu (3); mendeko kronikalari (18); mendeko kronikalari batek (18); mendeko lan (3); mendeko lehen erdian (3); mendeko lehen hamarkadetan (4); mendeko liburua (4); mendeko liburu batean (3); mendeko literatura (3); mendeko lurrak (3); mendeko lurraldean (6); mendeko medikuntza (3); mendeko mito (3); mendeko mundu (6); mendeko musika (10); mendeko nobela (3); mendeko obra (3); mendeko olerkari (3); mendeko orkestra (3); mendeko piratak (3); mendeko poema (3); mendeko poesia (9); mendeko poesia kaierak (6); mendeko poeta (3); mendeko proiektu (3); menderen mendeko (3); mende mende (8); pasa den mendeko (5); seigarren mendeko (4); urte mendeko (3); xixgarren mendeko (3)

## mende<sup>2</sup> 1 *adlag* mendean. ik menpe; men<sup>2</sup>.

Zakurrek badakite haurrak ahul direla eta **mende** har ditzaketela. **Gotzon Garate**

Norberaren nagusien **mende** egotea da 'bigarren aukera onena'. **Iñaki Mendiguren**

Platonen ustez, jakite politikoa jakite filosofikoaren **mende** dago. **Askoren artean**

Inferentzia biak erlatiboak ez dituzten erlazio kausalen **mende** daude. [Askoren artean](#)  
Estatu unibertsal baten **mende** sortzen den gizarte-egoeran. [Iñaki Mendiguren](#)  
Legerik ankerrenak maite dituzte bere sentimendu azalakoekin **mende** bizi diren gizonak. [Juan Martin Elexpuru](#)  
Erromatar Legearen **mende** bizitzea erromatar herritartasunaren pribilegio ospetsuetako bat zen. [Iñaki Mendiguren](#)  
Baina maitasunak haien **mende** uzten ditu eta mendearen daudelarik ezin irizirik eman. [Imanol Unzurrunzaga](#)  
Atzo itsaso ardoa bezain gorriari ihes egin nion, ekaizten **mende** ibili eta gero. [Juan Kruz Igerabide](#)  
Greziar italiotak oskoen eta etruskoak zelten kontraeraso barbaroaren **mende** erori ondoren, [...]. [Iñaki Mendiguren](#)  
Pixkanaka-pixkanaka, objektu erreala balitz bezala hasi zen lantzen, alegia, perspektibaren legeen **mende** jarri zen. [Josu Zabaleta](#)  
Muga-gerraren *crescendo*-ak, [...] poliki-poliki ahuldu egiten du horretan sartutako zibilizazioa, bere diru-ekonomia zerga-karga gero eta handiagoaren **mende** jartzen baitu. [Iñaki Mendiguren](#)  
Tatariarren **mende** geratzeko beldurrez. [Karlos Zabala](#)  
Oharkabea, nekeak bere **mende** hartu ninduen. [Edorta Jimenez](#)  
Hala bada, akaberan usteleria bere baitan nagusitu zelarik, zakartu egin zen, pasioen **mende** gertatu. [Patxi Zubizarreta](#)  
-Baina, nolatan ez duk hil, heure **mende** heukan eta? [Juan Kruz Igerabide](#)  
Kamioiko sarjentua gai da bere **mende** dituen hamabi gizonengana iristeko. [Josu Zabaleta](#)  
Hark, sututa eta erabat haserrearen **mende**, izugarriak bota zizkion anai Juniperori. [Askoren artean](#)  
Gero eta aldarre gaiztoago baten **mende**, begiak gorritzen ari zitzaizkion. [Anjel Lertxundi](#)  
Ingurura begiratu zuten: Tsiganak zen, hil aurreko larrimainaren **mende**-. [Jose Morales](#)

## 2 -en **mende**an -en agindupean, -en eraginaren pean.

Paralelismoa ortogonalitatearen **mende**an dagoenez gero, ez da, inondik inora, lehen ezaugarri bat. [Jon Muñoz](#)  
Tomska alde batera utzi nahi zuen batez ere, tatariarren tropen **mende**an egonik. [Karlos Zabala](#)  
Jaidura handiz nabil horretan, oinazkerik krudelenaren mende geratzeko arriskuan bainaiz; ergelen barreen **mende**an, alegia. [Jon Muñoz](#)  
Aita medikua zuen Kummerek; gaixo asko salbatu zituen, baina, azkenean, izurriaren **mende**an erori zen hura ere. [Jon Muñoz](#)  
Depresio latz baten **mende**an erori zen. [Iñaki Segurola](#)  
Halako molde izan dira ordenatuak non ahulagoak indartsuagoen **mende**an jartzen diren, bigunagoak gogorragoen **mende**an, makalagoak ahaltuagoen **mende**an. [Imanol Unzurrunzaga](#)  
Etorbizuna eta segurantzia bezalako fantasma bizi-galgarrien **mende**an ez errenditzea. [Iñaki Segurola](#)  
Jaun frantziarrek beste ezin dinastiatako inor ez hautatzeko hitza eman zuten, galarazpen- eta eskomikatzeko zigorraren **mende**an. [Iñaki Iñurrieta](#)

## 3 -en **mendeko** -en agindupeko. ik **mendeko**.

Erregeren **mendeko** erresuma eta printzerrietan. [Edorta Jimenez](#)  
Nola galdu zen zuzenbide erromatarra frankoen **mendeko** lurraldean. [Iñaki Iñurrieta](#)  
Haiekek ziren komunisten **mendeko** gobernu baten ondorio penagarriak. [Alberto Ladrón Arana](#)  
Prozesu horren ondorioz ekonomiaren bilakaera geroz eta gehiago izango omen da nazioarteko merkatuen **mendekoa**, eta gero eta gutxiago lekuan lekuko nazio-estatuaren jarduera politikoaren arabera. [Iñaki Heras](#)  
Eliza hau ere Subasio mendiko abadia beneditarraren **mendekoa** zen. [Askoren artean](#)  
Tratatu behar dela ez beste zerbaiten emaitza edo arrasto bezala, baizik eta eremu praktikoa bezala, autonomia dena **mendekoa** den arren). [Xabier Arregi](#)  
Elkarrekin negoziatzen duten bi nazio elkarren **mendeko** bihurtzen dira. [Iñaki Iñurrieta](#)  
Giza eskubideak, ekologikoki osasungarria den ingurunea, garapen iraunkorra eta bakea elkarren **mendekoa** eta bereiztezinak dira. [Berria - Kultura](#)  
Erantzunaren **mendeko** disposizioak, disposizio guztiak bezalaxe, ahalmenak dira eta, gainera, subjektu baten erantzunaren **mendekoa** dira. [Askoren artean](#)  
- Esaldi osoa **mendeko** perpausa da jatorrizkoan. [Askoren artean](#)

## 4 -en **mendera** -en agindupera.

Boliviako legea ez dela atzerriko inbertsioen **mendera** jarriko dio Moralesek. [Berria - Ekonomia](#)  
Zoaz, bada, eta esaiotzu anaiari makur dezala berehala lepoa obediencia santuaren **mendera**; esan hori eskatzen diola bere etengabeko otoitzez deabruak lotsaturik alde egitea lortu duenak. [Askoren artean](#)  
Baldin eta, gehienetan gertatzen den bezala, txakurra ez bada haren xarmaren **mendera** erortzen, bera han dagoelako da: usain ezegokia dario (usnatu egin ditzakete zure pentsamenduak), lotsaren usaina. [Oskar Arana](#)  
Jaungoiko errukior eta santuen Jaungoikoa da bera; atseginago baitzaie Jaungoiko baten **mendera** etortzea euren mende beste asko hartzea baino, eta nahiago dute Jaungoikoa gurtu, eurak Jaungoikotzat inork gurtzea baino. [Imanol Unzurrunzaga](#)  
- Neska hau ezin duzu **mendera** ekarri, eta zu baino gehiago dela pentsatzen duzu horregatik? [Aitor Arana](#)

## 5 -en **mendetik** -en agindupetik, -en eraginpetik.

Marroren **mendetik** libre sentitzen zelako. [Juan Kruz Igerabide](#)  
Atera gara haren logikaren **mendetik**. [Iñaki Segurola](#)  
-Urrundik, oso urrundik tiro egiteko gai dituk, ezta? Gure kanoien tiroen **mendetik** baino askoz urrunagotik. [Edorta Jimenez](#)

## 6 **mende**an eduki

Garai hartan, historialariek esaten digutenez, maiordomoek **mende**an zeuzkatzen erregeak. [Iñaki Iñurrieta](#)  
**Mende**an zeukan egoera, beraz. [Karlos Zabala](#)  
Ez, ordea, sindromea deuseztu edo **mende**an eduki zuelako -kontrol edo menderatze seinalerik ez zen izan bat ere-, baizik eta, besterik gabe, tiketarako inolako barne-bulkadarik izan ez zuelako. [Xabier Olarra](#)  
Hiri merkatarien alde egin zuten, nahiz eta haiek **mende**an ez eduki. [Iñaki Iñurrieta](#)  
Lanak nituen ahotsa **mende**an edukitzeko. [Alberto Ladrón Arana](#)

## 7 **mende**an hartu

Erloju-fabrika eraikin eskerga bat da, eta bailara osoa hartzen du **mende**an. [Eskarne Mujika](#)  
Gizakiaren parterik nobleena **mende**an beste guztiak hartzen dituen arimaren atala dela, nor jar lezake zalantzan? [Imanol Unzurrunzaga](#)  
Une horretantxe hartzen du sindromeak **mende**an. [Xabier Olarra](#)  
- Gertatzen da halako **mende**an-hartzerik, posesio edo desposesiorik, lobulu tenporaleko epilepsia duten batzuegan. [Xabier Olarra](#)

## 8 **mende**an izan du *ad*

Hortaz, arrazoimenak arimaren konkupiszentzia hauek guztiak **mende**an dituenean, orduan esaten da gizakia perfektuki ordenatuta dagoela. [Imanol Unzurrunzaga](#)  
Baina fedetik bizi den eta oraindik hiri zerutiarretik urrutiko erromes dabilen zintzoaren etxean agintzen dutenek ere itxuraz **mende**an dutenei zerbitzu egiten diete. [Imanol Unzurrunzaga](#)  
Zergak ordaintzen zizkieten denek, eta **mende**an izan zituen bere denbora guztian. [Jose Antonio Mujika](#)  
Lehenbizi Obi gurutzatu, gero Kolivanera, handik Tomska inguratu Irkutskeko bidea utziz, eta, Jeniseisk probintziara iristean, bide nagusia hartu berriz ere, inbaditzaileek ez baitzuten eskualde hori **mende**an. [Karlos Zabala](#)

**bere** mendeko (37); **bere mendeko** (5); **beren mendeko** (8); **beste mendeko** (4); **bertziaren mendeko** (4); **gizonaren mendeko** (4); **gure mendeko** (16); **haizearen mendeko** (8); **inperioren mendeko** (5); **izuaren mendeko** (5); **lege zibilen mendeko** (5); **legearen mendeko** (8); **legeen mendeko** (10); **mende baitago** (9); **mende baitaude** (6); **mende baitzegoen** (4); **mende bizi** (47); **mende dago** (49); **mende dagoela** (16); **mende dagoen** (15); **mende dagoena** (6); **mende daude** (16); **mende dauden** (10); **mende daudenak** (4); **mende eduki** (5); **mende egon** (22); **mende egongo** (12); **mende egotea** (7); **mende egoten** (4); **mende erori** (9) **mende geratu** (14); **mende geratu zen** (7); **mende geratzen** (11); **mende hartu** (11); **mende hartzen** (7); **mende izan** (4); **mende jarri** (18); **mende jarria** (4); **mende jarriko** (4); **mende jartzea** (7); **mende jartzeko** (11); **mende jartzen** (14); **mende utzi** (9); **mende uzten** (12); **mende uzten du** (4); **mende zaude** (4); **mende zegoela** (8); **mende zegoen** (29); **mende zeudela** (4); **mende zeuden** (18); **nire mendeko** (6); **subjektuaren mendeko** (4); **zibilen mendeko** (6); **zibilen mendeko bizi** (4)

**aurkaria mendeko** (4); **bartzelona mendeko** (14); **bartzelona mendeko hartu** (6); **bartzelona mendeko hartzeko** (4); **baten mendeko** (18); **bere mendeko** (14); **guztiak mendeko** (5); **hartu dituen mendeko** (10); **hartu dituzte mendeko** (10); **hartu du mendeko** (22); **hartu dute mendeko** (4); **hartu zituen mendeko** (22); **hartu zituzten mendeko** (30); **hartu zuen mendeko** (122); **hartu zuten mendeko** (11); **madril mendeko** (14); **madril mendeko hartu** (5); **mendeko bizi** (25); **mendeko bizi izan** (12); **mendeko dago** (8); **mendeko daude** (4); **mendeko dauden** (6); **mendeko eduki** (4); **mendeko edukitzea** (7); **mendeko egon** (10); **mendeko erori** (4); **mendeko har** (10); **mendeko hartu** (258); **mendeko hartu ahal** (4); **mendeko hartu behar** (6); **mendeko hartu dituzte** (4); **mendeko hartu du** (13); **mendeko hartu nahi** (7); **mendeko hartu ondoren** (28); **mendeko hartu ostean** (10); **mendeko hartu zituen** (13); **mendeko hartu zituzten** (6); **mendeko hartu zuen** (44); **mendeko hartu zuten** (20); **mendeko hartua** (17); **mendeko hartuko** (14); **mendeko harturik** (9); **mendeko hartuta** (90); **mendeko hartutako** (5); **mendeko hartuz** (15); **mendeko hartuz gero** (13); **mendeko hartzea** (45); **mendeko hartzea lortu** (4); **mendeko hartzeko** (113); **mendeko hartzeko gai** (10); **mendeko hartzen** (48); **mendeko hartzen badu** (6); **mendeko hartzen dituen** (5); **mendeko hartzera** (4); **mendeko jartzen** (5); **mendeko utzi** (4); **mendeko zegoen** (4); **mendeko zeuden** (5); **osasuna mendeko** (4); **real madril mendeko** (10); **real mendeko** (4); **taldea mendeko** (14); **taldea mendeko hartzeko** (8); **taldeak mendeko** (5); **valladolid mendeko** (4); **zaragoza mendeko** (7); **zaragoza mendeko hartzeko** (4)

**erantzunaren mendeko** (5); **mendeko lurraldean** (6)

**elkarren mendekoak** (4)

mendekal ik mendebal.

**mendebal** *(orobat mendekal g. er. mendabale g. er. eta mendebale g. er.)* 1 iz mendebal haizea.

**Mendebal** hezea zen orain nagusi azken asteetako hego jasangaitzaren lekuan. **Aingeru Epaltza**

Euri-jasak izan ziren, uholdeak etorri, **mendebalak** jo, eta etxeari eraso zioten; baina ez zen erori, oinarriak harkaitzean zituelako. **Edorta Jimenez**

**Mendebalak** jotzen zuenean, kresalaren gazia usain nezakeen. **Txillardegi**

Haizeak gurean Iparrar eta Hegoa ditugunez, nahiz-eta horien ondoan **mendebala** eta beste dabilen, horietaz jardun gara hainbat aldiz. **Pello Zabala**

Ordu gutxi barru, hemen diagu **mendebala**! **Pello Zabala**

2 mendebalde, sartalde.

Milizianoak eta gudariak **mendebalerantz** abiatu ziren kamioietan, autoetan, motorretan, bizikletan edo oinez. **Joseba Sarrionandia**

**Mendebale** ekialdera joaten diren tren guztiak, trenen ordutegian, zenbaki bakoitiekinaldatuak egonean dira, eta ekialdetik **mendebalera** joaten direnak, aldiz, zenbaki bikoitiekinaldatuak. **Fernando Rey**

Mea-hobi bat aurkitu dut eskualdearen **mendebaleko** ertzean. **Juan Garzia**

Eginahal guztiak egiten zituzten erruso petoak irauten ez ezik, erruso petoak antzezten ere bai, Europako **Mendebalak** errusoez egina duen irudira moldatzen. **Matías Múgica**

Iparrameriketako **mendebale** zabalera. **Herría**

3 *(orobat M larriarekin)* jatorria Europako mendebaldean duen kultura partekatzen duten herrialdeen multzoa. ik **Okzidente**.

Hola da asmatua izana, Irakaren eta **Mendebalaren** artean egin behar litakeen tratua: guk baigunke ur garbia eta jatekoa, heiek aldiz, petrolio. **Herría**

**Mendebalaren** nagusitasun etiko eta kulturala aldarrikatzen dugu, eta Ekialdea umiliatzen saiatu, berriz ere. **Berria - Euskal Herria**

Ideia horiek eragin handia izan dute XIX. mendeko Errusian: Soloviov, Tolstói etab., eta mugimendu eslabofiloa, **"mendebal"** materialistaren" etsaia, Espainian Unamoren antzera. **Joxe Azurmendi**

**Mendebal** akitu "konformista" honetan. **Joxe Azurmendi**

Eguraldi nahasia izango zela, halaxe tokatzen zela **mendebal** eta ipar-mendebalaren artean ibiliko zen haizeari esker. **Pello Zabala**

**Mendebala** sekularizatu arau gogortuko da Eliza katolikoa. **Piarres Aintziart**

Giza Eskubide naturalen filosofia, esate baterako, **mendebaleko** filosofia bat izan da, eta momentu batzuetakoa. **Joxe Azurmendi**

• 4 (izenlagun gisa)

Ibai Elurtua **mendebal** hormatik gertu zihoan. **Agustin Otsoa**

Han **mendebal** isurian dauden harkaitz-mendiak joz. **Pello Zabala**

Herri xume eta beharduna da Timor-Ekialdea, berrikitan **mendebal** parteko indonesiarrek piztu nahasmendu batzuk bortizki joa. **Herría**

Atzo **Mendebal** Pomeranian ere hegazti kutsatuak agertu direla jakinarazi zuten. **Berria - Gaiak**

Japoniak Filipine Herbehereetako **Mendebal** Indiei edo Britainiar Malaysiari eraso egin diotelako. **Edorta Jimenez**

• 5 (leku izen baten eskuinean) *ipar* ik **mendebalde** 2.

Hala nola, Portugalek Mozambike, Ginea, Angola eta Timor; Espainiak Maroko Iparrar eta Sahara **Mendebala**; Belgikak Kongo, Burundi eta Ruanda; Herbehereek Indonesia; Italiak Libia, Etiopia, Eritrea eta Somalia. Nazione Batuen hiru ehun soldado hedatu dituztela, Timor Iguzkialde hortakoak, Timor **mendebalarekialdeko** muga heietan: baziren alabaina bi hil izanak orduko jazargo batean. **Piarres Xarriton**

Amerika **mendebaleko** Arizonan. **Herría**

6 mendebaldeko euskalkia.

Esate baterako, *neska* -> *neskea* bilakaera **mendebal** oso-osoan gauzatu da (eta baita Urolaldeko hizkera batzuetan, Goierri eta Nafarroako Burundan ere). **Koldo Zuazo**

Dena dela eta aldeak alde, **mendebal** barruan eremu edo azpieuskalki bi badirela esan dezakegu: sartalde eta sortalde deituko ditudanak. **Koldo Zuazo**

Horrela egin zen, **mendebal** barruan sartaldeko eremua sortaldeko eremutik aldentzeko beste urrats bat, eta, horrela egin zen, **mendebaleko** euskara gainerako euskalkietatik bereizteko beste urrats bat. **Koldo Zuazo**

7 *hego-mendebal* *(orobat hegomendebal g. er.)*

Edo (izen gehien dituen) **hego** mendebal, zehar haize, aldaize eta gorbeianoa deitzen diogun bihurriago horri, edo beste baserriar batek zioenez **hego** mendebal, tormento jeneral delako berorri berari ere. **Pello Zabala**

**Hego** -mendebalak iraungo zuen edo mendebalari txanda emango zion jakiteko. **Pello Zabala**

**Hego** -mendebal edo aldaize traketsa dabilenean. **Pello Zabala**

- Lapurdiko **hegomendebalean**, Nafarroako iparmendebalean eta Gipuzkoako iparreki aldean Laino xoxtor batzuk ageri direla **hego** mendebal aldetik **Koldo Zuazo**

8 *ipar-mendebal* *(orobat iparmendebal g. er.)* ipar-mendebaldeko haizea.

Mendebala eta **ipar** -mendebala ohi baitira nagusi neguaren bihotzean. **Pello Zabala**

**ipar** mendebala ez denean, hodei busti umelez bazterrak zirtatzen. **Pello Zabala**

Ez da ipar beltz horietakoa iritsi zaiguna, udazkena sendo kastigatzen duen horietakoa; hau, itasoko **ipar** -mendebal umela da. **Pello Zabala**

**iparmendebalaren** enbata sartzen baita zapa-zapa, euri merke eta umela noiznahi botatzen duela. **Pello Zabala**

9 *ipar-mendebalsup\_2* *(orobat iparmendebal g. er.)* ipar-mendebalde.

Zorigaitzoz, goi **ipar-mendebalaren** aldetik sartzen zitzaigun haizearen mendeko. **Edorta Jimenez**

Haize bolada **iparmendebale** horiek tentetzen badira. **Pello Zabala**



## 10 *hego-mendebalsup\_1* (orobat *hegomendebal g.er.*)

Edo (izen gehien dituen) **hego** mendebal, zehar haize, aldaize eta gorbeianoa deitzen diogun bihurriago horri, edo beste baserriar batek zioenez **hego** mendebal, tormento jeneral delako berorri berari ere. **Pello Zabala**

**Hego**-mendebalak iraungo zuen edo mendebalari txanda emango zion jakiteko. **Pello Zabala**

**Hego**-mendebal edo aldaize traketsa dabilenean. **Pello Zabala**

## 11 *hego-mendebalsup\_2* (orobat *hegomendebal g.er.*)

Lapurdiko **hegomendebalean**, Nafarroako iparmendebalean eta Gipuzkoako iparrekialdean Laino xoxtor batzuk ageri direla **hego** mendebal aldetik. **Koldo Zuazo**

## 12 *mendebal alde* (**13** *agerraldi*, **5** *liburutan* eta **6** *artikulutan*) ik **mendebalde**.

Afrika **mendebal aldetik** bi alderdien baketzerat jin jaunek hautsi mausi bat muntatu dute, baina hura baztertu du Gbagbo presidentak, sobera abantail emaiten ziotela jazarleri. **Herria**

Kasernaren aurrez aurre, eta **mendebal aldeko** kaxko baten gainean, dorretxo borobil zahar-zahar bat zegok, aspaldixko honetan zaharrakutzen hasia. **Txillardegi**

Ondoko astezkenean, irailaren 1an, egundainokotan berriz Ibañeta pean ziren belari hetarik zenbait, eta, guziz, **mendebal aldeko** baxenabartarrak. **Herria**

## 13 *mendebal-ekialde*

Post-scriptum-ean dio Kisek **Mendebal**-*ekialdeko dibana* azpituilua izan zezakeela bere lanak. **Berria - Kultura**

## 14 *mendebal-haize*

Astearte osoan ariko du euria, **mendebal haizeak** hiri gainera igorritako hodei lodietatik. **Oskar Arana**

Eta **mendebal haizea** non sortzen den, han ibiltzen da amorratu, errabiatur eta ankerren. **Edorta Jimenez**

Zigortu ditu, bai, eta kanpora bota; **mendebal-haizearen** antzeko arnasaldi gogorrez eraman ditu urrutira. **Elizen arteko biblia**

## 15 *Mendebal Urrun* Mendebalde Urruna.

Baina ez, jakina, Amerika oparo eder hori, zinemakoa (zinema batekoa), denen inbidia den Amerika hori, Askatasunaren estatuena Amerika, **Mendebal** Urruneko heroiena, Kaliforniako hondartza argitsuena. **Koro Navarro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**baiona mendebalean** (4); **hego mendebaleko** (4)

**hego mendebal** (7); **mendebal barruan** (3); **mendebal haizea** (3); **mendebal osoan** (6)

**hego mendebala** (4); **ipar mendebala** (3)

**ipar mendebalean** (4); **mendebalean eta erdialdean** (3)

**afrika mendebaleko** (4); **amerika mendebaleko** (3); **hego mendebaleko** (7); **ipar mendebaleko** (3); **mendebaleko eta erdialdeko** (3); **mendebaleko europar** (3); **mendebaleko euskalkiaren** (3); **mendebaleko euskara** (14); **mendebaleko euskara egiten** (3); **mendebaleko euskaran** (5); **mendebaleko euskararen** (9); **mendebaleko haize** (3); **mendebaleko hizkera** (3); **mendebaleko hitzunik** (3); **mendebaleko konferentziako** (3)

**eguzkia mendebaletik aterako** (4); **mendebaletik ekialdera** (3)

## **mendebaldar** (**159** *agerraldi*, **14** *liburu* eta **7** *artikulutan* –*eratorriak barne*–) **1** *izlag/iz* mendebalekoa, mendebaleari dagokiona; mendebaleko herritarra. ik **mendebaldetar**.

Hegazkina eta irratia bezalako **mendebaldar** asmakuntzak. **Iñaki Mendiguren**

**Mendebaldar** bihurtzen ari zen munduaren etorkizunaz. **Iñaki Mendiguren**

Denda eta jatetxe dotoreak, **mendebaldar** kutsuko fast-food-ak, txadorra barik buruko fular hutsa janzen duten emakume gazteak... **Jon Arretxe**

**Mendebaldar** estiloko pubak dira, Mendebaldeko musika ipintzen dute eta **mendebaldarrak** egoten dira bertako mahai-aulkietan garagardoa edaten eta ingelesez berriketan, ozenki. **Jon Arretxe**

Ondoko mahaian bi gizon **mendebaldar** eta lau emakume japoniar zeuden. **Ibon Urbarri**

Parmenide eta Platonez geroztiko metafisika **mendebaldar** guztiaren gaitzespen erabatekoena. **Joxe Azurmendi**

Hamabosgarren mendean Italian lehenengoz sortu zen eskola arrazional eta toleranteko **mendebaldar** neopaganoen azken belaunaldia. **Iñaki Mendiguren**

Julio Cortazarren Rayuela nobelan bada Oliveira izeneko pertsonaia bat, oso **mendebaldarra**, intelektuala, unibertsitarioa, oso argia. **Berria - Kultura**

Guk: guk **mendebaldarrok** esatekotan egon da. **Oskar Arana**

Mendebaldean Japoniak asiarrak izaten jarraitzen du, hala ere, exotizismoak gidatzen duelako **mendebaldarren** begirada. **Ibon Urbarri**

Jakingo ote dute bereizten horko herri galduetan zer den yankia, zer den britainiarra, zer **mendebaldarra**, europarra, kristaua...? **Jon Arretxe**

## 2 *ez-mendebaldar izond*

Ikuspuntu ez-**mendebaldar** honen zuzentasunean duen sinesmena berretsi egin dute, bere ustez, historiaren mapa ikuspuntu ez-**mendebaldarretik** irakurtzeko ahaleginetan igarotako bi hamarkadetako emaitzek. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mendebaldar bihurtzeko** (5)

## **mendebaldartu**, mendebaldar(tu), mendebaldartzen **1** da/du *ad* mendebaldar bihurtu.

hogeigarren mendean **mendebaldartzen** ari zen munduko jendea. **Iñaki Mendiguren**

Errusia komunistak, **mendebaldartzen** ari zen Indiak bezala, bere kultur iraganetik nekazari ahulduen arazoa heredatu baitzuen. **Iñaki Mendiguren**

Hutsala da pentsatzea gizarte batek **mendebaldartu** dezakeela bere armada eta beste alderdi batzuetan lehen bezala jarraitu. **Iñaki Mendiguren**

Txinatarrak, laguntzarik gabe, inoiz ez zirela gai izango japoniarren eskuetatik berreskuratzeko haiek kendutako portu, industri eremu eta burdinbideak, Txina

**mendebaldartzeko** erabakigarri zirenak. **Iñaki Mendiguren**

Danimarkako lehen ministroari «**mendebaldartutako**» musulmanekin soilik biltzea egotzi diote. **Berria - Mundua**

**Mendebaldarturiko** mundu modernoan, Jainkoaren eta Zesarren arteko gerra berriro piztuko zela ematen zuen. **Iñaki Mendiguren**

Mustafa Kemal **mendebaldarturiko** nazio-estatu turkiarrak [...] lorpen arrakastatsua ematen zuen. **Iñaki Mendiguren**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Hindu-munduko buruzagi politiko **mendebaldartuek** gorazarre egin zioten Mendebaldeko ideal politikoetan izandako aldaketari. **Iñaki Mendiguren**

Enpresa pribatuan oinarrituriko negozio-mundu **mendebaldartuan** aukerarik onuragarrienak ezin ziren Europako britainiar mendekoen monopolio izan. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mendebaldarturiko munduan** (3); **mendebaldarturiko munduaren** (3)

**mendebaldartzen ari zen** (13)

# mendebaldartze *1 izond* mendebaldartzen duena.

Autokrata **mendebaldartzaileen** aurka. Txinako *ancien régime* ez zen eraitsi 1911 arte, eta orduan ez zuen ordeztu ordena berri **mendebaldartzaile** eraginkor batek, Kuomintang-ak gairitu ezin izan zuen anarkiak baizik, **Iñaki Mendiguren**

## • 2 iz mendebaldartzen duen pertsona.

Japonia eta Txinako mendebaldartze-mugimenduak biak aurkitu ziren bertako erregimen ekumeniko ongi ezarria bukatu eta ordeztzeko zeregin ikaragarriaren aurrean, baina japoniar **mendebaldartzaileak** erneago, bizkorrago eta eraginkorragoak ziren txinatarrak baino. **Iñaki Mendiguren**

Azkenaldiko judu-**mendebaldartzaileak**, eskola liberal nahiz sionistakoak izan, iragan historiko horrekin eteten ari ziren; eta sionismoaren etena izan zen bietatik gogorrena. **Iñaki Mendiguren**

# mendebaldartze *iz* mendebaldar bihurtzea.

**Mendebaldartzearen** arrisku nabariak, hindu-munduak ulertu beharrekoak, bi ziren. Honela, hindu-munduaren **mendebaldartzea** bere etapa kritikoa sartu zen, India Mendebaldearen gobernupean zegoen garaian. **Iñaki Mendiguren**

**Mendebaldartzearen** aurkako borrokari honela berrekitean [...] errusiarrak ezartzen ari ziren jarraibidea 31 urte geroago jada txinatarrak jarraitzen ari zirela. **Iñaki Mendiguren**

Pedro Handiak, jeinuaren zolitasunaz, **mendebaldartze** -politikak "dena ala ezer ez" izan behar zuela igarri zuen. **Iñaki Mendiguren**

Politikaren mailan, hala ere, kristau ortodoxoen bi **mendebaldartze** -mugimendu banatu horiek bide ezberdinak egin zituzten. **Iñaki Mendiguren**

Burujabetze politikozko egintza bat -estatu burujabeak Mendebaldeko nazioen elkartera ekarriz **mendebaldartze** -prozesuan gaingiroki seilua jarria zuena-. **Iñaki Mendiguren**

# mendebalde (3757 agerraldi, 155 liburu eta 894 artikulutan; cf sartalde 149 agerraldi, 44 liburu eta 5 artikulutan) 1 iz ostertzeko lau puntu nagusietako bat, eguzkia sartzen den aldeari dagokiona; mendebaldeko lurraldea. ik sartalde; mendebal 2.

Zure ondorengoak lurreko hautsa bezain ugari izango dira: **mendebalde** eta ekialdera, iparralde eta hegoaldera hedatuko zara. **Elizen arteko biblia**

Atezainak tenpluaren lau aldeetan egon ohi ziren: ekialdean, **mendebaldean**, iparraldean eta hegoaldean. **Elizen arteko biblia**

Mapa handi bat marrazten zigun, iparraldean Turkia, hegoaldean Irak, ekialdean Iran, eta **mendebaldean** Siria. **Juan Kruz Igerabide**

**Mendebalde** urrunean, Eguzki biribila sartzen da. **Agustin Otsoa**

**Mendebaldeko** Kristandadean helenismoaren literatur berpizkundea. **Iñaki Mendiguren**

Denver atzealdean utzi, eta **Mendebalde** menditsuan barneratzen hasi garenean, Aspen inguruan ekaizta lehertu da. **Patxi Zubizarreta**

Izan ere, Salomonen agintea Eufratesen **mendebalde** osoan hedatua zegoen, eta bakean bizi zen inguruko guztiekin. **Jose Antonio Mujika**

Half Moon Street-en, Londres, **Mendebaldea**. **Antton Olano**

## 2 (leku izen baten eskuinean) ik mendebal 5.

Aitzinetik jakina zen alta larreoteak uholdeka zetorrela, eta Afrika **mendebalde** guzira izurrite baten bezperan zagola. **Herria**

III. taulan, eskualdeko ardatz handien arabera sailkatu dira gai manufakturatuen mundu mailako trukeak: Ipar Amerika (Estatu Batuak, Kanada eta Mexiko), Europa **Mendebaldea**, eta Japonia, Ozeania eta garapen-bidean dagoen Asia. **Koro Navarro**

Aretxabaletan sartzeko Aretxabaleta **mendebaldea** eta Aretxabaleta ekialdea artean aukeratu behar duzuela. **Iñigo Aranbarri**

## 3 (-ko eta -en atzizkien eskuinaldean)

Europako **mendebaldean** administrazio politikoa ministroen esku uzten du, eta bera nolabait bere buruaren egoerari buruzko. **Xabier Olarra**

Kumas-en, Italiako **mendebaldeko** kostan, Napoles baino mendebalderaxeago. **Iñaki Mendiguren**

Donostiako **mendebaldean** elkarren pareko bizki agertzen diren bi tontor txorrotzetan. **Txillardegi**

Knud Rasmussen 1879. urtean jaio zen Iullissaten [...] Kalaallit Nunaateko **mendebaldean**. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Central Park gurutzatu eta Manhattango **Mendebaldean** sartu ziren Broadway-ko thailandiar ostaturantz. **Iñaki Zabaleta**

Unibertsitateko ikasketak amaitu eta musika irakasten duela bigarren hezkuntzako eskolaren batean, Erdialdeko **Mendebaldean** nonbait. **Oskar Arana**

Erromatar Inperioaren **mendebaldeko** probintzietan. **Iñaki Mendiguren**

Jan Klansenstraat kalean bizi da, hiriaren **mendebaldean**. **Josu Zabaleta**

Tenpluaren **mendebaldean**, eraikin bat zegoen hutsartearen azkenean. **Elizen arteko biblia**

Uhartearen **mendebaldean**, fiordoetan gora eginda, [...]. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

## 4 jatorria Europako mendebaldean duen kultura partekatzen duten herrialdeen multzoa. ikmendebal 3.

Ekialde- **Mendebalde** bereizketa berria. **Koro Navarro**

Alabaina, kapitalismoaren sorrerarekin batera, **Mendebalde** mundu osora eta etengabe zabaldu zen. **Koro Navarro**

**Mendebalde** esaten zaion honetan, emakumea libre al da? **Berria - Kultura**

Azken bi mendeotan, gurean, kulturaren aldetik **mendebalde** deritzogun honetan esan nahi dut, trenak ekarri duen bilakaera ikustean gizartearen beraren bilakaerari antzematen zaio. **Edorta Jimenez**

**Mendebaldean** ontologia eta teologia metafisika bakarraren bi aldeak izan dira. **Askoren artean**

Txinako itsas ateak **Mendebaldeko** merkataritza indarrez irekitzeak **Mendebaldearen** aurkako "Boxer" altxamenduaren erantzuna eragin zuen. **Iñaki Mendiguren**

Komunismoa jatorriz, liberalismoa eta faxismoa bezala, **Mendebalde** modernoan kristautasunaren ordezkotza gisa sorturiko ideologia sekularretako bat zen. **Iñaki Mendiguren**

Hindu-munduak **Mendebalde** modernoarekin topo egin zueneko egoera. **Iñaki Mendiguren**

Iberiko monarkien bultzadapean **Mendebalde** kristauak XV. mendean abiarazi zuen integrazio-higikunde handia, planeta osorainokoa, txinatarrak egindako esploraziozko bidaiak handiekin bateratsu gertatu zen. **Koro Navarro**

**Mendebalde** aurreratuko kontsumismo nazkagarri hori: kanila ireki eta ura izatea, hotz ala beroa aukeran, jateko nahi adina, etxetresna elektrikoak nonahi, gasolina nahiz gasa zenbatnahi... **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 5 (hitz elkartuetan)

Harro begiratzen diogu **mendebalde** -kumeek historiari. **Joxerra Garzia**

Gaur egun, alokatzeko apartamenturik kaxkarrenak ere badu **mendebalde** erako sukalde bat, eta bainugela bat ur beroarekin. Bera, humanista, gogoia desberdintasunei zabalik zeukan gizona, horra bete-betean harrapatua etnozentrismozko, **mendebalde** -zilborkeriazko... eta auskalo zer besteko delituan. **Juan Kruz Igerabide**

## 6 hego-mendebalde (orobat hegomendebalde g.er.)

Goiz osoan [...] **hego-mendebaldeko** haize gozo leuna izan zen. **Koro Navarro**

Frantziako **hego-mendebaldean**, Pauen. **Aurelia Arkotxa**

Irtish ibaiaren **hego-mendebaldetik** Turkestango mugetaraino hedatzen den eskualde zabal hori utzirik. **Karlos Zabala**

Ukrainako **hego-mendebaldean**. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Broad Peak-eko **hegomendebaldeko** aristatik jausi zela. **Unai Elorriaga**

**Hego-mendebaldeko** Asian. **Iñaki Mendiguren**

**7 ipar-mendebalde** (*orobat mendebalde g.er.*) ostertzeoko zortzi puntu nagusietako bat, iparraldearen eta mendebaldearen erdian dagoena.

Hego-mendebalde eta **ipar-mendebaldere** begira dagoen Kretako portu horretan. **Elizen arteko biblia**

**Ipar-mendebaldea** izan da Justxen koren garaipen eremua. **Berria - Mundua**

Irango **ipar-mendebaldean** ez baitute egiten farsiz, hizkuntza ofizialaz alegia. **Jon Arretxe**

Afrikako **ipar-mendebaldeko** kostaldere. **Koro Navarro**

Hudson ibaian jotzen zuen **iparmendebaldeko** haize indartsuan gaindi hegaz zebilen kearen pare. **Lopez de Arana**

Indiako Britainiar Inperioaren **ipar-mendebaldeko** mugan. **Iñaki Mendiguren**

## 8 mende bete (*orobat mendebete*)

Duela **mende bete**, idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko mugak argiagoak ziren. Aurten **mende bete** hirurak jaio zirela. **Andoni Egaña**

Jiuzhang Suanshuren txinatar tratatu handia [...] gure aroa baino **mende bete** lehenago idatzia eta erro kuboen kalkulua azaltzen zuena. **Jon Muñoz**

*Sid-dhantha*, astronomia-tratatu bat, taula eta guzti, **mendebete** lehenagokoa. **Jon Muñoz**

Handik mende batera, Euklides eta haren "planoaren geometria" baino **mendebete** geroago, esferaren geometria jarri zuten abian Teodosiok, lehenik, eta Menelaok *Sphaerica*-n, ondoren. **Jon Muñoz**

**Mende beteko** kronika nobelatu: mende hasiera, gerra kontuak eta gerra osteko isiltasun urteak. **Berria - Kultura**

## 9 mendebalde hurbil

1991ko urriaren hasieran, telefono-dei bat jaso nuen **Mendebalde Hurbiletik**. **Xabier Olarra**

## 10 Mendebalde Urrun

**Mendebalde Urruneko** Kristaua, Ekialde Urruneko Kristaua eta Eskandinaviarra. **Iñaki Mendiguren**

**Mendebalde Urruneko** Kristau Zibilizazioa "Zerrenda Zeltikoan" sortu zen, Irlandan batez ere. **Iñaki Mendiguren**

Azken finean, zer ardura dio **Mendebalde Urrunean** gertatzen denak? **Jon Arretxe**

Amerikako **Mendebalde Urruneko** doinuaren txandan, ez zen John Braun-ez margotutako aurpegirik falta izan. **Berria - Kultura**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

afrika mendebalde (3); ekialde mendebalde (3); hego mendebalde (8); mendebalde honetan (4); mendebalde moderno (7); mendebalde moderno (14); mendebalde modernoak (7); mendebalde modernoan (4); mendebalde modernoekin (5); mendebalde modernoaren (39); mendebalde modernoaren historian (4); mendebalde modernoaren kultura (6); mendebalde modernoko (49); mendebalde osoan (5); mendebalde urruneko (6)

ekialdea eta mendebaldea (6); erdi aroko mendebaldea (4); europa mendebaldea (3); hego mendebaldea (6); ipar mendebaldea (7)

afrika mendebaldean (3); bagdad mendebaldean (7); baiona mendebaldean (10); belfast mendebaldean (3); europa mendebaldean (9); europako mendebaldean (8); hego mendebaldean (27); hegoaldean eta mendebaldean (4); herrialdearen hego mendebaldean (3); herrialdearen mendebaldean (5); hiriaren mendebaldean (5); hiriburuaren mendebaldean (3); ipar mendebaldean (37); ipar mendebaldean dagoen (9); mendebaldean bizi (5); mendebaldean dago (8); mendebaldean gertatzen (3); mendebaldean izandako (5); mendebaldean kokatua (5); mendebaldean kokatua den (5); miarritze mendebaldean (3); sudan mendebaldean (5); sudango mendebaldean (6)

ekialdearen eta mendebaldearen (18); mendebaldearen aldeko (6); mendebaldearen aldekoa (3); mendebaldearen arazoa (3); mendebaldearen aurkako (6); mendebaldearen eta ekialdearen (5); mendebaldearen kontra (5)

leporatu diote mendebaldeari (3)

afrika mendebaldeko (10); afrikako mendebaldeko (5); alemania mendebaldeko (6); baiona mendebaldeko (5); donostia mendebaldeko (3); ekialdeko eta mendebaldeko (15); erdi aroko mendebaldeko (22); eufrates ibaiaren mendebaldeko (16); europa mendebaldeko (12); europako mendebaldeko (3); hego mendebaldeko (27); hego mendebaldeko asian (3); hego mendebaldeko haize (3); ibaiaren mendebaldeko (16); ibaiaren mendebaldeko gobernari (3); ibaiaz mendebaldeko (3); indiako ipar mendebaldeko (3); inperioaren mendebaldeko (5); ipar mendebaldeko (41)

mendebaldeko afrikako (4); mendebaldeko afrikar (6); mendebaldeko alemania (5); mendebaldeko alemaniak (7); mendebaldeko alemaniak eta (4); mendebaldeko alemaniko (7); mendebaldeko alemanian (5); mendebaldeko artean (6); mendebaldeko artearen (5); mendebaldeko asian (3); mendebaldeko barbaroen (3); mendebaldeko botere (3); mendebaldeko botereek (3); mendebaldeko demokrazia (3); mendebaldeko dibisioko (3); mendebaldeko ekonomia (3); mendebaldeko ekonomietan (4); mendebaldeko erlijio (4); mendebaldeko erromatar (7); mendebaldeko erromatar inperioaren (3); mendebaldeko eskualdeetan (6); mendebaldeko esperimentziak (4); mendebaldeko estatuen (8); mendebaldeko eta ekialdeko (8); mendebaldeko europa (12); mendebaldeko europako (18); mendebaldeko europar (18); mendebaldeko europaren (5); mendebaldeko euskal baladak (3); mendebaldeko euskal kantuak (5); mendebaldeko filosofia (4); mendebaldeko gizakia (4); mendebaldeko gizakiak (13); mendebaldeko gizakiaren (5); mendebaldeko gizarte (14); mendebaldeko gizartea (15); mendebaldeko gizarteak (12); mendebaldeko gizartearen (5); mendebaldeko gizartearen (23); mendebaldeko gizarteari (4); mendebaldeko gizartean (6); mendebaldeko gizon (4); mendebaldeko gobernari (3); mendebaldeko haize (7); mendebaldeko haizea (4); mendebaldeko hemisferio (3); mendebaldeko herri (9); mendebaldeko herrialde (12); mendebaldeko herrialdeek (7); mendebaldeko herrialdeen (5); mendebaldeko herrialdeetan (14); mendebaldeko herrien (5); mendebaldeko herrietako (4); mendebaldeko herrietan (6); mendebaldeko hiri (5); mendebaldeko historia (3); mendebaldeko historian (5); mendebaldeko historiaren (12); mendebaldeko hizkuntza (5); mendebaldeko ideal (3); mendebaldeko ideologia (3); mendebaldeko indietan (3); mendebaldeko industri (6); mendebaldeko izotz plaka (3); mendebaldeko jendea (4); mendebaldeko jentilen (5); mendebaldeko kantonamenduan (4); mendebaldeko kapitainak (6); mendebaldeko kapitainek (5); mendebaldeko kapitain (3); mendebaldeko klase ertainaren (9); mendebaldeko konferentziako (17); mendebaldeko konferentzian (3); mendebaldeko kostaldean (7); mendebaldeko kristandadea (17); mendebaldeko kristandadeak (11); mendebaldeko kristandadeko (25); mendebaldeko kristandadearekin (6); mendebaldeko kristandadearen (16); mendebaldeko kristandadeko (3); mendebaldeko kristau (44); mendebaldeko kristauak (4); mendebaldeko kultura (11); mendebaldeko kulturak (5); mendebaldeko kulturaren (7); mendebaldeko kulturaren (12); mendebaldeko lurmuturrean (3); mendebaldeko lurralde (6); mendebaldeko lurraldeetan (6); mendebaldeko matematika (3); mendebaldeko matxino (3); mendebaldeko mendi (3); mendebaldeko muga (4); mendebaldeko mundu (11); mendebaldeko munduan (14); mendebaldeko munduaren (18); mendebaldeko munduko (3); mendebaldeko nazioen (3); mendebaldeko pentsamenduan (3); mendebaldeko pentsamenduari (4); mendebaldeko probintzietan (4); mendebaldeko sahara (62); mendebaldeko sahara okupatu (4); mendebaldeko saharak (7); mendebaldeko saharako (74); mendebaldeko saharako egoera (3); mendebaldeko saharako erreferendumerako (6); mendebaldeko saharako gatazka (6); mendebaldeko saharako gatazkaren (4); mendebaldeko saharako haurrak (3); mendebaldeko saharako herriaren (3); mendebaldeko saharako uretan (3); mendebaldeko saharan (32); mendebaldeko saharara (6); mendebaldeko sahararako (12); mendebaldeko sahararako erreferendumerako (4); mendebaldeko sahararen (38); mendebaldeko sahararen autodeterminazioaren (3); mendebaldeko sahararen deskolonizazio (3); mendebaldeko saharari (4); mendebaldeko saharatik (4); mendebaldeko siberiaren (4); mendebaldeko teknika (3); mendebaldeko teknologiaren (4); mendebaldeko tindua (4); mendebaldeko tradizio (3); mendebaldeko zibilizazio (9); mendebaldeko zibilizazio moderno (4); mendebaldeko zibilizazioa (11); mendebaldeko zibilizazioak (8); mendebaldeko zibilizazioaren (20); mendebaldeko zibilizazioaren etorkizuna (5); mendebaldeko zibilizatioari (3); mendebaldeko zientzia (7)

mendeko mendebaldeko (10); miarritze mendebaldeko (5); ukraina mendebaldeko (4)

europa mendebaldekoak (3)

ekialdera eta mendebaldere (3); ekialdetik mendebaldere (19); hego mendebaldere (4); ipar mendebaldere (14); jordanez mendebaldere (4); kilometro ipar mendebaldere (4); kilometro mendebaldere (9); mendebaldere begira (8); mendebaldere bidean (3); mendebaldere egin (5); mendebaldere egin zuten (3); mendebaldere jo (5); mendebaldere joan (4)

ipar mendebalderantz (4); mendebalderantz jo (3)

ekialdetik eta mendebaldetik (3); hego mendebaldetik (3); ipar mendebaldetik (4); mendebaldetik ekialdera (13); mendebaldetik jotzen zuen (3)

## mendebaldekotze iz mendebaldeko bihurtzea.

Xah-aren modernizazio eta **Mendebaldekotze** prozesuarekin kontent ez ziren oposizio kideek eta herritarrek Iraultza Islamikoa gauzatzeko joan ziren. **Berria - Mundua**

## mendebalderaka *adlag* mendebaldere.

Herrixkak Leitza ibaitik **mendebalderaka** agertzen dira; ibai handien bide inguruan daude eta ez dute kultura megalitikorik. **Berria - Kultura**

## mendebaldetar (*10 agerraldi, 3 liburu eta 5 artikulutan –eratorriak barne–; orobat mendebaldetiar g.er.*) izlag/iz mendebaldarra.

Irakurtzen duen mundu **mendebaldetar** guztiak behintzat. **Mikel Hernandez Abaitua**

Petrolio enpresa bati erasoa jo eta saudi-ariabari bat eta bost **mendebaldetar** hil dituzte Janbun. **Berria - Mundua**

Emazteak, **mendebaldetiarrak** bezala ziren jantziak. **Ramuntxo Etxeberrri**

Gu munduan nagusi izatea -gu, **mendebaldetarrok**, gizonok, kristauok, zuriok- gauzen ordena berezkoa dela. **Jon Alonso**

Nire lagun kroaziarrek esaten dutenez, eurak **mendebaldetaragoak** dira turkiarrak baino, baina jakina, Turkia NATOren barruan dago, eta Balkanak Ekialdea bailiran ikusteko ohitura dugu. **Edorta Jimenez**

## mendebaldetartu, mendebaldetar(tu), mendebaldetartzen da/du *ad* mendebaldetar bihurtu.

**Mendebaldetartu** sortaldetarrek **Berria - Kirola**

## mendebaldezale *iz* mendebaldearen zalea dena.

Ekialdeko **mendebaldezalea** **Berria - Mundua**

## mendebale ik mendebal.

## mendebete ik mende<sup>1</sup> 8.

## mendeburu *iz ipar* mendeurrena.

Aurten, eta beti Iparraldeari dagokionez, ospatuko da beste **mendeburu** bat, Maurice Harriet haltsuar apezarena. **Herria**

Denbora berean, ospatuko da Joan Perez Lazarraga hil zelako laugarren **mendeburua**. **Herria**

1975-ean, Ravel-en sortzeko **mendeburua** ospatu zen urtean. **Herria**

Funtsean herritarrek haundizki ospatu zuten zazpigarren **mendeburua**, 1963an, eta pilota leku aitzinean ezarri Teobaldo II-ren itxura poltit bat. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Helduden urtean, Ziburuk ospatuko ditu bere 400 urteak eta jadanik apailu batzueri plantatuak dira **mendeburu** horri buruz. **Herria**

Juan Antonio Mogel-en heriotzearen bigarren **mendeburua** bete da joanden asteen. **Herria**

Bere sortzearen **mendeburuan** (1903-2003), huna bi liburu dituela Etienne Salaberry heletar haundiak bere oroitzapenaren lagungarri. **Herria**

Hor estreinatuko **mendeburuaren** oroigarri nolazpait denboran Ziburu eta Urruñaren juntako muga-harri xahar bat. **Herria**

Larunbatean, Aiherran, Piarres Haristoy apez idazle zenaren ohoretan, haren hiltzearen **mendeburuko** biltzarra. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bosgarren mendeburu** (3); **mendeburu horren karietarat** (3)

**elkartearen mendeburua** (3); **laugarren mendeburua** (4); **mendeburua ospatuz** (3); **sortzearen mendeburua** (3); **zenaren mendeburua** (4)

**laugarren mendeburuaren** (3); **mendeburuaren karietarat** (3)

## mendeburukari (*orobat mendeburu-kari*) *adlag* mendeburuaren karietara.

Bartzelonako Orkestra Sinfonikoarekin batean bazituzten elgarrekin emaitekoak Giuseppe Verdiren obra famatuen batzu, hala-nola [...] musiko italiarraren **mendeburukari**.

**Herria**

**Mendeburukari**, omenaldi batzu eskainiak izan zaizkio eta lehena Donibane Lohizunen,bera luzaz eta luzaz bizi izan zen herrian. **Herria**

Nola ez aipa ere bat eta bestearen **mendeburu**-kari, Janpierra Arbelbide eta Frantxiko Lapitz apez idazleen oroitzapenetan moldatu omenaldiak? **Herria**

Bilbon egin dira, hiri horren zazpigarren **mendeburukari**, Bilboaldeko hiritarren Ekimen Sozialak joan den martxoaren 27, 28 eta 29 etan. **Herria**

Hori baitzen San Frantses, San Inazio eta zazpi lagunek Parisen eta Erroman sortu zuten 500 urte huntako Erakundea, 2006an hain zuzen **mendeburukari** ospatu nahiko duguna. **Herria**

## mendekari (*19 agerraldi, 14 liburu eta artikulu 1ean*) *1 izond/iz* mendekatzen dena. ik **mendekatzaille**.

Bazirudien ezen, garaille ateratzea espero zuen une hartan, izaki ukiezin eta **mendekari** bat zetorkiola kontra egitera, bere mundu lausoan beraren kontrako indarrak bildurik.

**Irene Aldasoro**

Gordon **mendekari** amarrutsu bat izan zitekeelako susmoaz pentsatzea zen beraren heriotzaz pentsatzea. **Oskar Arana**

Ez dago oso garbi zer egin zuen Joseph Roth-ek Hitler, **mendekaririk** arruntena, Parisen sartu zen egunean. **Anjel Lertxundi**

Elkarteak libratu egingo du hiltzailea **mendekariaren** eskuetatik, eta ihesleku izan duen babes-hirira itzularaziko berriro. **Elizen arteko biblia**

### • *2 izond* mendekatzen denari dagokiona.

Xarlesek irri **mendekaria** libratu zuen eta Manexunek besondoa tinkatu zion. **Itxaro Borda**

Marguerite Durasen nobela batean noizbait kausitu nuen, deus ez zuenaren alegantzia umil eta **mendekariaren** musika. **Itxaro Borda**

### 3 (adizlagun gisa)

Itzalak bere babesean hartu zuen Madama Glynnen soineko margula, baina lepo-hezurraren atzeko sakongunetxoan jausi zitzaion **mendekari**. **Irene Aldasoro**

## mendekati *izond* mendekatzeko joera duena.

Benetako jainkoak (Zeus eta Hera) haserretu egin ziren, haserrekorrek eta **mendekatiak** baitziren Greziako jainko nagusi miserable haiek. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Puritanoek erlijioaren izenean gotorlekuak eraitsi, soldaduak akabatu, umeak hil eta emakumeak bortxatu zituzten, Jainko **mendekati** baten mendekua suz eta burdinaz idatziz betiko lurralde haietan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Gazteluko sukaldean ohartarazi zidaten: kondea **mendekatia** zen. **Aingeru Epaltza**

Libertinoa izateari utzi eta jasan dituen sufrimenduen ordaina hartu nahi duen Sade **mendekatia** bihurtzen da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## mendekatu, mendeka, mendeketzen *1 da ad* irain edo kalte bat ordaindu, kalte edo irain egilea zigortuz.(norbaitez)

Eta eguzkia gelditu egin zen, eta ilargia toki berean tinko egon, herria bere etsaiez **mendekatu** zen arte. **Elizen arteko biblia**

Erregeak ez du ezkon-saririk nahi, filistearren ehun zakil-mutur baizik, erregearen etsaiez **mendekatu**. **Elizen arteko biblia**

Zin egin zuen **mendekatu** egingo zela Comalaz. [Juan Garzia](#)  
Neure sumina azkeneraino hustuko dut beraien aurka eta **mendekatu** egingo naiz. [Elizen arteko biblia](#)

Ikusten duzu nola **mendekatu** zaizkidan, zenbat asmo txar duten nire kontra. [Elizen arteko biblia](#)

**Mendekatuko** naiz, hitz ematen dizut. [Jon Muñoz](#)

Martini oldartzeko asmoa zuen, dudarik gabe, baina ez zuela harrapatuko konturatuta, neskaekin **mendekatu** zen, eta alimaleko matraileko bat eman zion. [Koro Navarro](#)

Filistearrek mendekuz jokatu dute, gogor eta mesprezio biziz **mendekatu** dira, beren betidaniko etsaiak suntsitzeraino. [Elizen arteko biblia](#)

Aspaldidaniko berririk onena zen hura; **mendekaturik** sentitu zen Ruche jauna. [Jon Muñoz](#)

## 2 (norbaiti) *ipar*

Eta horra nun jaz agertu abertzale sasi-talde berri bat hasi den dena mehatxu, molde hoberik ez bada **mendekatuko** dela azkarki gobernua ugartean duen ordezkari bati, erran gabe haatik norbait baduenetz bereziki begietan... [Herria](#)

Maurice Papon minixtro ohia, lau urte huntan preso dena, gerla denboran judu batzueri itsuski **mendekatu** zela-eta. [Herria](#)

## 3 (zerbaitez)

Zure kontra bideratu dudan portaeraz **mendekatzeko**, zalantza izpirik gabe saiatu zara Yumimoto konpainiaren kontaduria zapuzten, jakinik alde zure okerren ondorioak nire gain hartu beharko ditudala! [Joxan Elozegi](#)

Nola ez naiz **mendekatuko** makurkeria horiez... [Jon Muñoz](#)

Ordea, emakumezko jukutria horrez **mendekatzeko** xedea hartu aitzin, saia gaitzen hura geure fabore ekartzen. [Jon Muñoz](#)

## • 4 du *ad* norbaitez edo zerbaitez mintzatuz, hari kalte edo irain egin diona zigortu.(norbaitez)

Mendekatuko nintzela egin nuen zin, **mendekatuko** nituela nire lagun hilduratuak. [Koldo Izagirre](#)

Zuk **mendekatuko** duzu gure Catherine. [Aingeru Epaltza](#)

-Zuk **mendekatuko** gaituzu. [Aingeru Epaltza](#)

Bil itzazue zeuengana legea betetzen duten guztiak, **mendekatu** zeuen herria. [Elizen arteko biblia](#)

Ohoratu egin behar da Jainkoa eta ez **mendekatu**. [Juan Martin Elexpuru](#)

**Mendekatuko** zaitut, ene laztana; beste hainbeste egingo diot berari. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

## 5 (zerbaitez)

-Lagunok, oraintxe **mendekatuko** dugu guri egindako kaltea. [Patxi Zubizarreta](#)

Baina zuen heriotza **mendekatuko** dut. [Patxi Zubizarreta](#)

Hil egin zituen, guduan isuritako odola bakealdian **mendekatzuz**. [Elizen arteko biblia](#)

Indotxinako hondamendia ere **mendekatu** nahi dute. [Xabier Montoia](#)

Oharturik badela anitz jende, Erregeri biziki atxikiak direnatan ere, gutiesten duenik gure Jauna, honen izena eta ohorea **mendekatu** nahi izan dut, [...] hizkuntza arruntean idatzirik gure Errege Jaunari eskainia nion Elizako Errenten liburuxka, latinez itzulirik, Gure Jaun Txit Saindu Pio V. Aita Santuari aurkeztu nahi izan diodanean. [Piarres Xarriton](#)

Humboldt prusiarra ohartua baitzen, duela bi mende, Hegoaldeko euskaldunek bazekitela ordukotzat beren euskal naziotasuna **mendekatzun**, ez gara harrituko gaur egun oraino, Pariseko kazetariak mintzo baldin bazaizkigu Hegoaldeko euskaldunen nazio kontzientziak. [Piarres Xarriton](#)

## 6 (norbaiti) *ipar*

Orduan, anaiak norbaiti **mendekatu** behar zuela eta, nor zen gehienetan petzero? [Daniel Landart](#)

Anaia hil zitzaiala eta, norbaiti **mendekatu** beharrez, rugby taldekoei niela ene umore txarra sendiarazi nahi. [Daniel Landart](#)

## 7 (era burutua izenondo gisa)

Gero ikasiko genion Miranderi mendekuak alferrikako direla **mendekatuaren** jakinaren gainean gauzatu ezean. [Joxerra Garzia](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aia mendekatu** (4); **itsuski mendekatu** (7); **itsuski mendekatu zela** (3); **mendekatu da** (3); **mendekatu dira** (4); **mendekatu zela** (4); **mendekatu zen** (6); **norbaiti mendekatu** (5); **odola mendekatu** (3)

**gogor mendekatuko** (3); **mendekatuko du** (3); **mendekatuko dutela** (3); **mendekatuko naiz** (4)

**hildakoa mendekatzeko eskubidea** (5); **mendekatzeko eskubidea** (7); **mendekatzeko eskubidea duenak** (3)

**aise mendekatzun** (8); **nor nahiri mendekatzun** (3)

# mendekatzaille (43 agerraldi, 21 liburu eta artikulu 1ean) 1 izond/iz mendekatzun dena. ik mendekari.

-Jauna, ni izan nadila haren **mendekatzaillea**! [Karlos Zabala](#)

Jauna, Jainko espatsu eta **mendekatzaillea** da. [Elizen arteko biblia](#)

Kalte bat ez da ordaintzen ordainak **mendekatzaillea** bera ere harrapatzen badu, eta orobat geratzen da kaltea ordaindu gabe baldin **mendekatzailleak** kalte egilearen aurrean **mendekatzaille** gisa agertzetik lortzen ez badu. zeruetako sua dakarren aingeru **mendekatzaillearen** gisan. [Koro Navarro](#)

Orain biktima izango zara une batez, nire aingeru ederra, eta gero, berehala, **mendekatzaille** sutsua. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

## • 2 izond mendekatzun denari dagokiona.

Bere izate **mendekatzailleak** eta dirua irabazteko aukerak hartaratua jokatzen zuen. [Patxi Zubizarreta](#)

Erdi itota baina bizirik zegoen, eta begi **mendekatzailleak** Maelen bizkarrean jarrita zeuzkan. [Joanes Urkixo](#)

Bat-batean urdanga gaizkilea gaixo jarri zen, eta bere zorra ordaintzeko hiru egunean gorriak ikusi ondoren, heriotza **mendekatzaillea** jasan zuen. [Iban Zaldúa](#)

Bere amorru **mendekatzaillea** hartuko du armatza eta izadiak baliatuko da etsaia zigortzeko. [Elizen arteko biblia](#)

Fedegabeen hondatzaile den ezpata **mendekatzaillea**. [Elizen arteko biblia](#)

Batzuek uste dute persona ustez errugabeei erasaten dieten tragediak zuzenbide **mendekatzaillearen** seinale direla, gizakiontzat ulertezina den jakituria baten seinale, alegia. [Patxi Zubizarreta](#)

## 3 (adizlagun gisa)

Erregea bere oinekin zanpatzen ari da, **mendekatzaille**, mairuen odolaz gain, musulmanen ilgora, eta hau da bigarren okerra. [Jon Alonso](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**jainko mendekatzaille** (3)

# mendekio 1 iz mendekua.

Beharko du ere ordaindu **mendekioz** ixuri gasoilkia, baditu beraz 2379 euro pagatzeko. [Herria](#)

Bere aldetik Mitterrand semea hasarre gorrian dago, juje batek nahi ukan duela zikindu eta lurra baino apalago ezarri, deus frogarik gabe, arrunt zuzenkontran, **mendekio** hutesz nolazpait. [Herria](#)

Ondorioz, gazte multxo batzu arrunt asaldatu dira, gauaz dena **mendekio**! [Herria](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dena mendekio (4); mendekio hutsez (10)

## mendeko iz mendean dagoen pertsona. ik **mende**<sup>2</sup> 3; **menpeko**.

Jaunak **mendekoari** hartutako fedeagatik zor zion onginahiaren kariaz. **Iñaki Iñurrieta**  
Nagusiek **mendekoen** artean banatu ohi dituzten sariak. **Jose Morales**  
Betiko jauskilak nagusi eta **mendekoak** beti bezain kontent beren hartan. **Xabier Montoia**  
Pobreetan pobreena izan nahi zuen, denen **mendeko** eta zerbitzari. **Askoren artean**  
Lege islamikoaren erreinua pixkanaka zabaldu zen kaliferriar musulman ez ziren **mendekoak** inperiogileen erlijiora konbertitzearen bidez. **Iñaki Mendiguren**  
Ezen ez du **mendekoak** goikoaren legea kentzen ahal. **Piarres Xarriton**  
Britainiar **mendekoak** Erresuma Batuen kolonia eta dependentsia gehienetan ez zirela autogobernuaz gozaten ari. **Iñaki Mendiguren**  
Ereduzko **mendekoaren** ahotsa zen nirea, sumisoa eta lotsatia. **Joxan Elozegi**  
Gobernu baten lehen ardurak bere aginpidea ezartzea eta agindutakoa betetzen ez duten egintza guztiak [...] zapaltzea baita, **mendekoa** gobernuaren nahia betetzeko uzkur agertzen denean. **Iñaki Mendiguren**  
Nagusitzan, erorketa arriskua dago; gorespenean, amildegia; **mendekoaren** apaltasunean, berriz, arimarentzat irabazia. **Joseba Sarrionandia**

## Mendekoste (orobat *Mentekoste g.er.*, *Pentekoste g.er.* eta *Pentekostes g.er.*) 1 iz

Erran ditake gisa guziz lehenbiziko **Mendekoste** hartan zela finkatu Eliza, mundu guzirat hedatzeko xedearekin. **Herria**  
**Mendekoste** hurbildua da segur baina zendako diozu hori? **Janbattitt Dirassar**  
Urtero **Mendekosteko** kapitulua egitera biltzen ziren. **Askoren artean**  
Ortziraletik iganderat, Donibane Garazin, **Mendekosteko** musika-besta bereziak. **Herria**  
**Mendekosteko** asteburuan, GARAZIQUE 2004 musika ekitaldiak Ipar Euskal Herriko musikari ainitz biltzen ditu Donibane Garaziko karriketan eta ostatuetan. **Herria**  
**Mendekostez**, igande guziz bezala, joanen zara dudarik gabe zure amarengan. **Janbattitt Dirassar**  
**Mendekostez**, finalak. **Herria**  
**Mendekostez**, kermeza ongi iragan da, jendaldea ederra bildu da, bai tripa saldarentzat, eta bai bazkariarentzat. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Monasterioa eraiki zuen Klararen alabentzat, eta 1234ko **Mendekoste** jaian bera ere monasterioan sartu zen. Gure **Mendekoste** festaburuan -hau da, Asteen jai santuan- bazkari berezia antolatuta zidaten. **Askoren artean**  
**Mendekoste** bestetan. **Herria**  
**Mendekoste** zortziurrenetik Abendua arte eta Epifania zortziurrenetik Piztuera igandea arte. **Askoren artean**  
**Mendekoste** bezpera. **Marzel Etxehandi**  
**Mendekoste** egunean eta Mikel santuaren jaian, irailean. **Askoren artean**  
Denbora hartan, **Mendekoste** asteleheneko beila osoa oinez egiten zen, elizatik elizara. **Michel Oronoz**  
Itoitzera **Mendekoste** astelehenez. **Herria**  
Hau ekainaren leheneko, **Mendekoste** asteartez. **Herria**  
Fedearen aitormena ekainaren 8an **Mendekoste** egunarekin. **Herria**  
**Mendekoste** biharamuna jaieguna da Herbeheretan. **Josu Zabaleta**  
**Mendekoste** aldian anaia guztiak biltzen ziren Santa Marian, eta Erregela nola zintzoago bete ari izaten ziren. **Askoren artean**  
Itozten ari garen paria batzuk besterik ez gara, gainerakoak **Mendekoste** oporretan dauden bitartean. **Josu Zabaleta**

## 3 *Mendekoste-kari* (orobat *Mendekostekari*) ipar Mendekosteren karietara.

Ez baita batere hala! ez zait haatik iduritzen **Mendekostekari** egiten ahalko dugun gauza dela. **Janbattitt Dirassar**  
**Mendekoste** -kari, horra beste asteburu luze bat, astelehena ere besta-buru ekarria izanez. **Herria**  
**Mendekoste** -kari aldiz, eliza-langile eta bereziki katixima erakasleen eguna, bai eta hogoita-hamar lagun gazte eta helduen konfirmatzea. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mendekoste astelehen** (7); **mendekoste astelehena** (3); **mendekoste astelehenarekin** (4); **mendekoste astelehenean** (7); **mendekoste asteleheneko** (6); **mendekoste astelehenez** (8); **mendekoste bezperan** (3); **mendekoste biharamuna** (11); **mendekoste biharamunean** (8); **mendekoste eguna** (4); **mendekoste egunarekin** (4); **mendekoste egunean** (17); **mendekoste egunez** (4); **mendekoste kari** (5); **mendekoste ondoko** (5); **mendekoste zortziurrenetik** (3)  
**mendekosteko kapitulua** (3); **mendekosteko kapitulan** (3)

## mendekotasun (*233 agerraldi*, *46 liburu* eta *33 artikulutan*) 1 iz mendeko denaren nolakotasuna. ik **mendetasun**; **menpekotasun**.

Erabateko pobrezia, otoitza, xumetasuna eta **mendekotasuna**. **Askoren artean**  
Hamidaren amodioak ez zekarren esklabotzarik edo **mendekotasunik**, borroka pindartsu bat zen eta haren garrak kiskalgarriak ziren. **Patxi Zubizarreta**  
Pentsa dezakegu gogamenari buruzko **mendekotasuna** edo lokabetasuna errealtateari berari dagozkion propietateak direla. **Askoren artean**  
Natura ez gizatiarraren legeekiko gizakiak duen **mendekotasuna** gutxitu egiten dela gizakiak teknologian aurrera egin ahala.eskualde hau arrotzen aztaparren **mendekotasunetik** ahalik lasterren libratzea. **Iñaki Mendiguren**  
Mundu-ekonomia zirkulu zentrokideetan zegoen egituratua; zentroarekiko **mendekotasuna** hazi ahala, behera egiten zuen pisu ekonomikoak. **Koro Navarro**  
**Mendekotasunezko** erlazioak eta elkartruke asimetrikoak. **Iñaki Heras**

## 2 (izenondoekin)

Izan ere, **mendekotasun** ekonomikoak **mendekotasun** soziala, politikoa, kulturala, afektiboa eta sexuala dakar. **Luis Elberdin**  
Herialde industrialekiko **mendekotasun** teknologikoa lehenbailehen aputzea. **Koro Navarro**  
Gauzarik pertsonalena besteen esku utzi dugu, eskumen pribatu bati **mendekotasun** publikoa ezarri diogu. **Pako Aristi**  
Gizakiaren **mendekotasun** ekologikoa. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
Emakumea, ezkontzako legeak haustean, irten egiten delako bere **mendekotasun** naturaleko egoeratik. **Iñaki Iñurrieta**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

12.000 urte izan dira [...] **mendekotasun** urteak. **Luis Elberdin**  
Oroimen-eremua eta testu baten enuntziatuak arautzen dituzten hierarkia eta **mendekotasun** moduak uztartzeko era. **Xabier Arregi**  
**Mendekotasun** egoeran dauden pertsonen zainduak izateko eskubidea dute. **Berria - Euskal Herria**

Horren nazioaren, fundazionistak dio besteekiko usteen **mendekotasun** erlaziorik ez duten uste justifikatuak badaudela. Askoren artean  
Edonor oharrezko moduko zen Lacik **mendekotasun** -harremana zuela Lajosekin, guk genuen bera hain zuzen, hau da, amak, Vilmak eta nik neuk gero. Ander Irizar  
Teoria honen arabera, **mendekotasun** harremanak daude periferiarene eta zentroaren artean. Iñaki Heras  
Niganako **mendekotasun** erakusgarri gisa jokatu zuela hala. Karlos Linazasoro  
Espainiako **Mendekotasun** Legearen aurreproiektuan ez dago osasun zerbitzuek, pentsio sistemek eta, oro har, gizarte ongizateko ordezkariak mendekotasunari ematen dizkioten erantzunen inguruko aipamenik. Berria - Euskal Herria  
- ELA sindikatuak gogor kritikatu du Espainiako Gobernuak aurkeztu berri duen **Mendekotasun** Lege Egitasmoa. Berria - Euskal Herria

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

interes oraindik bermatzeko, artilearen, mearen eta bestelako lehengaien esportazio masiboari ekin behar izan zioten, herrialdearen kanpo-**mendekotasuna** areagotzeraino. Iban Zaldúa

Eta estatu oraindik burujabeak finantza-**mendekotasunean** ipini ziren, politika-**mendekotasunean** beraz. Koro Navarro  
Zenbat eta indartsuago barneratu hazkunde [...] are gehiago murriztuko da finantza- eta teknologia-**mendekotasuna**. Koro Navarro

## 5 droga-mendekotasun (6 agerraldi 4 artikulutan) ik droga 6.

Askagintza taldeak bihar eta etzi egingo du Bizirik Eguna, **droga mendekotasunen** prebentzioaren aldeko hamaseigarren eguna. Berria - Euskal Herria  
Bereizteko arrazoi nagusiak maitasunik eza, monotonia, elkarrekin bizitzen hasitakoan sortutako arazoak, alkoholarekin izandako arazoak, **droga mendekotasuna**, eta emakumearen aurkako indarkeria dira. Berria - Euskal Herria  
Soziologoa eta **Droga-mendekotasunen** Deustuko Institutuko kidea da. Berria - Euskal Herria  
- Buruko gaitza du, %67ko elbarritasuna aitortu diote eta, gainera, **droga-mendekotasun** arazo larriak ditu. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**elkarrekiko mendekotasun** (6); **emakumearen mendekotasun** (4); **emakumearen mendekotasun ekonomikoa** (3); **espainiako mendekotasun** (8); **espainiako mendekotasun legea** (3); **espainiako mendekotasun legearen** (3); **mendekotasun ekonomikoa** (6); **mendekotasun ekonomikoak** (3); **mendekotasun harremana** (3); **mendekotasun lege** (3); **mendekotasun legea** (5); **mendekotasun legearen** (5); **mendekotasun politikoa** (3)

**gehiegizko mendekotasuna** (3)

**elkarrekiko mendekotasunaren** (4)

**droga mendekotasunen** (3)

## mendekotu, mendeko(tu), mendekotzen da/du ad mendeko bihurtu.

Erraza da gizarte baten ordena denak arau finkoetara **mendekotzean** oinarritzea. Josu Zabaleta  
Berpizkundeko pinturak izan zituen arazo berak ikusten dira hemen ere (nola **mendekotu** irudikapena zentro bati, eta nola ihes egin zentro horren tiraniatik). Josu Zabaleta  
Munierren iritzian, irudia **mendekotu** beharko litzaiokeen "hizkuntza" horri dagokionez, badira dagoeneko horren egiazko gauzatzeak; zinema, adibidez! Josu Zabaleta

## mendeku 1 iz irain edo kalte bat ordaintzea, kalte edo irain egilea zigortuz.

Nire sumina suspertu du; **mendeku** gabe gera ez dadin, haitz soilean, estali gabe, utzi dut isuri duen odola. Elizen arteko biblia  
Neuri dagokit **mendekua**, neuk emango diot bakoitzari berak merezia. Elizen arteko biblia  
**Mendeku** gisa, maitale ohiak pozoitutako lore-sorta egin zion opari. Martin Anso  
Baina zu hilez gero, odolaren legeak **mendeku** eskatuko dit, anaia zaitudalako, ni bezala ama eta aita beraren hazi. Felipe Juaristi  
Azkenean aseko nuen **mendekua**. Koro Navarro  
Emaztearen iruzurra eta Sansonen **mendekua**. Jose Antonio Mujika  
**Mendekua** agindu zion. Migel Angel Mintegi  
Ez al da hori nahikoa **mendeku**? Aitor Arana  
Gainera, **mendekuak** ez du barkamenak baino banitate eta irribidekeria gutxiago erakusten. Juan Garzia  
**Mendekuan** pentsatzen dudanean, nire gaitz guztiak ezkutatutako egiten dira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
Ertzainek hiltzailea harrapatu nahi zuten; mutil xargalak, berriz, babestu egin nahi zuten, bere anaia izorratu zutenen kontrako **mendekuaren** egiletzat baitzuen, nolabait ere, hiltzailea. Anjel Lertxundi  
Norberak egin beharrean, mendekua beste esku batzuetan uzten da: herriak hartzen du **mendekua** egiteko betekizuna, eta herriak borroaren eskuetan jartzen du eginkizun hori. J.M. Olaizola "Txiliku"  
**Mendekuz**, Armendaritzen, hango jaunaren ondasunak oro desegin edo arpilatu genituen. Aingeru Epaltza  
Nazkagarrikeria horren **mendekuz**, Peterrek eta biok bi eskuila gogor sartu genizkion ohean. Josu Zabaleta

## 2 (izenondoekin)

Estatu ezin da egoeraz baliu bere **mendeku** pribatuaren obratzeko, lege publikoaren bizkar. Itxaro Borda  
Baina moral burgesa ez zegoen prest **mendeku** literario hau irensteko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
**Mendeku** polita zitelen eta fanatikoaren gainean. Jon Muñoz  
Beharbada bila zetorkion atzetik, bidean birao isilak jaurti edo **mendeku** izugarriak aginduz. Joxean Agirre  
Sikhek Indira Gandhi hil zutenean, hinduen **mendekua** izugarria izan zen. Gotzon Garate  
**Mendeku** izugarriaren bat ari dituk antolatzen. Koldo Izagirre

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mendeku** -gogoak bultzaturik, ozen aldarrikatu zuen: [...]. Martin Anso  
Jaun ahalguztidunak espero zuen **mendeku** -eguna da, etsaien lepotik mendekatzeko eguna. Elizen arteko biblia  
Atxilotu eta ekartzeko aginduko dute beraren hiriko arduradunek eta **mendeku** -eskubidea duenaren esku utziko, hil dezan. Elizen arteko biblia  
Bere **mendeku** bidea izango zen, eta, gertatuak gertatu, bera nahigabearen babestuko zen. Patxi Zubizarreta  
Berehasi nintzen **mendeku** planak modutzen. Matías Múgica  
**Mendeku** saioa XVI. mende hasieran gertatu zen. Martin Anso  
Izua eta **mendeku** gosea. Matías Múgica  
Orduan aseko nuen **mendeku** desira. Ramon Saizarbitoria  
Gorrotoa giza arimaz erabat jabetzen denean, **mendeku** -irrika ere piztuta egoten duk su horren ondoan... Xabier Olarra  
Neska mairuak bere maitalea lurpeko pasabide batera arrastaka eraman eta, momentuz behintzat, erasotzaileen **mendeku** grinatik babestu zuen. Martin Anso  
Israel suntuitu nahi duten etsaiantzat **mendeku** -eskea. Elizen arteko biblia  
Haatik, **mendeku** -minak itsua izaten daki, ausardiak bezainbestean. Edorta Jimenez  
- Eta Justizia absolutuaren bila dabilena **mendeku** -gosetzen da. Matías Múgica

## 4 mendekuzko

Eta azkenik, **mendekuzko** suteak herrixka osoa kiskali zuen. **Askoren artean**  
Orain denbora kontua da **mendekuzko** erasoetan judu gehiago hiltzea. **Mendekuzko** hilketak eta kontu-konpontze politikoak eguneroko gauza ziren. aurrez aurre esaten zizkion esan beharrekoak; ez zegoen prest gauzak barruan usteltzen uzteko, gorrotzko, **mendekuzko** ... sentipenen artean. **Berria - Mundua**  
Sakabanaketa, urruntzea eta **mendekuzko** espetze politika barne. **Berria - Euskal Herria**  
Maitasunezko eta **mendekuzko** istorio maltzurra. **Berria - Kultura**  
Itxaron al daiteke ezer onik suntsipen sistematiko eta **mendekuzko** horretatik? **Josu Zabaleta**

## 5 mendeku(a) egin (mendeku egin 16 agerraldi, 4 liburu eta 3 artikulutan; mendekua egin 7 agerraldi, 2 liburu eta 3 artikulutan)

Briane bere aitari **mendeku egitea** erabaki zuen eta polizia egin zen. **Gotzon Garate**  
Ez dut, ba, etsiko zuei **mendeku egin** arte. **Jose Antonio Mujika**  
Prest egon behar zuten juduek egun horretan, etsaiei **mendeku egiteko**. **Jose Antonio Mujika**  
Geetak **mendeku egiteko** asmoa hartu zuen. **Gotzon Garate**  
Aurkitu zuen **mendeku egiteko** era, mendekurik txarrena. **Gotzon Garate**  
Norberak egin beharrean, mendekua beste esku batzuetan uzten da: herriak hartzen du **mendekua egiteko** betekizuna, eta herriak borroaren eskuetan jartzen du eginkizun hori. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Defentsa ministro Cheta Thanajarak «matxino musulmanak **mendekua egiteko** une egokiaren zain» daudela esan zuen. Gutxienez 33 lagun hil baitziren Hangu hirian gertatutako bi erasoetan eta beste dozenaka zauritu baitziren oldar egite hauen ostean izan ziren **mendeku egiteetan**. **Berria - Mundua**

## 6 mendeku(a) hartu (mendeku hartu 108 agerraldi, 50 liburu eta 4 artikulutan; mendekua hartu 95 agerraldi, 36 liburu eta 42 artikulutan)

Eta, jakina, justizia egitea... edo **mendeku hartzea**, berdin dio. Baina **mendeku hartu** beharra neukan, David. **Migel Angel Mintegi**  
Lehen bertsoen arabera, aitaren kontrako **mendeku hartu** nahi duela iduri luke. **Anjel Lertxundi**  
Iraintzera ausartu zitzaizanean ordea, **mendeku hartuko** niola zin egin nuen. **Koro Navarro**  
Handik jaiki zenean ez zuen irain hartaz **mendeku hartzeko** indarrik izan. **Josu Zabaleta**  
Bigarren mutil horrek lehenengoari **mendeku hartu** nahi dio. **Antton Olano**  
Jelosiak sutu egingo baitu senarra eta erruki gabe jokatuko du **mendeku hartzean**. **Eiizen arteko biblia**  
· Niri dagokit **mendekua hartzea**, niri ordaina ematea. **Jose Antonio Mujika**  
**Mendekua hartu** nahiko zuela, denen aurrean barregarri utzi nuelako. **Anjel Lertxundi**  
Eta horren **mendekua hartzen** dut; ba al da gauza xumeagorik? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Barra amerikar hartan sartu nintzen uanean erabakita neukan Danielak egindako zauriaren **mendekua hartu** behar nuela. **Jasone Osoro**  
**Mendekua hartzen** duen maitemindu zapuztuarena. **Jose Antonio Mujika**  
· Ez naiz hain **mendeku** gaiztoa hartzera ausartu. **Anjel Lertxundi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aurkako mendeku** (7); **baina mendeku** (7); **bere mendeku** (6); **dut mendeku** (3); **edo mendeku** (7); **eta mendeku** (50); **eta mendeku eske** (3); **eta mendeku eskubidea** (4); **eta mendeku hartzeko** (4); **ez mendeku** (3); **gorroto eta mendeku** (3); **hain mendeku** (3); **kontra mendeku** (3); **kontrako mendeku** (9); **mendeku bat** (6); **mendeku bila** (15); **mendeku edo** (7); **mendeku egarria** (6); **mendeku egin** (3); **mendeku egitea** (3); **mendeku egiteko** (7); **mendeku eguna** (3); **mendeku ekintza** (3); **mendeku eske** (8); **mendeku eskubidea** (6); **mendeku eta** (20); **mendeku eta gorroto** (13); **mendeku gaiztoa** (3); **mendeku gisa** (20); **mendeku gogoak** (3); **mendeku gose** (8); **mendeku gosea** (21); **mendeku goseak** (7); **mendeku gosearen** (3); **mendeku goserik** (4); **mendeku gosez** (13); **mendeku hartu** (29); **mendeku hartu nahi** (6); **mendeku hartuko** (15); **mendeku hartuko dut** (3); **mendeku hartzea** (16); **mendeku hartzea erabaki** (5); **mendeku hartzearen** (3); **mendeku hartzeko** (31); **mendeku hartzen** (6); **mendeku hitza** (3); **mendeku hutsagatik** (4); **mendeku izugarrien** (4); **mendeku izugarrien bat** (4); **mendeku nahia** (8); **mendeku politika** (10); **mendeku politikoa** (3); **mendeku txiki** (5); **nire mendeku** (5)

## mendekugai iz mendekuaren gaia.

Denbora zuen, ordea, **mendekugai**. **Joxerra Garzia**

## mendekuka adlag mendeku eginez.

Horratx: denak, bazterretik parrez daudenak barne, elkarri **mendekuka** ari gara oharkabean. **Patziku Perurena**

## mendekutxo iz gorabehera txikiko mendekua.

Bere **mendekutxo** ekarri zuen, ordea, ilberriak: 30 zentimetro bete bota zuen Arantzazu inguruotan, eta 8 egunez zuri eta hotz iraun. **Pello Zabala**  
Hurrengo igandean, ordea, neure **mendekutxo** hartu nuen. **Joan Mari Irigoien**  
Nire **mendekutxoak**, lanpara askatzea, ateari maratila ematea edo jantziak ezkutatzea, adibidez, alde batera utzi behar ditut, tamalez, bakea izateko. **Josu Zabaleta**

## mendekuzale (orobat mendeku-zale g.er.)izond mendekuaren zale dena.

Sendo oinarritu duzu zeure gaztelua etsaien aurka, etsai **mendekuzaleak** isilarazteko. Acebes edo Zaplana bezalako tipo **mendekuzaleak** gobernuburu izan daitezkeela pentsatuta izutu egiten naiz. **Elizen arteko biblia**  
Saint-Justen logika **mendekuzale** eta iraultzaileak ez zion gogoia berotzen dagoeneko, gauza artifiziale eta naturaz kanpokoa iruditzen zitzaion. **Josu Zabaleta**  
Hirugarren txandan berak topatu zuen: **mendeku** zalea ez bazen ere polito eman zion ordaina Albertori. **Urtzi Urrutikoetxea**

## mendel 1 iz ehunaren edo oihalaren ertza.

Hitz batean, antza zenez, Trishkinen berokiaren sistemaren arabera gobernatzen zuten etxalde hura: mahukaburuak eta **mendelak** moztu ukondoak adabatzeko. **Jose Morales**

## 2

Baso Negartiaren hego-sartaldeko **mendela** lurperaturik zetzan, eta aldameneko zerranda, berrehun bat oineko zabalean, ihartu eta suak harturik; **Juan Garzia**

## mendeliar izond G. Mendelena, G. Mendeli dagokiona.

Horrenbesterekin, genetika sortu zuen, hots, ondoretasun **mendeliarra** teoria kromosomikoaren arabera interpretatzen duen zientzia. **Juan Garzia**  
Genomari buruzko datuek, matxura monogeniko **mendeliarrei** dagokienez behinik behin, gertakizun dena zinezko gertakari bilakatuko dute. **Juan Garzia**  
Alde batera utzirik karaktere sinple, bereizte **mendeliarrezkoak** gobernatzen dituzten eragileak, zer gene jo absolutuan hoberentzat? **Juan Garzia**



## mendema *iz* mahatsa biltzea.

Jakina, lan hauetako bakoitzak giro ezberdina nahi luke, eta ezin etorri biak bat: **mendema** eta mahaska egiteko, aro lehor egonkor siku eta eguzkiaren konpainiaduna hobe; ereiteko, aldiz, lurra euriz xaretu eta gozatua hobe aukeran, gehiagi hoztu eta zopatu gabea, bere tamainan. **Pello Zabala**

## mendemuga *iz* mendeurrena.

Bere jaiotzeko **mendemugan** 1886-1986. **Koldo Izagirre**

### 2 mendearen muga.

**Mendemugan** oso zabaldurik zegoen Dublingo intelektualen artean esoterismoaren azterketa. **Irene Aldasoro**

## mendeño *iz* *adkor* mendea.

Azken hogoi urtetako hein berean segituz, **mendeño** bat edo hola iraun dezakete oraino, ez biziki gehiago. **Herria**

## mendeoro *adlag* mende oro.

Beste batek, dorre baten gainetik txori bat jaregin dadila; beste batek, **mendeoro** hondartzako ezin konta ahal hondar aleetako bat ken dadila (edo gehitu). **Juan Garzia**

## mendera ik mende<sup>1</sup> 4.

## menderaerraz (*corpusean mendera erraz soilik*) *izond* menderatzen erraza dena.

Ez zuen ile **mendera erraz** horietakoa, betileak eta ezpainak zurbilegiak zituen, eta ez zen batere dotore ageri soin gainerako aukeratu ohi zituen arropa merke haiek jantzita. **Mirentxu Larrañaga**

## menderaezin (*55 agerraldi, 29 liburu eta 11 artikulutan*) *1 izond* ezin menderatuzkoa. ik *menperaezin*.

Makina haiek, gainera, ez zuten jaurtigairik alferrik galtzen harresi **menderaezinaren** kontra. **Agustin Otsoa**

Katarsiaren zinemafile **menderaezina**. **Berria - Harian**

Gure bi jotzaileak **menderaezinak** dira. **Iñaki Mendiguren**

Lehoi **menderaezinak** mendekua hartzeko gauza dira. **Berria - Kirola**

Oldezko maitasun sakon **menderaezin** batez. **Josu Zabaleta**

Lo egiteko gogo **menderaezin** bat. **Antton Olano**

Halako egoeretan, joera **menderaezin** bat izaten da hitz-joko eta jolasetarako. **Xabier Olarra**

Gauero eta gozero berritzen den tortura hori, eta logale **menderaezin** hori, eta esnatze oraindik ere beldurgarriago horiek, ongi ulertarazi behar nitzkizuen. **Josu Zabaleta**

Burdina ere ez da **menderaezina**, altzairua ere hauts daiteke. **Anton Garikano**

Eginiko bideak ikertzeraz bultzatzen gaituzte, gaizki seinalezaturiko pistak berriz irekitzera, **menderaezin** ziruditen oztupoak gainditzten ausatzeraz. **Joxan Elozegi**

### *2 menderaezinezko (corpusean mendera ezinezko soilik) izlag* menderaezina.

Izakari goragoko bat bilakatua nintzen, **mendera ezinezko** adimen batez armatua, eta zorameneko gozamina sentitzen nuen neure ahalmena frogatuta... **Josu Zabaleta**

## menderaezintasun *iz* menderaezina denaren nolakotasuna.

Eurek ez dute definitzen bere barne eraketa, baizik eta agertzea baimentzen diona, beste objektu batzuen ondoan ipintzea baimentzen diona, euren arabera lekua hartzea, bere diferentzia, bere **menderaezintasuna**, eta behin edo behin bere heterogeneotasuna definitzea baimentzen diona. **Xabier Arregi**

Azken polizi operazioarekin ETaren **menderaezintasunaren** mitoa erori dela esan zenuenean, bide honetan ETA erabat desagerrarazi daitekeela uste duzula esan nahi zenuen? **Berria - Euskal Herria**

## menderagailu *iz* gramatikan, mendeko esaldiak osatzeko atzizkia.

Axular eta bere garaiko idazleak konturatu ziren, kasu, esaldi kausalak arazo izan zitezkeela, euskarak *-lako* **menderagailua** esaldiaren bukaeran jartzea eskatzen zuelako, eta... Izagirrek **menderagailuak** kendu eta alborakuntzaren eta koordinazioaren alde egiten du. **Bernardo Atxaga**

## menderagaitz ik menderakaitz.

## menderagarri *izond* mendera daitekeena.

Askotan demonstratu dute armada mediatikoa ez dela guztiahalduna, baizik eta **menderagarria**. **Txema Ramirez de la Piscina**

Handia eta ikaragarria da bere eragina, baina han-hemenka **menderagarria** da, oihanaren baitan, zorionez, argiuneak ere badirelako. **Txema Ramirez de la Piscina**

Kontua da, ordea, Athletic **menderagarria** dela; batzuetan, menderatzeko erraza. **Berria - Kirola**

## menderakaitz (*26 agerraldi, 18 liburu eta 2 artikulutan*; orobat *menderagaitz 7 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian menderakaitz agertzen da*) *1 izond* menderatzen zaila dena, ia ezin menderatuzkoa.

Galiar **menderakaitzen** egunkarietan, tradizio laikoa nagusitu zaio usadio katolikoari. **Iñigo Aranbarri**

Eta Zein piztia **menderakaitza**! **Edorta Jimenez**

Aurrera oldartu zen, su biziak harturik, izerdi patsetan, gotorleku **menderakaitz** bati eraso beharko balio bezala. **Jose Morales**

Bere etsenpluz argi utzi haragi **menderakaitz** eta alferra etengabeko diziplinaz eta probetuzko ekintzaz hezi behar dela. **Askoren artean**

### 2 (adizlagun gisa)

Jaun Ilunaren eskulpea guztien artean, Nagüolak beste inor ez zen arrisku hurra emateko gai, arrastaka, txiki baina **menderakaitz**, ongi defendaturiko lurraldearen bihotzerantz zihoa arrisku haren aurkako abisua emateko gauza. **Agustin Otsola**

Arnasestua, sudur ziztua eta ostikoen hotsa besterik ez zen entzuten, bortitz, gupidagabe, **menderakaitz**. **Jose Morales**

## menderakuntza 1 iz menderatzea, azpiratzea.

**Menderakuntza** turkiar musulmanaren orde greziar fanariota onartuta. **Iñaki Mendiguren**

1940ko maiatzetik aurrera garai onak bukatu ziren: lehendabizi gerra, gero **menderakuntza**, Alemaniaren inbasioa, eta hala hasi ziren juduon atsekabeak. **Josu Zabaleta**

Ohartzekoa da erlijioaren munduan sineskeriak eurrez aurkitzen direla eta, fedearen aitzakian, Jainkoaren orde sasijainkoak gurtzea, eta **menderakuntza** eta agintekeria onartzea askotan gertatu izan dela, izaki razionalaren erantzukizun propioaz ahazturik. **Askoren artean**

### 2 (hitz elkartuetan)

Gure artekoak sexutik ez zuen deus, alde bateko desira eta sublimazioa izatekotan, baina egia da bazela **menderakuntza**-joko bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Koordinazio eta **menderakuntza**-arlotan da, non enuntziatuak edo kontzeptuak agertzen diren, definitzen diren, erabiltzen diren eta transformatzen diren. **Xabier Arregi**

## menderatu, mendera, menderatzen (*1427 agerraldi, 175 liburu eta 522 artikulutan*) 1 du ad mendera ekarri, mendean jarri. ik **menperatu; eskuperatu; azpiratu; nagusitu.** (pertsonak, herriak eta kidekoak)

Espainiar konkistatzaileek armen indarrak berehala **menderatu** zituzten gaizki ekipaturiko eta susmo txarrik gabeko biktimak. **Iñaki Mendiguren**

Ezin nion eutsi, eta are gutxiago **menderatu**. **Jon Muñoz**

Eta horra nola **menderatu** zuen San Migelek, normandiarren zaindaria, deabrua. **Josu Zabaleta**

Hire gainera noiz eroriko zagok hura, baina hik **mendera** dezakek. **Jose Antonio Mujika**

Bi etsai batera **menderatu** ezinik, batekin elkartu zen besteari aurre egiteko unean. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Besterik izan zen haizete gaizto batekin Finisterre aldean **menderatu** gintuenean. **Edorta Jimenez**

Gero, nekeak **menderaturik** loak hartzen zuenean, ahotsa entzuten zuen berriro. **Josu Zabaleta**

Ezin bere burua **menderatu**, horixe da dena. **Oskar Arana**

Bere burua osoki **menderaturik**, begiak itxi zituen bere ama maiteari begitarte uzkuertzen zion larritasun ikaragarria ez ikusteko, eskuak ezkatatu zituen bere bila ari ziren esku dardarati haiek ez estutzeko. **Karlos Zabala**

Ivan Ogareff lurretik jaiki, eta, itsua aise **menderatu** ustean, eraso egin dio. **Karlos Zabala**

Bi inperio handi eta beste estatu handi batzuk **menderatu** zituen. egunen batean kateak etengo zituela eta mundu osoa **menderatuko** zuela. **Iñaki Iñurrieta**

Garaituei barkatu eta harroak **menderatu**. **Imanol Unzurrunzaga**

### 2 (gauzak)

Natur ingurunea **menderatzeko** gizakiek duten ahalmena. **Askoren artean**

Mendebaldeko Kristau Zibilizazioak itsasketa ozeanikoaren teknika **menderatu** zuen arte. **Iñaki Mendiguren**

Mendebaldeko teknologiararen azken gailuak **menderatuz**, baina,aldi berean, Mendebaldean nagusi zen ideologia ortodoxoa saihestuz. **Iñaki Mendiguren**

Judu ortodoxoen artean sentisualitatea, sexualitatea, guztiz **menderatu** eta ezabatu beharreko gauza dira. **Koro Navarro**

Idazleok ere, sintaxia eta hiztegia zertxobait **menderatu** orduko orriak eta orriak idazteari ekiten genion, inor kilikatzen ez zuten emaitza lehorrak lortuz. **Pako Aristi**

Ez duk hire sentimenduak **menderatzen** jakin, eta sentimendua, horrela, bakarka, lagun eskasa duk. **Bernardo Atxaga**

Gure zaharrek botikarioak dirudite eta drogazale zimurtuak dira, bihotza pixkortzeko, odola mehetzeko, lo lasai egiteko edo tristura **menderatzeko** aitzakian. **Iñaki Seguro**

Ondoren, itxiturak hasieran emandako larritasuna **menderatu** zuenean, Juanek sabaitik sartutako marmiten edukia aztertu zuen. **Bernardo Atxaga**

Ikara **menderatu** ezinik. **Rafa Egiguren**

Zor publikoaren hazkundea **menderatu** nahian. **Koro Navarro**

Diruak, ordea, ez asmo onek eta ez intentzio hobek **menderatu** ezin ditzaketen hainbat eranskin izaten ditu. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

"Noiz **menderatuko** ote nik saltsa hori?", neure artean. **Txillardegi**

### 3 (hizkuntzak)

Eta ingelesa hitz egiten den herrialde batean, nola iritsi liteke aitona-amonaz izatera ingelesa **menderatu** gabe? **Iñaki Mendiguren**

### 4 (era burutua izenondo gisa)

Etsai barbaro **menderatuen** ondorengoak. **Iñaki Mendiguren**

Burgesiako kasta prestatzen ari zen behartsuen kasta **menderatu** eta esklabo egiteko. **Josu Zabaleta**

Lehen baliabidea herri **menderatu** baina bertute martzialak galdu ez dituztenengandik erreklutat atera eta beren armadak indartzea izaten da. **Iñaki Mendiguren**

Berri onak izan behar lukete hauek nazionalismo **menderatuentzat**. **Joseba Zulaika**

**Menderatuek** isildu egin behar dute. **Josu Zabaleta**

### 5 ezin menderatuzko izlag ik menderaezin.

Karxi, oasi batean, dortoka eta muskerrez jositako zingiren erdian, hiru murriz babestua, ezin **menderatuzkoa** dela esan liteke. **Karlos Zabala**

### 6 menderatu ezinezko izlag ik menderaezin.

-Buru argia oso, baina **menderatu** ezinezkoa, eta haren handinahia itsua zen, atzera behin ere egiten ez zuena. **Karlos Zabala**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aise menderatu** (17); **aise menderatu zuen** (7); **australia menderatu** (4); **bere burua menderatu** (5); **castres menderatu** (3); **erabat menderatu** (5); **erraz menderatu** (9); **eskozia menderatu** (8); **eskozia menderatu zuen** (5); **goitik behera menderatu** (3); **guztiz menderatu** (4); **hasieratik menderatu** (3); **ingalatera menderatu** (3); **jokoa menderatu** (3); **leinster menderatu** (3); **menderatu ezin** (7); **menderatu ezinik** (9); **menderatu izan** (4); **menderatu ondoan** (6); **menderatu ondoren** (13); **menderatu ostean** (5); **menderatu zituen aurkariak** (3); **miarritze menderatu** (4); **mindegia menderatu** (3); **olasagasti menderatu** (3); **ongi menderatu** (9); **teknika menderatu** (3); **tolosa menderatu** (3)

**erabat menderaturik** (5)

**menderatzea lortu** (8); **menderatzea lortu zuen** (3); **ongi menderatzea** (4)

**edozein menderatzeko** (3); **menderatzeko aukera** (3); **menderatzeko gai** (7); **mundua menderatzeko** (3); **tolosa menderatzeko** (4); **txapelduna menderatzeko** (3)

**ederki menderatzen** (4); **egoera menderatzen** (3); **errepertorio zabala menderatzen** (3); **hizkuntza menderatzen** (11); **hobeki menderatzen** (3); **ondo menderatzen** (12); **ongi menderatzen** (8); **oso ondo menderatzen** (6)

## menderatzaile 1 izond (nor bait edo zer bait) menderatzen duena. ik **menperatzaile.**

Gutxiengo **menderatzaileek** fil osofiak sortzen zituztela agertu zen. **Iñaki Mendiguren**

Heziketa **menderatzaile** baten ondorio den errudun konplexua. **Ramon Saizarbitoria**

"Maitemintze" hitzaz pentsatu nuen; izan ere, sentipen **menderatzaile** edo adimen-irenslea iradokitzen duenez, gerta zitekeen hitzik egokiena ez izatea. **Xabier Olarra**

**Menderatzaile** samarra, baina zer espero daiteke laugarren mailako eskola-maistra batengandik? **Oskar Arana**

Genetikoki, heterogeneoa da autismoa: batzuetan **menderatzailea**, beste batzuetan errezesiboa. Xabier Olarra  
Horrek metropolien aurkako XX. mendeko deskolonizatzaileen teorikoak ezagutu zituen (Memmi, Sengor, Lumumba, Guevara) eta kultura **menderatzailearen** eta menderatuaren arteko dialektika modu berri batean aurkeztu zion euskal pentsamenduari. Askoren artean

## 2 iz (norbait edo zerbait) menderatzen duen pertsona.

San Migel, aingeru distiratsu gailena, ezpataduna, zeruetako heroia, garailea, Satanen **menderatzailea**. Josu Zabaleta  
Sarri ikusten da nazio batzuek haien **menderatzaileen** hizkuntza hartu dutela. Isabel Arrigain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gutxiengo menderatzaile** (7)  
**gutxiengo menderatzailea** (8)  
**gutxiengo menderatzaileak** (8)  
**gutxiengo menderatzailearen** (7)  
**gutxiengo menderatzaileek** (5)  
**gutxiengo menderatzaileen** (5)  
**gutxiengo menderatzaileetako** (3)

## menderatze iz mendera ekartzea, mendea jartzea.

Bereziki, *Journal* laneko hainbat pasartetan gordinki islatu zituen amaganako desira eta **menderatze** nahia. Itziar Otegi

Hizkuntzaren **menderatze** mailak baimentzen zuenean. Joxemari Iturralde

Bertsolari onaren ofizioaren adierazlea da, hain zuzen ere, erritmoaren **menderatze** erretorikoa. harrigarria izaten da beti haren ahotsaren **menderatze** malabaristikoa islatzen duen teknika. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zer sistema bertikal era dezaketen eurek; zer korrelazio eta **menderatze** -joko dagoen euren artean. Xabier Arregi

## menderatzeke *adlag* menderatu gabe.

Jeneroa ezagutzen zuen espezialista, etxekoandre hura, suntsitzeaz baitago: sukaldaritzako oinarriak ezagutu gabe, nekez molda ditzake neofitoak errezeta gehientsuenak, teknikarik **menderatzeke**, tresneria aproposik eta jeneroak eskura baditu ere. Edorta Agirre

## menderdi ik mende<sup>1</sup> 5.

## mendestar *izlag/iz*

**Mendestarek** ahuntz oro gurtzen dute eta arra gehiago emea baino, eta ahuntzainek begiramen handiagoa diote arrei, eta hauetatik bati bereziki, zeinak hiltzen denean samin handia uzten duen **mendestar** nomo osoan. Patziku Perurena

## mendetarra *izond* mendekoa.

Espainia gaixoa sendatzeko, hortaz, ez da konkistari eta santuen Espainia Urre **Mendetarrera** itzuli behar [...] baizik behin betiko handik eskapatu. Joxe Azurmendi

## mendetasun (*51 agerraldi, 9 liburu eta 7 artikulutan*) 1 iz mende dagoenaren nolakotasuna. ik mendekotasun.

Amodio garbi eta egiazkoa, sekula gezurtatua izan ez den begirunea, gutzitako **mendetasuna**; horiek dira eragin dizkidazun sentimenduak. Jon Muñoz

Zuri obeditzeko delibero finkoan, zure hautuaren zain egon naiz begirunez etsia; nehoiz ez naiz urrundu zuri zor nizun **mendetasunetik**, eta haatik egungo egunean neure baitan daramat alaba mutirik baizik merezi ez duten atsekabea. Jon Muñoz

Igo zen Jose Galileatik Belenera, Zesarri **mendetasuna** aitortzera, bere emazte haurdun Mariarekin. Patxi Altuna

Errege onbera bat, Jainko gure Jaunak bere eskuz hautatua, printze guztiek eta gizon kristau guztiek begirunea eta **mendetasuna** diotena. Patxi Altuna

Egiazko eta irudizkoaren arteko polieksistentzia, amets eta esna-aldiaren artekoa, **mendetasun** eta hausturaren artekoa. Askoren artean

Frantziskoren jarrera Elizarekiko, **mendetasunean** eta leialtasunean finkatua egon zen beti. Askoren artean

Lehenago ere utzia zion ileak tindatzeari, bizitzak emandako jakinduriaren isla ziruditen ile zuri haiek ezkututzen ibili beharrak sortutako **mendetasunari** ihes eginda, horrek zahar itxura ematen ote zion kezkatu gabe. Imanol Zurutuza

Zibilizazio baten gizarte-anatomian Akilesean orpoa, ikusi dugun bezala, mimesiarekiko (imitazioarekiko) **mendetasuna** da, gizadiko jende xeheak gidariei jarraituko diela ziurtatzeko "gizarte-trebakuntza" gisa. Iñaki Mendiguren

## 2 (izenondoekin)

Eskuduntzen banaketa, **mendetasun** hierarkikoa, osagarritasun funtzionala, informazio eskaera, transmisioa eta elkartrukea. Xabier Arregi

Mundu aberatsean zorientasunaren sinonimo bezala saltzen baita itxura, garesti saldu ere, **mendetasun** latza sortzen den droga dela ohartarazi gabe. Migel Angel Mintegi

Neure **mendetasun** oso-oso frogatu dizudan ondoren, [...]. Jon Muñoz

## 3 (hitz elkartuetan)

Enuntziatuen **mendetasun** -mota ezberdinak. Xabier Arregi

Ahalezko ordena ezberdin hauek atribuzioaren, artikulazioaren, izendapenaren eta deribazioaren teorietan beha daitezkeen **mendetasun** harremanek mugarrizten dituzte. Xabier Arregi

Euskal estatu burujabea lortzeak, egungo Euskal Herriaren eta Espainia eta Frantziaren arteko **mendetasun** harreman ekonomikoetan aldaketa nabaria ekarriko luke. Berria - Ekonomia

Eurak ez daude, izan ere, **mendetasun** egoera batean zientzien ortogenesiarekiko. Xabier Arregi

Era honetara, bada **mendetasun** -sistema bertikal bat: subjektuaren posizio guztiak, enuntziatuen arteko koexistentzia-mota guztiak, estrategia diskurtsibo guztiak ez dira modu berean ahalezkoak, bakarrik aurreko mailetakoei baimendutakoak izango dira. Xabier Arregi

## 4 toxiko-mendetasun

1996an musika idazteari uztea erabaki nuen, eta gaixotasun bat bailitzan hortik irteteko toxiko **mendetasun** batetik ateratzea bezalako zer edo zer izan zen. Berria - Kultura

## mendetsu *izond* mende asko dituena.

Gazteak "aupá Rufinoka" batzen jakozanean, bizitu eta harrotu egingo zan, harexti **mendetsu** hareetan, aparizino mitologiko bat lakoa. **Xabier Amuriza**  
Tradizio jadanik **mendetsuaren** aurka borrokatu behar izan zuen. **Xabier Amuriza**

## mendeurren 1 *iz* gertaera gogoangarri baten mendea edo zenbait mende betetzen diren eguna edo urtea. ik mendeburu.

Haren sortzearen **mendeurrena** ospatuko da irailaren 29 an, igande huntan. **Herria**  
Heldu den urtean euskaltzale, kultur gile eta artistaren jaiotzaren **mendeurrena** betetzen dela-eta. **Iñigo Aranbarri**  
Gregor Mendel-ek idatzirikoko lehenbizikoko txostenaren **mendeurrena**. **Juan Garzia**  
Euskaltzaleen Biltzarren **Mendeurrenean**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**  
1983ko abenduaren 17an Movimiento Bolivariano Revolucionario 200 sortu zuten, Simon Bolívarren jaiotzaren bigarren **mendeurrenarekin** bat eginez. **Pako Aristi**  
Hire heriotzarenaren 60. urteurrenekoa baino hamalau hilabete lehenago, 1996ko apirilean, Lizardiren jaiotzaren lehen **mendeurrenari** buruzko erreportajea argitaratu genian.Haren heriotzako IV. **Juan Luis Zabala**  
**mendeurrenaren** ospatzeko eta estreina mintzaldien ohitura zahar hura biziberritzeko, asmatu izan da (1986an) gure herritarraren historia aberatsa orotaraztea. **Piarres Xarriton**  
1506. urtea dela-eta, gogoratu zait, Frantzes Xabierkoaren eta Joanes Leizarragakoaren V. **mendeurrenaren** ohoretan. **Piarres Xarriton**  
1944an, Errepublikari Dominikarraren **mendeurrena** zela-eta antolaturiko literatur lehiaketan. **Martin Anso**  
**mendeurreneko** ospakizunak abuztuaren 15 ean hasi eta datorren urteko irailean bururatuko dira. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Iñaki Hildagoren laguntzarekin Ordiziarako -nire jaioterrirako- sortu zen, 2004an burutu ziren euskal jaien **mendeurren** ospakizunen artean. **Patxi Zubizarreta**  
Azaroaren 27 an, Eibarren, Mogelen **mendeurren** -ospakizuna. **Herria**  
Titin III.a eta Barriola aise gailendu ziren Astelenaren **mendeurren** jaialdialdiko partida nagusian. **Berria - Kirola**  
Txekhov omendu nahi zuen Vaiven ekoiztetxeak haren heriotzaren mendeurrenean, baina ez ohiko **mendeurren** -ekitaldi ponposo-apartsuekin, antzezlan batekin baizik. **Berria - Kultura**

## mendeurrentar *iz*

Horren erakusgarri ezin fidelagoa da Agirre nire **mendeurrentarra**, *Gara*-ko XI. atal "Eguberri txarrak" izenekoan irakur daitekeenez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## mendi 1 *iz* inguruko eremutik nabarmen goratzen den lur zatia. ikmuino.

Hura Aralar **mendia**, eta, harako tontor hura, Txindoki. **Patxi Zubizarreta**  
Aizkorri **mendiari** loturik hor dago Arantzazu-ko Andre Maria eliza. **Herria**  
Kaukaso **mendiaren** gailurrean bizi zela. Ni hamabostekin zaldiak hartuta ibiltzen ninduan **mendi** horietan gora eta behera. **Patxi Zubizarreta**  
Herritik hiru kilometrora dago, horko **mendi** horren magalean. **Bernardo Atxaga**  
**Mendi** gehiena laiatu gabe zegoenean. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Bailararen baten hutsunean edo **mendi** basoz bezuen maldetan. **Josu Zabaleta**  
"Zer da, laku bat eta **mendi** batzuk, edo hiri bat bere zeru urdinarekin, edo zer?", galdetu nion. **Andoni Egaña**  
Mantxa zuri bat ikusten zen **mendiaren** maldan. **Bernardo Atxaga**  
Horra non aurkitzen garen **mendiaren** gailurrean. **Joxe Austin Arrieta**  
Badago posta kotxe zerbitzu bat Ural **mendien** lerroa arin samar zeharkatzen duena. **Karlos Zabala**  
Ikaratu zen lurra eta dardaratu, **mendien** oinarriak mugitu. **Elizen arteko biblia**  
**Mendien** gailurrak mundu ezezagunak zaizkigu. **Koldo Izagirre**  
Karakorum **mendien** gainak distirarazten zituen eguzki goiztiarrak. **Xabier Montoia**  
Laino gris batek hartuak zituen **mendien** erpinak. **Anjel Lertxundi**  
Bi **mendien** artean gordea zegoen baratze miresgarrira. **Aurelia Arkotxa**  
Pirinio **mendietako** gailurretan. **Piarres Xarriton**  
**Mendietako** arranoen izen ohoretsua. **Karlos Zabala**  
Teilatu gainetik harkaitzean eskailera batzuk ikusten ahal ditut, berdetasun multzotan barrena, eliza zuri zaharreraino igaten dutenak; **mendiko** lepoari lotutako behia ematen du elizak, joarea inarosten. **Koldo Izagirre**  
Oraingoz osteak San Franciscoko **mendiko** gain eta maldetan barreiaturik daude. **Jon Alonso**  
**Mendiko** gailurretik bistatu dugun ibai sigi-sagatsuaeren ibilbideari jarraitzea oso atsegina izan da. **Patxi Zubizarreta**  
Ararat **mendiko** tontoretik hurbil, hego-mendebaleko mendi-hegian, Kúp deritzan aintzira bat dago. **Fernando Rey**  
Ez da zilegi hondakinak **mendiko** zuloetara botatzea. **Gotzon Garate**

## 2 (izenondoekin)

Hondarribiko Golfetik, Bidasoa suge bihurriari segika, **mendi** garaienen magalak topatu arte. **Hasier Etxeberria**  
**Mendi** garaietako gailurrak hartu zituzten, hango herrixkak gotortu. Eguzkialderago, frango urrun, **mendi** gorak ziren; han gidariak behar. **Elizen arteko biblia**  
Zedro-oihan bat **mendi** gora batean. **Xabier Montoia**  
Trapobaniako uhartearen xinaurriek zaintzen dituzten urrezko **mendi** handi batzuk badira. **Aurelia Arkotxa**  
Inguruko herrietako mendietara ere joaten hasi nintzen gero, baina **mendi** txiki eta ez oso urrunetara beti. **Juan Luis Zabala**  
Erroma inguruko **mendi** apal, haizetsu eta jendez beteak. **Fernando Rey**  
Eraman ezinezko tristura ematen zioten hango herri zuriek eta **mendi** ilunek. **Alberto Ladron Arana**  
Badia erraldoi horren erdian, urrezko zeru argitasunez betearen azpian, **mendi** ilun zorrotz bat zutik, hondar artean. **Josu Zabaleta**  
Paisaia negukoa zen: **mendi** elurtuak eta baso ilunak. **Alberto Ladron Arana**  
**Mendi** sakratua eta indar sinboliko handikoa. **Ibon Uribarri**  
Ia ametszko leku batean dago kokatua Branford, **Mendi** Harritsuen ospelalde batean habia eginik bezala, British Columbiako hego-ekialdean. **Xabier Olarra**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mendi** -tontor bat, harkaitz huts zirudiena, zeruari ausika. **Piarres Aintziart**  
Mont Ventoux ari dira igotzen, meta **mendi buruan** dagoela. **Joseba Sarrionandia**

Ezar izazoz mugak **mendi** ingurua eta esaioz herriari ez dadila igo mendira ez eta maldara hurbildu ere. Jose Antonio Mujika  
Hiriko auzo batzuk, azken etorkinentzat eraikitakoak, **mendi** malkarretan daude kokatuta. Bernardo Atxaga  
Eguzkiak gorritzen zituen **mendi** arteka gordeetan. Itxaro Borda  
Gaztaroko oporretan gure **mendi** xolako pentzean belar edo soro metak moldatzen genituen. Piarres Aintziart  
Bandidu hotsa zabaltzen zenean, berriz, hartu zaldia eta **mendi** zuloak eta baso ilunak miatzera aurreratzen nintzen. Bernardo Atxaga  
Igantetan egin ohi zuten asteko **mendi**-irteera, astelehenetan inoiz ez. Pako Aristi  
Goizean goiz abiatzen zen, **mendi**-igoeretarako bezala jantzita, baina soka, kranpoi eta pioletik gabe. Fernando Rey  
Munduko onenak ariko dira Zegama-Aizkorri **mendi** maratoian. Berria - Kirola  
**Mendi**-taldean ibilitakoak gara biok. Xabier Mendiguren Elizegi  
Inolako bizitzarik ez zen ageri **mendi** itsaso hartan. Josu Zabaleta

#### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bi lagun galdu egin dira Irurtzun inguruko baso-**mendietan**. Han mendebal isurian dauden harkaitz-**mendiak** joz, oihartzun gisara, iristen zen Aizelekura. Martin Anso  
Beste elur-**mendi** bat bisutsa sortzen hasi zen, amiltzeko zorian zegoelako seinale. Bernardo Atxaga  
Arbel-**mendiaren** beheko aldean geratu da bera, eta jaistea baino zailago iruditzen zaio orain igotzea. Xabier Mendiguren Elizegi  
Bat-batean sabai osoa erori zen hornen barrura, eta zeruraino altxatu zen gar **mendi** bat. Josu Zabaleta  
Harkaitzetatik amilduko zaitut eta erraitsu-**mendi** bihurtuko. Elizen arteko biblia  
Nolanahi ere, hura ez zen, urrundik ere, gihar **mendi** erraldoi hari buruz zebilen zurrumurririk okerrena: gerra garaian, Bavariako gure sukaldaria aski ospetsu egin omen zen Polonia aldean. Alberto Ladron Arana

#### 5 goi mendi (orobat goimendi g.er. ik goimendizale)

Errealitateak berak eta esperientziak erakusten baitigute goialdeak zer haizetsuak diren, **goi mendietara** igoten garenean. **Goi mendietatik** heldu den haizea entzutean berantetsi du Abelek. Xabier Amuriza  
Gutxi izango dira **goi mendietan** urretxuarrak adina gailur egindakoak. Berria - Kirola  
Udaminean egonagatik, **goimendietan** elurra ikusi ahal izan genuen. Patxi Zubizarreta

#### 6 mendi alde ik mendialde.

#### 6b mendi arro (corpusean mendiarro soilik) iz

**Mendiarro** maldatsua belarrez tapizaturik zeuden; baina ordu hartan dena grisa zen, eguzkia ezkatu egin baitzen, eta behean, urruntasunean, gizakien bizilekuetako argien zohardura ikusten zen. Agustin Otsoa

#### 7 mendi behi (corpusean mendibehi soilik) mendiko behia.

Behiala Orreagatik Ainarbe aldera ekartzen omen zituzten **mendibehiak** negutzera. Patziku Perurena  
Hantxe hil zen Fermina Iribarren Arratetakoa, **mendibehi** batek izterretik adarra sartuta, bertan odolusturik 1974ko uztailaren 15ean. Patziku Perurena

#### 8 mendi bide ik mendibide.

#### 9 mendi bizkar (orobat mendibizkar g.er.)

Sofiak ez die begirik kendu, harik eta **mendi-bizkar** berdearen bestaldean desagertu diren arte. Patxi Iturritegi  
Aldapan gora igo, eta **mendi-bizkar** lauetatik joan zen gero bidea, galsoro, garagardi eta zekale-alor igitatu gabeak alde batean, eta bestean, berriz, Tentetnikovek hainbestetan ibilitako lekuak. Jose Morales  
**Mendi-bizkar** lauetan ibiltzen zen, eta bere zabaltasun osoan ikusten zuen handik beheko harana. Jose Morales  
**Mendi bizkarrean** behera datoz. Joseba Sarrionandia  
Judasek hizketaldia bukatu zueneko, gudari-talde bat ikusi zuten **mendibizkarrean** zelatan. Elizen arteko biblia

#### 10 mendi gailur (orobat mendigailur g.er.)

Lehenengo elurrek zurituak zituzten ordurako Baikak ondoko **mendi gailurra**, udara arte horrela irauko zutenak. Karlos Zabala  
Han eta hemen badira **mendi gailur** batzuk, hala nola Gunnbjorn Fjeld izenekoa, 3.700 metroraigo igitzen dena. Bernardo Atxaga  
Gu gauden **mendi gailur** hau Helseggen da, Mendi Lainotsua. Koro Navarro  
Jotamek, hori jakitean, Garizim **mendi-gailurrera** igo eta esan zuen garasika: [...]. Elizen arteko biblia  
Euskal Herriko **mendi gailur** garrantzitsuenetan izan ginen elkarrekin. Juan Luis Zabala  
Harrigarria zen: ez zuen gizon garrijale baten antzik, **mendi-gailur** bakarti basoz estali batena baizik. Juan Kruz Igerabide  
Urek jaitsi eta jaitsi jarraitu zuten hamargarren hila arte; hilaren lehen egunean **mendigailurra** agertu ziren. Jose Antonio Mujika  
**Mendi gailurreko** elurrak urtzen direnean bezala. Juan Kruz Igerabide  
Heriotza bera, **mendi gailurraren** erpinera -jaungoikotasunera- iristeko eman behar dugun azkeneko pauso ilun neketsua izanik ere, pozgarria ere da, bai. Jenaro Garate  
**Mendi-gailurra** oinpean duela eta mendean harturik bezala izan behar du derrigor mendizalearen amodiozko egintzak. Iñaki Segurola

#### 10 mendi gain (orobat mendigain g.er.) iz

Zer ikusten da **mendi-gain** batetik begira jarri ezker? Iñaki Segurola  
Gu **mendigain** lau bateko harkaitz-ertzetan ginen. Edorta Jimenez  
Eta huna berriz orain apirileko elurra **mendi gain** horietan. Herria  
Kaleak ez ditu oraingoz hartu, baina bai **mendi gainak**, eta haiei begira nago. Pako Aristi  
Urruneneko **mendigainak** garden ageri ziren, hego haizearen lana. Koldo Izagirre  
Sei etapa **mendi gainetan** bukatuko dira. Berria - Kirola  
**Mendi gainetara** zeuzkan begiak, urrutira zuzenduta, baina ez zirudien bere barrura baino begiratzen zuenik. Pedro Alberdi  
Herrialdeko **mendigainetan** ezarriko zaitut eta zeure arbaso Jakobi agindu nion ondarea gozaraziko dizut. Elizen arteko biblia

#### 11 (leku-atzikiekin singularrean)

Hirugarren eguna argitzean, trumoiak eta tximistak izan ziren **mendi gainean**. Jose Antonio Mujika  
**Mendi gainean**, tenplua inguratzen duen esparru osoa gututz sakratua da. Elizen arteko biblia  
Bere burua hilko zuen eguzkia **mendi gainean** azaltzarekin batera. Bernardo Atxaga  
Behin hartz bat jaitsi nian **mendi gainetik** bizkarrean, gutxienez berrehun eta berrogeita hamar kilokoa. Xabier Olarra  
**Mendi gainetik** kostalderraino aspaldiko bideetan. Herria  
Hutsaren eraginez, ura igo egiten da **mendi gainera** eta beste ondorio harrigarri asko ere egin ohi ditu, guk hemen aipatuko ez ditugunak. Joan Mari Lekuona

#### 12 mendi ganadu (corpusean mendiganadu soilik) mendiko ganadua.

Baina oraindik gelditzen diren baserritar **mendigaganadu** bakanentzat, jendejera betizu temoxo paranoidetxo horrentzat, zer gara gu?, nor gara gu? Iñaki Segurola

#### 13 mendi goi (orobat mendigoi g.er.) mendi garaia.

Aldi hori dela eta, igoera zailako **mendi goi** batera erretiratu zen. Askoren artean  
**Mendi goietako** eguraldi aldakorra: gauez hotz, egunez bero, bat-batean lanbroa. Anton Garikano  
Eta **mendi goietan** bake gehiago izango zuela pentsatu, eta bertan ere laguntza falta sentitu. Berria - Euskal Herria  
Eta, euri ugarian handiturik, **mendi goietatik** urjauzi handian oldartzen denean, [...]. Xabier Amuriza

## 14 mendi gune ik mendigune.

### 15 mendi kasko (orobat mendikasko g.er.)

**Mendi kasko** garaienteko elurrak urtu eta errekek ongi hornituak joan ohi dira. **Pello Zabala**

**Mendi-kasko** soiletan errekek sortuko ditut, ibarretan iturriak. **Elizen arteko biblia**

Ur bazterreko **mendi kasko** batean pinudia zegoen eta hark hornitu zien ur gainean irauteko materiala. **Karlos Zabala**

Etsaien armadak hor berean dira, gure **mendi kaskotan**, Urepeletik hasirik. **Michel Oronoz**

Bai, zaldiak eraman du gizona burrukara; zaldiak amodiotara; zaldiak leizezulora eta **mendikaskora**; zaldiak itzalpera eta zaldiak eguzkitara. **Patziku Perurena**

-Ezin da **mendi kaskora** igan, gailurreraino daraman bidea ezagutu gabe. **Elena Touyarou**

Haietariko batean, Migel Mailuk Iruñeko katedraleko dorreak ikusi uste izan zituen Saioa **mendi kaskotik**. **Aingeru Epaltza**

Oihanez oihan lehenik eta **mendi kaskoetatik** gero, Amaiurreraino heldu zen. **Eneko Bidegain**

### 15a mendi kate ik mendikate.

### 16 mendi lepo (orobat mendilepo)

Biriatu-tik Urepelen gaindi Arnegirainoko **mendi lepo** gehienak zer pasabideak ez dira izanak, bi eskualdetarik berdin. **Herria**

**Mendi lepo** ttipi batean dago, Erredoraira heldu gabe. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Mendiko zabalgune batean zegoen berau; **mendilepo** baten itxura hartu zituen ama-alabek, bi mendi elkartzen zituen lur puska bat balitz bezala. **Aitor Arana**

Hortako ez zuten frontoi beharrik, aski baitzen toki edo soropil luze eta legun bat, bereziki **mendi lepoetan**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Baina onetsi behar izan zuten guarda nazional konpainia batek oihal etxolak beren funtsetan finka zitzan, **mendi lepotik** landa haien baserria lehena baitzen. **Elena Touyarou**

Igan beharko den **mendi lepo** gorena 5760 metretan izanen da. **Herria**

### 16a mendi lerro ik mendilerro.

### 17 mendi martxa (orobat mendimartxa g.er.)

Bihar hasiko da AHTren aurkako **mendi martxa**. **Berria - Euskal Herria**

Bihar eta etzi **mendi martxa** egingo da Iruñen hasi eta Astigarragara Abiadura Handiko Trenaren aurka. **Berria - Euskal Herria**

Urtero gazte topagunea edo **mendi martxa** bat antolatu izan ditu gazte mugimenduak. **Berria - Euskal Herria**

Parke eoliko handien aurkako **mendi martxa** eratzeko asmoa zutela azaldu ziguten. **Juan Luis Zabala**

Urtero gazte topagunea edo **mendi martxa** bat antolatu izan ditu gazte mugimenduak. **Berria - Euskal Herria**

### 18 mendi-mendi

Bidea **mendi-mendian** sartzen zen, trokarte sakonen ertzetik eta gailur antzu, zorrotz, basatien azpitik. **Josu Zabaleta**

**Mendi-mendiko** etxe baten bizi omen zen bere arreba maitearengana joan omen zen. **Gotzon Garate**

**Mendi-mendira** iritsi ginen eta zuhaixken bestaldean gelditu ginen kamionetarekin. **Pello Lizarralde**

### 19 mendi muino muinoa.

**Mendi-muino** gehienak ilun zeuden; kanposantukoa, berriz, eguzki betean. **Anjel Lertxundi**

Paola Florentzian bizi zen, Fiesoleko **mendi-muinoetan**. **Fernando Rey**

**Mendi muinoaren** bizkarrean. **Itxaro Borda**

Zenbat aldiz ikusia ote nago, **mendi muino** soilean edo zuhaitzondo bakartu baten inguruan, tximistak erretako larregune beztua. **Patziku Perurena**

Haizeak inarrositako **mendi-muino** txiki biluzi batzuen aldera ematen zuen hotelak atzealdean. **Fernando Rey**

Negu eguzkiaren azpian **mendi muinoak** zuri-zuri, haritz baso txikiaren ondoan... etxea. **Pablo Sastre**

**Mendi muinoetan** errauts gaizto batek jotzen zituen, alabaina, gure ameztoiak, gaztaindegiak ala mahastiak, eta ibar-zelaietan hesten ziren ilagindegiak, oihalgindegiak eta larru-apaindegiak. **Piarres Xarriton**

### 20 mendi tontor (orobat menditontor g.er.)

**Mendi-tontor** bat, harkaitz huts zirudiena, zeruari ausika. **Piarres Aintziart**

Hura ere harrigarria izan zen niretzat, inefablea: hilerrria non eta **mendi tontorrean**, mila metrotik gora. **Bernardo Atxaga**

Herriaren gainean, **mendi-tontorrek**, zuri eta eurriak leundurik, lehen eguzki-izpiekin distiratsen zuten. **Koro Navarro**

San Francisco-Reno hegaldia oso laburra da, eta apenas dagoen astirik Sierra Nevadaiko **mendi tontorrei** goxo-goxo antzemateko. **Javi Cillero**

Igo zen buruzagia Eliassen bila eta **mendi tontorrean** eseria aurkitzean, esan zion: -Jainkoaren gizon, jaisteko agintzen dizu erregeak. **Elizen arteko biblia**

Bidez bide eta **mendi tontorrez** tontor zaldi gainean ibiltzeak, rugbyen aritzeak bezainbat sentsazio eskainiko didala, ez dut dudatzen. **Daniel Landart**

Santu Guztien Eguna, **mendi tontoretan** elurra. **Pello Zabala**

Alabaina, desafio berezi eta bitxi bat bete nahi izan du Iñazio Arregi azpeitarrak [...]: 104 kiloko burdin pieza bat, 2,25 m. luzetasuneko, bizkarka 793ko **mendi tontor** kaskora eraman. **Herria**

### 21 mendi zeri (corpusean mendizerri soilik) mendiko zeria. • irud/hed

Hori ez zekiten ni atxilotzera heldu ziren **mendizerriek**, eta senperrak entzun behar izan zituzten lekuko gisa sinarazi nahi ziotelako paper bat, nire etxeko miaketan ikusle egon gabetanik. **Koldo Izagirre**

Belaun-joko bizian urrundu ginen pendizean gora, **mendizerri** haiek sua pizten zutela ardi izterra jateko asmoz. **Koldo Izagirre**

### 22 mendi zulo (orobat mendizulo) mendiko zuloa.

Bandidu hotsa zabaltzen zenean, berriz, hartu zaldia eta **mendi zuloak** eta baso ilunak miatzera aurreratzen nintzen. **Bernardo Atxaga**

Jaitsi zaitzez Libanotik, jaitsi Amanako gailurretik, Senir eta Hermon tontorretatik; utzi lehoien eta panteren **mendizuloak**. **Elizen arteko biblia**

### 23 mendiko bide

la ordu bete egin dugu **mendiko bide** bihurtzeari batean gora. **Anjel Lertxundi**

Ordu erdi luzeko ibilaldia, **mendiko bide** aldapatsuan gora, pagadi ederra zeharkatuz. **Berria - Euskal Herria**

Horretaz gain, diruaren parte bat **mendiko bideak** zaintzeko erabiliko da, bertzeak bertze, GR10 eta GR8 bideak. **Berria - Euskal Herria**

Hilerrietatik aparte ere, **mendiko bide** baten bazterrean hilarri bat agertuz gero, pausoak gelditu eta errespetu handiz begira geratuko nintzaion. **Juan Luis Zabala**

### 24 mendiz mendi

Igandean, Baztango itzulia, oinez, **mendiz-mendi**, Erratzutik Erratzurat. **Herria**

Orotar 80 bat kilometro **mendiz mendi**. **Herria**

Bidez bide, **mendiz mendi** eta presarik gabe. **Herria**

Hoinbeste urrats, **mendiz mendi**, zelaiez zela, hoinbeste zubi, eta hiri handietan ezin finituzko karrikak. **Piarres Aintziart**

Txikitari, gu behin batean Ataundik Altsasuraino joan ginen, **mendiz mendi**, autoak ikustera. **Patxi Zubizarreta**

### 25 su-mendi ik sumendi.

#### hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aizkorri mendi (9); aizkorri mendi maratoia (4); amozko mendi (4); ararateko mendi (9); cho oyu mendi (4); europako mendi (16); europako mendi txapelketa (6); euskal herriko mendi (8); euskal mendi (4); frantziako mendi (4); idauze mendi (11); inguruko mendi (21); izeneko mendi (4); la verna mendi (6); larrun mendi (8)

**mendi alde** (10); **mendi aldean** (13); **mendi aldeko** (13); **mendi aldera** (43); **mendi aldera jo** (9); **mendi aldetik** (5); **mendi arte** (5); **mendi artean** (8); **mendi barranean** (6); **mendi bat bezain** (4); **mendi baten** magalean (6); **mendi bide** (9); **mendi bidea** (5); **mendi bixta** (5); **mendi bizkikleta** (4); **mendi bizkar** (6); **mendi bizkarrean** (4); **mendi buelta** (11); **mendi buelta bat** (4); **mendi elkarateak** (10); **mendi elkarateak antolatzen** (5); **mendi erraldoi** (4); **mendi eta muinoek** (4); **mendi eta oihanetan** (5); **mendi eta zelaietan** (4); **mendi gailur** (15); **mendi gailurra** (4); **mendi gailurrak** (6); **mendi gailurrean** (13); **mendi gailurreko** (4); **mendi gailurrera** (4); **mendi gailurretan** (9); **mendi gain** (13); **mendi gaina** (5); **mendi gainak** (5); **mendi gainean** (5); **mendi gainera** (5); **mendi gainetan** (14); **mendi gainetik** (4); **mendi garai** (13); **mendi garai batera** (4); **mendi garaiak** (8); **mendi garaietako** (4); **mendi garaietatik** (4); **mendi giroko** (5); **mendi gora** (9); **mendi gorena** (4); **mendi goretan** (4); **mendi gune** (8); **mendi handi** (21); **mendi handiak** (5); **mendi harritsuena** (5); **mendi harritsuetakoa** (4); **mendi hegaletan** (7); **mendi hegi** (4); **mendi hegian** (5); **mendi honen** (6); **mendi honetan** (8); **mendi honi** (6); **mendi honi aldatu** (4); **mendi hori** (14); **mendi horiek** (8); **mendi horien** (7); **mendi horietan** (20); **mendi ibilaldi** (12); **mendi ibilaldia** (18); **mendi ilun** (6); **mendi inguru** (4); **mendi inguruan** (5); **mendi inguruetan** (6); **mendi irteerak** (4); **mendi kasko** (30); **mendi kaskoak** (6); **mendi kaskoan** (12); **mendi kaskoetan** (11); **mendi kaskorat** (8); **mendi kate** (6); **mendi kaxko** (5); **mendi lasterkaldi** (6); **mendi lasterkari** (4); **mendi lepo** (10); **mendi lepoetan** (4); **mendi lerro** (9); **mendi lerroaren** (4); **mendi magal** (4); **mendi magalaren** (4); **mendi magalean** (8); **mendi magaleko** (6); **mendi magaletako** (4); **mendi magaletan** (4); **mendi malda** (6); **mendi maldan** (4); **mendi maratol** (4); **mendi maratokia** (5); **mendi martxa** (33); **mendi martxa egingo** (4); **mendi martxak** (4); **mendi martxan** (6); **mendi mazela** (19); **mendi mazelan** (10); **mendi mazelaren** (4); **mendi mazeletako** (4); **mendi mazeletan** (12); **mendi mendian** (4); **mendi muino** (8); **mendi muinoak** (7); **mendi osoa** (11); **mendi punta** (4); **mendi sakratua** (4); **mendi sakratuan** (4); **mendi santu** (8); **mendi santuan** (20); **mendi santuaren** (4); **mendi santura** (4); **mendi ta** (7); **mendi taldea** (4); **mendi taldeko** (4); **mendi tontor** (12); **mendi tontorrak** (4); **mendi tontorretan** (10); **mendi tontorretan** (4); **mendi txapelketa** (7); **mendi txapelketako** (4); **mendi txapelketako lehen** (4); **mendi xoko** (6); **mendi xola** (16); **mendi zintzur** (4); **mendi zoko** (10); **mendirik mendi** (8); **mendiz mendi** (53); **mendiz mendi ibili** (4)

**munduko mendi** (6); **ursu mendi** (13); **ursu mendi elkarateak** (5); **urtsu mendi** (5); **zortzimilako mendi** (5)

**ararat mendia** (5); **cho oyu mendia** (5); **everest mendia** (4); **itsasoa eta mendia** (4); **la verna mendia** (7); **libano mendia** (5); **mendia bezain** (10); **mendia igo** (6); **mendia maite** (6); **mendia utzi** (6); **metroko mendia** (4); **patuaren mendia** (4); **sion mendia** (6); **urgull mendia** (4)

**euskal herriko mendiak** (5); **inguruko mendiak** (14); **mendiak baino** (8); **mendiak bezain** (7); **mendiak eta haranak** (4); **mendiak ikusi** (4); **mendiak ikusten** (4); **mendiak mugitzen** (4); **mendiak zeharkatu** (5); **ural mendiak** (11); **zortzimilako mendiak** (4)

**ararat mendian** (7); **gargano mendian** (4); **garizim mendian** (4); **gauaz mendian** (4); **gilboa mendian** (5); **horeb mendian** (11); **jaizkibel mendian** (4); **karmel mendian** (6); **la verna mendian** (20); **mendi mendian** (4); **mendian baino** (5); **mendian barna** (5); **mendian barrena** (12); **mendian behera** (45); **mendian behera erori** (4); **mendian bizi** (13); **mendian egon** (5); **mendian erakutsi** (5); **mendian gaindi** (8); **mendian galdu** (4); **mendian galduta** (5); **mendian galdutako** (6); **mendian goiti** (5); **mendian gora** (118); **mendian hil** (9); **mendian ibili** (11); **mendian ibiltzea** (4); **mendian ibiltzeko** (15); **mendian ibiltzen** (16); **mendian zebilen** (4); **mendian zegoen** (4); **mendian zehar** (4); **moria mendian** (4); **sinaï mendian** (15); **sion mendian** (13)

**ararat mendiaren** (13); **ararat mendiaren sumina** (6); **fuji mendiaren** (5); **fuji mendiaren tankera** (4); **jaizkibel mendiaren** (4); **larrun mendiaren** (10); **mendiaren azpian** (5); **mendiaren gailurrean** (6); **mendiaren gailurrera** (11); **mendiaren gainean** (6); **mendiaren gainera** (5); **mendiaren inguruan** (7); **mendiaren kaskoan** (4); **mendiaren kaskorat** (4); **mendiaren magalean** (13); **mendiaren maldan** (4); **mendiaren oinetan** (6); **pisga mendiaren** (4); **sinaï mendiaren** (4); **sion mendiaren** (6)

**mendiari begira** (7); **mendiari buruz** (10); **mendiari buruzko** (6)

**mendien artean** (15); **mendien arteko** (12); **mendien gainean** (5); **mendien gainetik** (6); **mendien inguruan** (4); **mendien kontra** (4); **ural mendien** (8)

**inguruko mendietako** (4); **ural mendietako** (4)

**europako mendietan** (5); **euskal herriko mendietan** (5); **inguruko mendietan** (16); **israelgo mendietan** (7); **mendietan barna** (6); **mendietan barrena** (8); **mendietan bizi** (9); **mendietan gaindi** (16); **mendietan gora** (5); **pirineo mendietan** (5)

**ural mendietara** (4)

**ekialdeko mendietatik** (5); **mendietatik jaisten** (4); **ural mendietatik hara** (4)

**mendiez bestaldeko** (4); **mendiez bestaldera** (4)

**errege mendiko** (6); **espainiako mendiko** (5); **espainiako mendiko duatloi** (4); **europako mendiko** (7); **ezkaba mendiko** (4); **idauze mendiko** (11); **la verna mendiko** (7); **larrun mendiko** (4); **mendiko artzaintza** (4); **mendiko bide** (4); **mendiko bideak** (4); **mendiko bizikleta** (5); **mendiko borda** (4); **mendiko botak** (7); **mendiko duatloi txapelketa** (4); **mendiko errepide** (4); **mendiko etapa** (7); **mendiko etapak** (4); **mendiko etapetan** (14); **mendiko europako** (4); **mendiko landan** (9); **mendiko sailkapena** (11); **mendiko sailkapena irabazi** (6); **saint michel mendiko** (4); **subasio mendiko** (6)

**jaunaren mendira** (5); **mendira atera** (6); **mendira begira** (4); **mendira begiratu** (4); **mendira eraman** (8); **mendira eramaten** (4); **mendira igo** (43); **mendira igo zen** (24); **mendira igo ziren** (5); **mendira igotzeko** (5); **mendira igotzen** (6); **mendira jo** (13); **mendira jo zuten** (4); **mendira jo zuten** (5); **mendira joan** (33); **mendira joan zen** (7); **mendira joate** (5); **mendira joateko** (11); **mendira joaten** (17); **moises mendira igo** (4); **sinaï mendira** (6); **sion mendira** (11)

**hermon mendiraino** (4)

**mendirik mendi** (8)

**menditik behera** (5); **menditik jaisten** (4); **menditik jaitsi** (23); **menditik jaitsi zen** (6); **menditik jaitsi zenean** (5); **sinaï menditik** (5); **sion menditik** (4)

**mendiz inguratuta** (4); **mendiz inguratutako** (4); **mendiz mendi** (53); **mendiz mendi ibili** (4)

## mendialde *(250* agerraldi, *40* liburua eta *74* artikulutan; orobat *mendi alde* *97* agerraldi, *40* liburua eta *29* artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegiari *mendialde* agertzen da) 1 iz

Iritsi zen Laban Jakobengana; honek **mendialde** batean jarria zuen oihal-etxola.  Jose Antonio Mujika

Zoazte Negeb-etik barrena, **mendialdera** iritsi arte.  Jose Antonio Mujika

Gero, liburua bat hartu eta ibilalditxo bat egitera atera da **mendi aldera**, txakurrarekin.  Imanol Zurutuza

Egunguentian **mendialdera** jotzen du eta ibilaldi luze bat egitera abiatzen da.  Oskar Arana

**Mendialdetik** mendebalderantz jarraituz, Bet-Aben basamortura heltzen zen.  Elizen arteko biblia

Lagun iezaguzu, gure kontra elkartuak baitira **mendialdeko** errege amorrarrak.  Jose Antonio Mujika

Gau hartan bertan, Donner **mendialdea** iragan zuten San Franciscora bidean.  Javi Cillero

Jelkaldi honetan aipatzen diren artzainak Aralar **mendialdekoak** direla.  Berria - Kultura

Nafarroako **mendialde** honetarako 1742an atera zuen ediktu batek.  Patziku Perurena

Ivreako **mendialdean** jaioa zen, lur eder elkor horretan.  Juan Garzia

Bestalde badaude Gasteitzen euskaltegiak, Lautadan, Zuian, **Mendialdean**, Prian eta Trebiñon.  Herria

Toskanako **mendialdeko** herrixka guztiak bezala, antzinakoa da eta hilobi etrusko ugari ditu.  Xabier Olarra

Biarnoko **mendialde** hortan, bere umearekin zabilan hartz bat, eskualde hotako motatik oraino bizi zen azken emea omen, ihiztari batek hil baitu...  Herria

Askotan esan izan da baserriak markatu duela euskaldunaren izaera (edo **mendi aldeko** euskaldunaren psikologia bederen).  Xabier Mendiguren Elizegi

Hartzak sartzeko planarekin batera, **mendialdeko** ekonomia bultzatzeko neurriak onartu ziren.  Berria - Harian

Ondarrola Kaixtulenean sortua duela 80 urte, bizia eraman du laborantxan, ez baita lan erretxa **mendi alde** hotan.  Herria

**Mendialde** guztia ibili dut goitik behera don Bartolomé San Juan ezkutatzen den txokoaren bila.  Juan Garzia

Denetara, bi mila grabazio baino gehiago daude sailkatuta, **mendialde** osokoak.  Berria - Kultura

## 2 (M larriz) nafarroako mendialdea; Arabako mendialdea.

Lainoa eta euria **Mendialdean** eta ateri Iruñerrian eta Erriberan.  Iñaki Zabaleta

Bestalde badaude Gasteitzen euskaltegiak, Lautadan, Zuian, **Mendialdean**, Prian eta Trebiñon.  Herria

## mendialdi iz mendian igarotzen den aldia.

Manuel Arbiza amasarra **mendialdi** bat egitera jalgi zen Txiki zakurrarekin.  Gotzon Garate

Emakumeak ziren, batez ere, bainuetxean astotxoak alogeran hartzen zizkietenak inguruetakoa baserritarrei, **mendialdiak** egiteko ermitetara eta iturburuetara.  Koldo Izagirre

Anai Jaxinto, beraz, ez zen nik gaztetan uste nuén ogroa, umorez ondutako zentzu ezin finagoa baitzuen, **mendialdi** hartan ongixto erakutsi zidanez.  Joan Mari Irgoien

## mendiarro ik mendi 6b.

**mendiarte** (**11** agerraldi, **8** liburutan; orobat **mendi(-)arte 17** agerraldi, **11** liburu eta **2** artikulutan, **mendarte 8** agerraldi **3** liburutan, eta **mendiarate 4** agerraldi **3** liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **mendiarte** agertzen da) iz

Azpilkueta izan zen beraz Orreagako kalonje eta, atseginekin entzun zuen bere izen hori, baina ez zen luzaz bizi izan **mendiarte** horretan. Piarres Xarriton

Goiak erabat oskarbi, **mendiarte** altuago hauetan. Pello Zabala

**Mendi-arte** estu samarrean luzatzen den harana hartzen du Caracasek. Alpe Garaietan, izoztegien oinetan, mendien gailur zuriak ebakitzen dituzten harkaitzezko **mendiarte** gorrietan dauden ostatu etxe guztiak bezala, Schwabacheko bentak Gemmiko **mendiartean** dabilzan bidaiariei babeslekua ematen die. Pako Aristi

Ekaitzak sarri izan ohi dira Alpeetako **mendarte** handi haietan. Pello Zabala

Arbasoen itzal gisa, **mendi artean** kantuan eta dantzan biziitzeko. Iban Zaldua

Edo **mendiarteetan** sartzen zen, non zuhaitzak, txorien habiek zamaturik, hostoz janzten hasi berriak baitziren. Jose Morales

Iparraldekoa beti leku beretik sartzen da, Arizbakar eta Larraingane **mendiartetik** Zianzuloko basoan behera. Pako Aristi

Bonba hegazkin berri bat, Heinkel 111, agertu zen **mendi artetik**, eta bonbak bota ondoren, itzuli eta beste bi gehiagorekin agertu zen berriz ere, amets gaizto gisa. Pello Salaburu

## mendibehezale iz

Lehen mendigoizale nintzena **mendibehezale** bihurtu nintzen, neure arima barruko isuri ilunari men eginik. Juan Luis Zabala

## mendibehi ik mendi 7.

## mendibide (15 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan; orobat mendi(-)bide 25 agerraldi, 13 liburu eta 9 artikulutan) iz mendiko bidea; mendiko errepidea.

Errepidea utzi eta **mendibide** berdeetan barrera abiatu nintzen. eta pista bukatu zenean **mendi-bide** lokaztu batean gora egin genuela. Aitor Arana

**Mendi bidea** adierazten baitu GRak. Berria - Kultura

Dena ongi jaso ondoren, beraz, **mendibidean** behera abiatu ginen. Aitor Arana

Senar-emazteak hil ziren atzo Elexabeitian, beren noranahiko ibilgailua Bikotzgabe eta Pagomakurre gainak lotzen dituen **mendi bide** batetik atera eta mendi magaletik erori ostean. Berria - Euskal Herria

Autoak zabu-zabuka zebiltzan bidean, euritan, harrien gainean jauzika balebiltza bezala, **mendibideetan** gehiegizko abiaduran zihoazela. Aitor Arana

**Mendibide** horiek ingurumena funditzen dutela eta ez direla batere beharrezkoak. Herria

Egia zen motel aitzinatzen genituela kamioiak Markinatik Ondarroako **mendi bidean**. Koldo Izagirre

Ortziraletik igandera, "Rallye des Cimes" **mendi bidetako** lehiaketa Ligitik abiatuz. Herria

## mendibizkar ik mendi 9.

## mendigailur ik mendi 10.

## mendigain ik mendi 11.

## mendigianadu ik mendi 12.

## mendigoik ik mendi 13.

## mendigoizale 1 iz mendizalea, bereziki mendi goietara igotzen dena. ik alpinista.

Egun hotan, bi **mendigoizale** euskaldun hupatu dira Lhotse mendiaren kasko-kaskoraino. Herria

Uztailaren 15ean, asteartez, Jon Beloki **mendigoizaleak** moldatutako "Jainkosen altzoan" diaporama. Herria

Egunkariak zioenez, Rahn **mendigoizale** porrokatua zen eta azken egun haietan txango bat egingen ari zen mendialde hartan. Alberto Ladron Arana

**Mendigoizale** suharra zen Manex, euskaltzale, abertzale eta historialari suharra zen bezala. Berria - Kultura

Lehen **mendigoizale** nintzena mendibehezale bihurtu nintzen, neure arima barruko isuri ilunari men eginik. Juan Luis Zabala

Bezperan iritsi zen Cho Oyun zendutako **mendigoizale** gaztearen gorpua jaioterrira. Berria - Kirola

Mendizale elkarteak antolatutako herri arteko **mendigoizaleen** topaketak bultzatu... Xabier Mendiguren Elizegi

Baztango mendi ibilaldia iraganen da ere igandean, Baztango **Mendigoizaleen** Elkartek antolatutak. Herria

## 2 (hitz elkartuetan)

Larunbat aratsean, Posta bitokian, **mendigoizale** filma. Herria

## mendigune (orobat mendi gune; Euskaltzaindiaren Hiztegian mendigune agertzen da) 1 iz gune menditsua.

Hindu Kush **mendiguneko** igarobideetan zehar. Iñaki Mendiguren

Gaurkoa Dolomitak **mendiguneko** etapa bakarra da, baina jakina da, Dolomitetan, handik edo hemendik, alde batetik edo bestetik, mendate asko gogorrek direla, hormak, munduko gogorrenetakoak.. Berria - Kirola

Belaze eta **mendigune** ospelak zuri-zuri zeudela genioen atzo, Paris-Nizako hirugarren etapan. Berria - Kirola

## 2 Erdialdeko Mendigune Frantziako erdialdeko mendigunea.

Aitaran lan horregatik, etengabean joan behar izaten genuen alde batera eta bestera, Pirinio aldera aurrena (Nougen, Vergne...), eta Erdialdeko **Mendigunera** gero (Marsillac, La Croixille...). Jokin Urain

Asteazken eta ostegunekoak [etapak] **Erdialdeko Mendigunean** barrera egingo dira. Berria - Kirola



## mendikante *izond* eskekoa.

Garrantzi handikoa da idazki hau Ordena **mendikanteek** klero sekularrekin pobretasunaren inguruan izan zituzten tirabirak ulertzeko. **Askoren artean**

Fraide **mendikanteek** Elizan beren bizimolde propio eta bereziaren arabera bizitzeko zuten eskubidea legitimatzeko. **Askoren artean**

**Mendikanteen** biziera, eta bereziki haien pobretasunaren aldeko aukera, kritikatu zuen Saint Amour-eko Gilen Maisuak, aukera horren zilegitasuna zalantzan jarri. **Askoren artean**

Pariseko unibertsitatean, maisu sekularren eta **mendikanteen** arteko polemika pizten da. **Askoren artean**

## mendikari *iz* mendikoa den pertsona.

Eskerrik asko Jaun Goikoa, ditutzu baketzen mendia eta gizona, **mendikaria** eta artzaina, su emailea eta zauritua. **Herria**

Han, lautadaxoan, **mendikari** txanodunak geldi eta isilik zeuden, zain. **Agustin Otsoa**

Eta **mendikarien** zaldiek benetan hain maiteak zituzten haien zaldizkoak non Atearen izu ikaragarriari ere aurre egiteko prest baitzeuden, beti ere brida zeramaten **mendikarien** bihotza ziur baldin bazihoan aurrera. **Agustin Otsoa**

Huirlin Ederra ez zen sekula Pinnath Gelinera itzuliko, ezta Grimbold Oihan Ilunera ere, ezta Halbarad, esku zurruneko **mendikaria**, Mendebaldeko Lurraldeetara ere. **Agustin Otsoa**

## mendikasko ik **mendi 15**.

## mendikate *(orobat **mendi kate**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **mendikate** agertzen da)* *iz* elkarri lotuak dauden mendien multzo handia. ik **mendilerro**.

Laster burdinbidea egingo dute Permekin lotzeko, Ural **mendikatea** gurutzatuz. **Karlos Zabala**

Jekaterinburg, ikuspuntu geografikotik, Asiako hiria da, Ural mendietatik hara kokaturik baitago, **mendikatearen** ekialdeko azken hegaletan. **Karlos Zabala**

3.500-4.400 metroko garaieran ari dira lanean, Ande **mendikatean**. **Berria - Gaiak**

Argi pixka bat bazegoen oraindik, eta gure mahaitik Atlas Handiko **mendikate** elurtua ikusten genuen. **Bernardo Atxaga**

Eskuinera, iparraldean, Kantabriako **mendikatearen** masa ederretsiz, Picos de Europa famatuak urrunera asmatzen nituen. **Piarres Aintziart**

Kaspiar itsasoaren hegoaldean zut, hantxe Elbruz; **mendikate** luze bat, gailurrik garaienak 6.000 metrorainokoak dituena. **Jon Muñoz**

Hegazkinak itzuli bat egin zuen Sierra Nevada **mendikatetik** hara, Washoe Valleyko goi-ordokiak zeharkatzeko. **Javi Cillero**

Aldez alde, ezkerrean Larrun eta eskuinean Atxuria mendiak agertu zitzaizkigun **mendikate** batek lotuta. **Rafa Egiguren**

1.500 kilometroko itsaspeko **mendikatea**. **Berria - Gaiak**

## mendikide *iz* mendi berean dabilena.

Gure goresmenak *Everest Challenge* 2003 lehiaketa gogorrean arizan diren Xiril Alvarez eta bere **mendikide** Marko Etxezarreta-ri. **Herria**

## mendikleita *iz* mendi bizikleita.

Lurra zilatzen duten xenda lohitsueterarik ibilirik, **mendikletaz**, Creac'h itsasargiaren maldan, neure bi begiz lehentze ikusi nuen ontzi kraskatu baten burdinazko hezurdegia.

**Itxaro Borda**

**Mendikleita** lurtean hedailo, Angela Duval hegaldatu eta kuxkur itsasoari begira egon nintzen unearen zabalaz ez nintzen jada oroitzen. **Itxaro Borda**

## mendikoi *izond* mendirako joera duena.

Begira lehen-lehenik animaliei; horrelaxe sortuak direla ikusiko duzu basapiztia **mendikoiak**, horrelaxe gizateria eta horrelaxe, azkenik, ezkatadun isilak eta hegalarri mota guztiak. **Xabier Amuriza**

## mendikotar *izlag/iz* Mendikotakoa, Mendikotari dagokiona; Mendikotako biztanlea.

Mintzatu naiz bereziki bi kantari xaharrekin, bat "manexa" Balerdi Arrangoiztarra eta bertzea Xiberotarra, Arabarco **Mendikotarra**. **Herria**

## mendilepo ik **mendi 16**.

## mendilerro *(orobat **mendi lerro**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **mendilerro** agertzen da)* *iz* elkarri lotuak dauden mendien saila. ik **mendikate**.

Nik, berriz, Gorgomendi, Botreaitz, Akaitz, Artzanburu, Aizkorri eta Aratzerainoko **mendilerro** luzea nerabilen buruan... **Pello Zabala**

Baso hertsieneko bideetan sartu ziren, **mendilerroko** maldetan. **Jon Maia**

Atzealdeko **mendi lerroak** eta erdiko haitz zuriak. **Jon Maia**

Ehizarako jantziak eta trepetak hartu eta mendira egin zuen ihes, bere lotsa gordetzearen: Tormantos **mendilerroko** Peña Negra haitz beltzaren eta Burguillos aizkorriaren magaletan ezkatutu zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

*Eolicas de Euskadk* ez du parke eolikorik egingo Ordunteko **mendilerroan**. **Berria - Euskal Herria**

## mendimartxa ik **martxa 17**.

## mendipe 1 *iz* mendiaren azpiko edo beheko aldea.

Ez zituen gero indioilarrok saltzen: [...] bere maitaleei ematen zien opari, bai baitzituen ugari, itsusiak, zaharrak, Piamonteko Alpe-**mendipe** guztietan sakabanatuak. **Juan Garzia**

Unaldietan, bere gortasun sideral, etsai, arrotzean hautematen nuen inguraten ninduen haizaldea, Alpe-**mendi**peen berde sigi-sagatsua. **Juan Garzia**

## 2 (leku atzizkia singularrean)

Dwimorbergen itzalean zabaltzen den Atearen beste aldean, **mendi**pean ezkutaturik, irteera ahantzirantz doan ezkutuko bidea zagok. **Agustin Otsoa**

## mendiratu, mendira(tu), mendiraten da *ad* mendira joan.

Ikusia zegoen alferrik etorria zela, balnearioko bezeroak ez ziren bazkalostean **mendiratzen**. **Koldo Izagirre**

Orroit gira gure denboran ere, **mendiratu** artzainak berriz jautsirik beherago elurraren gatik **Herria**

## mendiratze *iz* mendira joatea.

Gaurkoa du azken **mendiratzea**. **Pako Aristi**

## mendiska ik **mendixka**.

## menditar 1 *izlag* mendikoa, mendian bizi dena.

Denbora hartako beren **menditar** latinarekin. **Michel Oronoz**

-Ume **menditarrak** dira -jakinarazi zion maisuak inspektoreari bisita egitera etorri zitzaigunean. **Bernardo Atxaga**

Eta ez bakarrik euskaldun **menditarrei** buruzko mespretxu hori, guk gaztaroan nozitutakoa, oso aspaldikoa delako [...] baizik eta, batez ere, oraindik bizirik dagoelako, eta inoiz baino gaiztoago agian. **Bernardo Atxaga**

Oso ondo jabetzen zen zen esku artean zuen tresnaren herrena, tonalitate guztietara bajuekin ez iristea, alegia, eta hala ere, duintasuna eman nahi soinu **menditar**, sasiko, egurtuari. **Iñigo Aranbarri**

Kargurik gabeko azpiadiakono hutsa naiz, **menditarra**, nire herriko monastegian egin ditudan bertze ikasketarik gabea -arrazoitu zuen. **Aingeru Epaltza**

### • 2 *iz* mendiko biztanlea.

Iruñean juduek badute beren auzoa, Juderia, eskual **menditarrek** berena, Nabarrera. **Michel Oronoz**

*Tour de force* horren bidez, Marokoko espainiar eta frantziar eskualdeen arteko muga teorikoan hankalatraba zeuden Rifeko **menditarrek** K.o. 1921ean Annuaileko hondamendia eragin zieten espainiarrei. **Iñaki Mendiguren**

**Menditarrak** jende zaila ziren, gogorra. **Fernando Rey**

**Menditar** hauek gordetzen direnean, deabruak ere ez ditu aurkitzen. **Fernando Rey**

Nolakoa ote zen, bada, **menditar** hura, karrika estu batean ikaratu gintuena, Berdaine meskitatik masustondo baten gerizpean zegoen plaza xarmagarri hartara bidean? **Monika Etxebarria**

Panticosa bortuko **menditarren** gerriko bat, zurezko makila ferratu bat, espartinak. **Koldo Izagirre**

**Menditarren** arropa zarpailez jantzirik heldu ziren. **Aingeru Epaltza**

Pashak ez zuela jakin berreskuratzen **menditar** xume batek lapurtu zion zaldia. **Fernando Rey**

Bi eredu ziren, Zalakain eta Katxo hura, guztiz diferenteak; bata, **menditarren** baretasuna eta buruargitasuna zuen; besteak, Erriberakoaren amorrua eta bizitasuna. **Koro Navarro**

## 3 (Frantziako Iraultzan) *Convention* izeneko legebiltzarrean, aulki garaienetan esertzen zen talde fanatikoko kidea.

Orduz geroztik, Iraultzari eratxiki zaizkion frantses jatorriko "terrore", "terrorismo", "terrorista" eta beste izen guztiek adierazpen berezia daramate: ezen, **Menditarrak** deitu iraultzaileak ohartu zirelarik ez zituztela haien ideiak onartzen ez herritarrek, ez auzo herriek, ideien bataila gal beldurrez, izitu ziren eta etsaiak bilatzen eta ehizatzen hasi, bazter guztietan. **Piarres Xarriton**

## menditarte ik **mendiarte**.

## menditartu, menditar(tu), menditartzen da/du *ad* menditar bihurtu.

-Bat-batean **menditartutako** bulegariarena. **Aingeru Epaltza**

## menditontor ik **mendi 19**.

## menditsu 1 *izond* lurraldeez mintzatuz, mendi asko dagoena.

Nafarroakoa zela, lurralde basati eta **menditsukoa**. **Felipe Juaristi**

Yusteko monasteriora erretiratu zen, Isabel ibilitako lurralde **menditsuetatik** ez oso urruti. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Lurralde hark mendialdea, Xefela lautada, Araba harana, alderdi **menditsuak** eta Negev basamortua hartzen zituen. **Elizen arteko biblia**

Llurraldeko alderdi **menditsura** igoarazi zuen eta hura hartu zuten ondorengoek herentzian. **Elizen arteko biblia**

Toki **menditsua** eta karst asko dituena. **Bernardo Atxaga**

Darfour deitu eskualde **menditsuan**. **Herria**

Yemengo iparraldeko eremu **menditsu** batean. **Berria - Mundua**

Lur azal **menditsu** eta koskaduna baita ekaitzak gehien estimatzen duena. **Pello Zabala**

Bi urte lehenago, taliban ezkutu baten tiro trebeak orkatila txikitu zion Afganistango Tora Bora **menditsuko** labarretan. **Fernando Morillo**

Denver atzealdean utzi, eta Mendebalde **menditsuan** barneratzen hasi garenean, Aspen inguruan ekaitza lehertu da. **Patxi Zubizarreta**

Orografia **menditsua** delako. **Berria - Kirola**

Vueltako etapa **menditsu** denak bigarren astean daude. **Berria - Kirola**

## 2 irud/hed

Soineko zuria zeraman jantzia, bular gainetan estu itxia, bular **menditsuak** nabarmenaraziz, besaburu esne-kolorekoak agerian utziz, **Felipe Juaristi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eremu menditsu** (4); **eremu menditsu batean** (3); **eskualde menditsu** (3); **etapa menditsu** (5); **lurralde menditsu** (6)

**eskualde menditsuan** (3); **etapa menditsuan** (5); **lehen etapa menditsuan** (3)

## menditxo *iz mendi txikia.*

Eguzki galdaren azpian itzalik ez zuen **menditxo** harrizu baten maldan galtzen zen. **Josu Zabaleta**  
**Menditxo** idor batzuk ikusten ahal ditugu aurrez, harresien gainetik. **Koldo Izagirre**

## menditzar 1 *iz adkor mendi handia.*

Liebanako gure komentuan, Potes aldean, **menditzar** handien itzalean. **Pello Zabala**  
Zertarako igo nahi dituk **menditzar** horiek? galdetu zidan behin Okarizek. **Xabier Montoia**  
8.463 metro ditu Makalu **menditzarrak** eta Lafaille bakar-bakarrak ari zen mendia igotzeko ahaleginean. **Berria - Kirola**

### 2 irud/hed

Biek sinesten zuten Amerikan, eta biek sinesten zuten Amerika pikutara joanik zela, makinaz eta diruz etengabe hazten zen **menditzar** batek zanpaturik hiltzen ari zela.  
**Oskar Arana**

## mendixka *(orobat mendiska g.er.) 1 iz mendi txikia edo garaiera txikikoa. ik muino.*

Usaian bezala, mendia edo edozein **mendixka** aski zait, beste norbait bilakatzeko. **Piarres Aintziart**  
**Mendixka** baten tontorrean zegoen, eta Naches ibaia ikusten zen bertatik. **Koro Navarro**  
Hemen **mendixka** eztiak daude. **Piarres Aintziart**  
Belokeko **mendixkaren** zolan. **Marzel Etxehandi**  
Muskindiko **mendixka** baten kaskoan. hantxet, Akoka **mendixka** inguratu orduko, Atxuria mendi pollitaren lepo batean. **Herria**  
Tomsk, hogeita bost mila lagunengatik bidezkoa, modu ikusgarrian hedatzen da mailaka-mailaka hegala aldatu samarreko **mendixka** batean gora. **Karlos Zabala**  
Lertxunetz, haltzez eta haritz bakan batzuek estalitako **mendixkek** zeru ertzaren lerro patxadazkoa marrazten zuten. **Karlos Zabala**  
**Mendixketako** herriak ikusten genituen pasera bi aldeetako maldetan, han-hemenka sakabanaturik. **Xabier Olarra**  
Herri tipi batzuk **mendixka** artean barreiatuak. **Marzel Etxehandi**

### 2 (hitz elkartuetan)

Hantxe, **mendixka** mazelatan, gatzak lur grisari moldatzen dizkion mihise xuriak eguzkitan daude. **Piarres Aintziart**  
Aurrean daukaten **mendixka** -muinoen gainetik altxatzen den bizkarrak Oskitz duela izena esaten ari zaio. **Anjel Lertxundi**  
- Ez zen han zuhaitzik babesteko, baina baziren errepiderako zehatutako harri-**mendixka** batzuk, eta haietako batean Martin jarri zen eta bestean atzeritarra. **Koro Navarro**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**hakila mendixkan** (3)  
**mendixkaren gainean** (3)

## mendizain *iz mendiak zaintzeko lanbidea duen pertsona.*

Gizona **mendizaina** zen eta diru faltua egiteagatik giltzapean egona. **Gotzon Garate**  
Hainbat **mendizainen** etxetako [behatok] postuak. **Pello Zabala**

## mendizale 1 *iz mendira joatea, mendian gora ibiltzea gogoko duen pertsona. ik mendigoizale; alpinista.*

Joan da mendira eta han hamaiketako beste **mendizale** batekin banatuko du. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**  
**Mendizale** batek mila arrazoi izan ditzake energia eolikoa sortzen duten zutabe horien aurka egoteko. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**  
Bi **mendizale** zendu dira Pirineotan Pourtaletako lepo ondoan. **Herria**  
Mendia, bere magalean gauzkan zerbait izatetik ideien munduraino irristatu eta eroria dago gaur **mendizale** amorratuenean gogoan. **Iñaki Segurola**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hala eta guztiz ere, hilean behin edo, beheko auzoko **mendizale** talde batekin joaten nintzen ibilaldiak egitera. Juanitok berak **mendizale** -talde bat sortu zuen, herriko gazteei mendia maitatzen irakatsi eta, bide batez, aberriaren ederra ere dastarazteko. **Juan Kruz Igerabide**  
**Mendizale** saldo handi batek dio dei horri ihardetsi. **Herria**  
Tolosako Oargi **mendizale** elkarteko bazkide ginen. **Juan Luis Zabala**  
Bizkar-zorro bana soinean eta mendiko botak jantzita, **mendizale** itxura zuten. **Juan Luis Zabala**  
Urkizurako bidean bizi da Antxon Bandres, Euskal **Mendizale** Federazioko lehendakaria. **Berria - Euskal Herria**

### • 3 (izenlagun gisa)

Kaletar **mendizale** horietako batek. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Nafartar **mendizale** bat, Raul Monasterio Ongai, 29 urte, hil da Peruko mendietan. **Herria**

### 4 mendigoizalea, alpinista.

8.000 metroko mendiak igotzen saiatzen dira **mendizale** batzuk, eta guk hori aski naturalizat hartzen dugu. **Pello Salaburu**  
Alberto Iñurrategi **mendizale** ezaguna haurrekin solasean ari da eskola batean, irakasleek propio horretara gonbidaturik. urretxuarrak nahi izan du Cho Oyu mendia igo, italian **mendizale** batzuekin. **Joxerra Garzia**  
Arrisku handiko kirolatan, **mendizale** eta espeleologoaren artean, kasu, erreskate taldeak egoteak eta zerbitzu horiek deialde izateak, zenbait kirolzale arrisku handiak hartzera eramaten omen ditzake. **Iñaki Heras**

### 5 goi mendizale

Euskal-Herrira itzulidira Jon Beloki eta Alberto Iñurrategi **goi-mendizaleak**, Himalaiako Cho Oyura mendia (8.201 m.) igo ondoan. **Herria**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bi mendizale hil** (3); **euskal herriko mendizale** (4); **euskal mendizale** (8); **euskal mendizale federazioko** (4); **mendizale amorratua** (4); **mendizale bat erreskatatu** (4); **mendizale bat hil** (6); **mendizale bat salbatu** (6); **mendizale elkarteko** (3); **mendizale federazioko** (4); **mendizale gazte** (3); **mendizale hil dira** (3); **mendizale nafar bat** (3); **mendizale talde** (3)

**galdutako mendizalea** (3)

**edurne pasaban mendizaleak** (3)

**italiako mendizaleen elkartea** (3); **mendizaleen elkarteko** (3)

**mendizalek parte hartu** (3)

## mendizaletasun *iz mendira joateko zaletasuna.*

**Mendizaletasuna** eta sufrimendua eskutik doazela deritzo, berarentzat mendia borroka baita. Berria - Kirola

Arlo askotara jo baitzuen San Martinek lanera, jakin-minak eta kulturaren inguruko kezka biziak gidatuta: poesia, hizkuntzalaritza, **mendizaletasuna**, etnografia, arkeologia, alpinismoa, euskal kultura, kultura oro har. Berria - Kultura

Margotzea, irakurtzea, argazkigintza eta **mendizaletasuna** izan ditu Urretak zaletasun, bere garaian emakumeek bide horiek jorratzea ohikoa ez bazen ere. Berria - Kultura

Erreportiaia zoragarriak ere ikusten ahal dira, bereziki **mendizaletasunari** buruz. Herria

Gure aitak onartzen zuen kirol bakarra **mendizaletasuna** zen. Fernando Rey

## mendizerra *iz mendia; mendilerroa.*

Tarahumara **mendizerrako** «herri zuri» batean emakume zuri batek istripuan Maria Elenaren semea harrapatu eta hil zuen. Berria - Kultura

Guardian eta Bastidan Toloño mendiaren eta Kantauriko **mendizerraren** inguruan eraiki nahi dituztela golf zelaia. Berria - Euskal Herria

Harik eta **mendizerra** handi, tontor zorrotz eta harkaitzez beteriko batekin topo egin zuten arte. Joanes Urkixo

## mendizerra ik **mendi 20.**

## mendizulo ik **mendi 21.**

## mendragarri (*orobat mendregarri*) *izond gutxiesgarria.*

Jo dezagun orain bizia galtzea besteren baten egitez gertatzen dela; gu hil egiten gaituzte (akabatu ere esan ohi da, baina zentzu **mendragarri**, gutxiesle edo indargarri batean). Iñaki Segurola

Euskal jendea -abertzale azaltzen dena, batez ere -estereotipo **mendregarri** baten barruan josita uzteko asmoz berpiztu da azkenaldi honetan vizcaíno delakoa, figura hori bere horretan hartuz, edo lehen figura horri bigarren bat gehituz, politikoki susmagarria. Bernardo Atxaga

## mendratu, mendra, mendratzen **1 da/du ad gutxitu; ahuldu.**

Jakingabekeria honek begien plazerra **mendratzen** dit. Piarres Aintziart

Autoaren lasterra **mendratu** nuen. Itxaro Borda

Arazorik gabe iragan zen kontrol-makinen artetik, zaku astunek ibilera **mendratzen** zioten arren. Itxaro Borda

Norbait **mendratu** edo flakatu nahi dutenean, delako horren obrari antzematen zaizkion eraginak aipatzen dituzte. Bernardo Atxaga

Azken denboretan osagarria heinbat **mendratu** zabilan. Herria

Ez nuke haatik nahi pentsa dezazuen alkoholismoa **mendratuz** joan dela gure tokietan. Herria

### 2 gutxietsi.

-Ahotik hitza ateratzen zuen aldiro, zuek **mendratzeko** zen. Aingeru Epaltza

Nafarroan Erljio egiazkoa **mendratzen** duten ordenantza eta agindu guztiak indarrrik gabe uzteko. Aingeru Epaltza

Azantzako semea nik ez dut **mendratzen**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez da gure usaia pilotarien **mendratzea**. Herria

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Jende ahul, urri edo **mendratuari**, mendeku edo kontsolamendu gisa, gorrotzko edo, hobeki, erdeinuzko sentimendu kosmiko bat gelditzen zaio itsatsia. Iñaki Segurola

**hitza multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**osagarria mendratia** (3)

**osagarria mendratua zuela** (3)

## mendratze *iz gutxitzea, ahultzea.*

Bururatzeko karboneko monoxidoako emaitzek ere **mendratze** bat ezagutu dute. Herria

Libelo horren egilea euskararen mendeetako **mendratzeari** buruz asma ahal zitekeen esaldi itsusiena idaztera iritsi zen, unamuno guztiak ahantzazten eta are maitagarri bihurtzen dizkiguna; eta da honako hauxe: "historiak minimizatze tekla jo zuen". Iñaki Segurola

## mendre **1 iz ahula, txikia.**

Txabusina zarpail baten barnean, emakumea txikia, **mendrea** eta iharra zen, eta ni baino are urduriago ematen zuen. Alberto Ladron Arana

Ez dakizu tipia naizen ala handia, azkarra ala **mendrea**, lodixkoa ala meharrak. Janbattitt Dirassar

Adimenez urri eta bizioz luze, ahul, mengel, **mendrea** eta, finean, ezertarako ere arriskurik sortzen ez zuen zomorroidea. Jon Alonso

Haren beso-zangoak txori batenak bezain **mendreak** ziren. Alberto Ladron Arana

Haren esku **mendrea** urduri mugitu zen nire hatzen artean. denbora luzea eman nuen leihotik palmondo ahul **mendreak** begira, ilargiaren argitan, pentsakor. Alberto Ladron Arana

Bota ezazu zure burua hemendik behera, aingeruak laguntzera etorriko zaizkizunez, ez duzu den perili **mendrea** ere. Jon Alonso

Labana mehe bat aterata, inolako arazorik gabe zabaldu zuen maletaren sarraila **mendrea**. Alberto Ladron Arana

Aldiz Lapurdi iparralde hortan gorakada **mendreak** da, gauzak emeki doatzi oraino. Herria

Horiek dira, besteak beste, sinbolo kaltegarriak, eta ez **mendreak** gainera, hizkuntzaren erabilerako. Pello Salaburu

### 2 den mendren *izlag den gutxien.*

Marik erran zien bezalaxe, Berara heltzeko gainbeherak ez zuen **den mendren** zailtasunik. Elena Touyrou

Hartzat gauza bakar bat abixi zuen oroienean: **den mendren** sentipenik islatzen ez zuen so iluna botatzen zuten begi haiek, urdail ganean pistola pausatzen zion gizonarenak bezalakoak. Elena Touyrou

Hunek **den mendren** arazorik gabe bizitzailak kanpora lezazkela. Herria

### 3 den mendrena (orobat den mendreana g.er.) adlag den gutxiena.

Hilabete sariak **den mendrena** goititzean, ez zen usu gertatzen ordea, familien jateko erosketak beti maila berean geratzen ziren, etxeko apaingarri eta tresnetan baliatzen zela diru gehigarria. Itxaro Borda

Gutienez, gau oso batez lo egitea ardietsi zuen, **den mendrena** ere hartzeko on baita. Eneko Bidegain

Ez nikek nahi hi horietarik edo horien **den-mendrena** alde izaitea. Itxaro Borda

Inoiz ez nion sumatu dardaririk **den mendrena**, ezta duda txikiena ere, bere eskutan utzitako malerusekin. Aingeru Epaltza

Eta harengandik ez genuen erdietsi ahal izan ez elerik, ez imintziorik **den mendrena** ere. Jon Muñoz

Zuhurtasunik **den mendrenak** gehixeago egotea gomendatzen zidan, ordea. Aingeru Epaltza

### 4 den mendreneko (orobat den mendreeneko g.er.) izlag den gutxieneko.

Handik goiti **den mendreneko** ur xorta errefusatzen daukute. Denak xeheki kondatzen ditu, **den mendreneko** gezurrik sakatu gabe. Michel Oronoz

Bizia horrela zela eta ez zuela **den-mendreneko** errurik. Itxaro Borda

Inoiz ez nuen baserriko lanetarako **den mendreneko** interesik agertu, eta bai ordea liburu eta fantasietarako. Xabier Mendiguren Elizegi

Iragana ahalik oneskien duplika dezagun, tradizioari **den mendreneko** ñabardura erorik ekarri gabe. Itxaro Borda

Gisa horretan ez zuen **den mendreneko** poxelurik senditzen artzainak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bainan zer indarrak, zer kemena, **den mendreneko** zerbaiten ardiesteko, ez direlarik alta bertze munduko neurri batzu galdetzen! Herria

### 5 den mendrenik (orobat den mendreenik g.er.) adlag den gutxienik.

Ez ninduan **den-mendrenik** ere kezkatu, badakik, osaba Manezek urteko zingar-azpiak ganerrearan zatxizkalako idortzen. Itxaro Borda

Nire kezkak, ordezka-ezinezko piezaren bat norbaitek ostu ote lezakeen edo, ez du Herbert **den mendrenik** ere ikaratzen. Joxe Austin Arrieta

Baina ez zuen **den mendreenik** ere pentsatu lldo komandokoak hirian zebiltzala. Itxaro Borda

Ez elur-erauntsi gero eta bortitzagoak, ez andre Madalenen ahaide eta lagunen azken esperantzek ez omen dute suaren indarra **den mendrenik** ere apaltzea lortu. Anjel Lertxundi

Sintomatikoa irudi zaigu nola ipar euskal herriko diskurtso politikoa ez den hiru hamarkada hauetan **den-mendrenik** ere kantitu. Berria - Kultura

Eta adi, jendeak, jende arruntak arrazioa ematen dit, egunero ogia erosten duen jende arruntak bizkarra eman dizue, eta jada ez dizue kasurik egiten, **den mendrenik** ere. Jon Alonso

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**den mendreeneko** (3)

**den mendreenik** (3)

**den mendren** (4)

**den mendrena** (18); **den mendrena ere** (5)

**den mendreneko** (27)

**den mendrenik** (15); **den mendrenik ere** (12)

mendregarri ik **mendragarri**.

mendreska ik **mendrezka**.

**mendretasun** iz ahultasuna.

Alkateak ez zuen sinesten Gullon jaunaren **mendretasun** edo utzikeria. Karlos Linazasoro

**mendrexko** izond adkor mendrea.

Batto handixkoa, ipurdi zabal batekin, dena haro eta jestu, bestea ttipittoa eta **mendrexkoa**, beti ixil-ixila zegoena. Janbattitt Dirassar

**mendrezka** (corpusean **mendreska** soilik; ETCn 7 adibide daude, denak **mendrezkarenak**) iz atunaren aurreko eta azpiko zatia.

Haren gidaritzapean, gainera, hiru plater prestatu zituzten: marmitakoa, hegaluze zerrak piperradarekin eta **mendreska** errea. Berria - Euskal Herria

**mendu**<sup>1</sup> iz aiurria, joera.

Samarcandako printzeak Brigida atera zuen dantzara, eta emakumeak, **mendu** onekoa izanik eta printzea ez lotsatzearren, ezker hankatik egin zuen herrenka, dotorezia handiz eta are finezia handiagoz, eta horrela batak eskuin hankatik eta besteak ezkerretik herren eta herren, berehala ondo lotu zitzaizkion elkarri soinez soin eta hankaz hanka. Felipe Juaristi

mendu<sup>2</sup> ik **mentu**.

**mendu**<sup>3</sup>, men, mentzen du ad menderatu.

Loaz **mendurik**, ohera sartu zen; alabaina, kalesa beltzeko neska gogoan, begirik bildu ezinik eta buruko astuna zara-zara zuela egon zen luzaz. Anjel Lertxundi

**meneko** iz mendekoa.

Sediziozko iritzia da **menekoek** bekatu egiten dutela beren printzeei obeditzen dietenean. Esteban Antxustegi

Zein diren gobernu mota bakoitzean herritarren eta **menekoen** betebeharrak. Esteban Antxustegi

Motoak pentsatzen laguntzen dit; goputzari itsasten dio bere indar basatia, eta **meneko** baten eskuzabaltasunaz eskaintzen bere mehatxuzko orroa, bere oreka kilikagarria, eserlekuaren leuntasuna. Pako Aristi

Bere **meneko** nahi izanen zaitu sistemak, bere beharretarat makurtua beti. **Filipe Bidart**

## menekotasun *iz* menekoa denaren nolakotasuna.

Berak ere egiten zuen barre eta jolas, baina etxean egon arren, bazuen halako apartekotasun bat, urruntasun bat, llderi eta beste mutikoei halako **menekotasun** bat, eta aldi berean txeratasun bat eragiten ziena. **Josu Zabaleta**

Sutan jarri ninduen **menekotasun** hark, engelkeria bigun hark, baina ez nien erasorik egin. **Karlos Linazasoro**

Haren paparoan gurutzea dilindatzen zen eta horrek salatzen Erromako Elizarekiko **menekotasuna**. **Aingeru Epaltza**

Nehoren **menekotasun** politikorik gabe ahalaz, idekiagoa eta libroagoa beharko zuela izan gure kasetak, hori agertu zen berehala. **Herria**

Giza eskubideen konkista bikaina erdietsi da horrela: norbanako modernoaren konkista, ordena kosmikoak [...] ezartzen zion **menekotasunetik** libre eta berjabe. **Joxe Azurmendi**

## meneo *iz*

**Meneoa** dantza mota bat izan daiteke... **Harkaitz Cano**

## menera ik **men**<sup>1</sup> 4.

## meneraezin *izond* menderaezina.

Gogor bezain gotor ekin nion lanari, sukar **meneraezin** batek hartua bezala **Joan Mari Irigoien**

## meneragaitz *izond* menderagaitza.

Berak zera uste izan zuen, ni pertsona hain **meneragaitza** ere ez nintzela eta, elkarrekin astebete eman ondoren, berriro dena leheneratuko zela; halaxe uste berak... eta nik orduan barre. **Joxe Austin Arrieta**

## menerakuntza *iz* menderakuntza.

Jakiteko duzu gure nazioak gai hauetan sakontzeko zeuzkan zientzia ugariak denboraren joan-etorrian eta herri barbaroek gure gainean izandako **menerakuntzaren** poderioz galduz joan direla. **Xabier Kintana**

## meneratu, menera(tu), meneratzen 1 du *ad* menderatu.

Badu zortzi egun orai amerikar eta irakiar jarriak zirela nolazpait eskuz-esku Faludja inguruetan altxatuak ziren jazarleen **meneratzeko**. **Herria**

Eta horregatik **meneratu** zituen, hain zuzen ere, Lutherok herritarrak, hauek hura aise **menera** zezaketenean, guztiek bat egin izan balute oraren aurka. **Joan Mari Irigoien**

Nola **meneratuko** dut neure urguilua, neure hutsak ordaintzetik ez bada...? **Joan Mari Irigoien**

Giblean Goñi Illak Imaz **meneratu** du eta aintzinean Mikel Goñi Titineri nausitu oronoztarra. **Herria**

Egon beharko dute plazako azken bi hauk, garaztarrek **meneratu** baitituzte trinketean finala laurden hauetan. **Herria**

Produktuak hartzen du indarra eta erabiltzaileak bere apetaren arabera **meneratzen** du. **Ana Urkiza**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Era berean, giza gorputzean, alde batetik, atal meneratzaileak eta, bestetik, atal **meneratuak** diren bezala- [...]. **Xabier Kintana**

Bihotza daukaten animalia guztiengan, hura erdian aurkitzen da, eta atal **meneratu** guztiek bera inguratzen dute. **Xabier Kintana**

## meneratzaile *izond* menderatzailea.

Badira, halaber, unibertsoaren osotasunean zati **meneratzaileak** ere, oro inguratzen duen "bosgarren gorputza" bezala, eta gidari baten premia duten beste zati meneratu batzuk, hots, elementuak eta hauek osaturikoak. **Xabier Kintana**

Era berean, unibertsoan bada zerbait osotasuna gobernatzen eta atal **meneratzailea** mugiarazten duena. **Xabier Kintana**

## menestra 1 *iz* hainbat barazki nahasten diren janari saldarik gabea, askotan urdaiazpiko edo haragi zatiak dauzkana.

Aitortu behar izan nion lehen aldiz ikusten nituela **menestran** baino ezagutzen ez nituen landare asko. **Ramon Saizarbitoria**

Bazen non zer hauta: **menestra** edo arroza lehenbizikoz, albondigak edo xerra errusiarrak bigarrenez. **Aingeru Epaltza**

## 2 (hitz elkartuetan)

Gogoratzen dut zelako arkume **menestra** pasa genion Gabonetan! Barazki **menestra** ekarriz hurbildu zitzaizanean, [...]. **Jokin Urain**

## mengel 1 *izond* ahula, erkina, sendotasunik gabea.

Sarri ikusi izan ditut, eta ondo ezagutzen ditut bistaz: emakume txiki eta **mengela**, hazpegi finekoa, eta gizon meharra, betaurrekoduna eta zenbait hagin falta duena. **Urtzi Urrutikoetxea**

Euren gorputz **mengelak** adar artean babesten zituzten, haize eta euri erauntsiek ezkutatzera behartzen zituztenean. **Xabier Amuriza**

Begi itxiak zituen animalia **mengel** hura ikustean larritu egin nintzen eta berehala astinduka hasi nintzaion, laster indarrak berreskuratu, eta begiak zabalduko zituelakoan. **Patxi Zubizarreta**

12etan zegoela esan ohi zidan, erlojuaren orratzak irudikatuz, zakila tente eta alegera zuela alegia; eta noizbait 6.30etan zegoela esanez gero, nik beheraka eta **mengel** zegoela ulertzen nuen. **Patxi Zubizarreta**

Haren higieztasuna gauza ederra da larritasunak ihi **mengelaren** gisa astintzen duen gure existentziaren aldean. **Pako Aristi**

## 2 irud/hed

Espetxeko nire gelan bazen bonbila **mengel** bakar bat, zeinak pizturik irauten baitzuen gaez ere; ozta-ozta zen aski irakurtzeko. **Juan Garzia**

Kandela horixken argi **mengelaren** azpian. **Berria - Kultura**

Eguraldi epel- **mengel** ahul eta ustela.  Pello Zabala  
Lauriek, indar **mengel** eta ikaratu guztiak bildu, eta goitik behera harramazkatu zion arpegia, zenbait orbain lizun utziz.  Berría - Kultura  
Astiro-astiro hitz egiten du, hitz bakoitza eta tonua eta keinuak ondo neurtuz: ez dit minik egin nahi, baina ez da konturatzen hizketarako modu **mengel** horixe egiten zaidala eramangaitzena.  Anjel Lertxundi  
Ez dezagun ahaztu erlijio **mengel** hori zela gure tiranoek eskuetan zuten armarik onena.  Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
Bidailagunen ustetan, hura josteta **mengelegia** zen.  Patxi Zubizarreta  
Nik ez diot ezer sinesten, holakoetan hitz aspertua oherako bidea zabaldu arteko denbora pasa **mengela** izaten baita askotan.  Pako Aristi  
Erreforma **mengel** bat baino ez da.  Berría - Harian  
Has gaitezen lotsa aztertzen, sentimenean eta joera lizunen aurkako mugimendu **mengel** hori.  Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
Eta beldurra diodanean, bere muinean ikararen sustantzia daraman horri buruz ari naiz, eta ez inguruan dabilzan antzeko sentimendu **mengelagoei** buruz, alegia, azterketa egiteko kezka, maitasuna agertzeko lotsa, puenting egiteko errespetua, seme nerabearen desobedientziaren nahigabea etab.  Pako Aristi  
Parlamentuan koipekerietan urtzen ziren bere jarraitzaile **mengeletatik** kanpo denak zituen aurka Oliver Cromwelek.  J.M. Olaizola "Txiliku"

### 3 (adizlagun gisa)

Handik pixka batera entzun nuen iristen, eta neure buruarekin haserretu nintzen, horren **mengel** eta belaxka jokatzegatik.  Xabier Mendiguren Elizegi

## mengeldu, mengel(du), mengeltzen du/ad *ad* ahuldu, erkindu, sendotasuna galdu edo kendu.

Larritu nintzen, puskatu nintzen, **mengeldu** nintzen.  Karlos Linazasoro

## mengelkeria *iz* mengelari dagokion egintza gaitzesgarria.

Sutan jarri ninduen menekotasun hark, **mengelkeria** bigun hark, baina ez nien erasorik egin.  Karlos Linazasoro

## mengoa *iz* beharra; gabezia.

Zer behar eta zer **mengoa** nuen nik, joko haren jokatzeko eta joko hartan sartzeko?  Joan Mari Irigoien

Batarzünaren **mengoa**.  Herria

## menhir *iz* oroitarri megalitikoak, lurreen finkaturik dagoen harri handi luze batek osatua.

Adituen interpretazioaren arabera, **menhirra** altxatu eta berehala eroriko zen.  Berría - Kultura

Bost mila urtetik gorako **menhir** estatua antropomorfo bat aurkitu dute Canovelles herrian (Bartzelona), indusketa arkeologiko batzuen ondorioz.  Berría - Kultura

Xavier Peñalverrek 1982an egin zuen Euskal Herriko **menhirren** katalogoan, zerrendatuta dago.  Berría - Kultura

Goren-gorenean, aurrez aurre, bi harritarz erraldoi, bata zutik, bestea belarretan etzana, **menhir** bat eta dolmen bat, senar-emazte harrigarriak bailiran.  Josu Zabaleta

## menia 1 *iz* su-etena; borroka-etena.

Hamaseko politburoko buru Khaled Mashaalek «su-eten luzea» eskaini dio Israelgo Gobernuari, eta **menia** horren baldintzak Tel Avivekin negoziatzeko prest dago.  Berría - Mundua

*De Tregua et Pace*, **Meniaz** eta bakeaz, Frantziako Xarles IX.ak, hitzartu zuen hitzarmenez, Doktor Nafarrak eman iritzia dugu hautatu.  Piarres Xarriton

Zaldunen arteko **meniak** sakratuak dira.  Martin Anso

Azken hiru urteotan ez da biktimarik izan, eta hori **menia** faktikoa da berez, baina behin betiko su-etena behar da bake prozesu bat ireki dadin.  Berría - Euskal Herria

Kurdistango askapen mugimendua ia sei urtez eutsi dio alde bakarreko **meniarri**.  Berría - Mundua

### 2 irud/hed

Aldi batez, paseoan eta solasean ibili ziren, eta bakeak eta atsedanak ekarrirako **meniaz** gozatu zuten, eguzkiaren argitan, hiriaren goiko ibilbide haizetsuetan.  Agustin Otsoa

Plazer hartu nuen ez ustezko **menia** edo tregua uinea eskaintzen zidan lagunaren ahotsaren doinu ezitia hautematean.  Itxaro Borda

Handik edo hemendik azal zekizkiokkeen arerio posible eta etsai ikusezinen aurkako borroka **meniarrik** gabean.  Xabier Mendiguren Elizegi

Bukatu da denboragabetasunaren **menia** eta aurki beteko dira pisu guztiak auzotarrez.  Xabier Mendiguren Elizegi

### 3 (aditzekin)

Turkiarekiko **menia** hautsi izana ez da gerra deklarazioa; erreakzioa da.  Berría - Mundua

**Menia** eteteko eta borroka armatuari berriz ekiteko.  Berría - Mundua

Leher eginak, gose hamikatuak, hor jakin ginuen **menia** izenpetu zutela Frantziak eta Alemaniak.  Michel Oronoz

Aspaldi daukat **menia** izenpetua portugaldarren erregearekin.  Jon Alonso

Martxoaren 12ko bozak direla-eta, behin-behineko **menia** eskaini du ELNk.  Berría - Mundua

Talde armatuari **menia** emateko eskatu dio.  Berría - Euskal Herria

ETAren su-etena baino garrantzitsuagoa da **menia** lortzeko alderdi politikoek nola egiten duten lan.  Berría - Euskal Herria

Kurdistango Langileen Alderdiak 1998. urtean iragarri zuen **menia**.  Berría - Mundua

Apiriletik irailera arteko **menia** ezarri dute beraz indarrean.  Berría - Kirola

Hamas eta Jihad erakundeek ez dute **menia** onartzen presoak askatzen ez dituzten bitartean.  Berría - Harian

**Menia** hark iraun zuen aldian.  Txema Ramirez de la Piscina

Enpresari emandako **menia** bertan behera utzi eta mobilizazioei berritoki ekitea erabaki dute sindikatuek.  Berría - Ekonomia

Azken lau urteotan egiaztatu ahal izan dugu **menia** errespetatu izan denean herritarren bizi-baldintzak hobera egin duela.  Berría - Mundua

Aitareen grinak egoera gaiztotu baino ez zuen egin eta, denboraren poderioz, elkarren etsai bilakatu ziren, noiz gerran, noiz **menian** zeudenak.  Patxi Zubizarreta

### 4 *pl*

Gure Afonso Henriquesekin itunduta zeuzkan **meniak** ez haustearen amoreagatik [...].  Jon Alonso

### 5 (hitz elkartuetan)

**Menia** iragarpenaren ondoren.  Berría - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**menia** aldarrikatu (4); **menia** eman (6); **menia** emateko (3); **menia** haustea (4); **menia** hautsi (5); **menia** iragarri (4); **menia** izenpetua (3); **menia** sinatu (3)

# meninge

*iz* garuna eta bizkar muina biltzen dituen mintza.

Nerbio sistemako, garuneko eta bizkarrezur muineko egiturak **meninge** izeneko zuntz batzuekin daude estalita.

[Berria - Euskal Herria](#)

Arrailadura horretatik orno-muina eta **meningeak** irten daitezke eta larruazalaren azpian tumorea sortu, normalean bizkarraren behealdean.

[Berria - Gaiak](#)

# meningioma

*iz* garuneko tumorea, eskuarki onbera.

Kirurgian, tumorra onairea gertatu zen, **meningioma** bat... [Xabier Olarra](#)

## meningita ik meningitis.

# meningitis

(*orobat meningita g.er.*) **1** *iz*

**Meningitisa**, funtsean, nerbio sisteman dauden defentsen galera da. [Berria - Euskal Herria](#)

**Meningitisa** omen, hala esan zioten amari ospitalean. [Mirentxu Larrañaga](#)

**Meningitisak** jota ospitalera eraman zuten, koma egoeran. [Berria - Kirola](#)

**Meningitis** tuberkulosoia izan zuen, bizpahiru eguneko prodromo aldiarekin, eta gero sukar handi bat, haurrari konortea galarazi ziona. [Josu Zabaleta](#)

**Meningitis** kriptokozikoa milioi bat pertsonako bostek izan ohi dute Sendabide berriren bat aurkitu omen dute han, bizkarrezurreko **meningitisaren** aurka. [Berria - Euskal Herria](#)

Txertorik ohikoena **meningitisaren** kontrakoa eta sukar horiaren aurkakoa izaten dira. [Berria - Harian](#)

Birusak eta bakterioak dira **meningitisaren** eragileak.C **meningitisaren** txertoa jarriko die Jaurlaritzak 180.000 gazteri. [Berria - Euskal Herria](#)

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hiru **meningitis** kasu atzeman dituzte Abanto Zierbenako ikastolan. [Berria - Euskal Herria](#)

C motako **meningitis** kasuek gora egin dute. [Berria - Euskal Herria](#)

Dela birusek sortua, dela bakterioek sortua, **meningitis** motak askotarikoak dira. [Berria - Euskal Herria](#)

Osakidetzako arduradunen arabera, ustezko **meningitis** agerraldia «kontrolpean» dute. [Berria - Euskal Herria](#)

## 3 meningokoziko meningitis

Kasurik gehienetan horrelakorik gertatzen ez bada ere, konortea galtzea, ezinegona, lepoa mugitzeko zailtasunak, jateko gogorik eza eta suminkortasuna ere izan ohi dituzte **meningokoziko meningitisarekin** gaixotuta daudenek. [Berria - Euskal Herria](#)

Nafarroako bost urteko haurrari erasan dion B motako **meningokoziko meningitisari** aurre egiteko txertorik ez da asmatu oraingoz. [Berria - Euskal Herria](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

c motako meningitis (3); eragindako meningitis (4); meningitis kasu (3); meningitis kasuek (4); meningitis kasurik (3); meningitis mota (4)

meningitisak jota (6)

c motako meningitisaren (4); meningitisaren aurkako txertoa (3)

meningitisari aurre egiteko (3)

# meningoentzefalitis

*iz*

Hiru urte zituela, hiru gaixotasun larrik jo zuten batera: meningitis edo **meningoentzefalitis** (garunaren eta garun-mintzen handitzea); polioa, eta katu-harramazka batek eragindako sukarra. [Xabier Olarra](#)

# meningokoko

*iz*

Helduen artean ez bezala, normalean haurrengan izaten den meningitisa **meningokoko** bakterioak eragiten du. [Berria - Euskal Herria](#)

# meningokoziko 1

*iz* meningokoziko meningitisa.

B motako **meningokozikoak** eragin zuen 5 urteko haurren heriotza. [Berria - Euskal Herria](#)

## 2 meningokoziko meningitis

bakteria-jatorriko meningitisa.

Kasurik gehienetan horrelakorik gertatzen ez bada ere, konortea galtzea, ezinegona, lepoa mugitzeko zailtasunak, jateko gogorik eza eta suminkortasuna ere izan ohi dituzte **meningokoziko meningitisarekin** gaixotuta daudenek. [Berria - Euskal Herria](#)

Nafarroako bost urteko haurrari erasan dion B motako **meningokoziko meningitisari** aurre egiteko txertorik ez da asmatu oraingoz. [Berria - Euskal Herria](#)

Tafallako haurra erasan duen **meningokoziko meningitisaren** kasuan, gainera, orbain gorririk, sukar handia, hotzikarak, fotofobia eta buruko mina ohikoak izaten dira. [Berria - Euskal Herria](#)

# menisko 1

*iz* hezur giltzaduraz kartilagoa.

Txerpolariarenak eta bi egin beharra dago ohearen eta hormaren arteko pasillo txikitik pasatzeko [...] belauak behartu beharraren behartu beharrez **meniskoak** txikitu gabe komunean esertzeko... [Anjel Lertxundi](#)

**Meniskoa**, bernahezurra eta peronea hautsita neuzkan, eta aldakan ere ebakuntza bat egin zidaten. [Berria - Kirola](#)

Ezker belauneko **meniskoa** minduta duela. [Berria - Kirola](#)

**Meniskoan** pitzadura bat du. [Berria - Kirola](#)

**Meniskoan** haustura izateaz gain, aurrealdeko lotailu gurutzatuan beste haustura bat du. [Berria - Kirola](#)

Vladica Stojanovic Bidasoako erdiko serbiarriari ebakuntza egingo diote bihar ezker belauneko **meniskoan**, [Berria - Kirola](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

Talde zuri-gorriko medikuek jakinarazi zuten, Miguel Escalona atezainari artroskopia egingo diotela, hilaren 10ean, eskuin belauneko kanpo-**meniskoan**. [Berria - Kirola](#)

Ezker belaunaren aurreko aldeko lotailu gurutzatua eta barne **meniskoa** ditu apurtuta triada famatua. [Berria - Kirola](#)

# menopausia 1

*iz* menstruazioa berez amaitzea.



**-Menopausia**, hau ikargarain da- nagusiaren andrea dardarka hasi eta eltzea erori zitzaion. Fernando Rey

Pubertarotik **menopausia** izan arte. Luis Elberdin

**Menopausia** iristen denean, kanpoko aldaketek eragin handiagoa dute obarioen funtzionamenduan. Berria - Gaiak

**Menopausiak** emakumearen obulaziorako gaitasuna murrizten du. Berria - Gaiak

Antisorgailuak lagata, ia-ia **menopausiaren** kontrako partxeak bilatzen hasteko bidean zegoen emakumea nintzen. Jasone Osoro

**Menopausia** goiztiarra dutenek ugalkortasuna berreskuratzeko teknika. Berria - Gaiak

**Menopausian** den emakumeak hormona bidezko edo bestelako tratamenduak jasotzeko eskubidea daukala aldarrikatuko dute. Berria - Euskal Herria

## 2 (hitz elkartuetan)

**Menopausia** garaiko hormona tratamenduaren iraupena mugatzea gomendatu dute. Berria - Gaiak

## menor ik minor.

## menorcar *izlag/iz* Menorcakoa, Menorcari dagokiona; Menorcako biztanlea.

Valentziar batzuek euren hizkuntza berezia dela diote, eta gauza bera uste dute mallorcar, **menorcar** eta eivissar zenbaitek. Koldo Zuazo

## menostu, menos, menosten 1 du *ad* gutxietsi.

Garaipena lortu arterainoko greba urrun dago oraindik baina ez ditugu hargatik **menostuko** garaipen partzialak. Berria - Kultura

Kanpokoak, demokrazia edertzen duten herritar goratsu horiek, **menostuko** omen genituzke horrela jokatu. Anjel Lertxundi

Maiz, metropoliaren hizkuntzan ez mintzatzea izan da periferikoa **menostearen** arazo nagusia. Iñigo Aranbarri

Literatur itzulpenak **menosten** dituen baina euskara itzulpen tekniko eta burokratikoaren pean itotzeko senperak eta bi egiten ari den hizkuntzaren teknokrata bati. Anjel Lertxundi

## 2 (era burutua izenondo gisa)

**Menostu** baten inbidiarekin, alegia. Anjel Lertxundi

## menpe 1 *adlag* mende.

Gauza bera gertatzen da belarriarekin: zarata batek **menpe** hartzen badu, eragotzirik dago beste soinu bat entzuteko. Joan Mari Lekuona

Aberria **menpe** zutenen hizkuntza berean. Xabier Montoia

Esaten duenean kontsideratzen duela **menpe** dagoela, uler bedi gurutzatuen **menpe**. Jon Alonso

Abxazeko errege ez da Khan Handiaren **menpe**, Georgiakoa den bezala. Aurelia Arkotxa

Estatu batek bere **menpe** dauzkan herri xumeen artean diskriminaziorik edo bereizkuntzarik egin baleza [...] orduan sor litezke arazoak. Piarres Xarriton

Frantziako Eliza, Estatu-Nazioaren **menpe** ezartzen zuen legeria berriak. Piarres Xarriton

Zutik jartzera eragin zion berriro, baina bera gaitzaren **menpe** sentituz, ez zen altxatzen. Askoren artean

Orduan hiritarra ez dago jende askoren tirania txikien **menpe**. Juan Martin Elexpuru

Lau lagun atera ziren, bi bikote algara bizian, afalosteko euforiaren **menpe**. Migel Angel Mintegi

Berriro pinudiak mistralaren **menpe**. Joxe Austin Arrieta

Denak kanpora erori zituan, olatuen **menpe**. Juan Kruz Igerabide

## 2 *mendean*

Hor baietsi dudala Errege Katolikoek zuzenki atxikitzen dutela **menpean** Nafarroa. Piarres Xarriton

## 3 *-en menpean* -en mendean.

Ez da harritzekoa hori gertatzea Euskal Herriko unibertsitateak bi estatu diferentetan banatzen direnez, eta hiru administrazio diferenterean **menpean** direnez. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Guztiak moral beraren **menpean** daude. Piarres Xarriton

Laster konturatu zen lotia bere **menpean** zegoela. Julen Gabiria

Izan ere, gauza guztiak haren **menpean** jarri ditu Jainkoak. Elizen arteko biblia

Baina ni ez naiz berriro gizon baten **menpean** jarriko... Lopez de Arana

Kako-okerrek nahikoa eta sobera zekien eta, orain, azkenean, ziur zegoen Peter bere **menpean** hartuko zuela. jendea natura gogorraren eta tradizio historiko beltzen **menpean** biziz, ilun, naturaltasun argiaren alaitasun gabe eta modernitate salbagarri gabe orobat. Julen Gabiria

Ikasketez psikologoa nauk eta bazakiat zer den zirrara baten **menpean** lan egin beharra. Aingeru Epaltza

Faxismo kontrajarrien **menpean** bihurtzen den herri honetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Duela gutxi hain adoretu hautsi duen uztaariaren **menpean**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 4 *-en menpeko* -en mendeko. ik **menpeko**.

Ibaiaz mendebaldeko errege guztiak haren **menpeko** ziren, eta bakean bizi zen inguruetako lurralde guztietakoekin. Elizen arteko biblia

Bere **menpeko** jende guzia bildu, gaztelauak ez erasotzeko agindua eman, eta ihes egin omen zuen berak, ordura arte bere alde aritua zen herria iduritu gaiztoak hartua utzirik. Patziku Perurena

Hirira itzuli zen urtebete lehenago, Estatu mailako kate handi baten **menpeko** irrati batera. Aingeru Epaltza

Drogaren **menpeko** balitz bezala sentitzen zen, eta, xehetasunak xehetasun, horixe zen. Fernando Morillo

Elizgizonak erregearen **menpeko** direla, besteak bezala. Juan Martin Elexpuru

Alemania zuzen batez, inguruero herrien **menpeko** izanen ez zen Alemania indartsu batez... Alberto Ladron Arana

"Gure arbaso baserriarren frantseseta" eta Nazio Handiaren **menpeko** zerbitzari isil eta umil egitea. Piarres Xarriton

Gure zoritxarra ez dela hainbeste inoren **menpeko** izan beharra, baizik eta frantsesen eta espainiarren kastakoak izatea gure menperatzaile horiek. Hasier Etxeberria

Unibertsitate baten **menpekoak** dira institutu gehienak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

- Maiz **menpeko** klasekoen lepotik bizi dira. Gotzon Garate

Testua arina izateko, ez da komeni **menpeko** esaldi luzeak egitea. Iñigo Aranbarri

Ondasunak feudalak eta ez feudalak, **menpekoak** eta askeak ziren. Andres Urrutia

"Beste sorgin horrek **menpeko** edukiko ez balu", damu doinuz adierazi zuen koadrilako batek. Josu Landa

## 5 *-en menpera* -en mendera.

Logurak baditu bere legeak, grabitateak bezala, eta luze gabe bere **menpera** ekarriko ditu egoskorrenak ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zaitez kikhildu zentzugabearen aurrean, ez makurtu ahaltsuaren **menpera**. Elizen arteko biblia

Gero ere Jesu Kristo ez zuen neholaqotere labore laiko ezarri, jende guztiak zuzenaren haren **menpera** biltzeko. **Piarras Xarriton**  
Sufrantza hori baliatzen duten askatzaileren teoria eta ideologiaren sareen **menpera** lerratu gabe. **Itxaro Borda**

## 6 -en **menpetik** -en mendetik.

1776ko uztailaren 4an Britainia Handiaren **menpetik** askatu eta hasierako 13 estatuek Konstituzioa sinatu zuten. **Berria - Mundua**

Zuen alde borrokatu zen gure aita, bere bizia arriskatuz, eta madiandarren **menpetik** libratu zintuzten. **Elizen arteko biblia**

Bere haragizko aitaren **menpetik** askapena lortu ondoren, Frantzisko dohatsuak lehenik hasi zuen lana Jainkoari etxea eraikitzea izan zen. **Askoren artean**

Peterrek gerriondoa ukabilaz jo zion, bere zoritxarraren zurunbilorearen **menpetik** erauz zedila erregutzeko. **Itxaro Borda**

## 7 **menpean eduki** mendean eduki.

Hizketan hutsik egiten ez duena bete-beteko pertsona da, bere izate osoa **menpean edukitze**ko gauza dena. **Elizen arteko biblia**

Ez naiz horren beldur, ez; aita limurtu dut..., **menpean daukat**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Lehendik ere **menpean nindukan** moteltasun horixe. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Geu eta geure abereak **menpean gauzkate** beren gogara. **Elizen arteko biblia**

## 8 **menpean hartu** mendean hartu.

Ez dago Iraketik ateraterik matxinada saboteatzailea **menpean hartu** arte. **Berria - Mundua**

Moabdarrek eraso eta bere **menpean hartu** zituen, zergapeko eginez. **Elizen arteko biblia**

Haien emazte eta haurrak gatibu eraman zituzten, ondasunak ostu eta herrialdea **menpean hartu** zuten. **Elizen arteko biblia**

Neuk inor **menpean hartzerik** bilatu ez banuen ere, zeuk ematen zenidan zeure burua opari, piztia otzandu baten gisan, nahieran joka nezan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Olympiakos **menpean hartuz** gero Lauko Finalerako borroka CSKA eta Tauren artekoa litzateke. **Berria - Kirola**

Ez zen gai gorbata bat **menpean hartzeko**. **Julen Gabiria**

Izuak **menpean hartua** zuen. **Fernando Rey**

## 9 **menpean jarri** mendean jarri.

Indarrez jantzi ninduzan gudurako, **menpean jarri** zenizkidan arerioak. **Elizen arteko biblia**

Jainkoak gauza guztiak **menpean** jarriko dizkionean, Semea bera **menpean** jarriko zaio gauza guztiak **menpean** jarri zizkionari, eta Jainkoa guztietan guztia izango da.

**Elizen arteko biblia**

Nork eskuratzen dizkio nazioak eta **menpean jartzen** erregeak? **Elizen arteko biblia**

Halaz guztiz ere, ez poztu espirituak **menpean jartzen** zaizkizuelako. **Elizen arteko biblia**

## 10 **menpean izan** du *ad* mendean izan.

Jainkoaren eskuinaldean dago eta **menpean ditu** aingeru, aginte eta indarrak. **Elizen arteko biblia**

Nabarrenkoxeren jabe izan gabe inork ez zuen erraten ahalgo Nafarroako erresuma **menpean zuenik**. **Aingeru Epaltza**

Neuk ere, menpekoa izanagatik, soldaduak **ditut menpean**. **Elizen arteko biblia**

Gaitza **menpean duela** esan du Vietnamek, baina FAOk ez du sinetsi. **Berria - Gaiak**

Leiho hark, hain garaia, ondoko etxeak **menpean zituenak**, gozamen mugagabeak ematen zizkion. **Karlos Zabala**

### **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adimenaren menpe sar** (4); **agintariaren menpe** (3); **aurkariaren menpe** (3); **babiloniako erregearen menpe** (5); **belgraden menpe** (3); **beraien menpe** (3); **bere menpe** (40); **bere menpe dagoen** (4); **bere menpe dauden** (3); **beren menpe** (3); **besteen menpe** (5); **borondatearen menpe** (10); **britainiarren menpe** (3); **deabruaren menpe** (7); **drogaren menpe** (4); **drogen menpe** (3); **emaitzen menpe** (8); **emakumea gizonaren menpe** (3); **erabaki politikoaren menpe** (3); **erabakiaren menpe** (8); **erregearen menpe** (6); **erresuma batuaren menpe** (10); **errusiako inperioaren menpe** (3); **errusiarren menpe** (3); **espainiarren menpe** (13); **espainiarren menpe dagoen** (3); **estatu batuen menpe** (3); **estatuaren menpe** (6); **etaren menpe** (9); **etsaien menpe** (7); **federazioen menpe** (3); **frantziaren menpe** (6); **gizonaren menpe** (4); **gobernuaren menpe** (7); **gure menpe** (3); **guztien menpe** (5); **haien menpe** (8); **haizearen menpe** (3); **indiaren menpe** (5); **inoren menpe** (8); **inperioaren menpe** (5); **inperioaren menpe geratu** (3); **interesaren menpe** (8); **israelen menpe** (4); **laguntzen menpe** (3); **lasaigarrien menpe** (3); **legearen menpe** (7); **legeen menpe** (7); **londresen menpe** (3); **madriilen menpe** (3); **marokoren menpe** (7)

**menpe baitago** (6); **menpe bizi** (29); **menpe bizi den** (3); **menpe bizi dira** (3); **menpe bizi izan** (3); **menpe dago** (44); **menpe dagoela** (21); **menpe dagoelako** (6); **menpe dagoen** (40); **menpe dagoena** (3); **menpe daude** (23); **menpe daudela** (11); **menpe dauden** (18); **menpe diren** (4); **menpe eduki** (3); **menpe egin** (4); **menpe egon** (46); **menpe egona** (3); **menpe egondakoa** (3); **menpe egongo** (19); **menpe egongo da** (10); **menpe egotea** (14); **menpe egoteari** (3); **menpe egoteari utzi** (3); **menpe egoteko** (3); **menpe egotera** (3); **menpe eroriko** (4); **menpe gaude** (6); **menpe geldituko** (6); **menpe gelditzen** (3); **menpe geratu** (13); **menpe geratzen** (4); **menpe harteko** (3); **menpe hartzen** (4); **menpe izan** (4); **menpe izanen** (4); **menpe izatea** (4); **menpe jarraitzea** (6); **menpe jarri** (21); **menpe jarriko** (5); **menpe jartzea** (5); **menpe jartzeko** (3); **menpe jartzen** (12); **menpe nago** (3); **menpe sar** (4); **menpe utzi** (21); **menpe uzten** (7); **menpe zegoela** (6); **menpe zegoen** (23); **menpe zeuden** (13)

**ministerioaren menpe** (4); **ministerioaren menpe dagoen** (4); **mistralarren menpe** (4); **mugagabeko adimenaren menpe** (3); **multinazionalen menpe** (3); **neure menpe** (4); **nor baiten menpe** (3); **okupazioaren menpe** (3); **olatuaren menpe** (5); **petrolioaren menpe** (5); **pinudiak mistralarren menpe** (4); **politikoaren menpe** (8); **politikoaren menpe egon** (3); **sare baten menpe** (3); **serbiaren menpe** (4); **taldearen menpe** (3); **zakarraren menpe** (4); **zeure menpe** (3); **zuen menpe** (4); **zure menpe** (3)

**alaves menpean** (4); **arrazoimenaren menpean** (3); **baldintza formalen menpean** (3); **baldintzaren menpean** (5); **baldintzen menpean** (4); **batasunaren menpean** (3); **bekatuaren menpean** (3); **bere menpean** (26); **bere menpean dagoen** (3); **beren menpean** (3); **beste baten menpean** (3); **buruzagiak menpean hartzen** (3); **enpirikoaren menpean** (3); **erregelen menpean** (4); **frantziaren menpean** (3); **gauza guztiak menpean** (3); **grinen menpean** (3); **guztiak menpean** (4); **hartu zuen menpean** (9); **herriak menpean** (5); **herriak menpean jarri** (3); **herrietako buruzagiak menpean** (3); **kategorien menpean** (5); **lege moralen menpean** (3); **legearen menpean** (3); **legeen menpean** (4)

**menpean bizi** (11); **menpean dago** (19); **menpean dagoela** (7); **menpean dagoen** (23); **menpean dagoenaren** (3); **menpean dagoenez** (5); **menpean daude** (5); **menpean daudela** (6); **menpean dauden** (7); **menpean eduki** (3); **menpean egon** (19); **menpean egon behar** (9); **menpean egotea** (4); **menpean har** (5); **menpean hartu** (55); **menpean hartu ondoren** (7); **menpean hartu zuten** (3); **menpean hartuko** (4); **menpean hartuta** (6); **menpean hartutako** (3); **menpean hartuz** (11); **menpean hartuz gero** (3); **menpean hartzea** (10); **menpean hartzeko** (24); **menpean hartzen** (22); **menpean hartzen dituzte** (5); **menpean izan** (5); **menpean jarri** (19); **menpean jarriko** (7); **menpean jartzen** (10); **menpean zeuden** (3); **menpean zituen** (4)

**moralen menpean** (3); **taldea menpean** (3)

**aeben menpeko** (7); **agintariaren menpeko** (5); **alkoholaren menpeko** (4); **ankararen menpeko** (3); **asuero erregearen menpeko** (3); **babiloniako erregearen menpeko** (4); **barne ministerioaren menpeko** (4); **beraren menpeko** (3); **bere menpeko** (23); **bere menpeko lurralde** (3); **beren menpeko** (4); **beren senarren menpeko** (3); **daude isralen menpeko** (3); **dauiden menpeko** (4); **elkarren menpeko** (5); **erakundearen menpeko** (6); **erregearen menpeko** (15); **erresuma batuaren menpeko** (5); **espainiarren menpeko** (11); **espainiaren menpeko zati** (3); **estatu batuaren menpeko** (3); **estatuaren menpeko** (3); **estatuaren menpeko** (3); **etaren menpeko** (3); **francoren menpeko** (3); **frantziaren menpeko** (5); **gobernuaren menpeko** (3); **grinen menpeko** (3); **guztien menpeko** (4); **haren menpeko hiriak** (3); **indiaren menpeko** (10); **iraken menpeko** (24); **iraken menpeko kurdistanen** (16); **iraken menpeko kurdistango** (4); **israelen menpeko** (5); **jaurlaritzaren menpeko** (4); **kongresuaren menpeko** (3); **kontseiluaren menpeko** (3); **legearen menpeko** (5); **marokoren menpeko** (3)

**menpeko bihurtu** (3); **menpeko bihurtzen** (4); **menpeko da** (4); **menpeko dela** (4); **menpeko direla** (4); **menpeko diren** (4); **menpeko egin** (6); **menpeko egiten** (3); **menpeko erakunde** (3); **menpeko erakundea** (4); **menpeko eremuan** (3); **menpeko esaldi** (3); **menpeko espetxetean** (3); **menpeko eta zergapeko** (3); **menpeko finantza** (6); **menpeko finantza ekarpenak** (4); **menpeko herrialdeetan** (3); **menpeko hiriak** (4); **menpeko irlandako** (3); **menpeko izan** (15); **menpeko izanen** (3); **menpeko izatea** (6); **menpeko izatera** (3); **menpeko kartzeletan** (3); **menpeko kurdistanen** (40); **menpeko kurdistango** (9); **menpeko lurralde** (4); **menpeko lurraldean** (3); **menpeko lurraldeetan** (4); **menpeko zati bat** (3)

**ministerioaren menpeko** (6); **moskuren menpeko** (5); **nagusien menpeko** (3); **senarren menpeko** (6); **siriaren menpeko** (6); **siriaren menpeko kurdistanen** (3); **turkiaren menpeko** (27); **turkiaren menpeko kurdistanen** (18); **turkiaren menpeko kurdistango** (4); **turkiarren menpeko** (3); **zure menpeko** (4)

**etsaien menpetik** (7); **filistearren menpetik** (3); **madiandarren menpetik** (3); **menpetik askatu** (6); **menpetik libratu** (3)

## **menpegabe** *izond* askea, lokabea, mendekotasunik gabea.

Berriro ekin beharra dago borrokari, aske eta berjabe, **menpegabe** izateko. **Joxe Azurmendi**

Zientziaren askatasun akademikoak eskatzen du balioespen etiko edo erlijiosoetatik **menpegabea** izatea. **Joxe Azurmendi**

Platonen aurka, arrazoimena historiarekiko **menpegabea** suposatzen zuen razionalismo modernoaren aurka orobat. **Joxe Azurmendi**

## menpegaberi *adlag* mendekotasunik gabe.

*Volksgeistaren* presentzia letra espainoletan ez da [...] inork artaz arakatu izan duen gaia, baina "jeinu", "izpiritu" edo "arima espainola" kontzeptuak, eta berdin arraza, Menéndez Pidal baino lehenagotik, eta "erromantiko" alemanen influentziatik erabat **menpegabeki** (zuzenekoa bederen), irakurleak maizegi topatu behar izaten dituenak dira. **Joxe Azurmendi**

## menpegabetasun *iz* askatasuna, lokabetasuna.

Ohargarriki, lehenbiziko arrazoia herri arimaren inguru geografikotik **menpegabetasunaren** alde, itxaropenaren arrazoia da hemen ere: herriaren arima inguruaren produktua baldin bada, espainolei ez zaie toki handirik gelditzen itxaropenerako. **Joxe Azurmendi**

## menpegabetu, menpegabe(tu), menpegabetzen da/du *ad* askatu, lokabe bihurtu.

Gainbehera horretatik buelta hartu nahi badu, **menpegabetu** eta askatu egin nahi badu Euskal Herriak eta berjabetu, printzipioak eta otoitzak baino, ekintzak beharko ditu. **Joxe Azurmendi**

## menpeko *iz* mendekoa. ik **menpe 4**.

Lantokietan, esaterako, nagusiak eta **menpekoak** daude. **Joxerra Garzia**

Horrela da eta horrela izanena da ahaltuak eta ahulak, agintariak eta **menpekoak**, dirudunak eta dirugabeak, gizonak eta emakumeak diren artean. **Aingeru Epaltza**

Eta halaxe bihurtzen dira nagusia jauntxo, eta **menpekoa** esklabo. **Joxerra Garzia**

Zergatik, bada, morroia aukeratu nagusia utziz, eta **menpekoa** printzea utziz? **Ramuntxo Etxeberri**

Neuk ere, **menpekoa** izanagatik, soldaduak ditut menpean. **Elizen arteko biblia**

Ausaz gin-tonik sailaren eraginez, neure burua zehatzeari ekin nion: **menpeko** nuen haur babesgabe horrekin fitexko joan nahi eta horra ondorioa! **Aingeru Epaltza**

Bere **menpeko** lodienetakoen artean ehun izendatu zituen parlamentario, zerga-bilketarako legeak egiteko. **Xabier Olarra**

Musharrafen gobernu Ameriketako Estatu Batuen **menpekotzat** duten Pakistango islamistek, ordea, Washingtonen agenteak izatea leporatzen diote Azizi. **Berria - Mundua**

Haiek **menpekotzat** neuzkan. **Daniel Landart**

Autoan «legez kanpoko elkarte» ETArekin **menpekotzat** jotzen duenez, ETAko kide izatea egotziko diela ondoriozta daiteke, baina epaileak ez du hitzez hitz zehazten. **Berria - Euskal Herria**

Sultan otomandarraren **menpeko** guztiak begira daudela. **Fernando Rey**

**Menpeko** guztiei jakinarazi zien Mordreti obeditu behar ziotela. **Juan Kruz Igerabide**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bere menpekoak** (4)

**bere menpekoai** (3)

**bere menpekoek** (3)

## menpekotasun (**448** agerraldi, **42** liburu eta **202** artikulutan; Euskaltzaindiaren *Hiztegia mendekotasun* agertzen da) **1** *iz* mendekotasuna.

Emazteak aukeratu behar zizkion, eta jasangaitz bihurtu zitzaion I. jaunari **menpekotasun** hori. **Xabier Olarra**

Aitaren **menpekotasunari** ihes egin ahal izango zion azkenean. **Iban Zaldúa**

François Lhermitte neurologo frantsesak "ingurunearen **menpekotasunaren** sindromea" aipatzen du halako gaixoen ezaugarritzat. **Xabier Olarra**

Beraz, elkarren **menpekotasuna** dago hizkuntzaren eta hizketaren artean. **Isabel Arrigain**

Dabidek ispiluekiko **menpekotasuna** nuela adierazten zidan halakoetan. **Patxi Zubizarreta**

Baina elkarrekiko **menpekotasun** hori ez da [...] oztopoa hizkuntzak eta hizketak bi gauza erabat desberdin izaten jarrai dezaten. **Isabel Arrigain**

**Menpekotasun** hori hausteko beharra zegoela eta horretarako teknologia garatu behar dela. **Berria - Mundua**

Drogarik gabeko **menpekotasunak** asko areagotzen ari dira urteotan. **Berria - Gaiak**

Mozkorkeria ez zitzaidan bihurtu maiztasun handiko ohitura, are gutxiago osasun-arazo, bizio edo **menpekotasuna**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### 2 (izenondoekin)

Emakumeak isilik eta **menpekotasun** osoz entzun behar du irakaspena. **Elizen arteko biblia**

**Menpekotasun** handiegia du taldeak zure golekiko? **Berria - Kirola**

**Menpekotasun** ekonomikoak eta ideologikoak ari naiz, eta ez herrialdeen arteko menpekotasunaz soilik. **Berria - Mundua**

Emakumeak dira bederatzia, eta oso egoera gogorren bizi dira, lanaren **menpekotasun** gehiegizkoan. **Berria - Kultura**

**Menpekotasun** sexual antolatuen oinarri ekonomikoak. **Berria - Kultura**

Askatasun politiko mugagabea eta **menpekotasun** mugagabea desagertu egiten dira ohorearen ideiak, edo guztiz nahasten dira beste batzuekin. **Juan Martín Elxepuru**

Eta egun batez, **menpekotasun** kontrolaezin haren mirabe, neskari deitzera deliberatu nintzen. **Patxi Zubizarreta**

Lehenengo gauza fama txarra kentzea izango litzateke, legeen ekimenez, epaileen boterea lagun hartuta, baina ez haren **menpekotasun** zuzenean, eta erakunde militar baten neurriko loria eta arrantia erabili beharko litzateke. **Juan Martín Elxepuru**

Izan ere, honela subjektu ekilea, *causa phaenomenon* gisa, izadiarekin kateatua legoke bere ekintza ororen **menpekotasun** bereizezinean. **Ibon Uribarri**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Agerpen ororen beharbadakotasun eta **menpekotasun** legeei menperatua izatea saihesteko era bakarra. **Ibon Uribarri**

Alkoholizatuta zegoela esatea erukigabeegia zen, igual, baina alkoholarekiko **menpekotasun** -gradu bat zeukala, erukiorregia. **Jon Alonso**

Azpiegitura falta izugarria dago herrialdean, **menpekotasun** egoeran mantentzen dituena haitiarrak. **Berria - Mundua**

Afrikako herrialde uestez burujabeekin finkatu eta garatu dituen **menpekotasun** harremenez. **Berria - Mundua**

Nortasun desorekak eta **menpekotasun** gaitzak dira ugaritzen ari direnak. **Berria - Gaiak**

Hala ere lanean gogor ikasitakoa zen, garaiko emakume gehienak bezala, eta ezkontza ez zen izan onartutako **menpekotasun** lotura bat besterik. **Xabier Etxabe**

Halabeharrik nahitaez atsegin eta erosotasun gehiegi eskaintzen dizkiolako aberatsari, herriarengan **menpekotasun** -sentimena handituko luketen nabarmenkeriek lekua har dezaten. **Juan Martín Elxepuru**

Elizgizon guztiei leialtasun eta **menpekotasun** ageriaren izenpetzeko agindua eman zitzaion. **Elena Touyrou**

**Menpekotasun** lege-egitasmoa **Berria - Harian**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Izan ere, giza hizkuntzan, elkarren aldamenean ez dauden hitzen arteko egitura-**menpekotasunak** daude -Kognitiboak deritzen zientziak aztertzen ditu perpaus zientziak

eta kognitiboak hitzen artean dagoena, esaterako - Itziar Laka

## 5 *droga-menpekotasun* (**38** *agerraldi* **22** *artikulutan*) droga mendekotasuna. ik **droga 6**.

Ordurako, de la Iglesiak berak aitortu zuenez, **droga menpekotasunak** harrapatua zuen, eta horrek 17 urteko etenaldia eragin zion bere ekoizpenean. Berria - Kultura

Badira kartzelan **droga-menpekotasunari** aurre egitea eragozten duten baldintzak: [...]. Berria - Euskal Herria

C hepatitis «isileko izurria» dela dio Europako **Droga-menpekotasunaren** Behatokiak. Berria - Gaiak

Eusko Jaurlaritzako **Droga-menpekotasuneko** zuzendaria. Berria - Euskal Herria

· Martutenen preso dauden pertsona askok buruko gaixotasunak dituzte edota **droga menpekotasun** arazoak. Berria - Harian

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**droga menpekotasun** (8); **droga menpekotasun arazoak** (4); **menpekotasun arazoak** (5); **menpekotasun egoera** (3); **menpekotasun egoeran** (6); **menpekotasun ekonomikoa** (4); **menpekotasun handia** (3); **menpekotasun osoz** (3)

**droga menpekotasuna** (9); **drogen menpekotasuna** (3); **duen menpekotasuna** (9); **duten menpekotasuna** (4); **energia menpekotasuna** (3); **internetekiko menpekotasuna** (3); **menpekotasuna duten** (3); **menpekotasuna gainditzeko** (3); **menpekotasuna murrizteko** (4); **menpekotasuna salatu** (4); **petrolioarekiko menpekotasuna** (8)

**droga menpekotasunaren** (4)

**droga menpekotasunei** (3)

**droga menpekotasunen** (7); **jaurlaritzako droga menpekotasunen** (3)

**menpekotasunik gabe** (4); **menpekotasunik gabeko** (4); **menpekotasunik sortzen** (3); **teknologia berrien menpekotasunik** (4)

## menpekotu, menpeko(tu), menpekotzen du *ad* menpeko bihurtu.

Herriaren arima inguru geografikotik **menpekotzen** duten Herrien Psikologiazaleak -doktrina hori Spencer, Taine, etc. baitan irakurri ahal izan dute-, konturatu barik, desesperantzara kondenatzen ari dira herri espainola (itxaropenaren argumentua). Joxe Azurmendi

## menpekotza *iz* menpekotasuna.

Aske da **menpekotza** horretatik ere. Hasier Etxeberria

## menpekotze *iz* menpeko bihurtzea.

Florian Imizkoz jaunak dienez terminologia modernoan identifika genezake, alde aldera, estilo periodikoa **"menpekotze"arekin** eta elkarbigiztatua lotze edo "koordinatze"arekin. Patziku Perurena

## menpera *iz* hizkuntzaz mintzatuz, ongi jakitea.

Euskararen **menpera** osoa, espainolaren ezagupena. Herria

## menperaezin (**10** *agerraldi*, **6** *liburutan*) *iz* menderaezina.

Toki hura **menperaezina** eta harrapaezina zen, hain ziren estuak lurralde hartako igarobide guztiak. Elizen arteko biblia

Aragonen borondate **menperaezina**. Agustin Otsoa

Harri eta altzairuzko izakia balitz bezala sentitu zen, etsipenak edo nekeak **menperaezina**, basamortuko milia ugarien beldurrik gabea. Agustin Otsoa

Bere santutasun **menperaezina** ezkututzat. Elizen arteko biblia

Iragana eta etorkizuna orainaldi **menperaezin** eta geldiezin honetan nahastu dira orain. Joseba Sarrionandia

Felipe II.aren Armada **Menperaezinararen** mehatxupean. Felipe Juaristi

## menperagaitz ik menperakaitz.

## menperakaitz (*agerraldi 1, liburu 1ean; orobat menperagaitz 13 agerraldi, 5 liburutan*) *izond* menderakaitza.

Zaldi hezigabea **menperagaitza** izaten da, bere gisara utzitako semea jasangaitz bihurtzen. Elizen arteko biblia

Soan su **menperagaitzaren** garra sumatzen zion. Itxaro Borda

**Menperagaitza** zaigun hizkuntza arrotz batean bezala irakurtzen dugu euskaraz. Anjel Lertxundi

Jakin beza erregeak, Mesopotamiatik Jerusalemera etorritako juduak hiri **menperagaitz** eta gaizto hau berriro eraikitzen ari direla. Elizen arteko biblia

Dorre trinkoak eta harresi **menperakaitzak**. Elizen arteko biblia

### 2 (adizlagun gisa)

Baina, materiaren gorputz guztiz solidoak mendeetan zehar jarraiki eta **menperagaitz** hegatzan direla erakutsi dizudanez gero, segi orain eta azter dezagun haien baturak mugarik baduenez Xabier Amuriza

## menperaketa *iz* menderatzea.

Beste judizio ahalgarri baten baldintzaren erregelaren baldintzapeko **menperaketa** esakune txikia da (minor). Ibon Uribarri

Hemendik ikusten da **menperaketaren** maila soilak (berezia dena orokorra denaren menpean) zientzia baten ezein muga ezin duela determinatu, baizik gure kasuan jatorriaren homogeneotasun eza eta ezberdintasuna. Ibon Uribarri

## menperakuntza *iz* menderakuntza.

Ximurak berdintsu jokatzeko omen zuen bere atzaparretara biltzen zituen menpekoekin, baina lagun taldeko bere aurkariaren pare jarri nahirik afalondoetan kontaktzen zizkigun larru-istorioak iragarterrazagoak eta **menperakuntzaren** orbanak histuak ageri ziren Charlyrenen aldean. Aingeru Epaltza

## menperatasun *iz* hizkuntzaz minzatur, ongi jakitea.

Euskara eta frantsesaren **menperatasun** osoa. Herria

## menperatu

menpera(tu), menperatzen (*802 agerraldi, 90 liburua eta 235 artikulutan*) **1** du *ad* menderatu. (pertsonak, herriak eta kidekoak)

1798. urtean, frantsesek Erroma **menperatu** eta hirian sartu zirenean. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Napoleonen armadek Filosofoen Argien izenean nahi omen zuten Espainia **menperatu**. Piarres Aintziart  
Geroztik beste hamaika errege eta ahaltsu hil izan duk, laterri handiak **menperatu** ondoren. Xabier Amuriza  
Sistemak eta bakartasunak bere egin nahi zaituzte; betiko **menperatu** eta betiko bakartu. Filipe Bidart  
Zure aita lizunak nahi izatera, bejondeiola: zutaz goza dadila, baina ez zaitzala kateatu; hauts ezazu uztarria **menperatu** nahi bazaitu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
Arrotza hasieran psikikoki **menperatu**, ondoren fisikoki **menperatzearen**. Markos Zapiain  
Lehen esan diguzu ez dagoela gizasemerik demonioak **menperatzeko** ahalmena duenik. Joanes Urkixo  
Kako-okarren txakurrak **menperatu** zituzten, baina bazirudien gizon hark, berak bakarrik, denen kontra ahal izango zuela. Julen Gabiria  
Bere burua **menperatu** ez balu, ezpata-kolpe batez abere horri lepoa mozteko gauza izanen zen. Fernando Rey

### 2 (gauzak)

Espaloiz aldatzeko tentazioa **menperatu** eta agurtzera joan nintzaion. Itxaro Borda  
**Menperatu** zituenean santuak tentaldiak, gure Jauna bera agertu zitzaion, guztizko atseginez. Joan Mari Lekuona  
Ez zaitzala gaitzak menpera, baizik eta **menperatu** gaitza ongi. Elizen arteko biblia  
Krisia, guk hura **menperatu** ordez, berak gu menperatzen bagaitu bakarrik da txarra. Joxe Azurmendi  
Urduri sentitzen banintzen ere, bere ahoak gorputz osoan sakabanatzen zidan plazerak **menperatu** zuen nire borondate ahala. Aritz Gorrotxategi  
Beldurra **menperatzen** ahalegintzen zen bitartean. Agustin Osoa  
Grafismoan trebatzeko eta idazkera **menperatzeko**, bi liburu berri badauzkagu ere ikasle ttipientzat. Herria  
Mila urte zeukan kaligrafiaren artea **menperatzen** zuten maisu zaharrak publikoki umiliatuak izan ziren. Ramuntxo Etxeberri  
Teknika **menperatzean**, gauza horiek pentsatu barik egiten dituzu. Julen Gabiria  
Gizadiaren historia unibertsal ugaria bere sustraietaraino ongi barrendu gabe, eta jakintza unibertsalik zaharrenen erroak ongi ezagutu eta **menperatu** gabe, oso argitasun eskasak atera baitlitzake euskal filologoak. Patziku Perurena

### 3 (hizkuntzak)

Baldintzak: euskara eta frantsesa **menperatzea**, esperientzia disko salmentan edo komertzioan. Herria  
Euskara ongi **menperatzen** zuela ez da dudarik. Hizkuntza **menperatu** ez duen haurren ahoskerako ordezkatze horiek ez dira nolana hikoak izaten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Hizkera eta irudien erabilera ongi **menperatzen** dituen idazle on baten lana da. Askoren artean

### 4 (era burutua izenondo gisa)

Gaztea zen oraino etxe handi hartan ehortzirik gelditzeko, agure agintari baten, emazte **menperatu** baten eta, bere aita izan zitekeen donado baten konpainian. Elena Touyarou  
Bi emakume **menperatu**, izutu eta zorrigaitzoko: Francesoren bigarren emaztea, Lucrezia Petroni, zeinarekin ezkondu baitzen 1593 urtean, eta Beatrice, Francesoren alaba propioa. behialako mundu **menperatu**, kutsatu, gosaiotu eta baztertua irudikatzen nuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bere burua menperatu** (3); **borrokatu eta menperatu** (3); **espainia menperatu** (3); **euskara menperatu** (9); **frantsesa menperatu** (3); **hizkuntza menperatu** (3); **israeldarrek menperatu** (4); **lurralde menperatu** (3); **menperatu eta hil** (3)  
**euskara menperatzea** (3); **frantsesa menperatzea** (6); **hizkuntza menperatzea** (3); **idatziz menperatzea** (4); **menperatzea lortu** (4)  
**jendea menperatzeko** (3); **menperatzeko ahalmena** (7)  
**erregela bati menperatzen** (3); **euskara menperatzen** (8); **hizkuntza menperatzen** (5); **idazkera nozioak menperatzen** (3); **ondo menperatzen** (6); **ongi menperatzen** (12)

## menperatzaile 1 izond menderatzailea.

Francesco gizon harroa, oldarkorra, sexuzalea eta **menperatzailea** zen. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Izaera **menperatzailea**. Oskar Arana  
Boterea lortu nahi duen herriaren eta hori eragotzi nahi duen klase **menperatzailearen** arteko gatazka beti egon da. Berria - Kultura  
Microsoftek informatikaren merkatua kontrolatzen duelako, «nagusitasun jarrera» edo «jarrera **menperatzailea**» izateagatik eta konpetentzia ezetzatzeagatik abiatu zuen ikerketa Europako Batzordeak. Berria - Ekonomia  
Bera Goi-goikoaren Semea da, Aita bezala guztiz gorena, eta Espiritu Santuaren batasunean bizi da, errege garaile eta **menperatzaile**, eta Jainko aintzatsa da gizaldi eta gizaldi guztietan. Askoren artean  
Nigan zuen ahalmen magnetiko **menperatzaileak** segurtasuna eman zion jarraitzeko. Harkaitz Cano

### 2 iz menderatzailea den pertsona.

**Menperatzaileen** armarik eraginkorra sotiltasuna da, zehaztasuna, eta neurria. zuregana itzuli eta **menperatzaileen** lurraldean oitotz egingo dizute, esanez: [...]. Lander Garro  
Horien emazteak arrotzei emango dizkiet, horien soro-landak **menperatzaileei**. Elizen arteko biblia  
Nire herria hutsaren truke eraman dute gatibu, eta **menperatzaileek** ulu dagite harro, nire izena egun osoan etengabe gaitzetsiz. Elizen arteko biblia  
Geure errege edo **menperatzaile** izan behar ote zaitugu? Elizen arteko biblia  
Horra lurrera amildua, herrien **menperatzaile** hori! Elizen arteko biblia

## menperatze iz menderatzea.

Horregatik du Nereak guztia menperatzeko zera hori, **menperatzearen** bidez boterea eta boterearen bidez mirespena lortzeko. Lander Garro  
Kolonizazioak, **menperatze** modu bat baizik ez denak, [...]. Isabel Arrigain  
Irailaren 11ko gertaerak «AEBren **menperatze** kapitalista eta inperialista azkartu» baino ez dute egin. Berria - Euskal Herria

## menperatzeke *adlag* menperatu gabe. ik menderatzeke.

Sanz del Río, krausismo espainolaren aitagoiak izpiritu espainola izpiritu frantsesaren menpetasun galgarritik askatu eta izpiritu alemanera hurbildu nahi du, honi ere **menperatzeke** ordea. Joxe Azurmendi

## menpetasun 1 iz mendetasuna.

Emakumeak **menpetasunaren** ezaugarria eraman behar du buruan. Eiizen arteko biblia

Izpiritu espainola izpiritu frantsesaren **menpetasun** galgarritik askatu eta izpiritu alemanera hurbildu nahi du. Joxe Azurmendi

Errepresioa, autorrepresioa, kontrola, autokontrola, lana, kастitatea, **menpetasuna**, diziplina, dira oinarrizko irizpideak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 2 (hitz elkartuetan)

Deskribatzearen, trazu bereizgarrietan eratzearen, ezaugarritzearen eta sailkatzearen artean dagoen harremana eta **menpetasun** -jokoa. Xabier Arregi

**Menpetasun** -sistema ikasitakoaren, ikusitakoaren, deduzitutakoaren, gertakortzat jotzen denaren eta aldarrikatzen denaren artean. Xabier Arregi

## menpetza iz menpetasuna.

Morala zer den egoera sozialak erabakitzen du: jaunena lehen esandako moral "naturala" izango da [...]; apal edo menpekoena, xumeena, "ohitura" izango da, egitea baimenduta dagoena, hots, bere **menpetzaren** onarpen etsia. Joxe Azurmendi

## menskeria (orobat mentskeria g.er. eta meskeria g.er.) iz ipar ergelkeria.

Libratu du izpiritua, askatasun osoan, nahi zuen eremu edo denboretara aira zedin, jakinez berdin ameskeria dela edo **menskeria** eta berdin batere ez. Piarres Aintziart

Euskal presoak, inkestaren arrazoiengatik, ez daitezkeela Euskal Herrian egon erratea **menskeria** hutsa da. Berria - Euskal Herria

Badira beste batzuk, fededun kartsuak, maiz kanpotik etorritakoak eta espiritualtasun soilaz arduratzen galdegiten digutenak, politiko arazoetan sartu gabe eta abertzaleen **meskeria** atzerakoiei kasu ez emanez. Piarres Aintziart

Frantziako batasuna lanjerrean ezarriko dugula eta holako **mentskeria** batzu. Herria

Baina **menskeria** bat erran dut, espres, jostatzeko! Piarres Aintziart

Telebistako **menskeriak**. Eneko Bidegain

## menskila ipar ergela, zozoa.

Zer **menskila** egiten duen tipula buru honek. Eneko Bidegain

## menstruazio iz hilekoa, emekumearen hileroko odolaldia.

Odol hori botatzeari esaten zaio hilekoa edo **menstruazioa**. Luis Elberdin

Lurra, dena gorri eta zuri, odol eta elur, **menstruazio** eta esperma; eta urrunago mendien anila, argi-koilare batez inguratua. Eskarne Mujika

## menstu, ments, mensten da ad ipar ergeldu, zozotu.

Mutikoa, **mensten** ari haiz ala? Itxaro Borda

Hastapenean, sukarrak setiatu aditzak mahairatzean, pentsatu nuen hondarra **mensten** ari zinela, gontzetarik ateratzen, eki soberak erre borta kixkailaren antzera. Itxaro Borda

## menta<sup>1</sup> iz arrakasta, harrera ona.

**Menta** handiko hitza dugu garaiotan, usuki ahotua. Iñigo Aranbarri

## menta<sup>2</sup> ik menda.

## mental izond burukoa, buruzkoa, buruari dagokiona.

Bere singularitasun zerebral, **mental**, psikologiko, afektibo, intelektual eta subjektiboa. Askoren artean

Nola liteke materiak (kasu honetan, burmuinak) propietate **mentalak** izatea -beldurtzeko gaitasuna, adibidez-? Askoren artean

Ni sendagile izatea eta zu gaixo **mental** bat. Jose Angel Irigaray

Osasun **mentaleko** zentro batean zegoen sartua. Fernando Morillo

Horrek esan nahi du ez dagoela esparru fisikoa eta **mentala** lotzen dituen lege psikofisiko zurrunik. Askoren artean

Eskarmentu handiko jokalaria da eta indar **mental** handikoa. Berria - Kirola

Osasun **mental** egokia. Berria - Euskal Herria

Normalean irudi **mental** deitu ohi dena nahi dugu aipatu. Josu Zabaleta

Denbora pasatzeko aitzakia besterik ez da izan hasieran, baina ahalegin **mental** ikaragarria eskatu dizu azkenean. Rafa Egiguren

Bertsolariak bere-berea du eta peto-peto darabil gogobide hau, estilo **mental** hau. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Diziplina **mental** gisa. Rafa Egiguren

Garuna, makinaren kontrolgunea jatorriz, pentsamendu abstraktua, sormen artistikoa eta, oro har, jarduera **mental** sofistikatu erregular edo jarraitua ahalbidetzeraino garatu da. Irene Aldasoro

Edozein eduki **mental**, izan daitekeen berriena edo bihurriena izanik ere, eskema metriko erabilien barruan [...] egokitzeko gaitasuna. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ordenak inoiz ez baitira izango erakuntza **mental** arbitrarioa, Naturaren beraren funtzionatzeko eretatik sortutako zerbaizik. Santiago Iruretagoiena

Nire hizkuntza **mentala** euskara bilakatu da. Ana Urkiza

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

osasun mental (3)

irudi mentala (3); osasun mentala (5)

ordezkatzete mentalak (4)

## mentalidade ik mentalitate.

**mentalismo** iz psikologia doktrina, introspekzioari garrantzia handia emateko joera duena.

**Mentalismo** hori eta nazionalismo etniko hau lotuz, *Volksgeist* hitza sortu zen, hots, herri bakoitza bereizten duen espiritu egonkor eta ezberdina. **Askoren artean**

**mentalitate** (*orobat **mentalidade** g.er.*) **1** iz pentsaera, pentsamoldea.

Italiarrak oso diferenteak dira, gehiago maite dute bizitza, bitalistagoak dira, ez dituzte legeak sakralizatzen, **mentalitate** praktikoagoa dute bizitzaren aurrean. guk esaera lasa-lasa hauek ulertzeko ez ote daukagun jada **mentalitate** estuegia, baserriko eta naturarekiko zabalditik begira, kaletarregia, alegia. **Mikel Hernandez Abaitua**

Garai jakin bateko **mentalitate** burgesaren produktu da marxismoa, milioika eta milioika jenderengan eragin handia izan duena. **Iñaki Heras**

Bainan, horiek hola, uste dut, halere, **mentalitateak** oraino nahiko desberdinak direla Iparraldean eta Hegoaldean. **Menane Oxandabaratz**

Baina gaztea izateaz gainera neska nintzenez, "bizitza freskoa" irudikatzen nuen gizonezko baten **mentalitatearentzat**. **Anjel Lertxundi**

Ea turkoek zer funtzio betetzen duten pastoraletan, eta ea zer pertsonifikatzen duen turko batek euskal **mentalitatean** ... **Anjel Lertxundi**

**2** (hitz elkartuetan)

Genero bati edo beste bati ematen zaion gora, premien ondorioa izaten da, literatur corpusean dauden hutsuneen isla, eta **mentalitate** -kontua. **Ana Urkiza**

Pertsonaiak ez dituk oso sinesgarriak errealismo- **mentalitatez** irakurriz gero, baina ez duk hori liburu honen helburua. **Mikel Hernandez Abaitua**

**mentalizatu**, mentaliza, mentalizatzen da/du *ad* gogoia prestatu.

Guztiz **mentalizatu** nintzen, unea iristen bazen prest egoteko. **Berria - Kirola**

Egun horretarako **mentalizatuta** bainengoan, larunbaterako neukan dena prestatu eta programatuta. **Berria - Kirola**

Osasunak oso **mentalizatuta** jokatzeko ditut partida hauek, eta gu gehiago **mentalizatu** behar garela uste dut. **Berria - Kirola**

Ba hori, gazte hiltzeko zeharo **mentalizatuta** geundela. **Mikel Hernandez Abaitua**

**mentalizazio** iz kontzientzia hartzea.

Estiloa eta **mentalizazioa**. **Berria - Kirola**

Zaila da horrelako egunetarako **mentalizazioa**, eta, lehen minutuetan bederen, atzokoak ez zirudien lehen mailako partida. **Berria - Kirola**

**mentalki** **1** *adlag* buruz, pentsamentuaz.

Fokker eta Heinkel hegazkinen ezaugarriak erreparatuko nituen **mentalki**, kontzentratuta iritsiko nintzen Adlerhausera. hainbat hiriren izen durunditsuak esaten hasi nintzen **mentalki**: Marseilla, Lisboa, Porto Alegre, Valparaiso... **Anjel Lertxundi**

**Mentalki** bere karriotaren gastu orokorrak kalkulatzeko. **Itxaro Borda**

Begiak hersten nituen eta ziuntaz ur handiaren ezpondetara itzultzeko nintzen **mentalki**. **Itxaro Borda**

Jose Saramagoren *Todos los nombres* irakurri dut liburua oparitu zidan lagunaren osasunean, tarteka liburua itxi eta Saramagoren erretratuarekin nahiz liburua oparitu zidanarekin **mentalki** mintzatuz. **Harkaitz Cano**

Esaldiak, **mentalki**, gaztelaniaren arau sintaktikoen arabera ordenatzen nituen; horren ondoren ekiten nion, askotan, euskarazko itzulpenari. **Anjel Lertxundi**

Hizkuntza batek lurraldetasuna finkatzen du, mapak sortzen ditu **mentalki** bada ere, identitate propio bat. **Iñaki Seguroa**

Bi pertsonaien aldi bereko ekintzak deskribatzea ezinezkoa baita, fisikoki eta **mentalki**, batez ere elkarrengandik urrun daudenean. **Jon Alonso**

**2** buruaren aldetik.

**Mentalki** egoera egokian egoteak asko laguntzen dio gorputzari. **Berria - Kirola**

Beraz, iaz baino hobeto gaude **mentalki** eta fisikoki. **Berria - Kirola**

Taldea prest dago **mentalki** halako partida bati aurre egiteko. **Berria - Kirola**

Oso gaztea naiz eta ez nintzen final hartara **mentalki** prestatuta iritsi. **Berria - Kirola**

Ismael Urzaiz Athleticeko aurrelariaren ustez, taldea **mentalki** egin gabe dago oraindik. **Berria - Kirola**

**mentatsu** *izond* arrakastatsua.

*Garbiketa etnikoa* prentsak **mentatsu** izaten lagundu duen kontzeptua izan da Bosniako gerraz geroztik, baita hemen ere. **Iñigo Aranbarri**

**mentatu**, menta, mentatzen du *ad* txertatu.

Geuk, abertzale askok **mentatu** zuten zuhaitz zaharren adarrari txortanak zitalkeriaren guraizeekin moztu dizkiogu, gure adurrezko lanbroarekin baratza erneak antzutu ditugu. **Jokin Urain**

mente ik **mende**<sup>1</sup>.

mentekoste ik **mendekoste**.

**mentolatu** *izond* mentolduna, mentol usainekoa.

Erretzeari ere ekin zion berriz, usain jasangaitzeko tabako **mentolatua**. **Aingeru Epaltza**

Kleenexa **mentolatua** zen. **Sonia Gonzalez**

**mentoldun** *izond* mentola duena.

Kamamilazko gargarak egiten ditu, mirra tinduz igurtzen du ahosabaia, aringarri **mentoldunaz** igurtzen du bularraldea, sudurra, hortzak eta mingaina, eta umore txarrez dago hala ere. **Josu Zabaleta**

Nire gurasoei izugarri gustatuko zaie hortzak garbitzeko Honeydukeseko **mentoldun** gozokia! **Iñaki Mendiguren**

# mentore iz hezitzailea; aholkularia.

Nola Zalakain gaztea barru-barruan mutil prestua eta esker onekoa zen, zorutzen egoten zen bere **mentore** zaharrarekin, eta errespetu handia sentitzen zuen harengana.

**Koro Navarro**

Gomá-k Maeztu aipatzen du behin eta berriro **mentore** legez, eta hari jarraitzen zaio bere argibide ilunago ezinotan. **Joxe Azurmendi**

## ments 1 adlag faltan.

Agindutako gizonetatik zenbat ziren faltan, edo **ments**, edo huts eginak. **Edorta Jimenez**

Zapi handi asko ziren Armadan, inork gure karrakaren trapu txikiak **ments** senti zitzen. **Edorta Jimenez**

Garai horretantsu haren artikulu publikatuetan ere jada tindu arrazialistako pasarteak ez dira **ments**: [...]. **Joxe Azurmendi**

Zergatik karrikan bazebilen bera aterpe, lan eta sos **ments**? **Itxaro Borda**

Ez nazazula erantzun **ments** abandona [...]: mintza zakizkit oraino. **Itxaro Borda**

Eta *Gara*-koan ere, **ments** informazioa: ez herririk, ez hizlarien izenik. **Iñigo Aranbarri**

## 2 (hitz elkartuetan, izen baten eskuinean)

Galdera hauek arrapostu-**ments** gelditzen ahal dira, euskaldunok ez baldin badugu gure borroka zaharren inguruko pentsamendurik biribilkatzen. **Itxaro Borda**

### • 3 iz gabezia, falta; defizita.

Ortega-k, leunago, altruismoaren **mentsa** dio; geroago, *España invertebrada*-n, masa espainolen aristofobia eta eliteen muzina bilakatuko da. Datorren urteko aurrekontuetan Frantziak sortzen du 55 miliar euroren **mentsa**. **Joxe Azurmendi**

Denek badakigu % 3-ren **mentsa** ez dela pasatu behar, baina nork sortu du elgarrekilako lege hori? **Herria**

### • 4 izond ergela, zozoa.

-Mutiko **mentsa**, baduka burutik? **Itxaro Borda**

Eman niri bihurri amarritsu bat santujale **ments** baten orde, nahi duzuean. **Oskar Arana**

Horiek hola, ideia **ments** batzuk daramatzat, bidelagun gisa, bidenabar. **Piarres Aintziart**

Jadanik ero erditzat naukate, eta ez nuke nahi **ments** oso gisa kontsidera nazaten. **Itxaro Borda**

Istoria **ments** eta gazi gozo kontatzen. **Piarres Aintziart**

Badakit arras ontsa ene ametsak **mentsak** zirela, amodioari buruz, eta emakumea idealizatu dudala, eta obsesioz desiratu. **Piarres Aintziart**

Estekan dela ez haiz ohartzen, **mentsa**! **Piarres Aintziart**

*(izen igsa)* Rieuxek eroei eta **mentsei** eskaintzen zaien begirada oparitu zidan. **Aingeru Epaltza**

## 5 buru-ments izond adimen urrikoa.

Atarramentu onik ez zeukan, ergela edo buru-**ments** hutsa zen; halako irainak botatzen nizkion behintzat. **Juan Kruz Igerabide**

Kaleetan ikusten diren zoro, buru-**ments** eta begirada galduko pertsonen ugaritasuna. **Anjel Lertxundi**

Buru-**ments** hura bridarik gabe zihoa, baina zenbat eta sakrifizio gehiago eskatzen zion kongregazioari, orduan eta areago gustatzen zitzaiea ematen zuen. **Oskar Arana**

## 6 mens izan du ad eskas izan, falta izan.

Bertze batek burua du **ments**, eta bihotza atera diote hirugarrenari. **Xabier Montoia**

Ontzi handi askotan ura zuten **ments**, upeletako asko presaka eta egur berdez eginak baitziren. **Edorta Jimenez**

Batzuei harroago izatea eragiten die, gangartu egiten ditu, bestela **ments** duten zerbait lortuz bezala. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Zer edo zer **ments** dute. **Harkaitz Cano**

Ezen ez da ontasan horietarik bihi bat, zerbait **ments** ez duenik, erratan den bezala: ondu batentzat beti bi gordin. **Piarres Xarriton**

## 7 ments-izate

Gizakia da bere **ments**-izate (eskas izate) esentziala era biologikoan konpentsatu beharra daukan aberea, horregatik da bere izatea kultura duena. **Askoren artean**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**buru ments** (6)

**mentsa bezala** (3); **mentsa haiz** (3); **mentsa hiza** (3)

## mentskeria ik menskeria.

## mentsula iz horma edo kideko batetik ateratzen den elementua, zerbaiti eusteko balio duena.

**Mentsulak** [...] ezker-eskuin zizelkatuko dira, eta zintzilik jaitsiko dira paramentaren beheko aldearen pareraino, hostoak kanpoan utzita. **Santiago Iruretagoiena**

Aurreko aldetik dintelaren hiruren bateko zabalera izango dute **mentsula** horiek, eta goiko aldetik baino laurden bat meharragoak izango dira beheko aldetik. **Santiago Iruretagoiena**

## mentu (orobat mendu g.er.) iz landare batean txertatzen den beste landare baten zatia. iktxerto.

Horrelatsu dira zuen bihotza hartzen duten jaiotza arrotz eta kanpokoak, berauek, txertu bezala, **mentu** txarrak ematen dietelarik zuen fruitu guztiei. **Joan Mari Lekuona**

Aipatu berri ditudan gauzok zure ariman egiaz txertatzen dira, hala nola **mentua** jartzen den zuhaitz-gerrian: ondoko fruituek txertuaren ezaugarriak izango ditu eta ez zuhaitz-gerriarenak. **Joan Mari Lekuona**

## mentura 1 iz aukera, egokiera.

Itxuren arabera, Noel Mamère berrikerari ohiak duke **mentura** gehiena. **Herria**

Hemen erretreta 60 urtetan izaiteko **menturak** ere lotsatzen ditu ainitz, ikusiz, Ameriketean lanean segitzeko xantxa badutela adinaren mugarik gabe. **Herria**

Ekonomia doi bat azkartuz doala, eta badela **mentura** oraino azkar ditakeela ondoko hilabete horietan. **Herria**

Argi eta garbi errana da hor ez dela, ez droga, ez alkohol **menturarik** eta jestu bortitzak ez direla haizu. **Herria**

## 2 (-en atzikiaren eskuinean)

Heldu den udako badut haatik zerbaiten **mentura**. **Janbatiit Dirassar**

Errana izan da hitzarmen berezi horri esker, eta berezia delakotz preseski, bazela eta badela aintzinamendu balios batzuen **mentura**. **Herria**

Legeak duen abantaila aldiz, alderdi ttipiek ere badutela hola zombait alkiren **mentura**. **Herria**



Garapen xuhurrek lurraldeak lurralkatu hango jendeak uberean ukaiteko gisan lan baten **mentura** eta hain batean bizitzeko moldea. **Herria**

Egun ederraren **mentura** bazen. **Eneko Bidegain**

Partida eder batzuen **mentura** dudarik gabe, balioko baitu tenoreko hor izaitea. **Herria**

Aloimendurik gabe, laneko segida baten **menturarik** ere gabe. **Janbattitt Dirassar**

Kanpotar horien parte handi bat familiak dira, lanaren **menturarekin** datozenak, aski maiz goi mailako lan bideak izaten dire, lan ona aurkiturik etorriak dira. **Herria**

Europa batuan daukagu segur bakearen **mentura** hoberena. **Herria**

Ez bakarrik Luzaidetik, baina Ondarrolatik ere eramaiten zuten burdin harria Orbaizetara, hor ere bidaia luze eta neke baten **mentura** ... **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Topaketa gaizto baten **menturak** sortzen dion beldurra. **Aingeru Epaltza**

Etorrizun beltz horren **menturak** ote ditu gazteak ihesbide zenbaitetara joanarazten? **Herria**

### 3 (-tzeko atzikiaren eskuinean)

Ez zuela naski sendatzeko **mentura** handirik. **Janbattitt Dirassar**

Horrela ukanen zuen Marirengana heltzeko **mentura** zerbaite. **Elena Touyarou**

Asteburuan delako Togasekin lan egiteko **mentura** atsegingarri gerta zitekeela egin nuen neure baitan. **Aingeru Epaltza**

Noiz nahi aditzen dena da orai sortzen diren haurren erdiek baduketela ehun urtetarat heltzeko **mentura** pollita. **Herria**

Hots, lehen aldikotz, ezkerrekoek badute orai Pariseko auzapez beretarik norbait ezartzeko **mentura** ! **Herria**

Ainitzen gustuko Chevenement-ek baduke araberan hirugarren izaiteko **mentura** hobe. **Herria**

Gero argiago baten **mentura** gaitza badugula lege-nagusi hori onartuz gero... **Herria**

Denen buru, sindikaten gustuko, balitake oraino **mentura** ttipi zerbaite lantegia berriz pizteko. **Herria**

### 4 (esperantza-edo: ik beherago 9)

Hauteskundeek garbitasun zerbaite ekarriko dutela? gauden **mentura** hortan bainan gerta ditake ere zorritzarrez hauteskundeen ondolik giroa oraino gehiago nahastea eta gaixatzea... **Herria**

Gauden **mentura** hortan, bainan erne... **Herria**

### 4a arriskua-edo.

Goizetik jadanik izana zen nahiko mugimendu Baionako karrketan, sindikaten manifestaldiarekin, 3000ko bat jendea erretretan xuhurtze **mentura** salatzen zuela. **Herria**

### 5 abentura.

Agian, **mentura** berri eta zirraragarrien iturri. **Jose Angel Irigaray**

Irudimenean dena berriro agertu zitzaizlarik, **mentura** sinestezin eta arrisksuak etorri zitzaizkion gogora. **Patxi Zubizarreta**

Zaldunak abiatzen baitziren **mentura** eta topaketa berrien bila. **Jon Alonso**

Sentipen horrek Coimbrara itzultzeko irrika bortitza ekarri zion bihotzera, Sebastioarekin **mentura** bila abiatutakoan hantxe utzi baitzituen, gurasoak ez ezik, baita neskatxa eder bat ere, Ines izeneko lehengusina. **Felipe Juaristi**

-Gure imaginarioan, zinean adibidez, Antillak izu-lekuak dira, **menturarako** egokiak, indioz edo beltzez beteak, eta abar. **Edorta Jimenez**

**-Menturaren menturaz** dabilenak geroa ez du hain segur! **Itxaro Borda**

### 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta gradu horretako buruzagi eta handiki jendeak arrisku horietan eta **mentura** giro horretan ibiltzeko prest zeudela ikusteak, bada, egia aitortuko dut: erakarri egiten ninduen.

**Txillardegi**

Eugenio Abiraneta liberalaren aginduetara pasatako **mentura** -egun harrigarri eta ausarditsu haiekiko urrutiminak jota. aspalditik ezaguna den judutarren bidai, **mentura** eta merkatu zaletasun fanatikoa. **Txillardegi**

### 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Konponbide **mentura** trabatzea egotzi dio Batasunak Frantziari. **Berria - Euskal Herria**

Bazkaltiar bakoitza, inoren konpainian badago ere, bere izaeraren araberako barne-**mentura** berezia egosten imajinatzen dut, jakiak ere irensten dituen moduan. **Anjel Lertxundi**

Bortizkeriarik baizik ez da, eta bortizkeria iraultzailea hobetsi behar da, humanismo **mentura** badaukalakatuz. **Piarres Xarriton**

### 8 zoria, patua.

Gauetz egin nuen Grenobletik etxerako bidea, **menturari** eskertuz Zuazo-eneatik hurbil bizitzearen txiripak Madame Beylerengana eraman izana. **Anjel Lertxundi**

Sentitu berri zuen eta aditzera ematerik izan ez zuen nahigabea berdintze aldera, **menturara** arriskatzeko gogo bizi batek hartu zuen. **Patxi Zubizarreta**

Mundua pentsatuz munduak eraikitzen dakien tresna; **menturaz** baliaturik, **menturari** aurre egiten dion arma. **Anjel Lertxundi**

### 9 *menturan adlag* esperantzian.

Langileen artean luzaidarrak ere baziren, diru puxka baten irabazteko **menturan** zernahitarako prest zeudenak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gero eta indar gehiagoren biltzeko **menturan**. **Herria**

Ez dakigu zer dagoen gure beha, eta eskuko xoria ez utzi behar airekoaren **menturan**. **Marzel Etxehandi**

Ikusten da nola, historian zehar, euskaldunek ere jakin dugun lanbide mota berri bati lotzen, diru gehiagoren **menturan**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Dena ere freskotasan giro batean joan da, gero sano eta aberats baten **menturan**. **Herria**

Beharrik ez nuen horren **menturan** kaskoa sobera berotzen, inoiz ez baitzen halakorik gertatu. **Aingeru Epaltza**

Euriak urkabeko odol arrastoak garbitu zituen, beste biktima batzuen **menturan**. **Elena Touyarou**

Dena den, negua hor berean bada ere, gauden beti udaberri goxo baten **menturan** ! **Herria**

Parkea zerratzten da beraz negu huntako, udaberriari buruz beste norbaitek segida hartuko duelako **menturan**. **Herria**

Udabiltzak bide hori hartuz ez du oraino lehen urrats bat baizik egiten, lehen urrats horrek beste ainitz eta ainitz ekarriko dituelako **menturan**. **Herria**

### 10 *menturazsup\_1 adlag* beharbada, agian.

**-Menturaz** beste nonbait zendu zen... -pentsatu zuen erretoreak, goraki. **Elena Touyarou**

**-Menturaz** herri hau ttipia duk -erran zion, irriz, zenbait hilabete lehentxeago, azken topaketan- baina gurea duk. **Elena Touyarou**

Haren ele bakar bat aski izanen zen **menturaz**, bilobaren berreskuratzeko: "barkatu". **Elena Touyarou**

-Barkatu, **menturaz** istorio horiek ez zaizkizu batere interesatzen. **Eneko Bidegain**

Hobeko genuen **menturaz**, hausnarketa gehiago egin bagenu, munduaren bilakaeraz eta aberriaren funtsezko arazoez. **Piarres Xarriton**

Denen indarrak bilduz geroz, iharduki dezakete **menturaz** tipiek eta gutiek boteretsuen oldarrari. **Piarres Xarriton**

Katolikoak dira **menturaz** beren katolikotasunaren barnean hertsiegiak, beren Elizaren unibertsaltasunean osoki arrotz egonak. **Piarres Xarriton**

Hori zen arrazoietakoa bat, nahiz ez bakarra, eta ez **menturaz** garrantzikoena. **Pello Salaburu**

Epel, 28 edo 30 grado **menturaz**. **Txillardegi**

Tadjikengana joanak **menturaz** ? **Itxaro Borda**

### 11 *menturazsup\_2 adlag* ausaz.

Baina **menturaz** Ingalaterratik deitzen badu, beharbada esan ahal diozu gutun bat duela etxean itzultzen denerako. **Oskar Arana**

Dohakabearen garrasiek jada egindako ekintzak eskatzen al dizkiete, **menturaz**, itzultzen ez den denborari? **Juan Martin Elexpuru**

Ez al darama **menturaz** Luthien seme-alaben odola? **Agustin Otxoa**

Baina, ez al naiz **menturaz** Eorlen Etxekoa, birjina gertaria, eta ez inude hutsa? **Agustín Otsoa**

## 12 menturazko izlag

Uste hori, **menturazko** uste hori, lasaigarria gertatzen zait. Nik uste gure familiaren **menturazko** memoriak idazten zituela, baina hainbeste emanalditan, ze ez ziren inoiz bukatzen. **Ander Irizar**

Xori batek hegal kolpe batez atzeman lezake bide xuxena, xori buruak aldiz oinez egin beharko **menturazko** bidexka. **Piarres Aintziart**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aro** hobearen **mentura** (3); **gauden mentura hortan** (3); **gehiagoren mentura** (5); **heltzeko mentura** (4); **ikusteko mentura** (3); **izaiteko mentura** (3); **mentura dugun artean** (3); **mentura ederra** (3); **mentura gehiago** (4); **mentura handirik** (6); **mentura hoberena** (4); **mentura hortan** (6); **mentura izanen** (6); **mentura on** (3); **mentura ona** (3); **mentura ttipia** (3); **mentura zerbait** (3); **pasatzeko mentura** (3); **zerbaiten mentura** (11)

**biltzeko menturan** (6); **gehiagoren menturan** (3); **irabazteko menturan** (3); **menturan daude** (4); **menturan gaude** (5); **menturan utzi** (3); **zenbaiten menturan** (4); **zerbaiten menturan** (9)

**zerbaiten menturarik** (3)

**menturaz bai** (3); **menturaz ez** (19); **menturaz hobe** ( )

## menturaldi iz mentura, abentura.

Adiskideak jasan **menturaldiaren** lerootara ekartzera atrebituko naiz hondarrean. **Itxaro Borda**

## menturatsu izond zoriotsua.

Maine-ko herrixka txiro batean, aurreneko aldiz, fortuna **menturatsu** bat amestuz zuen, itsas oholen lanketaren irudiz. **Juan Garzia**

## menturatu, mentura(tu), menturatzen 1 da ad ausartu, arriskatu.

Ez naiz **menturatu**, libertatearen beldurrez naski. -Hihaurk kasu emak, eta ez hadila **mentura** ene kontra deusen egitera, zeren eta ez huke besteei kontatzeko denborarik ere irauen. **Piarres Aintziart**

Ez ninduan **menturatzen** aipatzera ere. **Daniel Landart**

Zonbait hitz **menturatzen** naiz aintzinzatza: [...]. **Michel Oronoz**

**Menturatu** natzaio orduan eskatzera fotografiatzen ahal dudanez. **Piarres Aintziart**

-Karrikara ateratzera **menturatu** zara? **Elena Touyarou**

ALNko arratoiak ez dituk beren zuloetatik ilkitzera **menturatuko**, erran dizuete irriz, partitzeko tenorean. **Xabier Montoia**

Kogatrari kondatzen ahaliko lioke, beharbada, nehoiz, nehoi kontatzera **menturatu** ez zena? **Aurelia Arkotxa**

Ez nintzen ni goxotasun estetiko horietan **menturatzen**. **Piarres Aintziart**

-Hemendik **menturatzen** denak bide neketsua du. **Elena Touyarou**

Berrogei urteak bete arteraino, euskaraz idaztera ezin **menturatu** egona zela, arrunt frantximentua zeukalakotz bere burua, oharkabean bere izate guzira euskalduna zuela. **Piarres Aintziart**

"Dauden aseguru motak?", **menturatu** nintzen, ikusten bainuen bere paperen artean aseguru etxearen propaganda intsektuaren marrazkiarekin. **Bernardo Atxaga**

Nor ere **menturatzen** baita, dena espantu eta furfuria, ustez eta gauaz denak libro dituela, hori nekez da Gauekoren aztaparretarik eskapatzen eta sano sanoa etxera itzultzen. **Michel Oronoz**

### • 2 du ad

Beldur nintzen **menturatu** nuen oharra gaitzitu zitzaionez, baina irri egin zuen. **Piarres Aintziart**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ezin menturatu** (3)

## menturazale izond/iz abenturazalea.

Atlantiko berrogeitalau aldiz gurutzatu omen zuen tolosar **menturazale**, pilotazale eta poeta hura, antiklerikal samartzat omen zeukaten bere garaikoe. **Patziku Perurena**

Zaldun **menturazaleak** bitza ezpata eta babeskia erabil; maitaleak ez beza doan egin hasperen. **Juan Garzia**

Gaztaro **menturazalea**, unibertsitateko txantxak eta disziplina, aurreneko bihotz pilpirak emakume baten aurrean, lehen sexu jarduna ikasle gela itxi batean. **Felipe Juaristi**

Akaberan, bere begi eder **menturazaleekin** begira, galdegin zion: [...]. Garai haietan, **menturazale**, txerpolari, errekaite-saltzaile, buhame, ijito eta mota guztietako petral saldoek mukuratu betetzen zutela Amazonian sartzeko atari zen San Oximoron herria. **Patxi Zubizarreta**

## mentzio iz frantses unibertsitate sisteman, lehen hiru urteen ondoan egiten den espezialitate urtea.

Lizentziaturak bost urtekoak izatetik lau urtera moztuko omen dituzte eta lau urte hauetatik lehenengo hiruretan, orain arte bezalaxe, ikasketa orokorrak egingo dira [...] eta laugarrenean orain espezialitate izenarekin ezagutzen duguna, baina etorkizunean izendapena edo **Mentzioa** izango dena, frantsesez dagoeneko deitzen dioten bezala. Nolabait esateko, lehen aipatu dugun Gradua ikasketa-zentroan garatzen da, eta **Mentzioa**, enpresan bertan. **Berria - Gaiak**

## menu 1 iz jatordu bat edo jatatxe baten eskaintza osatzen duten jakien zerrenda.

Mahai bat hartu eta **menua** arretaz irakurri zuen. **Lopez de Arana**

**Menu** bera hartzen du beti: pateaz hasteko, confit bigarreneko eta gazta bukatzeko. **Ramon Saizarbitoria**

**Menua** hanburgerrek, patatek eta kola freskagarriek osatzen dute, neurri handi batean. **Berria - Kultura**

Aratsean, 20 eta erdiatarik landa, afaria, eguerdiko **menu** berarekin. **Herria**

Sagardotegiko **menua** ere badute, baina guk karta eskatu dugu. **Xabier Etxabe**

-Zure **menua** aukeratu nahi duzu? **Monika Etxebarria**

Deituko dizut sukaldetik zein **menu** dagoen esateko. **Bernardo Atxaga**

Goizeko bederatzia aldera tabernako sukaldera sartu eta eguerdian ematen dituzten **menuak** gertatzen ditu. **Paddy Rekalde**

Eskoletako jangeletan **menuak** hobetu dituzte eta elikagai desegokiak kendu eskoletako makinetatik. **Berria - Gaiak**

Eguneko **menua** hartzen dut, merkeena izaten baita. **Eskarne Mujika**

**Menua** bizkor-bizkor irentsi, eta nire printzerri bakartira abiatzen nintzen. **Iban Zaldua**

Errainaren jatetxea txikia zelako, **menu** merkekoa. **Unai Elorriaga**

Etxeiko **menua** da. **Xabier Olarra**

Jatetxe berria ireki ditek Arrantzale kalean: **menua** zortzi euro eta erdian. **Iban Zaldúa**

Kanpoan, bi gazte gelditu dira **menuaren** aurrean, zeina kartoizko sukaldari batek ezkerreko eskuaz erakusgai duen. **Monika Etxebarria**

-Manuell, **menuetarako** ardoa lehenbailehen! **Unai Iturriaga**

## 2 irud/hed

Ordenagailuak bere programen **menuaren** eskaintza koloretsua egin zidan. **Aingeru Epaltza**

Ostegunerako Zapaterok prestatu duen **menua** argia da, estatuaren kohesioa landu eta Espainiako erregeak eskainitako bazkariak apaindu. **Berria - Euskal Herria**

Telebistako **menuko** ikuskizunaren antzeko zerbait. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Andy klub horietako **menuan** ageri ziren emakumeetako bat zen. **Karlos Zabala**

## 3 (hitz elkartuetan)

Jatetxe txinatarraren **menu** -orriaren ondoan. **Iban Zaldúa**

**Menu** karta luzatu zidan eta berehalaxe aukeratu nuen afaria. **Joxemari Iturralde**

- Andrések ez ditu begiak eskuan zeukan edari-**menutik** jaso. **Lourdes Oñederra**

Imajina dezakezun sexu **menu** oparoena dastagarri. **Jon Arretxe**

menuet ik **minuet**.

menuetto ik **minuet**.

menuzer ik **benuzer**.

**mera** *iz ipar* auzapeza. ik **alkate**.

Beti miretsi izan dut Andrein Hazparneko **meraren** jauntasuna, bere isilean. **Marzel Etxehandi**

Sigala apeza, Périgueux-ko **meraren** axuanta. **Marzel Etxehandi**

Hor zen ere Kontseilu Nagusiko president Jean Jacques Lasserre, hemengo herrien elkarte horretako president André Darraidou Ezpeletako **meraren** inguruan. **Herria**

Ohore Loustaudaudine gure jaun **merari**. **Herria**

Buztintzeko edo Lexantzüren kasuan adibidez, jaun **mera** bera laboraria da. **Berria - Harian**

Gero jaun **merak** egin du bere hitzaldia. **Herria**

Anai Arteak Jean Grenet deputatu eta Baionako **mera** denari galdatu du presoan hurbilketarako doziera gain haietarat helaraz dezan. **Herria**

**meragai** (*corpusean meragei soilik*) *iz ipar* mera izateko hautagaia.

C.ñarrak, ezkerreko haütagei lista bakoitxaren egiteko: 15 sozialiste, 8 komüniste, Perez **meragei**, hiruna auzapez ordezko, haietan Labadot, bena lehena DALIER botikaria.

**Herria**

**merago** *iz ipar* auzapezgoa.

Erran behar da **meragoa** ützen düala Jean LOUGAROTezagünak, lüzaz edükirik, eta partitze horrek xorroxten dütü prefosta baten eta besteen letagiñak **Herria**

merendatu ik **meriendatu**.

**merendero** *iz* askalategia.

Ez oso urruti, **merendero** bat zegoen. **Jokin Muñoz**

Eskolako lagunei askotan kontatu die, harro-harro, **merenderora** joaten direnean aitak patata tortilla oso bat jaten duela. **Jokin Muñoz**

**merenge 1** *iz* arrautza zuringo irabiatuz eta azukrez egiten den gozokia.

**Merengea** egiteko erabili ziren arrautzak ere kutsatuta zeudela adierazi du Osakidetzak. **Berria - Euskal Herria**

Gustuko ditut ahabia-pastel ederrak, edo limoi-**merengezko** pastel gozoak. **Mirentxu Larrañaga**

Limoizko **merenge** -pastela jan bitartean. **Iñaki Mendiguren**

-Utziko al didazu **merenge** glacé bat hartzen, amatxo? **Lopez de Arana**

**2 jatorriz Karibekoa den dantza, oso bizia.**

Rocka badago sektore batzuetan, baina cumbiak, rumbak, **merengeak** dira nagusi. **Pako Aristi**

A zer-nolako geldotzarrak!, goazen biok **merenge** dantzatzera. **Patxi Iturritegi**

Geroreago, Imuntzo eta Beloki Gipuzkoar trikitilariak zenbait fandango eta **merenge** eskainiko dituzte, inork ez baitu lekuaren gainean geldirik egoiteko ideiarik ere izanen.

**Herria**

• **3 izond** Real Madrid futbol taldeari dagokiona.

Gaur egun, batez ere ikus-entzunezko komunikabideak aditu eta Eibarreko jokalariaik armeroak dira, Real Madrilekoak **merengeak** edo zuriak, Athleticekoak lehoiak, Atletico Madrilekoak koltxoneroak, Osasunakoak gorritxoak eta horrela etengabe. **Berria - Kirola**

**meretriz** *iz* prostituta.

Apollinaireren ama **meretriz** ezaguna da, azken urteak zinbelarena egiten eman baditu ere putetxe atarietan. **Iñigo Aranbarri**

merexi ik merezi.

mereximendu ik merezimendu.

merexitu ik merezitu.

**merezi** (*orobat merexi g.er.*) **1 izond/iz merezi dena.**

Zigor gogor eta **merezia** zela medio, inor ere ez zen hurbildu haren hiltamura begiak ixtera. **Monika Etxebarria**  
Jokamolde hau ez zetorren bat, inola ere ez, bere ospe onarekin, ospe **merezia** hala ere. **Jon Alonso**  
Horrexegatik ematen zaio [lurrari] **ama** izen **merezia**. **Xabier Amuriza**  
Mingainik lotzen ez eta asma ahala idazten duelako sona **merezia** bereganatu baitu gure poetak. **Patziku Perurena**  
Mendekatu eta **merezia** emango diedan arte, Israelen etsaiek lur jo dezaten arte. **Elizen arteko biblia**  
Bertzeak neronek aurkitu eta beren **merezia** eman bertze asmorik ez nuela karrikaratu ninduan etxeratu bezain agudo. **Aingeru Epaltza**  
Eta orduan, nor bere **merezia** jasoko du Jainkoarengandik. **Elizen arteko biblia**  
Bere **merezia** hartu dik: beraren eskuek ondua duk pozoia. **Juan Garzia**  
Gizakien jokabide guztiak begi-bistan dituzu, nori bere jokaeraren ordaina, bere egiteen **merezia**, emateko. **Elizen arteko biblia**

**2 (adizlagun baten eskuinan)**

Hori guztiagatik behar nizkizuke egin liskar hain bizi nola zuzen eta egoki **mereziak**. **Jon Muñoz**  
Especialistak opor ongi **mereziatan** zeuzkatela. **Aingeru Epaltza**

**3 iz merezimendua.**

Zure jainkotasuna jainkoarazten duten izarretako zeru-goiek eta zure duintasunak merezi duen **mereziaren mereziak**. **Patxi Ezkiaga**

**4 merezi izan du ad (norbaitek edo zerbaitek)**

Mila eta mila aldiz **merezi** izan dut heriotza. **Felipe Juaristi**  
-Nik ez dut honelako irainik **merezi**. **Lopez de Arana**  
Ez ote dugu salda xorta bat **merezi**? **Itxaro Borda**  
**Merezi** du gertatu zaiona. **Juan Kruz Igerabide**  
Gizonen esker ona **merezi** du bere gela ilun eta mesprezatutik egia onuragarrien hazia, luzaz fruiturik gabea, erein duen filosofoak. **Juan Martin Elexpuru**  
Bere aberriagatik hiltzen den gizonak gure laudorio guztiak **merezi** dituela. **Juan Martin Elexpuru**  
Arreta ez ezik, nolabaiteko begirunea ere **merezi** du ekimenak. **Iñaki Heras**  
Horrek guztiak, ordea, espantu guti **merezi** du, zeren eta, alde batetik, argi guti ekartzen baitu eta bestetik orobat gauza berarekin gauza bera adierazten baitu. **Piarres Xarriton**  
Nire egun on adeitsuak ez zuen erantzunik **merezi** izan. **Aingeru Epaltza**  
Zu bezalako gizonak zigorra besterik ez duzue **merezi**! **Patxi Zubizarreta**  
Esaldia - **merezi** du aitorten publiko bat- Joxe Landarena da. **Iñaki Segurola**  
Inork ez zuen uste ahaleginak **merezi** zuenik. **Karlos Zabala**  
Redinek eskuak astinduz adierazi zuen iritzi hark **merezi** zion fedea. **Bernardo Atxaga**  
Ez nauzue **merezi**, baina, hala ere, nik zuek salbatzeko lan astuna hartuko dut... **Anjel Lertxundi**  
- Beren bekatuek **merezia** ordaindu beharko dute, nire erabakiak mesprezatu eta legeak baztertu dituztelako. **Elizen arteko biblia**  
- Nire eta anaien heriotzaz, bare bedi gure herriaren kontra, ongi **merezirik**, Ahalguztidunak izan duen haserrea! **Elizen arteko biblia**  
ik merezita.

**5 (-tea osagaiaz)**

Hiltzea **merezi** dut. **Itxaro Borda**  
Eta zer egin, morroiak ahalegintzea **merezi** badu? **Karlos Zabala**  
Kabriok kabroi gisa tratatua izatea **merezi** dik frankotan. **Iñaki Segurola**  
Badakit hutsegitea mortala dela, eta jo-ta-bertan hiltzea besterik ez dudala **merezi**. **Iñaki Segurola**  
Festa bat da, gozamena, eta **merezi** du disfrutatzea, partekatzea eta behin eta berriz egitea. **Luis Elberdin**  
Adelarekin hitz egitera joatea ere pentsatu nuen [...] baina ez zuela **merezi** iruditu zitzaidan. **Juan Kruz Igerabide**

**6 (subjuntibozko osagaiaz)**

Harrika eman diezaguten **merezi** dugu. **Iñigo Aranbarri**  
**Merezi** al du Ahaltzuak zerbitza dezagun? **Elizen arteko biblia**  
Jakin ezazu, Elpides, deusek ez duela defenda dezagun **merezi**, salbu bizitzak. **Itxaro Borda**

**7 (objekturik gabe)**

Zurekin bat natorrenean baino ez banauzu maite, amodio horrek ez du **merezi**. **Joseba Zulaika**  
Gizonak ez dute **merezi**. **Lopez de Arana**  
Horrenbeste denbora elkar ikusi gabe eta **merezi** ez duten pertsoez ari gara. **Bernardo Atxaga**  
**Merezi** duenaren gainean oinarritzen ikasi behar duzu, eta gainerakoa alde batera uzten, gaitzetsi gabe gainera. **Juan Kruz Igerabide**

**8 (erabilera inpersonala)**

Ez du **merezi** borroka egitea, David. **Bernardo Atxaga**  
Orduan bakarrik **merezi** du idaztea. **Joseba Zulaika**  
**Merezi** al du horretan gastatzea dirua? **Pello Salaburu**  
**Merezi** du arazo hauek zehaztasun geometrikoz aztertzea. **Juan Martin Elexpuru**  
**Merezi** zuen halakoren batean, bateren batek gogora ekartzea. **Pello Zabala**  
Harrobi horiek Erromako hiririk hurbil baleude, **merezi** luke eraikuntza guztiak harri horrekin egitea. **Santiago Iruretagoiena**  
Deus ez denagatik eta inon ez dagoenagatik penatzerik ez dik **merezi**. **Iñaki Segurola**  
-Ez, ez du **merezi** baldintzarik jartzerik, jasoko duena betetzeko prest ez badago! **Pako Aristi**  
-Ez du **merezi**, mila esker. **Aingeru Epaltza**

**9 (laguntzailerik gabe)**

Uste dut, gainera, baten batek ez duela izan **merezi** adina aitortza eta fama. **Lourdes Oñederra**

Zapuztu egin dut eta munduko erregimenari ahaltsuenaren esku utzi, beraren gaitakeriak **merezi** bezala erabil dezan. Elizen arteko biblia

Semea kaskamotx etxeratu delarik, **merezi** bezalako zigorra ezarri dio, errebeldiaren izenean. Joxerra Garzia

Hainbeste gauza eman dizkit, nik **merezi gabe**, eta hainbeste gauza egiten ditut oraindik gaizki... Josu Zabaleta

Eta ezagutza hori **merezi gabeko** sufrikarioa izango bailitzateke halakoarentzat. Josu Zabaleta

## 10 merezi onez

Zeren, nahiz eta gogojardunetatik kanpo, bidez eta **merezi onez** bultzatuz, segur aski, pertsona zentzudun guztiak kontinentzia, birjinitatea, erlijioa eta ebanjelioko edozein bide bikain hautatzera, halaz ere [...]. Patxi Altuna

## 11 merezia izan du ad ik merezitu.

Juduen adiskide denak juduen patua **merezia** dik. Felipe Juaristi

Lizun gaixto batzuk ginela eta **merezia** genuela hura guztia. Joan Mari Irigoien

Funts-funtsean, **merezia** nuen: horra zer gertatzen zaien profanoei, tenpluaren ateen aurrean jostatzen geratzen direnei, tenplura sartu ordez. Juan Garzia

Ez zaitzala kezka ere jakiteak **mereziak** zenituen edo ez sufrikarioak. Joan Mari Lekuona

Saia zaitetz zoriotsu izaten, **merezia** duzu. Jesus Mari Mendizabal

Ongi **merezia** zuen hori, besteen erraiak zigor ugari eta ankerrez oinaztatu baitzituen berak. Elizen arteko biblia

Ondo **merezia** genuen zu galtzea, gurekin izan zaitugun bitartean, ez baikinaren arduratu zu ezagutzeaz. Askoren artean

Baina ongi **merezia** izango zenuen, hil izan bazintu! Iñaki Mendiguren

Berbera dator zuek salbatzera eta **merezia** duten zigorra etsaiei ematera. Elizen arteko biblia

Edo beharbada ez du domina zintzotasunez **merezia** duenik sinesten. Edorta Jimenez

Goza itzazu hain **mereziak** dituzun ondasun hauek eta zoriotsu izan zaitzezela. Patxi Zubizarreta

## 12 mereziago izan du ad

Batzuen ustez, erlijio kristauak **mereziago** du buria atxikimendua baino. Imanol Unzurrunzaga

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**ahaleginak merezi** (9); **ahaleginak merezi izan** (5); **aipamen berezia merezi** (23); **aipamena merezi** (5); **aipamena merezi du** (4); **aipatzea merezi** (9); **arreta merezi** (12); **askoz gehiago merezi** (6); **aztertzea merezi** (4); **benetan merezi** (14); **bizitzea merezi** (14); **egitea merezi** (9); **egiteak merezi** (6); **egotea merezi** (21); **entzutea merezi** (6); **errespetu osoa merezi** (6); **errespetua merezi** (17); **errespetua merezi du** (4); **errespetua merezi dute** (5); **etortzea merezi** (4); **euskal herriak merezi** (4); **ezagutzea merezi** (4); **galtzea merezi** (7); **garaipena merezi** (6); **gehiago merezi** (62); **gehiago merezi du** (6); **gehiago merezi izan** (10); **gehiago merezi zuen** (6); **gogoeta merezi** (4); **goresmenak merezi** (6); **goresmenak merezi dituzte** (4); **hartzea merezi** (5); **heriotza merezi** (23); **heriotza merezi du** (6); **heriotza zigorra merezi** (9); **herriak merezi** (8); **herriak merezi du** (4); **hiltzea merezi** (9); **hobea merezi** (13); **hobea merezi dute** (4); **ikertzea merezi** (4); **ikustea merezi** (13); **ikustea merezi izan** (5); **infernua merezi** (6); **irabaztea merezi** (15); **irabaztea merezi genuen** (4); **irabaztea merezi izan** (5); **irakurtzea merezi** (7); **izatea merezi** (33); **izatea merezi izan** (6); **izen hori merezi** (5); **izena merezi** (21); **jakitea merezi** (4); **jarraitzea merezi** (6); **kentzea merezi** (5); **kontatzea merezi** (7)

**merezi adina** (4); **merezi ahal izateko** (8); **merezi bezala** (19); **merezi bezalako** (7); **merezi dik** (20); **merezi ditu** (16); **merezi dituzte** (18); **merezi du** (390); **merezi du aipamenik** (4); **merezi du aipatzea** (5); **merezi du hainbeste** (4); **merezi duela** (111); **merezi duela esan** (5); **merezi duela uste** (5); **merezi duelako** (19); **merezi duen** (267); **merezi duen bakarra** (4); **merezi duen beste** (6); **merezi duen bezala** (13); **merezi duen garrantzia** (6); **merezi duen gauza** (4); **merezi duen lekua** (9); **merezi duen saria** (4); **merezi duen zerbaít** (13); **merezi duen zigorra** (7); **merezi duena** (50); **merezi duena jasotzen** (5); **merezi duenik** (16); **merezi dugu** (18); **merezi dut** (15); **merezi dute** (108); **merezi dutela** (25); **merezi dutelako** (11); **merezi duten** (76); **merezi duten bezala** (9); **merezi duten ordaina** (4); **merezi dutena** (10); **merezi dutenak** (14); **merezi duzu** (22); **merezi ez arren** (6); **merezi gabe** (23); **merezi gabeko** (9); **merezi izan** (215); **merezi izan du** (32); **merezi izan zuen** (50); **merezi izan zuten** (12); **merezi izango** (7); **merezi izatea** (7); **merezi izateko** (22); **merezi izatekotan** (4); **merezi luke** (18); **merezi nuen** (12); **merezi omen** (7); **merezi ote** (31); **merezi ote zuen** (15); **merezi zuela** (90); **merezi zuela uste** (5); **merezi zuen** (177); **merezi zuen bezala** (8); **merezi zuen saria** (5); **merezi zuen zigorra** (4); **merezi zuena** (17); **merezi zutela** (20); **merezi zutela uste** (4); **merezi zuten** (34); **merezi zuten bezala** (4); **merezi zutenak** (7)

**ordaina merezi** (4); **saria merezi** (15); **sartzea merezi** (8); **ustez merezi** (5); **zerbaít hobea merezi** (6); **zigorra merezi** (35); **zigorra merezi du** (7); **zinez merezi** (8)

**bere merezia** (9); **merezia baitu** (4); **merezia du** (6); **merezia eman** (5); **merezia emango** (4); **merezia zuen** (17); **ondo merezia** (24); **ondo merezia zuen** (5); **ongi merezia** (31); **ongi merezia du** (4)

**meretziko du** (8); **meretziko ez** (7); **meretziko luke** (26); **meretziko lukeen** (6); **meretziko zuen** (14); **meretziko zuten** (6)

**meretzita gainera** (6); **meretzita galdu** (4); **meretzita irabazi** (21); **meretzita irabazi du** (4); **meretzita irabazi zion** (4); **meretzita lortu** (9); **meretzita lortu zuen** (4); **ondo meretzita** (19); **ondo meretzita gainera** (4)

**meretzitako atsedena** (4); **meretzitako garaipena** (14); **meretzitako garaipena lortu** (9); **meretzitako omenaldia** (6); **meretzitako ordaina** (6); **meretzitako saria** (20); **meretzitako saria jaso** (10); **meretzitako zigorra** (14); **ondo meretzitako** (14); **ongi meretzitako** (10)

## mereziarazi, mereziaraz, mereziarazten dio ad

Horrek nahitaez heriotza **mereziarazten** zien. Xabier Kintana

Apaltasunaren harribitxiak egiten du distira haietako bakoitzarengan; eta honek, zerutik hartutako dohainak eta ondasunak gordetzeko ahalmena duenez, gainerako bertute guztiak **mereziarazten** dizkie. Askoren artean

Ez zen mantentzen bihitegi beteekin, ez mandio oparoeekin, ezta lur sail zabalekin ere, pobretasunarekin baizik, pobretasun berak zerua **mereziarazten** baitzion eta miragarriro elikatzen baitzuen munduan Askoren artean

## merezidun 1 izond merezi duena.

Gainerat Hemen elkarteak eskaintzen zuen makila enpresa edo elkarte **merezidun** bati. Herria

## 2 (-en atzikiaren eskuinean) ik merezient.

Jainkoaren etxerantz herrimikin ttikienarekin joaten dena ez da bidaia sainduaren grazia **mereziduna**, haren eskariak ez dira entzunak izateko duin eta merezi ere ez du merezi bila dabilen zoriontasuna. Patxi Zubizarreta

Orduan martirien argi-koroaren **mereziduna** zen. Jose Morales

## merezient izond merezi duena. (-en atzikiaren eskuinean) ik merezidun 2.

Ez zegoen guztiz argi nor zen lore horren **merezient**, epailea edo Javierito koitadua. Aingeru Epaltza

Saint-Justek zioen aski dela tronuan iraute hutsa, berehala dimititu eta monarkia bera desegin gabe, edonor izan dadin gillotinarene **merezient**. Markos Zapiain

Tentabidean egon nintzen atari inguruan barrandan gelditzeko, zer gizaseme klase ote zen jakitearren Kristinaren itxoinaldi amultsuaren **merezient**. Aingeru Epaltza

## merezigabe (orobat merezi gabe) izond merezi ez dena.

Haren nerbioetako ondoeza Cayenneko ameskeria luzeen esnaera besterik ez zen; hango sufrimendu **merezigabeen** aurrean izandako mindura irartzartzen zitzaion.

Karlos Zabala

Handik goiti hiru-lau aldiz baizik ez nintzen etxe horretara itzuli, eta denetan garai bateko adeitasun **merezi gabeaz** hartu ninduen emakumeak. Aingeru Epaltza

## merezigarri izond merezi duena. (-en atzikiaren eskuinean) ik merezient.

Hemen Straussen oharxko historiko bat izan liteke arta pixka baten **merezigarria** guretzat. Joxe Azurmendi

**merezimendu** (*orobat mereximendu g.er. eta meheximendu g.er.*) **1** iz sarirako edo ezagutzarako eskubidea; norbait merездiduen egiten duen zera. ik **meritu**.

Eta zer egon liteke ordenaz kanpo, Jaungoikoaren justiziak **merezimenduen** arabera tratatzen baditu zintzoak eta gaiztoak? **Imanol Unzurrunzaga**

Diruak ez dakar, besterik gabe, **merezimendurik**. **Patxi Zubizarreta**

Gurean, delako eginbeharra Anjel Urtxiapari zegokion **merezimendu** osoz. **Aingeru Epaltza**

Orain hain distiratsua ez den baina **merezimendu** gabekoa ere ez den lanaz jardungo dugu. **Ibon Uribarri**

Lau irabazle izan dira: [...], baina 6ak ere saristatuak izan dira, **merezimenduak** orok baizituzten. **Herria**

**Merezimendu** aski egina nuen damaren bihotzaren jabe izateko. **Aingeru Epaltza**

Orduko maisuek bazuten **merezimendu** haundia, ezen gobernuak ez zituen behar zenik ere pagatzen. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Teologiatik eta artzain bideetatik zuzen legearen hurrantzea izan da haren **merezimendu** handiena. **Piarres Xarriton**

Inork ez zituen Migel Mailuren **merezimendu** begi-bistakoak ukatuko. **Aingeru Epaltza**

Badakigu serioski entrenatzen direla eta horra orai beren **merezimenduen** saria hor dutela. **Herria**

Jesu Kristo gure Jaunaren **merezimenduetan** parte hartu dutenak graziako legearen pean heltzen dira zuzentasunera. **Piarres Xarriton**

-Halako ohore baten **merezimendua** ez da guretzat, ene jauna. **Patxi Zubizarreta**

Orain hain distiratsua ez den baina **merezimendu** gabekoa ere ez den lanaz jardungo dugu. **Ibon Uribarri**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mozkorti izena eranstean digute, eta zerrien pare gaituzte jartzen; eta, hain zuzen, horrek die kentzen gure lorpenei, nahiz gorenak izan berez, **merezimendu**-sonaren muin eta mamia. **Juan Garzia**

Ez digute inolako **merezimendu**-dominarik emango handiusteak, geurekoiak, burusoilak eta lodikoteak garelara onartzen ikasi dugulako, ez. **Xabier Olarra**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Badu orai 5 urte Greziako eskualderat joana dela eta han ere dudarik gabe lan handiak egin dituzke, zeren horgo buruzagiek eman baitote Nazio **merezimenduko** medaila. **Herria**

Giza **merezimenduen** mailadian. **Xabier Olarra**

## 4 merездiduz

**Merezimenduz** iritsi da Xala finalera, behe-behetik hasita gainera, are gehiago. **Berria - Kirola**

Coriak berak onartu zuen **merezimenduz** irabazi ziola tenislari frantziarrak. **Berria - Kirola**

**Merezimenduz** iritsi da Xala finalera, behe-behetik hasita gainera, are gehiago. **Berria - Kirola**

## 5 merездiduzko

**Merezimenduzko** saria, duela 10 urte sortu eta urte hauetan Euskal Herriko irakaskuntzan «erreferente» izatera iritsi den Hikhasi elkarteari eman diote. **Berria - Euskal Herria**

**Merezimenduzko** saria *Berria* egunkariarentzat izan zen eta oroigarria[...] Joxean Lizarribarrek jaso zuen. **Berria - Euskal Herria**

Andoaingo Udalak **merездiduzko** domina ematea erabaki zuen PSE-EE, PP eta EB-IUren botoekin. **Merezimenduzko** eskerrak hartze dituzte oraino bizi atxikitzen dituzten herriek, agian luzaz. **Berria - Euskal Herria**

Halere ez dio barkatu makearrak, **merездiduz** berdinduz eta eramanez ondarrean. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**badute merездiduz** (3); **merездiduz bakar** (4); **merездiduz handi** (3); **merездiduz handiak** (5); **merездiduz handiak badituzte** (3); **merездiduz handiko** (9); **merездiduz handirik** (3); **merездiduz osoz** (41); **merездiduz osoz irabazi** (6); **merездiduz osoz sailkatu** (3)

**santuaren merездiduz** (3)

**erregu eta merездiduz** (3); **frantziskoren merездiduz** (4); **merездiduz egotzi** (3); **merездiduz esker** (15); **santuaren merездiduz esker** (3)

**merездiduz irabazi** (7); **merездiduz lortu** (3)

**merездiduzko saria** (3)

## merездidugabe *izond* merездidurik ez duena.

Literatura hizkuntzak areagotu egiten du idazkeraren garrantzi **merездidugabea**. **Isabel Arrigain**

## merездita *adlag* merездirik.

Denbora gutxian bildua zuen, **merездita** bildu ere, izengoiti gaiztoa. **Juan Kruz Igerabide**

**Merezita** irabazi zuen atzo Alavesek. **Berria - Kirola**

**Merezita** edo merездi gabe, bakoitza dagoen lekuan dago orain. **Berria - Kirola**

A Santxo! ez uste hik **merездita** jaso duala jasotako mesedea. **Patxi Ezkiaga**

Neskazahar geratu ditun, eta ondo **merездita** gainera. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ongi **merездita** sufritu zuten beren gaiztakeriagatik, atzerritarrek ankerki gorrotatu baitzituzten. **Elizen arteko biblia**

Eta jende on-onen gizarte onak malko epel gezurrezko bat ixurtzen du mendizale zintzoaren heriotzan, eta nazka hotz egiako bat sentitzen jonki zikin pozoitua, ongi

**merездita**, nirbana ttipitik nirbana handi betikora irristatu eta hiltzera etzaten denean, metro pasatxoko hegaldi motz itsusian. **Iñaki Segurola**

## 2 merездita eduki.

**Merezita** daukat horrelako oilo batekin bazkidetzeagatik... **Lopez de Arana**

Teresak, 3. pisuko bizilagunak esaten zidan amorante bat bilatu behar nuela, **merездita** neukala; eta senarrak ere **merездita** zeukala. **Jasone Osoro**

Horren bila etorri zara, eta ondo **merездita** daukazu. **Jon Muñoz**

Beraz, berriz diot, lurak **merездita** dauka eman zaion ama izena, berak sortu baitzuen giza enda eta mendi zabaletan jauzika barreiatzen diren ia animala mota guztiak. **Xabier Amuriza**

Ondo-ondo ez da egongo, baina **merездita** dauka. **Iban Zaldúa**

## merездitu, merездi, merездitzen (*orobat merexitu g.er.*) **1** du *ad* merездi izan.

Kreatua izan zelarik ukan saindutasuna eta justizia galdu zituela Adamek bere lehen bekatuarengatik eta **merездitu** zuela haren gorputza eta arima mehatxatzen zituen heriotzaren gaztigua. **Piarres Xarriton**

Eman didaten konfiantza hori **merездitu** behar dut eta, beraz, borrokan jarraitu. **Berria - Euskal Herria**

Mauleko hogeitar bat andere dendarik [...] 200 jantzi inguru moldatu dituzte eta agerraldiaren amaieran ikusleek txalo zaparrada handia **merездituko** dute. **Berria - Kultura**

Konstituzioek diote lana eskubide bat dela, gaur egungo errealitateak **merездitu** behar dela dio. **Berria - Harian**

Jainkoak bere ganat deitu baitu, eman diezola **merezitu** betiereko pausua. Herria

**Merezitu** betiereko gozamina eman daiola jaun zerukoak. Herria

Titulu hori **merezitzeko** lanean dihardut azken hamabi urteotan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Txalo gehiago **merezitzen** da zenbait aldiz galduz, ezenetz irabaziz. Herria

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Orduan, halaber, gaur egun bezala, Bozek abiadura eraginkorra txalotu zuen mutikoaren adiskidantza itsu bezain **merezitua** segurtatuz. Itxaro Borda

Ekain undar huntan, bere eskolako puskak uzten ditu, erretreta **merezitu** baten baliatzeko. Herria

Laudorioka arizan baitira, laudorio **merezituak** dudarik gabe. Herria

## 3 *merezitua izan* du *ad* merezia izan.

Biderdi izanki eta **merezitua** dut baitezpadako ogitarteko alimalea, nagusiak berehala prestatu didana. Piarres Aintziart

Zeremonia ederra eta hunkigarria, berak **merezitua** zuen bezala. Herria

Jainkoa bortitza izanen da enetzat, eta **merezitua** dut. Elena Touyarou

**Merezituak** dituzte laudorioak dudarik gabe. Herria

Bai, **merezituak** dituzte bakantzak. Herria

Makila bat eskaini diote ongi **merezitua** zuena. Herria

## merezitzaile *izond* merezi duena.

Ibilera arin eta zalantzatiz joan zen basoko bidexka harrisuetan, zuhaitzen artean, ezein iraganbide mundutar [...] bere oinen **merezitzaile** ez bailitzan. Xabier Olarra

Zein Jainko nazkagarria! zein munstro handia! zein izaki zitala, gure gorroto eta mendeku gupidagabearen **merezitzailea**! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hator, maitea, hator, Sodomako sugarren **merezitzaile** izan nadila hire ipurdi bikainean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## meridiano *iz* zeruko nahiz Lurreko esferan, bi poloetatik igarotzen den zernahi zirkulu edo zirkulu erdi.

Geografoek asmaturiko **meridianoek** eta paraleloek sare bat zabaltzen dute lurraen inguruan. Joseba Sarrionandia

Bukharako Khanerria hogeita hamazazpigarren eta berrogeita batgarren paraleloen artean hedatzen da iparretik hegora, eta hirurogeita batgarren eta hirurogeita seigarren **meridianoen** artean ekialdetik mendebaldera. Karlos Zabala

la-ia **meridiano** berean daude Alexandria eta Rodas. Jon Muñoz

Washingtongo **meridianoa**. Xabier Olarra

Izan ere, Greenwichkoa ez baita **meridiano** bakarra. Berria - Kultura

Sen Georgeko uhartetik hurbil, berrogeita zortzi eta erdiko alturarekin iparreko **meridianoaren** aldetik. Aurelia Arkotxa

Tomsk dago **meridiano** horretan, hain zuzen. Karlos Zabala

Zehazki lurreko **meridianoaren** laurdenaren hamar milioirena neurtzen duela. Monika Etxebarria

## merienda 1 *iz* askaria.

Nork nahi du **meriendak** prestatzen lagundu? Xabier Mendiguren Elizegi

Esker onez, bilketan parte hartzen zutenei sagastian bertan **merienda** eskaini ohi zieten. Martin Anso

Bazkaldu gabe, orduan **merienda** egiten du. Pako Aristi

Bostetan bere **merienda** egiten zuen, arrautzak, errefauak eta sagar erreak, eta gauean salda batekin nahikoa izaten zuen. Joseba Urteaga

Bertan jaten dute **merienda**, eta loreak berdin-berdin erortzen dira euren katiluetara. Julen Gabiria

**Meriendaren** garaia du orain, itxura lañoaz jaten ditu ogia eta Gala Peter tableta bat. Monika Etxebarria

**Meriendako** ordua atseden-unea da mutiko potoloarentzat [...] horixe delako lasai eta bere kasa egon litekeen momentu bakarrenetakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 *afari-merienda*

Liburu-denda seietan itxi ostean, Tom, Lucy eta hirurok **afari-merienda** egitera joan ginen Second Street Cafe-ra. Oskar Arana

**Afari-merienda** eder bat egitea elkarrekin. Berria - Harian

Gutun bat idatzi nion Zuzendari txit agurgarriari nire lagun minenei **afari-merienda** bat eskaintzeko baimena eskatuz. Anjel Lertxundi

Gero etxejabeak **afari-merienda** ematen die langileei. Berria - Kultura

Arbelez egindako mahai biribil ederrean ematen omen zieten hamaiketakoa, **afari-merienda** edo dena delakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Nik horrelako bat egunero **afari-meriendan** jaten dut. Joanes Urkixo

## meriendatu, merienta(tu) meriendatzen (*orobat meriendatu*) du *ad*

Hantxe **meriendatu** zuten. Etorriko al zara **meriendatzera**? Arantxa Iturbe

Ettxera, nire maitearekin **meriendatzera**. Joxean Sagartzizabal

Bertan arratsaldea sagarrak biltzen pasatu ondoren, **meriendatzeko** unea iritsi zen. Martin Anso

Arratsaldero, amaitutakoan, etxera gonbidatzen ninduen **meriendatzera**. Agurtzane Juanena

Arratsaldero elkarrekin **meriendatu** eta solas egiten genuen. Agurtzane Juanena

## merinake (*orobat miriñake*) *iz* gona harrotzeko, haren azpitik gerrian loturik, jartzen zen armazoa edo egitura.

Bestela bezala, azaletik ukitu zuen ilehoria bere soinekoaren azpiko **merinake** zabalaz. Jose Morales

Gona, berriz, gerriaren inguru guztian estu bildurik eramaten da, antzinako **merinakeak** bezala, eta kotoi pixka bat sartzen da atzeko aldean, oihala puztu-puztu eginak gera dadin. Jose Morales

Dama batek hain **merinake** zabalera eraman zuen mezatarra soinekoaren azpian, ezen soinekoak eliza erdia betetzen baitzuen. Jose Morales

Emakumeen dantza arropa desberdinekin **miriñake**, tula edo tutu. Berria - Kultura

## merinalde (*Euskaltzaindiaren Hiztegian merindade agertzen da*) *iz* merindadea.

Maria Angeles Larrauri Durangaldeko **Merinaldeko** presidentea. Berria - Kultura

Seigarren **merinaldetik** Haraindik Bortu gainetik, "Ultra Puertos"-etik zetorren Baigorriarrari. Herria

**merindade** *iz* Hego Euskal Herrian eta Espainiako beste lurralde batzuetan, merioaren mendean zegoen herrialde edo bailara. ik **merinerri**.

1966an sortu genuen Gerediaga Durango **Merindadeko** Adiskideen Elkarte. Berria - Kultura  
Nafarroako **merindade** zaharren arabera sailkatuko dute proiektua, Nafarroa Beherea barne. Berria - Harian  
Olague, Anue Udalerriko hiriburua da, Iruñeko **Merindadean**. Berria - Kirola  
Tuterako **Merindadean** erroldatu gabe bizi ziren ijitoen aurkako agindua atera zuten. Berria - Harian  
Ultra-Puertoseko eta Lizarrako **merindadeek** izendatze hori ohore bat bezala hartu behar dutela. Michel Oronoz  
Asturiarra, Trasmiera **merindadeko** Isla herrikoa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
**Merindadeen** plazarako bidean, Carlos III.a etorbide osoa bete zuten elkarretaratzean ziren lagunek. Berria - Euskal Herria

**merinerri** *iz* merindadea.

Nafarroako **merinerriak**, euskararen historia, antropologia, etnografia eta folklorea. Berria - Kultura  
Erriberriko **Merinerriari** buruz liburuk izango dira ugarienak: hamar denera. Berria - Kultura

merino<sup>1</sup> ik **merio**.

**merino**<sup>2</sup> **1** *izond* ardiez eta kidekoez mintzatuz, ile fin, kizkur eta oso leuneko arrazakoa.

Adibidez, Los Remedios deitu campoa ardi **merinoak** (Rambouillet arrazakoak) Frantziatik ekararaziak zituzten. Herria

**2** *iz* ardi merinoa.

Kolpe bakoitzean, haren **merino** artile beltzeko soinekoa gora zetorkion pixka bat bizkar aldean, eta kortsearen balea bizarrak markatzen zitzaizkion gerruntzearen ehun tinkatuan. Karlos Zabala  
Gero, dibanean eroso eseri, **merino** -ilezko sorbalda-oihalean bildu, eta handik aurrera ez zuen gehiago begirik kliskatu ez bekainik higitu. Jose Morales

**merio** (*2* agerraldi *2* liburutan; orobat **merino 24** agerraldi *6* liburutan; *Euskaltzaindiaren Hiztegian merio agertzen da*) **1** *iz* Espainiako lurraldeetan, erregeren izenean herrialde batean epaitze lana egiten zuena.

Denbora hartan **merinoa** zen erregearen ordezkaria. Berbetan, kalakan aritzeko tokia izango zen ate ingurua, **merioak** egurrean katigaturiko eskribauaren agiriaz gaizki esaka jarduteko, gezurrei gezurrak eransteko besterik ez bazen ere. Michel Oronoz  
Lizarrako **merino** izendatu zuen 1451n Nafarroako errege zen Jean II.a Aragoikoak. Michel Oronoz  
Nafarroako mendialde guziko **merino** izandua. Patziku Perurena

**2** udal enplegatua, alkatearen aginduak betearazten dituen.

Azkoitiian **merixuak** dira, **merinoak** alegia, Erdi Aroko atea kukuka zabaldu eta herrien antolaketa zibilaren zaindariaren ondorengoak kaleetan gora eta behera dabiltzanak oraindik ere. Iñigo Aranbarri

merito ik **meritu**.

**meritu** (*orobat merito g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian meritu agertzen da*) **1** *iz* merezimendua.

Haiena izan zen konparaketaren emaitza guztiak ikuspegi historiko batetik aztertzeko, eta horrenbestez, gertaerak beren ordena naturalean kateatzeako **meritua**. Isabel Arrigain  
Maitatzea ez da aski izango koroa bururatu ahal izateko, maitatua izateko **merituak** ere egin beharko dira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
Legearen arabera, euskara jakitea **meritua** baino ez da. Berria - Euskal Herria  
**Meritua** eta epikotasuna ez dira gauza bera. Lander Garro  
Niri dagokidanez, istorio ile-lazgarri baten inguruko esanak ondo jasotzea eta ordenatzea izan dut **meritu** guztia. Anjel Lertxundi  
Gu duin egiten gaituena ez dator inola ere giza egintzetatik, ez geure **meritutik**. Eta hura ontziaren **meritua** ez bazen, jabearena izango zen. Joan Mari Lekuona  
Hor ezagutuko dituzu nire ametsak eta lainezak, nire damuak eta mamuak, nire **merituak** eta delituak. Joxerra Garzia  
Horixe du **meritu** nagusi, pazientzia. Anjel Lertxundi  
Alaia izatean bazuen **merituri**, herrena baitzen. Gotzon Garate  
Haiena bai **meritua**! Jokin Urain  
**Meritua** ez zen berea, baina. Berria - Harian  
Bueltan hainbat domina ezarri zizkieten, tartean, Legioaren **Meritua** eta Brontzeko Izarra. Berria - Mundua  
Joseba Pagazaurtunduari [...] **Merituaren** domina ematea erabaki zuen atzo Andoaingo Udalak. Berria - Euskal Herria

**2** (izenondoekin)

Horretan datza bertso honen **merituri** handiena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua  
**Meritu** handiko gizon horiek ikuskeraren sakontasuna aurkezpen argi baten trebetasunari lotzen diote. Ibon Uribarri  
Lan harrigarria eta **meritu** handikoa. Berria - Kultura  
Aldizkari honen **meritu** nagusietako bat 34 idazle berriren lanak biltzea da. Berria - Kultura  
Bizkaitarrak beti aitortuko dizu, giputz hori, pianoa behatzekin jotzeak **meritu** ikaragarria duela. Iñigo Aranbarri  
Ez da **meritu** moralik ez intelektualik. Juan Garzia  
Lehengo astean Moncloan **meritu** konstituzionalaren domina jaso zenuen. Berria - Euskal Herria  
Bideetako, Ubideetako eta Portuetako Ingeniarren Elkargoak Espainiako **Meritu** Profesionalaren sari nagusia eman dio Rebollori. Eduarne Elizondo  
Eta ez da horixe **meritu** eskasa ikusi ziren gordinkeriak ikusi eta gero. Karlos Linazasoro  
Ez du **meritu** makala lehiaketa hori irabazteak, epaimahaiak 5.201 lanen artean egin behar izan baitu aukera. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Meritu** -lehiaketa batean parte hartu behar izan nuen. Joxerra Garzia  
Goitik beherako **meritu** -hurrenkeran. Iñaki Mendiguren  
Munduak maizago saritzen du **meritu** iduria, meritua bera baino. Joan Mari Irigoien



Itun Zaharra -gero eta argiako erlijio eta historiaren aldetik **meritu** -maila desberdineko giza konposizioen bildumatzat [...] ikusten zena- [...]. **Iñaki Mendiguren**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herriak ez ditu literatura **merituak** aintzat hartzen, festaren alderdi nabarmen batzuk azpimarratzen diren suhertasuna, tonua eta erraztasuna baizik. **Askoren artean**

Kirol **meritu**en arabera erabakitzen al dute nor gonbidatu? **Berria - Kirola**

Polizia **Meritu**aren Zilarrezko Saria eman zion PPren Gobernuak. **Berria - Harian**

Itsas **Meritu**aren Domina eman diezazueten eskatuko diat. **Edorta Jimenez**

## 5 merituz

Frantzisko santuaren **merituz** berpizturiko hildakoak. **Askoren artean**

Oihanera joan nahi baina ezin izan zuela: ez indioen erruz baizik eltxoen **merituz**, ia akabatu baitzuten beren koskada eta helduz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Frankoen ikuspegitik, bizantziarrak mandarinak ziren, haien gurari barregarriak ez zeudelarik ez **merituz** justifikatuak, ez indarrez babestuak. **Iñaki Mendiguren**

Idazle handiak beti izango dira handi, ez beren famaren indarrez, ezpada beren lanaren **merituz**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 6 merituzko

Egon daitezke Lauréamont bezalako idazleak eta baita Musset bezalakoak ere, eta biek egin ditzakete, txit leku desberdinetatik abiatuz, **merituzko** nobela edo poemak.

**Bernardo Atxaga**

Estatuari eta demokraziari eginiko **merituzko** zerbitzuak. lan honetaz jabetu diren **merituzko** gizonengandik itxaron beharko dut hasieran ia nahitaezkoak ziren iluntasunak argi ditzaten, baita egitasmo osoaren aldeztaille bihur daitezen ere. **Ibon Uribarri**

Irabaztea lehen eta orain zaila, gogorra eta **merituzkoa** da, baina datuak ongi irakurri behar dira ondorioak atera aurretik. **Berria - Kirola**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**beste merit**u askorengatik (4); **beste merit**u bat (3); **meritu bakarra** (3); **meritu egin** (12); **meritu gisa** (3); **meritu guztia** (5); **meritu guztiak** (4); **meritu handia** (18); **meritu handia du** (5); **meritu handi**agoa (11); **meritu handi**agoa izango (3); **meritu handiko** (31); **meritu handiko garaipena** (5); **meritu handiko lana** (3); **meritu handi**koa (9); **meritu ikaragarria** (4); **meritu itzela** (3); **meritu makala** (8); **meritu nagusia** (4); **meritu nagusietako bat** (3)

**badu merit**ua (11); **badute merit**ua (3); **meritua aitortu** (4); **meritua aitortu behar** (3); **meritua da** (8); **meritua du** (7); **meritua izan** (3); meritua izango (4); **zer merit**ua (4)

**egoteko merit**uak egin (3); **irabazteko merit**uak (3); **izateko merit**uak (3); **jarraitzeko merit**uak (3); **kirol merit**uak (5); **lortzeko merit**uak (3); **lortzeko merit**uak egin (3); **merit**uak egin (14); **merit**uak egiten (10); **merit**uak egiten ari (6)

**meritu**aren **domina** (5)

**dohatsu**aren **merituei esker** (3); **frantziskore**n **merituei esker** (4); **haren merituei esker** (6); **merituei esker** (18)

**kirol merit**uen (5); **meritu**en arabera (7); **meritu**en arabera**koa** (3)

**bere merit**uengatik (4); **frantzisko dohatsu**aren **merit**uengatik (4); **kirol merit**uengatik (3); **santu**aren **merit**uengatik (4)

**santu**aren **merituz** (3)

## meritudun izond meritua duena.

Gauza bat ez da txarra edo ona izango, **merituduna** edo meritugabea baino. **Lander Garro**

Horiek egiten dutena **merituduna** da, neurri guztiak baino areago. **Joan Mari Lekuona**

## meritugabe izond meriturik ez duena.

Gauza bat ez da txarra edo ona izango, merituduna edo **meritugabea** baino. **Lander Garro**

## merkadeo iz salerosketan aritzea.

Onartuko ez dugun bezala inor gure eskubideekin **merkadeoan** ibiltzerik. **Berria - Euskal Herria**

## merkadoteknia iz marketinga.

**Merkadotekniak** esaten digu nori zuzendu idatzitakoa (adina, sexua, kultura maila...) eta publizitateak nola ezagutarazi. **Berria - Kultura**

Dimitri Piterman presidentea zuzendaritzako hiru kide kaleratzea erabaki du Radio Vitoriak atzo jakinarazi zuenez: Alfonso Arriola Fundazioko presidentea, Francisco Liberal finantza zuzendaria eta Roberto Ortiz Urbina komunikazio eta **merkadoteknia** arduraduna. **Berria - Kirola**

## merkaduria iz salgaia, salerosgaia.

Hara orduko, **merkaduriak** abere gainean paratu eta Kulzum aldera. **Patziku Perurena**

Supermoderno eta postmoderno eta progre bezala saltzen zaigun azken-garrasi **merkaduria** asko eta asko, tradizio kontserbakor hobereneko zapi zaharrak baino ez direla.

**Joxe Azurmendi**

## merkagune ik merkaturgune.

## merkaldi ik merkealdi.

## merkante 1 izond merkataritza-.

Garabi handien besoak ontzi **merkanteen** gainean makurturik zirkinka ari dira, zamak deskargatzen edo kargatzen. **Joseba Sarrionandia**

## 2 merkataritza ontziko.

Denok egiten diogu zuka Manterolari, kapitain **merkantea** da eta gu analfabeto hutsak. **Koldo Izagirre**

## • 3 iz merkataritza ontzia.

1937ko martxoan Baionatik Bilbora **merkante** batekin zetorrela, *Ferrol* destruktore frankistak eraso zien. **Joseba Sarrionandia**

Eta ondo ikusi genuen itsasoaren bandatik ontzi **merkante** hura heltzen, portuaren ahotik presaka eta ozta-ozta sartzen, bere branka burdinazko animalia handi baten burua balitz bezala nasaren kontra jotzen. **Joseba Sarrionandia**

Alai hasi zitzaion bat-batean Antonia ostatuko bezeroen berri ematen, goiz hartan bertan bete baitzituzten gela guztiak, **merkante**ko tripulazio ia oso baten kontura. **Josu Landa**

## merkantil 1 *izond* merkataritzari dagokiona.

Gai horiei balio **merkantil** bat eman beharko zaie eta merkaturian sartu, bai zergen bidez bai saleros daitezkeen kutsadura baimenen bidez. **Iñaki Heras**

Gutizia bat zena objektu **merkantil** gisa ikusten dugu. **Berria - Kultura**

### • 2 *iz*

**Merkantilek** zein haiek ordezkatzen dituzten pertsonak euren uste osoa agertu dute, euren zein prozesuan inputaturik diren gainerakoek ez dutela inoiz zerikusirik izan ETaren delitu jarduerarekin. **Berria - Euskal Herria**

Egunkaria SA eta Egunkaria Sortzen SL **merkantilien** eta Euskaldunon Egunkaria kazetaren itxiera beste lau hilabetez luzatzea erabaki zuen atzo Espainiako Auzitegi Nazionalak. **Berria - Euskal Herria**

## merkantilismo 1 *iz* estatuen oinarritzko aberastasuna metal preziatuen pilaketarekin lotzen duen sistema ekonomikoa.

Estatuak bizitza ekonomikoan modu sistematiko eta koherentean aurrenekoz parte hartu zuen alditzat har daiteke **merkantilismoa**. **Koro Navarro**

**Merkantilismoak** printzearen zerbitzura zegoen merkataritza-klasearen interesak aldeztzen zituen. **Koro Navarro**

Merkatarien eta estatuen arteko ituna **merkantilismoaren** garaian osatu zen. **Koro Navarro**

Doktrina liberala, ez da harriztekoa, nazio hegemonikoetan [...] gorpuztu zen, **merkantilismoaren** kontrako erreakzio moduan. **Koro Navarro**

### 2 irabaziak lortzea beste balioen gainetik jartzea.

Baina hori ordezkatzeko erabilitako irizpidea ez da askoz hobea, lan politikei buruzko ikuspegiak **merkantilismoa** baitu jomuga bakarra, elkartasuna bazter utzita. **Berria - Euskal Herria**

Ez dago **merkantilismo** hutsala, artearen inguruan? **Berria - Kultura**

Hori da nire erronkarik handiena: sortzeko gaitasuna ez galtzea eta **merkantilismoan** ez erortzea. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**merkantilismoaren garaian** (4); **merkantilismoaren garaiko** (3)

## merkantilista 1 *izond* merkantilismoari dagokiona.

Eskola **merkantilistak** baino askoz modu finagoan, Ricardoren ekonomia politikoak interes jakinak lortzeko helburuaz bakarrik begiratzen dio nazioarteko ekonomiari. **Koro Navarro**

Iraultza **merkantilistak** bateratu zituen barneko merkatuetan. **Koro Navarro**

### 2 irabaziak lortzea beste balioen gainetik jartzen duena.

Sena batetik, eta ikuspegi **merkantilista** ere izan zuela bestetik esango nuke: erromeria zuen bere lantoki, han irabazi behar zuen hurrengo urterako deia, eta erromeria esatea, garai hartan, dantza esatea zen. **Pako Aristi**

Baina ez da hori gertatzen, liburuaren autorearen promozio medioa bilakatu baita; liburuak gaurko gizartean produktu **merkantilistaren** estatutua baitu, bere "feria" edo merkatu handi eta txikiekin. **Ana Urkiza**

### • 3 *iz* merkantilismoaren aldekoa den pertsona.

**Merkantilista** gehien-gehienek bazekiten biztanleria ugaria eta langilea, lur emankorra eta klima egokia, manufaktura eta itsas armada aktiboak zirela aberastasunaren benetako sorburua eta bermea. **Koro Navarro**

**Merkantilisten** estrategia barne-ekoizpena sustatzea zen, inportazioen kontra hura babestuz eta esportazioak indartzuz. **Koro Navarro**

## merkantilizatu, merkantiliza, merkantilizatzen du *ad* irabaziak lortzea beste balioen gainetik jarri.

Polanyik *The Great Transformation* liburu handian maisuki azaltzen duen legeaz, kredo honek gizakia eta bere ingurunea **merkantilizatu** zuen. **Iñaki Heras**

## merkantilizazio *iz* merkantilizatzea.

Jaia egoera kritikoa dago; **merkantilizazioaren** menpe erortzeko arriskua du. **Berria - Euskal Herria**

Bestetik, zaintzaren **merkantilizazioa** gertatzen ari da, geure beharrak merkatuen bidez asetzen baititugu, eta horrek arazoak sortzen ditu; horiez gain, zaintza moduak aldatzen ari dira. **Berria - Euskal Herria**

Aurreneko zatiak etxebizitza «urratutako eskubidea» dela dio, «**merkantilizazioak**» nahiz «espekulazioak» menperatua, sektore pribatua «aberastearren». **Berria - Euskal Herria**

Besteak beste, unibertsitateen «**merkantilizazioa**» eta «**privatizazioa**» aipatzen dituzte IAKo ikasleek. **Berria - Harian**

## merkantzi ik **merkantzia** 2.

## merkantzia (304 agerraldi, 49 liburu eta 88 artikulutan; cf **salgai** 993 agerraldi, 110 liburu eta 540 artikulutan –**salgai egon-en** 132 agerraldiak barne-) 1 *iz* salgaia, salerosgaia.

**Merkantzia** hori ez dago salgai! **Patxi Zubizarreta**

Bien bitartean, François andreak bere **merkantzia** ia guztiak saldu zituen. **Karlos Zabala**

Zamaketa-riak, zaldiak, gameluak, astoak, ibai eta itsas ontziak, gurdiak, **merkantziak** garraiatzeko balio duen guztia merkatu hartan pilaturik zegoen. **Karlos Zabala**

33,2 milioi tona **merkantzia** eta 500.000tik gora edukiontzia kudeatu zituen iaz [Bilboko Portuan]. **Berria - Ekonomia**

Bistan da ezen, estuarioko ertzetik hain gertu egonik, Porta de Ferrok balio behar zuela, batez ere, pertsona eta **merkantzien** ibai-garraiorako. **Jon Alonso**

Lana eta lurra, gizakia eta ingurugiroa, nekez izan daitezke ekoizpen faktoreak edo **merkantziak**, azken batean bizitza bera baitira. **Iñaki Heras**

Han trenak etengabe pasatzen dira herriaren erditik, batzuek jendea eramaten dute, beste batzuek berriz **merkantziak**. **Jon Maia**

Portuaren irabaziei %50eko ekarpena egiten dieten **merkantzien** tasak %18 jaitsi dira. **Berria - Ekonomia**

Zure **merkantziak** lehorreratzean, herri asko hornitzen zenuen; zeure ondasun eta **merkantzia** ugariz munduko erregeak aberasten zenituen. **Elizen arteko biblia**

**Merkantzia** ustela hornitzaileari itzultzeko. **Koldo Izagirre**

Zilarrak, metal gisa, balio bat du beste **merkantzia** guztiak bezala; eta balio bat du, halaber, beste **merkantzien** zeinu izan daitezkeen aldetik. **Iñaki Iñurrieta**

Ura, eskubide unibertsala ala **merkantzia** pribatua? **Berria - Gaiak**

Masa-kulturaren ikuspegi kritikoa adierazten digu ikuskizun-merkatu erraldoiak abiadura handian mugitzeko gai diren **merkantziak** bakarrik onartzen dituela, zentzurik edo

edukirik ez badute ere. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Eros-a sexu hutsera mugatu da eta [merkantzia](#) bihurtu da, erosi eta saldu daitekeen objektua. [Berria - Gaiak](#)

Informazioa, talde mediatico handien kasuan, [merkantzia](#) bihurtzen da. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Merkatua da askatasun oso bakarra: gizakiak saldu eta erosteko eskubidea, [merkantzia](#) bihurtzeko askatasuna. [Berria - Mundua](#)

Pertsonak balio absolutua du, ez da [merkantzia](#) bat: ez du preziorik, duintasuna baizik. [Berria - Kultura](#)

[Merkantzia](#) hutsa zarete. [Koldo Izagirre](#)

## 2 (hitz elkartuen lehen osagai gisa; orobat [merkantzi](#))

Champagne zen Ekialde eta Mendebalde arteko merkataritza-trukerako erdigune nagusia, eta italiar merkatariek [merkantzia](#) -trafikoaren eragile nagusiak. [Askoren artean](#)

Bilboko portuko [merkantzia](#) trafikoa %23 hazi da azken sei hilabeteetan. [Berria - Ekonomia](#)

Behiala [merkantzia](#) sartu-irten eta jarduera handia izan zuten lokal orain hautsezatu eta leihorik gabeak. [Harkaitz Cano](#)

Soilik [merkantzia](#) kamioiei uzten diete pasatzen. [Berria - Gaiak](#)

Gero, jada zutik, [merkantzia](#) bagoian bermatu zen arnasesetuka. [Lopez de Arana](#)

Abu Muslimeko [merkantzia](#) geltokian zegoen konboi bateko 51 bagoiak lokomotoretik askatu ziren. [Berria - Mundua](#)

Mutrikun, kirol eta [merkantzia](#) portu baten eraikitzeaz eztabadak zabaltzen ari dira. [Herria](#)

Enpleguak iristen ziren beren kontu liburuekin, eta [merkantzi](#) igorleen agenteak, larruzko zorroa lepotik zintzilik, dirua noiz jasoko zain zeuden. [Karlos Zabala](#)

Ez da juzgatu behar Europa estatu partikular bat bailitzan, [merkantzi](#) ontziteria berak bakarrik egingo lukeen estatua. [Iñaki Iñurrieta](#)

## 3 (hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Ematen du ibaiaren beroa senti daitekeela, banana eta kafe [merkantziak](#) gordetzen dituzten biltegietatik harago. [Xabier Paya](#)

Greziako Itsas [Merkantzia](#) Ministerioak. [Berria - Mundua](#)

## 4 droga.

Jonkiek erositako [merkantzia](#) probatzen duten lekuan. [Sonia Gonzalez](#)

## 5 [merkantzia-ontzi](#) (orobat [merkantzi ontzi](#) eta [merkantziontzia](#); **18** agerraldi, **4** liburu eta **4** artikulutan) merkataritza ontzia.

[Merkantzia ontzi](#) handi batek hondoratu zuen Bugalede Breizh arrantzontzia. [Berria - Mundua](#)

Dublin eta Holanda artean jarduten zuen [merkantzia-ontzi](#) bateko kapitaina zuen senarra. [Irene Aldasoro](#)

Urertzean garabiek, roboten antzera baldar, euren atzapar erraldoiak sartzen zituzten [merkantzi ontzietan](#). [Rafa Egiguren](#)

Hiru gizonak ezkutuko bidaiari gisa hartu zuten Casablancan (Maroko) Panamako bandera zeraman [merkantzia-ontzia](#). [Berria - Euskal Herria](#)

## 6 [merkantzia-tren](#) (orobat [merkantzi tren](#))

[Merkantzia tren](#) asko dago geldirik geltokian. [Pako Aristi](#)

[Merkantzi trenea](#) zen, bagoiak adreiluen gorri bizikoak eta goitik eta alboetatik itxita. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

New York Central-eko trenbidean atzeraka zetorren [merkantzi tren](#) batek harrapatuta. [Lopez de Arana](#)

Beste hamaika [merkantzia tren](#), beste milaka auto-stop kilometro zain zituen New Yorkera itzuli aurretik. [Harkaitz Cano](#)

[Merkantzia-trenetan](#) ezkututzen nintzen; kamioi-gidariekin bidaiatzen nuen. [Eskarne Mujika](#)

Beste [merkantzia-tren](#) bat pasatzen da, aurrekoa baino luzeagoa, arratsaldearen hilzoria luzatu nahi balu bezala. [Pako Aristi](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[merkantzi tren](#) (5)

[merkantzia asko](#) (3); [merkantzia bat](#) (3); [merkantzia bihurtu](#) (3); [merkantzia gehiago](#) (3); [merkantzia hutsa](#) (4); [merkantzia kopurua](#) (3); [merkantzia ontzi](#) (4); [merkantzia tren](#) (10); [merkantzia tren bat](#) (4)

[bidaiariak eta merkantziak](#) (3); [merkantziak ateratzeko](#) (8); [merkantziak garraiatzeko](#) (10); [portuko merkantziak](#) (3); [portutik merkantziak ateratzeko](#) (3)

[merkantzien garraioa](#) (6); [merkantzien garraiorako](#) (6)

## merkantziontzi ik [merkantzia](#) 5.

## merkarazi (orobat [merke arazi](#)) merkaraz, merkarazten du *ad*

Katearen zuzendariak prezioak [merkarazi](#) zizkidan eta, enpresa ez kaltetzearren, murriztu ere egin behar izan nuen neure portzentajea. [Joxan Elozegi](#)

Morala sarraskitua izan dela, herri erkidego batek prezioak putinka hupatzen lagundu baititu, [merke arazteko](#) tresnak baliatzeko ordez. [Herria](#)

## merkatal (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; forma hau ez da agertzen Euskaltzaindiaren Hiztegian) **1** iz merkataritza-

Holandarren [merkatal](#) konpainiak mundu osoan zabalduak baitziren. [Felipe Juaristi](#)

75 milioi kontsumitzaile gehiago edukiko ditu EBk; [merkatal](#) hartu-emanak sano handituko dira. [Berria - Ekonomia](#)

Hiriak [Veneziak] Ekialdeko bidean portu asko baitzituen eta [merkatal](#) harreman zuzenak Txina urrutikoraino. [Felipe Juaristi](#)

Bera zen [Merkatal](#) Marinako Pertsonen eta Transmisioen Arduraduna. [Edorta Jimenez](#)

## 2 [merkatal ganbera](#) (orobat [merkatal ganbara](#)) merkataritza ganbera.

Berckmans [Merkatal Ganbarako](#) buruak solasaldi bat ukan zuen Henri Emanuelli, Landesetako departamendu buruarekin. [Herria](#)

Bestalde, Baionako [merkatal-ganbera](#) ere ari da Itsas-Begiarentzat toki bat berexi beharrez. [Herria](#)

Muntadura berri horiek gosta dira 150.000 euro, gastua [merkatal-ganberaren](#) kondu, laguntza berezi batzu ukanik haatik hortarako. [Herria](#)

Euskal Herriko [merkatal Ganbararen](#) biltzar nagusiak 80 presuna bildu ditu joan den egunean. [Herria](#)

Gure [Merkatal Ganbarak](#) hamabost enpresa erakarri ditu Iparraldera joan den urtean. [Herria](#)

## 3 [merkatal gune](#) ik [merkatalgune](#).

## 4 [merkatal ontzi](#) ik [merkatalontzi](#).

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[baionako merkatal ganbaran](#) (6); [baionako merkatal ganbaran](#) (3); [merkatal ganbara](#) (9); [merkatal ganbarak](#) (29); [merkatal ganbarako](#) (17); [merkatal ganbaran](#) (25); [merkatal ganbararen](#) (6); [merkatal ganbaren](#) (3); [merkatal ganberak](#) (3); [merkatal ganberan](#) (7); [merkatal itsasontzi batean](#) (3)

## merkatalgintza iz merkataritza.

[Merkatalgintza](#) marinel sartu zela entzun dut beti! [Itxaro Borda](#)

## merkatalgoa iz merkataritza.

Inork bere burua handi eta aberats ikusi nahi badu, bihoa Elizara, edo **merkatalgoan** aritzera itsasora, edo erregeengana beren etxeetan zerbitzera. **Juan Kruz Igerabide**  
Euskal Herrian garai haietan hiri nagusiak ziren guneetan egiten zen literatura, **merkatalgoa** zegoen lekuetan eta ez baserri giroan. **Berria - Kultura**

## merkatalgune (6 agerraldi, 2 liburu eta 3 artikulutan; cf merkataritza 77 166 agerraldi, 10 liburu eta 94 artikulutan; merkataritzagune 7 agerraldi, 3 liburu eta 2 artikulutan) iz merkataritza gunea.

Hiritik ehun bat kilometrora, **merkatalgune** handi batean erosketak egiteko eta bazkaltzeko geratu garenean, [...]. **Patxi Zubizarreta**  
Gasteizko Boulevard **merkatalgunea** Herbehereetako ING taldeari saltzeko asmoa. **Berria - Ekonomia**

## merkatalontzi (5 agerraldi, 2 liburutan; orobat merkatal-ontzi g.er. eta merkataluntzi 2 agerraldi, 2 artikulutan) iz merkataritza-ontzia. ik merkantzia 5.

Industria-oletarako ikatza zekarten **merkatalontzien** sotoetan beti geratzen zen fabrikek nahi ez zuten, baina etxeetarako nahikoa ona zen, ikatz-kondar xehatua. **Anjel Lertxundi**  
Moila, soto handiak, garabiak, **merkataluntzien** tximini eta bizkarrak, kamioi tzarrak portura sartzen eta portutik irteten. **Berria - Kultura**  
Zipreko bandera duen **merkatalontzi** batera polizia sartu eta zazpi etorkin abxilotu dituzte. **Paddy Rekalde**  
Han dira **merkatal-ontzi** erraldoiak, ardoa eta garia, burdina-mea, eta garai honetan, garai anker odoltsu honetan, armak garraio ibiltzen direnak. **Felipe Juaristi**

## merkataluntzi ik merkatalontzi.

## merkataria 1 iz ondasunak edo salgaiak erosiz eta salduz ogibidea irabazten duen pertsona; denda baten jabe den pertsona. ik salerosle.

Antzina, Kairo hirian, izan omen zen Sams Al-Din izeneko **merkataria** aberats bat. **Patxi Zubizarreta**  
Aita Akreko **merkataria** handia zuen. **Juan Kruz Igerabide**  
Sortuko diren lanpostuak, ordea, galduko direnak baino gutxiago izanen direla salatu dute **merkataria** txikiak. **Berria - Harian**  
Gauoko ordu tikietan, **merkataria** kristau bat agertu zen ingurumari hartan. **Patxi Zubizarreta**  
**Merkataria**, itzalgarria bada, ez da merkataria hutsa, negozio-gizona ere bada nola edo hala. **Jose Morales**  
Azaldu zion **merkataria** veneziarraren laguntzaileak nafarrari zein zen bere lana. **Felipe Juaristi**  
Moskutik Irkutskera zihoan **merkataria** soil bat zen, Nikolas Korpanoff izeneko. **Karlos Zabala**  
Hala, handizkako **merkataria** BEZa aurrezten du. **Berria - Ekonomia**  
Tamalez, merke-merke saldu diet ezia **merkataria** batzuei. **Jose Morales**  
Hain zuzen ere berorregana ekarri nauen **merkataria** erosi ninduen. **Patxi Zubizarreta**  
**Merkataria** eta ostalarien elkarteak bat egin dute greba egunarekin. **Berria - Euskal Herria**  
**Merkataria** arroz guztia berenganatu eta espekulatzeko hasi ziren. **Iñaki Mendiguren**  
Nafarroako metaleko **merkataria** greba mugagabea hasiko dute bihar. **Berria - Ekonomia**  
Zerbaitek **merkataria** traba egiteak ez du esan nahi baitezpada merkataritza traba egiten dionik. **Iñaki Iñurrieta**  
**Merkataria** ziren merkataritzako kredituaren agenteak, baina bankuak ere laster sortu ziren, nazioarteko tratuetatik haiek ere. **Koro Navarro**  
Hirietan, nazioarteko **merkataria** ezin zuten xehekako salerosketan parte hartu. **Koro Navarro**  
**Merkataria** eta finantzariak estatuko aparatuen maila guztietan sartu ziren. **Koro Navarro**  
Ia ez da, beraz, jenderik hirugarren estatua osatzeko, hots, eskulangileak eta **merkataria**. **Iñaki Iñurrieta**

## 2 irud/hed

Minaren **merkataria** era askotako etekinak atera dituzte. **Berria - Harian**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hark antolatzen zuen **merkataria**-konboien babes militarra. **Koro Navarro**  
Hara iritsitakoan, **merkataria**-karabana batean, Bakurainoko bidea egin zuten. **Felipe Juaristi**  
Hogeita bi urte bete berritan Juan Duñabeitia **merkataria**-ontzietako kapitaina zelarik, [...]. **Edorta Jimenez**  
Ikasketa laburren ondoren, irabazi oneko **merkataria**-negozioetara eman zen. **Askoren artean**  
Sarrigi **merkataria** lanetan aritu zen Donostian, horixe zuen lanbidea. **Askoren artean**  
Bizkaian bezala **merkataria** lanbidean sartu ziren, Hego Afrikatik ekarritako diamanteak taiutu egiten zituzten, gero Europako errege-erreginei saltzeko. **Felipe Juaristi**  
**Merkataria** jardura bihurtzen ditu zerbitzu publikoak. **Berria - Euskal Herria**  
Britainiar Indiako funtzionarioak ere **merkataria**-klasetik erreklutatzen ziren. **Iñaki Mendiguren**  
Iparraldeko antzinako hiri guztiak ikustera eramanez ninduen, garai batean **merkataria**-ligak osatzen zituzten eta mundua menpean zuten hiriak. **Fernando Rey**  
Kontrabando hitzak lastu egin ditu paseariari begitarateak, bekatu larria baita **merkataria** hirian, bakanetako. **Felipe Juaristi**  
Mikel Strogoff eta mujik-a berehala iritsi ziren beheko hiriaren **merkataria** auzora. **Karlos Zabala**  
Gaztaroan aitaren **merkataria**-etxean inguruan izan zuen erlijio-itxurako guztiatik hondar higuigarri, garratz eta sumingarri bat besterik ez zitzaion gelditu. **Jose Morales**  
Ugazabandre gazte bat irudikatu ohi zuen, lerdena, azalmintz zurikoa eta bizia, **merkataria**-familia batekoa beharbada. **Jose Morales**  
Argi zegoela **merkataria** odola zebilela haren zainetan. **Bego Montorio**  
Itsas negozioetan zebilen **merkataria** jendearekin ontziratu nintzen. **Patxi Zubizarreta**  
Bere **merkataria** bizitzako hanka-sartzerik handiena egin eta handik gutxira. **Bego Montorio**  
Urte hartako maiatzaren hasieran **merkataria** talde batek jo zuen beragana. **Bego Montorio**  
**Merkataria** Elkarteko zuzendaritza osoa zegoen bertan **Bego Montorio**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mocco ontzi **merkataria** aberatsa abordatzean, ez zuten aurkitu zerez neurtu kapitainaren urre-hauts parteak. **Juan Garzia**  
Irule-gremioen, ehuleen eta oihal-**merkataria** protestak alferrikakoak izan ziren. **Iban Zaldúa**  
Ale-**merkataria** baten bulegora. **Irene Aldasoro**  
Olio **merkataria** jantzia, nola ezagutu lapurren burua? **Patxi Zubizarreta**  
1944ko udan zeharkatu zuen Alois Miedl arte-**merkataria** germaniarrak Hendaiaiko muga. **Javi Cillero**  
Eguna argitzen ikusi zuen Beiraki **Merkataria**, eta goizeroko itolarria sentitu zuen. Simeon eta Lebi anaiak, indarkeri **merkataria**. **Xabier Aranburu**

## 5 (izenondo gisa)

Burgesia **merkataritza** lehenetasunik eta ilusiorik gabe. **Xabier Arregi**

Aluan ez zen gerraren aberats berri haietarikoa, ezpada "merkataria", berak esatea atsegin zuen bezala. **Patxi Zubizarreta**

-Heure dirua sakalan daukak, gogoak ematen dian bezala xahutu ahal izan duk, ardo, haxix eta emakume **merkatarik** aberastuz. **Patxi Zubizarreta**

Betiere nazio txikiak **merkatar** onak izan direlako. **Pello Salaburu**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

irkutskeko merkatar (3); merkatar aberats (5); merkatar aberatsa (4); merkatar baten alabarekin (4); merkatar gisa (4); merkatar soil (4); merkatar txiki (3); merkatar txikiak (3); merkatar xume (3); nazio merkatar (3)

gasteizko merkatar (3); handizkako merkatar (3); hiriko merkatar (4)

merkatararen alaba (7); samarkandako merkatar (3)

beiraki merkatar (3)

hiriko merkatariek (7)

hiriko merkatar (3); merkatar buru (3); merkatar buruak (3); merkatar elkarteko (11); merkatar enborrekoa (7); merkatar europaren (3)

## merkataritza 1 iz merkatararen lanbidea; ondasunak edo salgaiak erosiz, trukatur edo salduz irabazia lortzeko jarduna. ik salerosketa; tratu.

**Merkataritzak** galbidean jartzen ditu ohitura garbiak: horra Platonen kexen gaia. **Iñaki Iñurrieta**

Haren lanbideak, **merkataritzak** hain zuzen, aberatsen artean aberatsena egin zuen. **Felipe Juaristi**

**Merkataritza** den lekuetan, aduanak dira. **Iñaki Iñurrieta**

Horrelaxe jardun dute **merkataritzan** Tiro, Kartago, Atenas, Marseilla, Florentzia, Venezia eta Holandako errepublikek. **Iñaki Iñurrieta**

Monarkiaren espirituaren kontra doa nobleak **merkataritzan** aritza. **Iñaki Iñurrieta**

Kartagotarrek, urre-zilarren **merkataritzan** nagusi, berunaren eta eztainuaren **merkataritzan** ere nagusi izan nahi zuten. **Iñaki Iñurrieta**

Iparorratzak unibertsioa ireki zuten; **merkataritzak**, aldiz, berori gizarteratu du. **Andres Urrutia**

Hasieran barbaroek lapurretagai baizik ez zuten ikusten **merkataritza**. **Iñaki Iñurrieta**

Indiek, bada, berrogeita hamar milioiko **merkataritza** egiten dute, eta Espainiak bi milioi eta erdikoa. **Iñaki Iñurrieta**

Kokatze horren helburua **merkataritza** hedatzea izan baitzen, ez hiri bat edo inperio berri bat sortzea. **Iñaki Iñurrieta**

Eta inportazioak gutxitu ahala (%4,8), **merkataritzak** lortutako superabita ere murriztu da: %50. **Berria - Ekonomia**

Bada **merkataritzan** korritu arrunta, lege finko eta zehatz baten objektua ere ezin izan daitekeena. **Andres Urrutia**

**Merkataritzaren** sektoreak Bizkaian, bakartzat jo arren, sei azpi sektore hartzen ditu bere baitan. **Berria - Ekonomia**

ELAk eta Cebekek Bizkaiko metalaren **merkataritzaren** gaineko lan ituna itxi zuten atzo. **Berria - Ekonomia**

Nazio Batuen **Merkataritza** eta Garapenerako Konferentziaren (UNCTAD) arabera, [...]. **Iñaki Heras**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Tokiko **merkataritza** nekazarien bigarren mailako jardueraren zena, eta xehekako salerosketa baino ez zen haietan egiten. **Koro Navarro**

Nazio barmeko **merkataritzak**, izan ere, trukea eragozten zuten oztopo ugari zituen, feudalismoaren garaitik heredatuak. **Koro Navarro**

Urrutiko **merkataritza** ondasunen kokaleku geografikoen emaitza zen. **Koro Navarro**

Tokiko **merkataritza** bezala, kanpoko **merkataritza** ere osagarritasunaren printzipioan oinarritzen zen, ez konkurrentzian. **Koro Navarro**

Ferietako **merkataritzaren** parterik handiena, beraz, kreditu bidez egiten zen. **Koro Navarro**

Europako Batasunak munduko **merkataritzan** duen pisuagatik. **Iñaki Heras**

Nazioarteko **merkataritza** hori, hasieran, ez zegoen barne-egitura ekonomikoekin lotua. **Koro Navarro**

Elgoibarko **merkataritzan** euskararen erabilera indartzeko konpromisua hartu dute 133 saltegi. **Herria**

Eraikuntzako eta handizkako **merkataritzak**, aldiz, hazkuntza ahula izan dute. **Berria - Ekonomia**

Bidezko **merkataritzak** zinezko lekua izanen du jaialdian, adibidez, tokiko mozkinak bezala. **Berria - Kultura**

Asiako inperioetan luxuzko **merkataritza** zegoen bitartean, tiriarek ekonomiazko **merkataritza** egiten zuten lehorretik. **Iñaki Iñurrieta**

Gaur egun Europako **merkataritza** iparraldetik hegoaldera egiten da gehienbat. **Iñaki Iñurrieta**

Indiekiko **merkataritza** egiten jarraitu zuen. **Iñaki Iñurrieta**

Zenbait ikuspegi kritikorentzat, berriz, **merkataritza** askea da beti -edota liberalizazioa edo globalizazioa, denak sinonimoak omen dira eta- egoera txar ororen sortzailea. **Iñaki Heras**

Interneten inguruan sortutako negozio esparrua, **merkataritza** elektronikoa, eta, batik bat, 90eko hamarraldiaren azken urteetan horren ospetsu egin ziren puntocom enpresak. **Iñaki Heras**

Haien esanetan, Bizkaiko **merkataritza** xehekakoak «eskaerari erantzun ezin hobea» eman diezaioke. **Berria - Ekonomia**

Espezien **merkataritzak** milaka milioi euro mugitzen ditu urtero munduan. **Berria - Gaiak**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Merkataritza** -mota batek beste motara darama: txikiak ertainera, ertainak handira. **Iñaki Iñurrieta**

Martxa egon den herrialde guztietan ideia horien aldeko ekimenak izan dira: indigenen ahotsa entzun da, baserritarrena, egungo **merkataritza moldeen** kontra. **Berria - Harian**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Van Daan jaunak hestebete, haragi eta espezia **merkataritzan** lan egin du bere bizitza guztian. **Josu Zabaleta**

Afrika mendebaldean, esate baterako, urtean, 200.000 adingabe mugitzen ditu esklabo- **merkataritzak**. **Berria - Gaiak**

Siriako inperioak lehorretiko merkataritza hainbeste hedatzen zuen bitartean, Egiptok ez zuen asko aitzinarazi itsas **merkataritza**. **Iñaki Iñurrieta**

Mundu- **merkataritzaren** hazkunde-indizea. **Koro Navarro**

Salerosgai berriak handitu egiten zutelako barne- **merkataritza**, aurrerazi egiten zituztela antzeak, industriari eusten ziotela. **Iñaki Iñurrieta**

Baliteke, baldin eta gure kanpo- **merkataritzak** barnekoa handiagotuko ez balu. **Iñaki Iñurrieta**

## 5 merkataritza-adar

Ezinezkoa da hainbeste **merkataritza-adarretan** sofitutako duen baten bat ez izatea, eta ondorioz bertako langileak uneren batean beharrez ez izatea. **Iñaki Iñurrieta**

## 6 merkataritza-agente

**Merkataritza-agente** gisa lan egiten zuen enpresa sendoa zenez, [...]. **Migel Angel Mintegi**

Lanbidez **merkataritza agentea**. **Berria - Euskal Herria**

De Leonek Iraken egin duen «**merkataritza agentearen** lana» ez datorrela bat bere postuaren arabera zereginekin. **Berria - Euskal Herria**

Ekialdeko Indietako Britainiar Konpainiako **merkataritza-agente**. **Iñaki Mendiguren**

## 7 merkataritza-agentzia

Arrisku moral hori [...] handiagoa da gaur egun, bankuek gero eta gehiago beren kontura esku hartzen baitute finantza-merkatuetan; izan ere, badute orain langile talde murrizt batekin **merkataritza-agentzien** sare astunak ematen ez dizkieten irabaziaz eskuratzeko aukera. **Koro Navarro**

## 8 merkataritza-agintari

Orain, Boeingek Airbusek jasotzen laguntzak auzitan jarri dituenean, laguntza zuzenak baino zeharkakoak dira eztabaidagai, bi konpainien artean, eta Europako Batasuneko eta AEBetako **merkataritza agintarien** artean ere. **Berria - Ekonomia**

## 9 merkataritza-ahaldun

Nolabaiteko bikarriotzan diharduten oro bezala, giza ale interesgarria zen: alegia, Autoritatearen jabe xuxen izan gabe haren ordezkari diren aldetik, hala nola sakristauak, museoetako zizeroneak, bedelak, erizainak, abokatuen eta notarioen "hurrengo" direlakoak, **merkataritza-ahaldunak**. **Juan Garzia**

## 10 merkataritza-aholkulari

Webgune bat abian jartzeaz gainera, noizean behin bidaia egingo dituzte kutxako **merkataritza aholkulariek**. **Berria - Ekonomia**

## 11 merkataritza-akordio

**Merkataritza akordio** guztiak berriz aztertu nahi ditu, herrialde esportatzaileek lan eta ingurumen estandar guztiak betetzen dituztela ziurtatzeko. **Berria - Mundua**

Vietnamek eta Europako Batasunak **merkataritza akordioa** lortu berri dutela jakinarazi zuen atzo Europako Batzordeak. **Berria - Ekonomia**

Europako Batasunak estatu kideei Israelekiko **merkataritza akordioak** eteteko eskatu zien, baina ez da halakorik gertatu. **Berria - Harian**

ALBA Ameriketarako Alternatiba Bolivarianoa bultzatuko duen **merkataritza akordioa** sinatu zuten atzo Habanan Kubako, Venezuelako eta Boliviako presidentek Fidel Castro, Hugo Chavez eta Evo Morales, hurrenez hurren. **Berria - Mundua**

## 12 merkataritza-aldaketa

Nahiz eta **merkataritza aldaketa** handietara lotua egon, gerta daiteke zenbait kausa fisikok, luraren edo klimaren zer-nolakoez, betiko finkatzea haren izaera. **Iñaki Iñurrieta**

## 13 merkataritza-alor ik behegaro 18.

Aurrerantzean bi estatuak hezkuntza, defentsa eta **merkataritza alorretan** ariko dira elkarlanean. **Berria - Mundua**

Arantxa Gonzalez EBko **Merkataritza alorreko** eledunak. **Berria - Ekonomia**

LAB eta ELA sindikatuetako **merkataritza alorreko** delegatuek manifestazioa egin zuten atzo Gasteizen, saltokiak jaigunetan zabal ez daitezela eskatzeko. **Berria - Ekonomia**

## 14 merkataritza-arau

Globalizazio hori ez da gerra ondoren ezarri ziren diru-, finantza- eta **merkataritza-arauen** emaitza. **Koro Navarro**

## 15 merkataritza-arazo

Haren adar nagusia Erromako herritarrei jaten emateko ekartzen zen garia zen; hiri-arazoa zen, bada, **merkataritza-arazoa** baino gehiago. **Iñaki Iñurrieta**

Munduko zarata eta **merkataritza-arazoetatik** apur bat aldenturik, bere bihotz barnean Jesu Kristo gordetzen saiatzen zen. **Askoren artean**

## 16 merkataritza-arduradun

Espainiako Ekonomia eta Merkataritza Bulegoko **merkataritza arduraduna**. **Berria - Ekonomia**

LABeko **Merkataritza arduradun** Angel Miragaiaren hitzetan. **Berria - Ekonomia**

## 17 merkataritza-aritmetika

Ikurrak **merkataritza-aritmetikako** tratatu batean jaino zirela kontatu zion Jonathaneke Léari. **Jon Muñoz**

## 18 merkataritza-arlo ik gorago 13.

O'Carroll gizajoa, Kernan jaunaren aspaldiko laguna, garai batean **merkataritza-arloan** garrantzi handiko gizona izana. **Irene Aldasoro**

Industrian dezente apalagoa izan bazen ere, deialdiak oihartzun handia izan zuen **merkataritza arloan**. **Berria - Harian**

Osasun, industria eta **merkataritza arloan** desoreka itzela dago herri batetik bestera, Nafarroako Gobernuak ez duelako inbertsio handirik egiten. **Berria - Euskal Herria**

Estatuaren arabera **merkataritza arloan** eskuduntza osoak ditugu. **Berria - Ekonomia**

## 19 merkataritza-arrantza

Balearen **merkataritza arrantza** galarazi dute. **Berria - Gaiak**

Balearen **merkataritza arrantzaren** debekua mantentzea erabaki zuten atzo. **Berria - Gaiak**

## 20 merkataritza-arrazoi

**Merkataritza arrazoiak** zirela medio [...] gremioari buruzko koaderno lodi bat utzi zuen Napumoceno jaunak larruzko karpeta barruan. **Bego Montorio**

## 21 merkataritza-artekari

Sarriegiri buruz ezagutzen dena, batez ere, bere alderdi konposatzailea da, baina inor gutxi daki **merkataritza artekari** izan zela. **Berria - Kultura**

## 22 merkataritza-askatasun

**Merkataritza-askatasuna** ez da tratularie nahi dutena egiteko ematen zaien gaitasuna; hori haien esklabotza litzateke. **Iñaki Iñurrieta**

Gure zibilizazio osoak zutabetzat duen **merkataritza-askatasun** horren oinarri sakratuak. **Lopez de Arana**

Beraz, Estatuak neutral izan behar du bere aduanen eta bere merkataritzaren artean, eta bi gauza horiek elkar ez oztopatzeko moduan jardun behar du; eta orduan

**merkataritza-askatasunaz** gozatuko dira. **Iñaki Iñurrieta**

## 23 merkataritza-asmu

**Merkataritza-asmu** handiak ez dira monarkientzat eginak, baizik eta zenbait lagun bidezko gobernu-erarentzat. **Iñaki Iñurrieta**

## 24 merkataritza-auzi

**Merkataritza-auziek** oso formalitate gutxi eskatzen dituzte. **Iñaki Iñurrieta**

**Merkataritza auziak** hizpide kanpainan. **Berria - Ekonomia**

## 25 merkataritza-auzitegi

Baionako Safam enpresak ordainketa etendura aurkeztuko du bihar arratsaldean, **Merkataritza Auzitegian**. **Berria - Ekonomia**

Maiatzaren 3an hitzordua daukate **merkataritza auzitegian**, bide erdiko balorapen baterako. **Berria - Ekonomia**

Konkurto honekin enpresak bere hartzekodunak zeintzuk diren azaldu behar dio auzitegiari, kasu honetan Bilboko **Merkataritza Auzitegiari**. **Berria - Kirola**

Paueko **Merkataritza Auzitegiak** sei hilabeteko epea eman dio enpresako zuzendaritzari finantza egoera berronartzeko, jarduera suspertzeko eta orain geratzen diren 34 lanpostuak salbatzeko. **Berria - Harian**

## 26 merkataritza-auzo

Inork ez zekien zergatik etorri zen bikote hura **merkataritza auzo** baten zalapartaren erdira bizitzera. **Karlos Zabala**

Nabari zen **merkataritza auzotik** urruntzen zirela. **Ramuntxo Etxeberri**

## 27 merkataritza-azoka

Azoka guztiak **merkataritza azokak** dira neurri batean, artea sortzeko beharrezkoa delako merkatuaren bultzada. **Berria - Kultura**

## 28 merkataritza-baimen

Etxera itzultzeko bidaia-txartela eta **merkataritza baimen** bat (bere sorterriaren eta orain zegoen herriaren artean) erosteko. **Xabier Aranburu**

## 29 merkataritza-balantza

Politika horrek, **merkataritza-balantzaren** gainean zuen eragin positiboaz gainera, zerga-oinarria zabalduz, estatuaren sarrerak handitzen zituen. **Koro Navarro**

**Merkataritza balantza** orekatzeko, dolar ahulago baten alde egin du Erreserba Federalak. **Berria - Ekonomia**

Ekainean izaniko emaitza kaskarretik aldentu eta murriztu egin da uztailan AEBetako **merkataritza balantzaren** defizita. **Berria - Ekonomia**

Euroguneko **merkataritza balantzak** 8.700 milioi euroko irabazia izan du ekainean, iaizko hilean baino 900 milioi gehiago. **Berria - Ekonomia**

Lehen bederatzi hilabeteetako **merkataritza balantzak** 496.508 milioi dolarreko utzi du. Berria - Ekonomia  
Inportazioak %23 handitu dira, baina **merkataritza balantza** esportazioen aldekoa da: 505 milioi euroko superabita. Berria - Ekonomia

### 30 merkataritza-balio

Jorge Oteizak berak emaniko fakturek, idatziek edo testigantzek segurtatzen dute lana egiaz harena dela eta **merkataritza balioa** duela. Berria - Kultura  
Oteizaren lanen egiazko corpusa ezartzen duen katalogo arrazoitu batek bakarrik emango dio bermea etorkizuneko **merkataritza balioari**. Berria - Kultura

### 31 merkataritza-banku

**Merkataritza-bankuak**, berriz, zuhur jokatu, ez ziren gehiegi arduratzen maileguz emandako diruaren azken erabileraz. Koro Navarro  
Finantzak berrindartzea, estrategia berriaren giltzarria zena, **merkataritza-bankuen** liberalizazio-politikari kontrajartzen zitzaion. Koro Navarro  
**Merkataritza-bankuen** nazioarteko jardueren ikuskaritza egin eta arau zuhurrak finkatzerakoan. Koro Navarro  
**Merkataritza-bankuen** zor metatuaren arazoari heltzeko gero eta finantza-egitasmo burutsuagoak proposatuz, nazioarteko finantza-erakundeek [...] argi adierazten zuten ondo zekitela munduko finantza-ordenaren egonkortasuna mehatxatzen zuen arazoaren berri. Koro Navarro

### 32 merkataritza-base

Itsasoz gaindi Indiara iritsi eta bertakoak gobernatzea amets egin baino askoz ere lehenago merkataritzan hasi zirelarik, ingelesek **merkataritza-baseak** ezarri zituzten Bonbay, Madras eta Kalkutan. Iñaki Mendiguren

### 33 merkataritza-batzorde

Kongresuko Energia eta **Merkataritza Batzordeak**. Berria - Gaiak  
1990ean zabaldu zuen AEBetako **Merkataritza Batzorde** Federalak Microsoften aurkako lehen ikerketa, IBM konputagailu egilearekin legez kanpoko tratuetan ari zelakoan. Berria - Ekonomia

### 34 merkataritza-bazkide

Europako Batasunaren bigarren **merkataritza bazkide** bilakatu da Txina. Berria - Ekonomia  
Euroaz gain, yuan diru txinarraren balioak gora egitea ere komeni zaie AEBei, **merkataritza bazkide** handia baita. Berria - Ekonomia  
1990eko hamarkadaren hasieran, Kuba inoiz ezagutu izan duen krisirik sakonenean murgildu zen, bere **merkataritza bazkiderik** sendoena, Sobiet Batasuna, desagertu ondotik. Berria - Mundua  
Egiptoar bitartekarien **merkataritza-bazkide** veneziarrak. Iñaki Mendiguren

### 35 merkataritza-bidaia

Portugalen ere apenas ezagutzen zuen Lisboa eta barnealdeko herriren bat edo beste, denak ere **merkataritza bidaien** zioz bisitaturikoak. Bego Montorio

### 36 merkataritza-bide

Une hartan zabaldu ziren orobat Indiarako eta Txinarako lehorreko **merkataritza-bideak**. Koro Navarro  
Kazan hiria "Asiako atea" deitu izan dute zuzentasunez; Siberiako eta Bukharako **merkataritza bide** guztien erdigunetzat jo izan dute. Karlos Zabala  
Nazioarteko **merkataritza-bideen** bat-bateko butxadura. Iñaki Mendiguren  
**Merkataritza bidez** sartzea esatea eta kapitalismoa zabaltzea ez dira, ordea, gauza bera nahitaez. Koro Navarro

### 37 merkataritza-bisita

Tolosan azoka berezia egin zuten ekainaren 16an Sanjoanetako urtero egiten dutena bere artisauek lanen erakusketekin, eta Australiako oiloak, arras maltoak, eta taberna-jatetxeetako ongi-etorriak, **merkataritza bisitetarik** lekora. Herria

### 38 merkataritza-borroka

Nazioarteko espezializazioa deritzana, oro har, **merkataritza-borroka** horien *a posteriori* egindako berrespena da, konkurrentziaren jokoak etengabe auzitan jartzen duen berrespena. Koro Navarro

### 39 merkataritza-bulego

Espainiako Ekonomia eta **Merkataritza Bulegoko** merkataritza arduraduna. Berria - Ekonomia

### 40 merkataritza-burgesia

**Merkataritza**-burgesiak mendeetan zehar baliaturiko familia-kate horietan dira kapitalismoaren sorreraren eragile nagusietako bat. Koro Navarro  
Helburu horrekin, baina orobat inbertsioak egiteko helburuaz, **merkataritza-burgesiak** prezio onean erosi zituen jaun feudal kiebrea jotakoan lurrak. Koro Navarro

### 41 merkataritza-debeku

Kuba, Iran, Libia eta Sudanen gainean AEBek duten **merkataritza debekuak** ez duela han egindako ikerketa lanik argitaratzea baimentzen diote agintariek. Berria - Gaiak

### 42 merkataritza-defizit

Halako apreziazio batek estatubatuar enpresen lehiakortasun/prezioari eraso egiten zion, eta areagotu egiten zuen **merkataritza-defizita**. Koro Navarro  
Ameriketako Estatu Batuek bizi izan zuten inflazio garaiarengatik eta Vietnamgo Gerraren ondorioz **merkataritza defizitak** izan zuen hazkundearengatik. Iñaki Heras  
725.800 milioi dolarreko **merkataritza defizita** izan zuten AEBek iaz. Berria - Ekonomia  
Europako Batasuneko **merkataritza defizita** 15.000 milioi eurora iritsi da otsailen. Berria - Ekonomia  
Nahiz eta AEBetako **merkataritza defizita** gutxitu, euroak goia jo du. Berria - Ekonomia  
**Merkataritza defizita** %4,5 murriztu da AEBetan maiatzean. Berria - Ekonomia  
Atzo jakin zen **merkataritza defizita** %3,7 jaitsi dela irailean, 51.600 dolarreraino. Berria - Ekonomia  
AEBen **merkataritza defizita** %17 igo zen iaz. Berria - Ekonomia  
Dolar ahula, gainera, **merkataritza defizita** arintzeko bide gisa ikusten da. Berria - Ekonomia

### 43 merkataritza-departamentu

AEBetako **Merkataritza Departamenduko** beste txosten batek erakusten du salmentek %1,3 egin dutela gora apiriletik maiatzera bitartean. Berria - Ekonomia  
**Merkataritza Departamenduaren** arabera, Txinarekiko merkataritza harremanak zeinu negatiboa izan arren, Europako Batasunarekiko ondasunen merkataritza defizita %0,8 murriztu zen. Berria - Ekonomia

### 44 merkataritza-desoreka

**Merkataritza-desorekak** ordea ez ziren oraindik murrizten hasi. Koro Navarro

### 45 merkataritza-disortsi

Esportazioei emandako kredituek «**merkataritza distortsiok**» eragiten dituztela. Berria - Ekonomia

### 46 merkataritza-egitasmo

Bankuok esperantzak sortzen dituzte, eta berez **merkataritza egitasmoa** dena moztaratu egiten dute, umeak erabiliz. Berria - Gaiak

### 47 merkataritza-egutegi

Rodrigo Rato Espainiako Ekonomia ministro zenak 2000an arautu zituen **merkataritza egutegia** eta ordutegiak. Berria - Ekonomia

### 48 merkataritza-ekimen

Nazioarteko mailan, erregearen babesaz gozatzen zuten, eta, hala, haien **merkataritza-ekimenek** kolonia-hedapenaren tankera hartzen zuten. Koro Navarro

### 49 merkataritza-ekinbide

Beraren zainetan aitaren odola zebilen, urruneko pirata-hartzigarritan, **merkataritza-ekinbidetan** eta berri-grina egonezintsan aberats. Juan Garzia

### 50 merkataritza-ekonomia

Frantziaren eta Ingalaterraren arteko gerra piztu eta krisia zabaldu aurretik ere, pairatzen zuen ekonomia feudalak hirietako **merkataritza-ekonomiaren** eragina. **Koro Navarrok**

Inperio horietako eskala zabaleko talde-lanaren antolamenduak erakusten duenez, zorrotz banatua zuten lana; baina horrek ez du **merkataritza-ekonomiaren** sorrerarekin batere loturarik. **Koro Navarrok**

## 51 merkataritza-elkarte

Atenas, aro klasikoan, finantzagune indartsua zen, eta bertatik egiten zituzten eragiketak bankuek eta **merkataritza-elkarteek**, Mediterraneo guztian eta Itsaso Beltzean. **Koro Navarrok**

Oraingoz **merkataritza elkarte** bizkaitarrek bakarrik sinatu dute, baina honen hurrengo agirietan sinatzaileen kopurua gehitu egingo dela adierazi dute agiria egileek. **Berria - Ekonomia**

AEBetako dumping-aren aurkako legea dela eta, MME Munduko **Merkataritza Elkarteak** baimena eman dio Europako Batasunari AEBen aurkako zigorrak ezartzeko. **Berria - Ekonomia**

**Merkataritza Elkarteak** zuzendaritzaren erabateko adostasunez. **Bego Montorio**

## 52 merkataritza-elkartruke

Truke-tasa, interes-tasa eta atzerriko inbertsio zuzenen liberalizazioa; zerga diziplina; nazioarteko **merkataritza elkartrukeak** ahalik eta gehien areagotzea. **Iñaki Heras**

«Bi herrien arteko **merkataritza elkartrukeen** desorekagatik, Washington Txinarekin samindu» daitekeela esan dute adituek. **Berria - Ekonomia**

## 53 merkataritza-enpresa

Eraikina erabat hutsik zegoen ustez eta hilketa burutu zen tenorean, oroz gain profesionalen bulegoak eta **merkataritza-enpresen** egoitzak aterpetzen baititu. **Aingeru Epaltza**

27 kooperatibaren sorkuntzaren bultzatzailea izan zen sozietatea eta beste hiru **merkataritza enpresa** kooperatiben egiturara moldatzea lortu zuen. **Berria - Ekonomia**

Hiru-k kritikatu du «botere gehiago lortu guran» antolatutako greba **merkataritza enpresek**. **Berria - Ekonomia**

Herrialde osoko **merkataritza enpresarik** handienetakoa. **Bego Montorio**

## 54 merkataritza-epaitegi ik gorago 25.

Madrilko 3. **merkataritza epaitegiak** agindu bezala, azkenean 1.000ko bermea aurkeztea erabaki du Endesaren Administrazio Kontseiluak. **Berria - Ekonomia**

## 55 merkataritza-eragiketa

Urtarrila eta uztaila bitartean EBko **merkataritza eragiketen** superabita 62.648 milioi eurokoa izan zen. **Berria - Ekonomia**

Gipuzkoan badira lehenik ere kooperatiba eta elkarte txikiak: aseguru zerbitzuak, **merkataritza eragiketak** eta bestelakoak egiten dituztenak. **Berria - Ekonomia**

## 56 merkataritza-erakunde

Orain arte, industria eta **merkataritza erakunde** publikoak ziren. **Berria - Ekonomia**

Ez diat gorde buruan [...] gutun hura igorri zuen **merkataritza-erakundearen** sigla bihurria. **Juan Garzia**

Zortziak ziren kalera atera nintzenez, 2001eko irailaren 11ko goizeko zortziak, doi-doi lehenbiziko hegazkinak Munduko **Merkataritza Erakundearen** iparraldeko dorrea jo baino berrogeita sei minutu lehenago. **Oskar Arana**

Izan ere, Kyoto sinatzearen truke, Errusia Munduko **Merkataritza Erakundearen** sartzea sostengatuko duela agindu dio Bruselak Putini. **Berria - Gaiak**

EB Europako Batasunak sustatu egingo duela Iran Munduko **Merkataritza Erakundearen** kideztea. **Berria - Mundua**

Nazioarteko Diru Funtza, Munduko Bankua, Munduko **Merkataritza Erakundearen** eta Europako Batzardea, besteak beste. **Iñaki Heras**

## 57 merkataritza-eredu

«Periferian oinarritutako **merkataritza eredu**» horien ugaritzearen beldurrez, merkatariek Merkataritza non, bizia han lelopean arituko dira. **Berria - Ekonomia**

## 58 merkataritza-eremu

Une horretatik aurrera, gero eta handiagoa da lanaren banaketa, eta **merkataritza-eremua** zabaldu ahala zabaltzen da banaketa ere. **Koro Navarrok**

Lan-banaketa horren ondorioz sortzen ziren soberakinak ez ziren **merkataritza-eremuak** zabaltzeko erabiltzen, azpiegiturazko lan handiak (ureztatze-sistemak, adibidez) eta sarritan xede erlijiosoa zuten arkitekturazko monumentu ikusgarriak eraikitzeko baizik. **Koro Navarrok**

ALCA Ameriketako **Merkataritza Eremu** Libre Latinoamerikarentzat arriskua zela ohartarazi zen munduko aurreneko gizarte foroan, eta, horri esker, itun hori ezartzea eragotzi duten mugimenduak sortu ziren. **Berria - Mundua**

Horren adibidea da ALCAREN «alternatiba» gisa aurkezturiko Mercosur **merkataritza eremua** bizkortzea. **Berria - Mundua**

## 59 merkataritza-erregistro

Estatutu berriak UPN-CDNko gobernuak eta Ekonomia Ministerioak hitzartu zituzten iragan otsailean, eta **merkataritza erregistroan** martxoaren 12an erregistratu zituzten. **Berria - Ekonomia**

Immigrazio zuzendari ohia beste bi enpresen kide dela jasotzen du **Merkataritza Erregistroak**. **Berria - Euskal Herria**

## 60 merkataritza-eskola

Entzun dudanez **merkataritza eskolan** ikasten du. **Urtzi Urrutikoetxea**

Mutil altuak ere badaude, instituturak eta **merkataritza eskolara** doazenak, eta agure apainduak. **Monika Etxebarria**

Gero ere neska gazteak, **merkataritza eskolako** ikasleak, atetik ezarian irristatzen zirenak. **Eduardo Matauko**

## 61 merkataritza-espazio

Kontrapisua izan zen nazioarteko **merkataritza-espazioaren** hausturaren arriskua dakarten eskualde-akordioen ugaltzearen aurrean. **Koro Navarrok**

## 62 merkataritza-esperientzia

Lehen etapan, Mendebaldeko Kristandadera judu-diaspora sartu zen, Mendebaldean bizibidea egiteko aukera aurkitu baitzuen gizarte landatarrari gutxieneko **merkataritza-esperientzia** eta antolaketa emanez. **Iñaki Mendiguren**

## 63 merkataritza-espiritu

Gure ohituren kontra doa, **merkataritza-espirituaren** kontra eta zigorraren proportzioan egon behar duen egokitasunaren kontra. **Iñaki Iñurrieta**

## 64 merkataritza-estatu

Ondo asko dakit zenbaitek, bi ideiaz guztiz sinetsita -bata, **merkataritza estatu** batentzat munduan den gauzarik baliagarriena dela, eta bestea, erromatarrek munduko legeriarik onena zutelak-, haiek merkataritza asko sustatu eta ohoratu zutelak pentsatu dutela; baina, egia esan, oso gutxitan pentsatu zuten hartan. **Iñaki Iñurrieta**

## 65 merkataritza-etxe

**Merkataritza etxeetara** jotzea mesederako izango zukeela esaten zion Lisak gozoro; gutunak idatz zitzaizkien, kontabilitateaz arduratu. **Karlos Zabala**

Tratu fineko gizona izateaz gain irlako **merkataritza etxerik** handienaren eta herriko txalupa ia guztien jabea baitzen. **Bego Montorio**

## 66 merkataritza-federazio

**Merkataritza Federazioak** Barañainen merkataritza gune bat ez eraikitzeko eskatu zion atzo Nafarroako Gobernuari. **Berria - Ekonomia**

SEAk eta Arabako **Merkataritza Federazioak** lau batzarkide proposatzeko eskubidea dute, eta beste 24 batzarkideek hiru aukeratu behar dituzte. **Berria - Ekonomia**

ELA eta LABeko merkataritzako 30 ordezkari elkarretaratzea egin zuten atzo Donostian, **Merkataritza Federazioaren** egoitzaren aurrean, Gipuzkoako metalaren, ehunaren eta larruaren sektoreetako negoziazio kolektiboen desblokeoa exijitzeko. **Berria - Ekonomia**

## 67 merkataritza-filial

Atzo inauguratu zuten arren, 2000. urtean jaio zen Fagor Gastro Polska, Fagor Industrialen **merkataritza filial** gisa. **Berria - Ekonomia**

## 68 merkataritza-firma

**Merkataritza-firma** handiek darabilten estetika bera darabilte Adbuster-koek, enpresa horien hipokrisia eta eskrupulu falta salatuz, hain zuzen ere. **Txema Ramirez de la**



## 69 merkataritza-fluxu

1995 eta 2003 urteen artean, bi norabideetarako **merkataritza fluxua** handitu zen. Berria - Ekonomia

Gordailuak; Maileguak; Finantza-fluxuak; **Merkataritza-fluxuak**. Koro Navarro

Nazioarteko **merkataritza** - eta finantza- **fluxuek**. Koro Navarro

## 70 merkataritza-forma

Egoeraren gordinak [...] ondorio positiboak ere ekarri ditu: benetako solidaritatea (ez telemaratoieta) errealitate bihurtu da, eta bidezko **merkataritza-formak** errekerperatu egin dira (truketa, kasu). Txema Ramirez de la Piscina

## 71 merkataritza-gai

Hauek izango dira epaitegi berriak: lehen instantziako epaitegia Donostian; gizarte gaietarako epaitegi bat eta **merkataritza gaietarako** beste bat Bilbon. Berria - Euskal Herria

**Merkataritza-gaien** salerosketetarako gunea, sekulako ontziak, errusiarrak eta amerikarrak eta suediarrek, baita txinatarrak ere. Fernando Rey

- Espainiarrek konkista-gai gisa hartu zituzten aurkitutako lurraldeak; haiek baino finagoak ziren herriak oharitu ziren lurralde haiek **merkataritza-gai** zirela. Iñaki Iñurrieta

## 72 merkataritza-ganbera (117 agerraldi, liburu 1 eta 74 artikulutan; orobat merkataritza-ganbara g.er.)

Nazioarteko **Merkataritza Ganberak** 2001ean onartutako hitzamenaren arabera, bestalde, osasun arazo larriak dituzten herriek ez dituzte zertan generikoen patenteak errespetatu. Berria - Gaiak

EAEko **merkataritza ganberak**, enpresaburuen elkarreak eta unibertsitateak. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako **Merkataritza Ganberak** 1970ean egindako enkargu baten ondorioz. Berria - Kultura

Lan munduan, esaterako, euskararen erabilera areagotzeko saio sistematizatuak bultzatuko ditu, enpresaburu elkarrekin, sindikatuarekin eta **merkataritza ganberekin** elkarlanean. Berria - Euskal Herria

Logroñoako **Merkataritza Ganberak** jarri zuen salaketa. Berria - Ekonomia

Estatu musulmanetako **merkataritza ganberai** Danimarkako produktuen kontrako «boikot koordinatua» egiteko eskatu zien. Berria - Mundua

Zuzendaritzak Baionako Herriko Etxeko eta **Merkataritza Ganberako** arduradunekin bilera egin du. Berria - Euskal Herria

Hona Coffier jauna, **merkataritza ganberako** burua; beldurra eragiten du, bai horixe, hain da hotza, dirudienez. Monika Etxebarria

Aspaldian Jean-Marie Berckmans da Baionako **Merkataritza ganberaren** lehendakaria. Herria

Felix Iraola Gipuzkoako **Merkataritza Ganberako** zuzendariak. Berria - Mundua

## 73 merkataritza-gatazka

1980ko hamarralditik aurrera, hain zuzen ere, etengabe izan dira finantza-tentsioak; 1994ko Uruguay Round negoziazioak onez burutu izanak ezin izan zuen ezkatutu zenbateraino ugaldu diren **merkataritza-gatazkak** eta gatazkak alde biren artean konpontzeko joera gero eta argiagoa. Koro Navarro

Bestalde, MMEren sorrerak (1995) kalte egin diezaioke alde bikotasunak **merkataritza-gatazkak** kudeatzeko modu gisa izan duen igoerari. Koro Navarro

## 74 merkataritza-gida

Oso erantzun ona izan du Arrasaten **merkataritza gida** egiteko asmoak, eta 155 dendak eta zenbait eragilek bat egin dute proiektuarekin. Berria - Euskal Herria

EHNaren erabilera sustatzeko, Euskal Herriko zenbait herritako **merkataritza gidak** egiten ari da *Bai Euskal Herriari* herri ekimena. Berria - Euskal Herria

## 75 merkataritza-greba

Sindikatuak «historikotzat» jo dute Bizkaiko **merkataritza greba**. Berria - Ekonomia

## 76 merkataritza-gudu

Horren adibide klasiko bat eskaintzen du Boeing eta Airbus enpresen arteko **merkataritza-guduan** diru-laguntzek izan zuten garrantziak. Koro Navarro

## 77 merkataritza-gunesup\_1 (orobat merkataritzagune g.er.)

Venezianen koloniak **merkataritzagune** soilak ziren, eta, haietan, zerga orotatik libre sal zitzakeen bere produktuak. Koro Navarro

## 77b merkataritza-gunesup\_2 (dendez osaturikoa)

Orain gerentearren laguntzailea naiz True Value Hardware Store burdindegian, Camelback **merkataritza-gunean**. Oskar Arana

Boulevard **merkataritza gunean** jatetxe bat, bolatoki bat eta beste hainbat gauza dugu. Berria - Harian

Hiriburuko **merkataritza-gunerik** garrantzitsuenen. Migel Angel Mintegi

Irungo **merkataritzagune** batean argazkiak errebelatu zituen. Migel Angel Mintegi

Joan den otsailean, **merkataritza gunea** zabaldu eta hiru hilabetera, jakinarazi zuten Boulevardko hiru akziodunek (Eroski, ING eta Inalco) saltzeko asmoa zutela. Berria - Ekonomia

Mahai handiago bat ere bai [...] **merkataritza-gune** handietan erosi eta norberak muntatu behar izaten dituen horietakoa. Hasier Etxebarria

Artea **merkataritza gune**ko apartakalekuak erabili ahal izango dira. Berria - Euskal Herria

Lekuko esanetan, **merkataritza gune**ko segurtasun arduradunek sutea hasi zenean atek itxi zituzten, jendeak ezer lapur ez zezan. Berria - Mundua

**Merkataritza gune**en «diru gose asegaitzari» leporatu diote ordutegiak aldatzeko ekimena. Berria - Ekonomia

## 78 merkataritza-harreman

Estatistikak diote mendebaldeko herrialde industrializatuek, oraindik ere, **merkataritza harreman** handienak beren artean dituztela. Iñaki Heras

Merkantilismoaren garaiko bi indar horien loturari esker zabaldu ahal izan ziren nazio-ekonomiak **merkataritza-harremanen** dinamikara, eta bateratu ahal izan ziren barne-merkatuak. Koro Navarro

Hirugarren Munduko herrialdeei laguntzeko, askoren ustez, GKE eta bestelako erakundeei loturiko laguntza baino ekarpen handiagoa eta egokiagoa da **merkataritza harremanetarako** oztupoak kentzea. Iñaki Heras

Errusia eta Txina, ordea, Teheran zigortzearen kontra daude, **merkataritza harreman** estuak dituztelako herrialde islamikoarekin. Berria - Mundua

ETNek bertikalki integraturik izaten dituzte hornitzaile eta bezero sareak, ohiko **merkataritza harremana** baino sendoagoa eta egonkorragoa den loturretan oinarriturik. Iñaki Heras

Gogoratu behar da aspaldi honetan **merkataritza harreman** garrantzitsuak ezarri direla multinazionalen eta garatzeko bidean dauden herrialde askoren artean. Berria - Gaiak

Txinaren eta ASEANen arteko **merkataritza harremana** asko handitu da: 2004ean 100.000 milioi dolarrekoa izango da. Berria - Ekonomia

**Merkataritza harremanak** indartzea hitzartu dute Txinak eta Estatu Batuek. Berria - Mundua

Israelek, zer esanik ez, Europako Batasuna bahitua du, Bruselak ez baititu Tel Avivekin dituen **merkataritza harremanak** hausten. Berria - Mundua

## 79 merkataritza-helburu

Herrialde hori da, gaur egun, **merkataritza helburuekin** baleak arrantzatzen dituen bakarra. Berria - Gaiak

## 80 merkataritza-hiri

lege horren azken helburua amairik gabeko metaketa da, eta duela ia mila urte asmatu zuten Mediterraneoko **merkataritza-hiriek**. Koro Navarro

**Merkataritza-hiriak** Europa barneko eta kanpoko trukkeen mende zeuden. Koro Navarro

Kasu batean zein bestean, espazio politikoa irazkortasunak eta pluraltasunak [...] zabaldu zuten **merkataritza hiri** beregainetan; hiri horiek bihurtuko ziren geroago nazioarteko merkataritza izango zenaren sorburu. Koro Navarro

## 81 merkataritza-idazkari

Lan hori egiteko «borondate politikoa» eskatu zuen Robert Portman AEBetako **Merkataritza idazkariak**. Berria - Ekonomia

Justizia idazkari eta fiskal John Ashcroftek eta **Merkataritza idazkari** Don Evansek, berriz, iragan astean eman zuten dimisioa. Berria - Mundua  
Negoziazio mahaien harira, bestetik, «eseri orduko bukatzen direla» azaldu zuen UGTko **Merkataritza idazkari** Paula Garcia. Berria - Ekonomia

## 82 merkataritza-idea

Jone eta Maikar estetika zentroak zerbitzu enpresaren saria jaso zuen; *Loreak Mendian* arropa dendak **merkataritza ideia** onenarena. Berria - Ekonomia

## 83 merkataritza-ikuspegi

Gizon serio eta zintzoa izan arren, bazekien **merkataritza ikuspegi** murriztekoa zela. Bego Montorio

## 84 merkataritza-ikuspuntu

Zehaztuko diren jaieguna **«merkataritza ikuspuntutik** erakargarriak» izan beharko dutela ohartarazi du lege aurreproiektuak. Berria - Ekonomia

## 85 merkataritza-ingar

Gure ingurumen kultural eta fisikoa kutsatzen duten **merkataritza-ingarren** aurka borrokatzea dugu xede. Txema Ramirez de la Piscina

## 86 merkataritza-inperio

Hamarraldi batzuetan Brasildik Makaoraino iristen zen **merkataritza-inperio** baten ardatz bihurtu zen [Portugal], Afrikako bi isurialdeak, eta, horren ondorioz, Indietarako itsasbidea bereturik. Koro Navarro

## 87 merkataritza-interes

Kanbisesek Egipto konkistatzeak grekoei kolpe bikoitza eman zien; "gizon lotsagabeen" ospe militarri balioa kendu zion eta grekoen **merkataritza-interesak** Egipton pertsiarren borondate onaren mende utzi zituen. Iñaki Mendiguren

Beste nazio batzuek interes politikoen atzetik jarri dituzte **merkataritza-interesak**. Iñaki Iñurrieta

Interesak -FMLren kasuan, finantza merkatuenak; eta MMEren kasuan, berriz, **merkataritza interesak** -ideien eta teorien gainetik daudela, alegia, Iñaki Heras

## 88 merkataritza-iraultza

Txinaren kasu oraindik ere deigarriak agerian jartzen du, [...] Europak izan zuen bilakaeraren berezitasuna, Erdi Aroko **merkataritza-iraultzara** aurrena eta kapitalismo modernora gero eraman zuena. Bi bide zabaltzen zaizkio beraz **merkataritza-iraultzaren** aldera, X. mendea pasatuta, azkenean inbasioen mehatxutik libre dagoen Europa kristauari. Koro Navarro

## 89 merkataritza-irizpide

Ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta banaketarako **merkataritza irizpideak** ezarri. Iñaki Heras

## 90 merkataritza-itsasontzi ki beherago 112.

Veneziaraino joan ziren hirurak, eta han **merkataritza itsasontzia** hartu zuten Trebizondaraino. Felipe Juaristi

## 91 merkataritza-itun

1894az geroztik, Korean esku hartu eta Txina militarki garaitu zuelarik, Japoniak bere asmo espansionistak berretsi zituen; 1850eko urteetan izenpeturiko **merkataritza-itunak** berrikustea lortu zuen. Koro Navarro

## 92 merkataritza-izen

Beste Soraya batekin igarotzen du arrats bat -**merkataritza-izen** ezaguna bihurtu da Soraya, antza-, Long Street-eko hotel bateko logela batean. Oskar Arana

## 93 merkataritza-jarduera

VIII-XI. mendeetako mundu musulmanean handia izan zen **merkataritza-jarduera**. globalizazio prozesua neurtzeko, atzerriko **merkataritza jarduera** (esportazioak gehi inportazioak) eta ekonomiaren output osoaren arteko zatikia erabiltzen bada, [...]. Koro Navarro

Euskadiko Kutxaren ibilbidea «positiboa» izan da 2005ean, **«merkataritza jarduera** handiari eta horrek ohiko negozioan izandako eraginari esker». Berria - Ekonomia

## 94 merkataritza-joko

Esaterako, Munduko Merkataritza Erakundeak (MME) ezartzen ditu nazioartean **merkataritza-jokoaren** arau asko. Iñaki Heras

## 95 merkataritza-kapital

lehen globalizazioa, **merkataritza kapitalaren** hedapenari dagokio. Iñaki Heras

## 96 merkataritza-kapitalismo

**Merkataritza** -kapitalismoaren lehen goraldi hau bat-batean eten zen XIV. mendearen erdian. Koro Navarro

Gremioen beheraldi motel hori **merkataritza-kapitalismoak** fabrikatzaileen gainean zuen nagusitasun gero eta handiagoaren adierazgarri da. Koro Navarro

## 97 merkataritza-kasu

Lege hori oso ona da arazo zibil arruntetarako; baina arrazoi dugu **merkataritza-kasuetarako** ez erabiltzean. Iñaki Iñurrieta

## 98 merkataritza-kide

Apreziazioa ez zen hain handia izan yenari buruz [...] baina %50era iritsi zen hala ere, termino errealean, Estatu Batuetako **merkataritza-kide** nagusien diruei buruz. Koro Navarro

## 99 merkataritza-klase

Merkantilismoak printzearen zerbitzura zegoen **merkataritza-klasearen** interesak aldeztu zituen. Koro Navarro

XVI. mendeko prezioen gorakadak [...] azkenduko zuen errentadunen hondamena, **merkataritza-klasearen** onurarako. Koro Navarro

## 100 merkataritza-komisario

«Hau ez da krisia oraindik», esan zuen atzo Europako Batzordeko **Merkataritza komisarioak**, Peter Mandelsonek. Berria - Gaiak

Pascal Lamy Europako **Merkataritza komisarioak** azaldu zuenez, «hitzarmena positiboa da EBrentzat eta baita garapen bideko herrialdeentzat ere». Berria - Ekonomia

## 101 merkataritza-konpania

Han eratutako koloniak antzinako kolonietan adibide gutxi dituen mendekotasun-mota batekoak dira, dela gaur egunekoak Estatuaren beraren mende daudelako, dela estatu horretan ezarritako **merkataritza-konpainia** baten mende. Iñaki Iñurrieta

**Merkataritza-konpainia** baten eplegatua gisa sortu ziren, diru-irabazia izanik haren helburua. Iñaki Mendiguren

## 102 merkataritza-kreditu

Finantzaketa ofizial eta nagusi horri, kapital pribatuaren fluxuak, artean apalak, gehitu zitzaizkion: zuzeneko inbertsioak eta **merkataritza-kredituak**, sarritan herrialde esportatzaileen estatuek bermatuak. Koro Navarro

Estatuei dagokien zorra Pariseko Klubaren baitan birnegozia daiteke, bertan biltzen baitira, kasuz kasu, zordunak estatu hartzekodunekin edo **merkataritza-kredituen** estatu bermatzaileekin. Koro Navarro

## 103 merkataritza-lan

Durangoko Sabecon dauden langileei Bizkaiko Elikadura **Merkataritza lan** hitzarmena dagokie, beraz, ez Sabeco Supermerkatuak SAko hitzarmena. Berria - Ekonomia

**Merkataritza lanetan** ari ziren itsasontzi metalikoekin ilareti eta gasolinaz zikinduriko ur beltzuei beha. Aritz Gorrotxategi

## 104 merkataritza-lankidetzak

EBK **merkataritza-lankidetzak** sare bat sortu nahi du Magrebeko herrialdeekin eta horretarako oztopotzat jotzen du Saharako gatazka. Berria - Mundua

## 105 merkataritza-lege

Salerosgaien konfiskazioa berekin daramaten **merkataritza-legeak**. Espainiako Auzitegi Konstituzioanalk bertan behera utzi ditu Nafarroako **Merkataritza Legearen** lau artikulu. Iñaki Iñurrieta

Botikak egiteko erabiltzen diren hainbat landareren inguruko **merkataritza legeak** gogortu dituzte. Berria - Gaiak

## 106 merkataritza-lehia

Mitoka dioenaren kontra, herrialde industrializatuaren langabeziaren parte txiki bat baino ez zaiola zor nazioarteko **merkataritza lehiari** . **Iñaki Heras**

Hego Amerikako hainbat herrialdek eta baita Kanadak ere [...] Estatu Batuek **merkataritza lehiari** bidegabeko abantailak dituztela salatu zuten. **Berria - Mundua**

## 107 merkataritza-lotura

Estatu Batuekin **merkataritza lotura** formalak ezarri aurretik, Latinoamerikako ekonomiak bateratu nahiko lukeela azaldu zuten. **Berria - Mundua**

## 108 merkataritza-maila

Akemenestar Inperioak **merkataritza-mailako** *fait accompli* komertzial bat onartu zuen aramerari berandu bada ere estatus ofiziala emanez. **Iñaki Mendiguren**

## 109 merkataritza-ministerio

Postako goi ofizial ohia zuen aita, eta amaren osaba bat, egun, **Merkataritza Ministerioko** atalburu. **Anton Garikano**

Espainiako Industria, Turismo eta **Merkataritza Ministerioak** . **Berria - Mundua**

Espainiako **Merkataritza ministerioaren** arabera, oliba olioaren %27 garestitu da azken 12 hilabeteetan. **Berria - Ekonomia**

## 110 merkataritza-ministro

Bo Xilai gobernadorea, Txinako **Merkataritza ministroa** da egun. **Berria - Gaiak**

Erregaien garestitzeak eragin dezakeen inflazioa dela eta, Espainiako Industria, Turismo eta **Merkataritza ministro** Jose Montillak «ahalik eta arduratsuen» jokatzeko eskatu die Espainiako petrolio enpresei. **Berria - Harian**

Christian Jacob **Merkataritza ministroak** eta Herve Gaymard Ekonomia ministroak antolatuta dute bilera. **Berria - Ekonomia**

## 101 merkataritza-nabigazio

**Merkataritza nabigazioko** kapitain izana den 53 urteko gizonetzko batek hartu du Errumaniako lema. **Berria - Mundua**

## 112 merkataritza-ontzi (8 agerraldi, 3 liburu eta 3 artikulutan) ik merkantzia 5.

Igandean heldu zen Sirakusako portura Poloniako Zuiderdiep **merkataritza ontzia** , Maltako uretan erreskatatutako 71 etorkinekin. **Berria - Mundua**

**Merkataritza ontzietako** kapitaina, Deustuko Itsasketa Eskolako irakaslea, *Goizeko Izarra* ontziko eskifaiakoa. **Edorta Jimenez**

Sasoi hartan, elkarrekin egiten genuen lan **merkataritza-ontzi** berean. **Aritz Gorrotxategi**

**Merkataritza-ontziak** bezalaxe, urrutitik ekartzen ditu hornigaiak. **Elizen arteko biblia**

Hiru urtetik behin ur handietako **merkataritza-ontzi** haiek urrez, zilarrez, marfilez, tximinoz eta indioilarrez beterik itzuli ohi ziren. **Elizen arteko biblia**

Erresuma Batuko Itsas Armadako Estatu Goreneko buruak, Alan West almiranteak, ohartarazi du Al Qaeda eta beste talde batzuk **merkataritza ontzien** kontrako erasoak antolatzen ari direla. **Berria - Mundua**

Ingurumena defendatzeko garaian petrolio eta **merkataritza ontzien** konpainien lobbyak nagusitzen dira. **Berria - Euskal Herria**

## 113 merkataritza-operazio

«**Merkataritza operazioa** izan da, eta ez finantza operazioa», azaldu du Fernandez de Astobizak. **Berria - Ekonomia**

## 114 merkataritza-ordezkar

Robert Zoellick AEBetako **Merkataritza ordezkar** eta Pascal Lamy Europako Batasuneko Merkataritza komisarioa «negoziatzaile leialak» direla gaineratu zuen. **Berria - Ekonomia**

## 115 merkataritza-ordu

**Merkataritza orduak** . **Berria - Ekonomia**

## 116 merkataritza-ordutegi

Azalera handiko saltokien eta **merkataritza-ordutegiaren** liberalizazioaren aurka. **Iban Zaldia**

**Merkataritza ordutegien** araudiak haserre bizian jarri ditu sindikatuak. **Berria - Ekonomia**

Jaurilaritzak ez duela **Merkataritza Ordutegien** Legeari aurkeztutako alegaziorik onartu. **Berria - Ekonomia**

**Merkataritza ordutegien** dekretuaren zirriborroaren arabera. **Berria - Ekonomia**

Atzo goizean izenpetu zuen akordioa Nafarroako **Merkataritza Ordutegien** Mahaia. **Berria - Ekonomia**

## 117 merkataritza-oreka

Zuon, abokatuon artean, baten batek **merkataritza-oreka** berriro ezartzea lortuko balu, ni edozer egiteko prest egongo nintzateke... **Lopez de Arana**

## 118 merkataritza-politika

Berrikuntzak eta **merkataritza-politika** estrategikoa. **Koro Navarro**

Merkatu-egitura ez perfektuen existentziak, alabaina, **merkataritza-politika** oldarrikorrek bultzatzen ditu, enpresarentzat ez ezik, herrialdearentzat ere onuragarriak izan daitezkeenak. **Koro Navarro**

Europako Batasunaren eta Mendebaldeko Afrikako estatuaren arteko **merkataritza politika** salatzea. **Berria - Harian**

Erakundeek dei egin diete «**merkataritza-politiken** plangintza duten erantzukizuna» beren gain har dezaten. **Berria - Ekonomia**

## 119 merkataritza-portu

Ikatz eta egurra hartzeko makineria onenaz hornituriko **merkataritza-portua** bihurtu dute Bouville. **Monika Etxebarria**

Mutrikun ere Eusko Jaurilaritzak, Mutrikuko Udalaren babesarekin, kirol eta **merkataritza portu** berria eraiki nahi du. **Berria - Euskal Herria**

## 120 merkataritza-postu

Aurreko lau mendeetan zehar, europarrek **merkataritza-postuak** ezarri zituzten Afrikako mendebaldeko eta ekialdeko kostaldeetan, barrurago sartzeko ahaleginik egin gabe hala ere. **Koro Navarro**

## 121 merkataritza-prefektu

Xenofonte, *Errentak* liburuan, prozesuak bizkorren erabakitzen zituzten **merkataritza-prefektuei** sariak ematearen alde ageri da. **Iñaki Iñurrieta**

## 122 merkataritza-produktu

Izan ere, **merkataritza produktuen** etiketen inguruko erakusketa abian du Gasullen taldeak. **Berria - Mundua**

## 123 merkataritza-proposamen

**Merkataritza-proposamenetan** arrisku-marjina egoten da beti. **Lopez de Arana**

## 124 merkataritza-publizitate

Garaiko Mendebaldeko **merkataritza-publizitatearen** praktika, bere inbertsiogintzaren ugaritasunean eta "merkatu-ikerketaren" arduratasunean, propaganda komunistak nekez gainditu bazezakeen ere, desberdinak eta garrantzitsuagoak ziren emaitzetara jo zuten, eta bai lortu ere. **Iñaki Mendiguren**

## 125 merkataritza-sail

AEBetako **Merkataritza Sailak** jakinarazi du egungo joera bere hartan mantenduz gero, egunero 1.500 milioi dolar erakarri beharko dituztela defizit horri aurre egiteko. **Berria - Ekonomia**

Nafarroako Gobernuak **Merkataritza Sailari** eta patronalari «ehungintzaren aldeko ituna hitzartu dezaten» exijitzeko konpromisoa hartu dute. **Berria - Harian**

Nafarroako Gobernuak **Merkataritza Sailari** eta patronalari «ehungintzaren aldeko ituna hitzartu dezaten» exijitzeko konpromisoa hartu dute. **Berria - Harian**

**Merkataritza Sailak** azaldu du 2004ko urtarrian %0,4 igo zirela enpresen salmentak. **Berria - Ekonomia**

Eskuduntzak urratzen dituela uste du Industria eta **Merkataritza Sailak** . **Berria - Ekonomia**

## 126 merkataritza-sailburu

Gobernuburuak gezuratu zituen Ehud Olmert lehen ministrorde eta Industria eta **Merkataritza sailburuak** Jerusalem Post egunkariaren hereneguneko edizioan egin zituen

## 127 merkataritza-sailburuorde

Hala ere, sektorearekin hitzartuko dutela aurreratu zuen Rodrigo Garcia [Merkataritza sailburuordeak](#) uztailen Berriak argitaratutako elkarrizketan. [Berria - Ekonomia](#)

## 128 merkataritza-saltoki

Eraikuntza (etxegintza) [merkataritza saltoki](#) haundietan. [Herria](#)

## 129 merkataritza-sare

Venezia hasi zen, XI. mendean, [merkataritza-sare](#) bat aurrenekoz ehuntzen, eta sare horrexek ziurtatuko zizkion zenbait mendez oparotasuna eta Europan zuen lehenetasuna. [Koro Navarro](#)

Txinako Itsasoaren inguruan Txinako diasporak sorturiko [merkataritza-sare](#) harrigarria. [Koro Navarro](#)

## 130 merkataritza-sektore

Eusko Jaurlaritzako Arrantza Sailarekin eta [merkataritza sektorearekin](#) lanean ari dira, arrandegietan saltzen den hegaluzea «benetako Bonito del Norte» dela ziurtatzeko. [Berria - Ekonomia](#)

Bizkaiko [merkataritza sektoreko](#) 30.000 langileren baldintzak arautzen dituen hitzarmen kolektiboa Azoka hartuko du Bilbao Exhibition Centerrek, [merkataritza sektore](#) honen eta inbertsiogile potentzialen arteko harremanak bultzatzeko asmoz. [Berria - Ekonomia](#)

## 131 merkataritza-sindikatu

Ez zen inongo elkarterko bazkide, eta [merkataritza-sindikatu](#) kuota ordaintzen zuen bakarrik, ezertan parte hartu gabe. [Joseba Urteaga](#)

## 132 merkataritza-sistema

«[Merkataritza sistema](#) libre eta zuzen» batek pobreziaaren kausak desagerrarazten lagunduko lukeela. [Berria - Gaiak](#)

## 133 merkataritza-soberakin

Merkantilisten arabera, metaketa hori eraginkorragoa izan zitekeen [merkataritza-soberakinei](#) irteera emango zieten politika-bideak erabiliz. [Koro Navarro](#)

Ekialde Urrunak ez du bere kideen manufaktura askorik inportatzen, eta horren ondorioz [merkataritza-soberakin](#) aski handia sortzen da, [Koro Navarro](#)

## 134 merkataritza-talde

Europako txikizkako lehen [merkataritza taldea](#) da Karstadt Quelle. [Berria - Ekonomia](#)

## 135 merkataritza-tentsio

Nazio-politikak aldi berean geratu dira elkarrekin lehiatu beharraren eta finantzen alorrean sinesgarri izateko premiaren mende, eta mendekotasun bikoitz hori, izatez, finantza-eta [merkataritza-tentsio](#) handiak ekartzeko modukoa da. [Koro Navarro](#)

## 136 merkataritza-tradizio

Batzuen [merkataritza tradizioa](#) jabetzan oinarritzen da, eta baldintza horietan ez sartzea erabaki zuten. [Berria - Ekonomia](#)

## 137 merkataritza-tratu

Kontua da gorrotatu egiten duela ordaintzen dion inperioa; eta bi aldeen artean irekitako arrakala morala ezin dela etengabe konpondu [merkataritza-tratu](#) baten bidez, tratu hori ez badu bermatzen, barbaroaren aldetik, zaintzeko ardura hartu duen zibilizazioan parte hartzeko inolako desirak. [Iñaki Mendiguren](#)

## 138 merkataritza-truke

XII. mende bukaeraz gero, Champagne zen Ekialde eta Mendebalde arteko [merkataritza-trukerako](#) erdigune nagusia. [Askoren artean](#)

Bien arteko [merkataritza trukeek](#) 202.000 milioi dolarreko defizita eragin zioten Washingtoni iaz. [Berria - Mundua](#)

[Merkataritza trukeek](#) ezin garapenerako diru-laguntzek baino gehiago egin dute herrialde txiroen alde. [Iñaki Heras](#)

Nazioartean den indar erlazio desorekatua dela eta, nekez esan daiteke [merkataritza trukeak](#) askeak direnik. [Iñaki Heras](#)

Hego aldeko itsasoko konpainiari espainiar inperioarekin [merkataritza trukea](#) izateko monopolioa eman zitzaion. [Iñaki Heras](#)

## 139 merkataritza-ustiaketa

Merkatu-ekonomian, gizakia ez du soilik lanak ustiatzen eta alienatzen, produktoreen eta saltzaileen aldetik ere, nolabaiteko [merkataritza-ustiaketa](#) jasotzen baitu. [Iñaki Heras](#)

## 140 merkataritza-ustiapena

Bakuko petrolio-alorraren [merkataritza-ustiapenak](#) berresteko. [Iñaki Mendiguren](#)

## 141 merkataritza-zentro

Eguberri bezperan, andreak eta biok presako espedizioa antolatatu genuen [merkataritza zentro](#) erraldoi ireki berrira. [Aingeru Epaltza](#)

Bilbondo [merkataritza zentroa](#) handitzeko planak 18.000 metro karratuko hedatzea aurreikusten zuen, 80 denda berri irekitzeko. [Berria - Ekonomia](#)

Errenteria auzoan 10.000 metro koadro hartuko dituen [merkataritza zentroaren](#) aurka daude ELA, LAB eta EHNE. [Berria - Ekonomia](#)

Nahikoa da edozein [merkataritza zentro](#), hipermerkatu edo dendataraz joatea [...] han saltzen diren produktuak nongoak diren ikusteko eta, azken buruan, lehia nondik datorren frogatzeko. [Iñaki Heras](#)

## 142 merkataritza-zerbitzu

[Merkataritza-zerbitzuen](#) trukeen ehunekoa, munduko BPGaren %2,1 izatetik 1970ean, %4,2 izatera igaro zen 1996an GATT. [Koro Navarro](#)

## 143 merkataritza-zerga

Baina bidesaririk eta [merkataritza zergetatik](#) ateratzen den dirua ez da herria militarki armaz defendatzeko nahikoa. [Esteban Antxustegi](#)

## 144 merkataritza-zigor

Japoniak bi herrialdeen arteko akordioak urratu zituela-eta, Estatu Batuek [merkataritza-zigorrak](#) eta yenenaren balioa igotzeko presioak aldizkatu zituzten. [Koro Navarro](#)

Garapen bidean diren herrialdeek betidanik salatu izan dute [merkataritza zigorrak](#) ezartzeko mehatxuekin beren garapen mailari buruz ez-egokiak diren baldintzak ezartzea merkataritzari oztopoak jartzea dela. [Iñaki Heras](#)

## 145 merkataritza-ziklo

Ekonomialariak gai dira [merkataritza-zikloen](#) uhin-luzerak kalkulatzeko. [Iñaki Mendiguren](#)

Mendebaldeko jarduera ekonomikoaren txandakako goraldi eta beheraldi horiek [merkataritza-ziklo](#) deitu direnak- aztertzen ditugunean, faktore kontrolagarri eta kontrolaezinen artean bereizketa egiten aurkitzen ditugu aztertzaile profesionalak. [Iñaki Mendiguren](#)

## 146 merkataritza-zinegotzia

Fernando Arangiz, Gasteizko [Merkataritza zinegotzia](#) Alfonso Alonso alkatearen korporazioan. [Berria - Ekonomia](#)

## 147 merkataritza-zuzendari

Galdera horiek bota zizkion ostegunean Peter Carl Europako Batasuneko [Merkataritza zuzendari](#) nagusiak Robert Zoellick AEBetako Merkataritza ordezkariari. [Berria - Ekonomia](#)

Ostegunean, Ryanairreko [merkataritza zuzendariak](#) diru hori bueltatuko zutela ohartarazi zuen. [Berria - Ekonomia](#)

## 148 merkataritza-zuzendaritza

1967an zen, Tom Simpson Ventoux mendiko pattarretan lehertu zen egunean, Eussako notario baten manuz, Bresteko Itsas [Merkataritza Zuzendaritza](#) izan nintzen, Denez zein ontzitan zebilen jakiteko asmoz. [Itxaro Borda](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

abetako merkataritza defizita (6); ameriketako merkataritza eremu (5); arabako merkataritza (12); bidezko merkataritza (10); boulevard merkataritza gunearen (7); boulevard merkataritza guneko (4); ekonomiazko merkataritza egiten (5); gipuzkoako merkataritza ganberak (13); gipuzkoako merkataritza ganberako (8);

gipuzkoako merkataritza ganberaren (8); hiriko merkataritza (4); indietako merkataritza (5); industria eta merkataritza (12); kanpoko merkataritza (4); kontrolpeko merkataritza (4)

merkataritza akordioa (5); merkataritza arloan (4); merkataritza askea (7); merkataritza askeak (4); merkataritza askearen (18); merkataritza askerako (16); merkataritza askerako ituna (4); merkataritza askerako itunaren (5); merkataritza balantza (5); merkataritza balantzak (4); merkataritza defizita (21); merkataritza defizitak (8); merkataritza egin (4); merkataritza egiten (10); merkataritza erakundea (7); merkataritza erakundeak (19); merkataritza erakundean (13); merkataritza erakundearen (12); merkataritza erakundeko (8); merkataritza eremu (6); merkataritza eremu librea (4); merkataritza eta industria (23); merkataritza eta turismo (34); merkataritza ganbera (7); merkataritza ganberak (34); merkataritza ganberako (31); merkataritza ganberako presidente (4); merkataritza ganberako presidenteak (6); merkataritza ganberako zuzendaria (4); merkataritza ganberan (8); merkataritza ganberaren (18); merkataritza ganberak (8); merkataritza ganberan (4); merkataritza gune (56); merkataritza gune bat (10); merkataritza gune batean (7); merkataritza gunea (19); merkataritza guneak (10); merkataritza gunean (19); merkataritza gunearen (15); merkataritza gunearen salmenta (5); merkataritza guneen (6); merkataritza guneetan (8); merkataritza guneko (17); merkataritza handia (4); merkataritza harreman (7); merkataritza harremanak (19); merkataritza komisarioa (4); merkataritza komisarioak (7); merkataritza liberako (8); merkataritza ministro (6); merkataritza ministroak (10); merkataritza mota (5); merkataritza ordutegien (4); merkataritza politika (5); merkataritza sailak (4); merkataritza trukea (4); merkataritza trukeak (5); merkataritza zentro (9)

munduko merkataritza erakundea (7); munduko merkataritza erakundeak (18); munduko merkataritza erakundean (13); munduko merkataritza erakundearen (11); munduko merkataritza erakundeko (8); nazioarteko merkataritza (32); tokiko merkataritza (4); turismo eta merkataritza (7); urbil merkataritza gunean (4)

merkataritzan aritzeko (5); munduko merkataritzan (4); nazioarteko merkataritzan (10)

merkataritzaren bidez (4); merkataritzaren dinamismoa (4); munduko merkataritzaren (9); nazioarteko merkataritzaren (24)

merkataritzari esker (7)

merkataritzagune ik merkataritza 77.

## merkatorntzi iz mekataritza-ontzia.

Leihotik begira, Pasaiaiko portuan ainguraturiko **merkatorntzi** hori ikaragarri bati so. aste luzeetan portuan ainguraturik egon zen **merkatorntzi** egiptoar nabarmena. **Harkaiz Cano**

## merkatu<sup>1</sup> 1 iz erosteko eta saltzeko toki jakin eta ageri batean (eta eskuarki egun jakin batzuetan) gertatzen den jende bilera; salerosketa horiek egiten diren toki bera.

Bestalde **merkatu** haundiagoak baziren Bazko eta Mendekoste asteartez, feriak deituak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ni **merkatu** nagusi aldera noa; hantxe utziko zaitut neure barazkiekin. **Karlos Zabala**

Hantxe hil baitzitekeen gosez, Aurten ere, Uztaritzen, Eguberriko **merkatu** berezia hor izanen dugu. **Karlos Zabala**

Paris asebeste haren erdian, **merkatu** nagusiaren iratzartze distiratsu hartan. **Karlos Zabala**

**Merkatu** handia da oso, baina neguan hotza egiten du gogotik. **Karlos Zabala**

1966an, **merkatu** estalia estrenatu zuen Georges Pompidou, orduko lehen minixtroak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ezpeletako **merkatu** estalian. **Herria**

**Merkatuaren** estalpeko kaleetako batean barrena. **Karlos Zabala**

Kanpalekuan **merkatu** zenbait baziren, denak isilkakoak. **Marzel Etxehandi**

Era horretara bildutako jakiekin otordu galantak antolatzen genituen, eta arropak **merkatu** txikian saldu. **Jon Arretxe**

Aalaraziz Sarako labore edo bihiak Chauvin-Dragon herriari, belarra eta lastoa berriz, Errepublikaren armadetako funtzionarioei, eta abereak inguruko ferietan eta

**merkatuetan** ... **Elena Touyarou**

Inoiz baino bizitasun handiagoa Bastiako San Nikolas plazan paraturiko **merkatu** txikian. **Berría - Mundua**

Italiako **merkatu** ibiltari tipiko horietako bat dago zentrorra bidean. **Anjel Lertxundi**

**Merkatu** eta besta haundi batzuetan, hala nola Euskal Herria Zuzenean festibalean. **Herria**

### 2 (hitz elkartuetan)

**Merkatu** eta feira gune guzietan hedatuko dugu "EGUZKIA" etxe pastiza marka esplikatzeko duen ageria. **Herria**

Orduan gobernuak Donazaharri kendu zion **merkatu** eskubidea, eta eman Donibaneri astelehen guziz merkaturia egiteko ahalaz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Portuan eta fruta **merkatuan** aritu zen, gora eta behera paseatzen eta. **Iban Zaldua**

Bestalde, ortziraletik iganderat, Santa Eugenia plazan, zaharki **merkatu** berezia, salgai itsasoari johan zaizkion edozoin gauza... **Herria**

### 3 ekonomian, ondasunen edo zerbitzuen salerosketari dagokion jarduera; zerbitzu edo produktuen baten eskaera edo salmenta aukeren edo erosle potentzialen multzoa.

Baina, aldi berean, kapital pribatuaren nazioarteko **merkatu** bat osatzea eragingo zuten Estatu Batuen finantza-politikaren kontraesanek. **Koro Navarro**

Kontsumoaren **merkatu** modernoan sarbidea duen erdi mailako klase zabal bat sortzea. **Koro Navarro**

Salgai batzuen **merkatuetan** erabateko desarautzea aldarrikatzen da, hau da, **merkatuetatik** oztopoak kentzen dira -lan merkaturia esaterako-, eta beste **merkatu** batzuetan, berriz, enpresen arteko akordioei, monopolioetarako joerari eta arauketari eraso egin ez eta indartu ere indartzen baitira. **Iñaki Heras**

Euromerkatuek 1973 ondoren zuten likidotasun izugarriak halabarrezko eragina izan zuten **merkatu** horietan esku hartzen zuten finantza-jokamoldeetan. **Koro Navarro**

**Merkatuak** ez ditu, esaterako, geroko belaunaldien baliabide premiak balioesten. **Iñaki Heras**

**Merkatuak** teknologia berrietan adituak diren langileak behar omen ditu. **Iñaki Heras**

**Merkatuaren** mekanismo autoerregulatuak huts egiten duenean. **Iñaki Heras**

**Merkatuen** mundializazioa. **Edorta Agirre**

132.264 bidaiarik hartu zuten hegazkina Ryanair konpainiarekin eta egun Miarritzeko aireportuko **merkatu** osoaren %16 Irlandako konpainia horri dagio. **Berría -**  
Ekonomia

Urte batzuk geroago **merkatuan** ziren salgai nylonezko galtzerdiak. **Pello Salaburu**

Lanaren banaketaren muga **merkatuen** hedadura dago. **Koro Navarro**

### 4 (izenondoeekin)

**Merkatu** irekiko eragiketarik eginez (*open-market* eragiketarik, alegia, zor publikoa erosiz edo salduz). **Iñaki Heras**

**Merkatu** sekundarioa ere esaten zaio burtsari. **Iñaki Heras**

Estatuak kontrolatzen duen **merkatu** nazional baten baitan baino ez omen da Keynesen errezeta-liburua erabilgarri. **Iñaki Heras**

**Merkatu** lehiakorrek ez duela errenta banatzeko mekanismorik. **Iñaki Heras**

**Merkatu** autoerregulatuaren garaia. **Iñaki Heras**

Ez batak ez besteak ez zuten zuzenean sortuko **merkatu** autoaratuaren konkurrentziako sistema. **Koro Navarro**

**Merkatu** askearen filosofiaren menpe uzten ditu gizarte premiak. **Berría - Euskal Herria**

Beharrezkoa da, efikaziaren mesederako, lan-merkaturia diren betebeharrak guztiak ezabatzea, **merkatu** dinamikoagoa egiteko. **Iñaki Heras**

Globalizazioak **merkatu** bakarra sortu ordez, munduko ekonomia erregionalizazioa ekarri du. **Iñaki Heras**

Europako **merkatu** batuaren eronkari aurre egitea. **Iñaki Heras**

1987an Europako **Merkatu** Bakarra sortzeko Europako Agiri Bakuna izenpetu zenetik. **Iñaki Heras**  
XIX. mendeko **merkatu** globalaren oinarri teknologikoak izan ziren kontinenteen arteko hari telegrafikoa batetik, eta baperezko itsasontziak bestetik. **Iñaki Heras**  
Mundu mailako **merkatu** globalizatuetao lehia bete-betean murgildurik daude egun kooperatiba-enpresak. **Iñaki Heras**  
Urrearen *pool* delakoaren sorrera 1961ean, urte berean izenpetutako mailegu-itun orokorrak, errearen **merkatu** bikoitzaren sorrera 1968an. **Koro Navarro**  
Horrez gainera, higiezin **merkatu** hankazgoratua zegoen. **Koro Navarro**  
**Merkatu** kapitalistaren bertsio erlijiosoa da 'New Age'. **Berria - Gaiak**

## 5 irud/hed

Eta ase eta gosea hain bidegale -eta desberdinkiro banatzen dituen **merkatu** sexualeko arrakastak ere badu, bistan denez, bekatuaren eta atentatuaren kutsu bat... jendeen jende-artearentzat. **Iñaki Seguro**  
Zergatik da hain garrantzizkoa horrelako argazkien merkatua, zergatik da **merkatu** gay arrunta baino askoz ere handiagoa? **Karlos Zabala**  
Luze gabe, eta Erroman **merkatu** literario bat osatuz joan zen heinean, zabaldu egin zen hitzaren esanahia, eta ekintza berbera liburuekin burutzen zuenari *plagiarius* izena ematen hasi zitzaion. **Bernardo Atxaga**  
Autore baten kanonizazio prozeduran unibertsitateak ematen duen goi mailako erramu boneta oso garrantzitsua da, zinezko kontsakrazioa ikonoen beharretan den liburuaren **merkatuan**. **Ana Urkiza**

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Barne Produktu Gordina herrialde jakin batean bertako nahiz atzerriko produktio faktoreek ekoiziriko ondasun eta zerbitzuen **merkatu** balioa da. bestela esanda, **merkatu** -prezioa zero dute. **Iñaki Heras**  
Sistema kapitalistan **merkatu** mekanismoek duten garrantzia. **Iñaki Heras**  
Errealitatean beste **merkatu** -egitura batzuk dira nagusi: monopolioak, oligopolioak [...] eta lehia ez perfektua edo kompetentzia monopolistikoa. **Iñaki Heras**  
Ekoizpen baliabideen jabe go pribatua, **merkatu** askatasuna eta enpresa askatasuna. errenta eta aberastasun desberdintasun onartezinak sor daitezkeela **merkatu** jokoaren bidez. **Iñaki Heras**  
Argi dago **merkatu** logikatik atera behar dugula [lurzorua]. **Berria - Euskal Herria**  
Zeren enpresek edo herrialdeek beren **merkatu** kuota handitzen duten heinean, beren inbertsioak ere handituko baitituzte. **Iñaki Heras**  
Badirudi, **merkatu** mugak hautsi ondoren, nazioartekotasunean ondasun gehiago hartzen dutela nazio txikiak nazio handiek baino, Liburu gaika dago antolatuta: ekonomilarien helburuak eta tresnak, ekonomilarien ideologia, **merkatu** pentsamoldea, kontsumo-gizartea, [...]. **Pello Salaburu**  
Espainiako Balioen **Merkatu** Batzordeak (CNMV) bakoitzari hamar akzio erosteko aukera bermatzea eskatzen digu. **Berria - Kirola**  
Lehenik Seattle-n, Munduko **Merkatu** Elkarteak bildu zenean. **Pello Salaburu**

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ameriketako Estatu Batuek lan-**merkatu** malgua dute, eta horren ondorioz langabezia-tasa apalak. **Iñaki Heras**  
Lan-**merkatuaren** arautze zurrunezia, finantza-**merkatu** itxiak, prezioen kontrola, ekonomian sektore publikoak nagusitasuna izatea. **Koro Navarro**  
Gerta zitekeen diru-**merkatuan** interes-tasek behera egitea. **Iñaki Heras**  
Munduko bigarren balio **merkatu** indartsuenak, Estatu Batuetako Nasdaqek alegia, Londresko Burtza Eroste Eskaintza Publikoa egin du. **Berria - Ekonomia**  
Alabaina, ez zizkioten afrikar edo asiarrak koloniek eman esportazio-**merkatu** garrantzitsuenak europar industriari. **Koro Navarro**  
Gainera, truke-tasa finkoak, badituzte, ikusiko denez, hainbat eta hainbat kontraindikazio, bereziki finantza **merkatu** globalizatuaren garai hauetan. **Iñaki Heras**  
Kirol **merkatu** mugarik gabea. **Berria - Harian**  
Barne-**merkatu** benetakoaren faltak hazkundera eta industria-kapitalismorako igarobidera eragotzi zituen. **Koro Navarro**  
Lagarrena da munduan Xinako auto-**merkatu** hori. **Herria**

## 8 arkakuso merkatu kukuso merkatua.

**Arkakuso Merkatura** egiten zituen joan-etorrietatik, aldiro itzultzen zen gauza bakan eta baliosuren batekin. **Jon Muñoz**  
**Arkakuso Merkaturan** sarri ibiliz eta traste-saleroslearen berezko senaz tankeratua zuen Maxek bere gustua. **Jon Muñoz**

## 9 kukuso merkatu bigarren eskuko gauzak, eskuarki arropak, saltzen diren merkatua.

Kantari kaliforniarren kamisetak hamar urte baino gehiago ditu, Guadalajarako **kukuso** -merkatuan erositik. **Aingeru Epaltza**  
Usaia den bezala ilabeteko 3. igandean egiten da Ahetzen **kukuso** merkatua. **Herria**  
Larunbatean, Angelun, **kukuso** -merkatua Quintaou plazan. **Herria**

## 10 merkatu beltz zerga-legeak hausen dituen merkataritza ezkutuko edo isilpekoa.

Jende guztiak **merkatu beltzean** erosten eta saltzen ditu gauzak; edonork eskaintzen dizu zerbait erosteko. **Josu Zabaleta**  
**Merkatu beltzean** trukean ibiltzea leporatu zioten. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Oinetako zola batek 7,50 florin balio ditu **merkatu beltzean**. **Josu Zabaleta**  
Aitaordeak dio **merkatu beltzean** aritzen dela, eta jendea hil duela. **Alberto Ladrón Arana**  
Bidasoaz bi aldetako zoko ilunotan errotutako euskaldunon gizaerak, kulturak, odolak, asko zor diola, besteak beste, Santiobide inguruko **merkatu beltz** hari. **Patziku Perurena**

## 11 merkatu egun

Hogoi bat lagun izaten ginen ardurenik, gehixago **merkatu egunetan**. Tolosako Beotibarren jokatu da partida hau astelehen huntako **merkatu egunean**. **Janbattitt Dirassar**  
Beraz Donazarharreko **merkatu egun** batez sortu zen jendeen artean gaitzeko kalapita. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Eta hilabete baten buruan, apirilaren 26an, **merkatu egunean**, arratsaldeko bostak hogei gutxitan, munduak ezagutu duen biztanle arruntei egindako lehenbiziko eraso sistematikoa gertatu zen. **Pello Salaburu**

## 12 merkatu ekonomia

Joera liberalak **merkatu-ekonomian** edo sistema kapitalistan merkatu mekanismoek duten garrantzia azpimarratzen du. **Iñaki Heras**  
Kapitalismoak -edo batzuentzat haren eufemismoa ere baden **merkatu-ekonomiak** - krisi handiak bizi izan ditu. **Iñaki Heras**  
Hala, bada, **merkatu-ekonomiak** gizarte mota berri bat sortu zuen. **Iñaki Heras**  
Merkatarien klasearen eta estatuen arteko itun horretatik sortuko zen **merkatu-ekonomiaren** ezaugarria den konkurrentziako sistema. **Koro Navarro**  
Ekialdeko Europa **merkatu-ekonomiara** igarotzeko zailtasunak. **Koro Navarro**  
Mugatu egin daiteke zorpetzea, baina jakina, hori **merkatu ekonomiaren** aurka joango litzateke. **Berria - Ekonomia**  
· **Merkatu ekonomia** neurri batzuk ezarri ziren Hungariako sozialismoan. **Berria - Mundua**

## 13 merkatu plaza

Denda-mutil hasi zen Zabalguneko **merkatu-plazako** postu batean. **Aingeru Epaltza**  
Bi ordu zeramatzen aurrera eta atzera hiriko karraketan barrena, eta **merkatu plazara** itzultzen zen beti ere. **Karlos Zabala**  
**Merkatu plazaren** aldean, toki ederra dago autoen uzteko, Postaren aitzinean. **Janbattitt Dirassar**  
Ortzeunean, Donibane Garazin, **merkatu plazan**, feria eguna, jateko, edateko, ederlan eta beste. **Herria**  
Ondotik, dantzaldia **merkatu plazan**. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**auzuneko merkatu** (4); **balio merkatu** (4); **barne merkatu** (7); **eguberriko merkatu** (8); **eguberriko merkatu bat** (4); **ezpeletako merkatu** (8); **ezpeletako merkatu estalian**

(5); **finantza merkatu** (16); **lan merkatu** (16); **lan merkatu berrietan** (4); **merkatu askea** (4); **merkatu askearen** (8); **merkatu azterketa** (7); **merkatu bakarria** (10); **merkatu balioa** (4); **merkatu bateratu** (5); **merkatu beltza** (5); **merkatu beltzean** (30); **merkatu berezi** (8); **merkatu berezi bat** (6); **merkatu berezia** (5); **merkatu berri** (5); **merkatu berriak** (11); **merkatu berrien** (4); **merkatu berrietan** (11); **merkatu berrietara** (4); **merkatu eguna** (12); **merkatu egunean** (6); **merkatu egunetan** (5); **merkatu ekonomia** (12); **merkatu ekonomiak** (6); **merkatu ekonomian** (5); **merkatu ekonomiare** (9); **merkatu estalian** (15); **merkatu estaliaren** (4); **merkatu estalitik** (4); **merkatu global** (4); **merkatu globalaren** (4); **merkatu handi** (6); **merkatu handia** (4); **merkatu kuota** (24); **merkatu kuotak** (4); **merkatu kuotaren** (4); **merkatu libre** (12); **merkatu librean** (11); **merkatu librearen** (13); **merkatu libreko** (5); **merkatu nagusi** (10); **merkatu nagusi aldera** (4); **merkatu nagusia** (13); **merkatu nagusiak** (4); **merkatu nagusian** (8); **merkatu nagusiaren** (21); **merkatu nagusiko** (10); **merkatu nagusira** (5); **merkatu nagusitik** (4); **merkatu osoaren** (8); **merkatu plaza** (10); **merkatu plazan** (19); **merkatu plazaren** (7); **merkatu txikian** (4); **mundu mailako merkatu** (4); **munduko merkatu** (7); **nazioarteko merkatu** (5); **nijni novgorodeko merkatu** (4)

**ahetze kukuso merkatua** (6); **artearen merkatua** (4); **barne merkatua** (10); **eguberriko merkatua** (34); **higiezin merkatua** (4); **kukuso merkatua** (33); **lan merkatua** (36); **merkatua galdu** (4); **merkatua hankaz gora** (7); **merkatua itxi** (4); **merkatua quintaou plazan** (15); **merkatua zabaldu** (6); **mozkin merkatua** (4); **nazioarteko merkatua** (5); **neguko merkatua** (8); **zaharki merkatua** (16)

**balio merkatuak** (4); **barne merkatuak** (5); **beldur dira merkatuak** (4); **europako merkatuak** (5); **finantza merkatuak** (11); **lan merkatuak** (14); **merkatuak eskatzen** (4); **merkatuak liberalizatze** (7); **munduko merkatuak** (4)

**arkakuso merkatuan** (14); **baionako merkatuan** (4); **barne merkatuan** (5); **bigarren mailako merkatuan** (4); **dibisen merkatuan** (4); **frantziako merkatuan** (4); **ihauteria merkatuan** (4); **lan merkatuan** (58); **lan merkatuan sartzeko** (6); **lan merkatuan txertatzeko** (4); **londresko merkatuan** (26); **merkatuan egotea** (4); **merkatuan eragin** (4); **merkatuan gertatzen** (4); **merkatuan izango** (4); **merkatuan jarri** (4); **merkatuan txerhiatu** (6); **merkatuan sartu** (8); **merkatuan sartzea** (4); **merkatuan sartzeko** (13); **merkatuan sartzen** (5); **merkatuan txertatzeko** (4); **munduko merkatuan** (6); **nazioarteko merkatuan** (15); **neguko merkatuan** (17); **new yorkeko merkatuan** (6); **nymex merkatuan** (5); **ohiko merkatuan** (9); **petrolio merkatuan** (5)

**barne merkatuaren** (7); **etxebizitza merkatuaren** (4); **lan merkatuaren** (46); **merkatuaren beharretara** (4); **merkatuaren egoera** (8); **merkatuaren legea** (6); **merkatuaren legeak** (4); **merkatuaren legeen** (5); **petrolio merkatuaren** (4)

**lan merkatuari** (8); **merkatuari begira** (4)

**finantza merkatuek** (8)

**balio merkatuen** (9); **barne merkatuen** (8); **burtsa merkatuen** (4); **espainiako balio merkatuen** (5); **finantza merkatuen** (18); **nazioarteko merkatuen** (5)

**dibisa merkatuetan** (8); **diru merkatuetan** (8); **finantza merkatuetan** (10); **munduko merkatuetan** (4); **nazioarteko merkatuetan** (15)

**arkakuso merkatuko** (8); **barne merkatuko** (8); **lan merkatuko** (14); **merkatuko galerian** (8); **merkatuko plazan** (8); **merkatuko prezio** (4)

**arkakuso merkatura** (5); **lan merkatura** (14); **merkatura atera** (9); **merkatura ateratzeko** (4); **merkatura joaten** (5)

**merkatuak handiena** (5)

**merkatutik kanpo** (7); **merkatutik kendu** (4)

**merkatu**<sup>2</sup>, merka, merkatzen (*orobat **merketu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **merkatu** agertzen da*) du *ad* (zerbaiten) prezioa beheratu, merkeago bihurtu.

Botikak **merkatu** , eta herri pobreetan teknologia berriak eta komunikaziorako tresnak zabaltzea. Berria - Gaiak

Gaur egun han egiten denaz guztiz bestelako merkataritza egingo zuketean; izan ere, badirudi Amerikak beste herrialde guztietako aberastasunak **merketu** dituela. Iñaki Iñurrieta

Gasolina 2,6 zentimo **inguru** merkatu da, eta gasolioa, 2,2. Berria - Ekonomia

Zocor %70 **merkatu** da, eta Prozac, berriz, %50. Berria - Euskal Herria

Prezioak %36 **merkatu** dituela salatu dute. Berria - Harian

Tearen prezioa ez da **merketuko** , ez izan beldurrik -erantzun zuen betondo iluneko judu zahar batek-. Karlos Zabala

Sarrerak **merkatu** beharrean, klubaren eguna izendatu. Berria - Kirola

Lurretik atmosfera kanpoan jarri nahi duten espazio estazio batera arteko bidea egingo lukeen igogailua sortu nahi du AEBetako zientzialari batek, espazio bidezko garraioa **merkatu** eta seguruago egiteko. Berria - Gaiak

Saio horien kostuak sistema berriaren bidez **merkatzen** badira, horrek ere ekarpena egingo dio gizarteari. Berria - Gaiak

Argi horiek **merkatu** direnietik gero eta dantzaleku gehiagotan erabiltzen dituzte. Berria - Gaiak

20 urterako 120.000 euroko hipoteka dutenei kuota bost euro **merkatu** zaie hilean, eta urtebetean 60 euro aurrezki ahal izango dute. Berria - Ekonomia

Halako faboreak kitzatzeko gutieneko prezioa iturrien aipamena izaten ohi da gure lanbidean, baina hori ere **merkatu** zitzaidan, Ttipik berak erregutu baitzidan bere izena inon ere ez agertzeko. Aingeru Epaltza

**Merkatzen** saiatu zen, eta bi sosean lortu zuen. Karlos Zabala

**merkatugai** iz merkatuak gaia, salgaia.

Higigarriak, osterak, hala dirua, nola balioa, kanbio letrak, banku zein konpainien akzioak, ontziak, **merkatugaiak** oro, mundu osoari dagozkio, mundua baita horretan Estatu bakarra eta horren kide gizarte guztiak dira. Andres Urrutia

Praktikari buruz, berriz, hiru dira ekonomiarekin antolakuntzari buruzko funtsezko galderak: zer **merkatugai** eta zenbat ekoizti; nola ekoizti ondasunak; eta norentzat ekoizti ondasun horiek. Iñaki Heras

Salneurri horrek euskarri du eraketa, hain zuzen ere, bateko diruaren ugari eta urritasun erlatiboaren eta besteko, salerosian diren objektu edo **merkatugaien** urritasun edo ugaritasun erlatiboaren artekoa. Andres Urrutia

**merkatugune** (*orobat **merkatu-gune** eta **merkagune** g.er.*) iz merkatua egiten den gunea. ik **merkatuleku**.

Betidanik izan da **merkatu gunea** Donibane. Berria - Euskal Herria

Sei bomba-autok eztanda egin baitzuten, lau **merkatugunetan** . Berria - Mundua

Agintariek adierazi zuten, mortero batek **merkatu-gune** bat jotzen hil zen jende gehien. Berria - Mundua

Herriko etxearen plaza, lehen abereen **merkatu gunea** zena, orain, zerbitzuen zentroa bilakatua da. Berria - Euskal Herria

Larunbatean, Miarritzen, **merkatugunean** , goizeko 11etan, Kantalasai. Herria

Miarritzen, **merkatuguneko** saltegiek indar berezi bat egin dute aurten bazterren alagezatzeko San Ferminen ohoretan, Iruñako bestak zireno. Herria

**merkatukeria** iz merkatuaren gehiegizko eragina.

Eguneko aro eta sistema «ez da egokiena jaia eta kultura gorde eta garatzeko», ekimenaren sustatzaileen aburuz, «mehatxuak» etengabeak direlako: «Zentsura politikoa musikari, idazle, artista, antolakuntza herritarrei, baita **merkatukeria** eta ikuskizuna parte-hartzearen kaltetan». Berria - Euskal Herria

**merkatuleku** (*orobat **merkatu leku***) iz merkatugunea.

Haatik, iguzkia -berak ez duke ikusi gain hartarik- bainan euria zenean ere Garrantzeko **merkatuleku** barnean zen, hain zen beroa hango besta giroa. Herria

Mica Garen kazetaria eta haren itzultzaile Amir Dushi irakiarra Nasiriako **merkatu leku** batean bahitu zituztela zehaztu zuen. Berria - Mundua

**merkaturatu**, merkatura(tu), merkaturatzen da/du *ad* salgai bat merkatuan jarri.

Mendebaldean, burdina eta esklaboak erosten zituen, eta Ekialdean saltzen zituen gero, bizigarriak, bolaren eta zetaren truke; eta, horrez gainera, bere aintziretako gazta eta beiraren industriako produktuak **merkaturatzen** zituen. Koro Navarro

Merkuriorik gabeko pilak **merkaturatuko** ditu Sony etxeak urtariletik aurrera LPEEek batez beste bi milioi upel gehiago **merkaturatu** ditu. Berria - Gaiak

Asiaren erdialdeko merkataria, kasu, ordoki luzeak zeharkatu zituztenak bere salgaiak **merkaturatzeko**, eta beren herrietako dendak eta salmahaiaik beste urtebete igaro arte ikusiko ez zituztenak. Karlos Zabala

Baliabideak **merkaturatu** egiten dira, salgai bihurtzen dira finean. Enpresa proiektuak (esaterako produktu berri bat **merkaturatzea** edo beste ekoizpen planta bat irekitzea). Iñaki Heras

Izan ere, amiantoa **merkaturatzea** debekatua dagoen arren, enpresa askok erabiltzen jarraitzen dute. Berria - Ekonomia

Egun, produktu asko "ia erabat prestaturik" **merkaturatzen** dira. Edorta Agirre

Inori ez zaio leporatzen gaur egun beste norbaitek idatzitako liburua bere sinadurarekin **merkaturatzea**. Bernardo Atxaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**litro merkaturatu ziren** (3); **upel gehiago merkaturatu** (4)

**merkaturatzeko baimena** (3)

**milioi upel merkaturatzen** (4); **upel merkaturatzen ditu** (5)

## merkaturatzaile *izond* merkaturatzen duena.

Elektrizitate **merkaturatzaileen** artean, berriz, bigarren postuan jartzea lortu du. Berria - Ekonomia

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko gas banatzaile nagusia da, eta merkatu liberalizatuan **merkaturatzaile** nagusia. Berria - Ekonomia

## merkaturatze 1 *iz* salgai bat merkaturatzen jartzea.

Departamentalizazio klasikoa duten antolaketa, maiznik finantza, **merkaturatze**, giza baliabide eta ekoizpen zuzendaritza sailtan banatuta. Iñaki Heras

Hidrokarburoen produkzioa, **merkaturatzea** eta garraioa nazionalizatzea. Berria - Mundua

Izan ere, hornigaitza **merkaturatzearen** kontrolak eta zentroaren periferiako ekoizpenen gainekoak badute eraginik banaketan. Koro Navarro

### 2 (hitz elkartuetan)

Gainera, ekoizpen eta **merkaturatze** fase guztietan kalitatea bermatzeko kontrol neurriak aurreikusten ditu legeak. Berria - Ekonomia

Gehienak **merkaturatze** bideen bilaketari buruzkoak izan dira; autogintza, makina-erreminta eta etxetresna elektrikoaren alorrean, esaterako. Berria - Ekonomia

Hark bere lanen sortze eta **merkaturatze** prozesuak kontrolatu nahi zituen, beti. Berria - Kultura

### 3 *lan-merkaturatze* lan merkatura iristea.

Gazteen lan **merkaturatzea** errazteko sortu zen, duela zortzi urte, BBK Gazte Fundazioa. Berria - Ekonomia

## merkatutxo 1 *iz* merkatu txikia.

Europa **merkatutxo** baten aurretik pasatzean, gelditu egin zen une batez jaka postuan, iruditu baitzitzaion ongi zetorkiokeen larruzko jaka marroi ilun bat ikusi zuela.

Joxemari Iturralde

### 2 *adkor* merkatua.

«Barne ministroak bere **merkatutxoa** antolatu du, etorkinen merkatua», erran du Alain Bocquet talde komunistako presidentea. Berria - Euskal Herria

## merkatzaile *izond* ipar merkataria.

Lehengo **merkatzailea** ez zena, Xubero hortan naski, Atarratzeko merkatura joan "herrestan balitz ere", alta bezperan mezarat joateko xankü egona zelarik. Herria

## merkatze (*orobat merketze*) *iz* prezioa beharrezkoa, merkeago bihurtzea.

Garraio-bideen aurrerakadak eta **merkatzeak**, eta informazio eta komunikazio teknologien aurrerakadak denbora eta espazio mugak gaintzen lagundu dute. Iñaki Heras

Istripuaren atzean materialen **merkatzea** dagoela salatu dute. Berria - Euskal Herria

Prezioen garestitze edo **merkatzea**. Iñaki Heras

Jantzi eta oinetakoen alorrean izan ziren **merketze** handienak. Berria - Ekonomia

Gasolinaren batez besteko **merkatzea** 2,6-2,7 zentimokoa izan da litroko. Berria - Ekonomia

Herralde zordunak banku-kredituen bigarren mailako merkaturatzen gertaturiko kredituen **merketzeaz** balia zitezten. Koro Navarro

Bizkaia ez dituen kanona eta **merkatzeak** aplikatzen ditugu. Berria - Euskal Herria

**Merkatzeak**, dena den, inor gutxi lasaitu du, eta upela laster 100 dolarrera irits daitekeela dioenik ere badago. Berria - Ekonomia

## merke 1 *izond* prezio apalekoa. ant garesti.

Liburu-denda batera sartu eta boligrafo bat erosi du, boligrafo **merke** bat. Imanol Zurutuza

Baina ez gara joango ginebra **merke** nazkagarri hau bukatu arte. Koro Navarro

Perfume **merkeen** usaina oso sarkorra da. Xabier Paya

Biharamunean esnatutakoan, kolonia **merkearen** gustua neukan ezterrarian. Hasier Etxeberria

Horrelako elikagaiak **merkeagoak**, ekologikoagoak eta osasuntsuagoak izango dira. Edorta Agirre

**Merkeena** da *baguette*-a, jauna. Harkaitz Cano

Garesti itxurako zapata **merke** batzuk erosi nituen ahizpentzat. Xabier Montoia

Atari zabalaren aurrean auto gorri eta **merke** bat zegoen aparkaturik. Aitor Arana

Txaketaren poltsikotik zigarro paketea atera zuen, rubio **merke** bat, filtrorik gabea. Bernardo Atxaga

Etxe **merke** samar bat hartu genuen Saint-Jacques d'Ajas deritzan herriko auzo batean. Fernando Rey

Antxoaren orde, berdel kilo **merke** batzuk baizik ez ziren agertu gau guztian. Hasier Etxeberria

Lurrak erosteko ere, bankuen kreditu **merkeak** lortuko genituzke. Joan Mari Irigoien

### 2 prezio apaleko zerbitzuak eskaintzen dituena.

Bazter batean jatetxe **merke** bat zegoen. Jose Morales

Txuletak prestatzen zituzten jatetxeetara eta kabaret **merke** samarretara. Mirentxu Larrañaga



Aldirietako zenbait putetxe **merkeetan** sudurra sartzera. **Migel Angel Mintegi**  
Laugarren egunez, aurrekoetan bezala, ostatu hartu zuten hotel itxuraz apal eta **merke** batean. **Felipe Juaristi**  
Gau hartan puta **merke** baten moduan erabili zuten senarrak. **Patxi Iturritegi**  
Telefonia **merkea** da hemen, eta sute-eskailera funtzioa betetzen du: jendeak orduak eta orduak ematen ditu -neguan batez ere- telefonoz hitz egiten. **Harkaitz Cano**

### 3 irud/hed

Gaitz horren erremedioak prezio **merkeagotan** ezartzeko. **Herria**  
Izan ere, burgesiak eskulan **merke** eta ugaria behar zuen, gero eta teknifikatuagoa zegoen ekonomian jarduteko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Literatzen, semiotikoen edo psikotikoen solas **merkeak**. **Iñaki Seguro**  
Zientzia garestiena eta mistika **merkeena** elkar harturik. **Iñaki Seguro**  
Ergelkeria irudituko zaizu, sineskeria **merkea**, nahi baduzu, baina horrela pentsatu eta sentitzen dugu hemen. **Paddy Rekalde**  
"Merkea da hitz egitea", esan diot. **Harkaitz Cano**  
Dena porlan, dena aluminio, dena antzinako estilo arkitektonikoen imitazio **merke** eta nahasia. **Iban Zaldua**  
Tautologia **merke** bat besterik ez. **Ibon Uribarri**  
Tragedia **merkeen** kate batean, hura bat gehiago zela esaten zuen Maxinek. **Koro Navarro**  
Nire gaixakeria **merke** hura azpimarratzeko bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Izenen eta leku komunaren xarma **merke**-erosoaren lilurapean. **Juan Garzia**

### 4 (adizlagun gisa)

- **Merke** salduko nizkizuke. **Jose Morales**  
Badun jendea **merke** ordaindu nahi duena; bada, **merke** ematen zaion... **Karlos Zabala**  
Proteinak **merke** ekoizteko modua. **Joxan Elozegi**  
Unibertsitateetan beti egoten duk jantokiren bat, **merke** jateko modukoa. **Unai Iturriaga**  
Horregatik eta fabrikatzaileari **merkeago** gertatzen zaiolako, irina ez baita inondik ere okela bezain asegarria. **Edorta Agirre**  
-Hiru kartoi eskuratu ditiat, **merke**. **Koldo Izagirre**  
Haize bolada berdozkek ekarriz, ura **merke** eskainiz eta tarteka elurra mendietan pilatuz, marteka lurra zopatzuz... **Pello Zabala**  
**Merke**, ez diru gutxi gastatzen duelako, baizik gastatzen duen diru hori, proportzioz, herri garatuetan erabiltzen dena baino apalagoa delako. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**  
Astelenean: **merke** saltze Kanboko saltegietan, tokiko ekoizpenen merkatu, eskulan erakusketa, egun guzian karrketan. **Herria**

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gurea jatetxe arrunt bat da, **merke** antxa ematen dute. zakarrontzi batean pilatutako ardo **merke** botilez. **Harkaitz Cano**  
- Herriko apezka filosofo **merke** lanetan zinpurtzen zen, ahoa plegatuz, hobiaren zakarretik bizi berri baten ildoak zabaltzen zirela uste zuelako. **Itxaro Borda**  
Ez diat gogoko **merke**-lehian aritzea. **Jose Morales**

### 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Edo izan liteke betipox, muxu-**merke** eta hagitz besarkante eta beldurgarri afektiboa, uste hutsezko senidetasun edo gozotasun bat noiznahi antzeztera txit emana. **Iñaki Seguro**  
Izpiritu xano sineskorren, ideien eraikitzaile gezur-**merkeen** eta "bizitzen laguntzen duten" gezur polit kontsolagarrien etsai txarrena. **Iñaki Seguro**  
Betiko ergelkerien motela txalotu behar duzu, algara-**merke** ikusi behar zaituzte. **Koldo Izagirre**

### 7 merke antzean

Kalezuloan denek ala denek zekiten Buxi doktoreak oso prezio neurritsuak zituela, eta **merke antzean** erosten zituen hortzeriak prezio onean saltzen zituela berriz. **Patxi Zubizarreta**  
Gasolindegiko ugazabak saldu zion **merke antzean**, hark Ford berri bat erosi behar zuela eta. **Xabier Montoia**  
Hala ere biolina erosi zuen, musikari zion zaletasunagatik batez ere, **merke antzean** gainera. **Felipe Juaristi**  
Familiar papertegia zeukan Aristegi izeneko ikaskide batek ekarri zigun papera, **merke antzean**. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Akioko 1,8 euroko mozkina du ordea eta, 19,33 eurotan, **merke antzean** dago. **Berria - Ekonomia**

### 8 merke izan du ad

AB-k dauka "hautetsi handiek" ele ederra **merke** dutela bainan gero deusik ez egiten. **Herria**  
- (aditz laguntzailea ezabaturik) Hasi zen, espantuk **merke**, ez zuela iraunen Saddam Hussein-en kontrako gerlak. **Herria**  
Espantua **merke**, norentzat kario? **Herria**

### 9 merke-merkesup\_1 izond

Osteguna ikasle eguna izaten ei da Bilbon: katxi **merke-merkeak**, [...]. **Sonia Gonzalez**  
Pentsio **merke-merke** batean hartu nuen ostatu. Egun, bitaminak erdieste **merke-merke** denez, aurrez prestatutako janari gehienei [...] era askotako bitaminak gaineratuko zaizkie etorkizunean. **Juan Garzia**

### 10 merke-merkesup\_2 adlag

Tamalez, **merke-merke** saldu diet ezia merkatarri batzuei, eta zuk, seguraski, erosiko zenidakeen. **Jose Morales**  
Munduko edozein bazterretatik heltzen dira era guztietako produktuk **merke-merke**, eta zaila da konkurrentzia horri aurre egitea. **Juan Luis Zabala**  
Hartara, erraza da haien protestak isilaraztea, eta, gainera, **merke-merke** ateratzen zaie Estatuari eta enpresaburuei. **Berria - Euskal Herria**

### 11 merke-zurrean (orobat merkezurrean; Euskaltzaindiaren Hiztegian merke-zurrean agertzen da) adlag ahalik eta merkeena erosten saiatuz.

Gauzek balio dutena balio dute, eta ez gara **merke-zurrean** ibiliko. **Berria - Kultura**  
Interesatzen zitzaizkigun liburuen orri-pasa egoten ginen; **merke-zurrean** jarduten genuen saltzaileekin, ezer erosi aurretik. **Anjel Lertxundi**  
**Merke-zurrean** erositako gerriko estuegi batek atximurkatutako tripa. **Antton Olano**  
Ohikoa da bederatzigarren abenidan jendea beren hildako senitartekoan telebista aparailuak eta janzkiak **merkezurrean** saltzen ikustea. **Harkaitz Cano**  
Hartan, buhame itxurako saltzaile batek **merke zurrean** eskaintzen zuen olioaren kolorea gustaturik, txinta bat erosi du hartatik, laurden erdi bat besterik ez. **Anjel Lertxundi**  
Hiru eguneko epean arazoa konpontzen ez bada karramarroa desizoztu eta hemengo maioristei **merkezurrean** saldu beharko diegu, Euskal Herrian bertan. **Harkaitz Cano**  
Gaur egun politikoki zuzenak diren eta **merke-zurrean** eros daitezkeen kontzeptuak tolerantzia, bakea, elkartzuna sarraskitu egiten ditu. **Berria - Kultura**

### 12 merke-zurreko

Tratu labor baten ondoren, nire **merke-zurreko** erlojua prezio onean saldu nion. **Juan Kruz Igerabide**  
**Merkezurreko** azokan eta jantoki ongintzakoetan emandako haragi erdi-ustela Hipotesi ximpleak, eredu esplikatzailerak, funtzionalak, ekonomikoak edo **merkezurrekoak** ... **Xabier Olarra**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitzakia merke (3); arras merke (11); azkar eta merke (3); biziki merke (7); erraz eta merke (4); eskulan merke (5); etxe merke (5); ez hain merke (3); hotel merke (3); merke antzean (8); merke asko (4); merke atera (3); merke aterako (5); merke ateratzen (8); merke ateratzen dela (3); merke ateratzen zaio (3); merke dago (4); merke daude

(4); **merke ematen** (4); **merke erosi** (5); **merke erosten** (4); **merke merke** (11); **merke merkea** (4); **merke merkeak** (3); **merke saldu** (6); **merke salduko** (5); **merke saltze** (3); **merke saltzea** (3); **merke saltzeko** (6); **merke saltzen** (9); **merke samar** (6); **merke zuhurran** (3); **merke zurrean** (9); **modu merke** (3); **nahiko merke** (5); **oso merke** (23); **ostatu merke** (3); **pentsio merke** (3)

**aitzakia merkea** (4); **dolar merkea** (3); **eskaintza merkea** (3); **eskulan merkea** (12); **merke merkea** (4); **merkea da** (20); **merkea dela** (7); **merkea izan** (6); **merkea izango** (4); **merkea zela** (4); **merkea zelako** (5); **merkea zen** (6); **oportunismo merkea** (3); **oso merkea** (7)

**aise merkeago** (10); **askoz ere merkeago** (5); **askoz merkeago** (6); **biziki merkeago** (3); **inoiz baino merkeago** (3); **merkeago aterako** (7); **merkeago ateratzen** (8); **merkeago da** (3); **merkeago dago** (4); **merkeago dira** (3); **merkeago direla** (3); **merkeago eros** (3); **merkeago erosi** (5); **merkeago erosteko** (4); **merkeago erosten** (3); **merkeago saldu** (7); **merkeago salduko** (4); **merkeago saltzen** (9)

**askoz ere merkeagoa** (4); **askoz merkeagoa** (8); **merkeagoa ateratzen** (3); **merkeagoa bada** (3); **merkeagoa bada ere** (3); **merkeagoa baita** (4); **merkeagoa da** (32); **merkeagoa dela** (3); **merkeagoa delako** (7); **merkeagoa den** (3); **merkeagoa izan** (3); **merkeagoa izango** (7)

**askoz merkeagoak** (3); **merkeagoak dira** (11); **merkeagoak direla** (3); **merkeagoak izango** (7); **prezio merkeagoak** (3)

**prezio merkeagoan** (3)

**alokairu merkean** (4); **prezio merkean** (5)

**eskulan merkearekin** (3)

**erraz eta merkearen** (3); **merkearen bila** (4); **merkearen usaina** (5); **tabako merkearen** (4)

**hegaldi merkeek** (3)

**merkeena delako** (3); **preziorik merkeena** (3)

**alokairu merkeko etxea** (4)

## merkeagotu, merkeago(tu), merkeagotzen du *ad* merkeago bihurtu.

Kraus jaunak ez zuen eroslerik aurkitu, ez salneurri horretan, ezta **merkeagotzen** joan zenean ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Putxa merkeenak baino **merkeagotuta** dabilta intelektualak. Hasier Etxeberria

## merkealdi (*orobat merke-aldi eta merkaldi g.er.*) 1 iz prezioen behaldia, bereziki dendetan aldian behin egiten dena.

Ekainaren 28an, 10etatik 16ak arte, **Merkealdi** erraldoia muntatzen dute Kanboko Xalbador kolegioan. Herria

Epaia dioenez, «erkidegoetako legeek» ezin dute arautu **merkealdiaren** iraupena, eta ezin dute erabaki zer den **merkealdia**. Berria - Ekonomia

**Merkealdian** salneurria da behera egiten duen bakarra, ez produktuaren kalitatea. Berria - Euskal Herria

Udako **merkealdia** dela eta, ordea, merkatu ziren jantzi eta oinetakoen prezioak. Berria - Ekonomia

Prezioak %0,6 jaitsi ziren urtarurik, **merkealdierengatik**. Berria - Ekonomia

Karrotxo zuri batekin ibiltzen zen saltzailea, bata zuriarekin, eta izozkiak **merkealdian** zituen, udatiarrak desagertu zirenetik ia sobran zituelako. Joseba Sarrionandia

**Merkealdiko** liburu-denda. Jon Muñoz

- Azokez eta egun bateko **merkealdiez** gain, liburuarekin lotutako hainbat ekitaldi ere antolatu dira Hego Euskal Herriko hiriburuetan, Liburuaren Nazioarteko Eguna gogoratu eta ospatzeko. Berria - Kultura

### 2 pl

Astehenean, komertsanteen **merkealdiak** eta feriak karriketan. Herria

-Larunbatean, Donapaleun, **merkaldien** eguna. Herria

**Merkealdien** eragina nabaritu, eta prezioak %0,1 jaitsi ziren otsailean. Berria - Ekonomia

**Merkealdien** bukaerak eta petrolioaren etengabeko igoerak dute, batez ere, inflazioaren gorakadaren errua. Berria - Ekonomia

**Merkealdietan** ere, erosleek beren eskubideak dituztela gogorarazi dute. Berria - Euskal Herria

**Merkealdiak** direla eta, denda irekia zen. Berria - Ekonomia

Altzariak ez ziren **merkealdietan** erositakoak. Migel Angel Mintegi

**Merkealdiak** tokatu, eta espaloi guztiak jendez gainezka. Iñaki Iñurrieta

Eibarrek fitxaketak egiteko dituen mugak ikusita, **merkealdietan** erosketak egin beharrean izango dira eibartarrak. Berria - Kirola

### 3 (hitz elkartuetan)

Bere sindikatuaren garaipenak ekarri ditu gogora, besteak beste **merkealdi** egunetan dendak gauzez ixtearen kontrako garaipena. Berria - Harian

Azkenean, norbaitek harrotu ditu bazterrak eta **merkaldi**-egun hori helduden larunbatean izanen da. Herria

la arratsaldeko zazpiak dira, **merkealdi**-garaia da. Iban Zaldúa

Hala ere iduritzen zaie udako **merkealdi** denbora sobera luze ezartzen duela administrazioak. Herria

- Egingo nuke sute baten ondorengo arropa- **merkealdietan** eskuratu duela. Lopez de Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**merkealdiek eragin** (3)

## merkealditxo iz *adkor* merkealdia.

Hala ere, petrolioaren eta erregaien prezioen azkenaldiko joera ikusita, eskertuko lituzkete **merkealditxoak**. Berria - Ekonomia

## merkearazi ik merkarazi.

## merkekeria iz merketasun gaitzesgarria.

**Merkekeria**, aukeran, baina beharrezko gutzia eskaintzeko adinakoa ere bai. Hasier Etxeberria

Globalizazioaren ipuinarekin-eta has ginteke hemen, baina ez dut **merkekerietarako** gogorik. Xabier Mendiguren Elizegi

## merketasun iz merkea denaren nolakotasuna.

**Merketasuna** gehitzen die gainera bere laidozko hitzei, eta, haren arabera, "putxa merkea" laidozko hitza litzateke "putxa garestia" baino, eta horrek adierazten diguna da autorea diru zikina hartzen duela lotsagarri pertsonaren balio garbien neurri gisa, eta beraz, "diru asko eskatzen duena" hobe dela beretzat "erraz ematen duena" [...]

**Iñaki Segurola**

## merketto izond merkettoa.

merketu ik **merkatu**<sup>2</sup>.

**merketxo** (*corpusean **merketxu** soilik*) *izond adkor* merkea. • *adlag*

Gura badozu **merketxuago** kobrauko deusut errenta. **Berria - Kultura**

merketxu ik **merketxo**.

merketze ik **merkatze**.

**merkexe** *izond*

Hala ere, diru laguntza horiek zerbaitetan baliagarri dira, hala nola ekoizpenak pixka bat **merkexeago** saltzeko. **Berria - Ekonomia**

Distantzia zenbat eta handiagoa izan, garraio publikoa orduan eta **merkexeagoa** da, eta autobusaren aldean autoarekin aurrezten den denbora txikiagoa **Berria - Euskal Herria**

**merkezale** *izond* merkea denaren zalea dena.

Zentauro [...] lanaren banaketa gehiegi espezializatu baino lehenagoko giza arraza bat, antzinako atsolitz **merkezalearen** jarraitzailea zena: "Gizon bakoitza bere zaldi".

**Xabier Olarra**

merkezurrean ik **merke** 11.

**merkromina** *iz* merkurio eta alkoholez osaturiko likido gorria, zauriak desinfektatzeko erabiltzen dena. ik **merkurokromo**.

Ni **merkrominarekin**, baso baten ertz hautsiarekin egindako zauritxo bat sendatzen. **Joan Mari Irigoien**

Guraizeak eta bizarra kentzeko atxurra eta bitsa hartuta bueltatu zen, hamabost egunetan kotoizko ametsek eta **merkrominazko** amesgaiztoek babestu zuten kartzelara.

**Jasone Osoro**

**merkurial** *iz* merkurioaren tasunak dituena.

Batek fantasiatsu irudikatzen zituen nire arbaso urrun baten ibilerak, berun -eta orobat nikel-ehiztaria bera; bestea, anbiguo eta **merkuriala**, bolada hartan begien parean egokitu zitzaidan Tristan da Cunha-ren uhartearen aipu-laburpentxo batean zuen sorburu. **Juan Garzia**

**merkurial** *iz* merkurioaren tasunak dituena.

Batek fantasiatsu irudikatzen zituen nire arbaso urrun baten ibilerak, berun -eta orobat nikel-ehiztaria bera; bestea, anbiguo eta **merkuriala**, bolada hartan begien parean egokitu zitzaidan Tristan da Cunha-ren uhartearen aipu-laburpentxo batean zuen sorburu. **Juan Garzia**

**merkurio 1** *iz* zilarbizia.

Arrain horietako asko **merkurioarekin** oso kutsatuta daudelako. **Berria - Gaiak**

**Merkurioaren** bidez metal bitxiak lortzea. **Iñaki Heras**

Maiz jaisten baita termometroaren hodia **merkurioaren** izozte punturaino. **Karlos Zabala**

**Merkurioz** edo alkoholez, hotz-beroaren maximoak eta minimoak garbi jasotzeko gauza da gaur egun termometro ezagun hori. **Pello Zabala**

Taupada-markagailu elektronikoak pulsu-sorgailu bat dauka [...] iraupen luzeko **merkuriozko** pilaz funtzionatzen duena. **Irene Aldasoro**

**Merkuriorik** gabeko pilak merkaturatuko ditu Sony etxeak urtariletik aurrera. **Berria - Gaiak**

Amerikar herritar gehientsuenak lanera behartu zituzten, zilarrezko, **merkuriozko**, urrezko meatokietan, kobrezkoetan geroago. **Koro Navarro**

**Merkuriozko** itsasoko olatu pisuen antzera mugitzen hasten ziren sentimendu batzuk. **Jon Alonso**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Imajinatu **merkurio** tanta bat marmolezko mahai baten gainean. beste itsasontzi batzuek nekez nabigatzen dute, astun, **merkurio** -korrante baten aurka borrokan ariko bailiran. **Unai Elorriaga**

Barometroa, berak asmatuiko mikrobarometroa (sentikorra demasean), termometro joko bat eta **merkurio** -aneroideak... **Pello Zabala**

Badira kimika gaiak gorpua usteltzetik betiko gordeko dutenak; **merkurio** bikloruroa da horietako bat. **Koro Navarro**

3 (termometroa irudikatzen)

1985 bereko 12an, Iruñean, -16.2 graduraino jaitsi zen **merkurio** xerrenda zerotik behera. **Pello Zabala**

· Bete al du Lulak agindutako aldaketaren herena? non dago liliurometroaren **merkurioa**? **Berria - Mundua**

**merkurokromo** *iz* merkromina.

Hanka puztuan **merkurokromoa** ikusi zuenean, etxeakoandreak oihu egin zuen. **Juan Kruz Igerabide**

· **Merkurokromo** eta ukendu bat ipini zioten eskolako erizaindegian, baina ez zen aski izan. **Juan Kruz Igerabide**

## merlenka iz legazkumea.

Orain arte ipini didan erregimena hurrengoa da: barazkiak; azenarioak, porruak eta ilarak, arrain garbia (legatza edo **merlenka**, egosita) eta fruta. **Edorta Jimenez**

Xerra edo **merlenka** usaindu egiten zituen zartaginean jarri aurretik. **Joseba Urteaga**

**Merlenka** kaxak, opalo ñirñirez beteak. **merlenka** kaxak, opalo ñirñirez beteak; **Karlos Zabala**

## merloi iz gotorleku batean, bi kanoi zuloren arteko parapetoa.

Hemendik ibaia ikusten da, Katedralaren **merloien** gainetik, eta **merloiek**, lurraren maldak ikusezin egiten dituen kanpandorrearen gainean, haur-jostailuak dirudite. **Jon Alonso**

Haizeak Raimundo Silva bultzatzen du, behin eta berriz, **merloiei** heltzera behartzen du oreka ez galtzeko. **Jon Alonso**

## merlot iz mahats beltzaren aldaera, Frantziako hegoaldekoa jatorriz.

Tempranillo mahatsa 0,33 eurotan ordaindu zen; garnacha 0,3 eurotan; cabernet eta **merlot** 0,42 eurotan; eta chardonnay 0,54 eurotan. **Berria - Ekonomia**

Asteon ere **merlot** mahats beltzaren txanda iritsi da. **Berria - Harian**

## merma iz murriztea, urritzeta.

Horrek ez luke bere autokonfidantzan **mermarik** egin behar. **Andoni Egaña**

## mermatu, merma(tu), mermatzen du ad murriztu, urritu.

Lehen hiru urteak ikaragarriak izan ziren; fusilamenduek, erruz **mermatzen** zuten presoek kopurua. **Jokin Urain**

## mermelada ik marmelada.

## mero iz itsas arrain aski handia, kolore arrekoa, atzealdeko hegalak arantzadunak dituena, sukaldaritzan oso aintzat hartua (*Epinephelus guaza* eta *Polyprion americanus*).

Goizero Bruselan irudien enkante moduko bat izaten da: nazioarteko agentziek eta TB kateek bertan jartzen dituzte ikusgai euren produkturik freskoenak. **meroak** eta hegalzuak goizero arrain-alondegian erakusten diren bezala. **Txema Ramirez de la Piscina**

## merobinjio ik merovingiar.

## merodeatu, merodea, merodeatzen du ad inguruan ibili.

Une hartan, sukalde-egongelatik **merodeatzen** zebilen bederatziko urteko umea eseri zen Matiasen aurrean. **Unai Elorriaga**

## merovingiar (orobat merobinjio g.er.) 1 iz Galian Erdi Aro goiztiarrean erreinatu zuen dinastiako pertsona.

Eudonen dukatuak sekulako lurralde-sailak zituen [...] eta musulmanak zituen hego eta mendebaldean eta **merovingiarrek** ipar eta ekialdean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Nolanahi ere den, egia da Pepin dukearen garaizaren unetik haren familiarena izan zela erregetza, eta ez **merovingiarrena**. **Iñaki Iñurrieta**

## 2 izlag merovingiarrena, merovingiarrei dagokiena.

Erromatar Inperioaren ondorengo **merovingiar** estatuari. **Iñaki Mendiguren**

Eudonek lortu zuen, borroka gogorren ondoren, Pirinioetako bi aldeetako lurrek nolabaiteko independentzia izan zezaten Erresuma bisigotikotik eta Frankoen erresuma **merovingiarretik**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Chilperico errege **merobinjioa**. **Isabel Arrigain**

Eudon Handiak laguntza eskatu behar izan zion franko **merovingiarren** buruzagari, Charles Marteli. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## mertxero iz litxarrerota, lapurra.

Aita libre irten eta latorriarekin lanean hasi zenean, familiak Salamanca utzi eta herriz herri ibiltzen hasi zen: kinkalleroak bihurtu ziren, **mertxeroak** beraien hitza erabiliz, kinkiak poliziaren eta kazetariaren esanetara. **Pablo Sastre**

Asto gainean **mertxero** tresna-kutxa, hiru manta eta arropa puska batzuekin, poltsikoan berrogei duro zituztela, ekin zitoten beren bide propioari: orain ontzi batzuk erreberrituz, orain ezkur zakukada bat ostuz, orain Portugalgo mugan kontrabando pixka bat eginez. **Pablo Sastre**

## mertxika (orobat murtxika g.er.) 1 iz mertxikondoaren fruitua, horia edo gorria dena, biribila, hezurra gogorra eta gorria, eta mamia gozoa dituena. ik muxika.

Horien artean, **mertxikak** nabarmentzen ziren, Montreuiloko **mertxika** gorriak, iparraldeko nesken azal fin argikoak, eta hegoaldeko **mertxikak**, kolore hori txigortukoak, Provençeko neska azal-ilunen gisakoak.-Primerako **mertxikak** dira -esan zuen Anniek. **Karlos Zabala**

Tea, eta poto handi bat **mertxika**. **Koro Navarro**

La Sarriette oroitzen zen aurreko astean saski bat **mertxika** lapurtu ziotela. **Karlos Zabala**

Udan elkarrekin aritzen ziren lanean: **mertxika** beratzen, gerezi biltzen, lupulu askatzen, egin zezaketen edozertan, zerbait ordaintzen bazieten. **Koro Navarro**

Biziki gogoko dut **mertxikazko** erreximenta. **Aingeru Epaltza**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Itsasoaren erdian bakartutako uharte batean galdutako emakume baten abenturak ditu kontagai **mertxika** usain sarkorrez abiatzen den Marikita Tambourinen kontaketa honek. **Berria - Kultura**

Oroitzen naiz berak, *un grain de beauté* zuela bere **murtxika** azalean, bihotzaren aspian. **Berria - Kultura**

**Mertxika** puska bat ahoratu nuen **Aingeru Epaltza**

Geroago, ordoki soil zabalak, oraindik ere negukoa den berde hotz eta arin batekoak, han-hemenka **mertxika** adar arrosek koloreztatua, jende inurritegi bihurtzen dira.

**Josu Zabaleta**

**Mertxika** mediak ukituko dizkio lehenik, ezer baino lehen, krema koloreko mediak. **Eider Rodriguez**

### 3 mertxika kolore iz

Atzazalak **mertxika kolorez** margotuta zituen, eta ezpainak kolore gorri bizi-biziz. **Ibon Uribarri**

### 4 mertxika koloreko

Bular zabaleko titiburu txiki eta **mertxika kolorekoei** begiratu zien. **Ibon Uribarri**

Neskameak kontu handiz zetazko papera jaso eta gau-jantzi berde eta **mertxika-kolorekoa** atera zuen barrutik **Lopez de Arana**

## mertxikondo iz arrosaren familiako zuhaitza, atzerritik ekarria, fruitutzat mertxika ematen duena(*Prunus persica*). ik muxikondo.

Martxo edo apirila iristean baratzetako udareondo eta **mertxikondo** ederren aurrerabideari begira egoten dira. **Koro Navarro**

Gero, lehen ura zegoen tokietan fruitu arbolak sartu zituzten, lehortutako ubide bakoitzean klase bana, sagarrondoak, madariondoak, **mertxikondoak**, abrikotondoak, gereziondoak, limoiondoak eta laranjondoak, nekazarien pozerako, lur emankorra eta osasungarria baitzen oso. **Felipe Juaristi**

Mingrana-arbolak, pikondoak, olibondoak, gereziondoak, **mertxikondoak**, mahatsondoak...; haien enborrak besterik ez ziren geratzen. **Juan Kruz Igerabide**

## mertzedario (orobat mertzedari g.er.) iz Ama Maria Mesedetakoaren ordenako kidea.

XIII. mende hartan [...] Montserratren ikasketak egin, eta Bartzelonan bizi zela, berak fundatu zuen Ama Maria Mesedeetakoaren Ordena (Katalunian duen jaiera airosoarekin **Mertzedarioena** justu). **Pello Zabala**

Behin, ni Irungo La Sallen nenbilen garaituan, orduko alkatearen bisita izan zuten Arrasateko **mertzedarietan** ikasle zebiltzan hamabost-hamasei urteko neskek. **Joxerra Garzia**

Espainiatiko eta Maroko aldetiko gatibuak libratzeko sortu zuen **Mertzedarioen** Ordena. **Pello Zabala**

## mertzenario 1 iz diruaren truke baino borrokatzen ez den gudaria.

Europa osoan bildutako **mertzenarioak**, Ptolomeo erregearen armadetan soldadu sartzera etorriak: eszitak; traziarrak; eta, batez ere, galiar beldurgarriak. **Jon Muñoz**

Ongi trebaturiko **mertzenario** haiek. **Iñaki Mendiguren**

Psametikoren **mertzenario** helenikoek asiriarrak Egiptotik bota baino mende-erdi bat lehenago. **Iñaki Mendiguren**

**Mertzenarioak** profesionalagoak bilakatu dira «enpresa militar pribatuak» sortzarekin batera; talde sortu berri horietaz baliatzen dira potentziak. **Berria - Mundua**

**Mertzenarioak** kontratatzea merkeagoa ateratzen zaie AEBei zuzenean Armadako soldaduak trebatzea baino. **Berria - Mundua**

27 **mertzenario** epaituko dituzte, Komoreetako estatu kolpe saioaz akusatuta. **Berria - Mundua**

Espainiako baseetako batzuek Estatu Batuei utzi zizkion, 226 milioi dolarren trukean, eta horren ondorioz gu **mertzenario** hutsak besterik ez ginelako uste sendoa sortu zitzaigun. **Edorta Jimenez**

### 2 diruaren truke baino aritzen ez den pertsona.

Garamendira bidean, une batez, GALeko **mertzenarioak** etorri zitzaizkion gogora. **Pedro Alberdi**

Nork daki ni CIAko **mertzenarioen** bat ez ote naizen? **Pako Aristi**

Edo CIAk **mertzenario** bilakatu duen kazetari saldua? **Pako Aristi**

Ni haiek bezain **mertzenario** izan nintekeen, edo gehiago. **Karlos Linazasoro**

Futbolariak edozein taldetakoak izanda ere «**mertzenarioak**» direla iritzi dio. **Berria - Kirola**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ikerketan agertutako zantzu bakanez diote Naparra bahitu eta hil zuena Perret anaien **mertzenario** taldea izan zela. **Berria - Euskal Herria**

Bestalde, atxilotu batzuek jakinarazi dutenez, **mertzenario** buruek 18 paramilitar hil zituzten, «desertatzera zihoazelako». **Jokin Urain**

Horrek **mertzenario** fama eman zion, eta horregatik esan ditu Kahnek beragatik esan dituenak. **Berria - Kirola**

### 4 (izenondo gisa) mertzenarioena, mertzenarioei dagokiena.

gudariok Legutioko ofentsiba loriatsua hasi genuelako zeuden tropa **mertzenarioen** aurka. **Koldo Izagirre**

Mendebaldeko barbaroen hizketaren aldakortasuna, izaera **mertzenarioa** eta hutsalkeria ezagunak dira, noski, izaera nazionalak aztertzen dituzten guztientzat. **Iñaki Mendiguren**

Itzulpenekin hasiz geroztik, egin ditudan lan **mertzenarioenak** izango dira seguru asko, baina ondo ordainduta zeuden. **Alberto Barandianen**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**frantziako mertzenario** (3); **mertzenario gisa** (4); **mertzenario talde** (7)

**mertzenarioak direla** (3); **mertzenarioak hil** (3)

**ustezko mertzenarioen** (4)

## mertzeria iz joste lanak egiteko gaiak saltzen diren denda.

Amak, orduan, mandatuak egitera bidaltzen ninduen, eta gustura joaten nintzen ni, **mertzeriara** izan ezik, ez bainintzen batere eroso sentitzen han, emakumez inguratuta, denak niri zeharka begira, kuxkuxean, garai hartan ohikoa ez zen-eta **mertzeria** batean gizonezkorik sartzea. **Juan Kruz Igerabide**

Beraien bizitza koloretako hariz betetako **mertzeria** bat balitz bezala. **Arantxa Iturbe**

Hurrengorako erosiez azkizidazu kuleroko batzuk Lopezen **mertzerian**. **Josu Landa**

Gure amonak **mertzeria** bat izan zuen: izarak, pijamak eta barruko arropa saltzen zituen. **Jasone Osoro**

## mertzero iz mertzeria batean lan egiten duen pertsona.

**Mertzeroak**, Juanentzat, leku guztietan dira antzekoak, Markinan zein Villarrobledon, Parisen zein Istanbulen; ermandade berezi bateko kideztat dauzka. **Iban Zaldúa**

Hoteleko sukaldean edo terrazan esertzen ziren batzuetan, eta beste batzuetan Ciancagliniren dendan, hau da, **mertzeroaren** dendan. **Fernando Rey**

## mesana iz gibel masta; gibel mastako bela.

Masta nagusiaz gainera, *Animas* karrakak, karraka denen legean, bazituen han beste masta bi; **mesanako** edo gibel-masta deritzona, txopako gaztelauaren aurrean, eta

trinket edo aitzin-masta esaten zaiona. **Edorta Jimenez**  
Baupresaren muturretik trinketa nagusiaren eta **mesanaren** barrena txoparaino zetorren argizko xingola bat, masten jartziek beste ilara bana zuten, eta karelaren perimetro osoa ere gar txipitan zen. **Koldo Izagirre**  
**Mesanako** belaren jaisterat [...] joan nintzen, harik eta haizeak kolpe izugarri bat jo, eta ohartu nintzen arte ezen **mesanako** mastak krak egin zuela eta gainerat zetorkidala. **Joan Mari Irigoien**  
Paul, Beñat, **mesanakoa** jaits! **Joan Mari Irigoien**

## mesanotxe iz adkor gau mahaia.

Ohe ondoan **mesanotxea** eta haren gainean lanpara. **Matías Mujika**  
Pistola kendu nion eskutik eta **mesanotxean** utzi nuen. **Bernardo Atxaga**  
Koadernoan **mesanotxearen** kaxoitik atera eta flexoaren argi azpian kokatu nuen. hiria sutan zela kalera jaitsi zinetenean deitu zian hiri emakume batek bere gelako **mesanotxea** jaisteko laguntza eske, han paper eta balio handiko gauzak zeuzkala-eta. **Bernardo Atxaga**  
Kalefakzio gainean artilezko galtzerdiak, **mesanotxean** baso bat eta botika kajatxo batzuk. **Pablo Sastre**  
Buruak koltxoitik altxatu gabe, **mesanotxe** gainetik irrastatu du eskua, baso bat ur topatzen saiatuz. **Sonia Gonzalez**  
**Mesanotxeko** erlojuak eguerdiko hamabi eta erdiak zirela adierazten zuen. **Bernardo Atxaga**  
Zigarro bat piztu du eskaileretan behera, Eñauteg goiz batean **mesanotxe** gainean ahaztuta utzi zuen txiskeroaz. **Sonia Gonzalez**

## mesede 1 iz norbaiten aldeko egite onuragarria.

**-Mesede** bat eskatu nahi nizuke, errege -esan zion emakumeak. **Mesede** bat eskatu nahi dizut, ez ukatu. **Juan Kruz Igerabide**  
**-Mesede** bat eska diezazuket? **Jon Muñoz**  
-Nahiago hil putakume horri **mesede** bat eskatu baino. **Txillardegí**  
-Ea **mesede** honen ordaina bihurtzen dizugun, jauna. **Karlos Zabala**  
Beraz, hainbeste **mesede** zor diogunez gero, ez zaigu bidezkoa iruditzen erregeari egiten zaion iraina. **Elizen arteko biblia**  
**Mesede** hori ez zitzaion ahaztu eta haren alde jarri zen gorputz eta arima, Siberian erbesteratua eman zuen garaitik. **Karlos Zabala**  
Baina egia **mesede** esan behar da biltegia salgaiz garbi egoten zela gehienetan. **Bego Montorio**  
Gogora ditzadan Jaunaren **mesedeak**, goretz dezadan Jauna. **Elizen arteko biblia**  
Nolanahi ere, etenaldiak **mesede** baino gehiago, kalte egin diela uste du. **Berria - Kirola**  
-Azken **mesede** bat, Joantxo. **Juan Kruz Igerabide**  
Kalte, **mesede** eta barkakizunen -zor-hartzekoen- etengabeko kontadurian. **Iñaki Segurola**  
Horrela Jaunaren **mesedea** lortzeko asmoz. **Askoren artean**  
Espiritu sakratu bat, jaingo bat, bizi da gutako bakoitzaren baitan, kalteetatik babestuz eta **mesedeak** eskuratuz. **Juan Kruz Igerabide**  
Bedeinkapenez eta **mesedez** bete duzu, urre garbizko koroa ezarri. **Elizen arteko biblia**  
Ez uste izan neuretzako **mesede** bila nabilenik. **Elizen arteko biblia**  
Baina ez neukan eztabaidarako gogorik, are gutxiago **mesede eske** joan behar nintzaionez gero. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Eztabaidan ziharduten ea kalterako ala **mesederako** izango ziren Uralez beste aldera jazotzen ari ziren gertaera latzak. **Karlos Zabala**  
*ik beherago 7.* **Askoren artean**

## 2 (izenondoekin)

**Mesede** txiki bat eskatu behar dizut; ez ahal didazu ukatuko! **Elizen arteko biblia**  
Baina **mesede** handia ere bai, gure honetan. **Txillardegí**  
Erresuminik gabe, apaltasunez, eskatzen ziguna **mesede** zaila bailitzan. **Bernardo Atxaga**  
Mesfidantza burtzoragarri samarra sentitzen hasia zen alkoholarekiko: **mesede** xume bat ukatu zion aspaldiko lagun batekiko bezalatsu. **Mirentxu Larrañaga**  
**Mesede** politikoa esan nahi dut. **Juan Martin Elexpuru**

## 3 (esapideetan)

Lohia botako dut aukeratuena gainera, eta horrela handikien **mesedea** irabaziko dut. **Askoren artean**  
Urtero karga bat ale emango diet zure anaiei eta lan egingo dut haientzat, baldin eta orain zeure **mesedea** erakusten badidazu, beste askori erakutsi diozun bezala. **Askoren artean**  
Ur-txinta baten **mesedea** eskertuko genizuke, hori bai. **Anjel Lertxundi**  
Eta hori du itxaropena: minak umetuko direla, bizi-pozaren **mesede**. **Imanol Zurutuza**

## 4 (hitz elkartuetan)

Honi nola jaten emango eta nola **mesede** -aukera hobeak opako. **Patxi Ezkiaga**  
Baina badiat nik hirekin diruz ordaintzen ez den **mesede** -zorrik. **Juan Garzia**

## 5 (handikiekiko trataera gisa).

**-Berorren mesedearen** oin eta eskuak musukatzen ditut. **Anjel Lertxundi**

## 6 –en mesedean (7 agerraldi, 2 liburu eta 5 artikulutan) ik beherago 8.

Gurasoei ez diegu ezer zor... ezertxo ere ez, Eugeni, eta gure **mesedean** baino gehiago euren jardun dutenez, gorrotatzeko eskubidea dugu, eta baita eurretaz libratzekoa ere, beren jokabideak gaitz egiten badigu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Taldearen **mesedean** aritzen zen txirridularia izan nintzen, baina aukera ondo baliatzen zuena. **Berria - Kirola**  
Estradizioaren aldeko epaia «Zuzenbide Estatuaren **mesedean** baino gehiago kanpoko interesei erantzuteko» egina dagoela uste du. **Berria - Euskal Herria**  
Aurten bosgarren postuan bukatu du Paris-Niza eta Tourra korrituko du, Bassoren **mesedean** berrira. **Berria - Kirola**

## 7 –en mesederako (212 agerraldi, 39 liburu eta 138 artikulutan)

Frantzian, bestela ere, ekitate naturalari egin zaio so, seme-alaben **mesederako**. **Andres Urrutia**  
Denon **mesederako** dela gehiengoarentzat onak diren hitzarmenak errespetatzea. **Juan Martin Elexpuru**  
Solalsaldian eguraldia ekarri zuten hizpidera, guztien **mesederako**. **Mirentxu Larrañaga**  
Lehen korrupzioa boterean zegoen, boteretsuak legeak bere **mesederako** erabiltzen zituen. **Pako Aristi**  
Aranbururen aholkularitza ekonomiko eta sindikala garrantzia handikoa izan da hainbat enpresatan, langile ugariaren etorkizunaren **mesederako**. **Berria - Ekonomia**  
Besteengandik laguntza edo gutxienez tolerantzia lortu nahian, beren buruen **mesederako**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Dena den, orain baliatzen ditugun espezieta askok eragin psikotropikoak dituztenez, espero dezagun zerrrenda hori zabaltzea [...], gure arima nekatu **mesederako**. **Edorta Agirre**

## 8 –en mesedetan (299 agerraldi, 58 liburu eta 155 artikulutan)

Zure **mesedetan** ez ezik, euskal kulturaren **mesedetan** ere izango da hori. **Iñaki Iñurrieta**  
Eta bizia emango du orduan hurkoarenaren **mesedetan**. **Imanol Zurutuza**

Baina elkarren **mesedetan** ere jarduten auzo bilaketa ziklotik, eta haren bitartez gizonak ezagutzen ditut. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Nire hobe beharrezko digestioaren **mesedetan** galaztzen didate siesta. **Anjel Lertxundi**  
Industriaren **mesedetan** aritu izana ukatu zuen atzo Osasunerako Mundu Erakundeko eledun Gregory Hartlek. **Berria - Gaiak**  
Horrek erakusten du zer puntutaraino dauden bikoiztuak mekanismo eta konexio garrantzizkoak, fidagarritasunaren **mesedetan**. **Irene Aldasoro**  
Halaxe egin dugu guk ere, ulergarritasunaren **mesedetan**. **Xabier Montoia**

## 9 –en mesedetarako (12 agerraldi, 7 liburu eta artikulu 1ean) ik gorago 8.

Ea mojav ez ote naizen errukitu, ea ez ote den tramaren **mesedetarako** moja bizirik mantentzea hobe. **Harkaitz Cano**  
Ez da komeni indarra erabiltzea: horrek ez luke inolako onurarik ekarriko, gaizkileen **mesedetarako** litzateke. **Jose Morales**  
Eskaeragile horren probetxurako eta **mesedetarako** izango direla pentsatuko du, noski. **Santiago Iruretagoiena**

## 10 mesedez interj ik otoi; arren.

**-Mesedez**, andreak, lasai... ez bultza... kontuz liburuekin... **Iñaki Mendiguren**  
**Mesedez**, ez egin horrelakorik, Kit. **Mirentxu Larrañaga**  
-Isildu, **mesedez** -esan zuen Thomas jaunak. **Koro Navarro**  
Ekarridak, **mesedez**, ni baino arinago hago eta! **Bernardo Atxaga**  
-Ogi bat, **mesedez**! -esan zuen. **Anton Garikano**  
Joana, deitu taxi bati, **mesedez**. **Antton Olano**  
"Nahikoa da, Teresa! **mesedez**!", eten nuen. **Bernardo Atxaga**  
Zabaldu atea, **mesedez**. **Antton Olano**  
Atea irekiko didazu, **mesedez**? **Jon Arretxe**  
-Sar zaitez, **mesedez** -laster itzuli zen emakumea-, Iturbide jauna zain duzu. **Migel Angel Mintegi**  
-Bai, **mesedez**. **Jon Arretxe**  
Ez, **mesedez**, orain ez! **Anjel Lertxundi**  
Zer egin ote diot nik honi? baina, **baina mesedez**! **Iñaki Seguroa**  
Deskriba iezadazu zure Dolmancé hori, **mesedez** eta faborez, haren irudia buruan izan dezadan hona heldu aurretik. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Gurea ekintza sekretua zela, eta, **mesedez**, ez ezer esateko egoitzan. **Inazio Mujika Iraola**  
Leku erosoren bat bilatzeko, **mesedez**, eta ez gehiegi kezkatzeko diruagatik, Andrések NBerekin zeukan kontratuak soldata ona emango ziola. **Lourdes Oñederra**  
-Ene bada, ez, ez! **mesedez** eskatzen dizut. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Baina, **mesedez** eskatzen dizut, ez jarri zeure burua arrisku horretan: seguruena da. **Iban Zaldia**  
**Mesedez** utziko bazenizkitate une batez zuen kapelatxoak. **Josu Zabaleta**  
**Mesedez** janzteko, nik erregu. **Joxe Austin Arrieta**

## 11 mesede eginsup\_1 ik mesedetu.

Bidaia txo batek **mesede egingo** dit, zalantzarik gabe, indarberritzeko. **Josu Zabaleta**  
Agian **mesede egingo** zion Davidi hizkuntza aldatetako. **Bernardo Atxaga**  
Neurrrian hartuta bihotzari **mesede egiten** omen dio. **Migel Angel Mintegi**  
Nori **egiten** dio **mesede** horrek guztiak? **Joxerra Garzia**  
Lege txarrek beste gaitz egitera daramate sarri gizon gizarteratua, bere buruari **mesede egin** gabe. **Juan Martin Elexpuru**  
Niri **mesede egina** zidaten zorabioaren aurkako tableta haiek eraman nizkionean, [...]. **Joxe Austin Arrieta**  
**Mesede egingo** al zenidake esatea ea zeharoko idiota naizen edo ez? **Iñaki Seguroa**  
-Entzun, **egidazu mesede**: ordaindu egingo dizut soroa; hartzazu balio duena, eta han ehortziko dut neure hila. **Jose Antonio Mujika**  
10.000 lagunengana babesa izateak **mesede** eta kalte **egin** dezake. **Berria - Kirola**  
Legeak, gutxi batzuei **mesede** eta gehienera kalte **egin** ohi dion legeak, beti begi onez ikusi ohi du miseria. **Juan Martin Elexpuru**

## 12 mesede eginsup\_2 (mugatzailleekin)

**Mesede** handia **egin** zioten gizakiari, honen ezjakintasun oztana harritzea eta altaretara eramatea lortu zutelako. **Juan Martin Elexpuru**  
Gaizki ibiliko gara, eta **mesede** gutxi **egingo** diogu denek, nonbait, hain gustukoa dugun hizkuntza honi. **Pello Salaburu**  
**Mesede** galanta **egin** diguzu, eta oso atsegina izan da bidaia zurekin batera egitea. **Karlos Zabala**  
Zer **mesede egin** diguzu Egiptotik aterata? **Jose Antonio Mujika**  
-Astirik baldin baduzu -esan nion nik-, niri **mesede** bat **egiteko**... **Joxe Austin Arrieta**  
**Mesede** hori **egingo** niola agindu nion. **Josu Zabaleta**  
Zerga asko kenduko dizuegu eta **mesede** ugari **egingo**. **Elizen arteko biblia**  
Ez zuten esnatu, loak **mesede** gehiago **egingo** ziola eta, janak baino. **Patxi Ezkiaga**  
Ardo beltzak eta te berdeak osasunari egiten dioten **mesede** bera **egiten** du garagardoak, ikertzailleon arabera. **Berria - Gaiak**  
-Bedeinkatua izan dadila, honenbeste **mesede egin** didan Jaungoiko ahaltsua. **Patxi Ezkiaga**  
Eta arren eta arren eskatu ez baliote, faborez **mesede** horixe **egiteko**, [...]. **Patxi Ezkiaga**  
Zuzendari txit agurgarriak dutxa bero baten **mesede egin** digu. **Anjel Lertxundi**

## 13 mesede izan da ad

Argi erakusten digu adibide honek, morrontza **mesede dela** askorentzat eta Jaungoikoari zerbitzatzea denontzat dela onuragarri. **Imanol Unzurrunzaga**  
Alde horretatik, itzultzailearentzat arazo bezain irakurlearentzat **mesede izan** liteke beste hizkuntza batean emana aurkitzea testua. **Juan Garzia**

## 14 mesedea egin

Beraz, aurpegian begindoko bat ematen badiok, **mesedea egingo** diok. **Koldo Biguri**  
Putaseme batek **mesedea egiten** dio munduari bere buruaz beste eginez, eta zu negarrez. **Aitor Arana**  
Eta, jabea bilatzeko asmoz liburua apaizen eskuetan jartzen banuen, **mesedea egin** ordez agian estuasun batean jarriko nuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Berak ikusia zuela baina, esan zidan, berritoki ere joango zela niri **mesedea egitearren**. **Joseba Sarrionandia**  
Gizon jatorra zara, **egidazu mesedea**, nik ezin ditut hauek erre. **Koldo Izagirre**  
Gehiago ere ordainduko nuke, benetan, sekulako **mesedea egin** didazu eta. **Migel Angel Mintegi**  
-**Egidazu** neska-lagun baten **mesedea**, Willem! **Anjel Lertxundi**  
**Egidazu** gau honetarako aterpearen **mesedea**. **Anjel Lertxundi**  
-Justina, **egidan mesedea** beste norabaitera joateko negar egitera! **Juan Garzia**  
Baina bandera etxean uzteko **mesedea egin** beharko duzue. **Koldo Biguri**  
-Pasarte zehatza aipatzeko **mesedea eginen** zenidake? -dio, arkatzairen punta milikatuz. **Monika Etxebarria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken mesede bat (3); beste mesede bat (3); egiaren mesede (5); egiaren mesede esan (4); egidak mesede (4); egidazu mesede (11); egidazu mesede hori (5); egidazu mesede (3); egingo die mesede (6); egiten die mesede (12); hainbeste mesede egin (4); horrek mesede egin (8); horrek mesede egiten (5)  
mesede asko (4); mesede bat egin (13); mesede bat eska (3); mesede bat eskatu (24); mesede bat eskatzera (4); mesede berezi (4); mesede ederra (6); mesede ederra

**egin** (3); **mesede edo kalte** (4); **mesede egin** (99); **mesede egin dio** (12); **mesede eginen** (5); **mesede eginez** (3); **mesede egingo** (79); **mesede egingo die** (6); **mesede egingo dio** (8); **mesede egitea** (16); **mesede egiteagatik** (4); **mesede egitearren** (3); **mesede egiteko** (17); **mesede egiten** (78); **mesede egiten die** (4); **mesede egiten diela** (6); **mesede egiten dien** (3); **mesede egiten dio** (6); **mesede egiten diola** (8); **mesede egiten diote** (6); **mesede egitera** (3); **mesede ere egin** (4); **mesede esan** (4); **mesede eske** (6); **mesede galanta** (9); **mesede galanta egin** (3); **mesede galanta egingo** (3); **mesede gutxi** (4); **mesede gutxi egingo** (3); **mesede handi** (9); **mesede handi bat** (6); **mesede handia** (56); **mesede handia egin** (19); **mesede handia egingo** (21); **mesede handia egiten** (9); **mesede handiagoa** (6); **mesede handiagoa egingo** (3); **mesede handiak** (8); **mesede handiak egiten** (3); **mesede handirik** (10); **mesede handirik egiten** (7); **mesede hori egin** (4); **mesede hori egingo** (3); **mesede txikia** (3)

**izugarritzko mesedea** (3); **mesedea egin** (17); **mesedea egin genien** (3); **mesedea eginen** (3); **mesedea egingo** (5); **mesedea egitearren** (3); **mesedea egiten** (8); **mesedea eskatu** (6); **uzteko mesedea** (4)

**mesedearen truke** (3)

**bere mesederako** (11); **bere mesederako erabiltzen** (3); **beren mesederako** (5); **euren mesederako** (5); **gizartearen mesederako** (3); **guztion mesederako** (3); **handien mesederako** (3); **herritarren mesederako** (6); **inoren mesederako** (3); **interesen mesederako** (3); **irakurlearen mesederako** (3); **mesederako da** (6); **mesederako dela** (3); **mesederako diren** (3); **mesederako erabili** (5); **mesederako erabiltzea** (3); **mesederako erabiltzen** (7); **mesederako izan** (8); **mesederako izanen** (3); **mesederako izango** (27); **mesederako izango da** (6); **mesederako izango dela** (4); **ppren mesederako** (5); **realaren mesederako** (4); **taldearen mesederako** (6)

**mesederik ez** (13); **mesederik handiena** (4)

**bere mesedetan** (9); **elkarren mesedetan** (3); **erosotasunaren mesedetan** (3); **estatuaren mesedetan** (3); **haren mesedetan** (5); **interesen mesedetan** (10); **mesedetan ari** (6); **mesedetan aritu** (5); **mesedetan egin** (9); **mesedetan erabili** (9); **mesedetan erabiltzeko** (4); **mesedetan erabiltzen** (4); **mesedetan izango** (3); **mesedetan lan egiten** (4); **multinazionalen mesedetan** (3); **noren mesedetan** (3); **politikoen mesedetan** (3); **ppren mesedetan** (4); **serbiarren mesedetan** (3); **taldearen mesedetan** (3)

**mesedez esan** (4); **mesedez esaten** (3); **mesedez eskatu** (11); **mesedez eskatu zion** (4); **mesedez eskatzen** (27); **mesedez eskatzen dizut** (17); **mesedez eta faborez** (9)

## mesedegarri <sup>1</sup> *izond* onura dakarrena. ik **onuragarri**.

Edabe **mesedegarri** bat eman zidan.  Juan Kruz Igerabide

Elikagai kaltegarri eta **mesedegarriez**.  Edorta Agirre

Konkurrentziak prezioei buruzko lehiaketa **mesedegarria** sortzen du, eta zerbitzuen kalitatea hobetzen.  Iñaki Heras

Ekintzarik nardagarrienak ere ez al du, bada, alderdi **mesedegarriren** bat izaten?  Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Erromatar bakea gizarte-giro **mesedegarría** gertatu zen Pauloren ondorengoentzat.  Iñaki Mendiguren

Venezuela pairatzen ari den egoera ere ez da batere **mesedegarría** petrolioaren prezioa apaldu dadin.  Berria - Ekonomia

Ordena honetan, sinpleek ere berentzat **mesedegarri** bihurtzen dituzte jakintsuen balioak, ikusten baitute nola gizon argiak, munduan edonon gorapatuak izango liratekeenak, beraien mailara apaltzen diren.  Askoren artean

Ez kezkatu, zuretzat **mesedegarría** dena pozgarria da niretzat.  Migel Angel Mintegi

Oso **mesedegarría** izan da hura inguruan hegaldaka ibiltzea saguzar handi bat bezala.  Iñaki Mendiguren

Zerga, «errenta txikientzat **mesedegarri**».  Berria - Ekonomia

### 2 (adizlagun gisa)

Ez dago esaterik zein **mesedegarri** gertatu zitzaidan mututasuna.  Hasier Etxeberria

Zertaz ari garen behar bezala ulertzeko, **mesedegarri** gerta dakiguke gogoan hartzea ahoskera zertan datzan.  Lourdes Oñederra

### 3 *mesedegarri izan* da *ad*

Horrelako silaba egituratze sendoari eusteko, **mesedegarri** da azentu ahula.  Lourdes Oñederra

Ez da profetarik bere herriari **mesedegarri** zaionik.  Elizen arteko biblia

Hori **mesedegarría** baita bi alderdientzat.  Edorta Agirre

Antzerkian ez naiz horrelakoen zalea, baina politika kontu hauetan guztion **mesedegarri** izango litzatekeela iruditzen zait.  Berria - Harian

Inguruabar bortitzez horretan gertatzen da bizibidea ateratzeko eguneroko borroka, batzuen **mesedegarri** eta besteen galgarri dena.  Lopez de Arana

Ondoko sei urteetan ere, Miarrizterentzat **mesedegarri** izan nahi du, karguan jarraitzen badu.  Berria - Euskal Herria

### 4 *mesedegarri izan* du *ad*

Salatzailea bera ere erruduna bada, ez du lekurik iritzi publikoaren aurrean; ez bada, delitua **mesedegarri** du, A-ren abstentzioak B-ren botoari pisu handiagoa ematen baitio.  Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mesedegarri izan** (9); **mesedegarri izango** (6); **mesedegarri izaten** (3)

**mesedegarría da** (17); **mesedegarría izan** (10); **mesedegarría izango** (8); **oso mesedegarría** (5)

## mesedegile *izond/iz* mesede egiten duena.

Larrialdian askatzaile eta **mesedegile** den Jauna goresteko deia.  Elizen arteko biblia

Hori al da adiskide zintzoei zor zaien ordaina, mesedea gogo onez hartu, baina **mesedegilea** beharrean denean bertan behera uztea?  Askoren artean

**Mesedegileak**, berriz, bi arrazoi izango ditu pozik egoteko: batetik, esker ona jaso du, eta, bestetik, aukera izan du argi eta garbi uzteko mesedea ez duela esker ona jasotzearren egin.  Joxerra Garzia

Zakurrak **mesedegile**.  Gotzon Garate

## mesedekería *iz* mesede gaitzesgarri edo kaltegarria.

Batzuek esparruetako bizi-baldintzak gogoratzen zituzten, alderaketak egiten zituzten, beste batzuek jaso beharreko laguntzaren zenbatekoak eta kopuruak eztabaidatzen zituzten, azken batzuek oztopoak salatzen zituzten, **mesedekería** onartezinak, beste zenbaiten alde egitea euren kaltetan, bidegabekeriak aurkitzen zituzten, baina gauza bat denek zuten argi: itxaron egin behar zen, luze itxaron ere.  Urtzi Urrutikoetxea

## mesedekor *iz*

Menpekoek zein aliatuek, lagunak eta nagusiak ez dituzte hartutako tratu **mesedekorraren** arabera errespetatzen.  Joxe Azurmendi

## mesedetu, mesede(tu), mesedetzen <sup>1</sup> *du ad* mesede egin.

Lehertzen diren puxikek beti kaltetzen eta **mesedetzen** dute norbait.  Berria - Ekonomia

Beharrezkoa da behingoz batzen gaituena **mesedetzea** banatzen gaituena **mesedetu** beharrean.  Berria - Mundua

Lehertzen diren puxikek beti kaltetzen eta **mesedetzen** dute norbait.  Berria - Ekonomia

Erregaiaren garestitzeak **mesedetutako** Repsol-YPF (%2,04) izan zen blue chip distiratsu bakarra, Santander (---) itsuaren eta Edurnezuri (%0,96) begibakarraren begiradapean.  Berria - Ekonomia

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Boeing, Microsoft, Motorola edo General Electric dira, besteak beste, **mesedetuak**.  Berria - Ekonomia



Hara bada, une horretatik aurrera utzi egiten dio krimen izateari; zeren eta bati mesede eta besteari kalte egiten dion ekintza bat krimena izan dadin, frogatu beharko litzateke kaltekoa **mesedetua** baino kutunago duela naturak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## mesedetxo *iz adkor* mesedea.

Soil-soilik, **mesedetxo** bat, ez ezazu zeure burua horrela asaldarazi, mesedez. Mirentxu Larrañaga

New Yorken badituz polizia batzuk lagun, **mesedetxoak** egin nizkielako. Gotzon Garate

Eta, uste dut, adar hauek, zeharbidez bada ere, zuri zor dizkizudanez, **mesedetxo** bat eskatzeko moduan nagoela, adiskide, errespetu guztiarekin. Karlos Linazasoro

## meseta 1 *iz goi* ordokia.

Bidaia guztian barrena ikusitako harri gogor eta **meseta** idor horiei bukaerakoan muino berde multzoa nagusitzen hasia zitzaielarik, baserriek pilkortu dituzte zuriz mazelatoko belaze leunak. Txillardegi

**Meseta** bitan erdibitua zegoen, iluntasunean kizkurto eta zuhaitz artean galtzen ziren harri tente eta formagabeek osaturiko ilara bikoitzari esker. Agustin Otsoa

## 2 Espainiako Meseta.

Barne-ordoki edo **meseta** aldetik datorren haize lehorra izan arren, nahiz penintsula aldetik nahiz Nafarroaldetik etorri, [...]. Pello Zabala

Labur: periferiako lurraz zentzumenean pekoak dira (Mediterraneo argitsua, iparralde sentimendutsu gozoa, hegoalde sorgina), izpirituaren eta arrazoiaren parajea **meseta** da. Joxe Azurmendi

## mesfiatu ik mesfidatu.

## mesfida

### 1 *mesfida izan* da ad

Gure arteko harremanak errexak ziren, baina **mesfida** nintzen, erizainak komunistak baitziren gutiz gehienak. Marzel Etxehandi

Beharbada gurekin gozoak izanen ziren, batzuk besteetat **mesfida** izan ez baziren. Marzel Etxehandi

## mesfidakor 1 *izond* mesfidatia.

Inguruko guztiek txalotu zuten azken madarikazioa, denek almuedanoak izan ezik, eta ez ados ez zegoelako, baizik eta lehenago bete zuelako zegokion zaindaria-lana, **mesfidakor** ausartaren zigorra eskatu zuenean, hain justu. Jon Alonso

## 2 (adizlagun gisa)

Zeren honelako liburuak, eta bertan kontatzen diren fikzioak, batzuk zein besteak, denak egiten baitira zalantza etengabe baten gainean, gauzak **mesfidakor** baieztaturik. Jon Alonso

## mesfidantxa ik mesfidantza.

## mesfidantza *(orobat mesfidantxa g.er.)* 1 *iz* uste txarra.

Nahastuta gelditu zen gizona, sinestezin, **mesfidantza** eta jakin-mina begietan. Migel Angel Mintegi

Ez da **mesfidantza**, ahalkea baizik. Jon Muñoz

Aurkitu egin dugu, denok ere, **mesfidantza** eta antipatia gaizto guztien azpian, batzen eta senidetzen gaituen hitza. Bernardo Atxaga

Nire **mesfidantzak** mindu balu bezala, tratua haustekoa egin zuen. Anjel Lertxundi

Hura baitzen, bere irudikoz, emakumearengandik **mesfidantza** ezabatzeke modurik egokiena. Migel Angel Mintegi

Harry Blount, aldiz, gutxi esan eta asko entzun, ez zuen **mesfidantzarik** piztu bere bidelagunengan Alcide Jolivetek bezala. Karlos Zabala

Inkomunikazio horrek susmo eta **mesfidantza** etengabekoa eragiten zuen. Berria - Harian

Florentek, hasieran halako **mesfidantza** bat sentitu bazuen ere, mugimendu iraultzaile bat posible zela sinetsi zuen azkenerako. Karlos Zabala

Baina, batez ere, haren niganako **mesfidantzak**, edo dena delakoak, ernegarazten ninduen, "it's okay" etengabe esaka. Joxe Austin Arrieta

**Mesfidantzak** eta ustekeriak ehundutako sareak egia ezkuta zezan, berak bere jokoa lasaitasun osoz egin ahal izan zezan. Jon Alonso

Auzoen behakoak **mesfidantzaz** beteak ziren eta zenbaitek beren agurra ere ukatzen zioten orain. Elena Touyarou

Bertako jendeak, hasieran, **mesfidantza** pixka batekin begiratzen zigun. Rafa Egiguren

Inezek **mesfidantzaz** begiratzen zidala iruditu zitzaidan. Harkaitz Cano

**Mesfidantzaz** hartu zuen albistea langileen batzordeko presidente Josu Sanchez Brunak. Berria - Ekonomia

**Mesfidantzazko** keinua egin zidan, harekin esan nahi balit bezala alferrik nenbilela Joan Mari Irigoien

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ohiko irribarre gorrotagarriaren orde, **mesfidantza** keinua erakutsi zuen. Jon Arretxe

Oisinek berak ere bere indiferentzia galdu eta **mesfidantza** puntu batez begiratu zion Goli. Joanes Urkixo

Mutilak, berriz, kikitiltsun eta **mesfidantza** zantzuak ikusi uste ditu neskak esandako horretan. Jokin Muñoz

Lehen **mesfidantza** bulta ezabatu ondoan, Dan ezin isildua zen. Itxaro Borda

Alcoleako politikak ezin egokiago erantzuten zion herriaren inertzia- eta **mesfidantza**-egoera horri. Josu Zabaleta

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Finantza-**mesfidantzazko** krisiei aurre egiteko helburuaz. Koro Navarro

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erabateko mesfidantza (3); halako mesfidantza (7); halako mesfidantza bat (4); mesfidantza agertu (8); mesfidantza agertu dute (3); mesfidantza azaldu (3); mesfidantza eragin (3); mesfidantza eragiten (3); mesfidantza gainditu (3); mesfidantza handia (12); mesfidantza sortzen (3)

mesfidantzarik gabe (5)

mesfidantzaz begiratu (9); mesfidantzaz begiratzen (20); mesfidantzaz begiratzen diote (4); mesfidantzaz hartu (7); mesfidantzaz ikusten (3)

# mesfidaraz, mesfidarzen du ad mesfidarza behartu.

Antezlanak ikusleak «kolore iluneko edariez, 2007a baino lehen irautzen ez diren elikagaiez, lana eskaintzen diguten jendez eta guhaurez **mesfidaraziko** » ditu. **Berria** - Kultura

## mesfidati 1 izond mesfidatzeko joera duena.

Nik badakit berezia naizela, ez dut ezetz esango, **mesfidati** samarra izan naiz betidanik. **Migel Angel Mintegi**  
Gure aita **mesfidatia** izaten zen ezezagunekin, ez zen fidatzen jendeaz. **Fernando Rey**  
Etorkinekin **mesfidatiak** gara, baina askotan gure begietan dago arazoa. **Berria - Harian**  
Tipo metodiko, minbera, **mesfidati** xamar bat. **Pablo Sastre**  
Elkarri zeharka begiratzen zioten hitzik egin gabe, animalia **mesfidatien** pare. **Karlos Zabala**  
Bi begi gris, bizi eta **mesfidati** finkatu zitzaizkion aurpegian. **Lopez de Arana**  
Pentsamendu horixe iradoki baitzion hain zuzen ere bere buru **mesfidati** kezkatuak. **Karlos Zabala**  
Emakume potoloak begirune **mesfidatiaz** begiratzen du ariketa ulertezina. **Jon Alonso**  
Senecaren esaera haren onurak ere balia ditzala, esaera **mesfidatia**, gaurko egunari egoki zaion moduan **Jon Alonso**

## 2 (adizlagun gisa)

**Mesfidati** atera zuen eskua, erdizka, kaparen azpitik. **Anton Garikano**  
Hargatik, **mesfidati** begiratu zion egun hartan Gerardo ezagutzen zuela esan zion lehen eta bakarrari. **Xabier Montoia**  
Gero eta **mesfidatiago** entzuten dituzun aitzindarien azalpenak. **Xabier Montoia**  
Dionisosek Ducados bat iziotu zuen **mesfidati**. **Unai Iturriaga**  
Betaurrekoekin ingurua miatu du **mesfidati**. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Florentek, **mesfidati** artean, Normandiar ederrari begiratu zion. **Karlos Zabala**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**begirada mesfidati** (3); **mesfidati agertu** (4); **mesfidati begiratu** (10); **mesfidati begiratu zion** (4); **mesfidati begiratzen** (4)

## mesfidatu, mesfida, mesfidatzen (orobat mesfiatu g.er.) 1 da ad uste onik ez izan, mesfidantza agertu.

Zergatik ez nintzen **mesfidatu**? **Itxaro Borda**  
Etxeko haurrak bata besteaz **mesfidatzen** hasi ziren. **Itxaro Borda**  
Gainera, haren senarra, zerbaitetaz **mesfidatzen** hasia. **Daniel Landart**  
Bera aurkitzen uzten baitie tentatzen ez dutenei, eta bere burua agertzen, **mesfidatzen** ez direnei. **Elizen arteko biblia**  
**Mesfidatu** handikiez. **Elizen arteko biblia**  
Hain atsegin zaio arimari beste arimak menderatzea, on dena maite dutenek hainbeste maite dituzte beren buruak, non ez baita haien asmo onez **mesfidatzeko** bezain zorigaitzeko den inor. **Iñaki Iñurrieta**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Zakur zaharra **mesfidatuago** da, petraldu egiten da, pozoitu. **Gotzon Garate**

## mesial izond erdialdekoa.

Esklerosis **mesialak** eragindako epilepsia fokal tenporal sintomatikoa dutenei asko lagundu ahalko diegu, adibidez. **Berria - Gaiak**

## mesianiko 1 izond Mesiasi dagokiona.

Jesusen egitekoa; krisi **mesianikoa**. **Elizen arteko biblia**

## 2 mesianismoari dagokiona.

ETAren su-etenak ez al digu eskaintzen Benjaminen "geldialdi **mesianikoa**" eta honen "aukera iraultzailea"? **Joseba Zulaika**  
Behin eta berriro berpizten den intelektualaren tipo **mesianiko** hori. **Joxe Azurmendi**  
Marxismoaren pareko paradisu lurtarraren ukitu **mesianikoaz**. **Iñaki Heras**  
Nago Ibarretxek halako rol **mesianiko** bat hartu duela eta Euskal Herriaren liberazioa lortzea dagokiola uste duela. **Berria - Euskal Herria**

## 3 (adizlagun gisa)

**Mesianiko** samar agertzen zaigu Keynes tunelaren metaforarekin. **Iñaki Heras**

## mesianismo 1 iz Mesiasen etorreran sinestea.

Izan ere, Hirutasunaren misterioa eta Jesusen **Mesianismoa** dira, hain zuen, juduen eta kristauen sineskeren arteko harresi gogor eta gaindiezina. **Xabier Kintana**

## 2 egoera gaitzo bat konponduko duen mesias baten etorreran sinestea.

Langileria bere kondiziotik **mesianismoz** jaso gura ei dituzten doktrina barriek martiriak behar dituzte. **Koldo Izagirre**  
Badituzte euren zalantzak; ez dute **mesianismo** itsuan sinesten. **Pako Aristi**  
Marxen **mesianismo** zientifikoa burges jatorrikoa da. **Iñaki Heras**  
Sistema legegile propioa daukate eta **mesianismo** puntu bat. **Berria - Euskal Herria**

## mesias 1 iz Jainkoak judu herria askatzeko bidaliriko gizona; Jainkoak gizadia askatzeko bidaliriko gizona.

Jesus Jerusalem **Mesias** bezala sartu. Izan ere, gezurrezko **mesiasak** eta sasiprofetak agertuko dira eta aukeratuak berak ere, ahal balitz, engainatzeko moduko mirari handiak eta egintza harrigarriak egingo dituzte. **Elizen arteko biblia**  
Ez naiz profeta, hain gutxi **Mesias** bat, baina Haren ahotsa naiz, Joben liburuko teofanian bezala. **Karlos Zabala**

## 2 Jainkoak herri edo lurralde bat askatzeko edo salbatzeko bidaliriko omen duen gizona.

Gure munduak jada segurtasun ezekoak bilakatuak dira eta salbatuko gaituena, **mesias** bortitzena izan arren, goستن dugu. **Itxaro Borda**  
Hitler **mesiasa** izanzen zen eta bera, Himmler, apaiz gorena, mugimendu berriaren profeta! **Alberto Ladron Arana**  
Harik eta zure egiek mendetasuna sortu eta eredu, guru, **mesias** bihurtuko zaren arte. **Lander Garro**

**Mesias** iraultzaile, abertzale edo kristauen denbora-molde eskatologikoa, inoiz gauzatuko ez den bigarren itzulerara, independentzia edo iraultza perfektuetan sustraitua, ez da ikuspuntu zuzena ez historiaren ez bizitzaz, eta gainera ez du ongi pasatzen laguntzen. **Markos Zapiain**

meskeria ik **menskeria**.

## meskhetiar *izlag*

Turkiar **meskhetiarren** eta beste gutxiengo batzuen kontrako eraso bortitzak izan ziren Fargona haranean. **Berria - Harian**

1944: Josif Stalinekin 160.000 turkiar **meskhetiar** deportatu zituen Georgiatik Uzbekistanera. **Berria - Harian**

meskita ik **mezkita**.

## mesmerismo *iz F.* Mesmer austriar medikuaren hipnosis metodoa eta horri dagokion doktrina.

**Mesmerismo**: hipnosi modu bat, Friedrich Anton Mesmerrek (1733-1815) bultzatua. **Xabier Olarra**

Irakurria nintzen **nesmerismoari** buruzko liburua eta panfletoak, animalien magnetismoari buruzkoak-eta, baina sekula ez zitzaizkan burutik pasa nik ere halako ahalmenak, eta hainbestearainokoa, izan nitzakeenik. **Koro Navarro**

## mesokratiko *izond* burgesiari edo erdiko klaseei dagokiena.

Hiriko mundu **mesokratiko** eta aseptikotik nentorren ni, eta Costa de Morte-ko herri "basati" batetik bera. **Iban Zaldúa**

## mesolabio *iz* Eratostenesek kalkulu matematikoak egiteko asmatu zuen tresna, hiru paralelogramo mugikorrez eta lerrabide batez osatua.

Arkitasek zilindroen irudiak erabiliz, eta Eratostenesek **mesolabioa** izeneko tresna erabiliz. **Santiago Iruretagoiena**

## meson *iz* Espainiako ostatu mota.

Ostatuak non nahi, **meson** delakoak, eta ere etxe ederrak, beren armarruekin. **Piarres Aintziart**

## mesopotamiar *izlag/iz* Mesopotamiakoa, Mesopotamiarri dagokiona; Mesopotamiako hirritarra.

Funtsezkoa da horretan antzinako hiriekiko (greziar nahiz **mesopotamiar** hiriekiko) aldea, azken horiek erakunde militar gisa antolatzen baitziren, edota, Weberren hitzak erabiliz, gerrari-korporazio gisa. **Koro Navarro**

Funtsezkoa da horretan antzinako hiriekiko (greziar nahiz **mesopotamiar** hiriekiko) aldea, azken horiek erakunde militar gisa antolatzen baitziren, edota, Weberren hitzak erabiliz, gerrari-korporazio gisa. **Koro Navarro**

## mesotelioma *iz* gainalde serosoetan sortzen den tumore gaiztoa.

Amiantoa denbora askoan arnasteak asbestosia, **mesotelioma** eta biriketako minbizia eragiten ditu, besteak beste. **Berria - Ekonomia**

Frantzia, esaterako, **mesoteliomak** eraginda urtero 1.100 lagun hiltzen direla aitortzen dute. **Berria - Ekonomia**

mesperetxatu ik **mespretxatu**.

mespresatu ik **mesprezatu**.

## mespretxagarri (*54 agerraldi, 10 liburu eta 9 artikulutan; orobat mespretxugarri g.er. eta mezpretxagarri g.er.*) **1 izond** gutxiesgarria. ik **mesprezagarri**.

Gizakia gezurtia, **mespretxagarria** eta heriotzaren beldur bizi den animalia baino ez delako. **Berria - Kultura**

Gizona izaki zital eta **mespretxagarria** baita. **Xabier Kintana**

Gérard-ek, [...] zeiharkako irri zozo, ezaxol eta **mespretxagarriarekin** erantzuten dio. **Eneko Bidegain**

Ez zuen edertasunik, itxura **mespretxagarria** baizik. **Askoren artean**

Bere begietarako buztinezko ontzi **mespretxagarri** baino ez zen. **Askoren artean**

Munduak zorotzat eta **mespretxagarritzat** duena aukeratu duelako. **Askoren artean**

Eudelek erantzun zion akusazioa «**mespretxagarria**» zela. **Berria - Euskal Herria**

**Mespretxagarria** iruditu zitzaion entzuten egotea, han egotea. **Koro Navarro**

### 2 baztergarria.

Airbusek garai hartan ez zuen gaitasunik Boeing taldeari itzal egiteko, hegazkin «kopuru **mespretxagarria**» fabrikatzen baitzuten, AEBetako enpresaren arabera. **Berria - Ekonomia**

### 3 (adizlagun gisa)

Guztiz **mespretxagarri** agertzeko eta besteei benetako aitortzaren etsenplua erakusteko. **Askoren artean**

Nola ez **mespretxagarri** sentitu hildakoarekiko haserrea, aiherkundea eta herra bera gutaz jabetzen direnean? **Joxan Elozegi**

**mespretxatu**, mespretxa, mespretxatzen (*204 agerraldi, 52 liburu eta 53 artikulutan; orobat mespretxatu g.er.*) **1 du ad**

## gutxietsi. ik mesprezatu.

Alde batetik irrikari nengoen, baina bestetik lotsa, ahalkea eta barre egingo edo **mesprextatuko** ninduzulako beldur ikaragarria nagusitzen zitzaizkidan. **Xabier Mendiguren**

**Elizegi**

Zaharrak **mesprextatu** egiten zituen. **Koro Navarro**

Sistematikoki **mesprextatu** egin baititu [Udalak] azpikontrataturako langileak. **Berria - Ekonomia**

"Ez ditugu **mesprextatu** behar literaturarik ez omen duten hizkuntza horiek" -idatzi zuen Wilhelm Humboldt erromantikoak. **Bernardo Atxaga**

Baina jokabide horiek ezarritako normetatik kanpo daudenez [...] kultura dominatzaileak **mesprextatu** egiten ditu. **Luis Elberdin**

Italiar mafiak, baina, **mesprextatu** egiten du errusiarrena: "haiena ez da mafia: guk gutxienez legeak dauzkagu, errusiarrek ez ordea". **Harkaitz Cano**

Fisikaren legeak **mesprextatzen** zituzten Junker 52 erraldoiak. **Ramon Saizarbitoria**

Batzu lausengatuz eta besteak **mesprextatuz** ... **Herria**

Xalotasun eta pobretasun santuaren bidea **mesprextatuz** eta ezereztzat joz. **Askoren artean**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Eta poz hartu behar dute, jende baxu eta **mesprextatuarekin**, behartsu, ahul, gaixo, legendun eta bide-bazterretako eskaleekin batera bizi izateaz. **Askoren artean**

Setati **mesprextatuak** sentiaraziko gaituen antzerki ankerra. **Markos Zapiain**

Jendeak entzun, konprenitu eta zerbait muntatu, partikulazki **mesprextatu** alde. **Herria**

## mesprextatzaile izond mesprextatzen duena, gutxieslea.

Kardinal hau Erromako kuriako beste printze eta handikien artean lurreko gauzen **mesprextatzaile** eta zerukoen maitale bezala nabarmentzen zen. **Askoren artean**

Maitasunez hildako gazte umila askoz ere biziago dago bere emaztearen bihotzean bera eta bere kosmopolitismo **mesprextatzaile** baino. **Markos Zapiain**

Kastitate grinati eta xahutasun **mesprextatzaileko** birjin baten antzera. **Anton Garikano**

Bere buruaren benetako **mesprextatzaile**, besteei ere gauza bera egiteko aholkua ematen zien hitzez eta etsenpluz. **Askoren artean**

## mesprextio ik mesprextu.

## mesprextu (430 agerraldi, 98 liburu eta 123 artikulutan; orobat mesprextio g.er. eta mezprexu g.er.) 1 iz gutxiespena. ik mesprezu.

Mutilak hotz eta motz begiraten dio neskari, **mesprextu** eta tristeziaren arteko keinu bat duela ahoan. **Antton Olano**

Bere buruaren **mesprextua** eta apaltasun egiazkoa. **Askoren artean**

**Mesprextuak**, nahigabeak, sufrimenduak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Pariseren mementoko ihardespene bakarria **mesprextua** da. **Herria**

Mehatxu eta **mesprextu**. **Herria**

**Mesprextu** hori maitasun bilakatuko delako nobelan zehar, ezkontzarekin amaitzeko noski. **Iban Zaldúa**

Hiritarren **mesprextuak** gorabehera, nire kolegio hura, Donostiako La Salle, toki ona izan baitzen niretzat. **Bernardo Atxaga**

Gure jarrerarekin arabarrei **mesprextu egiten** geniola. **Berria - Harian**

Bere odoleko bastartarenganako **mesprextua** zeriola. **Elena Touyarou**

Italiaganako **mesprextu** horrek aita-amak eta gu guztiok ere hartzen bide gintuen, gure ohiturak eta gure bizitza osoa. **Fernando Rey**

**Mesprextua** zion Alejandrori eta ia gorrotoa aitari. **Josu Zabaleta**

Gero nolako **mesprextu** nion erakusteko ttu egin nuen lurrera bere aurrean. **Pello Lizarralde**

Irain, **mesprextu** eta jauntxokeria merkea barra-barra darabilen irrati-uhinetako izar itzaltsuak. **Joxerra Garzia**

Juduak, niretzat, **mesprextua** besterik merezi ez duten izaki miserableak direla. **Anjel Lertxundi**

"Bizkorragoa hintzela uste nian", esan zuen Ubanbek **mesprextuz**. **Bernardo Atxaga**

Izetak eta Haussonvillek **mesprextuz** begiraten zioten eliz aldera zihoan jendetza hari. **Koro Navarro**

-Zeure buruaz arituko zara, Peaceful andrea- ihardetsi zion Mollyren amak, **mesprextuzko** irribarraz muzin eginez. **Mirentxu Larrañaga**

**Kortsario** izen estimatu hura izan beharrean **pirata** edo **itsaslapur** deitura **mesprextuzkoa** eraman behar izaten zuten. **J.M. Olaiola "Txiliku"**

## 2 (izenondoeekin)

Bere lagunarenganako **mesprextu** handia sentitzen hasi zen Julio Aracil. **Josu Zabaleta**

Beren aurrekoen **mesprextu** bizi horrekin, mazedoniar enperadoreak Justinianoren Kodea berpizteko zereginean saiatu ziren. holako erranak salatzen du gure hizkuntzen kontrako **mesprextu** ikaragarria. **Iñaki Mendiguren**

Prokuradoreak ere **mesprextu** izigarria agertu du, fermuki baina baketsuki jokatzaren diren gazte horien buruz. **Herria**

**Mesprextu** berezi batez bezitzen da hor "poeta" hitza. **Herria**

Gorroto sakon bat zen, sentitzen duenari baretasuna ematen dioten horietakoa, **mesprextu** epiko, harro bat. **Josu Zabaleta**

Esperientziak iluminatuaren jakinduriatzko **mesprextu** errukitsuz goitik behera begiraten. **Joxe Azurmendi**

Euskal Herriko sozialistak **mesprextu** totalaren tradizio horren heredero eta jarraitzaile suharrenak berak paratu dira. **Joxe Azurmendi**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bitartean irain eta **mesprextu** hitzak esanez. **Askoren artean**

Urduri egongo da denbora guztian, eta samintasun, **mesprextu**, larritasun, laztura keinuz jarraituko ditu haien arteko hitza. **Josu Zabaleta**

Lisa ederrarekin topo egin eta haren **mesprextu** begirada itzuli zion. **Karlos Zabala**

Kristinaren **mesprextu** hotsa hiztegitiko edozein hitz baino adierazgarriagoa izan zen. **Aingeru Epaltza**

-Hauek dira eztabaida ergelak! -esaten zuen Margaritak **mesprextu** -muzin batez. **Josu Zabaleta**

Badirudi **mesprextu** ardatz bi daudela gure munduan: bata iparraldetik hegoalderantz doana, eta bestea mendebaldetik ekialderantzkoa. **Jon Arretxe**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mesprextu egitea** (3); **mesprextu handia** (5); **mesprextu handiz** (3); **mesprextu hitzak** (3); **mesprextu ikaragarria** (3); **mesprextu keinu** (4)

**mesprextua adierazten** (6); **mesprextua besterik ez** (3); **mesprextua erakutsi** (4); **munduaren mesprextua** (3)

**irainak eta mesprextuak** (3)

**munduaren mesprextuak** (4)

**mesprextuz begiratu** (6); **mesprextuz begiraten** (6)

**mesprextuzko keinu** (3)

mespretxugarri ik mespretxagarri.

**mespretxuka** *adlag* mespretxu eginez.

Marmarra zabaldu zen, xuxurlaka hasi ziren neska guztiak eta **mespretxuka** mutiko guztiak. **Koldo Izagirre**

**mesprezagarri** (*28 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan*; ; orobat *mespreziagarri g.er., mezprezagarri g.er. eta mesprezugarri g.er.*) *izond* gutxiesgarria. ik **mespretxagarri**.

Piztiarik higuigarri eta **mesprezagarrienak** jainkotzat hartuz. **Elizen arteko biblia**

Gorago ikusi dugu zein sentimendu huts eta **mesprezagarria** den lotsa. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Gero, gorpu **mesprezagarri** bihurtuko dira, iraingarri betiko, hildakoen artean. **Elizen arteko biblia**

Sabel asearentzat **mesprezagarri** ezti-abaraska, sabel gosearentzat mingotsa ere gozo. **Elizen arteko biblia**

Iseka da, gorroto dugun gauza batean zerbait **mespreziagarri** badela irudikatzen sorturiko Poztasuna. **Piarres Xarriton**

**mesprezati** (*corpusean mespreziati soilik*) *izond* mespreziatzailea.

"Zerriek ere gauza bera egiten diate ibaiak hazi edo ateratzen direnean", dio hirugarrenak lehenengoaren hariari beste zati mikatzago eta **mespreziatiago** bat erantsiz.

**Bernardo Atxaga**

**mesprezatu** (*173 agerraldi, 31 liburu eta 4 artikulutan*; orobat *mespresatu g.er., mezprezatu g.er., mexpreziatu g.er. eta mespreziatu g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian mespretxatu agertzen da*) **1** du *ad* gutxietsi.

Bihotzez maite nuela aita ere, luzaroan **mesprezatu** eta arbuia izan nuen arren. **Joan Mari Irigoien**

Zuk jokatu duzun bezalaxe jokatuko dut nik ere zurekin, zina **mesprezatu** eta ituna hautsi baituzu. **Elizen arteko biblia**

Entzun sortarazi zintuen aitari, ez **mesprezatu** ama, zahartu egin dela eta. **Elizen arteko biblia**

-Ez ezazu errukia **mesprezatu**, bihotz eskuzabalaren dohaina baita. **Agustin Otsoa**

ELAK, berriz, patronalak sindikatuek «**mesprezatu**» dituela azpimarratu zuen. **Berria - Ekonomia**

**2** (era burutua izenondo gisa)

Herri **mesprezatuaren** erruki-eskea. **Elizen arteko biblia**

Zeren Utopia, leku bat baino gehiago, arimaren behako hori izan baitaiteke, benturaz, munduko **mesprezatuenekin** bat egiterat bulkatzen gaituena. **Joan Mari Irigoien**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hitza mesprezatu** (3); **mesprezatu eta ituna** (3); **nire erabakiak mesprezatu** (3); **zina mesprezatu** (4)

**mesprezatzaille** *izond* mesprezatzaillea, gutxieslea.

Husaini begirakune **mesprezatzaillea** eta trufazkoa josirik, galdegin zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Ate ilun hauetako batek gordea, ni nago, italiarra, euskaldun zabarren kontzientzia harrotzera etorria, mendekatzaille eskuzabala, heriotzaren **mesprezatzaillea**. **Koldo Izagirre**

Gizon horrek askoz ere aukera gehiago duelako, batenaz beste, lege errespetatzaille izateko, **mesprezatzaille** baino. **Juan Martin Elexpuru**

mespreziagarri ik mesprezagarri.

mespreziati ik mesprezati.

mespreziatu ik mesprezatu.

mesprezio ik mesprezu.

**mesprezu** (*130 agerraldi, 40 liburu eta 5 artikulutan*; orobat *mesprezio 55 agerraldi, 12 liburu eta artikulua 1ean, eta mezprezu g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian mespretxu agertzen da*) **1** iz gutxiespena.

Mirespenari kontrajartzen zaio **Mesprezua**, haren kausa hau baita gehienetan. **Piarres Xarriton**

Erantzuna iraina eta **mesprezua**, errepresioa eta jipoia izan dira. Gure produkzioarekiko interesa berpiztu egin behar dugu, azken urteotan interes falta eta **mesprezu** ezkutu bat azaleratu direlako. **Berria - Harian**

Etengabe borrokatu baitziren [agoteak] XVI. mendetik hasita, jasaiten zuten **mesprezioa** eta bazterketa geldiarazteko. **Herria**

Nekeak gogoa galtzera eramaten ditu, eta gogoa galtzeak, laster, **mesprezura**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Erruki izango nauzu, **mesprezu** izango didazu, halakoxe miserian baitago nire gogoa. **Josu Zabaleta**

Eta damudun nintzen; zeren, barru-barruan, **mesprezu** pixka bat izan bainion beti. **Irene Aldasoro**

Aginteari **mesprezuz** gogor eginez. **Xabier Olarra**

Gazteak **mesprezuz** erantzun zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

**Mesprezuzko** begirakunea josi zion langileak ezarri berria zuen irriari. **Patxi Zubizarreta**

**Mesprezuzko** ezpain okertze bat eginez behatu die bekoz beko. **Koldo Izagirre**

Bere herrialde maitatuari buruz egiten dituen komentario isekari eta **mesprezuzkoengatik**. **Josu Zabaleta**

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Eta hori esan bitartean **mesprezu** -keinua egin du amak-. **Iban Zaldua**

Eta aitak, aitona Nikolasi **mesprezu** puntu batez behatzen ziola, honela ihardetsi zion: [...]. **Joan Mari Irigoien**

**Mesprezu** -aurpegikeraz ibiltzen hintzen ehizan. **Xabier Olarra**

"Betiko hemengoak gara" zioten, beren buruak sinetsirik edo sinetsarazi nahirik-, joan egiten ziren, azken etorkinentzako **mesprezu** eta narda-aztarnak atzean utzita. **Iñaki Zabaleta**

---

mesprezugarri ik **mesprezagarri**.

---

**mesprezuka** *adlag* mespretxuka.

Nire lagunek ahotan **mesprezuka** zerabilten huraxe. **Koldo Izagirre**

---

**messenger** *iz*

**Messengerra**, chat-a edo ordaindutako foroak erabiltzen dituzte euren arteko harremanak izateko. **Berria - Harian**

**Messengerretik** sarritan elkar berotu izan dugu, inori esango ez genizkion gordinkeriak bota dizkiogu, eta ezagutzen ditu nire fantasia eta perbertsio ezkutuenak. **Urzi Urrutikoeetxea**

---

mestizaia ik **mestizaje**.

---

**mestizaje** (**35** agerraldi, **10** liburu eta **11** artikulutan; orobat **mestizaia 10** agerraldi, **2** liburu eta **2** artikulutan) **1** iz arraza desberdinen gurutzaketa.

Giménez Caballero Espainiako enbaxadorea izan zen Paraguay-n, eta **mestizajea** eta "raceamiento"a -jeinu espainolaren esentzia hori- mila zertzeladatan deskubritu ditu han ere. **Joxe Azurmendi**

Estatu Batuetan edo Europan ez dago **mestizajerik**, eta harreman zuzena dago auzo batekoa izatearen, azalaren kolorearen eta pobrezia ekonomikoaren artean. **Bernardo Atxaga**

Arrazismoa ukatu ere, **mestizaje** arrazialaren izenean egiten baita. **Joxe Azurmendi**

Multikulturalismoa, **mestizajea**, hibridazioa, gai horiek zuzeneko lotura dute Erdialdeko Amerika, Karibe eta Hego Amerikarekin, eta horrek derrigortzen gaitu pentsatzera akaso ez dela egongo nazioez gaindiko nortasun delako hori, baina bai nazioen, herrialdeen, herrien, taldeen eta norbanakoan araberako nortasun mugagabeak. **Berria - Kultura**

Zer egin daiteke **mestizajea** berdintasunezkoa izateko? **Bernardo Atxaga**

Integrazioaz baino, ez al litzateke egokiago **mestizajeaz** berba egitea? **Berria - Euskal Herria**

**2** hainbat etorkiko kulturen nahastea.

Gizarte horiek jasaten dituzten aldaketa-prozesu bizkortuek kultur identitate ereduaren halako ahultze bat eragiten dute; horren emaitza **mestizajea** izaten da. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Kontuz, gero: generoek oro har, eta nobelak bereziki, **mestizaje** bezalako orotariko haizeei beren atek zabaldu dizkieten orduko (ederra da gero!), otsoak sartu baitira eskortan, azeriak ere bai oilategian. **Anjel Lertxundi**

**Mestizaje** kulturalak aurkikuntza handiak ekarri ditu. **Askoren artean**

"Yopará" espainolaren eta guaraniaren **mestizajea** linguistikoa da, arrunta nonbait solasean, teatro eta literaturan ere. **Joxe Azurmendi**

Janariak gu elikatzea helburu bakarra ez duenez, kultura desberdinetako elikagaiak nahasiko dituzte eta elikabide berriek, ezagun ez ditugun zaporeak eskainiz:

**mestizaiaren** sukaldaritza sinkretikoa osatuko da. **Edorta Agirre**

**3** (hitz elkartuetan)

Fenomeno horrek hiru adarreko mugimendua sortaraziko du: tokian tokiko bereizgarritasun batzuen suntsiketa, elikadura-plegu berrien agerpena (**mestizaia** prozesuen ondorioz) eta hainbat elikagai eta elikadura-praktikaren hedapen transkulturala. **Edorta Agirre**

---

**mestizatu** *izond* mestizo bihurtua.

Egospenez (temperatura, denbora, aurre-prestatze, etab.), aurkezpenez [...] eta gainerakoez osaturiko sukaldaritza **mestizatua** sortuko da. Ni ere bastart **mestizatua** !? **Edorta Agirre**

---

**mestizo** (*orobat mestizu g.er.*) **1** *izond/iz* arraza ezberdinetako gurasoengadik datorrena.

Rowling, Harry Potterren sortzailea, seigarren hori idazten ari da egun, eta iragarri du jadanik izenburua:*Harry Potter and the half blood prince* (Harry Potter eta printze **mestizoa**). **Berria - Kultura**

Gondorko gizakiak zirela esaten zuten, baina egia esateko, **mestizoak** ziren. **Agustin Otsoa**

Baina *coloureds* edo **mestizoak** kexatu egin dira haiek baztertuta segitzen dutela. **Berria - Mundua**

Neska gazte bat errepiderantz zihoan; **mestizo** eder-eder bat, hogeit bat urtekoa, garaia, liraina, lianaren tankerakoa gorputza. **Jon Muñoz**

**2** guraso indiar eta espainoletik Amerikan jaioa.

**Mestizoa** da Humala, herrikide gehienak bezala, eta Ayacucho jaio zen eskualde behartsuenerako bat da. **Berria - Mundua**

Erdian: **mestizoak**, mulatoak, kuarteroiak eta kinteroiak. **Pako Aristi**

Blufildarrak kalean: beltzak, **mestizoak**, zuriak, txinoak, arabiarrek, indioak; Indiakoak zein bertakoak. **Joseba Sarrionandia**

- Bahiako tabakoaz, kafe ugaritasunaz, Rio de Jaineroiko milioi eta erdi biztanleez, Pernambucoz eta Sao Paulo iz irakurtzen aritu naiz, Amazonas ibaia ahaztu gabe: beltzak, mulatoak, **mestizoak**, %50etik gora analfabeto, eta malaria. **Josu Zabaleta**

**3** irud/hed

Ez dute inoiz ikusi iturriei darien ur hezia baizik, etengailuari emanik bonbillei darien argia baizik, urkilen bidez eutsitako zuhaitz **mestizo**, bastartak baizik. **Monika Etxebarria**

Arlo teorikoan, era berean, ganberak euskal nortasuna «plurala eta **mestizoa**» dela kontuan izatea eskatu zuen. **Berria - Kultura**

Jeinu espainola **mestizoa** -munduko hiru jeinuen sintesi eta harmonia da: orientala (arabiar eta juduek egin dutenagatik), mendebaldarra (bisigodoei eskerrak), eta erromatar-kristaua. **Joxe Azurmendi**

Oso hiri **mestizoa**. **Berria - Kultura**

Denborarekin sorkuntza **mestizoaren** aktore garrantzitsu bilakatu da musikaria, hain zuzen ere. **Berria - Kultura**

Klararen etxea alderdi argi-ilun **mestizoan** zegoen, non Alde Zaharreko mendeetako herdoil goibela Zabalguneko zabor plastifikatu distirantera isurtzen den. **Aingeru**

## mestizozale *izond* mestizoen zalea dena.

Jeinu espainola - **mestizoa** - munduko hiru jeinuen sintesi eta harmonia da: orientala (arabiar eta juduek egin dutenagatik), mendebaldarra (bisigodoei eskerrak), eta erromatar-kristaua. Joxe Azurmendi

## mestizu ik **mestizo**.

## mesur ik **mesur**agabe.

## mesuragabe *(orobat mesur gabe) izond*

Progreso zerri **mesuragabea**, eta gizatasun xuhur eszeptikoa. Patziku Perurena  
Gurean esaten zen moduan, *Itsasoko legeak, onak on, eta gaiztoak* **mesur** gabeak. Edorta Jimenez

## meta<sup>1</sup> 1 iz zelaietan-eta garoz edo belarrez egiten den pila, haga baten ingurura biltzen dena.

"Edozein belar pila ez baita **meta**", gogoratzen digu Lertxundik, Mitxelena aipu. Joxerra Garzia  
Belar pila galanta egin dugu, bai, baina non dago **meta**? Joxerra Garzia  
Eta Gandalfek eragozteko aukerarik izan aurretik, zuzia **metaren** gainera bota zuen. Agustin Otsua  
**Metak** eta azaok nagiki edo bizkor egin, axola gutxi berari. Jose Morales  
Baserri giroko auzo-liskarretan, **metari** meta, munta gutxiko lapurretek sortu ohi dituzten elkar hiltzerainoko sestrak. Anjel Lertxundi

## 2 lurrean gauzak elkarren gainean jarriaz egiten den pila.

**Meta** erraldoi haiei, sua pizten zuten ijito eta diamante-lapurrei, eta zeruari. Harkaitz Cano  
Liburuak lurrean egon ohi ziren, **meta** txikitan pilatuta. Rafa Egiguren  
Hozkailuaren gainean gaueko postrea zegoen: esnegain irabiatuzko **meta** handi bat eta azukrezko bioletak. Iñaki Mendiguren  
Zabor-poltsaz osaturiko **meta** batera igota. Harkaitz Cano  
Lurrean, **meta** nahasi bat osatuz, Malfoy, Crabbe, Goyle eta Marcus Flint -Slytherin taldeko kapitaina- zeuden, eta beren jantzi beltz, luze eta txanodunak erantzi nahian ari ziren ahaleginean. Iñaki Mendiguren

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bada ere laborari etxe baten maketa, etxea bera iratze **meta** batzu ondoan. Felix gari-**metako** txolarrea baino aiseago hazi zuten Yusupovtarren jauregian. Herria  
Su-**metaren** erdiko makilari katez lotua. Joan Mari Irigoien  
Bide bazterrean harri **meta** bat ageri da. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Urkabearen aitzinean, egur-**meta** bat, gurutze batez koroatua. Joan Mari Irigoien  
Migel Mailuk Urdazubiko monasterioan ikusia zuen liburu **meta**, sei-zazpi bat. Aingeru Epaltza  
Kanpamentuaren eskuma aldera zegoen lur **meta**. Urtzi Urrutikoetxea  
Ongarri **metaren** gainean goseak hilik dagoen txori erregepittitaren pare. Itxaro Borda  
Ohe bakarra lorezko edredoiduna, arropa **meta** galanta gainean zuena. Gure bagoia geltokitik urrun, bazter batean utzi zuten, ikatz **meta** baten ondoan. Aingeru Epaltza  
Itsasbeherak agerian utzi duen harkaitz **meta** baten kontra jotzen du zakar itsasoak. Koldo Izagirre  
Adreilu **metaren** ondoan Jabi, makurtuta. Pablo Sastre  
Zer zegoen txatarra **meta** haietan? Harkaitz Cano  
Gero, sare-**meta** berdeen artean ezkutatu zen. Harkaitz Cano  
Bi errealekoen kopuru txikiak biltzetik datorren diru **meta** handia. Piarres Xarriton  
Lantokira ailegatuz geroztik sei aldiz irakurria nuen Isabel Sanjoserren kaka-**meta**. Aingeru Epaltza  
-Mila kaka **meta**, non haiz, haur satan hori! Aingeru Epaltza  
Sufrikario **meta** dorpe erraldoia, hutsune ñimiño iheskor bilakaturik. Txillardegí  
Urrunago ikusten dituzte hilotz **metak** eta **metak**, gure lagunak, erretzekoak zirenak oraino. Michel Oronoz  
Mendiaren azken bizkarrek sator **meta** alimale batzuk dirudite, lerroz lerro eraikiak. Piarres Aintziart

## 4 *metan* meta bat osatuz.

Kexu errea nintzen; sukaldeko mahaiaren izkinan, hozkatu azal gurintsuak **metan** zeudela ikusi nuen. Itxaro Borda  
San Bernateko zelaian **metan** utziak diren puskek min biziaren arriskua hedatzen dutela auzo gunean. Herria  
Etxez etxe aminatu oihal beilegiak kantoi batean zeuden, **metan**. Itxaro Borda  
Jendea **metan** bizi da hiri handi horietan eta hiri horien inguruetan. Herria

## 5 *belar meta*

Lasterka batean zeharkatu genuen ibaialde, ihesi, eta **belar-meta** baten hondoan aurkitu genuen ezkutalekua. **Belar-meta** haren aterpean babesturik. petrolio ponpak eta **belar metak** eta gizon bat orga batean geldi-geldi, euliez inguratuta. Mirentxu Larrañaga  
Belar iharra eta laboreak usteldu egiten ziren; gari-azaoak eta **belar-metak** simaur bihurtzen ziren. Jose Morales

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**belar meta** (7); **diru meta** (10); **diru meta gaitza** (3); **errauts meta** (3); **harri meta** (5); **kaka meta** (3); **lasto meta** (3); **liburu meta** (8); **lur meta** (3); **meta baten gainean** (4); **meta handi bat** (3); **meta handiak** (3); **meta txiki** (3); **paper meta** (4); **txatarra meta** (15)  
**liburu metak** (6)  
**metaren gainean** (6); **metaren gainera** (3); **metaren ondoan** (4)

## meta<sup>2</sup> iz helmuga.

Atleta kanpeoiak harrokeriaz goratu ditu besoak, uztai olinpikoen azpian, eta bularra aurreranzka iristen da **metara**. Joseba Sarrionandia

**metaanfetamina** (*orobat metanfetamina*) *iz* nerbio sistema zentraleri eragiten dion psiko-bizkorgarri ahaltua.

*Ritalin, Rubifen* eta *Concerta* izenekin merkaturatzen dute **metaanfetamina**, eta, harrigarria badirudi ere, haur hiperaktiboak lasaitzeko erabiltzen da. Berria - Gaiak

**Metanfetaminen** ekoizpena ere diru iturri ohikoa da jende askorentzat. Berria - Gaiak

Japonia, Korea eta Thailandian, esaterako, **metanfetaminen** kontsumoak gora egin zuen iaz. Berria - Gaiak

**Metanfetamina** soilik kasu larrietan ematea eta inoiz ez tratamendu psikologikorik jarri gabe. Berria - Gaiak

**metabasi** *iz* hitz baten gramatika kategoria aldaketa.

Azterketa aztergaiari ez dagozkion parametroetan egiten denean gertatzen da **metabasia**. Berria - Kultura

Javier Muguerza filosofoaren hitzak ekarri zituen Etxenikek, gertaera absurdu hori azaltzeko ez justifikatzeko: **metabasia**. Berria - Kultura

**metabelar** *iz*

Behiak ere, aukeran, belarmeta nahiago **metabelarra** baino. Joxerra Garzia

**metaboliko** *izond* **metabolismo**arena, **metabolismo**ari dagokiona.

Gerta zitekeen soil-soilik **metabolikoa** izatea jasandako lesioa, ez egiturakoa. Xabier Olarra

Forma kimikoan lortzen da behar den energia: inguruko jariakineko sodio ioien kontzentrazioa mantentzen duten prozesu **metabolikoetatik**, azken batean. Irene Aldasoro

Bakterioen ziklo **metabolikoan** zehar polimeroa osatzen da. Berria - Gaiak

Arazo **metabolikoek** (fenilzetoniari, esate baterako) edo mekanikoek (hidrozefaliak) sortua izan daiteke autismoa. Xabier Olarra

Gaitza eragiten duten akats **metabolikoak** ezagutzen ari gara, eta botikak lantzen ari dira ildo horretan. Berria - Gaiak

Diabetes 2a eta gaixotasun **metabolikoak** ulertzeko «urrats handia» eman dela. Berria - Gaiak

Gorputzean gantz gehiegi izatearen ondorioz sortzen den gaixotasun kronikoa da loditasuna, gizarte aurreratuetako gorabehera **metaboliko** arruntena. Berria - Euskal Herria

**metabolismo** *iz* izaki bizidunengan gauzatzen diren erreakzio kimiko, fisiko eta biologikoen multzoa.

Glukosaren **metabolismoa**. Juan Garzia

Irადoki izan da denbora luzeagoan biziko ginatekeela gorputzeko tenperatura baxuagoa bagenu eta, horren ondorioz, **metabolismo** geldiagoa. Irene Aldasoro

Gure gorputzak egunero ematen dizkiogun kalorien %70 **metabolismo** basalarri eusteko erabiltzen ditu. Berria - Euskal Herria

Gaitz hori **metabolismoaren** nahasmendu bat da, sorbidean den haurraren galgarri izan daitekeen buru-atzerapen baten arriskua dakarrena. Juan Garzia

Hemokromatosi idiopatikoa, burdinaren **metabolismoaren** gaitz larri samarra. Juan Garzia

Ibaian **metabolismoa** neurtzeko tresna bat. Berria - Gaiak

**metabolizatu**, **metaboliza**, **metabolizatzen** du *ad* **metabolismo** bidez eraldatu.

Intsulinarik gabe ez dago odoleko glukosa **metabolizatzerik**. Berria - Gaiak

Glizerina irensten eta liseritzen ere ahalegindu nintzen, arrazoibide sinplista batean oinarriturik: alegia, gantzen hausturatik sortua izanik glizerina, **metabolizatzeko** eta kaloriak hornitzeko modukoa izan behar zuela, aldeaz edo moldez, hark ere. Juan Garzia

**metaburtsa** *iz*

Literaturaren gaineko hausnarketari metaliteratura deitzen bazaio, burtsa kudeatu ohi duten enpresen arteko negoziazio keinuei **metaburtsa** deitu ahal zaie. Berria - Ekonomia

**metadona 1** *iz* morfinaaren tasun analgesiko eta sorgarriak dituen konposatu kimiko sintetikoa.

Bertan zabaldu zen, 90eko hamarkadan, **metadona** banatzeko lehen zentroa. Berria - Kultura

Bergizarteratzeko proiektuekin batera, behar dutenei **metadona** ematen diete. Berria - Euskal Herria

Joan den astean **metadona** positiboan emateagatik Tourettik kanporatua izan ostean, bere taldeak Christophe Brandt egotzi du. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

Mila pertsona inguru direla Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan **metadona** -programetan ibilita ere ondo erreakzionatu ez dutenak. Berria - Euskal Herria

Kontrola asteartean egin zuen, eta **metadona** arrastoak aurkitu zizkieten. Berria - Kirola

**metaerrealitate** *iz*

Eta guk, jakina, geureaz kezkatu behar ginen, esku artean geneukan arazoaz, eta ez beste **metaerrealitateez**. Karlos Linazasoro

**metaetika** *iz* etikaren adarra, moralaren hizkuntzaren azterketaz aritzen dena.

Filosofia morala hiru esparru nagusitan bana daiteke: teoria etikoak (edo etika arauemailea edo normatiboa), etika aplikatua (edo etika praktikoa) eta **metaetika**. Askoren artean

**Metaetika**, gure printzipio etikoaren jatorriaz, hizkuntza moralaren esanahiaz eta etikaren funtsatzeaz arduratzen den filosofia moralaren esparrua da. Askoren artean

Teoria etikoak lehen ordenako galderei erantzuten dien bitartean, **metaetikak** bigarren ordenakoei erantzuten die, jarduera errekurtsibo gisa filosofiari berezkoa zaion zentzuan. Askoren artean

Teoria normatibo guztietan sustrai metaetikoak aurki ditzakegun bezala, **metaetikak** ere bere teorien baliotasuna errealitatean erakutsi beharko du. Askoren artean

**metaetiko** *izond* metaetikarena, metaetikari dagokiona.

Nola funtza dezakegu, ondorioz, etika? hau da [...] hausnarketa etikoek eta **metaetikoek** gaur egun aztergai duten arazo nagusia. Askoren artean



Subjektibismoari dagokien teoria **metaetika** ezaguna emotibista edo ez-kognitibista deritzana da. Askoren artean

Errealismo moralak, nolabaiteko errealitate moral objektibo bat existitzen dela defendatzen duen ikuspuntu **metaetiko** da. Askoren artean

Orain arte ikusi ditugun kontzeptzio **metaetikoetan**, Erlatibismoak auzi moraletan egia unibertsalik ez dela existitzen aldarrikatzen du. Askoren artean

## metafikzio

*iz* kontakizun edo literatura forma, fikzioari buruzko fikzioan datzana.

Hala, telefono elkarrizketa baten itxuran eman du lehen ipuina, antzerki-gisa egituratu du komisariako galdeketa [...], eta batez ere, **metafikziorako** duen joerarekin beste dimentsio bat eman die idazleak ipuinei. Berria - Kultura

Hori baieztatzeko argudio askirik ezean, **metafikzio** historiografikoa izateko puntu gehiago dituela esango nuke. Berria - Kultura

## metafilosofiko

*izond* metafilosofiari dagokiona.

"Zer da zientzia?" zientziaren filosofiako funtsezko galdera da, lehen ordenako galdera; "zer da zientziaren filosofia?" galdera **metafilosofiko** da, bigarren ordenakoa.

Askoren artean

## metafisika 1

*iz* filosofiaren atala, errealitate osoaren izatasunaz, ezagutzaren lehen oinarriez diharduena, eta biziaren eta unibertsoaren ikusgune osoa dakarrena.

Orduan, izakiak izate diren teoria, edo **metafisika**, besterik gabe, teologia bihurtu da, hau da, izate gorenaren ikerketa. Askoren artean

Hala, **metafisika** zientzien erregina da: **metafisikaren** mendean fisika bat dago (metafisikoa bera), eta zientzia espezializatuaren oinarriak hipotesi eta premisak goragoko **metafisikatik** dedukzioz bihurtzen dira nabari eta zilegizko. Askoren artean

Aprioriko ezagutzaren edo **metafisika** razionalistaren posibilitatea, ideien sortzetiko izaeren mende dago. Askoren artean

Optimismo unibertsalaren **metafisika** razionalista "teologia mozturrotua", esango du berak- handietatik [...] pesimismo totalaren metafisikara gakartza Schopenhauerrek.

Askoren artean

Baina hau -esango dizute aro berriaren harrotasunez- **metafisika** positibista da, hots, "zientifikoa". Joxe Azurmendi

**Metafisika** platoniko pixka bat, gehi Marx pixka bat, cocktail Molotov aproposago ezina da sabotaia-gerra ideologiko baterako. Joxe Azurmendi

Gaur ere, izpiritu argitu eta positiboentzat, **metafisika** "ilargi zahar bat" [...] baizik ez da. Piarres Aintziart

Haren fisika eguneroko bizitza balitz bezala, eta haren **metafisika**, ipuina. Joan Mari Irigoien

Jesusen Lagundiko kidea zen, apaiza, teologoa, logika eta **metafisikako** irakaslea Vienako Unibertsitatean. Askoren artean

### 2 gai bati buruzko gogoeta sakon espekulatiboa.

Oteizaren euskal arimari buruzko **metafisikak** ez du euskara ikasteko nekeak hartu dituenasetzen. Anjel Lertxundi

Hala, politikako bi Espainiek, arimaren **metafisikan** jarraitu dute beren borroka bata bestearekin. Joxe Azurmendi

Gaiztakeriaren garbiketa bilatzen duen **metafisika** ulergaitzen batengatik. Juan Martin Elxepuru

*Izurria* eta *Arrotza*-ko arabiarrek Camusek azterkatutako europar **metafisika** miragarri horretako izaki anonimoak baino ez dira, atzeko oihalez erabiltzen direnak. Ifigo

Aranbarri

### 3 (hitz elkartuetan)

Filosofia grekoaren hastapenean Parmenides eta Heraklito bezala, modernitatearen hastapenean Spinoza eta Leibniz unibertsoaren pentsatze (**metafisika**) molde alternatiboak bezala irakur genitzake, estatikoa eta dinamikoa. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**izadiaren metafisika** (5); **ohituren metafisika** (3)

**metafisikako diskurtsoa** (3)

**metafisikaren oinarritzapen** (3)

## metafisikari

*izond/iz* pertsonen mintzatuz, metafisikaz arduratzen dena.

Halere, gai frogagarria da hori, filosofo **metafisikariek** erakutsi dutenez, eta nik azaldu egingo dizut haiek frogekin baietsi dutena. Xabier Kintana

Hori dela eta, jakintsu **metafisikari** eta teologo handi guztiak, egia maite zutenak, era horretako zerbait irakatsi nahi zutenean, betiere alegoria eta igarkizunen bidez mintzo ziren. Xabier Kintana

Nahiz bereizten dituzten "eskastasunezko helburua" eta "asimilaziozko helburua", Teologoen eta **Metafisikariek** aitortzen dute, halere, Jainkoak bere buruaren gatik egin dituela gauza guztiak eta ez kreatu dituen gauzen berengatik. **Metafisikariaren** analisiak bi osagai oso ez-uniformeetan banatzen zuen apriorizko ezagutza hutsa, hots, gauzen osagaiak agerpenak diren aldetik eta gauzen osagaiak berbaitan diren aldetik. Piarres Xarriton

**Metafisikariari**, ordea, diren heinean interesatzen zaizkio bai aulkia bai zakurra, besterik gabe. Askoren artean

Ez irakurri alemaniar **metafisikari** horiek; horien filosofia mozkortu bai baina elikatzen ez duen alkohol bat bezala da. Josu Zabaleta

## metafisiko 1

*izond* metafisikarena, metafisikari dagokiona.

Jainko hau printzipio logiko eta **metafisiko** bat da, munduaren azalpen razionalerako ezinbestekoa. Askoren artean

Jainko **metafisikoak** alboraturik, esan dezagun, giza arrazoa jainkotzeko. Askoren artean

Kontzeptu **metafisiko** gehienak mahai gainean jartzen ditu Aristotelesen: substantzia, subjektua, izatea, materia, forma, nolakotasuna, kategoria, jainkoa, kausa lehena, potentzia, oinarria,... Askoren artean

Ez ezazu pentsa zientzia **metafisikoa** izan denik jende arruntagandik urrundu den bakarra. Xabier Kintana

Platonen kutsuko espekulazio **metafisiko** eta teologikoa. Askoren artean

Beharrezkotasuna kategoria **metafisikoa** da. Askoren artean

Razionalismoak ikusmolde **metafisiko** bat ezkututzen al du? Askoren artean

Oiloari ematen dio filosofoak lehentasun **metafisikoa**. Joxerra Garzia

### 2 irud/hed

Abertzaletasunaren inguruan, filosofo **metafisiko** txar batzuek eta haien ikasle txarrago batzuek, diferentziaren eraikuntza "erlatiboa" bigarren esanahi horretan garatu digute. Joxe Azurmendi

Hemezortzigarren mendeko kartografo **metafisikoek** zatitu egin zuten unibertsoa. Iñaki Mendiguren

Hori, argi eta garbi, espekulazio **metafisikoa** da, eta espekulazio **metafisiko** gehienek bezala, ikusteko gutxi du bizitza errealeko benetako gertakariekin. Antton Olano

Uste zuen hizkuntzak sustatzea Espainiako historiaren aurka joatea zela, Espainiaren batasun hori naturala zelako, **metafisikoa**. Berria - Kultura

Politikan osagarri **metafisikoa** sartzeak oinazea baino ez dakar. Berria - Harian

Filosofu madrildarra holakoxe samintasun **metafisikoetan** txirtxirtzen bizi den bitartean, [...]. Joxe Azurmendi

Hizkuntzaren aberriak oinarri **metafisikoak** dauzka halako proiektuetan. **Berria - Euskal Herria**

Ikara ere **metafisikoa** bilaka daiteke. **Ana Urkiza**

Oteizaren kubo **metafisiko** bat baino zurrunago geratu zen, espazio-denboratik at. **Unai Iturriaga**

Historiaurre eta hitz-aurreko paradisuan, estetikaren tenpluan, euskal arimaren baratze **metafisikoan**. **Anjel Lertxundi**

Edozer esplikatuko zenuke zuk, argazki zatiren batek ere edukiko luke zuretzat hausnarketa **metafisikorako** gairik. **Joxemari Urteaga**

### 3 iz metafisikaria.

Gizadia dena bat da, dio **metafisikoak**. **Joxe Azurmendi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**metafisiko edo arrazionalen** (3)

**gai metafisikoak** (3); **hastapen metafisikoak** (4); **kutxa metafisikoak** (3); **meditazio metafisikoak** (6)

## metafisikoki *adlag* era metafisikoan.

Horrek apriorikoa izan beharra dauka, hori izanen baita (1) **metafisikoki** ezagutza ororen oinarri absolutua, eta (2) metodologikoki axioma unibertsal gisa baliozkoa. ETA dagoen bitartean, politikoki eta **metafisikoki** ezinezkoa da Batasunak hari aurre egitea. **Askoren artean**

**Metafisikoki** ezkongabea naiz. **Harkaitz Cano**

## metafisikotu, metafisiko(tu), metafisikotzen du *ad* metafisiko bihurtu.

Historizismo enpirikoak, positibistak, historia desmetafisikotu guraz (Izpiritu unibertsal hegeldarra baztertuz), herrien izpirituak **metafisikotu** ditu, horiek -Espainia, Frantzia- esentzia eternal (denboragabeko) legez kontsideratuz. **Joxe Azurmendi**

## metafora 1 iz erkaketaren bidez hitz baten berezko adiera irudizko adiera batera igaroaraztean datzan hizkuntza baliabidea.

Markoa "mundura zabalik dagoen leihoa" delako **metafora** ezaguna. **Josu Zabaleta**

Distantzia psikikoaren **metafora** hori hitzez hitz hartu izan da zenbaitetan. **Josu Zabaleta**

Leihotik begiratzen du presoak, eta ez da **metafora**, bizitza bera **metafora** ez bada. **Jokin Urain**

Ez dago suaren **metafora** hoberik, urteak pasatuta ere memoria erretzen duen **metafora** baino. **Joxerra Garzia**

**Metafora** batekin esan badezaket, Mexikoko eguzkiak ezin izan zion lehortu erbesteak ariman utzitako mantxa. **Bernardo Atxaga**

Ez litzateke zaila frogatzen ia edozer izan daitekeela edozeren **metafora**, halako giza erakuntzak -beste **metafora** bat berau: saihesteko, **metafora** hitza errepikatu behar nukeen- giza adimenaren jokoetara etorkor baitira. **Juan Garzia**

-Zazpi karrera hasi nitian, eta zazpiak bat: ezer ez, alegia -Euskal Herriaren historiaren **metafora** egiten ari zela zirudien. **Joan Mari Irigoien**

Eta, azkenean bihurtzen dugu bizitza bera ere bizitzaren **metafora**, edo, hobeki, bizitzaren **metaforaren metaforaren metafora**. **Joan Mari Irigoien**

Zeru berundua, ahoan dastatzen dut **metafora**. **Karlos Linazasoro**

Horien hitzez hitzeko eta **metaforazko** adiera. **Xabier Kintana**

### 2 (hitz elkartuetan)

Baina **metafora** sistema zertan burutzen da, ez bada hain justu, hitzean edo sintaxian? **Patziku Perurena**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bizitzaren metafora** (6); **borrokaren metafora** (3); **gizartearen metafora** (3); **metafora berri** (4); **metafora edo ipuin** (4); **metafora erabiliz** (3); **metafora ezaguna** (3); **metafora gisa** (16); **metafora izan** (4); **metafora sistema** (3); **metafora zahar** (3)

**metaforarik gabe** (3); **metaforarik gabeko** (3)

**berezko eta metaforazko** (3); **metaforazko adiera** (4)

## metaforiko *izond* metaforari dagokiona, metaforazkoa.

Tratatu honetan ukitzen ditugun hitzen balioaniztasuna eta adiera **metaforikoa** azpimarratuko zaizkie. **Xabier Kintana**

Adiera **metaforiko** horrexetan erabili izan da Lurraren mugak eta lekutako eskualdeak adierazteko, gure herrialdeetatik urrunak, esate baterako: [...]. **Xabier Kintana**

Ez da ez **metaforikoa** ez alegorikoa. **Bernardo Atxaga**

Nork uka, "hezurren guzizko hezur" honen edertasun **metaforikoa**? **Patziku Perurena**

Detektibeak "hiriaren simauregieta gerriraino sartu eta usain txar guztiak bereizten jakin behar duela" zioen modu erabat **metaforikoan**, noski. **Joxean Agirre**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adiera metaforiko** (7)

**zentzu metaforikoan** (3)

## metaforikoki *adlag* era metaforikoan.

Kontsumituko duen hori aurki bere burua izango dela aintzat hartuta (eta ez **metaforikoki** bakarrik: gaur hartu ditugun proteina horietako batzuek, adibidez, eskuturreko hezur txiki baten parte osatuko dute), kontsumitzaileak biziki zaindu beharko du zikinkeriarik ez hartzea. **Edorta Agirre**

Esan zezakeen, orobat, berak ez dituela poesia eta prosa bata bestetik bereizten, eta "metaforismo" hitzaren bidez hartu nahi izan diela mendeku, **metaforikoki** esanda, muga-earle eta mugazain guztiak. **Joxerra Garzia**

## metaforismo *iz*

Irakurlea gauza bakoitzari bere izena ezarri gabe etsitzen ez dakiten horietakoa baldin bada, berriz, har beza, beldurrik gabe, honako palimpsestook izendatzeko egileak asmatu duen izena: **"metaforismoak"**. **Joxerra Garzia**

Esan zezakeen, orobat, berak ez dituela poesia eta prosa bata bestetik bereizten, eta **"metaforismo"** hitzaren bidez hartu nahi izan diela mendeku, metaforikoki esanda, muga-earle eta mugazain guztiak. **Joxerra Garzia**

## metaforizatu, metaforiza, metaforizatzen du *ad* metafora bidez irudikatu.

Unamuno-k ideiak handik eta hemendik bildu, eta bere pentsamenduen modura eraldatu egiten ditu, edo soil **metaforizatu**, literarioki baliatzeko, baliagarritasun hori baita berari oroz gain interesatzen zaiona, ez doitasun kontzeptuala. [Joxe Azurmendi](#)

Dena da laua hemen, dena behar da idatz, **metaforizatu**, letren iragazitik igarorazi. [Eider Rodriguez](#)

Amurizak bertsogintza irauli zuela bere kantaerarengatik, bere **metaforizatze** gaitasunarengatik, bere sententzien eder-betearengatik. [Andoni Egaña](#)

---

## metaforizatze *iz* metafora bidez irudikatzea.

Irakurleak etengabeko **metaforizatze** esplizitu bat aurkituko du, zeinean kimika bera nahiz haren auzo-jakintzak (fisika, geologia, biologia...) berez direna eta zerbait gehiago bilakatzen baitira, metaforaren etimologiak eta definizioak nahi duenez. [Juan Garzia](#)

---

## metaforizazio *iz* metaforizatzea.

Hitz konkretuak dira oso, asko behartu gabe **metaforizazioan** erabiltzeko zailak. [Andoni Egaña](#)

Nik **metaforizazioaren** hanka kendu, eta irakurri eta ulertzeko poesia egin nuen, gero irakurleak bere gogoeta egiteko. [Berria - Kultura](#)

---

## metagarri *izond* meta daitekeena.

Baina liparraren bizi-nahiak -carpe diem, carpe diem!- diruaren metaketa bezalako esperientzia **metagarriak** behar ditu bizi arlo guztietan. [Anjel Lertxundi](#)

---

## metagrama *iz*

**Metagramak**, berez, hizki bakar bat aldatzen du: *zirt-zart* genuke adibide ereduzkoa. [Iñaki Arranz](#)

Lau silabako **metagrametara** ere irits gaitezke: *tiribili-tarabala, tirripiti-tarrapata*. [Iñaki Arranz](#)

Lelo errepikakorrak eragingarriak izaten dira, eta **metagrama** mailakatuek errepikapenaren onurei progresioarenak gehitzen dizkiete. [Iñaki Arranz](#)

---

## metagramatiko *izond* metagramarena, metagramari dagokiona.

Oihartzun **metagramatikoa**: hitza hizki bat aldatuta errepikatzen da. [Iñaki Arranz](#)

Pailazoan izenei erreparatzea besterik ez dugu egin behar, umeak eta errepikapen **metagramatikoa** estekatzen dituen loturaz ohartzeko. [Iñaki Arranz](#)

---

## metagramatu, metagrama(tu), metagramatzen da/du *ad* metagrama bihurtu.

Mikel Taberna Irazokiren bi adibide ekartzen ditugu hona, kasu batean hitzak eta bestean silabak letania batean **metagramatzen** dituztenak. [Iñaki Arranz](#)

Joxerra Garziak, berriz, hiru mailako eskailera nahikoa du poesiatik ironiara igartzeko, non hurrenkera alfabetikoan ematen baita **metagramatzen** den letra: [Iñaki Arranz](#)

---

## metahiri *iz*

Goilautada argazkiko arkitekturatan, berriz, kartoizko **metahiri** bilakatu zaigu hirian txoriak baino ez dira bizi. [Berria - Kultura](#)

---

## metahistoriko (*orobat meta-historiko*) *izond* historiaren historiari dagokiona.

Hortik dator, azkenik, ezen gainerako zientziei dagokienez, euren sorrera historikoaren deskribapena, euren haztamuka ibiltzeena, euren porrotena, euren beranduko azalartzeena lotzen dela geometriaren eredu **metahistorikoarekin**, bat-batean eta betiko agertzen dena lur-neurketaren lan arruntetatik. [Xabier Arregi](#)

Enuntziatuen askotarikotasuna ez zaio menderatzen kontzeptuen koherentziari, ezta koherentzia hau ere idealtasun **meta-historiko** baten barnera biltze isilari. [Xabier Arregi](#)

---

## metahizkuntza (*orobat meta-hizkuntza g.er.*) *iz* hizkuntza batez mintzatzeko erabiltzen den hizkuntza.

**Metahizkuntza** hizkuntzari buruz hitz egiteko erabiltzen den hizkuntza bat da eta normalean aurrenekoa baino aberatsagoa izaten da. [Askoren artean](#)

Hizkuntz teoria, beraz, gramatika idazteko hizkuntzarentzat **metahizkuntza** den batean adierazita egongo da (gramatika bat eraiki dakioken edozein hizkuntzarentzat **metahizkuntza** dena). [Itziar Laka](#)

**Metahizkuntzaren** eremuan oso erraza da "egia" "asegarritasun" bezalako kontzeptu semantikoetara laburtzea. [Askoren artean](#)

Tarskiren egiaeren kontzepzio semantikoak, hain zuzen, hizkuntza-objektu bat eta horri buruzko **metahizkuntza** inplikatzten ditu. [Askoren artean](#)

Nahiz eta azterketa formal baterako honen moduko enuntziatu batek inplikatzten duen **meta-hizkuntzari** dagokion desberdintzea. [Xabier Arregi](#)

---

## metairizpide *iz* irizpidei buruzko hirizpidea.

Ikus, halaber, Hockett-en eztabaida, hizkuntzalaritzarako **"metairizpideei"** dagokienez. [Itziar Laka](#)

---

## metaka *adlag* piloka, kopuru handietan.

Zaldizkoen oldarra, ezpaten distira, lantzen tximistak! zaurituak pilaka, hilak **metaka**, hilotzak ezin konta ahala! [Elizen arteko biblia](#)

Telethon-ek jende multxo bat bildu du Herriko Etxeko gelan, joanden ostirelean, giro goxoonean, herritarrak ez badira ere **metaka** jin, beti buru bertsuak direlarik ageri.

[Herria](#)

Jateko eta edateko, bazen denetarik **metaka**! [Herria](#)

Honela laburbildu du ikustaldia: "medioak xortaka eta mespretxua **metaka**". [Herria](#)

---

## metakarpiano *iz* metakarpoari osatzen duten bost hezurreako bakoitza.

Hatz txikiaren **metakarpiano** hezurrean min du, odolbildu txiki bat medio, baina iragan bi egun hauetan dezente egin duela onera adierazi zuen burlatako atzelariak [Berria](#)  
- Kirola

**metakarpo** *iz* eskuaren hezurduran, ahurrari dagokion zatia, bost hezurrez osatua.

**Metakarpo** -hezurra hautsi nuen, kokotsean zauri handi samarra eta lepauztaia guztiz ubelduta. Berria - Kirola

**metakarpofalangiko** *izond* metakarpoarena eta falangeena.

Giltzadura txikiei erasaten die; behatz hezurren artekoiei, **metakarpofalangikoei** eta metatartsofalangikoei, esate baterako. Berria - Gaiak

**metaketa** *1 iz* metatzea.

Gaixotasunok proteina toxikoen **metaketak** sortzen ditu. Berria - Gaiak

Beraz, usteek erlazioan egin behar dute elkarrekin, sistema edo taldea ez dadin izan soilik **metaketa**. Askoren artean

Gainazaletik hurbilen zegoen geruzak subkontzientzia pertsonala zirudien, pertsonak bere bizitzan zehar izandako banako esperientzien **metaketa**. Iñaki Mendiguren

Batak banako "atomikoen" **metaketa** huts gisa irudikatzen du gizartea, eta besteak gizartea organismo bezala. Iñaki Mendiguren

Ezagupenei dagokien ez euren **metaketa** amaigabea alde batera uzten dute. Xabier Arregi

Zientzian egien **metaketa** lineala onartzen bada bakarrik [...] zatiketa historiko bakarra baino ezingo da deskribatu. Xabier Arregi

**2 (ekonomian)**

Metal bitxien **metaketa**, aurrenik, estatuaren kreditua ziurtatzeko eta gerra finantzatzeko bidea zen. Koro Navarro

Kapitalismoak gaitasun harrigarria du aberastasunen **metaketa** sustatzeko. Koro Navarro

Aberastasunen **metaketa** merkatariaaren berezko helburua bihurtzen da. Koro Navarro

**3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)**

Japonia zen, une hartan, europarra edo europar biztanleek jendeztatua ez zen **metaketa** -leku beregain bakarra. Koro Navarro

Sistemaren zentroa **metaketa** -ardatz batetik beste batera igarotzen da: Amsterdam, Londres, New York. Koro Navarro

Fordismo deitu ohi zaio konbinazio horri, hots, intentsibo bihurturiko eta barne-merkatuen hazkundera oinarrituriko [...] **metaketa** -dinamikaren eta gizarte-konpromisoen estatu-erregulazioaren konbinazioari; izan ere, konpromiso horiei esker bideratu ahal izan zen **metaketa** -dinamika hori. Koro Navarro

Desberdintasun horrek [...] **metaketa** -prozesu ororen bi osagai nagusirekin du zerikusia: kapitalarekin eta lanarekin. Koro Navarro

**4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)**

Atzo, ordea, Miarrizteko [...] ordaintokietako leihatiletan ez zen auto **metaketarik**. Berria - Harian

Elbarri eta itsu: halako zigor- **metaketa** izango zen. Jon Muñoz

Indar **metaketak** konfrontazio demokratikora eraman behar duela. Berria - Euskal Herria

Talde abertzaleen indar **metaketaren** alde. Berria - Euskal Herria

-Guk, emanaldien eraginez, sarri izaten ditugu tentsio **metaketak**. Jasone Osoro

Gizarte-posizioa eta finantza- **metaketa** nahastera jotzen duen gizarte-egituraren lehen adibidea. Koro Navarro

Kapital **metaketaren** erritmoa oso geldoa izan zen. Berria - Kirola

Abadearen eta konbenturen artean agerturiko leizea aberastasun- **metaketak** eragin zuen neurri handi batean. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aberastasunen metaketa** (3); **indar metaketa** (45); **indar metaketa bat** (3); **indar metaketa lortzeko** (3); **jende metaketa** (3)

**abertzaleen indar metaketaren** (3); **indar metaketaren** (8); **indar metaketaren alde** (4); **kapitalaren metaketaren** (3)

**metakontraste** *iz*

Oso kasu ikusgarria, eta sarri nabarmendu izan dena, **metakontrastearena** da: argizko bi estimulu elkarren segidan oso denbora laburrean datoz, eta bigarrena lehenengoaren "osagarria" da espazioari dagokionez. Josu Zabaleta

**metakor** *izond* metatzeko joera duena.

Adimen-lan **metakorraren** bidez giza ikerketak pixkanaka ezagutu zezakeela. Iñaki Mendiguren

Egungo bertsolaritza ez da dagoeneko " **metakorra** , analitiko baina areago". J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ongun aburuz, formula bidezko jardunbidean oinarritzen da ahozko testuen produkzioa, eta horregatik dugu ahozko mintzamoldea **metakor** ez analitiko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kultur eragin siriako eta helenikoek Arabiarantz izandako irradiazio luze eta iraunkorrak gizarte-ondorio **metakorra** sortu zuen, Mahoma profetaren ibilketa pertsonalean dramatizatu agertua zena. Iñaki Mendiguren

**metakrilato** *1 iz* plastiko garden, zurrin eta arina, askotan kristalaren orde erabiltzen dena.

Zezen-plazaren ondoan azken alkateak eraikiarazi zuen **metakrilatozko** Eiffel dorrearen erreplika ikusten dut. Mikel Hernandez Abaitua

*Apokaliptiko, dekonstruktibo, identitario* eta horien tankerako berba zantar **metakrilatozkoak**. Iñaki Segurola

**2 metakrilatozko zatia.**

Gero zezenketen erdi fikzio-erdi errealtate krudelean sartuko gaitu, eskultura mehe eta borobilen bidez, aurrerago dauden koloretako **metakrilatoetan** PPren gobernaren kontrako mezu politikoak fikziotik atera arte. Berria - Kultura

**metakritika** *iz*

Hiru ataletan banatzen da: (i) estetika filosofia (edertasunaren filosofiaren ordezkaria egun), (ii) artearen filosofia, eta (iii) kritikaren filosofia **metakritika**. Askoren artean

**metal** (*orobat metale g.er.*) **1 iz** gai bakuna, beroaren eta elektrizitatearen eroale ona, distira berezia duena.

**Metala**, zura edo oihala ditu bere ekaiak; pigmento naturalekin, akrilikoekin edo oliodunekin du margotzen. Herria

Jendeak dio berrehun urte badituela, eta edozein **metal** urte bihurtzeko gai dela. Xabier Aranburu

Zilarrak, **metal** gisa, balio bat du beste merkantzia guztiek bezala. Iñaki Iñurrieta

**Metal** horretako metalezko metalak, hamar as balio zituenak, edo abozko hamar libera. [Iñaki Iñurrieta](#)

**Metalaren** freskotasuna senti nezakean azalean. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Urteak eta urteak ematen zituzten alkimistek laborategietan, **metalak** arazten zituen suari begira. [Xabier Aranburu](#)

Harlauza bat lur arasean, burdinazko sei zutabe gainean, **metal** bereko kate beltz lodi bati eusten diotenak. [Ramon Saizarbitoria](#)

Ahoa eta eskutokia **metal** berekoak zituen sastagai bat. [Patxi Zubizarreta](#)

Alanbiketa, su txikiak, **metalezko** eta beirazko ontzi eta lanabesak edonon. [Josu Landa](#)

**Metalezko** harraskan erretako erreturua. [Harkaitz Cano](#)

Ate hermetiko bat besterik ez, **metalezkoa**, judas batekin. [Agurtzane Juanena](#)

Argiaren intentsitatea eta maiztasuna nolakoak diren, **metalak** elektroi gehiago edo gutxiago askatuko ditu. [Berria - Harian](#)

Penduluak **metala** ukitu du orduantxe. [Josetxo Azkona](#)

## 2 (izenondoekin)

Beruna **metal** iluna, astuna eta biguna da. [Anjel Lertxundi](#)

Lepoa biratu zuenean, **metal** hotzaren kontaktua sumatu zuen kolkoan. [Harkaitz Cano](#)

**Metal** goriaren distira zuen, eta suaren antzeko zerbaiten erdian zegoen. [Elizen arteko biblia](#)

Neure uste ona ez dut inoiz urrean jarri, ez diot **metal** finari esan: "zuregan dut konfiantza". [Elizen arteko biblia](#)

**Metal** leuna distira itsugarri batez bete zen. [Joanes Urkixo](#)

**Metal** landuzko turutak joz. [Elizen arteko biblia](#)

Izokina, zilar landua iduri, ezkata **metal** leunduan gubilez joka eginda dauzkana. [Karlos Zabala](#)

Aza zuri ikaragarriak, trinkoak eta gogorrak, **metal** hitsezko bolak bezalakoak. [Karlos Zabala](#)

Sodioa **metal** dejeneratua da: izan, hitzaren zentzu kimikoan baino ez da **metala**, ez noski eguneroko hizkuntzarenean. [Juan Garzia](#)

Errausketatik sortutako **metal** astunak (merkurioak, kadmioak...) nerbio sistema zentrolean kalte konponezinak ere eragiten dituztela gaineratu zuen. [Berria - Euskal Herria](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Metal** pieza bat grabatzen ari zen, esku batean zizela eta bestean mailua hartuta. [Iñaki Iñurrieta](#)

Duisburgeko Thyssen **metal** fabrikari. [Pablo Sastre](#)

Aireportuetako **metal**-detektoreetan. Jainkoek dituzte lurpean **metal**-meen zainak hazarazten, baina isilpean dauzkate, ezkutaturik. [Juan Garzia](#)

Zerratxoarekin **metal**-zaitxo bat ebaki nuen. [Juan Garzia](#)

Ez da ulertzekoa. Aski da harri-puska txiki bat **metal**-kopuru handiak urre bihurtzeko. [Xabier Aranburu](#)

Argi zectorren azterketetan, neurritz gainezko **metal** kontzentrazioa zeukala Senperenak zainetan barrena. [Hasier Etxeberria](#)

**Metal**-hots ozen bat entzun zen, gero txinparta-hotsa. [Iñaki Mendiguren](#)

-Beren zina bide zen, **metal**-eraldatzaileena, alegia. [Juan Garzia](#)

## 4 musika estiloa, rock gogorraren alorrekoa. ik behegaro 7.

25 urte **metala** eta popa uztartzen. [Berria - Kultura](#)

**Metal** alemaniarren ahotsa. [Berria - Kultura](#)

**Metal** progresiboa egiten du boskote honek. [Berria - Kultura](#)

**Metal** melodikoa egin dute, indartsua, baina zaindua. [Berria - Kultura](#)

Euskal Herriko **metal** musikaren berri zabala izan nahi duenak Interneteko Herriko Burdina ([www.herrikoburdina.net](http://www.herrikoburdina.net)) web atarian dauka informazio iturri nagusienetako bat. [Berria - Kultura](#)

*Bilbo Hiria* lehiaketako **metal** sailean euskal talde onenaren saria eskuratu du aurten *Materia* taldeak. [Berria - Kultura](#)

Bazuten garaia betiko ametsari heltzeko, **metal** talde indartsua sortzeko, eta ingelesez abesteko. [Berria - Kultura](#)

Rock, hardcore, **metal** eta pop erritmoak. [Berria - Kultura](#)

*Kudai* taldeak **metal** doinuak eta giro industrialak uztartu ditu 'Hutsa' lehendabiziko diskoan. [Berria - Kultura](#)

Los Angelesen sortu zen taldea, eta harekin batera soinu berri bat ere bai: cyber **metala**. [Berria - Kultura](#)

Lehenengoak, *Altzairu gorri*-k, 15 talde biltzen ditu, heavy **metal**, death **metal**, trash **metal** eta black **metal** estiloak jorratzen dituztenak. [Berria - Kultura](#)

Rock-**metal** melodikoaren ildotik. [Berria - Kultura](#)

## 5 metalgintzako enpresen sektorea. ik metalgintza 2.

**Metalaren** negozioziari «ahal den esparruetan» ekin nahi dio ELAK. [Berria - Ekonomia](#)

**Metalaren** hitzarmena sinatzeko negozioziazioen etena salatuz. [Berria - Ekonomia](#)

Bizkaiko **metaleko** lan hitzarmena negoziatzeko. [Berria - Ekonomia](#)

Arabako **metaleko** 450 ordezkari SEAren atarian. [Berria - Ekonomia](#)

Lau sindikatu nagusiek (ELA, CCOO, LAB eta UGT) manifestaziora deitu dituzte Arabako **metal** sektoreko langileak. [Berria - Ekonomia](#)

Ehunaren eta **metalaren** sektorean izan diren [itun] azkenekoak, berriz, 2001-2002rako hitzartu ziren. [Berria - Ekonomia](#)

CCOOK Nafarroako **metalean** grebara deitzea proposatu du. [Berria - Ekonomia](#)

Nafarroako **Metalaren** greba bertan behera utzi dute sindikatu guztiak. [Berria - Ekonomia](#)

Urtarril hartan, **metalaren** arloko milaka langilek greba egin zuten Bilbon. [Rafa Egiguren](#)

Alemaniar **metal** arloan greba eta lanuzteekin jarraituko dute. [Berria - Ekonomia](#)

Ramon Gorri Espainiako CCOOko **Metaleko** buruak. [Berria - Ekonomia](#)

ELA-**Metaleko** idazkari nagusi Adolfo Muñozek. [Berria - Ekonomia](#)

Muñozenak ildo beretik jo du LABeko **Metaleko** arduradun Angel Mateok. [Berria - Ekonomia](#)

ELAko **Metaleko** Federazioko idazkari nagusi Adolfo Muñozen irudiko, [...]. [Berria - Ekonomia](#)

Bizkaiko **Metaleko** Enpresen Federazioak. [Berria - Ekonomia](#)

Arabako **Metalerako** hitzarmen «duina» eskatu dute sindikatuek. [Berria - Ekonomia](#)

## 6 ez-metal gai bakuna, beroaren eta elektrizitatearen eroale txarra, distirarik ez duena.

D. irakasle jaunak [...] hauts mirrin jakin batetik gramo doi bat eskuratzen zigan: hurrengo egunerako analisi kualitatiboa burutu behar zen, hots, zein metal eta **ez-metalez** osatua zen adierazi. [Juan Garzia](#)

## 7 heavy metal heavyaren muturreko aldaera.

**Heavy** metal klasikoa bukatzeko. [Berria - Kultura](#)

**Heavy** metalaren atalean zuzeneko emanaldirik onenaren saria Metallicak eraman zuen. [Berria - Kultura](#)

: Trikitixa zen garaiko rockarola; emakume horiek dantzan ikusita, konturatuko ginatete Elvis Presleyren gerri-mugimenduak txorakeria hutsa zirela, eta **heavy** metalkideen kontorsioak mugimendu basatiak, ez arte eta ez grazi. [Pako Aristi](#)

## 8 metal bitxi (11 agerraldi, 2 liburutan)

**Metal bitxiak** metatzea zela haien [merkantilisten] iritziz nazio-aberastasunaren irizpiderik seguruenak. Europak inportaturiko **metal bitxi** eta bizigarrien balioak, garai hartan, bost aldiz biderkatzen zuen Europa barneko gariaren salerosketaren balioa. [Koro Navarro](#)

Kontinentea pobrea zen **metal bitxietan** . **Koro Navarro**  
Mercurioaren bidez **metal bitxiak** lortzea. **Iñaki Heras**

## 9 metal preziatu (11 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan) metal bitxia.

Ez dute industriarik eta arterik; ugari dituzte **metal preziatuak** , eta besterik gabe eskuratzen dituzte izaditik. **Iñaki Iñurrieta**

**Metal preziaturik** ez dutenez, ez eta lurrinezko prentsa, laminagailu eta sufre-azidorik, altxor-dirurik txanpontzeko, [...]. **Juan Garzia**

Banekien Lajosek ukitutako orok galdu egiten zuela jatorrizko izaera; eraldatu egiten zen, **metal preziatuak** antzinako aztien arragoetan bezala... **Ander Irizar**

Urrea, zilarra edo platinoa ez da, baina Lakhsi Miwal Mittalen [...] pentsamenduan **metal preziatu** bakarra litzateke altzairua. **Berria - Ekonomia**

· Urrea **metal preziatua** da oso. **Berria - Gaiak**

## 10 metal ur (7 agerraldi, 4 liburu eta artikulua 1ean) ur minerala.

Azelga batzuk jaten ziharduen, eta **metal-ura** edaten. **Jon Alonso**

Erreumatismoa: ur erradioaktiboak, bikarbonatuak (bikarbonatu kloruratuak), sulfuratuak, karbogaseoak eta **metal urak** . **Berria - Euskal Herria**

## 11 metal urtu

Idolo bat eta **metal urtuzko** irudi bat daudela. **Elizen arteko biblia**

Ez jo sasijainkoengana eta ez egin **metal urtuzko** idolorik. **Elizen arteko biblia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**heavy metal** (4); **metal arloko** (4); **metal astun** (3); **metal astunak** (6); **metal astunen** (3); **metal bat** (5); **metal beltzezko** (3); **metal bitxien** (7); **metal hots** (6); **metal hotsa** (4); **metal hotza** (3); **metal preziatu** (3); **metal preziatuak** (3); **metal puska** (6); **metal urre** (3); **metal urtuzko** (8); **metal zati** (4)

**ccooko metaleko federazioko** (3); **gipuzkoako metaleko hitzarmena** (5); **metaleko arduradun** (3); **metaleko arduradunak** (3); **metaleko federazioko** (5); **metaleko hitzarmena** (6); **metaleko idazkari** (5)

**metalezko ate** (5); **metalezko disko** (3); **metalezko eskaileretan** (3); **metalezko esku** (3); **metalezko hesi** (3); **metalezko hodi** (3); **metalezko idoloak** (3); **metalezko kutxa** (3); **metalezko objektu** (3); **metalezko pieza** (5); **metalezko pieza bat** (3); **metalezko pistola** (3); **metalezko sare** (3); **zuzeko nahiz metalezko** (3)

## metaldun izond metala duena.

*Chinook* izokinak ur hotzagoak behar ditu, Alaska aldekoak, eta, gainera, aztertu ditudan ale guztiak, izan **metaldun** edo metal gabeko, denak ziren bertako espeziekoak.

**Hasier Etxeberria**

## metale ik metal.

## metalengoia iz metahizkuntza.

Mariren ezak dio ez dagoela **metalengoariak** (ezin dira mitoak distantzia objektibotik ikusi, norbera mitotik libre egon), ez dagoela egiarik norberak eza, ezina, errakuntza ezagutu gabe. **Joseba Zulaika**

## metalezlatu izond metalezko babesak dituena.

Gutako gehienok ez genuen tapa **metalezlatua** zuen bibliatorik bertan, jakina. **Harkaitz Cano**

Maleta beltz bat dakar berekin, ertz **metalezlatuak** dituena, argazkilariek erabiltzen duten horietakoa. **Harkaitz Cano**

Herrerako geltokian tren geratu zeneko, Veronica bezala ezaguna zen emakumeak ertz **metalezlatuak** zituen maleta hartu eta berriro abiatzear zegoen trenetik irten zen.

**Harkaitz Cano**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ertz metalezlatuak** (4)

## metalgin iz metalezko gauzakiak egiten dituen langilea.

Gure herrian egon zen biharamunean Hernaniko Orbegozo lantegiko **metalginek** hirurogei metro luze zen tximinia jasotzen amaitu zuten, laurogeita hamar egunetan izerditu ondoren eta milioi erdi adreilu erabilita. **Koldo Izagirre**

## metalgintza 1 iz metalezko gauzakiak ekoizteko tekniken multzoa. ik metalurgia.

**Metalgintzako** enpresa batean garraiolaria ibiltzen zen goizetan. **Juan Kruz Igerabide**

Hiri hura izan zen erusiarrek Siberian sorturiko lehen industrigunea, eta kanpaien galdategia eta **metalgintzako** fabrika ederrak nabarmentzen ziren inguruetan. **Karlos Zabala**

Brasiliek behar zituen aldatetak lau urtean egingo zituela agindu zuen **metalgintzako** langile ohi Luis Inazio Lula da Silvak. **Berria - Mundua**

Bizkaiko **Metalgintzan** 5.000 bat lanpostu galdu ziren iaz, eta ekoizpena %2 jaitsi zen ia. **Berria - Ekonomia**

**Metalgintzako** sektorearen egoera jarri zuen SEAko eledunak egoeraren erakusle. **Berria - Ekonomia**

## 2 metalgintzako enpresen sektorea. ik metal 5.

«Udazken beroa» iragarri dute **metalgintzan** , negoziatu ezean. **Berria - Ekonomia**

Itun «duinen» alde batu egin dira **metalgintzako** sindikatuak. **Berria - Ekonomia**

**Metalgintzan** eta irakaskuntzan egin nahi dute, bereziki, aurtun eskubideen aldarrikapena. **Berria - Euskal Herria**

Zurgintza eta **Metalgintzako** negoziatioak, amaituta. **Berria - Ekonomia**

**Metalgintzako** ituna duten langileei. **Berria - Harian**

Dani Gomez ELA- **Metalgintzako** idazkariak langileei babesa agertu die. **Berria - Euskal Herria**

«Euren jarrera malgutzeko» eskatu zien LABeko **Metalgintzako** idazkari Igor Urrutikoetxeak patronalei. **Berria - Ekonomia**

**Metalgintzan** akordiorik ez duela espero adierazi zuen. **Berria - Ekonomia**

Jarrerak urrun Alemaniako **metalgintzan** . **Berria - Ekonomia**

ELAko **Metalgintzako** arduradun Mari Cruz Elkorok. **Berria - Ekonomia**

Enpresaburuen iritzia laborbildu ditu Bizkaiko **Metalgintzako** Enpresen Federazioko presidente Jaime Fernandezek: [...]. **Berria - Ekonomia**

## 3 (hitz elkartuetan)

Haren aita, Albert Weber, **metalgintza** arloko enpresa-gizona zen. **Alberto Ladron Arana**

Tolosaldeko **metalgintza** alorreko arduradun izan zen gero, eta CCOOren sorreran ere hartu zuen parte. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bizkaiko metalgintza** (4); **bizkaiko metalgintza enpresen** (3); **gipuzkoako metalgintza** (3); **metalgintza enpresen** (4)

**gipuzkoako metalgintzan** (7)

**metalgintzaren negoziazioan** (3); **nafarroako metalgintzaren** (3)

## metaliko 1 *izond* metalezkoa.

Ate **metalikoaren** hotsa entzun duzu berriro. **Xabier Montoia**

Harraska **metalikoa** argitzen du sugar bat-bateko batek. **Harkaitz Cano**

Botiken kristalezko ontzi kokorrak eta goma korapilatu batez itxitako kutxatxo **metalikoak** . **Josu Landa**

Estalki **metalikoa** hortzekin kendu eta trago luzea eman zion. **Anjel Lertxundi**

Estilo modernoko lanpara **metaliko** beltzak. **Sonia Gonzalez**

Goiko solairuetako komun batekoa izan behar zuen ur-parrastada hodi **metalikoetan** behera. **Josu Landa**

Apalak, artxibategiak, jantzegi eta trenkada **metalikoak** . **Herria**

270 tonako pieza **metaliko** bat maniobratzen ari zirenean. **Berria - Ekonomia**

Gerra hotsek bor-bor jarri dituzte lehengai **metalikoen** eta petrolioaren prezioak. **Berria - Ekonomia**

Nikel **metalikoa** , burdina bezala, magnetikoa da. **Juan Garzia**

Pentsa daiteke lohi horiek garraiatzen dutela onkailu kimikoen baino aise elementu **metaliko** pozoitsu gehiago? **Herria**

Espektrometroaren arabera nukleo **metalikorik** gabeko kondrita karbonatuzko arroka puska bat izan zitekeena. **Patxi Iturritegi**

## 2 irud/hed

Aitaren gorputz handiaren usain **metaliko** eta hotza. **Juan Kruz Igerabide**

Zapore **metaliko** batek betetzen zidan ahozuloa. **Alberto Ladron Arana**

Gillotinaren hots **metalikoak** lehendabizi Anneren burua bere gorputz zuriz jantzitakotik eta gero Mariarena bere gorputz urdin laruz jantzitakotik bereizi zituenean, orduantxe bakarrik isildu omen zen orkestra. **Felipe Juaristi**

Ahots **metaliko** batek eten zien bat-batean jarduna. **Jon Muñoz**

Antonio de Truebaren irudiaren begirada **metalikoak** argitu digu dendarako bidea. **Javi Cillero**

Ñirñir **metaliko** bat aterarazi dio goizeko eguzkiak ezkutareku batean aparkatutako Toyota zuriri. **Javi Cillero**

Noizbait, behakoa lurrerantz jaitsi nuelarik, dar-dar **metalikoaren** antzeko zerbaitez atzeman nuen ilunpean, dirdirazko lerro argitsu bat, eta ohartu nintzen ur-xirripa batek iragaten zuela borda alderik alde. **Koldo Izagirre**

Berez, zingirak baino areago, aintzirak ziren haiek, eta eguzkiak non jo, handik sortzen zuen distira, urrezkoa edo, zehazkiago, eztaizuzkoa, **metalikoa** nolana ere. **Joxe Austin Arrieta**

Ez al ziren hitz horiek nire ezpainetatik osorik atera, sumatu nuen [...] zarata baten isla argi, huts, **metaliko** eta durunditsua, itxuraz hala ere itoa. **Koro Navarro**

Bere soineko berde-**metalikoaren** barruan, Ellen zurrun sentitzen zen, burdinazko estatua baten gisan. **Lopez de Arana**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahots metaliko** (3); **egitura metaliko** (4); **hots metaliko** (3)

**ate metalikoa** (3); **hots metalikoa** (6); **soinu metalikoa** (4); **zarata metalikoa** (3)

**ate metalikoak** (3); **bola metalikoak** (3); **hots metalikoak** (5)

**lehengai metalikoen** (4)

## metalikodun *izlag* metalikoko.

Ohartu nintzen bidea bere atzean hasten zen lautada zabaletik bereizten zuela berdin tolestutako habe lerro batek, distira **metalikodun** txarrantxaz loturik. **Urtzi Urrutikoetxea**

Nire begien aurrean beste gela bat zabaldu zen, gris kolore ia **metalikoduna** , dirdira nimiño moduko bat isurtzen zuena etengabe. **Iban Zaldúa**

## metalinguistiko *iz* metahizkuntzari dagokiona.

Esaldien arteko harreman gramatikalak, proposizioen arteko harreman logikoak, hizkuntza objektu baten eta bere arauak definitzen duen hizkuntzaren arteko harreman **metalinguistikoak** , esaldien multzoen (edo osagaien) harreman erretorikoak. **Xabier Arregi**

## metalistiko *izond* metalezko musika tresnez gauzatua.

Indiako eta Marokoko errito **metalistiko** eta exotikoak pop-arekin nahasten dituzte. **Berria - Kultura**

## metaliterario *izond* metaliteraturari dagokiona.

Eta testu **metaliterarioak** gustuko zutenek hemen ere topatuko dute zer irakurria, beste egileak aipatzeko joerari muzin egin ezinean. **Berria - Kultura**

Pertsonaia batzuk oso **metaliterarioak** dira akaso, baina ez dut bilatu hori. **Berria - Kultura**

Borges metafisiko-teologikoa ( **metaliterarioa** ?). **Juan Garzia**

## metaliteratura *iz* literaturari buruzko literatura.

Inoiz baino arrazoizkoagoa da hemen **metaliteratura** hitz potoloa erabiltzea, hain zuzen ere literatur baliabideen eta literatur hizkuntzaren gaineko literatura baita hau. **Xabier Olarra**

Besteetan baino **metaliteratura** gehixeago dago hemen: protagonista idazte bat da, Sidney Orr, gaixoaldi baten ondoren nobela bat idazten hasten dena, non protagonista editore bat den; istorio baten barruan beste bat, modu errekurtsiboan gainera, [...]. **Berria - Kultura**

Batzuek [...] intelektualki jokatu eta **metaliteraturaren** babesa bilatzen dute; beste batzuek, berriz, mamuak eta gainerakoak tonu umoretsu edo nabarmenarekin nahastuz, ironiaren ezkutua eskuratzen dute; gainerakoek, Ende eta Tutuolaren ildokoek, ukatu egiten diote bere buruari babes oro, eta lotsarik gabe kontaktzen dituzte beraien mamu istorioak. Aztergai konplexua da parodiarena, hitz jolasetatik **metaliteraturara** igarotzen dena. **Bernardo Atxaga**

Baina askoz zabalagoa da imitazioaren aginpidea, **metaliteraturaren** eremuetan barrena parodiara, pastixera, plagiora eramaten gaituena. **Iñaki Arranz**

## metalizatu 1 *izond* metal geruza batez estali dena.

Nazien hegazkin bat erori zen Armentia aldean, eta gogoan dut hondarrekin amak zetazko alondara bat egin zidala, zeta **metalizatu** estalki modura erabiltzen baitzen hegazkinetan. Berria - Euskal Herria

## 2 distira metalikoa duena.

Eguzkia dirdaika ibilgailuetako kristaletan eta karrozeria **metalizatu**etan. Anjel Lertxundi

Denek zekiten margoberritu nahi zuela bere 404 **metalizatu**. Jon Muñoz

Nir-nir egiten zuen karrozeria margotu berriko gris **metalizatuak**; distiraka, orobat, autoaren edergarriak. Jon Muñoz

## metalki *iz* gai metalikoa.

Lohiek onkailu kimikoek baino **metalki** kutsadura gutiago ekartzen badute, [...]. Herria

Kasik kontrolatuko emaitza guziak norma baino biziki gorago dira, gainerat asko **metalki** pizuen emaitzak falta dira txosten hortan. Herria

Auto eta hegazkinetan gero-ta usuago **metalkien** ordez ekai konpositoak baliatuak dira. Herria

## metalkide

### 1 *heavy metalkide iz* heavy metaleko talde bateko kidea.

Trikitixa zen garaiko rockanrola; emakume horiek dantzan ikusita, konturatuko ginatete Elvis Presleyren gerri-mugimenduak txorakeria hutsa zirela, eta heavy **metalkideen** kontorsioak mugimendu basatiak, ez arte eta ez grazi. Pako Aristi

## metalofono *iz* metalezko xafak dituen xilofonoa.

Nire ustez, momentu batzuetan bateria, Gilmore, gehiegi entzuten zen (ez horrela **metalofono**, bongoa eta bestelakoak, Currie). Berria - Kultura

## metalogika *iz* sistema logikoen osagaien edo nolakotasunen azterketa.

Hori egitean **metalogikaren** arloan sartzen gara. Askoren artean

## metalogiko *izond* metalogikari dagokiona.

Logika, adibidez, hizkuntza irekia da, onartzen baitu hizkuntza **metalogikoa**. Askoren artean

Logika bati eska diezazkiokegun propietate **metalogiko** garrantzitsuenen artean bi aipatuko ditugu hemen: zuzentasuna eta osotasun semantikoa. Askoren artean

Proposizioen logika honek propietate **metalogiko** interesgarriak ditu; besteak beste, honako hauek azpimarratu nahiko genituzke: logika honentzako ohiko sistema formal bat finkatu ondoren, zuzena eta osoa dela gertatzen da. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**propietate metalogiko** (3)

## metaltxo *iz* metal zatitxoa.

Denetarik dago, botika oso bat: kosto harria, tabako pakete baten zelofanean; hiru mikropuntu, poltsatxo batean; farlopa gramo erdia -gutxi gorabehera-, Bimbo ogia ixteko erabiltzen den **metaltxo** gorriaz zarratutako plastiktxo batean. Sonia Gonzalez

## metalurgia 1 *iz* mehetatik metalak ateratzeko eta eraldatzeko tekniken multzoa. ik **metalgintza**.

Industriari dagokienez, urte osoan 1.214 enpresa ikertuko dituzte, istripu gehien izan zituzten jarduerak aintzat hartuta: **metalurgia**, metalezko produktuen fabrikatzea, eta makineria eta ekipo metalikoen ekoizpena. Berria - Ekonomia

Ez Burdinazko **Metalurgiako** sektorean. Berria - Euskal Herria

### 2 (hitz elkartuetan) ik **metalurgiko**.

Inazio langileburu putakumeari egin zizkioten putakumekeriak, bigarren **metalurgia**-tailerra zabaldu zutenekoak, sindikatuko lehenengo zelula antolatu zutenekoak, 1977ko greba basatia. Iban Zaldúa

Gaur egun, **Metalurgia** alorreko enpresak ez dauka dirurik lanbide zerga ordaintzeko. Berria - Ekonomia

Baionako **metalurgia** sektorearen krisiaren atal berri bat. Berria - Ekonomia

Felipe Lopez CCOOeko Mehatzaritza eta **Metalurgia** Federazioko idazkariak. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**metalurgia federazioko** (3)

## metalurgiko 1 *izond* metalurgiari dagokiona. ik **metalurgia 2**.

Beharginak 35 urte zituen, Bilbokoa zen eta lurretako lantegi **metalurgiko** batean egiten zuen lan. Berria - Ekonomia

Hiri hori, hortaz, industrigune garrantzitsua da, eta haren inguruko lurraldean ugariak dira fabrika **metalurgikoak** eta platinoa eta urrea garbitzeko ustiategiak. Karlos Zabala

### 2 *iz* metalurgia alorreko langilea.

Isil-isilik gelditu nintzen armairu barruan [...] hiru **metalurgikoak** elkarri besarkaturik lo gelditu ziren arte. Jon Alonso

## metalzale *iz* metal musikaren zalea dena.

Udo txikiak ereserki batzuk eskaini zizkion metal azkar eta pisutsuari (*Fast as a shark*, *Balls to the wall*, *Metal heart*) eta oraindik ere **metalzaleen** ikono handia izaten jarraitzen du, orduanik bere ibilbidea gorabeheratsua izan den arren. Berria - Kultura



## metamadariku, metamadarika, metamadarikatzen du *ad* *adkor* guztiz madarikatu.

Parisen Finkielkrautek, Absolutuaren amorez, diferentziarekin operatzen duten zientzia moderno guztiak **metamadarikatzen** dituen antzera, historialariak eta antropologo eta soziologoak alegia, berdin-berdin egingo da hemen Batasun Hori-gorri Haustezenaren amodioz, hori sekula aipatu gabe noski. [Joxe Azurmendi](#)

## metamero *iz* harren eta artropodoen gorputza banatzen den eraztunetako bakoitza.

**Metamero** errepikatuz eraikitzen da, segmentu edo zelula anitzeko modulu modukoz. [Juan Garzia](#)

## metamorfatu, metamorfa, metamorfutzen da *ad* formaldatu.

Eguerdian Proteo bazterreraren etortzen zen atseden hartzera, eta itxura desberdinetan **metamorfutzen** zen, basurdez, zuhaitzez, harkaitzez, etsaien tronpatzeko. [Koldo Izagirre](#)

## metamorfiko *izond* eraldatzen dena, metamorfosia jasaten duena.

Ez dago egia bakarrik, ez egia absoluturik, egia **metamorfikoak** dira; egia ez da inoiz bene-benetan egia, parte bat hitzekin apaindu edo ezkutatu edo makillatu, manipulatuz egiten dugulako, geure neurria ekartzan. [Ana Urkiza](#)

## metamorfosi 1 *iz* gauza batek izaera aldatu eta beste bat bilakatzea. ikitxuraldatze.

Orduan **metamorfosi** txiki mordo bat pilatzen da nigan, nik erreparatu gabe, eta gero, egun batean, benetako iraultza bat gertatzen da. [Monika Etxebarria](#)  
Zintzurretik helduko genion Proteori, bertatik etengo haren **metamorfosi** ezertaragabeak, Platonetik Agustinera, Agustinetik Tomasera, Tomasetik Hegelera, Hegeletik Crocera. [Juan Garzia](#)  
Tinpanoak egiten du mugimendua hots bihurtzeko **metamorfosi** harrigarri hori. [Josu Zabaleta](#)  
Webberren gai bati buruzko **metamorfosi** sinfonikoa. [Berria - Kultura](#)  
**Metamorfosi** semantikoei esker. [Pello Salaburu](#)  
Itxura batean adimenaren mugak gainditzen zituen **metamorfosi** sekulako hori nolabait azaltzeko, zenbait enbriologok halako bizi-indar edo bat aipatzen zuten, "garapen-printzipio" bat, fisikaren legeekin zerikusirik ez zuena. [Juan Garzia](#)

### 2 animalia batzuen anatomia-aldaketen multzoa.

Orain arte San Mamesen beldurra zabaltzen zuten lehoiak uso bilakatu dira, **metamorfosi** ikaragarria nozitu balute bezala. [Berria - Kirola](#)

### 3 (hitz elkartuetan)

Kontrol kabina presurizatuan bi kreatura adimentsu zihozaren, bi afroditan nerabe eta sustantziabako, **metamorfosi** garai arriskutsuan gainera, paralaxia akats ñimiño batengatik [...] Lurraren eremu grabitatorioan sartuak zirenak. · Barne **metamorfosi** luze bat eskatzen du, egonaria eskatzen duen lan bat, etengabe berritzen den frogagaitz beharra. [Patxi Iturritegi](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
[bere koadroen metamorfosia](#) (3); [kafkaren metamorfosia](#) (3); [koadroen metamorfosia egiten](#) (3)

## metamusika *iz* doinu harmoniatu eta hotz sinkronikoen konbinaketa, entzulea erlaxatzea helburu duena.

**Metamusika** eta kontrola. [Berria - Kultura](#)

## metanfenamina ik *metaanfetamina*.

## metanizatu, metaniza, metanizatzen du *ad* metano bihurtu.

69.000 tona hondakin **metanizatze**ko gunea eta urtero 87.000 tona hondakin metatzeko leku egokia sortu beharko dira xedea osatzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

## metanizazio 1 *iz* metanizatzea.

Nuetek azaldu zuenez, erraustean alternatiba **metanizazioa** da. [Berria - Euskal Herria](#)  
Gune horietan zaborren tratamendu ezberdinak egiten dira, **metanizazioa** eta konpostajea kasu. [Berria - Euskal Herria](#)  
Hondakin grisei dagokionez, bio-hondakinak biltzeko egiturarik ez dagoen tokian mekanikoki egiten da hondakinen prestaketa eta bereizketa, azkenik **metanizazioa** lortzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Bereizketa mekanikorako gunea eta **metanizazio** gunea. [Berria - Euskal Herria](#)  
Papera eta hondakin berdeak bereizi ondoren, gelditzen diren hondakinak mekanikoki bereiziko dira **metanizazio** prozesuari ekin aitzin. [Berria - Euskal Herria](#)

## metano 1 *iz* gas usaingabe eta koloregabea, erraz gartzen dena (CH<sub>4</sub>), hidrokarburu asean saileko lehena.

Lur planetan **metanoa** bakterioek sortzen dute hein handi batean. [Berria - Gaiak](#)  
Biogasa **metanoz** eta karbono dioxidoz osatuta dago batez ere, baina nitrogenoaren, oxigenoaren eta hidrogeno sulfuroaren arrastoak ere baditu. [Berria - Euskal Herria](#)  
Titanen hego polotan **metanozko** lainoa atzeman du Cassini, ustez. [Berria - Gaiak](#)  
Hidrogeno, helio eta **metanozko** atmosfera du [Uranok]. [Berria - Gaiak](#)  
Getxoko Udalak 772.000 kilo **metano** isurtzen ditu, eta Donostialdeko San Markoseko Mankomunitateak 2.241.322,65. [Berria - Euskal Herria](#)  
**Metanoa**, gas hau ere hor dago, CO<sub>2</sub>a baino 20 bider makurragoa. [Pello Zabala](#)

### 2 (gas hitzarekin)

**Metano** gasa, berriz, erre egiten da elektrizitatea lortzeko. [Berria - Euskal Herria](#)  
Mars Express zundak **metano** gasa atzeman du Marten. [Berria - Gaiak](#)  
· Lur planetan, bakterioek hidrogenoaren gas **metanoa** eta karbono dioxidoa sortzen dute, eta ondorioz bakterioek ez dute oxigenorik behar garatzeko. [Berria - Gaiak](#)

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Titanen **metano** eta etano itsasoak ote dauden aspaldiko eztabaida izan da astronomoen artean. [Berria - Gaiak](#)

Zaramaren pilaketarekin sortzen den gasen **metano** edukia oso handia da. [Berria - Euskal Herria](#)

Gutxienez 31 meatzari hil ziren herenegun gauean Krasnolimaskaya ikatz meategian izandako **metano** leherketaren ondorioz. [Berria - Mundua](#)

Iturri ofizialen arabera, **metano** kontzentrazio baten ondorioz gertatu zen leherketa. [Berria - Mundua](#)

Ostiralean bertan behera utzi zituzten salbamendu lanak, **metano** pilaketa zela eta. [Berria - Mundua](#)

Bildu ondoren, oxigeno zein **metano** kopurua aztertzen dute, teknologia erabiliz. [Berria - Euskal Herria](#)

Lurrazpiko izotzean eta urazpiko sedimentuetan **metano** klatrato gas kopuru handia dago harrapatutik. [Berria - Gaiak](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**metano gasa** (10); **metano gasa atzeman** (3)

## metanoia iz bihotz berritzea.

Baina penitentzia hitzak badu bestelako esanahirik ere, inola ere gorputz-mortifikaziora mugatzen ez dena: Ebanjeliko **"metanoia"** edo bihotz-berritzearekin loturik dago, eta hala itzuli da askotan. [Askoren artean](#)

Lehenbizikorik, penitentzia hitza propio latinezkoa dela eta ez arrotza, batzuek dioten bezala, erranez gaizki, bestalde, latindarrek horren orde grekozko **Metanoia** erran behar zutela, latinezko hizkuntzak beste hitz bat baduelakotz, hori baita *Poenitudo*. [Piarres Xarriton](#)

## metanol iz zuraren destilatzetik ateratzen den alkohola (CH<sub>3</sub>OH), alkoholaren saileko lehena, *alkohol metiliko* ere esaten zaiona.

Berez, landare olioak eta olio hondakinak erabiltzen dira lehengai gisa, eta horri **metanola** (alkohol mota bat) eta beste katalizatzaile likido bat gehitzen zaizkio. [Berria - Gaiak](#)

**Metanol** gai toxikoa zeraman tren batek su hartu du Baionako portuan. [Berria - Euskal Herria](#)

**Metanol/etanol** nahastean oinarritutako sistemak. [Berria - Gaiak](#)

Trenak LBC enpresarenak ziren 80.000 litro **metanol** garraiatzen zituen. [Berria - Euskal Herria](#)

## metaplasmo iz hitz baten aldaketa, ahots baten gehitze, ezabatze edo kokatze aldaketaren ondoriozkoa.

*Honor, honos*-en aldaketa gisa hartu ohi da, **"metaplasmo"** gisa; bere substantzia gehiena *honos*-tik aterako zuen. [Isabel Arrigain](#)

## metapsikiko izond parapsikologikoa.

Telekinesia fenomeno **metapsikiko** bat da, zeinaren bidez objektuak leku batetik bestera eraman ahal baitaitezke... [Karlos Linazasoro](#)

Alderdi **metapsikologikoari** dagokionez [...] errealitate-inpresioaz eta haren sustraiez dihardu Baudryren azterketak. [Josu Zabaleta](#)

## metapsikologia iz parapsikologia.

2. kapituluari aipatu dugun joera kognitibista osoa, aurrera egin ahala nahitaez topatuko baitu zinematografiako apailuak ikuslearengan duen eragina, dagoeneko Freuden

**metapsikologiarenak** izango ez diren bestelako termino batzuetan. [Josu Zabaleta](#)

## metarazi, metaraz, metarazten du *ad* metatzera behartu.

Urrialdirik bada (benetakoa nahiz aurrez ikusia), prezioen gorakadak ez du eskaria murriztuko, alderantziz, erreserbak **metaraziko** ditu, urritasunari aurrea hartzeko nahiz espekulatzeko. [Koro Navarro](#)

## metarrabino iz

Biak despedituko ditu rabinoaren rabino edo **metarrabinoak**, pazientzia galdurik. [Berria - Kultura](#)

## metastasi 1 iz eritasun edo tumore bat birsortzea edo gorputzaren beste alderdi batera hedatzea.

Kontzeptu zehatza bide da sendagilearentzat **metastasia**: ehun lesiodun edo gaixoa (bereziki zelula edo tumore gaiztoak) gorputzeko toki batetik bestera linfan edo odolean barrena garraiatzea; ondorioz sortzen den ehun-lesio berria. [Imanol Zurutuza](#)

**Metastasirik** ez da ageri bazterretan. [Hasier Etxeberria](#)

Sortu al lezake **metastasirik** buruko tumore batek? [Imanol Zurutuza](#)

Ordurako, gibelean minbizia eta **metastasia** zituen. [Berria - Euskal Herria](#)

## 2 (hitz elkartuetan) ik **metastasi**ko.

**Metastasi** prozesu ezin lasterrago baten bidez. [Joan Mari Irigoien](#)

## metastasi 2 izond metastasiarena, metastasiari dagokiona. ik **metastasi 2**.

Gibeleko minbizia, **metastasi**koa, laugarren fasean. [Joseba Sarrionandia](#)

Eta kantzer ezin **metastasi**koagotzat daukat Bushen politika, derradan bide batez. [Joan Mari Irigoien](#)

## metasubjektibo iz *adkor* guztiz subjektiboa, subjektibotasunetik haratago doana.

Epilogo kritiko edo **metasubjektiboa**. [Iñaki Segurola](#)

# metartartsofalangikoei izond metartartso falangeena.

Giltzadura txikiei erasaten die; behatz hezurren artekoei, metakarpofalangikoei eta **metartartsofalangikoei**, esate baterako. **Beria - Gaiak**

## metateoria iz teoriari buruzko teoria.

Garrantzitsua da oharrean 8. kapituluaren egin ditugun hausnarketa horiek gramatika, semantika eta bien arteko loturak langai dituen **metateorian** biltzean ez dugula gramatika-egituraren teoriak duen izaera formala kutsatu. **Itziar Laka**

## metatesi iz hitz batean ahots bat tokiz aldatzea.

Sebero Altuberen ustez, Olen- hori Noel ezagunaren **metatesia** besterik ez genuke, eta Manuel Lekuona ere, arrazoipide horren aldeko zen. **Patziku Perurena**  
Garbi dago ekoizpen horietan, *r* rarkaria silaba-azkenera leku-aldatuz (**metatesiz**), silaba-egitura errazagoak moldatzen zituela haurrak. **Lourdes Oñederra**  
Ez dugu [anagrama] **metatesiarekin** nahastu behar: hitz baten barneko letrak lekuz aldatzen dira bai anagrametan baita **metatesiaren** kasuan ere, baina, mekanismoa berdina izanik, ondorioa oso bestelakoa da: anagramak hitz ezberdinak lotzen ditu, **metatesiak** hitz bateko aldaerak [...]; **metatesiak** dira, esate baterako, honako hauek: alkandora / alkondara; euskara / eskuara; gabe / bage; garbatu / bargatu; hodei / hedoi; irudi / iduri; lerre / elder; tximeleta / mitxeleta; ukitu / ikutu... **Iñaki Arranz**  
Seguru al zaude ez duzula **metatesi** teoriok bat gauzatzen? **Xabier Arregi**

## metatoki iz aipatzen dena metatzeko tokia.

Luze gabe, industrialde batean kausitu nintzen, enpresa tiki eta ertainen **metatoki**. **Aingeru Epaltza**  
Etxe elkarri atxikien urbanizazio berrien artean segitu nien, hiriko azken garaile usteen farfaikeriaren **metatoki**. **Aingeru Epaltza**

## metatu, meta(tu), metatzen 1 du ad pilatu.

Belarra **metatu**, azaoak egin. **Jose Morales**  
Liburuak hiruak zeuden **metatuta** tximiniaren apalean. **Iñaki Mendiguren**  
Bidea zelaitu egiten den paraje batean, enborrak daude **metatuta** eta kamioien zain. **Bernardo Atxaga**  
Bederatzi mila pertsona **metatu** ziren Sarako plazan. **Ramuntxo Etxeberri**  
Gorpuak barrukian **metatu** zituzten. **Itxaro Borda**  
Autobus batean **metatuak** gira, polizia gizonen beren mitralletekin inguratzen gituzte. **Michel Oronoz**  
Ontzi piloa zegoen sukaldeko harraskan **metatuta**. **Javi Cillero**  
Zilar eta urre ugari **metatu** nuen. **Elizen arteko biblia**  
Odola buruan **metatuta** zeukan. **Lopez de Arana**  
Hormak lehertzen direnean, eustormatik gora **metaturiko** ur-masa osoa maldan behera itsasora joaten da bortizki. **Iñaki Mendiguren**  
Organismoan hondakinak **metatzen** ari zitzaizkion, eta erabat oxidatu gabeko produktuak sorrarazi behar zituen horrek, azido urikoa batez ere. **Josu Zabaleta**

### 2 (gauza abstraktuak)

Han diru pila irabaziz hasi omen zen dirutza **metatzen**. **Jon Muñoz**  
Euskal Herriko eragile sozial eta politikoei dei berezia egin die indarrak **meta** ditzaten euska presoan sakabanaketa amai dadin. **Beria - Euskal Herria**  
Bekatua bekatuaren gain **metatzen** du bekatiari. **Elizen arteko biblia**  
Zeren trantsizio batean kontraesan gehiegi **meta** daitezke, eta, ondorioz, aldakortasun sozial handia sortzeaz gain, iraultzak ere indarra har dezake. **Rafa Egiguren**  
Ez baduzu jakinduria **metatu** gaztaroan, nola aurkituko duzu zahartzaroan? **Elizen arteko biblia**  
Eta hala, pixkanaka, hiru egun haietan **metatutako** irudipenak bere tokia hartzen joan ziren, ordenatzen, elkarri uztartzen. **Bernardo Atxaga**  
Horren azpian, guztien artean funtsezkoena, amorrazioa dago, ia hasieratik beraren baitan piztua eta ezarian-ezarian **metatuta**. **Xabier Olarra**

### 3 (ekonomian)

Muga horiek kapitala mundu osoan **metatzea** eragozten baitute. **Koro Navarro**  
Metal bitxiak **metatzea** zela haien [merkantilisten] iritziz nazio-aberastasunaren irizpiderik seguruen. **Koro Navarro**  
Handinahia eta botere gosea aberastasunak **metatuz** ase zitezkeen gizarte bat osatu zela gertatu zen. Garapen-bideko herrialdeetan **metaturiko** kredituen balioa. **Iñaki Heras**  
2003ko lehen 11 hiletan %1,5eko hazkuntza **metatu** du [industri] jarduerak. **Beria - Ekonomia**

### 4 (era burutua izenondo gisa)

Graxik soinean zekarren herio **metatu** haien zama. Zor **metatuek**, azkenera, NDFren eta Munduko Bankuaren esku-hartzea ekarri zuten. **Itxaro Borda**  
Txinatar enpresa, autoritarioa baina deszentralizatua aldi berean, familia-jakintza **metatuan** oinarritzen da, eta betebeharraren sen guztiz indartsu batean. **Koro Navarro**  
Munduko 225 pertsona aberatsen ondarea 2.500 milioi pertsonen urteko errenta **metatuaren** parekoa da. **Iñaki Heras**  
Ondare Sindikal **Metatuaren** banaketan sindikatuen ordezkaritza da irizpidea. **Beria - Ekonomia**

### 5 (era burutua izen gisa)

Truke-tasak herrialde petrolio-ekoizleen alde aldatu izanak, truke korronteen 360.000 milioi dolar inguruko gainera **metatuta** eragin zuen zortzi urtetan (1974-1981), HPEE eremuan, Persiar Golkoko herrialdeetan batez ere. **Koro Navarro**

## metatxo 1 iz meta txikia.

Moztu ilea eta bizarra, pisatu eta banatu hiru **metatxotan**. **Elizen arteko biblia**  
Apurrak arin-arin elkartu ditu **metatxo** bat eginez. **Jon Alonso**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bazterretan bildu belar **metatxo** baten gainean, bi egur idor bermatu zituen Martizek eta gizonetarik batek sua eman zion. **Itxaro Borda**  
Egunkari zahar baten orriekin pilotatxoak egin eta ezpal **metatxoaren** ondoan jarri zituen. **Anjel Lertxundi**  
Ilunantz hartan begiak erdi itxita ohe-barrenera begiratu zuen, eta han fardel **metatxo** bat ikusi zuen. **Iñaki Mendiguren**  
Maria Sarak eskua paratu zuen orri **metatxoaren** gainean. **Jon Alonso**  
Bi leihoetan ere pipatik hustutako errauts- **metatxoak** ikus zitezkeen, ardura handiz antolatua oso ilara txukunak osatuz. **Jose Morales**

## metatzaile 1 izond metatzen duena.

Probabilitateak ez ziren proportzio aritmetikoko ugalduko, proportzio geometriko edo **metatzailean** ugalduko ziren. **Koro Navarro**

XIX. mendetik aurrera biologiak berea egin zuen orimen-eremu hain luze, hain **metatzaile** eta hain ondo zehaztutakoarekin. Xabier Arregi

Gure aita **metatzaile** hutsa da, ezer botatzen ez duen horietakoa, eta ganbara gainezka dauka. Iban Zaldúa

## 2 iz metatzen duen pertsona.

Elikatze-jokamoldeen desegituratze honen eraginez eta agerpen gisa, alde batetik, irinezkoen eta oilaskoaren presentzia jeneralizatu egingo da, abantaila asko eskaintzen dizkiotelako transformatzaile, garraiolari, **metatzaile**, ekoizle eta kontsumitzaileari. Edorta Agirre

Produktoreak, eta, hein handiago batez, **metatzaile** -banatzaile handiak agintzen du kontsumitzaileak zer hartu behar duen. Edorta Agirre

## 3 ez-metatzaile izond metatzailea ez dena.

Azkena infinitu ez- **metatzailea** da. Xabier Kintana

## metatze iz pilatzea.

Baina **metatze** eta neurririk gabeko ugaritze hori aldi berean suhartasun baten emaitza da. Joan Mari Lekuona

Honek bihurtzen du enuntziatua beste gauza bat, zeinuen **metatze** hutsa [...] baino zerbait gehiago. Xabier Arregi

Azalpen horren arabera, une honetan indarren **metatze** prozesu baten barruan egongo ginateke. Biltze- eta **metatze** -lana. Berria - Euskal Herria

1987an, Brasilek banku-zorrak ordaintzeko epea luzatzen zuela adierazi zuenean, banku anglosaxoi handien **metatze** -ahaleginak areagotu egin ziren. Koro Navarro

**Metatze** -emaitza horiek neur ditzakegu, natur ingurunea menderatzeko gizakiek duten ahalmena neurri eta irizpidetzat hartuz. Askoren artean

Garraio eskasaren ondorioz, Frantzia hiri nagusietan auto **metatze** handiak izan dira. Berria - Harian

## metazientifiko (orobat meta-zientifiko) izond

Datuak zientifikoak dira, baina hauen gainean jasotako teoriak **metazientifikoak** dira, orokorrean -geuk ere bai- teoria zientifiko deitu arren. Jenaro Garate

Baina datu horien gainean eraiki zen teoria mekanizista ez zen teoria zientifikoa, **metazientifikoa** baino. Jenaro Garate

Ikerketaren lasterraldi honetan hausnarketa **meta** -zientifikoek (hots, etikak) zer esan gutxi dute. Berria - Gaiak

## metazientzia iz

Zentzu berri horretan, politikaren **metazientzia** (hau da, politikaren bigarren mailako analisisa) besterik ez da izango filosofia arlo hau. Askoren artean

## metaziri iz

Hasperen txipi bat egin du kantinaren zokoan bakailaoa jaten daukagun **metaziri** honek. Koldo Izagirre

## meteko iz arrotza, erbestekoa.

Nor da *metoikos*, zein da **metekoa**, paperik gabeko etorkina? Askoren artean

Ezinbestean homosexual, zismatiko, desheredatu, agot, judu-masoniko, ijito buhame eta "munduko madarikatu guztiekin" batera anateman erortzeko: "bestelakoaren", **"metekoaren"** patu gaitzean. Joxe Azurmendi

## metempsikosi ik metenpsikosi.

## metenpsikosi (orobat metempsikosi g.er.) iz

Indio askorentzat mundu honetako konturik larriena arimen transmigrazioa, **metenpsikosia** da. -Sinesten al duzu **metenpsikosian**? Gotzon Garate

Nire **metenpsikosien** kontaeran ikusiko da nola izan nuen bizialdieta bakoitzean oroitzen aurkitzeko zoria. Josu Zabaleta

Heriotza, irizpide errefusagaitz hauen ondotik, forma aldaketa besterik ez da, izaera batetik besterako pasabide igarriezina, Pitagorasek **metenpsikosia** deitzen zuena.

Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## metenpsikosista 1 izond metenpsikosiarena, metenpsikosiari dagokiona.

Biharamun goizean egoitza hartako patiora jaitsi zen, eta nor izango han ikusi zuen lehendabiziko pertsona, eskuizkribu **metenpsikosistaren** egilea. Eta orduak eta orduak konbinaketa **metenpsikosista** jakintza handikoak egiten lehiatu ondoren, gizon hark bere garaikidea izan behar zuela konbentzitu zen, eta, bestela, arrazoizko bizialdira berriro jaiotzeko une-unean behar zuela egon gutxienez. Josu Zabaleta

**Metenpsikosistago** Pitagoras bera baino. Josu Zabaleta

## 2 (izen gisa)

Héraclusek, izan ere, **metenpsikosista** handi haren heriotza data zehatza ezagutzeko dokumentu ziurrik ezean, ezin baitzuen ziur-ziur finkatu haren itzulerako data ere.

Josu Zabaleta

Aurki ziren beste dozena bat mutiko bihurri lehengoekin elkarturik, **metenpsikosista** ohiari segizio zaratatsu bezain ezatsegin bat antolatuz. Josu Zabaleta

## meteo iz meteorologia. (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lan horren obratzeko, laurogoi **meteo** -gune eraikiak izango dira. Herria

Zaila zen asmatzea batzuetan zeru zolan zebiltzan hedoiek zer ekarriko zuten: **meteo** -agiriek euria hitz ematen zuten eta bat-batean haizea jaukitzen zen iparretik edo hego-beltzetik. Itxaro Borda

**Meteo** zerbitzu baten sortzeko xedetan da, 2003-rako, Euskal Gobernuak, osoki bere esku lirategena. Herria

Cap Canaveraldelako tirotegian, amerikanoek bere Discovery espazioko eremaiaren airatzea gibelatu zuten duela 2 aste **meteo** aro txarraren gatik. Herria

Zerbitzu hunek eman lezazke **meteo** -argitasun zehatzago eta xuxenagoak bai jendeeri bai lantegieri. Herria

## meteoriko izond oso lasterra.

Nire futbolari karrera **meteorikoa** izan zen, handik aurrera. Joan Mari Irigoien

## meteoritiko *izond* meteorikoa.

Eta minutu **meteoritikoetan** pasatuko da dena. **Joseba Sarrionandia**

## meteorito *iz* espaziotik datorren gorputz baten zatia, atmosferan abiadura handian sartu eta Lurrera erortzen dena. ik **meteoro**.

Ilargiko beste mineral bat aurkitu dute Tennesseeko Unibertsitateko Estatu Batuak ikertzaileek 2000. urtean Lurrera iritsi zen **meteorito** zati batean. **Berria - Gaiak**  
Duela 250 milioi urte eroritako **meteorito** baten aztarnak aurkitu dituzte. **Berria - Gaiak**  
Futuro hitzaren beharrik gabe, planetek, **meteoritoek** eta beste asteroideek betetzen dituzten orbita eliptiko nekaezin eta ia zehatze axolatu gabe. **Joseba Sarrionandia**  
Gizakiak **meteorito** baten etorbidea aldatzen ikusiko bagenu. **Jenaro Garate**  
Zerbitzuberua **meteorito** bat bezain laster heldu zen. **Aingeru Epaltza**  
Kristautasunaren barruko Mistika ez zela alemaniar Mistikarekin jaio, zerutik eroritako **meteorito** bat bailitzan. **Joan Mari Lekuona**  
Errezagoa izanen zela **meteorito** bat nire gainera erortzea, etxea behera erortzea baino. **Berria - Euskal Herria**  
"Itxoin dezala **meteorito** aluak behingogatik", pentsatu zuen zientzia gizonak. **Patxi Iturritegi**  
Bolidoen eta **Meteoritoen** Ikerketarako Sareko kide Jordi Llorcak. **Berria - Gaiak**

## meteoro *iz* espaziotik datorren gorputza, atmosferan abiadura handian sartu eta Lurrera erortzen dena. ik **meteorito**.

Atmosferan deuseztuko da, eta **meteoro** eratzuna sortuko du atmosfera inguratzen. **Berria - Gaiak**  
**Meteoro** lazgarri bat ibili zen ilargiaren pean. **Juan Garzia**  
Baina gertatu zen bi jeinuak eta Hasan hegaka zihoazela, aingeruek suzko **meteoro** bat jaurti zietela, eta ifrita kiskalirik geratu zela. **Patxi Zubizarreta**

## meteorologi ik **meteorologia** 2.

## meteorologia *(orobat meteorologia g.er.)* 1 *iz* eguratseko gertakariez aritzen den den zientzia.

Tanke bat gidatzeko ez zagok fisika, mekanika eta **meteorologia** ikasi beharrik, eta eskerrak. **Anjel Lertxundi**  
Era berean, Saturnoko **meteorologia** ere aztertuko du Cassinik. **Berria - Gaiak**  
Hau izaten da lehenbiziko kontuetakoa, ni neu **meteorologiako** jende adituekin egokitzen naizenean. **Pello Zabala**  
Beste atal nagusi bat **meteorologiaren** ingurukoa izan zen. **Berria - Gaiak**

## 2 (hitz elkartuetan, orobat meteorologi g.er.) ik **meteorologiko**.

-Aristotelesek (350 K.a.) **meteorologia** tratatua idatzi zuen, zientifikoan iturri izan dena 2.000 urtean barna. **Pello Zabala**  
**Meteorologia** satelite arruntek duten radarrek baino mila aldiz zehatzagoa da ClodSat-ek duena. **Berria - Gaiak**  
Hiriburutik deitu zuten bertako **meteorologia** iragarpen zerbitzuak antolatzeko. **Pello Zabala**  
**Meteorologia** datuak biltzeko. **Pello Zabala**  
Inoiz **meteorologia** -gizonekin topatu izan naizenean, [...]. **Pello Zabala**  
**Meteorologia** tailertxo bat eratu du Zarautzen. **Pello Zabala**  
Munduko **Meteorologia** eguna. **Pello Zabala**  
OMM (Munduko **Meteorologia** Erakundea) martxan jarri zuen hitzarmena. **Pello Zabala**  
Bizkaiko Golkoko **Meteorologi** Zentrora. **Pello Zabala**  
Arantzazuko **meteorologia** behatokia. **Pello Zabala**  
Igeldoko **meteorologia** zerbitzutik. **Pello Zabala**  
Biak EHKME Euskal Herriko Klimatologia eta **Meteorologia** Fundazioko kide dira. **Berria - Euskal Herria**  
Euskalmet EAEko **meteorologia** agentziak eta INM Espainiako **Meteorologia** Institutuak iragarri dutenez. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**klimatologia eta meteorologia** (4); **meteorologia hiztegian** (4); **meteorologia zentroko** (3); **meteorologia zentrora** (4)

## meteorologiko *(orobat meteorologiko g.er.) izond* meteorologiarena, meteorologiari dagokiona. ik **meteorologia** 2.

Zerbitzu **meteorologikoak** joan den mendean erdibidean sortu ziren. **Pello Zabala**  
Estazio **meteorologiko** horiek etxola antzeko batzuk dira. **Berria - Gaiak**  
Isabel II. Erreginak behatoki **meteorologikoak** agudo eta bertatik eraikitzea erabaki zuen. **Pello Zabala**  
Radar **meteorologikoak**, 10 minutuoro, 200 km alde orotara aztertzen dituenak. **Pello Zabala**  
Sare **Meteorologikoari** bultzada bat ematera. **Pello Zabala**  
Iragarpen **Meteorologikoen** lehen hedapena. **Pello Zabala**  
Datu **meteorologikoak** igortzeko eta transmititzeko bidea. **Pello Zabala**  
Egun **Meteorologiko** Mundiala, mundu osoan ospatzen dena. **Pello Zabala**

## meteorologo *iz* *(orobat meteorologo g.er.)* meteorologian adigtua den pertsona.

Bero handia iragarri dute **meteorologoek** gaurko Erriberan. **Berria - Euskal Herria**  
**Meteorologoen** arabera, gaur okerrera egingo du. **Berria - Euskal Herria**  
Gero eta lagungarriagoak zaizkie **meteorologoen** aurreikuspenak. **Berria - Harian**  
Jose Ignazio Álvarez Usabiaga zen orduan **meteorologorik** ezagunena. **Pello Zabala**  
Apalak baitira, oso, **meteorologoak**, ekonomista eta batez ere politikoen aldean. **Joxerra Garzia**

# meteotropismo *(orobat metereotropismo) iz eguraldiarekiko sentiberatasuna.*

Zetorkigun eguraldiaz galdetu nion, urduritasun nabarmenez; hura, erantzun baino lehen, **meteotropismoaren** teoriatz mintzatu zitzaidan, argudio inondik ere taxuzkorik eskaini gabe baina, nire iritzirako. **Karlos Linazasoro**

Glosolalia, **meteotropismoa**, basakeria, aldarrikapen ekologista, oieskeria hutsa... bi txoropito, diplomatikoak, gurekin justu-justuan mintzatzeko gai zirenak, zer konpondu behar ziguten haiek? **Karlos Linazasoro**

**Meteotropismo** kontuak aipatu zizkidan, auskalo noizkoak eta nongoak, eta geurera bazetorrela halakorik zerbait. **Karlos Linazasoro**

## meteosat iz meteorologia satelitea.

Demagun [...] hor goiko sabaletan, perpendikularki begira, **meteosata** dabilen bezala, gure parean, txapatxo beltz karratu bat ipini dugula, zentimetro koadroa duena. **Pello Zabala**

Eta guztien gainean, han goian 36 mila kilometrora **Meteosat** satelite adiskidea, Andoni Aizpuru lagunak hala bataiatua. **Pello Zabala**

## metereologia ik meteorologia.

## metereologo ik meteorologo.

## meteotropismo ik meteorotropismo.

## metileno iz metanotik, bi hidrogeno atomo ezabaturik, eratorririko erredikala.

lodo-tintura urratu eta harramazketarako, **metileno** -urdina eztarriko minerako, eta "bir" delakoa hazpizarretarako. **Fernando Rey**

## metilfenidato iz metaanfetamina, nerbio sistema zentralari eragiten dion psiko-bizkorgarri ahaltsua.

**Metilfenidatoak** bizkortzen dituen neurotransmisoreak era naturalean piztea lortzen dugu. **Berria - Gaiak**

Ameriketako Estatu Batuetako lau milioi haurrek hartzen dute dagoeneko **metilfenidatoa**. **Berria - Gaiak**

Duela hiru aste **metilfenidatoaren** arriskuez ohartarazi zuen AEBetan botikak eta elikagaiak behatzen dituen FDA agentziak. **Berria - Gaiak**

## metiliko

### 1 alkohol metiliko metanola.

Faltsuturiko edariek alkohol **metiliko** kopuru handia zuten. **Berria - Gaiak**

## metilo iz metanotik, hidrogeno atomo bat ezabaturik, eratorririko erredikala.

*Hylo* delakoa, zeina, gauza bitxia, baltsamaturik aurkitzen baita alkali-erroen desinentzietan: **metilo**, butilo, eta abar. **Juan Garzia**

Bromobentzenoa edo **metilo** -bioletoa prestatzea dibertigarria zen. **Juan Garzia**

## metizilina iz penizilinen multzoko antibiotikoa.

[“Ospitaleko bakterioa”] **metizilinarekiko** erresistentea da, esate baterako. **Berria - Gaiak**

## metoda ik metodo.

## metodiko izond metodo bati jarritzen diona.

Benetan itsumustuka eta nahikoa kontrol **metodikorik** gabe. **Xabier Arregi**

Azterketa **"metodikoak"** eta azterketa "sistemakoak" kontrajartzen dituen kontraktasuna. **Xabier Arregi**

Latinaren ikasketa **metodikoan** abiatua nintzen ni garaitu hartan. **Juan Garzia**

Descartesekin eta bere eszeptizismo **metodikoarekin** hasitako eredu razionalista Humeren eszeptizismo zinezkoan amaitzen da. **Askoren artean**

Badirudi senez-edo zalantza **metodikoak** aukeratua duela, mesfidantza orokorra Fakultatean eskaintzen dizkieten autore, teoria, eskola, joeren aurrean. **Iñaki Iñurrieta**

Bere deskribapena ez da **metodikoak**, zeren ez baita egiten norabide jakin batean. **Isabel Arrigain**

Oso zorrotza zen bere denbora antolatzerakoan, espiritu **metodikoak** zuen, eta horrek maniatiko izateraino bultzatzen zuen batzuetan. **Karlos Zabala**

Jendeak madarikatzen duen funtzionario horietako bat zen, **metodikoak** eta zuzena. **Migel Angel Mintegi**

Pertsona **metodikoak** zen gazte-gaztetatik eta bizitza moldatu zioten eragin osasuntsuak eduki izanaz harrotzen zen. **Bego Montorio**

Apur bat **metodikoagoak** izan behar dugula uste dut. **Berria - Kultura**

Modu **metodikoan**, Adak gauza guztiak egiten zituen bezala. **Anjel Lertxundi**

## metodikoki adlag era metodikoan.

Lurrean paratu zituen **metodikoki**, merkantzia apainduz, hostoak kanpoaldean ipini eta barazki pilak ertz berdez inguratzen zituela. **Karlos Zabala**

Erdiko apalean, hamar bat mila libera zeuden urrezko txanponetan, pila txikietan **metodikoki** lerrokaturik. **Karlos Zabala**

Irakasleek gazteria ikasizalea **metodikoki** astotzeko baizik ez dute balio. **Josu Zabaleta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**metodikoki aritzeko** (7); **metodikoki aritzeko gaitasuna** (3)

# metodikotasun *iz* metodikoa denaren nolakotasuna.

Borreroaren hoztasun eta **metodikotasun** osoarekin. **Berria - Kultura**

## metodista 1 *izond* J. Wesley sortu zuen sekta protestanteari dagokiona.

Gertakari horrek eragin zion beldurra ikusiarazi zion zer den garrantzitsua bizitzan eta gaur egun Eliza **Metodistan** sartuta dago. **Lopez de Arana**

Harold Good, Irlandako Eliza **Metodistako** presidente ohia, eta Alec Reid, apaiz erredentorista. **Berria - Harian**

Ameriketako Estatu batuetako Eliza **Metodista** Batuak apaiz lesbiana bat onartu du lehen aldiz. **Berria - Gaik**

## 2 *iz* Eliza metodistako kide den pertsona.

Neguan eta udazkenean bihotz hori eramaten zien **Metodista** eta Baptistei, Santuei eta Santutuei, Erosleei eta Erosiei. **Anton Garikano**

Solomon jauna albisteen editorea zen, eta **metodista**. **Koro Navarro**

## metodo (*orobat metoda g.er.*) 1 *iz* emaitza edo helburu jakin batera heltzeko, adibidez zientzian egia aurkitzeko eta frogatzeko, egin behar diren gogo urratsen multzoa.

Proposamenak **metodo** bat dakar, eta **metodo** horrek ez du behin ere huts egin. **Bernardo Atxaga**

Inspirazioa eta horrelakoak ere ez baitira deus **metodorik** gabe. **Anjel Lertxundi**

**Metodo** bera erabili daiteke itsasoz egindako bidea neurtzeko ere. **Santiago Iruretagoiena**

Bakoitzak, izan ere, bere **metodoaz** baliatuz erantzuna eman zion Apolok Delori buruz egindako galderari. **Santiago Iruretagoiena**

**Metodo** berbera ahabiari aplikatuz eta esnearekin nahastuz purpura dotorea egiten dute. **Santiago Iruretagoiena**

Bai Oginoren **metodoarekin**, bai atzerako martxarekin beti dago nahi gabe haurdun geratzeko beldurra. **Luis Elberdin**

Dela agiri mordoia modu sakonean jorratzeko, dela datu-biltze estatistikoko **metodoen** arabera lakin ateratzeko. **Xabier Arregi**

Ultrasoinuen bidezko **metodo** bat aztertzen ari gara, enpresa batek eskaini digu... **Jon Alonso**

Nik niotsen ez nintzela anarkista, ez nituela **metodo** horiek onartzen. **Koldo Izagirre**

**Metodo** hori erabilgarria gertatu da beste logika batzuetara aplikatzeko ere. **Askoren artean**

Harentzat, aljebra ez zen zientzia, **metodoa** baizik: metodo unibertuala. **Jon Muñoz**

Arazoa etikoa zenez, ipuina plaijatzeko **metodo** baten kasu praktikoa baillizan argitaratu nuen, hartara aitortua geratzen baitzen gaiztakeria. **Bernardo Atxaga**

Ekonomiari iragarpenetan asmatzeko **metodo** baten bila ari zela, baina oraindik ez zuela emaitza positiborik lortu. **Iban Zaldua**

## 2 (izenondoekin)

**Metodo** okerrak, ehuneko 29,5 doutsua ematen zuen etengabe; **metodo** zuzenarekin, berriz, zabal barreiatzen ziren emaitzak. **Juan Garzia**

**Metodo** kaltegarri batek instituzio onuragarri bat usteldu du. **Juan Martin Elexpuru**

Ez dut uste neskatxak limurtzeko oso **metodo** gomendagarria denik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Garunak **metodo** eraginkorrak baititu estimulu indartsu bat agertzen denean sentikortasuna gutxitzeko. **Irene Aldasoro**

Badago **metodo** farmakologikoa erabiltzea, kirurgikoaren ordez. **Luis Elberdin**

Poliziak **"metodo"** propioa dauka bere datuak zehatz eta ziur egiazatzeko. **Rafa Egiguren**

**Metodo** matematiko berriak garatzen ari dira argazkietan egindako aldaketak detektatzeko. **Berria - Gaik**

**Metodo** zientifikoaren jarraitzaileei dagokienez, hauek **metodo** dogmatikoaren edo eszeptikoaren arteko aukera dute. **Ibon Uribarri**

**Metodo** axiomatikoaren defendatzaile sutsua Hilbert logikaria izan zen. **Askoren artean**

Horrela ulerturik, gramatika egiteko **metodo** taxonomikoak lekuz kanpo gelditzen dira. zeren eta arazoiketaren **metodo** inductiboa tresna osagabea baita nabarmenki proposamen negatibo bat frogatzeko. **Itziar Laka**

**Metodo** deduktiboari jarraituz. **Askoren artean**

Filosofoek infinituraino deskribatzen dute **metodo** hipotetiko-deduktiboa. **Juan Garzia**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Galtzea **metodo** kontua da. **Unai Iturriaga**

Erregistratzeko eta oharrak hartzeko **metodo** -multzo oso bat erabili ahal izan dela. **Xabier Arregi**

Hasteko, **metodo** arazo bat dago, positibismoaren eta metafisikaren artean ez baiti. **Joxe Azurmendi**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

**Ikerketa** -metodo bat da nobela, gogoetarako fikzioa. **Berria - Kultura**

Heroi bihurtu nahi nuen, nire herriaren aldeko borroka-**metodo** berriak sortu. On-line analisis (hala deritzo une bereko lan-**metodo** horri). **Juan Kruz Igerabide**

Hurrengo kapituluak ekintza-**metodoak** aztertzen ditu, bai komunista eta bai JOCEko taldeen ekintza estrategiak. **Joseba Zulaika**

Mendebaldeko ekoizpen-**metodoak** eta kontsumo-arauak eraman zituzten herrialdeotara. **Koro Navarro**

Mendebaldeko nekazaritza-**metodo** zientifikoak. **Iñaki Mendiguren**

Errusiarrak Mendebaldeko administrazio-**metodo** berrietara bultzatzeko. **Iñaki Mendiguren**

Eurostat estatistika erakundeak «datuak egiazatzeko ikuskaritza **metodo** zientifiko bat» ezartzeko eskatu dio Europako Batzordeari. **Berria - Ekonomia**

"Eskolastikoa" deritzan beren gogoeta-**metodoaren** ezaugarriak. **Askoren artean**

Jarraitzen nuen analisi-**metodoa** ez zen gehiago liburu-dogma bat. **Juan Garzia**

Bide hori nabariagoa da hermeneutika-**metodoaz** baliatzen direnengan. **Askoren artean**

Kontrazepzio **metodoak** -kondoa, espermizida, pilula, DIUa, baskotomia- kotoia egin baino lehen edo kotoia egin bitartean erabiltzen dira. **Luis Elberdin**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ikasteko metodo (5); kontrazepzio metodo (13); lan metodo (7); metodo berri (7); metodo berri bat (5); metodo berriak (6); metodo berriek (3); metodo eszeptikoa (3); metodo farmakologikoa (3); metodo gisa (7); metodo historiko (3); metodo jakin (3); metodo kontua da (7); metodo ona (4); metodo paranoiko (3); metodo propioa (3); metodo zuzena (4); tortura metodo (3); zein metodo erabiliz (3); zer metodo erabiltzen (3)

bigarren metodoa (3); egunen metodoa (3); erabiltzen duen metodoa (4); exauzioaren metodoa (3); hirugarren metodoa (4); ikasteko metodoa (6); lan metodoa (3); lehen metodoa (3); metodoa erabiltzen (3)

antzeko metodoak (3); egiteko metodoak (4); erabilitako metodoak (4); erabiltzen dituzten metodoak (3); kontrazepzio metodoak (10); lan metodoak (3); metodoak erabiliz (4); tortura metodoak (5)

metodoaren irakaspen (8); metodoaren irakaspen transzendentalaren (4)

metodoari buruzko diskurtsoa (3)

kontrazepzio metodoei (4)

kontrazepzio metodoen (4)

# metodologia 1 *iz* zientzia-ikerketa batean edo kidekoetan erabiltzen diren metodoen multzoa.

Zientziaren Filosofiaren esparruari dagozkion helburuak, kontzeptuak eta **metodologia** . **Askoren artean**

Baina **metodologia** horrek ez du balio helendarren lehenabiziko testuekin. **Askoren artean**

Razionaltasun modernoaren **metodologia** fisiko-matematika. **Askoren artean**

Azterketaren egileek beren lanaren **metodologia** etengabe zalantzan jartzeko duten kemenagatik. **Josu Zabaleta**

Dena dela, **metodologia** zuzena da gauza errazak lehenbailehen konpontzea, eta zailak geroko uztea. **Koldo Zuazo**

Horretarako, jakina, estatistika horiek egiteko **metodologia** erabari aldatu zen, bestela prezioek %0,7 gora egin zutelako kalkulatu baita. **Iñaki Heras**

Erabiltzeko **metodologiak** ez zuen utzi bi joeren azpian zegoen liskar politikoa azaleratzen. **Rafa Egiguren**

Ondorio zuzena atera du, **metodologia** halamoduzkoaz. **Joxerra Garzia**

**Metodologian** ados jarri beharra. **Berria - Harian**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **metodologi** g.er.) ik **metodologiko**.

Bai, **metodologia** kontua jakina. **Iñaki Heras**

**Metodologia** mailako bereizketa baizik ez baita. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Desberdintasuna ez datza metodologian soilik, gaien baizik eta **metodologi** desberdintasuna gai desberdintasunaren ondorio da. **Lourdes Oñederra**

Genomaren zatiak gordetzeko erabiltzeko **metodologia** -arazoengatik. **Berria - Gaiak**

Tresnak eta **metodologia** proposamenak ez dira falta. **Berria - Euskal Herria**

**Metodologia** aldaketa bat izan da. **Berria - Kirola**

EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien **Metodologia** sailak. **Berria - Euskal Herria**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zortzi elkarte euskaltzaleok bildu gira eta hainbat denbora gogoetatu eta eztabaidatu ondoren akordio honen edukia eta garapen **metodologia** zein izanen den adostu dugu.

**Herria**

Estrukturalistek lan handia egin dute analisi **metodologiaz** . **Lourdes Oñederra**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erabili den metodologia** (4); **mahaiaren metodologia** (6); **mahaien metodologia** (10); **mahaien metodologia gaindituta** (3); **metodologia bakarra** (3); **metodologia berri** (3); **metodologia eta agenda** (3); **metodologia hitzartzeko** (3)

# metodologiko *izond* metodologiarena, metodologiari dagokiona. ik **metodologia 2**.

Arazo **metodologikoak** , epistemologikoak edota ontologikoak tipikoak izan dira zientziaren ikasketa estandarrean. **Askoren artean**

Berrogeita hamarreko urteetako hizkuntzalaritzan, auzi **metodologikoa** argitzea ez zen arazo hutsala. **Itziar Laka**

Ordura arte adostutako bide **metodologikoa** erabari apurtu zuen Azkaratek azaldutako asmoak. **Berria - Harian**

Egokitze horretarako eredu **metodologiko** zein sistematikoa Aristotelesek eskaintzen zion. **Askoren artean**

Printzipio **metodologiko** unibertsalean oinarrituz. **Askoren artean**

Zientziaren alde **metodologikoak** . **Askoren artean**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gida metodologiko** (3)

**aholku metodologikoak** (3)

# metodologikoki *adlag* metodologiaren aldetik.

Bertsoa osatzerakoan, **metodologikoki** abantaila handia da niretzat modu honetako antolamendu baten jabe izatea. **Andoni Egaña**

**Metodologikoki** , bederen, onartzen dugu fonetikaren eta fonologiaren arteko bereizkuntza. **Lourdes Oñederra**

Herri galdeketak bakarrik ez, badaude beste mekanismo eta prozedurak batzuk, **metodologikoki** konplexuagoak izanda ere, parte-hartze zabalagoa bermatzen dutenak.

**Berria - Euskal Herria**

Gida bibliografiko eta **metodologikoa** . **Berria - Kultura**

# metonimia *iz* gauzaki edo kontzeptu bat adierazteko bere izena erabili ordez gauzaki horrekin zerikusia duen beste izen bat erabiltzea.

Bere-bereak ditu kazetariak sinekdokea eta **metonimia** . **Iñigo Aranbarri**

Liburuaren titulari dagokionez, izatearen **metonimia** da azala, garena adierazteko parte bat. **Ana Urkiza**

Literaturgileak zilegi ez ezik berezkoa du era horretako **metonimiak** egitea (talde jakin baten joera jendarte oso baten ordezkotzat hartzea), baina Houellebecqek idazle mugatuaren trazak hartzen ditu, behin eta berriz jotzen baitu antzeko klaxetara edo errazkeri itxurako soluzioetara. **Berria - Kultura**

Kamera zinemaren **metonimia** bezala: aparatu zinematografiko guztietan kamera da ikus daitekeenarekin lotura estuena duena. *A bout de souffle* (J.L. **Josu Zabaleta**

Godard, 1959) filmeko elkarren segidako bi fotogramaren artean, ikusmenezko jauzi bat, **metonimiazko** loturak (errebolberrera daukan eskutik errebolberrera) eta metaforazko loturak (eskua errebolber bezala) ezabatzen ez dutena. **Josu Zabaleta**

# metonimiko *izond* metonimiarena, metonimiari dagokiona.

Literaturgileak zilegi ez ezik berezkoa du era horretako **metonimiak** egitea (talde jakin baten joera jendarte oso baten ordezkotzat hartzea), baina Houellebecqek idazle mugatuaren trazak hartzen ditu, behin eta berriz jotzen baitu antzeko klaxetara edo errazkeri itxurako soluzioetara. **Berria - Kultura**

Eremuz kanpoko efektu berezi bat, "dokumentatu gabea, materiagabea, proiektiozkoa eta horrenbestez erakargarriagoa" eragitea, Barthesek dioen punctum-ak bezalaxe, harexan "hedapen **metonimikoa**" baita argazkiaren eremuz kanpoa. **Josu Zabaleta**

# metonimizatu, metonimiza, metonimizatzen da/du *ad* metonimia bihurtu.

Kamera bera ere **metonimizatzen** da bere zati batean, objektiboan. **Josu Zabaleta**

Ekoizpenaren eta teknologiaren ikus daitekeen partea **metonimizatzen** du (vs. ikusi ezin daitekeen partea, kimika, laborategia). **Josu Zabaleta**

# metopa *iz* friso dorikoan, bi triglifoen arteko tarte karratua.



Bai dentrikuluen eta bai triglifoen geratzen diren tarteei **metopak** esaten zaie. Santiago Iruretagoiena  
Ondoren, arkitrabe bakoitzaren gainean bi triglifo eta bi **metopa** jarri beharko dira. Santiago Iruretagoiena  
Angeluetako triglifoen ondoan egiten diren **metopak** ez dira karratuak izaten baizik eta luzangatuak, eta triglifoen erdia bakarrik hartzen dute zabalera. Santiago Iruretagoiena  
Frontoiaurrean geratzen den erdikoak hiru triglifo eta hiru **metopako** luzera izango du. Santiago Iruretagoiena

metra ik **metro**<sup>1</sup>.

**metraila** (*orobat **metralla** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **metraila** agertzen da*) **1** iz tirogai gisa erabiltzen diren metal edo burdin zatiak; jaurtigaia, eztanda egitean, zatitzen den puska bakoitza.

Inguruan zartarazi zuten mortero baten **metrailak** bete-betean harrapatu zidan, ordea, eskuin eskua. Harkaitz Cano  
Kristalak hautsi eta **metraila** erori zen bertara. Berria - Mundua  
**Metrailak** segatuta hiltzen ari zelarik oraindik betetzeko zeukan lagunak eskatu mesedea. Koldo Izagirre  
Itsuenarentzat ere nabarmenagia jada abioien presentzia ostertzean, alferrik jotzen zuena, ez bazen **metrailaren** hotsari kontrapuntua emanez haren ikaragarritasuna azpimarratzeko. Ramon Saizarbitoria  
Lehergailuak trenak iritsi eta orduerdia lehertzekoak zirela, eta **metrailarik** ez zutela. Berria - Harian  
**Metrailatik** eskapo baitzetorren eta, menturaz, **metrailan** sartzekoa baitzen berriro. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berrehunetik gora **metraila** zauri ei zituen, eta azken olioak ekarri zizkieten. Edorta Jimenez  
**Metraila** zati haiek gortzetik ateratzen zizkidaten artean. Edorta Jimenez  
Harry Blount, Daily Telegrapheko berriemailea, nire ondoan erori da, **metraila** puska batek jota. Karlos Zabala  
**Metraila** zatiek eragindako lesio bat zuen lobulu frontaletan. Xabier Olarra  
Eraikinetan ez dago bala edo **metraila** arrastorik. Berria - Harian

**3** irud/hed

Herri txiki batean jaiok ginen, nekazari giroan heziak, beraz gure ikaskide hiritarrek kutxan gordetako irainak harrotzen zituzten edo, zehatzago, hizkuntza klasistak eskura jarritako **metraila** guztia erabiltzen zuten gure aurka. Bernardo Atxaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**metraila zati** (4)

metrailadora ik **metrailadore**.

**metrailadore** (*orobat **metrailadora** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **metrailadore** agertzen da*) **1** iz gerra arma automatikoa, fusil handi baten eitekoa, tiroak sortaka jaurtitzan dituena, eta askotan tripode batean ezartzen dena.

**Metrailadorea** erabili ote duen, hori ere ez dago argi. **Metrailadore** baten tiro zaparradak bertan hiltzen du, eta auto gidaria zauritzen. Edorta Jimenez  
Lewis etxeko hamabi **metrailadore** portableekin. Edorta Jimenez  
Batzuk uatxepeko milizianoak ziren, beste batzuk euskal gudariak, motxila puztuekin, fusil mailatuekin, munizio kutxekin, mapa apurtuekin, **metrailadore** astunekin pasatzen ziren etengabe. Joseba Sarrionandia  
50 kalibreko **metrailadore** batez. Edorta Jimenez  
105 milimetroko kanoi bana, 37 milimetroko beste kanoitxo bana eta 20 milimetroko **metrailadore** bina dute ontzi gainean. Edorta Jimenez  
Beretta 38 A **metrailadore** baten herskailua. Juan Garzia  
Asmoa han **metrailadore** bat ezartzea omen zen. Edorta Jimenez  
Kale gehienetan ikusten dira militarrik; gazteak guzti-guztiak, **metrailadorea** bizkarrean dutela. Berria - Mundua  
**Metrailadore** bat hasi da kalakan, tiro-totelka, eta beherantz makurtu dut burua tupustean. Mirentxu Larrañaga  
**Metrailadoreak** tiroka hasi dira berriro. Mirentxu Larrañaga  
Tardienta aldean **metrailadore** batek zaunka segitzen zuen. Edorta Jimenez  
**-Metrailadoretako** sarjentua izan nintzen ni Itxarkundia batalioian. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Metrailadore**-deskarga batez akabatu zuen harakin-haur bidutzi batek. Juan Garzia  
Saseta **metrailadore**-batalioiko kaperau ibili zen. Edorta Jimenez  
Horren ostean **metrailadore**-tiratzaile sartu zen armada errepublikazalean. Edorta Jimenez  
Abadeak gerratean **metrailadore** maneiatzaile jardun zuela ere badio biografoak. Edorta Jimenez  
Palmondoaren oinean **metrailadore** postua zegoen. Edorta Jimenez  
**Metrailadore** bala batek bihotza erdibitu zion. Alberto Ladron Arana  
Ongi destatutako **metrailadore** mordoak. Jokin Urain  
· Han ziren milioi batzuk **metrailadore** kartutxo zintetan, hantxe 500 hegazkin bonba. Edorta Jimenez

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pistola-**metrailadore** bat zuen eskuan. Alberto Ladron Arana

**4** irud/hed

Alde egin nuelarik, ez nekien korridorean lubakiak eta **metrailadore**-hobiak ez ote nituen aurkituko itzultzean. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**metrailadore kartutxo zintetan** (4)

**metrailagailu** iz **metrailadorea**.

Aleman airekoak ziren aldiz Junker-52 motakoak: bira **metrailagailu** eta 500 kilo bonba. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Aldiz, Heinkel-51 motakoek bi **metrailagailu** zituzten, bonba aurtikitzeke tresnak bestalde, hegalean pean emanik kiloko bonba ttipi batzu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Metrailagailuz** ere tirokatzen zituzten defentsarik gabe zihozazen jende gaixoak.

Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## metrailaketa iz metrailatzea.

Espainiako Gobernuaren esanetan, ariketak egiten direnean, egunero garbitzen dira **metrailaketa** gunea eta lurrean geratzen diren jaurtigaiaik kendu egiten dira. **Berria - Euskal Herria**

## metrailatu, metraila(tu), metrailatzen (*orobat mitrailatu g.er.*) 1 du ad norbaiti edo zerbaiti metrailadorez tiro egin.

Kordobako frontetik zetorren heriotza-treko dozenaka prisionero **metrailatu** zituzten Pozo del Tio Raimundon. **Lutxo Egia**

Soldata igoera eta sindikatzeo eskubidea aldarrikatzeagatik **metrailatu** eta hil zituzten langile batzuei buruz ari gara. **Berria - Harian**

Bonbardaketariak herria txikitu ondoren, ihesari eman ziotenak **metrailatzeari** ekin zioten ehiza-hegazkinak. **Lutxo Egia**

Trafikoko bi guardia zibil hil zituzten atzo Castejonean tiroz, **metrailatuta**. **Berria - Euskal Herria**

Tren osoa **metrailatu** zuten. **Fernando Rey**

Herenegun etsaien ehizahegazkin batek alemanen beste ehizahegazkin bat **metrailatu** zuen gure hiriaren gainean, eta hegal bat kendu zion. **Fernando Rey**

Polikarpov zaharrean egiten dute hegan gure herria suntsitu nahi duen etsaiaren posizioak **metrailatzen**. **Koldo Izagirre**

## 2 (era buturua izenondo gisa)

Eta gero zorrotz begiratutako treneko makina bosgarren bideko tren **metrailatuaren** ondotik pasatu zen. **Fernando Rey**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**tren metrailatuaren ondotik** (3)

## metrailatzaile iz metrailatzen duen pertsona.

**-Metrailatzailea**, entzuten diozu zuk Dutertre tenienteari? **Josu Zabaleta**

T.k, hegazkineko **metrailatzaileak**, etsaiaren ehiza hegazkin baten erasoia izan zuen. **Josu Zabaleta**

**-Metrailatzailea**, airearen presioa normala, botiletan? **Josu Zabaleta**

## metraileta (*orobat mitraileta g.er. eta mitralleta g.er.*) 1 iz esku metrailadorea, kanoi laburrekoa.

Eskatu bezala, bi **metraileta** hartu nituen; C.Z.25, txekoak biak ere, eta lau kargadore munizioz beteta. **Rafa Egiguren**

Thompson **metraileta** bat zen, kargadore zirkularrekoa. **Alberto Ladron Arana**

Metal klaskada bortitz batek adierazi zigun **metrailetaren** mekanismo hilgarria prest zegoela berriro. **Alberto Ladron Arana**

-Altza eskuak! -esan zuen, **metraileta** aterata. **Koldo Biguri**

**Metraileta** hartuta joan da! **Koldo Biguri**

**Metrailetari** ezkerrekin utsiz, eskuinarekin [...] hamar zigorkada eman zizkion ipurdian. **Koldo Biguri**

Bi gizon sartu ziren, **metraileta** bana eskuetan. **Jon Alonso**

**Metraileta** gabardinaren azpian gordeta, Bar Otamendin sartu nintzen eta kafea eskatu nuen. **Rafa Egiguren**

Aurreko astean ETAko kide batzuek zibilen jeep bati eraso egin zioten **metraileta** eta granadekin. **Jokin Muñoz**

Baina nik segitzen nuen alemanen parabellum, errebolber eta **metrailetan** irispidean. **Fernando Rey**

Joanese lan errexagoa ukan zuen zenbait hilabete lehenago, **metrailetan** kanoien egiten. **Eneko Bidegain**

Eguna urratu zuenean, **metrailetak** aztertu zituzten, eta soldadu batek, zaharrena bera, nahi gabe katua sakatu eta bala-sorta sartu zitzaion sabelean. **Felipe Juaristi**

**Metraileta** baten tarrateko labor bat entzun zen, urrun. **Koldo Biguri**

Pistola baten tiroa eta **metraileta** baten tiroketa ez bereizteko bezain aguretuta ere ez nago! **Koldo Biguri**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kontzientzian kezka izpirik gabe, basa ihizi bat bezala garbituko zuen, **metraileta** ukaldi batez. **Eneko Bidegain**

Baina **mitralleta** ukaldika S.S.ek emaitza horiek laster geldiarazten dituzte. **Michel Oronoz**

Haren herikideak edo borroka lagunak hiltzeko baliatuko ziren **metraileta** zatiek ez zioten nihundik ere sabela kilikatzen. **Eneko Bidegain**

Nik ere joan behar nuela, baxera lerrotkatzen ari nintzelarik, **mitralleta** zarrasta bat entzun nuen hor berean... uniforma ezezagun bateko soldadoak tiroka ari ziren mirador-era. **Marzel Etxehandi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**metrailetak eskuan** (3)

## metrailetadun (*orobat mitralletadun*) izond/iz metraileta duena.

Ibilgailuaren ate ondoko zomorroi **metrailetadunak** agur martziala egin zion, barnera sartzean. **Aingeru Epaltza**

Bidaiariak, begiak luze, so egiten digute, S.S. **mitralletadunaz** inguratuak baigara. **Marzel Etxehandi**

Haren ondoren, tankeak atera zituzten kalera, kamioi **metrailetadunak**, bazookak, eta desfile izuzkoa antolatuta zuten, pauso irmoz, sorbaldak zut, begiradak aurrera.

**Karlos Linazasoro**

Pistola ezkerretara mugitu nuen **metrailetadunari** tiro egiteko. **Alberto Ladron Arana**

## metraje iz film baten luzera.

Filmaren **metrajearen** arabera. **Unai Elorriaga**

Artelanak lasai ikusteko eta disfrutatzeo aukera ematen dute, nahiz eta bideo batzuek logikatik kanpoko **metrajeak** izan. **Berria - Kultura**

## metralla ik metraila.

## metre ik metro<sup>1</sup>.

# metrika iz bertso lerroen neurriaren eta egituraren azterketa.

Euskal poetika baten sustrai, eredu eta zer-nola argien falta, **metrikari** -eta dagozkien kontuetan. **Anjel Lertxundi**

Antzina-antzinako kantuak albora utzita, **metrika** aldetik oso gorabeheratsuak baitira horiek, [...]. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Doinuaren **metrikak** eta oinak, eta hitzen eta esamoldeen banaketa txukun eta dotoreak. **Santiago Iruretagoiena**

## 2 (hitz elkartuetan)

Silaba esplosioen eta inplosioen jokoaren arabera ulertarazteak garamatza, **metrika** gertaera bat baizik ez den oharpen garrantzitsu bateraino. **Isabel Arrigain**

## metriko<sup>1</sup> 1 izond metrikari dagokiona.

Edozein eduki mental, izan daitekeen berriena edo bihurriena izanik ere, eskema **metriko** erabilien barruan -5-5/8 eta 7/6 silabako egiturak dira une honetan horiek-egokitzeko gaitasuna. Sarasuak beste doinu batzuk hauta zitzakeen molde **metriko** berean (hamarreko handia). **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

## metriko<sup>2</sup> 1 izond neurri sistemaz mintzatuz, oinarritzat metroa duena.

Sistema **metrikoan** egiten dugun gisa, hamar egun pasatzen direnean, adibidez, sor genezake unitate bat, eta ehun pasatzen direnean beste bat, eta 1000 pasatzen direnean beste bat, eta abar. **Pello Salaburu**

## 2 kintal metriko sistema metrikoko kintala.

Denen artean, begira botata, 1.205.000 kintal **metriko** belar jo zuten, eta seina pezeta kintaleko: 7.230.000 pezeta... orduko pezetak, noski. **Pello Zabala**

## 3 zinta metriko metroak eta metroaren zatiketak markatuak dituen zerrrenda, luzerak edo distantziak neurtzeko erabiltzen dena.

Teknikariak paper bat atera zuen besapean zeraman karpetatik, **zinta metriko** bat soineko poltsikotik, eta argazki kamera digital txiki bat. **Jon Alonso**

Pentsamendu lohiak baztertzeko **zinta metrikoz** neurtutako larruazal azalgarria, erakuts daitekeenaren neurri zuzen eta egokia. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## metrisa iz unibertsite diploma edo lizentziatura.

Harrietxeko Christine GARAYek etnologiako **metrisa** ardietsi du. **Herria**

Zuzenbide **metrisa**: Nathalie DURRUTY Gure Ametsakoak. **Herria**

## metrizazio iz metriko bihurtzea.

Gaur egun, ohiko kontzeptuen tipologiak hertsiki lotuta daude kontzeptuon **metrizazio** -prozedurei, eta are zehatzago prozedura horietarako erabilitako eskalen tipoei.

**Askoren artean**

## metro<sup>1</sup> (orobat metra g.er. eta metre g.er.) 1 iz luzera-banako nagusia, neurri sistema hamartarraren oinarria, Paristik igarotzen den meridioaren arabera (meridiano laurdenaren hamar-milioiena) neurtzen dena (m). (distantzietan)

Sarreraren kanpoaldetik atalondoaren barnealderaino, guztira, hogeita bost **metro** zeuden. **Elizen arteko biblia**

Beste ehun **metro** eta lruaingo atarian egongo zen. Azken 3.000 kilometroetan 65 **metro** jaisten da ibaia. **Bernardo Atxaga**

Bere hoteleko sarrera baino hogeit **metro** lehenago aparkatu nuen autoa. **Bernardo Atxaga**

Beste guztiak zerrategiko beste sarreraren zeuden ordurako, berrogei bat **metro** beherago. **Bernardo Atxaga**

Auto bat gelditu da **metro** batzuk haratago. **Aingeru Epaltza**

Kaleetan elkarri hitz egiten dioten lagunek ere, **metro** pare bateko distantzia uzten dute tartean. **Harkaitz Cano**

Telefonoa belarritik ia **metro** -erdira jarri baitzuen. **Iñaki Mendiguren**

-Harresien pean, itsasotik **metro** gutxira, etzanda dago Arkimedes, eskua zoruan jarria. **Jon Muñoz**

Itxura bitxiko harkaitz bat seinatu zuen itsasertzetik **metro** batzuetara. **Jon Muñoz**

Berrogeita hamar **metro** egin zituenean, [...]. **Koldo Biguri**

Berrehun bat **metro** egin orduko, keinu egin zidan, gelditzeko! **Daniel Landart**

Flash batean, doi-doi ikusi zituen kutxak ozeanoaren hondoan botoak, ehun **metro** uraren azpian. **Jon Muñoz**

Zenbat **metro** egin du gora urak? **Eduarne Elizondo**

· Lasterka jo zituen kaiko **metro** gutxiak itsasontziaren bila, baina ez zuen aurkitu. **Felipe Juaristi**

## 2 (dimentsioetan izan (da) aditzarekin)

Gero, harresia neurtu zuen, eta hirurogeita hamar **metro** zen. **Elizen arteko biblia**

**Metro** erdikoa **zen**, eta izugarri polita [hartz ttiki fosildua]. **Bernardo Atxaga**

Beste hegadun izakia ere bost **metro** zen. **Elizen arteko biblia**

Luzeran, berriz, zazpi **metro** da heste meharra. **Irene Aldasoro**

Bere gerria inguruz lau **metro** ta irurogei zentimetro omen zan. **Patziku Perurena**

-Joantxo -banintzen **metro** bat eta laurogei, baina Joantxo izaten jarraitzen nuen harentzat-. **Juan Kruz Igerabide**

## 4 (dimentsioetan izan (da) aditzarekin luze, zabal eta kidekoekin)

Salomonek Jaunari eraiki zion etxe hura hogeita hamar **metro** zen luze, hamar **metro** zabal eta hamabost **metro** gora. **Elizen arteko biblia**

Hiramek brontzezko hamar orga egin zituen; bi **metro** luze ziren, bi **metro** zabal eta **metro** eta erdi sakon. **Elizen arteko biblia**

Horma nagusia 135 **metro** garai da. **Eduarne Elizondo**

Beheko solairua bi **metro** eta erdi zabal zen, erdikoa hiru **metro** eta hirugarrena hiru **metro** erdi. **Elizen arteko biblia**

Paper batzuk atera zituen bere larruzko karteratik, eta **metro** erdiren bat luze izango zen listari bat. **Bernardo Atxaga**

21 urte ditu, 1,85 **metro** da luze eta 78 kilo pisatzen ditu. **Berria - Harian**

Tximino horiek bi **metro** dira altu, eta lurtean egiten dituzte euren gordelekuak. **Berria - Gaiak**

## 4 (aditza ezabaturik)

Neurri hauetakoa ontzia egingo duzu: ehun eta berrogeita hamar **metro** luze, hogeita bost **metro** eta erdi zabal, eta hamabost **metro** eta erdi gora. **Jose Antonio Mujika**

Zazpi bat **metro** zabal eta hamabost bat luze. **Txillardegia**

Mahaia ez da biziki handia, **metro** bat zabal eta berrogeita hamar zentimetro barna, baina bederen aski azkarra da. **Filipe Bidart**

-21 **metro** 60 luze eta 34 **metro** 40 zabal. **Jon Muñoz**

Behean, dorre karratu bat, hirurogeita hamar **metro** garai, bloke itzelez egina. **Jon Muñoz**

Kukufraka-korala bat, lau **metro** zabal. [Juan Garzia](#)  
Hiru **metro** gorako sare izar bat zuen hotel berriko harresi. [Eneko Bidegain](#)  
Hiru **metro** luzeko letretan idatzita, Jesus hitza ageri zen. [Bernardo Atxaga](#)

## 5 (dimentsioetan izan (du) aditzarekin luze, zabal eta kidekoekin)

Bost **metro** luze ditu; 14 papiro-hostoz egina dago bilkaria. [Jon Muñoz](#)  
Bi zutabeak berdinak ziren: bederatzina **metro** zuten gora eta seinia **metro** zirkunferentzia. [Elizen arteko biblia](#)  
Sarreraren hegal batek zazpi **metro** eta erdi oihal izango ditu, hiru zutabe eta hiru oinekin. [Elizen arteko biblia](#)

## 6 (dimentsioei buruzko bestelakoetan)

Lau **metroko** sakonera zuen, eta kanpoko hormek **metro** bateko lodiera. [Elizen arteko biblia](#)  
Ertz batetik bestera bost **metroko** diametroa zuen, bi **metro** eta erdiko sakona eta hamabost metroko ingurua. [Elizen arteko biblia](#)  
Berak hil zuen bi **metro** eta erdiko egiptoar erraldoi bat ere. [Elizen arteko biblia](#)  
**Metro** beteko horma, harriz eta zementuz egina. [Juan Kruz Igerabide](#)  
Zutabe-buruetan ezartzeko, brontzezko bi kapitel egin zituen, bina **metro** eta erdikoak. [Elizen arteko biblia](#)  
Estu xamarra, hamar bat **metro**. [Txillardeggi](#)  
Sapaia altua da, lau **metro** bai. [Harkaitz Cano](#)  
**Metro** eskaseko ur gelditan itoa. [Hasier Etxeberria](#)  
Verstak 1.067 **metro** ditu, hau da, kilometro bat baino gehixeago. [Karlos Zabala](#)

## 7 (kopurua aipatuz)

Guztira, kalkulatu dugunez, seiehun **metro** soka paratu dugu kanpamendu nagusitik bigarrenera. [Xabier Montoia](#)

## 8 (hitz elkartuetan)

Konbentzio nazionalak Estatu Batuetako Kongresuari 1794an bidalitako lehenengo **metro**-eredu hura bezala, Karibe itsasoan hondoratu baitzen, hantxe ozeanoaren hondoan zetzan munduko matematika-lanen liburategirik ederrena. [Jon Muñoz](#)  
Pelikula-**metroak** puska belatuak. [Aingeru Epaltza](#)

## 9 irud/hed

Maitatzea da giza egite ororen **metroa**. [Jenaro Garate](#)

## 10 (atletismo probetan)

100 **metroak** 9,77 segunduan. [Berria - Kirola](#)  
Gail Devers estatubatuarrek ere asmo handiko helburua zuen Budapesten: 60 **metroak** eta 60 metro hesidunak irabaztea. [Berria - Kirola](#)  
60 **metro** hesidunak eta 4x400 **metro** txandakakoa. [Berria - Kirola](#)  
Beste urre bat ere lortu zuen, talde lanean, 4x200 **metroan**. [Berria - Kirola](#)  
Kelly Holmesez arazorik gabe irabazi zuen 1.500 **metroetan**. egungo 100 **metroetako** olinpiar txapelduna. [Berria - Kirola](#)  
Kenenisa Bekele etiopiarraren 5.000 **metroetako** munduko marka ondu, 5.000 **metroetan** munduko txapeldun izan eta 10.000 **metroetan** aritzeko buru-belarri prestatu. [Berria - Kirola](#)  
2003ko Munduko Txapelketan urrea 200 eta 400 **metro** estiloetan, eta 200 **metro** tximeleta estiloan. [Berria - Kirola](#)  
Joan den astean estatuko marka berria ezarri zuen 100 **metro** bularkako proban. [Berria - Kirola](#)  
200 **metro** bular estiloko proban. [Berria - Kirola](#)  
15 urterekin hautsi zuen, hain justu, tximeleta estiloko 200 **metroetako** munduko errekorra. [Berria - Kirola](#)  
Igeri egingo du 200 **metro** libreetan, tximeleta estiloko 200 **metroetan**, 4x200 **metro** errelebotan, eta 100, 200 eta 400 **metroko** estiloetan. [Berria - Kirola](#)  
Gizonezkoen 200 **metro** libreetako probak eman zion hasiera egunari. [Berria - Kirola](#)  
Gizonezkoen 200 **metro** libreko txandak. [Berria - Kirola](#)  
Pertika jauzian sei **metroak** gainditzen dituen hamargarren jauzilaria da Mack. [Berria - Kirola](#)

## 11 metro karratu (110 agerraldi, 18 liburu eta 69 artikulutan) metro koadroa.

Ez zen zernahi: 200 **metro karratu**, Zabalgunearen erdi-erdian. [Aingeru Epaltza](#)  
Café de Franceko azoteara jo genuen lehenbailehen, "munduko ehun **metro karratu** onenetara", beste turistaren batek esan zuenez. [Bernardo Atxaga](#)  
**Metro karratua** bederatzita ehun eurotan saldu zen Angeluko lur andana bat. [Herria](#)  
Donostiako kanposantuan **metro karratuak** balio duenarekin Torre viejan apartamentu bat eros dezakezu. [Ramon Saizarbitoria](#)  
Lurra, 6.300 **metro karratuko** eremua, Ziburuko herriak saldua. [Herria](#)  
Ameriketan, New Yorken berean 350 **metro karratuko** salgune bat idekia du Quiksilver enpresak. [Herria](#)  
Lantokian bertan lo egiten zuten, bi **metro karratuko** xoko batean. [Ramuntxo Etxeberri](#)  
Hogeita hamar **metro karratu** inguruko txoko bat zen, argi gutxiakoa baina atsegina. [Bernardo Atxaga](#)  
Zenbat **metro karratu** ditu begirada baten tristurak? [Joxean Agirre](#)

## 12 metro koadro (312 agerraldi, 25 liburu eta 187 artikulutan; orobat koadro 18 agerraldi 13 artikulutan) lau aldeak metro batekoak dituen laukiaren azalera.

Erradak, zer neurri dik hire aberri horrek, zenbat **metro koadro** dizkik hire Euskadi bedeinkatu horrek? [Hasier Etxeberria](#)  
Eraikuntzaren luze-zabala izugarria bada ere (10.000 **metro koadro** ditu erabilgarri), lau bat pisuko altuera doiak liburu erraldoi etzan baten itxura ematen dio. [Anjel Lertxundi](#)  
Tabako Fabrikaren 30.000 **metro koadroak** hiru solairutan banatzen ditu proiektuak. [Berria - Kultura](#)  
Hogeita bost **metro koadroko** etxebizitza bat, behinola babes ofizialekoa izandakoa. [Iban Zaldúa](#)  
1,2 **metro koadroko** nire idazmahaiaren gainean, paketetxo bat aurkitu nuen. [Juan Garzia](#)  
Hamabost **metro koadro** inguruko gela bat zen, ohea eta freskatzeko konketa besterik ez zituena. [Harkaitz Cano](#)  
1935eko erroldak Argentinan 1.100.000 **metro koadro** oihan zituela zioen. [Berria - Gaiak](#)  
60 litro **metro koadroko** bota zituen ordu betean. [Pello Zabala](#)  
Azokaren 3.500 **metro koadrotan** 50 herrialdetako 670 enpresa elkartzen dira. [Berria - Kultura](#)  
"Guk **metro koadroetan** neurtu diagu eta," begi ñika Gastonek. [Pablo Sastre](#)

## 13 metro kubiko (58 agerraldi, 7 liburu eta 30 artikulutan) metro kubo.

**Metro kubiko** batean espazioa beti berbera da, nahi dudan lekuan eta nahi dudan bezainbat aldiz pentsatu arren. [Ibon Uribarri](#)  
40.000 eta 50.000 **metro kubiko** arteko bolumena nahikoa izanzen litzateke presaz honatago dauden eremuak uraren pean gelditzeko. [Eduarne Elizondo](#)  
Bolumena neurtzen badugu, 100 **metro kubiko** zaborretik 9 **metro kubiko** zepa aterako litzateke eta **metro kubiko** bat errauts. [Berria - Euskal Herria](#)  
5,5 mila milioi **metro kubiko** gas erosiko ditu guztira. [Berria - Ekonomia](#)  
Urteko 27.200 milioi **metro kubiko** ur espero da eramango dituela hegoalderuntz. [Pello Zabala](#)  
Konoak inbutuarena egin zuen, tapoiaren gainean hogeita mila **metro kubiko** urrezko aintzira bat formatu zen. [Juan Garzia](#)  
Eusko Jaurilaritzaren Uraren Lege egitasmoak zerga ekologikoa dakar; ur **metro kubikoko** 0,06 euro kobratzea, alegia. [Berria - Euskal Herria](#)

## 14 metro kubo (18 agertzen eta 2 liburu eta 3 artikulu) alde guztian metro bateko metroa dituen bolumenen arabera.

Cementos Rezolac 1.220.000 tona zementu saldu zituen, eta 1.807.000 tona agregatu eta 327.000 **metro kubo** betoi Hormigones y Minasek. **Berria - Ekonomia**

Zerri horiek orok emanen dute urtean 3500 **metro kubo** ongarri. **Herria**

Aguneari 650 **metro kubo** ur higatu ba doa hortik zuzenean Aturri ibaira. **Herria**

Orhar Angeluarrek ura pagatzen dute hiru eurotan **metro kubo**. **Herria**

Orain arte, Ukrainak 50 dolar ordaintzen zuen 1.000 **metro kuboko**, errepublika sobietar ohia zelako. **Berria - Mundua**

Etxe bateko airea osasuntsutzat jotzeko, halako gaien kontzentrazioak ez du 200 mikrogramo **metro kuboko** (ug/m3) muga gainditu behar. **Berria - Gaiak**

Biltegi haien edukiera milioika **metro kuboko** zen. **Karlos Zabala**

**Metro kuboetan** neurtu behar baita, betelana egiteko. **Pablo Sastre**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**metra gora** (8); **metra gorako** (5); **metra karratu** (5)

**bi metro luze** (9); **bi metro zabal** (7); **bost metro luze** (7); **bost metro zen** (7); **ehun bat metro** (25); **ehunka metro** (5); **hamar bat metro** (13); **hamar metro egin** (6); **hamar metro haratago** (5); **hamar metro luze** (11); **hamar metro zabal** (7); **hamar metro zen** (8); **hamarren bat metro** (5); **handik metro batzuetara** (9); **handik metro gutxira** (5); **handik metro gutxitara** (6); **hiru bat metro** (6); **hogei bat metro** (8); **hogei metro luze** (6); **lerrotik metro batera** (5); **litro metro koadroko** (6)

**metro baino gehiago** (5); **metro baino gehiagoko** (5); **metro baino gutxiagora** (7); **metro baino hurbilago** (5); **metro bakar bat** (5); **metro bat zabal** (6); **metro batera geratu** (7); **metro batzuk atzerago** (6); **metro batzuk aurrerago** (5); **metro batzuk egin** (6); **metro batzuk gorago** (5); **metro batzuk haratago** (5); **metro bete** (6); **metro beteko** (7); **metro da luze** (41); **metro ditu** (21); **metro egin** (38); **metro egin zituen** (7); **metro eginda** (10); **metro egingo** (6); **metro erdi** (31); **metro erdi bat** (8); **metro erdia** (7); **metro erdiko** (20); **metro erdira** (17); **metro eskas** (11); **metro eskaseko** (10); **metro eskasera** (8); **metro eta autobus** (5); **metro eta erdi** (51); **metro eta erdiko** (25); **metro eta erdikoa** (5); **metro eta erdira** (5); **metro eta laurogei** (5); **metro falta** (14); **metro falta zirela** (8); **metro garai** (14); **metro gehiago** (9); **metro gora** (46); **metro gorago** (16); **metro gorako** (5); **metro gutxi** (10); **metro gutxira** (43); **metro gutxira zegoen** (6); **metro gutxitara** (13); **metro harantzago** (7); **metro haratago** (17); **metro hesidunak** (12); **metro hesidunetan** (13); **metro inguru** (11); **metro inguruan** (5); **metro inguruko** (24); **metro ingurura** (23); **metro izan** (5); **metro izango** (12); **metro izango ditu** (6); **metro karratu** (39); **metro karratuko** (54); **metro karratuko bastiza** (6); **metro karratuko eremua** (11); **metro koadro** (140); **metro koadro baino** (13); **metro koadro ditu** (10); **metro koadro izango** (12); **metro koadroko** (8); **metro koadroak** (13); **metro koadroko** (129); **metro koadroko azalera** (10); **metro koadroko eremu** (5); **metro koadroko saila** (5); **metro koadrotan** (6); **metro koadrotik** (11); **metro kuadro** (6); **metro kuadroko** (9); **metro kubiko** (50); **metro kubiko bakoitzeko** (6); **metro kubiko ur** (12); **metro kubo** (33); **metro kubo gas** (7); **metro kubo ur** (5); **metro kuboko** (12); **metro lehenago** (11); **metro libreetan** (12); **metro luzatu** (5); **metro luze** (80); **metro luze da** (7); **metro luze zen** (8); **metro luzeko** (18); **metro pare** (19); **metro pare bat** (7); **metro pare batera** (10); **metro txandakakoa** (8); **metro txandakakoa** (5); **metro urrunago** (8); **metro zabal** (31); **metro zabaleko** (5); **metro zen luze** (13); **metro zeuden** (5); **metro ziren** (7)

**mila metro gora** (6); **mila metro karratuko** (7); **mila milioi metro** (6); **milioi metro koadro** (13); **milioi metro kubiko** (9); **milioi metro kubo** (14); **pare bat metro** (5)

**ehun metroak** (10)

**azken metroetako** (5)

**azken metroetan** (49)

**bost metroko altueratik** (5); **metroko altuera** (22); **metroko altuerako** (5); **metroko altueran** (16); **metroko altueran dago** (5); **metroko altuerara** (5); **metroko altueratik** (11); **metroko altueratik erori** (5); **metroko altura** (5); **metroko amildegi** (13); **metroko amildegi batetik** (7); **metroko desnibela** (8); **metroko diametroa** (9); **metroko diametroa duen** (5); **metroko garaia** (8); **metroko garaiera** (41); **metroko garaiera du** (9); **metroko ibilbidea** (9); **metroko ibilbidea osatu** (5); **metroko jauzia** (13); **metroko lasterketan** (5); **metroko luzera** (38); **metroko luzera du** (6); **metroko luzera zuen** (5); **metroko mailan** (12); **metroko mailan dago** (7); **metroko mailara** (11); **metroko mailatik** (6); **metroko marka** (7); **metroko munduko marka** (7); **metroko proban** (14); **metroko sakonera** (6); **metroko sakoneran** (19); **metroko tartea** (7); **metroko zabalera** (22); **metroko zuloa** (8)

**metrokoan munduko marka** (5)

**ehun bat metrora** (21); **ehunen bat metrora** (12); **hamar bat metrora** (20); **hamarren bat metrora** (7); **hiru bat metrora** (9); **hogei bat metrora** (6); **lerrotik bost metrora** (7); **metrora dago** (10); **metrora dagoen** (12); **metrora egon** (12); **metrora gelditu** (5); **metrora geratu** (6); **metrora igo** (7); **metrora igoko** (7); **metrora igoko da** (6); **metrora iritsi** (5); **metrora jaitziko** (5); **metrora zegoela** (6); **metrora zegoen** (29); **metrora zeuden** (10)

**metrotik behera erori** (6); **metrotik gora** (57); **metrotik gora egingo** (9); **metrotik gora elurra** (9); **metrotik gorako** (18); **mila metrotik gora** (6)

## metro<sup>2</sup> 1 iz hiritako garraio publikoko tren elektrikoa, gehienbat lur azpitik dabilena; garraio mota horren instalazioen multzoa.

Gero, **metroa** ez da jada **metroa**, lur azpitik ateratzen delako, eta benetan aintzira ez den aintzira hartako ur-bazterretan barna ibiltzen delako. **Fernando Rey**

Bi geltoki pasata, **metroa** tranbia bihurtzen dela dirudi. **Lourdes Oñederra**

Eta New Yorkekoa, **metro** zikin, zaharkitu eta zaratatsua da. **Harkaitz Cano**

Bertan **metro** eta autobusen ibilbideak zetozen gorriz eta urdinez markaturik. **Joxemari Iturralde**

"Fucky subway", **metro** alua, haserreturik zegoen norbaitek idatzia. **Iñaki Zabaleta**

Hoteltik irten eta **metroan** sartu naiz. **Edorta Jimenez**

Harlemera zihoan **metroa** hartu zuen, 6. zenbakia. **Iñaki Zabaleta**

Erraza da Manhattanango irla barruan **metroa** erabiltzea: uptown edo downtown, gora edo behera, ez dago besterik. **Harkaitz Cano**

-Hara beraz, gutik egin du, baina zuk ere, ene gisa, **metroa** huts egin duzu. **Janbattitt Dirassar**

Times Square-n **metroa** utzi eta oinez joan zen 42. kalean zehar Port Authority-ko autobusetara. **Iñaki Zabaleta**

Mukuru doa **metroa**. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Azken **metroa** etxera itzultzeko. **Lourdes Oñederra**

CAFek **Erromako Metrorako** beste sei tren egiteko kontratua lortu du **Berria - Ekonomia**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gazta batena edo **metro** -geltoki batena bezalakoa. **Jon Muñoz**

Barbès **metro** -geltokitik irteetan, tunikaz jantzitako beltz mardul batek esku-paper bat eman zion Léari. **Jon Muñoz**

Hotz egiten du jada, baina hala ere **metro** sarrera batean geratu gara aurrekontratua sinatzeko. **Harkaitz Cano**

Lucyk Camden Towneko **metro** irteeraraino jo zuen eta berriro gelditu zen alde hartako mapa zuen panelaren aurrean. **Joxemari Iturralde**

Ederki moldatu zen Albert 5. lerroko **metro** -ahoaren aurretik pasatu zirenean abiada moteltzeko. **Jon Muñoz**

**Metro** zulotik atera eta hotelerantz abiatu ziren oinez. **Joxemari Iturralde**

**Metro** txartelak erabiliz egindako tutuak. **Harkaitz Cano**

Mingaina ateratzen diezu **metro** -bagoietako bidaiariei. **Lutxo Egia**

Hiri txikia da hau, laburrak dira **metro** bidaiak. **Urtzi Urrutikoeetxea**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**metro geltoki** (9); **metro geltokian** (8); **metro geltokitik** (5); **metro sarrera** (3)

**azken metroa** (4); **bilboko metroa** (5); **metroa etorri** (3); **metroa hartu** (27); **metroa hartu nuen** (4); **metroa hartuko** (3); **metroa hartzen** (4)

**azken metroak** (10); **bilboko metroak** (14)

**azken metroan** (4); **bilboko metroan** (3); **metroan edo autobusean** (3); **metroan sartu** (9); **moskuko metroan** (4); **zazpie metroan** (6)

**bilboko metroaren** (7); **metroaren geltokirantz** (3); **metroaren hirugarren linea** (3)

**bilboko metroko** (5); **metroko bagoietan** (3); **metroko geltoki** (4)

**erromako metrorako** (3); **madrilgo metrorako** (3)

**metrotik atera** (3)

## metroiintelektual izond

Hizketa modu gatzatu, sustantibo, **metroiintelektual** eta metrokontzeptual hori ustelagoa, pedanteagoa, gauzaezagoa eta engainagarriagoa da beste mintzamolde higikor aditzekikoa baino, baina merkatuan saldu-errexagoa da askozaz ere, eta hortik heldu da haren arrakasta. **Iñaki Seguro**

Feeling, cool eta holakoak esatea ikaragarri gustatzen zaie, eta, okerrago dena, apokaliptiko, dekonstruktibo, identitario eta horien tankerako berba zantar metakrilatozkoak [...], eta horrela osatzen dute beren jardun **metroiintelektuala**. **Iñaki Seguro**

## metroka adlag metroa neurri hartuta.

Horretan pentsatzen dut apartamentu batean neurriak hartu aldiro edo oihala **metroka** saltzen didatelarik. **Monika Etxebarria**

## metrokontzeptual izond

Hizketa modu gatzatu, sustantibo, metroiintelektual eta **metrokontzeptual** hori ustelagoa, pedanteagoa, gauzaezagoa eta engainagarriagoa da beste mintzamolde higikor aditzekikoa baino, baina merkatuan saldu-errexagoa da askozaz ere, eta hortik heldu da haren arrakasta. **Iñaki Seguro**

## metrologia iz pisu eta neurrien sistemak aztertzen dituen zientzia.

Eraikin berriak mekanizazio zentroa, **metrologiako** eta eskala submikrometrikokoan egiaztatzeko laborategia eta bulegoak ere izango ditu. **Berria - Ekonomia**

Erakusketaren gainerako guneak tresneria elektriko eta elektronikoari, manipulazio bidezko eta robotikoari, tresneria hidrauliko eta pneumatikoari eta **metrologia** eta kalitate kontrolari eskainiko dizkiete. **Berria - Ekonomia**

## metronomo iz musika lan baten konpasaren modua zehatz neurtzeko tresna.

**Metronomoa** martxan jartzen dut Bonheur parfait jotzen hasteko. **Anjel Lertxundi**

Hirugarren aldiz ekiten diot piezari, **metronomorik** gabe oraingoan. **Anjel Lertxundi**

Planaren helburuak betetzen ari ziren, **metronomo** baten zehaztasunaz. **Metronomoaren** tiki-takak bere horretan jarraitzen zuen. **Iban Zaldua**

## metropoli (orobat metropolis g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian metropoli agertzen da) 1 iz hiri handia, estatu edo eskualde bateko hiri nagusia.

New York munduko bigarren **metropoli** bihurtuko duen dekretua onartu du. **Lopez de Arana**

Hegazkinetik jaistear ginela, andereak leihotik **metropoliko** bide nagusiak autoz hanpatuak susmatzen zituela erran zidan. **Itxaro Borda**

Bilbo eta inguruko herriek osatzen duten **metropoliaren** barruan. **Berria - Euskal Herria**

Familiak Bilboko Plaza Eliptikoan zuen bizilekua, **metropoliaren** bihotzean, Guggenheim museotik nahiko gertu. **Patxi Iturritegi**

Mendebalde globalizatuaren erretratu kritikoa egiten du Rozasek: lan baldintza kaxkarrak, etorkinen egoera prekariora, **metropoli** garaikideko bakardadea. **Berria - Kultura**

## 2 estatu kolonizatzailea bere koloniei buruz.

Kolonia horiek herri barbaroekin salerosketan aritu ziren, **metropoliarekin** harremanak izan zituzten. **Iñaki Iñurrieta**

Elkarrekin zerikusi zuzenik ez duen lurralde multzo hori da periferia, **metropoliarekiko** baino ez diren eremuak, deszibilizazioa. **Iñigo Aranbarri**

Berriz ere, periferizazio-prozesuak **metropoliaren** premien arabera berregituratu zuen tokio ekoizpena, eta prozesu horretan bertako ekonomia eta gizarte-orekak ere suntsitu zituen. **Koro Navarro**

Ameriketara -edo dena delako kolonietara- finkatutako europarren ondorengoak, **metropoliaren** kontra beren herrien independentzia lortu dutenak, maiz, ondoren beren herrialdeetako aginteari eusteko eta indioa baztertzen duen elitea osatzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Neurri zehatzen bidez galarazi zuten **metropoliak** hainbat koloniaren industrializazioa, lehiakide arriskutsuak zirelako. **Iñaki Heras**

**Metropoli** kolonialistako intelektuaren "kontzientzia txarra". **Joxe Azurmendi**

Ez dago probintziarik **metropolirik** gabe, ez legerik fundatzailearik gabe, ez kanturik musarik gabe. **Bernardo Atxaga**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik metropolitano.

Tokio hiriarren **metropoli** -aldean Afrika osoan baino telefono linea gehiago daude. **Iñaki Heras**

Lurralde oso baten eremua **metropoli** ikuspegi batera murriztuko dela gaineratu zuen.. **Berria - Euskal Herria**

Bartzelonako **Metropoli** Eremuko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planak. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bartzelonako metropoli eremuko** (3)

**metropoliaren barruan** (4)

**bilboko metropoliko** (4)

## metropolis ik metropoli.

## metropolitano 1 izond metropoliari dagokiona. ik metropoli 3.

Hirigune **metropolitanoen** hedapen beldurgarriak eta lurralde desorekak saihesteko. **Berria - Euskal Herria**

Errusiako agintariak garraio **metropolitano** segurtasun neurriak bikoiztu zituztela jakinarazi zuten. **Berria - Harian**

Tarifa dei **metropolitanoei** dagokiena izaten da. **Berria - Euskal Herria**

Defentsa Ministeritzan ez zuten Andy Warhol ezagutzen, baina polizia **metropolitanoan** badago Kafka irakurri duen norbait. **Pako Aristi**

Mexikoko Unibertsitate Autonomo **Metropolitano** irakaslea da. **Berria - Mundua**

## 2 iz eliz probintzia baten hiriburuko aztapezpikua.

**Metropolitano** edo artzapezpiku horiek, [...] probintzi multzo horietako baten administrazio-erdigune zen aulkiko apezpikua onartu zuten beren primatu gisa. **Iñaki Mendiguren**

Apezpikuek, **metropolitanoek** eta primatuek leialtasuna zieten eskualdeko patriarkei. **Iñaki Mendiguren**

## metropolitarrak 1 izond metropolitanoa.

«50 hil baino gehiago» izan zirela baieztatu zuten agintariek atzo goizean, Londresko Polizia **Metropolitarrako** buru Ian Blairren ahotik. Berria - Harian  
Helburua Gobernuaren kontrako eraso bat galaraztea bazen, nahikoa zuen larrialdi egoera Manila **metropolitarran** soilik jartzea. Berria - Mundua

## 2 iz metropoliko biztanlea.

Baliteke ez atzerritarrak, ez barbaroak, ez marka-gizonak izatea, **"metropolitarrak"** baizik, delako gizarte horren barrukoak, alegia. Iñaki Mendiguren  
**"Metropolitarrak"** sorturiko estatu unibertsaletan, hiriburua berez erdian izango da hasieran, nahiz eta erretira daitekeen mugara alde jakin batetik eraso-mehatxua gobernuaren ardura kezagarriena bihurtzen bada. Iñaki Mendiguren

## metropolizazio iz metropoli bihurtzea.

**Metropolizazio** xedeak eragin nabarmena du ingurugiroan. Berria - Euskal Herria

## metrosexual izond gizonetzkoez mintzatuz, itxura fisikoaz nabarmen arduratzen dena.

Gaur egun, gizon **metrosexuala** pil-pilean dagoen honetan, ez al zaio errazago egingo gizonari pilula hartzeko ohitura onartzea? Berria - Euskal Herria  
Foxen arabera, **metrosexuala** zela esan zuen Kerryk eta emakume guztiak berarekin txoratuta zeudela. Berria - Mundua

## metrosexualitate iz metrosexuala izateko nolakotasuna.

Baieztatu uste dut, hori ere **metrosexualitatearen** barruan sartzen delako. Berria - Euskal Herria

## metrosozialista izond

Butakatxoak blaitu egiten baitituzte oraindik ere **metrosozialistek** Alexander Kordaren argazki mitikoa oroitze soilarekin. Berria - Kultura

## metxa (orobat mitxa; Euskaltzaindiaren Hiztegian metxa agertzen da) 1 iz erraz su hartzen duen gai batez eginiko soka.

Gasolinaz betetako ontzi batez, **metxa** batez eta bolbora biltegitxo batez osatuta zegoen lehergailua. Iñigo Aranbarri  
Antzokiko zaintzaile batek aurkitu zuen lehergailua **metxa** piztuta zuela. Berria - Kultura  
**Metxa** izekia hurbildu zuen barreneko ertzer. Juan Garzia  
Erran behar da **mitxa** ez balitz hil, zartatze handia izaiten ahal zela, su lotuko ere orobat gaineko estaian emazte xaharño bat bakarrik bizi den etxe hortan... Herria  
Eskuartearen zuen txiskero **metxa** txirikordatu horixkarekin gora eta behera ari zen eta. Josu Landa  
**Metxa** borobileko petrolio lanpara piztu nuen, pantaila berdearekiko lanpara. Fernando Rey  
Sablea, **metxako** fusila eta txakana, gider laburreko aizkora txikia, zauri hilgarriak baino egiten ez dituen. Karlos Zabala  
Bolborategi hau eraiki dut, eta bai **metxari** su eman ere. Karlos Linazasoro

## 2 irud/hed

Mikel ere atera da, eta futbolaria ikusi orduko are sutuago da **metxa** handirik behar ez zuen Txetxu. Xabier Mendiguren Elizegi  
Sanjoanetan hemen ere festa izaki, sobratutako suzko baloiak hegan egin zuten asteazkenetik ostegunerako gauean, herri baten pozaren **metxari** su emanez bezala. Berria - Kirola  
Martxoko Iraultzaren **metxa**, Nikolas II.ari dimitiarazi zion matxinada... Koldo Izagirre  
Haatik, xede orokorrak aspaldiskoan **mitxa** galdua zuen. Herria  
Baina hor du **mitxa** erakutsi lekuindarrak: 7 tanto lerroan eta 12-14, hiru bote kasik segidan sartuz ere eskuineko paretatik. Herria

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Olio eta **metxa**-kondarrek in eta kriseilua bera hezetuta. Santiago Iruretagoiena

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kanabera printzatu ez du hautsiko, ahulduriko argi-**metxa** ez du itzaliko. Elizen arteko biblia  
Kandela-**metxa** bezala itzali ziren eta galdu. Elizen arteko biblia  
Haizeak inarrositako erretxin **metxa** lodiak aldi oro egiten zion argi eta itzal begitarte honi. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kandela metxa** (3); **metxa piztuta** (4)

## metxadun (orobat mitxadun) izond metxa duena.

Su eman zidan pizgailu **metxadun** baten punta sutua nire zigarrora hurbilduz. Anjel Lertxundi

## metxatu, metxa(tu), metxatzen du ad sukaldatu behar den okela urdai edo urdaiazpiko zerrendez prestatu.

Egon lasai, laster idi-izter baten moduan **metxatuko** dut eta. Juan Martin Elxepuru / Bego Montorio

## metxero iz sakelako pizgailu txikia.

Zerbitzariak luzatu dion **metxerorantz** makurtu da Lola zigarroa piztera. Patxi Iturritegi  
**Metxeroa** piztuta luzatu nion. Migel Angel Mintegi  
Jendea dago hor, eta **metxeroarekin** agurka ari zaizkigu. Pako Aristi  
-Hark gaitu igortzen... - xanpatu zuen Txokok emaztearen atorra urratuz eta titi puntak **metxeroaren** suaz amainatuz. Itxaro Borda

## metxikar ik mexikar.

**metzikano** ik **mexikano**.

**metzikar** ik **mexikar**.

**meundar** iz Itun Zaharrean aipatzen den herri bateko kidea.

Jainkoak lagundu zion filistearrak, Gur-Baalen bizi ziren arabiarrek eta **meundarrak** garaitzen. **Elizen arteko biblia**

**Meundarrok** zerga ordaindu zioten Uzias. **Elizen arteko biblia**

Aldi baten buruan, moabdar eta amondarrak, zenbait **meundar** lagun zituztela, Josafaten kontra borrokatzera etorri ziren. **Elizen arteko biblia**

**mexikano** (orobat **mekzikano** g.er. **metzikano** eta **mezikano** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **mexikar** agertzen da) izlag/iz ipar mexikarra.

Paperik gabe, EB-tan sartzerat lehiatzen direlarik, **Mexikano** polizak urte guzietz arrastatzen eta kasatzen ditu Salvadorretik, Guatemalatik eta Hondurasetik heldu diren 160.000 presuna. **Herria**

Vicente Fox **mexikano** presidentak. **Herria**

Legearen kontra bizi den jendearen erdia **mexikanoa** da herri hortan. **Herria**

Munduko xapeldun ateratu ziren Sergio Beltran eta Pedro Santamaria **mexikanoen** kontra. **Herria**

**mexikar** (orobat **mekzikar** g.er., **metzikar** g.er. eta **mekzikotar** g.er.) **1** izlag/iz Mexikokoa, Mexikori dagokiona; Mexikoko herritarra.

1821eko **Mexikar** Iraultzaren ondoren. **Iñaki Mendiguren**

Egunotako egunkari batek **mexikar** indigena batzuen ahotik jasotakoa. **Juan Garzia**

Hegoaldeko ordezkariak dute xapela beretu, hurbil-hurbila zauzkatala haatik **mexikar** musulariak. **Herria**

**Mexikar** sindromea edo nazioarteko finantzaren arriskuak. **Koro Navarro**

Langile **mexikarren** etxeak zeuden lehenik; hurrena, osaba Juanena izandakoa, nire egoitza Stonehamera iritsi nintzenetik. **Bernardo Atxaga**

Jatetxe **mexikar** batean lan egiten duen lagun bat da Paola. **Harkaitz Cano**

Horra Rivera **mexikarraren** erretratu erraldoia. **Edorta Jimenez**

**Mexikarrek** bitartean futbola ikusten dute telebistan. **Xabier Montoia**

Bigarren Mundu Gerran parte hartu duten **mexikarren** ohorez egindako ongi etorriaren desfileko argazkiak dira. **Edorta Jimenez**

Aita **mexikar** zuria nuen. **Itxaro Borda**

**2 Mexikoko espainiera.**

Mexiko gorrienerako pertsonaia bertan-beherakoek, nola ez, **mexikarrez** hitz egiten dute, mero mexicano, [...] eta horregatik erabaki du Ripsteinek filma azpititulatzea... gaztelera batuan! **Iñigo Aranbarri**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**emakume mexikarra** (7); **entrenatzaile mexikarra** (8)

**entrenatzaile mexikarraren** (3)

**entrenatzaile mexikarrari** (3)

**mexpreziatu** ik **mesprezatu**.

**meza** **1** iz erlijio katolikoan, ogiaren eta ardoaren bidez Jesu Kristoren heriotza ospatzen den elizkizuna.

**Meza** hura ere biziki ederra izan zen. **Marzel Etxehandi**

Latinez zen orduko **meza**, eta sermoia bai euskaraz. **Pello Zabala**

Orduen liturgia eta **meza**. **Askoren artean**

Halarik ere, operarik ezean, datorren igandean haren **meza** kantatu bat duzue katedralean. **Joan Mari Irigoien**

Larzabaleko eliza kalostra peradino betea zen eta lekuko koralak **lagundurik** biziki **meza** ederra izan da. **Herria**

**2 (leku-denborazko atzizkiekin)**

Igandeetako **mezan** lehenbiziko ilaran esertzen zen. **Joseba Urteaga**

Adierazpenok Donostian egin zituen, Koruko Amaren aldeko **mezan**. **Berria - Euskal Herria**

Milako bat jende bada **mezan**. **Herria**

Iragan igandean Hazparneko elizan 10,30eko **mezan** ospatu dugu gertakaria. **Herria**

**Mezako** ardo goxo hark goragoko sentsazioetara eramane zuen. **Joseba Sarrionandia**

Otoitz-liburuko egun guzietako zatiak, emaiten ez nuen **mezako** otoitzak, sailduen litaniak. **Marzel Etxehandi**

Zergatik ez zara igande goizeko **mezara** etorritzen? **Bernardo Atxaga**

Egia da ere gero eta jende gutiago joaiten dela **mezara** igandetan eta beheiti doala erlisionea. **Herria**

Doi-doi igandetako **mezara** joaten zen, baina sekulan ez zen egoten neherekin hizketan. **Elena Touyarou**

**Mezantik** ateratzean, denak egon gira hurrupa fresko baten hartzen. **Herria**

Egun osoa daramat toki batetik bestera -aitortu zuen, **mezantik** landa-. **Elena Touyarou**

Ebanjelioaren pasarte hura igandeko **mezatan** entzuten nuelarik, ederki asko nekien zertaz ari zen. **Juan Kruz Igerabide**

Lantokira edo **mezatarra** zihozten gizonak, burumakur eta isilik. **Felipe Juaristi**

**Mezatarra** etorritako asko, etxera bidea hartuta eguerdia baino lehenago. **Txillardegia**

Katolikoa zela erantzun zidan, **mezatarra** joaten ez bazen ere. **Koldo Izagirre**

Sakristian geunden biok, bera **mezatarako** janzen eta ni banku batean eserita. **Bernardo Atxaga**

Eguerdiko ordu batean **mezatatik** bueltan etxeko sukaldean salda hartzen ari zen. **Andoni Egaña**

Kandelatxo hori Kandelario goizeko **mezetan** bedeinkatua zela. **Pello Zabala**

Ez bide zen gogoratzen **mezetan** aditutako gauzekin. **Iñaki Segurola**



**Mezetara** joan aurretik lisatu behar omen zuten alkandorarekin eta pasatzen behar zituen galtzerdi maiztuekin atera zen gelatik. [Anjel Lertxundi](#)

Ez ziren kalean ibiltzen, ez **mezetara** joaten. [Jon Maia](#)

Ez zenuke nahiko zure neba mozkor-mozkor eginda agertzea **mezetara**, ezta ba, Allie? [Mirentxu Larrañaga](#)

Apaiz bat agertzen da, **mezetarako** jantzian. [Anjel Lertxundi](#)

### 3 (aditzaren objektu gisa)

Zurrunmurrua kurrutu zen **meza** ukanen genuela igandetan, lanetik landa. [Marzel Etxehandi](#)

Aita abadeak kantatu zuen **meza**, Bazkoz, predikuarekin, latin klasikoenean. [Marzel Etxehandi](#)

Eta gaur adixkidek beren atxikimendua erakutsi diote, **meza** eder bat kantatuz eskaini baitakote beren azken agurra. [Herria](#)

**Meza** bukatu zenean, denak jarri ziren ilaran umeen atzetik. [Koldo Biguri](#)

**Mezak** goiz-goizean hasten dira, egunsentian. [Gotzon Garate](#)

Gero hitzaldia egiten zien eta **meza** ospatzen; eta Frantzisko dohatsuak meza ebanjelioa kantatzen zuen. [Askoren artean](#)

Filotti **meza** huts egin baino lehen familia osoa hiltzen utziko zuen elizkoi horietako bat zen. [Koldo Biguri](#)

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Albak ez ziren denak izarikoak, **meza**-soineko zenbait deskoloratuak ziren. [Marzel Etxehandi](#)

Gaur pope batek elizkizunak egin ditu han, **meza**-jantzia soinean. [Jose Morales](#)

Eta kaliza, korporal, aldare-oihal eta **meza**-oparitarako erabiltzen den oro ederra izan dadila. [Askoren artean](#)

Lehen jarduna gauerdian egingo da; bigarrena, egunsentian; hirugarrena, **meza** orduan. lagun eta ezagunek emandako **meza**-diruak ez zituen bidaiaren gastuak inolaz ere ordainduko. [Patxi Altuna](#)

Apostoluen **meza** hitzak San Bonabenturak erantsiak dira, ez daude iturri zaharagoetan. [Askoren artean](#)

**Meza**-bezperak egun guzietzat kantatuko zituena. [Michel Oronoz](#)

· Aita **meza**-laguntzailea zen eta apaizari elizakoak ematen laguntzea gustatzen zitzaion. [Joseba Urteaga](#)

ik beheherago 16. [Askoren artean](#)

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erizaina isildu egin da, apaizak hasiera eman baitio eztei-**mezari**, eta ez dizkit xehetasun gehiago eman. Gaur goizean izan da herri-**meza**, eta gero, urtero bezala, aurrekua. [Anjel Lertxundi](#)

Esker-**mezak** atera. [Jose Morales](#)

### 6 meza zati batzuetako (eskuarki Kyrie, Gloria, Credo, Sanctus, Benedictus, Agnus deizatietako) hitzen gainean moldatzen den musika lana.

Baina musika ona eta handiosa aditu nahi baduzu, musika solemnea, ez zenuke datorren igandean katedralean ematekotan diren Monteverdiren **meza** galdu behar... [Joan Mari Irigoien](#)

Johan Duijck zuzenduko ditu eta Dvoraken **Meza** Do maiorren eskainiko dute ikasleek. [Berria - Kultura](#)

Verdiren Requiem **meza** interpretatu dute La Hayan eta Utrecheko emanaldietan. [Berria - Kultura](#)

Juanjo Menak, zuzendariak, interpretazio ederra atera zion Bachek asmatutako **meza** zail eta erraldoiari. [Berria - Kultura](#)

### 7 hil-meza

Han, On Camillok **hil-meza** eman eta zerraldoa bedeinkatu zuen. [Koldo Biguri](#)

Ehorzketa egunean ukan du biziki jenderen otoitzen laguntza: **hil-meza**, bi apezek emana, hunkigarria izan da. [Herria](#)

Luis Elejabeitia gure osaba Deustu auzoan hil zen eta **hil-meza** San Pedro elizan izan genuen. [Gotzon Garate](#)

### 8 hileta-meza

Mutiko koxkorak ginela hil zen, eta gogoan dauzkat negar-saio luzeak, **hileta-meza** are luzeagoak, maisuen hitzaldiak, herrira etorri ziren jaun handi haien auto beltz are handiagoak... [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Dies Irae Azken Juizioko eguna deskribatzen duen erdi aroko eresi bat da, **hileta-meza** batzuetan kantatzen dena. [Xabier Olarra](#)

· Hartara, eskari hura jaso zuenean, beltzez jantzitako mezularia beste mundutik etorria zela begitandu zitzaion [Mozart], **hileta-meza** berretzaletan **t** eta ez besterentzat idazteko eskatzen ziola. [Imanol Zurutuza](#)

### 9 meza atera

Baina, badakizue, marinela herriko seme jatorrak dira, eta bihar San Sebastian eguna denez, San Bizenten **meza** bat **ateratzeko** eskatu didate. [Martin Anso](#)

### 10 meza-emaile (orobat mezemaile)

Ez ziren **meza-emaileak** falta, baizik eliz-soinekoak, apezpiku makila, eta apezpiku burukoa. [Marzel Etxehandi](#)

Besterik nehor ez zen eta **meza emailearen** hitzek oihartzun hutsala zuten, eraikuntzaren paretetan. [Elena Touyarou](#)

Frantxua Garat **meza emaile** beste hiru apezek laguntzen zutela. [Herria](#)

Baigorriar andana bat baginen, Mixu Otonos ere han zen **mezemalle**. [Herria](#)

**Meza emaile**, Michel Oronoz, deneri ongi etorria eginik kartsuki oroitarazi daukuna nor ginuen Xan Hiriart. [Herria](#)

· **Meza emaile** hiru ministro, Sarkozy apez nagusia eta haren laguntzaileak Devedjian eta Delevoeye, bakoitzak egin duela bere predikua Estaduaren deszentratzeari buruz [Herria](#)

### 11 meza eman

Emeki-emeeki **meza emateko** puskak bildu zituen. [Marzel Etxehandi](#)

Anaiak bizi diren lekuetan egunean **meza** bat bakarrik **eman** dadila, Eliza santuaren moldearen arabera. [Askoren artean](#)

-Lapurdi osoan ez da aurkituko **meza** gordeka **ematen** duen apez ukoegile bakar bat, ez eta mugaz haraindian frantses herritarrik bataiatuko edo ehortziko duenik ere! [Elena Touyarou](#)

Leon Marty bostetako **meza ematera** baitzihoan. [Pako Aristi](#)

Eta bertze jesuitak, aita Bartolomek lagundurik, **meza** eman zuen. [Joan Mari Irigoien](#)

**Meza** Berria **emateko** bezperetan! [Inazio Mujika Iraola](#)

Mendiz joaten omen zen Leitziatik abere gainean, egunero **meza ematera**. [Patziku Perurena](#)

Zenbait penitentzia salbagariren egiteko eta agindu dizkieten aukerako **meza** batzuen **emateko** gisan. [Piarres Xarriton](#)

### 12 meza entzun

Goizean 10,30eko **meza entzun** ondoan, Nafarroako ostatuan egin dute zintzur bustitzea. [Herria](#)

**Meza entzuter** joateko ohitura zuen Jexuxek, fraileetara, urteak betetzen zituen bakoitzean. [Xabier Etxabe](#)

Gero konfesatu, **meza** nagusia **entzun** eta komulga ezazu. [Pako Aristi](#)

**Meza** ermitan **entzun** ondoren, Jentilisoloko belazean eseri, eta bertan bazkaldu ohi genuen. [Txillardeg](#)

Goizean 11 orenetan herriko elizan esker onezko **meza** bat **entzun** dute beren familiaz-jendakiaz eta adixkideez inguratua. [Herria](#)

### 12b meza-entzule

300 bat **meza entzule** ere baziren. [Herria](#)

· Etorri niz bilkura huntarat bainan hemen nago fedegabe bat **meza** batean **entzule** bezala... [Herria](#)

### 13 meza erdi ik mezerdi.

## 14 meza esan

Apaiz bakoitzak **esan** bitza hiru **meza**. osabaren betiereko atsedenen aldeko **meza esan** zezaten enkargatzea. **Askoren artean**  
Ondoren, eskopeta berriz kargatu, berriro ezkaltzea jo eta apaizak, bere onera itzullita, lasai jarraitu zuen **meza esaten**. **Koldo Biguri**

## 15 meza isil

Azaroaren 11ko omenezko **meza isiletan** batez ere, orduan zuelako egiazki sentitzen zinez laxoa eta herabetia izan zela. **Itxaro Borda**  
Lehen **meza**, isila zen. **Marzel Etxehandi**  
Egun horretan, penitentzian, Probidentziak naraman lekuan, **meza isil** bat entzuten dut, **Joan Mari Irigoien**

## 16 meza lagundu

Horretarako -esan zuen Santxok-, ezkondu gabea izan beharko du ezkutariak, eta **meza laguntzen** jakin beharko da gutxienez. **Patxi Ezkiaga**  
**Meza laguntzen** ari zen, eta apaizak ostia sagartua altxatzean, ostia hori bizirik zegoen haur txit polit bihurtu eta aldatua ikusi zuen. **Askoren artean**  
· Helduden igande 17an Arin Donibane Lohizuneko korralak gure elizan 11 orenetako **meza lagunduko** du. **Herria**

## 17 meza nagusi

Ez zen nehor menturatu Marexalaren izena sartzen **meza nagusiko** otoitzetan. **Piarres Xarriton**  
Gero **meza nagusia** predikuaekin. **Marzel Etxehandi**  
**Meza nagusi** abestia antolatzen zuen lagun biak auzotik lekutu zirela hilabete konplitu zen igandean. **Koldo Izagirre**  
10ak eta erdieta **meza nagusian** parte hartuko dute eta alegeratuko beren musikarekin. **Herria**  
Erlisione faltsu baten kide zela, **meza nagusi** beltzak bere etxolan emaiten zituela pagano jainkosa batzuen ohoretan. **Michel Oronoz**

## 18 meza liburua

**Meza-liburua** poltsikoan zenuen. **Koldo Biguri**  
Kunderrak eta igandeko **meza liburua** gau mahaiaren gainean. **Itxaro Borda**  
**Meza-liburua** hirugarrenez zabaltzean, Kristok esandako beste hura azaldu zen:[...]. **Askoren artean**  
Azkueren hiztegiaren bi tomoak, azpian, eta neurritz neurri gainerakoak, harik eta gain-gainean Orixeren **meza liburua** jarri dudan arte. **Anjel Lertxundi**

## 19 meza ondo (orobat mezondu g.er.)

Baionako "Eskualduna" astekaria, komuzki **meza ondoan** erosten zena eliza bortan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
**Meza ondoan** zeremonia eta loreak eskaintzea hil hobiaren aitzinean. **Herria**  
**Meza ondoren** eman zioten azkenean lurra, jakina denez, Sukarrietako hilibian. **Ramon Saizarbitoria**  
Gu iritsi ginen azkenekoak, **meza ondoren** taxistarekin Tolosara jaitsi ginelako fotografiak ateratzera. **Arantxa Iturbe**  
Otu zaio Leon Marty likits horrek agindu ote dion loreena umeari, eta **meza ondoren** itxaron dio eliz atarian. **Pako Aristi**  
Behin bixiatu eta gero, hura poza gurea, **mezondoren** batean, osabaren batek edo, esaten bazigun: [...]. **Patziku Perurena**  
**Meza ondoan**, ehunka lagunek, artzain, laborari eta beste herriaren zerbitzari, erakutsi dute ere beren moldez nola zituzten baiezatzten goizeko erranak. **Herria**  
Lubineko pilotaplaza estalian, igandero **mezondoran** zapatak kenduta hankutsik hamaiketakoak jokatzen zituzten mutil baserritar zimel haiek. **Patziku Perurena**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**aratseko meza** (13); **azken meza** (6); **egun hortako meza** (5); **eguneko meza** (7); **ehortz meza** (7); **ehorzketa meza** (11); **ehorzketa meza iragan** (7); **ehorzketa meza** (8); **eman zuen meza** (7); **esker onezko meza** (15); **espos meza** (11); **euskal meza** (14); **gauerdiko meza** (14); **gerlari ohien meza** (5); **goizeko meza** (6); **haurren meza** (7); **hil meza** (5); **hilen meza** (7); **hileta meza** (10); **igandeko meza** (32); **igandeko meza nagusia** (6); **igandeko meza nagusian** (8); **igandeko meza nagusian** (8); **igandeko meza** (5); **izan da meza** (6); **izanen da meza** (10); **jondonaneko meza** (5); **larunbat aratseko meza** (6); **lehen meza** (16)  
**meza aintzin** (9); **meza bat ederra** (5); **meza bezperak** (5); **meza bukatu** (5); **meza bururatu** (6); **meza bururatzean** (16); **meza denboran** (36); **meza eder** (46); **meza eder bat** (14); **meza eder batekin** (6); **meza eder baten** (7); **meza ederra** (25); **meza egingo** (5); **meza egiten** (6); **meza emaille** (39); **meza emaiten** (9); **meza eman** (43); **meza eman zuen** (7); **meza emana izan** (7); **meza emana izanen** (12); **meza emateko** (9); **meza ematen** (29); **meza ematen ari** (9); **meza ematera** (6); **meza entzun** (22); **meza entzuten** (8); **meza entzutera** (11); **meza eta zeremonia** (5); **meza garaian** (6); **meza hasi** (9); **meza hastean** (10); **meza hunkigarri** (7); **meza hunkigarri batean** (6); **meza hunkigarria** (9); **meza iragan** (7); **meza iragan da** (6); **meza itsasun** (6); **meza izan** (5); **meza izanen** (14); **meza izanen da** (10); **meza kantatu** (9); **meza kantatua** (8); **meza kartsu** (13); **meza kartsu batean** (7); **meza lagunak** (5); **meza lagunak klikarekin** (5); **meza liburua** (16); **meza nagusi** (34); **meza nagusi bat** (7); **meza nagusi eder** (8); **meza nagusi ederra** (5); **meza nagusia** (206); **meza nagusia eta** (12); **meza nagusia klikarekin** (5); **meza nagusiak** (6); **meza nagusian** (47); **meza nagusiarekin** (8); **meza nagusiaren** (11); **meza nagusiaren ondotik** (5); **meza nagusira** (5); **meza nagusitik** (12); **meza nagusitik landa** (7); **meza nausi** (7); **meza nausia** (19); **meza nausian** (5); **meza ondoan** (32); **meza ondoren** (14); **meza saildua** (9); **meza sailduan** (5)  
**omenezko meza** (5); **sainduaren ohoretan meza** (6)  
**mezak eman** (5)  
**aratseko mezan** (8); **ehortz mezan** (5); **ehorzketa mezan** (18); **gauerdiko mezan** (6); **mezan aurkitu** (5)  
**hasiko da mezarekin** (5); **mezarekin hasi** (6); **mezarekin hasiko** (10); **mezarekin hasiko da** (8)  
**mezaren emaille** (6); **mezaren ondotik** (25); **mezaren ostean** (5)  
**mezatara joan** (10); **mezatara joateko** (8); **mezatara joaten** (13)  
**mezatik haste** (6); **mezatik landa** (86); **mezatik lekora** (7)  
**igandeko mezetako tenoreak** (5); **mezetako tenoreak** (10); **mezetako tenoreak aldatuak** (5)  
**mezetara joateko** (5); **mezetara joaten** (8)

## mezajale iz adkor santujalea.

Zeren nihaur ere izana bainaiz nehoiz, mezazale ez ezik, **mezajale** ere, eta zeren baitakit, halatan, zertaz ari natzaizun. **Joan Mari Irigoien**  
Txukun, orbangabe eta **mezajale** behar zuen herriak, ordea, Kirikiñok nahi baino maizago bisitatzen zituen "txarritokiak", Txirritaren bertso ezagunak frogatzen duenez: [...].  
**Koldo Izagirre**

## mezamutil (orobat meza-mutil) iz meza ematen laguntzen duen pertsona.

Edo orduko hartan bezala, ni **meza-mutil** eta Don Manuelen sermoiarekin sutu zenean. **Alberto Barandiaren**  
Azkenak Domingo eta haren anaiek izan ziren, aitak haiexek jarri baitzuten, damurik, **meza-mutil**. **Edorta Jimenez**

## mezaño iz adkor meza.

**Mezaño** bat ere aski hunkigarria. **Herria**

## mezaratu, mezara(tu), mezaratzen da ad mezara joan.

Zonbait medaila papoetan ixkilimaturik, Lagunak klika aintzinean, segitua 84 ikurrinez, oro **mezaratu** dira. **Herria**

## mezatar (orobat meziatar) iz meza-entzulea.

Gero elizari biraka ekin zion hegazti gaixoak, eta haren atzetik zihoazen **mezatarren** begiradak. **Pako Aristi**  
Camino bikari nagusia zen meza emaila burua apezpikua falta izanez eta Beñat Fourgs Hiriburua erretora predikua egilea, kantu ederrak euskaraz eta frantsesez zituztelarik xaramelatzen tokio korralak eta **mezatiar** guzkiek harekin. **Herria**

---

**mezatiar** ik **mezatar**.

---

**mezazale** izond **mezaren zalea dena**.

Noizez geroz zara zu **mezazalea** ? ezin dut apaizekin burutu eta are gutxiago apaiz artean ibiltzen den jendearekin. **Matias Mujika**  
Zeren nihaur ere izana bainaiz nehoiz, **mezazale** ez ezik, mezajale ere, **Joan Mari Irigoien**

---

**mezemaile** ik **meza 10**.

---

**mezenas 1** iz **artistei eta intelektualei laguntzen dien pertsona aberats eta ahaltsua**.

1532an, bere **mezenasek**, bultzaturik, bere tituluak baliozkatu zituen, erdietsiz bat bestearen ondotik Eliza legeetan batxilergoa, lizentzia eta doktoretza mailak, bai eta Aulkietarako lehiatu "Prima" deitu ospetsuena beretu arte. **Piarres Xarriton**  
Hasieratik bertatik, berlingar **mezenas** batek, Dan Kniaster-ek, orain laurogei urtetik gora zituenak, babestu zuen entziklopedia. **Koro Navarro**  
Buenos Aireseko enbaxadorearen gutuna gobernadorearen esku utzi zuten, gizon literaturazalea bera, idazleen babesle eta **mezenas**. **Felipe Juaristi**  
Basauriko Udalak eta **mezenas** pribatu batek sustatzen dute beka. **Berria - Kultura**

**2** (hitz elkartuetan)

**Mezenas** formulak eta beste batzuk ere aztertu behar dira, enpresa pribatua sar dadin, hain zuzen ere, eszenako arteen obra edo proiektuen produkzioan. **Berria - Kultura**

**3** (izenondo gisa)

bitxikerietako bat Enrique Ordoñezek horrelako ekimenak bultzatzen dituzten enpresari **mezenasen** alde esandako laudorioak izan ziren, **Berria - Kultura**

---

**mezenasgo** iz **mezenasari dagokion jarduera**.

**Mezenasgoa** aztertzeko jardunaldiak hasiko dira gaur, Donostian. **Berria - Kultura**

---

**mezerdi** (orobat **meza erdi**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **mezerdi** agertzen da) iz **sagara, mezaren erdiko zatia**.

Nola Axularrek eskatu zion sakristauari, ipuinaren azken aldean, hil zezala **mezerdian**, ogia eta arnoa sagaratzeko mementuan, zeren Sarako erretoreak baitzekien orduko, halatan baizik ezin bereganazazakeela bere itzala. Hemen ez zen deus holakorik, ez beretterik, ez edergailurik, ez soinurik, gaizki erraiten dut, hain xuxen; **meza erditan** animaleko behi tropa bat, beren joarekin kantua estali eta nahasaraz artino. **Joan Mari Irigoien**

---

**mezikano** ik **mexikano**.

---

**mezkit** (**129** agerraldi, **8** liburu eta **46** artikulutan; orobat **meskit** **309** agerraldi, **17** liburu eta **119** artikulutan, **moskita** g.er. eta **moskeo** g.er.) **1** iz musulmanen kultu edo gurtzara xedaturiko eraikina.

Ahal duenean, arropak garbitu, bainua hartu eta **mezkitara** joaten da. **Gotzon Garate**  
Zoko batean ibili da lehendabizi, **meskit** batean sartu da gero. **Anjel Lertxundi**  
Jean Grenet Baionako auzapez eta diputatuak **mezkit** egiteko egoitza utziko zigula erran digu behin eta berriz. **Herria**  
Hindu buruberoek, 1992ko abenduan, Ayodhyako Babri **mezkit** desegin zuten. **Gotzon Garate**  
VII. mendean eraikia da **mezkit**; zutabeetarako islam-aurreko erlijioetako tenpluetakoak baliatu dira. **Juan Garzia**  
Urre koloreko kupula ederra zuen **mezkit** iragan asteazkenean suntsitu zuten. **Berria - Harian**  
Bokarako **mezkitan** sartzean, Korana jaso eta bere zaldien oinpera jaurti zuten. **Iñaki Iñurrieta**  
**Meskiten** zabaldua itsasbartzetarekin lotzen duen auzo horretan maila guztietako hotelak eta pub bat edo beste daude. **Jon Arretxe**  
**Mezkita** edo santutegietan berdin, jaunaren lurra denez, ortutsik sartu beharra dauka. **Patziku Perurena**  
Uzbekistan-en gaindi joanik jin zaizkit burura herri hartan ikusi nituen edertasunak, bereziki Bukhara eta Smarkand hirietan: jauregiak, **mezkitak**, harresiak erdi aroan eta geroxago eraikiak, zibilizazio eder baten lekuko. **Herria**

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Xiiten **mezkit** nagusietako bat zen (Urrezko **Mezkita** ere deitua). **Berria - Harian**  
Hirurehun metrora, **meskit** txuri txiki bat aurkitu genuen, ate ondoan kuxkurtuta bi eskale zituela, eta bidea aldapatsuagoa egin zen. **Bernardo Atxaga**  
Alde batean **Meskita** Urdinaren liraintasun argia, beste aldean Santa Sofiaren sendotasun iluna, tartean lorategi oparoak, jendea paseoa... **Jon Arretxe**

**3** (hitz elkartuetan)

Goiz eta arratsalde neure gelatik entzuten nituen musulmanek inguruko **mezkit** -dorretik oitoz-ordua dela oroitarazteko egiten zituzten oihuak. **Gotzon Garate**  
Handik **meskit** alboko sohorretara joan zen. **Patxi Zubizarreta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**al askari mezkita** (3); **bagdadeko mezkita** (6); **mezkit** **sunita** (7); **mezkit** **sunitak** (4); **mezkit** **sunitari eraso** (3); **mezkit** **suniten** (3); **mezkit** **xiita** (5); **mezkit** **xiitaren** (5); **samarrako mezkita** (5)

**al askari mezkitar** (3)

---

**mezondo** ik **meza 19**.

---

mezpera ik bezpera.

mezpretxagarri ik mespretxagarri.

mezpretxu ik mespretxu.

mezprezagarri ik mesprezagarri.

mezprezatu ik mesprezatu.

mezprezu ik mesprezu.

**mezu 1** iz pertsona batek beste bati, ahoz nahiz izkribuz bidaltzen dion ohar, berri edo adierazpena. **ikmandatu**.

Jauna, **mezu** bat tsarraren partetik! Polizi burua plazaren erdira iritsi zen, eta den-denek ikusi zuten eskuan **mezu** bat zeramala. **Karlos Zabala**

**Mezuak** Morse alfabetoz izkiriaturik jasoko ditugula guk Nor naiz ni patuaren **mezu**ei kontra egiteko? **Txillardeg**

Beheko aldean, boligrafoz zirriborratuta, **mezu** bat: "Amaitu zaik pagotxa, Casanova". **Oskar Arana**

Kanpalekua Jamnian ezarri eta **mezu** hau igorri zion Jonatan apaiz nagusiari: [...]. **Elizen arteko biblia**

Ondoren, **mezu** hau bidali zion Judako errege Josafati: [...]. **Elizen arteko biblia**

Alde egin baino lehen, beste **mezu** bat bidali zion: [...]. **Martin Anso**

Espirituak hartu ninduen eta Jaunaren **mezu** hau adierazteko agindu zidan: [...]. **Elizen arteko biblia**

Akaz erregea hil zen urtean, **mezu** hau iragarri zuen Isaiasek: [...]. **Elizen arteko biblia**

**Mezu** hau eman zion Jaunak Jeremias, Egipton [...] bizitzen jarri ziren judatarrentzat: [...]. **Elizen arteko biblia**

Eta, lur bira guztiko odol hotzik handienaz, **mezu** hau telegrafiatzeari ekin zion: [...]. **Karlos Zabala**

Posta, erantzungailuko **mezuak**, argia, telefonoa... **Antton Olano**

Bi **mezu** zituen erantzungailuan. **Harkaitz Cano**

Orduantxe entzun nuen Rachelen **mezu**a erantzungailuan. **Oskar Arana**

Hamar **mezu** eta dei bat. **Joan Mari Irigoien**

Pantailan **mezu** bat agertu... **Antton Olano**

E-mailez, kasu, 300 lagun bidaltzen ahal diegu **mezu** bera segundo-hamarrenetan. **Askoren artean**

Zergatik ezabatu ote zituen jasotako **mezu** guztiak? **Antton Olano**

Bazirudien deien eta sms **mezu**en prezioa merkatzen ari zela, erabileria hedatu ahala. **Berria - Harian**

Eguberriko **mezu**, bakezko **mezu**. **Herria**

**2 (izenondoekin)**

Lagun bakar bat zegoen **mezu** telegrafikoak bidaltzeko aretoan. **Karlos Zabala**

Bezeroen **mezu** elektronikoa hartzeko. Hiru **mezu** berri: kineletan irabazteko metodo bat, birus informatiko berri baten aipamena eta... Mireiaren mezu bat. **Antton Olano**

Sakelako telefonoen bidezko **mezu** laburrek nerabeen gizarte harremanetan zer eragin duten aztertzen ari dira adituak. **Berria - Gaiak**

Josebak PRANA artxiboa zabaldu zuen, oparixoren bat-edo ekarriko zuelakoan: argazkiren bat, **mezu** pertsonalagoren bat... **Fernando Morillo**

**Mezu** argia zabaldu zuten: «David Latxaga alkateak uste du udaletxea berea bakarrik dela». **Berria - Euskal Herria**

Amu gisa **mezu** kilikagarri eta ausarta sartu zuten sarean: [...]. **Jon Arretxe**

Bat-bateko jakin-minak jota, Josebari **mezu** labur bat idaztea erabaki zuen: [...]. **Fernando Morillo**

Telebistan euskalkia erabili behar bada, erabili behar da hiztun jakin eta zehatz batzuen kasuan eta **mezu** jakin eta zehatz bat zabaltzeko. **Berria - Euskal Herria**

UPNren **mezu** baztertzaila eta zaharkituaren aldean, Nafarroa Bai da benetako alternatiba. **Berria - Euskal Herria**

Segidan MTVren boikota helduko zen, promozio bideokliparen **mezu** arrazista zela medio. **Patxi Iturritegi**

Zorionekoak **mezu** profetiko hau irakurri eta entzuten dutenak. **Elizen arteko biblia**

Zeure profetek ez dizute agertu **mezu** gezurrezko eta hutsala besterik. **Elizen arteko biblia**

**Mezu** sekretu bat nonbait gordeta. **Iñaki Arranz**

**Mezu** ezkutua igortzen digute irakurleoi karramarro hitzek. **Iñaki Arranz**

**Mezu** nagusia bertsoaren amaieran (pozoia buztanean). **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

**3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)**

Ez du komunikazioa ixten, desbideratu baizik; entzun ezinik, begirada bilakatzen da **mezu** igorle eta gorputzak igorritako **mezu** hartzaile. **Pako Aristi**

Bere eredu komunikatiboaren giltza **mezu**-hartzaileekin duen harreman berezian datza. **Txema Ramirez de la Piscina**

Ondoren, **mezu**-eramailak bidali zituzten Artaxerxesen erresuma osora. **Elizen arteko biblia**

**Mezu**-eramailen bidez bidali zizkieten gutunak, erregearen izenean idatziak eta beraren eratzunaz zigilatuak. **Elizen arteko biblia**

Nekearen **mezu**-ekarle tristea baita azido hori. **Juan Garzia**

Carlos da **mezu** grabagailu bat dudala dakien pertsona bakarra. **Bego Montorio**

Bestalde, garai hartan, **mezu** paketeen trukatzeko balizko sarearen inguruko teoriari buruzko lehen idatzia argitaratu zuen Leonard Kleinrockek. **Berria - Gaiak**

Berehalako **mezu** zerbitzuak eta Interneteko foroak. **Berria - Gaiak**

**4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)**

Gizonen leizetik, aitak etengabe morse **mezuak** bidaltzen zituen. **Juan Kruz Igerabide**

Telefono-**mezu**ekin gauza bertsua gertatzen da... **Andoni Egaña**

Zigor-**mezu**a zuzendu die Jaunak Jakoben ondorengoei. **Elizen arteko biblia**

Gerraren irratibabel koxkorra zen, heriotza-**mezu** askotarikoak, itsasontzi zein hegazkinetatik igorriak, nork daki nork daki nori. **Juan Garzia**

Ekintza txiki sinbolikoak, hala nola hil-**mezu**a idaztea, hitzak eta izenak aukeratzea, [...]. **Joxan Elozegi**

Teologoa arrazoiaren izenean ari baita, kristau-**mezu**aren balio orokorraren zaindari gisa. **Askoren artean**

Mahomak gizadiari ekarri zion erlijio-**mezu**aren balio espiritualaz. **Iñaki Mendiguren**

Senideok, Abrahamen artean eta zuek, Israelen Jainkoa gurtzen duzuenen alai baidali zaitzaien salbamena-**mezu** hau. Elizen arteko biblia

Maitasun-**mezuak**, eskatologikoak, kirol mundukoak, ulertzen ez nituenak... Anjel Lertxundi

Hiri haietakoek mezulariak igorri zizkioten Holofernes bako-**mezu** honekin: [...]. Elizen arteko biblia

Don Carlosek goizean Zugarramurdi elizaren aurrean irakurrarazitako Erret **Mezu** berbera irakurrarazi du bigarren aldiz; baina batailoien aurrean oraingoan: [...].

Txillardegi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**bidalitako mezu** (8); **elkartasun mezu** (5); **honako mezu hau** (9); **mezu argi** (19); **mezu argi bat** (12); **mezu argia** (31); **mezu argia bidali** (6); **mezu argia zabaldu** (6); **mezu baikorra** (6); **mezu bakarra** (12); **mezu bat aurkitu** (5); **mezu bat bidali** (31); **mezu bat etorri** (5); **mezu bat helarazi** (10); **mezu bat igorri** (11); **mezu bat izan** (6); **mezu bat jaso** (8); **mezu bat zabaldu** (5); **mezu baten bidez** (9); **mezu bera** (29); **mezu berezi bat** (5); **mezu berri** (5); **mezu berriak** (6); **mezu bidali** (6); **mezu elektronikoa** (19); **mezu elektronikoa bat** (6); **mezu elektronikoa** (9); **mezu garbia** (6); **mezu hau bidali** (12); **mezu hau eman** (8); **mezu nagusi** (12); **mezu nagusi bat** (5); **mezu nagusia** (33); **mezu positiboa** (6); **mezu sekretu** (5); **mezu zehatza** (8); **mezu zehatza bidali** (6); **mezu zuzena** (13); **zabaldutako mezu** (8)

**bake mezu** (7); **bestelako mezu** (7); **eguneko mezu** (5); **elkartasun mezu** (8); **jainkoaren mezu** (22); **jaunaren mezu** (25); **kontrako mezu** (11); **lasaitasun mezu** (42); **lasaitasun mezu helarazi** (5); **lasaitasun mezu igorri** (12); **lasaitasun mezu zabaldu** (17); **lehendakariaren mezu** (6); **mezu adierazi** (12); **mezu argia** (10); **mezu argia da** (7); **mezu bidali** (17); **mezu bidali zion** (5); **mezu eman** (17); **mezu entzun** (22); **mezu entzuten** (6); **mezu hartu** (8); **mezu helarazi** (37); **mezu helarazi zion** (8); **mezu helarazi zuen** (8); **mezu helaraziko** (5); **mezu igorri** (26); **mezu igorri zion** (6); **mezu igorri zuen** (8); **mezu irakurri** (10); **mezu izan** (5); **mezu jaso** (16); **mezu onartu** (5); **mezu utzi** (11); **mezu zabaldu** (47); **mezu zabaldu zuen** (5); **mezu zabaldu zuten** (6); **mezu zabaltzeko** (17); **mezu zabaltzen** (12); **mezu zuzendu** (10); **zabaldu duen mezu** (5); **zuzendu zion mezu** (5)

**aldeko mezuak** (9); **aurkako mezuak** (5); **elkartasun mezuak** (9); **erantzungailuko mezuak** (5); **gaitzespen mezuak** (5); **kontrako mezuak** (9); **lasaitasun mezuak** (5); **mezuak bidaltzeko** (8); **mezuak bidaltzen** (18); **mezuak entzun** (6); **mezuak helarazi** (6); **mezuak helarazten** (5); **mezuak jaso** (5); **mezuak zabaltzeko** (5)

**helarazitako mezu** (5)

**mezuaren arabera** (5)

**sms mezu** (5)

## mezubide iz mezu komunikabidea.

Zuk ezin eragotz ditzakezun **mezubideak** dauzkagu. Koldo Izagirre

Hagako prozesuan palestinarrek «garaile» atera direla adierazi zuen «bai **mezubideetan** eta bai iritzi publikoan». Berria - Mundua

**Mezubideen** presentzia baliatzen dute orduan, berriz ere, lehertzen ez diren arma nuklearek hil egiten dutela salatzen. Berria - Mundua

## mezudun izlag mezu duena.

Nire zalantza, halere, artearen eragin politikoa inguruko da, batez ere jakinda gaur egun artearen sistemak edozer gauza asimilatzen gaitasun izugarria duela, puskatzailea edo iraultzailea izan arren; horregatik, **mezudun** kamisetak hain zabalduak dauden garaian ea eraginik ote duen galdetu behar artistari. Berria - Kultura

## mezugailu iz mezu hartzeko edo bidaltzeko gailua.

Gehiago zena, apezak herrietatik kanpo bizi zirene eta, norbait hiltzen zenean, familiakoek gizon sainduaren mugikorreko **mezugailuan** SMS moldeko abisua uzteaz beste erremediorik ez zuten. Itxaro Borda

## mezuka adlag mezuak bidaliz.

«Komunikatzeko arazo ugari dituzten gazteak» direla dio: «adibidez, esaten digute askotan ezin dutela egon ezer egin gabe eta, beraz, sakelakoa atera eta deika edo **mezuka** hasi beharra dutela». Berria - Harian

## mezulari 1 iz mezu bat dakarrena edo daramana. ikmandatari.

Badator **mezulari** bat eta Pariseko maisu guztiak Ordenan sartu direla esaten du. Askoren artean

Profeta nauzu ni ere zu bezala, eta **mezulari** bat mintzatu zait Jaunaren izenean, esanez: "itzularazi hori zeure etxera; jan dezala ogia eta edan ura". Elizen arteko biblia

Saulen seme Ix-Boxeti ere bidali zizkion Davidek **mezulariak**, esatera: "Itzul iezadazu ene emazte Mikal, ehun filistear zakil-mutur eman baintuen berori emazte hartzeko".

Elizen arteko biblia

Antiokek, **mezularien** bidez, gutunak helarazi zituen Jerusalemara eta Judeako hirietara, ohitura arrotzak onartzeko aginduz. Elizen arteko biblia

**Mezulari** bat bidali zioten Peneloperi, semearen berri ematera. Juan Kruz Igerabide

Gosariaren ostean **mezulari** bat iritsi zen, Took lurraldetik zaldiz etorria. Agustin Otsoa

Zaldunak ehizara irten zirenean, Ginebra erreginak **mezulari** bat bidali zion Lanceloti, bere gelara joateko lehenbailehen. Juan Kruz Igerabide

Errege txit ahaltsu batek bi **mezulari**, bata bestearen ondoren, bidali zizkion erreginari. Askoren artean

New Delhik Katmandura bidalitako Karan Singh **mezulari** bereziak Manmohan Singh lehen ministroaren ohartarazte mezu bat ekarri zion joan den asteazkenean Gyanendra erregeari. Berria - Mundua

Gosariaren ostean **mezulari** bat iritsi zen, Took lurraldetik zaldiz etorria. Agustin Otsoa

Jainkoaren **mezulari** Frantziskok kontatu ezineko neke eta gaixotasun astunen bidez jarraitu zion Kristoren oinatzeari. Askoren artean

Musika horrek adoreberri egin zuen **mezulari** gaztea. Felipe Juaristi

Bakearen **mezulari** paregabea, baitzakien gerla gauza hitsa dela, biziki hitsa. Herria

**Mezulari** maltzurak zoritxarra ekartzen du, mandatari leialak sendabidea. Elizen arteko biblia

### 2 (izen hutsa aditz baten ezkerrean)

Gay askapenaren **mezulari** dabilta Bilbon autobusak. Berria - Euskal Herria

**Mezulari** jarduteak Madrilgo giroa ekartzen dio agian gogora Ernesti. Edorta Jimenez

Bere istiluak konpontzeko arrato txikia **mezulari** hartu omen zuen, bera baino azkarragoa zelako. Gotzon Garate

### 3 irud/hed

Argia, goizaren **mezulari**, sartzan ari zaitzazko ganberako leihotik. Aingeru Epaltza

Zirtzilak aldiz Zantzarren adixkideak dira, neguaren **mezulariak**. Herria

Arrosak eta krabelinak ziren, maitaleen **mezulari** ezkutuak. Felipe Juaristi

Ahotsa izan zen errainuaren **mezulari**. Felipe Juaristi

Musika nire maitasun-nahiaren **mezularia** bilakatu zen. Pako Aristi

Bietan baliatzen da adimena gorputzaren bizitzarako ezinbestekoa duen **mezulari** bikoitzaz: begiak eta belarriak. Imanol Unzurrunzaga

Beste era bateko garraio-lana ere egiten du odolak: [...] hormona edo **mezulari** kimikoak eramaten ditu, sortzen diren organoetatik beren lana egiten duten ehunetara.

Irene Aldasoro

Odolaren kontzentrazioa eta bolumena kontrolatzeko, hormona anti-diuretiko edo ADHa da **mezularia**. Irene Aldasoro

#### 4 (izenondoko gisa)

Funtzionario **mezularia**, borroari hil-aginduak ekartzen zizkiona. **Karlos Linazasoro**

Herrira sartu aurretik, Peppone une batez gelditu zen Meharrarekin hitz egiteko, motorzale **mezulariarekin** alegia. **Koldo Biguri**

Hitz hauek mal'-k 'aingeru **mezularia** berbaren balioaniztasunaz mintzatzean azalduko ditut. Euskaldunon Egunkaria xori **mezulariaren** gisa bazabilan zazpi euskal herrietan, Euskal Herriko eta munduko berrien zabalitzen, euskara hutsez. **Xabier Kintana**

#### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

«ETArri laguntza eman eta **mezulari** lana egitea» egotzi dio epaileak. **Berria - Euskal Herria**

#### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Islamaren aurkako gurutzadak gori-gori zeudenean, adiskide eta bake **mezulari** aurkeztu zitzaion Egiptoko sultanari. **Askoren artean**

Gure larruazal guztian daude sentimen errezeptoreak -plazeraren **mezulariak** -. **Luis Elberdin**

Hona baitatuz berriekin gorputz **mezulari** guztiak, zeru-lurren eta bertan dauden guztien erantzunen buru eta epaile bailitza, ene barneari esanez: "ez gara Jaungoiko" eta "berak egin gaitu". **Imanol Unzurrunzaga**

Proteina fabrikatzeko makinak, xehetasun eta guzti, ez du jada sekreturik guretzat, bere bi urratsekin: genea ARN **mezulari** gisa transkribatzea, mezularia peptido-kate gisa itzultzea. **Juan Garzia**

##### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bakearen **mezulari** (10); **esperantzaren mezulari** (7); **jainkoaren mezulari** (4); **kristoren mezulari** (3); **mezulari bat bidali** (6); **mezulari bat etorri** (3); **mezulari bat iritsi** (4); **mezulari gaztea** (6); **mezulari gazteak** (7); **mezulari gisa** (6); **mezulari kimikoak** (3)

**irratiko mezularia** (3); **kristoren mezularia** (3); **mezularia bidali** (3); **mezularia bidaltzen** (3); **mezularia bidaltzen dut** (3)

**abiatu ziren mezulariak** (3); **erregearen mezulariak** (3); **mezulariak bidali** (35); **mezulariak bidali zizkion** (18); **mezulariak bidali zizkioten** (5); **mezulariak bidaliko** (4); **mezulariak esan** (3); **mezulariak esan zion** (3); **mezulariak igorri** (10); **mezulariak igorri zizkion** (6); **plazeraren mezulariak** (3)

**agindu zion mezulariari** (3)

**mezularien bidez** (6)

**plazeraren mezulariz** (4)

### mezularitza iz mezu zerbitzua.

Messenger **mezularitza** programak ICQri nagusitasuna kendu dio, Windows Mediak Real Player-i, orain Google-ren bertsioa egin nahi dute... **Berria - Ekonomia**

### mezuño iz adkor mezu laburra.

Lionel Jospin gobernuburuak biziki usaia ona hartua du: minixtro bakoitxak behar duela aski goiz jakin zeri buruz ari den eta hautu batzu ez direla azken puntan egin behar, uda betean minixtro bakoitxari beraz igortzen dio **mezuño** bat erranez ondoko urtean zozbat sos ukanen duen bere sailarentzat... **Herria**

### mezutegi iz mezu gordailua.

Jakizu beraz galde horretarik hasten dela jakiteko gisan miniteko **mezutegian** solasean ari zaren gizonki norbaitekin ala emazteki zenbaitekin. **Janbattitt Dirassar**

Bere **mezutegian** agertu zitzaion bere anaiaren mezua. **Ramuntxo Etxeberri**

### mezutu, mezu(tu), mezutzen du ad mezuz abisatu edo adierazi.

Bertzalde nahi luzkete bisita horiek egin aintzinetik **mezutu** gabe jitekoak direla. **Herria**

Beraz **mezutu** diote Palestindarrereri eta Izraeldarrereri ezti zitzaaten beren oharrak, gerlaren irriskua hurbil zutela. **Herria**

Onez onean kausitzen ahal dela oraino atera-bide bat, denek borondate ona agertuz, hori dio **mezutu** Saddam Hussein-i ere, Etxegaray kardinalaren bitartez. **Herria**

Gainera, hori zen gobernutik ere **mezutzen** zitzaiguna: plan berriak egitekotan, zero izan behar da haien kostua. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Bainan gogoetak egiteko parada izanen dugu: geroari buruz, nola euskara sendotu Elizan gure Herriari Berri Ona **mezutzeko**. **Herria**

### mezutxo iz mezu laburra.

Baina kontua duk nik **mezutxo** autografo hori aurkitu nuela, eta idazki laburrak liburuak baino mila bider gehiago balio duela, horra. **Anjel Lertxundi**

### mezzo iz mezzosopranoa.

Meier sopranoak **mezzoaren** ahotsa baino erregistro zabalagoa du, eta teknika handiko abeslari wagneriar espezializatua da. **Berria - Kultura**

Goeldener **mezzoak**, bestalde, abestaldi zurrak eta ona egin zuen zabalera handirik ez daukan ahotsarekin. **Berria - Kultura**

Elsa-ren rolean Prokina sopranoak dotore aieratu zuen ahots gozoa, piano eta **mezzo** kantuetan. **Berria - Kultura**

### mezzoradio iz

**Mezzoradioa** esne mindua zen, Sardinian artzain batzuei ikasi ziena egiten. **Fernando Rey**

Jaiki ondoko lehenbiziko kezka "**mezzoradio**" delakoa ongi egina ote zegoen begiratzea zuen. **Fernando Rey**

**Mezzoradioa** hagitz delikatu zen, eta huserria bat aski izaten zen ongi ez egiteko; aski zen biltzen zuen xala pixka bat mugitu eta aire pittin bat sartzen utzi izana.

**Fernando Rey**

### mezzosoprano (orobat mezzo-soprano g.er.) iz emakume ahotsa, sopranoaren eta kontraaltoaren artekoa.

**Mezzosoprano** italiarrak kontzertu barroko gogoangarria eskaini zuen larunbatean Iruñeko Baluartean. **Berria - Kultura**

Cecilia Bartoli Italiako **mezzosoprano** prestigiotsuak Haendel eta Scarlattiren ariak abestuko ditu. **Berria - Kultura**

Musikaren poesia eta poesiaren musika azaldu zituzten atzo Ana Maria Otxoa sopranoak, Marife Nogales **mezzosopranoak** eta Ainhoa Urkijo piano jotzaileak, Astearteak Txillida Lekun zikloaren barruan. **Berria - Kultura**

Bihar Ainhoa Zubillaga **mezzo** -sopranoarekin kantatuko du 20:00etan, Pedro Jose Rodriguez pianista lagun dutela. **Berria - Kultura**

Plamen Beykov baxuak Zaccaria apaiz hebrearrenak, eta Boika Vasileva **mezzosopranoak** Fenena Nabuccoren alabaren papera interpretatuko du. **Berria - Kultura**

## mg miligramoaren simboloa.

Lehenengo bi egunetan 40 **mg** hartu behar dira, dosi bakarrean edo dosi gehiagotan. **Unai Elorriaga**

TCH-ren 20 **mg**-ko dosiak kodeinaren 120 **mg**-koaren eragin berak ditu. **Berria - Harian**

300 **mg** taxol natural lortzeko zuhaitz oso bat behar zen. **Berria - Gaiak**

Nik bost ale (324 **mg**) baino ez ditut hartzen; pastillatan baitatuz. **Mirentxu Larrañaga**

Famvir 750 **mg**, pilula bat egunean, eta, zaurian emateko, botika miragarri bat, kobre-sulfatoa, %1ean, intsusa loretan. **Imanol Zurutuza**

## mi iz musika-eskalako hirugarren nota, germaniar eskalako E letraren kidea.

Ordubateak eta erdiak jotzerakoan, oso melodia zeremoniatsua entzunarazten zuen: **mi**-do-re-sol... sol-re-**mi**-do. **Txillardegi**

Orobat, do, re, **mi** musika multzoa denboran kokaturiko sail jakin bat den aldetik azter daiteke soil-soilik. **Isabel Arrigain**

Berriz tonuerdi okerreko hori, **mi** bemol bat pentagramatik behera eroria, eta isilune txoriburu labur bat gelditu zen. **Fernando Rey**

Mendelssohn-en Biolin eta orkestrarako kontzertua **Mi** minorrean. **Berria - Kultura**

Fantasia eta Fuga, Allegro **mi** bemol maior-ean, Duo sol minor-ean eta beste Allegro fa minor-ean **Berria - Kultura**

## miaka 1 adlag miatzen.

**Miaka** hasi nintzen panelpean. **Koldo Izagirre**

Lurrean bilaka eta **miaka**, hanka susmagarri bat topatu nuen, itxuraz emakume-hanka, zilar-koloreko zapatatxoa. **Fernando Rey**

Eta Harryren begiek, korridore ezagunetan gora eta behera **miaka** zebiltzala, beste zerbait ikusi zuten. **Iñaki Mendiguren**

Erosketak egitera doazen amari eta izebari agur esan eta aldizkari artean hasi naiz **miaka**. **Agurtzane Juanena**

Mokoa kontu handiz digituz, Nofutur ezti-eztiki **miaka** ari zen Ruche jaunaren ile zurietan. **Jon Muñoz**

## 2 (hitz elkartuetan)

Fusilak eskuan, batera eta bestera zoko-**miaka** oteak kanoiekien baztertuz. **Koldo Izagirre**

Isilik gelditu zen, begirakunea makurtu zuen eta kartera baltz handi hartan sartu zituen eskuak paper **miaka**. **Koldo Izagirre**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**miaka ari** (4)

## miaketa 1 iz miatzea.

Beste **miaketa** batzuk ere egin zituen Poliziak atzo. **Berria - Euskal Herria**

Israelgo Armadak **miaketa** eta galdeketa ugari egin zituen Zisjordaniako Tulkarem hirian. **Berria - Mundua**

Agirre eta Etxandi artxibozain beneditarrak atxilotuta eduki zituzten **miaketak** irauin zuten bitartean. **Berria - Harian**

Aranzadi Zientzia Elkarteak arkeologoek **miaketak** egin dituzte harpe horren sabelean eta Goi Paleolito garaiko aztarna ederrak aurkitu. **Herria**

**Miaketa** haietan hainbat eta hainbat altxor kausitu nituen. **Alberto Ladron Arana**

**Miaketa** orokor bat hagin du, Agirre jauna, **miaketa** sakon bat, ulertzen? **Koldo Izagirre**

**Miaketa** xehea egin zen gaztelu abandonatuan. **Josu Zabaleta**

Agente espainiarraren esku adituak **miaketa** zorrotz baina azkar bati lotu zitzaizkion. **Alberto Ladron Arana**

Harrigarri litzateke nik proposatzen dizudan moduko egunkariaren **miaketa** zabal batek bilaketaren norabidea zehaztuko diguten puntu txiki batzuk ez eskaintzea. **Koro Navarro**

Idazmahaiko **miaketa** bukatutzat emanda, bulegoko bi fitxategi metalikoetara jo nuen. **Alberto Ladron Arana**

Dena ikusi behar zen, **miaketaren** arrastorik utzi gabe. **Alberto Ladron Arana**

Salaketaren ondorioz abiatutako **miaketan** hainbat agiri atzeman zituela ziurtatu zuen Poliziak. **Berria - Euskal Herria**

**Miaketa** hasi aurretik baino nahasiago nengoan: gaeuz entzuten nituen hotsak nire irudipenak izan zitezkeen. **Anjel Lertxundi**

Bitartean ekintzailea **miaketetarako** aretoan sartu eta aldean zeraman bonba leheratarazi zuen. **Berria - Mundua**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

horrek guztiak osatzen du arkeologiaren **miaketa**-eremurik nagusienetakoa. **Xabier Arregi**

Gaur ere tea bakarrik, eta berriro **miaketa**-azterketa guztiak, ezin akigarriagoak, alajaina. **Joxe Austin Arrieta**

**Miaketa** lanetan SNCFko langileak ari dira soilik. **Berria - Euskal Herria**

Hala ere, **miaketa**-elektrodoen puntak ukitzen duen ehuna deseginagatik, ez da galtzen gertaeren oroitzapena. **Irene Aldasoro**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goiz erditan hasia, etxe-**miaketa** horrek luze irauin du, aratsaldeko 3ak arte! **Herria**

Eta prefetak, bere eliza **miaketekin**, komentu eta seminario bahiketekin aski lan baitzuen, katiximak bakean utzi zituen, une batez. **Piarres Xarriton**

Urre **miaketak** Errobi haranaldean. **Herria**

Haren hatz erakuslea Martin Ugalde parkeko polizia-**miaketaren** argazki baten gainean pausatu zen. **Iban Zaldúa**

## 4 miaketan adlag miatzen.

Aduanako hesia zen, mugazainek gurdien **miaketan** ziharduten. **Karlos Zabala**

Poliziak **miaketan** hasi ziren zeren bila zebiltzan jakin gabe. **Iñaki Zabaleta**

Ez zen beste mutilekin eskolara joaten eta toki guztietan **miaketan** ibiltzen zen. **Koro Navarro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egin zuten miaketa** (4); **etxe miaketa** (6); **etxearen miaketa** (3); **miaketa bat egin** (4); **miaketa batean** (5); **miaketa egin** (14); **miaketa egiten** (5); **miaketa egitera** (4); **miaketa gehiago** (5); **miaketa hasi** (3); **miaketa lanetan** (5)

**etxe miaketak** (4); **miaketak egin** (9); **miaketak egin zituzten** (3); **miaketak egiten** (5); **miaketak eta atxilotetak** (3)

**egindako miaketan** (6); **etxearen miaketan** (4)

**miaketatan atzemendako** (3)

**miaketetan aurkitutako** (5)

## mialgia iz giharretako oinazea.

Sukarra, buruko mina eta **mialgia** dira gaixotasun horren sintometako batzuk. **Berria - Gaiak**

## miarazi, miaraz, miarazten du ad miatzera behartu.

Dena den, **español** gobernuak jakin-arazi du berriz **miarazia** duela itsasoaren zolan bi pusketan dagon "Prestige" unti zaharra. **Herria**

Ama hil ondoko orduetan, dokumentuak eskatu zizkidaten eta bazter guztiak **miaraztera** derrigortu ninduten, amaren intimitatea haustera behartuz. **Joxan Elozei**

Bera harat joanez eta zernahi etxe xeheki **miaraziz**, arma, drogaki eta holakoak azkarki xekatur. **Herria**

Horren kontrako lehen urratsa, bere buruaren ikertaraztea edo **miaraztea** da, gero sendagailu zorrotzetara joaiteko. **Herria**

## miarma iz armiarma.

'Zailena sintaxia da' dio berak, **miarma** batek egingo lukeen moduan, bere amaraun gramatikaletik zintzilik. **Joseba Sarrionandia**

## miarritzar ik miarritzar.

## miarritzar ik miarritzar.

## miarritzar (orobat miarritzar g.er. eta miarritzar g.er.) izlag/iz Miarritzekoa, Miarritzeri dagokiona; Miarritzeko biztanlea.

Max Brisson **miarritzar** hautetsiak. **Herria**

Ezker paretan, Eneko Bessonartek bere **miarritzar** lagunarekin gazteen lehiaketaren finala irabazi du. **Herria**

Jean Crouzet **miarritzara** Luzaiden atxilotu zuten 1943an. **Jokin Urain**

Lehen zatia ereman dute airez aire **Miarritzarrek** 20 eta 3 zirela. **Herria**

Ez nintzen bakarria telebixtaren aitzinean larunbat aratsaldean ikusteko errugbi partida **Miarritzarrak** Paristarren kontra. **Herria**

Eguerditan, Agileran plantatu aterbe zabalean, zikiro jatea, **miarritzarren** bazkari herrikoa. **Herria**

## miasma iz usteltasunari darion jario kaltegarria.

Pirata batzuek, karelaren kontra jarrita, gauaren **miasmak** edaten zituzten. **Julen Gabiria**

Baina mundu-oparotasunaren **miasmak**, masa lelotzen duenak, ongi eragin lezake mundu honetako xarrei buruzko mesfidantza arima espiritualki sentibera eta kementsuetan. **Iñaki Mendiguren**

## miatu, mia, miatzen 1 du ad arakatu. ik aztertu.

-Eskualdeko baserri guziak **miatu** ditagu eta segurtatzen ahal diat han gorderik ez dela iheslaririk bat ere. **Elena Touyarou**

Egongelako tiradera guztiak, han-hemen pilotutako kartoizko kaxak, ezer gordetzeko balio zezakeen oro **miatu** nuen. **Anjel Lertxundi**

Ettxeko zoko-mokoak **miatuak** zituztela... **Daniel Landart**

SNCF Frantziako Tren Konpainia Nazionalako 10.000 langilek 32.000 kilometro trenbide **miatu** zituzten atzo AZF taldeak iragarritako hamar lehergailuen bila. **Berria - Euskal Herria**

Bi urpekari agertu, eta gabarroia **miatzen** hasi dira. **Txillardegí**

Emaztea bizkarrez zegoen, gizon batekin solasean, eta bere sakela **miatu** ondoan, zerbait eman zion, dirua naski, paket baten truk. **Elena Touyarou**

Une batean gelditu naiz, zain nago, bihotza taupaka sumatzen dut; plaza hutsa **miatu** dut begiekin. **Monika Etxebarria**

Madinak dio kanpaina asko egin direla, emakumeek euren sexu organoak eta bularrak **miatzen** ikas dezaten, baina ezer gutxi egin dela gizonei eurenak **miatzen** erakusteko. **Berria - Gaiak**

Gure espezialistek haren ordenagailua **miatuko** ditek. **Aingeru Epaltza**

Liburu hamaika aldiz **miatu**, arakatu, aztertu eta berraztertu ondoren, [...]. **Joxerra Garzia**

Azken hogeitaz urte hauetakoko orrialde guziak beharko ditugu **miatu**. **Elena Touyarou**

Auritze herriko fiskalak dio ongi aztertu edo **miatu** duela kasu hau legearen arabera. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Segundo isil batez Joek ez zuen mugimendurik egin; Josebaren begiak **miatu** zituen. **Iñaki Zabaleta**

### 2 (poliziak eta kidekoek)

Urriaren 3ko Polizia operazioan hainbat etxe **miatu** eta 18 lagun atxilotu zituzten. **Berria - Euskal Herria**

-Ireki atea oraintxe bertan, etxea **miatzeko** agindua daukagu! **Jon Maia**

Ziegetan **miatuko** dugu lehenik, eta gero zuek **miatuko** zaituztegu banan-banan. **Koldo Izagirre**

Berehalakoan, soldaduek gatibuen taldeak **miatu** zituzten zakarkeriaz. **Karlos Zabala**

Gero ni **miatu** naute, eskularri profilaktikoak dakartzate eta ez zuten eginarazi didate herriko medikuak prostata aztertzen zidanean bezala. **Koldo Izagirre**

Pistola ere kezka-iturri larria nuen: mugazainek nire ekipajea **miatuz** gero, atxilotua izateko arrisku handia nuen. **Alberto Ladrón Arana**

Oraindik ez sartzeko agindu zigun, maletalekua **miatu** behar zuela badaezpada ere. **Mikel Hernandez Abaitua**

Talde batek pasabidea **miatu** zuen eta labana jaso zuten hatz arrastoak aztertzeko. **Iñaki Zabaleta**

### 3 (adizlagunekin)

Presoak biluz gorrian ezarrarazten zituen eta hurbiletik ongi **miatzen**. **Eneko Bidegain**

Guardia zibilen autoa ere goitik behera **miatzen** ari dira, tiro egin zuena non zegoen, zenbat aldiz tiro egin zuen eta zenbat arma baliatu zituzten jakin ahal izateko. **Berria - Euskal Herria**

Goitik behera eta behetik gora **miatu** ditut Morse-ikur ilara haiek. **Txillardegí**

Horma arretaz **miatu** dudan arren, ez dut haren izenik topatu igeltsu harramazkatuan. **Harkaitz Cano**

Uniformeko eta uniformerik gabeko polizia ugari zebiltzan, zakurrekin bazter guztiak sakon **miatzen**. **Berria - Mundua**

Agente espainiarra banan-banan **miatzen** hasi zen, kartoizko karpetak zabalduz. **Alberto Ladrón Arana**

Denok jaitzarazi, eta zeharo-zeharo **miatu** zituzten kamioiaren barruak. **Inazio Mujika Iraola**

Xehe xeheki **miatzen** gituzte, orduan galtzen ditut ene estilo urrestatua, lepoko gatea bere medailekin, muntra eta moltsa. **Michel Oronoz**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autoa miatu (3); baserri bat miatu (3); bazter guztiak miatu (6); bulegoak miatu (7); bulegoak miatu zituzten (4); dena miatu (10); egoitza miatu (5); egoitzak miatu (4); etxe bat miatu (3); etxea miatu (29); etxea miatu zuten (7); etxeak miatu (11); etxeak miatu zituen (4); etxebizitza miatu (11); gela miatu (4); gelak miatu (3); goitik behera miatu (14); gurasoen etxea miatu (4); hainbat etxebizitza miatu (4); ingurua miatu (3); inguruak miatu (4); kilometro trenbide miatu (3); miatu ondoan (5); miatu ondoren (23); miatu ostean (7); miatu zituen poliziak (5); ondo miatu (3); osoa miatu (9); poltsikoak miatu (3); sakelak miatu (3); ziegak miatu (3)



**etxe miatze** (7)

**miatzeari ekin** (10)

**etxea miatzeko** (3); **miatzeko agindu** (3); **ongi miatzeko** (3)

**banan banan miatzen** (3); **bazter guztiak miatzen** (6); **bazterrak miatzen** (19); **etxea miatzen** (5); **etxeak miatzen** (3); **gauzak miatzen** (3); **goitik behera miatzen** (3); **inguru miatzen** (3); **inguruak miatzen** (3); **lakuko bazterrak miatzen** (3); **miatzen ari** (32); **miatzen aritu** (9); **miatzen hasi** (32); **miatzen hasten** (3); **miatzen ibili** (5); **miatzen jarraitu** (4); **patrikak miatzen** (3)

**etxea miatzera** (7); **miatzera joan** (3)

## miatzaile 1 izond miatzen duena.

Taniaren izebak ere begiratu egin zidan, begi **miatzailez**, inolako adiskidetasunik gabe. **Jon Muñoz**

Gero [...] agure txiki bat nire aurrean itzulinguruka eta bultzaka hasi da, jende oldeak zeramala, begirada **miatzailez** eta behin eta berriz oihuka: "Ilonka! **Urtzi Urrutikoetxea**

Nire Ilonka!". Gizonak kasik ez zuen hitz egiten, aditzen zuen eta silaba bakarreko hitzez erantzuten zuen, baina haren behako **miatzaileari** deus ez zitzaion eskapatzen. **Elena Touyaru**

Jakingura atzartu zitzaizun, eta zure galderak egiteko modu **miatzaile** eta itzulinguruz beteak pentsarazi zidan nire ezkutukoa haztatu nahi zenuela. **Eduardo Matauko**

## 2 iz miatzen duen pertsona.

Ikusmiran dabilen **miatzailearen** antzera, arreta biziz abiatu zen herriko kale eta plazetan zehar bere bihotzeko kuttunaren bila. **Askoren artean**

Hortarako den jende berezi hark sakelak aire husten dizkit, otoitz-liburua lurrera botatzen didate, eta arrosarioak **miatzaile** batek luzaz zangopilatzen dizkit, bihiak xehatu beharrez. Pettan zen besteak baino aitzinago joana, zaldi bat kordatik estekan, **miatzaile** edo espiun gisa. **Marzel Etxehandi**

Ibilgailuko zoko-moko guztien **miatzaile** erotua bilakatzen naiz. **Aingeru Epaltza**

Gauzen pentsatzaile eta munduaren **miatzaile** bezala, hau da, kulturalki, euskaldunok baditugu desabantaila askoren artean abantailatzat bazuk. **Joxe Azurmendi**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Biluzi gintuzten, eta SSei berdin zitzaie, preso **miatzaileek** ikaragarriak egin zizkiguten otoitz liburuak urratuak eta zangopilatuak, arrosarioak eta medailak berdin laidoztatuak... **Marzel Etxehandi**

Ez pentsa batere erraza denik ezkutatu saltsa-**miatzaile** batzuen erdigune lotsagabea izatea. **Josu Zabaleta**

## miatze 1 iz arakatzea.

**Miatze** orokor bat aipatu du lehen norbaitek; zergatik ez ditugu armairu guztiak banan-banan arakatzen, ea norbaiten gauzen artean aurkitzen ditugun lapurtutakoak?

**Xabier Mendiguren Elizegi**

**Miatze** horien ondotik, Berlusconi jaunak kargutik kendu ditu poliziaren hiru arduradun. **Herria**

**Miatze** bortitx eta zehatz baten ondotik. **Michel Oronoz**

Nahi baino denbora gehiago egin nuen batetik bertzera, premiak akuilatutako **miatze** urdurian. **Aingeru Epaltza**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Auto eta etxe **miatze** horien gaineratik badira haatik eztabada saminak. **Herria**

Beste etxe-**miatze** batzu egin dira Hiriburun, Beskoitzen (Salinetan) eta Aiherran. **Herria**

Zonaldearen hondo-**miatze** sakon zehatza egin ostean, sorospen zerbitzukoek txostena idatzi zuten, inor bizirik ez zela atera zioena. **Aritz Gorrotxategi**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egun hartan, hizpide bakarra zuen mundu guztiak, Big Joe bilatzeko **miatze**-lanak eta haien emaitza zoriontsua. **Mirentxu Larrañaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**etxe miatze** (7)

**etxe miatzeak** (4)

## miau 1 iz katuaren ahotsa.

Katu baten **miau** sumatu da urruntasunean, auto bat ziztu bizian igaro da. **Antton Olano**

Gonzalezek entzuten ez dituen katakumeen **miauk** entzuten ditu Ginnyk. **Gotzon Garate**

Gauetz, baina, katu zaintzailearen **miauek** esnatu zuten. **Joan Mari Irigoien**

Harryren esaldiaren gainerakoa ezin izan zuen inork entzun, haren orkatila ingurutik etorri zen **miau** zoli eta zorrotz batek ito baitzuen. **Iñaki Mendiguren**

Herkules bera bedi lehia bere lanen egitera; katuak **miau eginagatik**, txakurrak egokiera. **Juan Garzia**

## 2 irud/hed

Izan ere, emaztea sekula ez da ondo moldatu amaginarrebarekin, eta garai hartan ere auzoko katuak bezala ibiltzen ziren biak, **miau** eta marramiau. **Patxi Iturritegi**

## miauka 1 adlag miau eginez.

Arrantzaka noizean behin astoren bat, eta kurrinka txerriak, eta **miauka** katuak. **Patxi Ezkiaga**

Maindireen azpian izoztuta ni, eta katua **miauka** eta **miauka** eme eske, edo goseak besterik ez agian. **Koro Navarro**

Katua eta katakumeak **miauka**. **Iñaki Arranz**

Hontzak uluka ari ziren, katuak **miauka**, eta Nevilleren apoa ozen korroka bere kapela azpian. **Iñaki Mendiguren**

Haren ondoren barrabas olde hura lasterka, jauzika, zilipurdika, oihuka, marruka, **miauka**, irrintzika, orroka, kukurrukuka, eta beste mila gauza barregarri asmatzen. **Josu Zabaleta**

Plater zikin eta janari hondarrez beteriko mahaiaren gainera katu zuri bat buztana tente eta **miauka** igo zen. **Joseba Sarrionandia**

## 2 miauka egin

**Miauka egiten** zuen hitz egin orde, eta mahatsa bezain berdeak zituen begiak. **Koro Navarro**

Katutxoek **miauka egiten** zuten zaku barrutik, irteten saiatuz. **Juan Kruz Igerabide**

Lau katutxo jaioberriak goitik behera, hankatxoak astinduz, hegan egin nahi balute bezala, eta **miauka**, larri. **Juan Kruz Igerabide**

## miaukari izond miauka egiten duena.

Gizon zahar **miaukariaren** besoetan bihurritzen zen haurra eska zezakeen, baina nork zainduko zuen. **Anton Garikano**

## **miazka** adlag miazkatuz.

Goizean Teacher's isurtzen dit sabelean eta **miazka** kentzen dit. Koro Navarro  
Franklin andreak ahoan jarri zion eskua, eta mozkorra **miazka** hasi zitzaion. Koro Navarro  
Nahi baduzue elkarri ipurdia **miazka** aritu, niri bost axola, baina utz nazazue behingoz bakean. Xabier Mendiguren Elizegi  
Oinen ondoan Bixkor txakurra, putzuan **miazka**. Anton Garikano  
Zertarako jardungo dinagu **miazka** atzera biderik ez duten gertakizunen zauri zornatuetan?". Anjel Lertxundi

## **miazkatu** (280 agerraldi, 83 liburu eta 10 artikulutan; orobat **mizkatu** g.er.), miazka(tu), miazkatzen 1 du ad mihia igaro zerbaiten zehar. ik **miaztu**; **milikatu**.

-Mmm! -esan zuen Flitwick maisuak, ezpainak **miazkatuz**. Iñaki Mendiguren  
Goxo-goxo **miazkatzen** zizkidan ezpainak, eta ni gero eta joanago nengoen. Juan Martin Elexpuru  
Hatz erakuslea **miazkatu** pare bat aldiz eta orri batzuk pasatu zitinan. Anton Garikano  
Mihi-punta atera zuen gero, eta Andreasen hatz-mamiak **miazkatu** zituen. Anjel Lertxundi  
Ez zen piztia gaizto bat eta **miazkatu** egin zien eskua. Koldo Biguri  
Txakurra Lucyri aurpegia **miazkatzen** ikusten dudak bitartean. Oskar Arana  
Emakumeek beti **miazkatzen** dute alua gizonen baino hobeto. Karlos Zabala  
Triangelu bat osatu genuen geure gorputzez batak besteari katean zakil-barrabilak **miazkatzeko** asmoz. Aitor Arana  
Zauriak **miazkatzen** dituen txakurraren adurra bezala. Paddy Rekalde  
Gozokia **miazkatu** berri duen umeak bezala. Jon Muñoz  
Maiz gelditzen ginen, elkar musukatzeke; gozoki bat ezpainetan hartu, eta bion artean **miazkatzen** genuen. Juan Kruz Igerabide  
Atzeratu nuen kapelua garondo aldera, **miazkatu** nuen neure ezpainetako garagardo-aparra. Joxe Austin Arrieta  
Artean garagardoa zeriola musutik, tantak **miazkatzen** zituen erori ahala. Unai Iturriaga  
**Miazkatu** egin dizkiogu elkarri malkoak, aurpegian behera gehiegi irristatu baino lehen. Harkaitz Cano  
Hautsa **miazkatuko** dute, sugeek eta narrastiek bezala. Elizen arteko biblia  
Txakurretako bat antoisin bat **miazkatzen** ari zunan atarian. Anton Garikano

### 2 irud/hed

Egungentziaren lehen printzek lorea **miazkatzen** dutelarik [...]. Anjel Lertxundi  
Itsasoak **miazkatzen** zituen harkaitzetara abiatu zen. Paddy Rekalde  
Suzko mihiek **miazkatuta** zegoen dena. Koro Navarro  
Kontuak kontu, atzerriko garratza **miazkatuta** etorritako erretore zahar-berriak ahaztuak zituen antzinako su-garrak. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Pare bat orduz egon nintzen Kurtekin, gehiago ez, eta eragin zidan inpresioagatik, sator-lanen batean ari zelakoan nengoen ni, eta ez agintariei ipurdia **miazkatzen**. Anjel Lertxundi  
Brent upelak 69 dolarreko maila **miazkatu** arren, Wall Street irribarretsu esnatu zen, aspalditxoan bezala. Berría - Ekonomia

#### **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurpegia miazkatu** (3); **eskua miazkatu** (4); **ezpainak miazkatu** (5)  
**genitalak miazkatzea** (3)  
**aurpegia miazkatzen** (4); **elkar miazkatzen** (3); **zakila miazkatzen** (3); **zauriak miazkatzen** (4)

## **miazkatzaile** 1 iz miazkatzen duen pertsona.

Baina nola aixkidea, nola eskain diezaioke mediku batek -izango zen hura italiar titien **miazkatzaileren** bat- nola eskaini rasta bati kimioterapia? Harkaitz Cano

### 2 irud/hed

Gaztetxo aberats handiki haren jiran berehala bildu ziren zuriak eta **miazkatzaileak**, bizkarroiak eta zeremonia-egileak, sakela-bilatzaile eta diru-xahutzaile prestuenak. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Preso asko eta asko kartzelariaren laguntzaile, ipurdi-**miazkatzaile**, salatari dira. Berría - Euskal Herria  
Edo lehendabiziko ipur-**miazkatzaileak** saritzeagatik, azkenekoekin kalte-ordainen gerra hasi beste biderik ez dutenak. Anjel Lertxundi

## **miazkatze** iz mihia igarotzea zerbaiten zehar.

Masturbazioa, musuak, ziriak, **miazkatzeak**, laztanak... Luis Elberdin  
Musu atseginez, laztan eztiz, **miazkatze** grinatsuz. Luis Elberdin  
**Miazkatzeekin** tartekatzen zuten batzuek esku-dantza. Xabier Mendiguren Elizegi  
Utzi balidate, sikanen, euren sartze, ateratze, **miazkatze** eta zurrupatze saioei begira egoten, hartan inspiratuta kanpaia jo nezan gustura! Jon Arretxe

## **miazketa** iz miazkatzea.

Donatien atsegini eta fantasia nagusiak **miazketa**, uzki-koitua, alu-koitua eta masturbazioa dira, hau guztia taldean, eta exhibizionismoz eta zokomiraz ongi apailatuta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## **miaztaldi** iz miaztatzea, miaztatzen den aldia.

Ukialdiari **miaztaldiak** jarraitu zion, eta tarte horretan mihia heze luzeek atzamarrak ordezkatu zituzten gorputz azalak goitik behera, kanpo eta barru, ferekatze lanean. Jon Arretxe

## **miaztatu**, miazta, miaztatzen (3 agerraldi, liburu 1ean) du ad miazkatu.

Zakurrek Naboten odola **miaztatu** duten toki berean **miaztatuko** dute zure odola ere. Elizen arteko biblia  
Zakurrek **miaztatu** zuten Akaben odola eta emagalduek uraska hartan garbitu ziren, Jaunak esan bezala. Elizen arteko biblia

## **miazte** iz miazkatzea.

Larru-jotzeak eta zakil-**miazteak** hainbestean ziren baliagarri, oharturik zen horretaz, baina Harryrentzat benetan ezinbesteko izatea lortzen bazuen, salbaturik zen bere artista-karrera. **Oskar Arana**

## **miaztu**, miaz, miazten (**43** agerraldi, **17** liburu eta artikulu **1**ean) du ad miazkatu. ik **milikatu**.

-Aaa! -esan zuen izeba Margek, ezpainak **miaztuz** eta brandy-edalontzia, hutsik, mahaian utziz-. **Iñaki Mendiguren**

Isatsa ezker-eskuma jolasti zuela halere, aurpegia **miaztu** zion Zuriñeri. **Joxemari Urteaga**

Bitartean mihia izterretatik eta hankartetik pasatzen dit, gutiziaz, guztiz irekia nago, orain izterbarruak **miazten** ari zait, uste dut ezingo dudala jasan, eta intzirika hasi naiz lotsagabe. **Juan Martin Elexpuru**

Sartu gehiago mihia, andere, ez **miaztu** klitoria bakarrik. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ipurdia **miaztu** behar diot kanpaia jotzen diodan bitartean. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## **midaila** ik **medaila**.

## **midiku** ik **mediku**.

## **mielga** iz itsas arrain aski handia, kolore arrekoa, bizkar hegala bakoitzaren aurreko ertzean ezten pozoidun bana duena (*Squalus acanthias*).

**Mielga** beldurgarria, buru biribilekoa, arraildura zabala idolo txinatar batena dirudien ahoan, saguzar haragitsuen hegala laburrak saihetsetan, itsaspeko haitzuloetako altxorrek zaunkaka gordetzeko ardura duen munstroa. **Karlos Zabala**

Arraien eta **mielgen** bizkarraren gainean, harri handi ilunak, moreak, berdexkak, metal belztu batean txertatzen ziren. **Karlos Zabala**

## **mielina** iz nerbio zuntzak estaltzen dituen gai gantzatsua.

**Mielina** garuneko nerbioak estaltzen dituen geruza zenbat eta ahulagoa izan gaitza garatzeko arriskua are handiagoa dela jakina da. **Berria - Gaiak**

Adinarekin **mielina** eskastu egiten da, prozesu naturala da hori. **Berria - Gaiak**

## **mielitis** iz

**Mielitis** -esan zuen bat-batean Redinek, silaba bakoitza markatuz. **Bernardo Atxaga**

## **miga** ik **biga**<sup>1</sup>.

## **migatu**, miga, migatzen da ad

Romanek-ek habe zehargia lurrean itsasi du eta habe gainean lotu du, ur, haize eta izadiarekiko harreman guzietan, **migatu** zur berezia. **Herria**

## **migraina** iz buruko min bortitza, maizenik buruaren alderdi bati erasaten diona, eta goragale eta okak eragiten dituena.

Bere **migrainak** ere "motelak" iruditzen zitzaizkion orain: lehenagokoekin batera, haluzinazio geometriko koloretakoak izaten zituen, baina koloregabeak ziren orain haiek ere. **Xabier Olarra**

**Migrainen** zergatiak ikertzen ari dira zientzialariak. **Berria - Gaiak**

Kalamuak emaitza onak eman ditu **migrainak** tratatzeko, baina azterketa sistematikoak egiteko daude. **Berria - Harian**

Heste-zizareen inbasioa zeukala diagnostikatu zioten medikuek; haurtzarotik jasaten omen zuen parasitosi horren ondorioen artean **migrainak**, arreta falta eta lan luzeei aurre egiteko ezintasuna egon zitezkeela jakin zuen. **Iban Zaldúa**

## **migrante** iz migratzen duen pertsona.

Gaia mundializazioak eta bere altxerak, hego-iparrak bereizten dituzten aberatsak eta **migranteak**. **Berria - Kultura**

## **migrari** izond migratzailea.

Apo **migrariak** janez bizi zen. **Xabier Olarra**

## **migratorio** 1 izond migrazioari dagokiona.

Portugaldarra baldin bazen, Coimbrakoa, gure jaidura **migratorioaren** aitzindari bezala ikus dezagun, diaspora itzelaren aitzindari, bere gaztaro guztia Frantzia pasatu baitzuen, ikasten. **Jon Alonso**

## 2 migratzailea.

Eper asko zeudela Gasteiz inguruan, galeperrak ere, **migratorioak** izan arren. **Mikel Hernandez Abaitua**

## **migratu**, migra, migratzen **1** du ad beste lurralde edo herrialde batera joan. ik **emigratu**.

Hirugarren mendean Indiako ipar-mendebaldeko hainbat tribuk Pertiara (Iran) **migratu** zuen. **Berria - Kultura**

Eslabiarrak ez germanoak ez dira mugitu gabe egon; **migratu** dute, eta batzuek besteen lurraldeak konkistatuz ibili dira. **Isabel Arrigain**

Odol beroko beste hainbatek, hegazti askok, esaterako, **migratu** egiten dute eguraldi hotzak hasten direnean, leku beroagoen bila. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## 2 irud/hed

Pixka batean eguzkitan egoteak babes-mekanismo bat jartzen du abian: lehenik melaninak (larruazalean dagoen pigmentu arre batek) epidermisera **migratzen** du, eta, gero, berriz, melanina gehiago ekoizten da. **Irene Aldasoro**

## migratzaile izond migratzen duena.

Txori **migratzaileak** ehizatzea debekatu dute Filipinetan eta Palestinan. **Berria - Harian**

Hegazti **migratzaileei** eraztunak jartzen. **Berria - Harian**

Hegaluzea Mexikoko Golkotik etortzen den espezie **migratzaile** bat da, eta Kantauri itsasora uda oro iristen da. **Berria - Ekonomia**

Mundu garatuak harrisi barneraezinak eraiki ditu, eta gizaki **migratzaile** gizaki ilegal bilakatu da. **Iñaki Heras**

Lehenengo globalizazio garaian, 1870 eta 1914 urte bitartean, 60 milioi pertsona inguru joan ziren Europatik mugimendu **migratzaile** handietan. **Iñaki Heras**

Haiei begira, guztiok hegazti **migratzaileak** garela pentsatu izan zuen gizonak, beti bizileku hobearen bila, janari bila, zein bere zeru partikularrean, elkarri mokoka askotan. **Imanol Zurutuza**

Medium bat bezala ikusten dut ene burua, pasaiaiko txori bat banintz bezala, **migratzaile**. **Ana Urkiza**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hegazti **migratzaileak** (6)

hegazti **migratzaileek** (7)

hegazti **migratzaileen** (10); **hegazti migratzaileen bidez** (5)

## migratze iz beste lurralde edo herrialde batera joatea.

Antzinako ingelesa **migratze** baten ondorioz bereizi zen enbor germanikotik. **Isabel Arrigain**

Herriak beti ibili dira irabiaka, eta mendeen poderioz, **migratze** horiek guztiz nahastu dira, puntu askotan transizio linguistikoen oroimena erabat desargertzearaino iritsiz.

**Isabel Arrigain**

Dena dela, oraingoz badirudi ez dela etorriko, **migratze** garaia omen baitira arriskutsuenak. **Berria - Ekonomia**

## migrazio 1 iz migratzea. ik emigrazio.

**Migrazioak** kultura eta gizarte arloko trukeak ahalbidetzen ditu, baita aldatetako eragin ere. **Berria - Harian**

Orain hogeita hamar urte heldu zen gurera, familiaren **migrazio** baten ondorioz, leinu guztietan kontagai izaten diren **migrazio** horietako bat. **Ander Irizar**

Ez zela beraren errua izango bidean hiltzen baziren **migrazioaren** nekeen eraginez, hori Jainkoaren esku zegoela. **Jose Morales**

Baina zerk eragin zuen bufaloen **migrazio** hau, gerora hainbat arrazoiengatik herioa ekarriko zien lehen aldatetako? **Pako Aristi**

Baina **migrazioa**, erditzeak dauden emeek bakarrik egiten dute, eta bertan geratzen dira, etxean, arrak, aurreko urtean jaiotako umeak eta antzu dauden emeak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Arimen **migrazioari** buruzko bertso ezezagun batzuk. **Juan Garzia**

**Migrazioako** Nazioarteko Erakundearen arabera. **Berria - Mundua**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Iberiko Penintsulako hegazti-paserako **migrazio** lekuri garrantzitsuenetako bat Bizkaiko Golkoa denez [...]. **Berria - Kultura**

Nazioz gairako **migrazio**-eremuak, integrazioa eta herritartasun berria. **Berria - Euskal Herria**

Diruak, salgaiak eta gizakiak aske zuten batetik bestera egiteko bidea: **migrazio** mugimendu handien aldia izan zen. **Iñaki Heras**

Biztanleriaren zaharkitze prozesua eta **migrazio** fluxuak dira, azterketa horren arabera, pentsio sisteman eragingo duten arazo nagusiak. **Berria - Ekonomia**

Aurkikuntza horiek eta haien ondorengoek (urrezko meatokiak bereziki), hornitze-lan handiak, **migrazio**-olde berriak eta lehen industrializazio-saioak bultzatuko zituzten. **Koro Navarro**

**Migrazio** -uhin batek menderatua c. K.a. 1200-1190ean. **Iñaki Mendiguren**

Demografia-leherketa aurrenik, eta horren ondoriozko **migrazio**-presioa gero. **Koro Navarro**

Kontrola arindu dute hegaztien **migrazio** garaia amaitu eta gero. **Berria - Gaiak**

Gripea ez da hedatu **migrazio** bideetatik, trenbideetatik baizik. **Berria - Euskal Herria**

Frogatuta dago, esaterako, argi kutsadurak animalia askoren ugalketa funtzioei eta **migrazio**-jokaerei eragiten diela. **Berria - Gaiak**

Mexikoko **Migrazio** Institutura dei dezakezu informazio eske. **Berria - Euskal Herria**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskal Herrian ez dago beltzarga **migrazioari**. **Berria - Euskal Herria**

Zerbitzuak ere liberalizatzen ari dira, Estatu Batuetako eta Europako Batasuneko enpresak irabazian aterako diren arloetan [...] eta, Munduko Merkataritza Erakundeko eskulan **migrazioak**, aldiz, bazter uzten dituzte, propio. **Iñaki Heras**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hegaztien **migrazio** (3); **migrazio garaia** (3); **migrazio handia** (3); **migrazio mugimenduak** (4)

## mihi (1288 agerraldi, 183 liburu eta 67 artikulutan; orobat mihin g.er.) 1 iz ahoan kokaturiko organo haragitsu eta gihartsua, luzarana eta higikorra. ik mingain.

Hatzak **mihi** gainean edo mihiaren azpian ipinita. **Joseba Sarrionandia**

Bere ezpain bigunak sentitu ditut, eta bere **mihi** umela, eta hortzen arteko ahogozoa. **Joseba Sarrionandia**

Ohi zenez, musu eman zidan ahoan bere **mihi** handiaz. **Aitor Arana**

Pilulek baldartutako **mihi** lodiaren sisibasa soila entzuten zitzaion. **Anjel Lertxundi**

Vanessak sarritan egiten zizkidan mimoak, bai, baina beti ere helburu zehatza bilatuz: nire **mihi** luzeak eman ziezaiokeen plazerra. **Jon Arretxe**

Bere **mihi** txit trebeak zakilburua lantzen zidan beste inork inoiz ez bezala. **Juan Martin Elexpuru**

Esaidazu zer sentitzen duzun gure **mihi** biak zure zulo bietan batera sartzen direnean. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ostiak **mihi** gainean desegiten ziren zaporerik gabe, listua lehortuz. **Joseba Sarrionandia**

Sugearen **mihi** zatibituak Harry alde batean jo zuen. **Iñaki Mendiguren**

Ondoren, Nikanor zitalari **mihia** moztu zion eta, puskak eginiak, txoriei emateko agindu. **Elizen arteko biblia**

Bi eskuak moztu, **mihia** zainetik erauzi. **Patziku Perurena**

Ingeniariari oso eraginkortasun eskaseko hozte-sistema iruditzen zaio hori; izan ere, era horretan, oso aire gutxi jartzen da kontaktuan ahoko eta **mihiko** gainalde bustiarekin.

Irene Aldasoro

**Mihiaren** aurrealdeak oso labur jotzen du hortz-hobietan eta berehala urrutiraten da. Lourdes Oñederra

**Mihia** pasatuz busti zuen goiko espaina. Irene Aldasoro

-Lehen baino hobeki bai... -ihardetsi zidan, hitzak, artean, **mihian** toteltzen zitzaizkiola. Joan Mari Irigoien

## 2 (mintzoaren adierazpidetzat hartua)

**Mihi** orok aitortzen dezan Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitarentzako. Elizen arteko biblia

-Zaindu **mih**i hori -egin zion haserre Minor-ek-. Oskar Arana

Haien **mihian** azpikeria, haien ezpainetan sugorri-pozioa. Elizen arteko biblia

**Mihia** tratatu zitzaidan behin berriz abuztuko goizalde horretan. Aingeru Epaltza

Jakin-minak **mihia** erretzen bazidan ere, ez nintzen xehetasun gehiago galdatzera menturatu. Aingeru Epaltza

Berriz ere zerbait erran nahi izan nuen, eta berriz ere hura biziago izan **mihia** dantzatzen. Aingeru Epaltza

Gure hizkuntza biziartekatotan, ez da **mihia**ren lana bezalakorik. Herria

Haragiaren bultzadak menperatzeko eta **mihia**ren eusteko. Askoren artean

So gelditu gataizki, **mihia**ren loturik, ez harriduraz edo beldurrez. Karlos Linazasoro

Erretorika ere ikasten genuen eta nire frantses motza **mihia**ren ekartzeko ahaleginak txalotzen zizkidaten irakasleek. Aingeru Epaltza

Ahoz ari garelarik ez baitzaizkigu **mihia**ren etortzen horrelako baliabideak. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta, horrela, egunetan egon nintzen anaiarekin hitzik egin gabe, haserre, zeren ez baitzegoen haserre hura gozatzerik ez ematerik... eta zeren senda baitaitezke zauri ezpatazkoak, baina nekez **mihia**ren, nola izan baitziren anaiak neuri eraginak. Joan Mari Irigoien

## 3 (mintzoaren adierazpidetzat hartua, izenondoekin)

Etz duzu inguruotan ur freskoagorik aurkituko -esan nion **mih**i leunez. Anjel Lertxundi

-Billy, a ze **mih**i pozoitsua zurea! Lopez de Arana

Izebaren **mih**i gaiztoari entzungor egiten. Aingeru Epaltza

ik beheherago 15. Askoren artean

Aldendu zeuregandik **mih**i gaiztoa, urrundu ezpain gaizki-esaleak, denon ezaguna da itsasoko jendearen **mih**i arina eta berriketa lotsagaberako joera. Elizen arteko biblia

ik beheherago 12. Askoren artean

Begi harroak, **mih**i gezurtia, errugabearen odola isurtzen duten eskuak. Elizen arteko biblia

Hire **mih**i luzea amarrukeriaz dantzatu ostean, jai duk uste baldin baduk ene kafetegian jotzen utziko diadala. Patxi Zubizarreta

ik beheherago 16. Askoren artean

**Mih**i maltzurtekoak gorrotoa estaltzen du. Elizen arteko biblia

Jende asko astindu dute **mih**i maiseatzailerak, eta herriz herri ihesi ibiltzera behartu. Elizen arteko biblia

Eta batzuetan untsa **mih**i zikina zuela! orai, ez da batere holakoa! Herria

ik beheherago 20. Askoren artean

Sugeak bezain **mih**i zorrotza dute, sugorriaren pozoia ezpainetan. Elizen arteko biblia

## 4 kanpaien barnean dilindan dagoen atala.

Kanpaa **mih**ia zein ontzia- beti eskura izanik, zertarako bizi beste zerbait jotzeko ametsetan, esate baterako, larrua? Joxerra Garzia

Urrats batean honat, hurrengoan harat, neure galtzoin zabalak kontra, kanpai-**mih**i bat iduri... Joan Mari Irigoien

-Horrela ikasiko du kanpai-**mih**ira petardoak lotzen! Koldo Biguri

## 5 haize instrumento batzuetan, dardaratzean hotsa sortzen duen xafla txikia.

Soinua mugimendu forma bat da; aire-zutabe, hari, larru tenkatu edo **mih**ien bibratioek egiten dute musika. Irene Aldasoro

## 6 itsasoan barneratzen den lur zerrenda; lehorrean barneratzen den itsas zerrenda. ik mutur 12.

Donostia lotua da Espainiari, Espainia Europari lotua den gisan, lur-**mih**i batetik. Koldo Izagirre

Long Pointen lekuan bururutzen zen legar xehe zurizko **mih**i luze-luzea. Aurelia Arkotxa

Cook Kapitainaren 1766ko kartan, baia erditik moztzen duen **mih**i motzari Middle Point deitzen zaió. Aurelia Arkotxa

Eta han gelditu da, itsas **mih**ia bestaldean, angina gaiztatu bat bezala. Pako Aristi

## 7 (bestelakoetan)

Danbor txikiak orratz edo **mih**i bat izango du kanpoko zirkunferentzian ezarrita, muturra puntuen aldera begira jarrita. Santiago Iruretagoiena

Emaztearen oihu eta negarren oihartzuna biderkatzen zuen labanaren **mih**ian hara-hona zebilen xorroxtariaren xirrixarra metalikoak. Itxaro Borda

Labanaren **mih**ia distira miretsi zuen. Itxaro Borda

Orduan, suzko **mih**ia bezalako batzuk ikusi zituzten, bakoitzaren gainean bana kokatzen. Elizen arteko biblia

ik beheherago 23. Askoren artean

Sua, intentsua ukitzerakoan, **mih**i antzeko bihurtzen da. Joan Mari Lekuona

## 8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mih**i gainak ahasbaitan egiten duen hersketa. Lourdes Oñederra

Andreak **mih**i klaska bat egin zuen eta supazter xokoko aulki apalean jarri zen. Elena Touyrou

**Mih**i -klaska eta kexa-hasperen bat. Mirentxu Larrañaga

Era horretara, eta **mih**i-artikulazioa kontuan harturik, esatenik izango genuke kasu bakoitzean zein punturen parean aurkitzen den hertsiera nagusia. Isabel Arrigain

Nahi gabeko **mih**i-trabatze horren ostean, Rachelek ontzat emango zukeen ideia bat otu zitzaidan. Oskar Arana

Liluratu lagunak eta nahastu etsaiak mendeku asmatu berriekin: ile-erortze, zango-biguntze, **mih**i-lotze eta beste askorekin. Iñaki Mendiguren

Hurtado txunditurik zeukan Luluren **mih**i-garraztasunak. Josu Zabaleta

## 9 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkartetak izenondo balioa duela)

Hitz galgari oro duzu maite, **mih**i-maltzur horrek! Elizen arteko biblia

Futbolari guztiak geunden gonbidaturik, eta gehienak azaldu ginen, baita **mih**i-pozoiduna ere. Joan Mari Irigoien

Ume **mih**i-lasterrak eta ahots-kantariak, txirlak bezain zapalak bularrak, txotxongiloen eta trizikloen inguruan zeuden bilduta. Koro Navarro

Ordurako banekien matematikako irakasle **mih**i-herrenaren berri. Joxerra Garzia

-Galdegite izugarri bat -zergatik permiitit zezakeen Jainko guztiahaldunak hura?-, **mih**i-mutu uzten ninduen. Joan Mari Irigoien

## 10 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **mih**ia ezin du esan zenbat eta nolako gorespenak kantatzen zizkion. haren hitza entzun dezagun, ez giza **mih**iz, ez aingeru mintzo. Askoren artean

Ahoa zabalik, beren intsektu-**mih**ia hegoak astintzen doala. Monika Etxebarria

Botereek hanpuroski hitzeman gauza horien gainean bermatzen ditugu gure ildo politikoak eta mugiarazten bai jendaldeak, bai pistola-**mih**ietan behatzak eta bai bihotzak.

Berria - Kultura

## 11 aho-mih ahoa eta mihia.

Metan ikasi nuen hura barrengo koskorretatik **aho-mihietan** datorriaren mintzoa.  [Iñaki Segurola](#)  
Orduko, denen **aho-mihietan** zebiltzan nire pistola eta nire ezpata, Akademian sartzean kendu zizkidatenak.  [Aingeru Epaltza](#)  
Gainera amoranteak bazuen herrian askoren **aho-mihietan** oso erabilia izan zen gorabehera.  [Gotzon Garate](#)  
Denen **aho mihitan** zebilen solasa: [...].  [Herria](#)  
Emaztea eta bien artean berealdiko iskanbilak pizten ziren eta denen **aho mihitan** zebilen, eskandalagarri, batik bat Buxi doktoarean eta Um Hamidaren ahotan.  [Patxi Zubizarreta](#)  
Kasik denen **aho mihitan** baitabil erran hau: gizakia gizakiarentzat Jainko.  [Piarres Xarriton](#)  
Hotsik gabeko hitza, esanahiaren sasiak jana, **aho-mihiz** ebaki baino lehen noraino iritsiko den ikusia dagoena.  [Iñaki Segurola](#)  
Euskaldūnek ez dūgū hainbat irakurten eūskaraz, eta hūts berriak burrustan hedatzen ari zaigū **aho-mihiz**.  [Herria](#)  
Xedea **aho-mihizko** bertsularigoaren piztea beta Xiberoan.  [Herria](#)  
Nehork ez zituen holako hipotesiak bere gain hartu nahi, egiazko **aho-mihi** -zintzurreko plazerra denek gozatzen bazuten ere holakoen salatzean.  [Michel Oronoz](#)

## 12 mihi-arin (orobat mihiarin) izond

Etengabeko aro ederra oparituko zion laino **mihi arinetan** zaldizka.  [Itxaro Borda](#)  
Urkamendietan herriaren aurrean egin beharreko urkaketetan ez zen itxura onekoa bizitza zuzen eta oneko kristauak sokari tiraka aritzea, urkatzen ari ziren basapizti **mihiarina** biraoka eta aireari ostikoka akabatu ezinik ari zen bitartean.  [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

## 12a (izen gisa)

Herriko **mihi-arinek** ziotenez, zaldiak nekatuta bizi ziren eta ez zuten putza balio  [Felipe Juaristi](#)

## 13 mihi-arrain iz itsas arrain zapala eta luzarana, gorputza ezkata mehez estalia eta bi begiak alde batean dituen, janari gisa oso aintzat hartua (Solea vulgaris).

Bizkaiko Zubitik gora sarri ikusten dira muxarrak, **mih-arrainak**, izkirak, aingirak, zenbait lupia eta mubleak.  [Berria - Euskal Herria](#)  
Carbayo **mih-arrain** bat jaten ari zen, lasai, hezurrak poliki-poliki bereiziz, ardo zuri eta hotzaren laguntzaz. etxeko androideak prestatu eta zerbitzaturiko Meunière **mih-arraina** afaltzen ari direla, amak bota dio aitari: [...].  [Jon Alonso](#)  
Joan den astean, **mih-arrain** pare hura saldu hidanean, hiregana joan al nintzen ustelak zeudela jendearen aurrean esatera?  [Karlos Zabala](#)  
**Mih-arrain** kontserbazko pote bat donatu egin da.  [Josu Zabaleta](#)

## 14 mihi-gaixto (orobat mihigaixto g.er.) izond mihi-gaixtoa.

Ez nuke **mih gaixto** izan nahi, baina nago emankizuna egina den besteen erakusteko ala bere buruaren aitzinatzeko.  [Herria](#)  
Diote batzuk elkortzen ari dela gure Jakes Haundia, **mih gaixtoek** derasatelarik behari ziloetan ezarri dituzkeela "beharritxoak", erran nahi baita hobeki entzuteko eginak diren tresnañok.  [Herria](#)  
Ixil ditela beraz **mih gaixtoak**.  [Herria](#)

## 15 mihi-gaizto (orobat mihigaizto g.er.) izond

Egun batean, Ohandoko etxeko neskame zahar bat, marmaria eta **mih-gaiztoa**, bila joan eta Ignazia, arrea, maite-kontuetan zebilela Karlosekin, Ohandoko jauntxoarekin kontatu zion.  [Koro Navarro](#)  
Meatzetako giro **mih-gaizto** laxoan, nire gizakaltetasan zehazkabearen eta nire bizimoduaren otzantasun nabariaren arteko desfasea bista-bistakoa zen.  [Juan Garzia](#)

## 15a (izen gisa)

**Mih-gaizto** batzuen erranetan, horixe zuen xede bakar Nafarroa Behereko errebelen kontra nabarmentzean.  [Aingeru Epaltza](#)  
Kanoi-bala potolo batek Austerlitzeko hartan eztanda egin baitzion eta paralisia jotzera geratu baitzen ezkerreko hankatik betiko, tabernazuloko **mih-gaiztoek** ziotenez.  [Felipe Juaristi](#)  
Aldendu zeuregandik **mih gaiztoa**, urrundu ezpain gaizki-esaleak.  [Elizen arteko biblia](#)  
Julioren eskua ikusten zuten denek auzoan; **mih gaiztoenek** ziotenez, orain libre zuen bidea, maistrarekin txortan berak bakarrik egiteko.  [Juan Kruz Igerabide](#)  
Etxeko lanak egiteaz gain emazte-plantak egitea ordaintzen nion, halaxe adostua genuen tratua, ez baitago bikote arrunt baten itxurak egitea baino modu egokiagorik **mih-gaiztoengandik** libratzeko.  [Anjel Lertxundi](#)

## 16 mihi-luze (orobat mihiluze) izond

Badira Herriko Etxean laguntza **mih-luzeak** dituztenak ere.  [Aingeru Epaltza](#)  
Hester Prynne kritikatzeko zuten Bostongo emakume **mih-luze** haiek bezain gaizto eta gupidagabe sentitzen zuen bere burua.  [Anjel Lertxundi](#)  
Beldireva kondesa eta Juziakina printzesa, alarguna bata eta neskezaharra bestea, gorteko ohorezko damak biak garai batean, berritsuak biak, **mih-luzeak** biak.  [Jose Morales](#)  
Menturaz **mih luzeegia** agertu zen; bi gizon haiek agente sekretuak ziren, berdin.  [Elena Touyarou](#)  
Lehenago ere ez al zitzaizkion **mihiluzeak** gaitzesaka aritu? ik mihiluzekeria. Mutikoen zale omen zen eta baita poliziaren **mihiluze** ere.  [Patxi Zubizarreta](#)

## 17 mihi-motz (orobat mihimotz) izond

Belarrimotz, **mih-motz** dituk!  [Edorta Jimenez](#)  
Beharrik ez baitzen **mih** motza gertatu!  [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)  
· -Putzu bat bezain ilun dago gela -esan zuen Ceccok, **mihimotz** -, baina zerbait ikaragarria dago barruan: kukurrukuka entzun duzuen hari.  [Julen Gabiria](#)

## 18 mihi punta

Ezpainak busti zituen **mih puntaz**.  [Aingeru Epaltza](#)  
Iribarre egin eta **mih puntaz** hura miakatzeko jarraitu zuen.  [Harkaitz Cano](#)  
Bizpahiru galdera **mih puntara** etorri zitzaizkidan baina ez nezakeen ahoa ireki.  [Daniel Landart](#)  
**Mih-puntaraino** etorri, baina, ahalegin guztiak eginda ere gogoratu ezin den hitz horietako bat.  [Anjel Lertxundi](#)  
Substantzia gozoei erantzuten dieten dastamen-papilak **mih puntaren** inguruan daude.  [Irene Aldasoro](#)  
· Lizarra-Garazi prozesura itzultzea aipatzen da gaur egun, baina bere garaiaren treguaren haustea **mih punta** doiaz salatu zen.  [Itxaro Borda](#)

## 19 mihi-trabatu da ad

Hitzak **mih-trabatzen** zaizkio eta berriro errepikatu behar izaten ditu.  [Joxemari Iturralde](#)

## 20 mihi-zikin izond

Ostalertsa, emazte nahasi, **mih-zikin**, kurios pinterdi bat zen.  [Daniel Landart](#)  
Herio Leizearen errai sakonetatik, **mih zikinaren** hitz gezurrietatik.  [Elizen arteko biblia](#)

## 21 mihi-zuri (corpusean mihizuri soilik) izond

Elederrak, **mihizuriak**, azken muturrera eramanak, leku eskasa uzten dio arrazoiari eta hausnarketari; alderantziz, fantasia edo irritsera irratitzen da bete-betean, entzuleen borondatea harrapatu eta adimena loxorrotuz  [Patziku Perurena](#)

## 22 mihiaz bertze egin isildu.

Hatz erakusleaz ezpainetan gurutze eginez, **mihiaz** bertze egiteko agindu zigun.  [Aingeru Epaltza](#)

## 23 su mihi suzko mihia.

Kurtek mahaiaren erdian utzi zuen kandela, eta **su-miharen** dardara baretu egin zen.  [Anjel Lertxundi](#)  
Joantto isilik gelditu zen, begiak mahai gaineko kandelaren **su mihian** galdurik.  [Elena Touyarou](#)  
Girixtinoen erlisionean, Jainkoa **su-mih** itxuran agertu da Mendekoste egunean dizipuluen gainean.  [Herria](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herriko mihi gaiztoek (3); mihi arrain (4); mihi arraina (3); mihi arrainak (3); mihi gainean (5); mihi gaixtoek (4); mihi gaizto (5); mihi gaiztoa (3); mihi gaiztoak (3); mihi gaiztoek (20); mihi gaiztoek diotenez (5); mihi gaiztoen (4); mihi gaiztoz (3); mihi heze (4); mihi kolpe (3); mihi luze (4); mihi luzea (12); mihi luzeak (5); mihi luzearen (3); mihi pozoiduna (3); mihi pozoidunak (4); mihi pozoidunaren (3); mihi punta (9); mihi puntan (12); mihi puntaren (3); mihi puntaz (9); mihi puntta (3); su mihi (4); tabernazuloko mihi (4)

ahoa eta mihia (3); mihia aho barruan (3); mihia ahoan (3); mihia ahosabaiari (3); mihia ahotik (6); mihia askatu (8); mihia atera (6); mihia aterata (5); mihia ateratzen (4); mihia bridatu (3); mihia erretzen (4); mihia kanpoan (4); mihia moztu (6); mihia sartu (6); mihia sartu zidan (3); mihia trabatu (4); mihia zintzilik (3)

suzko mihiak (3)

mihiauren aurrealdeak (3); mihiauren punta (3); mihiauren puntan (5); mihiauren puntaz (3)

mihiauri eusten (3)

mihiaz busti (4)

aho mihietako (3)

aho mihietan (6)

kanpai mihira (3)

aho mihitan (26); denen aho mihitan (9)

mihitik tiratu (3)

aho mihiz (6)

mihiarin ik mihi 12.

**mihibiko** izond mihi-gaiztoa.

Madarikatua gaizki-esalea eta **mihibikoa**, bakean bizi zen jende asko galdu baitu. **Elizen arteko biblia**

Lapurri latsa etortzen zaion bezala, gaitzespen zorrotza **mihibikoari**. **Elizen arteko biblia**

Ez haizeratu laborea edozein haizetara, ez abiatu edozein bidexkatatik: horixe egiten du **mihibiko** bekatariak. **Elizen arteko biblia**

mihigaixto ik mihi 14.

mihigaizto ik mihi 15.

**mihikada** iz mihi ukaldia.

Azken **mihikadak** ematen zizkion. **Daniel Landart**

**mihiki** iz mihiko haragia.

Ondotik idi **mihikiaren** aldi. **Herria**

**mihilu** iz ginbaildunen familiako landarea, anisaren antzeko dasta duena, eltzekari gisa edo gozagarrizat erabiltzen dena (Foeniculum vulgare).

Kus-kusaren zaporea berraurkitzen nuen, Burgosko karririk eguerdian betetzen dituen olio usaina, Tetuangoetan airean dabilen **mihilu** urrina, artzain greziarren txistuak, hunkiturik nengoan. **Monika Etxebarria**

mihiluze ik mihi 16.

**mihiluzekeria** iz mihi-luzearen egintza gaitzesgarria.

Xuberotarrei ez zaizkie gure **mihiluzekeriak** gustatzen hango gauzak jakintsun agertu nahiz gabiltzanean, bai haatik berekin ikastera joan gaiten. **Herria**

**mihimen** (orobat **mimen** g.e.) 1 iz zumea.

Zubietako erriberan aurkitu zuten mutil bat, ibai bazterreko **mihimenen** artean buruaren albo batetik bestera tiro zuloa eta biluzik, gorpua gogortu, puztu eta usteltzen hasia ordurako. **Joseba Sarrionandia**

Han egoten zen besotxoak gora eta beheraka higitzen **mihimen** txirikordatuzko sehaskan. **Joseba Sarrionandia**

Ene gizonak **mihimena** zamatu ditu. **Itxaro Borda**

Martizek lurtean kukubilkaturik, **mihimen** gotorrenak gurutzan jarri zituen, zare zolaren oinarria osatzeko. **Itxaro Borda**

**Mihimenezko** zareak biltzeko prest. **Itxaro Borda**

2 (hitz elkartuetan)

Martiz buhameak sakelatik ganibeta jalgi eta saihetsean metatuak ziren **mihimen** ezpaletarik bat hartu zuenean, [...]. **Itxaro Borda**

**Mihimen** puntak erretzen akitzen zenean, etzaten zen, burdina herdoilduzko baserriko lanabes baliogabeetan bizkarra emanez. **Itxaro Borda**

Urez estali sutea oraino ketan zegoen, **mihimen** zatiak lurtean, arropak eta tupina hutsaren tapakiak sasiatan. **Itxaro Borda**

mihimotz ik mihi 17.

mihin ik mihi.

## **mihipeko 1** iz **mihipeko mintza**.

Badakizu, Claude jauna, **mihipekoa** ebaki zizun andreak ondo irabazi zituela bere bost sosa? **Karlos Zabala**

## **2 mihipeko gabe mintzatu** ahoan bilorik gabe mintzatu.

Baina, beste berriz ere, Donatien **mihipekorik** gabe mintzaten da eta aurrea hartzen dio bere garaia. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Gogoz eta **mihipekorik** gabe mintzatu zen hainbat gairen inguruan. **Berria - Kultura**

## **mihiperatu**, mihipera(tu), mihiperatzen da ad

Orduan, gatuak segurkiro **mihiperatzen** zitzaizkion: jatekoa, garbitasuna, sega zahia, ura, artak eta milaka balakak. **Itxaro Borda**

## **mihiratu**, mihira(tu), mihiratzen da/du ad mihira etorri; mihira eraman.

Arriskua hautatu duelako, labain egiteko punttuan ibili delako, sinonimoen almazena bapo dantzatu behar izan duelako, galdu-gordean zeukan hitzen bat **mihiratu** zaiolako berak ere uste ez zuela, eta premiarik handiena zeukan orduan. **Andoni Egaña**

Hitz erabilgarrienak, edozein unetan sartzeko modukoak, gehiegi markatu gabeak eta aisa **mihiratzen** diren horietakoak. **Andoni Egaña**

Mutu hartu zuten, eta mutu jarraitu zuen Azkaratek hondoko azukrea zaliaren giderraz **mihiratzen**. **Koldo Izagirre**

## **mihise 1** iz maindirea.

Berrito etzaten zen, **mihise** eta estalkien gerizpearen segurtasunean. **Itxaro Borda**

Denbora ematen zuen etzaten, SNCFko ohe hertsien **mihise** bereziak desplegatzen eta kotoi arruntzeko estalia ez hozteko moduan hedatzen. **Itxaro Borda**

Hiru urte bazuen ez zituela etxeokak besarkatu, ez zela etxeo **mihiseen** artean etzan, ez zituela Itsasuko landareak usaindu. **Eneko Bidegain**

Bokata horrela egin ondoan, **mihiseak** hedategietan ezartzen ziren, berdin hamabost edo hogeit bat, alanbre batzuetarik dilindan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Nork zekien noizkoak ziren **mihise** horiek, orangoak baino zailagoak, segur, baina ere azkarragoak... **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Txitxikov **mihisea** baino zuriago jarri zen. **Jose Morales**

## **2 hil mihisea**, hil oihala.

Erregearen gorpua, ordea, urrezko **mihise** handi batean bildu, eta zuziek inguratuta eraman zuten. **Agustin Otsoa**

Heriok hotzak ditu hatzak, mihiak eta **mihiseak** bezain luzeak. **Felipe Juaristi**

Beste batzuek gorputzari **mihise** hutsa lotzen diote. **Gotzon Garate**

**Mihise** bat ederrik emaiten dū hiler. **Herria**

## **3 idur/hed**

Aldare bat beztitu **mihise** xuritan. **Herria**

Maslacqera orduko, arratsa bere **mihise** iluna ezartzen hasia zen gure gainean eta goseak errabiaturik geunden. **Aingeru Epaltza**

Dena du arrotz bakardadearen **mihiseak** estaltzen duen eremu hotz horretan. **Filipe Bidart**

## **4 margolaritzan**, oihala. ik **oihal 8**.

Bere **mihiseak**, bere ospearen oinarri ziren margolan abstraktu koloredunak, gris edo zuri-beltz agertzen zitzaizkion orain. **Xabier Olarra**

Migelen anaia erdiaren hazpegiak artoski eramanak ziren **mihisera**. **Aingeru Epaltza**

Nik, gutxienez, ez diat poemarik idazten, **mihiserik** margotzen edo eskulturarik egiten. **Juan Luis Zabala**

4,50 x 2,60 metroko obra da, **mihise** gainean eginiko olioak. **Berria - Kultura**

## **5 hil mihise** (orobat **hilmihise**) hila biltzeko erabiltzen den oihala.

Amamaren mantalet eta kapeletak zein armairutan zeuden bazekien, **hil mihise** amironatuak, ezko-argiak eta izai merkeko kutxa distiratsuaeren gainean pausatzen ziren hornigailu sainduak. **Itxaro Borda**

Ehizatzea eta paperera ekartzea lortzen ez badu ez diola bizirik eutsiko, paper hori bera **hilmihisea** bilakatuko baitzaio, besteren begiak gozatzera letorkeen hegaztirik ederrenaren hegalarren orde. **Pako Aristi**

## **mihiseratu**, mhisera(tu), mhiseratzen du ad pinturan, oihalera eraman.

1970etik hona egin dituen milatik gora margolan horiek ez baitute erakusten **mhiseratu** nahi duen errealitate osoa. **Xabier Olarra**

## **mihitxo** iz mihi txikia.

Laster, musika amasotsaren antzekoa zen, ezpainak ireki zituen, **mihitxo** zorrotz eta gorri bat atera, eta goxo-goxo pasatu zuen inguru guztian; haren beste ezpainekin oroitu nintzen. **Juan Martin Elexpuru**

· Metalezko **mihitxo** txikiak ahalegin bizian eta izaturik jotzen zuen ezkila durunditsuaren ertza; une batez isildu, eta joka hasi zen berrito, izu eta hots etengabe. **Jose Morales**

## **mihizka** adlag

Udazkeneko zuhaitzek ilargiaren argi horitan distiratzen dute, iraileko ilargibetearen argitan, lanerako kemena ontzen duen argia, eta sastraka goxatzen, eta olatu urdindua lehorra **mihizka** ekartzen. **Anton Garikano**

Suak irabazi egin baitzuen eta bazterrak **mihizka** erre baitzuten, eguzkiaren zaldien indar sutuak Faetonta desbidatu eta eter osoan eta lur guztietan zehar arrastatu zuenean **Xabier Amuriza**

## **mihizkatu**, mihizka(tu), mihizkatzen du ad miatzkatu.

Mihi bigunez umeak **mihizkatu** nahi dituztenean. **Xabier Amuriza**

Baina suak etxe sapaietaraino jauzi egiten eta gar bizkorrez zurak eta zutabeak **mihizkatzen** dituztenean, ez da pentsatu behar bere kabuz eta beste indar baten eragin gabe diharduenik. **Xabier Amuriza**

Gustatu zaiolako imintzioa egin du, ezpainak **mihizkatuz**. **Felipe Juaristi**

Behin, bere zigarroari zurrupada bat hartzen utzi zigun Josemariri eta bioi, bera erretzen hasi orduko, eta gero kafe garau bana eman zigun, ahoan **mihizkatzeko**, etxean ohar ez zitezen. **Joseba Sarrionandia**



## mihizadura 1 iz

Oreka galtzear, dorreak goitik behera karranka egiten zuen, zureria guztia aurreikusi ez ziren tentsioen menpe, luze gabe **mihizadura** batzuk hautsi egin ziren. **Jon Alonso**

Oso egokiak izaten dira **mihizadurak** egiteko, bai junturetan eta bai zoladuretan. **Santiago Iruretagoiena**

Brooklyn-go zubiaren pilare handiak, kable okertuak eta aireko **mihizadurak** ikustatu zituzten. **Lopez de Arana**

Mirubuztan formako **mihizaduraz** lotuta joaten den buccula-ren lodiera. horra agerian hainbat generen barne-arkitektura, ADN zati aukeran labor samarren **mihizaduraz** osatuak baitira eta zati bakoitzak kodetzen baitu proteina-eredu bat. **Santiago Iruretagoiena**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Mihizadura** -ziri eta miru-buztan bitartez geratuko dira lotuta. **Santiago Iruretagoiena**

Kakoaren estalkia mirubuztan- **mihizaduraz** dago eskaileraren zangoan lotuta, eta zabalean 1/6 zulo ditu, eta lodieran 1/12 zulo. **Santiago Iruretagoiena**

Ingeniaritza militarren ale ederra zen, gurpil trinkoen gainean mugitzen zen, egitura bertikala ixuratzen zuten lau plataformak elkarren artean lotzen zituzten kanpo eta barne- **mihizaduren** sistema konplexua zen bere funtsa. **Jon Alonso**

## mihiztatu, mihizta, mihizatzen du ad

Tutu horiek alde batetik **mihizatuta** egongo dira, bata bestearen barruan sartu eta doi-doi egokitu ahal izateko moduan. **Santiago Iruretagoiena**

Zorua ohol latz **mihiztatu** gabezkoa. **Josu Zabaleta**

Elementu kakotuagoetan **mihizatuak** daude. **Irene Aldasoro**

Errregelaren azpian eta besotik besora zeharkako egurrak ziriekin **mihizatuta**. **Santiago Iruretagoiena**

Pieza hauek elkarren artean mirubuztan-loturaz **mihizatuta** zeuden, eta hotzean landutako burdin xafraz gogortuta. **Santiago Iruretagoiena**

Erdian danbor bat jartzen zaio inguruan, elkarren artean **mihizatutako** oholez egindakoa. **Santiago Iruretagoiena**

Horixe baita Europa, puzzlea, norberak eskura dituen datuen arabera osatu edo **mihizatu** ahal duen buruhaustekoa. **Edorta Jimenez**

## mihizto ik mizto.

## mihiztodun ik miztodun.

## mihiztotu ik miztotu<sup>1</sup>.

## mihiztu ik miztu.

## mihizuri ik mihizuri 21.

## mihura 1 iz Sagarrondoaren, udareondoaren eta beste zenbait zuhaitzen enbor-adarretan hazten den landare bizkarroia, fruitutzat ur likatsu batez beteriko aleak ematen dituena (Viscum album).

Landare arraro guztien artean arraroenetakoa zuhaitzetan errotzen den **mihura** da. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Sagarrondoko **mihura** izan ohi da gure hauetan estimatua. **Pello Zabala**

Ederrenean egondako arbola orbeldua eta **mihurak** hartua bezalaxe zegoen [Nora]. **Anjel Lertxundi**

**Mihura** kendu ezean, ihartu eginen da hurritza. **Patziku Perurena**

Haritza sinbologia primitiboan erregetzari atxeki zaion landare noblea baita, eta **mihura**, lurrean sustrairik gabe, haren gainean sortzen den jainkozko izpirituaren landare sakratua. **Patziku Perurena**

**Mihura**, haritzean jario eta hazia, eguzki biziaren zeinu da, eta suaren, eta oinaztu edo tximistaren seinale. **Pello Zabala**

Umea egiten atzeratzen zen behi ernariari ere, ematen zitzaion askotan **mihuraren** ura, sabeleko umeari lehenbailen kanpora eragiteko. **Patziku Perurena**

Gorosti eta **mihurazko** gurlandak zeuden paretetan zintzilika. **Iñaki Mendiguren**

Horregatik ez du **mihurak** inoiz lurra ukitzen, eta zuhaitzen adarretan sustraitzen da: debekaturik dauka lurra betiko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Artean haur nintzela, ikusia dut aita, negu sarreran sagar adarrei **mihura** mordoak kentzen, bestenez, barrango izerdia xurgatuz sagarrondoak ihartu egiten omen zituela eta. **Patziku Perurena**

Begira **mihura** xorta lotsati enigmatiko horiei, ixil ixila, heriotz itxura guziak gezur direla salatzen. **Patziku Perurena**

**Mihura** -zarbatxoren bat oparitzen badizute, hartu. **Pello Zabala**

## mihuradun izlag mihura duena.

Hamabigarren egun goizean, prozesioan joaten zen dotore erregea, koroa eta longain urdina jantzita, eta aginte makila zeramala; haren aurrean txepetxa eramaten zuten, haga baten puntan loturik, **mihuradun** haritz arbazta batez apaindua. **Patziku Perurena**

## mihuri iz mihuraren fruitua.

Mihuraren **mihuriz**, perla tiki distiratsuz beterik egon ohi da mihura negutik udaberrira, zenbait txoriren hazkurri. **Pello Zabala**

Zerutiarra da [mihura], lurreko indar zikineta kutsatu gabea, zainak garbi, zuhaitzaren zuku eta sapatik bizi izan dena: **mihuri** horixkak ere halaxe dira garbi, ia zeharragi... **Pello Zabala**

## mika<sup>1</sup> 1 iz belearen familiako hegaztia, buztan-luzea, hegoak eta gainaldea beltz distiratsuak eta sabelaldea zuria dituena (Pica pica etab.). ik pika<sup>2</sup>.

Usapala, bere eztarri margotuz urrumaka, eta **mika** gogaikarria, frak-isats eta guzti. Itziar Otegi  
Begiak itxi eta, oraindik ere, ikusi egiten ditut habia haiek: karnabaren goroldiozkoa, kaskabeltzaren borobil-borobila, **mikaren** handi eta baldarra. Bernardo Atxaga  
**Mikak** bere lanarekin jarraitu eta txotxak bildu zituen buztinez hasitako habiaren ertzetan jartzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"  
**Mika** batek Axularren bihotza darama mokoan. Anjel Lertxundi  
Lau **mika** zuri-beltz inguratzen zaizkie eskuarea erabiltzen duten bakoitzean, ea zizare edo bareren bat harrotzen duten ikustera. Hasier Etxeberria  
**Mika** bezain solasturia, aise ematen zien kontesta nire txantxei. Aingeru Epaltza  
Alorretan, sagarrondoak eta bestelako fruta-arbolak ikusten ziren hor-hemenka, sarek estalirik **mika** eta txolarreen erasoetatik babesteko. Jose Morales

## 2 (hitz elkartuetan)

**Mika** habien bila. Bernardo Atxaga

## mika<sup>2</sup> iz

Zaldi-tratulariek **mika** esaten dieten zalditxo zuri-horikka horietako batek tiratzen zuen gurditik. Jose Morales  
Bi eguneko bidaia egin zuten, **mikak** eramanik; bidean bertan igaro zuten gaua, ibai bat zeharkatu zuten, ahari-errea eta opil hotzak jan zituzten, eta hirugarren eguneko goizean iritsi ziren hirira. Jose Morales

## mika<sup>3</sup> iz kristal itxurako mea, xafla garden eta malguetan zatitzen den silikato naturala.

Ikusten nituen kimuak udaberrian hazten, granitoaren barnean **mika** distiritzen. Juan Garzia  
Arbel eta **mikazko** portuari begira geratu zen, ibilgailuek, ahotsek eta eraikuntza-lanek sortutako zarata burrunbatsuak gortuta. Lopez de Arana

## mika<sup>4</sup> izond milika, mizkina.

Mutil gazteak, mutil zaharrak, mutil **mikak**, mutil mardulak. Anton Garikano  
Jende **mika** eta mizkina, barru gozorik. Iñaki Segurola  
Maiz gertatzen zen hori, nahiz eta andereñoa ez zen batere **mika**; aitzitik, plazer antzeko batez hartzen zituen pikardia ukitu zuhur bat zuten solasak. Anton Garikano

## mikado 1 iz Japoniako enperadorea.

"Ekarraraz ezak nire aurrera," esan zion **Mikadoak** zerbitzari bati, eta handik ordu erdira erruduna bere aurrean zeukan. Xabier Olarra

## 2 (hitz elkartuetan)

Bigarrenean ere lehengo berak ageri ziren; pilotuta oraingoan, elurrez estaliak, eskiak eta eskumakilak **mikado** -jokaldi nahaspilatu batean trabeskatuak. Jon Muñoz

## mikakeria iz milikakeria, mizkinkeria.

Kontu hauek denak, jakina, gartzutasun eta **mikakeria** alternatibo edo terapeutikoak sartu baino lehenagokoak dira. Iñaki Segurola

## mikakume iz mikaren kumea.

Habia eta bi **mikakumeak** begiztatu nituen nik ere. Joan Mari Irigoien

## mikatz 1 izond mingotsa.

Min egiten zioten piku **mikatzak**. Itxaro Borda  
Mundua belar **mikatzak** baino mingotsagoa da zorioneko ezti hartatik behin bederen gozaldia izan dutenentzat. Joan Mari Lekuona  
Te **mikatz** zen. Xabier Aranburu  
Kakao-ale hutsez egindako hautsa oso **mikatz** da. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Aza-zopa **mikatzaren** usaina. Jose Morales  
Gaiztoari lore **mikatz** erantzun behar zaiok. Pako Aristi  
Arimaren erdian hauspeatzen zitzaion ardo **mikatz** baten meia. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Izerdiaren zapore **mikatz** aurki da Inaxioren ezpain-ertzean. Pako Aristi  
Eta leuna zakartzen edota **mikatz** ezititzen ote dian. Patxi Ezkiaga  
Aviron-eko jokolariek gustu **mikatz** zuketan ahoan errugbiako partidatik etxera sartzean. Herria  
Zapore **mikatz** eta iraunkorra. Pako Aristi  
Txapelketak zenbait kontutan bertsolariengan utzi zuen aho-zapore **mikatzak** eragin zituen bertsolarien arteko lehen bilerak. Andoni Egaña  
Pazientzia sustrai **mikatz** duen arbola dela, baina fruitu ezinago goxoak ematen dituena. Karlos Linazasoro  
Porrotaren zapore **mikatz** ahosabaiari itsatsita gelditu zait betiko. Anjel Lertxundi  
Loaldi laburraren ostein geratu ohi den ahogozo **mikatz** hori kentzearen. Xabier Mendiguren Elizegi  
Basaran heldu gabearen usain gero eta **mikatzagoa** zuen aireak. Anjel Lertxundi

## 2 irud/hed

Askoz **mikatzagoa** zen Martin, Martin Gonzalez Saragueta. Xabier Mendiguren Elizegi  
Gazia zen, ordea, gazi eta **mikatz**, neure irabazpiderik ez izatea, gurasoen etxean eta haien karitateari esker bizi beharra. Xabier Mendiguren Elizegi  
Orduan ez zen ardo goxorik izan ordea, hitz **mikatz** eta eztabaida garratza baizik. Zorion **mikatz** batek betetzen ninduela sentitu nuen. Xabier Mendiguren Elizegi  
Atsegin makur eta aldi berean **mikatz** batez oharu nintzen nola zurruntzen zitzaion gorputza lagunaren izena ene ahotik aditzean. Aingeru Epaltza  
Maitasuna deitzen zioten eta berak inoiz dastatu ez zuen eromen **mikatz** hura. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Ni harritu egiten nintzen haren umorearekin, ez baitzen (nirea zen bezala) batere garratza, ez **mikatz**. Xabier Mendiguren Elizegi  
Geroztik halako zinismo **mikatz** bat geratu zitzaion gaiari zegokion guztian. Xabier Mendiguren Elizegi  
Nahiz eta gertaera asko oso **mikatzak** izan, samurtasun handiko nobela da. Berria - Kultura  
Oso gogoan zuen, eta biziagotu baino ez zitzaion egin oroitzapen **mikatz** hura erresonantzia magnetikoan tumore bat ageri zela esan ziotenean. Imanol Zurutuza  
Non bilatzen diozu irtenbidea egoera **mikatz** honi? Berria - Kirola  
Banituen adiskide minagoak, hobeto ezagutzen nindutenak, nirekin hainbat une gozo eta **mikatz** igarotakoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Malkoak ezkutazeko denborarik gabe, ihes egin zuten jauregiko babes **mikatzer**. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Eritasun hauek oso **mikatzak** dira. Jon Alonso

### 3 (izenondo elkarketan)

Halako sentsazio gozo **mikatz** bat, Andreasen maitasunak eta Hesterrenganako errukiak aldi berean irabiaka sortua. maitearekin zorionaren eta etsipenaren zorabio gozo-**mikatzak** bizitzeko txoko bat. Anjel Lertxundi

Izerdi usain sarkor-**mikatzaz** eta urduritasunaz gainezka. Xabier Montoia

Atariko pasabidean barna galdu nituen begitit, zapore **mikatz** -eztia gelditzen zitaidala ezpainetan. Aingeru Epaltza

### 4 (adizlagun edo predikatu gisa)

Esku-atzea daukat zuretzat! -esan zion Kernan andreak, **mikatz**. Irene Aldasoro

Angelek barre egin zuten, **mikatz**, burlaka. Bernardo Atxaga

Garratz eta **mikatz** agertzen direnak. Irene Aldasoro

Etorkizun hurbila beltzenago begitantzen zaio, **mikatz** du gogoia, ehiztarien jostailu dakusa oraina. Jokin Urain

Hurbiletik ikusita gauzak erabat aldatzen ditun, morboak duen zapore gazi-gozo hori **mikatz** bihurtzen dun. Migel Angel Mintegi

### 5 (izen gisa) mikaztasuna.

Ezin aurkituz orduko **mikatzaren** eta oraingo gozoaren arteko lotunea neskaren begitartearen ortzadarrean. Aingeru Epaltza

Etsipenak uzten duen **mikatzaz**. Gizonak patxadaz hitz egiteari ekin zion, lasai, **mikatz** izpirik gabe. Aingeru Epaltza

-Zer esan, inoren gozo-**mikatzak** zelatatzea lanbide duen gizon bati? Koldo Izagirre

### 6 (izen gisa, -en atzizkiaren eskuinean)

Kafearen **mikatzak** tonu indartsuagoan berba egiteko adorea eman zion. Josu Landa

Orduko hartan poliki-poliki edan zuten, garagardoaren **mikatz**a zintzurretik behera lerratu bitartean su eta gar emana gogoetei. Migel Angel Mintegi

Umeek asko leundu zioten gerraostearen **mikatz**a. Mikel Hernandez Abaitua

Adarjotzearen makurra eta amesgaiztoaren **mikatz**a! Harkaitz Cano

Goitikaren **mikatz**a nabari duzu aho-sabaian. Xabier Montoia

Zin horrek ederki gozotu zituen despedidaren **mikatzak**. Joxean Sagatzizabal

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gozo mikatza** (3); **mikatz** da (5); **porrotaren mikatza** (3); **zapore mikatza** (6)

**gozo mikatzak** (3); **zapore mikatzak** (3)

## mikaztasun 1 iz mikatza denaren nolakotasuna.

Zeren eta beren barruan daukaten ur hori zaporez mikatza izaten denez, bere **mikaztasun** horrekin ez baitu pipirik sartzen uzten eta ezta bestelako zomorro kaltegarrikeri ere.

Santiago Iruretagoiena

Izerdizko **mikaztasuna** amorruez bilatu duzu. Sonia Gonzalez

Aireak ezti-usaina du, galdu du **mikaztasuna**. Anjel Lertxundi

Ardo horrek gozotasun guztia galduko luke eriaren ahoko **mikaztasunarekin** gorputzaren barruan sartu aurretik. Joan Mari Lekuona

Zukuaren **mikaztasun** garratzarengatik. Santiago Iruretagoiena

Ilundurak hartzen gintuen gero eta sarriago zergatik jakin gabe, gure ibili zoroenek ere sortzen ziguten **mikaztasuna**, odol gustu antzekoa hortzetan, adinaren tristura zela jakin gabe. Koldo Izagirre

Ate zartakoak; adeitasunez egindako eskariei isekaz eta **mikaztasunez** emandako erantzunak. Oskar Arana

### 2 (hitz elkartuetan)

Aurreneko aldiz Stonehamera iritsi nintzenetik, **mikaztasun** izpi bat antzeman nuen bere hitzetan. Bernardo Atxaga

## mikaztu, mikatz/mikaztu, mikazten 1 da/du ad mingostu.

**Mikaztu** zaio zigarroa ahoan. Pako Aristi

Ardo gozoz barrena **mikaztu** ondoren. Felipe Juaristi

Klararenean hartutako kafea **mikazten** hasia zitzaidan urdail barnean. Aingeru Epaltza

### 2 irud/hed

Kontsumo Prezioen Indizeak (KPI) gosaria **mikaztu** dio Ekonomia Ministerioari. Berria - Ekonomia

Tira, ez zaitez **mikaztu**! -esan genion-. Saiatu zaitez. Bernardo Atxaga

Ez du merezi horregatik **mikaztea**. Pablo Sastre

-Ez daukag eskubiderik zakartasun hori erakusteko! - **mikaztu** zitzaidan-. Anjel Lertxundi

Askotan, entzuten diezu politikari profesionali, eta horren falta sumatzen duzu, beti zakartuta ikusten dituzu, beti **mikaztuta**, beti haserre. Bernardo Atxaga

Auzi honek BBC eta Blair-en Gobernuaren arteko harremanak erabat **mikaztu** bazituen ere, [...]. Txema Ramirez de la Piscina

Umorea **mikazteko** hutsa behar izaten du Mariok batzuetan. Jokin Urain

Giroa **mikaztu** egin da: bihamunean JMaren aldeko kontzentrazio baterako deia zabaldu da, eta ordu eta leku berebanean, euskal presoaren aldeko beste bat. Iban Zaldúa

## mikelete 1 iz Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko zen miliziako kidea.

Amorrazio etsiaren unean, txapelgorriak eta **mikeleteak** madarikatu nituen: [...]. Txillardegi

Aita, Sebastian, **mikelete** artean eraman zuten kartzelara emakume bati laguntzeagatik. Iñigo Aranbarri

Gurasoen aginduz **mikeleteek** atxilotu eta etxera eraman baitzuten bueltan. Berria - Kultura

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mikelete** talde bat azaldu zen errepidean, lasterka eta tiro joka, eta Apaizaren jendea erretiratzeko hasi zen. Urteeran, **mikelete** piketeak armak aurkeztu zituen errege-martxa jotzen zen bitartean eta sei zaldik tiraturiko kotxe girotuan sartu zuten katabuta. Koro Navarro

Omendutakoek bidezain, **mikelete** edo telefonista lanak egiten zituzten. Berria - Euskal Herria

## miko 1 iz oso zati txikia.

Ogi **miko** triste baten jabetzak sastagaia aterarazten zien soldaduei. Aingeru Epaltza

Gelditzen zitzaien indar **miko** hura zanpaldi ikaragarria arriskatzen zuten presoaren altxarazten gastatzen zuten. Eneko Bidegain

Beti bezala, usoak parratu dira eguzki **mikoaren** bila. **Aurelia Arkotxa**

## • 2 (izenlagun gisa) oso txikia.

Ahalak galtzen ditudalarik, ene baitako konfiantza **mikoena** bera suntsitzen zait eta orduan alkoholaren beharra senditzen dut. **Daniel Landart**

Bigarrena ere ez zen **mikoa**, baina aurrekoaren aldean argala. **Unai Iturriaga**

## 3 miko bat pixka bat.

Mutiko bat biziki gisakoa zen, Malaga edo nonbait hangoa, frantses **miko** bat ere ez zekiena. **Marzel Etxehandi**

Haserre **miko** bat sumatu uste nuen atzari berriaren boz marrantatuan. **Aingeru Epaltza**

Gezur **miko** bat ere bazuen nire ukapenak. **Aingeru Epaltza**

Hipi-hapa badabilta argi **miko** baten bila, buruan hazka. **Aurelia Arkotxa**

Laborantzako ganbera bat, Euskal-Herriarentzat berezia, aspaldian aintz laborarik galdetzen dutena eta untsalaz frango aise ardiesten ahal litakeena, Parisen eta hor nunbait borondate on **miko** bat agertu nahi balute! **Herria**

## 4 mikorik

Ez dut **mikorik** edan... -erantzun zion. **Itxaro Borda**

· Parisen erdi hartarat joateko ez nuen gehiago gogo **mikorik**. **Janbattitt Dirassar**

Baietz eta baietz, ez zuela horretaz duda **mikorik**. **Janbattitt Dirassar**

Ez zuen emozio **mikorik** sentitzen, baina nahiko ziokeen galdegin halabeharraren esku bakar-bakarrik utzi zuen haurño gerizagabe hari pentsatu ote zuen sekulan. **Elena Touyarou**

Ez dela arrazoin **mikorik** hemezortzi urte huntan preso den baigorriar gazteari ukatzeko baldintzapeko askatasuna, eta hori legez-lege jokatzuz. **Herria**

Berak dio alde bat jorratzen dutenen erranez ez duela axola **mikorik**, bere bidea lañoiki segitzen duela bai eta aintzina segituko. **Herria**

Emaztea hedailo geratu zen, atsegin intziri **mikorik** gabe. **Itxaro Borda**

Ostatu batez jabetzen ahal dea zapata pare bat erosten den bezala? ez du horrek kolore **mikorik**! **Janbattitt Dirassar**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**miko bat** (13); **miko bat ere** (4)

**arrazoin mikorik** (3); **axola mikorik** (8); **duda mikorik** (8); **froga mikorik** (3); **indar mikorik** (3)

## mikologia 1 iz botanikaren adarra, perretxikoez diharduena.

Txikitan aitarekin joaten zen perretxikoak biltzera eta ordutik datorkio **mikologiarako** jakin-mina Pedro Arrillagari. **Berria - Euskal Herria**

Batez ere entomologiaren eta **mikologiaren** alorretan, Aranzadiren funtsak erreferentzia garrantzitsu bihurtu dira mundu osoan. **Berria - Kultura**

## 2 (hitz elkartuetan)

Arrillaga Aranzadi elkarteko **mikologia** saileko zuzendaria ere bada. **Berria - Euskal Herria**

## mikologiko izond mikologiarena, mikologiari dagokiona.

Presio handia egiten ari gara ingurune **mikologikoari**. **Berria - Euskal Herria**

Aurkitutako espezie berria dokumentu **mikologikoetan** publikatu zuten, 2000. ean. **Berria - Euskal Herria**

## mikologo iz mikologian aditua.

Liburu bat egin behar zela pentsatu genuen, ez soilik **mikologo** edo perretxikozaleei begira, baizik eta erietxeetan-eta lan egiten dutenei laguntzeko, pozoitzeak tratatu behar dituztenerako. **Berria - Gaiak**

Mundializazioak Euskal Herriko mendietara zein azoketara ekarritako perretxiko mota berrien arriskuaz ohartarazi du Aranzadiko **mikologoak**. **Berria - Gaiak**

Ez naiz **mikologoa**, baina horrela dibertitzen naiz. **Berria - Kultura**

## mikosi iz onddoak eragindako eritasuna.

Esate baterako, **mikosia**, hau da, azaleko onddoak. **Berria - Harian**

## mikot iz ipar txikia.

Ez da naski hortarik ari, urrats **mikota** batzu eginik ere artetan han edo hemen. **Herria**

## mikra iz mikroia.

Kutsatutako aireak duen eragina jakiteko, esaterako, 10 **mikra** baino txikiagoak diren partikulen kontzentrazioa aztertu dugu. **Berria - Gaiak**

Joan zen irailean zabaldu zutenez, kometaren gainazala kraterrez josita dagoela, eta krater horiek bat eta ehun **mikra** arteko partikula finez osatuta daudela. **Berria - Gaiak**

Normalean, gehigarri moduan erabilitako partikulen tamaina 10-300 **mikren** inguruan ibiltzen da. **Berria - Gaiak**

## mikro 1 iz oso txikia den gauza.

**Mikrotik** makrora, urteko bidaia. **Berria - Gaiak**

## 2 mikrofonoa.

Gelaren erdian, **mikro** bat zintzilik. **Jon Muñoz**

Bi Technish disko-jogailu, kaberlik gabeko bost **mikro** eta zenbait binilo; besterik ez du behar Torrejon de Ardozko taldeak hip-hop kontzertu beroa egiteko. **Berria - Kultura**

Hargailu honek, gainera, 60 **mikro** erabil ditzake. **Fernando Morillo**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mikroa hartu** (3)

**mikroaren aurrean** (3)

## **mikroaktore** (corpusean **mikro-aktore** soilik) iz

**Mikro**-aktore ona izateko prestatu behar du bestetik bertsolariak. [Andoni Egaña](#)

## **mikroaldaketa** iz adkor oso aldaketa txikia.

Zenbait genek eta haien proteinek, izan ere, ia-ia beren horretan iraun dute; denboraren joanean ezinbesteko diren **mikroaldaketak** baino ez dituzte ageri. [Juan Garzia](#)

## **mikroanalitiko** iz oso lagin txikiekin egiten diren analisei dagokiena.

Hala gertatzen da, maila **mikroanalitiko** batean, irudietan gertatzen diren "oinarriko" ilusio guztietan (lehenengo kapituluan eman zaion zentzuan). [Josu Zabaleta](#)

## **mikroarkitektura** iz

Gaineko solairuan Action Futur taldekoek bereziki **mikroarkitektura** landu dute. [Berria - Kultura](#)

Espazioaz, hutsuneaz, desordenaz eta **mikroarkitekturaz** gogoeta egitea proposatzen diete bisitariei bi euskal artista kolektibok Bonnat museoaren Carre aretoan apirilaren 23a arte. [Berria - Kultura](#)

## **mikroasiatikoa** izond

1922an Greziak, Turkiako mendebaldeko kostaldean, hondamendi **mikroasiatikoa** deitu izan dutena pairatu zuen, Espainiarrentzat 98ko porrotaren antzekoa, eta gerra horren ondorioz, milioi bat greziar Turkiatik Greziara aberriratu zituzten. [Berria - Kultura](#)

## **mikrobarometro** iz

Ez zuen gauza askorik: barometroa, berak asmatuiko **mikrobarometroa** (sentikorra demasean), termometro joko bat eta merkurio-anoeroideak... [Pello Zabala](#)

## **mikrobidaia** iz oso bidaia txikia.

Halaber, ikuskizunak Jose Ramon Andaren eta Jose Zugastiren eskulturen gaineko **mikrobidaia** bat ere proposatzen du. [Berria - Kultura](#)

## **mikrobio 1** iz izaki zelulabakarra, bereziki eritasunak sortzen dituena.

Eritasuna, batzuentzat, aztikeriaren batek sorrarazia da; beste batzuentzat, berriz, **mikrobio** batek edo birus batek eragindako infekzioari zor zaio. [Juan Garzia](#)

Dagoeneko 78 pertsona hil ditu **mikrobioaren** aldaerarik arriskutsuenak, H5N1 birusak. [Berria - Gaiak](#)

Hegaztiak gaixotzen dituen birusak giza gripearen **mikrobioarekin** nahastu daiteke eta aldaera berria sor dezake. [Berria - Gaiak](#)

Giza gorputza prestatuta dago hainbat **mikrobio**, birus, bakterio, onddo eta parasitok kalterik egin ez diezaioten, eta haiekin normal bizi ahal da. [Luis Elberdin](#)

**Mikrobioek** itsasoko biomasa osoaren %90 osatzen dute. [Berria - Gaiak](#)

Ni ez nintzen joaten eskolara, joateko adina izanagatik, gure aitak esaten zuelako eskolan **mikrobioak** harrapatzen zirela. [Fernando Rey](#)

Kasualitatez agertu nintzen, harri bat, landare bat, **mikrobio** bat bezala existitzen nintzen. [Monika Etxebarria](#)

### 2 (izenondoekin)

-Eta **mikrobio** patogenorik izango balute, zer? [Patxi Iturritegi](#)

### 3 (hitz elkartuetan)

Kontua da gure gorputzak beti daudela infektaturik, **mikrobio** pila izaten baitute barruan. [Irene Aldasoro](#)

Sua emango diot, sua, **mikrobio** zulo honi! [Pablo Sastre](#)

## **mikrobiologia 1** iz biologiaren adarra, mikroorganismoak aztertzen dituena.

**Mikrobiologiaren** eta immunologiaren inguruko eskolak ere eman ditu. [Berria - Gaiak](#)

Cesar Nombela **mikrobiologian** katedraduna da horietako bat. [Berria - Euskal Herria](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Psikologia eta **mikrobiologia** ikasketak egin zituen Buckek Washington Unibertsitatean. [Berria - Gaiak](#)

Edonola ere, H5N1 birusak eragin dituela egiaztatu behar da oraindik, **mikrobiologia** ikerketen bidez. [Berria - Gaiak](#)

Madrilgo Doce de Octubre ospitaleko **Mikrobiologia** Zerbitzuko buru Joaquin Oterok. [Berria - Euskal Herria](#)

## **mikrobiologo 1** iz mikrobiologian aditua.

Luzaroan, bakterioen eta birusen atzetik ibiliak dira **mikrobiologoak** eta medikuak, haiek jorik eritasun kutsakorren erantzuletzat. [Juan Garzia](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Antibiotikoei aurre egiteko gai diren bakterioak zabaldu egin direla esan du Sevillako (Espainia) **mikrobiologo** talde batek. [Berria - Gaiak](#)

## **mikrobizida** iz mikrobioak hiltzen dituena.

Rosenbergek gaineratu zuen bost edo hamar urtetako epean **mikrobizida** eraginkorra merkaturatu ahalko dela. [Berria - Gaiak](#)

**Mikrobizidak** eta txertoak hiesaren kontra egiteko esperantza berriak direla esan dute Bangkokeko bileran [Berria - Gaiak](#)

## **mikrobonba** iz oso tamaina txikiko bonba.

Alde egin aurretik, ordea, argazkiak atera zituen, 200 bonba atomiko, neutroi lehegailuak eta soilik lau kilo plutonio behar zuten **mikrobonbak** agertu zituen irudiotan, alegia.

[Berria - Mundua](#)

**mikrobus** iz ohiko autobusak baino tamaina txikiagoa eta eserleku gutxiago dituen autobusa.

Kamioi batek autobus baten kontra jo zuen eta ondoren beste **mikrobus** baten kontra. guregana zetorren Polizia belgikarraren **mikrobusari** begira. [Berria - Mundua](#)  
Guregana zetorren Polizia belgikarraren **mikrobusari** begira. [Koldo Izagirre](#)

**mikroegitura** iz beste egitura handiago baten zati den egitura.

Hauts horretan sekretu askoren giltza dagoela esan du egitasmoan parte hartzen duen ikertzailleetako batek, Peter Tsouk: «**Mikroegitura** horretan sekretu asko daude ezkutatuta, askotan maila atomikoan». [Berria - Gaiak](#)

**mikroekonomia** iz ekonomiaren alorra, faktore ekonomikoaren banakako aritzea aztertzen duena.

Ekonomia orokorra, berriz, **mikroekonomian** eta makroekonomian banatzen da. [Iñaki Heras](#)

**Mikroekonomiak** ekonomia agente bakoitzaren jokabidea eta agente horiek parte hartzen duten merkatuen funtzionamendua aztertzen du. [Iñaki Heras](#)

**Mikroekonomia** eta makroekonomia estuki erlazionaturik daude, eta horregatik, makroekonomia gaiak ulertzeko ezinbestekoa da **mikroekonomiak** arazoak ulertzea. [Iñaki Heras](#)

**mikroekonomiko** izond mikroekonomiarena, mikroekonomiari dagokiona.

Horren ondorioz hobeto esleituko lirateke baliabideak Erkidegoaren barruan, eta horrek, maila **mikroekonomikoan**, eragile pribatuaren gaineko finantza-betekizunak lasaitzea ekarriko zukeen, eta, maila makroekonomikoan, europar ekonomiaren hazkunde globalaren ahalmena gehitzea. [Koro Navarro](#)

**mikroeleberr** iz oso eleberr

Idazle askoren oihartzunak ekartzen dizkigu Goragaleak: Proust, Gide, Giraudoux, Balzac, Zola, surrealistak... bata besteari erantsiriko pasarteetan edo **mikroeleberr** amaigabeen multzo edo katalogo bat balitz bezala. [Monika Etxebarria](#)

**mikroelektrodo** iz oso tamaina txikiko elektrodo.

Tximino anestesiatuei ikusmen-kortexean **mikroelektrodoak** sartu, eta estimulu koloretakoak ematean sortzen ziren potentzial neuronalak neurtzen zituen. [Xabier Olarra](#)

**mikroelektronika** iz zirkuitu integratuei dagokien elektronika.

**Mikroelektronikaren** iraultzatik datozen teknologia berriak esparru sozioekonomikoan aplikatzearen ondorioz herri industrializatu guztietan nagusituz doan joera bat ekarri behar dugu gogora. [Iñaki Heras](#)

**Mikroelektronika** merkearen bultzadari esker. [Berria - Ekonomia](#)

Egitasmo hori garatzeko Bartzelonako **Mikroelektronikarako** Zentro Nazionalarekin elkarlanean ari da Ikerlan. [Berria - Gaiak](#)

**mikroelektroniko** izond mikroelektronikarena, mikroelektronikari dagokiona.

Iraultza **mikroelektronikoak** -hots, informatizazioak, automatizazioak edota errobotizazioak- produkzio modu berriak ahalbidetu ditu: ordenagailuz lagundutako diseinua eta ekoizpena (CAD/CAM sistemak), makina-lanabes automatizatua, edota just in time produkzioa, besteak beste. [Iñaki Heras](#)

**mikroenpresa** (orobat **mikro-enpresa**) iz oso kide gutxi dituen enpresa.

Baina lau edo bost [enplegatu] dituzten **mikroenpresetan** gauzak berdin jarraitzen dute. [Berria - Ekonomia](#)

Hain zuzen ere, orain arte Hobeki Digitala, Konekta Zaitetz Lankidetzeta eta Konekta Zaitetz **Mikroenpresak** programen baitan lanean aritu diren enpresek jaso dezaketeko laguntza hori. [Berria - Euskal Herria](#)

**mikroeremu** (orobat **mikro-eremu**) iz oso eremu txikia.

Gainera boterea **mikro**-eremu askotan banatua dago. [Pako Aristi](#)

**mikroeuskdun** iz

Itxaroren bigarren kezka nagusia, "gure gizarte **mikroeuskdun** honek" euskaldungoa hiru edo lau lema ideologikoren mendean kateatuta duela ikustea da. [Ana Urkiza](#)

**mikrofilm** iz orrialdeak eta kidekoak filmatzeko oso tamaina txikiko pelikula.

Orduak eta orduak eman nituen han, aldizkariak eta egunkariak aztertzen, paperak eta **mikrofilmak** arakutzen, txostenak eta gutunak miatzen... [Xabier Mendiguren](#)  
[Elizegi](#)

Komeni da jakitea, liburu tradizionalaz aparte, gaur egun euskarri gehiago ere badela: **mikrofilmak**, mikrofitxak, audio -edo bideo-zintak, euskarri magnetikoak eta, jakina, telematika. [Askoren artean](#)

Bospasei **mikrofilmetan** kokatu literatura unibertsalaren erakusketa sakona. [Itxaro Borda](#)

Doilorkeriaren historia unibertsala geneetan itsatsirik daukagu, **mikrofilm** batean bezala. [Juan Kruz Igerabide](#)

**mikrofilmatu**, mikrofilma, mikrofilmatzen **1 du ad** mikrofilmetan gorde.

Agiriak **mikrofilmatzeko** eta kopiak katalogatzeko. [Berria - Harian](#)

**2 (era burutua izenondo gisa)**

Nik esaten diot erantzun guztiak hemerotekan topatuko dituela eta han galtzen da gajoa ale **mikrofilmatuetan** barrena, loak hartu arte. [Arantxa Iturbe](#)

# mikrofitxa iz ohiko tamainako fitxapelikula, testuak-eta argazki oso txikietan filmatuak dauzkana.

Ez duzu ahaztu behar beste bide automatizatu batzuk ere badituzula: CD-Roma, mikrofilmak, **mikrofitxak**, etab.; horiek guztiak eskura dituzu egun edozein dokumentaziogunetan. [Askoren artean](#)

## mikrofono 1 iz hots uhinak energia elektriko bihurtzen dituen tresna.

Jo dezagun lau pertsona ari direla berbetan eta guk lau **mikrofono** jartzen ditugula inguruan. [Berria - Gaiak](#)

**Mikrofonoa** hartu eta ingelesez hitz egiten digu. [Edorta Jimenez](#)

**Mikrofonoa** hartuta, bertan zeudenei bere erabakiaren berri eman zien. [Berria - Kirola](#)

**Mikrofonoek** ez dituzte beti hartzen platoon sortzen diren soinuak. [Oskar Arana](#)

**Mikrofono** baten bidez ahotsak grabatu ostean. [Berria - Euskal Herria](#)

Ondoan tipo bat ari zen **mikrofonotik** hitz egiten. [Jon Maia](#)

**Mikrofonoa** itxita zuela eman zuen erabakiaren berri epaimahaiburuak. [Berria - Harian](#)

Bi entzungailuko aparatuek bi entzungailu eta bi **mikrofono** ditu, bakoitza pertsona batentzat. [Berria - Gaiak](#)

Puntako **mikrofonoa**. **Mikrofonoak** egon daitezke -esan zidan. [Irene Aldasoro](#)

Azken bolada honetan **mikrofonoak** zigarro filtroetan jartzen dituztela entzun dut. [Harkaitz Cano](#)

Espioitzarako **mikrofonoak** aurkitu dituzte Genevan. [Berria - Mundua](#)

Polimili izandako bezero batekin etorri zitzaidan, etxea **mikrofono** ezkutuen bila miatzeko. [Ramon Saizarbitoria](#)

**Mikrofono** bat hurbildu zidan morroi batek. [Koldo Izagirre](#)

**Mikrofono** aurrean geldirik kantatzeko moduko gaia. [Andoni Egaña](#)

Begi, argazki kamera, eta **mikrofono** guztiak Eibarrera begira daude. [Berria - Kirola](#)

Elektroentzefalograma egiteko jartzen diren elektrodoek betetzen dute **mikrofonoen** funtzioa. [Berria - Gaiak](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

Bertsolaria **mikrofono** oinaren atzean egoten zen, geldi, gaia entzun arte. [Andoni Egaña](#)

50 kazetari, argazkilaria eta kameralarik inguru bildu ziren, eta Mayoren aurpegia ikustea ere ez zen erraza **mikrofono** basoan. [Berria - Kirola](#)

· Ramirez kapitainak hainbat mini-**mikrofonoz** josi zituen Mireiaren etxea, autoa eta lantokia. [Fernando Morillo](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mikrofono aurrean** (14)

**mikrofonoa hartu** (5)

**mikrofonoaren aurrean** (6)

**mikrofonoen aurrean** (6)

## mikrofonodun izond mikrofonoz hornitua.

Haren alboan, hitzaldi potoloak botatzeko podium **mikrofonoduna**. [Berria - Kultura](#)

· izlag Gerora, guk ezagutu izan dugun **mikrofonodun** bertsogintzan, bertsolaria mikrofono oinaren atzean egoten zen, geldi, gaia entzun arte. [Andoni Egaña](#)

## mikrogeografia iz

Aurretik, baina, ezinbestekoa izango da **mikrogeografiako** lezio txiki bat eskaintzea. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

## mikrogizarte iz oso tamaina txikiko gizartea.

Gisa horretan, Ugartek gure gizartearen eta **mikrogizarte** ere baden familiaren, bikotearen itxurakeria utziko du agerian. [Berria - Kultura](#)

## mikrognatia iz masailezur txikia.

Sintoma nagusiak ondorengoak dira: jaiotza pisu eskasa, dolikozefalia, betazal-arraig txikiak, belarri deformatuak, **mikrognatia**, aho txikia, garrasi edo oihu berezia, eta giltzaduretako zurruntasunak. [Berria - Gaiak](#)

## mikrograbitate iz oso grabitate apala.

**Mikrograbitateak** giza gorputzean duen eragina ikertu nahi dute horretan. [Berria - Gaiak](#)

## mikrogramo iz gramoaren milioirena.

Martxoaren 15ean Jaurkitaren neurgailuak 227 eta 228 **mikrogramo** sufre dioxido neurtu zituen metro kuboko. [Berria - Euskal Herria](#)

Etxe bateko airea osasuntsutzat jotzeko, halako gaien kontzentrazioak ez du 200 **mikrogramo** metro kuboko (ug/m<sup>3</sup>) muga gainditu behar. [Berria - Gaiak](#)

Dastamen-papilei eragiteko behar den [estriknina hidrokloruro] kantitate minimoa **mikrogramo** baten ehunena da gutxi gorabehera. [Irene Aldasoro](#)

Etanolari dagokiola -usaina eta zaporea desberdinak dituen substantzia bakanetariko bat da etanola-, zazpiehun **mikrogramo** inguruan dago dastamen-atalasea eta hamabi

**mikrogramo** inguruan usaimen-atalasea. [Irene Aldasoro](#)

20 **mikrogramo** Levonorgestrel hormona askatzen da 24 orduan. [Luis Elberdin](#)

## mikrohaustura (corpusean mikro-haustura soilik) iz oso haustura txikia.

Azaro hasieran izan zuen lesiotik sendatu ondoren, Bartzelonaren kontra eskuin hankako kuadrizepsean **mikro**-haustura bat egin baitzuen. [Berria - Kirola](#)

Ezker hankako bikian zuntz **mikro**-haustura izan baitu. [Berria - Kirola](#)

## mikrohistoria iz

Zera da, edo izan nahi zukeen, **mikrohistoria** bat, lanbide baten eta haren porrot, garaipen eta miseria. [Juan Garzia](#)

Jendeak, **mikrohistoriaz** arduratzen direnez landa, ahaztu egin zuen. [Jon Alonso](#)

Hortarako oraindik eta berriz ere Euskal Herriko historia orokorra egitekotan, ez ote dugu itzuli behar lurralde desberdinetako, sare desberdinetako **mikrohistoria**? [Berria](#)  
- [Kultura](#)

---

**mikroi** iz luzera banakoa, metroaren milioienaren baliokidea.

Gizakian, ikusmen-zolitasunaren behe-muga 200 bat **mikroitakoa** da gutxi gorabehera. [Berria - Gaiak](#)

5 eta 100 **mikroiren** arteko uhin-luzerakoa. [Berria - Gaiak](#)

---

**mikroinarrosaldi** iz oso inarrosaldi txikia.

Mugimendu geldí samarrak izaten dira, eta ez oso zabaltasun handikoak, begiak begirada finko edukitzeko egiten dituen **mikroinarrosaldiz** etengabe "zuzenduak". [Josu Zabaleta](#)

---

**mikroingeniaritza** iz oso gauza txikien ingeniariatza.

Azkeneko urte horietan etorri zaizkigu [...] asmakizunak bata bestearen ondotik: satellite bidezko telefonoa, ahotsa mekanikoki ezagutzea, txartel "inteligentziadunak", giza genomaren mapa, supereroaletasuna, auto ez kutsagarriak, **mikroingeniaritza**, animalia eta landareen genetika, eta abar, mendeak bere 100 urteak jasan zituen arte.

[Pello Salaburu](#)

---

**mikroipuin** (orobat **mikro-ipuin**) iz oso ipuin laburra. ik **mikronarrazio**.

Gizakian, ikusmen-zolitasunaren behe-muga 200 bat **mikroitakoa** da gutxi gorabehera. [Berria - Gaiak](#)

**Mikroipuinak** sinadura zeraman: Fitzwilliam Darcy. [Iban Zaldúa](#)

---

**mikroirratsaio** (corpusean **mikro-irratsaio** soilik) iz oso iraupen laburreko irratsaioa.

Loiolatik osatzen genituen **mikro**-irratsaio haien xedea Euskal Herriko zenbait puntutatik eguraldiari buruzko datuak ematea zen: Donostia, Zarautz, Arribe-Atallo, Itxumendi...

[Pello Zabala](#)

---

**mikroizaki** iz oso tamaina txikiko izakia.

Baina, bereziki, bakterio, birus eta bestelako **mikroizakiak**: miliunka eta miliunka. [Jose Angel Irigaray](#)

---

**mikrojendarte** (corpusean **mikro jendarte** soilik) iz mikrogizartea.

Nire farmaziak auzo guneko bizian parte hartzen du, auzo gunea **mikro** jendarte bat da. [Herria](#)

---

**mikrokamera** iz oso tamaina txikiko kamera.

**Mikrokamerek** eskulturen gaineko irudiak erakutsiko dizkigute. [Berria - Kultura](#)

---

**mikrokartografia** iz

KM kulturuneko ganbara txikia geratu zaio azkenean Golvanori, eta leherketa haren **«mikrokartografia»** baino ezin izan du osatu. [Berria - Kultura](#)

---

**mikrokirurgia 1** iz mikroskopioaren bidez egiten den kirurgia.

Hori oso itxaropentsua da, eta seguru **mikrokirurgia** ari dela datu hori hobetzeko ahaleginak egiten. [Luis Elberdin](#)

**2** (hitz elkartuetan)

Beraz, orbainduriko azala kendu eta **mikrokirurgia** teknika erabili zuen, aurpegiko arteria nagusiak azal zerrendaren azpiko zainetara josteko. [Berria - Gaiak](#)

---

**mikroklima** (orobat **mikro-klima**) iz eremu txiki batean gertatzen den klima berezia.

Nolabaiteko **mikroklima** bat sortzen da. [Berria - Kultura](#)

---

**mikroklimatxo** iz adkor mikroklima.

Tokian tokikoak ez digute balio, **mikroklimatxo** baten berri emango bailiguke horrela. [Pello Zabala](#)

---

mikrokosmo ik **mikrokosmos**.

---

**mikrokosmos** (orobat **mikrokosmo** g.er.) iz munduaren edo unibertsoaren irudi gisa hartzen den izakia edo entitatea.

Sendi bereko pertsonen arteko harremanek jakin-mina piztu didate, **mikrokosmos** interesgarria da. [Berria - Kultura](#)

Gaiaren hondarreraino iristeko gure ikerketa makrokosmosetik **mikrokosmosera** eramán behar dugu, iragan historiako egitateetatik giza izaeraren ezaugarri iraunkorretara.

[Iñaki Mendiguren](#)

Espazioa ere berezia duk, hotel bat Bartzelonatik kanpo, **mikrokosmos** bat. [Mikel Hernandez Abaitua](#)



Ospitaleak **mikrokosmoak** dira, "kanpoko" bizitzarekin zerikusi gutxi duten espazioak. [Iban Zaldua](#)  
Houellebecqek eleberrian islatu zuen «**mikrokosmosa**» zinemara eramatea «ezinezkoa» da Roehlerren iritziz, eta, ondorioz, liburuaren «espirituaren zati bat» besterik ez du jaso filmean. [Berria - Kultura](#)

Hiria, nekazari girotik urrun, kultur gunea eta hizkuntza kosmopolita, moderno eta eklektikoa eskatzen duen **mikrokosmoa** dela azalduko dute. [Berria - Kultura](#)

Bidaia estratosferikoetan soilik ezagutzen den **mikrokosmos** toxikoa. [Sonia Gonzalez](#)

Gizakia **mikrokosmos** bat baldin bada (Maimonek ez dio hori), mundua makroanthropos bat da. [Xabier Kintana](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**makrokosmosetik mikrokosmosera** (3)

## **mikrokreditu** (orobat **mikro-kreditu** g.er.) iz oso diru kopuru txikiko kreditua. ik **mikromailegu**.

BBK Gazte Lanbidean eta BBK Solidarioa fundazioek 18 milioi eurotik gorako **mikrokredituak** eman dituzte jada, eta 4.700 lagun bakoitzaren eskaerei jaramon egin diete. [Berria - Ekonomia](#)

Ordutik 1.367 enpresa ekimenetan esku hartu dute, eta 16 milioi eurotik gorako **mikrokredituak** eman dituzte. [Berria - Ekonomia](#)

**Mikrokredituak** funtsezko tresna direla gizarte bazterketa apaltzeko. [Berria - Ekonomia](#)

Managuako auzo txiro eta baztertuetan bizi diren biztanleentzat **Mikrokredituen** Programa bultzatzea. [Berria - Kultura](#)

## **mikrokukuxu** (corpusean **mikro-kukuxu** soilik) iz

Plastika eta **mikro**-kukuxuz osatu 'zfenkz' bat balitz bezala! [Ramuntxo Etxeberri](#)

## **mikrolabe** (corpusean **mikro labe** soilik) iz oso tamaina txikiko labea.

3garrena DVD irakurgailu bat, gero **mikro** labe bat, irensgailu bat (errauts biltzeko tresneri), [...]. [Herria](#)

## **mikrolaztasun** iz

Adreiluzko horma batek bi ehundura mota izango ditu: ehundura latz bat, adreiluen tarteetan, eta ehundura xehe bat, adreiluaren beraren **mikrolaztasunena**. [Josu Zabaleta](#)

## **mikrolitro** iz litroaren milioirena.

Gailu horietako bilioi bat sar daitezke **mikrolitro** batean. [Berria - Gaiak](#)

## **mikrolo** (corpusean **mikro lo** soilik) iz oso iraupen laburreko loa.

Une psikologiko neketsu hauen jabalgarri, medikuek asmatzen ahaliko zituzketen, eta agudo, papoan pausatzeko patx eratzikorrek, horrela **mikro** lo ugarien iturriak normahiri zabalduz. [Itxaro Borda](#)

## **mikromailegu** (corpusean **mikro mailegu** soilik) iz oso diru kopuru txikiko mailegua. ik **mikrokreditu**.

BBK Solidarioa gordailu horretatik 1,6 milioi baliatu ditu aurrezki kutzak baztertuta bizi diren pertsoneri eta atzeritarrei 70 **mikro** mailegu emateko. [Berria - Ekonomia](#)

## **mikromantenugai** iz

Labore horrek, baina, ez ditu nahikoa **mikromantenugai**. [Berria - Gaiak](#)

## **mikromekanizazio** iz

Danobat Taldeak jakintza berriak sortu nahi ditu automobilgintzaren, aeronautikaren, **mikromekanizazioaren** eta ultradoitasunaren inguruan. [Berria - Ekonomia](#)

## **mikrometrai** iz oso iraupen laburreko filma.

5 **mikrometrai** 5. [Berria - Kultura](#)

## **mikrometro** iz metroaren milioirena.

Hiru **mikrometro** inguruko bola gardenak sortzen dira. [Berria - Gaiak](#)

## **mikromilesima** (corpusean **mikro milesima** soilik) iz

Bakoitzak daukan originaltasun **mikro** milesima hori kontserbatu behar du idazleak. [Ana Urkiza](#)

## **mikromultinazional** iz

Horrez gain, gaur egun, geroz eta gehiago dira metodo desberdinen bidez beren jarduera sarea atzerrian zabaltzen ari diren tamaina txiki eta erdi mailako enpresak:

**mikromultinazionalen** agerpena azpimarratzen dute adituek. [Iñaki Heras](#)

## mikromundu *iz* oso mundu txikia.

Bertoaren **mikromunduan** euskaraz bizi dira. **Berria - Kultura**

## mikronarrazio *iz* oso narrazio laburra. ik **mikroipuin**.

**Mikronarrazioak**, edo patata soroak . **Berria - Kultura**

## mikronobela *(corpusean mikro-nobela soilik)* *iz* oso nobela laburra.

Ipuin edo, Ismail Kadarek lerrakeen maneran, **mikro** -nobela hauen irakurtzea bururaino jasan baldin baduzu, irakurle, idazle gisa nik argibide zenbait zor dizkizut. **Itxaro Borda**

## mikronutriente *(corpusean mikro-nutriente soilik)* *iz*

Jangaien makro- eta **mikro** -nutrienteak (proteinak, erradikal askeak, karbohidratoak, mineralak, aminoazidoak etc.). **Edorta Agirre**

## mikroorganismo *(orobat mikro(-)organismo g.er. eta mikroorganismo g.er.)* *iz* mikroskopiaoz baino ikusten ez den organismoa.

Bizitza-forma orok (**mikroorganismo** espezializatu batzuk salbu) bi gauza behar ditu: elikagaia eta oxigenoa. **Irene Aldasoro**

Harkaitz, itsaso eta atmosferaren masaren milioiren bat baino gutxiago da, guztira, gauza bizien masa, landare eta **mikroorganismoak** barne. **Irene Aldasoro**

Humuseko **mikroorganismoak**. **Juan Garzia**

**Mikroorganismoak** aurkitu dituzte 115 milioi urteko anbar zati batean. **Berria - Gaiak**

Itsasoetan petrolioarekin, esaterako, gertatzen diren hondamen ekologikoak konponduko lituzkeen **mikroorganismo** berriak sortzeko, horretarako gauza izango bagina. **Pello Salaburu**

**Mikroorganismoek**, onddoek, legamiek, bakterioek eta birusek, hartu zuten haren lekua, eta harrezkero nagusi izan dira hogeita hamar urtez edo. **Juan Garzia**

Jangaien parasito diren **mikroorganismo** berrien aurrean jatunak ez du beti izango antigorputzak prest. **Edorta Agirre**

**Mikroorganismoen** garapen eta hazkundera *in vitro* inhibitzeko gai den substantzia bat da *septrim*. **Berria - Gaiak**

## mikropaisaia *iz* oso tamaina txikiko paisaia.

**Mikropaisaiak** direla esango nuke. **Berria - Kultura**

## mikropartikula *iz* oso partikula txikia.

Argindar elektromagnetikoa ez da jarraikian gertatzen den zerbait, baizik berak "quanta" bataiatu zituen **mikropartikulek** eragiten dutenaren emaitza. **Pello Salaburu**

## mikroplanta *(corpusean mikro-planta soilik)* *iz* oso tamaina txikiko planta.

Gaikako bilketa eta tratamendua **mikro** -plantetan: papera, kristala, olio, elektrogailuak... material horiek bereiztuta tratatzen dira, bakoitza bere plantan, material horiek birziklatu eta gero beren berrerabilpena bultzatzeko. **Berria - Euskal Herria**

## mikropopulu *(corpusean mikro populu soilik)* *iz* oso tamaina txikiko polulua.

Munduko edozein **mikro** populuren egitekoekin abilki erkatzen. **Itxaro Borda**

## mikroporo *iz*

Likido biologiko batean, odolean esaterako, dauden ezpurutasunak **mikroporozko** mintz batetik iragazarazteko teknika da dialisia. **Berria - Gaiak**

## mikroprozesadore *iz*

Intel 4004 **mikroprozesatzaileak** 2.300 transistore behar zituen. **Pello Salaburu**

Eta **mikroprozesadoreek**, besteak beste, egin dute azken lana, laugarren belaunaldiko ordenagailu txikiak garatzeko orduan. **Pello Salaburu**

## mikroprozesatzaile *iz*

Azkeneko hamarkadetan ordenagailuen prozesatze kostua, urtero, batez besteko eta termino errealetan, %30ean murriztu omen da: azken bi hamarkadetan autoek **mikroprozesatzaileek** adinako bilakaera izan balute, auto baten prezioa, batez besteko, 6 bat euro baino txikiagoa izango litzateke. **Iñaki Heras**

## mikropuntu *iz*

Eduki guztia bota du alfonbra gainean, denetarik dago, botika oso bat: kosto harria, tabako pakete baten zelofanean; hiru **mikropuntu**, poltsatxo batean; farlopa gramo erdia - gutxi gorabehera-, [...]. **Sonia Gonzalez**

## mikroorganismo ik **mikroorganismo**.

## mikrosatelite *iz*

## mikrosegundo *iz* segundoren milioirena.

Tximista batek 30 **mikrosegundo** irauten du eta 10 trilioi watt sortzen ditu. **Gotzon Garate**  
Konputagailu moderno batzuetan, **mikrosegundo** zatiki batean atera daitezke memoriako datuak. **Irene Aldasoro**  
Entzumen-sistemak, esate baterako, **mikrosegundo** batzuetako denbora-bereizmena du. **Josu Zabaleta**

## mikroskopia *iz* mikroskopiaren bidezko azterketa.

Bazegoen, **mikroskopiaren** laguntzarekin, kromosomak begiztatzerik. **Juan Garzia**

## mikroskopiko 1 *izond* mikroskopioaz baino ikusten ez dena.

Berdin espazioan bizi den izarra eta ur tanta batean bizi den piztia **mikroskopikoa**. **Josu Zabaleta**  
Zorigaitzoko alderdia hura, non gizonak lehia gogorrean aritu behar duen eltxo, mandeuli eta ezpazaren kontra, bai eta milaka intsektu **mikroskopikoren** kontra ere. **Karlos Zabala**  
Wild 2 kometako hauts **mikroskopikoez** osatutako lainoek Stardust ontzia jo zuten urtarrilean. **Berria - Gaiak**  
Ez dakigu zerk eragozten dien fosfato, oxalato eta azido urikoaren kristal **mikroskopikoei** elkarri erantzea eta harriak eratzea giltzurrun normalean. **Irene Aldasoro**  
Industriari egokitutako makina **mikroskopikoak** diseinatzen dabil Tekniker. **Berria - Ekonomia**  
Atomoaren mundu **mikroskopikoan** grabitatea neurtezina da. **Berria - Gaiak**

### 2 oso txikia.

Kartzela-zainek aurkitu eta ken ez diezaioten, 12 cm-ko paperak elkarri itsatsiz egitea lortu duen 12 metro luze eta 10 zabaleko paper-erroilu batean idatzi du, alde bietatik eta letra **mikroskopikoz**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

### 3 mikroskopioaren bidezkoa.

Ezaguera **mikroskopikoari** esker, ezaguera global baterako bidea zabaltzen zuen orain. **Jon Muñoz**  
Zientzien historiaren eskala **mikroskopikoen** eta makroskopikoen arteko bereizketa. **Xabier Arregi**  
Emakumeok zikinkeriarako begirada **mikroskopikoa** dugula esaten zuen. **Patxi Zubizarreta**

## mikroskopio 1 *iz* tresna optikoa, begi hutsez ezin ikusi diren gauzakiak ikusteko erabiltzen dena.

Infusorioak **mikroskopio** xafila baten gainean. **Josu Zabaleta**  
**Mikroskopio** baten ahalmena ez datza haren handitze-gaitasunean. **Juan Garzia**  
XIX. mendearen erdi aldera, **mikroskopio** optikoa hain ondu zen, non zelularen hainbat egituraren berri eman baitzizgion, nahiz eta ez gai izan, horratik, xehetasunak jasotzeko. **Juan Garzia**  
**Mikroskopio** elektronikoaren bitartez baino bereiz ez dezakegun hainbat birus. **Juan Garzia**  
Anbar zatiak **mikroskopio** elektroniko baten bidez ikertzea erabaki zutenean aurkitu zituzten mikroorganismoak. **Berria - Gaiak**  
Binnig IBM enpresako bi zientzialarik tunel efektuko **mikroskopikoa** asmatu zuten. **Berria - Gaiak**  
**Mikroskopioz** egindako hainbat azterketak garbi utzi zuten eskuizkribu haiek antigoaleko idazkien antzeratze hutsak zirela. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## mikrosozial *izond*

Ikerketak zentratuegi egongo lirakeke teknologia zehatzen konstituzio lokalizatuetan, azterketa **mikrosozialetan**, kontuan hartu gabe izaera makrosoziala duten ezaugarri ekonomiko eta politiko orokorrak. **Askoren artean**

## mikrosumario *iz*

18/98 sumarioan **mikrosumarioak** egin dituzte. **Berria - Euskal Herria**

## mikrosurko *iz* oso ildo meharrak eta sarria duen gramofono diskoa.

Gerra aurrean, baziren Etxezakortari eta Manuel Gelatxori arbeleko diskoetan Regal etxeak gramolarako eginiko grabazioak, baina Zumarragako eta Zaldibarko trikitixaz gain, ez zegoen **mikrosurkoan** erreproduzitutako doinurik. **Iñigo Aranbarri**

## mikrotxip *iz* txipa.

Eta %80 zakurrek **mikrotxipa** dute. **Gotzon Garate**  
**Mikrotxip** bat, nerbio sistemaren puntu jakin batzuei loturik, gai izan zen aspalditik hilak ziren giharrak abian jartzeko berriz ere. **Pello Salaburu**

## mikrouhain ik mikrouhin.

## mikrouhin *(orobat mikrouhain g.er.)* 1 *iz* metro baten eta milimetro baten arteko luzerako uhin elektromagnetikoa.

Kosmoseko **mikrouhinek**. **Berria - Gaiak**  
Espazioko hainbat guneetatik datorren **mikrouhin** distira neurtu dute, eta tokiaren arabera alde handia dagoela ikusi dute. **Berria - Gaiak**  
Iruñean **mikrouhinek** eragindako «kutsadura iturri berria» dagoela. **Berria - Euskal Herria**  
Frekuentzi handiagokoak dira **mikrouhinak**, infragorria eta ikusten den argia, eta gehiago absorbitzen ditugu (**mikrouhinek** gure ur molekula berotzen dituzte). **Berria - Gaiak**  
Pentsatu zuen hodiak sorrarazten zituen **mikrouhinek** urtu zutela txokolate zati hura. **Pello Salaburu**

### 2 mikrouhin labea.

Sukaldean Txemak esnea **mikrouhinean** sartu du, eta txinpartak entzun ditugu. **Lander Garro**  
Kafesnea **mikrouhinean** berotzen jarri, eta eguneko lehenengo zigarroa piztu du patxadaz. **Patxi Iturritegi**

### 3 mikrouin labe

New Yorkeko amona batek bere katua garbitu eta, hura lehortzearren, **mikrouhin labean** sartzea bururatu zitzaion. **Patxi Zubizarreta**  
Zartaginean edo **mikrouhin labean** egin daitezke hamburgerrak. **Berria - Harian**  
**Mikrouhin labean** berotu eta hura jaten zuen gose zenean, denbora gutxien galtzeko era zelakoan. **Harkaitz Cano**  
Florenek bi baso esne atera ditu **mikrouhin labetik**. **Eider Rodriguez**  
**Mikrouhin labeek**, esaterako, kontsumitzen duten argindarraren %40 erloju digitalean joaten da. **Berria - Gaiak**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**mikrouhin labe** (4); **mikrouhin labean** (7)

## mikrouhindu *(corpusean mikro-uhindu soilik) izond*

Nintendoarekin utzi nuen pantaila aurrean, eta lasagna **mikro**-uhindu berriarekin azaldu nintzenerako, lo seko zegoen besaulkian. **Iban Zaldúa**

## mikrouhingailu *iz mikrouhin labea.*

Eta ez funtzionatzeaz gain, orain, ekilibriotan, hankapuntetan aritu behar dut **mikrouhingailura** inguratzen naizen bakoitzean, tranpak neronek ez zapaltzeko. **Harkaitz Cano**

## mikrounibertso *(corpusean mikro unibertso soilik) iz oso tamaina txikiko unibertsoa.*

Hona hemen aurten **mikro** eta makro unibertsoetan aipagarrienak izan diren gertaeren zerrenda. **Berria - Gaiak**

## mikrozelula *iz oso tamaina txikiko zelula.*

Santolallak salatu zuen Iruñeko hainbat karrikatan sakelako telefonoei seinalea helarazteko **mikrozelulak** jarri dituztela. **Berria - Euskal Herria**

## mikrozelular *iz*

Leher eginik eta gogoia nahasirik egoten nintzen beti, eta Yerling etxearen larruazal sentiberetako laranja-azal itsusiaren kontrako gel **mikrozelular** bereziak bazirudien ez zuela nigan sartu nahi. **Joxan Elozegi**

## mikroziri *(corpusean mikro ziri soilik) iz*

Nago, horrelakoetan, **mikro**-ziriaren aurrean kieto egotearen ohiturak ez diola onik egiten bertsolariari. **Andoni Egaña**

## mila *zenbtz 1 hamar aldiz ehun, 1000. (izen baten ezkerrean)*

Estatu horretan bi milioi eta bostehun **mila** lagun bizi dira, eta hango armadan hirurogei **mila** oinezko daude bakealdian, halako hiru gerratean, eta hogeita hamar **mila** zaldizko. **Karlos Zabala**

Bi **mila** ardirekin mendian artzain ibiltzea ez da bizimodua! **Bernardo Atxaga**

Hamabi urte daramat ezkondurik, eta hamar edo hamabi **mila** lagunek jo didate larrua. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Eguneko eta gaueko ordu bakoitzean, 70 **mila** milioi litro ur isurtzen ditu Amazonasek! **Jon Muñoz**

Sei **mila** urte, zenbakiak biribilduz! **Karlos Zabala**

Txardjou hogeit bat **mila** arimak defendatzen dute. **Karlos Zabala**

Nozdriovek zin egin zuen hamar **mila** errublo ordaindu zituela harengatik. **Jose Morales**

Hamar **mila** errubloan erosi nian, eta lau mila bakarrik eskatuko dizkiat. **Jose Morales**

Trasimeno aintziratik hurbil dago, hirurehun metrotik gorako altueran eta **mila** metrotik gorako mendiez inguratua. **Askoren artean**

Euskal Herritik bederatzi **mila** kilometrora. **Bernardo Atxaga**

**Mila** verstako bidea ibili behar, hortaz, lur libreza zanpatu aurretik. **Karlos Zabala**

Borondate on hori bakarrik erakutsiz eman zitzaizkien hainbeste **mila** lagun beren pasaporte eta nortasun agiriaren paperak. **Pello Salaburu**

Gorka Juanarena iruindarrari eta Berriozarko Sergio Iribarreni, berriz, hiruna **mila** euroko bermea ezarri zien. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (bestelakoetan)

Gure unibertsoaren jaiotza, duela hamabitik hamabostera **mila** milioi urteko kontua, hasierako hutsaren baitako energia-fluktuazio batzuen ondorioztat hartzen da. **Juan Garzia**

Txinatarrek ehuneko **mila** irabazten dute azukrearekin, eta batzuetan beste hainbeste itzulerakoan. **Iñaki Iñurrieta**

Eta gero jakin diagu han hil zituzten **mila** eta bostehunak, nire familiakoak tartean, probaketa batean hil zituztela. **Bernardo Atxaga**

Bilakaera hori orain dela **mila** bat urte hasi zen. **Koro Navarro**

Jaiotzean ez ezik, ordea, urtero **mila** bat emazte hiltzen dituzte senarrek, dotea aurrez esandako epeetan ekarri ez dutelako. **Gotzon Garate**

Seiehun **milaren** bat gizon oinezko ziren. **Elizen arteko biblia**

Hona hemen **milako** eta ehuneko gudari-taldeen buruzagi eta ofizialen zerrenda. **Elizen arteko biblia**

*ik milako.*

Bost **milako** billete bat atera eta Pepponeri luzatu zion. **Koldo Biguri**

Asko ez direla salduko iruditzen bazaizu, mila aleko tirada egiten duzuz; gehiago salduko direla pentsatzen baduzuz, hiru **milakoa**. **Berria - Kultura**

Gizon bakarra aurkitu dut **milaren** artean. **Elizen arteko biblia**

Baikala aintzira **mila** eta zazpiehun oineko garaieran dago itsas mailatik gora. **Karlos Zabala**

Lehenengo **mila** eta laurehun verstetan [...] ez zuen batere trabarik aurkituko. **Karlos Zabala**

Hiru bat **mila** ikusle bit dizkaten kontzertuak antolatzeko aukera ukanen dute. **Berria - Kultura**

## 3 (inguru-ren ezkerrean)

Garai haietan **mila inguru** harpidedun ba omen zituzten, hilean liburu bat erosteko prest. **Hasier Etxeberria**

Hiriari jabetu eta barruan zeudenentzat gohegaita best **mila inguru** gizon **inguru** galdur gudarosteko. **Elizen arteko biblia**

Urtean **mila** ordu **inguru** ematen dit lan militantean. "Munduko izaki bizidun zaharrena" ikustera joan gara gero, hiru **mila** urte **inguru** omen dituen sekuoia. **Patziku Perurena**

Dantza klasikoko **mila** ikasle **inguruk** arketa saioak egin zituzten Kontxako hondartzaren alboan. **Berria - Kultura**

1901ean hamaika **mila** lagun **inguruk** aukeratu zutela Donostia udaleku gisa. **Askoren artean**

Auzolan programak **mila** langile **ingururi** ematen die lana une honetan. **Berria - Ekonomia**

Rotterdameko Erasmok, Collectione Adagiorum idatzi eta, lau **mila inguru** atsotitez hornitua, 1517an argitaratu zuenean, [...]. **Patziku Perurena**

Urte oroz Salomon erregeari gohegaita bi **mila inguru** kilo urre etorri ohi zitzaion. **Elizen arteko biblia**

Herri handi samarra zen, zortzi-hamar **mila** biztanle **ingurukoa**. **Josu Zabaleta**

#### 4 asko.

Honezkerok **mila** aldiz esan dizut. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Horrela bizitzea ez dea **mila** aldiz hiltzea? **Jon Muñoz**

Ez nuen inola ere ulertzen, **mila** bider saiatuta ere: [...]. **Juan Kruz Igerabide**

**Mila** bider hobe da zaldiak heztea eta bakoitza hamar mila dolarretan saltzea! **Bernardo Atxaga**

Maiatzean **mila** euri, **mila** ogi. **Pello Zabala**

**Mila** izarrek itsutu ninduten. **Daniel Landart**

**Mila** erreka lasterrek zeharkaturiko lurralde batean. **Karlos Zabala**

Halatsuko zerbait izandua da neretzako toponimia, eta esan dezaket, ume-umetatik **mila** akorde sekretuz osaturiko sinfonia lurrezko hori adituz hazia dela nere bihotz kokkorra. **Patziku Perurena**

Ispiluetan diridizka **mila** islatan ugaltzen zen ehun lanpararen argipean. **Karlos Zabala**

Goizuetari eta Larrauni buruzko beste **mila** kontu jakingarri ere azaltzen da auzian. **Patziku Perurena**

Geroztik, **mila** arrazoik, hamaika gertakarrik eszeptizismoaren ildoan zilatua eta barnatu didate. **Piarres Aintziart**

#### • 5 iz milakoa.

Errublo **mila** batzuk kostako zitzaizkion beharbada bere egunkariari. **Karlos Zabala**

Gainera, beste **mila batzuk** gehiago daude udal zerrendetan. **Berria - Euskal Herria**

Eta, azkenean, **mila asko** gehitu ondorenean, [...]. **Patxi Zubizarreta**

#### 6 milatan miletan, mila aldiz.

Berak dagoeneko ahaztua eta **milatan** ahaztua zuen ama bat esanez: "hire aita hil ditek!". **Juan Garzia**

Tarteka, jateixe etniko degradatu/amerikanizatuak edo kafetegri korrienteak, salami, arrautza, kafe eta **milatan** erabilitako olio usainekoak. **Iñaki Zabaleta**

Baina ai, eta **milatan** ai! **Anjel Lertxundi**

**Milatan** eta **milatan** madarikatu zuen bere burua, eta, horrekin batera, baita ezkontza ere. **Patxi Zubizarreta**

#### 7 miletan mila aldiz.

-Zure atzazal batek **miletan** balio du ene lepoa. **Patxi Zubizarreta**

**Miletan** nahiagoko zukeen goiz dohakabe hartan ez jaiki. **Daniel Landart**

Baina, ai, oi, ai, eta **miletan** ai! **Oskar Arana**

Bixtan da, ez gitazke egon hemen aipatu gabe Madrilan gertatu den izigarrikeria hori, izigarria baino **miletan** izigarriagoa izan dena! **Herria**

Bakezko esperantza ahulenak gure indar guziak merezi ditu, bakearen hats arinenak ez baitu preziorik, gerla baino **miletan** eta **miletan** hobe baita gizonarentzat, gizartearentzat, bake eperik laburrena. **Michel Oronoz**

#### 8 esker mila (54 agerraldi, 17 liburu eta 19 artikulutan) ik beherago 10.

- **Esker mila**, bihotzez! **Joan Mari Irigoien**

Beno, zera, **esker mila** guztiagatik, arroz-esnea, elkarriketa eta hori dena. **Jasone Osoro**

**Esker mila**, halaber, Gorka Elordieta lankide fonologialariari bere iruzkinengatik, bere eztabaida gogoagatik. **Lourdes Oñederra**

Horra beraz zergatik kasu horretan egin duzunarentzat **esker mila** bihurtzen dizkizudan. **Piarres Xarriton**

#### 9 mila deabru

Esnatu nauk eta, **mila deabru**!, zer eta hozka ari zitzaidana zerbait, arkakusoak seguraski! **Jose Morales**

Aita naiz, **mila deabru**, aita! **Jose Morales**

- **Mila deabru**, Bea, mutikoa ez da hain umea! **Koro Navarro**

Itxi ate hori, **mila deabru**!, esan zuen gero Umbertok. **Anjel Lertxundi**

Zer **mila deabru** erran nahi duk? **Elena Touyarou**

Nola **mila deabru** ez dira ere hartzak desagertu garai hortan Alpes-etan bezala (1937an azkena), jakinez heien ihizia 1969 urte arte onartua zela Frantzia? **Herria**

#### 10 mila esker (223 agerraldi, 85 liburu eta 17 artikulutan) ik gorago 8.

- **Mila esker**, osaba, nitaz kezkatzeagatik. **Txillardegia**

-Ez, **mila esker** -erantzun zuen neskak-. **Mirentxu Larrañaga**

Bihotzez, **mila esker**! **Txillardegia**

Eta, **mila esker**, milaka eta milaka bider. **Mirentxu Larrañaga**

-**Mila esker**, **mila esker** -egin zion oihu Ninik, esker onez eta galai. **Josu Zabaleta**

Oso ongi etorri zait, Potter, **mila esker**... **Iñaki Mendiguren**

Atea klaskatu zuen "**mila esker**" zurruna ahoskatuz. **Itxaro Borda**

#### 11 mila eta mila

**Mila eta mila** aldiz merezi izan dut heriotza. **Felipe Juaristi**

Haga bera **mila eta mila** harriek eratu alimaleko meta batean tente potente zutik dago. **Piarres Aintziart**

**Mila eta mila** esker, dena konponduta dago. **Anton Garikano**

Zeru gainean zartatzen dira, lore buketak bezala idekitzen, zabaltzen eta barreiatzen dira **mila eta mila** izar kolore guzietakoak. **Michel Oronoz**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

bederatz mila (24); berrehun mila (44); berrogei mila (30); berrogeita hamar mila (48); berrogeita lau mila (8); bertze mila (43); beste bi mila (8); beste mila (82); beste mila gauza (10); bi mila (377); bi mila gizon (14); bi mila lagun (29); bi mila urte (47); bi mila mila (13); bost mila (170); bost mila gizon (9); bost mila libera (9); bostehun mila (14); dozenaka mila (69); duela mila urte (14); ehun mila (221); ehun mila aldiz (8); ehun mila euro (11); ehun mila jende (14); ehunka mila (56); ehunka mila pertsona (8); esker mila (47); hamabi mila (62); hamabost mila (42); hamahiru mila (9); hamaika mila (11); hamalau mila (24); hamar bat mila (13); hamar mila (343); hamar mila dolar (11); hamar mila errublo (8); hamar mila gizon (13); hamar mila lagun (9); hamar mila libera (10); hamazazpi mila (9); hemezortzi mila (9); hiru bat mila (11); hiru ehun mila (21); hiru mila (212); hiru mila gizon (13); hiru mila lagun (11); hiru mila urte (11); hirurehun mila (9); hirurogei mila (11); hirurogeita hamar mila (10); hoge mila (93); hogeita bi mila (11); hogeita bost mila (18); hogeita hamar mila (38); hogoi mila (22); lau ehun mila (12); lau mila (115); lauhun mila (9); laurogei mila (15); laurogeita bost mila (9)

mila aldiz (179); mila aldiz esan (10); mila ale (15); mila ardi (12); mila arrazoi (13); mila aukera (8); mila baino gehiago (15); mila bat (69); mila bederatzehun (15); mila bederatzehun eta (15); mila berrehun (11); mila bider (110); mila boto (9); mila buelta (9); mila deabru (35); mila dinar (12); mila dolar (56); mila dolarreko (13); mila duda (11); mila duda mudetan (8); mila duro (15)

**mila** egun (20); **mila** erublo (30); **mila** esker (219); **mila** eta bat (53); **mila** eta berrehun (15); **mila** eta bi (9); **mila** eta bostehun (45); **mila** eta ehun (13); **mila** eta laurehun (8); **mila** eta mila (9); **mila** eta milaka (10); **mila** eta seiehun (12); **mila** eta zazpiehun (14); **mila** euro (57); **mila** euroko (22); **mila** euroren (8); **mila** familia (9); **mila** galdera (11); **mila** gau (25); **mila** gauza (43); **mila** gehiago (10); **mila** gizon (113); **mila** gizon inguru (8); **mila** gizonen (12); **mila** gudari (32); **mila** haur (12); **mila** herritar (11); **mila** hil (22); **mila** hirurehun (8); **mila** hitzek (9); **mila** hitzek baino (8); **mila** hurbil (8)

**mila** ikasle (11); **mila** inguru (27); **mila** jende (44); **mila** jendez (10); **mila** kilo (18); **mila** kilo zilar (9); **mila** kilometro (22); **mila** kilometroko (11); **mila** kilometrora (10); **mila** kontu (10); **mila** lagun (182); **mila** lagun bildu (12); **mila** lagun hil (13); **mila** lagun inguru (30); **mila** lagun inguruk (11); **mila** lagunek (25); **mila** lagunetik (10); **mila** lagunetik gora (8); **mila** langile (22); **mila** lanpostu (9); **mila** libera (63); **mila** liberako (13); **mila** lira (8); **mila** litro (11); **mila** metro (40); **mila** metroko (10); **mila** metrora (10); **mila** metrotik (11); **mila** milioi (130); **mila** milioi dolar (16); **mila** milioi dolarreko (11); **mila** milioi euro (19); **mila** modu (9); **mila** modutan (8); **mila** musu (8)

**mila** oinezko (12); **mila** pertsona (74); **mila** pertsona inguru (13); **mila** pertsonak (8); **mila** pezeta (30); **mila** pezetako (11); **mila** presuna (8); **mila** puska (17); **mila** puskatan (23); **mila** segurik (9); **mila** soldado (9); **mila** soldadu (18); **mila** sorgin (10); **mila** tona (19); **mila** txanpon (14)

**mila** urte (175); **mila** urte igaro (8); **mila** urte lehenago (9); **mila** urteko (29); **mila** urtetik (8); **mila** urtez (14); **mila** zaldizko (12); **mila** zati (10); **mila** zatitan (27); **mila** zortziehun (11); **mila** zortziehun eta (10)

**sei** ehun mila (8); **sei** mila (83); **seiehun** mila (11); **zazpi** mila (67); **zenbait** mila (12); **zonbait** mila (10); **zortzi** mila (71)

**milatan** eta **milatan** (12); **milatan** **madarikatu** (11)

**bi** milatik **gora** (9); **milatik** **gora** (64)

**ehun** milaz **goiti** (9); **milaz** **goiti** (40)

**miletan** eta **miletan** (4); **miletan** **hobe** (3)

## milafrangar *(orobat milafrankar g.er.) izlag/iz* Milafrangakoa, Milafrangari dagokiona; Milafrangako biztanlea.

Jean Saint-Pierre **milafrangar** apezpikuaren agurra.   Herria

Huna beste liburu bat biziki ederra, Severine Berger **milafrangar** gazteak egina: margolariek nola ikusten zuten gure Euskal-Herria hogoigarren mendeko lehen partean.   Herria

Ondotik sailkatu dira Lopez senpertarra, Duhalde **milafrangarra**, Daguerre jatsuarra, Iribarren senpertarra eta Habans larresoroarra.   Herria

**Milafrangar** guztientzat berri ona baitzen, eta guretzat ere bai.   Txillardegí

Dena den, bere su guzia erakutsi du **milafrangarrak** halere, eta bere joko negurtu hura itsasuarrak.   Herria

### milafrankar ik milafrangar.

## milagarren 1 *ord* zerrenda batean aurretik bederatziehun eta laurogeita hemeretzi dituen (1000.).

Mirasia gauzatutakoaen herritarrak erabat liluraturik geratu ziren **milagarren** aldiz.   Jon Arretxe

Jakin nuenez aspaldi eman zuten laurogeita hamar **milagarren** zenbakia Lager honetan.   Urtzi Urrutikoetxea

Agian dotoregia da niretzat Mianeh-ko hotel hau, baina sari moduan eman diot neure buruari, adorea berreskuraturik bizikleta ostera ere hartu eta, atzo baino gutxixeago sufrirituz, bidaiaiko bi **milagarren** kilometroa betetzeagatik.   Jon Arretxe

Antso III.a Nagusiaren **milagarren** urteurrena dela eta.   Berria - Kultura

Hirulaugarren aldia badut tartar berarekin natorrela, eta **milagarrena** banu ere, lepoa parako nuke, ardit baten kasorik egin ezetz inork.   Patziku Perurena

Harrondoko gertakariak **milagarrenekoz** alabatxiari kontatzeko aitzakia bila.   Itxaro Borda

Zainduko ditugu detaileak, eta malbak, etorkizunean, Hiru edo Lau **milagarren** urtean.   Bernardo Atxaga

### 2 milarena.

Kosmoseko objektuen berotasuna erradiazio infragorrian hedatzen da: hau da, 5 eta 100 mikroiren arteko uhin-luzerakoa (mikroia milimetroaren **milagarrena** da).   Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bi milagarren** (5); **milagarren aldiz** (7); **milagarren liskarra** (5); **milagarren urteurrena** (3)

## milagrero *izond*

San Blas, esate bateko, XII. mendeaz geroztik erromes **milagrero** eta behartsu eskazaleen zaindari izan zen.   Patziku Perurena

Izan ere, horrenbesteko tradizioa izan baitu gure santu **milagre**oak ! nork ez du jo harengana?   Pello Zabala

## milagro *iz* miraria.

Zer **milagro**, beraz, jendeak, itxuraz eta axalean ez, baina bihotzaren barnean, Adimantok Platonen testuan dioen gisara, jokatzen badu: [...].   Joxe Azurmendi

Zuk ekin; ondo egiteko, lehenengo txarto egitea ez da **milagro**.   Ana Urkiza

**Milagroa** espero zuten hartan [...], Madrilgo andre bat hurbildu zitzaiela, eta esan ziela: [...].   Alberto Barandiaren

## milagroso *iz* mirarizkoa.

Nora jo behar dugu, orduan, airearen hezedura erlatiboa baxua eta lehorra, birikak garbitu eta sendatzeko tamainako aire **milagroso** hori topatzeko?   Pello Zabala

## milaka 1 *adlag* hainbat milako dituen kopuruetan, kopuru oso handietan. ikehunka.

Hain gutxi izanik, **milaka** ugalduko dira; hain kaxkar izanik, nazio handi bihurtuko.   Elizen arteko biblia

Bakuko portuan, Persiako mugaren ondoan, Abtxerongo penintsulan, itsaso kaspiarren kostaldean, Asia Txikian, Txinan, Yug-Hianen, Birmanian, olio mineralen iturriak

**milaka** sortzen dira lurraren gainazalean.   Karlos Zabala

Iheslariak **milaka** ari omen ziren pilatzen mugako errepideetan.   Alberto Ladron Arana

Ez litzaioke burura etorriko bera haizearen eraginez altxatua izan dela, haizeak beste **milaka** altxatu dituela bera baino lehenago, haren atzetik ere beste **milaka** altxatuko dituen bezala.   Felipe Juaristi

Emigratuak **milaka** Ameriketara.   Joxe Azurmendi

### 2 (artikularik gabeko izen sintagma baten ezkerrean).

**Milaka** gizon eta **milaka** emakume ziren heriotzaren zorroztasunaren lekuko.   Felipe Juaristi

Baina, etsaiari **milaka** gudari hilagatik, ez du luzaroan iraungo agintean.   Elizen arteko biblia

**Milaka** botak lurraren kontra bortizki jotzean ateratako hots izugarria.   Alberto Ladron Arana

Gero, **milaka** lagunek beren botoarekin aukera horren alde egin zutenean, [...].   Bernardo Atxaga

**Milaka** etsaik inguruetan anabatu ere, nik beldurrik ez. Elizen arteko biblia

Bertara iritsita, ordea, berehala ohartu gara **milaka** kilometrotara egindako gure hausnarketetan ez dugula bat ere asmatu. Pako Aristi

Ezpata tximistaka hasi zen eta hegan egin zuen, **milaka** zatitan hautsita. Agustin Otxoa

**Milaka** obusetarik lehendabizikoa izan da. Mirentxu Larrañaga

Ezin dugu jo **milaka** piano-jolek **milaka** aldiz jo izan duten bezala. Alberto Barandiaran

Korrontea segundoko ehunka edo **milaka** zikloko maiztasunean txandakatzen da, soinuaren maiztasun aldakorrera egokitzeko. Irene Aldasoro

Hamar **milaka** zigarroren muturrek erreduraz bete dituzte ertzak. Aingeru Epaltza

Ehunka **milaka** hazi zituzten euliak Morganek eta haren taldeak. Juan Garzia

**Milaka** garrasi isil mutu aditu dut. Mirentxu Larrañaga

Zenbat **milaka** milioi espermatozoide joaten ote dira bainuontziko hodian zehar! Luis Elberdin

**Milaka** tonaz zabor gure egunerokotasun txepetean, informazioaren garai modernoon erakusle. Iñigo Aranbarri

**Milaka** kilo patata zuritzen ari zen. Jesus Mari Mendizabal

Erdi ilunpetan antzemandako upel ikaragarrietan, hantxe atsedenean **milaka** hektolitro ardo beltz arrunt. Jon Muñoz

**Milaka** bider pasatu zara taberna horren aurretik baina sartu inoiz ez. Sonia Gonzalez

### 3 (formalki mugaturiko izen sintagma baten ezkerrean).

Handik **milaka** kilometrora, Parisen, neguko arrats berandu hartan, [...]. Jon Muñoz

Jainkoak gaitzets nazala, esan nion neure buruari, bota nazala infernura eta erre nadila han **milaka** urtean. Oskar Arana

**Milaka** kiloka botatzen den harrizta alferrari atxikiriko metal zilarkara noblezko bi kiloen xarma, ez da oraindik iraungi. Juan Garzia

### 4 (nolabait mugaturiko izen sintagma baten ezkerrean)

**Milaka** urte batzuk lehenago, K. a. 5000 urtean. Pello Salaburu

Batzuen ustez, Jainkoak egin zuen orain dela **milaka** urte batzuk gizakia gaur ezagutzen dugun gisa. Pello Salaburu

Orain dela **milaka** urteak. Juan Garzia

**Milaka** ugarte hauek, historioaren itzuli-mitzuli zaratsuen arabera, Malaysia, Indonesia eta Filipinen artean zatikatuak izan ziren. Ramuntxo Etxeberri

Hiria okupatzen duten **milaka** poliziaekin ibili behar dute kontuz newyorkdarrek. Harkaitz Cano

Egunen batean, **milaka** datilondo haien ikuspegia oroitzapena baino ez zen izango. Xabier Aranburu

Munduak emandako **milaka** gogoetagaien gain nahiz azpitik. Juan Garzia

Gizakietan **milaka** askok ez baitute egokierarik horretarako. Joan Mari Lekuona

### 5 (izen gisa)

Zaila da errublo **milaka** batzuk biltzea makur jokatu gabe, baina milioiak erraz irabazten dira. Jose Morales

Feofar Khan eta Ivan Ogareff, zaldizko **milaka** batzuen buru jarririk, hiri aldera abiatuak zirela jakin zuen. Karlos Zabala

Gizon **milaka** batzuk atzetik zituela. Karlos Zabala

Aurrerago, *karaoi* izeneko denda turkoman **milaka** batzuk hedatzen ziren ordokian. Karlos Zabala

**Milaka** batzuk besterik ez ziren bizi han orduan. Xabier Olarra

**Milaka** batzuk saldu ditut zenbait titulutatik, irakaskuntzan erabiltzeko aproposak zirenean. Xabier Mendiguren Elizegi

Gu lehenengoetakoak izan ginen iristen baina trenak **milaka** batzuk gehiago ekarri zituen atzetik. Jon Maia

### 6 ehun milaka ipar

Juduekin batean heriotzerako ber bideetatik igorriak izan ziren, **ehun milaka**, Hitler-en gustukoak ez ziren guziak, hori aski baitzen, gustukoa ez izaita, haren ideiekin ez ados izaita. Michel Oronoz

Ikusiz **ehun milaka** direla oraino Euskal Herritik kanporatu euskal jende hoiak eta hoiendokoak, [...]. Herria

**Ehun milaka** bildu dira manifestatzaileak erakusteko ez dutela batere onartu gogo Xinak heien gainerat luzatzen duen aztaparra. Herria

### 7 (artikularik gabeko izen sintagma baten ezkerrean).

Hitler-ek eta haren lagunek **ehun milaka** jende hil dituzte iduriz bederen arranguririk batere gabe, juduak edo gitanoak edo homosexualak, elbarrituak eta kontrakoak zirenez geroz! Herria

Ustegabekoa izan zuten tropen lurreratze hori alemanek, uste ez zuten lekuan, noiz-eta **ehun milaka** soldado sartu baitziren Europarat Amerikatik, mila eta milaka aireko, itsasuntzi eta parekaida baliatuz. Herria

Dachau-ko kontzentrazio zelaian sartzen dira, Alemaniako bortitzenetarik bat, hor, **ehun milaka** deserrituk zernahi pairatu behar izan dute. Michel Oronoz

### 8 mila eta milaka (9 agerraldi, 5 liburu eta 3 artikulutan) milaka eta milaka.

Orduan arbolen erroak libratzen dira, hostoak hasten dira xafila-xafila, xori hegaltzi tipu batzu bezala, **mila eta milaka**, zurrumurru ezti batean. Michel Oronoz

Kale bete-betean **mila eta milaka** bizikleta dabilta, motor asko eta automobil gutxi. Gotzon Garate

Eta ez da horkoan geldit: artzain xakurren bestak norik ez ditu ikusiak, **mila eta milaka** ikusleren aintzinean, Euskal Herri hunen alde batean ala bestean! Herria

**Mila eta milaka** urtetan halaxe izan dira. Patziku Perurena

### 9 milaka eta milaka (174 agerraldi, 60 liburu eta 77 artikulutan)

Jendetza izugarria zuen zerbitzari, **milaka eta milaka** zeuden haren aurrean zutik. Elizen arteko biblia

**Milaka eta milaka** bildu dira laborariak hiri askotan eta milaz goiti Pauen. Herria

-Gutako **milaka eta milaka** hil zituzten gure herrietan, gutako **milaka eta milaka** erbestera eraman, gutako **milaka eta milaka** Alepon eta Der-es-Zer bezalako esparruetan itxi, hil zitezten. Felipe Juaristi

**Milaka eta milaka** ibili da jendea Ondarretatik Donostiako udaletxeraino Egunkariaren alde eta euskararen alde zela erakutsiz Madrilgo gobernuari. Herria

**Milaka eta milaka** ibili da hemen Europako jendea. Piarres Aintziart

### 10 (artikularik gabeko izen sintagma baten ezkerrean).

Guri begira daude une honetan **milaka eta milaka** arma nuklear, une batean lurra desegin dezaketanak. Pello Salaburu

**Milaka eta milaka** arratoi daude tenplu horretan. Gotzon Garate

Iparaldeko mendietatik zetozen asiriarrak, **milaka eta milaka** gudararekin. Elizen arteko biblia

Han zeuden, **milaka eta milaka** urtetan dir-dir eginez, gizakiari munduaren iraunkortasunaz mintzo. Pako Aristi

Tira, ez gara **milaka eta milaka** urtez ariko horren inguruan jirabiraka. Jon Muñoz

Orduan **milaka eta milaka** gizon-emakume itsasoz abiatu baitziren oso ontxi hauskorretan, batzuetan elkarri lotutako pneumatiko soiletan, Floridako hondartzetatik bereizten zituen tarte txikia egin eta Estatu Batuetara, Lur Agindura, iristeko. Jon Muñoz

### 11 milaka milioi

**Milaka milioi** gastatzen ditugu armetan eta armadak eta politikari ustel eta ezgauzak mantentzen. Luis Elberdin

Ustelkeriak **milaka milioi** dolar xahutzen zizkion herriari. Pako Aristi

Ahalegindu nintzen gogora ekartzen, haietakoren bat identifikatzen **milaka milioi** izarren artean, baina huts egin nuen. Mirentxu Larrañaga

ADN da, hain zuzen ere, geneak biltzen dituen molekula luze bat eta barruan ditu **milaka milioi** (3.000 batzuen ustez, 7.000 beste batzuen ustez) letra kimiko. Pello Salaburu

Tentela behar du izan gizonak [...] uste izateko **milaka milioi** unibertso horiek gizona, zomorru burugabe hori, josta dadin eta harririk gera dadin baizik ez dihardutela jiraka

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**duela milaka urte** (5); **ehun milaka** (18); **ehunka edo milaka** (7); **ehunka eta milaka** (9); **ehunka milaka** (6); **hamar milaka** (11); **mila eta milaka** (10)

**milaka agiri** (6); **milaka aldiz** (13); **milaka ale** (5); **milaka animalia** (5); **milaka aurpegi** (6); **milaka batzuk** (24); **milaka begi** (5); **milaka bider** (6); **milaka bildu** (7); **milaka boto** (7); **milaka dira** (26)

**milaka emakume** (18); **milaka eta milaka** (212); **milaka etxe** (5); **milaka etxebizitza** (5); **milaka euro** (5); **milaka euskal herritar** (14); **milaka euskal herritarrek** (7); **milaka euskal herritarren** (7); **milaka euskaldun** (5); **milaka galdera** (5); **milaka gauza** (7); **milaka gazte** (14); **milaka gaztek** (9); **milaka gizon** (21); **milaka haur** (11); **milaka haurrek** (5); **milaka hegazti** (11); **milaka hegazti hil** (7); **milaka herritar** (69); **milaka herritar atera** (6); **milaka herritar bildu** (6); **milaka herritarrek** (56); **milaka herritarren** (31); **milaka herritarren eskubide** (5); **milaka hil** (11); **milaka hildako** (11)

**milaka ikasle** (5); **milaka izan** (9); **milaka izpi** (5); **milaka jarraitzaile** (8); **milaka jende** (22); **milaka jende** (5); **milaka kilometro** (17); **milaka kilometrorra** (21); **milaka kilometrotara** (13); **milaka lagun** (143); **milaka lagun atera** (6); **milaka lagun bildu** (29); **milaka lagun elkartu** (6); **milaka lagun hil** (9); **milaka lagunei** (8); **milaka lagunek** (93); **milaka lagunek egin** (6); **milaka lagunek parte** (10); **milaka lagun** (20); **milaka langile** (16); **milaka langilek** (7); **milaka lanpostu** (10); **milaka liburu** (6); **milaka litro** (6); **milaka manifestari** (9); **milaka manifestarik** (5); **milaka milioi** (42); **milaka milioi dolar** (12); **milaka milioi euro** (6); **milaka musulman** (5); **milaka nafarren** (5)

**milaka orratz** (5); **milaka palestinar** (15); **milaka palestinarrek** (9); **milaka pertsona** (98); **milaka pertsona atera** (5); **milaka pertsona bildu** (14); **milaka pertsona hil** (13); **milaka pertsonak** (25); **milaka pertsonaren** (12); **milaka pertsonen** (5); **milaka soldadu** (16); **milaka tona** (9)

**milaka ume** (5); **milaka urte** (45); **milaka urtean** (8); **milaka urteetan** (6); **milaka urteko** (10); **milaka urtetan** (10); **milaka urtez** (5); **milaka xiita** (6); **milaka zale** (5); **milaka zauritu** (7); **milaka ziren** (9)

**zenbat milaka** (5)

## milakagarren *iz* ik milaren.

Gai honi zabal eta sakon begiratu behar zaio eta alde guztiak ondo aztertu; gogoratu behar duzu gauzadia amaigabea dela eta konturatu ortzia izadi osoaren zatitxo bat, guztiaren **milakagarrena** besterik ez dela, gizaki bakarra lur osoarentzat baino gutxiago. Xabier Amuriza

## milako 1 *iz* milak osaturiko zera; mila bateko edo banako dituen multzoa.

Izaldurarekin, zangopilatuak, urera joan direnak, orotara **milako** bat hil. Herria

Oroit gisa hortako manifestaldi batek, duela ez hain aspaldi, egin zituela sei hil eta **milako** bat kolpatu. Herria

**Milako** baten beharrean nengoen! oso mugaz heldu zara! Matías Mujika

Hor hasi zirenak **milako** bat izan ziren; 1944an 35 bakarrik ziren oraino bizi. Marzel Etxehandi

Tenore batez ez zirena **milako** bat eta erdi gazte gure mendialdeko herrietatik eskapatu Iparraldera? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

### 2 (zenbatzaile baten eskuinean)

Bi **milako** bat izan dira bozkatu dutenak. Herria

Hamar mila laguneko goiti Bordelen, hiru **milako** bat Pauen, mila edo gehiago, bi andanetan, Baionan, bost ehun bat Donibane Lohizunen... Herria

Adin eta egoera guzietako lau **milako** bat jende deportatu zituzten, nehork ez zekien nora. Elena Touyarou

Euskal Herritik 5 **milako** bat kilometrotarat, xutik dago Kebek eta Kanadako pilota leku bakarra. Herria

### 3 milurtekoa.

Hirugarren **milakoa** hasia da, eta nik eta zuek, ez dugu errota hau geldiaraziko; beraz, egon gaiten lasai eta zintzo, herriko bakeari hausturik eman gabe Herria

### 4 mila pezeta, euro edo liberakoa.

Beheko kaxoian aurkitu zituen hogeita bost mila pezeta, bost **milakotan** azuen, izan, zigarroak pagatzeko aski diru xehe; ordea ez zekien ongi nola moldatu hain modu miragarrian karteran aurkitutako **milakoa** kanbiatzeko. Unai Iturriaga

## milandar *izlag/iz* Milangoa, Milani dagokiona; Milango biztanlea.

Bitxi begitandu zitzaidan, are barregarri xehebre, halako **milandar** azentu bortitzez adieraziriko helvetiartasun hura. Juan Garzia

**Milandar** kapelu beltza buruan; zuri-zuria bizarra, gerritik behera. Patxi Ezkiaga

Egoeraz mintzatzeari lotu zitzaizkion berriro, eta berriro irakurri eta iruzkindu zituzten egunkari **milandarreko** artikulua. Koldo Biguri

Cesare Beccaria **milandarraren** *Dei delitti e delle pene* 1764an argitaratu zen Livorno-n. Juan Martin Elexpuru

**Milandarren** gaua. Berria - Kirola

## milanotar *izlag/iz* milandarra.

Agur esan eta alde egin zuen, Peppone eta alderdikideak arrautza **milanotarraren** berri kontatzen zuen ebakina horma-egunkarian jostera zihoazen bitartean. Koldo Biguri

## milanzale *izond* Milan futbol taldearen zalea.

Ni **Milanzalea** naiz eta gustura ikusiko nuke partidua -azaldu zuen M-k. Bernardo Atxaga

## milaren 1 *iz* kopuru bat banatzen den mila zati berdinetakoko bakoitza.

Demagun munduan artikuluo edo salerosgai bakar bat besterik ez dela, edo bakar bat erosten dela, eta dirua bezala zatitzen dela; salerosgai horren parte hori diru-masaren parte bati egokituko zaio; bataren totalaren erdia, bestearen totalaren erdiari; bataren hamarrena, ehunena, **milarena**, bestearen hamarren, ehunen, **milarenari**. Iñaki Iñurrieta

Hazbete baten **milarena** baino diametro txikiagoa dute beira-zuntz finek. Irene Aldasoro

Lubrikazioak emaitza oso onak ematen baititu, baita olio-geruza milimetro baten **milarena** baino ez denean ere. Irene Aldasoro

Bulkada bakoitzaren ondoren, nerbioa desaktibaturik geratzen da segundo baten **milaren** batean, eta denbora horretan ez dio beste ezein estimuluri erantzuten. Irene Aldasoro

Schumacher eta Barrichello pare pare ziren helmugan, baina **milaren** batzuen aldeaz denbora monitorea Schumacher jarri zuten buru. Berria - Kirola

**Milarenetan** aukeratu nahi baduzue, 56 **milaren**. Berria - Kirola

### 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Milisegundo batzuen muga onargarriaren barruan gertatzen bada erantzun hori, milimetro **milaren** batzuetara izango da eraginkorra difusioa, baina ez harago. Irene Aldasoro

Eskerrak, tiroa jaurti eta segundo **milaren** bat lehenago lurrera bota nuen neure burua. Iban Zaldua

Lurraren ardatzaren inklinazioa segundo **milaren** bat aldatu eta, hartara, hiru mikrosegundo azkarrago mugitzen da orain planeta. Berria - Harian

"Galtzen" den denbora horretatik gehiena erretinan galtzen dela frogatu ahal izan da (150 segundo **milaren** horietatik 100, segundo hamarren bat; nabarmentzeko denbora,



zinez). [Josu Zabaleta](#)

### 3 **ehun-milaren** kopuru bat banatzen den ehun mila zati berdinetakoko bakoitza.

Ikusten al dugu existitzen diren gauzen ehun **milarena** ere? [Josu Zabaleta](#)

### 4 **hamar-milaren** kopuru bat banatzen den hamar mila zati berdinetakoko bakoitza.

Normalean, gehigarri moduan erabilitako partikulen tamaina 10-300 mikren inguruan ibiltzen da (metroaren hamar **milarena** gutxi gorabehera). [Berria - Gaiak](#)

milaurte ik **milurte**.

milaurtealdi ik **milurtealdi**.

milaurteko ik **milurteko**.

## **milenario** 1 *izond* mila urte dituena.

Tradizio **milenario** baten arabera, eta Erromanoen garaia aitzin, harri bat botatzen zuen hemen ibiltariak eta erromesek jestu berei darraizkie gaur. [Piarres Aintziart](#)

### 2 *iz* milurtekoa.

Horrela elgarrekin zabaltzen dugu Kristorekin **milenario** berria. [Herria](#)

## **milenio** *iz* milurtekoa.

Aurreko **milenioan** idatzia. [Iñaki Segurola](#)

K.a.ko zortzigarren **mileniotik** laugarrenera bitarteko aldian. [Patziku Perurena](#)

**Milenoioaren** hasiera hau arrakastatsua, oparoa eta zorionsua izan da guretzat. [Joseba Sarrionandia](#)

## **milesima** 1 *iz* milarena.

Rossi baino 392 **milesima** geroago iritsi zen Max Biaggi, bigarren postuan. [Berria - Kirola](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Eternalak egin zaizkidan segundo **milesimetan** begiak ireki ditu, zabal-zabalik uzteraino, ikusten dutena guztiz harrigarria balitz bezala. [Iban Zaldua](#)

## **milesker** (*423 agerraldi, 30 liburu eta 253 artikulutan –denak Herriakoak–*) 1 mila esker.

**Milesker** erraiten diot bai, zinez, goxatuko naizela ni... eta jadanik goxatua, jakinik basajauna iduri zuen horrek bihotz ona zuela. [Marzel Etxehandi](#)

-Biziki ontsa, **milesker**. [Menane Oxandabaratx](#)

-Ez, **milesker**. [Xabier Paya](#)

**Milesker** honarat etorririk eta ikus arte. [Menane Oxandabaratx](#)

- **Milesker** zuri, eta **milesker** Irulegiko Irratiari ni gonbitaturik. [Menane Oxandabaratx](#)

- **Milesker**, Magali, horiek denak hola erranik. [Janbattitt Dirassar](#)

-**Milesker**, Agatha, zure laguntzarengatik -agurtu zuen Michel apezak, bere lagunaren jokamolde zakarrak doi bat ahalketurik. [Elena Touyrou](#)

-Bihotz bihotzetik **milesker** ! -eskertu zuen Mikelek. [Ramuntxo Etxeberri](#)

- **Milesker**, baina laster ilunduko du eta, badakizu, gau eskolan klaseak emaiten ditut. [Eneko Bidegain](#)

### 2 *iz ipar*

**Milesker** bat zor dautzut Emile adixkide. [Herria](#)

**Milesker** bero bat guziera Herriaren eta Denek Bat batasunaren izenean. [Herria](#)

Adixkideak, **milesker** beroenak egiten duzuen lan miresgarriarentzat. [Herria](#)

**Milesker** bero bero bat utzi dauzkiguzun harri xurientzat eta ez ahantz agurtzea, gain horietan, zonbeit egun lehenago pausatu den zure osaba Mixel. [Herria](#)

**Milesker** handi bat egun goxo horren antolatzen lagundu gaituzten guziera. [Herria](#)

**Milesker** handi bat Elhuyar kolegioari. [Herria](#)

**Milesker haundi** bat, ohidurak segitzen du aintzina [Herria](#)

### 3 **milesker anitz**

-**Milesker anitz**, Gaueko, milesker. [Michel Oronoz](#)

Baina ikusten nuen zaintzaileek begiak sutan zituztela, eta ene baitan izorra zizte! pentsatzen nuelarik, **milesker anitz** ! erraiten nien ene irri faltasuenarekin, ongi erakutsiz zerbitzari onak zirela. [Filipe Bidart](#)

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aintzinetik **milesker** (20); aintzinetik **milesker handi** (5); **beraz milesker** (3); **bihotzez milesker** (3); **guziera milesker** (6); **milesker aintzinetik** (10); **milesker anitz** (3); **milesker bat** (3); **milesker beraz** (6); **milesker bero bat** (4); **milesker deneri** (14); **milesker egin** (3); **milesker guziera** (8); **milesker handi bat** (24); **milesker haundi** (14); **milesker haundi bat** (14); **milesker herriko** (6); **milesker jaun** (3); **milesker zuei** (5); **milesker zuri** (7); **oraino milesker** (3)

mileurteko ik **milurteko**.

## **mili** *izond* ETA erakundeko adar militarreko kidea.

Bai, bazituan beste talde eta erakunde armatu zenbait orduan Euskal Herrian -**miliak**, polimiliak, autonomoak -baina okertzat jotzen genian haien iharduna. [Xabier Montoia](#)

## milia 1 iz zenbait bide neurri zaharren izena.

Osgiliath pasa eta bost **milia** harantzago gelditu ziren, lehenengo ibilaldi-egunari amaiera emanaz. **Agustin Otsoa**

**Milia** batzuk ipar-ekialdera, Errauts Mendien inguruko mendiak goititzen ziren. **Agustin Otsoa**

Orbietoko hirian, Erromatik hirurogeita hamar **miliatan**, domingotar fraideen komentuan hetsirik bizitzera. **Piarres Xarriton**

Borgotik **milia** batera edo zegoen legendunen etxe batera iritsi zen. **Askoren artean**

Dorretik gertuen dagoen zubitik hogei bat **miliara** besterik ez zituan. **Agustin Otsoa**

Itsaslastera gogorrean dagoenean, eta ekaitz batek areagotzen badu lasterraren indarra, arrakatsua izaten da norvegiar **milia** bat baino barrurago sartzea. **Koro Navarro**

## 2 ingeles luzera neurria, 1609,3 m-ren baliokidea.

Orduko 23 **miliako** abiadura egin ditzake ehun yarda. atmosferatik kanpo jarriko lukete, Lurretik 62.000 **miliatara** (100.000 kilometro inguru). **Irene Aldasoro**

Oraintxe bertan igaro dugu autobide ondoko idazkuna: 27 **milia** hemendik Las Vegasera. **Javi Cillero**

Ehun **milia** zeuden haraino, eta bidean egin genituen bi ordu osoak lo eman zituen. **Oskar Arana**

Eguzki distiratsu hau, auto hauek guztiak, orduko hirurogei eta hirurogeita hamar **milia** orduko abiadan joate hau. **Oskar Arana**

Palenquetik plantaziorainoko ibilbidea, airez zuzenean neurturik, eta luze jota, hirurogeita hamar bat **miliakoa**-edo izango zen, hots, ibilgailuz joanez gero, ehunen bat **milia**. **Joxe Austin Arrieta**

## 3 itsas milia.

Ziburuko barratik **milia** erdi aitzina urrunduak zeuden bafore biak, azken tutua entzun nuela esanen nuke. **Koldo Izagirre**

Hamar **milia** barneratuko ziren itsasoan. **Koldo Izagirre**

Antxetek **milia** asko egiten baitute itsasoan aitzina gure uberan. **Koldo Izagirre**

Floridako itsasertzetik 90 **miliara** hortxe-hortxe. **Edorta Jimenez**

38.000 **itsas milia** nabigatu ostean, itsasoan lau urtez noragabean ibili eta gero. **Patxi Zubizarreta**

## 4 (hitz elkartuetan)

Zutabea **milia**-laurden eskasera zegoen. **Agustin Otsoa**

## 5 itsas milia (orobat itsaso milia g.er.) itsasketan erabiltzen luzera neurria, 1852 m-ren baliokidea.

38.000 **itsas milia** nabigatu ostean, itsasoan lau urtez noragabean ibili eta gero. **Patxi Zubizarreta**

1.450 **itsas milia** (2.687 kilometro) egin dituzte hirugarren etapan, munduari bira ematen ari diren ontziek. **Berria - Harian**

12: 00etan izango da proba, eta hiru **itsas milia** egin beharko dituzte parte-hartzaileek, hiru ziaboga eta lau luzetara. **Berria - Kirola**

Infinituari buruzko irudi bat izateko aski dela **itsaso milia** bat. **Bernardo Atxaga**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**hiru itsas milia** (4); **itsas milia** (14); **milia batera** (11); **milia batzuetara** (3); **milia egin** (7); **milia erdi** (6); **milia erdi batera** (3); **milia erdira** (5); **milia harantzago** (3); **milia laurden** (3); **milia orduko** (3); **milia urrundu** (3)

**itsas miliara** (4)

**portutik hogei miliatara** (3)

## miliar iz mila milioi.

Sei **miliar** bat bizi gira orai lür osoan. **Herria**

Bibliako lau **miliar** ahari arkarak merkatuan sartu ziren. **Itxaro Borda**

Diruaren aldetik hamabi **miliar** euro emanen ere dituela bost urte barne proposamen horien gauzatzeko gisan... **Herria**

Heren eta laurden munduari Iparreko aberatsek emaiten diete urtero 55 **miliar** dolar. **Herria**

Frantziaren deficit publikoa 65,06 **miliar** eurora iritsi zen iragan azaroan. **Berria - Ekonomia**

Adibidez, datorren urteko aurrekontuetan Frantziak sortzen du 55 **miliar** euroren mentsa. **Herria**

Horiek erakutsi behar digute omen gure lur hau nola hasi zen zerbait berri, duela 3,8 **miliar** urte. **Herria**

Jazko aurrekontuetan zen 57 **miliarreko** ziloa 44 etara jin da. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bi miliar euro** (5); **miliar bat dolar** (3); **miliar bat euro** (4); **miliar dolar** (21); **miliar eta erdi** (3); **miliar euro** (26); **miliar euroko** (5); **miliar eurokoa** (3); **miliar euroren** (7); **miliar jende** (3); **miliar libera** (3)

## miliardo iz miliarra.

Gaur egun arte ehun **miliardo** saldu omen dira mundu osoan, hau da, 100.000.000.000 Bic Cristal. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## miliardun izond oso aberatsa.

691 **miliardun** munduan gaur. **Herria**

**Miliardunen** lehena Bill Gates dugu, Microsoft informatika markaren burua, 46 miliar eta erdi deklaratu ditu, kasik iazko xifre bera. **Herria**

Martha Stewart anderea **miliardunen** zerrendan sartu da, hain zuzen bost hilabete itzalean egon eta presondegitik atera den egunean. **Herria**

New York da hiri **miliardunena**, 34 aterbetzen ditu, Moskuk eta San Franciscok hogeina dute **Herria**

## miliarka adlag miliarra neurri hartuz.

Euroak **miliarka** xahutuz! **Herria**

Bai, **miliarka** ateratzen dira kondu horiek eta ez miliunka! **Herria**

Rugbilarienkopa horrek ere badu behari mundu guziko 20 ekipen artean, **miliarka** behari baditakeelarik telebixtako so-egileen artean berean. **Herria**

Harrigarri ere da, artetik erraiteko, holako kasu batzuetan euroak zoin aise kondatzen diren... **miliarka**! **Herria**

## miliarkoiztu, miliarkoiztu/miliarkoiztu, miliarkoizten da ad miliar bat aldiz handiago bihurtu.

Ezin duk gehiago; ihes egiten duk, arreta galdu duk, heure buruari esaten diok Bizantzio dela hori, heure dirua hirukoizten ari dela; laukoiztu, hamarkoiztu, ehunkoiztu, milioikoiztu, **miliarkoiztu** egingo dela; heure arreatxoa gogoan hartu, eta hari emango diok irabazitakoaren erdia; bost axola zaik, hurrengo unean kopuru hori halako bi irabaziko baituk. **Jon Muñoz**

**milibare** *iz* eguratseko presio neurria, barraren milarena dena.

Barometroari begiratu, eta 902 **milibaretako** inguru horretan ageri zitaizgun Arantzazun. **Pello Zabala**  
Santander hirian, 1941ean, inoiz ez bezalako depresioguna, 950 **milibaretakoa** etorri zen parera. **Pello Zabala**

**miligramo** *iz* gramo milarena.

Irazpaper puska batekin kontuz-kontuz biltzen nuen osatuz zihoan gordailura, aldiko **miligramo** bat edo. **Juan Garzia**  
Hamalau hamabost **miligramo** kalkulatu beharko duzu, eta urarekin edo esnearekin nahastu. **Joseba Sarrionandia**  
Lege berriarekin, 500 **miligramo** kokaina eduki ahalko dira Mexikon legea hautsi gabe. **Berria - Gaiak**  
Hatzen artetik, **miligramo** hauts guti batzuk limurtu zitaizkion behar baino lehenago, madarikazio eztanda bat sorraraziz. **Aingeru Epaltza**  
Itsaskietarako kiloko 200 **miligramo** kutsadura onartzen da eta kopuru hori ez da inondik inora gainditu. **Berria - Euskal Herria**  
Araudi horren arabera, litroko gehienez 10 **miligramo** sufre eduki dezakete autoetarako erregaiek. **Berria - Gaiak**  
Hau da, 50 **miligramoko** pilula bat eguneko **Berria - Gaiak**

**milika**<sup>1</sup> *izond* gogortasun txikienak minberatzen duena edo eragozten diona. **ikgupera; mizkin**<sup>1</sup>.

Xexu mutu bat ume **milikak** erantzuntzat. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Ez zion ihes egin esklabotzari -seme **milika** batek erosi zuen eta eraman zuten Ohio ibaira gurdian-, askatasunaren paperak bular artean tolestuta zituela. **Anton Garikano**  
Peter inork ez du hartzen seriotan, erabat **milika** eta alferra baita. **Josu Zabaleta**  
Edozer gauzogatik negarrez ari da, **milika** bat, itxura baizik ez dena. **Josu Zabaleta**

**2 irud/hed**

Ezin al duzu bertan behera utzi sentiberatasun **milika** hori? **Mirentxu Larrañaga**

**milika**<sup>2</sup> *iz* milikatzea.

Ez nuen gogo izpirik neure azpi arteen egoista itsusi baten eraso eta **milikei** eskaintzeko. **Itxaro Borda**

**2 adlag** milikatzen.

Kikaran bi euli daude azukre hondarretan **milika**. **Alberto Barandiaren**

**3 milikan** milikatzen.

Hona non bi otso-zakur oineri **milikan** ari zaizkidan; hasi orduko utzi dute beren lana, izitzeko denborarik ere ez dut izan. **Piarres Aintziart**  
Beti errexagoa da boteretsuenaren jarraitzea, hari ipurdi **milikan** aritzea... kontzientziarik ez delarik. **Eneko Bidegain**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**ipurdi milikan** (3)

**milikagarri** *izond* milikatzea merezi duena.

Zartaginetik olioan gorritzen ari ziren lur sagar xerra haien usain koipetsu gero eta **milikagarriagoa** sudur xiloetatik barrera sartzen zitzaien Joanes eta lagunei. **Eneko Bidegain**

**milikaka** *adlag* milikatzen.

Halaber **milikaka** lotu zaitzu; halaber, ume egilea da. **Herria**

**milikaño** *iz adkor* milika.

Ezpain xokoa baino barnago hurbiltzera uzten ez duen pott itxurako ihizi **milikaño** horrek, afal ondoan bortxaz edan duen patxaran haren goiti botatzeko gogoia emaiten dio Sophie-ri. **Eneko Bidegain**

**milikari** *1 izond* milikatzen duena. ik **milikatzaille**.

Ez zegoen etxeko-lanik itzaliko zuenik itxuraz beti barruan piztuta zeukan su **milikaria**. **Anton Garikano**  
Euri ondorengo oihan zola bezain mardoa zen ahoa, ene aluan **milikari**. **Itxaro Borda**

**2 iz** milikatzen duen pertsona.

Zer jan eta edaten dute, bada, **milikari** horiek, ardoa zer den ere ez baitakite, vitamina-irensle, te hotz-edale eta kotoi-murtzikatzaile horiek, ogia zer den ere ez baitakite. **Joxe Austin Arrieta**  
Zuzendariaren gelatik irtereterakoan, Jon Ozamizek eta Lurdes Arrondok, ipurtzulo **milikari** haiek, begiratu gaiztoa egin zioten. **Gotzon Garate**

**milikatu**, milika, milikatzen (**94 agerraldi, 45 liburu eta 4 artikulutan**) **1 du ad** mihia igaro zerbaiten gaineratik. ik **miazkatu**.

Izozkia **milikatuz** ibili ginen uhartean barrera, hango jatetxe ttipi eta denda dotoreei begira. **Patxi Zubizarreta**  
Odola eta elurra nahasian, mihiaz **milikatzen** hasi naiz. **Harkaitz Cano**  
Batzuek, ura xortaka darion bagoiaren burdinaria **milikatzen** dute. **Marzel Etxehandi**  
Pikuak eta sagarra **milikatzen** eta jaten hasi zen, astiro, presarik gabe, Adanek fruitu debekatua dastatu zuen lehen aldia bailitzan. **Patxi Zubizarreta**  
Orduantxe neskatoa ezpainak **milikatzen** hasi zen, eta ez zen geratu ongi hezetu zituen arte. **Ibon Uribarri**  
Bi ogitarteko jan, maionesak estali eskuak **milikatu** eta hasi zen galderei erantzuten Frears jauna. **Berria - Kultura**  
Utzidazu zure mihia **milikatzen**. Belarriak **milikatzen** zizkidan bitartean, nire eskuak bere sexura eta hurrena ipurdira eraman dizkit. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Hitzik ere esan gabe, txakurka jarri eta osabari zakila **milikatzen** hasi zen. **Aitor Arana**  
Gelari so geratu zen, axolagabe, apurtutako azkazal bat **milikatzen** zuen bitartean. **Lopez de Arana**

Buruu makurtu eta uzkia **milikatzen** hasi zitzaidan. Aitor Arana

Orduan ikusi nuen bildots sortu berriaren **milikatzen** ari zela. Daniel Landart

## 2 irud/hed

Jimmyren azpian, urak piloteak eztki **milikatzen** zituen. Lopez de Arana

GORPua su-lamadek emeki-emeki **milikatzen** duten bitartean. Gotzon Garate

Pausa labor bat egin zuen, gaztea begirakuneaz **milikatzeko**, eta jarraian, ezpain erorietan irribarra agertuz, gaineratu zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Halere Unanue eta Belokik eztia ezpainetan zuten bainan ezin **milikatu** azken ponduaren faltan. Herria

Banuen bertze lanik, gure makilatzailearen esku pozoitsua **milikatzer**a beheratu gabe. Aingeru Epaltza

Higuindu zuen boterea arras gustukoa zitzaion orain, eta nola boterea boteretik heldu baita, boterearen ipurdiziloaren **milikatzen** ari zen.Telefono kabina baten alboan, antilope bat Mary Landforden bihotz zauritua **milikatzen** ari da. Michel Oronoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**ezpainak milikatzen** (4)

## milikatzaille *iz* milikatzen duen pertsona. ik milikari.

Haiendako alabaina "zerri higanotak" edo "deabru heretikoak" ginen gu; "ostia-**milikatzailleak**" edo "suge papistak", berriz, haiek guretako. Aingeru Epaltza

## milikatze *iz* mihia igarotzea zerbaiten gainetik.

Gazteek anitz sofritzen dute hortarik, eta sorjeskerietara lerratzen dira lur-sagar xurikin jate, kontserbuko boata huts **milikatze**, bidean isuri salda ondarkin biltze. Marzel Etxehandi

## milikeria *iz* milikari dagokion jarrera edo egitea. ik mizkinkeria.

Bazen gomazko zunda bat eta zurezko ardatz bat, zeharka zulo bat zuena: animaliaren hortzen artean bortxaz finkatu behar da, eta gero, zuloan barrena, zunda zintzurrean ondo sartu, **milikeriarik** gabe, urdailaren hondoa ukitzen duela sentitzeraino bultzatuz. Juan Garzia

Bihotzean sentitu bezala esaten nuen, gizon batek ez nau bero jartzen nik egiten dudan guztia edo gehiago egiten ez badu, utikan **milikeria**, bizitza laborra da. Karlos Zabala

Emakume sentitu nintzen, gozatua sentitu nintzen, harro nengoen zulatua izan nintzelako nire odolaren tanta batzuen erdian, **milikeriarik** gabe, benetako emea benetako arrak inauguratu behar duen gisan. Karlos Zabala

-Iruditzen zaidak aktorea bera dela halakoa, frantsesen **milikeria** guztiak ditik, muturtxoa okertzeko modu hori... ezin diat irentsi. Iñaki Iñurrieta

Punch gehiagoko zerbait behar diagu, inmediateagoa den zerbait, Elioten mundu poetikoko **milikerietan** geratu gabe. Iñaki Iñurrieta

-Soinua ez zegoen gaizki; irudiak falta, ordea -esan zuen **milikeriaz** Léak-. Jon Muñoz

## mililitro 1 *iz* litroaren milarena.

80 **mililitro** gernu eman behar izan zituzten analisiak egin ahal izateko. Berria - Kirola

Odola ateratzeko tratamendu erraz baten bidez aldiro 500 **mililitro** odol ateraz gaixo horren bizi-itxaropena pertsona osasuntsu baten bestekoa izan daiteke. Berria - Gaiak

Nire gorputzak onartu ez zuen 125 **mililitroko** odol transfusioa egin zidaten Valentzian eta dardarka hasi nintzen. Berria - Kirola

Gernuan **mililitroko** 19 nor-adostreronaren 2 nanogramo baino gehiago agertuz gero. Berria - Kirola

## 2 (hitz elkartuetan)

Erroi itxura zeukan zerbait ere bazegoen paperean, baina koipe **mililitro** batzuk izango ziren seguruenik. Unai Elorriaga

## milimetra ik milimetro.

## milimetriko *izond* oso zehatza.

Erreterian gertatu zitzaizkionak kontatu zituen, emoziorik falta ez zuen zehatzasun **milimetrikoz**. Iban Zaldua

Oreka ezin hobea eta doitasun **milimetrikoa**. Iñaki Mendiguren

Harmonia **milimetrikoa** lortzeko. Jon Alonso

## milimetrikoki *adlag* oso zehatz.

Nik, maitekiro, abesbatzaren trofeoa bere lekura itzuli nuen, oinarria kokatuz, **milimetrikoki**, utzitako hutsunea estaltzen. Iban Zaldua

## milimetro (*orobat milimetra g.er.*) 1 *iz* metroaren milarena.

800 metro luze ziren kableak, eta 62, 5 **milimetro** lodi. Edurne Elizondo

Hogeita bost bat **milimetro** luze ziren, hor nonbait, eta lau edo bost **milimet**rokoa zuten diametroa. Juan Garzia

105 **milimet**roko kanoi bana, 37 **milimet**roko beste kanoitxo bana eta 20 **milimet**roko metrailadore bina dute ontzi gainean. Edorta Jimenez

Gainera Astra baten jabe naiz, bederatzi **milimet**roko sei balaz ondo kargatua. Iban Zaldua

16 **milimet**roko zinema lanean. Berria - Kultura

35 **milimet**rotan gero eta jende gutxiagok filmatzen du. Berria - Kultura

**Milimetro** bat laburragoak zirela besteak baino. Jon Alonso

Behin edo behin haur talde bat joan, eta birarazten saiatu ginen, baina ez genuen **milimetro** bat ere mugiarztea lortu. Juan Kruz Igerabide

Lubrikazioak emaitza oso onak ematen baititu, baita olio-geruza **milimetro** baten milarena baino ez denean ere. Irene Aldasoro

**Milimetro** gutxi batzuetako zuntz haustura txiki bat duela. Berria - Kirola

Nanometro bat **milimetro** baten milioiarena da. Berria - Gaiak

Medikuek bi **milimetro** koadroko zelula zatiak jarri zizkieten begietan. Berria - Gaiak

**Milimetro** kubiko bat odolek 250.000 plaketa inguru ditu normalean.  Irene Aldasoro

## 2 (hitz elkartuetan)

Lupa erabiliz ondo ikusten zen hori-laranja kolorea apur bat mugituta zegoela, txuriari zegokion aldean sartzen zela, **milimetro**-hamarren batzuk, bederen, jaten zizkiola.

 Jon Alonso

Egunean **milimetro** heren bat hazten da gutxi gorabehera ilea.  Irene Aldasoro

Bultzada bakoitzean **milimetro** erdi bajatzen zen.  Unai Elorriaga

## 3 irud/hed

ELAk gogor gaitzetsi zuen ituna, Adegri «apiriletik ez delako **milimetro** bat mugitu».  Berria - Ekonomia

**Milimetro** bat ere ez da egin aurrera Euskal Herriari eragiten dioten arazoan konponbidean.  Berria - Euskal Herria

Horretan ez dago **milimetro** bat amore ematerik.  Joxe Azurmendi

PPk lortu egin du, PSOEek espetxe politika **milimetro** bat ere mugitu ez duenean, Gobernuak amore ematen ari den susmoa zabaltzea.  Berria - Euskal Herria

Zuzenbide Estatuak ez duela «**milimetro** bat bera ere atzera egingo terrorismoaren aurkako borrokan».  Berria - Harian

«Ezker abertzalea bere tesi tradizioaletatik **milimetro** bakar bat ere» ez dela mugitu.  Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**milimetro bakar bat** (3)

**bederatzi milimetroko** (3)

## milimetroka *adlag* milimetroa neurri harturik.

**Milimetroka** eman nahi nituen pauso guztiak, inolako okerrekorik gerta ez zedin.  Hasier Etxeberria

## milimetrotxo *iz adkor* milimetroa.

Ezin naiz zuegandik **milimetrotxo** bakar bat ere urrundu.  Patxi Zubizarreta

## milioi *(orobat miliun g.er., milu g.er. eta miloi g.er.)* 1 iz mila aldiz mila; mila milako. *(zenbatzaile zehaztu batekin).*

Munduak, orduan, 1.625 **milioi** biztanle zituen.  Pello Salaburu

Hamar **milioi** dolarreko porrota.  Lopez de Arana

Venezuelan zazpi **milioi** haur pobrezian bizi da, lau **milioik** ez dute osasuna mantentzeko adina jaten, hiru **milioi** hezkuntza sistematik kanpo daude eta 600.000 etxetik kanpo bizi dira, baztertuta.  Pako Aristi

Minutu batean 2 **milioi** batuketa edo kenketa!  Joxe Austin Arrieta

**Milioi** bat pertsonak, denak batera hizketan jarrita.  Irene Aldasoro

Hemendik **milioi** bat urtera inor ez da gutaz oroituko.  Jon Muñoz

**Milioi** bat eta seihun mila dolarreko aseguru-poliza.  Oskar Arana

Hilero **milioi** bat lagunez handitzen da India.  Gotzon Garate

Liburu horren **milioi** bat ale baino gehiago saldu zituen.  Iñaki Heras

Adituek diotenez, bi **milioi** urteren kontua omen da hori, eta Afrikan gauzatu omen zen miraria.  Joxerra Garzia

Munduan mila **milioi** bat analfabeto omen dago.  Gotzon Garate

Munduko lehen ehun bankuen funtsak, garai berean, 150.000 **milioi** dolar ziren.  Koro Navarro

Itoizko Koordinakundeak 24.000 **milioi** pezetako bermea ordaindu behar zuen.  Edurne Elizondo

600 **milioi** biztanle horiek gauza bakar bat dutela buruan.  Iñaki Heras

Long Island-go psikiatriko batean giltzapean dagoen Albert Fentress-ek **milioi** eta erdi dolarreko auzia ezarri dio Estatuari.  Gotzon Garate

**Milioi** laurden bat etxebizitza hutsik daude.  Berria - Harian

- Ehunka **milioi** libera berri, gutxi jota!  Jon Muñoz

Ahalegindu nintzen gogora ekartzten, haietakoren bat identifikatzen milaka **milioi** izarren artean, baina huts egin nuen.  Mirentxu Larrañaga

## 2 (dagokion izena ezabaturik)

Urte hartan 2 **milioik** erosten zituen produktuak Interneten bidez, 2002 urtean 34 **milioi** ibiliko dira joan-etorrika sarean gauzak erosi nahian.  Pello Salaburu

Sei mila **milioi** bizi gara lur honetan.  Luis Elberdin

Kurduak, hogeit **milioi** baino gehiago izan arren, ez daukate herrialde independienterik.  Jon Arretxe

**Milioi** bat agindu zidatek Martinek eta bere lagun batzuek.  Bernardo Atxaga

Bost **milioi** diru asko da: ez dut beste zuribiderik aurkitzen.  Karlos Linazasoro

Bretton Woodseko erakundeak, 51.000 **milioi** desblokeatzera iritsi ziren guztira.  Koro Navarro

Hiru **milioi** horiekin gauza on eder asko egingo dituzu. On Camillo, ezin dizut errietarik egin.  Koldo Biguri

EBko 25 herrialdeek Txinara egindako esportazioak 19.600 milioi eurotik 41.200 **milioira** igaro dira.  Berria - Ekonomia

- Repsol-YPFK 170 **milioi** gutxiago irabaziko ditu Boliviarengatik  Berria - Ekonomia

## 3 (zenbatzaile zehaztugabeekin)

Lastima vietnamdar eta kanputxearrek ez jakitea haserre hori itxurazkoa zela, bestela ez zen galduko hainbat **milioi** lagunen bizitza.  Xabier Mendiguren Elizegi

Yiddishez idazten zuen Bashevis Singerrek, Poloniatik Errusiara bitarteko zenbait **milioi** judu mintzo zen eta gaur egun [...] Israello estatuaren hebraieratzeari esker ia galdutzat jo litekeen hizkuntzaz.  Berria - Kultura

Hainbeste **milioi** direnez gero, baturik, badute indarrik.  Gotzon Garate

## 4 (asko eta kideko adizlagunekin)

Fisikariak **milioi** asko bereganatu zituen asmakizun honi esker.  Pello Salaburu

**Milioi** asko zor zizkion zerbitzari bat eraman zioten.  Elizen arteko biblia

**Milioi** dexente kobratu zuen dekoratzaile baten lana zela hura dena.  Xabier Mendiguren Elizegi

- Atsegin zuen **milioi askoren** jabearekin bat etortzea.  Jose Morales

## 5 (batzuk-ekin)

Hutsik eta zaindu gabe egon arren etorkizuneari balioko zituela **milioi** batzuk erreal.  Bego Montorio

Han ziren **milioi** batzuk metrailadore kartutxo zintetan, hantxe 500 hegazkin bonba, 20tik 300 kilorakoak, hantxe 200 subfusil moderno.  Edorta Jimenez

Gaur, atzo baino **milioi** batzuk Web orri berri gehiago aurki ditzakezu sarean, Interneten.  Pello Salaburu

- **Milioi** batzuetako isuna (gero *Matesa* indultuak barkatu ziguna)... eta lau hilabeteko zigor-gela.  Jokin Urain

## 6 (zenbatzaierik gabe)

Edalontziak lehortzeko zapiaroketa sikitatu du kopeta, goseti, **milioi** dolarrez beteriko maletaxoa ikusi izan balu bezala. **Eider Rodriguez**  
Zure bidean taupada entzungaitzekin lagun egiten dizu eta zure begirada azkarra **milioi** segundo etengabetan behin baino ez da haren gainean lerratzen. **Eduardo Matauko**

## 7 (hitz elkartuetan)

Baina gehienei, **milioi**-erdi baino gehiagori, kendu egin zizkieten haiek eta haien gurasoek belaunaldiz belaunaldi izandako eta landutako lurrak. **Iñaki Mendiguren**  
Begira, **milioi** erdia besterik ez dik balio honek; Alemania aldean 18 milioiko aparatua zeuzkatek! eta frogatzen zion gizon batek, kutxa bete urre eta Ingalaterrako Bankuan **milioi** pare bat izanagatik, uharte desertu batean ezin zezakeela ezer egin. **Pello Zabala**  
Gainera, **milioi** pila jasoko zenuke hartara astelehen goizean... potrorrik ez baduzu. **Aitor Arana**

## 8 milioiko izlag (zenbatzaile mugatu batekin) milioi pezatako.

Beraz, bost **milioiko** biletea daukat orain poltsikoan. **Edorta Jimenez**  
-1972an, Valentzia eta Murtzia aldean, harriak 750 **milioiko** kalteak egin omen zituen. **Pello Zabala**  
Zergak, soldadak eta proiektuak gehituta ateratzen da 77 **milioiko** kopurua. **Berria - Kultura**  
Milaka **milioiko** bermea. **Edurne Elizondo**  
Negozio kopurua, guztira, 11.000 mila milioi dolarrekoa zen (munduko ondasun eta zerbitzuen merkataritzarena 7.000 mila **milioikoa** zen urte horretan). **Koro Navarro**

## 9 milioiren izlag (zenbatzaile mugatu batekin) milioi euroren.

Banku batek Maitane Larruskain emakumeari bost **milioiren** zorra atzera pagatzeko esaten zion. **Gotzon Garate**  
Bestalde, Holandako KPN taldeak 604 **milioiren** mozkinak aurkeztu berri ditu, aurreikuspenak gaindituz. **Berria - Ekonomia**  
737 **milioiren** akzioak mugitu zituen Edurnezurik, baina honek ere %1,35 galduz. **Berria - Ekonomia**  
1.318 **milioiren** salerosketa izan zen eta 32 akziok egin zuten gora. **Berria - Ekonomia**

## 10 milioi erdi (orobat miliunerdi g.er.) milioi baten erdia.

Hirurogei metro luze zen tximinia jasotzen amaitu zuten, laurogeita hamar egunetan izerditu ondoren eta **milioi erdi** adreilu erabilia. **Koldo Izagirre**  
Indian **milioi erdi** mendi-herrixka dago, asko argirik eta urik gabe. **Gotzon Garate**  
1939an, gerra zibiletik ihesi, **milioi erdi** espainiar joan zen berriro, eta ondorengo hamarkadetan 400.000 joan ziren Europara lan bila. **Pako Aristi**  
**Milioi erdi** turkiarrek, kontrako norabidean, Grezia utzi eta Turkiara joan behar izan zuten. **Berria - Kultura**  
Baina gehienei, **milioi**-erdi baino gehiagori, kendu egin zizkieten haiek eta haien gurasoek belaunaldiz belaunaldi izandako eta landutako lurrak. **Iñaki Mendiguren**  
Begira, **milioi** erdia besterik ez dik balio honek; Alemania aldean 18 milioiko aparatua zeuzkatek! **Pello Zabala**  
Tori **milioi erdiko** txekia eta kitto. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Delhin, adibidez, **milioi erdi** bat lagun dago lanik gabe, lanen bat non harrapatuko. **Gotzon Garate**  
Gisa horretan, XIX. mende hastean, Euskal Herri osoak 6-700.000 bat lagun zeuzkalarik, hots, **milioi erdi** bat Hegoaldean eta 180.000 inguru Iparraldean, 3/4 euskaldunetarik 1 honaindikoa zela ohartzen gara. **Piarres Xarriton**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**bi milioi euro** (30); **bi milioi euroko** (18); **bi milioi inguru** (11); **bi milioi lagun** (11); **bi milioi pertsona** (14); **bi milioi upel** (8); **bost milioi euro** (16); **bost milioi pertsona** (9); **ehun milioi** (14); **ehunka milioi** (17); **hiru milioi euro** (39); **hiru milioi euroko** (14); **hiru milioi pertsona** (15); **lau milioi euro** (21); **lau milioi urte** (9); **mila milioi** (130); **mila milioi dolar** (16); **mila milioi dolarreko** (11); **mila milioi euro** (19); **milaka milioi** (42); **milaka milioi dolar** (12)

**milioi akzio** (13); **milioi auto** (9); **milioi bat biztanleko** (10); **milioi bat dolar** (21); **milioi bat dolarreko** (13); **milioi bat euro** (65); **milioi bat euroko** (21); **milioi bat herritar** (8); **milioi bat lagun** (13); **milioi bat pertsona** (23); **milioi bat upel** (8); **milioi bat urte** (14); **milioi bezero** (12); **milioi bidaia** (18); **milioi biztanle** (62); **milioi biztanle ditu** (10); **milioi biztanleetatik** (10); **milioi biztanleko** (12); **milioi disko** (11); **milioi dolar** (432); **milioi dolar beharko** (9); **milioi dolar eman** (11); **milioi dolar emango** (8); **milioi dolar eskaini** (9); **milioi dolar eskatu** (17); **milioi dolar inguru** (22); **milioi dolar irabazi** (10); **milioi dolar ordaindu** (13); **milioi dolar ordainduko** (8); **milioi dolarrek** (8); **milioi dolarreko** (213); **milioi dolarreko diru** (17); **milioi dolarreko galerak** (9); **milioi dolarreko irabaziak** (8); **milioi dolarreko isuna** (8); **milioi dolarreko laguntza** (11); **milioi dolarreko zorra** (14); **milioi dolarrekoa** (38); **milioi dolarrekoak** (8); **milioi dolarren** (16); **milioi dolarren truke** (9); **milioi dolarrea** (12); **milioi dolarretan** (15); **milioi dolarretik** (18); **milioi dolarretik gora** (8)

**milioi eman** (8); **milioi erdi** (57); **milioi erdi bat** (8); **milioi erdi lagun** (8); **milioi eta erdi** (51); **milioi etorkin** (8)

**milioi euro** (1671); **milioi euro aurreztu** (9); **milioi euro aurretuko** (10); **milioi euro balio** (11); **milioi euro banatu** (8); **milioi euro banatuko** (13); **milioi euro behar** (14); **milioi euro beharko** (13); **milioi euro bideratu** (26); **milioi euro bideratuko** (33); **milioi euro bildu** (10); **milioi euro eman** (24); **milioi euro emango** (16); **milioi euro erabili** (8); **milioi euro erabiliko** (16); **milioi euro eskaini** (14); **milioi euro fakturatu** (25); **milioi euro galdu** (14); **milioi euro garbi** (19); **milioi euro gastatu** (20); **milioi euro gastatuko** (21); **milioi euro inbertitu** (25); **milioi euro inbertituko** (38); **milioi euro inguru** (74); **milioi euro inguruko** (24); **milioi euro irabazi** (102); **milioi euro irabaziko** (8); **milioi euro irabaztea** (11); **milioi euro itzuli** (16); **milioi euro izango** (8); **milioi euro jarri** (15); **milioi euro jarriko** (12); **milioi euro jaso** (22); **milioi euro jasoko** (15); **milioi euro ordaindu** (43); **milioi euro ordainduko** (30); **milioi euro salerosi** (12); **milioi euro zor** (11); **milioi euroan** (17); **milioi euroko** (810); **milioi euroko aurrekontua** (83); **milioi euroko aurrekontuarekin** (9); **milioi euroko balioa** (12); **milioi euroko bermea** (14); **milioi euroko buxeta** (9); **milioi euroko defizita** (12); **milioi euroko diru** (39); **milioi euroko eskaintza** (9); **milioi euroko etete** (15); **milioi euroko fakturazioa** (14); **milioi euroko galerak** (18); **milioi euroko gastua** (9); **milioi euroko inbertsioa** (66); **milioi euroko inbertsioak** (11); **milioi euroko irabazi** (14); **milioi euroko irabaziak** (27); **milioi euroko isuna** (21); **milioi euroko kontratua** (9); **milioi euroko kostua** (30); **milioi euroko laguntza** (11); **milioi euroko laguntzak** (8); **milioi euroko negozio** (12); **milioi euroko salmentak** (10); **milioi euroko zorra** (18); **milioi eurokoak** (150); **milioi eurokoak** (35); **milioi eurora** (55); **milioi eurora iritsi** (21); **milioi euroraino** (13); **milioi euroekin** (10); **milioi euroren** (162); **milioi euroren akzioak** (11); **milioi euroren inbertsioak** (8); **milioi euroren salerosketa** (32); **milioi euroren truke** (47); **milioi eurotan** (64); **milioi eurotan erosi** (9); **milioi eurotik** (64); **milioi eurotik gora** (28); **milioi eurotik gorako** (16)

**milioi galdu** (9); **milioi haur** (43); **milioi haur hiltzen** (12); **milioi haurrek** (9); **milioi hegazti** (11); **milioi hektarea** (10); **milioi herritar** (20); **milioi herritarrek** (19); **milioi herritarren** (10); **milioi horiek** (13)

**milioi inguru** (66); **milioi irabazi** (31); **milioi irabazi zituen** (14); **milioi izango** (10); **milioi izatera** (8); **milioi kilo** (25); **milioi kilometro** (22); **milioi kilometrora** (10); **milioi kilowatt** (12); **milioi lagun** (98); **milioi lagun bizi** (13); **milioi lagun hiltzen** (10); **milioi lagunek** (50); **milioi lagunek dute** (14); **milioi laguni** (9); **milioi lanpostu** (12); **milioi libera** (26); **milioi litro** (23); **milioi metro** (43); **milioi metro koadro** (13); **milioi metro kubiko** (9); **milioi metro kubo** (14); **milioi pertsona** (145); **milioi pertsona bizi** (14); **milioi pertsona daude** (12); **milioi pertsona hil** (20); **milioi pertsona hiltzen** (11); **milioi pertsona inguru** (18); **milioi pertsona inguruk** (8); **milioi pertsonak** (47); **milioi pertsonaren** (9); **milioi petrolio** (19); **milioi petrolio upel** (14); **milioi pezeta** (56); **milioi pezetako** (24); **milioi sinadura** (12); **milioi tona** (48); **milioi tonako** (8)

**milioi ume** (14); **milioi upel** (90); **milioi upel ekoizten** (9); **milioi upel gehiago** (22); **milioi upeletan** (12); **milioi urte** (102); **milioi urte inguru** (13); **milioi urteko** (15); **milioi ziren** (9)

**sei milioi euro** (19); **sei milioi euroko** (15); **urtean milioi bat** (12); **zortzi milioi euro** (10)

**milioiko aurrekontua** (8)

**milioiren akzioak** (30); **milioiren akzioak mugitu** (8); **milioiren akzioak salerosi** (11); **milioiren salerosketa** (21); **milioiren truke** (8)

**milioitk gora** (42)

## milioidun (orobat milioidun g.er.) 1 izond/iz oso aberatsa.

Zer izan zitekeen hoberik amerikar emakume **milioidun**, ezkongabe eta Walden doktoarean lanean guztiz murgildu bat baino? **Koro Navarro**  
Inbertsiogile **milioidunaren** ustetan, ez da baztertu behar halako zerbaitek gertatzeko aukera. **Berria - Ekonomia**  
**Milioiduna** zelako zurrumurrua zabaldu zen hirian. **Jose Morales**  
Munduan batzuk **milioidun** izateko jaiok ziren, eta beste batzuk, berriz, istripuz hiltzeko. **Juan Garzia**  
Askok oso ondo dakite ez dutela ezertxo ere jasoko **milioidunarengandik** eta ez dutela inolako eskubiderik ezer jasotzeko, baina, hori jakinik ere, **milioidunarengana** joaten dute, irribarre egiten diote, kapelua erantzten dute haren aurrean eta, halako bazkariara joango dela jakinez gero, gogotik eskatzen dute bazkari horretara gonbida ditzatela. **Jose Morales**  
Scheuerrek 1996ean CIAren barrenean 12 agentek osatutako unitate berezia sortu eta zuzendu zuen, artean ezezaguna zen **milioidun** saudiarra aurkitu eta hiltzeko. **Berria - Mundua**

## 2 izond milioi askokoa.

Hilabete geroago, nola diren gauzak, dirutza ikaragarri handia suertatu zitzaidan asteroko zozketa **milioidun** horietako batean. **Aitor Arana**  
Etete klausula **milioidun** horiek jokalaria, bere klubaren iritziaren kontra, ez joatea izan dute helburu. **Berria - Kirola**

# milioigarren *(orobat miliungarren g.er.) ord* (zenbatzaile zehaztu baten eskuinean)

Izpiok oso energia handikoak dira (uhin luzera milimetroaren mila **milioigarrena** da, eta frekuentzia 100.000.000.000.000.000 hertzekoa!), eta indar nuklearraren eta elektromagnetikoaren arteko interakzioaren bidez sortzen dira. **Berria - Gaiak**

Azken urteotan VW Polo modeloa baizik ez du egin: 1984an egin zuen lehena, eta atzo lau **milioigarrena** irten zen produkzio katetik. **Berria - Ekonomia**

## milioika *(orobat muliunka g.er. eta miloika g.er.) 1 adlag* hainbat milioitako kopuruetan; oso kopuru handietan.

Eliza eta oposizio demokratikoak deiturik, **milioika** joan ziren armadaren tankeen blokatzera. **Ramuntxo Etxeberri**

Txinan, GIB birusa dutenak milaka barik **milioika** direla diote erakunde horiek. **Berria - Gaiak**

**Milioika** dira gaizki elikatzen direnak. **Berria - Gaiak**

Ez dira aspertuko zure belarriak aingeruen soinua eta kanta gozoak aditzez, eta **milioika** joango zaizkizu urteak, denbora apur bat baizik ez balira bezala. **Anjel Lertxundi**

Konbinazioak, beraz, **milioika** izaten ahal ziren. **Aingeru Epaltza**

Errege hilkor batek, urrezko txanponak **milioika** baleuzka eta horiek zilarrezkoak balira bezala gorai patuko balitzaizkio, ez al luke hori iraintzat hartuko? **Xabier Kintana**

Aita saindua Filipinetara etorri zelarik, jendeak **milioika** bildu zituen Manilako Rizal parkean. **Ramuntxo Etxeberri**

Izarrak, planetak, kometak, **milioika** mugitzen dira espazioan, hasierarik eta bukaerarik gabe, batera planik edo zertarakorik gabe. **Koro Navarro**

Fusil-ahoak **milioika** ageri direla hodeietarainoko horma menderakaitz haietako kanoi-zuloetan. **Jose Morales**

### 2 (izen mugagabe batekin)

Ez da, ordea, mundu bakar bat, **milioika** mundu dira, eta gainera munduok ez dira izarrak edo planetak, asteroideak edo kometak, baizik eta lekuak. **Bernardo Atxaga**

Organo sortzaile munstrozko bat, arrain besterik ez bezalako batek itsasoan arrautzak egingo lituzkeen bezala, espazioan zehar **milioika** mundu ereiten dituena. **Josu Zabaleta**

Beste enpresa asko desegin ziren, **milioika** lagunek bere aurrezki guztiak galdu zituzten. **Pello Salaburu**

Goseak hiltzen bizi diren **milioika** haurrek ongi merezia dutela heriotza. **Pako Aristi**

Milioi eta **milioika** hinduk arratoiak Ganesh jainkoaren "mezulari sakratuak" direla uste dute. **Gotzon Garate**

Izuak hartuta, **milioika** errefuxiatuak ihes egin zuen, etxeak eta jabegoak utzita. **Iñaki Mendiguren**

Geroz eta ozenago entzuten dut hurbiltzen ari den eta hilko gaituen trumoiak, **milioika** pertsonaren oinaze bera sufritzen dut. **Josu Zabaleta**

Ni lasai eta seguru nabilen **milioika** etsairen erdian, ez naiten ezagutzen eta iseka egiten zienat. **Anton Garikano**

XV. eta XVII. mende bitartean San Lucar de Barramedara sartu ziren milaka kilo urre eta **milioika** kilo zilarren egungo balioa ez litzateke ez txantxetakoak. **Iñaki Heras**

· Matematikan, denbora ez da "zenbatzen", **milioika** mila urte igaro zein ez. **Jon Muñoz**

Modua dago orain zehinahi ere gene bakartzeko, hura bakterio batean **milioika** aleka ugaltzeko. **Juan Garzia**

### 3 (izen mugatu batekin)

Zeren gizonek Auschwitz eraiki baitzuten, eta Auschwitzek **milioika** gizakiak irentsi baitzuten, eta nire lagun asko, eta biziki maite nuen emakume bat. **Juan Garzia**

Hala lortu dute bizidunek, **milioika** espezie berriak eratuz, apurka-apurka gure planeta osoa hartzea, bazter guztietara hedatzea, zoko posible guztietara. **Juan Garzia**

Pinu horiek, hondar hori, enbor zahar hori, **milioika** giza begiek begiratu dituzte, kaitik poliki-poliki bagoiak hurbildu eta gero... **Felipe Juaristi**

Eraikin handiek isilik eta hutsik ematen zuten gau osoa; euren **milioika** leihoeak, berriz, ilun. **Lopez de Arana**

### 4 milioika eta milioika

Baina mundutxo hura huskeria bat besterik ez zen, izpi bat hutsune infinitu ilunean, argitxo motel bat **milioika eta milioika** argitxo motelen artean. **Bernardo Atxaga**

Baditugu orduak; gure bakoitzak **milioika eta milioika** mende hartzen ditu bere baitan eta hala ere beti sobera ditugu; baditugu minutuak, jauzika dabilzanak airean, eta baditugu segundoak, tximistargien modura eztanda egin eta gero presaka galdu egiten direnak. **Felipe Juaristi**

Garai jakin bateko mentalitate burgesaren produktu da marxismoa, **milioika eta milioika** jenderengan eragin handia izan duena. **Iñaki Heras**

Sobiet Iraultzak utopia berri bat sortu zuen munduan, gizarte justu eta klaserik gabeko baten utopia alegia, baina ondorioz **milioika eta milioika** lagun bizi izan dira urteetan zehar beste milioika lagun bizkarra emanez. **Pello Salaburu**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

duela milioika urte (11); milioika ale (3); milioika ale saldu (3); milioika dira (5); milioika dolar (16); milioika dolarreko (3); milioika eta milioika (9); milioika euro (6); milioika euroko (10); milioika gizaki (6); milioika hegazti (6); milioika hegazti hil (3); milioika herritarrek (4); milioika lagun (24); milioika lagun bizi (3); milioika lagun hiltzen (4); milioika lagunek (6); milioika lagunen (5); milioika oilasko (3); milioika oilasko hil (3); milioika pertsona (19); milioika pertsona hil (5); milioika pertsona hiltzea (4); milioika pertsonak (4); milioika pertsonaren (8); milioika pertsonen (3); milioika tona (4); milioika urte (14); milioika urteko (3); milioika urtetako (3); milioika urtetan (3)

## milioikada *iz adkor* milioia.

Zenbait urte aurrerago, Andres unibertsitatean zegoenean, bere aitari, zeina hasia baitzen alkoholarekin arazo larriak izaten, egun batean **milioikada** bat pezeta suertatu zitzaion loterian. **Joxemari Iturralde**

## milioikoiztu, milioikoitz/milioikoiztu, milioikoizten da *ad* milioi bat aldiz handiago bihurtu.

Ezin duk gehiago; ihes egiten duk, arreta galdu duk, heure buruari esaten diok Bizantziok dela hori, heure dirua hirukoizten ari dela; laukoiztu, hamarkoiztu, ehunkoiztu, **milioikoiztu**, miliarkoiztu egingo dela. **Jon Muñoz**

## milioina *adlag* bakoitzari milioi bat; bakoitzak milioi bat.

Hiru leinuk 10 **milioina** dolar eman dituzte museoa eraikitzeko. **Berria - Gaiak**

## milioiren *iz* kopuru bat banatzen den milioi bat zati berdinetako bakoitza.

Zehazki lurreko meridioaren laurdenaren hamar **milioirena** neurtzen duela. **Monika Etxebarria**

Nanoteknologian aritzen direnek nanometro gutxi batzuk, milimetro **milioiren** batzuk, neurtzen dituzten objektuen propietateak ulertu eta diseinatzen dituzte. **Berria - Gaiak**

Hezurretako kristalak 200 angstrom inguru baitira luzeran (zentimetro baten bi **milioiren**). **Irene Aldasoro**

Guk dakigula, unibertsorearen zatirik handienean ez dago bizitarik, eta, lurrean ere, harkaitz, itsaso eta atmosferaren masaren **milioiren** bat baino gutxiago da, guztira, gauza bizien masa, landare eta mikroorganismoak barne. **Irene Aldasoro**

## milionario *iz* milioi/iz milioi duena.

Tietz eta Warburg-tarrek in ahaide zen **milionario** judu baten alaba, Mathilda Oppenheimer, berarekin maitemindu zen. **Koro Navarro**

Eta hauek dituzu **milionario** famatuaren bilobak! **Josu Zabaleta**

- Batetik, herrialdearen berreraiketa, zeina nahiz eta laguntza **milionarioak** jaso oso motel doan; bestetik, opio mitxoletaren hazkuntza eta merkataritzaren aurkako borroka. **Berria - Mundua**

## milisegundo *iz* segundo baten milarena.

Garunetik muskuluraino -metro bat edo gehiagoko distantzia izan daiteke- seinalea **milisegundo** batzuetan helaraztea da diseinuaren lehenengo arazoa. **Irene Aldasoro**

**Milisegundo** batzuen muga onargarriaren barruan gertatzen bada erantzun hori. **Irene Aldasoro**

155 **milisegundoko** atzerapenarekin. **Berria - Harian**

## militant ik **militante**.

## militante 1 *iz* militatzen duena.

Mounierekin ibili zela istant batez eta iduritu zitzaiola ez zela pentsalari bat, **militante** bat baizik. **Piarres Aintziart**

Euskal gizartearen, ostera, ez da langilerik: **militanteak** badira, borondatezko lana egiten dutenak ere bai, eta ordainduak diren kudeatzaileak. **Ana Urkiza**

Claret hura, CNTko **militante** baten semea zen. **Jon Muñoz**

Bazebilen **militanteen** artean eskuliburu gisako bat, komisariatik pasatu behar genuenerako prestatu nahi gintuena. **Agurtzane Juanena**

Komenentziak **militante** asko omen zebilen, haizea nora karneta hara egiten zuena, eta haizea aldatzen bazen organizazioak pagatuko zuela. **Inazio Mujika Iraola**

Militarismo musulman irankoari biktima hindu eta kristau ortodoxoek eurak **militante** bihurtuz erantzun zioten. **Iñaki Mendiguren**

Euskararen **militanteak** ziren biak, gainera. **Joan Mari Irigoien**

Animalien zapalkuntzaren kontrako muturreko **militantea** da. **Joxerra Garzia**

Idazle izateak kulturaren **militante** izateko aukera gehiago eskaini dit. **Ana Urkiza**

Gure lantokian **militanteegiek** pot egiten dute lehenago edo geroago. **Aingeru Epaltza**

## 2 (izenondoekin)

Egoera berean dago Georges Ibrahim Abdala ere, FARL Libanoko Indar Armatu Iraultzaileetako **militante** komunista. **Berria - Mundua**

Hortik, beharbada, **militante** soila ez zarela atera dezake. **Rafa Egiguren**

Kontua da gure belaunaldikook errespetua izan geniola, faxismoaren aurka **militante** ezkertiari zintzoa izan zelako. **Ramon Saizarbitoria**

Jarduera militarrek **militante** despolitizatuak sortzen omen zituen. **Rafa Egiguren**

Nola ukatuko duzu pistola zurea dela, Frantziako estatuan errefuxiatuta zauden **militante** ilegala bazara, eta olio-mantxa aurkitu badizute? **Rafa Egiguren**

Nire delitu bakarra **militante** independentista izatea da. **Berria - Euskal Herria**

Ponentziak buruz ikasten dituen militantea, **militante** txarra da. **Koldo Izagirre**

Sare trinkoa osatu dute, **militante** aktibo kualifikatuena lana eta sektore zabalen mobilizazioa lotzen dituen kate-maila dira. **Txema Ramirez de la Piscina**

Arlo guztietan, konpromiso handiko **militante** kualifikatu ugari ditugu Euskal Herrian. **Txema Ramirez de la Piscina**

**Militante** libertario zintzoak. **Inazio Mujika Iraola**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Behin, **militante** lan hori Galarretan antolatu zen Aberri Egunean, Txokoren gain geratu zen. **Itxaro Borda**

Segur ere, urte erdiko ixiltasun horrek erran nahi duela **militante** belaunaldi berri bat borrokari lotu dela. **Herria**

Zamaria eta beste batzuk buru zirela, **militante** -talde batek behar bezalako zatiketa bat eragin zion alderdiari. **Jon Alonso**

Presondegi bakoitzean «euskal **militante** multzotxo bat» baizik ez dagoela argitu du. **Berria - Euskal Herria**

Ez naiz hasiko jasotzen Txikiaren **militante** -bizitzako pasadizo zirraragarrienak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 4 (izenondo gisa)

Hala da F. W. Foerster (1869-1966) pedagogoa eta pazifista **militantearen** kasuan. **Joxe Azurmendi**

Hori, neurri handi batean, gure militantzia sutsuari zor dio, gure hizkuntzako militantziari, herri **militante** batean bizi garelako. **Pello Salaburu**

Hegoaldetik jinarazi irakasleekin funtzionatzen zuten eskola **militanteak** sortu ziren. **Itxaro Borda**

Imajinaturikoa bezalako eliza **militante** bakar bat ezartzeak ez luke gizakia jatorrizko bekatutik garbituko. **Iñaki Mendiguren**

Urtean mila ordu inguru ematen ditut lan **militantean**, ordaindutakoak baino ordu gehiago. **Patziku Perurena**

Feminismo **militanteari** esker. **Edorta Agirre**

Gizarte-mugimenduetan, auzunetan, okupatutako lantokietan aktibismo **militante** harrigarria sumatzen da. **Txema Ramirez de la Piscina**

Prensa abertzalearen estigma **militantea**. **Txema Ramirez de la Piscina**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bizitzaren militante** (4); **colonna militante** (4); **eajko militante** (4); **eeko militante** (4); **eliza militante** (3); **eskubideen aldeko militante** (3); **etako militante** (12); **euskal militante** (5); **ezker abertzaleko militante** (14); **ezkerreko militante** (3); **kimikari militante** (5); **kulturaren militante** (6); **militante abertzalea** (4); **militante abertzaleak** (3); **militante aktibo** (3); **militante andana** (3); **militante antifaxista** (3); **militante ezaguna** (3); **militante gazte** (3); **militante gazteen** (3); **militante historikoa** (10); **militante historikoaren** (3); **militante independentista** (7); **militante izan** (10); **militante izatea** (3); **militante komunista** (5); **militante nazionalista** (8); **militante ohia** (3); **militante politiko** (3); **militante sozialista** (3); **pse eeko militante** (4); **psko militante** (5)

**segi mugimenduko militantea** (3)

**etako militanteak** (3); **euskal militanteak** (4); **ezkerreko militanteak** (4); **militanteak dira** (3); **militanteak izan** (4)

**ezkerreko militantei** (3)

**abko militanteek** (3)

**euskal militanteen** (4); **militanteen aurka** (4); **militanteen omenez** (3); **oinarrizko militanteen** (4)

## militanteki *adlag* era militantean.

Antzeratsu agertu zen mundu islamikoan wahabismoaren, idrisismoaren, sanusismoaren eta mahdismoaren mugimendu **militanteki** arkaistetan. **Iñaki Mendiguren**

## militantismo *iz* militantearen jarrera.

Literaturak ez duela moralismo edo **militantismoaren** beharra erakusten digu. **Janbattitt Dirassar**

Eta milaka jende hasi zen orduan euskara ikasten, **militantismoz** betea. **Pello Salaburu**



Uste dut nazionalismo militantean amaitua dela, mundua terrorismoaren aurka baitago, eta **militantismo** nazionalista alde zuzeneko kondena. **Berria - Mundua**  
Bolada labor batean ezkerreko **militantzia** buru-belarri ihardun zuten. **Xabier Montoia**

## militantzia 1 iz militantea izatea.

Kontratu hartan bat egiten baitzuten hileroko soldatak eta **militantziak**, eguneroko lan arautuak eta euskararen eta aberriaren aldeko borroak. **Juan Luis Zabala**  
Sakrifizioan oinarritu zuen Gorostidik bere berrogei urteko **militantzia**. **Joseba Zulaika**  
**Militantziak** kartzela eta erbetea ekarri zizkion, besteak beste. **Berria - Kultura**  
Beste era batean planteatu behar izan genuen Iñaki Arinek eta biok gure **militantzia**. **Rafa Egiguren**  
Hori, neurri handi batean, gure **militantzia** sutuari zor diogu, gure hizkuntzako **militantziari**, herri militante batean bizi garelako. **Pello Salaburu**  
Bakearen aldeko **militantzia**. **Berria - Euskal Herria**  
**Militantzia** politiko jakin bat izateagatik atxilotu dutela salatu zuen Barrenak. **Berria - Euskal Herria**  
Komunista izandakoa, **militantziak** ez dik beragan hitz-jarioa beste lorratzik utzi. **Pedro Alberdi**  
Egun batetik bestera den-dena arbuatzen hasi nintzen: bai nire **militantzia**, bai oroimenean itsatsita neuzkan kanta sentimentalak, bai, batez ere, etengabe erabiltzen genituen hitzak: "herria", "nazionala", "soziala", "proletargoa", "iraultza" eta beste hamaika halako. **Bernardo Atxaga**  
**Militantzia** utziko dut. **Unai Iturriaga**

## 2 militanteen multzoa.

Batzuen ustez, lezio politiko eta etikoa eman dio **militantziari**. **Berria - Mundua**  
Artekale eta Mongrovejoko erorikoak gertatuz geroztik, erabat sakabanatuta omen zegoen **militantzia**. **Rafa Egiguren**  
Hainbat antolakunde politikotako zuzendaritzatan galga jartzen diotela **militantziari** dinamika hauetan sar ez dadin. **Berria - Harian**  
**Militantziaren** bizkarrez hartutako zenbait erabakiren kontua... **Jon Alonso**  
Laborarien, udal erakunde publikoen eta **militantziaren** laguntzarekin. **Berria - Ekonomia**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mikelek, gizenenak, **militantzia**-garaietako inprenta berean jarraitzen du lanean. **Iban Zaldia**  
Liburu hau Ekai Txapategiri eskaini nahi diogu, liburu honetan ez ezik UEUko Filosofia sailean egin duen **militantzia** lanagatik. **Askoren artean**  
Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan **militantzia** puntu hori mantentzen da, baina EAEn pixka bat burgestu egin gara. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**militantzia bikoitzik** (4); **militantzia politiko** (4); **militantzia politikoaren** (3)

**aldeko militantzian** (3)

## militar 1 iz gerrarako pertsona; bereziki, armadako kide ogibidez dena.

1992ko otsailaren 4an estatu kolpea eman zuten Hugo Chavez eta beste **militar** askok. **Pako Aristi**  
Ni kazetaria naiz, ez **militarra**. **Txillardegi**  
Poliziek eta **militarrek** gogor jokatzeko zuten gerrako errautsei haize ematen zieten aurka. **Bernardo Atxaga**  
Ea beste aldeko **militarren** bururen batekin etortzerik ote zuten. **Inazio Mujika Iraola**  
63 **militar** zeramatzan C-5 karga hegazkin batek. **Berria - Mundua**  
Baina piano-gelan ez zen Nora beste inor konturatu **militar** prusiar baten itxura bete-betea zuen gizonaren presentziaz. **Anjel Lertxundi**  
Aduanan, **militar** gazteak. **Pako Aristi**  
Ivan Ogareff **militar** eskolatua zen, baina buruzagi tatariarrek bezain ikaragarria. **Karlos Zabala**  
Karrera bikaineko **militar** zintzoa eta prestua. **Jon Muñoz**  
**Militar** guztiak kartazale amorratuak eta etxekalteak zirela uste baitzuen. **Jose Morales**  
Ez ziren ohiko **militar** astapotoak. **Pako Aristi**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Militar**-jantziak ez zion batere ongi ematen bere sorbaldan lodi borobilen gainean. **Fernando Rey**  
Gizon lerdan bat agertu zen **militar** jantzian eta nik betetako eskaera-orria eskuan zuela. **Anjel Lertxundi**  
Kirol zapatilak eta **militar** bota luzeak. Guretzat, **militar** bizitza zen aukerarik ederrena. **Anjel Lertxundi**  
Alegiazko agenteak eskua kapelura altxatu zuen, **militar** agurra eginez. **Elena Touyarou**  
**Militar**-leinukoa zen, eta bere zaharragoen destino epikoaren nostalgia sentitu zuen. **Juan Garzia**  
Bereizketa egin dugu **militar** edo polizi helburua duten goarnizioen eta gizarte- edo kultur helburua duten kolonien artean. **Iñaki Mendiguren**  
Italiako **militar**-eskola batera bidali zituzten. **Edorta Jimenez**  
Halako gertari-aire edo **militar**-itxura bat. **Jose Morales**  
Haien buru egiten zuen ofizialak **militar** erara agurtu zuen. **Edorta Jimenez**  
**Militar** kopurua ere urtero aldatzen da. **Berria - Harian**

## 3 izond armadari dagokiona; armadan edo talde armatuetan oinarritzen dena; gerra jarduerari dagokiona.(pertsonak)

23 urteko neska **militar** bat ezagutu nuen Txinan. **Berria - Gaiak**  
Une hartan, fraide **militar** bat, deabruak hartuta bezala, hizketan hasi zitzaion gudarosteari. **Koro Navarro**  
Aita Romeroren su ebanjelikoak ezetzik esaten asmatu ez eta Leonardo Canal jeneral eskuinzalearen armadan sartu zen, kapilau **militar**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Batzuk eta besteak ofizial **militarrak** eta zibilak ziren aldi berean. **Iñaki Iñurrieta**  
Gobernadore **militar** berria zuten mintzagai haiek ere. **Jose Morales**  
Hori sendagile **militar** egon zuan Kuban, eta ikaragarri edateko ohitura hartu zian. **Josu Zabaleta**  
Egunero bere lanera trenez joaten zen mediku **militar** bat garbitzea zuan agindua. **Mikel Hernandez Abaitua**  
K. a. I. mendeko ingeniari **militar** erromatarra zen Marco Vitruvio. **Santiago Iruretagoiena**

## 4 (gauzak)

Oinetako **militar** zahar batzuk erabiltzen ditu. **Pablo Sastre**  
Jantzi **militarraren** sakelatik laban mehe bezain zorrotza zanpez atera eta [...]. **Itxaro Borda**  
Amerikar zaku **militarra**. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Domina banderaduna liburuxka **militarraren** gainean egoten zen beti. **Anjel Lertxundi**  
Soinean librea **militarra** eta eskuan fardel txiki bat zeraman mutiko bat. **Jose Morales**  
Ivan Ogareffek agur **militarra** egin [...] eta alde egin zuen. **Karlos Zabala**  
Martxa **militar** baten antzeko zerbait jotzen hasi zen txistuka. **Josu Landa**  
Gastu **militar** ero horrek ezin du betiko iraun. **Fernando Morillo**

Diktadura **militar** batan baten gaudela. Joseba Zulaika

1952an erusiar ez ziren herri kristau ortodoxo haietako gehienak Errusiaren kontrol **militar** eta politikoaren mende zeuden benetan. Iñaki Mendiguren

Britainiarren botere **militar** eta politikoa Indian. Iñaki Mendiguren

Goarnizio **militar** iraunkorrak jartzeak atzetik kolonia zibilak ekartzen ditu ia beti. Iñaki Mendiguren

Orduko mertzenarioak «enpresa **militar** pribatuetako» langileak bilakatu dira. Berria - Mundua

Bi erlijio **militar** horiek, egon behar zuten bezala lotuta egonik erromatar armada inperialaren zoriari, sekula ez ziren oneratu kristau-aroko hirugarren mendearen erdian armadaren aldi bateko kolapsoak eman zien kolpetik. Iñaki Mendiguren

Estatu Batuen gidaritze **militar** eta politikoak. Koro Navarro

Gurutzadei laguntza ekonomiko-**militarra** eskaini ziezaieten. Askoren artean

Burgosen Auzitegi **Militarrak** onartzen bazizkion. Ramon Saizarbitoria

## 5 militar buru ik militarburu.

## 6 militar jende militarrek.

**Militar jende** hura nazka eginda zegoen osotara, leporaino benetan. Txillardegia

Lotsa gaiztokoa **militar-jende** hura. Karlos Zabala

Nolabaiteko miresmena ere sumatzen da **militar jendearekin**. Jon Arretxe

Egia da haren preso sartzea baliagarri gertatu dela Espainiako **militar jende** anitzen ahoaren hesteko. Piarres Xarriton

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**agintari militar** (13); **armadako zortzi militar** (4); **auztegi militar** (15); **base militar** (44); **base militar bat** (4); **base militar batean** (11); **batzorde militar** (5); **beste hiru militar** (4); **beste militar** (10); **bi militar hil** (6); **buru militar** (4); **buruzagi militar** (18); **desfile militar** (4); **diktadura militar** (7); **ekitaldi militar** (12); **eledun militar** (4); **enpresa militar** (6); **epaiketa militar** (4); **epaitegi militar** (4); **erakunde militar** (4); **eraso militar** (11); **eraso militar bat** (4); **eremu militar** (4); **estrategia militar** (4); **garaipen militar** (4); **gobernadore militar** (6); **gobernadore militar berria** (4); **hegazkin militar** (6); **helburu militar** (8); **ibilgailu militar** (9); **indar militar** (9); **kamioi militar** (8); **konboi militar** (15); **konboi militar bat** (6); **kontrol militar** (4); **kuartel militar** (4); **limes militar** (4)

**militar bat** (77); **militar bat hil** (5); **militar bat igarotzen** (4); **militar baten aurkako** (4); **militar bati eraso** (5); **militar erusiar** (5); **militar estatubatuar** (7); **militar estatubatuarrek** (6); **militar estatubatuarrek** (9); **militar eta politikoak** (4); **militar eta polizia** (4); **militar gehiago** (7); **militar gisa** (10); **militar gunee** (5); **militar handi** (5); **militar handiena** (4); **militar hil** (23); **militar hil dira** (4); **militar hil ziren** (11); **militar indarra** (8); **militar israeldarrek** (4); **militar itxura** (4); **militar kopurua** (5); **militar matxinoek** (4); **militar multxo** (4); **militar ohi** (11); **militar ohia** (10); **militar ohiak** (6); **militar talde** (4)

**operazio militar** (13); **otan militar** (4); **politiko militar** (9); **polizia militar** (6); **talde militar** (7)

**adar militarra** (4); **agur militarra** (8); **agur militarra egin** (6); **ahalmen militarra** (6); **base militarra** (14); **botere militarra** (6); **buru militarra** (4); **desfile militarra** (5); **diktadura militarra** (5); **diziplina militarra** (4); **ekintza militarra** (4); **ekitaldi militarra** (6); **epaiketa militarra** (9); **erakustaldi militarra** (4); **erantzun militarra** (4); **eraso militarra** (8); **erasoaldi militarra** (5); **gastu militarra** (8); **gobernadore militarra** (4); **indar militarra** (7); **izaera militarra** (5); **kanpaina militarra** (4); **kolpe militarra** (6); **militarra eta zibila** (5); **militarra izan** (12); **musika militarra** (5); **okupazio militarra** (5); **operazio militarra** (10); **politiko eta militarra** (8); **politiko militarra** (8); **politikoa eta militarra** (4); **presentzia militarra** (9); **zerbitzu militarra** (7); **zibila eta militarra** (4)

**aebetako militarrek** (6); **agintari militarrek** (4); **aginte militarrek** (5); **ariketa militarrek** (13); **artxibo militarrek** (4); **base militarrek** (21); **batzorde militarrek** (4); **diktadura militarrek** (4); **ekintza militarrek** (15); **ekitaldi militarrek** (5); **eraso militarrek** (8); **gastu militarrek** (6); **gobernu militarrek** (5); **hegazkin militarrek** (4); **helburu militarrek** (4); **indar militarrek** (6); **junta militarrek** (8); **koalizio militarrek** (11); **manioobra militarrek** (21); **ontzi militarrek** (4); **ontziola militarrek** (14); **operazio militarrek** (14); **politiko eta militarrek** (6); **politiko militarrek** (10); **polizia militarrek** (8); **zibil eta militarrek** (8); **zibilak eta militarrek** (4)

**aginte militarren** (4); **base militarren** (13); **diktadura militarren** (4); **gastu militarren** (4); **gobernadore militarren** (7); **gobernu militarren** (5); **koalizio militarren** (12); **okupazio militarren** (4); **operazio militarren** (4); **politiko militarren** (4); **polizia militarren** (4)

**akademia militarren** (5); **arlotu militarren** (8); **base militarren** (28); **guantanamo base militarren** (5)

**aebetako militarrek** (11); **agintari militarrek** (15); **hegazkin militarrek** (4); **iturri militarrek** (9); **militarrek atzo** (4); **politiko eta militarrek** (5)

**informazio militarreko** (5); **inteligentzia militarreko** (7); **koalizio militarreko** (19); **ospitala militarreko** (7); **polizia militarreko** (7)

**aebetako militarren** (4); **agintari militarren** (7); **base militarren** (5); **buruzagi militarren** (4); **estatu batuetako militarren** (4); **hegazkin militarren** (4); **indar militarren** (7); **iturri militarren** (5); **iturri militarren arabera** (5); **militarren arabera** (9); **militarren artean** (6); **militarren arteko** (7); **militarren aurka** (7); **militarren aurkako** (8); **militarren aurrean** (5); **militarren bidez** (5); **militarren gorpukak** (4); **militarren inguruan** (4); **militarren kontra** (6); **ontziola militarren** (5); **zibil eta militarren** (4)

**base militarra** (4)

**akademia militarretan** (4); **operazio militarretan** (6)

**helburu militarretarako** (4)

**bide militarretik** (4)

**ekintza militarrik** (4)

**militartzat jo** (4)

## militarburu (orobat militar-buru) iz militarren burua, buruzagi militarra.

Armadak 115 mertzenario atzerritar eta Venezuelako hiru **militarburu** atxilotu eta oposizioari kolpea lantzea egotzi dio. Berria - Mundua

Zazpi soldadu, hiru polizia eta zibil bat hil dira Karachiko **militarburuaren** kontrako eraso batean. Berria - Mundua

Anarkisten CNTko **militar buru** Cipriano Merak Juntarekin bat egin zuen. Edorta Jimenez

Iraketik itzuli den **militarburu** Carmelo Burgiok *Il Corriere della Sera*-ri antzeko adierazpenak egin dizkio [...]. Berria - Mundua

**Militarburu** ohi horrek lan egin zuen Irakeko behin-behineko gobernuaren aurretik jardun zuen agintarentzat. Berria - Mundua

Kanpotik barnera doa Villepin, barnetik diruzain gisa Sarkozy, gure MAM gelditzen dela **militarburu**. Herria

## militarismo 1 iz erakunde militarren nagusigoa gizartearen bizitzan; armadan oinarritzen den politika sistema; sistema horren aldeko doktrina.

**Militarismoa** ez da teknologiaren arazoa, psikologiarena baizik: borrokatzeko borondatea. Iñaki Mendiguren

Hedapen militarra **militarismoaren** emaitza izaten da normalean, eta hau gainbeheraren sintoma. Iñaki Mendiguren

Saso berean, Baionako *Zabal* hilabetekarian irakur zitekeen artikulua zorrozt bat, salatzen baitzituen **militarismoak** abertzaletasunari egin ziezazkikeen kalteak. Piarres Xarriton

**Militarismoaren** eta NATOren alde. Berria - Euskal Herria

Alemania nazional-sozialistaren **militarismo** amorratua. Iñaki Mendiguren

Mendebalde modernoaren historian sintoma etsigarri bat, lehenengo Prusian eta gero Alemanian oro har, **militarismoa** sortzea izan zen. Iñaki Mendiguren

Abrahamen parabolaz aritzea, eta hau **militarismoari** aplikatzea, salbuespen egoeraz aritzea da azken batean. Joseba Zulaika

## 2 (hitz elkartuetan)

Hitlerrek arrakasta izan zuen beste **militarismo** -kolpe batera alemanak suspertzen. Iñaki Mendiguren

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gerra eta militarismoa** (3)

**militarismoaren kontrako** (3)

## militarista izond/iz militarismoarena, militarismoari dagokiona; militarismoaren aldekoa.

"Fedearen birilitatea"ri eskaini dakioke kapitulu oso bat, horrela adieraziz borroka hauek zenbateraino ziren kultura **militarista** maskulinoaren konplexu. Joseba Zulaika

Hobe da diferentzia errespetatzea, balioestea eta bultzatzea, eta ez uniformetasun **militarista** zurrun eta ankerra ezartzea. Luis Elberdin

Haien aburuz, Konstituzioak gabezia handiak ditu gizarte arloan, eta «eredu **militarista** eta gerraren aldekoa» ezartzen du. Berria - Euskal Herria

Hildakoak eta sufrimenduak gogoratzeko aitzakiaz, propaganda **militarista**, gerrazale eta erregezale zikina egiten da! Koldo Biguri

Talde marjinal eta **militarista** bat bezala hartuko gintuzten aurrerantzean. Bernardo Atxaga

**Militarista** "zibilizatu"en adeitasun gogaikarriaren aurka. Iñaki Mendiguren

## militarizatu, militariza, militarizatzen 1 da/du *ad* diziplina militarren pean ezarri.

Mexikorekiko muga gehiago **militarizatze**ko bozkatu zuen Batzordeak. Berria - Mundua

Han ere formazioan joaten ginen ikasgelatik patiora, dena zegoen oso **militarizatuta**, baita nesken kolegioak ere, diktaduragatik agian, edo diziplina handiagoa zegoelako irakaskuntzan Europa guztian, edo bi gauzak batera, ez dakit. Mikel Hernandez Abaitua

Ziprek bananduta eta **militarizatuta** egoten jarraituko du. Berria - Mundua

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Barakaldo Euskal Herriko herri **militarizatu**enen artean dago. Berria - Euskal Herria

Erregimen **militarizatura** itzuli nahi dute Herrerako lehen modulua. Jokin Urain

## militarizazio 1 *iz* militarizatzea.

Eraso baten errefusapen arrakastatsuaeren emaitza garailearen **militarizazioa** izan daiteke, emaitza negargarriekin azken batean. Iñaki Mendiguren

Zein da biharko nahi dugun Europa? pribatizazioena ala zerbitzu publikoen aldekoa? **militarizazioarena** ala bakearena? Berria - Euskal Herria

### 2 (hitz elkartuetan)

Antimilitaristok oso argi eduki behar dugu botereak esparru nuklearra gogotik baliatzen duela **militarizazio** prozesua kudeatzerakoan. Berria - Euskal Herria

Gure haserrea mobilizatze behar bilakatu da, Alonso alkateak gizarte **militarizazioaren** alde sustatutako jauzi kualitatibo honekin Berria - Euskal Herria

## militarkeria *iz* militarismoa.

Nork zekikeen guk baino hobeki, **militarkeria** arrotzen jopu bizi beharra zertsu den? Txillardegi

**Militarkeria** haiek batere gogoko ez banituen ere. Txillardegi

## militarki 1 *adlag* ikuspuntu militarretik.

Okerrena, ez **militarki** beharbada, baina bai psikologikoki segurantzia osoaz, Jurramendiren erorketa izan zen. Txillardegi

Mende-erdi hartan Txina **militarki** Japoniaren mende egon zen. Iñaki Mendiguren

Heriotza zoritxarrekoa iritsiko zaiola, heriotza zoritxarrekoa **militarki** hitz eginez. Jon Alonso

**Militarki** garaile baina espiritualki atsekabetua dagoen barbaroa. Iñaki Mendiguren

### 2 era militarrean.

1894az geroztik, Korean esku hartu eta Txina **militarki** garaitu zuelarik, Japoniak bere asmo espansionistak berretsi zituen. Koro Navarro

Bidesaririk eta merkataritza zergetatik ateratzen den dirua ez da herria **militarki** armaz defendatzeko nahikoa. Esteban Antxustegi

Baina orduan gertatuko da zorigaitz haundi bat, Espainiak beretzen baitu **militarki** Nafarroa 1512an. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Kongon **militarki** ekiteko prest direla ohartarazi dute Burundik eta Ruandak. Berria - Mundua

Errazionamendua, grebak eta kaleak **militarki** okupatuak. Joxe Azurmendi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**militarki ekitea** (4); **militarki ekiteko** (3)

## militarkide *iz* armadakidea.

Zeituneko auzunean tankez lagundutako ehunka soldadu israeldarrek hainbat etxe arakatu zituzten palestinarrek herenegun hildako euren sei **militarkideen** bilatze zorrotzetan. Berria - Mundua

## militarkote *izond adkor* militarra.

Baretu denean, biboteari gora eta behera eragiten hasi da, gerra zaharretako musika-banda **militarkote** bat zuzentzen ari balitz bezala. Anjel Lertxundi

## militarkume *iz* militar semea.

**Militarkume** bat, azken batez, bere planta anarkoak eta guzti! Aingeru Epaltza

## militartu, militar(tu), militartzen 1 da/du *ad* militar bihurtu.

Kantuan hasi ginen guztiok eta abestiaren erritmoak gure ibilera berdindu zuen eta **militartu**. Anjel Lertxundi

### 2 militarizatu.

Orain, aldiz, ia erabat **militartu** da borroka. Berria - Mundua

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Hainbat fotokopia egin ziren, eta poriomanoen bilerak isilpean egin ziren, talde txikietan eta leku desberdinetan, gazte **militartuak** ezer suma ez zezaten. Karlos

Linazasoro

## militartxo *iz adkor* militarra.

Oker dago **militartxo** hau. Koldo Izagirre

## **militartze** *iz* militarizatzea.

Intifada **militartzearen** kontra agertu da; ez, ordea, palestinarrek erresistentziarako duten eskubidearen nazioarteko legeek onartua kontra. **Berria - Harian**  
Itzaliz doaz, pixkanaka, demokraziaren murriztearen eta **militartzearen** aurka protestatzen zuten ahotsak **Berria - Harian**

## **militarzale** *izond* militarren zalea dena.

Aitak etxetik bidali zuenean, Itsas Armadako akademian sartu zen, osaba aberats eta **militarzale** baten laguntzarekin. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Ohere kontuetan, beste edozein gizarte hierarkizatu eta **militarzaletan** bezala, Errusiakoan ere ezin zitekeen ohorearekin jolasean ibili. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## **militatu**, milita(tu), militatzen du *ad* erakunde edo alderdi politiko batean kide izan.

Nahiago dut funtzionatzen duen pentsamendu bakarraren aldeko izan, pentsamendu utopikoaren inoperantzia **militatu** baino. **Iñaki Heras**  
Anjelek ETAkoa zen arrea bat zeukan, Mexikon exiliatua, eta anaia bat, diktadura garaian ETAn **militatu** zuena. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Lehenago Jarrai gazte erakunde (1983-88) eta HASIn (1988-91) **militatu** zuen, **Berria - Euskal Herria**

## **militzakeria** *iz ipar* milikeria (?).

Ez ginuen hemen beste finala batzuen **militzakeria** hetarik, pilota perekatu nahi baitute zenbaitek jotzeko orde. **Herria**  
Segurki ere **militzakerian** ariko girela beti, "nik hau nahiko" edo "nik berriz hura"! **Herria**

miliun ik **milioi**.

miliunerdi ik **milioi 10**.

miliungarren ik **milioigarren**.

miliunka ik **milioika**.

milizi ik **milizia 3**.

## **milizia 1** *iz* armada baten ordeko edo osagarri gisa ari den taldea, soldadu ez direnek osatua.

Gero, berriz, nazionalistak fusalatzen ari zirela jakin genuen, eta goitik etorri zitzaigun ordena, **milizia** antolatu behar genuela Errepublikaren alde. **Xabier Mendiguren**  
**Elizegi**  
Ekialdeko Timorren dago, **miliziak** trebatzen! **Koldo Izagirre**  
Baina inork ez ditu **miliziak** desegin, eta hilketak ez dira bukatzen. **Berria - Harian**  
Estatu Batuetako Armadako eledunen arabera, **miliziako** kideek patruilan zebiltzan AEBetako soldaduei eraso egin ondoren hasi ziren aurrez aurrekoak. **Berria - Mundua**  
Bolikostan ez baitira gauzak hobetu azken aste hautan gobernuaren ta beste **milizia** jazarri batzuen artean. **Herria**

### 2 (izenondoekin)

Azken asteetan Nigerren deltan Shellek dituen instalazioak erasotu dituzte **milizia** armatuek. **Berria - Ekonomia**  
Barne Ministerioari eta Badr Brigadei SCIRI alderdi xiitari lotutako **milizia** herritar sunitak bahitu, torturatu eta hil izana egotzi diete. **Berria - Harian**  
**Milizia** islamistetako kide asko lotuago sentitzen dira herriarekin, errejimenarekin baino. **Berria - Mundua**  
**Milizia** nazionallean sartu nahi duten gizonak bilatzen ditut. **Elena Touyarou**  
Ermandadea: Errege Katolikoek sorturiko **milizia** zibila. **Patxi Ezkiaga**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **milizi**)

Karzairen gobernuak **milizia** taldeak desegiteko asmoa du, tartean Dostumen armada. **Berria - Mundua**  
Bere kontrolpeko Mehdiren Armada **milizia** talde xiita desarmatzea. **Berria - Mundua**  
Klodoveo **milizi** maisu karguan bere aita Txilderikoren ondorengo izan zela dio. **Iñaki Iñurrieta**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iragan maiatzaren 2an, ehunka musulman hil zituen kristau **milizia** batek. **Berria - Mundua**

### 5 irud/hed

Idazle eta zutabegile **milizia** antolatu batek, dudak, kritikak edo soilik ohar anodinoek betetzeko xedea lukeen zirrikituak oro tapatzen ditu **Berria - Kultura**

### 6 *miliziako* ik **miliziako**.

#### **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

janjauid **milizia** arabiarrek (11); mehdiren armada **milizia** (5); **milizia** arabiarrek (21); **milizia** arabiarrek desarmatzeko (4); **milizia** arabiarrek kontrolpean (3); **milizia** arabiarren (4); **milizia** xiita (3)  
al sadren **miliziak** (4); janjauid **miliziak** (8); **miliziak** desarmatzeko (9)  
**miliziako** kideak (3)  
aldeko **miliziek** (4)  
**milizien** desarmea (4)

## **miliziaburu** *iz* milizia baten burua.

Abuztuan haren arerio Amanula Khan **miliziaburuaren** gizonak Heratetik 30 kilometrora heldu ziren. **Berria - Mundua**  
Astelhehenean, presidenteorde izendatu zuten 27 urteko **miliziaburua**. **Berria - Mundua**

**Milziaburu** uzbekoa. Berria - Mundua

## milziakide *iz* milizia bateko kidea. ik **milziano**.

Bakea gurako duten **milziakide** guztiei eskaintzen diegu amnistia eta Gobernuak bermatzen die santutegitik libro irtengo direla euren armak utzi eta gero. Berria - Mundua

Zehazki, nahi duten **milziakide** guztiei aukera emango zaie Bagdadeko gobernuaren edo aginte autonomoen manupeko Polizia, Armada edo gainerako segurtasun indarretan sartzeko. Berria - Mundua

## milziako *iz* milzianoa.

Mosketariak **milziako**en zordun balira bezala jokatu dute oraingoan. Aingeru Epaltza

**Milziako**ek gu hirurok atzitu gintuzten, Aldo, Guido eta ni, artean erdi lo. Juan Garzia

Zerbaitegin behar-eta, **milziako**ek kutxa askatu eta barneak miatu dizkiote. Aingeru Epaltza

## milziana *iz* emakumezko milzianoa.

Frontetik natorren **milziana** naiz, ahantzi egin zaizue dagoeneko? Koldo Izagirre

## milziano 1 *iz* milizia bateko kidea. ik **milziako**.

Batzuk uatxepeko **milziano**ak ziren, beste batzuk euskal gudariak, motxila puztuekin, fusil mailatuekin, [...] pasatzen ziren etengabe. Joseba Sarrionandia

Al Fatari lotutako talde armatuko **milziano**ak. Berria - Mundua

Okupazio indarren kontra gehien borrokatu den buruzagi erlijioso xiitaren **milziano**ak. Berria - Mundua

Al Sadren aldeko **milziano**ek ez dituzte AEBak probokatu nahi, baina AEBek Najafi erasoz gero, haiek aurre egingo diete. Berria - Mundua

Lau **milziano** ari ziren ukabilak jasota kantari. Inazio Mujika Iraola

la 70 **milziano** sudandar hil dituzte soldadu txadarrek. Berria - Mundua

Gainerako guardia zibilak **milziano** sartzeko baldintzarekin utzi zituzten libre, eta **milziano** bihurtu omen ziren denak. Joseba Sarrionandia

Ate joka ekin nion harik eta kartzelazain ziharduen **milziano**ak etorri zen arte. Juan Garzia

**Milziano**etako batek ate itxi haietako bat seinalatu, eta, aulkitik zutituta, hara joan zen. Inazio Mujika Iraola

Kontua da, behintzat, gerra piztu, eta bera bizi zen komentuan **milziano**ak sartu zirelarik, haiekin joan zela segituan. Inazio Mujika Iraola

Darnand **milziano**en burua eta haien abrekeriak. Herria

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bebarruan guardian zegoen **milziano**-bikoteari paperak erakutsi, eta gora igotzeko esan ziguten. Inazio Mujika Iraola

**Milziano** txapela zeukanik ere bazegoen. Jon Maia

Gizasemea larrubizi baitzegoen, **milziano**-kapela bakarrik buruan. Inazio Mujika Iraola

Zenbaiten **milziano** izpirituaren asetzeko. Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**milziano hil** (5); **milziano xiitak** (3); **milziano xiitek** (3); **milziano xiiten** (7)

**milzianoz osatutako** (3)

## milziaz 1 *iz* milzianoa.

Bestalde, ospitale batean zauriturik zeuden 40 **milziaz** inguru hil ziren bonbardaketari alemaniarren bonben eraginez. Lutxo Egia

CNTko **milziaz**ekin topo eginez gero, aukera gutxi zegoela paseotik libratzeko. Lutxo Egia

Errepublikako **milziaz**ak han zirenetik, herriko jauntxo eta kazikeek alde egin behar izan zuten, beren finkak eta lur sailak lanerako erabil zituzten jurnalariek eta gudako lehen lerro bezala gudarosteek. Jon Maia

### 2 (izenondo gisa)

Argazkian CNTko emakume **milziaz** bi ere bazeuden, loteria denda baten aurrean, erretzen. Lutxo Egia

## milzkatu, milzka, milzkatzen (*6 agerraldi, 6 liburutan*) du *ad* milkatu.

Mihi zurbil-zabalak papera blaitu duen koipea **milzkatzen** du. Jon Alonso

Esnatu zenean muxuz jantzi zuen Monike, besapeetatik hasi eta orpoetaraino; hatzak **milzkatu** zizkion banan-banan, eskuetakoak eta oinetakoak. Eider Rodriguez

## millautar *izlag/iz* Frantziako Millaukoa, Millauri dagokiona; Millauko biztanlea.

Edonola ere, arazoa lekuz aldatu baino ez dela egingo ohartarazi dute hainbat **millautarrek**. Berria - Gaiak

## millorri ik **milorri**.

## miloi ik **milioi**.

## miloidun ik **milioidun**.

## miloka ik **milioika**.

# milonga iz argentinar jatorriko abestia, gitarra batez lagundurik kantatzen dena; orobat dantza.

Denbora emateko modu egokia da tangoak kantatzea edo **milongak** kantatzea. Unai Elorriaga

Ez zen tangoetan aipatzen, ezta **milonga** triste batean ere. Unai Elorriaga

**Milongetarako** letrarik ere konposatu zuen, jite bereko gizahiltzaile zenbaiten omenez. Juan Garzia

## milorri (orobat millorri eta milaorri) 1 iz belar landarea, zurtoin iletsua, hosto zatikatuak eta lore zuri edo arrosa-koloreak dituena (Achillea millefolium).

*Herbe aux charpentiers* deitzen omen zioten frantsesek **milorriari**, zurginek euren tresnekin egindako zauriak sendatzeko sendabelar bikaintzat baitzeukaten. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Ur gehixeago edatea ez dator batere gaizki, sendabelarren baten laguntzarekin hobe, sanjuanbelar edo **milorri** xorta bat, edo santiobelar puxkatxo baten tisanatxo prestatuz. Pello Zabala

### 2 milorri landare

Tratua egin ondoren, Akilesek bilatu zuen zelaian **milorri** landarea eta harekin garbitu zuen bere lantza. J.M. Olaizola "Txiliiku"

## milpa iz Mexikon-eta, artoa.

Gizonak ez dira etorri gaur merkatura, lanpeturik baitaude ildoak hausten urak beste uberkarik bila dezan eta **milpa** erne berria berekin eraman ez dezan. Juan Garzia

Han landetan **milpak** egurastu egin zituen bere hostoak eta ildoen gainera etzan zen haizetik babesteko. Juan Garzia

## milrraia 1 iz arraia fin-finak elkarren ondoan dituen ehuna.

Bizitza normalean, bere mahonezko praka, arkondara koadrodun, gerriko baltz eta txapel hutsik bakoz jazten zan errementari baserritarra, plazan **milrraiazko** praka, gerriko baltz, arkondara zuri, ohiko txapel eta bere zigarro ia innatoa ezpan ertzean behera eginean ebalatzen agertuko zan. Xabier Amuriza

### 2 (izenondo gisa)

Rufino eta Kepagaz, eurak be, uniforme eta guzti, praka **milrraia**, gerriko, arkondara zuri eta txaleko gorritz (edo jertse manga bakoz) joaten ziranez, [...]. Xabier Amuriza

## milu ik milioi.

## milurte (53 agerraldi, 7 liburu eta 39 artikulutan; orobat milaurte g.er.) 1 iz mila urteko epea, zero urtetik zenbatzen hasita

Hirugarren **milurte** honen hasieran. Herria

Hirugarren **milurtean** sartzeak ez ditu hatsa baitu. Herria

Akonplejatuen portaera gailendu da erabat azken **milurte** erdian. Patziku Perurena

**Milurte** zahararren amaierako Renon kokatutako istorio gurutzatuak batu ditu Javi Cillerok 'Ero hiria'-n. Berria - Kultura

Irudiaren erronkak **milurte** berrirako. Berria - Euskal Herria

Alemanian *Reichstag*-aren berreraikuntza eta Londresko **milurtearen** zubia aipatzen dira. Berria - Gaiak

NBERen **Milurtearen** Egitasmoko xedeetako bat da edateko ur egokia ez duen jendearen kopurua 2015. urterako erdira jaistea. Berria - Gaiak

**Milurteko** Egitasmorako ere erabiliko dutela gaineratu zuen. Berria - Gaiak

1998: urterik beroena, **milurteko** mende beroeneko hamarkadarik beroenean. Berria - Harian

*ik milurteko.*

Bigarren **milurteko** lehenengo mendeetan, biderketa bat egiten jakiteak gorengo administrazioako ate guztiak zabaltzen zizkizun. Jon Muñoz

*Time* aldizkariak Albert Einstein izendatu zuen **milurteko** gizon. Berria - Gaiak

**Milurteko** Goi Bileran 2000ko irailaren 6tik 8ra bitartean egin zuten New Yorken, eta 191 partaide izan ziren. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

### 2 mila urteko epea.

Higer lurmuturrean Antso III.a Erregearen **milurtea** dela-eta egindako ekitaldia. Berria - Euskal Herria

**Milurte** askotako zibilizazioa Jon Alonso

### 3 (hitz elkartuetan)

Urte, mende eta **milurte** aldaketa bizitzeko ohorea izan dugun belaunaldiak. Joxerra Garzia

Gure hirugarren **milurte** hastapen honetako mundua gisa hortarat egina da non, zikin eta ondarkin horiek oro gizonak behar baititu tratatu. Herria

**Milurte** Estadioan 75.000 ikusle sartzen dira. Berria - Kirola

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**cardiffeko milurte estadioan** (3); **hirugarren milurte** (3)

**hirugarren milurteko** (4); **milurteko helburuak** (3)

## milurtealdi (corpusean milaurtealdi soilik) iz mila urteko aldia.

Bestetik, hebreeraren irazkia, arbasoen bitartez aspaldi urrunetik kostatzen ahala kostatzen ekarria, hizkuntza sakratu eta hotsandikoa, geologikoa, hormaguneeen hobia bezala

**milaurtealdiek** leundua. Juan Garzia

## milurteko (116 agerraldi, 25 liburu eta 42 artikulutan; orobat milaurteko g.er. eta mileurteko g.er.) 1 iz milurtea.

III. **milurtekoan** gaude jada. Luis Elberdin

Zenbat eztabaida ez ote diren izan gure otorduetan mendearen eta **milurtekoaren** amaiera noiz izan den benetan jakin nahian. Pello Salaburu

Gure aro aurreko bigarren **milurtekoan**, Mesopotamian, Egipton, Babilonian eta Tebasen, badira matematikaren beste hasiera batzuk. Jon Muñoz

Dirudienez, posta-zerbitzu publikoa Sumer eta Akadeko Inperioko gobernu-makinariaren parte izan zen K.a. hirugarren **milurtekoan**. Iñaki Mendiguren

**Milurteko** berrirako opari! Jon Muñoz

Hirugarren **milurtekoaren** hasieran, mundu mailako ordena liberal baten sorreraren kontra estatuek eta gizarteek egiten duten erresistentziak ez duela indarrak batere galdu.

Koro Navarro

## 2 mila urteko epea.

Antso Handiaren koroatzearen **milurtekoaren** harira idatzi du Davantek igandean Amurrion antzetzuko den pastorala. Berria - Kultura

Haren koroatzearen **milurtekoa** bete den urte honetan. Berria - Kultura

## 3 (hitz elkartuetan)

1914ko abuztuan bukatzen den **milurteko** -laurdenean Mendebaldeko zientzialariak uste inozo bat izan zuen, alegia, mundua gero eta hobea izateko berak egin behar zuen gauza bakarra aurrikuntza berriak saldoan egitea zela. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**koroatzearen milurtekoa** (3); **milurtekoa dela eta** (3)

## milurteurren iz gertaera gogoangarri baten milurtea betetzen den urtea.

Joan den maiatzetik abiatu den Antso Handiaren **milurteurrenaren** oroitzeko ekimenak heldu den hilaren 30ean bururatuko dira Miarritzen. Berria - Kultura

Datorren asteazkenean, ordea, biluztu egingo dute, Antso Azkarraren **milurteurrenaren** bihamuna dela-eta Nafarroako Gobernuak Iruñeko Baluartean antolatatu duen munta handiko erakusketan paratzeko. Berria - Kultura

## mimatu, mima, mimatzen 1 du ad lainezaz bete. ik mainatu<sup>1</sup>.

Eta bilobarekin aprobetxatzen dute seme-alabekin ezin egin izan zuten guztia egiteko: **mimatu**, jolastu, nahi duena erosi, nahi duena egiten utzi... Arantxa Iturbe

Nire gurasoek asko **mimatu** izan naute beti, oso onak izan dira nirekin. Josu Zabaleta

-Ama, ez **mimatu** hainbeste umea -esan zion, emaztea gelatik irtetean-. Julen Gabiria

Bost miresle kantoi bakoitzean, hogeiren bat adiskide eta ezagun, irakasle gehienen gogokoena, aitik eta amak **mimatua**, nahi adina gozoki, dirua nahikoa... Josu Zabaleta

**Mimatua** izan naiz eta ez dut batzuk aipatzen duten sufrimendurik pairatu. Ana Urkiza

Eta argialetxe batek behar luke zaindu eta **mimatu** editatzen duen bere idazlea. Ana Urkiza

Badirudi bere neurrian onartu, estimatu, **mimatu** eta errespetatzen duela entzule ona, bere nolabaiteko sakrifizioa. Pako Aristi

## 2 irud/hed

Adierazitako errealitatearen soinu ezaugarriak **mimatzen** ditu horrelakoetan esaldiak, aliterazioaren bitartez. Iñaki Arranz

Honako honetan, formak edukia **mimatzen** du: [...]. Iñaki Arranz

Inork ez zituen [objektu horiek] ferekatzen, hautsa kentzen, begirada jeloskor babesle batez **mimatzen**. Joxan Elozegi

Berlinale itxi zuen *Pat Garrett & Billy The Kid*-en kopia eder, zaindu eta **mimatuarekin** batera. Berria - Kultura

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Are gehiago, bihamuneari, haur **mimatu** antzera, Axenariok jaiki baino lehen gosaldtu du. Itziar Otegi

Ni ez naiz edozer gauza eginda barre eragiten duen haurtxoa edo neska **mimatua**. Josu Zabaleta

Izaba Cecilia etxeko neskatxa **mimatua** izatetik izugarritzko ardura edukitzera pasatu zen denbora laburrean. Mikel Hernandez Abaitua

## mimen ik mihimen.

## mimesi 1 iz naturaren imitazioa.

**Mimesis** analogiaren aski sinonimo egokia da, funtsean. Josu Zabaleta

Zibilizazio baten gizarte-anatomian Akilesean orpoa [...] **mimesiarekiko** (imitazioarekiko) mendetasuna da. Iñaki Mendiguren

Ez dezagun pentsa ordea Petrarcaren antzinatearekiko jarrera hau **mimesis** antzu eta itsua zenik. Berria - Kultura

Jarraitzaile ohien jarrera aldatu egiten da, **mimesian** adierazitako miresmenetik gerrara daraman etsaitasunera. Iñaki Mendiguren

Bere jarrera zibilizazio horrekiko ez da jadanik begirune eta **mimesizkoa**. Iñaki Mendiguren

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik mimetiko.

Arteak tradizioan zuen **mimesi** -funtzioak. Josu Zabaleta

Iraultza **mimesi** -egintza atzeratu eta ondorioz lehergarri gisa defini daiteke. Iñaki Mendiguren

Kapitelean, ikusten da zuzeneko **mimesi** -prozesu baten (kapitel korintoarra akanto-hostoz inguratutako saskitxotik "asmatzea") eta beste prozesu geometriko huts baten [...] arteko diferentzia. Santiago Iruetagoiena

Modelatzearen **mimesi** -ahalmena [...] ez ote den izan ezaguera modu nagusia milioi bat urte edo gehiagoan. Xabier Olarra

Isplu-alderdia, **mimesi** -alderdia gehiago azpimarratu. Josu Zabaleta

Egia balitz etxera eramandako grabatu hartan bazegoela figurazioa [...] **mimesi** gradua oso primitiboa izanik ere? Iñaki Iñurrieta

Kanpoko ezaugarriak imitatzen dituztelako, beste era batera esanda, **mimesi** bidez, alegia. Iñaki Mendiguren

## mimetiko izond mimesiarena, mimesiari dagokiona. ik mimesi 2.

Jenio moduko bat dela irudiztapen konkretu edo **mimetikoetarako**, katedral bat, kanoi bat nahiz lore bat marrazteko. Xabier Olarra

Errealitatearekin harreman **mimetiko** handiagoa edo txikiagoa duen kontuan hartu gabe. Josu Zabaleta

Artearen bokazio **mimetikoaren** betegintzarrea, irudikapen orok bere barruan inplizituki daraman "errealitatea baltsamatzeko" desiraren adierazpen nagusietako bat da argazkiaren "errebelatzea". Josu Zabaleta

Hasieratik bereizi izan zirela [...] "kopiatazaileak" alde batetik, alegia artista **mimetikoak**, errealitateari xehetasunez xehetasun lotzen zitzaizkionak, eta artista heuristikokoak bestetik, hau da, asmatzaileak, naturaren zuzentzaileak. Bernardo Atxaga

Gaztetan egiten baita literaturarik **mimetikoena**, mediokreena, inpostatuena. Joxean Agirre

Hitzezkoaren eta **mimetikoaren** (edo analogikoaren) bereizkuntza hori oinarri-oinarritza da edozein narratologiatarako. Josu Zabaleta

## mimetikoki adlag era mimetikoan.

Miresmen horren adibiderik garbiena zen sekula zigarro bat probatu ez zuen Olatz erretzen hasi zela Marta harekin bizi zenez geroztik, **mimetikoki**. Harkaitz Cano

Lan kostuak ere bai, antza, eta adierazi du KPlren igoera (%3,7 iaz) ez dela zertan soldaten igoeran **«mimetikoki»** islatu. Berria - Ekonomia

Musika abstraktua denez ezin da **mimetikoki** islatu mugimendu mekanikoan, vals bat balitz bezala. Berria - Kultura

# mimetismo 1 iz mimetizatzeako gaitasuna.

Garai hartan banuen halako lider-gaitasun bat, baina ez inola ere **mimetismoak** sortzeko adinako sedukzio ahalmenik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Mimetismo** literarioaz ari naiz. **Ana Urkiza**

Etsaia boteretsua denean, **mimetismorako** joera dugu. **Berria - Kultura**

Alabaren antz berezkoa edo **mimetismoz** [...] lortua, mundu guztiak, epailea barne, miresten zuena. **Ramon Saizarbitoria**

Nire adineko kristautxoak zaharragoenganako **mimetismoz** eta mirespenez leloturik zeudelako. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Jai horietan garbi dago molde militarreko melodiak joko zirela, parodia gisa edo **mimetismo** hutsez, horrenbeste denboran gotorleku eta gudari leku izandako hiri batean ezinbestekoa zen bezala. **Askoren artean**

## 2 (hitz elkartuetan)

Horren adibide bikainak dira **mimetismo** -ahalmen harrigarria duten zenbait mozorro: inurri itxura hartzen duten armiarmak, atzealdean beste "buru" bat duten tximeletak, [...].

**Josu Zabaleta**

Berdeek ere «**mimetismo** ekintzak» deitoratzeaz gain, 2002tik gizarte laguntzetan izan diren murrizketak eta segurtasun politika jo zituzten gatazken oinarritzat. **Berria - Harian**

# mimetizatu, mimetiza, mimetizatzen 1 da ad landare eta animaliez mintzatuz, beste izaki batzuen edo gauzen itxura antzeratu.

Solovetskeko monasteriora zihoazen "Jainkoaren adoratzaileekin" batu zen, haien izaera eta itxurara **mimetizatuz**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Harresi erdi eroriaren arraiduran iguana bat ikusi dut, harresiarekin eta arraidurarekin **mimetizatua**. **Joseba Sarrionandia**

## 2 irud/hed

Giro delirante hartan ezagututako poeta asko *Los detectives salvajes* liburuan agertzen dira **mimetizaturik**, omenaldi gisan. **Berria - Kultura**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Lore edo hostoren batean pausatuta dagoen tximeleta **mimetizatua**. **Jokin Urain**

Erdira ematen zuten kale guztietan ageri ziren mutil taldeak, buzoj eta zapi gorri jantzita, edo behinolako partisano uniformeaz, txano **mimetizatuekin**, eta alemani edo amerikarrei lapurtutako galtza eta botekin. **Josu Zabaleta**

# mimika 1 iz ahozko hizkuntzari laguntzen dioten edo haren orde erabiltzen diren keinu adierazkorrak.

Eta telefonoz, **mimikaren** laguntzarik gabe, beti izaten da zailagoa menderatzen ez duzun hizkuntza batean hitz egitea. Ez zuen gaztelera oniegi hitz egiten, eta, apika, horregatik erabiltzen zuen abstrakzioaren **mimika**. **Harkaitz Cano**

**Mimikarako** iaioa zen; behiez, oiloiez, ardiez eta txakurrez hitz egitean, antzaldatu egiten zen, haien begirakune, mugimendu eta ahotsak imitatzen zituen, alai-alai jartzen zen, eta bera ere piztia modukoa bilakatzen, azti baten gisa. **Juan Garzia**

Keinuak eta **mimika**. **Josu Zabaleta**

Keinuen nazioarteko hizkuntza hau artifiziala da, ez da hizkuntza bat, eta gehiago oinarritzen da **mimika** edo keinuetan. **Berria - Euskal Herria**

Badaude pertsona batzuk keinuen hizkuntza ez dakitenak, baina **mimika** erabiliz oso ondo adierazteko gai direnak. **Berria - Euskal Herria**

Aurpegia ez da dadanik aurpegi, burezur bat da, azal-geruza batez estalia, eta gihar batzuekin, eta gihar horiek halako **mimika** bat egiten dute, eta **mimika** horrek niri O. irakaslea oroitarazten. **Joxe Austin Arrieta**

Uste zuen **mimika** desolatu hark gaizki ordaindutakoaren atsekabea adierazteko balio zuela. **Jon Alonso**

## 2 (hitz elkartuetan)

Aurpegi-**mimika** oso apurra da, halakoa izan da, behintzat, orain arte. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

# mimiko<sup>1</sup> izond mimikarena, mimikari dagokiona.

Egia esan, ez dira keinuak, gehienak adierazpide **mimikoak** -edo dira. **Berria - Euskal Herria**

Arratsetakoa gerra **mimikoa** ere goizetako eskolako beti-bata bezain asperrak bihurtu zitzaidan azkenean **Irene Aldasoro**

# mimiko<sup>2</sup> (orobat mimikoi) 1 iz loreen kaliza; erdiko muina, bihotza.

Lore zelaietan barrena eta bularerra **mimikoi** hautsiak eta arkume eroriak eramanez. **Anton Garikano**

## 2 irud/hed

Orduan kezka zahar baten inurria igan zitzaigun bihotzaren **mimikoraino**. **Koldo Izagirre**

Begiaren **mimikoa** erretzen du. **Koldo Izagirre**

# mimikoi ik mimiko<sup>2</sup>.

# mimo<sup>1</sup> 1 iz maitasun edo txera adierazpena.

Vanessak sarritan egiten zizkidan **mimoak**. **Jon Arretxe**

Egunetik egunera amarekiko hotzago eta erdeinutsuago nagoea, aitari geroz eta **mimo** gutxiago egiten diodala. **Josu Zabaleta**

Emaztea **mimo** jeloskorrak egiten ari zaio; senarrak maitasun hitzak xuxurlatzen ditu. **Xabier Paya**

Lasaitu zirenean, ni igurtzika hasi ziren **mimo** guztiaz, neskatilak bere panpinekin bezala. **Juan Martin Elexpuru**

Ondo zaindu eta **mimo** handiz hartu ninduten. **Rafa Eiguren**

Besteak alua garbitzen zehatz-mehatz, eta Kikok atzetik atontzen zidan nire zuloa, **mimo** guztiz. **Juan Martin Elexpuru**

## 2 irud/hed

Mimoz eta arretaz dago idatzia, eta antzeko **mimo** eta arreta eskatzen digu guri, esaldiz esaldi. **Unai Elorriaga**

Ardo gaztea **mimo** guztiz zaintzen. **Pello Zabala**

**Mimo** handiz prestatu baitzuten ezkontza, dena bere tokian balego bezala. **Xabier Etxabe**

1992an Bilboko Arte Eder museoak haren lanekin atunduriko erakusketa «konpromiso hutsagatik, arin-arin eta **mimo** barik» eginikoa izan zela uste baitu. **Berria - Kultura**

## 3 (batez ere umeekikoez mintzatuz, gaitzezgarritza hartua)

"**Mimo** gehiegi ematen diozu", entzun du gogoan aitaren ahotsa. **Xabier Mendiguren Elizegi**



Etetik alde egiten dugu munduko izakirik bihozgabeenak bezala, erakargarriak izan arren horixe baitira umeak; eta geure buruarengan baino ez dugu pentsatzen, eta, **mimoak** behar ditugunean, modu noblean bueltatzen gara **mimoen** bila, pentsatuz sarrituak izango garela, zigortuak izan beharrean. **Julen Gabiria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mimo handiz** (4)

## mimo<sup>2</sup> 1 iz egintzak keinuen bidez irudikatzen dituen artista.

Harik eta ibaira ematen zuen plazatxo baten erdian **mimo** bat ikusi nuen arte: geldidun zegoen, batuta bat jasorik orkestra ikusezin baten aurrean. **Anjel Lertxundi**

Betiko **mimoa** dakusa bertan, betiko bere numeroa egiten: pailazoz jantzita, aurpegia tximeleta gorri bat. **Harkaitz Cano**

Etenaldi horretan Peter Roberts **mimoarekin** gorputz adierazpenari buruzko ikastaroa egin zuten. **Berria - Kultura**

Sangarre ez zebilen dantzan, baina **mimo** bat bezala jarri zen bere dantzarien erdian, eta pauso zoragarriak egin zituzten haren inguruan. **Karlos Zabala**

Eseri naiz, baina urrunegi ondo entzuteko, erizaina eta Goio **mimo** antzezleak dira niretzat, eta erizainaren aginduak imajinatu baizik ez ditut egiten. **Joseba Sarrionandia**

Hori egin nahi izan du Lindsay Kemp dantzari, **mimo**, zuzendari eta koreografo eskoziarrak.Txanpon batzuk bota nituen **mimoaren** kapelu beltzera. **Berria - Kultura**

## 2 egintzak keinuen eta gorputz higiduren bidez irudikatzeiko antzea eta teknika.

Melvillek ederto menperatzen dituelako arte eszenikoetako hainbat teknika, hala nola **mimoa**, ekintza fisiko ia akrobatikoa, istorioak kontatzeko trebezia agortezina eta, zalantza barik, interpretazioa. **Berria - Kultura**

Irudiaren antzerki modernoa dantza eta **mimoarekin** elkartzen ditu. **Berria - Kultura**

Ordura arte **mimo** berritzailearen aitzindaria zelako Els Joglars. **Berria - Kultura**

Bonba atomikoaren kontrako bilkurak antolatzen hasi gara, eta bilkura haietan **mimoa** eta malabareak egin nahi ditut bakearen alde: Arlekin, deus ere ulertzen ez duena; Sganapino, suarekin jostatzen dena; Zane, musikari zirtolaria **Fernando Rey**

## 3 (hitz elkartuetan)

**Mimo** -imintzioak egin nizkien: igoz doan hari bat, eskuarekin gora airean, gero birbilkatu egin dut, orduan ematen du oztopo bat topatu dudala; ez, korapilo bat da, desegin beharreko ezerezezko korapilo txiki bat [...]. **Fernando Rey**

Saio handietan, ordea, bertsolariaren eta entzuleen arteko tarteak baliorik gabe uzten ditut bertsolarien **mimo** -estrategiak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

## mimogile iz mimoa.

Berezko antzezle eta **mimogilea** zen, are artean ia hitzik esaten ez zekienean ere. **Xabier Olarra**

## mimografiatu izond

Irakurle sutsuek kopia **mimografiatuak** egin zituzten adiskideentzat. **Ramon Etxezarreta**

## mimograma iz

**Mimogrametan**, hitzaren irudi idatzia erreferentearen irudia ere bada. **Iñaki Arranz**

## mimoka adlag mimoak eginez.

Behin baino gehiagotan amets egin det norbaitekin pasiatzen detala, musuka eta **mimoka** ... **Joxean Sagatzizabal**

## mimontzi izond adkor oso mimosoa.

(Anderearen besoetan amilduz, **mimontzi**): bekatu ugari egin duzula diozu, laztana, baina nik, Jaungoikoari eskerrak, bakar bat ere ez. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## mimosa<sup>1</sup> iz lekadunen familiako zuhaitza edo zuhaixka, eremu beroetan hazten dena, bola moduko lore hori txikiak eta urrintsuak ematen dituena (Acacia dealbata).

Itsasoari begira eta **mimosa** zahar baten hegalean dagoen jarlekua izaten nuen gogokoen. **Hasier Etxeberria**

**Mimosaren** adarrak kulunkan hasi dira itsas aldetik datorren haize bolada leunak eraginda. **Patxi Iturritegi**

Iturri ondoko **mimosaren** azpira doa orain, handik bista hobe izango duelakoan. **Patxi Iturritegi**

Parkeko gure eserlekuan, **mimosen** azpian, Peneloperen antzera, niretzat trikota egiten. **Hasier Etxeberria**

Sargori dago, eta **mimosaren** usain melengak itolarria areagotzen dio. **Patxi Iturritegi**

Liburu-dendako diru-kutxaren gainean, hantxe beren lore-ontzian, **mimosek** ez zuten beren usain ona galdu. **Jon Muñoz**

## mimosa<sup>2</sup> izond (emakume) mimosoa.

Ales... - **mimosa** jartzen bazekien, hitz goxoak erabiltzen eta hitzen gozoa azukre-uraz bustitzen- Ales, mesedez... **Jasone Osoro**

## mimoso izond mimoak, txerak oso gogoko dituena.

Ezertaz ohartzen ez den ume txiki eta **mimoso** bat izango banintz bezala. **Joxemari Urteaga**

Aitak erreumarekin asko sufritzen zuen eta, horretaz gain, **mimoso** hutsa zen. **Ana Urkiza**

Demagun neska dela kasu honetan **mimosoena** eta mutila eskutik helduta daukana eta honen eskua aske uzten ez duena hau libratzen saiatu arren. **Harkaitz Cano**

Gurasoentzat etxeko umea, anaiarentzat etxeko **mimosoa**, etxeko erregea deitu zenidan atzo. **Joxemari Urteaga**

miñ ik min.

# min<sup>1</sup> (orobat min<sup>g</sup> er.) 1 iz gorputzaren alderen baten nabaritzen den sentipen nekagarria. ikoinaze.

Goragalea eta buruko **min** izugarriak eragin zizkidan bigarren txerto hark. [Joxan Elozegi](#)

Kolpearen lehendabiziko momentua pasatu ondoren, biziagotzen ari zitzaidan **mina** sudurrean eta ahoan. [Ramon Saizarbitoria](#)

Lehen xurgada mentolatuarekin batean sumatu nuen nola indarberritzen zen apaltzera egindako buruko **mina**. [Aingeru Epaltza](#)

Ipurkonkorreko **min** hura, berriz, noiz hasi zitzaion? [Imanol Zurutuza](#)

Filma ikusten ari ginen sofan eserita, eta, bat-batean, **min** sentitu nuen bularrean. [Oskar Arana](#)

Lanari jarraitzen dio, baina **minak**, zer gizona!, **min** zorrotzak ez dio hirugarren aitzurkada bat ematen uzten. [Pako Aristi](#)

**Mina** hasi zitzaion, pixkanaka, gorputzaren atalez atal sai talde bat haragiari tiraka hasi balitzaio bezala. [Pako Aristi](#)

**Mina** geruntze aldera zabaldu zaio, ezker giltzurrunaren gain ingurura. [Pako Aristi](#)

**Mina** kentzeko dosia gogorra izanzen da eta morfina gogoa lausotuko dizu. [Joseba Sarrionandia](#)

Eta sendatu ez [...] baina "gaiztorako denak" kendu zizkiola, bai **minak** eta bai inoren aurka egiteko grina. [Bernardo Atxaga](#)

Hamalau miligramo brompton, lau ordurik behin, **mina** itzuli baino lehenago. [Joseba Sarrionandia](#)

-Eta nola eraman ditzaket pazientzia gau eta egun oinazetzen nauten etengabeko **min** hauek? [Askoren artean](#)

Egindako **mina** jasotako **mina** da, eman ez genuena galdu genituen gauzen artean dago pilatuta, ulertzen jakin ez genuena gehiago da itsuskeria itsutasuna baino. [Pako Aristi](#)

Askoren **mina** tontoen atsegina. [Luis Elberdin](#)

## 2 (izenondoekin)

**Min** handia sentitu nuen papera irakurtzean, ez dago dudarik. [Ramon Saizarbitoria](#)

Minbiziaren lehenengo abisua **min** bizi baten itxuraz agertu zen. [Iñaki Arranz](#)

**Min** zoli batek sorbalda eta besoa hartu zizkion eta burura hedatu zitzaion, zorabiatu arte. [Joanes Urkixo](#)

Bizkarreko **min** zorrotza datorrenean, Nabokoven tximeleta sentitzen naiz, entomologo batek orratzez alderik alde ziztatua. [Iñaki Iñurrieta](#)

Barruak erretzen zizkion **min** sakona begietan islatuta zeukan. [Joanes Urkixo](#)

**Min** itogarri batek estutzen zizkion saiheutsak. [Lopez de Arana](#)

Begietako gaixotasunak eragiten zion **min** izugarriagatik. [Askoren artean](#)

Bi egunetan zehar oihu eta orro egon zen **min** ikaragarriagatik. [Askoren artean](#)

**Min** lazgarria sentitu dut muinetan. [Josu Landa](#)

Aspaldikoa zuen buruko **mina** izateko joera, bazekien zer ziren buruko **min** bortitzak, baina oraingo horiek bestelakoak ziren, bestelako sumatzen zituen. [Imanol Zurutuza](#)

Gorrotoaren ziztadak **min** itzela eragin zidan arren, isilik segitu nuen. [Edorta Jimenez](#)

**Min** alimaleko batek buru guztia harrapatzen dio, garondo eta kopeta. [Aingeru Epaltza](#)

**Mina**, **min** itsusia, mailu-konpresore bat ta-ta-ta hezurren artean, garondo inguruak oinaze batean zapartatzen zizkidana. [Aingeru Epaltza](#)

## 3 (adiera abstraktuagoetan)

Horregatik, **mina** ez da identifikatu behar propietate edo gertakari neurofisiologiko orokor batekin, haiek gudan eragiten dutenarekin baizik, alegia, haien rol kausalarekin. [Askoren artean](#)

Gizakion jokoaren funtsa plazera bilatzea eta **minari** ihes egitea dela. [Markos Zapiain](#)

Ez baitzen gorputzeko **mina**, ezta arimarena ere, tristezia eta haserrearen diren bezala; ez, **min** fisikoa zen, distantziak eta espazioak eragindako **mina**. [Felipe Juaristi](#)

Nire **mina**, ordea, nire egarria, bizi markak ziren, zer-nolako purgatoriotan nintzen batera garbi ez izan arren. [Aingeru Epaltza](#)

Gogo-egoerak (**mina**, beldurra...) zuzenean ezagutzen ditugu, lehenengo pertsonan. [Askoren artean](#)

Heriotzak galera eta galerak **mina** baitakar. [Eider Rodriguez](#)

Handia da nire nahigabea, etengabea nire bihotzaren **mina**. [Elizen arteko biblia](#)

Da Ruak bazekien **mina** oinarrikoa dela gizakiengan, **min** garena guztiok jaiotzetik heriotzaraino, **min** garena gaztarotik zahartzararaino. [Felipe Juaristi](#)

Izugarria behar du, bai, orain ezin kanporatuz barrenak erretzen dizkion **minak**. [Jokin Muñoz](#)

Zutik dago, **minez**, **min** sorrez, **min** sarkorrez, barne suzko **minez**. [Felipe Juaristi](#)

Betaurreko beltzak jantzita ere, **min** urtsu eta suntsizaille baten erasoari nabari zitzaion Josefinari. [Aingeru Epaltza](#)

Bihotzean **min** du Lizardi poetak, eta hiletaren eresia ondu du, amona zenaren ehortz-egunean. [Imanol Zurutuza](#)

Giza larruak mundua bitan banatzen du: kolorearen aldea, batetik; **minarena**, bestetik. [Felipe Juaristi](#)

-Bastiza honen **mina** eta tristezia ez ditu nehondik ere gauaren ilunak gordetzen ahal. [Michel Oronoz](#)

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta goiz-txinta etorri berri hark, argiaz gainera, gihar-**minak** ere ekarri zizkigun, gorputz-ajea. [Karlos Linazasoro](#)

**Min** ziztada zorrotz batek zeharkatu zidan bihotza. [Alberto Ladron Arana](#)

Eskumuturretako bat hazita dauka eta **min** -taupadak jotzen dizkio. [Oskar Arana](#)

**Min** -arrasto bat sentitzen zuela esan ziola emazteak egun batean. [Imanol Zurutuza](#)

Hain lehor nuen eztarria ezen **min** -taupada sorrak sentitzen baintuen, zintzurreen beste bihotz bat banu bezala. [Alberto Ladron Arana](#)

Aditu ditugun alarau, aiene eta **min** -kexuetan igarri diat gaitza zein den. [Edorta Jimenez](#)

Oihua izan zen, oihua, **min** oihu urragarria. [Felipe Juaristi](#)

Dobbyren **min** -oihuak entzuten zituen. [Iñaki Mendiguren](#)

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haur **minak** hasiak ziren arratsaldeko 7etan, aldiz haurra ez da jinen bihamun goizean baizik, 11 orenetan. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Erditze-**minak** hasi zitzaizkion gauean, Juana Bixentaren amak, keinu kortesiatsu batez, alboko gela batera bidali zuen indianoa. [Anjel Lertxundi](#)

Baina artean Efratetik urrun samar zeudelarik, Rakelek erditze-**mina** sentitu zuen. [Jose Antonio Mujika](#)

Estu-estu eginda ikusi zituen haren begiak, barne-**min** bat sentitzen denean bezala. [Juan Garzia](#)

Itxaron-**min** geldigarri halako bat jabetu zen nitaz, eta beldur nintzen bihotzaren mailukadek ez ote ninduten bertan gelditzera behartuko... [Eduardo Matauko](#)

## 6 maite den zerbaiten edo norbaiten faltak edo urruntasunak eragiten digun goibeltasunezko egoera. ikherrimin; nostalgia.

Eta ikusi gabeko itsasoaren **minak** bortizki zauritzen zuenean biolina hartu eta joka hasten zen. [Felipe Juaristi](#)

Handitzea ere gauza bera baita, gauza kuttun batzuk betiko galdu izanaren **mina**. [Antton Olano](#)

Zuk ere bitartekorik gabeko hizketa haien **mina** eta beharra sentitzen zenuen, nonbait, behin baino gehiagotan aipatu baitzenidan bazkaltzeko-edo bildu egin beharko genuela, "aspaldiko garaietan bezala". [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Sorteriaren **minak** ez dio hain bakan zimiko egiten. [Aingeru Epaltza](#)

Bizitzaren **minak** alaitasun oro ezabatzen du, bizipoza desagertzearaino. [Iñigo Aranbarri](#)

Loreak eta irudi erlijiosoak, semearen heriotzaren **minak** zeharkatu dituen bihotzen lasaigarri, bizitzako nekeen atsedengarri. [Pako Aristi](#)

Eta iragandako garaiazen mira sumatzen nion orduan aitari, lagunaren neskegatik ez baina lagunaren akorduegatik **minez**, etxeko sukaldetik kanpo ezin baitzuen ia beste inon aipatu. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sabino Aranak azeria galzorian sumatu zuenean sentitu omen zuen halako sorteri-**min** bat, Euskal Herriari eusteko oinarri politikoak jartzera eraman zuena. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Harik eta Espainia-**mina** jasanezin-edo egingo zaion arte. [Edorta Jimenez](#)

Ematen zuen auzoak zerua erakartzen zuela, [...] istorio eta kantu zaharren lilura erakartzen zuela, urruti **mina** erakartzen zuela hainbat bizitzen habia izandako auzo txiki abandonatu hark... [Anjel Lertxundi](#)

Bataren aita-**mina** eta bertzearen gizon-**mina** ? [Aingeru Epaltza](#)

Herri-min eta giza **min** elkartasunezkoak eraginda edo Ogasun Sailak hartararuta den, ez dagokit juzkatzea. [Anjel Lertxundi](#)

Tokia ezaguna nuen: erretegi arrandiatsu bat, landa-**minaren** aitzakian kanporatzen diren hiritarren sabelak betetzen espezializatu. [Aingeru Epaltza](#)

"Playa Girón-en" ginen, Alde Zaharreko jatetxe tiki batean, jabeen iraultza-**mina** jakien ukitu hego-amerikarrera eta garbitasun nola-halakora bihurtzen duten horietarik. [Aingeru Epaltza](#)

Nire bihotza ez da handi-**min**, ez nire begiak gorazale. [Elizen arteko biblia](#)

Baina oraindik ere iragan-**min** malenkoniatsua sortzen ziona João Cristão hondartzan galdutako biola bat zen. [Bego Montorio](#)

Edo betiko joandako gaztaroaren lehen-**mina** adierazi nahi zigun, osasuna gero eta kaxkarrago zeukalarik? [Juan Kruz Igerabide](#)

## 8 gogo bizia.

Haatik, mendeku-**minak** itsua izaten daki, ausardiak bezainbestean. [Edorta Jimenez](#)

Mendeku-**min** eta guzti, Rafael Leonidas Trujillori desafioa egiteko ausardia behar zen. [Edorta Jimenez](#)

Gero eta jende gehiago ari zen hurbiltzen, eta hasierako berri-**mina** eta murmurioa kalaka bilakatu zen, jendeak erreparorik gabe eta ozen egiten baitzituen ekarpenak, galderak eta kabalak. [Anjel Lertxundi](#)

Liburua ohe ondoko mesanotxean utzi duzu, lo-**minak** batu eta azken aharrasui batek kandela erdi agortua itzali du. [Xabier Paya](#)

Hura edo hau dela kausa, ez dago ukatzerik: lehen-go suge-dantzak ikusteko **mina** gutxitu egin da. [Gotzon Garate](#)

Ximurra ez zen noski nire erantzunaren **minean**. [Aingeru Epaltza](#)

## 9 gaitza.

Zalduneria-**minetik** sendatu eta gero. [Patxi Ezkiaga](#)

Neska haren donarioak zentzua lapurtu ziela esan ohi zuten ingurueta mutil gazteek, amodio-**minetan** egoteak loa ebatsi ziela ostatutik igarotzen zirenek, neskaren bihotz-hoztasunak taupadarik gabe utzi zituela inguruko gizonetako guztiek. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

## 10 bihotz min ik bihozmin.

### 11 erortzeko min ipar epilepsia.

Ofizioko gizonak berehala, **erortzeko mina** zela, dudarik gabe. [Michel Oronoz](#)

**Erortzeko mina** bertze zerbaiten seinalea ditakela, Lurraren amodioarena, eta amodioak sortzen baitu usaian eta berekilian ekartzen baitu, kasik beti, amodio mina, aspaldiko gizon emazteen esperientzia zela eta, amatxik erraiten zeakan hortakotz zutela gure arbasoek **erortzeko mina**, 'lur-mina' deitzen. [Michel Oronoz](#)

Adibidez, **erortzeko mina** dutenek (erorteko mina: Zuberoako baserriarrek horrela esaten diote epilepsiar) [Gotzon Garate](#)

## 12 min egin

**Min egiten** duen eskua zara, eta sendatzen duen eskua aldi berean. [Joseba Sarrionandia](#)

Auto barruan eserita, **min egiten** zion sorbaldak Joxe Mariri; horregatik, arnas laburka hartzen zuen airea. [Juan Kruz Igerabide](#)

Kumeari **min egiteko** beldur zen. [Martin Anso](#)

**Min egin** dio begietan koloreen dantza eroak. [Hasier Etxeberria](#)

Eskua ahotik kendu eta errebolbera saihestean iltzatu zion, **min egin** arte. [Migel Angel Mintegi](#)

Bakartze zorrotzak **min egiten** dio zure alde sozialari; zure pertsonari, finean. [Filipe Bidart](#)

**Min egin** zidan konturen bat ere entzun behar izan nuen, aita zure txotxongilo hutsa besterik ez dela. [Josu Landa](#)

Beharbada titienak egin zidan bereziki **min**. [Ramon Saizarbitoria](#)

Ez zekinat zer dela eta egin nahi didanan **min**. [Antton Olano](#)

Horrek ere biziki **min egin** zidan. [Daniel Landart](#)

Beste guztiek batera baino askoz **min** gehiago **egin** zidaten bi piztia haiek. [Juan Kruz Igerabide](#)

Geure buruari **min egiteko** joera. [Markos Zapiain](#)

## 13 min eman

-Aizan, **min eman** didan! [Antton Olano](#)

Zerrioi! ipurditik ez! **min ematen** dit! [Juan Martin Elexpuru](#)

Eztarriak **min eman** zidan irri egitean. [Aingeru Epaltza](#)

Bat-batean, gogor heldu zidan; besoan **min emateraino** gogor. [Inazio Mujika Iraola](#)

Gorputza hoztearekin batera saihesta **min ematen** hasi zait. [Bernardo Atxaga](#)

Atzera begiratzeak **min ematen** badu, aurrera begiratu eta kito. [Unai Iturriaga](#)

Pareten suntsipenak **min** gutiago **eman** zion pareta barnekoaren desagerpenak baino. [Aingeru Epaltza](#)

Bakardadeak **min** gehiago **ematen** du milaka bakardadez inguratuta dagoenean. [Harkaitz Cano](#)

## 14 min hartu (orobat minartu g.er. eta minhartu g.er.)

-Arren, amatxi, **min hartuko** duzu. Bidean erori eta **min hartu** nuen. [Itxaro Borda](#)

Ontzi bat jo eta orkatilean **min hartuta**, [...]. [Koro Navarro](#)

-Han hartu nian nik **min**, eta bizitza osoan bota diat ezker pausoa oker-antza. [Pako Aristi](#)

Mikelek **min hartzeraino** estutu ditu eskuak fusilaren inguruan. [Aingeru Epaltza](#)

Nik esango diat nola hartu huen belaunean **min**. [Pako Aristi](#)

Ez zuen Santxok **min** gutxi **hartu** bere bihotz-ondoan, hau guztia entzun zuenean [Patxi Ezkiaga](#)

## 15 min hori larumina.

Auzoko andeari erukia agertu zitzaion aurpegian, bazirudien doluminak eman behar zizkiola, urdaitegiko txerri guztiak **min horiak** jo izan balitu bezala. [Karlos Zabala](#)

## 16 min izan du ad

Itxoin, **min dut** eta. [Luis Elberdin](#)

Honela, atal batek **min duenean**, **min dute** atal guztiek berarekin. [Elizen arteko biblia](#)

**Min** du eskumuturrean, begiak erretzen, buru gaineko azala minberatuta eta suminkor. [Oskar Arana](#)

Gripe tzar bat ukan banu bezala, hezurren juntura gehienetan **min** nuen. [Daniel Landart](#)

Lizardi honek behatzean **min** dik. [Iñaki Iñurrieta](#)

Ikusten dut mundua, mila logos berri ergel sortuz progresatzen doala, eta gure herrixka euskaldun mixerable hau ere horren inbidiaz galtzera doala, eta **min dut** bihotzondoko zainetaraino. [Patziku Perurena](#)

Horiek hola, **min** dut euskara beheiti ari baita. [Herria](#)

## 17 min zuri zorabioa. ik mintxuri.

Egiatzko ugatz baten antzera puzten ari zela ohartu nintzenean, **min zuriak** joko zidala uste izan nuen une batez. [Joxan Eloseg](#)

**Min** zuri mende gertatu nintzen ia-ia. **Joxan Eloseg**

## 18 mina egin

Biarritzeko mundialean gertaturiko gauza askok **mina egin** zidaten. Neure buruari esaten nion beti dagoela **mina egin** nahi dizun norbait. **Berria - Kirola**

Buruko **mina egingo** dizu. **Xabier Olarra**

Liburuen negozioia hain da dibertigarria, urdaileko **mina egiten** zaigu barrearen barrez. **Oskar Arana**

-Esan dizut izugarritzko **mina egiten** didala jendea zutaz galdezka aritzeak -esan zuen neska-. **Mirentxu Larrañaga**

Ez dakizu, horretara joanda, nolako **mina egin** zenidan. **Txillardeg**

**Mina egin** zien begietara argi eskas hark bat-batean; **mina**, argiaren urritasunak, begiak zabalzera behartu baitzuten emakume biak. **Felipe Juaristi**

-Zuk egindako **mina** bueltatu behar nizun. **Bernardo Atxaga**

Kritikak **min** handia **egiten** zion mugimenduari. **Bernardo Atxaga**

## 19 mina eman

Promesarik gabe, **mina emango** digun ezer egin gabe. **Jon Muñoz**

Eta **mina eman** ziola begietan, hainbesteko distira zuen. **Karlos Zabala**

Sabel-arrabia neukan eta sekula ez bezalako **mina ematen** zidan. **Jesus Mari Mendizabal**

Izterrak egundoko **mina ematen** zidan. **Txillardeg**

Zauri madarikatu honek **mina ematen** zidak oraindik. **Alberto Ladron Arana**

Berdin zion zenbaterainoko **mina eman** zioten nire hitzek, ezin pentsatzukoa iruditzen zitzaidan Rachelek ez erantzutea. **Min** handia **ematen** duela entzun dut. **Oskar Arana**

Saihetseko zauriak **min** sorra **ematen** zidan. **Alberto Ladron Arana**

Potzoloren irriño zuriak istant bat lehenagoko haren hitzak baino **min** handiagoa eman zidan. **Aingeru Epaltza**

## 20 mina hartu

**-Mina hartu** al dun? -esan zion. **Koro Navarro**

Une oro aldatzen zuen urratsen luze-laburra, ibiltzean **mina hartuko** balu bezala. **Lopez de Arana**

Amorrazioz beterik ukabilkada batez ispilua txikitu, eta sekulako **mina hartu** zuen. jostorrazaz **mina hartu** zuen eskuturrean eta oinazeko espantua baliatu zuen Mentxuk aurreko gaiari eusteko. **Xabier Olarra**

Neska hark etortzeari utzi egin zion, eta nik haren falta **mina hartzeraino** sentitu nuen, hau idazterainoko mina: [...]. **Pako Aristi**

**Min** handia **hartu** zuen aitak. **Gotzon Garate**

## 21 mina izan

**Mina du** sudurzuloetan, ezpainetan; pentsatzen ari da: "**Mina dut**". **Monika Etxebarria**

Oren erdi baten buruan, sekulako buruko **mina nuen**. **Filipe Bidart**

Hanketako **mina dut**, ez daukat arropa freskorik, ezin ditut ontziak garbitu bero honekin! **Min** handia nuen sabelean. **Josu Zabaleta**

Buruko **min gaitza** banuen. **Janbattit Dirassar**

Atzo buruko **min** handia izan nuen, eta goiz joan nintzen ohera. **Josu Zabaleta**

## 22 minaren minez

**Minaren minez** begiak hetsi nituen. **Daniel Landart**

**Minaren minez** lurrera belauniko erori zenean, Agustinak beste ostiko bat eman zion buru-buruan. **Aitor Arana**

Mutila **minaren minez** erdi zorabiatuta gelditu zen. **Gotzon Garate**

-Ez da txakurra -erantzun zien Ronek kexu, hortzak estututa, **minaren minez** -. **Iñaki Mendiguren**

## 23 urrun-min

Tristura eta **urrun-min** kutsua hartu nion Templek hartaz esandakoari, are mingostasun pixka bat. **Xabier Olarra**

Bilaketa horrek ekarri ziola Rothi bere lanetan nabaria den judu-eslaviar melankolia, haren kasuan Habsburgoen monarkiaren azken urteen eta Europa ekialdeko juduen mundu galduaren **urrun-minaren** forma hartu zuena. **Matias Mujika**

## 24 zinak eta minak

Zazpi orenen buruan oraino trantze berean zegoen, **zinak eta minak** ikusiz. **Eneko Bidegain**

Eta orduan izan zen triskantzta, eta orduan izan ziren **zinak eta minak** eta oihu erdiragarriak! **Joan Mari Irigoien**

Eta orduan izan zen triskantzta, eta orduan izan ziren **zinak eta minak** eta oihu erdiragarriak! **Joan Mari Irigoien**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**bihotz min** (11); **bizkarreko min** (10); **buruko min** (90); **buruko min handia** (10); **hartu zuen min** (65)

**min apur** (9); **min apur bat** (9); **min asko** (20); **min bizi** (13); **min bizia** (11); **min biziaren** (9); **min du** (23); **min dut** (20); **min egin** (138); **min egin zidan** (11); **min egin zion** (8); **min egingo** (28); **min egitea** (10); **min egiteko** (39); **min egiten** (175); **min egiten du** (17); **min egiten zidan** (14); **min egiten zion** (8); **min eman** (85); **min eman zidan** (14); **min eman zion** (9); **min emanez** (8); **min emango** (16); **min emateko** (21); **min ematen** (188); **min ematen dit** (25); **min ematen du** (10); **min ematen zidan** (17); **min ematen zion** (13); **min ere** (8); **min gehiago** (32); **min gehien** (18); **min gutxiago** (13); **min gutziak** (9); **min handia** (266); **min handia egin** (89); **min handia egiten** (42); **min handia ematen** (19); **min handia hartu** (9); **min handiag** (39); **min handiag** (9); **min handiak** (16); **min handiena** (8); **min hartu** (320); **min hartu du** (31); **min hartu nuen** (13); **min hartu ondoren** (10); **min hartu zuen** (148); **min hartuko** (10); **min hartuta** (483); **min hartuta dago** (58); **min hartuta daude** (38); **min hartuta daudelako** (9); **min hartuta egin** (10); **min hartuta egon** (51); **min hartuta jarraitzen** (20); **min hartutako** (18); **min hartzeko** (10); **min hartzen** (33)

**partidan min hartu** (8); **sorbaldan min hartu** (8); **tripako min** (13)

**bihotzeko mina** (8); **bizkarreko mina** (15); **buruko mina** (135); **buruko mina ematen** (9); **eragindako mina** (8); **eskuko mina** (21); **eztarriko mina** (11); **giharretako mina** (8); **hagineta** (8); **hanketako mina** (13); **izugarritzko mina** (10)

**mina areagotu** (12); **mina arintzeko** (15); **mina ase** (8); **mina daukat** (8); **mina du** (32); **mina duela** (8); **mina duelako** (9); **mina dut** (20); **mina egin** (22); **mina egiten** (17); **mina eman** (14); **mina ematen** (44); **mina eragin** (8); **mina eragiten** (14); **mina hartu** (22); **mina hartu zuen** (10); **mina izan** (24); **mina izaten** (11); **mina kentzeko** (12); **mina neukan** (8); **mina nuen** (14); **mina piztu** (32); **mina sentitu** (23); **mina sentitu nuen** (8); **mina sentitu zuen** (8); **mina sentitzen** (22); **mina sortu** (10); **mina sortzen** (15); **mina zeukan** (15); **mina zuen** (16)

**sabeleko mina** (14); **tripako mina** (29); **urdaileko mina** (8)

**buruko minak** (29); **minak jota** (16); **tripako minak** (11)

**minaren minez** (32)

**buruko minez** (30); **eskuko minez** (14); **eztarriko minez** (23); **eztarriko minez nabilek** (20); **minaren minez** (32); **minez zegoen** (13); **zinez eta minez** (9)

**min**<sup>2</sup> 1 *izond* janari-edariez, gaiez edo zaporeez mintzatuz, mihian edo ahoan halako erredura edo berotasun sentipena sortzen duena.

Berak oso gogoko zituen janari **minak**. **Lopez de Arana**

Patata **minak** jatera gonbidatu nuen, kaitik Parte Zaharrera sartu eta berehalaxe zegoen garagardotegi batera. **Juan Kruz Igerabide**

Plater bat ilar **min**, piper eta ozpinez atundurik. **Irene Aldasoro**

Astoak ez zuen harekin joan nahi; piper **min** bat jartzeko ipurdian, esan zuen Txemiñek. **Pablo Sastre**

Konposatu sintetiko **min** bat da fenilo ziape-olioa. **Irene Aldasoro**

Nahiz eta gehiegi gustatu ez haragi gogor eta zapore **min** hori. **Urtzi Urrutikoetxea**

Barrean min samin edo azidoak arnoari gustu **min** bat ematen zion. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Olagarroa eskaintzen dugu, galegoek bakarrik prestatzen dakiten dastamenari gozo **mina** eta hortzari sendo-bera zaion olagarro bikain hori. Koldo Izagirre  
Ikara oharkaitz batek inarrosi ninduen: gizon-usain **minarekin** batean, haren gorputzak itsatsirik zekarren Edurmeren urrin gazi-gaztea. Aingeru Epaltza  
Ezagunak zituzten kearen usain guztiak: gozo eta sarkorra, **min** eta nardagarria, gogor eta okaztagarria. Felipe Juaristi  
Izaki arraro eta itxura narraseko bat, begi aztoratuekin eta kirats higuigarri eta **min** bat zerraiola. Oskar Arana  
- Maite dugu **mina**, hala dirudi, baina ez nonbait edozein **min** klase: ardo **min** edo minduarena ez; piper **minarena** bai. Iñaki Segurola  
Baina nolana ere, pentsatu zuen, zoriona ezagutu zuen berak, zorion goxoa, zorion **mina**, Anton Garikano

## 2 bizia.

Baina nik jadanik ez dut sentitzen urrun joateko indar **min** hori; urrun joateko behar **mina** sentitzen nuen garaiazen oroitzapena baino ez. Pako Aristi  
Baina solas segidarik gabeko haiek bet-betan eten eta oihu **min** bat egin zuen: "Utz nazatela bakarrik, utz nazatela ilunbeetan; ilunbeak zaizkit niri komeni". Jon Muñoz  
Gero, Klararen ezpain gorri **minak** nireetan itsatsi ziren. Aingeru Epaltza  
Zubiaren erdian garabi-ibilgailu handi bat ari zen, gorri **mina**. Aingeru Epaltza  
Sukaldean atzeman nuen, tipula pikatzen, txandal berde **min** batez jantzia. Aingeru Epaltza  
Haize **min** eta zakarra egingo du eta itsasoak gogor jasoko ditu olarroak eta fumetak. Joseba Sarrionandia  
Sekulako hotz **mina** egiten zuen gau batez [...] botila batekin sartu zen ohera. Anjel Lertxundi  
- Bero dute gorputza, baina aurpegian haizeak altzairuzkoak diruditen laztanak txertatzen dizkie, hotz-**minak** eta zorrotzak. Pako Aristi

## 3 oinazea edo atsekabea eragiten edo adierazten duena.

Auhen **min** bat eginez altxa naiz; ...hara, ekaitz gau hartan bezalaxe. Jon Muñoz  
Oihu **minak** etorri ziren ondoren, eta ez zuen aurrerantzean nirekin lo egiteko kemenik izan. Joxan Elozegi  
Aurretik hitz ederrak, baina gero putzak **minak** -esan izan zion lanturu artean, gero honela amaitzeko-. Patxi Zubizarreta

## 4 adiskideez-eta mintzatuz, berarekin lotura estua duguna, barru-barrukoa. ik **mami**.

Loperen adiskide **min** baten etxe harrizko dotorean ostatu harturik. Felipe Juaristi  
Zeu zaitut neure aita, zeu neure gaztetako adiskide **mina**! Elizen arteko biblia  
Jonatan eta David adiskide **min egin** ziren; Jonatanek bere burua bezain maite izan zuen David. Elizen arteko biblia  
Orduan bilakatu baitzen Leon anaia Frantziskoren lagun-**min** eta idazkari. Askoren artean  
Lagun **minok** ez dugu inoiz trabarik egiten. Aingeru Epaltza  
Ernest Hemingwayk bere lagun **min** biren berri mingarriak hartu ditu ekainean. Edorta Jimenez  
Batez ere amaren lagun-**min** horrek. Jokin Muñoz  
Artsai, Goizuetako zakurra, nire lagun min-**mina**, azkenean erabat gortu zen. Gotzon Garate  
Indiarrekiko adiskidetasun **minak** desagertu egin ziren... Iñaki Mendiguren

## 5 udaz, neguaz. gauaz eta kidekoz mintzatuz, bete-betea.

Etsiako haizeek uda-**min** oroz astintzen dituzte bazterrak. Jon Muñoz  
Etsiako haizeen indarrez, uda-**minaren** minean baino ez baitzebiltzan, has eta buka egin zuen ontziak itsas bidaldia. Jon Muñoz  
Behin hola, bidean nintzela, uda **mineko** galerna ari zela kanpoan. Itxaro Borda  
Baina mendiak beti eta gorago agertuz, **negu** mineko hotz eta elurrak zinezko arazoak ziren. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Gaixotasunak harrapatu zuen **negu** minean eta, udaberria heltzearekin batera, osatu egin zen. Patxi Zubizarreta  
Biritxi astrologikoak ginen gau **mineko** solaskidearen aurpegiaz ontsa gogoratzen nintzen. Itxaro Borda  
Gau **min** beltzean etorri, haztamuka, liburutegira, argia piztu eta berez begiak ixtera behartzen nauen bat-bateko argitasuna are mingarriago, eramanezino zait. Iñaki Iñurrieta  
Urtarril **mineko** igande azkorrietako izotz edo goroldioz zuritu harri karroinduak. Itxaro Borda

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**adiskide min** (41); **adiskide min baten** (4); **adiskide min egin** (3); **lagun min** (80); **lagun min bat** (8); **lagun min batek** (6); **lagun min batekin** (3); **lagun min baten** (3); **lagun min egin** (3); **lagun min izan** (6)  
**adiskide mina** (47); **adiskide mina izan** (3); **adiskide mina nuen** (3); **adiskide mina zen** (3); **adixkide mina** (6); **aitaren lagun mina** (3); **aitaren lagun mina** (3); **artean mina** (3); **lagun mina** (101); **lagun mina da** (11); **lagun mina dut** (6); **lagun mina izan** (5); **lagun mina zen** (10)  
**adiskide minak** (29); **adiskide minak izan** (5); **adiskide minak ziren** (4); **adixkide minak** (3); **lagun minak** (51); **lagun minak egin** (4); **lagun minak izan** (10); **lagun minak izango** (3); **lagun minak ziren** (4)  
**lagun minarekin** (3)  
**lagun minaren** (8)  
**adiskide minari** (3); **lagun minari** (10)  
**gau minean** (21); **gauaren minean** (5); **minaren minean** (3); **negu minean** (13); **uda minean** (14)  
**adiskide minek** (4)  
**lagun minekin** (4)  
**uda mineko** (5)  
**frantziskoren lagun minen** (3); **lagun minen** (10)  
**adiskiderik minena** (7); **lagun minena** (4); **lagunik minena** (9)  
**adiskiderik minenak** (3); **lagun minenak** (3); **lagunik minenak** (5)  
**adiskide minik** (6)

## mina<sup>1</sup> iz meatzea.

1869an Arnegik utzi ziolakotz Gainekoletatik beheraxagoko burdin mehatze edo **mina** batzuen baliatzeko eskubidea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Oraingo Hartxaineko edo Marloin bordako inguruetan dago **mina** zilo andana hori. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## mina<sup>2</sup> iz ukitzen denean eztanda egiten duen lehegailua.

Ukrainan **mina** bila gabiltza. Urtzi Urrutikoetxea  
Erretiratu zirenean, alemanek zubiak bota eta **minaz** erein zituzten bazterrak [...] hain era gaiztoan erein ere, non bi ahalegin tamalgarriren ondoren, **mina**-kentzaileek erabaki baitzuten bazter haiek hesolaz eta burdinariz inguratu eta ixtea. Koldo Biguri  
Ez mugitu, aski du hatz puntarekin **mina** bat ukitzea eta hegan aterako da! Koldo Biguri  
Noizean behin erbiren bat pasatzen da esparru minatutik eta lehertarazi egiten du **mina** bat. Koldo Biguri  
Hori isilarazteko bi bide daude: dorrepean **mina** bat lehertzea, edo kanoika hastea. Koldo Biguri  
Nire anaia kontra egiten ziola sentitzean, eta baita amak ere, nire anaiaekin bat baitzatorren, Federico **mina** bat bezala lehertu zen. Pello Lizarralde  
Munduan 100 milioi **minatik** gora daudela uste dute nazioarteko erakundeek, eta, haien datuen arabera, urtean 26.000 lagunetik gora hil edo zauritzen dira lehertu bako mina

## minaketari *izond* itsasontziez mintzatuz, minak jasotzen dituena. ik [minaintzi](#).

Dozena bi ontzi [minaketari](#) izan zituen Jaurlaritzak, eta zenbat mina harrapatu horiek. [Edorta Jimenez](#)

## minaldi (*orobat min aldi*) *iz* mina sentitzen den aldia.

-Esan zidan sendagileak, egunero egin behar ditudala ariketa batzuk bizkarreko muskuluak tonu onean, indartsu edukitzeko, eta hasi ere hasi nintzen, hasten naiz tarteka, horrelako [minaldi](#) baten ondotik beti ere, baina laster aspertzen naiz, minaz ahaztu orduko. [Iñaki Iñurrieta](#)

Izatez, jenio bizia zuen eta aurpegi garratza [...] nahiz eta bere aldarre txarren errua maiz erasaten zioten buruko [min-aldi](#) gogorreki egozten zien. [Berria - Kultura](#)

Izan ere, mundu honetan, zalantza aldian aholku, [min aldian](#) arindura, gaitz aldian esku ona, inork emango duenik ez uste. [Patxi Ezkiaga](#)

## minaintzi *iz* itsasoan minak jasotzen dituen ontzia. ik [minaketari](#).

Goizaldean [minaintzi](#) bat irizen zen eta arrantzan izandako ontzi batzuk sartu ziren. [Edorta Jimenez](#)

## minarazi, minaraz, minarazten du *ad* mintzera behartu.

Baseri-ate takarreki hotsa ateratzeko gogor jo beharra dago, eta ez dizkio inori hatz-ttontorrak alferrik [minarazi](#) nahi. [Pako Aristi](#)

## minarete *iz* mezkitaren dorrea, fededunak otoitzera deitzeko erabiltzen dena.

Sekulako kandelak bailiran, dirdai egiten zuten Konstantinoplako [minareteek](#) Urrezko Adarraren inguruan... Haietatik gailen, dorreak, kanpandorreak, [minareteak](#), hirurehun elizaren kupulak nabari ziren, domo berdez estalirik eta erpinean zilarrezko gurutze bana zutela. [Karlos Zabala](#)

Almuedanoa [minaretera](#) igo eta bertatik sinestunak meskitan otoitz egitera joateko deitu zituela baizik ez du esaten, inguruabarrak azaldu gabe. [Jon Alonso](#)

Gure liburu sailduak ere hondatu dituzte, eta [minaretetan](#) jarri dituzte euren armak. [Berria - Mundua](#)

## minaretedun *izond* minaretea duena; minareteak dituena.

Konkor eskerga haziz zihoan, / jo lezake zeru urruna; / gizajoari deitzen zioten / gizon [minareteduna](#). [Xabier Olarra](#)

## minartu ik [min](#)<sup>1</sup> 14.

## minatu, mina, minatzen 1 du *ad* minak ezarri.

Hiriburuko petrolio portua erabat [minatu](#) zutela jakinarazi zuen Georgiako Defentsa ministro Guela Bezhuashvili. [Berria - Mundua](#)

Bideak [minatuak](#) ziren. [Itxaro Borda](#)

Poliziaren oharrak gero eta kezagarriagoak ziren; azkenean, Montmartre auzo guztia [minatua](#) zegoela esan zuten. [Karlos Zabala](#)

## 2 (era burutua izenondo gisa)

-Noizean behin erbiren bat pasatzen da esparru [minatutik](#) eta lehararazi egiten du mina bat. [Koldo Biguri](#)

Landare gogorra da eta, beraz, ez da beharrezkoa leku [minatuak](#) soilteza landare hau eriteko. [Berria - Gaiak](#)

## minatzaile *izond* itsasontziez mintzatuz, minak ezartzen dituena.

Kubertara ginenerako, beste hiru gudontzi hurbildu ziren, azkena [minatzailea](#) zen. [Koldo Izagirre](#)

## minatzar *iz* *adkor* tamaina handiko mina.

Abuztuan burutu berria zen setialdian, karlistek berek jaurlaritzako lauhun granaden leherketek eta lurrazpiko galerian ezarritako [minatzarrek](#), apurturik eta barrutik ikuskatu ezinik utzi baitzuten frantziskotarren monastegi eskerga Frutaren Azokaren inguruko belazean. [Txillardegia](#)

San Frantziskoren komentu zaharra, karlisten [minatzarren](#) leherketak egun haietantxe errotik erazi berria zelako. [Txillardegia](#)

## minbera 1 *izond* mina erraz sentitzen edo hartzen duena; zirrara txikiei sentibera dena.

Munduen artean ez zela leizerik zabalitzen oharitzen nintzen, ez abererik eta ez jenderik, ez etsairik ez baitezpadako adiskiderik, bizidun [minberak](#) baizik. [Itxaro Borda](#)

Hobe haragi [minbera](#) ukitzen ez segitzea, goxatu ordez gehiago erretzen baitu. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ipurtzuloak gaur bezain [minbera](#) ez ziren garaietan, periodiko paperarekin garbitzen genuen ipurdia. [Iñaki Segurola](#)

Alderdirik [minberenak](#) aukeratzen ditik: belarriak edo sabelaldeak. [Jose Morales](#)

Untxiak, edo estoikoak dira, edo ez batere [minbera](#) oinazerarekiko. [Juan Garzia](#)

Biziki presuna [minbera](#) naiz. [Menane Oxandabaratx](#)

Burua biziki pisu nuen eta bihotza arrunt [minbera](#). [Janbattitt Dirassar](#)

[Minbera](#) neuzkan oinak oso. [Joxe Austin Arrieta](#)

Gorputza baino [minberatuagoa](#) zeukan arima, eta petrikilorik edo ukendurik ez neukan hartarako. [Juan Kruz Igerabide](#)

Erredura sentitu du berriz ere, biziagoa, [minberagoa](#). [Iñaki Iñurrieta](#)

## 2 irud/hed

Txomini korapilo [minbera](#) bat tinkatu zaio bihotzean, taupadak bizi bizi direla. [Eneko Bidegain](#)

Helduden astean, deputatuek dute aztertu beharra erretreten auzi [minbera](#) hori. [Herría](#)

Estaturik [minberenean](#) aurkitu ninduen beraz Mathiasek, eta kurri abiatu orduko, golkoan nituenak oro kontatu nizkion. [Daniel Landart](#)

Hastapen hartan ere, deportazioaren gai [minbera](#) ez zuten hunkitu, edo doi-doi. [Eneko Bidegain](#)

Ondorioz, halako giro mintu eta **minbera** bat. Herria

Eztabaida **minbera** baten inguruan. Eneko Bidegain

Gure agerraldiaren zatirik **minberena** eta delikatuena izan daiteke hori agian. Txema Ramirez de la Piscina

Ondorioz, irakurlea galtzen ahal da, baina liburua hesten duenean, osotasun **minbera** baten sentimendua ere ukan dezake. Ana Urkiza

Ustez ulertu tudan gauzak kuriostasun **minberari** zor dizkiot. Piarres Aintziart

### 3 (adizlagun gisa)

Aipatu biltzarrera abiatzeko unean, ahul, hauskor eta **minbera** sentitzen nintzen, gorago nioen eran, segurtasunez eskas. Itxaro Borda

Buztanari eragiteari ekin nion, hortaz, baina ez oso eroso hasieran: zakilburua lehor sentitzen nuen eta mottoa **minbera** samar horregatik. Aitor Arana

Gero eta laburrago sentitzen nuen arnasa [...] eta eztarria gero eta **minberago**. Txillardegi

### 4 (izen gisa)

Bizkarrezurra tentetu zuen Mentxuren atzamarrek sortutako **minberagatik**. Josu Landa

**Minbera** hori sendi zen ere euskal legebiltzarrean, joanden ortzireako bilkuran. Herria

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arras minbera** (8); **aski minbera** (3); **auzi minbera** (14); **auzi minbera hori** (3); **bazterrak beti minbera** (4); **bazterrak biziki minbera** (4); **bazterrak minbera** (5); **beti berdin minbera** (7); **beti minbera** (5); **biziki minbera** (11); **frango minbera** (5); **gai minbera** (19); **gai minbera da** (3); **giro minbera** (6); **minbera da** (9); **minbera daude** (6); **minbera geldituak** (3); **minbera izan** (3); **minbera izaten** (4); **minbera zen** (4); **oso minbera** (3)

**gai minberak** (3); **minberak izan** (5)

## minberagarritasun iz minberatzen duenaren nolakotasuna.

Nerabazaroko larrujotze urrun eta idealizatu baten ondorengo insatisfakzio kateatuen **minberagarritasuna**. Harkaitz Cano

## minberaka izond minbera.

Emaztearen hankartetik isuri gorri eta beroa bazetorren burrustan, hatsartzen zuen oroz, airez betetzen eta arras husten zen, hiltzear, intziri elkor, heren eta **minberaka**, alaba gehienak gorputzaren gainaldea lurrean indarrez atxikitzen ziola, izebak sabela torratzen eta aluaren irekieraren aitzinamendua mirazkatzen ziola. Itxaro Borda

## minberakaitz izond erraz minberatzen ez dena, ia ezin minberatuzkoa.

Pena ere banuen, halako tristura bat urdailean; azken finean, negarraren aurrean ez bainaiz nik uste bezain **minberakaitza**. Ramon Saizarbitoria

## minberaki adlag bigunki, samurki.

Arrotz eta umezurtz izatearen sentimendua areagotu zitzaidan, **minberaki** mutu labakitua bilakatzeraino. Itxaro Borda

Dantek Beatrizen ohoreetan **minberaki** agertu infernuko zirkuluak. Itxaro Borda

-Bakarrik? -kolokatu zuen **minberaki**. Itxaro Borda

## minberakor izond erraz minberatzen dena. ik minberatsu.

Hirugarren kapituluak gaztaroko garai kilikorra, batzutan hain **minberakorra**, dauku aipatzen. Herria

## minberatasun 1 iz minbera denaren nolakotasuna.

Ume minberak ginela aitor dezaket eta **minberatasun** horrek asko irauñ didala niri behintzat. Ana Urkiza

Emaztea neska gaztea zen, institutuan ikasitakoa, oso minbera -Txitxikovek **minberatasuna** imitatu zuen aurpegiaz-. Jose Morales

Bere existentzian kordoka sentitzen den komunitate edo nazio txiki baten **minberatasunean**. Joxe Azurmendi

### 2 (hitz elkartuetan)

Antsiak eta barne-**minberatasun** handiegia zuten gerizarik gabeko gerora akuilatzen. Itxaro Borda

## minberatsu 1 izond aski minbera dena.

Lehenik, bazterrerat edo geroko utzi ditu gai **minberatsuak**: abortua, emazteen apeztea, apezten ezkontzea eta holako. Herria

Gai **minberatsuak** aipaturik ere gizon horrek so egilea xoratzen du. Herria

Handik laster ene haurkeria **minberatsuak** deitoratzen nituen. Itxaro Borda

### 2 (predikatu edo adizlagun gisa) ik minberatsuki.

Jalgi nintzen sekulan baino **minberatsuago**, milesker murriz bat erranik azpiz behatzen zidan andereari. Janbattitt Dirassar

"Nor ote da Hallum-Drallum?" zultzen zion galderak garuna, **minberatsu**. Anton Garikano

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gai minberatsuak** (3)

## minberatsuki adlag minberatsu.

Puntu hori ez zen hala ere aski **minberatsuki** ikusia izan, zeren estrenaldiko kargudun guziak, berrogei bat lagun, elkarrekin bazkaltzera joan baitziren beldurrik gabe Miarritzeko kasinora egun hartan. Herria

## minberatu, minbera(tu), minberatzen 1 da/du ad minbera jarri.

Poltsari horren gogor eusteagatik **minberatu** egin zitzaizkion hatzak. Iñaki Zabaleta

Joanesi ipurdi mazelak ontsa **minberatu** zitzaizkion, zurezko jarleku gogor haien kontra segundu oro kaska eta kaska. Eneko Bidegain

1050 pilota jo dute partida huntan, Ruizen eskua **minberatzeraino**. Herria

Fusilek ematen duten maten zakarra dela-ta, sababurua oso **minberatuta** amaitu nituen ariketak. Txillardegia

Atzamar-puntak **minberaturik** zeuzkan. Lopez de Arana

Aspaldixkoan arras minbera den auzi bat aintzina **minberatu** da azken egun hotan eta kasu ez ote den oraino gehiago saminduko ondoko aste horietan! Herria

## • 2 (du ad)

Gerria **minberatzen**, eskuak odoltsen zizkion soka hartatik esekita zegoen. Juan Garzia

Oihal latzak lepo mehe zuria **minberatu** eta narritatzen zion. Jose Morales

Urdail-azidoa likido azido bat da eta gora egiten duenean hestegorria **minberatzen** du. Berria - Gaiak

Harrizko etxeetako pintura horiak biziki **minberatzen** zituen begiak. Jose Morales

Belarriak **minberatzerainokoak** baitziren itsas marrumak eta haize-uluak. Anjel Lertxundi

Neguan eskularru motzak behar zituen erien begiratzeko, odolgaiztoak **minberatuak** eta brioletatuak atxikitzen baitzizkion. Michel Oronoz

Zer lortuko dute? auzia **minberatzea** eta muturreko jarrerak indartzea baino ez. Berria - Euskal Herria

## 3 minu.

Gure Elizan, Euskararen egoerak **minberatzen** gaituela! aspaldiko mina! Herria

Bere mahaia eta aterpea onar genizan tematu zen, eta guk amore eman genuen erbi-festan partaide izatetik salbatu gintuen gizona ez **minberatzeko**. Bernardo Atxaga

Ez zintuzket **minberatu** nahi, maisu, baina bada gauza bat hemen derrigor esan beharrekoa. Iñaki Segurola

Orain ez dago ahora etorritako dena muturrera esaterik, euskal-lagun-hurkoa sobera **minberatzeko** edo lotsagarri uzteko herabez. Iñaki Segurola

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Bere oin **minberatuak** ozta-ozta eusten zioten zutik. Karlos Zabala

Eta hotza iragazten zait hezur **minberatuetaraino**, are blaitzenago dizkidan arropa jada mela-mela egindakoetatik barna. Mirentxu Larrañaga

Zakua lurrean pausatu zuen, hatsartzeko eta soin **minberatuegiaren** lasaitzeko. Itxaro Borda

Ene barneko kezka **minberatuak** agertuko dizkizut. Janbattitt Dirassar

Tonua aski **minberatua** zen. Fernando Morillo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eskua minberatu** (3)

**oin minberatuak** (3)

# minbizi 1 iz gorputz ehun bateko zelulak eragabeki haztean datzan eritasuna, inguruko ehunetara hedatzeko joera duena.

**Minbiziaren** lehenengo abisua min bizi baten itxuraz agertu zen. Iñaki Arranz

Ez naiz ni **minbizia** dutenen motakoa, nire zelulek motibo gutxi dute matxinatzeko. Karlos Zabala

**Minbizia** eragiten duen gene bat ezetzatzea lortu dute saguetan. Berria - Gaiak

Detonagailuetan erabiltzen den tritioa da **minbizia** eragiten duena. Berria - Mundua

Proteina horiek **minbizia** garatzea eragozten dute. Berria - Gaiak

**Minbiziari** aurre egiteko tratamendu berri bat ikertzen ari dira. Berria - Gaiak

Atzeman diren **minbizi** gehienak fase goiztiarrean zeuden eta gehienak sendatu egin dira. Berria - Harian

**Minbizia** aurkitu zioten saihetsean. Bernardo Atxaga

Ama bat zen, bost urteko seme bakarra zuena, **minbiziak** jota. Joan Mari Irigoien

**Minbiziak** azken indarrak kendu zizkionean. Jon Muñoz

Joxemari Aranaldeapez bertsuzalea [...] zendu da Ibarra herrian, 72 urtetan, **minbiziak** eremanik. Herria

Ortzegunean itzali da **minbiziarekin** Michel Dassance Beskoiztarra hiruetanhogoita hamabi urtetan. Herria

Javier Uriá Bilboko Athleticeko lehendakaria zendu da joan den astean, 41 urtetan, **minbiziak** jorik. Herria

Espainiako **Minbiziaren** Kontrako Elkartearen Nafarroako ordezkariak. Berria - Euskal Herria

## 2 (izenondoekin)

Ebakuntza egiteko mahaian [...] **minbizi** heriogarria oso aurreratua zuela konturatu ziren, eta ez zegoela ebakuntzarik egiteko gairik. Josu Zabaleta

**Minbizi** hilgarriak ez baitu atarramentu onik. Jon Muñoz

Duela hilabete batzuk, hasieran tripako mina zirudiena **minbizi** zurgarri bihurtu zitzauden. Aitor Arana

Ann Marie Rogers emakumeak bularreko **minbizi** erasokorra du, baina Herceptin botikaren bidezko tratamendua ukatu dio osasun zerbitzuak, oso garestia dela argudiatuta. Berria - Gaiak

**Minbizi** orokortu baten ondorioz, Alazne Olabarrieta Garzia borrokakidea hil da Bordelen. Txillardegia

## 3 (izenlagunekin)

1946an hil zela, garuneko **minbizi** batez. Juan Garzia

Buruko **minbizi** sendaezinak tratatzeko modu berri bat eskain dezaketela cannabinoideek. Berria - Gaiak

Aurpegiko **minbiziaren** ondorioz masailezurra galdu zuen gizon bati ordezkioa jarri dio Akiel Unibertsitateko (Alemania iparralde) mediku talde batek. Berria - Gaiak

Gibeledko **minbizia**, metastasikoa, laugarren fasean. Joseba Sarrionandia

Johnny Ramone *The Ramones* taldearen sortzailea eta gitarrista hil egin zen asteazkenean prostatako **minbizi** baten ondorioz. Berria - Kultura

Prostatako **minbiziaren** genea identifikatu dute. Berria - Gaiak

Hezurretako **minbizia** duela jakin dute, sei hilabeteko bizi-itxaropena eman diotela. Eider Rodriguez

Gazterik hil zelako, biriketako **minbiziak**. Koro Navarro

Bularreko **minbizia** sortzen duen genea blokeatzea lortu dute Kanadako zientzialariek. Berria - Gaiak

Bularreko nahiz umetokiko **minbizi** gehiago izaten dira azterketa egiten ez duten emakumeen artean. Luis Elberdin

Bularreko **Minbiziaren** Diagnostiko Goiztiarrerako programa. Berria - Harian

## 4 irud/hed

Etxe eta kale, irudi luke garapen ikaragarri azkarreko **minbizi** suntsitzaile bezainbat eraikizale batek kaotikoki ugaldutako herri murriz bat baizik ez dela hiria, etxe bakarrekoa eta kale bakarrekoa. Iñaki Segurola

Geroxeago, baina, beldurra hazten eta hazten joanen zitzaion, **minbizi** goseti bat bezala bere barrenak karraskatzen. Atzean utzi nahi zituen gerrako oroitzapenek eta europar erraiek hozkatzen zuten **minbizi** izpirituala. Alberto Ladron Arana

Kreditu mekanismo hauen bidez merkatu ekonomien **minbizia** sortu da. Iñaki Heras

Gerra eta esklabotasuna zibilizazioaren **minbizi** bikiak izan ziren beti gizarte-mota hau lehenengoz sortu zenetik. Iñaki Mendiguren

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haragia erretzen denean sorturiko gai batek **minbizi** zelulen ugartzea abiatzen eta sustatzen du. Berria - Gaiak

Ustez **minbizi** sortzaile diren estirenoa eta naftalenoa. Berria - Gaiak



Lantokietan [...] beste gutsakor eta **minbizi** sortzaille gehiago daude. Berria - Euskal Herria  
Lehenbizi, **minbizi** -sortzailleak dituzten elikagaiak daude; bigarrenik, salmonellak dituztenak. Berria - Euskal Herria  
Errauste plantak dira **minbizi** eragile handienetakoak. Berria - Euskal Herria  
Bularretako inplanteek ez dute handitzen **minbizi** arriskua. Berria - Gaiak  
Adituek diotenez, **minbizi** kasu gehienak ez dira agertzen erradiazioa jaso eta 20, 30 edo 40 urte pasatu arte. Berria - Gaiak  
Entzun dudanez, tratamendu horren eraginez **minbizi** -kasuak gertatu izan dira. Lopez de Arana  
Trebaturerak gara jada hainbat eritasunetarako joera neurtzen; zenbait **minbizi** motaren kasuan, kasurako. Juan Garzia  
Edo eritasun larriak, esaterako **minbizi** -hantura, elefantiasia eta gangrena. Xabier Kintana  
Bielorrusiako **minbizi** estatistika nazionalak. Berria - Gaiak  
Jean Bernard **Minbizi** gaietarako Zentroko arduraduna da. Berria - Gaiak  
· HIFU giza gorputzean dauden zelula **minbizi** -eragileak suntsitzeko erabiltzen den teknika da Berria - Gaiak

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire birika-**minbizi**a aienatzen ari zen, eta azken azterketaren ostean onkologoak esandakoaren arabera, bazen baikortasun zuhur baterako arrazoirik. Oskar Arana

## 7 *minbizi gene* ik onkogene.

Baziren, beraz, "**minbizi-geneak**" edo "onkogeneak". Juan Garzia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**buruko minbizi** (3); **haurren minbizi** (5); **minbizi baten ondorioz** (5); **minbizi kasu** (24); **minbizi kasu gehiago** (5); **minbizi kasuak** (14); **minbizi kasuen** (10); **minbizi mota** (23); **minbizi sortzaille** (5)

**ahoko minbizi** (7); **azaleko minbizi** (3); **biriketako minbizi** (17); **bularreko minbizi** (37); **bularreko minbizi atzeman** (3); **bularreko minbizi duten** (3); **bularreko minbizi izateko** (4); **eragiten du minbizi** (3); **gibelesko minbizi** (4); **haurren minbizi** (4); **hesteetako minbizi** (6); **koloneko minbizi** (5); **maskuriko minbizi** (7)

**minbizi atzeman** (5); **minbizi aurkitu** (3); **minbizi aurkitzeko** (4); **minbizi diagnostikatu** (5); **minbizi du** (8); **minbizi duela** (5); **minbizi duten** (31); **minbizi duten haurren** (8); **minbizi eragin** (11); **minbizi eragin dezakete** (4); **minbizi eragiten** (37); **minbizi eragiten du** (4); **minbizi eragiten duten** (17); **minbizi gainditu** (3); **minbizi garaiz atzemateko** (4); **minbizi garatzea** (5); **minbizi garatzeko** (14); **minbizi garatzeko arriskua** (9); **minbizi ikertzeko** (8); **minbizi ikertzen** (3); **minbizi izan** (7); **minbizi izateko** (25); **minbizi izateko arrisku** (4); **minbizi izateko arriskua** (15); **minbizi saihesteko** (4); **minbizi sor** (6); **minbizi sortu** (3); **minbizi sortzen** (12); **minbizi sortzen duten** (4); **minbizi tratatzeko** (6); **minbizi tratatzeko erabiltzen** (4); **minbizi zuela** (6); **minbizi zuen** (6); **minbizi zuten** (4)

**obarioko minbizi** (3); **prostatako minbizi** (18); **umetokiko minbizi** (4); **umetokiko minbizi izateko** (3); **urdaileko minbizi** (6)

**biriketako minbiziak** (5); **biriketako minbiziak jota** (3); **bularreko minbiziak** (5); **minbiziak eragindako** (3); **minbiziak eraman** (8); **minbiziak eraman zuen** (3); **minbiziak ereman** (3); **minbiziak jota** (31); **minbiziak jota hil** (3); **minbiziak jotako** (4)

**minbiziarekin hiltzen** (3); **minbiziarekin lotu** (3)

**bularreko minbiziaren** (23); **bularreko minbiziaren aurkako** (3); **bularreko minbiziaren diagnostiko** (3); **bularretako minbiziaren** (3); **koloneko minbiziaren** (3); **minbiziaren aurka** (9); **minbiziaren aurkako** (17); **minbiziaren diagnostiko** (3); **minbiziaren diagnostiko goiztiarrerako** (3); **minbiziaren inguruko** (3); **minbiziaren kontra** (8); **minbiziaren kontrako** (24); **minbiziaren kontrako tratamendua** (4); **minbiziaren ondorioz** (12); **prostatako minbiziaren** (4)

**bularreko minbiziari** (5); **minbiziari aurre egitea** (5); **minbiziari aurre egiteko** (7)

**minbiziak hil** (7)

**minbiziz hil** (3); **tiroideetako minbiziz** (3)

## minbizidun *izond/izlag* minbizi duena.

Nafarroan 2.300 eri **minbizidun** aurkitzen dituzte urtean egiten diren ikerketa eta artamenduetan. Herria

Teknika horren bitartez, posible zen, hain zuzen, **minbizidun** zeluletatik lorturiko zenbait gene zelula normal batean txertatu, eta **minbizidun** bihurtzea zelula hori. Juan Garzia

Tomek jarraitu egin diezaieke edariz edari, baina nik **minbizidun** ohi ihar honek gaitasun urria dut horretarako Oskar Arana

## minbizitze *iz* minbizi sortzea.

**Minbizitze** -prozesuak, bada, itxura zenez, nahasi egiten zituen enbrioiaren garapenean lanean ari ziren erregulazio-sistematariko batzuk. Juan Garzia

## mindegi ik mintegi.

## mindro *izond adkor* polita.

Entzun ditzala erizain **mindroak** bere ugazabak egiten dituen balentriak. Koldo Izagirre

Gorri-urdinean egiten diat marrazki **mindroren** bat, lñaki, merke... Koldo Izagirre

Ahots **mindroa** dauka. Koldo Izagirre

Usain **mindroa** dago gelan, lore lurrina. Koldo Izagirre

## mindrotasun *iz adkor* politasuna.

Bere **mindrotasuna** irriño urrikaltsu batek hautsi egin dezakeela pentsatuko du Edo hortzen bat faltako du, ezinen ditu ezpainak zabaldu. Koldo Izagirre

## mindu, min(du), mintzen (*orobat mintu g,er,)* 1 da *ad* haserrezko, nahigabezko edo saminezko egoeran jarri. ik **samindu**.

Horregatik deitzen zen Joxe Krakax, eta bera ez zen **mintzen** ezizenarekin, grazia ere egiten baitzion. Koro Navarro

Nik serioegi hartzen nizkion gauza horiek, **mindu** egiten nintzen, lotsa galtzen nion eta gaizki tratatzen nuen, eta horrexek, aldi berean, min gehiago egiten zion oraindik.

Josu Zabaleta

Izugarri **mindu** eta haserretu zen auziaren berri jakin zuenean. Jose Morales

Harrigarria da gizabanakoa: biziki **mintzen** da berak errespetatzen ez dituenek begitan hartzen dutelako. Jose Morales

Ezinezkoa zelakoan Elsbeth hitz haiekin **mintzea**. Anjel Lertxundi

Argazkilaria ez da asko **mindu**. Koldo Izagirre

Jauna haserre-sutan zegoen; Moises ere **mindurik** zegoen. Elizen arteko biblia

Amorrotata zegoen nirekin, **mindurik** zegoen nirekin, huts egin niola sentitzen zuen. Oskar Arana

Borreroa asko **mintzen** da kondentatuaren familiak eskelan bere izena jartzen ez duenean. Karlos Linazasoro

## 2 irud/hed

Gauzak arras **mindu** ziren, Iruñeko apezpikua haserretu baitzen, xedea zuelakotz hiri nagusiko katedralean hobiratzea, beste nafar erregeekilan. Angel Aintziburu / Jean

Baptiste Etxarren

Sophie ere hasia da ohartzen solasgaia **mintzen** ari dela eta hobe duela berehala moztea. **Eneko Bidegain**

Euskal Herriko Unibertsitatean egoera frango **mindua** dela dirudi. **Herria**

**Minduta** egon behar zuen aldizkari pornografikoaren auziagatik. **Bernardo Atxaga**

Zikina sentitzen nintzen, **minduta** bainoago. **Anjel Lertxundi**

-Erruki-etxe bat? -erantzun zuen, oso **minduta**. **Ander Irizar**

Berak, ordea, niri buruzko dena zekien, norekin maiteminduta nengoen, norekin **minduta**. **Eider Rodriguez**

Bazterrak **mindu** dira azken egun hautan gure eskualdean, Herriko Etxeak familia guziera igorri paper baten ondotik. **Herria**

### • 3 (du ad)

Lasai ari ginen, inor **mintzeko** batere asmorik gabe. **Anjel Lertxundi**

Zalakainek bere buruarekiko zuen segurtasunak, haren bizi-pozak, jendartean moldatzeko zuen erraztasunak, **mindu** egiten zuten gizon goibel eta fanatiko hura. **Koro Navarro**

Nozdrioven hitzek biziki **mindu** zuten Txixikov. **Jose Morales**

Nire mesfidantzak **mindu** balu bezala, tratua haustekoa egin zuen. **Anjel Lertxundi**

Zutaz errukitu naizelako eta nire errukiak **mindu** zaituelako jo nauzu? **Jose Morales**

**Mindu** zaituen zerbait egin al dut, laztana? **Mirentxu Larrañaga**

Ez diat saltzeko asmorik -esan nion xalo, ez bainuen adiskidea **mindu** nahi. **Anjel Lertxundi**

-Tira, ez zaituztet **mindu** nahi, baina zuek biok ez zarete oso onak xakean... **Iñaki Mendiguren**

Arizmendi jaunaren hitz haiek, **mindua** baino areago, txunditua utzi zuten. **Koro Navarro**

Damu dut, zinez, zu **mindua**. **Javi Cillero**

-Oso **mindurik** naukak, Santxo. **Patxi Ezkiaga**

Nik aski **mindurik** utzi nituen bazterrak are **minduago** ageri ziren orain. **Aingeru Epaltza**

Gogoetatsu gelditu zen, kopetilon begira edukiar, oroitzapenek **minduta** bezala. **Migel Angel Mintegi**

Gure ezdeustasunaren, gure txikitasunaren parean ezartzen gaitu, eta horrek, **mindu**, gogogabetu, arranguratu edo lurra joarazi ordez, askatu eta lasaitu egiten gaitu, ez baitiogu, ez geure buruari, ezta beste inori ere gezur gehiago esan behar. **Berria - Kultura**

### 4 (era burutua izenondo gisa)

Adiskide **minduarena** egiteko prest nengoen. **Aingeru Epaltza**

Guztiei itsusi litzaieke alabaina, **minduaren** mina samintzea, justiziak ez duelarik horrelakorik eskatzen. **Piarres Xarriton**

Ziur nago atso lehor **mindu** bat bihurtuko naizela, hemen askoz ere luzaroago jarraitzen badut. **Josu Zabaleta**

Isilune **mindu** bat egin zuen, antzezle ona izan zitekeela otu zitzaizun. **Koldo Izagirre**

Irribarre **mindu** eta behartua egin zuen. **Iñaki Mendiguren**

Beldur bainintzen nire kontu hartze **minduak** ez ote zuen gure arteko etena ekarriko. **Anjel Lertxundi**

-Ez al duzu gustuko nire biolina? -galdegin zion Irisarrik, ahots **minduaz**. **Felipe Juaristi**

Jelosiak, desengainuak, harrotasun **minduak** oinaze izugarria eragin zezaketek. **Xabier Olarra**

### • 5 da/du ad min hartu; min eman. (gorputzari edo gorputzaren zatiei buruz)

Gorputza ez **mintzearekin** eta arima ez larritzearekin aski du gizonak. **Patziku Perurena**

-Neu ere aritua naiz inoiz, eskolan-eta, baina eskuak **mintzen** zitzaizkidan eta utzi egin nuen. **Jokin Urain**

**Mindutako** eskuko hatzak guztiz ubelduak eta handituak ageri ziren. **Berria - Kirola**

Zuhaitzak gorri-gorri zeuden, begiak **mintzeraino** gorri, sutan bezala. **Anjel Lertxundi**

Besoetan eta giltzurrunetan mina zeukan, eta horixe zen senarrari esan nahi ziona, besoak eta giltzurrunak **minduak** zeuzkala. **Jon Alonso**

Abiatu aurretik, ordea, giharrak **mindu** arte besoak luzatu, eta aharrasi egin zuen. **Migel Angel Mintegi**

Sirena azulen alaruek **mindu** dituzte gure belarriak. **Edorta Jimenez**

Begiak **mindu** arte irakurri dut eta, historia kliniko hori nobela bat da. **Joseba Sarrionandia**

Txistua tinpanoak **mintzerainokoa** zen. **Anjel Lertxundi**

Horregatik egokiago dirudi nork bere burua **mintzea** kanpoko mina ematen duten soka argalekin, eta ez barruan gaitz kexagarria sor dezakeen beste modu batekin. **Patxi Altuna**

Arnasa ia hartu ezinik, besoko giharrak **minduta**. **Iñaki Iñurrieta**

Nekatuta nengoen, beso-zangoak **minduta** nituen. **Eduardo Matauko**

Eztarria **minduta**, begiak bero. **Txillardegi**

Masaileko ehuna erabili dute **mindutako** korneak osatzeko. **Berria - Gaiak**

### 6 (gauzei buruz)

Orain trenbide ertzak zaintzen dator, hortik sortzen baitira usuago trena **mindu** dezaketen zakur, behi, suizida eta beste edozein. **Pako Aristi**

Joe Brooksek ez du sekula nire sentimendurik **mindu**. **Mirentxu Larrañaga**

Mobbing-a pertsonaren duintasuna **mintzen** duten egoera iraingarriak dira. **Berria - Ekonomia**

### 7 (era burutua izenondo gisa)

Lehenengo eta behin, bizkar **mindua** arindu eta lasaitu behar zuen. **Agustin Otxoa**

Lagun bat sorbalda **mindua** igurzten ari zitzaion bitartean, [...]. **Askoren artean**

Hozka hausten zituzten euren atal **minduak**. **Imanol Unzurrunzaga**

Lehendik **mindua** nuen orpoaren azpia. **Berria - Kirola**

Haize **minduak**, bazterrak iziturik, karrika politak deserto gisa ditu bihurtzen, jendea barnaxko atxikiz. **Herria**

### • 8 da/du ad gustu mina hartu; gustu mina eman.

Eritasunarekin batean, ene bularretako esnea **mintzen** eta garratzen hasi zitzaidan, eta, hondarrean, galtzen. **Joan Mari Irigoien**

Kasu eskasez, eman dezagun, gasna itzul eta **mindu** daiteke, halaber hautsez edo harrez emoka. **Itxaro Borda**

Maite dugu mina, hala dirudi, baina ez nonbait edozein min klase: ardo min edo **minduarena** ez; piper minarena bai. **Iñaki Seguroa**

-Beste saltsa bat **mintzen** ari dena, Europa batuaren lege nagusiarena... **Herria**

### 9 (era burutua izenondo gisa)

Ogi lizundua, sagardo **mindua**, olio zaharra eta ahuntz zahagiko ardoa. **Koldo Izagirre**

Snaperen larruazal horixkak esne **minduaren** kolorea hartu zuen. **Iñaki Mendiguren**

Zerion aza **minduaren** usaina, atzera eragitekoa. **Anjel Lertxundi**

-Ni ere zaharra naun, baina nahiago korrontean egon arropari eransten zaion usain **mindu** hau jasan baino. **Anjel Lertxundi**

Ez zion erreparatzen jendez gainezka zeuden etxebizitzaren usain **mindu** eta gazi-gezari. **Lopez de Arana**

Halako kirats **mindu** arin bat iristen zaio, garbitu gabearena. **Oskar Arana**

### 10 (hitx elkartuetan lehen osagai gisa)

Sudurra haren artean arnasa halako **mindu** -usain bat zitaion. Alberto Ladron Arana

**Mindu** itxura egin eta ulertzeko moduan esaten diet alde egiteko nire paretik etxera. Josu Zabaleta

Eta, **mindu** itxurak eginez, segitu egin nuen. Alberto Ladron Arana

## 11 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Aitzin gauean oheratu baino lehen horixe egin izan banu, ez nintzatekeen horren buru-**mindua** egonen. Aingeru Epaltza

-Niri ez begiratu -eten zion Hauster behatz-**minduak**. Iñaki Iñurieta

Atsekabetuak eta bihotz **minduak** hain xuxen, beren min eta nekeen erremedioa berorren esku gogor indartsu horretan aurkituko dutelakoan. Patxi Ezkiaga

-Doinu ironikoa lagungarri da; doinu zakar-**mindua** baztergarri. Markos Zapiain

## 11 *adiskide mindu* adiskide min bihurtu.

Elgarrekin pasatu genituen hamabost egunetan adiskide **mindu** ginen. Marzel Etxehandi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**are gehiago mindu** (3); **asko mindu** (4); **inor mindu** (8); **inor mindu nahi** (3); **izugarri mindu** (3); **mindu da** (3); **mindu du** (3); **mindu dute** (3); **mindu samartuta** (3); **mindu zen** (5); **mindu zuen** (12); **sobera mindu** (3); **usain mindu** (4)

**minduak zeuden** (3)

**esne minduaren usaina** (3)

**aita mindurik** (3); **bihotza mindurik** (3); **mindurik sentitzen** (3); **mindurik zegoen** (5); **oso mindurik** (3)

**belauna minduta** (4); **bizkarra minduta** (4); **eskua minduta** (6); **harrituta eta minduta** (3); **haserre eta minduta** (6); **minduta agertu** (7); **minduta agertu zen** (4); **minduta dago** (12); **minduta daude** (10); **minduta dauka** (5); **minduta du** (7); **minduta egon** (6); **minduta egon arren** (3); **minduta egotea** (4); **minduta ematen** (3); **minduta eta haserre** (4); **minduta geratu** (3); **minduta mintzatu** (6); **minduta nago** (5); **minduta sentitu** (4); **minduta zegoen** (11); **minduta zeuzkan** (4); **minduta zirudien** (4); **minduta zuela** (6); **minduta zuen** (4); **orkatila minduta** (7); **oso minduta** (21); **zeharo minduta** (3)

## mindulin (*orobat mingulin*) izond zernahi gogortasun itxurarekin eskandalizatzen dena.

Bere adineko adiskiderik ezin zuen izan, neska **mindulinak** basakeriak esanez uxatzea gustatzen zitzaion eta. Josu Zabaleta

Lisa ederra ez zen **mindulina**, lapurra baizik. Karlos Zabala

Abertzale hazi eta etsaia kalitza soportatzen ez zuten burges ume **mindulin**, frustratu eta eskizofrenikoek taula gaina abandonatzen zuten eta ez ziren engoitik euskal munduan nehon ikusten. Itxaro Borda

Otsabide hiria burges eta laborari loak hartu magma **mindulin** bat zen. Itxaro Borda

## mindulinkeria iz mindulinari dagokion egintza.

Pauline lausengatua sentitu zen hasieran, baina atzera egin zuen segidan, **mindulinkeriazko** keinua aurpegian, doinu haserrez zera xuxurlatzen ziola: Karlos Zabala

## mindun izond mina duena.

Besotik heldu zion ba zaldun **mindunak** Don Kijoteri, eta honela mintzatu zen: [...]. Patxi Ezkiaga

Pozik bizi diren horietakoren bat al da, ala **mindun** horietakoren bat? Patxi Ezkiaga

-Sendagileak ez du, bada, bular-**mindunen** gaitza duela esan? Anjel Lertxundi

## mindura 1 iz oinaze modukoa; nahigabea, atsekabea.

Mototik jaitsi berrikan hanke txinaurritegiak dirudite, eta geldirik egoteak halako **mindura** urduri bat eragiten du. Pako Aristi

Joe Frazier ere nekaturik zegoen, irratik narratzailearen arabera, baina irabazlearen akidura eta **mindura** bestelakoa da. Gerrak ekarri dion **mindura** da. Joseba Sarrionandia

Odol zipiritinak indartzeko, laidoaren **mindura** sakontzeko, urduritasuna girotzeko. Koldo Izagirre

Bihotzeko **mindura** ematen zait pentsaturik biziko naizela hari kararik kara esateko: [...]. Juan Garzia

Esangura honekin erabili izan da inoiz Jainkoaren "haserrea" eta "**mindura**" adierazteko. Xabier Kintana

## 2 (hitz elkartuetan)

Argazkioi ondo begirata, hortxe igartzen zaio, ezpainen ertzetan preso, haratago joan dakion gura ez duen **mindura** aire bat, bai, gazterik hilko den Agirreri. Edorta Jimenez

-Baina, bat-batean, gogamena gurasoengana aldenitu zitzaidan eta halako bihotz **mindurak** harrapatu ninduen, ezen une haietan nahiago izango bainukeen bertan hiltzea, gurasoei eskolan gertatutakoa kontatzea baino. Pedro Alberdi

Segoviatik legoa eta erdira zegoen herrixka batean jaio, umetan zerrizain ibili, eta, makina bat bizi-**minduraren** ondoren, garaiko anatomistatik entzutetsuena izatera heldu omen zen Velasco sendagile hura. Anjel Lertxundi

## minduratu, mindura(tu), minduratzen du ad oinazetu.

Etarrak (hala esaten diete) hiltzea, edo **minduratzea** krimen kondenagarriak izan beharrean, edozein krimen omen den bezala, higiene demokratikorako neurri ezinbestekoak baizik ez dira. Xabier Montoia

## minduri izond auhena, deitorea.

Bost haurrak munduratu zituenean ez baitzuen intziri edo **minduri** bakar bat ere ozenarazi. Itxaro Borda

## minduxe izond aski mindua.

Edurne oraino **minduxea** dago mutilarekin. -Adiskideen arteko kontu bat zen -nik, **minduxea** -. Aingeru Epaltza

Gero jiratu egin da emaztea lotarako, ezkerreko lokiaren gainera etzanda lo egiten ohitua baita ebakuntzaz gero, kopetaren eskuinaldea beti ere **minduxeago** izaten duenez. Imanol Zurutuza

## mineral 1 iz lurraren azala osatzen duen gai ez organikoa, elementu kimiko bat edo gehiago dauzkana. ikmea.

Han ez dela **mineralik** ez eta landarerik ere. Xabier Kintana

Han **minerala** ehogailu munstrokara batean xehetzen zen. Juan Garzia  
Harkaitzetan meazuloak eginez, **mineral** balioak aurkitzen. Elizen arteko biblia  
Etorkizuneko elikagai "konplexuak" aberastuta etorriko zaizkigu, hau da, premiazkoak ditugun bitamina, **mineral** eta oligoelementuekin osatuta. Edorta Agirre  
**Minerala** ez dakit zein zen, eman dezagun ikatza zela. Xabier Mendiguren Elizegi  
Uranioa oso **mineral** merkea da; izan ere, erruz dago naturan. Berria - Mundua  
Asbestoa **mineral** naturalez eratutako zuntz bat da. Berria - Ekonomia  
Hidroxiapatitoa da **mineral** hori: ez da, zehazki, konposatu kimiko bat. Irene Aldasoro  
*Spirit* roverrak goethita **minerala** aurkitu du Marten (**mineral** hau Lurrean ura dagoen lekuetan bakarrik sortzen da). Berria - Gaiak  
Astronautek ere, geldi-geldi ez egonagatik, hezurrak ahultzeko arriskua dute, kaltzioaren eta beste **mineral** batzuen galeraren ondorioz. Irene Aldasoro  
Harritu egiten zaitu horrek, nola **mineral** eta gatzaz pobre diren uretatik sortzen den hain landare pozoizo aberatsa. Hasier Etxeberria  
Karbonatoak eta **mineral** hidratatuak. Irene Aldasoro  
Estatu Batuetako **Mineralen** Kudeaketa zerbitzuak. Berria - Ekonomia

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik behegaro 4.

XVIII. mendean fosilen animalia izaeraren tesiari kontrajartzen zitzaion euren **mineral** izaeraren tesi tradizionalagoa. Xabier Arregi  
Hezuraren, kolagenoak egiten du erretxinarena, eta **mineral** -kristalek beirazko zuntzena. Irene Aldasoro  
**Mineral** -edukiaren araberakoa da hezuraren sendotasuna. Irene Aldasoro  
Esnearen eta haragiaren **mineral** maila jaitsi egin da 60 urtean. Berria - Gaiak  
Femurrean halako proba eginda, ikusi zen **mineral** kantitate nabarmen handiagoa dutela kirolariek adin bereko pertsona arruntek baino. Irene Aldasoro  
**Mineral** -galera nabarmena izan zuten hezurretan. Irene Aldasoro  
Tentsio handia dagoenean gertatzen den **mineral** -gehitze horrek badu kontrako alderik ere: tentsio normalak desagertzen direnean, minerala galtzen hasten da. Irene Aldasoro  
Urdinak ziren begiak, **mineral** kolorekoak, sakonak oso. Felipe Juaristi  
Adriano **mineral** -landarea zen. Fernando Rey

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gatz gema, burdin **minerala**, kok ikatza, zink pirita eta halakoak eskatzen zizkigun. Koldo Izagirre  
Idi orgek deskargatzen dituzte hondartzan burdin **mineralaz** betetako ontziak. Koldo Izagirre  
Hezuraren pisuaren %70 inguru (edo haren bolumenaren erdia) hondarra da, hezur-**minerala** ere esaten zaiona. Irene Aldasoro  
Konposatu inorganiko bat da hezur-**minerala**, kaltzioz, fosforoz, oxigenoz eta hidrogenoz osatua, gutxi gorabehera formula honek adierazten duen proportzioan: 3Ca3 (PO4) 2 Ca (OH) 2. Irene Aldasoro

## 4 (izenondo gisa) mearena, meari dagokiona; mea duena. ik gorago 2.

Erreserba **mineral** handiak eta aberatsak ditu Peruk. Berria - Gaiak  
Mendebaldeko Saharako lurra oso aberatsak dira baliabide **mineraletan**, bereziki fosfatoetan. Ikatz begetalaren ordeaz, ikatz **minerala**, Ingalaterratik kontrabandoan sartzen zuena. Berria - Mundua  
Zelula horiek, ordea, ia guztiz harrapatuta daude inguruko gai **mineral** gogorraren barruan. Irene Aldasoro  
Odolean dauden gatz **mineral** guztien proportzioa % 0,9 inguru da (sodio kloruroa da nagusi). Irene Aldasoro  
Loditasun lirdingatsua zuela irudi zuen, olio **mineral** batez osatua edo. Karlos Zabala  
Hildakoen odol **minerala** kanposantu sakonetan herdoiltzen zen. Joseba Sarrionandia  
Zuen bihotz **minerala** lotsatuta baitago sorlekutik alde egin zenutelako. Joseba Sarrionandia

## 5 ur mineral (11 agerraldi, 7 liburu eta 4 artikulutan) ik metal 10.

Izkina batean gelditzen da, **ur minerala** edaten eta zigarroak erretzen. geuk hango kamera txikien bitartez ikusi ahal izan genuenez, **ur minerala** besterik ez zuten edaten. Iban Zaldua  
Nestle, berriz, oldarrean sartu da **ur mineralaren** sektorean. Berria - Kultura  
**Ur minerala** saltzeko monopolioa dute Reich osoan. Alberto Ladron Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gatz mineral** (3); **karbonatoak eta mineral** (3); **mineral hidratatuak zantzuak** (4)

**hezur minerala** (3); **ur minerala** (7)

**mineralak aurkitu** (4)

## mineraldu *izond* mineral bihurtua. ik mineralizatu.

Ez da mugitzen, ordea, **mineraldua** dirudi, inguruan duen guztiak bezala. Monika Etxebarria

## mineralizatu, mineraliza, mineralizatzen da/du *ad* mineral bihurtu.

GORPUTZEKO EHUN GUZTIZIEN DAGO KOLAGENOA, BAINA BESTEAK EZ BEZALAKOA DA HEZURRETAKOAK, **mineralizatu** egiten baita. Irene Aldasoro  
**Mineralizatutako** oihana. Herria

## mineralizazio *iz* mineralizatzea.

Deskonposatzaileek ere materia organikoa erabiltzen dute eta **mineralizazioan** zuzenki eragiten dute. Berria - Gaiak

## mineralogia 1 *iz* mineralak aztertzen dituen zientzia.

Alberto Magnok **mineralogiaz**, botanikaz, zoologiaz, metereologiaz, fisiologiaz... idatzi zuen. Berria - Gaiak  
*Beagle* 2-k [...] bizi arrastoak bilatzeko gailuak zeuzkan, material organikoak, karbonatoak eta orokorrean **mineralogia** aztertzeko. Berria - Gaiak  
*De mineralibus* tratatua **mineralogian** lan aitzindaria izan zen. Berria - Gaiak

## 2 (hitz elkartuetan)

**Mineralogia** ikastaldian ezagutzen ikasitako silizio, kaltzio eta magnesio ospetsuei. Juan Garzia

**Mineralogia** edo historia liburuetan begira hasi beharko nuke meategi horien nondik norako xeheagoa emateko. Xabier Mendiguren Elizegi

## mineraltasuna iz minerala denaren nolakotasuna.

Otsaileko goiz hartan elurra ari zen kanpoan, lohitzan lurrean, eta iruditut zitzaidan orduan harremanaren **mineraltasun** urdina zekarrela metroaren barne-barneraino. **Itxaro Borda**

Sorterriko arrotzatasuna, paisaiarekiko mimetismoa, bihotzaren **mineraltasuna**. **Joseba Sarrionandia**

## mineria iz nostalgia.

Haren ahotsaren auhenean zelai berdeen itzaropena dago, lore-bainuaren **mineria**. **Pako Aristi**

Harrapakin abilak eskatzen dion denbora gutzia dago galtzeko prest bere aztarnen atzetik; badu garai ugariagoen **mineria**, baina baita piezarik ederrena, harrigarriena oraindik aurkitzeko dagoela sinestarazten dion itzaropena itsua ere. **Pako Aristi**

## minero iz meatzaria.

Berri on bat ere: ordainak hor berean dituztela aspaldiko xapeldunek: jo du burutik buru **mineroak** bezala Etchebarnek eta pilotari jokatsu abila eta barreatzale agertu makearra. **Herria**

## minestrone 1 iz italiar jatorriko zopa, barazkiz eta bestelakoez prestatua.

Gauetz ailegatuko da, bertan zain duen **minestrone** sopa berotzeko garaiz. **Berria - Kultura**

### 2 irud/hed

Nahiago dut kobratu gabe gelditzea, sarritan gertatzen zait hori italiar txoro askorekin, zuen handiuste tontoa eramatea baino, barkatu hain gordin mintzatzea, baina niri ez zaizkit **minestrone** sustantziarik gabeak gustatzen **Anjel Lertxundi**

## mingabe 1 izond minik ematen ez duena.

**Mingain** sikua aho sabaian duzu itsatsita. **Sonia Gonzalez**

Exekuzio modu **mingabetzat** zeukan, dirudienez; urkatzearen gisako metodo basak ordezkatzeko aproposa, beraz. **Xabier Olarra**

Zaldunak **mingaina** klaskatu eta trostan joan zen. **Anton Garikano**

### 2 irud/hed

Berak erabiltzen ditu praktikoki zuk saltzen dizkiozun produktuak, eta horregatik ezagutzen ditu haien bertute eta akatsak emazte batek senarrenak ezagutzen dituen bezala, eta zuk, berriz, ez duzu eskuarki halako ezaguera **mingabe** eta desinteresatu bat baino, sarritan optimista, laboratoriotik edo produktuen prestabideetatik. **Juan Garzia**

## mingain (433 agerraldi, 104 liburu eta 32 artikulutan; orobat mingaiñ g.er. eta mingañ g.er.) 1 iz mihia.

Bihotza ilun-ilun, **mingaina** pasatzen dut ezpainetatik. **Anjel Lertxundi**

**Mingaina** ateratzeak lotsa adierazten baitu hainbat triburen kodean. **Anjel Lertxundi**

Susana San Juanek, erdi lotan, **mingaina** luzatu eta hostia irentsi zuen. **Juan Garzia**

**Mingaina** klaskatu eta "Arre, Moro" esanda abian jarri da Txamarro. **Pello Lizarralde**

Zure **mingaina** nire alua miazkatzen ari da... **Jasone Osoro**

Oraindik ere hankatarteari sexu usaina zeriola eta burua izter artean sartuta, **mingainaz** busti zuen gorpuaren azken plazer ukitua. **Jasone Osoro**

Gustatzen zitzaidan garagardoaren zaporea [...] edontziaren horma ilun bustien barreneko mundu bat-batekoa, ezpainetarainoko makurtze lasterra eta sabelerainoko irenste mantsoa, gatza **mingainean**, aparra ezpainen ertzetan. **Jokin Muñoz**

**Mingaina** eta eztatia bustiaz hizketa bizkortuko zaiolakoan. **Pako Aristi**

### 2 (mintzoaren adierazpidetzat hartua)

Begi eta **mingain** gehiegi ageri dituk bazterretan. **Karlos Zabala**

Zeren, bihotz gogorrak **mingain** gezurtia baitu. **Xabier Olarra**

Mihi ezta bizia ematen duen arbola da, **mingain** gaiztoak barne-barnean egiten du min. **Elizen arteko biblia**

Diru hark **mingaina** askatu zien, nonbait. **Karlos Zabala**

**Mingainari** eusten zion hitz itsusiren bat ihesi joan ez zekion. **Karlos Zabala**

Ez zuen **mingaina** lotzen hitz egiteko. **Josu Zabaleta**

Hara-hona zebilen, **mingaina** dantzan. **Koro Navarro**

Politika gaietan ezin **mingaina** dantzarazi. **Karlos Zabala**

Hark **mingainari** eragiten zion bitartean. **Irene Aldasoro**

-Ea, aho-xuri, ezti ezak oraindik gehiago **mingain** likits hori! **Anjel Lertxundi**

Ez nien kasurik egin nahi esamesei, jendeak hain **mingain** gaiztoa izaten du... **Karlos Zabala**

Herrian badagoela doilorkume bat, koldar beltz bat, **mingain** pozoitsua daukan Judas Iskariote bat. **Koldo Biguri**

Nik inoiz ez dut gauza handirik esaten; badakit, aurrez, **mingaina** tratatuko zaidala. **Josu Zabaleta**

**Mingainik** ez duzu ala? **Koro Navarro**

Katuak **mingaina** jan al dizu? **Sonia Gonzalez**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mingain** puntarekin ukitu zituen aho ertzera labaindutako malko gaziak. **Anton Garikano**

Edo saltxitxen haragi gordina dastatzen zuten elkarrekin, **mingain** puntaz, ea behar bezala maneaturik zegoen ikusteko. **Karlos Zabala**

**Mingain** -bridarik gabe. **Anjel Lertxundi**

**Mingain** klaskadak, ziztuak eta ia soinu huts diren ele eztiak nahasiz. - Bazterrak endredatzen dituzten **mingain** -gaiztoen aurka ari da Asteasuko erretorea. **Pello Lizarralde**

Lepic andreak, otorduen artean **mingain** -luxu hutsa den arren, keinu eta buru-mugimendu bidez ematen ditu mahairako aginduak. **Itziar Otegi**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bat-bateko deskargak argitasuna sortzen du hodei barnean, su-**mingain** adartsuen gisara. **Pello Zabala**

### 5 (bestelakoak)

-Bada, eraman ezazu **mingain** bat, edo txerri buru puska bat, edo urdaiz beteriko txahalki xerra bat -esan zion Lisak egonarriz. Dragoi bat ikusi zuen, ezkatez estalia eta gutzit harrigarria, agerian suzko **mingaina**, urrezko jauregi lur-zilarretatu baten aurrean zaindari. **Karlos Zabala**

Aurrera jo, eta kai-**mingainetik** hurbil olatuak nola apurtzen ziren ikusi zuten. **Aritz Gorrotxategi**

Kanpoaldeko kai-**mingainaren** hasieran, txalupariarekin egin zuten topo. **Iñaki Iñurrieta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mingain puntara** (3); **mingain puntaz** (6)

**mingaina askatu** (4); **mingaina atera** (3); **mingaina hortz artean** (3); **mingaina jan** (3); **mingaina kanpoan** (4); **mingaina klaskatu** (5)

**mingainari eutsi** (6)

## mingain *(433 agerraldi, 104 liburu eta 32 artikulutan; orobat mingaiñ g.er. eta mingañ g.er.) 1 iz mihia.*

Bihotza ilun-ilun, **mingaina** pasatzen dut ezpainenatik. **Anjel Lertxundi**

**Mingaina** ateratzeak lotsa adierazten baitu hainbat triburen kodean. **Anjel Lertxundi**

Susana San Juanek, erdi lotan, **mingaina** luzatu eta hostia irentsi zuen. **Juan Garzia**

**Mingaina** klaskatu eta "Arre, Moro" esanda abian jarri da Txamarro. **Pello Lizarralde**

Zure **mingaina** nire alua miatzatzen ari da... **Jasone Osoro**

Oraindik ere hankartateari sexu usaina zeriola eta burua izter artean sartuta, **mingainaz** busti zuen gorpuaren azken plazer ukitua. **Jasone Osoro**

Gustatzen zitzaidan garagardoaren zaporea [...] edontziaren horma ilun bustien barreneko mundu bat-batekoa, ezpainenarainoko makurtze lasterra eta sabelerainoko irenste mantsoa, gatza **mingainean**, aparra ezpainen ertzetan. **Jokin Muñoz**

**Mingaina** eta eztarria bustiaz hizketa bizkortuko zaiolakoan. **Pako Aristi**

## 2 (mintzoaren adierazpidetzat hartua)

Begi eta **mingain** gehiegi ageri dituk bazterretan. **Karlos Zabala**

Zeren, bihotz gogorrak **mingain** gezurtia baitu. **Xabier Olarra**

Mihi eztaia bizia ematen duen arbola da, **mingain** gaiztoak barne-barnean egiten du min. **Elizen arteko biblia**

Diru hark **mingaina** askatu zien, nonbait. **Karlos Zabala**

**Mingainari** eusten zion hitz itsusiren bat ihesi joan ez zekion. **Karlos Zabala**

Ez zuen **mingaina** lotzen hitz egiteko. **Josu Zabaleta**

Hara-hona zebilen, **mingaina** dantzan. **Koro Navarro**

Politika gaietan ezin **mingaina** dantzarazi. **Karlos Zabala**

Hark **mingainari** eragiten zion bitartean. **Irene Aldasoro**

-Ea, aho-xuri, ezti ezak oraindik gehiago **mingain** likits hori! **Anjel Lertxundi**

Ez nien kasurik egin nahi esamesei, jendeak hain **mingain** gaiztoa izaten du... **Karlos Zabala**

Herrian badagoela doilorkume bat, koldar beltz bat, **mingain** pozoitsua daukan Judas Iskariote bat. **Koldo Biguri**

Nik inoiz ez dut gauza handirik esaten; badakit, aurrez, **mingaina** tratatuko zaidala. **Josu Zabaleta**

**Mingainik** ez duzu ala? **Koro Navarro**

Katuak **mingaina** jan al dizu? **Sonia Gonzalez**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mingain** puntarekin ukitu zituen aho ertzera labaindutako malko gaziak. **Anton Garikano**

Edo saltxitxen haragi gordina dastatzen zuten elkarrekin, **mingain** puntaz, ea behar bezala maneaturik zegoen ikusteko. **Karlos Zabala**

**Mingain** -bridarik gabe. **Anjel Lertxundi**

**Mingain** klaskadak, ziztuak eta ia soinu huts diren ele eztiak nahasiz. Bazterrak endredatzen dituzten **mingain** -gaiztoen aurka ari da Asteasuko erretorea. **Pello Lizarralde**

Lepic andreak, otorduen artean **mingain** -luxe hutsa den arren, keinu eta buru-mugimendu bidez ematen ditu mahairako aginduak. **Itziar Otegi**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bat-bateko deskargak argitasuna sortzen du hodei barnean, su-**mingain** adartsuen gisara. **Pello Zabala**

## 5 (bestelakoak)

-Bada, eraman ezazu **mingain** bat, edo txerri buru puska bat, edo urdaiz beteriko txahalki xerra bat -esan zion Lisak egonarriz. Dragoi bat ikusi zuen, ezkatez estalia eta gutzit harrigarria, agerian suzko **mingaina**, urrezko jauregi lur-zilarreztatu baten aurrean zaindari. **Karlos Zabala**

Aurrera jo, eta kai-**mingainetik** hurbil olatuak nola apurtzen ziren ikusi zuten. **Aritz Gorrotxategi**

Kanpoaldeko kai-**mingainaren** hasieran, txalupariarekin egin zuten topo. **Iñaki Iñurrieta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mingain puntara** (3); **mingain puntaz** (6)

**mingaina askatu** (4); **mingaina atera** (3); **mingaina hortz artean** (3); **mingaina jan** (3); **mingaina kanpoan** (4); **mingaina klaskatu** (5)

**mingainari eutsi** (6)

## mingaintxo *iz mingain modukoa, txikia.*

Oinaztu han goikoetatik, lurreraino datorren tximista gidatzeko, lur azaleko elektrizitate edo kalanbre positibozko gidatxoa, **mingaintxoa** behar da. **Pello Zabala**

## mingaintzar *iz adkor tamaina handiko mingaina.*

Behin, Benaibordako behi beltza etorri, eta lepoa goiti okertuz gure besoa haina luzeko **mingaintzarra** atereaz, han hasi zen intxaur hostoak jaten. **Patziku Perurena**

## mingaiztu, mingaiz/mingaiztu, mingaizten da *ad asko mindu.*

Nini gutzit mindu zen, eta ohar batzuk egin zituen, erdi begirunez erdi **mingaiztuta**, askoz ere hitz gogorragetarako sarrera besterik ez zirenak. **Josu Zabaleta**

## mingañ ik mingain.

## mingar 1 *iz mingotsa, garratza.*

Arto jorratzaileak, sagardogileak, ardo **mingarra** zoanetarik mahaietara ekarleak. **Itxaro Borda**

Barkoxeko erretorari eliza bortan kantatü zeitzen bertset **mingarrak**, aitzinetik hontürük zütüan. **Herria**

-Zer behar nuke jakin? -Joantoren doinua oraino **mingarra** zen. [Elena Touyarou](#)

Behiala jakin arazi zidan, ahots **mingarrez** : [...]. [Itxaro Borda](#)

Bere atsegina **mingarra** da. [Patziku Perurena](#)

Eguargiarekin, erien hots **mingarrak** isildu egin ziren, edo ontzietan orduantxe abiarazi zituzten beste zereginen harrabotsaren azpian galdu ziren, batek jakin. [Edorta Jimenez](#)

## • 2 (predikatu gisa)

Odola usnatzen zuen, ezkaratzaren garbitzeko plantatzen zenean, jariakor, **mingar** eta karats. [Itxaro Borda](#)

## 3 (izen gisa)

Aita zerura beha bermatu zen, oharraren **mingar** arina ezpainetan. [Itxaro Borda](#)

# mingarratz

iz belar landarea, bere hosto garratz antx eta jateko onengatik ereiten dena (*Rumex acetosa*).

Ziazerba eta **mingarratz** alorrek, errefau, arbi eta azenario zerrendek, patata eta aza landare handiek beren zamau erregularrak hedatzen zituzten. [Karlos Zabala](#)

Ziazerba eta **mingarratz** sortak, orburu mordoak, babarrun eta ilar pilak. [Karlos Zabala](#)

# mingarri 1

izond min egiten duena.

Erditze **mingarria** izan zen, eta, gainera, elbarri jaiotzen zena. [Jose Morales](#)

Giltzurrunetan oinazea nuen, oso oinaze **mingarria**. [Josu Zabaleta](#)

Orduantxe, bero-puntu zorrotz **mingarri** bat sentitu nuen ezkerreko izterrean. [Txillardeggi](#)

Udaberriko epeltasun abegitsua etorri zen neguko hotz **mingarria** ordezkatzera. [Patxi Zubizarreta](#)

43 urte zituen, aspaldiko gaitz **mingarri** batek du ereman. [Herria](#)

Intentsitate gehitu ahala, soinu ozena zena sentipen **mingarri** bihurtzen da. [Irene Aldasoro](#)

Erantzun goxoak haserrea baretzen, hitz **mingarriak** amorrua areagotzen. [Elizen arteko biblia](#)

Hala ere, beti geratuko da zokoren batean eskularru pare bat, bufanda bat, euritako bat... absentsiaren presentzia **mingarria**, maite izateko azken forma hori. [Imanol Zurutuza](#)

Erabaki zaila eta **mingarria** benetan. [Xabier Olarra](#)

Burua astindu zuen, ideia **mingarri** bat aldendu nahian bezala. [Ramon Saizarbitoria](#)

Iruditzen zitzaidan zerbait **mingarri** jakinaraziko zidala. [Bernardo Atxaga](#)

Gogoan atxikita geratuko zitzaizkion gizonari, estiran dagoenaren intzirien gisako kexu **mingarri** haiek. [Imanol Zurutuza](#)

Brastako mugimenduak ziztada **mingarri** bat eragin zidan saihetseko zaurian. [Alberto Ladron Arana](#)

Ez duzu zertan oroitzen **mingarri** horiek gogora ekarri. [Alberto Ladron Arana](#)

Amaren sabeleko gozotasun **mingarri** eta urruna. [Harkaitz Cano](#)

Heriotza baino, desagertze bat, ezerezte anker izugarri **mingarri** bat izan zen harena. [Joxan Elozegi](#)

Bizitza **mingarria** baita, baina ez dago ihesbiderik. [Markos Zapiain](#)

Intsektu txiki eta oso bihurri batzuek hozka egiten zioten oso modu **mingarrian**. [Jose Morales](#)

## 2 (predikatu edo adizlagun gisa)

Sudurrean kea bezain **mingarri** zait hori guztia. [Elizen arteko biblia](#)

Itsas orroak ez bestek urratzen zuen isilunea, **mingarri** zitzaidan. [Txillardeggi](#)

**Mingarri** gertatuko ote zait zuzen esandakoa? [Elizen arteko biblia](#)

Seme zentzugabea aitarentzat **mingarri**, sortu zuen amarentzat samingarri. [Elizen arteko biblia](#)

**Mingarri** sartzen zitzaidan urdaileraino "Gora Euzkadil" urrun haietariko bakoitza. [Koldo Izagirre](#)

Ez pozgarri ezta **mingarri** ere. [Joxemari Iturralde](#)

## 3 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa)

Begien **mingarri** diren puztu, zaurituak oro, zirujauen etsigarri. [Xabier Olarra](#)

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Bihotz-**mingarri** balin bada ere hastapen batean, ondotik bihotz-bakezale ere da edo bederen hala izan behar luke... [Herria](#)

Hari zor dizkiot partitu nintzen geroztik hain bihotz-**mingarriak** izan ez zaizkidan une bakarrak. [Jon Muñoz](#)

Guztiz gogo-**mingarri** zaidak atzematea nola morrosko ileordedun nabarmen batek jo eta txiki-txiki egina uzten duen pasarte zirrargarri bat, belarriak zartatuz beheko mailakoei. [Juan Garzia](#)

Denak buru makur, ezpainak itsatsirik, boz belarri-**mingarriari** adi. [Aingeru Epaltza](#)

Eta oroi-**mingarri** zitzaizkion bainuetako kandela gorriak, hilerriko gauaren erdian. [Juan Garzia](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bezain **mingarri** (3); egun **mingarri** (3); esperientzia **mingarri** (3); **mingarri** bihurtzen (3); **mingarri** zitzaidan (5)

benetan **mingarria** (3); bereziki **mingarria** (6); erditze **mingarria** (4); esperientzia **mingarria** (3); galtzea **mingarria** (3); kolpe **mingarria** (4); **mingarria** da oso (3); **mingarria** egin (5); **mingarria** egingo (3); **mingarria** egiten (10); **mingarria** gertatu (5); **mingarria** gertatzen (5); **mingarria** izan (55); **mingarria** izan arren (3); **mingarria** izan zen (20); **mingarria** izango (8); **mingarria** izango da (4); **mingarria** zait (3); **mingarria** zen (14); **mingarria** zitzaion (4); oso **mingarria** (35); oso **mingarria** izan (5); oso **mingarria** zen (3); porrot **mingarria** izan (4); zein **mingarria** (5); zinez **mingarria** (3); ziztada **mingarria** (4)

are **mingarriago** (5); **mingarriago** egiten (3)

are **mingarriagoa** (9); askoz ere **mingarriagoa** (3); baino **mingarriagoa** (7); **mingarriagoa** da (6); **mingarriagoa** izan (4); **mingarriagoa** zen (4)

hitz **mingarriak** (5); **mingarriak** dira (3); **mingarriak** izan (6); **mingarriak** izango (3); **mingarriak** ziren (3); oroitzen **mingarriak** (6); oso **mingarriak** (5); porrot **mingarriak** (3)

oso modu **mingarrian** (4)

iragan **mingarriko** (6)

oroitzen **mingarriren** (3)

# mingarritasun

iz mingarria denaren nolakotasuna.

Beldurra sortzen didalako nahigabe hura ahanzteko darabilgun aukera egiazkoak, eta berriro **mingarritasun** antzetsuko edo sakonagoko beste zorigaitoren bat errepikatze ariskuaren emaltze geldiezinak. [Pako Aristi](#)

Bat ohitu egiten da gauzen gogortze honetara, eta ez zara harritzen **mingarritasunaren** muturrera iritsi zarela uste duzuean **mingarritasun** oraindik are mingarriago jasateko gauza zarela ohartzen zarenean. [Berria - Kultura](#)

mingor ik minkor.

mingortasun ik minkortasun.

## mingoski *adlag* mingostasunez. ik mingots 3; garrazki; saminki.

Biharamunean esnatzen zirenean, ez zekiten ziur zer gertatu zen, bezperan esan eta egindako guztiak lausopean bezala ikusten zituzten, nahiz eta biak zeharo minduta eta **mingoski** nahigabetuta egon. **Mirentxu Larrañaga**  
Inork baino **mingoskiago** ditu pairatu eta ditu salatu euskaldunon estukeria eta abertzaleen zintzokeria, esaterako. **Joxe Azurmendi**

## mingostasun 1 *iz* mingotsa denaren nolakotasuna.

Itsasotik hur gagozenez, sarritan zapore gaziko hezetasuna ahoratzen zaigu eta, absenta edaria nahasten ikusten badugu, **mingostasuna** nabari dugu. **Xabier Amuriza**  
Zeren eta, kanpotik nolabaiteko usain gozoa eta itxura ederra izan arren, ezin izango baititu inork jan beren **mingostasunagatik**. **Askoren artean**

### 2 irud/hed samintasuna.

**Mingostasunik** eta arrangurarik gabe. **Askoren artean**  
Ahoaren inguruan bazuen **mingostasuna**, desilusioa dei zitekeen espresio bat. **Koro Navarro**  
Haren malkoak benetako malkoak ziren, baina ez zuten arintzen harengan ez oroitzapenen **mingostasuna** ezta minaren hozkada ere. **Ander Irizar**  
Tristura eta urrun-min kutsua hartu nion Templek hartaz esandakoari, are **mingostasun** pixka bat. **Xabier Olarra**  
Kortxozko kaskoa buruan, *jodhpur*-ak oinetan eta **mingostasuna** ezpainetan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### 3 (hitz elkartuetan)

Gainera, badu halako ziri berdexka bat, oker samarra, eta hazia edo dena delakoa ere berdexka eta halako **mingostasun** puntuarekin... **Jon Alonso**  
Zinez ari zitzaidan, **mingostasun** kutsu batek ilundutako irribarre eztian. **Aingeru Epaltza**  
Bere arimaren bi muturrak ziren, batetik, **mingostasun** -, lehortasun-, garratzasun-egoera bat, eta, bestetik, depresio -eta tristura-sentipen bat ziren. **Josu Zabaleta**

### 4 *mingostasunez* ik mingoski.

Aluan xaharrak, ostera, konbentzimendurik gabe eta **mingostasunez** erantzun zion: "Bizirik lurperatu nahi nauk, ala?". **Patxi Zubizarreta**  
Orduan kutxa atzera sakelan gorde eta, ezin nahasiago, **mingostasunez** mintzatu zitzaion: [...]. **Patxi Zubizarreta**  
Tarteka, **mingostasunez** irribarre egin eta gizonezkoarenak ziruditen hortz handi horituak erakusten zituen. **Ander Irizar**

## mingostu, mingots/mingostu, mingosten 1 *da/du ad* mingots bihurtu.

Ozpin usainak eztarria **mingosten** zion leunki. **Karlos Zabala**  
Jaten nuen apurra ere **mingosten** zidaan, eta jasanezinak egiten zizkidan gauak. **Juan Garzia**  
Bada, antza, uso baten gibela dut, eta behazuna falta laidoa **mingosteko**. **Juan Garzia**  
Ez zegoen hori kontatu beharrik, gaztaroko urte haien behazunak **mingosten** baitzuten osabaren oroitzapenak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Gülbaharrek hori gogoan zuen bitartean, pozoia bezalako tristezia batek **mingosten** zion bihotza. **Fernando Rey**

### 2 irud/hed samindu.

Beti izango dugu Barojaren testuen artean gure etsaiaren edo arerioaren bizitza **mingostuko** duen pasarte edo paragrafo bat aurkitzeko aukera. **Berria - Kultura**  
Bitartean, deserriko urrezko kaiolan bizi beharrik Parisko bizimodu ezitia **mingostu** zion, eta baita bere kera eta itxura aldatu ere. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Barrena **mingostuko** zidaten burutazioak baztertzea, ez nuen besterik gogoan. **Anjel Lertxundi**  
Begira zein atsekabatuak uzten gaituzun, zein goibel eta **mingosturik** ! **Askoren artean**  
Auzoko kazeta zen hura bete-bete, txiroen bekaizkeria sorgorak eta kreditu ukatuek **mingostua**. **Karlos Zabala**  
Dena hagitz profesionala eta zibilizatu, hainbat ordutako itxarondian nire kontra egositako koleraz **mingostuagatik** ere. **Aingeru Epaltza**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Besoetan hartzen nuen bakoitzean eta haren esne usain **mingostua** usaintzean, halako batean irentsi egingo nuela iruditzen zitzaidan, hain baitzen ederra pospolina. **Hasier Etxeberria**  
· Bere Ford motelean sartzera zihoala, Unzuluren ahots **mingostua** entzun zuen: emaiok honetatik hire txatarra horri, egarri izango duk eta. **Xabier Montoia**

## mingostura *iz* samintasuna.

Baina nire zirrikadak eta **mingostura** gorabehera, albistea pozgarria zen. **Edorta Jimenez**  
-Hilda badago bai behintzat -esan nuen, **mingosturaz**, esan nahi nuena Sinbadek argi ulertzeko moduan. **Edorta Jimenez**

## mingots 1 *izond* behazunarena bezalako ahogozo ez-atsegina duena. ik karats; mingar; mikatz; garratz

Oinarrizko lau zapore badirela frogatzen dute test zientifikoek: gazia, garratza, gozoa eta **mingotsa**. **Irene Aldasoro**  
Asentsio ur **mingotsa** edaten duten bitartean. **Xabier Amuriza**  
Gaitzaren sorburuak amore eman eta gorputz ustelduaren humore **mingotsa** bere gordelekura itzultzen denean. **Xabier Amuriza**  
Era berean, larumindunak gauzak hori dakuski, eta mihia behazun horitan bustirik daukanak gauza gozoei zapore **mingotsa** aurkitzen die. **Xabier Kintana**  
Itsas haizearen zapore gazi **mingots** ezaguna. **Karlos Zabala**  
Amak prestatutako afari gozoari dasta **mingotsa** hartu nion. **Juan Kruz Igerabide**  
Erre usain gogor **mingotsa**, erretako gorputzen usain lodi itsaskorra. **Felipe Juaristi**  
Kirats **mingotsa**, kanfor ukitu bat zuena. **Ramon Saizarbitoria**  
Paperaren hezetasun **mingotsa** nabaritzen nuen. **Ramon Saizarbitoria**  
Ahuntz bizardunei basa-oliba atsegin zaie [...]; gizakiontzat, beriz, ez dago haren hostoa baino **mingotsagorik**. **Xabier Amuriza**  
Batari gozo zaiona besteari **mingots** bazaio, [...]. **Xabier Amuriza**  
Azken tantaraino edan behar dugu gure patuaren kaliza **mingotsa**. **Jose Morales**  
Gainera, pozoia bezain erantzun **mingotsa** eman zien: [...]. **Fernando Rey**  
Porrotaren fruitu **mingotsa**. **Felipe Juaristi**  
Negarra irentsi egiten genuen, edabe **mingots** bat bezala. **Juan Kruz Igerabide**



## 2 irud/hed samina

Guztietariko jolasak, jokaerak eta izaerak hausnartzen dira: onak, bigunak, ederrak, gozoak, alaiak eta baita ere txarrak, gogorrak, lizunak, **mingotsak** eta itunak. **Patziku Perurena**

Heriotzaren lagun diren negar **mingotsak** eta hileta beltza. **Xabier Amuriza**

Esauk garrasi handi **mingotsa** egin eta esan zion: -Bedeinka nazazu neu ere, aita. **Elizen arteko biblia**

Indigenek barne erbeste **mingotsean** segitzen dute, eta horretan hilko dira. **Berria - Mundua**

Bizimodu latz haren bozkario **mingots** guztiak ezagutu zituen. **Karlos Zabala**

Bazterrak nahastea egotzi dio PSOEri, gainera: «adierazpen gozoak eta abisu **mingotsak** tartekatzen ditu, eta ia zoratu gaitu». **Berria - Ekonomia**

Nahigabe saminak eta desilusio **mingotsak**. **Josu Zabaleta**

Baina, segidan, amarekin nengoela sentitu nuen isolamendu hura nagusitzen zait, bakardadezko tristura **mingots** hura. **Anjel Lertxundi**

Latza da haren jardunbidea, eta **mingotsa** gertatuko zaiola bere bakartasuna! **Jose Morales**

Irriño **mingots** baten kimua ezpaineratu zitzaidan. **Aingeru Epaltza**

Idazkia ironikoa zen, sumina eta **mingotsa**. **Berria - Harian**

Komedia **mingotsak** ziren lan horiek, umorearen ondoan gizarte gris baten argi-ilunak erakusten zituztenak. **Berria - Kultura**

## 3 (adizlagun gisa) ik mingoski.

"Lau pikari albaniarren soldata", erantsiko zidan, **mingots**, berrogei urte geroago. **Aingeru Epaltza**

-Ohituta nago -erantzun dit **mingots** samar. **Josu Zabaleta**

## 4 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa) mingostasuna.

-Ez harrotu neronek neure buruari prestatu diodan edariaren **mingotsa**. **Agustín Osoa**

Karmin zapore gozoa eta malkoen **mingotsa** biak batean izango zituela pentsatu nuen. **Joxean Agirre**

Bitartean, bidaiari guztiek hain ondo ezagutzen dituzten abiatu nahi eta ezinezko minutu horien **mingotsa** dastatzeko aukera izan zuen Txixikovek. **Jose Morales**

Desira konplitu gabeen **mingotsari**. **Aingeru Epaltza**

## 5 (hitz elkartuetan)

Hortik semearen kontaezari darion gozo-**mingotsa**. **Edorta Jimenez**

-Gero eta galdera gehiago egiten zuen Norak, gero eta bihotz-**mingotsago** erantzuten zion aitak. **Anjel Lertxundi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**irribarre mingots** (7); **irribarre mingots bat** (4); **tristura mingots** (3)

**zapore mingotsa** (3)

## mingrana 1 iz mingranondoaren fruitua, laranjaren tamainakoa, mami gorriak inguraturiko hainbat alek osatua. ik granada 3.

Beherakoarekin zegoen, **mingrana** eta piku asko jan baitzuen. **Juan Kruz Igerabide**

Masustondo handiaren abaroen eserita, gure etxe zaharreko lore-baratzean, **mingranak** aletzen ari zen ama. **Juan Kruz Igerabide**

Bular biribil bat, gure baratzean **mingrana** bat bezala puztua. **Juan Kruz Igerabide**

## 2 (hitz elkartuetan)

Esquak gorritzen zizkion **mingrana** aleen zukuak. **Juan Kruz Igerabide**

Lore txiki morez apainduriko beren jantzi luze berde edo **mingrana** kolorekoekin. **Juan Kruz Igerabide**

**Mingrana** -arbolak, pikondoak, olibondoak, gereziendoak, mertxikondoak, mahatsondoak...; haien enborrak besterik ez ziren geratzen. **Juan Kruz Igerabide**

## mingranondo iz Zuhaitz enbor-bihurritua eta arantzatsua, lore gorriak dituena eta fruitu gisa mingranak ematen dituena (*Punica granatum*).

Laster heldu zen udaberria, **mingranondoak** loratu ziren. **Juan Kruz Igerabide**

Etxean, zuzenean baratzerara joan nintzen, pistola lur azpian gordetzera, **mingranondo** baten ondoan. **Juan Kruz Igerabide**

Laranjondo, limoiondo eta **mingranondo** makatzez betetako zuhaitzi hostotsu baten erdian geratu zen 404a. **Jon Muñoz**

## mingulin ik mindulin.

## minhartu ik min 14.

## minhori ik min 15.

## mini

### 1 mini-disc

Eta askotan **mini**-disc batekin ateratzen zen soinuak grabatzera. **Berria - Kultura**

Indiara eginiko bidaietan **mini**-disc-a eramaten du Caminok, eta grabazio ugari egiten ditu han. **Berria - Kultura**

### 2 mini-gorte

Egia ote zen, azkenean, Valentín Gómez ere, Karlos Setimoren konfiantza-gizona, "liberalegia" zitzaieala **mini**-gorteko ultramontano ojalateroei? **Txillardegi**

### 3 mini-hiri

Auzo gune horretako eskolaren inguruan **mini** hiri baten sortzeko ideia alan derabilate, araberako ekipamendu publikoz horniturik **Herria**

### 4 mini-hitzaldi (corpusean minitzaldi soilik)

Abokatu defendatzaileak [...] epaimahaikideoi begietara tinko so eginez burutu duen **minitzaldi** batean, elkarbizitza egunero ureztatu eta landu behar den landarearekin alderatu du. **Patxi Zubizarreta**

### 5 mini-iritzi (corpusean miniritzi soilik)

Eta nik atea itxi nuen, bainuontzian sartu nintzen, poliki eseri behar izan nuen ura oso bero zegoelako, **minintziria** ere egin nuen, kontu handiz eseri nintzen, minez.

**6 mini-mikrofono**

Ramírez kapitainak hainbat **mini** -mikrofonoz josi zituen Mireiaren etxea, autoa eta lantokia. **Fernando Morillo**

**7 mini-multinazional**

Munduko merkatu berrietan kokatu nahi duten **mini** -multinazional gipuzkoarrei. **Berria - Ekonomia**

**8 mini-sukalde**

Ni **mini** -sukaldean egon nintzen tarte luze batez, sojazko zerbeza bat ahogozatzen eta egunkari atzeratuak irakurtzen, eta gero nire ohera joan nintzen. **Iban Zaldúa**

mini-disc ik **mini 1.**

mini-gorte ik **mini 2.**

mini-hiri ik **mini 3.**

mini-mikrofono ik **mini 6.**

mini-multinazional ik **mini 7.**

mini-sukalde ik **mini 8.**

**miniatura 1** iz objektu baten erreprodukzioa, tamaina txikikoa.

Eta bazeuden itsasontzien **miniaturak** ere elizaren alboetan zintzilik. **Joseba Sarrionandia**

Beldurra diela arratoiei, izan zitezkeen animalia erraldoien **miniatura** direlako. **Joseba Sarrionandia**

Hastingueseko zerbitzugunea baino lehen dagoen zubi modernoa ikusten dut, Lisboako zubi berria dirudi **miniaturan**. **Mikel Hernandez Abaitua**

Koipe izpirik gabekoak ziren bi xerrak, elefante-belarri bi **miniaturan**. **Joan Mari Irigoien**

**2 (margolan eta kidekoena)**

Eskala-problema hutsa azken batean, alegia, Jackson Pollocki, bere garai oparoenean, **miniatura** akriliko bat egitea enkargatu baliote bezala. **Patxi Iturritegi**

Martzeloren bizitzaren ale bat, Plutarkorena, Girolamo Kremonakoak **miniatura** miragarriz irudiztatua. **Jon Muñoz**

Liburua hartu zuen, azala antzinako **miniatura** frantziar edo alemaniar baten imitazioa zen. Erdigunean, kobrezko hariarekin eta eztainuarekin sortutako Aingeruak daude, hainbat forma eta kokaera dituzten **miniatura** hotzak. **Jon Alonso**

**3 miniaturazko**

Begia **miniaturazko** argazki-makina batekin konparatu izan da askotan. **Josu Zabaleta**

Eta autoak ere trukutzen genituen, 1: 43 eskalan eginak, **miniaturazkoak**: Rollsak, Bugattiak, Ferrariak, Lamborghiniak, Jaguarrak, Mercedesak, Lotusak, horrelakoak. **Karlos Linazasoro**

Ehun dukat dituzte orain ordaintzen beraren erretratu **miniaturazko** batengatik. **Juan Garzia**

Horregatik da kartzela **miniaturazko** gizarte bat, kanpoko gizartearen ispilu kuxkurtu bat. **Iñaki Segurola**

**miniaturaztatu** izond miniaturez hornitua.

Beretta 38 A metrailadore baten herskailua [...], Koran **miniaturaztatu** bat, portzelanazko pipa luze-luze bat, eskutokia zilarrez landua zuen ezpata damaskinatu bat, paper horixkatuak barra-barra. **Juan Garzia**

**miniaturizatu** izond miniatura bihurtua.

Palak eta pilota berberak dira, baina haren eskuetan ez da halako areto-jardun jendetasunezko bat, baizik eta kirol bete-bete eta akigarri bat, halako tenis **miniaturizatu** eta deabruzko bat. **Oskar Arana**

**miniaturizazio** iz miniatura bihurtzea.

**Miniaturizazio** teknika aurreratu zenean, kameraren barruan integratu ahal izan zen esposimetria; objektiboaren gaineko aldean, gehienetan. **Irene Aldasoro**

**minibar** iz hotel gelako izozkailu edariduna.

Dohain da, baina kontua eskatu behar... **minibarra**, eta film pornoak! **Edorta Jimenez**

**minibus** iz tamaina txikiko autobusa.

Madriigo udalak **minibusa** jarri zigon expressokideoi, goiz eder batean ez dakit nondik norako bidea eroso egin genezan. **Edorta Jimenez**

Bizkor sartu dira **minibusean** eta gura duzunean alde egin dezakezuela diotsute. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Hilde izeneko bat falta dela esan dizute **minibusera** igo zaretenean. **Urtzi Urrutikoeetxea**

**minifalda** iz minigona.

**Minifalda** gorria eta sandaliak ere gorriak zekartzan, eta blusa zuri estu bat.

**Joxemari Iturralde**

## minigerra *iz* gerra modukoa, gorabehera txikikoa.

Lubakietako kulturakoek beren **minigerretan** eta makronegozioetan ziharduten bitartean, Anderlecht auzoan jatorri arabiarrekoak, magrebiarrak nik uste, beste mundu batean ziren.

**Edorta Jimenez**

## minigolf *iz* golfa bezalako jokoa, eremu txiki eta artifizial batean jokatzen dena; joko hori joatzen den eremua.

Hogeita batgarren mendeko hippyen karabaneke igerileku eta **minigolfa** izango dituzte denek, eta naturista partikular bat.

**Unai Iturriaga**

Gero, astiro eta arretatsu alde egin du **minigolf** itxurako zelai abandonatu baterantz.

**Patxi Iturritegi**

## minigona *(orobat mini-gona) iz*

Desarmatu nauena salako ispiluan bere buruari eta **mini**-gonak ematen zion itxurari begiratu ondoren, Paola niri begira geratu dela ikustea izan da.

**Harkaitz Cano**

## minihidrauliko *izond*

Hori dela eta, 1.083 milioi euroren inbertsioak egingo dituzte, orotara, energia **minihidraulikoan**, haize errotetan, eguzkiko energian, biomasan eta olatuetako energian.

**Berria - Ekonomia**

## minikaligrafiatu, minikaligrafia, minikaligrafiatzen du *ad* oso tamaina txikiko letrez idatzi.

**Minikaligrafiatzen**, paper puska txiki-txikietan.

**Iñaki Iñurrieta**

## minilehoi *iz* oso tamaina txikiko lehoia.

Hala, lehoi baten eta sagu baten ixtorioa kontatu nionean, berehala aldendu zen Greg kontatutakotik, eta haren sagua mehatxuka hasi zitzaion lehoiari, jango zuela eginez: sagu erraldoi eta **minilehoi** bihurtuak zituen.

**Xabier Olarra**

## minima *iz* temperatura minimoa.

Maxima-**minima**, euri-kontuak eta beste, denen kopuru totalak eta batezbestekoak ere, kontu denak paper muturretan aterako zituen. -lur gainean, lurretik 10-12 zentimetrora dagoen **minima**-termometroarena.

**Pello Zabala**

## minimal *iz* espresabideak minimoraino murrizten dituen arte abstraktuaren izena.

Dekoraturik gabe, atrezzo hutsarekin, Duran eszena zuzendariak funtzionalismo eta **minimal** ikuspuntu modernoarekin mugitu zituen baldakino mugikor bana hasierako ostatu eta etxeko eszenetarako.

**Berria - Kultura**

Garichot eszena zuzendariak **minimal** parametroak aukeratu zituen, ia atrezorik gabe eta jende mugimendurik gabe.

**Berria - Kultura**

Maribel Berastegik betiko irudi idiliko-bukolikotik alde egin nahi zuen eta **minimal** esparrutik sartuz erdibidean geratu zen.

**Berria - Kultura**

## minimalismo 1 *iz* adierazpideak minimora murrizten dituen arte eta literatura joera. (literaturan)

Hauek dira **minimalismo** narrazioaren ezaugarriak: kontakizun laburrak, esaldi laburra eta paragrafo motza nagusi direnak, oso eszenografia eskasa, pertsonaia gutxi, eta ekintza, drama, gutxiestea.

**Koro Navarro**

**Minimalismoa**, super-errealismoa, errealismo zikina: saikapenak, etiketak, idazle jakin baten nondik norakoak argitzeko nolabait ere baliagarriak izan daitezkeenak.

**Koro Navarro**

Kritikariek, nola ez, Txekhov eta Carverekin lotu dute estiloaren **minimalismoaren** ikuspuntutik, eta Dostoievski, Kafka edo Becketekin gaien aldetik.

**Berria - Kultura**

Txan fantasma errealismo kritikoa zela esan zuten, euskal Haur eta Gazte Literaturaren modernitatearen hasiera; Iholdi, **minimalismo** literarioa...

**Ana Urkiza**

### 2 (arteetan)

**Minimalismoari**, postminimalismoari eta kontzeptualismoari buruzko erakusketa zabaldu dute New Yorkeko Guggenheim museoa.

**Berria - Kultura**

AEBetako abangoardiako artearen lehen urratsak ikus daitezke Madril: espresionismo abstraktua, **minimalismoa**, Ipar Amerikako errealismo berria eta pop artea, besteak beste.

**Berria - Kultura**

Egileak arkitekturaren desagertzearen inguruan landutako kontzeptuak biltzen ditu bete-betean, hala nola idazketa zuria, formaren **minimalismoa** eta naturaren parte-hartzea: «Liburutegi Nazionalaren kasuan, hutsa bildu nahi nuen, materiagabea harrapatu», adierazi du Perraultek.

**Berria - Kultura**

Eszenografia pisutsuaren ordez **minimalismora** jo dugu.

**Berria - Kultura**

Batzuetan rock progresiboari egiten dio keinu, beste batzuetan post-rockaren bidea jarraitu nahi duela iduri du [...] eta gehienetan epikotasuna gailentzen zaio

**minimalismoari**.

**Berria - Kultura**

## minimalista 1 *izond* minimalismoarena, minimalismoari dagokiona.

Kontakizun **minimalistetan**, "sobran" dagoen guztia ezabatu egiten da, kontaktzen diren gauzetatik nahiz kontaktzeko modutik.

**Koro Navarro**

Aipatzekoa da egilearen estilo **minimalista**, esaldi zatiak eta kontzeptuak behin eta berriro errepikatzen dituena, noizbehinkako aldaketa txikiak erabiliz pentsamenduan aurrera joateko.

**Berria - Kultura**

Margolaritzan estilo **minimalista** eta kontzeptuala nagusi zirenean.

**Berria - Kultura**

Itxuraren aldetik ez baitzirudien makina, eskultura **minimalista** bat baizik.

**Iban Zaldúa**

Musika **minimalista** eta malenkoniatsua egiten du Marinek.

**Berria - Kultura**

Eszenografia **minimalista** da; soilik argiztapenaren bidez hartzen dute indarra drama handiko oneek.

**Berria - Kultura**

Enekoren luxuzko apartamentu **minimalista**.

**Patxi Iturritegi**

### 2 irud/hed

Zaldun bat oihuka, museo-zaintzaileen *look* **minimalistari**.

**Anjel Lertxundi**

Lau asiatico elkarrekin ziren kanto batean, beren hizkuntza **minimalista** kantariak aldiro, urteak joan arau, hunkitzen ninduela. **Itxaro Borda**

### 3 iz minimalismoaren jarraitzailea.

Irizpide horiek direla-eta esaten da Carver **minimalista** dela, berak hori behin eta berriz ukatzen zuen arren. **Koro Navarro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**eszenografia minimalista** (4)

## minimetro iz ibilbide laburreko metroa.

Garraio bide hori tranbia, tranbusa edo PPK bultzatutako **minimetroa** izan daiteke. **Berria - Euskal Herria**

## minimizatu, minimiza, minimizatzen du ad minimoetaraino murriztu.

Deskokatzearen fenomenoaren eraginak **minimizatzeko**, neurriak har daitezkeen nahi du Ganberak. **Berria - Ekonomia**  
Hizkuntza teknikoak **minimizatzen** saiatu gara eta, oro har, arrotz izan daitezkeen hitzak agertu ahala definitzen. **Askoren artean**  
Ez dirudi **minimizatzea** dagoenik horren lazgarria, garaiko beste testu ahaztezin batzuen lazgarria ere **minimizatu** nahi ez badugu. **Joxe Azurmendi**  
Kezka bat daukagu, eta kezka hori ez da ez **minimizatu** eta ez dramatzaizitu behar. **Berria - Kultura**  
Itxaropenak puzteko eta arriskuak **minimizatzeko**. **Esteban Antxustegi**

## minimizatze iz minimoetaraino murriztea.

Historiak **minimizatze** tekla jo zuen. **Iñaki Seguro**

## minimizazio iz minimizatzea.

Bestelako tratamendu batzuk bultzatu behar direla diote, hala nola **minimizazioa**, berrerabilpena, birziklatzea eta konpostajea. **Berria - Euskal Herria**

## minimo 1 izond gutxienekoa.

Badira, beraz, bakuntasun solidoko lehenkiak, zati **minimoetan** estuki bateginak. **Xabier Amuriza**  
Argi zirrinda **minimo** bat egin zitzaion bere buruan zuen leize ilunean. **Harkaitz Cano**  
Plazer istant ziztrin, **minimo** eta soilik a posteriori idealizatu hori. **Harkaitz Cano**  
Argi izpi bat, diskurtso **minimo** bat, gertaerak ulertzen lagunduko dizun zerbait nahi duzu aurkitu. **Hasier Etxeberria**  
Segundo batzuk behar izan zituen arnasa berreskuratu eta hitz batzuk elkarren segidan koherentzia **minimo** batez kateatzeko. **Harkaitz Cano**  
Oso txikia da lekua: gela **minimo** bat, sala zikin bat eta sukalde, biak batera. **Harkaitz Cano**  
Editoreek lasaitasun ekonomiko **minimo** bat behar dute euskal literaturaren aldeko apustu garbi eta planifikatu bat egingo badute. **Ana Urkiza**  
Ikusmen atalase **minimoa** lortzeko, gehienez ere 1/10 segundoren tartean kontzentratu behar du erretinara bidalitako argiak. **Irene Aldasoro**  
Dastamen-papilei eragiteko behar den kantitate **minimoa** mikrogramo baten ehunena da gutxi gorabehera, hau da, etil merkaptanoari usaina hartzeko behar den minimoa baino hamar mila aldiz gehiago. **Irene Aldasoro**  
**Minimoa** eta elementala, egunerokotasunaren erritmoan zihoana. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### 2 (izen gisa)

-Hemengo legeak aipatzen duen **minimoa** baino gehiago! **Ramuntxo Etxeberri**  
1962ko udan ezarri zela legez Espainia osoan gutxieneko soldata, lanbidea eta lantokia edozein izanda ere ordaindu beharreko **minimoa**: 60 pezeta eguneko. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Gero, honela gorputzen banakuntzan ez delako mugarik egongo, ez zatiketaren gelditzerik, ez gauzetan inolako **minimorik**; nahiz eta guk gauza guztietan badela ikusi sentimenei **minimoa** iruditzen zaien mutur bat, eta hortik atera dezakezu ikusi ezinekoetan ere badela mutur bat, euron **minimoa** izan beharrekoa. **Xabier Amuriza**  
Edukazioak eskatzen dituen **minimoez** pentsatzen duzu. **Lourdes Oñederra**  
Baten batek esan behar lioke Ibarretxeri ez dituela **minimoak** ere betetzen. **Hasier Etxeberria**

### 3 iz temperatura minimoa.

Hotz-beroaren maximoak eta **minimoak** garbi jasotzeko gauza da gaur egun termometro ezagun hori. **Pello Zabala**  
Bata eguneko maximoa apuntatzen zuena, eta bestea **minimoa** seinalatuz. **Pello Zabala**  
Errepara dezagun urtarrileko **minimoen** batez bestekoetan. **Pello Zabala**  
Ordukoak dira **minimo** hauek: -3.4 Donostian; -6.2, Bilbon, eta -7.4, Iruñean. **Pello Zabala**  
**Minimoak** askoz gozoago eta leunagoak dira Donostian: 15.5 **minimoen** batez bestekoa. **Pello Zabala**

### 4 (matematikan)

Tresna bera elkarren oso bestelako ekintzak egiteko gauza zen: kurba baten luzera kalkulatu, irudi baten azalera zehaztu, [...], kurba baten maximoa eta **minimoa** aurkitu, ukitzaileak zehaztu, abiadurak eta azelerazioak adierazi! **Jon Muñoz**  
Maximoak eta **minimoak**: kurba gorenean edo behearenean dagoen lekua; inflexio-puntuak: kurbak kurbadura aldatzen duen lekua, gorantz irekia izatetik beherantz irekia izatera; itzulera-puntuak, eta abar. **Jon Muñoz**  
Maximoak eta **minimoak** bilatzeko bere metodoaren oinarrian jarri zuen propietate hori Fermatek, eta aljebren mintzairara itzuli zuen; ekuazioen bidez, alegia. **Jon Muñoz**

### 5 pare minimo (fonologian)

Hots unitate bakarrak bereizten dituen hitz bik osatzen dute pare **minimoa** deitua, esaterako gazt. *perro / pero*, eusk. *katu / patu*. **Lourdes Oñederra**  
Horregatik gertatzen da oraindik ere fonologian espezialista ez diren hizkuntzalari eta irakasle askok zalantzak izatea fonema batzuen izateaz, ez badituzte pare **minimoak** aurkitzen. **Lourdes Oñederra**  
Azken batean, pare **minimoak** ez dira fonemak izatearen arrazoï edo baldintza, ondorio baizik. **Lourdes Oñederra**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**maila minimoa** (3)  
**maximoak eta minimoak** (3); **pare minimoak** (4); **zerbitzu minimoak** (3)

## minimodun izlag minimoko.

Aurrera jorik, gure sentimenterik gorpuz bakoitzak azken mutur bat daukenez gero, argi dago hau zatigabea eta izaera **minimoduna** dela, eta inoiz ez dela bere baitan berez izan, ezta izango ere, bera baita beste zer baten lehen zatia eta bakarra; hortik antzeko beste eta beste zati batzuek gorputzaren izaera ordenan osatzen dute lerro estuan. **Xabier Amuriza**

## minimoki *adlag* gutxieneko mailan.

Eserita, zerbait esatearren, eserlekuaren ertzean ipurdia baitzen **minimoki** bermaturik zuen bakarra. **Harkaitz Cano**  
Nik ere banekien edozein unetaz gozaten, berorrek **minimoki** merezi izanez gero. **Joxe Austin Arrieta**

## minimum *iz* minimoa.

Enuntziatua, multzo esanguratsuen banakatzeko hastapena izan beharrean ("atomo" esanguratsua, zentzua egoteko beharrezko **minimuma**), batasun esanguratsu horiek espazioan kokatzen duena da. **Xabier Arregi**

## miñiñi *iz* adkor katu.

-Ale Nina **miñiñi**! -zioen Mikelek-. **Ramuntxo Etxeberri**  
**Miñiñiak** atzaparrak ateratzen. **Ramuntxo Etxeberri**  
Nina "**miñiñiari**" larru beltzeko minigona baten erosteko. **Ramuntxo Etxeberri**

## minio 1 *iz* gorri-laranja koloreko pigmentua, berun oxidoak osatua, margolaritzan erabiltzen dena.

**Minio** edo bermilioaren ingurukoak azaltzen hasiko naiz orain. **Santiago Iruretagoiena**  
**Minioa** eman eta gorritz pintatzen du, Eusten zioten zutabe astunak **minioz** margoztaturik zeuden. **Elizen arteko biblia**  
**Miniozko** zipriztinak bost zubien burdinazko izterren gainera. **Lopez de Arana**

## 2 (hitz elkartuetan)

Elkarren aurrean geunden, bion artean alanbrehesi altu bat zegoen, oinen ondoan **minio** pote bana geneukan, bakoitzak bere pintzela eta parez pare ginela pintzela sartzen genuen alanbreen artean, alanbrehesia margotzen genuen, bakoitzak bere aldetik. **Fernando Rey**

## minipiano *iz* oso piano txikia.

Eskuin eskua mahai gainean jarririk, hatz erakuslea eta erdikoa mugitzen zituen, bi teklako **minipiano** bat jotzen ariko balitz bezala. **Joan Mari Irigoien**

## miniritzi ik mini 5.

## ministerialtsu *izond*

Euskaldun zintzoa ez naizelako edo, ez dut emakume **ministerialtsu** haren berri izan. **Edorta Jimenez**

## ministerio (*836 agerraldi, 65 liburu eta 1049 artikulutan; orobat minixterio g.er.*) 1 *iz* estatuaren gobernuaren banatzen den sail nagusietako bakoitza, ministro baten mendean dagoena.

-Don Carlosek ondoko hilabeteotan gobernu oso bat antolatzeko asmoa dik, **ministerioak**, bankuak eta guzti. **Txillardegia**  
Madrilgo **ministerio** bateko zuzendariorde izendatu zuten. **Iban Zaldúa**  
Ez dut deusetarako ez den **ministerio** baten kargudun izan nahi. **Herria**  
Izar ontzigitza taldearen bideragarritasun ekonomikoa aztertzen ari den **ministerio** arteko batzordeak. **Berria - Ekonomia**  
Agindu bezala, emakumeen esku izango dira **ministerioen** erdiak. **Berria - Mundua**  
Berak bidaliko zion ohar hori, ziur nago Magiako **Ministerioan** txundituta geratuko direla Dumbledore han agertzen denean. **Iñaki Mendiguren**  
Itsas Armadako **Ministerioan** sartu zen funtzionario. **Josu Zabaleta**  
Albert Pierrepointek bazuen, dirudienez, klase kontzientzia, eta 1956. urtean dimisioa aurkeztu zuen Britainia Handiko Barne **Ministerioan** bertan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ministroaren aldeko hiletak hilabete baten buruan amaitu zirelarik, bi anaiak **ministerio** lanak egiten hasi ziren. **Patxi Zubizarreta**  
**Ministerio** -tipoko karpeta zen gainera: urdina, kartoi birziklatuzkoa. **Unai Elorriaga**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskoziako Hezkuntza **Ministerioak** sexu heziketaren inguruan aurkeztutako proiektuaren aurka agertu da Eliza Katolikoa. **Berria - Gaiak**  
Hezkunde **ministerioaren** ixiltasun hori ezin konprenitua da Seaskaren iduriko. **Herria**  
Zergatik onartzen dute homeopatia beste herrialde aurreratu batzuetako Osasun **ministerioek**? **Berria - Gaiak**  
Lan **Ministerioa** bat dator eskaerarekin, eta mahaira proposamen sorta bat eramango duela iragarri du. **Berria - Harian**  
Herbehereetako Nekazaritza **Ministerioak** bi etxaldetako hegaziak hiltzeko agindu du aste honetan. **Berria - Gaiak**  
Nicole Amelinek funtzio bera beteko du Parekotasun eta Berdintasun **Ministerioaren** buruzagitzan. **Berria - Mundua**  
Israelgo Etxebizitza **Ministerioak**, Defentsa **Ministerioaren** baimenarekin, momentuz eten egin du Maale Adumingo, Arieleko, Kiryateko, Arbako eta Beitar Eliteko kokaguneetan 1.300 etxebizitza eraikitzeko plana. **Berria - Mundua**

## 4 ministerio baten zerbitzuak dauden eraikuntza.

Ekonomia **Ministerioa** lehertzea pentsatu nuen gero baina honek ere ez zidan balio. **Hasier Etxeberria**  
Erre ditzagun munduko ministro eta **ministerio** guztiak! **Fernando Rey**  
Hartan aparatu sail bat, **ministerio** bateko bulegoak bezala elkarrengandik erabat bereziak. **Josu Zabaleta**  
Sukaldeko leihotik erakunde publiko batek betetzen zuen eraikina ikusten zuen; berak ez zekien zer erakunde zen, epaitegia ote zen, **ministerioaren** ordezkaritza ote zen, gobernu autonomikoaren departamentu bat ote zen. **Jon Alonso**

## 5 kargua, betekizuna; bereziki, apaizgoa.

Honela, apostoluen mezuaz zabaltzeko eginkizuna hartuko zuenak, fede katolikoarekin guztiz leial, Jainkoaren ministro eta hauen **ministerioarekiko** begirunez bete agertu zen hasieratik. **Askoren artean**

Kristoren **ministerio** [...] ebajjoleiotan Jainkoaren beraren esku-hartzte gisa aurkezten da. **Iñaki Mendiguren**

Ez zen Fray Rogeiro bere **ministerio** santurako duin izango baldin eta S. Pedroren ikasgaiarekin ikasi izan ez balu. **Jon Alonso**

Eta **ministerio** honekin Jainko Jaunak inor baino gehiago ohoratu zaituztenez gero, zuek ere inork baino gehiago bera maita, benera eta ohora ezazue. **Askoren artean**

Apaizei dien eta anaiak izan behar dieten benerezioa ere katolikotasun honen ondorioa da: ez onak edo txarrak direlako, haiek duten **ministerio** sakramentalagatik baizik. **Askoren artean**

## 6 **ministerio publiko** legearen ordezkariak justizia-epaimahairen aurrean.

Nazioko prokuradore izanez, auzitegiatan **ministerio publikoaren** zereginak zituen, legeak idazten eta ikerketak agintzen zituen. **Elena Touyarou**

Guatemalako Polizia Nazionalak, **Ministerio Publikoak** eta Botere Judizialak ez dute euren betebeharra betetzen. **Berria - Gaiaik**

Fiskalak, ordea, prozesutik ateratzea defenditu zuen; bere esanetan **Ministerio Publikoak** ez duelako bere gain hartu nahi auzipetuari epaiketara joateak sortuko liokeen «tentsioa». **Berria - Euskal Herria**

Hasieran, **Ministerio Publikoak** urtebeteko espesxe zigorra eta 10.800 euroko isuna eskatu zuen. **Berria - Euskal Herria**

## 7 **ministerio fiskal** ministerio publikoa.

Espainiako **Ministerio Fiskalak**, ordea, helegitea jarri zion erabaki horri. **Berria - Euskal Herria**

**Ministerio Fiskalaren** eta Nafarroako fiskal buruaren jarrera gogor kritikatu zuen alderdi abertzaleak. **Berria - Euskal Herria**

Orduan ere **Ministerio Fiskalak** Herrizaingo sailburuak aurkeztutako dei helegitearen alde egin zuen. **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ministerio arteko** (7); **ministerio arteko batzordeak** (3); **ministerio fiskalak** (6); **ministerio publikoak** (9); **ministerio publikoaren** (5)

**atzerri ministerioa** (6); **barne ministerioa** (11); **defentsa ministerioa** (3); **finantza ministerioa** (6); **frantziako hezkuntza ministerioa** (5); **hezkunde ministerioa** (5); **hezkuntza ministerioa** (9); **justizia ministerioa** (4); **lan ministerioa** (5); **magiako ministerioa** (5); **ministerioa utzi** (4); **osasun ministerioa** (4); **sustapen ministerioa** (9)

**arabiako barne ministerioak** (5); **arrantza ministerioak** (4); **atzerri ministerioak** (61); **barne ministerioak** (124); **defentsa ministerioak** (46)

**ekonomia ministerioak** (8); **errusiako atzerri ministerioak** (3); **espainiako barne ministerioak** (47); **espainiako defentsa ministerioak** (13); **espainiako hezkuntza ministerioak** (11); **israelgo defentsa ministerioak** (4); **israelgo ingurumen ministerioak** (5); **italiako atzerri ministerioak** (3); **justizia ministerioak** (30); **kultura ministerioak** (7); **espainiako nekazaritza ministerioak** (5); **espainiako osasun ministerioak** (12); **espainiako sustapen ministerioak** (53); **etxebizitza ministerioak** (3); **finantza ministerioak** (12); **frantziako barne ministerioak** (7); **frantziako defentsa ministerioak** (5); **frantziako hezkuntza ministerioak** (17); **frantziako justizia ministerioak** (5); **frantziako osasun ministerioak** (5); **governuko barne ministerioak** (3); **governuko sustapen ministerioak** (4); **herri lan ministerioak** (3); **hezkunde ministerioak** (12); **hezkuntza ministerioak** (39)

**industria ministerioak** (7); **informazio ministerioak** (3); **ingurumen ministerioak** (38); **irakeko barne ministerioak** (3); **irakeko osasun ministerioak** (7); **israelgo atzerri ministerioak** (3); **israelgo defentsa ministerioak** (4); **israelgo justizia ministerioak** (5); **italiako atzerri ministerioak** (3); **justizia ministerioak** (30); **kultura ministerioak** (7); **laborantza ministerioak** (5); **lan ministerioak** (13); **magiako ministerioak** (7); **mexikoko atzerri ministerioak** (11)

**ministerioak adierazi** (8); **ministerioak adierazi du** (3); **ministerioak atzo jakinarazi** (6); **ministerioak atzo zabaldu** (4); **ministerioak atzo zabaldutako** (3); **ministerioak azaldu** (5); **ministerioak baiezlatu** (7); **ministerioak egin** (5); **ministerioak egindako** (3); **ministerioak eman** (4); **ministerioak emandako** (7); **ministerioak emandako datuen** (6); **ministerioak esan** (5); **ministerioak hartu** (7); **ministerioak jakinarazi** (20); **ministerioak jakinarazi duenez** (6); **ministerioak jakinarazi zuenez** (11); **ministerioak onartu** (3); **ministerioak zabaldutako** (5); **ministerioak zehaztu** (4)

**nekazaritza ministerioak** (18); **ogasun ministerioak** (19); **osasun ministerioak** (62); **osasun ministerioak jakinarazi** (4); **segurtasun ministerioak** (3); **sustapen ministerioak** (72); **txinako osasun ministerioak** (10)

**atzerri ministerioan** (4); **barne ministerioan** (13); **defentsa ministerioan** (5); **espainiako sustapen ministerioan** (3); **hezkuntza ministerioan** (3); **magiako ministerioan** (9); **ministerioan egiten** (3); **ministerioan jarri** (3); **ministerioan lan egiten** (5); **sustapen ministerioan** (4)

**barne ministerioarekin** (4); **espainiako sustapen ministerioarekin** (4); **hezkunde ministerioarekin** (3); **hezkuntza ministerioarekin** (3); **ingurumen ministerioarekin** (3); **sustapen ministerioarekin** (6)

**atzerri ministerioaren** (16); **atzerri ministerioaren bozeramaille** (5); **barne ministerioaren** (59); **barne ministerioaren egoitza** (3); **barne ministerioaren esku** (4); **barne ministerioaren menpeko** (4); **defentsa ministerioaren** (23); **ekonomia ministerioaren** (5); **espainiako barne ministerioaren** (10); **espainiako industria ministerioaren** (5); **espainiako ingurumen ministerioaren** (6); **espainiako sustapen ministerioaren** (10); **finantza ministerioaren** (3); **frantziako atzerri ministerioaren** (3); **frantziako barne ministerioaren** (6); **frantziako hezkuntza ministerioaren** (4); **governuko ingurumen ministerioaren** (4); **hezkunde ministerioaren** (3); **hezkuntza ministerioaren** (11); **hezkuntza ministerioaren arabera** (3); **industria ministerioaren** (7); **industria ministerioaren datuen** (3); **ingurumen ministerioaren** (14); **ingurumen ministerioaren aginduz** (3); **irakeko barne ministerioaren** (3); **justizia ministerioaren** (5); **kultura ministerioaren** (8); **lan ministerioaren** (6)

**ministerioaren aginduz** (4); **ministerioaren arabera** (54); **ministerioaren ardura** (3); **ministerioaren ardurapean** (3); **ministerioaren aurka** (3); **ministerioaren aurrean** (3); **ministerioaren bidez** (3); **ministerioaren bitartez** (3); **ministerioaren bozeramaille** (6); **ministerioaren datuen** (4); **ministerioaren datuen arabera** (4); **ministerioaren egoitza** (6); **ministerioaren egoizatik** (3); **ministerioaren esku** (10); **ministerioaren esku dago** (4); **ministerioaren menpe** (4); **ministerioaren menpe dagoen** (4); **ministerioaren menpeko** (6)

**nekazaritza ministerioaren** (3); **ogasun ministerioaren** (3); **osasun ministerioaren** (15); **sustapen ministerioaren** (13); **txetxeniako barne ministerioaren** (3)

**atzerri ministerioari** (3); **barne ministerioari** (20); **defentsa ministerioari** (3); **espainiako barne ministerioari** (5); **espainiako ingurumen ministerioari** (4); **espainiako lan ministerioari** (3); **espainiako sustapen ministerioari** (11); **ingurumen ministerioari** (7); **justizia ministerioari** (4); **lan ministerioari** (3); **ministerioari dagokio** (3); **ogasun ministerioari** (3); **osasun ministerioari** (3); **sustapen ministerioari** (14)

**ministerioaren arteko** (5)

**atzerri ministerioi** (64); **atzerri ministerioi bozeramaille** (8); **atzerri ministerioi bozeramailleak** (6); **atzerri ministerioi eledun** (14); **atzerri ministerioi eledunak** (7); **atzerri ministerioi idazkari** (3); **atzerri ministerioi idazkariorde** (3); **barne ministerioi** (59); **barne ministerioi bozeramaille** (3); **barne ministerioi eledun** (4); **barne ministerioi iturriek** (5); **defentsa ministerioi** (20); **errusiako atzerri ministerioi** (5); **espainiako barne ministerioi** (8); **espainiako hezkuntza ministerioi** (5); **espainiako ingurumen ministerioi** (10); **espainiako nekazaritza ministerioi** (3); **espainiako sustapen ministerioi** (5); **finantza ministerioi** (4); **frantziako atzerri ministerioi** (5); **governazio ministerioi** (4); **hezkunde ministerioi** (8); **hezkuntza ministerioi** (13); **industria ministerioi** (6); **ingurumen ministerioi** (18); **ingurumen ministerioi buru** (3); **irakeko barne ministerioi** (9); **irakeko defentsa ministerioi** (3); **irango atzerri ministerioi** (4); **israelgo atzerri ministerioi** (6); **israelgo defentsa ministerioi** (3); **justizia ministerioi** (4); **lan ministerioi** (9); **magiako ministerioi** (5)

**ministerioi aholkulari** (3); **ministerioi arduradun** (3); **ministerioi arduradunek** (5); **ministerioi arduradunekin** (3); **ministerioi azpiegitura** (3); **ministerioi bozeramaille** (17); **ministerioi bozeramaille batek** (4); **ministerioi bozeramailleak** (9); **ministerioi buru** (5); **ministerioi eledun** (25); **ministerioi eledun batek** (6); **ministerioi eledunak** (8); **ministerioi funtzionario** (3); **ministerioi goi arduradun** (8); **ministerioi idazkari** (5); **ministerioi idazkari nagusi** (3); **ministerioi idazkariorde** (5); **ministerioi iturriek** (7); **ministerioi iturriek jakinarazi** (3); **ministerioi iturrien** (3); **ministerioi iturrien arabera** (3); **ministerioi kideak** (4); **ministerioi ordezkari** (5); **ministerioi ordezkariak** (7); **ministerioi ordezkariak** (4); **ministerioi ordezkariekin** (3); **ministerioi teknikariak** (3); **ministerioi zuzendari** (15); **ministerioi zuzendari nagusi** (4)

**nekazaritza ministerioi** (6); **osasun ministerioi** (14); **sustapen ministerioi** (11); **txinako atzerri ministerioi** (3)

**barne ministerioi** (7)

**atzerri ministeriotik** (4); **barne ministeriotik** (6)

## ministeriotza ik ministeritza.

## ministeritza (76 agerraldi, 9 liburu eta 47 artikulutan; orobat **ministeriotza g.er.**; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren **ministerio** agertzen da) 1 iz ministerioa.

Klaseak ematen ditu Unibertsitate Zentralean, eta Kanpo Harremanetarako **Ministeritzaren** kontura *Imagen de Venezuela* aldizkariko diseinatzailea eta koordinatzailea da. **Pako Aristi**

ELBsindikateko 50 bat laborari sartu dira laborantzako **ministeritzak** Baionan dituen bulegoetan. **Herria**

Bob zen president izanaren anaia, anaia gehienari atxikia, haren laguntzailea Justiziako **ministeritzan**. **Herria**

19 hildako eta 111 zauritu izan direla zehaztu zuen bere irakeko Osasun **ministeritzak**. **Berria - Mundua**

## 2 kargua, betekizuna; apaizgoa.

Eta badakigu nafartar doktoreak ederki defendatu zuela botere politikoaren herri etorkia, haren izaera eta oinarri demokratikoa, hots, Herriaren jaurgoa eta Monarkiaren **ministeritza**. **Piarres Xarriton**

Pauloren **ministeritza** Kristoren misterioaren zerbitzuan. **Elizen arteko biblia**

Izan ere, gizon akasgabe bat bizkor atera zen zintzoen defentsan, bere **ministeritzari** zegozkion armak erabiliz: otoitza eta bekatuan barkamenerako intsentsua. **Elizen**

arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

barne ministeritza (3)

hezkunde ministeritzak (3)

## ministrari (43 agerraldi, 2 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ministro** agertzen da) iz ministroa.

Babiloniako Nabukodonosorren erregealdiko hermeretzigarren urtean [...] Nebuzaradan Babiloniako erregearen **ministraria** eta guardaburua etorri zen Jerusalemara.

Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

erregearen ministrari (3)

## ministro (8129 agerraldi, 100 liburu eta 3286 artikulutan; orobat **minixtro** g.er.) 1 iz estatuaren gobernuko sail nagusi bateko burua, ministerio bateko buruzagia.

Horren ondotik, erregeak jantzi bikainak oparitu zizkien erresumako **ministro** eta handiki orori. Patxi Zubizarreta

Tsar bat, **ministroak**, gobernadoreak eta erregimen tsaristako goi-agintari asko hil zituzten. Jose Morales

Irujo **ministroak** Galindez gau-ehiztaria bidali du Madrilera, faxistatzarra bila dezan eta horrela trukea gauzagarri bihur dadin. Edorta Jimenez

Lan publikoetako **ministroak**, Vallellanoko kondeak. Koldo Izagirre

Ismael Hurtado Soucre jeneral eta Defentsako **Ministroa** agertu zen prentsaurreko batean koronel ospetsu baten suizidioaren berri emateko. Pako Aristi

Pierre Mauroy, aspaldi batean Mitterranden Lehen **Ministro** izandakoa. Edorta Jimenez

Sultanari esango diot nire anaiaren semea zarela eta nire orde **ministro** izendatuko zaitu, izan ere adinean aurrera bainoa. Patxi Zubizarreta

Rehevam Zeevi **ministro** ohiaren hilketaren erantzuleak kartzelan izateko konpromisoa duela zehaztu zuen Tel Avivek. Berria - Mundua

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egun batean, **ministro**-kontseiluan, Frantziako Elkargoan aldaketa batzuk egiteko kontua atera zuen ministro bati, honela ihardetsi zion jeneralak: [...]. Juan Garzia

Baina hala nola monarka-bileren eta **ministro**-batzarren emaitzarik esanguratsuenak ez diren agertzen komunikatu ofizialen testuetan, [...]. Anton Garikano

Osasun eta Gizarte Babeserako **ministro** karguan Philippe Douste-Blazy jarri du Raffarinek. Berria - Mundua

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Atzo barne **ministro** zena garraio **ministro** duzu gaur. Joxerra Garzia

Espainiako Jose Luis Rodriguez Zapateroren gobernuko Ingurumen **ministro** Cristina Narbonari helarazi zion eskaera hori Greenpeacek, 2004ko ekainean. Edurne Elizondo

Espainiako Justizia **ministroak** duela hilabete batzuk esan zuen ez dela "pribilegiarik" ezarri behar preso politikoentzat "ezberdintasunak" baizik. Jokin Urain

Indiako jarduneko Defentsa **ministro** George Fernandes BJP alderdiko diputatuak lehen ministroak kargua hartzeko ekitaldira joango zirela iragarri zuen atzo. Berria - Mundua

Frantziako Kultura **Ministro** Catherine Tasca andreak. Edorta Jimenez

Urtarrilaren 26an Espainiako Gobernuko Herri Lan **ministro** Julian Campo Nafarroan izan zen. Edurne Elizondo

Zedlitz-eko baroia, erregeren estatu-**ministroa**. Ibon Uribarri

### 4 erlijio ordena batzuetan, kargu bat duena.

Anaia txikien Ordenako **Ministro** jeneralari. Askoren artean

**Ministro** jenerala kapitulu berean aukeratutako Jesiko Kreszentzio zen. Askoren artean

Hura hiltzean, **Ministro** probintzialak eta kustodioek egin bezate ondorengoaren hautaketa Mendekosteko Kapitulan, eta **Ministro** probintzialak behartuak beude Kapitulu horretarako beti elkarrekin biltzera, **Ministro** jeneralak erabakitako edozein lekutan. Askoren artean

Orobat kapitulu honetan Pian del Carpineko anai Joan, Saxoniako **ministroa**, kargutik aske gelditu zen eta Wormseko anai Konrado jarri zuten haren orde. Askoren artean

**Ministro** letradunen eta Hugolino kardinalaren presioak frantziskotar idealaren frakasoa eta Frantziskoren porrota ekarri zituela. Askoren artean

Hainbat kasutan **ministro** eta *kustodio* bikotean [...] ez dira bata bestearengandik bereizten. Askoren artean

Anai Joan Parente **Ministro** jeneralak, Alemanian teologia-irakaslerik ez zutela jakinik, anai Simon Alemaniako **ministro**-kargutik askatu eta irakasle jarri zuen, eta Pian del Carpineko Joan anaia izendatu zuen Alemaniako **ministro**. Askoren artean

Urte berean Portziunkulako Santa Marian egin zen kapitulan, anai Zesareo libre geratu zen bere **ministro**-ofiziotik, bi urtez karguan egon ondoren, eta bere orde **ministro** Pisako anai Alberto izendatu zuten. Askoren artean

### 5 apaiza; kalbindarren artean sakramentuak ematen dituen.

Samindu eta sumindu zitzaidan apezka, erranez ezen, errespetua eta begirunea zor niola Jainkoaren **ministroa** zen aldetik. Joan Mari Irigoien

Eta Fedez, **ministroek** zuten hitza. Aingeru Epaltza

Uste dut erlijioaren **ministroak** sartzen zirela adiskidetzeko horietan. Iñaki Iñurrieta

Erljioak **ministro** asko dituenean, naturala da haiek buruzagia izatea, eta apaizburutza ezarrita egotea. Iñaki Iñurrieta

Apirilean, Landatxeberrri **ministroak** benedikatu zuen Eneko Ezpondaren eta Katalina Mailuren ezkontza. Aingeru Epaltza

Leizarraga, Joanes [...] **ministro** kalbindar euskalduna. Aingeru Epaltza

Etxeberrri, Joanes (Jean de la Rive), Biarnoko Eliza Erreformatuetako euskal **ministro** higanota. Aingeru Epaltza

1559ko otsailean, Nafarroa Behereko Estatuetako ordezkariak, Bastidan bildurik, Pauera diputazio bat igortzea erabaki zuten, **ministro** "higanoten" predikuek kezatzera. Aingeru Epaltza

Etxeberrik beretako nahi ninduen, **ministro**-ikastun. Aingeru Epaltza

### 6 ministro andere (orobat andre)

Alliot-Marie **ministro anderearen** arabera. Herria

Ez dut uste, ordea, Pilar del Castillo **ministro andereak** hartu duen bideak ezer konponduko duenik. Joxerra Garzia

Marie-Georges Buffet, kirol eta gazteriaren **ministro andereak** jakinarazi du ez duela onartzen holako zigorrak, manifestaldira joanez neska horrek erakutsi duela zer pentsatzen duen eta ez zaiola kentzen ahal daukan askatasuna. Herria

Ulegarria ba Kultura **Ministro Anderearekin** gertatua. Edorta Jimenez

### 7 ministro orde ik ministroorde.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

administrazio publikoetako ministro (12); alemaniako atzerri ministro (12); anaien ministro (6); atzerri ministro (336); atzerri ministro karguan (6); atzerri ministro ohi (9); atzerri ministro ohiak (6); barne ministro (273); barne ministro izendatu (9); barne ministro ohi (19); barne ministro ohiak (13); belgikako lehen ministro (6); defentsa ministro (130)

**egiptoko lehen ministro** (6); **egungo lehen ministro** (7); **ekonomia ministro** (35); **errusiako atzerri ministro** (21); **espainiako barne ministro** (85); **espainiako defentsa ministro** (15); **espainiako ekonomia ministro** (8); **espainiako ingurumen ministro** (6); **espainiako justizia ministro** (32); **espainiako lan ministro** (6); **espainiako ministro** (12); **espainiako ministro kontseiluak** (7); **espainiako sustapen ministro** (6); **finantza ministro** (31); **frantziako atzerri ministro** (19); **frantziako barne ministro** (32); **frantziako defentsa ministro** (10); **frantziako ekonomia ministro** (6); **frantziako lehen ministro** (30); **garraio ministro** (16); **gibraltarko lehen ministro** (6); **governuko barne ministro** (7); **governuko lehen ministro** (11); **governuko ministro** (14); **greziako lehen ministro** (6); **herbehereetako atzerri ministro** (7); **herbehereetako lehen ministro** (6); **hezkuntza ministro** (22)

**indiako lehen ministro** (18); **industria ministro** (10); **informazio ministro** (14); **ingurumen ministro** (16); **ingurumen ministro cristina** (8); **irakeko atzerri ministro** (12); **irakeko defentsa ministro** (12); **irakeko lehen ministro** (35); **irango atzerri ministro** (11); **irlandako atzerri ministro** (10); **irlandako lehen ministro** (40); **israelgo atzerri ministro** (22); **israelgo defentsa ministro** (24); **israelgo justizia ministro** (6); **israelgo lehen ministro** (134); **italiako atzerri ministro** (9); **italiako lehen ministro** (30); **jarduneko lehen ministro** (32); **justizia ministro** (84); **justizia ministro jua** (37); **kultura ministro** (16); **lan ministro** (16); **lehen ministro** (1132); **lehen ministro berri** (8); **lehen ministro berria** (18); **lehen ministro berriak** (16); **lehen ministro bertie** (30); **lehen ministro gisa** (8); **lehen ministro izan** (9); **lehen ministro izandako** (8); **lehen ministro izateko** (22); **lehen ministro izendatu** (17); **lehen ministro jan** (6); **lehen ministro kargua** (32); **lehen ministro karguan** (12); **lehen ministro kargurako** (8); **lehen ministro ohi** (33); **lehen ministro ohia** (31); **lehen ministro ohiak** (23); **lehen ministro ohiaren** (13); **libanoko lehen ministro** (8); **luxenburgoko lehen ministro** (8); **merkataritza ministro** (6)

**ministro andereak** (7); **ministro berri** (12); **ministro berria** (24); **ministro berriak** (35); **ministro bilakatu** (8); **ministro britainarrak** (10); **ministro gisa** (13); **ministro izan** (39); **ministro izan zen** (23); **ministro izana** (15); **ministro izandako** (30); **ministro izandakoak** (9); **ministro izango** (14); **ministro izatea** (6); **ministro izateko** (26); **ministro izendatu** (42); **ministro izendatu zuen** (13); **ministro izendatu zuten** (13); **ministro jeneral** (21); **ministro jenerala** (24); **ministro jeneralak** (31); **ministro jeneralaren** (15); **ministro jeneralari** (20); **ministro kargu** (6); **ministro kargua** (52); **ministro kargua hartu** (12); **ministro kargua utzi** (8); **ministro karguan** (25); **ministro kargurako** (8); **ministro kontseiluak** (12); **ministro kontseiluan** (6); **ministro kontseiluetan** (8); **ministro ohi** (104); **ministro ohi angel** (6); **ministro ohia** (67); **ministro ohiak** (75); **ministro ohiaren** (24); **ministro ohiari** (6); **ministro sozialistak** (6); **ministro zela** (8); **ministro zelarik** (8); **ministro zen** (15)

**negoiazio ministro** (8); **nekazaritza ministro** (17); **ogasun ministro** (12); **ordenako ministro** (9); **osasun ministro** (25); **palestinako lehen ministro** (13); **paneko lehen ministro** (32); **poloniako lehen ministro** (6); **segurtasun ministro** (11); **serbiako lehen ministro** (15); **sudango atzerri ministro** (6); **sustapen ministro** (9); **turismo ministro** (10); **turkiako atzerri ministro** (6); **turkiako lehen ministro** (13)

**atzerri ministroa** (59); **barne ministroa** (106); **blair lehen ministroa** (6); **defentsa ministroa** (30); **ekonomia ministroa** (13); **espainiako barne ministroa** (13); **finantza ministroa** (13); **frantziako barne ministroa** (22); **frantziako lehen ministroa** (8); **garraio ministroa** (7); **hezkuntza ministroa** (17); **industria ministroa** (11); **ingurumen ministroa** (8); **irlandako lehen ministroa** (7); **israelgo lehen ministroa** (13); **italiako lehen ministroa** (6); **janukovix lehen ministroa** (6); **jarduneko lehen ministroa** (14); **justizia ministroa** (24); **kultura ministroa** (7); **lehen ministroa** (304); **magiako ministroa** (8)

**ministroa bera** (14); **ministroa buru** (9); **ministroa hil** (6); **ministroa hiltzeko** (6); **ministroa izan** (31); **ministroa izan zen** (18); **ministroa izango** (11); **ministroa izango da** (7); **ministroa kargutik** (6); **ministroa zela** (6); **ministroa zen** (17)

**osasun ministroa** (10); **paneko lehen ministroa** (6); **raffarin lehen ministroa** (7); **sarkozy barne ministroa** (9); **sharon lehen ministroa** (10); **villepin barne ministroa** (7)

**administrazio publikoetako ministroak** (6); **administrazio publikoetarako ministroak** (17); **agular justizia ministroak** (11); **alaui lehen ministroak** (17); **alemaniako finantza ministroak** (7); **alemaniako ministroak** (6); **alonso barne ministroak** (11); **arabiako petrolio ministroak** (6); **arrantza ministroak** (7); **atzerri ministroak** (190); **barne ministroak** (256); **barne ministroak adierazi** (10); **barne ministroak atzo** (13); **barne ministroak erredakzioa** (7); **berlusconi lehen ministroak** (6); **blair lehen ministroak** (28); **defentsa ministroak** (72); **ekonomia ministroak** (74); **energia ministroak** (13); **espainiako atzerri ministroak** (8); **espainiako barne ministroak** (62); **espainiako ekonomia ministroak** (12); **espainiako justizia ministroak** (33); **espainiako kultura ministroak** (8); **espainiako lan ministroak** (15); **espainiako sustapen ministroak** (6); **finantza ministroak** (37); **frantziako atzerri ministroak** (11); **frantziako barne ministroak** (39); **frantziako defentsa ministroak** (9); **frantziako ekonomia ministroak** (16); **frantziako justizia ministroak** (6); **frantziako kultura ministroak** (7); **frantziako lehen ministroak** (45); **frantziako osasun ministroak** (10); **garraio ministroak** (12); **hezkuntza ministroak** (24); **indiako lehen ministroak** (8); **industria ministroak** (13); **informazio ministroak** (6); **ingurumen ministroak** (21); **irakeko lehen ministroak** (18); **irlandako lehen ministroak** (11); **israelgo lehen ministroak** (51); **italiako atzerri ministroak** (6); **italiako lehen ministroak** (11); **jarduneko lehen ministroak** (33); **jordi sevilla ministroak** (7); **justizia ministroak** (119); **kultura ministroak** (20); **kureia lehen ministroak** (8); **lan ministroak** (29); **lehen ministroak** (754); **lehen ministroak esan** (6); **lehen ministroak iragarri** (6); **merkataritza ministroak** (10)

**ministroak adierazi** (31); **ministroak adierazi zuen** (19); **ministroak adierazi zuenez** (9); **ministroak atzo adierazi** (13); **ministroak atzo azaldu** (6); **ministroak atzo esan** (7); **ministroak atzo jakinarazi** (9); **ministroak azaldu** (17); **ministroak azaldu zuenez** (9); **ministroak berretsi** (6); **ministroak dimisioa eman** (9); **ministroak egin** (10); **ministroak egindako** (9); **ministroak eman** (7); **ministroak erran** (10); **ministroak erran du** (8); **ministroak esan** (35); **ministroak esan zuen** (17); **ministroak iragarri** (20); **ministroak iragarri zuen** (11); **ministroak jakinarazi** (19); **ministroak jakinarazi zuenez** (7); **ministroak kargua utzi** (7)

**negoiazio ministroak** (7); **negoiazioetarako ministroak** (6); **nekazaritza ministroak** (24); **osasun ministroak** (58); **palestinako lehen ministroak** (11); **paneko lehen ministroak** (13); **perben justizia ministroak** (7); **petrolio ministroak** (21); **raffarin lehen ministroak** (13); **sarkozy barne ministroak** (12); **sarkozy ekonomia ministroak** (7); **sevilla ministroak** (11); **sharon lehen ministroak** (22); **sustapen ministroak** (9); **turkiako lehen ministroak** (10); **villepin lehen ministroak** (10); **zehaztu zuen ministroak** (6)

**atzerri ministroarekin** (9); **barne ministroarekin** (20); **espainiako barne ministroarekin** (6); **justizia ministroarekin** (6); **lehen ministroarekin** (35); **lehen ministroarekin bildu** (7); **ministroarekin bildu** (20); **ministroarekin bildu zen** (13); **ministroarekin bilduko da** (7)

**atzerri ministroaren** (25); **atzerri ministroaren arabera** (6); **atzerri ministroaren esanetan** (6); **barne ministroaren** (98); **barne ministroaren arabera** (13); **barne ministroaren esanetan** (6); **blair lehen ministroaren** (13); **defentsa ministroaren** (25); **ekonomia ministroaren** (7); **espainiako barne ministroaren** (17); **espainiako justizia ministroaren** (6); **frantziako barne ministroaren** (20); **frantziako lehen ministroaren** (11); **hezkuntza ministroaren** (7); **israelgo lehen ministroaren** (26); **jarduneko lehen ministroaren** (8); **justizia ministroaren** (24); **justizia ministroaren arabera** (6); **kultura ministroaren** (6); **lan ministroaren** (6); **lehen ministroaren** (277); **lehen ministroaren arabera** (7); **lehen ministroaren aurkako** (6); **lehen ministroaren dimisioa** (9); **lehen ministroaren esanetan** (10); **lehen ministroaren governuak** (10); **ministroaren alde** (6); **ministroaren arabera** (59); **ministroaren aurkako** (11); **ministroaren bisita** (8); **ministroaren dimisioa** (14); **ministroaren dimisioa eskatu** (6); **ministroaren esanetan** (50); **ministroaren governuak** (10); **ministroaren hitzak** (6); **ministroaren hitzetan** (23); **ministroaren ustez** (15); **osasun ministroaren** (14); **osasun ministroaren esanetan** (7); **sarkozy barne ministroaren** (9); **sharon lehen ministroaren** (13)

**barne ministroari** (32); **defentsa ministroari** (9); **frantziako barne ministroari** (9); **frantziako lehen ministroari** (6); **israelgo lehen ministroari** (8); **justizia ministroari** (14); **lehen ministroari** (117); **villepin lehen ministroari** (7)

**atzerri ministroek** (34); **barne ministroek** (15); **batasuneko atzerri ministroek** (12); **finantza ministroek** (20); **ingurumen ministroek** (8); **ministroek bilera** (6); **nekazaritza ministroek** (8)

**barne ministroen** (6); **espainiako gobernuo ministroen** (7); **espainiako ministroen** (41); **espainiako ministroen kontseiluak** (36); **europako ministroen** (11); **finantza ministroen** (7); **frantziako ministroen** (7); **frantziako ministroen kontseiluak** (6); **governuko ministroen** (7); **governuko ministroen kontseiluak** (6); **ministroen artean** (6); **ministroen kontseilua** (13); **ministroen kontseiluak** (89); **ministroen kontseiluan** (34); **ministroen kontseiluaren** (8); **ministroen kontseiluari** (6)

**barne minixtro** (18); **lehen minixtro** (23); **minixtro ohia** (22); **minixtro ohiak** (16)

**alliot marie minixtroa** (10); **barne minixtroa** (30); **lehen minixtroa** (35); **sarkozy barne minixtroa** (18)

**alliot marie minixtroak** (8); **barne minixtroak** (32); **ingles lehen minixtroak** (10); **judu lehen minixtroak** (8); **lehen minixtroak** (66); **marie minixtroak** (8); **minixtroak zion** (9); **sarkozy barne minixtroak** (14)

## ministroaldi iz ministro baten agintaldia.

Gure garaian Frantzian, txanponei dagokienez, hurrenez hurreneko bi **ministroalditan** aginte-gehiegikeria asko egin badira ere, [...].  **Iñaki Iñurrieta**

## ministrogai iz ministro

Poloniako behin-behineko lehen **ministrogai** Marek Belka ez zuen kargua hartzeko legebiltzarkideen babes nahikoa jaso herenegun gauean eginiko bozketan.  **Berria** - Mundua

Legebiltzarrari urte baterako babesa eskatu dio lehen **ministrogaiak**.  **Berria** - Mundua

Kargua hartu baino lehenagotik, inbestidura saioan, PPren kritikak entzun behar izan zituen **ministrogai** bakarra izan zen.  **Berria** - Euskal Herria

## ministroorde (orobat ministrorde eta ministro(-)orde) iz

Bien bitartean, Ahmed Sobe PANeko Informazio **ministroordeak** Israelgo Atzerri Ministerioak egin duen plana kritikatu zuen.  **Berria** - Mundua

Najib Razak Malaysiako lehen **ministroordeak** azaldu zuenez, [...].  **Berria** - Gaiak

Wang Zaixi Taiwango Gaietarako Txinako **ministroordeak** atzo esan zuen Taiwango Chen presidentek 2008rako indarrean ezarri nahi duen Konstituzioak bi estatuen arteko krisia eragin dezakeela.  **Berria** - Mundua

Mariano Rajoy bere lehen **ministro ordeari** dio eskaintzen kargu hori, erran dutenez, heldudun 2004 ean izanen diren bozetako.Alajandro Andrade Sekretariako **Ministrordeak**.  **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**barne ministrorde** (4); **governuko lehen ministrorde** (3); **irakeko lehen ministrorde** (3); **lehen ministrorde** (34); **lehen ministrorde kargua** (3); **lehen ministrorde miroljub** (3); **lehen ministrorde ohi** (3); **ministrorde kargua** (4); **serbiako lehen ministrorde** (3)

**barne ministrordea** (3); **israelgo lehen ministrordea** (3); **lehen ministrordea** (17)



---

ministroorde ik **ministroorde**.

---

**minitalde** *iz* oso talde txikia.

Julenek eta Haritzek osatzen zuten **minitaldeetako** bat. **Fernando Morillo**

---

**minitel** *iz* Frantzian, batez ere Interneten aurretik, erabili zen komunikabide telematikoko teknika. -

**Minitela** arras gauza berria dugu baina ez ahal da debruaren tresna! **Janbattitt Dirassar**

**Minitelez** doan dira lehen hiru minutuak, hortik goiti ordaindu behar delarik. **Berria - Euskal Herria**

Nahi baduzu, orain berean berex ten ahal dugu eguna berriz elkar kausitzeko **minitel** honen bitartez. Eta ekainaren leheneko hitzartuak gara **minitelez** berriz solastatzeko. **Janbattitt Dirassar**

**Minitela** laurak irian piztuko zuela. **Janbattitt Dirassar**

Josepe **minitelaren** aitzinean ezarri, eta posta elektronikoaren bidezko sedukzio jokoaren ondorio bezala aurkeztu digu mutilak bere amodioen kronika idazteko hartu konpromezua. **Janbattitt Dirassar**

Jakizu beraz galde horretarik hasten dela jakiteko gisan **miniteleko** mezutegian solasean ari zaren gizonki norbaitekin ala emazteki zenbaitekin. **Janbattitt Dirassar**

---

minitzaldi ik **mini 4**.

---

minixterio ik **ministerio**.

---

minixtro ik **ministro**.

---

**minizine** *iz* tamaina txikiko zinema aretoa.

Ordu biak gainean dira ere, eta jendea doa kalean, parrandaren beste eremu batzuetara, autobus geltoki zaharra eta lkerme **minizineen** artean dauden disko-bar eta diskoteketara. **Pako Aristi**

---

**minki** *adlag* saminki.

Haurra gaitzitu egin zen eta **minki** ihardetsi zion: [...]. **Gotzon Garate**

Orduan Moisek **minki** otowitzu zuen bere Jainko Jauna: "Zergatik sutan ezar zure hasarrea, Jauna zure populuaen kontra, Egipto lurretik atera duzuna indar handiz eta esku azkarrez? **Herria**

---

**minkor** (*orobat mingor*) **1** *izond* mingotsa.

Ozpinaren zaporea zuena, **minkorra** eta garratza... **Joan Mari Irigoien**

Irrati aparatu baten musika zetorren patiotik, bazkalorduko aza egosien usain **minkor** eta umelarekin batera. **Javi Cillero**

**2** irud/hed ik **samin**.

Eleketa arizan ginen sobera asaldatu gabe, hitz **minkorrik** gabe. **Marzel Etxehandi**

Hots **mingorra** zen, gauaren behe-sotoetan edo infernu urrunen batean sortua, han nonbait arima-alda bat egundoko penak pairatzen ari-eta aieneka balego moduan. **Edorta Jimenez**

Giro nahasi eta **minkor** batean haatik, den bezala erraiteko. **Herria**

Hor debate **minkorra** eskaini dute hautetsiek. **Herria**

Bakoitzak bere bizia eramanen du: alarguntsak artista **minkor** batekin, [...]. **Herria**

**3** (hitz elkartuetan)

Txirindularitza maite dugunek ezin uka halako karats edo **mingor** gustu batekin behatzen diogula Itzuli handiari. **Herria**

**4** (adizlagun edo predikatu gisa)

Joanden egunean oraino, arras **minkor** agertu da, lehenik deputatuen aintzinean eta gero telebixtako leiho ttipi hortarik mintzarazi dutelarik... **Herria**

Hots, badira gaurko egunean, Algeriako heietan, biziki **minkor** daudenak, gauzak ez baitziren uste bezain legunki iragan. **Herria**

---

**minkorkeria** *iz* esate edo egite minkorra.

Gizon minbera, iduri beti kexu, bere espantuetan ere zernahi **minkorkeria** sartuz! **Herria**

---

**minkortasun** (*orobat mingortasun*) *iz* mingostasuna.

Ez diogu segurki holako beldur, lotsa eta **minkortasunik** sumatu batere Pettani, ez gurekin, ez-eta mendigoizale beheretiar batzuekin zerabiltzan solasetan. **Herria**

---

**miñoi** *iz* Arabako Foru Aldundiaren mendeko miliziako kidea.

Hauetz gain mikelete eta **miñoiak** ipiniko dira eta, gainera, hauen buruzagiak Espainiako Armadako kideak izango dira. **Berria - Euskal Herria**

Polizia Nazionalarekin zela, Guardia Zibilarekin zela, Ertzaintzarekin zela (eta alde batera uzten ditut nire uztaren perla bitxi gisa gordetzen nituen **Miñoi** eta Foralekin izandakoak, eta baita Costa Bravara egindako oportetan *Mossos d'Esquadra* haiekin gertatutakoa ere), guztiekin izaten zen barrerako aukera, enkontru haietako zenbaitetan

belarrendokoren bat edo beste jaso banuen ere. [Iban Zaldúa](#)

## minoiko 1 *izond* Kreta uhartean K.a. 3000tik 1100era garatu zen kulturari dagokiona.

Zibilizazio [Minoikoa](#) itsasoaren erronkatik sortu zen. Zibilizazio Heleniko bizi bat hildako Zibilizazio [Minoikoaren](#) hondakinetatik sortzen ari zen garaia. [Iñaki Mendiguren](#)

Desegiten ari zen Gizarte [Minoikoa](#). [Koldo Zuazo](#)

Gizarte Helenikoa [Minoikoaren](#) filiala zen. [Iñaki Mendiguren](#)

"B Lineal" idazkera [minoikoa](#) A. Ventris eta I. Chadwick jaunek dezifratu zuten grezieraren baliabide gisa. [Iñaki Mendiguren](#)

## 2 *iz* kultura horretako hizkuntza eta idazkeretako bakoitza.

[Minoiko](#) Ertain II-tik [Minoiko](#) Ertain III-rako trantsizioan bi idazkera hieroglifiko banatu, aurreko denboraldiaren hasieran aldi berean agertu zirenak, bat-batean eta erabat ordeztu zituen beste idazkera lineal batek (A Linealak). [Iñaki Mendiguren](#)

## minor (*orobat menor g.er.*) *izond* musikan, akordeez eta tonuez mintzatuz, hirugarren nota lehengotik tonu eta erdira dagoena.

Tonu [minorrak](#) maite ebazan, delikauagoa zan. [Xabier Amuriza](#)

Polka musika hasi da, tonu [minorrean](#), ahul, urruntasanean. [Xabier Paya](#)

Orkestra handirako Sinfonia Re [minorren](#). [Berria - Harian](#)

Antonin Dvoraken Biolontxelorako kontzertua si [menorrean](#). [Berria - Kultura](#)

Re [minorrean](#) konposatutako Requiem-a ere mintzagai izan du frantziskotarrak. [Berria - Kultura](#)

Bidaiari ausarten eta bidaiarisa amore-emaielen [minorreko](#) akordeen eta kobratzaile diruzalearen tremolo marru-antzekoen artean, kakofonia irigarri bat lehertu da.

[Xabier Olarra](#)

## minoria *iz* gutxiengoa.

Espainiak ez duela [minoria](#) gidaririk, ari ginen. [Joxe Azurmendi](#)

Nik argi dut, gaur egun, idazleok, gutxiengo batentzat lan egiten duen [minoria](#) garena. [Ana Urkiza](#)

"Euskal touch" zelakoa, [minoria](#) pribatu batentzat absolutuki zaintzekoa zen. [Itxaro Borda](#)

II. Mundu Gerla bururatzearekin, ez zen beraz gehiago [minorien](#) eskubiderik aipatu. [Piarres Xarriton](#)

Orain [minorian](#) dira, egia erran. [Menane Oxandabaratz](#)

Xavier Larre, [minorriako](#) hautetsia, hautatua izan da Hazparneko Lurraldean ordezkari izaiteko. [Herria](#)

## minoritar *izond* minoritarioa.

[Minoritarra](#) izatea eta minoria itxian elkar eramatea, soziologia elementala da hori, ezin izan daiteke erraza, minoritateak patologia bezala bakarrik ulertzen eta tratatzen dituen mendean eta kulturari. [Joxe Azurmendi](#)

## minoritario *izond* gutxiengo bati dagokiona.

Hizkuntza komunitate txikia dugu, beraz, euskararena, eta bere jatorrizko lurraldean [minoritarioa](#). [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Espainiako Estatuko hizkuntza [minoritarioen](#) artean azaltzen. [Santiago Iruretagoiena](#)

Ez al zaizu iruditzen arrisku handiagoea dagoela hirietan kultura [minoritarioentzat](#)? [Bernardo Atxaga](#)

Eta ez dut sikiera film laburren eremu [minoritario](#) edo underground horretatik atera nahi. [Berria - Kultura](#)

Hura sarituz, Suediako Akademiak, alde batetik, literatura [minoritario](#) bat hartu zuen gogoan, baina, horrez gainera, omenaldi bat egin zion [...] hiltzen ari zen hizkuntza (eta kultura) bati. [Koro Navarro](#)

Kirol [minoritarioa](#) izan arren, soldata onak irabazten dira. [Berria - Kirola](#)

Hori ez du egin behar gobernuko sozio [minoritarioen](#) jelskortasunak eragindako batzorde batek. [Berria - Euskal Herria](#)

Zerbitzu publiko bat eskaintzea da helburu, menturaz programa [minoritarioak](#) egin beharko ditugula onartuz. [Pello Salaburu](#)

Hori ez du egin behar gobernuko sozio [minoritarioen](#) jelskortasunak eragindako batzorde batek. [Berria - Euskal Herria](#)

## minoritate 1 *iz* minoria, gutxiengoa.

Europar bada ainitz populu, ainitz [minoritate](#), ainitz mintzaira. [Herria](#)

[Minoritate](#) bat indargabeturik gelditzen baita gehiengoaren erabakiekin konformatzen bada. [Ana Urkiza](#)

Hegoaldeko Mindanao ugartean, musulmanoeek [minoritate](#) koxkor bat osatzen dute, Islam fedea hor hedatu baita XIV. mendetik aitzina. [Ramuntxo Etxeberri](#)

## 2 (fantziskotarren artean)

Pobrezia bezain oinarritzkoa da, beraz, [minoritatea](#) Frantziskoren ikuspuntutik. [Askoren artean](#)

## minorizatu *izond* gutxitua; eremu urrikoa.

Literatura [minorizatu](#) bat gara, oraindik ez gaituzte kontsideratzen, eta askotan egileak berak eman behar du atzerirako pausoa... [Ana Urkiza](#)

Euskaltzaletasun fanatikoaren eromena, esan nahi nuke, hizkuntza [minorizatu](#) baten zale ez ezik, hizkuntza fanatizatu baten zale dela irudi bailuke. [Iñaki Segurola](#)

Abiapuntuan egoera [minorizatua](#) badago, eta jendearengan mendeetako agresio sentsazioa badago, bi bide baino ez daude: edo hizkuntzaren esperientzia sakralizatu, edo etsi eta dena utzi. [Berria - Euskal Herria](#)

Eta garaipenezko irribarre bat agertu zait, [minorizatuaren](#) irribarre. [Berria - Kultura](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

[minorizatuaren irribarre](#) (4)

## minota ik minutu.

# minsor (*orobat minsur*) 1 iz min edo oinaze motela. ik minxor.

Bizkarrekoa **minsor** bihurtu bazaio ere, zango eta besoetan akidura sumatu duen istantean duda egin du indarrik ba ote duen geratzen zaiona eramateko. Pello Lizarralde

Kezkak eraman nau aurrekoa idaztera eta gauza hauek kontatzera, barnean dudak halako **minsur** honek. Pello Salaburu

## 2 (izenondo gisa)

Belaunak oinaze **minSORra** eragiten zion. Pako Aristi

Barruko neke **minSOR** hori baretu nahi duzulako, atsedean puxka bat arimaren barru-barrutik behar duzulako. Pello Zabala

## minsur ik minsor.

## mintasan iz mina denaren nolakotasuna.

Laudorio handia da hori niretzat, hau ulertzen baitu nik Igerabidek esan duenarekin: idaztearen prozedura teknikoak ez duela ito edo ezkutatu ahal izan **mintasuna**, jantziak ez duela gordina ezkutatu, transmititu baizik. Berria - Kultura

## mintegi (*orobat mindegi g.er. eta muintegi g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiari mindegi baztertzen da eta mintegi erabili behar dela adierazten*) 1 iz beste toki batean birlandutako diren landareak eriteko eta hazteko prestatzen den lur saila.

-Lehenik, hauta ezak lekuren bat **mintegi** gisa, eta begiratu bertako landareei zer gertatzen zaien -esan zuen Merryk. Agustin Otsoa

Baso iluneko sarobe izerdituak, larreko artzaitxabola isilduak, eguterako ardidura itzalduek, udal **mintegi** antzutuak, belasoro zahartuak. Patziku Perurena

**Mindegian** nola haziak eta landareak, berdin Euskarari hitzgaia aurkitzen dire nasaiki. Xipri Arbelbide

## 2 irud/hed

Batzuetan, motibazioak aipatzen direnean, ETako lehen belaunaldietako giroaz mintzatzean, ingurune katolikoak hartzen dira ahotan, apaiztegiak etakideen **mintegi** omen ziren. Agurtzane Juanena

Giza sumisio modu ororen enbrioa baita familia: gizatasun partikular posible guztiak, sortze beretik hipotekan hartzen dituen **muintegia**. Patziku Perurena

Alabaina, isiltasuna oroimenaren ohorezko hazi-**mintegia** izan da mende askotan. Pako Aristi

## 3 ikasleez osaturiko iker edo lan taldea, bereziki unibertsitate mailakoa; adituen bilera, arazo jakin bat aztertze.

MITeko **mintegi** batean erabili zuen irakaskuntza-materialaren bilduma. Itziar Laka

1.000 ikasle bako gehiagok parte hartu zuten iazko **mintegi** eta ikastaroetan. Berria - Ekonomia

2004ko irailean, "Filosofia terminoak euskaraz" **mintegia** antolatu genuen. Askoren artean

**Mintegi** hartan hainbat gai jorratu zituzten, eta ondorio garbia atera zuten [...]. Berria - Gaiak

Victor Hugori buruzko **mintegi** bateko apunteak. Joseba Urteaga

Musika koraleko **mintegia** egingo dute Lekarozen. Berria - Kultura

Genero jazarpenaren inguruko **mintegi** bat zuzenduko du Mercedes Fariols aktoreak. Berria - Kultura

Elkarri-k nazioarteko **mintegi** bat antolatzeko asmoa du «gatazken kudeaketan adituak direnen iritzia ezagutzeko». Berria - Euskal Herria

**Mintegi** hartan parte hartu zuten itzultzaileek Pello Lizarralderen *Un ange passe* ipuina itzuli zuten frantsesera, danierara, suomierara eta errusierara. Berria - Kultura

**Mintegi** guztiak jendetsuak izan dira. Berria - Mundua

Gasteizko **mintegiko** adituek datu kezkarriak agertu zituzten suizidioaren eraginaz. Berria - Euskal Herria

Ohituta zegoen nire joan-etorrietara, kongresu, **mintegi** eta hitzaldietara. kongresu eta **mintegietako** aktak (*proceedings*). Hasier Etxeberria

Taulan bildu ditugu **mintegi** hartan hartutako erabakirik aipagarrienak. Askoren artean

## 4 (izenondoekin)

Aldi berean, herritarren ekarpenak jasotzeko, **mintegi** irekiak eginen ditu Nazio Garapenerako Biltzarrak. Berria - Euskal Herria

Artedrama Euskal Laborategia (ADEL) izenburupean **mintegi** trinkoa antolatu du Antzerkiola Imaginarioa taldeak. Berria - Kultura

Euskal Herriko egoeraren berri emango du OHDren sinatzaileen foroak etziko **mintegi** berezian. Berria - Euskal Herria

Ondorioetako bat *Hizkuntza eta Gizartea* **mintegi** iraukorra hasia izan da. Materialismo historikoari buruzko **mintegi** fantasma hura. Berria - Mundua

## 5 irud/hed

Euskal idazleak **mintegi** erromantikoan sortutak garelak. Bernardo Atxaga

Nazioartea dute **mintegi** nagusi, eta inork ondo zelak ez dakiela, ikuslea hasi da albistegietan ikasitako hitzak lagun artean-eta errepikatzen, badakizu, zera *chic* hori... Iñigo Aranbarri

Horixe da familia nuklearra deitzen dena, itxuraren eta itxitasunaren isplua, eskizofreniaren **mintegi** oparoena. Iñaki Segurola

## 6 iker edo lan talde horiek lan egiten duen tokia.

Derioko **mintegian** elkarretaratu ziren aurrenik. Berria - Ekonomia

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

MIDAS osatzen duten egunkarietako hainbat kazetarik astebeteko **mintegi**-egonaldia egingo dute hilaren 14tik aurrera, Martin Ugalde Parkean, Euskal Herriko errealitatea ezagutzeko. Berria - Euskal Herria

Jardunaldi, **mintegi** eta hitzaldi sorta «mamitsua» antolatu dute. Berria - Ekonomia

Erran ere berak **mindegi** lehendakari bezala eta herri tipi baten auzapez gisa duela lau urte hitz eman zuela herri loresta sariketan parte hartuko zuela. Herria

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

lessandro Baricco idazle italiarrak emandako literatura **mintegi** batean, Santanderren izan zen aurreko astean Unai Elorriaga. Berria - Kultura

Oroz gain, musika **mintegi** eta ikastaroen antolatzaile izateagatik nabarmentzen da. Berria - Kultura

Zarauzko Jazz **Mintegiak** 132 ikasle izango ditu aurten. Berria - Kultura

Askotariko kultur **mintegiak** egiteko eta film berriak prestatzeko. Berria - Kultura

*Erreakzioa* kolektiboak antolatu zuen Artelekun tailer **mintegi** bat. Berria - Kultura

EHBEK Nazio **Mintegiak** antolatu ditu otsailaren 7an Eibarren. Berria - Euskal Herria

Vallat jauna Mauleko enpresa **mintegian** egoiten da abentü arte. Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mintegi** eta hitzaldi (3)

**mintegia** antolatu (12); **mintegia** antolatuko (3); **mintegia** egin (5); **mintegia** egingo (11); **mintegia** izango da (3); **mintegia** osatu (3); **naizio mintegia** (3); **naizioarteko mintegia** (8); **naizioarteko mintegia osatu** (3); **tailer mintegia** (3)

**mintegiak** antolatu ditu (3); **naizio mintegiak** (3)

**antolatutako mintegian** (6); **indarkeriari buruzko mintegian** (3); **izeneko mintegian** (9); **mintegian parte hartu** (13); **mintegian parte hartuko** (3); **mintegian parte hartzeko** (3); **mintegian parte hartzera** (3); **naizioarteko mintegian** (3)

nazioarteko mintegiaren (4)  
goizeko mintegietan (3)  
bibliotekonomia mintegiko (5); mintegiko kideak (7)  
mintegirako txostena (3)

## mintegikide iz mintegi bereko kide.

Azkue Bibliotekako zuzendari eta **mintegikide** den Pruden Gartziak berriki artikulatu batean [...] gaztigatzen zuenez, ez dauka Jaurilaritzako ordezkarien borondate onari buruzko inolako zalantzarik. **Berria - Kultura**

## mintsu 1 izond mingarria, oinazetsua.

Zorro estuari behera tiratzea, urratze hots hura **mintsua** zela pentsatu zuen beti Sethek. **Anton Garikano**

Bere begitarte luze eta estuak orkatz zaurituaren begiratu **mintsua** zeukan. **Fernando Rey**

Begirada inozentea dute eta badirudi inozentzia horrek eztiatasun **mintsu** batekin ibiltzera kondenatzen dituela. **Berria - Kultura**

### 2 irud/hed

Helduena gazte **mintsu**, ezti eta gogoetsua da. **Koldo Izagirre**

## mintsukeria iz mintsua denaren nolakotasuna, gaitzesgarritzat markatua.

Zurruntasun horrek begiratzen du lirikaren **mintsukerian** jaustetik. **Berria - Kultura**

## mintu ik mindu.

## mintxa 1 iz adkor alua.

Galtzarbako ileetan marratzuko omen dio **mintxa**, besoa jasotzen duelarik emakumea hanka zabal ageriko da. **Koldo Izagirre**

### 2 (izenondo gisa; cf mintzatu)

Ni, lau urte **mintxa** pratika egiten, eta ez du ikasten, txarra burua, baina, ni beti euskaratik alde, korrikatik alde, AEKtik alde nago. **Iñaki Arranz**

## mintxo izond garratza.

Zestaileri hurrena, tren baina zertxobait lehenago heldu zen Estebanen anbulantzia, eta trenbidera argi eginez, bi gizonetzkoak jaitsi eta estuasunean harri potor batzuek jarri zituzten burdin-bidean, atzean, emakumeak, aieneka, trenak baino intziri **mintxoagoak** egiten zituen bitartean. **Pako Aristi**

## mintxuri iz min zuria, zorabioa.

-Abesten baduzu... **mintxuriak** emango dizu..., kapitain jauna. **Josu Zabaleta**

## mintz 1 iz ehun organikoazko geruza mehea, hainbat fruitu, organo edo kideko biltzen edo batzen dituen.

Ponpa batek eta **mintz** batek osatzen dute funtsean giltzurrun artifiziala. **Irene Aldasoro**

Animalien zelula guztietan, elektrizitate-karga negatibo txiki bat dauka **mintzaren** barrualdeak. **Irene Aldasoro**

Gaixoaren odola dabil **mintzaren** alde batean, eta dialisi-fluidoak beste aldean. **Irene Aldasoro**

Zera zen ideia: erreplikazioa gobernatuko zuen puntu batean atxikitzea ADNa **mintzari**. **Juan Garzia**

Izan ere, Anshelek asmatu zuen emaztegaiaren **mintza** urratzen. **Koro Navarro**

Erroitzako kobazuloan sartzen zen, non areto izugarriak baitaude beren **mintzezko** hegoen azkazalekin paretei helduak dauden saguzar handiez josiak. **Koro Navarro**

### 2 (izenondoekin)

Guk ikusi genuen zeluletan **mintz** uniforme antzeko batzuk daudela, eta mintz horiek alde batzuetan oso aberatsak zirela kolesterolean. **Mintz** fin garden batek eusten die zelularen edukiei beren lekuan. **Berria - Gaiak**

Sarreratik 2-3 zentimetrora himenaren **mintz** porotsua dago, eta hor bertan, bagina inguratzen, gihar sendo batzuk daude. **Luis Elberdin**

Mutur batean tinpanoa du, eta, bestean, berriz, beste **mintz** tenkatu bat, leiho obal deritzona, barne-belarriaren ataria. **Irene Aldasoro**

**Mintz** sinobial sendo batean bilduta daudelako. **Irene Aldasoro**

**Mintz** basilarra mikroskopian aztertzen denean, zuntzeko milaka egitura fin ikusten zaizkio: ile-zelulak. **Irene Aldasoro**

Hego erraldoiek hatz maskurtsuen arteko laruzko **mintzak** ziruditen; kiratsa zerien. **Agustin Osoa**

### 3 geruza mehe-mehea. ik pelikula.

Azpian zapi bat zegoen, eta haren azpian argizarizko **mintz** mehe bat. **Anton Garikano**

Oraindik ere ikusten dira gabineteetan domina azalberriak, kobrea estaltzen duen zilarrezko **mintz** bat besterik ez dutenak. **Iñaki Iñurrieta**

### 4 irud/hed

Hizkuntza **mintz** bat bezala ezartzen da bizitzaren gainean, hizkuntza bakoitza leku jakin batera moldatzen da. **Bernardo Atxaga**

Gauzenganako bide bakarra dugu hizkuntza, baina **mintz** bat hedatzen du gauzen inguruan, gauzen azal berezkoari beste azal bat erantsita. **Joxerra Garzia**

Zapatak dira munduarekin dugun lotura nagusia, lur hurkoarekin elkartzen gaituen **mintz** kruziala. **Harkaitz Cano**

Hala ageri dira mendi hegietao sastrakak, hala zuhaitz bakanak eta gibelera utzi bidea, zilarrezko hauts **mintz** mehe batek hartuak. **Xabier Montoia**

Gaineko kolorearen **mintz** xumeak. **Xabier Amuriza**

Olatuak joan olatuak etorri, hondartza erdiborbil zuriztan behin eta berriro nakarrezko **mintz** bat emeki isurtzen. **Anton Garikano**

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gero, bi eskuez **mintz** -iturako zerbait kendu zion begi-xokoetatik. **Elizen arteko biblia**

Gure mintzen **mintz** -oreka? **Juan Garzia**

Nahikoa diagu! esanez bezala malgutu zituen ezpain **mintzak**. **Iñigo Aranbarri**

### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bulkada kimikoak zelula-irazkortasuna aldatzen du gune batean. Irene Aldasoro Ostiralean, botaguraz Amagoia Iban, Bakioko zaborrak heste-**mintzak** erreta. Iñigo Aranbarri Tartean baziren lauzpabost lokomotora zahartxo polit ere, guztiak turuta zorrotza jotzen, belarri-**mintzak** urratu beharrean. Gotzon Garate Berotzen ari nintzen, haren arnasaldi guztiak eta bakoitza nire gorputz-**mintz** guztiekin sentituta. Anjel Lertxundi Uztai formakoa zen [lehenengo DIUa], eta zeta naturalarekin eta animala **mintzarekin** egina zegoen. Luis Elberdin Funtsean, odol-hodirik gabeko egitura-**mintz** bat da epidermisa. Irene Aldasoro Sekulako lanbro-**mintz** zabalak altxatzen hasi ziren, trumilka eta parrastan, itsasgainetik zerurantz, eta euri-adar sarriak zetozen zerutik itsasora. Anjel Lertxundi

## 7 sudur mintz

Printzesaren ile-adatsa usaindu zuen eta kramelin urrina etorri zitzaion **sudur mintzetara**. Felipe Juaristi **Sudur-mintzetatik** eraztunez lotutako txekor gazteak indar guztiak galtzen dituen antzera, [...]. J.M. Olaizola "Txiliku" Sudur-**mintzak** harrotu zitzaizkion, pausa egin eta arnasa hartzerakoan. Anjel Lertxundi Malkotan zeuzkan masailak, sudur-**mintzak** erre gorriturik zotinarene zotinez, ile-adatsak harro eta mordoiloturik aitaren sorbaldatik behera. Anjel Lertxundi Odoltsu zeuzkan begiak, ufaka sudur-**mintzak**, dardarka ezpainak. Anjel Lertxundi Arnasa hartzean sudur-**mintzetan** tik txiki ikustezen bat jartzen zaie. Pako Aristi Ene zorigaitzoaren putzu kirastuan **sudur-mintzetaraino** lokazturik, neure buruaz urrikaltzeko josteta libertigarrian ari nintekeen aspertu arte. Aingeru Epaltza

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mintz basilarra** (3); **mintz basilarrean** (4); **mintz basilarreko** (4); **mintz mehe** (3)

**sudur mintzak** (5)

**mintzaren irazkortasuna aldatzen** (3); **zelula mintzaren irazkortasuna** (3)

**azal mintzean** (4)

**sudur mintzetan** (5)

## mintzabide 1 iz mintzatzeko bidea.

Saderengan hitzak ez dira **mintzabide** huts; armak dira, azkon pozoituak. Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio Esperimentazio intelektualarako gaitasuna ukatzen dio Ongek ahozko **mintzabideari**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua Diogun, bukatu aurretik, teoria oralistak **mintzabide** idatziaren jabetza esklusibotzat duen arren, urruntzea dela bat-bateko bertsolaritzaren ezaugarri nagusia. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua Azkenaldi honetan, bateratze bidean aitzinatua ditugu, inoiz ez bezala, ahozko eta idatzizko **mintzabideak**: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua Sakelako telefonoetako SMS mezu motzek Segapotoen Mezu Sekretuak (ZB) edo Soberako **Mintzabideen** Subertsioa adierazten omen dute. Iñaki Arranz Artean eta literaturan bilatu nuen etxean mamu atxikiezinen antzean alderrai zebiltzan sentsazio eta sentimenduen **mintzabidea**. Joxan Elosegi

## 2 (hitz elkartuetan)

Nolanahi ere, ahozko **mintzabide** mota batzuen bereizgarri nagusia izan liteke diskurtsoaren egiturarik eza. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua -Euskara zientziaren zehaztasuna eta filosofi **mintzabidearen** xehetasunak oro adierazteko egiazki gai zela Joxe Azurmendi

## mintzadoinu (orobat mintza(-)doinu) iz mintzatean erabiltzen den doinua.

Inazitok errektoeordearen **mintzadoinua** denoi barre eginarazteko moduan imitatu zuen. Joseba Sarrionandia Haren behakoa, dagoeneko motelduxea, ferekatzaileagoa zen; **mintza doinua** eztiagoa. Jon Muñoz Eta banderaren azpian irakur zitekeen berak astiro eta **mintzadoinu** erretorikoz esaten ziguna: [...]. Joseba Sarrionandia **Mintza-doinurik** ironiatsuen hautatu nuen. Aingeru Epaltza -Halakorik erran nik? -irribarre zuriak zion gezurtatzen **mintza-doinuak** adierazten zuen ustekabea. Aingeru Epaltza Belarriak lekedatu zizkidan anaiaren **mintza-doinu** exti-jarioak. Aingeru Epaltza

## mintzaera<sup>1</sup> (15 agerraldi, 12 liburu eta 2 artikulutan; orobat mintzaker g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian mintzaera agertzen da) iz mintzatzeko era. ik mintzamolde.

Alemaniarak, frantziarrak, hiririk kanpoko eskolatu gabeak, juduak eta New Yorkeko jargoia darabilten hiztunak ditugu, besteak beste, *Manhattan Transfer* liburuko pertsonaietako batzuk, zein bere **mintzaera** eta bereizgarri fonetikoekin. Lopez de Arana Urte haietan guztietan, isiltasun hark hitz egin zidan bere hotsik gabeko **mintzaeran**, baina nik ez nuen entzuten jakin. gure aurrekoen ahozko **mintzaera** estimutan edukitzeko zela eta garaian hedatzen hasia zen eredu batuaren iturri aberatsetako bat izango zela etxean bertan genuen hark. Anjel Lertxundi Apezoak eman ohi dituen mailak eta **mintzakerak**, errespetua sortzen zuten bazterretan. Txillardegí -Jangelaren azpiko sotoan da -azaldu zuen, **mintzaera** larridurak arindurik-. Juan Garzia

## mintzaera<sup>2</sup> ik mintzaira.

## mintzagai 1 iz hizketaren edo solasaren gaia.

Haien **mintzagaiak** guraso santuen bizitzak edo anaiaren baten perfekzioa ziren, edo Jaunaren grazia lortzeko biderik hoberena. Askoren artean Telefono-dei haietan badakizu ez zela aparteko konturik izaten, ohiko **mintzagaiak** baizik: lana, eguraldia, eguneko gertakariak... Xabier Mendiguren Elizegi Une hartan ez ziren elkarriketan ari, **mintzagai** egokirik ez zitzaizkion sortu eta, beraz, halako egoeretan esan behar izaten diren konpromisozko hitzak eta esaldiak soilik entzuten ziren gelan. Aitor Arana Sekula ez zen ibili zer esan asmatu ezinik, sekula ez zen arduratu hizpidera ekarriko zuen **mintzagairen** baten bila ere. Mirentxu Larrañaga Amarekiko harremanak ez ziren Josurentzat **mintzagai** gozoena. Aingeru Epaltza Bazkalorde hartan, bada, ez zen bertze **mintzagairik** izan, Mattin eta Elbiraren artean gertatua baizen. Joan Mari Irigoien Jatekoa ekarri digutenerako agorturik dugu **mintzagaia** Dubraukak eta biok. Edorta Jimenez Anitz karrekin mintzatu zen, osoki bere buruaren eta **mintzagaiaren** jabe. Marzel Etxehandi

## 2 ipar bilera bateko gai zerrendako puntu bakoitza.

Korsika: Aspaldian hasia den Chirac eta Jospin-en arteko gerlatxoa, mintu da pixka bat joan den astean, Errepublikako presidentak kendu duelarik Korsikako gaia ministroen kontseiluko **mintzagaietatik**. Herria **Mintzagaietan**: "Batera: 5000 enplegu" eta urriaren 11 ko manifestaldia. Herria

### 3 (gramatikari, aldeak aurretik ezagutzen dugunak errepikatzen den atala.

Hitzen ordena eta esanahia ez da hemen aztertzeko gaia, gramatikariak ebatzi beharreko azalpena: ordena markatua eta ez markatua, galdegaia, **mintzagaia** ... **lñaki** **Arranz**

Hemen **mintzagai** bat behar eta zientziak ari gara, filologoak beti behar baititu **mintzagai** bat eta galdegai bat. **lñaki Seguro**

Ez dakit Nongo errealitatea da Non horretako errealitatea zer eta zer den finkatzeko ahala duten fedabide eta infotokietan agertzen diren **mintzagaian** -ez galdegaiak - multzoa. **lñaki Seguro**

### 4 **mintzagai izansup\_1 du ad**

Barazki postuko gizonak Athletic zuten **mintzagai**, eta emakumeek baietz egiten zioten buruarekin. Egiaz, neuri ere gero eta gutxiago interesatzen zitzaizkan Kanoietako giroa, futbola besterik ez baitzuten **mintzagai**. **Unai Iturriaga**

SEA Arabako Enpresaburuen Elkarteak egindako txostena izan zuen atzo Eusko Jaurlaritzako eledun Miren Azkaratek **mintzagai**. **Berria - Euskal Herria**

Hona, **mintzagai** ditugun kontzeptu horietako batzuk: "denbora", "existentzia", "subjektua", "identitatea", "historia", "izatea"... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gogora bitez XXV. kapituluak **mintzagai** izan ditudan salbuespenak. **lñaki lñurrieta**

### 5 **mintzagai izansup\_2 (inpertsonaletan)**

Errusian ere **mintzagai** izan da egunotan hegaztien gripearen alderdi ekonomikoa. **Berria - Harian**

Duela guti arte gure desterrua eta gure desgraziak izan dituk herritarren **mintzagai**; gaur, berriz, gure olaz eta gure fortunaz mintzatzen dituk. **Joan Mari Irigoien**

Euskal literatura **mintzagai** lehendabiziko hitzaldian. **Berria - Euskal Herria**

Pilota **mintzagai** nagusi etxean. **Berria - Kirola**

**Mintzagai** zenak sumatzen zuen nonbait beraz gaizki esaka ari zirela, zeren, nire berriemaileak alde egin orduko, bere kafe katilua eta arroz budina hartu, nire mahaian eseri, eta esaten zidan, "esaten dizuten hitz bat bera ere ez sinetsi". **Koro Navarro**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**da mintzagai** (3); **dira mintzagai** (4); **ditu mintzagai** (5); **dituzte mintzagai** (6); **du mintzagai** (11); **dugu mintzagai** (4); **dute mintzagai** (6); **izan du mintzagai** (3); **izan zituen mintzagai** (8); **izan zituzten mintzagai** (6); **izan zuen mintzagai** (14); **izan zuten mintzagai** (6); **izango dira mintzagai** (3); **izango dituzte mintzagai** (3); **izango du mintzagai** (4); **izango dute mintzagai** (4)

**mintzagai ditugun** (3); **mintzagai izan** (36); **mintzagai izan zituen** (5); **mintzagai izan zuen** (5); **mintzagai izan zuten** (4); **mintzagai izango** (6); **mintzagai nagusi** (7); **mintzagai nagusia** (6)

**zen mintzagai** (4); **ziren mintzagai** (3); **zituen mintzagai** (10); **zituzten mintzagai** (6); **zuen mintzagai** (18); **zuten mintzagai** (10)

**mintzagaia aldatu** (3)

## mintzagailu iz telefonoan, aho parean jartzen den zatia.

Telefonora hurbildu eta **mintzagailua** altxatu zuen hitz egiteko. -Zuretat da -esan zuen, niri **mintzagailua** lutzatuta. **Xabier Olarra**

Lasterka sartu eta **mintzagailua** hartu nuen. **Fernando Rey**

Entzuten dut nola jartzen duen gizonak bere eskua telefono-**mintzagailuaren** gainean eta nola norbaitekin hitz egiten duen (Ivryekin?); irri-karkailak aditzen ditut, eta gero: *Who are you?* **Joxe Austin Arrieta**

## mintzagaitasun iz mintzatzeko gai izateko nolakotasuna.

Arraza berba erabiltzea, gehienez ere, misiolari eta informatzaileen arabera [...], ba omen diren Jainkoaren ideiarik gabeko, **mintzagaitasun** eta gizatasun dudagarriko basajenderen batzuentzat bakarrik litzateke haizu. **Joxe Azurmendi**

## mintzai ik **mintzaira**.

## mintzaia ik **mintzaira**.

## mintzaide (65 agerraldi, 5 liburu eta 42 artikulutan; orobat **mintzakide** 44 agerraldi, 10 liburu eta 25 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **mintzaide** agertzen da) 1 iz mintzalaguna, solaskidea.

Desenkusa antzekoa ere bazen ia, gauzak esateko adierazpide samur hura, **mintzaideei** barkamen eske-edo arituko balitzaie bezala, bere gustuak xebebrekeriatzat har ez ziezazkioten, arren, otoika. **Mirentxu Larrañaga**

Ingelesez mintzatzeko badakizu, ez duzu sekula **mintzakidearen** faltarik izango. **Gotzon Garate**

Eredu berria teknologian baino gehiago giza faktorean oinarritu behar zela azpimarratu zuen Kaplunek eta informazio fluxuan baino gehiago **mintzaideen** arteko elkarriketa. **Txema Ramirez de la Piscina**

Eta **mintzaide** ona izateko, ongi hitz egiteaz gainera, ezinbestekoa da entzuten jakitea. **Txema Ramirez de la Piscina**

Richard Wagner du **mintzaide**. **Edorta Jimenez**

Pintzelak beharrean, kamera esku artean izango zuen **mintzaide**, behin baino gehiagotan, Joseba Olalde argazkilaria. **Berria - Kultura**

## 2 (negoiazioetan)

PSOEn **mintzaidea** Katalunian Esquerra Republicana de Catalunya da, PSCz gain noski, PSC PSOEn zati bat delako. **Berria - Mundua**

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak lau **mintzaide** izendatu ditu. **Berria - Euskal Herria**

Botere publikoen aurrean **mintzaide** izan nahi du Laborantza Ganberak, nekazaritza politikak kalitateko ekoizpenak eta ingurumena nahiz kontsumitzailea errespetatzea bultzatzen saiatzeko. **Berria - Ekonomia**

Ezker abertzaleko kideak «**mintzaide** ezinbesteko eta beharrezkoak» direla gaineratu zuen. **Berria - Euskal Herria**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mintzakide politiko** (3)

## mintzaidetza (orobat **mintzakidetza**) iz mintzaide multzoa.

Euskal alderdien artean akordioa sinatu, eta akordioaren sinatzaileek **mintzaidetza** osatu, Estatuarekin akordioa betetzea negoziatzeko. **Berria - Euskal Herria**

Frantziako eta Espainiako Estatuak begira, euskal **mintzaidetza** nazionala sortzea proposatzen du. Hitzarmenaren sinatzaileek Euskal Herriko **mintzaidetza** osatuko lukete, akordioa errespetatua izan dadin estatuekin jorratu beharreko negoziatioari begira. **Berria - Euskal Herria**

Euskal Preso Politikoen Kolektiboko **mintzakidetza** kide Anabel Eguesi egindako elkarrizketa argitaratu zuen igandean **Gara** egunkaria. **Berria - Euskal Herria**

Azken hilabeteotakoa, inoizko **mintzaidetzarik** zabalena izan dela nabarmendu zuten Batzordeko kideak. **Berria - Euskal Herria**

## mintzaile iz mintzalaria.

**Mintzaile** egokia zen, ez zuen zabarkeriaren beharrik bera baino burgesagoak ez ziren politikari espainiarrak zafratzeko, gogotik txalotu zuten. **Koldo Izagirre**

## mintzaira (orobat *mintzai g.er.*, *mintzaia g.er.*, *minzaira g.er.* eta *minzaia g.er.*) 1 iz hitzeko adierazpidea, sistema edo egituratzat hartua. ik **hizkuntza 2**.

Kratilo elkarrizketan **mintzaira** da aipagai: naturaz ala hitzarmenez da adierazle? **Askoren artean**

Hizkuntzaren mende jarri behar dugu **mintzaira**, oro har hartua, analisisan. **Isabel Arrigain**

Bide horretatik, hizkuntzak **mintzairaren** estudioan lehen tokia izatea emana datorrigu, hari esker hitz egin dezakegulako, eta bere baitan dagoelako, beraz, benetan -huts-hutsean- linguistikoa dena. **Isabel Arrigain**

Boladan zegoen azken aldi aditz hura, zendu, hiztegien arabera aldi burutuak baino onartzen ez zituena, eta Iparraldeko euskalkietakoa edo **mintzaira** jasokoa zena. **Imanol Zurutuza**

### 2 hed ik hizkuntza 6.

Hegaztien **mintzaira** ulertzen zuen esklaboa. **Patxi Zubizarreta**

Ezin hobeki adierazten zituena bere esperantzak, ametsak eta gurariak, bihozaren **mintzaira** sekretuaz zuzentzen zitzaion. **Patxi Zubizarreta**

Imitazio hori pinturako **mintzairan** bideratzen da beti (geroago argazkiaren eta zinemaren **mintzairan**), eta **mintzaira** hori autonomo samarra izaten da. **Josu Zabaleta**

Hortik dator Eisensteinen lanetan era askotara errepikatzen den ideia: artea halako **mintzaira** gisako batetik datorrelakoa, eta hizkuntza zinematografikoa batez ere, barne hizkuntza baten [...] adierazpen gisa uler daitekeelakoa, gutxi-asko. **Josu Zabaleta**

*Bortizkeriaren* **mintzaira** izeneko kapitulu bat idatzi zuen, La culture au pluriel deritzon liburu aberats batean. **Piarres Xarriton**

Frantses traktesez edo hemengo **mintzaira** ulergaitzez, erruki galde aritzen ziren ahots etsituak. **Xabier Montoia**

### 3 hizkuntza.

Gaurko egunean badirela munduan nunbait han sei mila **mintzaira**, duela bizpahiru ehun urte bazirelarik zortzi mila. **Herria**

Agerrek, Ciceronen **mintzaira** utzita, Ronsardenean egin zien arrapostu, bere frantsesik handienean. **Aingeru Epaltza**

Hortaratu da frantses **mintzaira**, ez oraindik euskara. **Herria**

Espainola zarela, munduan gauza bikainagorik ez dagoela espainola izatea baino, espainiera dela **mintzaira** guztietan ederrena. **Joxe Azurmendi**

Eta liberalismoaren jarraitzaile gehienek, hala nola aita Griffiths galestarrek, kantu bera zerabilten: Gure Galesera **mintzaira** hil bedi, ezteki, goxoki, ohorezki. **Piarres Xarriton**

Amak erakatsi **mintzaira** bide osoan gogoan izan dut. **Piarres Aintziart**

Eskolan, nahi eta ez, espainiar **mintzaira** etxekotu ahal ukan dugu. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Horrexegatik, Berlinen inork ez du, jada, ingelesa ikasten, Eslovenia, Lituania, Armeniako **mintzaerak** baizik. bertako hizkuntza ez dela frantsesa Okzitaniako **mintzairerako** bat baizik. **Berria - Kultura**

Arteaz ez naiz aise ari, ez baitut ikasi eta, gainera [...] ja nekez menperatzen dudana **mintzairaz** ez baitut azaltzen ahal. **Piarres Aintziart**

Historiagileak **mintzaira** eta nazio kontzientzia aztertu du, eta ondorioztatu berezko hizkuntza izatea ez dela, inondik ere, herriek nazioa eratzeko baldintzarik garrantzitsuenak. **Berria - Euskal Herria**

### 4 (izenondoekin)

Esan genezake gizakiari berezkoa zaiona ez dela **mintzaira** mintzatua, baizik hizkuntza bat osatzeko ahalmena, hau da, ideia desberdinei dagozkien ikur desberdinen sistema bat osatzeko ahalmena. **Isabel Arrigain**

Denbora batez hasi ziren zenbait erraiten **mintzaira** bakarraz izanen zela hoberena gizon guzientzako, beste guzikiak elgarren nahasgarri ginituela. **Herria**

Ez zoaz **mintzaira** ilun eta hizkuntza ulergaitzeko herri batengana, Israel herriarengana baizik. **Elizen arteko biblia**

FLAREP batasunak elgarretaritzen ditu **mintzaira** guttietuetako gela elebidunen sustatzaileak. **Herria**

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hitzen esanahia haien erabilera dela azpimarratu baitzuen Wittgensteinek **mintzaira** -jokoen garrantzia azpimarratutakoan. **Askoren artean**

**Mintzaira** ikerlari bat Theo Venneman. **Herria**

Anitz **mintzaira** mota entzuten da. **Herria**

Hor dituzte, eskolak berak emanik, paradak: batean **mintzaira** ikasaldiak direla, bestean tokien ezagutzaideak, edo kultura formakuntza zabalago batenak, zenbat ez dira, haur haurretik hasirik, Ingalaterran, Alemanian edo Italian gairidika ibiliak. **Herria**

Egundainokotan **mintzaira** -solas bainan berriz Euskal-Herriat jinik: euskalzale frangok aspaldian galdetzen dugu SNCF etxe ohoragarriari otoi indar funtsezko bat egin dezan euskarari toki poxi baten emaitako. **Herria**

### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haren ama **mintzaira**, britainiarra. Errudunen haur **mintzaira** xumeenean, etxekoenean. "Expolangues" erakusketaren karietarat, herri- **mintzaira** askoren sustatzaile batzu bildu dira Parisen. **Herria**

Eskatzen dute Euro-Kartaren onarpena, lege-nagusiaren 2-garren artikulua kanbiaturik beharrez, eta lege bat lurralde **mintzairaren** aldekoa. **Herria**

Alde horretatik, itzultzailearentzat arazo bezain irakurlearentzat mesede izan liteke beste hizkuntza batean emana aurkitzea testua: ikustea, alegia, ez dela txoko- **mintzaira** jakin baten kontua lurtasun horrena, eta semantika sakonago, unibertsalago bati dagokiola. **Juan Garzia**

Sort- **mintzaira** dute gehienek, berriki ikasia beste zonbaitek. **Herria**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal **mintzaira** (11); **frantses mintzaira** (7); **hegaztien mintzaira** (3); **herriko mintzaira** (5); **kultura eta mintzaira** (3); **lekuko mintzaira** (3); **mintzaira ahanzi** (3); **mintzaira arrotz** (4); **mintzaira berezia** (3); **mintzaira berri** (5); **mintzaira ederra** (5); **mintzaira erabiltzen** (3); **mintzaira eta ideia** (5); **mintzaira guttitiuak** (4); **mintzaira guttitiuen** (9); **mintzaira guttitiuen aldeko** (3); **mintzaira ikasi** (3); **mintzaira ilun** (3); **mintzaira jakin** (3); **mintzaira solas** (3); **mintzaira ulertzen** (3); **mintzaira unibertsal** (3); **mintzaira unibertsala** (5); **mintzaira zaharrenetarik** (3); **munduaren mintzaira** (4); **munduko mintzaira** (3)

euskal **mintzairaren** (3); **giza mintzairaren** (7); **giza mintzairaren arabera** (6); **gizakien mintzairaren** (3); **gizakien mintzairaren arabera** (3); **mintzairaren ahalmena** (3); **mintzairaren alde** (5); **mintzairaren alderdi** (3); **mintzairaren arabera** (9); **mintzairaren arabera adierazia** (3); **mintzairaren erabiltzea** (3); **mintzairaren estudioan** (3)

europako **mintzairaren** (3); **lurralde mintzairaren** (4); **mintzairaren urtea** (3)

## mintzaje (orobat *minzaje g.er.*) 1 iz ipar mintzaira.

Euskarara: hiri hontako güne bekan zonbaitez kanpo, euskal **mintzajea** ez da haboro ezagün eta izkiribatürük güti agertzen da. **Herria**

Azken hitzak erraiten düü ezin entelegatüzko **mintzaje** batetan: eüskaraz prefosta! **Herria**

### 2 adkor

Zenbait urte lehenago, txandria "akats tipografikoa", lanbideko **mintzaje** beti zikin-estalian- tailerretako muntatzaile lardaskatzaileei egotziko niekeen. **Aingeru Epaltza**

**mintzakera** ik **mintzaera**<sup>1</sup>.

**mintzakide** ik **mintzaide**.

**mintzakidetza** ik **mintzakidetza**.

**mintzalagun** (*orobat mintza lagun g.er.*) **1** iz norbaitentzat, bere solaskidea. ik **mintzaide**.

Edozein egoeratan, edozein jardunetan, edozein **mintzalagunekin**, lotsarik eta beldurrik gabe erabiltzeko dira hizkuntzak. **Koldo Zuazo**  
Begi urdin argiak zituen, inoizka distiratsuak, alkoholak behin ere lainotu gabeak, eta peto begiratzen zion haiekin bere **mintzalagunari**. **Matías Múgica**  
Bagration eta Kolokotronisen potretak esekirik zeuden hormarantz jiraturik esan zituen azken hitz horiek, hala nola gertatu ohi baita solaskideetako batek, bat-batean eta ageriko arrazoirik gabe, **mintzalagunari** zuzenean hitz egin orde, ustekabean iritsi berria den hirugarren bati so egiten dionean. **Jose Morales**  
Asko herritar, beren ama-hizkuntza doi bat edo arras arrotzurik zaukatelarik, berriz lotu dira euskararen ikasteari gau-eskolen bidez bai-eta **mintza-lagun** zenbaiten laguntzarekin. **Herria**

**2 irud/hed**

AEK jarri da beraz dei baten zabaltzeari, euskara dakiten batzu izan dituen **mintzalagun**, erran nahi baita beren izena eman dezaten [...] euskara ikasten ari duten horietarik bat edo biek solasean egoiteko. **Herria**

**mintzalari** iz hizlaria.

Frantsesa Errepublikaren hizkuntza duk, idazle, filosofo eta **mintzalari** handiak eman dituen hizkuntza, eta ezin duk egon zozo ezjakin andana horrek ikasi gabe. **Elena Touyarou**  
Ertzetan metatu jendeek *star and stripe* bandera inarosten zuten eta CBSko **mintzalariak** Kennedyren goizeko hitzaldia laburbiltzeko kontzentratzen ziren. **Itxaro Borda**  
Michel Rouche jauna izanen dugu gure erakaslea, bera ofiziokoa eta **mintzalari** trebea. **Herria**  
Jakirik nolakoak diren **mintzalariaren** jakitate eta talenduak, izanen da hor denentzat nun zer ikas, galduta eta gogoeta. **Herria**  
Gaia: herri tipi batean, Euskara Taldea zer izan litaik? **mintzalari**: Mikela Etcheverria Herriko Etxetik, Laida Mujika Euskal Konfederaziotik, Pantxika Maitia Euskal Kultur Erakundetik. **Herria**  
**Mintzalaria**: Margaret Girard naturopata. **Herria**  
Antolatzaileek parte hartzaile guziki eskertzen ditugu bihotzez, **mintzalari** ala publiko. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**mintzalari trebea** (3)

**mintzaldi** (**1019** agerraldi, **53** liburu eta **625** artikulutan –gehien-gehienak **Herria** astekarikoak-; orobat **minzaldi** g.er.) **1** iz hitzaldia.

Erabaki genuen gutarik batek, aldizka, nahi zuenaz **mintzaldi** bat edo gehiago eginen zuela. **Marzel Etxehandi**  
**Mintzaldi** horietarik gehienak frantsesez egin ziren. **Marzel Etxehandi**  
Ilabete guziz **mintzaldi** bat izanen da. **Herria**  
«Nire alderdia» gora eta «nire alderdia» behera iragan du **mintzaldi** gehiena. **Berria - Euskal Herria**  
-Eta zer, tronuaren **mintzaldi** hori, irakurri al duk? -galdetu zion Gavardek, mahai gainetik egunkari bat hartzen zuela. **Karlos Zabala**  
Aberriaren aldeko **mintzaldi** bat aditu zen, eta gero Don Karlosek, mintzaldiaren bukaera errepikatuz, oihu egin zuen: [...]. **Koro Navarro**  
Orotara 18 liburu euskaraz, kontatu gabe iritzi artikulua, **mintzaldi** edo pastoralak. **Berria - Kultura**  
Gogoan dut ETBk zuzenean eskaini zuela behin haren **mintzaldi** bat. **Joxerra Garzia**

**2 (izenondoekin)**

On Camillok **mintzaldi** luze bat hasi zuen, ezтики. **Koldo Biguri**  
"Gure herriak -esan zuen **mintzaldi** ospetsu batean-, gaixotasunik larriena du: buruzagiek ez dute jada agindu nahi". **Monika Etxebarria**  
Ekitaldi, **mintzaldi** eta solasaldi mamitsuen ondotik. **Itxaro Borda**  
Haien **mintzaldi** sutsuak irigarriak zitzaizkion. **Elena Touyarou**  
Diputatu eta errepublikar kartsu honek **mintzaldi** iraultzaile sutsuak idazten zituen. **Elena Touyarou**

**3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)**

Milaka gazte murgildu dira festa, ikastaro eta **mintzaldi** giroan. **Berria - Euskal Herria**  
Haurren elikadurak itxi zuen **mintzaldi** zikloa. **Berria - Euskal Herria**  
Alabaina, oraindik badugu aukera **mintzaldi** leihaketa honetan etsaia gainditzeko. **Jon Alonso**  
Gisa berean, **mintzaldi** eta eztabaida gunea indartzeko xedea dute, zinezko trukaketa gunea bat bilakatzeko. **Berria - Harian**  
Sartzea deneri eta urririk idekia, bai erakusketarako bai **mintzaldi** -diaporamarako. **Herria**  
- Euskal Kultur Erakundeak eta Baionako ospitaleak antolatzen dute **mintzaldi** -solasaldi bat, apirilaren 15ean, ostiralez, 20.30tan, Baionako merkatal ganbaran. **Berria - Euskal Herria**  
Baionako OIP taldeak **mintzaldi** -elgarrizketa bat antolatzen du Mattin Megadendan. **Herria**

**4 mintzaldi-debate**

Euskararen geroa ez dela bulego hetsietan utzi behar uste du Hizkuntza Kontseiluak, horregatik antolatzen du **mintzaldi-debate** publiko bat, "zer politika euskararentzat" gaiaren inguruan. **Herria**  
Baigorriko kantonamenduko Basaizea elkarteak bere aurtengo **mintzaldi-debate** zikloa abiarazten du. **Herria**

**5 mintzaldi-egtabaida.**

Filmak eta **mintzaldi** -egtabaidak, erakusketak, azoka, kontzertu... **Herria**  
Larunbatean, Baionan, Mattin Megadendan, **mintzaldi** -egtabaida laborantzako sindikalismoaz eta Laborantza Ganbaraz, aratsaldeko 2.30etan. **Herria**

**6 mintzaldi kontu**

**Mintzaldi** kontu beti, Kabana Handiak tokian tokiko erran-merran, pasadizo eta gertakariak aipatuz irtenaldietako herri bakoitzean egingo dituenak, jakina, arreta bereziz segituak izango dira. **Berria - Kultura**



**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

erakusketa eta mintzaldi (5); euskarazko lau mintzaldi (3); mintzaldi bat antolatzen (3); mintzaldi bat egin (8); mintzaldi bat eginen (6); mintzaldi bat emanen (3); mintzaldi bat eskainiko (20); mintzaldi bat izanen (5); mintzaldi eder (5); mintzaldi eta eztabada (4); mintzaldi eta lekukotasun (3); mintzaldi eztabada (14); mintzaldi eztabada bat (6); mintzaldi eztabadak (3); mintzaldi eztabaida (29); mintzaldi eztabaida bat (6); mintzaldi interesgarri (3); mintzaldi labur (3); mintzaldi mamitsu (5)

hasi zuen mintzaldia (3); jaunaren mintzaldia (4); lehen mintzaldia (3); mintzaldia bururatu (3); mintzaldia egin (6); mintzaldia egin zuen (5); mintzaldia frantsesez (5); mintzaldia izan (4); mintzaldia izanen (3)

lehen mintzaldian (5)

mintzaldiaren ondotik (4); osteguneko mintzaldiaren (3)

## mintzaldiño iz mintzaldi laburra. ik mintzalditxo.

Eta hark galderen ondoko **mintzaldiñoa** bukatu zuelarik, bera hasi zen galdezka: Non duzue ene alaba tipia? **Xabier Montoia**

## mintzalditxo iz mintzaldi laburra.

**Mintzalditxo** bat eman behar dut hogei minutu barru eta ez nuke berandu iritsi nahi. **Koldo Biguri**

Erasan dio nire **mintzalditxoak**. **Koldo Izagirre**

Lastotik dexente joango zen, beraz, **mintzalditxootan**, eta gaitz erdi lasto artean inoiz edo behin gari pixka bat ere eman dizuedala iritzi badiozue, edo, lasto hutsa izanik ere, lastoa gustagarri egiten asmatu dudala aldian behin. **Joxerra Garzia**

## mintzaldixka iz ipar mintzaldi laburra. ik mintzalditxo.

**Mintzaldixka** horien ondotik zintzur bustitze bat eskainia izan da. **Herria**

Andere Auzapezak eta Jaun horiek **mintzaldixkak** egin dituzte erraiteko lan horiek zer geriza eta segurtamena emaiten duten hor iragaiten direneri. **Herria**

## mintzaleku (24 agerraldi, 6 liburu eta 9 artikulutan) 1 iz mintzatzeko lekua, jendaurrean bereziki. ik mintzatoki.

Ikuspegi guztien gainetik, nazioarteko **mintzaleku** bat izatea garrantzitsua dela azpimarratu zuen Joanek, gatazka behar den distantzia eta lasaitasunarekin begiratzeko.

**Berria - Euskal Herria**

EAKo kideak proposatu zuen alderdiek «**mintzaleku** hori euren eskubideak indarrean dituzten baina adieraztea galarazten zaien herritarrei» eskaintzea. **Berria - Euskal Herria**

### 2 (kartzeletan eta) ik mintzategi.

Zutitu, eta tximista baino arinago iritsi naiz bisitarien **mintzalekura**. **Anjel Lertxundi**

Orain, kartzelaz kartzela imajinatzen duzu estatuko bideetan barrena; **mintzalekuetan**, askatasunaren mugetan jarritako sare eta burdin zirien beste aldean. **Rafa**

**Egiguren**

Bisitaldietako gelan hamar **mintzaleku** zeuden, hamar "taquilla", kristalez gu presookikoko isolaturik. **Txillardegui**

### 3 pulpitua.

Hitzaldia bukatu zuenean, Frantzisko **mintzalekutik** jaitsi zen, eta gotzain jauna eta biak gotzaindegiko elizan sartu ziren. **Askoren artean**

### 4 (telefonoz hitz egiteko)

Lavapiesen edozein txokotan aurki daitezke telefono **mintzalekuak** edo elikagai bereziak saltzen dituzten dendak. **Berria - Harian**

Jamal Zougam marokotarrak Lavapiesen auzoan telefono **mintzaleku** bat zuen, hain zuzen ere. **Berria - Mundua**

N. herritarra atxilotu zuen, San Frantzisko kalean garai hartan zeukan **mintzalekuan**. **Berria - Euskal Herria**

### 5 (komentuetan)

Ez zaie zilegi ahizpei **mintzalekuan** edo sarean hitz egitea, abadesaren edo bere bikariaren baimenik gabe. **Askoren artean**

Ez da **mintzalekua** deskribatzen; baina barruko aldetik zapia jartzeak kanpoko aldetik beste zerbait zegoela esan nahi du; Inozentzio IV.aren erregelaren arabera, oso fin zulaturiko xafia bat zen. **Askoren artean**

## mintzamen 1 iz mintzatzeko ahalmena.

Giza animaliaaren berezitasuna **mintzamenean** dago. **Berria - Kultura**

Idazmenaren eta irakurmenaren bidez lor daiteke nazioko batua ikastea, eta entzumenaren eta **mintzamenean** bidez, ahozko hizkerara hurbiltzen hastea. **Koldo Zuazo**

Odoljarioaren eraginez paralisi bat egon daiteke eta Sharonen **mintzamena** bera ere ukituta egon daiteke. **Berria - Mundua**

Aspalditik galdua zuen **mintzamena**, baina bat-batean, denek entzuteko moduan hots egin eta esan zuen: "Itxaron, aita, itxaron niri!". **Agustin Otsoa**

Jainkoaren gizon baten aholkuz Frantzisko dohatsuari bere burua eskaini ziolarik, bere onera etorri zen eta **mintzamena** berreskuratu zuen. **Askoren artean**

Aintza Jainkoari eta San Frantziskori, **mintzamena** eta entzumena eman baitizkit! **Askoren artean**

Larunbatetan euskara jadanik dakitenendako beste klase berezi bat egiten da eta bertan **mintzamena** lantzen da. **Berria - Euskal Herria**

Garuneko beste alde batzuetako lesioek beste nahasmendu batzuk sor ditzakete sentimen nahiz mugimenean, **mintzamenean** nahiz pertzepzio-, ezagumen- edo oroimen-funtzio espezifikoetan. **Xabier Olarra**

Garun-azalak **mintzamena** kontrolatzen du, eta gorputzaren zentzumen-organoetatik datozen seinaleak jaso eta prozesatzen ditu. **Irene Aldasoro**

Horrez gain, atzeratuak dira eta **mintzamena** mugatua dute. **Berria - Gaiak**

### 2 (hizkuntzalaritzan)

Hala ere, K hizkuntzari buruzko ikuspegiari, arazoa beste bat da: **mintzamenean** ekoizpenaren eta pertzepzioaren azpian dauden itxurapen mentalak eta itxurapen horiek **mintzamenean** gertakari fisikoekin lotzen dituzten arauak aurkitzea. **Itziar Laka**

### 3 (hitz elkartuetan)

Nire erdipurdiko ingelesarekin ez naiz, ba, pertsona egokiena **mintzamen** eredia izateko inorentzat. **Jon Arretxe**

Garuneko **mintzamen**-aldeek eta sekuentziak prozesatzeaz arduratzen direnek, berriz, garapen txikia dute besteen aldean, eta hori ere oso normala omen da autistengan.

**Xabier Olarra**

Giza **mintzamenean** garapideko estadio primitibo bati, ahalbide linguistikoaren garapenean maila apal bati. **Joxe Azurmendi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**galdua zuen mintzamena** (3)

## mintzamolde (61 agerraldi, 24 liburu eta 9 artikulutan; orobat mintza molde g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren mintzamolde

## agertzen da. iz mintza(-)praktika<sup>1</sup>.

Gure aitaren **mintzamoldean**, amaren lagunak "atsoak" ziren. **Fernando Rey**

Haren **mintzamoldea** zen inportanteena: hitzekoa nahiz begizkoa. **Joan Mari Irigoien**

**Mintzamoldea** profesionalagoa bilakatu zen, urrunagoa, harroagoa. **Aingeru Epaltza**

**Mintzamoldea** profesionalagoa bilakatu zen, urrunagoa, harroagoa. **Aingeru Epaltza**

E-mail, chat eta SMSetako **mintzamoldea** ahozkoa da, mezuak idatzi egiten diren arren. **Joxerra Garzia**

Ez zen euskararik erabiltzen 30 urte azpikoan artean, eta "baserritarren" **mintzamoldetzat** hartzen zen. **Koldo Zuazo**

Sentimendua betiko **mintzamoldeaz** adieraztea ez da geure gizarte aldeari amore ematea baino. **Markos Zapaiain**

-*Yea man, fuckin' the fuck*- hirugarren behatza zerura, Draganeke filmetan hainbat aldiz entzuna errepikatu zion, ekialdeko **mintza-moldea** areagotuz. **Itxaro Borda**

Aezkoako **mintza moldeaz**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ahozko **mintzamoldeak** "objektiboki bereziak" ezin direla izan edo berez "homeostatikoak" direla esatea **mintzamolde** horien urruntzeko gaitasun oro ukatzea da. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

## mintzapraktika (orobat mintza(-)praktika) iz euskaldun berriak mintzamina lantzeko praktika eskolak.

Helduentzako **mintza praktika** ere lantzen duzue? **Berria - Euskal Herria**

Urte osoan kurtsoak jarraitzen dutien ikasleak, **mintzapraktikaren** egiteko parada beitu. **Herria**

Orduan ez dizu ardura ikasgelan sartzea, gure ikasleek **mintza-praktika** apur bat egin dezaten? **Jon Arretxe**

Izan ere, **mintza praktika** proiektuak asko zabaltzen ari dira, eta «berbalagun eta mintzalagun guztiak» elkartu nahi dituzte. **Berria - Euskal Herria**

## mintzarazi, mintzaraz, mintzarazten 1 du ad mintzatzera behatu.

Hobe zen zuhurki jokatzera, alemanek jendearen **mintzarazteko** teknikak baitzituzten. **Eneko Bidegain**

Ez dakit noiz **mintzarazi** zituzten beste bi fraideak. **Marzel Etxehandi**

**-Mintzaraziko** diat, bai, sorgin zahar hori, garaia datorrenean! **Karlos Zabala**

Marfak badaki hori, baina badaki orobat inolako torturak ez duela **mintzaraziko**. **Karlos Zabala**

Eta, oinazearen bizia!, haren ama tatariarren atzaparretan, eta Ogareff krudelak nahi zuenean **mintzaraziko** zuela. adierazi zuen ozen! **Karlos Zabala**

Oroitzapen horrek **mintzarazi** nau hor nonbait haurraz trufatzen den adur burloso horretaz. **Koldo Izagirre**

Politikari lapurtarrak zituen diru arazoek jendea anitz **mintzarazi** dute. **Berria - Euskal Herria**

Behar den bezala egin baitute inkesta, **mintzaraziz** egiazko lekukoak. **Herria**

## mintzategi (agerraldi 1 artikuluan 1ean) iz mintzalekua. ik mintzaleku 2.

Regeiroren neska-lagunak **Berriari** esan zionez, hiru minutuz ikusi ahal izan zuten gaztea gurasoek, Espainiako Auzitegi Nazionalako sotoetako **mintzategi** batean. **Berria - Euskal Herria**

## mintzatoki (9 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan) 1 iz mintzalekua.

Horrela, Nabarra eta bere atzeko beste guztiak berehala iristen ziren hizlariaren **mintzatoki** azpiraino eta han, txistuka eta marruka, minutu gutxi behar izaten zituzten hura isilarazteko. **Koldo Biguri**

Euskara emateko ohiko bidea utzi, eta gela irati-laborategi eta **mintzatoki** bihurtzea predikatzen nuen ikastaro haietan. **Joxerra Garzia**

### 2 (komentuetan)

**Mintzatokira** pasarazi zuten, eta han Katalina eta moja lodi bat, ama nagusia, topatu zituen. **Koro Navarro**

### 3 (telefonoz hitz egiteko)

Jamal Zougamen **mintzatokiko** langile batek egindako adierazpenen ondoren atxilotu zituzten. **Berria - Mundua**

Hiru gazte atxilotu zituen Ertzaintzak ostegun arratsaldean Bilbon, ustez **mintzatoki** bateko nagusiari 67.000 euroko iruzurra egiteagatik. **Berria - Euskal Herria**

## mintzatu, mintza, mintzaten (orobat minzatu g.er.) 1 da ad hitz egin.

Azkenean, Atenea jainkosa, Ulises gizajozak errukiturik, haren alde **mintzatu** zen Zeus Olinpoko jainko nagusiaren aurrean. **Juan Kruz Igerabide**

Jan, edan eta **mintza** gaitetzen ahal dugun bitartean. **Agustin Otsoa**

Faraoiagana joan eta zure izenean **mintzatu** natsaionetik, are gogorrago hartu du hark zure herria eta zuk ez duzu ezer egin herria libratzeko. **Jose Antonio Mujika**

Norbaitekin **mintzatu** nahi nuen garbiki, norbaitekin patxadan solastatu, norbaiti neure kezka larria deblauki aitortu. **Txillardeggi**

Baina, itxura haren azpian, bigarren Cesar bat ikusten nuen orain, Bigarren Begiekin begiratzen zuena, Bigarren Mihiarekin **mintzatzen** ari zitzaidana. **Bernardo Atxaga**

Eta han nengoan, murrupareta bezain txuri, ez jakinez gehiago nola **mintza**. **Daniel Landart**

Garbi **mintzatu** naiz? **Aingeru Epaltza**

-Ez haiz zentzuz **mintzatu**. **Juan Kruz Igerabide**

Zakar **mintzatu** zitzaion emakumeari. **Migel Angel Mintegi**

Deus gordetzekorik ez duenaren patxadaz **mintzatu** omen zitzaien. **Aingeru Epaltza**

Hobe lehenago **mintzatu** banintz harekin. **Aingeru Epaltza**

Horrela esan zuenean, denek ezpainak hozkatu zituzten, ausart **mintzatu** zela ikusirik. **Juan Kruz Igerabide**

Ez zen ez ozenki ez apalki **mintzatzen**, gisakoa zen tonuan baizik. **Jose Morales**

Astelehen aratsean, hiru oren laurdenez telebistan **mintzatu** da Chirac presidentea. **Herria**

Luze **mintzatu** ziren, lubaki-kideak tiroak eta artilleria hotsak isiltzean **mintzatu** ohi diren moduan. **Imanol Zurutuza**

-Leirerekin **mintzatua** naiz, 15eko zubian Posets aldera joateko. **Aingeru Epaltza**

Bere buruarekin **mintzatzen** egongo balitz bezala. **Migel Angel Mintegi**

Arinegi eta zuhurtziarik gabe **mintzatu** naiz. **Mirentxu Larrañaga**

Koptoeraz **mintzatu** ziren zer edo zertaz, eta, ondoren, barrura sartzeko eskatu zion Alkimistak mutilari. zalantzak izan zituen ertzainarekin zein hizkuntzatan **mintzatu**. **Xabier Aranburu**

### 2 (esaten denari sarrera gisa)

Orduan, honela **mintzatu** zitzaion Jauna Salomoni: [...]. **Elizen arteko biblia**

Orduan Jainkoa **mintzatu** zitzaion Noeri: [...]. **Jose Antonio Mujika**

Honela ziren elkarrekin: [...]. **Jose Morales**

Atenea hurbildu eta honela **mintzatu** zitzaion: [...]. **Juan Kruz Igerabide**

Bat-batean, besotik helduta, hala **mintzatu** zitzaion Swann jauna lagunari: [...]. **Imanol Zurutuza**

Melantio zerbitzaria **mintzatu** zen orduan: [...]. **Juan Kruz Igerabide**

Affi anderea, irri firfira ezpainetan, adeitasunez **mintzatu** zen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Inolako gordintasunik gabe eta astiro **mintzatu** zen: [...]. **Anjel Lertxundi**

Buxi doktorea, haren ezinegonaz oharturik, maleziats **mintzatu** zitzaion Abasi: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Ozen **mintzatu** zen gero: "ziur nago bere arimak zerura egin duela, zoriotsu egon behar genuke". **Bernardo Atxaga**

Ironiaz **mintzatu** zitzaion: [...]. **Koro Navarro**

Zenbait denboraren buruan, Eusebio ahapeka **mintzatu** zen: [...]. **Eneko Bidegain**

-Ene andere prestua - **mintzatu** zitzaion jainua-, zure eztei gauean bahitu zintuen honek lo apur bat egin nahi luke! **Patxi Zubizarreta**

-Esadazu gauza bat, Anastasio - **mintzatu** zitzaion Pilar etxezainari. **Aitor Arana**

Ondarretara joan dituk denak, eta kamioia berekin eraman ditek! - **mintzatu** nintzaion larri. **Inazio Mujika Iraola**

### 3 (zertaz)

Gutitan **mintzatzen** ginen nire bizilekuaz edo bizilagunaz. **Aingeru Epaltza**

Eguraldiaz **mintzatu** zen, eta radarrari buruz, honetaz deus gutxi zekien arren. **Joxe Austin Arrieta**

Politikaz **mintzatu** ziren autobusean, Euskal Herriko mugimendu abertzalea sendotu beharraz, gobernuen jarrera zekenez, [...] San Cristobalen europartasunaz eta bertaraturako sasi-hippien aurpegibikotasunaz, gai batetik bestera tximinoak adarrez adar bezala igaroz. **Eider Rodriguez**

Harremana etetearen komenentziak **mintzatu** zitzaion apezka neskari. **Anjel Lertxundi**

Zergatik ez naiz horretaz **mintzatu** ? harrokeriagatik izan da, segur aski. **Monika Etxebarria**

Jarraian, akueduktuei buruz **mintzatu** ginen... **Joxe Austin Arrieta**

Ez dakit zeri buruz **mintza** gintezkeen gu biok. **Migel Angel Mintegi**

Orain neure egoerak arranguratzen nau, eta horretaz ere oraingoz ez dut inorekin **mintzatu** nahi. **Patxi Zubizarreta**

Ez nuen Edurnez **mintzatu** nahi Kristinarekin. **Aingeru Epaltza**

**Mintzatu** natzaio zutaz, eta eman diot zure asmoen berri; onartu ditu, eta aldi berean tratuaren baldintzak agertu nahi dizkizu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Leire eta Ekainen arteko harreman bereziaz **mintzatu** naiz lehenago. **Joan Mari Irigoien**

Luze samar **mintzatu** zen bere eritasunaz zuen ikusmoldearen gainean. **Koro Navarro**

### 4 (idatziz)

Armada guztien estilo-liburuetan **mintzatzen** zaizkigu nabarmenkeriaz. **Berria - Kultura**

Barandiarani eta Oteizari eskainitako poema liburu honetan kulturaz **mintzatuko** da [Juan Mari Lekuona]. **Berria - Harian**

Zizeronek idatzitako *Hortensius* **liburua** bezain egoki **mintzatzeko**. **Imanol Unzurrunzaga**

Aparteko kapituluak **mintzatu** beharra dago. **Xabier Kintana**

Gu ere geure obra handian (*Mi-nèh Tôr-h*) horretaz **mintzatuak** gara. **Xabier Kintana**

### 5 (era burutua izenondo gisa)

Piamontera hizkuntza **mintzatu** baita funtsean, eta gure italiara marmolezko hau, berriz, hilarriak idazteko egokia. **Juan Garzia**

Irudiak ezin dira ez egiazko ez gezurrezko izan, hitz horiei hizkuntza **mintzatuari** buruz erabiltzeko ematen zaien zentzuan behinik behin. **Josu Zabaleta**

Helburu linguistikoa ez da hitz idatzaren eta hitz **mintzatuaren** konbinaketarekin definitua geratzen. **Isabel Arrigain**

Esan genezake gizakiari berezkoa zaiona ez dela mintzaira **mintzatu**, baizik hizkuntza bat osatzeko ahalmena, hau da, ideia desberdinei dagozkien ikur desberdinen sistema bat osatzeko ahalmena. **Isabel Arrigain**

Zinema **mintzatu** iritsi zenean. **Josu Zabaleta**

### • 6 du ad

Nik banekien guk kurduera **mintzatzen genuela**, irakiarrek arabiera, eta gainerakoek ingelesa. **Juan Kruz Igerabide**

Denek **mintza** bezate frantsesa. **Hasier Etxeberria**

Erran duzu frantsesa **mintzatzen duzula** ... **Menane Oxandabaratz**

Zein dialekto **mintzatzen duzue** ? **Juan Kruz Igerabide**

Ni aski kontent niz ikusten dituztalarik euskaldun laborariak, zer nolako abileziarekin **mintzatzen duten**, nolaz analizatzen dituzten gauzak. **Menane Oxandabaratz**

- Azkenean asea, kanpalekuko gardien komandoan zen Luxembourgotar bat **mintzatu nuen**. **Marzel Etxehandi**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

**alde** mintzatu (53); **alde** mintzatu zen (26); **antzer**a mintzatu (32); **antzer**a mintzatu zen (19); **argi** mintzatu (25); **argi** mintzatu zen (12); **aukera**z mintzatu (8); **aurka** mintzatu (21); **aurka** mintzatu zen (15); **aurrean** mintzatu (10); **aurrean** mintzatu zen (6); **baikor** mintzatu (12); **baikor** mintzatu zen (9); **berriro** mintzatu (11); **berri**z mintzatu (13); **egoeraz** mintzatu (11); **egoeraz** mintzatu zen (6); **etorkizunaz** mintzatu (7); **euskaraz** mintzatu (23); **ezkor** mintzatu (7); **frantsesez** mintzatu (7); **garbi** mintzatu (29); **garbi** mintzatu da (9); **garbiki** mintzatu (9); **garrantzi**az mintzatu (7); **gisa** berean mintzatu (7); **gogor** mintzatu (19); **gogor** mintzatu da (7); **hala** mintzatu (50); **hala** mintzatu zen (33); **halaxe** mintzatu (43); **halaxe** mintzatu zitzaion (13); **harekin** mintzatu (15); **hartaz** mintzatu (14); **haserre** mintzatu (9); **herria** mintzatu (9); **herria** mintzatu da (8); **honela** mintzatu (367); **honela** mintzatu zen (92); **honela** mintzatu zitzaion (138); **horrela** mintzatu (24); **horrela** mintzatu zen (11); **horretaz** mintzatu (14); **hortaz** mintzatu (16); **ildo** berean mintzatu (10); **ildo** beretik mintzatu (24); **ildotik** mintzatu (7); **itxaropentsu** mintzatu (11); **itxaropentsu** mintzatu zen (9); **izenean** mintzatu (21); **izenean** mintzatu zen (9); **jainkoa** mintzatu (8); **kontra** mintzatu (9); **labur** mintzatu (10); **lehenik** mintzatu (7); **liburuaz** mintzatu (7); **luzaz** mintzatu (13); **luzaz** mintzatu (23); **minduta** mintzatu (6)

**mintzatu** arren (7); **mintzatu** baino lehen (7); **mintzatu** beharra (11); **mintzatu** da (404); **mintzatu** dira (124); **mintzatu** diren (15); **mintzatu** gara (26); **mintzatu** ginen (33); **mintzatu** gira (12); **mintzatu** naiz (34); **mintzatu** nintzaion (36); **mintzatu** nintzen (23); **mintzatu** ondoan (10); **mintzatu** ondoren (17); **mintzatu** zaigu (17); **mintzatu** zait (17); **mintzatu** zara (17); **mintzatu** zela (22); **mintzatu** zen (1000); **mintzatu** zen atzo (96); **mintzatu** zenean (14); **mintzatu** ziren (169); **mintzatu** ziren atzo (21); **mintzatu** zitzaion (111); **mintzatu** zitzaion jauna (47); **mintzatu** zitzaion (87); **mintzatu** zitzaigun (20); **mintzatu** zitzaion (291); **mintzatu** zitzaion jauna (73); **mintzatu** zitzaion jaunari (6)

**nola** mintzatu (11); **ondotik** mintzatu (9); **ozen** mintzatu (6); **pozik** mintzatu (6); **zabal** mintzatu (9); **zuhur** mintzatu (16); **zuhur** mintzatu zen (6)

**euskaraz** mintzatzea (20); **hizketa** arrotzez mintzatzea (6); **horrela** mintzatzea (8)

**elgarrekin** mintzatzeko (9); **euskaraz** mintzatzeko (25); **euskaraz** mintzatzeko eskubidea (7); **garbi** mintzatzeko (6); **harekin** mintzatzeko (8); **horretaz** mintzatzeko (8); **hortaz** mintzatzeko (9); **mintzatzeko** aukera (7); **mintzatzeko** eskubidea (11); **mintzatzeko** gai (14); **mintzatzeko** manera (7); **mintzatzeko** parada (13); **mintzatzeko** prest (9)

**alde** mintzatzen (8); **batean** mintzatzen (7); **batekin** mintzatzen (8); **batez** mintzatzen (14); **bezala** mintzatzen (16); **buruz** mintzatzen (24); **da** mintzatzen (12); **ere** mintzatzen (14); **eta** mintzatzen (22); **euskara** mintzatzen (9); **euskaraz** mintzatzen (35); **ez** mintzatzen (6); **frantsesez** mintzatzen (6); **gabe** mintzatzen (9); **gehiago** mintzatzen (6); **hala** mintzatzen (6); **hartaz** mintzatzen (8); **hizkuntza** mintzatzen (7); **hizkuntzatan** mintzatzen (10); **horrela** mintzatzen (6); **horretaz** mintzatzen (6); **ingelesez** mintzatzen (7); **maiz** mintzatzen (8); **mintzatzen** ahal (21); **mintzatzen** ahalko (8); **mintzatzen** ari (63); **mintzatzen** ari zitzaion (6); **mintzatzen** baita (6); **mintzatzen** baitzen (6); **mintzatzen** da (78); **mintzatzen** den (22); **mintzatzen** dena (7); **mintzatzen** dena (10); **mintzatzen** dira (44); **mintzatzen** diren (24); **mintzatzen** entzun (9); **mintzatzen** ere (6); **mintzatzen** eta (18); **mintzatzen** ez (9); **mintzatzen** gara (7); **mintzatzen** ginen (12); **mintzatzen** hasi (57); **mintzatzen** hasi zen (10); **mintzatzen** hasi ziren (6); **mintzatzen** hasten (12); **mintzatzen** nintzen (8); **mintzatzen** zara (6); **mintzatzen** zela (10); **mintzatzen** zen (116); **mintzatzen** zena (9); **mintzatzen** zenean (6); **mintzatzen** ziren (60); **mintzatzen** zitzaion (8); **mintzatzen** zitzaion (12); **mintzatzen** zitzaigun (6); **mintzatzen** zitzaion (15); **ongi** mintzatzen (10); **ozen** mintzatzen (6); **zein** hizkuntzatan mintzatzen (6); **zen** mintzatzen (7); **ziren** mintzatzen (6)

**mintzatzera** joan (6)

## mintzatzaille (orobat mintzatzale g.er.) 1 izond hizlaria.

Karia hortara bazuten **mintzatzaille** bikain bat ekar arazirik, zoinek jendea xoraturik atxiki baitu bi orenez, bere mintzaldi eta gero ihardespen argiak emanez hor eginak ziren

galdeeri. Heria

Alkateak, hain zen hunkitua, besarkatu zuen mintzatzailea, arrapostua egin aitzin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mintzatzaile ederra, ederregia ez bada, baditu ateraldi batzu gaitzak, errexki botatzen dituenak eta zenbaitek haundiegia jukatzen dituztenak. Heria

## 2 mintzatzen dena.

Alabaina, multzo hau tratatzen da eginahalak eginaz aurkitzeko, enuntziatu hutsez gaindi, subjektu mintzatzailearen asmoa, beraren jarduera kontzientea, esan gura izan ei duena, edo, are gehiago, aurkitzeko subjektu mintzatzaile horrek esan duen horretan, edo adierazitako hitzetan ia hautemanezina den hausturan, berak horrelakorik gura ez izanda ere agerikoa egiten den joko inkontzientea. Xabier Arregi

## 3 (izenondo gisa)

Iduritzen zait eleak emaiten duen, hitzetan dagoen libido berezi sublimatuan hondatua dagoela apez mintzatzailea. Piarres Aintziart

## 4 hiztuna.

500 hizkuntzek 100 mintzatzale baino gutiago dauzkate, 1500 hizkuntzek 1000 mintzatzale baino gutiago. Heria

# mintzatzale ik mintzatzaile.

## mintzatzale 1 iz hitz egitea.

Euskara goxoz mintzatzale hutsa bizipide ona balitz... Heria

Koldo Izagirrenen hizkeraren berezitasunetako bat gizakiak dagoenari mintzatzale hutsaz eragiten dion indarkeriari uko egitean datza. Markos Zapiain

Alemanian elgarrekin mintzatzale bat egin dute [...] Gerhard Schröder kantzillera eta hunen kontrario berdinu eta pasatu ere duen Angela Merkel girixtino demokrata andreak. Heria

Eta nire egiaz mintzatzale hau ez bedi har egile baten umiltasun aizunaren gisa. Jon Muñoz

## 2 (hitz elkartuetan)

Mintzatzale -organoak ere egotzi zaizkio. Xabier Kintana

Mintzatzale molde oparoagoa Xabier Kintana

## mintze iz haserreko, nahigabezko edo saminezko egoeran jartzea.

Horrez gain, mintze hutsagatik, soingainekoaren papar irekiegian botoi bat falta zuela ere esango nion. Xabier Olarra

## mintzo (orobat minzo g.er.) 1 iz ahotsa.

Orduan, mintzo bat entzun nuen, niri esaten: "Ea, Pedro, hil eta jan". Elizen arteko biblia

Zerutiko mintzoak berriro esan zidan: "Jainkoak garbi egin duena, zuk ez esan kutsatua denik". Elizen arteko biblia

Guk, ordea, ez dugu haren mintzoa aditu. Elizen arteko biblia

Noizbait, ordea, hatsa hartu behar, eta Ana etenaldiaz baliatu zen bere mintzoa entzunarazteko. Aingeru Epaltza

Haren mintzoak salatzen zuen zer segurtamen eskasa zuen erratan ari zenaz. Aingeru Epaltza

Amaren mintzoa entzun nuen telefonoan ari. Daniel Landart

Gurdi ilara gelditu, eta ahots lodi batzuen mintzoa entzun zuten. Karlos Zabala

Lasaitu egiten zen, lur azpiko iturburu horren kantua, ilunpeetako erreka horren mintzoa entzuten zuenean. Karlos Zabala

Aho biko mintzoa darabil, baina aho baten jarduna bakarrik entzuten dugu. Joxerra Garzia

Odolaren mintzoa, sehaskatikoa; maiz aditzera eman ohi zuenez. Mirentxu Larrañaga

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Agokala ez, mintzo propioa behintzat, libreagoa ustez. Iñigo Aranbarri

Berehala joan zitzaion Don Kijote, halako mintzo minbera eta halako azote-hots gogorra entzun zuenean. hamaika bertso saiotan entzun dut mikrofonoan edo bertsozale artean mintzo sakon bera. Patxi Ezkiaga

Mintzo musikalak. Josetxo Azkona

Mintzo negarbera bera dugu Soroarena hurrengo artikuluan ere, Donostiako Loiolatik oraingoan: [...]. Iñigo Aranbarri

Herri osoa zain-zain dago, poz eta alaitasunezko mintzoa itxaroten. Askoren artean

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Humphries jauna eskola maisua zen, gizon altu, buruargi, mintzo -totela, arrakasta gabeko nobela bat idatzi zuena. Koro Navarro

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure aldean bera gehiago zela sentitzen zuenean erabiltzen zuen sudur-mintzoarekin. Fernando Rey

Hainbeste eskutitz, eta maite-mintzo, eta andere adoretzu. Patxi Ezkiaga

Barne-mintzoak Albertoren izena xuxurlatzen zion belarrira. Joxemari Urteaga

Haren zehar-mintzoa, oporrak behar-beharrezkoak omen nituelakoa, derrigorrez ironikoki ulertu behar nik. Joxe Austin Arrieta

## 5 hizkuntza, mintzaira.

Gainera dezagun herri bakoitzak sinetsi ohi duela bere mintzoa besteen gainetik dagoela, hobeia dela. Isabel Arrigain

Etxeko mintzoa erdara da, eta ikastolakoa, eskola orduetan [...] euskara. Pello Salaburu

Kristoren gorpua gaubeilatzen zuten soldadu erromatarren mintzoaren eta Gran Vian goiti eta beheiti ibiltzen diren banketxeetako langileen erdararen artean dagoen desberdintasunaren pareko zerbait izango dela Gernikan piperrak saltzen dabilzanen eta Santimamiñeko gibel hartan margoak egin zituztenek erabiltzen zuten euskararen artean. Pello Salaburu

Maddalen ez zen zozoa, ahoskatu zuen apezak, ezpain izkinan irri bat marratuz, arbasoen mintzoan "Kontrizioezko Akta" burutik buru xuxurla zezakeelako. Itxaro Borda

-Gorputzaren mintzoa, keinuak, lehen mailako baliabideak ditugu era berean, deiktikoekin batera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## 6 mintzo izansup\_1 da ad (indikatiobozko nor eta nor-nori atzizkiez) mintzatu.

Profeta bezala mintzo dena, berriz, gizakiei mintzo zaie. Elizen arteko biblia

Laugarren liburuan honela mintzo da Sokrates: [...]. Askoren artean

Burdinbideetako enplegatu bat zait mintzo: [...]. Janbattitt Dirassar

Baina orain, Israel, Jakob herri, honela mintzo zaizu Jauna, sortu eta eratu zaituena: [...]. Elizen arteko biblia

Sinboloen jostunari mintzo natzaio. Koldo Izagirre

Mozkorren ahots motelaz **mintzo** zen. Aingeru Epaltza

Cook andrea bizi-bizi **mintzo** zen, eta ozenegi, gorrek ohikoa duten ahots fidagaitzez. Mirentxu Larrañaga

**Mintzo** direnean hitz apalez **mintzo** dira, ahotsaren doinuari gorabeherarik gabeko arraia batean eutsiz. Pako Aristi

Laineza hartutako ume baten jarioarekin **mintzo** zitzaion, barrenak etenda. Pedro Alberdi

Oso doinu dotorez **mintzo** da ingelesez. Joxe Austin Arrieta

Puertoricarren *parade* honetan inor ez da bere jaioterriko hizkuntzan **mintzo**: ingelesa da nagusi. Harkaitz Cano

Asko eta asko, jende ikasien artean, hiru hizkuntzaz **mintzo** dira: amaren bularretan ikasitakoaz, hindiz eta ingelesez. Gotzon Garate

Egilea luzaz **mintzo** da profetismoaz II. zatian. Xabier Kintana

Ez gara **mintzo** bakarrik 1914-18ko gerlako gure 5.000 hilez, ez eta ere, gerlen artetik Ameriketara edo Frantzia behereko hirietara bizi beharrak eraman dituen mutil ala neska guztiez. Piarres Xarriton

Militarrei buruz **mintzo** da Roberto. Pako Aristi

Irratia **mintzo** da. Marzel Etxehandi

Horregatik ari naiz estropadez **mintzo** den orria irakurtzen. Xabier Etxabe

Keinuen hizkuntza unibertsala **mintzo** da hemen. Xabier Mendiguren Elizegi

-Nire ekintza bera **mintzo** da aski garbi, zer naizen adierazteko. Koldo Izagirre

Malenkoniaz ez ezik, sentimendu alaeiz, maitasunaz, pasioaz eta abarrez **mintzo** da fadoa. Berria - Kultura

## 7 (atzikia ezabaturik)

Iraxu zen, niri **mintzo**. Txillardegi

Sabeth bere Baedeker-etik **mintzo**: [...]. Joxe Austin Arrieta

-Jakina -beti ni **mintzo** -, dena hain agudo egin ahal izateak abantailak ditu. Aingeru Epaltza

Halako batean, ohiko bozgorailua **mintzo**, zoko guztietara iristen baitira halakoak. Joxe Austin Arrieta

Jesus eskatologiaz **mintzo**. Elizen arteko biblia

Jendea goizaldeko eleketa xuhur batean dago, ahapeka bezala **mintzo**. Piarres Aintziart

## • 8 *mintzo izansup\_2* du ad

Poloniar preso hark frantsesa biziki ongi **mintzo** zuen, luzaz Frantzian bizi izan baitzen. Eneko Bidegain

Gazteek hizkuntza anitz **mintzo** dute orain, eta toki guztietan dituzte lagunak. Berria - Euskal Herria

Batek galdegiten dit alemana banekienez, ezetz; zer hizkuntza **mintzo** nuen, frantsesa, euskara, gaztelania, latina eta grekoa, nahiz eta grekoa ahantzixea nuen. Marzel Etxehandi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahapetik mintzo (5); aise mintzo (18); alde mintzo (8); antzera mintzo (8); arabieraz mintzo (5); argi mintzo (6); aukeraz mintzo (6); aurka mintzo (5); beharraz mintzo (6); beti mintzo (6); ederki mintzo (5); egiaz mintzo (7); erdaraz mintzo (7); espainolez mintzo (6); euskara mintzo (7); euskaraz mintzo (38); frantsesez mintzo (12); gaztelaniaz mintzo (5); gora mintzo (5); hala mintzo (15); hala mintzo zen (6); hartaz mintzo (13); herriaz mintzo (7); hizkuntza berean mintzo (5); hizkuntza mintzo (5); hola mintzo (19); honela mintzo (44); honela mintzo da (16); honela mintzo zen (5); horietaz mintzo (5); horrela mintzo (20); horretaz mintzo (11); hortaz mintzo (12); irakurleak mintzo (27); jainkoaz mintzo (5); katalanez mintzo (5); kontra mintzo (7)

mintzo bada (5); mintzo baita (6); mintzo baitira (6); mintzo baitziren (6); mintzo bat (7); mintzo batek (5); mintzo da (313); mintzo dela (13); mintzo delarik (15); mintzo den (60); mintzo dena (21); mintzo denak (11); mintzo denean (17); mintzo dira (101); mintzo direla (22); mintzo diren (58); mintzo direnak (19); mintzo direnean (5); mintzo duen (5); mintzo gara (22); mintzo garela (6); mintzo garenean (19); mintzo gira (12); mintzo haiz (5); mintzo hau (12); mintzo hau entzun (7); mintzo izan (8); mintzo naiz (32); mintzo naizela (6); mintzo naizen (7); mintzo natzaizue (7); mintzo nintzen (9); mintzo ozen (5); mintzo zaie (8); mintzo zaigu (21); mintzo zaio (16); mintzo zait (8); mintzo zaizkigu (10); mintzo zara (24); mintzo zela (28); mintzo zelarik (15); mintzo zen (187); mintzo zena (12); mintzo zenean (8); mintzo zirela (7); mintzo ziren (78); mintzo zirenak (8); mintzo zitzaidan (9); mintzo zitzaien (7); mintzo zitzaion (22)

nola mintzo (14); nola mintzo diren (6); ozenki mintzo (5); partidaz mintzo (6); zergatik mintzo (5); zertaz mintzo (15); zuhur mintzo (7)

bere mintzoa (6); haren mintzoa (9); jaunaren mintzoa (8); mintzoa aditu (7); mintzoa entzun (14); naturaren mintzoa (7); nire mintzoa (8); odolaren mintzoa (27); zure mintzoa (7)

jaunaren mintzoak (5)

## mintzodun *izond* mintzoa duena.

"Komunikatzaile ona" esaten zaio hiruretako albistegia [...] aurkezten digun buru **mintzodun** horri. Txema Ramirez de la Piscina

Dena batera hartuz gero, baldintza tekno-psiko-sozial-ekonomikoek eraturik, zientzia egiten duen existentzia faktiko, historiko eta **mintzoduna** garela esan genezake; hauxe da gure izakia, gure gizakia, XX. mendeko filosofiaren ikuspegitik. Askoren artean

## mintzogabe *izond* mintzorik ez duena.

Ezagutu uste izan nituen: trogloditen leinu basatikoak ziren [...] ez zen enetzat miresgarri **mintzogabeak** eta sugejaleak izatea. Juan Garzia

## mintzotzar *iz*

Zer gertatzen zen ikusirik Don Kijotek, **mintzotzar** haserrean esan zuen: [...]. Patxi Ezkiaga

## mintzultasun *iz* mututasuna.

Aurki, hain eroankor nola uso-ama bere biki urrezkoak oskoletik irteetan, **mintzultasun** itunera zaigu atzera bilduko. Juan Garzia

## mintzuri *iz* alegiazko mina.

"Min bat ene lurrari" errepika jotzeko isilka nere bihotz exiliatu honi, min bizi bat, zinezko min bat, faborez eta laborez, arrunt gogaitua bainauka aspaldi haundiko **mintzuri** ugalkor honen burrunbak. Patziku Perurena

## minue ik **minuet**.

## minuet *(orobat minue, minueto, menuet eta menuetto; Euskaltzaindiaren Hiztegian minuet agertzen da) iz* frantziar jatorriko dantza geldia, hiru aldikoa, XVII. eta XVIII. mendeetan oso boladan egon zena.

Norak pieza haiekin oinazean gozo egiten zuela konturaturik, gero eta sarriago jotzen hasi zen arte Martxa bezalako pieza arin biziak, doinu herrikoiak eta dantzarako suite eta **minuet** alaiak. Anjel Lertxundi

Gero, kafetegiko pianistarekin eta biolinistarekin Beethovenen sonata baten edo Mozarten **minuet** baten edertasuna komentatzen. [Josu Zabaleta](#)  
Bakoitzak bere tresna hartu du eta **menuettoari** ekin diote, Hegatxabalaren hirugarren mugimenduari hain zuzen. [Felipe Juaristi](#)  
Arreta handiz entzuten zituen koronelaren alaben praktikak, haiek pianoan sonata eta **minuetoak** jotzen zituztenean. [Xabier Olarra](#)  
Hiru zatitan banatutako egitarauan foliak, **minuetoak**, zortziko doinuak eta ukitu barroko zein tradizionala duen musikaz eta dantzaz gozatzeko aukera izango da Ablitasen eta Antsoainen. [Berria - Kultura](#)  
Erregerik ez denez gero, **menuetik** ez da. [Josu Zabaleta](#)

minueto ik **minuet**.

**minus 1** iz zenbaki negatiboak adierazteko ikurra, zenbakiari ezkerrean jartzen zaiona “-“.

**Minus** ikurra aurretik duten osagaiak atera egin behar dira ekuazioetatik. [Jon Muñoz](#)  
Zenbaki baten karratua positiboa da beti, positiboa zein negatiboa izan zenbakia, hartara behartzen baitu ikurren arauak: plus bider plus eta **minus** bider **minus** berdin plus baita. [Jon Muñoz](#)  
**Minus** batik ez zuten!, ez zuten **minus** birik!, nola kalkulatzeko zuten, orduan? [Jon Muñoz](#)  
Eta 10i kentzen bazaio **minus** 4, 14 geratzen da. [Jon Muñoz](#)  
**Minus** infinitutik plus infinituraino, guztiak. [Unai Elorriaga](#)

2 irud/hed

Eta ni **"minus"** bat besterik ez naiz. [Daniel Landart](#)

**minusbaliatu** iz elbarria.

Emakume **minusbaliatuek** diskriminazio handiagoa jasaten dute lan munduan. [Berria - Ekonomia](#)

**minusbaliotasun** iz elbarritasuna.

Gaur egun Gipuzkoan %33ko **minusbaliotasuna** duten 33.000 lagun daude eta horietatik 20.000 inguruk 65 urte baino gutxiago dute. [Berria - Euskal Herria](#)  
Diru laguntza eragiten duten seme-alabetako baten batek %33ko edo hortik gorako **minusbaliotasuna** izanez gero, zenbatekoak bikoitzak izango dira. [Berria - Euskal Herria](#)

**minuskula 1** iz letra xehea.

Hitz bilakatzeko horretan, sigla batzuk izen arruntzat jotzen dira zentzu guztietan, eta horregatik hiztegietan aurkituko ditugu, **minuskulaz**, gainerako hitz osoen parean (radar, laser). [Iñaki Arranz](#)  
Izan ere, hori baita azken batean maiuskulen eta **minuskulen** arteko lehia hau, hitzen hierarkia kontua, norberaren ideologiara moldatua. [Iñigo Aranbarri](#)  
**Minuskulak** honela ikusten zituen: ø. [Unai Elorriaga](#)

2 (izenondo gisa) letrez mintzatuz, xehea.

Letra **minuskulak** ez, maiuskulak bakarrik. [Unai Elorriaga](#)  
M maiuskula oso m airosoa zelako eta t **minuskula** oso t irrazionala zelako. [Unai Elorriaga](#)

**minuskulo** izond ñimiñoa, oso txikia.

Ezagutzen dituzte, esate baterako, Argentinako herri **minuskulo** batean. [Unai Elorriaga](#)  
Oso oin handiak omen zituen; sudurra **minuskuloa**. [Unai Elorriaga](#)

minuta ik **minutu**.

minuto ik **minutu**.

**minutu** (orobat *minuta g.er.*, *minuto g.er.*, *minota g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian minutu agertzen da*) **1** iz orduaren hirurogeirena. (zenbatzaile zehaztu baten eskuinean)

Oraindik bost **minutu** zituen. [Iñaki Zabaleta](#)  
-Hantxe utzi diat duela hamar **minutu** -Ximurra-. [Aingeru Epaltza](#)  
Hogeita hamazazpi **minutu** behar ditut prestatzeko. [Bernardo Atxaga](#)  
Berorrek bost **minutu** itxaroten badit, oraintxe noa... zazpi **minutu** gelditzen zitzaizkigun eta oraindik gauza bat bakarra ere ez nion galdegin, jakin nahi nituenetarik. [Josu Zabaleta](#)  
Bost **minutu** falta ziren laurak izateko argitalextean sartu zenean. [Jon Alonso](#)  
Bost **minutu** eman ditu kanpoan; gehiago behar bada. [Rafa Eguiguren](#)  
Bertara ailegatzeko beste hamar **minutu** beharko zituela kalkulatu zuen. [Josu Landa](#)  
Hogeita hamazazpi **minutu** behar ditut prestatzeko. [Bernardo Atxaga](#)  
Gaur ere bost **minutu** berandu. [Iñaki Zabaleta](#)  
Eman bost **minutu**. [Unai Iturriaga](#)  
Hogei **minutu** ere ez diat behar. [Pedro Alberdi](#)  
Geldialdia: 20 **minutu**. [Joxe Austin Arrieta](#)  
Hamar **minutu** ere ez. [Pablo Sastre](#)  
Harritu egiten da ikusirik zoriotsu izateko nahikoa dituela astean laurogeita hamar **minutu** emakume baten konpainian. [Oskar Arana](#)  
-Bost **minutu** izango dira -esan zion komisarioak zerbait esatearren. [Joxean Agirre](#)  
Bortz **minutu** iraganda, ez nintzen oraino karrikaren buruan. [Aingeru Epaltza](#)

-Eskola duela hamar **minutu** hasi da, Potter. [Iñaki Mendiguren](#)

-Bost bat **minutu** besterik ez dira izango. [Migel Angel Mintegi](#)

Bost bat edo hamar bat **minutu** han eserita neramatzala, Mahonyren jaka grisa ikusi nuen hurbiltzen. [Irene Aldasoro](#)

Berri beltza orain pare bat **minutu** Santurtziatik heldu zaiguna. [Paddy Rekalde](#)

## 2 (zenbatzaile zehaztugabe baten eskuekin)

**Minutu** asko eman genituen zeregin atsegin hartan. [Aitor Arana](#)

- **Minutu** asko falta al dira partidua bukatzeko? -galdetu zuen M-k. [Bernardo Atxaga](#)

**Minutu** askoren tarterik gabe, motor hots berri baten zaratak lagundu zuen katuek hautsitako isiltasun tregua eteten. [Joxemari Urteaga](#)

**Minutu** gutxira deiadar egiteari utzi zion eta, biharamunean, gorpua herrira bidali nuen lurpera zezaten. [Ramon Etxezarreta](#)

-1959an, eurijasa egundokoa, **minutu** gutxiren barruan 90 litro bota zituenekoa. [Pello Zabala](#)

Zenbait **minutuz** egon nintzen hari begira: pala bat zen. [Koro Navarro](#)

Zenbait **minutu** geroago lantokitik kanpora nintzen. [Aingeru Epaltza](#)

## 3 (artikuluarekin)

Lurrera jausi zen lehen asaltua amaitzeko **minutua** falta zela. [Josu Landa](#)

**Minutua** gabe, kanpora egin, eta kalezuloa atzera begiratu gabe zeharkatu zuen. [Patxi Zubizarreta](#)

-Tira, konpañero, pasatu duk **minutua**! [Inazio Mujika Iraola](#)

## 4 (bat-ekin)

**Minutu** bat ere ez dizu kenduko. [Oskar Arana](#)

**Minutu** batez-edo txirrina isilik egon zen, eta gero berriro ekin zion. [Josu Zabaleta](#)

**Minutu** batez itxoiteko eskatu nion. [Fernando Rey](#)

Esaioak **minutu** batean itzuliko diogula. [Irene Aldasoro](#)

"Konpañero, **minutu** bat utziko?", esan zion Romani. [Inazio Mujika Iraola](#)

Egon **minutu** batez. [Lopez de Arana](#)

**Minutu** bat geroago, sudurpean odol negar mehe bat zuela itzuli zen, hats-goitika. [Aingeru Epaltza](#)

Baina handik **minutu** batera, hura zaparrada. [Edorta Jimenez](#)

**Minutu** bat gabe, bertze danbateko bat. [Aingeru Epaltza](#)

- Esan amari behean izango naizela **minutu** batzuk barru. [Oskar Arana](#)

## 5 (izenondoekin)

**Minutu** labur haietan etxean zeuden, aske zeuden. [Eneko Bidegain](#)

**Minutu** labur haiek ulergaitzak ziren berarentzat. [Jose Morales](#)

**Minutu** eskas bat lehenago auto etorri berriaren argia itzaltzen ikusi zuten. [Aitor Arana](#)

**Minutu** ezin luzeagoetan egon zitzaion begirik kendu gabe. [Patxi Zubizarreta](#)

## 6 (pluralean)

**Minutuak** isilean igaro ziren. [Iñaki Mendiguren](#)

Une hartantxe hasi ginen **minutuak** iragaten sentitzen. [Monika Etxebarria](#)

**Minutuak** behatzen artean irristatzen sumatzen zituzten. [Monika Etxebarria](#)

Eta hala joan ziren **minutuak** eta orduak, egunak eta asteak... [Koro Navarro](#)

**Minutuak** aurrera zihoazen, ez geldo ez azkar, betiko martxan baizik, gupidagabe. [Karlos Linazasoro](#)

**Minutuek** aurrera egin zuten, luze, eta medikurik ez zen ageri. [Juan Kruz Igerabide](#)

**Minutuen** orratzak ikara egiten du eta 5: 46an geratzen da. [Oskar Arana](#)

## 7 (ordua adierazten)

Hoteleko iratzargailuan bostak eta hamahiru **minutu** ziren. [Bernardo Atxaga](#)

Bederatziak eta **minutu** batzuk ziren. [Oskar Arana](#)

Ordu bata hiru **minutu** guti. [Aingeru Epaltza](#)

Hamaikak eta hogeita lau **minutu** ziren nire erlojuan. [Aingeru Epaltza](#)

Hamar **minutu** hamarrak jotzeko. [Sonia Gonzalez](#)

-Sei **minutu** seietarako -dio Felixek. [Edorta Jimenez](#)

Jaiki 7ak 8 gutxian: ordu ofiziala 4 ordu eta 52 **minutuan** duelarik. [Pello Zabala](#)

Arratsaldeko bostak eta hogeita hemezortzi **minutuan** abiatuko da Dieppeko trenean. [Monika Etxebarria](#)

## 8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta puntu hori kontuan hartuta, eguzki **minutu** gutxieneko egunak oraingo hauetxek dira: 20a, 21a, 22a, 23a eta 24a. [Pello Zabala](#)

Ba ote da jainko faltsu horiei eskaintzen zaizkien sakrifizioen artean bat bera ere, jainko horiek irainduz gozatzen den plazer **minutu** bakarria balio duenik? [Juan Martin](#)

Elxepuru / Bego Montorio

Izan daiteke epailearen txistu-hotsa isilune **minutu** baten aurretik harmailetakoz zarata isilarazten duena. [Andoni Egaña](#)

## 9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Badirudi berriro lokartu nintzela, **minutu** -erdi batez edo ordu-erdi batez. [Joxe Austin Arrieta](#)

## 10 (denbora-atzizkiekin)

**minutuan** adierazi zuen epaileak partidako lehen kornerra. [Berria - Kirola](#)

Lehen zatian, Kovacevicek (18. **minutuan**) eta Nihatek (31. [Berria - Kirola](#))

**minutuan** aurretik jarri zuten taldea markagailuan. [Berria - Kirola](#)

-Gurasoek ziotenez, bi **minutuan** osatzen zituen bostehun zatiko puzzleak umetan. [Xabier Olarra](#)

Boto gehiago biltzen dut nik bost **minutuan** zuek biok aste betean baino. [Irene Aldasoro](#)

Irensgailuak hamar bat **minutuan** bukatu zuen lana. [Joxan Elosegi](#)

52 kiloko kuboarekin 16 jasoaldi hiru **minutuan**. [Berria - Kirola](#)

Ez zara hilko beste bost **minutuan** hemen gurekin egoteagatik. [Oskar Arana](#)

Herrialde pobreetan **minutuan** andre bat hiltzen da erditzean. [Berria - Gaiak](#)

Zerua trumoika ari da azkeneko hamar **minutuetan**, eta haizea gero eta bortitzagoa da. [Bernardo Atxaga](#)

Hirulau **minututan** bost bider entzun diat "worl order" esaera. [Patziku Perurena](#)

-Bortz **minututan** hemen diagu. [Aingeru Epaltza](#)

Beti hamabiak eta hamar **minututan** iltzaluta zeudelako orratzak. [Harkaitz Cano](#)

Handik berrogei **minutura** etxera itzultzen garenean, Tomek berria jakinaraziko digu. [Oskar Arana](#)

Behinola, umetan, gure etxetik hogeit bat **minutura** zegoen sinagogan izan nintzen. [Anjel Lertxundi](#)

Lurra utzi eta bi minutu ziren lurrea aieratuko erabilikoa desatzen du bost bat **minutura** edo iritsi da. **Berria - Gaikak**

Berrito erretzen hasi nintzenetik hamar **minututik** behin zigarro bat erretzen nuela. **Ramon Saizarbitoria**

## 11 (alde hitzarekin)

-2 **minutu** eta 30 segundoren aldearekin! -egin zuen jauzi Jonathanek. **Jon Muñoz**

Nazabalek bi **minutuko** aldea kendu zion Laretxeari eta bi minutu eta erdikoa Barberenari. **Berria - Kirola**

## 12 arku gradu baten hirurogeirena.

**Minutu** erdia, 180 m-ra dagoen 2,5 cm-ko objektu bati dagokion angelua da. **Irene Aldasoro**

**Minutu** erdiko angelu bereizmenari dagokion ikusmen-zorrozatasuna. **Josu Zabaleta**

Astrolaboarekin eginak ditut kalkuloak eta ohartua naiz Brabanteko inguruetan Tramontana berrogeita hamar graduko alturan dela, eta Alemaniako Bohemiaren inguruetan, berrogeita hemezortzi gradutan eta septentrioaren aldera hirurogei **gradu** eta **minutu** batzuetako alturan. **Aurelia Arkotxa**

## 13 *minutu oro adlag* minutu guztietan. ik *minuturo*.

**Minutu oro** amiltzen zen lurrera, gurdiairen aitzin aldera egiten zuen jauzi, iraindu egiten zituen mandoak, oihu lazgarritz izendatuta: La Capitana! **Koldo Izagirre**

Txartelak ezin dituzula jarri eta bost **minutu oro** agertokia ezin duzuela aldatu esan duzu! **Josu Zabaleta**

**Minutu oro** gure alderdiaren batasuna eta sendotasuna agerian gelditzen ari da **Berria - Mundua**

## 14 *minutu orratz* minutuen orratza.

Swift-ek kontatzen du Lilliput-eko enperadoreak **minutu-orratzaren** higidura bereizten zuela; Funesek etengabe bereizten zituen ustelduraren, hortz-txantxarren, nekearen aurrerapauso astitsua. **Juan Garzia**

### hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

amaitzeko bi minutu (9); amaitzeko bost minutu (10); azken minutu (10); bi minutu falta (11); bi minutu galdu (6); bi minutu geroago (11); bost minutu barru (11); bost minutu eskas (6); bost minutu falta (27); bost minutu geroago (26); bost minutu lehenago (12); bukatzeko bost minutu (7); hamar minutu barru (16); hamar minutu beranduago (6); hamar minutu eskas (7); hamar minutu falta (10); hamar minutu geroago (27); hamar minutu lehenago (7); handik minutu batera (13); handik minutu batzuetara (22); handik minutu gutxira (19); hiru minutu falta (11); hiru minutu geroago (7); hogei minutu barru (10); hogei minutu geroago (19); hogei minutu lehenago (6)

minutu asko (32); minutu asko jokatu (6); minutu askotan (14); minutu bakar bat (19); minutu bakar batean (10); minutu bakar batez (12); minutu bakarra (7); minutu bat falta (6); minutu bat gehiago (6); minutu bat geroago (21); minutu bat lehenago (9); minutu bateko isilunea (25); minutu baten buruan (14); minutu batzuen buruan (27); minutu batzuk eman (6); minutu batzuk geroago (35); minutu batzuk igaro (6); minutu batzuk jokatu (6); minutu batzuk lehenago (63); minutu berandu (12); minutu beranduago (19); minutu bila (7); minutu erabakigarrietan (7); minutu erdi (27); minutu erdi bat (8); minutu erdia (13); minutu erdiko (13); minutu erdiko aldea (7); minutu erdira (6); minutu eta erdi (17); minutu eta erdira (9); minutu eta segundo (6); minutu ez (8); minutu galdu (22); minutu galdu zituen (10); minutu gehien jokatu (11); minutu gehienak (6); minutu gehienetan (14); minutu gehientsuenetan (9); minutu geratzen (19); minutu geratzen zirela (8); minutu geroago (126); minutu gutxi batzuetan (10); minutu gutxi batzuk (22); minutu gutxi falta (10); minutu gutxiaren buruan (17); minutu gutxitan (23); minutu guztiak jokatu (6); minutu igaro (18); minutu irau (31); minutu irauin zuen (22); minutu iraungo (11); minutu irauten (16); minutu irauten du (8); minutu itxaron (6); minutu izan (8); minutu izango (11); minutu joan (7); minutu jokatu (31); minutu jokatu ditu (10); minutu jokatu zituen (12); minutu kopurua (6); minutu labur (6); minutu luze (19); minutu luzez (10); minutu pare (44); minutu pare bat (24); minutu pare batean (7); minutu pasatu (6); minutu pasatxo (7); minutu pasatzen (6)

minutuz minutu (8); pare bat minutu (11); partidako minutu (13); zenbait minutu geroago (7)

azken minutua (6)

azken minutuak (24); hurrengo minutuak (7); jokaturako minutuak (9); lehen minutuak (32); minutuak aurrera egin (9); minutuak aurrera joan (23); minutuak jokatu (12); minutuak jokatze (12); minutuak pasatu (10); minutuak pasatu ahala (6)

azken minutuan (65); azken minutuan galdu (7); bigarren minutuan (7); bosgarren minutuan (10); bost minutuan (39); hamar minutuan (18); hiru minutuan (18); hirugarren minutuan (8); hogei minutuan (6); hurrengo minutuan (7); jasoaldi bost minutuan (7); jasoaldi hiru minutuan (6); laugarren minutuan (6); lehen minutuan (15); seigarren minutuan (6); zazpi minutuan (8); zazpigarren minutuan (9); zortzigarren minutuan (8)

minutuek aurrera egin (7)

azken bi minutuetan (7); azken hamar minutuetan (15); azken minutuetan (144); azkeneko minutuetan (9); bi minutuetan (9); bost minutuetan (16); hamar minutuetan (34); hasierako minutuetan (15); hogei minutuetan (14); hurrengo minutuetan (11); lau minutuetan (6); lehen hamar minutuetan (9); lehen hogei minutuetan (8); lehen minutuetan (66); lehenengo minutuetan (10)

bi minutuko aldea (7); bost minutuko txandan (12); hiru minutuko aldea (6); hiruna minutuko txandak (8); minutuko aldea atera (10); minutuko aldea lortu (12); minutuko atzerapena (9); minutuko atzerapenarekin (12); minutuko bidea (6); minutuko errenta (14); minutuko errenta lortu (7); minutuko faltak (75); minutuko hiru txanda (7); minutuko hiru txandatan (7); minutuko iraupena (9); minutuko isilunea (13); minutuko isilunea egin (6); minutuko tartea (9); minutuko tartean (7); minutuko txanda (12); minutuko txandak (13); minutuko txandak egingo (6); minutuko txandan (17); minutuko zuloa (11); minutuko zuloa ireki (8)

azken minutura arte (8); hamabost minutura (7); hamar minutura (42); handik bi minutura (6); handik bost minutura (26); handik hamar minutura (19); handik hiru minutura (7); handik lau minutura (6); minutura iritsi (8); minutura iritsi zen (6); minututik minutura (6); zazpi minutura (6)

bi minurako (8)

bost minuturen buruan (7); hamar minuturen buruan (9); hogei minuturen buruan (7); zenbait minuturen buruan (8)

bost minututan (10); hainbat minututan (7); hamar minututan (17); zenbait minututan (9)

bost minututik (6); lehen minututik (52); minututik behin (7); minututik gora (9); minututik gorako (10); minututik gorako aldea (6); minututik minutura (6)

bi minutuz kanporatuak (33); minutuz behin (6); minutuz egon (12); minutuz ibili (7); minutuz kanporatuak (33); minutuz minutu (8)

## minutuero ik *minuturo*.

## minutugarren

### 1 *minutugarrenera* handik minutura.

**Minutugarrenera** itzuli zen Fariaskaxarekin. **Unai Iturriaga**

Txapli komunera, eta **minutugarrenera** banan-banako deia taldekideei sudurra nasaitzera. **Unai Iturriaga**

## minutuka *adlag* minutua neurri harturik.

Badabil oraindik, denbora emeki-emeki zatikatzen du, segundoka aurrena, **minutuka** hurrengo, eta orduka gero. **Mirentxu Larrañaga**

Aparkaleku gehienak **minutuka** edo ordu laurdeneko tarteka kobratzen hasi dira, legez hala zehaztuta. **Berria - Harian**

Telefonia enpresa batzuek, esaterako, **minutuka** kobratzen dizkiete bezeroei; hamar segundo hitz eginez gero, minutu osoko faktura helitzen zitzairen. **Berria - Euskal Herria**

Zaintzaleak atea noiz zabalduko didan zain, beha, ene urratsak kondatzen, orenak **minutuka** kondatzen, minutuak urraska... erritmo aldaketa hori da zailena. **Filipe Bidart**

## minutuoro ik *minuturo*.

## minuturo (22 agerraldi, 9 liburu eta 10 artikulutan; orobat *minutuero* 9 agerraldi, 7 liburu eta artikulua 1ean; eta *minutuoro* 6 agerraldi, 4 liburutan) *adlag*

Zer egiten du egunero, orduro, **minuturo**, segundoro, ikusten dituen milaka eta milaka irudiekin, entzuten dituen milioika hitzekin? **Karlos Linazasoro**



**Minuturo**, 10 kutsatu gehiago. [Berria - Gaiak](#)  
Indiako Ganges ibaian, esaterako, **minuturo** 1,1 milioi litro hondakin-ur isurtzen dira. [Berria - Gaiak](#)  
Oheburutik aldendu gabe, **minutuero** bustitzen zizkion ezpainak limoi uraz. [Ramon Saizarbitoria](#)  
Angiek erlojuari begiratzan zion ia **minutuero**, eta ez zuen horrenik egin nahi. [Iñaki Zabaleta](#)  
Bost **minuturo** izango dira metro zerbitzuak. [Berria - Euskal Herria](#)  
Holohan jauna bost **minuturo** sartzen zen aldagelan leihatilako azken berriekin. [Irene Aldasoro](#)  
Egun horretan bertan, Irak-en 144 ume hil ziren -hamar **minuturo** bat-. [Txema Ramirez de la Piscina](#)  
Eta hamar **minuturo** gizon bat kubertara, zubira igota lemaren ardatzean ipinia genuen giltza ingelesa estutzeroa... [Koldo Izagirre](#)

## minututxo *iz adkor* minutua.

**Minututxo** batzuk besterik ez. [Jon Muñoz](#)  
-Minutu bat barru hemen izango naiz berriro, **minututxo** bat besterik ez. [Lopez de Arana](#)  
Arratsaldetik, ordea, segundotxoak bakarrik, **minututxo** bakar bat bera ere ez, ez du aurreratu erretiroa [eguzkiak]. [Pello Zabala](#)

## minuziosoki *adlag* zehaztasunez, xehetasunez.

Erlijioen jatorriak eta, **minuziosoki** arakatu dira. [Joxe Azurmendi](#)

## minuziotsu *izond* zehatza.

Zehaztasun **minuziotsuz** ñabardurak eta diferentziak mendeen artean ikertzen direnean. [Joxe Azurmendi](#)

## minxirri *iz*

Esan dizut ahari hura ez zuela Yolok asko ere, horrela, bereziki estimatzen, baina aitak eragin zion, edo mozkorraldiak aitari eginarazi zion heriotza bortitzak umearen bihotzean **minxirria** moduko atsekabe sakon bat sorrarazi zuen. [Pako Aristi](#)

## minxor 1 *iz adkor* minsorra.

Hagina bere lekuan oso dagoelarik, ez dago koloka, ez du deus esaten, eta, hantxe egonik, ez balego bezalaxe da; orain, hagina zuztarretik atera ezker, **minxor** bat gelditzen da luzaroan, "han dagoela esaten du" (**minxor** hori adierazten horrelaxe ikasi genuen guk), eta han ez egonik ere, hantxe balego bezalaxe da, ezago eta egonago. [Iñaki Segurola](#)

## 2 (izenondo gisa)

Ahoa estutu eta melodia **minxor** hori irensten saiatzen naiz horrelakoetan, itzul dadila soinu bakoitza sortu zeneko gihar ezkutura eta dagoela han bakean. [Harkaitz Cano](#)

## minzaia ik mintzaira.

## minzaira ik mintzaira.

## minzaje ik mintzaje.

## minzaldi ik mintzaldi.

## minzatu ik mintzatu.

## minzo ik mintzo.

## minzorro *iz* minsorra.

Zitxada hori **minzorro** bat da, organoen gauean modu bitxian esnatzen den halako toki jakin bateko kontzientzia gisako bat. [Josu Zabaleta](#)

## mioglobina *iz* giharretako gai gorria, hemoglobinaren kidekoa dena.

Muskuluko oxigenoaren kopuru txiki bat baino ez da konbinatzen hemoglobinarekin, globulu gorriei beren kolore gorria ematen dien gaiarekin; **mioglobinarekin** eta zitokromoarekin konbinatzen da gehiena (hemoglobinaren antzeko substantzia bat eta kolorezko beste material bat, hurrenez hurren). [Irene Aldasoro](#)

## miokardio *iz* bihotzaren gihar zatia.

Aizpuruari medikuek azaldu diotenez, Gorostidiri bihotza gelditu egin zitzaion **miokardio** infartu akutu baten ondorioz. ik bihotzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

## miologia *iz* anatomiaren zatia, giharrak aztertzen dituena.

Pariseko **miologia** institutoko mediku-espezialista eta eritasun neuro-muskularren europear zentroko zuzendari zientifikoa. [Herria](#)

# mioma iz gihar ehunetan eratzen den tumor onbera.

Ekografiari esker, kisteak eta **miomak** garaiz atzeman daitezke. [Luis Elberdin](#)

# miopata izond giharretako eritasuna duena, miopatiak joa.

Zendu da Paueko ospitalean Asier Urretxu Tomen 8 urteko haur **miopata**. [Herria](#)

Haur **miopaten** elkartea [Herria](#)

# miopatia iz giharretako eritasuna.

**Miopatia** eta mota hortako eritasun genetikoak. [Herria](#)

Jaioturretiko diagnostikoak haurraren eritasun hilgarriaren bat iragartzen digunean (talasemia, demagun), edo elbarritasun ikaragarriak eragiten dituenen bat (**miopatia**) larriak, adibidez). [Juan Garzia](#)

Ea posible izango den, terapia genikoz, Duchesne-ren **miopatiak** edo mukobiszidosiak jota dagoen gaixoa sendatzea. [Juan Garzia](#)

# miope 1 izond miopia duena, miopiak joa.

Bi aholkularien artean eserita zegoen, bat gizonezkoa eta bestea zapata arrosak zeramatzen emakume **miope** bat. [Joseba Urteaga](#)

Han zebilen halaber saguzar **miope** bat, etxerako bidea asmatu ezinik; hara eta hona ari zen hego-jauzika, eltzoz leporaino betea. [Joxan Elozegi](#)

"Zer ote den alkatearen eder izan nahia", pentsatu zuen Joanesez, alkatea **miope** zela eta hala ere betaurrekorik jantzi nahi ez zuela jakinik. [Felipe Juaristi](#)

Adineko gizon dotorea dut, bekain eta ile grisekoa, asko irakurri duten begi **miope** eta nekatuekin. [Bernardo Atxaga](#)

Argazkia nire begi **miopeetara** hurbildu eta arretaz begiratu nuen. [Ander Irizar](#)

Begira-begira geratu zitzaizdan bere begi **miopeekin**, ahoa zabalik, nor ote nintzen jakin nahian. [Anjel Lertxundi](#)

Haiendako, dotoreziaren gailurra zen **miopea** izatea, konkorduna, herrena. [Koldo Izagirre](#)

Ile beltz motza zuen eta beti zeramatzen betaurrekoak oso **miopea** zelako. [Aitor Arana](#)

## 2 irud/hed

Zigorrek galtzaren gibel patrikan sartu dio eskua eta muxu **miope** bat eman aho nimiñoan. [Eider Rodriguez](#)

J. Vendryes-en bezalako teoriek, abstrazioa, besterik gabe, zibilizazioari lotzen diotenak eta hiztegiaren zehaztasuna eta ugaritasuna atzerapenari, erabat ikuspegi **miopean** finkatzen dira. [Patziku Perurena](#)

## 3 iz miopiak jotako pertsona.

Begiak kizkurtu zituen **miope** baten moduan, eta aurpegia aztertu zidan. [Anjel Lertxundi](#)

-Eta kontua duk ispiluairen muga zeharkaezin horretaz errazago ohartzten garena **miopeok** bista onekoak baino. [Iñaki Iñurrieta](#)

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Betaurrekoak kendu, eta bere **miope**-begiekin begiratu zidan, begiak kliskatuz, nahastuta-. [Ander Irizar](#)

Baita haien atzean kukutzen ziren **miope** begi estuei ere. [Alberto Ladron Arana](#)

-Ikusiko bazenu zelako jaiak antolatzen diren Irango hirietan ezkutan! -esan dit, **miope**-antiojoen atzeko begiak asko-asko irekiz-. [Jon Arretxe](#)

# miopia 1 iz ikusmenaren anomalia, urruneko irudiak lauso ikustea ezaugarri duena.

Ez **miopiak**, ez astigmatismoak, ez presbiziak, ez kataratak ez zioten inoiz ikusmena lausotu edo ahuldu. [Jon Muñoz](#)

Oso gaizki ikusten nuen berriro ere, lanbrotu, saguzarren **miopiak** jo izan banindu bezala. [Joxan Elozegi](#)

**Miopiaren** lausoan artetik, bere gisako bizitegi batean nintzela konprenitu nuen. [Aingeru Epaltza](#)

Rollo politikoetan sartuta ez zegoen taldeko ia bakarra, intsumisoz gainezka zegoen koadrilan **miopiagatik** libratu zen alproja. [Iban Zaldúa](#)

Itzulbidea nire pareraino egin zuen, ene **miopiarendako** tarte egokira baratuz. [Aingeru Epaltza](#)

Baliteke nire **miopiari** zor izatea hori. [Juan Garzia](#)

Baliteke neskaren **miopiaren** errua izatea. [Patxi Iturritegi](#)

## 2 irud/hed

Badaezpada, komeni zaigu emakume kritikari aditu gehiagoren iritziak mahai gainean jartzea, zehatz dezaten ea gure problema **miopia** den, dagoena ez ikustea, ala burmuinekoa, hau da, txipa aldatu beharra. [Ana Urkiza](#)

Azkenik, Ibarretxeren «**miopia** izugarria» aipatu zuen. [Berria - Euskal Herria](#)

## 3 (hitz elkartuetan)

**Miopia** puntu batek sortzen duen begirada galdu eta erakargarria, eta noizean behin, nola jakiteke, ateratzen zitzaion irribarre samur eta laño hura. [Unai Iturriaga](#)

# miositis iz giharren hantura.

Muskulu edema atzeman diote ezker eskuan, **miositisa** eta tunel karpianoaren edema ere bai. [Berria - Kirola](#)

# miozeno iz Hirugarren Aroko Erdiko aldia.

**Miozeno** garaian tximinoen familiaren bi adar banandu zirela diote zientzialariek. [Berria - Gaiak](#)

Aurkikuntzak oihartzun handia izan du mundu osoan: **Miozeno** garaiko oso aztarna gutxi aurkitu dira egun arte eta Kataluniako hezurdurarik osatuenetakoa da. [Berria - Gaiak](#)

# mira<sup>1</sup> iz mirespena, harridura.

Hasieran, harridura, **mira** eta, inoiz, poza izan ziren tartean. [Xabier Olarra](#)

Eta berriro nire **mira**: bai gaztea dela! [Joxe Austin Arrieta](#)

Coppi eta Bartali, biak ala biak pedalaren erregeak ziren, eta langileen **mira** ere banatuta zegoen. Nahiz ezer ez jakin ardiekin mendian ibiltzeaz edo txahal bati biberoi esnea emateaz, **mira** sentitzen nuen lan xehe haiekiko. [Pello Lizarralde](#)

Auzoan, aldiz, ikusgarri egiten zaigu heriotza: **mira** sortzen digu, morboa. [Joxerra Garzia](#)

Zapatari apendizak **mira** handia hartu zidan, eta zapladak jotzen zizkidan bizkarrean ikusten ninduen bakoitzean, eta nahi zuen ni igandeetan harekin joatea emakume bila.

Pello Lizarralde

Gure aberria berriro indartsu eta munduaren **mira** bihurtuko omen zuen eginbeharra. **Alberto Ladron Arana**

Idazle askoren **mira** eta errekonozimendua izan zuten, **Berria - Kultura**

## 2 gauza miragarria.

Marko orain Indietarik heldu da eta urrongo herrialde horietan diren **mirak** kondatu dizkidalarik, miresturik gelditu naiz, nehoiz nehork ez baitzikidan horrelako berriak jakinarazi. **Aurelia Arkotxa**

Iohan Apezaren erreinuan **mira** anitz bada, hala nola Legarrezko Itsasoa. **Aurelia Arkotxa**

Izadiaren **mira** handienetarik bat dela diote han, baina nik diot gure lekuetan ere badela hori baino handiago den **mirarik**. **Aurelia Arkotxa**

## 3 falta sumatzea.

Ni, batzuetan, hobeto entzutearren, atearen bestaldean jarri ohi nintzen, eta inbidia sentitzen nuen, eta nostalgia; amak bainatzen nindueneko **mira**, pentsatzen dut.

**Ramon Saizarbitoria**

**Miraren** edo nostalgieren sentikortasun muturrekoa, morbosoa, garatzen du edertasuna zahartzeari, heriotzari, bakardadeari baina aldi berean neskato oso gazteei lotuz.

**Ibon Uribarri**

Pubeko erosotasunaren **mira** sentitu zuen berriro bere gorputz handiak. **Irene Aldasoro**

Denborarekin [...] kolegioko bizimoduaren **mira** ere sortu zitzaigun, eta neskak, berak batez ere, eta nesken artean Susana gehiena, "aurreko ikasturtean pasatako memento onak" aipatzen hasi ziren. **Bernardo Atxaga**

Horrela, emakumearen soinaren **mira** sortu zitzaion. **Ibon Uribarri**

Eta iragandako garaia **mira** sumatzen nion orduan aitari, lagunaren neskengatik ez baina lagunaren akorduagatik inez, etxeko sukaldetik kanpo ezin baitzuen ia beste inon aipatu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Korsikarra emaztearengana -liburutegiko atezaina da- jaitsiko zen; haren urrats hotsen **mira** nuen. **Monika Etxebarria**

Pertsonak bezala [zakurrek] drogaren **mira** izugarria izaten dute. **Gotzon Garate**

Aurreko garaian **mira** bilatzen zuten, suerte handiagoz ibili zelako orduan, hainbesteko gorabeherarik gabe, erosoago, aberatsago. **Bernardo Atxaga**

## 4 miran ik miran.

### 5 mirazsup\_1 mirespenez, harriduraz.

-Urre pila bat -esan zuten La Sarriettek **miraz**. **Karlos Zabala**

Ordu arte aho zabalik eta **miraz** eduki duen haurra protestaka hasi zaio Aezkoako amonari beste ipuin bat eskatuz. **Anjel Lertxundi**

Lisak irribarre egin, eta hura hantxe gelditzen zitzaion begira, **miraz**, irri gozoa ahoan. **Karlos Zabala**

Harri eta zur, harri eta so, harri eta izu, harri eta miru baitzeuden, **miraz** ikusten ari zirena miraritzat ala deabrukeriatzat hartu behar ote zuten erabaki gabe. **Felipe Juaristi**

Atenastarrek **miraz** eta beharbada eskandaluz hartu zuten [...] bigarren entzele bat ustekabean agertu izana. **Juan Garzia**

Cadinek jaki gazituak arras gogoko zituen, **miraz** gelditzen zen sardinar ketuei, antxoei, kaparrei begira. **Karlos Zabala**

**Miraz** begiratu nion, lehenengoz orduantxe ikusten banu moduan. **Edorta Jimenez**

Izuz eta **miraz**, **miraz** eta izuz begiratzen ari zaizkio lagunak. **Anjel Lertxundi**

**Miraz** egon nintzaion entzuten bestela mirarik ez diodan gizonari. **Iñigo Aranbarri**

### 6 mirazsup\_2 falta sumatuz.

Nahi zukeen neurrian ezagutzen ez zuten hizkuntzaren **miraz**, hizkuntza galduaren **miraz**. **Iñaki Iñurrieta**

### 7 mira egin<sup>1</sup> miretsi; harritu.

Begien aurrean agertu zitzaionaz **mira eginik** zen ontziburua, Joan Sanz, Basurtoko nagusia. **Edorta Jimenez**

-Ikasia haiz, Bartolome, ikusten diat - **mira eginik** esan nion. **Edorta Jimenez**

Balkoiko leihoa zabalik geratua zen, eta handik **egin** zion **mira** Ruche jaunak joniar itsaso gaineko goiztiriari. **Jon Muñoz**

**Mira egin** zaie nik halakorik esatea, eta berbetagatik atera dut irakurri barik dutela, aipamenetatik ezagutzen dute. **Koldo Izagirre**

**Mira egin** zaie nik halakorik esatea, eta berbetagatik atera dut irakurri barik dutela, aipamenetatik ezagutzen dute. **Koldo Izagirre**

**Mira eginda** geratu zen hainbeste urteetako tresnek egun duten gaurkotasunaz jabetzean. **Berria - Kultura**

Esteban Garibai arrasatearra eta Baltasar Etxabe zumaiarra aipatu zituen bertso batean, euskaldunak izan, Euskal Herriko historiaz jardun, eta erdaraz idatzi izanaz **mira eginda**. **Koldo Zuazo**

Henri Toulouse-Lautreci gertatu zitzaion bezala, kabaretekin **mira** eginda geratu zen Picasso. **Berria - Kultura**

### 8 mira eginsup\_2 falta sumatu.

Izan ere, Flora **mira egiten** nuen neurrian, haren hutsunea gero eta indartsuago sentitzen nuen heinean, Bioletaren mirespena ergeltasun ukitu baten adierazle ere bazela iruditzen zitzaidan, heldutasun ezaren seinale. **Ramon Saizarbitoria**

-Zure **mira eginen** dugu -esan du etxekoandreak-. **Monika Etxebarria**

Niri dagokidanez, zure konpainia gabe **mira egingo** nuke. **Itziar Otegi**

### 9 mira eraginsup\_1 ad

Antzerki-saio bikaina izan zen, sorginkeria psikologikozko lan bat, eta Harryren burmuin gajoan izua eta **mira eragin** zituen, biak aldi berean. **Oskar Arana**

Ontziburuak igarri egin zidan hark denak **eragin** zidan **mira**. **Edorta Jimenez**

### 10 mira-eraginsup\_2 izond xarmatua, liluratua.

Nahi duena egiterik ez baitauka, ni bezala **mira-eragina** dagoenak. **Patxi Ezkiaga**

Apaizak, bizarginak, batxilerrak eta sakristauak berak ere, zu gobernadore zarenik ez dute sinisten; eta lilurazko edo **mira-eraginetako** zerbeit dela, diote, hau guztia, zure nagusi Don Kijoteren gauza guztiak bezala **Patxi Ezkiaga**

### 11 mira-eragite izond xarmatzea, liluratzea.

Eta hainbeste zaldi otzan, eta andereño ibiltari, eta herensuge, eta hegadun aberetzar, eta erraldoi, eta hainbeste ibilkizun entzun ere ez direnak, eta hainbeste motatako

**mira-eragiteak**, eta guda-borrokak, [...]. **Patxi Ezkiaga**

### 12 mira izansup\_1 du ad

Gure kalean txatarra biltegi bateko nagusia bizi zen eta gizon hark **mira zion** Federicori egozten zituen biraoengatik, eta gure aita, batzuetan, harekin geratzen zen eztabaidatzeko eta arrangurak kontatzeko. **Pello Lizarralde**

Oso jatorrak ginela iruditzen zitzairen eta **mira** ziguten. **Pello Lizarralde**

Esaten zuten bera poztu egiten zela eta **mira** eta begirunea ziela. **Pello Lizarralde**

### 13 mira izansup\_2 du ad falta sumatu.

omou aditzaren zentzua begiratzen du hiztegian, gure liburuan hainbat aldiz agertzen dena, eta hainbat esanahi topatzen ditu: pentsatu eta gogoratu, bai, baina **mira izan**, ezin ahaztu, triste egon ere bai. **Ibon Uribarri**

Erretzaileak bakarrik nabarmendu zuten sentipen hori beretzat ez zela berria eta bere aldetik zigarroen **mira zuela** gehiago. **Urtzi Urrutikoetxea**

"Baina **mira diat** oraindik", gehitu du pixka bat geroago, isilune deseroso baten ostean. **Iban Zaldúa**

Sagarrondo loreen **mira zuten** erleek abaraska egin omen zuten Adrianaren ahoan eta ezti gozoa atera, ezti musikaduna, ezti sagar-zaporea. **Felipe Juaristi**

### 14 mira-mira egin erabat miretsi, erabat harritu.

Bere pozerako, jauregia zabalik eta hutsik topatu zuten, eta emakumea **mira-mira eginik** geratu zen hango aberastasunen artean. **Patxi Zubizarreta**

Oi, ene senideok, Mekaz eta haren zeru dirdaitsuaz **mira-mira eginik** nago. **Patxi Zubizarreta**  
Gelako batek *Ehun metro* leitu zuen, eta **mira-mira eginda** nengoen. **Ana Urkiza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**mira eginda** (19); **mira eginik** (13); **mira egiten** (5); **mira eragile** (11); **mira handia** (3); **mira mira eginik** (3)

## mira<sup>2</sup> 1 iz ikusgailua.

Aitak zioenez, fusilaren **mira** hain zen zehatza, non zigarro baten muturra jo baitzezakeen mila metrora. **Juan Kruz Igerabide**  
Besteak eskopetaren **mira** txikia ikusi du lehenengo, eta **miraren** norabideari jarraika zuzenean anaiaren begiak gero: hegaldatzera lihoazkeen bi xoxo-kume, ahoa zabal-zabal eginda duen aurpegia desorekatuz. **Pako Aristi**  
Fusilaren **mirak** sastraketarantz begiratu zuen. **Joxemari Urteaga**  
Goizerako, tiratzaile amerikarrek **mirapean** zeuzkaten santutegirako sarrera guztiak. **Berria - Mundua**

### 2 irud/hed

Ehiza bezala, poesia ere kapritxosoa da; hilabete luzeetan mantendu izandako azeloaren ondoren pieza txikiren bat harrapa dezakezu, eta gero, hurrena, espero gabe, **miraren** aurrean jarriko zaizu ehizarik potoloena, poemarik beteena, poesia gaitz kroniko baten moduan daramaten guztiek bilatzen duten sendagai hori. **Pako Aristi**  
Santiagoko Komunikazio Zientzien fakultatea izan zuen Foergek bere kameraren **miran**, eta emaitza arkitektura purua da, arkitektura zati bat argazki euskarrian. **Berria - Kultura**  
Bi ordezkariaren aurkako erabakiak lehtarazi du krisia baina, ez gaitezen engaina, beste batzuk ere **miran** daude. **Berria - Euskal Herria**

### 3 (hitz elkartuetan)

Eskopeta emango dizute, animalia **mira** lerroan hartu, bertatik bertara begiratu eta bere marruma ozen eta latza entzutearekin batera sakatuko duzu gata. **Joseba Sarrionandia**

### 4 mira teleskopiko

Aise egingo zuen bere lana Sarajevoko frankotiratzaileak ere, **mira teleskopikoan** ez baitira ageri kilometro bat harago -azokaren atarian, autoaren bolantean- erortzera doan pertsonaren ezaugarriak. **Bernardo Atxaga**  
Orduan ez genuen **mira teleskopikorik** eta antzeko umekeriarik, orduan eskua tinko eta begia argi, behar zen. **Koldo Izagirre**

## mirabe 1 iz zerbitzaria. ik morroi.

**Mirabe** izatea ez da langintza bat, esana egitea da; egizu, beraz, hark agintzen dizun guztia. **Juan Martin Elexpuru**  
7.337 morroi eta **mirabe** eta 200 kantari, gizon eta emakume. **Elizen arteko biblia**  
Jauregira itzultitakoan, emazteari, **mirabe** beltzari, neskameei eta morroiei lepoa mozteko agindu baitzuen. **Patxi Zubizarreta**  
Jaiki zen emakumea, lurreraino ahozpetu eta esan zien: -Daviden **mirabe** nauzue, prest nago jaunaren morroiei oinak garbitzeko. **Elizen arteko biblia**  
Hona hemen Jaunaren **mirabea**; gerta bekit zuk esan bezala. **Elizen arteko biblia**  
Siriarrek, erasoa egin zuten batean, Israelgo neskato bat eraman zuten gatibu; Naamanen emazteak bere **mirabe** egin zuen. **Elizen arteko biblia**  
Zeruko Aita Errege goi-goiko eta gorenaren alaba eta **mirabe** egin zarete eta Espiritu Santuarekin esposatu. **Joan Mari Irigoien**  
Ez zenuten uste Troiatik itzuliko nintzenik, nire etxea suntsitzen eta **mirabeak** bortxatzen ari zinetenean. **Juan Kruz Igerabide**

### 2 (izenondoekin)

Zeure **mirabe** ezerez hau. **Askoren artean**  
Ermentrudis ahizpa bihotzokoari, Asisko Klara Jesu Kristoren **mirabe** xumeak: osasuna eta bakea. **Askoren artean**  
Hiritik urrun **mirabe** zahar batekin bakarrik bizi duk. **Juan Kruz Igerabide**  
Itzuli da, eta hara non topatu duen emaztea **mirabe** beltz batekin oheratua. **Patxi Zubizarreta**  
Beste **mirabe** gazteago batek hartu zuen nire lekua haren etxean eta haren zakilean. **Juan Martin Elexpuru**  
Aurrez aurre ginen, **mirabe** zekarren mutila mira eginda geneukalarik. **Edorta Jimenez**  
-**Mirabe** hartu nahiko baninduzu... -erantzun zion neskak-. **Anjel Lertxundi**

### 3 (izenondo gisa)

Haren jauregia miresgarria zen eta bertan, nor bere gelan, arraza guztietako ehun neska **mirabe** bizi ziren. **Patxi Zubizarreta**  
Ura zeru urdina bezain argia den lurretik neskame **mirabe** bat ekarri zuten... **Xabier Paya**

### 4 irud/hed

Eta egun batez, menpekotasun kontrolaezin haren **mirabe**, neskari deitzera deliberatu nintzen. **Patxi Zubizarreta**  
Sekretu bat esateak sekretu horren **mirabe** bihur gaitzake. **Ana Urkiza**  
Gazte guztiek lanpostu baten jabe -**mirabe** izateko duten eskubidearen alde. **Iñaki Segurola**  
Nolanahi ere, haurtzaroko memoriaren jabe baino gehiago memoria horren morroi eta **mirabe** bizi zela esan daiteke. **Joxean Agirre**  
Hauts zikin bat zainetan eta huts garbi bat bihotzean, jonkia dabil espediziotik espediziora, bere izpiritu eroria, ertz zailenetik abiatuz, hutsetik hutsagora altxako duen jenero santuaren bila, orratz-puntatik orratz-puntarengora, bizi-kimikariek ezean Kimika salagarri baten **mirabe** bihurtua, ezinegon lazgarri baten izerdi hotzak heriotzaren koloreko gailur hotziletara bulkatzen duela. **Iñaki Segurola**

### 5 (hitz elkartuetan)

Bikotea oltgantzan eta alberdanian ibili zen, orain trufaka, orain laztanka, hariak eta, ilunabarrarekin, nagusia **mirabe** jantzian agertu zitzaizen arte. **Patxi Zubizarreta**  
Nahiz eta [...] bere **mirabe**-prestutasun itogarri samarrean, maitagarria zen. **Eduardo Matauko**

### 6 Jesusen Mirabe pl moja ordena baten izena.

Kalean edo premia gorrian bizi direnei gosaria ematen diete Jesusen **Mirabeek** Hernani kaleko egoitzan. **Berria - Euskal Herria**  
Etzekoen babesik ez duten gaixoentzat *Bietxeak* elkarteak pisu bat dauka Cristo kalean, eta Jesusen **Mirabeek** 10 ohe euren komentuan. **Berria - Euskal Herria**

### 7 morroi-mirabe pl morroi eta mirabeak.

Lurrean atsedendaldian ez zaizue faltako zer janik, ez zuei, ez zuen **morroi-mirabe** eta langileei, ezta zuekin bizi diren etorkinei ere. **Elizen arteko biblia**  
Orduan, Abimelekek itzuli egin zion Abrahami emaztea. Era berean, ardiak, behiak eta **morroi-mirabeak** eman zizkion oparizat. Izugarri aberastu zen Jakob: artalde handiak zituen, **morroi-mirabeak**, eta baita gameluak eta astoak ere ugari. **Elizen arteko biblia**  
Lurrean, bere Eliza militanteko **morroi-mirabeen** artean, grazian eta bere bertuteetan hazaraziz. **Askoren artean**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**kristoren mirabe** (7); **mirabe beltz** (5); **mirabe egin** (3); **mirabe ezerez** (4); **morroi eta mirabe** (3); **zeure mirabe honen** (4); **zure mirabe honek** (7); **zure mirabe honi** (3)  
**jabe guztien mirabea** (3)  
**andre mariaren mirabeak** (3); **morroi mirabeak** (3); **morroiak eta mirabeak** (4)  
**mirabearen seme** (4)  
**mirabeari eman** (3)

## mirabekeria iz mirabeari dagokion egintza gaitzesgarria.

Giza ulermenaren berezko **mirabekeriak** epai-ahalmena eman dionez, bere arrazoitzeko eskubidea bertan behera utzi eta kronika bati makurtzen zaio arategitizat hartuz. atea zabaldu, don Ottavio ezagutu, eta makurtu egin zen zaindaria, **mirabekeriak** barkamena eskatuz. **Xabier Olarra**

## mirabetza iz mirabe dagoenaren egoera; mirabe lana.

Orduan, menpekotasun eta **mirabetzaren** arteak irakasten zaizkio eta azkenean mundua sakeatzera bidaltzen da bota-garbitzaile edo neskame gisa. **Xabier Olarra**

## miradore iz begiratokia.

**Miradorea**, begiralekua, hotelaren aurreko 2.000 metro karratuko zabaltoa zen. **Bernardo Atxaga**

Hoteleko lorategia **miradorearen** azpian zegoen, mendi maldaren hurrengo mailan. **Bernardo Atxaga**

**Miradorearen** alderdi bat, kafetegitik urrunena, ilunpean zegoen. **Bernardo Atxaga**

Santa Luzia **miradorera** igo nintzen. **Joxean Agirre**

Errekak bustitzen dituen bi etxe-lerroetan, etxeak zaharrak dira, galeria eta **miradore** belztuekin. **Koro Navarro**

Ezker aldeko **miradore** bikunean, inor ez begira. **Txillardegia**

## miradun iz fusilez eta kidekoez mintzatuz, mira duena.

Tiro egin zuen azkenik, begia fusil **miradunaren** ziritutik kendu gabe. **Josetxo Azkona**

Fusil **miraduna** balaz hornitua zegoela egiaztatu zuen eta, eskuineko belauna parketaren gainean jarri ondoren, patxada handiz bermatu zuen iskilua leiho begiaren kontra, bigarren aldiz. **Josetxo Azkona**

## miraegile ik miragile.

## miraeragile (orobat mira-eragile) iz xarmatzailea, liluratzzailea.

Bene-benetan esaten diat, Santxo -esan zuen Don Kijotek - **miraeragile** jakintsuren bat izan behar dik gure kondairaren egileak; halako horiei ez baitzaiek, idatzi nahi dutenetik ezer ere gorderik gelditzen. **Patxi Ezkiaga**

Neroni ere, beste asko eta asko bezala, antzaldatua nago hemen; eta Merlinek, halako frantses **mira-eragile** hark, deabruaren seme omen zen hark egina dena. **Patxi Ezkiaga**

-Zer deritzok, Santxo, **mira-eragileek** nireganako duten gaizki-nahi zitalari? **Patxi Ezkiaga**

## miragarri (526 agerraldi, 113 liburu eta 36 artikulutan) 1 izond mirarizkoa-edo; mirespena eragiten duena. ik miresgarri.

Zapata bat ez zela lanpara **miragarri** bat, alferrik zela hura igurzte. **Harkaitz Cano**

Gauza **miragarria**! San Frantziskok gurutzea egin bezain laster, otso izugarriak ahoa itxi eta korrika egiteari laga zion. **Askoren artean**

Hemen esaten da San Antoniok lotu zituela, era **miragarrian**, hautsirik zeuden bi edalontzi. **Jon Alonso**

Bitamina pilula **miragarriak** aipatuko zizkion batek, aloe landarearen mirakulu sinesgaitzak goraiatuko beste batek. **Imanol Zurutuza**

Sorgin mairuaren ukendu **miragarria**. **Martin Anso**

Ganbelako belarra, herriak gordea, gaixo zeuden abereentzat sendagai **miragarri** eta beste hainbat izurrite aldentzeko eragingarri gertatu baitzen. **Askoren artean**

Argi **miragarri** haren bidez bakoitzari besteen kontzientzia biluzik agertzen baitzitaion. **Askoren artean**

Irudi bizidun bat agertu zen ate irekiaren barruko aldean, atearen heldulekuari esku **miragarri** batez oraturik. **Jose Morales**

Idazki Santuko gauzarik sakonenak ere adimen **miragarri** eta zorrotzez atzematen zituen. **Askoren artean**

Giro **miragarri** batean dirdiratzen du Pasaiaiko plazak. **Koldo Izagirre**

Ezaguna da haren soneto **miragarria**: [...]. **Josu Zabaleta**

Kalkulatzeko makina **miragarri** bat asmatu: Pascalina. **Jon Muñoz**

Jesu Kristo gure Jaunak eman dizkizun talentu **miragarri** horiek ez dituzula baliatzen ebanjelioko zerbitzari leialak bezala. **Piarres Xarriton**

Eta nik, indar **miragarri** batek bultzaturik, bide luzea egin behar dut oraindik nire pertsonaia bitxiekien batera. **Jose Morales**

Interes-tasa **miragarri** bat proposatu dik hire bankariak: %100! **Jon Muñoz**

Gertaera **miragarri** bat kontatuko dut. **Askoren artean**

Savanten dohainak hain **miragarri**, goiztiar eta heldu-tankerakoak izatearen beste alderdia zera da: dohainok ez bide direla garatzen dohain normalen antzera. **Xabier Olarra**

### 2 (adizlagun edo predikatu gisa)

Bere zerbitzariekin beti **miragarri** eta maitagarri azaltzen delako. **Askoren artean**

Gizon honek **miragarri** hitz egiten du, baina nik hobeki edaten dut. **Juan Garzia**

Horrek guztiak ez ninduen urruntzen Ritarengandik; aitzitik, **miragarri** iruditzen zitzaidan, harekin zerikusia zuen guztia bezala. **Juan Garzia**

Dahlmann-ek halako sortasun motel batez entzuten zituen eta **miragarri** zitzaion haiek ez konturatzea infernua zela. **Juan Garzia**

Atergabeko **miragarri** zaizkigu izadiaren jokaldiak, behin eta berriro elementu genetiko berak erabiltzen baititu oso organo desberdinak gauzatzeko. **Juan Garzia**

Ez da **miragarri** animalia bakoitzaren janaria gorputzaren izaerak berak bilatzea ere. **Xabier Amuriza**

### 3 (izen gisa)

Hain dira bortitzak eta biziak Jainkoaren **miragarri** hauek! **Joan Mari Lekuona**

Izan gogoan hark egindako **miragarriak**, haren egintza harrigarriak eta agindu zuzenak. **Elizen arteko biblia**

Lehenengo mailara, pozkarioarena, iristen da arretaz gogoratzen ditugunean maitasun-testigantza gozagarriak, Jainkoak agertu dizkigunak zeruko eta lurreko **miragarrietan**. **Joan Mari Lekuona**

**Miragarri** hauen maitasun-begirada garbiak gainezka eginarazten dio bihotzari, halako atseginez, non bere gorputz ahulak ez baitezake barruan gorde gertakari ikusgarrietan lehertzen den alaitasuna. **Joan Mari Lekuona**

Ezain, hiltzeko modu krudel harengatik, eta **miragarri** natural bat halako hutsalkeria baterako erabiltzeagatik. Juan Garzia

## miragarriki *(2 agerraldi, liburu 1 eta artikulu 1ean)* adlag miragarriro. ik **miresgarriki**.

**Miragarriki** emana izana da, denak bildurik, behar ziren ñabardura guziekin eta azkenean, boz apalez, gibelka jalgi dira kantariak, emeki emeki, urratsez urrats, ilunpean sartzen balire bezala sasi-gudariak. aberri horren erdian mapa, lurraldea, bandera, taloa, bertsoa, dantzak, prozesio nazionalak..., berez hizkuntza batekin -harekin edo honekin- deus ikustekorik ez dutenak, baina **miragarriki**, hizkuntza jakin bati itsatsiak gelditu direnak, aspaldi lehortutako kaka pusketak bezala. Herria

## miragarriro *(66 agerraldi, 18 liburutan)* adlag era miragarrian. ik **miragarriki**; **miresgarriro**.

**Miragarriro** kimuberritu zuen erabat ihartuta zegoen gereziondo bat, orri, lore eta fruituz jantziz. Askoren artean

Lurpean **miragarriro** ezkutatuturiko ortzian. Xabier Amuriza

Harekin ukitzean, arriskua oso **miragarriro** desagertu zen eta emakumeak, osasuntsu eta kalterik gabe, izan zuen haurra. Askoren artean

Eta **miragarriro**, ulertu ezinezko moduan, sugea plasta! erori zen lurrera. Iñaki Mendiguren

Eguzki-izpi batek [...] azpian jotzen zuen haietako bat, eta garden bihurtzen, gartsu eta **miragarriro** distiratsu ilunpe sakon hartan. Jose Morales

Lore miresgarrien haragi arrosa, haragi gorri, haragi zuri **miragarriro** desberdin, hauskor, bakan, fin, gantzutsuetan. Josu Zabaleta

Nitrogenoa nitrogeno da, **miragarriro** aise pasatzen da airetik landareetara, haietatik animalietara, eta animalietatik gutara. Juan Garzia

## miragarritasun *iz* miragarria denaren nolakotasuna.

Indiako geltokietara joateak liluramen berezia du; bai tren eta bai autobus-geltokiek Indiaren aniztasuna eta **miragarritasuna** erakusten dute. Gotzon Garate

Zenbakietan bertan datza zenbakien **miragarritasuna**! Jon Muñoz

Zenbaki lehenen banaketan datza **miragarritasuna**, Fermaten aieruan, Goldbachenean, zenbaki adiskide pareen bilaketan. Jon Muñoz

## miragile *iz* (orobat **mira-egile** eta **miraegile**) *iz* xarmatzailea, liluratzailea.

Eta **miragilea** ere ez ote zen, jendea beti gazte atxikitzeko bertutea edo bederen fama ba omen zuen! Herria

-Har bitza berorrek, lizentziadun jauna, eta urez bedeinka beza gela hau; ez al da baldinbetan **mira-egile** horietakoren bat hemen izango, holakorik ugari baitute liburuk.

Patxi Ezkiaga

## miragune *iz*

Bere enuntziazio soilak jite zeharo erlijiosoko ideal batean pentsaraztera eraman gintzake, baina **miragune** bat besterik ez da. Piarres Xarriton

## miraila *iz* ispilatzea.

Etxeak, bazkალაurreko ordu hartan, airean igeri zirudien, **miraila** koloretsu baten antzera. Ander Irizar

## mirail 1 *iz* ispilua.

Drake hari deabruak behin halako **mirail** edo ispilu sorgindua eman ziola, eta harrezkero ingelesak harexen azalera ikusi izanaren burua ikusi izanaren zuen nire **mirail** gaztean. Aingeru Epaltza

Edorta Jimenez

Jessicak azken soa bota zion aitatziren lo-gelako **mirail** handiari. Itxaro Borda

Berunik izanez gero, ez da batere zaila beirazko **mirail** bat egitea. Juan Garzia

Bazuen, bertzetik, **mirail** plano birakor bat, orientazio bat edo bertze har zezakeena. Joan Mari Irigoien

## 2 irud/hed

Gehienei mukizu ahobero bat iruditu izanen nintzaien, baina batek baino gehiagok bere burua ikusi izanaren zuen nire **mirail** gaztean. Aingeru Epaltza

Idazlearen aniztasunaren **mirail** gisa, obra zazpi ataletan banatua da. Berria - Kultura

Erakunde hunen **mirail** ederrena dugu Korrika, ortzegun huntan Orreagatik abiatzen zaikuna. Herria

Literatura **mirail** katartiko eran erabili dut, dakidan arren [...] ez dela baitezpada horretarako egokia. Itxaro Borda

## 3 (hitz elkartuetan)

Argizko fereka bat, laster mendi magaleko kristalek erantzungo zutena, lehen zuzi sutzuen antzera, gero zurbilduko ziren, **mirail**-zati dardarati bihurtzeraino, azkenik iraungi egingo ziren. Jon Alonso

## miraka adlag miratzen, arakatzen.

Campusak ere leku bakartiak izan daitezke, ez pentsa -esan zuen berak kapazuan **miraka** hasiz-. Bernardo Atxaga

## mirakuilu ik mirakulu.

## mirakuiluzki ik mirakuluzki.

## mirakuloski *iz* mirariz.

Horiek, **mirakuloski**, zerrendan daudela sarri jakiten eta autoa etxetik urrun uztera saiatzen dira. Aingeru Epaltza

Bere gainean jarri naiz kokoriko, eta zaldikatzen hasi natzaio, jaisten naizen bakoitzean, mokor-kolpe indartsu batez aieratzen nau berriro, baina bere zakilak nire baitan jarraitzen du **mirakuloski**, hain atsegina dudan txipli-txapla hori entzuten dut, nire bagina ni neu bezain zoriontsua dela jakinarazten didana. Juan Martin Elexpuru

## mirakuloso *izond* mirarizkoa, miragarria.

Aspirinaren propietate **mirakulosoez** edo *Bisolvon Compositum*aren onurez panfletoak idazten ote dituen nago. **Harkaitz Cano**

-Grand Canyoneko ilunabarra bezalakorik ez dago, benetan **mirakuloso** da -jakinarazi digu gidariak kanpinera heltzearekin batera. **Patxi Zubizarreta**

Gero, kanpinera baino lehen, Powell aintzira **mirakulosoan** -harrigarria zirudien basamortu erdian halako urtegi bat egotea -bustialdi bat hartu dugu eta, gure bidaiari bigarrenagoz, bainujantzian ikusi ahal izan dugu elkar. **Patxi Zubizarreta**

## mirakulu *(277 agerraldi, 49 liburu eta 53 artikulutan; orobat mirakuilu 87 agerraldi, 8 liburu eta 45 artikulutan, denak Herria astekarikoak; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren mirakulu agertzen da)* 1 iz miraria.

Bai, zinez, Jainko onak bizirik nahi gintuen hunaraino ekarri, hoinbertze **mirakulu** eginik herronka izugarri hortarik gu salbatzeko. **Michel Oronoz**

Alta bada, haste-hastetik, Mendekosteko **mirakuluak** adierazi beharko zigun Babeleko misterioaren berrirakurketa egin behar genuela. **Piarres Xarriton**

Oraingoan ere mutiko gazteek egiten duten bezala, **mirakulu** baten zain nengoan. **Matías Múgica**

Orain ikusteko zegoen zer egingo edo eginaraziko zuen, zer **mirakulu** obratuko zuen hurrondo-makila harekin. **Jon Alonso**

Ematen zuen hondar-lur hartan, eta gure bizitzetan, **mirakulua** gertatua zela. **Ander Irizar**

Bitamina pilula miragarriak aipatuko zizkion batek, aloe landarearen **mirakulu** sinesgaitzak gorai patuko beste batek. **Imanol Zurutuza**

## 2 irud/hed

Zuhaitzei behatu diegu, loreei, negu gorriaren ondotik indarrez ernatzen den naturaren **mirakulu** urtero errepikatu eta, hala ere, beti miresgarriari. **Xabier Montoia**

Naturak **mirakulu** ezin sinetsiak egiten ahal zituen, pentsatu zuen. **Elena Touyarou**

Geroztik entzun dut Québec-eko erreferendum, hizkuntz eredu, azterketa, lege eta **mirakulu** asko gorai patzen Euskal Herrian, baina nehoiz ez F.L.Q. zenaren arrastorik izan denetz ere salatzen. **Piarres Xarriton**

**Mirakuilua** izan zen autoek ez baininduten jo! **Daniel Landart**

-Aritmetika eta geometria dira, ordea, **mirakuluen mirakulu** den **Mirakulua**. **Joan Mari Irigoien**

Zer da hura, **mirakulu** hura, azul dardarati hura, nola deitzen diote? itsasoa? eta mantal berde hori, lorez brodaturikoa? lurra? zein artistak egin du? **Pablo Sastre**

## 3 (izenondo gisa)

Historia apur bat dakigune, aldiz, de Gaulle zenak lehenbizian asmatu zuen Aljeriako Plan de Constantine hiltoru hura gogorazari digu egitasmo **mirakulu** horrek. **Piarres Xarriton**

## 4 (hitz elkartuetan)

Urkabe Auto Sakramentalak edo **mirakulu** -antzerkiak erdi aroko dramak ziren; haietan Bibliako pasarteak edo santu edo martiren bizitzetan oinarritutako gertaerak taularatzen ziren. **Xabier Olarra**

## 5 mirakuluz mirariz.

Aita bat **mirakuluz** bizirik aterea gerran. **Joxe Azurmendi**

Papista superstizioz bat banintz, erranen nukkeen **mirakuluz** atxiki nuela neure burua animalia ren gainean arma aldi berean galdu gabe. **Mirakuluz** bezala atea idekitzen da. **Aingeru Epaltza**

Gosta ere zaio, hiltzaleak ukan baitzituen hurbil hurbila eta bera **mirakuluz** bezala eskapatu zitzaion irriskuari. **Herria**

Benta ere sarraskitua izan zen, baina bordak **mirakuluz** iraun zuen, zuhaitz eta arbolez gerizatu txara batean aurkitzen baitzen. **Elena Touyarou**

Orduantxe, **mirakuiluz** bezala, delako neska ile-horail, sudur-fin, ezpain-zabal hura, nire saihetsean kokorikatu zen eta belarri zulora erran zidan: "Nik zu ezagutzen zaitut". **Daniel Landart**

## 6 mirakuluzko mirarizkoa.

Artalaria etorri zitzaidan bere **mirakuluzko** belaki-mustukarekin; apur bat busti zizkidan bekokia eta izterra, eta hop, altxatu egin nintzen. **Daniel Landart**

Eta nehork ez du **mirakuiluzko** aterabiderik horri buruz. **Herria**

Egiptotiko irteera **mirakuluzkoa** naturaz gaindiko ordena horrexen adierazpidea da. **Xabier Kintana**

Kristo Gure Jainkoaren agerpen **mirakuluzko** baten lekua izan zela. **Jon Alonso**

Bi paper zatiok eragin **mirakuluzkoa** eduki zuten; salbajeek beren jarrera erasokorra bertan behera utzi eta bozkariozko alarauak bota zituzten. **Jon Alonso**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mirakulu baten zain** (3); **mirakulu bati esker** (3); **mirakulu egin** (3)

**mirakulurik egin gabe** (3); **mirakulurik ez** (4); **mirakulurik handiena** (4)

**mirakuluz bezala** (8)

**bat bateko mirakuilua** (3); **kasik mirakuilua** (6)

**mirakuiluz bezala** (5)

## mirakulutsu *izond* mirarizkoa.

Hitz **mirakulutsuak** izan ziren. **Felipe Juaristi**

Orrialde **mirakulutsu** hartan, non ediren baitzuen jondone Pauloren epistola hura, haren kezkei eta problemei aterabidea eta soluzioa eman ziena. **Joan Mari Irigoien**

San Jenaroren mirakulu ezin **mirakulutsuago** hura. **Joan Mari Irigoien**

## mirakulutsuki *adlag* mirariz.

Nekez solasta gintezkeen elkarrekin, baina, **mirakulutsuki**, elkar ulertzen genuen. **Xabier Montoia**

## mirakuluzki *(orobat mirakuiluzki)* adlag mirariz.

Borondate jator eta indartsuko gizona zen, eta **mirakuluzki** libre iraun zuen. **Juan Garzia**

Zeren baitzirudien ezen Fortunak heriotza kasik segur batetik libratu gintuela, **mirakuluzki**, indiar gorri haiek bitarteko. **Joan Mari Irigoien**

## miramendu *iz* begirunea.

Azkar jabetu zen **miramendu** berezia nizula zuri. **Arantxa Iturbe**

Gizarte honek euskaldunak heretikoen marjinazio-egoeran jarri baditu, aski da heretikoetatik heretikotara jostatzea, marjinatuetatik automarjinatzea, ofizialtasunera arimatzeke, ahal duenak egiazko talentuz eta ezin duenak clown bezala Gorteari gustu emanez, batetik heretikoaren **miramendu** intelektuala bikoizturik eta bestetik ortodoxoaren abantaila materialak mendrarak batera gabe gozatzeko. **Joxe Azurmendi**

# miran 1 *adlag* begira.

Nire begiek ez zuten halako tratamenduaren beharrik; higitzeko zorian nituen, neskaren izter biribil arteziaz zizelatu **miran**. **Aingeru Epaltza**

Zikin-ontzien **miran** aritzen zen, zakur herratuen gisa. **Eneko Bidegain**

"Garrüzeko soldadu txipiaren" aitaxi izan arren, gaztelu zainak bazuen aski lan, ilobaren **miran** hasi gabe. **Aingeru Epaltza**

## 2 (hitz elkartuetan)

Mary Annek liburua hartu zidan eskuetatik, eta orri-**miran** hasi zen bera ere. **Bernardo Atxaga**

Joanesez eguna zorri **miran** iragaiten zuen. **Eneko Bidegain**

# mirarazi, miraraz, mirarazten du *ad* miratzera, mirestera behartu.

Santxok Dulzinea anderea **mirarazteko** izan zuen modua, eta beste zenbait gertaera, egiazkoak bezain barregarriak. **Patxi Ezkiaga**

# mirari (1264 *agerraldi*, 172 *liburu eta* 143 *artikulutan*) 1 iz izadiaren lege ezagunak gainditzen dituen egintza edo gertakari harrigarria, bereziki Jainkoaren esku hartzeaz gertatu dela uste dena. ik **mirakulu**.

**Mirari** bat izan da zu salbatzea eta **mirari** bat da zu bizirik egotea. **Patxi Zubizarreta**

Anitz **mirari** eta egintza harrigarri gertatzen ziren herrian apostoluen eskuz. **Elizen arteko biblia**

Hura da salbatzaile, hura askatzaile; **mirari** harrigarriak egiten ditu zeru-lurretan. **Jose Antonio Mujika**

**Mirari** handiak egiten ditu, zerutik lurrera jendaurrean sua jaitsarazteraino. **Elizen arteko biblia**

**Mirari** honegatik igarri zion San Joanek eta esan San Pedrori: "Jauna da". **Patxi Altuna**

Noiz arte nigan sinetsi gabe, haien aurrean hainbat **mirari** egin dudak arren? **Jose Antonio Mujika**

Horren ordez, **mirari** bat gertatu zen, **mirari** miresgarri bat. **Mirentxu Larrañaga**

Irun eroria zen, eta, **mirari** handi bat gertatu ezean, Donostiak bide bera jarraituko zuen. **Inazio Mujika Iraola**

Orain arte berak **miraritzat** eduki zuena ez zen beharbada halako **mirari**. **Jon Muñoz**

Nik ez dut **mirarietan** sinesten, baina esango didazue zer den **miraria**, hura **mirari** izan ez bazen. **Joxerra Garzia**

**Mirariak** ez dira egunero gertatzen. **Koro Navarro**

## 2 irud/hed

Izadiaren **mirari** hori -zelula batetik, arrautza ernaldutik, animalia bat eratzea, alegia- bitalismoari geratzen zitzaion azken babeslekuetarikoa bat izan da luzaroan. **Juan Garzia**

Sena, **mirari** hori, entzumena eta ikusmena baino finagoa eta zehatzagoa den seigarren zentzumen hori, lanean hasi zuan. **Xabier Olarra**

Lehenengo aldia zen giza organo bat arrakastaz transplantatzea lortzen zutela, eta askok XX. mendeko **miraritzat** jo zuten ebakuntza hura. **Berria - Gaiak**

**Mirari** bat zen iraupen luzeko lanen bat lortzea. **Anjel Lertxundi**

Ordurako banekien, ordea, **mirari** batek ere nekez salba zezakeela Elsbethen eta bion artekoa. Funtzio esponentziala **mirari** txiki bat duk, hala eta guztiz ere. **Anjel Lertxundi**

Tinpanoak egiten du mugimendua hots bihurtzeko metamorfosi harrigarri hori, **mirari** miresgarri hori. **Josu Zabaleta**

Ez da **mirari**, gure arkeologo eta antropologo jaun jakintsuek askotan erabat elkarren kontrako diren kontuak ateratzea. **Patziku Perurena**

Gaztetasunaren indarrak **mirariak** egiten ditu, edo **mirariak** egiten dituela sinetsarazten digu. **Juan Kruz Igerabide**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bretainia Handiko erresuma guztian, antzinatik eta zabal, ahoz ahoko ekarriak dakar, ez zela hil errege hau, baizik-eta, **mirari**-jokoa zela bide, bele bihurtu zela. **Patxi Ezkiaga**

Handik gutxira, perlesiak jotako gizonak bere osaketaren berri esan ondoren, **mirari** hotsa zabaldu zen. **Felipe Juaristi**

Berdin etortzen ziren, beharretatik asetuxe arren, **mirari** gose zirenak, gizon-emakume sano eta osasunekoak. **Felipe Juaristi**

Gizaki bakoitzaren bizia, edonor dela ere, **mirari** segida bat da. **Patxi Zubizarreta**

Jainkoak seinale, egintza harrigarri eta **mirari**-modu askoz eta bere nahiaren arabera banatu dizkigun Espiritu Santuaren dohainez baietsi du. **Elizen arteko biblia**

Ez nekien zer **mirari** klase gertatua zen ni hain luze lo egon bitartean. **Aingeru Epaltza**

Gela hartatik lasterrean ateratzea bururatu zitzaion, eta, lorategi **mirari**-egile hura gurutzatuz, etxean sartu **Koro Navarro**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garapen horiek, teknologi **mirari** horien agerleku izandako gizartearen azken batasuna iragartzen zuten politika-mailan. **Iñaki Mendiguren**

Étienne Pascal, aita, haur-**mirari** baten aitaren eredu peto-petoa zuan. **Jon Muñoz**

## 5 *mirariz*

Eta hau **mirariz** gertatu zitzaieela ezagutzen, oso pozik eta Jainkoa goratuz itzuli ziren Frantziskorengana. **Askoren artean**

Eta Jainkoaren **mirariz**, San Frantziskok bere esku santuez ukitzen zuen tokian legenarra joan egiten zitzaion, eta haragia erabat sendaturik geratzen zen. **Askoren artean**

Bat-batean, arrimatuta zegoen harkaitza **mirariz** ireki zen, bere gorputzaren formari egokituz, eta bere baitan hartu zuen. **Askoren artean**

Denok ere **mirariz** bizi gara. **Patxi Zubizarreta**

**Mirariz** lortzen du ihes egitea eta basoan ezkutatzea. **Joseba Zulaika**

Eskaintzen ari ziren onean, koranek eztanda egin zuen, baina jeneralari ez zitzaion ezer gertatu, **mirariz**, tea zerbitzatzen ari zitzaion gizona egokitu baitzen tartean. **Juan Kruz Igerabide**

Hantxe zeuden liburu **mirariz** salbatuak. **Jon Muñoz**

Bata eta bestea, **mirariz** bezala, elkarren ondoan gertatu ziren. **Koldo Biguri**

## 6 *mirarizko*

Frantziskoren kordioaren **mirarizko** indarra. **Askoren artean**

Bigarren **mirarizko** seinale hau Judeatik Galileara itzultzean egin zuen Jesusek. **Elizen arteko biblia**

**Mirarizko** eragin bat. **Josu Zabaleta**

Alferrik da arrazoiak galdetzea, **mirarizkoa** baita; alferrik adibideak bilatzea konparatzeko, bakarra baita. **Askoren artean**

Ez zaitez harritu benetan **mirarizkoa** den mirari baten aurrean. **Anton Garikano**

Horra zergatik Aubrey-k, soilik gizonen atxikitzen baitzaie, ez duen iristen perfekzioa, ez baitu jakin lortzen Hokusai-k espero zuen antzaldatze **mirarizkoa**, hots, elkar-antzekotasuna anitz-ezberdintasun bilakatzea. **Juan Garzia**

Oreka **mirarizko** bat zela medio, bere eserleku meharrean irauten zuen erortzeke. **Karlos Zabala**

Erdian zut, harri beltz **mirarizko** bat ageri zen, koniko eta distiratsua, ilargi-urreztaduraz markatua, zeina ez baitzen Artemis bera baino. **Juan Garzia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egindako mirari (6); egindako zenbait mirari (3); eginiko mirari (3); ez da mirari (4); mirari antzekoa (3); mirari asko (12); mirari asko egin (8); mirari azula (4); mirari



**azulak** (3); **mirari bat egin** (3); **mirari bat gertatu** (6); **mirari bat izan** (5); **mirari bat zen** (3); **mirari baten aurrean** (4); **mirari baten zain** (3); **mirari berri** (8); **mirari egin** (3); **mirari eta egintza** (14); **mirari gertatu** (5); **mirari gertatu izan** (3); **mirari handi** (5); **mirari handiak** (6); **mirari handiak egiten** (3); **mirari handitzat** (8); **mirari handitzat jo** (4); **mirari harrigarria** (4); **mirari harrigarriak** (4); **mirari nabarmen** (4); **mirari txiki** (3); **mirari txiki bat** (3); **mirari ugari** (6); **mirari ugari egin** (3); **naturaren mirari** (3)

**bigarren miraria** (3); **lehenengo miraria** (3); **miraria egin** (3); **miraria egiten** (4); **miraria gauzatu** (4); **miraria gauzatzeko** (3); **miraria gauzatzen** (4); **miraria gertatu** (7); **miraria gertatzen** (3); **miraria ikusi** (3); **miraria iruditzen** (7); **miraria iruditzen zait** (4); **miraria izan** (13); **miraria izan zen** (7); **miraria izango** (3); **miraria litzateke** (3); **miraria obratu** (3); **miraria obratu zen** (3); **miraria zirudien** (3)

**egindako mirariak** (4); **mirariak egin** (20); **mirariak egin zituen** (8); **mirariak egiteko** (11); **mirariak egiteko ahalmena** (4); **mirariak egiten** (26); **mirariak egiten ditu** (6); **mirariak eta egintza** (14); **mirariak gertatzen** (3); **mirariak ikusi** (5); **mirariak irakurri** (4); **santuaren mirariak** (5)

**mirariaren bila** (3); **mirariaren zain** (6)

**egiten zituen mirarien** (3); **mirarien argi** (3); **mirarien berri** (3); **mirarien bidez** (11); **mirarien liburua** (3); **mirarien liburuan** (3)

**mirarietan sinesten** (4)

**mirariren bat gertatu** (3)

**miraritzat hartu** (5); **miraritzat jo** (7)

**mirariz bezala** (5)

**mirarizko indarra** (3); **mirarizko seinale** (10); **mirarizko seinale eske** (4); **mirarizko seinaleak** (5)

## mirarigile *izond/iz* mirariak egiten dituena.

Jainko **mirarigileari** esker onezko liturgia. **Elizen arteko biblia**

Jainkoaren indar **mirarigilearen** eraginez. **Askoren artean**

Handia zara, **mirarigilea**, zu bakarrik Jainkoa! **Elizen arteko biblia**

Gauzez, Nikolai **mirarigilea** etortzen zitzaion, eta biok batera hiriko ospitale guztien gainetik hegan igaro eta gaixoak sendatzen zituzten. **Jose Morales**

Eliz elkartean bakoitzari bere tokia ezarri dio Jainkoak: lehenengo apostoluak, bigarren profetak, hirugarren irakasleak; ondoren, **mirarigileak** datoz. **Elizen arteko biblia**

Handia zara, **mirarigilea**, zu bakarrik Jainkoa! Behin batean, Caffara, Krimeako hirira, etorri zen, sufre bainuak hartzera, aspaldidanik, erromatarren garaitsutik, baitute osasuntsu eta **mirarigile** fama. **Elizen arteko biblia**

## miraritsu *izond* mirarizkoa.

Massabielleko harpe **miraritsua**. **Txillardegi**

Barkamen benetakoak erradikaltasun **miraritsua** du, adierazezinekoa, legez kanpokoa, arrazoi guztiak harantzagokoa. **Joseba Zulaika**

Are nabarmenagoa zen hain hilabete gutiko gaztetze **miraritsua**. **Aingeru Epaltza**

Ez dira batere **miraritsuak**, izerdi franko kostatakoak baizik. **Aingeru Epaltza**

## miraritxo *iz* mirari txikia.

Argazkilariak bere trebezia ahaztu egin behar duela, eta, **miraritxo** bat balitz bezala, guk ikusi ez dugun, argazkirik ezean inoiz ikusiko ez genukeen zerbait errebelatuko digun argazki bat agitu dadin utzi behar duela. **Josu Zabaleta**

## miratoki *iz* behatokia.

Hantxe, **miratoki** baten hedaguneko espaloian ikusi zuen aita, farola baten argipean motozikletaren kontra apoiatuta. **Josu Landa**

Aginduaren eremuan bizi dira, esaldi motz, xingle eta gehienetan mudagaitzek biziaraziak, eta horrek errealitatea halabereko **miratokitik** -motz, xingle eta mudagaitz- ikusarazten die, lagun bokaziogabe eta konplexuagoon kaltetan. **Aingeru Epaltza**

## miratu, mira(tu), miratzen 1 du *ad* arakatu, begiratu.

**Mira** dezagun gela azken zokoraino! **Jon Alonso**

Josuren liburutegiko apalak **miratu** eta komiki bat hautatu nuen. **Aingeru Epaltza**

Erdiko zuloa ere **miratu** nuen, ongi gogoan bainuen hamar errubloko bi txanpon jarri nituela han. **Matías Múgica**

Lepic andreak maindireak brast kendu, gelako bazterrak usainduz **miratu** eta luze gabe aurkitu du. **Itziar Otegi**

**Miratu** nuen pasilloa, kamerino guztiak arakatu, banan-banan. **Matías Múgica**

Egunkariak eta beren liburuak **miratzen** ibiltzen dira halako hitzen bila, telebista eta irratia entzuten dituzte, eta, izen "ahogozo" bat aurkitzen dutenean, zerrenda batean sartu eta gorde egiten dute. **Xabier Olarra**

Gauzak oro **miratzen** dituzte, zenbat lanpostu falta den deblauki kantatu gabe haatik, arta egokienen eskaintzeko. **Herria**

Kanpoan narrasti nagi paseatzen ziren jendeak **miratzen** zituen Graxik leiho hegitiak. **Itxaro Borda**

Botikako mostradore ostean erratza nola pasatzen zuen **miratzen** egon zen apur batean. **Josu Landa**

### 2 ikusi.

Herioa hurbildu da, **mira** zazu nola trufatzen den zutaz, eta nola deitzen zaituen bere dantzara. **Anjel Lertxundi**

### • 3 da/du *ad* mira egin, miretsi.

**Miratuta** dago oroitzean nola erabili zituen kuleroak gelan barrena, bandera salatari baten modura. **Berria - Kultura**

Ni, **miraturik** nago ikusiz nola jokutzen den Nicolas Sarkozy. **Herria**

Argi eta garbi aitortzen zuten **miratzen** zutela gizon giristinoa, bere bizi guzian injustiziaren kontra jokatu dena, pobre eta erromesen alde "Emaus"-en sortzailea **Herria**

## miratze *iz* arakatzea.

Haatik xehetasun guti ateratzen da baina zernahi ikertze, **miratze** eta kontrolatze egiten dute, ainitz aldiz pasaia luzatzen edo ainitz eneguz tratatzen bederen dutenak.

**Herria**

## mirazkatu, mirazka, mirazkatzen du *ad* miratu, arakatu.

Ondoko egunetan Otsabideko sasiak **mirazkatu** zituzten etxeok, baina ez zuten Sisiren aztarnarik kausitu. **Itxaro Borda**

Bizkitartean bizkar-zakua **mirazkatu** nuen argazki makinaren bila, **Itxaro Borda**

# miresgai iz miresteko modukoa.

Dahlanek ziurtatu zuen ez diola kalterik egin nahi Arafaten figurari, «bai ordea, zuzendu palestinarrentzat **miresgai** gera dadin». Beria - Mundua

## miresgarri (687 agerraldi, 139 liburu eta 173 artikulutan; orobat miretsgarri g.,er.) 1 iz mirespena eragiten duena, mirestekoa. ik miragarri.

Urrutiko irletaraino iritsi da haren izena eta lur-bazter guztiek miretsi dituzte haren egintza **miresgarriak**. Askoren artean  
Emakume **miresgarria** izatera iritsiko duk, edo beharbada zabor huts bihurtuko ditek, bai, seguraski zabor huts bihurtuko ditek! Jose Morales  
Azpilkueta ez zen izan handiki ospetsu bat, baina bai soil-soilik jakintsu argi bat eta fraide **miresgarri** bat. Piarres Xarriton  
**Miresgarria** iruditzen zaigu Albert Pierrepoinen bititza. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Zenbat asmo **miresgarri** sortu diren zure baitan!, zenbat amets poetiko, zenbat zirrarra gozo eragin dituzun! Jose Morales  
Haren begitarteari, arimaren ispilu, edertasun **miresgarria** zerion. Patxi Zubizarreta  
Zure osabaren historia **miresgarria** ezagututa, gogoia nuen zu beraren iloba ere ezagutzeko. Txillardegia  
Erlijioaren sua ezin amatatu eta proselitoen bila jardun zuten musulmanen artean ere, Karitatearen Ordena **miresgarria** lau haizetara zabaldu nahiz. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Neskak, irain hauek gorabehera, modu **miresgarrian** jarraitzen du bere langintzarekin. Juan Martin Elexpuru  
Muluhidahen bada baratze **miresgarri** bat, bi mendi goren artean gordea, Paradisu deitzen dutena. Aurelia Arkotxa  
Gutziz ederra da haren itxura, zuritasun **miresgarritz** distiratsu eta ikusten dutenen pozgarri. Askoren artean

### 2 (izan-en adizkiekin)

**Miresgarria** zen haren segurtasuna. Arantxa Iturbe  
**Miresgarria** zen kosmetikoen masailetan, bekainetan, begi inguruetan eta ezpainetan izan zuten eragina. Patxi Zubizarreta  
Ongi asko daki ederra dela oraindik, **miresgarria** dela zein ongi dagoen bere adinerako. Monika Etxebarria  
Harrigarria da, **miresgarria**, Euskal Herriaren pitxietako bat, dudarik gabe. Txillardegia  
**Miresgarria** baitzara, jauna, eta zure aurpegia liluragarria. Elizen arteko biblia  
Handia eta ospetsua zara, Jauna, **miresgarria** zeure indarrarengatik, garaituezina! Elizen arteko biblia  
Egun hartatik aurrera bere burua gutxiesten hasi zen, eta lehen **miresgarri** eta maitagarri zitzaiona nolabait mespretxatzen. Askoren artean  
Gizakia sorkari noblea da, miresgarrietan **miresgarri**. Joan Mari Lekuona

### 3 (adizlagun edo izenlagun gisa)

Orduan, bere aintzaz beteko ditu berari sagaratuak eta **miresgarri** agertuko bere sinestudun guztiengan. Elizen arteko biblia  
Neurotikoa obsesiboak hain kezkatuak zaudete **miresgarri** azaldu nahiaz, non aspergarri bilakatzen zareten. Ramon Saizarbitoria  
Esan zidan Agure Jaunak **miresgarri** jokatu zuela, berarengana aurkeztu eta zintzo mintzatu zitzaionalarik. Bertsolari ez denari **miresgarri** gerta dakiokio bertsolariak hitz arraro samarrak ere elkarrekin errimatzeke duen trebetasuna. Mirentxu Larrañaga  
Ez eman atseden Jaunari, harik eta Jerusalem berri dezan arte, lur osoaren **miresgarri** egin dezan arte. Elizen arteko biblia

### 4 miragarria, mirarizkoa-edo.

Baditugula arbola **miresgarri** batzuk hegaztin bilakatzen diren fruituak ematen dituztenak. Aurelia Arkotxa  
Diole ere badirela han alimalia **miresgarriak**, elefante zuriak, adar-bakardunak, eta ortzadarren kolorea duten xori izigarri ederrak. Aurelia Arkotxa  
Halako sendabide **miresgarria** lortu zuen arte gaiztoak baliatu behar izan zituela, eta seguruenik makurkeriaren bat prestatzen ari zela. Patxi Zubizarreta

### 5 (izen gisa)

Haren ahotik zer **miresgarri** klase ateratzen zen ez zidan inoiz zuzen argitu, baina morroiak isurtzen omen zuen "barne-bakea" aski zuen, nonbait, gogoia asebetetzeko. Aingeru Epaltza

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gauza miresgarri** (7); **gizon miresgarri** (4); **ikuskeria miresgarri** (3); **ipuin miresgarri** (5); **ipuin miresgarri bat** (3); **leku miresgarri** (4); **zinez miresgarri** (3)  
**baratze miresgarria** (3); **benetan miresgarria** (5); **bidai miresgarria** (3); **emakume miresgarria** (4); **erloju miresgarria** (3); **gauza miresgarria** (5); **lan miresgarria** (3); **lurreko miresgarria** (3); **miresgarria izan** (9); **urte miresgarria** (4); **zinez miresgarria** (6)  
**benetan miresgarriak** (3); **egintza miresgarriak** (5); **gauza miresgarriak** (7); **miresgarriak izan** (5)  
**ipuin miresgarrien** (3)

## miresgarriki *adlag* modu miresgarrian. ik miresgarriro; miragarriki.

Uda jitearekin da zinez dantza erregin, herriko besta eta holakoetan bazterrak **miresgarriki** loratuz. Herria  
A *cappella*, orduko moduan ari dira Lohidoy, Attuli, Bordalekü, Oyhenart, Queheille, Eppherre, Estecahandy eta holako batzu **miresgarriki** kantatzen, beren urrezko bozarekin. Herria  
Horixe egin du **miresgarriki** ondo erlijio kristauak hizpide ditugun dogmei dagokienez. Iñaki Iñurrieta

## miresgarriro *adlag* modu miresgarrian. ik miresgarriki; miragarriro.

Pastoral-taldeko dantzari ezinago arinek **miresgarriro** dantzaturik. Txillardegia  
**Miresgarriro** hazten da [ilargia], bai eta aldatzen ere; zeru-sabaian distiratsu dagoen hori ortziko astro guztien ikur da. Elizen arteko biblia  
**Miresgarriro** zehatza baina ikaragarri konplexua zen maien egutegi hori. Iñaki Mendiguren

## miresgarritasun iz miresgarria denaren nolakotasuna.

Baina mirespena ez dago beti **miresgarritasunaren** esku. Lander Garro  
Faroen **miresgarritasun** handia goraiatzeko generarrikan. Itxaro Borda  
Hobe litzateke **miresgarritasun** honen handitasunaren berri fedegabeei ematea, hauek, beren hutsegiteak gaitzesiz, ezagutu zaitzaten. Jon Alonso

## mireska *adlag* miresten.

Neure hura beste mundu bat, ikus eta **mireska** ibiliak ginenena eta Garaziko bisitarien ezagutzen duguna. Herria

# mireskor izond miresteko joera duena.

Orain oroimen horretako itzal ezezagun batek jauzi leun bat egin du eta bere bizitzan sartu zaio nolabait, lotsati, **mireskor**, gorrituta. **Pako Aristi**

## miresle 1 iz aipatzen dena miresten duen pertsona.

Emil Bonewit GZ-ren **mireslea** da, baina GZ-rekin zer eginik ez du. **Josu Zabaleta**  
Zeren eta san Inazioaren **miresle** sutsua baikenuen aita. **Joan Mari Irigoien**  
Bernard Shaw-en **miresleen** higikundea, bejetarianismoaren aldekoa. **Koro Navarro**  
Hargatik zen ere, beharbada, Castiglioni-ren *Il cortesano* liburu famatuaren **miresle**. **Joan Mari Irigoien**  
Poesia heroikoak geroko **miresleengan** sortzen duen lilurak. **Iñaki Mendiguren**  
Francisco Romero jauna kafearen **miresle** sutsua zen, eta bazituen arrazoi franko ala izateko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
-Lagun eta **miresleen** opariak dituzu -esan zion Dumbledorek, irribarrez-. **Iñaki Mendiguren**  
Entzuna zuen apaiztegiaren egona zela, eta Hitlerren **miresle** irten zela handik. **Bernardo Atxaga**  
Bazuen **miresle** bat, Joe, ia gauero bisitan zetorkiona. **Mirentxu Larrañaga**  
Badut **miresle** pila bat ere, elkarren begiradak noiz gurutzatuko zain, eta, besterik ezinean, eskola garaian ispilu puska batez begiratzen saiatzen zaizkidanak. **Josu Zabaleta**  
Jainko Onak har dezala bakean, bere lagunaren erdian, Jakes Mestelan adiskidea, eta haien asmu ederrek izan dezatela **miresle** eta jarraitzale gaurko gazteen artean!  
**Herria**

## 2 (izenondoekin)

Bere irakurle edota **miresle** leialen sentiberatasuna mindu gabe. **Bernardo Atxaga**  
**Miresle** isilik ez zaio falta, hori behintzat seguru dakit nik. **Patxi Iturrategi**  
Club Maritimoko kideren batek?, urrutetik baizik ezagutzen ez zuen **miresle** ezkuturen batek? **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Emakume alaia da, Chavezen **miresle** handia. **Pako Aristi**  
Guztiak literatura zaleak direla, Pessoren **miresle** itsuak. **Joxean Agirre**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ditu miresle asko** (3); **miresle sutsua** (5)

## miresmen (255 agerraldi, 104 liburu eta 54 artikulutan) 1 iz mirespena.

Luze gabe ohartuko nintzen Orthezen nolako **miresmena** zioten denek. **Aingeru Epaltza**  
**Miresmena** zioat, bai, Eisensteini, bere kezka estetikoari buruz idazten duen zinemagile bakarrenetakoa baita. **Anjel Lertxundi**  
Sarritan adierazi zuen Empedoklesen heriotzari zion **miresmena**. **Juan Garzia**  
Herritarren **miresmena** zeukan. **Itxaro Borda**  
Beste batzuetan irudimenezko egoera berezi bat eragiteko baliatu nahi izango da ilusioa, sinesmena ez baina **miresmena** eragiteko, eta abar. **Josu Zabaleta**  
Sortzaileekiko kontsiderazioa, berriz, ez da haien dohain literarioen **miresmenak** eragina, dohain horiek merkatuaren zerbitzura jartzeko abileziak irabazia baino. **Anjel Lertxundi**  
Hainbat gau emana zen txakurtegiaren eta horrek **miresmena** sortzen zigan. **Koldo Izagirre**  
Zure kantu, esaera zahar, alegia eta erantzunak munduaren **miresmena** sortu zuten. **Elizen arteko biblia**  
Herri zibilizatuaren **miresmena** eta desesperazioa pizten dituen sentimenezko zorrotasunarekin. **Julen Gabiria**  
Ez zidan, ordea, Calvinori nion **miresmena** agertzeko paradarik eman. **Anjel Lertxundi**  
Entzunak entzunda ere, ez nion **miresmen** apurrik galdu Joxe Mariri; haur-garaitik nion begirunea. **Juan Kruz Igerabide**  
Haserretu egin ginen, ordea, eta harekiko nire **miresmena** gaitzespen eta are erdeinu ere bilakatu zen. **Xabier Montoia**  
**Miresmena** bainoago, gaitzespena zerien haien begi iheskorrei. **Aingeru Epaltza**  
Egia da gizaki guztiek dutela eskubidea gure **miresmena** jasotzeko. **Monika Etxebarria**  
Gaizkile bat bezala hildako neskatxak errukia eta **miresmena** besterik ez zuela merezi, aita tirano baten aurka altxatzen jakin zuelako. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Zure aitaxi mugalaria zen, beraz -galdegiten dio Txominek halako **miresmen** batekin. **Eneko Bidegain**

## 2 (izenondoekin)

Jainkoaren mirari hark harridura eta **miresmen** handia sortu zuen lurralde hartan. **Askoren artean**  
Jakinekioa da Lauaxetak **miresmen** handia ziola Garcia Lorcarri. **Juan Luis Zabala**  
Susmoak ziurtasun bihurtu ziren, eta, **miresmen** itsua, gorroto hits. **Iban Zaldúa**  
Adi-adi begiratzen zigan **miresmen** nabarmenaz. **Mirentxu Larrañaga**  
Eta **miresmen** berezia susmatzen zuen berinaz beste aldean zeuden [...] adiskideen ahotsetan. **Itxaro Borda**  
Gaixo ohi askok erizainenganako **miresmen** ia maitemindu baten oroitapena azpimarratzen dute, erizainaren lana halako amatasun babesgarri baten argitan ederturik. **Anjel Lertxundi**  
Baina zureari beste zerbaitekin, **miresmen** intelektualetik haratago zegoen zerbaitekin, bizirik zegoen zerbaitekin. **Eider Rodriguez**  
Hangoak eta hirikoak ere gureak baitira, oro ikusiz behako zabal eta **miresmen** zuzen batean. **Herria**  
Opari galanta egin berri zion berak tronpeta-joleari **miresmen** faltuzko begirada ustel eta itxurazko harekin. **Harkaitz Cano**  
Beti edukitzen nuen aukera drama haiek gertu-gertutik ikusteko, eta begira egoten nintzen **miresmen** eta harridura amaigabeko batez. **Oskar Arana**  
Izterren dilatazio hezeari so gelditu nintzen, halako **miresmen** atabiko batez. **Karlos Linazasoro**  
Harryren erratzari **miresmen** sutsuz begiratu zion. **Iñaki Mendiguren**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jendea "zoragarria!", "itzela!" eta horrelako **miresmen** hitzak oihukatzen hasiko da orduan. Harridura-oihuak, **miresmen**-txistuak eta denetarik esklamazioak entzun ziren. **Harkaitz Cano**  
Txaloak, ilusioa, **miresmen** oihuak, algar... **Berria - Euskal Herria**  
Frantziarra zen sortzez, eta, herrian **miresmen** tanta batekin esaten zutenez, erusiar jatorrikoa. **Bernardo Atxaga**  
Ohiko "egun on" diosal irribarretsua egin zion, eta begiradaxo hantuste maltzur eta adikorra erantsi, **miresmen**-zantzu lauso antzo. **Mirentxu Larrañaga**  
Eskualde hartako ikusgarri guztiak **miresmen** adierazpenen artean aztertu nituenean, zer ikusi gehiago ez zela azaldu zidan etsimen aurpegia jarriki nire adiskideak. **Josu Zabaleta**  
Humanista katolikoa, beranduen iritsitakoa, gazteena, **miresmen** aurpegiaz mintzatzen da gizakiez. **Monika Etxebarria**

## 4 miresmenez

Mihia ateratzen dit mulata batek, **miresmenez** begira nagokiolako. **Joxe Austin Arrieta**  
Nondik atera du hori dena? -galdetu zion bere buruari Léak, **miresmenez**-. **Jon Muñoz**

Bejondazula! -garrasi egin Perrettek eta Jonathan-eta-Léak, benetako **miresmenez**. Jon Muñoz

Neurrirasunik gabeko **miresmenez** aintzat hartzen zuela. Jon Muñoz

Dudarik gabe, arizale aparta zen, eta ez dut esaten ironiaz, are gutxiago zinismoz, egiazko **miresmenez** baizik. Jon Alonso

## 5 miresmenezko

**Miresmenezko** bizkarrekoak ematen zizkiotela. Koldo Izagirre

Portadari begira dagoen mutiletako batek, ni ikusirik, erdi **miresmenezko** erdi txantxazko txistua jotzen du. *La Constancia* eta *La Gaceta del Norte* ziren aipu **miresmenezkoak** sarri azzaltzen zituzten bi egunkariak. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**halako miresmen** (5); **miresmen handia** (5); **miresmen handiagooa sortzen** (3)

**halako miresmena** (3); **miresmena sortzen** (4); **nire miresmena** (3); **sekulako miresmena** (4)

**miresmenez begiratzen** (3); **miresmenez beterik** (3); **miresmenez entzun** (3)

## mirespen (285 agerraldi, 91 liburu eta 32 artikulutan) 1 iz pertsona edo gauza neurritz gaineko edo harrigarri batek eragiten duen zirrara.

**Mirespen** eta inbidia diet nik bertsolariei, handia. Andoni Egaña

Barrukoa kanporatzeak sor zezakeen **mirespenak** barruko saria galaraziko zioten beldurrez. Askoren artean

Said Raduan Husainiren presentziak **mirespena** sorrarazten zuen, eta haren ospea antzinatikoa zen. Patxi Zubizarreta

Agerian ez dagoenak **mirespena** sortzen du. Karlos Zabala

Zuhurtziak, **mirespenak** eta kontrolak eragindako tentsioa baino ez zuen sentitzen. Patxi Zubizarreta

Baina gizon hark desio zuen, eta horrek neskaren bihotzean zirrara eta **mirespena** pizten zituen. Patxi Zubizarreta

Kristoren maitasuna, gure imitazioa eta munduaren **mirespena** merezi dituena. Askoren artean

Fionnen ezkutuaq mornatarren **mirespena** jasotzen zuen bitartean, [...]. Joanes Urkixo

Soldaduek erakusten zioten maitasuna eta **mirespena** ere nabarmendu zizkion. Patxi Zubizarreta

Bildu ziren aurrez mutila mutu ezagutu zuten guztiak eta, **mirespen** eta harriduraz beterik, Jainkoa eta Frantzisko dohasua goretsi zituzten apalki. Askoren artean

Eta hori gertatu zen maitekorregia zelako eta besteen **mirespena** behar zuelako. Julen Gabiria

Benetako **mirespena** sentitzen dut Demokritok gauzen naturari buruz idatzitako liburuengatik eta haren komentarioarengatik. Santiago Iruretagoiena

Emaztearenganako sentimendu ilunago batek hartu zidan **mirespen** horren lekua. Joxean Agirre

Duintasun handiarekin, presarik gabe, **mirespen** edo bekaizkeriazko begiraden su gurutzatuan. Urtzi Urrutikoetxea

Benetan harrigarria zen Txixikovek damen aldetik irabazi zuen **mirespena**. Jose Morales

Ez nien herrarik hala ere: izatekotan, halako **mirespen** moduko bat, burla-haize batekin nahastuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Halako **mirespen** bat piztu zaio gau eskolako ikaslearengan. Eneko Bidegain

Eskola handiak egin dituztenentzat, diplomatuentzat badut halako **mirespen** bat. Daniel Landart

Gogoz kontra bazen ere, **mirespen** halako bat sentitzen zuen gauza handi guztien gozamenen erdian utzitako bi animalia sentsual haienganako. Karlos Zabala

## 2 (izenondoekin)

Rodasko herritarrek modelo hori ikusi zutenean, **mirespen** handia sortu zitzairen. Santiago Iruretagoiena

Lehen nion **mirespen** itsua, ordea, itzaltzen hasi zitzaidan. Joxean Agirre

Sendagileen aldetik badago halako **mirespen** berezia euskal presoentzat. aukera ona zelako bere **mirespen** sekretua nolabait agertzeko. Jokin Urain

Inbidiarik batere gabeko **mirespen** aratz batez. Xabier Mendiguren Elizegi

Neskaren bisaia Josurenganako **mirespen** agerikotik hasperen etsira iragan zen segundo gutitan. Aingeru Epaltza

Oroi-mina, kale maite haienganako **mirespen** neurrigabea, erruduntasun sentipen izugarria, pasioaren gailurra iritsi duen amodioa. Eskarne Mujika

Gizon begiraleen **mirespen** jeloskorra urtu egin zen gau hartako arto berri festarekin. Anton Garikano

Nola asebate zenuen guztiz nire **mirespen** gartsua, zer sentibera, zer gozoa, zer leuna zinen. Eduardo Matauko

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Keinu bat egin zien, susmorik sortuko zuen **mirespen** oihurik ez egiteko. Julen Gabiria

Amari behatu nion nik ere, eta irri hura egiten ikusi nuen, onespenez gain **mirespen** puntu bat ere erakusten zuena. Joan Mari Irigoien

Apaletan pilaturik ageri ziren lehenbiziko edizioako aleen bilduma zainduaren gaineko **mirespen** -aipamenak. Oskar Arana

Antzeko axolagabetasunaz hartzen ditu laudorio ironikoak zein benetako **mirespen** -adierazpenak. Itziar Otegi

"Pailazokeriari ez!", oihukatzen zion, Ternik, bere **mirespen** -xuxurlak eginez. Fernando Rey

Jokalariak etxera itzuli zirenean begirada guztiak atezainaren inguruan pausatu ziren, **mirespen** begiradak. Berria - Kirola

Aristenganako **mirespen** giroa izan da asteburuanartzelatan egin den jaialdiko gauzarik politenetakoa. Berria - Kultura

Del Valle eserlekuan apur bat hondoratu zen, SDko agentearen **mirespen** zozolotuan murgilduta. Tarteko goratasuneko gorputzaren jabe bazen ere, bere aurpegiaren betegintzarreak **mirespen** soak bereganatzen zizkion, eta hori bazekien. Alberto Ladron Arana

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eman zitzaion dohaina giza **mirespenak** ostu ez ziezaien, eginahal guztiz saiatu zen zauriak estaltzen. Askoren artean

## 5 mirespenez

Wendyk **mirespenez** begiratu zion. Julen Gabiria

Baiezkoa eman zuen Maxek, **mirespenez**. Jon Muñoz

Kontaktuaq diitik, komentatzen genuen lagunok ahapeka eta **mirespenez**. Anjel Lertxundi

**Mirespenez** egin zuen brigadak txistu: "Sei litro espirometroan!". Jon Muñoz

Klan guztietako gerlariek bultzatzen egiten zioten elkarri, beldurrez eta **mirespenez**, ezpata kondairazkoa gertu-gertutik ikusi ahal izateko. Joanes Urkixo

Batzuek **mirespenez** eta beste batzuek gorrotoz begiratu arren. Iñaki Mendiguren

## 6 mirespenezko

Entzuleon **mirespenezko** laudorioen zain balego bezala. Jon Arretxe

**Mirespenezko** oihu bat egin zion; eta Peterrek ere kukurruku egin zuen, esker onez. Julen Gabiria

Perrette zaratarik gabe lerratu zen gelan, Jonathan-eta-Léaren **mirespenezko** txistua bukatzen ari zenean. Jon Muñoz

Ez zen haren kontrako inbidia, haren aldekoa baizik, **mirespenezkoa**, ez suntsigarria. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**halako mirespen** (7); **halako mirespen bat** (3); **mirespen handia** (9); **mirespen handiz** (4)

**mirespena izan** (3); **mirespena sortzen** (4)

**mirespenaren mirespenaz** (3)

**mirespenaren mirespenaz** (3)

## mirestasun iz mirespena.

Eta urtero legez, **mirestasunez** beteta uzten gaituzte pastoralera ematen duen herriko emakume jostunen lanaren emaitzek. **Berria - Kultura**

## mirestu ik miretsi.

## miretsaldi iz mirespena.

Egia erran lau emazteek merezi zituzten denen esku-zartak eta beren esposen **miretsaldia**. **Herria**

Baigorriko ezker-pareta mukurru bete da, eta bi orenez izan da txalo, irri, **miretsaldi**. **Herria**

## miretsarazi, miretsaraz, miretsarazten dio ad mirestera behartu.

Egun batean, kamelia bat **miretsarazi** zion, eta honela erantzun zion mutilak oihuka: [...]. **Karlos Zabala**

Gero, Saint-Honoré kalean barrena, Vendôme zutabea **miretsarazi** zien Albertek. **Jon Muñoz**

## miretsgarri ik miretsgarri.

## miretsi, mirets, miresten (orobat mirestu g.er.) 1 du ad zerbait edo norbaiti buruz mirespena sentitu, mirespenez ikusi; mirespena eragin.

Epaletan dudan zorrotzasunaz ohartuko dira eta agintariak ere **miretsiko** naute. **Elizen arteko biblia**

Pitagorikoak **miresten** zitian Zilonek, eta haien artean onartua izan nahi zian nola edo hala. Labanaren mihiaren distira **miretsi** zuen. **Jon Muñoz**

Neskak begirada itzuli zionean, are gehiago **miretsi** zituen haren begi arre ilun handiak. **Irene Aldasoro**

Besterik gabe, bere aurrean abiatu nintzen nire ipurdi ikusgarria **mirets** zezan. **Juan Martin Elexpuru**

Ulises txunditurik zihoan, alde guztietara begira; **miretsi** zituen kaiak, itsasontzi neurri-neurrian eginak, agorak, harresi ikusgarriak. **Juan Kruz Igerabide**

Neskaren odol hotza **miretsi** zuen une batez laborategia ikustean. **Fernando Morillo**

Ixiltasuna da, ni noan bide huntako fortuna: joan eta joan, gostaia gosta, bazterrak ikus eta naturaren grazia desbardinak **mirets**, hor noa neure baitan beti barnago, pentsa eta bila. **Herria**

Paueko errege-jauregiaren dotorezia **miretsia** zuen berriz. **Aingeru Epaltza**

Haren hitzen sakontasuna ikusiz eta **miretsiz**, esan zuen: [...]. **Askoren artean**

Ez dakit zer **miretsi** behar den gehiago gertaera honetan: apaltasun hondargabea halako musu onberan, ala ahalmen distiratsua halako mirari ederrean. **Askoren artean**

Mireiari beti **miretsi** izan diot segurantzia hori. **Patxi Zubizarreta**

Malenkoniatsuek gorapa dezatela, ahal duten guztia, larreko bizitza landugabea, gizakiak mespreziatuz eta abereak **miretsiz**. **Piarres Xarriton**

Ezin sinetsia da zein diren lasterkari trebeak, **mirestekoa** da. **Aurelia Arkotxa**

Erdeinatua bezain **miretsia**, bakarti handi bat zen orain alkoholak zimurtua daukan Oteiza gizajo hau. **Koldo Izagirre**

- Zer **miretsi** ugari eskaintzen dio begiak ingeniariari nahiz argazkilaria. **Irene Aldasoro**

### 2 (adizlagunekin)

Goi-goikoaren zerbitzari dohatsua biziki **miretsirik** zegoen ikuskariari begira. **Askoren artean**

-Lorategiak, benetan? -xuxurlatu zuen Paulinek, zeharo **miretsirik**. **Karlos Zabala**

Arras **miresten** zuen, bereziki herriko errientarekin akomeatzen baitzen. **Piarres Aintziart**

Aurreiritzirik gabe **miretsi** nuen giza generoa. **Monika Etxebarria**

Mundu klasikoa sakon ezagutuz eta **miretsiz** soilik idatz zitekeen liburua irakurri nion handik urte batzuetara. **Juan Garzia**

Nik oso maitea nuen osaba Benjamin eta asko **miresten** nuen. **Jon Muñoz**

Gure ama nagia zen eta bene-benetan **miresten** zuen jende bizia. **Fernando Rey**

Aitak bere bulegoko armairuan zuen liburutegi txikia anitz **miresten** nuen. **Ana Urkiza**

Buru ona izatea ez da emakumeek gizonengan gehien **miresten** duten ezaugarria. **Antton Olano**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Haien artean, Indalezio Bizkarrondo, Bilintx, haren adiskide **miretsia**. **Askoren artean**

Jende guztiak esaten du zu zarella onena inperio osoan, agintarietan zuhurrena eta gudu-buruzagietan **miretsiena**. **Jose Antonio Mujika**

Urtero harridura **miretsi** bera, bai, ikusirik kimuak bizi berriz eztanda egiten nonahi. **Juan Garzia**

"Ausart hori, ausart hori!", oihuka ari ziren esaten haren begi **miretsiak**. **Julen Gabiria**

Wittgenstein Cambridgen bizi zen, berriro ere filosofia lantzen, eta gizon ospetsu eta **miretsia** zen ordurako. **Oskar Arana**

Ernest Hemingway Gustavo Duran adiskide **miretsiari** laguntzen saiatu zen. **Edorta Jimenez**

Aberatsa zara, errespetagarria, **miretsia**, maitatua; zorionsua zara, ni behinola izan nintzen bezala. **Koro Navarro**

-Artean ere ezer ez zekiela, Tomen **miretsiak** agur egin zion eskuaz, eztiki. **Oskar Arana**

### 4 (da aditz gisa)

**Miretsi zen** anitz ez baitzuen ulertzen nola zitekeen horrelakorik. **Aurelia Arkotxa**

Ziur naiz **miretsirik zinatekeela** nire zuhurtziaz. **Jon Muñoz**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beti miretsi izan (6); gehien miretsi (3)

miretsirik geratu (3); miretsirik zegoen (3)

miretsita geratu (3)

mirestekoa aukera (4); mirestekoa moduan (3); mirestekoa parada (4)

mirestekoa da (9)

aita miresten (3); asko miresten (22); asko miresten zuen (4); balentriak miresten (3); benetan miresten (6); benetan miresten zuen (3); biziki miresten (4); estalien estiloa miresten (3); gehien miresten (6); hainbeste miresten (7); horrenbeste miresten (4); izugarri miresten (5); maite eta miresten (3); zenbat miresten (4)

## miriada *iz* zenbateko oso handia eta mugagabea.

Izarrak ikus ahal nituen handik gorantza begiratuta, **miriada** bat izar, eta gehienak, milaka eta milaka elkarri erantsita eta urre hautsezko uneak osatuz. **Bernardo Atxaga**  
Periodo miriadatarraren **miriadaren** ordenaren miradiatar **miriada** -unitateen **miriadaren miriada** ! **Jon Muñoz**

## miriadaka *adlag* miriada neurri hartuz.

Eta artean ere hatzean zeramala lurreko hilezkortasuna ematen duen bere zigilu ahalgutziduna: halatan non **miriadaka** urteak danik egon behar baitzuen lo erregeak. **Juan Garzia**  
Salomon erregearen zigilua hatzean, diamantezko ohearen ondoan hantxe etzan zen, usteltzetik begiratua **miriadaka** urteetarako. **Juan Garzia**

## miriadatar *izlag* miriadari dagokiona.

Periodo **miriadatarraren** miriadaren ordenaren **miriadatar** miriada-unitateen miriadaren miriada! **Jon Muñoz**

## miriku ik **mediku**.

## mirilla *iz* behatxuloa.

Ateko **mirillatik** ikusi ahal izango duzu, behar izatera. **Koldo Izagirre**  
**Mirillatik** ikusi nuen Maritxu zela. **Koldo Izagirre**  
-Atearen zuloetxo da, **mirilla**, kanpoan zein dagoen ikusteko balio duena. **Patxi Zubizarreta**

## mirillatxo *iz* mirilla txikia.

-Hara: guk munduari **mirillatxo** batetik begiratu izan diogu... **Patxi Zubizarreta**

## miriñake ik **merinake**.

## mirmidondar *izlag/iz*

**Mirmidondarrak** Tesaliako herri gerraria ziren. **Xabier Olarra**

## mirotz *iz* gabiraia.

Bazuen **mirotzaren** itxura pixka bat: sudur kakoa, begiak sartuak eta distiratsuak. **Josu Zabaleta**  
Geroxeago jakin izan zuenez, **mirotz** malpartatuek eta arrano gaizki haziek jan zituzten uso guztiak. **Felipe Juaristi**  
Gurerik ezer ez dun gaugero hire, eta buru gainean **mirotz** bat duena egin dun hire jabe. **Juan Garzia**  
Harrapariak dira horren errudun nagusi: **mirotz**, gabirai eta belatzak, batez ere. **Berria - Euskal Herria**

## mirra 1 *iz* Arabia eta Abisiniako zuhaitz batetik ateratzen den gaia, gomaz eta erretxinaz osatua, gorria, urrintsua eta mingotsa.

Urrea, intsentsua eta **mirra**. **Elizen arteko biblia**  
Kanela eta balsamo usaintsuak bezala, **mirrarik** finenak bezala zabaldu dut lurrina. **Elizen arteko biblia**  
Logela **mirra**, aloe eta kanelaz lurrindu. **Elizen arteko biblia**  
Bada beste **mirra** bat lehenengoa baino askoz ere mingotsagoa. **Joan Mari Lekuona**  
Hartu usainkirik bikainenak: sei kilo **mirra** isurkor, hiru kilo kanela eta beste hiru kilo kanabera usaintsu. **Elizen arteko biblia**  
Haren masailak lurrinkaiz landaturiko alor; haren ezpainak, **mirra** darien lili. **Elizen arteko biblia**  
**Mirraz** nahasirikoa ardoa eskaini zioten, baina ez zuen hartu. **Elizen arteko biblia**

### 2 (hitz elkartuetan)

**Mirra** -oliozko igurtzialdiak hartzen zituzten lehen sei hilabeteetan eta emakumeek erabiltzen dituzten bestelako lurrin eta usain gozoko igurtzialdiak hurrengo seietan. **Jose Antonio Mujika**  
**Mirra**, aloe eta kanela usaizkoak zure jantziak, harpa-soinua marfilezko jauregietan zure alaigarri. **Elizen arteko biblia**  
Ene maitea niretzat **mirra** -zorrotxo: nire bularren artean ematen du gaua. **Elizen arteko biblia**  
Jaiki naiz ene maiteari irekitzera: **mirra** -ukendua darie nire eskuei, hatzetan behera, ate-sarrailaraino. **Anjel Lertxundi**  
Arrats behean, haizeak jo eta itzala ihesi joatean, banoa neure **mirra** -mendira, neure intsentsu-muinora. **Elizen arteko biblia**

### 3 *irud*

Bada beste **mirra** bat lehenengoa baino askoz ere mingotsagoa. **Joan Mari Lekuona**  
Jainkoak oraindik beste **mirra** bat mikatzagoa egiten du erregalia: estuasuna eta barne-iluntasuna. **Joan Mari Lekuona**  
Jainkoagandik datozen **mirra** -moduak, sofrikarioak, Berak agindutakoak dira, gizakiak gaitasuna izan dezan dohain handiagoak hartzeko eta hauekin ahalegintzeko. **Joan Mari Lekuona**  
**Mirrari** aldaxka bat jaiotzen zaio, intsentsu-alea daraman kimua. **Joan Mari Lekuona**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

intsentsua eta mirra (3); mirra ukendua (3); mirra zorrotxo (3)

## mirrin 1 *izond* mardula ez dena, txikia, argala, eskasa.

Askotan gertatzen da gizon sendo batek haur **mirrinak** izatea, eta alderantziz. **Josu Zabaleta**

Hemeretzi uterekin, ordurako daktilografo-postuan, meatzari gazte kaskagorri **mirrin** batez maitemindu zen. Juan Garzia  
Hasiera-hasieratik, ni ezagutu ninduen arratsaldean nor nintzen ez baleki bezala jokatu zuenetik, pertsona **mirrin** ezkailea iruditu zitzaidan. Anjel Lertxundi  
Geratzen zitzaigun apurra jan, hormatxo **mirrin** bat eraiki haizeak jotzen zuen aldetik, eta lotara etzan ginen lurrean, elkarren kontra estu-estu eginik. Juan Garzia  
Perrexila bezain **mirrin**. Pablo Sastre

## 2 mirrin-mirrin egin

Egin nuen saio bakarrean [...] zapuztu ziren alabari biberioia emateko aukera guztiak: su gainean ez nituen ba tetinak ahantzi, eta, ur guztia lurrundu ostean, ez zitzaizkidan ba eltzearen hondoan **mirrin-mirrin** eginda gelditu, halako usain nazkagarria zeriela. Joxan Elozegi

## mirrindu, mirrin(du), mirrintzen da/du *ad* mardultasuna galdu, mirrin binurtu.

Gizonarekin errietan egitean, emakumea ihesa hartu eta kikildu egiten da, aurpegi haserre jartzen diotenean [...]; era berean etsaia **mirrindu** egiten da eta uzkurto eta tentaldiek alde egiten dute, gauza espiritualetan ari den pertsonak etsaiaren tentaldiei mutur beltza ipintzen dienean. Patxi Altuna

## mirtilo *iz* ahabia.

Berton produzituko (produzitzen segituko) dira anakardoa, arabarba, babakoa, banbua, bergamota, feijoa, getozka, gonboa, guaiaba, karanbola, kardamomoa, kiwanoa, krosnea, kumkuata, lima, litxia, lotusa, mandioka, mangustana, mangoa, marakuia, **mirtiloa**, naxia, onddoa, pakana, papaia, ranbutana, salsifia, soja, tamarilloa, taroa, topinanburra, txaiotea, Txinako patata gozoa, txirimoia, zidra eta beste hamaikaxto ere Euskal Herriko klima desberdinetan, errentagarri gertatzen diren heinean. Edorta Agirre

## mirto 1 *iz* hosto iraunkorreko zuhaixka, lore zuri, txiki eta usaintsuak, eta fruitu beltz urdinkarak ematen dituena(*Myrtus communis*).

Zedro, arkazi, **mirto** eta olibondoak landatuko ditut basamortuan; zipres, zumar eta izeiak eremuan. Elizen arteko biblia

Laharren orde zeresak haziko dira, asunen orde **mirtoak**. Elizen arteko biblia

**Mirtoak** eta laranjondoak baino ez; laranjondo garratzak eta **mirto** garratzak. Juan Garzia

Ibilbideetako **mirto** zaharrek botatzen zuten usain garratz harengatik. Josu Zabaleta

## 2 (hitz elkartuetan)

Alchonon maisu-laguntzailea errezo xal batean eta abituan bildu zuten, buztin puskak jarri zizkieten begietan, eta **mirto** adartxo bat estutu zioten hatzen artean. Koro Navarro

Ziteraren **mirto** uzta zureztat gordeko dut, neba maitea, eta Sodomako lorea Dolmancérentzat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Emakume zuri baten sukaldean atearen kontra zegoen lisaburdinaren heldulekuan **mirto** -atxaparkada bat jarrita sukaldea bere egiten zuelakoan. Anton Garikano

## miru 1 *iz* belatzaren familiako hegazti harraparia, luma-gorrixka, hegoak eta isatsa luzeak dituena(*Milvus milvus*). ik beherago 3.

Kurloiak izan ziren ihes egiten lehenak, usapalak bigarrenak, **mirua** azkena. Felipe Juaristi

**Mirua** eta mota guztietako saiak. Elizen arteko biblia

**Mirua** zerua inguratzen ari da, kometa urduri bat bezala. Alberto Barandiaren

**Miruaren** hegaldiak bezalakoak. Joan Mari Irigoien

Bertzeak ez bezala, so ari zitzaidan, **miruaren** behako tinko eta harroaz. Aingeru Epaltza

Itsas ainarak, kormoranak, bele handiak, **miru** hegal gorriak gure gainean zirurikan zabiltzala. Itxaro Borda

Bestela, dagoeneko gizendu nituzkeen aireko **miruak** oro doilor horren barrukiekin. Juan Garzia

Elorria lorán dago, **mirua** loka dago, artoa ereiteko a zer sasoia dagon! Pello Zabala

## 2 miru beltz (*Milvus migrans*).

**Miru beltzak** ez du belatzen dohainik, lekutik mugitu gabe egoteko airean. Imanol Zurutuza

Lau **miru** beltz gazte askatu dituzte Orba ibarrean, hegaztiaren populazioa areagotzeko. Berria - Euskal Herria

Sekula baino **miru beltz** gehiago kondatu dira aurtén, 23.940 orotara (2001 ean, 15.749 **miru beltz** kondatu ziren). Herria

## 3 miru gorri (*Milvus milvus*).

Naturzaleek, bai, izan zuten begiak gozatzeko parada: hamaika putre, hurbil-hurbil; belatzak, prismatikoen pare; zikoinak; **miru** gorriak, nonahi; ubarroi talde bat; arrano beltzak, lau; eta ugatza. Berria - Euskal Herria

Erakusketa huntan, bost xori harrapari zaizkigu nagusiki erakutsiak: ugatza, sai-arrea, sai xuria, **miru** gorria eta erroia (bele handia). Herria

Zozoak, putreak eta **miru** gorriak ziren solidarioen eta kazetarien zaindaria. Berria - Euskal Herria

## 4 miru zuri (*Neophron percnopterus*).

**Miru-zurixa** etorri da ta, artua ereiten hasi biheko dogu! Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**miru beltz** (4)

## mirubuztan (*orobat mira-buztan*) 1 *iz* mihiztadurako mihia, trapezio formakoa, oinarri estuenetik piezari lotua dagoena.

Ondo tratatutako habe horiek hipotrakelioak kolomaren goiko aldean duen lodiera berdina izango dute zabalean, eta mihiztadura-ziri eta **miru-buztan** bitartez geratuko dira lotuta, bi hazbeteko tarte utziz elkarren arteko loturan. Santiago Iruretagoiena

## 2 (hitz elkartuetan)

Fusteen buruetan burdinazko buloiak sartu zituen **mirubuztan** forma zutenak, eta berunez finkatu zituen. pieza hauek elkarren artean **mirubuztan** -loturaz mihiztatuta zeuden, eta hotzean landutako burdin xafraz gogortuta. Santiago Iruretagoiena

Kakoaren estalkia **mirubuztan** mihiztaduraz dago eskaileraren zangoan lotuta, eta zabalean 1/6 zulo ditu, eta lodieran 1/12 zulo. Santiago Iruretagoiena

## misagra ik bisagra.

# misanthropia

iz gizadiarekiko higuina, beste gizakiekin herra gautzen dena.

**Misanthropiak** ere badu bere tokia kontzertu honetan: osotasunaren harmoniarako beharrezkoa den disonantzia baizik ez da. **Monika Etxebarria**  
Adrianek eta Martinek esaten dute berriro psikologoarengana joan beharko duzula, ez zaizula oraindik sendatu **misanthropia**. **Bernardo Atxaga**  
Bi kezka horiek larriagotu egin zuten aspaldi zaharreko nire **misanthropia**. **Juan Garzia**

## misatropo

iz beste gizakiekiko tratuari herra dion pertsona.

**Misatropoa** gizakia da: humanistak, hein batean, **misanthropoa** ere izan behar du. Baina **misanthropo** zientifikoa da, bere gorrotoa dosifikatzen jakin duena, gizakiak hasieran gorrotatzen dituena, ondoren maitatu ahal izateko, ez bestetarako.ri Azken batez, **misanthropo** bat izanagatik gizona baitzen, eta horrenbestez, beharrak baitzituen.  
**Monika Etxebarria**  
Egia da inoiz baino bakartiago ibili nintzela, ia **misanthropo** bihurturik. **Juan Kruz Igerabide**  
Zuk berriz, nire Max ona, egia da bakarrik utzi zaitugula baina, horregatik, ez duzu **misanthropo** bilakatu behar. **Ramon Etxezarreta**  
**Misanthropoak** uler ditzaket, baina emakumetroak, inola ere ez! **Antton Olano**

## misera

(orobat *mixera*) iz abakandoa.

Baina zirkua itxita, nola ordaindu xanpaina, langostak, **miserak**, itsas fruituak? nola ordaindu Txanberlainek emakumeen amoreak? **Bernardo Atxaga**  
Ottarrain arantzatsuek, **mixera** marra beltzekoek, artean bizirik, karraska egiten zuten beren hanka hautsien gainean herrestan zebiltzalarik. **Karlos Zabala**

## miserabilismo

iz gizartearen alderdi miserableenak azpimarratzeko joera.

**Miserabilismorik** gabe eta oso modu zehatzean deskribatzen eta sentiarazten digulako zer den emakumearen kondizioa halako gizarte islamizatu batean. **Berria - Kultura**

## miserabilista

izond miserabilismoari dagokiona.

Borreroa ez da batere **miserabilista**. **Karlos Linazasoro**

## miserable

(orobat *mixerable*) 1 izond doilorra, zitala.

Eta normalean ezta zuen ahotsa gogortu egiten zitzaion Rossetti **miserablea** zela esatean. **Ramon Saizarbitoria**  
Kontzientziak gizatzarra, **miserablea**, kobardea nintzela esaten zidan. **Matías Múgica**  
Nire kezkek, sentimenduak, ordu arte normalak iruditu zitzaizkidanak, ez ote ziren pertsona **miserable** batenak izango. **Ramon Saizarbitoria**  
Gobernuari halakoxe zitala izateagatik, eta euroi, berriz, ez direlako bandido **miserable** eta lapur gantzatsu batzuk baino. **Juan Garzia**  
Juduak, niretzat, mespretxua besterik merezi ez duten izaki **miserableak** direla. **Anjel Lertxundi**  
Traizioa, traizioa duk beldurtzen nauena: izaki **miserable** horren traizioa. **Agustin Otsa**  
Ai, zer **miserablea** naizen lausenguak egiten hasten naizenean! **Harkaitz Cano**  
Haserrekorrak eta mendekatiak baitziren Greziako jainko nagusi **miserable** haiek. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**  
Edertasuna baizik ez digute utzi mende haien gertakizun **miserable** eta nobleek. **Piarres Aintziart**  
Demokrazia **miserable** baten aurrean gaude, ez baitute kontuan hartu milaka eta milaka herritarren iritzia. **Berria - Euskal Herria**

### 2 miseriazkoa, oso behartsua.

Txaboletan arratoiek bizi diren milioka txiroek ongi mereziaz dutela egokitu zaien bizitzan ustel eta **miserablea**. **Pako Aristi**  
Soldata, **miserablea**. **Eskarne Mujika**  
Gogoa zuen dagoeneko lurralde **miserable** eta atzeratu honetatik alde egiteko; eskerrak hurrengo egunean Gibraltarren egongo zen, Ameriketara bidean. **Josu Zabaleta**  
Izaki pertsegitu, doilortu, gosetu haiekin otordu miserableak konpartitzen nituen tabernazulo **miserable** ezkutuetan. **Matías Múgica**  
Urte luze hauetan, jendeak aurrera egin du, zu zakur zahar bat etxe **miserable** batean bezala, geldirik geratzen zinen bitartean. **Berria - Kultura**  
Orotariko jende, hizkuntza eta bizimoduaren kontrasterik gabe, hemengo berdeak ez bailirateke berdin berde izango, ez hemengo miseria berdin **miserable**, ez hemengo jendea berdin mutu. **Joxerra Garzia**  
Nora daramak, zerrizain **miserablea**, beste eskale nazkagarri hori? **Juan Kruz Igerabide**  
Irabazten dudan diruaz gozatzeko! ez gara jada estudiante **miserableak**. **Jon Arretxe**  
Ez didak esango **miserable** batek bezala burdina puskak biltzea baino hobea ez denik... **Harkaitz Cano**

### 3 hed

Ez daukat gabardina **miserable** bat ere, dena daukat autoan. **Mikel Hernandez Abaitua**  
-Ez al huke hobe, kaiku hori, galeoi edo brigantinen batean jardun atontzen hemen beraren kimuen gainean heure izerdia isurtzen duan landare **miserable** horren zama-balak? **Juan Garzia**  
Eta SSak irriz; zaindariantzat izigarriko zoriona zen presoak haien artean kalapitan eta borrokan ikustea, patata **miserable** batentzat. **Eneko Bidegain**

### 4 zorigaitzkoa, gupidagarria.

Erukizko portaera legedunekin, hau da, gizarteko pertsona **miserable** eta baztertuenekin. **Askoren artean**  
Zeren esklaboak baitziren eta esklabo gisa saltzen baitzituzten, beltzak eta berteze jende **miserable** batzuk bezala. **Joan Mari Irigoien**  
Eta guztiok gaituk maila batean zein bestean **miserable**, ezergabe eta baztertu. **Joan Mari Irigoien**  
Kristautasunaren deskribapenean ez naiz luzatuko, beste haren obra batzuetan hemen baino hobeto ikus baitaiteke Barojak nola pentsatzen zuen horretaz: narras arlotea da, herri **miserable** baten produktu zikina, etab. **Joxe Azurmendi**

### 5 (adizlagun gisa)

Barregarriro antzu eta **miserable** sentitzen da neskaitila bere motxila zalangatua emakumearen sabel bipilarekin alderatu duenean. **Harkaitz Cano**  
Aitortzeak **miserable** sentiarazten ninduen arren [...]. **Ramon Saizarbitoria**  
Gero biluzik, **miserable**, deus ez dela jaurti du bazterrera. **Pablo Sastre**  
**Miserable** eta koldar hil zintezela. **Koldo Izagirre**  
Ezduin eta **miserable** ikusi baitzuen bere burua, urde baten antzera ia. **Berria - Kultura**

### 6 (izen gisa)

Ahal izan dudan lasaien erantzun diot, erantzun behar ez niokeen **miserable** horri: [...]. **Koldo Izagirre**  
**Miserable** galantak, guztiok ere: deus ez sinetsi gutako inori. **Juan Garzia**  
Aitortu beharrak pena ematen zion arren, artisten artean **miserable** asko zegoela esan zuen. **Ramon Saizarbitoria**



## 7 (hitz elkartuetan)

**Miserable** -olde bat inoiz ez da solidarioa izango; aski da ogi-puska bat botatzea haien artera elkarrekin borrokan jartzeko. **Pako Aristi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jende miserable** (3); **miserable deitu** (3)

**miserablea iruditzen** (4); **miserablea izan** (4); **rossetti miserablea** (3)

## miserableki *adlag* modu miserablean.

Hori guztia egin zuen PPK, hauteskunde batzuk **miserableki** irabazteko. **Berria - Harian**

Nafarren borondatea «**miserableki**» baliatzea leporatu zien PPri eta UPNri. **Berria - Euskal Herria**

Orduan nik, **miserableki**, hori alde aurretik erabaki behar zela arropatu nion, eta ondo finkatu behar genuela txanponaren gure alde tokatuz gero horrek zer esan nahi zuen. **Iban Zaldúa**

## miserere iz hitz horrekin hasten den Bibliako salmoa; salmo hori babesteko ontzen den musika lana.

Ondoren, santua bat-batean jaiki zen eta, haiek harri eta zur zeudela, sermoiarene lekuan **Miserere** salmoa esan zuen. **Askoren artean**

Bere bizitzako azken urteetan, **Miserere** bat ere konposatu zuen. **Berria - Kultura**

Egunak eta gauak pasatzen zituen "**Miserere**" berri bat konposatu nahian. **Martin Anso**

Wolfgang Amadeusek hamalau urte bete berri zituela, Erromara joan omen ziren aita-semeak Aste Santurako, eta Sixtotar Kaperan izan omen ziren Asteazken Santuan, **Miserere** famatua entzuten. **Imanol Zurutuza**

**Miserere**-a paperera aldatzen zuen bitartean. **Imanol Zurutuza**

## miseria (*orobat mixeria g.er.*) 1 iz behartasun handia, lazeria, erromeskeria.

Atzera ere **miseria** hedatzen ari omen da AEBetako hiri handietara. **Iñaki Heras**

Pobrezia eta **miseria** nagusitu ziren Alemanian; horrenbestez, nazismoaren etorrerarentzat bidea ereinda zegoen. **Iñaki Heras**

Gizartearen kontrasteak zekuskien, zorientasuna eta zorigaitza islatuak, aberastasuna eta **miseria**. **Migel Angel Mintegi**

**Miseriak** kontzientzia moteldu egiten du, perspektibak murriztu. **Pako Aristi**

Baina nazioa pobrea denean, bakoitzaren pobretasuna **miseria** orokorretik dator, eta, nolabait esateko, **miseria** orokorra da bera. **Iñaki Iñurrieta**

Arlotea bezala iritsiko zaizu gabezia, eskalea bezala etorriko **miseria**. **Elizen arteko biblia**

Mapa politikoa erabat berregiteak [...] **miseria** ekarri zuen milioika gizakirentzat. **Iñaki Mendiguren**

Gaitza **miseria** nagusi den lekuetan zabaltzen da gehien eta arazo hori konpondu ezean kasu berriak agertuko dira urtero. **Berria - Gaiak**

Emiaozu historiari begi-ukaldi bat eta iraultza askoren azpian **miseria** eta ondoeza daudela ikusiko duzu. **Gotzon Garate**

Alargun errukarri bat, neketan, **miseriak** estuturik. **Jose Morales**

Gerrak **miseria** utzi zuen gure kontinentean. **Pello Salaburu**

Ihartuta zeuzkaten goseak eta **miseriak**, marraska ibiltzen ziren eremuan, lur ilun idorretan. **Elizen arteko biblia**

Alde batetik **miseria** eta bestetik etsimendua baitute herri hortan bizi, beste guztiak aiserian jarriak diren denboran. **Herria**

Roland Dee, aita, **miserian** hil zen 1555. urtean, eta John, semea, kartzelan zegoen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ilunabar aldera zuzenean sartu zen elizara, zihoan bezalaxe, hautsez eta **miseriaz** beterik. **Juan Garzia**

## 2 ezbeharrak, zoritxarra.

Horregatik gertatzen da boterea eta bizipoz guztia alde batean geratzen dela, eta ahultasun eta **miseria** guztia bestean. **Juan Martin Elexpuru**

Jakina da gaiztakeria eta **miseria** ez direla berez sortzen lurrean. betiko ahanzten genituen bai etxe hura eta bai aita ahozabala eta zorigaitzako **miseria** ere. **Elizen arteko biblia**

Gizakiaren **miseria**. **Elizen arteko biblia**

Bihotzean ximiko bat egin zion hainbertze lagunek, hainbertze jendek **miseria** hartan, surfrimendu hartan usteltzen segituko zutelako. **Eneko Bidegain**

Ospe txararen eta kaltea sentitzeko gauza ez den izakiaren heriotzaren artean aukeratu behar duenak, nola ez du, bada, nahiago izango azken hau, berari eta bere zorigaitzako fruituari ziur-ziur itxaroten dien **miseria** baino? **Juan Martin Elexpuru**

Beste hainbat nekazari siberiarren antzera, **miseria** vodka n ito ezinik erreko zuela bizitza. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Polemika hori pozoitsu da erabat, eta bizi garen garai hauen **miseria** erakusten du. **Bernardo Atxaga**

Ez diat sekulan erran baina nire **miseriaren** zergatia jakin behar duk. **Elena Touyarou**

Kartel gorrimin batek gogora ekarri zion gauean suspertzen den mundua, egun-argikoa bezain zaharra den mundu iluna, **miseriak**, zorigaitzak eta sexu-grinak baztertutako babesleku. **Migel Angel Mintegi**

Tsunami delakoaz kanpo badela **miseria** frango munduan gutti aipatzen direnak eta aise ahantzen. **Herria**

## 3 (izenondoekin)

Horrela jokatuz, etorkizunean bederen, bata **miseria** gorriaren eta bestea Herio beltzaren aurpegirik ikusi gabe biziko zirela uste zuen. **Felipe Juaristi**

Modigliani gaixorik, erdi erotuta eta **miseria** gorrian zendu zen. **Javi Cillero**

**Miseriarik** gorriena ezagutua naiz, ez pentsa. **Harkaitz Cano**

Inbertsore askok eta askok erreka jo zuten, eta **miseria** gorrian gelditu ziren. **Iñaki Heras**

**Miseria** gorrira eraman ditu mujik-ak! **Jose Morales**

Garai hartan **miseria** handia zegoen hirian, pobrezia ikaragarria. **Paddy Rekalde**

Aborigeno jende kopuru horiek gizarteari gaizki "integratuak" daude eta gehienetan **miseria** ikaragarrian bizi dira. **Ramuntxo Etxeberri**

**Miseria** sakon bat zen, baina ez **miseria** arrunta. **Koldo Izagirre**

Haien bizitza erdi asmatu erdi oroituen bitartez giza izatearen dardara hungigarrienak eta **miseria** egunerokoenak erakusten dizkigu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alargunaren etxean **miseria**-giro nahiko tristea zegoen. **Josu Zabaleta**

Zertarako poetak **miseria**-garaietan? **Anjel Lertxundi**

Gizakiari **miseria**-uholde batek baizik ezin eman diezaiokeen sorgortasun eta laborri-itxura bat zuen. **Josu Zabaleta**

Naturak ez du aski gizonak zoriotsu eta zoritzarrekoen artean banatzea, aberatsen eta pobreen artean; aberatsari aberastasun-espirtua ere ematen dio, eta pobreaki **miseria**-espirtua. **Josu Zabaleta**

Gantzuak ematen nituen eta **miseria**-estalkien moduko jantzi zabalak eramaten. **Joxan Elozegi**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **miseria**, ordea, harrigarria bada ere, hobeto ikusten da ika-mika txikitian, gatazka handietan baino. **Joxerra Garzia**

Hain juxtu ere edari **miserian** gundean! **Aingeru Epaltza**  
Zer mila deabru, 197 egun neramazkien larru-**miserian** ! **Aingeru Epaltza**

## 6 pl

Makina bat jende erreka jo eta **miseria** gorrienak ikusi zituen. **Iñaki Heras**  
Frantzisko preso erori zen beste askorekin batera, eta giltzapeturik espetxeko **miseriak** jasan zituen. **Askoren artean**  
Prostituzioa, mozkerkeria, langile jendearen **miseriak**, burgesen itxurakeria... **Karlos Zabala**  
Nahiz eta Estatu Batuen politikak ere **miseria** handiak hedatzen dituen munduan gandi. **Eneko Bidegain**  
Hamalau ofizio eta hamabost **miseria** ... **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Borgesek bere **miseria** pertsonalak literaturari eman zizkion, giza-miseriaren kronika horri. **Juan Garzia**  
Gorputzak, errurik ez duen arren, ordaindu behar izaten dituen izpirituaren **miseria** txikiak dira. **Jon Alonso**  
Erosi *Le Charbonnier*, giza **miseria** beltzenen kontrako aldizkaria! **Anjel Lertxundi**

## 7 miseriazko

Lisboa **miseriazko** aienetan hondoratzen zen, eta ironia grotesko eta izugarria zen mairuek beren ramadana ospatu behar izatea goseak baraua ezinezko bilakatu zuen uanean. **Jon Alonso**  
Beti ari ziren esaka lehenbailehen hil nahi zutela, **miseriazko** mundu hau uztearren. Enpresaburuak egotzi zien «irabazia» soilik bilatzea, «**miseriazko** soldaten kontura, emakume, gazte eta etorkinak ustiatzearen kontura». **Juan Kruz Igerabide**  
Bestela, nola aterako nituen hire aita eta hire izeba Manoli aurrera, aitona hilda gero utzi zidan **miseriazko** pentsioarekin? **Joan Mari Irigoien**  
Soldatak, esaterako, inon baino apalagoak ordaintzen omen zituzten Sarasolarean, **miseriazkoak** ia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**giza miseria** (6); **miseria gorria** (9); **miseria gorrian** (35); **miseria gorrian bizi** (6); **miseria gorriean** (3); **miseria gorria** (3); **miseria handia** (4); **munduko miseria** (3)  
**bere miseriak** (4); **gure miseriak** (3); **miseriak agerian** (3)  
**miserian bizi** (15)  
**giza miseriaren** (4); **miseriaren kontrako** (7); **miseriaren kontrako eguna** (4)  
**miseriarik gorriean** (3)  
**desgrazia eta mixeria** (3)

## miserialdi iz miseriazko aldia.

Badakit, gerraldia **miserialdia** dela, baina zer nahi duzu, zoriontsua naiz nire Gefreiterarekin, ederki konpontzen gara eta ahaztu egiten zait bazar hori, bonbak eta kanoiak. **Pablo Sastre**

## miseriatsu iz miseriaz betea.

Auzo-etxeetako jende **miseriatsu**, zikin, beroak erresumindutako hura, haserretzeko prest egoten zen beti. **Josu Zabaleta**

## miserikolet (orobat miserikolete) iz tximeleta.

Horietao batek erakutsi zidan, eta bere lezioa nire memoriako kristalezko zelulan geratu da ordutik, tximeleta, euskaraz, **miserikoletea** esaten dela, edo halako zerbait esaten zidala iruditu zitzaidan. **Berria - Kultura**  
Miarrizten tximeletak «**miserikoletak**», Colette lehen maitasuna eta itsas-aparrezko luma-etxe bat aurkitu zituen Nabokovek. **Berria - Kultura**

## miserikordia 1 iz errukitasuna, urrikaltasuna.

Baina hala delarik, jar itzazu zure **miserikordiaren** begiak agintzen dizkidazun ondorengoetan. **Jon Alonso**  
Kanpamentutik atera zedila, Jainkoak bere **miserikordiaren** handia erakutsi nahi baitzion. **Jon Alonso**  
Nik ederki erakutsi ahal izango niola **miserikordiaren** eremu txuria eta argiaren iruntzia, jainkoen errukia eta iluntzearen zauri antzua, eta hainbeste eta hainbeste gauza gehiago uhinek edo haizeek nire gorpua ezerera itzul zezaten aurretik... **Karlos Linazasoro**

## 2 (M larriz) miserikordia etxea.

Orduan arropa berriak erosita **Miserikordian** sartu zen. **Koldo Izagirre**  
Tolosako **Miserikordian** bizi omen zen... **Koldo Izagirre**  
Diru harekin azaldu zen **Miserikordiak** Donostiako parte zaharrean zeukan bulegoan. **Koldo Izagirre**  
**Miserikordiako** mojak arduratzen ziren emakume presoak zaintzeaz. **Jokin Urain**  
Jazinto Rivas, Elgeta, 1964an hil zen Donostiako **Miserikordian**. **Iñigo Aranbarri**

## 3 miserikordiazko

Beren ohoinkeriaen fruitua karitatezko edo **miserikordiazko** obretan enplegatzen zutela. **Joan Mari Irigoien**  
**Miserikordiazko** lehen egin beharra da gose denari jana ematea. **Jokin Urain**

## 4 Miserikordia etxe (orobat Miserikordi etxe) ongintzako edo karitatezko etxea.

Gizonek eraikitako **Miserikordia** Etxean lo egiten zuen batzuetan. **Felipe Juaristi**  
Aitak jaun hori **Miserikordi** etxera eraman zuela. **Ramon Saizarbitoria**  
Jatetxe bat da hau gero, ez **Miserikordi** Etxea! **Joan Mari Irigoien**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**miserikordiaren begiak** (3)

## miserikordios izond errukitsua, urrikaltsua.

Gehiago sinesten zuela Jainko **miserikordios** bat Jainko mendekos bat baino. **Joan Mari Irigoien**

## misiba iz gutuna.

Berez, Hirugarren eguneko **misibak** idazteko sortu zutela uste dute hizkuntzalariek. **Berria - Gaiak**

# misil 1 iz jaurtigai autobulkatua, lehergaiduna eta elektronikoki kontrolatzen dena.

Gurean, egongelan **misil** balistiko bat leherztearen pareko izan zen albistea. [Aingeru Epaltza](#)

Gerra hotzaren garaian estatubatuarrek base itzela eraiki zuten Groenlandiako iparraldean, **misil** atomiko, berrogei metro altuerako irrati antena erraldoi eta gainerako infernuko tresna guztiekin. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Eta horretarako mila kilometroko distantziatik egiten dituen gudua, **misil** hiper-zehatzak omen direnak erabiltzen dituzten. [Harkaitz Cano](#)

Hobe lukete bai **misil** eta tankeetan gastatu beharrean, beren hirietako laugarren munduan inbertitu. [Iñaki Heras](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

**Misil**-eztanden ziztu-hotsak eta gau-patruilak bitarteko zirela. [Mirentxu Larrañaga](#)

Tanke telezuzendu **misil**-jaurtigailuduna. [Aingeru Epaltza](#)

Pertzepzio-**misil** moduko bat zen, bizitzan zehar batetik bestera oharrak hartuz eta jasoz joango zena, [Xabier Olarra](#)

# misio (orobat *missione*) 1 iz norbaitek bete behar duen lan, egiteko edo betekizuna.

Ondoren goi mailako espioitzako **misio** bat onartu zuela ekialdean. [Monika Etxebarria](#)

Ohorezko **misio** bat eman dauzu Etxauzko bizkondeak, zu bezalakoak behar ditu gure Nafarroak. [Michel Oronoz](#)

Ekialde urrunean **misio** bat betetzeko aitzakia lausoaz. [Monika Etxebarria](#)

Silvestre gizon onbera eta jainkozealek ulertu zuen Jaunak Frantziskori izendatua zion **misioa**. [Askoren artean](#)

Asteroideak ikertzeko **misio** bat berriro jarri du martxan NASAK. [Berria - Gaiak](#)

Barnesek azken **misioa** egin beharra dauka: Nasir printzea hil. [Berria - Kultura](#)

**Misio** sekretuak egiteko agindu ziona. [Edorta Jimenez](#)

**Misio** hark ez zuela bere xedea lortuko. [Iñaki Mendiguren](#)

Ez dut nire **misioa** huts egin nahi. [Josu Zabaleta](#)

Baina barren-barrerean banekien huts egindako **misio** batetik ezin atera daitekeela deserosotasun mingots bat besterik. [Josu Zabaleta](#)

Bere inspirazioaren eta **misio** profetikoaren benetakotasun eta jatoritasun ebanjelikoaren kontzientzia. [Askoren artean](#)

AEBetako armadak inoiz Afrikan egin duen **misio** humanitariorik eztabaidatuena samurtzeko. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

**Misio** erraza denean hirutik bat itzultzen da. [Josu Zabaleta](#)

Pelennorren bestaldeko Amildegiko Zaindaritza Dorreetako **misio** batetik itzuli berria. [Agustin Otsoa](#)

Gemini IV **misioan**. [Irene Aldasoro](#)

## 2 p/ebanjelioa aldarrikatzea, sinesgabeen herrialdeetan egiten dena.

Handik, berandu gabe moja izango bainaiz eta Txinara joango bainaiz, **misioetara**. [Joan Mari Irigoien](#)

Niri ez zitzaizkidan gustatzen **misioak**, ez behartsuei lagundu nahi ez nielako, baizik eta giro haietan berebiziko "koipe" erlijiosoa egoten zelako. [Juan Kruz Igerabide](#)

Bada santu euskaldun bat, Martin izenokoa, frantziskotar sartu, **misioetara** joan eta Nagasakin hil zutena. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

**Misioetara** joan behar dut, Txinara. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Euskal Herriko Elizbarrutiko **Misioek** urtero gonbidatu izan dituzte Ekuadorko lau katoliko euren etxera, [Berria - Euskal Herria](#)

## 3 (orobat *misio santua*) herri batean zenbait egunez egiten ziren sermoi eta elizkizun bereziak, gehienetan bertakoak ez ziren apaizek zuzenduak.

Bartolome Baertel fraide fantziskotarra 1886rako herriz herri ibiltzen hasia zen «**misio** santuan» kanpotik ekarritako «baltseo nazkagarriaren» aurka. [Berria - Kultura](#)

Sermoi galantak eta euskal herriotan **misio** jendetsuak bezalaxe, mutil gazte trebeen musika banda oparoa ere lortu zuten fraide zaildu haiek. [Pello Zabala](#)

Garizuma denboran, 1941ean, apezkeri **misio** baten muntatzeko ahala uzten daukute eta ospetsuki bururatzen dugu Bazko egunean, gure preso lagunetarik 4 000ko batek parte hartzen dutela. [Michel Oronoz](#)

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere lehen **misio**-bidaian kristautasun-haziak errein zituen Pisidiako Antiokia eta Listrako erromatar kolonietan. [Iñaki Mendiguren](#)

Elizaren **misio**-eremu zen gizartean. [Iñaki Mendiguren](#)

Ekuador inguruko **misio**-lurretatik. [Pello Zabala](#)

Testigantza bat gehiago, santuaren **misio**-ekitaldi hark izan zuen oihartzuna erakusten duena. [Askoren artean](#)

Ordena probintzian banatzea eta anaien lehen **misio**-bidalketa Europan zehar erabakitzen du. [Askoren artean](#)

Ez du bere egiten, ordea, Frantziskoren jendarteko biziera eta hura munduan barrena eramaten duen **misio**-grina. [Askoren artean](#)

Oiartzuarra zen Mendiburu, Nafarroako mugakoa, eta Nafarroan barrena ibili zen **misio** lanetan. [Koldo Zuazo](#)

Bazeukan jangela bat, **misio**-estiloko altzariez hornitua. [Mirentxu Larrañaga](#)

Frantziskok bere **misio-aldian** jarraituko dio Jesusi; Klarak, berriz, bere basamortu-, gurutze- eta Eukaristia-aldian. [Askoren artean](#)

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ingurumari horretan, errekonozimendu **misio** bat agintzen diete Saint-Exupery eta beste bi laguni. [Berria - Kultura](#)

Martera bidalitako azkeneko espazio **misioek** planeta gorriaren eta Lurraren historia geologikoa oso antzekoa dela egiaztatzeko balio izan dute. [Berria - Gaiak](#)

Zientzia **misio** tripulatua? eta zer helburu zekarren? kosmosa esploratzea, galaxia mailako frankizia bat ezagutzera ematea, ala Eguzki sistemako hirugarren planeta konkistatzea? [Patxi Iturritegi](#)

Izan ere, Hondurasko, Jordaniako eta Txileko armadek horietako 30 erosi dituzte ehiza eta patruila **misioetarako**. Geuk topatutako dibisio blindatu baten kontra bonbardaketa **misio** bat abiarazteko. [Berria - Euskal Herria](#)

Bake **misioa** luzatzea eskatu dute. [Berria - Mundua](#)

Frantzisko, bere baketze-**misioan**, Melek-el-Kamel sultanarengana aurkezten da. [Askoren artean](#)

Lehenagoko garaietan kristau ez ziren munduetan kristau-**misioek** izandako historiak. [Iñaki Mendiguren](#)

Izan ere, Hondurasko, Jordaniako eta Txileko armadek horietako 30 erosi dituzte ehiza eta patruila **misioetarako**. [Berria - Euskal Herria](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egindako misio (4); huts egindako misio (3); lehen misio (4); nazioarteko misio (4)

bake misioa (3); erreferendumerako misioa (9); gure misioa (5); minurso misioa (4); minursoren misioa (3); misioa babesteko (3); misioa eratu (3); misioa hasi (3); misioa luzatzea (5); nberen misioa (4); saharako erreferendumerako misioa (5); sahararako erreferendumerako misioa (4)

misioaren arduradunek (3); misioaren arduradunetako (3); misioaren buru (3); misioaren epea (3)

kristau misioek (3)

aholkulari nagusiko misioekin (5)

bake misioetan (4)

misioetara joan (3)

minustah misioako (3); misioako buru (4); nberen misioako (3)

## **misioburu** (*orobat misio buru*) iz misio baten burua dena.

Hauteskondeak nahi dituen xiiten buruzagi Al-Sistanirekin guztiz bat datorrela dio Brahim **misioburuak**. **Berria - Mundua**  
**Misio buruak**, berriz, Kubako Itsaso Ontzidiaren aholkulari jardungo du. **Edorta Jimenez**

## **misiolari** (*orobat mixiolari g.er.*) **1** iz misio santua ematen zuen elizgizona; misioetara joaten den pertsona. ik **misionest**.

Georg Kamel Jesusen Konpainiako **misiolari** eta jakintsu handiak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Hindustanera [...] britainiar **misiolari** protestanteek landu zuten. **Iñaki Mendiguren**  
Aristokrazia lurjabea neurri handi batean **misiolari** jesuitek konberitu zuten. **Iñaki Mendiguren**  
Hego Amerika edo, hobeto, Afrika aldera joango nintzela, hango ezeukien alde zerbait egiteko, **misiolari** laiko moduan edo. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Teknikaria **misiolari** zuriaren azken edizioa omen, industrializazioa arraza hilzoriko baten azken ebanjelioa, bizi-maila bizi-zentzuaren suzedaneoa besterik ez... **Joxe Austin Arrieta**

### 2 (izenondo gisa)

Bestelako goiburur batek inspiratu zituen jesuita **misiolari** aitzindariak. **Iñaki Mendiguren**  
Gure osaba **misiolaria** bisitazera. **Xabier Montoia**  
Eliza **misiolari** arrakastatsu baten eta horren lantoki den estatu unibertsal baten arteko erlazioan, [...]. **Iñaki Mendiguren**  
Hemeretzigarren mendeko Afrikan, San Paulo, David Livingstone eskoziar mediku **misiolariaren** mozorropean, berri ona predikatzen, gaixoak sendatzen eta aintzira eta ur-jauziak aurkitzen ari zen bitartean, Islama ere mugitzen ari zen. **Iñaki Mendiguren**  
Aita Santuak bidali zituen iparraldeko lurraldeetara zenbait lekaide eta monje **misiolari**, baina urteak pasatu ziren ospatzen hasterako. **Pello Zabala**

### 3 irud/hed

Hemen arrazoimenaren, razionalitatearen eta holako **misiolari** asko daukagu ilustrazioaren zale berrien artean. **Joxe Azurmendi**  
Eskualde hauek, demokraziaren **misiolari** beharrik ez dute. **Berria - Mundua**  
Atzerriko zibilizazio baten **misiolari** militanteen lorpenei buruz, horiek ere engainagarri eta etsigarriak dira elizen lorpen historikoaren aldean. **Iñaki Mendiguren**  
Burokratezkeriarak bagina bezala, eliza ofizialik gabeko komunismoaren **misiolari** antzeko batzuk, fedea ere erdi galduta zeukatenak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bazuen halako **misiolari** -kutsu bat, batzuetan, bere gurasoen idealismoaren eraginari irtenbide mistikoagoak emateko joera edo. **Juan Kruz Igerabide**  
Armando Bonillak Afrikan egin zituen **misiolari** -lanak. **Karlos Linazasoro**  
Zinez lehiatuki zeraman bere **misiolari** kargua. **Herria**  
Mundu-mailan **misiolari** -ekintzen akuilatze honek planteaturiko arazoak ez ziren, hain zuzen, eliz geopolitikazkoak. **Iñaki Mendiguren**  
**Misiolari** -itxura zuten. **Karlos Zabala**

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hideyoshiren 1587ko ordenantzarekin hasi zen, Mendebaldeko kristau-**misiolari** guztien debekua agindu baitzuen **Iñaki Mendiguren**

### 6 (izen soila aditzekin)

Gero kontatu zidan Tientsin-en **misiolari** ibilia zela Ez al da akaso izango Afrikan **misiolari** ibili zinelako? **Juan Garzia**  
Lehen-lehenik esan zuen **misiolari** joan zela Afrikara, misio hauetan bere espiritu herratua, jipoitua, altxatuko zuen esperantzan. **Karlos Linazasoro**

### 7 (amodioa egiteko jarrera aipatzeko)

Han zeuden biak, bata bestearen gainean, "**misiolari**" klasiko bezain gogaikarri bati kateaturik. **Iban Zaldúa**

#### **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kristau misiolari** (3); **misiolari bat** (3); **misiolari eta** (6); **misiolari joan** (3)

## **misiolaritza** **1** iz misiolariaren jarduna.

Zein izango litzateke emaitza, orain mundu-mailan, eremu bakar batean,aldi bereko **misiolaritza** berriro piztuko balitz? **Iñaki Mendiguren**  
Islama edozein juduk nahi izan zezakeen bezain fanatikoki monoteista eta anikonista zen, eta haren jarraitzaileek arlo militarrean -eta laster baita **misiolaritzan** ere- izan zituzten garaipen izugarriek zer pentsa berria eman zioten Kristandadeari. **Iñaki Mendiguren**

### 2 (hitz elkartuetan)

Erlijio nagusi ezarriak **misiolaritza** -arlo berrietan sartzeak ondorengo arazoa sortu zuen: ea erlijio baten betiko muina bere gorabehera iragankorretatik bereiz ote zitekeen. **Iñaki Mendiguren**

## **misione** ik **misio**.

## **misionero** iz misiolaria.

Suaren alboan biluzik lo egiten ohituta zeuden eta **misionero** anglikanoek oheak eta mantak ekarri zizkieten. **Joseba Sarrionandia**

## **misionest** (*orobat mixionest g.er., misionista g.er., eta misioniste g.er.*) **1** iz/izond ipar misiolaria.

Ene xokotik Frantziara pasatu nintzen kasik zuzenean, gero Ekialde Urrunera joatekotan, hastapeneko asmoaren arabera, **misionest** gisa. **Piarres Aintziart**  
Uztaritzen nuen, hamabost urterekin, **misionest** egiteko erabakia hartu: hiru asteen duda-muda eta afera trenkatua zen. **Piarres Aintziart**  
128, rue du Bac delako **Misionesten** etxean bururatuko nituela ikasketak eta han berean apeztko. **Piarres Aintziart**  
Laster jakin nuen bazterretik Erromara igorriko nindutela teologo ikasketak egiteko, **misionest** joan aitzin Japonia edo beste hango erresuma batera. **Piarres Aintziart**  
Ganbaran sartzen nintzen, oseba **misionestak** armairuaren tirantant utziak zituen erlijiozko liburu bat edo beste irakurtu beharrez. **Piarres Aintziart**  
Janpierre Arbelbide garaztar apeza, Hazparneko **misionesten** buru egona, idazle fina eta jarraikia, Hazparneko **misionest** izana da 1938tik 1950eraino. **Herria**  
Honek zien Hazparneko **misionestei** eman botoak egiteko baimena, kongregazione bilakatzen zirela, Arbelbide buru. **Xipri Arbelbide**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Guti aski bikari egonik lehenik Milafranganeta gero Hazparnen, azken herri huntako **misionest** -etxean sartu zen eta etxe horren buru jarri azkenean. **Herria**  
Berehala lotu zen Frantses bere **misionest** lanari, hiriko ospitalea hartzen zuela aterbetzat. **Herria**  
Ikasturtea bururatu nuen Bièvres-en, proba intelektualak kausituz, aitzineko urteen aitzinamenduek lagundurik eta utzi nuen **misionest** bidea. **Piarres Aintziart**  
**Misionest** -gogo izpirik ez duenak, nola erran dezake: "Etor bedi zure erreinua". **Herria**

**Misionest** -lagun gisa joana niretzat, zerbait urterentzat. **Piarres Aintziart**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**misionest egona** (3); **misionest gisa** (7)

**hazpandar misionestak** (3)

**hazparneko misionesten** (3); **misionesten kapera** (5)

## misionestegi *iz* misionestak prestatzen diren etxea.

Martin Ospital, Donibane Grazin sortua 1859an, 1886an apeztua, (abendoko 18an), Immaculée kolejoan Paben (1887), Hasparneko **misionestegian** (1888), Albin zendua 1939an, apirilko 9an (Oblat de St Benoit). **Xipri Arbelbide**

Lacroix horrek zuen Arbelbide apeztu, eta Milafrangara izendatu lehenik, gero Hazparnera eta azkenik **misionestegira**. **Xipri Arbelbide**

## misionestgai (*corpusean misionest gai eta misionesgai*) *iz* misionesta izateko prestatzen ari den pertsona.

Apeztu nahi nuen, naturalki, ebidentziak, aitaren anaia **misionest** gaia, eta arreba Serora xuria heroi perfektuak zirelako ezetzat. **Piarres Aintziart**

Bere lana izanzen zen **misionesgaiak** aurkitzea eta Ameriketako euskaldunen obra. **Xipri Arbelbide**

## misionista ik **misionest**.

## misioniste ik **misionest**.

## miskel *iz*

Algara sortzen didate zuen eguneroko bizi behar **miskel**, burges eta epelaren gorabeherak. **Hasier Etxeberria**

## misoginia 1 *iz* emakumeenganako ezinikusia.

Esaera zaharrak eta **misoginia**. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

**Misoginia** latente ikaragarria dago gure literaturan, baina zenbat gizezko dira gai ikusteko barnean daramaten misoginoa? **Ana Urkiza**

Ezer gutxitarako balio duten gauzen altxor bilduma honetan ere behin eta berriro gai berak datoz errepikan: arrak eta emeak, emeak eta arrak, **misoginia** eta zuzentasuna, natur zientzietako bitxikeriak, mito zaharren zipiritinak... **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Sistema horiek elkar elikatu eta indartzen dira eta arrazakerian, sexismoan, **misoginian**, xenofobian, homofobian, kolonialismoan, inperialismoan eta esklabismoan oinarritzen dira. **Berria - Harian**

### 2 (hitz elkartuetan)

Halere, topatu dudun **misoginia** ttanta aipurik gabe ezin dut utzi. **Berria - Kultura**

Agirian aipatu dituzten astakeriak pentsamendu integrista eta faxista batetik sorturiko homofobia eta **misoginia** jario ultraortodoxoa dira. **Berria - Euskal Herria**

## misogino 1 *izond* emakumeenganako ezinikusia sentitzen duena.

Bestalde, gizartea, oro har, **misoginoa** da, emakumeok barne. **Ana Urkiza**

Esate baterako, **misoginoago** da Baroja Balzac baino? **Josu Zabaleta**

Liburuan diozu gayak gero eta **misoginoagoak** direla. **Berria - Euskal Herria**

### 2 misoginiari dagokiona.

Zuzentasun politikoaren garai hauetan oso itsusiztat jotzen dira esaera **misoginoak**, baina egon, sorginak legez, badaude. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

### 3 (hitz elkartuetan)

**Misogino** itxura eman. **Berria - Kultura**

## misologia *iz* arrazoitze edo argudiatzearen aurkako herra.

Hau oinarri-esakune bihurtutako **misologia** soila da, eta burugabe koena zera da: ezagutza hedatzeko baliabide artifizial guztiez duen axolagabezia metodo propio gisa goresten duela. **Ibon Uribarri**

## mistagogiko *izond* idazkiez eta kidekoiez mintzatuz, ezkutua edo misterioitsua den zerbait azaltzen ahalegintzen dena.

Nolanahi ere aurreko tradizio **mistagogikoarekin** duen lotura nabaria da puntu askotan, baina bitan bereziki: Jainkoaren ikuspenerako baldintzen deskribapenean eta horren izaera negatiboan. **Joan Mari Lekuona**

## mistela 1 *iz* zenbait edari bizi gozori ematen zaien izena.

Ke arrea **mistelaren** gozo-usainarekin nahasian ondo loditu arte. **Iñaki Iñurrieta**

Baxenafarrek **mistelaren** bukoietan gordeta pasatzen zituzten Hegoaldera Karlos erregegaiaren proklamak. **Anjel Lertxundi**

-Bukatut al da **mistela**? -Xerealek-. **Iñaki Iñurrieta**

· Ura irteten hasi zen titare txikitik, eta Benta Zaharreko Mari **Mistela** ito egin zen, eta orain erreka zilartsu bat dago Mari **Mistela** galdu zen lekuan, Benta Zaharretik hartu eta ezkerretara. **Anjel Lertxundi**

### 2 (hitz elkartuetan; orobat **mistel**)

**Mistel** kopa bada, hobe, eginagoa nago horretara. **Iñaki Iñurrieta**

Eta hala, bilera haietako batean, harrigarriro **mistel** -porro urrinen erasanari igarri ere egiten ez zitzaioela, hain zeuden denak adi, Godotek ekuazio perfektua garatu zen modu ezin zehatzagoan. **Iñaki Iñurrieta**

Haien bileretan, porro-**mistelak** lagun, ideia zaparradak bat-batean hasten ziren. **Iñaki Iñurrieta**

# mister 1 iz jauna.

Eskerrak **mister** Lewin azaldu zela. **Joxe Austin Arrieta**

**Mister** Bean sentitzen naiz. **Pako Aristi**

Munduko Txapelketan, Jekyll doktorea **Mister** Hyde bihurtzen da. **Berria - Kirola**

Asea bainaiz ikustea **Mister** Bean-en astakeriak, maiz berberak errepikatzen baitituzte. **Herria**

-Benetan, **mister** Brown -egin zion gogor Sonjak-. **Anton Garikano**

## 2 edertasun lehiaketa baten irabazle gizonetzkoa.

**Mister** Euskadi lehiaketa iragan da joan den astean, Bilbon. **Herria**

## 3 futbolean, entrenatzailea.

Izugarriko istiluak zebiltzan Athletic Club-ean, liga txapelketan nahiko gaizki zihoalako batetik, eta bestetik haserre handiak sortu berri zirelako **misterraren** eta jokalarien artean. **Joxemari Iturralde**

**Misterrak** galarazita dauka entrenamenduetan molestatzeari. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 4 (hitz elkartuetan)

Telebistan azaldu nahi dugu, baina bertsotan, ez platoko piszina batean globoak lehertuz, ez **mister** lehiaketa batean epaile lanetan, ez txiste kontari... **Andoni Egaña**

# misterio 1 iz giza ezaguerari edo norbaiti ulergaitz gertatzen zaion gauza; gauza ezkutua.

Metenpsikosiaren **misterio** handia. **Josu Zabaleta**

Hura **misterioa**, Amets batek hildako gizona! **Josu Zabaleta**

Gizadiaren **misterio** oinarrikoak argitzeko biderik izango zela ere uste izan zen orduan. **Juan Garzia**

Biziaren **misterioak** azaltzeko asmoz. **Aingeru Epaltza**

**Misterioa** ia beti antzemanazina zela esan zuen. **Bernardo Atxaga**

**Misterioaren** aurrean, batez ere zientzian bertan gizakia den **misterio** txundigarriaren aurrean, begiak ireki egin behar ditugu askatasun osoz. **Jenaro Garate**

Bi ordu geroago ezin argituzko **misterio** handiaren aurrean egongo ziren, hara zihoazen, bizitzatik heriotzara alde egingo zuten, eta ataka horretan ezagutu zuten elkar. **Jose Morales**

Izadiaren egintzak, sortzearen **misterioaz**, urraezinak dira. **Andres Urrutia**

**Misterioek** ikaratu egiten gaituzte. **Koro Navarro**

Halako batean ilunpean sartu gara, eta "tunela" omen zen hura, **misterio** huts eta bete-betea ni omen nintzen ume harentzat. **Iñaki Segurola**

Niri, ingeles barbaro honi, eman zait **misterio** garden hori agerian jartzea. **Juan Garzia**

-Bai -jarraituko zuen **misterio** handiz-. **Josu Zabaleta**

Dena **misterio** jin zait. **Marzel Etxehandi**

Nolaz ote zen prokuradore eta zuzendaritza kide haren konfiantzaren hartzeduna, **misterio** argiezina zitzaion. **Elena Touyarou**

Naturako **misterioen** giltza. **Jose Morales**

Ez da hor **misterio** berezirik. **Herria**

Gauza natural izenekoek sekula baino fama hobea irabazi dute gaur egunean, eta ez da **misterio**: [...]. **Iñaki Segurola**

## 2 kristau erlijioan, giza arrazoiak ezin uler dezakeen dogma. **iksinesgai**.

Eukaristian, Kristoren gorputz eta odolaren **misterioan**. **Askoren artean**

Hirutasuna gure erlijio santuaren **misterio** gorenetakoa da. **Xabier Olarra**

Handia da **misterio** hau, eta nik Kristori eta Elizari loturik ikusten dut. **Elizen arteko biblia**

Ez dago ere Hirutasun Guztiz Santuko **misterio** oroz gaineko eta hondo gabekoan sartzerik. **Joan Mari Lekuona**

Ez baita Jainkoaren **misterio** ezkutuak garbi adierazteko gauza. **Askoren artean**

Jainko-jakinduriaren **misterio** ezkutuak ematen zitzaizkion aditzera. **Iñaki Iñurrieta**

Gurutzearen **misterio** handi eta miresgarri honen sakon-sakonean daude gordeak graziaren dohainak, bertuteen merituek eta jakinduriaren eta ezagueraren altxorrak. **Askoren artean**

**Misterio** barneratu ezina. **Joan Mari Lekuona**

Jainko maitea, hain zaude maitasunez, **misterioz** eta dirdaiz beterik... **Lopez de Arana**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baina... - eta esaldia eten zuen, **misterio**-giroa hauspotzeko -: abiatzera noanean jakinaraziko dizut. **Anjel Lertxundi**

Uste dut Silvioren irudiaren inguruko **misterio**-laino hura gehienbat gure aitak hedatzen zuela. **Fernando Rey**

Rousseauren hitz haiek beti izan zuten **misterio** kutsu bat alargunarentzat. **Imanol Zurutuza**

Hainbestearinoko literatura, krimen, abentura eta **misterio**-dosiak aspertu egin zuen azkenerako. **Josu Zabaleta**

Teresa bezala bakarrik bizi diren pertsonen, niretzat badutela **misterio** plus bat, erakargarriago egiten dituen. **Patxi Zubizarreta**

Laino-arte gero eta ugariagoetako argi-txinta horiek lainoetako griskara zama-tsuarenekin kontrastatzen zuten, dirdai eta ubel, abailtzen ari zen arratsari halako **misterio**-itxura irrealia emanez. **Anjel Lertxundi**

**Misterio**-plantak egin zituzten. **Fernando Rey**

Haren konturik Dekano jaunaren edo Erretore jaunaren aurrean aipatzen zen bakoitzeko, halako **misterio** irribarre bat ikusten zitzaien beti. **Josu Zabaleta**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Benetako jakituriak, "giza **misterioak** zulatzen" ahalegintzen denak, ortodoxia baino harantzago jotzen duela beti. **Anjel Lertxundi**

Ofizioaren ardatza eta mamia Pazko **Misterioa** dela esan behar da. **Askoren artean**

Jaungoikoak gure gorputza hartuz eta gure artean bizi izanez gauzatutako haragiztatze **misterioaren** handitasun paregabeak. **Imanol Unzurrunzaga**

## 5 **misteriozko** (110 agerraldi, 34 liburu eta 5 artikulutan) ik misteriotzu.

Irrikena da Freudek landu zuen psikismo-ereduaren alderdirik **misteriozkoena**. **Josu Zabaleta**

Gizon batek bere inguruan **misteriozko** giro bat sor dezakeenean, berak izaten du beti abantaila jendearekin tratuan aritzeko orduan. **Oskar Arana**

**Misteriozko** antzerki batean lehen aktoan bakarrik parte hartzen zuen aktorea. Jesus Jaunaren gorputz **misteriozkoa** besterik ez den Elizaz diharduen *Mystici corporis* deitu gutun famatua. **Harkaitz Cano**

Bestelako egoera berezi batzuetan gertatzen da hori, arrisku zehazgabeen aurrean eragin **misteriozko** batzuk gertatzen direnean. **Josu Zabaleta**

Ceciliak, ordea, aire berri bat zuen ordurako, **misteriozkoa** bezala, familian ohi zuenaren oso bestelakoa. **Josu Zabaleta**

Irrikena da Freudek landu zuen psikismo-ereduaren alderdirik **misteriozkoena**. **Josu Zabaleta**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

biziaren misterio (3); gurutzearen misterio (3); istorio misterio (4); misterio aire (3); misterio apur (4); misterio apur bat (3); misterio bat da (9); misterio bat izan (5); misterio ezkutuak (3); misterio guztia (5); misterio guztiak (11); misterio handi (6); misterio handia (7); misterio handia da (3); misterio handiaren (3); misterio handirik (7); misterio handiz (8); misterio hutsa (4); misterio itxura (4); misterio kutsu (10); misterio kutsu bat (4); misterio kutsua (4); misterio laino (3); misterio santuak (4); misterio txiki (3)

**bizitzaren misterioa** (4); **gurutzearen misterioa** (3); **hori misterioa da** (3); **jainkoaren misterioa** (5); **kristoren misterioa** (3); **misterioa argitu** (9); **misterioa argitzea** (4); **misterioa da** (26); **misterioa ulertzeko** (4); **misterioa zen** (4)  
**misterioaren giltza** (4)  
**misteriorik gabe** (3); **misteriorik gabeko** (3)  
**misterioz betea** (9); **misterioz beteak** (4); **misterioz beterik** (4); **misterioz beteriko** (3)  
**misteriozko kemen hori** (7)

---

misterios ik **misterioso**.

---

misterioski ik **misteriosoki**.

---

**misterioso** *izond* misteriozkoa, misteriozkoa.

Ez dut inoiz ikusi honelako gauza **misteriosorik**. **Koldo Biguri**  
Harantzago, eskutia zuriko ate bat, zeinaren atzean, antza, zerbait **misteriosoa** ostentzen zen, Andreasantzat **misteriosoa**, behinik behin. **Matias Mujika**

---

**misteriosoki** *adlag* era misteriozkoa.

Hori bai, hemen ere, munduko bazter guztietan tarteka **misteriosoki** ematen diren erabaki komun horietako bat ikus dezakegu: neoi gorriaren argia dir-dir eginez gauean, leku beroak iragartzeko kodigo bakarra bailitz. **Pako Aristi**

---

**misteriozkoa** (**510** agerraldi, **142** liburu eta **56** artikulutan) **1** *izond* misteriozkoa.

Egia ote gizon **misteriozkoa** honek dioena? **Oskar Arana**  
Indar ezkutu eta **misteriozkoa** batez. **Lopez de Arana**  
Bazela Lajosengan indar-iturri **misteriozkoa** bat, zenbait errekatxok dutenaren parekoa. **Ander Irizar**  
Ezagutzen ez nuen mundu **misteriozkoa** batek dei egin balit bezala. **Txillardegi**  
Horma hauek hizkuntza **misteriozkoa** batean ariko balira bezala. **Fernando Morillo**  
Ahots ezezagun **misteriozkoa** batek. **Aritz Gorrotxategi**  
Gogo horrek, argi dago, ez du onartzen besterik Estatuaren interes **misteriozkoa** eta aldakorra baino. **Koro Navarro**  
Antzinaroko alfabeto **misteriozkoa** baten ikurrak ziruditen. **Alberto Ladrón Arana**  
Denbora eta espazio neurgarriak baino haratagoko eremu batean dago gure baitako irudimenaren esparru **misteriozkoa** hori. **Anjel Lertxundi**  
Kimika **misteriozkoa** iruditzen zaizue, baina ez du ardoa inoren odol bihurtzerainoko abildaderik. **Anjel Lertxundi**  
Kanpoko ekintza materialek Frantziak etorkizunean egingo zuena aurreirudikatzen zuten modu **misteriozkoan**. **Askoren artean**  
Federicok era **misteriozkoan** esaten zuen mentura gaiztoaren lagun zirela, gauzez ibiltzen zirela begiak moztuz ezalita beren ama urdeen lotsa beltzak ezkutatzeke. hain **modu misteriozkoan** hitz egin ziolako. **Pello Lizarralde**

**2** (adizlagun edo izenondo gisa)

**Misteriozkoa** hurbildu zen. -Beharbada, beharbada! -esan zuen, **misteriozkoa**. **Edorta Jimenez**  
Congok burua astindu zuen **misteriozkoa**. **Lopez de Arana**  
Hainbati **misteriozkoa** gertatuko zaizkion estilo-dohainak egotzen dizkio. **Juan Garzia**  
Zerbait zegoen **misteriozkoa** edo atxikiezin, niregan nahasian lilura eta izua pizten zituena. **Fernando Rey**  
Liburutxo lurrean zetzan, **misteriozkoa** eta urez blai. **Iñaki Mendiguren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gizon misteriozkoa** (3); **hitz misteriozkoa** (5); **liburu misteriozkoa** (3); **neska misteriozkoa** (3); **pertsona misteriozkoa** (3)  
**aski misteriozkoa** (3); **gizon misteriozkoa** (3); **misteriozkoa iruditzen** (3); **misteriozkoa zen** (3); **urtegi misteriozkoa** (3); **zerbait misteriozkoa** (4); **ziklista misteriozkoa** (6)  
**gauza misteriozkoak** (3); **izaki misteriozkoak** (3); **izaki misteriozkoak eta** (3)  
**modu misteriozkoan** (4)

---

**misteriozkoa** *adlag* era misteriozkoa.

-Ez diozu ezer antzeman? -xuxurlatu zuen Hofrat Klementik **misteriozkoa**. **Anton Garikano**  
Nire begi **misteriozkoa** murgilduak. **Koro Navarro**  
Erniek ahotsa apaldu zuen **misteriozkoa**, Hufflepuffekoak are gehiago hurbildu ziren elkarrengana. **Iñaki Mendiguren**  
Eskuineko eskua **misteriozkoa** gora altxatzea besterik ez zuen egin, eta gero berriro belauan gainera erortzen utzi, sinfonia sekretu bat zuzentzen ari balitz bezala. **Anton Garikano**

---

**misteriozkoa** *iz* misterio txikia.

Nekaturik ez ezik, deseroso ere sentitzen hasi gara gauza pertsonalegiak aterako ote ziren beldur, eta, gure **misteriozkoari** eutsiz, gure solasaldia sua bezalaxe itzali da. **Patxi Zubizarreta**

---

**misteriozkoa**, misteriozkoa, misteriozkoa **1** *iz* faltsutu.

Arestiren etxea ez zen [...] sabinismoaren abaroen mitifikatu eta **misteriozkoa** zen euskararena. **Iñaki Arranz**  
Gertagarritasunari buruz mintzo garenean, bertan barne-harturik baitago gertagaiztasuna ere, ahalgarriaren mugako edo muturreko kasu gisa, eta halako batean gertagaitza gertatu ere gertatzen denean, ez dago zer harriturik, zer hunkiturik, zer **misteriozkoari**. **Joxe Austin Arrieta**

**2** (era burutua izenondo gisa)

Ilatzi horretan ez da zalantza handirik gelditzen, bertan bortizki arbuaitzen baita euskal izate orientalizatu eta **misteriozkoa**, museoko pieza eta misteriozkoa enigma bihurtua. **Joseba Zulaika**

# mistifikazio *iz* faltsutzea.

Conradek salatzen zuen txiripen pilaketa bezain faltsua da hori, noski (**mistifikazio** bat, alegia), baina zentzugabeari zentzua ematen laguntzen digu. **Xabier Mendiguren**  
**Elizegi**

Badirudi Silverio Lanzak berak **mistifikazioen** lanbroan bildu nahi izan zituela bere bizitza eta obra, ezkutaturik bizitzeko trikimailuak kalkulatu zituela eta misterioaren amaraunean preso geratu zela betiko. **Joxean Agirre**

Horrenbestez, urte hauetan zehar denetik izan da kooperatiba saiakuntzaren gainean: mirespena, **mistifikazioa**, etsipena eta baita kritika latza ere. **Iñaki Heras**

Halere, egon zen bestelako ahaleginik ere: **mistifikazio** handiko poemak idatzi zituz-ten gazteek. **Berria - Kultura**

## mistika 1 *iz* teologiaren atala, Jainkoa eta gizakia batzeaz, batasun honen mailez eta Jainkoa begiesteaz diharduena.

**Mistika** ez da behar bada esentziaz erlijiosoa. **Piarres Aintziart**

Beren susmatze-datuekin iritsi ohi dira **mistikako** gauzarik goratuena ulertzera, harro sentitzen dira horrelako ekintzaz eta erraz mintzatzen ere bai gai horietaz. **Joan Mari Lekuona**

**Mistikak** bere-berea duen kontenplazioa ez datorrelako bat gure izaerarekin. **Anjel Lertxundi**

Nik ez dut inolako **mistikarik** behar, gertagaitza benetan gerta daitekeela onartzeko; aski dut matematika, horretarako. **Joxe Austin Arrieta**

Lan egiten zuen arloak, partikulen fisikak, aspaldi erakutsi zion oso lausoak zirela zientziaren eta filosofiaren -eta are **mistikaren** - arteko mugak. **Iban Zaldúa**

Sektetan eta **mistikan** erremedioa eta salbamena bilatuz. **Joan Mari Lekuona**

### 2 (kalifikatzaileekin)

Johannes Eckhart da, alemaniar **Mistikaren** ordezkari indartsu eta sakonena. **Joan Mari Lekuona**

Alemaniar Erdi Aroko **Mistika**. **Joan Mari Lekuona**

Erdi Aroko **mistika** juduaren funtsezko testua. **Fernando Morillo**

Zer ote zen ba Done Juan de la Cruz-en **mistika**, sentimenduaren jainko-erako zalduntza ibiltaria besterik? **Joxe Azurmendi**

### 3 irud/hed

Castroren **mistika** iraultzaile hori. **Jon Muñoz**

Azkenerako gauchoaen **mistika**, Artigas eta Rosas, aldareetara jasoko zituen barbarokeriaren gorespenean lagundu zuen. **Juan Garzia**

Diruen, legeen eta pistola ilunen inperioean, falangistek herriaren **mistika** zaintzeko sistema berezia antolatu zuten. **Joseba Sarrionandia**

Baina guk karlismoaren **mistika** genuen, Don Juan Manuel Garaikoak hala esaten zuen behintzat. **Joseba Sarrionandia**

Gure Herria eta Gure Hizkuntzarekiko ezinezko **mistika** lerdajariozko batean lausoturik bizi zirenak eta direnak. **Iñaki Segurola**

Benetako gudari izatearen suhartasuna, odola emateko gerturik egotearen **mistika** hordigarria. **Juan Kruz Igerabide**

SMSaren **mistika**. **Berria - Gaiak**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **mistiko**.

Nire bizitzako hurrengo sei urteak **mistika** -eremuko ororekiko nahiko jarrera eszeptikoan igaro nituen. **Xabier Aranburu**

**Mistika**-liburuak. **Joan Mari Lekuona**

Ekialdeak, aldiz, nahiago ditu sinbolismoa eta **mistika** gaiak. **Berria - Gaiak**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Guztiz baliatzen da Klara Jesu Kristo begiratu, hausnartu, kontenplatu, besarkatu eta, ezkon-**mistikaz**, haren antzeko bihurtzeko. **Askoren artean**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**karlismoaren mistika** (4)

## mistiko 1 *izond* erlijio alorrean, misterioari dagokiona; mistikari dagokiona. ik**mistika** 4.

Modu honetan berean, Eliza Santuan ere bada ordena-batasun bat, gorputz **mistikoa** izena justifikatzen duena. **Joan Mari Lekuona**

Estatu nazionala Gorputz **Mistiko** bezala! **Joxe Azurmendi**

Bonabenturaren teologia **mistikoaren** hizkera. **Askoren artean**

John Deeren krisialdi **mistiko** hau 1580 aldera hasi zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Fenomeno **mistikoa** beti egon da presente kristau-tradizioan. **Joan Mari Lekuona**

Komentu horiek dira izpiritualitate **mistikoaren** benetako zentroak. Koadroa ederra da, eta tristea, eta larrimina sortzen du, kezkarria gertatzen zaigulako plazerra eta oinazea, estasi sexuala eta **mistikoa** bereizten dituen muga, ilunbea. **Joan Mari Lekuona**

Egia ere da hori eta dagokion esperientzia **mistikoa** ia beti korrante albokide bat izan direla. **Joan Mari Lekuona**

Judutasunaren jakintza **mistikoa**, batez ere Erdi Aroan zabaldu zena. **Koro Navarro**

Johannes Tauler-ek bultzatu zuen alemaniar mugimendu **mistikoaren** loraldiak. **Joan Mari Lekuona**

Begieste **mistikoan** biziki trebatuz utz itzak alde batera zentzumenak eta endelguaren jardunak eta sentigarria eta adigarria den guztia. **Joan Mari Lekuona**

Edertasun **mistikoaz**, barneko edertasunaz. **Alberto Barandiaren**

Jantziok, izan ere [...] esanahi **mistikoz** eta erlijiozkoz beteak baitira. **Juan Garzia**

Esanahi esoterikoa, kutsu **mistikoa** duen objekturen bat. **Alberto Ladron Arana**

Mugimendu honek baditu oinarri **mistikoak** ere. **Berria - Gaiak**

Munduko gauzakirik **mistikoanetako** bat bilatzera joan ginen Tibetera: Longinos Lantzaren bila. **Alberto Ladron Arana**

Poesia **mistikoaren** irakurketa erotikoa. **Patziku Perurena**

### 2 irud/hed espirituala, sinbolikoa.

Frantzisko dohatsuaren eztei **mistikoak** Andre Pobretasunarekin. **Askoren artean**

Isiltasun **mistikoak** gela berotzen zuen. **Itxaro Borda**

Begira; zuk sentitu zenuen hura maitemin hutsa izan zen, kolore **mistikoz** jantzia nahi baduzu. **Juan Kruz Igerabide**

Bordaren metodoa ez da dialektikoa, baizik **mistiko** ezkertiarra. **Markos Zapiain**

Zenbakien zientzia gisa sortu zuten aritmetika, nahiz zenbakiez ikuspegi **mistikoa** zuten. **Jon Muñoz**

### 3 (izenondo elkartuetan)

Liburutxoa zenbait pasartetan eta batez ere sarrerako pasarteetan oso espekulatiboa da eta guztiz zaila ulertzen, zeren pentsamendu **mistiko**-eskolastiko zeharo garaietatik barrena baitabil. **Joan Mari Lekuona**

Espainolketaren apologia **mistiko**-teologiko honetan, bi puntu daude nabarmenak. **Joxe Azurmendi**

Ez du merezi asmo **mistiko**-psikologikoekin astuntzea. **Jon Muñoz**

Herder-en herri gogo edo izpiritua naturalista da, ez **mistiko**-metafisikoa. **Joxe Azurmendi**

Hezkuntza eta gogoeta bereziki mistiko baten jaiotza eta garapenerako, **mistiko**-espekulatiboarena areago. **Joan Mari Lekuona**



## • 4 iz ipiritutzia ematen den pertsona; idazten duen pertsona.

Heinrich Suso, beste **mistiko** dominikar handiaren eta era berean Eckharten ikaslearen garaikide izan zen. **Joan Mari Lekuona**

Besterik al da ba, funtsean, konkistatzaileen filosofia!, kontrarreformatzaileena, Loiolakoarena eta, batez ere, jadanik pentsaera abstraktuaren mailan, baina sentituz, gure **mistikoena**? **Joxe Azurmendi**

Benetako **mistikoak** ez zaizkigu itzultzen beren zeharkaldia kontatzera. **Xabier Kintana**

**Mistikoek** diotenez, berriz, ganbara biribil halako bat ematen die ikustera estasiak, eta bertan paretan jira guztia hartzen duen liburu biribil izugarri handi bat, bizkar etengabe bakarra ageri duena. **Juan Garzia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gorputz mistiko** (5)

**kutsu mistikoa** (3)

**gorputz mistikoaren** (3)

## mistikoki *adlag* era mistikoan.

Balio txiki lokalei **mistikoki** atxikita pintatzen ditu beti Finkielkrautek: honentzat, izan ere, balio transzendente unibertsalen kultura kosmopolita ilustrazioa -frantsesa- da. **Joxe Azurmendi**

Hots, ideologiari ideologikoa, adierarik txarrean: trapu literario koloretsutan bezitua, [...] arima profetikoaren mitologiak erlijioso-**mistikoki** sublimatua. **Joxe Azurmendi**

## mistikotasun *iz* mistikoa denaren nolakotasuna.

Sufismoak maila pertsonalari garrantzia handiagoa ematen dio, **mistikotasuna** bultzatuz. **Berria - Euskal Herria**

Zentzuak betetzen dizkion **mistikotasun** moduko hau. **Hasier Etxeberria**

## mistizismo *iz* espiritualitate sakonerako joera.

**Mistizismoarekin** batera erasmismoaren eta iluminatuen espiritua nabari da haren ekarrian. **Askoren artean**

Eskizofreniak asko laguntzen du Hölderlinen poesia eta haren **mistizismoa** ulertzen. **Anjel Lertxundi**

Dostoievskik **mistizismo** erlijioso sukartsu baten aldrean eman zituen azkeneko urteak. **Anjel Lertxundi**

Fisika modernoak ateratako ondorio nagusiak bat datoz Asiako antzinako filosofiekin, batez ere Indiako **mistizismoarekin**. **Berria - Gaiak**

Zazpi urtez munduko lau hegaletan ibilia zen, **mistizismoa**, Kabbalah eta jakintza ezkutuak ikasten: Egipton, Thailandian, Indian... **Gotzon Garate**

Horregatik erakutsi du Erromak halako jakinduria Ekialdeko **mistizismo** eta abandonismo itsu haren izaera goxatzen. **Patziku Perurena**

'Jainkoaren presentzia edo gorentasunak' [...] ohi ez bezalako garrantzia ukan zuen rabbitar literaturan eta, oso berreziki, Kabala edo judutar **mistizismoan**. **Xabier Kintana**

## 2 (hitz elkartuetan)

Hura guztia oso serio eta **mistizismo** puntu batez hartzen banuen ere, bazuen jolas-eite bat, eta, noizbehinka, pailazo samar ere sentitzen nintzen gorputz-jarrera bixi haietan. **Juan Kruz Igerabide**

Sonata hauek duten gauzarik ederrena sortzen duten **mistizismo** efektua da. **Berria - Kultura**

## misto<sup>1</sup> *iz* pospoloa.

Joxe dudarik egin gabe barneratu da, erdian gelditu eta **misto** bat piztu du. **Pello Lizarralde**

**Mistoaren** lehenengo txinpartak begiak itxiarazi dizkio, bigarrenaren ondotik figura makurtu bat agertu da Abelengandik metro pare batera. **Pello Lizarralde**

## misto<sup>2</sup> (*orobat mixto g.er. eta mixta g.er.*) 1 *izond* bi osagai, zati, alde edo izaera desberdinek osatua.

Gainera, alde biek adostu dute hemendik aurrera batzorde **misto** batean eztabaidatuko dituztela desadostasunak. **Berria - Euskal Herria**

Eros -hau da, Maitasuna- jainko eta emakume baten haurra da; beraz, izaki **mistoa** da, gu bezala. **Askoren artean**

Formula **misto** bat erabiltzea proposatu die Joseba Azkarragak zuzentzen duen sailak langileen ordezkariei: akordioa dauden puntuetarako bitartekaritza erabiltzea eta ezadostasuna sortzen duten kontuetan arbitrajearen bidez irtenbidea bilatzea. **Berria - Ekonomia**

Autorregulazio Batzordea eta Jarraipen Batzorde **Mistoa**. **Berria - Harian**

Hirugarren batzuek, hala ere, ezkontza antzaldatzen zuten, egintza **misto** moduan hartuz, alegia, aldi bereko kontratu zibil eta eliz kontratu moduan, bi izate horiek bertara bilduta. **Andres Urrutia**

Ezkontza **mistoak** debekatu zituzten, zuriak ez zirenei zegokien lur kopurua arautu zen, *Only Whites* (Zuriak bakarrik) delako mitoarekin garraioak, leku publikoak, bizilekuak, aisialdirako tokiak... bereiztu egin zituzten. **Berria - Mundua**

Gainera, bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko trenbide **mistoa** nahi dute, beraiek ere salgaien garraioaren arazoa daukatelako. **Berria - Euskal Herria**

Programa **mistoa** aukeratu zuten, lan batzuk organo bakarrarentzako eta beste batzuk aipatu duoarentzat. **Berria - Kultura**

Inauterien aitzakian jaialdi **mistoa** antolatuta dute, esku-huska eta erremontea uztartzuz. **Berria - Kirola**

Entsalada **mistoa** eta atuna tomateaz aukeratu genuen, eta edateko, sagardoa. **Joxemari Iturralde**

Han ogitarteko **mistoak** ematen dituzte, bera baino mokofinago direnentzat ere onak direnak, baso bat ardorekin. **Jon Alonso**

## 2 (ekonomian)

Benetako merkatu-ekonomiak baino gehiago dira ekonomia **mistoak**, praktikan, estatuaren esku-hartzea nonahi gertatzen den errealitatea baita. **Iñaki Heras**

Aldiz, kontrol publikoa eta kapital pribatua izango duen elkarte **misto** baten aldekoak dira sozialistak. **Berria - Ekonomia**

Pribatizazioaren ordez elkarte «**mistoa**» sortzea proposatu du PSE-EEK Alternatibak eskainiko dituen ekonomia **misto** bat proposatzen dugu, beti ere herritarren duintasunaren alde borrokatuko duena, alegia. **Berria - Ekonomia**

Parisko Udaleko Siemp enpresa **mistoak** erosi zuen eraikina urtarrian. **Berria - Harian**

## 3 bi sexuetako personak biltzen dituena.

Hezkuntza **mistoa** zen, mutilak eta neskek nahasiak ginen. **Ana Urkiza**

Irakaskuntza moderno, demokratiko, **misto** eta progresistaren gozoa dastatzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Kalat herriko eskola **misto** bateko irakasle bati lepoa moztu zioten atzo ustezko talibanek. **Berria - Mundua**

Ikastetxeak **mistoak** badira ere, diskriminatzen jarraitzen dute. **Berria - Euskal Herria**

Aco deitzen diote; antzerki talde **misto** bat sortu zuen hiriko gazteekin. **Berria - Harian**

- Alarde **mistoari**, berriz, urdu hauek jarri dizkiote: goizeko hamarrak eta arratsaldeko bostak. Berria - Euskal Herria

Konpainia **mistoak**, hala ere, manifestazio baimenarekin desfilatu ahal izango du, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak horretarako baimena eman baitio. Berria - Euskal Herria

1980tik aurrera danborrada hori **mistoa** izan da. Berria - Euskal Herria

- Oñatiko Ganbera Abesbatza 1996an sortu zen Esteban Urzelairen zuzendaritzapean, eta **mistoa** da. Berria - Kultura

## 4 (izen gisa) ogitarte mistoako.

**Mixtoak** oso onak egiten dizkik, **mixto** beroak! Pako Aristi

## 5 *eremu misto* Nafarroko Euskararen Foru Legearen arabera euskal eta erdal eremuen arteko eremua.

Noain **eremu mistoan** kokatuta dago. Berria - Euskal Herria

Legearen esparruari dagokionez, arartekoak nabarmendu du eskara **eremu mistotik** desagerrarazteko irizpideek ez dutela bat egiten Euskararen Legearekin. Berria - Euskal Herria

Hainbat eskubide **eremu misto** eta ez euskaldunera zabaltzea, edota organo administratibo bat sortzea, «bere ahalegin eta baliabideak Euskararen Foru Legearen garapen eta aplikazioaren koordinazioan bideratuko dituena». Berria - Euskal Herria

Euskarari **eremu mistoan** eremu euskaldunaren pareko babesa ematea, «Nafarroako legeriak aurreikusten duen moduan». Berria - Harian

## 6 *talde misto* legebiltzarrean, alderdi politiko batek baino gehiagok osaturiko taldea.

Talde **mistoaren** araudia hitzartzeko eskatu die Mahaia EB-IUri eta Uari. Berria - Euskal Herria

Biak **talde** mistoan egonda, interbentzio txandak eta finantzaketa ere banatu egin beharko dituzte. Berria - Harian

EAK taldea izango du, eta EB eta Aralar **mistoan** egongo dira. Berria - Harian

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**batzorde misto** (5); **batzorde misto bat** (3); **elkarte misto** (3); **eremu misto** (3); **jaialdi misto** (3)

**alarde mistoa** (6); **jaialdi mistoa** (5); **konpainia mistoa** (3); **talde mistoa** (9)

**alarde mistoak** (9); **komisio mistoak** (3); **konpainia mistoak** (3); **talde mistoak** (12)

**alarde mistoan** (4); **batzorde mistoan** (4); **eremu mistoan** (10); **mistoan egongo** (4); **talde mistoan** (15); **talde mistoan egongo** (3)

**alarde mistoaren** (6); **talde mistoaren** (6)

**konpainia mistoari** (3)

**indar mistoei** (3)

**alarde mistoko** (5); **batzorde mistoko** (3); **eremu mistoko** (5); **talde mistoko** (9)

**sa talde mistora** (3); **talde mistora** (12)

**eremu mistotik** (3)

## mistol *iz* xaboi likidoa.

Nik neure estudiante denboran edozelan garbitzen nuen gorputza: marka bako txanpuaz, lagartoz, **mistolaz**. Jon Arretxe

Gero latexeko goanteak kendu, bota, eskuak garbitu zituen **mistolarekin**, eta ostera ere mandarrean idortu. Jon Alonso

## mistral *iz* Mediterraneo itsasoan, ipar edo ipar-mendebaldeko haizea.

Baina neguan ez da itsasaldirik, beti dabil tramontana, edo **mistrala**, edo hegoa edo euro delako hego-sortaldetik heldu den hori. Juan Garzia

Berriro pinudiak **mistralaren** menpe. Joxe Austin Arrieta

**Mistralak** Marseillakoen ganbara nahasten duenean, akabo! baina egun ona izanez gero, Valentziak gogor lan egin beharko du UEFA eskuratzeko. Berria - Kirola

## mistura *iz* nahastura.

Nobela beltz eta sozialaren arteko **mistura** bat. Unai Iturriaga

Bada, kontuz ibili behar dugu ba nork zein hizkuntza ezagutzen duen, iberiarren artean erabiltzen dugun portoñola -portugesa eta espainoalaren arteko **mistura** - ez baitakigu nori egiten zaion ulergarri eta nori ez. Edorta Jimenez

## miszelanea *iz* nahas-mahasa.

Horregatik publikatzen zuen aldian-aldian halako **miszelanea** bat. Unai Elorriaga

## mitifikatu, mitifika, mitifikatzen 1 du *ad* norbait edo zerbait mito bihurtu.

Hasten da bat presokratikoak irakurtzen [...] eta susmoa hartzen du haien racionalizazio-jardueran asko dagoela mitotik, arrazoia bera **mitifikatzen** dutelako, neurri batean.

Baina guk, beti bezala, *vasconismo* zahar garbia ergelkiro **mitifikatuz** paleolitoina eraman dugu atzo goizeko ikazkinen gizaera mixerablea. Askoren artean

Arestiren etxea ez zen [...] sabinismoaren abaroan **mitifikatu** eta mistifikatu zen euskararena. Iñaki Arranz

Nagusiek haurtzaroa **mitifikatu** eta lorez eta pinpilinpauxez margotzen dute; baina, nire ustez, bizitzako garairik gogorrenetarikoa eta zailenetarikoa da haurtzaroa. idazlearen figura **mitifikatuta** duela. Ana Urkiza

## 2 (era buruta izenondo gisa)

Nik adi-adi entzuten nion guztia, bere aurrean jesarrita, aditzen nuena ulertu ezinik, jasandako guztia jasanda, oraindik zelan gordetzen zuen bere ezkontzaren irudi hura, Antonioren irudi **mitifikatu** hura. Sonia Gonzalez

Halaz, armada herrikoi **mitifikatu**en alderako autonomia apurra premiazkoa zaigu, egoeraz, orainaz eta geroaz pentsatzeko. Itxaro Borda

Horrexegatik ematen dit zer pentsatua, konparazio batera, euskal ikazkin **mitifikatuari** buruzko azken filmaketa fantastikoak Oartzun aldean egin izanak. Patziku Perurena

## mitifikatzaile *izond* mitifikatzen duena.

Agintea eta oroitzapen historikoen erabilera **mitifikatzailea** loturik agertzen dira maizegi. Berria - Euskal Herria

## mitifikatze *iz* norbait edo zerbait mito bihurtzea.

Idazlea enetzat artista da eta artisaua, Grezia klasikoan zen eran, **mitifikatze** erromantikorik gabe. Ana Urkiza

# mitifikazio iz mitifikatzea.

**Mitifikaziorako** tresna aproposena dira argazkiak. **Harkaitz Cano**

Beste ikuspuntu batzuen arabera, globalizazioa, hein handi batean, ez da erretorika eta **mitifikazio** hutsa baino. **Iñaki Heras**

Jardunaldien xedea Pirinioen **mitifikazioa** «ikuspegi global batetik» aztertzea da. **Berria - Kultura**

Personaiaren **mitifikazioa**, haren interpretazioak eta are ospea bera, ahantzirik ez bada, alde batera utzirik bederen apur batez. **Juan Garzia**

## mitiko 1 izond mitoarena, mitoari dagokiona; mito izaera duena.

Halaxe hasten da pentsamendu **mitikoa** ere. **Juan Garzia**

Hara eskuartean pistola **mitikoa**, denek haren berri izanik inork begiz jo gabea. **Juan Kruz Igerabide**

Freud-ek eman zigun *Totem eta Tabu* saiakeran "aita primordiala"ren kontakizun **mitikoa**. **Joseba Zulaika**

Kontaduriako Sisifo nintzen ni eta, heroi **mitikoaren** antzera, ez nuen sekula etsitzen, ehungarrenetaz, milagarrenetaz, berrekiten nien eragiketa gupidagabeei. **Joxan Elosegi**

Inoiz gertatu ez zen Erdi Aro **mitiko** hark. **Patziku Perurena**

"Independentzia" da hitz **mitiko** horietako bat. **Joseba Zulaika**

Kontatze-modu horrek, gainera, halako durundi **mitiko** bat ematen dio kontaketari. **Iñaki Iñurrieta**

Azken hori, Sbarūa delakoa, nago Sandrok berak aurkitua ez ote zen, edo haren anaia **mitiko** batek. **Juan Garzia**

Frantzian, adibidez, biziki aspalditik asmatua zuten Clovis erregearen historia saildu **mitikoa**. **Piarres Xarriton**

## 2 pertonez edo gauzez mintzatuz, bere entzute edo ospe handiagatik eredu bilakatu edo historian sartu dena.

Betor nire belaunaldiarentzat figura **mitiko** izan zen Bob Dylan ere. **Joseba Zulaika**

Ernesto Che Guevara iraultzaile **mitikoak** gaztetan eginiko bidaietan oinarrituriko istorioak publikoaren, kritikarien eta ekoizleen oniritzia jaso du. **Berria - Kultura**

Alexander Popov igerilari **mitikoak** erretiroa hartzea erabaki du. **Berria - Kirola**

Marleyren koru **mitikoa**, Rita Marley, Marcia Griffiths eta Judy Mowattak osatzen duten I-Threes hirukotea. **Berria - Kultura**

Sonny Rollins **mitikoaren** kontzertuarekin amaituko da astebeteko jazz jaialdia. **Berria - Kultura**

Levinek blues musikari **mitikoak** (Koko Taylor, Otis Rush, Magic Slim) eta hip-hoparen ordezkariek (*The Roots*-eko kideak) bildu ditu filmean. **Berria - Kultura**

Aurretik, 1974an, Billy Wilderren *The Front Page* obra **mitikoan** parte hartu zuen. **Berria - Kultura**

Bera izan zen Wembley futbol zelai **mitikoan** jokatu zen partidaren gol bakarra sartu zuen jokalaria. **Berria - Harian**

Oilandoiko mendi sakratu eta **mitikoan**. **Herria**

Etapa batzuk beldurgarriak dira, mendate **mitikoei**, oraindik **mitiko** izan gabe oso gogorrek direnak gehitu dizkietelako. **Berria - Kirola**

## 3 (izenondo elkartuetan)

Azpimarragarria iruditzen zaigu, zentzu horretan, Sisifo izeneko dramaren, Kritiasek egiten duen lehen itunaren [...] oinarri **mitiko**-teologikoaren salaketa. **Askoren artean**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herri mitiko (3); mendate mitiko (3); pertsonaia mitiko (3)

jokalaria mitikoa (3); talde mitikoa (6)

talde mitikoaren (4)

talde mitikoko (4)

## mitikoki adlag era mitikoan.

Nabarmen ikusten da Protagorasek demokraziaren oinarri teorikoak funtsatzen dituela -nahiz eta horiek mitoan oinarritu, **mitikoki** justifikatu-. **Askoren artean**

## mitikotasun iz mitikoa denaren nolakotasuna.

Lehiakortasuna maite du, berekoi jokatzeko garaipena bilatzen, eta ez da Anquetilen, Merckxen, Hinaulten edo Indurainen **mitikotasunaren** gainetik jartzeko gizaseme egokiena. **Berria - Kirola**

Garaiera du, gogorra da, luzea, sona handia, eta historiak oso mendate gutxi dute **mitikotasuna** eman dio. **Berria - Kirola**

## mitil ik mutil.

## mitilenetar iz Lesbos uharterko Mitilene hiribilduko biztanlea.

Diodotok ez du ukatzen, **mitilenetarrak** errudunak direla. **Joxe Azurmendi**

## mitin 1 iz gizarte edo politika arazoez hitz egiteko bilera ageria edo jendaurrekoa.

Bertsogintza, sermoia, **mitina** ... zuzeneko emanaldiak dira. **Andoni Egaña**

Luzeenean, Goebbels ikusi genuen Hanburgoko portuan emandako **mitin** batean. **Anjel Lertxundi**

Ohe gainera igota, zutik, hizketan hasi zen handik, ozen eta eskuineko besoa indarrez astinduz, **mitin** bat ematen ariko balitz bezala. **Juan Luis Zabala**

Oroitzen zara **mitinak** ematen genituen denboraz? **Fernando Rey**

Igandean hitza hartuko du Bilbaon Euskadiko Ezkerrak egiten duen **mitinean**. **Koldo Izagirre**

-Pepponek **mitin** handi bat egin du eta dena entzun dut nik -azaldu zuen emakumeak-. **Koldo Biguri**

Batak euskaraz egin zuen **mitineko** hitzaldia eta besteak erdaraz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ernest aldiz ez da Agirrerren **mitinera** etorri, eta hobe beharbada. **Edorta Jimenez**

Izaba Margari Euskal Emakume Batzako **mitin** batean. **Iban Zaldúa**

**Mitin** askotara joaten zen banderak hartuta, eta azkar asko adierazi zidan benetan komunista zela. **Pello Lizarralde**

CDNko presidentek **mitinak** entzutera doan jendea izan zuen hizpide. **Berria - Euskal Herria**

Igandeeetako **mitin** haietan beste gauza batzuk ere gertatzen ziren. **Pello Lizarralde**

Nazien jendaurreko agerraldiak eta **mitinak** liskar larriekin bukatzen ziren. **Alberto Ladron Arana**

Utz ditzagun **mitin** eta futbol zelaietarako "jo ta ke, irabazi arte" eta antzekoak. **Joseba Zulaika**

## 2 (hitz elkartuetan)

Kalezuloak generako auzokideen gisara, uste izan zuen huteskunde **mitin** bat baino ez zela izango, literatura arabieraz egindako hitzaldiz betea. **Patxi Zubizarreta**  
Juan Jose Ibarretxe Jaurilaritzako lehendakaria eta Josu Jon Imaz EBBkoa izan ziren afari-**mitinean**. **Berria - Euskal Herria**

### 3 kirol bilera.

Larunbatean lehiatuko da, Zorrotza kiroldegiko pistan, Villa de Billbao **mitinaren** laugarren aldia. **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mitin bat eman** (3)

**lehen mitina** (5); **mitina bukatu** (3); **mitina eskaini** (3); **mitina izango** (3)

**afari mitinean** (3)

## mitinero *izond* mitin estiloa erabiltzen duena.

**Mitinerogoia** izatea nahiko nuke. **Berria - Euskal Herria**

## mitinlari *iz* mitinak ematen dituen pertsona.

Entzuna nuen Lauaxeta **mitinlari** suhar eta bikaina zela. **Juan Luis Zabala**

Gerra aurrean **mitinlari** sutua. **Edorta Jimenez**

**Mitinlari** ahoberoa izan daiteke zenbaiten ustean. **Andoni Egaña**

Irakasle eta **mitinlari** lanetan aritzeaz gain, idazlea ere izan zen Polixene Trabudua. **Berria - Euskal Herria**

## mito 1 *iz* alegiazko kontakizuna, antzinako jainko edo heroien egintzetan edo egiazko gertaeretan oinarritzen dena, izadiaren indarren edo giza izaeraren alderdien oihartzuna dakarrena.

Greziarrek bestalde, bazituzten heriotza ondorengoko zenbait **mito**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Feniziatik, Zipren barrera, Greziara pasa zen **mito** hau, bidaiara horretan hainbat aldaketa jasanez. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

**Mitoak** dioenez, lore hau Adonis ehiztari hilaren odoletik sortutakoa da. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

**Mito** grekoetan, Dedalo ez da inoiz figura nagusia izan, bigarren mailakoa baizik. **Juan Garzia**

Etiporen **mitoan** bezalaxe. **Juan Kruz Igerabide**

Philomelaren **mito** grekoan agertzen da iadanik, Tereok bortxatu eta muturik utzi du oihanean, eta Philomelak oihal bat ehunduz eta bordatuz kondatzen du bere istoria eta Tereoren krimena salatzen. **Patziku Perurena**

Ipuin hau bat dator Meleagoren **mito** klasikoarekin. **Martin Anso**

### 2 errealitatean inongo oinarririk ez duen ustea edo ideia.

Beraz, historia txiki batekin **mito** handi bat asmatzen da, esango genuke R. Aronekin. **Joxe Azurmendi**

Bat-bateko bertsogintzaren **mitoa** eta errealitatea. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

**Mitoen** azpitik,errealitate gordina. **Berria - Euskal Herria**

Globalizazioa **mito** egokia da ilusiorik gabeko munduarentzako. **Iñaki Heras**

Aurrerapena, zientziaren etorkizuna, teknika eta produkzioa gurtzea **mito** burgesak dira, XIX. mendean zehar dogma bilakatu zirenak. **Iñaki Heras**

Unibertsitatea eta lana: **mito** batzuk. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

**Mito** horren arabera, merkatuan parte hartzen duten enpresa pribatuek etengabe ari dira lehian, nor baino nor, gazelak Afrikako sabanan lehoien ihesi bezalatsu. **Iñaki Heras**

Argentinan, azken batean, XX. mendeko bi **mito** handi batu dira: merkatu ahalguztidunaren mitoa, eta Estatu ahalguztidunarena. **Iñaki Heras**

Hiesaren **mito** eta usteak ere landu dituzte ikastaroetan. **Berria - Euskal Herria**

**Mito** kultural zentzugabe batek sinetsarazi digu usain sexualak higuin garriak eta zikinak direla. **Luis Elberdin**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Platon kopetandiak, filosoifiaren aitapontekoak, **mito**-ipuin baten bidez kontatzen du alfabetoaren asmakuntza, Fedro izeneko dialogoan. **Joxerra Garzia**

Oraingo **mito**-desegile horien beharrik ez dugu izan demokrazia horren erlatibismoa erreparatzeko. **Joxe Azurmendi**

**Mito** eta kristau giroan egin zuen hautzaroa, eta kristau giroan eta ikasketa giroan gaztaroa. **Berria - Harian**

Eta alde horretaz jabetzeko, berriz, **mito** bidezko pentsamoldea ezagutu behar du, azaletik bada ere. **Joxerra Garzia**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azken horri folk-lore esaten zaio normalean, eta herri **mito** eta superstizioak biltzen ditu. **Xabier Olarra**

Horiek horrela, inflazioaren kontrola, inflazioaren kontrako borrokaren lehentasuna, ekonomia **mito** nagusi bilakatu da. **Iñaki Heras**

Arrasateko ekimenari buruzko paradisu-**mitoak** bultzaturik etorri omen zen gurera. **Iñaki Heras**

1964ko otsailean kirol **mitoa** jaio zen, baina Cassius Clayk beste dimentsio bat hartu zuen bere pultsio sozial eta politikoen alde bere beste borroka hasi zuenean. **Berria - Kirola**

### 5 bere entzute edo ospe handiagatik eredu bilakatu edo historian sartu den pertsona edo gauza.

Judy Garland **mito** bat zen garai hartako homosexualentzat... **Harkaitz Cano**

Trikitixaren bi **mito**. **Xabier Amuriza**

Izan ere, bere akabera tragikoaren oihartzuna dela eta, Angela Ugarte benetako **mito** bihurtzeko bidean jarri zaigu. **Patxi Iturritegi**

Ez naiz pertsonak **mito** bihurtzearen aldekoa. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Baina **mito** baino gehiago izan zen Sartre. **Berria - Harian**

Egilea hil eta gero, liburu hau, eskoletako eta unibertsitateetako mugak gaindituta, **mito** bihurtu da, eta dozenaka hizkuntzatan irakur daiteke. **Agustin Otsa**

Ez baita, haatik, bakarra Hamleteko Hamlet hori: askatu egin zen pertsonaia aspaldi testuaren mugetatik, eta **mito** unibertsalen erreperitorioan du geroztik bizileku. **Juan Garzia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beste mito bat** (3); **mito bat da** (8); **mito bat dela** (3); **mito berriak** (3); **mito bihurtu** (5); **mito bihurtzeko** (3); **mito bilakatu** (7); **mito egokia** (3); **mito faltsu** (3); **mito handi** (4); **mito horren arabera** (4); **mito hurbilak** (3); **mito zahar** (3); **mitoak mito** (3)

**dioen mitoa** (3); **mitoa da** (9); **mitoa eta errealitatea** (3); **mitoa eta modernotasuna** (5); **mitoa hautsi** (5); **zintzoaren mitoa** (3)

**mitoak dira** (3); **mitoak mito** (3)

**mitoen bilakatzea** (3)

## mitografia *iz* mitoten irudikapena.

Zientziaren izenean zorrotz maiseatzen ditu euskal nobletasunaren harrokeria [...] kantabresek erromatarrekin egindako gerra heroikoen legendak, Tubal edo Aitor eta bestelako **mitografiak**. **Joxe Azurmendi**

## mitokondrial *izond* mitokondrioari dagokiona.

Haurraren geneak eta DNA **mitokondrialak** (zelularen nukleotik kanpoko organo txikiena) «aita» delakoaren berdina dira. **Berria - Gaiak**

## mitokondrio *iz* zelularen zitoplasmako korpuskulu biribilkara.

Arrautza horretan daude eraikuntza-materialak: proteinak, koipeak, azukreak, **mitokondrioak**, eta gunea, hantxe baitaude irarrita eulia sorrarazteko behar diren aginduak. **Juan Garzia**

Jendea apenas axola zaion ea teoria zientifiko jakin bat -**mitokondrioak** birusek eraginak direla, esate baterako- egia den ala ez. **Juan Garzia**

Alde batetik, eta klonazioaren esperimenduei dagokiela, DNA analisi zabalagoak izan beharko dira: nukleoko DNAREN analisisiaz gain, orain **mitokondrioetako** DNA ere aztertu beharko da. **Berria - Gaiak**

## mitokritika *iz* kulturaren interpretazio antropologikoaren sistema, G. Durand-ek taxaturikoa.

**Mitokritikaz** gizakiari buruzko zientziek argitasun asko lortu badute, euskal hizkuntzalariek ez liokete muzin egin behar, Zubiagaren ustez, besteek onetsitako metodologiari. **Berria - Kultura**

## mitologia 1 *iz* herri bati edo erlijio bati dagozkion mitoen multzoa.

**Mitologia** grekoko heroiaren artean, leku berezia zegokion Dedalori. **Juan Garzia**

Laugarren zaletasuna Greziako eta Egiptoko **mitologia** dut. **Josu Zabaleta**

**Mitologia** grekoan, esaterako, erleak Artemisaren ikurretako bat ziren. **J.M. Olaiola "Txiliku"**

Estatu unibertsal egipziakoko nubiar marketako jainko ilun bat **mitologia** helenikoaren jeinuak etiopiarren errege hilkor bihurtu zuen. **Iñaki Mendiguren**

Erromako eta Greziako **mitologian** sarri ageri da erlea multzoan, jainko-jainkosen ekintzen inguruan. **Pello Zabala**

Zakurra **mitologia** askotan agertzen da. **Gotzon Garate**

Memoria historiko bat, esango genuke gaur apika; imajinario bat, **mitologia** bat. **Joxe Azurmendi**

Gorgonak: Greziako **mitologiako** munstroak. **Antton Olano**

Ezagutzen ditut Irlandako errege-etxe guztien **mitologiako** leinuak. **Juan Garzia**

### 2 mitoen jatorrien, garapenen eta esanahien azterketa; azterketa horretan diharduen jakintza.

**Mitologia** ikaragarri gustatzen zait, Greziako eta Erromako jainkoak batez ere. **Josu Zabaleta**

Kuhn, hizkuntzalaritzaz eta **mitologia** konparatuaz batera arduratu zena. **Isabel Arrigain**

### 3 errealitatean inongo oinarririk ez duen ustea edo ideien multzoa.

**Mitologia** aberatsa eskuratu dugu, ordea, (jatorriaz, burujabetzaz, euskal gizakia eta besteak definitzeaz, genealogiaz, jainkoaz, etab.), geroko pentsaera garatu ahal izateko guztiz beharrezkoa izango dena. **Askoren artean**

**Mitologia** zabalduaren adibide zehatza da, mundu guztiak dakien gauza horietako bat, etengabeko lehiaren mitoarena. **Iñaki Heras**

**Mitologia** zabalduaren arabera, lan-merkatuaren zurruntasunari dagokio langabezia. **Iñaki Heras**

Zuri beharbada irudituko zaizu gure teoriak **mitologia** moduko bat osatzen dutela. **Iñaki Segurola**

Hori guztia **mitologia** nazionalista da, baina inolako oinarririk ez dauka historiari erreparatzen badiogu. **Berria - Euskal Herria**

Trantsizioaren **mitologia** guztia "bi Espainien" gaindipenak obseditua egon da eta halaxe segitzen du. **Joxe Azurmendi**

### 4 (hitz elkartuetan)

Jose Miguel Barandiaranen atlas etnografikoa edo Jose Miguel Pedrosaren **Mitologia** Atlasa erabiliiko dira abiapuntu gisa. **Berria - Harian**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal mitologia (11); mitologia greko (3); mitologia grekoan (3)

euskal mitologiako (10); mitologiako pertsonaiak (4)

euskal mitologian (3); greziako mitologian (4); greziar mitologian (4)

euskal mitologiaren (6); greziako mitologiaren (4); greziako mitologiaren arabera (3)

## mitologiko 1 *izond* mitologiarena, mitologiari dagokiona.

Antzina izaki **mitologikoen** arrastoak izan zitezkeenak, erlijioaren eraginarekin santuenak bilakatu ziren. **J.M. Olaiola "Txiliku"**

Prometeo **mitologikoak** jainkoei sua lapurtu eta gizakiei oparitu zien. **Fernando Morillo**

Irudi **mitologiko** lizunez hornituriko liburu mardul bat hartu, eta ikuskatzen hasi zen. **Jose Morales**

Zeuxisen eta Parrasiosen gertaera famatua ekar daiteke gogora (**mitologikoa** bada ere, zalantzarik gabe). **Josu Zabaleta**

Lehen liburu hartan ekin zion [Tolkien-ek], dagoeneko, bere unibertso **mitologikoa** sortzeari. **Agustin Otsoa**

Aspaldian gainditu omen dugu pentsabide **mitologikoa**. **Joxerra Garzia**

### 2 (izenondo elkartuetan)

Ondoko bi argitalpenetan ere elezahar bera (eta horren inguruko testuinguru historiko-**mitologikoa**) aurkitu dut. **Martin Anso**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

pertsonaia mitologikoak (3)

## mitologizatu, mitologiza, mitologizatzen du *ad* izaera mitologikoa eman.

"Hiria" gai poetikotzat harturik osatu zuen Dantek bere maisulana, eta, hari jarraiki, era berean **mitologizatu** zuen Joycek bere Dublin. **Joseba Zulaika**

## mitomania *iz* zerbait kontatzean errealitatea desitxuratzeko joera patologikoa.

Gure **mitomaniak** eta kontu handiak alde batera, badirudi, zelten gisako azken europarrak gairela euskaldunok.

**Patziku Perurena**

## mitomaniako *izond* mitomanoa, mitomania adierazten duena.

Edo kondaira aizun **mitomaniakoa**, hala esatea nahiago baduzue. **Juan Luis Zabala**

## mitomano 1 *izond* mito bihurtzen diren pertsonen zale patologikoa dena.

Idazle gutxi liluratu dituzte Poek bezala belaunaldiz belaunaldi irakurleak eta **mitomanoak**. **Koro Navarro**

Hitz gutxitan, jazz light edo arina, **mitomanoentzako** moldatua, salneurri garestian. **Berria - Kultura**

Badakit, **mitomano** bilakatzen ari naiz, baina gutxitan izan dut benetako literaturaren aitzinean nagoelako duruzadura hau. **Berria - Kultura**

Ziur asko **mitomanoegia** nintzen. **Jon Muñoz**

## 2 mitomaniak joa; mitomania adierazten duena.

Oteizari buruzko ikuspegi **mitomanoak** ezkuta ez dezan haren ekarriaren benetako aurpegia. **Anjel Lertxundi**

## mitosi 1 *iz* zelularen zatiketa, zeinean nukleoa zatitzen baita kromosoma-kopuru bereko bi nukleotan eta zitoplasma bi zitoplasmatan.

Zelularen ugalketa, meiosis, **mitosia** eta biologiaren beste hainbat bitxikeria. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 2 irud/hed

Hara **mitosi** etengabearen azalpen poetikoa, biziberritze politikoa erakusteko. **Iñigo Aranbarri**

## mitozale 1 *izond* mitomanoa.

Izaeraz **mitozalea** bainintzen, ez zitzaidan batere kostatu Hemingway hantxe bertan irudikatzea, mojitxoak edaten eta argazkietarako jarria, itsasoan harrapatzen zituen ezpata arrain handiak eskuetan. **Jon Muñoz**

Guri, hiru idazle handi horien edozein testu otso gosetiaren irrikaz irakurtzen dugun **mitozale** baldarroi. **Berria - Kultura**

## 2 mitoen zalea dena.

Horrez gain, inflazioaren aurkako politika **mitozalearen** ondorioak gaitza bera baino okerragoak ere izan daitezke. **Iñaki Heras**

## mitra<sup>1</sup> *iz* apezpikuek eta kidekoek hotsandiko zeremonietan eramaten duten burukoa, hiruki itxurakoa.

Apezpiku izendatua izan zelarik, bere makilatza hartu zuen hango arrantzaleen arraun bat eta **mitra** bezala hango laborarien xapel bat... **Herria**

Aureola santutasun goitarago baten zeinutzat hartzen da, apezpikuen **mitra** edo Aita Santuaren tiararen gisara. **Xabier Olarra**

Gurasoen ekarpen zintzoak diadema, **mitra**, edo mantu [...] bihurtzen dira. **Xabier Amuriza**

Haien artean, armeniarrek zeuden, jantzi luzeak soinean eta **mitra** antzekoak buru estalgarri; juduak, beren txano konikoengatik ezagunak; [...]. **Karlos Zabala**

**Mitrarik** ez, kapa-arropa briolet luzerik ez. **Michel Oronoz**

mitra<sup>2</sup> ik **bitra**.

## mitradun *izond* mitra duena.

Aita Santua San Pedroko basilikan meza ematen, mila artzapezpiku **mitradun** eta alkatxofa-hostozko-kapeladunen aurrean. **Joxean Sagatzizabal**

mitrail ik **bitrail**.

mitrailatu ik **metrailatu**.

mitraileta ik **metraileta**.

## mitraileusa (*Euskaltzaindiaren Hiztegian metrailadore agertzen da*) *iz* metrailadorea.

Tarratada luzeak dira, **mitraileusa** batek jaurtikiak. **Xabier Montoia**

Une batetik bertzera, **mitraileusen** dabra-dabra zabalduko da ibarreen gaindi, granaden zapartatzeak dardararaziko ditu mendietako hegi harritsuak eta balek ziztu egingen dute airean. **Xabier Montoia**

Haren alboko **mitraileusa** astunaren hotsa ezagutu duzu, helizeena baino ozenagoa. **Xabier Montoia**

## mitraismo *iz* Mitra jainkotzako gurtzen zuen erlijioa, Kristo ondoko I. eta IV. mendeen artean erromatar inperioko soldaduen artean aski hedatu zena.

Gizarte Helenikoak bere ekialdeko garaikideengan izandako eraginari era honetara erantzun zitzaion Zibelesen gurtza, Isisen gurtza, **mitraismo**, kristautasun eta mahayanaren epifaniaren bidez. **Iñaki Mendiguren**

Erljio hau, **mitraismoa** eta mundu helenikoan izan zituen beste lehiakideak bezala, arma helenikoek konkistaturiko beste gizarte "zibilizatueta" batean sortu zen. **Iñaki Mendiguren**

**Mitraismoa** goarnizioz goarnizio zabaldu zen Erromatar Inperioren mugan zehar eta kristautasuna kolonizazioa. **Iñaki Mendiguren**

mitralleta ik **metraileta**.

mitralletadun ik **metrailetadun**.

**mitridazio** *iz*

Gaur egun **mitridazioa** deitzen zaio prozesu horri. **J.M. Olaiola "Txiliku"**

mitriolatze ik **bitriolatze**.

mitxa ik **metxa**.

mitxadun ik **metxadun**.

**mitxeleta** *1 iz* tximeleta.

Kea ikusi zuen Klarak zeruan gora zihoala, kezko gorputz bat zeruko hodei grisen artean gora, **mitxeleta** bat bezala, izar bat bezala, gatz-lorea bezala. **Felipe Juaristi**

Gizonak ezin du bizi, ordea, etxea inbaditzen dioten paper zurizko **mitxeletekin**. **Karlos Linazasoro**

**Mitxeleta** gorriez apaindutako lastozko kapela bat buruan, Nellie kulunka ari zen idazmahaiko aulki birakariaren gainean. **Lopez de Arana**

**2** (hitz elkartuetan)

Biribilak ziren [eskuak] eta **mitxeleta** hegoak ziruditen, bata bestearen ondoan. **Felipe Juaristi**

Kolorea sutan ikusi zuen altzairuzko eraikin batean; **mitxeleta** -hegal baten argia katedral bateko arku gainean etzaten. **Anton Garikano**

**3 gau mitxeleta**

Musika-nota batzuk geratzen ziren airean, galdutako gau **mitxeletak** bezala. **Felipe Juaristi**

**mitxelin** *iz* **adkor** gorputz inguruko txixia edo gantza. **iktxirringala**.

Santi arropa bakeroa goitik behera, alkandora nasaiaz **mitxelinak** disimulatzeko. **Jon Arretxe**

Erdibiluzia esan dut; izan ere gerrian kordoizko faja gorria zeraman, puntilla beltzekoa; honek sabela estutzen zion eta **mitxelinak** ateratzen, ipurdimasail gizen, zuri eta bigun batzuk agerian utzi. **Juan Martin Elexpuru**

**mitxelindun** *izond* gantzak dituena.

Herriko akas dun guztiak joaten zitzaizkion: konkordunak, zama lodiak, **mitxelindunak** ... **Ana Urkiza**

**mitxirka** *adlag* zati txikitana.

Oroitzapenak, eta oroitzapenak saiatzen dira gure inguruan egon zirenetatik denborak **mitxirka** desegin dituen horiek sortu hutsune sentipena estaltzen. **Pako Aristi**

**mitxirrika** *1 iz* tximeleta.

Zuk ezin izango zenuen irakurri, baina bai Obabako jendeak, edo Lizek eta Sarak baldin eta inoiz Stonehamen lurperatutako **mitxirrika** hartaz aurrera joaten baziren euskal hiztegian. **Bernardo Atxaga**

**2** (hitz elkartuetan)

Nire bihotzekoa, nire txoritxo, laster sendatuko zara maitea, lasterka ibiliko zara argi: **mitxirriken** atzetik, beste haur guztiz ederrekin eta zu, haiek guztiak baino ederragoa izango zara. **Pablo Sastre**

**mitxitxo** *iz* **adkor** katua.

Izan ere, halako erregina eder, zintzo, zuhur beteak nolatan lioke apo bati, saguzar, **mitxitxo** bati, halako kontu preziazurik gordeko? **Juan Garzia**

**mitxoleta** *1 iz* gari soroetan eta hazten den belarra, lore gorri ikusgarriak eta hazi beltzak dituena (*Papaver rhoeas*). ik **lo 10; amapola**.

Beste belar asko ere zabaltzen da harresian barna, asunekin eta **mitxoletekin** nahasturik. **Koro Navarro**

Koadroan murgildua zela iruditu zitzaion senarrari orduan, hartan sartu eta **mitxoleta** artean paseoa zebilela. **Imanol Zurutuza**

**Mitxoletak** eskuz biltzea ere proposatu zen kezkatu beharrik ez izateko. **Berria - Gaiak**

Ruthek lasto beltzeko kapela zuen, erpinaren inguruan **mitxoleta** gorriez apaindua. **Lopez de Arana**

Belus arrosazko **mitxoletak** kiribidurik zeramatzen emakume ile-urrekarak ibilera jauzkari bezain isil-misilean zeharkatu zuen jendez mukuru zegoen gela. **Mirentxu Larrañaga**

**Mitxoletak**, ahanzturaren lorerik behinenak. **Mirentxu Larrañaga**

Afganistan **mitxoletetatik** ateratako opioaren heroina ekoizteko erabilia munduko ekoizlerik handiena da. **Berria - Mundua**

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haren aldamean haur bat, **mitxoleta** sorta eskuan. **Imanol Zurutuza**

**Mitxoleta** Petaloak Airean eta beste zenbait poema. **Imanol Zurutuza**

**Mitxoleta** haziak aski du putz xuabe eta zalanzkor bat, pilo handi bat goitik behera etor dakizun. **Xabier Amuriza**

Shibthak-k, emakumeei erditzean umeak osten zizkien emakume-deabruak, **mitxoleta** hazizko pastelak egiten omen zizkion infernuko labeetan, muskerren eta zakur beltzen

koipeaz altxatuak. [Koro Navarro](#)

Biolinak, Karlmaierren eskuetan, piano ere baitzen, eta **mitxoleta** -landan barrena lauhazka zebilen zaldi, eta ekaitz erdian oihalak zabalik zihoan galeoi, eta zeruan zuzen hegana egiten zuen arrano. [Felipe Juaristi](#)

### 3 **opio mitxoleta**

Afganistango presidente Hamid Karzaik azaldu duenez, **opio mitxoleta** droga ekoizteko hazteak «estatuaren existentzia mehatxatzen» du. [Berria - Mundua](#)

**Opio mitxoletaren** hazkuntza eta merkataritzaren aurkako borroka. [Berria - Mundua](#)

## **mitxoletadun** *izlag* mitxoleta duena; mitxoletak dituena.

Belus arrosazko **mitxoletadun** emakumeak eskua luzatu zion, besoa luze-luze egin ere, eta hala eutsi zion mundu guztiak ikusteko moduan, harik eta Beltzak eskua hartu, bostekoa eman, eta ostera itzuli zion arte. [Mirentxu Larrañaga](#)

mixera ik **misera**.

mixerable ik **miserable**.

mixeria ik **miseria**.

mixerikordia ik **miserikordia**.

## **mixin** (*orobat mixiño*) *iz* katua.

Amak zabalik utzi ohi zuen-eta makinaren ate biribila; lo gozoan egongo zen **mixina**, amaren behatzek botoia sakatu eta eragin zuten ur erauntsia, ontziaren jira-birak eta astinduak hasi zirenean. [Pako Aristi](#)

Hori dela eta, hiriko animalia denda guztietan ibili ziren antzeko katu baten bila, eta noizbait ere antz-antzeko bat lortzeko zortea izan baitzuten, amona itzuli zenean, haren lorategian askatu zuten **mixiñoa**. [Patxi Zubizarreta](#)

mixiño ik **mixin**.

mixiolari ik **misiolari**.

mixionest ik **misionest**.

## **mixkili-muxkulu** *iz*

Prozesuaren parte bakoitza bere arrazoiak agertzen ari zaio, isilkako **mixkili** -muxkuluan, Jaungoiko ahaltsuari. [Pako Aristi](#)

mixkin ik **mizkin**<sup>1</sup>.

mixkindade ik **mizkindade**.

mixpira ik **mizpira**<sup>1</sup>.

mixta ik **misto**<sup>1</sup>.

mixterio ik **misterio**.

mixteriotsu ik **misteriotsu**.

mixto<sup>1</sup> ik **misto**<sup>1</sup>.

mixto<sup>2</sup> ik **mizto**.



## mizelio *iz* onttoen aparatu begetatiboa.

Beruna, merkurioa, artsenikoa hor daude, eta **mizelioa**, gainera, lurraren azpian dago. Berria - Gaiak

## mizeniko *izond* antzinako greziar hiri Mizenasena, Mizenasi dagokiona.

Homeroren deskribapen politikoa ez zaio egokitzen bakarrik gerrari **mizeniko** handien garaia. Askoren artean

Himno homerikoak deitzen diren kantuek, bestalde, ez dute zertan Homerorenak izan; batzuk ohiturazkoak dira -batzuek jatorri **mizenikoa** dute, nabarmen-, beste batzuk otoitzak edo formulak eta abar. Askoren artean

Taulatxo **mizenikoetan** kopuruak eta administrazio-kontzeptuak besterik ez baitira jasotzen. Askoren artean

## mizkatu ik miazkatu.

## mizke 1 *izond* mizkina, milika.

Ume **mizke** halakoa... eta gainera, lepoko brodatu polit hori zikindu egin duzu! Xabier Paya

Bestea, "hezurdura asper da" prosaismo indartsua, zeina **mizke** denak higuinez eskumikatu nahi izango baitu, noski, baina bere bizitzaz gain preziatuko baitu kritikari giza-jite beteko denaren dastamenak. Juan Garzia

## 2 (adizlagun gisa)

**Mizke** hazitako umetzat hartzen gaituzte, protesta egiteko eskubiderik ez bagenu bezala, kirolarien antzera. Berria - Kultura

Gorroto du **mizke** hazitako txakur lotsagabe hori, eta askotan desiratu du okinaren furgonetak deskuiduan harrapa dezan. Patxi Iturritegi

## mizkekeria ik mizkeria.

## mizkeria (*orobat mizkekeria*) *iz* mizkinkeria, milikeria.

Baina ez ditut ikasi ez gizalegearen arauak ez bizitzearen antzea, alderantziz, azken orduko **mizkeria** eta erosotasun berri guztietan dirua parrastaka xahutzearen antzea besterik ez dut ikasi. Jose Morales

Kasta-**mizkekeriarik** ere ez zuen, eta ez zen batere deseroso sentitzen, trizikloa hartu, eta laneko galtzamantal grisez bezeroei gure nekeetako kloruroa banatzen ibiltzeko. Juan Garzia

## mizkin<sup>1</sup> (*orobat mixkin g.er.*) 1 *izond* milika.

Kontu egin bihurrienei, beren koilarak katapultatatzat harturik galleta-zopa beratuak jaurtitzen ibil ez daitezen, eta haur **mizkinei** ere bai, gosaldu gabe gera ez daitezen.

Xabier Mendiguren Elizegi

Jende **mizkinaren** kexuak. Harkaitz Cano

Ez zen **mizkina** janariarekin; nekez sortuko zuen iskanbilarik ezergatik. Oskar Arana

Tira, ez hadi **mizkina** izan, bakailao-gibelaren olio baina hobea duk-eta. Anjel Lertxundi

Baina ezin **mizkina** izan, nahiz eta gehiegi gustatu ez haragi gogor eta zapore min hori. Urtzi Urrutikoetxea

Orain berriz ni naiz **mizkinei** errietaka ibiltzen dena, beti atzetik, jantzazue ta jantzazue, amaxoren tokia hartuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Luisitok, osaba-izebek mainaturik, berehalaxe baztertu zuen Andresek gomendatzen zion bizimodua; ez zuen eguzkia hartzera joan nahi, eta kalean jolas egitera ere ez; geroz eta kontentagaitzagoa eta **mizkinagoa** ari zen bihurtzen. Josu Zabaleta

Londresen hilotza makilatu zutenek lady ingeles **mizkin** bat bailitzan makilatu zuten, begietan itzalik gabe, ezpainak arrosa hortera batez... Harkaitz Cano

Zakurra jatun oso **mizkina** omen zen. Gotzon Garate

· Uste dute alemaniarren barrunbe **mizkinari** on egiten diona egokia dela errusiarron urdailerako ere. Jose Morales

## 2 irud/hed ik mizkinkeria 2.

Eta galizismoak ezin jasan linguistiko eta literario **mizkinetik** Maeztu eta kardinal Gomá bezalako arrazista "izpiritual"enganaino hedatzen da. Joxe Azurmendi

## 3 (adizlagun gisa)

Ahogoza eginda makurtu nintzen erpin irrikituen bila, burutik helduta lagundu zidan berak, eta gero **mizkin** jolastu zuen mihiak harria bezain gogorak baina zeta bezain leunak ziren pinportekin, elkar zeharo erantzten genuen bitartean. Migel Angel Mintegi

## mizkin<sup>2</sup> *izond* zikoitza, zekena.

Han bizi ziren hainbat Krapotkin ere, ni bezain **mizkinak** eta miserableak, Errusian baizik ezin izan daitekeen bezalako printze leinua. Matias Múgica

## mizkindade (*corpusean mixkindade soilik*) *iz* mizkinkeria.

Honako honek ere ikaragarri xelebretzat zeukan bere burua, harik-eta munduko berri pixkat izaten eta hango **mizkindade** sinesgaitzen berri jakiten hasi zen arte, eta dena zergatik, eta arrain-zoparik jaten ez nuelako ikasi oso gerora arte. Iñaki Segurola

## mizkindu, mizkin(du), mizkintzen du *ad*

Justinak ezpainak **mizkindu** eta gezurretako musu bat bidali zion mutilari. Felipe Juaristi

## mizkinkeria 1 *iz* milikeria.

Horien artean zeuden [...] **mizkinkeria** hutsez bazterrean utzi nituen platerak, beste barik gustukoak ez nituelako, eta une hartan hura axolagabekeria ulertezin eta konponezintzat neukan. Urtzi Urrutikoetxea

## 2 irud/hed ik mizkin<sup>1</sup> 2.

Kirikiñoren **mizkinkeria** berriro ere, berba-beldur. Koldo Izagirre

**mizpira**<sup>1</sup> (*orobat mixpira g.er.*) **1** iz mizpira-arbolaren fruitua, azala nahiz mamia horiak eta erdialdeko haziak ilunak dituen, heltzen denean nahiz usteldurik jaten dena.

'Haize hegoa ona da artaburuak eta indabak, **mizpirak** eta gaztainak heltzeko. Joseba Sarrionandia

Mahatsa eta **mizpirak** jaten dituzte biek. Xabier Olarra

Esan ohi den bezala, usteldutakoan ontzen direla pertsona eta **mizpira**. Iñaki Segurola

Ganbaran apaletan, lastoa azpian, errezil-sagarrak lasa-lasa kokatzekoa, **mizpirak** goxatzekoa... Pello Zabala

*Le temps de cerises* kantatzen hasi nintzen ahapeka, gerezi denbora ia bertan **mizpira** ustelena bihurtu zitzaigula burutik kendu ezinik. Inazio Mujika Iraola

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zer gelditu zen beraz Donazaharren? Azaroko **mizpira** ferria, zeintan ber denboran astoak ere saltzen baitziren, garai hartan ez baitzen orain bezalako auto lasterkadarik!

Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aziendak, sagasti pare bat, **mizpira**-sagasti (hala etxearen izena ere) txiki bat, fruta-arbola dezente, udare nahiz piku, [...]. Pello Zabala

- Etsiko al duk heure bihotzeko **mixpira** hexurra ikusi gabe, Huck? Koldo Izagirre

## 3 mizpira-arbola.

Orduan hasi nintzen auzoko saihebidetan bakarrik edo ardiñ atzetik, irratia esku batean eta **mizpirazko** akuilua bestean, terrentaz, ibiltzen. Itxaro Borda

Werner inguratzaren zenean, **mizpira** egurra bezain zut zeukan makila begiz jaten zion. Itxaro Borda

Lurrean etzan zuen, azpiak ireki zizkion, kotoizko frakak urratu eta **mizpira** makila bezain gogor zeukan abar gorraila aluan basaki sartu zion. Itxaro Borda

Sarizat ukan zuen "makila zilarreztatua, makila gorraile, lerdan, hazta ttipiko bat, **mizpira** ginharriz, ah! zer makila!... luzexago egin balu, untz'urreea eskuratu baitzuen".

Michel Oronoz

## 4 **mizpira-arbola** arrosaren familiako zuhaitza, lurralde epeletan hazten dena, hosto-handia eta lore-zuria, fruitutzat mizpirak ematen dituen (*Mespilus germanica*).

Han bada **mizpira arbola** bat, eta handik kea ateratzen zelarik, laminek egiten zuten sua zen omen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## mizpira<sup>2</sup> iz sudurraz mintzatzuz, zuloa.

Joxentio Zubirik, zerbait xeberre esan aurretik ohi zuen bezala, sudur **mizpirak** betean arnasa hartuz: [...]. Patziku Perurena

Hortik, mutil-arteko sudur-dantza horretatik zer etor litekeen ikusteko dago, baina hemen dago, jai da komunetako mutil-arte, ederki kostata jai ere, larrutik ordainduta,

sudur **mizpirak** eta barrenagokoak erre-beharrean ditugula, bai... baina saiatu gabe ez dago ezer. Iñaki Segurola

## mizto (*orobat mihizto g.er. eta mixto g.er.*) **1** iz sugeen eta beste zenbait narrastiren mihi luze eta mehea.

Eguzkitan gozoro dagoen horko sugegorri erdi hil hori ez da, erdi hilik egonagatik ere, errukarria, **miztoari** eragiten ari den beste hura zitala. Anjel Lertxundi

Behetik goiti kiribilka igo eta, **mihiztoa** ontziko edarian sartzen duen suge horretaz. Patziku Perurena

Jaunak suge pozoitsuak bidali zizkien eta haien **miztoaz** israeldar asko hil zen. Elizen arteko biblia

Sugegorriaren pozoia zen xurgatzen zuena, biperaren **miztoak** bezala hilko du. Elizen arteko biblia

Pentsatzen hasten zen guztietan, bere ahotzara zabaldurik, mihi punta kanporatu, eta suge baten **miztoari** bezalaxe eragin zion. Patxi Zubizarreta

Belar artean, bere ustetan zen sugearen antzera, Sethek ahoa zabaldu zuen, eta betortzak eta **mizto** erdibitua ez baizik egia jaurti zuen. Anton Garikano

## 2 *adkor* mihia.

Aldiak izaten zituen, aldarrearen arabera; bufoiren bat behar zuenean, bere **miztoko** pozoi guztia hari sartzeko, aski zuen edozein aitzakia. Juan Kruz Igerabide

Zorra nik neure **miztoarekin** ... eta hik nirekin, Martin Xirin- balezta bildu zuen lurretik. Aingeru Epaltza

Mingo Silbatoren bilobak jakin duenean, juezetara jo du, ezkontzeko hitza emana zeukala-eta; harengandik haurdun egona dela ere dioten **miztoak** badira. Patxi Ezkiaga

Gaur **miztoari** zor diok bizia. Aingeru Epaltza

**Miztoak** suge itxura hartzen dio hitz egiten hasi orduko! Anjel Lertxundi

## 3 irud/hed

Esnaigailua, osterantzean, ondo dago: zortzietan txirrinaren **mihiztoa**, eta txortena jasoa, txirrinaren bozgora baimendu duen polizia bailitzan. Pako Aristi

## 4 pozoia. • *irud* (*zakilaren haziak mintzatzuz*)

Eta eskuez ukitzen ez zuela, puska batean dantzarazi zuen piztia, hari eta, berez-berez, **mizto** xuria isuriz otzandu zitzaion arte. Patxi Zubizarreta

## miztodun (*corpusean mihiztodun soilik*) izond mihiztoa duena.

Eta ene bi eskolakideak dituzte jarri -zeinez sugegorri **mihiztodunez** beste fida bainaiteke- aginduaren kargu. Juan Garzia

## miztor ik liztor.

## miztotu<sup>1</sup>, mizto(tu), miztotzen du *ad* ziztatu.

Hau atera zuenak, belar ontzen edo soroko lanetan ongi frogatua zukeen ezpata-euli luxeak nolako ziztada zorrotzak **miztotzen** zituen. Pello Zabala

## miztotu<sup>2</sup>, mizto, miztotzen (*corpusean mihiztotu soilik*) da *ad* mizto bihurtu.

Bertsolariak plaza asko egin behar ditu urtean zehar kide beretsuekin, eta mihia **mihiztotzen** bazaio, gaur emandakoak bihar jasotzeko izango ditu. Andoni Egaña

## miztu, miztu, mizten (*corpusean mihiztu soilik*) du *ad* miaztu, miatzatu.

Joan hadi hi ere Yoloren atzetik eta **mihiztu** iezaio! Pako Aristi

## mnemoteknia (*orobat mnemoteknika eta nemoteknia*) **1** iz oroimenaren ahalmena aregotzeko teknika.

Simonides, **mnemotekniaren** asmatzailea. Juan Garzia

Larru zerrendak atera, mutildu, oliotan irakin, lehen semea sakrifikatu eta antzekoak, **mnemoteknika** dira funtsean. Markos Zapiain

Oroimena **nemoteknia** gisa. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Ongek adierazten duen bezala, **nemoteknia** hertsiki lotua dago formulazio gogoangarriekin. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

Azterketak ondo egitea **mnemoteknia**-kontua da, gutxieneko datuak ikasi eta ongi menderatu arte errepikatzea...; baina bueno, orain ez da horretarako garaia, gomendioa egingo dizut, zoaz irakaslearen etxera eta eramaiozu gutun hau. [Josu Zabaleta](#)

## mnemoteknika ik mnemoteknia.

## mnemotekniko (orobat *nemotekniko*) izond mnemotekniarena, mnemotekniari dagokiona.

Sentsazioak, inpresioak eta gertakizunak; esaldi **mnemotekniko** hutsak. [Anjel Lertxundi](#)

Hizlari klasikoek bezala, teknika **nemotekniko** batzuk bideratu behar ditu bertsolariak egiturak (errima eta argudio sekuentziak), hitzak eta formulazio zehatzak gogoan edukiko baditu. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Edozein gairi buruz bat-batean hitzaldi bat botatzeko gauza zen; miragarria zuen oroimena, eta ariketa **mnemoteknikoen** bidez lantzen zuen. [Jon Muñoz](#)

Elkarrizketa hartan deskribatu ziren jarduera **nemoteknikoen** aplikazio praktikoa oso zalantzezkoa da bertsolaritzaren kasuan, baina gaitasun horri buruz lehen ikerketa analitikoak egin izana aitortu behar zaio Lakari. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Geroago azalduko dut nolako ideia kateatzez, zer eratako burubide psikologikoz, zer-nolako baliabide **mnemoteknikoz** atera ditudan, huts egiteko arriskurik gabe, ondorio metenpikosikoak. [Josu Zabaleta](#)

Are gehiago, garbi geratu zen autista *savant* askok dohain mota bat baino gehiago izaten zutela: musika arlokoak, **mnemoteknikoak**, ikusmenezko edo grafikoak, konputaziokoak, etab. [Xabier Olarra](#)

## mnemotropismo iz iragana memoriaren bidez berreskuratzea.

Memoriaren gehiegizko kultura edo «**mnemotropismoa**». [Berria - Gaiak](#)

Horien esanetan, **mnemotropismo** antzeko bat dago egun. [Berria - Gaiak](#)

## moabdar *izlag/iz* antzinako Palestinako Moab herrikoa; Moabeko biztanlea.

-Lekuko hartzen zaituztet zuek Noemiri erosten diodala gaur Elimelekena eta haren semeena zen guztia; emazte hartzen dudala, halaber, Rut **moabdarra**, Mahlonen alarguna. [Jose Antonio Mujika](#)

**-Moabdarra** da, Noemirekin Moabgo landetatik etorri zena. [Jose Antonio Mujika](#)

Israeldar eta **moabdarren** artean borroka. [Elizen arteko biblia](#)

Menpean hartutako herri guztiei -edomdarrei, **moabdarrei**, amondarrei, filistearrei eta amalektarrei-. [Elizen arteko biblia](#)

## moabiar iz moabdarra.

Eta hona hemen **Moabiarraren** aizkorakada ozena. [Felipe Juaristi](#)

## mobbing 1 iz langunean pairatzen den jazarpena.

Orain, ordea, izena jarri diote zapalketa horri: **mobbing**. [Joxerra Garzia](#)

**Mobbing**-a pertsonaren duintasuna mintzen duten egoera iraingarriak dira. [Berria - Ekonomia](#)

Egunotan dexente hitz egin dute komunikabideek **mobbingaz**. [Joxerra Garzia](#)

Nork bere buruari azterketa egin eta **mobbing**-a pairatzen ari den jakiteko. [Berria - Ekonomia](#)

**Mobbinga** salatu dute Barakaldoko Usoako bi langilek. [Berria - Ekonomia](#)

Jose Maria Aviles psikologoa gai horretan aditua da [...] eta bullying-ak **mobbing**-aren bidea jarraituko duen beldur da. [Berria - Euskal Herria](#)

Ez da nahastu eta orokortu behar, **mobbing**-arekin egin izan den bezala, bestela mesede eskasa egiten diegulako biktimei. [Berria - Euskal Herria](#)

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mobbing** motak, jazarleen ezaugarriak, eta jazarpena jasaten ari direnen sintomak laburbiltzen ditu eskuliburuak. [Berria - Ekonomia](#)

Azterketa medikua «bizitza pribatuan sartzea» izan da **mobbing** kasu batean. [Berria - Ekonomia](#)

Ezagutzen ditut beste lanbide eta enpresa batzuk, eta niri behintzat ez didate sartuko ziri hori, ez didate sinetsaraziko unibertsitatea dela **mobbing** zaleen paradisia eta langile soilen infernua. [Joxerra Garzia](#)

## mobida iz adkor saltsa, istilua; gertaera ezohikoa. ik mugida 3.

Manifa eta **mobida** guztietan sartuta ibiltzen den irakasle enrollatu horri ere ez zenioke esango. [Jokin Muñoz](#)

Heu sartu hintzen **mobidan** eta heuk irten beharko duk! [Unai Iturriaga](#)

Zer **mobida**, zortea izan dugu trenea poliki zihoalako, bestela... [Berria - Euskal Herria](#)

Zapatisten **mobida** hasi zenean. [Unai Iturriaga](#)

**Mobida** politiko batean ezagutu omen zitenan. [Antton Olano](#)

**Mobida** txar bat, txibatazo eta guzti. [Patxi Iturritegi](#)

-Hau duk **mobida** kutrea, tio! -dio batek. [Pako Aristi](#)

*Egin* edukitzen zuen barra-izkinan, edozein **mobidatak** kartelak eransteko arazorik ez, jestoretako elteitsua jartzeko proposatu ziotenean ere konforme... [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Baina, badakizu, **mobida** hori ez zen guretzako: hondartza, eguzkia, diskotekak... [Iban Zaldúa](#)

-Txapli, zein **mobidaren** barruan duk gaurko kontzertua? [Unai Iturriaga](#)

## mobidu ik mugitu.

## **mobil 1** iz sakelako telefonoa. ik mugikor 2.

**Mobilak** jo zuen une hartan. **Pablo Sastre**

**"Mobilarekin** ari zelako. **Pablo Sastre**

Azala sikatu eta **mobilaz** dei bi egin ditu. **Paddy Rekalde**

*Zatoz, meu coração*, irakurri du **mobilak** iragarri dion mezu berrian. **Paddy Rekalde**

-Maletan utzi diat **mobila** eta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Anduren langabeziko azken soldatarekin erositako sarrera ugari **mobila** berehala amortizatu genuen. **Jon Arretxe**

## **2 telefono mobil** sakelako telefonoa.

Azkeneko eztenkada lehengo astean sartu zidan, telefono **mobila** erosi nuenean; denetarik deitu zidan: yuppie, aberaskume, pijo... Esaten dute, bere kolega bati utzi ziola telefono **mobila**, eta amerikanoak herriz herri kolega horri segika ibili direla. **Jon Arretxe**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**telefono mobila** (3)

## mobileta ik mobilette.

## **mobilette** (orobat **mobileta**) iz

Istripu batean izan zen, bere **mobilettean** zihoala. **Joan Mari Irigoien**

Horko bereko parka lekuan zaintzen dituzte **mobiletak**, skuterrak edo txirrindulak euro baten truke. **Herria**

Ez dugu gehiago ikusiko Irisarriko bidean bere **mobiletaren** gainean jin bezain laster etxerat zola bere zigaretak erosi eta basoño bat gorri edan ondoan. **Herria**

-Ikusi al duk Toñok ekarri duen motorra, **mobilette** horietakoa. **Jon Maia**

## **mobilario** iz altzariak, altzarien multzoa.

Espazioa eta argia kontsideratu behar omen zituen eta distribuzio-planoak marraztu, **mobilarioa** egokitu ahal izateko. **Patxi Iturritegi**

Nik Monikak ukitzen zuen gutzia ezagutu nahi nuen, ez bere ohea bakarrik, nahiz eta ohea izan etxeko **mobilario** ia bakarra, lo egitea asko gustatzen baitzitzaion. **Joxean Agirre**

## mobilisapen ik mobilizapen.

## mobilisatu ik mobilizatu.

## mobilisazio ik mobilizazio.

## **mobilizapen** (orobat **mobilisapen g.er.**) iz mobilizatzea.

Baina zerak eragiten dit oilo-ipurdia, armaden **mobilizapenak**, Belgrad-eko bonbardaketak, Belgikaren inbasioak... **Lopez de Arana**

Joanden astean, laborarien **mobilizapen** handia izan da Frantziaren gaindi, Monsanto-ren lantegien aitzinean. **Herria**

Gisa bereko **mobilizapenei** esker aterik ez dute ideki, Tolosa, Rennes eta Brest-eko KIABI saltegietan ere. **Herria**

## **mobilizatu**, mobiliza, mobilizatzen (orobat **mobilisatu g.er.**) 1 du *ad* armadako kideak gerrara joateko eran jarri.

Inprenta batean lan egiten du eta ez dute **mobilizatu** begietako gaitz bat duelako. **Felipe Juaristi**

1939an **mobilizatu** eta Alsaziara eraman zuten, baina naziek handik gutxira gatu hartu zuten eta hilabete batzuk eman zituen XII D Stalag-ean, Treveris-en. **Monika Etxebarria**

Andrea arduratu zen herrian denek jakin zezaten ni **mobilizatur** nintzela, eta laster bidailko nindutela frontera, eta hantxe hilko nautela ere! **Edorta Jimenez**

Halaxe egokitu zitzaielako joango zen frankistekin, **mobilizatur**, baina baliteke lehendik ere karlista-familiakoa izatea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

- Proteina arrotzek (bakterioek, esate baterako) gorputza inbaditzen duten guztietan, granulozitoak, **mobilizatu**, eta gertalekura abiatzen dira prestu. **Irene Aldasoro**

## • 2 da/du *ad* borroka edo egiteko batean parte hartu edo harrarazi.

Benetako irabazlea gizarte zibila izan zen, martxoaren 13ko arrats hartan egiaren alde eta gerraren kontra **mobilizatu** zen jendetza hura. **Txema Ramirez de la Piscina**

Zahartzen hasiak ziren aktibistak **mobilizatze**. **Berria - Gaiak**

CFDT-k egunaren bilan baikorra egin du, langile ohiak kopuru handian **mobilizatu** baitira. **Herria**

Dozenaka pertsona **mobilizatu** dira Malaysiako ontzi batek eragindako erregai orbana garbitzeko Baina trikitilariak ez zuten maisu zaharra ahanzi; belaualdi gazteagokoak **mobilizatu** ziren hurrena. **Berria - Gaiak**

Eta euskal herri langileak horrela, **mobilizatur**, gero eta gehiago hartuko zuen ekintzetan parte. **Rafa Egiguren**

Arnold Toynbee historiagileak ere porrota egokiago ikusten zuen nazio baten indarrak **mobilizatze**. **Joseba Zulaika**

Eusko Jaurilaritzako Herrizaingo Sailak bost mila ertzain **mobilizatu** zituen hauteskundeak zaintzeko. **Berria - Harian**

Apezak eta jende parrasta bat **mobilizatu** zuan Mikelen askatzeko, apezgaia zelako. **Itxaro Borda**

Nire ustez utopiak beti **mobilizatuko** gaitu. **Berria - Kultura**

Hautesle berriak **mobilizatzea** ia ezinezkoa izanen da bi hautagaiantzat. **Berria - Euskal Herria**

## 3 norbait edo zerbait higiarazi.

Aspaldidanik behar behera utzitako literatur inperio bat berriro hartzeko lehen urratsa inperio politiko bizi baten baliabideak **mobilizatzea** eska dezakeen lana da. **Iñaki Mendiguren**

Horren ondorioz, estatuak eskura zituen bitarteko guztiak erabiliz **mobilizatu** behar izan zituen bere funtsak. **Koro Navarro**

Oraindik ere, estatuak, zergen bidez, maileguen edo depreziazioaren bidez, finantza-baliabide handiak **mobilizatu** behar zituen, sortzen ari zen burokraziaren eta infanteriako gudaroste berriak, hobeto hornituak eta ugariagoak, eta garestiagoak beraz, finantzatzeko. **Koro Navarro**

117.000 milioi dolar **mobilizatu** behar izan ziren, lau hilabeteko epean, Thailandia, Indonesia eta Hego Korearen alde. **Koro Navarro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde mobilizatu (4); kontra mobilizatu (3); mobilizatu ziren (4); mobilizatu zituen (4)

jendea mobilizatzea (3)

alde mobilizatze (3); aurka mobilizatze (3); mobilizatze deia (13); mobilizatze deia egin (6); mobilizatze deia egiten (5); mobilizatze eskatu (4); mobilizatze prest (3)

herritarrak mobilizatzen (3); mobilizatzen hasi (9); mobilizatzen hasi dira (3); mobilizatzen hasi ziren (3)

aurka mobilizatzeraren deitu (4); mobilizatzeraren deitu (8); mobilizatzeraren deitu du (3); mobilizatzeraren deitu dute (3); mobilizatzeraren deitzen (4); mobilizatzeraren deitzen dute (3)

## mobilizatzaile *izond* mobilizatzen duena.

Autodeterminazioaren aldeko botoa eskatzeko, Batasunak Nafarroan hauteskunde kanpaina «**mobilizatzailea** eta parte-hartzailea» eginen duela iragarri zuen atzo. Berria - Euskal Herria

Bestalde, hauteskondeei begira martxan jarritako ildo **mobilizatzaileak** uda bitartean jarraipena izango duela iragarri zuen. Berria - Euskal Herria

Ekimen **mobilizatzaileak** ondo doazela uste dut, eta alderdi, sindikatu eta gizarte eragileekin edukitzen ari garen interlokuzioak ere oso ondo doaz. Berria - Harian

## mobilizazio *(orobat mobilisazio g.er.)* 1 iz mobilizatzea.

**Mobilizazio** jendetsu eta zabala da borroka-biderik egokiena. Rafa Egiguren

Eraso faxista berri honen aurkako **mobilizazioak** konbokatuta dira Euskal Herri osoan. Pako Aristi

Nahiko denbora [...] kentzen zian **mobilizazioak** eta bilerak antolatu beharrak. Jokin Muñoz

Egunero egiten ditugu **mobilizazioak**, faxistei eta falangistei aurre egin behar zaie, bestela jan egingo gaituzte. Jon Maia

Indigenek **mobilizazioekin** segitzeko borondatea agertu zuten atzo. Berria - Mundua

Nazioarteko aurrezkiaren halako **mobilizazio** batek, beste eskualdeetako kapitalen eskari garbia murriztara ziur behar duen, nahitaez. Koro Navarro

**Mobilizazio** gehiago iragarri dituzte ikasleek. Berria - Ekonomia

### 2 (izenondoekin)

Pentsamenduak, aldiz, Afrikaren aldeko **mobilizazio** politikoek erakusten duten bezala, badaki huts hori gaintitzen zuzena dena egiteko. Bernardo Atxaga

**Mobilizazio** gogor batzuen ondorioz, egun batean garbi ikusi nuen: iraultza bazetorren, zirt edo zart egiteko eguna. Alberto Barandiaran

Azaroaren 5eko **mobilizazio** nagusi hori egin baino lehen euren egoera salatze (3) kaleko ekintzekin jarraitzen dute grebalariek. Berria - Ekonomia

Presoen eskubideen aldeko **mobilizazio** bateratueta parte hartu dutenei. Berria - Euskal Herria

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Juan Duñabehiatiak uste duen moduan Bilbok eutsi egin behar diolakoan diren denek beren indarrak batzen dihardute eta, hortik **mobilizazio** deialdia. Edorta Jimenez

Greba eta **mobilizazio** egunaren balorazio baikorra egin zuen mahaikideak. Berria - Euskal Herria

Ezker abertzaleak **mobilizazio** gaitasun handia erakutsi duela egunotan. Berria - Euskal Herria

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikus-entzunezko hedabideen eta masa **mobilizazio** erraldoiaren laguntza baliatuz. Joxe Azurmendi

Bilboko ezkerrean aste batzuk lehenago izandako langile-**mobilizazioen** berri jaso zenuten. Rafa Egiguren

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldeko mobilizazio (7); aldeko mobilizazio eguna (3); aurkako mobilizazio (10); bosgarren mobilizazio (5); gaurko mobilizazio (3); greba eta mobilizazio (42); kontrako mobilizazio (3); kontratuaren aurkako mobilizazio (3); lehen mobilizazio (5); mailako mobilizazio (3); mobilizazio astea (3); mobilizazio bateratua (5); mobilizazio deialdia (3); mobilizazio deialdiak (3); mobilizazio egin (11); mobilizazio egin dituzte (4); mobilizazio egun (19); mobilizazio egun nagusia (5); mobilizazio eguna (27); mobilizazio eguna izan (3); mobilizazio egunak (3); mobilizazio egunarekin (6); mobilizazio egunaren (9); mobilizazio egunaren harira (5); mobilizazio egunari (3); mobilizazio egunean (18); mobilizazio egunean izaniko (4); mobilizazio eguneko (6); mobilizazio egunera (9); mobilizazio egunera deitze (3); mobilizazio egunetan (4); mobilizazio egutegia (4); mobilizazio gehiago egingo (3); mobilizazio gehiago iragarri (3); mobilizazio handi (4); mobilizazio handia (4); mobilizazio handiak (5); mobilizazio handiko (3); mobilizazio jendetsuak (3); mobilizazio nagusiak (3); mobilizazio nazionala (4); mobilizazio orokorra (3); mobilizazio soziala (4); mobilizazio ugari egin (6)

aldeko mobilizazioa (3); herri mobilizazioa (4); mobilizazioa beharrezkoa (3)

aldeko mobilizazioak (3); aurkako mobilizazioak (8); egin zituzten mobilizazioak (3); egingo dituzte mobilizazioak (3); gizartearen mobilizazioak (3); greba eta mobilizazioak (3); hasitako mobilizazioak (3); herritarren mobilizazioak (4); iragarritako mobilizazioak (3); izandako mobilizazioak (3); kontrako mobilizazioak (3); langileek mobilizazioak hasi (3); langileen mobilizazioak (3); mobilizazioak antolatu (14); mobilizazioak antolatu dituzte (4); mobilizazioak antolatuko (3); mobilizazioak antolatzea (3); mobilizazioak bultzatuko (4); mobilizazioak bultzatuko ditu (3); mobilizazioak deitu (6); mobilizazioak deitu ditu (5); mobilizazioak egin (23); mobilizazioak egin zituzten (9); mobilizazioak egingo (24); mobilizazioak egingo dira (7); mobilizazioak egingo dituzte (12); mobilizazioak egiteko (3); mobilizazioak egiten (3); mobilizazioak gogortuko (4); mobilizazioak gogortzeko (3); mobilizazioak hasi (10); mobilizazioak hasi dituzte (5); mobilizazioak iragarri (16); mobilizazioak iragarri dituzte (9); mobilizazioak izan (7); mobilizazioak izan ziren (5); mobilizazioak izango dira (4); mobilizazioak zapuztu (4); salatze (3); mobilizazioak (3); sindikatuek mobilizazioak iragarri (3)

mobilizazioaren bidez (5)

mobilizazioei ekin (5); mobilizazioei ekingo (9); mobilizazioei ekingo diete (7); mobilizazioei ekiteko (3); mobilizazioei esker (3); mobilizazioei eusteko (3); mobilizazioei eutsi (3); mobilizazioei eutsiko (12); mobilizazioei eutsiko diete (5)

langileek mobilizazioekin jarraituko (3); mobilizazioekin bat egin (4); mobilizazioekin jarraituko (12); mobilizazioekin jarraituko dutela (6); mobilizazioekin jarraitzeko (5); mobilizazioekin jarraitzeko asmoa (3); mobilizazioekin jarraitzen (3)

egingo diren mobilizazioen (3); greba eta mobilizazioen (3); mobilizazioen berri eman (4); mobilizazioen bidez (7); mobilizazioen egutegia (4); mobilizazioen harira (4); mobilizazioen ondortik (3)

aldeko mobilizazioetan (4); biharko mobilizazioetan (3); deitutako mobilizazioetan (4); egindako mobilizazioetan (3); egingo diren mobilizazioetan (6); mobilizazioetan parte hartzea (3); mobilizazioetan parte hartze (27); mobilizazioetan parte hartzeraren (11)

mobilizaziora deitu (11); mobilizaziora deitu du (4); mobilizaziora deituko (3); mobilizaziora deitzea (3)

mobilizaziorako deia (16); mobilizaziorako deia egin (8)

## mobimendu *(orobat mobimentu)* iz mugitzea.

**Mobimendu** horren gelditzeak, berriz, esan nahi du hizkuntzarekiko konfidantza galdu dela; nor bere buruarekiko konfidantza, beraz. Patziku Perurena

-Hirekin egingo diate armatarako lain diru **mobimentuan** ... Unai Iturriaga

## mobimentu ik mobimendu.

## mobiola *iz* zinema eta telebista grabazioetako irudi eta soinua kontrolatzeko tresna.

Eta konturatu gabe hasten naiz benetan kezkatzen eta burua berotzen, **mobiola** atzera eta aurrera erabiliz ikusteko ea non egin ote dudan huts. Patxi Iturritegi

Fantasia **mobiola** moduko bat da. Luis Elberdin

# moblatu, mobla, moblatzen 1 du *ad* altzariak jarri, altzariz jantzi.

Egun hartan, bada, han ninduan ni, hik alokatu eta **moblatutako** etxe hartan sekula niri erakutsi gabeko hartan, hire gelan. [Xabier Olarra](#)

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Gela bakarreko apartamentu **moblatua** zen, alde batean jangelatarako baliatzeko zati bat eta komuna beste aldean zituena. [Xabier Olarra](#)

# moda 1 iz jantzeko edo bizitzeko molde igarokorra, aldi batez gizarte jakin batean harrera handia duena.

Erlatibismoaren eta subjektibismoaren **moda**. [Joxe Azurmendi](#)

Nahiz eta gure aitak begitan hartua zuen ile motzaren **moda**. [Fernando Rey](#)

Hala deitzen dute den-dena kontrolatzeko **moda** hau! [Ramuntxo Etxeberri](#)

Hedabideek **modak** sortu, bideratu eta bizirauteko ahala daukate. [Berria - Euskal Herria](#)

**Modaren** zurrumbilano sartu zenetik gora eta gora egin du, xanpain aparrak bezala. [Patxi Iturritegi](#)

Modelo izateko zeharkatu nuen ozeanoa, eta badakizu zer aurkitu nuen **modaren** mundu ustelean?: diru gutxi, promes ugari eta hanka zabaltzeko iradokizun franko. [Migel Angel Mintegi](#)

Euskaraz ez dugu **moden** arabera funtzionatzen duen merkaturik. [Berria - Kultura](#)

Brechten gaurkotasuna erabatekoa da, klasiko guztiekin batera **moden** gainerik dauden kontuez arduratu delako.Beti **modan** eta dotore jantzita. [Berria - Kultura](#)

Politiariet, gureek barne, H delakoa azken **modan** ahoskatuz, Herriarentzat jagoitiek garapen globala eta globalizantearen premia proposatzen zuten. [Itxaro Borda](#)

Guk barre egiten genion, Mario Conde aspaldi zegoela **modatik** joana esaten genion. [Antton Olano](#)

Zubi azpira abiatu zen **modatik** pasatutako duintasun baten imintzio eginez. [Anjel Lertxundi](#)

Droga tragikomikoak aipatzeagatik, jenero heroikoa **modatik** pasatuxea dagoen honetan. [Iñaki Segurola](#)

Euskarri beltzeko antiojo **modaz** paseak jantzen zituen. [Jon Alonso](#)

Ilea gaztain-kolorea zuen, goialdean bildua **modaz** pasatako moduan. [Koro Navarro](#)

Ez da zaila Lucy hamar urte barru irudikatzea: emakume lodi bat, aurpegian tristuraren ildoekin, **modaz** aspaldi pasatako arropekin jantzita, bere aberetxoei hizketan, otorduetan bakarrik jaten. [Oskar Arana](#)

Baserrietatik etortirako neskei egiten nien kirika jaunartzera hurbiltzen ziren guztien artean; nahiz beren jantzi **modaz** kanpokoak, nahiz beren orrazkera arruntak. [Bernardo Atxaga](#)

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Izena zuen *Xirrinenea*, geroztik *Ene ametsa*, **moda** berriko izen batekin berriz bataiatu zuten. [Michel Oronoz](#)

Atso zahar eta mehar bat, **moda** zaharreko farfail-idun xelebrea jantzita, nigandik apur bat urrundu da plataforman. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Gazteak dira, zaratsuak, biziak, ez dira inondik ere **moda** zaharrekoak. [Oskar Arana](#)

Estereotipo komertzialak kolokan jarri, eta Bilboko eraikin mitikoa **moda** alternatiboaren topagune bihurtuko du hilaren 24tik 26ra bitarte. [Berria - Kultura](#)

Baina zer egin dira hek ere nunbaiteko **moda** bitxi eta ergeletan? [Herria](#)

Ez ahal gaituzte **moda** xoro batzuek airatuko, besteak gureez gustatuak direlarik? [Herria](#)

**Moda** iraunkorrez mintzatu ziren. [Lopez de Arana](#)

Horra hor **moda** haundia hartzen ari duen joko baten ezagutzeko parada. [Herria](#)

Kostaldera kanpoko **modak** iritsi dira, eta **modak** aldakorak dira. [Berria - Kultura](#)

Garaiko **modak** agintzen zuenez, kalesan ibiltzen ziren hirian barrena, atzealdean lekaioa zeramatela. [Jose Morales](#)

Mollie Newton azken-azkeneko **modan** ibili ohi da, izan ere; baina, ez dakit... [Mirentxu Larrañaga](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Soinean daraman blusa gardenak ikusmira handia piztu du **moda**-argazkilarien artean. [Patxi Iturritegi](#)

**Moda**-kazetaria zen, eta ingelesez hitz egiten zidan. [Fernando Rey](#)

Amak erantzuten zion: "bai nik ere!", eta **moda**-aldizkariak ikusten zituzten orri-pasaka. [Fernando Rey](#)

**Moda** katalogo batetik atera berria. [Patxi Iturritegi](#)

Espazio berriak eta mugimendua eman zizkion **moda** argazkilaritzari. [Berria - Kultura](#)

Atzera eta aurrera ibiltzen naiz **moda**-desfile batean bezala. [Anjel Lertxundi](#)

**Moda**-bildumaren garrantzi etiko-filantropikoa. [Patxi Iturritegi](#)

"Odxela" izeneko **moda**-denda txiki bat zeukan Artekale-ko muturrean. [Txillardeggi](#)

**Moda** diseinuan lan egin du orain arte Blamik batik bat. [Berria - Kultura](#)

**Moda** marka handiek emakumei ezartzen dioten edertasun femeninoaren mitoa salatuz, pasarela berezi bat egin zuten. [Berria - Harian](#)

Hilabete batzuk eman zituen Toursen, **moda**-lantegi batean aprendiz. [Joxan Elozegi](#)

Felix umeen **moda** jaialdiko erreportajea ari da egiten. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

**Moda**-kontuak agertzen diren horietako bat zela, kioskoan ikustetik akordatzan dela azalean kolore asko zituela. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

**Moda** mundua doluz jantzia dago. [Patxi Iturritegi](#)

Kotoizko galtza zuriak zeramatzen, oso estuak eta laburrak, eta frak **moda**-usteko bat. [Jose Morales](#)

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dohakabe horrek, bere iritziak modakoen aurrean irentsi eta ezkutatu egiten dituelarik, ez du inoiz adorerik izango bere mendea iritzi-**moda** zentzugabeek hain sarri sartzen duten lokatza arteki ateratzeko. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Eta horrela entretenitzen da gaztea gazte-informazioarekin bere burua jantzen, gazte-planetan bere izena eta diru-txamarrak uzten, gazte-**modan** mozarrotu eta gazte-guneetan gazte-musika entzuten. [Iñaki Segurola](#)

## 5 *modako izlag* modan dagoena.

**Modako** zapata takoidunak. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Dantza egitera joan edo **modako** pub batera sartu. [Aingeru Epaltza](#)

Gau eroak, *Maruja* eta *Etxekalte* pubak **modako** jendez gainezka. [Iñaki Iñurrieta](#)

Modeloek **modako** jostunaren soinekoak teatroan aurkezten zituzten gauean. [Matías Múgica](#)

Abenturak zain neuzkan hor, abentura ederrak, emakumerik ederrena ere zain neukan, jostunik **modakoena**. [Matías Múgica](#)

Azken **modako** euskara txukunean. [Joxerra Garzia](#)

Dama gazte bat zen, hiritarra oso, **moda-modako** kirol-soineko batez jantzita. **Moda-modakoa** da, azken orduko gustuaren arabera. [Ander Irizar](#)

Ttipiren begi tipiek distira egin zuten, hamar billete handi baino gutiago balio ez zuten bere betaurreko **moda-modakoen** gibeletik. [Aingeru Epaltza](#)

## 6 *moda izan ad ad*

Parisen sport jantzea **da moda**. [Fernando Rey](#)

Gaur egun ez dago modako, azala **baíta** gaur **moda**. [Joxerra Garzia](#)

Herria askatu nahi zuen, orduan **moda zen** bezala, eta egun batez preso hartu zuten. [Matías Múgica](#)

Alabaina Euskaratik mendebaldeko **moda zen** kilometroak, [Nafarroa] oinez, Ibilaldia, Araba Euskaraz eta Herri Urratseko arropaz bezalitzea. **Itxaro Borda**  
Auzentzia **moda balitz** / soineko gorritz jantziko nuke. **Jasone Osoro**

## 7 moda-moda

Hotela "irain arkitektoniko" bat dela dio azken urteotan Italian **moda-modan** dagoen Piero Pazzi argazkilaria. **Anjel Lertxundi**

*Beautiful people* deiturikoa zegoen **moda-modan** ; jende aberatsa, itxuraz bederen, guztia zuena. **Berria - Euskal Herria**

Parisen txano erusiarrak, kabiarra, eta Michel eta Nadia izenak **moda-modan** jarri ziren. **Karlos Zabala**

Erakusmahaiaren atzeko neska gazte **moda-modara** jantziak [...] galdetu zion ea eztei-tarta al zen erosi nahi zuena. **Irene Aldasoro**

## 8 modako egon

Ezkontzea gure artean oso **modako** ez **zegoela** uste nuen, baina koadrilako lagunei begiratura kontrakoa esan beharko. **Xabier Etxabe**

Donostiatik ekartzan zituen **modako zeuden** piezak, han musikariren bat lagun hartua baitzuen. **Xabier Etxabe**

Gaur egun ez **dago modako**, azala baita gaur moda. **Joxerra Garzia**

Kalean barrera neska asko pasatzen ziren, zirarekin eta txano garden batekin, nylonezko zorrotto bat buruan, huraxe **baitzegoen modako**. **Fernando Rey**

## 9 modan egon

Garapen iraunkorra **modan dago**, ez da ordea moda bat. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

**Modan zegoen** orduan gaur inork irakurtzen ez duen idazle bat, Pittigrilli, neskek arras debekatua genuen. **Karlos Zabala**

"Nik ahal banu..." esatea **dago modan** gizonezkoen artean. **Arantxa Iturbe**

Grabatzera sartu ginenean after-punk iluna **zegoen modan** : *Echo & The Bunnymen, Psychedelic Furs, Killing Joke...* Orain mehertasuna **dago modan**. **Berria - Kultura**

Marilyn bezalakoak ez **daude modan** gure artean. **Migel Angel Mintegi**

Kareizko betaurrekoak, oraindik **modan** ez **zeudenean**, argaltxoak neurri egokian, ipurditxo mardula, ahotsa ondo modulatu. **Karlos Zabala**

-Sasoi honetan arrosak eta laranjak ere oso **modan daude**. **Jasone Osoro**

Oso **modan zegoen** garai hartan kantu hura, nonahi entzuten zen. **Juan Luis Zabala**

Hurrengo lanean orain hain **modan dauden** zientzia fikziozko istorio futurista horietariko bat idazten saiatuko naiz. **Jon Arretxe**

## 10 modan izan da ad

Beltza beti **modan dela**, noiznahi janzten dugu. **Herria**

Gaia **modan dela** erran dezakegu. **Piarres Aintziart**

**Modan da** elkarriz atxikitutako etxeen eredu, hiritik gertuko herrietan. **Berria - Euskal Herria**

Baina politika liburu horiek oro baino lehen, mugimendu iraultzaileak **modan zirelarik**, Marx eta Engelsen *Alderdi Komunistaren Manifestua*, Mao Tse-Tung-en *Liburu Gorria*, Macchiavelliren *Printzea* bezalako obretan aurkitzen ziren, euskara batuan emanik, maisu berrien dogma guztiak. **Piarres Xarriton**

**Modan dela** omen! **Ramuntxo Etxeberri**

## 11 modan jarri

Garai hartan nobleziaren eta nire zirkuluaren antisemitismo bera **modan jarri** zen burgesen, atezainen, tximinia-garbitzaileen eta tapizatzaileen artean. **Anjel Lertxundi**

Beste aberri batekoak ziren, antzinakoak, egunkari pertsonalak **modan jarri** baino lehenagokoak. **Bernardo Atxaga**

Atzekoz aurrera idaztea ez da karteletan **modan jarritako** teknika literario hutsa. **Iñigo Aranbarri**

Artean **modan jarri** gabe zegoen light hitza. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Holandan, XVII. mende hasieran, oso **modan jarri** omen zen etxeetan tulipanak edukitzea, Turkiatik ekarri berria zen halako landare bat etxean jartzea estatus sozialaren sinbolo izateraino. **Iñaki Heras**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**moda aldizkari** (3); **moda berri** (6); **moda berria** (4); **moda berrian** (3); **moda berriko** (4); **moda denda** (3); **moda desfile** (5); **moda desfilea** (6); **moda desfileak** (4); **moda kontua** (6); **moda kontua dela** (3); **moda kontuak** (3); **moda modako** (7); **moda modakoa** (3); **moda modan** (9); **moda modan dagoen** (3); **moda xaharrean** (3); **moda xaharreko** (5); **moda zaharreko** (5)

**modak agintzen** (3)

**azken modako** (10); **moda modako** (7); **modako jostunaren** (3); **modako piezak** (3); **modako talde** (3)

**moda modakoa** (3)

**dago modan** (7); **jarri zen modan** (4); **moda modan** (9); **moda modan dagoen** (3); **modan da** (4); **modan dago** (19); **modan daude** (5); **modan egon** (7); **modan jarri** (37); **modan jarri zen** (8); **modan jarriko** (6); **modan jartzen** (9); **modan zegoen** (17); **modan zeuden** (10); **oso modan** (14); **oso modan dago** (3); **oso modan zegoen** (5)

**hamarkadako modaren** (3); **modaren arabera** (10); **modaren araberako** (4)

**modari jarraitzen** (3)

**modatik joana** (3); **modatik pasatutako** (3)

**modaz kanpo** (4); **modaz pasatako** (7); **modaz pasatuta** (4); **modaz pasatutako** (5)

## modal iz moduari dagokiona.

Testuinguru **modalean** murgildurik egoteagatik eragindako ideiak desegokiak dira, zeren kanpoko gorputzek sorturiko afekzioak (efektuak) baitira. **Piarres Xarriton**

Gizakia aurkitzen deneko serie **modalaren** bitartez sortua dela eta Jainkoa gauza guztien kausa inmanente gisa agertzen dela. **Piarres Xarriton**

Semantikan bi balio hartu beharrean balio gehiago hartzea posible litzateke (logika anizkoitzak), edo formulen luzera infinitua izatea onar genezake (logika infinitarioak), edo sinbolo logiko gehiago sar genitzake hizkuntzan, hala nola eragile **modalak** ("posible" edo "beharrezko") edo denborazkoak (logika **modala** eta denboraren logika).

**Askoren artean**

## modalidade ik modalitate.

## modalitate (orobat modalidade) iz 1 zerbaiten forma edo aldaera.

Modu bi beraz: lehenengo **modalitatea** pentsatzea zen; sistematikoki. **Unai Elorriaga**

Jendeak uste du pasta dela italiarren gailur gastronomikoa: edozein **modalitatetan** delarik ere -pizza, makarroiak, lasagna...-, pastak Italiako gastronomia ekarri ohi digu gogora. Lau **modalitate** daude [sarietan]: etxebizitza onena, komertzio onena, eraikin onena eta balio arkitektoniko-monumental onena duen eraikina Bi **modalitatetan** txapeldun da Arretxe. **Anjel Lertxundi**

Deleuzek mugimendu-irudiaren hiru **modalitate** bereizten ditu, pertzepzio-irudia, ekintza-irudia eta afekzio-irudia, zein prozesu den nagusi: pertzepzio-prozesua, narrazio-prozesua ala adierazpen-prozesua. **Josu Zabaleta**

Judizioen **modalitatea** hauen funtzio berezi-berezia da, bere baitan bereizgarri hau duena, alegia, ez diola ezer gehitzen judizioaren edukia. **Ibon Urbarri**

Gizon guztiekin, emakume guztiekin, parean fortunatzen zitzaizkion guztiekin jo zuen larrua, txapeldun bihurtu zen **modalitate** guztietan, guztiz aldatu zen, beste bat zen.

**Karlos Zabala**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jainkoak dakil hori, gainera, egokiera berberetan esaten den *nork daki?*-ren baliokidea da, haren bihurtura bat [...] eta esaldiaren **modalitate** aldaketa horretan, galderatik

harridurara gertatzen irristada horretan, nor den ez genekienari nor den badakigula uste dugun baten izena erantsi behar izan diogu, ez baitago hizkuntzan beste modurik galderaren bidez adierazten genuena harridurazko modalitatean esan ahal izateko. Iñaki Segurola

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Polifonia **modalitatean**, berriz, laugarren sailkatu dira oñatiarrak. Berria - Kultura

Footing **modalitate** berezi bat du estualdi: soka bat darama gerrian lotuta, eta sokatik tiraka, Siberiar huski txakur zuri-gris horietako bat. Anjel Lertxundi

Indoor **modalitatean** jardutea erabaki zuten, joko-zelaia sala barrura murriztuta. Harkaitz Cano

Eraketa-arauak izena emango zaie banaketa honen osagaiak menpean hartzen dituzten baldintzei (objektuak, adierazpen **modalitateak**, kontzeptuak, hautaketa tematikoak). Xabier Arregi

Proposaturiko azterketan enuntziatio-**modalitate** ezberdinek eraman beharrean subjektu baten sintesira edo funtzio bateratzaile, subjektu horren sakabanaketa adierazten dute. Xabier Arregi

Horregatik beharrezkoa zen aldi bakoitzean definitzea objektuen eraketa-legeak, enuntziatio-**modalitateak**, kontzeptuak, aukeraketa teorikoak. Xabier Arregi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**enuntziatio modalitate** (5)

**modalitatearen oinarri** (5); **modalitatearen oinarri esakuneak** (3)

**modalitatetan jokatu** (3)

## modalizazio *iz*

Horregatik da estiloz soila; esaterako, apenas erabiltzen duen **modalizaziorik**: *komeniko litzateke, beharko genuke* eta antzeko leungarririk. Patxi Altuna

## modazale *izond* modaren zale dena.

Hitz samurrak trukatu zituen dama batzuekin; batengana zein besterengana hurbiltzen zen urrats labor eta lasterrez, edo, esan ohi denez, tipi-tapa, hala nola ibiltzen baitira beren takoi garaien gainean aguretxo **modazaleak** -hainbatek agure lizunak esaten dieten horiek alegia- damen atzetik agudo dabiltzanean. Jose Morales

Horrelako balalaikak, haien soinu lasaia entzutera biltzen diren neskatxa bular-zuri, lepo-zurbilei begi-keinuka eta txistuka aritzen zaizkien hogeitorteko mutilgazte emai, irtirin eta **modazale** horien edergailu eta jostagarri izaten dira. Jose Morales

## moddernaje *iz adkor* modernajea.

Ez, ez nuen besterik espero **moddernaje** sentitberaz moxkortutako "proyecto hombre" berriongandik! Patziku Perurena

## modderno *izond adkor* modernoa.

Fraidekume **modderno** zibilizatuaren eskolaren karga bizkar gainean, pepperoni soberako pizza bat eta hiru zerbezakada sabeleratu nituen, jatetxe italiar hurbil batean. Aingeru Epaltza

Nahi duzuna, baina, horrek ez du ukatzen "Otelo" eta gisakoen "integrisimo **modderno** libertinoa". Patziku Perurena

## model ik **modelo**.

## modelaje *iz*

'**Modelajea** behintzat utzi egin behar izan du', dio beste batek Isabella Roselliniren Manifestoari buruz, 'bere erretratuei egin behar zizkieten konpiuter apainketak hirulau kirurgia estetiko zirela uste dut...'Joseba Sarrionandia

## modelatu, modela, modelatzen du *ad* forma eman. ik **moldatu**.

Hogeita bost bat urteko emakume lerdena zen, bisaia arrunt samarra baina gorpuzkera sendoa zuen, bularrak eta aldakak ongi **modelatuak**, biribil eta irmoak. Sortzaile gehienek behar dutela adin batetik aurrera ispilu gisa erabiliiko duten izakiren bat, beren gogora **modelatu**, debozioz zaindu eta mirespenez gurtuko duten norbait. Migel Angel Mintegi

Espazioak sortzen eta **modelatzen**. Berria - Kultura

Venezuelan daude guk jaso eta ezagutu dugun Euskal Herri honen izaera berezia **modelatzen** eta biribiltzen lagundu zuten askoren arteko batzuk. Pako Aristi

Azterlan honen lehenagoko zati batean aitasantutza ikusi dugu *Respublica Christiana* **modelatzen**. Iñaki Mendiguren

Gizarte Islamikoaren bizitza gobernatu eta **modelatu** behar zuena. Iñaki Mendiguren

Gure emozioak **modelatuz** gero, ikusiko dugu zenbat denbora pasa behar den beste gailu batekin haserretzeko. Berria - Gaiak

## modelatze *iz* forma ematea.

Leon Brening Bruselako Unibertsitate Libreko irakaslea eta **modelatze** atmosferikoaren prozesuetan aditua da. Berria - Gaiak

Merlin Donaldek zera iradokitzen du *Origins of Modern Minds*: **modelatzearen** mimesi-ahalmena, barne-irudiztatze guztiz hitz eta kontzeptu gabearena. Xabier Olarra

## modeliko *izond* eredugarri, ereduzkoa.

Hitzaldi hartan ikusi zuen bikote **modeliko** hura datorkio burura. Lourdes Oñederra

Besteko, gaztelarazko iragarpenak bazuen aspalditiko era **modelikoa**: nire iragarpenak, aldiz, bestela abiatzen ziren, haizeari erreparatu eta haren ondorioak ekarriz. Pello Zabala

## modelismo *iz* eskalako modelook egiteko teknika.

Bai-eta **modelismoa**: itsas-untzi telegidatuak. Herria



# modelizazio izendu baten arabera.

Badakit, jakin, lehenengo atala, batez ere, teoria formalizatuagoak, teoria **modelizatuagoak**, azaltzen baititu, teknikoagoa, eta, "horrenbestez", irakurtzen zailagoa irudituko dakiokela bati baino gehiagori. **Josu Zabaleta**

## modelo (orobat *modelu g.er. eta model g.er.*) 1 iz produktu berriak aurkezten dituen, soinekoak eta kidekoak jantzirik erakusten dituen, edo publizitate karteletan-eta lanbidez agertzen den pertsona.

**Modeloek** modako jostunaren soinekoak teatroan aurkezten zituzten gauean. **Matías Múgica**

Haren neska-laguna Argentinako **modelo** famatu bat da. **Berria - Kirola**

Ivy **modeloa** zen: kotxearen kolorea nolako, soinekoak ere halako hautatzen zituen hark. **Joxe Austin Arrieta**

**Modelo** izateko zeharkatu nuen ozeanoa, eta badakizu zer aurkitu nuen modaren mundu uestean?: diru gutxi, promes ugari eta hanka zabaltzeko iradokizun franko. **Migel Angel Mintegi**

Marilyn Monroeren klontzat har genezake emakumea, alde guztietatik begiratuta ederra baita, eta, egun modan dauden zenbait **modelo** ez bezala, behetik eta goitik ongi bete. **Migel Angel Mintegi**

Azkenik, jostuna, auzo xumeenetan **modelo** bila ibiltzen baitzen, haren edertasun paregabeaz ohartu zen eta horrela hasi zen harentzat lanean. **Matías Múgica**

**Modelo** aritu zen handizkako arropa-etxe batean; emakume ederren bolada zen artean eta bera aski musu-gorria zen orduan, bular alde tente eta garaia ageri zuena. **Mirentxu Larrañaga**

Kanpotiarrari iduritzen zaio hemengo gazteak, azken modako legeari jarraituz, iragarki **modelo** direla ogibidez. **Ramuntxo Etxeberri**

Metalezko ibiltoki zabal batean modako erremintak aurkezten jardun duten **modelo** lirainei. **Berria - Ekonomia**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Modelo** agentziatarra jo beharko zuen beste zerbitu bururatsen ez bazitzaion. **Migel Angel Mintegi**

Hirugarren multzo bateko argazkiek, Louise **modelo** lanetan erakusten zuten. **Hasier Etxeberria**

Barrako neska hasi, arropa **modelo** jarraitu eta stripper amaitu zuen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## 3 artista batek arte lan batean irudikatzeo erabiltzen duen pertsona edo gauza.

Hasieran, bere ama erabili omen zuen **modelo**. **Harkaitz Cano**

Rossetti-k ez zion tratu onik eman, eta etengabe engainatzen zuen beste **modelo** batzuekin. **Ramon Saizarbitoria**

Baina emeki-emeki ikaslea baino gehiago, [Rodin eskultorearen] **modelo** eta maitale bihurtu zen. **Berria - Kultura**

Sarri askotan beren lantokitik kanpo egiten zizkien argazkiak **modelo** gisa aukeratutako artistei; Magritteri, adibidez. **Berria - Kultura**

Katrin Korfmann argazkilaria alemaniarrek **modelo** bihurtuko ditu herritarrek Donostian. **Berria - Kultura**

Pinturaren teknika ezberdinen ikasteko, **modelo** kopiatzen nituen, Monet-en *Le pont d'Argenteuil*, Rouault-en Kristoak, Chagall-en arrabitalariak... **Ana Urkiza**

## 4 seriean fabrikatzen den industria ekoizpena, ezaugarri jakinak dituen.

Diru horrekin lagundu nahi du Iruñeko gobernuak Polo 24X **modelo** berria Landabengo lantegian egitea. **Berria - Ekonomia**

Automobilari dagokionez, Renault ilun bat zen, baina ez galdetu **modeloa**, handienetarikoa bat zela besterik ez dakit. **Migel Angel Mintegi**

Mahai gainean zenbait paper, eta aldemenen ordenagailuaren pantaila, **modelo** berri-berrikoa. **Aingeru Epaltza**

Telefonoa [...] **modelo** zaharrekoa zen, zenbakiak disko birakorrean preso dituztenetarik. **Aingeru Epaltza**

Bidaierien bagoiak aspaldi zerbitzutik kanpo gelditu zen **modelo** batekoak ziren. **Fernando Rey**

Ez zidan diru gehiago eskatu, baina esan zidan zunda itzultzeko, **modelo** hura nekez lortzen zela. balio handiko gauza guztiekien zerranda bat egitea komeni da, marka, **modeloa**, serie zenbakia... zehaztuz. **Joseba Urteaga**

Gizakume kontsumistaren aspirazio nagusia kontsumo merkatuko produktuez jabetzea da: telebista programa bat, halako auto **modelo** berria, liburu arrakastatsua, halako instituzioaren saria, eta abar. **Patziku Perurena**

Gerra-hegazkin **modelo** berriak testatzea, probatzea da nire lagunaren lanbidea. **Joxerra Garzia**

Kenzo, Christian Lacroix eta Recaro etxe famatuei galdatu apaindura **modelo** berriak presentatu dituzte Baionako geltokian. **Herria**

## 5 jostun batek diseinaturiko arropa bilduma batekoa den jantzia. ik **modelotxo**.

Bere jantzi **modelo** berriak aurkeztu nahi zituen San Petersburgoko teatro batean. **Matías Múgica**

## 6 sistema konplexu baten eskema teorikoa, hura ulertzeko balio duena.

Jadanik, bakegintza alorrean jarduten duten ikerlari frankok errana dute eskolak zein nolako erresponzabilitatea duen **modelo** horren transmititzeko tenorean. **Itxaro Borda**

Ordu arte, eragin makroekonomikoen ikerketak eskaria zuen aztergai, baina bi ekonomistek frogatu zuten eskaintzak jasotzen dituen eraginek ere ondorio zabalak dituztela, eta, hala, bidea zabaldu zieten analisirako **modelo** sendoagoei. **Berria - Ekonomia**

Eta unibertsitateetan bat egin dute joan den mendean esperimintuen espezializazioak eta **modelo** matematikoen formulazio abstraktuak. **Pello Salaburu**

Tentsioa, beharra sortzen da, eta **modelo** berriak aztertzeo beharra, irudimena, eztabaida eta konpromisoa indartu egiten dira. garapen iraunkorraren inguruan landu ditudan simulazio **modelo** garbi erlazionatzen dute munduko populazioa, elikagaiekin eta osasun nahiz hezkuntza zerbitzuekin. **Berria - Euskal Herria**

Dena dela, **modelo** teorikoez ez dute aurrera egin, eta horrek segur aski desilusioa sortzen du astronomo behatzaileengan, WMAPekoak tartean. **Berria - Gaiak**

## 7 eskultura, eraikuntza, tresna eta kidekoen eredua, gehienetan tamaina txikiagoan egiten dena. **ikmaketa**.

Badaude batzuk **modelo** ez oso handitan eginda, gero tamaina handian egiten direnean ere berdin funtzionatzen dutenak. **Santiago Iruretagoiena**

## 8 jarraibidea.

Ene bizi- **modelo** gehienak maskulinoak ziren liburu-etako heroi gehienak maskulinoak baitziren. **Ana Urkiza**

Ze pilotari **modela**, gisa guziz, etsenplu hartu nahi duten gazteendako. **Herria**

## 9 eredua.

Europako zenbait alderdi komunistak landu zuten eredu komunikatiboak porrot egin zuen, martxan jarri zuten **modeloa**, askotan, eredu liberal-burgesaren kalko txarra besterik ez zelako. **Txema Ramirez de la Piscina**

Eredu tradizionalari indarra kenduz, Katalunia eta Kanadako ereduetan etxeko hizkuntzaren inbertsio **modeloa** arrakastatsua izan dela ikusi da. **Berria - Euskal Herria**

Eskola alternatiboak, harreman alternatiboak, eremu alternatiboak, prentsa alternatiboak... eredu zaharkituen ukaziotik sortu nahi den **modelo** arnasberria da alternatiboa. **Txema Ramirez de la Piscina**

Beste **modelo** baten aldeko eskemara eraman nahi dugu gizartea. **Berria - Ekonomia**

Hego Ameriketako **modelo** kapitalista baten alternatiba bat bezala ikusia da LGM-a. **Herria**

Kontsumo-gizarteak ezarritako edertasun- **modelo**aren aurka dagoen emakumearen ahotsa. **Ana Urkiza**

Superwomanen **modeloa** krisian dago han. **Arantxa Iturbe**

D irakaspen **modeloari** atea zabaltzen dizkio erakaskuntza publikoak eta hor sartzen dira jada sail publikora sartu berriak diren Britainiako "Diwan" ikastolak **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auto modelo (4); beste modelo bat (3); hegazkin modelo (4); modelo berri (3); modelo berria (3); modelo berriak (5); modelo lanetan (6)

# modelotxo iz adkor jostun batek diseinaturiko arropa bilduma batekoa den jantzia.

-Zer bururatu zaizu gaur? -erantzunari itxoin gabe, jarraitu zuen -: Gustatzen al zaizu gaur jarri dudana **modelotxo** ? **Juan Martin Elexpuru**

## modelu ik modelo.

## modem 1 iz seinale digitalak analogiko eta analogikoak digital bihurtzen dituen gailua.

**Modema** baduzu, Internauta elkarte batera jo eta zure ordenagailutik 906 eta 806 zenbakietara konexioak egitea galarazteko programa bat eskatu. **Berria - Gaiak**

**Modemaren** bozgorailua ez isilarazi; hala, konektaturik gauden bitartean zenbaki berri bat markatzen dela entzun ahal izango da; *Nire PC*-ko telefono konexioetan ez dela aldaketarik egon egiaztatu. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

Eman dezagun Españako estadian direnak, **modem** sistemarekin eta "serveur" batekin egiten ahal dute sare bat heien artean, baina ez dira sare frantses batean sartzen ahal. **Menane Oxandabaratz**

Lagunen artean, esaterako, ni naiz burmuineko **modem** -txipik txertatu ez duen bakarrenetakoa, bakarra ez banaiz. **Iban Zaldua**

## moderato iz erritmoez mintzatuz, neurritsua; erritmo hori duen musika lana.

Allegroa joka hasi ziren emakumeak, allegro **moderatoa**, Jacques Rocheforten kezka bere egin balituzte bezala. **Felipe Juaristi**

Zuzendariak **Moderato** -ko hiru gai zoragarri loratu zituen. **Berria - Kultura**

## moderatu<sup>1</sup>, modera, moderatzen 1 da/du ad muturreko jarreretatik aldendu edo aldenarazi.

Zuzendaritzat **moderatu** nahi izan ditu hainbat diskurtso baina iragarri du jada immigrazioaren gaian ez dela aldaketa gehiagorik izango. **Berria - Mundua**

Schnellerrek zehaztu zuen Kadima boterean dagoen lehenbiziko urtean PANeko gobernuak (Hamaseku) ikuspuntua **«moderatzen»** duenetz ikusiko du, horren arabera jokatzeke. **Berria - Harian**

## • 2 du ad bilera batean moderatzaile lena egin.

18:00etatik aurrera, Pierre Aintziartek **moderatuta**, eta Pantxoa eta Peio kantariak Monzonen kantuak emango dituzte. **Berria - Kultura**

## moderatu<sup>2</sup> 1 izond neurritsua.

Higidura termikoen dardara **moderatuak** axalean baino eragiten ez diotela. **Juan Garzia**

Estatu Batuetako kapitalen irteerak, ondasunen eta zerbitzuen trukeek sortutako soberakinak baino handiagoak zirenak, erritmo **moderatu** hazi ziren 1950eko hamarraldian. **Koro Navarro**

Soldaten iguera **moderatu** eta lan harremanen malgutasuna. **Berria - Ekonomia**

Hori eszeptizismo **moderatuaren** mota bat besterik ez da. **Askoren artean**

Baina gorroto **moderatu** zen beti ere. **Unai Elorriaga**

Medikuek Pinocheten «eromen **moderatu**» baieztatu dute. **Berria - Mundua**

## 2 estremista edo muturrekoa ez dena.

Seneka, bestalde, **moderatu** da, eta posibilista: estoiko ortodoxoek ez bezala, ez dio uko egiten diruari, ezta politikatik aldentzeari ere. **Markos Zapiain**

Liberal **moderatu** adina erromantiko ere **moderatu**. **Joxe Azurmendi**

Batzuk abertzale eskuindar, **moderatu**, poliki ibiltzearen zaleak, anaia Martin bezala; beste batzuk herrikoia, jatorrago, ezkertiaragoak, anaia Jesus Mari bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Batzarra botoemaile **moderatuak** erakartzeko diseinatu dute errepublikanoen estrategiek. **Berria - Mundua**

Vojislav Kostunica lehen ministro **moderatuaren** gobernu ezeagonkorra da. **Berria - Mundua**

Alderdi **moderatuak** dira biak. *Belfast Telegraph* egunkari unionista **moderatuak** kaleratutako aurreikuspenen arabera. **Berria - Mundua**

Gobernu **moderatu** hobeto doakiola erlijio kristauari, eta gobernu-era despotikoa mahometarrari. **Iñaki Iñurrieta**

Estatu **moderatu** [...] aberriaren maitasuna, lotsa edo gaitzespenaren beldurra dira arrazoi nagusiak, delitu asko saihesten dezaketenak. **Juan Martin Elexpuru**

Indigena gehienak alde dituen arren, **moderatu** diote haren jarrera «muturrekoegia» dela. **Berria - Mundua**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**nazionalista moderatu** (4)

**abertzale moderatu** (3); **nazionalista moderatu** (3)

**moderatu** (4)

## moderatzailerik 1 izond moderatzen duena.

Betik legea, giza legeen **moderatzailerik**. **Imanol Unzuurrungaza**

Barne sentimena bikainagoa da kanpo sentimenak baino eta, gainera, hauen **moderatzailerik** eta epailea da. **Imanol Unzuurrungaza**

## • 2 iz bilera batean buru eta gidari gisa, hitza emanez eta, aritzen den pertsona.

Baleren Bakaikoa **moderatzailerik** zutela, desobediencia zibilar buruzko gogoetan jardun zuten Setien Donostiako gotzain emerituak eta Sadaba Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasleak. **Berria - Euskal Herria**

Docampo eta Daniel Nesquens izango ditu solaskide, eta Ramon Llorens **moderatzailerik**. **Berria - Kultura**

Mariano Ferrer kazetaria **moderatzailerik** arituko da antolatzen dituzten eztabaida guztietan. **Berria - Euskal Herria**

Callejaren akusazioaren aurrean babesa eskatu zion Berriako zuzendariak **moderatzailerik**. **Berria - Euskal Herria**

**Moderatzailerik** arazo handiak izan zituen eztabaida berriz bideratzeko. **Berria - Mundua**

**Moderatzailerik** hitza etenarazi zion arte, Palaciok hizketan jarraitu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Lau kaputxadunek hartzen zuten parte, eta Guebokinderrek **moderatzailerik** lana egiten zuen. **Jon Alonso**

## 3 (hitz elkartuetan)

Lehen egunean Jose Maria Tallon medikuak egingo ditu **moderatzailerik** lanak. **Berria - Euskal Herria**

## moderatze iz muturreko jarretatik aldentzea.

Pastorren ustez, abagune politiko berria eragin duten faktoreak honakoak dira: «Terrorismoaren ahulezia», Espainiako Gobernu aldaketa, [...] elkarriketa politikoari gizarateak eman dion bultzada eta EAJn «hasi berri den **moderatze** prozesua». [Berria - Euskal Herria](#)

## moderazio (orobat *moderazione g.er.*) 1 iz muturreko jarretatik aldentzea.

Zorroztasun kritikoa, zalantza metodikoa, **moderazioa**, tolerantzia, besteren ideiekiko errespetua izan dira Bobbioren bertuteak. [Berria - Kultura](#)

Norabide «nazionalista eta progresista» hartzea proposatu du Convergenciak; Uniok, berriz, «**moderazioa**» eskatu du. [Berria - Mundua](#)

«**Moderazioak**» a priori plus intelektual handia dauka oraingo gizaratean. [Joxe Azurmendi](#)

Israeli zein PANi «**moderazioa**» eta indarkeriari amaiera jartzeko eskatu zieten. [Berria - Mundua](#)

Gainera, kezkatuta agertu zen aldeek azken boladan egindako adierazpenek areagotutako tentsioarekin, eta «**moderaziorik** handiena» eskatu zien. [Berria - Mundua](#)

### 2 neurria ekartzea, neurritzea.

**Moderazioa** eta gogoeta lasaia bezalako gaitasunak ere, klasikoen garaitik ontzat hartuak izan direnak, oker erabil daitezke. [Askoren artean](#)

Aurrekontu-politikak, azkenik, ez zuen prezioen **moderazioa** sustatzen. [Koro Navarro](#)

Kubako "mojito" delakoarekin edanik, **moderazione**kin bistan dena. [Herria](#)

### 3 (hitz elkartetan)

Bozketak egiterakoan, erregearen heriotzari baiezkotza eman zion [...] eta ukoa, berriz, herriari **moderazio** deia egiteko eskatzen zen hautaketan. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

la-ia ez nintzen gauza neure buruari **moderazio**-aholkuak emateko. [Fernando Rey](#)

Erresoluzio mahaia denok behar gaituen neurrian, mahai hori nola jarriko den martxan, ze metodologia erabiliko duen, ze dinamizazio-**moderazio** lana beharko duen...

[Berria - Harian](#)

## moderazione ik moderazio.

## modernaje iz adkor moderno-jendea.

Halako askatasun egaria du eungo **modernajeak**, non lesbianak, transexualak, marikoiak eta inon direneko gai guztiak familia ofizial eske ari diren estatuari. [Patziku Perurena](#)

Imajinatzen dut atze hartan, euskal **modernaje** itsua (gaur bezalatsukoa) zeinen ederki gaitzetsi zuen Orixe. [Patziku Perurena](#)

## modernia 1 iz aro modernoa.

«**Modernia**» hitza erabiltzen dugunean, aro historiko bati buruz ari gara mintzatzen (aspaldikoa, filosofian XVII. mendean hasten dena); "modernitate" hitza, bestalde, ezaugarri batzuei buruz ari garenean erabiltzen dugu, alegia, **moderniaren** aroko ezaugarriari buruz ari garenean batik bat, baina [...] oraingoak ere izan litezkeenak (subjektibismoa, razionalismoa, etab.). [Askoren artean](#)

Eskematiza dezagun pixka bat puntu honen historia: 1) Antzinaroa, Zuzenbide (edo moral) natural objektiboaren aroa kontsidera genezake; 2) **Modernia**, Zuzenbide natural subjektiboarena. [Joxe Azurmendi](#)

Berpizkundera iragaitzazko aldi bat da, honezkero ez Erdi Aroa ezta oraindik **modernia** ere. [Askoren artean](#)

**Modernian**, lehenengo eta behin, mundua ez da bera eta, bereber, subjektuaren "mende" dago; bestalde, akzidentez hustu behar da mundua eta, horien orde, razionaltasunez eta behartasunez bete -subjektu matematiko baten pean-. [Askoren artean](#)

**Moderniaz** gerotik, liburuia izan da ezagutzaren edo informazioaren euskarri nagusia. [Askoren artean](#)

Asaldagarria da nolabait, Horkheimer eta Adornoren despit **moderniaren** mitoak nola arrakalarik txikiena gabe dirauen Euskal Herriko progresian. [Joxe Azurmendi](#)

Baroja-k ere ez die jeltzaleei arrazismoa kritikatzeko, baizik arrazistak izan ordez historiarezaleak izatea, Euskal Herriak daukan Erdi Aro eta **Modernia** txiroarekin. [Joxe Azurmendi](#)

### 2 modernokeria.

Orain ez dago zurezko aterik inon, hezetasunaren aitzakia eginda aluminiozkoak eta PVCko leiho-ateak ezarri dituzte etxe guztietan, min ematen dute begian hare-harriaren gaineko **modernia** merkeok. [Koldo Izagirre](#)

## modernidade ik modernitate.

## modernillo izond adkor modernoa.

Horratz aristoteliko, eskolastiko, erretoriko, edo nahinolako "konputologo **modernillo**" batek sekula konprenituko ez dizun gauza. [Patziku Perurena](#)

## modernisatu ik modernizatu.

## modernismo 1 iz XX. mendearen hasieran gertatu zen arte eta literatura higikundea, ideia akademikoaren eta konbentzioen aurkakoa, jarrera estetizista nabarmena duena.

Lehen atalean, azpi-atal bana dute euskal literaturak, literatura klasikoak, neoklasizismoak, erromantizismoak, sinbolismoak eta **modernismoak**, besteak beste. [Berria - Kultura](#)

**Modernismoan** murgildutako Bartzelonan girotutako filma da *Inconscientes*. [Berria - Kultura](#)

### 2 gauza modernoaren aldeko joera.

**Modernismoa** eta ohituren errespetua arras ongi nahasten dira Hong Kongen. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Aurrean, oraindik zutik dirauten XIX. mendeko jauregi bakan horietako bat nekusan, egituraz klasikoa baina neurritzko **modernismoaz** jantzia. [Ramon Saizarbitoria](#)

Baina lasterka badoa denbora, beste kezka batzuek agertuz eta mundu zabaleko **modernismoak** joa. [Herria](#)

### 3 Eliza Katolikoaren berrikuntza teologiko eta moralaren aldeko higikundea.

Espiritu "gogor" honek Erromako Eliza Katolikoan K.o. 1869-70eko Kontzilio Vatikoaren dekretuetan izan zuen adierazpidea, eta 1907an **modernismoaren** aurka botatako anateman. [Iñaki Mendiguren](#)

## modernista 1 izond modernismoari dagokiona; modernizazioaren aldekoa.

Zopaontzi bat, burdina esmaltatzuko Regina lapiko bat, argiontzia **modernista** bat eta pixontzi bat. **Juan Garzia**

Sekula erabili ez dudana besaulki **modernista** -antzekoa gelako ertz batean. **Iban Zaldúa**

Elkartearen lehenengo ekintzak nahikoa arrakastatsuak izan ziren -XVI. mendeko zubi baten eraiketaren kontrako helegitea, Pilsudski kaleko kafetegi **modernistaren** zaharberritze lanen gelditzea-, eta horrek indarra eman zion taldeari, hasieran. **Iban Zaldúa**

Ikasten ari zela, beste lagun batzuekin bildu, eta 1927an *Presença* aldizkarian, garaiko Iraultza **Modernistaren** korrontearekin bat eginez hasi zen literatur aldizkarietan idazten. **Berria - Kultura**

## 2 Eliza Katolikoko modernismoari dagokiona. ik **modernismo 3**.

Errakuntza "liberal", "**modernista**" eta "zientifikoen" aurkako atzegoardiako jarduera intelektuala gidatzen zuen bitartean, arkaismo politikoaren jarreraren erori zen **Iñaki Mendiguren**

## modernitate (orobat *modernidade* g.er.) 1 iz modernotzat hartzen diren ideia, ohitura eta jarreraren multzoa. ik modernotasun 2.

**Modernitatea** arrazoimenaren paradigma finkatzeko proiektua da, eta hura aurrera eramateko hala teoriaren nola praxiaren oinarriak jarriko ditu. **Askoren artean**

Tradizioaren eta **modernitatearen** gogoeta kritikoa bat. **Koldo Izagirre**

**Modernitatearen** ustez, tradizioa kaosa gordetzeko eta kaosa eramaten jakiteko ero-atorra besterik ez da. **Anjel Lertxundi**

**Modernitateari** atekaz zabaltzea, haztea eta kosmopolitismoa ekarri zuen aldaketa hark. **Askoren artean**

Metroak ez dauka ezer berezirik, **modernitatearen** seinalea izatea ez bada. **Jon Arretxe**

Nire ikuspuntutik **modernitatea** eta etorkizuna bide berriak jorratzen saiatzean dago. **Berria - Kultura**

Maiz galdetu didate zer esan nahi dudana zehazki Euskal Herriarentzat, eta euskal kulturarentzat, **modernitatea** eskatzean. **Bernardo Atxaga**

**Modernitatea**, hots, nazio modernoak, Europa alegia, zientziaren obra da. **Joxe Azurmendi**

## 2 (garaiari buruz)

Bi etapa nagusi hartu dira kontuan: Antzin Aroa eta **Modernitatea**. **Askoren artean**

"Modernia" hitza erabiltzen dugunean, aro historiko bati buruz ari gara mintzatzen (aspaldikoa, filosofian XVII. mendean hasten dena); "**modernitatea**" hitza, bestalde, ezaugarri batzuei buruz ari garenean erabiltzen dugu, alegia, modernia aroko ezaugarriari buruz ari garenean batik bat. **Askoren artean**

**Modernitatea**, batez ere zientzia berriaren atalean, han errotzen delako, Aro Berriaren zorutzat hartu behar da, agian abiapuntutzat. **Askoren artean**

Lehen **modernitatea** paradigma razionalistarena da (1600-1789). **Askoren artean**

Bigarren **modernitatea** paradigma idealistarena da (1789-1900). **Askoren artean**

## 3 modernotasuna.

Horra hor Txekhoven **modernitatea**, hau da, bizitza grisetatik ateratako osagaiekin literatura egitea juzku moralik egin gabe. **Berria - Kultura**

Eraikinen arkitekturak Txillidaren obraren **modernitatearekin** bat egiten du han. **Berria - Kultura**

## 4 (hitz elkartuetan)

Behingogatik, gugandik beti urruti ibili ohi zen **modernitate** kutsuko alor batetik -estetikarenetik- zetozkigun loreak eta onarpenak. **Anjel Lertxundi**

Mendebaldeko historian gizarte-**modernitate** hau lortu zen seinalea Antonio-klase baten sorrera izan zen. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tradizioa eta **modernitatea** (6)

kant eta **modernitatearen** (3); **modernitatearen iraultza** (3); **tradizioaren eta modernitatearen** (3)

## modernizatu, moderniza, modernizatzen (41 agerraldi, 8 liburu eta 30 artikulutan; orobat *modernisatu* g.er.) 1 da/du ad moderno bihurtu. ik **modernotu**.

Personala murriztu zuen eta produktu berriak ekoizten hasi zen, eta, horrez gain, **modernizatu** egin zuen fabrika. **Iban Zaldúa**

Biamoko eski estazioak **modernizatze**ko, 8,5 milioi euro inbertituko dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Erakundea **modernizatu** eta sendotu behar da. **Berria - Mundua**

Sektorea **modernizatze**ko baliabideak bideratu ditu. **Berria - Ekonomia**

Modernoak eta zaharrak, euskara gaurkotu eta **modernizatu** nahian. **Pello Salaburu**

Herriak **modernizatu** ahala Mendebaldeko ezaugarriak bereganatzen ari dira, baina bereizgarri nagusiak kultura, hizkuntza, erlijioa eta balioak mantendu egiten dituzte. **Berria - Gaiak**

Albaniar jeneral hau, industria-garapenaren garrantziaz oharturik eta Frantziaren laguntzarekin, herrialdea **modernizatzen** saiatu zen. **Koro Navarro**

Tradizioa **modernizatu** nahi izan dut nire modura, bukaera horrekin. **Berria - Kultura**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Justizia **modernizatu** eta eraginkorra izatea ezinbestekotzat jo zuten bi aldeek. **Berria - Euskal Herria**

Nahikoa bedi esatea ia Mendebaldeko herrialde guztietan, eta berezikiago Mendebaldeko herrialderik industrializatuen eta **modernizatuenetan**, iragan mende-erdian izugarriko aurrerapen praktikoa egin zela gizarte-zuzentasunerantz bizitzako arlo guztietan. **Iñaki Mendiguren**

Protokolo **modernizatuak** agintzen duen arropa arinak soinean. **Unai Elorriaga**

## modernizatze iz moderno bihurtzea.

**Modernizatze** hori, mahastizainendako biziki inportanta da. **Herría**

## modernizazio 1 iz modernizatzea.

**Modernizazio** eta industrializazioaren erasoaz gain diktaduraren errepresioa zegoen. **Joseba Zulaika**

Errusiako gobernuak, Krimeako guda galdu ondoren, **modernizazio**ra unea heldu zela erabaki zuen. **Iban Zaldúa**

Garapen aurreratua eta **modernizazio** eraginkorra. **Berria - Euskal Herria**

Hugo baitan badago jada landaren landatasun defentsa bat, naturaltasunaren defentsa bezala, hiriaren eta modaren inbasioen aurka, **modernizazio** perbertitzailearen aurka hain zuzen. **Koldo Izagirre**

Berritze demokratikoa eta **modernizazio** politikoa lortzea. **Berria - Harian**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zentralizazio-politika abian jartzea eta nazio barneko ekonomia liberalizatzea izan zen japoniarren erreakzioa, **modernizazio**-tresna bihurtuz atzeritarrek borbax ezarritako merkataritzaren zabalkundea. **Koro Navarro**

Gerra galdu eta **modernizazio** prozesua abian dagoenez, ohiko gogotrusta japoniarra itzuli nahi du, mono no aware, edertasun une bakanak jasoz bidean. **Ibon Uribari**

Zer lan egin du EIZIEK **modernizazio** bide horretan? **Berria - Kultura**

## moderno (orobat *modernu g.er.*) 1 izond gaurkoa edo duela gutxikoa, gaurkotasunezko ezaugarriez jantzia.

Euskal Herriaren zati handi bat ezustean pasatu da gizarte tradizional batetik, gure garaikotik, zuk egunero ikusten duzun gizarte **moderno** horretara. **Pello Salaburu**

Prest nengoen azkenik irakaskuntza **moderno**, demokratiko, misto eta progresistaren gozosa dastatzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Lehenengoz gure historia xehean, badugu masa literatura bat, kalitatezko hizkuntza erregistroan mundu zibil eta **moderno** bat islatzen duena. **Iñigo Aranbarri**

Unamuno-k ez bezala, Baroja-k kultura **moderno** eta europar bat nahi du Espainian. **Joxe Azurmendi**

Esan daiteke, halaber, indarkeria instrumentalki erabiltzea erabaki zuelako izan dela ETA euskal gertakari **moderno** nagusia. **Joseba Zulaika**

Antropologia kulturala **moderno** bilakatu da, Europako zibilizatuaren zientzia gisa, basakerian geraturiko edo "historia gabeko" herriei buruz. **Askoren artean**

Karrera **moderno** bat egingo duela uste du. **Bernardo Atxaga**

Egun osoa eman zuen batetik bestera Bilbo berritu eta **moderno** hartan barrena, begiak zabal-zabalik, bere garaiko eraikin zahar berraurkituei zein eraikin berri estonagarriei miraz begira. **Juan Luis Zabala**

Deserosoa egin zitzaidan, ia eramanezina, museoan arnasten ari nintzen aire hutsal-fashion total hura, beti berri beti **moderno**, beti azken olatuko izan beharrenden esklabutza. **Anjel Lertxundi**

Zer iritzi duzu neska **modernoari** buruz? **Josu Zabaleta**

Gengis Khan **moderno** bat irudi zuen, ausarta eta lotsagabea. **Karlos Zabala**

## 2 (gauzakiez)

Atorra lilikatu eta beste jantzi **modernoek**, zer atsegina ez zioten ematen! **Daniel Landart**

Kasko **moderno** batek indio zaharrenden aurpegia babesten du. **Pako Aristi**

Montreal 76 irakurtzen da kirol-poltsa **modernoetan**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Karro **modernoak** belarrez kargaruriko asto karroekin gurutzatzen baitira kaleetan. **Joseba Sarrionandia**

Ikusirik liburu **modernoak** ez zitzaizkiola gustatzen, Kanten lanari ekin zion berrito, eta Arrazoimen hutsaren kritika osoa irakurri zuen, neke handiz. **Josu Zabaleta**

Margolan **modernoak** ere asko zeuden, bizitasunez beteak, arabeskozko marko urre-kolore aberatsetan ipiniak. **Koro Navarro**

## 3 aipatzen den garaian sortzen edo eraberritzen dena.

Euskaldunok ere "**moderno**" ginen noizbait ere. **Joseba Zulaika**

Garai batean euskal literaturako aurrekari **moderno** eta abangoardista batekin egiten genuen amets: Rimbaud edo Verlaine euskaldun bat, gure Biliintx edo Elizanburu bertangoxozaleen orde. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nafarroa berriz batetaratuko zela erreinu **moderno** baten eraikitzeko. **Michel Oronoz**

1868tik aurrera, industrializazio eta antolamendu ekonomiko **moderno** baten oinarriak ipintzen hasi zen estatua. **Koro Navarro**

Erdi Aroko estatua, bat-batean, lantegi **moderno** bihurtuta geratu zen. **Iñaki Mendiguren**

Frankismoaren azpian, euskaldun batek eman zion bizitza tren **moderno** bati eta TALGO izena jarri zioten. **Pello Salaburu**

Herioaren ereteko tresneria **moderno** batekin munduko lehen gerlak, 14-18 arteko gerlak, zauritu, funditu, ezeztatu zuen berriz Europa. **Michel Oronoz**

Garai **modernoetan**, hiru izan dira medikuntzaren praktika eraldatu duten iraultzak. **Irene Aldasoro**

Biolin jotzaile hau **aro** modernoko, hau da XIX. mendeko bigarren parteko lehen bertuosoa zela erran daiteke. *ik beheerago* 8. **Berria - Kultura**

Anton Txekhovek **aro** modernoaren ateak ireki zizkion ipuinari, eta mundu osoko idazleek aitortu dute haren eragina. **Berria - Kultura**

## 4 teknikak edo zientziak berrikitan eginiko aurrerapenez baliatzen dena.

Eraikuntza erraldoiak miresten zituen, obra **moderno** handiak (Tancarvilleko zubia bezalakoak). **Joseba Urteaga**

25 metroko goratasunera heltzen ahal da zurubi **moderno** eta automatiko hori. **Herria**

Bapore **moderno** handietan antolatzen dituzte horrelako gauzak. **Lopez de Arana**

Kamera **modernoek** fokatzeko automatikoa izaten dute askotan. **Irene Aldasoro**

Hantxe 200 subfusil **moderno** -jotailurik eta betegailurik gabeak-. **Edorta Jimenez**

Pabiloiek makina **moderno** baten antza hartzen zuten. **Karlos Zabala**

Ez pentsa plantxa **moderno** horietakoa erabiltzen nuenik. **Jasone Osoro**

Huraxe izan omen zen lehen esku-soinu **moderno**a, diatonikoa, geroko kromatiko eta bandoneoi guztien aitondaria. **Koldo Izagirre**

Sukalde **moderno** batean sartzen gara. **Eskarne Mujika**

Baina, hor, bainugela txinatar **moderno** horren argi zurian, Mikel zerbaitetaz konturatu zen... **Ramuntxo Etxeberri**

Kodetze **moderno** gehienak zenbaki lehenen propietateetan oinarriturik daude. **Jon Muñoz**

## 5 garai modernoari dagokiena; Aro Modernoari dagokiona.

Mendebaldeko zientzia **moderno**a filosofia helenikoaren lilura apurtzen eta alor intelektual berrietara sartzen hasi zenean. **Iñaki Mendiguren**

Autore **moderno** nagusi ugari erabili du konbertsio erlijiosoaren erretorika bere nortasun aldaketa azaltzeko: Montaigne, Descartes, Rousseau, Goethe, Kierkegaard, Nietzsche, Unamuno, Wittgenstein, Leiris, Foucault, Sartre dira izen ezagunenak. **Joseba Zulaika**

Sakon-sakonetik ezagutzen zituen antzinako filosofoak eta filosofia **moderno** guztiak. **Josu Zabaleta**

Esperientzia horrek -Koperniko, Kepler, Galilei, zientzia berri guztiarena baita- Filosofia **Moderno** guztia ere zer den eskematikoki ulertzeko giltza eskaintzen du. **Askoren artean**

Ilustrazioa suntsiturik, gaitz **moderno** guztien Pandora Herder izan da eta da. **Joxe Azurmendi**

Espainiaren historia **moderno** guztia, Ezespainiaren historia dela. **Joxe Azurmendi**

## 6 (hitz elkartuetan)

Beste **moderno** -uste tontaire horietako bat! **Anjel Lertxundi**

**Moderno** -nahi gaixotua, berea. **Jokin Muñoz**

Okagarria duk zuen lizukeria tonto-**moderno** hau guztia [...]; gomitolarri hutsa, horixe duk sortzen didan bakarra. **Anjel Lertxundi**

## 7 (adizlagun gisa)

Lupe zegoen haiekin, asistentea: argala, ile-motza, beltzez **moderno** jantzita. **Pablo Sastre**

## 8 Aro Moderno Aro Berria.

Mendebaldeko Zibilizazioaren **Aro Modernoaren** bukaera arte. **Iñaki Mendiguren**

Baina gure aldetik ere ez genuke esango Erdi Aroko pentsamenduak ez duela inolako erantzukizunik ontoteologia horren garapenean, nahiz eta horren gailurrera iristeko era garbienean **Aro Modernoaren** filosofiari itxaron behar, preseski Hegel-en sistemari. **Askoren artean**

Descartesen txantxa itxurako zalantza famatu horrekin hasten da **Aro Modernoa**. **Anjel Lertxundi**

Egia da esperientzia horiek **Aro Modernoko** europar nihilismoaz zeharo bestelako testuingu historiko batean aurkitzen direla. **Joan Mari Lekuona**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aro moderno** (5); **arte moderno** (5); **berri eta moderno** (4); **estado moderno** (3); **estatu moderno** (6); **filosofia moderno** (3); **filosofo moderno** (3); **gizarte moderno** (25);

**gizarte moderno** batean (5); **gizarte moderno** batek (5); **hizkuntza moderno** (3); **ideia moderno** (4); **mendebalde moderno** (7); **mendebaldeko zibilizazio moderno** (4); **moderno itxura** (4); **moderno izan** (7); **mundu moderno** (6); **ustez moderno** (4); **zibilizazio moderno** (7)

**aireportu moderno** (3); **aro modernoa** (8); **arte modernoa** (6); **euskara modernoa** (4); **filosofia modernoa** (13); **forma modernoa** (3); **gauza modernoa** (3); **gizaki modernoa** (5); **gizarte modernoa** (3); **guztiz modernoa** (3); **historia modernoa** (5); **iraultzaile eta modernoa** (3); **literatura modernoa** (4); **matematika modernoa** (4); **mendebalde modernoa** (14); **modernoa eta berritzailea** (3); **modernoa izan** (10); **musika modernoa** (5); **oso modernoa** (7); **subjektu modernoa** (3); **zientzia modernoa** (5)

**arte modernoak** (3); **garai modernoak** (3); **gizaki modernoak** (7); **mendebalde modernoak** (7); **oso modernoak** (6); **sintesi modernoak** (3); **teknika modernoak** (3); **teknologia modernoak** (3); **zientzia modernoak** (8)

**aleman modernoan** (5); **aro modernoan** (17); **gizarte modernoan** (8); **mendebalde modernoan** (4); **mundu modernoan** (8)

**mendebalde modernoarekin** (5)

**aro modernoaren** (13); **aro modernoaren egunguentian** (3); **arte modernoaren** (18); **atal modernoaren** (3); **bizitza modernoaren** (3); **dantza modernoaren** (3); **espania modernoaren** (3); **euskal nobelagintza modernoaren** (3); **filosofia modernoaren** (5); **garai modernoaren** (6); **garai modernoaren kontinentean** (4); **gizaki modernoaren** (10); **gizarte modernoaren** (7); **historiaren atal modernoaren** (3); **kultura modernoaren** (3); **mendebalde modernoaren** (39); **mendebalde modernoaren arteko** (3); **mendebalde modernoaren eta** (5); **mendebalde modernoaren historian** (4); **mendebalde modernoaren kultura** (6); **modernoaren aita** (5); **modernoaren aitzindari** (4); **modernoaren arteko** (5); **modernoaren aurka** (3); **modernoaren egunguentian** (3); **modernoaren eremuan** (3); **modernoaren hasieran** (4); **modernoaren historian** (8); **modernoaren kontinentean** (4); **modernoaren kontinentean lehorerratzeko** (4); **modernoaren kultura** (6); **modernoaren oinarriak** (3); **mundu modernoaren** (4); **musika modernoaren** (6); **nobelagintza modernoaren** (3); **teknologia modernoaren** (3); **zientzia modernoaren** (5)

**aro modernoari** (4); **literatura modernoari** (3)

**planta modernoek** (3)

**estatu modernoan** (4); **gizarte modernoan** (3)

**garai modernoetako** (4); **hizkuntza modernoetako** (3)

**garai modernoetan** (4); **gizarte modernoetan** (5)

**aro modernoko** (16); **arte modernoko** (19); **arte modernoko museoak** (3); **arte modernoko museoan** (4); **arte modernoko museoeko** (5); **berant aro modernoko** (3); **europa modernoko** (3); **goiz aro modernoko** (3); **mendebalde modernoko** (49); **modernoko museoak** (4); **modernoko museoak** (3); **modernoko museoan** (4); **modernoko museoeko** (5); **musika modernoko** (3); **parisko arte modernoko** (4)

## modernokeria iz modernotasun gaitzesgarria.

"Beldurra gainetik astindu behar dugu!", esaten zuen bere azken kolaborazioan, ohiko **modernokeriekin** batera. Jokin Muñoz

Ez zaitetz orain **modernokeriekin** etor! Luis Elberdin

Bejondiola, alfer alferrik baita, **modernokeria** pinpirin orok muinak jantxeak dauzkan jendaje honekin tajuzko arrazoiketetan hasia. Patziku Perurena

## modernotasun 1 iz modernoa denaren nolakotasuna. ik modernitate 3.

Ingresen **modernotasuna** azpimarratzea da helburua, eta margolari hotz eta akademizistaren estereotipoa baztertzea. Berria - Kultura

«Eredu komertzialaren **modernotasuna**» adieraziko du Eroski Centerrek. Berria - Ekonomia

Iragana geroaren nahira makurtzea, horixe da **modernotasunaren** berezitasuna. Joseba Zulaika

Faxismoaren eta futurismoaren uztartze hori gauza polita eta jakingarria da **modernotasuna**, garaikidetasuna eta, oro har, etorkizunetik zer datorren zaintzea. Iñaki Segurola

Modari jarraitzeko ahaleginak egin arren barne-oztopo moduko batek eragotzi egiten dionean bezala bati nahi lukeen dotoretasuna eta **modernotasuna** iristea. Ander Irizar

### 2 modernitatea.

Tradizioa eta **modernotasuna** eskutik helduta datozkigu liburu honetan. Berria - Kultura

Euskal literaturari **modernotasuna** nobelaren bidez etorri zitzaion 70eko hamarkadan, eta oso nobela onak idatzi dira orduak. Ana Urkiza

**Modernotasunaren** distira ikusteko ez da New York bezalako hiririk. Gotzon Garate

Poeten aspaldiko gaitza omen da hori; spleen eta mal du siècle ere deitzen zitzaion Frantziako artisten jarrerari, eta **modernotasunaren** osagai ezinbesteko bihurturik zegoen. Xabier Mendiguren Elizegi

Guggenheim museoeko arte kontserbatzailea eta *Oteiza, mitoa eta* **modernotasuna** erakusketako komisarioa. Berria - Kultura

### 3 (hitz elkartuetan)

Normaltasun eta **modernotasun** itxura eman nahi duen sistema oraindik helgabea dela iruditzen zait euskal literatura, barruan harra bizi duen sagar berde erakargarria bezalakoxea. Ana Urkiza

Eta ondorioz, Bepizkundearen zain egon behar dugula **modernotasun** punturen bat aurkitu ahal izateko, hala kulturaren nola pentsamenduan. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**

**modernotasun itxura** (3)

**mitoa eta modernotasuna** (5)

## modernotu (11 agerraldi, liburu 1 eta artikulu 1ean), moderno(tu), modernotzen du ad modernizatu.

Are, Espainia **modernotzeko**, Estatu bera behar da **modernotu**; eta **modernotzeko**, zentralizatu eta sendotu. Joxe Azurmendi

Mohammad Reza Pahlavi xah-ak Pertsia **modernotu** eta Mendebaldera lerratzeko erreforma kanpaina abiatu zuen 1963an, Iraultza Zuria. Berria - Mundua

Hizkuntza **modernotzeko** bi modu omen dago: hizkuntzak bere baitatik sortzea kontzeptu berriak, edo kanpotik hartzea horiek. Joxe Azurmendi

## modernozale (orobat moderno zale) izond gauza modernoaren zalea dena.

Presidente **modernozalearen** urratsen segitzea gustatzen zitzaion, zela pantailetan, zela egunkarietan. Itxaro Borda

Pentsalari konbertitu antimodernoaren Estatu irmo eta **modernozale** izate hau ez da Salamancako errektore beti paradoxal kontsideratuaren paradoxa bat gehiago. Joxe Azurmendi

## moderno ik moderno.

## modestia 1 iz apaltasuna, umiltasuna.

Santuaren **modestia** eta apaltasuna tentatzen hasi zen. Jon Alonso

Ordu arte, ez **modestia** faltsu batekin baina, halako distantzia bat sumatzen nuen literatur sistemarekiko, bai eta ene literaturarekiko. Ana Urkiza

### 2 (hitz elkartuetan)

Txabik **modestia** puntu egokia jarri zion bere tramankulari: [...]. Unai Iturriaga

Atzerriko lan-eskurik gabe, Jauna, nire herrira ausarki iritsi da portugaldarren **modestia**, apaltasun, urritasun eta abengazio-izpirituaren ospea. Jon Alonso

### 3 modu ona, moduzkotasuna, lotsa.

**Modestia** eta garbitasunaikin bizi zizten donzellak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## modifikazio *iz* aldatzea, aldaketa.

Izan ere, agerpenak diren aldetik, objektu bat osatzen dute, gudan besterik ez dagoen objektua, zeren gure sentimenaren **modifikazio** soila ezin baita gugandik at aurkitu.

Ibon Uribarri

Errepresentazioak gogamenaren **modifikazioak** diren aldetik. Ibon Uribarri

Koloreak ez dira gorputzen begiespenari lotzen zaizkion antolaerak, baizik eta argiagatik modu jakin batean afektatua den ikusmenaren sentisuaren **modifikazioak** besterik ez. Ibon Uribarri

## modilo *iz* erlaitz bati eusten dion irtengunea.

Beraz, estilo doriarrean, bai triglifoen eta bai **modiloien** neurriak zurgintzako lanak imitatu nahi horretatik sortu dira. Santiago Iruretagoiena

Antzinako eraikitzaileek ez zituzten ez onartu eta ez erabili **modiloiak** edo dentikuluak frontoietan, baizik eta erlaitzak bakar-bakarrik. Santiago Iruretagoiena

Horregatik, obra grekoetan inork ez lituzke dentikuluak **modiloien** azpian jarriko, ez baita posible gapirioen azpian astazaldiak jartzea. Santiago Iruretagoiena

## modismo *iz* esamoldea, esapidea.

Diogun geure aldetik, formulazio bereziki gogoangarriak direla errefrauk eta **modismoak**, eta formulazioen izaera gogoangari horrek ziurtatzen duela oroimenaren lana.

J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## modista *iz* joslea, jostuna.

Arazoi handia zuen, Jean Robin koplariak: modak eta **modistak** "sortzeak eskas eman guzien konplikagarri" ditugu. Patziku Perurena

## modor *iz* ik muinoi.

Haren ondoan, bi makuluak metroko horma zikinetan dilindan, Bachir Algeriako gerlan galdu zangoak utzi hutsaren belaaneko **modor** odoltsua erakutsiz, eske ari zen, isilik.

Itxaro Borda

## modorra *iz* murmua, lohasma.

Mozkorrak eragindako **modorra** ezabatu zitzaidan, eta jakinminez begiratu nuen, baina segizioko dragoiek euren kaskoetatik eskegirik zeramatzaten luma-sorta luzeek aurpegiak ikustea galarazi zidaten. Jon Alonso

## modorro *izond* sorra, sorgorra.

Eutsiko genion harremanari, eta gutako bakoitzak bestearentzat bilduko zituen hau bezalako beste historia batzuk, zeinetan materia **modorroak** joera maltzurra erakusten baitu gaiztorako, oztopoak jartzeko, gizonari kuttun zaion ordenaren aurka matxinatuko balitz bezala. Juan Garzia

## modorrotu, modorro(tu), modorrotzen 1 da/du *ad* lokumatu, loakartu.

Nor den asmatzen saiatzen da; baina lasaitu eta **modorroturik** erortzen da gorputza, loaren zamak zapaldua. Juan Garzia

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Italia faxistak, bigarren mailako pirata, Albania hartua zuen, eta etortzeaz zegoen hondamendiaren aurreiragarpena ihintzaldi likits baten modura kondentsatzen zen etxeetan eta kaleetan barrena, kontu handiko solasetan eta kontzientzia **modorrotuetan**. Juan Garzia

## modu 1 *iz* era, gisa, moldea.

Bi **modu** daude infernurik ez bizitzeko: infernuan onartu eta infernuko bihurtu, hala jokatuta ez baikara infernuan bizi garenik ohartuko. Anjel Lertxundi

Ez direla, hala ere, erlazio hori gertatzeko bi modu bakarrik, muturreko bi **moduak** baizik, eta era askotako distantzia psikikoak izan daitezkeela horien artean. Josu Zabaleta

**Moduetako** bat da pilula bat ahotik hartzea, eta horixe da hasierako modua eta ezagunena. Luis Elberdin

**Modu** askotan saiatzen ziren salaketa horretatik libratzen. Ramon Saizarbitoria

Irukiak ezin konta ahala **modu** ditu gauzatzeko. Josu Zabaleta

Noski, euts dakiokoe arnasari nahita, baina inork ez du **modu** horretan bere buruaz beste egiten. Irene Aldasoro

**Modu** horretan sartu nintzen Adelaren buruan, haren mundu-ikuspegian. Juan Kruz Igerabide

Geroztik, sarri galdetzen nion neure buruari zergatik jartzen ote zen aita **modu** hartan, eromena aipatu orduko. Juan Kruz Igerabide

**Modu** honetara lortzen da plazerik handiena: [...]. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Irtisia zela beste **modu** batera jokatzeko ordua. Juan Kruz Igerabide

Beste **modu** batera esanda: Davidek idatzitako memoriak berridatzi eta zabaldu nahi nituen. Bernardo Atxaga

### 2 (izenondoekin)

Gero eta gehiago gustatzen zitzaidan ni tratatzeko **modu** fresko hura. Juan Kruz Igerabide

Hain arrotza zitzaidan hitz egiteko **modu** hanpatu horrekin. Joxean Agirre

Barrura sartzeko hamaika **modu** desberdin bilatu zizkion arkitektoak argiari: saiheska, goitik, zuzen zein islatua. Jon Muñoz

Barre egin genuen hirurok; **modu** polita izan zen hizketan hasteko. Juan Kruz Igerabide

Ukatzea da jokatzeko **modu** zentzuzko bakarra. Oskar Arana

Nork argiago, nork **modu** mozorrotuago batez, idazle guztiok istorio bera kontatzen omen dugu bizitzan zehar. Anjel Lertxundi

Berehala konturatu nintzen, ordea, Klaussek neurritz kanpo eta **modu** gaizto batez zaintzen zituela gure esanak eta ibilerak. Anjel Lertxundi

Oso **modu** ona zen inoiz uzten ez zaituen jendea ezagutzeko. Antton Olano

gorputzak ez du **modu** argi eta garbirik bere edol-bolumena neurteko. Irene Aldasoro

### 3 (izenondoekin, izenondoak –n atzikia hartzen duela)

**Modu** inozentean eta inor kaltetu gabe. Esteban Antxustegi

**-Modu** berezian begiratu zidak, ez diat esperantza galtzen. Iñaki Iñurieta

**Modu** abstraktuan ulerturik. Askoren artean

Azalpen hori, ordea, **modu** kritikoa egin nahi izan dugu, informazio hutsean geratu gabe. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Sarrera honetan Sokratesen aurreko helendarren filosofia aztertzen da [...] batzuetan **modu** nahiko heterodoxoan. Askoren artean

Oso **modu** dramatikoan adierazi dut, baina hori da ideia -esan nion. Bernardo Atxaga

Gure aurrekoek gauza hauek gutzit **modu** naturalean betetzen zituztela ikusirik. Santiago Iruetagoiena

Askotariko galderak egin geniezazkieke, hala nola sukaldariak zergatik jokatzen zuten hain **modu** ergel eta zentzugabeen. Jose Morales

Ez litzateke gutzit zentzugabea pentsatzea makina batek ere gorputzak bezain **modu** merkean funtziona dezakeela. Irene Aldasoro

Baina ez ginen **modu** berean hazi: ni, osasungabe, eta tristoran murgilduta; arina, graziaz beterik eta energiaz gainezka hura. Koro Navarro

Beste eskualde guztietan ere **modu** bertsuan egokitu beharko dira eraikinak. Santiago Iruetagoiena

- Ez zuelako merezi, harrezkero hiltzeko ordua ere bazuenez, **modu** desegoki hartan atzera eta aurrera ibil zezaten. Ramon Saizarbitoria

Gero jiraka hasi zen galairi, saltotxoka, **modu** harrigarri batean higituz, bere txotxongilo gorputz xumea kiribilkatuz. Josu Zabaleta

Eta zilegi bekik **modu** ez-akademiko batean bukatzea nere lan hau. Iñaki Segurola

Horrek behartzen gaitu, hain zuzen, **modu** sinesgarri samarrean irudikatzen nola den poliki-poliki eraikiz halako konplexutasuna. Juan Garzia

### 4 (-tzeke atzikiaren eskuinean)

Berak motzarazi al zizun ilea eta aldarazi janzteko **modua**? Oskar Arana

Bere kapelu bera, bere bizkarra okertzeko **modua**, bere trajea... Anjel Lertxundi

Zer iruditzen zaizu janzteko **modu** hau? *prêt à porter* esaten diote, eta izugarri gustatzen zaie frantsesei. -Hitz egiteko **modu** bat izan duk -oinak laztandu zizkidan-.

Bernardo Atxaga

Mendekua ez zen, halere, ldoiaren jokabidea, eta izateko **modu** hark berritu egiten ninduen benetan, nik bai bainuekan mendekuzale eta herratsu izateko joerarik. Juan

Kruz Igerabide

Faltsukeria sakon bat, zintotasun-gabezia nabari bat salatuzko **modu** bat baizik ez da. Piarres Xarriton

Amildegitik ihes egiteko **modu** bakarra, hura ikustea, neurtzea, ikertzea eta, azkenik, bertaraino jaistea da. Anjel Lertxundi

Bere ibiltzeko **modu** baldres eta aldi berean miragarria irudikatzen ari nintzen, funanbulista bat galtzadaren gainean bezala mugituz agertu zenean. Joxean Agirre

Errespetu handiz begiratu diot, gaztetan ere begiratzen nion bezala, bere hatza jasotzeko **modu** destainaz beteagatik seguru asko. Anjel Lertxundi

- Gaia, austriar gobernuan den koalizioaren aurkako demokratekin bat egiteko balizko **modua**. Edorta Jimenez

Horretan huts eginez gero, ordea, **modua** bilatuko du galdutako likidoa bildu eta hura zirkulaziora itzultzeko. Irene Aldasoro

### 5 (erlatiboak perpaus baten eskuinean)

Ni tratatzeko duten **modua** ez da batere koherentea. Josu Zabaleta

Peter Pan izaki hezikaitza, berriz, Barriek haurtzaroi tristoraz begiratzeko eta helduaroari lotsagabekeriak aurre egiteko duen **modua** da. Julen Gabiria

Zakilari eragin eta azken-azken momentuan nire ahoan husteko zuen **moduak** gaur egun ere txorutzen nau. Karlos Zabala

Niri hitz egiteko zeukan **moduak**, niri begietara begiratzeko zeukan **moduak**, aurpegian nitaz arduratzen zelako keinuarekin eta beraren ahots leun ziur horrekin. Oskar

Arana

Mundu-ekonomiaren truke-sarean txertatzeko duen **modu** bereziak definitzen du periferia, edo, zehatzago, mundu-ekonomia horretan nagusi diren herrialde boteretsuenek eragindako lanaren nazioarteko banaketan txertatzeko duen **moduak**. Koro Navarro

Hori zen egiptoarrek 9 arteko biderketa-taula aurkezteko zuten **moduetariko** bat. Jon Muñoz

### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikuspen-**modu** honetan begi-ninia itxiago eduki daitekeelako. Josu Zabaleta

Hasierako kolonoen hizketa-**modua** gogorarazten zuen Noraren aitaren jardun zakarrak. Anjel Lertxundi

Forma, intentsitate eta iraupen **moduak** izan daitezke estimulu horiek. Josu Zabaleta

Atzerritar kapitalen sarrera **moduak**. Koro Navarro

Heriotza-**modu** tristeenen eta hilketa-klase basatiainen lekuko hotz aihergak gara garagardo bat hartzen ari garen bitartean. Anjel Lertxundi

Erromatarrak, jende-**modu** errebelde eta ankerra, beren aldamenekoen aurka oldartu ziren ohi zuten bezala. Askoren artean

Hitz zuri faltsua aho-beteka botatzen bestetan ez dakien jende-**modu** horrek. Iñaki Segurola

Erdi Aroa Mendebaldeko Inperio erromatarraren harrien gainean eraikitako gizarte-**modu** eta erakunde berrien eta ez hain berrien ekoizpena izan zen. Baduk lotsa **modu**

bat, gizakiak senti dezakeen latzena: hiltzaileari aurpegira begiratzeko behartua den biktimaren lotsa. Askoren artean

Eutanasia-**modu** hau hilketa baten pareko dateke, oro har eta salbuespenak salbuespen. Askoren artean

Beste eraikuntza-**modu** bat *enplecton* deitzen dutena da. Santiago Iruetagoiena

Frantsesezko esan-**modu** batek egin digu argi pixkat oraindainokoan. Iñaki Segurola

Ase eta bete egin zitzaion irudimena liburuetakoa gai haietaz: aztigintzak zirela edota auzi haserreak, guda borrokak, norgehiagokak, zauriak, maite **moduak**, maiteminek, erasoak eta ezinezko itxuragabekeriak. Patxi Ezkiaga

### 7 (hitz soila -en atzikiaren eskuinean adizlagun gisa)

Nere **modu** euskaratuko dizut: [...]. Patziku Perurena

Batek ume-umetatik ikasten zuen orduan bere **modu** pentsatzen, filosofatzen, eta eskolatik etxera bitartean endemas. Patziku Perurena

### 8 p/manerak.

Baina adeitasuna eta **modu** onak ahazten ari naiz! Agustin Otsoa

Zoragarriak iruditzen zitzaizkion haren **moduak**, haren sudur zorrotza eta begi urdin argiak. Anton Garikano

Farr jaunak arbuio keinu bat egin zuen, baina nik inbidiaz begiratzen nien gazte haiei, argi ikusten bainuen zenbat gustatzen zitzaizkion neskari mutilen **moduak**. Koro Navarro

Handik aurrera, elkarrizketa hotza izan zen, **moduak** eta manerak zaindu bagenituen ere. Joan Mari Irigoien

### 9 *moduansup\_1* (-tzeke atzikiaren eskuinean) eran.

Zer den bata eta zer bestea ez dakigu, ez gaude esateko **moduan**. Iñaki Segurola

Harro esateko **moduan** nengoen: garbia diat odola, aratza; alemanak ditiat deitura guztiak familiaren memoria eta artxiboetako paperak iristen diren puntutik gaur arte.

Anjel Lertxundi

Handi-mandikeria da hori guztia, Lurie jauna, baina handi-mandikerietan ibiltzeko **moduan** zaudela uste al duzu? "Holaxe! denok ondo ikusteko **moduan**!", hots egin zuen amultsu. Oskar Arana

-Erantzuteko **moduan** zaude? -esan zion ahots larriaz. Karlos Zabala

Soziologo gutxi jarri du hark bezalako arreta apailuak irudiak jasotzeko **moduan** duen eragina aztertzeko. Josu Zabaleta

Pertsona batzuk sartzeko **moduan** ezagutzen dira, edo pausokera emateko **moduan**, irribarrean, hizketarako zera berezietan, baina hau mostradoretik alde egiteko daukan eran ezagutu dut. Pako Aristi

Oraintxe gaudek, nik meza eman, eta zuek laguntzeko **moduan**! -atera zitzaion Romani barru-barrutik. Inazio Mujika Iraola



-Jar nazak etateko utzuta zuten **moduan**, sateden har dezadan haitien. Jose Antonio Mujika  
Oheak ez zeuden inor etzateko **moduan**, eta kotxean egin dut lo. Pako Aristi  
Soldaduek ez ikusteko **moduan** egin zuen igeri eskuineko ibai ertzeraino, eta hango kanaberen artean erori zen korderik gabe. Karlos Zabala  
Emakumeak eskua luzatu zion, besoa luze-luze egin ere, eta hala eutsi zion mundu guztiak ikusteko **moduan**, harik eta Beltzak eskua hartu, bostekoa eman, eta osteria itzuli zion arte. Mirentxu Larrañaga

## 10 **moduansup\_2** (-en edo –ko atzizkien, edo erlatibozko perpaus baten eskuinean) eran; bezala.

Gaixotasun baten **moduan** etorri da, ez ordea ziurtasun arrunt baten gisa, ez ebidentzia baten gisa. Monika Etxebarria  
Pentsatzen nuen deserosoa zela edonorentzat leku arrotzean turista bakartiaren **moduan** ibiltzea. Bernardo Atxaga  
Vagalume ilun zegoen, putetxe pub guztien **moduan**. Paddy Rekalde  
Kanpora irten ginen zakurrak xaxatutako ardien **moduan**. Anjel Lertxundi  
Gero, jokalaritza **moduan**, honela erantzun zion: [...]. Jon Muñoz  
Eta biharamunean betiko **moduan** joan zen Nemía Santosen etxera. Unai Elorriaga  
Eskola hura ere amaitu zen, dena amaitu ohi den **moduan**. Xabier Mendiguren Elizegi  
Claude Lévi-Strauss-ek azpimarratu duen **moduan** [...] pentsamendu mitikoaren kontakizunak bezain urrun daude zentzuzkotasun arruntetik zientziaren eskutik iritsi zaizkigunak. Juan Garzia  
Nik etxean ez nuen hitz erdi bat ere esaten; dena irentsi, eta ahal nuen **moduan** eusten nion egoerari. Juan Kruz Igerabide  
Maitasuna egin zuten, ahal izan zuten tokian, ahal izan zuten **moduan**, elkarren gorputzak gozatzu bizitzako azken unea balitz bezala. Felipe Juaristi  
Zuk zeurez, zeure gorputzeko edozein alderdi eskuz jota proba dezakezun **moduan**. Xabier Amuriza  
Arestian aipatu dugun **moduan**. Xabier Kintana  
Gauzak behar den **moduan** esplikatu balizkidate, neu ere gauza askoren alde egongo nintzateke, beti kontra egon beharrean. Iñaki Segurola  
Batere odolik gabe, zuri gustatzen zaizun **moduan**, esan zidan amak. Anjel Lertxundi

## 11 **moduansup\_3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa) bezala.

Jolas **moduan** hil genuen, merkataritza ingeles bati ostutako lepoko urrezkoa genuelako aitzakian. Felipe Juaristi  
Eta esan zion, gainera, uzteko haur jolasak, eta hasteko gizon **moduan** portatzen. Juan Kruz Igerabide  
Bera lokatzez beterik eta busti-busti egina, ero **moduan** oihuka: [...]. Juan Kruz Igerabide  
Hamar edo hamabost mutilek elkarri erasotzeari ekiten zioten ereinotz adarra lantza edo ezpata **moduan** erabiliz, nor nagusi geldituko. Bernardo Atxaga  
Iparraldeko horma zuri guztiak gorritu zituzten orduan, jadanik komando **moduan** konpontzen ziren Tzarko, Txoko eta Frantxisek. Itxaro Borda  
Ba, pentsatu dut zure koilarak saltzea, subenir **moduan**. Koldo Izagirre  
Orain bitxi **moduan** zeramatzatek emakumeek eskuturrean, antigoaleko errelikiak bailiran. Pako Aristi  
Metaforazko adiera horretan ulertu behar da *h-lak* aditza Jainkoaz (gorets bedi!) ari den guztietan, hau da, metafora **moduan**, gorputzik gabea denez gero. Xabier Kintana

## 12 **moduansup\_4** (bezala-ren testuinguru beretan) bezala.

Norbaitek esango lukeen **moduan**, lotsaizunean eroria nabil. Oskar Arana  
Menturaz konfesoareak lortu zuen bere lankidea barruti sakratu **moduan** tratatzea. Koldo Izagirre  
Sorgin auzietan ere, maiz ageri da, aker beltzari ipurdian (uzkian) pot emate kontua, kristau xuriekiko ofentsa zikin **moduan**. Patziku Perurena  
Lege hauek indarrean dauden egun beretik, Erromako legeak, ordenantzak, ohitura orokor zein bereziak, estatutuak eta araudiak indargabe geratzen dira, lege nagusi nahiz lege banandu **moduan**, lege hauen objektu diren gai guztietan. Andres Urrutia  
Gazteak, aldez, ez du oroimenik, eta bizitza besterik ez du, bere aurrean, berak aukeratu **moduan** edo uzten dioten modu bakarrean bizi ahal izateko. Pako Aristi  
Txerriak hartu, eta agertu **moduan** desagertu zen moja gaztea, isil-isilik eta lotsa plantan. Anjel Lertxundi  
Ateko euslekuari gora eta beheara egiten zion sarrailaturik balego **moduan**. Josu Landa  
Galdera hauxe etorri zait begi aurrera, Molaren ahoko plastikopetik bide egindako arratoia balitz **moduan**: [...]. Koldo Izagirre  
Bere inguruan bai pertsonak bai gauzak garbiago eta koloretsuago bihurtzen zirela, handitzen eta berarengana hurbiltzen, euren sekretuak kontatu nahi balizkiote **moduan**. Joanes Urkixo

## 13 **modurasup\_1** (-en edo –ko atzizkien, edo erlatibozko perpaus baten eskuinean) moduan.

Etorri zen eta alde egin zuen, izar lokaren **modura**, itsas uhinen **modura**. Felipe Juaristi  
Greziarren **modura** janzen zirela gaineratu zuen. Felipe Juaristi  
Bidaia bere azkenetan dago, nire haragiaren **modura**. Edorta Jimenez  
Azkenean, bi eskuak aurreratuta eta pauso bat eman nuen, itsu baten **modura**. Ramon Saizarbitoria  
Bazter batean eseri zen, ate aldeko sarrera zaintzearen, besteetan bezala, arin eta zalu, kurloi baten **modura**, Justina etorriko zitaiolakoan. Felipe Juaristi  
Bularra pudding baten **modura** zebilkion dardarka. Joxe Austin Arrieta  
Gau hartan behin eta berritoki ikusi zuen ametsetan gizon zuri handi bat, antzinako **modura** jantzia. Josu Zabaleta  
Susmo beltzak hartu zuen Joanes, laino beltzek zerua hartzen duten **modura**, abisatu gabe. Felipe Juaristi  
Manipulazio horrek, ordea, ez du lehenengo irudia aldatzen, nolabait esateko, eta itzul daiteke manipulazioaren ondoren lehen zegoen **modura**. Josu Zabaleta

## 14 **modurasup\_3** (bestelako testuinguruetan) moduan, bezala.

Eta hantxe geratu zitzaizkidan eskuan, sinbolo sarkastiko **modura**, potoaren ipurdiko beira-uztaia. Juan Garzia  
Lapur errukitsu **modura** portatu dituk enekin. Juan Garzia  
Fetixearen botereari aurre egin, horrela zure desira areagotuz, edo Zizek-ek esango lukeen **modura**, "Goza ezazu zure fetixea!" oihu egin? Joseba Zulaika  
Gizaki guztiak bezalakoxea naiz: gauzak gertatzea gustatuko litzaidakeen **modura** ikusten dut mundua, eta ez gauzak gertatzen diren moduan. Xabier Aranburu

## 15 **modurasup\_3** (hitz elkartuetan) moduan, bezala.

Ituna sinaturik zutenen artean trafiko hori eragozteko ezer egin gabe, ez eta protesta **modura** ere. Edorta Jimenez  
Erantzun **modura**, eskribauak pergamu kiribildu bat eskaini zion. Edorta Jimenez

## 16 **hala-moduz** (orobat **halamoduz**) adlag ez oso ondo, ez oso modu onean.

**Hala moduz** sendatu zuten eta ohean etzananazi. Felipe Juaristi  
Bera ere **hala moduz** zegoela adierazi nion, aldatua ikusten nuela arratsalde harez gero, beste bat ematen zuela. Bernardo Atxaga  
Aukera eskasa dugu, noski, ebazpena aurkitzeko oraindik ere **hala-moduz** formulaturik dauden auziei. Juan Garzia  
Lekuan bertan, **hala moduz** hartu beharko zituzten erabakiak. Rafa Egiguren  
Erdaraz **halamoduz** egiten zuelako, eta hortik jarri zioten ezizena ere, "El Ruso". Xabier Mendiguren Elizegi  
Prestatzen dizkieten eratzunak eta kutzak faltsuak dira, **halamoduz** egindakoak. Jon Alonso  
Eta errepedeak, **hala-moduz** asfaltatuak. Xabier Etxabe

## 17 **hala-moduzko** (orobat **halamoduzko**) izlag ez oso ona, ez oso modu onakoa.

Berak ikusi izan zituen bikote ezkonduak, ez **hala-moduzko** bikote susmagarriak, baizik eta benetako senar-emazteak ziren bikote fidagarriak. Mirentxu Larrañaga  
**Halamoduzko** erdibidea aurkitu zuen Andoni Olabek, ez duk uste? Koldo Izagirre  
Baita Pasaian garai zaharretan kontrabandoan ibilitako makina bat pertsonaia **hala-moduzko** ere. Harkaitz Cano

Frantziasko latina **modu** zen, Anai Leoni idatziriko autografoak erakusten duenez. **Askoren artean**

Ez dut uste batera ederrezi zuenik nere erantzun **halamoduzkoa** . **Patziku Perurena**

Izenburua **hala moduzkoa** du: Dialektika eristikoa. **Joxerra Garzia**

Gerora jakin zuten hauskortasuna ez zela jainko haren ahuldade bakarra; egonkortasuna ere **hala-moduzkoa** zuen. **Imanol Zurutuza**

Fruta saltzen soldata **hala-moduzko** baten truke. **Harkaitz Cano**

Gauza bat ahaztu zitzaion bertsolariari, eta ez **halamoduzkoa** . **Pako Aristi**

Gorderik daukat oraindik bilkuretako baten argazki lauso **halamoduzko** bat. **Juan Garzia**

## 18 modu batera edo bestera

**Modu batera edo bestera** , bere aginduetara jarraitzen zutelako, gerran bezala. **Bernardo Atxaga**

**Modu batera edo bestera** , espainiarrak egon ziren ekintza bien azpian, Felipe II.a Orangeko Gillermoren etsaia baitzen. **Juan Martin Elexpuru**

Milango *designer* batek diseinatutako obra ireki bat ematen zuen, **modu batera edo bestera** aldatzen zena, aurrean nor zuen. **Karlos Zabala**

Ez da baztertzekoa haren senarrari egotzen zaizkion gertaeretan emakume horrek **modu batera edo bestera** parte hartu izana. **Jon Muñoz**

Airearen gardentasuna, **modu batera edo bestera** aldatzen denean, lurraren erradiazio-balantzeak koska batzuk jasaten dituelako. **Pello Zabala**

Euskal Herriko gazte belaunaldi ugariak parte hartu izan dute antolaketa, **modu batera edo bestera** . **Berria - Euskal Herria**

## 19 modu oneansup\_1

-Ez al zaizue inporta automobilak beste leku hartan uztea? -eskatu zigan abegiz, **modu onean** . **Rafa Egiguren**

Marrok oso noizbehinka baino ez zigan hitz egiten haurroi -inoiz ez **modu onean** , edo bederen umore apur batez-. **Juan Kruz Igerabide**

Azken hilabeteotan burutik pasatu zait, inoiz edo behin, neronek deitza; gauzak argitzeko, zer argiturik baldin badago, eta **modu onean** amaitzeko, amaitu behar baldin badugu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 20 modu oneansup\_2 prezio onean.

Nahiko **modu onean** saldu zidaan, bera hil arte liburu-dendari eusteko baldintzarekin. **Anjel Lertxundi**

Baditinat kasper deskatalogatu batzuk **modu onean** . **Patxi Iturrategi**

Urbanizagarritzat jotako lur-sail bat **modu onean** emateko asmoa omen zuen udalak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Xingola denda txikia **modu onean** eskualdatu zuen, eta, horri eskerrak, amaren zorrak kitatu zituen. **Karlos Zabala**

Salduko nizuke bat, **modu onean** ... **Harkaitz Cano**

*Osakiretsan* bilatzen dute jeneroa, jenero fina, eta **modu onean** gainera. **Iñaki Segurola**

## 21 modu txarrean

Izan lotsa hitzarmen eta konpromezuak ez betetzeaz, mahaian gizabidetsu ez jokatzeaz, **modu txarrean** eman edo hartzeaz. **Elizen arteko biblia**

Aita gaizki esaka ari zitzaioala amari, laidoka eta irainka, **modu txarrean** . **Joan Mari Irigoien**

Albiste eman nahi dizuet atzo, 9:35etan, motozikletatik oso **modu txarrean** erortzen hasi nintzelarik, gogoratu nintzela ezen errealitatea ez dela existitzen. **Anjel Lertxundi**

Bortxakeria horren adierazgarri, bere heriotza bera da, 1975eko gau batez Ostiako hondartza bazter batean berak aipatutako *ragazzi di vita* haietako batek **modu txarrean** hilik. **Josu Zabaleta**

## 22 -tzeko modua egin

Ontzurre pilo bat eman zizkion merkatarari veneziar bati, bere nahia betez, bere begiak baino maiteagoa zuen emakumearen bi anaiaik [...] Trebizondaraino ekartzeko **modua egin** zezan. Egoera miserableenean bizi denak ere bizitza aurrera ateratzeko **modua egin** du, bere neurriera erabakitzen du zer den errespetatu beharrekoa eta zer ez.

**Felipe Juaristi**

Eta *Cosmic Diner*-era jo eta betiko nire mahai hartan esertzen nintzen guztietan, harekin hitz egiteko **modua** ere **egin** nuen. **Oskar Arana**

Heldu den astean ere **egingo** dut **modua** zor dudan dirua inguratu eta itzultzeko. **Matías Mujika**

Azkenean, hala ere, Sortzailearen oinetaraino limurtzeko **modua egin** zuen. **Juan Garzia**

-Eta erantzuten ez didazun bitartean **egingo** dut **modua** egunen batean zuregana joan eta aurrez aurre argitzekoa atzo gertatutakoa. **Arantxa Iturbe**

## 23 -tzeko modua izan du ad

Nortasun faltsu hura egiaztatzeko **modua bazuen** , eta inork ez zuen zalantzan jarriko. **Karlos Zabala**

Musulmanik ikasienak eta aberatsenak, ihes egiteko **modua zutenak** , Pakistanera joan ziren. **Gotzon Garate**

Hala lasaiturik, **modua du** irakurtzeko, ohiko obsesio eta arreta-galtzerik gabe. **Xabier Olarra**

Han eta hemen galdetuz, azkenean egunkarietarako lan egiten zuen argazkilaria bat aurkitu nuen, argibideren bat emateko **modua bazuena** . **Ramon Saizarbitoria**

Zure aurpegi gozo horrekin eta hogei urte izanda, **baduzu modua** , nik uste, hori bezalako gizon bat erakartzeko! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## 24 zer moduz (892 agerraldi, 159 liburu eta 182 artikulutan; orobat ze moduz 8 agerraldi, 4 liburutan)

Zer **moduz** ? **Berria - Kirola**

Zer **moduz** zaude? **Berria - Kirola**

-Gabon, Jose, Rosario, zer **moduz** ? **Jon Maia**

Zer **moduz** denak? **Alberto Barandiaren**

-Zer **moduz** ? -esan nion. **Josu Zabaleta**

-Eta zu, zer **moduz** ? -galdetu nion, gure kontuetan gehiegi sar ez zedin-. **Juan Kruz Igerabide**

-Tira, Eñaut, ze **moduz** , txo! **Sonia Gonzalez**

-Zer **moduz** hirian, maitea? **Jasone Osoro**

Eta, bide batez, zer **moduz** dago Lucy? **Oskar Arana**

-Zer **moduz** , maitea? **Lopez de Arana**

-Zer **moduz** bihotza? **Koldo Izagirre**

Zer **moduz** bularreko kabituezin hori, Hester Prynne? **Anjel Lertxundi**

Zer **moduz** egin dugu lo? **Anjel Lertxundi**

Zer **moduz** lo egin zuten galdetu zien gero. **Anjel Lertxundi**

Zer **moduz** , aspaldiko. **Lourdes Oñederra**

-Zer **moduz** unibertsitatean? -galdetu zidan atezainak. **Joan Mari Irigoien**

Erizainak zer **moduz** nagoen galdetzen dit batzuetan. **Eider Rodriguez**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**adieratzeko modu** (12); **ateratzeko modu** (12); **ateratzeko modu bakarra** (8); **aurre egiteko modu** (12); **aurrera egiteko modu** (10); **bizitzeko modu** (18); **egiteko beste modu** (12); **egiteko modu** (204); **egiteko modu asko** (9); **egiteko modu bakarra** (37); **egiteko modu bat** (41); **egiteko modu hori** (14); **egoteko modu** (9); **ekoizpen modu** (13); **emateko modu** (23); **emateko modu bat** (8); **erantzuteko modu** (9); **esateko modu** (40); **esateko modu bat** (16); **hartzeko modu** (21); **hartzeko modu bat** (11); **hiltzeko modu** (12); **hitz egiteko modu** (41); **hizketa modu** (29); **idatzeko modu** (9); **ikusteko modu** (28); **ikusteko modu bat** (11); **izateko modu** (40); **izateko modu bakarra** (8); **izateko modu bat** (8); **jarduteko modu** (8); **jende modu** (10); **jokatzeko modu** (12); **konpontzeko modu** (10); **konpontzeko modu bakarra** (10); **lan egiteko modu** (26); **lortzeko modu** (19); **lortzeko modu bakarra** (12)

**modu aktiboan** (9); **modu anitzez** (10); **modu argi** (24); **modu argian** (11); **modu arraroan** (9); **modu arrisksuan** (9); **modu askean** (9); **modu asko** (46); **modu asko daude** (9); **modu askotan** (21); **modu askotara** (18); **modu atseginean** (16); **modu bakarra** (238); **modu bakarra da** (12); **modu bakarra dela** (8); **modu baketsuan** (34); **modu basatian** (20); **modu bat da** (79); **modu bat dela** (13); **modu bat izan** (19); **modu bat zen** (13); **modu batean** (200); **modu batean esanda** (11); **modu bateko** (22); **modu batekoa** (9); **modu baten** (15); **modu batera** (242); **modu batera ikusten** (10); **modu batera ikusten** (10); **modu bateratuan** (10); **modu batez** (58); **modu bereborean** (9); **modu berean** (306); **modu berezi** (47); **modu berezi bat** (9); **modu berezi batean** (8); **modu berezia** (14); **modu berezian** (51); **modu berri** (46); **modu berri bat** (24);

**modu** (19); **modu demokratikoan** (11); **modu desberdin** (12); **modu desberdinak** (14); **modu desberdinean** (23); **modu desberdinetan** (20); **modu egokia** (19); **modu egokian** (95); **modu eraginkor** (11); **modu eraginkorrean** (33); **modu erraz** (9); **modu errazean** (10); **modu ezberdinak** (20); **modu ezberdinean** (23); **modu ezberdinetan** (13); **modu ezberdinez** (12); **modu ezin hobean** (11); **modu gisa** (8); **modu harrigarrian** (13); **modu horretan erantzun** (12); **modu ikusgarrian** (13); **modu iraunkorrean** (14); **modu jakin** (32); **modu jakin bat** (8); **modu jakin batean** (12); **modu kritikoa** (12); **modu librean** (10); **modu nabarmenean** (12); **modu naturalean** (39); **modu ofizialean** (17); **modu onean** (34); **modu onena** (10); **modu orokor** (9); **modu orokorrean** (23); **modu oso** (21); **modu pertsonalean** (12); **modu sinplean** (8); **modu sistematiokoan** (14); **modu txarrean** (30); **modu xumean** (8); **modu zakarrean** (14); **modu zehatz** (25); **modu zehatz batean** (11); **modu zuzenean** (22)

**nahiko modu** (21); **oso modu** (257); **oso modu berezian** (10); **oso modu bitxian** (18); **pentsatzeko modu** (32); **pentsatzeko modu bat** (8); **sortzeko modu** (9); **ulertzeko modu** (42)

**adieratzeko modua** (13); **ateratzeko modua** (11); **aurkezteko modua** (9); **begiratzeko modua** (8); **bizi modua** (13); **bizitzeko modua** (18); **egiteko modua** (153); **egoteko modua** (10); **emateko modua** (26); **erabiltzeko modua** (8); **esateko modua** (28); **hartzeko modua** (26); **hitz egiteko modua** (33); **hizketa modua** (12); **idazteko modua** (13); **ikusteko modua** (23); **irabazteko modua** (8); **iristeko modua** (10); **irudikatzeko modua** (8); **izateko modua** (33); **jokatzeko modua** (47); **konpontzeko modua** (14); **kontatzeko modua** (10); **lan egiteko modua** (25); **lortzeko modua** (17); **modua aldatu** (25); **modua aurkitu** (25); **modua bilatu** (11); **modua egin** (16); **modua eman** (10); **modua ematen** (14); **modua izan** (76); **modua izango** (48); **modua zen** (13); **ordaintzeko modua** (11); **pentsatzeko modua** (9); **sartzeko modua** (8); **ulertzeko modua** (17)

**egiteko moduagatik** (10)

**egiteko moduak** (32)

**adibide moduan** (28); **adierazten duen moduan** (8); **aditzeko moduan** (15); **agur moduan** (12); **ahal den moduan** (10); **ahal duen moduan** (12); **ahal izateko moduan** (24); **ahal moduan** (10); **ahal zuen moduan** (24); **ahal zuten moduan** (15); **aitzakia moduan** (14); **aktore moduan** (8); **antzemateko moduan** (9); **aritzeko moduan** (29); **ateratzeko moduan** (12); **aukeratzeko moduan** (8); **aurka jokatzeko moduan** (27); **aurkezteko moduan** (9); **aurkitzeko moduan** (8); **aurre egiteko moduan** (20); **azaldu moduan** (10); **baldintza moduan** (9); **balego moduan** (15); **balira moduan** (9); **balitz moduan** (37); **balu moduan** (28); **baten moduan** (405); **begiratzeko moduan** (10); **behar den moduan** (56); **behar moduan** (8); **berak dioen moduan** (9); **bere moduan** (21); **betiko moduan** (77); **bihar jokatzeko moduan** (9); **bikote moduan** (10); **dagoen moduan** (57); **dagokion moduan** (12); **dakien moduan** (11); **dakiten moduan** (10); **dauden moduan** (15); **denek entzuteko moduan** (14); **denon moduan** (8); **dioen moduan** (58)

**egin duen moduan** (16); **egin zuen moduan** (21); **egin zuten moduan** (12); **egingo lukeen moduan** (9); **egiteko moduan** (125); **egiteko moduan izango** (10); **egiten duen moduan** (20); **egiten duten moduan** (22); **egoteko moduan** (33); **emateko modua** (43); **entzuteko moduan** (88); **erabiltzeko moduan** (88); **erabiltzeko moduan** (88); **erakusten duten moduan** (10); **ero baten moduan** (18); **ero moduan** (38); **eroaren moduan** (14); **eroen moduan** (10); **eroen moduan** (10); **esan dudan moduan** (19); **esan dugun moduan** (9); **esan moduan** (16); **esan zuen moduan** (10); **esango lukeen moduan** (8); **esateko modua** (28); **esaten den moduan** (12); **esaten zuen moduan** (14); **eusteko moduan** (8); **ez entzuteko moduan** (16); **ez ikusteko moduan** (15); **ezagutzeko moduan** (14); **froga moduan** (12); **gertatzen den moduan** (42); **halako moduan** (42); **halako moduan non** (13); **harritzeako moduan** (15); **hartzeko moduan** (44); **hasteko moduan** (22); **heltzeko moduan** (11); **herri moduan** (23); **hitz egiteko moduan** (9); **ibiltzeko moduan** (18); **igandean jokatzeko moduan** (8); **ikusiko dugun moduan** (10); **ikusteko moduan** (101); **irabazteko moduan** (31); **irakurtzeko moduan** (13); **izan balu moduan** (8); **izan zen moduan** (9); **izan zuen moduan** (19); **izateko moduan** (59); **jarraitzeko moduan** (18); **jartzeko moduan** (9); **joateko moduan** (18); **jokalari moduan** (9); **jokatzeko moduan** (350); **jokatzeko moduan da** (18); **jokatzeko moduan dago** (16); **jokatzeko moduan daude** (10); **jokatzeko moduan dira** (13); **jokatzeko moduan egon** (20); **jokatzeko moduan egonen** (8); **jokatzeko moduan egongo** (41); **jokatzeko moduan egotea** (16); **jokatzeko moduan ez** (11); **jokatzeko moduan izango** (56); **jolas moduan** (13); **kide moduan** (8); **kontatzeko moduan** (8); **kontra jokatzeko moduan** (11); **lagun moduan** (8); **laguntza moduan** (8); **laguntzaille moduan** (9); **laguntzeko moduan** (8); **lan egiteko moduan** (9); **lehengo moduan** (17); **lehiatzeko moduan** (8); **liburu moduan** (9); **lortzeko moduan** (15)

**moduan agertu** (9); **moduan agertzen** (15); **moduan ari** (18); **moduan aritu** (9); **moduan aurkezten** (11); **moduan aurkeztu** (12); **moduan aurrera** (9); **moduan bizi** (16); **moduan da** (48); **moduan dago** (38); **moduan dagoela** (27); **moduan dagoen** (15); **moduan daude** (26); **moduan daudela** (10); **moduan dauden** (8); **moduan dela** (8); **moduan den** (9); **moduan dira** (38); **moduan direla** (11); **moduan egin** (50); **moduan egin zuen** (13); **moduan egiten** (26); **moduan egon** (53); **moduan egonen** (8); **moduan egongo** (76); **moduan egongo da** (15); **moduan egongo dela** (13); **moduan egotea** (28); **moduan ekin** (11); **moduan erabili** (19); **moduan erabiltzen** (31); **moduan erantzun** (12); **moduan esan** (24); **moduan esan zuen** (8); **moduan esanda** (8); **moduan etorri** (10); **moduan gara** (12); **moduan gaude** (26); **moduan hartu** (37); **moduan hartzen** (19); **moduan hasi** (27); **moduan hitz egin** (12); **moduan ibili** (13); **moduan ibiltzen** (8); **moduan idatzi** (9); **moduan ikusi** (12); **moduan ikusten** (64); **moduan ikusten du** (10); **moduan izan** (30); **moduan izan zen** (10); **moduan izango** (131); **moduan izango da** (44); **moduan izango dira** (21); **moduan jardun** (9); **moduan jarri** (40); **moduan jarzten** (9); **moduan joan** (9); **moduan jokatu** (17); **moduan jokatuko** (11); **moduan jokatzen** (20); **moduan nago** (8); **moduan nagoela** (10); **moduan nengoen** (10); **moduan non** (14); **moduan sartu** (12); **moduan tratatu** (9); **moduan ulertu** (14); **moduan ulertzen** (9); **moduan utzi** (12); **moduan zaude** (8); **moduan zegoela** (15); **moduan zegoen** (30); **moduan zeuden** (12)

**nagoen moduan** (12); **nahi duen moduan** (16); **nahi zuen moduan** (9); **naizen moduan** (10); **nazio moduan** (9); **nire moduan** (20); **nuen moduan** (51); **ohi den moduan** (18); **ohi duen moduan** (8); **ohi duten moduan** (10); **ohi zuen moduan** (16); **ohiko moduan** (16); **ohikoa den moduan** (13); **oinarri moduan** (11); **pentsatzeko moduan** (8); **pertsona moduan** (12); **politikoa moduan** (9); **proba moduan** (10); **sartzeko moduan** (19); **sinesteko moduan** (8); **talde moduan** (12); **ukitzeko moduan** (11); **ulertzeko moduan** (47); **uzteko moduan** (14); **zegoen moduan** (17); **zelairatzeko moduan** (8); **zoro moduan** (10)

**egiteko moduari** (9); **moduari buruzko** (10); **moduari dagokionez** (16); **ulertzeko moduari** (8)

**egiteko moduz** (10)

**adibide modura** (14); **gurutze modura** (16); **modura balio** (8); **modura bizi** (9); **modura egin** (10); **modura egiten** (11); **modura erabiltzen** (11)

**aurre egiteko modurik** (11); **egiteko modurik** (57); **egiteko modurik onena** (8); **emateko modurik** (12); **ez dago modurik** (19); **ez zegoen modurik** (10); **hartzeko modurik** (10); **izateko modurik** (10); **jakiteko modurik** (14)

**modurik egokiena** (36); **modurik egokienean** (15); **modurik eraginkorra** (21); **modurik errazena** (10); **modurik gabe** (8); **modurik hobere**na (13); **modurik ikusten** (10); **modurik izan** (22); **modurik izango** (18); **modurik onena** (66); **modurik onenean** (16)

**edozein modutan** (202); **edozein modutan ere** (31); **hainbat modutan** (20); **kontaezinezko modutan** (11)

**ea zer moduz** (19); **edozein moduz** (10); **hala moduz** (20); **halako moduz** (13); **inolako moduz** (14)

**ze moduz** (8); **zer moduz** (896); **zer moduz ari** (10); **zer moduz bizi** (8); **zer moduz dago** (63); **zer moduz daude** (11); **zer moduz doa** (13); **zer moduz habil** (23); **zer moduz hago** (16); **zer moduz ikusi** (8); **zer moduz joan** (19); **zer moduz moldatu** (9); **zer moduz moldatzen** (15); **zer moduz nengoen** (10); **zer moduz zaude** (93); **zer moduz zaudete** (13); **zer moduz zegoen** (20); **zu zer moduz** (8)

**hala moduzko** (39); **zer moduzko** (31)

**zer moduzkoa** (16)

## modukeria iz modua, gaitzesgarritzat markatua.

Horien Presidentea, lehen orriko argazki bakoitzean haurtxo arroxakolore mardularen gisa barrezka azaldu beharra, bestela ez bailukete berriro hautetsiko, horien gazte-**modukeria** obszenoa...      Joxe Austin Arrieta

## moduko 1 izlag ik modu 9 eta hurr. (-tzeko atzikiaren eskuinean)

Aintzakotzat hartzeko **moduko** maisu bakarrak.      Iñaki Segurola

Bazuen Fortunato honek ahulgune bat, nahiz eta gainerakoan errespetatzeko **moduko** gizona zen.      Koro Navarro

Eskolan ez zen bere argitasunaz irakasleak txundituta uzteko **moduko** ikaslea.      Gotzon Garate

Ume bat eserita egoteko **moduko** gordelekuak.      Xabier Olarra

Gustatzeko **moduko** emakume pertxenta zen eta.      Juan Kruz Igerabide

Ez da irudimena pizteko **moduko** gaia noski; grisa da, eta bera osagai duten gatzak, berriz, koloregabeak.      Juan Garzia

Gure ezagupenak aurreratzen ari dira; pazientzia galarazteko **moduko** moteltasunez, baina.      Xabier Olarra

Arrangura eta mingostasunezko kapa ia ukitzeko **moduko** bat soinean.      Juan Garzia

Giza ordenadore **moduko** batzuk direla esan liteke.      Iñaki Segurola

Eszenatokia negar eragiteko **moduko** goibela zen.      Juan Garzia

- Puntu horretan okertzeko **moduko** bigun zegoen hodia: lortzen zen okerdura oso urrun zegoen perfektioit.      Juan Garzia

### 2 (-en atzikiaren eskuinean)

Nazka melenga baten **moduko** zerbait.      Monika Etxebarria

Axioma baten **moduko** aurkikunde bitxi baten argia piztu zitzaidan bat-batean.      Anjel Lertxundi

Imintzio boluptuoso baten **moduko** zerbait etorri da ahoaren eskuineko aldean kokatzera eta ezkerrekoak hilik dirau.      Monika Etxebarria

Apaltasun faltua da ordea, ez baitute uzten ahanzten, zirikatu egiten naute, aidiaren **moduko** setakeria horrekin.      Monika Etxebarria

Mutazioen eta X izpien **moduko** agente mutazio-sortzaileen eraginen azterketaren bidez.      Juan Garzia

Goitik behera begiratzen dit erdeinuz, miopeen **moduko** soaz, sailkatu egiten nau.      Monika Etxebarria

Baina Touretteren sindromeak "bide ematen die" hemen aipatuen **moduko** portaera primitiboi.      Xabier Olarra

Familia osoak, gizonak... bagoietan gure **moduko** jendea zen gehiena. Jon Maia

Gure **moduko** kalezuloarren irudipena izaten da nekazaria lurrarekin halako batasun mistiko goxo batean bizitzen dela. Iñaki Segurola

### 3 (-ko atzikiaren eskuinean)

Peggy potzola, pentsatu nuen, gehiegia niretzat, bere hockey jokalarien zangoak eta mari-mutil ile horrekin, Dan-entzako **moduko** neska zen. Koro Navarro

### 4 (erlatibozko perpaus baten eskuinean)

Gutxitan ikusi den **moduko** diamante distiratsu batek estaltzen omen zuen erregearen kutzako sarraila-zuloa. Anjel Lertxundi

Ohitura ederra, behar den **moduko** ogia jatea. Joseba Sarrionandia

Uste izan zuen **moduko** barnealdea topatu zion etxeari. Joxemari Urteaga

Ordura arte topatu ez nuen **moduko** giza alea zen, eskuliburuko faxista bat. Juan Garzia

Inork espero ez zuen **moduko** lan bikaina egin zuen, hiru egunetan egin ere. Martin Anso

Ordu arte sekula urrutitik ere erakutsi ez zuen **moduko** sentipen sakonaz. Xabier Olarra

Hori argi dago, zeren giza Gorputza horrela hunkia deno giza Izpirituak ikusiko baitu afektu hori, erran nahi baita aktuan existitzen den **moduko** ideia bat, kanpoko gorputzaren izaera barne hartzen duena. Piarres Xarriton

### 5 (izen baten eskuinean eta bat artikularekin)

Txartel **moduko** bat atera zuen azaletik, makinaz idatzita zegoena. Orezta-**moduko** *incomodité* txiki batzuk agertu baitzitzaizkion eskuineko oinean. Bernardo Atxaga

Eta han dator nigana, eskuan harri **moduko** bat duela. Juan Garzia

Baserrri giroan hazitako basakristau **moduko** batek hala aitortu zidan behin: [...]. Iñaki Segurola

Baina izan liteke, halaber, goragoko mailetan, nortasun-gose **moduko** bat: beste persona batzuk askatu, mendean hartu eta barneratzeko premia **moduko** bat. Xabier Olarra

Linbo **moduko** batean egona zen aldi batez. Xabier Olarra

Halere, haien bi irribarre bizkiak ez dira berehala ezabatu: ezpainetan iraun dute pixka batean, geldotasun **moduko** baten eraginez. Monika Etxebarria

Kanporatzen zena esnaldiko edo jendaurreko amets **moduko** bat zen, non ugaritzen baitziren amets antzeko fantasia, asoziazio eta sinboloak, eta gogamenaren esnaldiko pertzepzioekin bilbatzen. Xabier Olarra

### 6 (izen baten eskuinean eta bat artikularekin, eskuinean izenondo bat duela; ik beherago 9)

Gozoki **moduko bat**, horia, inurriz eta euliz apaindua. Koldo Izagirre

Errealitatearen itzal eskasa baino ez zen amets **moduko bat**, arrotz eta urruna. Xabier Montoia

Bada anaitasun **moduko bat**, estuago eta sendoagoa. Xabier Olarra

Urruma **moduko bat**, oso laburra. Ramon Saizarbitoria

Esan dezagun diru-zuritze **moduko** bat izan zela, ez oso garbia. Jon Muñoz

### 7 (izen baten eskuinean eta bat artikulurik gabe)

Benta zaharra zegoen lekuan osatu zen plaza **moduko** hura, orain udaletxeko plaza zena. Txori horiek alegia, loro **moduko** horiek, ea ondo girotu diren inguru honetan. Jon Maia

Txoratu egiten nintzen ipurdi-masailtan jotzen zizkidan pintzel-kolpe **moduko** haiekin. Karlos Zabala

Ez nuen nahi inork estalkia kentzerik ohantze **moduko** hari, burusiz estalia baineukan, oroimenean ondo babesturik. Juan Kruz Igerabide

Karranpa **moduko** zirrarak burutik oinetara astindu zuen Maiza. Migel Angel Mintegi

Egonezina, zoramena, nahi eutsiezina, ekaitz **moduko** zerbaite. Luis Elberdin

Izu-laborriarekin eta zangarra suzko aizto **moduko** zerbaiteak ziztaturik. Juan Kruz Igerabide

### 8 (izen baten eskuinean eta ezkerrean beste izen bat duela)

Palankatxo **moduko** tresna bat, hamahiru libra pisu eta ia metro erdi luzekoa. Xabier Olarra

Tormes ibaiko ertz hareatsuan dagoen leize **moduko** zulo bat seinalatu dio. Anjel Lertxundi

Eskertu zidan nire behar gabeko laguntza eta eskuak garbitu zituen eskuzatar **moduko** liits-mordo koloreanitz batekin. Joxe Austin Arrieta

Gezi **moduko** mihi gorritza batzuek jauzi egiten zuten handik ni nengoen lekurantz. Anjel Lertxundi

Adaren anpolai-**moduko** bular txiki tenteak eta gorputz biluzia kariziatzeko irrikaz nengoen eta. Anjel Lertxundi

Bai *fast food* **moduko** zabor sasi-jangarriak, baita *delicatessen* plegukoak ere. Edorta Agirre

### 9 (izen + izenondo multzoaren eskuinean; Euskaltzaindiaren Hiztegian, joskera honen ordean, etxe moduko bat, handia agertzen da; ik gorago 6)

Horrenbestez bururatu zitzaizdan krisialdi psikiko **moduko** zerbaitek ez ote zuen jotzen. Xabier Olarra

Inguruan nituen objektu guztiak nire materia berekoak ziren, oinaze itsusi **moduko** batekoak. Monika Etxebarria

Eredu pribilegiatu **moduko** bat bilakatzen da horrenbestez eulia. Juan Garzia

Eguzkia harri gori **moduko** bat zela esan zuen, gure aroa baino bost mende lehenago! Jon Muñoz

Bi soinujoelen aurpegiko keina, irribarre lotsati **moduko** bat, igual-iguala da. Pako Aristi

### • 10 (mugatua, -tzeko atzikiaren eskuinean)

Kanpaina interesgarria, jarraitzeko **modukoa**. Karlos Zabala

Tximistatxo bat horra, txiki-txiki baina atzemateko **modukoa**. Juan Garzia

Ariketa, egiteko **modukoa** da. Berria - Kultura

Blount jauna. Haren edertasuna edonor zoratzeko **modukoa** zen. Migel Angel Mintegi

Oso epela zegoen eguraldia, harritzeko **modukoa**. Txillardegia

Solairu altuenetan, zuloak ageri ziren igeltsuzko hormetan, eta itotzeko **modukoa** zen usaina. Koro Navarro

Basilisko hark merezi zuela zigor eredugarri bat, inoiz inork ez ahazteko **modukoa**. Karlos Linazasoro

Gisa berean, gorde egin ditugur hobesteko **modukoak** ikusi ditugunak, erakunde higatu eta makurren gainetik. Andres Urrutia

Haiek ez ziren guretzat aintzat hartzeko **modukoak** inoiz izan. Pako Aristi

Baita jateko **modukoak** ez zirenak ere. Pello Lizarralde

### 11 (mugatua, -en atzikiaren eskuinean)

Jokin katuen **modukoa** da. Lander Garro

Urrin higuigarria zabaltzen zuten, [...] eguzkitan lurruntu ageri den haratustelaren **modukoa**. Karlos Zabala

Agonia luze baten **modukoa** izan zen. Jose Morales

Gustu txarreko hitza iruditzen zaio berari, bi ahoko aizto baten **modukoa**, unea garratzen duena. Oskar Arana

Belarria erne paratuz gero, marmar ozen baten **modukoa** aditzen zen, gangatik jareginik lurraren kontra kanka jotzen zuten mila tantena. Juan Garzia

Argitasun une bat besterik izan ez bazen, izar baten lehertzearen **modukoa** edo. Xabier Aranburu

-Nire **modukoa** bada, maitasun ipuinak gustatuko zaizkio-eta. Felipe Juaristi

Xiudadeko jende hori, diot, ez da gure **modukoa**, eta gu hor "herrietako" jendea gara, edo "herri-girokoa". Iñaki Segurola

Hollywoodeko filmetan ageri ohi direnen **modukoa**. Edorta Jimenez

Ilea kizkurra zuen, agure beltz batenaren **modukoa**. tankeen gainean mutil gazte batzuk zeuden eguzkitan, nire **modukoak** ziren, batzuk are gazteagoak. Ander Irizar

Gauak olatu handien **modukoak** ziren etheen kontra jotzen, arraitzen atsekabearekin bizi ginen. **Joseba Sarrionandia**  
Elizen pinakuluak ikusten nituen, A letra larrien **modukoak**. **Fernando Rey**  
- (ko *atzikiaren eskuinean*) -Ez, hori ez, ez da zuretzako **modukoak** -entzun nion amari nik ezer esaterako. **Anjel Lertxundi**  
Aitaren eraginagatik ortu zuen bere melodia eta konposizioak soinu txirikako **modukoak** izatea beti, edo beste era batera esanda: dantzarako **modukoak**, jotzen zituenak jotzen zituela. **Pako Aristi**

## 12 (mugatua, erlatibozko perpaus baten eskuinean)

Izan ere, zen **modukoak** zelako, asko, gaizkileak eta gaitz eragileak, joaten zitzaizkion atzetik. **Askoren artean**  
Nik zure izaera atsegin dut, zaren **modukoak** izatea, nire bizitza osoan ez dudalako zure moduko inor ezagutu. **Xabier Paya**  
Dena, lorategia, gelak, altzariak, den-dena, artista batek beretzat antolatzen duen etxeari dagokion **modukoak**. **Xabier Olarra**  
Kontatu dizut odol beroak ginela gu, zu orain zaren **modukoak** esan nahi dut. **Pello Salaburu**  
Emazteen gaineko aginipide mugagabeak, eskualde batzuetan dagoen **modukoak**, nazioari eta legeen gozotasunari muzin egingo lieke. **Andres Urrutia**  
Gogoratzen ditut (ustez) haren esku zorrotzak, larru-kordagin bati dagozkion **modukoak**. **Juan Garzia**  
-Lehen esan dizudan **modukoak**: zenbat eta handiagoak hobeto. **Jon Arretxe**  
Boterearen kritikoak dira: doi-doi Botereari gustatzen zaizkion modu-**modukoak**. **Joxe Azurmendi**

## 13 (mugatua, izen baten eskuinean)

Estreinako bafadarekin zorabio **modukoak** sentitu zuen. **Migel Angel Mintegi**  
Oinarriaren azpian eraztun **modukoak** jarri zioten altxagarri bezala. **Santiago Iruretagoiena**  
Denen artean puzzle **modukoak** osatzen dute. **Edorta Jimenez**  
Bazter batean azoka edo feria **modukoak** egiten zen arratsaldeetan. **Jokin Urain**  
Gaineratu ere gaineratzen zuen, historiaren bidea aspalditik ezaguna duenaren ironiaz, iraultza ekaitza **modukoak** izanik, baretasuna etorriko zela, lehentxeago ez bazen geroxeago. **Felipe Juaristi**  
Apustu **modukoak** da gurea. **Juan Garzia**  
Intziri **modukoak** egin zuen Enrikek. **Iñaki Iñurrieta**  
Ezkutaturiko bonba **modukoak** edo dira, genoman gordeak. **Juan Garzia**  
Estalkia erabat jaitsia zegoen, eta larruzko bi errezel **modukoak** zintzilik zeuzkan aurrean. **Karlos Zabala**

## 14 (mugatua, izen + izenondo multzoaren eskuinean; ik gorago 9)

Eta, dena esateko, jaten nituen eran janez -ore marroi **modukoak** ogi tartean zapalduta-. **Ramon Saizarbitoria**  
Sofa luze **modukoak** zen hura. **Joxemari Iturralde**

## 15 (mugatua izenondo gisa)

Hiru alditan egona nintzen han lehenago ere, eta behar nuena bezalako aterpea zen hura: berria, garbia, **modukoak** eta munduko beste edozein hotel bezain ganoragabea. **Hasier Etxeberria**  
**Modukoak** al dago? **Xabier Olarra**  
Horra gauza bat -zioen bere artean- batek jomuga izateko modu-**modukoak**. **Juan Garzia**  
Prezioetan denetik (eskaintza modu-**modukoak**, aprobetxategien diseinuzko diru-zurrupateak eta iruzurrak), apaingarriek eta produktuen kokapenak garrantzi handia dute. **Edorta Agirre**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

ahazteko moduko (16); aintzakotzat hartzeko moduko (6); aintzat hartzeko moduko (11); aipatzeko moduko (7); aritzeko moduko (7); ateratzeko moduko (9); baten moduko (38); baten moduko zerbait (7); beldurtzeko moduko (7); bere moduko (10); bizitzeko moduko (9); botatzeko moduko (7); den moduko (9); egiteko moduko (44); egoteko moduko (25); emateko moduko (23); entzuteko moduko (11); erabiltzeko moduko (8); esateko moduko (8); fidatzeko moduko (8); gainditzeko moduko (7); geratzeko moduko (8); gure moduko (11); haren moduko (8); harritzeko moduko (16); harro egoteko moduko (6); hartzeko moduko (49); hasteko moduko (8); hausteko moduko (8); hiltzeko moduko (8); honen moduko (7); ibiltzeko moduko (6); igartzeko moduko (6); ikaratzeko moduko (7); ikusteko moduko (12); irabazteko moduko (12); izateko moduko (20); jartzeko moduko (17); jateko moduko (6); kentzeko moduko (12); kezkatzeko moduko (9); kontatzeko moduko (8); kontuan hartzeko moduko (11); lortzeko moduko (7); lotsatzeko moduko (6)

moduko aldaketarik (6); moduko datua (7); moduko egoera (8); moduko ezer (12); moduko ezer ez (6); moduko gauza (11); moduko gauzak (8); moduko gizon (7); moduko gizona (8); moduko hartan (11); moduko hori (9); moduko hotsa (6); moduko hura (19); moduko jende (6); moduko jendea (7); moduko jokalaria (6); moduko kontua (6); moduko lana (10); moduko leku (6); moduko lekua (6); moduko maila (8); moduko musika (7); moduko partida (7); moduko taldea (30); moduko taldea du (6); moduko zarata (6); moduko zerbait (82); moduko zerbait zen (7)

nabarmentzeko moduko (13); nire moduko (9); onartzeko moduko (22); pizteko moduko (7); pozteko moduko (7); sarrera moduko (8); sarrera moduko bat (7); sartzeko moduko (14); sinesteko moduko (7); sortzeko moduko (7); txapela kentzeko moduko (7); ulertzeko moduko (11); uzteko moduko (29); zuen moduko (7); zure moduko (11)

ahazteko moduko (13); aintzat hartzeko moduko (8); barre egiteko moduko (20); baten moduko (72); baten moduko da (14); baten moduko izan (8); beldurtzeko moduko (11); botatzeko moduko (8); den moduko (14); dirudien moduko (6); egiteko moduko (66); egiteko moduko da (14); egoteko moduko (18); egoteko moduko da (8); emateko moduko (15); entzuteko moduko (7); erotzeko moduko (7); ez sinesteko moduko (9); goraipatzeko moduko (6); harritzeko moduko (13); hartzeko moduko (31); hartzeko moduko da (9); ibiltzeko moduko (8); ikusteko moduko (10); izateko moduko (15); jartzeko moduko (22); jartzeko moduko da (9); jateko moduko (12); kentzeko moduko (14); kezkatzeko moduko (12); kontuan hartzeko moduko (10)

moduko iruditzen (7); moduko izan (87); moduko izan behar (10); moduko izan da (8); moduko izan zen (37); moduko izango (18); moduko izango da (8); moduko izatea (10)

nabarmentzeko moduko (9); onartzeko moduko (9); pozteko moduko (6); sinesteko moduko (12); txalotzeko moduko (7); txapela kentzeko moduko (10); ulertzeko moduko (10); zoratzeko moduko (8)

egiteko moduko (8); egoteko moduko (8); hartzeko moduko (16); ikusteko moduko (10); izateko moduko (8); jartzeko moduko (9); jokatze moduko (6); moduko izan (19); moduko izan behar (7); moduko izango (10); uzteko moduko (6)

## modulante *izond* modulatzeko duena. ik modulatzeko.

Lanek bere modernitatean eskatzen duten adierazgarritasuna ondo islatu zituen erregistro egokiek, intentsitate neurtuekin eta hasierako pasarte **modulante** armonia zoragarrietan musikaltasunarekin. **Berria - Kultura**

## modular *izond* modulatuari dagokiona; moduloek osatua.

Komeni da, dirudienez, pasealeku horiek koloma bikoitzez osatuak izateko pentsatuak egotea, koloma doriarrak jarriz kanpoko aldetik eta erlazio **modular** egokiek in egindako arkitrabe eta apaingarrikin bukatuta. **Santiago Iruretagoiena**  
Gogamenaren ikuspegi **modular** batek ere -eta horrek ere badu garrantzia- ezabatu egiten du nortasuna, norberaren erdigunea, nia. **Xabier Olarra**

## modularitate *iz* modularra denaren nolakotasuna.

2, 3, 4, 5 edo 6 bagoi eramateko gai ere izan behar dute, aldiriko trenetan **modularitatea** ezinbesteko ezaugarria delako bidaiari kopuruari behar bezala egokitzeko. **Berria**  
-Ekonomia

## modulatu

Ahotsa geratzen denean soinu finko batean, eta handik, **modulatu**, beste laugarren tonu batera aldatzen denean, orduan *diatessaron* deitzen zaio. Santiago Iruretagoiena

Ahotsa **modulatu** denean, alerazioak eginez, batzuetan altua egiten da, beste batzuetan baxua. Ahots zoliz irakurtzen du, ondo **modulatu**, eta ez zaio arnasa-hotsik entzuten etentxoak egiterakoan. Santiago Iruretagoiena

Musika-tresna bati buruz ari garenean, musikaria izango da, eta ez medikua, tresna hori belarriek abestien ederra gozatzeko moduan **modulatu** duena. Santiago Iruretagoiena

## 2 irud/hed

Ez alferrik, bertan **modulatu** da boterearen ahotsa. Iñigo Aranbarri

## 3 zerbait aldatu edo erregulatu.

Koadroan ulerrazatzeko helburua duten eskema batzuen arabera eratzen eta **modulatu** da munduaren antz hori. Josu Zabaleta

Laguntza hori **modulatu** izan daiteke ere familiek dituzten diru iturrien arabera. Herria

Geneen adierazpena kiribil erregulatzailerik **modulatu** dute. Juan Garzia

Gene askoren adierazpena **modulatzeko**, badira zirkuitu erregulatzailerik, haiek ere zenbait gene espezifiko gobernatuak. Juan Garzia

KAS alternatibako puntu batzuk negoziazioaren bidez «**modulatzeko** modukoak» zirela esan zuen Sanzek prentsako elkarrizketa batean, neurri batean, horrek ez lukeela esparru juridiko-politiko urratuko. Berria - Euskal Herria

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Ahots **modulatu** hark zioenez, pubertarora iristearrekin batera, zenbait aldaketa izango zituzten geure gorputzek, hala nola ileak haztea aurpegian, besapeetan edo sabelpean... Xabier Mendiguren Elizegi

Umeek besoak zurrunki luzatu, eta ahots ozen **modulatu** gabez esaten zuten: [...]. Xabier Olarra

Era berean, eten egin dira, aldi batez, *Radio Insurgentaren* ahotsik gabeko ahotsa emanaldi guztiak frekuentzia **modulatu** eta uhin laburrean. Berria - Harian

## modulatzailerik izond modulatu duena.

Erantzunek "omen", "nonbait", "ei" eta, orokorrean, litezkeen **modulatzailerik** guztiak eramaten zituzten, ardi-jabeak segurtasun osoz deus jakingo ez balu bezala. Jon Alonso

## modulazio 1 iz modulatu.

Tonu beti berdinean mintzatu zen, limurtzeko edo iradokitzeko **modulaziorik** gabe. Jon Alonso

Ahotsaren eta kantuaren **modulazioa**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eta gainera ekintzak, garatzen hasi ahala, berez dakartzio akordeen **modulazio** eta iragaitzak, berak odolean sentitzen dituenak, haietaz oharatzeko behar diren musika-baliabideak eduki ez arren. Oskar Arana

Ahotsaren **modulazioak** ere badu garrantzia. Luis Elberdin

Hiru motatako **modulazioak** daude: lehenengoa, grekoek *harmonia* deitzen dutena; bigarrena *chroma* deitzen dena; eta hirugarrena *diatonon* esaten dena. Santiago Iruretagoiena

Erlazioa **modulazio** konjuntua da, hau da, kalkulaturako parte baten elementuek izaten dutena obra osoan, eta osotasun guztiak izaten duena; **modulazio** horretatik ateratzen da proportzioa. Santiago Iruretagoiena

**Modulazio** harmonikoa artegintzarako pentsatua dago, horregatik horren kantuak halako prestutasun aparta eta dotorea izaten du. Santiago Iruretagoiena

**Modulazio** kromatikoak, bere tonuen grazia fin eta moduluen ugaritasunagatik, askoz ere atsegin gozoagoa ematen du. Santiago Iruretagoiena

**Modulazio** diatonikoa naturalagoa da, eta erosoagoa du bitartean arteko distantzia. Santiago Iruretagoiena

Hala, teklak eskuekin sakatzen direnean erregelak etengabe atzera eta aurrera bultzatzen hasten dira, zulo batzuk itxiz eta beste batzuk irekiz, eta musikako artearen arabera eragiten badira, hots ederrak lortzen dira era askotako **modulazioak** eraginez. Santiago Iruretagoiena

## 2 (hitz elkartuetan)

Hiru **modulazio**-mota hauek desberdina izaten da tetrakordioen antolaketa. Santiago Iruretagoiena

## modulo ik modulu.

## modulokide ik modulokide.

## modulu (orobat modulo g.er.) 1 iz arautzat hartzen den neurria.

Parte horietako bat **modulua** izango da eta **modulu** horren neurria egokituko da obra osoaren antolaketa. Santiago Iruretagoiena

Beheko aldetik kolomaren diametroak bi **modulu** izango ditu; kolomarteak bost eta erdi **modulu** izango ditu; kolomaren altuerak, kapitela kenduta, hamalau **modulu**; kapitela altuera **modulu** batekoa izango da eta zabalera bi eta erdi **moduluko**. Santiago Iruretagoiena

Proportzioaren adierazpen aritmetikoa, **modulu** jakin batetik abiatutako kantitate konkretuetan. Santiago Iruretagoiena

Modulazio kromatikoak, bere tonuen grazia fin eta **moduluen** ugaritasunagatik, askoz ere atsegin gozoagoa ematen du. Santiago Iruretagoiena

Gauza horietan greziarren pisuek **moduluekin** duten erlazioa azaltzen saiatuko naiz, gure pisuetan erabiltzeko ere erlazio horrek balio dezan. Santiago Iruretagoiena

## 2 beregain izanik, multzo baten osagaitzat pentsatua den unitatea.

Emandako 19 geletatik, zortzi **modulu** prefabrikatuetan daude, eta lau urte dira erabiltzen ditugula. Berria - Euskal Herria

Egoitzan eskainiko zaion arreta aldi baterako izango da, harik eta adingabeko horiek **modulu** eta etxebizitza egonkorretara iritsi eta gizarteratzeko ibilbideari ekiteko prest egon arte. Berria - Euskal Herria

*Columbus* modulua gain, eguzki plaken beste hiru sail jarriko dituzte estazioan [...] eta Errusiako beste **modulu** bat. Berria - Gaiak

Horma nagusiaren kontra, berriz, **modulutan** banatutako musika- aparatua bere altzari beltzaren barruan, aldare bat bailitzan. Iban Zaldúa

Esan daiteke **modulu** modukoak direla, zelula guztiaren arkitekturarako baliagarri. Juan Garzia

Badirudi, bada, era desberdinez antolatutako **modulu** berdinez osatuak direla biziaren guztiak. Juan Garzia

Liburuak espazioaren sailak dira, bolumen oinarrikoak edo materiaren konfigurazio posiblea eragiten duten **moduluek**. Anjel Lertxundi

## 3 (irakaskuntzan)

Informatikako **modulu** bat ikasten du, mantsu baina tinko. Berria - Kirola

Jazz saila eta musika tradizionalari lotutako **modulu** esperimental bat gehitu diozue Musikeneko eskaintzari. Berria - Harian

Horretarako, **modulu** estandarrez gain, beste batzuekin ere funtzionatzen dugu: horiek ikastaro bizkorragoak izaten dira, helburu jakin bat lortzeko asmoarekin. Berria -

Euskal Herria

Aurten utzi du ikastetxea eta **moduluren** batean dabilela uste dut. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Haurrerekiko afektibotasuna nola landu, xatarren aldaketa, negarra, osasuna, janaria, jokoak [...] lantzen dute, 200 orduko **modulutan**. **Berria - Euskal Herria**

Fraisoren Goi Mailako Zikloko **modulu** batzuk euskaraz izango dira. **Berria - Harian**

Lehen eta Bigarren Hezkuntza amaituta zenbat etorkin hasten dira batxilergoan edo **modulu** profesioaletan? **Berria - Euskal Herria**

## 4 (kartzeletan)

**Modulu**, galeria eta kartzela bereizi guziok kontuan hartuta, esan dezakegu 106 lekutan banatuta daudela presoak estatu espainiar eta frantziarren. **Jokin Urain**

Huelvan preso dagoen Lurdes Txurruka bakar-bakarrrik dago **modulu** osoan; izan ere, bertan beste 80 ziega dauden arren, guztiak hutsik daude. **Berria - Euskal Herria**

Liburua Laugarren **Moduluan** egindako erregistro batean eskuratu zuen, hankaz gora utzi zuten ziegetako batean. **Iban Zaldua**

Kartzela askotan **modulu** apartetan daude, harremanik eta elkar ikusteko aukerarik gabe. **Jokin Urain**

**Modulu** berean egonik ere, galeria berezitueta daude zenbait kartzelatan, patio ordu ezberdinekin, bisita egun ezberdinekin, elkarrekin topo egiteko paradarik gabe. **Jokin Urain**

**Moduluetako** teilatuen gainetik patio batetik bestera pilak jaurtikiz jakiten genuen edozein momentutan **modulu** bakoitzeko berri. **Jokin Urain**

Zigor ziegak euskal presoentzat «**modulu** arrunt» bilakatu dituztela dio Etxerat-ek. **Berria - Euskal Herria**

Emakumeen **moduluetan** gertatutakoa ezagutzen ari gara, baina gizonetzkoen **moduluetan** eta bakartzeetan gertatzen diren gauza asko ez dakizkigu. **Berria - Euskal Herria**

Lehen graduko **modulu** hartan hasi ginen gure historia hau idazteko oharrak hartzen. **Jokin Urain**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Koloma horien altuerak ere **modulu**-erlazio egokia izango du. **Santiago Iruretagoiena**

Horregatik zorrozatasuna galtzen du altuera oso handia eta garrantzi handikoa denean, eta beste sentimenei ez die **modulu**-kopuruari buruzko informazio zehatzik ematen.

**Santiago Iruretagoiena**

Ez baditugu proportzioak eta **modulu**-handitze hori erabiltzen [...] orduan itxura itsusia eta desegokia izango du kanpotik begiratzen duenarentzat. **Santiago Iruretagoiena**

Esaterako, kontratari PFEZaren **modulu** sistema edo BEZA gaizki fakturatzen dizkieten azpikontratak atzeman dituzte. **Berria - Ekonomia**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Preso anitzek diziplina **modulua** edo zigor ziega ezagutu dute. **Berria - Euskal Herria**

Kartzeletako bakartze **modulu** eta ziega berezietan zer gertatzen den ez du inork ikusten, bertatik igarotzen den presoak izan ezik. **Jokin Urain**

Mekanika **modulu** bat egiten ari naiz, Hernanin. **Berria - Kirola**

Berarekin batera kometa aztertuko duen *Philae* izeneko lurreratze **modulu** bat darama Rosettak. **Berria - Gaiak**

Opel/Fiaten eskari handi bat lortu du enpresak, Punto eta Corsa autoetako plataformarako pedal **modulo** osoa egiteko. **Berria - Ekonomia**

Halako geneen eginkizuna, hain zuzen, eredu-**moduluaren** garapena gobernatzen duen arau sailean eragitea da. **Juan Garzia**

Oteizak argiarekin eginiko lan esperimentalekin egingo du topo ikusleak bigarren aretora sartzean: hiperboloideekin eta argi **moduluekin**. **Berria - Kultura**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**modulu bat ikasten** (3)

**bakartze moduluak** (3); **lurreratze moduluak** (5)

**bakartze moduluan** (7); **lehen graduko moduluan** (3)

**gizonetzkoen moduluetan** (3)

**isolamendu modulura** (3); **modulura eraman** (4)

**moduluz aldatu** (3)

## moduluka *(corpusean moduloka soilik) iz moduluen arabera.*

Metalezko 13 egitura daude, **moduloka** mugi daitezkeenak, neurri eta forma desberdinekoak. **Berria - Kultura**

## modulukide *(corpusean modulokide soilik) iz modulu berean dagoen pertsona.*

Kartzela barruan erditu zen **modulokideak** umetxoari begira esan zidan: norbait maitatzeko gai izango al naiz berriro, Clara? **Berria - Euskal Herria**

## modus operandi *iz aritzeko modua.*

Horra mezulariaren modus **operandia**. **Edorta Jimenez**

Indar guztien modus **operandi**-a uhinak eta partikulak trukatzeko dela. **Berria - Gaiak**

Indonesiako Polizia buruak adierazi zuen 2002an Balin eta 2003an *Marriot* hotolean Azahari Husini egozten dizkieten bi leherketen «modus **operandi** bera» zuela. **Berria - Mundua**

Egunero-egunero sentitzen du bizitzaren 'modus **operandi**' arrunta gaintu eta bere bizi denbora beste lorpen batzuetara egokitzeko beharra. **Pako Aristi**

Baina horrek ez du justifikatzen Bruselaren modus **operandi**-ari bizkarra ematea. **Berria - Harian**

Alderik bada, ostera, gizon mozorrozale bien modus **operandietan** ez ezik hierarkien artean ere. **Edorta Jimenez**

Bandakideen modus **operandiaz** jabetuz zihoan Gabin pixkanaka. **Iñaki Iñurrieta**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**modus operandi** (8)

**modus operandia** (3)

## modutsu<sup>1</sup> *izond* hezibide onekoa edo gizabide egokikoa. ik moduzko.

Zentzurik ba al du, izan ere [...] neskatza **modutsu**, ongi hazi eta onbideko bat bezala, bere "osasun moral sendo bat" izateko asmoen arabera, portatzeko eskatzeak?

**Josu Zabaleta**

Ez ziren ausartzen konpainia **modutsuak** joaten zireneko taberna nagusietan agertzera. **Juan Garzia**

Desilusionatu egin zaitut, **modutsuagoa** izango nintzela espero zenuen. **Josu Zabaleta**

## modutsu<sup>2</sup>

**1 modutsuan** moduan gutxi gorabehera.

Gau oso bat esna egon ziren, orain dauden **modutsuan**, esan nahi eta ezinean. Jokin Muñoz

Horrela, oporretatik datorrenak esango lukeen **modutsuan** galdetu hion, sorbaldan txapaka egiten hiola. Jokin Muñoz

Halako urrutiramendu bat erakusten dugu sentimenduen eta emozioen aurrean, sentimenduen jarioak ahuldu egingo bagintu bezala, Drakularen hozkadak bere maitaleak ahultzen zituen **modutsuan**. Anjel Lertxundi

## 2 **modutsuko** modukoa gutxi garabehera.

Neska gazte bat zen hura, izenez Miren, berak argitu zidanez, eta adinez nire **modutsukoa**, neronek antzeman nionez. Patxi hura nire aitaren adin **modutsukoa** izan zitekeen. Xabier Mendiguren Elizegi

## **modutu**, modu(tu), modutzen du *ad* moldatu, egin.

Garai hartan, hara, ez nuen oraindik munduaren ideia zehatzik **modutu**, eta ez amodioa gobernatzen duten lege berezienik ere. Matías Múgica

Berehala hasi nintzen mendeku planak **modutzen**. Matías Múgica

Berak egiten zituen antolamendu politikoko planak eta konplikazio teknikorik gabeko lehergaiak **modutzeko** formulak. Matías Múgica

Eta lege horren izenean **modutzen** nuen nik nire juzgua, nire herio epaia. Matías Múgica

Aulkian esertzeko, aulkiko bizkaraldean bermatzeko, ibiltzeko, gauza bat hartzeko, lehengo tokian uzteko zuen modua, dena zeharo estudiatua zegoen, behin eta berrizko saioen ondoren **modutua**. Matías Múgica

## **moduzka**

### 1 **zer moduzka** “zer moduz” esaka.

Eseri egin ginen azkenean, oraindik ere agurka eta zer **moduzka**, eta halaxe segituko genuen puska batean, gazela-emea bera azaldu ez balitz. Xabier Mendiguren Elizegi

Zuk horrelakorik ere ez, ezagutzen zenituen bakanak bezperan ere ikusitakoak baitziren, eta ezin hasiko zinen zer **moduzka**, istant bat geroago ere Baleztenean aurkituko zenituen ezagun apurrekin. Hasier Etxeberria

## **moduzko 1 izond** modutsua, hezibide onekoa edo gizabide egokikoa.

-Goapoa eta pertsona ona bai, baina **moduzkoa**... Jon Muñoz

### 2 lotsa ona begiraten duena.

Tori, hona hemen emakume begiratu bati dagozkion jantzi **moduzkook**. Juan Garzia

### 3 prezio onean lortua.

Etxea Endreri esker konpondu genuen, oso mailegu **moduzkoa** lortu baitzigun. Ander Irizar

### 4 moduari dagokiona.

Baina orduan, haren zatikien ezberdintasuna ez da izatezkoa, **moduzkoa** baizik. Piarres Xarriton

### 5 **edozein moduzko izlag**

Ez zen edozein **moduzko** gaua: negua iluntzeetan hasten da, ezari-ezarian, udazkenaren epelaldiak birrintzen, eta horretarako hiruzpalau egunez behin-edo bidaltzen dituen haize beltz horietakoa zebilen, ulu eta buhada, bazter guztiak astintzen, eta hozten. Pako Aristi

### 6 *hala-moduzko* ik **modu 17**.

#### 7 **zer moduzko** (galderetan)

-Zer **moduzkoa** da? -galdetu zion Feynmanek Russelli, disimuluan Wittgensteinen aldera seinalatuz. Fernando Morillo

-Zer **moduzko** giroa dugu hor behean? Fernando Rey

Zer **moduzko** eguraldia dago? Juan Martin Elexpuru

Zer **moduzko** tipoa da zuzendaria? Migel Angel Mintegi

-Raimundo Silvak informazio osagarria nahi du, euria izateko arriskua ote dagoen, edo haizea badabilen, atzo bezala, eta zer **moduzko** temperatura daukagun. Jon Alonso

Zer **moduzko** otorduak egiten zituzten galdetu zion norbaitek. Koldo Izagirre

## **moduzkotasan** *iz* moduzkoa denaren nolakotasuna.

Jantzitakoan, bere seriotasuna eta tarteko adineko jendearen **moduzkotasuna** ahazturik, jauzi bi egin zituen gelan, zalutasun handiz orpoekin hankak leunki joz. Jose Morales

Gogaikarri zitzaizkion edonolako zatarkeriak eta **moduzkotasunaren** kontrako esapideak oro. Jose Morales

Petersburgeko dama askoren antzera, ohi ez bezalako sotiltasun eta **moduzkotasunez** mintzaten ziren. Jose Morales

Poltsa baten barruan hazia izanak, edo hezia behinik behin, poltsak heldulekuak izan edo ez, familia-bizitzaren ohiko **moduzkotasun** hori gutxiesten duela iruditzen zait. Antton Olano

Jainkoa bereziki bertuteen ariketan bilatzen du, hala nola apaltasunaren, eztitasunaren, **moduzkotasunaren**, etsimenduaren eta gizakiek landutako beste gauza askoren ariketetan. Joan Mari Lekuona

## moeta ik **mota**.

## **mofatu**, mofa(tu) mofatzen da *ad*

Agian neke handien ondoren errakuntza saihestu dezake, baina etengabe jarraiki eta **mofatzen** zaion itxura inoiz ezin du gutziz baztertu. Ibon Uribarri

## **mofeta 1** *iz* tamaina txikiko ugaztun haragijalea, babes premia nabaritzen duenean uzki guruinetatik likido kiratsa botatzen duena (*Mephitis mephitis*).

Etil merkaptanoa (**mofetak** duen substantzia kirastu bat) oso kontzentrazio txikian detektatzen da. Irene Aldasoro

Bi urte gutxiago biziko gara, aita -esan zion Norak aitari, **mofeta** bat hilez gero bizitza urte betez laburtzen omen dela gogoratutik. Anjel Lertxundi

Kalesak zapalduetako **mofetaren** kiratsa. Anjel Lertxundi

Hildako **mofeta** bati egotzi zion Nathanielek oka hasterainoko keru gaiztoa. Anjel Lertxundi



## 2 (hitz elkartuetan)

Urde-simaurra aspaldi hildako asta-barren ustelduetara botata ere ez zegoen berdintzerik **mofeta** -kirats hura. **Anjel Lertxundi**

mogimendu ik **mugimendu**.

mogittu ik **mugitu**.

mogitu ik **mugitu**.

## mogol (40 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean) izlag/iz mongola.

Historiako liburuek erakusten digute 1304. urtean India-ko Malwa rajaren Koh-i-noor diamantea [...] **mogol** garaileen eskuetara iritsi zela, Indiako erresuma zaharra bezalaxe.

**J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Sha Jahaneke, **mogol** guztien enperadoreak. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Delhi zahar horretan bilatu behar dugu Shajahanabad, Sha Jahan **Mogol** Handiak sortu eta eraikitako "bere" herria. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

## mohel iz judu erlijioan, erdaintzua egiten duen pertsona.

Prepuzioak moztzen dituen tipoa da **mohel** hori, goi-mailako zeregina da Moisesen erlijioan. **Karlos Zabala**

Ez zen haserretu, ohitua zegoela esan zidan, barrendik ondo bustia ibiltzen zela beti buztan-mokoa moztu zion **mohel** hura eta bere jaioterrian, han New Jersey, hamaika juduk zutela horrelako txilibitu okertxo alaia **mohel** haren zirkuntzizio lan eskasa zela-eta. **Karlos Zabala**

Aferreko kultura nirea, inork ere ez daki zer den **mohel** bat; parranda, izan ere, tresna handia da kultur hartu-emanetarako. **Karlos Zabala**

## mohikano izond/iz Hudsonoko ibarrean bizi zen herri amerindikokoa. • irud/hed (desagertzeaz dagoena adierazteko)

Orain pentsatzen nabil beste karreraren baten matrikulatzea eta nota onei esker sartutako estudiante ikastun aldren artean eskola zaharreko **mohikanoren** bat bilatzen saiatzea, beste proiektu interesgarri bat baitaukat buruan. **Jon Arretxe**

Inixio euskarazko tipo **mohikano** elezakar bat da, eta itota bizi da hainbeste idiota elebaker eta elebidun izeneko belarrimotzekin. **Iñaki Segurola**

«Sakelako telefonorik ez dut izango», esaten zuen, atzo arte, Madaleneke, teknofobiaren azken **mohikanoak**. **Berria - Gaiak**

Desagertzeaz den kultura baten azken **mohikanoa**. **Berria - Kultura**

Azkenean topatu egin zuen, guztiz zimurtuta, ahaztutako kremaileradun poltsiko batean, paketeko azken **mohikanoa**. **Sonia Gonzalez**

## moila (orobat molla g.er.) 1 iz kaia.

Manhattango **moila** aurreko ur koipetsuetan. **Harkaitz Cano**

Borroka haren azpian José Luis Díez destruktore handia zegoen, [...] handik egundo aldendu gabea, **moilaren** saiheitsari itsatsita lotan egiten zuelako gerra. **Jokin Urain**

Ontzia **moilara** hurreratzeko ahaleginean. **Edorta Jimenez**

Beste aldeko **moilan** deskargatzen ari ziren bela-ontzi handi zuria. **Irene Aldasoro**

Burdina zirinez gorritutako **moilak**. **Josu Landa**

Mareajerako trepetan guztiak prestatzen ari gintuan **moila** berriari ontzi holandarrek hondoa jo zuenean bokalean. Maliobra dotorea egin zuen **moila** trasatlantikoan atrakatzeko. **Koldo Izagirre**

**Moila** gainean konpontzeko egoten ziren sareen artean. **Koldo Izagirre**

**Moilan** sareak josten dituen emakume hori maitagarria da ala? **Joseba Sarrionandia**

Ihesean, **moilaren** bururaino joan ginen. **Joseba Sarrionandia**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Aita! -oihu egin zion Norak **moila** -koskatik pare bat pausora, beldurra ematen baitzion uretzeraino hurbiltzeak. **Anjel Lertxundi**

Eraikuntza luze erraldoiak daude, itsasoan eskuzabal sartzen den **moila** -adar baten gainean. **Anjel Lertxundi**

Donostiako portua **moilari** -muturren mataza bitxia da. **Koldo Izagirre**

Haize-firfira batek harrotu zituen **moila** -ertzeko hautsak, eta haiek airean egindako zirimolei begira egon zen Nora denbora pixka batez. **Anjel Lertxundi**

Kalesak **moila** -parte handi bat egin zuen trosta arinean, harik eta Pequod izeneko belaontzi handi baten parera heldu zen arte. **Anjel Lertxundi**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horri irtenbidea emateko, babes **moila** ikaragarria egin nahi dute. **Berria - Euskal Herria**

Kanpoko babes **moila** berria eraikitzea proposatzen dugubaina orientazio egokiarekin, hots, ekialdera begira. **Berria - Euskal Herria**

## 4 moila punta (orobat moilapunta)

Sabeth **moila** -puntan oraindik, oraingoan zutik, gure alaba hila, eta kantuan ari, eskuak berriro galtzen patriketan sarturik, munduan bera bakarrik dagoelakoan nonbait, eta gogotik kantari, ezin entzuzeko kantuan, ordea. **Joxe Austin Arrieta**

Pasa al da denbora, pasa al dira urteak ala oraindik bera igandeetan zurekin **moila** -puntara joaten zen hura ote da. **Lourdes Oñederra**

Ez zinen bere Teresa, karrera garaiko bakazioetako Teresa, [...] berarekin **moilapuntara** munduaren martxa komentatuz joaten zen Teresa hura. **Lourdes Oñederra**

moilapunta ik **moila** 3.

## moilari iz moilako karela.

llara estu bat egin zenuten **moilariaren** ertzean. **Koldo Izagirre**

Kardala baretzeko neu nago **moilari** . **Berria - Kultura**

# moilatu, moila, moilatzen (*orobat moilatu*) du *ad* ainguratu, aingura egotzi.

Erriaoan **moilaturik** ziren gudontzei begiratu nien. [Edorta Jimenez](#)

Zerbait hartzeko asmotan Neva ibaian **moilaturik** dagoen itsasontzi batean eseri gara. [Edorta Jimenez](#)

Plimrose ontzi ingelesa [...] Portugalete hiriaren aurrean **moilaturik** dago, Londresen ehun eta berrogeita hemeretzi tonarekin zamatu eta Mantxako bidea gururaino egin ostean. [Edorta Jimenez](#)

Ekaitzak Cascais aldean **moilaturik** egotera behartu gintuen egunetan. [Edorta Jimenez](#)

## moilatxo *iz* moila txikia.

Zangozan bi polizia hiltzen dituztelarik, Intxaurren azken atxilotua torturatzen ari direlarik, ez da Aizpuruaren eta Labaien klubontziaren osteko **moilatxoan** gazterik marrazten, biluzten, oinez, musuka, gezurmendian? [Iñigo Aranbarri](#)

## moimendu ik mugimendu.

## moittu ik mugitu.

## moitu ik mugitu.

## moja (*orobat monja g.er.*) 1 *iz* erlijio ordena batean profesia egin duen emakumea. **ikserora; lekaime.**

Txinako Gobernuak bost erlijioso tibetar espetxeratu zituen atzo (hiru **moja** eta abade bat). [Berria - Kirola](#)

**Mojatarako** ibilia, komentutik atera eta komuna begetariano batean bizi izan zen bizpahiru urtez. [Anjel Lertxundi](#)

Gero, erregina **moja** egin zela ikusirik, Lancelotek ermitau bihurtzea erabaki zuen, bere damaren bideari jarraitzeko. [Juan Kruz Igerabide](#)

Neskek **moja** bihurtzean hiru boto eman behar dituzte: pobrezia, kastitatea eta obedientzia. [Berria - Euskal Herria](#)

Nire alabaren gutunak soil-soilik zioen **moja** sartzeko zuen bokazioari gogor eginen niolako beldurra izan zuela. [Jon Muñoz](#)

Abadesaren bedeinkepenerako edo ahizparen bat **moja** sagartzeko edo beste zerbaitetarako. [Askoren artean](#)

Gero, komunista eta sozialistek elizak erre, apaizak eta **mojak** giltzapetu, eta errukirik gabe hil zituzten tiroka. [Rafa Egiguren](#)

Bortxatu duten **moja** gazte baten kasua erredentziarako bidea izango du. [Berria - Harian](#)

Aitak eta amak, Txilen, Atakamako basamortuan dagoen izeba **mojari** bidali zioten liburua. [Joxean Sagartzizabal](#)

**Mojen** eskoletatik denak iriteten gara putak edo eroak, edo biak batera. [Sonia Gonzalez](#)

Ezin zuen jasan udalekuaren ardura zuten **mojen** diziplina itsua. [Iban Zaldia](#)

Neska ezin hobeto omen zegoen **mojen** egoitzan. [Joxemari Iturralde](#)

Aire tentetxo bat, xotil, elizkoi eta menekoegia, Erruki Etxeko **mojena** bezalakoa. [Josu Zabaleta](#)

## 2 (izenondoekin)

1439. urtean **moja** eskaleen etxe bat sortu zen Durangoan. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

**Moja** domingotar batek abesten zuen. [Joseba Urteaga](#)

**moja** karmeldar zahararen hitza egiaztatzerik izan ez nuelako. [Joxan Elozegi](#)

Bere erregelaren arabera bizi nahi zuten **moja** klarisen komentuak zabalitzen zihoazen ordurako. [Pello Zabala](#)

**Moja** klaratarrek egindako pastak. [Berria - Kultura](#)

Ehunka eta ehunka fraide eta **moja** misiolarik. [Iñigo Aranbarri](#)

Argitara ematen da Inozentzio IV.ak "San Damiango Ordenako **moja** itxientzat" emandako erregela. [Askoren artean](#)

Mintzatokira pasarazi zuten, eta han Katalina eta **moja** lodi bat, ama nagusia, topatu zituen. [Koro Navarro](#)

**Moja** zuzendariaren izena. [Joseba Urteaga](#)

Ama Bihotzekoan, sor Clotilde **moja** superiorari, autoa desegin zioten. [Berria - Kultura](#)

Bera komentuan sartu, eta han eduki nahi zutela **moja** txatxu haiek hemezortzi urte betetzen zituen arte. [Inazio Mujika Iraola](#)

Gero ikusi genuenez, batere inbidiarik ez zien Frantziako XVIII. mendeko **moja** haragi-gose haiei. [Karlos Zabala](#)

", esan ohi du, "hemengoak **moja** hutsak dituk!". [Jokin Muñoz](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskola, **moja**-ikastetxe bat amak hala nahi zuelako, unibertso izugarri bat zen berarentzat. [Joseba Urteaga](#)

**Moja** eskolan idatzitako eguneroko baten itxura du horrek.Leku bitxi batean: batetik Londresko **moja** komentua izan zitekeena, baina Brasilgo hondartza eskerga baten erdian kokatua bestetik. [Karlos Zabala](#)

Armadak kaporalak eta **moja** andanak ageri ziren aza mendien inguruan. [Karlos Zabala](#)

**Moja** plantak egin, eta errazagoa zitzaion nahi zuena egitea. [Anjel Lertxundi](#)

Baina berak aspalditik zuen, aurpegieran, jokatzeko moduan, elizako posturan, edo etxean, **moja** airea. [Josu Zabaleta](#)

Apenas ukitzen ninduen; bere eskuak, **moja** esku potoloak, ez ziren nire gorputzarekin jolasten. [Ramon Saizarbitoria](#)

Fernandok beti esaten du sister Gracek bete ziola bere fantasiarik handiena, egun batean, biluz-biluzik baina **moja**-burukoa kendu gabe, fellatio zoragarri bat egin zionean. [Karlos Zabala](#)

## 4 eskeko moja

Eskeko **mojak** edo "beatak" bigarren mailako erlijio-emakumeak ziren: ez zuten doterik behar, ez baitziren ohizko lekaime-etxeetara joaten, eta erlijioak emandako pozetatik eta eskean bildutako partziletatik bizi ohi ziren. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Alde batetik, norbaiten ohaide bihurtzea; bestetik, eskeko **moja** sartzea. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

## 5 moja etxe (*orobat mojetxe g.er.*)

Angelak, **moja**-etxetik atera berri, mundura orduantxe sartua beraz, Jainkoarenganako maitasunetik gizonenganakora irristatu zen emakumeak. [Felipe Juaristi](#)

Ez zitzaien Juvenalia oztopo, Ariannak, amaorde-agintea baliaturik, Varsoviako **moja-etxean** betiko uzteko asmoa baitzuen. [Felipe Juaristi](#)

Batxilerra Donostiako **mojetxe** batean ikasten ari zela. [Joan Mari Irigoien](#)

## 6 moja-hiltzaile (*corpusean mojahiltzaile soilik*) *izond* mojak hiltzen dituena.

Moja bat hil eta **mojahiltzaile** bihurtuko zaituzte. [Harkaitz Cano](#)

## mojaburu *(orobat moja-buru eta monjaburu g.er)* iz moja komentu bateko burua.

Urtero laranja bi soilik -bata komentuko **moja-buruarentzat** eta bestea herriko abadearentzat- ematen zituen Granadako kalifa bati lapurtutako laranjaondoarena. **Anjel Lertxundi**

**Mojaburuak** mezutzen zidan ezen neska gazte bat bakarrik heltzen ikusirik, uko egin ziola hasieran hura han hartzeari. **Jon Muñoz**

Bi oren inguru barru, galdegin zuen ea egoiliar garaian erabili zuen gela hutsik zen, eta baietz erantzun ziotelarik, **mojaburuak** eta bertze moja batzuek gelara lagun egin zioten. **Jon Muñoz**

## mojagai iz moja izateko prestatzen ari den emakumea. ik **seroragai**.

Hartu nuen komentuan gelditzeraz hari uzteko xedea, baina egon gabe oraino, hark galdatzen zuen bezala, **mojagaien** mailan. **Jon Muñoz**

Nire alabak bihar hartuko ditu **mojagai** jantziak. **Jon Muñoz**

## mohahiltzaile ik **moja 6**.

## mojakume iz *adkor* mojagaia.

-Beno, moja-moja ere ez... **mojakumea** ... -esan zuen Karmenek, lau begi beregan iltzaturik ikusi eta. **Inazio Mujika Iraola**

Klaustroan lasterka milizianoen atzetik bi **mojakume** gazteak zihoazela, [...]. **Inazio Mujika Iraola**

-Charlyren erranetan, auzoetako neskak "ipurberoagoak" eta "errazagoak" ziren, gu hazi gintuen Zabalguneko **mojakume** motz-estuak baino. **Aingeru Epaltza**

## mojatxo iz *adkor* moja.

Historia hori aitak kontatu dik, Belgikatik zehar itzuli ginela, bi gau geratu ginela komentu batean, bortxatuko genituen beldurrik ere ez zuten **mojatxo** batzuekin! **Josu Zabaleta**

Erruki-etxeko **mojatxo** baten laguntzaz. **Patxi Iturritegi**

## mojetxe ik **moja 5**.

## mojito iz ronez, azukrez eta mendafinez prestatzen den koktela.

Ez zitzaidan batere kostatu Hemingway hantxe bertan irudikatzea, **mojitoak** edaten eta argazkietarako jarria itsasoan harrapatzen zituen ezpata arrain handiak eskuetan.

Hatsa hartu zenuen hobeki, eta oxigeno berriaz baliatuz, beste **'mojito'** bat eskatu zenuen. **Jon Muñoz**

Gero **mojito** -gauak antolatzen ibili ginen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## mokadu *(orobat mokau g.er)* 1 iz ahoan aldi bakoitzean sartzen den janari zatia edo janari kopurua. ikahamen; otamen.

Zizka-mizkak jan zituzten hurrena, hau da, jaki gazituak eta bestelako **mokadu** bizigarriak. **Jose Morales**

Bai jaki gozoak, oso **mokadu** finak! **Jose Morales**

Saltzaileentzako oso **mokadu** fina da Idiazabal gazta, eta euliak bezala hasi dira hurbiltzen. **Berria - Ekonomia**

Kalabazako tartaren azken **mokaduak** urrezko erretiluetatik desagertu zirenean. **Iñaki Mendiguren**

Dastatu ditu **mokaduak** edozelan ere, berehala txorizo egosira eta tortillatara itzuli aurretik. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Gogoko diat jende onarekin tea hartzea edo **mokadu** bat jatea. **Jose Morales**

**-Mokadu** bat jatera joango gara? **Koldo Biguri**

Ordu ona **mokadu** bat jateko, neketsua gerta zitekeen gauari aurre eman baino lehen. **Migel Angel Mintegi**

**Mokadu** bana hartu eta zurrutada edan ondoren, sakana igotzeari ekin zioten berriro. **Agustin Otsoa**

-Hator lehenago **mokadu** bat hartzera. **Juan Garzia**

Etxean zein etxetik kanpo, kontua gehienetan ez omen baita atseginaz gozatzea, **mokadu** bat egin eta ziztu bizian mahaitik jaikitzea baizik. **Edorta Agirre**

Ahoratua zuen **mokadua**. **Patxi Zubizarreta**

**Mokadua** atzera platerean utzi eta paragrafoa irakurri zuen arretaz. **Irene Aldasoro**

**Mokadu** bat astiro murtxikatzen ari zen. **Lopez de Arana**

**Mokadu** bakarreko anoetan. **Edorta Agirre**

**Mokadu** batekin gauzak beste modu batera ikusten dira eta. **Patxi Iturritegi**

### 2 irud/hed -

Ordurako jendea hegaz egiteko makinetan ibiliko duk, eta gu biok harrentzako **mokadu** goxoak besterik ez gaituk izango. **Lopez de Arana**

**Mokadu** gozoa dira orubeak. **Berria - Harian**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gosearen zimikoa bi ogi-**mokadu** eta zazpi arbiz eta egarria bihotzeko pozez baretu zuten, edo, hobeki esan, bizkortu. **Askoren artean**

Arrats batean, zezina- eta aza-**mokadu** bat ahora eramatera zihoala, esku gelditu zitzaion. iluntzeko otordua baliatzen du etxeko goxotasunean eta emazteak gustu onez prestaturiko afari **mokadua** egiteko. **Irene Aldasoro**

Ogia kubo txikitzen zatitzen zuen eta plater ondoan uzten zituen gazta eta hestebete-**mokaduei** laguntzeko eta saltsan bustitzeko. **Joseba Urteaga**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mokadu bat hartu** (3); **mokadu bat jan** (3); **mokadu bat jatea** (3); **mokadu bat jaten** (3); **mokadu bat jatera** (5)

**mokadurik jan** (3); **mokadurik probatu** (5)

**mokaduka** *adlag* ahamenka.

**Mokaduka** probatzea atsegin du, pozean, baina ase denean koilara puntarekin dastatzen du puska bakoitza, patxada harrigarri. **Alberto Barandiaren**

**mokadutxo** (*orobat mokautxo g.er.*) iz mokadu txikia.

Asko estimatuko niake **mokadutxoren** bat jaten utziko bahit. **Antton Olano**

Gizarte onean ohitura izaten duk bostetan **mokadutxoren** bat hartzea, oker ez banago. **Antton Olano**

**Mokadutxo** bat ere ahoratu gabe. **Patxi Ezkiaga**

11:00etan, **mokadutxoa** egiteko garaian, lantoki barruan ezin, eta askok Miltxa tabernara egin zuten osteratxoa. **Berria - Euskal Herria**

**mokanes** iz musuzapia, mukizapia; lepoko zapia.

Amak, bere aldetik, begiak xukatu zituen **mokanes** batekin, eta sukaldera buruz abiatu ginen, isiltasun handienean. **Daniel Landart**

Funtzionarioak kopeta noiznahi xukatzen zuen **mokanesaz**. **Elena Touyrou**

**Mokanesa** hartu eta begi-izkinan loratu malko-muskila idortu zuen. **Itxaro Borda**

**Mokanesa** sakelatik atera zuen eta polliki-polliki ezpain-xokoak xukatu zituen. **Daniel Landart**

Buruavaboaren gainean atxikiz, neskak prestatu **mokanes** garbi batekin sudurra tapatu zuen. **Ramuntxo Etxeberri**

**Mokanes** arrosa-xuri batekin zapatzen zituen sudur-ezpainak. **Daniel Landart**

-Ba, aitak hiltzear zegoen sugea, **mokanes** brodatuan bildurik, etxera ekarri zuen. **Itxaro Borda**

Lepoko **mokanesa** bizkarretik zintzilik zuen paltoko sakelan sartu zuen. **Elena Touyrou**

Dantzan ari da, etxe batetik ozen den musika moro bezalako bat segituz, **mokanes** handi bat itzulika erabiliz buru gainetik eta sorbalden itzulian, denbora berean. **Piarres Aintziart**

Egun batzuetan, haren belarritako gustukoena eta haren **mokanesetako** bat jantzi nituen. kantu herrikoiak **mokanes** gorria lepoan, anitzek besta ezin hobeki hor berean bururatuko dute. **Joxan Elozegi**

Bi frantses bahituak dira eta idazten dudan mementoan hilen dituztela jakinarazten dute Frantziak ez balinbadu islamiar **mokanes** legea desegiten. **Herria**

Horrelako enpresek langileak «paperezko **mokanesak**» bezala erabiltzen dituztela deitoratu zuten. **Berria - Ekonomia**

**mokasin 1** iz zapata arin eta malgua, lokarririk gabekoa.

Eta berak **mokasinak** janzen zituen, eta gelako saskibaloi taldeko kapitaina zen. **Lander Garro**

Sendagile honek **mokasinak** zekartzan. **Koro Navarro**

Shepherdek larruzko arropa marroixkak eta **mokasinak** daramatza soinean. **Berria - Mundua**

**Mokasinei** distira ateratzen ari delarik, bere amak zapatak lustratzeko zuen era harekin gogoratu da. **Harkaitz Cano**

René zuberotarra, [...] "Pataugas" bortzegiak eta "Iowa" **mokasinak** sortuko zituen. **Pablo Sastre**

**2** (hitz elkartuetan)

Oinetakoen amairuan, arreta handiz aukeratu zuen txarolezko **mokasin** pare, dolu-egunetan janzen diren horietakoa. **Jon Muñoz**

-Lubakiko ura igotzen ari zela aditzen zuten kutxen barruko gizonek, eta ur **mokasinekin** erno zeuden. **Anton Garikano**

mokau ik **mokadu**.

mokautxo ik **mokadutxo**.

**moketa 1** iz ehun sendoa, gainaldea belus itxurakoa duena, eta lurrak eta paretak estaltzeko erabiltzen dena.

Besaulki bigunak, **moketa** lodiak. **Jon Muñoz**

Zorua kolore argiko **moketa** batek estaltzen zuen. **Aingeru Epaltza**

Paretak berinezkoak, **moketa** grisezko pasabide luze luzeak... **Ramuntxo Etxeberri**

Bezperako egunkariak sakabanaturik daude **moketa** gainean, eta diseinuzko paperontzia publizitatez eta garagardo latatz beteta. **Patxi Iturritegi**

**Moketa** higatuaren gainean sakabanaturik geldituko zen dena ordea. **Patxi Iturritegi**

Muturrekoak baino areago, **moketaren** zapore minak lurrindu zidan liluramendua. **Aingeru Epaltza**

Ile kizkurra inoiz baino laburrago eta ilunago, burezurra egur-ikatzeko **moketaz** tapizatu ote zeukan esan zitekeen. **Jon Muñoz**

**2** irud/hed

Ni ez nauk **moketak** zapaltzeko jai. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**3** (hitz elkartuetan)

Logelaren erdian zegoen **moketa** zati batean aritzen ginen: uharte hura zen borroka eremua. **Iban Zaldúa**

-Haietako bat, itsua, belus-**moketa** ikusgarriarekin estropezu eginda, han joan zitzaigun eskailera pikoan behera. **Karlos Linazasoro**

**moketadun** *izlag* moketa duena.

**Moketadun** etxeak saihestu, alfonbrarik ez etxeetan. **Harkaitz Cano**

Eta hogeitaka urte igaro ondoren desobediencia teoria deskubritu zuten **moketadun** bulegoetako iraultzaile abertzale batzuek. **Jokin Urain**

**moketatu**, moketa(tu), moketatzen du *ad* moketaz estali.

Institutu berria zenez, landareak zituen administrazioa eta irakasleen mintegiak zeuden aldean, eta harea-kolorez **moketaturiko** liburutegi bat. **Joseba Urteaga**

**moko 1** iz hegaztien aho gogor eta irtena, bi masail hezurak estaltzen dituen adarkizko gai batez osatua, jateko eta babesteko edo erasotzeko erabiltzen dutena.



## 17 ume-moko ik umemoko.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**moko fin** (5); **moko luze** (4); **ume moko** (11); **ume moko bat** (3)

**klitoriaren moko** (3); **mokoa ireki** (4); **ume moko** (6); **urteko ume moko** (3)

**mokoak irekitzen** (3)

**zakilaren mokoan** (3)

## mokodun *izond* moko duena.

Atelier mekanikoei zinkeko pegar berezia, marmita **mokodun** antzekoa eginarazi zien, karga gutikoa. **Koldo Izagirre**

Sukaldeko sua (jatorduetatik kanpo) eztairu kloruroa sei litroko beirontzi **mokodun** zein torroiletan kontzentratzeko baliatzen zen. **Juan Garzia**

*izlag* **Mokodun** txano luze bat janzen zuen, gutxienez bi edo hiru hatz begien gainera sakatua, pantailatzat baliatzen baitzuen hura begiak argitit babesteko. **Juan Garzia**

## mokofin (*orobat moko-fin; Euskaltzaindiaren Hiztegian mokofin agertzen da*) 1 *izond/iz* janari onen oso zale dena.

Lanean ebaki eskumuturra erakutsiz, emazte **moko fin** bat erasiaz zinpurtu zen: [...]. **Itxaro Borda**

Euskal sukaldaritza berriak ederki asmatu izan du, oro har, antzinako errezetak gaur egungo jale **mokofinen** premietara egokitzen. **Joxerra Garzia**

Hurrena Bobo, ez hain jatuna baina **mokofinagoa**. **Bernardo Atxaga**

Han ogitarteko mistoak ematen dituzte, bera baino **mokofinago** direnentzat ere onak direnak. **Jon Alonso**

-Ez nuen uste hain **mokofina** zinenik, Pantxike... **Joan Mari Irigoien**

Maite ditu emazteak, maite ere jaki onak, **moko fina** baita. **Herria**

## 2 irud/hed

Babarunari bezala, beste lekari askori egiten zaio samua (baita oteari ere, adibidez), eta ez bakarrik lekariari: badira, esaterako, hurraren samua bezalako **mokofinak** ere.

**J.M. Olaizola "Txiliku"**

Arrain **mokofinek** erdeinatu egiten dituzte. **Itziar Otegi**

## mokohandi ik moko 11.

## mokoka 1 *adlag* moko kolpeka.

Oilo batzuk ahotzean **mokoka**. **Koldo Izagirre**

Oiloak [...] tupustean hegala astinduz eta patiora irteten ziren, laster bizian **mokoka**, euriak lurpetik ateratako zizareak harrapatuz. **Juan Garzia**

Txoriek **mokoka** jango dizute haragia. **Jose Antonio Mujika**

Hor goian hegan bazebiltzak bi; begira, elkarri **mokoka**, aireko oiloak balira bezala. **Koro Navarro**

Ispluan irudia ikusi zuelarik, txoria **mokoka** hasi zitzaion, hegoak astinduz. **Juan Kruz Igerabide**

-Aurrena gizendu, eta gero **mokoka** ekin nahi diok? **Juan Kruz Igerabide**

Ahatetxoak oso berritsuak ziren eta aita beltzargak **mokoka** hil zituen. **Josu Zabaleta**

## 2 pertonez mintzatuz, eztabaida bizian.

Eztabaidan aritu zitzaizkidan, hau eta bestea argudiatuz, **mokoka**, baina ez nien inolako aitzakiarik onartu, ez oraingoan. **Mirentxu Larrañaga**

**Mokoka** eta kalapitan. **Herria**

Andre Venanciaren alaba zintzarririk gabeko behi bat zen, nagia, mozkorra, bizitza gutzia inguruko atsoekin **mokoka** ematen zuena. **Josu Zabaleta**

Gerra eta izugarrikerien artean, Parlamentuan ere **mokoka** hasi ziren elkarren artean eta Cromwellek [...] diktadura militarra inposatu zuen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Eta, gertuago, politikariak elkarri **mokoka**, demokrazia hitza etengabe eta neurrigabe erabiliz, baina herriaren iritzia ezagutzeko beldurrez. **Migel Angel Mintegi**

Orain **mokoka** dituzu kobrezko bi txanpon direla eta, eta orain taberna zuloan edanean diruzorroa hustu arte. **Karlos Zabala**

Egun osoan izan zuen garondan zerbait **mokoka**. **Iñaki Mendiguren**

Adiskidantza eta politika: toka eta noka eta gero **mokoka**. **Herria**

## 3 (izen gisa)

Usoak ere nekez ari ziren egun berrira esnatzen, eta Chavarriren estatuaren inguruko lorategietan zebiltzan ibilaldi urdurian han eta hemen **mokoka** nagian. **Josu Landa**

Hortaz ere izan da **mokoka** eta kalapita! **Herria**

## 4 mokoka egin

Batzuetan hurbildu eta belarrian **mokoka** egiten zion. **Iñaki Mendiguren**

Harry saiatu zen hontza uxatzen, baina hegaztiak **mokoka** egiteko mehatxua egin eta berokiari erasotzen jarraitu zuen. **Iñaki Mendiguren**

Beleak bakarrik zebiltzan, taldeka, [...] denak batera alor zurbiletara jaisten eta beren moko handiez elurrari **mokoka** eginez. **Josu Zabaleta**

## 5 mokoka-mokoka adlag

Goizeko zazpiak eta laudenerako, hiru behatz bai, erantsi dizkiote beren habia lurrezkoari, **mokoka-mokoka** buztin bustia garraiatu eta han mokotxoarekin jo-ta-jo, ondo itsatsi arte. **Pello Zabala**

## mokokada 1 *iz* moko kolpea.

Baina **mokokada** izugarri batek buruan jo eta Serko hilik erori da lurrera. **Karlos Zabala**

Kanarioak **mokokadak** ia gogorik gabe ematen zizkion letxuga beltzuarri. **Joseba Sarrionandia**

Zikoinak putzu handi batetik hartu hinduen, amaren ohean utzi hinduen, eta amari **mokokada** bat eman eta hanka odoletan utzi zioan; astebete egin behar izan zian ohean horregatik. **Josu Zabaleta**

Eskularru sendoak dituenek, **mokokaden** beldurrik gabe, pinguinoak buztanetik oratu eta baztertuko ditu. **Joseba Sarrionandia**

Lorua **mokokada** gogorrez defendatzen zen. **Jon Muñoz**

## 2 irud/hed

Saileko buruak, Saito jaunak, jo zuen lehen **mokokada**: [...]. **Joxan Eloseg**

## mokoldadi iz adkor liskarraldia.

Gure arteko **mokokaldiak** gorabehera, nik maite nuen nire arreba, eta hark maite ninduen ni. **Jon Muñoz**

Orain agertuz gero, ez zen hain zaila izan harekin bakezkoak egitea eta arestiko **mokokaldi** telefonikoa laido barkatu baina ez atzanduen zakura bidaltzea. **Aingeru Epaltza**

**Mokokaldi** labor baten ondoren, presa guztian alde egin zuen Holohan jaunak, tikili-takala. **Irene Aldasoro**

Bainan zendako hoinbeste **mokokaldi** beren arteko bilkuretan? **Herria**

Bilkura berean, **mokokaldi** ederra izan da Didier Borotra auzapeza eta Patrick Destizon aspaldixkoan arrunt auzapezaren kontra oldartzen den hautetsiaren artean. **Herria**

## mokokari izond liskargilea.

Ostatuari hurbilago eta **mokokari** gehiago, jendea ere tinkeago. **Eneko Bidegain**

## mokokatu, mokoka(tu), mokokatzen 1 du ad mokoka egin.

Oiloak ospa egiten dik, baina oilarrak **mokokatzeari** ekin zioz poz-pozik... **Xabier Paya**

Mendi honen bidexka zenbait ezagunak zaizkit, xori batzuk ere naski: gaur ogi porroska **mokokatzer**a jin den izenik gabeko tarro horrek atzo eta herenegun ase eder bat eginik joana zatekeen. **Piarres Aintziart**

Eta txoriak ibiliko dira hegaka zakil horien inguruan eta **mokokatuko** dituzte eta odoletan jarriko. Hontzak belarria **mokokatu** zion maitekiro, eta hori askoz opari hobea izan zen mokoan ekarritakoa baino, erregalua Dursleytarrena baitzen. **Monika Etxebarria**

### 2 irud/hed

Senar-emazteek **mokokatu** egiten dute elkar. **Itziar Otegi**

Nere aitak **mokokatuko** nau berandu baldin banaiz! **Ramuntxo Etxeberri**

### • 3 da ad eztabaidan, liskarrean aritu.

Gizonak ez deusen gainetik **mokokatuak** omen ziren zorbait oren lehentxago. **Herria**

Hitz eman nion: "ez gaitun Alvaro dela-eta gehiago **mokokatuko**". **Aingeru Epaltza**

Ez nintzela gomuta txarreko etxe hartara **mokokatzer**a etorri, jakitera baizik. **Aingeru Epaltza**

## mokolo izond tentela, memeloa.

Edo pixontzia zela, edo **mokoloa**, edo mukizua. **Juan Kruz Igerabide**

Voltaire-k ez du inola onartzen beltz **mokolo** burugabeak edo eskimo tutuluak eta Europako arraza zuria espezie berekoak izan daitezkeenik. **Askoren artean**

## mokolodi iz

Txantxangorriak *ttattarraaaaaaatta-ttat*; buztanikarak *bibitsi-bibitsi*; gerritxoriak *tsii-tsii-szzi-szzi*; gerritxori ilunak *tiit-tiit-tiiteroitt*; tximutx kaxkabeltxak *pititxui-pititxui* ("eta asarre danean *txik-edidi-txik-edid!*"); **mokolodiak** *txip-txip-txii eta tik-tik-toer-iuui-iuui* ("maite billa dabillean bakarrik"). **Iñaki Segurola**

## mokoluze ik moko 12.

## mokomotz ik moko 13.

## mokor<sup>1</sup> (orobat mukur g.er.) 1 iz aldaka, ipurtaldea.

Sabel laua, gerri ondo nabarmendua, **mokor** biribilak, belaun politak. **Juan Martin Elexpuru**

Berehala agindu nion bera ere biluzteko, eta nik bitartean **mokorrak** kulunkatzen nituen, atzeko eserlekuan zutik. **Karlos Zabala**

Buelta hartu eta bainugelako aterantz zuzendu zen; haren **mokor** kulunkariet eta haren gerriaren liraintasunak liluratuta laga ninduten. **Juan Martin Elexpuru**

**Mokorre**i atzetik aurrera eragiten hasi zen, eta nik haren pubisa somatzen nuen nireganantz apuntatzen. **Juan Martin Elexpuru**

Nahi gabe, **mokorre**i eragiten hasi naiz, baina ipurmasailetatik ongi oratuta nauka. **Juan Martin Elexpuru**

Eskuak **mokorretan** jarrita, aurrea bati eta gero besteari begiratu. **Iñaki Mendiguren**

Eskuak **mokorretan** jarri nizkion, eta hura, alde aurretik planeatu izan bagenu bezala, aurpegian eseri zitzaidan, bai sentsazio paregabea, deusek ere ezin du ordezkatu! **Karlos Zabala**

Hala ere... begira, hire arreba horrek, **mokor** zabaleko behor horrek gozotzen banaik, ba... akaso atzeratu egin genezakek hau guztia. **Paddy Rekalde**

### 2 (hitz elkartuetan)

Bere gainean jarri naiz kokoriko, eta zaldikatzen hasi natzaio, jaisten naizen bakoitzean, **mokor**-kolpe indartsu batez aireratzen nau berriro, baina bere zakilak nire baitan jarraitzen du mirakuloski. **Juan Martin Elexpuru**

· Arkume osoak ere baziren han, eta idi laurdenak, txahal **mokorrak**, besaburu aldeak. **Karlos Zabala**

Elkartasun-opariko aberetik, Jaunari honako hauek aurkeztuko zaizkio, beraren ohorez erretzeko opari gisa: buztan osoa ipur-**mokorretik** ebakia, heste inguru eta gaineko gantza. **Elizen arteko biblia**

### 3 lur zati txiki eta trinkoa; egur zati sendoa; zati trinkoa.

**Mokorrak** desegiten. **Patxi Ezkiaga**

Aita ikusten du soroa ildoz ildo oinkatzen, **mokorrez mokor** zapaltzen, eskuarez bezala berdintzen, sasiak, zuhaixkak, karduak eskopetaz jotzen. **Itziar Otegi**

-Eguberriz, sua **mokorrez**, Pazkoz, xistapurrez. **Pello Zabala**

Arakilen, Gabon gaueko Jainkoaren egurra deritzan **mukur** zati bat gordetzen zuten San Anton egunerako. **Pello Zabala**

Etxeko giltzain zaharrak azukrea **mokor** dizdizarietan zaititzen duenean leiho irekiaren aurrean. **Jose Morales**

Baziren bestalde *bluiak* deitzen ziren halako kokor edo **mokor** batzu. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Mandoa, aterpe aitzineko arbola bati estekaturik, eman dioten belar **mokorra** jaten ari da. **Piarres Aintziart**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lur **mokor** belardunak ezarri zituen gordagiaren presentzia ezabatzeko. **Itxaro Borda**

Funtsean, harritu egiten nau mota horretako tasunak atxiki ahal izateak, lur **mokor** bati edo harri puska bati polita edo ederra esateak bezala. erreka txar batzuk zirrirmarraka

ari lur **mokor** goroldioz estalien artean. [Monika Etxebarria](#)  
Behean, harri **mokor** batzuen gibelean gorde zarete. [Xabier Montoia](#)  
Harri **mokor** itsusi zahar bat. [Txillardegi](#)  
Galtzadarr-**mokorre**z eraikitako harresiak. [Txillardegi](#)  
Zuhaitz **mokor** osoa iruditzen zitzaidan orain beretik pittin bat kanporantz zebilela. [Monika Etxebarria](#)

## 5 koskorra.

Ogi **mokorrak**. [Patziku Perurena](#)  
Itzulitakoan, amak zer atzemanen motxila husterakoan, eta berrogeita hamar gramoko haxix **mokorra**. [Aingeru Epaltza](#)

## 6 sukre mokor azukre koskorra.

Kafeari lau sukre **mokor** aurtikitzen. [Itxaro Borda](#)  
Olioan busti sukre **mokor** hau har zazu. [Marzel Etxehandi](#)

## mokor<sup>2</sup> 1 izond mukerra, zakarra.

Nagusi-etxekandereak beti han haatik eta biak ere frango **mokorrak**. [Janbattitt Dirassar](#)  
Berriz joan zen, marmarti, aurpegi gogor, ia **mokorre**z, inori berbarik zuzendu barik. [Urtzi Urrutikoetxea](#)  
*Bronchite*-a joan zitzaidan primaderako lehen eguzkiekin, nahiz-eta sasoina **mokorra** eta berankorra izan gure gustuko. [Marzel Etxehandi](#)

## 2 (adizlagun gisa)

Mokor-**mokorra**, auto txurira sartzen hasi ziren. [Pablo Sastre](#)

## 3 lo mokor lo txarra.

Lo **mokorretik** atera berria nintzen eta hara non harekin topatu ziren nire begi makartsuak. [Aingeru Epaltza](#)

## mokoratu, mokora(tu), mokoratzten du ad mokora eraman.

Zer **mokoraturik** ez duen txori baten txilioak irten zitzaizkion Norari. [Anjel Lertxundi](#)

## mokordito izond mokordotxoa.

-Goazen afaltzera, **mokordito**. [Joxean Sagatzizabal](#)

## mokordo 1 iz gizakien eta abere batzuen kaka lodi gogorra.

Halakoetan balkoian bertan hustutzen nuen sabela, eta gero, **mokordoari** ostikoa emanda, bosgarren pisu hartatik behera bidaltzen nuen sorpresa-oparia. [Jon Arretxe](#)  
Han libratzen dira, **mokordo** idortu ugariek eta eulien besta-leku diren idortu gabekoez ere argiki adierazten dutenez. [Xabier Montoia](#)

## 2 irud/hed

Baina denborarekin, denboraren kaka-lanarekin, zer egin hoberik ez eta, probatze aldera, kaka probatzen hasten da bat: **mokordo** lodiak eta meheak, tamainako usainduak eta kirasduak, tirrinak, xirrinak, gorotzak eta denak. [Iñaki Segurola](#)  
Eta hi ere, aitaren semea haizelako, markesa izanzen haiz, biharko egunean; eta ni ere, hortxe-hortxe, haren anaia izaiteagatik... eta etxegoiendarrok egun osoan kakategian egonen gaituk, handik aitzina, urrezko **mokordoak** produzitzen... [Joan Mari Irigoien](#)  
Nork zakik, igoal halako batean **mokordoren** bat lehertu egingo zaik... [Paddy Rekalde](#)

## 3 (beste izen baten eskuinean)

Ez da gaurko gazte **mokordo** horietarikoak! [Ramuntxo Etxeberri](#)  
Munduan bera beste inor ez zegoela uste zuen ume **mokordoren** bat, akaso. [Fernando Morillo](#)  
Honetan, jonki **mokordoa** garrasika hasi da heroinaren lausotik: "lagundu! Ez utzi hemen barruan! Ez diat kixkarratuta hil nahi!". [Patxi Iturritegi](#)  
Itxi aho hori, zakur-**mokordo** alaena! [Juan Kruz Igerabide](#)

## 4 kaka mokordo

Muskulu mordo bat besterik ez dira... kaka **mokordo** bat. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)  
Heure kaka **mokordo**en gainean eseriko haut, badakin, Mari Ipurdi-Eder? [Karlos Zabala](#)  
Ozta-ozta ematen zidan abagunea txizarrada bizkor bat eta kaka **mokordoa** bota nitzan, eta berehala itzularazten ninduen etxera. [Jon Arretxe](#)  
Azken orduko egiturazko bitxikeria goitik behera betetzen duen hainbat eleberrri posmodernok, ostera, kaka-**mokordo** batek bezainbesteko zirrara du eragiten. [Markos Zapiain](#)  
Eta buruan esanahi argirik gabeko hitz batzuk besterik ez neuzkan, harribitxiz zein kaka: **mokordoz** bete zitezkeen kaxa hutsen gisa. Gure lehengusina Juliak hiru egin zituen segidan, plaust, plaust eta plaust, ez epiduralik ez ezer, hiru kaka **mokordo** lodi eta bigun bezain erraz, eta hala ere, sekula ez duzu itota ikusten, ez dizu inongo kontu txarrik aipatzen; aitzitik, gutziz errealizatuta ageri da ama-paperean. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

## mokordotxo iz mokordo txikia.

Bi **mokordotxo** besterik ez gurdian eta Morgan zeharo aztoratu zen, erlojuari begiratuta. [Joxean Sagatzizabal](#)

## mokortu, mokor(tu), mokortzen 1 da/du ad mukertu.

Ikusi ninduelarik, lasterka abiatu zen niri buruz, baina, konturatu zelarik hainbeste lagunekin nintzela eta gainera ez ginela "fresko-freskoak", urratsa emekitu zuen, begitartea **mokortzen** zitzaiola. [Daniel Landart](#)

## 2 kikildu.

Hortaz, eseri nintzen, negarra bularrean **mokortuta** bezala neukala, auklian jarrita mutu, eta leihoko burdinak kontaktzen hasi nintzen. [Matías Múgica](#)  
Bertzerik gabe, ez nuen espero, eta aurreikuspen falta horrek **mokortuta** eta oligofreniko batek ere erakutsiko ez lukeen irribarrearen jabe utzi ninduen. [Aingeru Epaltza](#)  
Borrokan egundo **mokortu** ez den soldadu andana ikusi duzu hipaka, etxetik jin gutuna eskuetan. [Xabier Montoia](#)

## mokortxo iz adkor mokorra.

Egia esateko, eta deus gehitu gabe, izenaz beste etekinik ez daukan lur **mokortxo** bat dugu eskuratzeko. [Juan Garzia](#)



## **mokotarro** *iz* labezomorroa.

Haritzaren etxean denak daude gustura: **mokotarro**, xagu, satain, sator, kattagorri, kattamuxar, eta hainbat ezkurjale... **Pello Zabala**

## **mokote** *adlag* muker.

-Hortaz, zure iritiz, zenbat denbora mota daude? -galdetu zuen M-k **mokote**. **Bernardo Atxaga**

## mokourdin ik **moko 14**.

## mokoxuri ik **moko 15**.

## mokozabal ik **moko 16**.

## **mokozapi** *iz* mukizapia.

Etara kaxa batean eseri nintzen eta han, egurrezko kaxa zaharraren sardina usainarekin, ilunetan eta bakar-bakarrik, **mokozapia** aurpegian ipinita, negar egin nuen.

**Joseba Sarrionandia**

## molda ik **molde**.

## **moldaberritu**, moldaberri, moldaberritzen *da/du ad* erraberritu.

Eta nor bera ere, bere "lehen harri (tze) " bakoitza, taigabe gogora ekarri eta, aldian aldiko sentimenduz edo halabeharrez **moldaberrituz** eta edertuz, bakar bakarrik sartu liteke bere bihotzke harresi ilun horretara. **Patziku Perurena**

## moldabiar ik **moldaviar**.

## **moldaera** (**23 agerraldi**, **6 liburu eta 10 artikulutan**) **1 iz** moldatzea, moldatzeko era. ik **moldaketa**.

Ebazpeneraren **moldaera** berri honekin ez gatoz bat; argitasun beharrean gaude. **Berria - Mundua**

*Mussorskiren Erakusketa bateko koadroak* obraren gainean Maurice Ravelek egindako orkestrarako **moldaera** izango da orkestraren arrakasta ziurtatuko duena. **Berria - Kultura**

Han-hemenkako **moldaera**, egokitzapen eta are asmazioez ere luze mintza gintezke, baina ez dirudi hauxe denik lekua, eta dagoeneko zain dauzkagu, gainera, antzezleak, pertsonaiak, Elsinoreko gizaki-mamuak, eta haiena da txanda. **Juan Garzia**

Pultsio edo irrika kontzeptua oinarri-oinarrizkoa da Freuden psikoanalisian, behinolako instintu edo sen kontzeptuaren **moldaera** bat bezala azaltzen baita harengan. **Josu Zabaleta**

Ordurako, izan ere, eta maitasun-kontuetan, ez ziren batere emakume zorrotzak, ez zuten gehiegi ere eskatzen, otzanak ziren, eta **moldaera** errazekoak. **Mirentxu Larrañaga**

## **2** aldaera.

Bere "hebreera zaharkituaren" aldaeran judu-eskritura eta liturgiaren baliabide bihurtu zen; **moldaera** arabikoan Islamaren alfabeto bilakatu zen; aldaera siriakoan inpartzialki balio izan zuen nestorianismoaren eta monofisismoaren kristau-heresia antitetikoentzat; bere pahlavi aldaeraren **moldaera** avestikoan zoroastroar elizaren liburu sakratuak jaso zituen. **Iñaki Mendiguren**

## **moldaerraz** (**9 agerraldi**, **8 liburutan**) **1 izond** moldatzeko erraza, moldatzen edo egokitzen erraza. ik **moldakor**.

Irudia plastikotzat har dadin **moldaeraza** behar du izan, inoiz esaten ez bada ere, arte plastikorik plastikoenaren, eskulturaren, ereduaren arabera **moldaeraza**. **Josu Zabaleta**

Gaur eguneko kondoiak, berriz, latexekoak dira; 0,03 milimetroko loditasunekoak, oso finak, malguak eta **moldaerrazak**. **Luis Elberdin**

Xarma ere, bere osieran oso su eta lur gutxi eta aire eta ur asko izaten dituen, ez da batere hauskorra izaten eta lantzeko oso **moldaeraza** da. **Santiago Iruretagoiena**

Hizkuntza gora eta beheagorik ere, **moldaerraz** edo moldakaitzagorik ez dago. **Joxe Azurmendi**

## **2** (pertsonen mintzatuz)

Baina **moldaeraza** duk eta edozer egin daiteke berarekin; agian, emakume miresgarria izatera iritsiko duk, edo beharbada zabor huts bihurtuko ditek, bai, seguraski zabor huts bihurtuko ditek! **Jose Morales**

Aktore **moldaeraza** eta fina izateko ospea lortu nahi duzula kontuan hartuta, ez dago paper hoberik antzezlanean. **Lopez de Arana**

Gaszte izate soilagatik, ez nintzen **moldaeraza** berak defendatzen zuen sistemarentzat, kontuz ibili beharra zegoen nirekin. **Anjel Lertxundi**

Jean Etxegoien, apaizgaitegian ikasitako poeta gazte senperrarra, bigun eta **moldaerazagoa** duzu Mandel baino, eskuzabalagoa: badu ideologia bat, anarkismoa; eta Catherine emaztegaia maite du. **Markos Zapiain**

## **moldaerraztasun** *iz* moldaeraza denaren nolakotasuna.

Eskultura oraindik etengabe aldatuz doan buztinezko zirriborroa baizik ez denean duen **moldaerraztasun** horretakoa. **Josu Zabaleta**

## moldagabe ik **moldegabe**.

## moldagaitz ik moldakaitz.

### moldagarri (22 agerraldi, 10 liburu eta 9 artikulutan) 1 izond molda daitekeena. ik moldakor.

Brontzearen erabilera burdinarena baino lehenago ezagutu zuten, berez **moldagarriago** eta ugariago zelako. **Xabier Amuriza**

Eta aire gehiago dutenak bigunak izaten dira; batez ere ura daukatenak izaten dira nahasteko malguak eta **moldagarriak**; lurra daukatenak gogorak izaten dira; eta sua daukatenak, hauskoragoak. **Santiago Iruretagoiena**

Ondorioz, zaharkitutako jakintzak bertan behera uzteko eskatu zuten, malguago eta **moldagarriagoei** leku egiteko. **Berria - Euskal Herria**

[Blogaren] aurkezpena ere **moldagarria** da, norberak bere ezagutzaren arabera molda dezake. **Berria - Harian**

Garuna plastikoa da, **moldagarria**, alegia, hona ideia. **Berria - Gaiak**

Argazkia zantzua, aztarrena bada, zantzu hori berori ere **moldagarria** da, eta hainbat unetan esku har daiteke modu "kodetu" jakin batean: koadratzean, fokua, diafragma, errebelatzeko eta argitaratzeko modua aukeratzekoan, eta abar. **Josu Zabaleta**

Oporrak **moldagarriak**. **Herria**

#### 2 (pertsonez mintzatuz)

Gizakia "plastikoa" da, hots, **moldagarria**; historiak moldatzen du era bateko edo bestekoa. **Joxe Azurmendi**

Baina jaun Marcel, buztina bezala, **moldagarria** zen, eta aita Bartolome, harria bezala, zurruna eta guztiz moldagaitza. **Joan Mari Irigoien**

Gizakia **moldagarria** da, eta askotarikoa, bere ezaugarri eta ahalmenei dagokienez, hau da, mintzairan, jokoan, plazerean, seme-alaben hazkuntza eta heziketan, maitasunean, [...]. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarraide**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**oporrak moldagarriak** (3)

### moldagarritasun iz moldagarria denaren nolakotasuna.

Gero, buztina aurkitu zuenean, materialaren **moldagarritasun** horrek aukera eman zion sentimenduez, hurbileko gauzez, egunerokoaz hitz egiteko. **Berria - Kultura**

Arte-gaiez kanpo erabiltzen denean, malgutasuna, aldagarritasuna edota **"moldagarritasuna"** (esaterik badago) esan nahi du hitz horrek. **Josu Zabaleta**

Guztiek giza borondate-indar eta buru-argitasunezko mirariak zertu zituzten, baina bereziki gizakiarena den **moldagarritasun** aldakorren koalitatea sistematikoki ukatzearen ordainetan. **Iñaki Mendiguren**

### moldakaitz (orobat moldagaitz g.er.) 1 izond antze edo trebetasunik ez duena; antze, egokitasun edo trebetasunik gabe egina. (pertsonez mintzatuz)

Bihotz-gogorak ziren, zakarrak, traketsak, **moldakaitzak**, ganoragabeak, ezdeusak, zarpailak, makurrak. **Jose Morales**

Zoritzarrez arkitektoak ez zuen Brad Pitten antzik, izatez burusoil samarra eta lodixkoa baitzen, eta, okerragoa dena, guztiz **moldakaitza** sedukzioaren artean. izeba ezkongabe **moldakaitza**, bere familiaren erdigunean trabatuta geratutako erbestertua. **Patxi Iturritegi**

Egia da ez duela oso bakan baizik ekartzen ehizakirik; baina **moldakaitza** omen da zeregin horretan. **Jon Muñoz**

#### 2 (gauzez mintzatuz)

Haren ontasuna baldarra, herabea eta **moldakaitza** zen. **Ander Irizar**

Nire etxea dut [euskara], nik hala aukeratu dudalako, zenbaitek **moldakaitz**, barbaro eta bokantzarik gabea ikusi badute ere. **Pello Salaburu**

Hizkuntza gora eta beheagorik ere, moldaeraz edo **moldakaitzagorik** ez dago. **Joxe Azurmendi**

Horregatik bizi modernoan [...] euskara **moldagaitza** da: baseritarrak, euskara baztertu eta, gaztelania jakin nahi du. **Joxe Azurmendi**

Dohain edergarri berri hark biziki hunkitua, hari gogobetarik so, hasieran ez nizkion kontsolamendu **moldakaitzak** baizik eman, penak arindu orde, penak handitzen dituzten horietakoak. **Jon Muñoz**

Hain da errua barru-betea goganbehar **moldakaitzez**, bere burua baitu salatzen, sala dezaten beldurrez. **Juan Garzia**

#### 3 moldatzen zaila dena, ia ezin moldatuzkoa.

Baina jaun Marcel, buztina bezala, moldagarria zen, eta aita Bartolome, harria bezala, zurruna eta guztiz **moldagaitza**. **Joan Mari Irigoien**

Aldaketa horiek sortzaile edo suntsitzaile gerta zitezkeen, moldakor edo **moldagaitz**. **Xabier Olarra**

#### 4 (adizalgun gisa)

Ardiak atzeratu egiten dira **moldakaitz**, kateak eman ahala. **Oskar Arana**

Begiratu gabe igar zezakeen mahai alboan zegoela zutik, zerbaitekin lardaskan, **moldakaitz**, lekuz kanpo sentituz. **Anton Garikano**

Artean ere, orduan bezala, **moldakaitz** mugitzen zen. **Juan Garzia**

Baldar eta trakets jaio zen ahatetxoa, bere senide guztiak baino itsusiago eta **moldagaitzago**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arras moldakaitza** (3)

### moldakaizkeria 1 iz moldakaitzari dagokion egitea.

Neure bertze **moldakaizkeria** bat dizut hala ere kontatu nahi. **Jon Muñoz**

Barre algarra ederrak eginen zenituzkeen haren harridurazko eta asalduzko itxuraz; nik haatik ez nuen irri egin, beldur bainintzen soberazko **moldakaizkeria** hark ez ote gintuen tradituko. **Jon Muñoz**

#### 2 moldakaiztasuna, gaitzesgarrizat markatua.

Gutun hori hartzeko irrika bizian nintzen; baina dela oraino jukutriaz, edo dela **moldakaizkeriaz**, edo herabetasunez, ez zidan gutuna arratsa arte eman, gelara joan zen unea arte. **Jon Muñoz**

### moldakaizki (orobat moldekaizki) adlag moldakaizkeriaz. ik moldakaizkiro.

**Moldakaizki** lotzen zaio bera ere borroka horri, txakurraren atzeko hankei batera eusten, animalia bere azpien gainean eserarazten. **Oskar Arana**

Hasteko, Herder traizionatzea da; Hegel desegitea; Schelling **moldakaizki** manipulatzeko, hark ageriki adierazten baitu [...] arrazez ez dagoela zertan hitz egin historian eta kulturaren, bai soil-soil leinu, tribu, herri eta nazioez. **Joxe Azurmendi**

Autobuseko lazzeria ibiltarian beste kartzela batera aldatzen zaituzten bakoitzean presoaren ikasbideari lotzen zatzaizkio oster, errotarri paratu berria bazina bezala, kendutako denboraren aleak **moldekaizki** xehatzen. **Jokin Urain**

# moldakaizkiro *adlag* moldakaizki.

Eriak **moldakaizkiro** erran zuen ustez sukar pixka bat bazuela. [Jon Muñoz](#)

## moldakaiztasun *iz* moldakaitza denaren nolakotasuna.

Vressac horrek **moldakaizkiro** susmotan ezarria du bizkondea. [Jon Muñoz](#)

Eta baldin lagunartean zuri so egoteko baimena ematen badiezu, aldez aurretik jakin bezate bederen estaltzen jabe bati legokiokeen behako aise hautemangarri hori, amodiozko behakoarekin arras **moldakaizkiro** baitute nahasten. [Jon Muñoz](#)

## moldaketa (*290* agerraldi, *26* liburu eta *210* artikulutan) **1** *iz* moldatzea, egokitzea. ik **moldaera**; **moldakuntza**; **moldapen**.

Interes kontrajarrien **moldaketa**. [Xabier Olarra](#)

Organismoen ezaugarri guztiak inguruari aurre egiteko garatu diren **moldaketak** dira. [Askoren artean](#)

Bizidunek zenbait egokitzapen edo **moldaketa** dituzte -eskuak edo begiak, esaterako- bizitzako borrokan aurrera egin dezaten. [Askoren artean](#)

SEPIK sindikatuekin hitzartu nahi du **moldaketa** industrialia, eta alde biek negoziatzen segituko dute gaur. [Berria - Ekonomia](#)

UGTK proposatutako irtenbidea onartuta ere plantilan **moldaketak** egin beharko direla ohartarazi du enpresak. [Berria - Ekonomia](#)

Zipre uharterko komunitate greziarrari eta turkiarrari nazioarteak proposaturiko bake planari eginiko azken **moldaketa**. [Berria - Mundua](#)

**Moldaketa** franko egingo ditu lehen ministroak exekutiboan. [Berria - Mundua](#)

Buenek dio «lege iruzurra» eta abertzaleen arteko **moldaketa** dela Amezketan egin dutena. [Berria - Euskal Herria](#)

Euskaldunon hizkuntza zaharra ezagutza-arlo berri batera egokitzeo fintasunez egindako **moldaketa**. [Santiago Iruretagoiena](#)

Bisitariak egokitzeo **moldaketen** ondorioz. [Aingeru Epaltza](#)

Gazteluan **moldaketak** egin behar ziren, eta Nafarroako Kantzileria luzatzen ari zen horretarako diruaren onarpena. [Aingeru Epaltza](#)

### 2 (musika edo literatura lanei eta kidekoei buruz)

Joanden egun batez, euskal irratiek zabaldu daukute "Agur jauna" kantu klasikoaren **moldaketa** berri bat, Baionaldeko *Dindirnak* koroak xaramelaturik: "agur jaunak et'andreak, agur denak..."; kantu berri horren orraztatzailea: Maixan Arbelbide heletarra. [Herria](#)

Philippe de Ezcurra, Mathieu Haramboure eta Didier Chabay-ek egin dituzte **moldaketak**, musikari laguntzaile dituztela ere Marie Hirigoyen flautan, Maite Daguerre xirulan, [...]. [Herria](#)

Pianorako, trikitixarako eta rock taldeetarako **moldaketek** 30na kantu hartzen dituzte, eta dantzari buruzko atalak 20. [Berria - Harian](#)

Xede nobleaz jaiotako musika bat ezin dela berregin, ezin zaiola **moldaketarik** edo orkestrazio berririk erantsi. [Askoren artean](#)

Lukas Dorronsorok liburu horren euskarazko **moldaketa** bat prestatu zuen. [Martin Anso](#)

**Moldaketak** egitea eta idaztea oso gustuko dut. [Berria - Kultura](#)

Antunes Filhok antzerkirako eginiko **moldaketa**. [Pablo Sastre](#)

100% *basque* itzuli dudalarik, ohartu naiz gauza batzuk oso erraz, lasai eta libreki irakurtzen direla euskaraz eta frantsesera itzulita pornografiko hutsak direla eta, beraz, **moldaketa** bat eskatzen dutela. [Ana Urkiza](#)

Houellebecqen obraren **moldaketak** ez du harrera ona izan Berlinalen. [Berria - Kultura](#)

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Birusaren aldaketa eta **moldaketa** aukerak infinituak direla diote. Volkswagenek 2004an baino %60 gehiago irabazi zuen iaz [...] baina 20.000 langileri eragingo dien **moldaketa** plana jarriko du martxan laster. [Berria - Gaiak](#)

2006rako enpresa horiek guztiak galdaketa-prozesuetako **moldaketa**-harea guztiak birsortzeko hitza eman dute. [Berria - Euskal Herria](#)

Eta Henri Duhau senpenterak ere bere eskukaldia eskaini du **moldaketa** lanetan. [Herria](#)

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez dira ahaztu behar, halaber, *etxiya* bezalako silaba **moldaketak**. [Lourdes Oñederra](#)

*Euskaldunaren* garaietara, industria **moldaketaren** urte latzetara, barrikaden arora. [Berria - Ekonomia](#)

Aratsaldetan, 14 etarik 17 etarat, izanen dira haurrentzat lan-guneak eta buztin **moldaketak**. [Herria](#)

12 kantu alegera, Popol Cherbero eta Pantzo Hirigarayek bereziki onturik, musika **moldaketak** Paxkal Indo, Andde Carrere eta Sylvie Cherberok segurtaturik. [Herria](#)

Eta abesti horiek modu batean egokitu ditugun bezalaxe, beste orkestra **moldaketa** batzuk ere izan zitzaizketen. [Berria - Kultura](#)

Goietxerenak dira, berri, bigarren ahots landuak eta gitarra **moldaketa** irudimentsuak. [Berria - Kultura](#)

Eta zer da antzerki **moldaketen** liburu hori? [Berria - Kultura](#)

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzerki moldaketa (3); egindako moldaketa (5); kantuaren moldaketa (3); moldaketa berri (4); moldaketa egin (11); moldaketa egin du (3); moldaketa industrial (3); moldaketa plana (6); planaren moldaketa (3)

azken moldaketak (3); eta moldaketak (3); moldaketak egin (8); moldaketak egingo (3); moldaketak egiteko (4)

## moldakor (*16* agerraldi, *10* liburu eta *2* artikulutan) **1** *izond* moldatzeko joera duena. ik **moldaerraz**; **moldagarri**.

Citoquinak «plastikoago» bihurtzen ditu odoleko zelulak, «**moldakorrago**». [Berria - Gaiak](#)

Ekarri ere jantzi bero eta **moldakorrak**. [Herria](#)

Gizakiak egindako makinek ez bezala, badu hezurra konponketa-sistema **moldakor** bat beti prest [...] lanean aritzeko harik eta kaltetutako zatia atzera berriaren pare geratu arte. [Irene Aldasoro](#)

Gai sendo hori [...] ingeniariartzako edozein material baino **moldakorragoa** da. [Irene Aldasoro](#)

Xaflazko etxetxo **moldakor** bat eraikiarazi zuen Hart jaunaren jardinean kontua esperimintatzeko. [Juan Garzia](#)

Aldaketa horiek sortzaile edo suntsitzaile gerta zitezkeen, **moldakor** edo moldagaitz. [Xabier Olarra](#)

### 2 (pertsonei buruz)

Ikasle bizkorra, esanekoa, **moldakorra**. [Oskar Arana](#)

## moldakortasun *iz* moldakorra denaren nolakotasuna. ik **moldaerraztasun**; **moldagarritasun**.

Hatzekin, duten hezur egitura, indar eta **moldakortasunari** esker, oso estimulu sexual biziak eragin ditzakegu. [Luis Elberdin](#)

Elkarri lotzeko moduak ere erakusten du zein emaitza onekoa den hezurra gai estruktural gisa: **moldakortasun** handia ematen du mugimendurako, eta egonkortasun erosoia geldi egoteko. [Irene Aldasoro](#)

Ohartzen da bere buruari arreta jartzearen "seta" hartaz, eta horregatik da hain tematia eta hain malgutasun eta **moldakortasun** eskasekoa. [Xabier Olarra](#)

## **moldakuntza** (*7 agerraldi, 2 liburu eta 5 artikulutan*) **1** iz moldatzea. ik **moldaketa**.

Eta, hala ere, ez zen, azken buruan, ohiko prozesuaren **moldakuntza** funtsean txiki-txiki bat baino. **Juan Garzia**

Kode Zibilaren oinarri berriak eta Foruen aspaldiko indarra: horra hor dema lazgarria; gaur ere, askok kontrakoa uste arren, esanahi berezi duena, batik bat euskal gizarte zibil baten **moldakuntza** berezkoan. **Andres Urrutia**

### **2** (pertsonei buruz)

Zer biharamun hoinbertze gaztek, **moldakuntza** eta lanik gabe direnek? **Herria**

### **3** (hitz elkartuetan)

Etzarriko **moldakuntza** zentroaren izenean, garapen proiektu bat lagundu du Ponthériouen herrian. **Herria**

Gazteen **moldakuntza** muimenduetan, hor zituen ere Lafitten "scout" edo eskutismokoa, eta lan handia zuen berak egiten denbora heietan Uztaritzen. **Herria**

## **moldapen** (*5 agerraldi, 2 liburu eta 2 artikulutan*) **1** iz moldatzea. ik **moldaketa**.

Dario Handiaren ekintzen kontaketa Behistango harkaitzean [...] hiru eratan transkribatu zuten idazkera kuneiformearen hiru **moldapen** desberdinetan, hiru hiriburu inperialetako hiru hizkuntza adierazpide zirenetan: elamita Susarentzat, medo-pertsiera Ekbatanarentzat, eta akadiera Babiloniarentzat. **Iñaki Mendiguren**

### **2** (musika edo literatura lanei eta kidekoei buruz)

Pirandelloren lehenengo **moldapenean**, esate baterako, antzezleak eta pertsonaiak ate beretik sartzen ziren agertokira. **Josu Zabaleta**

Gauza jakina bezain igarria da antzezanak ez direla itzultzen, teatroak ozenki esatekoak izanik, **moldapena** edo, egun esaten den legez, «lokalizazioa», tokian tokiko kulturetara egokitu beharra dutela beste ezein itzulgaik bainoago. **Berria - Kultura**

## **moldarazi**, moldaraz, moldarazten du *ad* moldatzera behartu.

Baina gero iruditzen zizaion gaizki ematen ziola sorbaldetan eta etxean Tersillari **moldarazten** zion. **Fernando Rey**

Baldin gogojardunak ematen ari denak hartzen ari dena ikusten badu goibeldua eta zirikatua, ez bedi izan honekin zakar eta gozakaitz, baizik samur eta bigun, adorea eta kemena emanez geroko, eta giza naturaren etsaiaren maltzurkeriak agerian ipiniz, eta datorkeen pozaldirako bere burua prestataraziz eta **moldaraziz**. **Patxi Altuna**

## **moldarazle** *iz* moldarazten duena.

Altzari bihurtzeko joera dugu, bakoitzak altzari ezberdin baten antza hartzen du, bizitzan egindako mugimendu, keinu, aldarte oneko eta txarreko algarra gihar **moldarazle** eta bestelako meritu edo zikoizkerien arabera. **Harkaitz Cano**

## **moldatu**, molda, moldatzen **1** du *ad* antolatu, eratu, prestatu, ondu.

Stephenek asteroko ikastaldietako bat zuen egun bererako **moldatu** nuen Londresera egin behar nuen bidaia bat, eta neure iloba Liz Chase eraman nuen neurekin. **Xabier Olarra**

Inuiten laguntzarekin topatu zuten Wulf etzateko **moldatu** zuten babeslekuak, baina han ez zegoen gorpurik, ez beste inolako adierazgarrikerik ere. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Nahastura hori berotan **moldatu**, eta gai gogor, arin eta merke bat ateratzen zen. **Irene Aldasoro**

Zuk ezarri dituzu munduaren mugak, zuk **moldatu** uda-neguak. **Elizen arteko biblia**

Arropak frailea egiten duen bezala, funtzioak izaitea **moldatzen** du. **Piarres Aintziart**

Baliabide gutxiarekin perpausak itxuroso **moldatzeko**. **Ramon Saizarbitoria**

Orduantxe sortu, **moldatu** eta eraiki ziren lehenengo hiribilduak, eta haiekin batera, unibertsitateak Burgesen semeak soilik hartzen dituen eskola izango da etorkizuneko klase-zuzendariak diseinatzen eta **moldatzen** dituen fabrika. **Askoren artean**

Denok dakigu zuzenbidea konbentzio hutsa dela, hau da, legeak eta arauak garai batean **moldatu** eta beste batean utzi eta aldatu egiten direla. **Askoren artean**

Zenbat aro motak, zenbat populu ezberdinek, zenbat eliza eta monumentuk **moldatu** dute Lizarza? **Piarres Aintziart**

Faboretxoa zor dit iaz **moldatu** nizkion ziurtagiri batzuen kontura. **Josu Landa**

### **2** egokitu.

Ohitura amerikarrak geure erara **moldatu** beharko ditinagu ba? **Pako Aristi**

Urteen poderioz, garaiak aldatu ahala, **moldatu** egin da bertuteen zerrenda. **Askoren artean**

Brunsveld van Hultenek, ESAko adituen laguntzarekin, bi seinaleen frekuentziak **moldatu** ditu biak batera erabili eta zelula kutsatuak topatu ahal izateko. **Berria - Gaiak**

'Copyright' araudiak Interneten arora **moldatu** beharko dutela dio Bravok, lanen zirkulazio librea saihestezina delako. **Berria - Gaiak**

### **3** (musika edo literatura lanei eta kidekoei buruz)

Neuk **moldatu** nizkion koplak, berak gaia emanda, Londongo egun lanbro haietan. **Koldo Izagirre**

Jakin behar da Frantziskok "Jaunaren Gorespenak" **moldatu** zituela bere gaixaldian eta noizik behin bere lagunei kantarazten zizkiela. **Askoren artean**

Bestetik, modan zeuden piezak **moldatzen** zituen, hala nola pasodobleak, tangoak, mazurkak, polkak, fox-trotak... **Pako Aristi**

Ruchek saiakera bikain bat **moldatu** zuen ontologiak. **Jon Muñoz**

Berak **moldatu** du testua, zuzendu du obra, eta jokatu du pertsonaia. **Berria - Kultura**

Brecht eta Preverten hitzak Izagirrek **moldatu** ditu euskaraz kantatuak izateko. **Berria - Kultura**

*Kastigu beharra badabe semeak, bebil gorosti makila*, zioen misiotako kanta aspaldikoak, Añibarrok **moldatu** zuenak. **Pello Zabala**

### **4** (gauzaki bat) molde baten bidez egin.

Burdinolak langile batek egiten zion dei, **pieza moldatuak** hozten utzi ohi zituzten zabaldegitik. **Koldo Izagirre**

### **5** gai jakin bati nahi den forma eman; forma jakin bati egokitu. ik **moldeatu**; **moldekatu**.

Zur ustelkaitza aukeratzen du eta artisau treberen bat bilatzen, zartatuko ez den irudia **molda** diezaion. **Elizen arteko biblia**

Orduan, Jainko Jaunak lur-hautsez gizona **moldatu** zuen; sudur-zuloetan bizi-arnasa putz egin zion, eta gizona bizidun bilakatu zen. **Elizen arteko biblia**

Urrea zizelez landuz, zekor-irudia **moldatu** zuen. **Jose Antonio Mujika**

Jainko Jaunak gizonari kenduriko saiheits-hezurrez emakumea **moldatu** eta gizonari eman zion. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Artistaren gela buztinez **moldatu** itxurez bete da. **Piarres Aintziart**

Gizakia "plastikoa" da, hots, moldagarria; historiak **moldatzen** du era bateko edo bestekoa. **Joxe Azurmendi**

Bizitzan Jaungoikoak bakarrik **molda** dezake gogoak bere ohiko graziaren bitartez. **Imanol Unzuurrungaza**

Gu, idatzizko kultur moldeak gehiegi **moldatu** gaitu. **Andoni Egaña**

Ohartu berria naiz: ale bakana izateak **moldatu** eta araberatu dit bizitza. **Aingeru Epaltza**

Espiritu kartsuak hainbestearino arindu eta **moldatu** zuen gorputza, non barrena Jainkoaren egarri bazen, haren gorputz txit santua ere egarri baitzen modu askotara. **Askoren artean**

### **6** da *ad* aritzeko edo zerbait egiteko, adierazten diren bideei askietsirik jardun. ik **konpondu**.

Txanpuri ez dugunean, bai berde litakus batekin **moldatu** behar izaten duguru.  Josu Zabaleta  
Neurketa une jakin batean eginez **moldatu** behar izango zuen Talesek: eguzki-izpiak onarriaren aldearekiko zehazki zut zirenean!  Jon Muñoz  
Hor ez da ezer ikusten, hasteko: "**moldatzen** ikasi beharra dago gauzak ikusi gabe", eman zuen abisua Heisenbergekin aspaldi.  Iñaki Segurola  
Oraingoz, zeure baliabideekin **moldatu** beharko duzu, saia zaitetz bizi bidea zeure kabuz ateratzen.  Jose Morales  
Gainera, esaten zuten burmuinean ontzi bat zegoela ernal haziz betea, eta ontzi hura ez zela berriz betetzen, zegoenarekin **moldatu** behar zela.  Luis Elberdin  
Orain, herrian, bertako ganadurekin **moldatu** beharko duk; ez duk arraza txarrekoa, baina gobernatzeko zaila.  Xabier Mendiguren Elizegi  
-Tira, nire zoroarekin **moldatu** beharko duzu...  Lopez de Arana  
Ikusi gabe eta ukitu gabe **moldatu** behar, beraz; sinestun txintxoek, maitale platonikoek eta Heisenbergekin erakusten duten bezala.  Iñaki Segurola  
Kasu batean zein bestean, geure nekeen saria galduko genuke, Monsieur G... rekin **moldatu** behar baitugu.  Koro Navarro

## 7 egokitu.

Bihotzak, ponpa gisa begiratzen bazaio, mirespena eragingo dio ingeniari hidraulikoari, duen diseinu sotilagatik, karga desberdinetera aise **moldatzeko** gaitasunagatik eta fidagarritasun paregabeagatik.  Irene Aldasoro  
Hasiera batean erabateko ilunpean egon zen, eta itsu bat bezala **moldatu** zen egoera berrira.  Bernardo Atxaga  
Leireren lagunak ere **moldatu** beharko du egoera berrira eta jolas sexual berrietara.  Luis Elberdin  
Baina ez zen inoiz Alemaniako bizimodura **moldatu**, ezin izan zion herrinari eutsi.  Jon Arretxe  
Atsoa ez zen sekula **moldatu** neskamerik gabe bizitzera.  Iban Zaldúa  
Latina bihurtu zen [...] Mendebaldeko ahalegin zientifikoaren espresio bide, intelektualek hizkuntza tekniko gisan beren premietara **moldatu** ondoren.  Askoren artean  
Aldizkako oreken teoriaren arabera, makroeboluzioaren mailan eboluzioak ez du pitiinka aurrera egin organismoak hautespen naturalaren bidez euren ingurunetara **moldatu** heinean.  Askoren artean  
Hizkuntza mintz bat bezala ezartzen da bizitzaren gainean, hizkuntza bakoitza leku jakin batera **moldatzen** da.  Bernardo Atxaga

## 8 (pertsonak elkarren artean)

Sekula ez ziren hobeto **moldatu** bi lagun, hain desberdinak izanda.  Karlos Zabala  
Oso ongi **moldatzen** ginen biok.  Txillardeggi  
Izan ere, emaztea sekula ez da ondo **moldatu** amaginarrebarekin.  Patxi Iturritegi  
Touraineko kondea zen egoera berrira ederkien **moldatu** zena, aldaketak maiteak baitzuten oso.  Felipe Juaristi  
-Ongi **moldatzen** den bikote bat, behingoz.  Xabier Olarra

## 9 zerbaitetan halako trebetasunez aritu.

Zuek, berriz, **moldatu** zarete epea laburtzeko.  Aingeru Epaltza  
Charlie primeran **moldatzen** zen gezurretan, eta beti sinesten zioten.  Mirentxu Larrañaga  
Gero eta errazago, eta dotoreago, **moldatzen** nintzen galdera hari erantzuten.  Ramon Saizarbitoria  
Berrogei urteik goitiko bakarra zen eskifaian, baina ongi **moldatu** zen bakailoari burua, triapak, hezurra kentzen ontziko faktorian.  Koldo Izagirre  
Ondo baino hobeto **moldatu** ohi gaituk gizakiok gehien beldurtzen gaituen hori azkenean halaxe gerta dakigun.  Jon Muñoz  
Borroka franko izaten zen eskolan, baina inoiz ez nintzen ongi **moldatu** halakoetan.Sekula ez zen metroan ibili eta ez zekien nola **moldatu**.  Mirentxu Larrañaga  
Baina **moldatu** zen, ozta-ozta izan arren; aireplanoaren gurpilek landare-hesiaren gaina moztu zuten, gorantz jo eta aldentzerako.  Mirentxu Larrañaga  
Eztarran korapiloa neukan eta ezin hizketan egoki **moldatu** nintzen.  Jesus Mari Mendizabal  
Fernando tartean sartu zen eta primeran **moldatu** ginen hirurok.  Karlos Zabala  
**Moldatzen** haiz frantsesez?  Aingeru Epaltza

## 10 ataka gaizto batetik ateratzea edo zerbait egitea lortu asmamena erabiliaz

Nola **moldatu** ote zen kaos, fixazio, urruntasun eta indarkeriaz markatutako haurtzaro hura atzean uzteko?  Xabier Olarra  
**Moldatu** egin zen, bada, han zegoela kontura ez zitezen.  Karlos Zabala  
Hain liburu interesgarria irakurtzen jarraitzeko nola **moldatu** hausnartzen hasi zen.  Josu Zabaleta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arazorik gabe **moldatu** (4); aski ongi **moldatu** (3); askoz hobeto **moldatu** (5); azkenean **moldatu** (3); baino hobeto **moldatu** (11); bakarrik **moldatu** beharko (4); berehala **moldatu** (3); bikain **moldatu** ziren (11); bikain **moldatu** ziren (6); bizimodura **moldatu** (5); ederki **moldatu** (9); ederki **moldatu** zen (3); egoera berrira **moldatu** (6); egoerara **moldatu** (4); elkarrekin **moldatu** (3); emakumea **moldatu** (3); euskaraz **moldatu** (3); gaizki **moldatu** (7); garai berrietara **moldatu** (3); hain ondo **moldatu** (3); hobeto **moldatu** (38); hobeto **moldatu** zen (12); ikastegi nagusian **moldatu** (3)

**moldatu** bertsuak (3); **moldatu** liburu (3)

musika **moldatu** (3); nahiko ondo **moldatu** (5); nekez **moldatu** zen (3); nola **moldatu** (54); nola **moldatu** zen (7); nolabait **moldatu** (3); ondo **moldatu** (69); ondo **moldatu** arren (3); ondo **moldatu** gara (5); ongi **moldatu** (48); ongi **moldatu** zen (6); oso ondo **moldatu** (11); poliki **moldatu** (3); primeran **moldatu** (6); proiektua **moldatu** (3); testua **moldatu** (4); trakets **moldatu** (3); txukun **moldatu** (3); zelan **moldatu** (3); zer moduz **moldatu** (9)

ongi **moldatu**ak (5)

bakarrik **moldatu**ko (5); ederto **moldatu**ko (3); gaizki **moldatu**ko (3); hobeto **moldatu**ko (5); nola **moldatu**ko (34); nola **moldatu**ko zen (6); ondo **moldatu**ko (8); ongi **moldatu**ko (7); zelan **moldatu**ko (5)

genetikoki **moldatu**tako (32); genetikoki **moldatu**tako landareak (4); genetikoki **moldatu**tako produktuak (4); genetikoki **moldatu**tako produktuek (4); genetikoki **moldatu**tako produktuen (3); **moldatu**tako bake (3); **moldatu**tako landareak (4); **moldatu**tako produktuak (4); **moldatu**tako produktuek (4); **moldatu**tako produktuen (3)

indarrak berriz **moldatzea** (3); ondo **moldatzea** (6); ongi **moldatzea** (4)

arazoa **moldatzeko** (4); arazoak **moldatzeko** (9); egintza batzuen **moldatzeko** (4); estatutua **moldatzeko** (4); gatazka **moldatzeko** (4); izar taldea **moldatzeko** (3); **moldatzeko** ahalmen (3); **moldatzeko** asmoa (3); **moldatzeko** aukera (5); **moldatzeko** balio (5); **moldatzeko** denbora (3); **moldatzeko** gai (13); **moldatzeko** gaitasuna (7); **moldatzeko** gauza (5); **moldatzeko** lanak (6); **moldatzeko** xedeak (4); ondo **moldatzeko** (5); taldea **moldatzeko** (4)

aise **moldatzen** (6); aski ongi **moldatzen** (3); askoz hobeto **moldatzen** (11); bakarrik **moldatzen** (9); bere kasa **moldatzen** (3); beti **moldatzen** (8); bikain **moldatzen** (26); bikain **moldatzen** da (10); dotore **moldatzen** (5); ea nola **moldatzen** (3); ea zelan **moldatzen** (3); ederki **moldatzen** (24); ederki **moldatzen** da (5); erraz **moldatzen** (3); gaizki **moldatzen** (21); hain ongi **moldatzen** (3); hainbestean **moldatzen** (5); hobeki **moldatzen** (7); hobeto **moldatzen** (76); hobeto **moldatzen** naiz (13)

**moldatzen** da euskaraz (3); **moldatzen** da ongi (3); **moldatzen** dela erakutsi (6); **moldatzen** elkarrekin (3); **moldatzen** hasi (9); **moldatzen** ikasi (5); **moldatzen** lagundu (3); **moldatzen** saiatu (3)

nahiko ondo **moldatzen** (8); nahiko ongi **moldatzen** (3); nola **moldatzen** (58); nola **moldatzen** den (10); okerrago **moldatzen** (10); ondo **moldatzen** (168); ondo **moldatzen** da (30); ondo **moldatzen** gara (17); ongi **moldatzen** (92); ongi **moldatzen** da (21); ongi **moldatzen** (3); ordekan ondo **moldatzen** (4); orotan ondo **moldatzen** (3); oso ondo **moldatzen** (29); oso ongi **moldatzen** (12); ozta ozta **moldatzen** (5); primeran **moldatzen** (22); primeran **moldatzen** da (6); txukun **moldatzen** (6); zelan **moldatzen** (8); zer moduz **moldatzen** (15)

## moldatzaile *(orobat moldatzale g.er. eta moldazale g.er.)* 1 izond/iz moldatzen duena.

Zenbateraino da literatura errealtatearen ispilu eta zenbateraino errealtatearen **moldatzaile**?  Ana Urkiza

### • 2 aipatzen dena moldatzen duen pertsona.

Gero Albert Zubillagak eskerrak eman ditu egunaren **moldatzaileeri**.  Herria

Gure herrian ospatze horien **moldatzaile** diren elkarteek deliberaturik Ihaunteriak izanen ditugu ilabete hunen 15eko larunbatean.  Herria

Kazeta hunen **moldatzaile** diren buruzagi eta langile suharrerri bai eta ere kazetaren irakurtzaile guzieri.  Herria

Goresmenak plekari horiek guzieri eta horien **moldatzaileeri**.  Herria

Sebastien ongi ezagutua da guziz pilota mailan, hau baita gure gazteen **moldatzale** edo erakuslea.  Herria

Grina horixe baita, nere ustetan, nobela honen sortzaile eta **moldatzaile**. Patziku Perurena

### 3 (musika edo literatura lanei eta kidekoei buruz) ik **moldaketa** 2.

Langai pedagogikoari dagokionez, kanta bakoitzaren gainean musikari batek egindako moldaketa eta hura entzuteko aukera, partitura eta partitellak, fitxa didaktikoak, **moldatzailearen** ohar biografikoak eta iruzkin osagarriak biltzen ditu ikus-entzunezko materialak. Berria - Harian

**Moldatzailea** : Iñaki Salvador. Berria - Harian

Euskal Herriko piano jotzaile, **moldatzaile** eta ekoizle artistiko argien eta aktiboenetakoa da Gimenez. Berria - Kultura

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hunt produktore eta **moldatzaile** lanetan adina nabarmendu da estudioko musikari gisa urte luzeetako bere ibilbidean. Berria - Kultura

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gaztean, errugbilari trebea izana zen eta geroxago kirol hortan berean gazte **moldatzaile** hauta. Herria

Ondotik, Daniel Landart-en aldi zen eta zoin kartsuki ez du gorapaitu De Monzon antzerki idazle eta antzerki **moldatzailea**. Herria

*Gaztaroa* liburuan, (Mondadori, 2002) afrikanerren arazoa protagonistaren nortasun-**moldatzaile** gisa azaltzen da. Berria - Kultura

## moldatzale ik **moldatzaile**.

## **moldatze** 1 iz konpontzea, egokitzea.

Aferak **moldatze** erraza zuen, nola eta aitaxi kaparetuz, berak amestu bezala. Aingeru Epaltza

Bertzalde, formakuntza edo **moldatze** bat, fedearen, elizaren eta sakramenduen gainean egina izanen dela Uzartitzen. Herria

### 2 (hitz elkartuetan)

Interneten, esate baterako, eduki ugari prestatu gabe dago gaitasun kognitiborik ez duen jendearentzat eta adin tarte jakin batekoak direlako **moldatze** lan bat behar duten pertsonentzat. Esan dezakegu duela lau milioi urte giza primateok **moldatze** estrategia berri bat garatu genuela, gure umeak babesik gabe jaiotzen direlako: hazkuntza aldiak irauten zuen denbora bikotea osatzea zen estrategia hura. Berria - Euskal Herria

· Erran gabe doa, ikastetxeak, behar izan dituela arramoldatze lan batzu jasan, ikasle horier lan baldintza hoberenak eskaintzeko gisan (gela **moldatze**, prefabrikatu ezartze, material berritze...). Herria

## **moldatze** *adlag* moldatzeko zorian.

Talde parlamentarioaren afera «**moldatze**» dagoela gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

## **moldaviar** (*orobat moldabiar g.er.*) *izlag/iz* Moldaviako, Moldaviari dagokiona; Moldaviako herritarra.

-Hik kontu egin badatorrela nik zer zakiat nongo bat... **moldaviarra**, adibidez. Urtzi Urrutikoeetxea

Valeryk Kale Nagusian ezagutu zituen **moldaviarrek**, eta eurekin batera jotzeko konbentzitu zuten. Urtzi Urrutikoeetxea

**Moldaviarren**, mongoliarren, aimaren, mixteken eta, hala nola, beste hainbat gizatalderen soinu eta kantak ere entzun ahal izan ziren, halaber, festa koloretsu hartan. Josexo Azkona

Beste hizlari batzuk Errumaniako hungariarrei buruz eta Ukrainako **moldaviarrei** buruz mintzatu dira. Berria - Harian

## **moldavo** iz errumanierak Moldavian hartzen duen izena.

Islandieraz eta **moldavoz** defenditzen naiz, Reyjavikoko azentu markatuegia dudala leporatzen didaten arren. Jon Alonso

## moldazale ik **moldatzaile**.

## **molde** (*orobat molda g.er.*) 1 iz gauzaki barne-hustua, bertara isurtzen den oreari edo gai urtuari bere forma ematen diona.

Bi **molde** behar dira ezkilaren egiteko, edo biak buztin egosizkoak, edo bata buztinezkoa eta bestea burdinezkoa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ezkilaren barneko **moldea**, osoa; kanpokoa aldiz xilo batzurekin, metale urtuak botatzen dituen gazen edo laspelen eskapatzera uzteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Digitalizaziotik abiaturik, **molde** bat egiten dute, eta **moldetik** argizarian egingo dute obra. Berria - Kultura

Argizari puska batekin itzuli eta bi sarrailen **moldeak** egin zituen. Anton Garikano

Ondoren, hezur mineral ez eta gaixoaren hezur-muinez bete zuten **moldea**. Berria - Gaiak

Lau hilabeteko gora behera larrien ondotik, SAFAM lan eremuan enpresa berri bat abiatua da LF-Tech izenarekin, burdinezko **moldak** egiten. Herria

-Berunezko **moldeak** dituk horiek, konposiziorako letrak, hain zuzen -argitu dit orduan bertan lanean ari zen gazte batek-. Txillardeggi

Letra larriek **moldean** eginak dirudite, intsignietako letren modura. Itziar Otegi

Gainez egiten dik galdak zenbaitetan, **moldera** hustean. Koldo Izagirre

Paperean ere, berriz, aurrea eskuz, hurrena **moldez**. Joxerra Garzia

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beste neska batek ur-txorrotean hozten zituen **molde**-ontziak, eta bakoitzetik ezpain-margozko hogeii zilindrotxo gorribizi ateratzen zituen. Juan Garzia

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Letra-**moldeen** berun-mokorra ematen zitzaion berari, sendo irazki-liza batez inguratutik. Txillardeggi

Ekarri lokatza, oretu buztina, eta prestatu adreilu-**moldeak**. Elizen arteko biblia

Horregatik egin dudala argizari-**moldea**. Anton Garikano

Era guztietako pastiza-**moldeak**, azukre-kokorrak hartzeko pintzak, beste batzuk zainuriei eusteko [...]. Joxan Elosegi

### 4 irud/hed

Bertsoa osatu egin behar izaten da, ordea, silaben **moldeak** ahotsez bete. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Petatea bere buruaren **molde** bihurtu da gauzez: zulo ederra egin dio. Harkaitz Cano

### 5 modua, era.

Bertan ez da ageri zalantzarik, inondik ere, ordu arteko kristau esperientziaren **moldea** kolokan jarriko duenik, nahiz eta **molde** hori pitatzan hasia zegoen. Patxi Altuna

Berto horien **moldea** eta zintoabidea ahozko dirak akaso, akaso ez dira bat-batean sortutako bertsoak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

San Medardo, Medar, Mederi, Medel eta Emeterio, **molde** horietara egokitu izan da bere izena. **Pello Zabala**

Geldi egonean ematen zituen ordu luzeetan, **molde** guztietako torturak irudikatzen zituen. ezerezetik sortutako hiri horren plaza eta auzoetan **molde** guztietako txerpolariak pilatzen ziren. **Patxi Zubizarreta**

Gela hura tankera jakin batekoa zen, zeren ostataua bera ere tankera jakin batekoa zen, probintzi hiriburuetako ostatu guztien **molde** berekoa alegia. **Jose Morales**

Garaiko idazleek erabiltzen zuten latinezko "cursus"aren arauen **moldera** eratu. **Askoren artean**

Joseph Cartaphilus antikuariok, Esmirnakoa bera, Pope-ren lliadaren sei liburukiak, laurden txiki **moldean** argitaraturikoak (1715-1720), eskaini zizkion Lucinge-ko printzesari. **Juan Garzia**

Izan nadila ene **moldeko** azken apeza. **Piarres Aintziart**

## 6 (izenondoekin)

Sos zerbaiten irabazteko joaiten ginen **molde** hits horietan mendiari gora, zeren eta, gure gazte denboran gerla ondoa zen oraino eta aukera guti genuen beste gisan sos batzuren irabazteko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Legeei dagokie, gai bakoitzean, oinarrizko arauak eta **molde** berezkoak finkatzea. **Andres Urrutia**

**Molde** zaharreko katoliko tipikoa zen. **Joseba Urteaga**

**Molde** handiko bertsoetan, bertsolariak neurriari dagokion beste arau bat ere bete behar du: etena. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

**Molde** txikiaren kasuan, ez da arraroa azken bi puntuak osorik hartzen dituzten argudioekin topo egitea. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

**Molde** metriko nagusian behinik behin (5/5-8 silaba). **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

**Molde** monastikoak hausten zituen bizimodu ibiltaria, jende arruntarekin biziz eta eskuz lan eginez. **Askoren artean**

Frantziskotar mugimenduaren originaltasunaz mintzo zaigu, tradizioko **molde** aszetiko zaharrak puskatzen dituenaz. **Askoren artean**

**molde** zaharrean opil berria egitea hobe izango da beti, **molde** berriari opil zaharra egitea baino. **Joxerra Garzia**

**Molde** huts, ohitura zaharkitu, errutina bihurtu da aste santua **Joxerra Garzia**

## 7 (izenondoekin, izenondoak –n atzikia hartzen duela)

Kasetaren lanean **molde** zaharrean ari ginen Cordeliers karrikan duela 30 bat urte. **Herria**

Azaltzen zuen zein **molde** errazean hamar mila kidetako batailoiak desarmatu, zaldi ederrak kalitu eta gerla-tresnak berenganatu zituzten alemanek, borrokarik gabe kasik. **Itxaro Borda**

Botere laikoa aldez, naturazkoa baita, **molde** naturalean, tipitik eta eskasetik abiatu, erran daiteke aitzinatuko dela, etxe soiletik etxe multzora. **Piarres Xarriton**

Joanto deliberatua zen bere kargua **molde** arras eraginkorrean bete zezakeela erakustera. **Elena Touyarou**

Bentaren jabeak asto ttipi bat utzi zien eta Mathieu apezak bidaia **molde** aski erosoan egin ahal izan zuen. **Elena Touyarou**

Kalte itzela dator, bestaldetik ere, erregistroaren eskubideak, neurrikoak nahiz gehiegizkoak izan, **molde** eztabaidatsuan batzen direnean. **Andres Urrutia**

## 8 (-tzeko atzikiarekin)

Bazuen begiratzeko eta mintzatzeko **molde** bat, segidan lasaitzen zintuena. **Daniel Landart**

-Gorrotagarria zait jendearengana hurreratzeko **molde** hori -neskak, furfuriar arrapostu-. **Patxi Zubizarreta**

Beste jostatzeko **molde** bat: birak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hala ere, otoiiz egiteko **molde** asko dago. **Patxi Zubizarreta**

Unamuno-rentzat historia ikusteko **molde** hau (nahiz esaldi batzuetan Hegel-en oihartzuna sumatzen dela pentsa litekeen) berri-berria da eta, batez ere, zientzia positiboa da. **Joxe Azurmendi**

Hizkuntza ikusteko **molde** hau guztiz ahaltsua eta orokorra da. horixe da, nonbait, gure amodioa, eraspenna edo atxikimendua (nolazpait esateagatik) hitzetan dantzazteko **moldea**. **Itziar Laka**

## 9 (erlatibozko perpaus baten eskuinean)

Nahi nuke euskalkiak bizi dituen gaur egungo gizartean diren **molde** berean, jendea mintza dadin bere euskalkietan. **Menane Oxandabaratx**

Zarpatsuak elkarri begira geratu ziren, eszena hura hartzen ari zen **moldearekin** pozturik bezala. **Josu Zabaleta**

Eta denbora horixe nahi luke presoak geldiarazi, bideo batean irudiarekin egiten den **moldean**, eta hala ukan -irudi hormatua- handik jalgi arte. **Xabier Montoia**

Aberriaren eta Gobernuaren aurrean gara erantzule hala gure egiteko handia gauzatzeko hartu dugun ideiaz nola berori garatzeko behar izan dugun **moldeaz**. **Andres Urrutia**

Xeheki eta malgu ematen digu gertaerek sentimenduak aldatzeko duten **moldeen** berri. **Markos Zapiain**

## 10 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Harendako josteta-**molde** bat zen hori guztia. **Aingeru Epaltza**

Baina adinen diferentzia maila horretakoa denean, beste tratu-**molde** bat sortzen da, sendoagoa, ene ustez. **Txillardegi**

Eugin zuten lehenik estrenatua lan **molde** hori. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Antzinako kontuak ziruditen, antzinako jokabideak, antzinako jende-**moldea**. **Juan Kruz Igerabide**

Eta jarraitzen du erakasle **moldean**. **Michel Oronoz**

Letra **molde** dotorez idatzia, tinta urdinez. **Unai Elorriaga**

Obra klasiko bat itzultzeko, zer egokiago prosa-**molde** klasiko erabiltzea baino? **Patxi Altuna**

Egituraz neurri desberdina badute ere, bertso-**molde** hauetan esaldiaren luze-laburra beti da beretsua. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Taxuzko kultura ikerketarik egingo bada, ordea, testuinguru eta guztiko ikerketak behar dira, komunikazio **molde** nagusiokin batera daragiten gainerako faktoreen eragina zehaztuko dituzten ikerketak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

"Zuk zer nahi, horixe egingo dut!", izan ere berak ez baitzuen amodio **molde** hura ezagutzen. **Eiizen arteko biblia**

Literatur **molde** eta forma-ezaugarri aski ezberdinetako testuak dira. **Askoren artean**

Ez nintzen sekula top-model **moldean** itxuratuta, baina itsusia nintzela entzutea ez zitzaidan agradatzen. **Itxaro Borda**

Apezak herrietarik kanpo bizi ziren eta, norbait hiltzen zenean, familiakoek gizon sainduaren mugikorreko mezugailuan SMS **moldeko** abisua uzteaz beste erremediorik ez zuten. **Itxaro Borda**

Aratseko 9-etan, Donamaria ikastegian, sagarnotegi **moldeko** afaria,20 eurotan jende bakoitz. **Herria**

## 11 eredu.

Anaia maite-maiteok, **molde** eta eredu izan behar dut anaia guztientzat. **Askoren artean**

Anaia guztientzat **molde** eta etsenplu izan behar zuelako, uko egiten zien, ez sendabideei bakarrik, baita gaixoardietan beharrezko zituen janariei ere. **Askoren artean**

## 12 pl/ manerak.

Herriko handikien **moldeak** gogorarazten zizkidan gizon lar jantzi hari begirunez hitz egin zion Basurtoko Joan Sanzek. **Edorta Jimenez**

Eskuak zuriak eta txikiak zituen, soin-egitura hauskorra, ahots isila eta **molde** oso araztuak. **Irene Aldasoro**

Guztiz atsegin, ongietorriko irribarre batekin, tarteka kuia-kriseiluaren antzeko hortzeria hura erakutsiz, jendetasunaren eta **molde** onen eredu berbera. **Oskar Arana**

Lisak bere **molde** geldi bareak hartu zituen berriro. **Karlos Zabala**

Berlusgoñiren **molde** onak harriztekoak ziren, benetan. **Jon Alonso**

## 13 hizketa-molde

Gero, Müller jaunari zuzendu zitzaion **hizketa-molde** arras bereziz, ia ezpainak mugitu ere egin gabe eta kasik bere kolporako. **Anjel Lertxundi**

Neskata **hizketa** molde oldarkorrez erresumindu zitzaion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

-Eta **hizketa** moldea aldatuz, gaineratu zuen-; zergatik zoaz horren azkar? Gazteak, isiltasuna kalearen amaieraraino luzatzearen beldur, **hizketa** molde erregutzailez, berriro xuxurlatu zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Gizonaren **hizketa** moldeari halako barkamen kutsua hartu zion. **Patxi Zubizarreta**

## 14 moldeko hitz

**Moldeko hitzek** igeri egiten zuten sakabanaturik, lore japoniarren modura. **Lopez de Arana**

Eguberritako prefazioaren **moldeko hitzak** : *per hunc in invisibilium amorem rapiamur.* **Askoren artean**

## 15 moldeko letra

**Moldeko letraz** idatzita legoke, igandeko alean argitaratzeko xafletan grabatua. **Lopez de Arana**

Nicolao Landuchioren Dictionarium linguae cantabrae hiztegia berandu arte ez zen **moldeko letretan** ipini. **Berria - Kultura**

Horretaz galdetu nionean, esan zidan ukituz ikasia zuela alfabetoa eskolan, **moldeko letrak** edo letra ebakiak erabiliz, itsuei irakasteak. **Xabier Olarra**

## 16 moldeko ogi

**Moldeko ogia** , botila bat ardo eta lata pare bat dakartzala atera da handik. **Aingeru Epaltza**

Dendariak gure ordenadorean sartuko dira, dilistez, olioz eta **moldeko ogiz** nola gabiltzan jakiteko. **Edorta Agirre**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**aski molde** onean (4); **bertso molde** (7); **bizi molde** (18); **bizitzeko molde** (5); **borroka molde** (11); **diskurtso molde** (4); **egin molde** (4); **egiteko molde** (16); **erran molde** (6); **halako hizketa molde** (6); **hizketa molde** (62); **hizketa molde gaitzesgarria** (4); **hizketa molde gaitzesgarritz** (5); **hizketa molde mehatxatzailez** (4); **ikus molde** (10); **joka molde** (13); **lan molde** (5); **mintza molde** (5); **mintzatzeko molde** (5)

**molde anitzeko** (4); **molde asko** (5); **molde askotako** (8); **molde bakarra** (5); **molde bera** (5); **molde berean** (52); **molde bereko** (10); **molde berekoa** (4); **molde berezi** (34); **molde berezi batean** (4); **molde berezi batez** (25); **molde berezian** (8); **molde berri** (20); **molde berri batean** (5); **molde berriak** (15); **molde berriko** (4); **molde bertsuan** (16); **molde desberdinak** (5); **molde desberdinetan** (5); **molde ederrean** (7); **molde ederrenean** (5); **molde egokian** (4); **molde egokiaren** (4); **molde eta eredu** (13); **molde gaitzean** (8); **molde gaitzesgarria** (4); **molde gaitzesgarria erabiliz** (4); **molde gaitzesgarritz** (5); **molde hoberean** (6); **molde hobereanean** (6); **molde jarraikian** (4); **molde librean** (4); **molde mehatxatzailez** (4); **molde ona** (5); **molde onean** (17); **molde onean dabilta** (4); **molde txar** (6); **molde txarrak** (8); **molde umoretsuan** (6); **molde zaharreko** (4)

**bizi moldea** (14); **bizitzeko moldea** (13); **egiteko moldea** (21); **hizketa moldea** (8); **ibil moldea** (4); **ikus moldea** (11); **ikusteko moldea** (4); **joka moldea** (11); **lan moldea** (4); **ukaiteko moldea** (5)

**bizi moldeak** (11); **egin moldeak** (4); **egiteko moldeak** (5); **ikus moldeak** (11); **lan moldeak** (6); **moduak eta moldeak** (6); **moldeak aldatu** (4)

**bizi moldean** (7); **joitea lehengo moldean** (4); **lehengo moldean** (6)

**ebanjelio santuko moldearen** (9)

**bizi moldeaz** (4)

**aldez edo moldez** (77); **aldez eta moldez** (4); **beste moldez** (6); **bizi moldez** (5); **halako moldez** (264); **halako moldez egiten** (7); **halako moldez non** (107); **mila moldez** (6); **moldez egiten** (7); **oldez edo moldez** (4)

## moldeaketa iz moldeatzea.

Organofosfatotan oinarritutako babesa duen poliamidaren fusio-indizea pixka bat jaisten bada ere [...] nahiko balio altuetan mantentzen da eta honek injekzio bidezko

**moldeaketan** garrantzia handia du, energia gutxiago gastatu baita materiala prozesatzerakoan. **Berria - Gaiak**

## moldeatu, moldea, moldeatzen (orobat *moldetu g.er. eta moldekatu g.er.*) 1 du ad gai jakin bati nahi den forma eman; forma jakin bati egokitu. ik **moldatu 4**.

Erremerariak burdin puska hartu eta, txingarretan goriturik, mailuka **moldeatzen** du, beso indartsuz lantzen. **Elizen arteko biblia**

Buztina eltzegilearen eskuetan nola -berak nahi bezala **moldeatzen** baitu-, hala gizakia egilearen eskuetan: bere erabakiaren arabera ematen dio bakoitzari. **Elizen arteko biblia**

Eltzegilea buztin biguna lantzen saiatzen da eta eguneroko premietarako ontziak **moldeatzen** ditu; era berean eta buztin berberaz **moldeatzen** ditu, bai erabilera garbitarako direnak, bai eta kontrakoetarakoak ere. **Elizen arteko biblia**

Arrantzarako berunak egiteko eta **moldeatzeko** burdinazko kutxak. **Jon Maia**

Honek jaso, urrea urtu eta, zizelez landuz, zekor-irudia **moldeatu** zuen. **Elizen arteko biblia**

## 2 irud/hed

Amaren sabelean izan nintzen haragitan **moldeatua** . **Elizen arteko biblia**

Gizakiaren bihotzak aurpegia **moldeatzen** du: onean nahiz txarrean aldatzen. **Elizen arteko biblia**

Gizaera, nortasuna, nor bere baitan daraman demonioak **moldetzen** baitu. **Patziku Perurena**

Zeltek kristautasuna **moldeatu** zuten beren gizarte-ondare barbarora egokitzeke. **Iñaki Mendiguren**

Hortik behar geniek atera badela jainko bat gure xedeak **moldekatzen** dituen, gure zirriborro baldarrak gora-behera... **Juan Garzia**

## 3 moldatu, egokitu.

Lehen lan-zuzenbideak langilearen defentsa baldin bazuen helburu, egun, bere konnotazio babesgarri guztiak galdu ditu, zuzenbidea enpresen lehiakortasunaren eta irabazien zerbitzura **moldeatu** behar delarik. **Berria - Euskal Herria**

## moldeatzaile iz aipatzen dena moldeatzen duen pertsona.

Idolo-**moldeatzaileak** hutsa dira denak, hain estimatuak dituzten irudiak ezertarako ez. Horien gurtzaileak itsu eta burugabe; horregatik, lotsagarri geldituko dira. **Elizen arteko biblia**

## moldegabe (orobat *moldagabe g.er.*) 1 izond molde edo itxurarik ez duena.

Nire aldamenean bertan objektu **moldegabe** bat azaldu zitzaidan berehala begi-bistan: eskalapoia. **Urtzi Urrutikoetxea**

Frantses estiloko eleberririk horietakoak ziren; eleberririk pornografikoak, **moldegabeak** , halako ukitu psikologiko batekin, militarrentzat, ikasleentzat eta burubide gutxiko jendearentzat eginak. **Josu Zabaleta**

Gainerakoek isilik estutu zioten elkarri eskua, izotza bezain hotza batzuen, sua bezain beroa besteena, eta isilik, elkarri ez begiratzeko ahaleginak eginez, talde **moldegabea** eratuz elkarganatu ziren. **Jose Morales**

Haxixa saltzera etorritako tunisiar bat zen Beshir hura, azkenean **moldagabeen** eta baztertuen leku hartan gelditu zena. **Fernando Rey**

## 2 moldakaitza.

Lodikotea, **moldegabea** , inoxoa eta aurpegi pikorrez emokatua, taldeko gainerako lagunek [...] ez zuten begiko zikina baino gehiago nahi beren inguruan, are gutiago asteburuetan neskatara ateratzen ginelarik. **Aingeru Epaltza**

## 3 (adizlagun gisa) ik **moldegabeki**.

Zur lodiak, ohol lodiak, iitze lodiak dauzka, duela hirurehun urte **moldegabe** doituak eta josiak; dardara egiten dute zaharrez eta hala ere badute sendoik eta ikaragarritik.

**Koldo Izagirre**



## moldegabeki *adlag* molde edo itxurarik gabe.

Lurra lantzeko eta haren gainean dagoenaz aski **moldegabeki** baliatzeko doi-doi gara gai. Josu Zabaleta

## moldegaikeria *iz*

**Moldegaikeriak** ez dira hortan ürentü, bena ez düt ene paper hau sobera lüzatü nahi. Herria

## moldegaitz *izond ipar* moldakaitza.

Arren bazter bedi "türketa" **moldegaitz** hori. Herria

Mutiko hori arrunt **moldegaitza** duzu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Erran nion Jainkoari, nigar-purpuilak begietan, hil nintzala eta akaba nintzala molderik **moldegaitzanean**. Joan Mari Irigoien

## moldegaiztoko *izlag* molde gaiztokoa.

Handik aurrera, oihan sarriko lur basati honetan, nonahi ikusiko zen gizonaren oin pareta, **moldegaiztoko** arbol bakartu eta adarrokerren batetik zintziik, lurrean harat honat alfer ibilian nekatu eta erretiro hartu ondoren, jubileoan bezala haize boladen ariora dilindan, begi eta min gabe, bele eta belenabar karrankariek urratu eta zitzigabetua,

Patziku Perurena

## moldekaizki ik moldakaizki.

## moldekatu, moldeka(tu), moldekatzen du *ad* gai jakin bati nahi den forma eman; forma jakin bati egokitu. ikmoldeatu; moldatu 4.

San Hieronimok dioenez, ukitu gabeko argizariak, biguna denean eta berarekin behar dena eta nahi dena egiteko prest, bere baitan du argizariaz **moldeka** litekeen guztia, nahiz eta inork landu ez. Joan Mari Lekuona

Berak itzuli digu guk gizakiaren erruz paradisuari galdu genuena: Aitak bere antzera **moldekatu** zuen irudi noblea. Joan Mari Lekuona

Hortik behar geniek atera badela jainko bat gure xedeak **moldekatzen** dituen, gure zirriborro baldarrak gora-behera... Juan Garzia

## moldelan *iz* moldezko lana.

Aurkitu zuen lehen besaulkian eseri zen; bizar nahasia eskuan pausatu, eta, bere baitara bildurik, gogoeta sakon eta lasaian murgildurik, sabai ezezaguneko **moldelanetan** josi zituen begiak. Jose Morales

## moldetasun *iz*

Zenbatetan ez ote dut gogoratu zer eragin duen bizilekuak jendearen izaeran eta **moldetasunean** ! Josu Zabaleta

## moldetu ik moldeatu.

## moldiztatu, moldizta, moldiztatzan du *ad* moldeko letretan jarri.

Barchini paper-saltzaile eta tipografo zaharrak bost ordu eman zituen **moldiztatzan**, eta azkenerako jota eta logura menderatu ezinik zegoen. Koldo Biguri

Barchini paper-saltzaile eta tipografo zaharrak bost ordu eman zituen **moldiztatzan**, eta azkenerako jota eta logura menderatu ezinik zegoen. Koldo Biguri

## moldiztegi *iz* inprimategia.

**Moldiztegia** prest egon bezain laster aterako diagu lehendabiziko alea. Txillardegi

"El Cuartel Real"en agerketa berehala abiatuko zelakoan, **moldiztegitxo** garraiarri horietako bat eskaini zidan Cristóbal Pérez zuzendari teknikoak. Txillardegi

## moldiztegitxo *iz* imprimatzeko makina txikia.

"El Cuartel Real"en agerketa berehala abiatuko zelakoan, **moldiztegitxo** garraiarri horietako bat eskaini zidan Cristóbal Pérez zuzendari teknikoak. Txillardegi

## moldura 1 *iz* profil beti-bateko apaingarri luzetarakoa.

Ornamentazio aldetik ere aparta zen etxebizitza, bikaina: friso, **moldura**, burdinazko zutabe, kapitel neoklasikoak... Patxi Iturritegi

Tenpluen saihetsetako erlaitzen gainean jartzen diren sima edo **molduretan**, lehoi-buruak zizelkatuko dira, era honetan banatuta: [...]. Santiago Iruretagoiena

Ate zuria zuen, **moldura** doratukoa. Matías Múgica

Gure museoetan koadroak inguratzu ikusi ohi dugun **moldura** XVI. mendetik aurrera erabili izan da batez ere. Josu Zabaleta

Gela handi hura [...] oihal javatar eta kaobazko **moldurez** apaindurik zegoen. Lopez de Arana

## 2 (hitz elkartuetan)

Kapitel joniarraren balteo edo zirrinda-**moldurek** honela izan behar dute proiektzioa: [...]. Santiago Iruretagoiena

## mole *iz* oso dimentsio handietako gauza.

Adarlatz hegoaldean, Irensaga **mole** horzduna eta, bi hauen artean, zaldizkoen aurrean, Dwimorberg harresi beltz eta zorigaitzekoa, Espektroen Mendia, izei ilunez beteriko aldapa maldatsuen artean gora egiten zuena. Lezo herriak [...] eliza gotiko eder bat dauka **mole** single eta dotore batekin; gotorleku bat dela esan liteke. Eiffel baino txikiagoa

da, apalagoa, baina Agustin Otsoa

## molekula 1 iz lotura kimokoz elkarturiko atomo multzoa.

Proteina guztiak oso **molekula** handiak dituzte. Irene Aldasoro

ADN da, hain zuzen ere, geneak biltzen dituen **molekula** luze bat eta barruan ditu milaka milioi (3.000 batzuen uestez, 7.000 beste batzuen uestez) letra kimiko. Pello Salaburu

**Molekulak** hartu eta bakterio sinpleenak baino sinpleagoak diren izakiak sortzen saiatzen gara. Berria - Gaiak

Usaimen-pigmentuaren **molekula** bateko elektroio batek. Irene Aldasoro

Beharrezkoa da **molekulen** arteko eragin-trukeen espezifikotasunari eustea. Juan Garzia

Erradiazio ultramoreak energia nahikoa dauka **molekulen** antolamendua nahasteko eta zelula biziak kaltetzeko. Irene Aldasoro

Geneen adierazpena kiribil erregulatzailerik modulatzten dute; askotariko **molekulek** har dezakete parte kiribilotan, eta gai dira, horrenbestez, gene baten jarduna, harexena zehazki, abiarazi nahiz eragozteko. Juan Garzia

Alzheimerren plakak inhibitzen dituen **molekula** bat garatu dute. Berria - Gaiak

**Molekulak**, ugalketa eta eboluzioaren brikolajea ditugu hemen hizpide. Juan Garzia

Zergatik agertzen ziren sarritan minbizietan **molekula** batzuk, proteina batzuk, organismo helduan ez bezalakoak. Juan Garzia

Lubrikagarri-geruza mehe-mehe bat (**molekula** baten lodierakoa edo) atxikitzen zaio frikzioa jasan behar duen gainazal bakoitzari estuki. Irene Aldasoro

**Molekula** batzuek dipolo elektriko bat daramate beren baitan. Juan Garzia

Glukosa hori odol-ibiliki giharre-zunzño bateraino garraiatu, eta han gogorki zatitua gertatu zen bi **molekula** azido laktikotan. Juan Garzia

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik molekular.

Legamiatik hasi eta gizakiraino, badira zenbait **molekula** talde beren horretan dirautenak, beren kargu baitituzte estu loturiko molekulek funtzio orokor batzuk, hala nola zelula-erdi bitzea edo mintzetik zelularen gunera seinaleak igortzea. Juan Garzia

Gu bezala txakurra osatzen duten zelula-mulkoak eta **molekula**-bilgoak. Juan Garzia

Ez du **molekula**-desberdintasunak egiten ugaztun bat beste bat ez bezalako. Juan Garzia

Proiektuaren izena **Molekula** Lantegia da, eta haren bidez, zientzialariak hainbat botikaren ekoizpena ikertzen ari dira, gero landareetan txertatzeko. Berria - Gaiak

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Cesarrek zigarro bat erretzen zuen bitartean azaltzen zizkigun kalkulu integralaren xehetasunak edota karbono **molekulen** egitura. Bernardo Atxaga

Zenbait gertakari aurreikusteko ezina, hala nola gas **molekula** baten portaera edo sortzeko den bizidun alearen genotipoa. Juan Garzia

Airean, nahiko txikiak izaten dira presio-aldaketak, eta anplitudea, hau da, bibrazioen ondorioz aire-**molekulek** ibilitako distantzia, nahiko handia. Irene Aldasoro

Egoera horretan, alboen eta kapilarren artean dauden paretetatik zehar barreiatzen da oxigenoa odolera, eta, odolera ezkerko, globulu gorrietako hemoglobina-**molekulek** harrapatzen dute berehalaxe. Irene Aldasoro

Sintesi-**molekula** soilen botereaz. Itxaro Borda

Makilek eta konoek pigmentu **molekulak** dituzte (4 milioi inguru makila bakoitzak). Josu Zabaleta

Zirkulazioaren parte batek gibelera eramaten ditu digestio-hoditik xurgaturiko elikagai **molekulak**. Irene Aldasoro

RNA **molekularen** helize bikoitzean dauden instrukzio kodetuek arautzen dute gorputzeko zelulen proteina-ekoizpena. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adn molekula** (3); **erretineno molekula** (3); **gas molekula** (3)

**ur molekula** (3)

## molekuladun izlag molekula duena; molekulak dituen.

Eta biziduna osatzen duten materiako **molekuladun** zelulek ezin digute ahaztarazi izaki biziduna ari garela aztertzen. Jenaro Garate

## molekular 1 izond molekularrena, molekulari dagokiona. ik molekula 2.

Pisu **molekular** baxuko polietilenoa. Berria - Gaiak

Klariona hartu zuen berriro, irudi bat osatzeko, egitura **molekular** baten antzeko zerbait marraztuz. beraiek izan dira lehenengoak teknika **molekularra** erabiltzen, zentzumenaren funtzionamendua argitzekeo. Fernando Morillo

Luze bizi den espezie bat denbora gutxi bizi den beste batekin parekatzen baduzu, diferentzia handiak aurkitzen dituzu haien erloju **molekularretan**. Berria - Gaiak

Bi teknika uztartzen ditu: *in vitro* ernalkuntza eta diagnostiko **molekularra**. Berria - Gaiak

Genetika **molekularrak** bidea emanagatik bakterio-zelularen barren-barreneraino sartzeko, irismenetik kanpo geratzen ziren organismo konplexuak. Juan Garzia

Biologia **molekularrak** agerian jarri zuen zelularen funtzionamendua gobernatzen duten sistema genetikoaren eta oinarriko mekanismoen batasuna. Juan Garzia

Zentzuko xeago dirudite kontakizun mitikoek, biokimikari eta biologo **molekularren** solasek baino. Juan Garzia

Hortik, bada, brikolaje **molekularren** bigarren bidea: ADN zatiak, exonak, berregokitzea mosaiko-proteinak eratzeko. Juan Garzia

## 2 irud/hed

Bere argazkiak orain nik egin ditudan koadroen osagai **molekularrak** dira. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pisu molekular** (3); **txakur molekular** (3)

**biologia molekularra** (7); **teknika molekularra** (3)

**biologia molekularrak** (3)

**biologia molekularren** (8); **genetika molekularren** (3)

**biologia molekularreko** (3)

## molekulatxo iz adkor molekula txikia.

Hodei partikulatxoak, pixkaka, elektrizitatez kutsatzen doaz: **molekulatxoak** abian gora eta behera hasi direneko, eta ur-tantak goraka jeltzen direneko, txoke eta tupust dabiltz, jeltxo eta izotz txintzarrok, hodeiaren masa hori elektrizitatez kutsatzen. Pello Zabala

## molestagarri izond molestatzen duena, gogaikarria.

Edo hori da hori zinizmoa: ez beza datu xume eta **molestagarri** batek gure Frantziaren irudi loriazkoa lausotu. Edorta Jimenez

# molestatu, molesta, molestatzen du *ad* norbaiten lasaitasuna edo ongizatea asaldatu. ik **eragotzi**.

Inork ez zaitu **molestatuko**. [Anjel Lertxundi](#)

Ganbaran ez dago telefonorik eta ez nau inork **molestatzen**. [Ana Urkiza](#)

Galderak **molestatu** egin ninduela pentsatu balu bezala. [Bernardo Atxaga](#)

Lege horren bitartez, zor diguten dirua jasotzeko aukera geneukan alargunok, baina horrek UPN **molestatzen** omen zuen, eta Auzitegi Konstituzionalean helegitea aurkeztu zuten. [Berria - Ekonomia](#)

Ez, musikak ez dit **molestatzen**. [Iban Zaldúa](#)

Hainbeste urte eta hainbeste lan egin ondoren, **molestatzen** al dizu 'El florido pensil'-i buruz galdetzeak? [Berria - Kultura](#)

Berdin zio, horrek ez zidak asko **molestatu**, mintu nauena izan duk... [Pako Aristi](#)

Dirudienez, herriko giroa da gehien **molestatzen** diena. [Berria - Euskal Herria](#)

-Barkatu, jauna, ez zintudan **molestatu** nahi. [Monika Etxebarria](#)

Kontuz ibili beharra zegoen eskuargiarekin, ikuslea gehitxo **molestatu** gabe. [Karlos Linazasoro](#)

Han sartuta, inork **molestatu** gabe, pare bat ordu egiten nituen lo egunero. [Jon Maia](#)

Ez dut ezer zikintzen, ez dut **molestatzen**, baina hortxe nago beti, Jainko bat bezain isil eta harro. [Karlos Linazasoro](#)

Peterrek agindu zuen ez **molestatzeko** txoria. [Julen Gabiria](#)

-Baina zer ordu da hau inor **molestatzen** ibiltzeko? [Askoren artean](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**inork molestatu gabe** (3)

**asko molestatzen** (4)

## molestia *iz* eragozpena.

**-Molestia** handia ez bada... [Jon Arretxe](#)

Ez zenuen horrelako **molestiarik** hartu beharrik. [Joxemari Urteaga](#)

Harrezkero ez dut inolako **molestiarik** sentitu, eta atzean utzi ditut. [Berria - Kirola](#)

## molesto *izond* molestatzen duena, gogaikarria.

Sentimenak gozaten dituen ezer ez baita sortua izan bere lehenkietan lisutasunik gabe; aitzitik, ordea, **molestoa** eta latza den guztiak materiaren nolabaiteko zakartasuna ageri du. [Xabier Amuriza](#)

## moleta *iz ipar* arrautzopila.

Izeba arraultze **moleta** biperrekin prestatzen ari zen. [Eneko Bidegain](#)

Arraultze **moleta** bakalauarekin, txuleta, gasna eta intxaurrak, sagarinoa nahi bezenbat. [Herria](#)

Eguerditan bazkaria (bakalau **moleta**, xuleta, gasna, bixkotx, kafe, ondoko) 20 eurotan. [Herria](#)

Legatza **moletan**, behiki kosteleta, entselada, gasna, izozkia, kafe ta patxarana Publikoa gomit da "Cercle Taurin" ostatura **moleta** biperdun horien dastatzera aperitifia xorta batekin, dena urririk. [Herria](#)

Hona nola ingura lezakeen biper **moleta** on bat: biperra eta arraultzekin batera artekia finki xehatua eman barnera, tipula eta baratxuria, ogi xigortua. [Herria](#)

Aratsean arrollte **moleta** lehiaketa. [Herria](#)

Gero, bi ogi pusken artean arrollte **moleta** baratzeko biperrekin janik, xahakoak hiruzpalau itzuli eginik -bakoitzak bere etxeko arnoa jastarazteko doia, auzokoarenekin konparatzeko- abiatu ziren berriz beheiti gizonak, bi lerrotan, kantikak eta arrosario hamarrekoak aldizkatuz. [Michel Oronoz](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arraultze moleta** (7); **arrollte moleta** (27); **arrollte moleta handia** (3); **arrollte moleta lehiaketa** (4); **biper arraultze moleta** (3); **biper moleta** (3); **moleta biperrekin** (3); **moleta lehiaketa** (6)

## molko ik **mulko**.

## molkoka ik **mulkoka**.

## molla ik **moila**.

## mollah *iz*

Ez dut uste hola jokutzen zirela delako **mollah** horiek. [Herria](#)

Alproja kasta horrek ez die behar bezalako begirunerik eta ez ditu mantentzen behar bezala honako hauek: sagaratuak, elizgizonak, aita santuak, parrokoak, artzainak, kaloneak, monjeak, **mollahak**, vuduzaleak, presbiteroak, hierofanteak, prelatuak, [...] [Xabier Olarra](#)

## molokot

### 1 **molokot egin** porrot egin.

Neguriko dirudunen enborreko ezpal galdua, **molokot** eginda bukatu zuen. [Edorta Jimenez](#)

## moltsa 1 *iz ipar* poltsa.

Xehe xeheki miazten gitzute, orduan galtzen ditut ene estilo urrestatua, lepoko gatea bere medailekin, muntra eta **moltsa**. [Michel Oronoz](#)

Erregearen ondoan zen jaun batek balusazko **moltsa** ttipi bat eman zautan, barnean urrezko medaila bat eta dirua. [Michel Oronoz](#)

-Dirua atzeko eserlekuan dago, **moltsaren** barruan. Gotzon Garate

Espainiako atera iristean, lehenak guarden buruari dokumentuz bete laruzko **moltsa** bat erakutsi zion: zibismo ageriak, etorkinak ez zirelako frogak, Jacques Laborde eta Denis Vincent herritarren izenean ziren susmagarritasun eza agertzen zuten paperak. Elena Touyarou

Familia batean nola berdin lantegi batean, xahutzen balinbaduzu **moltsan** edo kutxan duzun baino diru gehiago, zorrak egiten dituzu eta zor horiek behar dira gero pagatu.

Herría

Udan gaude: altxa bihotzak... eta idek **moltsak**. Herría

## 2 irud/hed

Bidarrin ere eresia du Xahatonea etxaldea, bere berrogoi bat hektarekin, hor ere **moltsa** araberakoa duen jende handierari egoitza eder bat eskaintzeko xedearekin.

Herría

Parropiako behar guzientzat beren bihotza eta **moltsa** gogo onez zabaldu duten guzieri. Herría

Hamargarren urtekotz gure herrian egun horren moldatzeaz arduratu direnek eskerrak bihurtu nahi dituzte beren lana, **moltsa** eta beren bihotzak hoin jeneroski ideki eta zabaldu dituzten herritarrei. Herría

Salmenten sosa SS-en **moltsara** zihoan, presoei kendu gauza balios guziak bezala. Marzel Etxehandi

Heiek ez dute beren herria maite, heiek beren **moltsa** zuten maite eta heiek beren orgulua eta beren aitzinamendua zuten maite... Menane Oxandabaratx

Baxenabarreko langurien aspalditik ulertu dute Europan erabakitzen dena beren eguneroko biziari eta **moltsari** lotua dela. Berria - Euskal Herria

Azken kontseilu bilkuran berak erran duenez, Baionarekin zuzeneko ikustekorik ez duten beste bi kargu atxiki ditu: Baiona/Angelu/Miarritze elkargoko **moltsa** eta Errobiko ur sindikatu president kargua. Herría

## 3 estudio-moltsa beka.

Gazako alderat zoatzin hiru autoak, palestinar gazte ikasle batzueri ixtudio-**moltsa** batzuen eskaintzerat, israeldar irriatiak erran duenez. Herría

## moltsaño iz moltsa txikia.

Edo behar da sakelan **moltsaño** bat diru-paperez ongi hantua. Janbattitt Dirassar

## moltsero 1 iz ipar diruzaina.

Ondotik Beñat Durruty **moltseroak** eman ditu diru konduak. Herría

Anartean Mixel iturbide axuant **moltseroak** kargak arras tinkian atxiki baititu, ondorioz hiriaren zorra beheiti doa eta esku gain gehiago ateratzen dute inbestizamenduen egiteko. Herría

## 2 adkor

Aldaketa handiena, Nicolas Sarkozy ez dela gehiago barne-minixtro bainan **moltsero** handi, Dominique de Villepin aldiz barne-minixtro,askok diotelarik bestaldian gobernuburu jartzen ahal litakeela... Herría

Esquindarrek diote Henri Emmanuelli landestar zozialixtak duela sua piztu, denen aintzinean erranik gobernuko **moltsero** nagusia "guignol" bat dela eta besterik ez!

Herría

## moltsa 1 iz multzoa, pila, bereziki nahasia.

Kontu handiz, hezur eta luma **moltsa** plastikozko poltsa batean sartu eta korapiloa eginda ixten du. Oskar Arana

Aurpegiak, aurpegi **moltsa** nahasia, aurpegi arteko berdintasuna, zarata, zalaparta zentzugabea . Eskarne Mujika

Bai arima nahastu eta behaztopatuez osatutako **moltsa** nabarra. Oskar Arana

Inoizko **moltsa** tristenetakoa bildu zitzaion kolkora, huts egindako gomutez eta usteldutako desirez kateaturikoa. Josu Landa

1940az geroztik, Amerika eta Europa arteko bidean soldaduak txango bakoitzeko hamar milako **moltsa** eramango ditu. Edorta Jimenez

## 2 irud/hed

**Moltsa** barra gainetik pasatu, eskuak garbitu eta adatsetik pasa ditu Maria Antoniak. Urtzi Urrutikoeetxea

Gelaren eguneroko ordena akatsgabea, zoruaren garbiketa kirten bati lotutako **moltsa** umelarekin, eguneroko ikatz-hornidura eta berogailua, anoa-banaketa eta koilaren eta plateren garbiketa. Urtzi Urrutikoeetxea

## moltsondo iz moltsa.

Eta beste hau: Urtarrila idorra, langurien **moltsondo** jori. Pello Zabala

## moltsotu, moltsotu, moltsoten du ad multzotu, pilatu. • (ore modukoa osatu)

Baina, gogoia beldur borititzagoak jotzean, arima osoa ere lohadarretan sentikide dela dakusgu eta gorputz osoan izerdiak eta zurbiltasuna datozela eta mihia **moltsotzen** eta abotsa iraungitzen dela, begiak iluntzen, belarriak furruntzen, lohadarrak makaltzen, hitz batez, inoiz gizakumeak lurjotzen ikusten ditugu gogoaren izuagatik; Xabier

Amuriza

## moltsu ik moltsu.

## molusku ik molusku.

## molusku *(orobat molusko g.er.) iz gorputz biguneko animalia ornogabea, segmenturik eta luzakin giltzaturik ez duena, eta ia beti maskor batek babesten duena; /p/ animalia horiek osatzen duten filiuma. ik soinbera.*

Zoofitoak eta **moluskuak** igerian eta ur-azalean daude, uhinen gardenean garden. Koldo Izagirre

Gaur egun oraindik bizi den *Nautilus* **moluskuaren** antzeko antigoaleko bizidun batzuen fosilak ziren, noski. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eraikitze lanen ondorioz, kaletako **molusku** kopuruak behera egin duela salatu dute ekologistek komunikatu baten bidez. Berria - Gaiak

Hango ura ere, ordea, beroa eta likatsua zen, ez gozoa, gazia, eta horra gure atzamarrak orain, alga-, gasolina-, **molusku**- eta ezin bereizizko usteldura-usain nahasia zeruela. Joxe Austin Arrieta

Hara, begiraiozue, **molusku** baten moduan, geldi-geldi eta txintik atera gabe. Patxi Iturritegi

Pago bati erantsita, onddo moduko bat dago, ardagai bat zinez baina laranja kolore bizikoa, harribitxi bat dirudiena, gema berezi bat, edo hobeto esanda, bere biguntasuna

momento ik **momentu**.

**momentu** (1698 agerraldi, 163 liburu eta 541 artikulutan; orobat **momento** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **momentu** agertzen) 1 iz oso denbora bitarte txikia, unea. ik **memento**<sup>1</sup>.

Denok gogora dezakegu gazte edo ero gineneko **momentu** bat. Anjel Lertxundi

**Momentu** bat, mutikote ederra, **momentu** bat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zaude **momentu** bat, enkarguaren bila noa-eta. Jasone Osoro

**Momentu** bat besterik ez da izango. Migel Angel Mintegi

Irudi zuen bizi zela eta **momentu** batetik bestera mintzatuko zitzaigula. Daniel Landart

**Momentu** bateko isilunea. Xabier Mendiguren Elizegi

Lehen **momentu** batean, berarentzat apropos sortutako Ekonomia katedra bat hartu zuen. Juan Martin Elexpuru

Oraina bizi du, **momentua**, eta txikitasunaren sakontasuna bilatzea eta aurkitzea du helburu. Ana Urkiza

Aukeratua zuen **momentua** eta lekua. Iban Zaldúa

-**Momentua** heldu da, adiskideok! Jon Arretxe

Baina hura ere ez zen hartarako **momentua**. Joan Mari Irigoien

Hainbeste egun eta gauez gutiziatu **momentua** etorri zen beraz. Daniel Landart

-Ondo, norbaitek zerbait esan nahi badu, hauxe da **momentua** -esan nuen-. Bernardo Atxaga

Heriotza hauxe baino ez da, azken **momentua**, hilko zarena ziurta dezakezun azken hotzikara. Joxerra Garzia

Ironia hori hizkuntzari eta idazketari buruzkoa bihurtzen da **momentu** askotan. Unai Elorriaga

**Momentu** horiek gogorarazi nahi zizkion Grettari. Irene Aldasoro

Gaizki pasatu nuen **momentu** haietan. berak ez lukeela **momentu** honetan nirekin hemen berbetan egon behar. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zirudien **momentu** hartan gai izan zitekeenik, baina auskalo. Ramon Saizarbitoria

Eta iruditu zitzaidan mirakulu hura **momentu** hartantxe gertatua zela, nik Lutezia, 9 zenbakia, bistatu nuen istantean. Matías Múgica

Galdu nuen unean, azken **momentu** hartan, zoriotsu zegoen bera alabaren ondoan. Joxan Elozegi

Gutxien espero dugun **momentuan**. Joan Mari Irigoien

ik *beherago* 4. Askoren artean

Josu R-ri barre txiki bat erne zitzaion, doi-doi Abenidaren muturrera iristen ari zen **momentuan**. Pedro Alberdi

Are urduriago jarri zen zirt edo zart egiteko **momentuan**. Joan Mari Irigoien

Iturbideri deitzeko puntuan egon zen, baina azken **momentuan** baztertu egin zuen asmoa. Migel Angel Mintegi

Barkatu **momentuko** haserrea -esan zidan gero-. Patxi Ezkiaga

Ez nuen dena pikutara bidali nahi azken **momentuko** zirtzilkeria batengatik. Aingeru Epaltza

'Roncoa' iragana da, bere soinu monotono eta aldaerarik gabekoarekin; 'punteiora' orainaren melodia da, **momentuko** emozioa adierazten duena. Pako Aristi

## 2 (izenondoekin)

Baina ez zen tokia, ez eta **momentu** egokia. Daniel Landart

-**Momentu** gogorrak pasatu ditiat -esan dizu-, eta heuk? Rafa Egiguren

Eta halere, **momentu** jakin batean, "orain bai" esan nuen. Arantxa Iturbe

**Momentu** onean zatoz, eta esertzeko keinua egin zidan frau Monikak. Anjel Lertxundi

Baina oso **momentu** txarrean harrapatzen nauzu. Patxi Zubizarreta

Oso **momentu** berezia zen: Sadam Husseinek Kuwait hartu berria zuen. Txema Ramirez de la Piscina

Ezin dut burutik kendu **momentu** ikaragarri hura. Karlos Zabala

Hura **momentu** zoragarria! Karlos Zabala

Antzezpeneren **momentu** gorena, fiskalak akusatua satortzat salatu, irakaslea negarrez hasi eta koruak erantzun zueneko gertatu zen: [...]. Anjel Lertxundi

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ahultasun **momentu** bat izan zen seguruenik baina, nire harridurarako, nire etxeko bidea harturik genuen oharu nintzenerako. Joxemari Iturralde

Zalantza **momentu** bat izan dut laukitxo horretara heltzean. Harkaitz Cano

Linok itsumen **momentu** hori izan ez balu, txorakeria hori egin izan ez balu... Harkaitz Cano

Emozio **momentua** goian, armak baterian eta guzti, baina guk nahikoa genian Bernd zutik jarri, lokatzez beteta, eta fusila itzuli... Josu Zabaleta

## 4 **momentuansup\_1** adlag istantean.

Ahots bat entzun nuen, **momentuan** ezagutu ez nuen arren ezagun egiten zitzaidana. Joan Mari Irigoien

Egia esan, **momentuan** edozein zentzarazpen mingarri da eta ez pozgarri; baina, gerora, zentzarazpenaren bidez zaildu direnek haren fruituak jasotzen dituzte: bakea eta bizitza zuzena. Elizen arteko biblia

Sufri ez dezan egiten dute, hartza **momentuan** hiltzen baita, izurik gabe. Bernardo Atxaga

Maketaren kopia bat zor didala gogorarazi diot eta hori behintzat **momentuan** eman dit. Harkaitz Cano

Ordurako, ni ez nintzen **momentuan** oharu baina, Mari, guttiz asperturik, nonbait, autora erretiratu zen. Joxemari Iturralde

Asmoa, gauzak **momentuan** egiten digun zirrarak eta gure buruak lehendik harekiko duen jarrerak erabakitzen dute. Juan Martin Elexpuru

Ezin bestela izan, **momentuan** asmatzen bainituen. Fernando Rey

Inor gutxi jabetu zen horretaz **momentuan**, baina telebista irudiak hor daude eta FIAk ez du ezer esan. Berria - Kirola

Egiten dugun lanaren emaitzak **momentuan** ikusten ditugu. Berria - Harian

**Momentuan**, Bruselara iritsi gara. Edorta Jimenez

## 5 **momentuansup\_2** momentu honetan.

**Momentuan** ba dirudi esne gutiago sartzten dela kanpotik honat, hala nola Aveyron aldetik, salmenten ttipitzea ez dutela oraino hemengo ardidunek sentitzen. Herria

**Momentuan** ez da alde horretarako delibramendu handirik gure inguruko hautetsien aldetik. alderdi politikoei **momentuan** interesatzen zaien jarrera hartzen dute. Herria

Oso era neurtu eta jakintsuan baliatzen ditu jostailuen maneia, **momentuan** hartutako irudiak, aurretiaz grabatutakoak eta antzezpena. Berria - Kultura

## 6 **momentu bateansup\_1** istantean.

Indaba! etorri hadi **momentu batean**... ero joan gaitezke hara **momentu batean**, tokia eta gauzak nola diren ikusi eta... Pablo Sastre

Eskuak ez zizun dar-dar egin, ezta **momentu batean** ere. Sonia Gonzalez

Joder, beldurru egin nauzu, **momentu batean** nor nintzen ere ez nekien. Eider Rodriguez



Gure arbasoen idurak, artosi **momifikatuak**, ez zaizkizu gustatzen? **Ramuntxo Etxeberri**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Iduritzen zait orain, apez erakasle gehienak fede **momifikatu** batean aterpetuak zirela. **Piarres Aintziart**

Tomista **momifikatu** edo fededun inoent baten argumentuak ez zaizkit aski. **Piarres Aintziart**

## momorro iz zomorroa.

Buf, letxuga-hostoak **momorroz** josita daude, bare txiki-txikiz beterik. **Eskarne Mujika**

Ezin ditu **momorro** guztiak nahi bezain azkar akabatu, eta berehala hanketatik gora igotzen hasi zaizkio. **Patxi Iturritegi**

## momorroi iz cf zomorroi.

Nire abokatua txanda eske joan zitzaion epaile jaunari, baina **momorroia** ez zegoen defentsari jaramon egiteko. **Koldo Izagirre**

## monada iz (filosofian) izakiaren unitate bakun eta zatiezina.

Platonentzat Ideia zenbakia zen: **Monada**, Diada, etab. **Askoren artean**

Zeren eta substantzia indibidual bakoitza hartuz, grekoen artean **monadak** deitzen direnak, eta elkarrekin batuz, hamar osatzen baitira. **Santiago Iruretagoiena**

Leibnizen arabera, dioena ulertua izatea nahi duen heinean, **monadak** materiari gabeko gorputza du, eta agerpenik gabeko adimena. **Xabier Olarra**

Horrela prestatu ziren **monadak**, unibertso osoaren oinarritzeko ekaia izan behar zutenak, baina beren indar ekilea errepresentazioetan besterik ez dago, eta hauen bitartez benetan beren barnean soilik eragiten dute. **Ibon Uribarri**

Horregatik, adimen hutsaren adigaietan materia formaren aurretik doa, eta Leibnizek horregatik onartu zituen lehenengoz gauzak (**monadak**) eta hauen barneko indar errepresentatzailea, ondoren beren kanpoko hartuemana eta beren egoeren komunitatea (hots, errepresentazioena) horren gainean oinarritzeko. **Ibon Uribarri**

Substantzia, **monada**, hipotesi, borondate itsu, naturaleza deitzen zuten Jainkoa. **Koro Navarro**

## monadologia iz monaden teoria.

Leibnizen **monadologiak** oinarri hau besterik ez du: filosofo honek barnekoaren eta kanpokoaren arteko bereizketa adimenarekin hartuemanean soilik errepresentatzen zuela. **Ibon Uribarri**

Hasi Leibniz-en metafisikan (**monadologian**), pasa hizkuntza bakoitzaren bere-bere mundu-ikuskeraren Humboldt-en tesitik, eta Nietzsche-ren perspektibismoraino datorren tradizio ezaguna da hori. **Joxe Azurmendi**

Leibnizen aipatu bi testu laburtxoak oso egokiak dira haren funtsezko filosofia dinamikoaz jabetzeko: **Monadologia** osoagoa eta helduagoa; *Diskurtsoa* didaktikoagoa (egokiagoa hasteko). **Askoren artean**

## monakismo iz monakotza.

Mendebaldeko teknologiarren aparatu miragarri eta beldurgarria Mendebaldeko kristau-**monakismoaren** albo-produktua zen nabarmen. **Iñaki Mendiguren**

## monako iz lekaidea, fraidea.

Etorri ziren normandiarrak, eta arpilatu eta zakuratu, batez ere apaiz eta **monakoei** esetsi zieten, abadiak bilatu zituzten, leku erlijiosoren bat non aurkituko; izan ere, elizgizonen egotzen zieten beren idoloak suntsitu izana. **Iñaki Iñurrieta**

**Monakoek** behinola apezpikuek juduen kontra egindako legeak kopiatu besterik ez dute egin. **Iñaki Iñurrieta**

## monakotza iz lekaidetza, fraidetza.

Hori **monakotzako** ideietatik dator. **Iñaki Iñurrieta**

Apezpikuak, garai hartan sarrazenoen eta saxoniarren kontra gerra egiten ohiturik, oso urrun zeuden **monakotza**-espiritutik **Iñaki Iñurrieta**

## monarka 1 iz monarkia bateko burua.

Jakina denez, Filipe II.a inperio ikaragarri baten **monarka** zen. **Berria - Kultura**

Baharaingo **monarka** Hamad bin Isa al Khalifa Estatu Batuen aliatu fidela da. **Berria - Mundua**

Erregearen, estatuaren eta soberaniaren jainkozko jatorriaren arteko identifikazioak bere baitan zekarren, orokorrean, boterea **monarkaren** eskuetan pilatzea. **Juan Martin Elexpuru**

Liburu honen proposamenetan inspiratu zen garaiko zenbait **monarka** ilustratu beren berrikuntzak egiteko, Rusiako Katalina II.a, Austriako Jose II.a eta Toscanako Leopoldo, adibide esanguratsuenak aipatzearen. **Juan Martin Elexpuru**

Tortura deuseztatua dago Suedian, Europako **monarka** argienetako batek deuseztatu zuen. **Juan Martin Elexpuru**

Demokrazia ez da monarkia baino Estatuagoa eta **monarka** absolutuek badituzte aholku emango dieten kontseilariak. **Esteban Antxustegi**

**Monarka** handiek, gidari ditugun gizadiaren ongile handiek, maite dituzte filosofo apalak, kemen fanatikorik gabe, azaltzen dituen egiak. **Juan Martin Elexpuru**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Monarka**-bileren eta ministro-batzarren emaitzarik esanguratsuenak. **Anton Garikano**

## monarkia 1 iz aginpidea pertsona bakar baten esku dagoen gobernu era; hizkera lauean, Estatuaren burua erregea den politika sistema.

Zein karga zituzten erromatarrek eta galiarrek frankoen **monarkian**. **Iñaki Iñurrieta**

Alemana ezartzen saiatu zen habsburgotarren danubiar **monarkian** alemanez mintzo ez ziren herriei. **Iñaki Mendiguren**

Montesquieu jaunak esan zuen salaketa publikoak hobeto dagozkiola errepublikari **monarkiar** baino. **Juan Martin Elexpuru**

Pepin elizgizonak babestuz bihurtu zen **monarkiako** nagusi. **Iñaki Iñurrieta**

**Monarkiaren** espirituaren kontra doa nobleak merkataritzan aritzea. **Iñaki Iñurrieta**

Ez dut esan nahi badela **monarkiaren** bat ekonomiazko merkatarizatik guztiz at dagoena, baizik eta **monarkia** berez ez dela horretara hain emana. **Iñaki Iñurrieta**

Partikularitate arautzen duen legea lege zibila da, xedetaz partikularren interesa duena; **monarkiaren** ondorengotza arautzen duen lege politikoa da, eta Estatuaren ona eta iraupena ditu xedetatzat.  Iñaki Iñurrieta

Erroman **monarkia** ezarri zenean, oinordetzen sistema osoa aldatu zen.  Iñaki Iñurrieta

## 2 pl

**Monarkietan** lehen tokietara heltzen direnak, maizenik deus ere ez dira, gaizkile kiskil, axpikari girgil eta nahastekari xirtil batzuk baizik.  Markos Zapiain

1974an, Saudi Arabiak, eta harekin batera Golkoko beste **monarkiek**, petrolioaren prezioa 1974ko mailara eramanez [...] baldintza egokiak ipini zituzten munduko kontsumoa ere lehengo maila berera itzul zedin.  Koro Navarro

## 3 (izenondoekin)

Austria Behereko urtekaria, Vienako urtekari komunala, eta **monarkia** austro-hungariarraren gorteko eta hiriko liburua ere eskatu zituen.  Anton Garikano

Erregeak eta nobleek ez zuten onartu nahi girondinoek proposatzen zuten **monarkia** konstituzionala.  J.M. Olaizola "Txiliku"

**Monarkia** ilustratuak nazionalismoak ordeztu zituen bat-batean Mendebaldeko ideia politiko nagusi gisa.  Iñaki Mendiguren

Kontakizun hauen bidez jabe daiteke irakurlea zer nolako zigor-izua erabiltzen zuten orduko **monarkia** absolutoei.  Juan Martin Elexpuru

**Monarkia** gogor batek du Nepal kudeatzen, munduko erresuma hinduista bakarra.  Herria

Konponbide honek, hala ere, [...] huts egin zuen lurraldez zabalak ziren **monarkia** feudalen eskakizunei erantzuten.  Iñaki Mendiguren

Sistema feudalaren hondamena, **monarkia** zentralizatuaren osakeraren nahitaezko aldia izan zena, XIV. mendean hasi zen.  Koro Navarro

Hiri-estatuak; **monarkia** sekularrak; Erromatar Inperio Santua.  Iñaki Mendiguren

## 4 (hitz elkartuetan)

Baina beste arima bat eta ongina handiagokoa ere bazebilen Mendebaldeko kristau-**monarkiaren** erakundearen inguruan.  Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**espainiako monarkia** (3); **habsburgotarren monarkia** (3); **monarkia ezarri zenean** (3); **monarkia frantsesa** (3)

**monarkiako gizon** (3)

**frankoen monarkian** (3); **habsburgotarren danubiar monarkian** (3)

# monarkiazale

(*orobat **monarkia zale***) *izond* monarkiaren zalea dena; monarkikoa.

Nolanahikoak direla ere, errepublikar edo **monarkiazale**, gizarte zaharrak abusuz beteak daude, gizon zaharrak zimurrez eta etxe zaharrak deboiladuraz bezala.  Koldo Izagirre

Horregatik guztiagatik, «ideologikoki atzerakoi, eskuindar, **monarkiazale**, koloniazale, inperiozale eta abar izanagatik ere», Hiriart-Urruti oso idazle interesgarritzat du Altzibarrek.  Berria - Kultura

# monarkiko 1

*izond/iz* monarkiarena, monarkiari dagokiona; monarkiaren aldekoa.

Lehenengo kasuan, legeak eta ohiturak errepublikako kideen, familiaburuen ohiko sentimenduen emaitza direnez, espiritu **monarkikoa**, sartu egingo da, poliki-poliki, errepublikaren baitan.  Juan Martin Elexpuru

Feudalismo eta autoritarismo **monarkikoaren** aurka.  Askoren artean

Gipuzkoako prentsa **monarkikoak**. Gobernu **monarkikoan** portu frankoak ezartzea arrazoiaren kontrakoa izango litzateke.  Iñaki Iñurrieta

Ingaterran nobleei merkataritza egiten utzi dien usadioa da gobernu-era **monarkikoa** ahultzen gehien lagundu duten gauzetako bat.  Iñaki Iñurrieta

**Monarkikoa** izatea edo errepublikazalea izatea, bata bestea bezain ergelak dituk biak.  Josu Zabaleta

1949an amaitu zen komunista eta **monarkiko** greziarren arteko gerraren ondoren.  Berria - Kultura

Abertzale gogorra izan omen zen Juanito Muñagorri, herriko lehenengo abertzaleetakoa gainera, bertako jauntxo guztiak karlistak edo **monarkiko** integristak zirenean, eta fabriketan lanean hasi zirenak berriz sozialistak edo anarkistak.  Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 alderdi monarkiko bateko kidea.

Ibaieren bestea aldean Bilboko udaletxea; Gabino Aresti (Gabrielen aita) zinegotzi **monarkikoa** izan zen han.  Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gobernu monarkiko** (3)

# monarkista

*izond*

Teoria **monarkistan** gizarte gorputzak erregea gabe bururik ez zuen bezala, Ortega-rentzat gizarteak bururik ez du Führer karismatikoa eta elitea gabe.  Joxe Azurmendi

# monastegi

(*26 agerraldi, 6 liburu eta 9 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **monasterio** agertzen da*) *iz* monasterioa.

Erakusketan hau egunero idekia izanen da urtarilaren 18a arte, 11.30etik 17.30ak arte, Salbatoreko **monastegian**.  Herria

Beren azkeneko gau ludea oraintxe zartaturik ikusi dugun San Frantziskoren **Monastegiko** gela heze batean eman ondoren, Puirra igo bostak, eta hantxe fusilatu zituzten.

 Txillardegi

**Monastegietako** horma zaharrak, ilunpean beltzago, arkaikoago; antzinatasunaren lekuko idor.  Txillardegi

**Monastegi** horietako lekaimeek jainkoaren eskekoak hartzen dituzte, egun batzuk bakean eta atseden hartuz igaro ditzaten.  Gotzon Garate

**Monastegi** atari eta herriko plazetan.  Joxe Azurmendi

# monastegitzar

*iz adkor* monasterio handia.

San Frantziskoren **monastegitzarraren** orubea.  Txillardegi

**Monastegitzar** karratuaren aurrealdean, letrero erraldoi bat irakurgarri: [...].  Txillardegi

# monasterio

(*311 agerraldi, 51 liburu eta 51 artikulutan*) **1 iz** komentu handia, berez toki bakartuan dagoena.

**Monasterioko** abadesa agertu zenean, besarkada handi batekin hartu zuen erregina.  Juan Kruz Igerabide

**Monasterio** bateko abadea, Frantziskori maitasun eta benerazio handia ziona, irten zitzaion bidera.  Askoren artean

La Olivako **monasterioko** frailek (**monasterio** hori Nafarroan da) aspaldiko urtetan lantzen dituzte mahastiak.  Herria

Erdi Aroko **monasterioetako** mojeek eskuz egin eta eskuz kopiatu zituzten, eta eskuz esku eskuizkribuak, gogoratu barriatu gero, Europa osoan zehar.  Berria - Kultura

Grigoriren begi suhartuek, hitz goriek eta bizitzeko zuen indar izugarriak liluratu egin zuten Alexander Nevski **monasterioko** pope zaharra.  J.M. Olaizola "Txiliku"



**Monasterioa** eraiki monasterio alabentzat, eta 1234ko Mendekoste jaian bera ere **monasterioan** sartu zen. **Askoren artean** Jainkoak nahi izan zuen, Frantzisko dohatsuak eta biek klausurako Andre pobreen **monasterio** batean elkarrekin topo egitea. **Askoren artean** Jakin ezazue emakumeen **monasterio** bat sortuko dela hemen. **Askoren artean** Anaiak ez daitezela mojen **monasterioetan** sar. **Askoren artean** Ahal izan zuten hirietan **monasterio** itxiak sortu zituzten, penitentzi bizitza egin zezaten. **Askoren artean** Geroztik ez zen Irantzuko **monasterioko** horma zaharretatik atera. **Martin Anso** X. mendeko **monasterio** mozarabe baten aztarnak. **Piarres Aintziart** **Monasterio** zisterarren baretasunean. **Fernando Morillo** **Monasterioko** elizako nabearen erdian. **Jon Maia**

## 2 (hitz elkartuetan)

Deabruak menperatutako arimak askatu zituen, bide estura moldatu ezinean zebiltzan lekaime asko exorzitatu, hainbat eta hainbat fraide eta **monasterio**-gizoni zeruko atearak erakutsi... **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Hogei fraide ketu zituen komentu batean eta moja **monasterio** bat harem bihurtu zuen. **Josu Zabaleta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**leireko monasterioan** (5)

**monasterioko abadeak** (3); **monasterioko andre** (3); **olibako monasterioko** (4); **san damian monasterioko** (5)

**monasteriora joan** (5)

**monasteriotik kanpo zerbitzatzen** (3); **monasteriotik kanpora** (3)

## monastiko *izond* lekaideei dagokiona; monasterioari dagokiona.

Kanpoko egiturei begira, molde eta eredu **monastikoa** onartuko dute Frantziskok eta Klarak, klausurako bizitza, alegia. **Askoren artean** Nola erantzun zien Hugolinori eta beste anaiari, ordura arteko erregela **monastikoak** hartzeaz. **Askoren artean** Ordena **monastikoen** historia. **Askoren artean** Bizitza erregularra, era **monastikoan** antolatua. **Askoren artean** Bi arima santu horiek Mendebaldean bizimodu **monastikoa** bultzatzeko xede espiritualera emanak zeuden. **Iñaki Mendiguren** Beste hainbat aukera bizitza **monastikotik** hartzen ditu: egonkortasun **monastikoa**, bakardadea, [...]. **Askoren artean** Latinez *acedia*, autore **monastikoek** maiz aipatzen duten gaitz espirituala; gogo edo adoregabatasuna adierazten du, espiritu-bizitzarekiko interesa galarazten duena. **Askoren artean**

## monastizismo *iz* bizimodu monastikoa.

Bere gotorleku espiritual **monastizismoa** zen, eta benediktar bizimodu monastikoaren hamargarren mendeko klunitar gartzetza izan zen Mendebaldean ondoren izandako gizarte-errefera guztien, erlijioso nahiz sekularren, arketipoa. **Iñaki Mendiguren**

## mondejo ik mondeju.

## mondeju *(orobat mondejo)* iz hestebete mota.

Eta hizkuntzarekin gertatutakoa, janari-edariekin ere gertatu zitzaigun: batean **mondejoa** zen; hurrengoan, odolkia; haraxeago, lukainka edo zezina. Ene aldamenekoak [...] **mondejua** eskatu du. **Bernardo Atxaga**

Nik lehertzeko zorian zegoen odol mataza bat ematen zuela esan nuen, zeruko ebakuntza-gelaren batetik eroritako gibel odoldua, erai zati bat, San Pedoren heste-sobrea edo San Pankrazioarena, Ataungo **mondejua** .... **Joxean Agirre**

## mondialista ik mundialista.

## moneda ik moneta.

## monedero *iz* diru zorroa.

Baso bat ur edan zuen eta, bere poltsatik soinekoak ateraz, haiek astiro jantzi eta, haietan ondo kukuturik, antiojoak eta gorroa atzendu gabe, bere **monederoa** ere hartu eta, gelatik atera zen. **Pablo Sastre**

**Monederotik** billete ximur bat atera zuen. **Pablo Sastre**

## moneta *(53 agerraldi, 17 liburu eta 14 artikulutan; orobat moneta 22 agerraldi, 4 liburu eta 4 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian diru eta dibisa erabiltzea hobesten da) 1 iz dirua; dibisa. ik diru 2.*

Dirua beharrezkoa zen, eta dirua ere jin zen, gehienetan espainiar **monetan**. **Pello Salaburu**

Tori diru hau eta aidatu bankuan, urruneko **moneta** delakoz. **Pello Salaburu**

Merkataritza truke komisiorik ez izatea ere abantaila da, zeren eta atzerriko **monetan** inportazioak edo erosketak egiteko ordaintzen ziren komisioak desagertu baitira. **Iñaki Heras**

AEBetako **monetaren** epe luzerako iragarpenak aski ezkorrek dira artean ere. **Berria - Ekonomia**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik diru 2; monetario.

**Moneta** politika oso hedakorra da egun, bai AEBetan bai Eurogunean. **Berria - Ekonomia**

1997tik hona, Asia ekialdeko, Errusiako eta Brasilgo ekonomia eta finantza krisiak gertatu zirenetik, nazioarteko finantza ereduak eta nazioarteko **moneta** erakundeen lana auzitan daude. **Iñaki Heras**

Nazioarteko diru politikan adituek diotenez, euroaren esparrua ez omen da diru edo **moneta** esparru optimo bat. **Iñaki Heras**

Ekonomia estandarrek merkatuan elkartrukatzen diren ondasunen azterketara jotzen du batik bat, hau da, truke-balio bat, **moneta** balio bat duten ondasunetara. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Ekonomikoa mundu fisiko naturaletik aparteko sistematizat ulertzean, politika ekonomikoak eta garapen aurrerapausoen neurketak **moneta** terminoetan beste ezertan ez dira oinarritzen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

*Kopek*: Errusiako **moneta** -unitatea. Jose Morales

Ekonomialariek hedapen prozesuan diren **moneta** -adierazleak ikusten dituzte, baina [...] giza garapen iraunkorraren arloko aditu guztiek ekonomia berregituratzeko beharra ikusten dute. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

MBri esleituko litzaioke pobrezia eta epe luzerako erabakiei buruzko arreta[...] eta FMri, berriz, epe motzerako parte-hartzea, bereziki, **moneta** eta finantza krisien gidaritzan. Iñaki Heras

Salneurrien eta zirkulazioan dagoen **moneta** masaren arteko harremanaren formulazioa. Xabier Arregi

Hain zuzen ere, **moneta** mota bi daudelako; zaharra eta berria, 2000. urte honetan erabakiak. Edorta Jimenez

Angeluko komertsantzen elkartek zerbitzu praktikoko eskaini nahi dizkie bere kide guztiei **moneda** aldaketa keinka honetan. Herria

*Bankers Trust*-eko Atzerriko **Moneta** Departamentuburua. Lopez de Arana

**Moneta** Etxea lehenagotik ezarria zen; orduan zen sendotu. Aingeru Epaltza

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikur- **monetaren** aldeko erabakia lotuta dagoen aberastasunen azterketak [...]. Xabier Arregi

### 4 (*Euskaltzaindiaren Hiztegian txanpon eta diru xehe agertzen dira*) txanpona.

**Moneta** eder haiek, kutxan sartu beharrean, mahai gainean utzi zituen, behingoa ekiteko beste diruei. Edorta Jimenez

Geroztik irudi hau indartu zen, Erdi Aro guzian barrena, izkribu, **moneta**, eta inprimaki guzietan "rex Dei gratia" edo "Jainkoaren graziaz errege" esalege sakratua ohiko bihurtuz. Patziku Perurena

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sartu nuen eskua sakelara, nire diru-zorroa bilatu, ireki, eta ikusi nuen kobre **moneda** bakan batzuek bete zegoela. Matías Múgica

-Hamar errublo -esan zuen, eta nik hamar errublo urre **moneda** eman nion. Matías Múgica

Poltساتik diru-zorro bat atera zuen, zilar **monedaz** bete. Matías Mujika

### 6 *Nazioarteko Moneta Fondo* Nazioarteko Diru Funtza.

Alabaina, boterea lortu ondoren promesa horiek, guzti-guztiak zakarontzira bota ziren, eta **Nazioarteko** Moneta Fondoaren errezeta gogorak aplikatu zituzten haien orde.

Pako Aristi

Nazio Batuen Erakundeko, Munduko Bankuko eta Nazioarteko **Moneta** Fondoko agintariei. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**moneta politika** (3); **nazioarteko moneta** (4)

## monetario *iz* monetari, diruari dagokiona. ik **moneta** 2.

Masa **monetarioaren** hazkundearekin. Iñaki Heras

Ahaleginean hasi dira kapitalak nazio-lurraldean mantenduko dituzten edo bertara erakarriko dituzten espazio egokiak eratan (espazio logistikoa, hezkuntzazkoa, soziala, finantzetakoa, **monetarioa**, araudizkoa). Koro Navarro

Ezin itzulizkoa ematen zuen botere politikoaren, militarren, fiskalaren eta **monetarioaren** zentralizazio-prozesuak. Koro Navarro

Euroaren esparrua ez omen da esparru **monetario** optimo bat. Iñaki Heras

Erresuma Batuko banku zentralaren Batzorde **Monetarioaren** bi eguneko bileraren ostean hartutako erabakia da. Berria - Ekonomia

## monetarismo *iz* teoria ekonomikoa, gorabehera ekonomikoetan eragin nagusia diruari ematen diona.

Diru-zirkulazioa egokitzea eta hura erregulariki haztea proposatu zuen **monetarismo** pragmatikoak. Estantziazkoaren agerpenak pentsamolde neoklasikoa itzularazi zuen (**monetarismoz** mozorroturik). Koro Navarro

Banku zentralak **monetarismora** bihurtzea, ideia teorikoen ondorio ez baina [...] soldaten bilakaera kontrolatzeko premiaren ondorio izan zen., Koro Navarro

## monetarista 1 *izond* monetarismoarena, monetarismoari dagokiona.

Teoria **monetarista** dago, aski hedatua hau ere, inflazioa diru eskaintza osoaren areagotzearekin -hau da, masa monetarioaren hazkundearekin- lotzen duena. Iñaki Heras

Petrolioaren bigarren krisiak %13ra igoarazi zuen inflazioa ELGE eremuan, eta areago zabaldu zuen joera **monetarista**. Koro Navarro

Banku zentral **monetaristenak** [...] truke-merkatuetan esku hartzera bultzatu ditu, diruen parekotasunak datu ekonomiko funtsezkoekin hobeto adosten diren mailatarantz hurbiltzen saiatzeko. Koro Navarro

Politika keynestarren kritika **monetarista** ez zen diru-politika abian jartzera mugatu. Koro Navarro

### 2 *izond/iz* monetarismoaren aldekoa.

Joera honek bere sustraiak XIX. mendeko ekonomilari liberalen artean ditu, eta egun, eskaintzaren aldeko ekonomilariak eta **monetaristak** ditu adierazle. Baina diru-politika independente baten abantaila nagusia, **monetaristen** iritzi, diru-eskaintza kontrolatuz, inflazioaren aurkako borrokari erabateko lehentasuna eman ahal izatea da. Iñaki Heras

## mongol (*23 agerraldi, 7 liburutan*) 1 *izlag* mongoliarra.

Kublai Khan **mongolak** [...] Ekialde Urruneko Gizartearen eremu kontinental osoaren konkista lortu zuenean. Iñaki Mendiguren

Nasir al Dinek eman digu kalifaren eta printze **mongolaren** arteko azken elkartzearen berri. Jon Muñoz

Armada **mongolak** Vienako ateetaraino iritsi dira. Jon Muñoz

Nomada **mongolen** mehatxuak. Iñaki Mendiguren

Islamak Txinan **mongolen** mende bi probintzian bakarrik lortu zuen ezartzea, eta sekula ez zen izan atzeritar gutxiengo bat baino gehiago. Iñaki Mendiguren

### 2 mongoliar herritarra.

**Mongolen** Inperioa. Iñaki Mendiguren

K.o. 1258an Bagdad **mongolen** esku erori zenean. Iñaki Mendiguren

Beldurrik gabe, Angarako ibarreko nekazariak, **mongol** -khalkhak, tunguzak eta buretak, erakarri zituzten hirira, eta mortua zabaldu inbaditzaileen eta hiriaren artean. Karlos Zabala

Islamak Txinan **mongolen** mende bi probintzian bakarrik lortu zuen ezartzea, eta sekula ez zen izan atzeritar gutxiengo bat baino gehiago. Iñaki Mendiguren

## mongoliar (23 agerraldi, 9 liburu eta 2 artikulutan) 1 izlag Mongoliako, Mongoliari dagokiona.

Askoz ekialderago **Mongoliar** Inperio handi bat sortua zen. **Iñaki Mendiguren**

XIII. mendean **mongoliar** inperioa osatu zen. **Koro Navarro**

Zenbait hilabete geroago soldadu alemanak eta haien **mongoliar** presonerak itzuri zitzaizkigun beren mando eta karroekin Frantziako iparraldera. **Piarres Xarriton**

Gure amari, pantailan Suess Aja Cawaren **mongoliar** -begiak eta matrail-kosko hezurtsuak ikusten zituenean, barrenetik ateratzen zitzaion: [...]. **Fernando Rey**

Tatariar guztiak ez dira arraza berekoak, batzuk arraza kaukasiarrekoak dira eta besteak arraza **mongoliarrekoak** . **Karlos Zabala**

Odol **mongoliarretik** bazuen pixka bat, haren ama jatorri asiarrekoa izanik. **Karlos Zabala**

## 2 Mongoliako herritarra.

Arraza mongoliar garbia, aldiz, **mongoliarrek** , mantxuek eta tibetarrek osatzen dute. **Karlos Zabala**

Baziren **mongoliarrak** , ez txiki ez handi, ile beltza mototsean bildu eta bizkarrean zintzilik zeramatenak. **Karlos Zabala**

## mongoliera iz mongoliarren hizkuntza.

Emakume bat, ikusezina kasik gerizpean, aurreratu zen bizi, eta Mikel Strogoffek **mongolieraren** eta siberieraren arteko nahasketatzat jo zuen hizkuntza zakar batez egin zion berba gizonari: [...]. **Karlos Zabala**

## mongolo izond adkor ergela, tontoa.

**Mongolo** hutsak dira denak, erremediorik gabeko oligofrenikoak, eta barka nazatela oligofrenikoek konparazioagatik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## mongoloide izond mongoliar arrazaren aurpegiera duena.

Ez zen dudarik, Lawrence **mongoloidea** zen, hots, Down sindromea zuen. **Gotzon Garate**

## monigote iz txorimaloa, txotxongiloa.

Hi! Honen herrian hi baino **monigote** azkarragoak seriean fabrikatzen ditiztek! **Pablo Sastre**

## monismo iz sistema edo doktrina filosofikoa, printzipio edo sustantzia bakarra onartzen duena.

Dualismo kartesiarra bazterturik, bada (hori katolizismoarekin berdintzen da), izpirituaren eta naturaren harmonia eta paralelotasuna proklamatzeko da, hots, bion **monismo** organiko-ebolutiboa, zientziak oraindik eman ezin ziena desirari eta irudimenari emanaraziz. **Joxe Azurmendi**

Dena dela, gogoaren analisi horri bi salaketa nagusi egin zaizkio: a) **monismo** anomaloa: bi mailen arteko bereizketa (banakakoen arteko identitatea eta identitate falta orokorra) funtzionalismoak uste duena baino sakonagoa da; eta, b) [...]. **Askoren artean**

Hori dela eta, bai erlatibismoari (nire balioak neurek dira, zureak zeureak diren bezalaxe, eta batek bestea ukatzen badu, arrazoi zeinek duen ezingo dugu ebatzi) bai **monismoari** (balioen sistema bakarra da zuzena eta, ondorioz, gainerako guztiak okerrak dira) egiten zaie aurre. **Askoren artean**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**monismo anomaloa** (4)

## monista izond monismoarena, monismoari dagokiona.

Gainditzen ditu ontologia **monista** proposatuz; entitate epistemikoen balioa ez datza euren baitan, ezagutzaren kateari jarraia emateko betetzen duen eginkizunean baizik.

**Askoren artean**

Ez da mistikoeke eta metafisikoeke maiteago izaten duten ikuspide **monista** eta absolutua. **Joxe Azurmendi**

## monitore 1 iz teknika edo jarduera jakin bat erakusten duen edo haur taldeekin egitekoren bat duen pertsona.

Ondoren, Scout mugimendua ezagutu nuen eta Bilboko auzo bateko scout taldearekin **monitore** gisa ibili nintzen. **Ana Urkiza**

**Monitore** Hezitzaile edo Hezitzaile Bereziari loturiko diploma. **Iñaki Mendiguren**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Monitore** lanetan aritzen da arratsaldez Iruñeko gimnasio batean. **Berria - Kirola**

Gainerakoek **monitore** -gela batetik jarraitu ahal izango dituzte epaiketak. **Berria - Mundua**

Maisuak orain **monitore** aholku emanez hasten denean jaramonik egin ez, existituko ez balitz bezala? **Berria - Kirola**

**Monitore** hezitzaile diploma. **Herria**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskal dantza **monitore** izaiteko, eskoletan eta dantzari taldetan. **Herria**

Hain zuzen ere, zu halterofilia **monitore** zara. **Berria - Kirola**

## 4 prozesu bat segitzea ahalbidetzen duen gailu elektronikoko pantailaduna; bideo seinalea hartzen duen gailu pantailaduna.

Bihotza behatzeko **monitore** batekin loturik zegoen nire gorputza. **Oskar Arana**

Klinikako gelara heldu zenean, aita hariz eta **monitore** argitsuz setiatua ikusi zuen. **Itxaro Borda**

Kantari karismaduna dute (kantatzean, dantzatzean, **monitore** gainean etzatean). **Berria - Kultura**

Orain, ordea, Diana agertu da ezker aldeko **monitorean** . **Patxi Iturritegi**

Soinua ez da aparta, urrunegi antzematen delako Donizettiren musikaren melodia, eta irudi geldoa baino ez du eskaintzen **monitoreak** , baina ikuskizun ederra da, hala ere. eszenatokiko hiru **monitoreetan** «interlokutore gisa» darabiltzan bere irudiak agertzen dira. **Berria - Kultura**

Oraindik ez dugu Internet sarean murgiltzeko **monitorerik** jarri, baina erne ibili! **Pako Aristi**

Inguruan, ehundaka **monitore** zifra aldakorrez jantziak. **Hasier Etxeberria**

Elektrodoen **monitoreak** arrasto luze bat margotu zuen, gehiago ezerk erdibituko ez zuen zuzenune bat bezalako. **Pako Aristi**

## 5 (hitz elkartuetan)

Sarrerako aretoan hainbat telebista **monitore** daude. **Patxi Iturritegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

## monitorizatu, monitoriza, monitorizatzen du *ad* monitorez hornitu.

Bai, ahal den neurrian egoera **monitorizatu** dugu. Berria - Euskal Herria

## monitorizazio *iz* monitorizatzea.

Egun badira **monitorizazio** sistema batzuk. Berria - Gaiak

## monja ik moja.

## monjaburu ik mojaburu.

## monje 1 *iz* kristau elizgizona, ordena monastiko bateko kidea dena. ik lekaide; fraide.

Bakarti hauek (*monachoi*, **monjeak**) [...] elkarre diziplinatutan bizitzen hasi zirenean, terminoen kontraesan sortzaile honek -bakartien elkartea (*monastérion*)- bere latinezko izena (*conventus*) erabilera sekularrean hiruhileko auzitegiaren eta merkataritza-ganbararen bi esanahiak batzen zituen hitz batetik hartu zuen. Iñaki Mendiguren

Ez da estamentu erlijiosoetan sartuko, ez kleriko, ez **monje**, ezta ermitau bezala ere. Askoren artean

Amikuztarra nauzu, eta bazter hauetako apez, fraide eta **monje** jende guzti-guztiak ezagutzen ditut. Aingeru Epaltza

Serapion **monjeak** Ebanjelioen bere kopia saldu zuen behartsu bati laguntzeko, eta esan zuen: "dena saldu eta behartsuei emateko esaten didan liburua saldu dut".

Askoren artean

Tibeteko **monjeena** bezalako prestakuntza luzea eta lasaia. Bernardo Atxaga

Ez nuen esango **monjeen** bizitza interesatzen zaizunik. Migel Angel Mintegi

### 2 (izenondoekin)

**Monje** budista jakintsu hark. J.M. Olaizola "Txiliku"

Manifestazioan oposizioko talde guztiak, ikasleak, **monje** budistak eta hinduistak bildu ziren, besteak beste. Berria - Mundua

75 urteko Juan Joxe Agirre eta 70 urteko Marcel Etxandi **monje** beneditarrak atxilotu zituzten atzo. Berria - Harian

Gotzaina Roberto zen, zisteratar **monjea**. Askoren artean

Hango **monje** dominikoez lau urte zituzten frantziskotarrean. Aingeru Epaltza

Eseniarrak **monje** judutarrak zirela uste da. Berria - Gaiak

**Monje** tenplarioek eraiki omen zuten Eunateko eliza ospetsu bezain misteriotsua. Martin Anso

**Monje** nagusiari ez zitzaion batere gustatu harrokeria hura. Martin Anso

**Monje** mistiko eta larrazale bat Siberian predikuetan edukitzea bitxia edo, agian, komenigarria irudi dakioko Errusiako gortean dagoenari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bere galtzetako poltsiko handietan zeuzkan errubloi diru hotsa eragiten zien, **monje** eskaleek katiluko txanponei bezala. Matías Múgica

Aita Santuak bidali zituen iparraldeko lurraldeetara zenbait lekaide eta **monje** misiolari. Pello Zabala

### 2 (izenlgunekin)

Bazen han zenbait monarkaren ohitura bitxiei buruzko libururik, edota antzinako **monje** errusiarren abenturen ingurukorik ere. Mirentxu Larrañaga

Monasterioko **monjeetako** batzuek esan didate ikusiak zituztela lerro batzuk, baina ez zutela sekula pentsatu ere egin Erdi Aroko marrazkiak izan zitezkeenik. Berria - Kultura

Antzeko pasadizoak aurkitzen ditugu basamortuko **monjeen** tradizioan. Askoren artean

Klausurako **monje** bat zeukan gogoan, tren bidaia batean ezagutu zuena. Bernardo Atxaga

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Artean ez zegoen **monje**-bizitzaren antzera eratutako komenturik. Askoren artean

San Benediktoren **monje**-eskolak, Jainkoaren maitasunagatik soroetako lan fisiko neketsuetara emanak. Iñaki Mendiguren

Sri Lankako errege Dutthagamani gerrazaleari gerrara **monje** taldeek errezoekin lagun egiteraino. Joxe Azurmendi

Nire **monje**-gelatxoan geratzen nintzen, Jakoben Historia irakurtzen, mundutik aparte. Juan Garzia

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kristau-**monjeek** kolonizaturiko [...] uharte hutsen ikuskizun tristeak. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**monje budista** (7)

## moño *iz* mototsa.

Atso haien pitxi eta joiak-eta ikusten genitinan eta aho zabalik geratzen gintunan, zer esan jakin gabe, eta horregatik egiten geninan barre, ipurtandiak zirelako edo aza itxurako **moñoa** zeramatelako. Xabier Mendiguren Elizegi

**Moñoa** askatuko dio, urkilak banan-banan atera bere ile sastrakan etzateko luze. Eider Rodriguez

## mono<sup>1</sup> *iz* lan-jantzia.

Txamarra arre eta higatuaren azpian lohia hartzeko **mono** horietakoa jantzita, praka barrenak zaldi-boten barruan bildurik eta kaki koloreko tabardoa lepotik belaunetaraino, azken horrek gerrikoan eskegita daraman pistolatzarra erdi ezkututzen dio. Edorta Jimenez

Mantxo-mantxo urrats handika zubi erdiraino heldu, bertan gelditu, eskuan zekarren txamarra lurrean laga eta, laneko **monoa** aise erantzita, keinu anple batez besoa luzatuz, utzi zuen hura errekarra erortzen. Pablo Sastre

Mostradorean mutil potolo bat **monoz** jantzitako tipo bat atenditzen ari zen. Pablo Sastre

## mono<sup>2</sup> *iz* eza, falta.

Nolanahi ere, txarrago da daldirik ez dagoenean, orduan bai buruko minak **monoaz** dabiltzanekin. **Urtzi Urrutikoeetxea**  
Aitorpenak, ordu hauetan erabiltzen diren gai ohikoen ondoan hain ezohiko eta bortitz, isilik utzi gaitu denok, hoztuta, **monoaren** ikara gorputzean sartuta. **Pako Aristi**

## mono<sup>3</sup> *izond* duala ez dena.

Okerrago, Lacanek erakutsi zigun sistema ez dela duala, baizik eta **monoa**. **Berria - Kultura**

## monobokaliko *izond* bokal bakarrekoa, bokalbakarra.

Testu **monobokaliko** luzeak osatzea, batetik, eta hitz **monobokaliko** luzeena bilatzea, bestetik. **Iñaki Arranz**

Lau hitz sinonimo, denak **monobokalikoak** eta bakoitza bokal baten inguruan eraikia. **Iñaki Arranz**

## monobokalismo *iz* bokal bakarra erabiltzea.

Euskarak dituen bost bokaletatik bat hartu eta horixe bakarrik erabili ahal izatea, nahi beste kontsonante lagun, horra hor **monobokalismoaren** definizioa. **Iñaki Arranz**

Testu **monobokaliko** luzeak osatzea, batetik, eta hitz **monobokaliko** luzeena bilatzea, bestetik. **Iñaki Arranz**

## monodia 1 *iz* doinu lerro bakarreko musika lana.

Diaconescuren abesbatzak, hala **monodian** nola polifonian bateratasun mistikoa erakutsi zuten. **Berria - Kultura**

Sinbologia irudikapenak ez ezik, orobat ordeztuko zuen **monodia** polifoniak, otoitza ekintzak, misterioa dramak, kontakizuna eleberriak, kronika historiak eta mitoa teoria zientifikoak. **Juan Garzia**

Ahots-malgutasun gutxiko kantari bat, eta, haren atzean, biolontxela, **monodia** baten erritmo nekatua etenka markatzen, leihoen kontrako txingor-burrunbaren gaindi.

**Anjel Lertxundi**

### 2 irud/hed

Inperatibo kategorikoaren halako gurdi astunaren ibilera hartu izan diot beti, hitzaren **monodia** geldokoteari halako leloren bat balerio bezala. **Anjel Lertxundi**

## monodiko *izond* monodiarena, monodiari dagokiona.

Ekialdeko ortodoxoen jatorrizko kantu liturgikoa a capella da, kantu monosilabikoa eta **monodikoa**, errezitatibo eta salmodioetan oinarritua. **Berria - Kultura**

## monofilia *iz*

Sexuaren **monofilia**. **Patziku Perurena**

## monofisismo *iz* Jesu Kristok bi naturaleza, jainkozkoa eta gizatiarra, dituela ukatzen duen doktrina.

Zoroastrismoak, nestorianismoak, **monofisismoak** eta Islamak guztiek jarraitu zioten judaismoaren norabideari espiritualki negargarria zen desbideratze honetan erlijioaren benetako bidetik. **Iñaki Mendiguren**

Aldaera siriakoan inpartzialki balio izan zuen nestorianismoaren eta **monofisismoaren** kristau-heresia antitetikoentzat. **Iñaki Mendiguren**

## monofisita 1 *izond* monofisismoari dagokiona.

Kristautasunaren sorreraren eta Islamaren sorreraren arteko kristau-heresia antihelenikoez ere emanak zituzten "fosilak" eliza nestoriotar eta **monofisitaren** forman. **Iñaki Mendiguren**

Mundu siriakoan izandako "eraso helenikoa" arrakastarik gabeko zenbait erantzun siriako sortarazi zituen -zoroastroarra, judua (Makabeoena), nestoriotarra eta **monofisita** -, baina bosgarren erantzuna, Islamarena, arrakastatsua izan zen. **Iñaki Mendiguren**

Dar-al-Islam-go erreakzio zelotea gurutzaden aurka, neurri bateraino, Mendebaldeko kristau-bizimodura konbertitu ziren Ziliziko armeniar **monofisiten** normandiar joerako herodianismoak orekatu zuen. **Iñaki Mendiguren**

### 2 *iz* monofisismoaren aldeko pertsona.

Badirudi, gainera, hizkuntzen ezberdintasunak bazekarrela berenaz fedearen batasuna apurtzea, ezen, Siria, Persia, Armenia edo Egiptoko fededun asko Nestorioren edo

**monofisiten** kide bihurtu ziren. **Piarres Xarriton**

## monogamia 1 *iz* monogamoaren egoera.

Ni konturatu gabe, ordura arte jasotako hezkuntza erlijiosoak izango zuen zerikusirik, zeren, garai hartan galdetu balidate **monogamian** sinesten ote nuen, ezetz erantzungo nukeen seguru asko, eta, hala ere, teoria horren oinarrian **monogamia** absolutu eta integrista bat dago, metafisikoa ia-ia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez zenuela **monogamian** sinesten. **Lander Garro**

### 2 irud/hed

Atzean utzi dut itsasoa, baina, hala ere, aurrera datorkidan paisajeak ez du berdearekiko **monogamian** bizi nahi, edo ez diote bizi nahi hori errespetatu. **Pako Aristi**

## monogamiko *izond* ezkonlagun bakarra duena.

Bikote **monogamiko** iraunkorra, hau da, gaur egungo familia eredia, jabetza pribatuari lotuta azaldu zen. **Luis Elberdin**

Ezkontza **monogamiko** eta banaezina arboletatik jaitsi ginenean hasi al zen? **Luis Elberdin**

Txinpantzeak oso promiskuoa dira arlo sexualean, eta ez dute lotura **monogamikorik** ezta denbora luzeorik ere izaten. **Luis Elberdin**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bikote monogamiko** (8); **bikote monogamiko iraunkorra** (6)

## monogamo *izond* ezkondu bakarra duena; monogamiari dagokiona.

Familia eskema **monogamoaren** eredu heterosexista eta ugalketara bideratua.  Luis Elberdin

Espezie **monogamo** gutxi batzuk kenduta -otsoak eta azeriak, adibidez-, gehienek ez dute kide batekin lotura egonkorrik izaten.  Luis Elberdin

Giza primatetik ez gara espezie **monogamo**.  Luis Elberdin

Inor ere ez da **monogamo**, ez gizon ez emakume, degeneratuak bai, beharbada, eta masakistak, libidoa galdu dutenak edo burutik larri-larri daudenak.  Karlos Zabala

Ezkontza -erantsi zuen, errautsa alfonbrara erortzen utziz-, legezko prostizio **monogamo** hori.  Koro Navarro

## monogatari *iz* japoniar literatura klasikoko forma literarioa, mendebaldeko hitz lauuko epikaren kidekoa.

Japoniar literatura kultura txinatar klasikoari lotuta egon da, eta ia inork ez du Erdi Aroko Genji **monogatari** jatorrizko bertsoan irakurtzen, baizik eta japoniera modernora itzultita.  Ibon Uribarri

Eta horrelako aipamenak (Ryokan apaiza, lse **monogatari**, Genji **monogatari**) egiten ditu hitzaldi osoan, une horretan bere gorenean zegoen japoniar modernizazioa alde batera utziz.  Ibon Uribarri

## monogelatxo *iz*

Erregai-pila baten oinarritzko unitatea **«monogelatxo»** deritzona da, bi elektrodo porotsuen artean elektrolitozko xafra ipinitakoan sortutako sandwicha.  Berria - Gaiak

## monogeniko *izond* ADN sekuentziako gene bakar baten mutazioak eragina.

Genomari buruzko datuek, matxura **monogeniko** mendeliarrei dagokienez behinik behin, gertakizun dena zinezko gertakari bilakatuko dute.  Juan Garzia

## monografia *iz* gai bakar zehatz bati buruzko azterketa edo ikerketa.

Ramon Llull-en *Ars magna generalis* obrari buruzko **monografia** bat.  Juan Garzia

George Boole-ren logika sinbolikoari buruzko **monografia** baten zirriborroa.  Juan Garzia

Horietan jatorrizko informazioa dator, hots, egileak berak sorturikoa (artikulu, liburu edo **monografiak**, iruzkinak, etab.).  Askoren artean

Lana amaitu ondoren, xehetasun gehiago jasotzeko parada izan nuen, beste **monografia** eta artikulu batzuen bitartez.  Iban Zaldua

## monografiatxo *iz* monografia laburra.

Pipa, puru eta zigarroen tabakoaren 140 errauts mota desberdinei buruz idatzi zuen **monografiatxo**  Xabier Olarra

## monografiko 1 *izond* gai bakar zehatz bati buruzkoa.

Zenbaki **monografiko** honetan hainbat egilek hausnartu zuten zer diren filosofoa eta intelektuala XXI. mendearen hasieran.  Askoren artean

*Euskal-Erria* aldizkariak ale **monografiko** oso bat eskaini zion, laudorio sutsuak eginez.  Askoren artean

Euskal fonologia sinkronikoari buruz argitaratu lehen lan **monografikoa**.  Lourdes Oñederra

Nazio Kontseiluak gai **monografikoak** eztabaidatuko lituzke.  Berria - Euskal Herria

250etik gora ikaslek parte hartu dute ikastaro **monografikoetan**, eta 150ek urte osokoetan.  Berria - Kultura

Terminologia estuegia ere bada hau, 2002ko Bertsolamintzan gaiari berari eskainitako gogoeta **monografikoan** bistaratu zen moduan.  Berria - Harian

Gaiari loturiko txosten **monografikoan**.  Berria - Kultura

Rafaelloren erakusketa **monografikoa** eratu dute urrian Londresen.  Berria - Kultura

### 2 monografiari dagokiona.

Nadiaren kasuak -luzera **monografikoz** emana eta xeheki dokumentatua- zalaparta handia piztu zuen neurologo eta psikologoaren artean.  Xabier Olarra

### 3 ale monografikoa; lan monografikoa.

Juan Ignazio Urangak ere egin zion bere ekarria *Euskal-Erria* aldizkariak Sarriegiri buruz egindako **monografikoari**, eta "euskal doñu apaintzalle bikaini" esapidetz deskribatu zuen musikari zendua.  Askoren artean

Hainbat olerkari eta bertsolarik bat egin zuten *Euskal-Erria* aldizkariak argitara emandako **monografikoarekin**.  Askoren artean

2006an ere, dominei buruzko **monografikoa** eta Arantzazuko lanei buruzko liburukiak kaleratuko dira.  Berria - Kultura

Ignacio Baleztenak bere "Iruñerías" liburuan hala dio, "Los Gigantes de Pamplona" **monografiko** luzeari ondotik erantsi zizkion oharretarik batean: [...].  Patziku Perurena

Horren ordez, terrorismoaren biktimei buruzko **monografikoa** egitea proposatu du PPK.  Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ale monografikoa** (3); **erakusketa monografikoa** (3); **monografikoa eskaini** (3); **txosten monografikoa** (3)

**lan monografikoak** (4)

## monografikoki *adlag* era monografikoan.

Proposamenaren kontra azaltzeaz gain, ELAk sindikatuen arteko adostasun bat eskatu du, EAEn auzi honetan dagoen arazoa **monografikoki** aztertzeko.  Berria - Ekonomia

## monograma *iz* pertsona edo erakunde baten izenaren haste letrekin osatzen den iduri edo marrazkia.

Beheraxago, eskuinetarik, sartzte haundi gaina biribildu batean, hiru hizki ez irakur errexak, maiuskula loretuetan, elgarri lotuak eta nahasiak, J B R, eta data bat, 1827: Jean-Baptiste Ricqbour-en **monograma**.  Michel Oronoz

Zientziaren eskemak osokiaren zirrimarra (**monograma**) eta osakideen sailkaketa barnebidu behar ditu ideiaeren arabera.  Ibon Uribarri

## monogramadun *izond* monogramaz hornitua.

Ezin konta ahala opari zuen: Charvet musuzapiak, *art moderne* eiteko hautsontziak, **monogramadun** txabusinak, urrezko giltzatak; eta zur finezko zigarreta-kutxatila, Parisko geltoki erosoan ikuspegiak tartekatuta ageri zituztenak.  Mirentxu Larrañaga

## monokilotiko *izond*

Lontxok ontto **monokilotiko** bat hartu dik, bai ala ez? [Joan Mari Irigoien](#)

## monoklonal *izond* antigorputzez mintzatuz, antigeno bakar baten kontrakoa.

Hartan, antigorputz bat sintetizatzen zuen linfozito bat halakorik sintetizatzen ez zuen beste batekin bat egiteko asmo lausotan hala genbiltzala, horra berria iritsi César Milstein eta Georges Köhler-ek antigorputz **monoklonal** direlakoak aurkitu zituztela! [Juan Garzia](#)

## monokoloreko *izlag* kolorebakarra, kolore bakarrekoa.

Nola imajina dezakete haur horiek, neska eta mutiko horiek, mundu polifoniko bat existi daitekeela mundu monokordea eta **monokolorekoa** erakusten bazaie? [Ana Urkiza](#)

## monokontsonantismo *iz* kontsonante bakarra erabiltzea.

Hizkien ordezkarekin jarduten badugu, aiseago antzemango diogu gure bereizketari: monobokalismoa (edo **monokontsonantismoa**) hautatzearen eremuan eta lipograma bartzetzearenean. [Iñaki Arranz](#)

Bildumako lehen zenbakia **monokontsonantismoa** erakusteko aipatu genuen lehen, baina hurrengo zenbakiek letraz letra zabaltzen dute alfabetoa: m eta t bigarren zenbakian, *m*, *t* eta *k* hirugarrenean, *m*, *t*, *k* eta *b* hurrengoan... hurrenez hurren alfabetoa osatu arte. [Iñaki Arranz](#)

## monokorde 1 *izond* beti hots edo soinu bera errepikatzen duena.

Bere jarduna sotila zen, zehatza, **monokordea**. [Koldo Izagirre](#)

Poema honetako hitz guztietan, letania baten doinu **monokordearekin** *gia* soinu elkarketa pilatzen du Gerardo Markuletak. [Iñaki Arranz](#)

Behar beste hitz egin zezakeela berari zerbaitean esku hartzea suertatzen bazitzaion; hori bai, erritmo geldotxo batez eta ahots doinu nekoso eta **monokordez**. [Joxemari Iturralde](#)

### 2 beti-berdina.

Bistan zen laster jaiki behar nuela eta aldameneko gelan sartuko nintzela, ordura arte bakarriketa **monokordea** zena tertulia bihurtzeko. [Jon Alonso](#)

Nola imajina dezakete haur horiek, neska eta mutiko horiek, mundu polifoniko bat existi daitekeela mundu **monokordea** eta monokolorekoa erakusten bazaie? [Ana Urkiza](#)

Beraiek gabe Euskal Herriko sistema mediatikoa lurzoru ihartua bihurtuko litzateke, basamortu **monokordea**. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

## monokromatiko *izond* kolorebakarra, kolore bakarrekoa. ik **monokromo**.

Ellsworth Kelly, Piero Manzoni, Ad Reinhardt eta Frank Stellaren margolan **monokromatikoak** daude erakusketan. [Berria - Kultura](#)

## monokromo *izond* kolorebakarra, kolore bakarrekoa. ik **monokromatiko**.

Egongela **monokromoan** musika latinoa entzuten da telebistako ahots urduriekin nahastuta. [Patxi Iturritegi](#)

Astiro-astiro kanpoko masa grisa sartuz doa hamaikagarren solairuko apartamentu **monokromoan**. [Patxi Iturritegi](#)

*No time, Exit, exterior-interior* hitzek iragartzen dute koadro **monokromoek** sakonean dutena. [Berria - Kultura](#)

Esan beharra dago betaurreko berde ilunek **monokromo** bihurtzen zutela koloretako telebista; hala ere, berak aurrerantzean ere nahiago izaten zuen zuri-beltzeko bere traste zaharra, bakarrik zegoenean. [Xabier Olarra](#)

Hasierako **monokromo** laranja, berde eta arrosez gainera, geroagoko **monokromo** urdinak ere ekarriko dituzte Bilbora. [Berria - Kultura](#)

## monokulo (*orobat monokulu g.er.*) *iz* begi bakarrerako betaurrekoa.

**Monokulo** bat zeraman ezkerreko begian, modaz pasatako idun altua [...], bernizezko zapatak, eta onddo kapela. [Koro Navarro](#)

Eskolako koadernoak erakutsarazten zizkigun, eta **monokuloa** ipinita, serio-serio, gure lanak zorrotz gaitzetsi eta irakasten hasten zitzaigun... [Ander Irizar](#)

Miopea zen eta bere **monokulutik** begiratzen zion Dembari. [Anton Garikano](#)

Itzuli zenean, distiraka zekarren **monokuloa** begian. [Koro Navarro](#)

Jacques Kohnek **monokuloa** sakelatik atera eta bere lekuan ipini zuen. [Koro Navarro](#)

## monokultibo *iz* landare mota bakarreko laborantza. ik **monolaborantza**. • *adkor/hed*

Pizza eta hanburgerren **monokultiboa** praktikatzen duten hamaika horiek etengabe biderkatuz doaz aurrera. [Edorta Agirre](#)

## monokultura *iz* kultura bakarra.

Herrialde askotan kultur aniztasuna denen ahotan agertzen da etengabe; bitartean, **monokultura** bat jabetzen da hedabideez. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

## monokulu ik **monokulo**.

## monolaborantza *iz* lur guztia landare mota bati ematean datzan ekoizpen sistema. ik **monokultibo**.

**Monolaborantzak** kalte sozial handiak egiten dituela diozue: -Landare bakarra neurri gabe landatzearen lehen kalte handia hau da: bertako komunitateak kanporatzen dituzte eta haien baliabideen jabe egiten dira. [Berria - Gaiak](#)

**Monolaborantzok** ez dute ia lanposturik sortzen, are gehiago, kendu egiten dituzte. [Berria - Gaiak](#)

## monolitiko *izond* bloke bakar baten osatua.

*Elogio de la arquitectura IV* 1990ean egin zuen Txillidak eta altzairuzko obra **monolitikoa** da, metro bateko luzerakoa. Berria - Kultura

## 2 atal indartsu lotuak eta homogeneousak osatua.

Lehenbizi esango nioke Eliza, edo hobeto esanda kristautasuna, ez dela **monolitikoa**, denerako iritzi eta portaerak dituzten kristauak daudelako. Berria - Harian

Gainera liburu hau lupa bat da garai bateko Obaba **monolitiko** hura pittinka zatikatzen diguna. Berria - Kultura

Ikuspegi homogeneousoa eta **monolitikoa** dugu, eta horrek mugatu egiten gaitu. Berria - Mundua

Espainiak beti bezain **monolitikoa** eta intolerantea izaten jarraitzen du kulturalki. Joxe Azurmendi

Badakit errealitatea den bezain hotz eta **monolitiko** kontsideratzea hobe dela, baina egunerokotasun dorpearen ñabardura zenbait, zorigaitzez, izugarri gustukoak ditut. Itxaro Borda

Norbaitek balerreak halaxe izan dela edonon; bai, baina hemen osoki manera **monolitikoan**. Patziku Perurena

## monolitismo *iz* monolitikoa denaren nolakotasuna.

Ez beti esandakoagatik; ez bakarrik esandakoagatik, esaten uzten ez dutenagatik baizik, esandakoaren errepikapenaren **monolitismoagatik** baizik. Berria - Euskal Herria

## monolito *iz* harri bakar batez osaturiko monumentua.

Elgetatik gertu, errepidea utzi eta Intxortarako bidean pixka bat aurrera egin orduko, **monolito** bertikal handi batean, Francoren aldekoek 1937ko apirilaren 24 eta 25ean hildako lau elgetarren izenak irakurri nituen. Juan Luis Zabala

Jende multzo handi bat ikusi genuen urrutira, belardi batean, marmolezko **monolito** baten bueltan bilduta. Jon Maia

Harana begietan hartu orduko -L letraren esparrutik atera baino lehentxoago- harrizko **monolito** bat ikusten du dena lizarrez inguratua. Bernardo Atxaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**omenezko monolitoa** (3)

## monologatu, monologa, monologatzen du *ad* bakarriketan aritu.

Zainak korapilo zeuzkan eta **monologatzen** segitzen zuen itsasertza hotzean nola. Itxaro Borda

## monologo 1 *iz* bakarriketa.

Antzerkilaria **monologo** luze batean ari zen bere bizitza kontatzen. Iñaki Zabaleta

Taulara begira jarraitu zuten baina **monologoaren** haria galdu zuten, antzerkilaria lausotu egin zen hauen begietan, inguruak errealtasuna galdu zuen eta bien izana esku korapilo hartan murgildu zen, babestu zen. Iñaki Zabaleta

Andereak **monologo** bilakatzen ari zen solasaldia jarraiki zuen. Itxaro Borda

Eduardo Madina Bizkaiko hautagaiak Askatasunen aldeko **monologoak** izeneko ekitaldian parte hartuko du. Berria - Euskal Herria

Agustin eta beronen arrazoimena aurrez aurre, bion arteko **monologoa** da liburu hau. Imanol Unzurrunzaga

## 2 irud/hed

Bigarren zatia Arsenalen **monologoa** izan zen. Berria - Kirola

## monologogile *iz* bakarriketak idazten dituen.

Jon Plazaola **monologogile** eta gidoigileak Berria - Euskal Herria

## monomania *iz* ideia bakarrera mugatzen den mania.

Neure gaitza, bada, ikaragarritzko lastertasunaz ari zitzaidan areagotzen, eta, denborarekin, **monomania** bihurtu zen, forma berria eta ezohikoa zuena, unetik unera indartzen zena, eta, azkenean, ezin ulertzuko moduan menderatu ninduen. Koro Navarro

Paranoiatik **monomaniaraino** hel gaitzke, adimen-koizientetik ergeltasunaren lehen adigairaino, paralisi orokorretik entzefalopatia kronikoraino, izaeraren neurositik deliriorik gabeko zorotasuneraino. Xabier Arregi

Kriminalitatea bera - **"monomania"** gizahiltzaile" ospetsuen ondotik- desbideraketa modu bat bihurtzen da. Xabier Arregi

## monomero *iz* molekula bakunez osaturiko konposatua.

Azido sulfurikoa, sodio kloratoa, binil kloruro **monomeroa**, sodio dikromatoa... Berria - Euskal Herria

PVCaren produkzioan aska daitezkeen produktuen artean kloroa, etilenoa, hidrogeno kloruroa eta **monomeroa** bera (binil kloruroa) ditugu. Berria - Gaiak

## monomio *iz* termino bakarreko aljebra adierazpena. • *irud/hed*.

Ikasle bakarreko **monomioa** ! Jon Muñoz

## moñoña *izond* polita (emakumeei buruz).

Nik txakurreme **moñoña** despistaturen bat bilatzen nuen. Jon Arretxe

Arront neska formala, **moñoña** eta txintxoia bera Baina zure alabak ez du horren errurik, ezta **moñoña** ? -zuzendu zitzaion Leireri-. Aitor Arana

-Baina tokatu egin zaigu, **moñoña**: zure aitona da eta, okerragoa dena, nire aita. Aitor Arana

## mononazional *izond* nazio bakarrekoa.

Espainia **mononazionala** dela, bat eta bakarra dela aldarrikatzen duten PSOEko jende horri eta PPri, hau da, Espainiako nazionalista horiei, argumentuak kenduko dizkie. Berria - Harian



Baina PPK nahiago izan du eskuin muturrera jo, eta **mononazionala** eta espainola ez den guztiari eraso. **Berria - Mundua**

## moñoño izond polita.

Zuen Maddi bezalako alabatxo **moñoñoa** izango dinagu orduan. Haurtxoa **moñoñoa** da. **Xabier Montoia**

Horren ondoren, soingaineko urdin ilun **moñoño** horietako bat marraztuko lizukete, goi aldean, paparraren hasieran bertan, botoiño **moñoño** bat izango lukeena zehatz demonio marraztua. **Xabier Olarra**

Eman dezagun Martarena dela: apartamentu txiki baina txukun eta **moñoñoa**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Badakiela zer egin behar duen bere ETT **moñoñoa** kixkalita ikusi nahi ez badu. **Iban Zaldua**

## moñoñokeria iz moñoñoari dagokion egite gaitzesgarria.

*El cielito*-ko ardatza haurraren **moñoñokeriak** dira. **Berria - Kultura**

Tamalez, ordu eta erdiko film bat ez da haur baten **moñoñokeriekin** eusten. **Berria - Kultura**

## mononuklear iz nukleo bakarrekoa.

Zelula **mononuklearretik** Nunavut herriko itsas aho hormatueta bainatzen diren balea ikaragarrietara. **Itxaro Borda**

Partikula **mononuklear** berezien lasterra. **Itxaro Borda**

## mononukleosi iz odolean leukozito mononuklear gehiegi izatea.

Paris-Niza ostean analisisia egin, eta **mononukleosiaren** testak positiboa eman zidan. **Berria - Kirola**

Euskaltel-Euskadi taldetik jakinarazi dutenez, **mononukleosi** kutsakorra du Iban Mayok. **Berria - Kirola**

Iñaki Lejarreta mantso eta kostata gainditzen ari da **mononukleosia**. **Berria - Kirola**

## monopatin iz lau gurpil txiki dituen ohol batek osaturiko irristagailua.

Norbaiten asmatu zuen **monopatina**, handik hainbeste urtera milaka ume eta gaztek erabiliko zuten irristagailua alegia. **Pello Salaburu**

## monopol iz mahai joko baten izena.

**Monopola** utzi eta telebista ikusten jarri ginen. **Aitor Arana**

-Begira -esan zidan, eta, mahaian zabalik geneukan **monopola** alde batera utzita, aulki ondoan zutik jarri eta praktik beheratu zituen. **Aitor Arana**

## monopoliko izond monopolioarena, monopolioari dagokiona.

Enpresen jokabide **monopolikoa**. **Berria - Gaiak**

## monopolio 1 iz norbanako, lagunarte edo enpresa bati ematen zaion abantaila, ondasun bat berak bakarrik eskaini ahal izatean datzana.

Hirietan, gremioen **monopolioak** oztokatzen zuen oraindik ere manufakturen ekoizpena. **Koro Navarro**

Nork geldiaraziko gaitu, **monopolioaz** baliatzen bagara? **Iñaki Iñurrieta**

Amerikako Estatu Batuetako enpresek abiazio komertzialean zuten **monopolioa** haustea. **Berria - Ekonomia**

**Monopolioa** sortzea leporatzen diote AEBetako enpresari. **Berria - Gaiak**

ANPEk kontrataziorako **monopolioa** galduko du. **Berria - Ekonomia**

Microsoftek 497 milioi euroko isuna pagatu beharko du, **monopolioa** ezartzeagatik. **Berria - Ekonomia**

Elizak **monopolioa** galdu zuen, baina pribilegioari eutsi zion: herritarrak haren dogmaren arabera hezten segitu ahal izateko pribilegioari, eskola pribatuen bidez. **Berria - Harian**

SSek berek industria anitz kontrolatzen dute: esaterako, ur minerala saltzeko **monopolioa** dute Reich osoan. **Alberto Ladron Arana**

Kolonia-baliabideen ustiakarako **monopolioen** kontzesioa izan zen merkataritzaren hedapenaren bigarren eragilea. Iraganean hori ez zen beti egingarria izaten, sektore honetako adar handi gehienak estatuaren **monopolio** zirelako: elektrizitatea, ura, telekomunikazioak, aireko garraioak, bankuak, aseguruak. **Koro Navarro**

Kolonia-baliabideen ustiakarako **monopolioen** kontzesioa izan zen merkataritzaren hedapenaren bigarren eragilea. **Koro Navarro**

Garaiko arma nagusiaren kontrolaren **monopolio** honek aginte hori gaitu eta [...] behartu egingo zuen munduko gobernuaren papera bere gain hartzeko. **Iñaki Mendiguren**

**Monopolio** horrek sendagaiak garestitu egingo ditu, noski, eta, ondorioz, elite baten esku utziko. **Berria - Gaiak**

**Monopolio** hori, beraz, handitzen ari da. **Berria - Mundua**

Informazioaren **monopolioa** gero eta hedatuago dago. **Berria - Mundua**

## 2 (izenondoekin)

**Monopolio** publikoen ezabaketa. **Iñaki Heras**

"Alferrikako" elikagaiak, kostua jaitsaraziko luketenak, etc, desagerrarazten dira, prezioak [...] atxikitzea agintzen baitu **monopolio** eta oligopolio eskergeen aginduzko eskaera/eskaintza legeak. **Edorta Agirre**

## 3 irud/hed

Indarraren **monopolioaren** kontrola. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Nik zientzia, eta izpiritua oro har, **monopolio** maskulinotzat omen nuelako frogatzat, hain zuzen ere. **Joxe Austin Arrieta**

Menéndez Pelayo-k ere ez baitu *Volksggeist* espainolaren **monopolioa**. **Joxe Azurmendi**

Baina ikusten duzu, orain ez du zure aitatzik sufrimenduaren **monopolioa**. **Eneko Bidegain**

Berak hartzen du arazo guztien **monopolioa**, bera da etxeko martiri profesionala, eta kosta ahala kosta biktimaren garaipen moralala eskuratu nahi du. **Patxi Iturritegi**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Monopolio** egoera sustatzen aritzea ere leporatu zion. **Monopolio** arriskua dela eta lanpostuak barra-barra galduko direla argudiatu dute. **Berria - Ekonomia**

Nazioarteko merkataritzaren ezaugarriak ordea, errealitatean, ekoizpen-faktoreen mugikortasun gero eta handiagoa [...], **monopolio**-konkurrentzia eta goranzko etekinak

dira. konpainiak merkatuan duen nagusitasuna **monopolio** praktiketarako erabiltzen zuela. **Koro Navarro**  
Bruselak 497 milioi euroko isuna ezarri dio Bill Gatesen konpainiari, «ia **monopolio** nagusikeriaz baliatzeagatik». **Berria - Ekonomia**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zerga-salbuespenak, aldi baterako fabrikazio-**monopolioak**, maileguak, estatuaren eskariak eta ohorezko abantailak (errege-manufakturaren titulua adibidez). **Koro Navarro**

Mexikoko petrolio **monopolio** Pemexeko zuzendari Raul Muñozek kargua utzi du. **Berria - Ekonomia**

Mendebaldearen botere-**monopolio** hori, hala ere, 1945ean bukatu zen. **Iñaki Mendiguren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**monopolioaren aurkako** (7)

## monopolista *izond* monopolioarena, monopolioari dagokiona. ik **monopolistiko**.

Erdiguneak sistema osoan nagusitasun **monopolista** iraurazterako erabilitako bide berriak herrien arteko polarizazioa eta desberdintasun gero eta handiagoa azaltzen du.

**Iñaki Heras**

Oso gutxitan egiten zaie eraso, errotik eta ganoraz, enpresa elkarte eta enpresa handien kartelei (enpresa akordioei), edota jarrera **monopolistei**, horiek ere lehiakortasunaren kalterako direlarik. **Iñaki Heras**

## monopolistiko *izond* monopolioarena, monopolioari dagokiona. ik **monopolista**.

Errealitatean beste merkatu-egitura batzuk dira nagusi: monopolioak, oligopolioak -ekoizle kopuru txiki batek kontrolatutako merkatua-, eta lehia ez perfektua edo kompetentzia **monopolistikoa** -ekoizle eta erosle askoz osaturiko merkatua, non enpresak beren lehia-posizioa hobetzeko produktuak desberdintzen saiatzen diren. oso gutxitan egiten zaie eraso, errotik eta ganoraz, enpresa elkarte eta enpresa handien kartelei (enpresa akordioei), edota jarrera **monopolistei**, horiek ere lehiakortasunaren kalterako direlarik. **Iñaki Heras**

Hau ez da kontu berria plagiora eta joera **monopolistikoetara** ohituta dagoen Microsoft enpresarentzat. **Berria - Ekonomia**

Portaera **monopolistikoa** aldatzeko konpromisoa. **Berria - Ekonomia**

## monopolizatu, monopoliza, monopolizatzen **1** du *ad* monopolio bidez saldu edo ustiatu; (norbaitek) zerbaiten monopolioa bereganatu.

Badirudi, ehizarako eskubidea, hasiera batean libre zena, jauntxo feudalek **monopolizatu** zutela lurra berenganatu ahalean. **Patziku Perurena**

Saltoki handietara jendea erakartzeko erabiltzen dute zinema, eta gaur egun horien sustatzaileek **monopolizatzen** dute zinema eskaintza. **Berria - Ekonomia**

Zergatik **monopolizatu** behar zuen gutxiengo pribilegiatu batek aberastasuna eta aisia? **Iñaki Mendiguren**

Hurrengo hiru urteetan Londresko antzoki inportanteenak **monopolizatu** zituzten antzerki-lanetako lehena estreinatu zen: *Lady Windermere's Fan*. **Antton Olano**

## 2 irud/hed

Berrehun urtez Estatu-nazioaren "mitoak" **monopolizatu** du konstituzionalismoaren ulermena. **Joseba Zulaika**

Aberria **monopolizatu** nahi izatea aspaldiko arazoa dugu. **Berria - Euskal Herria**

Bi durangarrek txapelketa **monopolizatu** dute azken bost urteotan, erabat. **Berria - Kultura**

Argipean zen leihotik pianoak **monopolizatzen** zuen pareta ikus zitekeen. **Josu Landa**

## monopolizazio *iz* monopolizatzea.

Horregatik, eta alboan utzita alde teknologikoak, Internetek aurrean dituen bi erroka nagusi ondokoak dira: entitate ekonomiko edota politikoan **monopolizazioa** saihestea, eta masak ikas dezala sarearen erabilera egokia egiten. **Berria - Gaiak**

## monoproduktore *izond* salgai bakarra ekoizten duena.

Gu herri **monoproduktorea** gara, eta oso gerente txarrak izan ditugu. **Pako Aristi**

## monoptero *izond* tenplu biribilez mintzatuz, zutabe lerro bakarrak eusten diona.

Horieta batzuk **monopteroak** izaten dira, *cella*-rik gabe eta kolomekin bakarrik osatuak; beste batzuk peripteroak deitzen dira. **Santiago Iruretagoiena**

Hermogensesek, Magnesian dagoen Dianaren tenplu pseudodipteroari buruz, eta Teosen dagoen Bakoren omenezko **monopteroari** buruz [idatzi zuen]. **Santiago Iruretagoiena**

## monoptongazio *iz* diptongo batetik monoptongo batera igarotzea.

Diptongoen **monoptongazioa** -asmilazioaren aldaera bat baizik ez dena-. **Isabel Arrigain**

Frantses modernoko **monoptongazioak** joera bakar baten agerpenak dira. **Isabel Arrigain**

## monosexual *izond* sexu bakarrekoa.

-Nik, motel, ez diat oraingoz behar: **monosexuala** nauk. **Fernando Morillo**

## monosilabiko *izond* silaba bakarrekoa.

Frantsesa oso bestelakoa da: alternantzia gutxi agertzen ditu, eta erro **monosilabikoak** badituen arren (--...), baditu beste erro asko, bikoak eta hirukoak ere direnak. **Isabel Arrigain**

Emakumearen ahotik erantzun **monosilabikoak** besterik ez zirela irteten ikustean. **Joxemari Urteaga**

Geure arteko elkarrizketa **monosilabiko** haiekin. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ekialdeko ortodoxoen jatorrizko kantu liturgikoa *a capella* da, kantu **monosilabikoa** eta monodikoa, errezeitatibo eta salmodioetan oinarritua. **Berria - Kultura**

Publikoak gogoz onartu zuen Britten-ek jarri zituen disonantziak, ingeles prosodia **monosilabikoa** eta bazterketari eginiko kritika sozial garratza. **Berria - Kultura**

## monosilabikotasun *iz* monosilabikoa denaren nolakotasuna.

Gainera, badute beste ezaugarri bat, alemanaren **monosilabikotasuna** gogorarazten duena: erroa beti hiru kontsonantez egoten da osatua.

Isabel Arrigain

## monosilabismo *iz* monosilabikoen nagusitasuna.

Hargatik, euskararen jakinduria batean kosmologia da, bestean antropologia eta bietan teologia, **monosilabismotik** aglutiadora eta flexiora doan bide luzean

Kultura

Berria -

## monosilabo *iz* silaba bakarreko hitza, hitz silababakarra.

Izan ere, "**monosilabo**" hitza polisilabikoa bada, esango didak mundu honek konponketarik baduen...

Joan Mari Irigoien

«Esaldi laburrekin eta **monosilaboekin** » erantzun ziola.

Berria - Euskal Herria

-Noiz erantzun behar didak, Andoni, **monosilabo** batekin: bai ala ez?

Joan Mari Irigoien

## monoteismo *iz* jainko bakarren fedea, jainko bakar bat dela baieztatzen duen erlijio edo teologia dotrina.

Beste testuinguru batzuetan ikusi dugu **monoteismo** judaikoaren patua behin eta berriro agertzen zen politeismoaren erasoan egotea zela.

Iñaki Mendiguren

Politeismoaren sarraldi horiek **monoteismoa** erabat finkatzea eragin zuten Islamean, baita protestantismoan ere hain sakon ez bada ere.

Iñaki Mendiguren

**Monoteismoak** ari direla ahultzen, Jainkoa desagertzen...

Piarres Aintziart

**Monoteismoak**, erraz ulertzen da, gizadi bateratuaren kontzeptura eraman behar zuena: kreatzaile bat bakarra badago, eta gizon-emakume guztiak haren kreaturak dira;

Aita bada, haren haurrak izango dira guztiak.

Askoren artean

Kultur eta erlijio aniztasuna, Mendebaldeko judu-kristautasunaren orde; eta espiritualismoa **monoteismo** etikoaren orde.

Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**monoteismoa eta gerra** (16)

## monoteista *izond* jainko bakarreko erlijioa duena.

Hargatik uste zuten basamorturik egundo zapaldu gabeko zenbait jakintsuk han jaioa zela Jainko Bakarra, ezleku huts edo bakartegi haietako jendeak asmatuak zirela erlijio

**monoteistak**.

Iñaki Segurola

Gure mundu hau askoz ere bidezkoagoa eta zioritsuagoa litzateke ezagutzen ditugun hiru erlijio **monoteistek** kristautasunak, judaismoak eta islamismoak duten eragina

galduko balute.

Berria - Euskal Herria

Islama edozein juduk nahi izan zezakeen bezain fanatikoki **monoteista** eta anikonista zen.

Iñaki Mendiguren

Eta **monoteista** platoniko, estoiko, kristau eta marxistek susmagarri zaien bezala jendea munduaren anitzaz gozaten ikustea, sortzaileari ere susmagarri zaio irakurlea liburu

eta autore anitzez gozaten sumatzea.

Markos Zapiain

Baina Frumpepek *Iraun duten Fedeak* bere lan eskergan dio bertako biztanleak **monoteistak** direla, bakoitzak ez baitu bere buruaz beste jainkorik, eta hura adoratzeko baitu

izen sakratu askoren pean.

Xabier Olarra

## monoteizatu, monoteiza, monoteizatzen du *ad* monoteista bihurtu.

Horrela, politeismoa okerra da, herri haiek ebangelizatu eta **monoteizatu** egin behar dira, etc.

Joxe Azurmendi

## monotelita *izond* Jesu Kristorengan bi izaera bai, baina jainko borondate bakarra onartzen duena.

Maroniten kristautasun **monotelita** eta drosoen xiismoa, Hakim gurtzen duena, Erdialdeko Sirian jaio ziren biak.

Iñaki Mendiguren

## monotema *iz* gai bakarra.

«Euskal **monotemaz** eta bizitza sexual ezin penagarriagoa izateaz nazkatuta» homeopata batengana jo ondoren bihurtu zen super-heroi, ahalmen miragarrien jabe...

Berria - Kultura

## monotonia *iz* beti-batekotasuna.

**Monotonia** nagusi, Kastilla sakonari hurbiltzen ari naizelako marka.

Piarres Aintziart

Itsasoa bare dago, eta badator katamarana porturantz, uhinik gabeko

**monotonian**.

Pako Aristi

Goiko hiriak izaera ofiziala berreskuratu zuen, beheko hiria eguneroko

**monotonian**

murgilduko zen.

Karlos Zabala

Oixtian aipatu dudan "**monotonia**" erritmo lasai eta poetiko bilakatzen ari naiz: azken finean, gure baitan dauzkagu **monotonia** eta asperra.

Piarres Aintziart

Aste bati bestea jarraitzen zitzaion, ildo beretik,

**monotoniaz**.

Bernardo Atxaga

Bainutegiko tristurak, beti berdin diren egunen

**monotoniak**,

are beteago egiten dute ordurik ordu, txeratasunezko eztanda hori.

Josu Zabaleta

Hortxe gertatu da bidaiaren **monotonia** hautsi duen gauza bakarra.

Jon Arretxe

Era horretan ez gara **monotonian** eroriko.

Berria - Gaiak

Oraindik **monotoniaren** aurkako etsipenak jo ez duen eremu librea nahi du bizitza Ferminek.

Pako Aristi

Mundu Berri Bikain batean, non aldaketa bakarra aisialdi zoazoaren

**monotoniatik**

lan mekanikoaren

**monotoniara**

igarotzea izango baitzen.

Iñaki Mendiguren

### 2 (izenondoekin)

Aldapa nimitsoena ere ez

**monotonia**

jasangaitz hori hausteko.

Berria - Kirola

**Monotonia** lasaigarria eta triste samarra.

Jon Muñoz

Thailandiar musika, **monotonia** delikatu batez oin punttetan dantzatzeko egina bailitzan.

Iñaki Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**monotonia hausteko** (3)

## monotonu 1 *izond* beti-batekoa.

Orduen orratzak astiro dabilta, kilkerren kantu **monotonoare**n antzera beti bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Korukoek beren nota **monotonoa**k jaulkitzen zituzten. **Josu Zabaleta**

Trenaren hots **monotonoa**k lokartu zuenean, maleta burko gisa erabiltzeko ahalegina egin zuen gizonak. **Bernardo Atxaga**

Soinu hark, areago zirudien olatuen etorrera **monotonoa** hondartzara. **Anton Garikano**

Eremua berriz ere lautada **monotonu** bat zen, esparruaren amaieran bakarrik ikus zitekeen lerro urdin urrun bat: Thuringiako mendiak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Neure buruari galdetzen diot ez ote duen nahi, batzuetan, libre gelditu oinaze **monotonu** horretatik. **Berria - Kultura**

Ez zuten maite kontrolpean dagoen bizitzari darion iragaite **monotonoa**, ezusterik gabekoa. **Pako Aristi**

Egunak badoaz egunen ondotik, arrazoirik gabe, batuketa amaiezin eta **monotonoa**n. **Monika Etxebarria**

Aitortu zidan nire bizitzari urtetik urtera **monotonoa**goa irizten ziola. **Patxi Zubizarreta**

## 2

Handik mende batera, Aureliano, Aquileako erretore-laguntzaileak, jakin zuen Danubio ibai ondoan **monotonoen** (bestelako deituraz anulareak) sekta berri-berriak sinesten zuela historia zirkulu bat dela eta deus ez dela lehenago izan ez denik eta geroago izango ez denik. **Juan Garzia**

Handik hilabeteetara, Pergamoko kontzilioa bildu zenean, **monotonoen** errakuntzei kontra egiteko kargua hartu zuen teologoa. **Juan Garzia**

Apika **monotonoe**k kutsaturik, imaginatu zuten gizon oro bi gizon dela eta benetakoa bestea dela, zeruan dagoena. **Juan Garzia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahots monotonoz** (3)

## monotonoki *adlag* monotoniaz.

Hots, mugimendu ziklikoek giza historian, gurdi-gurpil baten biraketa fisikoek bezalaxe, **monotonoki** errepikakorra den mugimendu zirkularraren bidez. **Iñaki Mendiguren**

Horrexek emango ziokeela, esan zuen, munduko atsegirik handiena; eta ahotsa, **monotonoki** misterioan barneratzen ninduelarik, ia maitekorra bihurtu zitzaion, eta ematen zuen uler niezaiola erregutzen zidala. **Irene Aldasoro**

## monovolumen *iz*

"**Monovolumen**" erraldoietan goaz mendi puntako ermitarik urrunenak bisitatzera, eta neguan klase altuagokoak izan nahi luketen Espainia osoko pera, pijo, eskuindar moderno eta ezkertiar aburgesatuekin batera eskiatzera goaz. **Pako Aristi**

## monoxido 1 *iz* karbono monoxidoa.

I. jauna, apika, istripuaren ondorioz, autoke-hoditik nolabait sartutako **monoxidoaren** eraginpean zegokeen **Xabier Olarra**

### 2 *karbono monoxido* gas koloregabea eta usaingabea, oso pozoitsua.

Metanoa, karbono **monoxidoa**, karbono dioxidoa, kloruroa, zianuroa...: orotara, 51 produktu toxiko ageri dira Europako substantzia kutsagarrien zerrendan. **Berria - Euskal Herria**

Karbono **monoxidoa** pozoitsua da, odolean oxigenoa garraiatzea galarazten baitio hemoglobinari. **Irene Aldasoro**

Karbono **monoxidoa** gorputzean sartzen denean, hemoglobinarekin egiten du bat gasak. **Berria - Euskal Herria**

Karbono **monoxidoa** arnastuta hil zirelako zantzu nabarmenak. **Berria - Euskal Herria**

Autopsiak berretsi du Puiukoak karbono **monoxidoagatik** hil zirela. **Berria - Euskal Herria**

Crickek [...] pentsatzen zuen bazitekeela I. jauna, apika, karbono **monoxidoz** pozoitua izatea, gauza jakina baita horrek, odoleko oxigenazioa aldatuz, koloreen pertzepzioa aldatzen duela. **Xabier Olarra**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**karbono monoxidoa** (21); **karbono monoxidoa arnastuta** (9); **monoxidoa arnastuta hil** (7)

**karbono monoxidoak** (6)

**karbono monoxidoaren** (4)

## monozigotiko *izond* bikiez mintzatuz, obulo bakar batetik sortzen direnak.

Heziketa sexuala ez da obuluei eta espermatozoidetarako, herentzia genetikoari, biki **monozigotikoen** eta dizigotikoen arteko aldeari, barrabilen funtzioei, Falopioen tronpei edo haurdunaldiaren faseei buruzko informazioa ematea soilik. **Luis Elberdin**

Hiesa garatu zuten bi biki **monozigotikoetan** egindako azterketa. **Berria - Gaiak**

## monoziklo *iz* pedalek eragiten dioten gurpil bakar batez osaturiko ibilgailu jarlekuduna.

Akrobaziak, malabareak, hankapaluak, **monozikloa** eta zirkoko beste hainbat teknikak. Topaketa hauetan anitz ikusiko dira arte desberdinen gurutzamenduak: esku dantzak karrika musikarekin, sarituak izanen diren **monozikloen** korrika eta esku dantzaren lehiaketak, [...]. **Berria - Kultura**

Zure teknika pikoan ematen hasten zarelarik saia zaitezke **monozikloaren** gainean zarenear partaide bat igan zure sorbaldeetara eta berarekin jostatu pilotekin edo makilekin. **Herria**

## monsieur *iz* jauna.

-Oraingoz ez, **monsieur** Iraurgi -erantzun dio Virgiliak. **Felipe Juaristi**

**Monsieur** Nestorren klaseak irauten duen bitartean bakarrik egoten zara hotelean. **Bernardo Atxaga**

Eta entzun zuen nola denda jabeak, amultsuki eta errespetu handiz **monsieur** Haydn deitzen zion lagunari. **Felipe Juaristi**

Banlieueetako gazteak ez direla Napoleon edo ez direla egunotako prentsan **monsieur** eta madame legez emango, badakigu. **Iñigo Aranbarri**

## monsino *(orobat monsiñore)* *iz* prelatuei dagokien trataera.

Eta kardinalak (Juan Fernandez eta Adolfo Fernandez), artzapezpikuak (Idelfonso Tamayo) eta **monsinoak** (Ales Furundarena eta Ramon Ibarra) zer egin ez dakitela dabilta, estu eta artega. **Berria - Kultura**

Hortik laster Erromak **Monsiñore** izendatu zituen Diharassarry Kanboko erretor ohia, Mendiboure Aiherrakoa, Meriateguy Lasakoa eta Hiriart Behauzekoa. **Xipri**

Arbelbide

Gainera hango abokatetan hoberenatarik bat hautatua zuten eta Batikanoko apez, **monsiñore** eta kardenaleak alde zituzten Frantziako gorrien kontra. [Xipri Arbelbide](#)

**Monsinore** Aguer Rubenen semea da. [Herria](#)

-Katedralean **Monsinore** Aguer Artzapezpikuak eman meza; nahiz meza doi bat motela izan euskaldunak han ginen Anjelusaren kantatzeko. [Herria](#)

Burundiko Apezpiku Batzarreko presidente Simon Ntamwana **monsinoareari**. [Berria - Mundua](#)

Argentinan **Monsinore** batek. "Barka, **monsinoare,**" erantzun zuen Rochebriantek; "horretaz lotsa naiz". [Xabier Olarra](#)

Zakurraren buztana, **monsinoareak** ! zoazte antzarak ferratzera. [Aingeru Epaltza](#)

---

## monsinoare (orobat monsiñore) iz prelatuei dagokien trataera.

Eta kardinalak (Juan Fernandez eta Adolfo Fernandez), artzapezpikuak (Idelfonso Tamayo) eta **monsinoareak** (Ales Furundarena eta Ramon Ibarra) zer egin ez dakitela dabilta, estu eta artega. [Berria - Kultura](#)

Hortik laster Erromak **Monsiñore** izendatu zituen Diharassarry Kanboko erreto ohia, Mendiboure Aiherrakoa, Meriateguy Lasakoa eta Hiriart Behauzekoa. [Xipri Arbelbide](#)

Gainera hango abokatetan hoberenatarik bat hautatua zuten eta Batikanoko apez, **monsiñore** eta kardenaleak alde zituzten Frantziako gorrien kontra. [Xipri Arbelbide](#)

**Monsinore** Aguer Rubenen semea da. [Herria](#)

-Katedralean **Monsinore** Aguer Artzapezpikuak eman meza; nahiz meza doi bat motela izan euskaldunak han ginen Anjelusaren kantatzeko. [Herria](#)

Burundiko Apezpiku Batzarreko presidente Simon Ntamwana **monsinoareari**. [Berria - Mundua](#)

Argentinan **Monsinore** batek. "Barka, **monsinoare,**" erantzun zuen Rochebriantek; "horretaz lotsa naiz". [Xabier Olarra](#)

Zakurraren buztana, **monsinoareak** ! zoazte antzarak ferratzera. [Aingeru Epaltza](#)

---

## monstruo ik munstro.

---

## monstruositate ik munstrositate.

---

## montaje 1 iz muntaketa.

Zaragozako tailer batean **montaje** bat egiten ari zela, holako batek hanka harrapatu zioan: hezurak maila-maila eginda. [Pablo Sastre](#)

-Nahi baduzu moilatik pasatzea daukagu, **montajearekin** nola doazen ikusteko -esan diot. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Zinemakoek ardura gehiago edukitzen dute planoaren **montaje**an, argian eta horrelako kontuetan, interpretazioan baino, eta interpretazioa aktorearen esku uzten dute gehiago». [Berria - Harian](#)

### 2 muntatzea, editatzea.

Zinemakoek ardura gehiago edukitzen dute planoaren **montaje**an, argian eta horrelako kontuetan, interpretazioan baino, eta interpretazioa aktorearen esku uzten dute gehiago». [Berria - Harian](#)

### 3 antolaketa.

"Munduko musurik ezagunena", Robert Doisneau-k Parisko Herriko Etxearen plazan *America's Life* aldizkarirako atera zuena, **montaje** hutsa zen. [Iñigo Aranbarri](#)

Gezurrezko **montaje**a eraikitzen ari dituk hemen, dena simulakro hutsa. [Iñaki Iñurrieta](#)

Bermudetako Triangeluarena **montaje** bat da. [Harkaitz Cano](#)

---

## montakargas iz karga-igogailua.

Beste bat, fabrika solairuz solairu zeharkatzen duen **montakargasari** begira geratu da. [Harkaitz Cano](#)

**-Montakargas** hau ilegala da... [Harkaitz Cano](#)

---

## montaketa ik muntaketa.

---

## montatu ik muntatu.

---

## montatzaile ik muntatzaile.

---

## montenegroar (orobat montenegrotar) izlag/iz Montenegrokoa, Montenegrori dagokiona; Montenegroko herritarra.

**Montenegroar** gehienak ez dira serbiar sentitzen. [Berria - Mundua](#)

Baina **montenegroar** asko Serbian bizi dira, eta horiek ez dira independentziaren aldekoak, ezta Montenegro bizi diren serbiarrak ere. [Berria - Mundua](#)

Zergatik ez onartu euskaldunei, **montenegrotarrei** hamar egun lehenago onartu zaiena? [Berria - Euskal Herria](#)

---

## montenegrotar ik montenegroar.

---

## montoriar izlag/iz Montorikoa, Montoriri dagokiona; Montoriko biztanlea.

lazko maiatzaren 2an gertatu zen ezbeharrak, Anne-Marie Lhande Pargade **montoriarrekin** Pic du Biscay mendian zeudela, Biarnon, bie bizia galarazi zien istripua.

[Berria - Harian](#)

**Montoriarrek** berreskuratua zuen Orthezeko kapa iluna. [Aingeru Epaltza](#)

montra ik muntra.

## montzoi *(38 agerraldi, 8 liburu eta 5 artikulutan; orobat monzoi 10 agerraldi, liburu 1 eta artikulua 1ean)* 1 iz

Indiak **montzoi** esker irauten duela esan liteke. [Gotzon Garate](#)

**Montzoi** esparru tropikala. [Pello Zabala](#)

**Montzoiaren** sasoia zen, ustelaren kiratsa betiko desagerrarazi eta giroa egurasteko sasoia. [Xabier Montoia](#)

**Montzoi** garaian euri asko egiten duen arren, kendutako uraren zati txiki bat soilik berreskuratzen du lurrak. [Berria - Gaiak](#)

Bestalde, udako **montzoiak** Indian ere uholdeak utzi ditu. [Berria - Mundua](#)

Aurki eguraldia aldatu, giroa hoztu eta **montzoi** etorriko zela agindu zion Josuk izerdi patsetan zegoen Estherri. [Xabier Montoia](#)

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Montzoi** euriteak zirela eta, Gujاراتen lurralde zabalak ur azpian geratu ziren. [Gotzon Garate](#)

**Montzoi** garaian bakarrik egiten du euria, hots, maiatz azkenaldian hasi eta bizpahiru hilabetez. [Gotzon Garate](#)

Hor ikusiko dituzu taldeak, pala, zakua eta makila hartu eta bazterrak arakatzeko, **montzoi** hilabeteetan batez ere. [Gotzon Garate](#)

**Montzoi** bukaerako euriek denera 800.000 pertsona mugiarazi dituzte beren etxeetatik Indian. [Berria - Mundua](#)

Sheela plaza bazterreko palmondo baten azpian dago kuxkurtuta, goitik behera **montzoi** euri jasa den bitartean, eskuetan globo pila duela. [Gotzon Garate](#)

## monumental 1 *izond* monumentuarena, monumentuari dagokiona.

Urrundik, burua inarosten du batek, ez da neholako soslai **monumentalik** ageri: hirian zarela, bestelakoa da irudipena. [Jon Muñoz](#)

Gaztelua, elizak, komentiak, kolegioak eta ez dakit zer leku honen aberastasun **monumentalak** du gaur herri hau hiri bilakatzen. [Piarres Aintziart](#)

Argazkigintzatik abiatuta Arabako bazter guztiak ezagutu zituen, bere erretratuetan probintziako bizimodua eta ondare **monumentala** erregistratzen zituelarik, batez ere.

[Berria - Kultura](#)

## 2 eraikinez eta mintzatuz, hotsandiko dena bere tamainagatik.

Laukoteak aulki gurgildunari eutsi, eta hantxe egokitu zen Ruche jauna, airean, eskailera **monumentalaren** oinean. [Jon Muñoz](#)

Igandeetan hilerri **monumentalera** joaten ohi da, edo gurasoengana bisitan edo, zeharo libre egonez gero, paseoa ibiltzera Jetéera. [Monika Etxebarria](#)

Eraikin **monumental** baten balioztatzea. [Berria - Kultura](#)

## 3 ikaragarri handia dena.

Nafarroako toponimia ikerlan **monumentala** da, eta garrantzi handikoa. [Berria - Kultura](#)

Horregatik ikusten dut gure aurreko gainean apaindura beltzeko diadema **monumental** hori. [Josu Zabaleta](#)

Izan ere ikaragarria zen zakil tente **monumentala** erakusten zuen gorputz biluzi bihurrikatu hura. [Joseba Sarrionandia](#)

## monumentaltasun *iz* monumentala denaren nolakotasuna.

**Monumentaltasuna** arloteriari josi zaio. [Koldo Izagirre](#)

## monumento ik monumentu.

## monumentoso *izond* adkor

Ibilbide benetan **monumentoso** da. [Patxi Zubizarreta](#)

Danek esan gabe ere, denoi gigantoso, **monumentoso** eta mirakuloso iruditu zaigu. [Patxi Zubizarreta](#)

## monumentu *(orobat monumento g.,er.)* 1 *iz* pertsona edo gertaera gogoangarri baten oroigarri, egiten den arkitektura edo eskultura lana. ik oroitari.

**Monumentu** berri bat egin nahi dugu plazan gerran hildakoen alde. [Bernardo Atxaga](#)

Handik urte gutxira, **monumentu** bat eraiki zioten, eliza ondoan paratu zutena, Espainia salbatu eta goratu zuen haren betiko oroigarri. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Wellington-en **monumentuak** elurrezko kapela distiratsu bat zuen, Fifteen Acres lursail zuriaren gainetik sartaldera diz-diz. [Irene Aldasoro](#)

**Monumentu** txiki bat eraikitzeke diru-bilketa bat egitea bururatu zitzaion Ruche jaunari, honelakoxe eskaintzarekin: *adierazpen matematikoak, esker onez.* [Jon Muñoz](#)

Txanponez txanpon dirutza bildu eta **monumentu** bat egin zioten penaz hil omen zen zakurrari. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Ikusi besterik ez dago zenbat **monumentu** eraiki dituzten haien ohorez; Kop mendateko oroitarria, esaterako. [Jon Arretxe](#)

Haren erdian, sendo, askatasuna sinbolizatzen duen **monumentu** zuri eskerga, 1971n eraiki zena Persiar Inperioaren 2.500. urteurrena ospatzeko. [Jon Arretxe](#)

## 2 arkeologiaren, historiaren edo estetikaren ikuspuntutik interes edo balio nabarmena duen eraikuntza.

**Monumentu** historiko gisa sailkatuak zegoen. [Jon Muñoz](#)

**Monumentu** megalitikoak aztertzen dabilzan taldeen artean. [Berria - Kultura](#)

Duomoa eta edozein turistak ikusten dituen gainerako **monumentu** eta arte lanak ikusi genituen geuk ere. [Xabier Montoia](#)

Italian gotikoak sortu duen **monumentu** ederrenetakoa baita. [Askoren artean](#)

Hiri arrotz bateko **monumentu** eta edertasunak. [Matías Mujika](#)

Etxea gobernuaren eta nazioaren **monumentu** historiko bihurtua zen. [Pello Lizarralde](#)

Ohartu haiz zenbat **monumentu**, nolako kaleak. [Edorta Jimenez](#)

Zerrenda hori osatzen duten eraikin eta **monumentuen** artean %3 baino ez dira industri ondare. [Berria - Kultura](#)

Etxe guztiek **monumentuak** ematen zuten, etxe-aitzin garai landu haiekin. [Alberto Ladrón Arana](#)

Arkeologia **monumentu** mutuen, arrasto bizigabeen, testuingururik gabeko gaien eta iraganak utzitako gauzez arduratzen zen diziplina zena. [Xabier Arregi](#)

Aieteko jauregia **monumentu** izendatzeko prozedura abian jarri du Jaurlaritzak. [Berria - Kultura](#)

Jauregi hau, 12garren mendekoa da, eta **monumentu** gisa klasatua. [Herria](#)

## 3 irud/hed

Testu poetikoak oso dokumentu baliotsuak dira ahoskera ezagutu ahal izateko: **monumentu** hauek hainbat punturi buruzko argitasunak ematen dizkigute, bertsotan jartzeko sistema, [...]. Habana historiari eginiko **monumentu** bat zen, Egiptoko piramideak edo Petra edo Machu Picchu bezalakoa. [Isabel Arrigain](#)

Egiptoen arragoa gaizto hau antzinako legeria basatiaren **monumentu** bizia da. [Juan Martín Elexpuru](#)

Literatur berpizkunde baten **monumentu** tipikoa bere lehen fasean antologia, corpus, thesaurus, lexiko edo entziklopedia bat izaten da.. **Iñaki Mendiguren**

Herriko **monumentu** nazionala maistra zaharra zen, andretxo argal txiki bat. **Koldo Biguri**

Beste batzuen arabera, 219 milioi dolar kostaturiko zurikeriaren **monumentua**. **Berria - Gaiak**

#### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Monumentu** -eraikuntzari bultzada bat ematen. **Santiago Iruretagoiena**

Baseriaz gain, **monumentu** izendapenak haren ingurunea ere babestuko du aurrerantzean. **Berria - Euskal Herria**

Baseriaz gain, **monumentu** izendapenak haren ingurunea ere babestuko du aurrerantzean. **Berria - Euskal Herria**

#### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Highgate-ko hileta **monumentu** bat, sastraketatik azaltzen zen harrizko aingeru bat, hatz erakuslea ezpainetan zuela isiltasuna eskatuz. **Ramon Saizarbitoria**

Semearen ohoretan hilobi **monumentu** bat eraikirazi zuen, *Etsipen enea* izenekoa. hantxe berean ikusi ditugu Andrevena Maria " xuria " eta Napoleonen denborako gerla baten orroit- **monumentua**. **Patxi Zubizarreta**

##### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**monumentu bat egin** (4); **monumentu historiko** (3); **monumentu izendatu** (3); **monumentu nazional** (3)

**monumentua egin** (3); **omenezko monumentua** (3)

**foruen monumentuan** (5)

**foruen monumentuaren aurrean** (3); **monumentuaren inaugurazio** (3); **monumentuaren inguruan** (3); **monumentuaren ondoan** (6); **omenezko monumentuaren** (4)

## monzoi ik montzoi.

## mopa iz etxeetako lurra, busti gabe, garbitzeko tresna, telaz edo ehunez forraturiko pieza horizontal batek eta gider luze batek osatua.

Santiago hoteleko neska **mopa** pasatzen ari da barruan. **Berria - Harian**

Zuen ama gauzak erosten aritzen zitzaion beti, erratza, **mopa**, pastel-betegarri berriren bat. **Koro Navarro**

## morabiar ik moraviar.

## moradore iz biztanlea.

Horratx, nonahiko jendaje arrotzak, herri batean "habitante" edo **"moradore"** izan ondoren, bertako "vecino" gradua hartzeko bete behar zuen baldintzetako bat: gutxienez hamairu azaburuko baratzea ukan. **Patziku Perurena**

## moral 1 izond gizarte batean onartzen diren ohiturei eta jokaerei dagokiona; moralaren filosofia-azterketari dagokiona.

Edozein teologo **moral** tradizionalistak esan zezakeen bezalaxe. **Joxe Azurmendi**

Platonen pentsamendu **moral**a, politikoa eta zientifikoa, hau da, garaiko pentsamendu filosofikoa, orduantxe hasi zen eratzen. **Askoren artean**

Filosofia **moral** osoa, bizi xehe bati atxikitzen zaio apainketa aberatsagoko bizi bati bezain ongi. **Patziku Perurena**

Torturaren inguruan sortzen diren dilema **moralak** "klasikotzat" har ditzakegu etikaren alorrean. **Askoren artean**

Errabino-familia batean jaio zen Singer, Talmud eta Tora liburuak izan ziren bere heziketaren oinarriak, eta goitik behera **moral**a den ikuspegia erabili zuen bizitzan bezala idazlanetan ere. **Berria - Kultura**

Errurik gabeko ezjakintasunaren aurrean tolerante izatea zein ausarkeriaren aurrean jasankorra izatea prestakuntza **moral** onaren seinalea da. **Jon Alonso**

Ekintza **moral** edo etika izenda genezakeena. **Askoren artean**

Tesiaren gaia nazionalismoaren funtsatze **moral**a da. **Askoren artean**

Bi erabaki eta ekintza **moral** mota badirela: ona eta gaiztoa.Termino horiek epai **moral** bat inplikatzeko dutenez, hobe izango da agian moralki termino neutralak erabiltzea. **Piarres Xarriton**

Tabu **moral** edo sozialengatik. **Luis Elberdin**

## 2 izpirituari, gogoari dagokiona (material, fisiko-ren aurrez aurre).

Unibertso fisiko eta **moralean** ikusten denez. **Juan Martin Elexpuru**

Suntsidura **moral**, psikologiko, sozial eta politikoari (ez aipatzearen materialari) dagokionean. **Iñaki Mendiguren**

Baina frogen ziurtasun **moral** hau errazagoa da sentitzen, zehatz definitzen baino. **Juan Martin Elexpuru**

Zirrara **moral** handietako dardara urduria sentitu zuen kolpetik doktoreak, eta emozioz ikara batean hartara hurbildu zen. **Josu Zabaleta**

Beti izan dut nik halako osasun **moral** bat izateko asmo madarikatu hori! **Josu Zabaleta**

Plazer **moralak**, hutsak dira, banaka batzuei baino komeni ez zaizkienak; larru-jotzearenak, oster, denen gustukoak dira, eta bere xarma liluragarriek laster orekatzen dituzte uesteko mesprezuak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Usaia min **moral**a psikologikoarena baino jasagarria zen, jarria nintzaion. **Piarres Aintziart**

Salatzaile bakoitzari kalte **moralengatik** 8.000 euro ordaindu beharko dizkio Madril. **Berria - Mundua**

## • 3 iz ongiaren eta gaizkiaren jakintza; giza jokabidearen edo egintzen doktrina, horien ontasunari edo gaiztotasunari dagokionez.

Gure kontzepzio etikoa guztiz dago **moral** kristauaz blai eginda. **Askoren artean**

Horregatik, ohituren Metafisika benetan **Moral** hutsa da. **Ibon Urbarri**

## 4 ontzat hartzen diren jokabide arauen multzoa; giza jokabidea bere alderdi moraletik ikusia.

Begira, **moralaren** zentzua ez dugu herentzia bidez jasotzen; hartu egiten dugu, geureganatu. **Ander Irizar**

Esklaboaren **moralak** nagusiaren **moral**a ordezkatu du, eta aldaketa hori hain indartsua izan da, nagusiak berak balio-sistema antinatural hori beretu egin baitu. **Askoren artean**

-Bai, oso jende jatorra; baina ezin jasanezko **moral** bat dute. **Josu Zabaleta**

Luxuria jabetu zen nitaz eta inguratu egin ninduen bere traiziozko itzal mugikorrez, bere **moralik** gabeko estandarteez, libertinajeari lotzeko deia zen hura, lotsa erabat galtzeko, ñabardura guztietako gozamen guztiak probatzeko, mugagabe, heriotza lizunkoia etorri arte. **Karlos Zabala**

## 5 (izenondoekin)

Ez dago, **moral** esentzial hori ezagutzen ez duen herririk; eta ez dago, **moral** esentzial horrek baino agindu gehiago ukan dezakeen **moral** razionalik. **Joxe Azurmendi**

Haren herrikideak - **moral** burges aszetikokoak- ezin zuten horrelakorik onartu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Harrokeria nazien biktimak izan ziren batzuk; frankismoarenak, gulagetakoak, kastrismoarenak, Pinochetenak; hango eta hemengo faxismoarenak, hango eta hemengo

**moral** iraultzailearenak. Anjel Lertxundi

**Moral** hertsiak eta barne-gogoeta egiteko beharrak laburbiltzen dute haren mezua. Askoren artean

Apaiz libertino batekin igaro zuen bere haurtzaroa, **moral** lasaiko emakumez inguratuta, bere aitaren ibileren eraginpean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sartrek (1905-1980) **moral**-sistemei egindako kritikaz mintza gaitezen, azkenik. Askoren artean

Jean Saint Pierre Anxuberro Baionako seminarioko **moral** irakasleak gerla-tokietarik bidaltzen zituzten artikuluak. Piarres Xarriton

Garaiko **moral**-eskuzabaltasunari esker. Felipe Juaristi

Haren **moral**-erretorika itxura hutsa zen. Anjel Lertxundi

**Moral** gaietako gure hutsegite guztien iturria, kristauek bere zorigaitz eta larritasun mendean asmatu zuten anaitasun-lotura zentzugabe hura onartzea izan da. erlijio-kontuetan ahalegina eskatzen duen oro maite dugu, **moral**-kontuan zorrotzasun-itxura daukan oro maite dugun bezala. Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio

Erljiioak ez du onartzen ezkontzaz kanpoko harreman sexualik, baina gu gehienok ez geunden ados **moral** klase horrekin. Rafa Egiguren

Horiek ez gaituzte jartzen **moral** oinarri baten eta Estatu lege baten arteko desberdintasuna nabarmentzeko tenorean. Andres Urrutia

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ene ideiak kristau **moralaren** menpe zeuden eta bidea zabal eta argitsu neukan, hautzaroko lehen urratsak egiten hastera nindoala. Piarres Aintziart

- Duela gutxi asmatu diote izena lanean boterea duenak boteretik ez duenari egiten dion zapalketa psikologiko-**moral** horri. Joxerra Garzia

Komunitatearen balio kultural-**moralen** transmisioa. Joxe Azurmendi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arau moral** (5); **arazo moral** (3); **balio moral** (4); **balore moral** (3); **ekintza moral** (4); **epai moral** (4); **erabaki moral** (3); **filosofia moral** (3); **irizpide moral** (3); **jarrera moral** (3); **kalte moral** (3); **kualitate moral** (4); **lege moral** (4); **moral aldetik** (7); **moral bakarra** (3); **moral berri** (4); **moral bikoitza** (5); **moral burgesaren** (4); **moral eta intelektuala** (3); **moral fiskalak** (4); **moral handia** (5); **moral hutsa** (3); **moral objektibo** (3); **nolakotasun moral** (3); **ordena moral** (4); **sen moral** (4); **teoria moral** (3); **txosten moral** (3); **zientzia moral** (3)

**arriku moral**a (3); **balio moral**a (4); **behar moral**a (6); **bertute moral**a (4); **betebehar moral**a (3); **ekintza moral**a (3); **erantzukizun moral**a (6); **filosofia moral**a (3); **garaile moral**a (3); **jazarpen moral**a (8); **kalte moral**a (5); **kontzientzia moral**a (3); **laguntza moral**a (4); **laneko jazarpen moral**a (3); **lege moral**a (6); **lintxamendu moral**a (3); **moral**a eta erlijioaren (3); **moral**a izan (5); **moral**a izango (3); **moral**a onartu (3); **moral**a zer den (3); **nagusitasun moral**a (4); **on moral**a (4); **sistema moral**a (3); **txosten moral**a (5)

**arazo moral**ak (4); **balio moral**ak (7); **ezaugarri moral**ak (3); **lege moral**ak (7); **obra moral**ak (3)

**filosofia moral**ean (4)

**lege moral**en (5); **lege moral**en menpean (3); **printzipio moral**en (3)

**kalte moral**engatik (5)

**ikuspuntu moral**etik (3)

**moral**ez gainezka (6); **moral**ez gainezka egongo (3)

**aginte moral**ik (3); **moral**ik gabe (4); **moral**ik gabea (3); **moral**ik gabeko (6)

## moraldun iz morala.

Dibertsio arina, "**moralduna**", kontserbadoreek aldarrikatutako Amerikar familia balioen neurri estandarretan sartzen zena. Iñaki Zabaleta

## moraleja *(orobat moralexa g.er.) iz alegia* baten erakutsia; erakutsia.

Ipuinetako **moraleja** behar dut guztiari zentzua aurkitzeko. Xabier Etxabe

Idazleak, Kipling-ek esana, idatz dezake fabula bat, baina debekatuta dauka **moraleja** ematea. Anjel Lertxundi

Argazkiko eguzkia goi-goian zegoen, dirdaitsu: soldadu-martxari **moraleja** itxurako marko ohoretsua emateko zegoela zirudien. Anjel Lertxundi

Istoriari etekina -**moraleja** - atera nahi liokeen orojakile batena? Anjel Lertxundi

*Nenufare zuria* (edo Ishmir eta Guzmuden ipuin zorigaiztoko eta **moralexa** mingotsa). Xabier Mendiguren Elizegi

## moralejadun *izond* moralejaz hornitua.

Nekazari giroetako narrazioak, baina ez dira ipuin **moralejadun**ak. Berria - Kultura

## moralexa ik moraleja.

## moralgabe 1 *izond* moralik ez duena.

Neska ahul eta **moralgabea** zen Molly, argi eta garbi, eta kontzientziak ez zion benetan agintzen Molly zigortzea, harena baino Charlieren errua izan zen zerbaitengatik.

Mirentxu Larrañaga

-Leku guztiak dituk **moralgabeak** -esan zuen-. Irene Aldasoro

*Belar hostoak* liburua **moralgabea** zela esan zuen ezjakin ezin handiago hark. Oskar Arana

## 2 moralaren kontrakoa.

Haien ustez, **moralgabea** da giza enbrioetatik zelula amak ateratzea. Berria - Gaiak

ETAk Katalunian su-etena iragartzeko egindako adierazpena «nazkagarria da politika aldetik, eta **moralgabea** etika aldetik». Berria - Euskal Herria

## moralgabekeria iz moralgabetasuna, gaitzesgarritzat markatua.

Jainkoak ez gaitu **moralgabekeria**n bizitzeko deitu, berarentzat sagaraturik bizitzeko baizik. Elizen arteko biblia

## moralgabetasun iz moralgabea denaren nolakotasuna.

Soldadu estatubatuarren jokaerak Bushen gurutzadaren **moralgabetasuna** agertu du. Berria - Mundua

Atxilotetak **Moralgabetasun** Publikoaren Kontrako Borroka Plana delakoan oinarrituz egin dituzte [Iranen]. Berria - Gaiak

Neuk ezagutu ditiat kasuak: **moralgabetasun** -kasuak... Irene Aldasoro



## moralgabezia iz moralik eza.

Indarkaria politikoa, hor konfliktu politiko bat, batzuentzat balio sistema ezberdinen artekoa, beste batzuentzat moralaren eta soil **moralgabeziaren** arteko konfliktua bezala ageri baita, interpretazioen edo interesen arabera. **Joxe Azurmendi**

## moralina iz axaleko morala.

Zenbat **moralina** pilatzen ote du gure gibelak? **Patziku Perurena**

Zenbat eta **moralina** estuagoan hezi, orduan eta irriberrago eta negarberago jendea. **Patziku Perurena**

## moralismo 1 iz nagusitasuna moralari emateko joera.

Orain politika **moralismoan** errefuxiatzen da -ez moralean. **Joxe Azurmendi**

Literaturak ez duela **moralismo** edo militantismoaren beharra erakusten digu, nonbait. **Janbattitt Dirassar**

Horrela ikastera behartuak izan gara geu ere, zezenaren adarrak gainean, **moralismoaren** eta inozentziaren tentazioetatik ihes egiten. **Joseba Zulaika**

Kristautasuna **moralismo** motz bihurtu zitzaiguneko. **Joseba Zulaika**

Foucaultek moral modernoaren genealogia berridatzi du: arrazoimenaren atzean dagoen zoroen errotetxea, askatasunaren giblean dagoen presoan kartzela, osasunaren azpian dagoen gaixoen ospitalea, sexu heterosexua arruntaren ostean dagoen **moralismo** viktoriarra eta beste horrenbeste. **Askoren artean**

### 2 (hitz elkartuetan)

Bertatik baztertu nuen lehena, **moralismo** kutsu gogaikarrikoa, eta bigarrenari buruzko gogoetan murgildu nintzen, nire izaerarekin hobeki baitzihoan. **Juan Garzia**

## moralista 1 izond nagusitasuna moralari ematen diona.

Atzean, oso atzean geratu dira sexualitatearen inguruko ikuspuntu platonikoa, **moralista** eta baita progrea ere. **Luis Elberdin**

Hannak oso ongi ulertzen zuen nire proposamena, benetan zen bezalakoa: ez erromantikoa, ezta **moralista** ere, baizik eta praktikoa: bizitoki bera, ekonomia bera, adin bera. **Joxe Austin Arrieta**

Parranda baino zehatzago izango da mozkerria esatea, edo, hitzaren kutsu **moralista** saihestearren, alkohola. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Horren eraginez edo, barra-barra erabiltzen ditugu karga moral sekulakoa darien eta inoiz bukatzen ez diren *kizun* prometeikoak, kutsu subliminal **moralista** eransteraino euskal bizitza egunerokoari: euskaldunok, antza, dena dugu kizun. **Anjel Lertxundi**

Langabezia, bazterketa soziala, presondegia... bada gogoeta sakonki liburu hortan, "kutsu **moralistik** gabe haatik, irakurleak berak bere gogoetak egin ditzan". **Heria**

Iritzi orokorretan oso **moralista** da, harrigarriro. **Oskar Arana**

### • 2 iz moralaz aritzen den idazlea.

Azkeneko mende eta erdian, "sadismoa" psikiatra, **moralista**, psikoanalista, filosofo, apaiz eta pedagogoen aztergaia izan da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ondorioz -eta hau ez du zeren ahanzt sekula gizaki bakoitzaren duintasuna zaintzeaz arduratzen omen den teologoak ala **moralistak** - hizkuntza hunkitzen eta jotzen duen edozein erasok, hunkitzen eta zauritzen ere du Gizakia bera. **Piarres Xarriton**

Seneka filosofoa (K.o. 85 hila) oso ezaguna zen Erdi Aroan **moralista** gisa. **Askoren artean**

**Moralista** batzuek arrazoitu zuten diruen jabe izateak ez dakarrela beti zorionik eta beste ditxa modu batzuk zuzenagoak direla behar bada. **Juan Garzia**

Zeinek jartzen ditu, baina, mugak [ikerketan]?, zientzialariek?, **moralistek**?, legegileek?... **Berria - Gaiak**

Idazkera trinkoa, guztiz soildua, elipsiz bete, aszetikoa, ez dakit zergatik, baina **moralisten** artean estimazio berezia izan ohi duena. **Josu Zabaleta**

Jendea, **moralistek** eta poetek besterik uste izanagatik, ez dela sekula jostatu haragiarekin, baizik-eta larruarekin. **Iñaki Seguro**

Gure **moralista** progreak "maitasun heldua" aldeztzen zuen, eta "haurrei dagokien egoismoa" gainditzeko eskatzen zuen. **Luis Elberdin**

## moralitate 1 iz moralitasuna.

Besterik ezean, terrorismoaren aurrean segurtasuna, legea, **moralitatea** gorde beharrak eman dio bizitza Estatuaren "Beste" nagusiarri. **Joseba Zulaika**

Baina handik minutu batera klaro ikusi nuen berak zuela, beste inork ez, nire gaiztakeriaren, nire kalte egiteko grinaren kulpaz guztia eta lurretik kentzen banuen, **moralitate** ederreko gauza egingo nuela. **Matías Múgica**

### 2 morala, ontzat hartzen diren jokabide arauen multzoa.

Nietzschek ordu arteko balioak ordezkatu nahi ditu, **moralitate** berri bat gauzatze aldera. **Askoren artean**

Egoera praktikoa batean jarrita, miliziano gaztea Sánchez-Mazas-en aurrez aurre, adibidez, bi portaera dira posible, nahiz eta adostezinak izan, bakoitzak bere **moralitatea** baitu. **Joseba Zulaika**

Egin daitekeenaren eta debekatua dagoenaren arteko mugetan mugitzen den **moralitate** gisa ulertu behar da moral kristauaren funtsa. **Askoren artean**

Herriko dantzaldi publikoan **moralitatearen** aurkako okerra egiteagatik. **Berria - Kultura**

### 3 irud/hed

Amona xaharrarenaren gisako eskuaz goxoki gorde zuen zibilizazioaren ilunabarreko eguzkia, eta ilunsentian gizonaren afaria -esne eta **moralitate** katilukada- prestatzen du eta hilobi unibertsalaren ohe-estalkiak ezartzen ditu. **Xabier Olarra**

### 4 (hitz elkartuetan)

Hortik jarri da zalantzan ea **moralitate** arrastorik ote zen ordena natural soilean. **Andres Urrutia**

## moralizatu, moraliza, moralizatzen 1 du ad moral bihurtu, izaera morala eman.

Horren arabera, euskal letrak soilik doktrina emateko, **moralizatze**ko, herri hau salbatzeko [...] erabili behar dira. **Patziku Perurena**

### 2 da ad moral bihurtu, izaera morala hartu.

Norbere burua ezkatatzeko eta onuragarria zaien itxura onartzeko joera honen bitartez gizakiak ziurki erabat zibilizatu ez ezik, pixkanaka hein batean **moralizatu** ere egiten dira, [...] bakoitzak bere inguruan ikusten zuen ongiaren ustezko adibide jatorretan beretzako hobekuntzaren eskola aurkitzen baitzuen. **Ibon Urbarri**

## moralizatzaile izond moralizatzen duena.

Egungo «tribu» iparramerikar batean kokatzen da istorioa WASP izeneko tribu boteretsuan eta istoriotxo **moralizatzaile** eta folklozeazalea proposatzen digu autoreak, Txomin Agirrek Kresala-n marinel euskaldunekin egin zezakeen eran. **Berria - Kultura**

Azken hitz hauen zatarkeria ez da bat etorriko errieta **moralizatzailearen** tonuarekin. **Jon Alonso**

Bere garaian hainbeste aipatzen ziren animalia **moralizatzaile** eta alegorikoak ez ditu [Alberto Magnok] kontuan hartzen tratatua idazteko. **Berria - Gaiak**

Egungo indar-erlazioak direnak direla, aldi berean pittin bat **moralizatzaile** eta ergel sentitzen naiz alternatibak proposatzean. **Iñaki Heras**

## moralizazio 1 iz moralizatzea.

Karguan jarri denetik, presidentek nazioarteko merkatuen **moralizazioaren** aldeko jarduerari eta gaizkile sareen kontrako borrokari ekin die eta ildo horretatik jokatzeari agindu die gobernu guztiei. Berria - Mundua

Beti salatu izan da sofisten erlatibismoak **moralizazioaren** gabezia suposatzen duela eta horrek ondorio txarrak ekartzen dizkiola elkartean egiten den giza bizitzari.

Askoren artean

## 2 (hitz elkartuetan)

Bestalde, **moralizazio** -helburu argia du Zelanok aurkezpen honetan. Askoren artean

## moralkeria 1 iz moralismo gaitzesgarria.

Ohiturik geunden **moralkeriaren** kontra egiten zuen Reich-ek istorio haren ikaskizunarekin, baina **moralkeriaz** jokatzek zuten berak ere azken batean. Ez diot ezerein **moralkeria** goibeli gaur gure artera sartzen utziko. Juan Kruz Igerabide

Gaiaren gordintasunari ihes egiten ez dion arren, umorez zipriztindutako **moralkeriarik** gabeko kontaketa da Sastrearena. Berria - Kultura

Eta horrekin individualismoa, **moralkeria**, pentsamenduaren atzerapena, deshumanizazioa, pestea Luisa, pestea! Pako Aristi

Goxoaren goxoz bihotzerrea sortzen duen ipuin mingel **moralkeriaz** betea. Berria - Kultura

## 2 (hitz elkartuetan)

Ipuin polita da, egungo ikuspuntutik halako **moralkeria** kutsu bat duen arren. Martin Anso

## moralki *adlag* alderdi moralean.

Hemen lan egitea ezinezkoa da, bai teorian, bai praktikan, bai **moralki**, bai fisikoki. Urtzi Urrutikoetxea

Intelektualki ez ezik **moralki** ere gaitzesten da aurkaria. Iñaki Heras

Borreroa beti saiatzek da kondenatuaren lekuan ipintzen; zinez pentsatzen baitu ez dagoela, ez etikoki ez **moralki**, bere lana betetzeko beste erarik. Karlos Linazasoro

Susmatzen zuen, gainera, kontrakoa eginez, hots, ekintza bizitzaren bat salbatzea balitz, **moralki** ez ezik teknikoki ere eraginkorragoa izango zela. Iban Zaldua

Orijinaltasunaren kontzeptuak indarra hartu zuenetik, edo, txanponaren beste aldetik esanda, plajioa **moralki** gaizki ikusia eta lege aldetik ere kondenagarria izaten hasi zenetik, egonezina hedatu zen literatur gizartean. Bernardo Atxaga

Arautegiak eta zuhurtziak agintzen dutena alde batera utzi duzu, baina **moralki** ez zara gaizki portatu. Xabier Olarra

Inoren jokabide moralak **moralki** epaitzeko, haietaz oharatu behar genuke aurretiaz, eta hor ezin aurkitu objektibotasunaren sostengurik. Juan Garzia

Uste osoa ez da ziurtasun logikoa, morala baizik, eta oinarri subjektiboetan funtsatzen denez gero (intentzio morala), orduan ez du esan behar: **moralki** ziurra da Jainkoa badela, eta abar, baizik ni **moralki** ziur nago, eta abar. Ibon Uribarri

## moraltasun 1 iz morala izateko nolakotasuna. ik moralitate.

Bigarren aukera ontzat hartzen bada ordea, Jainkoa da **moraltasunaren** iturria; baina Jainkoa balioen iturri bihurtzeko morala arbitrario bilakatzen du. Askoren artean

Haren ustez, **moraltasuna** inperatibo kategorikoen sistema da, hots, honela, ez bestela jokatzeko esaten diguten aginduen multzoa. Askoren artean

Gure jokabidearen **moraltasuna** bertuteetan oinarritzen duten autoreentzat, Aristotelesen *Nikomakorentzako etika* liburua da erreferentzia nagusia. Askoren artean

Arrazoiaren gidaritzapean bizitzeak gure baitan eragiten duen ongi egiteko Desira deitzen dut **Moraltasuna**. Piarres Xarriton

Apaltasunak badu berekin sasi-**moraltasun** eta erlijio itxura bat. Piarres Xarriton

## 2 morala, ontzat hartzen diren jokabide arauen multzoa.

Basatiek edo haurrek duten **moraltasuna** ez da Vienako edo Amsterdameko auzitegi batean epaile den hirurogei urte eta gehiagoko pertsona batek duena. Ander Irizar

Oso mingarri zait, Lady Bracknell, zure ilobaz argi eta garbi hitz egin behar izatea, baina ez dut inola ere onartzen haren **moraltasuna**. Antton Olano

**Moraltasuna** poliziaren esku eta arte ederrak antzoki-enpresarioen esku uzten dituen klase ertain kamuts baten kritiken mende. Irene Aldasoro

Merkatuaren eraginkortasuna eta **moraltasunik** ezaren arteko oreka lortzea baita apustua, erronka. Edorta Agirre

Biak ere ez ziren froga oso erabakigarriak, baina ezkontza sakratuaren lotura etenezinakin hautsita amorante batekin bizitzeak eta haurra nahita galtzeak emakumearen

**moraltasun** eza adierazten bide zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Amerikaren zilegitasuna zalantzan dago eta inor gutxi sinetsiko du Amerikaren **moraltasunean**. Berria - Mundua

Tutore-kargua ematen diatenean, **moraltasun** handiko jarrera hartu behar izaten duk gauza guztietan. Antton Olano

## 3 irud/hed

**Moraltasun** -esne kikarakada erdia. Xabier Olarra

## moralzale *izond* moralaren zalea dena.

Adin eta sexu guztietako atseginzaleok, zuei eskaintzen dizuet lan hau: elika zaitezte hemengo irizpideez, zuen irriren alde mintzo baitira; irrika horiez baliatzen dira

**moralzale** zorrotz eta ergelak zuek izutzeko, irrika horiek, berez, naturak gizona bere xedeetara eramateko dituen bideak baino ez direnean. Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio

## morapilo ik korapilo.

## moratoria (*orobat moratorio g.er.*) iz luzamendua, atzerapena.

Eztabaidatzen den bitartean zigor horiek gelditu behar dira; **moratoria** bat jarri. Berria - Mundua

AEBrekin duela bi urte sinatutako **moratoria** hautsi zuen horrela. Berria - Mundua

Administrazioei egin genien orduan deia, **moratoria** eskatuz azpiegitura erraldoien edota garraio eta energia ereduaren inguruan. Berria - Euskal Herria

Afrika Mendebaldeko Estatuaren Ekonomia Komunitateak hitzartutako **moratoria** konbentzio bihurtzeko lanean ari da. urreneko urratsa plutonioa eta aberastutako uranioa garatzeko **moratoria** komun bat ezartzea da. Berria - Harian

## moratorio ik moratoria.

## **moraviar** (*orobat morabiar*) izlag/iz Moraviako, Moraviari dagokiona; Moraviako herritarra.

Viena familia handi bat zen, Inperioa ere bai, bere hungariar, aleman, **moraviar**, txekiar, serbiar, kroaziar eta italiarrekin, eta familia handi horretan guztiak zuten sentsazio sekretu bat, abentura-irrikaren, jaiduren, grinaren artean Enperadorea baizik ez zela gauza ordenari eusteko. Berria - Euskal Herria

Akademia zuzentzen zuen jeneral **morabiarrak** gomendaturik, mutikoaren aita Vienara joan zen medikuekin elkarrizketatzera. Berria - Euskal Herria

## **morbido** 1 *izond* eritasunaren zantzu edo kausa dena.

Euskal Herriko ehun biztanletik 14 lodiak dira, eta horietatik hiruk loditasun **morbidoa** dute. Berria - Euskal Herria

Osakidetzak jakinarazi duenez, emakumeak gizentasun **morbidoa** zuen eta oso egoera larrian zegoen. Berria - Euskal Herria

## 2 morbosoa.

Gisako atestatuetan gertatu ohi denez, ñabardura **morbidoak** erantsi dituzte lekukoek. Joxean Agirre

Atsegin ez entzun genuen Jose Bros tenor katalanaren ahotsaren tinbre **morbidoa** ere, bere igorpen delikatua eta gustua Nadir maitalearen rolean. Berria - Kultura

## 3 biguna eta leuna.

Atsegin ez entzun genuen Jose Bros tenor katalanaren ahotsaren tinbre **morbidoa** ere, bere igorpen delikatua eta gustua Nadir maitalearen rolean. Berria - Kultura

Malagnini tenorrek ahots **morbidoa**. Berria - Kultura

## **morbidoki** *adlag* era morbidoa.

Argitu behar da zuzentzailea ez dela behialako sentsazioak erreskatatzen ari zeta hau nolakoa izan zitekeen **morbidoki** imajinatzeko. Jon Alonso

Arreta obsesiboak behatzen zuen, goizetik gauera, bere ileen erroa, bere biloen egia azaltzeak, artifizioz biluzturik, eragingo zion kolpearen espektatiba **morbidoki** dastatuz.

Jon Alonso

## **morbidotasun** *iz* morbidoa denaren nolakotasuna.

Ez da **morbidotasuna**, ekimen soziala baino. Itxaro Borda

## **morbilitate** *iz* eritasun kasuen kopurua.

Ez da heriotza eragiten duen gaitza, baina **morbilitatea** edo erikotasuna nabarmen handitzen da; gaitzak erasandako jende kopuruak gora egiten du, eta sintomak umekiak ere nabari ditzake. Berria - Euskal Herria

## **morbo** 1 *iz* desatsegin, anker edo moralgabea den zerbaitek sortzen duen erakargarritasuna.

Gertaera latz horiek **morboa** pizten dute. Migel Angel Mintegi

Halako jakin-min parte txarreko bat pizten zidatela, **morboa** esan ohi zaiona. Xabier Mendiguren Elizegi

Polemika eta ika-mikarrik gordinenek baino ez zidaten pizten benetako jakinmina eta interesa -edo **morboa**, zuzenago esateko-. Juan Luis Zabala

Emakumeei adulterioaren menturak **morboa** ematen baitie. Aingeru Epaltza

Alexek, Alaznek esan bezala, **morboa** ematen zion. Fernando Morillo

Ezezagunarekin azkenik opari bezala oheratzeak ematen diela **morboa**. Pako Aristi

Begiratu egin dio, luzaro, sorpresa, lotsa eta **morboaren** arteko aurpegi hieratikoz. Sonia Gonzalez

40 urteko etxeakoandrea arrunta, arruntegia, inolako xarma edota **morborik** gabea. Berria - Kultura

**Morboa** atsegin zaigun, Lisa, komunikabideetan nagusi ditun berri odoltsuak, irentsi egiten ditinagu. Migel Angel Mintegi

Eskandalua eta **morboa** dira publizitatekeri onena. Berria - Kultura

Larritik pasakoa, informazio mozkorraldi honetan, besteek emango ez dutena emateko lasterketa ero horretan, ez direlako kazetaritzaren oinarriko arauak errespetatu,

**morboa** gailendu zaigulako, oka egiterainoko informazioa eman delako. Iñigo Aranbarri

## 2 (hitz elkartuetan)

Baina zurrumurru horretan amaitzen da **morbo**-festa Armageddon zaleentzat, Toutatis-ek ez baitu Lurrarekin topo egingo. Berria - Gaiak

Mozkoteak hizketan segitzen du, **morbo** jario: [...]. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**morboa ematen** (7); **morboa ematen zidan** (3)

## **morbodun** *izlag* morboa duena.

**Morbodun** partidak ziren, bereziak, kantxa gainera irten bezain laster giro berezia nabari zen. Berria - Kirola

## **morbositate** *iz* morbosoa denaren nolakotasuna.

Egon liteke artea batean eta **morbositate** gaixoa bestean? Iñigo Aranbarri

Gorrotu du **morbositatea**. Karlos Linazasoro

## **morboso** 1 *izond* morboa duena, morboa pizten duena.

So gelditu nintzaion berriz, burua heriotzaren presentziak eragiten dizkigun gogoeta **morbosoetan** galduta. Ramon Saizarbitoria

Amodio **morbosoaz**. Patziku Perurena

Badirudi gertu daudela eszena **morbosoaz** gozatzeko. Patxi Iturritegi

Klik, iragarkiak; klik, A3ko reality show **morbosoa**. Patxi Iturritegi

Etorkin batzuk narkotrafikoa, lapurreta eta erasoekin besterik lotzen ez direnean, bestelako trahaeraren gainetik gertaeren kontaketa **morbosoa** lehenesten direnean, emigrazioa bezalako ibai konplexua estereotipoen tantetara biltzen dugunean, "inbasioaren psikosia" gizentzen da. Iñigo Aranbarri

Norbaiti heriotza "merez" duen delitua egin duela leporatzen diotenean, mahaiko kideak aukeratzen dituztenean hiritarren artean, halako prozesu luze eta **morboso** bat jartzen da abian, kide hauek ezin baitira nolanahi aukeratu. Pello Salaburu

Niri oso **morbosoa** iruditzen zait hilketa bati buruzko joko bat asmatzea. Antton Olano

Zuhur jokatu behar dugu irudi bereziki **morbosoak** ez emateko eta albisteok, gainera, informaticoki ez nabarmentzeko.

Berria - Euskal Herria

## 2 morboaren zalea.

Ez nuelako haren aurrean Siddal-en hilobiarekiko interes handiegia erakutsi nahi, ez zezan pentsa ni ere, beste haiek bezala, **morbosoa** nintzenik. Ramon Saizarbitoria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**morbosoa iruditzen zait** (3)

## morbotxo iz adkor morboa.

Tenporetako eguna zenez, badu bere **morbotxo**, eta komeni da bere jiraldi osoan erreparatzea. Pello Zabala

## mordaza iz ahotapoa.

Alta, gero orri horiei ezarriko zaien tintazko **mordaza** gorabehera, Habanan FBI delakoak dituen agenteen arteko Laddyk idatzi egin du 1942ko udakoaz. Edorta Jimenez

## morddo iz adkor mordoa.

Belar hondar **morddo** bat zeukan barrenean, xaguren baten kabi izana. Patziku Perurena

Pliniok dioenez, edozein pozoini kontra egiteko oso ona omen da lizarrosto **morddo** baten pozima. Patziku Perurena

## mordente iz musika-apaingarria, nota nagusia eta inguruko beste bat ia batera jotzean datzana.

Koczis jotzailearen digitazio apartaz gozatzeko gora eta beherako eskaletan, **mordente**, trino edo apoiaturen gardentasunaz harrizteko. Berria - Kultura

Soinua garbia, afinazio eta fraseatze txukuna zati lirikoetan; arpegio, trino, **mordente** edo hiru hariako akordetan artista Berria - Kultura

## mordo 1 iz multzo edo pila handia.

Ahoan urtzen diren pastel horietako **mordo** bat. Jose Morales

Apirileko eta maiatzeko hilabeteetan, loratzen zirenean, zuhaixka haiek beren zurtoin lurrintsuak, beren korola zuriak eta beren **mordo** txiki urdinak nahasten zituzten. Koro Navaro

Gaiekoak eta euritakoak, poltsak eta egunkariak, dena **mordo** bat bihurtzen zen etxera heltzeko presaz zebiltzan bidaiari haien artean. Iñaki Zabaleta

**Mordoa** zegoela ikusi zuen, hizkuntza ezberdinetan. Aitor Arana

Eta horixe da hemen gertatzen dena: gizabanakotik gizamordora, eta **mordotik** banakora, jauzi ikaragarri mortala dagoela. Iñaki Segurola

Barazki pila batzuk txit handiak ziren, eta jendea **mordoz** eta sortaz eraikitako bi harresien artean ibiltzen zen. Karlos Zabala

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, pertsonen eta animalien)

Zer-nola etorri zaidan burura beldurrik gabe ezkontzen den jende **mordo** hori. Mirentxu Larrañaga

Soinekoak azpiko galtzetan sartuta emakume ile-nahasiak, gizon oin-hutsak mahuka hutsean, galtzapiez eta elastikoez jantzitako ume **mordo** bat. Koro Navaro

Neska-mutil **mordoa** etortzen duk aldirietatik Arkakuso Merkatura! Jon Muñoz

Seme-alaba **mordoa** dauka, eta betiko lagunak izan ditut. Agustín Otsoa

Gainerakoan, munduak koloreak badituela ohartu ez ziren gazte **mordo** haietako edozein izan zitekeen. -Ez dakin ezkondua dela eta emazte **mordoa** izan duela? Unai Iturriaga

Pitagoriko **mordoa** zuen oraindik aztertzeke. Jon Muñoz

Kanpotar **mordo** bat etortzekoa zela, eta beranduenik ostegunean han egoteko. Txillardeggi

Ustekabeko hilketak ere eramaten du kristau **mordo** bat hankaz aurrera, baina heriotza dosifikatuak. Iñaki Segurola

Gainera, abenturetan parte hartzen zuen, eta hartz **mordoa** hil zuen tximinia-garbitzaile batekin jolastea gustatzen zitzaion. Julen Gabiria

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, gauzez)

Nor ez da aritu noiz edo noiz, bidertzeko edo larreko ote **mordoa**k erretzen? Patziku Perurena

Esaten zuten, mahasti hura mahats-**mordoz** leporaino egonda ere, ezinezkoa zela handik hogeitaz pegar ardo ateratzea. Askoren artean

Exkol ibarrera heldurik, mahats-**mordo** bakarra zeukan aihen bat moztu eta haga batetik zintzilik biren artean eraman zuten. Eizen arteko biblia

-Diru **mordo** bat -egin nion iruzkina Harryri-. Oskar Arana

Mahai zabal baten gainean, Don Carlosen aldeko propaganda orri **mordo** bat topatu dut. Txillardeggi

Gainera, gutun **mordo** bat zegoen han, gutun gehiegi. Jon Muñoz

"Berdan" markako 1.200 fusil, 400 granada, espartin **mordo** handi bat, burusiak dozenaka... Txillardeggi

Kolore guztietako pastilla **mordoa** hartuta. Patxi Iturritegi

Zuek ez dakizuen gauza **mordoa** dago benetako oztzara batean. Koldo Izagirre

Lehorrean gauza **mordoa** jaten dio astia artistari. Koldo Izagirre

Hezur **mordoa** omen diat apurtuta, hala ziotek. Mirentxu Larrañaga

Behin etxe izandako adreilu **mordo**, egur hautsi eta hautsaren gainean. Koro Navaro

Bizkar-zorrotik boltsa bat atera eta diru-paper **mordo** handi bat erakutsi zigun. Juan Luis Zabala

Haritz ipotx **mordo** bat, itsas haizeak belarraren parean segatzen duena. Koldo Izagirre

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, gauza abstraktuez)

Pentsamendu galaraziaren aro honetan, deus galdetzeko gogoia egin baino lehen erantzun **mordo** bat emanez eta attergabeko informazio jasa hazkorrez lortzen da muinak asetzea, zopatzeta eta ezertarako gauza ez direla uzte. Iñaki Segurola

No *future*ko garaiak gastatu ziren bapto, eta gaur gazteak etorkizun bat du, eginbehar **mordo** batez betetako etorkizuna. Iñaki Segurola

Horiek denak, hara, lortu ahal izan ditait urte **mordoa**n ibili ondoren zerean... ehizan, horra hitz zuzena. Jon Muñoz

Denbora **mordo** bat egon zinen azaldu ere egin gabe. Bernardo Atxaga

Bertsolariek berek albora utzi ezinako arrasto baliagarri **mordo** bat eskaini dizkigute azken urteotan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**diru mordo** (9); **diru mordo bat** (6); **galdera mordo** (4); **galdera mordo bat** (3); **gauza mordo** (10); **gauza mordo bat** (7); **gazte mordo** (3); **jende mordo** (7); **jende mordo bat** (3); **ke mordo** (6); **mahats mordo** (14); **mahats mordo bat** (3); **mordo bat** (200); **mordo bat dago** (5); **mordo bat egin** (3); **mordo bat egiten** (3); **mordo bat hartu** (3); **mordo bat topatu** (4); **mordo bat zegoen** (3); **mordo handi** (8); **mordo handi bat** (5); **mordo handia** (6); **ordu mordo** (4); **ordu mordo bat** (3); **orri mordo** (4); **paper mordo** (10); **paper mordo bat** (6); **txiki mordo** (7); **txiki mordo baten** (4); **ume mordo** (4); **urte mordo** (17); **urte mordo bat** (9); **urte mordo batean** (3)

**agiri mordoa** (3); **arazo mordoa** (4); **arazo mordoa izan** (3); **argazki mordoa** (3); **arrain mordoa** (3); **aukera mordoa** (6); **baloi mordoa** (5); **berri mordoa** (4); **dei mordoa** (4);

**diru mordo** (25); **duela urte mordo** (5); **ere mordo** (3); **eta diru mordo** (3); **eta diru mordo** (3); **etxe mordo** (3); **fixxaketa mordo** (3); **galdera mordo** (9); **gauza mordo** (17); **gauza mordo dago** (3); **gazte mordo** (4); **gol mordo** (7); **hilabete mordo** (3); **huts mordo** (4); **hutsegite mordo** (3); **jarraitzaille mordo** (3); **jende mordo** (29); **jokalari mordo** (3); **kazetari mordo** (5); **ke mordo** (3); **kilometro mordo** (4); **lagun mordo** (5); **lesio mordo** (4); **liburu mordo** (7)

**mordo** **atera** (5); **mordo** **bildu** (5); **mordo** **bota** (3); **mordo** **dago** (16); **mordo** **dauka** (5); **mordo** **eduki** (3); **mordo** **egin** (23); **mordo** **egingo** (4); **mordo** **egiten** (5); **mordo** **eman** (13); **mordo** **eman zuen** (3); **mordo** **erakutsi** (3); **mordo** **erosi** (3); **mordo** **ezagutu** (3); **mordo** **galdu** (4); **mordo** **hartu** (7); **mordo** **ikus** (5); **mordo** **ikusita** (6); **mordo** **ikusten** (6); **mordo** **irabazi** (5); **mordo** **izan** (14); **mordo** **izan zen** (3); **mordo** **izango** (8); **mordo** **jaso** (3); **mordo** **jasotzen** (3); **mordo** **joan** (7); **mordo** **lortu du** (3); **mordo** **nuen** (3); **mordo** **pasatu** (4); **mordo** **sartu** (5); **mordo** **utzi** (3); **mordo** **zegoen** (7); **mordo** **zeraman** (4); **mordo** **zeukan** (4); **mordo** **zuen** (6)

**neska mordo** (5); **ordu mordo** (7); **orri mordo** (3); **paper mordo** (9); **sinadura mordo** (3); **ur mordo** (3); **urte mordo** (44); **urte mordo eman** (5); **urte mordo joan** (3); **urte mordo pasatu** (3)

**jende mordoak** (3); **mahats mordoak** (12)

**urte mordoan** (5)

## mordoilo 1 iz nahaspila.

Jende nahas-mahasa, jendeketa, **mordoiloa**.   Fernando Rey

Etxea berak imajinatu zuen bezalakoxea da: altzari kaxkarrak, apaingarri **mordoiloa** (portzelanazko artzaintxoak, behi-arranak, ostruka-lumaz egindako euli-zanpagailu bat), irrati baten durundioa, kaiioletan txoriak txililoka, katuak oinen artean nonahi.   Oskar Arana

**Mordoiloa** askatuko zuten harietako bat hantxe zetela hauteman zuen.   Fernando Morillo

Azkenean, haragi **mordoiloan** pilatu eta erori egiten naiz, ezein neurgailuk neurtu ezingo duen ondoezaren jabe, eta zera galdetzen diot neure buruari: eta orain?   Lander Garro

Udan orain elurra pilatu den tokietan asunak egoten dira **mordoiloan**.   Jokin Muñoz

Sobera kalapitatsua da gaia eta ez dut **mordoilo** horretan nahasi nahi.   Berria - Harian

## 2 (izenondo gisa)

Beti bakoitzak nahi duen huraxe esaten badu, aurkariaren arrazoa inoiz aintzat hartzen ez bada, elkarri nola edo hala jositako adabaki mordo baten itxura **mordoiloa** hartuko du bertso saiok.   J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## • 3 iz hitz nahaspila ulergaitza.

Corrientesko militanteak erdizka baizik ez zuen ulertzen nire **mordoiloa**.   Jon Alonso

Misiolari bat bere sotana eta kapeluarekin, eskuak bilduta eta begiak zeruetara jasota zain, basatiak beren **mordoiloan** berriketan ari diren bitartean bera ur irakinez betetako pertzean sartzeko prestakizunen inguruan.   Oskar Arana

Mezua **mordoilo** ulergaitza besterik ez da.   Iñaki Arranz

**Mordoilo** pedantesko hari hitzaurrea egin niezaiola eskatu behar zidan tipoak.   Juan Garzia

Kognizio-psikologiaren **mordoiloan** esateko, ez dute "gogamenaren inolako teoriarik".   Xabier Olarra

("azpitik gorako" trastornoa edo neuropsikologikoa, neurologoen **mordoiloan**.   Xabier Olarra

Horrela mintzatzen zen, nazioarteko **mordoiloan**.   Fernando Rey

## • 4 izond hizkerez-eta mintzatuz, beste hizkuntzetako hitz eta jostkerez nahasia; garbia ez dena, nahasia.

Ez da harrizkoa *ahuntz*- eta *zapo-erdara* hitzak hizkera **mordoiloa** esateko ere erabiliak izatea.   Iñaki Arranz

Euskara **mordoiloa** imitatzen da halakoetan, asmo parodiko batek eraginda, gehiegikerietara jotzea irrigarri suertatzen baita.   Iñaki Arranz

Erraterako, nire frantses **mordoiloa** azaltzeko, erran nion Pays Basque-koa nintzela, Frantziako euskalduna alegia.   Alberto Ladron Arana

-SSei buruzko erreportajea egiten ari naiz nire aldizkarirako -azaldu zien bere aleman **mordoiloan** -.   Alberto Ladron Arana

Gaztelaniari ari zen, hori bai; gaztelania **mordoilo** samarrean, dena esatera, euskara berriki galdu eta erdara erabat menderatzera iritsi ez diren Pirinioetatik hurbileko herrietan, edade batetik aurrerako jendearekin, usu gertatzen den bezala.   Jon Alonso

## mordoilotsu izond mordoiloa.

Gin-tonic pare bat eskatu zion Rekekox bere ingeles **mordoilotsuan** eta neskak irribarre maliziatu bat itzuli zion ostera.   Joxemari Iturralde

## mordoilotu, mordoilo(tu), mordoilotzen 1 da/du ad nahaspilatu.

Orratzetan sastatzen bainaiz, askatu ezinezko korapilotan nahasten ditut lokarriak, askatu orde; dena nahasten dut, dena **mordoilotzen**, dena atzeratzen, eta burua galtzen dut.   Josu Zabaleta

Konputagailuak ez du oso ondo funtzionatuko barne-konexioren bat mozten bazaio: labankada sakon batek, esate baterako, batera funtzionatzen ez duela utziko du, edo utziko dizkio irteerako seinaleak **mordoiloturik**.   Irene Aldasoro

Niri agertu zaidana izan da hutsuneak dituzten sailak, **mordoilotutakoak**, diferentzien jokoak, urruntasunenak, ordezkapenenak, eraldaketenak.   Xabier Arregi

Malkotan zeuzkan masailak, sudur-mintzak erre gorriturik zotinarene zotinez, ile-adatsak harro eta **mordoiloturik** aitaren sorbaldatik behera.   Anjel Lertxundi

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Esaldi iraingarri bat bota eta alde egin zuen, urratsak arrastaka eta ile **mordoilotu** eta katramilatuan hatz egiten.   Sonia Gonzalez

## mordoilozale izond hizkuntza mordoiloaren zalea dena.

Mutur bietako joerak zebiltzan orduan, borroka bizian: mailegua hartu eta hartu ari ziren **mordoilozaleak** zeuden batetik, eta garbizalekeria itsuan neologismoak asma eta asma zebiltzanak bestetik.   Berria - Kultura

## mordoka adlag mordoetan; kopuru handian.

Espainiar bandera harro altxatu, eta moroak akabatzeri; **mordoka** bada, hobe...   Txillardeg

Euli-eskuadroiak airean hegaz sartzen dira etxera, ausart, hango nagusiak balira bezala, eta [...] azukre-koskor gozoetan pausatzen dira, banaka zein **mordoka**.   Jose Morales

Zital hari gorputzetik harrak ateratzen zitzaizkion **mordoka** eta, oraindik bizirik zegoela, pusketaka erortzen zitzaion haragia, ikaragarritzko minez.   Elizen arteko biblia

Eritegietan **mordoka** hildako gaixoak.   Jose Morales

Ez du edozein tratatu orri-pasaka gainbegiratzea besterik, eta oroitzenak **mordoka** datoz.   Juan Garzia

**Mordoka** etortzen zitzaizkidan argudioak, arrazonamenduak, frogak, berehalaxe indar handiagoko beste argudio, arrazonamendu, froga batek itzulikatzen zituenak.   Josu Zabaleta

Mendebalde kostaldean, hor bildu baitzaizkizu jarraitzaileak, **mordoka**, denak zuri kantatzen.   Xabier Olarra

## mordokatu, mordoka(tu), mordokatzen da/du ad mordoetan bildu.

Erle-abaraskak eta inurri-koloniak eta hostoen ehun higikorra atomo-mordokatzen **mordokatzea** begitandu zitzaizkion.

Juan Garzia

## mordokatze iz mordoetan biltzea.

Erle-abaraskak eta inurri-koloniak eta hostoen ehun higikorra atomo- **mordokatzen** mordokatzea begitandu zitzaizkion.

Juan Garzia

## mordoska ik mordoxxa.

## mordoskatxo ik mordoxxkatxo.

## mordotxo iz mordoxxa.

Berbetan aritu ziren eta mutikoa konturatu zen jendeak **mordotxoa** zekiela berari buruz, baina ez dena. Julen Gabiria

Ez dakit nondik, K-Y tubo bat atera zuen, tapoia kendu, **mordotxo** bat esku barrura bota, bere zakila igurtzi eta nire uzkialde ferekatzen hasi zen, ferekatzen eta astintzen,

Juan Martin Elexpuru

## mordoxka (206 agerraldi, 71 liburu eta 33 artikulutan; orobat mordoska 69 agerraldi, 28 liburu eta 12 artikulutan) 1 iz mordo txikia edo. ik mordotxo.

**Mordoxka** gara txaluparekin ibiltzen garenak, ez pentsa. Iñaki Iñurrieta

Lanordu hartan libro ginen **mordoxka** bat inguratu gara. Txillardegia

Pilatzen ari nintzen dirua, ordurako **mordoxka**, koltxoi-zulo batean sartu eta aurrera. Xabier Mendiguren Elizegi

Gatzak hogeita bost urte pasa darama preso, eta beste **mordoxka** batek hogeitaz gora. Jokin Urain

Horietaik **mordoxka** bat, arraza garbikoak dira. Gotzon Garate

Zorroak banatu zituen - **mordoska** bat ziren, gaizki lotuak, paper latzean bilduak. Anton Garikano

Bada haien artean **mordoxka** bat beste guztien gainetik atentzioa ematen duena, eta hura da teknikoki *idiot savant* deitzen den idiota klasea. Iñaki Segurola

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Anai-arreba **mordoxka** omen ziren etxean: zaharrena, neska, Matximenta bertako Bildotxola baserrira ezkondu zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Hango ziegetan preso **mordoxka** egoten ginen. Jokin Urain

Kale kantoiko bueltan ukulu batek su hartu zuen, eta zaldi **mordoxka** batek betiko bizitza irabazi zuen, moxal batek besteak beste, haragi errearen kolore iluna hartu arte kixkali baitzen. Xabier Olarra

Anai-arreba **mordoxka** omen ziren etxean: zaharrena, neska, Matximenta bertako Bildotxola baserrira ezkondu zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Sirakusan bertan eliza **mordoxka** bat badu. Pello Zabala

Eta gutun eta paper **mordoska** batetik bat hautatu, eta eman egin dit eskuetara. Txillardegia

Heriotza-orogarrri **mordoxka** atera zuen barnetik. Joxemari Urteaga

Paper azpildu **mordoxka** atera zuen jakatik, asteko partilan billeteak zenbatzen zituenean bezalaxe atximurkatuz. Koldo Izagirre

Gari- **mordoxka** handi samarra zeukan bahean. Patxi Ezkiaga

## mordoxkatxo (corpusean mordoskatxo soilik) iz adkor mordoxxa.

Euskadi Irratiak disko binilozko handi beltz haietatik, ez pentsa sekulako mordoxxa zuenik, **mordoskatxoa** ere hor nonbait. Pello Zabala

## more 1 izond gorria eta urdina nahasiz ateratzen den kolorekoa, masusta zukuaren kolorekoa, ostadarraren azken zerrendako kolorekoa.

Eguzki-ertza hodeien marra **morearen** gainetik ageri zen, East New York-en atzealdetik. Lopez de Arana

Neoizko letra **moreak**. Pako Aristi

Zain **more** handiak nabarmentzen zitzaizkion. Karlos Zabala

Orban **more** bat, ezkerreko izterrean. Berria - Kultura

Erle burrunbariak eta tximeletak arbi lore **more** eta zurien gainean hegana zebiltzan. Juan Kruz Igerabide

Hiru argazki egin zizkion koloretako uztai bati, tartean filtro gorri, berde eta **morea** erabiliz. Xabier Olarra

Soinean zeraman elastiko **morea** kendu zuen. Aitor Arana

Purpura **morezko** oihala zabalduko dute eskainiriko ogien mahai gainean ere. Elizen arteko biblia

Eta bada tristura **more** bat, idorra, iharra, izerdi larria bezain hotza. Iñaki Segurola

Soineko **more** argia jantzi nuen. Ander Irizar

Lizarrako kaleak, **more** ilunean blai. Txillardegia

## 3 (izenondo elkarkuetan lehen osagai gisa)

Chatham Square-n, zeru **more** -gorri haren ñiriñirra tren jasoaren bidearen burdinsaretik ageri zen. Lopez de Arana

Odol-tanta beltz batzuek hanpatzen zituzten haren ezpain **more** -grisak eta halako bizitasuna ematen zioten haren azal zuri-zuriari. Lopez de Arana

## 4 (izenondo elkarkuetan bigarren osagai gisa)

Alkandorak, lehortutako zulo gorri- **more** bat erakutsi zion sabel parean. Joxemari Urteaga

Belus gorri- **morez** tapizatutako besaulki bigunean. Urtzi Urrutikoetxea

Ekaitz-hodeiak hiri zuriaren gainean: beltz- **moreak**, eta segidan azken eguzki-errainua etxe-goienetan. Joxe Austin Arrieta

Ene leihoaren parean, sabel sagu koloreak, papoen ortzadarren berde- **more** distirantak. Aurelia Arkotxa

Eskuin eta ezkeraldera, arku elektriko bakan batzuen argizko kono gris- **moreak**, ilunpearen ziprizzintzaile. Lopez de Arana

Gaszteak astiro ahoskatu zituen hitzok, baina arnas-hotsarekin nahasian atera zitzaizkion ezpain urdin- **moreetatik**. Javi Cillero

## • 3 iz kolore morea, gorriaren eta urdinaren arteko kolorea.

Begira, zuk uste al duzu **more** honek ondo ematen duela hormako grisarekin? Lopez de Arana

Kortina ere egin zuen, lihozkoa, **more**, gorri eta gorrimenez tindatua. Patxi Zubizarreta  
Masaillezurrek **more** aire lauso bat zuten eta, bekainen ordeaz, esku aditu batek bi ilberri marraztu zizkion.  
Atzeko hegian hodei gorriek azuletik **morea** doan zerua estali dute. Pello Lizarralde  
Gorritz eta **morez** janzen ari dira hodeiertzeko lainoak. Jokin Urain

## 5 *more-kolore izond*

Galtzak **more-kolore**, zapata zilarrezko belarridun eta zurrumadunak, buruan lurrin urez bustitako ile-ordea eta eskuan makila, karguari zegokiona. Haren jantziei erreparaturik atzerritarra zela erabaki zuen Egeak, lebita bat borgoina-kolore baitzeraman, galtzak kolore bereko eta galtzerdiak **more-kolore** baitzituen, aspaldian Parisen ikusten ez zirenak. Felipe Juaristi

## 6 *more koloreko izlag*

Hurbildu ahala, **more koloreko** soineko estu bat zeramala ikusi nuen. Aritz Gorrotxategi  
**More koloreko** betazalak hertsirik eta ahoa alde batera okerturik. Lopez de Arana  
Emakumeak muselinazko jantzi farfaildun bat zeukan, **more kolorekoa**, eta eskuan, aldiz, itzalkin urdin bat. Lopez de Arana

## 7 *more-more*

Segundo batzuk igaro ziren Dursley jauna konturatzerako gizon hark kapa **more-morea** zuela soinean. Iñaki Mendiguren  
Aurpegia **more-more** zeukan Anak, baina irribarretsu ageri zen. Juan Kruz Igerabide

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gorri eta more** (3); **more geometrico** (3); **more koloreko** (3); **orban more** (5); **orban more bat** (4); **purpura more** (30); **xal more** (3)  
**berde eta morea** (4)  
**lore moreak** (3)  
**gorritz eta morez** (3); **purpura morez** (3)  
**purpura morezko** (12); **purpura morezko lokarritz** (4); **purpura morezko oihala** (3)

## moreatar *izlag/iz* Moreako, Moreari dagokiona; Moreako biztanlea.

*Moreako Kronika*-ren **moreatar** autore frankoak bertako azentuzko bertso greziarrak erabili zituen, oztopo klasikoetatik erabat libre, hemeretzigarren mendearen hasierako greziar bertsoa iragarritz. Iñaki Mendiguren

## morena *izond/iz* emakumeez mintzatuz, beltzarana.

Bazekien nora etorri hurrengo igandean, neska hura, nondik izena, soldaduek baino zorrotzago zelatzen zituzten herriko neskek, ez ihar ez **morena** ez zela ahantzirik.  
Koldo Izagirre  
-Ai, **morena**, musu bat esan eta zortzi eman dizkidazu! Pako Aristi  
- **Morena** ihar hura gustatzen zaidak... Koldo Izagirre

## morenito *iz adkor* beltzarana.

## moreno *iz* beltzarana.

Atez barna Paco azaldu zen: **morenoa**, belarritako bi, hiru bat egunean egin gabe bizarra. Pablo Sastre  
Aurrea irribarre **moreno** horrek harrapatuko zaitu. Alberto Barandiaren  
Ezkerretara, gugandik hiru mahai harantzago eserita zegoen bikoteari begiratu nionean, neskaren azal **morenoari**, kaobazko adatsari baino ez nion erreparatu. Xabier Mendiguren Elizegi

## moretasun *iz* morea denaren nolakotasuna.

Horrelako logikak ehunka hitz sortzeko zilegitasuna bermatzen du, nahiz eta inongo hiztegitan aurkitu ez: **moretasun**, zerogarren, zuzenkeria... Iñaki Arranz

## moretu, more(tu), moretzen 1 da *ad* kolore morea hartu.

Haiek ibilerak, gureak, ezpainondo guzia eta ator xuriaren kolkoa gerezi mantxaz **moretua** genuela! Patziku Perurena  
Hotzaren hotzez **moretutako** kaleetan gas-lanparek dar-dar egin zuten une batez, gero egunsenti hitsean itzali ziren. Lopez de Arana  
Denok harengan josirik genituen begiak; aurpegia noiz **moretzen** noiz zurbiltzen zitzaion. Matias Múgica  
Barru iluna neoizko argi aldizkako eta keinukariz piztuko da, horregatik dirdiratuko dira haginak, nabarmenduko dira botoiak, **moretuko** dira ezpainak, eta iragan mendeko lehen aldiko film mutuetan bezala mugituko dira gorputzak. Joseba Sarrionandia

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Emakume gazte baten barre urduri eta mehea entzuten nuelarik, goizean esnatzean Uilen aurpegi **moretua** argi zurbilean ikusten nuelarik... Denbora batez beren ezpain **moretuen** artetik patata torilla eta ardo gehiago irensten jarraitu zuten. Juan Kruz Igerabide  
Agure **moretua** orri baten gainean makurturik dago, arkatz baten punta miazkatzen. Monika Etxebarria

## morexka 1 *izond* more antzekoa.

Susie, harro eta fidagaitz, aurpegi ñimiño **morexkari** begira zegoen. Lopez de Arana  
Kanpo aldetik, beriz, beste zirrinda **morexka** bat, baina hori gutxiagotan azaltzen da garbi. Landare honek lore **morexka** txikiak ditu eta lore horiek eguzkiaren bideari jarraitzen diote, sortaldetik sartaldera. Pello Zabala  
Koloreak, oso zurbilak izan arren [...] ortzadarrarenak dira; baina seinalatu, barru aldetiko gorrixka eta kanpoko **morexka** bakarrik seinalaten dira. Pello Zabala

## 2 (izenondo elkarkuetan)

Gutun-azalari buelta ematean, eskua dar-dar, lakrezko zigilu gorri-**morexka** bat ikusi zuen Iñaki Mendiguren

## morfema 1 *iz* esaldian, esanahia duen banakorik txikiena, zati esanguratsu txikiagotan ezin bereizizkoa.

Perpausen egitura fonemikoa zuzenean aurkeztu beharrean, hizkuntzalariak "goragoko mailetako" elementuak eraten ditu, adibidez **morfemak** bezalako elementuak.

Itziar Laka

Hitz eta **morfemen** mailez harago ez doan gramatika batek ezin dezake gertakari hau azaldu. [Itziar Laka](#)

Zuberoan eta mendebalean zabala da *-ten* **morfemaren** esparrua: *ebiltzen*, *ekhartzen* esan ohi dira, esate baterako, Zuberoan. [Koldo Zuazo](#)

Gauza berbera gertatzen da, azken baten, aditzen hirugarren pertsona pluraleko **morfeman**. [Koldo Zuazo](#)

## 2 (izen elkarkuetan lehen osagai gisa) ik **morfemiko**.

Euskarak ahoskabetasunaren alde egin izan duela erakusten dute bai **morfema** barreneko bilkurek, bai **morfema** elkarketetako txandakatzeek. [Lourdes Oñederra](#)

Demagun S, F erako gramatika baten bitartez, hizkuntza bateko **morfema** -hurrenkera gramatikal guztiak sor ditzakegula. [Itziar Laka](#)

**Morfema** -kateak fonema-kate bihurtzen dituen erregela morfemikoen hurrenkera bat. [Itziar Laka](#)

Bilakabide fonologikoak, haatik, *lenitio* motakoak batik bat, gardentasun morfotaktikoaren kontrakoak dira: urtu, itxuraldatu, lausotu egiten dute **morfema** -muga (egitura morfotaktikoa, **morfema** kateatzea). [Lourdes Oñederra](#)

Behin-behineko fonema-taldeen eta behin-behineko **morfema** -taldeen arteko bateragarritasun harremana. [Itziar Laka](#)

**Morfema** hasierako /d/, berriz, ez da beti ingurune berean gertatzen. [Lourdes Oñederra](#)

**Morfema** elkarketa dinamikak sortzen dituen txandakatzeek ere erakusten dute elkarren ondoko trabarrien berdintzea euskarak ahoskabetasunaren alde bideratzen duela: *esan du*, baina *ez tu esan*. [Lourdes Oñederra](#)

Oro har, **morfema** andana bat hutsune-segida batean banatzen dugunean, perpaus gramatikal bat osatzeko bete gabeko lekuetan ipin daitezkeen elementuen aukera murrizten dugu. [Itziar Laka](#)

## 3 (izen baten ezkerrean)

Azterketa formaldatzailak arrazoi sendoak eskaintzen ditu zero-**morfemen** alde eta kontra. [Itziar Laka](#)

Honela, (40) ezartzen zaio (69)ri *do* elementua txertatuaz, *iragana* **morfema** itsas dakion. [Itziar Laka](#)

## morfemika iz morfologia.

Hara, inoiz argudiatzen da sintaxi teoriari buruzko ikerkuntzarako goizegi dela, oraindik konpontzeke daudelako beheargoko fonemika eta **morfemika** -mailetako arazoak.

[Itziar Laka](#)

## morfemiko izond morfemarena, morfemari dagokiona; morfemikarena, morfemikari dagokiona;. ik**morfema 2**; morfemika.

Maila fonemiko eta **morfemikoen** arteko loturaren arazoa ez da nahasi behar transkribaketa fonemiko bat irakurtzeko informazio morfologikorik behar ote den galdetzearekin. [Itziar Laka](#)

Banaturik adierazten ditu perpausen egitura **morfemikoa** eta morfemen egitura fonemikoa. [Itziar Laka](#)

Azterketa **morfemikoa**ren arazo asko erraz konpon daitezke, gorago itxuratutako eredu orokorra onartuz gero. [Itziar Laka](#)

## morfina 1 iz opioaren alkaloide nagusia, sorgarri eta emagarrizat sendagintzan erabiltzen dena.

**Morfina**ren eraginpean lasai, umoretsu dago, barrea eragiten die ingurukoei bere ateraldi xelebreekin. [Imanol Zurutuza](#)

Azkura sortzen dio **morfina**k, baina oinazea jasanezina litzateke **morfina**rik gabe, eta, aukeran, hobe azkura. [Imanol Zurutuza](#)

Erizain batek galdetu dio Damiani nola gertatu den eta honek, **morfina** hartzen duela esan dionean, [...]. [Hasier Etxeberria](#)

Egunean 180 gramo kloral hartu arren, eta **morfina** eta alkoholaz gainera whisky, brandy eta ardo beltza litroka, 1882 arte iraun zuen. [Ramon Saizarbitoria](#)

Emadazue **morfina**, sentimendurik gabeko euskaldun zintzoa bilaka nadin. [Itxaro Borda](#)

Azkenean, **morfina** bihurtzen duk miseriak ahazteko eta mea-ustia ketari ez uzteko bide bakarra. [Josu Landa](#)

Hitzak banatu ditzagun kanpamenduetan **morfina** banatzen duenak bezala, eskuzabal. [Harkaitz Cano](#)

**Morfina**ren lainoa apur bat zabaltzen zihoala zirudien. [Alberto Ladrón Arana](#)

Jendeak tabakoarekin erretzen zuen, hari eta hemeretzigarren mendean botikari aleman batek opiotik **morfina** atera zuen arte. [Joseba Sarrionandia](#)

## 2 irud/hed

Politikariek **morfina** ideologikoa ematen digute, sufritu ez dezagun, traba ez ditzagun, betiko tresna gera gaitezen. [Ana Urkiza](#)

Euskaldun zintzo horiei **morfina** ematen dietela politikariek... [Ana Urkiza](#)

Hainbeste tele-**morfina** irentsi ondoren batzuetan arazoak ditu errealitatearekin. [Patxi Iturritegi](#)

Bere **morfina** partikularra. [Fernando Morillo](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Andres lo egiten zuen gelatxoan sartu zen, **morfina** injekzio bat sartu zuen, eta lozorro sakon batean geratu zen. urdaileko minbiziagatik hilzorian eta oinazez zegoela, **morfina** xiringak aringarri bakar, emeki-emeki iraungi zitzaion bizia, zuen gaitzaz ezjakin. [Josu Zabaleta](#)

Andreak dena prestatu dik: tantaz tantakoa, pixontzia, **morfina**-anpuluak... [Iban Zaldúa](#)

Minarentzat **morfina** kapsulak eta tantoak hartzen ari zela esan baitzidan. [Hasier Etxeberria](#)

Munduak ez dauka ezer berarentzat, **morfina** tanto eta pilula horiek izan ezean. [Hasier Etxeberria](#)

Petrov askoz lasaiago zegoen, jendearen presentziak eta **morfina**-dosi handiek baretuta, baina, hala ere, gorputz osoa dardarka zegoen oraindik. [Jose Morales](#)

Orain, berriz, **morfina** kargamendu itzela jadetsi dugu. [Josu Landa](#)

## morfina izond morfina zalea dena.

Pintore baten ondoan, Leon Karrikarekin, argia ehizatzen zela goizeko bostetan jaikiko den morroi ero eta **morfina** zale batekin. [Hasier Etxeberria](#)

## morfemazio iz

Horien ustez, bizitzak ez du formen espazio teorikoa, **morfemazio** izeneko- betetzen, irudika daitezke-eta inoiz izan ez diren formak. [Askoren artean](#)

## morfemio iz kokaleku berean txandakatzen diren fonema bi edo gehiagoren azpiko unitate abstraktua.

Erregeletan ageri diren elementuak maila talde mugatu batean sailka daitezke (hots, fonemak eta morfemak; edo, beharbada, fonemak, **morfemio** eta morfemak).

[Itziar Laka](#)



## morfofonemiko *iz* morfofonemena, morfofonemi dagokiena.

Baina adierazpen hau (hizkuntzaren **morfofonemika** izenda dezakeguna), "X berridatz bedi Y" erako erregela talde baten bitartez egin daiteke, adibidez, ingeleserako, eta abar, edo antzeko zerbait. Ingelesaren **morfofonemikan**, ondoko erregelak izango ditugu: [...]. **Itziar Laka**

## morfofonemiko *izond* morfofonemena, morfofonemi dagokiena.

Bestalde, sortzaile edo generatibistak deskribapenaren baldintza formalez arduratu dira: aurkezpen **morfofonemikotik** aurkezpen fonetikorako bidez lehendabizi.

**Lourdes Oñederra**

Erregela **morfofonemiko** hauetan ez da beharrezkoa erregela bakoitzeko berridazten den sinboloa bakarra izatea. **Itziar Laka**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erregela morfofonemikoak** (6)

**erregela morfofonemikoek** (5)

## morfofonologiko *izond* morfologikoa.

Eta antzekotasun fonemikoa, *take iragana* forma *took* formara itzultzen duen erregela **morfofonologikoaren** egiazko formulaketan azal daiteke. **Itziar Laka**

Kenketa hori (/es/ *Š* e) erregela (**morfofonologikoa**) da eta ez bilakabidea (fonologikoa), beti gertatzen baita ez hitzaren ondoren aditza datorrelarik. **Lourdes Oñederra**

## morfofuntzional *izond* formari eta funtzioari dagokiona.

Orain, hala ere, ikusi da ez dela hori bakarrik, arazoa askoz ere orokorragoa dela, eta eragin **morfofuntzional** bat ere baduela gaixotasunak. **Berria - Gaiak**

## morfogenesi *iz* karaktere morfologikoen etorki eta garapena.

Ez dakigu, esate baterako, nola hartzen dituzten gorputzak eta haren organoek beren tamainak eta beren formak; hots, zer prozesuk arautzen dituzten zelula-hazkundera eta **morfogenesia**. **Juan Garzia**

Hala gertatzen da, besteak beste, zelulen erdibitzean inplikaturiko eragiketetan edo zelula-zelula eragin-trukeetan edo **morfogenesiaren** zenbait urratsetan. **Juan Garzia**

## morfologia 1 *iz* izaki bizi edo organu baten kanpoko forma eta egituraren azterketa.

Parerik gabeko doitasunarekin irudikatu dugu birusaren **morfologia**. **Berria - Gaiak**

Barkatuko didazue gordinegi mintzo naizela uste baduzue, baina esan behar dut cocuyo horren **morfologiak** antzekotasun nabarmenak dituela emakumearen organo sexualekin. **Jon Alonso**

Halaber, Moirasen arabera, kontuan izan behar da bertako harriaren **morfologia**. **Berria - Harian**

### 2 hitzek esaldietan agertzen dituzten formen azterketa; hitzen eratzearen azterketa.

Idatzi honek sintaxi egitura du aztergai, bai zentzu zabalean (semantikari kontrajarriaz) eta bai zentzu estuan (fonemikari eta **morfologiari** kontrajarriaz). **Itziar Laka**

Ezin da onartu sintaxi teoriak fonologia eta **morfologiako** arazoak noiz konpondu zain egon behar duenik. **Berria - Euskal Herria**

Ezin da onartu sintaxi teoriak fonologia eta **morfologiako** arazoak noiz konpondu zain egon behar duenik. **Berria - Euskal Herria**

Deklinabidea da izenaren **morfologiako** arlorik esanguratsuenak. **Koldo Zuazo**

Euskararen **morfologiaz**: aditza, deklinabidea, ahozkatzea. **Herría**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik morfologiko.

/aneim/ fonema-hurrenkera **morfologia** -mailan bitara itxuratzen dela ohartzea da. **Itziar Laka**

Eta alderantziz ere, **morfologia** mailakoa baldin bada ezarritako konparaketa, orduan fonetikaz baliatu beharko dugu konparaketa hori argitzeari ekiteko unean. **Isabel Arrigain**

Hutsetik hasita hiztegi miresgarria, **morfologia** liburua. **Gotzon Garate**

Ulegarritasunaren muga gaindituta, **morfologia** eta sintaxi arauak haustera iristen dira horrelako ariketak. **Iñaki Arranz**

Euskara batuaren eraikitze lanetan buru-belarri ibili zen garai ospetsu haietan, **morfologia** kontuetan bereziki. **Berria - Kultura**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ortega-k ezagutzen zituen Spengler-en oldozpenak etxeari buruz, eta haren baieztapen dogmatikoa, kultur **morfologiazkoa**. **Joxe Azurmendi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aditzaren morfologia** (3)

## morfologiko *iz* morfologiarena, morfologiari dagokiona. ik morfologia 2.

Ordezkatze hori adierazteko kategoria **morfologikoa** erabili behar dira eta ez fonikoak bakarrik. **Lourdes Oñederra**

Luzaroan, alderdi **morfologikora** mugatu zuen enbrioi-garapenaren azterketak bere burua. **Juan Garzia**

Hirurogeita hamarreko urteetan, aldiz, euliaren baitan eragiten duen eraldakuntza **morfologikoa** dela-eta izango da garrantzitsua mutazio hori. **Juan Garzia**

Ez da beste teoria fonemiko edo **morfologikorik** irizpide sendo hau betetzen duenik. **Itziar Laka**

*Alofono* hitzaren bigarren osagaiak hots aldaera dela esaten du eta ez **morfologikoa** edo lexikoa, esaterako. garbi dago txandakatze hori ez dela fonologikoa, **morfologikoa** baizik, hotsa aldatzeaz bat hitzaren balio **morfologikoa** aldatzen baita maskulinitik femininora edo alderantziz. **Lourdes Oñederra**

## morfologikoki *adlag* alderdi morfologikoan.

Bestela, **morfologikoki**, biak dira izen beraren erro. **Lourdes Oñederra**

## morfologizatu, morfologiza, morfologizatzen da *ad* morfologiko bihurtu.

Egun, zubererazko azentua **morfologizatzen** ari delako zantzuak daude. **Lourdes Oñederra**

## morfonologia *iz* morfemen egitura fonologikoren azterketa.

Fonetikaz ahatze horrexek ekarri du fonologia inolako konturik gabe **morfonologiarekin** nahastea. Lourdes Oñederra

Esaterako, azentua gramatikaren arabera denean edo bereizkuntza lexikoak adierazten dituenean, azentua fonikoa izango da akustikoa den neurrian [...], baina ez dagokio hizkuntzaren fonologiari, **morfonologiari** baizik. Lourdes Oñederra

## morfonologiko *izond* morfonologikoa.

Autore zenbaitek [...] *erregela fonologiko* deitzen diote hemen *bilakabide* deitzen denari eta *erregela* **morfonologiko** hemen, besterik gabe, *erregela* deitzen denari).

Lourdes Oñederra

Lehena bilakabide fonologikoa izan daiteke; bigarrena, berriz, beti izango da erregela **morfonologiko** edo morfologikoa. Lourdes Oñederra

Azentu nagusiek bete dezakete egiteko **morfonologikoa**. Lourdes Oñederra

Lehena bilakabide fonologikoa izan daiteke; bigarrena, berriz, beti izango da erregela **morfonologiko** edo morfologikoa. Lourdes Oñederra

## morfoprosodia *iz* hitzaren eta silabaren arteko erlazioen azterketa.

Ezaugarri prosodikoa fonikoa ez diren baldintzen arabera direnean, **morfoprosodiaren** eremuari dagozkio. Lourdes Oñederra

Garrantzi gutxi eman zaio **morfoprosodiaren** gaiari, gehienetan azentuaren kokalekua bilatu (fonologian) eta fisikoki deskribatu (fonetikan) besterik ez dugulako egin.

Lourdes Oñederra

## morfoprosodiko *izond* morfoprosodiarena, morfoprosodiari dagokiona.

Izan ere egiteko **morfoprosodikoa** betetzen du [azentuak] zenbaitetan, adibidez, *alhába* mugagabea eta *alhabá* singularra bereizten dituenean. Lourdes Oñederra

## morfosemantika *iz* morfemen azterketa semantikoa.

Sinonimotzat har daitekeen prozesu uherragoa da **morfosemantikaren** aldetik eta, gainera, euskarazko ahoskeran "z" gaztelaniaren ebakera horzkariak ahoskatzeko aukerak ugaritzen ditu. Lourdes Oñederra

Bigarrenean **morfosemantika** erabat begibistakoa da ordea. Lourdes Oñederra

## morfosemantiko *izond* morfosemantikarena, morfosemantikari dagokiona.

Gardentasun morfotaktikoa eta **morfosemantikoaz** fonetika-fonologiezko eskuliburu batean hitz egitea ez da agian berehalakoan ulertzen. Lourdes Oñederra

Hori hitzaren sendotze morfologikoa aldetik mesedegarri da, baina ez gardentasun **morfosemantikoaren** aldetik (hitz baten zati formalek esanahi zatiekin parekatzearen aldetik). Lourdes Oñederra

## morfosintaktiko *izond* morfosintasiarena, morfosintasiari dagokiona.

Subjuntiboa, hatxedun hitzen zerranda, metafora eta euskalkien ezaugarri **morfosintaktikoak**, bitarteko behar dute, gehien jota, sekula ez helburu. Joxerra Garzia

Auzoko india politarekin oheratzearenaz aparte, insurrekzioa oso **morfosintaktikoa** dela esango nuke. Joseba Sarrionandia

## morfosintaxi 1 *iz* hizkuntza baten erregela morfologiko eta sintaktikoean azterketa.

Euskararen **Morfosintaxia**, Euskararen Gramatika Historikoa, Euskal Literatura Klasikoa, Lexikologia eta Semantika irakatsi ditu. Xabier Arregi

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaztelaniazko testuari berari «oso txarra» deritzo, eta, hortik aurrera, euskarazko «itzulpenak» era askotako hutsak dituela dio: terminologia nahiz **morfosintaxi** arauak «etengabe» bortxatzeaz gain, «komunikazioa inondik inora ez bermatzea» egotzi dio. Berria - Euskal Herria

## morfotaktiko *izond*

Gardentasun **morfotaktikoaz** eta morfosemantikoaz fonetika-fonologiezko eskuliburu batean hitz egitea ez da agian berehalakoan ulertzen. Lourdes Oñederra

Izan ere, ontasun fonikoaren alde egin da gardentasun **morfotaktikoaren** kaltetan. Lourdes Oñederra

Urtu, itxuraldatu, lausotu egiten dute morfema-muga (egitura **morfotaktikoa**, morfema kateatzea). Lourdes Oñederra

## morge *iz* gorputegia.

Arantxaren hitzak gogoratu ditut, Imanol **morgean** negarrez egon zela aitaren hilotzari begira, Imanolen galdera entzun, lkusi ote duzue inoiz zeuen aita barutik, eta aintzat hartu ahal izan orduko. Joseba Sarrionandia

Prozesu oso bat, Joxe Arregiren **morgekoekin** eta Mikel Zabaltzaren esku estekatuekin lotzen dudana. Iñigo Aranbarri

**Morgekoak** iritsi direnean, Olivierren eskuak gogoz eusten dio oraindik atearen heldulekuari. Harkaitz Cano

## morisko 1 *iz* Espainiako mairu kristautua.

Judu eta **moriskoen** esesketak erlijiosoak izan ziren, ez arrazialak. Joxe Azurmendi

1611. urtean, Felipe III.ak bere mendeko erresumetatik indarka erbesteratutako 40.000 **morisko** inguru Bidasoaz gaindi pasatu ziren. Martin Anso

**Morisko** baten emaztearen hilketa aitzakiatzat hartuta. Berria - Kultura

Miso-k Alcuuzuz **morisko** apalarena egiten du eta berari esker ulertzen dugu hobekien zer zen eta zer den kristauen harrotasunaren menpeko bizimodua Berria - Kultura

### • 2 *izond* moriskoei dagokiena.

Markoa obala zen, urre kolore aberatsekoa eta estilo **moriskoko** filigranez apaindua. Koro Navarro

## morko<sup>1</sup> *izond*

Erantzunak ni baitatik at utzi ninduen, uste bainuen komeni ez zitzaidana ontziko gizon **morko** eta basekin ibiltzea zela, haien alboan eta haien gai lizunak aditurik galdu egin nintekeelakoan edo. **Erdorta Jimenez**

morko<sup>2</sup> ik **murko**.

morko<sup>3</sup> ik **mulko**.

## morkots 1 *iz* gaztainaren oskol arantzatsua. ik **karlo**.

Haga luzeak, gaztaina **morkots** eta guzti, adarretik zintzilik zirauena lurrera botatzeko. **Pello Zabala**

Urriak, hainbat baba-leka, hainbat artaburu beren txurikinez jantzita, mandio eta ganbara betetzeraino ekarri dituenen, hortxe dago beste emaitza estimagarria, **morkots** barruan heze gordeta. **Pello Zabala**

Erreka iraganik pixka bat goitiago doan bidexkatik jarraitu dute, ura beti ezkerrean, **morkots** ustelez jositako bidean barrena, beheko haranerantz. **Pello Lizarralde**

Goierri aldean dioten eran: Madalenaz bero, **morkotsetara** gero. **Pello Zabala**

### 2 *gaztaina morkots (orobat gaztain m.)*

Gaztaina **morkotsak** bezala lasturiko zuhaitz erroak, itsasontzi zatiak, ontzien armazoiak. **Koldo Izagirre**

Baita gaztain-**morkotsak** gordetzeko ere, hurriz-zarben arteik han pilatutakoak arnasa hartzen baitzuen, umiduraz lizundu gabe irauteko. **Pello Zabala**

Gaztain **morkotsa** bezain berdebeltz ager daiteke erreondo baztertu eta zailduenean. **Pello Zabala**

Gaztaina **morkotsak** bezala lasturiko zuhaitz erroak, itsasontzi zatiak, ontzien armazoiak. **Koldo Izagirre**

## mormoi *iz* Azken Eguretako Santuen Jesu Kristoren elizako kidea.

Jenny **mormoia** egin zen. **Gotzon Garate**

Sparhawk eta Parker **mormoiak** dira, eta beren sinesmen erlijioso sendoen ispilu da beren musika. **Berria - Kultura**

Irakasleekin larrua jotzearen kontua hemen bezalakoa zen, **mormoi** batekin ere egin nuen, ez zuen erretzen, ez zuen kaferik ere edaten, ez zuen hitz gordirik esaten, gizon santua alajaina, baina, galtzen gainetik zakilari oratu nionean, dena errekarra bota eta "bikain" jarri zidan handik ikasturtea bukatu arte. **Karlos Zabala**

## mormor *iz* marmarra.

Gazteluko atea zeharkatu ondoan ere belarrian **mormor** bat bezala itsasia neraman ministroaren predikua. **Aingeru Epaltza**

Inguruan, haize leunaren firfira eta eulien **mormorra** bertze soinurik ez da aditzen. **Aingeru Epaltza**

## mormorka *adlag* marmarka.

Ttipiri ere, dela bere zaletasunak hurbileko nahiz urrunekoengan sortzen zuen konplizitateagatik, dela bere izaera atseginagatik, nahi baino jende gehiago ezagutu nion beti inguruan **mormorka**, nola euliak kakaren. **Aingeru Epaltza**

## moro 1 *iz* mairua.

Espainiar bandera harro altxatu, eta **moroak** akabatzer; mordoka bada, hobe. **Txillardegi**

Egon gogor ta erne alik eta **moru** guztiak il arte. **Berria - Kultura**

Begi txarrez ikusten zituzten ordu hetan girixtinoek **Moroak** Lur Sainduetan nausi. **Herria**

Fernando eta Isabelek judutarrak bidali zituzten Espainiatik, Espainian aspalditik errotuak zeuden judutarrak, ez bakarrik orduan tronuan zegoen familia baino lehenago, baita **moroak** eta godoak baino lehenago ere, eta kartagotarrak baino lehenago ere bai. **Juan Martin Elexpuru**

Atsotitzari erreparatu: "lehenago **moro** galego baino". **Iñigo Aranbarri**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Begiak distiraz zituen, **moro** aurpegian; eta lepoan, ondo lotuta, zapi gorria, ia gaizkile itxura ematen ziola. **Josu Zabaleta**

Gela guztiak zuten isiltasun-itxura bera, **moro**-tankera samarrekoa, argi estalizkoa. **Josu Zabaleta**

Kale galdu batzuek, lurraren koloreko horma handiekin, ate eskerga eta leiho txikiekin, **moro** herri batekoak ematen zuten. **Josu Zabaleta**

**Moru** -jende beltzak. **Jon Alonso**

### 3 (izenondo gisa)

Francisco Franco apezpiku eta artzapezpikuekin katedralera paliopean sartzen, Francisco Franco jenerala bere guardia **moroarekin** Victoriaren desfilean. **Joseba Sarrionandia**

Dantzan ari da, etxe batetik ozen den musika **moro** bezalako bat segituz, mokesan handi bat itzulika erabiliz buru gainetik eta sorbalden itzulian. **Piarres Aintziart**

Mohammed VI.a baino **moroagoa** naizela esan eta esanez. **Patxi Iturritegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**moroak akabatzer** (3)

## morokil 1 *iz* uretan arto irina egosi eta irabiatuz egiten den janari bigun lodia. ik **polenta**.

Kazeta bakar batean pausatuta ere, zoragarria da **morokila**. **Iñigo Aranbarri**

**Morokilez** bete nuen ahoa, amorruari kanporabidea emango nion beldurrez. **Irene Aldasoro**

Gose banintzen, edo logale, edo hotz, etxean sartzen nintzen, jateko zer edo zeren bila -labean erretako patatak, **morokila**, gatzatua, lantzean behin ogia ere bai-, eta sutondoan etzaten nintzen, kamainan. **Eskarne Mujika**

Esne-zopak, edo galletak, edo **morokila** edukita, zertarako nahi duzu korfleis edo dena delako asmakizun hori? **Xabier Mendiguren Elizegi**

### 2 irud/hed

Baina nahiago zuen Anaz gehiago ez pentsatu; arazo nekosoetara zeraman horrek, are larriago sentiaraziko zuen, aurreko larunbat gauean izandako enkontruokak berritzen hasiko zen, eta atzera berriro **morokil** guztiari bueltaka. **Iñaki Iñurrieta**

### 3 (hitz elkartuetan)

Izeba olo-**morokila** buruntzaliarekin ateratzen ari zitzaidala, zera esan zuten, aurretik egindako iruzkinen bati berriro heltzeko bezala. **Irene Aldasoro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

olo **morokila** (3)

## morokildu *izond* nahaspilatua.

Berria-n ikusi dut neure burua: nola berrantolatatu kakanahaste hau, nola eraman beste sistema batera erredaktatzen inongo ilusiorik sortzen ez duen datu anabasa **morokildu** hau? **Iñigo Aranbarri**

## moroso *izond* berankorra.

Hi; negozio guztietan izaten dituk bezero **morosoak** ... **Pablo Sastre**

## morral (*orobat morrale g.er.*) *iz* zorroa, bidezorroa.

Eskua edo musuzapia **morralaren** uhal azpian jartzen du, sorbaldako oinazea sosegatzeko. **Itziar Otegi**

Gainera, **morralaren** poltsikoan pattar-botilatxoa darama. **Itziar Otegi**

**Morralea** bete-betea daukat paper zahar eta kartoiez. **Anjel Lertxundi**

**Morraletik** atera karpeta, dena paperez bete, eta hantxe hasi zitzaidala dokumentu zaharraren kopia leitzen, zera! **Patziku Perurena**

## morrioi *iz* armadurako kaskoa, esferikoa eta hegalduna, goialdean luma apaingarriak eraman ohi dituen aurrealdetik atzealdera.

**Morrioi**: buruan jartzen zen kaskoa, sarritan luma batez apaindua. **Patxi Ezkiaga**

Zelata erdiaren antzeko zerbait egin zuen kartoizkoa, **morrioiarekin** batera jarrita, zelata osoa zirudiena. **Patxi Ezkiaga**

## morro

### 1 *piper morro* piper gorri, gozo eta haragitsua.

**Piper morroaren** esentziakozko ozpin-lurrinetan beratutako hegalezdedun carpaccioa. **Edorta Agirre**

### 2 *lizar morro*

Lurreko sutan ziuka atzeko muturretik apar zuria zeriela ikusten eta aditzen genituen lizar karrote heze haiek, edo lizar **morroek**, berriz, Orixeren "Suondoko otsa" dakarkidate gogora. **Patziku Perurena**

## morroi (*orobat morroin g.er.*) 1 *iz* baserri etxe batean zerbitzari dagoen gizonezkoa. **ikmirabe; otsein; sehi; neskame.**

Migel Larraalde, Azkainekoa; Karrikaburu, Arhantsusiko baserri bateko **morroia**. **Koro Navarro**

**Morroiak** behar baitira orain, baserriko lanetan, sorokoetan eta horrela. **Pello Zabala**

Zergatik, bada, **morroia** aukeratu nagusia utziz, eta menpekota printzea utziz? **Ramuntxo Etxeberri**

Hauen artean handien izan nahi duena izan bedi guztion zerbitzari eta **morroi**. **Askoren artean**

**Morroiak** jipoia merezi badu, nagusiak jotzeko eskubidea du. **Jose Morales**

1664ko lege baten arabera, esklaboak betiko **morroi** bihurtu ziren. **Berria - Gaiak**

-Azarias adiskidea, hartu lau **morroi** eta bi gamelu, eta zoaz Rage hirira. **Jose Antonio Mujika**

Egin zuen bata jaun, eta bertzea **morroi**. **Joan Mari Irigoien**

Kontatu nizin, ezta? aitaren **morroi** horrek nirekin oheratu nahi du. **Bernardo Atxaga**

Mintza, Jauna, adi duzu zeure **morroi** hau. **Elizen arteko biblia**

Zeuok ere bere **morroi** eginen zaituzte. **Elizen arteko biblia**

Ostatuko **morroiak** azaldu zionez, eskutitza ekarri zuenak egilea nor zen ez esateko agindua zeukan. **Jose Morales**

Mutil izanzen zen, **morroi**. **Aingeru Epaltza**

Nagusia **morroi**. **Joxerra Garzia**

Nagusi-**morroiek** emakume baten ahots zakarra entzun zuten: [...]. **Jose Morales**

Bekadun, ez **morroi**. **Berria - Euskal Herria**

### 2 irud/hed

Nekazaritza Sailak bi aukera eman dizkie orain artean baserritarrei: «Edo **morroi** izan edo laguntza publikorik gabe gelditu». **Berria - Ekonomia**

Bidearen **morroi** gara, hitzaren esklabo. **Lourdes Oñederra**

PSOEk PPren **morroi** izaten jarraitzen du oraindik kontu hauetan. **Berria - Euskal Herria**

PPk eta bere **morroiek** -Ayesa patronaleko buruak kasu- zuzendutako erabateko gerra zikin informatibo eta politikoa da hori. **Berria - Euskal Herria**

Ezin da bi nagusiren **morroi** izan: zentzuena eta izpirituarena. **Joan Mari Lekuona**

Hau zigor handia dela eta erabat zuzena, jakinduriaren tronura iritsi eta libidoaren **morroi** izateko handik jaitea erabaki duenarentzat. **Imanol Unzurrunzaga**

Plazarik plazako bertsogintzari lehentasuna eman, telebistakoaren **morroi** bihur ez dadin. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Ez daitezen izan, ongi ulertu badugu, ez zaharkeriaren **morroi**, ez indarkeriaren beretter. **Piarres Xarriton**

### 3 (izenondoekin)

Izan zaitzete **morroi** leial eta zentzuduna bezala, nagusiak etxeko morroiei bere orduan janaria banatzeko eginkizuna eman diona bezala. **Elizen arteko biblia**

Maita ezazu **morroi** trebea zeure burua bezala, ez ukatu zor diozun askatasuna. **Elizen arteko biblia**

Erregearen ohaideen ardura zuen Xaaxgaz **morroi** irenaren agindupera. **Jose Antonio Mujika**

-**Morroi** zorritzorroa! -zuzendu zitzaioren ifrit mando itxurakoa-. **Patxi Zubizarreta**

**Morroi** ona bai, baina nagusi galgarria da dirua... **Herria**

### 4 (adizlagun gisa)

Gulbarga hirian harijan batek **morroi** zegoen etxeko andreari edalontzi bat ebatsi zion. **Gotzon Garate**

Han **morroi** ibili eta emaztearekin itzuli zen herrira erabat aberastuta. **Arantxa Iturbe**

Beste anaien ministro eta **morroi** jarriak dauden anaiek. **Askoren artean**

- Artzain lasi zen han, **morroi**, ganadurekin. **Arantxa Iturbe**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Morroí** lana eman zioten nagusi zitelen bulegoan. **Pello Lizarralde**

Limosna eske joatera makurtzeari eta edozein **morroi** -lani uko egiten eta egingo diotenak. **Askoren artean**

Ugaoko txirindulariari **morroi** lana egokituko zaio, Paolo Bettini taldeko liderraren itzalean. **Berria - Kirola**

Eta erretiratu eta baztertu zituzten panpinak, eta Curro Banderas eta bere **morroi** -taldea bere egitekoan murgildu ziren. **Joan Mari Irigoien**

Zeren ez baita seme-beldurra bakarrik gauza ona eta guztiz deuna, baita **morroi** -beldurra ere. **Patxi Altuna**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Quenu, bitartean, eroso egoteko, sukalde **morroien** txano, jaka eta mantal zuriak janzen zituen berriz ere. **Karlos Zabala**

Atseginago zitzaion ezkutari eta gela **morroi** ederrez inguratutik egotea. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ganbara-**morroiak** baimena eskatu zidak kanpoko goarnizioan sartu ahal izateko eta, bolada batez, haren tokia beteko duk. **Agustin Otsoa**

Ez dago ez dakienik heroiaen gorpua arakatu zuten polizi **morroiek** gutun itxi bat aurkitu zutela. **Juan Garzia**

Hantxe ezagutzen dut Jean ere, nekazari-**morroi** bat, beti neure ondorean ibiltzen dena. **Eskarne Mujika**

Denbora nolabait pasatzearen egiten zidan itaunketa, ni bere dotrinan leziatzearen eta bere buruari haize ematearen, inolako inkisizio-asmo benazkorik gabe: bera soldadu bat zen, ez berrero-**morroi** bat. **Juan Garzia**

Ez dut ezer jakin nahi Luis XIV.aren idazle-**morroi** izan zirenekin. **Bernardo Atxaga**

Ohe txar bat besterik ez duten 'caged-men' izenezko langile **morroiak**. **Ramuntxo Etxeberri**

## 7 (neskame-rekin batera; ik beherago 11 eta 12)

Lau horiek bi seme eta bi alaba, beste biak heure zerbitzurako behar dituan **morroia** eta **neskamea**. **Imanol Zurutuza**

Oihuak eta oihuak entzun baintuen, eta **morroiak** eta **neskameak** ikusi nituen, harat eta honat zihoazela, jauregi aitzinean. **Joan Mari Irigoien**

Nirekin auzitan zebilela, **morroi** nahiz **neskameren** bati eskubidea ukatu badiot, [...]. **Elizen arteko biblia**

Aurrean bi idiak, ondoren bi lapurrak, haien atzetik **morroia**, gero **neskamea** txakurrarekin. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Harridura handiz ikusi zuen erregearen emaztea, hoge **morroi** eta hoge **neskamez** inguratua, jauregitik irteten. **Patxi Zubizarreta**

Alabaina, Xariarren barrena ezin oso lasai egon, zeren, jauregira itzulitakoan, emazteari, mirabe beltzari, **neskameei** eta **morroiei** lepoa mozteko agindu baitzuen. **Patxi Zubizarreta**

Nire **neskame** eta **morroien** artean berebiziko haserreak pizten ziren egunero. **Josu Zabaleta**

Orduan, nire aitak familia osoa eta **neskameak** eta **morroiak** hartu eta Segurara eroan zituen. **Koldo Izagirre**

Eta, haiekin batera, hoge **neskame** hoge **morroirekin**, denak lizunkeriara emanak. **Patxi Zubizarreta**

Idunekoz apainduriko **neskameak** edo jaka lodiko **morroiak**. **Jose Morales**

## 8 (informatikan)

MyDoom-ek bot sare bat sortu zuen, hau da, bere zerbitzura jarri zuen ordenagailu **morroi** multzo oso bat. **Berria - Gaiak**

Sare horietako ordenagailuak **morroi** gisa erabiltzen dituzte, gero zabor-mezuak balditzeko edo erasoak egiteko. **Berria - Gaiak**

## 9 adkor pertsona.

Azken finean, nire jabea ez zen **morroi** gaiztoa. **Jon Arretxe**

Che Guevara zeritzon **morroi** bizartsu baten poster zaharkitua. **Jon Arretxe**

Prentsako **morroi** horietakoren bat zinela uste nuen... **Koldo Izagirre**

Beste apaiza **morroi** garratz, garai, indartsu, aurpegiara kementsuko bat zen. **Josu Zabaleta**

**Morroí** arrisksua baitzen maisua; salatária, askoren uestez. **Juan Kruz Igerabide**

Pisu handiko **morroiak** daude grebaren atzean, ikusten? **Lopez de Arana**

Askotariko gauzen pila handi bat miatzen ari zela, hara non ikusten dituen, aretoaren barren-barrenean bi **morroi** guztiz dotore bero-bero eginda. **Jon Muñoz**

Lutxana aldeko **morroi** bat, Roke izeneko bat, boxeorako zahartu xamarra. **Paddy Rekalde**

Emakumearen portzelanazko bisaia belztu bezalaxe atera zen, sukaldetik, karateka itxurako **morroi** bat. **Aingeru Epaltza**

**Morroia** txankamehe erdi maritxu bat, ostia erdirik ez zuena, lanbidez informatikoa. **Patxi Iturritegi**

-Seguru **morroi** hori txakurra zela... **Josu Landa**

Ez diat ezer nahi **morroi** horrekin. **Lopez de Arana**

Tales; nor da **morroi** hori? **Jon Muñoz**

Zu **morroi** jatorra zara... **Lopez de Arana**

-Eta zenbat **morroi** zeundeten txalupan? **Lopez de Arana**

## 10 morroi-mirabe pl morroi eta mirabeak.

Lurraren atsedendaldian ez zaizue faltako zer janik, ez zuei, ez zuen **morroi-mirabe** eta langileei, ezta zuekin bizi diren etorkinei ere. **Elizen arteko biblia**

Orduan, Abimelekek itzuli egin zion Abrahami emaztea. Era berean, ardiak, behiak eta **morroi-mirabeak** eman zizkion oparizat. Izugarri aberastu zen Jakob: artalde handiak zituen, **morroi-mirabeak**, eta baita gameluak eta astoak ere ugari. **Elizen arteko biblia**

Lurrean, bere Eliza militanteko **morroi-mirabeen** artean, grazian eta bere bertuteetan hazaraziz. **Askoren artean**

## 11 morroi-neskame pl morroi eta neskameak.

Venancia neskame egondako lehenengo etxeko etxekoandrea emakume apetatsu, ero bat zen, umore guztiz zitalekoa; seme-alabak, senarra, **morroi-neskameak** jotzen zituen, eta bere lagunak etsaitzea gustatzen zitzaion. **Josu Zabaleta**

Beraz, guztiok geunden maiatz hartan etxean, jauregiko nagusiak eta **morroi-neskameak**... **Joan Mari Irigoien**

Lana zerbañt arrunt eta **morroi-neskameei** zegokien gauzatatz hartzeko ikuspegi helenikotik aldentze iraultzaile hau ez zen ezarriko San Benediktoren Erregelak ez balu santifikatu izan. **Iñaki Mendiguren**

Zeuen **morroi-neskameak**, zeuen gazterik bikainenak eta astorik hoberenak eramango dizkizue, beraren sailetan lan egin dezaten. **Elizen arteko biblia**

## 12 neskame-morroi pl neskame eta morroiak.

Lehenago **neskame-morroiak** ahaideen artekoak izaten ziren, noizbait herrixketatik etxeko lanak egiteko ekarriak. **Gotzon Garate**

Giltzain andrea zergatik aritzen zen lapurretan, zerbitzariak zergatik ziren hain zikinak eta mozkortiak, **neskame-morroiek** zergatik lo egiten zuten nahi adina denbora eta esna zeudenean zergatik zeuden beti alferkerian. **Jose Morales**

Oso tratu ona eman zioten Abrami Sarairengatik, eta ardiak eta behiak, astarrak eta astemeak, **neskame-morroiak** eta gameluak eskaini zizkioten oparizat. **Elizen arteko biblia**

Norbaitek leihotik begiratuko balu, han ikusiko lituzke **neskame-morroi** guztiak saltoka. **Jose Morales**

Hala ere, erregearen barrena ezin oso bakean egon, zeren, itzulitakoan, emazte-mirabeak eta **neskame-morroiak** hiltzeaz gain, gauero-gauero neskatala urrutugabe bat eskatzen hasi baitzen. **Patxi Zubizarreta**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

diruaren morroi (4); diruaren morroi izan (3); etxeko morroi (8); etxeko morroi bat (3); guztien morroi (3); haien morroi (3); haren morroi (6); horrelako morroi (4); horren morroi (3); jaingoaren morroi (3); jauregiko morroi (3); kristoren morroi (4); ministro eta morroi (5); morroi bat bidali (7); morroi bat etorri (3); morroi bat zen (3); morroi bihurtu (9); morroi bihurtzen (4); morroi eta mirabe (3); morroi gaizto (3); morroi honen ondorengotza (3); morroi izan (15); morroi izango (5); morroi izango da (4); morroi izateko (4); morroi izaten (4); morroi izaten jarraitzen (3); morroi jatorra (5); morroi lana (6); morroi lanetan (4); morroi leial (4); morroi leiala (3);

**morroi mirabeak** (3); **morroi mirabeek** (5); **morroi neskame** (3); **morroi neskameak** (10); **morroi neskameei** (3); **morroi ona** (3); **morroi txiki** (6); **mugatseko morroi** (3); **ppren morroi** (6); **ppren morroi izaten** (3); **zeukan morroi** (3); **zeure morroi** (13); **zure morroi** (24)

**abrahamen morroia** (3); **abrahamen morroia** (3); **apaiz nagusiaren morroia** (4); **bere morroia** (4); **etxeko morroia** (4); **haren morroia** (3); **morroia da** (4); **morroia eta neskamea** (3); **morroia izango** (3); **morroia zen** (7); **nagusiaren morroia** (4); **nagusiaren morroia jo** (4); **nire morroia** (4); **ostatuko morroia** (3)

**bere morroiak** (9); **ministro eta morroiak** (3); **morroiak erantzun zion** (4); **morroiak esan** (11); **morroiak esan zuen** (6); **morroiak eta mirabeak** (4); **morroiak hartu** (4); **morroiak ziren** (3); **neskame morroiak** (10); **ostatuko morroiak** (7)

**jainkoaren morroiaren** (3)

**etxeko morroi** (3)

## morroikeria iz morroitasuna, gaitzesgarritzat markatua.

Mendebaldean, arabiar eta musulman elkarrekin ere Saudi Arabiako Gobernuak sortu zituen, leialtasun eta **morroikeria** politikoak ziurtatzeko. **Berria - Harian**

## morroikide iz nagusi beraren morroia.

Bere **morroikideak** jotzen eta mozkorrekin jan-edanean hasten bada. **Elizen arteko biblia**

## morroileztatu izond morroiloz hornitua.

Galbide dorpeaz beiratzeara gatik, hil herrietako 5 sargiak dire **morroileztatuak**. **Herria**

## morroilo 1 iz sarraila.

Adida hiria berreraiki eta gotortu zuen, eta atea eta **morroiloak** ipini zizkion. **Elizen arteko biblia**

Nik ezarri nion muga, atea eta **morroiloak** jarritz. **Elizen arteko biblia**

Brontzeko atea puskatu zituen burdinazko **morroiloak** apurtu. **Elizen arteko biblia**

Musuaz saiatu nintzen parte gaiztoko **morroilo** hura birarazten, baina ez nintzen iristen. **Joxan Elozegi**

Berriz ere, bere esku ahulez **morroilo** astuna astindu du, erro herdoilduaren kontra kurrinka eginaraziz, eta erretzenaren hondoraino sartu, zarata handia atereaz. **Itziar Otegi**

Aitak **morroiloaz** itxi zuen atea. **Koro Navarro**

Ataka itxi eta **morroiloa** eman zion berrito, Sam kanpora irtena zela ohartu gabe. **Josu Zabaleta**

Atso bat jaitsi zen ezkaratzera eta atea giltzaz eta **morroiloz** itxi zuen. **Koro Navarro**

Idoloen jauretxeetako atea ere atalagaz eta **morroiloz** sendotzen dituzte apaizek, lapurrek eraman ez ditzaten. **Elizen arteko biblia**

### 2 (hitz elkartuetan)

Zatitu egingo ditut Damaskoko hiri-**morroiloak**, kendu Bikat-Abendik buruzagia. **Elizen arteko biblia**

Burdina eta brontzekoak haren ate-**morroiloak**, bizitza bezain iraunkorra haren indarra. **Elizen arteko biblia**

### 3 su arma batzuetan, ganbera ixten duen mekanismoa.

Gero, beste soldaduekin begirada bat trukatu, eta fusilaren **morroiloa** ukitu zuen. **Jose Morales**

Oskarren hortzen kurrinka fusilaren **morroiloaren** klaskadak estali zuen. **Alberto Ladron Arana**

Biratu ere ez, eta horma kontra bultzaka ari zitzaizkiguan, fusilen **morroiloen** hotsa, eta elkarri agur, Andrék eta biok. **Josu Zabaleta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atalagak eta morroiloak** (6); **ateak eta morroiloak** (5); **morroiloak ezarri** (5); **morroiloak ipini** (3)

**atea morroiloz itxi** (4); **morroiloz itxi** (7)

## morroilodun izond morroiloz hornitua.

Ezta ametsezko santutegi honetako ate giltzaz itxien eta atari **morroilodunen** atzean ere. **Oskar Arana**

101 ariketa egunerokotasunari nortasuna emateko, denok baitugu, gehiago edo gutxiago, gure kartzelatxoa herri honetan, nahiz eta denok ez egon ate **morroiloduneko** geletan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Eskuetara eman dit Jaunak; bere burua giltzapetu du horrek, ate eta **morroilodun** hirian sartuz. **Elizen arteko biblia**

## morroilope 1 iz (leku-denborazko atzizkietan singularrean)

Orain ere, hortaz pentsatu eta Poonji poztu egiten da, hilketagatik **morroilopean** badago ere. **Gotzon Garate**

Helburu hari begira eskuetaratu zizkidan trasteleku baten giltza baliosak, produktu haiek guztiak **morroilopean** zeuzkatenak. **Joxan Elozegi**

### • 2 (hitz soila adizlagun gisa) morroilopean.

Hemen, **morroilope** bizi garenok inon diren kako berezienak sortzen ditugu. **Koldo Izagirre**

Hamalau urte daramatza **morroilope**, iraintzat hartu du berari ere ongi etorria ematea. **Koldo Izagirre**

Tomas Urkiaga ezagutu neban nik **morroilope** sartu barritan. **Lutxo Egia**

Jakin nahi nuke zergatik dauden **morroilope** bi mozolo horiek. **Koldo Izagirre**

## morroilotu, morroilo, morroilotzen 1 du ad morroiloz itxi.

Etxea barraka amerikar bat zen, xafla izurtuz estalia, eta ate bakarra barrutik **morroilotua** zegoen. **Joxe Austin Arrieta**

Morroilo gainean zegoen gedarraren azterketa zehatzak garbi erakutsi zuen atea ez zegoela **morroilotua** erreketak gertatu zenean. **Gotzon Garate**

### 2 irud/hed

Egunkariak ere **morroilotzen** dituzten txosten-egileei lanik ez erraztearren eman da, antza, informazioa honela. **Iñigo Aranbarri**

## morroin ik morroi.

morroitza ik morrontza.

## morroitasun *(orobat morrontasun)* iz morroiaren egoera. ik morrontza.

Morroi denak eta sehi denak bere **morroitasunean** eta bere sehiatunean balu bezala faltarik handiena. **Joan Mari Irigoien**

Saiakera politiko eta filosofikoen bilduma horretan, Ikuskatzailea-n eta Arima hilak-en salatu zuen guztia aldeztu zuen: autokrazia, joputasuna, heriotza-zigorra, Eliza ortodoxoa, otzantasuna, esanekotasuna, **morroitasuna**... **Jose Morales**

Persona ahula zela iruditzen zitzaidan, eta **morrontasunez** ere portatzen zela askotan, batez ere Alaska hotelean zebilenean, eta hango jendearekin. **Bernardo Atxaga**

## morroitu, morroi, morroitzen 1 da/du ad morroi bihurtu.

Non irakurria zinen, zeu ere, filosofatzearen filosofatzez **morroitu** egiten dela gizakia? **Koldo Izagirre**

Enkarterriko gizon gorri guztiekin egiten dut bat, haien izerdi berean naiz **morroitzen**, **Koldo Izagirre**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Preso erratzaile **morroituak**. **Koldo Izagirre**

## morroitxo iz adkor morroia.

Eta anaia xalo eta esaneko guztiei, lehen eta azken etorriei, anai Frantziskok, gizon kaskar eta galkor, zuen **morroitxo** txiki-txiki honek: osasuna opa dizuet guztioi, berrerosi eta bere odol txit preziatuaz garbitu gintuenagan. **Askoren artean**

**Morroitxo** hauek deabru tranpati eta engainagarriak izan daitezke! **Iñaki Mendiguren**

## morroitza ik morrontza.

## morrontasun ik morroitasun.

## morrontza *(orobat morroitza g.er. eta morroitza g.er.)* 1 iz morroiaren lanbidea. ik mutilgo; morroitasun.

Arindu, bada, zuen aitak ezarri zizkigun **morrontza** gogorra eta uztarri astuna, eta zerbitzari izanen gaituzu. **Elizen arteko biblia**

Erbestera doa Juda: zoritxar eta **morrontza** gogorra! **Elizen arteko biblia**

Gizakiarentzat askatasuna, sarritan, bere **morrontza** aukeratzeko gaitasuna besterik ez da. **Fernando Morillo**

**Morrontza** sistema berriak dakar sakelako telefono nahiz tresna teknologiko bakoitza halako kate bat izatea. **Berria - Harian**

Ez da besterik geratzen: mailatan eratutako gizarteak ezartzen dituen **morrontzak** onartzea edo erreka jotzea. **Josu Zabaleta**

## 2 irud/hed

Luis Ocaña espainiarrarentzat **morrontzan** aritutakoa. **Berria - Kirola**

Erabaki guztiek dute hemen euren **morrontza**. **Hasier Etxeberria**

**Morrontza** ekonomikozko prozesu luze baten emaitza. **Koro Navarro**

Erdararen **morrontza** neurritz gaineak erakusten duten hizkuntz ariketetan aritzea. **Iñaki Arranz**

Oso bestelakoa da gaztelaniarekiko edo frantsesarekiko **morrontza** itsua onartzea. **Koldo Zuazo**

Eskumuturreko ordulari titikiok **morrontza** makurrenean lotu eta joputu gaituzte. **Pello Zabala**

PSOEK PPrekiko «**morrontzan**» jarraitzen duela diote alderdiek **Berria - Euskal Herria**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nahiz **morrontza** ereduak aldatu, esklabotzak bizirik dirauela ohartarazi du NBEk behin baino gehiagotan; munduan milioika pertsona bizi direla beste norbaiten menpe. **Berria - Gaiak**

**Morrontza** lanean aritzen zaretenok zuen lana behar beste eskertzen dela uste al duzue? **Berria - Kirola**

Texasera etorri baino lehen esklabo izan eta gaur egun bizi bitarteko **morrontza** egoeran daudenek berdin jarraituko dute. **Berria - Kultura**

**Morrontza** sistema berriak dakar sakelako telefono nahiz tresna teknologiko bakoitza halako kate bat izatea. **Berria - Harian**

Egiptora, **morrontza** -herra, berrituz itzuli nahian hasi ziren beren burugogorkerian. **Elizen arteko biblia**

Eta bere herriaren askatasunarekin guztiz zaletutako gizonak egingo dituzuenek, **morrontza** -ideiek ez dute beren espirituetan lekuri izango, erlijio-izuek ez diete adorea nahastuko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

· Vitruvioren eragina, horregatik, hasieratik bertatik egon izan zen, beti, bere "hutsegiteen" aurrean sortzen zen egonezinarekin, bere akatsen aitopenearekin eta bere testu horrenganako **morrontza** -gurtzazko jarrera ororenganako kritikekin [...] lotuta. **Santiago Iruretagoiena**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egungo morrontza (3); morrontza ereduak (4); morrontza gogorra (3); morrontza lana (4); morrontza lanean (12); morrontza lanean aritu (3)

morrontzan aritu (3); morrontzan jarraitzen (3)

antzinako morrontzara (3)

morrontzarik gabe (3)

morrontzatik askatzeko (4)

giza morrontzaz (4)

## morrosko 1 iz gizonezkoen mintzatuz, gazte, galant eta indartsua dena.

Bi **morrosko** handi, aizkoraz armaturik, ate zain. **Josu Zabaleta**

Sasoi ederreko **morrosko** gazte, bibotedun, baldarkotea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bi **morrosko** bibotedunen beso sendoek. **Aingeru Epaltza**

216 zentimetroko eta 154 kiloko **morroskoak** ezin du inon gorde. **Berria - Kirola**

Hi bezalako **morrosko** batek halako kekuak botatzea ere..! **Alberto Ladron Arana**

Etor daitezela herri txikiak **morrosko** horiek ehun flexio egitera. **Bernardo Atxaga**

Nobela hartako Daniel Zabalegiren deskripzioarekin guztiz bat zetorren **morrosko** alkandora koadrodunaren itxura. · Muhe, zazpi urterekin, **morrosko** txikia zen, aingeruak bezain polita eta gurdizainak bezain zarpaila. **Juan Luis Zabala**

## 2 irud/hed

118 kilometro ditu 18. etapak, eta hiru **morrosko** bidean: Tonale, Passo Gavia eta Bormio 2000. **Berria - Kirola**

## 3 (hitz elkartuetan)

Txintik ez **morrosko** ilara luze haietan. **Txillardegi**

A zer nolako **morrosko** puskak! **Jesus Mari Mendizabal**

## morroskote *iz adkor* morroskoa.

Mahai batean **morroskote** batzuk ari ziren arrabots handiz jan eta edaten, nahiz Dahlmann, hasieran, ez zien erreparatu. **Juan Garzia**

## morroskotu, morosko(tu), morroskotzen da/du *ad* morrosko bihurtu. • *irud/hed*

Joko ona egiten (eta Banco Atlantico erosi ostean **morroskotua**) zen Sabadell (%0,82) bankua sartuko da, uztailaren 1etik, Sacyr-Vallehermoso (%0,08) eraikuntza enpresaren tokian. **Berria - Ekonomia**

## morrotu, morro, morrotzen da/du *ad*

Eta oraindik, han hemen lizar kiman ikustean inor, poztu bezala egiten naiz; eta nonahi kimatu edo **morrotu** ezaz tantaitzen eta zakartzen ari direla ikustean penatu bezala.

**Patziku Perurena**

## morse (*orobat Morse eta Mortse g.er.*) 1 *iz* S. Morsek asmatu zuen idazkera, puntuz eta marratkoz osatua; idazkera horrekin eraturiko komunikazio sistema.

Tarteka, gainera, **morsearenak** bezalako kolpetxo lehorrak entzuten nituen, haiek ere apalduak. **Anjel Lertxundi**

Bospasei aldiz irakurri dut hitza; eta gero, ez dakit zenbatetan, neronen izena **Morsez** izkiriatu. **Txillardegi**

Jeneralaren ondoan nahi zuten, irakiarren mezuak harrapatu eta deskodetzeko, eta baita gure borrokalariei jarraibideak **Morsez** bidaltzeko ere. **Juan Kruz Igerabide**

**Morsezko** testu bat irakurtzen edo izkiriartzen ere ez. **Txillardegi**

Eta **Morsezko** mezuak eta Frantziatik zetorkigun prentsak ez zuela nire bakardade susmo hauetaz ezertxo ere esaten. **Txillardegi**

Besterik ere jakin genuen **Morse** bidezko bataila ezkutu hartan: [...]. **Txillardegi**

Kamingaintxoko igerilarietara hurbildu beharrean, **"Morse"** apurtxo bat egin ezak; eta gero ohera. **Txillardegi**

## 2 irud/hed

Konplizitate-keinuak "jakina" moduko mezua bidali zion aurpegiko giharrek eginiko **morse** adiskidekor batez-. **Josu Landa**

Bihotza mailuka hasi zait, bai, kutxa torazikoan, **morse** zoragarri batean. **Koldo Izagirre**

## 3 (izenondo gisa)

-Eta alfabeto **morsea**, ulertzen duzu? **Koldo Izagirre**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Morse** -telegrafo tresneria osoa beste leku batean aurkitu dut. **Txillardegi**

Harrigarriagoa zena: ez nuen irratrik edo **morse** -gailurik ere aurkitu. **Anjel Lertxundi**

Komisariatik **morse** -aparatu bat harrapatu diagu. **Juan Kruz Igerabide**

Mezuak **Morse** alfabetoz izkiriaturik jasoko ditugula guk. **Txillardegi**

Goitik behera eta behetik gora miatu ditut **Morse** -ikur ilara haiek. **Txillardegi**

Prozesu horretan, sistema kimiko burutsu batek egiten du operadoreak **Morse** kodearekin egiten duen lana. **Irene Aldasoro**

Inguruko mendi baten tontorrean gudari-taldetxo bat zegoen, ispilu bidez eta **morse** -hizkuntzan nora sutu behar zuten kanoizaleei erakusten. **Inazio Mujika Iraola**

Ez diat **Morse** sistema hori ezagutzen. **Txillardegi**

Gizonen leizetik, aita etengabe **morse** mezuak bidaltzen zituen. **Juan Kruz Igerabide**

Nola Almak logelako argiak pizten eta itzaltzen zituen, **morse** itxurako mezuak eratuz. **Iban Zaldua**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**morse** kodea (4)

## mortadela 1 *iz* arrosa koloreko hestebete samurra zerriki eta behiki xehatuz egiten dena.

Baina lukainka bai, eta **mortadela**, saltxitxoa, salamia... **Anton Garikano**

Noizbait bi ogitarteko ekarri dizkidate, **mortadelarenak**. **Agurtzane Juanena**

Zoparen antzeko zerbait eta **mortadela** ekarri dizute ogi artean. **Rafa Eiguren**

Poltsa batetik **mortadela** itsaskorreko hiru xerra atera eta bokata egin zuen. **Jon Arretxe**

Ogitartekoa ireki eta lau xerra **mortadela** zenbatu ditu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 2 (hitz elkartuetan)

Etxean prestatzen ziguten **mortadela** ogitartekoa hari ematea, iturrira harentzako ur bila joatea, haren etxeko lanak egitea. **Iban Zaldua**

Eskuetan daukazu **mortadela** bokadilloa. **Rafa Eiguren**

## mortairu (*orobat morteiru; Euskaltzaindiaren Hiztegian motrailu agertzen da*) 1 *iz* esfera Erdiko hutsunea duen ontzi sendoa, alea kolpeka xehatzeko erabiltzen dena. ik **motrailu**.

Hobe duzu kafe aleak xehe-xehe egitea, **morteiruz** zainpatzea baino. **Javi Cillero**

Montalibeteko jauregian eskorbutoarekin kontrako hauts haluzinagarriez beteta aurkitu zuten egurrezko **mortairuarena** ... **Anjel Lertxundi**

Maskor horiek bildu direnean, burdinazko erreminta batzuekin ebaki bat egiten zaie inguru guztian, eta zauri horietatik purpuraren zukua ateratzen da malko moduan; hori

**mortairuan** jaso eta xehekatuz prestatzen da. **Santiago Iruretagoiena**

Hurrena bil ezazu dena ipurdirik gabeko **mortairu** batean eta ora ezazu hiru hilabetetan zehar. **Patxi Zubizarreta**

Orea egiteko **mortairua** prestatu zuen. **Askoren artean**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Mortairu** -paleta batez. **Joxe Austin Arrieta**



# mortaja *iz hil-jantzia; hil-oihala.*

Bere gelan ari dira **mortaja** egiten, Donostiatik etorri zen bart erreginaren medikua. Koldo Izagirre

## mortal (*orobat mortale g.er.*) 1 *izond* heriozkoa; larria; ikaragarri handia.

Zintzotasunak alde batera lagata, egiazkotasunaz atzundurik, gatozen egiantzekotasuna deritzan tranpa **mortalera**. Iñaki Segurola

Esku eta hanka loturik isiltasun **mortal** haren mende utzi gintuzten. Matías Múgica

Arrisku bital gogorak bere gain hartuko balitu bezala; apustu handiak egingo balitu bezala, sarerik gabeko jauzi **mortalak**. Iñaki Iñurrieta

Badaki, bai, otsailak izotz **mortalak** ekartzen tarteka. Pello Zabala

Denen ongizate **mortala** arintzeko dauden hiruzpalau pantalla. Iñaki Segurola

Baina ez dira konturatzen nire emazte honek hiru ordu **mortal** behar dituela janzteko. Irene Aldasoro

### 2 (beste izenondo batekin)

Nire anaiek itsusi **mortala** zela esaten zuten, zakur-mutur moduko zerbait, baina amak parerik gabeko edertasuna zuela esaten zuen. Fernando Rey

Eta barre egiten diogu barkatzeari eta barkatzearen gezur arinari, ez barkatzearen egia astun **mortalaz** atzundurik. Iñaki Segurola

Eta horixe da hemen gertatzen dena: gizabanakotik gizamordora, eta mordotik banakora, jauzi ikaragarri **mortala** dagoela. Iñaki Segurola

Etorkizun jakina aspergarri **mortala** delako eta etorkizun ez-jakina izutzeko moduko muturrarekin agertu ohi delako. Iñaki Segurola

Ginoren lagunak, oro har, aspergarri **mortalak** denak. Fernando Rey

### 3 (bekatuez mintzatuz)

Zer den bekatu larria edo **mortala** eta zer bekatu arina edo beniala. Piarres Xarriton

Horrelakoa da beren bekatu **mortalengatik** sekulakotzat infernura kondenatuak direnen zorigaitza. Piarres Xarriton

Bekatu **mortalean** hiltzen diren gaixo dohakabeek, badirela oraino zenbait Katoliko ere makur dabiltzanak, uste baitute bekatu **mortaleko** estatuan egin obra onek ez dutela deus balio. Piarres Xarriton

- Kapitalismoa «bekatu **mortala**» zen Aristiderentzat, baita sistema haren ondorioak ere. Berria - Mundua

### 4 (izen gisa) hilkorra.

Ez dakit **mortalok** zein gogoeta mota egin ahal dugun gaiaren inguruan. Berria - Kultura

Jaio aurretik kondenatua den **mortal** zorigaitzekoaren egoera. Xabier Olarra

Diomedesek jo zuen Venus leiala lantzas, gerlari haserreari hark esan zion penaz: "horrela odolustu nauk, **mortal** ñaño ziztrina! Xabier Olarra

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bekatu mortal (6)

bekatu mortala (21); bekatu mortala zen (3); itsusi mortala (3)

bekatu mortalaren (6); bekatu mortalaren mehatxupean (3)

bekatu mortalean (20)

bekatu mortalik (6)

## mortale ik mortal.

## mortalki *adlag* ondorioa heriotza dela.

Ene berrogoitamaretako gaztetarzonean abarrikaturik **mortalki** kolpatu nauena telebista izan da. Jose Angel Irigaray

Erran dut **mortalki** gaitza den *helburua bilatuz* zeren eta, edozein ekintza, nahi bezain ona izanik ere berenez, helburu mortal gaitzarekin eginez geroz, mortala baita.

Piarres Xarriton

### 2 (bekatuz mintzatuz)

Ezen haietarik zenbaitek ez dute bekatu egiten **mortalki**, beste batzuk benialki baizik ez, gure Eskuliburuan erraten eta frogatzen den bezala 15. artikuluan eta ondokoetan.

Piarres Xarriton

Jakiteko, horietarik zeinek ez duen bekatu egiten edo zeinek benialki edo zeinek **mortalki**, eta gainera, zein eskumikatua den, berrikusten ahal da lehen aitinsolasaren

hondarrean erran dena. Piarres Xarriton

## morteiru ik mortairu.

## mortero (*orobat mortairu g.er.*) 1 *iz* kareorea.

Horratx harginaren buztina, **morteroa**, porlana... Patziku Perurena

Igelt sua, **morteroa** eta hormigoia ekologikoak diren aztertzen dihardute proiektu horretan ari diren ikertzaileek. Berria - Gaiak

**Mortero** eta material zeramikoz egiten ziren erromatarren horma-egitura tipikoak. Santiago Iruretagoiena

Karea hila dagoenean, orduan **morteroari** nahastuko zaio. Santiago Iruretagoiena

Harriak berez bigunak eta porotsuak izaten direnez, erabat lehortzen dute **morteroa**, ur guztia xukatuz. Santiago Iruretagoiena

Paretek, kare eta hareazko **morteroarekin** ondo hartuta geratuz, luzarago iraun dezaten. Santiago Iruretagoiena

Zarpeatua zabaldu denean, berdinu bedi harearen ordez adreilu-hautsezko **morteroarekin**. Santiago Iruretagoiena

Erdiko tartearen harri-koskor eta **morteroz** betetzen dute. Santiago Iruretagoiena

**Morteroz** egin den zoladurak zituen urradura batzuetatik. Herria

Izenak ere, **morteroak** bezalaxe betetzen ditu materiaren hutsak. Patziku Perurena

Jelarekin ur gutxiago behar baitu **morteroak**. Pablo Sastre

Yeshivako ikasleek nahastu zuten **morteroa**. Koro Navarro

Erabilera zabalago eta onartuagoa du [tintak] ospearen eraikineko harriak itsasteko **mortero** gisa, eta ondoren materialaren ziztrinkeria estaltzeko kare gisa. Xabier Olarra

### 2 (hitz elkartuetan)

**Mortero** -mota hori honela egingo da: lehenengo, harea prestatuko da oso garbia eta oso latza, gero silize-harriak hartu eta zatituko dira [...] eta karea nahastuko zaio morteroari ahalik eta sendoena. Santiago Iruretagoiena

Mihia **mortero** puska bat bezain gogorra neukalarik. Daniel Landart

### 3 artilleriako arma kanoi-laburra; arma horren jaurtigaia. ikmortier.

81 mm-ko **mortero** bat baliatuz, 4-5 granada [...] baizik ez litzuke behar tiroa doitu eta puxka ttikitan den-denak lehertzeko. **Pablo Sastre**

-Gero, alemanak, erantzun gisa, **morteroak** kargatu eta erasoka hasi zitzaizkigun. **Felipe Juaristi**

Kalibre politeko **morteroak** igorri genizkien gaztelu zaharrek puskailetan ongi babesturik, arrebari adina anker. **Koldo Izagirre**

Baldin eta alemaniarren artilleriak edo **morteroek** harrapatzen bagaituzte [...] orduan gureak egin du. **Mirentxu Larrañaga**

Lurrean nentzala inguruan zartarazi zuten **mortero** baten metrailak bete-betean harrapatu zidan, ordea, eskuin eskua. **Harkaitz Cano**

Hamar bat kilometroko helmena duten Kassam **morteroak**. **Berria - Mundua**

Kassam **morteroen** jaurtiguneak eta fabrikak desegin nahi ditu Tsahalek. **Berria - Mundua**

Iad Alaui lehen ministroaren egoitzari **morteroz** eginiko erasoan, berriz, beste bost zibil zauritu ziren. **Berria - Mundua**

Bagdaden **mortairu** bat erori zen Camberrako enbaxadorearen egoitzatik gertu. **Berria - Mundua**

Ekintzaile palestinarrek **morteroekin** eraso zioten Gazako kokaleku bati. **Berria - Mundua**

Matxinatu talde batek **morteroak** jaurti zituen eraikuntzaren aurka. **Berria - Mundua**

Najafeko ospitalea, hain zuzen, ez zen guduka hauetatik saihesten egon, bost **mortero** ukitu baitzuten eraikina. **Berria - Mundua**

Al Dura auzunean, kale bazterrean ezkutatuak lehergailu batek eta bi **mortero** egin zuten eztanda. **Berria - Harian**

### 4 (hitz elkartuetan)

Aitak beti esaten zigun ez kezkatzeko, **mortero** tiroekin bezala zela, morteroak ez direla inoiz toki berean bi aldiz erortzen, eta egiten dituzten zuloak direla babesteko lekuri onenak. **Mikel Hernandez Abaitua**

Hamar bat edo hamabost bat taldek jarduten dute **mortero** jaurtitze hauetan. **Berria - Mundua**

Erresistentziako kideek **mortero** eta obus andana jaurti zituzten basearen kontra. **Berria - Mundua**

**Mortero** -granada batek inguruan eztanda egin ostean. **Edorta Jimenez**

Eta bazirela morterotxoak, hots, pilotak oso gorantz jaurtitzen zituzten kanoi antzekoak; **mortero** pilotek, hain gora igo ostean, behera astun jausi eta kalte itzela eragiten ei zuten. **Edorta Jimenez**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mortero bat jaurti** (3); **mortero eraso** (3); **mortero jaurtiketak** (4)

**morteroak jaurti** (9); **morteroak jaurti zituzten** (6)

**eraso zioten morteroekin** (3); **morteroekin eraso** (3)

**morteroz eraso** (4)

### morterokada iz mortero ukaldia.

Tinpanoak txikituta baitzeuzkan **morterokada** bat zela medio, eta bakar-bakarrik atera zen heriotz zelaira. **Josetxo Azkona**

### morterotxo iz tamaina txikiko morteroa.

Eta bazirela **morterotxoak**, hots, pilotak oso gorantz jaurtitzen zituzten kanoi antzekoak; mortero pilotek, hain gora igo ostean, behera astun jausi eta kalte itzela eragiten ei zuten **Edorta Jimenez**

### mortier iz ipar morteroa, artilleriako arma.

Yasser Arafat-ek behar diren manuak eman ditu Palestindarrek bara zitzaizen **mortier** tiro horiek, eta Izraelarrek kendu dituzte Gaza-tik han sarraraziak zituzten tropak. Duela zombait egun, palestindar **mortier** ukaldi batek hil ditu bi judu gazte. **Herria**

Hunek bizkitartean, erakusteko araz bere borondate ona, galdegin diote bere kidekoeri gelditi dituen judu egoitzen **mortier** ukaldikazetik. **Herria**

### mortifikatu, mortifika, mortifikatzen du ad hilduratu.

Argi ttikia berriz piztu zen eta aitaren aurpegia agertu zitzaidan, **mortifikatua**, desegina. **Daniel Landart**

### mortifikazio 1 iz hildura.

Barauak nahiz gorputzeko **mortifikazioak** ugari egiten dituztenak. **Askoren artean**

### 2 (hitz elkartuetan)

Baina penitentzia hitzak badu bestelako esanahirik ere, inola ere gorputz-**mortifikaziora** mugatzen ez dena. **Askoren artean**

### mortsa 1 iz itsas ugaztun handia, itsas otsoaren antzekoa, lauren bat metro luze dena(Odobenus rosmarus).

Aurrena desagertuko liratekeen animalia espezieen artean zerrendatu dituzte Artikoko hartza eta **mortsa**. **Berria - Gaiak**

Ez ehiza-leku batera, ez hartzak ugariak ziren tokira, ez **mortsak** umatzen ziren labarretara... **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Dagoen-dagoenean, beraiek egindako plangintzak ondorio bakarra izango du, foka eta **mortsen** gizenketa. **Bernardo Atxaga**

Egiazko arrainak **mortsa** eta fokaren beldur bizi diren bezala, halaxe bizi dira testuak beraien sailkatzaile eta disekatzaileen hurbiltasunean. **Bernardo Atxaga**

### 2 (hitz elkartuetan)

Nostromoak bilerara deituko du eta kubertan, bere uniforme zuriarekin marinerito manikia dirudiela, sama sendo eta **mortsa** bibotearekin, aginte ahots ozenez emango ditu aholkuak: **Joseba Sarrionandia**

### mortse ik morse.

### mortu 1 iz basamortua.

Zein duzue **mortu** hori, Sahara? **Xabier Montoia**

**Mortua** zen hura, baina ez berezko **mortua**, dakigunez, agindu bidez egindakoa baizik. **Karlos Zabala**

Txilen, Arakamako **mortuan**, euririk ez dute ikusten: euri gutxien duen lurraldetzat jotzen da. **Pello Zabala**

Egia erran Bardeetako eki errauteskin batera, **mortu** gorrailetara ohituago nintzen. Itxaro Borda

Rommel **mortuan** barrena aurrera eginez. Edorta Jimenez

Lau urte lehenago ibili zituzten ibilbide **mortuetatik** zehar ibili zen. Irene Aldasoro

Atekarri Klyron deritzate eta nehork ez du **mortu** haietara hurbildu nahi ere, herensugez, suge gorritz eta eskorpionez estalia baita. Aurelia Arkotxa

Ekaitza, hegoa, ziertzoa, enbata, soperna jeneralaren hatsa eta **mortu** erreak. Itxaro Borda

## 2 irud/hed

Denborazko **mortu** hura iragan ondoren, besoak zabalik hartu zuen Sarak Sergio. Joan Mari Irigoien

## • 3 izond bakartia, jenderik bizi edo ibiltzen ez dena.

Herri **mortu** doi-doi argiztatu horretan ez zen inon ere Ximurraren ibilgailu handiaren arrastorik. Aingeru Epaltza

Bavariako hiriburuko karrika **mortuak** ibili bitartean Del Vallek bere baitako ahots bat entzun zuen. Alberto Ladron Arana

Isilik abiatu ginen, elkarren ondoan, trenbide **mortuan** barrena oinez. Harkaitz Cano

Kasu eginez behar da aitzinatu, beraz, alderdi **mortu** hauetan. Xabier Montoia

Ezerez **mortu** eta hutsa. Anton Garikano

Hogeita hamasei ordu trenez; itxaronaldiak, geldiuneak eginez, geltoki **mortu** eta hotzetan. Eskarne Mujika

Uharte **mortu** batean galdua ikusten zuen bere burua berriro. Imanol Zurutuza

## 4 animaliarik ez landarerik ez dagoena.

Lurralde **mortua** zen. Karlos Zabala

Sair Mendira, gizakiaren oina ezagutzen ez den lur **mortu** horretara, zeina piztiak ere zapaltzen ausartzen ez diren, non lurra burdinazkoa eta zerua kobrezkoa diren. Koro Navaro

Jordaniatik Irakera ere klandestino ailegatu da; horretan engainatu dute, lur **mortu** gogorretan bakarrik utzi dute, ihartu zorian. Pablo Sastre

Kalifornian bertan, 100 kilometro paraje **mortu** luze bat, lur guztiz emankor aberatsa egin dute. Pello Zabala

## 5 irud/hed

Ezinezko dela tristeziaren eremu **mortuan** luzaro bizirik irautea, bizipozaren iturriko urik edan gabe. Imanol Zurutuza

Noizbehinka txori gorriren bat ibai gainean hegada bizkorrean, eta oroz gain isiltasun **mortu** hura [...] zeru zuriskaren pean, eta eguzkia, kotoizkoa irudi, likits eta beroa, ortzadar-inguru batez gandutua. Joxe Austin Arrieta

Txarrena da gehiengo bat diskurtso **mortu** horien artean harrapatuta gaudela, eta zerbait berri esan nahi dugun bakoitzean momiak esnatu eta harrika hasten zaizkigula. Bernardo Atxaga

## 6 (adizlagun gisa)

**Mortu** zeuden behintzat Orexako plaza nagusia, frontoia eta inguruak. Juan Luis Zabala

Etxeak bezperan bezain **mortu** segitzen nuen. Alberto Ladron Arana

Eta 67 zenbakidun etxeak isil, ilun eta **mortu** jarraitzen zuen. Alberto Ladron Arana

## mortutu, mortu(tu), mortutzen da ad mortu bihurtu.

Shakespearek batasunaz ez du ulertzen [...] diferentzien inausketa eta ezabaketa, nirwana edo itzalitasun guztizko batean dena zeharo berdin-berdin **mortutzeraino** (bata eta berdina bat-berdinak izateraino), diferentzia aberasgarrien harmonia eta dantza margotsua bezala baino, pluraltasun handiengan eta bizi-bizi Joxe Azurmendi

## mortxila iz borla.

Aurrena fezaren **mortxila** irten zen, hurrena bere gorputz kakotua, eta azkena bera agertu zen, zoruan zut, bere itxurari apaindu bat emanaz. Patxi Zubizarreta

Fortunaren kapeluan ez gara punta-puntako **mortxila**. Juan Garzia

Zintzarriz eta **mortxilez** jositako uztai antzeko baten azpian. Karlos Zabala

Haien goiko mutur konikoetatik **mortxilak** eta borlak kulunkatzen ziren banderatzko, gidoin eta estandarte koloretsuen erdian. Karlos Zabala

## moru ik moro.

## mosaika ik mosaiko.

## mosaiko (orobat mosaika g.er.) 1 iz beirazko, harrizko... zati txikiak elkarri eratzikiz eta zementu bidez elkartuz osatzen den multzo apaingarria.

Ifigenia eta bere alabak irudikatzen zituen **mosaiko** egin zitzaidan niri deigarriena. Bernardo Atxaga

**Mosaiko** akasturik zegoen hainbat lekutan, eta lekedaz beteriko hutsune horixkak ageri ziren eroritako aleen tokian. Jose Morales

**Mosaikoaren** piezak nolako, **mosaiko** ere halako. Anjel Lertxundi

Atondo eliptiko erraldoiko **mosaikoaren** gainean ipini zuen laukoteak aulki gurpilduna. Jon Muñoz

Bertako **mosaiko** ederrak ikusirik, mundua **mosaiko** bat dela bururatu zaito: eite, kultura, prentsamendu eta kolore askotariko gizon-emakumez osatutako erlategi bat. Anjel Lertxundi

Geneak eta proteinak, gehien-gehienetan, zenbait elementuz osaturiko **mosaiko** modukoak dira. Juan Garzia

Hainbat proteinatan aurkitu zitezkeen erduetatik **mosaikozko** proteinak eratzea. Juan Garzia

Narrazio horrek narrazio asko ditu bere barnean bilduta, **mosaiko** baten antzera. Berria - Kultura

Banan-banan hartuta, **mosaiko** bateko pieza bakar baten garrantzia zeukaten: hutsala. Fernando Morillo

**Mosaikoetan** erabili teselaren batzuk ere azaldu dira. Berria - Kultura

Balio zuen: egitasmo baten parte zen, tesela bat **mosaiko** batean. Juan Garzia

## 2 irud/hed

Behin eta berriz esan behar diot legeetan agertzen dena baino **mosaiko** konplexuagoa dela berori gobernatzen-edo ari den errealitatea. Anjel Lertxundi

Kontatzeko egitura, tonu, modu eta erritmo desberdinez osatutako **mosaiko**, errealitatearen izaera **mosaikozkoa** jasotzeko ahaleginean. Anjel Lertxundi

Esku artean **mosaiko** ezkutu eta itzel baten atalak neuzkala ohartzu joan nintzen. Fernando Morillo

**Mosaiko** sinkretiko moduko bat moldatuko da hemen ere. Edorta Agirre

'Konpainia noblean' da azken adibidea: tradizioko pertsonaiei eta istorioei hats berria ematen dieten 93 narrazio laburrez osatutako **mosaiko**. Berria - Kultura

Andra Mari Zuriaren plazan **mosaiko** handi bat egingo da loreak erabiliz. Berria - Euskal Herria

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gehienak, zeramika zatiak 275.000, baina baita **mosaiko** tesela solteak, txanponak, giza hezurrak eta objektu metalikoak ere. Berria - Harian  
Italiako sabai-lanparak; eta plaza apaintzen zuten **mosaiko**-uhinak, operaren sarrerako marmolezko zutabediaren oinetaraino. Jon Muñoz  
Beren **mosaiko**-egiturak aukera ematen die geneei hainbaten arteko eragin-trukeak izateko. Juan Garzia  
Geneak ekoizteko bigarren bidea: aurretiazko hornidura zatiak egokitzea **mosaiko**-geneak eratzeko. Juan Garzia  
Hortik, bada, brikolaje molekularren bigarren bidea: ADN zatiak, exonak, berregokitzea **mosaiko**-proteinak eratzeko. Juan Garzia

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Multzo horrek guztiak kolore anitzeko etxe-**mosaiko** ikusgarri bat osatzen zuen, hamar legoako esparru zabal batean txertatua. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mosaiko baten antzera** (3)

## mosen iz apaiz batzuei ematen zaien trataera.

Egun batean **Mosen** Millanek Pacori eskatu zion, lagun ziezaion hil zorian zegoen gaixo bati azken igurtziaren ematen. Pablo Sastre  
Egun batez Santxo oihuka ari zitzaudan **mosen** Xarlexek deitzen nintuela. Michel Oronoz  
**Mosen** Bernat Etxeparek igorriarriko mezuaren ildotik. Joan Mari Irigoien

## moskatel iz mahatsondo mota; mota horren fruitua; mahats horrekin egiten den ardoa.

**Moskatel** arreari begira geratu gara, kopan isurtzen ari nintzela. Javi Cillero

**Moskatelak** ez dit onik egin. Javi Cillero

### 2 (edukiera neurri batekin)

Kopatxo bat **moskatel** edango genuen dendan elkarrekin. Javi Cillero  
Ez naiz ardozalea, gure aitak alkoholaren izpirituaz zaletu nahi baninduen ere, urtebetetze egunean kopa bete **moskatel** edanaraziz. Javi Cillero  
Denda betiko uzten dudan egunean hartuko dut azken kopa **moskatel**. Javi Cillero

### 3 (hitz elkartuean)

Armairuan ibili naiz **moskatel** botilaren bila, eta aita-amen oroigarriekin egin dut topo. Javi Cillero  
Bizkarrean behera bosna litroko bi **moskatel** garrafoi isurtzen zituen drag-queen biluzi baten funtzioa eten zuen gure Hans maiteak. Harkaitz Cano

### 4 kopa bat moskatel.

**Moskatel** bat aterako dizut, dena den. Javi Cillero

## moskeatu, moskea, moskeatzen 1 da/du ad adkor zapuztu, gaizki iritzia izan.

Ea ez den **moskeatzen** proposamenagatik. Jon Arretxe  
-Ze elkarrizketa? - **moskeatzen** hasita. Xabier Mendiguren Elizegi  
Pedro Alberdi ez ote da **moskeatu** liburua ez dudala irakurri esan diodalako? Pako Aristi  
Baina dexente **moskeatu** zuena taldearen izena izan zen. Xabier Mendiguren Elizegi

### 2 moskeatuta gaizki irudituta; zapuztuta.

-Kontzejalak **moskeatuta** daude gurekin. Patziku Perurena  
Zerbaitengatik **moskeatuta** ote dagoen edo... Xabier Mendiguren Elizegi  
Eta bi mila kiloko zezenaren aurretik pasatu behar, **moskeatuta** nirekin, gainera, goiko zuloatik behera txiza egin nionetik lehenengo gau gogoangarri hartan Joxean Sagatzizabal

## moskeo<sup>1</sup> iz adkor zaputzaldia.

Eta neskekin ere tratu normala zeukaagu, nahiko jatorra eta hola; ahaztuta zeudek garai bateko **moskeoak**; edo hala ematen dik behintzat. Xabier Mendiguren Elizegi  
Florenek bota egin zuen pisutik nire amorante sekretua, eta nirekin kristoren **moskeoa** hartu zuen. Jon Arretxe

## moskeo<sup>2</sup> ik mezkita.

## mosketari (16 agerraldi, 7 liburu eta 2 artikulutan) 1 iz mosketea erabiltzen duen oinezko gudaria.

Erregeren **mosketariak** ere harat-honat dabilta eta halaber guardia suitzar eta eskoziarrak, Louvren gelditua ez direnak, bederen, dofina eta erregina-ama babestearren. Aingeru Epaltza  
D'Artagnan **mosketaria**, landa-mariskal izendatua, gudu hartan hil zen. Jon Muñoz  
**Mosketarien** kapitain gaskoin batek, d'Orthez kapitainak hain zuzen. Felipe Juaristi

### 2 irud/hed

Hantxe aurkitu zituen Ruche jaunak trigonometriaren lau **mosketariak**: sinua, kosinua, tangentea eta cotangentea. Jon Muñoz  
Ronaldinho, Eto'o eta Messi Nou Campeko **mosketari** berriak dira. Berria - Kirola  
Talde horiko lau **mosketariakizan** ziren berriz partidako onenak: Bryantek 26 puntu, zazpi errebote, bost lapurreta eta lau asistentzia lortu zituen; O'Nealek, 18 puntu eta zortzi errebote; Malonek 20 puntu, 14 errebote, sei asistentzia, bi lapurreta eta txapel bat; eta Paytonek 12 puntu, 13 errebote eta bi asistentzia. Berria - Kirola

### 3 (hitz elkartuetan)

**Mosketari** -guante zuriak jantzitako eskuak luzatzen zituen zeru aldera. Fernando Rey  
Guardia frantseseko **mosketari** talde bat. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hiru mosketariak** (3)

## moskete 1 *iz* zintzako su arma, arkabuza baino astunagoa, tiro egiteko sardeka moduko baten gainean ipintzen dena.

Soldaduetako batek **mosketea** begi pareraino jaso eta, segundo batzuk kalkulatzen egon ondoren, tiro egin zuen. Anjel Lertxundi

Laurak arte ez zen emirra plazan sartu, turuten eta dunbaleen zalapartaren erdian, kanioen eta **mosketeen** desarraren artean. Karlos Zabala

Dominikoen komentu zaharra **moskete** baten tiramenean nuen. Aingeru Epaltza

Sotoetan, arkabuzak eta **mosketeak** generamatzen, guk geuk armada oso bati aurre egiteko adina, ene iritzian. Edorta Jimenez

**Mosketeen** tiro zoliak. Karlos Zabala

Eritasunek eta jan urriak Terrideren **mosketeek** baino jende gehiago akabatu zuten Nabarrenkoxen, setioko azken egunetan. Aingeru Epaltza

Hemezortzigarren mendeak jada ikusia zuen oihasen indiarra europar **mosketeaz** baliatzen zelata eta enboskada-gerran. Iñaki Mendiguren

## 2 (hitz elkartuetan)

**Moskete** eta kulebrina tiroren bat edo bertze kenduta, ez zen buruz burukorik izan. Aingeru Epaltza

## mosketekada *iz* mosketeaz emandoko kolpea.

Hiriko harresietara ikusmiratzeko asmoz sobera hurbildu zen batean, fededun baten **mosketekadak** haztatu zuen bizkarrean. Aingeru Epaltza

## mosketero (6 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan) *iz* mosketaria.

-Hiruron artean **mosketero** bat bazen. Juan Garzia

Lau **mosketero** hain ezagutuak ez dira gehiago elgarrekin bizi. Herria

Rousseaurentzat, giza talde bat herri bilakatzen duena gizarte-hitzarmena da; honen arabera, **mosketeroenean** bezala, bat bederak herriari damαιο duen oro, ordainez gutzia bakoitzarena bilakatu. Markos Zapiain

## mosketoi *iz* kanoi motzeko fusila.

Ondo zegoen zaldun izatea, bolbora eta **mosketoiak** eta pistolak azaldu ziren arte. Koro Navarro

Ezkerreko goardiak ateratzeko agindua errepikatu du eta biek **mosketoiak** apuntatu dituzte automobileoak. Pello Lizarralde

Ezkerreko goardia ere lurtean datza, ahoz goiti, **mosketoiak** oraindik eskuan. Pello Lizarralde

## moskita ik mezkita.

## moskito *iz* eltxoa.

Badago beste **moskito** bat askoz kaltegarriago. Gotzon Garate

**Moskitoak**, euliak eta tximitzak Epaitegiko hormetan. Pablo Sastre

## moskor ik mozkor.

## moskutar *izlag/iz* Moskukoa, Moskuri dagokiona; Moskuko biztanlea.

burua biluzik, kapelua eskuan, **moskutar** ebakerako jaka alemaniarra soinean. Jose Morales

Buruan txano **moskutarra**. Karlos Zabala

Peskov kazetari **moskutarra**. Pablo Sastre

Inperio **moskutar** ikaragarriaren mugaraino heldu eta Irkutskera itzultzen ari zen duke handia. Karlos Zabala

Nik, behintzat, ez dut galaraziko barbaro horiei garesti ordainaraztea lurralde **moskutarraren** inbasio honegatik. Karlos Zabala

Ebatsitako dirua zen, izan ere, barra-barra erortzen zena, toman eta sekina txanpon tatariarrekin batera, dukat eta errublo **moskutarrak** ere amiltzen baitziren dantzarien gainera. Karlos Zabala

## moskuzale *izond* Moskuren zalea dena.

Madarikatua hitz **moskuzaleen** lausengu zitalei jaramon egin eta karitate kristauaren arauak ahaztu nituen eguna! Koldo Biguri

## mostaza 1 *iz* ziapea. ik mustarda.

Paperak **mostaza** zaharminduaren kolorea ageri zuen. Mirentxu Larrañaga

Nire amonak esaten du, hankak berotzeko galtzerdi barrenean **mostazaren** irina paratu behar dela. Pablo Sastre

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Frantzisko, fedea bazenu, **mostaza** -hazia bezain txikia izanik ere, mendi honi "aldatu hemendik hara" esanez gero, aldatu egingo litzateke. Askoren artean

Zerutik **mostaza** alea bezain txikia ikusten zuela lurra. Patxi Ezkiaga

Gaurkoan minigona marroia, **mostaza** -koloreko jertsea eta panty beltzak daramatza. Oskar Arana

## 3 **mostaza gas** gas pozoitsua, arma kimiko gisa erabiltzen dena, begiei eta arnasbidei eragiten diena.

«**Mostaza** gas kopuru handia» aurkitu zuten, antza, baina egun itxita dagoen Rabta plantan. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mostaza hazia** (6); **mostaza haziaren** (6); **mostaza haziaren antzekoa** (3)

## mosto *iz* muztioa.

-Ez, **mostoa** -esan nion basoko izotz puskak klin-klin mugitzen nituela, eta esplikatu nola zer hartu asmatu ezinik geratzen naizen eta nola halakoetan **mostoa** eskatzen dudana-. Xabier Mendiguren Elizegi

Sagardoa, analitiko, ona den jakiteko honako parametroak hartzen diren azaldu digu Kamiok: **mostoaren** edo sagardoaren azidotasuna, taninoa, alkohola eta ph-a. **Berria - Euskal Herria**

## mostra *(orobat **muestra** g.er.) 1 iz erakusgarria.*

Kepa Junkerak "betiko trikixia" izeneko produkzioa egin eban, trikixiak dantza lotuan egin ebanaren **mostra** bat jasoaz. **Xabier Amuriza**

Hobe lardaxka eta gaiztoa egitea: gerokoa begiraten baita! Torizu **muestra** ttiki bat Inozenteen Amen Dolorearen gañean ateratako Noelarena... **Pello Zabala**

Begira, hara hemen **mostra**: Eguberri argitsu, ogia gero lastotsu. **Pello Zabala**

Hona **mostrarako** bi: Bilboko Eskolapioen kartzelan leihora agertu zelako hil zuen kartzelero batek Juan Antonio Bilbao 1939ko apirilean; Ramon Rumaya, Urduñako abokatu kriminalista, makilakadaka hil zuten Larrinagako kartzelan. **Jokin Urain**

## 2 (hitz elkartuetan)

Indar handiko hiri honetan denak, erakusketek, arte **mostrek**, zinemaldiek ez dute, ezin izan, parekorik bere karrketan gertatzen direnekin. **Berria - Kultura**

## mostradore *(158 agerraldi, 42 liburu eta 2 artikulutan) 1 iz erakusmahai, salmahai.*

Ataria beltza zen, eta ardoz eta likorez betetako **mostradore** bat eta armairu bat zeuzkan; alde batean taberna zegoen, pinuzko zizeilu luzeekin, eta barrualdean sukalea.

**Koro Navarro**

Mahai zaharren hankak kolokan, **mostradore** altua, eta haren atzean neskazahar erdi herren begi-okar bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Iritsi da **mostradoretzat** erabiltzen duten oholtzara. **Anjel Lertxundi**

Hor atzemanen nituen noski, beren hobietatik jaikitako hil bizidunak, oro koipe eta lizun, biharamunean itzultzeko prest **mostradorearen** karantza patetikoa areagotzera.

**Aingeru Epaltza**

"El Ángel" tabernako **mostradorean**. **Aritz Gorrotxategi**

Parisko bistrot tristeak, beren zinkeko **mostradoreekin**. **Berria - Kultura**

**Mostradorean** gelditzen ziren hiru garagardoak hartu nituen. **Bernardo Atxaga**

**Mostradorean** hartuko dut kopatxoa, Ferminekin erdi bana, berak kafeak ateratzen dituen bitartean. **Pako Aristi**

Dirua **mostradorean** utzi eta kafetegitik alde egiten nuen presaka. **Bernardo Atxaga**

**Mostradorera** itzuli eta tragoa egin nion kafeari. **Anjel Lertxundi**

Une horixe hautatu nuen, azpiko arroparen **mostradoreen** gibeletik ateratzeko. **Aingeru Epaltza**

Sukaldeko telefonoa **mostradorean** zegoen, bazter batean, ogi erregailuaren atzean. **Koro Navarro**

**Mostradoretik** atera eta eskutik heldu diot kanpora ateratzeko. **Pako Aristi**

**Mostradore** baten atzean ezkutatua. **Unai Iturriaga**

Hiru bezerok ia guztiz betetzen zuten **mostradore** aurreko espazio urria. **Josu Landa**

-Horrek erantzungo dik, **mostradore** atzeko horrek. **Pako Aristi**

Nik beti edukitzen diat egur puska hau **mostradore** azpian... **Koldo Izagirre**

Hurrena **mostradore** ingurura bueltatu duk. **Pedro Alberdi**

Istillaga, egunero ohi bezala, **mostradore** ertz-ertzean, hanka bat eskuinaldera eta bestea ezkerrera zabaldurik eseri zen. **Pako Aristi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mostradore atzean** (5); **mostradore atzeko** (4); **mostradore gainean** (13); **mostradore gainean utzi** (4)

**mostradorean utzi** (4)

**mostradorearen atzean** (4)

**mostradorera joan** (4)

## mostratxa *iz garbitzeko espertzua.*

Platerok bi aldiz **mostratxa** txiki batez igurtzi, uretan sartu, xaboa kendu eta xukaderan utzi, mutil judu sudur luzeak lehortu ditzan. **Iñaki Mendiguren**

## mostratxo *iz mostra txikia.*

Tori **mostratarako** bat: "Adi zeru goian kurrilloen kurruxkari: goldea sartzeko garaia duzu, euria laster dator. **Pello Zabala**

## mostrazio *iz erakusgarria.*

Baina hori printzipio horren berorren **mostrazioa** besterik ez da; jardute (bizitza) arrazionalaren (filosofiaren) forma daukan **mostrazioa**. **Piarres Xarriton**

Horretaz ulertu beharko dugu ez abstraktuki kontzepturiko errepresentazio unibertsala determinazio enpirikoetatik, baizik eta kontzeptualizaturikoaren sorrera eta

**mostrazioa**. **Piarres Xarriton**

## MOSU ik **musu**.

## mota *1 iz* izen beraren bidez izendatzen diren gauza edo izakien artean, ezaugarri jakinen arabera mugatzen diren azpimultzoetako bakoitza.

Eman bitza lurak **mota** guztietako bizidunak: abereak, narrastiak eta piztiak. **Jose Antonio Mujika**

Italiano airekoak Saboya 79 **motakoak** ziren, 1 000 kilo bonba garraiatzeko eginak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Oraingoan, *earl grey* **motakoa** aukeratu zuen. **Jon Muñoz**

**Mota** bereko erantzunaren forma nabariena indarrari indarrez erantzutea da. **Iñaki Mendiguren**

**Mota** askotakoak izan dira, ordea, liberalak. **Bernardo Atxaga**

Aristotelesek, berriz, artea bera aztertu zuen, batik bat hiru **mota**: tragedia, komedia eta poesia epikoa. **Askoren artean**

Barne-kolonizazioaren **mota** bat, estatu unibertsal baten historiaren azken fasean nagusitu ohi dena, nekazari barbaroak jartzea izaten da. **Iñaki Mendiguren**

Baina hori eszeptizismo moderatuaren **mota** bat besterik ez da. **Askoren artean**

Zoologiako **mota** bati buruz hitz egingo bagenu bezala hitz egiten dugu *P*-az; zoologian arrak eta emeak daude, baina ez dago espeziearen tipo idealik. **Isabel Arrigain**

Egia esan, ez dakit bekatzat hartu behar ote ditugun **mota** honetako erroreak. **Imanol Unzuurrungaga**

Bi **mota** bereiz daitezke: aktiboa eta pasiboa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Oro har, bi krudeltasun **mota** bereizten ditugu: bata ergelkeriatik sortzen da, arrazoitik edo gogoetatik beharrean, eta anker jaiotako gizakia basapiztiaren pareko bihurtzen du; krudeltasun **mota** honek ez du inolako atsegirik sortzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 2 (izenondoekin)

Hala nola gertatzen den su artifizialekiko ziriekin, zenbait mahainguru piztu egiten dira erabat itzaliak ematen dutenean, eta, itxura guztien arabera, gurea **mota** zoragarri horretakoa zen. Bernardo Atxaga

Gure gogoetak ez dira geu baino **mota** ugariagotakoak. Josu Zabaleta

Kontakizunak ere **mota** desberdinetakoak dira, liburuaren egileak guztiak Danieli egotzi badizkio ere. Jose Antonio Mujika

Musika zen, antigoaleko marinba baten durundia, harmoniarik gabeko mailukaldi gisako musika-**mota** izugarri bat, erabat epileptikoa. Joxe Austin Arrieta

Baina bazen berarengan bortiztasun moduren bat ere, idealismo **mota** ezohiko bat, gainerako guztiok munduko tentazioen aurrean hain ahul egiten gintuzten hanpuruskeriei eta deserei uko eginarazten ziona. Oskar Arana

Trukatzen diren osagaiak zeintzuk diren, permutazio **mota** ezberdinak aurkituko ditugu. Iñaki Arranz

Liburuetako geografia **mota** diferenteak aipatu zituen. Xabier Mendiguren Elizegi

Bioleta horiak eta zitiori-**mota** arraroak. Mirentxu Larrañaga

Eta horixe ari zaio gertatzen "Euskara Batuaren" deiturapean hedatu zen hizkera **mota** jakin bati. Koldo Zuazo

Munstroak, gorpuz nazkagarriak, piztia **mota** beldurgarri guztiak. Josu Zabaleta

Italian adibidez, "Populuaren Alderdia" gudukatu zen "Faxismoa" deitu nazionalismo **mota** berezi baten aurka. Piarres Xarriton

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Idazle aipatu baten hitzetan, eraberekotasuna bikaintasun **mota** da, izpiritu handiek noizbehinka antzeman eta txikiak, hutsik egin gabe, jipoitu egiten dituen. Andres Urrutia

Aktualitatea gaixotasun **mota** da; berezia, denboraz larritzen baita, hiritan bereziki. Patziku Perurena

Ezen, Maitasuna, Poztasun **mota bat** da, gizakia ahal bezainbat atxikitzera bermatzen dena. Piarres Xarriton

Bere morala, beharbada, fenomenologia-**mota bat** da, edo antropologia antzeko gauza bat. Askoren artean

Korrika egin behar horrek gaixotasun **mota** bat izan behar du, neurosi bat. Joxean Agirre

Gorrotoa ere heriotza **mota** bat da. Patxi Zubizarreta

Alde batera, hala ikusi nahi bada, ernamui horiek berpizkunde-**mota** bat dira. Xabier Mendiguren Elizegi

Bada, ni, nahiko pastelzalea naiz... pastel-**mota** batzuen zalea. Mirentxu Larrañaga

Konbustioa nahiko prozesu kimiko konplikatua da, eta ez da nahastu behar erretze **mota** landugabeagoekin. Irene Aldasoro

Ezin erran oraino zer kanbiamendu **mota** eta norainokoa. Michel Oronoz

Horixe da niri interesatzen zaidan literatura **mota**. Koro Navarro

Platonek zioenez, lau eromen **mota** zagok. Fernando Morillo

Bereizketa erabatekoa da hemen zuriak eta beltzek egiten duten poesia **moten** artekoa. Harkaitz Cano

Berehala ohartuko gara unibertsitate eredu eta **mota** asko dagoela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Auzoan denok dakigu nork zer zaunka **mota** egiten duen. Koldo Izagirre

Hor bost pilota joko **mota** dira praktikatu behar, bata bestearen ondotik kontrario berarekin buruan buru. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gero, irudi lerrozuzen **mota** guztiak. Jon Muñoz

Zer kexa-**mota** baina? Oskar Arana

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

**abere mota** (6); **animalia mota** (9); **antzerki mota** (10); **arazo mota** (7); **arrain mota** (16); **arrantza mota** (10); **arrazoinamendu mota** (8); **arte mota** (13); **arto mota** (7); **atributu mota** (5); **azterketa mota** (5); **bekatu mota** (7); **bertso mota** (9); **bide mota** (5); **biolentzia mota** (6); **bizi mota** (9); **bizimodu mota** (5); **borroka mota** (11); **dantza mota** (13); **delitu mota** (11); **diskurtso mota** (18); **doinu mota** (6)

**emakume mota** (5); **enuntziatu mota** (5); **erantzun mota** (6); **eraso mota** (9); **eritasun mota** (7); **erregai mota** (5); **estatu mota** (8); **etxe mota** (6); **ezagutza mota** (8); **gai mota** (11); **gaitz mota** (5); **gaixotasun mota** (5); **galdera mota** (8); **garapen mota** (5); **garraio mota** (8); **gauza mota** (8); **gerla mota** (6); **gerra mota** (6); **gizaki mota** (17); **gizarte mota** (17); **gizon mota** (7); **gobernu mota** (9); **harreman mota** (32); **harreman mota bat** (9); **harrotasun mota** (6); **hegazti mota** (5); **heriotza mota** (5); **hiru mota** (9); **hizkera mota** (11); **hizkuntza mota** (8); **hots mota** (5)

**ikasketa mota** (7); **ikerketa mota** (14); **ikerkuntza mota** (6); **indarkeria mota** (39); **indarkeria mota guztiak** (13); **indarkeria mota hori** (5); **informazio mota** (5); **intsektu mota** (5); **irakasle mota** (5); **irudi mota** (20); **izaki mota** (10); **jakintza mota** (7); **janari mota** (8); **jende mota** (52); **joko mota** (21); **kantu mota** (9); **kirol mota** (12); **klonazio mota** (15); **komunikazio mota** (7); **kontratu mota** (18); **kultura mota** (6); **kutsadura mota** (6); **laguntza mota** (21); **lan mota** (39); **landare mota** (15); **lege mota** (12); **lehergai mota** (7); **leherkari mota** (8); **literatura mota** (8); **lotura mota** (6); **lur mota** (5); **maitasun mota** (5); **merkataritza mota** (5); **minbizi mota** (23)

**mota askotako** (30); **mota askotakoak** (13); **mota bera** (16); **mota berak** (6); **mota bereiz** (5); **mota bereizi** (5); **mota bereko** (36); **mota bereko beste** (7); **mota berekoak** (9); **mota berezi** (25); **mota berezi bat** (13); **mota berezia** (5); **mota berri** (45); **mota berri bat** (19); **mota berri baten** (5); **mota berria** (7); **mota berriak** (18); **mota desberdin** (13); **mota desberdinak** (29); **mota desberdinen** (10); **mota desberdinetako** (8); **mota desberdinetan** (6); **mota ezberdin** (8); **mota ezberdinak** (25); **mota ezberdinen** (5); **mota ezberdinetako** (10); **mota ezberdinez** (7); **mota guztietako jendea** (9); **mota jakin** (27); **mota jakin bat** (10); **mota nagusi** (5); **mota sortzen** (5); **mota ugari** (9); **mota zehatz** (6)

**mugimendu mota** (5); **musika mota** (39); **nazionalismo mota** (5)

**ondasun mota** (6); **orgasmo mota** (5); **oroimen mota** (6); **persona mota** (10); **pilota mota** (12); **pintura mota** (7); **polizia mota** (6); **sagar mota** (7); **sintagma mota** (5); **soinu mota** (6); **terrorismo mota** (11); **testu mota** (6); **tortura mota** (13); **tratamendu mota** (5); **tresna mota** (6); **txori mota** (6); **ur mota** (8); **ur mota bat** (5); **zelula mota** (5); **zerbitzu mota** (6); **zerga mota** (5); **zernahi gai mota** (5); **zigor mota** (8); **zuhaitz mota** (5)

**a motako** (8); **a motako bertsoa** (6); **b motako** (17); **bigarren motako** (5); **c motako** (15); **edozein motako** (5); **f motako** (8); **lehen motako** (7); **motako bertsoa** (8); **motako bertsoa egin** (5)

**motaren arabera** (12)

**moten arteko** (5)

## motadun *izond* tantoduna.

Pasatzerakoan, igel **motadunek** salto egin dute ertz eguzkitsutik te koloreko ur geldietara, eta dortoka txiki batek loto loreen artean gorde du bere buru zimurra. Patxi Iturritegi

Bat-batean Hagridek musu-zapia atera zuen, oso zikina eta **motaduna**, eta zintz egin zuen sirena-hotsaz... Iñaki Mendiguren

## motaña *iz adkor* mota.

Gertatzen dena da hartzarekin batean baduela egun hotan aipaldi kakamarlo **motaña** batek! Senpereko alde hortan egitekoa den urtegia ez omen baita egiten ahalko kakamarlo berezi horrek iraun dezan... Herría

## motatxo<sup>1</sup> *iz adkor* mota.

Sardinian eta Mallorca aldean, Balear Uharteotan, txilibitu **motatxo** hau egitean, kanta bat ere badute, [...] txilibitutarako axala, etenik gabe, ziritik askatu nahi dutenerako Pello Zabala

## motatxo<sup>2</sup> iz adkor izpitxo.

Gero, zenbateko kutsadura eta zikindura dagoen ere kontuan hartu behar da: adibidez, keak dituen **motatxo** ttiki horien tupustean desbideratzen dira asko. **Pello Zabala**  
Hauts- **motatxoak** . **Pello Zabala**

## mote<sup>1</sup> iz lorearen pinporta; lorea.

Kanturako garairik aproposena negua bide zen, eta neguan otearen **mote** edo lore horia soilik inguruan nabarmen, eta juxtu hartxek poztu eta para du txoria gainean kantari.  
**Patziku Perurena**

## mote<sup>2</sup> ik motel<sup>2</sup>.

## moteil ik motel<sup>2</sup>.

## motel<sup>1</sup> 1 izond bizitasuna edo indarra falta zaiona.

Atea zabaldu duenean eguzki **motel** batek bete du ezkaratza eta zoruan bi itzal proiektatu dira. **Pello Lizarralde**  
Argi **motel** hura Baby Suggsen gelakoa zen. **Anton Garikano**  
Ganbera desegiten ari zen kolore **motelen** zurrumbiloan. **Iñaki Mendiguren**  
Kostatu zitzaidan sumatzen espero nuena: ate joka **motela**. **Juan Garzia**  
Hasieran kar-kar **motel** bat eta gero handiagoa, gero eta ozenago, harik eta Kitok sakelatik eskuzapia atera eta begiak lehortu zituen arte. **Anton Garikano**  
Oihartzunak desagertu zirenean, hots **motel** batzuk aditu zituen. **Migel Angel Mintegi**  
Damiánek alemaniar deitzen den doinu **motel** eta bigunari ekin zion, poliki-poliki. **Felipe Juaristi**  
Txalupari biek zutik egiten zuten arraun, gibeletik aitzinerat, erramu banarekin, mugimendu **motel**, single eta dotorez. **Koldo Izagirre**  
Pilota **motel** batekin. **Herria**  
Kafe aleak kontuz txigortu behar dira, su **motelean**, erre barik. **Javi Cillero**  
Aldizka bizia eta aldizka **motela** zen Usherren jokamoldea. **Koro Navarro**  
Autobusak pauso **motelean** jarraitu du; berehala bete da jendez, berokiz eta euritako. **Urtzi Urrutikoeetxea**  
Pauso **motelez** zihotan, sortaren zamapean. **Imanol Zurutuza**  
Euskara **motel** horren errua euskara batuak izango balu bezala edo. **Pello Salaburu**  
Frantses **motel** hartan zuzendu zitzaidan mutilaren ahotsa lasaigarria eta atsegina egin zitzaidan. **Patxi Zubizarreta**  
Halako harridura **motel** batez hori pentsatu, eta gero, berehala, zorabioan babestu zen. **Juan Garzia**  
Nire aurrean, nolabaiteko nagitasunez paratua, ideia handi eta **motel** bat zegoen. **Monika Etxebarria**  
Banekien nik berarengan ikusten nuena ikusten zuela berak niregan ere: haragiaren zimeltze **motela**. **Koro Navarro**  
Ez zaitez ausarta izan adierazpenetan, ez eta nagi eta **motel** ere egintzetan. **Elizen arteko biblia**  
Lasterra ala **motela**? **Irene Aldasoro**

## 2 (pertsonez)

"**Motel** samarra dun", pentsatu zuen andereñoak. **Anton Garikano**  
Ez du ezer idazten ezjakina delako; gutxi hitz egiten du ergela delako; egin, ezer gutxi egiten du, **motel** hutsa delako. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Betidanik **motela** izaki erabakiak hartzeko. **Aingeru Epaltza**  
Emakumeak **motelak** dira erabiltzen den estimulua egokia ez denean. **Luis Elberdin**  
Zelako diferentzia, antzinako gris ipurdi-handi **motel** haien eta zipaio kankarro hauen artean! **Iban Zaldúa**  
· Hark, hariaren beste puntan, **motel** aire batekin beti gauza bera errepikatzen zuen: "Aaa bon, aaa bon, aaa bon..." **Daniel Landart**

## 3 (adizlagun gisa) ik motelki.

Goiza **motel** doa. **Pako Aristi**  
**Motel** jaitsi zuten eskailera luzea. **Agustín Otsoa**  
Erdialdeko Ameriketan ere hainbat herrialde oso-oso **motel** ari dira aurrera. **Berria - Gaiak**  
Bushek aitortu du 'Katrina'-ren aurrean **motel** erantzun duela. **Berria - Harian**  
UPN eta CDNren Gobernuaren «nagusikeriaren» aurrean, oposizioak «**motel**» jokatzeko duela kritikatu zuen Armendarizek. **Berria - Euskal Herria**  
Baina hitzak **motel** eta hotz entzun ziren. **Jose Morales**  
Urruñar anaiak arras **motel** hasirik, 25-5 ziren 25 minutaren buruan. **Herria**  
Begiak zabal-zabalik, baina begiradarik ez, intziri soil bat, egarri zela xuxurlari, ahots erabat erlatsez, pultsua ere oso **motel**, oka egin zuen, eta izerdia eman ere eman ahala.  
**Joxe Austin Arrieta**  
Sartu ziren berriz bidean, bareak bezain **motel** jarraitu zuten ibiltzen, eta txikiagotu ziren. **Koro Navarro**  
Gizarteak oso makineria astuna du, eta oso **motel** mugitzen da, baina arau zurrinak ari dira desagertzen. **Luis Elberdin**  
· Aurrera jarraitu nuen hartxintzar-galipotezko errepide hartan barrena, lehenik urrats arinka, gero **motelago**, gero eta **motelago**. **Joxe Austin Arrieta**  
Edek **motel-motel** lerratzen zion eskua Morse andreari, bizkarretik eta sorbaldetan behera. **Mirentxu Larrañaga**  
Nire hobe beharrez hartzen ditut, egunean hiru aldiz, kirio guztiak **motel-motel** uzten dizkidaten pilulak. **Anjel Lertxundi**

## 4 totela.

Mintzatzen **motela** banaiz ere, ez jakintzan, beti eta era guztiatara agertu dizuedan bezala. *ik beherago* 6. **Elizen arteko biblia**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pertsona adinduen arteko sexuak izan ditzake bere ahalke-uneak eta **motel**-une barregarriak, baina izaten du orobat samurtasun bat gazteei sarri itzuri ohi zaiena. **Oskar Arana**  
· Indartsu hasi bazen ere, **motel** antzean sumatzen dut aspaldion Txalaparta argitaletxeko *Literatura* saila. *ik beherago* 7. **Berria - Kultura**  
Hiru pilota ezberdin aukeratu zituzten hauek, bizia bata, bote handikoa bigarrena, eta **motel** antzekoa bestea. **Berria - Kirola**

## 6 hitz-motel ik hitz 43.

## 7 motel-antz (corpusean motelantz soilik) izond ik gorago 5.

Handik egun batzuetara, lizarrostoa idortuzetzen zenean, eta eguraldi **motelantza** izan, nik behetik eman ahalean aitak pilotzen zituen lizar zatukak bordako gaindegian.  
**Patziku Perurena**



**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahots motel** (4); **argi motel** (5); **argitasun motel** (3); **frango motel** (3); **motel antzekoa** (3); **motel ari** (3); **motel aritu** (4); **motel aritu zen** (3); **motel doa** (7); **motel doazela** (3); **motel ibili** (4); **motel ibili zen** (3); **motel joan** (5); **motel joan zen** (3); **motel motel** (6); **motel samar** (4); **motel samarra** (5); **mugimendu motel** (5); **nahiko motel** (4); **oso motel** (23); **oso motel doazela** (3)

**argi motela** (7); **argitasun motela** (4); **euri motela** (3); **hitz motela** (7); **hots motela** (3); **motela iruditzen** (3); **motela izan** (12); **motela izan zen** (4); **motela izaten** (3); **motela zen** (8); **nahiko motela** (3); **oso motela** (10); **oso motela da** (3); **pilota motela** (3); **prozesu motela** (3)

**gero eta motelago** (4); **motelago hazi** (5); **motelago joan** (4)

**afektua biziki motelagoa** (3); **askoz ere motelagoa** (3); **biziki motelagoa** (3); **gero eta motelagoa** (3); **motelagoa izan** (4); **motelagoa izango** (7)

**gero eta motelagoak** (3); **pilota motelagoak** (6); **pilota motelagoak aukeratu** (3)

**argi motelak** (7); **begi motelak** (4); **emakumeak motelak** (3); **motelak dira** (6); **motelak izaten** (3); **motelak izaten dira** (3); **motelak ziren** (4); **oso motelak** (8); **oso motelak izaten** (3)

**su motelean** (7)

**pilotak motelegiak** (3)

**argi moteletan** (4)

**ahots motelez** (5); **pauso motelez** (10)

**motel**<sup>2</sup> (*orobat **mote** g.er., **moteil** g.er., **motell** g.er.,*) **1** iz gizonetzko bati ezartzen zaion deikia.

-Esna hadi, **motel**! -erregutu zidan anaiak. Txillardeggi

Aizak, **motel**... nola duk izena hik? Lopez de Arana

Hik ez **motel**, harunzko hark! Pako Aristi

-Ez, **motel**. Txillardeggi

-Asko sentitzen diat, **motel**. Irene Aldasoro

-Portatu haiz, **motel**; honekin kito eskolarekikoak! Urtzi Urrutikoeetxea

Baina gero, **motel**, zerbeza edaten dudan bakoitzean pixa edaten ari naizela iruditzen zaidak. Pako Aristi

-Hementxe, zerbait idatzi nahian, **motel**! -erantzun zidan galdera gutxietsiz bezala. Pako Aristi

-Oraintxe egin duk ederra, **motel**, zer eta poliziarengana joateko esan Llumi. Antton Olano

Orain ez zagok munduan ibiltzerik, **motel**! Bederatzi urte joan dituk geroztik, **motel**...! Pablo Sastre

Besteak bezala! **motel**, **motel**... Pablo Sastre

**2 pl**

**Motelak**, hori ez zegok batere gaizki! Luis Elberdin

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bai motel** (5); **baina motel** (6); **ez motel** (5)

**motel**<sup>3</sup> iz errepidetik gertu dagoen hotela, bakoitzak bere sarrera duen apartamentu aparkalekudunez osatua.

Harantzago, solairu biko **motel** bat zegoen, gasolindegi baten alboan. Xabier Montoia

Komando kideak, halaber, hiri arrotz bateko **motel** merke batean gerizatu ziren. Itxaro Borda

Skarduko K2 **Motel**-eko nire gelan ari naiz idazten. Xabier Montoia

Plastikozko zorroa hartu eta **motelari** buruz jo zuten zaluki. Xabier Montoia

Esango dugu, "gogoratzen **motel** hura, igerilekuan zikinkeria hura guztia zegoena?" -esaten dut-, ulertzen al duzu esaten ari naizena, Holly? Koro Navarro

Gaueko hamaikak ziren, eta **motelera** gentozen erretiran hirurok motel-motel. Joxerra Garzia

**motelagotu**, motelago(tu), motelagotzen da/du *ad* motelago bihurtu.

Gaztea ohartu zen Kirxak urratsa **motelagotu** zuela, bera ere horretara gonbidatu nahi balu bezala. Patxi Zubizarreta

Bolumena jaitsi zuen irratan, aurrealdeko saretxo biribilean hedatzen ziren zitzu eta burrunba etenak apur bat **motelagotzearren**, eta diskogailuko musika goratu. Josu Landa

Gau eta egun aritzen zela bere senarra hain maite zuen, baina hala ere egunetik egunera **motelagotzen** eta ahultzen zen hura margotzen. Koro Navarro

Ikusmena gero eta **motelagotzen** ari zitzaion, baina ez zen gehiago kexatu. Xabier Olarra

**motelaldi** iz moteltasuneko aldia.

Erregelaren testua denek edukitzea nahi zuen, denek ongi ezagutzea eta buru-bihotzetan hausnartzea, **motelaldietan** suspergarri eta profesan hitzemandakoaren oroigarri bezala. Askoren artean

Aldakor baita "gogo" hori, eta badu maiz **motelaldi** eta atzerapenik, hainbat nola munduan mihirik, eskurik, ezbeharririk. Juan Garzia

**Motelaldi** ekonomikoan arrazoi gehiagok eragiten dutela diote adituek. Berria - Ekonomia

Euroguneko ekonomiaren **motelaldiak**. Berria - Ekonomia

Lan merkatuaren gora-beherak eta **motelaldiak** gehien nozitzen dituztenak. Berria - Ekonomia

Petrolioaren garestitzeak 2000 eta 2001. urteetako **motelaldian** eragin zuela. Berria - Ekonomia

**motelantz** ik **motel**<sup>1</sup> 7.

**moteldu**, motel(du), moteltzen **1** da/du *ad* motel edo motelago bihurtu.

Hurbilagotu ahala, **moteldu** egin zitzaion urratsa. Jon Muñoz

Gero, gidariak erdiko karrilera eraman du autoa abiadura **motelduz**. Patxi Iturritegi

Gaiaren zailtasunak **moteldu** egiten du irakurketaren erritmoa. Askoren artean

Amaren masailetakoloak **moteldurik** daude. Eider Rodriguez

Izarren distira **moteldu** egiten zuen ilargiaren zuriak. Xabier Aranburu

Honen agindura suak bere beroa **moteltzen** du, urak zaporea aldatzen. Askoren artean

-Kartzelatik dator -esan zien azkenerako, ahotsa izugarri **motelduz**. Karlos Zabala

Kanpaitxo baten hotsa belarriratu zitzaidan, urrunak **motelduta** . Alberto Ladron Arana

Ikusmena **moteltzen** ari zitzaiola eta, kexatzen hasi zen. Xabier Olarra

Gure oroimena gizon ezjakina da, denboraren poderioz **moteldua** . Askoren artean

Sindromea **moteltzen** diote, dudarik gabe, baina "bera" ere **moteltzen** dute, eta orduan ez da osorik bera sentitzen. Xabier Olarra

**Moteldua** eta ahuldua dugu gure hizkuntza. Pello Salaburu

Elkarrizketa haiek **moteldua** nuen erabakia berpiztu zidaten. Xabier Kintana

Atzeraldian ekonomia jarduera **moteldu** egiten da: kontsumoa murriztu egiten da eta enpresetan biltegiak saldu ezin daitezkeen salgaiz betetzen dira. Iñaki Heras

Euskal herriko ekonomiaren hazkundera ez zen bizkitartean hainbat **moteldu** , ez ahuldu, anitz garatu baizik. Piarres Xarriton

Kyotoko Protokoloak Lurraren berotzea saihesteko ezarritako neurriek beren ekonomien hazkuntza **motel** dezaketelakoan. Berria - Gaiak

Bai **moteldua** nuela burua egun hartan. Aingeru Epaltza

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Han Grabbe eta Goyle itxita utzitako armairutik irteten ziren kolpe **motelduak** entzuten ziren. Iñaki Mendiguren

Egun-argia bera ere argitsuegi zitzaion, distiratsuegi; argi **motelduagoetan** hobeto ikusten zuela ohartzen zen. Xabier Olarra

Errauts arteko su **moteldua** suspertu du gero ezpal batzuen laguntzaz. Anjel Lertxundi

## 3 motelduxe

Ez hain zuzen hitz beretsuak erraten ez zituelako; egoerak eta aldarreak hala beharurik: baina haren behakoa, dagoeneko **motelduxea** , ferekatzaileagoa zen; mintza doinua eztiagoa Jon Muñoz

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**abiada moteldu** (10); **abiada moteldu zuen** (5); **abiadura moteldu** (5); **apur bat moteldu** (4); **asko moteldu** (3); **ekonomia moteldu** (3); **hazkundera moteldu** (5); **hazkuntza moteldu** (5); **jarduera moteldu** (4); **moteldu da** (9); **moteldu du** (3); **moteldu dute** (3); **moteldu gabe** (4); **moteldu zen** (5); **moteldu zuen** (12); **nabarmen moteldu** (3); **prozesua moteldu** (3); **suspertzea moteldu** (3)

**abiadura motelduz** (5); **motelduz joan** (4)

**abiadura moteltzea** (4)

**abiadura moteltzeko** (3); **moteltzeko neurriak** (5)

**abiadura moteltzen** (3); **moteltzen du** (4); **moteltzen dute** (5); **moteltzen hasi** (3); **moteltzen zuen** (3); **prozesua moteltzen** (3)

## motelgailu 1 iz kolpeak eta kidekoak moteltzeko gailua. ikleungailu.

Bi malguki eta hiru **motelgailu** darabiltza aurrean eta atzean, tortsio barra bertikalekin. Berria - Kirola

Disko hori ornoarteko diskoa da, golf-pilota zabal baten itxurako egitura bat, ornoen eta bizkarrezurraren arteko **motelgailu** gisa funtzionatzen duena. - Gorputzaren barruko egituren eta kanpoko ingurunearen arteko kolpe-**motelgailua** den aldetik, ezaugarri praktikoa asko ditu larruazalak. *ik beherago* 4. Irene Aldasoro

## 2 (ibilgailuetan)

Autoentzako **motelgailuak** egiten dituen Al-Ko Record Abadiñoako enpresak jaso zuen Ohorezko Makila. Berria - Ekonomia

Ibilgailu gurpildunek **motelgailua** behar baitute autobideetan ere. Irene Aldasoro

Autoko **motelgailuen** protestei entzungor, hondoraino zapaldu nuen azeleragailua. Alberto Ladron Arana

Maitale onak badaki, behar bezalako hartu-emanean, aski dela zakila sartu eta mugimendu leun-leunez, mugimendu ia sumaezinez, atzera eta aurrera ibiltzea, kasik Rolls-Royce baten **motelgailua** bezala. Karlos Zabala

Segurtasuna handiagotu nahian, gurpil abatzen **motelgailuak** lastoz bete zituzten, bai gurpilak sendotzeko, bai danbatekoak leuntzeko. Karlos Zabala

## 3 irud/hed

Ekialdeko atzeritarra ez da europarraren eta bertakoaren arteko **motelgailua** bakarrik, baita bertakoaren eta mundu modernoaren arteko hesia ere. Iñaki Mendiguren

Errusia, bizirik irauteko borrokan, beraren babespean eroso zegoen Mendebaldeko munduaren alde paper hau jokatzen aurki zitekeen nahigabe ere: indargetzaile edo **motelgailuarena** egiteko zerbitzu sarigabea, Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusiak garai batean Mendebaldeko mundu berarentzat jokatua, [...]. Iñaki Mendiguren

## 4 kolpe motelgailu

Zangoaren luzera eta makurdura lurrera egokitu ahal izateak kolpe-**motelgailuaren** beharra saihesten du, ibilgailu gurpildunetan ez bezala. Irene Aldasoro

## motelgarri iz moteltzen duena. ik moteltzaile.

Zaharra berri: babes sozialak gizabanakoentzat **motelgarriak** dira, jokabide estrategikoak sustatzen dituzte, eta abar, eta abar. Iñaki Heras

Egun ezin hobea norberaren baitara biltzeko: eguzkiak, errukirik gabeko epai baten moduan, izakiengan proiektatzen dituen argitasun hotz horiek begietatik sartzen dira nigana; argi **motelgarri** batek argitzen nau barnealdean. Monika Etxebarria

## motelki adlag moteltasunez. ik motel<sup>1</sup> 3; motelkiro.

Bonbillatxo elektriko bakar batek **motelki** argizatzen zuen zurezko etxolatzarra. Juan Garzia

-Aitatz Peio? -galdetu zion **motelki** Ninak. Ramuntxo Etxebarri

Lehen zatian, gudukada aski **motelki** joan balin bada, gero haatik kintze ederrak ikusi dira, Xalاک duelarik garaipena altxatu ondarrean. Herria

Argi gorriak bortizki estimulatzen ditu gorrirako sentiberak diren zuntzak, eta **motelkiago**, berriz, beste biak, eta hala ematen du gorri "sentsazioa". Xabier Olarra

Joseba eta Gregory, buruak zenbaitetan bularretarantz erortzen zitzaizkiela, **motelki** mintzatzen ziren, mihi loditua ezpainetan igurzten zuten eta korrokada egitean soin osoak dar-dar egiten zien. Iñaki Zabaleta

## motelkiro adlag motelki, motel.

Mahaietan eseririk, alkandora urdin iluna eta jaka ajatuzko behargin zahar batzuk **motelkiro** mintzatzen ziren, basokada bana ardoren aurrean. Pedro Alberdi

## motell ik motel<sup>2</sup>.

## motelontzi izond adkor motela.

Artean egin gabe zegoen "Poeta Hilan Kluba" delako filma, baina gu ere halako dohain batek igurtzirik sentitzen ginela esan liteke, inguruko **motelontzi** bertangoxoan gainetik bageunde bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

motelsko ik **motelxko**.

## moteltasun 1 *iz* motela denaren nolakotasuna.

Burokraziaren **moteltasuna** . **Pako Aristi**

Zerbitzu publikoen ohiko **moteltasunaren** kontrako kritikatzat. **Bego Montorio**

Ernetasun eza, zozotzea eta gogamenaren **moteltasuna** . **Xabier Olarra**

Zinez, uste dut halako zerbaiten premia nuela: akabo tristura, malenkonía eta **moteltasuna** ; ongi etorri trufa, bizitasuna eta abiada. azkartasuna gure gizartearen ezaugarrietako bat da eta estuki lotua dago ahanzturari; **moteltasuna** , ostera, astiro ibiltzea da eta oroimenari uztartzen zaio. **Patxi Zubizarreta**

Organojole zaharraren ondoan koruraino abiatzea **moteltasunaren** denboran murgiltzea zen erabat. **Pako Aristi**

Gure ezagupenak aurreratzen ari dira; pazientzia galarazteko moduko **moteltasunez** , baina. **Xabier Olarra**

## 2 (hitz elkartuetan)

Edota buru-**moteltasunaren** eta belarrien formaren artean dela erlazioa, eta horrek azkenean belarrien arrazakeria batera garamatzala. **Juan Garzia**

Berba eteten duten egoerak: beste norbaiten hitzak, negarra, barrea, zotina, hitz-**moteltasuna** ...: [...]. **Iñaki Arranz**

## moteltxo *adlag adkor* motel.

Ez dakit Rakelen egunerokoak zer esango duen, Dabid, baina **moteltxo** ikusten dut, bai bere buruarekin bai apaizgaiarekin. **Patxi Zubizarreta**

## moteltzaile *iz* moteltzen duena. ik **motelgarri**.

Horregatik eskatzen dute, urtero-urtero, errepideetan abiadura **moteltzaileak** ezar ditzaten. **Berria - Euskal Herria**

## moteltze 1 *iz* motel edo motelago bihurtzea.

Arin eta alai egiten zuen burrunba [eiherak], soinu bete-bete eta jarraitu batez, pala-eihera batean mantenu txarra edo osasun txarra salatzen duen trabatu eta **moteltze** erritmiko hori gabe. **Juan Garzia**

Dagoeneko betiko arazoetara bueltatu gara: atzeraldia, **moteltzea** , finantza merkatuen goibelaldi orokorra, langabeziaren areagotzea, inflazioa, eta abar eta abar. **Iñaki Heras**

Hura ez zen izan, XIV. mende izugarrian bezala, kontinente osoaren beheraldía; areago izan zen hazkundearen **moteltzea** , eskualdeen arabera gorabehera bereziak izan zituen. **Koro Navarro**

Jardueraren **moteltzea** , energia aurrezteko programak, petrolioaren ordez energia nuklearra, ikatza eta gas naturala erabiltzea, Bilakaera hori, nazioarteko zuzeneko inbertsioen areagotzearen ondorio baino areago, nazioarteko merkataritzaren **moteltzearen** emaitza izan zen. **Koro Navarro**

## 2 (hitz elkartuetan)

Euskalgintzaren egoerari buruz hitz egitean, **moteltze** egoeran dagoela esateko datu objektiboak badirela. **Berria - Euskal Herria**

Hizkuntz normalizazioaren prozesua **moteltze** fasean dagoela eta horrek kezka handia eragiten ziela. **Berria - Kultura**

## motelxeago (*orobat motelxago*) *adlag* apur bat motelago.

gurdiak hiru lerroetan zihozzen, azkarrena zaldiek tiraturik; beste **motelxeago** bat, kolore anitzeko estalki txukunekin apaindutakoa, idiek tiratua. **Agustin Otsoa**

Bazkal ondoan, aratsaldeko 4.30etarik goiti berriz ere hor ginituen zortzi bertsulariak, goizean baino **motelxago** haatik. **Herria**

Beti bezala, beste zelai gehienetan baino giro beroagoa izaten dugu Sadarren, sasoi honetan zerbait **motelxeago** egon daitezkeen arren. **Berria - Kirola**

## motelxko (*corpusean motelsko soilik*) *izond* motel samarra.

Oso hegaldi lasaia, zinez: mendi-haize **motelsko** bat besterik ez dabil, gaztetandik aski ezagunak zaizkidan baina estreinak aldiz orain hegaldatzen ari naizen Alpeon gainetik. **Joxe Austin Arrieta**

## motero *iz* *adkor* motozalea.

Halaxe geratuko zen **moteroaren** izana Juliaren memorian, etxeko hormak ere orbaintzen zituen zauria. **Jasone Osoro**

## motibagarri *izond* motibatzen duena. ik **motibatzaile**.

Sariak animagarri eta **motibagarri** direlako. **Berria - Kirola**

Gure ustez, **motibagarria** izan liteke ikaslearentzat emaitza onak izanez gero patrika gutxiago ukituko zaiola esatea. **Berria - Euskal Herria**

Lanaren edo ikasleen aurrean jarrera irekiagoa, gertuagokoa eta **motibagarriagoa** izango du umorea darabilen irakasleak. **Berria - Euskal Herria**

## motibapen *iz* *ipar* motibazioa.

Ohartzen gira halere urtean zehar egin lanaren ondorioak gero ta hobeto agertzen ari direla eta maila orokorki goiti doala hori beren erakasleri esker lehenik bainan gaztetxo hoin segida eta **motibapenari** esker. **Herria**

## 2 **motibapen gutun**

Interesatuak direnek, idatz dezatela 2001 eko agorrilaren 21 a aintzin Seaskara **motibapen** gutun bat CV bat igorritz (ez ahantz telefono zenbaki baten azaltzea). **Herria**

Igorri CV eta **motibapen** gutuna Uda Lekurat. **Herria**

CV eta **motibapen** gutun bat bidali, agorrilaren 13rako ondoko helbiderat. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**motibapen gutun** (35); **motibapen gutun bat** (33); **motibapen gutuna** (9).

# motibatu izond

**Motibatiboa** *-t(z)eagatik* zein *-t(z)earren* onartu zen: *ikusteagatik* zein *ikustearren* biak dira Batua. **Koldo Zuazo**

## motibatu, motiba, motibatzen 1 du *ad* norbaiti zerbaitearako interesa piztu edo sentiarazi.

-Bi minutuko kontua, txinbo -esan zuen Gorkak, laguna **motibatu** nahian. **Patxi Iturritegi**

Bazekien ikasleak nola **motibatu**, eta, baten bat kenduta, klaseko gehienok arrazoi gehiago genuen Txikierridirekin pozik egoteko, kontrakorako baino. **Anjel Lertxundi**

Ikasleak berez daude **motibatuta** eskola kontuetan, bai-baitakite beren etorkizuna jokatzeko ari direla. **Joxerra Garzia**

Jokalariki behar bezala **motibatzea** izango da gauzarik zailena Javier Aguirrerentzat. **Berria - Kirola**

Saikapenak berak **motibatzen** gaitu. **Berria - Kirola**

Azkenean, emaitzak, gehienbat, hautesleak **motibatze**ko gaitasunaren arabera izan dira. **Berria - Euskal Herria**

Bizikletaz hiru egun beharko nituzke honezkerok ondo ezagutzen dudana bidea egiteko eta horrek ez nau batere **motibatzen**; nahiago dut lehenbailehen sartu Iranen. **Jon Arretxe**

Baldintzak: euskaraduna, erreportaiak egiteko **motibatua**, talde animazioarako gaitasuna. **Herria**

Fundamentalismo islamikoa, Al Qaeda tartean, Bushen gobernuak onartzen duen baino askoz hobetoago dago militarri zein politikoki antolatuturik eta **motibatuturik**. **Berria - Mundua**

## 2 motiboduna izan.

Garbi dago ordezkatzeko konbentzionalitate gehienak historikoki fonetikak **motibatuturiko** ordezkatzeeetatik datozela. **Lourdes Oñederra**

Hizkuntza baten barnean, haren bilakeraren higadura, etengabeko higadura gisa uler daiteke, **motibatua** denetik arbitrarioa deneraino, eta arbitrarioa denetik **motibatua** deneraino. **Isabel Arrigain**

Halako atzera-pausoak, oharkabez bada ere, **motibatutzat** jotzekoak ziren: "oinarri funtzionaleko" inbiziortzat. **Xabier Olarra**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Erran zion enpresa amerikar batentzat lan egiten zuela eta idazkari gazte **motibatuak** behar zituztela. **Ramuntxo Etxeberri**

Beharrezko baliabide fisikoak, eskulan merke eta **motibatua** eta lan egoera malguagoa. **Iñaki Heras**

Ez garela nehoiz arrantza hain **motibatuak** izan. **Itxaro Borda**

Irudikapena **motibatua** da: beste teorialari askok, ordea, irudikapen-teknika batzuk beste batzuk baino "naturalagoak" direla azpimarratu dute, irudiei dagokienez batez ere. **Josu Zabaleta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**oso motibatuturik** (3)

**motibatuta zelairatuko** (4); **oso motibatuta** (7)

**asko motibatzen** (5)

## motibatzaile izond motibatzen duena. ik motibagarri.

Euskararen ikaskuntza **motibatzailea** sustatzeko aholkuak. **Berria - Kultura**

## motibazio (*orobat motibazione g.er.*) 1 iz norbaitek zerbaitearako interesa izatea.

Ekinntza bat etikoki baloratzerakoan, Kantentzat ekinntza horren **motibazioa** ekinntza bera eta horren ondorioak baino garrantzitsuagoa da. **Askoren artean**

Euskara erabiliko badute, ordea, **motibazioa** behar dute hitzunez, batez ere gazteek. **Joxerra Garzia**

Ikaste kontuan ikaslearen **motibazioa** dago gauza guztien gainetik. **Joxerra Garzia**

Enpresako giza taldearen **motibazioa** "goiari eusteko", alegia-, ezinbestekoa suertatu da enpresako partaide guztiek elkarrenak diren balio jakin batzuk edukitzea eta errespetatzea. **Iñaki Heras**

Desberdintasun ekonomikoki komenigarriak omen dira, besteak beste, lanerako **motibazioa**, ekimena eta sormena sustatzen dutelako.. **Iñaki Heras**

Modu horretan, garai batean zein bestean engaiamendu hori hartzeko izan zituzten **motibazioak**, zailtasunak, bitxikeriak, sentimenduak, asmoak... biltzen dira bideoan. **Herria**

Badakigu Real Madrilen kontra **motibazioa** bermatuta dagoela. **Berria - Kirola**

Egunero lanean jarraitzeko erregaia, **motibazioa** dugu hori. **Berria - Harian**

## 2 (izenondoekin)

**Motibazio** ideologikoen bultzaturik. **Josu Zabaleta**

Hori baino **motibazio** handiagorik ez dago. **Berria - Kirola**

Oso **motibazio** ezberdinek bultzatutako ikasleak ditugu. **Berria - Euskal Herria**

Esaera zahar eta errefraukak ere, nola ikasi izan ditugu? zerrendatuak eta gureak direlako, zaharrak direlako, ez direlako galdu behar... **motibazio** aski eskasa hamabost-hamasei urteko edozeinentzat. **Andoni Egaña**

## 3 zergatikoa, arrazoa. ik motibo.

Kanporaketa baten **motibazioaren** inguruko puntua berrazter daitekeela dio, orain, Villepinek. **Berria - Ekonomia**

Londresen Afganistanen eta Iraken okupazioan izandako parte-hartzean oinarritu dute erasoaren **motibazioa**. **Berria - Harian**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nazionalismoaren gizarte oinarrian nolabaiteko **motibazio** galera gertatu da, baita hautesleengan ere. **Berria - Mundua**

Gaur ez bada bihar, "**motibazio** krisi" bat izaten duela ikusmena berreskuratutako helduak, eta gaixo guztiek ez dutela gainditzen krisi hori. **Xabier Olarra**

Eginbeharraren zentzua hartzen duen **motibazio**-klasea izango da etikarentzat irizpide nagusia. **Askoren artean**

Igor CV eta **motibazio** gutuna: 2 edo 3 orrialde zure xedeak adierazteko lan berriari buruz. **Herria**

Interesatua denak helaraz beza 2005eko irailaren 20a aitzin **motibazio** gutun eta gaitasun agiria helbide honetar: [...]. **Herria**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lan **motibazioa** galdu duten pertsonetan ere ezar daitekeela adierazi zuen Richmondek. **Berria - Gaiak**

## 6 hizkuntzalaritzan, adierazlearen eta adieraziaren arteko erlazioa.

Orain ez da, kasu bakoitzean **motibazioa** baldintzatzen duten faktoreak aztertze edo aurkitze unea; baina zenbat eta errazagoa izan sintagma mailako azterketa, eta agerikoagoa azpibanakoen esanahia, erabatekoagoa izango da orduan **motibazioa**. **Isabel Arrigain**

Adibide horrek garbi frogatzen du, esaterako, onomatopeiaren izaera galduz joan dela ikur linguistikoa hartzeko, eta ikur linguistikoa **motibaziorik** gabekoa da. **Isabel Arrigain**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**motibazio berezia** (5); **motibazio berezia izango** (3); **motibazio falta** (7); **motibazio gutuna** (10); **motibazio gutunak** (6); **motibazio handia** (10); **motibazio handiagoa** (6);

## motibaziogabe *izond* hizkuntzalaritzan, motibaziorik gabekoa.

Garbi geratu behar da ez dagoela hitzunaren esku adierazlea aukeratzea [...]; esan nahi dugu, beraz, **motibaziogabea** dela, hau da, arbitrarioa dela adieraziari buruz, honekin ez baitu errealitatean inongo uztardura berezkorik. Izan ere, hizkuntzak "izan" daitezke, **motibaziogabeak** izatean beren egonkortasuna, gizataldeak erabil ditzan ezinbestekoa dena, atxikitzen dutelako. **Isabel Arrigain**

## motibazione ik motibazio.

## motibo (*orobat motibu g.er.*) 1 iz zergatikoa, zioa. ik arrazoi.

Bazituen, bai, **motiboak**. **Joan Mari Irigoien**

Ez zizkioten sekula **motiboak** azaldu. **Iban Zaldua**

Haserrearen **motiboa** ez dago, beharbada, liburuaren azalean, mamian baino. **Edorta Jimenez**

Tellagorri, ageriko **motiborik** gabe, gaizki esaka hasten zitzaion zakurrari. **Koro Navarro**

Arrazoizko **motibo** batengatik anaia guztiak kanpora joan beharra izan zuten, eta anai Junipero bakarrik gelditu zen etxean. **Askoren artean**

Ez bekio zilegi izan monasteriotik kanpora ateratzea, **motibo** onuragarri, arrazoizko, ageriko eta onargarrigatik ez bada. **Motibo** handirik ez dute Quenutarrek barrez hasteko. **Askoren artean**

Israelgo Poliziak esan zuen erasoak **motibo** politikoa izan zitzakeela uste zuela. **Berria - Mundua**

**Motiboak** ere, sentimentalak, politikoa edo nolananahikoak izan litezke, ezin dira berak "onak" edo "gaiztoak" bezala deskribatu. **Joxe Azurmendi**

**Motibo** batengatik baino gehiagorengatik erabaki dut testigantza hau ahoz ematea, idatzi beharrean, eta artritis da haietako nagusia. **Karlos Zabala**

Aginduak 14 kategoriatan banatzen ditu [...] eta kategorioak aginduak gidatu eta azaltzen dituzten 14 **motibo** eta betekizun mota inplikatzeko. **Xabier Kintana**

## 2 (-tzeke atzizkiaren eskuinean)

Pozik egoteko **motiboak** nituen, pentsaturik Bordelerainoko bide luzean ez nuela emakume isil begi-bildu haren beste konpainiarik izango. **Anjel Lertxundi**

Eraiketa baten ikerketaren aurrean, ezinbestekoa da hiltzeko **motiboak** norik zituen jakitea. **Ramon Saizarbitoria**

Baina hori ezkontzeko nahikoa **motibo** al da, gero? **Joxe Austin Arrieta**

Hori ez da, ordea, agurra ukatzeko **motibo** nahikoa. **Iban Zaldua**

Banuen urduri jartzeko beste **motibo** bat ere: ezin nion neskari Angeloren etxera joaten utzi. Yolok mugarik gabeko laguntza eman dit egoera pattal asko eta askotan, ni bazterrean uzteko **motibo** ugari zeuzkanean. **Anjel Lertxundi**

Rulfo mexikarrak ere bazuen, erreferentzia unibertsal horretaz gainera, fatalista izateko **motibo** historiko konketurik bere lurrean. **Juan Garzia**

Nik uste baino **motibo** gehiago zituen barkamena eskatzeko. **Anjel Lertxundi**

Banuen **motiborik** momentu batetik bestera "gabon" esanda betirako desagertzen ikusiko nuela pentsatzeko. **Ramon Saizarbitoria**

## 3 (-rako atzizkiaren eskuinean)

Kezkarako **motiboak** ez dituzte ezkutatu OMEko arduradunek, baina, era berean, lasaitasun mezua zabaldu nahi izan dute. **Berria - Gaiak**

Eta ez dut uste horretarako **motiborik** eman nionik, ez dudalako Flora besteren aurrean [...] kritikatzeko ohiturarik. **Ramon Saizarbitoria**

Benetan maltzurra eta adimen zorrotzekoa da gure etsaia: barruan arimari kalterik ezin dionean egin, besterik ezean gorputzari ematen dio kezarako **motiboa**. **Askoren artean**

Horra zalantzarako beste **motibo** bat. **Edorta Jimenez**

Hiru bertsolarientzat bada bertsotarako nahiko **motibo**. **Berria - Kultura**

Badut amorraziorako aski **motibo**, baina oroitzen batekin bukatu nahi nuke gaurkoa. **Anjel Lertxundi**

Oro har, talde guztiarentzat kezkarako **motibo** dira. **Berria - Harian**

Egiaz, **motibo** gehiago zegoen negarrerako barrerako baino. **Ramon Saizarbitoria**

Zer **motibo** zuen hain modu kategorikoan eta halako utilitarismo baldarrez hitz egiteko. **Anjel Lertxundi**

## 4 (hitz elkartuetan)

Arras espezie berezia da, haien beldurrez dagoenak ez du **motibo**-faltarik. **Karlos Zabala**

## 5 apaingarri gisa errepikatzen den forma edo irudia.

Kanpoko ornamentazioan, hala ere, bazituen *Art Nouveau*-ren **motibo** batzuk, egiturari sotiltasun eta arintasun airea ematen ziotenak. **Patxi Iturritegi**

Eta nola ez aipa arku biribil perfektuak, txapelarren **motiboak** [...] ? **Piarres Aintziart**

Tresna txiki bat erakutsi dit une horretan, tresna txiki eta puntadun bat, **motibo** geometrikoen hornitua. **Iban Zaldua**

Bainujantzi urdin bizi eta **motibo** geometrikoduna. **Patxi Iturritegi**

Egitura geometrikoen arteko simetria jokoak nonahi, horrelaxe osatuta zeuden tapizaren **motibo** dekoratiboak. **Iñaki Iñurrieta**

Marrazkiak, behinola **motibo** dotoreak eta distira urrekarak orbandutako tonu ilunagoak izan bide zituen, baina orain marra eta orban hutsezko irudi margulduak ageri zituen. **Mirentxu Larrañaga**

## 6 (hitz elkartuetan)

Dantza makabroaren pintura-**motibo** obsesiozkoan. **Joan Mari Lekuona**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aski motibo (4); egoteko motibo (4); izateko motibo (3); kezkarako motibo (3); motibo asko (3); motibo askorik (3); motibo gehiago (3); motibo guztiak (5); motibo handirik (3); motibo nagusia (4); motibo ugari (6); nahiko motibo (4)

egoteko motiboa (6); motiboa izan (4); motiboa izango (4)

egoteko motiboak (10); harro egoteko motiboak (3); izateko motiboak (3); motiboak azaldu (3); pozik egoteko motiboak (5)

motiboren bat (8)

aski motiborik (3); batere motiborik gabe (3); beldur izateko motiborik (4); egiteko motiborik (6); egoteko motiborik (15); ez daukat motiborik (3); horretarako motiborik (5); inolako motiborik (6); izateko motiborik (9); jartzeko motiborik (3); kexatzeko motiborik (6); kezkatzeko motiborik (4); larritzeko motiborik (9); motiborik eman (5); motiborik ez dagoela (4); motiborik gabe (21); motiborik ikusten (3); motiborik izan (4); pozik egoteko motiborik (3)

## motibu ik motibo.

## motif iz errepikatzen den literatur gaia. ik motibo 5.

**Motif** hori berrri agertzen da Jasonen urrezko ardilarrua zaintzen zuen sugea gainditzen duenekoan eta Heraklesek egiten duen Zerberoren bahiketean. **Iñaki Mendiguren**  
Hau da Beowulf-ek Grendel-ekin eta Grendelen amarekin izandako borrokaren **motif** komuna; Siegfried-ek herensugearekin izandakoarena; eta Pertseok Gorgon-i lepoa moztean egindako balentriarena eta ondoren irensteko zorian zeukan itsas munstroa hil eta Andromeda onik ateratzean egindako balentriarena. **Iñaki Mendiguren**

motiko ik **mutiko**.

motill ik **mutil**.

motin ik **mutin**.

motinatu ik **mutinatu**.

motinzale ik **mutinzale**.

## moto 1 iz motozikleta. ik motor 7.

**Motoa** hartuko dut. **Pako Aristi**

**Motoa** pizten dut. **Pako Aristi**

**Motoa** berotzen ari den heinean haizea kentzen diot. **Pako Aristi**

Zilindrada handiko bospasei **moto**. **Anjel Lertxundi**

Futbol izar bat nintzen, bi kirol automobil nituen, ez dakit zenbat zalditako **moto** bat. **Joan Mari Irigoien**

Atean zegoen, **moto** gainean zain. **Jasone Osoro**

**Moto** puska ederra duk, mundiala, dotore askoa. **Jokin Muñoz**

Ezkilak eta txintxarriak, traktore soinuak, urruneko **moto** baten durunda... **Hasier Etxeberria**

Bidean SS-koen **moto** batek jo du. **Josu Zabaleta**

Jean Marc Fernandez, lau haurren aita, lanetik landa bere etxerat **motoan** zoana, kolpez hil da **motoak** eta kamiun batek elgar jorik. **Herria**

Oinez zihohan, eta **moto** batek jo eta kontrako norabidean zetorkion auto baten kontra igorri zuen. **Berria - Euskal Herria**

Elkarrekin ginen istripua izan zuen egun hartan, bakoitza **moto** banatan. **Pako Aristi**

**Motoarekin** bat eginda, inorentzat lekurik ez duen bikotea dirudi makinak eta izakiak osatzen dutena. **Pako Aristi**

Argia asko moteldu da kanpoan, **motoaren** karenejean antzematen dut, bizirik gabeko distira hotz horretan. **Pako Aristi**

Askotan eramango zuen **moto** kaskarren baten sidekarrean. **Pako Aristi**

**Motoetan** lehia KTM Repsol eta KTM Gauloises taldeen artean dago. **Berria - Kirola**

### 2 (izenondoekin)

Amak esana zion Angeli erosteko **moto** txiki hura, gidatzeko karnetik behar ez zuena, trenera joateko modu erosoia izan nezan. **Bernardo Atxaga**

-Ez dizute Velosolex bat erosiiko, baizik eta **moto** handiago bat. Harley Davidson **moto** mitikoaren soinuak erabiliko dituzte. **Bernardo Atxaga**

**Moto** burrunbari baten gainean. **Aurelia Arkotxa**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ekainaren 2an, Pirineoetan (Paue-Donostia-Paue) nazioarteko **moto** rallye bat zegoen, eta Bidasoa bazterreko errepidetik zihoala baliatuta, Nafarroa eta Lapurdiren arteko mugan barrera pasatu ginen beste aldera. **Rafa Egiguren**

Stephenek hiru urte bete baino lehentxeago, **moto**-istripu batean hil zitzaion aita. **Xabier Olarra**

Kontua da gazteluko kaperan ezkutatu nintzela, eta han geratu nintzela **moto** hotsa eta ke-poteen eztanda urrundu ondoren. **Ramon Saizarbitoria**

· **Moto** GP mailako txapeldunak. **Berria - Kirola**

Aratsaldean "**Moto** Trial" ikusaldi bat izanen da Latseko kartierean. **Herria**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irlako gobernuak den-denak Gronedaleramatea erabaki zuen, eta familia bakoitzari etxe bat, elur-**motoa** eta 100.000 korona ematea. **Bernardo Atxaga**

### 5 moto-gidari iz

Igandean Nafarroa Beherean **moto gidari** bat hil zen, eta atzo Bizkaian auto gidari bat zauritu. **Berria - Euskal Herria**

**Moto gidaria** koman da Baionako erietxean eta, jakinarazi dutenez, haren egoera egonkorra da. **Berria - Euskal Herria**

Rossi ez da 1 Formulako autoekin probatzen ari den **moto gidari** bakarra. **Moto gidari** italiarrak hiruzpalau proba eginda zituen auto gorriarekin, baina atzokoa aurreneko lan saio ofiziala zen. **Berria - Kirola**

113 kilometrora du **moto gidari** kataluniarrak Dakarreko garaipena. **Berria - Kirola**

### 6 moto-gidatzaile iz moto gidaria.

Urruntxago auto eta **moto gidatzaile** eskola bat, biziki handia hura ere.. **Marzel Etxehandi**

### 7 moto-taxi ik mototaxi.

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**moto** baten gainean (3); **moto** berriarekin (4); **moto** etxeak (3); **moto** gainean (7); **moto** gidari (14); **moto** gidaria (6); **moto** gp (20); **moto** gp mailan (8); **moto** gpko (15); **moto** gpko munduko (4); **moto** gpn (6); **moto** istripu (5); **moto** istripu batean (3); **moto** istripua (5); **moto** istripua izan (3); **rossi** **moto** gidari (3)

**motoak** gidatzeko (3)

**motoan** zihohan (3)

**autoetan** eta **motoetan** (3); **gp** **motoetan** (3); **motoetan** eta **autoetan** (3)

**motogp** kategorian (3)

## motocar iz hiru gurpileko ibilgailua, zama txikiak garraitzeko erabiltzen zena.

Sasoi bateko **motocar** haien itxurakoa: gurpil bakarra aurrealdean eta bi atzealdean, eurak joango ziren tokian. **Xabier Montoia**

## motodun *izond/iz* motorduna.

Banatzaile **motodun** bat ikusi du kotxe artetik pasatzen; oina lurrera eroan, eten laburra egin eta ziztu. bizian joan da. Urtzi Urrutikoetxea

**Motoduna**, 29 urteko gizon gazte bat, Bidartekoa, kolpez hila altxatu dute. Janbattitt Dirassar

Autozain ala **motodun**, ainitz ibilki dira zalutasun handiegian. Herria

## motokros ik **motokross**.

### motokross (*orobat motokros*) 1 iz

**Motokrossa** gustuko dutenek aukera bikaina dute gaur Gasteizen, Nazioarteko Freestyle-a jokatu baita. Berria - Kirola

Futbolean, golfean, tenisean, **motokrosean**, eskian eta squashean lehiatu zen gidatzen jarri aurretik. Berria - Kirola

### 2

Hiru hilabetean Bertsolari Txapelketako finala, **motokros** ikuskizun bat, sona handiko hainbat kontzertu eta igandeko partida hartu baititu. Berria - Harian

**Motokross** txapelketak, izotz gaineko ikuskizunak, boxeo borrokak, musika kontzertuakÉ Denetarik egin izan dute azken bi urteetan, saskibalo partidak izan ezik. Berria - Kirola

### motokrosslari iz motokrossean lehiatzen den kirolaria.

Egungo **motokrosslari** onenak ariko dira: Andy Jones estatubatuarra, Edgar Torronteras kataluniarra, Stefano Minguzzi italiarra eta Nick Franklin zeelandaberritarra, besteak beste. Berria - Kirola

### motonautika iz ontzi motordun txikietan nabigatuz egiten diren lasterketetan datzan kirola.

lido horretatik, adibidez hartu zituzten espeleologia, **motonautika**, paddlea edo billarra, eta kirolen bilduman jasota badaude ere, bakoitzak komeni zaion eraketa mota zein den deliberatu beharko duela argitu zuen. Berria - Kirola

### motor (*orobat motore g.er. eta motur g.er.*) 1 iz zernahi energia (bereziki barne errekuntzaren ondoriozkoa), energia mekaniko bihurtzen duen tresna; ibilgailu edo makina bat higiarazten duen tresna.

**Motor** baten ardatza apurtzen bada, aldatu egiten dugu. Irene Aldasoro

**Motor** baten kontrol-sistemak, abiatzeko, gelditzeko eta indarra erregulatzeko mekanismoak izaten ditu. Irene Aldasoro

Hegazkinak aireratu eta atzera egin behar izan zuen atzo, **motorretako** bati kanpoko estalkiaren zati bat askatu zitzaiole. Berria - Euskal Herria

Ezkerreko **motorra** zen matxura zuena; helize bat, gurutze geldi bat irudi, zero oskarbian: horixe zen dena. Joxe Austin Arrieta

Ezkerreko **motorra** murrizten badut, eskuineko **motorraren** albo ekarmena berdindu beharko dut, hegazkinak ezkererantz joko baitu, jakina. Josu Zabaleta

Lehenik baratzezain, gero xokotelegile, bainan luzaz, 40 urtez segurik, Boeing **motorrak** fabrikatzen zituen lantegi batean injenieritza. Herria

Txasisa eta 450 zaldiko **motorra** iazkoak dira. Berria - Kirola

Jadanik auto barruan geundela, Sabethek berriro ekin zion bere temari [...]; nik giltza sartu, **motorra** abiaraztearren. Joxe Austin Arrieta

Autoan sartu, **motorra** piztu eta gasolindegia atzean gelditzen da. Mikel Hernandez Abaitua

**Motorra** gerarazi nuen. Joxe Austin Arrieta

**Motor** biak dena emanda, halaxe egin genuen hegan zenbait minutuz etxe baten alturan-edo, gurpilak atzera berriz sartuta. Joxe Austin Arrieta

Bi **motor** dituzte: bat erdialdean eta popan bestea. Berria - Mundua

**Motorrezko** txalupak zebiltzan putzuan, uraren gainean kezko hodei zikinak eskegiz. Koro Navarro

Egun osoan niri begira, **motorra** nola desmuntatzen dudana. Joxe Austin Arrieta

Bultako Metraila baten **motorra** zen, zalantza izpirik gabe. Juan Kruz Igerabide

Eta, azkenean, beti ideia beren inguruan ibilarazten ditu gogoetak, **motor** bat hutsean itzulikarazten balu bezala, azkenean obsesione bilakatu arte. Filipe Bidart

### 2 (izenondoeekin edo izenlagunekin)

**Motor** finkoa, oinarri-plaka astun bati torloju loturik egoten da, oinarri-plaka zorura irmo josia dagoela; **motor** mugikorra, berriz, darabilen ibilgailuaren txasis edo egiturari atxikitzen zaio. Irene Aldasoro

Makina bat da muskulua, baina ez **motor** termiko bat, ingeniariak ezagutzen duten zentzuan. Irene Aldasoro

**Motor** gehienak, propulsiarakoak nahiz industriarakoak, bi hauetariko bat dira: edo atzera-aurrerakoak, edo birakariak. Irene Aldasoro

Oraingo barne-errekuntzako **motorra**, automobile-tan erabiltzen dena, atzera-aurrerako motor gisa abiatzen da, baina errotazio-mugimendu bihurtzen du bere energia. Askoz ere magikoagoa iruditzen hasi zitzaidan telebistak egitea, **motor** mekaniko zikinak askatu eta osatzea baino. Irene Aldasoro

Muskuluak, ingeniariaren ikuspegitik, erregai-pilen indarrez dabilzan **motor** linealak dira. Irene Aldasoro

Mugimendu browndarra eta **motor** molekularrak. Berria - Harian

### 3 irud/hed

Berau [Jainkoa] unibertsoaren Lehen **Motor** edo Kausa mugiarazle eta formaltzat harturik. Xabier Kintana

Baina behar da lehenengo **motor** bat, zerbaitek mugitua ez dena, Lehen **Motor** geldia. Askoren artean

Maitasuna da bizitzaren **motorra**. Ana Urkiza

Bertzeari nagusitzeko gosea dela Historiaren **motorra**. Michel Oronoz

Nire sorlekuaren ikusezintasunaren aurka borrokatzea abiapuntu ona izan zitekeela pentsatu nuen; **motor** ideologiko, intelektual, etiko baten gisakoa, idazteari ekiteko. Bernardo Atxaga

Juventuseko **motorra** ez dago bakarrik. Berria - Kirola

Berrikuntza indartu behar dute, «industriak ekonomiaren **motor** izaten jarraituko badu. Berria - Ekonomia

Orain artean herrialdearen **motor** izan diren Txina, India eta Errusia %9,5, %7,3 eta %6 haziko dira, hurrenez hurren. Berria - Ekonomia

Eraikuntza sektorea eta zerbitzuetakoa dinamikoak izan arren, industria izan da ekonomia suspertzeko **motor** nagusia. Berria - Ekonomia

Bide berriak zabaltzeko lanean **motor** izateko. Berria - Euskal Herria

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arnasari eutsirik **motor**-olio usaina ikaragarri gogorra zelako. Jon Muñoz

**Motor**-kasko batekin agertzen zen salsaren erritmora kantatzen. Mikel Hernandez Abaitua

Super-Constellation abiatu berriaren **motor**-zurrunga. Joxe Austin Arrieta

Argitasun hartara zuzendu zituen begiak, hotz beltz hura hautsi zuen **motor**-burrumba ezagutu balu bezala eta, matrikula ikustean, isil, harririk geratu zen, beste autoren bat

espero izan balu bezala. Anjel Lertxundi

Autoen **motor** hotsa iristen zitzaigun orain hoteleko aparkalekutik. Bernardo Atxaga

Hegazkin baten **motor** -hotsa. Anjel Lertxundi

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Fabrikako sala luze eta estuak iruteko makinaz, ehundegi mekanikoz eta lurrun-**motorrez** bete zituen, egunean bost mila oihal-pieza ekoizteko helburuarekin. Iban Zaldua

Bestea errakzio **motorrekoa** da, garai berriagoko gerra baten ikurra. Berria - Kultura

Eztanda **motorretan** bezala, trinkotutako nahaste horrek su hartzen du, leherketan indar handiko gasa askatuz. Berria - Euskal Herria

loi bidezko propulstio **motorra**. Berria - Gaiak

Zilindro askoko baina erregai-erregulagailu gabeko automobil-**motor** baten antzekoa da muskulua. Irene Aldasoro

Indarrak alferrik galtzea litzateke gorputzaren muskulu-**motorrak** beti indar maximoan lan egiteko moduan antolatzea. Irene Aldasoro

## 6 (izenondo gisa) ik motriz.

Neurona **motorretako** gaixotasun bat ikertu nahi zuela esan zuen orduan zientzialari eskoziarrak. Berria - Gaiak

## 7 motozikleta. ik moto.

Kale bete-betean mila eta milaka bizikleta dabilta, **motor** asko eta automobil gutxi. Gotzon Garate

Eta bururatu zitzaidan Guzzi **motor** berria hartu eta norabait alde egitea ere, Donostiara, edo Miarriztera. Bernardo Atxaga

Gogorrako eutsi dio **motorraren** heldulekuari. Pello Lizarralde

Automobil estreinatuta berrian nindoan, bada, [...] 180ko abiadura bai, oilar puztu baten antzera, atzetik ertzaintzaren bi **motor** hurbildu zitzaizkidanean. Joan Mari Irigoien

Marrok ikusi, **motorrean** ziztuan atzetik etorri, eta parean geratu zitzaidan. Juan Kruz Igerabide

Bat-batean bi gazte agertu ziren **motor** batean eta Urgoitia jaunari, jazartzeko astirik eman gabe, bi tiro tira. Gotzon Garate

Bere ardurapeko herrixkak nola-hala banatu behar izaten zituen, denekin konplitzeko **motor** gainean batetik bestera joanez, meza eman ostean eliztarrekin txolartean gelditzeko astirik gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Begietako jarria jakaren mahukan lehortuz, Hagridex **motor** gainera igo eta motorra piztu zuen hankaz. Iñaki Mendiguren

Birra pare bat hustu ondoren, **motor** banaren gainera salto egin eta Henao kaleko ONCEren kabinara abiatu ziren denak emanda. Patxi Iturrategi

Aurreztu duen diruaz, bigarren eskuko **motor** bat erosi du. Eskarne Mujika

Irunen ere auto batek eta **motor** batek elkar jo zuten. Berria - Euskal Herria

**Motor** bateko gidaria hil zen atzo Orkoienen (Nafarroa): **motorrean** zihoala kamioi bat jo zuen. Berria - Euskal Herria

Gibernau azkarrena izan zen **Motor** GPko lasterketan, eta orain lider da, Rossi eta Biaggiren aurretik. Berria - Kirola

## 8 (hitz elkartuetan)

Aita hil zitzaion, minbiziak jota, eta anaia bat, **motor** istripuan. Iban Zaldua

Jerez (Espainian) asteburuan egin den Munduko **Motor** Txapelketan izan ostean, handik etxera bueltan gertatu zen ezbeharrak. Berria - Euskal Herria

## 9 diesel motor

Palenquek badu **diesel-motor** bat, argindarra ematen duena, baina gaueko 9etan itzaltzen zuten. Lurrun-makina batena baino eraginkortasun hobea da hori, automobil baten motorraren berdina, eta **diesel motor** batena baino txarragoa. Joxe Austin Arrieta

**diesel motorrak** berez ez dira gasolioarekin kurrizteko asmatuak, baizik eta olio erregaiekin. Herria

Tabakoa erretzen ari direnek **diesel motor** batek baino hamar aldiz aire toxiko gehiago botatzen dute, Berria - Gaiak

## 10 motor-gidari

29 urteko **motor gidari** bat hil da, Busturian gertatutako istripu batean. Berria - Euskal Herria

Azkaingo **motor gidari** bat hil da istripuz. Berria - Euskal Herria

20 urteko **motor gidari** azpeitiarra larri zauritu zen atzo goizaldeko 03: 00ak aldera Azpeitian. Berria - Euskal Herria

Irunen SOS Nafarroa larrialdi zerbitzukoak istripua gertatu zen tokira berehala iritsi baziren ere ezin izan zuten **motor gidaria** onik atera. Berria - Euskal Herria

## 11 zerra-motor motozerra.

Gero **zerra-motorra** sartzen zioten erdiz erdi, eta zirrikitu bat irekitzen zioten, arrakala bat egiten zioten etxeari. Berria - Kultura

Baina beti egongo da norbait **zerra-motorra** sartzeko gure pentsamendu zurrunari. Berria - Kultura

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzera aurrerako motor (3); autoaren motor (3); autoen motor (4); diesel motor (5); ekonomiaren motor (5); motor bakarra (3); motor berria (4); motor berriak (3); motor elektriko (4); motor gainean (3); motor gidari (12); motor gidari bat (9); motor gidaria (5); motor gisa (4); motor hots (8); motor hotsa (32); motor hotsa aditu (3); motor hotsa sentitu (3); motor hotsak (8); motor istripu (3); motor istripuan (3); motor olio (3); motor olio usaina (3); motor zahar (4)

motore elektrikoa (3)

motorea itzali (3); motorea piztu (3)

bizitzaren motorra (3); diesel motorra (4); ezkerreko motorra (3); giza motorra (3); industriaren motorra (3); motorra abian (3); motorra aldatu (3); motorra eho (3); motorra itzali (17); motorra itzali gabe (3); motorra itzaltzen (3); motorra izan (13); motorra izan da (3); motorra martxan (16); motorra martxan jarri (6); motorra matxuratu (4); motorra pizten (3); motorra piztu (13); motorra piztuta (8); zerra motorra (4)

diesel motorrak (4); motorrak berotzeko (4); motorrak berotzen (5); motorrak itzali (3); motorrak martxan (3)

motorraren gainean (4); motorraren hotsa (6); motorraren zarata (4)

motorrean ibiltzeko (3); motorrean zihoan (3)

motorren zarata (3)

motorrera igo (5)

motorretako bat (3)

motorrik gabe (3)

## motora iz txalupa motorduna.

Bizkaiko Zubiaren bide paraleloa egiten zuen **motoran** zeharkatu zuen Joseluk erroia. Josu Landa

Bost marinel zendurik **motora** baten hondoratzean, Mundakan. Edorta Jimenez

Pailoten **motoraren** txanel auxiliarra hartzen zuen inori baimenik galdatu gabe eta portuko bertze muturreraino abiatzen zen, gaztelu zaharren puskaileen azpian dagoen iturriraino. Koldo Izagirre

## motordun (orobat motoredun g.er.) 1 izond motorrez hornitua.

Txalupa **motordunean** ailegatu zen Korsikara eta gero Frantzia gorte zen, hil arte. Fernando Rey

Ontzi **motordun** txikietan bandera gorriek harro egiten zuten izokin urbanoen bidaia arratsaldeko lehen orduetan. Lutxo Egia

Ibilgailu **motordun** haietakoren batek. Xabier Montoia

Semaforoan bide librearen seinalea jarri nuen zerbitzuko bagoneta **motorduna** sar zedin. Fernando Rey

Bat-batean, gauzak esneketariaren tresna **motordunarekin** deus loturirik ez zuela ohartu nintzen: garraio makinari alde guztietarik kea bazerion eta xuru-xuru eztiak



hautematen zitzaizkion. [Itxaro Borda](#)

Lau bagoikoak dira, guztiak [motordunak](#). [Berria - Ekonomia](#)

Baina halako batean, auskalo zergatik, gure bi gazte [motordunak](#) azaldu ziren euren pantailan. [Patxi Iturritegi](#)

Azpiegitura handi horiek errepedetako garraio [motorduna](#) eta auto pribatuen gehiegizko erabilera bultzatuko lituzkete. [Berria - Mundua](#)

## 2 izenlagun gisa

[Motordun](#) ibilgailuren batek hartu behar gintuen edo, bestela, ez zegoen zer eginik. [Joxe Austin Arrieta](#)

Dumper edo [motordun](#) eskorga gidatzen ari zela malda batetik behera erori zen. [Berria - Ekonomia](#)

motore ik [motor](#).

motoredun ik [motordun](#).

motoregile ik [motorgile](#).

## motorgile *(orobat motoregile) iz*

Inork ez du agertu Jaguar Racing taldea nahiz Cosworth [motorgilea](#) erosteko interesik. [Berria - Kirola](#)

Ezustean, Ford etxeak salgai jarri ditu Jaguar taldea eta Cosworth [motoregilea](#). [Berria - Kirola](#)

Ordena horretan amaitu zuten bost [motorgileek](#). [Berria - Kirola](#)

## motorista 1 iz motorzalea, motozikleta-gidaria.

Orduan zaldi ero bat, hots, zaldi ero baten gainean bezala zihoan [motorista](#) bat gainera zetorkidala sentitu nuen, gorritik berdera pasatu baino lehen aurrera egin zuen gidari ero bat gainera zetorkidala alegia. [Joxemari Iturralde](#)

Ba Francoren autoa heldu zelarik [motoristen](#) artean, espaloietan zegoen jende guztiak, herriko gizonezko guztiak, buelta erdia eman zuten. [Koldo Izagirre](#)

## 2 itsasontzi batean motorraz arduratzen den pertsona.

[Motoristak](#) behar ditiagu, eta arrantzu patroiak ere bai... [Koldo Izagirre](#)

Saregieak txoferrak zamaketariak sugileak [motoristak](#) marinelak, denak ginen sindikatu gorri-beltzeakoak, komunista jator samar batzuk ere bagenituen tarteko. *Itsasoaren Kontseilua* izeneko batzordean hiru ordezkari hautatzeko, lehorrekoek eta saregielek bat, [motoristek](#) eta labariek beste bat, arrantzaleek azkena. [Koldo Izagirre](#)

## motorizatu, motoriza, motorizatzen 1 du ad motorrez hornitu.

Hirurogei tonako garabi flotantea zeraman atoian Facal bigarrenak ontziola aldera, bafore handiren bat ariko ziren [motorizatzen](#). [Koldo Izagirre](#)

## 2 (era burutua izenondo gisa) ibilgailu motordunetz hornitua.

Errepidean zihoan, begiak tropa [motorizatu](#) haien aitzindari heldu zen lehenbiziko tankean finkatuta. [Fernando Rey](#)

Dibisio [motorizatuaren](#) joaldia hasi zenetik errepublikazaleek defentsa eta kontraerasoa prestatu dute. [Edorta Jimenez](#)

Ondotik armada [motorizatuak](#), buruen gainetik pasatzen zitzaizkigun airekoen burrunbez lagundurik. [Itxaro Borda](#)

Berandu iritsi zen, Monzon eta Polizia [Motorizatukoekin](#) batera. [Lutxo Egia](#)

## motorizazio iz ibilgailu motordunetz hornitzea.

Zulo horiek tropen mugikortasunak estaltzen ditu, printzipioz, baina, ibilgailu blindatuaren ikuspegitik, etsaiaren armadak [motorizazio](#) urria izatea armada hori geldirik egotea bezalaxe da. [Josu Zabaleta](#)

## motorrero iz adkor motoziklista.

Edo pasabide batetik pasatzean, ia-ia harrapatuko du [motorrero](#) puzkarti batek, minotauroaren beste bertsio bat. [Iñaki Iñurrieta](#)

Gorroto du [motorrero](#) puzkartion terrorismo dezibelikoa. [Iñaki Iñurrieta](#)

## motorrontzi iz ontzi motorduna.

Eta ibaian behera alde egin dut, [motorrontzian](#), Tatanka Yotankaren kantamodua gogoratu: [...]. [Joseba Sarrionandia](#)

## motortxo iz motor txikia.

Baina ez, begiek etenbako itxi-ideki batean ebazan, [motortxo](#) bat ipini baleutze lez. [Bernardo Atxaga](#)

## motorzale *(22 agerraldi, 8 liburu eta 7 artikulutan; orobat motorzale g.er.) 1 iz motozikleta bat gidatzen den pertsona. ik motozale; motorista.*

Itzelezko motorra da, japoniarren tankerakoa, eta [motorzalea](#) ere ondo atonduta dago: praka beltzak eta bota are beltzagoak, lokatz zipriztinak gorabehera, praka barreneraino sartuak. [Javi Cillero](#)

Halako batean, [motorzale](#) andana hurbildu zaio, aldapan gora burrunbatsu. [Javi Cillero](#)

Bi [motorzale](#) hil ziren herenegun bi istriputan. [Berria - Euskal Herria](#)

[Motorzalearen](#) gorpua bide bazterrean geratu zen, eta errepideko karril bat itxi behar izan zuten. [Berria - Euskal Herria](#)

Herrira sartu aurretik, Peppone une batez gelditu zen Meharrarekin hitz egiteko, [motorzale](#) mezulariarekin alegia. [Koldo Biguri](#)

[Motorzaleek](#) euren kirolaz gozatzeko aukera ezin hobea izango dute aurten, inoiz baino proba gehiago jokatuko baitira: 43 orotara. [Berria - Kirola](#)

Laruzko bota berdeak eta txinatar kirol-oinetakoak, [motorzaleen](#) jakak eta zetazko gonak, parpailazko esku-larruak eta lepoko zapi nabarmenak, halako itxura erdi-punk,

erdi-dotore bat. Oskar Arana  
Astebetera nire adineko **motorzale** batekin ezkondu zen ama. Jasone Osoro

## 2 (izenondo gisa)

New Yorkeko bosgarren abenidan barna, Harley Davidson motoak hartuta dozenaka emakume **motorzalek** irekitzen dute desfilea. Harkaitz Cano

## • 3 *izond* motorren zalea dena.

Paulek garaje batean egiten du lan; **motor zale** amorratua da. Eskarne Mujika

## motosdun *izond* mototsa duena.

Gero, mugimendu azkar ustekabeko batez, Pitagoras gaixoaren isats **motosdunari** heldu zion bi eskuez. Josu Zabaleta  
Altzairuzko kasko **motosduna** zeraman buru gainean, eta sare kota distiratsua soinean. Aingeru Epaltza  
Nik **motosduna** nahiago nuen, erakargarriago egiten zitzaidalako bestea baino Joxemari Iturralde

## motosierra ik **motozerra**.

## mototaxi (*corpusean **moto-taxi** soilik*) iz taxi lana egiten duen motozikleta.

'Tricycle' **moto**-taxiak hartuz leku horietan iragaiten zituen bere igande arratsalde bakartiak Ramuntxo Etxeberri

## mototaxista iz motozikleta erabiltzen duen taxista.

Askok ofizio ttipiak dauzkate, hala nola garraiolari, dela motoz, adibidez "xe hom" izeneko **mototaxistak**, dela bizikletez, jendeak edo puskak garraiatzeko. Herria

## motots (*orobat **motox g.er.***) 1 iz ile bilduma, batez ere emakumeen buru atzekoa.

Ilea **motots** batean bildu eta ezpainak margotu ditut. Sonia Gonzalez  
Oinutsik zegoen, eta **motots** batera bildua zeraman adats kiribil gaztainakara. Aingeru Epaltza  
Ilea **motots** batean bildu zion eta eskuetan zeukan aurpegia inoiz baino ederrago zegoela konturatu zen. Jasone Osoro  
Ileaz zegoen, hain zuzen, harroen: bi **mototsetan** bana zezakeen. Fernando Morillo  
Ile ikatz-kolorea belarri gainetan **mototsetan** bildua. Koro Navarro  
Ile luze beltza **mototsa** eginez zinta gorri batekin biltzen zuen. Joxemari Iturralde  
Atzealdean, garondoa behera, **motots** bat zuen, azau baten modura bildua eta xingola gorri batez lotua. Joan Mari Irigoien  
Patxi gure argazkilaria **mototsa** bistatu nuen, bertze hiru-lau lankiderekin batean. Aingeru Epaltza  
Neskatiaren adats luzetik **mototsa** nahi zuen, eskubete ile beltz. Jasone Osoro  
Beti gogoratzen ziguten **mototsa** ongi jartzeko, estu lotzeko, danborrada osoan iraun behar zuela. Berria - Euskal Herria  
Amak, eskuak mantalean sikatu eta gazteegi urdinduriko **mototsa** atondu zuen ohiturazko keinuan. Berria - Kultura  
Jada ez dut ile luzea, eta ez dut **mototsa** eramaten. Berria - Kirola  
Bertan, gure azal kolorea duen neska polit bat, ilea **motots** egini, eskularru txuriekin eta betaurreko modernoekin, haur beltz bat zaintzen ari da. Pako Aristi

## 2 (izenondoekin)

Buruaren erdian **motots** txikitxo bat eginez orrazten zuten neskatoa. Josu Zabaleta  
Ilea lokietako larruazalari itsatsita eta **motots** trinkoan bildua zuela. Karlos Zabala  
Ezin nion aurpegia ikusi, haren **motots** kaxkagorria bakarrik, buruaren zirkin bakoitzean zabuka zebilkiona. Joxe Austin Arrieta  
Teink egin nion **motots** kaxkagorritik esertzera behartzeko, baina berak amore eman ez. Joxe Austin Arrieta

## 3 irud/hed

Bestalde, 15 metroko mailaren muga bost **motots** edo gehiago ebakitzeko geratzen badira epaileak oharra adieraziko dio segalaria. Ziazberba eta mingarratz alorrek, errefau, arbi eta azenario zerrandek, patata eta aza landare handiek beren zamau erregularrak hedatzen zituzten, beren lurrustel beltza zabaltzen, hostoen **mototsek** berdetua. Berria - Kirola

## 4 ile-motots

Hannak, ordea, sekula ez zuen **ile-mototsik** eraman. Joxe Austin Arrieta  
Sekula baino argalago, **ile-motots** handiak errorita, soilgune zabalak zeuzkan, eta Ronen eskuetan etengabe bihurtzen zen, nola edo hala ihes egin nahian. Iñaki Mendiguren  
Bere **ile-motots** kaxkagorri bizkarraldera kulunkariarekin. Joxe Austin Arrieta  
Zilar koloreko **ile mototsak**. Matías Múgica  
Miarritzerako moduan jantzia, nik uste, buruko **ile-mototsa** borobil eta tente, belarri lotsorrek ilearen azpitik ageri. Txillardegi  
Gizon mehea, urduria, aurpegi-argala, sudur-zorrotza, bizarrean **ile-motots** bat, ile zuri batzuekin, eta ahoa hortzik gabe, gizon ahulek ohi duten bezala. Josu Zabaleta  
Hark erantzuten ez zuenez, urduri gaineratu zuen, hitzak **ile mototsak** balira bezala lotuz -: Zer ezkututzen duzu? Felipe Juaristi

## 5 *motots-txuri izond* mototsa zuria duena.

Elorri, ilorri, ilurri eta elorri, denak ere elorrrantza deitzen diogun loretxo **mototx** txuri horien zuhaitzaren izenak ditugu. Pello Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ile motots** (16); **ile motots kaxkagorria** (3); **ile motots kaxkagorridun** (4); **ilea motots batean** (6); **motots batean bildua** (3); **motots batean bilduta** (3); **motots estu batean** (3); **motots kaxkagorria** (6); **motots kaxkagorridun** (5); **motots kaxkagorridun neskatxa** (3)

**buruko zazpi mototsak** (3); **ile mototsak** (6); **zazpi ile mototsak** (3)  
**mototsean bildua** (4)

## mototx ik **motots**.

## mototxuri *izond* buruko mototsa zuria duena.

Idi, zeri eta oilo ugari dago, azken hauek pitotxa eta lepazurien begipean: ehiztariek erbi dexente harrapatzen dituzte, azerien atzaparretan erortzen ez badira, eta, dagokien

## mototzar *iz adkor* moto handia.

Sekulako **mototzarra** erosi dik! -esan du Joxek. **Jokin Muñoz**

## motozain *iz* motorzalea.

**Motozaina**, Philippe Alzuri, 39 urteko ezepeletarra, ofizioz plasturra, esposatua eta bi haurren aita, han berean gorputz gelditu da. **Herria**

## motozale *(9 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan)* iz motoziklista. ik **motorzale**.

Ez dira samurrak **motozaleontzat**, altzairuzko babes-langak, erori eta arrastaka haien kontra joanez gero gorputza labanak legez ebakitzen dizutenak, **Pako Aristi**

## motozerra *(orobat motosierra g.er.)* iz zerra motorduna.

**Motozerra** izan zen garai batean azken asmakizuna, baina hori ere agortuta dago eta dagoeneko ez da ezer berririk sortzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Motozerra**, bai tresna bizkorra. **Joxan Elozegi**

**Motozerra** piztuarekin anderearen lepoan makinaren mihiaz jostatzen zen, irriz karkailaka. **Itxaro Borda**

Golik ez, Kovacevicek baso mozketan erabiltako **motozerra** baino kamustuagoa baitu golak lortzeko sena. **Berria - Kirola**

Emilioaren sexua Noraren barruan mugituz imajinatzeak ezereztu egiten ninduen edozein lanetarako, blokatu, burua **motozerra** batekin erditubiko balidate bezala. **Mikel Hernandez Abaitua**

## motozerratar *iz adkor* motozerra handia.

Dena dela, **motozerratar** horrekin nahiko astindua hartzen du gorputzak. **Berria - Kirola**

## motozikleta *iz* bi gurpileko ibilgailu motorduna, gehienetan birentzako jarlekua duena. ik **ziklomotor**; **motor 7**; **moto**.

Joan bezala, esku hutsik alegia, hartu zuen **motozikleta** eta hirira itzuli, iragarkiko ilehoriaren aukera jorratzeko gogoz. **Migel Angel Mintegi**

**Motozikletetan** ibiltzen ziren emakume buruzapidunak. **Lourdes Oñederra**

12 urtetik beherakoak bidaiari bezala eramatea **motozikletetan** edo ziklomotoreetan. **Berria - Euskal Herria**

Ordu berean, Lawrencek heriotza aurkitu zuen bere **motozikletan** zihoala. **Bernardo Atxaga**

**Motozikleta** aparkalekuan utzia zuen. **Unai Iturriaga**

Bizikletak eta **motozikletak** konpontzeko tailerra. **Lopez de Arana**

Garai hartan modan zeuden Lambretta markako **motozikleta** txikiak. **Pello Lizarralde**

Zilindrada handiko **motozikleta** batean ailegatutako gabardina eta kapeladun gizon batek. **Josu Landa**

Zangoak **motozikletaren** pedaletatik aldenitu arren, ez zegoen aurreko gurpilaren zipiritin iturritik libratzerik. **Unai Iturriaga**

Albiste eman nahi dizuet atzo, 9:35etan, **motozikletatik** oso modu txarrean erortzen hasi nintzelarik, gogoratu nintzela ezen errealitatea ez dela existitzen. **Anjel Lertxundi**

## motoziklismo 1 *iz* motozikleta bat gidatuz lasterketa lehiaketetan parte hartzean datzan kirola.

**Motoziklismoa** ogibide izatea gertuago daukat. **Berria - Kirola**

2003ko ekainaren 15a egun handia izan zen **motoziklismoan**. **Berria - Kirola**

18 urterekin hasi zen **motoziklismoan** lehiatzen, eta bi urte geroago bere lehen sari nagusian hartu zuen parte. **Berria - Kirola**

Herrialde Katalanek berriz ere erakutsi dute potentzia nagusietakoa direla **motoziklismoaren** munduan. **Berria - Kirola**

**Motoziklismoaren** mailarik gorenean. **Berria - Kirola**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

2003ko **motoziklismo** denboraldia amaitu zenean. **Berria - Kirola**

Brasilgo **Motoziklismo** Sari Nagusian aukera paregabea izan zuen Max Biaggik (Honda) saikapenean lehen bi postuetan dauden gidariengana hurbiltzeko, eta baliatu zuen. **Berria - Kirola**

Nazioarteko **Motoziklismo** Federazioak. **Berria - Kirola**

Munduko **Motoziklismo** Txapelketan parte hartzeko. **Berria - Kirola**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**motoziklismo sari** (4); **motoziklismo txapelketa** (7); **motoziklismo txapelketako** (7); **motoziklismo txapelketan** (4); **munduko motoziklismo** (22); **munduko motoziklismo txapelketa** (6); **munduko motoziklismo txapelketako** (7); **munduko motoziklismo txapelketan** (4)

## motoziklista *(2 agerraldi, liburu 1 eta artikulua 1ean)* iz motorzalea.

Taldeen arteko mugimenduak amaitu zirenean, non korritu ez zutela geratu ziren hainbat **motoziklista**, tartean ospe handiko batzuk. Milaka auto pasatzen ziren, furgoneta batek sigi-sagan denak aurreratu zituen, kaskoa zeraman **motoziklista** batek harrapatu egin ninduen ia-ia. **Berria - Kirola**

## motrailu *(orobat motroilo)* iz mortairua.

Bere arima krudela asetzeko, olgeta gisa, **motrailu** batean xehetzea agintzen omen zuen hogeita hamar urte bete gabe haurdun geratutako emakume guztiak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Banatu egin ohi zen herria mana biltzeko, eta, errotan eho edo **motroiloan** xehetu ondoren, lapikoan egosi eta olio-opilen gustuko opilak egiten zituzten. **Elizen arteko biblia**

## **motriz** [fr] *ipar* batzuk ibilgailu batzuk eramaten dituen ibilgailu motorduna.

Zer nahi gisaz, horiek hola, hor hil beharrak ginen eta huna nun botu hortarik bi orenen ondotik **motrizak** hartzen gituela berriz eta Munich eta Dachau-rat buruz eremaiten.

**Michel Oronoz**

Mendian gora den geltoki batean arrastatzen gitzute eta gu untsa baztertu eta **motrizak** hor uzten gitu. **Michel Oronoz**

## **motrizitate** 1 *iz* nerbio guneen propietatea, giharrak uzkurrazten dituena.

Konortea tarteka galdu zuela eta aparatu neurologikoko eskasia eta **motrizitatearen** alterazioa izan duela zehaztu zuen txosten medikuak. **Berria - Mundua**

### 2 (hitz elkartuetan)

Stephenek nolabaiteko atzerapena nabari zuen haur-**motrizitatearen** zenbait mailalara iristeko -eseri eta zuitzeko, eskuak kontrolatzeko, ibiltzeko- eta muzin egiten zion bestek bera besoetan hartzeari. **Xabier Olarra**

## **motroilo**<sup>1</sup> 1 *izond* lodia eta altuera txikikoa, potoloa. ik **mozkote**.

Zaldizain **motroilo** horrek zurekin lo egin du, bai edo ez? **Patxi Zubizarreta**

Eta hartarakoxe proportzio egokiak ditueneko, hodei puska hori, goialdetik gandortzen joango da, beroak gero eta torre-laino eta hodei **motroilo** lotsagabeagoak puzten eta gorakutzen dituela. **Pello Zabala**

### • 2 *iz* ik **mordoi**lo.

Voynich eskuizkribuan idatzitakoak ez du, itxuraz, esanahi jakinik, hizkuntza ezezagun batean idatzia dago, eta, beharbada, han erabiltzen dena ez da hizkuntza bat ere, **motroilo** asmaturen bat baino. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

### 3 (hitz elkartuetan)

Hegoak lautadatiko aire lehor epelagoa ekarriz, laino-**motroiloak** presentatzen dira hegoaldeetik,+.  
**Pello Zabala**

## motroilo<sup>2</sup> ik **motrailu**.

## **motta** *iz* **adkor** mota.

Atmosfera hor ditugu, biziari esker, edo bizitzaren defentsarako Norbaitek hor ipinita, aire-molekulak, ur-lurrin txataltxoak, hodeietako eta lainoetako ur-xorta tikiak eta beste hauts-**motta** ttipi-ttipiak. **Pello Zabala**

## **mottel** 1 *izond* **adkor** motela.

Hezkura eta umela, lainobera altuz lagunduta, euri **mottel** puxkaren bat tarteka, eguzkia ostenduz eta tapatuz, zozo, baina frexko antzean... **Pello Zabala**

Gainerat, minixtro frango **mottelak** dira, hala iduri dute segurik. **Heria**

Egia erran, ainitz tokitan greba horrek bazuen halako **mottel** aire bat. **Heria**

Eta bizkitartean, nunbaiteko bitxikeria hori ere gisa batez, kanpainak berak ez ote du ba halako **mottel** aireño bat? **Heria**

### 2 (adizlagun gisa)

Agorrila ere hein bat **mottel** hasia naski, lekuka segurik. **Heria**

Nahiz, huts guziak gobernuaren gain ezarri gabe ere, erran ditakeen, itxura guzien arabera hala baita, gobernu frango **mottel** jokatu dena untsa oharu aintzin makurrak zer heinetakoak ziren...! **Heria**

## **mottelkeria** *iz* **adkor** motelkeria.

Duela bi hilabete, Garapen Kontseiluko hamalau kide greban bezala jarri ziren, bilkuretarat ez gehiago agertuz, sobera **mottelkeria** bazela, geroari buruz egiten ahal diren galde askorentzat ez gisa guziz aski axola... **Heria**

## mottiko ik **muttiko**.

## **motto** 1 *iz* mototsa.

Beti beltzez beziti zen, Gabrielle, biloak gibelera luzatuak, **mottoan** bilduak, beti buru-orratz berekin, edergailu bakarra zuela arrosorio pikor lodi xuri bat. **Michel Oronoz**

### 2

Osabak zakilburuko azalari **"mottoa"** esaten zion beti. **Aitor Arana**

**Motto** estua zeukan eta zakilburua ez zitzaion azaleratzen **Aitor Arana**

## **motu**

### 1 **motu proprio** nahita, nahitara, bere kabuz.

Kasu hartan inpartzialtasuna -**motu** propioz aukeratua nahiz beldurraren legepean ezarria- justifikaezina zen, bere ankerkeriagatik eta bere ondorio sumaezinegatik.

**Karlos Linazasoro**

## motur ik **motor**.

## **motx** *izond* **adkor** motza.

Gorputza **motxa**, anka llaburrak, xaltokako ibillera. **Patziku Perurena**

Seme alabei ere beti oinetara begiratzen baitie: batek behatz tikiak **motxa** duela, besteak luxea... **Patziku Perurena**

Ile **motxa** eta beltza. **Unai Iturriaga**

Galtza **motxak**, galtzerdiak eta lohiz bete zapatak. Elena Touyarou  
Ona izan ezker, **motxak** ez du lotsarik. Iñaki Segurola

## motxagotu, motxago(tu), motxagotzen da/du *ad adkor* motzago bihurtu.

Eta hirugarrena aldiz, oin ejiptiarra, faraoien estatuetan ageri omen dena: behatz lodia luzeen eta, beste lauak gero eta **motxagotzen** direnekoa. Patziku Perurena

## motxaile iz ijitoa, buhamea.

**Motxaileei** oinutsik ibiltzea gustatzen zaie, eta dantza egitea. Jasone Osoro

Euskaldunak ziren -euskaraz zekitenak, alegia- lehengo ijito, ungriano, buhamea eta **motxaileetako** asko. Koldo Zuazo

Mikel Strogoffek adi-adi begiratu zuen dena estaltzen hasiak ziren itzalen arteak, eta, etxolatik hurbil, gudi eskergea bat ikusi zuen, **motxaile** edo *tsigane* jende horren ohiko bizileku ibiltaria. Karlos Zabala

-**Motxailea** naizela esan didate parkean. Jasone Osoro

## motxaro *adlag* laburki.

Urruskidek zer adi duen esanen dizut **motxaro**. Patziku Perurena

## motxikin ik mutxikin.

## motxila iz bizkar-zakua, bizkar-zorroa.

Argazki-makina **motxilaren** ezker poltsikoan dauka. Aingeru Epaltza

Ibiltariak jarri du **motxila** bizkarrean eta, oinez hasi aurretik, bere ingurura begiratzen du. Bernardo Atxaga

Hire **motxilan** dauden liburu horiek ikusi ditiat, e! Fernando Morillo

**Motxila** eta zorroak lurrean utzirik, sakon hartu zuen Estherrek arnasa. Xabier Montoia

**Motxilak** zabaldu genituen, otartekoak, arrautza gogorak eta haragi oreka elkarren artean banatu, eta txandaka edan genuen termoetatik. Koro Navarro

4-5 kilo kloratitak osatu lehergailua **motxila** batean gordea zen. Herria

Flanelazko galtzekin eta kapelarik gabe, makila eta **motxila** hartuta. Koro Navarro

Behin jaikiz gero, segituan bildu eta eskolarako **motxilan** sartu nituen. Xabier Montoia

23 kilometro, erdia nahiko patarrekin, 1400 metro gora ibiliz, zakua edo **motxila** hainbat kargatua izanez, bada hor bere ahalen probatzeko aukera. Herria

## motxiladun *izond/iz* motxilaz hornitua.

Autobusak, aldapa estu batean, bi ibiltari **motxiladun** belar hesiaren babesera salto egitera behartu zituen. Koro Navarro

Bi gazte **motxiladun** ari dira mapa handi bati begira eta bideren bat nondik hartu eztabaidan. Anjel Lertxundi

**Motxiladun** gehiago ere igo da trenera Anjel Lertxundi

## motxilatxo iz motxila txikia.

Espetxeraino eraman behar zuen autobusera igo, **motxilatxo** goiko apalean gorde, eseri eta orduantxe ikusi zuen, jesarleku pare bat aurrerago. Sonia Gonzalez

Umea **motxilatxoan** hartu, kalera irten, eta ez dira hamar minutu igarotzen atso bat hurbildu gabe. Iban Zaldúa

Zergatik ez dut oraindik musikarik jarri, **motxilatxoan** azterka hasten naiz, beti diskoteka txiki bat eskura. Mikel Hernandez Abaitua

## motxin iz *adkor* alua. ik *potorro*; *pottotta*.

Alua, gaur egunean, izen bezala, edo ez da ezer edo eufemismo sexuala da, aspaldi galdua baitu hitz horrek bere jatorrizko esanahia (gauzaren benetako izenak *pottor*, **motxin**, *motz* eta horiek dira, jakina), eta pertsona aluaren adieran bakarrik bizi baita. Iñaki Segurola

Mikelen eskuak ere bilatu nahi izan zuen Pietatearen **motxinerako** bidea. Unai Iturriaga

Maribel, hosto erori berrien gainean kukubilko, txotxabarra **motxinean** gora eta behera, gora eta behera sartzen harrapatu zutenekoa. Alberto Barandiaren

## motxinbero (*orobat motxin-bero g.er.*) iz *adkor* mari-beroa.

-Busti-bustia zegok **motxinbero** hau -oihu egin du aluan ari denak, bere lagunari abisu eman nahirik-edo. Juan Martin Elexpuru

Izorra nazatela **motxin-bero** horietako bat ez bada. Patxi Iturritegi

-**Motxinberoa** halakoa! -gehitu du beltzaranak-. Txakurreme **motxinberoak**. Jon Arretxe

## motxorratu ik motzorratu.

## motz 1 *izond* luzera urrikoa.

Gizon **motz** eta petral samar bat zebilen batetik bestera argazkiak ateratzen. Iñaki Mendiguren

Gizon **motza** zen, lodikotea eta burusoila. Ramon Saizarbitoria

Ni beste luze delako -eta ni ez naiz **motza** -, eta argala izateaz gain oso aurpegi polita duelako ere bai. Ramon Saizarbitoria

Osaba gizonkote handi bat zen, oso lepo **motz** eta bibote handikoa. Iñaki Mendiguren

Bere zango **motz** eta oin luzeak atzera-aurrera kulunkatuz. Fernando Rey

Beltzarana naiz; ilea, ez luzea ez **motza**. Eskarne Mujika

Ile **motz** gorriz pintatua txukundu du. Felipe Juaristi

gorputzean ere emakume handia zen; luzean **motza**, zabalean **motz**, Xabier Etxabe

Hats **motz** bat aditzen dut eta noizik behin zeharka ikusten dut ile zuriz estaliriko argi gorrixka bat. **Monika Etxebarria**

## 2 (jantziez)

Bera kotoi zurizko trajearekin eta ni udako jantzi **motz** batekin. Jantzi **motzetan** jaitsi ginen patiora, luzamenduak egin eta itzulien itzulira itzuli ginen. **Josu Zabaleta**

Txaketa beltz **motz** bat zuen nakarezko botoieiz, eta lumazko boa beltz zarpaildu bat. **Irene Aldasoro**

Guk galtza **motzetan** genbiltzaneetik ezagutzen haugu. **Aingeru Epaltza**

Gona **motzak** eta eskote luzeak. **Migel Angel Mintegi**

Egingo nuke lehengo eguneko minigona **motz** likrazkoa dakarrela soinean. **Patxi Iturritegi**

Atea jo zuten eta minutu batzuk geroago, Émile galtza **motz** eta T-shirt zuritan atera zitzairen erdi lo. **Aurelia Arkotxa**

## 3 (bestelakoez)

Korridore **motz** baten muturrean espaloi hezea ikusi nuen. **Alberto Ladron Arana**

Esku eta hanka lotuta zetozen, eta jauzi **motzetan** iritsi ziren errepide erdira. **Inazio Mujika Iraola**

-Denak lurrera! -oihu egin du Natxok ahots hautsiaz, nylonezko poltsaren kremailera ireki eta kanoi **motzeko** eskopeta bat atera orduko. **Patxi Iturritegi**

Sasi eta belar **motzeko** eremua. **Agustin Otsoa**

Elizatxo txiki bat dorre **motz** bat zuena. **Koldo Biguri**

Soka **motz** batekin lotuta. **Oskar Arana**

Sebastopol bulebarra gurdi **motzez**, kartolarik gabeko orgaz, bankudun karroz bete-betea aurkitu zuen. **Karlos Zabala**

Egonaldi **motz** bat egin ondoren, denok hegaldatzen garelako beste nonbaitera. **Imanol Zurutuza**

Miseria gorria zen haientzat epe **motzean**! **Karlos Zabala**

Pieza **motzak** jotzen ditugu, luzean nekatu egiten baita bera. **Xabier Etxabe**

Atzoko etapaz hitz labur eta perpaus **motz** zenbait botatzen dizkio bideko kaierari. **Piarres Aintziart**

ISStik irten eta espazioan ibili **motz** bat ere egin zuten, otsailean. **Berria - Gaiak**

## 4 adimen urrikoa.

Gogoan izan behin-betikoz, gizon **motz** eta tentela, ergelek gizatasuna deitzen duten hori beldurretik eta nobrekeriatik sortutako ahultasuna besterik ez dela. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Oso lasai erantzun nion [...] eragiketa bat hainbatgarrenean oker egiten duen ume **motzaren** aitzinean hasperen eginik: [...]. **Koldo Izagirre**

Jendaila **motz**, ergel, badaezpadako eta, hitz batean esanik, okaztagarria da. **Iñaki Segurola**

Bai, neska maitagarria da, baina **motz** samarra da goiko aldetik, Tom. **Oskar Arana**

Tentela behar du izan gizonak, buruz **motza**, txepela, astoa behar du izan. **Josu Zabaleta**

PNV nola izan litekeen hain **motza** eta nola egon litekeen hain erratua pentsatu genuen. **Hasier Etxeberria**

## 5 tasunen batean labur agertzen dena.

Egia esan, laburtutako bertsioa ez da horratik **motzagoa**, nolabait esateko; ez du ezer galtzen, ez badu arintasuna irabazten. **Anton Olano**

Aitortu beharra daukat ur handiegia direla hauek nere adimendu **motzarentzat**. **Iñaki Segurola**

Baina jarrera horiek ez dituena itsua eta bista **motzekoa** da. **Elizen arteko biblia**

Erretorika ere ikasten genuen eta nire frantses **motza** mihira ekartzeko ahaleginak txalotzen zizkidaten irakasleek. **Aingeru Epaltza**

Zuzenketa berantiarrik irri **motz** bat eragin zion, ni are ergelago sentiaraziz. **Aingeru Epaltza**

Ivan Ogareffek ofizialeto bati agindu **motz** bat emanez erantzun zuen. **Karlos Zabala**

Jestu **motz** batez jarleku bat seinatu zidan. **Matías Múgica**

Ni kultura **motz** bateko ordezkari erudizio laburrekoa naiz. **Jon Alonso**

Gure belaunaldiak galera neurgaitzak ikusi ditu: kristautasuna moralismo **motz** bihurtu zitzaiguneko; utopia sozialistak kapitalismo hutsak garaitu zitueneko; [...]. **Joseba Zulaika**

Egia hutsa ogi hutsa bezalako dela, hots, hura bezain **motza**, eta egia hutsarekin ez dagoela urrutira joaterik. **Iñaki Segurola**

## 6 (izenondo elkartuetan lehen osagai gisa)

-Neska **motz** ona zegoen egina -esan zuen Paul D-k-. **Anton Garikano**

Emakume **motz** gazte batek, arpillerazko zaku batekin, diosal egin zion. **Anton Garikano**

A zer gozamina emakume **motz** ergel hura jarrera barregarri hartan marraztea! **Josu Zabaleta**

Abiatu zen automobila eta gizon **motz** lodiak lagun-taldea begitatu zuen. **Irene Aldasoro**

Kopeta baino gehiago gailentzen ez zitzaion sudur **motz** zabala zuen. **Anjel Lertxundi**

Zango **motz** sendoak zituen, zuhaitz-enborrak bezalakoak. **Iñaki Mendiguren**

Gauza simple edo gertakizun hunkigarriak hitz **motz** biluzietan erranez. **Piarres Aintziart**

Ezin konpreniturik geunden zer ikus zezakeen Charlyk saildu-jale **motz**-estu horrengan. **Aingeru Epaltza**

Biak zihoazen nor bere kaparekin eta ezpata **motz**-zabalarekin. **Joan Mari Irigoien**

Konpetentziak nola, guk alderantziz jokatu beharrez, izenburu **motz**-zorrotzak egitera beharturik gaude. **Aingeru Epaltza**

Jonki zikin pozoitua, ongi merezita, nirbana ttipitik nirbana handi betikora irristatu eta hiltzera etzaten denean, metro pasatxoko hegaldi **motz** itsusian. **Iñaki Segurola**

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

-Lasai, gizona; San Inazio ere hanka **motza** zen -esan zion obispoak, adorea ematearren. **Inazio Mujika Iraola**

Halako goiz batean beso **motz**, begi-bakar eta maingu lantokiratuko banintz, dudatzen naiz inork nire osasunaz galdetuko lidakeen ere. **Aingeru Epaltza**

Berea balute bezala sentitzen zutela zango -eta beso **motzek** hark egindako ordezkoa. **Inazio Mujika Iraola**

Mutil gazte zinez eder galanta luze-luze etzanda zegoen hankarik gabeko aulki bizkar **motz** batean. **Mirentxu Larrañaga**

Aurpegi-zabal, sudur **motz** bat, arrunt lausoa iduri. **Janbattiit Dirassar**

Argala, ile **motza**, beltzez moderno jantzita. **Pablo Sastre**

Belarrimotz, mihi **motz** dituk! hegazti berezi batzuk gungandik hurbil hegaka, baldar eta hego **motz**. **Edorta Jimenez**

Bestea mozkotea, baldarra, ile-gorria, eskumutur gorriak alkandora mahuka **motz** saretu batetik ateratzen zitzaizkiona. **Koro Navarro**

Neskak -pistola bat gerrikotik dilindan daraman kalpar **motzak** -begi-bistako gogo txarrez hartu du manatua. **Aingeru Epaltza**

-Ezin zuela hanka **motz** utzi, horrela, amesten zuen urki-enborrik gabe, **Inazio Mujika Iraola**

## 8 (adizlagun gisa)

-Ez **motz** erantzun nion. **Edorta Jimenez**

Batekin eta bestearekin mintzo da, **motz**, labur, baina hoztasunik gabe. **Piarres Aintziart**

Burua soil eta bizarra **motz** daramate guztiek. **Elizen arteko biblia**

Ilea oso **motz** zeraman. **Joxemari Iturralde**

Janariz urri zebiltzan, eta adorez **motz**. **Aingeru Epaltza**

Arrazoi horiek guziek badute beren egiantza, baina, **motz** gelditzen dira. Bi xurgada jo nizkion, **motz**, eta Charlyri pasatzeko imintzioa egin nuen. **Patziku Perurena**

-Hilda daude -esan zion Harryk **motz**. **Iñaki Mendiguren**

-Ez dut bukatu -bota zion **motz** -bota zion. **Karlos Zabala**

Bere arrazoiak **motz** eta zorrotz agertu zituen. **Aingeru Epaltza**

**Motz eta hotz** despeditzen zituzten gerlari-ohiaren galdez zetozkienak oro. **Itxaro Borda**

Hatsa **motz** geratu zen jendea. **Itxaro Borda**

## 9 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa) moztasuna.

Erantzunaren **motzak** ez ninduen harritu. **Edorta Jimenez**

Bere **motzean**, definizioa argia badirudi ere, zalantzarik ez dago agertzen zaigu: hizkuntz unitate bat diogunean, zertaz ari gara? **Iñaki Arranz**

## • 10 iz adkor alua.

**Motza** kasik bistan duela etzaiguk ba atera! **Patziku Perurena**

Urre horiaz eta **motz** urdinaz. **Patziku Perurena**

**Motzean** jo dik bete-betean. **Patziku Perurena**

· Alua, gaur egunean, izen bezala, edo ez da ezer edo eufemismo sexuala da, aspaldi galdua baitu hitz horrek bere jatorrizko esanahia (gauzaren benetako izenak pottor, motxin, **motz** eta horiek dira, jakina), eta pertsona aluaren adieran bakarrik bizi baita. **Iñaki Seguro**

## 10a motz-handi (corpusean motz-haundi) izond (irain hitza)

Urde **motzaundia**. **Patziku Perurena**

## 11 hotz eta motz

-Ixo! -bota zion Snapek **hotz eta motz** -. **Iñaki Mendiguren**

Bai, noski -esan zion Quirrellek **hotz eta motz** -. **Iñaki Mendiguren**

Durant jaunak **hotz eta motz** eten zituen esku-zartatxoak, txakurraren lepoaldea gori-goria gertatuko balitzio bezala ukitzean. **Mirentxu Larrañaga**

Ez nuen halakorik nahi, ezta inondik ere, baina ezin nion **hotz eta motz** ezezkorik bota. **Juan Kruz Igerabide**

Ezetz, **hotz eta motz**, lotan segitu nahi duela zeharka adieraziz. **Xabier Montoia**

Inork ez du geratu behar **hotz eta motz**. **Joan Mari Lekuona**

· Oraingoan, ez ziren hizketan hasi eta elkarri agur **hotz eta motz** bat egitera mugatu ziren. **Karlos Zabala**

Aditu egin ditzakegu, garrasi **hotz eta motz** ebakiak, metrailadoreen hil-arnasestu korrokariak, fusilen tiro-hots labur bereziak. **Mirentxu Larrañaga**

## 12 izkin-motz

Orduan hunek nahi zuen lekurat manatzen zuen bere jo fina, ala taula, ala sare ondo hura ala eskuineko xoko edo **izkin** -motzerat. **Herria**

Hola aise ari gibelean Martiarena, batean taula, bestean arte-sare eta ondarrean **izkin** -motz batzu lurretik ezin bilduak. **Herria**

39tan **izkin** -motz Biscoubyk, ez dakit zenbatgarrena, baina ekarri botea Aramburuk bere aire zoragarriarekin, atxiki pilota ontsa taulatuz gibeledu batek bezala eta ondarrean bi-paret labur batekin bururatu. **Herria**

Hor da jokoan sartu Oqafrein, batean sare, bestean punpa-sare, edo **izkin** -motz eta guziz 8 bote xtant batez, batean azpiz ezker, edo gainez, eta beti xuxen. **Herria**

Ez dute amor eman nahi galtzaleek, baina ez dira sartzen Arambururen boteak (biga bakarrik), huts bakar batzu ere bai biek tenore txarrean, eta xilo eta **izkin** -motzak ere irabazleen alde. **Herria**

Itsasuarra alabaina beti aintzinean zuen 24-18 arte, batean taula luzea, bestean **izkin** -motza, ez halere nahi bezain usu sare hura. **Herria**

Denaden, azken hauk dira lehenik berotu, 9-4 eta 19-8, ordukotz bi bote, Belascainen sarea, eta airez motzu bat, Teilleryren sarea, **izkin** motza eta eskuin pausatu batekin.

**Herria**

## 13 motz-motz

Esquite zabala eta gona **motz-motza** janzten zituen bular oparoak eta aldaka biribilak agerian uzteko. **Migel Angel Mintegi**

Ile gorritz tindatuak, **motz-motzak**. **Javi Cillero**

Orain ilea **motz-motza** du, garçon erara motzua. **Patxi Zubizarreta**

Puska batean nire parean doa, ile **motz-motzeko** gizon bat, laneko arropa urdinez jantzia. **Koro Navarro**

Gizon handia zen, sorbalda zabalekoa, bibote mehe gorrixka eta bizar **motz-motzekoa**. **Anton Garikano**

Partida bizia izanzen da edo polita, luzea edo **motz-motza** baina ez erdibidekoa. Ilea **motz-motz** motzu eta beltzez tindatu zuen. **Berria - Kirola**

Sukaldeko guraizeak hartu eta **motz-motz** egin zion ilea. **Iñaki Mendiguren**

Santa Kruz handik pasatu zenean, horren berri izan, eta agindua eman omen zuen: lehenik, ilea **motz-motz** egiteko andreari; bigarren, larrugorritan jarri eta bikez dena ondo igurtzi eta lumaztatzeke; [...]. **Bernardo Atxaga**

Emakume txiki, lodikote eta kementsu bat da, orezta beltzekikoa, **motz-motz** ebakitako ile sarri eta lodiduna, leporik gabea. **Oskar Arana**

Hor kanpora irtenarazi nahi gaituzu orain, etsaien metrailadoreek jo eta segatu gaitzaten, garia bezala **motz-motz** ebaki. **Mirentxu Larrañaga**

## 14 motz-motza adlag ipar

Elixabetek **motz-motza**: [...]. **Janbattitt Dirassar**

Ixtripu latz bat **motz-motza** kondatua, beste anitz izaten diren bezalakoa. **Janbattitt Dirassar**

Hori zidan ihardetsi **motz-motza**, halako beltzuri harritu bat eginez. **Janbattitt Dirassar**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**beso motz** (7); **epe motz** (5); **esaldi motz** (6); **galtza motz** (16); **gizon motz** (7); **hanka motz** (15); **hanka motz geratzen** (4); **harri motz** (4); **hotz eta motz** (50); **ile motz** (13); **ilea motz** (10); **ilea motz motz** (5); **ilea motz motza** (4); **izkin motz** (6); **kultura motz bateko** (3); **labur eta motz** (5); **motz erantzun** (5); **motz eta ertainean** (3); **motz eta hotz** (3); **motz eta zorrotz** (6); **motz gelditu** (12); **motz geldituko** (3); **motz gelditzea** (3); **motz gelditzen** (13); **motz gera** (3); **motz geratu** (24); **motz geratu zen** (6); **motz geratuko** (6); **motz geratzen** (18); **motz motz** (12); **motz motza** (14); **motz motzak** (6); **motz samar** (5); **motz samarra** (4); **neska motz** (5); **oso motz** (5); **praka motz** (7); **soka motz** (3); **sudur motz** (4); **zango motz** (4)

**bide motza** (6); **hanka motza** (4); **ibilbide motza** (3); **ile motza** (11); **ilea motz motza** (4); **ilea motza** (6); **kros motza** (6); **motz motza** (14); **motza baina** (5); **motza eramaten** (3); **motza izan** (12); **motza izan zen** (6); **motza izango** (4); **motza zen** (4); **nahiko motza** (3); **oso motza** (5); **sudur motza** (5); **sudurra motza** (4)

**fraka motzak** (3); **galtza motzak** (13); **galtzerdi motzak** (3); **gona motzak** (3); **hanka motzak** (3); **ile motzak** (3); **motz motzak** (6); **motzak janzten** (4); **motzak zituen** (3); **oso motzak** (3); **praka motzak** (6)

**epe motzean** (58); **kate motzean** (34); **kate motzean lotu** (16); **kate motzean lotuta** (3); **kate motzean lotzeko** (4); **motzean lotu** (18); **motzean lotu zuten** (4); **motzean lotuta** (4); **motzean lotzeko** (4); **oso epe motzean** (3); **pala motzean** (6); **sei puntuko motzean** (4); **seiko motzean** (4)

**epe motzeko** (15); **frontoi motzeko** (3); **igerileku motzeko** (5); **ile motzeko** (4)

**bide motzena** (5)

**epe motzera** (33)

**epe motzerako** (16)

**galtza motzetan** (14)

## motzaile iz mozten duena.

Santa Klara karrrikako ilemoztegiaren sartu eta "ilea eta bizarra, dena!" agintzea zen, brotxaren kilima masailetan, kolonia merkeen lurrina, **motzailearen** jardunari sobera belarri eman gabe ispluan islatzen zen buruari barre egitea... **Koldo Izagirre**

Bizi osoa du iturketari emana orain denbora-pasako **motzailea** izanagatik, hidrologo profesionala izan da hiri honetako auzo berriko jubilatuean patillak desberdin motzu ez ezik solasa dotore sortzen dakien agure atsegin hau. **Koldo Izagirre**

Sorbaldak zinezko **motzaile** batek baino arduratuago brosatzen dizkidan bitartean. **Koldo Izagirre**

## motzaldi *iz* mozketa.

Domingok **motzaldi** gutzian zehar hitz egingo zuen, etengabe, futbolaz zein Tourraz, politikaz zein telebistaz. **Iban Zaldua**

## motzarazi, motzaraz, motzarazten (*orobat motzarazi g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiari motzarazi agertzen da*) du ad

Berak **motzarazi** al zizun ilea eta aldarazi janzteko modua? **Oskar Arana**

Historian errana da 44 urtean eman zuela bere bizia Jakobek Jesusentzat Herodes-Agripa enperadoreak lepoa **motzarazirik**. **Herria**

Ileak apainarazi eta bizarra **motzarazi** ondoan, Durruty notarioaren lantegira hurbildu zen eta, hiruzpalau egun ez joateko baimena eskatu zuen. **Elena Touyarou**

Azima handia, bere maitaleari zakila **motzarazi** ziona. **Pablo Sastre**

## motzondo 1 *iz* enborra moztu ondoren lurrari atxikia gelditzen den zuhaitz zatia.

Zuhaitz zahar baten **motzondoan** eseri naiz hurrengo. **Mirentxu Larrañaga**

**Motzondo** goroldiotu baten ondotik igaro ziren. **Iñaki Mendiguren**

**Motzondoetan** hazitako zuhamuxka gazteek estalirik. **Jose Morales**

Behinola, larraineko **motzondoan** eserita geundela, aitari begira, bera aitzurraz gari-pala bat ateratzen ari zen bitartean makal zati batetik, Chico korrika heldu zen. **Koldo Biguri**

Sustraiak zahartu eta **motzondoa** lurpean ihartu arren. **Elizen arteko biblia**

Intxaurrendoren **motzondoa** erdituta zegoen, haizemaile baten antzera. **Anton Garikano**

2

**Motzondoa** agerian zuen zahar bati erosi dizkiot eta jakaren hegalean jarri nizkion aitari. **Jon Maia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**motzondoan eserita** (3)

## motzor *iz* motza, zapala.

Goiti doan ke beltz **motzorra** dakusazu. **Xabier Montoia**

## motzorratu (*orobat motxorratu*), motzorra, motzorratzen du ad *ipar* inausi.

Gaineala autonomien ahalak **motzorratu** nahi dütü Madrilako gobernua. **Herria**

Besteek aldiz ilabürtzen dütügü, **motxorratzen**, bigarren silaba jatez (*jun, gogun, mendin, mendila*)... **Herria**

Bestela debeiatzea da, eta ondorioz testüaren **motxorratzea**, berritapenen bilatzea, hots azkenean pastoralaren zikitatzea. **Herria**

Haatik ez deiogü galtzen ahal hamar manüetarik bat edo beste ken dezan, ez eta Credoan (Sinesten düt) **motxorra** dezan: hor kontserbazale izan behar dü Aita Saintüak. **Herria**

## mousse *iz* zuringo irabiatuekin edo esnegainarekin nahasten diren hainbat janari xehatuekin prestaturiko jakia.

Zerbitzaria ikusten bainuen gozoki apal baten aurrean franbuesa-tarta pusketa eta txokolatzeko **mousse** plateretan jartzeko ahaleginean. **Bernardo Atxaga**

Itsaskiz beteriko hostorea, onttozko **mousse** eta ez dakit zenbat gauza gehiago atera ziguten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txokobola potolo handiak, marrubizko **moussez** eta esnegainez beteak. **Iñaki Mendiguren**

Apar edo bitsa (**mousse**), arin, goxo eta zaporetsua denez, etorkizun hurbileko elikagai hedatuenetako bat bera izango da. **Edorta Agirre**

## moxal 1 *iz* urtebete arteko zaldia, arra nahiz emea. ikpottoko<sup>1</sup>.

Belarretan iraulka ibili zen, **moxala** bezala. **Pablo Sastre**

**Moxal** aztoratuak ziren. **Josu Zabaleta**

**Moxal** baten zurda zirimolatsuekin. **Juan Garzia**

Zeppelina pausatu zen toki berean, zalditegi bat zegoen hainbat **moxal** eta zaldirekin. **Anjel Lertxundi**

2 irud/hed

Nire moduko arlote bat, hor barna eramaten dutenean, benetan den baino finagoa dela erakutsi nahi izaten du, ez hain **moxal** hezigabea eta orduan denari uko egin eta denaren kontra hasten da. **Fernando Rey**

Gureak ez zeukala etorkizunik bota zidan **moxal** bero hark, zerbait garrantzitsua esaten balego legez. **Urtzi Urrutikoetxea**

3 (hitz elkartuetan)

Dahlmann-ek poz-atseginez kontu egin zien *vinchari*, baietazko pontxoari, *chiripá* luzeari eta **moxal**-larruzko boteli. **Juan Garzia**

Jendea zaldiz eta oinez, ahuntz, ahari, orein edo **moxal** larruez jantzita. **Fernando Rey**

· Jose, basa **moxala** da, iturri ondoko **moxala**. **Jose Antonio Mujika**

4 **moxala bota adkor** oka egin, txala bota.

Zutik eusteko arazoak bazituen ere, iritsi zen azkenik, eta, komunaren aho-zuloan makurtu bezain laster bota zuen **moxala**. **Aritz Gorrotategi**

## moxkor 1 *izond* adkor mozkorra.

Oso ondo genekien zer zen mozkortzea, nor ziren herriko **moxkorak**, nola iristen ziren horretara eta zein ziren horren ondorioak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ilunabarrean, atera dira denak herritik, **moxkor** samarrak, eta bidean txahala botatzera ere gelditu da baten bat. **Koro Navarro**

2 irud/hed

Gauerdi edo goizalbarean batean euri pittin **moxkor-moxkor** horietako erauntsitxo bat botata ere, ez legoke gaizki: kirats batzuen kutsadura garbitzeko aproposa, eta karakoltxoak ateratzeko ere... **Pello Zabala**



## **moxkortu**, moxkor(tu), moxkortzen **1** da/du *ad* **adkor** apur bat mozkortu, txolindu. **ik poxtu 2; pinpirrindu.**

Mendiko zuhaiñek bazuten usain bat **moxkortzekoa**. **Pablo Sastre**

Ez genuen bigarren botilaren beharrik izan, lehena amaitu orduko **moxkortua** baitzinen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## **2 moxkor-moxkor egin**

Marta batez ere, **moxkor-moxkor** eginda **Xabier Mendiguren Elizegi**

## **moxkortzio** *iz adkor* mozkorra.

Hala ere, tabernan bakarrik gelditzeak ito egiten ninduen, eta azken galziano **moxkortzioari** debalde ematen nion edaten bere penak eta morriñak konta ziezazkidan.

**Xabier Mendiguren Elizegi**

## **moxkote** *izond adkor* mozkote. -

Bettan mutiko **moxkotea** izan da betidanik -eransten zuen amak, berri gabezia ulertzeko eta onartzeko. **Itxaro Borda**

Han bizia egiazki zer den ikasiko din hire alaba **moxkote** nazkagarri horrek. **Itxaro Borda**

Lastotan horrenbeste garatu gabe, alegia, apalxeago eta **moxkote** gelditu arren, galburutarako edo artaburutarako egoki askoak agertzen ziren gari lasto zumitzeko eta artakozkor sendokote haiek, artaburu pareta alde banatara zutela. **Pello Zabala**

## **moxorro 1** *iz adkor* mozorroa.

Errioxa eta Nafarroako Erribera alde horretan berebiziko matxinsalto izurritea sortu omen zen: alor guztiak gorri-gorri uzten ari omen zen zoritzarreko **moxorroen** erasana.

**Pello Zabala**

Gauza jakina da, txantxangorria edur egunetan, gose delako, **moxorrorik** ezin topatuz, etxe barrura sartzen dela. **Pello Zabala**

## **moxorrotu** *izond* mozorrotua.

Nabarmen da hor, jitoen lapurketako hizkera erdisorgin erdilizun **moxorrotua**. **Patziku Perurena**

## **moxtade** *iz adkor* moztasuna.

Honek gauza bakarra erakusten du: euskalarien **moxtadea**, beren ama hizkuntza omen dutenekoari erroak bilatzeko senik eta jakite indarrik eza. **Patziku Perurena**

*Garizuma aurretik, garizuma atzetik, garizuma beti bustia!* ernegazio puntturen bat ere egon daiteke esaera horretan disimuluan: nola esaten den izango da kontua, baina, *garizuma* horrek neguaren **moxtadeak** adierazten ote dituen susmoa hartzen diot nik, atzetik, aurretik eta beti horiei itxaropen gutxi kabitzen ote zaien... **Pello Zabala**

## **moxte** *iz ipar* mozte.

Gero heldu zen mahasti **moxtea**, mahats aixurrekin, behargabeko aldaxkak kenduz, golkoak izan zitezen ederragoak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Euskaldunak bazuen, ardi **moxteetan**, ardiei ile guziki pikatzeko ohitura. **Eneko Bidegain**

Jacques Blot mintzatuko da [...] Euskal Herriko ohiduretz, berezikiago mendi eskualdetakoetaz: ardi deitze, ile **moxte**, iratze pikatze, mendiko sute, artzain joko eta bertze...

**Herria**

Artisauen erakusketa, ardi ile-**moxte** xapelgoa, artzain xakur xapelketa. **Herria**

## **moxtu**, motx/moxtu, moxten du *ad ipar/adkor* moztu.

Xakurrak ardiak kortxilan sar araz eta artzainaren lagunek ardi horiek behar dituzte **moxtu** zoinek hobeki, hoberenek biharamunean berriz finalerateko lekuaren segurtatzeko.

**Herria**

Ezin etsiz, Maimurko askaren aurrean eskuratu dut atzenezan xorta bat; **moxtu** erdiko xuxtarretik eskuinez, galdur txuria baino hamabosten bat zentimetro beheragotik, eta ezkerrekora bilduz. **Patziku Perurena**

## mozanbikear ik **mozanbiketar**.

## **mozanbiketar** (*orobat mozanbikear*) *izlag/iz* Mozanbikekoa, Mozanbikeri dagokiona; Mozanbikeko herritarra.

Lau izen aipatu behar dira guztien gainetik: Maria Lourdes Mutola **mozanbiketarra**, Gail Devers estatubatuarra, eta Tatiana Lebedeva eta Yelena Isinbayeva errusiarrak.

**Berria - Kirola**

**Mozanbiketarrak** eta kubatarrak bost aldiz irabazi dute urrezko domina, 800 metroak eta luzera jauzian, hurrenez hurren. **Berria - Kirola**

## **mozarabe** *iz* mozarabiarra.

Begien aitzinean dauzkat, kaskoa belar tustek apaindurik, kapera, eta ere X. mendeko monasterio **mozarabe** baten aztarnak, edo bederen haien oroitzapena. **Piarres**

**Aintziart**

## **mozartiar** *izond* W.A. Mozarti dagokiona.

Rossiniaren obra **mozartiarra**. **Berria - Kultura**

Bertsio **mozartiar** txukuna. **Berria - Kultura**

## **mozdade** *iz* moztasuna.

Halako bidaia baten ondotik **mozdadea** da, gero, oroigarririk ez izatea -Preteritok, niri. **Patxi Zubizarreta**

## mozdun izlag motzeko.

Irudimenaren eraso kiskalgarriak erakutsi dizkio tenisean ari ziren gona **mozdun** neskatoak, kamerari aluak erakutsi ondoren bururik gabe Tigris ibaira botata. **Pako Aristi**

## mozio (orobat *mozione g.er.*) 1 iz higidura, mugimendua.

Horrez gainera, beste hainbat hagaxka eta danbor jartzen dira, era berean horzkatuta eta **mozio** -indar berberarekin eraginda, eta biraka ibiliz hainbat eratako efektu eta mugimenduak sortzen dituzte. **Santiago Iruetagoiena**

### 2 batzorde erabakitzaile batean kide batek egiten duen proposamena.

Hauteskunde Batzordearen aurkako **mozio** bat ere onartu zuten legebiltzarkideek. **Berria - Mundua**

Izaitokotz ere, hori liteke hurbilketaren aldeko **mozioa** izenpetu duten kontseilariak egin lezaketena. **Herria**

Legebiltzarrak hedabideen alde onartutako **mozioa** kritikatu du Segik. **Berria - Euskal Herria**

Udalbatzak bi **mozio** onartu zituen. **Berria - Euskal Herria**

EAJ-EAk, Udalean gehiengo osoa duenak, beste **mozio** bat aurkeztu du. **Berria - Euskal Herria**

**Mozioari** osoko zuzenketa bana aurkeztu zioten hirukoak eta PSE-EEK. **Berria - Euskal Herria**

PPK eta PSE-EEK **mozio** horren aurka egin dute, eta Asier Aranbarri Azkoitiko alkateari **mozioa** bertan behera uzteko eskatu diote. **Berria - Euskal Herria**

Elorzaren **mozioa** atzera bota, eta euren onartu dute EAJ-EA eta PPK. **Berria - Euskal Herria**

Atxilotuei buruzko **mozioa** Ordiziako udalbatzan. **Berria - Euskal Herria**

Atxilotetak salatzeko **mozioak** eta elkarretaratzeak izan dira. **Berria - Mundua**

IUN-NEBen **mozioaren** bi punturen kontra bozkatzeko arrazoitzat hauteskundeak jo zituen UPNk. **Berria - Euskal Herria**

Nafarroa Bai koalizioa osatzen duten alderdiek Legebiltzarrean zein udaletan **mozio** bateratua aurkezteko deia egin zuen. **Berria - Euskal Herria**

Biltzar nagusiaren kariatarat. **mozio** hau bozkatu du Euskal-Konfederazioak: [...]. **Herria**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Holako **mozio** proposamenak badira hamarnaka edo ehunka hilabetero, eta ez dira denak heltzen legebiltzarkide guztiengana. **Berria - Euskal Herria**

Kontseilū orokorrak **mozione** proiektū bat presentatzen bazūan... **Herria**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Batera-ko biltzar nagusian aztertuko duten sintesi **mozioak** ondoko urteetako ekimenak aipatzen ditu. **Berria - Euskal Herria**

Kondena-**mozioa** egin behar al da? **Pablo Sastre**

PSE-EEK udalaxe guztietan gaitzespen **mozioak** aurkeztuko dituela iragarri du. **Berria - Euskal Herria**

Laguntza **mozioarekin** erantzun die Udalak. **Berria - Harian**

### 5 konfiantza mozio

Ramosi esker lortu zuen Macapagal Arroyok iaz agintean jarraitzea, oposizioak haren aurkako **konfiantza mozioa** aurkeztu ostean. **Berria - Mundua**

1998ko urrian ez zuen **konfiantza mozioa** gainditu Legebiltzarrean, eta kargua utzi behar izan zuen. **Berria - Mundua**

Ondoren, **konfiantza mozio** bat irabazi zuen Millerrek, baina erreformak aurrera ateratzeko zailtasun handiak izan ditu. **Berria - Mundua**

1996an ere irabazi zituen bozak Prodik, baina handik urte eta erdira kargua utzi behar izan zuen **konfiantza mozioa** galduta. **Berria - Mundua**

### 6 zentsura mozio

Frantziako Gobernuaren jarrera gaitzetsi eta datorren astean **zentsura mozioa** aurkeztuko dute sozialistek. **Berria - Ekonomia**

Epelak zuntzen zituen, eta bi **zentsura mozio** ere gainditu behar izan zituen. **Berria - Harian**

Janukovitxen gobernuari aurkariak jarritako **zentsura mozioa** arbuia du Legebiltzarrak. **Berria - Mundua**

Parlamentuak baztertu egin ditu Sharonen aurkako **zentsura mozioak**. **Berria - Mundua**

Joan den ostiralean «itxiera eta pribatizazioaren aurkako» **zentsura mozio** bateratua onartu zuten. **Berria - Ekonomia**

Rabanerak dio PSE-EE **zentsura mozioa** mehatxu gisa erabiltzen ari dela. **Berria - Euskal Herria**

Txirotasuna geroz eta handiagoa denez, Israelgo Alderdi Laborista **zentsura mozioa** aztertzen ari da Legebiltzarrean aurkezteko. **Berria - Mundua**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kontrako zentsura mozio (3); mozio bat aurkeztu (9); mozio bat onartu (9); mozio baten bidez (3); mozio bateratua (5); mozio onartu (3); zentsura mozio (21)

aldeko mozioa (15); aldeko mozioa aurkeztu (4); aldeko mozioa onartu (5); aurkako mozioa (13); aurkako mozioa aurkeztu (3); aurkako zentsura mozioa (12); aurkeztutako mozioa (8); eskatzeko mozioa (3); eskatzen duen mozioa (10); eskatzen zuen mozioa (3); konfiantza mozioa (6); konfiantza mozioa aurkeztu (3); kontrako mozioa (3); kontrako zentsura mozioa (4); mozioa arbuia (5); mozioa atzera bota (6); mozioa aurkezteko (8); mozioa aurkeztu (37); mozioa aurkeztu zuen (15); mozioa aurkeztuko (18); mozioa aurkeztuko dute (5); mozioa aurrera atera (3); mozioa babestu (3); mozioa dela eta (3); mozioa hitzartu (3); mozioa izenpetu (4); mozioa onartu (25); mozioa onartu zuen (8); onartutako mozioa (6); zentsura mozioa (64); zentsura mozioa aurkezteko (6); zentsura mozioa aurkeztu (3); zentsura mozioa aurkeztuko (10)

aldeko mozioak (3); aurkako mozioak (6); aurkako mozioak aurkeztuko (4); aurkeztutako mozioak (7); mozioak aurkeztu (4); mozioak aurkeztuko (15); mozioak aurkeztuko dituela (3); mozioak aurkeztuko dituzte (10); mozioak onartu (4); onartutako mozioak (8); zentsura mozioak (5)

aurkeztutako mozioan (3)

aurkeztutako mozioaren (5); mozioaren alde (8); mozioaren arabera (3); mozioaren aurka (5); mozioaren aurka bozkatu (3); mozioaren berri eman (3); zentsura mozioaren (8)

mozioari ezezkia eman (3)

## mozione ik mozio.

## mozke iz meskita.

Jendea metatua, **mozkeetan**, otoitzean. **Herria**

## mozkera iz mozteko era.

Ekialdeko mundu zaharretik hasi eta mendebaleko berriraino, ilearen **mozkerak** eta orrazkerak, nortasun eta jerarkia jakinak sinbolizatuko ditu. **Patziku Perurena**

## mozkeria iz moztasuna, gaitzesgarritzat markatua.

Horixe da izadiak (zinezko biziak) erakusten digun gauzarik ederrenetakoa: gure sekreturik inork plajiatu ezina, edo nahinolako sortzaile berrion **mozkeria** harroa. **Patziku**

## mozketa 1 iz moztea.

Greenpeacek berak kableen **mozketa** "ekintza bortitza" izan zela erran eta gogor salatu zuen. **Edurne Elizondo**

Abel atzerago dago, gordeagoa, **mozketatik** libratu diren haritz bakanen artean. **Pello Lizarralde**

Pusketak desberdinak suertatu ziren, **mozketa** ez zelako tolesduraren arraia zuzenetik joan. **Bernardo Atxaga**

Istorio polit batzuk gogoratzen ere ahalegintzen zen, **mozketa** egiten zuen bitartean neskari kontatzeko. **Xabier Aranburu**

Etzanda jarritako 45 ontzako enberrari hamar **mozketak** egiten bizkorrenak Estibalitz Montoya eta Lorea Polvorosa arabarrak izan ziren. **Berria - Kirola**

Altzairu herdoilgaitzeko **mozketarako** bi lerro ekoitzioko ditu 20 milioi euroren truke, automatizazio eta errendimendu handikoak biak. **Berria - Ekonomia**

Begiratu batera **mozketak** gillotinatzen egina bazirudien ere, ez zen eskuinaldekoa bezain zuzen eta zehatza. **Anjel Lertxundi**

Albaitaririk gabe egindako **mozketa**, seguru asko. **Gotzon Garate**

## 2 irud/hed

Gizarte asegurantzan eta langileen eskubideetan **mozketa** handiak aurreikusten. **Berria - Mundua**

ERCK otsailaren 18an gizarte katalanari **mozketarik** gabeko Estatutu bat defendatzera joateko deia egin dio. **Berria - Mundua**

Nire **mozketa** ikusita Ixaskunek ulertu du, eta ez du beste galderarik egin. **Txillardegí**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mozketa** moten artean aukeratzeko aritu nintzen, eta buruaren gorenean ontzi bat ipinita egiten zen hura aukeratu nuen; ontziaren inguruko guztia mozten zen. **Juan Kruz Igerabide**

Deus aldatzen ez bada, irailean kontuak egiten dira eta **mozketa** partidak jokatu beharko dira. **Berria - Kirola**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bestetan baino arreta handiagoz hasi nintzen bizar **mozketan**. **Txillardegí**

Garbiketa eta bizar-**mozketa** lanetan. **Juan Luis Zabala**

Inolako erlijio ez ditu lepo **mozketak** baimentzen. **Berria - Mundua**

Nik neuk agindu behar izan nuen zuhaitz-**mozketa**, baita oholezko euskarriaren eraikuntza ere, autoaren azpialderaino iritsi ahal izateko. **Joxe Austin Arrieta**

Gari, ardo eta olioaren hasikinak eta ardi-**mozketako** lehen artilea ere beraiei emango zaizkie. **Elizen arteko biblia**

Oihal-denda baten jabe zen merkataria, eta ardi-**mozketa** bere aurrean egin zezaten nahi izaten zuen, faltsifikazioak saihestearren-edo. **Xabier Aranburu**

Ile-**mozketak** hainbeste beldurtzen ditu ardiak, zuri eta argal geratzen dira, eta libre geratu bezain laster berriro hasten dira belarra hozkatzen. **Julen Gabiria**

Paper **mozketaren** teknikaren sekretuak aztertzeko. **Berria - Kultura**

Kovacevicek baso **mozketan** erabilitako motozerra baino kamustuagoa baitu golak lortzeko sena. **Berria - Kirola**

Lehen orduetan argindar **mozketek** eragindako leherketak izan zirela zabaldu zuten, baina aurki argi geratu zen atentatuak izan zirela. **Berria - Harian**

Auto-bonbak izan dira, hauteskundeak, manifestaldiak, presoan gose-grebak, baraualdiak, bide-**mozketak**, ekitaldiak, oihuak, haserreak, deskalkifikazioak, dimisio-eskaerak, lantzuak, negarrak, malloak, amorruek... **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Demokratek beraiek, aurrekontu **mozketen** eta bidegabeko kritiken bidez, 1990eko hamarkadan gainbehera utzitako inteligentzia sistema leheneratzen saiatzen ari da Bush. **Berria - Mundua**

Soinu **mozketak**, muntaketak, arrabotsak gibelean ezarri, musikak josi, ikaragarriko lan bat egin du hor. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ardi mozketa** (5); **kableen mozketa** (7); **mozketa egiten** (3)

**ile mozketak** (3)

**baso mozketa** (3)

## mozketaldi iz mozketa.

Errepide probintzialaren **mozketaldia** ezin hobeto zihoan: autoak heldu eta gelditzen ziren, autozaleak biraoka hasten ziren, buelta eman zortzi-bederatzi kilometro atzera eta bigarren mailako errepideetatik abiatzen ziren, itzulgingura eginez. **Koldo Biguri**

## mozkin 1 iz etekina, irabazbidea.

Enpresaren gizarte erantzukizun bakarra **mozkinak** lortzea da. **Berria - Ekonomia**

Biztanleriaren gehitzea zela-eta, jaisten ari ziren kapitalaren **mozkinak**, biztanleen ugaltzearen ondorioz emankortasun gutxiagoko lurak landu behar baitziren. **Koro Navarro**

**Mozkinak** ez ziren sortutako lekuan bertan inbertitzen, askotan enpresa multinazionalen sortzerietara itzultzen baitziren. **Koro Navarro**

Gobernua eta SLM/A petrolioaren **mozkinak** banatzeko ituna egin zuten. **Berria - Mundua**

Bere azukre-kanabera eta kafe soroek **mozkinak** ematen zizkieten, eta berak atseginez erretzen zuen bere eskuz hazitako tabakoa. **Juan Garzia**

Baratzeak ttipiak ziren eta, eguraldiarengatik, **mozkin** guti ematen zuten. **Elena Touyarou**

BBVAk 2.227 milioi euroren **mozkinak** lortu zituen iaz, %29,5 gehiago. **Berria - Ekonomia**

Frantziak, halaber, Txinak azken garaiotan duen ia %10eko hazkundearen **mozkinak** jasotzea espero du. **Berria - Mundua**

Volkswagenen **mozkina**, ordea, %44 jaitsi da. **Berria - Ekonomia**

Akzioko **mozkina** 0,29 euro izan da eta akzioak 24,42 euro balio du. **Berria - Ekonomia**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hala ere, **mozkin** txikia egin dute: hirurehun rand baino gutxiago. **Oskar Arana**

Antxoarekin «**mozkin** handiak» izaten zituzten kontserba enpresek. **Berria - Harian**

Aurten **mozkin** garbiak 222 milioi euro izatea espero du, eta datorren urtean, 214 milioi. **Berria - Ekonomia**

Salmentak enpresak irailean zuten **mozkin** pilatuaren %26,6ko gainbalioa suposatu duela esan zuen. **Berria - Ekonomia**

Gas Naturalek 2009an 1.200 milioi euroko **mozkin** operatiboa izatea aurreikusten du. **Berria - Ekonomia**

Ohiz kanpoko **mozkinak** eta sarrera-hesi gogorrak izatea da merkatu horien ezaugarria. **Koro Navarro**

Gas Naturalek %16 hobetu du aurten lehen hiruhileko **mozkina**, 277 milioi eskuratuz. **Berria - Ekonomia**

Norbait hiltzen delarik, alargun edo alarguntsak haren erretretaren erditua hunkitzen ahal du, nun ez dituen berak ba **mozkin** pizkorrek eta ere nun ez den berriz esposatzen... **Herria**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Industriako **mozkin**-tasak jaitea. **Koro Navarro**

Dena den, **mozkin**-zerga apaldu dute % 5-ez. **Herria**

Orduan, enpresek ere, beren **mozkin** -tartea babeste aldera, atzera berriz prezioak gotzen dituzte. Izan ere, teknologiak zabaltzen dituzte etengabe merkatu berrien eta

**mozkin** -iturri berrien bila ibili beharrak. **Iñaki Heras**

**Mozkin** aurreikuspen ezkorrik, bederen, ez da entzuten. **Berria - Ekonomia**

Erdi Aroko eta Berpizkundeko europar bankarien eliteari askoz ere **mozkin** -aukera erakargarriagoak eskaintzen zizkieten estatuen finantzaketa -premiekin ohiko jardueren baino. **Koro Navarro**

Sabadell (- %1,05) bere **mozkin** helburuak bete arren, sasieta kateatu zen. **Berria - Ekonomia**

## 4 ekoizkina, produkua.

Elizako sartzetik hurbil ziren saltzaileak, mota bereziko **mozkinak** zituzten salgai. **Ramuntxo Etxeberri**

Farlopa, esan zuen Pikutak, **mozkin** ederrekoa duk; kolpe batean, lau bost kilo ekarri, bizimodu ederra. **Pablo Sastre**

Holako kuia, **mozkin** ederra, 49kg 500. **Herria**

Etxeko **mozkin** eta artisau-ofizialeen lan-erakusketak. **Herria**

Egoeraren sumintze honek eraginik izan du kakaoaren esportazioan ere: Boli Kosta da **mozkin** horren munduko ekoizle handiena, baina kakao esportazioak atzo etenda zeuden. **Berria - Mundua**

Alabainan hortik iragaiten zituzten mendiko **mozkinak**. **Herria**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Agertzen ahalko dire baserrietako **mozkin** ekoizle guziak. **Herria**

Aste undar osoan, Britainiako lan eta **mozkin** erakusketa. **Herria**

Baitezpadakoa baitzen leku hark **mozkin** -biltegi baten itxura ukan zezan. **Elena Touyarou**

Laborarien **mozkin** merkaturia Jondonaneko auto lekuan izanen da larunbatetan. **Herria**

Ostalerek ere **mozkin** emendatze bat ukan dezakete eta orduan karrikaren animazioa dela erran dezakegu. **Herria**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bada hor tokiko ekoizpen andana bat: bio-**mozkinak**, arrainkiak, gasna, ahate gibela, bertzeak bertze. **Herria**

Horgo ferietan bazen kabala, tresneria, nekazal produktu edo laborari **mozkin** ainitz. **Herria**

Xoko batean zaudela ere etxe-**mozkin** mahainak: gasna, bixkotx, ezti, erreximenta... **Herria**

9.00-tan, etxe-**mozkin** feria. **Herria**

## 7 ebakina.

Eta, ahaztekotan, kazeta-**mozkinak** irakurtzeari ekin nion. **Txillardegi**

Tarteka-marteka eskaintzen dizkigu estatistikak, prentsa **mozkinak**, lekukotasunak... **Pablo Sastre**

- Begi parean orraziak eta artaziak ikusi ditudanean, begiak zarratu eta ile **mozkinak** klik klik erortzen zaizkit lepo eta bular gainera. **Joseba Sarrionandia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

enpresen **mozkin** (4); etxe **mozkin** (10); etxe **mozkin** merkaturia (3); euroko **mozkin** (8); euroko **mozkin** garbia (3); kutxaren **mozkin** (4); milioi euroko **mozkin** (7); **mozkin** berri (3); **mozkin** garbia (9); **mozkin** garbia izan (3); **mozkin** garbiak (7); **mozkin** handiak (4); **mozkin** hazkunde (3); **mozkin** merkaturia (4); **mozkin** onak (3); **mozkin** zerga (18); **mozkin** zergaren (5)

enpresaren **mozkina** (3); euroko **mozkina** (5); euroko **mozkina** lortu (3); milioi euroko **mozkina** (3); milioiko **mozkina** (3); **mozkina** lortu (4)

egun hortako **mozkinak** (3); enpresen **mozkinak** (5); etxe **mozkinak** (3); etxeko **mozkinak** (3); euroko **mozkinak** (7); ezohiko **mozkinak** (3); kalitateko **mozkinak** (4); lekuko **mozkinak** (4); milioi euroko **mozkinak** (5); **mozkinak** izan (3); **mozkinak** lortu (3); **mozkinak** lortzea (3)

enpresen **mozkinen** (6); etxe **mozkinen** (3)

**mozkinik** handienak (3)

## mozkinbide iz mozkinak lortzeko bidea.

Hauk berek erakutsi nahi izan dute [...] ez dutela nahi herriko **mozkinbideetarik** bazter utziak izan. **Herria**

Luhuso bezalako herri batean bizpahiru familia direla orai laborantzatik bizi eta bakarrik laborantzatik, beste laborari guzietan bigarren ofizio bat ukanki edo beste **mozkinbide** zerbait... **Herria**

## mozkindu, mozkin(du), mozkinzen du ad murriztu.

Arbola **mozkinzen** ari zen, bere auzo eta adixkide bat laguntzea gatik. **Herria**

## mozkingune iz mozkinen gunea.

Filial bakoitza berezko **mozkingune** da, eta harreman bertikalak ditu enpresa amarekin, baina ez du harremanik batera izaten beste filialekin. **Koro Navarro**

## mozkintsu izond mozkin handikoa.

Zer da untxi txar bat gaurko egunean? hau ordaindu berri bat erosi eta kitto; piaia **mozkintsu** ateratzen da. **Herria**

## mozkor 1 izond maiz mozkorturik egoten dena; mozkorturik dagoena. ik mozkortu; hordi.

Hura ez zen gizon **mozkor** baten oihua. **Koro Navarro**

Lingerie kaleko postuan, soldadu **mozkor** batzuek fusilatu nahi izan zuten. **Karlos Zabala**

Bere burua mantentzen ere ez zekien kaiku **mozkor** batekin ezkondu zen. **Josu Zabaleta**

Nerabe **mozkor**, trabestitu eta prostitutu izatetik kultuzko idazle goiztiarra izatera pasatu zen. **Berria - Kultura**

1903. urtean, *The Penguin* itsasontziko bidaiari **mozkor** batek tiro egin omen zion. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

-lito **mozkor** geihegi zegok. **Koro Navarro**

Esna zaitezte, **mozkor** horiek, eta egizue negar! **Elizen arteko biblia**

Diruzale, sasijainkozale, izen onaren kentzaile, **mozkor** edo lapur direnekin ez elkartzeko. **Elizen arteko biblia**

Munstroa... munstro **mozkor** halakoa! **Xabier Paya**

Ikusi al duzu zakur **mozkorrik**? **Gotzon Garate**

Gizon heldu **mozkor** bat hari musu emateko ahaleginetan... **Lopez de Arana**

Zigarro kea, foku-argiak, **mozkor** -jendea, tzunda-tzunda musika. **Fernando Morillo**

## 2 (beste izenondo batekin)

Alkoholak egiten dio gainezka orain, ez maiteminek, ohiko **mozkor** begigorri alkoholetan blaituen ondoan. **Iñaki Iñurrieta**

Mutil onak ziren, baina **mozkor** porrokatuak. [Jose Morales](#)  
Mujik horiek, lapur hutsak eta **mozkor** porrokatuak ez badira, alfer gorotzak eta liskarziale amorratuak direla. [Jose Morales](#)

**Mozkor** itxurosoak, hori bai, mozkorrek ez balira bezalakoak. [Alberto Barandiaren](#)

Gure herri **mozkor** ustel zabar hartan matxinada antolatuko zuen buruzagia. [Koldo Izagirre](#)

### 3 (erkaketan)

Eta egunetan egon zen segidan zahatoa bezain **mozkor**. [Josu Zabaleta](#)

### 4 irud/hed

Zergatik ez dakizula halako zorion gainezkako eta atxikiezin batez, halako indar **mozkor** batez betetzen zaituzten bizipoz horietako batean. [Josu Zabaleta](#)

Bullockek begi-keinu bat egin eta esku **mozkor** bat inarrosi zuen. [Lopez de Arana](#)

Iluntasun argituan bere azeri aurpegi luze, gorri, **mozkor** hura erakutsi zidan, bere masail-bizar laztuak eta sudur heze sentikorra. [Koro Navarro](#)

Bizitza eragabe, lizun eta **mozkorra**. [Jose Morales](#)

### • 5 (predikatu edo adizlagun gisa)

-Bai, **mozkorra** nago. [Joseba Sarrionandia](#)

Aita beti **mozkor** egoten zela eta ama beti haserre, negarrez edo telebista ikusten. [Eider Rodriguez](#)

**Mozkor** balego bezala kulunkatu zen, ezpata beti eskuan. [Aingeru Epaltza](#)

**Mozkor** egonda ere, ez dago eskubiderik norbait jipoitzeko. [Berria - Ekonomia](#)

Sobera **mozkor** arribatu nintzen, ordea, aspirinak gogoan izateko. [Aingeru Epaltza](#)

Afaria izanda nuen lankideekin, eta **mozkor** samar iritsi nintzen pisura. [Iban Zaldúa](#)

Goizetik ere **mozkor** samarturik baitzebilen. [Josu Zabaleta](#)

Eta hantxe jarraitzen zuen, musuz behera, **mozkor** zerraldo. [Josu Zabaleta](#)

Hamaika urte irago dira, krudelkaria, ebaskeria eta gaiztakeria gaiztakeriaren gainean, eta 1261ko Santa Barbara gauerdian **mozkor** gorotz eginak daude ardangelan bandolero guziak, Bidaurreko Corbaran jaun gazteluzaina buru dutela. [Patziku Perurena](#)

### 6 (izen gisa)

Lo egiten dutenek gauetz egiten dute lo, eta **mozkorrak** gauetz dira mozkortzen. [Elizen arteko biblia](#)

Tabernari hitz-jario batekin eta txanoa zapaldua zeraman **mozkor** batekin. [Koro Navarro](#)

Bost geunden departamentuan, gu hirurok eta musika entzutearekin batera guregana bildutako bi **mozkor**. [Bernardo Atxaga](#)

**Mozkorrak** errebolber bat zeukan. [Anton Garikano](#)

**Mozkor** batek hil omen du. [Pako Aristi](#)

Nazien alde jarriko dira **mozkor** horiek. [Koldo Izagirre](#)

Lagundu egin beharko didak **mozkor** hau etxera eramaten... [Unai Iturriaga](#)

Chateau-d'Eau-ko plazan, hala ere, ia-ia topoz topo jo ninduen **mozkor** batek, eta han nonbait galdu zen. [Josu Zabaleta](#)

Ipotx konkordunak, aurpegi gorriko **mozkor** eroak. [Aritz Gorrotxategi](#)

Sinesten dinat denok gure barruan ume bat eta pailazo bat eta **mozkor** bat dugun bezala, faxista bat ere badugula. [Harkaitz Cano](#)

Gazteak nahiz zaharrak, indartsuak nahiz ahulak, **mozkorrak** nahiz lehorrak, osasuntsuak nahiz gaixoak. [Oskar Arana](#)

### • 7 iz mozkorraldia.

Zein **mozkor** erotan murgiltzen zaituzten, zer nolako espasmo sutsez astintzen. [Josu Zabaleta](#)

Mintzatu gabe ere, zealdoak salatzen zion **mozkorra**. [Aingeru Epaltza](#)

**Mozkor** itzela harrapatuta ez da ezer konpontzen. [Unai Iturriaga](#)

Goazen **mozkor** eder bat harrapatzera. [Lopez de Arana](#)

Urtean lauetan baizik ez zen jausten Maulerat, bere astoarekin, eta aldi oroz **mozkor** handi bat biltzen. [Herria](#)

Johnnyk **mozkor** ederra bildua zuen, baina ez egiten ari zena ez jakiteko adinakoa. [Fernando Rey](#)

Hitz egingo dugu **mozkorra** joaten zaizunean, Pantxo. [Bernardo Atxaga](#)

-Etxera joan eta lo egin ezazu, **mozkorra** pasatu arte! [Anton Garikano](#)

Gure heroiak dena bakarrik konpondu nahi zian, dena ezkutatu, gero beldurrak uxatzeko **mozkor** negargarri bat harrapatu... [Unai Iturriaga](#)

Atxur ganorabako bat, **mozkor** indezentea... [Unai Iturriaga](#)

Baina **mozkor** tristekoa naiz. [Bernardo Atxaga](#)

Agureak, ostera, ez zuen **mozkor** zantzurik ageri. [Jon Arretxe](#)

### 8 irud/hed

"Borroka **mozkorra** ... [Josu Zabaleta](#)

" esaten da, bizitzaren **mozkorra** da! [Josu Zabaleta](#)

### 9 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Parte txarreko **mozkor** aurpegiak. [Fernando Rey](#)

Ezpainetan itsatsita gelditu zaizu Koldoren **mozkor** zaporea. [Sonia Gonzalez](#)

Ordurako minez zeukan bihotza, **mozkor**-barrearen, ardo-eskaintzen eta dantza eroaren eraginez. [Jose Morales](#)

Goizera arte luzatuko dira **mozkor** kantak eta eztabaida ia akademikoak. Isildu eta Jimmyri adi-adi begira geratu zitzaien, **mozkor**-begiez. [Joseba Sarrionandia](#)

-Jimmy! -oihu egin zuen **mozkor**-ahots batek-. [Lopez de Arana](#)

**Mozkor** pausoak eman ditu haranzkoan eta honanzkoan. [Joseba Sarrionandia](#)

Ortizal gaueko **mozkor**-bestaren amaiera aldrebesa. [Aingeru Epaltza](#)

-Begiak gorri zeuzkan hainbeste lo-galtzez eta hainbeste **mozkor**-laguntzan ibiltzez, haiekin mozkortuz. [Juan Garzia](#)

### 10 **mozkorrik** mozkorturik.

-**Mozkorrik** zagon -esan zuen gizonak. [Juan Garzia](#)

Jo pianoa **mozkorrik**, perkusio tresna baillitzan, harik eta hatzak apur bat odoldu arte. [Harkaitz Cano](#)

**Mozkorrik** lo zurrun datzala. [Juan Garzia](#)

Barre erraza zuten emakume guztiek, baina ez zeuden ez konturatze bezain **mozkorrik**. [Josu Zabaleta](#)

-Marioloka talde honetan malkorik ez da izango; eta izatekotan, denok batera egingo diagu negar, mozkor-**mozkorrik**. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

### 11 **mozkor arrail** erabat mozkor. ik **arrail 3**.

Sabelak ongi beteta, **mozkor arrail**, beren buruari zutik eutsi ezinik. [Imanol Zurutuza](#)

Arrano beltzaren tabernan nire egoera hauskor berean baitzeuden naufragiotik eskapaturiko dozena eskas bat **mozkor arrail** erabat deskontzertaturik. [Patziku Perurena](#)

Agian ni **mozkor arraila** nagok eta mamuak ikusten ari nauk baina, ez duka hor aitzinean zuhaitzez besterik ikusten? [Pablo Sastre](#)

### 12 **mozkor arraildu**.

**Mozkor arraildua** nago. [Joxe Austin Arrieta](#)

Eskaileretan behera abiatu zen, **mozkor arraildua** egonik ere, biraoka, hamasei solairuak oinez jaisteko prest. [Joxe Austin Arrieta](#)

Bi-biak gelditu ginen, besoz beso, **mozkor arrailduak** eta familiari bibaka. **Aingeru Epaltza**

Nik gutxitan inor ikusi bezain **mozkor arraidurik**. **Fernando Rey**

Horien xapladak bizkarrean, eta horien baikortasuna, **mozkor-arrailtzen** diren arte. **Joxe Austin Arrieta**

**Mozkor arrailtzen** da ahal duen guziz, erran nahi baita argiarentzat erretzeko alkoola ukaiten duelarik. **Marzel Etxehandi**

## 13 mozkor eginda

Gaua heldu aurretik **mozkor eginda** egoten da, tabernetakoei zein kalean topatzen ditueni istorio zaharrak kontatzen. **Paddy Rekalde**

Gazte ingelesek, **mozkor eginda**, tabernari espainiarrak iraintzen zituzten. **Lutxo Egia**

## 14 mozkor-mozkor

Cafougnette **mozkor-mozkor** itzultzen zela etxera futbol partida baten ondoren. **Josu Zabaleta**

Eta hauek dituzue haren ohe-sabaiko oihalak, hura, **mozkor-mozkor** zetzala, estaltzen zutenak. **Jose Antonio Mujika**

Artean telefono kabinaren alboan nengoela, indiar bat **mozkor-mozkor** egina inguratu zait, eta sosik emango ote nion galdegin dit. **Patxi Zubizarreta**

- **Mozkor-mozkor** eginda hago! -esan zion Txitikovek. **Jose Morales**

Nini zen, **mozkor-mozkor** eginda, eguzkiz eta ardoz gainezka. **Josu Zabaleta**

Ez zenuke nahiko zure neba **mozkor-mozkor** eginda agertzea mezetara, ezta ba, Allie? **Mirentxu Larrañaga**

Batzuetan, **mozkor-mozkor** eginik iristen ziren bulegora. **Jose Morales**

Soldaduen besoetatik eskegi zen, oinak herrestan, **mozkor-mozkor** eginik balego bezala. **Jose Morales**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**beti mozkor** (3); **gizon mozkor** (4); **herri mozkor** (10); **herri mozkor ustel** (10); **mozkor arraildua** (4); **mozkor eginda** (36); **mozkor eginda zeuden** (3); **mozkor eginik** (6); **mozkor galanta** (3); **mozkor mozkor** (49); **mozkor mozkor eginda** (34); **mozkor mozkor eginik** (6); **mozkor porrokatuak** (3); **mozkor samar** (4); **mozkor ustel** (10); **mozkor ustel zabar** (6)

**mozkorra harrapatu** (8); **mozkorra harrapatzea** (3); **mozkorra harrapatzen** (3); **mozkorra nago** (4); **mozkorra pasatu** (9); **mozkorra pasatu arte** (4); **mozkorra pasatzen** (4); **mozkorra zegoen** (3); **mozkorra zela** (3)

**zure mozkorrik haundienaz** (3)

## mozkorgarri 1 izond mozkortzen duena. ik hordigarri.

Ez edan ardorik, ez beste edari **mozkorgarrik**, eta ez jan ezer kutsaturik. **Elizen arteko biblia**

Ez dut ardorik edan, ez eta inolako edari **mozkorgarrik** ere. **Elizen arteko biblia**

Kumyss hori behor eta gamelu esnez egindako edari bat da, edari bizigarria, baita **mozkorgarria** ere, eta Nikolas biziki poztu zen aurkikuntzarekin. **Karlos Zabala**

## 2 irud/hed

Metalen eskualdea **mozkorgarri** da: usnazakur fina nola, ehizaz beteriko oihan batean sartzean, lorratzik lorratz hasten baita jauzika, goitik beherainoko dardaraz eta aztoratu bezalakaturik. **Juan Garzia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**edari mozkorgarrik** (4)

## mozkorkeria iz mozkortzea; mozkortzen denaren bizioa. ik mozkortasun; hordikeria.

Parranda baino zehatzago izango da **mozkorkeria** esatea, edo, hitzaren kutsu moralista saihestearren, alkohola. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Mozkorkeria** ez zitaidan bihurtu maiztasun handiko ohitura, are gutxiago osasun-arazo, bizio edo menpekotasuna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zabarkeria, arduragebekeria, lapurreria eta **mozkorkeria** ziren han nagusi. **Jose Morales**

Prostituzioa, **mozkorkeria**, langile jendearen miseriak, burgesen itxurakeria... **Karlos Zabala**

Lasaikeria eta biziotan, jan-edan eta **mozkorkerian**. **Elizen arteko biblia**

Gero, jakin-mina aserik, **mozkorkerian** murgilduko zen samalda basati hura guztia. **Karlos Zabala**

-Zer, **mozkorkerian** hasita dagoeneko? noiztik? **Juan Garzia**

## mozkorraldi 1 iz mozkortzea; (norbait) mozkorturik egoten den denbora. ik hordialdi.

Taldean ondo hitz egiteko bizkorgarriren bat behar izaten zuen, baina kopa bat jerez hartzea sekulako **mozkorraldi** baten hasiera gertatzen zitzaion. **Koro Navarro**

Ardozko **mozkorraldi** eder batez ospatu dugu hitzarmena. **Juan Garzia**

**mozkorraldiak** aitari eginarazi zion heriotza bortitzak umearen bihotzean minxirria moduko atsekabe sakon bat sorrarazi zuen. **Pako Aristi**

**Mozkorraldiak** areagotutako apaltasun negarti batez hitz egin zuen gero: [...]. **Anjel Lertxundi**

-Ederki baliatu haiz nire **mozkorraldiaz**, ezta? **Juan Luis Zabala**

**Mozkorraldiari** darraion biharamuna bezalakoa. **Fernando Rey**

## 2 irud/hed

Hura amesgaiztoa zen, eraikitaren **mozkorraldiak** eragindako haluzinazioa. **Jasone Osoro**

Eguzkia jaikitzen denean oinez abiatu eta itsaso barearen ertzean sorotetan zehar ihintzetan ibiltzea, zer **mozkorraldia**! **Josu Zabaleta**

Hara bada, jainko madarikatua! korritzen ari naiz... zein **mozkorraldi** zoragarria!! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ohitu egiten gara, eta hasierako **mozkorraldi** kimiko-hormonal pasatu egiten da. **Luis Elberdin**

Hala, hitzeko **mozkorraldi** luzearen ondoren, egiten genuen aukeraren zuzentasunaz ziur [...] borrokalekura jaitsi ginen indarrak neurtzera. **Juan Garzia**

## 3 (hitz elkartuetan)

Betekada eta **mozkorraldi** sail bat besterik ez zen Praxkurentzat gerra. Informazio **mozkorraldi** honetan, besteek emango ez dutena emateko lasterketa ero horretan. **Koro Navarro**

Horri guztiari hormona **mozkorraldia** gehitu behar zaio: maitasunaren kimika. **Luis Elberdin**

## mozkorrarazi, mozkorraraz, mozkorrarazen 1 du ad mozkortzera behartu.

Akabo gaua! "gehiegi **mozkorrarazi** dut", pentsatu zuen Robertok ohean. **Aritz Gorrotxategi**

Berekin jatera eta edatera deitu eta **mozkorrarazi** egin zuen Davidek. **Elizen arteko biblia**

Zure zapaltzaileei beren okela janaraziko diet, beren odolez **mozkorraraziko** ditut, ardo berriz bezala. **Elizen arteko biblia**

Mesedez, mesedez, **mozkorraraz** zezala emakume gajo hura; mesedez, beti mozkortuta iraunaraz ziezaiola emakume gajo hari. **Mirentxu Larrañaga**

## 2 irud/hed

## mozkorriilo *iz adkor* mozkorra.

-Aizu, Sidolik ba al duzue? -egiten dio aldameneko **mozkorriiloak** zerbitzariari-. **Iñaki Iñurrieta**

"Kaixo, hi ere hemen?", esan dio aldameneko **mozkorriilo** begigorriaren irribarreak. **Iñaki Iñurrieta**

Baietz egiten dio buruaz aldameneko **mozkorriiloak**, bai hermano, perfetamente konprenitzen haut, ni ere hi bezala nagok. **Iñaki Iñurrieta**

## mozkortasun *iz* mozkorturik dagoenaren egoera.

Ertzaintzak 1.188 gidari atxilotu zituen iaz alkoholemia kontrolatan, bai legeak onartutakoa baino alkohol tasa handiagoa emateagatik, bai kontrolari uko egiteagatik, **«mozkortasun** aztarna nabariak eduki arren». **Berria - Euskal Herria**

## mozkortegi *iz adkor* taberna.

Duda egin zuten Alde Zaharreko **mozkortegietara** ala udal txutategira jo, hau da, Etxebarria parkera. **Patxi Iturritegi**

**Mozkortegi** ziztrin batean entzun zuen Jean-Martin-ek bere koinata preso igorri omen zuela, iraultzaren kontrakoa zela leporatuz, eta epaitu gogo omen zuela. **Elena Touyarou**

## mozkorti 1 *izond* mozkorra, maiz mozkortzen dena.

Betiko lagun **mozkortiak**, betiko lan aspergarria. **Sonia Gonzalez**

Bere aita **mozkortia**, ama serora, aitatxi soraioa eta emazte desleiala ziren haren erreferentzia pertsonal bakarrak. **Elena Touyarou**

Behin izan omen zen urregin emakumezale **mozkorti** bat. **Patxi Zubizarreta**

Senarra aiurri txarrekoa eta **mozkortia**. **Berria - Kultura**

Inork ez du pentsatuko **mozkortia** zarenik goizean karajilloa hartzeagatik. **Sonia Gonzalez**

Giltzain andrea zergatik aritzen zen lapurretan, zerbitzariak zergatik ziren hain zikinak eta **mozkortiak**. **Jose Morales**

### 2 (izen gisa)

Mailu itxurako bere ukabilitako batez gako azkar bat jo zuen **mozkortiaren** masailazurraren kontra. **Lopez de Arana**

Eta gauza gutxi tratatzen dute gehiago [...] **mozkortiekin** astero-astero tratatzeak baino. **Fernando Morillo**

Nerabe bakarti baten eta Koreatik iritsi den **mozkorti** suizida baten arteko adiskidetasunean sakontzen duen istorioa. **Berria - Kultura**

Geure estiloko **mozkorti** parrandazaleak. **Jon Arretxe**

Nazkatuta nagok **mozkorti** madarikatu horiekin gauero zartadaka ibili behar izateaz. **Lopez de Arana**

Gaur egun **mozkorti** arrakastatsua izateko itxaropena ere galdua dut. **Lopez de Arana**

Hoa pikutara, **mozkorti** urdanga hori! **Jon Arretxe**

### 3 (hitz elkartuetan)

**Mozkorti** -aurpegia zuen. **Lopez de Arana**

**Mozkorti** izena eransten digute, eta zerrien pare gaituzte jartzen. **Juan Garzia**

-Keinu arraroa egin zuen, garagardo-**mozkorti** baten arratsaldeko seietako kontua iruditu zitzaidan niri. **Fernando Rey**

## mozkortu, mozkor(tu), mozkortzen 1 da/du *ad* edari bizi gehiegi hartzeak burua nahasi. ik *horditu*.

Lo egiten dutenek gauez egiten dute lo, eta mozkorrak gauez dira **mozkortzen**. **Elizen arteko biblia**

Hamaika urterekin **mozkortu** nintzen lehenbiziz, bakarrik gainera. **Sonia Gonzalez**

Biharamunean bazkaltzera gonbidatu zuen Dabidek, eta hainbeste edanarazi zion non azkenerako **mozkortu** egin zen Urias. **Jose Antonio Mujika**

**Mozkortu** ere, jendea bakarka **mozkortzen** zen tabernetan. **Joxerra Garzia**

Elkarrekin **mozkortzen** ziren lagun bi baino ez ginen. **Xabier Montoia**

Goiz goizetik txikiteoan **mozkortzen** diren gizon zahar tripontziak. **Sonia Gonzalez**

Goazeman; **mozkor** dezagun aita eta etzan gaitezen berarekin. garai hartan, prostitutak portura iristen ziren itsasontzietara igo, marinela **mozkortu** eta tabernetara eramaten zituzten. **Elizen arteko biblia**

Whiskya, berrogei eskoziar **mozkortzeko** adina whisky. **Aingeru Epaltza**

"**Mozkortu** egin nahi gaitiztek", pentsatu nuen orduan, eta zutitu egin nintzen bat-batean. **Inazio Mujika Iraola**

Zaldia **mozkortzeari** ez nion nik, zinetan, graziaz harrapatzen. **Fernando Rey**

Hire adinean **mozkortu**, erre, eta nesken atzetik joatea duk legea. **Alberto Ladron Arana**

Bere senarrak, **mozkortu** eta ia egunero jotzen zuen. **Gotzon Garate**

**Mozkortu** egingo gara, konortea galdu arte. **Sonia Gonzalez**

Inoiz ez zuen edan, **mozkortzeko** eta, **mozkorturik**, barre egiteko. **Jose Morales**

**Mozkortuta** etxeratzen zen, ohi baino goibelago. **Joseba Urteaga**

Johnny **mozkortua** ez egoteaz ere poztu nintzen. **Fernando Rey**

-Gilly, **mozkortuta** zaude. **Lopez de Arana**

Ezin diozu erantzun, lar **mozkortuta**, lar kolokatuta, lar triste zaude. **Sonia Gonzalez**

**Mozkortuta** etorri zen, dena zikinduta. **Bernardo Atxaga**

Rodolfo Ayala, ordea, jantzirik zegoen, eta erabat **mozkorturik**. **Aritz Gorrotxategi**

### 2 irud/hed

Garagardo arin baten koloreko begiak zituen, begiratu hutsarekin **mozkortzen** duten horietakoak. **Joxean Agirre**

Bat-batean, arreta lapurtu dizun andereño dotore baten perfumeak **mozkortu** zaitu... **Xabier Paya**

Belar moztu berri bustiaren usainak **mozkortu** nau. **Iñigo Aranbarri**

Eszitazio eta pasio uholdeak hartzen du emakumea, eta horrek haren maitalea ere, lurrin kitzikagarriek **mozkortuta**, erabat betetzen du. **Luis Elberdin**

Odolez **mozkortuko** dira nire geziak, haragiz aseko nire ezpata. **Elizen arteko biblia**

Izumenak gogorturik nengoen, ikararen ikaraz **mozkorturik**, oihuka hasteko prest, hiltzeko prest. **Josu Zabaleta**

Banderen gerrak **mozkortuta**, horra umore bako bi gezur. **Iñigo Aranbarri**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Aditu ere bai nik telefonoz haren lagunartean iskanbila, hainbat ahots **mozkorturen** arrabotsa. [Xexen] txikiak ziren noski, gu ginen bezalako haur eta gazte **mozkortuek** jolas egiteko modukoak. **Joxe Austin Arrieta**

Herio larritik noiz libratuko luzetsita zebiltzan mamu **mozkortuak** antzo. **Mirentxu Larrañaga**

#### 4 **mozkortuxe** mozkortu xamar.

Hara sartu zelarik, Husain Kirxa ohiko tokian begiztatu zuen, ordurako **mozkortuxe**, ardoa edaten. **Patxi Zubizarreta**

#### 5 **mozkortze** *adlag* mozkortzeko zorian.

**Mozkortze**, Sebasek lizentziamendu lehen uhinaren ondorioak zeuzkan gogoan eta bere kanporatze-gutuna eskuan. **Itxaro Borda**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mozortu arte** (6)

**erdi mozkorturik** (7); **mozkorturik zegoen** (6)

**beti mozkortuta** (4); **erabat mozkortuta** (3); **erdi mozkortuta** (7); **espirituz mozkortuta bezala** (5); **lar mozkortuta** (3); **mozkortuta aurkitu** (3); **mozkortuta bezala** (10); **mozkortuta dago** (5); **mozkortuta egon** (5); **mozkortuta hago** (3); **mozkortuta nagoela** (3); **mozkortuta nengoen** (3); **mozkortuta zaude** (7); **mozkortuta zegoela** (7); **mozkortuta zegoen** (17); **zegoen mozkortuta** (4)

**elkarrekin mozkortzen** (3)

### **mozkortxo** (*orobat mozkortxu*) *izond adkor* mozkorra.

Batzuetan mozkorturik abesten nuen, eta Billy-k "nire putatko zorabiatu **mozkortxo**" deituko zidan. **Oskar Arana**

-Ni ere **mozkortxu** nabilek. **Urtzi Urrutikoeetxea**

### mozkortxu ik mozkortxo.

### **mozkortze** *iz* edari biziak hartzeak burua nahastea.

Besta dionisiakoan, **mozkortze** sakratuarekin, entusiasmoarekin, denboraren ezabatze ilusioa lor daiteke. **Ana Urkiza**

Kontsumitzailearekiko harreman problematikoak (errekamazioak, [...], **mozkortze** eta diziplinaren arau-urraketak, etc.). **Edorta Agirre**

### **mozkorzale** *izond/iz* mozkorraren zalea dena.

Bertutea ez da **mozkorzalea**. **Matías Múgica**

**Mozkorzale** ezdeus bat, bizian deus onik egin ez zuena eta, emeki-emeki, bere burua alkoholean ito zuena. **Elena Touyaro**

### **mozkorzaletasun** *iz* mozkorzale denaren nolakotasuna.

Ez daukate bekatutzat **mozkorzaletasuna** eta andretan ibiltzea. **Iñaki Iñurrieta**

### **mozkote 1** *izond* luzea ez izanik lodia edo zabala dena. ik **moztaka**.

Gazteena gizon sendoa zen, luze eta gihartsua; bestea, aldiz, **mozkote** eta gerribuelta zabalekoa. **Migel Angel Mintegi**

Maizaren begininietatik itxura eta kolore anitzeko emakumeak joan ziren pasatzen, garaiak eta lerdanak, txikiak eta **mozkoteak**, zuri-zuriak eta beltz-beltzak. **Migel Angel Mintegi**

**Mozkotea** eta gizona zen herr Öchler, ezpain lodiak eta masail biribilak zituen, dena zuen koipe eta gantz. **Anjel Lertxundi**

Bestea **mozkotea** zen, atentzioa ematen ez duten horietakoa. **Anjel Lertxundi**

Patioan, ile beltzeko emakume **mozkote** bat arropa esekitzen ari zen. **Lopez de Arana**

Neska baten mamu **mozkotea** hurbildu zitzairen. **Iñaki Mendiguren**

### 2 (gauzez)

Eliza-dorreek **mozkote** samarrak ematen dute, beren burua zelaiguneetako tolesduretan ezkutatu nahiko balute bezala. **Mirentxu Larrañaga**

Ezkerraldean, burdinurtuzko sutegi handi bat zegoen, hiru zuloz hornitua, non hiru eltze **mozkotek** ikatz kedarrez beltzuriko ipurdia sartzen baitzituzten. **Karlos Zabala**

Mutil gaztearen arrebak itxura **mozkotea** zuen, eta ile liso leuna. **Mirentxu Larrañaga**

### 3 (izen gisa)

**Mozkoteak** zurrutada bat kafe edan zuen. **Migel Angel Mintegi**

**Mozkoteak** hizketan segitzen du, morbo jarri: [...]. **Anjel Lertxundi**

-Gerta liteke -**mozkoteak**-, baina oraindik ez da gertatu. **Migel Angel Mintegi**

**Mozkote** indartsuak eta beste gizon etsai batzuk nire atzetik etorri ziren. **Fernando Rey**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gizon mozkote** (5); **mozkote samarra** (4)

**gizon mozkotea** (3); **mozkotea zen** (4)

### **mozle** *izond* moztailea.

Annie, ile **mozlea** da, eta Daniel *Scop Agur Agian* enpresan ari da lanean. **Herria**

Gerra amaitzen denean ez omen da gehiago ile-**mozlearengana** joango, hain ongi moztzen diot nik. **Josu Zabaleta**

Igandean, Izuran, ardi-**mozleen** lehiaketa eta artzain-xakurrak zoin-gehiagoka. **Herria**

Aurtengo berezitasuna: hegoaldeetik jinik, dailuz edo segaz belar **mozleak** ikusiko direla. **Herria**

-Bizpahiru tatuaje besondoetan, egur-**mozle** atorra lodiak eta bera baino zabalagoak ziren galtzak soinean. **Itxaro Borda**

### **mozo** *iz* mutila.

-O, arrantzalea da, **mozo** pobre bat. **Koldo Izagirre**



# mozolo 1 iz gau hegazti harraparia, hontzaren familia eta itxurakoa, baina hura baino txikiagoa (*Athene noctua*).

Orduan **mozolo** eta gabirai batzuk igarotzen ziren. **Josu Zabaleta**

Lagun estimatuak ditut hontzak, urubiak eta **mozoloak**. **Pello Zabala**

Bai eta aztore harrapariak, oiloen etsai beldurgarriak diren zapelaitzak, hontza gautarrak eta **mozolo** isilak ere. **Koldo Biguri**

Harrisiko zuloetan zeuzkaten hontzek eta **mozoloek** beren habiak. **Koro Navarro**

**Mozoloak** edo bertze gau hegaztiren bat uluka hastean. **Xabier Montoia**

Bai txorien hegada eta kantua, bai hontz eta **mozoloen** gau-kanta. **Pello Zabala**

**Mozoloaren** arnasa imitatzen ari zen. **Bernardo Atxaga**

Ostera, han ez zegoen ezeri begira **mozoloa** legez egoteko astirik. **Edorta Jimenez**

**Mozoloak** etxe ondoan kantetan, eurie seguru. **Pello Zabala**

## • 2 izond ergela, tentela.

Oso argia nintzen, ingurukoak baino gehiago, baina aldi berean **mozolo** samarra ere bai, eta gizajotzat hartzen ote ninduten susmoa neukan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nire jabe **mozoloarentzat** nahikoa zen muturren aurrean tititzar pare bat ipintzea adurra zeriola paratzeko. **Jon Arretxe**

Hiru egun Donostiako Guardia Zibilean, han ikusi nahiko nikek nik zuen kapitain **mozolo** hori! **Xabier Montoia**

**mozolo** samarra edo oso petrala izan behar zen familia hartan musika ez ikasteko. **Pako Aristi**

-Jakina egon zarena, **mozoloa** halakoa. **Julen Gabiria**

## 3 (gauzez)

Ez nituen batera gogoko eskiko bideo haiek, baina gaztetxo astun haren berbeta **mozoloak** are gehiago gogaitzen ninduen. **Jon Arretxe**

'Eta biluzik ibiltzen dira oraindik?' egin diot galdera **mozoloa**. **Joseba Sarrionandia**

## 4 (izen gisa)

Edozein **mozolok** eskura dezake dirua, baina buruargiari bakarrik irauten dio esku artean! **Mirentxu Larrañaga**

-Gorde ezak pistola hori -esan zuen Susannak -; ez ezak **mozoloarena** egin. **Josu Zabaleta**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erakoin horixe babesteko dira-eta **mozolo** -ixurako zakuok. **Edorta Jimenez**

Ulertu ere, ongi ulertzen ote zidan duda egitekoa zen, haren **mozolo** aurpegia ikusita solasa ematen niolarik. **Aingeru Epaltza**

Hasierako ezustekoaren ondotik **mozolo** -begiak jartzen nizkiola, baietz erantzun nion, Txiki-txikia da, itxura apaina dauka, ile urdina, azal grisaxka, **mozolo** -betaurrekoak eta aurpegiaren zerbaiten ardura agertzen du beti. **Joan Mari Irigoien**

# mozolokeria 1 iz ergelkeria, tentelkeria.

-Utzi **mozolokeriak**, sartu barrura eta jesarri- aurpegiaren okertuagatik Bilboko borroka legea txarto irten zela igarri zuen-, hire zain nengoan. **Josu Landa**

Jada ez dakizue zer txorrada esan, zer **mozolokeria** idatzi, zer txatxukeria asmatu, zer zentzugabekeria irudikatu gainerakoengandik bereizteko. **Jon Alonso**

# mozolotu, mozolo(tu), mozolotzen 1 da/du ad mozoloa bezalakoa bihurtu.

Begiak zabal-zabalik, **mozoloturik** lotu nintzen denbora luze baterako agur esaten ari nintzaien inguruei begira. **Edorta Jimenez**

## 2 ergeldu, tenteldu.

Harrituta zegoen santutxuarrak guardia zein baxu zuen ikusita eta **mozolotuta** legez zegoen gainera. **Josu Landa**

# mozolotxo iz adklor mozoloa.

Honako **mozolotxo** honek egin daitekeen ergelkeriarik handiena egiten duenean, halakoxe ergela baita, izan ere, orduantxe ikusiko nauzu hegan abiatzen! **Josu Zabaleta**

## mozorratu ik mozorrotu.

# mozorro 1 iz norbaitek, ezagutu ez dezaten, itxura aldatzeko erabiltzen duen janzkera. ik beherago7.

**Mozorro** batekin saiatu zen arratsalde hartan: itsu-makila eta eguzkitako betaurrekoak hartuta, itsuaren gisan Topoko bagoi batetik bestera ibili zen. **Harkaitz Cano**

Sinbad marinelaren **mozorroa** gogoz jantzeko joera gazterik erakutsi zuen. **Edorta Jimenez**

Larruzko jaka beltzez jantziko gizon batek Matrix filmeko Morfeo irudikatzen duen **mozorro** bat darama. **Antton Olano**

Inork ez zuen ezagutzen Irkutsken, inork ezin zion **mozorroa** kendu. **Karlos Zabala**

Baina jendeak ez entzunarena egiten zuen eta **mozorro** koloretsu bat jantzen saiatzeko. **Alberto Ladron Arana**

Eztabaida gehiago izan dute **mozorro** egokia aukeratzeko: piratak proposatu ditu batek, baina zailegia omen da [...] atrezzo txukun bat eskuratzea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zoko batean saski handi-handi bat zegoen, opari paperez apaindua, eta San Nikolasen morroi Peter Beltzaren **mozorro** bat. **Josu Zabaleta**

**Mozorroen** anonimotasuna baliatzen zuen, adorea hartu, proposamen lizunenak ere eztarria urratu beharrez egin, eta gauari akabera egokiren bat eskaintzeko. **Anjel Lertxundi**

Ni edozein **mozorro** hartzeko prest nengoan, txofer, soldadu, kazetari, edozein, Chavezengana hurbildu ahal izateko. **Pako Aristi**

Lurralde Ilunean **mozorro** bezala erabili hituen piltzarrak gorde egingo dituk, Frodo. **Agustin Otsoa**

## 2 kartoizko edo ehunezko irudia, aurpegi bat irudikatzen duena eta begitartea estaltzeko erabiltzen dena. imaskara.

Aurpegia **mozorro** gorri batez estalita darama. **Antton Olano**

Haren aurpegiak irribarre egiten zidan, eta **mozorro** bat gogorarazten zidan, makillaje bitxi hura zela eta. **Juan Kruz Igerabide**

**Mozorro** beltz bat jantzi zuen begietan. **Lutxo Egia**

Zeta beltzezko **mozorro** batez estali nuen aurpegia. **Koro Navarro**

-Gure onespeneraren erakusgarri, to urrezko **mozorro** hau. **Juan Garzia**

## 3 irud/hed

-Ontziei ere **mozorroa** jantzita, halaxe goazak gerrara. **Edorta Jimenez**

-Benetako idazleak **mozorroaren** profesionalak dira, inposturaren maisuak, antzaldatzen iaioak. **Joxean Agirre**

Mila **mozorro** ditu judu herratuak, eta ez zaio aise hartzen trazarik. **Anjel Lertxundi**

PPK bere **mozorro** guztiak kendu dituelako. **Berria - Euskal Herria**  
Prestigio edo itxurazko zeregin horiek beste zeregin ezkutuko batzuen **mozorro** direlarik, kanpoko itxuran ere aratusteetan bizi dela baitirudi. **Edorta Jimenez**  
Normalean, **mozorro** intolerante eta handiuste horien atzean lohikeriaz eta lizunkeriak betetako putzu hondogabea ezkututzen da. **Karlos Zabala**  
Errepresioari bere **mozorro** zitala erantzeko ez ezik, bere eragingarritasuna ahultzeko. **Rafa Egiguren**  
Bertan dena da simulazioa, itxurakeria, bikoizketa eta **mozorroa**. **Joxean Agirre**

#### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Konpartsak, desfileak, **mozorro**-festak eta inauteri jaiak antolatzen. **Askoren artean**  
Gerora beste maskara batzuk jantziko zituen eta, kasik adinkideak ere baziren lagun biek **mozorro**-dantzan bizi osoan segituko zutela esan liteke. **Edorta Jimenez**  
John Saxon, telegrafista, Enbaxadak horretarako jarri zien gizonaren **mozorro**-izena da, irratiko gizon Peter horrena den legez. **Edorta Jimenez**  
**Mozorro** aldaketa izan zen gauzarik ikusgarriena. **Karlos Linazasoro**  
6ak 30etan larunbateko **mozorro** lehiaketaren emaitzak. **Herria**

#### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Kloxar **mozorroa** jantzea erabakitzen duzun hurrenean, ez ezazu egin gure enpresa barruan. **Joxan Elozegi**  
Sinetsita baikuenduen gerra-entsegu bat baino ez ginela antzezten ari, aktore-**mozorroan**. **Mirentxu Larrañaga**  
Lapurra bidaiari **mozorroarekin** joan da, eta hirira egunsentia gabe iritsirik, zapatari xahar bat topatu du oinetakoak josten. **Patxi Zubizarreta**  
Bederatzi aurpegi-**mozorro** aurkitu zituzten, bederatzi burezurretako azalez eginda. **Gotzon Garate**  
Nekez ezkutatu du sumindura sinesgogortasun-**mozorroaren** pean. **Imanol Zurutuza**

#### 6 zomorroa.

Efemeropteroak insekten arteko ordena bat dira, berezitasun nahiko antzinakoak dituzten **mozorro** talde bat. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

#### 7 **mozorro-jantzi** norbaitek, ezagutu ez dezaten, itxura aldatzeko erabiltzen duen janzkera. ik gogo1.

Maltzurra izatez, **mozorro-jantzirik** zirtzilenez baliatzea gogoko zuen, eta eskale irudian agertuko zitzaizun, esaterako. **Karlos Zabala**  
Nire **mozorro-jantzi** zaharretako bat ipini nuela iruditu zitzaidan, bizitzeko **mozorro-jantzia**. **Ander Irizar**  
Arduraz jokatzeko zuten agintariek horrela eginda; bestela, tatariarren alde hala edo hola zeuden errusiarrek egokiera izango zuten **mozorro jantzia** jarri eta muga igarotzeko. **Karlos Zabala**  
-**Mozorro jantzia** Irkutskan sartzen saiatuko duk. **Karlos Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**mozorro batekin** (3); **mozorro festa** (6); **mozorro jantzi** (3)  
**mozorroa jantzi** (6); **mozorroa jantzia** (3); **mozorroa kendu** (11); **mozorroa kentzen** (3)  
**mozorroaren atzean** (3)  
**mozorropean ezkututzen** (3)  
**mozorrorik gabe** (17)

### mozorroketa iz mozorrotzea.

Zuen itxurak erraz jarri zion **mozorroketa**. **Juan Garzia**  
Kinka larri hauek jasan dituzten beste herrietan ere, gerra zikina (harmatua eta psikologikoa), infiltrazioa (pertsonea eta ideiena), eta **mozorroketa** sasi-radikala, sistematikoki erabiliak izan direla ikastea, hemen ere ausarki pentsatzeko beharra dugu. **Iban Zaldua**  
Izan liteke feniziar *ereb* hitzaren [...] greziar **mozorroketa**, eguzkia mendebaldean sartzen den eskualde iluna adierazten duena. **Iñaki Mendiguren**

### mozorrotu, mozorro(tu), mozorrotzen (*orobat mozorrotu g.er. eta mozorrotzu g.er.*) 1 da/du ad mozorroa jarri edo jantzi.

Danelek eginahal guztiak egin zituela Herioz **mozorrotu** zena deskubritzeko, baina ez zuela artean deus argirik atera. **Anjel Lertxundi**  
Orain hementxe zagok, berak hil duen Fatima zenaren soinekoekin **mozorrotua**. **Patxi Zubizarreta**  
Gizonez **mozorroturik** agertu zen Atenea, oinetan sandalia hilezkor urrezatuak jantzirik, eta eskuan lantza handi eta astun bat zeramala. **Juan Kruz Igerabide**  
Deabrua omen zen, zaldi zuriz **mozorroturik**. **Joan Mari Irigoien**  
Beltzez jantzita eta aurpegia **mozorrotuta** zeuden batzuk, baina inor ez zen identifikatu; ez nekien nortzuk ziren. **Jokin Urain**  
Beste ehizaldi bat antolatuko dugu, eta, gau erdian, isil-gordeka eta **mozorroturik** itzuliko gara jauregira. **Patxi Zubizarreta**  
Umetatik zetorkion **mozorrotzeko** zaletasuna. **Harkaitz Cano**  
Ardiz **mozorrotutako** otsoak dira juduak, lo baleude bezala egon dira orain arte kuzkurtuta. **Anjel Lertxundi**

#### 2 irud/hed

Kostunbrismoak, erreallitatea islatu baino, eder ustez **mozorrotu** du, beti ere iraganarekiko liluraren erakarmenez. **Anjel Lertxundi**  
Ez dira udak, "sanmartinetako uda txikiak" baizik, udazkena **mozorrotu** eta negua iragartzen dutenak. **Iñaki Mendiguren**  
Estanflazioaren agerpenak pentsamolde neoklasikoa itzularazi zuen (monetarismoz **mozorroturik**); haren ondorioak oso argiak izan ziren 1980ko hamarraldian. **Koro Navarro**  
Islam garailearen panteoian, Jainko haragitu kanporatua Ali jainkotuaren forman **mozorrotuta** itzuli zen isilka. **Iñaki Mendiguren**  
Gatazka politikoa eliz eztabaiden itxurapean **mozorrotuta** gera zitekeen. **Iñaki Mendiguren**  
Eszedentzia baten pean **mozorrotu** zuten dena. **Harkaitz Cano**  
Edozer **mozorrotu** dezakeen kultura babesle bat sortu. **Harkaitz Cano**  
Gainerako guztia jantzi kontua da: erdarazko ikerketa euskarazko soinekoz jantzi-**mozorrotua** baino ez. **Joxerra Garzia**

#### 3 (era burutua izenondo gisa)

Bi lagun **mozorrotuk** hil zuten Julio, tabernatik irten berritan. **Juan Kruz Igerabide**  
Ongi begiratu nion eta ikusi nuen gizon **mozorrotu** bat zela. **Pello Lizarralde**  
Atrakatzaile **mozorrotu** bat Konde Zitalaren etxea garbitzera joan zen gau batez. **Pello Lizarralde**  
Itsasontziraturik, Atenea **mozorrotua** Telemakoren alboan eseri zen, eta aldeko haizea sorrarazi zuen. **Juan Kruz Igerabide**  
Nork argiago, nork modu **mozorrotuago** batez, idazle guztiok istorio bera kontatzen omen dugu bizitzan zehar. **Anjel Lertxundi**  
Versailleseko Administrazio Auzitegiak Espainiaratze agindua bertan behera utzi zuen 2000ko irailean, «estradizio **mozorrotua**» zenez legez kanpoko zela argudiatuta. **Berria - Euskal Herria**  
- Idatzi bat irakurri zuten, eta **mozorrotu** batzuek espainiar bandera bat erre zuten. **Juan Kruz Igerabide**

### mozorrotze 1 iz mozorroa jantzea edo jantzea.

Ziurtasunik ezak zintzilik naukan bitartean, behin-behineko **mozorrotze** bat baizik ez dira nire sentimenduak eta nire jarrerak. **Josu Zabaleta**

Ikusmenezko **mozorrotzearen** beste kasu bat, garrantzi handikoa, "ikusmenezko zarataren" bidezko mozorrotzea da (lerroketa egitura aleatoria): **mozorrotze** hori beste edozein baino ahaltsuagoa da.  Josu Zabaleta

Arratsalde guzian: musika, **mozorrotze** eta jokoak haurrendako XIBA-rekin.  Herria

Beste itxurarik ere badauka haatik besta horrek, dena sorgin ixtorio eta **mozorrotze**, udazkeneko ihauteria baten pare nolazpait.  Herria

Baliteke, gainera, fotograma bat hurrengoak **mozorrotze** hori mugimendua atzemateko bidea ematen duen baldintzetako bat izatea.  Josu Zabaleta

## 2 (hitz elkartuetan)

Bata bestearen ondoren oso denbora laburrean datozen argizko estimuluek izan dezateke elkarreragina, eta bigarrenak alda dezake lehenengoaren pertzepzioa: horri deitzen zaio **mozorrotze** -efektua.  Josu Zabaleta

Bada, aldiz, **mozorrotze** -fenomeno bat [...] etena egiten denean.  Josu Zabaleta

## mozorrozale *izond* mozorroen zalea dena.

Alderik bada, ostera, gizon **mozorrozale** bien *modus operandi*etan ez ezik hierarkien artean ere.  Edorta Jimenez

Luisa eta Violette ez zeuden ohituta jende arruntarekin egotera, eta, saiatzen ziren arren neskame izaera hartzen, neskame soinekoak hartuta zituzten bezala, errazago sartu zitzairen neskame soinekoa neskame izaera baino, arima ez baita gorputza bezain **mozorrozale**.  Felipe Juaristi

## mozorroztu ik mozorrotu.

## moztade *iz adko* moztasuna.

Mundua **moztadez** eta pertsonok akatsez beteak gaudela. ez genituen onartzen gure itzalaren higidurak, urte batzuen okerra zegoen erretzen gintuzten zalantzen eta elkarriz aitortzen genionaren artean, **moztadean** bizi ginen.  Koldo Izagirre

Frantzia, Espainia edo Trebiñoren mugakide soil litzatekeen Euskal Herriaren independentzia adar-jotze latza da, eskakeria eta **moztadea**.  Iñaki Segurola

Ezin zenezake denborarik gal udako beroaren erdian etxe-zulotik ordu-erdi batera daukazun erreka-bazterrean oinak freskatzen; barregarria litzateke zure biografiarentzat, beldurtzeko **moztadea**.  Iñaki Segurola

## moztaille *(orobat moztale g.er.)* 1 *iz* aipatzen duen mozten duen pertsona. ik **mozle**.

-Atsoaren hatzaren **moztailleak**?  Aingeru Epaltza

Horma osoaren zabaleran, bizar-labanak gogor lanean, ilea mozteko makina elektrikoak burrunba batean, eta **moztailleak** -denak gaizkileak- jo eta ke ekinean.  Urtzi Urrutikoetxea

Hiltzera daramaten arkumeak bezala, **moztailleen** aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu.  Elizen arteko biblia

Neure ogia, neure ura eta **moztailleentzat** hil ditudan abereen okela hartu eta nondik datorren ere ez dakidan jendeari eman behar al dizkiot?  Elizen arteko biblia

Ikusi dute partida ederra astelehen huntan: Biscouby berriz osagarritan, Retegui ere biltzale eta aldiaka **moztale** ere bere makoarekin, eta zaintzale eta sei boteren sartzale.  Herria

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ardi-latxen sariketak, ardi-gasnen primak, ardi-**moztailleenak** eta tresnerien erakusketak, deizteko eta beste.  Herria

Frantzisko santuari ilea mozten ziotenean, askotan esaten zion ile-**moztailleari**: [...].  Askoren artean

Stanley Chowder isil baina lagunkina, soropil **moztaille** eskarmentuduna, poker jokalaria maltzur eta ping-pong jokalaria aparta.  Oskar Arana

Bertsolariarentzat ez da gauza tristeagorik eta irudimen-**moztailleagorik**, pareta zuriari eta argi gorriari begira aritu beharra baino.  Andoni Egaña

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ile moztaillea** (4)

**ile moztailleak** (3)

**moztailleen aurrean isilik** (3)

## moztaka 1 *izond* mozkotea.

Etxekoandrea sartu zen gelan, gazte, sudur-zapal, zurbil, argal, **moztaka**, gustu onez jantzirik, Petersburgeko damak bezala.  Jose Morales

Chiaromonte gizona zen, **moztaka**, ile beltz kizkurrekoa.  Fernando Rey

Unibertsitateko korridorean emakume bat topatu nuen, ikasle heldu gizen eta **moztaka**, berrogei urte ingurukoa.  Fernando Rey

Bizargina gizon zurbil eta **moztaka** bat zen, gizontasunerako joera zuena.  Patxi Zubizarreta

Emakume txiki **moztaka** ahots itsusikoak aintzat ere ez ote dira hartu behar?  Oskar Arana

- **Moztaka** ilehori bat?  Josu Zabaleta

## 2 (gauzez)

Lepo txikia eta gorputz handia, **moztaka**, begiratu zuzena beti eta hitz-jarioa aberatsa.  Xabier Etxabe

Lepo txikia eta gorputz handia, **moztaka**, begiratu zuzena beti eta hitz-jarioa aberatsa.  Xabier Etxabe

## moztale ik moztaille.

## moztarazi ik motzarazi.

## moztasun 1 *iz* motza denaren nolakotasuna.

Neure adierazkortasunik eza, neure hizketako **moztasuna** kittatzeko edo emendatzeko hasi nintzela uste diat idazten.  Patziku Perurena

Uste dut munta handikoa dela zuri adieraztea, nire **moztasunak** uzten didan neurrian, zer den, edo hobeki esatearren, zer zen gure herria, Trintxerpe izeneko hori.  Koldo Izagirre

Ahal izan nuen dotoreena estali nuen berriri neure **moztasuna**, badakizu bururik ez duenak behar izaten duela txapela.  Koldo Izagirre

Badira gehiago, titulu okerrak baino, ausaz irakurlearen **moztasunarekin** zerikusia dutenak.  Iñigo Aranbarri

Hagitzeez hobe duzu, gizarteko usuario ergelak eta jendearen **moztasunak** lasaro hartzea, parrez edo negarrez presaka hastea baino.  Patziku Perurena

Badira, noski, bere ideia hustasuna eta bere **moztasun** poetikoa zirriborro lertezin batekin disimulatzen direnak. [Bernardo Atxaga](#)  
Nobela honen axaleko laburtasuna, kasu honetan, ez da **moztasun** bat, baizik-eta, alde erantzira, ugaritasun bat da. [Iñaki Segurola](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

Nik predikatu, irakatsi eta idatziriko [...] asertuetako edozeinetan agerian jartzen da horien zentzua hondatzeko borrokan ari direnen kulturarik eza eta buru-**moztasuna**.  
[Joan Mari Lekuona](#)

## mozte 1 iz zerbaiti zati edo osagarri bat kentzea; tresna aho-zorrotz batez ebakitzea.

Egia da ere hamalau silabako neurtitzetan idatzi zūala, ūsatū hamaseiekoen ordez, eta **mozte** horrek bizitarzūn haboro emaiten deiola bertsetari... [Herria](#)  
8 trunco moztu dituzte 125 zm-130zm lodiko pagoak, usaian bezalako **mozte** herresto lagunekin. [Herria](#)

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

la Lepogabeko Nickek, Gryffindorreko mamuak, arrakasta handia izan zuen bere lepo-**mozte** traketsaren antzeppenarekin. [Iñaki Mendiguren](#)  
Ez nituen lepo-**mozte** irudi haiiek, karotidari zerion odol hura, ikaraz jauzika hasitako gorputz hura, burutik kendu ahal izan. [Joxan Elozegi](#)  
Tontsura edo hile-**mozte** honek kleriko bihurtzen zituen, hau da, agintari zibilen eskumenetik ateratzen zituen eta Elizaren babespean jartzen. [Askoren artean](#)  
Goizean Jauregiko zelaian ardi **mozte** lehiaketa. [Herria](#)  
Ardi ile **mozteak** hasiak dira, ba eskuz eta tresnez xoko gehienetan! [Herria](#)  
Artzain xakur xapelketa, ardi moxte desafio, belar **mozte** dailuz edo segaz... [Herria](#)  
Urte guziz bezala egur **mozte** horiek herriko oihanetan antolatua dira galdea egiten dutenentzat. [Herria](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ardi mozte** (3); **lepo mozte** (4)

**ile mozte** (6)

## moztu, motz/moztu, mozten 1 du ad zerbaiti muturra, edo goiko edo kanpoko aldea, tresna aho-zorrotz batez kendu.

Umeari ilea ilberan **moztu** bear zaio, indartuko bazaio. [Pello Zabala](#)  
Nola ilea **moztu**, tontsura egiteko. [Askoren artean](#)  
Ilea larru-arras **mozturik** eramaten dutenak. [Jose Morales](#)  
Ez **moztu** ile-adatsaren ertzak inguru guztian, ezta bizarraren ertzak ere. [Elizen arteko biblia](#)  
Ardiei ilea **moztu** ez **moztu** zalantzan. [Pello Zabala](#)  
Gizonak aurpegia xaboitu eta bizarra **moztu** zuen. [Koro Navarro](#)  
-Bizarra **moztu** duk. [Anton Garikano](#)  
Bizarra **moztu** berriko kokots baten irudira. [Karlos Zabala](#)  
Eta ingelesan eran **moztu** dinat gaur bibotea. [Anton Garikano](#)  
Lucas zuen gogoan; nola garbitu zizkion oinak eta atzazalak **moztu**. [Unai Elorriaga](#)  
Horrexegatik aritzen da Stanley soropila **mozten**. [Oskar Arana](#)  
Belarra igitaiaz **mozten**. [Juan Kruz Igerabide](#)  
Bihar amaren etxeko belarra **moztu** behar dinat. [Joan Mari Irigoien](#)  
Zuhaitzak ere badu itxaropenik; **moztu** arren, suspertu egiten da eta kimu berriak ematen. [Elizen arteko biblia](#)  
Hik badakik nork **moztu** dituen mahatsondoak! [Koldo Biguri](#)  
Lasto **moztu** berriaren usainez eta gorotz beroarenez mukuru. [Karlos Zabala](#)  
-Zein izan da eguzki lorea **moztu** duen zerria? [Juan Kruz Igerabide](#)  
Enborra **moztu** eta adarra hilko da. [Anton Garikano](#)  
Zuhaitzak **moztu** eta egurra egin. [Jose Morales](#)  
Holofernesek erraustu egin zituen lurralde guztiak eta oihan sakratuak **moztu**. [Elizen arteko biblia](#)  
Ondoren, osorik **moztu** zituzten kanpora ateratzen ziren habeen irteguak. [Santiago Iruretagoiena](#)

## 2 gorputz edo kideko bati osagarri bat ebaki.

Segidan, artaziak hartuta, zasti!, mototsa **moztu** zion. [Jasone Osoro](#)  
Nire familia guztia hil zuten, hasieran gorputzeko hainbat atal **moztu** zizkieten, eta, ondoren, aihotzez hil zituzten denak nire begien aurrean. [Berria - Mundua](#)  
Sauli, lapurreta egin ondoren, burua **moztu** eta armak kendu zizkieten. [Elizen arteko biblia](#)  
Hiriko estatua gehieni **moztu** genien burua, denak ziren errege-erreginak, edo militarrik. [Mikel Hernandez Abaitua](#)  
Beatricek ileak eskuarekin hartu, jaso eta buruaren goiko aldean bildu zituen, lepalde zuria erakutsiz borroeroari burua **moztu** aurretik. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)  
Isatsa horratik ez da gorputza: ez da gorputzarentzat kalte gehiegirik gabe **mozt** daitekeen eranskin luzea edo laburra besterik. [Anjel Lertxundi](#)  
Uzta biltzeko makina batek **moztu** zion ezker besoa bi urte lehenago. [Anton Garikano](#)  
Lehenengo kolpeaz sorbalda ia erabat, beso eta guzti, **moztu** zion. [Askoren artean](#)  
Lehendabiziko unetik jakin zuela hanka **moztu** ziotela. [Ramon Saizarbitoria](#)  
Baina gehieni ez diete bularra **mozten**. [Jasone Osoro](#)  
Gerra zauri baten ondorioz zakil-barrabilak **moztu** zizkieten. [Pablo Sastre](#)  
Eskuetako hamar atzamarrak **moztu** zizkieten eta etxera igorri zuten. [Gotzon Garate](#)  
Inongo errukirik gabe, bi belarriak **moztu** zizkieten. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)  
Ondoren, Nikanor zitalari mihia **moztu** zion eta, puskak eginik, txoriei emateko agindu. [Elizen arteko biblia](#)  
Igitaiarekin **moztuko** lieke gandorra, lehendabizi, eta lepoa gero! [Pako Aristi](#)  
Neskak hegoak **moztu** nahi zizkiola, bereganatu egin nahi zuela. [Iñaki Iñurrieta](#)  
Andereñoak eskuko poltsatik arkatza atera eta bere agendako orri bat **moztu** zuen. [Anton Garikano](#)  
Bota zuhaitza, **moztu** adarrak, kendu hostoak, jaurtiki behera fruituak! [Elizen arteko biblia](#)  
Olibondo-adartxo **moztu** berria mokoan zekarrela. [Elizen arteko biblia](#)  
Ogiaren txartelari dagokion laukitxo **moztu** eta gero okinak pisatu egiten du ogia. [Urtzi Urrutikoetxea](#)  
Bere tunikatik txanoa **moztu** eta behartsuari eman zion Jainkoaren maitasunagatik. [Askoren artean](#)  
Banekien beren sustrai juduak **moztu** zituzten yiddishezko idazle eta irakurleen berri. [Koro Navarro](#)

## 3 ardiez eta gauza iledunez mintzatuz, ilea moztu.

Basamortuan zebilelarik, entzun zuen Davidek Nabal ardi-**mozten** ari zela. [Elizen arteko biblia](#)  
Tamarri esan zioten aitaginarreba ardi-**moztera** zihoala Timnara. [Elizen arteko biblia](#)  
Zure hortzak **ardi moztu** eta garbitu berriak. [Elizen arteko biblia](#)

Azkenean burua arrasean **moztu** zioten. [Pablo Sastre](#)

#### 4 tresna aho-zorrotz batez ebaki.

Marrubi-tarta **moztera** zihoala, [...] galdera ezinbestekoa ailegatu zitzaidan, azkenik. [Josexo Azkona](#)

Baina opila **mozten** hasi zenean, platera altzora irauli zitzaion. [Koro Navarro](#)

Quenuk ogia eta urdaiazpikoa **moztu** zituen. [Karlos Zabala](#)

Gasna xerra bat **moztu** eta ezpainetaratu nuen. [Itxaro Borda](#)

**Moztu** iezadazu ogi zati bat, Miksch. [Anton Garikano](#)

**Moztu** tomateak zentimetro bateko xerretan, gatz-pipertu, arto-irinetan pasa. [Pablo Sastre](#)

Ekarri mazedonia bat, eta ikusi fruta **moztu** berria ote den. [Lopez de Arana](#)

Mahaian eseri, tortilla **moztu** eta jaten hasi, dena bat izan zen. [Fernando Morillo](#)

Taimana bereko puskatan **moztu** zituen. [Fernando Rey](#)

Zortzina kanaerdiko **moztu**. [Berria - Kirola](#)

Herri hartako zenbait harrapatu, lepoa **moztu** eta hango osin handira bota zituen. [Elizen arteko biblia](#)

Gero, aizkora-kolpez **moztu** zioten lepoa. [Pello Zabala](#)

Portlana horman barrena garraiatzeko sistemako sei kableak **moztu** zituzten. [Eduarne Elizondo](#)

Jarraian, txalo artean zinta **moztu** zuen. [Berria - Mundua](#)

Polizia kateak **moztera** iritsi zenean. [Joxan Elozegi](#)

Eperrak, eroturik, kaiolako burdinak **mozten** saiitzen ziren mokoaz, erabat larri. [Juan Kruz Igerabide](#)

Polizia zain zuten arren, alanbre-hesia **moztu** eta barrura sartzea erelortu zuten hainbat ekintzailek. [Berria - Mundua](#)

-Bai, **moztu** kordelak eta utzi joaten. [Julen Gabiria](#)

Mugaren eta Irkutsk probintziaren artean telegrafo hariak **moztu** berri dituztela. [Karlos Zabala](#)

Ariketa gisa, aitari egurra **mozten** laguntzen diot. [Itziar Otegi](#)

-Entzimak erabiliz posible zela organismo baten ADN zatikiak **moztu** eta zati horiek beste zatiki batzuekin batzeko. [Pello Salaburu](#)

#### 5 (papera, ehuna eta kidekoak)

Aizto bikaina zatekeen papera **mozteko**. [Josu Zabaleta](#)

Paperkia ezkererantz **moztu** beharrean eskuinerantz mozten bazuen bere bizitzak norabide bat edo beste har zezakeela. [Harkaitz Cano](#)

Oihala **moztu** eta gero probatu eta josi egiten zuen. [Pello Lizarralde](#)

**Moztu** gabeko oihal-zati bat bizpahiru lekutan josi, eta [...]. [Jose Morales](#)

Soineko guztiak **moztu** zituzten eta amak ilea ere bai. [Fernando Rey](#)

Estalkiaren zerrrenda bat **moztu** zuen, eta hura erdiko barratik igaroaraziz eta muturretatik lotuz gero, besarkagailu bat osatu zuen. [Koro Navarro](#)

Argazkia **moztua** izan da: emazte bat agertzen zen beste zatian. [Ramuntxo Etxeberri](#)

#### 6 (bidea, kalea eta kidekoak) itxi.

Errepidea **moztu** genuen, bidean eserita, baina zinpekoak eta Guardia Zibila agertu ziren. [Eduarne Elizondo](#)

A-8 autobideko hiru lerro **moztu** zituzten. [Berria - Harian](#)

Pazientzia galdu eta bizikletatik salto eginez bidea **moztu** nion. [Koldo Biguri](#)

Oibarren, Frantses Beaumontekoa traidoreak guitarik ez zien bidea **moztu**. [Aingeru Epaltza](#)

Gisa berean, beste lau zubi **moztu** zituzten 1914ko gerla denboran. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Oren bat berantago, gure burdin-bide hau Aliatuek **moztu** zuten eta denak hor berean sarraskituak izanzen ginen. [Michel Oronoz](#)

Manifestariak kaleak **moztu** zituzten, protesta gisa, eta berriro ere izan ziren istiluak Ertzaintzarekin hiri erdialdean. [Berria - Harian](#)

#### 7 (jarduna, solasa eta kidekoak) eten.

Hizketaldia **moztu** eta sofara bota zuen bere burua, negar-zotinka. [Fernando Rey](#)

Otoi segi, Peio..., bihotza lehertzen dautan zure mintzaldia ez dut orai **moztu** nahi. [Michel Oronoz](#)

Apaizak, solasa **moztu** nahian, une batetik bestera hilko zela, eta orduan zerura igoko zela esan zuen. [Pablo Sastre](#)

Jean Claudek **moztu** egin zion bere jario alferra. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

"Hori gezurra duk, Martin, ez zuan horrela gertatu!", **moztu** zion Josebak. -Bai, jauna - **moztu** zion Moralesek irribarretsu. [Bernardo Atxaga](#)

-Zoaz - **moztu** zuen Joantok-. [Elena Touyarou](#)

-Inondik inora ez - **moztu** zion Perrettek-. [Jon Muñoz](#)

-Etorri bai, zuek, hain goizik... -hasi zen ama ahal bezain polliki baina Colettek solasa **moztu** zion: [...]. [Daniel Landart](#)

Sekularrak etortzen zitzaizkionean eta haiekin hizketaldia **moztu** nahi zuenean, [...]. [Askoren artean](#)

-Beraz - **moztu** zuen bertan Pitottik-, zuek nahi zenuteke ni, horrela, neure kabuz, langileak hartzen hastea. [Josu Zabaleta](#)

**Moztu** behar diat, jendea zeukaat tabernan! [Pako Aristi](#)

-Tira, **moztu** erretolika -bekozko begiratu zion abokatuak-, ez nago-eta berriketarako. [Migel Angel Mintegi](#)

Ahots lodiko kankailu batek errotik **moztu** zuen eztabaida, hitz hauekin: [...]. [Jon Alonso](#)

#### 8 (etxeko ura, argindarra, telefonoa, trafikoa eta kidekoak) eten.

Sabinari (herrera, alarguna, semeak denak alabak dituen hori) argia **moztu** diote! [Pablo Sastre](#)

Inkubagailuetan zeuden bost haur hil dira Indian, argindarra **moztu** ondoren. [Berria - Gaiak](#)

Ostegunean, argindarra eta gasa **moztu** zizkieten errefuxiatuei soldadu errusiarrek eta alde egiteko agindu. [Berria - Mundua](#)

Gero, telefono konpainiak telefonoa **mozten** dio, ordaindu ez duelako; gero, argia. [Anton Olano](#)

Baina, Amatiak ez zuen segida entzuteko gogorik eta elkarriketaren hari interkontinental **moztu** zuen, tresna berriz goxoki pausatuz. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Bart, gaueko hamaiketan, pertsona partikular guztiei telefono lotura **moztu** zieten. [Josu Zabaleta](#)

PSOeren egoitzen aurrean manifestazioa egin zuten eta trafikoa **moztu** zuten zubi batean. [Berria - Mundua](#)

Trafiko zirkulazioa **moztu** eta Parlamentuko espaloian jarri ziren. [Berria - Ekonomia](#)

#### 9 irud/hed

Beherantz segituko dut kurbaren azpiko aldea **moztu** arte. [Jon Alonso](#)

E letraren beste aldean l letra egongo da, zirkunferentziak diametroaren lerroa **mozten** duen puntuan, eta Y, K, L, G letrak egongo dira alde horretan. [Santiago Iruretagoiena](#)

Kamerak hortxe **moztu** du plano. [Anjel Lertxundi](#)

Testua antolatzeko eta txukuntzeko (**moztu** eta erantsi, izenburuak jarri, orrialdeak zenbatu...). [Askoren artean](#)

Asnasa **mozteko** moduko putz ixilen bat. [Patziku Perurena](#)

Lana gehiegi ez **moztu**, kontzentrazioa eta horrelako lanetan behar den tentsioa kenduko baitzikizu. [Askoren artean](#)

Menaud hil eta haren seme Antoniok leinuaren segida hartzean, ez ziren **moztu** elkarrekiko harremanak. [Aingeru Epaltza](#)

Washingtonen 1981ean **moztu** zituen Tripolirekiko harremanak. [Berria - Mundua](#)

Mitchek **moztu** al du berarekin? [Xabier Paya](#)

Parisen zegoela, Donostiako iraganarekin **moztu** behar zuela sentitu zuen. **Iban Zaldúa**  
Hartz IV legeek gizarte laguntzak **moztu** nahi dizkiete luzaroan lanik gabe daudenei, esaterako. **Berria - Mundua**  
Telefonoaren txirrin joaldiak **moztu** egin ziren. **Iñaki Zabaleta**  
Telefonozko komunikazioak **moztu** egin dira. **Berria - Mundua**  
Denik eta nobleenak eta bikainenak izanik ere figura hauek, komunikazioa **moztu** egiten dute arimaren eta esentziaz gaindiko irudiaren artean. **Joan Mari Lekuona**  
Beranduko ohartze horrek [...] bultzatu zituen garapen-bideko herraldeentzako kredituak bat-batean **mozttera**. **Koro Navarro**  
Ez lagun espezialista ez ni ez baikinen gai izan hesteetako infekzioa **mozteko**. **Joan Mari Irigoien**  
Isilunea **moztu** nuen sobera luzatu gabe. **Piarres Aintziart**

## 10 laburtu, motzago egin.

-Mikel Laboaren kantu hori pixkat **moztu** dugu [...] kantu hori luzea baita. **Menane Oxandabaratx**  
Hala eguzkiak, zeinuen espazioetatik ibiliz egunak eta orduak luzatu eta **mozten** dituen bezala, [...]. **Santiago Iruretagoiena**  
Abuztuaren erditik aurrera, eguna **moztu** eta euliak zorrotzu (gaiztatu diote beste herri batzuetan). Eguzkia Eskorpion sartzen da Pleiadeak itzaltzen ari direnean, eta egunen iraupena **moztu** egiten da hegoaldera egiten hasten den neurrian. **Pello Zabala**  
Gruarorako bidea hartu ordez, bidezidor batetik **moztu** zuten, Madona di Rosarantz. **Josu Zabaleta**  
Guk hara joanda bat-batean **mozten** dugu distantzia hori, baina alde egiterakoan zuloa oraindik ere zein handia den gogorarazten diegu hangoei. **Pako Aristi**

## 11 (adizlagunekin)

Ilea motz-motz **moztu** eta beltzez tindatu zuen. **Antton Olano**  
Garbi-garbi **moztuko** zioat lepoa! **Bernardo Atxaga**  
Juliana zopa egiteko barazki freskoak ere bazituen prestaturik, paper orri batzuen gainean fin-fin **moztuak**. **Karlos Zabala**  
Ilea grisa zuen, tentea eta labur **moztua**. **Karlos Zabala**  
Bizarra gaizki **moztua** zuen eta irribarrea horzgabeta. **Juan Garzia**  
Ileluze potrodun eta ero samar hura, orain ile ondo **moztu** eta orraztuarekin ageri zen, bizarra eginda, eta PSOEn oso aurrera zebilen. **Juan Kruz Igerabide**  
-Telefonoa bat-batean **moztu** da. **Koro Navarro**  
Japonia izan zen errusiarren ahalegin hori sustraitik **moztu** zuena 1904-5ean erruso-japoniar gerra erabakigarrian. **Iñaki Mendiguren**  
Sanmarkeko mila urtetako pago zahar guztiak errotik **moztu**, eta pinuak aldatu zituen. **Joan Mari Irigoien**  
Ugatzak Berlusconiaren zalantzak errotik **moztu** nahi izan zituen: ezer onik iritsi al zaizu? **Jon Alonso**  
Bitan pentsatu gabe, erditik **moztu** eta gosariaren erretiluan laga nituen bi atalak. **Aritz Gorrotxategi**  
Edortari erretolika gehiegirik botatzea ez zaio komeni, moztu egin behar du, zorrozki **moztu**. **Sonia Gonzalez**  
Harri ederki **moztu** eta hobeto zizelatuekin. **Bernardo Atxaga**  
Entzuten da, edertasunaren isiltasuna goxoki **mozten** duela, musika gregorianoa. **Piarres Aintziart**

## 12 (era burutua izenondo gisa)

jendeak ehun mila libera baino gehiago gastatzen zuen lore **moztuak** erosten. **Karlos Zabala**  
Egunero joaten ziren hara, odolak erakarrita, buru **moztuak** ikusiz atsegin hartzen duten gaztetxoan ankerkeriarekin. **Karlos Zabala**  
Normandiarra zutik zegoen, eskuineko besoa zutabe **moztu** baten gainean jarrita. **Karlos Zabala**  
Piramide **moztu** bat egitea erabaki du azkenean. **Bernardo Atxaga**  
-Hego haizearekin batera, belar **moztu** berriaren usaina sartu zen gelara. **Anjel Lertxundi**  
Belar **moztu** berri bustiaren usainak mozkortu nau. **Iñigo Aranbarri**  
-Haren kokots bizar **moztua** zur begitsua bezain zimurra zen. **Karlos Zabala**  
Ahari errearen beso bat, saskiko legamigabeko ogi bat eta legamigabeko opil bat hartu eta nazireu ile-**moztuaren** eskuetan ipiniko ditu apaizak. **Elizen arteko biblia**  
Orain hortxe zuen, besoa luzatu eta ukitzeko moduan, hil-hotzik, etorkizun lepo-**moztua**. **Imanol Zurutuza**

## 13 (era burutua izen gisa)

Bazeukan, beraz, **moztu** on baten beharra. **Jose Morales**

## 14 mozteko (izen elkartuen bigarren osagai gisa, elkarketa gailu bat adierazten duela)

Dotzena bat ile-**mozteko**, elektrika indarrez ari direnak. **Marzel Etxehandi**  
Izerditzeko elastiko txanoduna, nylonezko zamarra, azazkal-**moztekoa**, hortz-eskuila, orrazteko eskuila eta abar eta abar. **Oskar Arana**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errotik moztea (4); ilea moztea (4); lepoa moztea (8); moztea erabaki (7); moztea erabaki zuen (5); moztea lortu (6)  
kableak mozteagatik (7)  
kableak mozteagatik (7)  
mozteari ekin (4)  
bidea mozteko (7); bizarra mozteko (18); bizarra mozteko labana (4); burua mozteko (4); errotik mozteko (5); ilea mozteko (11); ilea mozteko agindu (3); kableak mozteko (6); lepoa mozteko (22); lepoa mozteko agindu (4); mozteko agindu (10); mozteko agintzen (5); mozteko labana (4)  
belarra mozten (8); bidea mozten (10); bizarra mozten (10); burua mozten (4); egurra mozten (7); erditik mozten (6); errotik mozten (4); ilea mozten (18); lepoa mozten (18); lepoa nola mozten (6); mozten ari (20); mozten ari zen (4); mozten dio (9); mozten du (17); mozten hasi (11); mozten saiatu (7); soropila mozten (5)  
ardi mozttera (5); ilea mozttera (7)  
arbola moztu (4); argindarra moztu (8); asko moztu (4); azazkalak moztu (4); belar moztu (4); belarria moztu (7); berehala moztu (5); besoa moztu (7); bidea moztu (21); bizarra moztu (27); bizarra moztu gabe (4); burua moztu (34); burua moztu zioten (9); errepide moztu (4); errepidea moztu (30); errepidea moztu zuten (10); errepideak moztu (11); errotik moztu (25); errotik moztu zuen (6); eskuak moztu (5); garraiatzeko kableak moztu (4); gehiago moztu (4); hanka moztu (13); hankak moztu (5); hegoak moztu (5); hitza moztu (6); ilea moztu (46); ilea moztu zuen (4); jokoa moztu (4); kableak moztu (44); kableak moztu zituzten (12); lehenbailehen moztu (4); lepoa moztu (99); lepoa moztu zioten (19); mihia moztu (6)  
moztu ahala (4); moztu arren (4); moztu aurretik (6); moztu eta gero (8); moztu eta sutara (5); moztu gabeko (5); moztu ilea (4); moztu ondoren (10); moztu ostean (4); moztu zion (98); moztu zuen (122)  
soka moztu (4); solasa moztu (5); solidarioek kableak moztu (6); urtegiko kableak moztu (4); zainak moztu (4); zainak moztu zituen (4); zangoak moztu (4); zinta moztu (4); zuhaitzak moztu (7)  
bizar moztua (4); burua moztua (6); moztua izan (9); ongi moztua (4)  
bidea moztuko (5); burua moztuko (11); ilea moztuko (4); lepoa moztuko (37); lepoa moztuko ziola (4)  
lepoa mozturik (5)  
bizarra moztuta (4); burua moztuta (12); ilea moztuta (4); lepoa moztuta (13); moztuta egon (6); moztuta geratu (6); moztuta hil (4)  
legez kanpo moztutako (5); lepoa moztutako (5)  
bidea moztuz (6); lepoa moztuz (6)

## moztualdi iz mozketa.

Baserriko eskarmentutik dator hau, bai lanarekiko argi **moztualdia**, eta baita ukulutik gora igotako ziztalari ttiki horien akordua ere, latoso eta pelma jartzen baitira zenbait egunetan. **Pello Zabala**

## moztura iz ipar mozte, mozketa.

Peioren bizitza hitz laburrez hola kondatzen du Basoik, erranez berehala **moztura** bat izan dela zenbait urtez bizitza horretan, bizia itzali balitz bezala. [Michel Oronoz](#)  
**Moztura** labor horren ondotik, [...] solasgaia berriz abiatzean, Kattalinek Gérard-ekilako gorabeheren berri galdegiten dio berriz ere. [Eneko Bidegain](#)

## moztxo adlag adkor motz.

Esperantza aldetik **moztxo** nabil aspaldion. [Eskarne Mujika](#)

## mozzarella iz

Nik **Mozzarella** bikoitza eskatuko diat nirean. [Antton Olano](#)

## mubimendu ik mugimendu.

## muble<sup>1</sup> (orobat **mueble**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **muble** baztertzen du eta **altzari** erabili behar dela adierazten du) 1 iz

Alarguntsak, Eleanor Boardman-ek, barneko ontasun guziak, **muble**, baxera eta edergailuak, saltzen ditu eta azkenik jauregia eta kanpoak 1977an. [Michel Oronoz](#)

Etzetako **muble** eta arroparia. [Herria](#)

Eta erakusten dizkit, **muble** luze baten estaietan metatuak diren mundu osotik erromesek igorri dizkioten gutunak. [Piarres Aintziart](#)

Bere ofizioaz mahaxtria zen eta lanaren gustu handia bazuen, bereziki **muble** egiten. [Herria](#)

**Mubleak** bernizatzeke eta tindatzeke. [Herria](#)

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Munduko **muble** feria handiena. [Herria](#)

Landesetako DESIGNA enpresak, **muble** modeloak asmatzen eta pikoan emaiten dituenak. pentsatu nuen **mueble**-dendaren baten eskaintzak edo antzeko zerbaiz izanen zela. [Herria](#)

Amak beti **mueble**-barraren azpiko armairutxoan edukitzen zituen Badajozko opil horietako pare bat hartu nuen kaferako. [Jon Maia](#)

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baziren ere bi proiektu berezi, elbarrituendako alki berezi bat eta informatika **muble** bat. [Herria](#)

## muble<sup>2</sup> iz korrokoia.

Bizkaiko Zubitik gora sarri ikusten dira muxarrak, mihi-arrainak, izkirak, aingirak, zenbait lupia eta **mubleak**. [Berria - Euskal Herria](#)

## muda iz (arropa) aldagarria.

**Muda** baterako barruko arropa, bi pistola, prismatiko batzuk eta eguzkitako betaurrekoak. [Harkaitz Cano](#)

**Muda** garbia janztera noala, esaten dit: [...]. [Anjel Lertxundi](#)

Han zebilen arropa bertako edozeinek erabil zezakeen, eta, **muda**-premia izanez gero batez ere, ikusitako lehenengoa hartu ohi zuen jendeak. [Rafa Egiguren](#)

## mudaezin izond ezin mudatuzkoa. ik mutaezin; aldaezin.

Egitamua **mudaezina** da. [Juan Garzia](#)

Ezinbesteko gertaera, lege **mudaezin** naturalen eraginaren ondoriozkoa. [Xabier Olarra](#)

Nire manu **mudaezinak** fitsik ez aldaturik. [Jon Muñoz](#)

Ez dezaket uler nola jaidura batek, une batez jaioa eta bertze batez hila gertatu denak, ahalkearen, prestutasunaren eta lañotasunaren hatsapen **mudaezinak** baino indar gehiago izan dezakeen. [Jon Muñoz](#)

## mudagaitz 1 izond mudatzen zaila. ik aldagaitz.

Aginduaren eremuan bizi dira, esaldi motz, xingle eta gehienetan **mudagaitzek** biziaraiziak. [Aingeru Epaltza](#)

Handik goiti, aurpegi **mudagaitz** berberarekin hartuko nituen elkarren segidan etorri ziren guztiak: kirologia, radiestesia, alkimia, bidaia astralak, filosofia tibetarra eta, hutsik egin gabe, horiei denei zegozkien "Taldea". [Aingeru Epaltza](#)

Eboluzioaren teoriak bezala, kosmogonia modernoak ere, unibertso **mudagaitz** baten, denbora itzulgarri baten ideien lekuan, etengabe berrantolatzen den eta historiaren esku dagoen unibertso batena ipini du. [Juan Garzia](#)

Gordea diozun asturua zeinahi ere den, ez dituzu deus aldatuko zuri atxikia daukaten sentimenduak; **mudagaitzak** dira nola baitira sorrarazi dituzten bertuteak. [Jon Muñoz](#)

### 2 (adizlagun gisa)

Eskalatzaileak, **mudagaitz**, halako orrialde batera iritsi eta nire aitzinera zabaldu zuen mahai gainean. Horrek erreallitatea halabereko miratokitik -motz, xingle eta **mudagaitz** -ikusarazten die, lagun bokaziogabe eta konplexuagoon kaltetan. [Aingeru Epaltza](#)

## mudagaiztasun iz mudagaitz denaren nolakotasuna.

Haren **mudagaiztasunak** gure mudantzak are ageriagoan uzten edo. [Aingeru Epaltza](#)

## mudaketa iz aldaketa.

Inor ez da akordatuko urtearen **mudaketaz**, denak berdin-berdin izaten jarraituko baitu, eta seietarako Eroskiko teknikoak ez badator ipurtzulotik sartu behar diot telebistaren plasma... [Berria - Kultura](#)

## mudakor mudantzeko joera duena. ik **mudakor**; **aldakor**.

Giza arima zein arina eta **mudakorra** den oroitarazi dio Pedro Agerrek bere buruari. **Aingeru Epaltza**  
Gure ama, ordea, izugarri **mudakorra** zen, aldabera, bere sinpatia eta harremanetan. **Fernando Rey**  
Eguneroko oroitzapenak, ez direla inondik ere finkoak, iheskor eta **mudakorrek** direla, aldatu egiten direla haietaz pentsatzen dugun aldiro. **Xabier Olarra**  
Ibaia da lamiek darabilten ispilu bakarra, eta ibaiek ere bezala, lamiek **mudakorra** dute izaera, behin eta berriro aldatzen dena: erakarri zaituen sedukziozko irribarrea berehala bihurtuko zaizu hilgarri: lamiaren bila ibaian sartu orduko. **Anjel Lertxundi**

## mudantza 1 iz aldaketa.

Liburu hau eskuan hartzen duzunean bertan sartzen zara etxe tronpagarri batean, guztia baitu ispilu eta **mudantza**. **Markos Zapiain**  
Aurrerapenak **mudantza** latzak ekarri zituen hirira. **Iñaki Seguro**  
Egia da bai, **mudantzaren** bat-edo eragin didatela zorioneko gertaera batzuek, nik desira nezakeen atsegini hoberena eman didatenak. **Patxi Ezkiaga**  
Zubigainetik bezalaxe, zubiaren arkupetik iragotzeak zoriaren **mudantza** sortzen du. **Patziku Perurena**  
Hizkuntzaren **mudantzek** albo-zentzuak eta ñabardurak ezabatzen dituzte. **Juan Garzia**  
Zeruak aldaketa eta **mudantzarik** ez duelako, hots, bertako izakiak ez direla aldakuntzapekoak, jai eta usteltzen diren lur gaineko gauzak bezala. **Xabier Kintana**  
Haren mudagaiztasunak gure **mudantzak** are ageriagoan uzten edo. **Aingeru Epaltza**  
Ahaztuarazi dizkie eguraldi **mudantzekiko** urdurialdiak ere. **Pello Zabala**  
Antz eman zion zer **mudantza** ekarri zuten oharkabea joandako urte haiek, eta bere buruaren **mudantzari** ere antz eman zion. **Matías Mujika**

## 2 (etxe) aldaira, aldaketa.

**Mudantzak** egiten genituen garaietako armairu haietako baten barruan banengo bezala, harrapatuta. **Harkaitz Cano**  
Kalera atera nintzen, / **mudantza** egingo zidan kamioiaren bila, / nire bihotzeko palazioa altzari berriak ekarriko zituen. **Jasone Osoro**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mudantza** -etxe batean bederatzi hilabete daramatzat, baina ugazabak ez dit kontratua egin nahi, eta ez du nigatik aurpegia emateko asmorik. **Berria - Harian**  
Bolada batean **mudantza** enpresa batean lan egin zuen. **Harkaitz Cano**  
**Mudantza** garaietara egiten dut atzera, eta koltxoi haietako bat nola anaiak eta biok oinez generaman oroitzen saiatzen naiz. **Harkaitz Cano**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mudantza egiten** (3)

**mudantzak egiten** (3)

## mudantzagile iz etxe aldairak egiten dituen pertsona.

**Mudantzagile** izan nahi nuke. **Eskarne Mujika**

## mudarazi, mudaraz, mudarazten du *ad* mudatzera behartu. ik **aldarazi**.

Ateraldiak ez zion bisaiaren seriotasuna **mudarazi**. **Aingeru Epaltza**  
Borrotkatzen ahal gara gisa horretako huskeriengatik; baina ez digute, nire ustean, aldartea **mudarazi** behar **Jon Muñoz**

## mudatu, muda(tu), mudatzen 1 da/du *ad* aldatu.

Lapurrak euskara egiten zuela entzunik, aurpegia **mudatu** zitzaion ondarrutarrari. **Anjel Lertxundi**  
Aurpegiko kolorea **mudatu** zitzaion Adari. **Anjel Lertxundi**  
Barre egin zuten herritarrek, eta koloreak **mudatu** zitzaizkion berriro epaileari. **Koldo Izagirre**  
Garaiak aldatzen dira, belauak **mudatzen**, baina itxuraz bakarrik; lehengoan dirau gizonak: bizitzaren eta heriotzaren misterioak harrapatuta. **Joxerra Garzia**  
Haserretik ahalkera **mudatu** zaio gorritasuna. **Koldo Izagirre**  
Abasek zuzenean jo baitzuen beragana, begitartea emozioak **mudatua**, urratsa bizkorragotua. **Patxi Zubizarreta**  
Bisaia oinazez **mudatu** zitzaion, sastakada bat bildu balu bezala. **Aingeru Epaltza**  
Alabaina, zaletasunak ez ezik ikusmirak ere **mudatzen** hasi zitzaizkion alabari. **Aingeru Epaltza**  
Kristinak ez zuen begitartea **mudatu**. **Aingeru Epaltza**  
Noiz **mudatu** ote ziren Errotazaharretik Senperelarrera? Xenpelar sortu baino lehenago edo ondotik? **Berria - Kultura**

## 2 (adizlagunekin)

Hain azkar **mudatzen** dira izenez eta urtaroz, zirkuak. **Harkaitz Cano**  
Bere Elsa kuttunari buruz galdetu ziotenez geroztik, erabat **mudatu** zitzaion Linori aurpegia. **Harkaitz Cano**  
Eta espantu eta izialdura hartan zeinen hunkiturik geratu zen Joxe Aberasturi bizkaitarra, hainbertzeraino, non bizitza arras **mudatu** baitzitzaion, hartaraz gero...! **Joan Mari Irigoien**  
Begitartea zinez **mudatua** zuen. **Jon Muñoz**  
Ostatuen izenak karrikenak eta bizilagunen izaera bezalakoak dira hiri honetan: nekez **mudatzen** dira, gerla, inbasio edo gisako kataklismoren bat tarteko izan ezean. **Aingeru Epaltza**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aurpegia mudatu** (5); **aurpegia mudatu zitzaion** (3); **begitartea mudatu** (4)

**aurpegia mudatzen** (3)

## mudatzeke *adlag* mudatu gabe.

Hortik aurrerakoa ardoginen kontua da; guri hauxe baino ez zaigu axola: itzuri zitzaiola alkohol-hartxidurari [...], eta ardoari nahastu zitzaiola bere izatea **mudatzeke**. **Juan Garzia**

## mudurri *izond* hitsa, goibela, malenkoniaz betea.

Emakume veneziarrak -pentsatu zuen Gabriel Ruak oroitzapenak zekarkion minez-, bazekiten gizon bat, triste eta **mudurria** izanik ere, nola egin alai eta zoriontsu, erositako



ordueta**n** bederen. Felipe Juaristi  
Gitarra baten soinua entzun zuen, soinu hits **mudurria** inondik ere, limoiondo zabal hostotsu baten azpitik zetorrena. Felipe Juaristi  
Adagioak bigarren adagioa, are **mudurriagoa** oraindik, ekarri zuen De Zwerverren kroskora. Felipe Juaristi  
Johannesek eta Andrések halako batean ez zioten segitu kondesaren doinu negarti **mudurriari**. Felipe Juaristi  
Gezur haiek areagotu egin zuten mutilaren tristezia, eta etorreran bezain kopetilun, **mudurri** eta mingulin irten zen. Patxi Zubizarreta

## mudurrialdi iz mudurriazko aldia.

Halako **mudurrialdiek** jotzen zintuzten Amerikan ere, baina etorkizun eder baten itxaropenean bizi gintuan han, eta hark sendatzen zizkigun errealitate gupidagabeak azalean utzitako urratu eta zauriak. Xabier Montoia

## mueble ik altzari.

## mueka iz muzina.

Barrara heldu zen eta, **mueka** arraro batzuk eginez, baju-bajutik: [...] Pablo Sastre

## muelle iz malgukia.

Badakit kamainetako koltxoiak lehertu eta **muelleak** irensten dituztela. Koldo Izagirre  
Egin zituzten lau oheekin zortzi ohe, **muelleak** -eta kenduta. Alberto Barandiaren  
Kilo bat altzairuz egin zitezkeen erloju-**muelleak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

## mueraka adlag “muera” esaka.

Gure ondoan atrakatu zuen Alcázar de Toledo-k, bibaka eta **mueraka** zetozen erreketekak, fusilak sagarrondoaren adarrak balira bezala inarosten. Koldo Izagirre

## muestra ik mostra.

## muezin (orobat muezzin g.er.) iz minaretetik fededun musulmanei otoitz egitera dei egiten dien pertsona.

Horretaz **muezin** arduratzen dira; ahots miresgarriekiko gizon hauek dorre altuetara igo eta, haietatik, lau haizetara zabaltzen dituzte beren errepikak. Patxi Zubizarreta  
Historialariak **muezina** eta minaretea aipatzen dituela etsaiaren zelaian kolore lokala eta ñabardura historikoren bat sartzeko. Jon Alonso  
Baina dagoeneko **muezinaren** baten deia darra entzun dugulako, Mairu Bizkaitarraren hitz hauekin gogora gintezke: [...]. Patxi Zubizarreta  
Pasabide estuko bazar izugarri zabal eta jendetsua, **muezin** -aren kantuak bozgorailuetatik ordu jakinetan, emakume ikusezina... Jon Arretxe  
Goiz guziz, egun sentia aintzin, lau **muezinen** otoitzetako deiek iratzarrazten duten herria. Herria

## muezzin ik muezin.

## mufti iz legelari musulmana, betekizun erlijiozkoak ere badituena.

Igandean ezezagun batzuek apaiz musulman sunita bat, Nizamuddin Shamzai **mufti** -a, tiroz hil zuten Karachin. Berria - Mundua  
Bitartean, Jerusalemgo **mufti** (buruzagi erlijioso musulmana) Ikrema Sabrik adierazi duenez, Arafatek hiri santuan [...] hilibiratua izatea nahi du. Berria - Mundua  
Bosnia-Herzegovinako **mufti** handi Mustafa Cericekin batera jasoko du Etxegaraik Unescoren saria. Berria - Euskal Herria  
Txetxeniako erlijio buruzagi **mufti** nagusiak adierazitako gaitzespena. Berria - Mundua  
Kardinalak, prioremeak, apezpiku-laguntzaileak, akolitoak, erretoreak, apaizak, sufiak, **muftiak**, eta pum-pumak. Xabier Olarra

## muga 1 iz eremu bat amaitzen den tokia.

Ezbaian hasten ziren Asiako **mugak** zein ote ziren. Fernando Rey  
Bere herriaren **mugak** zabalagotu zituen eta herrialdeak menperatu. Elizen arteko biblia  
Neuk jarri diot hondartza itsasoari **mugatzat**, inoiz gaudituko ez duen **mugatzat**; harrotzen da eta orroa egiten, baina ezin du **muga** hautsi, ez gaudituko. Elizen arteko biblia  
Hegoaldeko **muga**, Tamar-etik Meriba-Kadexeko oasiraino iritsiko da, eta gero, Egiptoko errekarri jarraituz, Mediterraneo itsasoraino. Elizen arteko biblia  
Eguzki sistemaren **mugan** dagoen Kuiper asteroide gerrikoan. Berria - Gaiak  
Lurraren **mugetaraino** hedatu zen haren izena. Elizen arteko biblia  
Lucyk esandako lekuan egiten du zuloa, jabetzaren **mugatik** gertu. Oskar Arana  
Orain hemen gara, Kadexen, zure lurraldearen **mugako** hirian. Elizen arteko biblia  
*ik mugako.*  
Haren ospeak kalezuloko **mugak** gaindituak zituen. Patxi Zubizarreta  
Eta kanpamentuko **muga**, herri txikiaren lehenengo etxeetan berme harturik, eten eziniko zaintzaile lerro baten ardurapean gelditu zen. Karlos Zabala  
Harantzago, lorategiaren **mugan** ia [...] bellvedere bat. Felipe Juaristi  
Zaldia ezproiez jo, eta, oihantxoaren **muga** jauzi izugarri batez gurutzaturik, Obi aldera oldartzen da lasterka bizi-bizian. Fernando Rey  
Lurraren azken **mugetatik** erasotzera etorritako erregeak ere menperatu eta erabat deseginik utziak zituzten. Elizen arteko biblia  
Mundu argitsua, baketsua eta **mugarik** gabea. Jose Morales  
Kafe expressoa noraino iristen den, horra **muga** bat. Edorta Jimenez  
Markoa objektu horren ertza da, lehenik eta behin, haren **muga** materiala, ukigarria. Josu Zabaleta

Honelako galden zerran **mugarik** gabe luza zitekeen, eta beste horrenbeste ikerketa egiteko gaiak ematen zituzten. *ik beherago* 19. **Iñaki Mendiguren**

Hegoaldetik datorren lan-eskaintza ia **mugarik** gabe da elastikoa. **Koro Navarro**

**Mugarik** gabeko boterea eta dena sortzeko nahiz suntsitzeko ahalmena. **Jose Morales**

*ik beherago* 20. **Askoren artean**

**Muga** hertsia jartzen dizkio filosofiaren esparruari, hemendik kanpora ez dago filosofiarik, baieztatzen du. **Askoren artean**

Gizarteek, giza gorputzak bezala, **muga** jakin batzuk dituzte. **Juan Martin Elexpuru**

### 3 zerbait amaitzen den ueña.

Ez diot neure bizi-arnasa betiko utziko gizakiari, haragi hutsekoa denez gero. Horregatik, ehun eta hogeitaz **muga** jarriko diot haren bizitzari. **Elizen arteko biblia**

Horrela zaintzen du hilobian eror ez dadin, heriotzaren **muga** pasa ez dezan. **Elizen arteko biblia**

Egia esateko, 200 urteen **muga** medikuek adostutako **muga** arbitrarioa baino ez da. **Unai Elorriaga**

Nire bizi-arnasa ez da betiko txertatuko gizakiaren baitan; haragi hutsekoa denez, ehun eta hogeitaz **muga** izango du haren bizitzak. **Jose Antonio Mujika**

Hildakoa emakume dotorea iruditu zitzaion, berrogeiko **muga** latza modu bikainean gauditurik zeukan emakume ederra. **Migel Angel Mintegi**

Izan ere, bistak huts egiten ez bazion bederen [...] hogeita hamarreko **muga** iristear edo pasa berria zeukan. **Migel Angel Mintegi**

Adin onaren **muga** aspaldi gainditua, ile urdindua, erretako aurpegi etena eta sukartu batena zirudien bekozkoa ageri zituen. **Anjel Lertxundi**

Adinaren **muga** ezartzea baino ez litzateke faltako. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arazoa, beti bezala, muga ezartzerakoan dago, **muga** -eremueta hain zuzen ere. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Iparraldeko **muga** -ertza Mikmetat zen. **Elizen arteko biblia**

Jainkoak ezarri didan lan-eremua hartuko dut neurritzat, eta neurri horren **muga** barruan zaudete zuek ere, korintoarrok. **Elizen arteko biblia**

**Muga** -markoa irudia mugatzen duena da, irudia ez denetik bereizi eta irudiaren eremua definitzen duena. **Josu Zabaleta**

**Muga** -lubrikazioa deritzo halakoari. **Irene Aldasoro**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Venezuelako aire- **mugak** zeharkatzen zituen hegazkin estatubatuar bakoitza eraitsi egingo zutela. **Pako Aristi**

Gizakian, ikusmen-zolitasunaren behe- **muga** 200 bat mikroitakoa da gutxi gorabehera. **Beria - Gaiak**

*Human Personality* mende- **mugako** liburu bikainean saiatu zen kalkulugile miragarriek beren emaitzak lortzeko zer prozedura erabiltzen zituzten aztertzen. **Xabier Olarra**

Silaba **muga** eta aho puntua. **Isabel Arrigain**

Badik, noski, bere denbora- **muga**, bizitzan gauza guztiak bezala. **Xabier Olarra**

Emandako denbora- **muga** gainditzea ez dela izan bere errua. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hauste egunetako errauts grisezko gurutzeta kopetan bizi- **muga** seinale zekarrenean. **Itxaro Borda**

### 6 gabezia. ik mugapen; mugakizun 2; mugatasun 2

Ez da harrigarria, bai baititu [nobelagileak] bere **muga** eta ahulezia estetikoak. **Anjel Lertxundi**

Umil eta **muga** guztiakin, horretara dator liburu hau. **Askoren artean**

Giza adimenaren eskasiaren **muga** eta ezintasunei hertsiki jarraituz. **Xabier Olarra**

Hainbat **muga** obraren izaeratik datorriko: beronen ofizialtasunetik [...] eta genero hagiografikoarekiko mendetasunetik. **Askoren artean**

Ikertzaileak ados daude Lehen Bizitza-k duen garrantzia azpimarratzerakoan, bere **muga** eta guzti, Frantziskoren irudi historikoa berreraikitzeko. **Askoren artean**

Memoriak uste baino **muga** hertsia goak ditu. **Joan Mari Irigoien**

Frantziako erresumaren mugaren **muga** hau ez bide zen hain munta handikoa Frantziskorendako. **Aingeru Epaltza**

Bi **muga** horien artean dabil beti zabuka idazlearen zoriona. **Pako Aristi**

### 7 irudizko marra igaroezina.

Botere politiko orori **muga** zehatzak jarri zizkion. **Piarres Xarriton**

Baziren beginietako hondoa galdutakoak, zoramenaren ertzekoak, eta baziren betzuloak leize bihurturikoak, eromenaren **mugakoak**. **Edorta Jimenez**

Erabateko perfekzioaren bidetara ekin zion, santutasun betearen gailurrera iritsi zen eta betetasun ororen azken **muga** atzeman zuen. **Askoren artean**

Ez-esatekoen **muga** gainditua nuen-eta, beranduegi zen orain. **Joxe Austin Arrieta**

Biztanleriari **mugak** ipintzeko biderik artezena haur galtzea da. **Gotzon Garate**

Zerga politikak ere bazuen bere **muga**. **Iñaki Heras**

Orduetik, esan bezala, **muga** jakin batzuen barruan aldatzen diren truke-tasak erabiltzen dira nagusiki. **Iñaki Heras**

Ezin zen, baina, infinituraino hedatzen diren gauzen kopuruari **muga** finkoa ezarri gabe. **Imanol Unzurrunzaga**

Egia da estatu mailako legeriak **muga** zurrunka jartzen dituela. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Krudelkeriaren **mugetako** hoztasuna zuen defentsa bakarra. **Josu Landa**

Logikaren **muga**, ordea, oso zehazki determinatzen da, pentsatze ororen erregela formalak xeheki aurkeztu eta hertsiki frogatu baino egiten ez duen zientzia baita. **Ibon Uribarri**

Baliteke, alegia, zientziaren garapenak **muga** bat izatea, eraikin baten altuerak duen bezala. **Juan Garzia**

Azken gerrara arte, bada, **muga** nabarmen bat zuten genearen egiturari buruzko ideiek. **Juan Garzia**

Begiaren erresoluzio-ahalmenaren **muga** absolutua. **Irene Aldasoro**

Ibex-35 indizeak 11.000 puntuen **muga** gainditu du eta azken bost urteotako maila gorena erdietsi du. **Beria - Ekonomia**

Batzordeak erabaki zuen hiru estatuari espedientea zabaltzea defizit publikoaren **muga** hausteagatik. **Beria - Ekonomia**

**Mugarik eza** bertoko enpresentzat aukera ere badela ziurtatu zuen: «Hazi egin daitezke, ikerkuntzan, prestakuntzan, eta azpiegiturretan inbertituta». **Beria - Ekonomia**

### 8 bi lurralde bereizten dituen marra.

Kamioi ilara luzeek iragarri didate **mugaren** hurbiltasuna. **Jon Arretxe**

Basamortuaren erdian zegoen, Iraken eta Arabia Saudiren arteko hegoaldeko **mugan**. **Juan Kruz Igerabide**

Armendaritzek markatzen zuen gune okupatuaren eta askearen arteko **muga**. **Eneko Bidegain**

Mendebaldea eta Ekialdea bereizten dituen marra edo **muga** non dagoen inork ez daki. **Edorta Jimenez**

Blanco urte askoan kontrabando egitetik bizi omen zen, Haiti eta Santo Domingoko **mugan**. **Gotzon Garate**

Suitzako **mugatik** hurbil dagoen Haute Saone izeneko departamendura bidali zuten. **Rafa Eiguren**

Globalizazioa kapitalismoaren zabalkunde espazialaren adierazpen da, globoko **muga** guztiak gainditurik; baina,aldi berean, eta ororen gainetik, **muga** fisikoak eta aratuak saihesten, apurtzen, eta, azkenik, ezabatzen ditu, **muga** horiek kapitala mundu osoan metatzea eragozten baitute. **Koro Navarro**

Gremioak ezabatu ziren, nekazariak askatu, barne-trukeek zituzten **muga** guztiak ezereztu. **Koro Navarro**

Andaluziar musulmanek eta **mugaz** harantzagoko iberiar kristau-barbaroek. **Iñaki Mendiguren**

Bere mutilak Lizarragaren agindupean utziz, eta bera **mugaz** iparraldera aldatuz. **Txillardegí**

Egun latz eta hits heietan Frantziako **muga** mugazainez eta zelatariez edo barrandariez brokatua zen. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**Muga**, gero, Akor ibarrean zehar, Debir-era heltzen zen eta handik iparraldera jotzen zuen, Adumimerako aldapa parean dagoen Gilgalera, errekarren hegoaldean. **Elizen arteko biblia**

Errekaren erdian zegoen **muga**. **Elizen arteko biblia**

Karlos Kinto enperadoreak markatu zuen junta edo **muga**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## 9 (izenondoeekin)

Arabiarrek Tauroko **muga** naturala zeharkatu zuten Konstantinopla K.o. Iñaki Mendiguren

673-7an inguratzeko eta berriro 717an; Pirinioetako **muga** naturala ere zeharkatu zuten Frantzian indarrez sartzeko K.o. 732an. Iñaki Mendiguren

Erromatar Inperioaren eta Ipar Europako barbaroen arteko **muga** militarra. Iñaki Mendiguren

Marokoko espainiar eta frantziar eskualdeen arteko **muga** teorikoan hankalatraba zeuden Rifeko menditarrek K.o. 1921ean Annualetako hondamendia eragin zieten espainiarrei. Iñaki Mendiguren

"giriek" Gipuzkoa-Naparroa-Frantzia **muga** hirukoitzean daukaten Endarlatsako aurrepostu arriskutsu eta babesgabea aukeratu zian. Txillardegi

Dialektoak, hizkuntzaren eremuaren zatiketa arbitrarioak baizik ez dira; orobat, bi hizkuntza bereizten dituen **muga** ere konbentzionala izan daiteke soil-soilik. Herria

## 10 (aditzekin)

Horixe zen Mikel Strogoffek zeharkatu beharreko **muga** Siberiara pasatzeko. Karlos Zabala

Euskal Herriko beste hainbat militantek bezala, **muga** zeharkatzea erabaki nuen. Rafa Egiguren

Isilpean pasatu beharko zuten **muga** Kataluniatik. Rafa Egiguren

Eta **muga** pasatzeko gomendatu zioten Gorteko kontseilariek. Txillardegi

Ezarrira dute iragaten ez duten **muga** bat, eta hautsi egiten ez duten lege bat. Koldo Izagirre

Irun erori eta **muga** itxi zenean, aurrena Donostiara eta gero Bilbora aldatu zen iheserako portua. Jokin Urain

Donostiako lagun batek kondatu zidan Biriatuko **muga** nola moztua zuten. Eneko Bidegain

Aitak bidaiaren arriskuei buruz jarritako objektzioak ere, **muga** guztiak zorrotz begiratuak zeudelakoak alegia, [...]. Anjel Lertxundi

## 11 irud/hed

Begiak zabaldu eta istant batean zeharkatu zuen ametsen eta errealtatearen arteko **muga**. Migel Angel Mintegi

Batzuk pobrezia **mugan** bizi dira. Harkaitz Cano

Non dago, azken batean, lasaitasunaren eta bakardadearen arteko **muga**. Lourdes Oñederra

Bitan banatzen gaituen **muga** ikusezin hori hausteko bidea. Joxerra Garzia

Hemen badago filosofiaren eta erlijioaren arteko **muga** gaindiezin bat. Askoren artean

Zaila da **muga** zorrotzak ezartzea teoria etikoen, etika praktikoaren eta metaetikaren artean. Askoren artean

Ez duk sua, tio, arma bat duk, etsaiei esateko: kontuz gurekin, aspertu gara beti hartu eta hartu, orain guk ere eman dezakegu, arrasto bat egiten duk, **muga** bat jartzen duk haien eta hire artean. Pako Aristi

Hura zela esaten baitziaten apaizek zeruaren eta galbidearen **muga**. Pako Aristi

Han zertzen zen deiaren eta debekuaren arteko **muga**. Iñaki Iñurieta

## 12 ueña, denbora, ordua.

Bi **muga** horien arteko urteak ere eransten ari zara zure bizkar okertuari. Anjel Lertxundi

## 13 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nola ez aipa Florentino Goikoetxea famatua, hernaniarra, "Comète" sarean **muga** -pasatzaile izan zena? Marzel Etxehandi

Haiek **muga** -polizia batekin eta nik beste batekin, baina batera hasi gara pasatzen. Harkaitz Cano

**Muga** -postuak sistema beraren parte dira, muga-lerroak albo-bide ere izaten baitira beti. Iñaki Mendiguren

Omeiatar Kalifaldiko kantonamendu militar eta **muga** -goarnizioak. Iñaki Mendiguren

Baztango ibarreko **muga** -eremu hau guztia. Koro Navarro

Zail da, ordea, **muga** -arrastoa non dagoen zehazki esaten. Joxerra Garzia

Lehen, Egiptoko **muga** -errekatik Eufrates ibairaino, egiptoarren menpe egoniko guztia, orain Babiloniako erregearen menpe zegoen. Elizen arteko biblia

Halaxe gertatzen baita **muga** - eta trantsizio-hizkera diren guztien kasuan. Juan Garzia

## 14 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez-inoren lurraldea, zuria, estatu- **muga** berdeen arteko bi lerro urdin. Joxe Austin Arrieta

Eskualdearen gainerakoa eman nien, Arnon errekatik [...] amondarren lur **muga** zen Jabok errekaraino. Elizen arteko biblia

## 15 jo muga ik jomuga.

### 16 muga egin

Luzaide eta Ondarrolaren artean **muga egiten** duen erreka pasatu eta, gertatu zitzaion briu-brau karabinero bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez dago lainorik, argi-argi ikusten dira Val Padana edo Padaniaren iparreko **muga egiten** duten mendiak eta arrailak. Anjel Lertxundi

Artola euskarak **muga egiten** zuen herrietan hasi zen lekukotzak hartzen. Berria - Kultura

Artola euskarak **muga egiten** zuen herrietan hasi zen lekukotzak hartzen. Berria - Kultura

· Guatemalarekin **muga egiten** duen Mexikoko herri batean. Unai Iturriaga

Txetxeniak eta Ingushetiak Georgiarekin **muga egiten** duten eremuetan. Berria - Mundua

Zure herriak **muga egiten** du Alemaniarekin. Joxan Elozegi

Orain Kadexen gara, zure lurraldearekin **muga egiten** duen hirian. Jose Antonio Mujika

Gazteluko dorrearekin **muga egiten** zuen ordoki batean. Jon Alonso

Haitik eta Dominikar Errepublikak **muga egiten** duten eremuan. Berria - Mundua

Hizkuntzalaritzak, beraz, bi eremuek **muga egiten** duten esparruan dihardu. Isabel Arrigain

### 17 muga-egun (corpusean mugaegun soilik)

Artean hamabost egun falta ziren bungalowaren alokairuaren beste hilabete bat ordaintzeko eta Abiek azokan guri zorretan ematen segitzen zuen, baina **mugaeguna** hurbilegi zegoen gogoan ez izateko. Fernando Rey

### 18 muga-ertz (orobat mugaertz g.er.)

Idi-bihotz gorri biziak etxearen **muga-ertzen** inguruan landatuak. Oskar Arana

Balaam zetorrela jakitean, bidera irten zitzaion Balak, Edom lurraldeko **muga-ertzean**, Arnon erreka ondoan, zegoen Ar hirira. Elizen arteko biblia

Garrafoiko whiskia zen **muga-ertzeko** *duty-free* hartan erosi nuena. Edorta Jimenez

### 19 muga gabe adlag mugarik gabe. ik mugagabe.

Hala zu ere, nire biziaren bizi, baztergabeko espazioetan hedatua, handi irudikatzen zintudan, mundu itzel hau barrenez barren hartzen zenuela, eta munduz kanpoko lau haizeetara, **muga gabe** hartzen zenuela. Imanol Unzurrunzaga

### 20 muga gabeko (orobat mugagabeko) izlag mugagabea.

**Muga gabeko** lautada itzela, belarrezko basamortu antzekoa. Karlos Zabala

Eta bueltaka botako zaitu, pelota bat bezala, **muga gabeko** lurraldera. Elizen arteko biblia

Horretaz aparte, Jushxenkokoren aliatu Julia Timoshenkok, herritar guztiei **muga gabeko** grebarako deialdia luzatu zien. Berria - Mundua

Ondotik **muga gabeko** mundu bat ezagutu dut eta ohartu hunek ziola zentzua emaiten gure mundu mugatuari eta beste osotasun, betetasun, argitasun bateko zoriona bildu dut orduan. Herria

Baina itzuna, segur nago gutartean dagola, **muga gabeko** zazpigarren sartua, Jainkoa bezala. **Herria**  
Parisen, **Muga Gabeko** Erreportariak elkarteak eta musulman erlijio buruek exijitu zuten Carrolen aske jartzea. **Berria - Mundua**  
Algeriak badu orain bere "liburu beltza", **muga gabeko** kasetariak atera dutena. **Herria**

## 21 muga-gizon (orobat mugagizon g.er.)

**Muga gizona** zen Lazarraga. **Berria - Kultura**

Martziala izan zen [...] muga itxi zen garaia arte, beti izan zuelako bere artean **muga-gizonen** kontingente bat, armak eramaten ez ezik beren eginkizun pribatueta nahierara erabiltzen ere ohituta zeudenak. **Iñaki Mendiguren**

Asiariar **mugagizonen** basakeriaren aurka. **Iñaki Mendiguren**

## 22 muga-hausle (orobat mugahausle) iz

Xangarin, historia-ipuin honetan, pertsonaia txiki bat besterik ez da, alabaina niri, ezagutu nuen denboran, gu ere nolabait **muga-hausleen** kofradiakoak izan eta, berak eman zidan bereziki atentzioa... **Pablo Sastre**

**Mugahauslea**. **Herria**

## 23 muga-hegi (orobat mugahegi)

Etxe hori Amezetpun da beraz Zuraiden bainan Senpereko **muga hegian**. Kasik egun guziz, **muga hegi** hortan bereziki, badira droga tornu zerbaitekin arrastatuak izaiten direnak! **Herria**

Duela berrogoi bat urte, noiz nahi baziren **muga hegi** hortan portugesakordeka sartzen zirenak Frantzia lana ukanen zutela eta aise biziko zirela... **Herria**

## 24 muga-hesi (orobat mugahesi)

Eta esaiok alderik alde ibiltzeko **muga-hesia**. **Juan Garzia**

**Mugahesi** hori hautsi duenaren esku baino ez baitago berak gogokoan duen modura eraikitzea iragana, **Juan Garzia**

## 25 muga izan da ad

Marinel helenikoak Egeo itsasoko [...] ekialdeko **muga zen** kontinentea adierazteko erabiltzen zuen "Asia" terminoa. **Iñaki Mendiguren**

Moabeko ekialdera hurbildu eta Arnon erreka bestaldera ezarri zuten kanpalekua; baina ez ziren sartu moabdarren lurraldean, **muga baitzen** Arnon. **Elizen arteko biblia**

## 26 muga izan du ad

Kadunarekin **muga duen** Kano eskualdean ere milaka hegazti hil dira egunotan. **Berria - Gaiak**

Europako Batasuneko kide berri askorekin **muga duenez**, prozesua bizkorrago doa Alemanian. **Berria - Ekonomia**

Jordan ibaia **muga duen** Araba harana eman nien, Genesaret lakutik Araba itsaso edo Itsaso Hileraino. **Elizen arteko biblia**

Hortxe **zuen** berezko **muga** mojekin zuten adiskidetasunak. **Josu Zabaleta**

## 27 muga-lerro (orobat mugalerro g.er.)

Hala eta guztiz ere, bi bandoen arteko negoziazioak gogorak suertatu ziren, herrialdeen arteko **muga-lerro** berriari zegokionean batik bat. **Iban Zaldua**

Hala ere, gure arrazoimen hutsaren galdekizun guztiek ikusmuga honetatik at edo, dena dela, bere **muga-lerroan** egon daitekeenarekin dute zerikusia. **Ibon Uribarri**

## 28 muga-marra (orobat mugamarra g.er.)

1: 500.000 eskalako mapa hura, lupaz begiratuta ere ezer argitzen ez zuena, paper zuri hutsa: erreka urdin bat, estatu-arteko **muga-marra** zuzen bat, eta latitude-gradu baten lerroa, zuri hutsaren gainean...! **Joxe Austin Arrieta**

Munduaren mapa zabalean **muga marrarik** ez kolore propiorik ez duen zure herri txiki epelera. **Joseba Sarrionandia**

**Muga-marrak** Europan oso labainkorak izan dira beti. **Edorta Jimenez**

Baina, euskaldun bolondresik gehienek bezala, nik ez nuen, **muga-marra** igarotzean, neure iskilua puskatu. **Txillardeggi**

Kafea prestatzeko moduan omen dago Europako **muga** -marra garrantzitsu bat. **Edorta Jimenez**

## 29 muga-muga

Tunisiako **muga-mugan** zaretela diote batzuek, ezinen duzuela aitzina egin. **Xabier Montoia**

Trebetasun handiz, beste autoak jotzeko **muga-mugan** beti, auto-korapiloen erdi-erdetik lerratzen zen Albert. **Jon Muñoz**

Bere buruarekiko konfiantza harrokeriaren **muga-mugan** dabil. **Urtzi Urrutikoetxea**

**Muga-mugan**, proiektziarako joera hau gehiegizkoa ere izan daiteke. **Josu Zabaleta**

Hazkunde horrek **muga-mugaraino** eramane ditu harrapaketak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

## 30 muga-sari (orobat mugasari)

Estatu Batuetan, manufaktorei ezarritako batez besteko **muga-saria** %44ra iritsi zen 1913an. **Koro Navarro**

Akordioaren arabera, Vietnamek batez beste EBko industria ondasunei %16ko **mugasaria** ezarriko die, %22koa arrantza produktuei eta %24koa nekazaritza sektoreko ekoizkinei. **Berria - Ekonomia**

Txinak eta Asia Hego-Ekialdeko Elkarteak hamar herrialdeek hainbat produkturen gaineko **mugasariak** kenduko dituzte 2010 bitartean.1840ko hamarraldian, Ingalaterrak, bere aldetik, produktu manufakturatuen gaineko **muga-sariak** murriztea erabaki zuen. **Berria - Ekonomia**

Beste eremu batzuetan, Probintzia Batuek liberalismoaren alde jokatu zuten bete-betean, **muga-sari** aski murriztak mantenduz. **Koro Navarro**

Ogasunak ere laster nozitu zituen kalteak: alde batetik, artisautza-produkzioaren gaineko zergen bilketak behera egin zuen deblauki, inportazioen gaineko **muga-sarien** igoerak orekatu ezin izan zuen neurriraino. **Iban Zaldua**

Herrialde hartzaileak finkaturiko **muga-sariak** direla-eta, edo merkatuak erdietsitako tamainak ahalbidetzen duelako, produkzio-jarduera bertan kokatzea erabaki dezakete transnazionalak. **Iñaki Heras**

## 31 muga-zerga

EBn finantzaketarako diru iturriak hiru dira: **muga-zergak**, BEZrekin jasotzen den portzentaia bat eta estatu bakoitzak jarri behar duen BPGren %1,27<sup>a</sup>. **Berria - Euskal Herria**

Europako %19,4ko **muga zerga** jarri nahi die Txinatik datozen zapatei. **Berria - Ekonomia**

Bertan behera gelditu den kuota sistematik at daude poliester zuntzak eta, datozen bost urteotarako %49,7ko **muga zergak** ezartzea hobetsi du EBk. **Berria - Harian**

**Muga-zergak** ezabatu ditu Munduko Merkataritza Erakundeak, eta Norvegiatik, adibidez, ehunka kamioi datoz gurera lategaz beteta. **Berria - Ekonomia**

ASEANek itun bana izenpetu zuen Japoniarekin eta Hego Korearekin datorren hamarkadan **muga zerga** guztiak kentzeko. **Berria - Ekonomia**

Europako Batasunean, Kanada, AEB eta Japonian, esnea, haragia, txokolata azukrearentzat **muga-zergak** %100 ingurukoak dira kasu askotan. **Iñaki Heras**

**Muga-zergak** jaitsi eta Asiako makinei atea zabaldu izanak min handia egin dio barne merkatuari. **Berria - Ekonomia**

## 32 muga-zubi (orobat mugazubi)

Polizaren nagusi handiak ikusi du zer eginga den mugaren hobeki zaintzeko eta ez nornahi nola nahika iragaiteko **muga-zubi** horietarik... **Herria**

Biriatuko **mugazubian**, Marokatik Holandarat ari zen kamiun batean, guardek sesitu dituzte hiru tona haxix pasaturik. **Herria**

Oinezko ibilaldi bat mantatu zen Jondoni Jakobe bideetan zehar Santiago izeneko **mugazubiraino**. **Herria**

## 33 urte muga ik urtemuga.

## 34 zeru muga ik zerumuga.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**abiadura muga** (5); **adin muga** (6); **arteko muga** (135); **azken muga** (13); **bien arteko muga** (7); **defizitaren muga** (5); **dolarreko muga** (9); **dolarren muga** (5); **egiptorekin muga egiten** (6); **egiten du muga** (6); **frantziako muga** (8); **gehienezko muga** (7); **hegoaldeko muga** (9); **iparraldeko muga** (7); **jarritako muga** (12); **jo muga** (5); **lur muga** (7)

**muga administratiboak** (6); **muga aldera** (7); **muga asko** (7); **muga bakarra** (24); **muga bakartzat** (5); **muga batetik bestera** (5); **muga batuetan barruan** (11); **muga beroak** (6); **muga berri** (5); **muga berriak** (6); **muga egiten** (49); **muga egiten duen** (24); **muga ezarri** (10); **muga ezartzen** (6); **muga fisikoa** (6); **muga gabeko** (11); **muga gaintitu** (37); **muga gaintituko** (7); **muga gaintitza** (6); **muga gaintitzen** (22); **muga gisa** (6); **muga gurutzatu** (7); **muga guztiak gaintitu** (11); **muga guztiak gaintitzen** (6); **muga handiak** (5); **muga hautsi** (6); **muga hegi** (12); **muga hegi hortan** (8); **muga hori gaintitzen** (5); **muga horien barruan** (6); **muga igaro** (15); **muga igarotzeko** (5); **muga igarotzen** (6); **muga inguruan** (6); **muga inguruetan** (5); **muga inguruko** (6); **muga izan** (6); **muga izango** (6); **muga jakin** (11); **muga jakinik** (6); **muga jarri** (8); **muga jartzea** (5); **muga jartzen** (5); **muga markoa** (6); **muga marra** (21); **muga mugako** (6); **muga mugan** (32); **muga mugaraino** (5); **muga naturala** (8); **muga non dagoen** (6); **muga ondoan** (9); **muga ondoko** (8); **muga oro** (5); **muga oroz** (5); **muga pasa** (14); **muga pasatu** (8); **muga pasatzeko** (6); **muga pasatzen** (11); **muga sariak** (10); **muga zahararren** (6); **muga zaintzen** (5); **muga zeharkatu** (30); **muga zeharkatzea** (6); **muga zeharkatze** (11); **muga zeharkatzen** (11); **muga zehatzik** (6); **muga zergak** (12); **mugak muga** (6)

**pobreziaren muga** (13); **rafako muga** (5); **urte muga** (32); **urteen muga** (5); **urteko muga** (5)

**aberriaren mugak** (6); **arteko mugak** (75); **arteko mugak hautsi** (5); **baditu bere mugak** (5); **behin betiko mugak** (14); **bere mugak ditu** (9); **betiko mugak** (14); **espainiako konstituzioaren mugak** (6); **euskal herriko mugak** (5); **ezarritako mugak** (16); **ezartzen dituen mugak** (5); **gorputzaren mugak** (6); **herriko mugak** (7); **konstituzioaren mugak** (10); **lurraldearen mugak** (6)

**mugak desagertzen** (6); **mugak desagertzen ari** (5); **mugak ditu** (14); **mugak ezarri** (10); **mugak ezarriko** (6); **mugak ezartzea** (6); **mugak ezartzeko** (8); **mugak ezartzen** (11); **mugak finkatu** (7); **mugak gaintitu** (33); **mugak gaintitza** (14); **mugak gaintitzen** (12); **mugak gaintitzen** (28); **mugak haustea** (5); **mugak hausteko** (6); **mugak hausten** (9); **mugak hautsi** (13); **mugak itxi** (5); **mugak itxita** (5); **mugak ixteko** (5); **mugak jarri** (12); **mugak jartzea** (18); **mugak jartzen** (23); **mugak kontuan hartuta** (5); **mugak muga** (6); **mugak non dauden** (6); **mugak zabaltzeko** (5); **mugak zeharkatzen** (5); **mugak zehaztea** (13); **mugak zehazteko** (6); **mugak zehaztu** (8)

**munduaren mugak** (6)

**muga mugako** (6)

**arteko mugan** (57); **azken mugan** (7); **biriatuko mugan** (12); **egiptorekiko mugan** (5); **libanoko mugan** (7); **muga mugan** (32); **mugan bizi** (9); **mugan dago** (21); **mugan dagoen** (37); **mugan daude** (6); **mugan dauden** (5); **mugan ibiltzen** (5)

**arteko mugara** (7); **mugara heldu** (7); **mugara iristen** (7); **mugara iristen ari** (5); **mugara iritsi** (13)

**azken mugaraino** (7); **muga mugaraino** (5)

**hilabeteko gehienezko mugarekin** (5)

**arteko mugaren** (9); **mugaren alde batetik** (6); **mugaren alde bietako** (8); **mugaren azpitik** (10); **mugaren azpitik bizi** (6); **mugaren bestaldean** (6); **mugaren bi aldeetako** (9); **mugaren bi aldeetako** (25); **mugaren bi aldeetakoak** (7); **mugaren bi aldetan** (17); **mugaren gainean** (8); **mugaren gainetik** (19); **mugaren ondoan** (9); **mugaren ondoan dagoen** (5); **pobreziaren mugaren** (9); **pobreziaren mugaren azpitik** (7)

**adin mugarik** (6); **denbora mugarik** (8); **inolako mugarik gabe** (6); **inongo mugarik** (5); **mugarik ezagutzen** (5); **mugarik ezarri** (7); **mugarik ezartzen** (5); **mugarik gabe** (109); **mugarik gabea** (21); **mugarik gabeko** (215); **mugarik gabeko erreportariak** (6); **mugarik gabeko europa** (7); **mugarik gabeko kazetariak** (21); **mugarik gabeko medikuak** (18); **mugarik gabeko medikuek** (21); **mugarik gabeko medikuen** (8); **mugarik gabekoa** (9); **mugarik izan** (12); **mugarik jarri** (17); **mugarik jartzen** (10)

**arteko mugatik** (7); **mugatik behera** (5); **mugatik gertu** (42); **mugatik gora** (6); **mugatik hurbil** (29); **siriako mugatik gertu** (5)

**mugaz bestalde** (5); **mugaz bestaldean** (21); **mugaz bestaldeko** (38); **mugaz bestaldera** (21); **mugaz bestalderat** (9); **mugaz beste aldera** (7); **mugaz bi aldeetako** (9); **mugaz bi aldeetan** (9); **mugaz bi aldeetako** (16); **mugaz gaintiko** (108); **mugaz gaintiko harremanak** (13); **mugaz gaintiko harremanen** (11); **mugaz gaintikoa** (7); **mugaz gaineko** (19); **mugaz goiti** (8); **mugaz haಿಂದian** (22); **mugaz haಿಂದiko** (11); **mugaz haಿಂದirat** (9); **mugaz haಿಂದitik** (5); **mugaz haraಿಂದian** (7); **mugaz haraಿಂದiko** (12); **mugaz hunaಿಂದian** (9); **mugaz hunaಿಂದirat** (8)

**bere mugen barnean** (5); **bere mugen barruan** (7); **dituen mugen barruan** (5); **konstituzioaren mugen barruan** (5); **mugen artean** (8); **mugen barnean** (14); **mugen barruan** (60); **mugen gainetik** (13)

**europako mugetan** (5); **mugetan barrena** (6); **mugetan sartu** (5)

**azken mugetaraino** (10); **egiptoko mugetaraino** (5)

**azken mugetatik** (5); **euskal herriko mugetatik** (6); **herriko mugetatik kanpo** (5); **mugetatik at** (11); **mugetatik atera** (5); **mugetatik haratago** (8); **mugetatik kanpo** (27); **mugetatik kanpora** (7)

**esperientziaren mugez goiti** (8); **mugez goiti** (14); **mugez haraindi** (6)

mugabako ik **mugagabe**.

mugabe ik **mugagabe**.

**mugadun** *izond* muga duena; mugak dituena.

Planeta **mugadun** batean hazkunde ekonomikoa mugagabe baten bideragarritasuna zalantzan jartzen hasi ziren. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

So egin nien besteie eta izatea zuri zor dizutela ikusi nuen, eta **mugadun** oro zuregan direla, ez tokian bezala, baina bestela: guztiak baitauzkazu egiaren eskumenean, eta guztiak diren heinean dira egiazkoak. Imanol Unzurrunzaga

mugaegun ik **muga 17**.

mugaertz ik **muga 18**.

**mugaezin** *izond* ezin mugatuzkoa; mugagabea.

Jendetza kontagaitz eta kasik betidanikako horren atomo bat baizik ez naiz, ibai luzearen xorta bat, baina ere Heraklitok aipatzen duen ur ibilkorraren kontzientzia

**mugaezina**, *cogito* tematsu bati lotua. Piarres Aintziart

Itsaso **mugaezina** dago beheerago, harantzago. Jenaro Garate

Gizakiaren premiak **mugaezinak** omen dira, eta baliabideak berriz -eta hori ondotox dakigu-, mugatuak. Iñaki Heras

Nahimena beraz bereizten da adimenetik, hau mugatua delako eta hura **mugaezina**. Piarres Xarriton

Subjektua da pentsamenduaren lekua baina prozedura orokor eta infinituarekin dialektikan sortzen du unibertatsala; ez da deskriba daitekeen egitura bat, **mugaezineko** garapen bat baizik; zentzu honetan, inkontzientea ere bada. Joseba Zulaika

**mugagabe** (*orobat mugabe g.er. eta mugabako g.er.*) **1 izond** mugarik ez duena. ik **mugaezin**; **muga 19**.

Lautada **mugagabearen** monotonia. Karlos Zabala

Zeren gurea bezalako munduz beterik baitago espazio **mugagabea**. Josu Zabaleta

Leiho hark, hain garaia, ondoko etxeak menpean zituenak, gozamen **mugagabeak** ematen zizkion. Karlos Zabala

Semeak begirune **mugagabea** zor dio amari, emazteak begirune **mugagabea** senarrari. Iñaki Iñurrieta

Garunak ikasteko ahalmen **mugagabea** du. Berria - Gaiak

Haren nagusiaren alde adierazten zuen atxikimendu **mugagabea**. Karlos Zabala

Bazirudien suzko mihiak piztu zitzaizkiola buruan, eta suak kanpora irten nahi zuela, gau oraindik ilunean urruntasun **mugagabea** erabat argitzeko. Jose Morales

Estibadoreen eta garabizaleen greba **mugagabeak** bete-be tean harrapatu zuen *Amenofis II.a* ontzia. Harkaitz Cano

Lan kontratu **mugagabeak** sustatzeko. Berria - Ekonomia

Ura izoztuta dagoenean, beriz, denbora **mugagabeen** irauin dezake birusak. **Berria - Gaiak**

Zure justizia mendirik handienak bezalakoak, zure probidentzia ozeano **mugagabea** adinakoa. **Elizen arteko biblia**

Bakardade **mugagabe** etsigarri batek inguratzen ninduen. **Josu Zabaleta**

Isiltasun absolutua da, **mugagabea**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Unibertsoa (bestelako deituraz, Liburutegia) galeria hexagonalez osaturik dago; galerien kopurua **mugagabea** da, eta beharbada infinitua. **Anjel Lertxundi**

Jainkoa deitzen dut, absolutuki **mugagabea** den izakia. **Piarres Xarriton**

Ea ilarak mugatuak edo beren baitan **mugagabeak** izan daitezkeen. **Ibon Uribarri**

Espazio ireki, **mugagabe** batean, gutxienez muga zehatzik gabe batean, banatzen denaren partiketa. **Piarres Xarriton**

Horregatik, askatasun politiko **mugagabeen** eta menpekotasun **mugagabeen** desagertu egiten dira ohorearen ideiak, edo guztiz nahasten dira beste batzuekin. **Juan Martin Elexpuru**

## 2 euskal deklinabidean, artikulua gabeko formen sailekoa.

Deklinabidea aztertzean, Txillardegi oso garrantzi handia eman zion, garai hartan, **mugagabearen** erabilera egokiari. **Berria - Kultura**

**Mugagabea** erabili zuen Rucho jaunak plurala erabili orde. **Jon Muñoz**

Euskararen berezitasuntzat hartuak izan diren ergatiboari edo deklinabide **mugagabeari**, izatearekin edo izanarekin zer ikusi gutxi dutela esan bailiteke, eta gehiago agian beste era bateko zerekin... **Iñaki Segurola**

## 3 mugagabeko ik muga 20.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**esentzia mugagabe** (7); **jainkoaren esentzia mugagabe** (7); **kontratu mugagabe** (10); **kontratu mugagabe bat** (4); **mugagabe bihurtzen** (3); **mugagabe eta betierekoa** (4)

**absolutuki mugagabea** (16); **ahalmen mugagabea** (4); **baraualdi mugagabea hasi** (3); **gose greba mugagabea** (9); **greba mugagabea** (62); **greba mugagabea abiatu** (7); **greba mugagabea abiatzea** (3); **greba mugagabea eginen** (3); **greba mugagabea hasi** (14); **greba mugagabea hasiko** (6); **greba mugagabea hastea** (3); **ia mugagabea** (3); **izaki absolutuki mugagabea** (3); **kanpaldi mugagabea** (4); **kontratazio mugagabea** (3); **kontratu mugagabea** (20); **kontratu mugagabea egin** (3); **kontratu mugagabea** (3); **lanuzte mugagabea** (7); **lanuzte mugagabea abiatu** (3); **mugagabea eta betierekoa** (5); **mugagabea izan** (6); **mugagabea izango** (5); **mugagabea izatea** (3)

**greba mugagabeak** (7); **kontratu mugagabeak** (15); **kontratu mugagabeak sustatzeko** (3); **mugagabeak izan** (6)

**denbora mugagabeen** (3); **gose greba mugagabeen** (3); **greba mugagabeen** (20); **greba mugagabeen dauden** (5)

**greba mugagabearen** (5)

**greba mugagabeari** (11)

**kontratu mugagabeen** (3)

**greba mugagabera** (10); **greba mugagabera deitu** (7)

## mugagabeki *adlag* mugarik gabe.

Ez genuen berezko arrazoirik aurkitu prozesu hau **mugagabeki** ez errepikatzeko. **mugagabeki** erabil daitezkeen egiturak. **Iñaki Mendiguren**

Handitasunaren orotasun absolutuak (unibertsoa), zatiketarenak, jatorriarenak, izatearen baldintzarenak oro har, ea sintesi mugatuaren ala **mugagabeki** jarraituaren bitartez sortzen diren. **Ibon Uribarri**

## mugagabeko ik muga 20.

## mugagabetasun *iz* mugagabea denaren nolakotasuna, mugarik eza.

Munduaren mugatasuna edo **mugagabetasuna**. **Ibon Uribarri**

Handik, unibertsoaren **mugagabetasun** pilpilsua begietsi zuen. **Juan Garzia**

Denborak ez du, izatez, barne-mugarik, eta guk, gizakiok, ezin eraman dezakegu **mugagabetasun** hori: zorabiatu egiten gaitu, zoratu. **Joxerra Garzia**

Hautu bat egitea, arriskatzea zen, libertatearen **mugagabetasunean** jauzi egitea. **Piarres Aintziart**

Oina finkatzeko, lur lehorreko dike mehar batzuk besterik ez daude, **mugagabetasun** orlegi hartan zeruertzeraino luzatzen diren berdeguneen artean. **Karlos Zabala**

Lasaitasun hura, **mugagabetasun** hura, bien arteko erlazioaren defingaitasun hura bukatzen zela. **Lourdes Oñederra**

Materiaren bihotza hutsune bat omen da, non energiak betetako izpiak etengabe mugitzen diren batera eta bestera, ulertzen ez dugun **mugagabetasun** sentipen batek isiotuta. **Pako Aristi**

## mugagabetu, mugagabe(tu), mugagabetzen du *ad* mugagabetu bihurtu.

Hor hegan nabilela, zerbait bortitza sentitzen dut hemen barnean, hegaldiak gorputza **mugagabetuko** balit bezala. **Joan Mari Irigoien**

Antzerki klasikoaren eta zinemaren artean aise irakur daiteke espazioak pinturan izan duen historia guztia, haren deszentratzea, **mugagabetzea** eta eztanda. **Josu Zabaleta**

## mugagaitz *izond* mugatzen zaila dena, ia mugaezina.

Grisa da gainera Eskolapietako nire hasierako magma horren kolorea: triste, gatzik bako, udazkeneko putzuen kolore **mugagaitz** horretakoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gurasoak ezagutu, beste jende asko baino sakonago ezagutzera iritsi gaitzke, bai, baina beti geratuko zaigu alderdi bat itzalpean, eta alderdi **mugagaitz** eta itzaltsu horretan sartzeko herabe gara, barne-debeku moduko bat daukagu ilunpe horren muinean barneratzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Mugagaitz** zegoen mutilaren aurpegiera: doi-doi antzematen zitzaion ezpain-dardara baizik ez, kolore-bizitasunik gabeko aho zimelduan. **Anjel Lertxundi**

## mugagizon ik muga 21.

## mugagune (*orobat muga gune*) *iz*

Borno eskualdeko **mugagune** hau Charles Taylorren egonleku zen Calabar hiritik mila bat kilometro iparraldean dago. **Berria - Mundua**

Kontrabanda **muga guneetan** ez da segur oraingoa eta euskaldunak famatuak izanak gara lan horretako. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## mugarri ik mugarri.

mugahausle ik **muga 22.**

mugahegi ik **muga 23.**

mugahesi ik **muga 24.**

mugaide ik **mugakide.**

**mugakari 1** *adlag* mugan, muga dela eta.

Otsailaren 8 an, beren bi urte betetzeko **mugakari**, ari dute muntatzen ikusgarri eder bat: dantza, ixtorio, kantu, argazki... **Herria**

**2** (urte, mende-ren eskuinean)

Izkiriatua izan da 2002-an, Frantsesen 450. heriotzearen urte- **mugakari**. **Herria**

"Gazte Abertzaleak" mugimenduak proposamen bat plazaratu du igandean, EAko gazte talde horren hamabosgarren urte **mugakari** Tolosan, Gipuzkoan. **Herria**

Bihotz-bihotzez zure mende- **mugakari**. **Herria**

Lerro hauek hartzen ditugu Juan Carlos Etxegoien "Xamar", Garrantzako seme eta idazleak idatzi zuen liburu batetik, "1898, Garrantza", herri guziaz suntsitu zuen sutearen mende **mugakari**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**mugaketa 1** *iz* mugatzea.

Egokiena bilakabide historikoari jarraitzea dela dirudi, adiera eta **mugaketa** zehatzari hurbilketa bat entseatzeko aldera. **Askoren artean**

Elizaren eta Estatuaren funtzioak, aro feudalean, zeharo korapilatuta zaudenez, ezin zen Elizarentzat gogobetegarri zen **mugaketara** iritsi Estatuaren eremuan sartu gabe.

**Iñaki Mendiguren**

Batasunean bakarrik du bere uste ona, Batasunak ez duenez desberdintasunik eta mugarik, eta beragan dena singlea bihurtzen da, bereizkuntzak eta **mugaketak** galduz, eta Aita eta Semea eta Izpiritu Santua ez dira izate bakar bat baizik. **Joan Mari Lekuona**

Euskal autogobernua Espainiako Konstituzioak jarriko litzukeen **mugaketa** hipotetikoetara murriztea, juridikoki justifikatzen ahalegindu daiteke, baina politikoki Espainiako Estatuak Euskadin duen legitimitatea izugarri ahulduko luke. **Berria - Euskal Herria**

**2** (hitz elkartuetan)

Eremu zabal-zabala da autoerreferentziarena, eta emaitza onik aterako badugu, **mugaketa** lanari ekin behar diogu ezer baino lehen. **Iñaki Arranz**

H. Lübbe, txit egoki, "diskurtsoaren **mugaketa** -arau pragmatikoak" finkatu beharaz mintzo da. **Joxe Azurmendi**

Ez dugu jarrera hau onartzen, inguru- **mugaketak** ezarri nahi dizkigute gurekin hitz egin gabe eta arazo hauek negoziatuz konpondu behar dira **Berria - Harian**

**mugakide** (*orobat mugaide*) *izond* aipatzen denarekin muga egiten duena.

Iparraldean Errusia da **mugakide**, eta hegoaldean Georgiako Svanetia eta Mingrelia probintziak. **Berria - Mundua**

Gibara herriak [...] urak ditu **mugakide** iparraldean eta ekialdean -itsasokoak eta badiako urak, hurrenez hurren-. **Edorta Jimenez**

Frantzia, Espainia edo Trebiñoren **mugakide** soil litzatekeen Euskal Herriaren independentzia adar-jotze latza da, eskaskeria eta moztadea. **Iñaki Segurola**

Heriotzaren **mugakide** sentitzen zuen bizipenaren berri ingurukoie ematen saiatu izan zenean, inor gutxi aurkitu izan zuen entzuteko gertu, lubaki-kideez gain. **Imanol Zurutuza**

Errusia zen, halaber, arraza zuriaren ondarearen eremua, Txina eta Indiako muga kontinentalekin **mugakide** zena. **Iñaki Mendiguren**

Kontuan hartu behar da, gainera, eleberririk laburra, genero gisa, ipuin luzearen **mugakide** dela. **Juan Garzia**

Arlo **mugakide** horretan, bi eremuetako elementuak konbinatzen dira. **Isabel Arrigain**

Historian gaindi egon diren harremanak ere Pirinioetan «**mugakide** diren herrien garapen harmonikorako baldintza sortu eta mantentzeko» beharrezkoak izan direla dio testuak. **Berria - Euskal Herria**

Lurralde **mugakideak** dira fikzioa eta errealitatea. **Imanol Zurutuza**

**mugakizun 1** *iz* mugatzea, muga. ik **mugapen 2.**

Baina, Gizona ahazturik, halako lizentzia lauso bat bezala definitu dugu gure Askatasuna, hurkoari egin lekizkiokeen kalteak beste **mugakizunik** gabe. **Josu Zabaleta**

Maitasuna eta maitatzeko ezintasuna, heriotza, sexu frustrazioa, gizarte arauen presio eta **mugakizunak** eta denboraren joan higatzailea. **Berria - Kultura**

• **2** muga, gabezia. ik **mugapen; muga 6.**

Azken buruan, estiloa idazlearen **mugakizunek** eratzen bide dute. **Berria - Kultura**

Ea, unibertsoa taxutu duen **mugakizunen** eta historiaren arteko nahaste horretan, historiaren parteari baino ez zaion zor kontingentziako osagai bat. **Juan Garzia**

**mugako 1** *izlag* mugan dagoena.

Espainiar gudarosteak etengabe erasotzen zituen **mugako** postuak. **Elena Touyarou**

**Mugako** pasabideetarik kanpo mendiak zeharkarazten zituztenen izenak. **Elena Touyarou**

Hogei mila errusiarrek, Tobolskeko eta **mugako** probintzietatik etorriek, ehun eta berrogeita hamar mila tatariarri aurre egin zieten. **Karlos Zabala**

Indiako Britainiar Inperioaren ipar-mendebaldeko mugan 1890etik aurrera, "errifle eta munizioa tribuen lurraldera sartzeak... erabat aldatu zuen **mugako** gerraren izaera". **Iñaki Mendiguren**

Taldetxo bat ari zen hurbiltzen, **mugako** guardia ibiltariak, zalantzarik gabe. **Anjel Lertxundi**

-**Mugako** jendeak erbestera nahi omen dituzte. **Elena Touyarou**

**2** irud/hed

Malenkonia baten aurrean gaude eta **mugako** kontzeptua da hau, ez "gauza" konkretu bat. **Joseba Zulaika**

Dirua erasopean duten herrialdeei epe laburreko eta epe ertaineko finantza-laguntza emateko aukerak ugalduz, eta diruak beren **mugako** kotizazioetik modu arriskutsuan aldentzen zirenean. **Koro Navarro**

Ezindu intelektual arin eta **mugako** premiari lantzen ari dira Donostian. **Berria - Euskal Herria**

Polizien arnasots larri, zurrungaren **mugakoa**. Matías Múgica

Testuinguru soziokultural **mugako** eta askotarikoa. Berria - Kultura

«Honek», esan zuen Rubiok, «desitxuratu dezake *Batzar*erentzat funtsezkoa den mezu **mugako**, integratzaile eta ez frentista». Berria - Euskal Herria

### • 3 iz mugako pertsona.

Eszena batzuetan islatu dut **mugakoen** pentsaera. *Mugaldekoak* izenpean bildu ditu mugaz, **mugakoez**, lurraldeaz idatzi dituen poemak. Berria - Kultura

### 4 muga-mugako

Eta dagoeneko denok buruan darabilgun **muga-mugako** kasua: bideoko irudia. Josu Zabaleta

Koldo Mitxelena **muga-mugako** egoera derrigortu batetik, gerrarenetik, begiratu zien galdera horiei. Anjel Lertxundi

Baina pasibotasun **muga-mugakoa** ez da aldatu harengan, eta beharko du oraindik ere babesa, Eta haren ikusmena, hain bazterrekoa zen, hain **muga-mugakoa**, non pentsa baitzitekeen gehiegizko zama neuralak edo identitate-talkak areago bultzatzen zuela itsutasunerantz Xabier Olarra

## mugakor *izond* mugaokoa.

Gaude herri **mugakor** batean. Menane Oxandabaratz

## mugakortu, mugakor(tu), mugakortzen du *ad* mugatua bihurtu.

Gizakia [...] espiritu gisa bera ere den mugagabekoaren ahalmen bihurtzen du, eta ezagutzako objektu propioena mugagabeko horixe du hain zuzen (bere burua); alderantziz, adimena -gizabere kreatuaren zolitasun hori- errotik subjektibatu eta **mugakortu** egiten du, berak osotasunetik ebaki, bizigabetu eta higigabetu, eta beste gauzekiko oposizioan jarri duen mugatua bakarrik ezagutzeko funtzioaz.. Askoren artean

## mugakotasun *iz* mugakoa izateko nolakotsuna.

**"Mugakotasun"** horrek zer esan nahi zuen argitu zuen gero. Xabier Olarra

## mugalari 1 *iz* iheslari*e*i muga pasatzen laguntzen dien pertsona.

Gerla denboran, euskaldun frangok beren bizia irrikatu zuten erresistentzia saretan edo **mugalari** lanetan, iheslari, judu, ingles soldado eta holakoeri muga iragaiten laguntzen. Herria

Kattalinek laster azaltzen dio aitaxi **mugalaria** zuela. Eneko Bidegain

Lapurtar erresistente-**mugalari** baten orduko gora-beherak ditu aipatzen. Herria

Hango pasabideak ondo ezagutzen zituen **mugalari** bat egiten zen taldearen kargu. Anjel Lertxundi

EB-etan sartzea eta egoitea paperrik gabeko 390 000 mexikanok erreusitzen dute urte guzietan, gehienak **mugalari**ek gidaturik. Herria

### 2 irud/hed

Fito Rodríguez «generoen arteko **mugalari**» agertzen da, Martín Ansoren iritziz, bere lehen nobelan, «pasarte batzuek saiakeraren itxura baitute nobelarena baino gehiago». Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mugalari gisa** (3)

## mugaritza *iz* mugarariaren lana.

-Zure aitaxi **mugariritzan** ari zela harrapatu zuten. Eneko Bidegain

Hogei urte zituen Joanes **mugariritzan** zebilen urte haietan. Eneko Bidegain

Graxi denbora gutti barne, **mugariritzaz** gain, mezulari ere bihurtu zen. Eneko Bidegain

-Nola sartu zen **mugariritzan**. Eneko Bidegain

## mugalde 1 *iz* muga bat dagoen gunea edo eremua.

**Mugalde** guztietan, Estatu modernoak izan dira, populazioak elebakar bihurtu dituztenak, gizarte horien eleaniztasun naturala zanpatuz: pentsamenduaren mugak ere kontrolatzeko. Koldo Izagirre

Hamaikagarren **mugaldean** pasaporteak hamaikagarrenez begiratzen eta aztertzen dizkigute. Edorta Jimenez

Ohartarazi egin nion gure Gerra Zibilean **mugaldekoa** zen nire sorterrria edotariko izuen testigu izan zela. Edorta Jimenez

Hantxe geratzen zen, **mugaldeko** auskalo nongo kuartel-zuloan gorderik aberria defendatzen. Juan Garzia

Orria pasatuta, Kataluniako **mugaldeko** egoera penagarriari buruzko albistek toki zabala hartzen zuten. Alberto Ladron Arana

Inperioaren **mugaldeko** bazter latzak bilatu zituen, liintzura dorpeak eta basamortu kontenplatiboak, bakardadeak lagun ziezaion bere patua ulertzen. Juan Garzia

Aldi berean, Perm eta Nijni Novgorodeko errejimentuak eta **mugaldeko** kosakoak Ural mendietara doaz atsedetik hartu gabe. Karlos Zabala

### 2 irud/hed

Egunero itsasoaren eta lehorraren arteko borroka etengabea gertatzen den **mugaldeko** eremu hartan, Klara, bere ingurukoengandik bereizia, at, harantzago. Iñaki Iñurrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mugaldean kokatutako** (3)

mugalerro ik **muga 27**.

mugamarra ik **muga 28**.

**mugante** *adlag* muga eginez.



Gurasoen etxea Baptistarioarekin **mugante** zegoen. [Juan Garzia](#)

Nafarroako lurraldearekin **mugante** dauden gure herrietan. [Pello Zabala](#)

Bere barrutian astalarra eta kardulata zituenak, eliz-dorrean gauerdiko lehen kanpaia entzun orduko, bere belazetik kardulat bat atera eta **mugante** zuen etxadiko lurretara bota behar zuen. [Pello Zabala](#)

Neguko solstizioarekin **mugante**, hementxe daukagu, urteko egun bakar soltero-mutilzahar urterokoa. [Pello Zabala](#)

## mugape 1 iz eremua; barrutia. ik mugarte.

Oso kontuan hartu beharko du kazetariak Euskal Herri osoaren lurraldetasuna izan behar duela gogoan, euskararen **mugapeak** estatu artekoak direla, eta honek garrantzi handia du, ez terminologia politikoan bakarrik, baita hitzen mailegatzear ere. [Iñigo Aranbarri](#)

Gainera, ikus-entzule gehiago dagoen orduetan, **mugape** horretako indize soziolinguistikoari dagokion ordu-ehunekoa hartu beharko du gutxienez ere euskarazko programazioak. [Berria - Euskal Herria](#)

Orduan ekin zion Usansolok Bizkaiko Udal **Mugapeak** arautzen dituen 1987ko otsailaren 11ko foru arauak ezartzen zuen bideari. [Berria - Euskal Herria](#)

## 2 irud/hed

Idatzi zituen lehen poemak, geroxeago *Muga Beroak* liburuan sartu zirenak eta **mugape** horretan argia ikusi zutenak, 1950ekoak dira. [Berria - Harian](#)

## mugapen 1 iz muga, gabezia. ik muga 6.

Itsuari, esate baterako, ukimena, inguruko giroan ezohiko zerbait sumatzeko ahalmena... bizituko zaizkio ikusmen faltaren **mugapenak** gainditzeko. [Jokin Urain](#)  
"Ontzia" [...] zenbait eraikuntza eta aparailu tradizionalen arteko uztartze zorionsu baten kimua zen, bakoitzak zeuzkalarik bikaintasun bereziak, baina baita **mugapenak** ere. [Iñaki Mendiguren](#)

Giza mailan, **mugapen** praktikoak egon zitezkeela gaitasun teknologikoaren termino abstraktueta ia mugagabea izan zitekeen produktibitatearentzat. [Iñaki Mendiguren](#)

Odolberotasuna eta erronkazaletasuna, **mugapen** fisiko eta sozialekiko etengabeko indar-probaketa. [Xabier Olarra](#)

Positibotasun honek ez du bat egingo, jakina, ez garaiko teoria politikoekin ez **mugapen** ekonomikoekin. [Xabier Arregi](#)

Gainera, zure espazioan ez duzu inolako **mugapenik**, paretak altxa edo bota ditzakezu, lana bertan egin, lurra zikinduta ere ez dago arazorik. [Harkaitz Cano](#)

Gertaeren azpian beste historia bat aurkitzen du, serioagoa, ezkutukoagoa, oinarritzukoagoa, jatorritik gertuago, bere azken ostertzari hobeto lotua (eta ondorioz, hobeto jabetuta bere **mugapen** guztiez). [Xabier Arregi](#)

Eskerrik beroenak Károly Morvayri, beraz, itzultzailearen **mugapenen** gainetik ahalik eta eleberri on eta zuzenena ahalbidetzeagatik. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

## 2 mugatzea.

Adibidez, gradu baten handitasunetik, diametroa eta honen bitartez lurraren **mugapen** osoa, h[au] d[a], bere azalera determinatuta eta apriorizko printzipioen arabera ezagut dezaket. [Ibon Uribarri](#)

Baldintza edo **mugapen** horiekin batera, halaber, edozein lan akademikok errespetatu behar dituen irizpide orokorrak ere kontuan hartu behar dira, izan ere, zerk egiten du idazlan bat on? [Askoren artean](#)

**Mugapena** ez zen haiek egin ahal zutenari buruzkoa, haiek egin nahi zutenari buruzkoa baizik. [Iñaki Mendiguren](#)

Berari jarraiki egun batean agian arrazoimen hutsaren Filosofiaren sistema osoki aurkeztu ahal izango da analitikoki nahiz sintetikoki, bere ezagutzen hedapenez nahiz **mugapen** soilaz osatzen bada ere. [Ibon Uribarri](#)

## mugaratze iz mugara joatea.

Kasu horretan, Baionako Suprefeturak Kongoko etorkin bati **mugaratze** agindua eman zion. [Berria - Euskal Herria](#)

## mugarri (orobat mugaharri) 1 iz lurralde, jabego edo kideko baten mugak, edo bide bateko bitartek-eta adierazteko ipintzen den harria edo seinalea. ik zedarri.

Ez aldatu sekula **mugarriak** lekuz auzokoaren kaltetan. [Elizen arteko biblia](#)

Urmael baten ertzean, Intxorta aldera, **mugarri** baten ondoan justu, bi arratara. [Ramon Saizarbitoria](#)

Los Arcos zinez hurbiltzen ari zait eta hain zuzen azken bost kilometroak seinalatuak dira **mugarri** horretan. [Piarres Aintziart](#)

**Mugarri** eder batek iragarri dit Galizian sartu naizela. [Piarres Aintziart](#)

Karrika bazterrean, **mugarri** zuri baten moduko zerbait dago. [Monika Etxebarria](#)

Lur-gaiean mugarriak baldin badira, uretan ere mugarriak behar ba, eta **mugarri** horiek zubiak izan dira, harrizko zubiak, gerora bestelakotuak. [Iñaki Segurola](#)

**mugarri** baten kontra eroso jarrita dagoela egin du amets. [Itziar Otegi](#)

**Mugarri** zenbakidunak arin igarotzen dira zure begien aurretik. [Jose Morales](#)

## 2 irud/hed puntu nabarmena.

Matxitxako muturrari, gure itsaso txikiaren eta munduko itsaso handien artean **mugarri** egiten duen adar luzeari. [Edorta Jimenez](#)

Goia jo nahi dute, eta euren ibilbidean beste **mugarri** bat ezarri. [Berria - Gaiak](#)

Egutegiak hala agintzen digulako esaten baitugu mendea bukatu dela, hor muga bat jarri dugula, hor gure historian **mugarri** bat ezarri dugula. [Pello Salaburu](#)

Bi polo ditu zientziak bere bidetaren **mugarri**: desiragarri dena eta posible dena. [Juan Garzia](#)

Itoitz, hogeit urteko borrokaren **mugarriak**. [Eduarne Elizondo](#)

Brundtland Txostena [...] **mugarri** bat da, eskuartearen darabilgundun ideien gaineko ikuspegi argigarri bat jorratzera begira. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Oliba-olioa, ardoa, kafea, gure europar historiaren **mugarri** eta barneko muga-marra dira. [Edorta Jimenez](#)

Bi **mugarri** historiko horiek begien aurrean ditugula, Mendebaldeko historiaren atal modernoaren hasiera hamabosgarren mendetaren azken laurdenean jar dezakegu uste osoz. [Iñaki Mendiguren](#)

Azken hamarkadetan hiru **mugarri** nagusi izan ditu Euskal Herriko mugimendu ekologistak: Lemoizko zentral nuklearra lehendabiziko; Leitzarango autobia ondoren; eta azkenik, Itoizko urtegia. [Eduarne Elizondo](#)

Iraganarekin lotzen zuten lokarri guztiak hautsirik, orainaldia zuen **mugarri**. [Felipe Juaristi](#)

Gizabanakoek bizitzan bezala, **mugarrien** premia dute planoko puntuek! [Jon Muñoz](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

San Markos egun bedeinkatu honi, laborariaren egutegian horrenbesteko **mugarri** eginkizuna izan duenari. [Pello Zabala](#)

Eguberri egun hauek, euskal klimatologia partikularrean, **mugarri** -lana zeukaten auskalo noiztik ipinia: alegia, egun bereziak izanik, egun haietan izandako eguraldi jeneroak hurrengo usnatzeko eskubide eta pistarik eman ohi zuen. [Pello Zabala](#)

Goiz hartakoxe telefono-solasaldi hauxe daukat nik neure bizitzako **mugarri** -gune garrantzizkotzat. [Pello Zabala](#)

## • 4 (izenondo gisa)

Urteko egun **mugarrienetakoa** zela, agudo ikusten da: atsotitzei eta esaera zaharrei begiratzea nahikoa. [Pello Zabala](#)

Madalenen aspalditik izan dute egun **mugarrietakoa** izateko zoria. [Pello Zabala](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**historian mugarri izan** (4); **ibilbidean beste mugarri** (9); **ibilbidean mugarri** (3); **mugarri bat ezarri** (21); **mugarri bat ezartzen** (3); **mugarri bat izan** (11); **mugarri bat izango** (4); **mugarri eta erreferentzia** (3); **mugarri ezagun** (3); **mugarri garrantzitsua** (5); **mugarri historikoa** (3); **mugarri izan** (25); **mugarri izan zen** (9); **mugarri izango** (10); **mugarri nagusi** (3)

**lehen mugarría** (3); **lehenengo mugarría** (3); **mugarría da** (6); **mugarría izan** (22); **mugarría izan da** (4); **mugarría izan zen** (10); **mugarría izango** (11); **mugarría izango da** (7); **mugarría jarri** (5)

**mugarrietako bat izan** (4)

**mugarritzat jo** (9); **mugarritzat jo dute** (4)

## mugarritasun iz mugarri izateko nolakotasuna.

Bazuen, bai, egun honek ere, beste santu askoren **mugarritasunik**. Pello Zabala

## mugarritu, mugarri(tu), mugarritzen du *ad* mugarren bidez seinalatu edo mugatu. ik **zedarritu**; **mugarritzatu**.

Hitz haien patetismoak eta erabatekotasunak zirrara handia eragin zidaten, eta uste izan nuen adin nagusirako bidea **mugarritzen** zuten auzietako bat zela hura, Errege Magoena edo sexuarena bezala. Bernardo Atxaga

Atzeko atletik sartu ziren, ostatuko harrera-gunetik, gizon itsu batek zaintzen bainoago **mugarritzen** zuen espazio ilun batetik, atezaina lodia baitzen gorpuzkeraz. Felipe Juaristi

Lehenagoko egutegia, santu asko eta askoren oroipenetan **mugarrituta** zegoen. Pello Zabala

Pablo Picassoren jaiotzak (1881) eta Bilbon eginiko artista iberikoaren erakusketak (1925) **mugarritutako** bi egunen artean, tradizioetik abangoardiarako jauzia egin zuen arteak. Berria - Kultura

Arzoa, mendebaldean gure ziklo historikoko zein momentu justutan gauden **mugarritzea** da. Joxe Azurmendi

Laburbilduz, hizkuntza ez da agertzen alde aurretik **mugarrituriko** ikur multzo gisa. Isabel Arrigain

Txinatar edo filipinar edo ez dakit nongo hark, oholtzaren gainean, begi egartien aurrean, alutik, zilarrezko zapata takoidunek **mugarritutako** alutik atera zuen hiru metroko nakarezko idunekoa. Eider Rodríguez

Ukabilen esola imajinarioez **mugarritu** genuen Ukapenaren Erresuma. Joxerra Garzia

## mugarritze iz mugarren bidez seinalatzeko edo mugatzea.

Azkenik, *Les mots et les Choses* lanean **mugarritze** metodologikoaren faltak eraman ahal izan du pentsatzera nire analisiak totalitate kulturalak balira bezala bururatu ditudala. Xabier Arregi

Eraketa hau bermatzen da azalerratez, **mugarritze** eta zehaztapen instantzia batzuen arteko harreman-multzo baten bidez. Xabier Arregi

## mugarritzatu, mugarrizta, mugarriztatzen 1 du *ad* mugarritu.

Gorpu batek baino gehiagok **mugarritzatuko** zuen Siberiako bidearen tarte hura. Karlos Zabala

Lur-gaineko mugak gauza badaezpadako eta halamoduzkoak baldin badira, zer pentsatu behar dugu urak bataiatze, mugatze eta **mugarritzatzeaz** ? Iñaki Segurola

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Beste zerbaiti erreparaka bainago une honetan: bidezidor **mugarritzatu** bat elurtegiaren gora, giza aztarren bat, alegia. Joxe Austin Arrieta

## mugarte iz eremua; barrutia. ik **mugape**.

Liburu-dendako **mugarte** itoan jaten genituen gure sandwichak eta edaten gure kafe izoztuak, jakiak minutu bakan batzuetan irentsiz. Oskar Arana

Gazteleraz Espainiako erresumako **mugarteetan** egiten den literaturaren ordezkari. Edorta Jimenez

Bigarren hizkuntza errusiarra duten erresumen **mugartean** sartu gara. Edorta Jimenez

Araudi aldaketa etorri zen, Bizkaiko Udala **Mugarteei** Buruzko uztailaren 7ko 1993/8 Foru Arauarekin, udalerrri berriak sortzeko baldintzak zailduz. Berria - Euskal Herria

## mugasari ik **muga 30**.

## mugatasun 1 iz mugatua izateko nolakotasuna.

Eta litekeena da itsasoari irrikaz beharrean beldurrez begiratzea, espetxeko itxitasunarekin, **mugatasunarekin** konparatuta eskerga zelako itsasoaren zabalera. Berria - Kultura

Munduaren **mugatasuna** edo mugagabetasuna, materiaren zatigarritasuna edo zatiezintasuna, eta munduko kausalitate osoa edo munduaren lehen sortzaile bat frogatzeko saialdiek arrazoimen hutsa antinomia batean nahasten dute munduaren kontzeptuari dagokionez, antitekika edo kontraesanen sistema batean nahasten dute, beraz. nola handiago daitekeen euren hedadura edo **mugatasuna**. Ibon Uribarri

### 2 muga, gabezia. ik **mugapen**; **muga 6**.

Denbora libreak denbora bere sotiltasunean bizitzera garamatza, baina ez dugu ezer jakin nahi denbora erabat biluztu batez, horrek gure **mugatasuna** erakusten baitigu.

Anjel Lertxundi

**Mugatasun** hori indarrez eta jenioz hornitzen eben eta, euren sinpletasunean, estilo xarmagarria eta gutziz efektiboa sortu eben. Xabier Amuriza

## mugatiar izlag/iz ipar mugakoa; mugako pertsona.

Ortegun aratsean, Hendaian, Zokoburuko biltokian, mahain-inguru gisako hitzaldiak, gaia "Muga eta **mugatiar** nortasuna". Herria

Horra nor dituzten haiduru, sasiaren gibelean polliki gordeak igandeko irabazleek finaleko, Sorhuet-Oçafraín bi buruetako **mugatiarrek**: Larrechea eta Etcheto, hots, hauk berriz erdi hortako pare azkarra. Herria

Berehala erakutsia zuen Sorhuet **mugatiarrek** trenpu onean zela. Herria

Hots, joko hortan partidaren erdia atxiki du burua gora **mugatiarrek**. Herria

## mugatu, muga(tu), mugatzen 1 du *ad* muga ipini.

Lurraldea **mugatu** eta banatzen bukatu zutenean, israeldarrek Nunen seme Josueri ere eman zioten ondarea. Elizen arteko biblia

Herriko lurrak **mugatzeko** lizar ilara omen zen garai batean hesi itxuran. [Pello Zabala](#)  
Kuartelaren esparrua **mugatzen** zuen harresiaren espaloi lerroari jarraitu zitaion. [Pedro Alberdi](#)  
Ingurunea **mugatu** eta hesitzea erabaki zuten, badaezpada ere segurtasun neurri legez. [Berria - Euskal Herria](#)  
Zuhaitzek **mugatu** plazatxoa hedatzen da elizaren albo batean. [Berria - Kultura](#)  
Zurezko etxe tipoteik bi aldeetarik **mugatzen** zuten karrika hartu zuten. Formula idatzi, eta lauki batez **mugatu** zuten Ruche jaunak. [Aurelia Arkotxa](#)  
Harresi honek errepidean barna jarraitzen du, herria iparraldetik **mugatu** eta okertu egiten da ibaira iristen denean. [Koro Navarro](#)  
Muga-markoa irudia **mugatzen** duena da, [...] irudiaren eremua definitzen duena. [Josu Zabaleta](#)  
Eremua **mugatu** izan ez bagenu, anitzez denbora gehiago beharko genuke egitura plantan ezartzeko, eta hirigintza alorrean larrialdiko neurriak behar dira. [Berria - Euskal Herria](#)  
EB, laguntzak **mugatu** guran. [Berria - Harian](#)

## 2 mugen bidez murriztu.

-Hortaz, zerbait egin nahi duenak, ingurumen txiki batera **mugatu** behar du, zure iritzian, bere justizia-ekimena. [Josu Zabaleta](#)  
Hitza abstraktua eta pisu antzekoa iruditzen bazaizue, bere esanahiaren esparrua **mugatu** eta soildu dezakegu. [Pako Aristi](#)  
Kontua da errepublikak ugalketa **mugatu** egin behar duela, bere zoriona arriskuan dagoen momentutik aurrera. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)  
Kontratua egiteko askatasuna ezin beste ezerk ere **mugatu**, justizia, ohitura on eta onura publikoak baino. [Berria - Kultura](#)  
Material estrategikoak eta elikagaiak esportatzea debekatzen zuten legeek zorrotz **mugatzen** zuten kanpoko merkataritza. [Koro Navarro](#)  
Testamentua egiteko ahalmena onartu, debekatu ala **mugatu** egingo dugu? [Andres Urrutia](#)  
Latinak elizan zuen erabateko nagusitasuna **mugatu**, eta herrietako hizkuntzak ezarri ziren haren lekuan. [Koldo Zuazo](#)  
Horretarako, nolani ere, **mugatu** egin behar ziren herrialde hartzekodunei egindako baliabide-transferentzia garbiak. [Koro Navarro](#)  
Ekoitzi daitekeen ekoizpen bolumena eruz **mugatu** behar dela kontsideratuz. [Iñaki Heras](#)  
Eta zergatik **mugatu** behar du besteen kontzientziak nire askatasuna? [Elizen arteko biblia](#)  
Gizon bakoitzaren libertateak **mugatu** behar duela edozein estatu, eliza edo erakunderen boterea. [Piarres Xarriton](#)  
Luzaroan, alderdi morfologikora **mugatu** zuen enbrioi-garapenaren azterketak bere burua. [Juan Garzia](#)  
Globulu gorriak suntsitzeak **mugatu** egiten du makinaren erabilera. [Irene Aldasoro](#)  
Irakurlea presenteeegi edukitzeak **mugatu** egiten du idazlea. [Ana Urkiza](#)  
Poliki-poliki, Gizona ahaztuz, norbanakoaren arazoetara **mugatu** dugu gure moralak. [Josu Zabaleta](#)  
Halaber, parte-hartzea **mugatu** duen metodologia itxia erabilitea gaitzetsi zuen Baga Bogak. [Berria - Euskal Herria](#)  
Gran Vian autoen sarrera **mugatu** egingo da, eta zirkulazioa itxi egingo da Gregorio de la Revilla zatian, Indautxu plazan. [Berria - Euskal Herria](#)  
Merkataritza eremu handiak zorrotz **mugatu** behar dira. [Berria - Harian](#)

## • 3 (da aditz gisa)

Haren negozioak Greziara eta Ponto Euxinora **mugatu** ziren ia osorik, eta handik atera zuen bizibidea. [Iñaki Iñurrieta](#)  
**Muga** zaitetz ni behar bezala kitzikatzeraz. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)  
Azkenean, eguna itxarotera **mugatu** nintzen, etorriko zitzaidanari ahal nuen ongien aurre egiteko prest. [Alberto Ladron Arana](#)  
Siderurgia garatzen hasi zen, baina industria ehungintzara **mugatzen** zen ia osorik. [Koro Navarro](#)  
Hala ere, bortizkeriarik eza, gizarte-bizitzako konpartimentu batera **mugatu** ezin den gogo-aldarte eta portaera-printzipioa da. [Iñaki Mendiguren](#)  
Politika keynestarren kritika monetarista ez zen diru-politika abian jartzera **mugatu**. [Koro Navarro](#)  
Hemen, horrelakoak alde bat utzita, kontakizunetara **mugatu** gara. [Jose Antonio Mujika](#)  
Desorganizazioa organizatzeraz **mugatu** ziren lehen unetik. [Jokin Urain](#)  
Ezin gara etxeko partidetara **mugatu** garaipenak lortzeko Eurologian. [Berria - Kirola](#)  
Taizé-ko esperientzia ez zen egonaldi hortan **mugatu**. [Herria](#)  
Bi ilabeteren buruan bukatu beharra da eta Herriko Etxean eztabadatu dute jakiteko zer abiaduretan **mugatu** behar den bide pezo hori 50 ala 70 km orenean. [Herria](#)

## 4 mugak finkatuz zehaztu.

Eta zentzuz egiteko, **mugatu** egin behar da aurretik, zein marko edo lekutan, zein planteamolde edo posiziotatik, doi-doi zer eztabadatu nahi den. [Joxe Azurmendi](#)  
Haien utzikeria zuzendu baino, haien jarduera **mugatu** beharra zegoen. [Iñaki Iñurrieta](#)  
Agian ez neukan esan beharrik, berak ere ez du galdetu, baina egokia iruditu zait nolabait gure elkarrizketaren esparrua **mugatzeko**. [Pako Aristi](#)  
Luis Errukitsuak elizako arazoetara **mugatu** zuen epaiketa-modu hori. [Iñaki Iñurrieta](#)  
Berak **mugatu** du konzeptuen, azterketen eta frogapenen ekonomian aldaketa handi hori. [Xabier Arregi](#)  
Harreman hauek markatuz **muga** daitezke eremu batetik besterako zirkulazioa aseguratzen duten bideak. portuko paisaiaren marrak **mugatu** eta koloreak zehaztu egin ziren. [Xabier Arregi](#)  
Ez dituzte menpekotasun mailak **mugatu**, ez dute zehaztu zeintzuk diren. [Berria - Euskal Herria](#)

## 5 gramatikan, izen sintagmari aurreko aipamen baten adierazlea -oro har artikulu marka- ezarri.

Mugagabea erabili zuen Ruche jaunak plurala erabili ordez, baina berehala **mugatu** zioten bikiek proposamena, bai singularrera **mugatu** ere, norabide bakarra aukeratu baitzuten. [Jon Muñoz](#)

## 6 (era burutua izenondo gisa)

Gatzik gabeko alproja **mugatu** bat besterik ez da. [Karlos Zabala](#)  
Ia nahi duten edozein kolore sortzen dute artistek paleta **mugatu** batetik. [Xabier Olarra](#)  
Lauki zuri-beltzeko zelai **mugatuan**. [Alberto Ladron Arana](#)  
Testuinguru **mugatu** jakin batean. [Josu Zabaleta](#)  
Independentziak eragin **mugatu** izan zuen kontinenteko egitura ekonomikoetan. [Koro Navarro](#)  
Bruselak bultzatuta, kurduen kultura eta hizkuntza onartzeko zenbait neurri **mugatu** eta txiki hartu ditu Ankarak. [Berria - Mundua](#)  
Gaur egun aurkitzen ditugun geneak, hala, konbinatoria baten emaitza dira, eredu kopuru **mugatu** batetik sortuak. Zientzia-teoria guztiak behaketa-kopuru **mugatu** batean oinarritzen dira. [Juan Garzia](#)  
Egun-kopuru **mugatu** du gizakiaren bizitzak; Israelen egunak, berriz, kontaezinak dira. [Elizen arteko biblia](#)  
Berak komunikazio-espazio **mugatu** bat definitzen du. [Xabier Arregi](#)  
Linnaeus-en *Genera Plantarum* oso osorik enuntziatuz osaturiko liburua da, bertan ezin da aurkitu esaldien kopuru **mugatu** bat baino. [Xabier Arregi](#)  
Bizitza **mugatu** zen, baina egonkorra nolabait. [Xabier Olarra](#)  
Horrek txiki, **mugatu**, ahul egiten gaitu. [Jon Alonso](#)  
Esklerosiak jotakoa gero eta gutxiago mugitzen da, gero eta **mugatuagoak** dauzka aukerak. [Jon Alonso](#)

## 7 mugatuxe mugatu xamar.

Bien bitartean, ordea, definizio **mugatuxeago** bat eman dezakegu begiradaz: ikustearen asmoa eta helburua definitzen duen zer hori da begirada. [Josu Zabaleta](#)  
Horrek izenen mundu **"mugatuxeagoan"** ezartzen ninduen. [Aingeru Epaltza](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adieraztera mugatu** (3); **asko mugatu** (4); **aukerak mugatu** (3); **bere egitera mugatu** (4); **biltzera mugatu** (3); **corpus mugatu** (3); **denbora mugatu** (9); **egitera mugatu** (20);

egitera mugatu ziren (4); ematera mugatu (3); eremu mugatu (3); eremua mugatu (3); esatera mugatu (17); esatera mugatu da (3); esatera mugatu zen (12); espazio mugatu (3); eustera mugatu (5); eustera mugatu ziren (3); gordetza mugatu (3); horretara mugatu (16); hutsera mugatu (3); irakurtzera mugatu (4); izatera mugatu (6); jarduna mugatu (3); jartzera mugatu (3); kopuru mugatu (13); kopuru mugatu bat (4); kopurua mugatu (6)

mugatu gara (4); mugatu izan (5); mugatu samarra (3); mugatu zen (50); mugatu zuen (20); ongi mugatu (3)

talde mugatu (5)

ahalmen mugatua (5); aski mugatua (3); denbora mugatua (6); epe mugatua (3); erabat mugatua (3); eragin mugatua (8); eragin mugatua izan (4); eraginkortasun mugatua (3); existentzia mugatua (5); existentzia mugatua duen (4); eztabaida mugatua (3); ikusmena mugatua (3); kontratu mugatua (5); kopuru mugatua (12); kopurua mugatua (9); leku mugatua (3)

mugatua da (61); mugatua dago (11); mugatua du (13); mugatua izan (33); mugatua izan da (4); mugatua izanen (8); mugatua izanen da (7); mugatua izango (12); mugatua izango da (3); mugatua izango du (3); mugatua izanik (3); mugatua izatea (5); mugatua zegoen (3); mugatua zen (8); mugatua zuten (4)

ondasun mugatua (3); oso mugatua (20); talde mugatua (6)

ahalak mugatuak (3); baliabideak mugatuak (5); baliabideak mugatuak direla (3); lekuak mugatuak (5); mugatuak dira (20); mugatuak izan (5); mugatuak izanen (3); mugatuak izanez (3); mugatuak ziren (4)

ongi mugatuak (3); oso mugatuak (9); tokiak mugatuak (12); tokiak mugatuak izanez (3)

modu mugatuan (4)

batera mugatuko (4); egitera mugatuko (5); egoera mugatuko (31); egoera mugatuko gramatika (5); egoera mugatuko hizkuntza (6); egoera mugatuko hizkuntzak (4); ematera mugatuko (3); eragin mugatuko (5); eragin mugatuko ituna (3); eraginkortasun mugatuko (10); eraginkortasun mugatuko lan (4)

egoera mugatukoak (3)

mugaturik daude (3)

legez mugatuta (3); mugatuta dago (9); mugatuta dagoela (3); mugatuta gaude (4); mugatuta zegoen (3); oso mugatuta (4)

mugatzea erabaki (6)

askatasuna mugatzeko (5); indarra mugatzeko (4); kopurua mugatzeko (5); mugatzeko aukera (3); mugatzeko eskatu (3); mugatzeko neurriak (3); prentsa askatasuna mugatzeko (3)

ahalmena mugatzen (3); askatasuna mugatzen (4); asko mugatzen (5); betetzera mugatzen (3); egitera mugatzen (6); ematera mugatzen (3); eremua mugatzen (3); eskubidea mugatzen (4); eskubideak mugatzen (3); esparrura mugatzen (3); hutsera mugatzen (4); irakurketara mugatzen (3); izatera mugatzen (4); jardunera mugatzen (3); jasotzera mugatzen (4); kontatzera mugatzen (3) ongi mugatzen (3)

## mugatzaile 1 *izond* mugatzen duena.

Giza baliabideena da unibertsitatean gaur egiten den ikerkuntzaren eragile **mugatzaileenetako** bat.  Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ikasi egin beharko dut Dabiden babes **mugatzailetik** urruntzen askatzen.  Patxi Zubizarreta

Dagoeneko erabat ezabatuta ditugulako denboraren eta espazioaren hesi **mugatzaileak**.  Berria - Kultura

Egia da ere sozietateak bi aurpegi erakusten zizkidala, bata **mugatzailea** eta bestea libreagoa.  Ana Urkiza

## 2 (gramatikan)

Asignatura bitxien artean, "Antzerki" zegoen; guk hala deitzen genion, -a **mugatzaile**rik gabe.  Iban Zaldúa

Ez da, alegia, *inderre* baizik *inderra* gertatzen hitzari atzizki **mugatzailea** eransten bazaio.  Lourdes Oñederra

Ona hau eta ona hura; kendu *hau* eta *hura* **mugatzaileak**, eta begiraiozu, ahal baduzu, On hutsari.  Imanol Unzurrunzaga

## mugatze 1 *iz* mugen bidez zehaztea edo zehaztea.

**Mugatze** horren zailtasuna hizkuntzen eta egoeren arabera aldatzen da.  Isabel Arrigain

Baina norbaitek sexu bereko pertsonekin deus ere deus ere egin nahi ez izatea, hori gehiegi da, hori **mugatze** larria da, gizona edo emakumea herrenka dabil kasu horretan, ezin gizaki osoa izan.  Karlos Zabala

Horrek ez ditu kentzen gizatasunak eta antolakuntza publiko onak eskatzen dituzten **mugatze** eta murrizteak.  Iñaki Iñurrieta

Ahalaz segurik hein bat bederen xuxenduz azken aldian arrunt molde potretetan egin ziren **mugatze** batzu...  Herria

## 2 (hitz elkartuetan)

Peter Medawar-ek, auzi hori azterturik, bi **mugatze** mota bereiz daitezkeela dio.  Juan Garzia

Whitney amerikarra [...] lanaren autorea, izan zen **mugatze** lan horri lehen bultzada eman ziona.  Isabel Arrigain

Bigarren zabaltze eta **mugatze** prozesua.  Berria - Euskal Herria

## mugazain 1 *iz* mugak zaintzen dituen poliziakidea. ik **karabinero**.

Egun latz eta hits heietan Frantziako muga **mugazainez** eta zelatariez edo barrandariez brokatua zen.  Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Mugazainek** 42 kilo heroina atzeman zituzten joan den larunbatean Biriatuan.  Berria - Euskal Herria

**Mugazainek** nire ekipajea miatuz gero, atxilotua izateko arrisku handia nuen.  Alberto Ladron Arana

Aduanako hesia zen, **mugazainek** gurdien miaketan ziharduten.  Karlos Zabala

Uste ez bezala zeharkatu nuen, ordea, muga, inoiz baino bizkorrago eta inolako arazorik gabe, **mugazainek** nahikoa buruhauste baitzuten garraiolarietakoak egiten.  Anjel Lertxundi

Gauzarik praktikoena zelakoan, Kapistun, lau behorrak hartuta, bueltatu egingo zela erabaki zuten, eta poliki-poliki abiatuko zela gaua pasatu zuten **mugazainen** etxolara.  Koro Navarro

Egun ederrik jastatuko zinuen zuk ere hedexuri edo **mugazain** horietan sartu bazine.  Herria

-Ez zen **mugazaina**, galtza-gorria baizik.  Pablo Sastre

Militarrak eta **mugazainak** nahasten diren denbora honetan, biak igualtsu tratatzen ditut nik, zakur zahar amorratua baino hobekiago ez. Habanako aireportuan **mugazainen** buru egon zen, 30 eta 40ko urteetan.  Pablo Sastre

## 2 irud/hed

Beren buruak "mugako pentsalaritzat" dauzkate, Estatuaren seguritatearen **mugazainak** direlako apika.  Joxe Azurmendi

Esan zezakeen, orobat, berak ez dituela poesia eta prosa bata bestetik bereizten, eta "metaforismo" hitzaren bidez hartu nahi izan diela mendeku, metaforikoki esanda, muga- ezarle eta **mugazain** guztiei.  Joxerra Garzia

## 3 (hitz elkartuetan)

Zalakainek **mugazain**-etxetxo bat ikusi zuen oso bertan, itxita.  Koro Navarro

Zama eta behorrak seguru utzirik, sartu ziren hirurak **mugazainen** etxean eta su eder bat piztu zuten.  Koro Navarro

## mugazaintza *iz* mugen zaintza.

Urrats horietatik lehena Ankarak EBn iragan maiatzaz geroztik kide du diren 10 herrialdeetako **mugazaintza** arauetarako akordioak sinatzea litekeela gaineratu zuen lakovukek.  Berria - Mundua

## mugertar *izlag/iz* Mugerrekoa, Mugerreri dagokiona; Mugerreko biztanlea.

**Mugertar** akusatuak bere galdea egin zuen auzi hastean baina errefusa izan zuen. Herria

**Mugertarra** baitu bere emaztea. Herria

90 pare arizan ondoan lehen mailean: Palacio Etcheverry **mugertarrek** ereman dute Labarthe Ainciboure-ri. Herria

Gaxuxa Arrambide 25 urteko **mugertar** gazteari 6 urteko presondegi zigorra eman dio Pariseko auzitegiak. Herria

Gomita deneri zabaldua da, **mugertar**, auzo-herritar eta sustengua ekarri nahi duen orori. Herria

Gorka Torre **mugertarra** hautatua izan da zuzendari karguaren betetzeko hemendik aitzina. Herria

Horrela, **Mugertar**, Lehunzar, Urketar eta Ahurtiarrek Hiriburua barnea nolakoa den ezagutzeko parada badute. Herria

## mugeta 1 *iz* belar landarea, lore zuriak mordoetan bilduak ematen dituen (*Convallaria majalis*).

Udaberriaren ez geundenean eta udaberri-lorerik ez zegoenean, **mugetak** oparitzen zizkidan, eta arrosa-begitxo biziak, eta herezeak, eta nabar-lore urdin distiratsuak.

Mirentxu Larrañaga

Mutilak gonan usain egiten zion luzaro, jolas antzean, eta zera esaten zion azkenean: "hau **mugeta** dun". Karlos Zabala

Eta bereak gozoak ziren: **mugetaren** kolonia bezain gozoak. Anton Garikano

## 2 (hitz elkartuetan)

Bere biboteko brillantinak zabaltzen zuen **mugeta** -urrina aditzen nion. Matías Múgica

## mugiarazi, mugiaraz, mugiarazten (*orobat mugituarazi g.er.*) du *ad* mugitzera behartu. ik **higiarazi**.

Itsu badago ere, mugitu egin behar du, eta **mugiarazi**. Josu Zabaleta

Durant jaunak mihi-punta atera eta emeki **mugiarazi** zuen bere goi-epain busti eta labainkorretik. Mirentxu Larrañaga

Ragga, dub, jungle, reggae gozoa... jesarrita ez bazaudete mokorrek **mugiaraziko** dizkizuen musika... Paddy Rekalde

Hala gupilak, aurrerantz mugitzen delarik, berarekin batera behoko danborrari eragingo dio eta honek bere hortzarekin goiko gupilaren hortzak **mugiaraziko** ditu buelta bakoitzarekin hortz bana biraraziz. Santiago Iruretagoiena

Bere ahal eta borondateaz inguruko esfera birarazi eta **mugiarazten** duena. Xabier Kintana

-Horixe da gauza guztiak **mugiarazten** dituen printzipioa. Xabier Aranburu

-Ez al dik barruko errairik **mugiarazten** ? -esan zidan, errukia eta pena dena batera adierazten zuen aurpegiaraz. Inazio Mujika Iraola

Zu zerk **mugiarazten** zaitu: zalantzak, jakin nahiak, erakutsi nahiak...? Ana Urkiza

Zer nolako ezinegonak **mugiarazten** ote zuen Marro, galdetu izan diot beti neure buruari. Juan Kruz Igerabide

Talde asko dago auzoan, eta horrek jendea **mugiarazten** du. Berria - Euskal Herria

Herritarrek «**mugiarazteko**» xedearekin manifestaziora deitu dute heldu den larunbaterako, Iruñean. Berria - Euskal Herria

Beldurrak **mugiarazi** ditu enpresak. Berria - Gaiak

Sermoi luzeak ipurdia **mugiarazten** du, eta motzak bihotza. Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**herritarrek mugiarazi** (4)

**mugiarazteko gai** (3)

## mugiarazle *izond/iz* mugiarazten duena. ik **higiarazle**.

Berau unibertsoaren Lehen Motor edo Kausa **mugiarazle** eta formatzat harturik. Xabier Kintana

Era berean, Jainkoa (gorets bedi Haren izena!) esfera gorenaren **mugiarazlea** da, eta Beraren eraginez mugitzen da hartan den guztia; baina Jainkoa (gorets bedi!) hartatik bereiz dago, eta ez da hartan den ahalmen bat. Xabier Kintana

## mugida (*orobat mugira g.er.*) 1 *iz* mugitzea.

Eguzkiaren ibilbide eta ilargiaren **mugida** aldakorrek zer indarrek eta kausak eragiten dituen. Xabier Amuriza

Bada besterik ere, eguzkiaren izpitan dardaritzen ikusten diren gorputzoi arreta jar diezaziezun, ezen halako multzoek erakusten baitute materiaren barruan ere badirela **mugida** ezkutuak eta ikusgaitzak. Xabier Amuriza

Gizonaren bihotzaren **mugidak** ezin zundatuzkoak dira. Josu Zabaleta

Gogojardunak ematen dituenak, ikusten badu hartzen dituenari ez datozkiola barrenean espirituko zenbait **mugira**, hala nola pozaldiak eta lehorraldiak, eta ez dutela ere zenbait espirituk inarrostean, [...]. Patxi Altuna

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hainbat aldarte eta barne **mugida** adierazi nahi zituzkeen neurtitzetan! Irene Aldasoro

Bere ama paperak ez du behar, bere "naturaltasun" horretan, izpiritu **mugidarik** Josu Zabaleta

## 3 *adkor* saltsa, istilua; gertaera ezohikoa. ik **mobida**.

Ez zuen gustuko **mugida** hura, munduaren etorkizuna jokoan egonda ere. Fernando Morillo

Ongieza ez erakusteko eginahaletan, inguruko **mugidan** finkatu nituen begiak. Aingeru Epaltza

Urte hartan uste dut hasi nintzela jabetzen musikaren mundua astindu zuen **mugida** bortitzez. Xabier Mendiguren Elizegi

**Mugida** itxurosoa dago, pastiak gura adina, nor bere zoroarekin, eta mukizu kaskamotza eskuma aldean goian. Urtzi Urrutikoetxea

Ez zuen dena haizea hartzera bidaltzen orain egiten duen bezala, eta egoera politikoak kezkatzen zen, **mugidaren** batean sartuta ibiltzen zen, [...]. Antton Olano

Kolektibo feministetan, komite internazionalistetan eta beste bizpahiru **mugidatan**. Xabier Mendiguren Elizegi

Asper-asper eginda nengoen Londresekin eta bertako **mugida** teknoarekin. Patxi Iturritegi

80ko hamarkadan Madrigo **mugida** -ren ikonoetako bat izan zen Garcia Alix. Berria - Kultura

## 4 *bizi* mugida

Zatien arteko bizi **mugida** egokiak eragiteko. Xabier Amuriza

Bizi **mugidaren** eta formaren arteko liskar inmanente hori ezinbesteko baldintza da ordena espiritualerako ez ezik baita ordena naturalerako ere. Josu Zabaleta

Lehenkien posizioak disolbatzen baitira, eta barru-barruan **bizi mugidak** eten, harik eta materiak, gorputzadar guztiak astindurik, arimaren bizi korapiloak gorputzetik askatu

eta hura, zatikaturik, zirritu guztietatik kanpora jaurti arte. Xabier Amuriza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mugida egokiak** (3)

**bizi mugidak** (3); **mugidak eragiten** (4)

## mugidatxo *iz* mugida txikia.

Haize- **mugidatxoa**, haizexka ahula alegia, eguzkiak lur-azala berotu ahala abiatzen da. Pello Zabala

## mugidazale *izond* mugidaren, saltsaren zalea dena.

Jende koloreduna aurkitu zuten eta jende grisa; gazteen algarra eta zaharren patxada; giri despistatuak edo gazte **mugidazaleak**. Fernando Morillo

## mugiera *(orobat mugikera)* *iz* mugitzeko era.

Batzuk dantzan, besteak eserita, taldea hitz egiten, komunetara joan-etorrietan, perika pixka bat zenbaiten sudurretan, anfetak bestetzuen gorputzetako **mugierak** behartzuz.

Pako Aristi

Bere gaitza estuen atzeko poltsikoan eskua sarturik ibiltzea gustatzen zitzaidan, mami urrien azpitik braille sekretu eta epel baten bidez bere hezurduraren **mugikera** nahasia irakurriz. Joxean Agirre

Animaliaren **mugiera** eta Amyrena elkarren oso desberdinak zirela. Xabier Olarra

Segi eguneroko portaera estu eta **mugiera** jakinekin, besterik gabe. Pako Aristi

## mugiezin 1 *izond* ezin mugituzkoa.

Erromako Eliza Katolikoan jaiak "mugikorrak" eta "**mugiezinak**" izaten dira, baina ospatzaileak beti **mugiezinak** izaten dira bapo bete bitartean. Xabier Olarra

Zerurantz altxa nituen begiak: hodei zehatzik gabe, kolore zehatzik gabe, marmolezko sabai trinko eta **mugiezin** bat zirudien, hilobi baten harlauza. Bernardo Atxaga

Europako estatuen arteko mugak irekiak dira, baina **mugiezinak**. Berria - Euskal Herria

Zerua urdina zen; itsasoa, eskuinetara. **mugiezina**; eguzkia, neure bizkarrean, urrikigabea. Matías Múgica

Hirien modernotasun bizia eta basoaldeko iragan **mugiezina**. Javi Cillero

Bertsoa zen, hasi eta bukatu egiten zen paradigma **mugiezina**. Andoni Egaña

Nafarroako VWek "**mugiezina** den behin betiko" proposamena egin dio langileen batzordeari. Berria - Ekonomia

### 2 (adizlagun gisa)

Une batez **mugiezin** geratu zen, bolanteari tinko helduz, oharkabean marraren bat igaro bailuen."Eta haren ondoan Yhwh agertu zen zutik", haren gainean egonkor eta **mugiezin**. Harkaitz Cano

Haize eskukada bat baino arinagoa zen barruko txoria, baina besoa gogortzen zitzaidan, **mugiezin**. Juan Kruz Igerabide

### 3 (izen gisa) ik **higiezin 2**.

Urruña eta Biriatu aldean, **mugiezin** prezioa izugarri garestia da eta ez dute aise bertze alorrik atzemanen. Berria - Euskal Herria

### 4 **mugiezinik** mugitu ezinik.

Baina hondar-meta batean hondoa jo zuten; branka hondarretan sartua gelditu zen, **mugiezinik**. Elizen arteko biblia

Hankak eta besoak **mugiezinik** zituen. Harkaitz Cano

## mugiezinaldi *iz* norbait edo zerbait ezin mugitu den aldia.

Azken hamarkadako ikerlanek frogatu dute [...] goitik behera berrantolatatu eta berrikeria daitekeela gorputz-irudiaren "marrazketa" zerebrala; lesio eta **mugiezinaldietan** ez ezik, alde banakatuak erabiltzearen edo ez erabiltzearen arabera. Xabier Olarra

## mugiezintasun *iz* mugiezina denaren nolakotasuna.

Erakutsi dugu zerbitzu publikoa ez dela **mugiezintasunera** kondenatua. Berria - Ekonomia

Eraketa-sistema hauek ez dira hartu behar **mugiezintasun** blokeztat, diskurtsotik kanpo ezarriko liritekeen forma estatikotzat. Xabier Arregi

Egituren "**mugiezintasunari**", euren sistema "itxiari", euren nahitaezko "sinkroniari" historiaren irekitasun bizia kontrajartzen duen gai hau baliarazteko beharrezkoa da. Xabier Arregi

Bai, eternitatea bezain kopetilunak beren **mugiezintasun** setati, ia traidore hartan. Matías Múgica

## mugigaitz *(orobat mugikaitz g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian mugigaitz agertzen da)* 1 *izond* nekez mugitzen dena, ia mugiezina. ik **higigaitz**.

Helburu ditugun Karakorum-go mendiak bezain **mugigaitzak**. Xabier Montoia

Hazpegi zakar **mugigaitzeko** mutil gazte bat. Irene Aldasoro

Kapitalak **mugigaitzak** direla zioen, eta hipotesi horretatik ondorioztatzen zuen nazioarteko trukearen egokitasuna. Koro Navarro

Hunkitu gabeko judu **mugigaitzek** harrigarri arrakastatsua zen kristautasunari buruz agertzen zuten "destaina sakon egonarritsu" hori ez zen kristautzat hain gogaikarria gertatuko. Iñaki Mendiguren

### 2 (adizlagun gisa)

Gizon txaparroak isilik segitu zuen, **mugigaitz**, itsasora begira marmarka. Migel Angel Mintegi

Doktoarean aurpegiak harrizko estatua batek bezain **mugigaitz** egin zidan so. Alberto Ladrón Arana

Pentsatuz ezen bertso-kopuru hori, kubo baten antzera, edozein aldetara erortzen dela ere, egonkor eta **mugigaitz** geratzen dela oroimenean finkatuta. Santiago Iruretagoiena

## mugigaitzasun *iz* mugigaitza denaren nolakotasuna.

Santander [...] eta BBVA (- %0,06) **mugigaitzasunaren** irudia izan ziren eta TPI ipotxa eta Sacyr soilik igo ziren %2 baino gehiago. Berria - Ekonomia

# mugigaiztu *izond* mugigaitz bihurtua.

Beti letra etzan luze-mehe berak, ziraun zuri zaurituak aspaldi argitzen ez duen neonezko errotuluan **mugigaiztuak**. **Aingeru Epaltza**

## mugigarri *1* iz mugigaitz daitekeena. ik **higigarri**.

Kameraren mugikortasun hori zinemaren hasiera-hasieratik egin zen ia, lehendabizi oinarri **mugigarriren** baten gainean jarriz. **Josu Zabaleta**

Enbolo **mugigarriak** izango dituzte. **Santiago Iruretagoiena**

Gaur egun makina horietako asko **mugigarriak** baldin badira ere, nekez mugitu ohi dira makinak irudia proiektatzen ari diren bitartean. **Josu Zabaleta**

## 2 (ekonomian) ik **mugigarri 2**.

Feudoak **mugigarriak** edo bizi artekoak zirenean, lege politikoei zegozkien ia bakarrik. **Iñaki Iñurrieta**

Gipuzkoako ondare **mugigarria** Irungo uri zentroan eraberritu eta erakutsiko da. **Berria - Kultura**

Hiru parte berdin egin zituen bere ondasun **mugigarriekin**, eta haietarik bi hogeita bat zatitan bana zitezten nahi izan zuen, inperioko hogeita bat metropolientzat. **Iñaki Iñurrieta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ondare mugigarria** (5)

## mugigarritasun *iz* mugigarria denaren nolakotasuna.

Gure kontsumo, **mugigarritasun** eta garapen ereduak zapuztu egiten dituzte herritarren eta administrazioaren ahaleginak. **Berria - Euskal Herria**

## mugikaitz ik **mugigaitz**.

## mugikari *1* *izond*/iz mugikorra.

Aberastasunak funtsak edo **mugikariak** izaten dira; herrialde bakoitzeko lurra bertako biztanleenak izan ohi dira. **Iñaki Iñurrieta**

**Mugikariak**, hala nola dirua, ordaintzekoak, kanbio-letrak, konpainien akzioak, itsasontziak eta salerosgai-mota oro, mundu osoarenak dira. **Iñaki Iñurrieta**

Adimena bera ere xumea eta miragarriro **mugikaria** baita. **Xabier Amuriza**

## 2

Hasieran ia ustekabeko kontua izan zen: mekanismoari eragin, musika kutxa erdoildu batenak ematen duten soinuk entzuten hasi, **mugikariaren** azpian etzan, eta txakurtxoei begiratzen nien, buelta eta buelta eta buelta. **Iban Zaldua**

Unetxo bat besterik ez: giltza amaitzen zitzaionean, **mugikariari** hautsa kendu eta familiarengana joaten nintzen. **Iban Zaldua**

Maddiri izugarri gustatu zitzaion **mugikaria**: sekulako irribarra marrazten zen haren aurpegian azpian jarri eta doinutxo hasten zen bakoitzean. **Iban Zaldua**

## mugikera ik **mugiera**.

## mugikor *1* *izond* mugitzen dena, mugitzeko joera duena. (gauza fisikoak)

Urre koloreko esfera **mugikor** batzuk ageri ziren zintzilik nire buruaren gainean. **Patxi Iturritegi**

Oso tentagarria gertatzen zitzaion kristalezko bola handi baten barruan zegoen galaxiaren maketa **mugikor** zoragarri bat. **Iñaki Mendiguren**

Bateletan (lau arraunlari eta patroia) eta aulki **mugikorrean** soilik lehiatzen dira oraingoz. **Berria - Kirola**

Azkenean anfibio harrapariak gertatu ziren, beren ur-giroan bezain **mugikorrak** lehorrean ere. **Iñaki Mendiguren**

Europako setio guztietan erabili ohi direla, emaitzarik onenekin, zurezko dorre **mugikor** batzuk, hau da, ez hain **mugikorrak**, horrelako tramankulu bat mugiarazteko jende eta abere pilo bat behar izaten delako. **Jon Alonso**

Hazia laborategian tratatzen da: zenbat espermatozoide **mugikor** dauden ikusten da. **Berria - Harian**

Argi trebes eta **mugikor** bat zuen begietan, zilarbiziarena berarena bezalakoa. **Juan Garzia**

Bi begi eldarniatu, begi beltzak, beltzaren beltzez begi-ninia ere bereizten ez zitzaizkionak, begi **mugikor**, zelatari, gaixo, sorginduak. **Josu Zabaleta**

Han, harearen gainean, kasik zerumuga hunkitzen zuela, dromedarioen arrosario **mugikor** nagia, zero urdinaren sinadura. **Piarres Aintziart**

Unitate **mugikor** baten bitartez grabatua. **Berria - Kultura**

Ertzaintzako Brigada **Mugikorreko** mendi taldea. **Berria - Euskal Herria**

Osakidetzako Zainketa Berezien Unitate **mugikorrean**, Galdakaoko (Bizkaia) ospitalera eraman zuten. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (bestelakoak)

Linternaren argiak itzal handiak eta **mugikorrak** sortzen zituen, antza, eskailera mailetan, eta horrek oinak non jartzen zituen ongi ikustea galarazten zion. **Aitor Arana**

Irudi **mugikor** edo iraunkorretan (filmetan, bideoetan) edo irudi anizkoitzetan (komikian), ordea, ez da horrelakorik gertatzen. **Josu Zabaleta**

Horren ordez, garai **mugikor** batera heldu gara, non arazo berriak lehenagotik zeudenei gehitzen zaizkien. Tokiko merkataritza eta esportaziozko merkataritza gero eta zorrotzago bereiztea, horixe izan zen hiri-bizitzaren erreakzioa, hiriko erakundeak desegiteko mehatxua zekarren kapital **mugikor** baten aurka. **Askoren artean**

Oraina deritzan lerro **mugikor** batek bereizten du Etorikizuna deritzan alegiazko aldi batetik. **Xabier Olarra**

## 3 telefonoz mintzatuz, sakelakoa.

Neure burua madarikatu nuen, nire lagunek hain airos erabiltzen zuten telefono **mugikor** horietariko baten jabe ez izateagatik. **Aingeru Epaltza**

Norbaitek telefono **mugikor** batez dei bat egin zuen eta hiru minutu baino lehen ikusi nuen neure burua anbulantzia batera ari zirela sartzen etzangu batean jarrita. **Joxemari Iturralde**

Xehetasun gehiagorentzat telefona **mugikor** huntarat deitu behar da: 06.22.20.33.56. **Herria**

Telefona **mugikorren** zenbakia utzi zion ahots-postontzian. **Migel Angel Mintegi**

Telefona **mugikorren** hedagailu baten aldamenean. **Berria - Euskal Herria**

Telefonia **mugikorren** bitartez, tresna honen aukerak eta zerbitzuak handituz doaz egunetik egunera: photologs, moblogs... **Txema Ramirez de la Piscina**

Sare finko eta **mugikorrak**, Interneteko zerbitzuak, erabiltzaile bakarreko eta anitzeko informatika sistemak. **Berria - Euskal Herria**

## • 4 iz sakelako telefona. ik **sakelako**<sup>2</sup>.

Bi **mugikor** ditu ezker-eskuin, eta **mugikor** batetik ez denean, bestetik ari da. **Berria - Kultura**

**Mugikorra** piztu nuen mezurik banuenez behatzeko. **Itxaro Borda**

Askok mugia pasatu eta **mugikorra** izaltzea nahiz izaten dute. Berria - Harian

- **Mugikoraren** erlojuari begirada bizkor bat eman diot-. Iban Zaldua

Bere **mugikorra** beharriari lotua heldu zen gizon gazte bat, ele eta ele, begiak apaliki. Herria

Haren **mugikor** gorriak bi aldiz jo zuen tarte horretan. Aingeru Epaltza

Bertzean, etxeko giltzak eta goizean erositako **mugikor** berria. Aingeru Epaltza

Telefona bakarño batzu han-hemenka, orai ba denetan, eta doblezka berdin, finkoaren aldean berrikitan sartua baita **mugikor** hori, ainitzek badutena sakelana edo esku-zakuan. Herria

**Mugikorretarako** softwarea eta bideokonferentziak lantzeko. Berria - Ekonomia

## 5 harea/hondar/lur mugikor pl/linga faltsuak.

Harea **mugikorretan** harrapatuta zeuden, leporaino iristen zitzaizkien. Ramon Etxezarreta

Toki zingiratsua izan daiteke edo, esan ohi den bezala, harea **mugikorrak**. Ander Irizar

Harea **mugikorretan** igeri ari balitz bezala ireki zuen bidea. Fernando Morillo

Ezkerraldera **hondar mugikorrezko** padura zabala duzu. Joseba Sarrionandia

Libertateak, ordea, **lur mugikorretarik** ninderaman, zalantzas zalantza, eta nik, batzuetan, zalantza egiten nuen zalantzas. Joan Mari Irigoien

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**irudi mugikor** (4); **laborategi mugikor** (4); **telefona mugikor** (5); **telefono mugikor** (5)

**mugikorra falta** (3); **mugikorra izango** (3); **telefono mugikorra** (8)

**irudi mugikorrak** (4); **mugikorrek kalte** (3); **mugikorrek kalte egindako** (3); **telefonía mugikorrek** (3); **telefono mugikorrek** (3)

**telefonía mugikorren** (5)

**aulki mugikorren** (5)

**aulki mugikorrek** (3); **telefonía mugikorrek** (6)

**telefono mugikorren** (5)

**harea mugikorretan** (3)

## mugikortasun 1 iz mugikorra denaren nolakotasuna.

Laringea osatzen duten gihar eta kartilagoen egitura eta **mugikortasunagatik**. Lourdes Oñederra

Dermisaren azpian, gantz-geruza bat dago; geruza horrek larruazalaren isolagarritasuna hobetzen du eta, gainera, **mugikortasun** handia ematen du, azpiko organo eta ehunak behartu gabe. Irene Aldasoro

Gutzira, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko 41 udalerrri eta 4 eskualde daude 2004ko **mugikortasun** iraunkorrerako planetan. Berria - Euskal Herria

**Mugikortasun** soziala hutsaren hurrengoa da, jaiotzetik finkatua baitago pertsona bakoitzaren gizarte-maila. Koro Navarro

Euskal Y-ak **mugikortasunaren** arazoa konpontzeko balioko duela diote Espainiako Gobernuak eta Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Indiako britainiar indarren **mugikortasuna** oso murriztua geratzen baitzen nagusitasuna ezartzeko behar zituzten gailu askoren ondorioz. Iñaki Mendiguren

Egunotan **Mugikortasunaren** Astea egin dute Euskal Herriko udalerrri askotan. Berria - Euskal Herria

## 2 (ekonomian)

Malgutasuna, **mugikortasuna** eta langileak aurrez erretiratzeko baldintzak aipatu, baina SEPIk ezer ez du zehaztu, tamalez. Berria - Ekonomia

Lanaren **mugikortasuna**, erran nahi baita jendeak behar dutela usu lanez kanbiatu eta ere lekuz aldatu. Herria

Lekuan bertan inbertituriko atzerritar kapitalen **mugikortasunak** eta munduko merkatuak ezarritako mugek ere izaten dute eraginik soldaten bilakaeran. Koro Navarro

Informazioen, irudien eta kapitalen **mugikortasunak**, komunikazioen iraultzari esker izugarria bihurtu baita, zaharkituta utzi ditu, kasu askotan, mugaren edo lurraldearen ideiak. Koro Navarro

Ondasun, zerbitzu eta aktiboen nazioarteko **mugikortasunerako** trabak eta oztupoak ezabatuz joan dira, eta ekonomiaren nazioarteratze prozesua inoizko mailarik gorenera iritsi da, zenbatekoan ez ezik, hedapen eta sakontasunean ere. Iñaki Heras

## 3 (hitz elkartuetan)

Beldurrak emakumeen **mugikortasun** eskubidea mugatzen du. Berria - Euskal Herria

**Mugikortasun** arloko azpiegiturei dagokienez, hasierako dokumentuak tranbiaren alde egiten zuen. Berria - Euskal Herria

**Mugikortasun** Plana behar da, trafikoa mugatzeko estrategiak garatu ahal izateko. Berria - Euskal Herria

**Mugikortasun** Astea dela eta. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**kapitalen mugikortasun** (6); **mugikortasun handia** (5); **mugikortasun handiko** (3)

**enpresen mugikortasuna** (3); **kapitalen mugikortasuna** (5)

**kapitalen mugikortasunak** (3)

**mugikortasunaren inguruko** (3)

## mugikortu, mugikor(tu), mugikortzen da ad mugikor bihurtu.

Lehenen kitzikatua baita, hain forma txikiz egina izanik; beragandik hartzen du bulkoa beroak eta haizearen indar ezkutuak, beragandik aireak; beragandik **mugikortzen** da dena, borbortzen odola, erraiek sentipen guztiak hartzen eta azkenik hezur eta muinetara sartzen, dela atsegina zein kontrako garrara. Xabier Amuriza

## mugimen 1 iz mugitzeko ahalamena.

Corpuren ondoan eseri zen, jarri zuen bere belauetan buru itxuragabetu gorria, eta anaia zaharrenaren aurpegi **mugimen** gabeari begira geratu zen. Josu Zabaleta

Garuneko beste alde batzuetako lesioek beste nahasmendu batzuk sor ditzakete sentimen nahiz **mugimenean**, mintzamenean nahiz pertzepzio-, ezagumen- edo oroimen-funtzio espezifikoetan. Xabier Olarra

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Informazio eferentea garunetik sentimen- eta **mugimen**-organoetara doan nerbio bidezko informazioari esaten zaio. Josu Zabaleta

Hala, zortzi urte zituela, ikusmen-, entzumen-, **mugimen**- eta hizkuntza-egiturarik konplexuenak atzeman, gogoan hartu eta errepikatzeko gaitasuna erakutsi zuen, haien testuinguruak, garrantziak nahiz esanahiak inolako eraginik ez zutela, itxuraz. Xabier Olarra

Beraz, ukimen- eta **mugimen**-kontzeptutzat zeukan zenbakia gogoan; ez, ordea, ikusmen-kontzeptutzat. traketsa ematen zuen, baina zenbait **mugimen**-trebetasun, nonbait, ia berehala bereganatzen zituen, zenbait autistak, dirudienek, ohi duten bezala. Xabier Olarra

## mugimendu (6118 agerraldi, 253 liburu eta 2219 artikulutan; orobat mugimentu g.er., mogimendu g.er., mubimendu g.er., muimendu g.er. eta moimendu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian mugimendu agertzen da) 1 iz mugitzea, gauza baten



## egonguna aldaketa. ik mugimendua

Begiaren **mugimendua** era askotakoak dira. **Josu Zabaleta**

Maria Sara doktoreak, keinu dudarik gabe segail batez, buruaren **mugimendu** batez, atzera botatzen du ezker aldeko ilea. **Jon Alonso**

Zirkunferentziaren **mugimendua**, beraz, lasterragoa da barruko zirkularen baino. **Xabier Kintana**

Badakizu **mugimendua** animalien gorentasunaren atal osagarria dela, eta beharrezkoa duela betegina izateko. **Xabier Kintana**

Xake partidako **mugimendu** guztiak aurrez zekizkien igarlea zen. **Harkaitz Cano**

**Mugimendu** hori egitean soinekoa gerrirantz bildu zitzaion eta izterrak agerian geratu ziren. **Iñaki Zabaleta**

Gero konturatu nintzen esferak bere baitan zeuzkan ikuskizun zorabiagarriek sorturiko irudikeria zela **mugimendu** hura. **Juan Garzia**

**Mugimenduaren** pertzepzio-ereduak. **Josu Zabaleta**

Zerk sortzen du **mugimendua**? **Jon Muñoz**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Mugimendu** fisiko bat behar izan zuen bere buruari beldurtuta zegoela aitortzeko. **Harkaitz Cano**

Den guztia **mugimendu** etengabea dabil. **Xabier Amuriza**

Zu, berriz, **mugimendu** jarraitu hark izutua, noragabeterik gelditu zinen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hitzei keinu eta **mugimendu** kartsuz lagunduz. gero, nekea adierazten zuen **mugimendu** geldoaz, jazarlekuan bermatu zen. **Askoren artean**

Eskuak **mugimendu** zakarra egin baitzuen, paperean zirriborro bat eraginez. **Jon Alonso**

Gizakiak gai dira **mugimendu** sotil eta konplikatu ugari egiteko, goi mailako diseinu teknikoari esker. **Mugimendu** erreala, itxurazko **mugimendua**. **Irene Aldasoro**

Begien aspaldiko zorizko **mugimendu** haiek berritu zitzaizkion. **Xabier Olarra**

"Naturaren legeek" **mugimendu** errepikari baten erregulartasuna erakusten dute. **Iñaki Mendiguren**

**Mugimendu** ziklikoak joera bizia duela irauteko. **Iñaki Mendiguren**

Ikuspegi historikoak kosmos fisikoaren **mugimendu** zentrifugoa erakusten digu espazio-denboraren lau dimentsioko markoan. **Iñaki Mendiguren**

Trikitixa zen garaiko rockanrola; emakume horiek dantzari ikusita, konturatuko ginatete Elvis Presleyren gerri-mugimendua txorakeria hutsa zirela, eta heavy metalkideen kontorsioak **mugimendu** basatiak, ez arte eta ez grazi. **Pako Aristi**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaineko solairuan ehunka lagun **mugimendu**-hotsa entzuten zuten. **Iñaki Mendiguren**

Ahoskera egokia ekoizteko, gainera, ahots aparatuen **mugimendu**-aginduak ere berriro programatu beharko ditu. **Lourdes Oñederra**

**Mugimendu**-aukera handiagoa ematen dute beste lau giltzadura motek. Soinua **mugimendu** forma bat da. **Irene Aldasoro**

**mugimendu** segida horiek bata bestean atzean nahiz aldi berean gertatzen dira, paroxismoatik hurbil dagoen amaiera arte. **Berria - Kultura**

Objektuaren beraren edo begiralearen **mugimendu**-aldara bakoitzak transformazio-eskema (bakar) bat eragiten baitu erretinan. **Josu Zabaleta**

Horiek guztiak halako **mugimendu**-sentsazioa sortarazi zioten Thatcherri, Hudson ibaian gora doazen baporeek eragiten dutena bezalakoa. **Lopez de Arana**

Hortik, bitarteko fase bat edo bi igarorik agian, **mugimendu**-neuronetara igarotzen da mezua. **Irene Aldasoro**

Nik nahiago nuen aldiari neurere bidea asmatzea, **mugimendu**-gerrazko erasoaldi zorrotzak jo bat-batean han-hemenka, kokapen-gerraren errutina nekagarria makurtu ordez. **Juan Garzia**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere lana bete zezala agindu zion hurrena borroari buru-**mugimendu** pausatu batez. **Anjel Lertxundi**

Zure beso-**mugimendu** horiek ikusi bertzerik ez dago. **Joan Mari Irigoien**

Orain, ordea, begirada letretan banan-banan finkaturik, ez zen gai, antza, begi-**mugimendu** arinerako, iker-begiradarako. **Xabier Olarra**

Aldaka-**mugimendu** trebe bat eginez. **Aitor Arana**

Hotsa aire-**mugimendua** da, gauzak alderdi fisikotik hartuta. **Lourdes Oñederra**

Hurrena, jauzi-**mugimendu** bat sumatu zuen inguruan. **Xabier Olarra**

Operatzaileek eta zinemagileek egin daitezkeen kamera-**mugimendu** guztiak. **Josu Zabaleta**

Diskojoagailuaren platera biraka ari den bitartean, itxurazko estutze edo zabalte **mugimendu** bat sumatzen da, espiralaren zentzuaren arabera. **Josu Zabaleta**

Migrazio **mugimendu** handien aldia izan zen. **Iñaki Heras**

## 5 ideien, iritzien edo egoeren aldaketa helburutzat duen egintza, giza multzo edo erakunde batek eragina. ikhigikunde.

Itoizko urtegiaren kontrako **mugimendua** toki jakin batean sortu zen, ibar txiki batean, nekazari gune batean. **Edurne Elizondo**

Ondoren, Scout **mugimendua** ezagutu nuen eta Bilboko auzo bateko scout taldearekin monitore gisa ibili nintzen. **Ana Urkiza**

Kenyako Mau-**Mau** mugimendua. **Iñaki Mendiguren**

Txekoslovakian, Sobiet Batasuneko agintari komunisten kontrako **mugimendua** sortzen da, tankeek isilarazten dutena. **Pello Salaburu**

Azken bi hamarkadetan bertsolaritza bultzatu duen **mugimendua** garai berriek eskatzen dituzten desafioei aurre egiteko intuizio gidariak izan ditu. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Urte honetan gauzatu zen lehenagotik ere mamitzen egona zen euskal kulturaren aldeko **mugimendu** bat, XX. mendean agian garrantzikoena izan dena talde gisa. **Pello Salaburu**

Merkataritza askearen **mugimenduaren** porrotak erakusten duten bezala. **Iñaki Mendiguren**

## 6 (izenondo eta izenlagunekin)

Txinan demokraziaren aldeko **mugimendu** handiak sortu dira. **Pello Salaburu**

Tentsio hori etengabea da Elizan eta frantziskotar **mugimenduan**. **Askoren artean**

**Mugimendu** arkaizanteak normalean antzua gertatzen dira. **Iñaki Mendiguren**

Zientziaren kontrako **mugimendu** akademikoak sortu dira, eta batzuetan nahiko indar hartu ere, batez ere Frantzia eta Estatu batuetako zenbait tokitan. **Pello Salaburu**

Kubatar **mugimendu** iraultzaileekin kolaboratzen du. **Edorta Jimenez**

**Mugimendu** nazionalisten lehen astinaldiak. **Iñaki Mendiguren**

Morsez mezuak bidaltzeko tresna bat **mugimendu** kurduarentzat lapurtzeagatik salatu zuten aita. **Juan Kruz Igerabide**

Parisen "Justizia eta Askatasuna" **mugimendu** antifaxista sortu zuen. **Fernando Rey**

Historian zehar **mugimendu** monastikoentzat hain kaltegarri izan diren pobretasunaren kontrako tentazioak eta jarrerak. **Askoren artean**

**Mugimendu** heretikoa ere oso zabalduta zeuden Italiako erdi eta iparraldean, kataroena batik bat. **Askoren artean**

Kazetari batzuek esan zuten **mugimendu** piktoriko berria sortu nuela, beste pintore batzuk ere hasi zirela nire bidetik. **Unai Elorriaga**

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Handik zuzenduko ziren greba **mugimendu** guztiak. **Jon Maia**

Protesta **mugimendu** hauek nolabait ere harreman dialektiko zuzenean hasten dira agintariekin ere. **Pello Salaburu**

Beste ikuspegi batzuen aburuz, kapitalismoarekiko alternatiba ere bada (edo bazen) kooperatiba **mugimendua**. **Iñaki Heras**

Gizarte-**mugimendu** ekintzaile berria sortzen laguntzea. **Txema Ramirez de la Piscina**

Langile-**mugimendu** handiak izan ziren garaiaz geroztik, ez zen izan halako bizitasunik auzoan. **Juan Kruz Igerabide**

Euskal Herrian sortutako beste zenbait idazle, berriz, Unamuno, Pio Baroja, Ramiro de Maeztu, urte horretan Espainiak galdutako koloniak zirela-eta, literatura **mugimendu** baten, edo literatura **mugimendu** baino zerbaite gehiago izango zenaren oinarri bihurtuko ziren. Politiketan mailan, hala ere, kristau ortodoxoen bi mendebaldartze-**mugimendu** banatu horiek bide ezberdinak egin zituzten. **Pello Salaburu**

## 8 musikan, sonaten edo kidekoen zatietako bakoitza.

Nonbait Julesek mailegatu KD irakurgailuan Beethovenen bederatzigarren **sinfoniaren** bosgarren **mugimendua** ezarri zuen. **Itxaro Borda**

Atsedetik gabe, bigarren **mugimenduari**, andanteari, ekin zioten musikariak. **Felipe Juaristi**

Emakumeak azken **mugimendua**, *finale vivace*, joka hasi dira. **Felipe Juaristi**

Kantatak zortzi **mugimendu** ditu; Antso III.ak bizi izan zituen garaiei egiten die erreferentzia, eta bere herriarekin zuen harremanean sakontzen du. **Berria - Kultura**

Musika zuzen eta erraza erabiltzen du, forma garbikoa **mugimendu** gehienetan. **Berria - Kultura**

Zure tresnarentzako **kontzertu** baten **mugimendu** bat prestatu behar duzu eta, horrez gain, orkestrako pasarteak deitzen direnak: hamar bat zati konposatzaile derberdinenak, orkestrako obra garrantzitsuetatik aukeratuak. **Berria - Kultura**

## 9 joan-etorria, harat-honata.

Mairuak kanpamentuan zer **mugimendu** dagoen begiratzen ari direla gauza segurua da. baina geroago hasiko ziren, biharamunean igual, garabien, kontainerren, estibadoreen **mugimenduak**. **Jon Alonso**

Igande goizean izan zen **mugimendu** elizan, ezkerparetan eta kanpoan. **Herria**

Holakoetan, izaiten da segur **mugimendu** eskuin eta ezker. **Herria**

Bazen **mugimendu** inguruan: gazte talde bat hemen, plastikozko ontzi handi zenbaiten inguruan; bikote are gazteagoren bat han, maite lanetan; musika hotsa, ikusgai ez genuen lekutik. **Aingeru Epaltza**

Kasik uda betean bezenbat **mugimendu**, aroa gisa hartakoa izanez geroz. **Herria**

Errepidearen beste aldeko Somera kalean ere ez zegoen **mugimendu** handirik. **Sonia Gonzalez**

## 10 mugimendu izan da ad harat-honata izan.

Izanen da **mugimendu** taulen gainean! hamargarren euskal antzerkia da Garaziko ikaslek emaiten duten hau. **Herria**

iskanbila izan. izan da **mugimendu** joan den astean eskola zenbaitetan, eskolak okupatzeraino, Urdiñarben, Irisarrin edo oraino Hendaia-Lissardy-n. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

**aldeko mugimendu** (20); **aurkako mugimendu** (10); **bada mugimendu** (10); **bazen mugimendu** (29); **buru mugimendu** (24); **buru mugimendu batez** (6); **buruaren mugimendu** (6); **elkartasun mugimendu** (13); **emgann mugimendu** (7); **euskal herriko mugimendu** (16); **euskal mugimendu** (10); **ezkerreko mugimendu** (11); **gazte mugimendu** (20); **gizarte mugimendu** (28); **greba mugimendu** (6); **herri mugimendu** (13); **herriko mugimendu** (16); **izan da mugimendu** (17); **izan zen mugimendu** (6); **izanen da mugimendu** (17); **jende mugimendu** (7); **kontrako mugimendu** (8); **langile mugimendu** (8); **lur mugimendu** (12)

**mugimendu abertzale** (7); **mugimendu abertzalea** (9); **mugimendu abertzalearen** (12); **mugimendu arin** (12); **mugimendu arin batez** (6); **mugimendu arraroak** (6); **mugimendu artistiko** (6); **mugimendu asko** (9); **mugimendu azkar** (24); **mugimendu azkar batez** (13); **mugimendu azkarrak** (8); **mugimendu azkarrez** (7); **mugimendu bakar** (10); **mugimendu bat egin** (7); **mugimendu berri** (11); **mugimendu berriak** (8); **mugimendu bizi** (7); **mugimendu bortitzak** (6); **mugimendu ekologista** (7); **mugimendu ekologistaren** (10); **mugimendu eta gelditasun** (6); **mugimendu feminista** (6); **mugimendu feministak** (12); **mugimendu feministaren** (7); **mugimendu frango** (6); **mugimendu gaitza** (9); **mugimendu geldo** (7); **mugimendu handia** (29); **mugimendu handiak** (7); **mugimendu handirik** (13); **mugimendu independentistako** (6); **mugimendu iraultzaile** (7); **mugimendu islamikoa** (6); **mugimendu nazionalaren** (8); **mugimendu nazionalista** (9); **mugimendu nazionalistak** (8); **mugimendu politiko** (33); **mugimendu politikoak** (6); **mugimendu segida** (6); **mugimendu sozial** (21); **mugimendu soziala** (11); **mugimendu sozialak** (11); **mugimendu sozialek** (7); **mugimendu txiki** (10); **mugimendu txikiak** (9); **mugimendu txikiena** (6); **mugimendu zabal** (16); **mugimendu zabal bat** (9); **mugimendu zabalak** (9); **mugimendu zakar** (7)

**abertzale mugimendua** (8); **aldeko mugimendua** (45); **amnistiaaren aldeko mugimendua** (8); **aurkako mugimendua** (11); **gaitzeko mugimendua** (9); **gazte mugimendua** (25); **gizarte mugimendua** (8); **herri mugimendua** (10); **ikasle mugimendua** (6); **itxurazko mugimendua** (8); **kontrako mugimendua** (17); **mugimendua alderdiko** (6); **mugimendua egin** (9); **mugimendua egiten** (6); **mugimendua izan** (26); **mugimendua izan zen** (15); **mugimendua sortu** (14); **mugimendua sortu zen** (7); **okupazioaren aldeko mugimendua** (6)

**aldeko mugimenduak** (76); **aldeko mugimenduak deituta** (8); **amnistiaaren aldeko mugimenduak** (59); **aurkako mugimenduak** (8); **bertsolaritzaren mugimenduak** (8); **erresistentzia islamikoaren mugimenduak** (16); **erresistentzia islamikorako mugimenduak** (7); **gay mugimenduak** (6); **gazte mugimenduak** (27); **gizarte mugimenduak** (45); **herri mugimenduak** (22); **lur mugimenduak** (10); **mugimenduak deituta** (9); **mugimenduak egin** (9); **mugimenduak egiteko** (9); **mugimenduak egiten** (10); **mugimenduak eragin** (7); **mugimenduak izan** (10)

**aldeko mugimenduan** (8)

**aldeko mugimenduaren** (21); **amnistiaaren aldeko mugimenduaren** (8); **aurkako mugimenduaren** (7); **gazte mugimenduaren** (14); **globalizazioaren kontrako mugimenduaren** (6); **herri mugimenduaren** (9); **herritarren mugimenduaren** (6); **herritarren mugimenduaren aldeko** (6); **ikasle mugimenduaren** (6); **kontrako mugimenduaren** (7); **langile mugimenduaren** (6); **mugimenduaren aldeko** (7); **mugimenduaren izenean** (7); **mugimenduaren pertzepzioa** (6); **ump herritarren mugimenduaren** (6)

**mugimenduari esker** (10)

**aldeko mugimenduek** (6); **gizarte mugimenduek** (15); **herri mugimenduek** (11)

**gizarte mugimenduen** (23); **herri mugimenduen** (20); **kapitalen mugimenduen** (7); **mugimenduen arteko** (9); **mugimenduen berri** (13)

**gizarte mugimenduetako** (8); **herri mugimenduetako** (11)

**gizarte mugimenduetan** (7)

**al fata mugimenduko** (6); **aldeko mugimenduko** (30); **amnistiaaren aldeko mugimenduko** (20); **askatzeko mugimenduko** (9); **erresistentzia islamikoaren mugimenduko** (15); **gazte mugimenduko** (19); **herri mugimenduko** (9); **mugimenduko buru** (7); **mugimenduko kide** (18); **mugimenduko kidea** (7); **mugimenduko kideak** (13); **mugimenduko kideek** (6); **sudan askatzeko mugimenduko** (7)

**mugimendurik egin** (12); **mugimendurik txikiena** (11); **mugimendurik txikiena ere** (7)

## mugimendudun izond mugimenduz hornitua.

Thierry Kuntzel-en piezak irudi erraldoi bat eta irudi ñimiño bat elkartzten zituen: bata finkoa, bestea **mugimenduduna**. **Josu Zabaleta**

Zinemak ahalbidetu du, jakina, muntaketa-jardueraren bidez lehendabizi, eta muntaketaren teoriaren bidez geroago, denbora sintetizatuaren kontzeptua irudi

**mugimendudunera** zabalzea. **Josu Zabaleta**

## mugimendutsu izond mugimendu handikoa.

Geldialdi **mugimendutsu** hartan oren pare bat egon ondoan, trenaz berriz abiatua zen, ttuku ttuku. **Eneko Bidegain**

Luzea da eta **mugimendutsua** da Grimaldi-tar horien historia. **Herria**

Larunbat huntan, urriak 19, aratsalde frango **mugimendutsua** izaiten ahal da Baionan eta Donostian, bi manifestaldi baitira muntatuak, arrunt helburu desberdinekin egia erran... **Herria**

Manifestaldi **mugimendutsuak**, gazteen eta ertzaintzaren artean bereziki. **Herria**

## mugimendutxo iz mugimendu txikia.

"Ederra da izarpe honetan hiltzea", esan zuen Vladimirrek bat-batean hasperen eginez, eta bere begi sakonak izar haietako bati begira geratu ziren betiko, eta bere sudur hegalean **mugimendutxoa** gelditu egin zen guztiz. **Bernardo Atxaga**

Montsek, ordea, nik baino askoz esperientzia zabalagoa zuen alor hartan, eta adarra jotzen ari zitzaidan... ipurditxoarekin hasi ez zitzaidan, bada, handik gutxira, halako

**mugimendutxoak** egiten, jira batera eta jira bestera, torlojuaren eske dagoen drambala balitz bezala! **Joan Mari Irigoien**

## mugimendu ik mugimendu.

**mugitu**, mugí, mugitzen (*5301 agerraldi, 270 liburua eta 1341 artikulutan; orobat mobidu g.er., mogittu g.er., mogitu g.er., moittu g.er. eta moitu g.er.*) **1** da ad zerbait edo norbait egongunez aldatu. ik **higitu**.

**Mugitua** den guztia zerbait **mugitua** da. **Askoren artean**  
 Errekara hurbildu eta ertzeko harriren batean esertzeko gogoa neukan, baina ez nintzen **mugitu**. **Bernardo Atxaga**  
 Behin egokitu ondore ez da berriz **mugitu**, lasai gelditu da. **Monika Etxebarria**  
 Oso serio begiratu zuen jangelan zehar, eta inor ez zen **mugitu**, inork ez zuen txintik esan. **Iñaki Mendiguren**  
 -Pentsatzekoa da -urdu **mugitu** zen besaulkian Maiza-. **Migel Angel Mintegi**  
 Ubeldurik zegoen eta **mugitu** egiten zen, niri atzaparka egiteko asmoz. **Monika Etxebarria**  
 Lubisen begiak, normalean hain lasaiak, larritasunez **mugitu** ziren. **Bernardo Atxaga**  
 Tomas deseroso **mugitu** zen belarrean. **Unai Elorriaga**  
 Han nintzen, **mugitu** gabe eta izozturik, estasi izugarri batean murgildurik. **Monika Etxebarria**  
 Ez nintzen ohetik **mugitu**, ezin bainuen. **Joxemari Iturralde**  
 Txorien artera sartu ziren eta haiek ez ziren beren lekutik **mugitu**. **Askoren artean**  
 Gehienak ibilgailu partikularrean **mugitzen** dira eta gutxi erabiltzen dute garraio publikoa. **Berria - Euskal Herria**  
 Ibilgailuak **mugitu** egin ziren, eta handik minutu gutxira, Dursley jauna Grunnings aparkalekura iritsi zen. **Iñaki Mendiguren**  
 Trolebusa metro bat **mugitu** da kolpearen ondorioz. **Arantxa Iturbe**  
 Frontea ez zen hilabeteetan **mugitu**. **Ramon Saizarbitoria**  
 Zerbait **mugitu** zen goian, eta sabaira begiratu zuten biek. **Iñaki Mendiguren**  
 Ezin zen laguntzarik gabe **mugitu** edo ohean jiratu. **Askoren artean**  
 Ron **mugitu** ezinik geratu zen lurtean etzanda. **Iñaki Mendiguren**  
 Zu ez **mugitu**. **Fernando Morillo**  
**"Mugitu** egin behar dugu!", esan zuen guardien kapitainak bidetik. **Bernardo Atxaga**  
 Baina inor ez zen mahaitik altxatu eta gure gaineko argia piztera **mugitu**. **Koro Navarro**  
 Amaiak esate baterako, Galdakaotik Lasarte-Oriara **mugitu** behar izaten du lanera joateko. **Berria - Euskal Herria**  
 Harriak, lurra eta bestelako materialak **mugitu** ziren urtegarantz, 250 milioi metro kubiko denera. **Berria - Euskal Herria**

## 2 irud/hed

Han dirudunak **mugitu** dira Don Carlosen alde, beren ondasunak gal beldurrez. **Txillardegi**  
 Orain arte inunitate osoz **mugitu** dira hainbat erakunde, eta kontu handiz ibili beharko dute. **Berria - Euskal Herria**  
 Holako gaitzaren bentzutzeko, gobernuak beharko du **mugitu** segur, baina jendarte guzia hortarat deituz, bakoitxak bere eginbidea bere gain hartuz... **Herria**  
 Azken egun hotan, iduriz segurik, ezaren aldekoak dira gehienik **mugitu**. **Herria**  
 Berehala, bazterrak **mugitu** dira. **Herria**  
 Parisen ere, urte oso **mugituak** izan ziren haiek, 68aren ondorengoak... **Ana Urkiza**

## • 3 (du ad)

Burua ezker-eskuin **mugitu** zuen poliki-poliki. **Migel Angel Mintegi**  
 Esku bat altxatu eta hatzak **mugitu** zituen. **Ramon Saizarbitoria**  
 Harry burua **mugitu** zuen apurtxo bat, urrutiko ateak argi eta garbi ikusteko. **Iñaki Mendiguren**  
 -Zeri begira zaude? **mugitu** hankak! arin! **Patxi Iturritegi**  
 Karlosek plastikozko aukia **mugitu** du, Eñauten pare-pareraino. **Sonia Gonzalez**  
 Zer dira, bada, Jainkoaren zerbizariak, gizon-emakumeen bihotzak **mugitu** eta espirituaren pozetara jaso behar dituzten Jaunaren bertsolariak baizik? **Askoren artean**  
 Maiz, ezpainak **mugitu** gabe bere baitan hausnartzen jarduten zuen eta, kanpoko ahalmenak barnera bilduz, espiritua zerukoetara jasotzen zuen. **Askoren artean**  
 Pistola ezkerretara **mugitu** nuen metrailetadunari tiro egiteko. **Alberto Ladron Arana**  
 Partida hartan fitxa hura gaizki **mugitu** nuen, dudarik gabe, eta orain galtzeaz zegoen dena. **Joxemari Iturralde**  
 Apain-mahaia **mugitu**, eta emakumearen galtzerdi bat topatu nuen. **Juan Kruz Igerabide**  
 Lehen Mailako talde baten moduan **mugitu** zuen Alavesek baloia. **Berria - Kirola**

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Ilunabartzen ari zen, kaxa **mugituen** hotsa entzuten zen. **Karlos Zabala**  
 Era berean, gorputz **mugituari** buruz, badiote, mugitzen dena horren atomoetako bakoitza dela, eta horrexegatik mugitzen dela osotasuna ere. hegadak arboletan, euri tantak erortzen hosto **mugituatarik**, auto asotsik ia ez. **Xabier Kintana**  
 Izaera nerbio eta **mugituak** musikan perkusioaren bidea jorratzera eraman zuen Antonio. **Xabier Etxabe**  
 Handik aurrera hasten den historia luze eta **mugituaren** lehen urratsa. **Jose Antonio Mujika**  
 Erakunde maista hark denbora gutxian irabazi zuen bailarako gazte **"mugituen"** gogoia. **Juan Kruz Igerabide**  
 80. hamarkada oso emankorra eta **mugitua** izan zela gogorarazi du Esnaolak. **Berria - Euskal Herria**  
 Etxe berrian bizitza oso **mugitua** izan zuten, bai artistikoki bai industrialki. **Josu Zabaleta**  
 Gure mugimenduak geldiak dira eta gure geldialdiak **mugituak**. **Felipe Juaristi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

akzioak mugitu (9); akzioak mugitu zituen (6); albo batera mugitu (5); alde batera mugitu (5); apenas mugitu (6); arin mugitu (5); asko mugitu (14); astiro mugitu (8); aukian mugitu (5); aurrera mugitu (4); azkar mugitu (11); batera mugitu (12); batera mugitu (18); batera mugitu gabe (10); batetik bestera mugitu (7); bazterrak mugitu (4); begiak mugitu (4); behera mugitu (12); behera mugitu zuen (5); bere lekutik mugitu (8); beren lekutik mugitu (4); berriz mugitu (5); besoak mugitu (4); besoak mugitu (6); besoak mugitu zituen (4); bizkor mugitu (5); burua mugitu (44); burua mugitu zuen (22); deseroso mugitu (9); deseroso mugitu zen (7); elgar mugitu (4); eroso mugitu (6); eskua mugitu (8); eskuak mugitu (6); eskurik mugitu (4); ezin zen mugitu (8); ezker eskuin mugitu (16); ezpainak mugitu (10); ezpainik mugitu (5); fitxa mugitu (7); giharririk mugitu (5); goitik behera mugitu (6); gutxi mugitu (4); gutxiago mugitu (4); handik mugitu (17); handik mugitu gabe (7); hankak mugitu (4); hatzak mugitu (4); hemendik mugitu (7); ia mugitu gabe (6); inguruan mugitu (10); klitoria mugitu (5); lekutik mugitu (28); lekutik mugitu gabe (15); lepoa mugitu (5); lurra mugitu (4); milioi euro mugitu (4); milioiren akzioak mugitu (8)

mugitu da (32); mugitu dira (33); mugitu ditu (12); mugitu du (37); mugitu du burua (4); mugitu ezean (5); mugitu ezinda (8); mugitu ezinik (67); mugitu ezinik geratu (11); mugitu gabe (227); mugitu gabe egon (7); mugitu gabe geratu (4); mugitu izan (12); mugitu izana (4); mugitu nintzen (10); mugitu nuen (12); mugitu zen (105); mugitu zen kantxan (4); mugitu ziren (49); mugitu zituen (40); mugitu zuen (119); mugitu zuen baloia (5); mugitu zuen burua (15); mugitu zuen ezker (4); mugitu zuten (19)

nahierara mugitu (4); nola mugitu (6); ohean mugitu (5); ohetik mugitu (6); ondo mugitu (13); ondotik mugitu (4); orduan mugitu (4); pixka bat mugitu (9); tokitik mugitu (8); urdui mugitu (4); zerbait mugitu (9); zerbait mugitu zen (4)

handik mugituko (4); hemendik mugituko (14)

ezin mugiturik (7)

airean mugituz (4); baloia ondo mugituz (5); batetik bestera mugituz (4); burua mugituz (8); ezin mugituz (4); ezpainak mugituz (5); pieza bat mugituz (4)

batetik bestera mugitzea (6); fitxa mugitzea (4); mugitzea erabaki (5); mugitzea lortu (4)

mugitzeari utzi gabe (5)

**baloia mugitzeko** (5); **batetik bestera mugitzen** (9); **handik mugitzeko** (4); **hankak mugitzeko** (5); **mugitzeko agindu** (5); **mugitzeko ahalmena** (8); **mugitzeko askatasuna** (6); **mugitzeko asmorik** (8); **mugitzeko aukera** (7); **mugitzeko eskatu** (4); **mugitzeko gai** (10); **mugitzeko gaitasuna** (10); **mugitzeko gauza** (12); **mugitzeko gauza ez** (6); **mugitzeko prest** (6); **mugitzeko zailtasunak** (6)

**aise mugitzen** (4); **antzerka mugitzen** (4); **arabera mugitzen** (10); **arabera mugitzen da** (4); **ari da mugitzen** (7); **arinago mugitzen** (4); **aske mugitzen** (4); **asko mugitzen** (26); **astro mugitzen** (6); **aurrera mugitzen** (6); **azkar mugitzen** (14); **azkarrago mugitzen** (6); **baloia mugitzen** (10); **barruan mugitzen** (6); **batera mugitzen** (5); **batetik bestera mugitzen** (18); **berez mugitzen** (7); **beti mugitzen** (6); **beti mugitzen ari** (5); **biziki mugitzen** (4); **bizkor mugitzen** (10); **bizkor mugitzen zen** (4); **bizkorrago mugitzen** (4); **burua mugitzen** (9); **diru asko mugitzen** (4); **eraginez mugitzen** (5); **eroso mugitzen** (5); **erraz mugitzen** (7); **eskuin mugitzen** (11); **eskuin mugitzen zuela** (5); **etengabe mugitzen** (17); **ezker eskuin mugitzen** (11); **ezpainak mugitzen** (16); **gauzak mugitzen** (7); **gorputza mugitzen** (8); **hariak mugitzen** (5); **hatzak mugitzen** (5); **hona mugitzen** (4); **inguruan mugitzen** (11); **inguruan mugitzen diren** (5); **jendea mugitzen** (9); **lurra mugitzen** (6); **mantso mugitzen** (5); **mendiak mugitzen** (4)

**mugitzen den bitartean** (6); **mugitzen den edozeri** (4); **mugitzen den guztia** (5); **mugitzen ikusi** (10); **mugitzen ikustea** (4); **mugitzen ikusten** (10); **mugitzen jarraitzen** (6); **mugitzen saiatu** (11); **mugitzen segitu** (4); **mugitzen utzi** (6); **mugitzen uzten** (6)

**nekez mugitzen** (4); **nola mugitzen** (31); **nola mugitzen den** (6); **ondo mugitzen** (7); **ongi mugitzen** (4); **piezak mugitzen** (4); **pixka bat mugitzen** (7); **poliki mugitzen** (9); **urduri mugitzen** (4); **zerbait mugitzen ari** (7)

**estatuak mugitzera** (5); **mugitzera ausartzen** (5)

**baloia mugitzerakoan** (4)

---

mugituarazi ik mugiarazi.

---

**mugitze 1** *iz* egongunetz aldatzea.

Gauza mordo baten halako **mugitze** zehazgabe bat, nire altzari guztiak astindu, lekuz aldatu eta geldiro arrastaka eraman izan balituzte bezala. **Josu Zabaleta**

**Mugitze** hutsarekin izerditan blai jartzen zinen. **Oskar Arana**

Zeren gorputza mugitzen denean **mugitzearen** denbora neurtzen dut, hasi denetik gelditu arte. **Imanol Unzurrunzaga**

Gauza bat da, beraz, sentimena eta bestea sentimen bidez sumatzen dena; **mugitze** sotilak sentimena ferekatzen du, arimari, ordea, atsegin zaio gorputz sentimenaren bidez mugimenduan hautemandako adierazpen dotorea. **Imanol Unzurrunzaga**

**2** (hitz elkartuetan)

Egun batean, peoi ere hasi zen, lur **mugitze** lanetan... **Karlos Zabala**

Buru **mugitze** etorkorrak. **Jon Muñoz**

---

**mugitzeke** *adlag* mugitu gabe.

Bere tokitik zentimetro bat bera ere **mugitzeke**. **Felipe Juaristi**

Ohetik **mugitzeke** ia hamaika orduz segidan egin zuela lo kalkulatu zuen. **Joxemari Iturralde**

Eta hantxe egon ziren gizonak **mugitzeke**, burua makurtuta, hil-ohantze bateko erostarien gisara. **Agustin Otsoa**

Zaldiek, inoren inolako agindurik gabe, zeudenetik **mugitzeke** ibiltzeari utzi, eta, trosta biziturik, bideari ekiten zioten. **Anjel Lertxundi**

---

**mugon 1** *iz* aukera, egokiera ona.

Euskal Herriaren oraingo -orduko- **mugon** ekonomikoan. **Joxe Azurmendi**

Edo hona orain **mugona**. **Anjel Lertxundi**

**2 mugonez** ordu onez.

Isildu egin nintzen malkoak etorri baino lehen, eta **mugonez** itzali zen lanpara, Enbeitak ordu laurdeneko bizia baino ez zion ematen metxari. **Koldo Izagirre**

---

**mugurdi 1** *iz* mugurdiendoaren fruitua, kolore-gorria. ik **masusta 5**.

**Mugurdien** sasoian, ahalik eta jostalagun gehieni deitzeko esaten zidan, haren lorategian bilketa egiteko. **Joxan Elozegi**

Airea **mugurdi** helduen usainez beterik zegoen, eguzkiaren sapak zimeldurik. **Eskarne Mujika**

Ez nuen nik Studebaker-a aukeratu, lvyk baizik; kolorearen arabera aukeratu ere (tomatea bezain gorri, haren iritzian, **mugurdia** bezain gorri, nirean). **Joxe Austin Arrieta**

Zentraleko zaindariak bere **mugurdiak** lapurtzen harrapatu baitzituen mutiko biak. **Iban Zaldua**

Harry isil-isilik egon zen Hagridek erosi zion izozkia (txokolate, **mugurdi** eta intxaur-zatiz egina) jan bitartean. **Iñaki Mendiguren**

Agian tarta pusketa bat, pentsatu zuen, bai, hori dun, **mugurdizko** tarta bat mesedez. **Joxemari Iturralde**

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Drucoc jaun kanibalak **mugurdi** purez betetako oiloak ditu afaltzeko. **Iñigo Aranbarri**

Txitxikovek beste kopa bat **mugurdi** -likore hustu zuen. **Jose Morales**

**Mugurdi** koloreko oihal handi batek estaltzen zuen eszenatokia alderik alde. burua erori egin zitzaidan eta ahora **mugurdi** ura sartu zitzaidan. **Patxi Iturritegi**

Hauts zuritan irri-karkailaz ari dela dirudi, eta badoa irristaka harrizko zoladuran barrena, pertsiana berdea, itsas alderantz binbilika, hautsezko **mugurdi** -argia hiri zuri gautiarrean. **Joxe Austin Arrieta**

---

**mugurdiendo** *iz* arrosaren familiako landarea, sasi itxurakoa, masustaren antzeko fruitu gorriak ematen dituena (*Rubus idaeus*). ik **masusta 5**.

**Mugurdiendo** bakarra ezagutzen zuten Orotzen, Papelerako argindar-zentralaren ondoan hazten zena. **Iban Zaldua**

---

muilatu ik moilatu.

---

**muilo** (*orobat mulu*) **1** *iz* pila.

Auzo zahar hartan hurbileneko etxeak handiak ziren; hormak zartatuak zituzten, teilatuak goroldio berdez eta gorritz estaliak, hegaletan mendaski horixkazko **muluak** zituztela. **Josu Zabaleta**

Hurbil eta urrun ikusten dira handik, ostertzeraino, galden ke-**muiloak**, eta haien inguruan jendea bere eginkizunetan. **Juan Garzia**

Makila bat hartu eta, ote **muiloen** artean bide zidorrari lotu zen amona. **Pablo Sastre**

Zuhaitz gazteak eta **muluak** lotzeko erabiltzen diren makilak ziren makulu horiek. **Julen Gabiria**

**2 lur muilo** lur tontorra.

Usain ona zerion lehengo udazkeneko orbel ihartuari, desegiten ari zen arian-arian dana goroldio, ezkur eta perretxikoen lurrina zekarten lur- **muiloak** eratuz. **Joxan Elosemi**  
Lur- **muiloak** bizkarraren gainean lehertzen ziren, eta luzaro gelditu nintzen han gisa hartan. **Joxan Elosemi**

## muimendu ik mugimendu.

## muin ik muin.

## muin<sup>1</sup> (*orobat muin g.er.*) 1 iz hezur gehienen barnealdea betetzen duen gai bigun eta zurixka.

Bost xerra zekor-zangar jarri zituen mahai gainean Ruche jaunak, hezur eta guztikoak, **muin** sendo eta mardulez bete-beteak. **Jon Muñoz**  
Ikustekoa nola aztertzen dituen gorpuetako geruzak, barnekiak, **muin**, birika eta hezurak. **Hasier Etxeberria**  
Gure hezurretako **muina** gar bizi eta gure odoleko zainak suzko hari bihurtuak. **Juan Garzia**  
Hezurretako **muinak** 800 mila milioi globulu gorri inguru ekoizten ditu egunean. **Berria - Gaiak**  
Gizakiaren arima bere isats-ezaren zurtana osatzen duen bizkarrezurreko **muinaren** luzapena besterik ez dela. **Xabier Olarra**  
Hezurren azken **muin** edo niniku denekoaz. **Patziku Perurena**

## 2 irud/hed

Begira begira, horren gordean ondutako mami xuri trinkotu horri, biziaren **muin** xuri gordea iduri, inondik eraso biderik ez balu bezala, azal izugarri zailduan babestua, sekula guzian bere arima finari zintzo eutsi nahian... zeruen hierarkia, esfera birakariak, planetak mugiarazten dituzten adimenak, elementuen mailaketa beren nobleziaren arabera, eta gorputz zerutiarrak **muin** hustelezin batez osaturik dauden ikuspegia. **Patziku Perurena**

## 3 p/burmuina.

Eskaia luzatu eta bi lagun hartu zituen; lurraren kontra jo, eta haien **muinak** zoruan barreiatu ziren. **Juan Kruz Igerabide**  
Lehertzeko zorian neukan burua, **muinak** jauzika eta kirioak zoro. **Anjel Lertxundi**  
Deus galdetzeko gogoia egin baino lehen erantzun mordo bat emanez eta atergabeko informazio jasa hazkorrez lortzen da **muinak** asetzeari. **Iñaki Seguro**  
Bejondia, alfer alferrik baita, modernokeria pinpirin orok **muinak** jantxeak dauzkan jendaje honekin tajuzko arrazoiketan hasia. **Patziku Perurena**  
Agintariak, **muinak** kezka bigundurik, zer egin hasi ziren pentsatzen. **Felipe Juaristi**  
Etxeko neska meak, pakete hura ikusirik, behiaren **muinak** zirelakoan, sukaldara eraman, prestatu eta familiari atera zizkion jateko. **Josu Zabaleta**  
Astoaren **muinak** tortillan jatea. **Iñaki Seguro**

## 4 zerbaiten zatirik barnekoena. ik mami.

Ura topatu dute Tempel 1 kometaren **muinean**. **Berria - Gaiak**  
Sabelaren **muinetik** ernalduriko garrasiaren hedadura ez zuen ezagutzen. **Itxaro Borda**  
Handik oso denbora gutxira, ordea, hogeigarreneko hamarraldian, Jean Epsteinek lasai esan zezakeen "zinemaren **muina**" zela lehen planoan. **Josu Zabaleta**  
Honela adieraziko genuke ontologia aristoteliko baten **muina**: [...]. **Askoren artean**  
Erljiioaren filosofiari gabe ezin daiteke metafisikaren **muina** argitu. **Askoren artean**  
Bertoaren **muina** jotzen du ordea errepikapenak. **Andoni Egaña**  
Beldurraren paradoxa da filmaren **muina**. **Berria - Kultura**  
Nik, adibidez, ez dakit Namibiako berri batere [...] baina dozena bat tekla sakatzea aski, behar dudan guztia jakin eta hango errealitatearen **muinaz** jabetzeko. **Iñaki Seguro**  
Caritas Elizaren bihotza eta **muina** da. **Berria - Euskal Herria**  
Fedearen mami eta **muina** den konfidantza honek erantzi eta aberastu egiten gaitu. **Herria**  
Bat-batekotasun kantatuaren **muinari** eutsiz eta, ahal dela, **muin** hori sekula baino sakonago garatuz. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**  
Hugok euskaldun xume horientzat beren identitatearen **muin** bezala [...] hizkuntzak duen inportantzia azpimarratu du. **Koldo Izagirre**  
Arte garaikidearen **muina**, funtsik gabeko **muina**, da esanahi handikoa izatea. **Iñaki Seguro**  
Erljiio primitiboaren **muina** ez da sinesmena, ekintza baizik. **Iñaki Mendiguren**  
Hantxe omen zegoen hiriaren **muina**, mugida guztia eta interesgarri izan zitekeen edozer. **Joxemari Iturralde**  
Kristau ziren itxuraz eta hebrear **muin** eta zinez. **Felipe Juaristi**  
Euskalduntasunaren mamiaren **muinaren** funtsaren porruaren bila dabilen zientifikokoloa. **Markos Zapiain**

## 5 p/

Ixiltasun haren samina **muinetaraino** sartu zitzaidan. **Janbattitt Dirassar**

## 6 (izenondo edo izenlagunekin)

Gizonaren **muin** barnekoena berehala geratzen da agerian. **Antton Olano**  
Beti izango dira asko eta asko Kristoren Ebanjelioko biziera eta Erregelaren **muin** jatorra ondo baino hobeto gordeko dituztenak. **Askoren artean**  
Errealitatearen **muin** benetakoa hitzen malabarismoarekin mozorrotzea. **Anjel Lertxundi**  
Hainbeste akats egon izanak erakusten duete epaiketaren **muin** politikoa. **Berria - Euskal Herria**  
Saioaren **muin** zientifikoa baitzetorren hurrengo azalpenenean. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Dellucen iritzian, fotogenian zegoen, egiaz, zinematografiako artearen ezkutuko **muina**. **Josu Zabaleta**  
Horrela nazioarteko babesa jaso eta arazoaren benetako **muina** zein den desbideratzea lortu du. **Berria - Mundua**

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Betean asmatu nuen, Ekainek ongi baino hobeki erantzun baitzion kimioterapiari, baita **muin**-transplanteari eta gainerako tratamendu guztiei ere, zorionez. **Joan Mari Irigoien**

## 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arrailadura horretatik orno- **muina** eta mingeak irten daitezke eta larruzalaren azpian tumorea sortu, normalean bizkarraren behealdean. **Berria - Gaiak**  
Hura eta bera da, gizaldiak joan eta gizaldiak etorri, giza **muinetan** itsatsirik gelditu zaigun sexologia. **Iñaki Seguro**  
Kristau- **muina** zuen Mendebalde modernoko demokraziaren ideal politikoez. **Iñaki Mendiguren**  
Lehen aldiko lotsa edo beldurra galdurik, eguneroko tema bihurtu zitzairen gaia, sartu eta sartu labana zauri- **muinean**. **Karlos Linazasoro**

## 9 (izenondo gisa)

Baina, muinik **muinenean**, zeren amodioa, eraspina edo atxikimendua? **Iñaki Seguro**

## 10 barne muin

Zula ditzagun mendiak **barne-muinetaraino**... **Anjel Lertxundi**  
Printzesa berriro ikusteko irrikak koñakak adina berotzen baitzizkion **barne-muinak**. **Felipe Juaristi**

Maitasunak orduaren odolaren **barne-muina** xurgatzen du. Joan Mari Lekuona

Txundituta utzi nau esaldi honek, eta **barne-muinetaraino** hunkitu eta kezkatu. Txillardegi

Nork eraman lezake azken ate horrek gordetzen duen ikusgarri izugarria, nork saihets lezake **barne muinetarainoko** izu-laborria atea ireki eta ikus baleza, ikus baleza...

Jon Alonso

Guk ez baitugu esku leunik musika eta maitasuna egiteko, pianoa jo eta pianoari **barne muinak** harrotzeko. Felipe Juaristi

## 11 bizkar muin

Nerbio-ehunez egina da garuna; **bizkar-muinean** behera zabalzten da ehun hori, eta handik, berriz, gorputz osora, nerbio finezko sare bat eratuz. Irene Aldasoro

Atzeka zatia, garun-enbete deritzona, **bizkar-muinetik** garatzen da, hau da, bizkarrezurraren erditik igarotzen den nerbio sorta loditik. Iarruazaleko bero-hartzaileek bulkada bat bidalarazten diete sentimen-neuronei **bizkar-muina**. Irene Aldasoro

Garunaren ezinbesteko kontrol horren faltaz, inkontinentzia izan ohi dute **bizkar-muina** kalteturik duten gaixoek. Irene Aldasoro

Eritasun huntaz hunkiak diren haurren buru-muina eta **bizkar-muina** ditu suntsitzen, eta ahal bezain bat jenderen laguntza beharrezkoa da. Herría

## 12 bizkarrezur muin bizkar muina.

Etengabe elkarririk konektatuta baititu kloria, **bizkarrezur muina**, burmuina eta hatzak. Luis Elberdin

Nerbio-zelula askoko ehun bat da gai grisa, eta bi lekutan dugu: **bizkarrezur-muineko** gai zuriaren barnealdean eta burmuinaren kanpoaldean. Berria - Gaiak

Ehunka sentipen mezu gora eta behera ari dira gure **bizkarrezur muinean**. Luis Elberdin

**Bizkarrezur muineko** transplante premian dauden pertsoneri aukera berri bat ireki zaie. Berria - Gaiak

Haiek tirokatu egin zuten eta bala batek **bizkarrezur-muina** harrapatu zion. Berria - Kirola

## 13 buru-muin ik burumuin.

## 14 erna-muin ik ernamuin.

## 15 hezur muin

Hezur luzeetako barrunbeetan, **hezur-muina** dago, odoleko globulu gorrien sorburua. Irene Aldasoro

**hezur-muinean** proba bat egiteko untxi baten moduan heldu eta xiringa sartzen diotenean. Berria - Harian

Ez atzera ez aurrera geratzen naiz, **hezur-muinetaraino** sartzen zait beldurra, eta ametsak eta ilusioak galarazten dizkit. Andoni Egaña

Ikuskizuna bera aski zatekeen **hezur-muinetan** bustidura sentiarazteko. Ramon Saizarbitoria

Ilea lehortzeko egin zuen keinu hark maitemindu zuen **hezur muinetaraino**. Harkaitz Cano

- Hezur-**muin** transplantea egitea erabaki genuen, eta horretara etorri ginen honat. Berria - Harian

## 16 muin-muin

Toms 1604an sortu zuten, Siberiako probintzien **muin-muinean** ia. Karlos Zabala

Ez ahal zuen giltza sarrailan sartu, han agertu zen, ekaitzaren **muin-muinetik** baletor bezain zalapartatsu, Fructuoso bera. Inazio Mujika Iraola

Indiferentzia gure bihotzaren **muin-muinean** egon arren -bihotza arkaikoa da-, ikasi egiten dela bestearen ezbeharrak konprenitzen. Bernardo Atxaga

Elkarrizketaren **muin-muinean** indarkeriaren arazoa dago azkenean, gai konkretu eta gogor askoa. Joxe Azurmendi

Aldagai konplexuaren ideia Gibsonen teoriaren **muin-muinean** dago. Josu Zabaleta

Haren nortasunaren **muin-muinean** kokatua. Pedro Alberdi

## 17 muin perpaus

Honela, hizkuntzaren perpaus guztiak dira muinekoak edo **muin-perpaus** bat baino gehiagotik eratorriak, formaldatze batetik edo gehiagotik. Itziar Laka

Ikus dezagun orain ea pasiboak **muin-perpaustzat** har ditzakegun, perpaus aktiboen orde. Itziar Laka

Perpaus mota jakin bat **muin-perpaua** dela ala formaldatze bitartez eratorria dela erabakiaz gramatika osoa errazten ote den aztertuko dugu. Itziar Laka

## 18 bizi muin

Izan ere, bere filosofiak eragin zuzena du gizakiaren **bizi-muinean**, giza kezkarik sakonenetan. Imanol Unzurrunzaga

**Bizi-muin** ezkutua xuxen bilatzeko. Xabier Olarra

Bagoeneko existitu ez baina testuetan bizirik dirauen bizi-**muin** baten testigantza, uren haserrealdetik, denboraren joanaren higaduratik salbatutako testuak. Fernando Rey

## 19 soin eta muin adlag buru eta bihotz, su eta gar.

Orduan, bere herritarren alde **soin eta muin** lehenengo lerroan borrokatu zen hark, gaztarotik bere aberkideentzat onginahia izan zuen hark, Nikanorri buru-besoak sorbalda eta guzti moztu eta Jerusalem-era eramateko agindu zuen. Armadako kapitainorde batek **soin eta muin** eragiten zien besoei eta hankei, ametsetan ere inork lortuko ez lukeen pauso bat markatzeko ahalegin biziak eginez. Elizen arteko biblia

## 20 zain eta muin adlag buru eta bihotz, su erta gar.

Arrazoi pisuzkoa, oraindik **zain eta muin** heldu nahi ez izateko, ez bederen burua onbideratzen ez nuen artean. Aingeru Epaltza

Arrazoi pisuzkoa, oraindik **zain eta muin** heldu nahi ez izateko, ez bederen burua onbideratzen ez nuen artean. Aingeru Epaltza

Frantziatik aterako zituen itsasontziaren zain zegoelarik, nonbait etsipenez gainez gain eginik, senar-emazteek, gurasoek alegia, egun asko, espero baino egun gehiago, baitzaramatzaten **zain eta muin**, eta itsasontziaren arrastorik ez. Felipe Juaristi

Billancourtera joan zen bizitzera, uhinka eta andanaka etorritako errusiarren artera, auzune hartara etorritakoak errusiarrek baitziren hitzez eta bihotzez, **zain eta muinez**, baina ez aberriz. Felipe Juaristi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**akordioaren muina** (3); **arazoaren muina** (18); **auziaren muina** (9); **barne muina** (5); **benetako muina** (4); **bizitzaren muina** (5); **bizkar muina** (6); **bizkarrezur muina** (7); **buru muina** (3); **egitasmoaren muina** (3); **erlijioaren muina** (3); **euskararen muina** (3); **eztabaidaren muina** (7); **funtsa eta muina** (3); **gatazka politikoaren muina** (3); **gatazkaren muina** (17); **guztien muina** (3); **haren muina** (5); **hezur muina** (5); **hezurretako muina** (4); **hizkuntzaren muina** (4); **istorioaren muina** (3); **konponbidearen muina** (3); **kulturaren muina** (3); **lanaren muina** (3); **liburuaren muina** (3); **muina eta muga** (3); **proposamenaren muina** (3)

**barne muinak** (10); **buru muinak** (4); **hezur muinak** (4)

**arazoaren muinari** (4); **gatazkaren muinari** (11); **gatazkaren muinari heldu** (6); **muinari heldu** (8); **muinari heldu gabe** (4); **muinari heltzen** (3)

**bizkar muinean** (3); **bizkarrezur muinean** (3); **borrokaren muinean** (3); **eztabaidaren muinean** (3); **gatazkaren muinean** (6); **hezur muinean** (6); **hezur muinean sortzen** (3); **horren muinean** (4); **muin muinean** (14); **muinean dago** (6); **muinean sortzen dira** (3)

**barne muineko** (3); **bizkarrezur muineko** (8)

**arazoaren muinera** (6); **benetako muinera** (3); **bizkar muinera** (3); **fedearen muinera** (3); **muinera iritsi** (3); **muinera iritsiko** (3); **muinera joan** (5); **muinera jotzeko** (3)

**barne muinetako** (7)

**barne muinetan** (30); **bere barne muinetan** (3); **bihotz muinetan** (4); **hezur muinetan** (4)

**barne muinetaraino** (12); **barruko muinetaraino** (3); **hezur muinetaraino** (18); **hezur muinetaraino sartu** (3); **hezur muinetaraino sartzen** (6); **muinetaraino sartu** (8); **muinetaraino sartu zitzaidan** (3); **muinetaraino sartzen** (10)

**bizkar muinetik** (3)

## muin<sup>2</sup> (orobat mun g.er.) 1 iz aurpegitik at ematen den musua.

Nazionalismoari egurra, eskubideei aizkora [...], Bushi ipurdian ere **muin**, eta presoei usteldu arteko kartzela, besteak beste. Joxerra Garzia

-Gizonei gabon eta emakumeei eskuetan **muin**! Anton Garikano

Militarrek militarrei, ipurdian **mun**. Edorta Jimenez

Eskua zegoen lekura makurtu eta **muin** heze hura ematean, une txiki batez erdikusi ahal izan zion soina, besoan azpian, zeta arrosazko mahuka eroriaren bitartez.

Lopez de Arana

Eta eskuan muin egin ondoren, **muin** beroa inondik inora, karrikan galdu zen, egun zurian gorri. Felipe Juaristi

## 2 esku muin ik eskumuin.

### 3 muin egin (66 agerraldi, 34 liburutan) ik muinkatu.

Sebastiaok, agur gisa, **muin egin** zion Angelari eskuan. Felipe Juaristi

Arrapaladan haren eskua harturik, **muin egin** zion eta bularraren kontra estutu zuen-. Jose Morales

Nekazariaren aurrean belauniko jarri zen eta oinetan **muin egin** zion. Askoren artean

To, zerbait gertatzen bazait, emaiok hau amari... -eta **muin egin** zion lepokoari. Inazio Mujika Iraola

Zilborrean **egiten** zion **muin** irekitako lore bat ematen zuela esanez. Bego Montorio

Romanek eskua hartu zion obispoari, eta **muin egin** zion eraztunean. Inazio Mujika Iraola

Belauniko jarrita **muin egiten** nion lurrari. Pello Lizarralde

Begiak malakoetan zituen, eskua hartu zidan, **mun** egiteko makurtu. Matías Múgica

"Kutxatxo hau izan da zenbait parasitoren zerraldoa!" esaten zuen bere produkzio tresna beltzari **muin eginez**. Koldo Izagirre

Luluren gorpuaren ondora joan zen, luzaro egon zen hildakoari begira, eta behin eta berriro bekokian **muin egin** zion. Josu Zabaleta

Ardi beltzei lepotik heldu eta lurrari **muin eginarazteko**. Jon Maia

### 4 muin eman (85 agerraldi, 29 liburu eta artikulu 1ean) ik muinkatu.

Markes jaunak neskaren esku zuri-zurria hartu eta **muin eman** dio. Anjel Lertxundi

Rozinanteri eraginda, harro bezain dotore, dukesarengana joan zen, eskuetan **muin ematera**. Patxi Ezkiaga

Billeteari eusten zion eskuari **muin eman** zion mutilak. Lopez de Arana

Fede handiz haren esku sagaratuei **muin emanez**. Askoren artean

Gure Aita Sainduaren oinei **muin eman** ahal izaitea. Piarres Xarriton

Oraintxe bertan belaunikatu eta lurrari **muin emango** nioke gustura. orduantxe, kafetegiko beiratearen atzean, doluz jantzitako emakume batek, gozamenaz eta maitasunez, **muin emango** dio zintzilik daraman gurutzetxoari. Lopez de Arana

Eskonbroen atariko ate-leihoak bizirik baleude bezala besarkatzen nituen, atexka apurtuak agurtzen nituen, **muin ematen** nien alderoka eroritako habe kixkalei. Harkaitz Cano

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bekokian **muin** (3); eskuan **muin** (33); eskuan **muin egin** (8); eskuan **muin eginez** (3); eskuan **muin eman** (8); eskuan **muin ematen** (4); eskuari **muin eman** (5); eskuetan **muin** (9); lurrari **muin** (6); makurtu eta **muin** (3); **muin egin** (38); **muin egin zion** (20); **muin eginez** (6); **muin egiteko** (4); **muin egiten** (12); **muin eman** (39); **muin eman zion** (16); **muin emanez** (10); **muin ematea** (4); **muin emateko** (6); **muin ematen** (19); **muin ematera** (7); **muin ikustezina** (3); **muin muinean** (14); **muin perpaus** (5); **muin perpausa** (5); **muin perpausak** (7); **muin perpausaren** (3); **muin perpausaren azpian** (3); **muin perpausen** (7); **muin perpausen azpian** (3); **muin perpaustzat** (3); oinei **muin** (3); oinetan **muin** (4)

esku **muinak** (4)

## muinka adlag muin eginez.

Barruti batzuetan, sinetsidazue, bada gazterik liburuen aurrean ahuspeztu eta orriei barbaroki **muinka** ekiten dienik; ez baitira gai, ordea, letra bakar bati ere tankerarik emateko. Juan Garzia

## muinkatu, muinta(tu), muinkatzen du ad muin egin, muin eman.

Jaunaren atzean zegoela, oinen ondoan, malkoz bustitzen hasi zen, eta buruko ileez txukatzen, eta oinak **muinkatzen** eta ukenduz igurtzen. Patxi Altuna

Eta Jainkoaren graziak eta mesedeak herriaren gain esku horien bidez isurtzen direlako, **muinkatu** egiten ditut nik, sakramentuak ematen dituzten haienganako begiruneagatik eta emateko ahalmenaz jantzi dituen harenganako begiruneagatik. Askoren artean

Nork ez ditu, izan ere, zure oinatzak pozik **muinkatuko**, maiestatzeko Jauna zure aurrean hain apal ahuspeztu bada, zurekin hain adiskide egin eta halako maitasunez Beregan hartu bazaitu? Askoren artean

## muino (orobat muno g.er.) 1 iz lurrazaleko goragune txikia.

Berak ez zituela **muino** haiek, sail haiek, etxe haiek gehiago ikusiko. Bernardo Atxaga

Nagasakiko **muino** batean du etxea, eta portua ikusten da handik. Imanol Zurutuza

Abiatu zen Sainte Genevièveko **munotik**, heltzeko Xinako inperioko ateetarat. Herria

Diligentzia **muino** baten gailurrera heldu da; bikaina ikusgarria. Koldo Izagirre

Lorez egindako **muino** baten gain-gainean iturri bat zegoen. Felipe Juaristi

Buchenwald inguru menditsuan dago, **muino** baten tontorrean. Urtzi Urrutikoetxea

Kilometro bat haratago, **muino** baten mazelan, duar bat dago. Xabier Montoia

Lauzpabost zaldiko ikusi zituen **muino** baten mazaletan behera. Anjel Lertxundi

Baso osoa zeharkatu eta ondoko mendi bizkarraren **muino** batean eseri ginen arte. Pedro Alberdi

Bosniako Visoko herrian hiruki formako hiru **muino** daude, eta, zenbait adituren arabera, garai bateko piramideen aztarnak dira. Berria - Gaiak

Mendi eta **muino**, bedeinka ezazue Jauna, goretsi eta goraiatu menderen mendetan! Elizen arteko biblia

Hasieran, lurrak distira berdeko pentzez inguratu zituen **muinoak** eta jantzi zelai guztiak. Xabier Amuriza

Bidaztiek atzean utzi zituzten azkenik lur malkartsu samar haiek, **muino** zuhaitzez estaliak, Ural mendien azken sustraiak. Karlos Zabala

## 2 (izenondo edo izenlagunekin)

**Muino** leun haien atzean, Baiona ez, eta Donostia besterik ez zegoela. Txillardegia

Charlieri neketsua egiten ari zaio herrixkara doan **muino** latza. Mirentxu Larrañaga

**Muino** berdeen erdian, Aturri eta Errobi ibaien konfluentzian. Koldo Izagirre

Amak eskutik heldu eta gure etxearen parean zegoen **muino** bakarti batera eraman ninduen. Juan Kruz Igerabide

Berriro itzuli zen **muino** bakartu hartara. Josetxo Azkona

Soldaduak lagun genituela, **muino** txiki bat igaro genuen. Juan Kruz Igerabide

Nolako **muino** zatarra ezpondari kontraezponda egiten diona! Koldo Izagirre

Balaam **muino** soil batera urrundu zen. Elizen arteko biblia

Hilerriaren aurrean, **muino** biluzi bat zegoen, eta Slo-ren astoa ikusi genuen han gainean. Juan Kruz Igerabide

Hessen eskualdeko **muino** izoztuak. Alberto Ladron Arana

Gotorlekuak **muino** apal baten gainalde osoa hartzen zuen. Alberto Ladron Arana

Profeta-trantzetik aterata zenean, **muino** sakratuza joan zen. **Elizen arteko biblia**  
Harrizko **muino** bat zen, babes-ezponda baten antzekoa. **Joxe Austin Arrieta**  
Hondarrezko **muino** urrunei begira. **Anton Garikano**  
Ikatzezko **muino** horren urrutiratzea, kalatxori sailak inguratua, ikaragarri tristea irudituko zaizu. **Joseba Sarrionandia**  
Mendiaren oinaldeko errautsezko **muino** batean gelditu ziren. **Agustin Otsoa**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Benjamindarrek Abnerren inguruan bildu eta, talde bat eginez, **muino** -gailurrean tinto eutsi zioten. **Elizen arteko biblia**  
Bidasoa gurutzatu eta, **muino** -kaxkoetan barrera, iritsi berriak zirela Malkor, Mendibil eta Aizparatzako mazeletara. **Txillardegi**  
**Muino** -tontor eta mendi-gailurretan, zuhaitz handi eta arte hostotsuen azpian. **Elizen arteko biblia**  
**Muino** magaleko etxeak. **Joseba Sarrionandia**  
Gure aurreko **muino** -labarrean. **Txillardegi**  
Sigi-saga askoko errepide basotsu batean gora egin eta gero, **muino** -gain txiki batera iritsi ginen. **Anjel Lertxundi**  
Eraiki zenean, aitak erabaki zuen leiho guztiak hiriaz bestaldera begira egitea, baratze eta **muino** aldera. **Juan Kruz Igerabide**  
Euriak edo urakanak geldiarazteko erregutzen zitzaion; **muino** -zirkulu baten gainean arakatu zituen ekaitzak. **Juan Garzia**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hondar- **muino** idorren arteko belargune zekenetan. **Txillardegi**  
Hare **muino** batera goa, basamortuari harrotasunez begira dagoen lehoi ar bat ageri zen. **Patxi Zubizarreta**  
Augilatik beste hamar eguneko bidean beste gatz **muino** bat dago, gainerakoek bezalaxe, ura eta palmondo igali emaila ugari duena. **Patziku Perurena**  
Botila hutsak, kartoiak, latak, plastikoko erraustuak, arratoi eta katu larru lehortuak, zabor **muino** eta lautadak, zabor unibertsoa ia. **Joseba Sarrionandia**  
-Baina orain geriatriko marmar- **muino** honetan dut, inon izatekotan, zoriona. **Anjel Lertxundi**

### 5 mendi muino muinoa.

**Mendi-muino** gehienak ilun zeuden; kanposantukoa, berriz, eguzki betean. **Anjel Lertxundi**  
Paola Florentzian bizi zen, Fiesoleko **mendi-muinoetan** . **Fernando Rey**  
**Mendi muinoaren** bizkarrean. **Itxaro Borda**  
Zenbat aldiz ikusia ote nago, **mendi muino** soilean edo zuhaitzondo bakartu baten inguruan, tximistak erretako larregune beztua. **Patziku Perurena**  
Haizeak inarrositako **mendi-muino** txiki biluzi batzuen aldera ematen zuen hotelak atzealdean. **Fernando Rey**  
Negu eguzkiaren azpian **mendi muinoak** zuri-zuri, haritz baso txikiaren ondoan... etxea. **Pablo Sastre**  
**Mendi muinoetan** errauts gaizto batek jotzen zituen, alabaina, gure ameztoiak, gaztaindegia ala mahastiak, eta ibar-zelaietan hesten ziren ilagindegiak, oihalgindegiak eta larru-apaindegia. **Piarres Xarriton**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskualdeko muino (3); gatz muino (4); gatz muino bat (4); hondar muino (4); inguruko muino (6); mendi eta muino (3); mendi muino (8); muino apal (3); muino batean gora (3); muino baten atzean (4); muino baten gainean (10); muino baten gainetik (3); muino baten tontorrean (7); muino batera iritsi (3); muino berde (5); muino berriak (3); muino eder (3); muino gainean (8); muino gainera (4); muino garai (3); muino leun (3); muino leunak (4); muino txiki (11); muino txiki baten (3); muino txikia (3)

quillish muinoa (9)

mendi muinoak (7)

muinoan behera (12); muinoan dagoen (3); muinoan gora (8)

muinoaren gailurrean (3); muinoaren gainean (8); muinoaren gaineko (3); muinoaren gainetik (3)

mendi eta muinoak (4)

mendi muinoen (3); muinoen artean (5); muinoen gainetik (3)

muinoetako kultu leku (3); muinoetako kultu lekuak (11); muinoetako kultu lekuetan (5)

mendi muinoetan (3)

muinora igo (3); muinora igotzen (4)

## muinoi 1 iz epaitondoa.

Zauri irekien erredura eta odolaren taupada bortitzak sentitzen zituen **muinoian**, bihotza hantxe edukiko balu bezala, lehertzeko zorian. **Ramon Saizarbitoria**  
Lehendabizi, berna belaunetik banatu zion, biak batzen zituzten zain bakanak ebakiz, era horretan, torniketea egokiago eginez, odoljariora saihestu ahal izateko; eta **muinoia** bendaz lotu zion gero. **Ramon Saizarbitoria**  
Atsegin baitzuen nola utzi zion Aristegi jaunak besoko **muinoia**, "bilarreko bola bat bezala, lisoa eta biribila", aitaren beraren esanetan. **Joan Mari Irigoien**  
Aulkian eserita, benda kentzen hasten zen, medikua bere ondoan zutik, eskuak bizkarraldean zituela gehienetan, arretaz so, **muinoi** itsusia noiz azalduko zain zeukan bitartean. **Ramon Saizarbitoria**

### 2 irud/hed

Orainaldia pozez onartzekotan aitaren **muinoia** itsaso beti zahar beti berri enigmatikora bota behar dugu behingoz. **Markos Zapiain**  
Lehortzen jarritako alkandora bakoitzaren mahuka banari korapiloa egina zion ume bihurtiren batek, eskuin eskumuturraren parean, nire gabezia mahukara ekarri nahian bezala, alkandorari **muinoi** bat eginez. **Harkaitz Cano**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

muinoia erakutsi (3)

## muinotsu izond muino asko dagoena.

Berak eta beraren margolanek Toskanako eskualde **muinotsuetan** dituzte sustraiak; ez da eroso sentitzen Florentziako handitasun kosmopolitan. **Xabier Olarra**

## muinotxo (orobat muinotxo g.er.) iz muino txikia. ik muinoxka.

Hegoalderago, apiril goiz hartako eguzkitan, San Isidro eta San Justo hilerrietako orban berdeak, Getafeko bi dorreak eta Los Angeleseko **muinotxoko** basiliza. **Josu Zabaleta**  
Mendixka edo **muinotxoren** batera irtenaldi tiki bat eginez gero, zuhaitzak denetariko janzkerek hornituta, kurioxo-kurioxo ikus daitezke edozein maldetan. **Pello Zabala**  
Barbados uharteetako **muinotxo** baten saihetsean lurperaturik. **Juan Garzia**

## muinotxo (orobat muinotxo g.er.) iz muino txikia. ik muinoxka.



Hegoaldetik, apiril goiz hartako eguzkitan, San Isidro eta San Justo herrietako orban berdeak, Getafeko bi dorreak eta Los Angeleseko **muinotxoko** basiliza. **Josu Zabaleta**

Mendixka edo **muinotxoren** batera irtenaldi tiki bat eginez gero, zuhaitzak denetariko janzkerekin hornituta, kurioxo-kurioxo ikus daitezke edozein maldetan. **Pello Zabala**

Barbados uharteetako **muinotxo** baten saihetsean lurperaturik. **Juan Garzia**

## muinoxka iz muinotxo.

**Muinoxkaren** ondotik aurrera zetorren gizona astiro-astiro. **Irene Aldasoro**

**Muinoxkaren** bizkarrera iritsi nintzenean, atzera biratu eta, gizonari begiratu gabe, oruberu oihu egin nuen. **Irene Aldasoro**

## muintegi ik mintegi.

## mujahidin *(orobat mujaidin g.er.) iz herrialde musulman batzuerako gerrillari fundamentalista.*

Badakizue AEBek diru saritze handiak agindu dituela **mujahidinak** (gudukari musulmanak) hiltzearen truke. **Berria - Mundua**

Herriaren **Mujahidinak** islama eta marxismoa konbinatzen dituen talde armatua da. **Berria - Mundua**

Al Kaedako **mujahidinak**. «Hegazkin bakoitzean bost **mujahidin** zeuden», dio talde islamiarrak bere komunikatuan. **Berria - Mundua**

Estatubatuarrei «ahal den baliabide guztiekin» erasotzeko agintzen die Al Mukrinek munduko **mujahidin**-ei. **Berria - Mundua**

Haiez gain, jatorri siriar eta palestinarreko kanadiar eta israeldar bana atxikitzen dituzte **Mujahidin** Brigadek. **Berria - Mundua**

Hizbul **Mujahideen** talde armatuko eledunak ere salatu du eraso. **Berria - Mundua**

**Mujahidinen** *Shurak* taldeko bozeramaileek aldarrikatu zuen bahiketa. **Berria - Mundua**

**Mujahidinen** Armada izeneko talde batek bere gain hartu zuen gertaera. **Berria - Mundua**

Al Jazeera telebistak eskainitako bideo batean Irakeko **Mujahidinen** Mugimendu Islamikoa taldeak bahitu italiar bat, Salvatore Santoro, hil duela adierazi zuen. **Berria - Mundua**

Hitz egiten dugunean berdin zaigu arabiarra nahiz musulmana, imama nahiz **mujahidina**. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**herriaren mujahidinak** (3)

## mujaidin ik mujahidin.

## mujik 1 iz errusiar nekazaria.

Gehienak **mujikak** ziren, lur gogorrean lo egiten ohitua, eta zubiko oholekin aski zutenak, antza. **Karlos Zabala**

Ohiturari jarraiki, hainbat **mujik** zeuden ate aurreko jarlekuetan eseririk, ikusmiran, ahari-larruzko beroki luzeetan bildurik. **Jose Morales**

Bere onera etorri zenean, **mujik** baten txabolan zegoen. **Karlos Zabala**

**Mujikak** bezain zirtzil jantzita zegoen. **Karlos Zabala**

Hamar milioi, eta **mujik** arrunt bat bezala bizi da! **Jose Morales**

Arlote batzuek aldarrikatu zietenenez, luze gabe **mujikak** lurjabe bihurtu eta frakez jantziko ziren, eta lurjabeak, aldiz, oihal latzezko beroki lodiz jantzi eta **mujik** bihurtuko ziren. **Jose Morales**

Beste eskualde batean, berriz, **mujikak** lurjabeen eta polizi kapitainen aurka matxinatu ziren. **Jose Morales**

Gatazka **mujiken** arteko istilu arrunt bihurtu zen laster. **Jose Morales**

Lur gutxi daukat, **mujikak** alfer hutsak dira, lanerako gogorik ez, taberna beste pentsamendurik ez buruan... **Jose Morales**

### 2 (hitz elkartuetan)

Jakinarazi behar dizut ni **mujik**-familia batean jaioa naizela eta agian horregatik maite ditudala mujikak. **Jose Morales**

Asiar batzuek ontzira nahi zuten, dekretuaren kanporatze aginduak bultzaturik, eta **mujik** familia zenbaitek lehorrera, Kazan hirian geratzen baitziren. **Karlos Zabala**

## mukatu, muka, mukatzen du *ad* kandezez mintzatuz, mukia kendu.

Begien kliska geldi bakarra; beheko ezpaina poliki irristatzen gorantz, goikoa estali arte; eta gero sudur hegalarren hasperen bat, kandelaren sugarra **mukatzean** bezala... seinale ziren Sethe iritsia zela aurrerago joango ez zen punturaino. **Anton Garikano**

Asper asper eginda egongo baitziren egun osoan eserita eta beste zereginik gabe, bakarrik lanparari briloa ateratzea eta argia **mukatzea** eta eskuareaz baratze zaztar hartan aritzea. **Anton Garikano**

## muker 1 *izond* zakarra, muzin egiten duena.

Neskaxa tipi hori berriz aski **mukerra** da; eta, zer gerta ere, hau ez da nehondik ere zuk egin ahal zenukeen bezain atsegina izanen. **Jon Muñoz**

Zoriona deitzen den animalia izu eta **muker** hori. **Joseba Sarrionandia**

Seguraski, psikiatra jendaila horrek azalpen aldrebes bat baino gehiago asmatuko luke jarrera **muker** hartarako, gerra garaiko sindromeaz hasiko lirakete, edo trauma osteko shockei buruz. **Alberto Ladrón Arana**

Mazarredo almirantea eta Egia jenerala preziatzen dituenak ezin dezake poeta **mukerrik** maite. **Berria - Kultura**

"Mulata?", jesarri egin zen erne ohean, **muker** gurako muttur, "Mulata esan duk?". **Koldo Izagirre**

### 2 (adizlagun gisa)

**Muker** eta uzkur ageri da hura pixka batean, baina azkenean onartzen du maitasun-eskaintza. **Juan Garzia**

**Muker** abiatu ginen herrira, haren gizarte honetako arropa muxarrekin batera kiskaltzen zen bitartean. **Koldo Izagirre**

Ezin **mukerrago** zeunden telefonoz deitu dizudanean; ikaratuta aritu naiz zurekin hizketan. **Mirentxu Larrañaga**

Orduan hotz, **muker** eta bakarrik egoteko irrikatan egongo baita. **Oskar Arana**

Buru lepoan gordea, mokor, makur, **muker**, orain bezala. **Koldo Izagirre**

### 3 *lo-muker adlag* gaizki esnaturik.

Ez diagu esnatu behar, lo-**muker** egoten duk esnatzen badugu; gero bi orduko paseoa eman behar zaiok, bestela lo-**muker** egoten duk. **Fernando Rey**

#### 4 **muker egin** muzin egin.

ilea eta bizarra moztu gabe eman zuen marea osoa, halako esku ona zeukan Patxo Laskibarren doako zerbitzuei **muker eginda**. Koldo Izagirre

**Muker egin** zion neskameak, etxeko alaba agidanez, tabernariaren antza bekainetan. Koldo Izagirre

**Muker egiten** genuen antzokiaren ondotik iragaitean, ez genuen haboro hanka sartuko bertan, halako asperdura bat ematen zigan, ikaraz nahaste. Koldo Izagirre

#### **mukerrontzi** *izond adkor* oso mukerra.

Amaren izeba zen, baina amama esan geniezaion tematu zitzaigun beti, uste baitzuen izeba zahar deiturak adintsu eta muker bilakarazten zuela; izan, **mukerrontzia** zen, ordea. Mirentxu Larrañaga

#### **mukertasun** *iz* mukerra denaren nolakotasuna.

Andresek ez zuen kalera irten nahi; berebiziko **mukertasuna** sentitzen zuen. Josu Zabaleta

Beti bezala, amaierako himnoa ez entzuteagatik pentsatuko nuen nik zela **mukertasun** hura. Koldo Izagirre

#### **mukertu**, muker(tu), mukertzen da/du *ad* muker bihurtu, zakartu.

Barbeitok irri erori bat ageri zuen zigarro itzalia kentzea ahanzita zeukan ezpainetan, Dopazo tristetasun akigarri batek zeukan **mukertuta**. Koldo Izagirre

Aski zenuen Aljerren, aski hemen ere, zure esperantza aspaldi **mukerturik**. Xabier Montoia

#### **muki** 1 *iz* giza sudurrari eta beste zenbait organori darion gai likatsua.

Jertsearen maukan garbitu nituen **mukiak**. Jesus Mari Mendizabal

Sudurzapia atera eta **mukiak** kendu dituk. Pedro Alberdi

Nigar purpuilak eta **mukia** esku bizkarrez xukatu zituen. Michel Oronoz

-Aurrena ken itzak **muki** horiek, motel! Jokin Muñoz

Jantzi higatuak dituzte eta **mukiak** sudurretik dilindan. Xabier Montoia

Besarkatu ahal izan duenean, **mukiak** xukatu ditu negarrari eusteko. Urtzi Urrutikoetxea

**Mukiak** xurgatu eta erlojuari erreparatu zion. Joxean Agirre

**Mukiak** ozen zintzatu zituen Antoniak eskuturretik ateratako zapiak. Josu Landa

Negarrez hipaka, **mukia** dariola. Elena Touyarou

Beshir aldamenean neukan une oro itsatsita **muki** bat bezala. Fernando Rey

Hari darion izerdia da-eta bularreko **mukia** askatzen duena. Anjel Lertxundi

Arazoa zen **mukiak** itxi egiten zizkiola birrikak arnasa galarazteraino, eta bere gorputz txikiak, zazpi edo zortzi kilokoak, ez zeukala ahalmenik **muki** haiek mugitzeko. Bernardo Atxaga

Sudur-mukosako zelula hartzaileetatik irteten diren ile sentikorrek erraz desaktibatu ohi dira hotzeriarekin, zeren eta **mukia**, normalki urtsua, asko loditzen baita. Irene Aldasoro

Umetokiko lepoko **mukia** (fluxua) aldatzen du, sendoagoa egiten du, eta, hala, espermatozoideek ezin dute umetokiko lepoa igaro eta hortik tronpetara joan. Luis Elberdin

#### 2 irud/hed

Dragoien **muki** lehor txinpartatsu handiak. Iñaki Mendiguren

Kanilari ez zerion dagoeneko tantarik; **muki** izoztu baten antzeko zerbait zeukan, soil-soilik, kobrezko ahotik zintzilik. Jon Muñoz

Barraskiloek utzitako **muki** likitsagatik. Harkaitz Cano

#### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Suaren ondo-ondoan gelditu zen; sudurretik **muki** tanta zeriola, hozminduta musua, motel hitz egiten zuen. Pablo Sastre

**Muki**-ura dario sudurretik; hura ez ohartzea espero du. Oskar Arana

**Muki** urak zintz egiteko eskuoihal baten tamainako zapia eraman zuen. Iñaki Zabaleta

Sudur-barrunbeetako mukosaren hantura da rinitisa, eta, gehienetan, gehiegizko **muki** jarioarekin batera agertzen da. Berria - Gaiak

*ik beherago* 5. Askoren artean

Zapia kendu eta berak garbitu dio **muki** arrasto hori. Jokin Muñoz

**Muki** arrastoak zeuzkan artilezko eskuzorro gorrian. Koldo Izagirre

Sudurraren barne-paretak estaltzen dituen **muki**-geruzaren barruan edo gainean igeri daude. Irene Aldasoro

#### 4 kandez mintzatuz, kotoizko soka mehea, erregai batez bustitzen eta airean dagoen muturretik errearazten dena; soka horren zati errea.

Gure harremanak argitzen zituen kandelaren **mukia** ahitzear zegoela. Javi Cillero

Bizi baita maitasuna den kandela izekiaren erdian / argi-**muki** moduko bat, hura moteldu nahi duena. Juan Garzia

#### 5 **muki mintz** ik **mukosa**.

Gorputz-barrunbeetako **muki-mintzetan** (nagusiki, sudurrean eta emakumeen baginan nahiz umetokian) sortu eta hazi ohi den tumorea. Imanol Zurutuza

#### 6 **muki-jario(an)** *adlag* mukia dariola.

Ruchek, eztulka eta **muki**-jario araindik ere, jertse bat zeraman, aise mugitzen uzten ziona. Jon Muñoz

**Muki jarioan** ari dira neskatoak. Aingeru Epaltza

#### 6 **muki-zapi** ik **mukizapi**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mukiak xurgatu** (3)

#### **mukitsu** (*15 agerraldi, 9 liburutan; orobat mukitzu g.er.*) *izond/iz* mukizua.

Richard uneka-uneka puzten zen, ikasle **mukitsuek** arbelaren aurrean ernegarazten duten seminaristaren eran. Harkaitz Cano

Zer esan behar zioten ume **mukitsu** haiek, Tolosakoa izanik bera. Ramon Saizarbitoria

Benjamin umemoko arreta-galdua eta Sagrario **mukitsua**, bere anaia-arreba txikiak. Pablo Sastre

**Mukitsu** alanaek jadetsi zuen nerbioen dantza leher zekion. Josu Landa

Zuek **mukitsuok**, hau egiteko edaderik ez daukazue, ziur gidabaimenik ere ez duzuela, salatu egingo zaituztet! Harkaitz Cano

mukitzu ik **mukitsu**.

## **mukizapi** (*orobat muki(-)zapi g.er.*) **1** iz musuzapia.

**Mukizapia** sudurpean zuela sartu zen, egundokoa harrapatu zuela esanaz. **Joxemari Urteaga**

**Mukizapiarekin** xukatu nuen aurpegia. **Joxe Austin Arrieta**

Poltsikotik **mukizapia** aterata, betaurrekoak garbitu nituen. **Aingeru Epaltza**

Poltsatik kleenex **mukizapia** atera eta begietako malkoak xukatu nituen. **Joxemari Iturralde**

**Mukizapi** batekin bildu zituen. **Migel Angel Mintegi**

Hor egongo da, sukaldeko mahaian eserita, **mukizapia** eskuan. **Jokin Muñoz**

### **2** (hitz elkartuetan)

Jendaurrean lotsagarri ez geratze aldera noranahi larrialdietarako **muki-zapi** kutxatxo batekin joan beharra zeukan txotxolo malkotsu bat. **Oskar Arana**

LANbidez aldatu, **mukizapi** fabrika bat ipintzeko, esaterako, edo sofrologia-kabinete bat. **Jon Alonso**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mukizapia atera** (6)

## **mukizu** (**91** agerraldi, **46** liburu eta **5** artikulutan; *orobat mukusu g.er. eta mukuzu g.er.*) **izond/iz** mukia dariona. ik **mukitsu**.

-Zuk zer uste duzu, ume **mukizu** bat naizela? **Joxemari Urteaga**

Urtebete zaharragoa, beraz, eta gu harendako "kakaume **mukizu** batzuk" baizik ez. **Aingeru Epaltza**

Nipperrek zioenez, txotxongilo **mukizu** bat zen, eta lekuz kanpo zegoen, hobe zuen osterara eskolara itzuli. **Mirentxu Larrañaga**

Uste diat begiak zuen sudur **mukizuak** baino baliagarriagoak direla. **Agustin Otsa**

Parkeko umei begira nengoela, halako batean, joan den eguneko **mukizuarekin** topo egin nuen. **Javi Cillero**

Nola deabru izan zitekeen **mukizu** hura hain argia? **Oskar Arana**

Galdera bitxia da zortzi urteko **mukizu** baten ahoan. **Iban Zaldua**

Bigarren batxilerreko **mukizu** bat izan zen, patrioko garaian beti kromoak trukutzen ibiltzen zen txaparro kaskagorri maritxu ospeko bat. **Koldo Izagirre**

Gehienei **mukizu** ahobero bat iruditu izanen nintzaian, baina batek baino gehiagok bere burua ikusi izanen zuen nire mirail gaztean. **Aingeru Epaltza**

Bakarrik ari zelakoan, eta pauso guztiak jarraitu zizkion **mukizu** alproja hark! **Joxemari Urteaga**

Hogei urteko **mukizu** puntu-com milioiz okituez. **Oskar Arana**

"Listoa duk, gero, **mukizua**!", esan du beste batek. **Jokin Muñoz**

**-Mukizu** alaena! **Juan Kruz Igerabide**

Haurdunaldiak eta **mukizuak** etorri, haurdunaldiak eta **mukizuak** joan. **Patxi Zubizarreta**

mukobisidosa ik **mukobiszidosi**.

## **mukobiszidosi** (*orobat mukobisidosa, mukobizidosi g.er. eta mukobizidosa g.er.*) **iz** muki lodi eta likatsu bat eratzeak eta metatzeak dakarren mahasmendua, batez ere birikei, hesteei, pankreati eta gibelari eragiten diena.

Frantzian gaindi, bi egunetarik, haur bat sortzen da **mukobisidosarekin** (200 haur urte oroz): ximpleki esplikatzeko, eriak hatsa nekez hartzen du batetik, eta liseitzeko trabak ere baditu bertetik, pankreak ez duelarik behar lukeen lana egiten. **Herria**

Ea posible izango den, terapia genikoz, Duchesne-ren miopatiak edo **mukobiszidosiak** jota dagoen gaixoa sendatzea. **Juan Garzia**

Barne mukurru bete batean, **mukobisidosaz** joak direnen biziaz filma labur bat erakutsi da lehenik, eritasun hori zer zen konpreniarazteko. **Herria**

Arian-arian, guztiz ezezagan ziren molekula batzuk ere aurkitzen dira; besteak beste, mintz-arte ko konduktantziaren erregulatzailea; harexen matxura jakin batzuk dira, antza, **mukobiszidosiaren** kausa. **Juan Garzia**

mukobizidosi ik **mukobiszidosi**.

## **mukopolisakarodosi** **iz**

**Mukopolisakarodosia** (MPS) eta harekin lotura duten sindromeak gaitz larriak dira. **Berria - Gaiak**

## **mukosa** **1** iz muki mintza.

**Mukosak** eta arnasbideak narrantzen dituzten gaiak. **Berria - Gaiak**

Sudur-mukosara heltzean, berotasun pixka bat galtzen du, arnasgorako aireak freskatuta baitago **mukosa**. **Irene Aldasoro**

-Hamar zentimetro kubiko bakarrik, profilaxia modura -berak ostera-, ahoko **mukosarentzat**. **Joxe Austin Arrieta**

Arrautzaren kanpoaldeko pareta osatzen duen ehuna da trofoblastoa, amaren umetokiko **mukosarekin** kontaktuan dagoena. **Juan Garzia**

Sudur-barrunbeetako **mukosaren** hantura da rinitisa. **Berria - Gaiak**

Sinuan geratzen den airetik oxigenoa xurgatzen jarraitzen dute **mukosako** odol-hodiek, eta horrek dakarren presio-gutxitzeak eragiten du sinusitisarekin loturik dagoen buruko min bereziki mingarria. **Irene Aldasoro**

Aurpegiko hezurrek lau zokogune pare dituzte (sinuak), barrutik **mukosaz** estaliak. **Irene Aldasoro**

Aireak, hartara, kontaktu ona egiten du arnasbideetako **mukosazko** barne-estaldurarekin, eta berehala epeltzen da. **Irene Aldasoro**

### **2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizakietan, kolorezko bi **mukosa** -gunetan hasten da usaimena. **Irene Aldasoro**

### **3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Temperaturaren oreka lortu arte jarraitzen du prozesu horrek, hau da, arnasgorako aireak eta sudur **mukosak** 30-32 gradu inguru iritsi arte. **Irene Aldasoro**

Jende gehienaren kasuan, ordea, behar bezala babesten du urdail- **mukosak** urdailaren pareta. **Irene Aldasoro**  
Usaimen- **mukosak** 50 milioi zelula hartzaile inguru ditu. **Irene Aldasoro**  
Berrogeita hamar aldiz handiagoa da usaimen- **mukosaren** area txakurretan gizakietan baino. **Irene Aldasoro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**usaimen mukosaren** (3)

## mukositate *iz* mukia.

Existenziaren urrin goxo-goxoa eta astuna darian **mukositate** gorrietan. **Monika Etxebarria**

## mukubisidosa ik **mukobiszidosi**.

## mukulu *1 iz* forma baino nabaritzen ez zaion gauza edo pila.

Lasaitu egiten naiz manta batez bildutako **mukulua** ikusita: lehengo lekuan segitzen du hildakoak. **Anjel Lertxundi**  
Suhiltzaileak ibai-zolan zeuden beti, garabiko kablearen muturrari **mukulu** bat lotu nahian. **Aingeru Epaltza**  
Haien izaerak gauza bera dio, argi ikusten baitute **mukulua** txikiagoa dela zatian osoan baino. **Imanol Unzurrunzaga**  
Tabako-paketearen **mukulua** sentitzen dut, baina ez naiz paketea ateratzera ausartzen. **Anjel Lertxundi**

### 2 (hitz elkartuetan)

Igeltso **mukuluak**, ate puskak eta hauts hodei itsugarriak hegaldatu ziren norabide guztietan. **Alberto Ladron Arana**  
Amak bultzada txikia eman zidan logelako aterantz, bularraren kontra zeukan arropa- **mukuluaz**. Gero orrialdea tarrantatzen du mila pusketetan eta mutilari ematen dio paper- **mukulu** -: bota zakarrontzira! **Anjel Lertxundi**

## mukur ik **mokor**<sup>1</sup>.

## mukurru ik **mukuru**.

## mukuru (*orobat mukurru; Euskaltzaindiaren Hiztegian mukuru agertzen da*) **1 adlag** neurriaren ertzetatik gora beterik, gainezka.

Jendetza handiak **mukuru** betetzen zituen espaloiak. **Alberto Ladron Arana**  
Egun hauetan, **mukuru** beterik daude presondegiak. **Aingeru Epaltza**  
Latorrizko zaborrontziak **mukuru** beteak zeuden espaloietan. **Iñaki Zabaleta**  
Holanda eta Ingalaterrako arrain zuriek **mukuru** betetzen zuten azoka. **Karlos Zabala**  
Eta barre egiten zuten, elkar besarkatzen, bihotza **mukuru** betetzen zien adiskidetasun bizia elkarri nola adierazi ez zekitela. **Karlos Zabala**  
Frontoia **mukuru** zegoen. **Juan Kruz Igerabide**  
Autoak **mukuru** zeuden. **Lopez de Arana**  
Bihitegiak **mukuru** zeuden, setio luze baterako bezain. **Aingeru Epaltza**  
Trena **mukuru** zihoan. **Unai Iturriaga**  
Tren berria **mukuru** eginda zetorren. **Josu Zabaleta**  
Ximurrarekin erreta egoteko arrazoien saskia **mukuru** neukan. **Aingeru Epaltza**  
773. urteko egun hartan hasi zen dena, bidaia amaiezin baten ondoren, Indietatik zetorren karabana **mukuru** zamatu bat Madinat al Salam, Bakearen Hiriko atean agertu zenean. **Jon Muñoz**  
Nire bihotz **mukuru** beteak ez hitzik ez malkorik atxiki zezakeen. **Jon Muñoz**  
Guk, zaurituok (hirurehun bat guztira) bertan prestatutako hamalau gelak betetzen genituen, **mukurru**. **Txillardegi**  
T.-ko zezen plaza, mende hasierakoa, lepo zegoen, **mukuru**. **Karlos Linazasoro**

### 2 (-z atzikiaren eskuinean)

Gelatxo gris hura arropaz eta artisten argazkiz **mukuru** beteta zegoen. **Lopez de Arana**  
Hain nago oraino zorianaz **mukuru** betea, non ezin baitut zorion hori ederretsi. **Jon Muñoz**  
Dolarrak eman ohi duen harrotasunez **mukuru** beteriko begiak. damen aho urrintsuetatik mota guztietako iradokizunak eta galderak iristen zitzaizkion, sotiltasunez eta adeitasunez **mukuru** beteak. **Lopez de Arana**  
Ezen presoago edukiko baininduten belarrek eta zuhaitzek, kale jendez **mukuru** beterikoen eta tximiniez jositako teilatuen oihanek baino. **Koro Navarro**  
Aitzakiaz **mukuru** nengoen, bada, neure koldarkeria zuritzeko. **Juan Kruz Igerabide**  
Lasaigarri, nonbait, halako musika leuna piztu dute, biolinez **mukuru** oratua. **Txillardegi**  
Isil-misilean zeharkatu zuen jendez **mukuru** zegoen gela. **Mirentxu Larrañaga**

### 3 (aditza ezabaturik)

Florentek entzuten zion, platera **mukuru**, jangelaren garbitasun elizakoak bihotza bereganatzen ziola. **Karlos Zabala**  
Burua kezka horiekin **mukuru**, balkoira igo zen. **Karlos Zabala**  
Estadioa **mukuru** eta berari tokatzen nonbait pilota jaurtitzea. **Harkaitz Cano**  
Bagenituen bost kaiola **mukuru**. **Koldo Izagirre**  
Nik ezingo nuke halakorik eraman, zabor-saskiak hego dardartiz **mukuru**, pentsa... **Harkaitz Cano**  
Hemendik tira eta handik luza moldatutako testua eratziki nion azpian, literaturaz **mukuru** eta informazioz eskas. **Aingeru Epaltza**  
Zezen plazak guardia zibilez **mukuru** eta Mediterraneoako hondartzak suediarrez beteta. **Javi Cillero**  
Gurdi haietako bi trabeska zeuden kalearen erdian, zaku grisaskez **mukuru**, ibiltzeko traba. **Karlos Zabala**

### 4 (izen gisa)

Hori degenerazioaren **mukuru** da, alajainkoa! **Luis Elberdin**  
Mendeku gisa [...] gogor gaitzesten zituen hark emaniko agindu guztiak eta zentzugabekeriaren **mukuru** ikusten zuen haren erabaki eta egintza guztietan. **Jose Morales**  
Ez al zen, bada, zahartzaroak duen itsustasunaren **mukuruaren** bila etorri etxe hartara? **Ibon Urbarri**

## • 5 *iz* mukulua.

-Orain su emaezue azkar **mukuru** horiei. **Juan Garzia**

**Mukuru** handi samar bat nabarmendu nuen morroiaren musuzapian bildurik. **Anjel Lertxundi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**jendez mukuru** (23); **jendez mukuru zegoen** (9); **liburuz mukuru** (4); **mukuru ageri** (3); **mukuru ageri ziren** (3); **mukuru bete** (14); **mukuru bete zen** (3); **mukuru betea** (17); **mukuru beteak** (7); **mukuru beterik** (20); **mukuru beterik dago** (3); **mukuru beterik zeuden** (3); **mukuru beteriko** (5); **mukuru beteta** (9); **mukuru betetako** (6); **mukuru betetzen** (17); **mukuru betetzen zituen** (3); **mukuru betetzen zuten** (3); **mukuru betez** (3); **mukuru dago** (4); **mukuru zegoen** (28); **mukuru zen** (4); **mukuru zeuden** (4)  
**betea zen mukuru** (3); **eliza mukuru bete** (11); **eliza mukuru betea** (25); **gela mukuru betea** (4); **jendez mukuru** (4); **mukuru bete** (25); **mukuru bete da** (12); **mukuru bete dute** (3); **mukuru betea** (44); **mukuru betea zen** (26); **mukuru beteak** (5); **mukuru beterik** (4); **mukuru betetzen** (3); **plaza mukuru bete** (4)

## mukuruka *adlag* mukuru.

Orduan, gazteluko patioa eta lubakiak **mukuruka** betetzen ziren, guztiak dorrearen gainaldeari so. **Aingeru Epaltza**

Ez zegoen hutsa, baizik **mukuruka** betea. **Anton Garikano**

## mukurutu, mukuru, mukurutzen 1 da/du *ad* mukuru bete.

Poternako baratzea laster hustu zen eta arratsaldean ama-haurrez **mukurutu**. **Itxaro Borda**

Fitxategiek **mukurutzen** ez zuten toki bakarrean ezarria zegoen mahaia. **Aingeru Epaltza**

Urtea ondasunez **mukurutzen** duzu, zure lautadak joritasunez janzen. **Elizen arteko biblia**

Bulego txiki batean sartu ginen: idazmahai handi bat, itxura deserosoko hiru aulki, paperez **mukuruturiko** bureau bat. **Alberto Ladron Arana**

Amen batean, zimauregi bat **mukurutzeko** bezainbat irain eta laidoz zikindu ninduen. **Aingeru Epaltza**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Laboratorio ostera bisitatua poz-iturri joria da, eta xarma bizia dario: gaztetasunarena, etorkizun zehaztagabe eta ahalmenez **mukurutuarena**, hots, askatasunarena. **Juan Garzia**

Senarra egiten zuen "herri ttar zikin papistaz **mukurutu**" horretan bizi behararen hobendun. **Aingeru Epaltza**

## mukurutze *iz* mukuru betetzea.

Claude, eskuak sakeletan, txistuka, goizero Parisen erdiraino igotzen zen elikagai **mukurutze** hori biziki maite zuela kontatzen ari zen. **Karlos Zabala**

## mukuso ik mukizu.

## mukuzu ik mukizu.

## mula ik mando<sup>1</sup> 8.

## mulata *izond/iz* andrazkoez mintzatuz, mulatoa.

Neska **mulata** ia zuria. **Jon Muñoz**

"Corno!" errepikatu zidan neskame **mulatak** behin eta berriz, bainera barrura salto egin nuen egunean. **Jon Arretxe**

Mihia ateratzen dit **mulata** batek, miresmenez begira nagokiolako. **Joxe Austin Arrieta**

-Komunismoa **mulatekin**, gauza handia izan behar dik! **Koldo Izagirre**

Kuban bizi duk **mulata** puska batekin! **Koldo Izagirre**

## mulato 1 *izond/iz* gurasoak zuria eta beltza dituena.

Kubako neska **mulato** baten listua oso bestelakoa da. **Jon Muñoz**

Gogoan dut *Salambo*, eta azalean ageri zen neska **mulato** ia biluzia. **Karlos Zabala**

Inoiz ikusi dudan neskarik ederrena zen, argala, gihartsua, gorputza leunkiro betegina sumatzen zitzaiola bere azal **mulatoa** nekez estaltzen zioten galtza motxen eta brusaren azpian. **Jon Muñoz**

Etxearen barrualdetik hogeita hamar bat urteko emakume bat atera zen, **mulatoa**, oso erakargarria, garaia eta liraina. **Jon Muñoz**

Kazetari doilor horrek agiriak faltsutu zituen, bai eta arima ere -sinetsiko al duzu morroia **mulatoa** zela? beltzarana, garai hartan esaten zen bezala-. **Karlos Zabala**

Gazteak ziren, ederrak, sentsualak, zuriak edo beltzak, baina gehienbat **mulatoak**, gorputzak jainko exotiko eta betegin batek zizelatu zizkienak. **Jon Muñoz**

Zaindaria senar-emazteak ziren, **mulatoak**, zein baino zein politagoa, bikote perfektua. **Karlos Zabala**

Dolu-ipurdia deitzen zien andre zuriei beltz batekin edo **mulato** batekin oheratuz gero. **Karlos Zabala**

## 2 (hitz elkartuetan)

Hasteko, **mulato** itxura hartu baitzion Sararen amak Sergiori. **Joan Mari Irigoien**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**neska mulato** (3)

**neska mulatoa** (4)

## muleta *iz* zezenketariak, zezena engainatzeko, erabiltzen duen oihal gorri makiladuna.

Lau beronika modu onean eta natural bat **muletarekin**. **Berria - Kultura**

-Nahi bai, nik -erantzuten zien apaizak- estolaren orde **muleta** hartu, eta ongi hiltzen laguntzen aritu orde zezenak hiltzen hastea. **Josu Zabaleta**

Bainan Sarkozy torero hoberenatarik da baitaki nola joka bere trapu gorriarekin, izan dadien kapa edo **muleta**. **Herria**

## mulko *(orobat molko)* 1 iz mordoa, multzoa.

Zeusen euriak haziarazten ditu garia eta garagarra, eta **mulko** handiko mahatsondoak. Juan Kruz Igerabide

Orain arte ura edan eta edan ari nintzen, eta bide bazterrean jarririk bihiz bihi **molko** bat biluziz mahats jaten ari naiz. Piarres Aintziart

Su gaiak artarekin biltzen ziren; haurrak loriatzen ginin; egurrak xutik eman, ote **mulkoak** azpian sartuz... Herria

Mendi **molko** horren baitan desagertu da gandupean. Iñaki Iñurrieta

Bidaiaz joan zen, landare-zukuen ibilera astitsuan, hostotik txortenera eta aihen-adarretik enborreraino, eta handik **mulko** ia heldu batera jaitsi zen. Juan Garzia

## 2 (hitz elkartuetan)

Frantzia behere hortan aldiz, saildu bera mahats **mulko** bat eskuan agertzen da, mahastizainen patroina ere delakotz... Ez, ordea, biologiaren arabera gu bezala txakurra osatzen duten zelula-**mulkoak** eta molekula-bilgoak. Herria

## mulkodun *izond* mordoa duena.

Zituen basorik onenetan ekarri zuen sagardoa Bain andreak eta berak egindako intxaur-galletak zerbitzatu zituen, eskuz margoturiko plater gerezi-**mulkodunetan**.

Mirentxu Larrañaga

## mulkoka *(corpusean molkoka soilik) adlag* mordoka.

**Molkoka** hurbildu gira Azkaineko Elizarat, familiaka, lagunen artean, batzu aski urrunetik, hain zen jendea eta autoa trumilka. Herria

## mulkotxo *iz* mulko txikia.

Gero, zelula **mulkotxo** bat. Juan Garzia

## multa 1 *iz* isuna.

**Multa** jarri zieten agintariek dantzan egin zuten denei. Xabier Etxabe

Pertsona batek alkohol gehiegi edanda gidatzen badu, baimeneko sei puntu kentzeaz gain, 1.500 eurora irits daitekeen **multa** jasoko du. Berria - Euskal Herria

Liburuak dionez, Jexuxek ere ordaindu egin zuen bost duroko **multa**. Xabier Etxabe

**Multa** arinak, 90 eurora irits daitezke; larriak, 300 eurora; eta oso larriak aldiz, 1500 eurora. Berria - Euskal Herria

## 2 (hitz elkartuetan)

-Hemen daukazu ertzain horren **multa** -taloi osoa. Gotzon Garate

## multibanda *iz* adkor banda.

*Haurrock*, aldiz, 23 hurrek eta 12 helduk osatzen duten **multibanda** da. Berria - Kultura

## multibertso *iz*

Behin Joséz esan nuen ez zela bizi unibertso batean, William Jamesek **"multibertso"** deitzen zion halako batean baizik, ezaugarri kontaezin, lotugabe baina oso bizien mundu halako batean. Xabier Olarra

## multidiziplinar *iz* hainbat diziplina biltzen duena.

Entitate horietako bakoitzak gutxienez hiru profesionalz osatutako talde **multidiziplinarra** behar du: zuzenbideko lizentziadun bat, psikologo bat eta gizarte laguntzaile bat.

Berria - Harian

MEM 2004 nazioarteko abangoardiako arte **multidiziplinarren** jaialdiak «gaur egungo proposamen apurtzaileenak» ekarriko ditu gaurtik abenduaren 18a arte Bilbora.

Berria - Kultura

Abangoardiako artista plastiko **multidiziplinar** bati egindako elkarrizketa. Juan Luis Zabala

Kultura garaikide **multidiziplinarrean** aditua edo zaletua dena. Berria - Kultura

## multiestatal *izond* enpresez mintzatuz, hainbat estatutan ezarria dagoena. ik multinazional.

Enpresari txikiak sar diezagukeen ziria askozaz ere txikiagoa da **multiestatalek** egin izan ohi dizkiguten iruzurrak baino. Edorta Agirre

## multietniko *izond* hainbat etniari dagokiona.

Kosovo egonkor, demokratiko eta **multietnikoa** eratzeko. Berria - Mundua

Gizarte **multietniko** baten funtzionamendua. Berria - Mundua

## multifaktorial *izond* hainbat faktoreri dagokiona.

1945ean "A Case of "Idiot Savant": An Experimental Study of Personality Organization"komunikazioan, gogamenaren teoria **multifaktorial** edo konposatuaren mugak dituzte ikerleok hizpide. Xabier Olarra

## multifokalitate *iz* hainbat foko izateko nolakotasuna.

Alde horretatik sistemaren uniformitatetik irten nahi duten erantzun desberdinen unea delakoan nago, **multifokalitatearen** unea. Iñaki Heras

Eta horretan **multifokalitateak** izan behar du ikuspegi nagusia. Iñaki Heras

## multiforme *izond* forma asko dituen.

Oro har harturik, mintzaira, **multiforme** eta heteroklitoa da; eremu batzuen artean kokaturik, aldi berean fisikoa, fisiologikoa eta psikikoa izanik, gizarte alderdiari eta alderdi indibidualari dagokie batera. **Isabel Arrigain**

Zigarretarik gozagarriena den hori erretzen ari ziren, kearekin irudi **multiformeak** marrazten. **Unai Iturriaga**

Buruko minbizi motetan, ohikoena eta gaiztoena da glioblastoma **multiformea**, adituen arabera. **Berria - Gaik**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**glioblastoma multiformea** (3)

## multifuntziodun *izlag* hainbat funtzio.

Ez zen espero nezakeen behialako **multifuntziodun** zerbitzaria. **Itxaro Borda**

## multifuntzional *izond* hainbat funtzio dituena.

Esaldi itsusi bezain **multifuntzionala**, zeren Historiako (edo Historiaz azpiko) galera, sarraski, garbiketa edo hondamendi lazgarrienez mintzatzeko ere berdin-berdin balio baitu... inork egiten ez duen euriaz ari bagina bezala. **Iñaki Segurola**

## multijabetza *iz* hainbaten arteko jabetza mota.

Extebizitzen **multijabetzen** inguruan sinatutako kontratu bat baliogabe uzten duen lehen epaia eman zuen Getxoko Epaitegiak joan den astean. **Berria - Euskal Herria**

**Multijabetzan** oinarritutako salmenta irregularrak. **Berria - Euskal Herria**

Donostian **multijabetza** kanpaina erasokorra egiten ari direla salatu du EKAK. **Berria - Euskal Herria**

## multikolore *izond* kolore askotakoa.

Jon ordea, betiko Jon, betiko galtza **multikoloreekin**, gestoretako kamiseta eta jakabluaz. **Unai Iturriaga**

Lorategiari begira, izebaren lili **multikoloreei** begira. **Mikel Hernandez Abaitua**

Jende **multikolorea**, espaloietan gora eta behera. **Unai Iturriaga**

Udal langileen janzki urdinak emakumeen saskien **multikoloreekin** nahasten ziren Somerako eguerdian. **Unai Iturriaga**

## multikoloredun *izond* kolore askotakoa.

Zain jabalgarri **multikoloredunak**. **Itxaro Borda**

## multikopia *iz* testu edo irudi baten kopiak egiteko klixe bidezko zernahi sistema. **ikpolikopia**.

Ordurako, ordea, hasia zuen bere ibilbide poetikoa, eta haren ikasle batzuek *Mindura gaur* argitaratu genion, **multikopiaz** argitaratu ere. **Berria - Harian**

1966an argitaratu zuen, **multikopia** bidez, lehen poema liburua: *Mindura gaur*. **Berria - Harian**

## multikopiatu, multikopia(tu), multikopiatzen **1 du** *ad* multikopistaren bidez erreproduzitu.

Latineko irakasleak, Blas Mendibe hark, bere kongregazioaren panfletoak **multikopiatzeko** hartzen gintuen. **Joseba Sarrionandia**

### **2** (era burutua izenondo gisa)

Alde batetik euskaraz eta bestetik erdaraz idatzitako paper **multikopiatuak**. **Joseba Sarrionandia**

## multikopista *iz* aldez aurretik klixe batean prestatu den testu edo irudi baten kopiak egiten dituen makina.

Begoñan zegoen denda, eta hamaika **multikopista** elektriko eraman zenituzten 1970eko abuztuaren 15ean egun argiz. **Rafa Egiguren**

Ehunka kopia atera zizkiguten **multikopistaz** Peñascal auzoan geneukan zoko batean. **Rafa Egiguren**

Jakinekua baitzen zeukaten diru apurra **multikopista** eta tinta erosten gastatzen zutela iraultzaile bulartsu haiek. **Hasier Etxeberria**

Fotokopien edo **multikopisten** bidez egindako lanak. **Berria - Kultura**

· Entzuna genuen bazela beste sistema bat, **multikopista**, alegia, narras samarra baina merkeagoa, panfletoak-eta egiteko garai batean erabilia. **Xabier Mendiguren**

Elizegi

**Multikopistaren** teknika ere halamoduzkoa baitzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## multikultural (*orobat multi(-)kultural g.er.*) *izond* hainbat kulturak osatua.

Gizarte **multikultural** bati, bestearen hautu fundamentalen errespetuan bakarrik eutsi dakiok. **Joxe Azurmendi**

Baina etorkinek gure baloreak, gure bizimodua, gure hizkuntza onartu behar dituzte, alegia, integratu behar dira eta gizarte **multikulturalari** uko egin. **Berria - Mundua**

Hiri honek eskaintzen duen anonimatoa estimatzen du eta hiri **multikulturala** izateak ematen dizkion erreferentzia anitzak ere bai. **Harkaitz Cano**

Bazkari herrikoi eta **multikulturala**. **Berria - Kultura**

## multikulturalismo *iz* multikulturala izateko nolakotasuna.

**Multikulturalismoa**, mestizajea, hibridazioa, gai horiek zuzeneko lotura dute Erdialdeko Amerika, Karibe eta Hego Amerikarekin, eta horrek derrigortzen gaitu pentsatzera akaso ez dela egongo nazioez gaindiko nortasun delako hori, baina bai nazioen, herrialdeen, herrien, taldeen eta norbanakoen araberako nortasun mugagabeak. **Berria - Kultura**

**Multikulturalismoa** omen da demokraziaren eta pluralismoaren gaitzik larriena. **Joxerra Garzia**

Populazio-mugimenduak, W. Kymlicka-k azaldu duenez, **multikulturalismoaren** arazoari buruzko hausnarketa bultzatu du. **Askoren artean**

## multilateral izond

elkarri loturik dauden hainbat zati edo alderdi dituenena.

Harreman **multilateral**en arauari jarraituz. Berria - Mundua

Babes taldearen ustez, konponbiderako gakoa «akordio **multilateral** bat» da. Berria - Euskal Herria

Akordio politiko **multilateral**aren bidez. Berria - Euskal Herria

Vigier auzi **multilateraletarako** arduraduna da Parisen. Berria - Harian

Instituzio **multilateralak** abiatzeko modua. Berria - Mundua

Erakunde **multilateral**en egoitza. Berria - Mundua

Estatu-nazioen arteko dependentsia militar **multilateral**a. Joseba Zulaika

Inbertsioen Bermerako Agentzia **Multilateral**a. Iñaki Heras

## multilateralismo iz multilateral izateko nolakotasuna.

Globalizazioan aurrera egitea, **multilateralismoaren** bidetik. Berria - Euskal Herria

## multimedia (orobat *multi media g.er.*) 1 izond

aldi berean komunikabide bat baino gehiago erabiltzen dituenena.

Gipuzkoako dantzei buruzko entziklopedia **multimedia**ki bost atal ditu. Berria - Kultura

Bestalde, ipuin **multimedia** bat erakutsiko dugu eta sariak banatuko. Herria

Laguntzak jasotzeko aukera izango dute homologatutako sistema **multimedia** bitartez euskara ikasten ari direnek. Berria - Euskal Herria

San Telmo museoa, Lene Bergek bideoa eta argazkia biltzen dituen ekintza **multimedia** bat aurkeztuko du apirilean. Berria - Kultura

Alde batetik, proiektu **multimedia** da, eta, bestetik, eta horrek bereziki interesgarri bihurtzen du, iraganeko nahiz egungo irudiak nahasten ditu teknologia berriei esker. Berria - Kultura

Windows sistema eregilearekin zabaltzen duten Media Player erreproduktore **multimedia**, esaterako, tinko defendatu zuen atzo. Batetik, gai bakoitzeko aurkezpen **multimedia** bat egiten dugu, eta ondoren ikasleek horren inguruan gaia lantzen dute. Berria - Gaiak

Euskari **multimedia** duten 20 pieza eta beste horrenbeste instalazio Berria - Kultura

### 2 (izen gisa)

Larunbatean, irratiak (bereziki Lucien Etxezaharretarekin), telebistak eta **multimedia**ki izanen dira aztergai. Herria

### 3 (dagokion izenaren ezkerrean)

Gaur egun badaude sekulako aukerak **multimedia** aplikazioetan. Patxi Iturritegi

Autoikaskuntzarako **multimedia** sistemak homologatzea. Berria - Euskal Herria

Frantseserat itzultzea eta **multimedia** euskarrian egokitzea, IKASek zabaltzen duen Fabula programa erabiliz. Herria

**Multimedia** tresna horiek beharrezkoak direla, eta gero-eta gehiago galdeginak, turismo sailean lanean ari direnentzat. Herria

Horieta 13 **multimedia** instalazioak dira eta 42 bideo lanak. Berria - Kultura

**Multimedia**-softwarean aipamen berezia *Azul* **Multimedia** software-etxearen Lurrazpiko kondaira CD-ROMak. Berria - Euskal Herria

Melkwegeko kafetegian, jatetxean, antzokian, zinema aretoan, arte aretoan, **multimedia** aretoan eta kontzertuetarako bi areto handietan. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
ikuskizun **multimedia** (3); **multimedia proiektuak** (3); **multimedia softwarean** (3)  
**logela multimedia** (5)

## multimillionario (orobat *multimillonario*) izond/iz milioi asko dituenena.

-Beraz, zure aita **multimillonarioa** da. Joan Mari Irigoien

Karl Dombrowski **multimillonarioaren** alaba gazteena zen hura. **Multimillonario** batekin hasi zara harremanetan, ez dago batere gaizki! Oskar Arana

## multimillionario ik multimillonario.

## multimodal izond

hainbat garraio mota biltzen dituenena. ik **intermodal**.

Arasurreko proiektu estrategikoen artean errepide, trenbide eta portuen artean merkantziak mugitzeko geltoki **multimodala** sortzea dago. Berria - Ekonomia

2005eko udazkenean enpresaren bat lanean hasi ahaliko da merkantzien garraioko plataforma **multimodalean**. Berria - Ekonomia

## multinazional (orobat *multi(-)nazional g.er.*) 1 izond

hainbat herrialdetara hedatzen dena.

Estrategia **multinazionalak**, globalizazioa eta erregionalizazioa. Koro Navarro

Estrategia **multinazionala**etik estrategia globaletara. Koro Navarro

Teoria honek [...] orobat azaltzen ditu ondo herrialde industrializatuaren arteko nazioarteko zuzeneko inbertsio gurutzatuak, internalizazio **multinazional** horren ondorioa direnak. Koro Navarro

Azterlan teoriko globalak alde batera utzi, eta munduko prezioek nazio-ekonomien gainean eragiten dituzten efektuak enpirikoki aztertzen, nazioarteko egoeraren diagnosi zehatzagoak egiten eta eredu **multinazionalak** eraikitzen hasi ziren. Koro Navarro

Zeren hartzaileek mailegua ordainduko ez dutelako arriskua ez baitago jadanik elkarri estu lotutako banku **multinazional** gutxi batzuetan kontzentratua. Koro Navarro

### 2 enpresez eta kidekoez mintzatuz, burua herrialde jakin batean izanik, ekoizpen eta merkataritza jarduera beste hainbat herrialdetara hedatzen duena.

Talde horiek atzerrian ere zabaltzen jarraitu zuten, eta nazioarteko dimentsioa hartu zuten; hala, hortik etorri zen "enpresa **multinazional**" izendapena, ez oso egokia, baina bai ohikoa. Koro Navarro

Sindikatuak ez dira ongi egokitu globalizaziora eta enpresa **multinazionala**etara. Berria - Ekonomia

Horrez gain, enpresa **multinazional** edo transnazionalak dira globalizazio prozesuaren agente gidari nagusi. Iñaki Heras

Marka **multinazionalak** frankiziak ezartzen dituzte munduko zehazki baxterretan. Edorta Agirre

Union Carbide konpainia **multinazionalaren** burua zen Anderson, 1984ko abenduaren 2tik 3rako gauean enpresak hodei toxikoa aireeratu zuenean hirian. Berria - Gaiak

### 3 (izen gisa) enpresa multinazionala.

Non gelditu ote dira Henry Ford, bere izena daraman **multinazional** handiaren sortzailearen hitz pragmatiko haiek: [...]. Iñaki Heras



**Multinazional** zanpatzailearen kontra. Iñaki Heras  
«Euskal **multinazionalak**» deitzen die txostenak, %95ek filialen bat dutelako atzerrian. Berria - Ekonomia

Nike **multinazional** ospetsuaren kontrako kanpaina, arras ezaguna bilakatu da. Iñaki Heras

**Multinazionalak** mundua menderatzeko bidea da globalizazioa. Iñaki Heras

Errealitate "handiaren" aurrean, hau da, gerren, torturen, indarkeriaren, **multinazionalen**, arrazismoaren, [...] eta horien guztien aurrean, idazlearen ahotsak ezer gutxi lor dezake. Ana Urkiza

Enron **multinazionalaren** iruzurra eta gainbehera AEBen garai baten sinboloa bihurtu da. Berria - Ekonomia

Ezin dugu ahaztu talde txikia dela, eta ez dela erraza oraingo futbolaren **multinazionalekin** lehiatzea. Berria - Kirola

Han plantatua den Kayaba japonesez **multinazionalak** 209 langile kanpora lezazke ondoko denboretan. Herria

Munduko merkatu berrietan kokatu nahi duten mini-**multinazional** gipuzkoarrei. Berria - Ekonomia

Gainera, informatika **multinazional** handiek interes gutxi jarri dute proiektuan Berria - Gaiak

#### 4 hainbat naziok osatua.

Spainiarri ere holako zerbaite ari zaio gertatzen bere "nazio"ekin: badirela aitortu behar du, gainerakoan, beldur da historian zehar osatutako Estatu **multinazionala** hautsi egingo ote zaion. Joseba Zulaika

##### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**enpresa multinazional** (11); **multinazional estatubatuarra** (4)

**aebetako multinazionalak** (3); **alemaniako multinazionalak** (4); **bsh multinazionalak** (3); **enpresa multinazionalak** (5); **newell multinazionalak** (3); **siemens multinazionalak** (3)

**multinazionalaren esku** (3)

**connex multinazionalari** (4)

**enpresa multinazionalari** (5)

**enpresa multinazionalak** (13)

**enpresa multinazionalen** (19); **enpresa multinazionalen jardueren** (4); **multinazionalen esku** (9); **multinazionalen interesak** (4); **multinazionalen menpe** (3); **multinazionalen mesedetan** (3)

## multinazionalizazio 1 iz

"**Multinazionalizazio**" hitzak enpresek merkatu nazional desberdinetan filialak sortzen dituztela adierazi nahi du, filial horien jatorri gehienetan nazioak arazo azpimarratuz. Koro Navarro

#### 2 (hitz elkartuetan)

Enpresa horien **multinazionalizazio** edo transnazionalizazio maila areagotzen ari da azken urteetan Nazio Batuen datuen arabera. Iñaki Heras

## multinstrumentista izond musika trensa asko jotzen dituen.

Orain dela hiru urte Donostian jo zuen, eta orain Bilbon izango da, eta bi lagun besterik ez ditu izango ondoan (David Lindley **multinstrumentista** Brownen betiko kolaboratzailea eta Tino di Geraldo perkusionista). Berria - Kultura

## multi-periferiko izond

Aurkezleak gure hizkuntza periferikotzat aurkeztu zuen eta nik esan nion **multi-periferikoa** dela, hain zuzen ere, Madrilen periferian dagoen bezala, Parisen periferian ere badagoela eta, hizkuntza erregionala barik, gurea hizkuntza transpirinekoa dela. Edorta Jimenez

## multi-pista iz hainbat soinu iturburu bereiz grabatuz eta gero batuz lortzen den grabazioa.

Irratsaio oso bat **multi-pistaz** eta ordenadorearen bidez grabatzen eta sarearen bidez bidaltzen ikasi zuten atzo UEUko ikasleek. Berria - Euskal Herria

## multiple izond anizkuna.

Telebistan behin, hiltzaile **multiple** bati buruzko erreportaia ikusi zuen. Berria - Kultura

Errebote **multipleak** eman eta gero. Unai Elorriaga

Haurdunaldi **multipleak** saihesteko. Berria - Euskal Herria

Gaitz terminalak jota daudenen eta hiesa, artiritra, minbizia, esklerosi **multiplea** eta epilepsia duten gaixoen dute kalamua tratamendu gisa baliatzeko baimena. Berria - Harian

## multiplikatu, multiplika, multiplikatzen du ad ugaritu, askotu.

Orain badaikit inon ere ageri ez ziren asmoak edo esanahiak bilatzen nituela pelikuletan edo liburuetan, kaleidoskopio batean bezala **multiplikatzen** nituela berez adiera bakarrekoak ziren eszenak, interpretazioak, hitzak. Anjel Lertxundi

Gerran, gainera, **multiplikatu** egiten dira portaera larriak. Berria - Kultura

Jacques semerik zaharrenak legeak hartu zituen trepetatzat, eta izen bat lortu ere bai gerra aurreko urte nahasi haietan, ekialdeko juduen diru eta ondasunak legepean gorde eta **multiplikatu**. Felipe Juaristi

Isiltasunaren barne-ispiluak ematen digun irudi hutsak izaturik, ispilua mila puska egiten dugu, mila ispilutan **multiplikaturik** hutsetik infinitura pasatuko garen esperantzaz. Joxerra Garzia

Gaita batek hiru edo lau soinu ezberdin ateratzen ditu, beraz gaiteiro batek **multiplikatu** egiten du bere presentzia, hiru edo lau gizonen zarata ateraz. Pako Aristi

Biolin gerezi-koloreak, biolin gerezi-usainekoak hitz egiten baitzuen bere orde, biolinaren doinua baitzen haren ahotsa, mila bider **multiplikatu** ordea. Felipe Juaristi

## multiplikatzailer iz ugaltzailea, biderkatzailea.

Hazkunde areagotzen den heinean, era berean, are baliabide gehiago izango da ingurumenaren defentsan gastatzeko eta horrela jarraian **multiplikatzailer** ekologikoa).Ingurumenaren defentsa, hazkunderako **multiplikatzailer** ez izateaz gainera, oztopo handia ere bada ekonomia hazkunderentzat. Iñaki Heras

## multiplikazio ik multiplikazio.

## multiplikazio *(corpusean multiplikazio eta multiplikazioe soilik)* 1 iz biderkaketa.

Sumak eta errestak orain, **multiplikazioak** eta dibisioak gero, guztiak nahasirik batzuetan. Joan Mari Irigoien

## 2 ugaltzea.

Edozein filmetako eszenarik deigarrienari ez deitso zorrik soinu bakarraren **multiplikazio** endredoso honek. Xabier Amuriza

## multiplikazioe ik multiplikazio.

## multiplizitate iz ugaritasuna, aniztasuna, askotarikotasuna.

*Tractatusean* ezartzen diren erregela zurrunen ordez, erregelen **multiplizitatea** defendatuko du Ikerkuntzetan, hizkuntza joko askoz osatutako joko bat dela esango du.

Askoren artean

Gertakariak subjektuarengan hasi duen prozedura aldatzailea ez da amaizten, izaeraren **multiplizitatearekin** du zerikusirik, eta azkenik pentsamenduak berea duen infinituarekin lotua dago. Joseba Zulaika

Jainkoaren esentziari dagokio Batasun Hutsa izatea, ez zaio gehitzen ez kantitaterik ez **multiplizitaterik**, ez eta pentsamendu mailan ere; eta Jainkoagan dagoen guztia Jainkoa bera baizik ez dela. Joan Mari Lekuona

Sar zaitetz eta eraman Harenganaino zure **multiplizitatearen** azkengabeko izaera ulertezina, Berak sinplifika dezan bere esentziaren singletasunean. Joan Mari Lekuona

## multiplo iz anizkoitza.

Neure buruari laguntzeko, hatzak erabili nituen hamarraren **multiplotzat**. Xabier Olarra

Oinarrizko maiztasun horretaz gainera, ahoskorden zati txikiagoen mugimenduari dagozkion maiztasun harmonikoak daude, oinarrizkoaren **multiplo** osoak. Lourdes Oñederra

-Bi magnituderen artean erlazioa dago baten **multiplioek** bestea gainditzen duten bakoitzean. Jon Muñoz

Bada beti txikiaren **multiplo** bat, handiena baino handiagoa dena. Jon Muñoz

Eta MKT, bestea bezain ospetsua, **Multiplo** Komun Txikiena! Jon Muñoz

## multipolar izond hainbat polo dituena.

Ez dago bakar bat bakarrik aipaterik, **multiplolarra** bihurtu da bertsolaritza. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## multitinbriko izond hainbat tinbre dituena.

Pandero politinbrikoaren eta pandero **multitinbrikoaren** asmatzailea da Rizzo, baina sofistkaziorik gabeko panderoak ere menderatzen ditu. Berria - Kultura

## multitudinario izond lagun asko biltzen dena.

Zutaz gogoratu naiz liburu hau liburudenda zahar batean ikusi dudanean, zutaz, afari **multitudinario** hartan suizidiotik salbatu ninduzulako poeta honi buruz nerekin bakarrik hizketan. Lourdes Oñederra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**afari multitudinario** (3)

## multizefalo izond hainbat buru dituena.

Klona **multizefaloak**, arrain transgeniko oihukariak, genetikoki aldatu artaburu txapeldunak. Itxaro Borda

## multizerbitzio ik multizerbitzu.

## multizerbitzu *(orobat multizerbitzio g.er.)* iz hainbat zerbitzu eskaintzen duena.

**Multizerbitzu** zentroa eta azpian ukanen duen 40 tokiko aparkalekua. Herria

Duela urte bat estreinatua ginuen **multizerbitzu** zentro berria. Herria

## multizine iz pl zinema areto txikia, bera bezalako beste hainbati atxikia.

**Multizineen** aurrean zegoan, giltza kontaktuan jarria eta depositua beteta. Patxi Iturritegi

Pizzeriatik atera ostean, berriro zeharkatu zuen plaza eta bat-batean **multizine** batzuen ondoan aurkitu zen. Joxemari Iturralde

## multizuntz iz zuntz asko biltzen dituen kablea.

Hartzen duen eremua nekazaritza-gaietara zabaldu da bereziki, eta, hala, asko murriztu da diruz lagundutako esportazioen bolumena, eta orobat zabaldu da ehungintzarena; horren ondorioz, hamar urteko epean **multizuntzen** gaineko akordioak desegin behar dira. Koro Navarro

## multxo ik multzo.

## multxoka ik multzoka.

# multxoki iz

Meza nagusi bat guziz ederrean komuniantez parte hartu dute irakurtzeak eginez bai eta kantikak emanez edo denek betan edo **multxokia** eta ere bakarka. **Herria**

## multxoño ik multzoño.

**multzo** (*orobat moltzo g.er., multxo g.er. mutxo g.er. eta mulxo g.er.*) **1** iz mota bereko gauzez, bizidun nahiz bizigabeez, osaturiko bilketa. ik **talde**.

Erdian, berriz, bada **multzo** bat Nafarroak, Gipuzkoak eta Lapurdik osatua. **Koldo Zuazo**

Harrapakin ugari hartu eta bi **multzo** berdinetan banatu zuten. **Elizen arteko biblia**

Maupassanten ipuinetako gaiak hiru **multzo** handitan sailkatu ohi dira: [...]. **Josu Zabaleta**

Hiru **multzo** erabili dira hemen inibertsitateen gastua aztertzeko, inbestimenduei, soldatei, eta jarduera arruntari dagozkienak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Zortzi **multzo** nagusitan bilduko ditugu arauok. **Koldo Zuazo**

Idealismoaren arabera mundua gogo-egoeren **multzoa** da. **Askoren artean**

Izenburuak aztertzeari ekin zion Perrettek **multzo** bat eta bestea zertan bereizten ziren ulertzeko. **Jon Muñoz**

Erromako eta Greziako mitologian sarri ageri da erlea **multzoan**, jainko-jainkosen ekintzen inguruan. **Pello Zabala**

Gizon eta animalien **multzo** haren guztiaren gainean, sekulako denda pilaketa haren gainean, zedroek eta pinuek, talde trinkoetan bildurik, itzal atsegina ematen zuten. **Karlos Zabala**

Paperezko poltsa bat ireki eta bertatik orri solteek osaturiko **multzo** bat ateratzen du. **Jon Alonso**

Makina egurrez egindako **multzo** sendo bat da, batez ere pisuak mugitzeko ahalmena ematen duena.Herri-sarreran, ezkerrean, gaztelu xahar bat eta eguzki-lore erraldoizko **multzo** batzuk ikusten ziren. **Santiago Iruetagoiena**

**Multzo** bereziak osatzen dituzten gene erregulatuzaileen eraginpean. **Juan Garzia**

Hiru herrialdeotako landareak sailkatzeko, 2.300 **multzo** (taxon) erabiltzen dira. **Berria - Gaiak**

Hona **multzoak** : A **multzoan**, Peru, Kolonbia, Venezuela eta Bolivia; B **multzoan**, Argentina, Uruguai, Mexiko eta Ekuador; C **multzoan**, Brasil, Costa Rica, Paraguai eta Txile. **Berria - Kirola**

Aurrera egiten dutenek bosnako **multzoetan** jokatu dute ligaxka. **Berria - Kirola**

Eta **multzoan** etortzen dira zuregana, eta nire herria zure aurrean esertzen da. **Elizen arteko biblia**

Denek bazekiten euskaldunei laket zaiela **multzoan** kantatzea. **Elena Touyarou**

**Multzotan** pilatu zituzten eta kiratsez bete zen lurralde osoa. **Elizen arteko biblia**

Atal eta **multzoetan** bereizi. **Berria - Kultura**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Antzekotasunaren legea: forma edo tamaina bera duten elementuak aiseago pertzibitzen dira **multzo**-forma beraren osagarri gisa. **Josu Zabaleta**

Aintzat hartu behar da **multzo**-soiltze horiek (- kt - > - t -) egiten zituztenak alfabetatu gabeko hitzunik izaten zirela sarri. **Lourdes Oñederra**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; pertsonak)

Gizabanakoek ez dakite bakarrik egoten, eta horregatik sortzen dituzte giza **multzo** absurdoak. **Anjel Lertxundi**

Jende-**multzo** handiek jarraitu zioten eta Jesusek gaixoak sendatu zizkien. **Elizen arteko biblia**

Hamalau bat urteko haur **multzo** bat zen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ikasle **multzo** bat gure etorkizun profesionalaz ari ginen ikastetxeko patioan. **Aingeru Epaltza**

Kalez kale ibiltari **multzo** mordoxka topatu dut, baserritarrez jantzirik eta askotan trikitia lagun. **Txillardeggi**

Correa tenientea, arma luzeak dakartzan soldadu-**multzo** baten buru eginik, Finca Vigiara agertu da. **Edorta Jimenez**

Eliz atarian behartsu-**multzo** handia ikusirik, [...]. **Askoren artean**

Egon ere, egon da Homeroren azpian autore bat, edo bi edo autore-**multzo** bat antzematen ahalegindu dena. **Askoren artean**

Horiei juntatzen zela Zirikolatze taldeko gazte **mutxo** on bat, mutil eta nextako. **Herria**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; gauza fisikoak)

Behingoan, zuhaitz **multzo** sarri baten aldamenean, etxe isolatu bat begiztatu zuen. **Karlos Zabala**

Begiratu sagar **multzo** bati eta esaten zuten, sagar mota bakoitza bereiziz: hau, espuru", "hau, domentxa", "hau, gezeta". **Bernardo Atxaga**

Urratsez urrats eraikitzen da arkitektura hori, eta gene **multzo** berezi baten kargu dago urrats bakoitza. **Juan Garzia**

Aski izan bedi esatea zelula **multzo** batzuk [...] kolorea pertzibitzen espezializaturik daudela. **Josu Zabaleta**

Ordurako, nire lehengusua haragi **multzo** odoltsu bat besterik ez zen, hilotz. **Juan Kruz Igerabide**

Halako txoritar beltz-ubel saldo oso bat errai-**multzo** bati tiraka, hara eta hona, beren moko odoleztatuei sarrats-litsak zerizkiela. **Joxe Austiñ Arrieta**

Trenak geldirik txatarra **multzoen** artean. **Harkaitz Cano**

Bere ingurura begiratu zuen gelan, beste biak giltza-**multzoari** begira-begira zeuden bitartean. **Iñaki Mendiguren**

Aire **multzo** bat hersketa bien arteko eremu itxi batean gelditzen da orduan. **Lourdes Oñederra**

Katedrala harri **multzo** baten oso bestelako gauza da. **Josu Zabaleta**

Berak sortzen ditu konstelazio eta zeruko izar-**multzo** guztiak. **Elizen arteko biblia**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; bestelakoak)

Eduki zehatzik gabeko hots-**multzo** egoki-usteak. **Anjel Lertxundi**

Latinetiko historian ulertzen dira hots berari dagozkion letra **multzo** horiek: v-b (vaca-bajo), c-z (cereza), c-k-qu (culebra, kilo, quiebra). **Lourdes Oñederra**

Hitz **multzo** edo esaldi palindromoak bilatzea lan neketsua da. **Iñaki Arranz**

Paragrafoa esaldi-**multzo** bat da, argudio, auzi edo gai baten arabera baturiko esaldi-multzoa, alegia. **Askoren artean**

Izaki batean beha daitezkeen eta bere genotipoak eta inguruneak baldintzatutako karaktere-**multzoa** da fenotipoa. hitz horietako kontsonante **multzoetatik** (*gl, lg, gn* eta abar). **Berria - Gaiak**

Ez da ederra, desorekatuak ditu masa-**multzoak**, baina, ez baitut emakumea kitzikatu nahi, baietz egin diot buruaz. **Anjel Lertxundi**

OR erabili beharko duzu erreferentzia-**multzoak** gainjartzea nahi baduzu. **Askoren artean**

Horrelako "figurak" [...] ulertu ahal izateko, irudikapen-konbentzio **multzo** bat ezagutu eta onartu beharra du ikusleak. **Josu Zabaleta**

Ekonomian merkatua tresna **multzo** bat dela esaten da, erosleak eta saltzaileak harremanetan jartzen dituen tresna multzoa. **Iñaki Heras**

-Pentsamendu bakarra ekonomia-indar **multzo** baten interesen isla da, guztia ere termino ideologikoetan unibertsala izateko asmoz zabalduakoa. **Iñaki Heras**

**5** matematikan, tasun jakin batzuk izan ditzaketen, eta beren artean edo beste multzo batzuetako elementuekin halako erlazioak izateko gai diren elementuen bilketa, kopuruz amaidun edo amaigabea izan daitekeena.

Zenbaki errealean **multzoan**, ezin zen zenbaki negatibo baten erro karratua atera. **Jon Muñoz**

Interpretazio-eremua zenbaki arruntan **multzoa** bada, eta "txikiagoa izan" bada, s=<1, 3, 5,... > segidak x0x2 formula asetzen du, 1 (x0-ren balioa), 5 (x2-ren balioa) baino

txikiagoa delako, hau da, 1<5 betetzen delako. Askoren artean

**Multzoek** identitate-irizpide garbia dute, unibertsalek ez bezala: A eta B **multzo** bera dira elementu berak baldin badituzte. Askoren artean

Proposizioen logika eta logika elementala ondo lantzen ditu, **multzo**-teoriari buruzko parte bat ere badu. Askoren artean

•  $A1=xn \cdot N$ : aldagai indibidualen **multzo** infinitua izango da, infinitu zenbakigarria, hau da, zenbaki arrunt bezainbeste aldagai izango ditugu. Askoren artean

Kasurik arruntenean **multzo** hau ere finitua izango da. Askoren artean

**Multzo** hutsa ere izan daiteke. Askoren artean

D **multzo** Askoren artean

Analisi konbinatorioa (**multzo** baten elementuak konbinatzeko era guztiak aztertzea). Jon Muñoz

D eta D' zuzen ebakitzaille bikotean, AA', BB', CC', lerro paralelo **multzoak** proportzioan dauden zuzenkiak ebakitzen ditu. Jon Muñoz

## 6 multzo buru ik multzoburu.

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aitzin multzo** (18); **aitzin multzo indartsua** (5); **arau multzo** (14); **arau multzo bat** (8); **azken multzo** (4); **datu multzo** (4); **enunziatu multzo** (19); **enunziatu multzo bat** (8); **enunziatuen multzo** (5); **eraikin multzo** (5); **etxe multzo** (12); **gazte multzo** (4); **gene multzo** (4); **giza multzo** (6); **gizon multzo** (11); **gutun multzo** (5); **harreman multzo** (5); **harri multzo** (4); **herritar multzo** (6); **hitz multzo** (8); **hizkuntza multzo** (4); **ikasle multzo** (5); **irudi multzo** (5); **izar multzo** (5); **jende multzo** (88); **jende multzo bat** (21); **jende multzo handi** (8); **jende multzo handia** (9); **jokalari multzo** (6); **kontsonante multzo** (4); **lagun multzo** (7); **letra multzo** (10)

**multzo bakarra** (6); **multzo bakoitzak** (6); **multzo bakoitzaren** (4); **multzo bakoitzean** (14); **multzo bakoitzeko** (56); **multzo bakoitzetik** (6); **multzo bat sartu** (4); **multzo bera** (7); **multzo berean** (29); **multzo buru** (4); **multzo desberdinetan** (4); **multzo ederra** (4); **multzo ezberdinetan** (5); **multzo gisa** (10); **multzo gogorra** (4); **multzo gotorra** (4); **multzo handi** (50); **multzo handi bat** (26); **multzo handi batek** (4); **multzo handi baten** (4); **multzo handi bati** (5); **multzo handia** (26); **multzo handiak** (9); **multzo handitan** (5); **multzo indartsua** (5); **multzo izugarria** (4); **multzo jakin** (6); **multzo nagusia** (5); **multzo nagusitan** (7); **multzo oso** (8); **multzo oso bat** (5); **multzo osoa** (5); **multzo osoak** (4); **multzo osoaren** (4); **multzo osoari** (5); **multzo polita** (5); **multzo txiki** (9); **multzo txiki bat** (4); **multzo zabal** (5); **multzo zabala** (7)

**objektu multzo** (5); **osatutako multzo** (6); **paper multzo** (8); **pertsona multzo** (4); **taldeko multzo** (4); **zeinu multzo** (9); **zelula multzo** (6); **zuhaitz multzo** (4)

**a multzoa** (19); **agerpen ororen multzoa** (5); **aitzin multzoa** (10); **arau multzoa** (6); **b multzoa** (32); **c multzoa** (20); **d multzoa** (8); **e multzoa** (5); **etxe multzoa** (8); **f multzoa** (7); **g multzoa** (4); **gazteen multzoa** (7); **h multzoa** (5); **heriotzaren multzoa** (4); **hiztunen multzoa** (4); **jende multzoa** (16); **jokalari multzoa** (8); **multzoa osatzen** (10); **nagusien multzoa** (7); **objektuen multzoa** (4)

**enunziatuen multzoak** (4); **jende multzoak** (9); **kontsonante multzoak** (6)

**a multzoan** (46); **aitzin multzoan** (9); **b multzoan** (45); **c multzoan** (11); **d multzoan** (9); **e multzoan** (4); **ekialde multzoan** (4); **f multzoan** (6); **g multzoan** (5); **gazteen multzoan** (9); **nagusien multzoan** (15); **onenen multzoan** (4)

**jende multzoaren** (5); **multzoaren buruan** (4)

**multzoen artean** (6); **multzoen arteko** (4)

**a multzoko** (44); **aitzin multzoko** (10); **aitzin multzoko lehen** (4); **asegarceren multzoko** (4); **aspeko multzoko** (7); **b multzoko** (39); **bere multzoko** (12); **c multzoko** (14); **d multzoko** (14); **euren multzoko** (6); **f multzoko** (7); **g multzoko** (10); **gazteen multzoko** (9); **multzoko bigarren mailako** (4); **multzoko bigarren postua** (9); **multzoko finala** (7); **multzoko kanporaketa** (6); **multzoko lau selekzioak** (4); **multzoko lehen postua** (25); **multzoko lehen postuan** (12); **multzoko lehena** (5); **multzoko lehenak** (5); **multzoko lider** (4); **multzoko lidergoa** (8); **multzoko liderra** (7); **multzoko sailkapenburu** (4); **multzoko talde** (17); **multzoko talde eskasena** (4); **nagusien multzoko** (10); **nagusien multzoko kanporaketa** (5); **txapelketako b multzoko** (4)

**b multzokoak** (4)

**a multzokoan** (8); **b multzokoan** (4); **multzokoan lehen jardunaldia** (4)

**bi multzotan** (84); **bi multzotan banatu** (10); **bi multzotan banatuta** (31); **bi multzotan sailkatu** (4); **hiru multzotan** (11); **hiru multzotan banatuta** (5); **lau multzotan** (14); **lau multzotan banatuta** (5); **taldeko bi multzotan** (4); **zein multzotan** (6); **zein multzotan ariko** (4)

## multzoburu *(orobat multzo buru) iz* txapelketetan era kidekoetan lehiakide multzo baten burua dena.

2005eko txapelketan, ligaxkakoa azken sailkatuek oso estu hartu zituzten **multzoburuak**. Berria - Kirola

Lehen multzoan Abadiño B eta Gatika izango dira **multzoburuak**, eta bigarren multzoan, Altamira eta Abadiño A. Berria - Kirola

**Multzoburu** amaituko balu, beste multzoko hirugarrenaren kontra ariko litzateke, eta itzuliko partida etxean jokatu luke. Berria - Kirola

Denboraldiko lehen kanporaketari begira, Athleticek ekainean jakingo du UEFA Kopako **multzo buru** den edo ez. Berria - Kirola

## multzoka *(orobat multxoka) adlag* multzoetan.

Zikoinak airean hegaka hasi ziren, **multzoka**, lurralde berri baten bila. Felipe Juaristi

Gainera, **multzoka** bildu izan zitzaion jendea bidali egin zuen. Elizen arteko biblia

Parkea bakoitzak bisitazien ahal du bere gosturat bainan ere **multxoka**, segitzaille batekin. Herria

Jendeak leihotik beha daude edo **multzoka** biltzen dira, erran-merran. Michel Oronoz

Sartzeko deiaren zain zeudela, soldaduak inguratzten hasi ziren **multzoka**. Jose Antonio Mujika

Baina **multzoka** aztertuz gero, askoz sakabanatuago egon arren autodeterminazioaren aldeko multzoa nagusi da (822.191 boto) PSOE-PP multzoarekin alderatuz gero (804.414 boto). Berria - Euskal Herria

Frantziako Iraultza handiaren keinka hartan, Frantzia guziaz zatikatu zuten departamenduka, untsa okerki eskualde batzuetan segurik, eta departamenduetan herriak **multzoka** ezarri, multxo horiek deituz preseski kantonamendu. Herria

## multzokada iz multzo handia.

«Ukrainako alde guztietatik gudi, auto, hegazkin eta trenetan dozenaka mila jende hona iristen ari da», esan zion jende **multzokada** bati Kieveko Independentzia plazan.

Berria - Mundua

## multzokatatu, multzoka(tu), multzokatzen du *ad* multzoetan bildu. ik multzotu.

Pixkanaka, **multzokatuz** doaz eta ate automatikoaren irekialdi batean hogei bat atera dira elkarren ondoan, elkarren segidan. Lourdes Oñederra

Azkenean, adostasunera iritsi gara galderak **multzokatze**ko: lehenbizi, zientziari dagozkionak; gero, politikari dagozkionak. Juan Garzia

Objektu sakabanatuak elkarrengana osagarritasun espiriturik galdu gabe, **multzokatze**ko gaitasuna erakusten dute, era berean. Berria - Kultura

Armairuan marfilezko kutxabto batean **multzokatuak** zituen billete berriak. Patxi Zubizarreta

Anartean, Darfurko mugetan edo Txad herrialdean **multzokatuta** dauden ehunka mila iheslariei premia gorritz lagundu behar zaiela aldarrikatu du Annanek. Berria - Mundua

Zoramen ezberdinak, psikiatriaren gai diren neurrian, banatzen dira, kontrajartzen, elkarrekin lotzen, **multzokatzen**, sailkatzen eta bata bestetik erortzen dira. Xabier Arregi

Zutabe hauek, aldi berean, hiperzutatetan daude **multzokatuta**. Josu Zabaleta

## multzokatze *(orobat mutxokatze g.er.) 1 iz* multzoetan biltzea.

Kezka izan behar dugu, halaber, zatiketa eta **multzokatzeekin**, euretara ohitua gauzatenak. Xabier Arregi

Era horretara osatu diren sintagma mailako **multzokatzeen** artean, elkar mendekotasunezko lotura bat dago. Isabel Arrigain

Enuntziatuen **multzokatze** hauek guztiak, oraindik deskribatzeko daudenak, ez dira mundu ikuskera baten adierazpena, hitzen formarekin landutakoa, eta ez dira, halaber, teoria baten aitzakiaren pean mozorrotuko litzatekeen itzulpen hipokrita. Xabier Arregi

Kezka izan behar dugu, halaber, zatiketa eta **multzokatzeekin**, euretara ohituta gauzkatena. Xabier Arregi

## 2 (hitz elkartuetan)

Azalerarik gabeko puntua, baina koka daitekeena banaketa-puntuetan eta **multzokatze** forma berezietan. Xabier Arregi

- Kontsonante **multzokatzearen** kontrako murrizketa zabalagoren bat. Lourdes Oñederra

## multzokide *iz* multzo berekoa.

Bosteko multzoan taldeek partida bakarra jokatuko dute beren **multzokide** bakoitzaren aurka, zozketak erabakitako zelaian. Berria - Kirola

Olympiakos: Tauren **multzokidea** izan da lehen fasean. Berria - Kirola

Lisboako Sporting edo Benfica ere izan daitezke zuri-gorrien **multzokide**. Berria - Kirola

## multzokor *izond*

Totteri errana tanpez dolutu zitzaion, ezen taldearen ihardespena **multzokorra** suertatu baitzen: [...]. Itxaro Borda

## multzoño (*orobat multxoño*) *iz* multzo txikia. ik **multzotxo**.

80 laborari bildu dira karia hortarat eta **multxoño** bat mintzatu da laborantza zerbitzburuekin, bere arrangurak agertuz. Herria

*Duar* izena merezi ez duen etxe **multzoño** bat hauteman duzue. Aspaldiko Salazar zenaren diktatura orduantxe zen bururatu, kapitain **multxoño** baten jazarketa zela medio eta geroztik da Portugalen ere demokrazia bat, beste herrialdeek ezagutzen dituztenen parekoa. Xabier Montoia

## multzotu, multzo(tu), multzotzen da/du *ad* multzoan bildu. ik **multzokatu**.

Turista aleman talde oso bat hantxe zegoen **multzoturik**, apaiz katoliko bat gidari, denak ere elkarri ia bultzaka erliebe bati begira. Joxe Austin Arrieta

Ortzaizean **multzoturiko** kumulu-ninbo astunak airez, sabelak hurrez bezala, husten eta hertzen ziren. Itxaro Borda

Ikuspegi eta metodologia desberdinen adierazgarri baziren ere, konstruktibismo sozialaren zigilupean **multzotu** ditzakegun lanok oinarritzko ezaugarri komun batzuk partekatzen zituzten. Ibaiertzean jendea **multzotuta** zegoen buztina batzen eta berarekin belarriak estaltzen. Askoren artean

## multzotxo *iz* multzo txikia. ik **multzoño; multzoxka**.

Presondegri bakoitzean «euskal militante **multzotxo** bat» baizik ez dagoela argitu du. Berria - Euskal Herria

Baliteke hirugarren **multzotxo** bat izatea: hizkuntza nolabait "menderatu" arren, eskolatugabeak direnek osatzen dutena. Koldo Zuazo

Alzheimer doktoreak haren burmuinean ohi baino neurona gutxiago aurkitu zituen, eta proteinaz osatutako **multzotxo** batzuk neuronen zitoplasmatan. Berria - Harian

## multzoxka *iz* multzo txikia. ik **multzotxo**.

Zeru-sabai garbi horretara begiak luzatu orduko, gau argia denean, noski, izar multzoak ikusten ditugu, eta badakizue **multzoxka** horiei izen bereziak eman zizkietela aspalditik: Hartz handia eta Hartz ttikia, adibidez, hor dira goian ongi kokatuta. Pello Zabala

mulu ik **muilo**.

mulxo ik **multzo**.

mun ik **muin**<sup>2</sup>.

## munarri *iz* mugarrria.

Iluna izanikan ere sumatzen ditut bide bazterrean binazka eta usu landatuak diren Caminoko **munarriak**, horien artetik pasatzen naizelarik. Piarres Aintziart

Batzuk, heriotzaren **munarri** bistaratuek ikaraturik, euren gizon seinaleak burdinaz moztuta bizi ziren, eta beste batzuek, ez esku ez hanka, hala ere, bizi nahi zuten. Xabier Amuriza

## mundakar *izlag/iz* Mundakakoa, Mundakari dagokiona; Mundakako biztanlea.

Barojak, itsasoaren gaiarekin idatzi zituen eleberrietako batean, Basterretxea bat, **mundakar** jatorriko negrero jatorizat du aipaturik. Edorta Jimenez

Juan Leon Kruzalegi artista **mundakarrak** ostera koadro ederra eman zuen errifarako. Edorta Jimenez

**Mundakarra** zen bera eta ordurako hasia zen /ea/ jatorri zuten *ia* bilkuretan ere kontsonantea eransten. Lourdes Oñederra

Mundaka zela Zona Nazionalera irteteko hautaturiko lekua, izatez itsasertz **mundakarra** halako operazioak egiteko leku arriskutsua zen arren. Edorta Jimenez

## mundano *izond* mundutarra.

Nahiz andre **mundanoa** izan Obabako andre gehienez aldean, tabakoa erretzen zuena eta autoa gidatzen zekiena, erlijioari atxikita bizi zen, eta ez zuen katolikoa beste moralik onartzen. Bernardo Atxaga

Publiko **mundanoago** batentzat, iaz arrakasta izan zuen opereta batetik ateratako vals bat ere badago. Pablo Sastre

## mundial 1 *izond* mundukoa, munduari dagokiona. ik **mundu** 7.

Baina ez dituzte zailtasun partez fenomeno hori eragiten duten legeak eta ordena **mundiala**. Joseba Urteaga

Desordena eta desastre **mundialean** bizi beste erremediorik ez diagu. Patziku Perurena

Erronka kontinentaleri (eta **mundialei**) begira, proiektu kontinentalak landu behar direla. Berria - Euskal Herria

Onerako edo txarrerako, merkatu **mundialak** gobernatuko du oso-osorik mundua. Iñaki Heras

Lehen gerla **mundialean**, 1914tik 1915era infanterian hamazazpi urterekin boluntario. Berria - Kultura

Txominek bertze harremanik izan zuen bigarren gerla **mundialarekin**. Eneko Bidegain

Bigarren gerra **mundialeko** beteranoa. Iñaki Zabaleta

Azkenik, Dopinaren Aurkako Agentzia **Mundialaren** erabakia dago. Berria - Kirola

## • 2 (izenlagun gisa; ipar)

Ez ditu alabainan bakarrik abantailak **mundial** hedapen horrek. Herria

Erran behar da Janariari **Mundial** Elkarteare ere kezkatua dela izurrite hortaz. Herria

## 3 adkor berebizikoa.

Koadrilako afari **mundial** baten ostean izan zen; giroa aparta zen, eta Kontxako hondartzan amaitu genuen, goizeko seiak aldera. Iban Zaldúa

Eta gu hura **mundiala** izatea nahi zutenek, onena zurrutean hastea izango zela bururatu zitzaion. Patxi Zubizarreta

**Mundiala** da speed hau! Unai Iturriaga

Patatak txorizoarekin, **mundialak**, egundoko platerkada ederra zerbitzatu zidan Ixabelek. Joxean Sagatzizabal

Baita neska ilehori bat ere, **mundiala**. Joan Mari Irigoien

-Kristorena, **mundiala**! -esan zuen Hagriden burrunbatsu, Gryffindorren buruen gainetik. Iñaki Mendiguren

- Beste mundu batean bizi baita, urrutiko mundu **mundial** globalizatu batean, ordenagailuan hasi eta ordenagailuan bukatzen den munduan. Joxerra Garzia

## 4 (adizlagun gisa)

Benetan **mundial** pasatu diat! Karlos Linazasoro

Gu ere bai, **mundial**! Arantxa Iturbe

## 5 iz mundu txapelketa, batez ere futbolekoa.

Cruyffek jokatu balu, Argentinak ez zian **mundiala** irabaziko. Xabier Mendiguren Elizegi

Badirudi erraz daukala **mundiala** jokatzeko sailkatzea, aspaldiko partez. Jon Arretxe

Bi **mundial** eta Europako hiru txapelketa, eta hainbat domina Olinpiar Jokoetan. Berria - Kirola

Ez du baztertu bere laugarren **Mundiala** jokatzeko. Berria - Kirola

1998ko **Mundiala** eta 2000ko Eurokopa irabazteko. Berria - Kirola

1998an, Frantziako **Mundiala** irabazi zuen, Brasil finalean mende hartuta. Berria - Kirola

**Mundialeko** positiboaren afera ahaztuta al dago jada? Berria - Kirola

**Mundiala** bukatu baino lehenago Saunier Duval taldeko txirrindularia zen. Berria - Kirola

Sebastien Loeb frantziarrak (Citroen) segitzen du lider **Mundialean**. Berria - Kirola

Batez ere futboleko **mundialak** direnetan. Hasier Etxeberria

Iruñan iragan zen pilotako **mundialetan**, sei pilotarik uko egin zioten Frantziako selekzioari. Herria

Patin hockeyeko **mundialetan** da Kataluniako selekzioa, eta atzo 11-0 menderatu zuen Australiako taldea. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

afari **mundial** (3)

benetan **mundiala** (4); laugarren **mundiala** (3); **mundiala duk** (3); **mundiala irabazi** (5); **mundiala irabazi zuen** (3); **mundiala izan** (11); **mundiala izan zen** (4); **mundiala jokatu** (4); **mundiala jokatzeko** (3)

bigarren gerla **mundialaren** (3)

**mundialean aritu** (3)

bigarren gerra **mundialeko** (3)

## mundialdu, mundial(du), mundialtzen du *ad* mundial bihurtu.

Euskararen historiari ere, ez ditu hitz morbosoz batzuk baizik **mundialdu**. Patziku Perurena

## mundialisatze ik mundializatze.

## mundialisazio ik mundializazio.

## mundialismo *iz ipar* globalizazioa.

Hautatu duten gaia, azken denbora hauetan asko aipatzen den **"mundialismoa"**. Herria

Gero, Mixel Berhocirogin, ELB laborari sindikatekoak aipatuko ditu hemen, Euskal Herrian, zer ondorio izaiten ahal duen **"mundialismo"** horrek bai laborantxarentzat eta bai ekonomia aldetik. Herria

Joanden astean, "alter-**mundialismoaz"** antolatua zen solasaldiak jende multxo pollita bildu du Ortzainen. Herria

## mundialista (*orobat mundialista g.er.*) *izond ipar* globala.

Laborariak bi gauzak saltzen edo baliatzen ahalko ditu, ararteko sare **mundialisten** xeka bakanago ibiltzeko menturarekin. Herria

Ghazi Hidouci aldiz lan bihurriagoa izanen du, esplikatu zergatik petrolio hainbeste goititzen den, konpainia **mundialisten** eta estatuen arteko jokoak argitzen saiatuko da.

Herria

Eta horren kontra dira altxatzen "alter-**mundialistak"**, bertzelako mundu bat nahi dutenak, jendea dirua baino gorago ezartzen dutenak. Herria

## mundialito *iz*

Etorकिन euskal gizartean ahal den hobekienik sarrarazi behar direla-eta, aurkitu den molde gustagarrietarik bat izan da etorkinen futbol **mundialito** baten antolatzea.

Herria

2001ean, puntu batez (14-13) galdu zuen Argentinaren aurka, hango **Mundialitoan**, Bahia Blancan. Berria - Kirola

# mundializatu, mundializa, mundializaten 1 du *ad* globalizatu.

Zalantzan jartzen da demokrazia-mota horretan sistemaren zilegitasuna baieztatzeko gehiengoan eta gutxiengoan arteko jokoa nahikoa ote den politika **"mundializatu"** denean. **Askoren artean**

Zapore onargari "unibertsalak" zein diren ikertzea oso jende (konpainia, firma, enpresa, building) gutxiaren esku dagoenez, horiek izango dira elikadura **mundializatze** arduradun eta onuradunak, noski. **Edorta Agirre**

Egun, merkatua **mundializatzeak** eta populazioak elkarrekin nahasteak (bai migrazioen, bai nazioarteko turismoaren eraginez), elikagaien eta kuzinatze tekniken elkar trukaketa areagotzen lagundu dute. **Edorta Agirre**

Kultura zenbat eta gehiago **mundializatu**, tokian tokiko kulturek orduan eta indar handiagoa edukiko dute. **Berria - Kultura**

Sareen sarea zabalduz, **mundializatu**z joan den neurrian, kultura gehiago atxiki dira Internetera, munduko hizkuntza guztien erakuslelha izateraino. **Berria - Kultura**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Zuzentzen zaion irakurleria **mundializatuaren** irudia bailitzan, nazioarteko best-seller-ak mundua kurrutzen du, alderik alde, eta bere pertsonaiak ere mundu osoak dira **Berria - Kultura**

# mundializatze (*corpusean mundialisatze eta mundualisatze soilik*) iz ipar globalizatzea.

Orai hain aipatua den **mundialisatzeaz** behar zuten mintzatu. **Herria**

Erran gabe doa **mundualisatze** horren kontra direnek nahi ukan dutela eman beren gogoaren berri, izan direla beraz manifestaldiak Kebek-en bilkura horren gaitzesteko. **Herria**

# mundializazio (*orobat mondialisazio g.er., mundualisazio g.er, mundualizazio g.er. eta mundializazione g.er.*) iz globalizazioa.

**Mundializazioak** tokian tokiko kulturak indartzea ekarriko du. **Berria - Kultura**

Ziberespazioa **mundializazioaz** harago doa, oinarria **mundializazioan** izan arren: **mundializazioaren** garraio eta energia elektrikorik gabe ezin liteke globalizazio hau eraiki. **Askoren artean**

Ekonomiaren globalizazioa, nazioartekotzea edo **mundializazioa**, 90eko urteetan arreta handia bereganatu duen gaia izan da. **Iñaki Heras**

Munduko 20 herrialdetako 120 ordezkari zeuden Izpuran, mendi laborantzaz eta **mundualisazioaz** hitz egiteko. **Herria**

Kutsaduraren ondorioei edo **mundializazioaren** kalteei ihardokitzeko eginahalean. **Piarres Xarriton**

Elikaduraren **mundializazioaren** ondoren, berriro ere neokolonialismo amerikarra etorriko den beldurra hautematen da nonahi. **Edorta Agirre**

Alabaina, hitz hori ez da iristen globalizazioaren fenomenora, ezta ekoizpen-jardueren **mundializazioa** ere. **Koro Navarro**

**Mundializazioaren** alderik ilunenaren eredutzat hartua izan da Bhopalgoa: mendebaldeko enpresa batek munduko leku merke eta legedi arinekoa aukeratzen du gai arriskutsuak ekoizteko. **Berria - Gaiak**

## mundializazione ik mundializazio.

# mundialtze iz mundial bihurtzea.

Han ziren ere, milaka jinak bereziki Europatik, **mundialtzearen** kontraokak. **Herria**

Orai artio ezker burukoa zaukaten denek, funtsean gisa hartako solas garatzak erabiltzen zituen, bereziki **mundialtzearen** gaitzesteko. **Herria**

**Mundialtzea** onar ditaken gauza da, bakarrik munduko jende guziaren onetan bada, eta ez herri edo jende xoil multxo batentzat. **Herria**

## mundologia ik mundologia.

# mundrun iz galipota.

Joseba Belok [...] erori da patar batean, beroarekin **mundruna** urtua zen bihurgune batean. **Herria**

Place Pereireko espaloiko **mundrun** bigunean. **Xabier Olarra**

Mendebaldeko ertzeko etxalde zaharra suntsitu eta haren ordez **mundruneko** estalpe ilarak eraiki zituzten. **Agustin Otsoa**

# mundu 1 izatea duten eta izan duten gauza guztien multzoa. ikunibertso.

Aditu zien cherokee-ek, **munduaren** hasiera eta amaiera azaltzen. **Anton Garikano**

**Mundua mundu** denetik hor egon da ekonomiaren eta ekologiaren arteko bateratasunaren arazoak, izan. **Iñaki Heras**

**Mundua mundu** denez geroztik jakin nahi izan du gizakiak nola ibiltzen diren herraturik alderrai horiek. **Jon Muñoz**

Kristo **mundua mundu** izan aurretik zegoen Jainkoaren asmotan. distira urrun, hits eta gorrixka zuen, arratsaldeko azken ordukoa, edo **munduaren** azken ordukoa bezalakoa. **Elizen arteko biblia**

Hara, ni zuekin nauzue **munduaren** azken era arte. **Askoren artean**

**-Munduaren** amaiera da hau! **Josu Zabaleta**

## 2 Lurrarekin erkatzen den zernahi argizagi.

Gizona ez litzateke adimen zorrotzekoa beste **munduetan** jendea bizi denik sinetsiko ez balu. **Josu Zabaleta**

Beste **munduetatik** etorririko zelula gelditua diridratsuak. **Jon Alonso**

Egia da inguruan hotsak aditzen direla, baina beste **mundu** batekoak dira. **Jon Alonso**

Garrasiak iristen ziren urrutiko **mundu** batetik. **Anton Garikano**

Beste **mundu** bateko izakiren baten agerpenaz ari zarena ematen du haren gainean hitz egiten duzunean. **Oskar Arana**

Erraiten ditek ezen Indietan dagoela **mundu** berria, baina bada unibertsoan **mundu** berri gehiagorik: izan ere, planeta bakoitza duk **mundu** berri bat, eta izar bakoitza, orobat. **Joan Mari Irigoien**

## 3 unibertso txiki baten osatzailatzat hartzen diren gauzen multzoa; nolabait ezaugarritzen den gizadi edo gizarte zatia. ik mundutxo.

Hura bezalako komisaria bateko **mundu** txikian. **Iban Zaldúa**

Baina musikaren **mundu** akademikoak ez zion jaramon handirik egin, hots zakarrekoa eta tonalitate mugatukoa zelako. **Koldo Izagirre**

Hori dela-eta, bi **mundu** bezala ginen, edo bi mundu esanda, haien artean ibili ohi zen izaki arrotz bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Idazle hauen **mundu** sinbolikoak eta hizkerak Biblian du bere iturri aberatsena. **Askoren artean**

Nire mingainaz amaren gorputz osoa ari nintzela miatzatzen, pozoiz kutsatu nahiko banu bezala, zorabiatu, erotu eta betiko nire **mundu** imajinarioan gorde, neure egin. **Jasone Osoro**

Testu homerikoen azterketan hasten denak berehala antzematen du gure kategoria filosofikoekin ezin dela **mundu** homerikoa ulertu. **Askoren artean**

Mendia, bere magalean gauzak zer bait izatetik ideien **munduraino** irristatu eta eroria dago gaur mendizale amorratuenean gogoan. **Iñaki Segurola**

Politikaren **mundu** okaztagarri horretan. **Txillardegi**

Hain zuzen, inoiz izan al da **mundu** kristauan arrazoiz hauek sortu eta bultzatu ez duten gerrarik? **Esteban Antxustegi**

VIII-XI. mendeetako **mundu** musulmanean handia izan zen merkataritza-jarduera. **Koro Navarro**

Apezpikutzaren egoitzaren barrua beste **mundu** bat da. **Edorta Jimenez**

Emilio Salgarik erakutsi zidan hitzen bidez **mundu berriak** sor daitezkeela. **Ana Urkiza**

#### 4 bizi garen planeta; Lurra giza bizitzearen egoitzatzat hartua.

**-Mundua** geldiarazi? **Anjel Lertxundi**

Gizadiaren eta **munduaren** etorkizuna dago jokoan. **Askoren artean**

**Mundu** guztia kurrituko nian hi bilatu eta hona ekarrarazteko. **Xabier Olarra**

**-Mundu** erdian barrena ibilia zara, jauna: pozik egingo nuke nik ere beste horrenbeste. **Joxe Austin Arrieta**

Eta Xazaman ados agertu baitzen, biek elkar hartu, eta **munduan** barrena abiatu ziren. **Patxi Zubizarreta**

Txekiar Akademiak **mundu** guztiko genetista-jendea gonbidatu du elkarretaratze batera. **Juan Garzia**

Hamar egun geroago hil zen [...] baraualdi luzeak ahiturik, erlijio-estasi atergabe batean murgildurik, **mundu** honetan irauteko gogorik gabe. **Jose Morales**

Eta alboetara zabaltzen ziren bi besoak **munduko** azken mugetaraino luzatzen zirela ematen zuen. **Askoren artean**

**Mundu** zabaleko edozein bazterretan. **Iñaki Segurola**

Zeren, nola Elkano izan baitzen, euskalduna izateagatik, bi aldiz espainiar, **munduari** bira emanez Espainia are handiagoa egiten zuela, [...]. **Joan Mari Irigoien**

**-Mundu** hau gorabehera beldurgarri beteta dago. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Irrits gaiztoez, **mundu** honetako axolaz eta bizitza honetako arduraz oso-osorik **munduaren** morroi direnak. hizkuntzak, **munduko** edozein hizkuntzak, eta are gehiago hizkuntza agoniko batek, batu egiten du barrurantz, eta banatu eta bereizi kanporantz. **Askoren artean**

**Mundura** jaiotako lehen gizakia ote zara, bada? **Elizen arteko biblia**

Hona ni hemen, bada, bakarrik **munduan**, ez baitut jada ez anaiarik, ez lagunik, ez gizarterik, neu neroni besterik. **Imanol Zurutuza**

**-Mundutik** urrutiratutako mistizismo bat eraiki zuen, eta guri ere oso urrutikoak egiten zaizkigu haren mistizismoa. **Anjel Lertxundi**

#### 5 gizadia, gizartea; gizakiak.

Nondik datorkizu orduan **mundu** guztia zure ondoren ibiltze hori? **Askoren artean**

Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuak barkatzeko, eta ez gureak bakarrik, bai eta **mundu** osoarenak ere. **Elizen arteko biblia**

Bere fedeaz gaitzetsi egin zuen **mundu** sinesgabea, eta fedetik datorren salbamenaren oinordeko egin zen. **Elizen arteko biblia**

**Mundu** honetako jakinduria, izan ere, zorakeria da Jainkoaren begietan. **Elizen arteko biblia**

Sistema ekonomiko batek, kapitalismoak alegia, **mundu** osoan duen nagusitasuna **Mundu** posible batek, mundua nolakoa izan zitekeen islatzen du. **Koro Navarro**

Gero, etxetik irten eta beste **mundu** batean bizi behar genuen. **Joseba Sarrionandia**

Beste **mundu** eta beste sasoi batetik heldu diren albiste, gutun, argazkiak. **Joseba Sarrionandia**

Baziren beste ordu batzuk Vienako negu hartan, non, tarteka, **mundu** guztiak zorionsu ematen zuen. **Xabier Olarra**

Beste **mundu** bat dago itsasoaren bestaldean. *ik beherago* 11. **Koro Navarro**

#### 6 gizarteko bizitza, atseginen eta handikerien lekutzat hartua.

Apaltasun santuak garaitzen ditu harrokeria eta gizaki munduzale guztiak eta **munduko** gauzen zalekeria guztia. **Askoren artean**

Txiki-txikitatik gurasoek lotsagabeki hezi zuten, **munduko** hutsalkeriari jarraituz, Izan ere, Jesu Kristo gure Jaun eta Salbatzailea ezagutu eta **munduko** Iohikeriei ihes egin ondoren, berriro haietara erortzen direnentzat, azkenengo egoera hau lehenengoa baino okerragoa da. **Askoren artean**

Hori baino gehiago eman dit Jaungoikoak, zu, **munduko** atseginak arbuatuz, haren morroi ikustea. **Imanol Unzurrunzaga**

Errazkiago etor daitezten **munduko** ospe hutsalera, eta gero hantuste larrira **Patxi Altuna**

#### 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik mundial.

Etorkizuneko **mundu** -ordenarantz. **Iñaki Mendiguren**

**Mundu** -mailako komunikazio-sare berriak. **Iñaki Mendiguren**

Hirugarren milurtekoaren hasieran, **mundu** mailako ordena liberal baten sorreraren kontra estatuek eta gizarteek egiten duten erresistentziak ez duela indarrak batere galdu. **Koro Navarro**

GATTetik Merkataritzaren **Mundu** Erakundera. **Koro Navarro**

Osasunerako **Mundu** Erakundeak baieztatu ez badu ere, gaitza Txinako agertu zela uste dute zientzialariek. **Berria - Gaiak**

**Mundu** -gizarte bat, non gizadia libratu den lehenik gerra eta klase-gatazkatik eta lortu duen biztanleriaren arazoa konpontzea. **Iñaki Mendiguren**

**mundu** -merkataritzaren hazkunde-indizea. **Koro Navarro**

**Mundu** -sistema kapitalistaren hedakuntzaren ondorioz. **Iñaki Heras**

Gerra ondoren izan den **mundu** -atzeraldirik gogorrena ekarriko zuen konbinazio horrek. **Koro Navarro**

Urrutiko oasi-estatu horretatik sortu eta garatu zela arabiar **mundu** -inperio musulmana. **Iñaki Mendiguren**

Erromako **mundu** -hiriko hiritar guztiak. **Iñaki Mendiguren**

Modu horretan sartu nintzen Adelaren buruan, haren **mundu** -ikuspegian, haren esperientzia historikoan, haren erroetan. **Juan Kruz Igerabide**

**Mundu** -bazterretako biztanleak harri eta zur daude zure mirarien aurrean. **Elizen arteko biblia**

Jantzi beltz luze bat soinean duela irudikatzen da, hamabi izarreko koroa loriatsu bat daramala buruan, oina zeru-bolaren gainean, **mundu** -bola jasoz eskuin eskuan. **Juan Garzia**

#### 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Itxaropen Oneko lurmuturra eta ondorengo beste batzuk aurkitu zirenean, Italia ez zen gehiago izan merkataritza-**munduko** erdigunea. **Iñaki Iñurrieta**

Lan-**munduan** arrakasta lortzeko tresna. **Lopez de Arana**

Enpresa-**munduko** hizkera erabiltzera, bigarren negozio-lerro bat. **Aingeru Epaltza**

Leku bitxiro aparta zuen indioilarrak familia-**mundu** sotil, bare eta maratz hartan. **Juan Garzia**

Neure barne-**mundura** bilduta, neure arnas hotsari adi-adi. **Mirentxu Larrañaga**

Chicago ez zen arte-**munduaren** erdigunea, baina ez zen basamortu galdu bat ere. -Bai jardun aspergarria antzerki-**munduaren** tentazioei buruz egin duena! **Oskar Arana**

Muga-markoa da, batez ere, hemen darabilguna (zenbait koadrotan, ilusio bidez, muga-markoa koadroaren diegesi-**mundua** luzatzeko erabili izan bada ere). **Josu Zabaleta**

#### 9 beste mundu mug geroko bizitzaren egoitza.

**Beste munduan** elkartuko gara; ikusten nauzunean, ez eman bizkarra. **Jose Morales**

Naturaz gaineko egoera izatea graziari esker mundu honetan eta betiereko loriari esker **beste munduan**. **Piarres Xarriton**



Behar duzu **munduan** zerbizterata joateko. [Iñaki Iñurrieta](#)

**Beste munduan** ez duzu sinesten ala? [Joseba Sarrionandia](#)

Mexikoko indigenek hildakoaren hilobian zakur hil bat sartzen zuten, **beste munduan** lagun izan zezan. [Gotzon Garate](#)

Zalantza zuela berenak ez ote zuen egingo bera beste **mundura**, **mundu** beltz laiotz horretara joanez gero. [Felipe Juaristi](#)

Hala, grabitate-zentrua, nolabait esan, oraingo bizitzatik geroaldikora aldatu zen, eta **beste munduak** asko irabazi bazuen ere, ez da dudarik hemengo honek asko galdu zuela aldaketan. [Iñaki Mendiguren](#)

Hiru aukera omen dituzu: edo mundu hau, edo **beste mundua**, edota Australia. [Antton Olano](#)

## 10 mundu bat jendetza. ik mundutza.

**Mundu bat** bilduko da igandean Barakaldon, 12.000 bertsuzalez goiti (txartela guziak jadanik salduak dira), finaleko 8 bertsularien entzuteko. [Herria](#)

Astelehen goiz huntan, **mundu bat** bazagun haren ehorzketetan, Baiona-Santandreseko elizan. [Herria](#)

**Mundu bat** bildu da BECen: negozioetarako hiri txiki baten modukoa da erakustazoka egunotan. Gasteiztik abiatuz Baionan bururatu da 12. korrika, udaletxearen aitzinean, **mundu bat** bazela azken korrikalariari ongi etorri bero baten egiteko. [Berria - Ekonomia](#)

**Mundu bat** bildu da Erroman karia horretara eta berriz ere agertu da Aita Saindua nekaturia, ezindua, utziz bertze bati predikua irakurtzea. [Herria](#)

**Mundu bat** biltzen da ibaiko bi aldeetan. [Berria - Kirola](#)

Gertakari hitza eta ezin onetsia, zer erraiten ahal da besterik? larunbatean, **mundu bat** bildu da Donostian izugarrikeria horren salatzeke. [Herria](#)

Jazz **mundu bat bilduko** da Donostian. [Berria - Kultura](#)

## 11 mundu berri (orobat Mundu Berri) mug Amerika.

**Mundu** Zaharra ahantzi nahi baduk, hoa, bai, itsasoaren bertalderat, non baitago **Mundu** Berria. [Joan Mari Irigoien](#)

Gaztelania baita Espainiako inperioaren hizkuntza, mundu zaharra eta **mundu berria** uztartzen dituena. [Joan Mari Irigoien](#)

Sortu zen urte hartan berean, **Mundu Berria** aurkitu zuen Cristobal Colonek, irakitan zeudelarik Europan Berpizkundea eta Humanismoa. [Piarres Xarriton](#)

Berrogei bat urtetan, Espainiak **mundu** berriaren konkista burutu zuen, eta hura kolonizatzen ere hasi zen. [Koro Navarro](#)

**Mundu Berriaren** aurkikuntzak, "gizakia zer da? [Askoren artean](#)

" galdera, premiazko bihurtu du eta inportantzia politiko-moralez kargatu du: gizakiak ote dira indioak? esklabo beltzak Afrikatik **Mundu Berriko** plantazioetan lan egitera eramatea. [Askoren artean](#)

Beste askok bezala, bere gurasoek «**mundu berrirako**» bidea hartu zuten XX. mendearen hasieran, Euskal Herrian ikasitako artzain lana han ere beharrezkoa izango zelakoan. [Berria - Kultura](#)

Maijen, Yucatandar, Mexikar eta Andeetako zibilizazioak **Mundu Berrian**. [Iñaki Mendiguren](#)

## 12 mundu ekonomia (orobat munduekonomia g.er.)

Merkantilismoaren garaian, landa-eremuak **mundu-ekonomia** periferiaren parte ziren oraindik ere: **munduekonomia** hori kontinenteko espazioen integrazioa eta txertakuntza garatu zen, kanpotik barrura zihoan mugimendu batean, nazioarteko merkataritzatik barneko merkataritzara. [Koro Navarro](#)

**Mundu-ekonomia** bat, hau da, kapital metaketa mundu osoan bizi duen ekonomia bat. [Iñaki Heras](#)

Munduko ekonomia, sistema integratu gisa duela hamarraldi batzuk taxutzen hasi zena, **mundu-ekonomia** europarra izan zen hasieran, bestela esanda, ardatza Europan zuen mundu ekonomikoa zen. [Koro Navarro](#)

**Mundu ekonomia**, termino makroekonomikoetan, nabarmen hazi da azken hiru hamarkadetan zehar. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Egoera ekonomikoki egonkor batean, Estatu Batuen indar hegemonikoaren babespean, globalizatu egin zen **munduekonomia** kapitalista. Lau egunez hor, bestelako **mundu ekonomia** bat dute erakusten eta ez dela denbora galtzerik erraiten, beste orduz Brasileko Porto Alegrekoan egin zuten bezala. [Koro Navarro](#)

## 13 mundu gerra mundu osoa hartzen duen gerra.

Utopia edo kimera liberala izan da, azken beltzean, gizadiak XX. mendean sufritu dituen bi **mundu gerra** bortitzen eragile nagusietakoa. [Iñaki Heras](#)

Hogeita Hamar Urteko gerra, Napoleonen gerrak, Lehen eta Bigarren **Mundu Gerrak**. [Koro Navarro](#)

Lehen **Mundu gerra** piztu baino pixka bat lehenago. [Felipe Juaristi](#)

Lehen **Mundu Gerra** hasi zen horrela, lau urte iraungo zuena. [Pello Salaburu](#)

Lehen **Mundu-Gerrako** lubakietan. [Edorta Jimenez](#)

Badakigu 1916. urtean -Lehen **Mundu Gerra** bero-beroeanean zela- Felix Errusiako armadan izena ematera joan zela. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Bigarren **Mundu Gerra** osteko deskolonizazio prozesuaren ondoren. [Joxe Azurmendi](#)

Gero, Bigarren **Mundu Gerran** parte hartu zuen, kontraespionatza zerbitzuan edo. [Javi Cillero](#)

1941etik 1944 bitartean, Bigarren **Mundu Gerraren** bete-betean, eraitsitako abioetatik salto egin eta bizirik ihes egindako pilotuak Euskal Herriaren Hegoaldea ekartzeko sare bat antolatu zuen Frantziako erresistentziak, Bidasoa ibaian barrena, 'La ligne' deitu zutena. [Pako Aristi](#)

Bigarren **Mundu Gerran** ere atxilotu egin zutela eta naziei ihes egin ziela fusilatu behar zuten ulean. [Jokin Urain](#)

Bigarren **Mundu Gerra** amaitzeaz zelarik hil zen Birmanian. [Edorta Jimenez](#)

Geroztik, azkenaldi honetan (azkeneko **mundu gerratik** hona), [...]. [Josu Zabaleta](#)

## 14 mundu ikuskera (orobat munduikuskera g.er.)

Deskribapen global batek fenomeno guztiak erdigune bakar baten inguruan biltzen ditu: hastapena, esanahia, espiritua, **mundu ikuskera**, multzoaren forma. [Xabier Arregi](#)

Jakina da K. a. VI-IV. mendeetako ilustrazioak [...] errefusatu egingo dituela garai zaharretako **mundu-ikuskerak**, baina horrek ez digu bidea ematen aurreko guztia mitotzat edo literaturatzat hartzeko. [Askoren artean](#)

**Mundu-ikuskerak** objektiboa eta subjektiboa kontrajartzen ditu, lehen eta hirugarren pertsonaren arteko asimetria epistemologikoan oinarritzen dena, hain zuzen. [Askoren artean](#)

Okerra egin izanaren aukera aitortzen zuten lau hitz haiek erabat harritu zuten Nora, aitaren pitzadurarik gabeko **mundu-ikuskerak** ez baitzuen sekula halako duda-mudaren bitsik ere onartzen. [Anjel Lertxundi](#)

Antzerki itxura duen harribitxi honek ezin hobeto laburbiltzen ditu "markes dibinoaren" sexu-fantasia mugagabeak eta **mundu-ikuskerak** zorrotz eta iraultzaileak. [Juan Martín Elxpuru / Bego Montorio](#)

## 15 mundu mapa (orobat mundumapa) munduaren mapa.

Bere anaia, eskopeta hartu eta egongela erdiko **mundu mapa** esferikora apuntatzen ari zen. [Harkaitz Cano](#)

Esatariaren arabera, geografia gehiago edo gutxiago malgutzen da, eta **mundu mapetan** Peters-en proiektzioarekin bezala, herri txikiak probintziarik handienaren neurria hartzen du. [Iñigo Aranbarri](#)

Bidari, erromes, merkataria eta abarren datuak hartuz osatuxe omen zuen lehen **mundumapa** Isidri judutarrak. [Patziku Perurena](#)

## 16 mundu merkatu (orobat mundumerkatu)

Lehengaien **mundu-merkatuen** egonkortasunerako proiektuek berez izaten duten anbiguitatean datza auzia. [Koro Navarro](#)

Geldirik zegoen **mundumerkatu** baten gainean, hazkundea ezin etorri zen merkatu-kuotak irabaztetik baino. [Koro Navarro](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

**beste mundu bat** (64); **beste mundu batean** (39); **beste mundu bateko** (13); **beste mundu batekoa** (10); **beste mundu batera** (10); **beste mundu batetik** (9); **bestelako mundu** (11); **bigarren mundu gerra** (68); **bigarren mundu gerrak** (9); **bigarren mundu gerrako** (16); **bigarren mundu gerran** (55); **bigarren mundu gerraren** (70); **bigarren mundu gerraz** (13); **emakumeen mundu martxa** (18); **emakumeen mundu martxak** (12); **euskal mundu** (15); **hirugarren mundu** (13); **lehen mundu gerra** (22); **lehen mundu gerrako** (12); **lehen mundu gerran** (21); **lehen mundu gerraren** (27); **lehenengo mundu** (10); **mendebaldeko mundu** (11)

**mundu bankuak** (9); **mundu bat bildu** (34); **mundu bat da** (34); **mundu berri** (81); **mundu berri bat** (32); **mundu berri baten** (12); **mundu berria** (36); **mundu berriak** (14);

**mundu** berriak (13); mundu berriaren (14); mundu biziaren (9); mundu ekonomia (27); mundu ekonomiaren (19); mundu erakundea (13); mundu erakundeak (171); mundu erakundearen (73); mundu erakundearen arabera (44); mundu erakundeko (37); mundu erdia (9); mundu errealean (11); mundu funtsak (14); mundu gerla (21); mundu gerra (149); mundu gerra bukatu (9); mundu gerrak (27); mundu gerrako (40); mundu gerran (119); mundu gerraren (155); mundu gerraren ondoren (33); mundu gerraren ostean (24); mundu gerratik (14); mundu gerraz (17); mundu gerraz geroztik (11); mundu gerren (12)

mundu guzia (48); mundu guziak (37); mundu guzian (112); mundu guzian gaindi (9); mundu guziaren (10); mundu guziari (20); mundu guziko (41); mundu guzitik (23); mundu guztia (277); mundu guztiak (451); mundu guztiak bezala (9); mundu guztiak daki (43); mundu guztiak egiten (9); mundu guztiak esaten (10); mundu guztiak zekien (10); mundu guztian (93); mundu guztian zehar (12); mundu guztiarekin (10); mundu guztiaren (65); mundu guztiaren aurrean (11); mundu guztiarentzat (28); mundu guztiari (92); mundu guztiko (55)

mundu helenikoaren (13); mundu honetako (201); mundu honetan (459); mundu honetan bizi (18); mundu ikuskera (51); mundu ikuskeraren (10); mundu mailako (129); mundu mailan (51); mundu martxa (26); mundu martxak (18); mundu martxako (18); mundu martxaren (9)

mundu oso bat (21); mundu osoa (132); mundu osoak (48); mundu osoan (515); mundu osoan barrena (11); mundu osoan zehar (27); mundu osoaren (72); mundu osoarentzat (10); mundu osoari (29); mundu osoko (460); mundu osora (47); mundu osora zabaldu (15); mundu osorako (10); mundu osotik (31)

mundu posible (15); mundu sinikoan (11); mundu txiki (17); mundu txikia (18); mundu zabal (10); mundu zabalak (18); mundu zabalaren (13); mundu zabalari (16); mundu zabalean (196); mundu zabaleko (158); mundu zabalera (26); mundu zahar (9); mundu zaharra (20); mundu zaharraren (10); mundu zaharrean (10); mundu zaharrek (13); mundu zaharretik (11); mundua mundu (60); mundua mundu denetik (35); mundua mundu denez (10); munduz mundu (9)

naturarentzako mundu funtsak (10); osasunaren mundu erakundeak (9); osasunaren mundu erakundeko (9); osasunerako mundu erakundeak (157); osasunerako mundu erakundearen (65); osasunerako mundu erakundeko (26)

arabiar mundua (9); bere mundua (26); euskal mundua (16); gure mundua (36); hirugarren mundua (21); ikusmenezko mundua (9); kanpoko mundua (14); lan mundua (44); mundua aldatu (22); mundua aldatzeko (9); mundua aldatzen (10); mundua bera (21); mundua bezain (14); mundua ezagutu (9); mundua ezagutzen (9); mundua hankaz gora (12); mundua ikusteko (21); mundua mundu denetik (35); mundua mundu denez (10); mundua sortu (15); mundua sortua (9); mundua ulertzeko (22); mundua utzi (30); mundua utzi du (10); nire mundua (16)

**bi munduak** (9)

antzerkiaren munduan (10); arte munduan (11); artearen munduan (20); beste munduan (25); dantzaren munduan (9); egungo munduan (12); enpresa munduan (17); euskal munduan (13); euskararen munduan (9); gaurko munduan (19); gure munduan (24); hirugarren munduan (9); kulturaren munduan (11); lan munduan (114); lan munduan sartu (9); lan munduan sartzeko (11); literaturaren munduan (13); mendebaldeko munduan (14); munduan barna (26); munduan barrena (77); munduan beste inon (11); munduan bizi (57); munduan gaindi (70); munduan gertatzen (30); munduan gertatzen ari (9); munduan sartu (22); munduan sartzeko (18); munduan zehar (207); musika munduan (15); musikaren munduan (18); pilota munduan (22); politika munduan (10); politikaren munduan (12); sentsuen munduan (18); zinema munduan (9)

gure munduaren (14); kanpoko munduaren (17); lan munduaren (13); mendebaldeko munduaren (18); munduaren akabera (10); munduaren alde (18); munduaren amaiera (13); munduaren ardatza (18); munduaren arima (17); munduaren aurrean (24); munduaren azkena (12); munduaren berri (10); munduaren erdia (9); munduaren erdian (11); munduaren ezagutza (12); munduaren hasieratik (11); munduaren historia (13); munduaren ikuskera (9); munduaren ikuspegi (12); munduaren itzulia (15); munduaren jabe (13); munduaren sorrera (18); munduaren zati (12); sentsuen munduaren (11)

kanpoko munduari (9); munduari begira (16); munduari bira (17); munduari itzulia (10); munduari so (20)

**bi munduen arteko** (11); **munduen arteko** (18)

alemaniako munduko kopa (11); arte munduko (15); bertze munduko (9); beste munduko (65); beste munduko ezer (9); europako eta munduko (14); gure munduko (10); hirugarren munduko (39); kultur munduko (14); kulturaren munduko (12); lan munduko (16); lehen munduko (11)

munduko bankua (22); munduko bankuak (59); munduko bankuaren (30); munduko bankuko (15); munduko bazter (47); munduko bazter guztietan (11); munduko biztanleen (14); munduko biztanleriaren (9); munduko ekonomia (68); munduko ekonomiak (13); munduko ekonomian (19); munduko ekonomiaren (54); munduko emakumerik (10); munduko erakundeak (9); munduko errekorra (16); munduko eskualde (13); munduko estatu (14); munduko eta europako (9); munduko foroa (10); munduko gauza (42); munduko gauzak (10); munduko gauzarik (73); munduko gauzarik naturalena (10); munduko gauzarik normalena (9); munduko gauzen (14); munduko gizarte foroa (27); munduko gizarte foroan (14); munduko gizarte foroaren (14); munduko gizon (19); munduko gizonik (39); munduko herri (47); munduko herrialde (53); munduko herrialderik (14); munduko herrien (9); munduko herririk (9); munduko herritarren (9); munduko hiri (12); munduko hiririk (13); munduko hizkuntza (11); munduko itsaso (12); munduko izaki (10); munduko jende (10); munduko jokalar (12); munduko jokalaririk (9); munduko kopa (209); munduko kopa irabazi (25); munduko kopa jokatu (11); munduko kopak (13); munduko kopako (157); munduko kopako proba (11); munduko kopan (122); munduko koparako (25); munduko koparen (24); munduko kopatik (9); munduko kros txapelketan (10); munduko leku askotan (9); munduko lekurik (11); munduko marka hobetu (9); munduko marka ondu (14); munduko medikuak (22); munduko merkataritza erakundeak (18); munduko merkataritza erakundean (13); munduko merkataritza erakundearen (11); munduko merkataritzaren (9); munduko musikari (12); munduko onena (17); munduko onenak (19); munduko populua (9); munduko potentzia (9); munduko rally txapelketa (14); munduko serieak (20); munduko serieetako (10); munduko talderik (15); munduko toki (10); munduko txapeldun (100); munduko txapeldun izan (20); munduko txapelduna (91); munduko txapelduna da (9); munduko txapeldunak (30); munduko txapeldunaren (11); munduko txapelketa (269); munduko txapelketa batean (13); munduko txapelketa irabazi (20); munduko txapelketa jokatu (10); munduko txapelketa (26); munduko txapelketako (88); munduko txapelketan (178); munduko txapelketara (15); munduko txapelketarako (16); munduko txapelketaren (22); munduko txapelketetan (38); munduko urre (13); munduko xapeldun (27); munduko xapelgoa (16); munduko xapelgoak (15)

sentsuen munduko (18)

**beste mundukoa** (11)

**beste mundura** (29); **lan mundura** (17); **mundura ekarri** (33); **mundura etorri** (16); **mundura itzuli** (15); **mundura zabaltzeko** (10)

**bertze mundurat** (9)

**beste mundutik** (18); **mundutik aparte** (18); **mundutik at** (23); **mundutik atera** (9); **mundutik kanpo** (15); **mundutik urrun** (10)

**munduz mundu** (9)

## mundualdi *iz* mundu honetako bizialdia.

Nork uste du lur honen gainean edo **mundualdi** honetan egin daitekeen gauzarik onena zoriontsu izatea dela?  **Iñaki Segurola**

"All righ!" esan zuen Alejo Bilbao komandanteak, eta orduan izua **mundualdi** guztirako kendu zidan agindua entzun dut tubotik, nire komandantearen ahots marrantatuan, "Erdi kubetara, Nikola!".  **Koldo Izagirre**

Horrela bada, **mundualdi** labor honetan gorputz-arimak galdu dituzte, eta infernura joango dira eta amaigabe penatuak izango bertan.  **Askoren artean**

Oso gaztetan hil bazen ere, oso **mundualdi** bizi eta aberatsa izan zuen.  **Berria - Kultura**

Merezi huen **mundualdi** hau gozatzea luzeago.  **Herria**

Nik ez dut halakorik ezagutu neure **mundualdi** luzean.  **Koldo Izagirre**

## mundualisatze ik mundializatze.

## mundualisazio ik mundializazio.

## mundualizazio ik mundializazio.

## munduekonomia ik mundu 12.

## mundugabetasun *iz* mundurik eza.

Teknikariaren **mundugabetasuna**.  **Joxe Austin Arrieta**

## munduikuskera ik mundu 14.

## mundukoi *izond munduzalea.*

Esnatu zenean, artean **mundukoia** eta Jainkoaren Espiritua bete-betean dastatu gabea zenez, printze handi bat izatera helduko zen seinaleztat hartu zuen ametsa Frantziskok. **Askoren artean**

Horien bihotza **mundukoia** da, sorkariek atxilotua; berdin da pertsonak izan edo gauzak atxilotzen dutenak. **Joan Mari Lekuona**

Horrelako txikikeria **mundukoi** eta prosaikoaren gainetik zegoen hura. **Juan Luis Zabala**

## mundukotasun *iz mundukoa izateko nolakotasuna.*

Euskal kultura behar da aitzina biziarazi, munduari idekiz, gure kulturari esker baigira unibertsalak, eta **mundukotasunari** esker egiazki euskaldun! **Herria**  
Idazleari iduritzen zaio gaur pastorala orokortasun edo **mundukotasun** gehiagori idekitzen ari dela, azken urtetako euskal militantziatik doi bat ateratuz. **Herria**

## mundologia *(orobat mundologia) iz bizitzan eta jendearekiko tratuan eroso aritzeko trebetasuna. ik mundutasun.*

Hainbeste teologia ez, eta **mundologia** pixka bat ikas dezan. **Patxi Zubizarreta**

Nonbait, lagunek **mundologia** ikastera bidali aurretik ere, Rubenek ez omen zuen hain argi apaiz izatearena. **Patxi Zubizarreta**

Egun hau hainbeste irrikatzea, zure etorrera hain sutuki desiratzea haurkeria irudituko zaizu, **mundologia** gutxi izatea inondik ere. **Patxi Zubizarreta**

Stendhalek esango lukeenez, honezkero **mundologia** doi bat ikasia naiz, eta gerorako utzia nuen gu bion arteko balizko topaketa. **Patxi Zubizarreta**

## mundumapa ik mundu 15.

## mundumerkatu ik mundu 16.

## munduño *iz mundutxoa.*

Politikaren **munduño** horrek hartu du inarrosaldi bat ez idurika jakin delarik joanden ortzirealean Nanterre hiriko auzitegiak frango bortizki kondenatu duela Alain Juppé gobernuburu ohia. **Herria**

## mundurarazi, munduraraz, mundurarazten du *ad munduratzera behartu.*

Ustekabeko aurkikuntzak hain zozoloturik utzi ninduen non agurearen marmar berantetsi batek **mundurarazi** behar izan baininduen. **Alberto Ladron Arana**

## munduratu, mundura(tu), munduratzten da/du *ad mundura jaiio, mundura etorri edo ekarri.*

Asteasu, Albiztur, Zizurkil eta beste hainbat herri pausatzen diren lekuan **munduratu** nintzen 1951. urtean. **Bernardo Atxaga**

Ez zekien zergatik baina bere sabeletik **munduratu** zen lehen haurra neska zatekeela imajinatu zuen beti Maianak. **Itxaro Borda**

Halatan, agorri hondarrean, Pierraren emazteak hirugarren haur bat **munduratu** zuen. **Itxaro Borda**

Haurgintzak emakumeari ematen dizkion nekeen pare jarriak zituen pertsonaiek **munduratzek** berari sortzen zizkionak. **Imanol Zurutuza**

- **Munduratu** dudan alaba desira nuke azken aldiko ikusi. **Itxaro Borda**

Epe laburrik barna **munduratu** zuen semea edo alaba nola hazten ahalko zuen bakarrik? **Elena Touyarou**

-Hona zer dakarkigun emaztekiei haurrak **munduratu** beharrak: mina eta nazka. **Aingeru Epaltza**

Amets batek **munduratu** nindian, eta bertze amets batek eraman nazala. **Joan Mari Irigoien**

Ez al zara, bada, **munduratu**, lilura zaitzaten? **Patxi Zubizarreta**

Hannak diost gure haurra ez zatekeela inoiz **munduratu** izango, gu biok elkarrengandik banandu ez bagina. **Joxe Austin Arrieta**

Arras **munduratzeko** azken ahaleginak egin bitartean begira geratu zitzaion Maiza. **Migel Angel Mintegi**

## munduratzte *iz mundura jaiotzea, mundura etorri edo ekartzea.*

Oraingo **munduratzte** honetan jende dezenterekin ez dut txortan egin huskeria batengatik edo bestearengatik, bada, horiekin guztiekin larrua jotzeko munduratu nahiko nuke berri ere. **Karlos Zabala**

Ordea, **munduratzte** bereziki katastrofikoa izan duten pertsonaiek hartzen dute Urrutiaren arreta. **Markos Zapiain**

## mundutar *(orobat mundutiar g.er.) 1 izlag/iz mundukoa, munduari, bereziki munduko atseginei, dagokiona.*

Orain, ordea, Jainkoa ezagutu duzuelarik, edota, hobeki esan, Jainkoak ezagutu zaituztelarik, nolatan itzultzen zarete berriro funtsik eta indarrak gabeko **mundutar** errealitateetara? **Elizen arteko biblia**

Haren lagunak, gauean, Vienan eta munduan barrera ibili eta gero etxera itzultzen zenean, tabako eta lurrin usaina ekartzen zuen, eta itxura zabartu samarra, aire **mundutarrek** horditutako nerabe baten itxura. **Xabier Olarra**

Zeren eta Jainkoaren nahia gizarte **mundutarren** xede sozial zuzenetan dago neurri batean adierazia. **Iñaki Mendiguren**

### 2 (izen gisa)

Zergatik egiten duzu juramentu zeure fedearen kontra **mundutarrek** bezala, zuk, alferrikako hitzak ez ezik, onak ere isilean gordetzen zenituen horrek? **Askoren artean**

Erritu pagano eta **mundutar** baten begirunez, ordea... nahiz eta haientzat errazago den, fedea baitute. **Xabier Olarra**

Utz iezadazue orain konparazio arrunt bat hona ekartzen, **mundutarrentzat** da, forma eta irudi sentiberekin bakarrik gauzak ulertzen dituzten haientzat. **Joan Mari Lekuona**

### • 3 *iz munduko biztanlea.*

Pertsiana guztiak jaitzita eta dena isil, **mundutarrik** gabeko mundu baten antzera. **Xabier Mendiguren Elizegi**

· Hirugarren **mundutarrek** ekar-arazten dituzten edo fabrikatzen dituzten gauzak hemen gaindi saldu, garantiarekin erostean guk pagatzen duguna egiazko egilearen eskuraino helduko dela. **Herria**

### 4 *heren-mundutar izond hirugarren munduari dagokiona.*

Kutsu heren- **mundutar** eta etnizistaz hanpatu ideologian ito helburu argi eta zehatzak. **Itxaro Borda**

## mundutartasun *iz* mundutarra denaren nolaskotasuna.

Bada, hala ere, beste bide zabal bat, espirituaiki suntsitzailera den **mundutartasun** berberera daramana. **Iñaki Mendiguren**  
Kontsumismoak, eman ezin dituen zoriona eta askatasuna agintzen dizkigun jainko koloretsu horrek, beretzat irabazi gaitu, eta gure **mundutartasunaren** zentzua bazterturik, trukagarri bihurtu digu oro. **Anjel Lertxundi**

## mundutartu, mundutar(tu), mundutartzen da/du *ad* mundutar bihurtu.

Uste dut Ama Betierekoak arrazoi duela, eta **mundutartuz** geroztik batbedera pinpirin bihurtzen dela. **Jon Muñoz**

## mundutasun *iz* bizitzan eta jendearekiko tratuan eroso aritzeko trebetasuna. ik**mundulogia**.

Ateraldia, mundiala da; baina gertakaria kontatzen duen filisteoak, bere **mundutasun** fina erakutsi nahi eta "Indio gizajoak" zakur ametsak egiten eta sekulako tiroak botatzen zituela frogatu nahi itsuan, ez dio arrastorik ere hartzen. **Patziku Perurena**

## mundutiar ik **mundutar**.

## mundutu, mundu(tu), mundutzen da *ad ipar* mundializatu.

Zenbaki batetik bertzerat, "Euskadiko Gazteri Berriaren" arta baitezpadakoari esker Herria badoa handituz, berrituz, edertuz, **"mundutuz"**, Baxenabartar gazte ohi hunen zorion iturri. **Herria**

## mundutxo *iz* mundu txikia.

Liburu honetan aurkituko duzuna ez da, beraz, Mundua, nik neure diskursoaz eraiki dudana **mundutxoa** baizik. **Joxerra Garzia**  
Indarkeria nagusitzen da, 24 orenez egunean irekiak dauden kasinoan **mundutxoan**. **Ramuntxo Etxeberri**  
Glerari ohien apez arduradun jarraikia egon dela beti, nola izana baitzen ere Angelu-Baionako serora urdinen meneko **mundutxo** gazte eta xaharrago batena gero. **Herria**  
Euskal letren **mundutxo** harropux eta xipotx honetan. **Patziku Perurena**  
Erlatiboaren gure **mundutxoan**, bada, balioak eta balioak daude, absolutuak eta absolutuak. **Joxe Azurmendi**  
Baina **mundutxo** hura huskeria bat besterik ez zen, izpi bat hutsune infinitu ilunean. **Bernardo Atxaga**

## mundutza *iz* ik mundu 10.

Polizia-**mundutza** baten erdian jaitsi ziren babesetara. **Josu Zabaleta**

## mundutze *iz ipar* mundializatzea.

Bizi dugun **mundutze**, lekuz aldatze, giza eskubide zangopilatze, natur ondatzeko egoera huntan, hurbileko ohar-guneek beste aurpegi bat emaiten dute. **Herria**  
Ez baitiote baimenik eman, bilduko dira **mundutzearen** kontra Cancan deritzan Lot et Garonne departamenduko herri batean. **Herria**

## munduzale *izond/iz* munduko atseginen zalea dena.

Neska gazteak neskalagun on bat bilatzen saiatu behar du, librea eta **munduzalea**, plazerak ezkutuan gozatzeko lagunduko diona. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Gure idazle **munduzaleen** eleberrietako damek eta jaunek. **Jose Morales**  
Gedeon izeneko kalonje bat, gizon lizuna eta **munduzalea**, ohean zetzan gaixo, gorputz osoa oinazetan zuela. **Askoren artean**  
Apaltasun santuak garaitzen ditu harrokeria eta gizaki **munduzale** guztiak eta munduko gauzen zalekeria guztia. **Askoren artean**  
Argiaren etsai direnak, bihotz **munduzalea** dutenak. **Joan Mari Lekuona**  
Munduko bizitza bizitzeko eginkizuna izan baina **munduzaleen** gisara bizi nahi ez zutenentzat apropos egindako testua iruditzen zitzaion. **Irene Aldasoro**  
**Munduzaleek** maite dituzten ondasunak eta gauza iragankor guztiak. **Askoren artean**

## munduzalekeria *iz* munduko atseginen zaletasun gaitzesgarria.

Bertute "santuek" **munduzalekeria** guztiak garaitzen dituztela azpimarratzen du, San Paulok "giza grinena" eta "espirituaren" artean jartzen duen kontrakotasuna gogoraraziz nolabait. **Askoren artean**

## mungiar *izlag/iz* Mungiakoa, Mungiarri dagokiona; Mungiaiko biztanlea.

Manu Lejarreta **mungiarra** hogeitun urte inguru preso egon ondoren aterata zen Basauriko kartzelatik. **Jokin Urain**  
**Mungiarrak** Lujanen aurka galdu zuen, eta gaur irabaztea beharrezkoa du txapelketan aurrera egin ahal izateko. **Beria - Kirola**  
**Mungiarrak** dituzu gazte hauek, Estepan. **Juan Luis Zabala**

## munipa *iz* *adkor* udaltzaingoko kidea, polizia municipala.

**Munipak** pasatu dira oraintxe, zikina behar du. **Pablo Sastre**  
Eta hango **munipek** gaurkoan beste zereginik ez nonbait eta, errezeta jarri zidaten. **Pablo Sastre**

## munitibartar *izlag/iz* Munitibarkoa, Munitibari dagokiona; Munitibarko biztanlea.

Gaztetan Argentinara joandako **munitibartarra** zara. **Beria - Kultura**

## munizino ik munizio.

### munizio *(orobat munizino g.er. eta munizione g.er.)* 1 iz su armak kargatzeko behar diren jaurtikigaien multzoa.

Zaldiak, zalgurdiak, iskiluak, **munizioa**, dena dago prest. **Txillardegi**

Gero han armak eta tirakai edo **munizioneak** egiten zituzten. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

NATOk Kosovon erabilitako uranio pobretuko **munizioaren** auziaz ari da esataria. **Iban Zaldua**

Aldean daramazuen **munizioa** ahitu arte. **Xabier Montoia**

Armak eta **munizioak** kamioian kargatu. **Inazio Mujika Iraola**

Geco motako 45 milimetroko **munizioa** erabili zuten Castejongo hilketan. **Berria - Euskal Herria**

Bi metraileta hartu nituen; C.Z.25, txekoak biak ere, eta lau kargadore **munizioz** beteta. **Rafa Egiguren**

Gure geltokitik zamaren bat pasatuko duk, **munizioz** betetako hogeita zortzi bagoik osatua. **Fernando Rey**

Granadak, morteroak eta tankeentzako **munizioa** egiten zituen Expalek. **Berria - Ekonomia**

Bertan arma, bonba eta **munizio** ugari zegoela adierazi zuen Washingtonek. **Berria - Mundua**

### 2 irud/hed

Azken erabaki hauekin epaileek ETari **munizioa** ematen diote, eta ezker abertzaleko zenbait kidek pentsatu dezakete Anoetako bideak ez duela inora eramaten. **Berria - Euskal Herria**

Ikuskizun urritasunak ilusioa piztu du gaur hasiko diren jaialdiarako, antolakuntzak lan eskerga egin baitu enpresek azken **munizioa** Logroñon erre dezaten. **Berria - Kirola**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hantxe zeukan **munizio**-biltegia. **Koro Navarro**

Gerra garaian **munizio** fabrika bat omen zegoan han, eta txori guztiak akabatu zitiztean. **Koro Navarro**

**Munizio** kaxa bat atera zuen poltsikotik. **Joseba Sarrionandia**

Motxila puztuekin, fusil mailatuekin, **munizio** kutxekin, mapa apurtuekin, metrailadore astunekin pasatzen ziren etengabe. **Joseba Sarrionandia**

Eraso egileak «650 armaz eta **munizio** kopuru handiaz» jabetu zirela. **Berria - Mundua**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arma eta munizio** (6); **munizio kaxa** (4); **munizio ugari** (4)

**armak eta munizioak** (7)

**munizioz betetako** (3)

### munizipal 1 izond udalari dagokiona, udal- ik udal 3.

Kale kantoian, musikari bat tocata betean, polizia **munizipalak** agertu direlarik fuga-n hasi dena, «gazteek gazte izan nahi dugu baina ez digute uzten» oihukatuz. **Berria - Kultura**

Herri horien planoak urbanista **munizipalek** egiten dituzte, eta kronikak egunkariak. **Berria - Kultura**

PSE-EE, EAJ, EA eta PPko talde **munizipalek** alde bozkatu zuten; eta, Usurbil eta Donostiakoak abstenitu egin ziren. **Berria - Euskal Herria**

Baita geroxeago ezagutu zituen eskola **munizipalean** ere. **Arantxa Iturbe**

Toki honetan, masusta arbolak eta basa mahastiak erauzi eta Medalliongo golf **munizipala** egin duten honetan, lehenago, auzo bat zegoen. **Pablo Sastre**

200 arrosa landare landatuak dituzte Baionako baratze **munizipalean**, Karadok auzo gunean. **Herria**

Angeluarrek aurten pagatuko dituzten tatsa **munizipalen** goititza deliberratu du gehiengoak. **Herria**

Baionako kirol zerbitzu **munizipalak** biltzen ditu haur eta nerabeak bakantza egunetan. **Herria**

Kontseilari minoritarioen lekua agerkari **munizipalean**. **Herria**

Gure ardura zibikoa betetzen dugu hauteskunde guzietan: **munizipalak**, legislatiboak edo presidentzialak. **Herria**

### 2 iz udaltzaingoko kidea.

- **Munizipalei** bakarrik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**antzoki munizipalean** (3); **liburutegi munizipalean** (6)

## muno ik muino.

### munstro *(orobat mustro g.er. eta monstro g.er.)* 1 iz naturaren legeez at eraturiko izaki biziduna. ikbidutzi.

Eta... nola akabatu duzu **munstro** hori? **Iñaki Mendiguren**

Ganberan dagoen **munstroa** basiliskoa da, suge erraldoi bat! **Iñaki Mendiguren**

Herensugea **munstro** bat zen, gose handikoa. **Bernardo Atxaga**

Izan ere, ez zuen gizasemea ematen, **munstroa** baizik. **Askoren artean**

Lurra ahalegindu zen hainbat **munstro** sortzen ere, aurpegi eta gorputzadar bitxiz eginak, hala nola androginoa, erdi gizon erdi andre. **Xabier Amuriza**

Badaude txori mokoak duten ipotxak, giza itxurako **munstroak**, batak irri eta besteak negar egiten duten aurpegi birekin. **Koldo Izagirre**

Jainko hautsi bat da, bi buruko **munstro** bat. **Iñaki Seguroa**

Edonon jota ere, **munstroen** larru azido kiskalgarria lurruntzen hasten zen, zauriak irekitzen zitzaizkien, eta azkenean gorputz osoa erreta geratzen zitzairen, mara-mara erortzen ziren errautsetan. **Joanes Urkixo**

Telebistan agertzen diren robot gisako **munstro** espantagarri horietariko bat. **Aingeru Epaltza**

- **Munstro** erraldoi odolzalea da. **Joanes Urkixo**

**Munstro** adarbakarraren itxura areagotzen dio burugainean duen adarrak. **Iñaki Iñurrieta**

Leviatan eraitsi beharreko **munstroa** da beti, berdin dio zein taldek osatzen duen. **Fernando Morillo**

Francisco Goyak esan zuen arrazoiaren ametsak **munstroak** sortzen dituela; eta **munstroen** garaian bizi gara orain. **Berria - Kultura**

Halako eskualde barbaroek, zeinetan lurra **munstroz** erditzen baita. **Juan Garzia**

### 2 irud/hed

Eta bikiek, **munstro** horiek, garajera alde egin zuten. **Joxean Sagatzizabal**

Francesco Cenci gizon ahaltsu hura **munstro** eta tirano bat zela, bihotzik gabekoa eta ankerra, besteri min eginez poztan eta harrotzen zen piztia beldurgarria. J.M.  
Olaizola "Txiliku"

Ez du ez buru ez hankarik egun 900 zaldiko **munstroak** bobsleigh pista batean sartzeak. Berria - Kirola

Gutako bakoitzaren baitan, kimera-indar amaigabe bat dago, hots, oroimena, **munstro** beldurgarria. Juan Kruz Igerabide

Herio beltz eta ezin saihestuzkoa, gure izaeraren kontrako **mustro** nazkagarri hori... Jose Morales

Munduan izan diren behi guztiek egindako kaka guztiak hantxe; **munstro** marroi geldia, soroak haren irrikaz omen. Joxean Sagatzizabal

Ohitura, **munstro** zentzu ororen jale hori. Juan Garzia

Aberria, ze abstraktua bere seme-alabak jaten dituen **munstro** egoista hori. Mikel Hernandez Abaitua

Eta ez ote da beldurra, ondorez, gure baitan bizi den **munstro** bat, lau humoreen iturrietarik osasuna atergabe eta etengabe hurrupatzen eta ebasten diguna? Joan Mari Irigoien

### 3 (hitz elkartuetan)

**Munstro** -iturri agortezinak gertatu izan direla bai ametsa eta bai irudimena ere botere erlijioso eta zibilen eskuetan. Joan Mari Irigoien

Orriotara ekarri ditugun adibideak antzinako ferietako **munstro** erakustaldiekin alderatuko ditu baten batek, agian. Iñaki Arranz

Emakume guztiz gorrotagarri bat, deabru egiazko bat, urtero, nahita, haur itxuragabeak, nazkagarriak, beldurgarriak, munstroak, hitz batean, egiten dituen, eta gero **munstro** -erakusleei saltzen dizkiena. Josu Zabaleta

Uda gainbehera hasia, liburuk **munstro** jite halakoa zuela jabetu nintzen. Juan Garzia

Zeure aurpegia itxuragabetzen hasi eta **munstro** -deabru batena agertuko ote den. Iñaki Iñurrieta

### 4 (izenondo gisa)

Izaki **munstro** bat harrika ari zitzaigun, eta "kakaka", maldizioka. Joxean Sagatzizabal

Beren buru kimeraz, deabruz, ametsetako piztiek, lore **munstroz** beteak. Josu Zabaleta

Gogoan dut, artean haurra nintzela, bagenuela bizilagun **munstro** bat, hirugarren solairuan bizi zena. Harkaitz Cano

Baina zerbait inportantea hemen espazialitatea da, etxe **monstruoa**. Berria - Kultura

Eta gidarietarik batek erran du bizikleta bat bezain errexki gidatu ahal izan duela hegazkin **munstro** hori. Herria

### 5 *munstrozko izlag* ik *munstrotsu*.

Etxea su ikaragarri, bikain bat zen ordurako, **munstrozko** su bat, lur guztia argitzen, [...]. Josu Zabaleta

Jainkorik bateratu ezinenez eta sinesterik zentzugabeenen jarraigo **munstrozkoa**, dotrina eta hipotesien elkar gurutzatze fantasiakoa. Josu Zabaleta

Bularra, edota burua, koadratzen zuten lehen planoek gaitzespena eta arbuioa eragin zuten luzaro, handitze horren irrealtasunagatik ez ezik, baita askotan **munstrozkotzat** hartzen zen izaeragatik ere. Josu Zabaleta

## munstrogintza iz

Gero esango dizut nola bihurtu zen **munstrogintzako** fabrika Josu Zabaleta

## munstrokara 1 *izond* munstro itxurakoa.

Eta, hain zaharrak zirenez gero, haur **munstrokara** mordoia izango zuten, zaharrak jada jaiotzez, eta zimurrez beteak, eta hortz-hagin hutsunedunak zituztenak. Mirentxu Larrañaga

### 2 irud/hed

Han minerala ehogailu **munstrokara** batean xehetzen zen. Juan Garzia

Ziur nengoen, bestetik, nire eta munduaren kalterako azpilan **munstrokara** bat tarteko zela, alferrik zela eskolatik espero izatea halakorik. Juan Garzia

Ez zekizkiten isiltasun-estalki **munstrokara** baten pean jazotzen ari zen sarraskiaren xehetasunak. Juan Garzia

## munstrokeria *(orobat mustrokeria g.er.) iz* munstro bati dagokion egintza; izugarrikeria.

Euren erabakiaren aurrez **munstrokeria** bat zena, giza erailketa, bat-batean etika iraultzailearen eskakizuna zen. Joseba Zulaika

-Munduan pasatzen ahal den **munstrokeriarik** izugarriena bizi izan diat nik, hortxe, orain lurrera eroria den borda horretan. Daniel Landart

Adierazpen hori **munstrokeria** bat, lotsagabekeria bat iruditzen zitzaien Niniri eta andre Leonardari. Josu Zabaleta

Ez bainintzen ohitua ni, horrelako **munstrokerien** ikusten. Daniel Landart

Kanpoak zoragarriak dira eta amets poetikoetan, espantagarrietan irudimena hegaldalitaite, errealitatearen **mustrokeria** ez balitz hor, egun guzietako itsuskeria, ahalkegarrikeria, ez balute erokeriaren eta herioaren herstura zorrotz eta sarkorrek zure muina itxant guziz murtzikatzen, higatzen. Michel Oronoz

## munstrokume iz *adkor* munstroa.

Eta bezeroekin, hango **munstrokume** bati ipurdian zimiko egin niolako, han ziren guztien -emakume solidario nahiz gizonezko zibilizatu- haserre piztaraziz. Aingeru Epaltza

Aunitzen puskaz eta zatiz moldatutako **munstrokumea** da. Aingeru Epaltza

## munstroitate *(orobat monstroositate)* iz munstrokeria.

Gizonak bakar-bakarrik, zeharo bakarrik, **munstroitate** ikaragarriekin, karrketan lasterka ibiliko dira, gure aurretik iraganen dira, astun, begiak tinko, beren gaitzei ihesi eta beraiekin eramaten, ahoa zabalik, beren intsektu-mihia hegoak astintzen doala. Monika Etxebarria

Ala zorioneko zara zeure **monstroositatean**? Karlos Linazasoro

## munstroski *adlag* izugarriki.

Tigre edo zezen baten gorputza, zeinean **munstroski** nahasteka litezen, bateraturik eta batak bestea gorrotaturik, hortzak, organuak eta buruak. berehala itzuliko baitzen hura bere bizitza prekario baina **munstroski** libre hartara, bere urre-lats koxkorrera, azkenik gabeko egun-ilara batera. Juan Garzia

## munstroso *(orobat mustrooso)* izond munstroari dagokiona. ik *munstrotsu*.

Gizon haren larru kolore hitsak, haren begi ertz-gorriek, haren aurpegi baztangapikatuak, haren irazki txiki **munstrosoak**, justutik ez zidan horrek denak kordokarazi legea beteaztzen duen juez bat izatearen ustea. Matías Múgica

# munstrotasun *iz* munstroa izateko nolakotasuna.

Duela ia ehun urte, New York hiria bere **munstrotasunaren** hastapenetan zenean, ez zegoen abentura bila oso-oso urruti joan beharrik.

Harkaitz Cano

# munstrotsu *iz* munstro eitekoa; izagarria. ik munstro 5.

Naturak bere etorri ahaltsuan egunero / ume **munstrotsuak** ernetzen zituen garaietan, / gigantesa gazte baten ondoan bizitzea gustatuko zitzaidan / katu boluntuosoa erreginaren oinetan bezala. horren lekuko ditugu ipuin klasiko beldurgarri asko, non bihozgabekeriarik **munstrotsuenak** agertzen diren. Bernardo Atxaga

Egungo mundu ordena hobea izan dadin eragozpen nagusi dira Frantzia eta Espainia bezalako estatuak: erabaki garrantzitsuak hartzeko gaitasuna galtzen ari dira -sarriago hartzen baitira New Yorken edo Bruselan-; baina, tramankulu ahituok, seta **munstrotsu** batez oztopatzen dituzte behetik bizi-bizi datozen indar sortzaileak. Markos Zapiain

# munstrotzar *iz* adkor munstro handia.

Guardia Zibilaren, Polizia Nazionalaren edo Ertzaintzaren kaserna eta komisaldegietan bizi den **munstrotzarra** da tortura.

Jokin Urain

Itsasoak, berriz, orroari orro, osin baten moduan zabaltzen zuen ahoa, eta **munstrotzar** ikaragarri baten lerdea zirudien olatu-tontorretako bitsak.

Anjel Lertxundi

# munstruoso ik munstroso.

## munta 1 *iz* garrantzia, gorabehera.

**Munta** handiko auzi batek kezkatzen zuen Kirxa, kafe etxeko nagusia. Patxi Zubizarreta

Untsalaz, denek konprenitu behar ginuke **munta** handi-handiko bozak direla igandeko horiek. Herria

Ez, ez nintzen huskeriengatik **munta** handiko kontuak zalantzan jartzen hasiko. Anjel Lertxundi

**Munta** gutxiko kontua, nolana ere. Anjel Lertxundi

Bertze kidetasun bat, ez **munta** gutikoa, hiri atlantiarrarekin: [...]. Aingeru Epaltza

Erran dut non ez den dudazko edo delibero eskaseko, **munta** gutiko, salbuespen zuzeneko izatez aitzakia zerbaiz aurkitu. Piarres Xarriton

Dena dela, antikomunismo sutsu hori ez da **muntarik** gabeko kontua, niri axola gutxi bazidan ere. Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 munta izan du ad

Zor didazu uharte bat, hori da **munta** duen kontu bakarra. Anjel Lertxundi

Berarentzat, etorkizunak zuen **munta**, ez bestek. Joxe Austin Arrieta

Egia erran, hori hola izanik ere, zer **munta** zuen horrek? Janbattitt Dirassar

Zer **munta** du lehentxeago edo berantxeago izanik ere? Elena Touyarou

Ez du biziki **munta**, Doktor agurgarria, jendek gu geu judika gaitzaten. Piarres Xarriton

Aldiz, badakit, eta horrek gehiago **munta** du enetzat, zoin den zure bihotzeko mina. Janbattitt Dirassar

Iraganak iragan, horrek baitu gehienik **munta** geroari buruz. Herria

Enetzat ez zuen horrek deusik **munta**, bainuen aizina guzia. Janbattitt Dirassar

Gaurko ibilbideak ez du **muntarik** eta urtean zehar erabili dudana tentsio goxoa airatu zait jada. Piarres Aintziart

Egia erran, ixtorio hortan hirugarren ateratzeak ez duke berenez hanbateko **muntarik**. Herria

## 3 muntako munta duena, garrantzizkoa.

Haizu zen, gainera, berriz eskatzea, mutur beltzik ikusi gabe, eta, hura bezain **muntako**, bakea bermatua zegoen: [...]. Aingeru Epaltza

Oraindik ez zuten Juan hil, hori zen **muntakoena**, komunismoa bizirik zegoen grebak porrot eginagatik. Koldo Izagirre

Aroa bera ere agian alde izanez, horrek berak aintz **muntako** baitu zernahi gisaz... Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ainitz munta (16); ainitz munta baitu (4); ainitz munta du (5); ainitz munta duela (6); munta baitu (4); munta du (10); munta duela (7); munta duen (4); munta duena (5); munta gutxiko (6); munta handia (9); munta handiagoa (4); munta handiagoko (5); munta handiagokoa (3); munta handiena (4); munta handiko (52); munta handiko auzia (3); munta handiko diru (4); munta handikoa (30); munta handikoa da (4); munta handikoa dela (3); munta handikoa izan (3); munta handikoak (7); munta handirik (5); munta zuen (6); zer munta zuen (5); zoin munta (6); zoin munta handikoa (4)

# muntradun *izond* munta duena, garrantzizkoa.

Aski bedi adibide batzuk aipatzea, gutxi, baina, hori bai, **muntradunak**. Joan Mari Lekuona

Jakina bezain esan beharrekoa da literatura eta bizitza elkarren ondotoxoan ibiltzen direla, baina, zertan esanik ez, **muntraduna** ez da kontakizuna bera, horren esangura baizik. Berria - Kultura

# muntradura *iz* ipar instalazioa, egitura.

Hori dira ere denboran *Izarra* edariaren egiteko Baionan ziren **muntradura** xaharrak. Parisek jadanik badituela Olinpi-Jokoentzat behar diren **muntradura** gehienak. Herria

Hemendik bi urteren buruko gaitzeko feria-erakusketa handia egitekoa zen Pariseko ondoan, **muntradura** gehienak Dugnyherrian finkaturik. Herria

Ura, etxetarat hel-arazten zen ura, etzela pagarazten, pagarazten zirela bakarrik uraren iturritik etxerat hel-arazteko lana eta hortarako behar ziren **muntradurak**. Herria

Ondarकिन behar direla erre eta erraustu, karkulan ari dira nun ezarriko dituzten gisa hartako **muntradurak**. Herria

Argitzeko eta berotzeko baliatzen diren **muntradurak** ere gisa hartakoak behar ginuzke, indar gutiago erretzen dutenentarik. Herria

Han gaindi, frangok berantetsia ere omen zuten feria hori, karia hortarat eraiki **muntradura** batzu ondotik baliatzeko moldearen gatik bereziki. Irene Aldasoro

Posta karraskan ari dela gero eta zerbitzu hobea deneri segurtatu nahiz, bere **muntradurak** eta laneko moldeak gero eta gehiago berrituz... Herria

Ez baita errex **muntradura** baten zutik luzaz atxikitzea, akordio horrek ere ukan ditu bere itzaltzeak eta ere, beharrik, arrapizteak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kirol muntradura (3); kultur muntradura (3); muntradura berezi (4); muntradura berezi batzu (3); muntradura berri (8); muntradura berri batzu (4); muntradura berriak (4); muntradura publiko (3)  
gisa hartako muntradurak (7)

## muntagailu iz muntaidura.

Ontsa prestatua zuten bai gazteek animatuz egunari joan ziren irakurgetan, haurrek proosione eginez, krexako **muntagailuak** ekarri eta jendeak parte hartuz otoitz eta kantuetan. **Herria**

## muntaia (orobat muntai) 1 iz muntatzea, muntaketa.

Nik **muntaiak** zuzentzen ditut, milioiak eta milioiak kostatzen direnak, eta dagoeneko makina bat zentral elektriko dauzkat neure zuzendaritzapean eginak. **Joxe Austin Arrieta**

Gure turbinak oraindik ez baitzeuden **muntaiarako** prest. **Joxe Austin Arrieta**

**Muntaia** ongi burutu zen... ni gabe. **Joxe Austin Arrieta**

Erakusketaren **muntaiari** ekin zion garaian, berriz, museoaren aretoan bertan esku-hartzea bururatu zitzaion. **Berria - Kultura**

### 2 irud/hed antolaketa.

Argazkiekin **muntaiak** egiten ditu Schommerrek, zimurtuz, likidoz bustiz eta elkarren gainean jarriz. **Berria - Kultura**

Orralde bakoitzaren diseinua eta **muntaia** kazetariaren eta haren ordenagailuaren egitekoa delarik, ezin hobenaren erantzulea auzoan bilatu. **Aingeru Epaltza**

Zinemaren **muntaiak** duen garrantzia du kantuen ordenak emanaldi batean. **Berria - Kultura**

Filmaren giroan behar bezala sartzeko, ordea, filmaren lehen kopia ikusi behar duzu; lehen **muntaia** horrek jartzen zaitu arrastoon. **Berria - Kultura**

1913rako aurkeztuak zituen Walter Benjaminek "zinema-estiloa" eta "**muntaia**" kontzeptuak, bere literatura-teoriaren osagarri gisa. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Aurrez landuriko osagaien antolakuntza paratattikotzat hartu zuen **muntaia**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bizkaia Arena saskibaloi pabiloi bihurtzeko **muntaia** lanak iragan astelehenean hasi ziren, eta ACBko teknikariek herenegun eman zioten baiezkua instalazioei. **Berria - Harian**

Osagaririk gabe, **muntaia** katea gelditu beharrean izango da. **Berria - Ekonomia**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

61 argazki, 24 argazki **muntaia**, 18 marrazki, 21 margo eta Lekuonaren 50 objektu aukeratu dituzte. Anu Pennanen (Finlandia, 1975) bideo **muntaiak**, berriz, arkitekturaren eta espazioaren azterketa interesgarria egiten du emakume itsu baten bidez. **Berria - Kultura**

Irrati-**muntaiak** eskuz egiten genituen: enbarazu egiten zuten eztlak eta gainerakoak non zeuden zehatz-mehatz kalkulatu, "gilette" batekin zinta ebaki, etenda geratutako zintaren bi muturrak zelorekin itsatsi, eta aurrera. **Joxerra Garzia**

Hala ere, badago besterik ikusi zuenik *Paris no se acaba nunca*-n: guztiaren gainetik publizitate-**muntaia** erraldoia zatekeen, zeinaren helburu bakarra *La asesina ilustrada* nobela haren promozioa izango baitzen. **Iban Zaldúa**

### 5 (artegintzan) ik instalazio 2.

Une honetan SoHoko EXIT galerian dauka **muntaia** bat eta Stuttgart eta Belgikan izatekoak ditu beste erakusketa pare bat. **Harkaitz Cano**

### 6 antzerki lan bat antolatzea.

Martxoan EHUko *Aula de Teatro* taldearekin *Hiritarrak* izeneko **muntaia** berria estreinatu behar du. **Berria - Kultura**

Aktore lana da **muntaia** horretako baliorik nagusia. **Berria - Kultura**

*Medea, la extranjera* izeneko **muntaian** Euripides, Seneka, Pasolini eta Heiner Müllerren testuak erabili dira, besteak beste. **Berria - Kultura**

Lindsay Kempekin lan egina du aurretik *Flauta Magikoa* Mozarten operaren **muntaian**. **Berria - Kultura**

### 7 engainatzeko antolaketa.

Gezurra izan zen guztia; **muntaia** bat, Hollywooden filmatutako **muntaia** zikina. **Iban Zaldúa**

Brigada Zientifikokoak oporretatik itzuli dituk, eta, atzo aipatu zidatenez, armaren gainetiko azterketa aski izanen zitzaiguan hiltzaileak prestatu nahi zigen **muntaia** gezurtatzeko. **Aingeru Epaltza**

**Muntaia** polizia salatu dute Askatasunak eta Segik, eta «okupazio militarra» amaitzeko eskatu dute. **Berria - Euskal Herria**

Auzi honi **muntaia** politiko-juridiko-poliziala iritzi zion. **Berria - Euskal Herria**

Mezitako sarraskia xiiten **muntaia** dela diote AEBek. **Berria - Mundua**

Grabazioa, bistan da, **muntaia** bat da, gerta daitekeen gertaera bat irudikatzeko. **Berria - Mundua**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**muntaia izan** (3); **muntaia politiko** (4); **muntaia polizia** (3)

**muntaiak egiten** (3)

## muntaines iz

Xirribikiak gero eta trenpe gehiagorekin ari ziren jotzen eta herriko jendeak, irriz, dantzan, buruko beltz gorri brodatuak zituzten **muntaines** andre adinekoak denak baino airosago, esku zartaka eta biraka ari zirelarik. **Aurelia Arkotxa**

- Beraz gu Quebecen bezalatsu, guk ere **muntainesa** eta frantsesa mintzo ditugu, **muntainesa** delarik gure populuaren hizkuntza. **Aurelia Arkotxa**

## muntaketa (orobat muntaketa g.er.) 1 iz muntatzea.

GAMESAK (%3,89) 3i inbertsio funtsari saldu dizkio parke eolikoen **muntaketa**, ezarpen eta mantenuaz arduratzen diren filial bi. **Berria - Ekonomia**

Osagaien **muntaketa** egokitzeko. **Berria - Kirola**

Igandeko kasuan egokitze lanak ere kontuan hartu behar dira, kantxa eta abarren **muntaketak** bere kostua duelako. **Berria - Harian**

Tresneria horren alokatzeak 250 euro eta 300 euroren artean gostako du, garraioa, **muntaketa** eta desmuntaketa barne. **Herria**

Huts egin duten piezak «behin-behinekoak» direla, «eraiketa eta **muntaketarako** baino balio ez dutenak, baina amaitutakoan zereginik izango ez dutenak». **Berria - Euskal Herria**

Bisita gidatuak osatze aldera ikus-entzunezko bi **muntaketa** prestatu dituzte. **Berria - Kultura**

Aretoaren erdian, sabaitik zintzilik, trapezio formako lau instalazio jarri ditu **muntaketa** bitxi batean. **Berria - Kultura**

### 2 (filmena)

Zinema, sekuentzia, **muntaketa**. **Josu Zabaleta**

Zinema ere, ordea, edo filma, hobeto esateko, bloke horietako multzo bat (planoak) "ordena eta iraupen-baldintza jakin batzuetan" kateatuta eratzten den **muntaketa** bat da. **Josu Zabaleta**

Film guztiak, edo ia guztiak, muntatuak dira, [...] **muntaketaren** eginkizuna alde guztietan berdina ez bada ere, oso alderantziz baizik. lehen **muntaketan** hasten da benetan argi ikusten filmaren arima nolakoa den, filmak arnasa nola hartzen duen. **Josu Zabaleta**

Berriro zinemara itzultzeko, bada, **muntaketak**, sekuentziatzeak denbora guztiz artifizial, sintetiko bat sortzen du. **Josu Zabaleta**

Zinema klasikoaren **muntaketa** "gardenaren" garapena gertaeren denboraren irudikapen sinboliko konbentzionalen oinarritzen da. **Josu Zabaleta**



Plano bakartuan munitasiaren maila planoen arteko **muntaketa** -jardueran dago. Josu Zabaleta

Zinema mutuak zenbaitetan gehiegi ere erabili zituen **muntaketa** -efektu hipertrofiako dokumentu errealtatearen desitxuraketa bortitza ziren, baina ezin agortuzko adierazgarritasun-iturburua izan ziren bolada batean. Josu Zabaleta

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Europa gerran sartu aurreko urtean Ford Motor Company izenekoak jarri zuen abian lehenbiziko **muntaketa** katea Detroiten. Pello Salaburu

Ingeniaritza, mekanika, **muntaketa** eta, noski, eraikuntza lanak egingo ditu Babcockek. Berria - Ekonomia

Oraindik filmaketa eta **muntaketa** lanak amaitu ez diren arren, Telmo Esnalek eta Asier Altunak ere Aupa Etxebeste! euskara hutsezko beren lehen luzearen trailerra aurkeztuko dute Euskal Zinemaren Eguneko galan. Berria - Kultura

Lanaren poderioz, zeluloidearen egarrarian, **muntaketa** gelaren gosez bizi den Winterbottomen *The Road to Guantanamo* nork baztertuko bada Mendebalde osoaren lotsa pantailaritzen duen fotograma sorta krudela? Berria - Kultura

Arte erakusketen **muntaketa** lanetan espezializatutako enpresa baten ardura izan zen pieza horrela ezartzea museoan egokitu zioten lekuan. Berria - Kultura

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Makinen matxura eta funtzionamendu txarragatik auto **muntaketak** bertan behera gelditu ziren lantegian 17: 00etan, eta zuzendaritzak lantegia 22: 00ak arte ixtea erabaki zuen. Berria - Ekonomia

"Ekialdean Eüskaraz" argazki eta soinü **muntaketa** prest da. Herria

Ez al dira askoz ere iraingarriagoak *La Razón* egunkariak bere lehen orrialdean kaleratzen dituen argazki-**muntaketak**? Txema Ramirez de la Piscina

### 5 instalazioa.

Bazko goizean, apirilaren 1ean, lantegirat beheiti igortzen gigitze eta manatzen material guzira xehatzea, lantzen ziren airekoen hegalkak eta elektrizitate **muntaketa** guziak. Michel Oronoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**muntaketa lanak** (4)

## muntaketari iz muntaketa lanak egiten dituen pertsona.

Idauze-Mendi herri osoa da pastoralari lotu: 85 aktore aurkituko dira taulen gainean eta beste 150 jende inguruko lanetan (josle, **muntaketari**...). Herria

## muntaketatxo iz muntaketa txikia.

Denborazko collagea da, bada, itxuraz pinturan denbora irudikatzeke gehien erabili den modua, baita koadro batean une bakar bat irudikatu nahi zenean ere, zeren, ikusi dugun bezala, funtsezko unea **muntaketatxo** baten pareko izaten baita ia beti. Josu Zabaleta

## muntarazi, muntaraz, muntarazten du ad muntatzera behartu.

SIVU egitura berezi bat ere **muntarazten** du Garaziko 23 herri eta Baigorrialdeko 4 herriren artean, egitura hunen bidez botere publikoen ganikako finantzamendu bat segurtarazi nahian. Herria

## muntatu, munta, muntatzen (orobat *montatu g.er.*) 1 du ad ikuskariez eta kidekoez mintzatuz, emanaldia antolatu.

**Muntatu** zioten pilota partida bat, berak bien kontra jokatzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Luzaidarrak famatuak ziren Donibane Garazin eta beste hiri zenbaitetan **muntatzen** ziren indar jokoetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gero kostaldeko presoan, ikastolaren edo errefuxiatuen alde **muntaturiko** dantzaldietara lehiatzen ziren, neskaka, usu arrakastarik gabe. Itxaro Borda

### 2 tresnez, egiturez eta kidekoez mintzatuz, osatzen duten atalak elkarri lotu.

Azkenean motorra **muntatu** eta martxan jarri nuenean, berak irri-murrika egin eta "Bravo" esan zuen, besterik ez. Joxe Austin Arrieta

Bonba horien parte bat lurpe hortan **muntatzen** omen zen. Marzel Etxehandi

Lanetik kanpo telebistak **muntatzen** zituen, gero prezio onean saltzeko. Juan Kruz Igerabide

Goizean aparatuak **muntatu** baino ez zuen egiten. Juan Garzia

Ez naiz puskaz puska **muntatu** makina bat ni, humano soil bat baino. Itxaro Borda

Fardelak egunero garraiatu beharra, dendak egunero **muntatu** eta jaso beharra, otorduak prestatu beharra... Patxi Zubizarreta

Pintura ekarri bitartean aldamiaoa **muntatu** genuen sakristian, hango sabaia margotzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Badugu Donibane Lohizunen, duela dotzena bat urte **muntatua**, [...] ur galduen garbitegia. Menane Oxandabaratz

Mekanoa aurreneko **montatu** zuenean. Jokin Muñoz

### 3 irud/hed

Gorputzean, berriz, oso arin eta nahiko tenperatura baxuan apurtzen eta **muntatzen** dira berriro proteinak eta beste hainbat substantzia konplexu. Irene Aldasoro

-Asier honek arrasatu egiten dik roilo txarrak **montatzeko** orduan! Pako Aristi

### 4 armez mintzatuz, tiro egiteko eran jarri.

Aldameneko garitan guardia zibil bat zegoen goitik behera begira, eta, egoerak gaindituta erabat, fusila **muntatu** eta patiorantz apuntatu zuen urduri. Rafa Egiguren

Arma **muntatua** zuen eta geziak niri egiten zidan so. Aingeru Epaltza

Armak **muntatuta** eta bihotza taupaka ailegatu ginen Sestao-Barakaldoko bidegurutzera. Rafa Egiguren

Anek, frankotiradore batek bere arma **muntatu** ohi duen sotilatasun eta leuntasun berberarekin desmuntatu zuen Pearla zatika. Unai Iturriaga

**Muntatu** gabe zekarren eskopeta, baina ez zen ehiztaria. Koldo Izagirre

Baionako etxea aurkitu, goiko pisuan Mauser 66a **muntatu** eta itxaron zure ehizakia agertu arte. Sonia Gonzalez

### 5 filmez eta mintzatuz, osatzen duten pasarteak hurrenez hurren lotu.

Film guztiak, edo ia guztiak, **muntatuak** dira, film batzuek oso plano gutxi badituzte ere, eta muntaketaren eginkizuna alde guztietan berdina ez bada ere, oso alderantziz baizik. Josu Zabaleta

### 6 egunkariez eta mintzatuz, testuak eta argazkiak orrialdeetan antolatu.

Ekipa hortan, badira gazteak ere parte hartzen dutenak, *Herria*-n idazteko-edo..., **muntatzeko** edo...? Menane Oxandabaratz

### 7 antolatu, organizatu.

Laborantzako kooperatiba herrikoia **muntatuko** hemen zuen zerbitzuko. Itxaro Borda

Biziko gauza serioseña duk familia baten funtsez **muntatzea**. Janbattitt Dirassar

Guk elgarrekin **muntatu** dugun elkarte batean. Menane Oxandabaratz

Familiaren dirua xahutzen zuen etorkizunik gabeko fabrikak **muntatzeko**. Mikel Hernandez Abaitua

1929an **muntatu** zuen dantzarari zeuzkan talde bat, behenafatar dantzak barzelonan, nazioarteko erakusketaren karietara. Angel Aintziburu / Jean Baptiste

Etxarren

Orotara 50 langile gutienez, nahiz Arrasateko buruzagitzak kopuru apalagoa duen ofizialki aipatzen, enpresa komiterik ez dadin **munta**, 50 langiletako lantegietan behar litaikene bezala. Herria

Itzulpen zerbitzua **muntatu** zuten. Iñaki Iñurrieta

## 8 **muntaxe** muntatu xamar.

Karia hortarat, hautagai zerrendak **muntatuxeak** dira hor gaindi, batzu agertuak ere, gehienak egun hotan agertuko. Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**batasunak muntatu** (3); **elkarreak muntatu** (16); **elkarreak muntatu du** (3); **erakusketa muntatu** (3); **espresuki muntatu** (3); **etxeak muntatu** (3); **hazia elkarreak muntatu** (3); **ikastolak muntatu kantaldia** (3); **manifestaldi bat muntatu** (3); **muntatu besta** (4); **muntatu bilkura** (7); **muntatu bilkura batean** (5); **muntatu elkarreak** (4); **muntatu erakusketa** (12); **muntatu erakusketa bat** (4); **muntatu kantaldia** (4); **ohoretan muntatu** (9); **pollita muntatu** (4); **talde bat muntatu** (5); **taldeak muntatu** (3)

**aski ederki muntatua** (4); **ederki muntatua** (4); **ederra muntatua** (5); **elkarreak muntatua** (4); **erakusketa bat muntatua** (6); **ibilaldi bat muntatua** (4); **inguruan muntatua** (3); **manifestaldi bat muntatua** (4); **talde bat muntatua** (3)

**elkarreak muntaturik** (4)

**batasunak muntatzen** (3); **besta bat muntatzen** (4); **besta muntatzen** (3); **biltzar bat muntatzen** (3); **burasoek muntatzen dute** (3); **elgarretaratze bat muntatzen** (3); **elkarreak muntatzen** (9); **elkarreak muntatzen du** (4); **eskolak muntatzen du** (3); **etxeak muntatzen du** (3); **ezagutarazteko muntatzen direnak** (3); **herriko etxeak muntatzen** (4); **ikastolak muntatzen du** (3); **kantaldi bat muntatzen** (4); **mixel eskolak muntatzen** (3)

## muntatzaile *(orobat montatzaile g.er. eta muntatzale g.er.)* 1 iz montatze lana egiten duen pertsona.

Hauen ustez, aurretik gertatu ziren industria iraultzek, ehule, irule, garraiolari, **muntatzaile**, tornulari edo errementarien bizi-modua aldatu zuten. Iñaki Heras

Batzuentzat, neska gazte hori, gaixtagin bat izanki, "terrorista" bat, hain segur beste norbait hil beharra zuen lehegailu baten **muntatzailea**. Herria

Tailerreko **muntatzaileak** eskuz konpondu behar izaten du erredakzioan egindako txandria. Aingeru Epaltza

Euskal zinemagile, aktore, gidoiari, produktore, **muntatzaile** eta soinu banden konpositoreei buruzko hiztegi entziklopedikoa osatu du. Berria - Kultura

## 2 antolatzailea.

Antoine d'Abbadie d'Arrast famatuaren adixkide eta laguntzale handiena, lore-jokoen **muntatzaile** kartsua. Herria

Zenbat jende orotarat euskal-presoen sustenguz? bost milako bat **muntatzaileek** erran dutenaren arabera, 2400 polizaren gostuko. Herria

Manifestaldiaren **muntatzaileak** garbiki erran dute nehork ez deusek ez diotela gibelerat egin-araziko. Herria

[Sustengu bazkariaren] **muntatzaile**, Askatu elkarte, Jean Marie-ren hurbilekoak eta lagunak. Herria

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Muntatzaile** postua lortu zuen, eta hainbat lan egin ostean, 1941n Orson Wellesen *Citizen Kane*-n jardun zuen. Berria - Harian

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Telebistetako egitarau **muntatzaileek** ontsa dakite [...]. Itxaro Borda

Ikusgarri **muntatzaile** hautak izan direla mauletarrak. Herria

Artixta zen errotik eta besta **muntatzaile** gaitza. Herria

## muntatzale ik muntatzaile.

## muntatze 1 iz tresnez, egiturez eta kidekoez mintzatuz, osatzen duten atalak elkarri lotzea.

GMAK **muntatze** eta manipulazio linea automatizatuak diseinatu eta ekoizten ditu. Berria - Ekonomia

**Muntatze** katean hiru txandetan aritzen diren langileak ez ziren lanpostura joan eta lantegian egunero produzitzen diren 1.158 autoak egin gabe gelditu ziren. Berria -

Gaiak

## 2 irud/hed

Benetako **muntatze** -kate likido bat da odola. Irene Aldasoro

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**muntatze katean** (3)

## muntra *(orobat montra)* iz ipar erlojua, ordularia.

Xehe xeheki miatzen gitzute, orduan galtzen ditut ene estilo urrestatua, lepoko gatea bere medailekin, **muntra** eta moltsa. Michel Oronoz

Jende batek galdu du eskuko **muntra** bat igandean mezarat zoalarik, elizako ondo hortan. Herria

Erlotik eta ukaraiko **muntrak** oren batez gibelatu beharko ditugu. Herria

## mununu iz

Ur beroz mukurutu bazina hurbilduz, **mununu** jada negarlaria garbitu zuen izebarekin. Itxaro Borda

## muraila *(orobat murraila; Euskaltzaindiaren Hiztegian muraila agertzen da)* 1 iz harresia, murrua.

Patar lauzaduna, beribila jauzika ari dela eta bihotza pil-pilka, iragan dut, **murailen** barnera sartu-eta, lau egunentzat hor uzteko lo mekanika. Piarres Aintziart

Aulkitik altxatu eta **murailan** behera egin zuen, Igentearantz. Ramon Saizarbitoria

Lau partetan partitu baitzuten haren goputza, eta haren burua, berriz, Mauleko **murrailetako** itsu-leihotik eseki, non hilabeteetan egon baitzen. Joan Mari Irigoien

## 2 irud/hed

Gainera, motozaleak haizearen **muraila** zulatzen du bere gorputzarekin, eta haizearen burrunbak kasko barruan sortzen duen gorrieria bezalako marmar itoak are gehiago isolatzen du gidaria errepidearen erdian. Pako Aristi

Egunean eguneko gertaeren erasoaren aurrean **murrailak** jasotzen ditu gure baitan eromena sar ez dadin. Pako Aristi

## mural 1 iz horma-margoa; horma-irudia. ik horma<sup>1</sup> 11; horma<sup>1</sup> 12.

Gernikan, Picassoren *Guernica* **muralaren** aurrean. Berria - Euskal Herria

Bata bestearren segidan jarrita daude, **mural** handia osatuz. [Berria - Kultura](#)  
Edo Ponpeia erraustu berrian zutik geratutako **mural** haietako baten aurrean ote nengoen? [Joan Mari Irigoien](#)  
Terrakotaz eginiko **mural** erraldoia paratu du Eduardo Txillida Beltzuntzek Donostian. [Berria - Kultura](#)  
Rosenquisten **mural** luzeak gerra gertakariak eta mundu mailako ekonomia ditu hizpide. [Berria - Kultura](#)  
Irudian, Sandsen aldeko **murala**, Belfasten. [Berria - Mundua](#)  
Eskolako hormetan pintatutako **mural** batean. [Berria - Mundua](#)  
Igandoa libre dute, eta **muralak** margotzera joaten dira. [Pako Aristi](#)  
Ezkerrean, gose grebalarien aldeko **mural** bat eta Palestinaren aldeko pintada bat. [Berria - Harian](#)

2

Haien iritziak idazteko prestaturiko **muralean** aldarriak egiteko aukera izan zuten. [Berria - Euskal Herria](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**mural handia** (3)

## muralgile *iz* muralak margotzen dituena.

Juan Manuel Ugarte margolari eta **muralgilea** zendu da. [Berria - Kultura](#)

## murduka *iz* marmarra.

Alimaleko irriti bat zeraman kolkoan, ahots etengabe bat, lotarako bakarrik isiltzen zen **murduka** zurrin bat, menturaz ametsetarik eleka ari zitzaiona. [Itxaro Borda](#)

## murdukari *izond* marmarkaria.

Eta hain zuzen ere, sentimendu guztietatik bereizitako eztabaida gai bat baizik ez zitekeen izan hura guztia, sekula ez, ordea, gurasoek eta alabak, **murdukari** bada ere, hitzen eta emozioen bidez eginiko topada. [Joxan Elozegi](#)

## murdukatu ik **murduskatu**.

## murduskatu, murduska, murduskatzen (*orobat murdukatu g.er.*) 1 du *ad* lardaskatu.

Oroit dut Baiona jo genuen biharamunean gizezko sabelandi bat azaldu zela amaren etxean, girgileria espantagarritz hornitua eta italiara **murduskatzen**. [Koldo Izagirre](#)  
Komunikabideen aurrean **murduskatu** zituen lehen hitzek oihartzun handia izan zuten: berak gola sartuz gero, arazorik ez zela egongo eman zuen aditzera, gaztelania eta ingelesa nahastuz. [Berria - Kirola](#)  
Euskaldun berriak izatera iritsi ez, eta neke-izerdi askoren artean mintzaira ikasi berria **murduskatzer**a ausartzen direnen eleak imitatzea da hemen jolasa. [Iñaki Arranz](#)  
Nexkak bi urte edo izango zituen, baina isildu gabe mintzatzen zen, bere haur hizkeran hitzak **murduskatuz**. [Karlos Zabala](#)

## 2 zezelkatu; murmurikatu.

Begietara so egiteko adorerik gabe, denbora faltaren ondorio penagarriez zerbait **murduskatzen** hasi nintzen. [Aingeru Epaltza](#)  
Ez da batere atsegina senarraren ondoan esertzea eta eterraren eraginetik esnatzean beste emakume baten izena **murduskatzen** aditzea, zurea aditu beharrean. [Xabier Olarra](#)  
Zintzurra tinkatu zitzaion eta berriro Gure Aita **murdukatzeko** saioari ekin zion. [Itxaro Borda](#)  
Zeremonia partikularrak **murduskatuz** ehorzten ditu nor bere hildakoak. [Joxan Elozegi](#)  
Ulertu ez nion zerbait **murduskatu** zuen, eta kanpora atera zen. [Bernardo Atxaga](#)  
Berriro lanari ekinez, music halleko kanta zahar hura **murduskatzeko**. [Anton Garikano](#)

## 3 hortzikatu.

Urdaila hutsik dute, baina azenario bat **murduskatuz** joaten dira, beren etxe hotzetatik irten eta oraindik ere hotzago dauden kaleetatik ibiliz, ikasgela hotzetara. [Josu Zabaleta](#)  
Batzuetan laranjak ipintzen nituen; bestetzueta sagarrak; nik **murduskatu** edo milikatu nitzakeen titiak ziren, eta beheko sakonunean zapi bat ezartzen nuen gurin edo olio apur batekin. [Patxi Zubizarreta](#)

## murduskatze *iz* lardaskatzea.

Ikusi nindueanean, uretik erdi jalgi eta bigarren ahapaldia kantatzeari lotu zen, eta, nik higitu gabe eta harkaitzean zutik entzuten nuela ikusirik, honela esan zidan, frantsesaren eta espainieraren **murduskatze** batean: [...]. [Koldo Izagirre](#)

## murgil 1 *iz* urpeko igerialdia. ik **murgilaldi**; **pulunpa**<sup>1</sup>.

**Murgil** luzea egiten genuen geure zanbuilaren iberatik joan ahala urrun azaleratzeko. [Koldo Izagirre](#)  
Ikusleen arteak hautatutako damatxo batentzat itzulipurdiak eta agoniazko **murgilak** egiten. [Josu Zabaleta](#)

## 2 (izenondo gisa)

Ardoari tragoxka luze bat eman dio soinujoaleak, haren ahotsak arestiko maitemin doinu **murgila** tupustean galdu aurretik. [Pako Aristi](#)  
-Haatik, bere baitan amildu zen, eta ez zegoen modurik handik itrenarazteko; putzuan gero eta **murgilago** ikusten nuen. [Juan Kruz Igerabide](#)

## 3 (hitz elkartuetan)

Ura berotzeko hornigaietan erabiltzen den **murgil** -berogailuan, tenperatura-sentsore batek korrontea itzaltzen du tenperaturak maila jakin bat gainditzen duenean, [Irene Aldasoro](#)

## 4 **murgilean** murgil egiten.

Nire gogo hondoko ur sakonetan **murgilean** sartzen saiatzen naiz. [Jenaro Garate](#)  
Hiru aldiz hasi behar izan zuen irakurketa, **murgilean** arakatu ohi zituen kostapeko arrokak bezain lauso hartzen zituen hitzak, ezin zuen kontzentratu. [Koldo Izagirre](#)  
Eta hondoa jo baino lehen, igerian ikasi nahi dizu euskarak, eta ur axaleko mariposa estilo xurian ez ezik, urpeko zoko ilunetan ere ekin dio **murgilean**, eta horratx titanic paperezko gurea azaldu! [Patziku Perurena](#)

## 5 **murgil** *egin* murgildu.

Bonantzako petretetik **murgil egiten** ari ginen, hotza oraindik, ikusgarri hura sartu zenean bokalean banean. **Koldo Izagirre**

Ez baitakit korrika egiten, ez jauzi egiten, ez buruz **murgil egiten**, ez baloia harrapatzen, eta are gutxiago txutatzen... **Jesus Mari Mendizabal**

Farfailezko mantelina aurpegian, begiak apal, sartzen dira emakumeak hondartza betetzen duten oihalezko etxola horietarik batean; istantean jalgitzen dira aztal-has, ardura belanez beheiti ez doan artile marroizko atorra hutsa soinean, eta algaratan doaz lasterka **murgil egitera**. **Koldo Izagirre**

Alde batetik bestera ontziaren azpitik igarotzekotan **murgil eginda**, estekatu egin da mutilaren bainu-galtza gilako burdina-kakoska batean; eta, hartatik ezin jareginik, hil egin da bertan. **Txillardegi**

Krater sakon batean **murgil egin** dugu, eta itzulipurdika zeharkatu dugu izotza, zalaparta bizian, hondo urtsuraino. **Mirentxu Larrañaga**

Zeruaren putzu urdinean **murgil egin** zuten haren begiek. **Juan Garzia**

Euskal literaturan **murgil egiteko**. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**murgil egin** (10); **murgil egiteko** (3); **murgil egiten** (4)

## murgilaldi *iz* murgila, urpeko igerialdia.

Nire defentsa-lerroak estutu nituen, eta, horrekin batera, sakon arnasa hartzen kausitu nuen neure burua ustekabean, **murgilaldi** luze baterako prestatzen denak egin ohi duenez. **Juan Garzia**

Nonbaitekin gurutzatu, eta ikusten nuenean ez zidala begiratu ere egiten, arnasa hartzen nuen sakon, **murgilaldi** luze batetik atera banintz bezala. **Anjel Lertxundi**

Haren giza jakintzaren burdina [...] filosofia orokorraren uretan **murgilaldi** labur batzuk emanda zuen gozatua. **Irene Aldasoro**

**Murgilaldiak** direla-eta, zer istripu mota izan daitezke? **Berria - Euskal Herria**

## murgilarazi murgilaraz, murgilarazten 1 du *ad* murgiltzera behartu.

Komisarioak uretan **murgilarazi** zion berriro ere burua, tarte luzez, harik eta eskuburdinen arteko hatzen dardara amaitu zen arte. **Harkaitz Cano**

Bere hitzen oihartzun fonikoak behialako errealitate ahantzira eraman ninduen ni ere, eta urtetan geldirik egondako ur paduratsuetan **murgilarazi**. **Xabier Mendiguren**

Elizegi

Ez nintzen erori, eta deabru haiek ez zuten jadanik ni amildegian **murgilarazteko** asmorik. **Koro Navarro**

### 2 irud/hed

Existitzeari herra, nazka izatea, neure burua existiarazteko, existentzian **murgilarazteko** beste modu batzuk dira. **Monika Etxebarria**

Kontraesan horrek behin baino gehiagotan **murgilarazi** ninduen eskizofreniaren ur arreetan. **Joan Mari Irigoien**

Karlomagoren ondorengo erregealdi zorigaitzekoek, normandiarren inbasioek, barne-gerrek, atzera ere hasierako iluntasunean **murgilarazi** zituzten nazio garaileak; ahaztu egin zitzairen irakurtzen eta idazten. **Iñaki Iñurrieta**

Uhinen errepikapen hipnotikoak lagunenean barnearekin bat egin zuen, nolabait, eta kadentzia basati batean **murgilarazi** zituen. **Fernando Morillo**

## murgilari *izond* urpeko igerilaria.

Ilunbeetako argi-izpiek gora ete behera jarraitzen zuten, ur irakinetan botatako dilista-ale bakan **murgilariak** balira bezala. **Anjel Lertxundi**

## murgildu, murgil, murgiltzen 1 da *ad* isurkari batean (besterik adierazten ez bada uretan) osorik sartu. ik **murgil 3**; **pulunpatu**.

Orduan, On Camillo uretan **murgildu** eta, burua urpean zuela igeri eginez, ibai erdiko uharte txiki batera iritsi zen, bai eta han ihi artean ezkutatu ere. **Koldo Biguri**

Buruz behera dzanga **murgildu** zen uretan. **Joseba Sarrionandia**

Plaxtako batzuk entzun nituen, gorputz txikiak uretan **murgiltzean** bezalakoa. **Bernardo Atxaga**

Iritsiak ginen zurrunbiloa inguratzen duen aparrezko eraztunera; eta pentsatu nuen, jakina, osinean **murgilduko** ginela ondoren. **Koro Navarro**

Baina, itsasaldiak alde batera utzirik, esan daiteke oso gorpu gutxi **murgilduko** dela, baita ur gezatan ere, berez. **Koro Navarro**

Nahikoa izaten da diferentzia hori gorputza uretan **murgil** dadin. **Koro Navarro**

Hura entzun, aurpegia iturri publikoan **murgildu**, eta ni gabe jarrai zezatela egin nuen opa. **Joxe Austin Arrieta**

Eraztuna uzta inerte baten gisan uretan **murgildu** zenean. **Harkaitz Cano**

Managua hiri barreiatuko kaleetan barrena ibili naiz, zalantzan, likido amniotikoan **murgilduta** bezala. **Joseba Sarrionandia**

### 2 da/du *ad* hondoratu-edo.

Hilen Egoitzaren hondo-hondoraino jaitsiko zara, biok batera lurpean **murgil** gaitzezenean. **Elizen arteko biblia**

Putzuaren erdiko zurrunbilok irentsi eta betiko **murgildu** ziren arte. **Juan Kruz Igerabide**

Atera nazazu lokatzetik, ez nadila **murgil**; libra nazazu gorroto didatenengandik eta ur handietatik! **Elizen arteko biblia**

Baratzera irten eta elur pila batean **murgildu** zen biluzik. **Askoren artean**

Ur azpira isuritako olio a ur azalera ateratzen da; olio gainean isuritako ura oliopean **murgiltzen** da; beren pisuak eraginda, beren tokira doaz. **Imanol Unzurrunzaga**

Orduan ez dago beste sustengurik leizezulo jainkozkoan **murgildu** eta azpiratu besterik. **Joan Mari Lekuona**

Ez bezate bururik jaso ni inguratzen nautenek; **murgil** bitza beren ezpainetako makurkeriak! **Elizen arteko biblia**

Bitxi birjinen artean **murgildu** zituen hatzak. **Juan Garzia**

Kutxa hurbilenean **murgildu** zuen eskua. **Jon Muñoz**

### 3 irud/hed

Gau luzean **murgilduko** naiz. **Lopez de Arana**

Memoriaren ur uherretan **murgildu** naiz. **Joan Mari Irigoien**

Atsedendald haren ondoren, lagunarteko zurrunbilok **murgildu** zen ostera. **Pedro Alberdi**

Bulegora iritsi nahi du, ordenagailu aurrean jesarri eta argi-piszinan **murgildu**. **Eider Rodriguez**

Lozorroan **murgildu** zen Abram. **Xabier Kintana**

Ametsetan **murgilduta**, bat-bate-an esnatu zen. **Rafa Egiguren**

Baina ez ginen modu berean hazi: ni, osasungabe, eta tristuran **murgilduta**; arina, graziaz beterik eta energiaz gainezka hura. **Koro Navarro**

Eta aholku bat nahi baduk, **murgil** hadi lanean. **Aingeru Epaltza**

**Murgil** zaitetz, ezkuta zaitetz Jainkoaren misterioan. **Joan Mari Lekuona**

Iritsiko da ere bere baitan biltzera, **murgiltzera**, jainkotasunaren ondasun goren eta garbi-garbian urtzera. **Joan Mari Lekuona**

Gizona kezkatu utzi zuen, kopetilun, bere baitan **murgilduta**. **Migel Angel Mintegi**

Indarberrituta, nonbait, beste behin **murgildu** zen bere bilaketan. **Fernando Morillo**



## **murmu** iz eroritasuna, astunaldia, makalaldia.

Estufa ondoan eseri naiz, destenore bainengoan, eta **murmu** astunak hartu baino lehen, patrikan neraman koaderno txikia atera dut. [Anjel Lertxundi](#)

Risotto-ak eragindako gogoetek eta bazkal osteko digestioaren **murmua** arindu beharrak Giardino Real-era eraman naute. [Berria - Kultura](#)

Arian-arian, konpartimentuko beroak eta bi armagnacek eragindako loaren **murmu** sarri batek hartu ninduen Landetarako bidean, eta halaxe egin nuen bidea, harik eta ukondoan kolpe txiki bat sentitu nuen arte. [Anjel Lertxundi](#)

## **murmur** 1 iz marmarra.

Beraren atzean, **murmur** bat baino ez zen entzun. [Juan Garzia](#)

Inor ez zegoela ikusi ninan, nahiz eta **murmurra** entzuten segitu, azoka-egun bateko jende mordoarena irudi. [Juan Garzia](#)

Uste dut denbora guztian egon naizela zure hitzen **murmurra** entzuten. [Unai Iturriaga](#)

**Murmur** isil bat jalgitzen zen haren ahotik: [...]. [Aingeru Epaltza](#)

Edalontzien eta kopen kristalak din-din egiten zuen, ahotsak **murmur** berdin eta bizi batean nahaspilatzen ziren. [Jose Morales](#)

Ezer sumatu ezinik, usain sarkor bat baino ez, eta ahots bat, urrutiko **murmur** nahasi antzeko bat, galdezka, [...]. [Anton Olano](#)

Uraren **murmurak** erakarrira Abelek zuzenean jo du bordaren atzeko aldera. [Pello Lizarralde](#)

Istant bat geroago, zorrota baten **murmur** bizigarria aditu nuen ez oso aparte. [Aingeru Epaltza](#)

Gauero taberna batean lana egiten dugunak itsasoaren azpian bezala bizi gara: beti hotsa, musikaren **murmurra**, ahotsen ardaila etengabean. [Pako Aristi](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

Zurrumuru berdin, taxu zehatzik gabeko bat, gauean haizeak zuhaitz baten adarren kontra ateratzen duenaren antzekoa, ez baitira ikusten ez zuhaitza ez adarrak, baina **murmur** hotsa entzuten baita. [Juan Garzia](#)

Eta hain isil eta hain apal baitzeuden, ez zen **murmur** -hots bat ere entzuten. [Askoren artean](#)

-Eta hots bat atera zen haren ahotik, hots zehazgabe bat, zinkurin **murmur** bat. [Josu Zabaleta](#)

## 3 **murmur** egin

**Murmur** egiten zuen; eta zerbait aitortu nahi zidala ulertu nuen. [Irene Aldasoro](#)

## **murmuratu** (*18 agerraldi, 5 liburutan*), murmura, murmuratzen 1 du *ad* xuxurlatu.

Nolabait kontsolatzeko bilatzen zituen hitzak **murmuratz**en zituen. [Itxaro Borda](#)

Kattina ene ameslari plantaz oharitu zen eta belarrira **murmuratu** zidan: [...]. [Itxaro Borda](#)

-Arren Julen goatzan... **murmuratu** zuen Xaxik bizarrak arin zeukan mutikoaren eskua hartuz, jendaldearen zurrunbilao desagertu baino lehen. [Itxaro Borda](#)

## 2 marmar egin, marmariku.

Badakizu, David, jendeari **murmuraztea** gustatzen zaio, eta batzuek esaten dute Juanek ez duela gehiago hona etorri nahi, [...]. [Bernardo Atxaga](#)

## **murmurazio** iz marmar egitea.

Ez dut nik **murmuraziorik** egin nahi inoren aurka, baina gazte horiek horretan ez ote dabilzan, beldur hori daukat. [Bernardo Atxaga](#)

Betiere **murmuraziozko**, gaizki esandako, haserrezko, gezurrezko edo gehiegikeriazko esaldietan erabiltzen da, eta bi hiztunek hirugarren baten esanak ahotan dituztenean. [Patziku Perurena](#)

## **murmuri** iz xuxurla, marmarra.

Une horretantxe, giza bozen **murmuriak** traveska egin zuen zurezko atez bertzaldetik. [Aingeru Epaltza](#)

## **murmuriatu**, murmuriatu, murmuriatzen (*19 agerraldi, 12 liburutan*) 1 du *ad* xuxurlatu. ik **marmariatu**.

Izaba Juliak irribarre zabal bat egin zuen, eta, konplimenduei buruzko zerbait **murmuriatzen** zuela, Freddyk estutzen zion eskua askatu zuen. ulertu ez nuen zer edo zer **murmuriatu** zuen, alde egin aurretik. [Irene Aldasoro](#)

Andrearen ezpainak ertiriki ziren eta "bai" **murmuriatu** zuela igarri nion. [Juan Martin Elexpuru](#)

Kontinentean! - **murmuriatu** zuen izaba Juliak, buruari astiro atzera eta aurrera eraginez. [Irene Aldasoro](#)

-Kendu kuleroak! - **murmuriatu** zuen, zakar, besteak. [Juan Martin Elexpuru](#)

Etengabe goraka datorren izen bat, iturri bateko ura nola, arimaren barren-barrenetik igotzen dena, ezpainetaraino igotzen dena, esan eta berriro esaten dena, gelditu gabe **murmuriatzen** dena, alde guztietan, otoitz bat bailitzan. [Josu Zabaleta](#)

-Agian... - **murmuriatu** zuen-. [Agustin Otsa](#)

## 2 **kanta-murmuriatu**

Burua makurtu eta gerrian alderik alde zuen urrezko katearen begiak kontaktzen hasi zen lehen tenorea, eta irribarre egin eta, zori hutsean, nota batzuk kanta- **murmuriatzen** zituen, kopeta-hezurreko sinuan zer efektu egiten zuen ikusteko. [Irene Aldasoro](#)

## **murmurikarazi**, murmurikaraz, murmurikarazten du *ad* murmurikatzen behartu.

Berak egin zien tonsura guraize sagaratuaz, eta zazpi Salmoak eta *Dominus pars* delako ahapaldia **murmurikarazi**. [Juan Garzia](#)

## **murmurikatu**, murmurika, murmurikatzen (*183 agerraldi, 59 liburu eta 3 artikulutan*) 1 du *ad* xuxurlatu.

Bizi-bizi hitz egin zuten, xuxurla amaigabeak **murmurikatuz**. [Mirentxu Larrañaga](#)

Behin batean, karrikan ama eta biokin gurutzatu eta, italiara arinez zerbait **murmurikatu** ondotik, makurtu eta muin eman zion amari eskuan. [Alberto Ladrón Arana](#)

Diosal kikildu bat **murmurikatu** nien nire paretik pasatu zirenean, baina gizon luzeak bakarrik itzuli zidan agurtzat har zitekeen keinu presati bat. [Alberto Ladrón Arana](#)

Gorpu ia erabat erre denean, brahmanek honda-kinak eta errautsa bildu eta, orain bi mila urte sans-kritoz moldatutako otoitzak **murmurikatzen** dituztela, ibaian zabalduko dituzte. [Gotzon Garate](#)

Mahaikideek zerbait **murmurikatu** eta edan egin zuten. [Mirentxu Larrañaga](#)

## 2 marmarka esan, marmarrean aritu. ik **marmariku**.

Hau besterik ez genuen behar! - **murmurikatu** zuen hortzak estututa. [Lopez de Arana](#)

-Kaka zaharra! - **murmurikatu** zuen hortzak karraskatuz, gora eta behera ibiltzeari utzi gabe. Lopez de Arana

-Azeriak buztana luze, bera bezala bertzeak uste - **murmurikatu** nuen, zuri eta aldi berean beltz. Aingeru Epaltza

Hiriak otoitzak **murmurikatzen** ditu, eguzkiak terrazak argitzen ditu, laster agertuko dira patioetako biztanleak. Jon Alonso

Azken orrialdeko berri batek berdinu zion albiste gosea, "esaten nuen ba!" **murmurikatutrik** titularra irakurri zuen: "Areetako erlojua hondatu egin da zaharren zaharrez. Josu Landa

-Hor dago oraindik doilor hori! - **murmurikatu** zuen hortz artean. Jose Morales

Erabateko lasaitasuna, erreka berritsuak ez balu kalakatuko, **murmurikatuko**, gogaitaraziko, berak bakarrik, atso zaharren bilkura batek hainbat. Itziar Otegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zerbait murmurikatu** (12); **zerbait murmurikatu zuen** (6)

**otoitzak murmurikatzen** (3); **zerbait murmurikatzen** (3)

## murmurio 1 *iz* xuxurla, marmarra.

Berehala, hildakotzat ematen zutena, kexa gisako **murmurioa** bularretik atereaz, arnasestuka zerbait esaten saiatu zen. Askoren artean

Baina konpainia une batez gelditzen bazen, inguruan etengabeko zurrumurrua, hizkuntza ezezaguneko hitz arrotzen **murmurioa** entzuten zela iruditu zitzaion. Agustin Otxoa

Arropa kendu, eta nebaren kontra jarri naiz, haren bihotzeko taupadak entzuteko, haren arnasa sentitzeko, eta berdin haren hesteetako **murmurioa**, isiltasunean. Juan Kruz Igerabide

-Titi txikiegiak ditut -esan zuen ia **murmurio** batean. Fernando Morillo

Errekako uraren **murmurioa**. Juan Kruz Igerabide

Zeinen eder den haizeak eta hegaztien **murmurioek** soilik urratzen duten bakardadea... Filipe Bidart

Tanpez, hondartza lau eta leun batean azaltzen zara, harkaitz, ganbera, arkupe, zulo eta leize labirinto galgarri baten erdian, uhin artera anabasa batean jaurtitako arkitektura bitxia, zeruak urdinez, eguzkiz, argiz eta itzalez, itsasoak aparrez, haizeak **murmuriotz** betea. Koldo Izagirre

### 2 (izenondoekin)

Hormaz bestalde, zotin eta **murmurio** itoak entzuten dira. Juan Kruz Igerabide

Horrelaxe haserretzen da haizea marruma bortitzez eta ankertzen **murmurio** mehatxatiz. Xabier Amuriza

Fruta helduaren zaporea eta itsasoaren **murmurio** gozoa. Ramon Saizarbitoria

### 3 (hitz elkartuetan)

Estasi-**murmurio** baten ondoren, orain arteko txaloaldi sutuena eskaini diote bere biluztasun diseinatuari, ondo merezia gainera. Patxi Iturritegi

Ordukoan poz eta oniritzi **murmurioa** izan zen bisitariena, eta gizonak "follow me" esan zuenean, denak atera ziren haren atzetik korrika. Ramon Saizarbitoria

### 4 *murmuriotz*

Hiru zeregin gabeetako batek **murmuriotz** esan zuen: [...]. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**murmurioa entzun** (3)

## murmurioka (8 *agerraldi*, 4 *liburutan*) *adlag* xuxurlaka.

Antoniarekin batera berrikeran ari zen beste andreak Inaxi izan behar zuela uste izan zuen, **murmurioka** mintzatu arren haren ahotsak zuen tonu larria zela eta. Josu Landa

Gauaz, itzulika eta **murmurioka** sumatzen nuen, harekin partekatzen nuen ganberan. Aingeru Epaltza

Honetan pentsatzerakoan, bere artean **murmurioka** ari zen "Akabo denok, nor bere bakardadean", aitaren hitzak behin eta berriro lehertzen baitziren bere buru barruan, hariak eta aitak, begirada hain galdua ikusi zionean, isekati hasi zitzaion arte. Anton Garikano

## murmurka (2 *agerraldi*, 2 *liburutan*) *adlag* marmarka, xuxurlaka.

Aitortzen hasi zitzaidan **murmurka**, eta pentsatzen nuen ea zergatik egiten ote zuen etengabe irribarre eta zergatik ote zituen ezpainak listuz horren bustiak. Irene Aldasoro

## murmuru (2 *agerraldi*, *liburu 1ean*) *iz* murmurioa.

Ezbaditzera utzi zuten **murmuru** apal batez sustengatuz. Itxaro Borda

Uda mineko haritz hostoen **murmuru**. Itxaro Borda

## murmuzika *iz* murmurioa, xuxurla.

Preseski, Tamerlanen anker ospea handitu zuten abere horiez ari nintzen **murmuzikan**, noizbait, misterioz bastatu ipuin bat idaztekoa nuela, abesti bat, nobela bat zergatik ez. Itxaro Borda

## murmuzikatu, murmuzika(tu), murmuzikatzen (3 *agerraldi*, *liburu 1ean*) *du ad* murmurikatu, xuxurlatu.

Burua makurtu zuen Gure Aita zeruetan zarena **murmuzikatuz**, segida bitxiki erabat ahantzia zuela konturatuz. Itxaro Borda

## murraila ik *muraila*.

## murrika 1 *iz* irri-murrika.

Bezero zaharrez josia ikusi nuen bainu gela, **murrika** eta irri gaiztoa ezpainetan. Joxan Elosegi

Lagunek **murrika** batean eta eztarriak urratzerainoko oihu eta ardailak eginez txalotu zuten nire jarduna, eta haiak ere pixa egin zioten juduari. Anjel Lertxundi

### • 2 *adlag*

Korsikarra bere ondoan agertuko litzateke eta eszena berritik hasiko litzateke, berdin-berdina, xehetasun guztiekin, eta andreak **murrika** esanen luke: "Horrelako zerriek galeretan behar lukete". Monika Etxebarria

### 3 *murrikaz*

-Kaleko batek, hala ere, ez luke esango funtzionari bat, karguduna izanik ere, estresatua ibil zitekeenik -esan zuen **murrikaz**. Migel Angel Mintegi  
Mari Jose Nagore zen beste bat [...] gauzak ironiaz eta **murrikaz** esatea gustatzen zitzaiona. Xabier Mendiguren Elizegi

### 4 *irri-murrikasup\_1 iz*

Azkenean motorra muntatu eta martxan jarri nuenean, berak irri-**murrika** egin eta "Bravo" esan zuen, besterik ez. Joxe Austin Arrieta  
Haren **irri**-murrika bizarpetik. Joxe Austin Arrieta

### 5 *irri-murrikasup\_2 adlag*

Baina tipoak ez du deus esatekorik, bere Louvre osoa neska ukitu ahal izateko aitzakia besterik ez, agure lizun halakoa, eta gainera, niri irri-**murrika**. Joxe Austin Arrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**irri murrika** (5)

## murrikazale *izond* murricken zalea dena.

Bere seme-alabek ezaguera izan orduko, tirabiran hasi zen agudo haiekin ere; gehienbat alaba zaharrenarekin, seguru-ustekoa eta **murrikazalea** baitzen, zakartasunez egiten baitzion kontra. Fernando Rey

## murrin *iz* malenkonia.

Gozamen-une berdingabeak arindu zion pixka bat **murrina**, eta txistua jotzen harrapatu zuen zuzendariak komunetik irteretakoan. Karlos Linazasoro

## murripen *iz* murritzea.

Planak zenbait produkturen arantzel **murripen** gogorra eta gutxieneko maila proposatzen ditu. Berria - Ekonomia

## murritu, murri, murritzen du *ad* murriztu.

Ondorioz, 4 G-ko dezelerazio zitala lortu zuen pistan izan zen bitartean, abiadura 86 km/h **murriztu**. Berria - Kirola

## murriz *izond ipar* murrizta.

Gehiengo **murrizta** egia erran bainan aski halere euskal gobernuaren buru egoiteko. Herria  
Hots, erabaki ona bixtan da bainan azkenean **murriztegia** halere. Herria  
Orai arte, Europa-maileko bozek dute oro har arrakasta gutiena ukaiten, jendearen parte hartze **murriztena** ... Herria  
Nigerianere, Afrikako herrialde pobre eta **murriz** hartan, idortea dute, zinez izigarria. Herria  
Egia da bai, itxuraz eta argazkiz xuhur eta **murriz** egon dela luzaz *Herria* ahal eskasez. Herria

## murriz 1 *izond* laburra, motza.

Gure liberatzaileak harrapaka lotu zitzaizkien gazteluko bizigarri **murriztei**. Aingeru Epaltza  
Haren ondotik, ziztu bizian abiatua zen segizio **murrizta**, hegaz iduri hilerriko karriketako altzifreen artean. Aingeru Epaltza  
Haren gorpuzkera **murrizta** zurruntzen sumatu nuen. Aingeru Epaltza  
Gainera, giza hizkuntza oraindik urrian, oraindik **murriztean** ez zegoen horretarako hitz egokirik. Jose Morales  
"Gerrako denborak gogoratzer" hari eman zion erantzun **murriztak** ez zuen, noski, txoferraren jakin-mina ase; alderantziz, antza. Ramon Saizarbitoria  
Jalgi nintzen sekulan baino minberatsuago, milesker **murriz** bat erranik azpiz behatzen zidan andereari. Janbattitt Dirassar  
Ezin dira maila berean jarri eremu zabaletan eta eremu **murriztetan** erabiltzen diren osagaiak. Koldo Zuazo  
Mih **murrizteko** belar luze handien gibelean den patarra bat-batean gelditzen da. Aurelia Arkotxa  
Xingola denda txiki bat zuen, baina, irabazi **murrizta** ematen zuenez gero, beste lan batzuk hartu behar izan zituen. Karlos Zabala  
Heldu den urteko erronka izanen da hori: parte-hartze **murriz** horren arrazoiak aztertu eta konponbideak aurkitzea. Berria - Euskal Herria  
Baia nagusi ere bainan gehiengo **murriztagoarekin** Baionan (%65) Ziburun (%60) eta Maulen (%55). Herria  
Administrazioak gure esku jarri dituen baliabideak aski **murriztak** izan baitira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu  
Gogamena informazio prozesatzailea dela esatea ez ote da gogamenaz ikuspegi **murriztegia** izatea? Askoren artean  
Hiria eremu librea da, liberalagoa, zabalagoa, argituagoa, eta herriak eta herri-koxkorrek berriz, **murriztak**, motzak, atzerakioak, jauntxoaren eta apaizaren mendean luzaz egonak. Iñaki Segurola

### 2 soila, larrutua.

Bardeak deitu toki **murriztak** baliatzen ditu Espainiako armadak bere malobra eta entseguen egiteko. Herria  
Hében bizi dūzū gure áita -esan dit orduan Garazik, bere eri-puntez herrixkaren kaxko **murrizta** seinalatzen zidalarik. Txillardegí

### 3 (adizlagun gisa)

Ez daki faltsukerietan aritzen eta beraz **murriz** erantzuten dio. Eneko Bidegain  
-Saget andereñoak bidali digu -esan zuen Lisa ederrak **murriz**. Karlos Zabala  
Hedabideek eman dute berria aski **murriz**, gure iduriko, Iparraldean. Herria

### 4 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa)

Eterrez usaindu ospitaleko zeldaren **murriztean**, behin erraiak xahatzen behatu baitzuen astiro, lagunak bere aitaren pentsa-indarra nola bereganatu zuen agertu ziola oroitzen. Euskal literaturan ere, gure zenbatekoaren **murrizta** eta kalitatearen eskasa nahi baino gehiagotan aurpegiatzen dizkiguten arren, baditugu adibide guztiz gogoangarriak. Itxaro Borda

### 5 *barre-murriz* (orobat *barre-murriz*)

Erredakziora nintzenetik, **barre murriztak** luzatu nizkion neure mahaitik eta halaberean erantzun hark. Aingeru Epaltza  
Norbaitek halakorik oroitarazten dienean, **barre murrizta** egiten besterik ez dakite, gizalegez-edo. Joxe Austin Arrieta  
Haren **barre murrizta** ez zen parte onekoa. Aingeru Epaltza  
Minik hartu ez nuenez gero, bere baitan **barre murriz** bat egin zuela uste dut. Gotzon Garate



## 6 irri murriztik ik irri 18.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**barre murriztik** (4)

**barre murriztik** (5); **ikuspegi murriztik** (4); **irakurketa murriztik** (3); **irri murriztik** (3); **murriztik izan** (4); **murriztik izango** (4); **oso murriztik** (10)

**askoz murriztik** (4); **gero eta murriztik** (6)

**gero eta murriztik** (3)

**baliabide murriztik** (3)

## murriztaile ik murriztaile.

## murriztarazi, murriztaraz, murriztarazten (*orobat murriztarazi*) du ad murriztera behatu.

Garapen iraunkorrak, berriz, etorkizuneko belaunaldiari beren beharrik asetzeko gaitasuna ez **murriztarazteko** ideia du oinarri. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Nazioarteko aurrezkiaren halako mobilizazio batek, beste eskualdeetako kapitalen eskari garbia **murriztarazi** behar zuen, nahitaez. **Koro Navarro**

Erreformak kostuak **murriztaraziko** ditu. **Berria - Euskal Herria**

Hezitzaileei eskatu beharreko hizkuntz eskakizunak **murriztarazi** ditu. **Berria - Euskal Herria**

Baliabide batek duen eskariak produkzio iraunkorra gaintitzen badu, soberako eskari hori baliabidearen oinarriaren kontura asetzen da, kapital naturalaren stocka **murriztaraziz** horrenbestez. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

## murrizte iz ipar murriztea.

Laguntzaren **murrizte** hori jasaiten dute beraz Urtatsetik hnat beren lana galdua dutenek. **Herria**

**Murrizte** horrek ondorio txar frango baduelarik gastuak araberan ttipitu badira ere... **Herria**

Dei bat zabaldu dute helduden larunbatean, irailak 14, manifestaldi ixil bat aratsaldean egin dadin Bilbon Euskal-Herriaren eta euskaldunen eskubide guzien alde, ez onartzeko eskubide horien ukatzerik edo **murrizterik**... **Herria**

## murriztu, murriztu, murrizten du ad ipar murriztu.

Badakizue badela ixorio frango Unedic langabetuen asurantzak-kutxak bere laguntzak **murriztu** dituelakotz. **Herria**

Jazko ziloa ahal bezala estalirik aintzina segi bainan xuhur-xuhurra, lansail guzia gisa hartaraz **murriztuz**. **Herria**

## murrizdura iz murriztea.

Harri ilunez egina, gotorleku baten **murrizdurarekin**. **Herria**

## murrizgarri izond murrizten duena, murrizteak ezartzen dituen.

Kezkagarriak dira Europako Batasunak legez kanpoko immigrazioaren eta terrorismoaren kontrako neurriak aitzakiatzat hartuta, aspaldion hartu dituen neurri **murrizgarriak**. **Berria - Euskal Herria**

Ikuspegi deterministak eta **murrizgarriak** gero eta zabalduago daude. **Askoren artean**

Baldintza **murrizgarri** gisa. **Ibon Uribarri**

Politika **murrizgarriak** inflazioa, hau da, prezioen hazkundera kontrolatzea dute helburu. **Iñaki Heras**

«Neurritzko» diru politika **murrizgarriekin** segitu dute AEBek eta urtea puntu laudenek bost igoerarekin itxi. **Berria - Ekonomia**

Ikuspegi hau nahiko **murrizgarria** da, uste baitu unibertso fisiko azal daitekeela soilik oinarritzko osagaien elkarrekintza material eta energiakoei erreparatuz. **Askoren artean**

Oztopoz bateriko ibilbidea egin du 1996an *Fuzzy logic* lehenengo diskoak kaleratu zuenetik, eta oraindik ere horretan dihardu, etiketa **murrizgarriek** muzin egiten. **Berria - Kultura**

## murrizkeria iz

Elikartasuneko besta, beti bezala, eta oraino luzaz irauarazi beharko dena, frantses estatuaren **murrizkeriak** osatzeko. **Herria**

## murrizketa (710 agerraldi, 31 liburu eta 440 artikulutan) 1 iz murriztea. ik murrizpen; murriztapen.

Zergen **murrizketa** hau soilik dirudunentzat izango da mesedegarria. **Berria - Mundua**

Gasolinaren eta gasolioaren garestitzea gehien pairatu duten sektore profesionalentzat ez da zerga **murrizketarik** izango Hego Euskal Herrian. **Berria - Harian**

Lehen adierazi legez, eskubide politikoan **murrizketak** zekarren eskubide zibilak gehitzea. **Andres Urrutia**

Zinemagileak adierazi duenez, *The Terminal* ez da bere herrialdeari eta immigranteei jartzen zaizkien **murrizketek** egindako kritika bat. **Berria - Kultura**

Energia kontsumoa murrizteko politikak bultzatu nahi dituzte Europako Batasuneko (EB) Energia ministroek: estatu guztietan urtean %1eko **murrizketa** egitea nahi dute. **Berria - Gaiak**

Adituek 0,4 puntuko **murrizketa** iragarri zuten. zorraren **murrizketa** bizkortzeko eta datorren urtean ere defizita %3tik azpira mantentzeko «beharra». **Berria - Ekonomia**

Laguntzen **murrizketa** hitzartu dute MMEko 147 herrialdeetako ordezkariak. **Berria - Ekonomia**

Frantziar, lanaldiaren **murrizketari** buruzko legeak gorabehera handiak izan ditu. **Iñaki Heras**

Sei urte gerra karlistan, Bergarako bake faltsua, emigratuak milaka Ameriketara, Foruen **murrizketa**. **Joxe Azurmendi**

Ingurumeneko helburuak dituzten merkataritza politikoko neurriek ez lukete bazterketa arbitrarioa edo justifikaezina eragin behar eta, era berean, ez lukete nazioarteko merkataritzaren **murrizketa** eragin behar. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Zigorren handitzea, sakabanaketa, isolamendua, komunikazioen **murrizketa**, gaixo dauden presoan eskubideen urraketa, [...]. **Berria - Harian**

Bi urtean 20 orduko **murrizketa** eskaini dute orain. **Berria - Ekonomia**

**Murrizketak** etengabeak izan dira erreforma guztietan. **Berria - Mundua**

Adin Txikiaren Sorginkeriararen Zentzuko **Murrizketarako** Dekretua, 1875, C paragrafoa. **Iñaki Mendiguren**

Siriara egin ditzakeen esportazio oro botikak eta elikagaiak izan ezik debekatuko ditu Washingtonek, baita bi estatuon arteko banku transakzioei **murrizketak** ezarri ere.

## 2 (izenondoekin)

Zenbat eta diru laguntza gehiago jaso, orduan eta **murrizketa** handiagoa ezarri behar dela. Ongiaren murriztea gaitza da, baina **murrizketa** handia izanda ere, zerbaitek irauin behar du beti, substantzia izateari utziko ez badio. **Berria - Ekonomia**

Azpiegituren kontzentrazioa, enplegu eta ekoizpenaren **murrizketa** nabarmena, malgutasunaren hazkuntza eta ondorioak leuntzeko neurriak ere aipatu zituen Martinez Roblesek. **Berria - Ekonomia**

Soldata igoera eta lanaldi **murrizketa** ezdeusak onartu ditu. **Berria - Ekonomia**

Legatza ez dabil horren larri, baina bientzat **murrizketa** zorrotzak eskatu ditugu gure txostenean. **Berria - Mundua**

Gasteizko lantegian produkzio- **murrizketa** «gogorra» egingo dute, eta, soilik greban parte hartu ez duten 85 langileen lanpostuak ziurtatzeko asmoa dute.. **Berria - Ekonomia**

Peter Hartzek, berri, esan zuen konpainiak lanpostu **murrizketa** «dramatiko» bat egin dezakeela, IG Metallek proposatutako neurriekin ados egon ezean. **Berria - Ekonomia**

Kontsonante multzokatzearen kontrako **murrizketa** zabalagoren bat. **Lourdes Oñederra**

Haien ustez akordio hori «**murrizketa** sozialen» plataforma bat da. **Berria - Ekonomia**

Baldin eta gerrak, goseteak, gaitzek edo zenbat **murrizketa** moralek eragozten ez badiote. **Xabier Olarra**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horien aurrean errezeta-liburu berrian, desarauketa, pribatizatzea eta zerga presioaren **murrizketa** neurriak dira nagusi. **Iñaki Heras**

Maastrichten eta euroaren aitzakiaz **murrizketa** politika zorrotzak ezarri ziren, gizarte-babesa narriatu, kapital-errenten gaineko zergak leundu eta abar. Bautaneko 6.000 langilek ere jardunaldia eten zuten **murrizketa** plana salatzeke. **Iñaki Heras**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez dugu dudarik mobilizatu beharko dugula ere ondoko asteetan Sarkozy legearen kontra, eta lege hunek datorren libertate **murrizketaren** kontra. **Herria**

Artean argi **murrizketak** zeuden eta, oinezkoek, haren begien zuria topatzen zuten ustekabeen, polizia baten gerrikoaren mihi metalikoaren dirdai berberekin. **Patxi Zubizarreta**

Aldaketak ez du eskubide **murrizketarik** eragingo. **Berria - Kultura**

Gasolinaren eta gasolioaren garestitzea gehien pairatu duten sektore profesionalentzat ez da zerga **murrizketarik** izango Hego Euskal Herrian. **Berria - Harian**

Gastu **murrizketan** enpresak erakutsi duen jarrera salatzeke. **Berria - Ekonomia**

Puntu **murrizketa** porrot egiten dutenei. **Berria - Kirola**

Horrexegatik ez du inoiz haragia falta, janari- **murrizketa** guztiengatik ere. **Alberto Ladron Arana**

Poz-arintasun maltzurrez jasaten genituen anoa- **murrizketa** eta ikatzik gabeko etxeetako hotza. **Juan Garzia**

Batetik motorren edukiera **murrizketa**, V10 eta 3,0 litroak alboratuz V8 eta 2,4 litroak inposatu ditu FIAk. **Berria - Kirola**

Igarotzen duen egoera bakoitzak, esaldiaren puntu horretan hurrengo hitzaren aukera mugatzen duten gramatika- **murrizketak** itxuratzen du. **Itziar Laka**

Izan ere, kasu honetan hautatze- **murrizketa** berberak aurkitzen ditugu, baina alderantzizko hurrenkeran. **Itziar Laka**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

askatasun murrizketa (5); askatasunaren murrizketa (3); askatasunen murrizketa (3); aurrekontuen murrizketa (3); diru laguntza murrizketa (3); diru laguntzen murrizketa (8); ekoizpen murrizketa (3); ekoizpenaren murrizketa (3); eskubide murrizketa (6); eskubideen murrizketa (8); gastu murrizketa (3); kopuruaren murrizketa (3); kostuen murrizketa (6); laguntza murrizketa (3); laguntzen murrizketa (9); lanaldi murrizketa (30); lanaldiaren murrizketa (13); lanpostu murrizketa (6) murrizketa ekarriko (4); murrizketa eskaini (3); murrizketa eskatu (4); murrizketa handia (6); murrizketa handiagoak (4); murrizketa handiak (4); murrizketa hitzartu (3); murrizketa nabarmena (4); murrizketa nabarmena izan (3); murrizketa neurriak (5); murrizketa plana (3); murrizketa salatu (6); murrizketa salatzeke (4)

zerga murrizketa (3); zergen murrizketa (4)

eskubide murrizketak (8); laguntzen murrizketak (3); lanaldi murrizketak (13); lanpostu murrizketak (3); murrizketak egin (3); murrizketak egingo (3); murrizketak eragin (3); murrizketak ezarri (3); murrizketak izan (6); murrizketak onartu (3); murrizketak salatu (5); murrizketak salatzeke (6); zerga murrizketak (6); zigor murrizketak (4)

lanaldi murrizketaren (4); lanaldiaren murrizketaren (4)

lanaldiaren murrizketari (3)

inolako murrizketarik (4); lanaldi murrizketarik (10); lanaldi murrizketarik ez (4); lanaldi murrizketarik onartuko (3); lanpostu murrizketarik (3); murrizketarik onartuko (5)

## murrizki *adlag* murriztasunez.

Kattalin ez da sartu ezkongaien eztabaidan eta **murrizki** bezain lasaiki espliketzen dio bidea. **Eneko Bidegain**

## murrizkor *izond* murrizteko joera duena.

Bi diru politika mota aplika daitezke: hedakorra edo espansiboa [...] eta kontrakoa. **murrizkorra** -diru kopurua murrizten duena eta interes tasen gorakada ekartzen duena-.

**Iñaki Heras**

Ekonomiak, beste edozein enpresa intelektualean antzera, dizipulu **murrizkorren** legeari jarraitzen dio. **Iñaki Heras**

## murrizle *izond* murriztailea.

Fausa hori ez baita arazlea, **murrizlea** baizik (efficiens / deficiens). **Imanol Unzurrunzaga**

Izaki hauek zenbat eta gehiago izan, zenbat eta on gehiago egin (orduan egiten baitute zerbit) kausa arazleak dituzte; aitzitik, ahultzen hasi orduko eta, ondorioz, emaitza txarrak ematen (eta orduan huskeria baino ez dute erdiesten) kausa **murrizleak** dituzte. **Imanol Unzurrunzaga**

## murrizpen (*20 agerraldi, 2 liburu eta 13 artikulutan*) 1 iz murriztea, murriztapena. ik murrizketa.

Mugitzeko **murrizpenak** direla-eta heriotza asko gertatu dira kontrolguneetan. **Berria - Mundua**

Espetxeetan komunikazioen **murrizpenak** ugari izan dira. **Berria - Euskal Herria**

Israelgo Gobernuak kendu egin behar ditu Zisjordaniatik eta Gazatik Israelera lanera doazen palestinarrei ezarritako **murrizpenak**. **Berria - Mundua**

Arlo sozialean **murrizpenak** eragin dituztelako. **Berria - Harian**

Adierazpen honetan jasotako eskubideei bakar-bakarrik ordena publikoa eta besteren osasuna, eskubideak eta oinarriko askatasunak babestera begira legeak aurreikusten dituen **murrizpenak** aplikatu ahal izango zaizkie. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Aurreko guztiak ageri-agerian uzten du garapen iraunkor terminoak halako **murrizpen** etiko eta ekologi batzuk daramatzala berekin. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Ekonomia urritasunaren edo **murrizpenen** zientzia dela esan daiteke nolabait. **Iñaki Heras**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Murrizpen** prozesua pixkana-pixkana egingo da hogeii urtean. **Berria - Mundua**

-PPren gobernuak hasitako eskubide **murrizpenaren** bidean jarraitzen du PSOEk. **Berria - Euskal Herria**

**murriztaile** (*89 agerraldi, 15 liburu eta 49 artikulutan*; orobat **murriztaile** *4 agerraldi, liburu 1 eta 3 artikulutan, eta murriztaile g.er.) 1 izond murrizten duena.*

Orain arteko legea oso **murriztailea** zen. **Beria - Gaiak**

Horrenbestez, helburu horri begira, diru-politika **murriztaileak** ezartzen dira, interes tasak areagotuz. **Iñaki Heras**

Murrizte hori berez gerta zitekeen, berariazko aurrekontu-politika **murriztaileen** ondorioz. **Koro Navarro**

Hazkundera moteltzen bada, langabezia-tasa jadanik altua duen herrialde batek, Frantziak adibidez, nekez eutsiko dio neurri **murriztaileen** bidez bere aurrekontuaren defizitaren igoera automatikoari. **Koro Navarro**

Gorputza, beraz, ez litzateke pentsatzearen kausa, baizik bere baldintza **murriztaile** soila. **Ibon Uribarri**

Errealitate psikologiko bat da, ikuspuntu **murriztaile** eta manikeoetan oinarritua. **Beria - Mundua**

«Diru-goseari» egotzi dio patronalaren «jarrera **murriztailea**». **Beria - Ekonomia**

Unibertsitatean sartzeko sistema **murriztaileak** ezartzea; unibertsitatean ikasleek eman ditzaketen urteen epea murriztea; [...]. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

## 2 (izen gisa)

Aukera horrek eztabaida luzeak sortu ditu **murriztaileen** eta pluralisten artean. **Askoren artean**

## 3 ez-murriztaile

Beraz, Davidsonen materialismoa ere ez-**murriztailea** da, ez baitago gogo-egoerak egoera fisikoetara murriztuko dituen legerik. **Askoren artean**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**neurri murriztaile** (4)

**legea oso murriztailea** (4); **nahasi eta murriztailea** (3)

**neurri murriztaileak** (8); **politika murriztaileak** (5)

## murriztapen (*17 agerraldi, 7 liburu eta 2 artikulutan*) 1 iz murriztea, murrizpena. ik murrizketa.

Babesa, ordea, **murriztapena** ere izan ohi da norbera mugitzeko orduan. **Ana Urkiza**

Isolamenduaren eta torturen areagotzea; komunikazioen **murriztapen** eta zangotrabak. **Beria - Harian**

Izan ere, askotan garapen-prozesuak berak **murriztapenak** jarriko dizkio eboluzio posibleari. **Askoren artean**

Teoria zientifikoen arteko erlazioen tipologia ezartzea: zein da, adibidez, partikulen mekanika klasikoaren eta erlatibitatearen arteko erlazioa? **murriztapenarena**, mugakasuarena, egokitasunarena (korrespondentzia), idealizazioarena...? **Askoren artean**

Horrela, beraz, orotasuna (totalitatea) ez da askotasuna batasun gisa kontsideratua baino; **murriztapena** ukapenarekin lotua dagoen errealitatea besterik ez. **Ibon Uribarri**

## 2 (hitz elkartuetan)

PPren agintaldiko «nazionalismo konstituzionalaren» eta «askatasunen **murriztapen** aroaren» ondoren. **Beria - Euskal Herria**

- Beraz, alegoriarik eta igarkizunik gabe irakatsi nahi izateak iluntasuna eta hitz **murriztapena** dakar. **Xabier Kintana**

## murriztarazi ik murriztarazi.

## murriztasun 1 iz murrizta denaren nolakotasuna.

"Bainua" du izena, eta minimalismoaren adibide ezin biribilagoa da; bere **murriztasunean**, isiltasunean esan genezake, guztiz beldurgarria. **Koro Navarro**

Transkripzio ororen **murriztasuna** eta errealitate fonetikoaren mugagabetasunaren arazoari dagokio. **Lourdes Oñederra**

Diru-sarreraren eta mozkinen gehiegizko kontzentrazioak eragindako barneko merkatuen **murriztasunak** kanpoko merkatuen bilaketa guztiz lehiatsua ekarri zuen. **Koro Navarro**

## 2 pl

Beste kasu batzuetan, ordea, euskarak **murriztasunak** dauzka, eta orduan ez da beti erraza antzeko esanahi bat duen edo frantsesezko esanahitik hurbilenik den hitz bat edo esaera bat aurkitzea. **Beria - Euskal Herria**

## 3 (hitz elkartuetan)

-Jo, edo... -desenkusatu zen Velasco; nabarmena zuen hitz **murriztasuna** -. **Anjel Lertxundi**

## murrizte 1 iz soiltzea, inaustea, bakantzea. ik murrizketa.

Emozio-bizitzaren areagotze bixi bat nabaritzen omen zitzaizen LTEa zuten gaixoetariko batzuei (baina baita **murrizte** bat ere). **Xabier Olarra**

Fenomeno horren hasieran inportazioen **murrizte** bortitz bat gertatu zen, Europako eta Estatu Batuetako krisiak eraginik. **Koro Navarro**

Benetako diru-sarrera edo enplegu-mailan zerturiko **murrizte** larriek gutxitan erasaten diote ekonomi sistemari bere osotasunean. **Iñaki Mendiguren**

1980 eta 1990eko hamarraldien ezaugarrietako bat, izan ere, komunikazioen kostuen **murrizte** masiboa da, eta desauratzeen eta pribatizazioen alde handia. **Koro Navarro**

Gastu publikoetan **murrizte** itsuak eginez. **Koro Navarro**

Hizkuntzaren **murrizte** batzuk ahoskera zailtasunak islatzen dituzte. **Lourdes Oñederra**

Ez du haatik entzumena galtzen, haurra ez da gortzen, entzumenaren **murrizte** hori bere gaitasun linguistikoan bakarrik jazotzen da. **Lourdes Oñederra**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Biluzte lana da gehienbat, **murrizte** lana, adierazkortasunaren kontrako lana hain zuzen ere; baina ez hori bakarrik, jakina. **Koro Navarro**

Europako estatuek isurketen **murrizte** plana ez dutela oraindik egin azaldu zuen. **Beria - Euskal Herria**

IG Metall sindikatuaren arabera, Wolfsburgen 45.000 langilek jarduera bertan behera utzi zuten atzo, «**murrizte** plana gaitzesteko». **Beria - Ekonomia**

Esportazioen gaineko borondatezko **murrizte**-itunak. **Koro Navarro**

Industri langileek aurrerapen teknologikoaren onura deusezteko arriskuan jartzen zuten, sindikatuen **murrizte**-praktiken bidez ekoizpena mugatuz. **Iñaki Mendiguren**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Proiektu horrek berak diru-**murrizte** izugarritzko baten mende uzten zituen politika ekonomikoak. **Koro Navarro**

Gero-eta gehiago diru-biltze zerbitzu bilakaturia da Posta, gero-eta gutiago zerbitzu publiko izanez, posta heste, enplegu **murrizte** eta gainerateko hereturekin. **Herria**

## murriztezin 1 izond ezin murriztuzkoa.

Egoera horretan gogo-egoera edo gogo-proprietate **murriztezin** horiek zer arraio diren imajinatzea zaila da. **Askoren artean**

Hala ere, gure **murkitezintzat** josten dugu, sententzen historikoan, gure jakitearen hizkuntza, guskrutak, gure hitzaren hizkuntza, gure beste hizkera batzuk aztertzea bideratzen digun diskurtso estruktural horixe bera. **Xabier Arregi**

## 2 murriztezinako izlag murriztezina.

Obra bati dagokionean bere tradizioei fideltasuna edo bere **murriztezinako** singularitasunaren zatia agerian jartzea, **Xabier Arregi**

# murriztezinak iz murriztezina denaren nolakotasuna.

Fenomeno mentalak fenomeno fisikoekin lotzeko halako lege psikofisiko ez-zurrunik balego, Davidsonen argudioak ez luke **murriztezinak** frogatuko. **Askoren artean**

## murriztu, murriztu/murriztu, murrizten 1 du ad soildu, inausi, bakandu.

Autarkian, adibidez, kontsumo-ondasunen zerrendak **murriztu** egiten dira, inportazioak debekatuta. langabezia-saria jasotzeko epeak **murriztu** egin ziren eta gogortu, berriz, sari hori jasotzeko baldintzak. **Edorta Agirre**

Ravenclaw tartea **murrizten** ari zen. **Iñaki Mendiguren**

Elastikotasuna batetik beherakoa bada, inportaturiko bolumena handiagoa izango da, baina **murriztu** egingo da portugaldar inportazioen balio orokorra. **Koro Navarro**

Herialde jakin bateko balizko jarduera ekonomikoa handitzen edo **murrizten** dutenak. **Iñaki Heras**

Zorra **murrizteko** programak. **Koro Navarro**

Pentsiodunen erosketak ahalmena **murriztu** ez dadin. **Berria - Ekonomia**

Katearen zuzendariak prezioak merkarazi zizkidan eta, enpresa ez kaltetzearen, **murriztu** ere egin behar izan nuen neure portzentajea. **Joxan Elosegi**

Eguzkitik jasoriko beroa, halere, **murriztu** edo areagotu, biak gerta daitezke. **Pello Zabala**

Ongia gehitu ala **murriztu** egin daiteke sorkarrietan. **Imanol Unzuurrungaga**

Abokatuak aholkatuta, erruduntzat agertu zuen bere burua, eta, gero, kondena are gehiago **murriztu** ziezaioten, Gordon Dryer ere nahasi zuen amarruan. **Oskar Arana**

Horrela nahi izan dituzuk diskurtsoaren berezko dimentsioak **murriztu**. **Xabier Arregi**

H-aren erabilera mugatu eta **murriztu** beharra aipatu zuen. **Koldo Zuazo**

Milizia, batzuetan herritarren ondarea ugaritu egiten duena, eta **murriztu**, gehiagotan. **Esteban Antxustegi**

Miseriak kontzientzia moteldu egiten du, perspektibak **murriztu**. **Pako Aristi**

Urruntasunak denboraren espazioa **murrizten** dit. **Piarres Aintziart**

## 2 (murrizketaren zenbatekoa adieraziz)

Luzera seiren bat **murriztu** eta zabalera, buelta hartzen duen lekuan, laurden bat. **Santiago Iruretagoiena**

9,2 ordu **murriztu** zuten lanaldia. **Berria - Ekonomia**

Urte urteko datuak alderatuz gero, ordea, 0,1 puntu **murriztu** zen tasa abuztuan eta 0,1 puntu igo Eurogunean. **Berria - Ekonomia**

Hego Euskal Herriko langabezia tasa %0,77 **murriztu** zen irailean INEMen arabera. **Berria - Ekonomia**

- Biztanleria aktiboa 100.000 lagunetan **murriztu** zen. **Berria - Ekonomia**

AEBetako petrolio erreserbak 2,1 milioi upeletan **murriztu** zirela jakin bezain laster, [...]. **Berria - Ekonomia**

Otsail hilabete lazgarria horren gatik, lehen ere, bi egunez **murriztu** omen zuten! **Herria**

## 3 (-ra atzizkiko osagaiarekin)

Adibidez, ekintzen "zertarakoa" ezin da jokabide edo egoera neuroailetara **murriztu**. **Askoren artean**

Hiru mailatako banaketa soziala, aberats, klase ertain eta langileena bitara **murriztu** da. **Pako Aristi**

Disposizioak gertakari publikoetara **murrizten** badira orduan disposizioek rol deskribatzailea dute soilik. **Askoren artean**

Beraz, hizkuntza ezin **murriztu** daiteke hotsetara. **Isabel Arrigain**

Elkarren ondoan, elkarren segidan, bata bestearen gainean jartzen diren edo eskema lineal batera **murriztu** ezinik gurutzatzen diren sail ezberdinen bereizketa ekarri du. **Xabier Arregi**

Alabaina, enuntziatua bera ezin da **murriztu** enuntziatzailearen gertatze hutsera. **Xabier Arregi**

Honela, "ulertze" prozesua aztertzearen inguruko arazo orokorra **murriztu** egiten da, zentzu batean, muin-perpauak nola ulertu behar diren azaltzeko arazora, hauek baitira oinarritzko "edukizko elementuak". **Itziar Laka**

Ryleren iritzi gogo-egoerak disposizioak dira, honako formula honetara **murriztu** daitezkeenak, " $x ((Dx) \cdot (Fx \cdot Gx))$ ", non D disposizioa den eta F eta G egoera publiko arruntak. **Askoren artean**

- Epaileak hamabi ordura **murriztu** dizu zigorra. **Fernando Rey**

Gerora 13.000 milioi pezetara **murriztu** zuen bermea. **Eduarne Elizondo**

Halako herritakoei dirulaguntza erdira **murriztu** nahi dietela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 4 (adizlagunekin)

UNCTADen arabera, 1970etik aurrera etengabe **murriztu** da munduko lehengai-esportazioetan [...] garapen-bideko herrialdeek duten ehunekoa. **Koro Navarro**

Alzheimerren eritasunaz joak direneri burumuineko neuronak zaizkiote emeki-emeki **murrizten**, zituzten ahal guziak kasik ezeztatzeraino. **Herria**

Elkar banatzen segitzen dute, duintasunez **murrizten**, arrotzak bihurtuz bata besteentzat. **Esteban Antxustegi**

Herialde industrializatuen inportazioen gaineko batez besteko muga-sariak zortzi bider **murriztu** dira. **Koro Navarro**

## 5 (era burutua izenondo gisa)

BEZ **murriztuarekin** jarraituko luketen zerbitzuen proposamenean sartu ditu Austriako lehendakariak ileapaindegiak, etxeetako obra txikiak edota zapata konponketak. **Berria - Ekonomia**

Jeinu politiko barbaro **murriztu** baten produktu zabor horrek ez zuela zerikusirik zamak eraman eta arazoak konpontzeko zereginarekin. **Iñaki Mendiguren**

Lehenik bere espartinak, gero bere aztal biluziak, eta izterrak, ikuspegi **murriztu** hartan ere lirain askoak, ondoren bere pelbis galtza bakero atezatuetan hertsia; esku biak patriketan sartuak, zutik. **Joxe Austin Arrieta**

Noizean behin jendetasuneko komentario txiki bat, biziraupenezko kode **murriztu** horretatik ateratzen zena: "Eurria dakarrela ematen du", "botako al dut beste egur bat sutara?". **Xabier Mendiguren Elizegi**

Interpretazio-tarte **murriztuarekin** jokatu dela beti garbi azaltzeko, **Santiago Iruretagoiena**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalmena murriztu (6); asko murriztu (14); aukerak murriztu (5); aurrekontua murriztu (4); defizita murriztu (3); denbora murriztu (3); desberdintasunak murriztu (3); dezente murriztu (4); diru laguntzak murriztu (6); ekoizpena murriztu (11); epea murriztu (3); erabat murriztu (4); erdira murriztu (16); erdira murriztu du (4); eskubideak murriztu (11); etekinak murriztu (3); gastuak murriztu (3); gizarte laguntzak murriztu (5); gobernuak murriztu (3); handizki murriztu (3); heren bat murriztu (4); ikuskizuna murriztu (3); inflazioa murriztu (3); interes tasak murriztu (3); isurketak murriztu (5); kendu edo murriztu (3); kontsumoa murriztu (7); kopurua murriztu (29); kopurua murriztu da (3); kostuak murriztu (3); laguntza murriztu (4); laguntzak murriztu (18)

nabarmen murriztu (19); parte hartzea murriztu (4); politikoak murriztu (4); produktzioa murriztu (3); publikoa murriztu (4); puntu murriztu (5); puntu murriztu zen (3); tartea murriztu (6); tarteak murriztu (3); tasa murriztu (5); tasak murriztu (3); zerbitzuak murriztu (3); zergak murriztu (3); zertxobait murriztu (3)

bez murriztua (7); oihartzun murriztua (3); oso murriztua (3)

murriztuak izan (4)

asko murriztuko (5); aukerak murriztuko (3); ekoizpena murriztuko (4); ekoizpena murriztuko duela (3); erdira murriztuko (5); eskubideak murriztuko (4); gehiago murriztuko (5); kopurua murriztuko (4); laguntzak murriztuko (6); murriztuko duela iragarri (4); nabarmen murriztuko (4)

eskubideak murriztea (3); murrizteaz doa (7); murrizteaz joan (10); murrizteaz joan zen (4)  
ahalmena murriztea (3); aldea murriztea (6); aldea murriztea lortu (5); askatasunak murriztea (5); defizita murriztea (3); ekoizpena murriztea (4); erdira murriztea (6); eskubideak murriztea (4); gehiago murriztea (3); kopurua murriztea (15); kostuak murriztea (5); laguntzak murriztea (4); lanaldia murriztea (6); markagailua murriztea (3)  
murriztea aurreikusi (3); murriztea du helburu (5); murriztea erabaki (19); murriztea erabaki zuen (6); murriztea eskaini (3); murriztea hitzartu (3); murriztea hitzartu dute (3); murriztea izan (5); murriztea izango (3); murriztea lortu (24); murriztea lortu zuten (7); murriztea onartu (3); murriztea proposatu (11)  
tartea murriztea (7); tartea murriztea lortu (5); zergak murriztea (4)  
lanaldia murriztearen (5); murriztearen alde (7); murriztearen aldeko (3); murriztearen aurka (5)  
murrizteari ekin (3)  
adierazpena murrizteko (3); alde hori murrizteko (3); aldea murrizteko (6); aldeak murrizteko (4); arriskua murrizteko (5); arriskuak murrizteko (3); berotegi efektua murrizteko (3); defizita murrizteko (5); ekoizpena murrizteko (3); erabilera murrizteko (5); eragina murrizteko (3); erasoak murrizteko (3); eskubideak murrizteko (4); eurotan murrizteko (4); gastua murrizteko (5); gastuak murrizteko (7); hondamendiak murrizteko (3); interes tasak murrizteko (3); istripuak murrizteko (5); isurketa murrizteko (6); isurketa murrizteko helburuak (3); isurketak murrizteko (5); kalteak murrizteko (5); kontsumoa murrizteko (7); kopurua murrizteko (13); kostuak murrizteko (17); laguntzak murrizteko (4); lan kostuak murrizteko (3); lanaldia murrizteko (4); menpekotasuna murrizteko (4); milioi eurotan murrizteko (3)  
murrizteko ahalegina (4); murrizteko ahaleginean (3); murrizteko asmoa (8); murrizteko asmoz (9); murrizteko aukera (10); murrizteko beharra (3); murrizteko egindako (4); murrizteko egitasmoa (3); murrizteko eskatu (11); murrizteko eskatu du (3); murrizteko gai (3); murrizteko helburuak (3); murrizteko helburuak handitzeko (3); murrizteko helburuarekin (3); murrizteko konpromisoa (5); murrizteko konpromisoa hartu (4); murrizteko legea (3); murrizteko neurriak (16); murrizteko plana (6); murrizteko prest (6); murrizteko proposamena (4); murrizteko tresna (3)  
pobrezia murrizteko (5); produkzioa murrizteko (4); sexu adierazpena murrizteko (3); tasak murrizteko (7); zerga murrizteko (3); zigorra murrizteko (5)  
ahalmena murrizten (5); aldea murrizten (21); aldea murrizten joan (4); arriskua murrizten (7); arriskua murrizten du (4); askatasuna murrizten (8); askatasuna murrizten duten (3); askatasunak murrizten (3); asko murrizten (7); aukerak murrizten (11); aukerak murrizten ditu (3); ekoizpena murrizten (4); erdira murrizten (6); eskubideak murrizten (13); eskubideak murrizten ditu (3); gaitasuna murrizten (5); garatzeko arriskua murrizten (3); gehiago murrizten (4); kopurua murrizten (7); kostuak murrizten (4); kutsadura murrizten (3); laguntzak murrizten (3)  
murrizten saiatu (6)  
nabarmen murrizten (3); sintomak murrizten (4)  
murriztera behartuta (3)

## murriztzaile ik murriztzaile.

## murru 1 iz horma sendoa, harresia.

Ikusi nuen **murru**, arku, etxeaitzin eta biltokirik: harrizko goi-ordoki bat zen oinarria. **Juan Garzia**  
**Murruak** 28 besabete luze ziren alde bakoitzean, 5 besabete garai eta 6 ukondo gizen. **Aingeru Epaltza**  
Seminarioaren **murruak** harresi batzu ziren. **Piarres Aintziart**  
Nanterrera iristean, gurdiak ezkerretara jo zuen, kale txiki mehar batean sartu, **murru** batzuen ondotik igaro eta kale itsu baten amaieran gelditu zen. **Karlos Zabala**  
2003-ko abendoan, Demo eta Zuzen taldetako 16 kide igan ziren Poissy-ko presondegiko **murruen** gainera, euskal preso politikoaren hurbilketa eskatzeko. **Herria**  
Zoladura, **murru** eta artemurru denak atakatu dituzte, tximinia aitzineko harri baliosak eraman dituzte. **Michel Oronoz**  
**Murru** arteko Donostia hartara itzuli nahi nuen nik. **Txillardegi**  
Orain **murru** baten kontra kuxkurturik gelditzen nintzen, orain lasterrari ematen nion sekulako ziztuan. **Fernando Rey**  
Jarri naiz istant bat elizaren atariko **murruan**. **Piarres Aintziart**  
Fraileek **murruan** idekia zuten pareta-xiloa, non berantegi heltzen ziren erromesei ezartzen baitzizkieten jateko edatekoak. **Piarres Aintziart**  
Teilatuak lehertuak, **murruak** arrailduak. **Herria**  
Abra aurrez aurre dauka bere zabalean, Luzero lurmuturreko **murruak** itxita. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Erruso gobernuak gaitzituarena egiten du, Europanoak ari direla "Berlineko **murru**" berri baten eraikitzen Errusiaren eta Europaren artean. **Herria**

## 2 (izenondoekin)

Denbora luzean ibili ginen harrizko **murru** garaien arteko kale zatatsuetan. **Irene Aldasoro**  
**Murru** gorenek ez dute gehiago teilturik atxikitzen, zutarte guziak eroriak dira, salbu pitrail bat edo beste, oraino trebeska daudenak, suak eta eguzkiak beltzatuak. **Michel Oronoz**  
Han eta hemen etxe batzuen hondakinak, **murru** lodi, tinko, beltzak. **Herria**  
Genovako presondegiko **murru** lodien gibelean zegoen gela hertsi batean. **Aurelia Arkotxa**  
Beste oztopo bat jarri zitzairen aurrean: zementuzko **murru** lodi bat; segurtasun goreneko esparruaren babesa beharbada. **Rafa Egiguren**  
Gaztelua inguratzen duten **murru** astunak, zertarako ote dira? **Pedro Alberdi**  
Urtegiko **murru** gaitza begipean dute. **Aingeru Epaltza**  
Gazteluko lau **murru** laburren artean. **Aingeru Epaltza**  
**Murru** almenadunen goialdean Errusiako bandera nazionala mugitzen zen haizeak eraginda. **Karlos Zabala**  
Ibilbide batean bezala zegoen belarra, harrizko bi **murru** apalez mugatua. **Koldo Izagirre**  
Hormape beltzak ez zuen erakusten irregulartasun apurrik ere, **murru** betiberdinek ez bide zuten onartzen ate bakarrik ere. **Juan Garzia**  
Kanpora ateratako soldaduak gure **murru** abegitsueta itzultzen zirelarik, premia zuten norbaiten babesa. **Aingeru Epaltza**

## 3 irud/hed

Iruditu zitzaion bere inguruan eraikitako isiltasun **murru** baten aurrean zegoela lehenengo aldiz. **Joxemari Iturralde**  
Coruña-ko zeruertzean, itsasoko aldean, **murru** antzeko bat bazen, hodeizkoa. **Edorta Jimenez**  
Horren aurrean, hipokresiaren **murruak** botatzen jarraitzeko, mugak behartzeko eta gizartearen puntu ahulak markatzeko afana da idaztera bultzatzen dituen. **Berria - Kultura**  
Nolanahi ere, kartzelatik atera arren, beste **murru** batzuen barreneko aldea ezagutu beharko du, derrigortuta, Agcak. **Berria - Mundua**

## 4 ipar horma, pareta.

Ikasgelaren **murru** batean dilindatuak zituen nik egin marrazki zenbait. **Piarres Aintziart**  
Klaseko lau **murruetarik** kanpo. **Berria - Euskal Herria**  
Horietarik hiru letra haunditan ziren, ikatzez **murru** zuriaren gainean, gelaren hiru **murruetan**, sekulakotz han egon zitezen, hain segur: [...]. **Marzel Etxehandi**  
1922ko martxoaren 29a zela baieztu zuen neskak, sukaldeko **murruan** dilindatu Eskualduna astelehenaren hostozko almanakan. **Itxaro Borda**  
**«Murruak** eta ohea eskaintzen dizkigute, baina hori ote da pertsona batek behar duen laguntza?», galdetu du. **Berria - Euskal Herria**  
Mahai ttipi bat, **murruaren** kontra altxatzen zena (nik uste), alki bat, lastozko matalaza, Beloken utzia nuen hura bezain tinkia edo gehiago, burdiko bat, manta erdi bat, nabarra, komoitateak **murruan** sartuak, gainean ur-untziarekin, gela sabaia biziki gora, eta hantxe, gorenian, leiho ttipi bat burdin barraz garnitua. **Marzel Etxehandi**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

"Santo Domingo laikotasunaren aitzindari". Etxe **murru** batean, hitz hauek irakurtu ditut: "Santo Domingo laikotasunaren aitzindari". **Piarres Aintziart**  
Bigarren dorrea eta kanpo-**murrua** egiteko asmoez bertze egin behar izan zuen Migel Mailuk. **Aingeru Epaltza**  
Sabaian ageri dira oraino arte-**murruen** eta ganberetako leihoen tokiak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Umeen gunea: Jokoak, gaztelua, eskalada-**murrua** eta Kiko, Koko eta Moko pailazoak. **Berria - Harian**  
Deportatuen izenak oroitza generako monumentuetan, izen-**murruetan** eta datu-baseetan zehazteko. **Joxan Elosegi**

## 6 muru-pareta

Teilatu gorri, **muru-pareta** xuri, leiho gehienak ere gorrail, berde edo gaztain-kolore, bai zinez, apainak, garbiak, ederrak ziren gure herriko etxe eta baserriak. Daniel

Landart

Ondotik oroit-harri bat ezarri da Mikel de Salaberry sortu zen etxeo **muru paretan**. Herria

Eta badakit, oroigarri ximple-apain hura, bakoitzak prezatuki etxera eraman zuela eta sukalde, egongela edo logelako **muru-paretetan** luzaz diingo egon zela. Daniel

Landart

Teilatupeko bi gelatxo kokkor, **muru-paretak** dena hozka eta arraildura, zoladurako taulak harrotuak, zurak higikor eta irintzen hasiak iduri lekuka segurik. Janbattitt

Dirassar

Hirurak lerroan, etxe baten **muru paretari** bizkarrez emanak. Janbattitt Dirassar

Hirurak lerroan, etxe baten **muru paretari** bizkarrez emanak. Janbattitt Dirassar

Israel eta Palestinaren arteko kalapita hori beti bezain minbera dago, bien arteko **muru-pareta** berexgarri haren gainetik, zenbait egunez ukaldi txar gutiago agertu bada ere orohar. Herria

## 7 murru xori txolarrea.

Mezan kantu eta otoitz egin dugu elgarrentzat, bihotzak doi bat tinki eta trixte gintuelarik, hor ofizio denbora guzian, **muru xori** bat piu piu kantari gure lagun eliza barnean, iduri zuen nahi gintuela poxi bat ahindu eta alegeratu. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**etxeo murru** (6); **etxeo murru paretan** (3); **muru pareta** (6); **muru paretak** (3); **muru paretan** (5); **muru zahar** (3)

**murruaren kontra** (9)

**murruari kontra** (5)

**eskuineko murrutik** (4)

## murrukutun izond zakarra, idorra.

Senar-emazte **murrukutun** haien aitzinean zer erraiten ahal nion? Janbattitt Dirassar

Baina nola egin ote du horren senargai **murrukutuna** eta errespetu guttikoaren biltzeko. Eneko Bidegain

Baina nola egin ote du horren senargai **murrukutuna** eta errespetu guttikoaren biltzeko. Eneko Bidegain

Hauteskunde aratsetan biltzen dira alderdi buruzagiak telebixta eta irratitan, bakoitzak emaiten duela bere iritzia, batzu aurpegia alegera, bertze batzu, aldiz, **murrukutun** aire batekin. Herria

## murrungari izond murrungatzen duena.

Laguntzailea irten egin zen, **murrungari**. Koldo Izagirre

## murrungatu, murrunga(tu), murrungatzen du ad marmarikatu.

-Eskastxoa omen naiz berentzat, ulertzen? -**murrungatu** zuen, haserre gogorrean inarrosiz giderra. Juan Garzia

## murruntz iz huntzaren antzeko landarea, haitz eta murruetan hazten dena (*Cymbalaria muralis*).

*Cymbalaria muralis* (**murruntza**), *Filipendula ulmaria* (nasailora), *Saxifraga sarmentosa* (harrautsia), etab. J.M. Olaizola "Txiliiku"

## murruskatu, murruska, murruskatzen du ad marmarikatu.

Kontua hartu, gau on **murruskatu** eta irten egin zen handik. Lopez de Arana

## murrust

### 1 furrust eta murrust

Furrust eta **murrust**, oinen gainean bermatu nintzen nolabait. Jesus Mari Mendizabal

## murrutzar iz adkor murru handia.

Etxeo portaletik, parez pare, mendiari eusten dion porlanezko **murrutzar** bat ikusten da. Rafa Egiguren

Neure ezkerretan, **murrutzar** beltzari erabat itsatsirik, txabola mordoa ikusi nuen ilaran. Txillardegi

Nire nerabezarroan eraitsi zuten **murrutzar** zikina, hitz batez, hantxe zegoela berriro, bere luzera guztian zutik; harresiaren eraisketa, preseski, ametsa izan balitz bezala.

Txillardegi

Hamazazpi urte lau **murrutzarren** artean eman izana ageri da orain. Txillardegi

## murruxka iz marmarra, kurrinka.

Ezker, eskuin, **murruxka** apal batzu zilo haundi batzu inguratzen dituztenak, hor etxeak ziren. Michel Oronoz

## muruza iz marrua, orroa.

**Muruza** egiten zuen haizeak. Anjel Lertxundi

## murt

### 1 murtik txintik.

**Murtik** egin barik jarraitu nintzaion gaztelupeko sarreraraino. Edorta Jimenez

Rufinok, hori entzunda, etxera alde egin eban, inori **murtik** esan barik. Xabier Amuriza

Mutikoa **murtxa-murtxari** tematu zen. **Itxaro Borda**  
Minutuak igaroz doaz eta **murtik** ere ez abadeak. **Edorta Jimenez**

## murtxa

### 1 murtxa-murtxari

Mutikoa **murtxa-murtxari** tematu zen. **Itxaro Borda**

## murtxatu

murtxa(tu), murtxatzen (*orobat murtzatu g.er.*) 1 du *ad ipar* miaztu; xurgatu.

Besoetan zeukan haurtxo pottoloak ere, bere gaztaina koloreko begi handiez behatzen zion, esku bateko eri pototsa **murtxatzearekin**. **Elena Touyarou**

Oilasko hezurren **murtxatzen** ari ginela. **Itxaro Borda**

Titi puntak **murtxatu** zizkion. **Itxaro Borda**

Errapeak goseti **murtxatzen** zizkieten suge zilar sotilak tegietan sartzean ardi gaixoak. **Itxaro Borda**

### 2 dastatu.

Eta, Makeako herriak eskainitako hurrupalditik landa, bazkari guziz on bat **murtxatu** dugu Claverie ostatuan, gaintar horiek -Jean Louis Laka, Guy Saldubehere, Frantxua Juanicotena- kantu ozenez inarosten zituztela bazterrak! **Herria**

Garateno trinketa bete bete finala huntan, bakantzak ere baliatuz, omore onean **murtxatu** zikiroaren ondotik. **Herria**

Ez burtxuratzeko, koka hostoak **murtzatu** ditugu eta airos jin gibelerat!!! **Herria**

## murtxika<sup>1</sup> ik murtxikatu 4.

## murtxika<sup>2</sup> ik mertxika.

## murtxikapen iz murtxikatzea.

Jimmyk bere **murtxikapena** entzun zezakeen. **Lopez de Arana**

## murtxikatu

murtxika(tu), murtxikartzen (*orobat murtxukatu g.er.*) 1 du *ad* (ahoa) txikitu. ik **mamurtu**; **mastekatu**.

**Murtxikatu** gabe irentsitako belarra urdailetik berriz ahora ekartzen du behiak, eta han lasaiki **murtxikatzen** du bere ahoko zukuekin ondo nahastuz osteraren irensteko. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Fotonobelak irakurtzen, eta tabakoa erretzen eta txikleak **murtxikatzen**. **Pello Lizarralde**

Kendallek edontzia hustu eta izotz koxkor bat **murtxikatzen** hasi zen, ahosabaia freskatzearen. **Javi Cillero**

Puzzleak **murtxikatu**, eta kartoi-ahia lurtean ttuka barreiatzen nuen. **Xabier Olarra**

Asta-gorotza hartu eta ahora eraman zuen **murtxikatzeko**, esanez: "Masteka beza gorotza, ene anaiaren kontra haserre-pozioa jaurti duen mihi honek". **Askoren artean**

Arin jan zuen, ia-ia **murtxikatu** gabe, eta ogi zaharraren hondarrak poltsikoan sartu zituen. **Lopez de Arana**

Mokadu bat astiro **murtxikatzen** ari zen. **Lopez de Arana**

Aldian behin hostoren bat harrapatzen nuen hortzetan, eta gogotik **murtxikatzen** nuen. **Josu Zabaleta**

### 2 irud/hed

Denbora hartuz **murtxukatu** behar den liburua, hiztegi eta esaldiz aberats, idazleak euskararen artean ingeles doi bat eta buhamien hizkuntza ere jastarazten dauzigula. **Herria**

### 3 (era burutu izenondo gisa)

Zuloa ogi **murtxikatuz** estali nuen. Egur zaintsu honen gainean berniza bezala zabalduko usain beltzean, zuntz **murtxikatu** eta azukredunaren zaporean. **Pello Lizarralde**

### 4 murtxika eta murtxika

Ezer edan gabe jan zuen dena, **murtxika** eta **murtxika**, listua ezterrira berriro zetorkiola antzeman arte. **Lopez de Arana**

## murtxikatzaile izond murtxikatzen duena.

Efemeropteroak ez dira hegalaria oso trebeak eta ahorik, ahoko aparatua **murtxikatzaile**rik, ez dute, atrofiaturik dago. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Efemeropteroen larbak hainbat urtez bizi ohi dira uretan -ibai eta aintzira ertzetako intsektuak dira efemeropteroak- eta garai horretan badute aho **murtxikatzailea**, urte horietan landareak janez bizi ohi baitira. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Zer jan eta edaten dute, bada, milikari horiek, ardoa zer den ere ez baitakite, vitamina-irensle, te hotz-edale eta kotoi **murtxikatzaile** horiek, ogia zer den ere ez baitakite... **Joxe Austin Arrieta**

## murtxukatu ik murtxikatu.

## murtzatu ik murtxatu.

## murtziar izlag/iz Murtziakoa, Murtziari dagokiona; Murtziako biztanlea.

Solidario haietako gizonezko **murtziar** batek lana ere galdu egin zuen. **Jokin Urain**

Quique Mateo, 24 urteko **murtziarra**, Eibarren arituko da datozen bi urteetan. **Berria - Kirola**

Travis Flint estatubatuarak *scratch*-ak egin ditu, eta Ruben Llorach **murtziarrak** batasuna eman dio perkusioari. **Berria - Kultura**

Gorritxo festak bertatik bertara bizi ahal izan zuten **murtziarrek**. **Berria - Kirola**

# murutzar iz

la berrehun metrora izango da, **murutzar** erromesak sortuko dira uretatik, urpeko lehegailuren batek jota bezala, olatu lodiak eta zurrunbiloak eraginez, eta urgaina neurri guztietako izotz eskonbroz populatuko da. **Joseba Sarrionandia**

## MUS 1 iz berez bi bikoteren artean jokatzeko den karta jokoa, jatorriz Euskal Herrikoa.

Ez da **mus** joaten ahal... **Menane Oxandabaratz**

Ortzaizeko ikastolak urte oroz antolatzen duen **musaren** eguna aurten **musaren** aratsaldea bilakatzen da. **Herria**

**Musaren** psikologia guzira ikasi zuen eta mus txapelketa batean irabazteko gai bihurtu. **Eneko Bidegain**

Zinez egun goxo bat pasatu dugu Bazko astelehenean **musaren** eta muslarien ohoretan... **Herria**

Tarot madarikatua irakurtzen jarriko zaituztet **museko** karta sail batekin. **Harkaitz Cano**

Ez da hordago bat, **museko** partida galtzen delarik botatzen denaren gisan. **Berria - Ekonomia**

Alabainan **museko** jokoa Frantziako xapeldun ditugu Felicie Etcheverry, Ximun Goity eta Antton Duhalde. **Herria**

**Museko** frantses federakuntzak galdaturik. **Herria**

Desafio hori ez dugu airerat egina, ez da **museko** gezur bat bezala. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bat-batean oroitu zen, egunero, bazkalondoren, etxepeko tabernan jokatu ohi zuen **mus** partidaz. **Josetxo Azkona**

-Jaun-andreok, bukatu da **mus** -partida... **Inazio Mujika Iraola**

Egurditan bazkaria, 16 orenetan **mus** haitadak. **Herria**

**Mus** txapelketa, *Umore Ona* elkartean. **Iñaki Segurola**

Helduden artean Frantziako **mus** federazioak muntatuko du hogoita bostz garren munduko **mus** xapelketa, Euskal Herrian, urriaren 5tik 12 raino. **Herria**

Auzuneko taberna arteko **mus** -lehiaketaren finala dugu. **Josetxo Azkona**

Zigarro bat kendu zion **mus** -lagunari. **Inazio Mujika Iraola**

Indarrak auskalo nondik aterata, irmo jarri, galtzak bere lekuan tinkatu, eta **mus** -gelara joan nintzen. **Inazio Mujika Iraola**

Hartan hasi zenean, ordea, **mus** -mahaira eserita zeudenetako bat -obispoaren joko-laguna, hain zuzen-, aulkia atzera bota, zutitu, eta, eskuak behera ahurrak gure aldera jarrita, hasi zen kexuka: [...]. **Inazio Mujika Iraola**

## 3 musean museko jokoa.

Mahai bat erdian, goian pantailadun lanpara berde bat, eta mahaira eserita, lau lagun **musean**. **Inazio Mujika Iraola**

Jakingo duk **musean** edo tutean, ezta? **Pedro Alberdi**

Tabernan konfiantza egindako hainbat lagunekin elkartzen zen, **musean** edo tutean jokatzeko. **Joan Mari Irigoien**

Euria bazen, ondo haietako etxe edo aterbe batetara joaiten ziren **musean** edo kartetan aritzera. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gero, batzuk **musean** hasi ziren. **Koro Navarro**

Konputagailuarekin **musean** aritu gaitzke modu erreala batean. **Berria - Gaiak**

**Musean** hainbat txapelketa irabazi dituela aitortu du. **Berria - Euskal Herria**

## 4 mus xapelgo (orobat musxapelgo g.er.) ipar

Munduko **mus xapelgoa** bururatu da, Argentinan. **Herria**

Larunbateko **mus xapelgoan** 72 biranazko talde ziren zoingehiagokatu direnak, taloak janez. **Herria**

Aurten aldaketa bat bada larunbatearekin, **Mus xapelgo** bat gaitza, ongi saristatua izanen dena. **Herria**

Eta berrikuntza bat aurten: zazpi probintzietan gairikiko **mus xapelgo** handi bat muntatu da. **Herria**

Arras ederki iragan da eskola pribatuak martxoaren 13an antolatuta zuen **mus xapelgoa**. **Herria**

## 5 mus xapelketa (orobat musxapelketa g.er.) ipar

Hogoi ta lau garren munduko **mus xapelketak** iragan dire ganden astean BOISE, Idaho hiri nagusian. **Herria**

Urkoin, **mus xapelketa** izanen da aste ondar huntan. **Herria**

"Union Basque" batasunak antolatzen duen aurtengo **mus xapelketa** bururatu da, duela zenbait aste hauetan jadanik. **Herria**

Azaroaren 18-an, Bidart trinketearen apailatua da **mus xapelketa** bat goizeko 9 etarik, aratsalde apal arte. **Herria**

-Larunbat aratsean, 7-ak eta erdiatarik goiti, Kanbon, herriko jantegian, **mus xapelketa**, Errobi ikastolak muntatua. **Herria**

## 6 mus-zale ik muszale.

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antolatzen duen **mus** (10); munduko **mus xapelgoa** (4); munduko **mus xapelketa** (3); **mus eguna** (7); **mus federakuntza** (3); **mus federakuntzak** (5); **mus federakuntzan** (3); **mus haitadak** (6); **mus lehiaketa** (115); **mus lehiaketa bat** (25); **mus lehiaketak** (4); **mus lehiaketan** (3); **mus lehiaketaren** (3); **mus lehiaketaren finala** (3); **mus partida** (20); **mus partidak** (9); **mus txapelketa** (34); **mus txapelketan** (3); **mus txapelketarekin** (3); **mus txapelketaren** (3); **mus xapelgo** (18); **mus xapelgo bat** (4); **mus xapelgo handian** (4); **mus xapelgoa** (15); **mus xapelgoan** (4); **mus xapelgoaren** (3); **mus xapelketa** (61); **mus xapelketa bat** (12); **mus xapelketak** (5); **mus xapelketan** (5); **mus xapelketaren** (3); **mus zoin gehiagoka** (18); **mus zoingehiagoka** (48); **mus zoingehiagoka bat** (9); **mus zoingehiagokan** (6)

**musaren eguna** (11)

**musean aritzea** (4); **musean aritzeko** (4); **musean aritzera** (3); **musean arizan** (4); **musean arizantik** (3); **musean artzea** (5)

**museko finalak** (3); **museko xapelgo** (9); **museko xapelgo nagusiaren** (5); **museko xapelgoa** (5); **museko xapelketa** (5)

## musa 1 iz antzinako mitologian, buru-lanezko antzeen buruzagi ziren bederatzai jainkosetako bakoitza, bereziki poesiarena eta kantuarena.

**Musa** bat aurkitu zuen, idazten lagunduko zion **musa**, inspirazioa, laguntza. **Joxemari Urteaga**

Azkena diragarren marra zurirantz lasterka noan honi erakuts bidea zuk, Kaliope, **musa** trebe, gizakien atsedean eta jainkoen atsegin horrek, zu gidari zarena, aintza gorenaren koroa atzeman dezadan. **Xabier Amuriza**

**Musa** jainkozkoak, nabari dut goiargitu egiten nauzuela, baina ez bakarrik Tempé-ri xarameletan kantatzen diotena edo Delos-en liraz errepikatzen dena. **Iñaki Iñurieta**

Zazpi emakume haiek ez ziren haragizkoak, Parnasoko zazpi **musak** baizik. **Karlos Linazasoro**

Ez dago probintziarik metropoliarik gabe, ez legerik fundatzailearik gabe, ez kanturik **musarik** gabe. **Bernardo Atxaga**

"Helikonen **musek** hitzigen ziotenekoa kontaktzen digunean", idazten du Hesiodoz, "ez da alegoria bat edo apaingarri poetiko huts bat erabiltzen ari". **Bernardo Atxaga**

Hain gai ilunari buruz hain bertso argitsuak jartzen ditudalako, denak **musen** gozotasunez zipiritindurik. **Xabier Amuriza**

## 2 irud/hed

Lorategi horretatik hegaldatzen dira nobela zeharkatzen duten tximeletak, lorategian bizi da eleberriko **musa** den Mary Ann. **Berria - Kultura**

Llanzoleko markesa «Balentziagaren **musa** eta lagunmina» izan zen, Mariano Kamio Fundazioko lehendakariordearen arabera. **Berria - Kultura**

Kontuan hartu behar da Jane Birkin nire nerabezaroko **musaren**, Charlotte Gainsbourgen, ama dela. **Berria - Kultura**

Duela ia berrogei urte The Rolling Stones taldearen **musa** bihurtu eta malenkoniak blaitutako diskoak grabatzen hasi zenetik, gorabehera ugariok ibilbidea osatu du



Faithfullek. [Berria - Kultura](#)

Ez dagoela, esan ohi zuen, alargundutako [musa](#) bat baino gauza arriskugarriagorik. [Joxean Agirre](#)

## **musaje** *iz adkor* aurpegiaren itxura, begitarte. ik **karantza**; **kara**<sup>1</sup>.

Orduan, Durrutiren bidaliari argibideak eman beharko nizkiola bet-betan, Sabigainen zegoela zain, eta ez zuela [musaje](#) onik. [Inazio Mujika Iraola](#)

Luze gabe, Koitoteren [musaje](#) baldarra begiztatu du kolorea galdutako bisera zikin baten azpian. [Patxi Iturritegi](#)

Tolosan egin zenuten pilota aukeraketan ez zenuten [musaje](#) ederra. [Berria - Kirola](#)

-A, argazki batzuk -esan zuen lñigok, artean logura- [musajea](#) ezabatu ezinik. [Joxemari Urteaga](#)

## **musaldi** *iz* mus jokaldia.

Orain hil berri den Nikolas Gastearena mutiltzar ezkurrra, hamaika [musaldi](#) nerekin eta besterekin "Oyalde"n egina. [Patziku Perurena](#)

Kafetegian geunden hiru lagun beti bezala, Julenen zain, bazkalondoko [musaldia](#) egiteko. [Gotzon Garate](#)

## **museifikatu**, museifika, museifikatzen *da/du ad* museo bihurtu.

Guggenheim museorearen atarian, Koonsen txakurraren mezua turistari horixe da: museoetako bilduma klasikoak obsoleto dira, zaharkituak dira dagoeneko, [museifikatuak](#) eta diseatuak daude, eta horien ordezk hobe duzue lore bati, txakur bati, fetixe bati gogor eustea. [Joseba Zulaika](#)

## **museistiko** *izond* museoarena, museoari dagokiona. ik **museo 3**.

Petra Joos Guggenheim Bilbao museoko ekimen [museistikoan](#) zuzendariak mugitzen ari den irudiaren inguruko mahai-ingurua egingo dute gaur 17:00etan Guggenheim museoko auditorioan. [Berria - Kultura](#)

Ondoren, multzo [museistikoaren](#) sarrera, liburu denda bat eta Gipuzkoako Prehistoriaren Museoa har ditzake bere baitan. [Berria - Kultura](#)

## **muselina 1** *iz* kotoi, seda edo artilezko ehuna, gardena eta oso fina.

Soinekoaren azpiko jantzia [muselina](#) finezkoa zen. [Koro Navarro](#)

Bularraldea [muselin](#) soil batez du estalia. [Jon Muñoz](#)

[Muselinak](#), satenak eta gazak garai hartan moda-modan zeuden kolore margul horietakoak ziren. [Jose Morales](#)

Gau-jantziak, udako [muselinak](#) eta jantzi arinak biratu ziren Elleni so egiteko. [Lopez de Arana](#)

Usain-belarrak [muselinazko](#) poltsatxoetan sartzen. [Patxi Iturritegi](#)

[Muselinazko](#) gortinek arratsaldeko argia moteltzen zuten. [Anjel Lertxundi](#)

[Muselina](#) horizko zamau izugarri handi batek -oparia zen- estaltzen zuen mahaia. [Koro Navarro](#)

Botilak [muselina](#) zurizko zapietan ongi bildu eta tapoiak ongi loturik. [Josu Zabaleta](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Pentsatu ninan hiri [muselina](#) zati bat jarriz gero zomorroek-eta ez zinatela enbarazu egingo. [Anton Garikano](#)

## **museo 1** *iz* artearen, historiaren, teknikaren edo jakintzaren aldetik interesa duten gauzaki bildumak biltzen eta sailkatzen diren lekua, gordetzeko eta jendaurrean erakusteko helburuz. ik **erakustoki**.

I. jaunari jasanezinak zitzaizkion [museo](#) eta galeriak. [Xabier Olarra](#)

Etxea baino gehiago, [museo](#) edo artxiboa ematen zuen. [Xabier Olarra](#)

Atalka ari dira egiten Barandiaran [museoaren](#) eraikitze lanak. [Berria - Harian](#)

Gasnaren [museo](#) bat eraikiko dute Idiazabalen, herri hortako Antton Irizar auzapezak jakinarazi duenez. [Herria](#)

Pancras Station, Albert Hall, Historia Naturalaren [Museoa](#) eta halako eraikin bikainak. [Xabier Olarra](#)

Historiaren [Museoan](#) zer gertatu zen asmatzen saiatu ginen Margaret eta biok. [Xabier Olarra](#)

Ameriketako indioei buruzko [museo](#) bat zabalduko dute irailean Washingtonen. [Berria - Kultura](#)

Londresen, Britainiar [Museoan](#). [Pello Zabala](#)

Atalka ari dira egiten Barandiaran [museoaren](#) eraikitze lanak. [Berria - Harian](#)

[Museo](#) ondoko kafetegi batean zeozter jaten ari nintzela. [Bernardo Atxaga](#)

Ikus-entzunezkoak [museoan](#) integratuko ditugu. [Berria - Kultura](#)

Obra hori [museoari](#) dohaintzan eman zion bildumazaleak, Frank Ribelinek, protesta egin ondoren. [Berria - Kultura](#)

Haien iraganaren [museo](#) bihurtu behar ote nuen neure etxea? [Joxan Eloseggi](#)

Ez du esaten, inoren lotsagatik edo, [museoan](#) sarrera kobratu dietela. [Edorta Jimenez](#)

Zazpi gizaldiz izango da Alexandria greziar munduaren [museoa](#). [Jon Muñoz](#)

### 2 (izenondoekin)

[Museo](#) militarrean, gaika eta mendeka atondutako gelak. [Iñigo Aranbarri](#)

Eliza hebraikoa izateko eraikia, orain Zinemaren [Museo](#) Nazionala dago bertan. [Anjel Lertxundi](#)

[Museo](#) antropologiko bat sortzekotan zebilela Madrilén. [Anjel Lertxundi](#)

Konputazioaren [museo](#) birtuala. zerbitzuguneetan [museo](#) bitxiak topa daitezke. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Mediterraneoko giro epelak eta haize arinak, paisaiarekin batera, [museo](#) natural modukoa bihurtzen dute, askoren ustez. [Berria - Mundua](#)

Hemen [museo](#) modernoak egiten direnean berehala egiten dira kalkuluak. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **museistiko**.

Gainera, ondo pentsaturik zuen [museo](#) proiektua, dena oso neurtuta zegoen. [Berria - Kultura](#)

Aipatu izan da, esaterako, oraindik ez dagoela [museo](#) egitasmorik. [Berria - Kultura](#)

Ez dago [museo](#) plan nazionalik. [Berria - Kultura](#)

Euskadik [museo](#) azpiegitura eta zerbitzu moderno eta koordinatuak izan ditzan. [Berria - Kultura](#)

[Museo](#) sare garrantzitsu eta askotarikoak, nazioarteko mailako artista garaikideen lanekin. [Berria - Kultura](#)

Egoera normalean dirutza balioko zukeen benetako [museo](#) pieza bat horrela galtzen uztea ere. [Bego Montorio](#)

Benetako [museo](#) objektuen edertasunarekin gozatzeko. [Berria - Kultura](#)

Tren txartelak, auto bidaiak, jatetxe eta hotel gutxiak, **museo** sarrearak, [...]. **Joxan Elosegi**

Zenbait adituk, komisariok eta **museo** arduradunek. **Berria - Kultura**

Mundu osoko **museo** -gunerik handienez lan egin, eta ikasteko zegoen guztia ikasi. **Fernando Morillo**

Zaldun bat oihuka, **museo** -zaintzaileen look minimalistari. *ik* museozain. **Anjel Lertxundi**

Lau **museo** zuzendarik parte hartuko dute. **Berria - Kultura**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Harik eta Basileako Udai **Museoan** sartu nintzen arte, denborapasa beste inolako asmorik gabe. **Anjel Lertxundi**

Gipuzkoako oroitza museo sare hori Gipuzkoako gizarte **museoek** osatuko lukete, hots: bilduma arkeologikoak, historikoak edo etnografikoak dituztenek. **Berria - Kultura**

Gipuzkoako oroitza museo sare hori Gipuzkoako gizarte **museoek** osatuko lukete, hots: bilduma arkeologikoak, historikoak edo etnografikoak dituztenek. **Berria - Kultura**

Parisko Itsas **Museoan**. **Berria - Harian**

Baita Zurriola ikastolan, Txillida-Lekun eta Miramongo Zientzia **Museoan** ere. **Berria - Euskal Herria**

Atzo inauguratutako Artziniegako Etnografia **Museo** berrian. **Berria - Kultura**

Arma **museoaren** aurreko parkean zuen orduko zita. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sara etxea ez dute etxe-**museo** bilakatuko Pilar Barandiaran Jose Migelen iloba bizi den artean. **Berria - Harian**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artziniegako museo (3); espazioaren museo (3); guggenheim museo (5); museo barruan (4); museo berria (4); museo berriak (5); museo berrian (4); museo bihurtu (3); museo edo galeria (3); museo erraldoia (3); museo etnografiko (6); museo etnografiko berria (3); museo etnografikoan (4); museo handi (5); museo nazionala (5); museo nazionaletik (3); museo proiektua (3); museo txiki (3); museo txikia (3)

altzuzako oteiza museo (3); arkeologia museo (5); arte eder museo (8); arte ederretako museo (4); arte garaikideko museo (5); arte modernoko museo (3); bakearen museo (4); bilboko guggenheim museo (7); diseinuaren museo (3); etnografia museo (3); euskal museo (5); gasteizko artium museo (4); guggenheim bilbao museo (3); guggenheim museo (32); guggenheim museo zabaldu (3); hermitage museo (3); historia museo (5); holokaustoaren museo (4); iduseko museo (4); itsas museo (5); jorge oteiza museo (3); modernoko museo (4)

museoa bisitatu (4); museoa bisitatze (5); museoa bisitatzen (6); museoa egin (3); museoa egiteko (7); museoa eraberritze (4); museoa eraikitze (6); museoa eraikitze lanak (3); museoa fundazioak (3); museoa handitze (3); museoa ikusi (4); museoa ikustera (3); museoa izango (4); museoa izango da (4); museoa sortu (3); museoa zabaldu (9)

omenezko museo (3); oteiza museo (12); san telmo museo (21); zumaiaiko zuloaga museo (3)

altzuzako oteiza museoak (4); arte eder museoak (38); arte ederretako museoak (8); arte garaikideko museoak (10); arte modernoko museoak (3); arte museoak (4); artium museoak (28); bilboko guggenheim museoak (21); bilboko museoak (10); bonnat museoak (4); euskal museoak (6); euskal zentro museoak (7); gasteizko artium museoak (7); gasteizko museoak (3); guggenheim museoak (49); jorge oteiza museoak (5); louvre museoak (5); madrilgo museoak (3)

museoak antolatutako (4); museoak aurkeztu (4); museoak eraiki (3); museoak erosi (3)

nafarroako museoak (4); ormaiztegiako zumalakarregi museoak (3); oteiza museoak (20); reina sofia museoak (6); san telmo museoak (6); txillida leku museoak (5); yorkeko moma museoak (4); zentro museoak (9); zumalakarregi museoak (6)

arte eder museoan (19); arte ederretako museoan (4); arte garaikideko museoan (3); arte modernoko museoan (4); artium museoan (10); baionako bonnat museoan (4); baionako euskal museoan (4); bilboko euskal museoan (3); bilboko guggenheim museoan (16); bilboko museoan (6); bonnat museoan (6); elizbarrutiko museoan (3); euskal museoan (13); gasteizko artium museoan (8); guggenheim museoan (38); gustavo maeztu museoan (3); historiaren museoan (5); iraultza museoan (3); louvre museoan (3)

museoan dago ikusgai (3); museoan dagoen (4); museoan dauden (5); museoan egon (5); museoan gordetzen (3); museoan ikus (7); museoan ikus daitezke (3); museoan ikusi (3); museoan izan (6); museoan sartu (6)

nafarroako museoan (16); oteiza museoan (9); parisko louvre museoan (3); puxkin museoan (3); reina sofia museoan (6); rezola museoan (4); san telmo museoan (24); txillida leku museoan (5); zientzia museoan (3)

guggenheim museoarekin elkarlanean (3)

arkeologia museoaren (5); arte eder museoaren (4); arte ederretako museoaren (3); bilboko guggenheim museoaren (8); bilboko museoaren (3); bonnat museoaren (3); euskal museoaren (14); euskal museoaren adiskideak (3); euskal museoaren adiskideen (3); guggenheim museoaren (30); guggenheim museoaren eskariz (3)

museoaren adiskideak (5); museoaren adiskideen (7); museoaren aurrean (3); museoaren bilduma (5); museoaren bisita (3); museoaren eraikina (3); museoaren eraikuntza (3); museoaren eskariz (4); museoaren esku utzi (3); museoaren helburua (3); museoaren kanpoaldean (3); museoaren lagunek (3); museoaren lagunak (5); museoaren ondoan (4); museoaren parean (6); museoaren proiektua (3)

oteiza museoaren (4); san telmo museoaren (9)

artium museoari (4); guggenheim museoari (7); museoari begira (3); museoari eman (3); san telmo museoari (3)

berlingo museoan (3); euskadiko museoan (5); museoan lege proiektua (3); museoan nazioarteko eguna (6); museoan plana (3)

museoetako hezkuntza (5)

arkeologia museo (7); arkeologia museo zuzendaria (3); arte eder museo (12); arte ederretako museo (3); arte modernoko museo (5); artium museo (7); berlingo pergamo museo (3); bilboko guggenheim museo (5); bilboko museo (5); bonnat museo (3); euskal museo (7); gasteizko artium museo (3); guggenheim museo (21); guggenheim museo auditorioan (4); historia naturalaren museo (3); itsas museo (3); jorge oteiza museo (3); madrilgo prado museo (3)

museoko arduradunak (5); museoko arduradunek (18); museoko arduradunen (3); museoko auditorioan (4); museoko bilduma (5); museoko erakusketa (4); museoko langilea (3); museoko obra (3); museoko patronatuak (3); museoko pieza (4); museoko zinematekak (3); museoko zuzendari (17); museoko zuzendaria (13); museoko zuzendariak (15)

oteiza museo (13); reina sofia museo (3); san telmo museo (5)

guggenheim museora (6); museora eraman (5); museora eramango (5); museora itzuli (3); museora joan (10); museora sartu (3)

guggenheim museorako (3); san telmo museorako (4)

museorik handiena (3)

museorik handiena (3)

arte eder museotik (3); guggenheim museotik (3); museotik ekarritako (5); reina sofia museotik (5)

## museogintza iz museografia.

Beren lehen gogoeta **museogintza** egin zuten. **Berria - Kultura**

## museografa iz museoko kudeatzaile emakumezkoa.

Bitan banatu dugu gure ekitaldia: lehenik entzun ditugu berritze lanak eraman dituen arkitektoa, Beñat Altabegoiti eta **museografa** anderea, Zette Casalas. **Herria**

Arkitektoak eta **museografak** kenketa larriak egin behar zituzten beren egitarauetan. **Herria**

## museografia iz museoak antolatzeko eta kudeatzeko teknika. ik museogintza.

Fundazio horrek hiru zeregin izango ditu: **museografia** eta dauden aretoak zaintzea eta erakustea; Ataungo eta Euskal Herriko kulturetzan partaidetza edukitzea eta zientziaren alorretik Barandiaranen lanei zabalpena ematea, batik bat mitologiaren alorrari begira. **Berria - Harian**

## museografiko izond museografiarena, museografiari dagokiona.

Xabide eta K-6 estudioek Donostiako San Telmo museorako idatzitako plan **museografikoak** Donostiako Udaleko talde guztien onarpena jaso du. Irizpide **museografikoez**

## museologia iz museoak antolatzeko eta kudeatzeko tekniken azterketa.

Arte garaikidearen eta [museologiaren](#) gaineko ikastaroa emango du Artium Gasteizko zentroak uztailaren 21ean, 22an eta 23an. [Berria - Kultura](#)  
Jesus Pedro Lorente Zaragozako Unibertsitateko irakasle eta [museologia](#) doktoreak zuzenduko du ikastaroa. [Berria - Kultura](#)

## museologiko izond museologiarena, museologiari dagokiona.

Ekain Fundazioak bere gain hartuko du erreplikaren eraikuntza, kudeaketa eta garapen [museologikoa](#). [Berria - Kultura](#)  
Proiektu [museologikoa](#) ez zen eraikinaren handitasunaren menpe jarri? [Berria - Kultura](#)

## museologo iz museologian aditua.

Javier Balda artistak, Iñaki Diaz Balerdi [museologo](#) eta irakasleak, Fernando Golvano EHUko Estetika irakasleak eta Asier Laspiur artista eta irakasleak hartuko dute parte mahai-inguruan. [Berria - Kultura](#)  
Felipe Senen galiziar etnografo, [museologo](#) eta kazetariak, Trintxerpeko Itsas Etxean, Xocasi buruz egingo duen hitzaldiarekin hasiko dira jardunaldiak, [Berria - Kultura](#)

## museozain iz museo-zaindaria.

-Bada jateke txiki bat museoik oso gertu, jauna -xuxurlatu zidan [museozain](#) beltzez jantziak-. ez zuen, istripu-eguneko beltzez jantzitako lanpernazaleak bezala, aurpegi lurkolorerik, argizarizkoa baino, egun osoa lau hormen artean igarotzen duen [museozain](#) bati dagokion eran, baina gizon bera ziren istripu-eguneko eta [museozaina](#), ez nuen inolako zalantzarik. [Anjel Lertxundi](#)  
[Museozain](#) edo dena delako hark, nire egonezinezikiko guztiz axolagabe, bere edontzi hustutik nire edontzi hustura eraman zuen bere begirada harroa, patxada gogobetegarri batez. [Anjel Lertxundi](#)

## museozale izond museoen zalea dena.

-Ez, [museozale](#). [Migel Angel Mintegi](#)

## musika 1 iz hotsak arau jakinen arabera konbinatzeko antzea, denbora bitarte bat soinuak gaiez antolatzeko artea; antolaketa horren arabera emaitza.

[Musika](#) matematika da, matematika alai jostalaria. [Felipe Juaristi](#)  
[Musika](#) ikusi ezin den artea da, eta duela hamarkada gutxi aurrerapen teknikoek posible egin zuten arte, kopiarik onartzen ez zuen artea zen [musika](#). [Pako Aristi](#)  
Gehienez ere, oihartzun bat da [musika](#), dio George Borrow-ek. [Anjel Lertxundi](#)  
Bozgorailuetan zabaldua, [musikak](#) albo kalezuloetako gazte ugari erakarri zuen, eta samaldan hartu zuten Sanadikia kalea. [Patxi Zubizarreta](#)  
[Musika](#) isildu egin zen. [Felipe Juaristi](#)  
Baina zertarako pentsatu, [musikak](#) hegaldaraz bagaitzake? [Josu Zabaleta](#)  
Eta [musika](#) harekin dantza egiten ez zuena hilda zegoen barrutik. [Pako Aristi](#)  
Lehen garagardo tragokkek, [musikaren](#) erritmo bero eta limurtzailearekin batera. [Joxemari Iturralde](#)  
Alaba kanpoan, [musikako](#) klaseak ematen. [Irene Aldasoro](#)  
[Musika](#) ikasitakoa zen bera ere, Comillasen, Jesusen Lagundiaren Unibertsitatean. [Bernardo Atxaga](#)  
Polkaren [musikak](#) gora egin du, baina urrutik. [Xabier Paya](#)  
Batzuek [musika](#) entzun orduko saltoka hasten dira, ni ez. [Pako Aristi](#)  
Gainera, hainbat [musika](#) obra ondu zituen, batik bat abesbatzentzat. [Berria - Kultura](#)  
[Musika](#) jartzen du: Mozarten klarinete boskotea. [Oskar Arana](#)  
Disko jo-gailuan ezarritako [musikari](#) bertze deusi erreparatu gabe nengoen. [Aingeru Epaltza](#)  
[Musika](#) jadanik itzalia zen. [Aingeru Epaltza](#)

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Euria ari zuen eta ene arimak xurgatu egin zuen [musika](#) eme hura. [Alberto Ladron Arana](#)  
Eta itsuak [musika](#) iheskorriari ekin zionean, ate aldera jo zuten soldaduek.Horixe zen, [musika](#) sorgindua zen hura. [Felipe Juaristi](#)  
Parsifal-eko [musika](#) zirrarragarria, goitarra eta, aldi berean, indartsua... bortitza. [Alberto Ladron Arana](#)  
Egunez, [musika](#) bitxi eta goibel hori hiriko zalapartan aienatzen zen, espetxearen ondotik igarotzen zen kale zabal eta jendetsuko iskanbilan. [Jose Morales](#)  
Four Deucesetik datorren [musika](#) tristea eta geldoa da. [Xabier Paya](#)  
[Musika](#) atsegín bat besterik ez zitiagon giroari falta. [Joseba Sarrionandia](#)  
Gure aldirikariak [musika](#) klasikoari buruzko gaiak jorratzen ditu. [Alberto Ladron Arana](#)  
Aski da, hala dela etsi dezagun, [musika](#) barrokoko zati han-hemenkako batzuk entzutea, guztiek ageri baitute familia-aire nolabaiteko bat. [Juan Garzia](#)  
[Musika](#) modernoko libururik ba al duzu? [Itziar Laka](#)  
Oso musikazale ba? itzen Rousseau, batez ere [musika](#) italiarraren zale. [Felipe Juaristi](#)  
Kamarako [musika](#) eta opera piezak jotzen zituen talde batean. [Felipe Juaristi](#)  
Makinako [musika](#) ere azkarki ematen da ostatuetan, eta horrek itotzen du kantua! [Menane Oxandabaratx](#)  
Benetako [musika](#) entzun nahi diagu! [Anjel Lertxundi](#)  
Nahiz eta zenbaitek, Sarriegiren musikaren jatorri herrikoa eta helburu are herrikoiaagoa kontuan izanik, bigarren mailako [musikatzat](#) hartu. [Askoren artean](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik musikak.

Musikazale zenez, sala bat apaindu zuen behealdean [musika](#) saioak entzuteko. [Felipe Juaristi](#)  
[Musika](#) nota batzuk iritsi ziren emakumeen belarrietara. [Felipe Juaristi](#)  
Une hartan emanago zen [musika](#) doinuetara, adiskidearen hitzetara baino. [Felipe Juaristi](#)  
Hoteleko sukaldetik zetozen [musika](#) aireak amerikar filmetakoak ziren. [Edorta Jimenez](#)  
Antzetan, zenbait [musika](#) -pasarte entzutean, negarrez hasten nintzen. [Alberto Ladron Arana](#)  
- [Musika](#) bideoak ari ziren orduan emititzen. [Joxemari Iturralde](#)  
[Musika](#) -diskoan saltzaile? -galdetu nuen, harriturik-. [Alberto Ladron Arana](#)

**Musika** -apartatu batean alde bat eta segidaren beste aldean zuten osorik. Xoxemari Iturralde

**Musika** -pieza landuak gogoratzeko eta ikasteko. Xabier Olarra

Izatez Leningradokoa zen bera, eta hantxe egin zituen **musika** -ikasketak. Felipe Juaristi

Hilabete batzuez **musika** irakasle aritu zen Munichen. Alberto Ladron Arana

Hitzaldi eta **musika** -jardunaldietan parte hartzeko. Alberto Ladron Arana

**Musika** -emanaldiren bat edo hitzaldi interesgarriren bat izaten zenean, haietara bai, azaltzen nintzen. Juan Kruz Igerabide

Koloretuak dira **musika** kontzertuen iragarkiak. Urtzi Urrutikoeetxea

**Musika** -sala izaten jarraitu zuen, agian amak sekula galdu ez zuelako beste piano bat izateko esperantza. Anjel Lertxundi

Bazirenean parke itxietan **musika** kiosko hutsak eta estaliak, barandak igotzen errazak zituztenak. Koro Navarro

Nik apartamentua deskribatzen nien, Louis-Philippe estiloko idazmahai, belus gorrizko besaulkiak, **musika** -katea. Joseba Urteaga

**Musika** -kutxa bat kaobazkoa, barnean bi neska-mutil [...] dantzatzeako jantzi apainduak gordeta zituen. Felipe Juaristi

Ansorenak, txistularien maisu izan zenak, eta Donostiako **musika** memoriaren zatirik hoberena gauzatzen duenak, [...]. Askoren artean

**Musika** -terapia saioaren erdian, ordea, Leire serio jarri da, bat-batean zerbait garrantzitsua gogoratu izan balu bezala. Patxi Iturrategi

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Organo **musika** entzuten du alargunak. Imanol Zurutuza

Tabernetako dantza- **musika** , flamenkoa edo telebistako hit-en zaleek ere badutela zer topatua aldarrikatzen dute bozgorailuek. Urtzi Urrutikoeetxea

Leningradoko monasterioko ezkontza- **musikaren** kasuan. Xabier Olarra

Katalunian, garai hartan euskaldun asko zegoelako bizitzen, euskal herri- **musika** ezagutu zuen. Felipe Juaristi

Horrela, italiarrak itsas aurrean jotzen irakatsi zion Irisarri itsas **musikaren** gainetik biolin **musika** jartzen. Felipe Juaristi

· Iduritu zitzaidan trufa **musika** zerbait bazela Elenaren solasetan. ik musikatu<sup>2</sup>. Janbattitt Dirassar

## 5 musika-banda

**Musika-banda** batek dir-dir egiten zuen eguzkitan, txapel zuriak, aurpegi gorri izerditsiak, *Yankee Doole* jotzen. Lopez de Arana

Atzetik, segizioari eritimoa markatzen hiletan martxa jotzen zuen **musika banda** . Berria - Ekonomia

Bi urte egin nituen plazako akademia zaharrean, **musika-bandako** zuzendari zaharraren oihuen artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Tren geltokian, han ziren **musika banda** militarra, ustez folklorikoak ziren jantziez apainduriko emakumeak eta kazetari andana. Edorta Jimenez

Pello Expaiñ eta *La Euterpe* **musika banda** herrikoi ospetsua. Askoren artean

Bilboko Udal **Musika Banda** Arriagako ohiko kontzertuekin hasiko da igande honetan. Berria - Kultura

Kazetariak, kamarak, ejerzitoko **musika banda** ... Pako Aristi

## 6 musika egin

Cara al sol haren **musika egin** zuena ondoko herri batekoa zela, Zegamakoa, eta ez Toledokoa, Murziakoa edo Zaragozakoa. Bernardo Atxaga

Azken aldia gaixo igaro bazuen ere, ez zion lan egiteari utzi, eta zinemarako **musika egiten** jarraitu zuen. Berria - Kultura

Esan nezake *house* **musika egiten** dudala, baina baita, *dub*-a, disco musika, Detroit techno-a eta funka egiten dudala ere. Berria - Kultura

Esan nezake *house* **musika egiten** dudala, baina baita, *dub*-a, disco musika, Detroit techno-a eta funka egiten dudala ere. Berria - Kultura

Hirukoteak ertzeko **musika egiten** , rocka, noise-a eta esperimantazioa harilkatuz. Berria - Kultura

Coca-Cola iragarkietarako **musika egin** dezaten. Mikel Hernandez Abaitua

Gazteentzako **musika egiten** duen talde baten kontsumitzailea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Batzuetan, oso gutxitan, **musika egiteko** edo entzuteko gogoia sortzen zaio, eta folklorera edo folk-era jotzen du. Berria - Harian

Block-eko buruzagiak **musika egiten** zuen bere akordeonarekin. Marzel Etxehandi

Azkenik biolin jotzaile bat, italiarra bera, bakarrik geratu omen zen **musika egiten** . Felipe Juaristi

Baziren jazz egiten zutenak eta baziren kabaret- **musika egiten** zutenak. Felipe Juaristi

## 7 musika-festibal

Ortziraletik iganderat, **musika festibala** Haltsun. Herria

Ortzegun aratsean, Baigorriko elizan, kontzertua Baxe-Nabarreko **musika festibalaren** kondu. Ana Urkiza

**Musika festibalean** helduentzat dira afixako kontzertuak eta ondoan haurrei animazio bereziak eskaintzen zaizkie, helduek bakean goza dezaten musika. Herria

Behar da jakin **musika festibal** horrek 30 000 gazte biltzen dituela eta hau ez dela guti herri batentzat. Herria

· Donibane Lohizunen, Andaluziako dantza eta **musika festibalak** arrakasta handia ukan du Mendekoste-kari. Herria

## 8 musika-jaialdi

Daniela Barcellona mezzosopranoarekin batera arrakasta itzela izan zuen Florezek Salzburgoko **Musika Jaialdian** . Berria - Kultura

Zumaiako nazioarteko **musika jaialdia** iragaiten ari da memento huntan, agorrilaren 1ean hasirik. Herria

Herri **musika jaialdia** egingo dute gauzez, eta igandean, berriz, pankarta berezia eramango dute Foroaren manifestazioan. Berria - Euskal Herria

Wintercase **musika jaialdi** ibiltaria Graham Coxon, The Divine Comedy eta Adam Green kontzertuarekin hasiko da gaur, Bilboko kafe antzokian. Berria - Kultura

Blues eta Jazz **musika jaialdiak** pasata, Getxo Bizkaiko hiriburua izango da berrito, musikaren alorrean bada ere, mundu osoko folk doinuaren topalekua bilakatuta. Berria - Kultura

**Musika jaialdi** bat iragartzen duen afixaren aurrean. Iñigo Aranbarri

## 9 musika-jotzaile (4 agerraldi, 3 liburutan) iz ik musikajole.

Karrika kantoi eta ostatu ilunetan jotzetik eliza-kaperetan jotzera igaro zen Damián itsua, katedralako **musika jotzaile** izatera iritsi zen gero, eta errege-ordearen jauregian amaitu zuen azkenik. Felipe Juaristi

Munduko **musika jotzailerik** onenek osatzen zuten orkestra batek. Josu Zabaleta

**Musika-jotzaileen** atzetik, danbor bat herrestan eramanez, pony bat. Xabier Olarra

Herio **musika jotzaile** aparta da, tresna guztiak bereak dira, tximista eta ostots, lurrikara eta itsas ikara, sumendi eta Jainkomendi, suzko eta berunezko su, hari eta altzairu. Felipe Juaristi

## 10 musika-lan (22 agerraldi, 4 liburu eta 13 artikulutan)

Bernardo Atxagaren poesiatan oinarritutako *Bizitza* **musika lana** Sidney, Australian, joko dute urriaren 23an. Berria - Kultura

Sonanbulu batek idatziko lukeen **musika-lana** bihurtu da. Oskar Arana

Gasteizko kontserbatorioko musika elektroakustikoko laborategiko eta AMEE Espainiako Musika Elektroakustikoaren Elkarteko kideek, bideo sormenarekin lotutako hainbat **musika lan** aurkeztuko dituzte. Berria - Kultura

Hainbat tabernatan pianoa jotzen aritu zen, **musika lanak** sortu eta instrumentatzen zituen bitartean. Berria - Kultura

Bideo sormenaren alorrean landu berri diren **musika lanak** joko dituzte parte-hartzaileek. Berria - Kultura

Ezin zaiola gehiagorik eskatu zer, eta helburutzat duen huraxe lortzen duen **musika lan** bati. Askoren artean

## 11 musika-obra (8 agerraldi, liburu 1 eta 7 artikulutan)

Bello Portuk [...] gainera, hainbat **musika obra** ondu zituen, batik bat abesbatzentzat. Berria - Kultura

*Bilbao Musika* elkartearen eskaerari jarraiki Fritzek idatzitako **musika obra** . Berria - Kultura

Bartzelonako Trito musika editoreen laguntzaz hainbat **musika obra** argitaratuko dira udarako. Berria - Kultura

## 12 musika-talde

**Musika-talde** bat ere bazen koruan, hamabi musikariz osatua, organo-jotzaileari laguntzeko. **Felipe Juaristi**

Inaugurazio ekitaldian 11 laguneko **musika talde** batek *Love me tender* kantatzen du. **Berria** - Kultura

Beatles eta Rolling Stones **musika taldeak** ari ziren fama hartzen mundu osoan. **Pello Salaburu**

Ehunka musikari etorriko da Isturitze eta Atherrara helduden igandean, *Union Basque* batasunak antolatzen duen **musika taldeen** urteko elgarretaratzearen karietara.

**Herria**

1.606 **musika taldek** eman dute izena Bilbo Hiria pop-rock lehiaketaren 18. ekitaldian. **Berria** - Kultura

Beste Connie hura **musika taldeen** zuzendaria omen zen, kanta-orriak banatzen zituena, eskolako kantaldietan akordeoia jotzen. **Xabier Olarra**

Folklore Azokan folk **musika taldeen** lehiaketa egingo dute. **Berria** - Kultura

Konpartsa, mozorrotu, parodia, karroza eta ikasle **musika-taldeak** ugari desfilatzen ikusi genituen. **Askoren artean**

· Eta ez aspertzeko, jakina, **musika taldetoxa** daukaku hobytzat! **Unai Iturriaga**

## 13 musika-tresna (287 agerraldi, 54 liburur eta 112 artikulutan; orobat musikatresna g.er.) ik instrumentu.

Oholtzan Amadeo eta herri-bandako musikariak zeuden, **musika-tresnak** eskuan, hasteko aginduaren zain. **Felipe Juaristi**

Okasiorako sortutako orkestra inprobisatua ez dago **musika-tresna** aski Wagner jotzeko. **Harkaitz Cano**

Turuta, txilin eta gainerako **musika-tresnen** laguntzaz. **Elizen arteko biblia**

Orkestrako **musika tresnen** sailean. **Berria** - Harian

Oso ongi gozatutako **musika-tresna** baten antzekoa. **Xabier Olarra**

Harizko **musika-tresnaz**. **Berria** - Kultura

Haizezko **musika-tresna** batzuen doinuak entzun nituen alboko gelatik. **Xabier Olarra**

## 14 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

**Musika tresna** kurtso ainitz: gaita, pandero, arrabita, tronpeta, [...]. **Herria**

· Didjeridua, munduko haize **musika-tresna** zaharrenetakoa. **Berria** - Kultura

Perkusio eta soka **musika tresnak** erabiliz. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**antzinako musika** (19); **baionako musika ikastegi** (8); **bestelako musika** (12); **dantza eta musika** (31); **donostiako musika hamabostaldiak** (9); **egindako musika** (8); **europako musika** (8); **euskal herriko musika** (17); **euskal musika** (61); **ganbera musika** (22); **goi mailako musika** (16); **harizko musika** (8); **herri musika** (32); **herriko musika** (24); **herriko musika eskolen** (8); **jazz musika** (13); **kantu eta musika** (31); **mendeko musika** (10); **munduko musika** (8)

**musika arloan** (9); **musika banda** (43); **musika bandak** (20); **musika bandaren** (9); **musika beltzaren** (8); **musika doinuak** (8); **musika ederra** (12); **musika egin** (20); **musika egitea** (8); **musika egiteko** (13); **musika egiten** (43); **musika elektroakustikoko** (8); **musika elektronikoa** (12); **musika elektronikoaren** (8); **musika emanaldi** (11); **musika emanaldiak** (10); **musika entzun** (33); **musika entzuteko** (18); **musika entzuten** (79); **musika eskainiko** (12); **musika eskola** (40); **musika eskolak** (10); **musika eskolako** (28); **musika eskolan** (17); **musika eskolen** (14); **musika estilo** (24); **musika eta dantza** (34); **musika eta kantu** (12); **musika eta literatura** (8); **musika festibala** (14); **musika garaikidea** (11); **musika garaikidearen** (12); **musika garaikideko** (11); **musika gustatzen** (8); **musika hamabostaldia** (13); **musika hamabostaldiak** (29); **musika hamabostaldian** (11); **musika hamabostaldiaren** (13); **musika hamabostaldiko** (14); **musika ikasketak** (17); **musika ikastegi** (10); **musika irakasle** (12); **musika isildu** (11); **musika izan** (19); **musika izango** (13); **musika jaialdia** (17); **musika jarri** (17); **musika jarriko** (9); **musika jartzen** (22); **musika jo** (18); **musika jotzeko** (14); **musika jotzen** (40); **musika klasiko** (10); **musika klasikoa** (61); **musika klasikoaren** (11); **musika klasikoko** (19); **musika kontserbatorioan** (13); **musika kontzertu** (15); **musika lagun** (17); **musika lana** (8); **musika maite** (23); **musika mota** (39); **musika munduan** (15); **musika obra** (8); **musika ona** (16); **musika pieza** (9); **musika pixka bat** (16); **musika plazan** (14); **musika sortu** (8); **musika sortzeko** (9); **musika sortzen** (9); **musika talde** (59); **musika talde bat** (10); **musika taldea** (31); **musika taldeak** (38); **musika taldearen** (18); **musika taldeek** (8); **musika taldeen** (20); **musika taldeko** (15); **musika tradizionala** (16); **musika tradizionalaren** (9); **musika tresna** (145); **musika tresna bat** (9); **musika tresnak** (57); **musika tresnaren** (17); **musika tresnarik** (8); **musika tresnaz** (9); **musika tresnekin** (8); **musika tresnen** (29); **musika ulertzeko** (10); **musika uztartzen** (8); **musika zati** (14); **musika zikloa** (8); **musika zuzendaria** (12); **musika zuzendariak** (10)

**pop musika** (9); **rock musika** (10); **zinemarako musika** (12)

**euskal musikak** (22)

**euskal musikaren** (41); **herri musikaren** (16); **jazz musikaren** (10); **musikaren besta** (23); **musikaren bidez** (26); **musikaren bitartez** (11); **musikaren eguna** (8); **musikaren historia** (10); **musikaren inguruan** (10); **musikaren munduan** (18); **musikaren pesta** (9); **pop musikaren** (11); **rock musikaren** (13)

**musikaz lagundurik** (10)

## musikabako izond musikaririk gabea.

"Ez gutunik Mogilev?" galdetzen du, bere ingeles **musikabako**, zalantzi eta krudelean. **Pablo Sastre**

## musikadun izond musikaz hornitua.

Sagarrondo loreen mira zuten erleek abaraska egin omen zuten Adrianaren ahoan eta ezti gozoa atera, ezti **musikaduna**, ezti sagar-zaporea. **Felipe Juaristi**

· Horretarako, Siriako muaxaja edo **musikadun** poesien, Ramon Llulen narratibaren eta Jacint Verdaguerrren maitasun mistikoaz baliatuko da. **Berria** - Kultura

## musikagai iz musika izateko edo egiteko gaia.

Dena **musikagai** zaie. **Felipe Juaristi**

## musikagailu 1 iz musika jotzeko makina.

Tabernari-taskeroak musika aparatu (**musikagailua**) zahartu batean mugimendu batzuk egin ditu. **Berria** - Kirola

## 2 musika-tresna.

Extramendik bazuen abilezia, eta doinua entzunez gero edozein **musikagailurentzat** trebeki para zezakeen. **Berria** - Kultura

## musikagile 1 iz musika obrak ontzen edo musika egiten duen pertsona. ik musikari.

Iragan mendeko **musikagile** edo konpositore handienetarik izana da Maurice Ravel, sortzez ziburutarra. **Herria**

Francisco Escudero **musikagile** zarauztarraren *Zigor* operan. **Berria** - Kultura

Franz Liszt **musikagile**, pianista eta haur mirariaren bizitzako historia kontatzen du liburu horrek. **Josu Zabaleta**

Urte hartan oso boladan zeuden **musikagile** gazte baten baltsak, Strauss izeneko batenak. **Xabier Olarra**

**Musikagile** jaioa zenez, *Saforen azkentzea* izeneko opera dramatikoak konposatu zuen. **Felipe Juaristi**

**Musikagilearen** katalogoa egin, eta bizitzaz eta obraz idatzi du Luis Garcia del Busto kritikariak. **Berria** - Kultura

Musikari eta **musikagile** irizpidedunek, Bixente Martinezek, Joseba Tapiak... **Andoni Egaña**

Santesteban **musikagileak** egindako piezez gainera, bere festa nagusirako musikaririk garrantzikoenetako bat ere badu Donostiak. **Askoren artean**

Sarriegi da, dudarik gabe, Donostiako hiriaren irudikapenik biziena herri memorian sustatu duen **musikagilea**. **Askoren artean**

Karajan, nire **musikagile** gustukoenetako bat! **Alberto Ladrón Arana**

## 2 (hitz elkartuetan)

Sarriegik arretaz jarraitu zien Santesteban maisuaren irakaspenei, eta laster hartu zion gaina organista eta herri **musikagile** hari, **Askoren artean**

## • 3 (izenondo gisa)

Euskalerraren alde aldizkariak [...] nekrologiko hunkigarria argitaratu zuen maisu **musikagilearen** omenez. **Askoren artean**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**musikagile bilbotarrak** (3); **musikagile bilbotarraren** (4); **musikagile famatua** (3); **musikagile famatuaren** (4); **ravel musikagile** (7); **ravel musikagile famatua** (3); **ravel ziburutar musikagile** (3)

**musikagilearen omenezko** (3)

**euskal musikagileen** (5); **musikagileen lanak** (3); **musikagileen obrak** (4)

## musikagintza iz musika egitea.

**Musikagintza** utziko duela iragarri zuen Llachek duela gutxi. **Berria - Kultura**

Badaki ez dutela bide handirik eginen **musikagintzan**, berak baino anitzez hobeak badirela "merkatuan", baina ametsak ere ez dira kalte. **Eneko Bidegain**

Kaxiano Iburguren antzuolar eskusoinulari eta kantari zena omendu dute Lizartzan, **musikagintza** eta bertsularitzan egindako lanak gogoaraziz. **Herria**

Munduko informazioaren gehiengo 1 eta 0 bidez idazten hasi zenetik, **musikagintzak** berebiziko aldaketak izan ditu. **Berria - Kultura**

Luze jardun zuten euskal **musikagintzak** behar dituen bide berriez. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**euskal musikagintzak** (3)

## musikagune iz musika egiteko gunea.

Norman Foster ingelesak Gatesheadeko **musikaguneko** maketa erakutsiko du, eta Frank Ghery estatubatuarrek, berriz, Los Angelesko Disney musika aretoa erakutsiko du.

**Berria - Kultura**

## musikajole (6 agerraldi, 5 liburu eta artikulua 1ean) iz musika-jotzailea.

Badakigu, nolahi ere, hiriak lehendik zuela ohitura beren prestamen aski urriko txarangekin hiriko jai batzuk alaituko zituzten **musikajole** batzuk kontratatzeko. **Askoren artean**

Jainkoaren gorespen-kantuei laguntzeko, **musikajoleek** erabiltzen zituzten turuta, txilin eta gainerako musika-tresnez Heman eta Jedutun arduratzen ziren. **Elizen arteko biblia**

Atzeraxeago orkestinaren gurdia zihohan, **musikajoleak** tartean behin, kemen askorik gabe bazen ere, berriro jotzen hasten zirela. **Josu Zabaleta**

## musikal 1 izond musikaarena, musikari dagokiona. ik musika 3.

Programa **musikal** gutzit zabala apailatua zuela gau berezi hartarako. programa **musikal** gutzit zabala apailatua zuela gau berezi hartarako. ez dut prestakuntza **musikal** berezirik, baina beti gustatu izan zait musika ona entzutea. **Joseito Azkona**

Hiru zuloko flauta hain zabaldua baldin badago, nork asmatu zuen, inportatu ala esportatu egin du Euskal Herriak tresna **musikal** hori, gauza horiek ez dute berez garrantzirik, [...]. **Mikel Hernandez Abaitua**

Antton Lukuren ipuin batean oinarritutako ikusgarri **musikala** gaur Izpuran estreinatuko du *Lagunarte* musika konpainiak. **Berria - Kultura**

Aurkikuntza txundigarria egin berria zuen Pitagorasek: bitarte **musikala** bi zenbakiren arteko erlazioa da. **Jon Muñoz**

Jamaikan gehien entzuten den irati **musikala**. **Berria - Kultura**

Kultura **musikal** zabaleko musikaria dugu maisua. **Berria - Kultura**

Zazpi Cutty Shark botila, eskala **musikal** bat dibujatuz, eskailera behearako bat osatuz, gero eta hustuagoak. **Harkaitz Cano**

Martinek bazuela adimen **musikal** bat, Bachen musikaren egitura-arauez jabetzeko modukoa. **Xabier Olarra**

Apustu **musikal** eta estetiko handia egin du Elurretan Ordiziako taldeak orain arte kaleratu dituen bi diskoetan. **Berria - Kultura**

## 2 musikaren oinarritzko nolaketasunen bat duena.

Kristala emeki ukitu beharra zeukan bi hatz erakusleen azkazalez, eta klik zoli erdi **musikal** bat edo klik sail labur bat eragiten zien tarteka. **Xabier Olarra**

Bada, nolahi ere, airezko formen oroitzen bat, begi espiritual eta esanguratsuen, soinuena, soinu **musikal** baina tristeena. **Koro Navarro**

Dio, Emily Dickinsonen olerki guziak **musikalak** direla eta hark aspaldi soinuratu zuela bat. **Aurelia Arkotxa**

## 3 musikaz hornitua.

Bi gizon, gorbataz eta alkandora zuriz jantzirik, komun-ontzi **musikal** bat eramaten aldrietako etxe bateko geletan zehar, Esker emate Egunean. **Oskar Arana**

## 4 iz komedia musikala.

Charles Dickens obran oinarritutako *Oliver!* **musikal** arrakastatsua. **Berria - Kultura**

Bere egiazko ametsa Hollywoodeko **musikal** alai batean paper txiki bat edukitzea izan zitekeela otu zitzaidan. **Jon Alonso**

42. kalean Walt Disneyko *Lyon King* **musikala** eta antzeko showak daude egun ikusgai. **Harkaitz Cano**

Zure filmaren azken eszena **musikal** batetik ateratakoa dirudi. **Berria - Kultura**

Gauza jakina da makina bat aldiz taularatu izan dela, antzerki-lan edo **musikal** forman, eta pelikula ere bihurtu izan dela irakurtzera goazen liburua. **Julen Gabiria**

Bollywoodi ospea eman dioten derrigorrezko happy-end eta **musikal** erromantikoak ordezkatzeko. **Berria - Kultura**

Gaur estreinatuko du Bilbon 'Kaputen kanta' formatu txikiko **musikala**. **Berria - Kultura**

## 5 komedia musikal musika eta dantza pasarteetan oinarritzen den komedia.

XX. mendeko 3. hamarkadara arte New Yorken arrakasta handia izan zuen **komedia musikal**. **Lopez de Arana**

Fernando Trias de Bes idazle katalanaren liburuan oinarritutako *El vendedor de tiempo* **komedia musikal**. **Berria - Kultura**

Honen karietarat, bidean dauden xedeak aipatuak izan dira hala nola andereñoek ikasle guziekin xutik ematen ari diren **komedia musikal**. **Herria**

## 6 film musikal musika eta dantza pasarteetan oinarritzen den filma.

Ann Miller hil da, Hollywoodeko **film musikaletako** dantzari eta aktore garrantzitsuenetakoa. **Berria - Kultura**

Zinemaren historiako **film musikal** ezagunenetakoa bere eskuetatik aterata egon arren eta zinema beltza eta sozialari ekarpen interesgarriak egin bazizkion ere, kritikak ez du oso ondo tratatu Robert Wise. **Berria - Harian**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**komedia musikal** (3); **musikal bat** (16); **musikal hori** (4)

musikari ik **musikari**.

## musikaldi iz musika jaialdia; musika emanaldia.

Zinema bada astean behin, **musikaldiak** orkestrarekin ardura, arratsean, lan ondoan. **Marzel Etxehandi**  
 Donibane Lohizunen hasi dira Udaberriko **Musikaldiak**, Ravel akademia antolatzaile. **Herria**  
 Ortzirale aratsean, Donibane Lohizunekoelizan, Bordeleko orkestra nagusia Kostaldeko **Musikaldiaren** kondu. **Herria**  
 Donostiako Talde Barrokoak eta *Conductus Ensemblek* eskainiko duten kontzertuarekin hasiko da Azkoitiko Udaberriko **musikaldia**. **Berria - Kultura**  
**Musikaldi** ederra izan da Bach, Buxtehude, Aubert, Viter-en musikarekin. **Herria**  
 Aratseko 9etan, Baigorriko elizan, organo **musikaldia**: François Espinasse. **Herria**  
 Igandean, Donibane Garazin, "Garazique" **musikaldia** karriketan. **Herria**  
 3 egunez, bi mintzaldi, **musikaldi** bat, pilota partida eta apairua bertulari batzuekin. **Herria**  
 Kontzertu guztiak azterketa soziologiko joria egiteko abagune badira, *Extremoduroren* **musikaldi** batekin doktorego lana presta liteke gazteriaren kontsumo ohiturei buruz. **Berria - Kultura**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**kantaldi musikaldi** (4); **kostaldeko musikaldi** (15); **kostaldeko musikaldi nagusia** (3); **kostaldeko musikaldi nagusiaren** (7); **musikaldi arraro bat** (3); **musikaldi bat eskainiko** (3); **musikaldi berezi** (3); **musikaldi eder** (3); **musikaldi ederra** (3); **musikaldi nagusia** (3); **musikaldi nagusiaren** (7); **musikaldi nagusiaren kondu** (5)  
**haltsuko musikaldia** (4); **kantaldi musikaldia** (3); **organo musikaldia** (5)  
**miarritzeko musikaldiak** (5); **udaberriko musikaldiak** (12)  
**kostaldeko musikaldiaren** (5); **kostaldeko musikaldiaren kondu** (3)

## musikalitate iz musikaltasuna.

Jatorrizko hizkuntzaren **musikalitatearen** atxikitzeo. **Aurelia Arkotxa**  
 Teknikoki agian ezagutu dut hoberik, baina **musikalitate** aldetik ez dute parekorik. **Berria - Kultura**

## musikalki iz musika alderditik.

**Musikalki**, lehen zati hori izan zen interesgarriena. **Berria - Kultura**  
 Instrumentista baten moduan, soinua **musikalki** lantzen dugu, ez teknikoki. **Berria - Kultura**  
 Kontzertu bakoitza show bat da *The Legendary Shack Shackersentzat*, hala **musikalki** nola eszenikoki. **Berria - Kultura**  
 Estetikoki eta **musikalki**, nahiko kontzertu berritzaile eta ausarta egingo dugula uste dut. **Berria - Kultura**

## musikaltasun iz musikala denaren nolakotasuna. ik **musikalitate**.

Bere poesian **musikaltasuna** osagarri bat baino gehiago, esentzia zen. **Berria - Kultura**  
 Liburu honetakoa da Thomasen poema ezagunenetako bat, "Fern Hill" ederra, erritmo eta **musikaltasun** liluragarriaz haurtzaroaren mundua Paradisu galdu baten moduan agertzen duena. **Koro Navarro**  
 Euskarak **musikaltasun** propioa duela esan liteke? **Ana Urkiza**  
 Jatorrizko **musikaltasunaren** kutsu bat gordetzen saiatuko naiz. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
 Naroa Intxaustik gustuz eta **musikaltasunez** abestu zuen erdi bolumeneko ahotsarekin. **Berria - Kultura**

## musikaltxagailu iz bozgorailua.

Apainketa xumea, eszenatoki xuri batekin, **musikaltxagailu** eta kablerik gabe... **Herria**

## musikari (orobat *musikalari g.er.*) 1 iz musika obrak ontzen edo jotzen duen pertsona. ik **musikagile**.

Beste euskal **musikari** bati ere, Jesus Guridiri, ohore akademiko bera eman zioten 1913an. **Askoren artean**  
 Santesteban **musikalariak** 1838an aurkeztua zuen bere "Marcha de San Sebastian" ere. **Askoren artean**  
 On Bitor Zubizarreta, Begoñako organo-jole eta **musikari** aparta. **Pello Zabala**  
 Lau **musikari** juduk, José Israel de Tudelaren gidaritzapean, lau harizko tresnak jo zituzten. **Felipe Juaristi**  
**Musikariek** ere, bakoitzak bere tresna hartuta, ziztu bizian ihes egin zuten. **Felipe Juaristi**  
 Proiektu honetarako, adibidez, **musikariak** etorri, partitura irakurri, bitan jo eta hirugarrenean grabatzea nahi nuen. **Berria - Kultura**  
 Pennsylvania kabaretean jo zuen soinu handia 1950-54 bitartean **musikari** profesional moduan. **Koldo Izagirre**  
 Doktorea **musikari** bikaina da. **Monika Etxebarria**  
 Igandean, meza 10.45etan, Kanboko **musikalariek** alaiturik, 12.30etan, salan, aperitifia eta bazkaria. **Herria**  
 Berrehun eta laurogeita zortzi ziren, denak **musikari** iaioak, Jauna kantuz goresteko ikasiak. **Elizen arteko biblia**  
 · Okerreko erromerian aritu zen **musikari**. **Xabier Etxabe**

### 2 (izenondo gisa)

Santesteban aita-seme **musikariekin** batera. **Askoren artean**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beti egon zen hiletak ospatzeko **musikari** talderen bat edo beste bera ibilitako tokietan. **Felipe Juaristi**  
**Musikari** sorta batek Lauaxetaren olerkiak hartu, muskatu eta disko bat argitaratu du haren omenez. **Joseba Zulaika**  
**Musikari** laukote berria, bere onenak ematen; ni, haien zarata etsipenez aguantatzen. **Jon Arretxe**  
**Musikari** familia batean sortu ninduten, Nafarroako Tuteran. **Felipe Juaristi**  
 Johannes eta Andres, musikariak ziren, Bohemiakoak, **musikari** lurraldekoak. **Felipe Juaristi**  
 Bogarde egon liteke kanal-ertzeko bidean aurrera doan mutil gazte horri begira, mutilarengan aurkituko duelakoan bere **musikari** -karreraren aldapa beheko eroria

bridatzea, leuntzea, gelditzea...

Anjel Lertxundi

· **Musikari** -jendea alproja hutsa zela eta horrela ez nuela andregairik egingo.

Xabier Mendiguren Elizegi

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Charlie Parker, Dizzy Gillespie eta 52. kaleko gainerako jazz **musikari** guztiak Wagner jotzen jarriak zituen orain, zuriz jantzita, esbastikadun besoko bana, Radio City Halletik zuzenean emiitzen. **Harkaitz Cano**

Da Ruak, behin batez Jakob Van Eyck Utrecht hiriko zaindari eta udal **musikariak**, beste laurekin boskotea osatuz [...] jotzen entzun zuen.

Felipe Juaristi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**blues musikari** (6); **dantzari eta musikari** (8); **euskal herriko musikari** (6); **euskal musikari** (21); **folk musikari** (4); **herritar musikari** (7); **hip hop musikari** (3); **idazle eta musikari** (4); **jazz musikari** (17); **kantari eta musikari** (17); **kantari musikari** (8)

**musikari aparta** (3); **musikari beteranok** (3); **musikari bikaina** (3); **musikari bikainak** (4); **musikari estatubatuarra** (4); **musikari estatubatuarra** (9); **musikari eta dantzari** (6); **musikari eta kantaria** (20); **musikari eta kantaria** (5); **musikari eta kantariek** (4); **musikari eta kantariekin** (4); **musikari ezagun** (5); **musikari ezaguna** (4); **musikari ezagunak** (4); **musikari famatua** (3); **musikari fina** (3); **musikari frantziarrak** (3); **musikari gazte** (24); **musikari gazteak** (7); **musikari gazteei** (4); **musikari gazteek** (9); **musikari gazteen** (9); **musikari gazteen lana** (3); **musikari gaztek** (4); **musikari gisa** (12); **musikari handi** (6); **musikari handia** (7); **musikari handiak** (6); **musikari ingelesak** (4); **musikari izan** (6); **musikari izango** (4); **musikari izateko** (4); **musikari kanadarrak** (3); **musikari kantari** (4); **musikari kataluniarrak** (3); **musikari lagun** (5); **musikari lagunekin** (15); **musikari lotuta** (3); **musikari lotutako** (4); **musikari ohiak** (3); **musikari ona** (3); **musikari onak** (6); **musikari onekin** (3); **musikari ospetsu** (4); **musikari ospetsua** (3); **musikari profesionalak** (5); **musikari profesionalak sortzea** (3); **musikari talde** (14); **musikari talde bat** (4); **musikari taldea** (6); **musikari taldearekin** (6); **musikari taldearen** (4); **musikari trebe** (4); **musikari trebea** (5); **musikari trebeak** (7); **musikari trebeek** (3)

**oso musikari ona** (3); **reggae musikari** (3); **soul musikari** (4); **taldeko musikari** (4)

**eskarmentu handiko musikaria** (3); **euskal musikaria** (3); **fermin muguruza musikaria** (3); **jazz musikaria** (5); **mikel urdangarin musikaria** (3); **musikaria izan** (7); **musikaria izan zen** (3); **poeta eta musikaria** (3)

**abeslari eta musikariak** (3); **bandako musikariak** (3); **dantzari eta musikariak** (3); **euskal herriko musikariak** (4); **herriko musikariak** (5); **jazz musikariak** (3); **kantari eta musikariak** (6); **musikariak elkartu** (4); **musikariak elkartzten** (3); **musikariak eta dantzariak** (3); **musikariak eta kantariak** (3); **musikariak izan** (6); **musikariak izango** (6); **orkestrako musikariak** (5); **puntako musikariak** (4); **taldeko musikariak** (8)

**musikariaren izena** (4); **musikariaren laguntzarekin** (4)

**musikariei laguntzeko** (3)

**bandako musikariek** (3); **harmoniako musikariek** (4); **kanboko izarrako musikariek** (3); **kantari eta musikariek** (4); **musikariek alaiturik** (9); **taldeko musikariek** (8)

**musikariek grabatu** (3); **taldeko musikariek** (8)

**euskal musikarien** (10); **kantari eta musikarien** (3); **munduko musikarien** (3); **musikarien artean** (7); **musikarien arteko** (9); **musikarien eta** (6); **musikarien laguntzarekin** (4); **musikarien lana** (4); **musikarien piezak** (3); **musikarien taldea** (3)

**bi musikariren laguntza** (3); **musikariren laguntzarekin** (3)

## musikategi *iz ipar*

Ortizirale aratsean, Miarritzen, Atabal **musikategian**, Elliott Murphy-ren kontzertua.

Herria

**Musikategi** bat ari dute muntatzen Herausta auzogunean eta dantzategi bat eraikiko goraxago aipatu liburutegiaren sahetsean.

Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**atabal musikategian** (4)

## musikatresna ik **musika 13**.

## musikatu<sup>1</sup>, musika(tu), musikatzen 1 du *ad* musikaz hornitu.

Musikari sorta batek Lauaxetaren olerkiak hartu, **musikatu** eta disko bat argitaratu du haren omenez. zartzuela hura Luxuk -Noberto Luzuriaga, Donostiako Orfeoiaeren lehen zuzendariak- **musikatu** zuen. **Joseba Zulaika**

Xabier Amurizak idatzi eta Imanolek **musikatutako** *Mendian gora* abestia kantatu zuten kantariaren lagunek. **Berria - Kultura**

Pantxika-k berak ditu **musikatuak**, kantuen moldaketa Xano Halsouet-i zor diogularik. **Herria**

Abenduaren 12an Miarritzeko Gare du Midi aretoan haur ipuinak **musikatuko** ditu orkestrak. **Berria - Kultura**

Askoz pelikula gehiago **musikatuko** zuen Garcia Leozek hurrengo urteetan, esate baterako *Surcos*, edo *El verdugo*. **Berria - Kultura**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Tartean Amets Arzallusen bertso **musikatuak** entzuten dira: behako beltzak badira, begi urdinak eginak. **Berria - Euskal Herria**

Haren poema **musikatuak** abestu dira, poema errezitaldiak egin, abesbatza eta organo kontzertuak, bertso emanaldiak. **Joseba Zulaika**

Lana benetako konfesioa da, pasio mingarri **musikatua**: hasiera eta bukaera lasaiak, tartea in crescendo. **Alberto Barandiaren**

Zinema **musikatua**, kontzertua, talasoterapia... denak izan dira arrakastatsuak. **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**musikatu gabeak** (3)

**bertso musikatuak** (3); **poema musikatuak** (4)

## musikatu<sup>2</sup>, musika(tu), musikatzen 1 du *ad* iseka egin, trufatu.

Hona [...] umore onezko ohar bat, bideko laguna, Beñat hazpandarra gogoratzean, haren herritarren ahoskeraz polliki trufa-**musikatzen** baita Piarres, hazpandarrek "zintzurrez eta zintzurretik ateratzen omen dutelakotz -dugulakotz- español iduri jota delikatu eta landu bat, Eta ni hazpandaja naiz", erraitean. **Piarres Aintziart**

## musikatxo *iz adkor* musika.

Mekanismoa bazezilen, baina poltsikoko erloju hark ez zeukan kristalik, ez orratzik, eta ez zidan ezertarako balio; haatik, estalkia ondo zeukan, eta, hura irekitzean, **musikatxo** bat jotzen zuen. **Juan Kruz Igerabide**

Plaza isilean, **musikatxoaren** oihartzuna zabaldu zen, jostailuzko zaldi bat airean tragedia baten iragarpen-jolasa egiten ari baititz bezala. **Juan Kruz Igerabide**

-Nahi al duzu **musikatxo** hau itzaltzea? -galdetu dit Alejandro Andrade Sekretariako Ministroordeak bere bulegora sartu orduko. **Pako Aristi**

## musikatzaille (*orobat musikatzale*) *iz* hitzak musikatzen dituen pertsona.

Hitz neurtzaile, **musikatzaille**, hauxe aberastasuna! **Herria**

Ezagutua musikari, **musikatzale**, euskaltzale eta idazle bezala («La Noce Basque»), bai eta ere Baigorriko origina berriarentzat egin dituen lanen gatik. **Herria**



musikatzale ik **musikatzale**.

## musikazale *(orobat musika zale)* 1 izond/iz musikaren zale dena.

Soinujole batek saldu edo eman zion fisarmonica haietako bat nekazari txiro baten seme **musikazaleari**. **Koldo Izagirre**  
Husar **musikazale** batek sableaz moztu omen zion besoa, Gandolfok *La Marseillaise* jotzean, desafinatu egin zuelako. **Felipe Juaristi**  
Ez da musikaria; bai, ordea, **musikazalea**, Arriagazale amorratua. **Berria - Harian**  
**Musikazale** zenez, sala bat apaindu zuen behealdean musika saioak entzuteko, eraikin hartako handiena. **Felipe Juaristi**  
-Alemanak oso **musikazaleak** dira, dakizunez. **Felipe Juaristi**  
Erietxeko gizarte-langileari aditua nion **musikazale** porrokatua zela Greg. **Xabier Olarra**  
Ekintza-gizon ausart bortitzak ziren espioiak, ez ni bezalako **musikazale** negarberak. **Alberto Ladron Arana**

## 2 musikalaria.

Etxe hortan berean sortuko da, bi mende berantago, Maurice Ravel **musikazale** famatua... **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**  
**musikazale porrokatua** (3)

## musikazaletasun iz musikazale izateko nolakotasuna.

**Musikazaletasunak** eta olerkizaletasunak irakurtzen eta idazten ikasteko gogoia piztu zioten, sortzen zituen kantak gorde egin nahi baitzituen. **Fernando Rey**  
**Musikazaletasunak** espiritualtasuna esan nahi zuelako uste zabaldu eta arrunt hori iritzi okerra zela hasi zitzaion iruditen. **Josu Zabaleta**

## musikero iz musika-jotzailea.

**Musikero** herritarrak, alderraiak izan dira betidanik, eta elizako kontu sagaratueta gaizki ikusiak. **Patziku Perurena**  
Ondarrutar kantari edo **musikero** batek *Beti lo* hitzean itzuli zuen jatorrizko *Without love*; azpeitiar batek, berriz, *Zu maixu on* bihurtu zuen jatorrizko *Show must go on*.  
**Iñaki Segurola**

## musiko iz musikaria.

**Musikoa** zen Beristain, trikitilari baino. **Iñigo Aranbarri**  
Kantu gehiegi zekien kaleko **musikoa** izateko. **Unai Elorriaga**  
1974an sortu zen talde hori **musiko** profesionalak ez diren abeslari eta instrumentu jotzaileez osatuta. **Berria - Kultura**  
**Musiko** kultura bihurtu zen Gelatxo, bidean mendiko erromerien erritmo basatiagoak ahaztu gabe. **Pako Aristi**  
Pertsona bezala apala, baina jeniodun **musikoa**. **Pako Aristi**  
Beethoven **musikoaren** sormen sutsua. **Berria - Kultura**

## musikografia iz musikari buruzko idazki bilduma.

Bertan 11 orduko maratoia egingo da, konpositorearen biografia eta **musikografia** ezagutarazteko. **Berria - Kultura**

## musikologia 1 iz musikaren teoriaren eta historiaren azterketa.

**Musikologiatik** hurbil daiteke norbait bertso-doinutegia aztertzeraz edo bertsolarien kantaera desberdinei interpretazioen bat saiatzeraz. **Andoni Egaña**  
**Musikologian** bitartea bi notaren arteko bereizkuntza da, beren frekuentzien arteko tartearen arabera neur daitekeena. **Josu Zabaleta**  
Orain Kontserbatorian **musikologia** ematen hasi da. **Berria - Kultura**  
Wilhelmek **Musikologia** eta Musikaren Historia ikasketak egin zituen. **Alberto Ladron Arana**  
**Musikologiaren** Alemaniako Elkarteak Düsseldorf-en ospaturiko hiltzaldietan parte hartu zuen. **Alberto Ladron Arana**  
**Musikologiaren** ikuspegitik musikaren eboluzioa aztertuko dute. **Berria - Kultura**  
Jean-Marc Chouvel-ek, Reimseko Unibertsitateko **Musikologiako** katedradunak. **Berria - Kultura**

## 2 (hitz elkartuetan)

EOSekin eta EGOrekin harreman estuak ditugu, EHUrekin ere **musikologia** doktorego programa bat dugu eta Baionako kontserbatorioarekin ere lan egiten dugu. **Berria - Harian**

## musikologo iz musikologian aditua.

**Musikologoa** zen, eta amnesia sakona zuen, lobulu tenporaleko entzefalitis batek eragina. Horrez gain, musika alemanari buruzko ikerketak egiten zituzten **musikologo** taldeak zuzentzen zituen Weberrek, eta, 37az geroztik. **Xabier Olarra**  
Christophe Rousset **musikologo** frantziarrak. **Berria - Harian**  
Carmelo Bernaola (1929-2002) musikagile otxandiarraren liburua aurkeztu berri du Jose Luis Garcia del Busto **musikologo** eta kritikariak. **Berria - Kultura**

## musikoterapia iz eritasun jakin batzuk musikaren bidez tratatzea.

**Musikoterapia** oso hedatua dagoen terapia da, jende askok baliatzen du arazoak arindu, gainditu edota, besterik gabe, nortasuna indartzeko. **Berria - Kirola**  
Hau da "Presta hadi" plangintza: bertsularitza eta psikomotritzitatea landuko dira azaroen, euskal jolasak urtarrean, informatika otsailean, **musikoterapia** eta historia martxoan. **Herria**  
**Musikoterapiako** ekitaldi batean hasi beharrean dago, etenaldirik gabe tarantelak jo eta jo aritu beharko du ordutan eta ordutan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

muskada ik **muskatu 1**.

## muskatu *(orobat muskada)*

**1 intxaur muskatu** *(orobat eltzaur muskada eta muzkada g.er.)* *Miristika fragans* zuhaitzaren fruitua, intxaur txiki baten antzekoa, janarien bizigarri erabiltzen dena.

Pipermina eta kanela, iltzea eta intxaur **muskatua**. [Felipe Juaristi](#)

Oraingoak baino askoz birringailu zorrotzagoak baliatuko dira[...] gazta, **intxaur** muskatu, zitrikoen azal... eta era guztietako elikagai izoztuak xehatzeko. [Edorta Agirre](#)

Uso arren haragi zatiekin eta **intxaur** muskatu doi batekin nahasirik egon ohi zen Selim Aluanek eguerdiro jaten zuen gari xehatua. [Patxi Zubizarreta](#)

Natilla-azpil bat, intxaur **muskatu** hautsez gaineztatua. [Irene Aldasoro](#)

Nola,aldi berean,Lebantetik ontziak urrezko eta zetazko oihalez,urre,zilar,gariofilii hitze,eltzaur **muskada**,eta bertze anitz espeziaz beteak datozen. [Aurelia Arkotxa](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**intxaur muskatu** (3)

**musker 1** *iz* narrasti ezkataduna, hatz azazkaldunak dituzten lau gorputz adar, betazal mugikorak eta buztan luze eta kono ituxarakoa dituena, kolorez berde bizia (*Lacerta Ocellata*).

Mendian, alorretan eta kalean ere begi bistan agertzen dira: beleak, katagorriak, **muskerrak**, sugeak eta ziminoak. [Gotzon Garate](#)

Kaxatan gorde ohi zituen, etxeko egurtegiaren atzeko aldean **-muskerrak**, trikuak, denetarik-. [Mirentxu Larrañaga](#)

Lau bat oilo mokoka batetik bestera banana-mordoan azpian, lokatzean erdi-lurperatutako hariak, **muskerrak** mango-arbolen enborretan gora, bizpahiru liztor burrunbaka.

[Karlos Zabala](#)

Paretetan **musker** asko ikusiko duzu. [Gotzon Garate](#)

Sugandilak harrapatzen genituen, eta **musker** hori-berde batzuk (gutxitan, zoritxarrez), are ziraun luzeren bat ere. [Txillardegí](#)

Indian, dena dela, ez du **muskerrak** horrelako izen txarrik. [Gotzon Garate](#)

Makurtzen denean, **musker** laranja-berde bat agertzen zaio ipurmasailen arteko erretenaren gainean, tatuatuta, jakina, haragizko bide ilun horretatik abiatuko balitz bezala.

[Berria - Kultura](#)

Trena bortizki binbilikatzen zen, **musker** neurritz kanpoko edo hautsi bat baillitzan. [Karlos Linazasoro](#)

Orain **muskerrak** eguzkitan bezalaxe egon ahalko zarete hor eserita lagunak. [Pablo Sastre](#)

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nik ere zerbait freskoa edan behar dut, txirenetarrok... dagoeneko **musker** azalaren antzera igartzen dut eztarria. [Paddy Rekalde](#)

**Musker** koloreko suge luze bikaina agertu zen. [Jokin Urain](#)

Ikerketarako, 64 **musker** eta suge espezie hartu dituzte zientzialariek, eta horien bi gene aztertu dituzte. [Berria - Gaiak](#)

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bide gainera makurtuta, hostoz zamatutako adarrek halako baso **muskerrez** estaltzen dute zerua. [Iñigo Aranbarri](#)

• **4 izond** berdea.

Aitzin eta gibela, aurkiz eta ifrentuz, konkistatzaile indiar-jale baten irudia zeraman paper puska **muskerraren** angelu eta azalera ezberdinekin eskaini ahala aukerez baliatu nintzen. [Aingeru Epaltza](#)

• **5 iz** mila pezetako biletea.

-Berrehun **musker** ordainduko dizkizut. [Harkaitz Cano](#)

**musketa 1** *iz* oreinaren familiako ugaztun baten sabeleko poltsa batetik ateratzen den gai urrintsua, luringintzan erabiltzen dena.

Baltsamoa eta **musketa** nahasten ditut, anbar zuria eta zibeta, airea kirasten denean. Baina bainuaren freskura galdu bezain laster, odolak hanka-besoan muturretaraino zekarzkiezen berriz ere izokinen usain geza, esperlinen bioleta eta **musketa**, sardinzar eta arraien garraztasuna. [Joan Mari Irigoien](#)

Paretik pasatzerakoan, aii!, **musketa** moduko lurrin bat zerion haren lepoaldeari. [Jose txo Azkona](#)

**2** (hitz elkartuetan)

Padura baten gisan nabarmenago egiten zen, ohean **musketa**-usainarekin eta esnatu-hurren zen kale harriztatuaren aldarri kerratuarekin nahasita. [Lopez de Arana](#)

Eta burua bazihokoiola ere sentitzen zuen, uztailean, arratsalde bero-erreetan, meloiek **musketa** lurrin sarkorrarekin inguratzen zutelarik. [Karlos Zabala](#)

## musketadun

**1 idi musketadun**

Hauen artean daude ipar Amerikako elur-oreina, idi **musketaduna**, Seychelle Uharteetako azeri hegalaria eta lemur marroia. [Berria - Gaiak](#)

## muskil 1 *iz* kimua.

Itsasoraino luzatu zituen adarrak, Eufrates ibairaino **muskilak**. [Elizen arteko biblia](#)

Gero udare eta sagar **muskil** txikiak. [Pako Aristi](#)

**2 irud/hed**

Berarengan eta beraren bidez ustekabeko poza eta berritasun santua sortu da lurbira osoan: erlijio zaharren **muskilak** aspalditik ajeatuak eta zahartuak zeuden adarrak biziberritu ditu. [Askoren artean](#)

Mokanesa hartu eta begi-izkinan loratu malko-**muskila** idortu zuen. [Itxaro Borda](#)

Aluko **muskila** arrosa milikakatu zion, zor zion diru kopurua bular artean pausatu aitzin. [Itxaro Borda](#)

## muskilberritu, muskilberri(tu), muskilberritzen da *ad* kimuberritu.

Politikan ere ezkontide berrion bideak eta euskaldunon etxe lur mugak bedeinkatzeko **muskilberritu** ote da Lizarra? [Patziku Perurena](#)

## **muskildu** *izlag/iz* Muskildikoa, Muskildiri dagokiona; Muskidiko biztanlea.

Arrestiriko 4 orenetan: dantza ikusgarria bretaindar eta **muskildiar** dantzariekin. Herria

Hau dugu *Ramuntxo* pastoralara, Pier Pol Berzaitz **muskildiarrak** idatzia, Pierre Loti-ren 1897ko obratik. Herria

Bere hirugarren diska du hor plazaratzen **muskildiarrak**, "Han eta hor" (1987) eta "Baratze bat" (2000) disken ondotik. Herria

*Oihenart* Ikusgarria (1992, **muskildiarrek** Maulen emanik). Herria

## **muskildu**, muskil, muskiltzen **1** da *ad* muskilak bota.

Hasia da **muskiltzen** pikuondoa, usaina zabaltzen mahats-kimua. Elizen arteko biblia

### 2 irud/hed

Ipuina **muskildu** egin da. Pako Aristi

Aldean nituen lagunak guztiz igarota zeuden egunaren nekea zela medio: zarpail samarrak gehienak, arropa hitsak eta bizar egingabeak, ilea **muskilduta**. Javi Cillero

## **muskildura** *iz* muskiltzea.

Aulkian joaten utzi nuen neure burua, tontoturik, jatorririk gabeko izakien ugaritasun horrek larriturik: nonahi irekitzeak, zabaltzeak, nire belarrietan existentziaren burrunba zegoen, nire haragia bera taupaka ari zen eta erdi zartatzen, **muskildura** unibertsalean abandonatzen, higuingarria zen. Monika Etxebarria

## **muskiltxo** *iz* *adkor* muskila.

Gure hurriz andereak ere, hautsetan erein du bere maitemina, eta bere adar besanga gorritza horien txokanahietan gordeak, hortxe dauzka beste hainbeste **muskiltxo**, beginiak zabaldu eta erne. Patziku Perurena

## **muskuilu** (*orobat muskulu g.er.*) **1** *iz* itsas soinbera jateko ona, gorputza bi kuskuko maskor luzaran beltzaxka batean gordea duena, urpeko haitz edo gauzetara itsatsirik bizi dena (*Mytilus edulis*).

Gerritik heldu zion, lepoa musukatu eta haren ipurdiari itsatsi zen, **muskuilua** arrokari bezala. Fernando Morillo

**Muskiluak** jaten ari dira eta ardo zuria edaten. Monika Etxebarria

Itsaskiak (ostra, almeja, **muskilu**). Edorta Agirre

Jantokian jarraituko zuten arrautzak maionesarekin eta **muskilu** frijituak jaten, koipetan ezpainak. Bernardo Atxaga

Tea ere bero beroa, eta gailetatxoak, eta **muskilu** erreak, bero beroak, jateko jada prestatuak. Joseba Sarrionandia

**Muskilu** egosiak zituen saltzeko, ur garbian igerian. Karlos Zabala

Dastatu frantses erara prestatutako gure **muskilu** gozoak. Lopez de Arana

Adituek azaldu zutenenez, itsas hondoan dagoen fuel-olioak **muskiluak** eta txirlak pozoitu ditu eta, era berean, baita horietaz elikatzen diren animalia handiagoak ere. Berria - Gaiak

Usteltzen ari zaio zurajea, herdoila darie loturetako iltzei, goroldioak eta **muskuluek** hartua diote gila. Anjel Lertxundi

**Muskilu** batzuk alga itxura eta forma dute, eta badira koralen oso antzekoak ere. Berria - Gaiak

### 2 (hitz elkartuetan)

Metaturiko **muskilu** zakuetatik ur errekaetako isurtzen ziren. Karlos Zabala

Hantxe utzi genuen, barran bermatuta, zorua ganba-azal eta **muskilu**-oskolez harrigarriro estalita zeukan Mantxa barruko taberna hartan, itxaroten. Iban Zaldúa

62 **muskilu** espezie berri aurkitu dituzte Filipinetako Panglao irlan Berria - Gaiak

## **muskular** *izond* giharrena, giharretakoa, gihar-. ik **muskulu**<sup>1</sup> **3**.

Fisikoki ez daude ondo; izan ere, masa **muskular** asko galdu dute eta ahul daude. Berria - Mundua

[Bihotza] odol-ponpa automatiko, **muskularra**. Xabier Olarra

Jon Andoni Urtizberea, Pariseko miologia institutoko mediku-espezialista eta eritasun neuro-**muskularren** europear zentroko zuzendari zientifikoa Herria

## **muskulatu**, muskula, muskulatzen da *ad* gihar masa handitu.

**Muskulatu** beharrian hao, txikito; aber, badakik zer diren hauek? Joxean Sagatzizabal

## **muskulatura** *iz* giharrak, giharrera.

Gure hortz-haginek eta aurpegiko **muskulaturak** jangai horiek txikitzeko balio ez dutelako. Edorta Agirre

Nik hitzez hitz gogoratu ditut bere berba hautatuak: **muskulatura**, dirua, nazionalismoa, errekorrak, publizitatea, loria, pastillak, espektakulua. Joseba Sarrionandia

## **muskulazio** *iz* giharrak, giharrera.

Hori lortuta, **muskulazioa** bere onera itzuli dela jakingo nuke, bizitza normala egiteko arazorik ez nukeela edukiko. Berria - Kirola

## **muskuloso** *izond* gihartsua.

Atzerantz salto egiteko, berriz, indar berezia egin behar du espagetiak, eta mundu guztiak daki espagetiak ez direla, berez, oso **muskulosoak**. Unai Elorriaga

## **muskulu**<sup>1</sup> **1** *iz* giharra.

Minduta neuzkan izterretatik bizkarrerainoko **muskulu** guztiak. Xabier Mendiguren Elizegi

Batere intelektuala ez den tipo bat, **muskulu** hutsa, neskari animalia eder bat iruditzen zaiona. Xabier Mendiguren Elizegi

Doi mugitzen ditu aurpegiko **muskuluak**, barre-irudi bat baino haratago joan gabe. Bernardo Atxaga

Anaiak aurpegiko **muskuluak** uzkurtu ditu apur bat. Jon Alonso

Kulturisten jarreran itzelezko **muskuluak** erakusten. animaliak nola mugitzen diren; **muskuluak** nola orekatzen diren eta elkarri tiratzen dioten; giza gorputzaren egitura nolakoa den. Joseba Sarrionandia

Lacey-k bizkarrezurreko **muskulu**en atrofia dauka. Gotzon Garate

## 2 (testuinguru teknikoagoetan)

**Muskuluak**, ingeniartzaren ikuspegitik, erregai-pilen indarrez dabilizan motor linealak dira. Irene Aldasoro

Balkaniarrak **muskulu** bikian mina sumatu zuen igandean. Berria - Kirola

Eszker hankako **muskulu** iskiotibialean du mina, baina larritzekorik ez. Berria - Kirola

Zaintiratua dauka **muskulu** iskiotibialean. Berria - Kirola

**Muskulu** ziliarra erlaxatzen denean, tentsio handiagoa transmititzen dute kristalinoari eusten dioten zuntzek. Irene Aldasoro

**Muskulu**en distrofiaren kontrako tratamenduetan. Berria - Gaiak

Eskuin hankako soleo **muskulu**an gainkarga duelako. Berria - Kirola

Soleo **muskulu**an du haustura, izterrean, aduktoreetan. Berria - Kirola

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emakumeek **muskulu**-uzkurdurarik sentitzen ez dutenean. Berria - Gaiak

Zazpi aste horietan, moldeak, **muskulu** ehunak eta odol hodiak garatu zituen. Berria - Gaiak

Aurpegiaren **muskulu** ehunaren atrofia da ondorioetako agerikoena. Indarrak alferrik galtzea litzateke gorputzaren **muskulu**-motorrak beti indar maximoan lan egiteko moduan antolatzea. Berria - Euskal Herria

Bihotz osasuntsu batean, berezko taupada-markagailua osatzen duten **muskulu**-zelula multzo txiki batetik hedatzen da uzkurtze-mugimenduaren uhina. Irene Aldasoro

Nerbio-zuntz batetik igaro daitekeen energia elektrikoa ez dela aski **muskulu**-zuntz bat estimulatzeko, askoz lodiagoa baita **muskulu**-zuntza. Irene Aldasoro

**Muskulu** edema atzeman diote eszker eskuan, miositisa eta tunel karpianoaren edema ere bai. Berria - Kirola

Badira bi **muskulu** mota nagusi: lisoak eta ildaskatuak. Irene Aldasoro

Maskuriko irteerari ondo itxita eusten dio normalean **muskulu**-sistema batek. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hankako muskulu** (3); **muskulu bikian** (3); **muskulu iskiotibialean** (3); **muskulu zuntz** (7)

**aurpegiko muskuluak** (4)

muskulu<sup>2</sup> ik **muskulu**.

## muslari 1 iz musean jokatzen duen pertsona.

Agi denez, ezustean harrapatu nahi du Arrietak irakurlea, **muslariak** joko lagunekin egiten saiatzen diren bezala. Berria - Kultura

**Muslari** trebeak ziren segur, baina oroz gainetik euskaldun porrokatuak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Deskartaturiko karta pareta mahai gainera botatzen duen **muslariaren** keinu utzia. Harkaitz Cano

Pazko biharamunean, **muslari**en besta handia Larzabalen eginen da. Herria

Ramuntxo Aztalarin dantzaria, Amedee Xango **muslaria** eta Antton Haitzondo haizkolaria. Herria

Aurten, Iruiteanean bilduko dira **muslari** eta muszaleak, larunbat arats guziz, 8ak eterdietarik goiti. Herria

Bi hilabetez, 130 **muslari** pare dira lehiatu Txixtulari ostatuan, antolatua zen 16. lehiaketa huntan. Herria

## 2 (izen soila aditz baten ezkerrean)

Otoruntzaren arabera, kantari edo **muslari** aritzen zineten. Xabier Montoia

## 2 (izenondo gisa)

Gaurko teologo **muslariari** jakineko kartak, ongi nahasi gabeak badaezpada ere, jartzen dizkio beti munduak eskura, eta handian paso eman eta ttikitik jotzen du hordago, eta ttikian ez dio inork irabazten, eta horrela du jakin-usteko ustela bereganatzen. Iñaki Segurola

## musofago iz kukuliformeen ordenako familia bateko hegaztia.

Turago **musofago** bat, gorputza more, mokoa laranja-kolore eta burua pinporta txikiz betea zuena. Jon Muñoz

## must izond

Nahiz eta gasna-jale aristokratikoentzat harrekilako gasna, zintzurrian behera gargailaka abere molkoak lerratzen zaizkiola **mustetan mustena** den. Itxaro Borda

## must<sup>1</sup>

### 1 *must egin* murgil egin, murgildu.

Uretara **must** egin. Edorta Jimenez

Oldozkai soilkitutan... /... **must** eginik... Iñaki Arranz

## must<sup>2</sup> iz

Kareizko betaurrekoak, oraindik modan ez zeudenean, argaltxo neurri egokian, ipurditxo mardula, ahotsa ondo modulatu, den-dena zekien zuzenbide penalez eta besteez, edukazio handi-handikoa, ezkertiarra - **must** bat, garai hartan-, irribarre zoragarria, xarmanta zen guztiz, ondo pentsatuz gero. Karlos Zabala

## mustada iz murgila.

Neskak larru gorritan uretan **mustada** batzuk egiteko aukera izango du. Edorta Jimenez

## mustarda iz ziapea. ik mostaza

**Mustarda** bihia ttikia da eta biziki laster, berrogoi egunez, landare handia bilakatzen da, adar azkarrekin, nun xoriak lasai egoiten ahal diren. Herria

## mustatx

(orobat **mustatxa**, **muztatxa**, **mustax**, **mustaxa** eta **muztaxa**) iz bibotetzarra.

Oro duintasun igotzen zen hara, **mustatx** zirkasiarrak dilindan, eta bere gorputz mardularekin betetzen zuen eserlekua. **Patxi Zubizarreta**

Hik erran hori egia izanez gero, makurki jokatu ditek gure aitzindariak, dio Mazellak bere **mustatxa** haztatuz. **Xabier Montoia**

Jakin izan ez banu erreformatu fierra zela, galtzak zikinduko nituen Mauleko gazteluzainaren **mustatxa** trinko eta begi txorrotxen aitzinean. **Aingeru Epaltza**

**Mustatxa** zuri handiak zeuzkan, bizarra haizemaile gisa zabal, eta arranokara aurpegia. **Juan Garzia**

Jendarme harroxko batek, frantsesek eta donostiarrek baizik eraman ez dezaketean **mustax** fina sudurpean. **Unai Iturriaga**

mustatxa ik **mustatx**.

mustatxadun ik **mustatxdun**.

## mustatxdun

(orobat **mustatxadun**, **mustaxadun** eta **muztaxadun** eta **mustatxudun**) izond mustatxa duena.

Han baziren gizon **muztaxadunak** eta emazte batzu su handi baten inguruan kalapita gorrian, ainitz haurrez inguratutik. **Herria**

**Mustatxdun**, mutxurdin eta gaineratikoak. **Jose Angel Irigaray**

Horiek eme nahiz ar, oro **mustatxadun**. **Xabier Montoia**

Lau magrebiarren dokumentuak aztertzen bukatutakoan Mikeli begira geratu zen **mustaxaduna**. **Unai Iturriaga**

Militar itxurako gizon **mustatxudun** batekin dator hizketan: sablea eta guzti darama. **Iban Zaldúa**

Mende bat lehenago Juan Pikaza Mollinedo Negro-k bi asaltotan akabatu zuen Mr Wolles El Ingles, Explosivos Rio Tintoko ingeniari **mustatxaduna**. **Berria - Kultura**

mustatxudun ik **mustatxadun**.

mustax ik **mustatx**.

mustaxa ik **mustatx**.

mustaxadun ik **mustatxdun**.

## mustelido

iz

Hegoaldean, halaber, kinka larrian bizi da **mustelido** txikia, baina Nafarroako Gobernuak aurtien abian jarritako ikerketak erakutsi du herrialde horretan bizi dela munduko bisoi europarraren populaziorik handiena. **Berria - Euskal Herria**

mustio ik **muztio**.

## mustraka

iz ipar pastoral baten proba saioa.

Lehen **mustraka** edo ikasketa saioak iazko irailan hasi zituzten, eta horretan dihardute astero, ostegunetan. **Berria - Kultura**

Datorren igandean Maulen emango den 'Antso Handia' pastoralaren **mustraka** nagusia egin dute. **Berria - Kultura**

Urtarrilako lehen astebürün hasirik, neskenegün arrats oroz egiten dira **mustrakak** Sohütan. **Herria**

Christophe de Pradak diaporama delako bat moldatü dü, 'Antso Handia' pastoralaren **mustraketan** hartü ehün bat argazki herrokatzen direlarik. **Herria**

Izgarriko indarra dü **mustrakak** herri batetan, antzerkiaren ontsa prestatzeko prefosta, bena herritarren arteko harremanen bortzeko ere. **Herria**

mustro ik **munstro**.

mustrokeria ik **mustrokeria**.

## mustu

mus(tu), musten du *ad* inauguratu.

Bereak **musteko** nolako ibilaldia proposatuko zion zerabilen buruan Bitorrek, mendira eramanen zuen, Landarbasoko leizeak ikustera. **Koldo Izagirre**

Errenta merkeko pare bat zientio etxe [...] etorria zen **mustera** Generalisimoa. **Koldo Izagirre**

## mustuka 1

iz garbitzeko erabiltzen trapua edo trapu multzoa.

Adin gabeko aitaxi zahar bat **mustuka** pasatzen ari zen. **Ramuntxo Etxeberri**

Izbek gorputzaren mugimenduak neurkatzen zituela, ezpainetara ura luzatzen eta noiztenka kopeta **mustukaz** lehortzen zion, amultsuki. **Itxaro Borda**

## 2 luma-erratza.

Geratzen zen aulki bakarrean eseri zen, baina saltoan zutitu zen ia berehala, eta bere azpitik hautsa kentzeko **mustuka** gris bat, luma asko gabea, atera zuen. **Iñaki**

Mendiguren

Pince andreak, liburuzainak, hautsa kentzeko **mustuka** astindu zion aurpegiaren aurrean. **Iñaki Mendiguren**

Ate ondoan pilatan jarrita, etxezainak hartu eta banaka-banaka **mustuka** pasa eta hautsa kendu zien ardura handiz. **Eduardo Matauko**

### 3 (izen elkartuetan)

Artalaria etorri zitzaidan bere mirakuluzko belaki-**mustukarekin**; apur bat busti zizkidan bekokia eta izterra, eta hop, altxatu egin nintzen. **Daniel Landart**

Oinezkoaren oin hatzak, bertako belar **mustuka** eta etxearen apaindura. **Herria**

## mustulpika ik mustupilka.

### mustupilka (orobat *mustulpika g.er.*) 1 *adlag ipar* ahuspez.

Joan den egunean, denen aitzinean, telebista dela lekuko erori da, joan da **mustupilka**. **Herria**

Eta oihukatu bezain laster **mustulpika** erortzen da mutikoa adiskidearen gainera, gorputz guzira osoki zoramenean, errepikatuz: "Xanti!... Xanti! Xanti!..." **Michel Oronoz**

### 2 irud/hed

Egoten ginen biak eleketa, gure apezgoaz eta elkarrekin ohartzu haurtzaroan ezagutu genuen mundua **mustupilka** zihoala. **Piarres Aintziart**

Reno-ratu aintzin lehengo artzainen tokiak, norik ez du aditu zaharrago bati artzain Nevada egonik, oraiko bide ikaragarri horiek hor gaindi trebes eginak dira, udan bezala neguan elurrarekin jendea **mustupilka** ba omen dabila. **Herria**

### 3 kopuru handian.

Ilunbean hilak **mustupilka** eroriak ikusten dira, lurra eta belarra odolez gorrituak; armada bateko nola besteko gizonak, gorputz gazte zaintsuak, bizitzeko, maitatzeko eginak, ama baten semeak denak, gerlan bortxaz ari edo errabiatuak... **Michel Oronoz**

## mustupilkatu, mustulpika(tu), mustulpikatzen da/du *ad*

Errana izan zaut azeritik bezainbat otsozik eta basurdetik ere bazuela, zuzentasuna eta gizatasuna **mustupilkatzeraino**. **Herria**

## mustur ik mutur.

## musturtu ik muturtu.

### **MUSU** (orobat *mosu g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian musu agertzen da*) 1 *iz* adiskidetasuna, maitasuna, begirunea erakustearren norbait edo zerbait ezpainez ukitzea. ik **muxu**; **pot<sup>1</sup>**; **pa**; **lazan**; **muin<sup>2</sup>**.

Aurrena **musu** batez itxi zizkidan ezpainak. **Jon Muñoz**

**Musu** bakoitza azkena zen, eta gero azken bigarrena zen. **Jon Muñoz**

Haien ezpainak etengabeko **musuetan** bateratzen ziren. **Elena Touyarou**

Deabruaren **musuak** zureak. **Jasone Osoro**

**Musu** sutsu batek batu zituen. **Patxi Zubizarreta**

Besarkada eta **musu** behartuak izan ziren jarraian. **Fernando Morillo**

Gerrikoa askatu gabe nuenez, nire lehen **musua** erdi bidean galdu zen, ahalegin zapuztu bat, **musu** barregarri bat. **Joxean Agirre**

**Musu** bat zure alaba atseginari. **Jon Muñoz**

Eta neure beso batez maitekero estutzen, hartu zuen alabaina **musu** ezti hura. **Jon Muñoz**

**Musu** korapilatuak. **Jasone Osoro**

Deus gutxi, **musuren** bat ahoan eta zirri batzuk, baina esango nuke zerbait gertatuko zela, Rodolfo hil izan ez balitz. **Karlos Zabala**

Joder, **musu** bat ezpainetan, konfiantza dagoen seinale! **Pako Aristi**

### 2 (eman aditzaren objektu gisa; ik beherago 10)

Tsiganokek estu ematen zituen **musuak**, hortzak nabariarazterainoko indarrez. **Jose Morales**

-Errukizko **musuak** masailean ematen dira, Diego- xuxurlatu zuen-. **Jon Muñoz**

Nik neuk, setati, eman egin nion **musua** halere, Ivyk bere zigarretari jaregin gabe erretzen segitzen zuela, **musu** belarrian, **musu** lepo zurrunduan, **musu** baldokian, **musu** ile-adats mikatzean... **Joxe Austin Arrieta**

Aspaldiko ezagunak bagina bezala, bi **musu** eman zizkidan ontsa goxoak. **Janbattitt Dirassar**

Eman **musu** pare bat, gizona, ikaragarri maite haut eta! **Jose Morales**

Horretan gelditu ginen bi **musu** epel elkarri emanik. **Janbattitt Dirassar**

Luixak **musu** ergel bat eman zidan eta xoria bezain arin urrundu zen! **Janbattitt Dirassar**

**Musu** leun bat eman zion ezpainetan. **Fernando Morillo**

Hurbildu zitzaidan, eta **musu** bat eman zidan, **musu** leun, maitekork bat, masailean, ezpainaren ertzetik oso hurbil. **Jon Muñoz**

**Musu** luze eta hezea eman zion osabari aho-ahon. **Aitor Arana**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lady Bracknellrek batera eta bestera begiratzen du, **musu**-hotsari antzik ezin emanez bezala. **Antton Olano**

Irribarrea dirudien **musu**-imintzio batez. **Xabier Olarra**

Jastatu banuen jastatu, **musu** iturri horrek xoratua nindukan, nahiz doi bat harritua ere nengoan, ez bainuen uste neska bat izan zitekeela hoin laster hein horretaraino amorostua. **Janbattitt Dirassar**

Ahots ezta zuen, maindireen firfira goxoaren antzekoa, eta **musu**-emaile usua zen. **Mirentxu Larrañaga**

Antje, andereño **musu**-emaile gisa, ez oso erne. **Fernando Rey**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Poztu egin zen -hala zirudien- burugainean ongietorri **musua** eman nionean. **Oskar Arana**

Eta masailean eman dit haur-**musu** xalo bat, laburra, lizunik gabea. **Txillardegi**

En fin, Marta, mila esker kafeagatik -agur-**musu** bat eman zidan masailean-. **Iban Zaldúa**

Agur-**musuak** eta bizkarrekoak. **Patxi Iturritegi**

### 5 aurpegia.

**Musua** garbitzen beti poltsan beti ermatan duen belakiarekin. Alberto Barandiaren  
Txarolezko bisera apurtu bat, whisky-usain arina isurtzen zuen **musu estu** baten goialdean ezarria. Lopez de Arana  
Apur bat argaldu da, eta **musua** estilizatu egin zaio. Urtzi Urrutikoeetxea  
Sudurra, ezpainak eta hagin batzuk txikituta, belauniko geratu zen Toliño, eskuak **musu** odolduan. Paddy Rekalde  
Joseluren **musua** piztu egin zen, trikimailuaren nondik norakoaz jabetuta. Josu Landa  
Suaren ondo-ondoan gelditu zen; sudurretik muki tanta zeriola, hozminduta **musua**, motel hitz egiten zuen. Pablo Sastre  
Gaur ere orduan bezala haserretzen da nirekin, baina orain **musua** okertu eta biktimarena soilik egiten du. Anjel Lertxundi  
**Musua** zimurtu zuen. Pablo Sastre  
Sudurra motz, **musua** gorri, eskuak txamarrako saketan sartuta, trinkili-trankala heldu zen Karrikara Dimas. Pablo Sastre  
Ilea zuriz pintaturik eta gorri **musu** aldea. Xabier Montoia

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sudurzapala Silena, Satira emea, ezpainsua **musu**-lorea. Xabier Amuriza  
Zure masailak granada ebaki baten bi erdiak, **musu**-estalkipean. Irene Aldasoro  
Aurpegi luze eta xaloa zuen, kosmetikorik sekula erabili gabea, noski, eta **musu**-kolorea aldagaiz ageri zuena beti. Mirentxu Larrañaga

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duelarik)

"**Musu**-triste" erraten diodalarik ere ez du muturjea argitzen. Aingeru Epaltza  
Kapela gorria eta txiki-larruzko jaka grisa jantzirik zituen neska **musu** gris bat haren ondoan eseri zen. Lopez de Arana  
Eta berehala, farola baten azpian, Tinoren bi gorilak, behin portu ondoko ostatu italiarrean topatu nituen bi morroi **musu**-berdeak. Fernando Rey  
Diane txikitxo, **musu**-arrosa eta haserre-antza, bere sehaskatxoan ozta-ozta ikusgai, hainbeste parraila eta gauzakiren artean. Mirentxu Larrañaga

## 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere piamontear-**musu** gorri ñimiñoan irribarre gizalegetsu bat marraztuta. Fernando Rey  
Atso ile-zuri sagar-**musu** batek buruari eragin zion, etsipenezko zirkin bat eginez. Anjel Lertxundi  
Aski duzu haren arratoi-**musu** nazkagarriari begiratzea bera dela jakiteko... Iñaki Mendiguren  
Zoz zeu afalorduan eta entretenei ezazu gure "**Zaldi-musu**", txotxoloa. Mirentxu Larrañaga  
Neska puska ederra... sinetsi nahi al didak konketa-**musu** hori, zera, zakilduna dela? Juan Kruz Igerabide

## 9 sudurra.

Mukia etengabe zerion **musupetik**. Gotzon Garate

## 10 musu eman

-Aitatxo ez al da etorriko niri ondo lo egin esatera eta **musu** ematera? Lopez de Arana  
Baina **musu** eman behar nionean, une horretan bertan, esnatu egin nintzen. Jon Muñoz  
**Musu** emateko eskatu zidan Marisak, aurpegia nirearen ondo-ondoan jarrita. Juan Kruz Igerabide  
Emaidazu **musu** bat agur esan aurretik. Bernardo Atxaga  
Eman **musu** bana anaiei. Jose Morales  
"Ezpain urdin horiek **musu** emango didate", esan nion neure buruari. Bernardo Atxaga  
Bekokian eman zidan **musu**. Joxe Austin Arrieta  
Osaba Jimék **musu** eman zien bi emakumeei ezpainetan. Koro Navarro  
Gorputza nigana hurbildu eta **musu** eman zidan ahoan maitasunez. Aitor Arana  
Eskerrik asko! Kopetan **musu** eman nion, eta lumari begiratu nion berriz ere. Jon Muñoz  
**Musu** eman nion esker onez, masaila batean oraingoan, bestean esku bat maitekiro jartzen niola. Aitor Arana  
Trumoi haize eta euri, lurrak **musu** eman dio zeruari. Patziku Perurena

## 11 musu eta musu adlag

**Musu eta musu** segitu genuen. Janbattitt Dirassar  
Elkar besarka hasi ziren guztiak, **musu eta musu**. Joxan Elozegi  
Sethek **musu eta musu** ematen zien. Anton Garikano

## 12 musu-estu (corpusean musuestu soilik) izond

Oinak kaobazko idazmahai berriaren gainean, mutil gazte **musuestu** bat bere aulki birakarian etzanda zegoen. Lopez de Arana

## 13 musu-gitarra (ETCn 11 agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian musugitarra agertzen da, ETCn 16 agerraldi) iz burdinazko musika tresna txikia, dardarazten den mihi bat duena eta ezpainen artean jarrita jotzen dena. ik musugitarra.

Ama batzuek -orain hilda zeudenek- **musu-gitarren** erritmoan eragiten zieten sorbalde. Anton Garikano  
Baita panderoa arrabitarakin edo **musu-gitarrekin** ere. Iñigo Aranbarri  
Frai Alfonsok Santanderretik ekarri zituen tronpak, musika tresna bereziak, gaurko **musu-gitarrak** baino handiagoak eta ozenagoak, eta horiek izan ziren taldekoen mezuak alde batetik bestera zabaltzeko tresnak. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 14 musu-huts (orobat musuhuts eta musututs; Euskaltzaindiaren Hiztegian musu(-)huts agertzen da) espero zena lortu gabe.

Bat-batean, burutik pasatu zitzaion ezen beharbada Corley beste bide batetik joango zela neskari etxera laguntzera, bera **musu-huts** utzita. Irene Aldasoro  
Eta gaztetxo barregarriak, izuak harturik, eserleku libre baterantz ospa egingo dik, bestea **musuhuts** utzita. Xabier Olarra  
Baina On Camillok ederki zekien horrelako kolpeak hartzen, eta jendea **musu-huts** atera zen elizatik. Koldo Biguri  
Gero, beste kafe bana agindu ostean, **musututs** utzi ninduen. Koldo Izagirre

## 15 musu-oker (corpusean musuoker soilik) izond

Bi lagun ziren Unba kanpoan: Joxemari handia eta Manu **musuokerra**. Pablo Sastre

## 16 musu truk (52 agerraldi, 16 liburu eta 29 artikulutan; orobat musutruk 23 agerraldi, 13 liburu eta 6 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian musu(-)truk agertzen da) adlag doan, hutsean, urririk.

**Musu-truk** bazkaldu duzu Francesenean?! Fernando Rey  
Ordaindu zioten, bai, baina **musu-truk** ere egiten zuen, are gehiago, ordaindu ere eginen zuen itzuli ahal izateko. Fernando Rey  
**Musu-truk** emateko prest nengoan, baina orain ez duk niregandik ezertxo ere jasoko! Jose Morales  
Merezi duten saririk ezin eman, eta esker oneko aipua behintzat zor nien **musutruk** lagundu didatenei. Joxerra Garzia  
Zenbat holako uso kolpatu eder ote da, jauntxo izandun batek haurdun utzi ondoren, diru edo **musu truk** beste gizajo pobreren bati disimuloan erantsia? Patziku Perurena  
- Zera, zuretzako doan izango delako, **musu-trukean**. Karlos Linazasoro

## 17 musu-zimurtu (corpusean musuzimurtu soilik) izond

Musugorria izan da euskal usarioan gazte ederra, segaila, sasoikoa; eta alderantziz: musurdina (edo txeismoa tarteko: mutxurdina) sasoia joandakoa, **musuzimurtua**, zakartua, gaztekolore ederra galdutakoa, alegia. Patziku Perurena

## 18 musu-zuri (orobat musuzuri) izond

Jaka zuriko gizon **musu** zuri batek ireki zion atea. jarri zen dukesa, bere zorabioan, zurbil eta **musuzuri**, gero eta **musuzuriago**. **Lopez de Arana**  
· Horrela joaten dira ordu hotz horiek aurrera, eta suspentse luzea oso nekagarria eratzen zaie egoera hori lehenengoz bizi duten **musuzuriei**; baina beteroentzat, ulu arteagarri horiek eta isiltasun are arteagarriagoa gaua aurrera doan seinale baino ez dira. **Julen Gabiria**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**ahoa** **musu** (19); **ahoa musu eman** (6); **ahoa musu emateko** (4); **ahoa musu ematen** (5); **amari musu** (5); **bekokian musu** (5); **bi musu eman** (13); **elkarri musu** (28); **elkarri musu bat** (4); **elkarri musu eman** (8); **elkarri musu ematen** (6); **eman musu** (9); **emandako musu** (6); **eskuan musu** (8); **eskuan musu eman** (7); **ezpainetan musu** (13); **ezpainetan musu eman** (7); **hurbildu eta musu** (8); **kopetan musu** (9); **kopetan musu eman** (4); **makurtu eta musu** (6); **masailean musu** (10)  
**musu arin** (8); **musu arin bat** (6); **musu azkar** (9); **musu azkar bat** (8); **musu bakar** (6); **musu bakar bat** (5); **musu bana** (19); **musu bana eman** (11); **musu bat** (215); **musu bat bidali** (8); **musu bat eman** (67); **musu bat emanez** (5); **musu bat emateko** (9); **musu bat ematen** (15); **musu bat pausatu** (5); **musu batzuk** (6); **musu bero** (4); **musu bi** (5); **musu eman** (362); **musu eman nion** (39); **musu eman zidan** (47); **musu eman zion** (73); **musu emanez** (21); **musu emanez agurtu** (4); **musu emango** (16); **musu ematea** (11); **musu emateko** (34); **musu ematen** (99); **musu ematen saiatzen** (4); **musu ematera** (13); **musu ezti** (4); **musu gorri** (7); **musu gorria** (4); **musu handi** (5); **musu huts** (7); **musu labur** (9); **musu leun** (5); **musu luze** (17); **musu luze bat** (6); **musu luzea** (5); **musu pare** (14); **musu pare bana** (6); **musu pare bat** (7); **musu triste** (5); **musu tristek** (5); **musu tristeren** (5); **musu tristeri** (4); **musu truk** (48); **musu txiki** (5); **musu zapi** (4)  
**neskari musu** (5); **pare bat musu** (4)  
**azken musua** (15); **lehen musua** (17); **lehen musua eman** (4); **lehenengo musua** (7); **musua eman** (29); **musua eman zion** (12); **musua emateko** (5); **musua ematen** (5); **musua gorri** (5)  
**besarkadak eta musuak** (6); **elkarri musuak** (6); **lehen musuak** (4); **musuak eman** (7); **musuak emanez** (4); **musuak ematen** (9); **musuak eta besarkadak** (4); **purpurazko musuak** (4)

## musualdi iz musukatze saioa. ik musukaldi.

Tira, beraren ardura zen, konpon zedila bera, zera, akuri-neskazko bere harem harekin eta taximetropeko bere **musualdi** okagarri haiekin. **Juan Garzia**

## musuestu ik musu 12.

## musugitarra *(corpusean musu-gitarra soilik dago, ETCn 11 agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegia musugitarra agertzen da, ETCn 16 agerraldi) iz burdinazko musika tresna txikia, dardarazten den mihi bat duena eta ezpainen artean jarrita jotzen dena. ik musu-gitarra.*

**Musugitarra** (baita ere tronpa eta musumusika) antzinako musika tresna bat da, lamelofonoa (mihiaz edo behatzez jotzen den perkusio instrumentua). **ETC-entziklopedia**  
Eskuarekin **musugitarrari** dardarizarazi eta, halako batean oihan galdu batetik etorri txori baten kantu zerbait hautematen da. **ETC-prentsa**  
Eta bestelako loturak ere bai: esaterako, Okzitaniako Joan Frances Tisnerrek eta Marc Castanetek Iparraldean ohiko diren dantzen eritimoak ekarri zituzten, eta baita musika instrumentu gisa **musugitarra** ere. **ETC-prentsa**  
Orraziak, kaiku bat, **musugitarra** bat eta pilota baten barneko muina ere aurkitu dituzte. **ETC-prentsa**

## musugorri *(50 agerraldi, 29 liburutan; orobat musu-gorri 14 agerraldi, 11 liburu eta artikulua 1ean) izond musua gorria duena.*

Sudur puntan antiojo beltzak dituen agure **musugorri** batengana makurtu da. **Monika Etxebarria**  
Emakume gazte **musu-gorri** morez jantziriko bat sartu zen gelan. **Irene Aldasoro**  
Emakume lodi **musugorri** batek zabaldu zuen atea. **Alberto Ladrón Arana**  
Irlandar **musugorri** mozkortia. **Harkaitz Cano**  
Ondoan eserita dauzkauz udatiar **musugorriak**, beren haragi nasaietan eroso, gozaten ari dira antzezlanaz. **Oskar Arana**  
Bat txikia, bibote finekoa; beste bat altua, aurpegian Gramsciren antz pixka bat zuena; eta bestea **musugorri** eta ile-kizkur bat, beti irribarrez zegoena. **Fernando Rey**  
Emakume ederren bolada zen artean eta bera aski **musu-gorria** zen orduan. **Mirentxu Larrañaga**  
**Musugorri** hari, ordea, seriotasun astuna zerion, jendeari harridura eta inoiz traba sortzen ziona. **Jon Muñoz**

## musugorridun 1 izond musu-gorria.

**Musugorridunak** kartak bota zituen mahai gainera, partida izorratu dioten baten keinu zakarrez. **Anjel Lertxundi**

### 2 izlag musugorriko.

Aurpegi potor **musugorridun** bezero bat erdi oldartu zitzaion tabernariari: -zerbait gertatuko al da, Anttoni? **Anjel Lertxundi**

## musugorritu, musugorri(tu), musugorritzen *(orobat musu(-)gorritu) da ad musua gorritu. ik muxugorritu.*

Lehenago apur bat nekatuta eta zurbil samar zegoela ematen bazuen ere, orain **musugorrituta** zegoen, musikariak hain hurbil edukitzeak aztoraturik, susperturik eta musika gehiago entzuteko irrikaz. **Xabier Olarra**  
Asko jan eta asko edan dute, **musugorritu** arte. **Xabier Olarra**  
Bion artean hartu genuen garagardo katxiarekin, **musu**-gorriturik jarri zen Adela. **Juan Kruz Igerabide**  
Egunero **musu gorrituta** ateratzen zirela, hain zegoen etxe hartan bero handia. **Joxerra Garzia**

## musuhuts ik musu 14.

## musuka 1 adlag musu emanez. ik muxuka.

Amak, besoetan hartu, eta **musuka** maite-maite egin dio, lehenbailehen isil dadin. **Xabier Montoia**  
Lehen egona zen beste mutil batzuekin, baina **musuka** eta horrela, besterik ez. **Luis Elberdin**  
Ahal genuena eginez, ipurdi-heltzen, titi-jorran eta **musuka**, han errenditzen gintuan. **Pako Aristi**  
Jan-edanean hasi ziren, eta **musuka**, eta laztanka. **Patxi Zubizarreta**  
Eta gero, eni hitz baten erraiteko denborarik utzi gabe, **musuka** lotu zitzaidan. **Janbattitt Dirassar**  
Eta elkarri **musuka** hasi ginen. **Janbattitt Dirassar**  
Autobusen geltokiko aterpean, eserlekuan jesarrita, bikote bat **musuka** ari zen. **Fernando Morillo**  
**Musuka**, elkar jan nahi balute bezala. **Daniel Landart**



Irriz eta **musuka** . Janbattitt Dirassar  
Dantza lotuetan argitzalean **musuka** eta **musuka** . Fernando Rey

## • 2 iz musukatzea.

Eta lekua diskretu samarra zenez, **musuka** errabiatuan hasi ginen. Txillardegia

Musika indartsuago aditu zen, jendea dantzatzetik geratu zen bat-batean, borobilaren erdian Jessica eta Theo elkarri **musuka** luzean begimendu zituztenean. Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**elkarri musuka** (19); **elkarri musuka hasi** (4); **musuka ari** (15); **musuka ari zen** (3); **musuka eta laztanka** (6); **musuka hasi** (18); **tira ahala musuka** (3)

## musukaldi iz musukatze saioa. ik musualdi.

Larru kontuak utzi gabe, Mikel eta Maribel kotxean, eserlekuak atzeraturik, **musukaldi** bortitzean. Xabier Mendiguren Elizegi

## musukarazi, musukaraz, musukarazten du ad musukatzerara behartu.

Pitoagorik! bortkaz **musukarazi** ziotean lurra, haren gibelaldean ordots aritzeko. Aingeru Epaltza

## musukari izond musukatzen duena.

Ni nago orain hemen, / taldeka doan jendeak / eta bikote **musukariek** / sortzen didaten hutsunearen erdian. Pako Aristi

## musukatu, musuka(tu), musukatzen 1 du ad behin eta berriro musu eman, musuka aritu. ikmuxeatu.

Ez dut haurretan hartutako inolako laztanen gomutarik; ez ninduten ferekatu, ez **musukatu**, ez festakatu. Pablo Sastre

Eta, biak isilik, gogo biziz **musukatzen** zuten elkar: Sergeik ile zuri leunak, eta aitak preso-atorra. Jose Morales

Zure esku eta oin santuak **musukatu** nituen. Askoren artean

Zauriak ikusi, ukitu eta **musukatu** zituztenek eman dute horren testigantza. Askoren artean

Eskuetatik heldu zion orduan eta, haiek **musukatu** bitartean, esan zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Esnatu zenean, hilobia **musukatu**, eta dolu handia egin zuen. Juan Kruz Igerabide

Motel merkerara heldu arte eutsi behar izan zioten elkar **musukatze**ko, laztantze, miakatzeko, are irensteko irrisari. Xabier Montoia

Adelak, barre artean, isiltzeko agintzen zion, baina Luisek, **musukatu** bitartean, komunera zuzendu du. Patxi Zubizarreta

Bere ipurdiak eskainiko dizkit **musuka** ditzadan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 2 irud/hed

Ez zuten, haatik, ezabatu uharterko giro larria, harkaitzetan bertan errotoa, goizeko langarrak etengabe **musukatzen** bazituen ere. Javi Cillero

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**besarkatu eta musukatu** (6); **elkar musukatu** (4); **eskua musukatu** (3)

**elkar musukatze**ko (3)

**oinak musukatzen** (3)

## musukatze iz behin eta berriro musu ematea, musuka aritzea.

Ezpainak beteko elkar **musukatze** gozoa. Patziku Perurena

## musukoi izond

Aurpegi ezitia izan zuten, azal leuna, begi zoliak, ezpain mehe **musukoiak**, ile beltz kixkurra eta bekain luze finak. Gotzon Garate

## musulman (1248 agerraldi, 51 liburu eta 376 artikulutan; orobat musulmano 90 agerraldi, 2 liburu eta 63 artikulutan, eta musulmandar 9 agerraldi, 2 liburu eta 4 artikulutan) 1 izond/izlag Mahometek erakutsi zuen erlijioari dagokiona. ik mahometano; mahometar.

Al Tabrizi izeneko filosofo **musulman** batek. Xabier Kintana

Herri **musulmanek** "Mendebaldearen arazoa" nola planteatzen duten ulertzeko arrastoak. Iñaki Mendiguren

VIII-XI. mendeetako mundu **musulmanean** handia izan zen merkataritza-jarduera. Koro Navarro

Etorkin **musulmani** edo hegoamerikarrei begira. Bernardo Atxaga

Iberiar penintsulan, bestalde, eremu **musulmana** Granada inguruko enklabe soil batera murriztua zegoen. Iñaki Mendiguren

Hamabosgarren mendearen bukaeran, Zibilizazio Arabiko **musulmanak** artean bazuen atlantiar itsasertza Afrikan Gibraltarreko itsasartetik Senegalera. Iñaki Mendiguren

Konkista **musulmanaren** uholdeak, atzera egiten hasi zenean lehorrean, denbora batez aurrera jarraitu zuen itsasoz. Iñaki Mendiguren

Mendebalde modernoa bere herentzia **musulmana** baino askoz aurrerago joan zen zientziaren arloan. Iñaki Mendiguren

Ehun presuna bildu dira Baionako Herriko Etxe aitzinean, joan den larunbat arratsaldean, kulto **musulmanoarentzat** leku duin baten galdatzeko. Herria

Erritu hanefita lege **musulmanak** dituen lau interpretazio errituetaiko bat da. Patxi Zubizarreta

Zer da gizon hori? euskaldun **musulmana**, ala **musulman** euskalduna? Herria

Dударик gabe, lurpean gorde zuten aitzineko kristauak, **musulman** gudariak ez zezaten gaizki erabil eta laidotu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mundakako hilerrian dagoen **musulman** hilobi bakarra. Edorta Jimenez

· **Musulman** bihurtu zen hiri kristaua, eta **musulman** irauan. Jon Muñoz

## 2 iz Mahometek erakutsi zuen erlijioaren jarraitzailea.

**Musulmanek** diote arabeskoak ezerk baino hobeto errepresentatzen duela Alaren infinitutasuna. Bernardo Atxaga

**Musulmanen** eta baskoien arteko borroka haiek aspaldiko kontuak ziren, lehendik zetozenak, baina Eudonen indarrak gero eta urriagoak ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez zuten beldurrik izan **musulmanen** Sultanaren aurrean aurkezteko. Askoren artean

Hasieratik hinduen eta **musulmanen** arteko elkartasuna lortu nahi izan zuen. Gotzon Garate

Arrazoi horiengatik indiar **musulmanek** 1947an odorengo estatu propio eta banandua edukitzea eskatu zuten behin eta berrin. Iñaki Mendiguren

**Musulmanen** sinestearen arabera, Jainkoak agertu zizkion sura horiek Mahoma igarleari. Xabier Olarra

**Musulmanoen** manifa Baionan. Herria

**Musulmanik** ikasienak eta aberatsenak, ihes egiteko modua zutenak, Pakistanera joan ziren. Gotzon Garate

### 3 (hitz elkartuetan)

Fatosek badu horretan bere tema edo gogoko gaia, alegia, Bektashi izeneko **musulman** -sekta. Edorta Jimenez

Paraxutisten kasta bat sortu zuan orduan, supergizonak, kolorez apainduak, nabala gerrian eta fusilak eskuetan karriken jaun eta jabe paseatzen zirenak, **musulman** airea edo itxura zeukan edonor goratik hartuz. Itxaro Borda

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**apaiz musulman** (4); **arabiar eta musulman** (3); **arabiar musulman** (4); **buruzagi erlijioso musulman** (3); **ehunka musulman** (3); **erlijioso musulman** (4); **herrialde musulman** (10); **irakeko musulman** (4); **milaka musulman** (5); **milioi musulman** (5); **munduko musulman** (4); **musulman askok** (3); **musulman bosniar** (3); **musulman demokratikoak** (3); **musulman eta kristauen** (3); **musulman hil zituzten** (4); **musulman iraniko** (3); **musulman primitiboek** (3); **musulman primitiboan** (4); **musulman sunita** (6); **musulman sunitak** (7); **musulman sunitak gehiengoan** (3); **musulman sunitei** (3); **musulman sunitek** (3); **musulman suniten** (5); **musulman xiitek** (4); **musulman xiiten** (4); **musulman zein animistek** (3); **zibilizazio musulman** (4)

**gehiengo musulmana** (4); **mundu musulmana** (5)

**anaia musulmanak** (6); **buruzagi musulmanak** (3); **emakume musulmanak** (6); **herrialde musulmanak** (3); **hinduak eta musulmanak** (3); **komunitate musulmanak** (5)

**fanatismo musulmanaren** (3); **komunitate musulmanaren** (4); **musulmanaren aurkako** (3)

**komunitate musulmanari** (3)

**komunitate musulmanean** (3); **mundu musulmanean** (4)

**arabiar eta musulmanei** (4)

**apaiz musulmanek** (4)

**gehiengo musulmaneko** (3)

**aditu musulmanen** (4); **arabiar eta musulmanen** (3); **erresuma batuko musulmanen** (3); **euskal kostaldeko musulmanen** (3); **frantziako musulmanen** (5); **hinduen eta musulmanen** (4); **konkistatzaile musulmanen** (3); **kostaldeko musulmanen elkarteko** (3); **kristauen eta musulmanen** (5); **musulmanen artean** (19); **musulmanen arteko** (14); **musulmanen aurka** (8); **musulmanen aurkako** (14); **musulmanen batzordeko** (3); **musulmanen buruzapia** (3); **musulmanen elkarreak** (5); **musulmanen elkarteko** (6); **musulmanen eta kristauen** (6); **musulmanen haserre** (3); **musulmanen haserre eragin** (3); **musulmanen kontra** (8); **musulmanen kontrako** (3); **ulema musulmanen** (6)

**herrialde musulmanetako** (6)

**herrialde musulmanetan** (8)

**herri musulmanetatik** (3); **herrialde musulmanetatik** (4)

musulmandar ik **musulman**.

musulmano ik **musulman**.

**musulmantsu** *izond* gutxi gorabehera musulmana (?).

Orain **musulmantsu** da hori, zernahi mandreneria, kontrabanda eta ezin bizi latzekin. Herria

**musuño** *iz adkor* musutxoa.

Agurño bat egin eta **musuño** bat eman ezti-eztia... Janbattitt Dirassar

Ni ikusi orduko, **musuño** bat doi-doia emanik ezpainen xokoan, negarrez hasi zen, negarrez hipaka. Janbattitt Dirassar

musuoker ik **musu 15**.

musupe ik **musu 9**.

**musurdin** *izond*

Musugorria izan da euskal usarioan gazte ederra, segaila, sasoikoa; eta alderantziz: **musurdina** (edo txeisinoa tarteko: *mutxurdina*) sasoia joandakoa, musuzimurtua, zakartua, gaztekolore ederra galdutakoa, alegia. Patziku Perurena

**musurikatu**, musurika(tu), musurikatzen da/du *ad* mustupildu, ahuspez bota.

Neskaren karba-zinkurinak hautematean, Edmeak bereber haur guastatua **musurikatu** zuen, ama ahula erantsi aitzin. Itxaro Borda

musutruk ik **musu 16**.

musututs ik **musu 14**.

**musutxo** *iz adkor* musua. ik **musuño**; **muxutxo**.

**-Musutxo** bat emango? -galdegin zion gizonak. Mirentxu Larrañaga

Kopetan **musutxoa** eman eta "ondo ibili Marie, au revoir!" esan zion. Joxemari Urteaga

Ea, eman **musutxo** bat aitatxori alde egin aurretik. Jon Arretxe

Konfiantza ez dela sortzen **musutxo** bat hemen eta **musutxo** bat han emanez. Josu Zabaleta

**musuzapi** (*orobat musu-zapi g.er.*) **1** iz zintz egiteko, malkoak xukatzeke eta kidekoetarako erabiltzen den eskuzapia. ik mukizapi; mokes.

**Musuzapi** bat atera zuen soinekoaren mahukapetik, eta zintz egin zuen. Anjel Lertxundi

Sakelako **musuzapi** bat, Marie Rogêt izena brodatua zuena. Koro Navarro

Buruko **musuzapia** hobeki egokituta, txiskeroa atera zuen sakelatik. Alberto Ladron Arana

Zuzendariak **musuzapia** pixka bat zabaldu eta kopetako izerdia xukatzen du. Anjel Lertxundi

**Musuzapi** koloretsu bati eragin zion beste emakume batek. Koro Navarro

**Musuzapi** zikin bat atera eta kopetako izerdia lehortu zuen. Koro Navarro

**Musuzapi** bihurritu batez aurpegiko hautsa igurtzi zuen. Lopez de Arana

Ezin zuen kotoizko **musuzapirik** erabili, etxeko gainerako guztiak bezala, harizkoak eta zetazkoak baizik. Josu Zabaleta

Paperezko **musuzapi** batez xukatu zituen Léak begiak. Jon Muñoz

Denetik oparitzen zion Avigdorri: zetazko **musuzapi** bat, galtzerdi pare bat, lepoko bat. Koro Navarro

Usain sakona itsatsi zitzaion **musuzapiari**. Ibon Uribarri

Malkoz eta odolez beteriko **musuzapi** bat begian ipinita alde egin zuen sudur luzeak, estropezuka. Lopez de Arana

Hozka egin dit! -esan zuen, odol dutako **musuzapi** batean bilduta zeukan eskua erakutsiz-. Iñaki Mendiguren

Eta lasaitasunetz uretara bota du **musuzapi** odolez zikindua. Paddy Rekalde

Ez nion esan nahi izan **musuzapi** bat bezain txikia dela Paris, mundua bera txikia delako. Ramon Saizarbitoria

## 2 (hitz elkartuetan)

-Baina Patricia, agindu egin didan ordea... - **musuzapi** punta bat hartu zuen. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**musuzapi bat atera** (4); **musuzapi zuri** (7); **musuzapi zuri bat** (3); **musuzapi zuria** (3); **paperezko musuzapi** (4); **sakelako musuzapi bat** (3)

**musuzapia atera** (13)

## musuzapikada iz musuzapiaz ematen den kolpea.

Izeba Jeffek bere platera baztertu eta **musuzapikada** bat jo zuen mahaiaren kontra. Lopez de Arana

## musuzimurtu ik musu 17.

## musuzuri ik musu 18.

## musxapelgoa ik mus 4.

## musxapelketa ik mus 5.

## muszale (*orobat mus-zale*) iz mus izeneko karta jokoaren zalea.

**Muszalea** zara, beraz? Berria - Euskal Herria

**Mus-zale** handi samarra naiz eta erlojupekoan gertatutakoa mus partida balitz bezala azaltzen saiatuko naiz. Berria - Kirola

Aurten, Iruiteanean bilduko dira muslari eta **muszaleak**, larunbat arats guziz, 8ak eterdietarik goiti. Herria

## mutaezin izond ezin mutatzukoa. ik mudaezin; aldaezin.

B-k begiratu zuen berriz milioi bat aldiz milioi bat modutara begiraturako hodei **mutaezin** hura, eta hasperen egin zuen, arrazonamendua burutzeko ezindurik. Jon Alonso

## mutakor iz mutatzeko joera duena. ik mudakor; aldakor.

Halatan, maitea ez da bat, baizik multzo **mutakorra**, maitalea zein maitasuna bera bezalaxe. Markos Zapiain

## mutante 1 izond aldatzen dena.

Gaiztakeriaren tentazio **mutantearen** eta ontasunaren izpiritu konserbatzailearen artean. Jon Alonso

## 2 izond/iz kromosomez eta kidekoez mintzatuz, mutazioz sortu dena.

Forma **mutanteen** artean ondoen egokitzen zirenek beren alde edukiko zuten hautespen naturala. Juan Garzia

Lambda bakteriofagoaren eta laktosa sistemaren kiribil erregulatzaileetan bakarturiko **mutante** negatibo azpiratzaileak. Juan Garzia

**Mutante** asko eta askotarikoak pilatuak ziren berrogeita hamar urtean, eta haietariko zenbaitek argi eta garbi nahasten zuten animalien erabidea. Juan Garzia

## 3 izakiez eta kidekoez mintzatuz gene materialean aldateka bat izan duena.

Halako esperimenterarako, beharrezkoa da animalia **mutanteak** bilatzea, haiak ugaltzea, askotariko konbinazioz gurutzatzea. Juan Garzia

Ordura arte, erreferentziatzat erabiltzeko biltzen ziren **mutanteak**, kromosomak markatzeko, haien mekanika aztertzearent. Juan Garzia

Aurki agertu ziren beste euli mota **mutante** batzuk, haietariko batzuk sexuari lotuak. Juan Garzia

Bigarren **mutante** horrek, horrenbestez, lehenbizikoaren ondorioak baiesten zituen: geneak dira, garbi, animalien erakuntzan goi-arduradun. Juan Garzia

Biak **mutanteak** ziren -argitu zuen Gregek-, aldentze horiez kargu hartuz estutu nuenean. Xabier Olarra

## 4 (hitz elkartuetan)

Sydney-k jada bakartua zuen **mutante** sorta bat. Hala bakartu zuten, esate baterako, 1916an, drososila-**mutante** aski harrigarri bat: hegal pare baten orde bi zituen euli bat. Juan Garzia

## mutatu, muta, mututzen 1 da/du ad itxuraldatu, aldatu.

Badira, noski, zeru-lurrak, eta oihuka ari dira eginak direla, **mutatzen** baitira eta itxuraldatzen. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Minutuko hamar aldiz alda daitezke osagaiak, nahastu, **mutatu** edo lehertu. [Berria - Kultura](#)

Carbayo bezalako detektibeak ez du sekula erretreta hartzen; eraldatu, itxuraldatu eta **mutatzen** da, heriotzak azken erretreta harrarazten dion arte. [Jon Alonso](#)

## 2 gene materiala aldatu; mutazioa jasan.

Gripearen birusek, oro har, bizkor **mutatzeko** joera dute, eta hegazti gripearen birusa ez da salbuespena. [Berria - Gaiak](#)

Birusa **mutatuko** dela badakigu, baina ez dakigu nola. [Berria - Gaiak](#)

Hegaztien gripearen H5N1 birusa **mutatu** egin behar da horretarako. [Berria - Harian](#)

PIK3CA genearen bi area dira **mutatzeko** arriskua dutenak. [Berria - Gaiak](#)

*Synukleina* proteinak **mutatu**, eta lisosoma zelulak zaintzeko sistema blokeatzen du. [Berria - Gaiak](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**birusa mutatu** (5)

## mutazio 1 iz mutetzea, itxuraldatzea.

Gero, marraztu bitartean, ohartu zen bere ohiko estiloa **mutazio** mingarria jasaten ari zela, ia eskizofrenikoa. [Patxi Iturritegi](#)

Badira, ordea, guraso dirudunik ez duten langileak baina ugazabaren interesak eurenak balira bezala defenditzen dituztenak, Stockholm sindromearen **mutazio** baten pean baleude bezala. [Berria - Kultura](#)

Espainiak beti bera eta berdina dirau, inolako **mutazio** barik bere esentzia eternalean. [Joxe Azurmendi](#)

Nola zehaztu jarraitasun-eza pentsatzea zilegitzen duten kontzeptuak (atalasea, haustura, ebakidura, **mutazioa**, eraldaketa)? [Xabier Arregi](#)

Historiaren **mutazio** epistemologiko hau ez dago burutua oraindik gaur egun. [Xabier Arregi](#)

## 2 gene egitura aldatzea.

**Mutazioak** zorizko gertaerak dira, ez dira egoten norabide jakin batean zuzenduta. [Berria - Gaiak](#)

Organismoen arteko desberdintasunak zorizkoak eta herentziaren materialetan suertatzen diren erroreek sortutakoak dira (geneetan **mutazioak** gertatzen baitira). [Askoren artean](#)

Gaitza gene baten **mutazioek** sortzen dutenez, biotxipa **mutazio** horiek detektatzeko diseinatu dutela. [Berria - Gaiak](#)

Pentsa liteke hiesa 1960ko urteetako azken aldean sortu zela, birusaren **mutazio** baten ondorioz. [Luis Elberdin](#)

**Mutazioak** aldaerak eragiten zituzten entzimetan, eta aldaerok bestelakotzen enbrioi-garapenaren zenbait urrats eta, ondorioz, espezieen formak eta jokaerak. [Juan Garzia](#)

**Mutazioak** batek berekin badakar garapenaren anomalia bat, euli itxuragabe bat, beldar gaizki eraiki bat agertzea, seinale paper zehatz bat jokatzeko duela **mutazioak** jotako geneak eraikuntzaren urrats batean. [Juan Garzia](#)

Bigarren mutantearen buruan hanka bat eratu bada antenaren ordez, seinale **mutazioak** gene bat indargabetu duela. [Juan Garzia](#)

Askoz **mutazio** genetiko gutxiago dituzte polikiago ugaltzen diren espezieek. [Berria - Gaiak](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Mutazio** bidean dagoen gizartearen ezaugarria da. [Berria - Kultura](#)

Gizarte primitibo baten izaeraren **mutazio** bidez zibilizazio baten sorreran gauzatzen den aldaketan. [Iñaki Mendiguren](#)

Nazio Batuen Erakundearen arduradunek ez dituzte kontuan hartu Txernobil inguruko eskualdean gertaturiko ehunka mila heriotza zein minbizi eta **mutazio** kasuak. [Berria - Gaiak](#)

Ukrainako Rivne eskualdean, zentraletik 400 kilometrora, minbizi eta **mutazio** kopuruak ohiz kanpokoak direla esan dute hango sendagileek. [Berria - Gaiak](#)

Nolakoa izango da **mutazio** prozesua, gertatzen bada? [Berria - Harian](#)

- X izpien moduko agente **mutazio** -sortzaileen eraginez azterketaren bidez. [Juan Garzia](#)

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bokal-**mutazioen** legearekin. [Xabier Arregi](#)

- Gene-**mutazioak** ziren gakoa aniztasun eta desberdintasun biologikoaren jatorria azaltzeko. [Juan Garzia](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mutazio genetiko** (7); **mutazio genetiko hori** (3); **mutazio genetikoak** (4)

## mutiko (orobat motiko g.er) 1 izond gaztarora heldu ez den gizonezkoa; mutil gaztea.

Hori nahikoa litzateke edozein **mutiko** txotxolotzeko. [Iñaki Mendiguren](#)

Ni, artean, **mutiko** bat besterik ez nintzen, ordea. [Jon Muñoz](#)

Eta ni, Azad, ez naiz harrezkero **mutiko** bat. [Juan Kruz Igerabide](#)

Zortzi urte inguruko **mutiko** bat, Axier edo. [Sonia Gonzalez](#)

Gero negarrari eman nion, 14 urteko **mutiko** batek soilik ematen ahal dion bezala. [Aingeru Epaltza](#)

Israelen erdaindu gabe aurkitzen zituzten **mutikoak** erdaintzera behartuz. [Elizen arteko biblia](#)

Gure adintsuko **mutiko** gehiago bazen Garrüzeko herrian. [Aingeru Epaltza](#)

**Mutikoa** Akademia Militarreko barnetegian sartu zuten. [Xabier Olarra](#)

Baina txikitari izan zen hori; gero, **mutiko** samartu nintzenez, antzarak ziren nik zaintzen nituenak, ez txerriak. [Patxi Ezkiaga](#)

**Mutiko** biluziak itsasoan, haien larrua, eguzkia haien larru bustian, beroa. [Joxe Austiñ Arrieta](#)

- ik beherago 7. [Askoren artean](#)

Joanak ziren gure errugbilariak Hego-Afrikara, hogeita bi **mutiko**, haien artean zenbait ezagutuak eta bertze batzu arunt berriak eta, denbora berean gazteak. [Herria](#)

## 2 (izenondoekin)

**Mutiko** ederra zen. [Julen Gabiria](#)

Bai **mutiko** azkarra! [Xabier Olarra](#)

Hauxe dugu **mutiko** polita hauxe -oihukatu zuen-. [Mirentxu Larrañaga](#)

- **Mutiko** gogorra haiz gero! [Alberto Ladron Arana](#)

**Mutiko** argala da, amarekin bakarrik bizi dena. [Berria - Kultura](#)

**Mutiko** ilehoria zen eta dotore jantzita joaten zen. [Pello Lizarralde](#)

Wood ikasle baten abizena zen, bosgarren urteko **mutiko** sendokote batena. **Iñaki Mendiguren**

Josepe beti izana zen **mutiko** gazte lotsakor eta beldurti bat. **Janbattitt Dirassar**

**Mutiko** zaharrena urrats luzeak eginez agertu zen laster. **Iñaki Mendiguren**

Uste nian **mutiko** serio bat hintzela... **Janbattitt Dirassar**

**Mutiko** urduria nintzelako aitzakiarekin kamamila ematen zidaten. **Pello Lizarralde**

**Mutiko** ile luzeak ez zuen ezer erantzun. **Harkaitz Cano**

Alberto eta Mario ordurako **mutiko** koxkortuak eta oso indartsuak ziren. **Fernando Rey**

Badira **mutiko** atzerritarrek Diputazioaren ardurapean beste bideetatik amaitu dutenak eta bertokoezin bizi direnak. **Berria - Euskal Herria**

### 3 (deiki gisa)

-Zu, **mutiko** -esan zuen gero, John seinalatuz-. **Julen Gabiria**

-Eta zuk, **mutiko** ? **Iñaki Mendiguren**

-Hi, **mutiko**, larrua probatua haiz edo oraino ez haiz estreinatu? **Aingeru Epaltza**

Urte askoan, **mutiko**, urte askoan! **Bernardo Atxaga**

-Are, **mutiko**, emaiok musu amari. **Aingeru Epaltza**

-**Mutiko** -esan zion-, zergatik ari zara negarrez? **Julen Gabiria**

-Zeren bila zabilta zu, **mutiko** ? **Iñaki Mendiguren**

Beste zarata bat ateratzen baduzu, jaiotze egunaz ere damutuko zara, **mutiko** ! **Iñaki Mendiguren**

-Zer botika, **mutiko** ? **Alberto Ladron Arana**

-Hoa etxera, **mutiko** -erran zidan azkenean-. **Alberto Ladron Arana**

-Edan ausarki, **mutiko**. **Aingeru Epaltza**

-Honekin ez baditugu putakume horiek atzematen, ez gaituk deus, **mutiko** ! **Aingeru Epaltza**

### 4 (neska-rekin batera; ik beherago 10)

Bota Nilo ibaira hebertar **mutiko** guztiak! neskak, berriz, utzi bizirik! **Elizen arteko biblia**

Ordurako ohitua zegoen **mutikoa** nesken berrikeretara. **Koro Navarro**

Afaria bururatu eta laster, sartu zen Émile bertze bi gizon eta sei gazte, **mutiko** eta neska, zerraizkiola. **Aurelia Arkotxa**

Halakoetan, "sagu zikinak" ginen guztiok, salbuespenik gabe, hala **mutikoak** nola neskak. **Juan Kruz Igerabide**

Halere, pilotari neska ala **mutiko** gazte batzu agertzen dira hor, esperantza eta baikortasun bat ekartzen dutena, beste emaitza ez hain onen ondoan. **Herria**

· ik beherago 7. **Askoren artean**

Hilabete hunen 12ko igandean gure herriko 16 **mutiko** eta 15 nexkatok egin dute fedezko urhats handi hori. **Herria**

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nire **mutiko** denborako lehenbiziko oroitzapena hots izugarri bati dago loturik. **Alberto Ladron Arana**

Askatasuna eta zabaltasuna atsegingarri zaizkio Bennetti; lurtean bakan ikusi diodan **mutiko** -begirada ageri du. **Xabier Olarra**

Batzuetan besoak **mutiko** gorputz haren aldamenetan luzatuta edukitzen zituen, manta gainean. **Josu Zabaleta**

**Mutiko** talde bat hurbiltzen zaie, kalimotxo botilak eskuetan. **Sonia Gonzalez**

Hantxe zen zakur gizajoa, lerdere jario, atzetik **mutiko** koadrila bat harrika zuela. **Jon Maia**

### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gero, eskola-**mutikoa** banintz bezala: emakume bat marraztu dut hondar beroan eta hondarra besterik ez den emakume horren gainera etzan naiz, baita berari goraki hitz egin ere... **Joxe Austin Arrieta**

### 7 haur arra. ik mutil 8.

Erditze mingarria izan zuen eta emaginak esan zion: "ez izan beldur, **mutikoa** duzu berriro". **Jose Antonio Mujika**

Bi **mutiko** ditiagu, oso ume politak. **Koro Navarro**

Bi ume ditut, **mutiko** bat eta neska bat, eta neska-laguna ere bai. **Berria - Kirola**

Bere lehen haurra neska izanki eta, **mutiko** bat gogotik hartuko zuela... **Daniel Landart**

Maiatzaren 4 ean **mutiko** bat sortu da Gibelarte Moskoinean bizi den familian. **Herria**

Izan zuten, ordea, **mutiko** bat. **Gotzon Garate**

Bigarrena, **mutikoa** bera, koskortu gabe hil zen. **Aingeru Epaltza**

**Mutiko** bat ukaten dutelarik, zutik ibiltzen eta bakarrik jaten dakien arte hazten dute. **Aurelia Arkotxa**

Haurrek -hiru **mutiko** eta bi neskato- isil-isil iraua zuten. **Alberto Ladron Arana**

119 **mutiko** sortzean 100 neska direla bakarrik sortzen. **Herria**

Haur gazteenak neska eta **mutiko** joan ziren orduko Seroretarat orai San Josep eskola deitzen dena. **Herria**

Hiru bat urteko **mutiko** bat zeraman besoetan. **Jon Muñoz**

Bonbaiko erietxe batean egotzitako 8.000 haurretarik bat bakarra zen **mutiko**. **Gotzon Garate**

### 8 *mutikotan adlag* mutiko garaietan.

Behin, **mutikotan**, Elgoibartik Ondarroara gindoazen aita eta biok motoan. **Jenaro Garate**

Pasadizoak ezin hobeto islatzen du gure adin modukoek **mutikotan** izan genuen sexu heziketa. **Joxerra Garzia**

Neronek bost bider aditua, **mutikotan**. **Patziku Perurena**

Nik oso gogoko nuen **mutikotan** itaurrean, itzulia, itzuli eta itzuli, idien aurrean ibiltzea. **Pello Zabala**

Gure osabak hankutsik ibiltzen omen ziren **mutikotan** larrean. **Patziku Perurena**

Nik taberna bat izan nuen Port Arthur-en, **mutikotan**. **Lopez de Arana**

### 9 *mutiko koxkor* (orobat *mutiko kozkor* eta *mutiko koskor*, eta *mutikoskor* g.er.)

**Mutiko koxkor** batek berehala eman omen zion arropustua: "urteko besta handiena? Xerri hiltzea!". **Herria**

Gurekin, **mutiko koxkorrekin** jokatzeko futboleko. **Gotzon Garate**

Zer arta ez zuen ekartzen, xixtera jokoan, **mutiko kozkorrak** hezten, hain maite zuen joko hortan. **Herria**

Quenu **mutiko koskor** potoloa bihurtzen ari zen, pixka bat hezigabea. **Karlos Zabala**

Gu **mutiko koxkorrak** ginenean ere bazegoen bankua hor... **Pablo Sastre**

Aspaldian igo gabe nengoen alde horretara, urte asko, 25 igual, **mutiko-koxkorra** artean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Apezak partikulazki, horrelako botzak Jainkoaren laudatzeko balio zuela iritzirik, Balantsunen etxeokak balakatu zituen, **mutiko koxkorren** Larresoroko seminariara igorrazteko. **Itxaro Borda**

Hori jada **mutiko kozkorretan** antzematen zitzaion. **Jokin Muñoz**

· Neska-**mutiko koxkorrak** aho txikiak herts-irekitzen ari dira, agurearen istorioari begira: **Javi Cillero**

### 10 *neska-mutiko* (orobat *neskamutiko* g.er.) *pl* neskak eta mutikoak. ik *mutil 22*.

**Neska-mutiko** guztiek erran dut, eta ez, anarteraino Etxeberrinean bezala, mutikoek soilik. **Aingeru Epaltza**

Gero, Nob apaiz-hirian, ezpataz hil zituen Saulek bertako gizaseme eta emakumeak, **neska-mutiko** eta bularreko haurrak, idi, asto eta ardiak. **Elizen arteko biblia**

Arrasateko ikastolan, zortzi urteko **neska-mutikoen** maisu. **Joxerra Garzia**

Ikastolako gela batean elkartzten ziren Pello Esnal eta Rosa Lertxundi irakasleak, bertsolaritza ezagutu nahi zuten **neska-mutikoekin**. jakin ahal izan nuenez, modan daude Tetrak **neska-mutikoen** artean. **Andoni Egaña**

Ezkontza jende gaztearentzat da, umeak izan nahi dituzten **neska-mutikoentzat**. **Oskar Arana**

· 10 leku hirugarren ikastaldirako (uztailaren 23 tik agorrilaren 1 ra), 11 urteik 16 urterainoko haurrentzat, **neska-mutiko**, joko mota guziak nahasirik. **Herria**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**auzoko mutiko** (4); **hamahiru urteko mutiko** (7); **hamaika urteko mutiko** (4); **hamalau urteko mutiko** (4); **hamar urteko mutiko** (4); **herriko mutiko** (4); **izeneko mutiko** (6)  
**mutiko azkar** (4); **mutiko beltz** (4); **mutiko ederra** (4); **mutiko erne** (4); **mutiko eta neska** (9); **mutiko eta neskato** (5); **mutiko gaixoa** (5); **mutiko gazte** (45); **mutiko gazte bat** (12); **mutiko gazte batek** (4); **mutiko gaztea** (19); **mutiko gazteak** (16); **mutiko gazteek** (7); **mutiko maitea** (4); **mutiko osasuntsu** (4); **mutiko palestinar** (6); **mutiko sortu berriari** (4); **mutiko talde** (4); **mutiko ttipi** (9); **mutiko ttipi bat** (5); **mutiko txiki** (12); **mutiko zintzoa** (5)  
**neska eta mutiko** (10); **neska mutiko** (21); **nexka eta mutiko** (7); **urte inguruko mutiko** (5); **urteko mutiko** (77); **urteko mutiko bat** (30); **urteko mutiko batek** (11); **urteko mutiko bati** (6); **zorianak mutiko** (4); **zortzi urteko mutiko** (4)  
**mutikoa hil** (4); **mutikoa ikusi** (9); **mutikoa izan** (6); **urteko mutikoa** (19)  
**macalisteren mutikoak** (4); **neska mutikoak** (18); **urteko mutikoak** (7)  
**mutikoaren hitzak** (4); **urteko mutikoaren** (4)  
**neska mutikoei** (11)  
**neska mutikoen** (16)

## mutikokeria

*iz* mutikoari dagokion egite gaitzesgarria.

Ni, gainera, Vasconiako bulego zentraletan lan eginda, ezin hasiko nintzen **mutikokerietan**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## mutikomotz

*iz* *adkor* mutikoa.

Handik aurrera, goizean jaiki bezain pronto, lagunengana joateko aiherrak egoten zen **mutikomotza**, baina, behin gertatuak gertatu, nola ba utzi amak! **Patziku Perurena**

## mutikoskor

ik **mutikoxkor**.

## mutikote

*iz* *adkor* mutiko sendokotea.

Ezin izan zuen **mutikotea** besoetara altxatu eta eskutik helduta joan ziren biak amarengana, berriz ere, hiru izatera. **Jon Maia**

**Mutikote** lasaia da Denis Mentxov. **Berria - Kirola**

Hator, nire **mutikotea**, nik berpiztuko haut... zein ederra den bera!... **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hiru neskatxa xarman ta hiru **mutikote**. **Herria**

Hamalau-hamabost urteko neska-**mutikote** haiek basatien antzera hitz egiten eta jarrera bereberean ikustea, edonor bere onetik ateratzeko moduko auzia zen. **Karlos Linazasoro**

· Baina Anaren gurasoen etxera aldatu nintzen umea jaio zenean; **mutikote** bat, hiru kilo eta zortziehun gramo, pentsa! **Iban Zaldúa**

## mutikotu

mutiko(tu), mutikotzen *ad ad* mutiko bihurtu. ik **mutildu**<sup>2</sup>.

Sutzarerako biltzen zituzten traste zaharrez gain, gerrikotan zen gizondu ez baina umea **mutikotzeko** bideetako bat. **Urtzi Urrutikoeetxea**

## mutikotxo

*iz* mutiko txikia.

Bi mutiko txiki, tankeratsuak adinez, neurritz eta janzkeraz; trinkoak, arrosa-zuriak, bi **mutikotxo** zintzo, jakin-minak bizitutako masail-gorriak ageri zituztenak, eta lepo-atze bero eta hezeak. **Mirentxu Larrañaga**

**Mutikotxoa** nintzenezan... oso atzera jotzen dut nire haurtzaroan. **Josu Zabaleta**

Hogwartsen beti haien atzetik ibiltzen zen **mutikotxo** potolo hura? -galdetu zuen Rosmerta andreak. **Iñaki Mendiguren**

Aste honetan hildako **mutikotxo** batek hegazti gripea zuela onartu dute Indonesiako osasun agintariak. **Berria - Gaiak**

Urrunera joateko, **mutikotxo** eta neskatotxo bihurtzen diren txori guztiak jaiotzen diren irlara. **Julen Gabiria**

## 2 hur arra. ik mutiko 7.

**Mutikotxo** bat izan dute, eta Odei jarri nahi diote, hatxerik gabe. **Joxerra Garzia**

## mutikotzar

*iz* *adkor* mutiko handia.

Riddle zabuka zutitu zen, ea ikusten ote zuen, eta bere makila magikoa altxatu zuen, baina orduan **mutikotzarrak** gainera salto egin zion, makila kendu eta lurrera bota zuen berriro. **Iñaki Mendiguren**

## mutikoxkor

(*orobat mutikoskor g.er. eta mutikozkor*) *iz* ik **mutil 17**.

Bestek interesante egin zain dagoen **mutikoxkor** mainoso bat: horratx gure nortasun agiri nazionala. **Patziku Perurena**

Zazpi urteko **mutikoxkor** inoxente baten maduan. **Patziku Perurena**

Pentsatuz hobe nuela **mutikoxkor** dirugabea izateari sekula utzi ez banio. **Iñaki Segurola**

Ezaguera dudanetik, berriz, gogoan dut **mutikozkorretan** nola ibiltzen ginen jostaka, Karretoko soroan bertan izaten genuen lizar handi adartzabal haren itzalean. **Patziku Perurena**

## mutikoxkortu

mutikoxkor(tu), mutikoxkortzen (*orobat mutikozkortu*) da *ad* mutikoxkor bihurtu. ik **mutil 18**.

Artzai tartean hazia izaki, **mutikoxkortu** nintzenetik erreparatu izan diet putreei, halako lilura ilun batekin. **Patziku Perurena**

Etxearen erdia emakumeen oinetakoz beteaz ezagutu izandu baitut **mutikoxkortu** nintzenetik. **Patziku Perurena**

## mutikozkor ik mutikoxkor.

## mutikozkortu ik mutikoxkortu.

### mutil (orobat motil g.er.) 1 iz heldutasunera iritsi ez den gizezkoa ik mutiko.

Hiru gizon ziren, azaltzen du hark, edo bi gizon eta **mutil** bat. Oskar Arana  
**Mutil** bat, sasoikoa eta neska bat bezain liraina, lematik hasita hirugarrena. Jose Morales  
Besteak beste, han zen "Konkon" esaten genion bi metro pasatxoko **mutil** puska. Joxerra Garzia  
-**Mutil** guztiak izaten dute maitetxo bat -esan zuen. Irene Aldasoro  
Helen, ez naiz **mutil** honekin fidatzen. Bernardo Atxaga  
Hogeita bosten bat urteko **mutil** egokia zen, oso txukun moztutako bizarrarekin. Bernardo Atxaga  
Taldea bat billarrean jolasten, mahaietan bikote batzuk, hiruzpalau **mutil** disc-jockeyaren kabina inguruan... Pako Aristi  
Neska koskorretatik ohitu zen **mutil** batekin ez bazen beste batekin egoten. Anjel Lertxundi  
Ez naiz sekula **mutil** batekin... Fernando Morillo  
Nondik atera ote da **mutil** hau horrelakoa! -esaten zuen. Koro Navarro  
Kaxilda, gainera, **mutil** batekin ibiltzen duk serio-itxuran aspaldisko honetan. Txillardegí  
-Ala, Maruxina, gizondu ezazu **mutil** hau -aditu du bat-batean aldamenetik. Iñaki Iñurrieta

### 2 (deiki gisa; ik motel<sup>2</sup>)

Beste batek ikusi eta esan zion Pedrori: -hi ere haietakoa haiz; Pedrok, orduan: -ez, **mutil**! Elizen arteko biblia  
-Nondik hator, **mutil**? -galdegin zion Akilesek, etzanda zeudenetako batek. Felipe Juaristi  
-Lasai, **mutil**! Txillardegí  
-Kaixo, **mutil**! Josu Zabaleta  
Lan bikaina, **mutil**. Oskar Arana  
-Hi, **mutil**! -esan zion Henchy jaunak-, joango al haiz O'Farrell's-enera eta esango al diok ea utziko digun kortxoak ateratzekoa. Irene Aldasoro  
Aizu, **mutil**, non dago jangela pribatua? Lopez de Arana  
Jakin ezak, **mutil**, ez baldin baduk frantses izan nahi, ez haizela nehoiz apeztuk! Piarres Xarriton  
-Ba **mutil**, ordua duk heure botika probatzeko! Juan Martín Elexpuru  
Ea ba, **mutil**! ez daukagu goiz osoa, ezta? Jon Arretxe  
**Mutil**, semetzat hartu beharko haut dudarik gabe! Pako Aristi  
Baina **mutil**, **mutil**, dena bustita zaude! Pablo Sastre  
-Salbu zarete, **mutilak**, salbu zarete! Josu Zabaleta

### 3 (izenondoekin)

**Mutil** altua zen, trauskil itxurakoa. Joxemari Iturralde  
Eskolako **mutil** gaiztoenak eta handienak ziren. Koro Navarro  
Hogeita bi urte edo gehiagoko **mutil** gordina zen, ederra, bizarrak gabea, bibote txikia baino ez zeukana. Karlos Zabala  
-Gure **mutil** galanta! -esan zidan Agirrek. Edorta Jimenez  
-**Mutil** ederra, benetan... Lopez de Arana  
Apollolaan-eko izotz pistan **mutil** mozkote batekin. Josu Zabaleta  
-**Mutil** zintzoa, heziera onekoa, aldarte onekoa. Koldo Biguri  
**Mutil** eder gotorra, lerdena eta sasoikoa. Karlos Zabala  
Herri txiki bateko giro garbi eta inozentean jaiotako **mutil** jator bat, kaperan harmonioa jotzen zuena. Bernardo Atxaga  
Turkiar **mutil** dantzari batekin alde egin zuen neska dantzariak. Jon Muñoz  
Betaurreko biribileko **mutil** trauskil samar bat, galdutakoaren itxura zeukana guztiz. Xabier Mendiguren Elizegi  
Gustavo itsasontziko bigarrena zen, **mutil** ilegorri, txiki eta herabea, Eskoziako Edinburgokoa bera. Felipe Juaristi  
Gainera Vladimir zegoen tartean, lau urteko **mutil** azal-zuri eta kaskagorria. Hasier Etxeberria  
Gizaseme gazte bat eta **mutil** ile-kizkur bat. Koro Navarro  
Kabinako atea zabaltzera noalarik, **mutil** aurpegi-xargal bat ikusten dut, kristalaren beste aldean, kabinara hurbiltzen. Anjel Lertxundi  
Saiatu nintzen **mutil** taxuzkoa izan zedin. Irene Aldasoro  
**Mutil** zaharrenari, Alphyri, eman zion Mariak opil-zorroa, opilak bana zitzen. Irene Aldasoro

### 4 (neska-rekin batera; ik beherago 23)

Txikitu ditut zurekin gizon eta emakumeak, txikitu zahar eta gazteak, txikitu **mutil** eta neska. Elizen arteko biblia  
Berehala lortu zuen ikuskaritzak onar zezan **mutilak** eta neska elkartzea, auzoko eskolako bi gelak batu eta adinen arabera bereiztea. Juan Kruz Igerabide  
Kontatu nizun plazan **mutil** guztiak elkarrekin bueltaka ibiltzen zirela, alde batera, eta neska guztiak, juxtu beste aldera. Arantxa Iturbe  
Han berean zeuden, bai, **mutil** bat eta neska bat, lorategiko bi ezpel hesiren arteko pasabidean. Joan Mari Irigoien  
Aupa neska ta **mutil** goazen elgarrekin. Herria  
Orduan denak, neska eta **mutil**, hasi ziren barreka. Luis Elberdin  
Dedalok, hura [Minotaurora] elikatzeke kargudun, hilero zazpi **mutil** eta zazpi neska igortzen zizkion, Atenasko hiriak eskainiak. Juan Garzia  
Neska edo **mutila izan**, gauza positiboak transmititzen saiatu behar dugu. Berria - Euskal Herria  
Ez dakit mutila edo **neska** izango den, baina erditzeko egunerako ez da gehiegi falta. Patxi Zubizarreta  
Demagun **mutil** batek esan diola neska bati telefonoz deituko diola. Mirentxu Larrañaga

### 5 zerbitzaria, morroia; zenbait lanbidetan, kargu edo mailarik gabeko kidea.

Bazuen bestalde, delako Jauregiaren aurrean edo parean, etxe bat **mutil** edo morroientzat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Osaba Martin eta haren andrea, haien seme-alabak, izeba Elixabet eta haren alabak, suhiak, errainak, Jaureneko **mutil** ohia, haurrak eta... Elena Touyarou  
Eta han zen herriko **mutil**... herriko **mutil** erran nahi baita denen zerbitzuko. Herria  
Bulegoko **mutil** bat sartu zen eta txartel bat utzi zuen idazmahaiaren gainean. Lopez de Arana  
Bi emazte behartsu eta **mutil** telegrama-partitzailea zeuden krespoian itsatsiriko txartela irakurtzen. Irene Aldasoro  
Munstroak kontaktu pare bat ukitu eta birritan pentsatu barik **mutil** bidali ninduen itsasora. Urtzi Urrutikoeetxea  
Laborantzan arizan da bere denbora guzian, hastean **mutil** bezala eta gero etxalde bat erosi bere gain Uruguay eskualdean. Herria  
Buhamiak ere emeki emeki sartu direla euskaldunen bizi moldean, aintzek onartu baitute lanean artzea **mutil** bezala laborari etxe batzuetan. Herria

- Antza, zizon aberats batek **mutil** eskalari eseri zuen azokan. **Patxi Zubizarreta**

## 5b (izen soila aditz baten ezkerrean)

Hamar urte betetakoa **mutil** hasiko zen Ziliguetako jaunaren etxean. **Aingeru Epaltza**

Bost haurren gehiena baitzen eta biziki familia xumekoa [...] **mutil** joan zen hameka urtetan. **Herria**

Hogoi urte artio **mutil** egon zen mendian. **Herria**

Hamahiru urterekin Labe Garaietan **mutil** sartu eta buzoko orbanei hain harro erreparatu zien gizona. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Abas **mutil** hartu zuten Sikat Al-Gadida kaleko bizartegi batean eta Husain saltzaile lanetan hasi zen Gamaliako bizikleta denda batean. **Patxi Zubizarreta**

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Manchester-gona oliba-kolore kanpai-erako bat, lehenagoko **mutil**-galtza haiek baino egokiago zihokiona, nik uste... **Joxe Austin Arrieta**

Ilea **mutil** erara zeukan moztuta, motz-motz. **Oskar Arana**

Neska gazteak **mutil** jantzia prostituitzen ziren. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

**Mutil**-kontuetan izandako porrot amaigabeen berri ematen ari zen, eta ditxosozko Julen hura omen zen azkena. **Jon Arretxe**

Ez zara nik uste nuen **mutil** klasea. **Fernando Rey**

Neska- eta **mutil**-taldeak bakanduak ziren eta, aurrera joan ahala, talde eta bikote asko entzun zituen elkarri gabon esaten. **Irene Aldasoro**

**Mutil** aldra bat zetorren gizon ero baten atzetik. **Koro Navarro**

Hamabost-hogei urteko **mutil** tropa bat iritsi zen Rosatik, hura bezain urduri, jakak bizkarrean zituztela. **Josu Zabaleta**

Fiumeko, Esloveniako eta Italiako **mutil** pila bat zegoen, han akanpatuta. **Josu Zabaleta**

**-Mutil** -morroi ttiki ninduan orduan. **Daniel Landart**

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ontzi-**mutil** hasi zen, Kanadara zihoa Allan Lines-eko ontzi batean, hilean libera bat irabaziz. **Irene Aldasoro**

Denda-**mutil** hasi zen Zabalguneko merkatu-plazako postu batean. **Aingeru Epaltza**

1932. urtean hasi zuen ofizialki bere langintza, baina lehenagotik ere urka-**mutil** lanetan hainbat urte egin zituen aitaren eta beste profesional batzuen laguntzaile. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Hona hemen Titi, gure azken sukalde-**mutila** ... **Jesus Mari Mendizabal**

Freddy gazteak itsasontzietan taberna-**mutil** edo zerbitzari lana egiten zuen tarteka, eta ameslaria zen oso. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Zortzi ilabetez posta-**mutil** bezala hor lanean ari niz. **Michel Oronoz**

Korreo-**mutil** bat sartu zen salan. **Patxi Ezkiaga**

Atzetik, karroza bat zetorren, inguruan lauzpabost zaldizko zituela laguntzeko, eta bi manda-**mutil** oinez. **Patxi Ezkiaga**

Errepidean gelditzen ginenean hurbiltzen zitzaizkigun artzain-**mutilak**, tabako truke laranjak eskaintzen zizkigutenak. **Bernardo Atxaga**

## 8 haur arra. ik mutiko 7; neska 9.

Sei seme-alaba izan zituen erregearekin, hiru neska eta hiru **mutil**. **Martin Anso**

Consuelo gure arreba txikiena orduan jaio zen eta padrek atsekabe galanta hartu zuen ez zelako **mutila** izan. **Jon Maia**

Mutiko haren amak lehendabiziko haurra **mutila** izan zuen. **Gotzon Garate**

## 9 mutiletansup\_1 adlag ik neska 10.

Neskatan -nahiz **mutiletan**, baina neskatan batez ere- ibiltzeko arau behinenak zehaztu guran. **Edorta Jimenez**

Sinbologia berberari eutsiz, *goizoi*landa deitu izan zaio, **mutiletan** gaxterik hasten den neskatari, edo *martxoko oilar gorri* nahiz *oilar gangar gorri* berriz, gaxterik neskazale nabarmentzen den mutilari. **Patziku Perurena**

## 10 mutiletansup\_2 adlag mutil garaietan.

Pajettaren garaiaz gerotzik, **mutiletan** bera eta Pajetta galtza motzetan zihoaizen garaitik, Alberto iraultzak erakarririk sentitzen zen, baina batere parterik hartu gabe hartan. **Fernando Rey**

**Mutiletan**, beste askok bezala, boxeoa bere itzalarekin egiten omen zuen. **Pablo Sastre**

## 11 argi mutil ik argimutil.

## 12 baso mutil ik basomutil.

## 13 itsu-mutil ik itsumutil.

## 14 mari-mutil ik marimutil.

## 15 mandatu mutil

Trocadero denek ezagutzen zuten Smithers andrea: **mandatu-mutilak**, atezainak, jantzitegiko neskak, mañreak..., jende guztiak. **Mandatu-mutila** nintzen udako hoteletan. **Fernando Rey**

**Mandatu-mutilak** gosariarekin batera ekarritako bi pilula zuriak irentsi zituen, ur zurrut luze batez lagundurik. **Alberto Ladron Arana**

Hoteletako **mandatu-mutilei** eskupekorik ez emateagatik. **Aingeru Epaltza**

Zeeer, orain arte bonboiak erosten ala? -galdetu zuen **mandatu-mutil** ilehoriak. **Lopez de Arana**

Frantziako edo Britainia Handiko isilpeko zerbitzuei mezuren bat eramanen zien **mandatu-mutil** ziztrin bat besterik ez **Alberto Ladron Arana**

## 16 mutil dantza (orobat mutildantza g.er.) Baztan eta inguruko euskal dantza bat.

Udan iragaiten den Baztandarren Biltzarrean ez zen azkena izaiten ohizko **mutil dantzetan** artzeko. **Herria**

*Arola* taldeko gazteer **mutil dantzen** soinu eta urratsen erakastera. **Herria**

Oraino 80 garren urterat hurbildurik ikusi dugu guhaurek [Mariano Izeta] Baztango **Mutildantzaren** inguru handian parte hartzen berak ere. **Herria**

Beraz bazituzten orga pare horiek beren txaranga eta dantza taldeak ere ondotik, herriko probintzia guzieren berezitasunezkoak, eta **mutil-dantzak**, hauk haatik tokikoak. **Herria**

Txalo zaparradak amaitutzat eman zuen ikuskizuna, baina «harrera beroagatik» *Arizkun* eta **Mutil dantza** eskaini zituzten. **Berria - Kultura**

## 16b mutil katxarro

Carlo gidaerakuslea **mutil katxarroa** da, zoragarria iruditua zaie bisita, azalpenak oso garbiak, eta mamuaren latina hain ongi ulertzeagatik zorianak ematen dizkiete elkarri turista guztiek. **Iban Zaldúa**

-Ba sekulako **mutil katxarroa** da... eta bere laguna? **Sonia Gonzalez**

Ez zegoen prest ezezagun bati larregi kontatzeko, ezezagun hori benetan **mutil katxarroa** izan arren. **Sonia Gonzalez**

## 17 mutil gazte (orobat mutiligazte g.er.) gazte arra.

Gurutze gorriko **mutil gazte** bat hurreratu zitzaizen termo handi batekin. **Fernando Morillo**

Beti hostoz estaliak diren zuhaitzen itzaletan **mutil gazte** eta neskakten kantuak entzun daitezke han hemenka. **Aurelia Arkotxa**

Senarra **mutil gazte** batekin ikusteak nahigabea arinduko ziolakoan zegoen, lasaitu ederra emango ziolakoan, gezurra bazirudien ere. **Migel Angel Mintegi**

Baina nola esan amonari saltzaile irtirina ez zebilela bere atzetik, ni bezalako **mutil gazteen** peskizan baizik? **Anjel Lertxundi**

Gure adineko **mutil gazte** batek gidatzen zuen. **Bernardo Atxaga**

Antza, **mutil gazte** lizun batek egun batez emakume xarmant eta airoso bat ikusi zuen. **Patxi Zubizarreta**

**Mutil gazte** eder galanta zen, zinez, haren atzetik ibiltzeko zizelkatua. **Mirentxu Larrañaga**



Neska gazte bat zegoen etxolako atean bi **mutil gazterekin** hizketan eta barrean. Irene Aldasoro

## 17b mutil koskor (52 agerraldi, 23 liburu eta 5 artikulutan; orobat mutil kozkor 23 agerraldi, 13 liburu eta 6 artikulutan –eta mutilkoskor g.er.–, eta mutil kokkor 27 agerraldi, 16 liburu eta 6 artikulutan) ik mutiko 9.

Bera ikusi orduko, artzainaren eteko Adelaren hiru **mutil koskorrak** korrika joan zitzaizkion atzetik. Bernardo Atxaga

Hamabi urte eskaseko **mutil koskorrak**. Karlos Linazasoro

**Mutil koskorrak** goxokia hartu eta brix! etxe barrura ezkutatu zen. Pablo Sastre

**Mutil koskor** mehe bat zen, itxura gozokoa. Karlos Zabala

Batel bat, ordea, irauli egin zen; patroiz zihonan **mutil kozkorra**, ez ni baino askoz handiagoa, ibaiaren erdialdera erori zen, beste bi arraunlarirekin. Juan Kruz Igerabide

Kontatzen zuen, behin, festaren batean, erretzeko gonbitea egin ziotela berari, artean **mutil-koskor**, eta berak, besteak baino gutxiago ez izatearren, onartu. Arantxa Iturbe

Izan ere, orain dela urte asko, **mutil koskorra** nintzela, lurrera erortzen utzi zidan anam. Anton Garikano

**Mutil koskorra** zenetik ezagutzen diat. Anton Garikano

**Mutil koskorretan** irentsi egiten nituen halako aldizkariak, eta, gero, neure istorioak asmatzen nituen. Anjel Lertxundi

Nire **mutil koskorretako** giroan ere ez zegoen Joxe Mari, Joxe Antonio edo Joxe Miel besterik. Anjel Lertxundi

- Neska-**mutil koskor** haiek beren baliabideak zituzten sotoetan ezkutatu eta bizitzeko, burdin sareak itxitakoan. Karlos Zabala

## 18 mutil koskortu (orobat mutil kozkortu)

-Zelan ez, orduan **mutil koskortua** baino ez hintzen, baina gorputz gihartsua igartzen zitzaian. Paddy Rekalde

Etxeko txikiena, ordurako **mutil** kozkortua, zigorra eskuan zuela. Josu Zabaleta

## 19 mutil-lagun (178 agerraldi, 38 liburu eta 74 artikulutan; orobat mutilagun 19 agerraldi, 4 liburu eta 4 artikulutan) ik neska 14.

Gogoan dut neska germaniar batekin nengoela, zangoak depilatzen ez zituena, **mutil-lagunak** debekatu egiten ziolako. Ramon Saizarbitoria

Bat-batean, heldutasunera iristeko presa zuen, **mutil-lagunarekin** bizitzeko presa, etxetik alde egiteko presa. Antton Olano

2004ko irailaren 27an, Adama Aua hil zuen **mutil-lagunak** Bilbon. Iñigo Aranbarri

Gaur, **mutil-lagunari** esan beharrean aurkitu zara, neska batekin bizitzera zoazela. Andoni Egaña

Eszenarik onena gauzatzen du semearen **mutil-lagunari** eskerrak eman eta behin esandakoagatik barkamena zintzoa eskatzen dihonean. Berria - Kultura

-Urtxiapiaren **mutil-laguna** edo dena delakoa. Aingeru Epaltza

Bere senarra naiz, horixe esango zuen, senarra ez balitz ere, gauza segurua da ez zidala erantzungo, Bere **mutil-laguna** naiz, **mutil-laguna** jada ez da erabiltzen, are gutxiago esango zidan, Berarekin bizi den gizona naiz, inork ez luke gauza horren zakar adieraziko, baina Maria Sarak badu zerbait, eta zerbait horrek esaten dit ez dagoela ezkontuta, ez da bakarrik eratzunaren kontua, definigaitza den zerbait da [...]. Jon Alonso

## 20 irud/hed

Tom Sawyer izan zen nire lehen **mutil laguna**. Ana Urkiza

- Txikia nintzenez, maitatzen utzi ez zidaten **mutil**-laguntxo bat zakarkidak gogora. Jon Muñoz

## 21 mutil puska

Nola da posible horrelako **mutil puska** batengan sekula fijatu ez izana? Sonia Gonzalez

Besteak beste, han zen "Konkon" esaten genion bi metro pasatxoko **mutil puska**, hala ere bihotza handiagoa zuena gorputza baino. Joxerra Garzia

Atezaina australiarra da, 1'90 metro luze den **mutil puska**: Michael Petkovic. Luma bat bezain arina, **mutil puska** haien eskuetan. Berria - Kirola

Ez zen bi metroko **mutil puska**, baina haren begiak ispilu sakon bi ziren. Joan Mari Irigoien

## 22 mutil zahar ik mutilizahar.

### 22 neska-mutil pl neskak eta mutilak. ik mutiko 10.

-Tira, **neska-mutilak**, azken ahalegina! Aingeru Epaltza

Festa-giroan dauden berrogei **neska-mutilek** sortzen duten zalaparta. Xabier Mendiguren Elizegi

OHOk bigarren mailako gela zen, 7-8 urteko **neska-mutilak**, etxeko giro erdaldunekoak gehien-gehienak. Joxerra Garzia

**Neska-mutil** gazteak larrugorri, euren sasoirik onenean, hilak, buruak odol putzu batean. Gotzon Garate

Zahar eta gazte, hor daude kaleetan zehar lurrean etzanik; nire **neska-mutilak** ezpatatz jota erori dira. Elizen arteko biblia

Bi gazte zetozen, **neska-mutilak**, bikainak, kaskagorriak. Gotzon Garate

Eta bertan ito omen ziren ziren maiteminak jotako **neska-mutilak**. Txillardegia

Pepponek bazekien **neska-mutilak** elkarrekin zebiltzala, eta familiak kontra zeudelaJulianek **neska-mutilak** zituen; Mikelek, berriz, mutikoa. Koldo Biguri

- Banku batean eserita, **neska-mutil** talde bat. Edorta Jimenez

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**argi mutil** (7); **baso mutil** (5); **haika mutil** (6); **hamazazpi urteko mutil** (5); **herriko mutil** (7); **hi mutil** (5); **izeneko mutil** (11); **izeneko mutil gazte** (5); **jantzitako mutil** (5)  
**mutil bikaina** (8); **mutil bikaina da** (5); **mutil eder** (10); **mutil ederra** (15); **mutil edo neska** (8); **mutil eta neska** (9); **mutil fina** (5); **mutil gaixo** (6); **mutil gaixoa** (5); **mutil gazte** (17); **mutil gazte bat** (48); **mutil gazte batek** (20); **mutil gazte baten** (11); **mutil gaztea** (45); **mutil gazteak** (73); **mutil gaztearen** (14); **mutil gazteari** (9); **mutil gazteek** (10); **mutil handi** (8); **mutil handia** (14); **mutil jatorra** (33); **mutil jatorra da** (7); **mutil koskor** (19); **mutil koskor bat** (5); **mutil koskorra** (13); **mutil koskorrak** (10); **mutil kokkor** (17); **mutil kokkor bat** (7); **mutil kokkorra** (5); **mutil kozkor** (11); **mutil kozkorak** (5); **mutil lagun** (33); **mutil lagun bat** (5); **mutil lagun ohia** (9); **mutil laguna** (62); **mutil lagunak** (30); **mutil lagunarekin** (15); **mutil lagunaren** (12); **mutil lagunari** (9); **mutil lagunik** (5); **mutil maitea** (6); **mutil ona** (19); **mutil ona da** (6); **mutil onak** (5); **mutil puska** (9); **mutil serioa** (5); **mutil talde** (9); **mutil taldea** (6); **mutil zintzoa** (11)  
**neska edo mutil** (7); **neska eta mutil** (23); **neska mutil** (83); **neska mutil gazteak** (6); **urteko mutil** (71); **urteko mutil bat** (24); **urteko mutil batentzat** (5); **urteko mutil gazte** (5)  
**ikasten zegoen mutila** (9); **jatorra mutila** (5); **mandatu mutila** (5); **mutila aurkitu** (5); **mutila eta neska** (5); **mutila ezagutzen** (5); **mutila hil** (8); **mutila izan** (17); **mutila izango** (6); **mutila zen** (21); **neska ala mutila** (9); **neska edo mutila** (5); **neska eta mutila** (7); **urteko mutila** (24)  
**aguirrerren mutilak** (9); **egin zuen mutilak** (18); **erantzun zion mutilak** (26); **erantzun zuen mutilak** (13); **esan zion mutilak** (25); **esan zuen mutilak** (206); **galdegin zion mutilak** (7); **galdetu zion mutilak** (14); **galdetu zuen mutilak** (11); **herriko mutilak** (5); **jaka beltzeko mutilak** (8); **jarraitu zuen mutilak** (7); **javier aguirrerren mutilak** (6); **mutilak erantzun** (8); **mutilak esan** (8); **mutilak eta neskak** (7); **neska mutilak** (65); **neskak eta mutilak** (22); **pentsatu zuen mutilak** (30); **urteko mutilak** (9)  
**mutilaren aurrean** (9); **mutilaren eskua** (8); **mutilaren ondoan** (5)  
**egin zion mutilari** (5); **esan nion mutilari** (5); **esan zion mutilari** (11); **mutilari begira** (13)  
**neska mutilei** (9)  
**aguirrerren mutilek** (20); **javier aguirrerren mutilek** (10); **neska mutilek** (36); **neskek eta mutilek** (6)  
**mutilen artean** (22); **mutilen arteko** (9); **neska mutilen** (40); **neska mutilen artean** (11)  
**baso mutilak** (6)

## mutilagun ik mutil 19.

## mutilatu, mutila, mutilatzen 1 du ad izaki bizidun bati gorputz zati bat bortxaz ebaki edo erauzi.

Sierra Leonan soldaduek **mutilatutako** eskola-umeak. Unai Elorriaga

Behatzaren **mutilatzeko** prest dagokeen gizonaren auzia. Joan Mari Irigoien

Bikoteak zoriaren arabera elkartzten dira, ama eta semea, aita eta alaba, beren burua **mutilatzen**, zigortzen dute, [...]. **Monika Etxebarria**  
Emakumeen Genitalen **Mutilazioaren** Aurkako Mundu Eguna izango da etzi. **Berria - Gaiak**

## 2 irud/hed

Euskal Herria puskatua zen, Frantzia eta Espainiaren artean urratua, **mutilatua**, zapaldua, umiliatua, Eraikina osorik egona zen eta **mutilatua** zen. **Itxaro Borda**  
Hilobiaren zati bat amorragarri **mutilatua** da. Jakinaren gainean eta apropos utzi al zituen egileak urte horietako gertakariak isilpean ala geroago **mutilatu** ote zuten testua?  
**Koldo Izagirre**  
Nire pentsamendua ere **mutilatua** izan da. **Berria - Kultura**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Niri bakarrik kontatu zidan aitonaren gorpu **mutilatuarena**. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Harrizko estatua **mutilatuaren** gainean. **Agustin Otsoa**  
Errealitate **mutilatu** horren erakusteko metafora eta baliabide literario ugari daukagu. **Itxaro Borda**  
**Mutilatua** dela esaten du barrez. **Alberto Barandiaren**

## 4 (era burutua izen gisa)

-Nork maite ditu **mutilatuak**? **Jasone Osoro**  
Gerra **mutilatua** da Andreas. **Pablo Sastre**

## mutilazal *iz*

Batez ere, neska eta **mutilazalak** gustatzen zitzaizkion, gazteak, mami-guri eta hezur egin gabeen jabeak, eta, etxetik bahitu ondoren, txikitu, sutan egosi eta jaten zituen.  
**Pako Aristi**

## mutilazio *(orobat mutilazione g.er.) iz* mutilatzea.

Urtero 100 milioi nexkari tradizioagatik edo erlijioagatik beren sexu-organoen **mutilazioa** egiten zaiola munduan. **Joxe Azurmendi**  
Oldarka sartu zen Abelardoren gelan gaizkile talde batekin eta bere mehatxua bete zuen, hari **mutilazio** ikaragarri bat eginez... **Lopez de Arana**  
Ez zion beste inori, eta are gutxiago militar bati, **mutilazio** madarikatua ikusten utziko. **Ramon Saizarbitoria**  
Jazarraldi eroak, tiroketak, sute-txikizioak, **mutilazio** gogorrek eta heriotza-eszenak segundo batzuetan bene-benetako bihurtu, eta sekulako abailan pasatzen zaizkio gogamenetik. **Xabier Olarra**  
Ez da ezustekoa liburu hau, batik bat "perbertsio" deituriko moldeez ari dadin: **mutilazioa**, voyeurismoa, fetitxismoa, intzestu orokorra, bikote-trukatzea baserrian, melodrama, masokismoa... **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Ondo dago gustuko dituenarentzat, debekatua dago debekatzea, **mutilazioak** eta hilketak izan ezik. **Karlos Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**genitalen mutilazioaren** (3)

## mutilazione ik **mutilazio**.

## mutildantza ik **mutil 16**.

## mutildu<sup>1</sup>, mutil(du), mutiltzen du *ad* murriztu, moztu, lumatu, soildu.

Larru zerrendak atera, **mutildu**, oliotan irakin, lehen semea sakrifikatu eta antzekoak, mnemoteknika dira funtsean. **Markos Zapiain**  
Eta ezin hura jabetzen zen haien gaeuz eta gorputzez, "han" aipaezin hartan ezereztu, **mutildu**, torturatu eta beharturiko gorputz gaixo haietaz batez ere, ezinezko ahanztura baterantz ihesi saiatzen baitziren bata zein bestea. **Joxan Elosegi**

## mutildu<sup>2</sup>, mutil(du), mutiltzen da/du *ad* mutil bihurtu.

Jatorriz getxotarra, eta euskara **mutildu** ondoren ikasia, eragin handia izan zuen garai hartako gizartean. **Koldo Zuazo**  
Ume txiki hura **mutiltzen** hasita dago orain eta argazkiko aitona hori nor den galde egiten dit sarri. **Hasier Etxebarria**

## mutilgazte ik **mutil 17**.

## mutilgo *iz* mutilaren, morroiaren lanbidea. ik **morrontza**.

Alabaina komentua, bordela edo bide gorria baino goxoagoa izaten ahal da **mutilgoa**, lanbide erosoagoen atari denean. **Aingeru Epaltza**  
Laborari **mutilgoa** utzirik Perico hargintzari lotu zen eta bere laneko denbora hor iragan du. **Herria**

## mutilkote *iz* mutil sendokotea.

Biolin-jole, zuzentzaile ere bazena, Rosako **mutilkote** beltzaran txoraka bat zen. **Josu Zabaleta**

## mutilkozkor ik **mutil 17b**.

## mutilmedia *\_iz\_*

**Mutilmedia**: hedabideetan asko agertzen den mutila (LERTXUNDI Ag). **Iñaki Arranz**

## mutilo*i* iz

Jesar zaitez [...] zurezko eskorga zahar horietarik batean, edo, marinelago nahi baldin baduzu, guk bita esaten diogun behialako Bilboko Euskalduna ontzolan fundituriko burdina puska gotorrean, **mutiloian**, eta beha, eta entzun. **Koldo Izagirre**

## mutiltxo (orobat *mutiltxu g.er.*) iz mutil txikia.

Herrira itzuli zenean giltzako bana oparitu zien elizmutilei, hamar urte hortxe-hortxe zuten **mutiltxoei**. **Edorta Jimenez**

Eta sinistu **mutiltxoak**. **Edorta Jimenez**

**Mutiltxo** bi daukiez, Zuhaitz eta Egoitz. **Xabier Amuriza**

Hortxe dauzka beste hainbeste muskiltxo, begininiak zabaldu eta erne, **mutiltxo** lotsati enamoratuak iduri, hauts maitemindu horren milaka laztan hegalarrietarik batenbat berengana atxikitzeko irrikitan. **Patziku Perurena**

## mutiltxu ik mutiltxo.

## mutiltzar iz *adkor* mutil handia.

Orain hil berri den Nikolas Gastearena **mutiltzar** ezkurrra. **Patziku Perurena**

Hala esan zidan behin, Joxemiel Arregi, Lesakalorretako **mutiltzar** zelebreak Leitza: [...]. **Patziku Perurena**

## mutilzahar (orobat *mutil-zahar g.er.*, eta *mutilzar g.er.*; Euskaltzaindiaren Hiztegian *mutilzahar* agertzen da) **1** izond/iz heldutasunean ezkongai dirauena.

Atso bat bizi zela han, bera bakarrik, anaia **mutilzaharra** hil ziizaionez geroztik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zerrendan agertzen zen hurrengoa, gizon **mutilzahar** bat, hogeita hamabost urte zeramatzan administrazioan, eta jendeak madarikatzen duen funtzionario horietako bat zen. **Migel Angel Mintegi**

**Mutilzahararen** malenkonia barregarri samar hori sentitzen zuen. **Josu Zabaleta**

**Mutilzaharrak**, dudarik gabe, beste kafetegiren batean bilduko ziren, edo Automat taberna batean, non ordea? **Koro Navarro**

-Esan zidaten etxekoek, bai, **mutil-zahar** xeble-rexeble bat bizi zela hor, bakar-bakarrik. **Joxean Sagatzizabal**

Pixkanaka-pixkanaka **mutilzahar** bakarti bihurtuz joan nintzen. **Juan Kruz Igerabide**

Atzera utzia zuen **mutilzahar** itsuaren bizitza beti-batekoaren martxa. **Xabier Olarra**

## **2** (adizlagun edo izenlagun gisa)

Emeterio Arrese **mutilzahar** hil zen 85 urte zituela, eta beti izan zuen ama bere bizitzaren ardatz. **Berria - Kultura**

Apala zuen begiratua, urduria ibilera, eta jendeak **mutilzahar** gelditu izanari egozten bazion ere bere uzurtasuna, bizitza osoa fortunari mesede txikiak ere eskertzen pasatzen zuela ematen zuen gizonak. **Anjel Lertxundi**

Musikari egozten zion amak ni **mutilzahar** geratzearen errua, harekin entreteniturik andregai bila saiatu ez nintzelako. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Egungo egunean, bizi garen giroa sobera erotikoa da, gazte batek, bere bizi guzian, **mutil zahar** egoiteko erabakia har dezan! **Herria**

Historia honen garaian, Sorroetan Permin bakarrik bizi zen, **mutilzahar**. **Joan Mari Irigoien**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mutilzahar bakarti** (3); **mutilzahar eta neskazaharrak** (3); **mutilzahar gelditu** (3)

## mutilzahartu, mutilzahar(tu), mutilzahartzen da *ad* mutilzahar bihurtu.

Egia bestelakoa zen ordea: urteak aurrera zihoazen eta ni **mutilzahartzen** ari nintzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## mutilzahartze iz mutilzahar bihurtzea.

Baseri girokoak biak, **mutilzahartze** bidean zihoazanak, lagun eta parrandazaleak, herriaren alde konprometituak **Xabier Mendiguren Elizegi**

## mutilzale (orobat *mutil zale g.er.*) izond/iz mutilen zalea dena.

Ez omen dituk oso **mutilzale**. **Berria - Kultura**

**Mutilzale** zekena naizela pentsatuko zian. **Patxi Zubizarreta**

**Mutilzale** ospea ere bazeukan herrian, eta bazekien. **Fernando Morillo**

Esaten dudana ez da sentitzen dudana, eta horregatik dut **mutil zale** fama, maite jolasen zalea naizela, marijakintsu bat naizela eta eleberri arrosa kolorekoak gustatzen zaizkidala. **Josu Zabaleta**

## mutilzar ik mutilzahar.

## mutilzaro iz mutiletako garaia.

Bjorsenek, 1765ean hil zenak, dio bere **mutilzaroan** Suediako hegoaldean aski arruntak zirela gnomoak, eta maiz ikusten zituela mendian paseatzen ilunabarrean. **Xabier Olarra**

## mutin (*agerraldi 1 liburu 1ean; orobat *motin 14* agerraldi, 3 liburu eta artikulu 1ean; Euskaltzaindiaren Hiztegian *mutin* agertzen da*) iz matxinada mugatua.

Zuk itsasontziaren gidaritzari eutsi zenion tinko; gainerakoek, berriz, egur pusketak eskuetan, ontzi gainean ekin zioten **mutinari**. **Aritz Gorrotxategi**

1983ko martxoan **motina** egin genuen Carabanchelen, Puertorako trasladoen aurka. **Jokin Urain**

Hemen ezin duzu **motinik** antolatu. [Koldo Izagirre](#)

**Motinaren** ondoren isolamendura zigortu dituzten sozial horietako batena duzu ziega hori. [Koldo Izagirre](#)

---

**mutinatu**, mutina, mutinatzen (*corpusean **motinatu** soilik*) du *ad* mutina egin.

Zurginak ez zuen bulartasun handiagoa aterako lagunak **motinatu** nahi izan balitu, deskabezatzeko matxetearen ahoa erakusten zien. [Koldo Izagirre](#)

---

**mutinzale** (*corpusean **mutinzale** soilik*) *izond* mutinen zalea dena.

- **Mutinzeleak**. [Koldo Izagirre](#)

---

**mutiri** *izond* 1 ausarta, lotsagabea. (pertsonez)

Une horretan bertan txirrina jo zuten; etxejabea zen, gizaje oihes eta **mutiria** oso. [Josu Zabaleta](#)

Nire nagusigoari itzuria zaion emakume **mutiri** bati berriz ere erregutzero behartua ikustea neure burua! malko artean irribarrez zegoen gizon horrengan inork ez luke ezagutuko Verner hotz eta hantustea, Verner akitu eta **mutiria**, ez epaileek, ez lagunek, ez berak ere. [Jon Muñoz](#)

Haren enplegatzaileen artean, besteak beste, Corso Donati aipa daiteke, Beltzen buruzagi **mutiria**, ostera Florentziara itzulia, eta boteretsua. [Juan Garzia](#)

Hezigailta eta managaitza kontzeptu negatiboak dira; **mutiriak** lotsagabezia adierazten du; errebeldea, aldiz, sistema baten kontrako jarrera aktiboa duena da, haren aurrean errebelatzen dena. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

2 (gauzez)

Baina animaliak nahiko ernea dirudi, zolia, **mutiria**. [Oskar Arana](#)

Izan zakizkit neure bozkarioan kide, adiskide ederra; maitatua naiz; garaitu dut bihotz **mutiri** hori. [Jon Muñoz](#)

Sartalderago, emaro, elurra, Shannonen uhin **mutiri** ilunen gainean. [Irene Aldasoro](#)

Oraindik ere irribarre **mutiri** hori ote du? [Patxi Zubizarreta](#)

Ikusmenean ditut hemen naturaren harrigarri **mutiriak** artearen harrigarri **mutirik** koroaturik. [Jose Morales](#)

Zer segurantz **mutiria** du bada gizon horrek, ausartzen baita lasai lo egitera, badelarik emakume bat oraino mendekatzeke, harez zer arrangaturik badukeena. [Jon Muñoz](#)

3 (adizlagun edo izenlagun gisa)

Barrura egin zuen, **mutiri**, urrezko katea mantalaren gainean hoska, Eraman nazazu Mitxoletarengana, agindu nion, lehor, bortitz, zakar, **mutiri**, larderiatsu, gogor, zantar, latz, petral. [Karlo Zabala](#)

Ordea, ez zuen **mutiri** agertu nahi Fernandoren aurrean, eta ahalegina egin zuen zerbait esateko. [Pedro Alberdi](#)

---

**mutirikeria** *iz* mutiritasun gaitzesgarria; mutiriari dagokion egintza. ik **lotsagabekeria**.

Aitak ahalegin guztiak egin izan ditu nire **mutirikeria** arintzen, baina ez du ezer lortu. [Josu Zabaleta](#)

Gogaiturik egoteak eman ohi duen **mutirikeriaz** ziri eta ziri aritu nintzaion. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Herri-finantzek desegin egiten dute merkataritza beren bidegabeekin, **mutirikeriekin**, gehiegizko zergekin. [Iñaki Iñurrieta](#)

---

**mutiritasun** *iz* mutiria denaren nolakotasuna, lotsagabetasuna, indarkeria.

Rory sekula barrerik gehien eragin izan didan neskatotakoa zen, ezagutu dudana politenetakoa: **mutiritasun** eta ausardiako zurrunbiloa, jakintsua, berezkotasun- eta bihurrikeria-iturri agortezina. [Oskar Arana](#)

---

**mutis** 1 *interj* norbait isilarazteko hitza.

Anagnorisi baten moduan agertu zen nire bizitzan, bost urte egin nituen anagnorisi batekin bizitzen, eta anagnorisi baten moduan bidali nuen, **mutis**!, **mutis**!, nire bizitzatik. [Anjel Lertxundi](#)

2 **mutis eginsup\_1** antzezle bat agertokitik irten.

Antzezleek txaloak eskertu eta **mutis** egin dute, baina ikusleek, oihuka, eszena errepikatzeke eskatu dute. [Martin Anso](#)

3 **mutis eginsup\_2** isildu.

Gainerako guztietarako, obraren mamia Pirandellok berak azalpen jakingarriz bere 1925eko Sarreran aurkezten duenez, irakurlea obra irakurri ondoren hara igortzea eta **mutis** egitea baizik ez dagokio itzultzaileari. [Josu Zabaleta](#)

Abentura poetikoaren sekretu guztiak menderatu ditut, baina zuen gustuko jainko baten papera egin baino, aukeran nahiago **mutis** egitea [Anjel Lertxundi](#)

---

mutrikoar ik **mutrikuar**.

---

**mutrikuar** (*orobat **mutrikoar** g.er.*) *izlag/iz* Mutrikukoa, Mutrikuri dagokiona; Mutrikuko biztanlea.

Hortaz, Mugertza aita-seme **mutrikuarren** gaua izango da hein handi batean. [Berria - Kirola](#)

"Erromeriak bai, errosarioa ere bai!", esaten zuen Orion urte asko egindako Don Jose apaiz **mutrikuarrek**. [Anjel Lertxundi](#)

lazko denbora 41 segundoraino hobetu zuen Ugaitz Mugertza **mutrikuarrek**, atzo, Gazte Mailako Euskadiko Txapelketan. [Berria - Kirola](#)

Edonola ere, ez zion argitu zer egiten zuen **mutrikuar** batek gerra hartan, espainolekin, frantsesak lagun zituela eta ingelesen kontra. [Ramon Saizarbitoria](#)

**Mutrikuarrek** 19 minutu eta 39 segundoraino amaitu zuen lana. [Berria - Kirola](#)

Erabaki hori, baina, ez da **mutrikuar** guztien gustukoa izan, eta itsasoa ez ezik, herriko giroa ere zakartu da. [Berria - Harian](#)

Udalak deituta, elkarretaratzea egin zuten hainbat **mutrikuarrek** atzo. [Berria - Ekonomia](#)

---

**muttiko** 1 *iz* *adkor* mutikoa.

Bi urteko **muttiko** bat. [Janbattitt Dirassar](#)

Bizpahiru urteko **muttiko** bat adierazi zien, zarpailetan bildua, txakurtxo bat bezala lurlean jolasean ari zena. [Josu Zabaleta](#)

Bekatuaren fruitua nuela ene **muttikoa**, bekatu ilun batena! [Janbattitt Dirassar](#)

Ondorioz, **muttiko** ttipi horiek - **muttikoak** baitira gehienetan- gustoa horretan hartau dute... Ramuntxo Etxeberri

Denak bozkariatzen dituen **muttiko** ttipia haundi dadila osagarrian. Herria

Oi ene herri, **muttiko** bat duzu zapaltzaile, emakumeak agintari! Elizen arteko biblia

## 2 (deiki gisa)

-Zer, **muttiko**, buelta bat eman nahi duk zaldi berrian? -galdetu dio anaiari. Jokin Muñoz

## 3 haur arra. ik mutiko 7.

Lorietan dago "Iguzkirat"-eko familia guzia, lehen haurra, **muttiko**a, sortu baita Cecile eta Jerome Etchebarnen familia berrian. Herria

Ibarlan ere **muttiko** bat jin zaie Solange eta Mixel Oronos-i: Panpi. Herria

Bi **muttikoren** ondotik, huna beraz nexka bat, Emma deitu dutena. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**muttiko azkar bat** (4); **muttiko ttipi** (4); **muttiko ttipia** (5); **muttiko ttipiari** (4); **urteko muttiko** (3)

## muttikokeria *iz adkor* muttikokeria.

Pentsatzen jarrita, **muttikokeria** bat, ausardia merkea iruditzen zait orain eserleku-trukaketarena; umekeria, errespetu falta eta irakurleak nahi duen guztia. Xabier Mendiguren Elizegi

## muttin *adlag ipar* eguraldiaz mintzatuz, euritsua, hitsa.

Mezatik ateratu girenean, arras aro **muttina** zen, eurixka ari... Herria

Biharamunean, goizetik, denbora **muttina** agertu da; eta pittaka atertuz geroz, aro egokia jabetu da. Herria

Euria delarik edo aro **muttina**, kanpotiar frangok ez dakite zer egin. Patxi Zubizarreta

## muttur 1 *iz adkor* mutturra.

Joseba autoraino joan zen zigarrotxoaren **mutturra** hautsontzian itzaltzera. Bernardo Atxaga

Musuzapi bat atera zuen eta **muttur** batekin lehortu zuen bere betaurreko lausoen atzean agertu zen malko bakarra. Koro Navarro

Haritzondo zaharrez josirik, jauregia bera huntzaz estalia (**muttur** batzuetan bakarrik gorritzen hasia), ozta-ozta antzematen ziren aurrealde zabalean sei leiho gotikoak. Txillardegi

Neskak bere eskuak bularretan pausatu eta bere titimuturren inguruan biribilak egiten hasi zenean, **mutturrak** soineko azpian markatzen zirelarik, brageta askatu behar izan nuen, kabituz ezinaren kabituz ezinez. Juan Martin Elexpuru

## 2 mutturra, aurpegiaren zati irtena.

*Oh! very bad!* esaten zenuen, esku eta **mutturrez** muzin eginez. Xabier Mendiguren Elizegi

Kotxean sartu, ohizko muxua eman eta **mutturrak** okertuz demanda egiten dio Mikeli, mainati. Xabier Mendiguren Elizegi

Amorratio galantaz luzaturik **mutturrak**. Xabier Olarra

**Mutturak** goxatu eta adixkidetzeko asmotan, orrazketa lanak bukatzean Maribelgana makurtzen da Mikel, muxu eman nahiz. Xabier Mendiguren Elizegi

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Harrituta zeuden, kezkatu, patatak era hartan maneaturik ikustean: erreta bezala, txantxiurtuta, **muttur**-belztuta utzi zituen Isidorak zartagian. Pako Aristi

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Juxtu-juxtu agertzen ditu sudur-**muttur** gorrituak txano eta kaputxaren azpian. Jokin Muñoz

Gaizki sartu omen nuelako kafeteraren kable-**mutturra**. Pako Aristi

Beren sare erraldoiaren lehen hari **mutturra**. Patziku Perurena

Mahaian utzi dizkiet basoerdiak, lukainka **muttur** bana eta ogi puska bat. Pako Aristi

Puru-**mutturra** ezpainen txokoan zeukan. Bernardo Atxaga

Hatz-**mutturretako** ukittuak gozamen zabalaren alderdi lokartuak iratzarriko dizkizu. Pello Zabala

Idea hori paper-**muttur** batean nolabait zirriborratzea. Pako Aristi

"Turgeniev"en aurrean, bidearen bestaldean, zelai **muttur** bat dago, bizpahiru zume negartik babesten duten oasi bat zabor kontainerren artean. Pako Aristi

Sastraka-**mutturrak** goizeko ihintzen buxti frexko ezkoetan. Pello Zabala

Huraxe izaten zen denak par **muttur** bat egiten genuen aldi bakarra. Patziku Perurena

Behin goraka joan bagara, gero beherakakoa hasten den puntta-**mutturra** edo kaxkoa litzateke klimax hori. Pello Zabala

Egungo jende tasatzaileak [...] ezin du eraman inozentzia **muttur** bat ere inon. Patziku Perurena

## 5 *muttur bat* pixka bat.

Aldapa leunean gora **muttur** bat egin ondoren... itsasoa agertu zait aurretik! Txillardegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**muttur gorri** (3)

## mutturka *adlag adkor* mutturka.

Zuri da zaintzea itsasoa, **mutturka**-edo... begiratzen zelarik gibelka, kasu! Menane Oxandabaratz

## mutu 1 *izond/iz* pertsoez mintzatuz, hitz egiten ez duena.

Xabier, izan ere, **mutu** zen jaiotzez. Josetxo Azkona

Aleman **mutua**, ezin baitzuen hitzik egin. Joan Mari Irigoien

Hobe entzun eta hitz egin, gor eta **mutu** izan baino, ez da hala? Jon Muñoz

Hi ia **mutua** haiz, eta ni ia gorra. Jon Muñoz

Itsu, gor eta **mutuak**. Askoren artean

Gero **mutu** izatera jolastu ginen hasperen artean. Lander Garro

Jainko ahalguztidunak itsuei ikusmena bihurtu zien, gorrei entzumena, **mutuei** hitza, herrenei ibiltzea, elbarrituei sentimena eta mugimendua. Askoren artean

Deabrua ateratzean, **mutua** hizketan hasi zen, eta jendea harriturik gelditu zen. Deabruaren menpe zegoen **mutu** bat ekarri zioten Jesusi. Elizen arteko biblia

Honako honetaz ez du **mutu** egongo bategiango hitz egingo. **Patxi Ezkiaga**

Adi, ordea, zutaz isil daudenei, **mutu** berriketariak dira eta. **Imanol Unzurrunzaga**

## 2 irud/hed

Olsein duin **mutu** batek egongela eder, ilun samar, bildu, gozo baterako atea zabaldu zidan. **Josu Zabaleta**

Eskeleto dantzari gisa jardun ohi du gorteko edozein festatan eta abeslari **mutu** gisa errege-hileta guztietan. **Xabier Olarra**

Hara bihotza, gure misterio guzien testigu **mutu**. **Patziku Perurena**

## 3 (animaliez)

Sentipen diferenteeak, beraz, animaliei, **mutuak** izan arren, hots ezberdinak igorrazten badizkiete. **Xabier Amuriza**

Baita adimengabeko animalia **mutuengana** ere. **Askoren artean**

Jendea guri beha zegoen, eta osaba, hitzik gabe, oilo **mutu** bat iduri. **Joan Mari Irigoien**

Zaunkarik egin ezin duten txakur **mutuak** dira. **Elizen arteko biblia**

- Zer zen oilar **mutuak** egindako kukurrukua, deabruaren beste deabrueria bat baino? **Joan Mari Irigoien**

## 4 (adizlagun gisa)

A ze desagrazia **mutu** jaiot balitz... - **Mutu** sortu bahintz behintzat bakea genikek. **Xabier Etxabe**

Karranpa handi batek jota bezala, geldirik, itsu, gor eta **mutu**. **Hasier Etxeberria**

## • 5 izond hitzik gabekoa

Ortuzainak oinaze **mutuzko** imintzio bat egin zuen. **Karlos Zabala**

Gurtze **mutu** hark hunkiturik edo. **Karlos Zabala**

Harridura **mutuz** egon nintzaion begira pixka batez, begiekin galdetuz zer gertatu zen Herioren eta beraren artean. **Anjel Lertxundi**

Nancy beraiekin joan zen, Minta Doylek hala eskatu baitzion begirada **mutu** harekin, eskua luzaturik. **Anton Garikano**

Bion itun **mutu** hark sendotu egin zuen gure adiskidetasuna. **Anjel Lertxundi**

Eskuen eta begien elkarrizketa **mutuari** ez zen ohitzen. **Itxaro Borda**

Zoriontasuna **mutua** da, eta ez da bere baitarik mintzo; horregatik ditu baitezpadakoak aitortpena eta deklarazioa (esana behar du izateko). **Iñaki Segurola**

Endelegatu dut -oles **mutu** haren bidez halaxe esaten ari nintzaion. **Edorta Jimenez**

Orduan so egin zion neskak lipar batez, eta esker on **mutu** eta xumea agertu zen begirada hartan. **Karlos Zabala**

Antzeppen **mutu** haren indarrez bihotz-damuz beterik, negar-ibaik isuri zituzten Jainkoaren mirabeek. **Askoren artean**

Zinema **mutuaren** garaiko kritiko gehienek aipatu eta nabarmendu dute zinemaren fotogenia-ahalmena, askotan hitz hori erabili gabe aipatu badute ere. **Josu Zabaleta**

Hobe hitzik gabe, film **mutu** batean bezala. **Fernando Rey**

Film **mutu** surrealista baten gidoia ere idatzi zuen 1926an. **Ibon Uribarri**

Itsu bat zaintzetik liburuak zaintzera ez baitago alde handirik, liburuak ere itsu baitira, baina ez **mutu**. **Felipe Juaristi**

## 6 irud/hed isilik dagoena.

Ezin konta ahala harrizko biztanle **mutu**, geldi, eternal, ia izugarri dago populatua mendia, hareharrizkoak denak. **Koldo Izagirre**

Gauza mutuen arima **mutu** haiek. **Jose Morales**

Zoritarrekoa zu, egur-puska bati: "esna zaitez!" eta harri **mutuari**: "jaikil" esaten diezun hori! **Elizen arteko biblia**

Eta aita -Jaxinto- jostailu **mutu** bat zen amaren eskuetan, sekula iritzirik ez zuen gizona. **Joan Mari Irigoien**

Horma **mutuetara** itzuli ditu begiak Amaiak. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Arkeologia monumentu **mutuen**, arrasto bizigabean, testuingururik gabeko gaien eta iraganak utzitako gauzez arduratzen zen diziplina zenean. **Xabier Arregi**

Pintura, ordea, **mutua** da, eta, ondorioz, mugatua sentimenduak adierazteko. **Ramon Saizarbitoria**

**Mutua** da irudia; pentsamenduaren lanak bakarrik agerraraz dezake. **Jon Muñoz**

Espazio zabal mugagabe **mutuan** berehalaxe hiltzen zen oihi luze batez dei eginez. **Josu Zabaleta**

Kaperaren hotzikara erlijiosoan, maitasunezko zorabio **mutu** hartan, Montmartre kalean sartzen ziren zalgurdiak kurrinka entzuten zuen garbi-garbi. **Karlos Zabala**

- Hitz amaieretako letra **mutuak** ozentzen zituen. **Joseba Sarrionandia**

Azkeneko silabak e **mutua** agertzen duen kasuetan. **Isabel Arrigain**

## • 7 adlag hitzik esan gabe.

Baina hor dago zutik, ahalke **mutu**, odola belarrietan taupaka. **Oskar Arana**

Inguruetan ez zegoen inor, soilik ume haiek, **mutu** eta gorpuari so, geldi-geldirik. **Jon Maia**

Haren bidelagunak ikaraz **mutu** gelditu ziren, hotsa entzuten baitzuten, baina inor ikusten ez. **Elizen arteko biblia**

Mary Annek zigarro bat eskaini zidan, eta biok erretzeari ekin genion, **mutu**, gaiak bukatu izan balitzaizkigu bezala. **Bernardo Atxaga**

**Mutu** eta burumakur jaitsi ziren laurak. **Unai Iturriaga**

Zirrarak **mutu** utzi ninduen. **Bernardo Atxaga**

Eta jendetzak **mutu** jarraitzen zion, txundituta. **Koldo Biguri**

Geldi bitez **mutu** ezpain gezurtiak, zintzoaren aurka ari baitira jardunean lotsagabe, harrokeriaz eta mesprezioz. **Elizen arteko biblia**

Agian merezi du **mutu** jarraitzeak, pentsatu zenuen gero. **Hasier Etxeberria**

Pilarrek **mutu** erantzun dio, eta gero eskaileren beheko aldea zelatatu du. **Lander Garro**

## 8 irud/hed isilik.

Gotorleku guztiak isilik zeuden, **mutu** lubaki karlistak. **Koro Navarro**

Eguerdira arte **mutu** egon zen telefonoa. **Migel Angel Mintegi**

Irratiak **mutu** zirauen berriro, musika klasikoa baino ez, tarteka. **Harkaitz Cano**

Gure herrietako elizetan diren organo bikain horiek ere, organojolerik ezean **mutu** geratzen ari diren gisa. **Pako Aristi**

Esateko idatziak direnak zurian beltz ageri dira hemen, **mutu**. **Joxerra Garzia**

## 9 (hitz elkartuetan)

Harik eta tiro hots bat entzun, eta zezena hil- **mutu** geratu zen arte. **Joan Mari Irigoien**

Ibilaldi geldo- **mutuarekin** jarraitu zuten. **Fernando Morillo**

## 10 (-en adizkiaren eskuinean izen gisa) mututasuna.

Lurra da hemen, bere **mutuan**, euskaraz hitz egiteari uko egiten ez dion bakarretakoa. **Joxerra Garzia**

## 11 gor-mutu ik gor 9.

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elkor eta mutu (3); erabat mutu (4); film mutu (4); geldi eta mutu (4); gor eta mutu (8); gor mutu (5); itsu eta mutu (3); lehen bezain mutu (3); lekuko mutu (3)

mutu bihurtu (4); mutu bihurtu da (3); mutu dago (7); mutu egon (21); mutu egongo (4); mutu egoten (3); mutu eta gor (5); mutu gelditu (24); mutu gelditu zen (10); mutu geldituko (4); mutu gelditzen (5); mutu geratu (41); mutu geratu zen (24); mutu geratuko (6); mutu geratzen (13); mutu gisa (3); mutu iraun (4); mutu jarraitu (8); mutu jarraitu zuen (5); mutu jarraitzen (5); mutu segitzen (3); mutu utzi (14); mutu uzteko (4); mutu zegoen (9); mutu zeuden (4); mutu zirauen (5)

baiezko mutua (3); e mutua (3); gor mutua (5); mutua hizketan (4); mutua izan (3); mutua zela (4); zinema mutua (3)

# mutualdi *iz adkor* isilaldia.

Zurrnobilotsutat zeukan Mathildereren gehiegizko imajinazioak izuari edo sekretu bat gorde nahiari egozten zion neskaren **mutualdia**. [Anjel Lertxundi](#)

Txaplik apurto zuen **mutualdia**, ohi zuen gisan, galdera brillante batekin: [...]. [Unai Iturriaga](#)

-Politikari edo politikako mundukoekin izango duzun lotura bakarra gurekin izango da **mutualdia** hautsi zuen besteak-. bere baitara bildu, eta erabateko **mutualdian** murgilduko zen aita. [Migel Angel Mintegi](#)

# mutualitate 1 *iz* kuota jakin bat ordainduz elkarri laguntzeko biltzen diren pertsonen elkartea.

Futbol-apustuen txarteltxoak, **Mutualitateko** inprimakiak, postalak. [Juan Garzia](#)

Segurtasun pribatu, **mutualitate** eta familia laguntzeko tresna pribatuak ahalik eta gehien garatu. [Iñaki Heras](#)

**Mutualitateek** gaixo-agiri arruntak kendu ahal izatea gaitzetsi dute. [Berria - Ekonomia](#)

**Mutualitateetako** sendagileak osasun etxeko ikuskaritza medikuari azaldu beharko dio langileari senda-agiria noiz emango dion. [Berria - Ekonomia](#)

CCOOk dio **mutualitate** batzuek atzeritarrak oker tratatzen dituztela. [Berria - Ekonomia](#)

**Mutualitateak** enpresaburuen elkarteak dira eta aurren sindikatuen kritiken jopuntu izan dira. [Berria - Ekonomia](#)

Kooperatibak, **mutualitateak**, eta bestelako enpresa egiturak bilduko dituen gizarte ekonomia egitura baten beharra gogoratu du federazioko presidentek. [Berria - Ekonomia](#)

Gizarte Segurantzatik kanpo dauden **mutualitateak** arautzeko eskumena. [Berria - Harian](#)

NDF sortu zen haren lekuan, estatuen **mutualitate** bat balitz bezala funtzionatzen duena: estatuek zeinek bere diru-sarrerren arabera kotizatzen dute, eta, premia izanez gero, Funtseko baliabideetara jo dezakete, aldeaz aurretik finkaturiko arauen arabera. [Koro Navarro](#)

Frantziako Ikasleen **Mutualitate** Nazionalen nire txartela ikustean. [Joseba Urteaga](#)

## 2 mutualitatearen egoitza.

Bestalde, hiru lehergailu zartarazi zituzten atzo Iruñean, bi **mutualitatean** eta enpresa batean. [Berria - Euskal Herria](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**cyclops mutualitateak** (4)

**mutualitateen esku** (3); **mutualitateen eskumenak** (4)

# mutuarazi, mutuaraz, mutuarazten 1 *du ad* mututzerara behartu.

Motorra **mutuarazirik**, begiak hertsu ahal izan zituen azkenean. [Xabier Montoia](#)

Ezin morfinak Kaganskiren alarauak **mutuarazi**. [Xabier Montoia](#)

Manexun eta horrelako gizon mindulinen **mutuarazteko** adina aberastuko zen laster. [Itxaro Borda](#)

Dena ongi antolatua genuen, noiz oihu egin, nola **mutuarazi**, Florenen kenduko zion aurreneko luma. [Koldo Izagirre](#)

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Bidaiari mutua edo **mutuarazia**. [Lutxo Egia](#)

Gure ahots lehen erlatsarekin eta gero betiko **mutuaraziarekin** oihu egiteko. [Jon Alonso](#)

# mutuarazle *izond*

Badakit Indarra gure artean dagoela, gure harremanen berme, gure aditzen **mutuarazle**, ahulezia gaitzesten dugun garaiotan: nola uka hori? [Itxaro Borda](#)

# mutur (*orobat mustur g.er.*) 1 *iz* ugaztunetan, aurpegiaren zati irtena, ahoa eta sudurra dauzkana.

Hiru zakurtzar hurreratu zitzaizkion zaunka bizian, atzamarrak eta **mutur** haserreak hesi tartetik ateraz. [Joxemari Urteaga](#)

Eser zaitez, indioilarra txakurraren **muturra** baino hotzago geratuko da eta. [Iñaki Mendiguren](#)

Beheko solairuetan, berriz, kanpora so egiten zuten zekorrek, edo beren **mutur** itsua ateratzen zuten zerriek. [Jose Morales](#)

Aurpegi zabala zuen -idi gazte baten **muturraren** irudikoa-. [Irene Aldasoro](#)

Zaldiak ere **muturra** altxatu eta, bere begitarz goibelekin, Sofiri begiratu zion. [Fernando Rey](#)

Besteen askan sartzen zuen bere **mutur** luzea, haien janaria dastatze aldera. [Jose Morales](#)

Sastraken artetik **mutur** urduri bat agertu zen, eta, guardaren eskopetako mirarekin eta zelatan jarritako begiarekin bat egitean, kurrinka lehorrak eta sendoak errepikatu zituzten inguruko zuhaitzek. [Joxemari Urteaga](#)

## 2 *adkor* (pertsonetan)

Doi-doi eragotzi nuen **mutur** okerra: konpetentziakoa zen. [Aingeru Epaltza](#)

Orduan **muturra** okertu balu akabo, baina aurpegi ona jarri zuela iruditzi zitzaidan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Diputaziokide guztiak betoskoz eta **mutur** okerturik bueltatu ziren beren herri, eliza eta gazteluetara. [Aingeru Epaltza](#)

-Zer duk, Laureano? ez daukakar **mutur** onik. [Jon Maia](#)

Woodek ez zion **mutur** alaia jarri. [Iñaki Mendiguren](#)

Ez dakit ze arrazatakoa zen, baina **mutur beltz** -beltza zuen behintzat. [Harkaitz Cano](#)

Derbirako sarrera pare bat **mutur** aurrean paratzen bazaio. ez naiz ni, ez, maitasuna **muturraren** aurrean ez ikusteko bezain zaharra eta itsua. [Jon Alonso](#)

Gerta litekeek paretaren kontra **muturra** haustea, bizitzak aurkezten dizkigun milaka oztopoekin tupust egin eta hezurrak txikitzea. [Xabier Olarra](#)

Nagusia **muturra** atera du errezelen beste aldetik, mesfidati. [Harkaitz Cano](#)

Ez dizut utziko nire kontuetan **muturra** sartzen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Hain suturik egon ez banintz, **muturrera** eginen niokeen irri. [Aingeru Epaltza](#)

"Alderdi afektiboak!" Taberna batean afaldu eta gero, denak ere **muturra** berotuta, [...]. [Juan Kruz Igerabide](#)

Gizon bat zegoen luze-luze etzanda, besoak zabalik, **muturrez** aurrera erorita. [Karlos Zabala](#)

## 3 irud/hed

Autoaren **muturra** beheeratu egin zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Zerbaitekin talka egin zuen autoaren **mutur** metalikoaren kontra. [Aingeru Epaltza](#)

Bozgorailutik deialdia entzun eta ia une berea agertu zuen trenak **muturra** geltokian. [Joxemari Urteaga](#)

Zenbaitek tunelaren ahora begiratzen zuen graffiti deszifraezinez adornatutako trenaren **muturra** noiz agertuko zen zelatan. [Iñaki Zabaleta](#)

Maletatxotik dingilzilka, fonendoskopio baten **mutur beltza** ikusi nuen. [Alberto Ladron Arana](#)

*ik beherago* 20. [Askoren artean](#)

#### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aztoratu egin zen berriro behorra, eta zakurrek ere usmati zuzendu zituzten **mutur**-zuloak oraingoan. Joxemari Urteaga

**Mutur**-mintzak apartatzeko arte aparta daukate [behorrek], ondo ikasia. Pello Zabala

Ofizinan bertan kristoren **mutur**-janak denek elkarri, harik eta jefea etorri arte. Xabier Mendiguren Elizegi

Kanpokoak, demokrazia edertzen duten herritar goratsu horiek, menostuko omen genituzke horrela jokatzu, asmo desleialtzat hartuko omen lukete dontsuon **mutur**-sartze hori. Anjel Lertxundi

Haren aita handiustearen **mutur**-sartze larderiatsuak. Oskar Arana

Nire gutuna eta nire liburua **mutur**-sartze heziera txarreko eta gogaikarri bat ziren noski berarentzat, Anstandaren kontrako atentatu bat. Juan Garzia

#### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Zapo **mutur**-biribil luze bat. Josu Zabaleta

Panderoa errotatik kanpo astintzen zuen gizon ilehori **mutur**-oker bat. Jon Arretxe

Bi ume **mutur**-zikin lagun zituela. Karlos Zabala

Diplomatiko **mutur**-txuriari arrazoia emanaz. Iñaki Segurola

Hi ikusita **mutur**-ozpinena ere irriz urratzeko maneran. Aingeru Epaltza

Luze jo zuen ekaitz **mutur** beltzak, eta denbora hartan guztian Andreasen kemenak ez zuen une bakar batez ere adorerik galdu. Anjel Lertxundi

#### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire anaiek itsusi mortala zela esaten zuten, zakur-**mutur** moduko zerbait, baina amak parerik gabeko edertasuna zuela esaten zuten. Fernando Rey

Txerri-**mutur** upelen ondoan. Irene Aldasoro

Txerri-**mutur** moduko hura, belarri luzexka haiek, begi txiki haiek. Joxan Elozegi

Mutil gazte bat izan zen, modu bitxi eta nabarmenean jantzita, besoetan lehoi-**muturreko** txakur ile-hori bat zuela. Ander Irizar

Beldurrak tenkatuak zeuzkan hazpegiak, haren bihotzaren taupadak izugarriak izanzen ziren: halere, zerbait ahaltsu eta gaizto ere irakurtzen nuen sagu **mutur** hartan.

Monika Etxebarria

Zenbat masaileko eman behar dizkizut nekazari-**mutur** zatar horretan zerbait uler dezazun? Jose Morales

#### 7 zerbait amaitzen den zatia. ik buru; punta.

Beste eskuan **mutur** zabaleko eta kirten motz eta hautsiko lantza zeraman. Agustin Otsoa

Ziri luzexka batek eta **mutur zorrotz** batek osatzen dute, berez, gezia. Joxerra Garzia

Nik ez nion ikusten fular loreduaren **mutur** bat besterik. Juan Kruz Igerabide

Zigarro baten **mutur** goriak txabola baten atea zeharkatu zuten. Lopez de Arana

Zigarro baten **muturra** dir-dir ikusten du: Ryan-ek jarraitu egin dio aparkalekuraino. Oskar Arana

Muskulu horren **mutur** bat besondoko hezuraren [...] goialdeari dago loturik. Irene Aldasoro

-Ziria ere **mutur** estuenerik hasten da sartzen -esan zuten Henchy jaunak. Irene Aldasoro

Bibote luxe eta finaren ezker **muturra** okertu eta gora bueltatu zuten. Joxemari Urteaga

Ezkerreko adararen **muturra**. Santiago Iruretagoiena

Makila magikoen **muturreko** argiak itzali egin ziren. Iñaki Mendiguren

#### 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aginduriko euroek, ordea, emakumearen titi-**mutur** ederrek saltsa hartan bezalaxe, mirariak egin zitzaizketelakoan zegoen. Migel Angel Mintegi

Gero mihi **muturra** poliki-poliki pasatu zuen ezpain mamitsuetatik. Migel Angel Mintegi

Begira niri, zer belarri **mutur**, zer sudur punta! Juan Kruz Igerabide

Horretan nengoela, hegazkin bat agertu da, aski goian; baina hegal-**muturreko** argi nirnikariak pizturik, eta nabarmenki Loui aldera jaisten ari. Txillardeggi

Itsasbehera gogorak untzia osorik biratu zuten, lasto **mutur** bat baililtzan. Lopez de Arana

Argazkiko zigarro-**mutur** berbera! Jon Muñoz

Bere kandela-**mutur** ketsuaren argitan. Juan Garzia

Kolpetxo batez, aspaldi itzalitako puru-**mutur** baten albora jaurti zuen errautsa. Joxemari Urteaga

Eskopeta-**muturra** apaldu zuen orduan. Inazio Mujika Iraola

Hezur-**mutur** horiek ez dira bata bestean doi-doi ahokutzen, eta likido sinobialak betetzen du elkar ukitzen ez duten guneetako tartea. Irene Aldasoro

#### 9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Tatariar zapata **mutur**-okerrak zeramatzan, eta urrezko argi-koroa buruaren inguruan. Jose Morales

Gero, mahukaz botila-**muturra** garbitu, eta Andreasi pasatu zion. Anjel Lertxundi

Botila **mutur**-estu horrentzako. Joxemari Urteaga

#### 10 (hari eta kidekoekin)

Matazaren **mutur** hari tira egiteko prest zegoen, baina beste xehetasunen bat behar zuen ziurtasunez hasteko. Joxemari Urteaga

Hari-matazak bi **mutur** behar zituen, baina lauzpabost ikusten zizkion azken aldian. Joxemari Urteaga

Soka **mutur** batez arkabuza lepoan eskegi nuen. Edorta Jimenez

Aukera guztiak zabalik zaudek eta ez diagu hari-**mutur** bakarrik ere teinkatu gabe utziko. Aingeru Epaltza

Emakumearen gorpua garabiko kable-**muturrari** lotzeko lanetan. Aingeru Epaltza

Malgu bilakatzen zenean, aukera ematen zuen beirak, hodi-**mutur** hotz bietatik tira eginez bizkor, harizpi mehe-mehezko sorta bihurtzeraino luzatzeko. Juan Garzia

Arazaren hariaren **muturrari** egin nahi diot berriz ere tira, luzea baita mataza. Xabier Mendiguren Elizegi

#### 11 irud/hed

Kontraesan horrek bi **mutur** ditu. Bi **mutur** horien artean dabil debatea. Iñaki Heras

Bai polita elkarrizketa luzearen bi **mutur** lotzeko modu hori, solasa arte bihurtuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Agian, hobe nitek gaiari beste **mutur** batetik helduko banio! Jose Morales

Egia al da gauzak **mutur** honetaraino iritsi direla? Agustin Otsoa

Horrela, bi **mutur** agertu ziren, hots, mundu enpirikoa eta subjektu pentsalaria, auzi garrantzitsu batekin batera: nola irudikatu bi **muturrak**, nola bateratu "izarrez betetako zerua nire gainean eta lege moralala nire baitan". Askoren artean

Sade beste **muturra** zen, subertsiboa, matxinoa, disidente, arau-apurtzailea, libertinoa, probokatzailea, bihurria, atea, profanatzailea, biraolaria, sakrilegoa, lotsagabea, madarikatua. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

#### 12 itsasoan barneratzen den lur zerranda. ik lurmutur; mihi 5.

Bezperan Raz-eko **mutur** beldurgarria ikusia nuen, bi itsaso, Atlantikoa eta Mantzakoa, etengabe elkarrekin borrokan ari diren mundu zaharreko **mutur** hori. Josu Zabaleta

Uharte bat al da, ala kontinente baten **muturra**? Juan Kruz Igerabide

Sena ibaiaren ezkeraldeko bazterra eta Saint-Louis uhartearen ekialdeko **muturra** lotzen ditu Sully zubiak. Jon Muñoz

Mendebaldeko **muturreko** amildegiaren ertz-ertzaraino heltzen ziren. Agustin Otsoa

Ate Handiaren lerroarekin parekatzen zen guztietan tunel gangadun batetik pasatzen zen, arrokazko **mutur** handia zeharkatuz. Agustin Otsoa



Beste espaloian farol bakar batek, lurraren azken **muturreko** itsasargi baten gisa. [Monika Etxebarria](#)  
Ordurako, Amerikako azken kostalde-**muturra** ere, Long Island, aienatua zen. [Joxe Austin Arrieta](#)

### 13 ertzeko zatia; zatia. ik **puska**.

Ni hiltzen naizenean, mia ezak nire lastaira eta ezkerreko **mutur** horretan galtzerdi bat aurkituko duk, urrezko txanpon batzuekin. [Koro Navarro](#)  
Hestebete denda bat izango zuten, Plaisancen inondik ere, Parisko **mutur** jendetsuren batean. [Karlos Zabala](#)  
Etxe bat erosi du hiriaren **mutur** batean, amaztearen izenean. [Jose Morales](#)  
Hain biziki erabili zuen sorbalden inguruan bildurik zeraman zapi arina, ezen nes karen aurpegia jo baitzuen **mutur** batez. [Jose Morales](#)  
Mahai karratuaren **mutur** batean, Lisa eta Augustine arropa pasartzan ari ziren. [Karlos Zabala](#)  
Zakurrak, hortzekin **mutur** batetik hartuta, tira egin zion Mariren toaila handi horiari. [Joxemari Iturralde](#)  
Mantalaren **mutur** bat altxatua zuen, kaxmirrezko gona erakutsi nahirik. [Karlos Zabala](#)  
-Han ari ziren denak, lurraren **mutur** guztietako kardinal eta apezpiku eta artzapezpiku. [Irene Aldasoro](#)  
Baratze **mutur** horri esker errazago zuen meatzari-jendeak jatekoa behinik lortzea, eta grebari, beraz, luzarago eustea. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)  
-Begira, hemen daukag nire helduea, paper- **mutur** honetan, ahazten bazaik ere: 945 West, 22nd. [Lopez de Arana](#)  
Paper **mutur** batean *kaka-zaku* idatzita, bolaluma bere hatz lodixken artean zerabilen dantzaka. [Aingeru Epaltza](#)  
Zauri lehorra orban handienetik ireki zen, eta kristal **muturra** agertu zenean eskuz atera zuen. [Alberto Barandiaran](#)  
Nik, ogi- **mutur** bat eta baratxuri bat baldin baditut, ez dut zeruaren beharrik. [Anjel Lertxundi](#)  
Zela lakre-puska bat, zela papertxo bat, zela luma **mutur** bat, zela zelakoa, hartu, eta idazmahaian edo leihoan ipintzen zuen. [Jose Morales](#)

### 14 zerbaitetan, elkarrengatik urrutien dauden bi puntuetako bakoitza edo bietako bat.

Nirea bezalako taberna handietan, mutur batean daudenek ez dute entzuten beste **muturrekoen** solasaldia. [Pako Aristi](#)  
Pont Neuf kalearen **mutur** batetik bestera. [Karlos Zabala](#)  
Ezagutzen ez zuen kale baten **muturrean** zegoen. [Karlos Zabala](#)  
Kalearen beste **muturreko** kantoiak, berriz, usoz betetako plaza txiki batera ematen zuen. [Anjel Lertxundi](#)  
Marie mahai luzearen **mutur** batean eseri zen. [Joxemari Urteaga](#)  
Inprimatutako liburuak Europako **mutur** batetik bestera zebiltzan. [Jon Muñoz](#)  
Galeriaren **mutur** batetik zetorren ahots bat entzun nuen argiak itzaltzera zihoazela esaten. [Irene Aldasoro](#)  
Konoak, argi bizitan ikusteko erabiltzen direnak, sentikorrango dira kolorearekiko espektroaren **mutur** gorriaren inguruan, **mutur** urdin eta morearen inguruan baino. [Irene Aldasoro](#)  
Eguzkia beste **muturreko** leihotik sartzen da, etzanda, eta zoruko hauts malutek itzalak luzatzen dituzte, lurrari kotoia jaito izan balitzaio bezala. [Lander Garro](#)  
Airez beteriko barrunbe bat da Erdiko belarria; **mutur** batean tinpanoa du, eta, bestean, berriz, beste mintz tenkatu bat, *leïho obal* deritzona, barne-belarriaren ataria. [Irene Aldasoro](#)  
Ikuspegi hori, **muturrera** eramanda, nekez izan daiteke bateragarria erakunde sozialekin. [Iñaki Heras](#)  
Antzerkiaren hizkuntzak bat egiten du zinemaren mekanismoekin, eta narrazioaren ekonomia **muturrera** eramaten uzten dio zinemagileari. [Berria - Kultura](#)  
Nahasmena nagusi den garaietan, aldaketaren aroan, gizakiek **muturrera** jotzeko joera dute: fundamentalismoa batetik eta norberaren espiritutasuna bestetik. [Berria - Gaiak](#)

### 15 (politikan) ik **muturreko 3**.

Hain zuzen ezaren aldekoak ziren bi **muturrrekoak**: eskuin **eskuin muturra** Le Pen eta de Villiers-ekin, ezker **muturra** Marie George Buffet eta Besancenot. [Herria](#)  
*ik muturreko.*  
Ezaren alde **eskuin muturra** Le Pen, de Villiers eta bertze batzu, ezker **muturra** ere Arlette Laguillier, Besancenot, Marie-George Buffet eta Chevènement, hitz batez frantses nazionalistak. [Herria](#)  
Frantziako **eskuin muturrari** buruzko dokumental batean. [Eneko Bidegain](#)  
Orduan Petain-en gibelatik frantses **eskuin-muturra** sartu da gobernuan, Ybarnegaray barne, nahiz ez den luzaz egon ministro. [Herria](#)  
Ezkerreko familia baten semea, **ezker muturrera** joan da 1968-ko urtearen ondotik. [Herria](#)

### • 16 *adlag* haserre, beltzuri.

Arras **mutur jarri** da, erranez Bayrou-ren jokabidea okerra dela. [Herria](#)  
Ez dun luzaz jasanen noiznahi **mutur** den senarra. [Eneko Bidegain](#)  
Baina, menturaz, memento honetan **mutur** dago, bidaian zehar Sophie-rekin kalapitan ari izan delako eta oraino ez direlako baketu...Gehienetan **mutur** egotearen zergatikoa zera izaten zen: [...]. [Eneko Bidegain](#)  
Gure alaba Alessandra sartzen zen, kopetilan, **mutur**, ez zuelako gustukoa goizean jaikitzea ez eskolara joatea. [Fernando Rey](#)

### 17 *muturreko* ik **muturreko**.

### 18 *lur mutur* ik **lurmutur**.

### 19 *mutur-beltzsup\_2 izond* muturra beltza duena.

Sasi ardiak, ardi **mutur beltz** eta mutur gorriak, exehorrak eta pottokak. [Herria](#)  
- *adkor* Rosariok, hain **mutur-beltza** beti, lorian ematen zuen, irribarre zabal-zabala zuela. [Aingeru Epaltza](#)  
-Kasu putarik ez **mutur-beltz** honi -klikkatu zidan begia. [Aingeru Epaltza](#)  
Pertsiar **mutur-beltz** arrazakoak dira, tamaina, orban eta are mugimenduetan ere antzekoak. [Oskar Arana](#)  
Eta meatzari egin gintuan, **mutur-beltz**, ezagutu ezinezko, meatze zuloan denbora guztian, edo erresistentziako meatzari kideen etxeetan... [Josu Zabaleta](#)

### 20 *mutur beltzsup\_1 (orobat muturbeltz g.er. eta muturbaltz g.er.) adkor* bekozko iluna.

Ikusi behar huen Isabel Sanjoseren **mutur beltza**, duela ordu erdi, traje zimurtuko morroiarekin alde egin duanean. [Aingeru Epaltza](#)  
-Beti iruditzen zaizu gaizki nik egiten dudana - **mutur beltza** jarriz-. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)  
SDko agenteak **mutur beltzez** begiratzan zion. [Alberto Ladron Arana](#)  
**Mutur beltzez** hartu gintuzten, jatekorik deus emanen ote ziguten galdetzean. [Aingeru Epaltza](#)  
Heriotzaren eta hilketaren atarian bertan agertzen zaigu egiaren **mutur beltza**. [Iñaki Segurola](#)

### 21 *mutur-gorri (orobat muturgorri g.er.) izond* muturra gorria duena.

Azaldu da azkenean gure ahari **muturgorria**: honatx joarea bere ustaiarekin, gainerakoen berri putreek jakinen dute. [Patziku Perurena](#)  
Ainhoa abeltzainen partetik baginuen: sasi ardiak, ardi mutur beltz eta **mutur gorriak**, exehorrak eta pottokak. [Herria](#)  
- *adkor* -Egun on -idazkari **mutur gorriak** hartu zuen. [Unai Iturriaga](#)  
**Mutur-gorri** ergel aspergarria! [Irene Aldasoro](#)

### 22 *mutur-handi (orobat muturrandi g.er.) izond* muturra handia duena.

Zakur **mutur-handi** bat sartu zen haren atzetik, kobrezko lepokoarekin zarata handia ateraz. [Jose Morales](#)  
Paul, berrogei urteko gizon **mutur-handi** kotzilo bat baina langile porrokatua. [Daniel Landart](#)  
Frantsesez, norbaitentzat hartza dela erraiten da koska delarik, **mutur handia**, arrunt bere gisakoa, ez batere jendekina. [Herria](#)  
Lehen planoan, lagunaren Volvoa, nirekin batean azken orduetan kilometro franko irentsitako ipurtandi- **muturrandia**. [Aingeru Epaltza](#)

### 23 *mutur-joka (orobat muturjoka g.er.) adlag adkor* ik **muturka**.



**bi muturren** (9); **bi muturren artean** (5); **muturren aurrean** (27)

**azken muturrera** (4); **beste muturrera** (28); **beste muturrera joan** (4); **kale muturrera** (4); **muturrera eraman** (7); **muturrera eramanda** (4); **muturrera eramaten** (5); **muturrera heldu** (4); **muturrera iritsi** (7); **muturrera joan** (11); **muturrera joan zen** (4); **muturrera jota** (4)

**azken muturreraino** (55); **azken muturreraino eraman** (9); **azken muturreraino eramaten** (6); **beste muturreraino** (9); **muturreraino eraman** (25); **muturreraino eraman du** (4); **muturreraino eramandako** (4); **muturreraino eramanez** (8); **muturreraino eramango** (5); **muturreraino eramatea** (5); **muturreraino eramateko** (5); **muturreraino eramaten** (19); **muturreraino heldu** (4); **muturreraino joan** (8)

**azken muturrerainoko** (4); **muturrerainoko bidaia** (5)

**bi muturretako** (7)

**bi muturretan** (24); **hatz muturretan** (4); **zaku muturretan** (4)

**bi muturretatik** (9)

**azken muturretik** (4); **bertze muturretik** (4); **beste muturretik** (23); **makila magikoaren muturretik** (7)

**hatz muturrez** (7); **muturrez aurrera** (36); **muturrez aurrera erori** (11); **muturrez mutur** (8)

muturbaltz ik **mutur 19**.

muturbeltz ik **mutur 19**.

**muturbelztu**, muturbeltz/muturbelztu, muturbelzten *da/du ad adkor* beltzuritu, haserretu.

Neure bakardadearekin gozoro ezkontzen ninduenak neure bakardadearekin **muturbelzturik** jarri nau itsuski, ezinka eta muzinka, ez norterik eta ez konorterik dudala kasik.

**Iñaki Seguro**

**muturdun** *izond* muturra duena.

Burdin **muturdunez** zigorkatuko zaituztet nik! **Elizen arteko biblia**

Pailazo zuri bitxi, orein-**muturdun** bat. **Josu Zabaleta**

Goiz batez, Roissyko aireportuan, Tokiok zetorren bidaiari bat... zuk zeure autoan eraman nahi izan ez zenuena... ni nintzen bidaiari hura, eta 404a gidatzen zuen gidari zigarro-**muturduna**, berriz, zu zinen. **Jon Muñoz**

**muturgabetu**, muturgabe(tu), muturgabetzen du *ad* muturra kendu.

Hautsontzirik ez inguruan, nire zangoen parean zegoen paperontzi metalezkoaren ertzen kontra **muturgabetu** nuen zigarroa, barnera bota aitzin. **Aingeru Epaltza**

**muturgaineko** *iz* muturraren gainean jartzen den gauza.

Azpillagaren etxearen atean, parea beltzetatik zintzilik, pilotan jokatzeko txisterak, txalmax, **muturgainekoak**, andaluziar estiloko zelak ikusten dira. **Koro Navarro**

muturgozki ik **mutur 21**.

**muturje** *iz adkor* muturra. ik **muturkera**.

Futitzen naiz giltzadunak eginen duen **muturjeaz**, ez diot begitartea erakutsi. **Koldo Izagirre**

Autista halakoa; "Musu-triste" erraten diodalarik ere ez du **muturjea** argitzen. **Aingeru Epaltza**

Eguerdi hain garden ageri zirenek beren **muturje** uherrenetik egiten zidaten kuku arratsaldean. **Aingeru Epaltza**

**muturjoka** ik **mutur 22**.

**muturka** *adlg* mutur-joka.

Han, elkartu, jaka erantzi, mahukak jaso eta hitzik esan gabe hasten ziren **muturka**. **Koldo Biguri**

Elkarri lapur deitzen hasi ziren eta **muturka** bukatu zuten. **Pello Lizarralde**

Bi alderdi elkarri **muturka**. **Iñaki Seguro**

Argudioak bata bestearen gainean **muturka** hasten direlako, elkarren traban eta elkarren etsai, askatzeko zaila den korapiloea eginez. **Pello Salaburu**

Edo, ezpatarik ezean, **muturka** eta ukabilka. **Joan Mari Irigoien**

Biharamunean Urantziara erretiratu ziren liberalak presaka eta **muturka**. **Txillardeg**

Oraingoan benetan uxatu ditiagu beltzak: Ebroraino erretiratu omen dituk korrika eta **muturka**. **Txillardeg**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**elkarri muturka** (4); **korrika eta muturka** (3)

**muturkera** *iz adkor* muturra. ik **muturje**.

Ez iezadazu barregurarik eman, zure **muturkera** ikusita... **Pako Aristi**

muturluze ik **mutur 24**.

# muturmutu, muturmutuzen da

Luze egon dira **muturmututa**, nik neure orbelak biltzen ditudan artean elkarri beha, nor hasiko ekarriak dituen gaia askatzen **Koldo Izagirre**

## muturraldi iz haserrealdia.

Nik ikasi nuen haren **muturraldiak** antzematen. **Alberto Barandiaren**

Etxeratu nintzaionetik, hiru-lau **muturraldi** baizik ez zen piztu gutartean; denetan, ama solas. **Aingeru Epaltza**

Otoitz egin zuen, buruz, ondoak sor zitezen, ea horrela senarraren **muturraldia** bukatzen ote zen. **Jon Alonso**

## muturrandi ik mutur 22.

## muturreko 1 izlag aukera, egoera edo jarrera espektro bateko muturrean dagoena.

Beharbada, haur literaturako klasiko handietan besteetan baino nabarmenagoak izaten dira autoreen patologia, baina Peter Pan **muturreko** adibidea da. **Julen Gabiria**

Higuin erabatekoa diet **muturreko** joerei. **Xabier Olarra**

Niri **muturreko** egoerak gustatzen zaizkit. **Karlos Linazasoro**

Atsoak Lisa izutzeko lana hartua zuen, **muturreko** erabakiren batera bultzatu nahirik. **Karlos Zabala**

**Muturreko** kasuetan. **Iñaki Arranz**

Gaur bezala **muturreko** hotza egiten duenean. **Harkaitz Cano**

Azken batean, **muturreko** tenperaturak gizakion osasunean zer-nolako ondorioak dituen aztertu beharra dago. **Berria - Harian**

Hori **muturreko** nominalismoa litzateke. **Askoren artean**

Hain zen Keynes sozialismo marxistarekin kritikoa, non **muturreko** liberalismoaren aliatutzat salatu baitzuen. **Iñaki Heras**

«**Muturreko** feminismoa» kritikatu du Vatikanoko. **Berria - Gaiak**

Boikota, kasu, betidanik izan da kontsumitzaileen esku gelditzen den **muturreko** tresna. **Iñaki Heras**

**Muturreko** pobrezian bizi gara. **Berria - Gaiak**

Eguneko dolar bat baino gutxiago dutenen **muturreko** pobrezia tasa berriz, %44tik %18ra murriztu da. **Iñaki Heras**

Metaletan, ordea, ez da hain larria izaten kaltea, amore ematen baitu metalak, eta, hartara, pitzaduraren **muturreko** tentsioa arindu egiten baita. **Irene Aldasoro**

Gizarte materialistaren eta produktibistaren **muturreko** kritikoaren artean. **Iñaki Heras**

Von der Graf hori, izan ere, Pim Fortuyn Holandako ultren liderraren uestezko hiltzailea ez ezik, animalien zapalkuntzaren kontrako **muturreko** militantea da. **Joxerra Garzia**

Zenbait sunitak atentatua **muturreko** xiitei egotzi, eta mezkita beraiek leherrarazi zutela esan zuten. **Berria - Mundua**

Zirriborro horiek, politikoki atzerakoiak eta literatura aldetik zarama hutsa izanagatik, polito saltzen ei dira **muturreko** abertzaleen artean. **Xabier Montoia**

### 2 (bi zenbatzailearekin)

**Muturreko** bi bizioren artean orekan dagoen horri *bertute* deritza Aristotelesek. **Askoren artean**

Ahozketasuna eta idatzizketasuna **muturreko** bi eredu ideal balira bezala. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Gaur egun ez dago praktikan **muturreko** bi kategoria horietako batekin guztiz bat datorren sistemarik. **Iñaki Heras**

Nahiz eta irudikapenezko irudiarekin dugun erlazioaren bi muturrak izan, ez direla, hala ere, erlazio hori gertatzeko bi modu bakarrik, **muturreko** bi moduak baizik, eta era askotako distantzia psikikoak izan daitezkeela horien artean. **Josu Zabaleta**

### 3 (ezker edo eskuin-en eskuinean) ik mutur 15.

Alderdi hura gerra aurreko POUM ezker **muturreko** alderdiaren oinordeko-edo zen. **Juan Kruz Igerabide**

Ezker **muturreko** LCR alderdi troskista biziki pozik dago igandeko emaitzekin. **Berria - Harian**

Ezker **muturreko** gorriek aho batez 7garren artikulua onartu zuten zuzenez gero, [...]. **Koldo Biguri**

Jean Ibarnegarai Uhartereko auzapez eta eskuin **muturreko** jaun deputatuak "iheslari horiek dakarten arriskua eta erakar ditzaketen ondorio tamalgarriak" aipatzen ditu. **Jokin Urain**

Nik uste dut oso jende gutxi jar dezakeela auzitan egia hori, soilik eskuin **muturreko** espainoliek, edo aspaldiko ezker dibinoak, askotan saloiko faxismoan bukatu duenak. **Bernardo Atxaga**

Eskualde hortan, Jean-Marie Le Pen eskuin **muturreko** alderdiburuak aspaldian errana zuen hautagai izanzen zela. **Herría**

POUM zeritzan alderdian sartu zen, ezker **muturrekoekin**. **Juan Kruz Igerabide**

- Ezkerreko **muturrekoa**, apaizen eta katolikotasunaren aurkakoa. **Askoren artean**

### 4 (izenondo gisa)

Edertasun hura urrutikoa iruditu zitzaielako, mendebalde **muturrekoa**, seguru asko. **Felipe Juaristi**

Ideologia arrazista, terrorista edo **muturrekoa**, garbiketa sektarioa bultzatzen duena. **Berria - Harian**

Abu Sayyaf: Filipinetako hegoaldeko talderik txikien eta **muturrekoena** da. **Berria - Mundua**

Jokaerarik **muturrekoenak** erabiltzera, Lurreko bazterrik erretiratuenean sustraitzera. **Juan Garzia**

Berriz hartu zuen orria, iritzi **muturreko** hau baieztatu beharko bailuen, eta horri esker gu orain seguru egon gaitzke, lehen zalantzak eduki genitzakeelako, ez dagoela halako burugabekeriarik. **Jon Alonso**

Berez izan da urtea, klimaren ikuspegitik, gogorra eta **muturrekoa**. **Berria - Gaiak**

Zulo beltzaren baldintza fisikoak **muturrekoak** dira, eta betidanik onartu da fisikaren legeak hausten diren mugetatik haratago daudela. **Berria - Gaiak**

Aipatu bi ekonomia sistemak **muturrekoak** dira, historian zehar oso gutxitan eta ez oso luze aplikatu izan direnak. **Iñaki Heras**

Rorscharden testeko arrastoen adibide aski **muturreko** baina ezagunean, irudi batean zerbait identifikatzeko joera dugu beti, baldin eta zerbaiten antzik txikiena ere duen formaren bat badago. **Josu Zabaleta**

Muturreko fenomenoaren artean **muturrekoenera**: bi zulo beltz erraldoien topaketa. **Berria - Gaiak**

Batzuk, lehenengo kolpetik, logikaren ondorioz **muturrekoenetaraino** joan dira, axolagabeki. **Josu Zabaleta**

Hizlariak berehala heldu zion arazoaren mamiari eta, **muturreko** horietako bat zenez gero, gordinak botatzen zituen. **Koldo Biguri**

**Muturrekoen** ideiak borrokatu behar ditugu eta ez soilik euren ekintzak. **Berria - Mundua**

### • 5 iz muturrean hartzen edo ematen den ukaldia.

Alde guztietatik etorri zitzaizkidan zaflakoak, ostikoak, **muturrekoak**. **Aingeru Epaltza**

Tuntunarena egiten baduzu, baina, **muturreko** bat emango dizut. **Koldo Biguri**

Harryk pozik emango zion **muturreko** bat Malfoyri, baina ezin zen harengana iritsi. **Iñaki Mendiguren**

**Muturreko** galanta hartu aurreko gartsutasuna. **Xabier Olarra**

Bestea ez da mugitu ere egin: ezkerrez desbideratu du, eta **muturreko** gaizto galanta eman dio eskuinez. **Koldo Biguri**

Edonori **muturreko** bat jotzeko prest. **Julen Gabiria**

Gauza batzuk ongi esanak esan eta hortzetan **muturreko** pare bat jo, nire amodiozko nabelan epilogo gisa jartzeko. **Fernando Rey**

Egundoko **muturrekoa** hartu eta taxia galdu dut. **Harkaitz Cano**

Aurreko gauean korridorean harturiko **muturrekoaren** oroigarria. **Aingeru Epaltza**

On Camilloren **muturrekoek** ez baitzuten sekulan huts egiten. **Koldo Biguri**

-Esan nahi al duzu koitadu horrek gutarrek emandako **muturreko** mordoia hartu izan balu, errua nirea izango zela? **Koldo Biguri**

## 6 zaldien eta kidekoen ahokoa.

Dolaretik hainbeste odol atera zenez, zaldien **muturrekoetaraino** iritsi zen, hirurehun kilometroko zabaleran. **Elizen arteko biblia**

Ez diozu **muturrekorik** ipiniko gari-jotzen ari den idiari. **Elizen arteko biblia**

Gringolak astoaren **muturrekoak** dira. **Pako Aristi**

Galbahean bezala astinduko ditu nazioak, **muturrekoaz** bezala masailatik lotuko, hondamenera eramateko. **Elizen arteko biblia**

## 7 animalia batzuei, ahoa ez irekitzeko, ezartzen zaien tresna.

Zakur arrisksutsuak **muturrekoarekin** eta bi metro baino laburrago den soka bati lotuta. **Gotzon Garate**

Zakur batek norbaiti hozka egin badio, handik aurrera **muturrekoa** eraman behar du. **Gotzon Garate**

Guardiek **muturreko** bat zekarten, eta eskatu zidaten ezen ipin niezaiola nik muturrekoa txakurrari. **Joan Mari Irigoien**

Loro bati **muturrekoa** jarri nahian. **Jon Muñoz**

## 8 mutur-muturreko

Barbarónin gizon garaia zen, sendoa eta ideia **mutur-muturrekoak** zituen. **Juan Garzia**

Haren ez-konbentzionaltasun **mutur-muturrekoa**, poliziek beren adimen konbentzionalaz ezin argitu dituzten kasuak berari maiz argitzen laguntzen diona. **Xabier Olarra**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskuin muturreko (146); eskuin muturreko alderdi (15); eskuin muturreko alderdia (3); eskuin muturreko alderdiak (9); eskuin muturreko alderdiaren (3); eskuin muturreko alderdiek (6); eskuin muturreko alderdiko (7); eskuin muturreko fronte (3); eskuin muturreko talde (8); eskuin muturreko taldeak (4); eskuin muturreko taldeek (6); ezker muturreko (28); ezker muturreko alderdia (3); mutur muturreko (8); muturreko alderdi (18); muturreko alderdi nazionalista (6); muturreko alderdi nazionalistak (4); muturreko alderdia (6); muturreko alderdiak (11); muturreko alderdiaren (4); muturreko alderdiek (6); muturreko alderdiko (9); muturreko baldintza (3); muturreko bat (49); muturreko bat eman (13); muturreko bat emango (4); muturreko bat ematen (3); muturreko bat jaurti (3); muturreko bi joera (3); muturreko ederra (5); muturreko egoera (9); muturreko egoera batean (4); muturreko egoerak (3); muturreko egoeratan (3); muturreko erabaki (3); muturreko ezker abertzaleak (3); muturreko ezker abertzalearen (3); muturreko fenomenoak (4); muturreko fronte (3); muturreko galanta (3); muturreko handi (4); muturreko handi samarra (4); muturreko hautagaia (3); muturreko ideiak (3); muturreko islamistak (3); muturreko jarrera (8); muturreko jarrerak (13); muturreko jarrerei (3); muturreko kasua (3); muturreko kasuetan (3); muturreko on bat (3); muturreko pobrezia (8); muturreko pobrezian (11); muturreko pobrezian bizi (10); muturreko politika (3); muturreko talde (22); muturreko taldeak (5); muturreko taldearen (3); muturreko taldeek (9); muturreko taldeen (4); muturreko tenperaturak (3); oso muturreko (4)

eskuin muturrekoa (9); ezker muturrekoa (3); muturrekoa eman (4); muturrekoa hartu (5); muturrekoa izan (3); muturrekoa jarri (3)

eskuin muturrekoak (4); muturrekoak eman (6); muturrekoak ematen (3); oso muturrekoak (3)

eskuin muturrekoek (3)

eskuin muturrekoek (3)

eskuin muturrekoen (3)

muturrekorik ipiniko (3)

## muturrezur iz muturreko hezurra.

Haren **muturrezur** lakatza, haren kalpar luze zarpaila, haren tunika beltza, haren arabka eta belaunetarainoko bartan larruzkoak, eta haren ibilera azkarra nork ahaztu!

**Patziku Perurena**

## mutursalda ik mutur 27.

## muturtu, mutur(tu), muturtzen (*orobat musturtu g.er.*) 1 da ad mutur jarri, beltzuritu.

Gaualdi bat Lisa ederrari eskaintzen zion, **muturtu** ez zedin. **Karlos Zabala**

Neska apur bat **muturtu** zen. **Jose Morales**

Zorionez, **muturtzen** ginen erraztasun berberaz adiskidetzen ginen. **Xabier Montoia**

Dama haiek biziki haserretu zitzaizkion, zakarki **muturtu** ere [...] baina bizkarrak uzkertuz eta hotz eta motz hitz eginez mozorrotu zioten euren aurkako bidegabekeria hura.

**Mirentxu Larrañaga**

Orduan Paola mindu eta **muturtu** egiten zen. **Fernando Rey**

Baina Paola bere seme-alabak ikustera etortzen zenean, gure ama bat-batean urduritu eta **muturtu** egiten zen. **Fernando Rey**

Haserretu eta **muturtu** egin zen bat-batean, hain modu zatarrean kendu nahi ziotelako denbora. **Anton Garikano**

Bai, nahiago zuen amore eman, harekin **muturtu** baino. **Jokin Muñoz**

Baina luze gabe aspertzen zen; **muturtu** eta orduan nirekin eta Luciorekin haserretzen zen, inguruka ibiltzen gintzaizkiolako. **Fernando Rey**

Elkarrekin **muturtu** ziren. **Karlos Zabala**

Bekozko ilunez zegoen, **muturturik** eta aurpegi oker, masailak haserrez sutan. **Anton Garikano**

**Muturtuta**, bai, baina ez minduta edo erretxinduta. **Alberto Barandiaren**

## 2 irud/hed

Eta zerua **muturtzen** hasi zen une horretan bertan. **Berria - Kultura**

## • 3 du ad

Gosariaz geroztik fitsik ahoratu gabea nintzen, eta jan zaharra egoteak **muturtzen** eta zakartzen ohi nau. **Aingeru Epaltza**

## 4 ad ad mutur itxura hartu.

Ospel ikusgarri xamar bat ari zen azal hartatik goratzen, are **muturtzen**. **Joxan Elozegi**

## 5 (ezpainak objektu duela)

-Egingo al dut? -galdetu zidan, ezpainak **muturturik**, ttu egiterakoan bezala-. **Joxe Austin Arrieta**

Ikusiak zizkion ezpain **muturtuak** zabal-zabal egiten, gustu ematen zionean azukreak edo Denverren albiste batek. **Anton Garikano**

## 6 (era bururuta izenondo gisa)

Ate aurrean Fuhrmann doktorea zegoen, gizon mozkotea, bulldog **muturtu** baten aurpegia zeukana eta orbain bat ezkerreko masailean. **Anton Garikano**

Emakume gazteak aurpegi nekatu eta garbia du, pixka bat **muturtua**. **Monika Etxebarria**

-Itxura hori dugu? -gazteak berehala, **muturtu** samar. **Migel Angel Mintegi**

## muturtxo 1 iz mutur txikia.

-Iruditzen zaidak aktorea bera dela halakoa, frantsesen milikeria guztiak ditik, **muturtxo** okertzeko modu hori... **Iñaki Iñurrieta**

Eta bibotea txiki-txikia, gora kiribildua: **muturtxoak** zuzen-zuzen sudurtzuloetan sartzen zitzaizkion.berehala ohartu nintzen haren alboan ia ardo hutsez elikatu beharko nuela, tetrabrikoko ardo txarrak eta lantzean behin jaten nuen mortadela bokataren **muturtxoaz**. **Matías Múgica**

Egun ederra egiten du eta itsasoaren **muturtxo** bat ikusi ahal izan dute gailurretik. **Patxi Zubizarreta**

## 2 (hitz elkartuetan)

Protesta egin zuen Nano Zuriak, bere panpina- **muturtxo** okertuz. **Patxi Iturritegi**

Muturra luzea zeukan, sudur-zuloak itzelak, adar- **muturtxoak** kanpora ateratzen hasiak.- Txorizo **muturtxo** bat agian. **Iñaki Mendiguren**

Balkoi zolan, ordea, paper **muturtxo** bat begiztatu zuen. **Gotzon Garate**

## muturtze iz mutur jartzea.

Marmarren ondoren **muturtzeak**, **muturtzeen** ondoren ekaitzak, ekaitzen ondoren malkoak. **Oskar Arana**

Elkarren artean darabilgun **muturtze** itsu hau, geure kalterakoa dela, diozu. **Hasier Etxeberria**

## muturxuri ik mutur 30.

## muturzorrotz ik mutur 29.

## mututasun 1 iz erabateko isiltasuna.

**Mututasun** hura eramangaitza zitzaidan arren, halaxe ibili ginen tarte luze batean: nik ez nuen hitz egin nahi, berak zerbait esan artean. **Anjel Lertxundi**

-Nik ere hitz egin nahi dut, ez zait gustatzen **mututasun** hau, baina ez dakit zer esan. **Lander Garro**

Inork ezin duela hitza aldarrikatu besteen **mututasuna** baldintzat jarri. **Berria - Euskal Herria**

Saltzaileak nire **mututasuna** baliatzen ari zen ele eta ele jarduteko. **Anjel Lertxundi**

Berebiziko garrantzia zuen nire erantzunak, goiz osoko nire **mututasuna** urratuko bainuen. **Anjel Lertxundi**

Emazteak **mututasuna** hautsi zuen: [...]. **Itxaro Borda**

-Auskalo non dabilzan besteak -bota zuen Alaznek, **mututasun** deseroso hura apurtzearren. **Fernando Morillo**

Hitzik samurrenak, sekula inoiz errepikatuko ez dituzun hitz goxo sekretuak, heriotzaren **mututasun** beldurgarria hausteko esaten direnak. **Karlos Linazasoro**

Nola ez galdu haria egilearen **mututasunak** aipurik soilena galarazten duenean? **Bernardo Atxaga**

Tristurak **mututasunean** eta hoztasunean murgildu zuen. **Iñaki Zabaleta**

ETAren ihardunarekiko anbiguotasun handiz aritzen gara eta anbiguotasun horrek gure harremanak oro iluntzen ditu [...] **mututasuna** ez baldin bada, isiltasuna hedatuz.

**Itxaro Borda**

Gainerakoak erreserba armadako gelditzen ziren, ohiko **mututasun** eta diskrezioa mantentzeko ordenaren mende. **Itxaro Borda**

## 2 mutua, hotsik gabekoa, denaren nolakotasuna.

H letraren **mututasuna** -hainbat euskalkitan bederen- kontuan harturik, [...]. **Iñaki Arranz**

## 3 gor-mututasun ik gormututasun.

## mututu, mutu(tu), mututzen 1 da ad mutu gelditu, erabat isildu. (pertsonak).

Harrezkero **mututurik** geratu zuan, nahiz mutu ez izan; hori bai, ordea, ez zian galdu lehengo jatortasunik. **Juan Garzia**

Isilik egoteko agindu zion haserre norbaitek, eta **mututu** egin zen. **Koldo Izagirre**

Jonathan-eta-Léa, lilurak jota, **mututu** egin ziren. **Jon Muñoz**

Kasik harrirudizko bilakateraino **mututu** zen eta hirira alde egiten hasi, ezezagunen artean lasai, inori ezer erantzun beharraz libro bizitzera. **Pako Aristi**

Eta ez da inorentzat ona kazetaria **mututu** dadin. **Iñigo Aranbarri**

Handik aurrera, muturtuta eta **mutututa**. **Xabier Etxabe**

## 2 (bestelakoak)

Barrea **mututu** zitzaien, eta eskuak dardarka eta gorputz adarrak balantzaka hasi zitzaizkien. **Agustin Otsoa**

Kiribilak eginez jo du lurrerantz txikiak, eta gure gora-oihuak berehala **mututu** dira. **Mirentxu Larrañaga**

Istillaga bikien hitz jarria **mututu** egin zen gau hartan, eta ehizaldirik beroenetako isiltasun urduria nagusitu zen bien arteko leizeaz. **Pako Aristi**

Ez dira ohartu oihana **mututu** dela. **Aingeru Epaltza**

**Mututua** zegoen tranbien lakartasuna. **Koro Navarro**

Etorriko dira berriak, eta, nolanahi ere, irratia ez da **mututuko**. **Joxerra Garzia**

Bukatu da gerra, **mututu** dira turutak, eta amen, andregaien eta alarguntsen aieneen eztandak hartu du ordu arteko arrandi militarren lekua. **Anjel Lertxundi**

Aita hil ostean **mututu** egin zen musika hura. **Mirentxu Larrañaga**

Letrak **mututurik** zeuden, eta isiltasunak arnasa loditzen zigun. **Bernardo Atxaga**

Boz ezagun batek atera zuen bere harriduratik; haren inguruan mundua **mututua** zen; desagertua zen. **Elena Touyrou**

## • 3 du ad mutu utzi, erabat isilarazi.

Axaleko dotorezia lehenetsiz, gu ilustratuok baino mila aldiz sen hobeagoko euskara zerabilten hitzun asko lotsarazi eta **mututu** ditugu. **Joxerra Garzia**

Ez dakit ezer esateko gauza ere izan nintzen, uste dut **mututu** egin ninduela ene komandantearen odol hotzak. **Koldo Izagirre**

Eta orduan, **mututu** egin ninduen amorrutik ezitiasuna sortu zen, gure ahotsek bat egin zuten, zoragarri. **Koldo Izagirre**

Gerizatu zuen umezurtzaren begirada otzanak Graxi **mututurik** utzi zuen, apur batez. **Elena Touyrou**

## 4 (bestelakoak)

Izutu eta uxatu ez ezik, gizonak **mututu** ere egin ditu txoriak. **Iñaki Segurola**

Metallica, menditzar haien erdian, zakurrak ere **mututuz**. **Pako Aristi**

Zuk **mututu** duzu atzerritarren zalaparta-hotsa. **Elizen arteko biblia**

## 5 (era burututa izenondo gisa)

Ahots **mututu** batzuen oihartzuna aditu zuen. **Josu Landa**

Itsuen negar **mututua**. **Patziku Perurena**

Baso iluneko sarobe izerdituak, larreko artzaixabola isilduak, [...] atari lokaztuak, usategi **mututuak**, ermita lotsatuak [...]. **Patziku Perurena**  
Apenas zurrumuru bat jolas **mututuen** antzoki antzuan. Horrexegatik, euskal gizartearen sailkapen berritua ikusita, **mututuontzat** territorio libre berri bat osatzen hasi da Eusko Jaurilaritza hau, hauteskunde kanpainako mezuak gormututuoan zeinukeran hedatuz. **Joxerra Garzia**

## mututxo izond *adkor* mutua.

Gudari **mututxoa** zaitugu? **Harkaitz Cano**

## mutxangera *iz adkor* neskazaharra.

Hango [Bilboko] denda eta hango jendetzak; baserrietako alabak besoetan kantin bana zutela; bizikletak nonahi; autoak ere asko; hango umeen negarra eta kurrirka; neska begiargi askoak, mototsak ederki bilduta, eta gu kiriketan haiekien; **mutxangerak** ere bazituan tartean; baita karitxiarto begizorrotzak ere, baina guri dena berdin. **Pako Aristi**

## mutxi (*orobat mutzi*) *iz* lizuna.

Hirugarreneko estaia-artean goiti egitear geratu zen, gohain eta gogoeta: nola mila deabru bizitzen ahal ziren jendeak, familia osoak alaina, zahar, zoko eta **mutxi** baporea zekarten kukumixa kaiola hauetan? **Itxaro Borda**

Eskaler hertsiki batzuk, murruetako tindua dena joana eta gainerat halako **mutzi** usain bat... **Janbattitt Dirassar**

## mutxidura (*corpusean mutxidura soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian mutxidura agertzen da*) *iz* lizundura.

Zeren, paper loreztatuen gibelean, **mutxidura** eta arraildurak beti hor daude. **Herria**

## mutxikin 1 *iz* sagar eta udareetan, jan gabe uzten den barnealdea, haziak gordetzen dituen.

Bizkotxo apurrak opil zatitxoak sagar **mutxikinak** arroz aleak urdaiazpiko muturrak gazta pusketak melokotoi xerrak eskaintzen dizkiete elurrak gose grebara kondentatu dituen hegaztiei. **Koldo Izagirre**

## 2 zigarretez eta kidekoez mintzatuz, erre gabe uzten zen muturra. **ikzigarrokin; punta.**

Botila ardoaren ondoan hautsontzia, zigarreta **mutxikinez** gainezka, eta Ducados pakete hasi berria. **Unai Iturriaga**

Garbitzaileetan zaharrenak puruaren **mutxikina** zapaldu du lurrean, pentsakor. **Harkaitz Cano**

Kafeontzian hondarrak besterik ez eta hautsontzian dozena erdi purutxo **mutxikin** zeuden. **Migel Angel Mintegi**

Gorde samarrean piztu zuen Jonasek porru **mutxikina**. **Pablo Sastre**

Gero erreka jota geratu zen asko edaten zuelako eta, azkenean, zigarro **mutxikinak** biltzea zuen ogibide. **Pello Lizarralde**

Lapurtu egiten nuen zuk sartu baino lehen botatako zigarro **mutxikina**, eta hori sakratutzat neukan, zure ezpaineak ukitua zelako. **Eduardo Matauko**

## mutxikindu, mutxikin(du), mutxikitzen du *adn* mutxikin bihurtu.

Gero hartzen ditu hitz horiek eskuetan, eta irakurri egiten ditu edo, (euskaraz) gauza bera dena, aletu, eta **mutxikindu** ere bai ahal badu, eta zukutu egiten ditu, elkarren kontra igurtzi-igurtzi egin, estutu eta marruskatu. **Iñaki Segurola**

Diren eta ez diren zuri-beltz guztiak gorritu dira, denboraren enborra **mutxikindu** dugu, eta orain giro dago hemen, eta esateko moduan gaude: ez gara zoriontsuak eta ez gaude triste; ez gara normalak eta ez gara anormalak. **Iñaki Segurola**

## mutxiko *iz* euskal jauzi-dantza, gizonezkoena.

Hor emaiten dituzte hamabortz bat dantza mota, hala nola "**Mutxikoak**", "Euskaldunak", "Sorgin dantzak", "Makila dantza", [...]. jendeak euskaraz kantatzeko parada izan zuen, baita **mutxikoak** dantzatzekoa ere. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Arin-arinak, fandagoak, **mutxikoak** eta bestelako dantzek hartuko dute Berrizko plaza nagusia. **Berria - Kultura**

Larunbat aratsean, **mutxikoak** eta afaria. **Herria**

Ondotik, **Mutxiko** eta dantza jauziak gazte eta zahar nahas mahas. **Herria**

Suprefeturan bururatu dute manifestazioa, **mutxikoak** dantzaten eta garagarroak edaten. **Berria - Ekonomia**

Arrangoitze euskaltzale eta dantzazaleen bilgune izanen da igande honetan **Mutxikoaren** Egunaren mende laurdena ospatzeko. **Berria - Kultura**

## mutxitu, mutxi(tu), mutxitzen (*orobat mutzitu; Euskaltzaindiaren Hiztegian mutxitu agertzen da*) 1 da/du *ad ipar* lizundu.

Zakuan aspaldian **mutxitzen** eta zahartzen ari ziren *la pie qui chante* ononak eskaini zizkion. **Itxaro Borda**

Gasna metak, **mutzitu** baino lehen, saltzea helburu. **Itxaro Borda**

Han hemenka itaitzurak, gapirio batzu **mutzituak** edo irinduak, paretak tokika arrailduak... **Herria**

## 2 irud/hed

Bigarren plan sozialeko gertakari batek harrotu zuen Sebasen kasko zokoa: gaurkoan depresioak joa, kantonamenduko erietxe batean **mutxitzen** zen Roger zeukan ardatz. **Itxaro Borda**

Menturaz Espainia zolako edozein kartzelatan **mutxitzen** utziko zuten. **Itxaro Borda**

Arren, Agata zoaz: ez utzi anderea **mutxitzera** ! **Itxaro Borda**

## 3 (era bururuta izenondo gisa)

Biharamunean, guardak hautaketa egiten hasi aitzin, banatu zieten ura bai eta ogi **mutxitu** pixka bat ere. **Elena Touyarou**

Zango usaina duten gasna **mutzituak**. **Ramuntxo Etxeberri**

Somaliako portuetara mendebalde aberatsak kargoak mukuru betez igorri zituen irrisa **mutzituak**. **Itxaro Borda**

## mutxo ik **multzo**.

mutxokatze ik multzokatze.

## mutxurdin *(orobat mutzurdin g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren mutxurdin agertzen da)* 1 iz neskazaharra.

Hoinbeste **mutxurdin** eta donado izanki eta gure Herrian. **Piarres Aintziart**

Beltzez jantziriko familia ezberdinetako **mutxurdin** adinduen taldean zegoen, itsusi edo jainkoen zein etxeko zaharren artatzeko ezkongabe atxiki zitezkeen emazteen erdian. **Itxaro Borda**

Dena den, ikus zenbat **mutxurdin** eta karlos baden gure inguruan; aurten guziak ezkondu beharrak dira! **Herria**

Marie-Gabrielle **mutxurdina** zen, lehen errientsa izana eskola libroan, Andere Mariren denboran, kultura haundiko presuna. **Michel Oronoz**

Jadanik aski irri egiten zidaten ea ez ote naizenez **mutzurdin** geldituko... **Eneko Bidegain**

Germena alaba gehiena **mutxurdin** geratu zen. **Itxaro Borda**

### 2 (hitz elkartuetan)

**Mutxurdin** -bakartasun honetaz harritua baina harrotua halaber. **Itxaro Borda**

### 3 (izenondo gisa)

Horrelaxe jakin nuen epe batentzat irakaslegoa utzia zuela eta gehienetan Baionako izeba **mutxurdinaren** etxean bizi zela. Ez ezazu uste ni sasi-maistra zorrotz **mutxurdin** bat naizenik... ez dut horrelakorik pentsatzerik nahi. **Daniel Landart**

## mutxurdintegi iz mutxurdin etxea.

Bi gela ttikiko **mutxurdintegi** txar bat. **Eneko Bidegain**

mutzi ik mutxi.

mutzidura ik mutxidura.

mutzitu ik mutxitu.

mutzurdin ik mutxurdin.

## muxar *(orobat muxarra)* 1 iz bisiguaren familiako arraina, gorputz hertsatua eta albo zilarkarak dituena(*Diplodus sp.*).

-Galde iezaiozu Donibaneko emakume bati zer den **muxarra** eta zer den lupia, eta berehala esango dizu. **Joan Mari Irigoien**

**Muxarra** batzuk geneuzkan erretzen paratuak. **Koldo Izagirre**

Haziak, arrabak eta tripabarruak zopara bota ditzala **muxarrarekin** batera, eta zamoia saltsan jar dezala. **Jose Morales**

### 2 marmota.

Eta hain nengoen zure aitaz amorosturik, non egunak eta gauak **muxarraren** loaldiak baino luzeagoak egiten baitzitzaizkidan. **Joan Mari Irigoien**

Izan ere, **muxarrak** behin lo hartuz gero negu osoa pasatzen du lotan. **Pako Aristi**

muxarra ik muxar.

## muxarradura iz

Bi izur eginez josten dira, **muxarradura** zabalak dituzte goiko aldean... **Jose Morales**

## muxika 1 iz mertxika.

Muxikondo bat ere bazegoen, bi urtetan behin **muxika** asko ematen zituena. **Joan Mari Irigoien**

Muxikondo bat ere bazegoen, bi urtetan behin **muxika** asko ematen zituena. **Joan Mari Irigoien**

Zer asma egoten zen beti, eta baratzeiko horma ertzera agertzen zenean, udare eta **muxikak** hartu eta botako zizkien neskatxei. **Pako Aristi**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Edandakoa, jakina, ez zen Txemak lehentxeago amesturiko **muxika** -ur azukreztatu freskagarri hura. **Josetxo Azkona**

**Muxika** -hezurrezko larruazala, begi adi erneen arteko zimurra. **Anton Garikano**

Emiliok emakumearen **muxika** -hanketan baino ezin du pentsatu, gabardina kenduko dionean jantzirik ote daukan angorazko jertse grisa, ezagutu zuenean bezala. **Eider Rodriguez**

Neskaren azaleko zurbiltasun zilartsua ez zen arroz-hautsez estaliriko masailetakoa **muxika** -biloxkarena. **Anjel Lertxundi**

## muxikar izlag/iz Muxikakoa, Muxikari dagokiona; Muxikako biztanlea.

Baina argi daukat era berean Inama gure herriko enpresa dela eta **muxikar** asko enpresari esker bizi direla. **Berria - Euskal Herria**

Asier Urdanpilleta añogarra zen nagusitu, bigarren zelarik Alberto Zerain gasteiztarra eta hirugarren Gaizka Itza **muxikarra**. **Herria**

Enpresak ezinegon handia eragin du inguruan bizi diren **muxikarren** artean. **Berria - Euskal Herria**

## muxikondo iz mertxikondoa.

**Muxikondo** bat ere bazegoen, bi urtetan behin muxika asko ematen zituena. **Joan Mari Irigoien**



muxin ik **muzin**.

muxindu ik **muzindu**.

muxinka ik **muzinka**.

## **muxu 1** iz *adkor* musua.

Inolako pasiorik gabeko irribarre goxo bat eta bi **muxu**. Lourdes Oñederra  
Mikeli burutik pasatu zitzaion neska haren **muxu** bat miragarria izan zitekeela. Unai Iturriaga  
Ezpain hotzezko **muxuak**. Eider Rodriguez  
Pentsatu zuen aurpegian erortzen zitzaizkion elur-malutak amaren **muxuak** zirela, gabon esaten zionean. Julen Gabiria  
Bazihoazenean, denek bidali zioten **muxu** bat eskuarekin. Julen Gabiria  
**Muxu** bat bidaltzen ziola Lupe Latasak fax haren amaiera aldean. Hasier Etxeberria  
Alde egin zuenean ttantten distira ikusten zitzaion ilean, atetik **muxu** bat igorri zidan eta orduan lehenbiziko aldiz begiratu nion, eta gero, ospitaletik atera nintzenean, ezkereskuin begiratu nuen, baina ez zegoen inor nire esperoan. Fernando Rey  
Bukaerako **muxu** guztiak berdina dira, esaten du amak. Arantxa Iturbe  
Agur ta **muxu** bat. Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 (izenondoekin)

**Muxu** luze bat eman zion Karli, bere kontra estutu zen. Eider Rodriguez  
Hara nor etorri zaigun! -eta **muxu** bizkor bat eman dio masailean-. Iban Zaldua  
Oroitzen naiz, baina, **muxu** doi bat eman zenidala masailetan, ezagunen arteko adeitasunezko agurra, besterik gabe. Xabier Mendiguren Elizegi  
Zigorrek galtzaren gibel patrikan sartu dio eskua eta **muxu** miope bat eman aho nimitioan. Eider Rodriguez  
Makurtu zenean, **muxu** labur bat eman zion belarri ertzean. Unai Iturriaga

## 3 (hitz elkartuetan)

Eta orain zer?, zure bularrarekin urtuz, elkartasun fereka eta aitatasun **muxuak** ilean, malkoak agian, eta bere begi nabarrak nabarragoak. Eider Rodriguez  
Betileekin pinpilinpauza **muxuak** ematen dizkiot besapeak sortutako tolesturan. Eider Rodriguez

## 4 **muxu eman**

Edanda dagoela esango nuke **muxu eman** didanean. Eider Rodriguez  
**-Muxu ematen** badidazu, borroka egingo dut herensugearekin -esan zion. Bernardo Atxaga  
Eta berriz bere jarlekuan eseri orduko gainean du Txetxu, **muxu eman** eta besarkatu nahian. Xabier Mendiguren Elizegi  
Ramsay andreak lehenxeagoko bere jarrera zakarra goxatu, burua jaso eta **muxu eman** zion semeari kopetan. Anton Garikano  
Asaldatu egin da Mikelek ilean **muxu eman** dionean. Eider Rodriguez  
Bere burutapen eroenetan, **muxu ematen** zioten elkarri, eta muxuaren ondoren, arropa azpian galtzen zituen eskuak, eta bular bero gozoak estutzen zizkion. Berria - Kultura  
Zaldun batek zezakeela bakarrik madarikazio hori altxa herensugeari muturrean **muxu** emanez. Aurelia Arkotxa  
**Emadan muxu**, polittle! Alberto Barandiaren

## 5 **muxu-garbi** (*corpusean muxugarbi soilik*) izond

Gaszte ileargi, **muxugarbi** bat zen Kruz Lete, fina esaten zaien horietakoa, argal samarra iharra izan gabe, luxea eta altua lekukoek diotenez. Xabier Mendiguren Elizegi

## 6 **muxu-merke** izond erraz muxu ematen duena.

Edo ilan liteke betipox, **muxu**-merke eta hagitz besarkante eta beldurgarri afektiboa, uste hutsezko senidetasun edo gozotasun bat noiznahi antzeztera txit emana; edo [...].  
Iñaki Segurola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi muxu (3); bukaerako muxu guztiak (3); muxu bana (4); muxu bana eman (3); muxu bat eman (12); muxu eman (25); muxu eman zion (7); muxu ematen (5); muxu luze (4); muxu pare (3); muxu pare bat (3); muxuz muxu (3)

muxugarbi ik **muxu 5**.

muxugitarra ik **musu 13**.

## **muxugorri** izond *adkor* musugorria.

*Karabantel* jarri genion izena, eta azalean lau aingerutxo **muxugorri** musika jotzen, burdinesi lodi batzuen atzetik. Xabier Mendiguren Elizegi  
Nire giza irudian nonahi barreiaturik neuzkan pintzelkadak, koloreekin probak egiteko besteak beste; Oriolek sistematikoago ziharduen: Jainkoaren burua aurrea, aingeru **muxugorriak** gero. Xabier Mendiguren Elizegi

## **muxugorritu**, muxugorri(tu), muxugorritzen da/du *ad adkor* musugorritu.

**Muxu** gorrituta daude egunaren beroagatika, eta garren argitan beren aurpegian distira nabarmenagotzen da. Jokin Muñoz

## **muxuka** *adlag adkor* musuka.

-Gerora pentsatu izan dut **muxuka** jango nukeela. Arantxa Iturbe  
Ez da, ez, lekurik aproposena **muxuka** ibiltzeko. Hasier Etxeberria  
Sentimentalenak **muxuka** eta pattareroenak balantzaka hasi baino lehentxeago. Xabier Mendiguren Elizegi  
Emilioren autoan zeuden biak, **muxuka** edo besarkatuta argazki gehienetan. Mikel Hernandez Abaitua

# **musukatu**, musuka(tu), musukatzen du *ad adkor* musukatu.

Titiatik **musukatu** zizkion telepatiaz, titiburuak gogortu arte. **Unai Iturriaga**

## **muxutxo** *iz adkor* muxua.

Inoiz ez zuen esaten "muxu", "**muxutxo**" baizik. **Bernardo Atxaga**

## **muzin** (*orobat muxin g.er.*) **1** *iz* norbaitek, zerbait atsegin edo gogoko ez duela adierazteko, egiten duen keinua.

Alcide Joliveten **muzina**. **Karlos Zabala**

Ezpainen **muzina** irribarre bortxatu bilakatu zitzaion. **Lopez de Arana**

Eta Raúl Martínezek **muzin** harrigarri batez begiratu zidan, nire hizkera gaitzetsi nahi balu bezala. **Txillardegi**

Dezepziozko **muzin** teatrala egin zuen. **Anjel Lertxundi**

Andre Leonarda, erdeinuzko **muzin** bat eginez, gaueko egunkaria hartu eta irakurtzen hasi zen. **Josu Zabaleta**

Gaur egun garbi ikusten dut **muzin** haiek tentelak zirela, eta baita gezurrezkoak ere, sarritan. **Karlos Zabala**

Andresak **muzinez** biratzen zuen burua, aitaren zinismo-erakuskeria haiek barregarriak eta lekuz kanpokoak iruditzen zitzaizkiola aditzera emanaz. **Josu Zabaleta**

-Ba! -esan zuten higuinezko **muzinez** -. **Jon Muñoz**

### **2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Muzin** keinu bat egin baitzuen Bixentak hitzok esatean. **Txillardegi**

Neskaren ahotsean **muzin** punttu bat antzematen nuela iruditu zitzaidan. **Alberto Ladron Arana**

### **3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Hauek dira eztabaida ergelak! -esaten zuen Margaritak mespretxu- **muzin** batez, bere anaia Andresi hitz eginez-. **Josu Zabaleta**

-Egia bai noski -Basokoak berriz- baldin eta buruko adi argia nahastuko ez baligute **muzin** -zaputzek; izan ere, asko direnean, bengantza dirudite. **Patxi Ezkiaga**

Aurpegiaren bertan ere arbuio **muzin** bat agertu bide zait. **Txillardegi**

Harridura **muzin** bat sumatu dut Garaziren aurpegiaren. **Txillardegi**

Bere nazka- **muzina** nekez disimulatzen. **Txillardegi**

-Zozo hori! -esan dit Garazik, higuin **muzin** bat eginez-. **Txillardegi**

lxaskunek gaitzespen **muzina** egin du. **Txillardegi**

### **4** (izenondo gisa)

Eskuarki ez dut jaidurarik neure buruaren errukizko aldiatarako, baina hurrengo ordubetean-edo neure buruaren errukiari eman nintzaion osoki, nerabe **muzin** baten gisara.

**Oskar Arana**

### **5** (adizlagun gisa)

**Muzin** agertu da bat-batean. **Txillardegi**

Eta **muzin** jarrita ere, baketan utzi ninduten alde horretatik. **Txillardegi**

-**Muzin** samar zaude gaur, Brent andrea. **Xabier Olarra**

### **6 muzin egin**

Emakume bati **muzin egiteko** ere badira arauak, muturtzeko eskubidea baitu araei segika ez eginez gero. **Karlos Zabala**

Guretzat, militar bizitza zen aukerarik ederrena; armadari **muzin egitea**, berriz, barkaezina. -Egia esateko, ez diot ezeri **muzin egiten**, salbuespen bat edo beste salbu -egia esan zion Maizak, abokatuak bere ibileren berri jakingo zuelakoan-. **Anjel Lertxundi**

Beti **egiten** zion **muzin** eskariari esanez ez zuela bere burua ikusten halako erantzukizun handietarako. **Bego Montorio**

Handik egun gutxitara argaltzen hasi zen, titiari **muzin egiten**, eta orduan emaginak sugandila buztanezko infusioa emateko agindu zuen, sorginkerien kontrako konjuru eraginkorra baitzen. **Bego Montorio**

Emazteen gaineko aginpide mugagabeak, eskualde batzuetan dagoen modukoak, nazioari eta legeen gozotasunari **muzin egingo** lieke. **Andres Urrutia**

Bi aldiz **egin** baitaiteke uko edo **muzin**, baina ez hiru, zeren hirugarrenean, oilarrek kukurruku jotzen ez badu ere, inork mendeku basatiak jasan baititzake. **Jon Alonso**

Gauza serioei barre eta barregarri-ustekoei **muzin egiten** diena. **Iñaki Segurola**

### **7** (egin ezabaturik)

Pathamdarrei, aldiz, **muzin**. **Gotzon Garate**

#### **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

aginduari **muzin** (8); aginduari **muzin egin** (4); aginduari **muzin eginez** (3); aginduei **muzin** (7); aukerari **muzin** (9); aukerari **muzin egin** (6); borondateari **muzin** (3); erantzukizunei **muzin** (5); eskaerari **muzin** (4); eskaerei **muzin** (7); eskaerei **muzin egin** (3); eskaintzari **muzin** (7); eskaintzari **muzin egin** (4); eskubideari **muzin** (3); ezeri **muzin egin** (3); izateari **muzin** (4); laguntzari **muzin** (4); legeari **muzin** (6); legeari **muzin egitea** (3); **muzin bat** (5)

**muzin egin** (268); **muzin egin dio** (24); **muzin egin izan** (4); **muzin egin izana** (5); **muzin egin zion** (25); **muzin eginez** (3); **muzin eginda** (12); **muzin eginez** (53); **muzin egingo** (30); **muzin eginek** (10); **muzin egitea** (41); **muzin egitea erabaki** (3); **muzin egitea leporatu** (8); **muzin egiteagatik** (3); **muzin egiteko** (20); **muzin egiten** (102)

nahiarri **muzin** (3)

**muzina egin** (3)

## **muzinarazi**, muzinaraz, muzinarazten du *ad muzintzera* behartu.

Horiek besteek baino gehixeago **muzinarazten** gaituzte, eta ez, hain zuzen ere, inoizkakoak izateagatik. **Xabier Olarra**

## **muzindu**, muzin(du), muzintzen (*orobat muxindu g.er.*) **1** *da ad* bekozko iluna jarri, haserretu. ik **muturtu**; **zapuztu**.

Beraz, **muzindu** ez zedin, barre egin nuen, baina algararik gabe. **Ramon Saizarbitoria**

Logelari sartu eta **muzindu** egin zen, Lisak kandela piztua utzi zuela ikustean. **Karlos Zabala**

Gehiegi hurbildu baitzen katutxo jaino berrien ume-aldarra, katu-amak, **muzindu**, puzka hasi, eta behatzetatik burugaineraino latz-harrotu zituen ileak. **Juan Garzia**

### **• 2 du ad**

Neskaren abaidura arindu ordez, Andreason ateraldiaren zabarrak **muzindu** egin zuen Nora. **Anjel Lertxundi**

Zer gertatzen den ez jakitea litzateke gehien **muzinduko** ninduen. **Jon Muñoz**

Eskatzen dizudan horrek doi bat **muzintzen** bazaitu ere, ez ote didazu horrenbertze zor zure alde egin ditudan ahaleginen ordainetan? **Jon Muñoz**

Bikotea bereizirik zegoenean, distantziak **muzinduta**, Edithek gutun bihotz-xigorgarriak bidaltzen zizkion Freddyri. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

### **3** (era burutua izenondo gisa)

Hala ere, bazter batean, harresietako txoko batean, ba omen dira persiarrek idatzitako bertso batzuk, edertasun **muzindua**ren oroigarri. **J.M. Olaiola "Txiliku"**

Hori erran behar diek? -Hanse burua astindu zuen, ezezko **muzindu** batean-. **Alberto Ladron Arana**

Putetxean eta putetxe baten pare jarritako etxe-zuloko giro **muzinduan** **Iñaki Seguro**la

---

## **muzinka** (orobat **muxinka**) 1 adlag muzin eginez.

Neure bakardadearekin gozoro ezkontzen ninduenak neure bakardadearekin muturbeltzurik jarri nau itsuski, ezinka eta **muzinka**, ez norterik eta ez konorterik dudala kasik.

**Iñaki Seguro**la

Txakurrak obeditu eta harri baten ondoan gelditu zen, **muxinka**. **Joanes Urkixo**

## **2 negar-muzinka**

-Harry! -esan zion Hermionek negar- **muzinka** -. **Iñaki Mendiguren**

Dudley negar- **muzinka** zihoa atzeko eserlekuan; aitak kaskarreko bat emana zion, telebista, bideoa eta ordenagailua kiroletako poltsan sartzen ahalegindu eta denak zain eduki zituelako. **Iñaki Mendiguren**

Ez dut negar- **muxinka** aritu nahi, baina oi, ene lagun, oi mutil, horrenbeste maite nauzula jakiteak barru-barruan hunkitzen nau. **Oskar Arana**

---

## **muzinkor** izond muzintzeko joera duena.

Nini apartetxoan zegoen, bere irribarre **muzinkor** briztariarekin. **Josu Zabaleta**

---

muzkada ik **muskada**.

---

muztatxa ik **mustatxa**.

---

muztaxa ik **mustatxa**.

---

muztaxadun ik **mustatxdun**.

---

## **muztio** (orobat **mustio**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **muztio** agertzen da) 1 iz irakin ez duen mahats zukua.

**Muztioa** erortzen den harraskak erakutsi zizkieten -ontzietan biltzeko erabiltzen direnak-, eta bodega modernoa, bi urteko ardoak jasotzeko adinakoa, bere zurezko upel eta konoekin. **Josu Zabaleta**

Mahatsa biltzen eta **muztioa** egiteko zapaltzen laguntzen zien nekazariei. **Askoren artean**

-Kafea eta izotzik gabeko **muztioa**. **Aitor Arana**

Karmelek vermoutha, berak **muztioa**. **Joan Mari Irigoien**

## **2** (hitz elkartuetan)

Sagardo **mustioa** egin bear danean, etzaio urik botatzen. **Patziku Perurena**

---